# Egungo Euskararen Hiztegia

## —D—

[bertsioa: 2024-01-09]

---

**dabantale** *iz ipar* mantala.

Irri egin zuen, Marikak aspaldiko etxekandereen laneko nilonezko **dabantale** koloretsua itxuratuz: zerrailu meharraz hersten zen goitik beheiti zen eta horiz azpatu lore arrosa xumeak urdinezko gibeldian irekitzen zitzaizkion. Itxaro Borda

---

**daborduko** *adlag* dagoeneko.

-Hasiak gara **daborduko** lan horretan. Josu Landa

Gizartea sortu edo eratu, **daborduko** badakigu, eliteek dagite. Joxe Azurmendi

-Pozten naiz, **daborduko** abisatua egongo dela pentsatzen dut eta. Josu Landa

---

**dadaismo** *iz* arte eta literatura-higikundea, 1916an sortua, irrazionaltasunean, kongruentziarik ezean eta tradizio estetikoaren arbuioan oinarritzen dena.

**Dadaismo** arte mugimendua sortu zen urte horietan eta eragin handiko lanak utzi zituen mugimendu honek. Pello Salaburu

**Dadaismoa** keinu bat da; inoiz ez zuen gorputzik izan. Berria - Kultura

**Dadaismoa**, orain, lagunak urrun eta bakarrik daudela eta zoritxarrekoak direla ikustean, lagunik ez dudala esatean egiten dizudan keinua da, adibidez. Berria - Kultura

Irakurlea nekatzeko inolako asmorik gabe: kubismoa, **dadaismoa**, ez-figuratiboak, futuristak, onirikoak, suprematismoa, metafisikoak, surrealistak, neo-figurazioa, espresionismo abstraktua... Anjel Lertxundi

Gero, norbaitek formulazio berriren bat egiten duenean, beste batzuek izena jartzen diote: "begira, hori **dadaismoa** da, beste hori surrealismoa...". Ana Urkiza

Surrealismoaren, **dadaismoaren** eta abarren oso zale den arren, komunikazioa lortzeari garrantzi handia ematen dio Elorriagak. Berria - Kultura

Ospe handiko beste zenbait idazle azaltzen da testu egileen artean, Tristan Tzara kasu, **dadaismoaren** buru nagusia izan zen hura. Berria - Kultura

---

**dado** **1** *iz* zorizko jokoetan erabiltzen den kubo formako pieza txikia.

Bigarren solairuan kasinoa, eta han erruleta-mahaiak eta bigungarriz bildutako **dadoak** feltro berdearen gainean punpaka, eta bakarako karta-emailea atzerritar azentu gozoegian xuxurlaka. Oskar Arana

**Dadoak** godaletean sartu, berriro botatzeko. Xabier Olarra

Slatsek **dadoak** bota zituen erpurua beste atzamar izerditsuen kontra klaskatuz. Lopez de Arana

Peoi batzuekin **dadoetan** ari zen Migel gazteluko patioan. Aingeru Epaltza

"Jainkoa ez dabil **dadoetan** munduarekin" esan zuen Einsteinek. Iñaki Segurola

Tarteka, **dadoetan** jokatzen dute. Edorta Jimenez

Apiril arte onena hantxe lehorrean egotea dela, horditzea, alkandora jokatzea **dadoetara**. Juan Garzia

Bortz zaldun handinahi haiek, **dadoen** jokoan jo eta ke. Joan Mari Irigoien

Sei aurpegiko **dado** batekin egindako 6 milioi jokalditan. Joxe Austin Arrieta

Handik aurrera, gizarteak eskatutako koherentzia hutsaren hurrengoa izango da berarentzat eta itsu-itsuan beteko ditu **dadoek** esandakoa. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire abokatuak, **dado**-poto bat harturik, airean astindu, eta dado bat bota du mahai gainera. Anjel Lertxundi

**Dado** kolpeak ez du halabeharra ezereztuko. Joseba Zulaika

Morroiek **dado** partidua utzi zuten, eta Xan aulkitik altxatu zen, kokotsa ferekatuz, iduriz zainetan. Elena Touyarou

Geldialdian, zaldiak aldatzen ari ziren bitartean, **dado**-jokaldi batean sartu zuen Mérék Pascal. Jon Muñoz

Estalki mehe batek, putzada leun batek, **dado**-tiraldi isil batek, ez ote gaituen lerrarazi gureak ez ziren bide dibergente bitara. Juan Garzia

**3** ***dado-joko***

**Dado-jokoaren** gorabeherak zirela kausa. Joan Mari Irigoien

Karta- eta **dado-jokoak** debekaturik zeuden. Juan Garzia

Ontziko marinelak **dado-jokoan** hasi dira barrika irauli baten ipurdi gainean. Anjel Lertxundi

Putak eta eskaleak erresumatik haizatzeko eta **dado-jokoa** galarazteko manuak gazteluko gizonen kolera ere piztu zuen. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dado bat** (3); **dadoa gidari** (3); **dadoetan ari** (3); **eta dado** (3)

---

**dadoalde** *iz* dado aurpegia.

Karratua eta asentu ederrekoa ikusten zen etxea hondartzatik begiratuta, eta dadoaren itxura areagotzen zuten itsasaldeko leiho txiki haiek, **dadoalde** bateko puntuak baitziruditen. Anjel Lertxundi

---

**dadolari** *iz* dadoetan jokatzen duen pertsona.

Ezkon-zinak bilakarazten **dadolarien** juramentuak bezain faltsu Juan Garzia

---

**dadotxo** **1** *iz adkor* dadoa.

-Aurrera **dadotxoak**, zuen zain gaudek... Lopez de Arana

**2** irud/hed

Ura gordetzen den kutxaren barruan, *pnigeus* izeneko airez betetako kanpaia jartzen da, alderantzikatutako inbutu baten gisan, eta horren azpian **dadotxo** batzuk egongo dira, altueran hiru hatz ingurukoak eta kanpaiaren ertzen eta kutxaren hondoaren arteko tartea nibelatzen dutenak. Santiago Iruretagoiena

---

## dadotzar *iz adkor* dado handia.

Mendiaren eta itsasoaren jabegoak erabaki nahi, eta halabeharrak zerutik jaurtikitako harriz-ko **dadotzar** bat zirudien jauregiak. Anjel Lertxundi

---

## dafaila *iz ipar* mahai zapia, zamaua.

Ikusi dugu nola ezartzen diren mahaiak, lisa-burdina eskuetan **dafailen** behar den bezala jartzeko plegurik gabe. Herria

Hari urdin ilunez eta puntu gurutzatuz brodatu zuen **dafaila** handi bat hautatu zuen. Elena Touyarou

Lihozko **dafailaz** estalia eta [...] urteetan erabili gabe egon ziren okasio handietako baxera finez hornitua zen mahai luzearen buru zen. Elena Touyarou

Parropiako sala handia paper zurizko **dafailez** beztituak ziren mahai luzez betea zuten. Aurelia Arkotxa

Ez zuen kutxa batean altxaturik zeuzkan espos egunerako berak ehun zituen mihise eta **dafailez** beste balio handiko gauzarik. Elena Touyarou

---

## dafailadun *izond* dafailaz hornitua.

Eta mahai **dafailaduna**! Koldo Izagirre

---

## dagerrotipo *iz* antzinako argazki aparatua, irudiak metalezko xafla batean finkatzen direna.

Michelangeloren freskoak, ordea, Kapera Sixtinaren horma oso bat hartzen du; Leonardoren koadroak metro bete inguru du; **dagerrotipo** batek hamar zentimetrorik ez du izaten. Josu Zabaleta

Margolariek **dagerrotipoaren** aurkikuntzaren aurrean izan zituzten erreakzioek [...] argi erakusten dute segituan ikusi zutela aurkikuntza hartatik konkurrentzia arriskutsua zetorkiela ordu arte beren alorra izan zuten imitazioaren eremuan. Josu Zabaleta

**2** aparatu horrekin eginiko argazkia.

Espresiorik gabeko gizon bizardun baten **dagerrotipoa**. Juan Garzia

**Dagerrotipoen** sasoikoa ematen du agure zahar horrek. Joseba Sarrionandia

---

## dagestandar *izlag/iz* Dagestangoa, Dagestani dagokiona; Dagestango herritarra.

Kontuan izan behar da bahitzaileak ez direla soilik ingushak; badira ere txetxeniarrak, **dagestandarrak**, kabardak eta balkarrak, osetiarrak... Berria - Mundua

Ez dut Dagestango egoera oso ondo ezagutzen, nahiz eta jakin zenbait **dagestandar** Errusiaren kontra borrokan dabiltzala. Berria - Mundua

---

## dagoeneko *(4002 agerraldi, 227 liburu eta 1723 artikulutan; ETCn 43.895 agerraldi)* **1** *adlag* hitz egiten den mementurako. ik **jadanik; honezkero; ordurako; gaurgero**. (aditza orainaldian)

**-Dagoeneko** ez da atzo; bihar ez da heldu. Imanol Zurutuza

Hirurak dira **dagoeneko**. Bernardo Atxaga

**Dagoeneko** asko aurreratu dugu. Antton Olano

- **Dagoeneko** denda itxi duzu? Patxi Zubizarreta

**Dagoeneko** ekin diot beste bati, Miss Prism. Antton Olano

**Dagoeneko** jakina denez, Biarritzeko ikastaroak uztailaren 2etik 6ra bitartean egingo dira eta Iruñeakoak 16-27 bitartean. Herria

**"Dagoeneko** gogor erasan diola zirudik", egin zuen bere artean. Iñaki Iñurrieta

Baina **dagoeneko** jarri ez badiote, malo; edo bueno, Rokeri hala gustatzen bazaio. Pako Aristi

Etxeko gazteena Kaxilda zen, **dagoeneko** esan ez badut. Txillardegi

Ene maiteok, **dagoeneko** Jainkoaren seme-alaba gara, baina oraindik ez da agertu izango garena. Jon Muñoz

Gainera, ez dira umeak **dagoeneko**. Elizen arteko biblia

Horra hor Frantzisko **dagoeneko** biluzik, etsai biluziarekin borrokatzeko prest. Askoren artean

Ezkonduta dago **dagoeneko**! Oskar Arana

Ez al da **dagoeneko** beranduegi klima aldaketa gelditzeko? Berria - Harian

Esan beharreko gehienak **dagoeneko** esanda daudela uste dut, izan ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohartu gabe kasik, baina **dagoeneko** 4 garren Sagarno Eguna ospatzera goaz Hendaian. Herria

Zazpi egun **dagoeneko**. Juan Garzia

Zure ama hil zen, eta ez dut nire burua osabatzat ikusten **dagoeneko**. Oskar Arana

- **Dagoeneko** jan dut -esan zion Harryk-. Iñaki Mendiguren

**Dagoeneko** ontsa konprenitu dut nire erantzuna hari emateko hark zer nahi zuen nik egitea. Jon Muñoz

Baina, **dagoeneko** amaitu al da zuen artekoa? Oskar Arana

Aita konturatuta dago **dagoeneko** ez naizela lehengo betikoa, baina ezin diot ezer kontatu. Josu Zabaleta

Ez dio axola, **dagoeneko**. Mirentxu Larrañaga

Berorrek hotela salduko digu guk **dagoeneko** erabakita daukagun prezioan. Bernardo Atxaga

Deabruen eskuetan ote nago **dagoeneko**? Koro Navarro

Jaiki, anaia, eta esan Frantzisko anaiari, bete direla **dagoeneko** hemezortzi urte, munduari uko egin eta Kristori itsatsi zitzaionetik. Askoren artean

Berak jarriarazia du **dagoeneko** hesia, eta zatiketa egiteko falta den hesorma ipintzeko eskatzen digu guri orain. Juan Garzia

Zeren gertakarion jabe izan ziren gizaldi haiek **dagoeneko** irentsiak baititu iragan itzulgaitzak. Xabier Amuriza

Filologiari dagokionez, gauza bat guztiz erabakia dugu **dagoeneko**: linguistikaz arras bestelakoa da filologia, bi zientzien arteko ukipenguneak eta elkarri egiten dizkioten zerbitzuak gorabehera. Isabel Arrigain

Zure zaldiak, zure jendea alde egina da **dagoeneko**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Dagoeneko** elkarrizketatua nauzu besteekin, ez dakit esan dizuten. Migel Angel Mintegi

Pura antzokitik irtena izango da **dagoeneko**. Josu Zabaleta

Norbait bahitzen duenak, nahiz **dagoeneko** saldua izan, nahiz oraino berekin izan, heriotza-zigorra izango du. Elizen arteko biblia

Haren hutsunea sumatzen dut **dagoeneko**. Mirentxu Larrañaga
Mundu **dagoeneko** urrun hartan eginiko ezaguerez. Juan Garzia
Orain, erretiratua **dagoeneko**, gorputzeko zauriei begira zaude. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** (aditza lehenaldian) ik **ordurako**.

**Dagoeneko** ez zuen hartarako adinik. Jon Muñoz
**Dagoeneko** hainbat bider miatu genituen bazterrak arakatzen ari ginen ostera. Mirentxu Larrañaga
Jonkien babesleku izandako komun apurtuak, **dagoeneko** geratzen ziren jonki apurrek ere leku erosoagoen mesedetan abandonatuak. Harkaitz Cano
**Dagoeneko** ez zidaten askorik axola auzokoen esamesa eta begirada zelatariek. Joxean Agirre
**Dagoeneko** zaharra zen lekaime batek ezagutu zuen. Josu Zabaleta
**Dagoeneko**, ez zegoen atzera egiterik. Joxe Austin Arrieta
Haren ondoan nintzen **dagoeneko**, eta heldurik neuzkan haren esku, keinu guztiz hunkigarri batez bilduak. Jon Muñoz
Haren zakilak tinkotasun nabarmena zuen **dagoeneko**. Juan Martin Elexpuru
Sukaldea **dagoeneko** itxia zegoela, baina, nahi izanez gero, ogitarteko bana urdaiazpiko gordinik ateratzen ahal zigutela. Aingeru Epaltza
Nahiz hilabete batzuk lehenago Kruschovek Stalinen erailketak eta sarraskiak salatuak zituen **dagoeneko** XX. Pello Salaburu
Ekainaren 12an, ostiralean, goizeko seietarako esnatuta nengoen **dagoeneko**, eta ulertzekoa da, urtebetetzea nuen-eta. Josu Zabaleta

---

# dagonil *(orobat **daguenil** g.er.)* *iz* abuztua.

Esaera zaharretan ere sartu izan da, batzuetan Abuztuaz esaten dena **Dagonillari** ere erantsi zaiolarik: **Dagonilleko** euria, ardoa eta eztia. Pello Zabala

---

daguenil ik **dagonil**.

---

# dailatu, daila, dailatzen da/du *ad* zizelkatu.

So egon naiz ere Santutegiaren aitzinaldeko hamahiru pertsona zizelkatuei Birjina eta apostoluak sei metro gorako eta zazpi ehun kiloko pertsonaiak, brontzean **dailatuak**. Piarres Aintziart

---

# dailu *iz ipar* sega.

Ba asuna aski badugu gure etxalde inguruetan eta **dailua** erabili nahi duen jende gutxi! Itxaro Borda
Artoz landatu etxe hartako bost hektareak, alta ez ziren transgenikoak, **dailuz** moztu zituen. Itxaro Borda
Aurtengo berezitasuna: hegoaldetik jinik, **dailuz** edo segaz belar mozleak ikusiko direla. Herria
Zenbait jende plazara agertu ziren aitzur, igitai, **dailu** eta sardeak ekarriz erasoari buru egiteko asmoz. Elena Touyarou
Itxuraz naturalak ez ziren izakiak parez pare epaitzen zituena herioaren **dailuak**? Itxaro Borda

---

# dailudun *izond ipar* dailua daramana.

Xuriz jantzi Herio **dailuduna** hartu dut bide lagun, ez goibeltasunez, baizik eta ni bizi naizelakotz. Piarres Aintziart

---

# dainu *iz* kaltea.

Azkeneko honek gure herriskotan ohikoa zen ahuntzaina ekarri dit gogora; izan ere, beldurrik handiena, ahuntzek inoren azak hondatzekoa izaten baitzuen; eta halakorik gertatuz gero, bere poltsetik pagatu behar **dainuak**, eguneko jornal pizarra galduz. Patziku Perurena
Arantzari berari, ziztakor eta **dainu** gaiztatu nekosoen sorle denez, elorria deitu izan zaio. Pello Zabala

---

# dakientxo *iz* dakien gauza apurra.

**Dakientxoarekin** eta irudika zezakeenarekin, kizkurrak atera dizkio garai hartako Espainian bizi zen euforia militarraren kontakizunari. Anjel Lertxundi
Ia ezertaz jakin ez, eta **dakientxo** horretaz ia dena dakiena omen da zientzialaria. Joxerra Garzia

---

# daktilografa *iz* emakume daktilografoa.

Hirugarren aldiz burua urperatu behar ziotenean hala esan omen zion **daktilografa** alemanak atxilotuari: [...]. Jokin Urain

---

# daktilografia *iz* makinaz idazteko teknika. ik **mekanografia**.

Egunerokoenak zaizkigun hitzak ere geure pentsamenduen hatz-zantzuen moduko zera batzuk dira askotan, eta gure eguneroko hitzen **daktilografiari** begiratzea ez da langintza txarra etekin onak ateratzeko jakin-minari. Anjel Lertxundi
**Daktilografiako** eskuliburu batean. Xabier Arregi

---

# daktilografo *(ETCn **20** agerraldi)* **1** *iz* ogibidez testuak makinaz idazten dituen pertsona. ik **mekanografo**.

Angiola Jolanda Coppa, **daktilografoa** garai hartan Einaudi argitaletxean. Fernando Rey

**2** (gutxiesgarria)

Kaleratu berriari ongietorria egin ziotenean, hantxe agertu ziren EAJko eta Jauriaeneko **daktilografo** horiek euren antzezle dohainak jendaurrean erakustera. Jokin Urain
"Torturak?" esango dute **daktilografoek**; "epaileek erabaki beharko dute", "ez da demostratu torturatu dituztenik". Jokin Urain

**3** (izenondo gisa)

Gutxi ziren: bera, argitaratzailea, biltegizain bat eta emakume **daktilografo** bat, Coppa andereñoa zeritzana. Fernando Rey
Orgia bizi bat hasten zen bertan, denak harrapatzen zituena, lumagabeko emagazte **daktilografoak** zein ilegabeturiko gizaseme kontulari, orduko zuzendaritik hasi eta behe-beheko postuetaraino, atezainak barne, elbarri zibilak baitziren. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan)

Hemeretzi urterekin, ordurako **daktilografo**-postuan, meatzari gazte kaskagorri mirrin batez maitemindu zen. Juan Garzia

---

## **daktilologia** *iz* hatzekin eta eskuekin, edo esku alfabetoaren bitartez, mintzatzeko teknika.

Izen berezi bat, marka konkretu bat edota berria den zerbait adierazteko erabiltzen da **daktilologia**. Berria - Euskal Herria

Keinuen hizkuntzan ez da **daktilologiako** adierazpiderik erabiltzen. Berria - Euskal Herria

Gorrek sarritan **daktilologia** erabiltzen dute. Berria - Euskal Herria

---

## **daktilologiko** *izond* daktilologiarena, daktilologiari dagokiona.

Sistema **daktilologikoan** ez dago aurpegiko espresiorik, eta azken buruan horixe da pertsonaren barne egoera adierazten duena. Berria - Euskal Herria

---

## **Dalai Lama** *iz* Tibeteko budismoaren buruzagi espirituala.

Hirurogeigarren hamarkadan sartu aitzinean, 1959an, **Dalai** Lamak alde egin behar izan zuen txinatarrek hartutako Tibetetik, han ere istilu handiak sortu ondoren. Pello Salaburu

Funtsezkoa izan zen Führerraren aldetik askatasun promesa bat jasotzea **Dalai Lamak** amore emateko. Alberto Ladron Arana

Tibeteko buruzagi espiritual **Dalai Lamak** Bakerako Nobel sariduna da ez duela bere herrialdearen independentzia aldarrikatzen esan du. Berria - Mundua

**Dalai-Lama**, Tibeteko budizten buruzagia bisitaz dabila Parisen, gobernuko buruzagi zenbaitek ere komitaturik baina ez haatik buruzagi lehenak. Herria

---

## **daldar** *adlag* dardaraz, daldaran.

Medaila-sailak papoan **daldar** zeramazkiten adineko soldadu-ohi batzuek banderak inarrosten zituzketen eta jendarmeak mutikoak [...] bagoietara bulkatzen saiatzen ziren. Itxaro Borda

---

## **daldara** *(40 agerraldi, 11 liburu eta 5 artikulutan; ETCn 151 agerraldi)* **1** *iz* dardara. ik **dardara**.

**Daldara** itsuak inarrosi zion gorputz osoa eta arima erdiz erdi urratu. Itxaro Borda

Zer du **daldara** zozo hori? Itxaro Borda

Ageri da bestalde lagun horiek ez dutela bihotzeko **daldara** minberarik sekula sufritzen! Itxaro Borda

Eusebiok **daldara** batean atera zituen hiru hitz labur horiek, apal apala. Eneko Bidegain

**2** (hitz elkartuetan)

Lurra jauzika hasten da, jauzi ttipi, labur eta apaletan, sukar **daldara** bat. Michel Oronoz

**3** ***daldaran*** *adlag ipar* dardaraz.

Eta haren eskuak **daldaran** ari... Bi emazteek hotzez **daldaran** zegoen apeza biluzi zuten, eta xukatu. Janbattitt Dirassar

Hotzak atxiki gintuen gau batez atzarririk, mendilepo baten gainean, gure zakuen barnean **daldaran**, haizearen eztitzeko harri lauzak landatuak genituela. Piarres Aintziart

Oila-larruarekin osoki gogorturik, gorputza denbora guzian **daldaran**. Eneko Bidegain

Neguko izotzetan **daldaran**. Herria

Begitarte iluna, boza erdi **daldaran**, Jarrai-Haika auzian azken lau urte hauetan [...] preso dauden kideen bidea hartzera zihoazela erakusten zuten. Berria - Euskal Herria

**4** ***daldaraz*** *adlag* daldaran, dardaraz.

Gorputza **daldaraz**, ene biziaren arriskuan burua doi-doia altxatu nian... Daniel Landart

**5** ***ardi daldara*** ardien gaitz baten izena.

Zientifikoki frogatzen ahal da orai erresistentzia sar-arazten den ber ardi tropetan, ardi **daldara** ez dela hedatzen axurier. Herria

Ardi **daldararen** kozatzea gelditzen dela ardiaren "ondokoan" (placenta), eritarzünaren herexa desagertzen beita. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gorputza daldaran (3)

---

## **daldaraka** *adlag* daldaran.

Mintzagailua hartu nuenean **daldaraka** ari nintzen, hosto bat bezala. Fernando Rey

Pentsamenduaren latzaz eta musikaren indar zaplastatzaileaz zainak **daldaraka** susmatzen nituen. Itxaro Borda

Ezpainak **daldaraka** mugitzen zituen. Itxaro Borda

Oraiko artzainek ez naute beldurtzen, lehenagokoek aldiz **daldaraka** atxikitzen gintuzten, batez ere misione garaietan. Itxaro Borda

---

## **daldaraldi** *iz* astinaldia.

Neska hark **daldaraldi** ona merezi zuen eta bazekien Bozek Txokorengan konta zezakeela horretarako. Itxaro Borda

---

## **daldararazi**, daldaraz, daldarazten *(orobat **daldara arazi** g.er.)* du *ad* dardararazi.

Barda arratsean kanpoan nintzen, hegoak egunaren barnean elurrak sakonegi ferekaturik, hotz buhatzen zuela, ene gorputzeko hezur sukartsu guztiak **daldararaziz**. Itxaro Borda

Jendetza erraldoiaren minean Mai eta biok besarkatu ginen, elkarren gorputzak tinkatuz, erroitz, holtz, harkaitz, zernaitz eta ordoki bakoitza **daldara araziz**. Itxaro Borda

---

## **daldaratsu** *izond* dardaratsua.

Belarrietan ene populuaren bihotza hautematen nuen kolpeka, joka, aska nahian, bihotz **daldaratsua**, intzirikaria, beti sofritzen zuena. Itxaro Borda

## dalefuerte *iz adkor* zartada.

Bestetan, batez ere bere adineko auzokoren baten ezkontegunean eta, sutan jarri, garrotean gelaraino joan eta egundoko **dalefuerteak** emanez astintzen zuen iruditxoa. Pako Aristi

Ea zertarako ekarri zuen galdetu nion, eta txoriei **dalefuerte** batzuk emateko ekarri zuela esan zidan. Irene Aldasoro

## dalia *iz* lore ederreko landarea, apaingarri gisa oso aintzat hartua; delako landarearen lorea*(Dahlia variabilis)*.

**Dalien** artean zabaltzen zuten amapolek beren hazia. Anton Garikano

Arrosak, bioletak, **daliak** eta bitxiloreak zituzten salgai, sortaka bildurik. Karlos Zabala

Kristalezko lorontzi urdinean **daliak** zeuden. Xabier Olarra

Goizean goiz, lorategira irten nintzen hiru loreontzi betetzeko adina **dalia** biltzera. Ander Irizar

Saski baten ondoan, kandela piztu batek kolorezko kanta zoli bat hedatzen zuen inguru beltz hartan, bitxiloreen orban zuri biziak, **dalien** gorri odolkara, bioleten urdintasuna, arrosen mami bizidunak agerira azalduz. Karlos Zabala

Azkenean eztei-bidaiatik etxera itzultzean **dalia** gorrien antzeko landareek etxea estaltzen zuten, lore betean eta kulunkari. Ibon Uribarri

## daliar *izond* S. Dali margolariarena, Daliri dagokiona.

Aurrerago, beste aditu batzuek artistak jaso zituen eraginez, Bartzelonako toki **daliarrez** eta zinemagile eta idazle moduan egindako lanez jardungo dira. Berria - Kultura

## dalmaziar *izlag/iz* Dalmaziakoa, Dalmaziari dagokiona; Dalmaziako herritarra.

Ez da zaldi bat: zakur **dalmaziar** bat da. Harkaitz Cano

Bere txakur arrea hain bitxia iruditzen zitzaion, ezen pentsatu ere pentsatu baitzuen **dalmaziar** bat ekartzea. Xabier Olarra

## dalomismo *iz adkor*

Errepara zaitezte egungo merkatu guzian: ekologismoa, denbora librismoa, feminismoa, larreturismoa, bordaberrismoa, alardismoa, lizarrismoa, nudismoa, intsumismoa, demokratismoa, euskalerrismoa, **dalomismoa** edo beste zernahismo, onbide osasungarriak omen ditugu denak. Patziku Perurena

## daltoniko *izond/iz* daltonismoak joa.

Koloreen pertzepzioa erretinako hiru kono mota desberdinen jarduerak erabakitzen du; kono mota horietako bakoitza uhin-luzera desberdin baterako da sentibera (**daltoniko** ez den pertsona normal batentzat 0,440 μ, 0,535 μ et 0,565 μ-koak dira uhin-luzera horiek, eta urdin-bioleta, orlegi-urdin eta orlegi-horiari dagozkio). Josu Zabaleta

## daltonismo *iz* ikusmenaren ezintasuna kolore batzuk bereizteko edo antzemateko.

**Daltonismoa**, normalean ulertzen den moduan, sortzetikoa izaten da: gorria eta berdea (edo beste kolore batzuk) bereizteko zailtasuna edo (oso bakan, hala ere) koloreekiko itsutasun erabatekoa. Xabier Olarra

## dama *(ETCn **3.732** agerraldi)* **1** *iz* andre itzaltsua; andrea. ik **andere**.

**-Dama** bat naiz eta nire mailakook ez dugu lapurretarik egiten. Martin Anso

Andre hura, izan ere, **dama** bat zen. Matías Mujika

Ferme izeneko irla konkistatu berri du, bere **damaren** merezient izan nahirik. Aingeru Epaltza

Beste **dama** baten zapia eraman huelako. Juan Kruz Igerabide

Lapurra zelakoan, **damaren** morroiek ezpata ateratzeko keinua egin zuten. Martin Anso

Etxe hartan bizi zen emakumea **dama** iritsi berriaren adiskide mina zen. Jose Morales

Gero jakin zuen **dama** hura Mireia de Verdemar zela; eta hildakoa, berriz, bere aita. Martin Anso

-Jauna: oroitzen duzu Lancelotez maitemindurik zegoen **damaz** esan nizuna? Juan Kruz Igerabide

Uste nuen **dama** bat zinela -esan zion Holohan jaunak, eta zakar urrundu zen harengandik. apain-apain jantzitako **dama** bati erreparatu zioten, bere baitan kiribildurik zegoen zalgurdi baten txokoan, nekatua bezain pozik, antza. Irene Aldasoro

Egiazko **dama** baten itxura din!... Karlos Zabala

**Dama** puska bat zen frau Öchler, luze bezain zabala, gizon itxurakoa. Anjel Lertxundi

Semaforoaren aurrean geratu zen autoa eta **damak** burua jiratu zuen gizonarengana. Aritz Gorrotxategi

Ostaliertzat dockerrak, inguruko langileak, Pontrique kaleko putetxeko **damak**... zituztela. Pablo Sastre

**Damak** ez dira onartzen, **damak** izan ezik. Koro Navarro

· Bibianari Aintzirako **Dama** ere deitzen zioten. Juan Kruz Igerabide

Oihaneko **Dama**! Agustin Otsoa

Santua poztu egin zen [...] ikusiz **Dama** Pobretasunari azkenera arte leialtasuna gorde ziola. Askoren artean

Erizainak joan diren unean, Elurrezko **Dama** guztiz zuri bat ikusi dut Antonen begietatik desagertzen, egin duen erdi-lotik esnatu denean. Hasier Etxeberria

**2** (izenondoekin)

Lanceloten bihotza **dama** gazte batena dela, munduan denik ederrenetako batena. Juan Kruz Igerabide

**Dama** noble eta ausarta zara, eta laguntzarik gabe zureganatu duzu aintza ahaztezina. Agustin Otsoa

San Petersburgoko aristokraziako **dama** dotore eta aberatsei. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gorteko **dama** txolinak, burgesiako emakume handinahiak, erlijioaren beharrean zeuden arima desorekatuak, sentipen berrien bila zebiltzan gorputz eta arima ausartak... J.M. Olaizola "Txiliku"

Baietz orain gure Jean Pierre **dama** ederrarekin ezkondu! Josetxo Azkona

Big Lannie egunez joan ohi zen **dama** dirudun eta astitsuen etxera, gobada egitera. Mirentxu Larrañaga

Hiriko **dama** dotoreenentzat josten zuten Dickens-en eleberrietako jostun pobre gaizki jantzi haiek bezala. Anjel Lertxundi

Jarrera irekiko **dama** gazte hiztun bat zen Ivors andereñoa. Irene Aldasoro

Barru-barruan etsirik egonez gero, **dama** guztiz atsegina gai zen bereari eusteko. Jose Morales

Tira, zer sentitzen da, ene **dama** ezkondu zaharra? Mirentxu Larrañaga

Rohango **Dama** Zuriarekin ezkonduko naiz, berak hala nahi badu. Agustin Otsoa

**3** (zaldun-ekin batera)

Zaldun guztiek jakin zuten **damari** gertatutakoa, eta gutunen kontua. -Ai, **dama**: han ez duzu ikusiko zure zalduna, hemen baitago hondoa jota! Juan Kruz Igerabide

Ikusi izan zituen zalgurdiak ate aurrean gelditurik, eta **dama** dotore jantziak, zaldunak lagun zituztela, handik irteten eta bizkor-bizkor zalgurdietan sartzen. Irene Aldasoro

Berta Maurac-ekoa **dama** gaskoi gaztea zen; gazte bezain eder pertxenta; Nuño Inthalatzia, berriz, zaldun nafar prestua. Martin Anso

Ez, haiek ez zuten inoiz jakinen zaldun bat egiazki zer den, are gutiago zer den **dama** printzesa bat arriskutik salbatzea eta haren maitasuna bihotzean eramatea munduz mundu. Aingeru Epaltza

Baina niri zaldun haietatik gustatzen zaidana, **damez** gainera, gainean eramaten zuten armadurazko jantzi hori da, eta nekez zauritzen zirela. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mutiko bat atzetik jarraika zuela zurezko espaloitik zihoan **dama** itxura polit samarreko bati. Jose Morales

Arratsaldean bisitan etorriko zaidan **dama**-saldoa kontuan izanda, [...]. Mirentxu Larrañaga

**Dama**-taldea arratsalde erdian azaldu zen. Mirentxu Larrañaga

Lehenagotik banuen zure **dama**-bisita bukaezinen berri, baina orain behingoan samina nolabait korporala zen. Eduardo Matauko

Nire emaztearen **dama**-otseina kaleratu berri dugu. Mirentxu Larrañaga

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berehala ohartu zen neska bular-lerdenak puta baten moduan, barkatu, gorte-**dama** baten gisa baliatu zuela gorputza, senargaia gerran zebilen artean. Anjel Lertxundi

**6** *pl* xake jokoko taularen antzeko batean, bi jokalarik pieza biribil zuri eta beltzekin jokaten duten joko baten izena; joko horretako piezak berak.

-Tira, **dametan** egingo diagu orduan; irabazten baduk, hiretzat nekazari hil guztiak. Jose Morales

Aizak, Porfiri, ekarri **dametan** egiteko taula. Jose Morales

Tea hartzera gonbidatzen zituen, hitzematen zien etxera joango zitzaiela **dametan** jokatzera. Jose Morales

Txanponak, orratzak, zigilu bat, **damak** eta mosaikoak. Berria - Kultura

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mitoaren arabera, Teuthen aurkikundeen artean zeuden kalkulua, geometria, astronomia, **dama**-jokoa, dadoak, eta letrak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Mosaikoetan erabili teselaren batzuk ere azaldu dira, eta besteak beste, brontzezko orratzen bat, eta garai bateko **dama**-joko antzekoren bateko fitxa bat ere bai. Berria - Kultura

Oso ikusgarria izan zen Argandoñak hirugarren txandan egindako **dama** sakrifizioa Ninov bulgariarren kontra berdinketa lortzeko. Berria - Kirola

**8** ***dama andre***

**Dama** andreak azaldu zionez, ordea, hala jokarazten zion edozein lagun hurko zorigaiztokok. Mirentxu Larrañaga

**9** ***dama-taula*** dametan jokatzeko taula, lauki zuriak eta beltzak dauzkana.

Laugarrenetik zazpigarrenera, legehaustearen ondorio zuzenen nolakoa adierazten zaigu; hau xake-partida balitz, zuriekin jokatzen duen jokalariak **dama taularen** erdira ateratzeko egiten dituen ahaleginekin konpara liteke. Jon Alonso

· **Dama**-taula gorridun durbante zuria buruan ondo bermatu, amari buruz itzuli, eta esan zion: [...]. Juan Kruz Igerabide

**10** ***ohorezko dama***

Beatrice eta Betti William Hughes ziren **ohorezko damak**. denbora batez Parisko emazteki printzipal baten **ohorezko dama** izan zela. Koro Navarro

Boldireva kondesa eta Juziakina printzesa, alarguna bata eta neskazaharra bestea, gorteko **ohorezko damak** biak garai batean, berritsuak biak, mihi-luzeak biak. Jose Morales

Errepideko taberna batean ospatutakoa bezain ezkontza patetiko batean hasiko da Philipperen eta Sentaren arteko maitasun istorio bitxia, ezkongaiaren nebaren eta **ohorezko damaren** artekoa. Berria - Kultura

**11** ***pikako dama***

Baina gauza zaila da, aliritzira, pikako **damari** zeregin bat ematea. Josu Zabaleta

Ez da jakiten zertan erabili hegazkinak, tankeak, **pikako dama**... Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**anbotoko dama** (5); **bat dama** (3); **bateko dama** (3); **benetako dama** (3); **bere dama** (4); **beste dama** (5); **bi dama** (8); **da dama** (4); **dagoen dama** (3)

**dama atsegina** (4); **dama atseginak** (8); **dama bat** (33); **dama batek** (8); **dama batekin** (6); **dama baten** (14); **dama bati** (5); **dama batzuek** (4); **dama batzuekin** (4); **dama da** (3); **dama damatxoenganat** (3); **dama eder** (13); **dama eder hori** (3); **dama ere** (5); **dama eta** (8); **dama gazte** (23); **dama gazte bat** (4); **dama gazte xarmant** (3); **dama gaztea** (11); **dama gazteak** (7); **dama guztiak** (4); **dama guztiz** (18); **dama guztiz atsegina** (6); **dama guztiz atseginak** (10); **dama haiek** (6); **dama haren** (3); **dama hark** (3); **dama hauek** (3); **dama horiek** (3); **dama hura** (8); **dama ikusi** (3); **dama itsu** (3); **dama maite** (6); **dama maite horri** (5); **dama pobretasuna** (5); **dama pobretasunaren** (5); **dama pobretasunari** (3); **dama rosa** (4); **dama saria** (3); **dama txakurtxoduna** (6); **dama zuria** (7); **dama zuriarekin** (4)

**edo dama** (5); **ene dama** (9); **ene dama maite** (6); **esan zuen dama** (7); **eta dama** (27); **eta dama pobretasunaren** (4); **eta hiru dama** (3); **gure dama** (4); **hiriko dama** (3); **hiru dama** (6); **izan zuen dama** (3); **la dama** (5); **la dama rosa** (4); **ohorezko dama** (5); **rohango dama** (3); **ubarneko dama** (16); **ubarneko dama damatxoenganat** (3); **zen dama** (7); **zuen dama** (31); **zuen dama atseginak** (3); **zuen dama guztiz** (6); **zuen dama hura** (3)

**bere damaren** (3); **bi damak** (3); **damak ere** (3); **damak eta** (5); **damak ez** (6); **damaren jauregia** (3); **eta damak** (13); **eta damen** (3); **gazteluko damak** (3); **hiriko damak** (4); **hiriko damen** (3); **n hiriko damak** (3); **neure damatzat** (3); **ohorezko damak** (3); **ubarneko damen** (3); **zieten damei** (3); **zion damari** (3); **zuen damak** (3)

---

## **damaskinatu** *izond* burdinan edo altzairuan urrea edo beste metal fin bat txertatua duena.

Mikel Strogoffen atzean paratu zen, xafla zabaleko sable kako bat eskuan, arma zuri **damaskinatu** horietako bat, Karxiko eta Hissarreko armagin entzute handikoek gogor-malgutua. Karlos Zabala

Koran miniaturaztatu bat, portzelanazko pipa luze-luze bat, eskutokia zilarrez landua zuen ezpata **damaskinatu** bat, paper horixkatuak barra-barra. Juan Garzia

---

## **damaskinatzaile** *iz* damaskinatuak egiten dituen pertsona.

Baina **damaskinatzaileen** egitasmo hura ez zen burutan atera. Berria - Kultura

Bertsioetako bat Eibarko **damaskinatzaileek** egin zioten eskari baterako prestatua zuen Gandiagak, eskuz kurioso-kurioso, kaligrafia ederrez idatzita. Berria - Kultura

---

## **damasko** *iz* zetazko edo kotoizko ehuna, sarria eta kolore bakarrekoa, aurkian eta ifrentzuan irudi berak baina bizitasun desberdinez dituena. ik **damaza**.

Deus ez zuen aipatu, ordea, lihozko maindirez eta **damaskoz** itxuraturiko zamauez, ez eta parpaila apain baliotsuez ere. Joxan Elosegi

Kaka-gona multzo beixa eta **damaskoz** eginiko gona luzea. Joxan Elosegi

Gosearen ordez ase eta betean, hotzaren ordez giro epelean, biluzaren ordez jantzi apainetan, eta, lastairaren ordez, holanda eta **damaskoz** jantziriko ohetan. Patxi Ezkiaga

"Double face" horietariko **damaskozko** errezel eta ohegainekoak. Juan Garzia

Beronen aurrean Erregek erabili behar zuen **damaskozko** tronu apala. Txillardegi

## damaskoar *izlag/iz* Damaskokoa, Damaskori dagokiona; Damoskoko biztanlea.

-Jauna, ene Jainkoa, zertarako ditut zure sariak, baldin semerik gabe banoa mundutik eta nire etxearen oinordekotza Eliezer **damaskoarraren** eskuetara pasatuko bada? Ipar haizea baino atseginagoa, egarrituarentzat ur freskoa baino eztiagoa eta gizon zuhurrarentzat osasuna baino erakargarriagoa izaki, **damaskoar** guztiak ingurura bildu zitzaizkion. Jose Antonio Mujika

---

## damaskokara *izond* damaskoaren itxurakoa.

Elkarren eskuak zamau **damaskokararen** gainean lotzen zituzten. Josu Zabaleta

---

## damatxo **1** *iz adkor* dama.

**Damatxo** hura hasieratik gustatu zitzaidan, eta, dena dela, begientzat gustagarria zen benetan. Xabier Olarra

Begien aurrean dauzkat oraindik doluminak ematera etorri zitzaizkidan eskolako hiru **damatxoak**. Arantxa Iturbe

**Damatxo** nirea, naturaren kontrakoa da irakiten ari den pasioari ur hotza botatzea. Anjel Lertxundi

**Damatxoren** batek begikoa egingo zioan, edo nolabait liluratu, eta nigandik betiko bereizi dik. Juan Kruz Igerabide

**Damatxo** gazte horrek makina bat bihotz urratu behar du, inork inoiz urratu badu. Mirentxu Larrañaga

Ubarneko dama-**damatxoekin** mintzatuko naiz eta kontsulta eginen diet... Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan)

**Damatxo**-itxurarekin. Fernando Morillo

---

## damaza *iz* damaskoa.

Egun gehiena bere jauregiko tronuan jarririk iragaten zuen edo **damaza** eskarlataz eta urrezko hariz apaindua zen ganbara batean ohean erdi-etzanik, Aurelia Arkotxa

---

## damazatu *izond* damazaz egina.

Saia Brugesko satin berdez zuen egina, gipoina urre perleriaz eta soinean zuen kapa urrezko hari eta zeta berde **damazatuaz**. Aurelia Arkotxa

---

## damero *iz* dama-taula.

Ezinezkoa da **damero** erraldoi horretan galtzea: uptown eta downtown, hamaika abenida paralelo eta ehun eta berrogei bat kale. Harkaitz Cano

---

## damnatu, damna, damnatzen **1** da/du *ad* infernuratu. ik **kondenatu 5**.

Salbatu behar dudan ala **damnatu**, iada erabakia dago. Patxi Altuna

Ikusirik zenbat izan diren bekatu larri bakarragatik **damnatuak**, eta zenbat aldiz nik merezi izan dudan neure honenbeste bekatugatik betiko **damnatua** izatea. Patxi Altuna

**2** (era burutua izenondo gisa)

Zeren hila zaren eta **damnatua**, Ifernuan on da zure izpiritua. Xabier Olarra

Hemen **damnatuek** pairatzen duten oinazearen barneko sentipena eskatzea. Patxi Altuna

---

## damorri *iz* malenkonia, goibeltasuna.

Beti dabil mendebal-haize umel bat eta honek **damorria** eragiten du jendearengan, eta hori oso ona da poesia sortzeko, beti ere umore eta ironia apur batekin nahastuta. Pako Aristi

· Dudarik ez **'damorria'** oso poetikoa dela: hitza, bederen, Gotzon Barandiaranen poema liburuan ikasi dut. Pako Aristi

---

## damu *(ETCn **5.063** agerraldi)* **1** *iz* hobenak errudunarengan edo ezbeharrak pairatzailearengan eragiten duen atsekabea.

Latinen *desiderium* hitzak gutizia eta ere **damua** adierazten ditu "désir et regret". Piarres Aintziart

Baina ez izan orain atsekaberik, ez **damurik**, hona saldu ninduzuelako. Elizen arteko biblia

Ez al da gai izango **damuari** eta erruari bidea mozteko, aurki gertatu behar duenari itzuri egiteko? Iñaki Iñurrieta

Jainkozko justiziak, aldiz, pentsamenduak ikusten baititu, bi itun ditu, errugabetasunarena eta **damuarena**. Iñaki Iñurrieta

Eta txalotu egin zuten nire jarduna, pentsatuz zorionaren alde egin nuela berriz ere, **damu** guztien gainetik. Karlos Linazasoro

**Damu** eta sufrimendu horren bidez salbazioa lortu ahal izateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orduan, **damu** edo lotsazko bere betiko dardarizoarekin, bere onera etorri eta lehorrerantz eragin zion eskuari. Anton Garikano

Ez nuen inoiz kontzientzia txarrik izan [...] ezta **damu** izpirik ere. Karlos Linazasoro

-**Damu** bakarra daukat -esan zien ingurukoei-: [...]. Juan Kruz Igerabide

Frantziskoren mezulariaren oharra jasorik, **damua** sortu zitzaion anaiari bihotzean eta egiaren argiaz jabetu zen. Askoren artean

**Damua** sentitzen hasita zegoen Gabin, Hauster Klaragana ekartzeagatik. Iñaki Iñurrieta

Horren magistraturak, erlijioaren ikuspegitik gurasoen errukia deitua izan denak, ez du bestelako larderiarik onartzen, ezpada bihotz desbideratua **damuaren** baitara ekartzen duena. Andres Urrutia

**Damurik** gabe ez baikara salbatuko. Karlos Linazasoro

**Damuak** harrizko bihotzak ere samurtzen ditu. Bernardo Atxaga

**Damua** garaiz, Putzu! Txillardegi

Familiadunek, eskolarat haurrak igortzeko manerak hartu behar eta **damurekin** uzten dute gune pollita, non hoin goxoki iragan den opor denbora. Herria

Ongiaz arduratu naiz eta ez dut **damurik**. Elizen arteko biblia

Barkamen erabatekoaren jarreraren aurka, **damu gabeko** naziei barkamena ukatzeraino iritsi zen. Joseba Zulaika

*ik* damugabe.

**2** (-en atzizkiaren eskuinean)

Beste ezertara ausartu ez izanaren **damuak** lagatzen zidan barren hustua. Anjel Lertxundi

Ez zuen ordea samintzen hainbeste jan izanaren **damuak**, betiko uko egin izanak baizik. besoak luzatu zituen izartegirantz, euri basatirantz, ez erruki edo barkamen eske, damuz baizik, oker jokatu izanaren **damuz**. Josu Zabaleta

Niri eztena sartzeko aukera galduaren **damua** noski. Aingeru Epaltza

Senarra bakarrik utzi izanaren **damu** halako bat sumatu diot. Anjel Lertxundi

Gertatutakoaren **damua** agertu zuten hirurek, baina inork ez zuen barkamenik eskatu. Ximurrak, bere **damuz**, ez zien oraino hi erraten hiriko odol argikoei, eta horietaz beterik zeuden bazterrak. Berria - Gaiak

Eta tarteak berdinago, gu bulkatzenago; hau gure gogora ala gure **damuz**. Patziku Perurena

**3** (izenondoekin)

Urguilu tematiaren eta **damu** negartiaren artean oreka bilatzeko. Legendunak sendatzen hasi zela ikustean, bekatuen atsekabe eta **damu** handia sentitzen hasi zen, eta negarrari eman zion barru-barruko samintasunez. Oskar Arana

-Ez dakit zuzen Harry oraindik ere bihurria ote den -erantzun zuen Tomek-, **damu** handiegia du. Oskar Arana

Batek uste izango zukeen ezen hain **damu** erabateko eta zinezko baten aurrean egokitzen zena errukitu egingo zela erromes haren oinazeaz. Oskar Arana

Joan zen: ez ordea niri **damu** txit biziak erakutsi gabe, samurrak iruditu zitzaizkidanak, eta orduan egiazkoak zirela uste izan nituenak. Jon Muñoz

Haren bekatuen **damu** garratza, negar-malkoen isuri ugaria eta debozio bihotzekoa. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Damu**-asmoarekin egindakotzat. Oskar Arana

**Damu**-itzal bat hedatzen zaio barnean: Katy-rengatik, bere kaiolan bakarrik dagoen txakur emearengatik; [...]. Oskar Arana

**Damu**-konturik ez dagokio inondik ere. Oskar Arana

Ezin izan nuen baztertu aldi berean beste idunekoan pentsatzea, zeinek **damu**-zimikoak eragiten baitzizkidan Marina Gonzalezi eragin nion hondamendia biziberritzen nuelarik. Oskar Arana

Gertatzen ari zitzaiena ulertzeko gogoz eta **damu**-minez begiratu zion aitari. Anjel Lertxundi

Berak jakinarazi zizkidan ni ikusteko duzuen irrika, zuen **damu**-negarra eta nirekiko maitasuna. Elizen arteko biblia

Bekatu eginagatik barneko pisua edo **damu**-dolua sentiarazten duen arimako bertutea. Piarres Xarriton

Negar eta **damu**-otoitz artean ekarriko ditut. Elizen arteko biblia

Zeren Jainkoak zigor eta gaixotasunezko akuiluz eta **damu**-espirituz hezten baititu betiko bizitzarako hautatu dituen guztiak. Askoren artean

Atseden hartu diat haren **damu**-harraren biziotik. Juan Garzia

Euskal basoetako piztia madarikatua, menderatuta erretiratzen zen komentuetara eta **damu**-erretiroetara. Txillardegi

Moralki esaten dut zeren **damu**-egarri nintzen oso eta iruditzen zitzaidan une hartako on-eginak, bakar batek, bizitza oso bateko txarkeriak zuritu zitzakeela. Matías Múgica

Guztia kontatu izanaren **damu** sentsaziorik ote zuen itaundu zion bere buruari. Aritz Gorrotxategi

Jainkoak baizik ez dezake **damu** orenean barka. Jon Muñoz

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bihotz-**damu** hau Apostoluek eduki izan zuten, ez bekatu egin zutelako, baizik eta munduko gauzei atxikimendurik ez edukitzeko, hain baita handia atxikimendu hori gizaki guztietan. Joan Mari Lekuona

Egizu otoitz bihotz-**damua** eta otoitz-espiritua isur daitezen haien gainera. Askoren artean

Nor hain bihozgabe, barne **damuz** ez hausteko, jainko-maitasunean ez sutzeko, borondate onez ez betetzeko? Askoren artean

Frantzisko egiaz pobretxo zen eta maitasun-**damuz** betea. Askoren artean

**6** *ipar* kaltea.

Euskara garbian *inguruetako* ***damuak*** edo zerbait holako. Herria

Eta gainera, gure auziaren Espainian epaitzea liteke, gauza horrek eragin eta ager lezakeen **damu** gaitzenetarik bat, ezen bi urte xahutu baldin baziren, epaileen aurkitzeko eta auziaren hasteko, zenbat urte beharko ote dira, epaiketaren azken epaileak aurkitzekoa. Piarres Xarriton

**7** *damurik* ik **damurik.**

**8** ***damu-domai*** *(orobat* ***damudomaia*** *g.er.)* *pl* kalte-galerak. ik **kalte 10.**

Funditu autoen antolatzea gero eta karioago dela, ixtripu baten ondotik galdetzen -eta ardiesten- diren **damu-domaiak** ere beti goiti johan. Herria

Jujeek, **damu domaia** horiez gain 300 euro ezarri dituzte Hizkuntz Kontseiluaren gain auzi gastuentzat. Herria

Langileen abokatuak bi urteko soldaten araberako kalte ordain edo **damu domaia** ekonomikoak galdatu ditu. Herria

Enpresa legez desegina izanki, AGS lizentzamendu kutxa **damu domaien** pagatzera kondenatu zuen. Herria

Orbe-ren abokatuak 286 000 euroko **damu domaien** galdera egina zuen auzitegiaren aitzinean. Herria

· Maiatz ondarrean Paueko administrazio auzitegiak Herriko Etxea kondenatu du SAGA elkarteari 800 euro **damu domai** pagatzera. Herria

**Damu-domai** kondu, lauen artean zazpi ehun bat euro eman behar SNCF etxeari. Herria

Ardietsi ditu **damu-domai** gisa 9300 euro, ez berak eskatzen zuen bezenbat bainan ez urrun. Herria

**9** ***damu izan***[1] da *ad* ik **damutu.**

Ez dakit hitzei garrantzia eman ote nien, eta **damu naiz**. Lander Garro

Ez genion gogor egin ez joateko, eta horren **damu naiz** oraino. Agurtzane Juanena

Seinale bat, zigilu bat, nolabaiteko sinaduraren bat egitea ahaztu zitzaidan Madrilen eta **damu nintzen**, biziki damu. Hasier Etxeberria

**Damu** eta lotsa **nintzen** era berean, erantzuteko gauza izan ez nintzelako. Joxan Elosegi

**Damu zen** gorengo merezimendurik ez zuelako, nahiz eta bertutez karguaz baino gorago zegoen. Askoren artean

Baina **damu zen** halako egun eder bat etxe zokoan, liburu eta noten artean igerika iragaitea. Eneko Bidegain

Antso III.a Gartzes Handia Nafarroako errege bilakatu zeneko 1.000. urteurrenean, pastorala Iruñean ez ematea **damu zaio** Jean-Louis Davanti. Berria - Kultura

Kontu hura ahotan hartu izanaren **damu zen**. Anjel Lertxundi

Galdera da, zer nahi du Jainkoak nigandik, **damu izateaz** gain? Oskar Arana

-Hala uste nuen nik ere -esan du ezeren **damu** ez **izateko** itxurarekin. Monika Etxebarria

Baina konfidentziak eginik **damu nintzen**. Piarres Aintziart

**10** (objektua -z atzizkiaz)

Bezperakoaz **damu zelako** edo jokabide berriarekin bere asmoak hobetoxeago burutuko zituelakoan-edo. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez **naiz** ezertaz **damu**, eta biziberrituta nago ni dagoeneko. Inazio Mujika Iraola

Ez **damu izan** esklaboa libre utzi beharraz. Elizen arteko biblia

Egia esan behar bada, **damu zinen** esnatzeaz, Damian. Hasier Etxeberria

Bain andrea **damu zen** hura han ez egoteaz. Mirentxu Larrañaga

Dutrouxek egindakoaz **damu zela** esan zuen, baina ez zuen barkamenik eskatu. Berria - Gaiak

**11** (objektua aditz bat era burutuan + izanaz)

Ezabatu egingo dut mundutik nik sortu dudan gizakia; gizakia eta harekin batera abereak, narrastiak eta zeruko hegaztiak, **damu bainaiz** hauek egin izanaz. Jose Antonio Mujika

**Damu nintzen** neuk ere beste guztiek bezala jokatu izanaz. Hasier Etxeberria

Nola esan haiei denei **damu nintzela** aitonaren bila hasi izanaz? Jon Muñoz

Ez naiz batere **damu** hala egin izanaz, ezta hurrik ere! Mirentxu Larrañaga

**Damu zen** orain errabinoa Jainkoaren izena aipatu izanaz. Koro Navarro

Begi-bistakoa zen aita **damu zela**, ez bakarrik erantzukizun guztia amonaren esku utzi izanaz, baita ezin zuelako ere amonak egindako lanen arriskua ezagutu eta kontrolatu. Anjel Lertxundi

Ez nintzen difamazio bat zabaldu izanaz ohardun; gutxiago, **damu**. Anjel Lertxundi

**12** (objektua aditz bat era burutuan + izana)

Orain **damu da** osabaren errana hain betean bete izana. Aingeru Epaltza

*Terminal*-en, berriz, gidari batek sarritan ikusi ohi zuen yonkie bat hil egin delako susmoa du eta **damu zaio** hari lagundu ez izana. Berria - Kultura

· *Goragalea*n zerbaiten **damu izan** banintzen, ni osorik jokoan sartu ez izana da... Monika Etxebarria

**13 *damu izan*²** du *ad* ik **damutu.**

Oker egin nuen, eta **damu** dut. Oskar Arana

Mirentxuk, egia esan, seniderik ez izatea **damu zuen**. Gotzon Garate

Lehenbizikoa, **damu** dut esatea, xamurkeria eta gaztetxoaren sentimentalkeria hutsa zen. Oskar Arana

**Damu dut** esatea, baina azaluskeriaren garaian bizi gara. Antton Olano

**-Damu dut** batzutan argi ez esatea sentitzen dudana. Edorta Jimenez

**Damu zuten** areto fresko hartatik alde egin beharra. Jon Muñoz

- **Damu dut** zure ilusio hori hondatu beharra, baina gaur goizean harekin hitz egin ostean, uste dut ez duzuela zer ikustekorik batak bestearekin. Oskar Arana

Baina, nork ere egin duena **damu baitu**, hura dohakabea da edo ezindua, bi aldiz. Piarres Xarriton

**Damu dut**, bihotz-bihotzez, iraindu bazaituztete. Juan Garzia

- **Damu nuke** zu ez hemen izateaz dolutu behar banu... Elena Touyarou

Bai, bat-batean, **damu nuen** amarekin bortitza izanik. Daniel Landart

Egin dizkiodan konfidentziez **damu dut** gaur. Piarres Aintziart

Nork ere egin duena **damu baitu**, hura dohakabea da edo ezindua, bi aldiz. Piarres Xarriton

**14** (objektua aditz bat era burutuan -a artikuluaz)

**Damu dut**, egiaz, **damu dut** esana. Josu Zabaleta

**Damu dut**, zinez, zu mindua. Javi Cillero

**Damu dut** zu oraino triste egona, baina ez da nire errua. Jon Muñoz

**Damu zuen** hain larriki bekatu egina. Askoren artean

Gezurra nioke horrela ibilia **damu dudala** esango banu. Joxerra Garzia

Baina damu dut bihotz-bihotzez, **damu dut** Zu nahigabetua, eta asmo sendoa hartzen dut ez gehiago horrelakorik egiteko. Iñaki Segurola

Ruche jaunak **damu zuen** Albert han ez egona. Jon Muñoz

**Damu du**, jaun agurgarri hori, zor bezalako begirunea ez erakutsia... Jose Morales

**15** (objektua aditz bat era burutuan + izana)

Hannak **damu du** Filosofiako doktoretza egin izana. **Damu zuen** Amianorekin zenbait gauzatan, sakonera heldu gabe, azalean geratu izana. Joxe Austin Arrieta

**Damu dut**, horra, zuek ezagutu izana. Askoren artean

**Damu dut** iluntzea izorratu izana zuei. Oskar Arana

**Damu** izan nuen ostatuan egarria ase ez izana. Edorta Jimenez

Baina negar egin zuen Saulengatik, Jaunak **damu izan** baitzuen Saul Israelen errege egin izana. Elizen arteko biblia

Ez nuen **damu izango** Mattin lagun pilotuari kutxaren gorabeheran jaramon egin izana. Edorta Jimenez

Ataka gaiztoan sartu nauk, eta orain **damu diat** ezkon-hitza eman izana. Jose Morales

**Damu izan** zuen, pentsamendu horren ondoren, txoferrari biderik lasterrena hartzeko esan izana. Ramon Saizarbitoria

**Damu izan** nuen paperean jarri ez izana "errabia ematen dit, nire azpian zaitudanean fardel bat bezalakoa zarelakoa". Ramon Saizarbitoria

Bizi guztian **damu izango** nuela noski Giuliaren eta bion artean eskolako eta lantegiko oroitzapen apur batzuk baino ez geratu izana. Juan Garzia

**Damu zuen** hain larriki bekatu egin izana eta Jainko maiestatearen begiak iraindu izana. Askoren artean

Horra Ruche jaunak bizi ez izana **damu zuen** abentura. Jon Muñoz

**Damu** dut ez zarela nik hasieran uste nuen bezain argia. Antton Olano

Ez zen engainatua sentitu; bakarrik **damu zuen** ez baitzuen haren konpainian zahartzeko ahala ukan, eta haren familia ez baitzen, aldi berean, berea. Elena Touyarou

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina damu** (9); **batere damu** (3); **biziki damu** (3); **da damu** (5)

**damu bakarra** (6); **damu bat** (6); **damu da** (6); **damu dela** (4); **damu dinat** (3); **damu domai** (4); **damu domaia** (10); **damu domaiak** (14); **damu domaien** (4); **damu domaietan** (3); **damu du** (13); **damu dudala** (4); **damu dudan** (3); **damu dugu** (3); **damu dut** (57); **damu dut zu** (3); **damu dut zure** (4); **damu duzu** (4); **damu eta** (10); **damu ez** (5); **damu handia** (8); **damu handia dugu** (3); **damu hori** (3); **damu izan** (18); **damu izan nuen** (4); **damu izan zuen** (3); **damu izango** (7); **damu naiz** (12); **damu nintzen** (8); **damu nuen** (11); **damu zaio** (3); **damu zaiola** (3); **damu zaitez** (7); **damu zela** (6); **damu zen** (14); **damu zuela** (4); **damu zuen** (16)

**damuak damu** (4); **dut damu** (6); **erabakiaz damu** (4); **ere damu** (3); **eta damu** (51); **eta damu du** (4); **eta damu dut** (7); **eta damu naiz** (3); **eta damu zuen** (3); **euro damu** (7); **euro damu domaia** (5); **euroko damu** (5); **euroko damu domaiak** (4); **ez da damu** (3); **ez damu** (3); **ez izatea damu** (3); **ez naiz damu** (7); **izan zuen damu** (3); **izana damu** (4); **izanaren damu** (5); **izanaz damu** (9); **izatea damu** (3); **naiz damu** (7); **orain damu** (5); **zuen damu** (9)

**bere damua** (5); **damua adierazten** (4); **damua adierazten ez** (3); **damua agertu** (4); **damua baino** (3); **damua baizik** (3); **damua da** (4); **damua ere** (3); **damua eta** (18); **damua etorri** (3); **damua garaiz** (6); **damua sentitu** (4); **damuak damu** (4); **damuak eta** (3); **damuaren eta** (3); **eta damua** (15); **eta damuak** (9); **eta damuaren** (6); **ez izanaren damua** (7); **horren damua** (3); **izanaren damua** (11); **izanaren damuak** (3); **nire damua** (3); **nire damuaren** (3)

**barne damuz** (3); **batere damurik** (6); **damurik ez** (30); **damurik gabe** (16); **damurik gabe eta** (3); **damurik gabeko** (3); **damurik halere** (3); **damurik izan** (7); **damuz baizik** (3); **damuz beterik** (3); **damuz eta** (3); **du damurik** (3); **dut damurik** (10); **eta damuz** (7); **ez damurik** (7); **ez du damurik** (3); **ez dut damurik** (10); **ez zuen damurik** (3); **zuen damurik** (5)

---

**damuarazi**, damuaraz, damuarazten du *ad* damutzera behartu.

-Horretara ere behartu zenuten, **damuarazi** egin zenuten. Koldo Izagirre

Espezie honek hedapen geografiko zabala du, bilatzen den alde orotan aurkitzen da eta aurkitzen den alde orotan **damuarazten** du. Xabier Olarra

Zer pasatzen zaizu? ez nauzu arauz sinesten dudana sinesteaz **damuaraziko**? Itxaro Borda

---

damudomaia ik **damu 8.**

---

**damudun** *izond* damutua.

Eta **damudun** nintzen; zeren, barru-barruan, mesprezu pixka bat izan bainion beti. Irene Aldasoro

Liburutegi bat sortzeak edo unibertsitate bat hornitzeak, diotenez, **damudunari** min latzagoa eta iraupen luzeagokoa ematen dio labanak eta burdina goriak baino, eta horregatik grazia lortzeko bide ziurragoa da. Xabier Olarra

---

**damugabe** *(orobat **damu gabe**)* *izond* damurik ez duena.

Erditxinatarturiko estatu-politikari mongol hark amore eman zien sentimendu nomada **damugabeei** eta bigarren mailako egoitza bat eraiki zuen Chung-tu-n. Iñaki Mendiguren

Paganismo heleniko **damugabearen** -kristautasunaren geruza azpian garbi ikus zitekeenaren- aurrean, juduen lema Jaunaren Hitz eternalaren testigantza ematen jarraitzea zen. Iñaki Mendiguren

Euren bihotz **damugabearen** gogorkeriaz zigorra handitzen ari dira zigor-egunerako. Imanol Unzurrunzaga

Kontua da, hainbeste gorabeheraren ondoren, idazle eta libertino **damugabe** gisa ezagutzen dela gaur egun Sadeko Donatien. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bozenak gogorrak eta **damu gabeak** ziren. Itxaro Borda

Hegazti eta animalia jale **damugabea** naiz. Koro Navarro

---

**damugarri** **1** *izond* damuarazten duena.

Oro zaizu **damugarri**, mingarri, ahalkegarri. Xabier Montoia

Idoloak sortu ditugu, eta orain **damugarriak** gertatzen zaizkigu. Josu Zabaleta

Zinez bazter ikusgarriak zirela Euskal Herri honetan eta **damugarri** zela holako edertasunak eta ontasunak andeatzea balio gabeko ixtorio triste batekin... Michel Oronoz

**2** *ipar* negargarria, deitoragarria.

Itsumendua liteke ere ez ikustea zer desohore, zer kalte, zer bihozmin **damugarri** ekar lezakeen haren kondenatzeak. Piarres Xarriton

Zinez bazter ikusgarriak zirela Euskal Herri honetan eta **damugarri** zela holako edertasunak eta ontasunak andeatzea balio gabeko ixtorio triste batekin... Michel Oronoz

Izaiten dira oraino kasu **damugarri** batzuk, XXI. mende honetan: beilari batzuk mendiari lotzeko irriskua hartzen dute nolanahika, entrenatu gabe behar bezala. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Damugarria** da fikzio mota hori beste herrietan ez hain garatua izatea. Berria - Kultura

**Damugarria** da indarra erabili behar izatea. Berria - Ekonomia

Udalbiltzaren laguntza hunek eta ere Eusko Jaurlaritzarenak (1.130.000 euro) hemengo podere publikoen eskas handi eta **damugarriak** dituztela betetzen. Herria

Proosione denboran **damugarri** hala ere gero eta herritar gehiago bazterretik so plantatzen dela, Bestaberri ikusgarri bat baizik ez balitz bezala. Herria

**3** *ipar* kaltegarria, galgarria.

Artzain hori Oilandoiko ermita dela, bere ardiekin hor bizi dena, ez harriaren kasatzeko, baina bai otoitz egiteko, lurraren, herriaren zaintzeko, beste kalterik ere gerta baitaiteke herri batean, uztak galtzea baino anitzez larriago eta **damugarriago**. Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> damugarria da (6); damugarritzat jo (7); damugarritzat jo zuen (6)

---

**damukizun** **1** *iz* damutzeko gauza.

Eskaintza egiazko hori ordain ezazu bederen **damukizun** batez, malko batez; eta sinets ezazu ezen nire azken sakrifizioa ez dela bihotz-mingarriena izanen. Jon Muñoz

**2** (predikatu gisa)

**Damukizun** duket bederen sekula betiko. Jon Muñoz

---

**damurik** *adlag* tamalez.

**Damurik**, Edurne ez zen bakarrik heldu. Aingeru Epaltza

**Damurik**, Parisen zen San Bartolome gauean, katolikoek higanoten odolez hango ibaia lodi eta gorri utzi zuten hartan. Edorta Jimenez

**Damurik** ez dizuet beste deusik erraten ahal. Elena Touyarou

**Damurik**, une horretan ez nintzen konturatu lazoa nire lepo inguruan jartzen ari zitzaizkidala. Jon Alonso

Mereziko zuen hemen leku on bat gure lerro laburretan, **damurik**, izanen ez duena. Herria

Orduan genuen jakin nola 1928an Fleming britaniarrak atzeman zuen sendagailu orokor hori, **damurik** gerla ondoan baizik hedatu ez zena munduan zehar. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**damutasun** *iz* hutsegitearen damua.

**Damutasunak** ezin al du zoraldi bateko hutsa ezabatu? Antton Olano

---

**damutu**, damu(tu), damutzen *(ETCn **6.414** agerraldi)* **1** da *ad* damu izan.

**Damu zaitez** eta itzuli Jainkoarengana: dena barkatzen du, gupidatsua da. Patxi Zubizarreta

Esana gutxiesten duena **damutu** egingo da, agindua errespetatzen duena saritua izango. Elizen arteko biblia

Esan orduko **damutu** da. Harkaitz Cano

Infernuaren ateetan ere ez gara **damutzen**. Koro Navarro

Irten orduko **damutu**, eta etxean berriro sartu ez sartu egon nintzen. Joan Mari Irigoien

Ez dut Enrieta besarkatzen ahalko, eta ez diot erraten ahalko zenbat **damutzen** naizen. Elena Touyarou

Bere buztanari ausiki egiteko unean **damutu** den sugea ekartzen dit gogora. Jon Alonso

Berehala **damutu** nintzen, ustez eta liskarren bat piztuko zela atsoarekin. Aingeru Epaltza

Eta orduan lehen aldikotz apez eginik **damutu** nintzen. Piarres Aintziart

**Damutzen** da euskal hizkuntzan Aita Saindua izendatzeko, bi hitz horiek baizik ez ukaiteaz: "Aita" eta "Saindua". Herria

Kontseilua eta Euskal Konfederazioa aldiz **damutzen** dira Lege Nagusiak ez diolakotz euskarari onarpen ofizialik aitortzen. Herria

· Gogoz kontra burua jaso nuen, eta **damutu** ere bai berehala. Matías Múgica

**Damutu** baino lehen. Felipe Juaristi

Aski **damutua** nago aukera bat baino gehiago alferrik galdu baitut behar adina ez saiatzeagatik. Karlos Zabala

Aspalditik zegoen etsia, berak sortutako gizakiarekin **damutua**, kreazio osoaren inperfekzioaz jakitun. Aritz Gorrotxategi

**2** zaio *ad*

Anai Eliasek, ordea, ez dio nik egindako galderari erantzun nahi izan, eta gero **damutu** egin zaio. Askoren artean

Ukitu eta **damutu** egingo zaik, eta hire gurasoei ere bai. Paddy Rekalde

Hormetan idatzi zuten norbaitek mezatara joateko ausardia baldin bazuen, **damutu** egingo zitzaiola. Koldo Biguri

Ez ezazu esan gero **damutu** egingo zaizun ezer. Anjel Lertxundi

Behin ere ez zait **damutu** hura etxean hartzea. Oskar Arana

Martini **damutu** egin zitzaion godoen taktika zuhur horri ez jarraitzea. Koro Navarro

Nik behin galdu nitian nerbioak, eta berehala **damutu** zitzaidaan. Josu Landa

Izan ere, anai Pedrok halako benerazio eta begirunea zion santuari, non hari kontra egitera ez baitzen ausartzen, nahiz eta gero sarritan **damutzen** zitzaion. Askoren artean

**Damutu** zitzaidan kuriosegia agerturik. Daniel Landart

Besteen zoritxarrak eta malkoek hunkitzen dutenak maiz egiten duela gero **damutzen** zaion zerbait. Piarres Xarriton

**3** (objektua -z atzizkiaz) da *ad*

**Damutu** nintzen nire xalotasunaz. Koldo Izagirre

**Damutu** al zara inoiz hartutako bideaz? Xabier Mendiguren Elizegi

Berehala **damutu** nintzen esandakoaz. Juan Kruz Igerabide

Gertatutakoa ikusita, elurra kentzen lehenago ez hasteaz **damutua** dela dirudi. Berria - Kirola

Donostiakoak apurtu zuen, agian egin berri zion galderaz **damuturik**. Joxemari Iturralde

Ez naiz **damutzen** ama izateaz. Arantxa Iturbe

Gero, nire erreakzioaz **damutua** (orduan ere damua nork eta nik sentitu behar), kalera nindoala esan nion. Patxi Zubizarreta

Hain gelditu zela erasotzailea egindako gaiztakeriaz **damutua** eta atsekabetua ezen berehala labanaren bila joan eta oin gaiztoa bertan ebaki baitzuen. Jon Alonso

**Damu hadi**, bada, heure gaiztakeriaz, eta otoitz egiok Jaunari ea burutapen hori barkatzen dian. Elizen arteko biblia

Bere mehatxuez **damutzen** dena.

Egin ez nuenaz baizik ez naiz **damutzen**. Karlos Zabala

**Damutu** zen andrea egin zuenaz. Askoren artean

Baina Frantzisko berehala **damutu** zen esandakoaz. Askoren artean

Orduantxe **damutu** zen Raimundo Silva hartutako erabakiaz. Jon Alonso

Uste diat ederki **damutu** behar duala erabaki horretaz. Juan Kruz Igerabide

· zaio *ad* Ezertan gaitzik ez dela sinesten duzun momentutik aurrera, zein gaitzez **damu zaitezke**? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

· Aitortu eta bihotzez (edo beldurrez) **damutu** ezkero, huts horiek berdinduak gelditzen ziren. Iñaki Segurola

Job esandakoaz **damutu**. Elizen arteko biblia

Ez nukeen errepidea utzi behar, baina orain berandu zen hartaz **damutzeko**. Aitor Arana

**4** (objektua aditz bat era burutuan -a artikuluaz) da *ad*

-Ederki **damutu** nauk, Gwain, baiezkoa emana; ez nian asko uste zer eskatzen ari hintzaidan. Juan Kruz Igerabide

Soil-soilik, **damutu** samar nago lehenago ez konturatua, hori baino ez. Mirentxu Larrañaga

· zaio *ad* **Damutu** zait Saul errege egina. Elizen arteko biblia

**5** (objektua aditz bat era burutuan + izana) da *ad*

**Damutu** nintzen mesederik eskatu izana. Koldo Izagirre

· zaio *ad* Behin ere ez zaidak **damutu** Lubisen hilketari erantzuna eman izana. Bernardo Atxaga

Erran orduko, Joanttori **damutu** zitzaion mintzatu izana. Elena Touyarou

-Baten bati **damutu** behar zaio ni hemen sartu izana. Fernando Morillo

Ez esan izana ongi **damutu** zitzaidan handik irten nintzen orduko. Jon Muñoz

Sams Al-Din merkatariari **damutu** egin zitzaion emaztea hain zakar hartu izana. Patxi Zubizarreta

Ez al zaik oraindik **damutu** Rocandioneko tailer malapartatu horretan enplegatu izana. Pedro Alberdi

Purua piztu ez izana **damutu** zitzaion. Joxemari Urteaga

Ohe ertzean eseri zenean, **damutu** egin zitzaion muinoia bendatu izana. Ramon Saizarbitoria

Bihar, beharbada, **damutu** egingo zaigu denbora galdu izana. Luis Elberdin

**6** (objektua aditz bat era burutuan + izanaz) da *ad*

Berehala **damutu** zen horrela mintzatu izanaz. Xabier Aranburu

Agian **damutu** egingo zen hura esan izanaz. Harkaitz Cano

Aurretik ez begiratu izanaz **damutu** zen. **Damutu** nintzen hainbeste hitz alferrikakorekin duintasuna galdu izanaz. Joxemari Urteaga

**Damutu** zen Jauna gizakia egin izanaz. Elizen arteko biblia

**Damutu** egin nintzen xehetasun gehiago ez eskatu izanaz. Koro Navarro

Hura akatu izanaz **damutu**? Koldo Biguri

Eta gero hainbeste esan izanaz **damutu** naiz. Monika Etxebarria

Galdera egin orduko **damutu** nintzen Danelen eta Adaren arteko iragana gogora ekarri izanaz. Anjel Lertxundi

Ez naiz inoiz kasu egin izanaz **damutu**! Aitor Arana

**Damutzen** hasi zen Bechev utzi izanaz. Koro Navarro

**Damuturik** egongo da hitz egin izanaz? Josu Zabaleta

Kkartazal erdi ireki bat utzi zuen idazmahaiaren gainean, askoz ere lehenago egin ez izanaz **damututa**. Josu Landa

Eskua ipintzea bularrean, **damutuz** erori izanaz. Patxi Altuna

• **7** du *ad*

Hainbesterainoko nekea alferrik hartu izanaren amorruak bizi du Garibai, etsipena hartzen hasita dago, handinahiegi jokatu izanak **damutzen** du. Anjel Lertxundi

Ezin bainuen gehiago eta **damutuko** ninduen ezer egin baino lehen, ikazkinari bizkarra eman eta ikaztegitik irten nintzen. Anjel Lertxundi

**8** (era burutua izenondo gisa)

Abadeak aitortza entzun eta, penitentzia gisa, hiltzaile **damutua** Donejakueko bidean jarri zuen. Martin Anso

Ni ez nintzela sekula ibili, hura bezala, balore hau edo hura aldarrikatuz, urdanga **damutu** baten aurpegia jarrita. Karlos Zabala

Nino Giuffre mafiakide **damutuaren** esanetan oinarritu da Dell'Utriren kontrako akusazioa. Berria - Mundua

Bekatari **damutuei** merezi duten zigorra barkatzen zaienean Jaungoikoaren amaigabeko ontasunari esker da. Imanol Unzurrunzaga

Sobera mintzatzen ari denaren keinu **damutua**. Aingeru Epaltza

Gutun **damutu** batekin erantzun ohi duk, hots, barkatzeko oharkabeko eta abar. Juan Garzia

**9** (era burutua izen gisa)

Miserable eta koldar hil zintezela behar zuten denek, **damutu** bat behar dute kondenatu zintuztenek, urkamen publikoak bere funtzio guztiak bete ditzan. Koldo Izagirre

**Damutuarengan** ez zagok damurik, pertsonalitate berri baten eraketa baizik; izaera erretroaktiboa duen eraketa, gainera. Jon Alonso

**Damutu** gisa atera naute psikologoak eta zuzendariak poza ezin eskuraturik. Koldo Izagirre

**Damutuaren** irudia sortzen da eta Justiziak behar den kasuetan nortasun aldaketa bermatuko dio **damutuari** . Berria - Euskal Herria

**10** ***bihotz-damutu*** da *ad*

Bihotz- **damutu** eta aitortu berehala zeure bekatuak, aitortza on batean esan beharreko ezertxo ere barruan gorde gabe. Askoren artean

Eta bihotz- **damuturik** , bizimodua berritzera eragiten zien horrelako etsenplu apartak. Askoren artean

Bihotz- **damuturik** eta Espiritu Santuak ukiturik, penitentziazko bizierari ekin zion, ermitau jantzia soinean zuela. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **berehala damutu** (19); **berehala damutu nintzen** (5); **berehala damutu zen** (8); **berehalaxe damutu** (3); **da damutu** (4)
>
> **damutu baino** (4); **damutu baino lehen** (3); **damutu balitz** (4); **damutu balitz bezala** (4); **damutu behar** (8); **damutu beharrik** (4); **damutu da** (10); **damutu den** (3); **damutu egin** (51); **damutu egin nintzen** (10); **damutu egin zen** (19); **damutu egin ziren** (3); **damutu egin zitzaion** (4); **damutu egingo** (17); **damutu egiten** (9); **damutu egiten naiz** (4); **damutu ere** (9); **damutu ere egin** (4); **damutu eta** (19); **damutu ez** (4); **damutu izan** (3); **damutu naiz** (4); **damutu nintzen** (21); **damutu zaio** (4); **damutu zait** (3); **damutu zen** (45); **damutu ziren** (3); **damutu zitzaidan** (8); **damutu zitzaion** (15)
>
> **ederki damutu** (8); **egin izanaz damutu** (4); **esan orduko damutu** (5); **eta berehala damutu** (6); **eta damutu** (23); **eta damutu egin** (5); **eta damutu ere** (5); **ez da damutu** (3); **ez nintzen damutu** (3); **ez zait damutu** (4); **ez zen damutu** (4); **ez zitzaien damutu** (3); **gehiago damutu** (3); **gero damutu** (9); **gero damutu egingo** (3); **inoiz damutu** (6); **izanaz damutu** (16); **izanaz damutu nintzen** (4); **izanaz damutu zen** (4); **laster damutu** (3); **nintzen damutu** (3); **nola damutu** (3); **orduan damutu** (3); **orduko damutu** (12); **orduko damutu nintzen** (3); **orduko damutu zen** (4); **zait damutu** (4); **zen damutu** (4); **zitzaien damutu** (3)
>
> **da damutuko** (3); **damutuko bagina** (3); **damutuko da** (5); **damutuko haiz** (3); **damutuko zaie** (3); **damutuko zaik** (3); **damutuko zaio** (3); **damutuko zaizu** (9); **damutuko zara** (12); **damutuko zitzaion** (4); **ederki damutuko** (4); **ere damutuko** (4); **eta damutuko** (10); **eta damutuko bagina** (3); **ez da damutuko** (3); **ez zaizu damutuko** (8); **ez zara damutuko** (6); **zaizu damutuko** (8); **zara damutuko** (6)
>
> **bihotz damuturik** (5); **damuturik eta** (4); **damuturik nago** (3); **damuturik zegoen** (3); **damututa zegoela** (4); **damututa zegoen** (7); **eta damututa** (3); **ez izanaz damuturik** (3); **izanaz damuturik** (6); **izanaz damututa** (3)
>
> **da damutzen** (7); **damutzeko eta** (4); **damutzen bada** (3); **damutzen da** (11); **damutzen dira** (5); **damutzen eta** (6); **damutzen ez** (3); **damutzen hasi** (3); **damutzen hasi zen** (3); **damutzen hasia** (5); **damutzen naiz** (7); **damutzen naizen** (3); **damutzen zara** (3); **damutzen zen** (5); **dela damutzen** (5); **eta damutzen** (4); **ez da damutzen** (7); **ez naiz damutzen** (16); **ez zait damutzen** (3); **ez zela damutzen** (3); **ezertaz damutzen** (8); **izanaz damutzen** (6); **mehatxuez damutzen** (3); **naiz damutzen** (18); **naiz ezertaz damutzen** (4)

---

# damutxo *iz adkor* damua.

Badakit orain lo hartu ezinik gelditu beharko dutela ziegakideek, **damutxoren** bat barruan, aittitte hondatuta ikusita, koldar hauek ilunahoan zelatari dauzkadala esaten baitit bihotzak. Koldo Izagirre

---

# damutze 1 *iz* damu izatea.

Nigandik nahi duzuna ez da erantzun bat baizik eta **damutze** bat. Oskar Arana

Senarra, bi amoranteen harrapatzaile, halako topaketek ekartzen ohi dituzten ondorioekin: oihuak, irainak, aieneak, negarrak, mehatxuak... baita, zergatik ez, bat-bateko **damutze** bat ere emakumearen aldetik. Aingeru Epaltza

Jadanik bere biziaren jaun eta jabe izatera heldua den oro fededunen sakramentura hurbiltzen delarik non ez den damutzen bere aitzineko biziaz, ez du bizi berririk hasten ahalko **damutze** hortarik aitzina. Piarres Xarriton

Preso politikoak bukatzea, haien suntsitze fisiko eta psikologikoa bultzatzea eta **damutze** politikoa lortzea. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Kaleratzeko baldintzak nabarmen zaildu dituzte ( **damutze** eskaerak, eskumuturreko telematikoa, berme handiagoak...). Berria - Euskal Herria

Bergizarteratze eta **damutze** bideak bilatzeko. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta damutze** (3)

---

# damutzeke *adlag* damutu gabe.

Baionara iritsitakoan, bere iraganaz **damutzeke** , hala ere gerorako esperantza odolgabeaz fidaturik, itsas borrokak, itsas sarraskiak, itsas nahigabeak, itsas ibilerak oro uzteko ordua bazela iritzirik, jauregia eraiki zuen Baionako portutik gertu. Felipe Juaristi

---

# dan *iz* judoan-eta, gerriko beltz kategoria banatzen den hamabi mailetako bakoitza.

Limen bi seme-alabek **taekwondoko** gerriko beltza dute eta laugarren dana. Berria - Kirola

---

# danba 1 kolpe sendo baten edo tiro baten onomatopeia. ik**danbada; dinbi**.

Atea sudurrera etorri zitzaidan, **danba** , begietatik erauziz ikuskizun miresgarria. Aingeru Epaltza

Hainbat krisket hondaturik zegoen, eta ateek **danba** jotzen zuten. Anton Garikano

Izuak buruan **danba** jotzen zuen, mailukada bortitzez. Jasone Osoro

**Danba** jo zuen lehenengo kanpaiak, 19,45ekoak. Jon Muñoz

Argia piztu zenean, ukabilarekin **danba** mahaia jo eta oihu egin zuen: [...]. Irene Aldasoro

Baina orduan atea **danba** ireki zen. Matías Múgica

Zerbait zeramaten arrastaka, eta **danba** egiten zuen eskailera-maila bakoitzean. Anjel Lertxundi

Halako batean, bazekinagu Angel ez dela oso gizon lasaia, hartu pistola eta **danba** buruan, eta zaldia isilik betiko. Bernardo Atxaga

-Lagundu egin behar didazue? -galdetu zuen azkenean Del Vallek, erruleta errusiarrean jokatzen duenaren antzera: katua sakatu eta klik ala **danba** entzunen ote duen ez dakienaren antzera. Alberto Ladron Arana

**2** (harridura markarekin)

Istant hartan, **danba** ! aditu zen, handik ez urruti. Pablo Sastre

Harryk begi-pare marroi distiratsu bat ikusi zuen handik berari begira, atea **danba** ! itxi baino lehen. Iñaki Mendiguren

Orduantxe, **danba** !, entzun zen etxe aurreko atearen kolpea. Iñaki Mendiguren

**Danba** !, kristoren zaplaztekoa eman zion fraideak (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier), gure barregurak derrepente eten zituena. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste behin batean, aurreraka **danba** !, tiratu nuen neure burua, baloia atrapatzearren. Jesus Mari Mendizabal

Ikusi dut mutila etxera joaten eta handik berehala, **danba** ! tiro bat jo dute kalean. Javi Cillero

Artilleroen gorpuak uretara banan-banan jaurti eta **danba** !, kanoikada banaz egin zieten beren kideek gorpuei oles. Edorta Jimenez

Ikus dezagun, **danba** !, kartierrean sartzeko ate handi hura; klanka!, zeldako ate gaineko eta behereko zerrapoak, zaintzaleek beti bortizki zerratzen edo idekitzen dituztenak; klaska!, zeldako ate zerrailuan giltza; klunka!, ibiltokira doan burdinazko atea; klixka!, hesietako zerrailuak... Filipe Bidart

**3** (hitz elkartuetan)

Kontuz ibili, Ofelia, kontuz, ene arreba maitea; zeure maitetasunaren atzealdean eutsi, desiraren su-**danba** arriskutsuetatik urrun. Juan Garzia

**4** ***danba-danba***

Ganbarako demonioak hodiak **danba-danba** jotzen zituen uluka. Iñaki Mendiguren

Euriak **danba-danba** jotzen zuen zurezko teilatua, eta ur-xirripak gurgurika isurtzen ziren behean jarritako upel batera. Jose Morales

Kaleko atea **danba-danba** zebilen. Inazio Mujika Iraola

Zinezko demokratek **danba-danba** baino nahiago dute tar-tar-tar. Berria - Harian

· Handik bost bat minutura, **danba** , **danba** , **danba** , **danba** entzun nuen, eta oihu batzuk. Berria - Euskal Herria

**5** ***danba-danbaka*** *adlag*

Autoan sartzean, haize zaflako galanta bildu eta tenpestak tenpestari etxeraino irauteko, **danba** -danbaka irakurgailuan tekno musika ezarri nuen. Itxaro Borda

**6** ***danba eta danba***

Saihetsen kontra **danba** eta **danba** bihotza. Irene Aldasoro

**Danba** eta **danba** , egin dizkio bi tiro Apezetxeak, eta ijitoaren bularreko odola nahasian atera da alkandoraren azpian ezkutatuta zeraman oiloarenarekin. Hasier Etxeberria

**7** ***dinbi eta danba***

Trailutzar antzeko bat zebilkion **dinbi eta danba** , zanpaka; mamia hezurretik tarratatu nahi zion arantza-mutur handi bat balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

Plastikozko bidoi huts zenbait eskuratu eta **dinbi eta danba** ekin diote. Xabier Montoia

Nola berak sentitu zuen han barruan mutila, **dinbi eta danba** , ostikoka itxura batean, eta nola uste izan zuen, ondorioz, futbolari zetorkiola haurgaia... Joan Mari Irigoien

Lurra **dinbi eta danba** ari da erortzen hilkutxa gainera. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atea danba** (6); **danba danba** (7); **danba eta** (7); **danba eta danba** (4); **danba jo** (5); **danba jotzen** (4); **dinbi danba** (23); **dinbi eta danba** (7); **eta danba** (27); **eta dinbi danba** (3)

---

# danbada **1** *iz* danbatekoa; kolpe gogorra. ik **danba.**

Aurrena iristen zen, zortzietako **danbadekin** batera. Karlos Zabala

Kanta eta oihu haiekin batera, txistu baten soinua eta atabalaren **danbadak** nahastu ziren. Joan Mari Irigoien

Ate baten **danbada** entzun nuen. Alberto Ladron Arana

Raimundo Silvaren bihotzak indarrez egiten zuen taupa, belarrietan sentitzen zuen taupaden **danbada** . Jon Alonso

Kanoien **danbada** aditzean. Edorta Jimenez

**Danbada** haren hotsak itzartu ninduen ni ere. Edorta Jimenez

**Danbada** batez itxi nuen atetxoa. Alberto Ladron Arana

**2** (izenondoekin)

Kaleko atea itxi zuten **danbada** handiz. Karlos Zabala

**Danbada** itzela izan zen, munduaren azken eguneko tronpetek joko ei zituztenak baino ozenagoa. Edorta Jimenez

Bat-batean **danbada** ikaragarri batek trena astindu du. Berria - Harian

Poliziaren sirena hotsak, ke pote eta pilotakaden **danbada** sikuak. Paddy Rekalde

Bere barrunbean ate-**danbada** idor bat entzuten du, eta **danbada** horrek adierazten dio beste zorigaitz bat erori zaiola gainera, are gaitzagoa: han barruan preso egotetik preso bat izatera igaro da Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Luze gabe, **danbada** sorta aditu du alde hartara. Aingeru Epaltza

Burua zera zuen... mutikoen esapidea etorri zitzaion gogora: "Burua **danbada** -hotsean!". Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ate **danbada** bat entzun da. Jon Alonso

Beste ate-**danbada** batzuek esnatu ninduten. Xabier Mendiguren Elizegi

Batzuetan, azken kanpai **danbadaren** zain egoten da merkantzia lau sosean erosteko... Karlos Zabala

Turuta-joaldi bat eta bi kanoi-**danbada** . Juan Garzia

Gutarikoa baldin bada, eta ikusi ez bagaitu, kanoi **danbada** batez hemen garela ohartarazi beharko zioagu. Edorta Jimenez

Segundo batzuk baizik ez dira iragan metrailadore-**danbadak** eta leherketa hots ezagunak belarriratu zaizkielarik. Aingeru Epaltza

Beste trumoi-**danbada** bat entzun zen, hurbilago eta ozenago, eta, bat-batean, goian behean eraso zion euriari. Jose Morales

**5** irud/hed

Telecincok (- %2,08) ere sumatu zuen **danbada** . Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ate danbada** (5); **danbada aditu** (4); **danbada bat** (3); **danbada bat entzun** (3); **danbada batez** (3); **kanoi danbada** (3)

---

# danbadaka *adlag* danbaka.

Bular barnean **danbadaka** zebilkidan bihotzaren kolpe eroak. Alberto Ladron Arana

Lehen begiratuan igar zitekeen, orobat, han barruan inor ez zela sekula ateari **danbadaka** aritzen, ez eta eskaileretan zalaparta burrunbatsuan gora eta behera ibiltzen. Mirentxu Larrañaga

Harresiaren aurka **danbadaka** ari ziren beste bi dorreak ziren. Jon Alonso

---

# danbadatxo *iz* danbada txikia.

Atearen **danbadatxoak** eta motorearen hotsak, martxan jarritakoan, bat egin zuten. Migel Angel Mintegi

---

**danbaka** 1 *adlag* danba joz.

Gustatzen zitzaion [...] haize azkarreko gauetan jendeen deboila irudikatzen zuten egoitza erorietako ateak **danbaka** entzutea. Itxaro Borda

Zaintzaileak trenean zehar zebiltzan, ate guztiak **danbaka** itxiz. Iñaki Mendiguren

Platerak txistuka hegan eta ateak **danbaka**. Anton Garikano

Lurra **danbaka** zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak suak erreko ditu eta irentsiko. Elizen arteko biblia

Biolinek kirrinka egiten zuten, danbor bat **danbaka** ari zen. Koro Navarro

Ez ziren jada bakarrik eliza nagusiko kanpaiak **danbaka** ari, baizik eta halaberean Kristoren Odolekoak, Gurutze Berdekoak eta apika Santutegikoak. Juan Garzia

Gau hartantxe, infernua hasi zen: organotxoak, bozgorailuak, eztandak, uluak, kantuak, ezkilak, txistuak, **danbakoak**, marruak. Koldo Biguri

**2** ***danba-danbaka*** *adlag*

Autoan sartzean, haize zaflako galanta bildu eta tenpestak tenpestari etxeraino irauteko, **danba**-danbaka irakurgailuan tekno musika ezarri nuen. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ateak danbaka** (3); **danbaka ari** (3)

---

**danbaketa** *iz* danbada.

Iruñeko Alde Zaharrean oraindik **danbaketa** isolaturen bat entzuten bada ere... Aingeru Epaltza

---

**danbako** *iz* danbada.

Horren lekuko emakumearen karrasiak, gatazka eta solairuan kontra erortzen den gorputz indargabetuaren **danbakoa**. Hil-zeinuen **danbakoak**. Berria - Kultura

Zenbateko deskargak eta zenbateko **danbakoak**! Pello Zabala

---

**danbalada** *iz* danbada.

Hor dator mundua ekaitz zakarraren **danbaladekin**. Joan Mari Lekuona

---

**danbalaka** *adlag*

Serumaren poltsa eusteko oin metalezkoa tatarrazka zeramala, ematen zuen autobuseko barrari helduta zihoala **danbalaka**. Hasier Etxeberria

---

**danbar** 1 *iz* trumoien eta kidekoen hotsa. ik **danbarrada; danbarreko**.

Baina, non horrenbeste **danbar** eta bolajoko? Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Noiztik behingo hodei tripabeltz eta ekaitz **danbar** tanborrero horiek ere maite ditu, harik eta kazkabar erauntsiren bat ekartzen ez duten bitartean. Pello Zabala

Eguraldi-gizon edo eguraldi-maisuak halako soinuak jasotzen ditugu, anitzetan jaso ere, trumoi soinu eta **danbarretaz** gainera. Pello Zabala

**3** (onomatopeia gisa)

Erri askotan, Amezketan bezalaxe, dorreko kanpaiak ez zuen ordurik ematen: baina, Abemaritako hiru orduotan, karraka handi batez jotzen genuen elizatarian, **danbarra-danbarra-danbarra-danbarra**, egun horietako tenorearen berri adierazteko. Pello Zabala

**4** ***danbar hots*** (orobat ***danbarrots***)

Tximista lehertzean, adar bakoitzeko leherketa horren guneekiko desfaseak dakar horrenbesteko **danbar hots** segidokoa. Pello Zabala

**Danbarrotsak** harkaitzak amiltzean, jauzika zihoazen animalien lasterketa ikusezinak, basapiztien orroak, mendiko zokoguneek itzularazitako oihartzunak, edozerk uzten zituen beldurrez mugiezinik. Elizen arteko biblia

---

**danbarrada** 1 *iz* danbarra.

Danba! bidezidorretatik landa aldera itzultzen ari gintuan eta danbatekoa entzun genian atzean, eta gero, beti esan ohi dena, suziriak eta **danbarrada** guztia... Josu Zabaleta

Tiroketaren **danbarrada** ikaragarria izan zen, urrutitik zetorren morteroen hotsak estaltzeko modukoa. Josetxo Azkona

Bueno, esan genian, hau eginda zagok! Eta orduan, zurrumurru gor eta luzatua iritsi zen, dunbots eta **danbarrada** bihurtu arte hazi eta hazi zen; lurrak dar-dar egin zuen beste behin, lautada puztu eta arrakalatu egin zen, eta Orodruin ibaiak zalantza egin zuen. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Gu **danbarrada** guztiaren ondoko umeak gara ja. Joxe Azurmendi

---

**danbarreko** 1 *iz* danbarra.

Beheruntz datorren tximist adar batek gidatxoarekin tupust eginaz gero, hor lehertzen da izugarrizko **danbarrekoarekin**. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Ordutik makina bat haizete, trumoi-**danbarreko** eta beste hainbat ekaitz ibili eta lehertu dira. Pello Zabala

---

danbarrots ik **danbar 4**.

---

**danbartsu** *izond* danbar handikoa.

Ekaitz bateko trumoi-soka **danbartsuari**, tinbalada itzel bat bailitzan, Jaunaren mintzoa deitzen dio Pello Zabala

---

**danbateko** 1 *iz* kolpe gogor edo tiro baten hotsa; horrelako hotsa eragiten duen kolpea bera.

Esku itxiarekin mahaiari **danbatekoa** emanez esan ohi zenuen bezala, GE-ZU-RRA!! Iñaki Segurola

Leihoa irekita topatu zuen, haizeak leiho-orriak dantzatu eta lantzean behin **danbatekoa** emanaz. Joxemari Urteaga

Haizeak leihoen kontra jotzean eragindako **danbatekoen** ondorioz esnatu zen. Lopez de Arana

Erlojuaren mailuaren **danbatekoa** ere aditzen da, herio itzaliko ahotsa, iluna, bailaran oihartzun tristea duena. Koro Navarro

Tximistak zerua urratzean sortarazten duen **danbateko** moduko bat aditu zen solairu osoan. Josetxo Azkona

Errebolberraren **danbatekoa** gorgarriro lehertu zen egongelako horma sendoen artean. Alberto Ladron Arana

Guadalupeko gotorlekuan zeuden 155 mm-ko kanoi zaharrak nolakoak ziren, Donostiako **danbatekoak** Urnietan ere nola entzuten zituzten. Rafa Egiguren

Txistu-hots bat entzun zen, eta gero aizkoraren **danbatekoa**. Iñaki Mendiguren

Tronutik tximistak, **danbatekoak** eta trumoiak ateratzen ziren. Elizen arteko biblia

Eta **danbatekoak** izan dira aizkoraren hotsak. Alberto Barandiaren

Pistolarena bezalako **danbatekoa** entzun zen. Iñaki Mendiguren

Hamabiko handiaren **danbateko** bi gero, eta hor dator etxeko jauna, begiak beteta: [...]. Iñigo Aranbarri

Hiru **danbateko** izan ziren, eta gero isiltasuna. Edorta Jimenez

Hadassek bira egin zuen haragiaren bila joateko, takoi altuak **danbateko** joka. Koro Navarro

Almendra oskol barruan nola, halaxe hasi zitzaion garuna burezurraren barruan **danbateko** joka. tximistak zerua urratzean sortarazten duen **danbateko** moduko bat aditu zen solairu osoan. Koro Navarro

**2** (ateari dagokiona)

Atea muturraren aurrean itxi zion, **danbateko** batez. Lopez de Arana

Ateak **danbatekoa** jo zuen. Anton Garikano

**Danbatekoa** jo zion ateari. Anton Garikano

Bere gelan sartzen zen, atearekin **danbatekoa** joz. Karlos Zabala

Sukaldeko atearen **danbatekoa** entzun nuen. Bernardo Atxaga

Atearen **danbatekoak** galarazi dio Edurneren azkeneko hitzak entzutea: "Hire alaba duk, ezta?". Iban Zaldua

Nire onetik irtenda, ospa egin nuen kalera, ateari **danbatekoa** emanda. Anjel Lertxundi

Ateari **danbateko** bat eman eta kanpora egin zuen. Bernardo Atxaga

**Danbatekoa** eman eta alde egin nuen. Harkaitz Cano

Kalerako bidea hartu zuen, txilin-hotsa erabat estali zuen **danbateko** batekin. Harkaitz Cano

Horretan bi kolpe indartsu entzun zituzten, etxe barruan bi ate **danbatekoz** itxi izan balira bezala. Josu Zabaleta

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Pistolaren tiroa bezalako **danbateko** handi batez. Iñaki Mendiguren

**Danbateko** ederrak entzun ditut, eta ni hantxe, barruan, azkeneko harria jausi arte. **Danbateko** gogor bat sentitu zuen. Berria - Harian

Aurreko autobusean nindoan eta **danbateko** izugarria entzun dut; burua jiratu eta bi solairuko autobusaren erdia airean ikusi dut. Berria - Harian

Nijni Novgorodeko geltokira heldu baino hamabi versta lehenago, burdinbidearen bihurgune itxi batean zihoala, **danbateko** bortitz batek astindu zuen trena guztiz. Karlos Zabala

Nik zaurituriko morroiak lurra jotzen zuen unean bertan entzun nuen errebolberraren **danbateko** gorgarria. Alberto Ladron Arana

Igotzeko abiada hartzerakoan, ordea, **danbateko** sor bat sentitu nuen arroparen azpian, eta, aldi berean, sekulako ziztada izterraren goiko aldean. Rafa Egiguren

Sekulako **danbatekoa** sentitu nuen barruan letra haiek osatutako esaldiaz jabetzera heldu nintzenean: [...]. Juan Luis Zabala

Etorri, estropezu egin, oreka galdu eta itzelezko **danbatekoa** hartuko dute hainbat metro harantzago gelditzeko. Joseba Sarrionandia

Espa horren atzean, fededuna dago beti aurreneko **danbatekoa** emateko prest, eta inor izorratzen edo akabatzen badu, amodioaren izenean eginen dizu beti. Patziku Perurena

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere atzean Ronen hotsa entzuten zuen, bihurguneetan **danbateko**-hots txiki isil batzuk ateratzen baitzituen. Iñaki Mendiguren

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero, ate-**danbateko** bat entzun zen eta lasaitasuna berriro nagusitu zen. Lopez de Arana

Kugler zarata batean igotzen da eskaileretan gora, ate **danbateko** bat ematen du, eta eskuak igurtziz sartzen da, umore onez, keinuka, edo umore txarrez eta isilik, animuak nola dauden. Josu Zabaleta

Kanoi-**danbatekoen** pareko soinuak iristen ziren ibarretatik. Fernando Rey

Zenbat kanpai-**danbateko** emango ziren ere erabaki zuten airoso asko: Eguraldi on garbiaren anuntzioa, 3 danda joz abisatuko zen; baina hirunako hori beste 3 bider errepikatuta. Pello Zabala

Begiratu hitsak eta aurpegi hotz-hotzak, bai-ez erako erantzunak, etxea dardar batean jarrarazten zuten haserre-**danbatekoak**. Fernando Rey

**6** irud/hed

Dena den, iritsi eta lasterrera, Kopan, Zaragozaren aurka Romareda futbol zelaian jokatutako kanporaketan hartu zuen lehen **danbatekoa**. Berria - Kirola

Emazteak utzi duelako **danbatekoa** emanda alde egin nahi du mundutik; beraz, komuneko hodian lotzen du xingola handik zintzilikatzeko. Berria - Kultura

Gainera, Espainiako Renferen kontratua galdu duenez, **danbateko** latza jaso zuen. Berria - Ekonomia

Gamesaren (- %4,19) **danbatekoa** mozkin txikiagoen aurreikuspenak ekarri bazuen, ikuspegi makroekonomikoan ere laino beltzak nagusi. Berria - Ekonomia

Eguraldia bezain hotz ari ziren burtsak astean, eta aspaldiko partez **danbatekoa** jasoko zutela zirudien. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ate danbateko** (5); **ate danbateko bat** (5); **atea danbateko** (17); **atea danbateko batez** (14); **ateari danbateko** (5); **ateari danbateko bat** (3); **beste danbateko** (6); **beste danbateko bat** (4); **danbateko bat** (31); **danbateko bat eginez** (5); **danbateko bat emanda** (5); **danbateko bat emanez** (4); **danbateko bat entzun** (6); **danbateko batekin** (3); **danbateko batez** (27); **danbateko batez itxi** (16); **danbateko handi** (4); **danbateko handi bat** (3); **danbateko latza** (3); **danbateko ozen** (7); **danbateko ozen bat** (4); **eta atea danbateko** (5); **eta danbateko** (8); **eta danbateko batez** (3)

**ate danbatekoa** (5); **atea danbatekoa** (3); **atearen danbatekoa** (9); **atearen danbatekoa entzun** (3); **ateari danbatekoa** (7); **ateari danbatekoa emanda** (4); **danbatekoa eginez** (3); **danbatekoa eman** (6); **danbatekoa eman ondoren** (3); **danbatekoa emanda** (6); **danbatekoa emanez** (3); **danbatekoa entzun** (11); **danbatekoa entzun zen** (4); **danbatekoa ere** (3); **danbatekoa jo** (5); **eta danbatekoa** (5); **eta danbatekoa entzun** (3); **sekulako danbatekoa** (6)

**ateen danbatekoak** (4); **danbatekoak eta** (4); **danbatekoz itxi** (3); **eta danbatekoak** (5); **eta danbatekoaren** (3)

---

# danbatekoka *adlag* danbatekoak emanez.

Zakur baten zaunka, soinu ezin kokatuzkoak, baten bat burdina jotzen, zuraren kraskateko urruna, ateak **danbatekoka** etxerik ez zegoen lekuan, motor bat ardi bat bezala aldapa batean eztulka. Koro Navarro

Xereal eta Xankapo batez ere, ateari **danbatekoka** hasten zitzaizkion halakoetan... Iñaki Iñurrieta

Arrabioa ziztuan altxatu zen airean, eta txinpartaka eta **danbatekoka**, gelan itzulinguruka hasi zen bizi-bizi. Iñaki Mendiguren

---

**danbolin** *(ETCn 434 agerraldi; orobat* ***tanbolin*** *ETCn 5 agerraldi)* **1** *iz* ezkerreko besotik zintzilikaturik zotz bakar batez jotzen den danborra, ohikoa baino luzeagoa eta meharragoa, eskuarki txistuaren lagungarri erabiltzen dena.

Txistua eta **danbolina** ez ziren isiltzen. Txillardegi

Ansorenak txistua utzi eta **danbolina** jo zuen eskuekin tinbala bailitzan. Berria - Kultura

Inkisizio garaian gure alderdiotan epaitutako sorginik gehienak, bazuten zer ikustekorik zilibitu, firulin edo **danbolinarekin**, eta esan dezaket, beren izen deiturak bazituzten sorgin horiek, oro har jito kastakoak zirela. Patziku Perurena

Gero, herriak bereganatutako zitadelaren ondoko belardi batean, danbolindaria etorrita, jendea poz-pozik aritzen zen txistuaren eta **danbolinaren** soinuarekin dantzan. Koro Navarro

Uzkur begiratzen dio Soroak instrumentu guztiak, dultzainak eta panderoak, txistuak eta **danbolinak** dantza korroetatik baztertzen ari zen deabruaren tresna hari. Iñigo Aranbarri

Hainbat aldiz zutik jartzera, makila sorbaldan gurutzatuta dantzan egitera eta **danbolin** txikia jotzera behartu zuen hezleak hartza. Koro Navarro

· Han, gauak geldi-geldiak izan ohi ziren; leihoen parean gortinek ez zuten dardara txikiena ere egiten; kalean isiltasunaren **danbolina** aditzen zen. Eskarne Mujika

**2** danbolin joaldia.

Gero, arratsaldean eta ilundu arte, trikitia jo ohi zutela, eta **danbolina** eta dantza egoten zirela. Txillardegi

**3** danbor txikia.

David eta israeldar guztiak Jaunaren aurrean zihoazen gogotik dantzatuz eta kantatuz, zitarak, harpak, **danbolinak**, txilinak eta turutak joz. Elizen arteko biblia

Pozez eta kantuz agurtuko zintudan **danbolina** eta zitara joz! Elizen arteko biblia

Miriam profeta-andereak, Aaronen arrebak, **danbolina** hartu zuen eta ondotik joan zitzaizkion emakume guztiak ere, **danbolina** joz eta dantzan. Jose Antonio Mujika

**4** gaztainak erretzeko galdaratxoa, danbolinaren itxura duena.

Pinu, goroldio, elur, erreka, zubi, ardi, asto, idi, lasto, enbor, su, **danbolin**, gaztain erre, hiru errege, izar gidari, belengo estalpe, orentzero, preso, kanta, errito, jostailu, angula, turroi, loteria, txanpan edo birjina maria santisima, igoal igoal dio. Patziku Perurena

Pheiak askatu dizkidatenean ere horixe pentsatu izan dut, lasterka hasteko hagindu eta **danbolina** baino zulatuago utziko nindutela. Koldo Izagirre

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Isildu da **danbolin**-soinu alaia, amaitu da festazaleen zarata-hotsa, isildu da zitara-soinu alaia. Elizen arteko biblia

Txirula eta **danbolin** topaketak izango dira asteburuan Zangozan. Berria - Kultura

Nafarroako Txuntxuneroen Adiskideen Elkarteak txirula eta **danbolin** musikarien topaketa antolatu du. Berria - Kultura

Duela 30 bat urte txistu eta **danbolin** ikastaroak baziren, baina musikalki interesik ez zutelakoan baztertu egiten ziren kontserbatorioetan. Berria - Kultura

**6** ***danbolin-jole*** ik **danbolintero**.

Profeta-trantzean aztoraturik etorriko dira, psalteri- eta **danbolin**-joleak, txirula- eta zitara-joleak aurretik dituztela. Elizen arteko biblia

**danb** *(15 agerraldi 2 liburutan; ETCn 16 agerraldi)* *iz* danbolin-jotzailea. ik **danbolintero**.

Hantxe ezagutu ditugu Tomas **danbolindaria** eta Senpe deitzen dioten aitona bat. Hasier Etxeberria

Gero, herriak bereganatutako zitadelaren ondoko belardi batean, **danbolindaria** etorrita, jendea poz-pozik aritzen zen txistuaren eta danbolinaren soinuarekin dantzan. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **danbolin eta** (5); **danbolina eta** (4); **danbolina joz** (3); **eta danbolin** (7); **eta danbolina** (5)
> **[3] tomas danbolindaria** (3); **tomas danbolindariak** (7)

---

**danbolintero** *(6 agerraldi 2 liburutan; ETCn 46 agerraldi; orobat* ***danbolitero*** *17 agerraldi liburu 1ean; ETCn 17 agerraldi, eta* ***tanbolitero*** *g.er)* **1** *iz* danbolindaria, danbolin-jotzailea.

Pagoeta Eguna edo horrelakoren bat izango zen, garai hartan **danbolintero** eta soinu-jotzaileek erromeria giroan egiten baitzuten joan-etorria. Xabier Etxabe

**2** (pregoia jotzen duena)

Halako jarreran egon ginen luzaroan, harik eta soinua entzun arte, burua itzuli eta hara han **danboliteroa** bere pregoi abisuarekin tan tan tantanka zetorrela ikusi arte. Joseba Sarrionandia

Beste egun batean ere pregoia jo zuen **danboliteroak**, tan tan tatan tan, abisatzeko biharamunean Don Adolfo Arguedas Goñi guardia zibilen sarjentua epaitua izango zela udaletxeko epaitegian. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuen danboliteroak** (3)

---

danbolitero ik **danbolintero**.

---

**danbor** *(ETCn 2.875 agerraldi; orobat* ***tanbor*** *ETCn 9 agerraldi;* ***tanbur*** *g.er. eta* ***ttanbur*** *g.er.)* **1** *iz* zilindro baten gaineko eta azpiko aldeetan tinkatzen diren bi larruz osatutako musika tresna, bi makilez jotzen dena.

Gazte garaian herriko bandan **danborra** jo zuela azaldu zion Martinek. Aritz Gorrotxategi

**Danborra** jotzen eta pausoa zehazki markatzen. Jose Morales

4.400 bat gaztetxo, denak harro, **danborra** jo eta jo! Herria

Hatz puntez erretreta joka ari baitzen marmolezko mahaiaren gainean, **danbor** baten gainean bezala. Karlos Zabala

Bile-ko kaleetan, **danborrak** eta txirulak entzuten ziren, eta jendeak dantza egiten zuen pozez, besoak goraturik. Juan Kruz Igerabide

**Danbor** eta turuten soinu burrunbatsuaz lagundurik. Karlos Zabala

Hango **danbor** eta turuten harrabotsak, hirian barna durundatsu zebiltzalarik. Mirentxu Larrañaga

Soinu harmoniagabe haiei ehiza-adarraren nota guztiz zorrotzak eta **danborraren** errepika elkartu zitzaizkien, denen artean ezin eramaneko zalaparta sortuz. Koro Navarro

**Danborren** arrada luzea entzun zen, mendietako trumoiaren antzekoa. *ik beherago* 7. Agustin Otsoa

Isiltasunak, **danborren** durundiaren eta jendearen etengabeko marmarraren ondoren, inoiz baino aratzagoa zirudien. Bernardo Atxaga

Haren kristal zeharragiek dardara egiten zuten, **danbor** baten larrua iduri. Karlos Zabala

**Danbor** moduan sukaldeko tresnarik zaratatsuenak erabiliz. Askoren artean

Bestela, **danbor** batean txoriak edo loreak bordatzen aritzen ziren, koloretako hariekin. Juan Kruz Igerabide

Ijitoen kanpamentuan biolina eta **danborra** beren zorroetara bihurtu ziren, eta eskola hustu egin zen. Bernardo Atxaga

**2** (izenondoekin)

Atzean **danbor** txikiak eta handiak (surdo-ak, brasildar **danbor** txikiak, metalezko bidoia, zintzarriak eta beste perkusio txikiak). Berria - Kultura

**Danbor** handi bana joz heldu ziren biak, beltzez era berean estaliak danborrak. Patxi Ezkiaga

**Danbor** militarren errepika lakarra. Askoren artean

Zaldiek ere, Mozarten soinupean, dantza egiten zuten, beren eskuez zoruko **danbor** loretsua joz. Felipe Juaristi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Piano tristearen musika entzuten da, tronpeta eta **danbor** soinuarekin batera. Xabier Paya

Eta orduantxe zabaldu ziren azkarkiago Urgulldik korneta-hotsak eta **danbor**-dunbadak. Txillardegi

**Danbor** itxurako pakete borobil bat jaso zuen atzeko eserlekutik. Joxemari Urteaga

Soinu hark [...] parte gaiztoko **danbor** errepika baten antzera bizitzaren neurria markatzen zuen gupidarik gabe. Anton Garikano

Aurrealdeko hankak **danbor**-makilak bezain tente. Itziar Otegi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

*Deabru Beltzak* antzerki talde bilbotarrak itxiko du Caracasko (Venezuela) Nazioarteko Antzerki Jaialdia, *Les Tambours de Feu* (Su **danborrak**) kale ikuskizunarekin. Berria - Kultura

## 5 danbor itxurako hainbat gailuren izena.

Ardatzaren mutur batean **danbor** horztuna izaten dutela. Santiago Iruretagoiena

Paleten eraginez gurpilak laurehun buelta eman dituenean, biran dabilen danborrak ere, aldi berean, saihetsean erantsita daukan hortzarekin **danbor** horizontalaren hortz bat mugituko du. Santiago Iruretagoiena

Hala eguzkiak, zeinuen espazioetatik ibiliz egunak eta orduak luzatu eta mozten dituen bezala, hala iltze-burua ere erlojuetan zuloz zulo erdiko **danborraren** biraketa-zentzuaren kontra aurrera eginez, egunero pasatzen joaten da, [...]. Santiago Iruretagoiena

Zulo horretatik ura erregulartasunez pasaraziz, iraulita jarritako katilu bat igoarazten da, artisauek kortxoa edo **danborra** deitzen dutena. Santiago Iruretagoiena

Beraz, beheko **danborrak** ematen dituen laurehun bira bakoitzeko, goikoak bira bakarra egingo du, eta egindako bidea bost mila oinekoa izango da, hau da, mila urratsekoa. Santiago Iruretagoiena

Gurpilen **danborretan** zegoen batzuen eta besteen arteko muga. Karlos Zabala

## 6 errebolberretan, balak kokatzen diren danbor birakaria.

Gauean, osatu dute behinik behin errebolberra, eta **danborra** hiru balarekin betetzen hasi dira. Patxi Zubizarreta

Pedromarik beti-beti zabaltzen zuen nire saskia, baina ikusi ez gazta barruan zegon errebolberraren kulata, ikusi ez bizkotxoan zegoen errebolberraren **danborra**, edo ogi barruko kainoia... Patxi Zubizarreta

## 7 *danbor arrada* danbor joaldia.

Estandarteak flotatzen ari ziren airean, bular bandak desfilean zihoazen, bat-bateko **danbor arrada** batek eztanda egiten zuen haren belarrietan. Karlos Zabala

Hiru iturrietako bakoitzaren aurrean txanda iritsi zain egoten ziren neskameek eta haien laguntzaileek -okinek eta gudariek- suiletan jotzen zuten **danbor-arradetan** bilatu behar baita. Askoren artean

Harryk aintzira aldera begiratu zuen, bihotza **danbor-arrada** bezala entzuten zuela bularrean. Iñaki Mendiguren

Mab Erreginaren jauregiko lurraldeetatik **danbor-arradak** etorri ziren, errege-guardiak abisua jaso zuela adieraziz. Julen Gabiria

## 8 *danbor-errebolber* errebolber danborduna.

Dena delakoak **danbor-errebolber** batekin egin badu tiro, balaren azala berarekin eraman du. Koldo Biguri

-Scalako kritikari musikala izan behar da, tonalitateagatik bereizten jakiteko nola egin ote den tiroa, errepikapen-pistola batekin ala **danbor-errebolber** batekin! Koldo Biguri

## 9 *danbor hots* *(ETCn 332 agerraldi; orobat* ***danborrots*** *g.er.)*

**Danbor hotsek** eta oihu alaiek esnatu gintuzten. Txillardegi

Tronpeta eta **danbor hotsa** dator kale kantoitik. Xabier Paya

Nonbait, urrunera gabe, nondik ez zela, **danbor hots** bat entzuten zen, dunetako danbor misteriozkoa. Josu Zabaleta

**Danbor hots** ongi bereiziak, batzuetan zoliago, bestetan apalago, aldika gelдituz. Josu Zabaleta

**Danbor** eta turuta **hotsa**, kanoi-sutunpa. Juan Garzia

Lehen **danbor** eta txistu **hotsak** entzun orduko, txaloka eta aupaka erantzun zieten Jaizkibel konpainia animatzera gerturatutako herritarrek. Berria - Harian

## 10 *danbor joka*sup_1 *adlag* danborra joz.

Berarekin zihoazen eunukoak **danbor joka** ari ziren. Felipe Juaristi

Inaziok begia eman dio Gabrieli, haren hatzak **danbor joka** ari dira jatetxeko mahaiaren gainean, entzundako doinua airera eraman nahian. Felipe Juaristi

## 11 *danbor joka*sup_2 *iz* danbor jotzea.

Bildutako herritarren aurrean, hezlea ehiza-adar bat jotzen hasi zen, eta **danbor-joka** laguntzailea. Koro Navarro

## 12 *danbor jotze*

Ordu bertsuan, Trinitateko kaletik, han baitzeuden iturriak, guardia erreleboa ere igarotzen zen, harresietara bidean, danbor eta txilibitu musikaz; eta horrek, ura hartzeko ilaran zeudenen artean, upeletan **danbor jotzea** eragingo zuen, berez. Askoren artean

Martxaren **danbor** jotzeek [...] ur iturrian txanda iritsi zain zeuden bitartean, okinek eta urketariek beren upeletan eta neskameek beren suiletan denbora-pasa jotzen zituztenetan dute jatorria. Askoren artean

**Danbor jotzea** egiten dute, azal batean, danbor batean. Josu Zabaleta

## 13 *danbor-jotzaile* *(ETCn 121 agerraldi; orobat* ***danborjotzaile*** *ETCn 4 agerraldi;* ***danbor-jole*** *ETCn 103 agerraldi eta* ***danbor joile*** *ETCn 3 agerraldi)*

Hogei bat **danbor jotzailek** osatzen dute orkestra. Berria - Kultura

**Danbor-jotzaileak** zirela Donostian zeuden gizon serio bakarrak. Askoren artean

"La Euterpe" bandaren kide garrantzitsua zen **danbor-jotzaile** nagusi batek, L.A. delako batek, zuzendurik. Askoren artean

Kementsu zutitu, eta urrats zehatzekin ibiltzen hasi zen, eskuez **danbor-jotzailearen** mugimenduak antzeratuz eta ahotsarekin danborraren hotsa eginez. Jose Morales

## 14 *danbor nagusi* tanbor talde bateko tanbor-jotzaile nagusia.

Bola iletsu baten moduko kapela luzea zuen **danbor nagusiaren** makila dizdizariaren atzetik, gorriz jantzitako alabardarien ibilaldia zihoan. Lopez de Arana

Zaindaria gugana heldu zen: korsikar txiki erretxin bat zen, **danbor nagusiarenen** gisako biboteekin. Monika Etxebarria

· *(Donostiako Danborradan)* Pedro Luzarraga izan zen **Danbor nagusia**. Askoren artean

Danborradako **danbor nagusia** izan nahi duen gizona gaskoia da. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat danbor** (3); **da danbor** (3); **danbor bat** (12); **danbor baten** (4); **danbor eta** (12); **danbor handiaren** (3); **danbor hori** (3); **danbor horren** (6); **danbor hots** (5); **danbor hotsa** (9); **danbor hotsak** (11); **danbor joka** (3); **danbor jotzaile** (6); **danbor jotzaileak** (4); **danbor jotzailek** (3); **danbor nagusia** (6); **danbor txikiak** (3); **danbor txikiko** (3); **erdian danbor** (3); **eta danbor** (20); **eta danbor hotsak** (5); **tronpeta eta danbor** (3)

**dagoen danborraren** (3); **dagoen danborraren** (3); **danborra jo** (8); **danborra jotzen** (13); **danborra joz** (3); **danborrak ere** (3); **danborrak eta** (8); **danborrak eta txirulak** (3); **danborren arrada** (7); **danborren hotsa** (3); **edo danborra** (5); **eta danborra** (9); **eta danborrak** (5); **eta danborraren** (3); **eta danborraren** (3); **taiko danborren** (5); **urrezko danborra** (3); **ziren danborrak** (3)

danborjotzaile ik **danbor 13**.

---

**danborrada** *(orobat* ***tanborrada*** *g.er.)* **1** *iz* kalez kaleko danbor joaldia, eskuarki Donostian edo Azpeitian San Sebastian egunean egiten dena; danborrada jotzen duen danbor-jotzaile taldea. ik **danborraldi**.

Altzako jaietako **danborradan**. Joan Mari Irigoien

Herriko gertatu nagusi guztiak filmatu zituen kordea emanda zebilen 16 mm-ko Boilieu kamerarekin, ni ere filmatu ninduen 1960ko haurren **danborradan**, hantxe ageri naiz, auskalo zergatik, kopetilun. Koldo Izagirre

Bihar **Danborrada** Donostian eta Azpeitian... Txillardegi

Lehendabiziko urteetan **Danborrada** bakarra izaten zen; geroztik **danborrada** asko sortu ziren, auzo bakoitzak berea izan nahi izaten baitzuen. Askoren artean

«Uste baino jende gehiago ari da etortzen», adierazi du Juanjo Perez elkarteko **danborradako** arduradunetako batek. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Donostiako gainerako **danborrada** elkarteetako emakumeak gonbidatzea izango da, ziurrenik, Gaztelubiden aurten hartuko duten erabakia. Berria - Euskal Herria

**Danborrada** konpartsa horiek besterik gabe sortutako taldeak ziren askotan. Askoren artean

· Gizarte berria zen, itxuraz, musika, konpartsa eta herri **danborradari** oso emana. Askoren artean

Euskal Billerak lehen Haur **Danborrada** ateratzen du. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**artzak ortzeok danborradako** (3); **aurtengo danborradan** (3); **bazkidea eta danborradako** (3); **bi danborrada** (3); **danborrada antolatzen** (3); **danborrada ateratzen** (3); **danborrada bertan** (3); **danborrada bertan behera** (3); **danborrada eta** (5); **danborrada ez** (5); **danborradako partaidea** (3); **danborradan emakumeek** (3); **danborradan emakumeek parte** (3); **danborradan parte** (17); **danborradan parte hartu** (3); **danborradan parte hartzen** (6); **danborradaren festa** (3); **danborradaren jatorria** (6); **danborradaren jatorriari** (5); **danborradaren jatorriari buruz** (3); **danborradaren sorrera** (5); **donostiako danborrada** (9); **donostiako danborradaren** (4); **du danborrada** (6); **emakumeek danborradan** (3); **emakumeek danborradan parte** (3); **eta danborrada** (4); **eta danborradako** (8); **eta danborradako partaidea** (3); **euren danborradetan** (3); **gaztelubideko danborradako** (3); **haur danborrada** (4); **haur danborradaren** (3); **hazparneko danborrada** (5); **ortzeok danborradako** (3); **zen danborrada** (5)

---

**danborraldi** *iz* danbor joaldia.

**Danborraldia** bat-batean eteten zen geroago beste puntu batean hasteko, batzuetan gertuago, besteetan urrunago. Agustin Otsoa

---

**danborrari** *iz* danbor-jotzailea.

Donostian berean, 14.000ko bat **danborrari**, eguerditan 4.400 bat gaztetxo, denak harro, danborra jo eta jo! Herria

Larunbatean omenaldia egingo zaie Donostiako Udaletxeko Biltzar Aretoan 1980ean **danborrari** aritu ziren emakumeei. Berria - Euskal Herria

---

**danborrero** *(orobat* ***tanborrero****)* **1** *iz* danborraria.

Antonio zen gudarosteko **danborrero** euskaldun bakarra. Xabier Etxabe

Hiru xirulari eta bi **danborrero** zeuden, baita turuta bat ere. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Noiztik behingo hodei tripabeltz eta ekaitz danbar **tanborrero** horiek ere maite ditu, harik eta kazkabar erauntsiren bat ekartzen ez duten bitartean. Pello Zabala

---

danborrots ik **danbor 9**.

---

**dance** **1** *iz* musika estiloa, berariaz dantzari laguntzeko ondua, soinu sintetikoak eta erritmo oso markatua ezaugarri dituena.

Emakume hau ere kultura askoren jabea dugu eta bere arabiar sustraietan (Egipto aldeko aireetan, batez ere), **dance**, rap, hindi pop, rhythm&blues eta beste hainbeste murgiltzen dira. Vivaldiren Gloria, ondoren tekno eta **dance** musika, antzerkia, poema irakurketa, Txaikovski, berriro teknoa, berriro **dance** musika, folklorea... denetariko nahasketa, nolabaiteko kultura ezaren adibidea. Berria - Kultura

90eko hamarkadan poparen eta **dance** musikaren xarmaz busti ondoren, rockaren eta technoaren arteko nahasketa definitiboa egin nahi izan zuten Bonok eta lagunek. Berria - Harian

Funk **dance** elektroniko baten erritmo espitosoak. Paddy Rekalde

Duela hamar urte baino gehiago Parafunken lehenengo diskoa argitaratu eta Sirope kolektiboarekin Donostiako **dance** giroa astintzen hasi zenetik, Javi Pezek izengoiti ugari erabili ditu bere hamaika proiektuak gauzatzeko Berria - Kultura

**2** ***break dance*** hip hop kulturatik sorturiko dantza, hainbat gorputz higidura mota konbinatzen dituena.

**Break dance**-a normalean pertsona bakarrak egiten duen dantza da baina jaialdiaren antolatzaileek «dantza horren talde izaera» nabarmendu nahi dute, eta horregatik lau edota sei lagunek osatutako taldeek soilik hartu ahal izango dute parte bertan. Berria - Kultura

Europako lehen **break-dance** lehiaketa antolatu dute Arriola aretoak eta Logela multimediak. Berria - Kultura

Deigarria da balet klasikoko pausoei, **break-dance** erako mugimenduei eta dantzari bakoitzaren presentzia eszenikoari emandako protagonismoa. Berria - Kultura

Azokako eremuan, poesia, antzerki eta **break dance** saioak eskainiko dituzte hainbat gaztek. Berria - Kultura

Talde maketeroen kontzertuak, kultur sorkuntzaren aldeko kanpaina, film laburren ikuskizunak, **break-dance** erakustaldiak, komiki tailerrak... Berria - Euskal Herria

**3** ***break dancer*** break dance-ko dantzaria.

Alboan Selektah Sound System kolektiboko lagunak izango ditu, hainbat **break-dancerrekin** eta raperrekin. Berria - Euskal Herria

**3** ***dance hall*** *(orobat* ***dancehall****)*

Hardcoretik aldendu da [Sagarroi], eta reggae, ska, dub, **dance hall**, guaguanco, cumbia eta Balkanetako erritmo beroei bidea eman die *Toulouse* lan berrian. Berria - Kultura

*Buiaka* lanean jaso dituzte, reggae doinu klasikoetatik **dance hall** erritmo berritzaileetara zabaltzen diren jamaikar riddimak, hain zuzen ere. Berria - Kultura

Geure ukitua eman diegu musika beltzaren hainbat adarri: hip-hopari, rapari, **dance hallari**, raggari eta free style gisa uler daitekeenari. Berria - Kultura

Reggaearen, rhytm n'blues-aren, **dancehallaren** eta lovers rock-aren elementuekin egiten du bere musika, beti zuzeneko instrumentazioa erabiliz, ez baitu gustuko soinu elektronikoa. Berria - Kultura

---

**dancing** *iz* dantzalekua.

Baita dantza toki batzuetan..., han ere ibiltzen bainintzen Mugerreko gazte lagunekin, hala nola Angeluko "Le petit désir" **dancingean**... Menane Oxandabaratz

---

**danda** *iz* kanpaiaren edo kidekoen danbada.

Paretako erloju zaharrean orratz txikia bostetan jarri zen eta **dandak** entzun ziren. Iñaki Zabaleta

Erlojuak hamaiketako **danda** ozenak jo zituen. Joxemari Urteaga

Zenbat kanpai-danbateko emango ziren ere erabaki zuten airoso asko: Eguraldi on garbiaren anuntzioa, 3 **danda** joz abisatuko zen; baina hirunako hori beste 3 bider errepikatuta. Pello Zabala

---

**dandai** *adlag* ibiltzen ez dakien ume batez mintzatuz, zutik.

Edo gure gordelekuaren, gure menturaren misterioa konprenituaz bezala, lau zangotan hurreratu eta zutik jartzen zinen, **dandai**, pausurik eman ezinik, lehenengo zangoa aurreratzean erortzeko. Berria - Harian

---

**dandar** **1** *iz* herrestan eramaten den soineko edo ehun zatia.

Ama ondoan zeukan, zutik, dantzarako jantzi zuri bat soinean, farfaildun **dandar** bat herrestan, eta bere eskuen usain leun gozoak eztiki leuntzen zion masaila. Erdian dama pinpirin bat, morroi bik eusten zioten **dandar** luzea jantzita; eta **dandarrean**, karroza bat balitz bezala, neskato maitagarri bat zihoan etzanda, horrelaxe bidaiatzen baitute maitagarri aristokratikoek. Lopez de Arana

Jauntxoak uniformearekin, damen soinekoen **dandarrari** eusten. Julen Gabiria

**2** gandorra.

Nire alboan, hiru oilo saskian, elkarren kontra, luma multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, **dandarra** gora, uzki uzkurtu eta arrosa kolorekoak agerian. Joseba Sarrionandia

**3** ***dandarrez*** *adlag* arrastaka, herrestan.

Kilkerren hotsak lagun, protagonista eta bere laguna, gauez, **dandarrez**, erreketeen kanpamendura iritsi eta bi gauzaki jaurtitzen dizkiete etsaiei. Berria - Kultura

Idazmahaiko aulki jiragarria oin batez **dandarrez** eroan zuen Mentxuk bera zegoen tokiraino, eta berton jesarri. Josu Landa

Eta Edward Ashburnham taldekidea Nancyrengana **dandarrez** daroan indarra maitasuna da. Markos Zapiain

Patua onartzera, lasai eta goxo eroango zaitu; ez baduzu onartzen, aldiz, **dandarrez**. Markos Zapiain

---

**dandy** **1** *iz* maneretan eta janzkeran guztiz dotorea den gizona.

Nora ezerako balantzan zebilela, gau-leize horietako batean bihotza zeharkatu zion **dandy** bat ezagutu zuen: David Blakely. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dupin **dandy** bat da, itxuran nahiz arrazoibidean, bere lana dotoretasun matematikoz egiten duena. Koro Navarro

**Dandya**? goapoa? behar bezalakoa? herrian denetariko iritziak zebiltzan. Pablo Sastre

Oraindik ere **dandy** bat bezala janzten bazen ere, arropa zarpailak zerabiltzan. Koro Navarro

Gezurra badirudi ere, [Kant] gaztaroan ia **dandy** baten moduan bizi izan zen. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Aholku-ematen ari baitzitzaion, **dandy**-kutsuko pedantekeriaz. Xabier Olarra

**3** (izenondo gisa)

Modurik **dandyenean** jardunda, oro da plagioa, ondo da. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dandy bat** (6)

---

**danes** **1** *izond/iz* daniarra, danimarkarra.

**Danesa** dela erraiten dit. Piarres Aintziart

Norbait subjektibismoaren aldekoa baldin bada, hura da, filosofo mistiko **danesa**. Piarres Aintziart

**2** (txakur arraza)

Baserri batean bazuten **danes** handi horietako bat. Gotzon Garate

---

**danga** **1** *iz* kanpai hotsa. ik **dangada**.

Bazkaltzeko tenorea zen, eta bidaztiak deitu zituzten, kanpaiari **danga** batzuk joz. Karlos Zabala

Lauretako agerraldirako prestatzen ari zen; baina Elgetako kanpandorreko lau **dangak** ez zituen jo, edo bonbardaketa beranduegi iragartzen zuen kanpai hotsak estali zituen. Oroitzen zen egun hartan [...] norbaitek bere ondoan "kanpaiak isilduko balira, behintzat" esan zuela; izan ere, bonben leherketa bera estali nahi zutela baitzirudien, hain zen zitala haien **danga**. Ramon Saizarbitoria

Gaurko duda sakonen araberako **danga** saminek hautzaroko fedearen goxoa oroitarazi didate, kontrastez, orduko ezkilen boz xoragarriak niregana ezin arribatuz ari zirela. Piarres Aintziart

**2** irud/hed

Galderak **danga** egin zidan buru barnean: noiz jakin zuen ni ninduela parean, gezia jaurti aitzin ala jaurti ondoan? Aingeru Epaltza

**3** (onomatopeia gisa)

Charlie artean kanpai joka eta iufika aditu nezakeen behean, **danga** eta **danga** artean. Mirentxu Larrañaga

Ezkilak **danga danga** azkar joiten zituen, luzaz, galernaren lanjerra urrundu arte. Herria

**4** (hitz elkartuetan)

**Danga**-hots burrunbatsu hark ikaraturik, Big Joek larrituta zirudien bat-batean, eta belarrietan esku-zartaka ari zen. Mirentxu Larrañaga

· -Fortuna gurekin dugu! -egin zuen oihu agureak, kanpai-**dangak** arreta osoz kontatzen egon eta gero. Anjel Lertxundi

---

**dangaarazi,** dangaaraz, dangaarazten du *ad* danga joarazi.

Hornilloseko elizaren ezkilak, oroit naiz, **dangaarazi** zituzten eguna amaitzear zoala. Piarres Aintziart

## dangada 1 *iz* danga.

Charlie brinkoka eta herrenka sartu zen elizara, eta handik gutxira, kanpai handiaren tenore-eiteko **dangadek** oihartzun egin zuten herrixka osoan zehar. Mirentxu Larrañaga

Kanpai baten **dangada** entzun zuen bihotzean. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Ohi ez bezalako trafikoz bor-bor zegoen kalea, automobilzaleen tutu eta tranbia-gidari presatien **dangada** hots batean. Irene Aldasoro

· Erromeria hasi eta ilunabarrean, *ametsezkila* deitzen zitzaion kanpai-**dangadak** jotzen zituztenean. Pako Aristi

Uste zuten ezkila **dangadaren** soinuak ohi zuena baino gehiago irauten bazuen auzoan norbaitek laster hil behar zuela. Pako Aristi

**3** hurrupa.

Zizpuru luzea libratu zuen estreinako **dangadaren** ostean. Josu Landa

Mentxuren isiluneak **dangada** eskaintzaren aurreko gaira itzuli eragin zion solaskideari. Josu Landa

---

## dangaka *adlag* danga joz.

Dilindan baina isilik zeuden kanpai artetik igarotzean, bihotz-bihotzez gura izan nuen haietariko bat **dangaka** has zedila aurki. Mirentxu Larrañaga

---

## daniar *(129 agerraldi, 23 liburu eta 46 artikulutan; ETCn 1.317 agerraldi)* 1 *izlag/iz* Danimarkakoa, Danimarkari dagokiona; Danimarkako herritarra. ik **danimarkar**.

**Daniar** gortearen Norvegiako enbaxadoreak. Juan Garzia

Zoaz, kapitaina, ene partetik oles egin **daniar** erregeari. Juan Garzia

**Daniar** hautesleek Maastrichteko ituna berresteari emandako ezezkoaren ondoren. Koro Navarro

Holger **Daniarra**, Orreagan. Martin Anso

Hans Christian Andersen idazle **daniarrak** ipuin gogoangarri bat idatzi zuen zikoinari buruz. Patxi Zubizarreta

Unamunok hain atsegin zuen pentsalari **daniarrak** Isaaken historian ezagutu zuen fedearen paradoxen amildegia. Joseba Zulaika

Gailetak **daniarrak** edo horietakoak ziren, ustekabean aurkituak; une egokian, dena den. Migel Angel Mintegi

Ama inuita eta aita **daniarra** zituen, eta inuiten artean hazi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Daniarrak**, hain hizlari ona izanagatik, ez zidan laguntzarik bat ere eskaini eztabaidan. Fernando Rey

**2** (txakur arraza)

Aitonaren bertsioen arabera, **daniar** handi bat zen, baina beste batzuetan dogo bat deskribatzen zuen, eta behin batean San Bernardo bat zela aipatu zigun. Iban Zaldua

Erokeria hau egin duena bi aldiz da eroa; hau egiteagatik eta **Daniar** Handi bat akabatzeagatik, direnik eta zakurrik onenetakoak baitira. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **daniar handia** (7); **daniar handiak** (7); **daniar handiari** (3); **daniarrak ere** (3); **daniarrak ez** (3)

---

## daniera *iz* Daminarkan mintzatzen den gemaniar hizkuntza.

Norvegiak, esaterako, **daniera** hartu zuen hizkuntza gisa Danimarkarekin politikoki elkartzeko; dena dela, gaur egun Norvegiakoek errefusatu egiten dute hizkuntza eragin hori. Isabel Arrigain

Pello Lizarralde idazlearen *Un ange passe* [...] euskarazko ipuina, finlandierara, **danierara**, errusierara eta frantsesera itzuliko dute. Berria - Kultura

**Danieraz** Grønland; groenlandieraz, Kalaallit Nunaat. Bernardo Atxaga

Eta gero muga, handik tarte batera **danieraz** egiten ditek. Fernando Rey

Flensborg-Avis Alemaniako **danierazko** egunkariko zuzendari Bjarne Loenborg. Berria - Euskal Herria

---

## danimarkar *(80 agerraldi, 6 liburu eta 59 artikulutan; ETCn 732 agerraldi)* *izlag/iz* Danimarkakoa, Danimarkari dagokiona; Danimarkako herritarra. ik **daniar**.

**Danimarkar** martxa bat. Juan Garzia

Joanesek eskua eman zion Wolf printze **danimarkarrari**. Felipe Juaristi

CSCko Bjarne Riis kirol zuzendari **danimarkarra** fitxaketa onak egiten ari da hurrengo urtean koska bat igotzeko helburuarekin. Berria - Kirola

Goizero hartzen ditut kafea eta gurinezko gaileta **danimarkarrak**. Harkaitz Cano

Seguru asko ni ez nintzen hainbeste kexatuko gure agintariak **danimarkarrak** izan balira, edo suediarrak, edo nik al dakit, bada, nongoak. Hasier Etxeberria

**Danimarkarrak**, musulmanak eta demokratak gara eta ez zaigu gustatzen gure bandera erreta ikustea munduan egiten ari diren protestetan. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **danimarkarra eta** (4); **idazle danimarkarraren** (3); **zuzendari danimarkarrak** (3)

---

## dantza 1 *iz* gorputz higidura arin eta kateatuen multzoa, batez ere doinu baten arabera egiten dena; dantzatzea.

Egia esan **dantza** haiek ez zuten musikarekin zerikusi handirik, baina berdintsu zitzaien. Unai Iturriaga

Sarri, nahi baduk, **dantza** bat emanen diagu elkarrekin. Janbattitt Dirassar

Justinak **dantza** eten gabe, jende mordoarengandik aparte eraman zuen Joanes. Felipe Juaristi

**Dantza** utzi eta elkarri begiratu zioten. Lopez de Arana

Lantzarien **dantza** amaitu zenean, gelako bazter urrun batera alde egin zuen Gabrielek. Irene Aldasoro

Serorari besarkada bat emateko gogoa nuen, gerritik heldu eta gelan barrena **dantza** eragiteko gogoa! Josu Zabaleta

Aretoko **dantza**, jaialdi fin eta mugatuetarako grina biziagoa zuen jende hark. Askoren artean

Ezin lizunagoak dira beltzen **dantzak**... Joan Mari Irigoien

Ez al zaizu ene **dantza** gustatu? Patxi Zubizarreta

Liburuetan babestu nintzen, musikan, pinturan, **dantzan**. Joxan Elosegi

*ik beherago* 6. Askoren artean

Hurrengo egunean jai zen, eta neskalagun batzurekin Cormondera joan nintzen **dantzara**. Josu Zabaleta

Biolina eskuetan hartu eta jotzen hasten zen itsua, **dantzarako** piezak gehienetan. Felipe Juaristi

Zinema aretoa, jaietan **dantzarako** erabiltzen zena, herri sarreran zegoen. Josu Zabaleta

Gustatzen zaizu **dantza**? Oskar Arana

**2** (izenondoekin)

Ez zen baltsea, **dantza** dotoreago eta landuago bat baizik, naturalagoa ere bai, baltseak duen artifiziorik gabea. Felipe Juaristi

Bernardinok zigorrada batez abian jarri zituen zaldiak, trostan baino **dantza** geldian gehiago. Felipe Juaristi

Zeunerrek, komisarioaren aurrean kokiltzeke, bere hitzen **dantza** armoniatsuari eutsirik, ordu arteko ahaleginek hutsa izan zutela ondorio erantzun zion. Felipe Juaristi

Zazpi bikotek-edo, **dantza** lotuan egin omen zuten. Xabier Etxabe

**Dantza** askatuan hasi dira gutariko bi, astiro-astiro, beren adinari dagokion maneran. Anjel Lertxundi

**Dantza** pribatuak eskaintzea bezeroei gela ilunetan. Harkaitz Cano

**Dantza** garaikidea, klasikoa, tangoa eta flamenkoa ikusteko aukera. Berria - Kultura

**Dantza** flamenkoa gustatu egiten zitzaion, eta kantua ere bai, kantu soila zenean. Josu Zabaleta

**Dantza** sakratu dionisiakoa da hori noski, ez **dantza** friboloa. Joxe Azurmendi

Egongelan, gau-tximeletak bere **dantza** eroarekin jarraitu zuen. Fernando Morillo

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orkestra, koroa eta **dantza**-taldea prest omen daude. Anjel Lertxundi

Neure burua ikusi nuen bertan, baleen aurrean biolina joz, baleen **dantza**-zuzendari bilakaturik, baleen jaun eta jabe. Felipe Juaristi

Lasterka iragan zen **dantza**-aretotik, baltse arin presatia dantzatuz bezala. Felipe Juaristi

Emakumeak **dantza**-zapatilak erantzi zituen. Lopez de Arana

**Dantza**-urrats laburrak eginez haienganantz zihoala, zeta arrosazko soineko batekin. Lopez de Arana

**Dantza** jauziak zituen bereziki laket. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gizona billete zimurtu bat astintzen ari zen airean, salto txikiak eginez **dantza**-imintzio baldarrean. Anjel Lertxundi

Karmen **dantza**-doinu alai bat hasi zen eskuz mahai gainean jotzen. Inazio Mujika Iraola

Zineman agertzen diren pertsonaia horien moduko jendea, motorrak eta **dantza**-musika lagun duela ibiltzen dena. Ander Irizar

Han bildutako jendea **dantza**-korda bat osatzen hasi zen pixkana-pixkana, Ifarkoia hoteleko areto nagusia dantzaleku bihurturik. Anjel Lertxundi

Amaren **dantza**-zaletasunaren berri banian. Xabier Etxabe

Lerroek **dantza**-balantza egiten zuten begion aurrean. Jesus Mari Mendizabal

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ereserkiak eta laudoriozko hitzaldiak, goraipamenezko klake-**dantza**, Pamelaren amultsutasun gogoangarriaren laudorio luze-luzea. Oskar Arana

Lehengo suge-**dantzak** ikusteko mina gutxitu egin da. Gotzon Garate

Herio-**dantza** baterako albiste ematen zuen -eguna, ordua, lekua...- bertatik atera nuen txartelak. Anjel Lertxundi

Gorputz biluzien besarkada eta mugimenduak heriotza-**dantza** bat iruditzen zitzaizkidan. Joseba Urteaga

Nerea gerri **dantza** harrigarriari jarraitzen zitzaion, oinak lurretik jasotzeke. Unai Iturriaga

Kate-**dantzan** joaten ziren soroetan gaindi. Anton Garikano

-Bazakiat bala-**dantzaren** bat ibili dela bazterretan bart, zalaparta entzun baita puska batean, baina hortik aurrerakoan ez zakiat ezer. Juan Garzia

Ordu erdiko kanpai **dantzaren** ondoren. Koldo Biguri

Talde **dantza** inprobisatu bat gero, eta gizonezkoek pauso berriak asmatu zituzten. Irene Aldasoro

**5** irud/hed

-O, makil-**dantza** ederra emango nizuke nik! Lopez de Arana

Lopeztarrekin, Ternitarrekin eta Olivetti ingeniariarekin ere izan zuen gutun-**dantza**. Fernando Rey

Gizonezkoak emakumezkoekin dantza alaian hasten ziren, mihi eta esku **dantza** lizunean segidan, sabel **dantzan** gero. Felipe Juaristi

Ez dizut hitz egin garai hartan izan zen salatari-**dantzaz**. Karlos Zabala

Emakumeen aurretik igaro zen, berari begira zeudenik ohartzeke, haien soinekoen kolore-**dantza** [...] ikusteke. Felipe Juaristi

Su baten gar-**dantzari** begira. Juan Garzia

Langabeziaren zifren **dantza**. Berria - Harian

**6** ***dantzan****sup_1 adlag* ik **dantzaka.**

**Dantzan** eta kantuan geratu ziren besteak. Juan Kruz Igerabide

**Dantzan** ez ezik jauzika hasi zen: hegan ere egin izango zukeen ahal izatera. Bernardo Atxaga

Non ikasi dun **dantzan**? -galdetu zion Denverrek. Anton Garikano

**Dantzan** erakutsiko didazu, ama? Harkaitz Cano

Plazan bildutako jendea, une horretxen zain egon izan balitz bezala, **dantzan** hasi zen, mutila neskatxarekin, senarra emaztearekin. Felipe Juaristi

Llum kilikagarri hasten da **dantzan**, eta Joanek jokoa segitzen dio. Antton Olano

Soinu-jotzaile handi bat entzun dut, jendetza ikaragarria **dantzan** jartzeko gai izan dena, kantatzen ez duen pandero-jotzailea lagun hartuta. Xabier Etxabe

Gizon-emakumeak elkarrekin **dantzan** segitu zuten, bueltaka eta bueltaka denboraren gurpilean. Felipe Juaristi

Soineko loratudun emakumeak, eta [...] gizon tripadunak **dantzan** ikustea nostalgiaren aldareko erritual baldarra iruditzen zaio. Pako Aristi

**Dantzan** ari da gaixoa, ahizpari helduta, irribarrea ezpainetan. Imanol Zurutuza

Zetazko belo berdeak jantzirik **dantzan** ari zen emakume bat ikusi zuen Ellenek. Lopez de Arana

Azkoitiko joera, **dantzan** suelto, elkar ukitu gabe, zuan paradisua, eta Zumarragako balseoa, aldiz, infernua. Pako Aristi

Azkenik printzesa bat geratu omen zen **dantzan**: zurian zuri, dena zuriz jantzita. Felipe Juaristi

Pozez daude baserritarrak, beren arteko batek, **dantzan** artajorran baino hobeki zekien neska pinpirin hark, dantzaririk onena izatea lortu baitu Anjel Lertxundi

**7** ***dantzan****sup_2 irud/hed*

Eskaileretan gora hasi zen arinka, tripa lodia **dantzan**. Felipe Juaristi

Nire titiak handiak dira eta soinekopean **dantzan** ikustea gustatzen zait. Juan Martin Elexpuru

Pausoak gero eta hurrago, kandela argiaren garrak **dantzan**. Eduardo Matauko

Haizerik gabeko egun petoa da; hostoak **dantzan** jartzeko adina ere ez dabil. Pako Aristi

Zigarroa eskuan eta txiklea ahoan **dantzan**. Migel Angel Mintegi

Hara-hona zebilen, mingaina **dantzan**. Koro Navarro

Emakumearen agerpenak, begia alaitzeaz gainera, **dantzan** jarri zion bihotza. Felipe Juaristi

Ilehoriaren afera buruan **dantzan** irten zen kalera. Migel Angel Mintegi

Zeren eta bi izen haiek bainituen burmuinetan **dantzan**... Joan Mari Irigoien

Bere baitan bozkarioa **dantzan** zebilkiola, masailgorritu egin zen. Patxi Zubizarreta

Letra beltzak **dantzan** zebilzkion begien aurrean. Lopez de Arana

Indar guztiak **dantzan** jarriz saiatu zen Gabriel bere asaldura ezkutatzen. Irene Aldasoro

Kirioak **dantzan**, George Baldwingek atzerantz egin zuen, aulkiaren bizkarrari helduz. Lopez de Arana

Edurneren irria **dantzan** jarritako kriskitina zen. Aingeru Epaltza

### 8 *dantza egin* (*271 agerraldi, 88 liburu eta 49 artikulutan; ETCn 593 agerraldi*)

Zein ondo **egiten** duzun **dantza**! Lopez de Arana

Neskarekin estu-estu **dantza egiten** saiatu zen. Lopez de Arana

Musika harekin **dantza egiten** ez zuena hilda zegoen barrutik. Pako Aristi

Zertara joaten da osaba Miarritzera? Parisko turista andreekin **dantza egitera**? Bernardo Atxaga

Norekin **egin** huen **dantza**? Anjel Lertxundi

**-Dantza egitera** gonbidatu beharko nauzu -esan nion lotsagabe-. al duzu, mesedez, nire emaztea **dantza egitera**? Arantxa Iturbe

Lurrean saltoka hasi zen, kriskitinak joz eta doinu bat kantatuz **dantza egiten** zuen bitartean. Xabier Olarra

Afro-amerikarrek ostera, lurrerantz, sustraietarantz begira **dantza egiten** ditek... Harkaitz Cano

Batzuetan, biluzik **dantza egiten** dute, eta biluzik agertzen dira aretoan. Jose Morales

Bada Azkoitian, kaskailuak izan, debekatua zegoela **dantza** helduta **egitea**, baina Zumarragan libre. Pako Aristi

**Dantza egitea** ere zahartu egin den festa-jokoa da. Pako Aristi

· **Dantza** pixka bat **egin** behar dugu gure andregaiok beste batzuekin joan baino lehen. zuhaitzetatik txirulak moztu eta, horiekin sortutako doinuekin, **dantza** estasiraino **egiten** duen umea. Bernardo Atxaga

Eta han **dantza** ulergaitzak **egiten** dituzte ilunabarrera arte. Txillardegi

Baina azken batean animaliak gara eta apareamendu **dantza** ere **egin** behar dugu, geure erara, jakina. Sonia Gonzalez

· Batzuetan hitzek ahotik irten eta **dantza** bitxia **egiten** zuten, ia gure muturren aurrean, saguzarrak balira bezala. Lander Garro

Lerroek **dantza**-balantza **egiten** zuten begion aurrean. Jesus Mari Mendizabal

Ispilu inguruko bonbilla ugarien argitasun gorrikarak **dantza egiten** du Kattalinen tutu-jantzian. Anjel Lertxundi

· Miru majestuos bat ikusten ahal genuen, hegaldi zirkularretan **dantza** eta **dantza**. Joan Mari Irigoien

### 9 *dantza eragin* ik **dantzarazi.**

Serorari besarkada bat emateko gogoa nuen, gerritik heldu eta gelan barrena **dantza eragiteko** gogoa! Josu Zabaleta

Danborra jo, herriko zaldirik ederrenetako biri **dantza eragiteko** jotzen zuten, bizkarrean bi haur antzinako militar jantziak zituztela. Josu Zabaleta

· *irud/hed* Upelari su emanda, hagaren biran bueltaka **dantza eragiten** zioten upel sutuari, oihu eta txilio etengabez lagunduta Pello Zabala

### 10 *dantza-lagun* (*orobat* ***dantzalagun***) *iz* norbaitentzat, dantzaren lagun duena. ik **dantzakide.**

-Zer begizko klase egin didazu, erabat honela itsutzeko? -galdegin zion mutilak **dantza-lagunari**, begiak zabal-zabal, irrika are zabalago. Felipe Juaristi

Berehala gizonezkoak emakumezkoa hartu zuen **dantzalagun** eta bueltaka hasi ziren denak nahasian. Felipe Juaristi

Pianoa jotzen hasi zirenean, **dantza-lagun** baten bila abiatu ziren mutil guztiak. Josu Zabaleta

Musikaren amaierarekin **dantza-lagunak** sakabanatu egiten ziren eta galdu bistatik. Felipe Juaristi

### 11 *dantza-mantza* *adkor* dantza.

Ezin bizi eta ezin hil egindako asteetan, eldarnioak zenbat giza irudi ez ote zizkidan ekarri, gisa berekoak, gero ohantzearen inguruan **dantza**-mantzan aritzen zitzaizkidanak. Aingeru Epaltza

### 12 *dantza-saio* ik **dantzaldi.**

Gobernadoreek **dantza-saioak** antolatzen dituzte beti, bestela ez lukete-eta aitoren semeen begikotasun eta begirunea irabaziko. Jose Morales

Afrika sorkuntzan izeneko ekitaldian kontinente horretako hiru taldek beren lurraldeari buruzko ikuspegi bana ekarriko dute, hiru begirada, hiru **dantza saio** eskainiko dituzte. Berria - Kultura

Han ere euskaldun multxo pollita bildu da bertsu eta **dantza saio** baten ikusterat. Herria

· **Dantza saioetan** ere trakets zebilen eta zuzendaria oso haserre zegoen berarekin. Aritz Gorrotxategi

### 13 *dantza-soka* (*orobat* ***dantzasoka***)

Igandean, goizeko 11-etan, **dantza-soka** luzea hondartza handiaren bazterrez-bazter. Herria

Igande huntan eskuz-esku josi dute 90 kilometra luzeko **dantzasoka** moduko bat, denak eskuz esku judu himnoa kantatuz, erakusteko ez dutela onartzen Jordania hunaindi hori auzoer uztea. Herria

### 14 *dantzan egin* (*73 agerraldi, 30 liburu eta 13 artikulutan; ETCn 136 agerraldi*) dantza egin.

Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta **dantzan egin** zuen, eta atsegin izan zitzaien Herodesi eta honen mahaikideei. Elizen arteko biblia

Dantzan segitu zuten, elkarrekin **dantzan egiten** zuten aurreneko aldia balitz bezala. Felipe Juaristi

**Dantzan egitea** asko gustatzen zitzaidan, baina ez nuen dantzan ikasteko aukerarik izan. Ana Urkiza

**Dantzan egiten** zuen erritmoaren legeei batere begirunerik erakutsi gabe. Lutxo Egia

Gizon ha, gaztetan, Rufino mutikoaren soinuan **dantzan egina** zan. Xabier Amuriza

Zarautzen helduan **dantzan egitea** libre zen, ez ordea Aian. Xabier Etxabe

Begira nola **egiten** duen **dantzan**! Koro Navarro

Edozein toki **dantzan egiteko** plaza bihurtzen zuen. Xabier Etxabe

Hainbat aldiz zutik jartzera, makila sorbaldan gurutzatuta **dantzan egitera** eta danbolin txikia jotzera behartu zuen hezleak hartza. Koro Navarro

Gero, ondoren edo tarteka, **dantzan egiteko** grina, arropak kendu eta erokeriak egitekoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezkilak eta eskuturrekoak janzten zituen orkatiletan; **dantzan egiten** zuenean, kanpai hotsa entzuten zen basamortu guztietan. Koro Navarro

### 15 *karrika dantza* kalejira, biribilkea.

Gero, karrika **dantzan** edo martxan sartzen dira Pilota plaza berrian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Goizean **karrika dantza** egin dute Santiago plazarat. Herria

Gero, eguerdiko Luzaidera berriz heltzen dira eta **karrika dantzan** sartzen Herriko Etxe ondoan dagoen Santiagoko plazan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Karrika dantzan** edo martxan sartzen dira Pilota plaza berrian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· *irud/hed* Garunak deusetan finkatzeko betarik gabeko **karrika-dantza** horretan. Aingeru Epaltza

Eskalatzailearen bulegotik gerentearenera eta gerentearenetik langile batzordeko buruarengana karrika-**dantzan**, Anaren andere-xakur, nagusiaren irriñoa sari. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**andaluziako dantza** (13); **antzerki dantza** (12); **antzerki eta dantza** (15); **arrola dantza** (7); **arrola dantza taldeak** (6); **ataitze dantza** (5); **azken dantza** (8); **baina dantza** (8); **baita dantza** (5); **bat dantza** (7); **bere dantza** (19); **beren dantza** (17); **beste dantza** (10); **bi dantza** (7); **da dantza** (26)

**dantza areto** (5); **dantza aretoa** (5); **dantza arin** (5); **dantza asko** (5); **dantza bai** (5); **dantza baino** (5); **dantza bat** (27); **dantza batean** (6); **dantza batzu** (9); **dantza bera** (7); **dantza bereziak** (6); **dantza berri** (6); **dantza berriak** (6); **dantza berrien** (9); **dantza bietan** (11); **dantza da** (10); **dantza ederrak** (5); **dantza edo** (12); **dantza egin** (59); **dantza egin eta** (5); **dantza egin nahi** (12); **dantza egin zuten** (6); **dantza eginez** (14); **dantza egingo** (10); **dantza egitea** (30); **dantza egiteari** (6); **dantza egiteko** (39); **dantza egiten** (65); **dantza egiten zuen** (11); **dantza egiten zuten** (12); **dantza egitera** (28); **dantza elkarte** (6); **dantza eman** (5); **dantza emanaldi** (6); **dantza emanaldia** (7); **dantza emanaldiak** (8); **dantza ere** (6); **dantza eskola** (11); **dantza eta** (247); **dantza eta kanta** (6); **dantza eta kantu** (27); **dantza eta kantuak** (5); **dantza eta musika** (31); **dantza eta soinu** (6); **dantza ez** (8); **dantza festibala** (7); **dantza garaikide** (5); **dantza garaikidea** (17); **dantza garaikidearen** (19); **dantza garaikideko** (5); **dantza hori** (7); **dantza horretan** (7); **dantza hungariarra** (6); **dantza hura** (5)

**dantza ikasketak** (6); **dantza ikastaldi** (6); **dantza ikastaldiak** (5); **dantza ikusgarri** (43); **dantza ikusgarri bat** (11); **dantza ikusgarria** (93); **dantza ikusgarriak** (20); **dantza ikuskizun** (8); **dantza ikuskizuna** (14); **dantza ikuskizunak** (6); **dantza irakaslea** (5); **dantza izan** (7); **dantza jaialdia** (6); **dantza jauzi** (12); **dantza jauziak** (16); **dantza klasikoa** (8); **dantza konpainia** (14); **dantza konpainiak** (13); **dantza konpainiaren** (6); **dantza lana** (7); **dantza lanak** (7); **dantza lotua** (16); **dantza lotuan** (6); **dantza**

**mota** (13); **dantza musika** (7); **dantza pauso** (10); **dantza pauso batzuk** (5); **dantza piko** (14); **dantza saioak** (5); **dantza sorkuntza** (5); **dantza talde** (19); **dantza taldea** (54); **dantza taldea eta** (7); **dantza taldeak** (83); **dantza taldeak bere** (6); **dantza taldearekin** (7); **dantza taldearen** (25); **dantza taldearen ikusgarria** (9); **dantza taldeko** (21); **dantza tradizionala** (9); **dantza tradizionalaren** (6); **dantza utzi** (5); **dantza zain** (9); **dantza zoroan** (5)

**den dantza** (9); **dira dantza** (6); **dituzte dantza** (6); **du dantza** (11); **duen dantza** (7); **duguna dantza** (5); **dute dantza** (10); **edo dantza** (13); **egindako dantza** (6); **elkarrekin dantza** (6); **en dantza** (5); **ere dantza** (22); **ereintza dantza taldeak** (6); **ereintza dantza taldeko** (8); **esku dantza** (12); **espainiako dantza** (6); **eta dantza** (277); **eta dantza taldeak** (5); **eta euskal dantza** (6); **eta larrain dantza** (9); **etan dantza** (6); **euskal dantza** (65); **euskal dantza berrien** (5); **euskal dantza eta** (8); **euskal dantza ikusgarria** (5); **euskal herriko dantza** (11); **ezpata dantza** (12); **garaztarrak dantza** (5); **gipuzkoako dantza** (5); **gure dantza** (9); **herriko dantza** (18); **hip hop dantza** (6); **hop dantza** (6)

**jendeak dantza** (7); **jendeak dantza egiten** (5); **kanta eta dantza** (11); **kantu eta dantza** (39); **karrika dantza** (5); **konduko dantza** (8); **konduko dantza ikusgarriak** (7); **kritika x dantza** (25); **kukai dantza** (6); **larrain dantza** (24); **larrain dantza eta** (6); **lehen dantza** (5); **mailako dantza** (6); **maitaldiaren konduko dantza** (7); **miarritzeko dantza** (5); **musika eta dantza** (34); **muskildiko dantza** (6); **ondotik dantza** (5); **patxi perez dantza** (7); **perez dantza** (9); **polliki dantza** (10); **soinu eta dantza** (14); **soka dantza** (8); **sorgin dantza** (5); **taldearen dantza** (6); **x dantza** (25); **zen dantza** (22); **zenbait dantza** (5); **zerain dantza** (9); **zerain dantza zain** (9); **zuen dantza** (13); **zuten dantza** (7)

**afrikako dantzak** (5); **dantzak airoski taldearekin** (6); **dantzak elkarteak** (8); **dantzak ere** (9); **dantzak eskainiko** (5); **dantzak eta** (31); **dantzak ikasi** (5); **dantzak izan** (6); **espainiako dantzak** (6); **eta dantzak** (44); **eta euskal dantzak** (5); **euskal dantzak** (71); **euskal dantzak airoski** (5); **euskal herriko dantzak** (5); **gipuzkoako dantzak** (5); **herri dantzak** (6); **herriko dantzak** (26); **herriko dantzak elkarteak** (8); **kantu eta dantzak** (5); **probintzietako dantzak** (7); **zazpi probintzietako dantzak** (6)

**ari ziren dantzan** (5); **aurrean dantzan** (5); **bat dantzan** (15); **batzuk dantzan** (5); **besteak dantzan** (5); **da dantzan** (14)

**dantzan ari** (118); **dantzan ari da** (8); **dantzan ari dira** (5); **dantzan ari diren** (5); **dantzan ari zen** (26); **dantzan ari ziren** (18); **dantzan aritu** (14); **dantzan aritzeko** (6); **dantzan edo** (6); **dantzan egin** (32); **dantzan egin nahi** (5); **dantzan egitea** (9); **dantzan egiteko** (12); **dantzan egiten** (13); **dantzan ere** (7); **dantzan eta** (52); **dantzan eta kantuan** (7); **dantzan ez** (6); **dantzan hasi** (51); **dantzan hasi zen** (13); **dantzan hasi ziren** (10); **dantzan hasiko** (6); **dantzan hasteko** (5); **dantzan hasten** (15); **dantzan ibili** (10); **dantzan ikustea** (7); **dantzan jarri** (34); **dantzan jarri zuen** (5); **dantzan jarriz** (5); **dantzan jartzeko** (12); **dantzan jartzen** (20); **dantzan segitu** (9); **dantzan zebilen** (9); **dantzan zebiltzan** (9)

**denak dantzan** (6); **dira dantzan** (12); **edo dantzan** (5); **elkarrekin dantzan** (5); **erdi dantzan** (6); **ere dantzan** (13); **errenteria dantzan** (8); **eta dantzan** (76); **eta dantzan ari** (7); **eta dantzan hasi** (9); **gainean dantzan** (14); **guztiak dantzan** (8); **hasi zen dantzan** (7); **hasi ziren dantzan** (5); **helduan dantzan** (5); **inguruan dantzan** (19); **jendea dantzan** (11); **kantuan eta dantzan** (5); **kantuz eta dantzan** (11); **kirioak dantzan** (17); **nuen dantzan** (6); **udaberria dantzan** (5); **zen dantzan** (19); **ziren dantzan** (20); **zuen dantzan** (8); **zuten dantzan** (5)

**da dantzaren** (7); **dantzara atera** (7); **dantzara joan** (5); **dantzarako musika** (7); **dantzaren bidez** (6); **dantzaren eta** (9); **dantzaren hilabetea** (5); **dantzaren munduan** (9); **dantzaren nazioarteko** (10); **dantzarik egiten** (5); **dantzarik ez** (5); **eta dantzara** (7); **eta dantzarako** (17); **eta dantzaren** (19); **eta dantzaz** (9); **eta dantzek** (5); **eta dantzen** (5); **euskal dantzen** (8); **jendea dantzara** (5)

---

## **dantzaburu** *iz* dantza katearen buru den pertsona.

Eskua luzatu nion Adari, eta, lehendabiziko erreparoak gainditu eta gero, dantzarien txirikorda luzatu genuen, Herio genuelarik beti ere **dantzaburu**. Anjel Lertxundi

---

## **dantzagarri** *iz* dantza daitekeena.

Reggaea, duba, jazza, funka eta beste estilo batzuk nahasten ditu koktel bero eta **dantzagarrian**. Berria - Kultura

Disko jartzaileen munduko «erritmo bizi eta **dantzagarriez**» jantzi dituzte *Noizpop* disketxeak argitara eman duen diskoko zenbait kantu: *Osaka, Aio Speisbois* eta *Isolation*. Berria - Kultura

Hark jazz moderno **dantzagarriaren** arloan irekitako bidea jarraitzen du Javi P3Z Orquestak. Berria - Kultura

Zaila baita popa, rock esperimentala, zarata, rockabillya eta doinu **dantzagarriak** nahasten dituen proposamena definitzea. Berria - Kultura

80ko hamarkadako rock ilunena eta erritmo **dantzagarrienak** berreskuratu eta eguneratu ditu *Cycle* talde espainiarrak *Weak on the rocks* lehenengo diskoan. Berria - Kultura

---

## **dantzagune** *iz* dantzatzeko gunea. ik **dantzaleku; dantzatoki**.

Atzealdetik, tango baten boladak eta ahots-aieruak zetozkien, baita oinek **dantzagunean** egindako igurtzildiak ere. Lopez de Arana

---

## **dantzaka** *adlag* dantzan.

Cassius Clay erasoka hasi da, apartatu egiten da sarritan gero berriz inguratu eta boxeatzeko, Joe Frazierren inguruan **dantzaka** ari da, nahi bezala ezin sartuz. Joseba Sarrionandia

Eskalatzaileak, paper mutur batean kaka-zaku idatzita, bolaluma bere hatz lodixken artean zerabilen **dantzaka**. Aingeru Epaltza

Musika joka eta ofizialak **dantzaka** ari ziren aretora itzultzeko bidea hartu genuen. Felipe Juaristi

Nik ostera erantzun, libertigarriak iruditzen zitzaizkidala euren dantza modernoak, ikusgarriak oso, jauzikaldi existentzialista haiek, nor bere zilborrarentzat **dantzaka**, nor bere imintzioak eraginka, nor bere hankak bihurrika. Joxe Austin Arrieta

---

## **dantzakide** 1 *iz* dantzalaguna.

Dantzan hasi ziren musika entzun orduko, musikaren doinuak barnera sartu bezain arin, hasieran bakarka, gero binaka, **dantzakidea** gizona ala emakume ote zen begiratzeke. Felipe Juaristi

**Dantzakide** otzanak ditun onenak. Anjel Lertxundi

Urtzi Aranburu nire lehenengo **dantzakidea** izan zen. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Erotismoa eta heriotza **dantzakide** zituzten eszena asko irudika nitzakeen Danel bezalako dekadente baten txantxa girotik neska gazte baten heriotzara bitarteko eremu zabalean. Anjel Lertxundi

---

## dantzalagun ik **dantza 9**.

---

## **dantzalari** *iz* zerbait dantzarazten duen pertsona. ik **dantzari**.

Ez zen kapitaina, marinela zen, kuberta-garbitzaile, lanbas-**dantzalari** bat, besotik heltzen zidana. Koldo Izagirre

---

## **dantzaldi** *(orobat **danzaldi** g.er.)* **1** *iz* dantza egiten den aldia, dantza-saioa.

Kalejira, **dantzaldi** eta kontzertuetarako erabiltzen da soinu txikia. Koldo Izagirre

Pastorala ez da kantaldi bat, ez eta **dantzaldi** bat. Herria

Hoteleko **dantzaldietan** soinua joz gero neure diruarekin joan ahal izango nintzen Bilbora ESTEn hasitako ikasketak bukatzera. Bernardo Atxaga

Eserita eman du **dantzaldi** osoa mutil batek, bere begirada gustuko neskarenarekin topatu den bakoitzean lurrera begiratu baitu honek. Xabier Mendiguren Elizegi

**Dantzaldi** bat eta borrokaldi batzuk antolatu nahi ditugu koartelean Gabonetarako, boxeolaririk aurkitzen badugu. Lopez de Arana

Enbaxadak antolatutako **dantzaldi** batean gertatu zen guztia. Xabier Olarra

*Salon-Teatro* eta *Salon Cruceta* dantzalekuak zeuzkan 1907 urtean, eta 50 **dantzaldi** eman zituzten bien artean. Koldo Izagirre

Gizonak **dantzaldi** batean emakumearen aurrean makurtu eta eskua eskainiz dantzara atera zuenean. Felipe Juaristi

Gaueko **dantzaldi** osoan, Preobrajensyko eta Pavlowskyko errejimentuen musika bandak etengabe aritu ziren beren errepertoriotik hautatutako polka, mazurka, scottish eta baltsik ederrenak jo eta jo. Karlos Zabala

Bi marokoar jipoitu zituztela Valentzian **dantzaldi** batetik ateratzean. Bernardo Atxaga

Dantzan beregana arrimatu nintzen, gainerako lagunak erabat ahaztuta, eta **dantzaldi** luzea egin genuen batera. Aitor Arana

**Dantzaldi** batera gomitatzen dituzte auzoetako mutil zaharrak eta, hona non bakoitzak berea emanez, haize berri batek jotzen duen herria. Herria

Larunbat aratsean, Ozazen, aihari eta **dantzaldi** Astrikarekin. Herria

Ondotik talo ta xingar eta **dantzaldia** Eztiki taldearekin. Menane Oxandabaratz

23 etan, **dantzaldia** *Gaubele* taldearekin. eta baziren lurrin-gatzak ere bai, kristalezko kutxa batean, badaezpada ere, neskatxak erraz zorabiatzen baitziren **dantzaldietan**. Felipe Juaristi

Hiru whisky eta bi **dantzaldi** arin pistaren erdian, gehixeago zorabia zedin. Aritz Gorrotxategi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Dantzaldi** egunetan, Angelek "kalejira" bat egiten zuen haren inguru guztian, eta hiru edo lau minutuko kontua izaten zen gehienera. Bernardo Atxaga

Roman ere konturatuta zegoen, eta ezkutuan egoten saiatu zen otorduaren azkenburukoetan eta **dantzaldi** -garaian. Inazio Mujika Iraola

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

«Ume sentitzen diren guztientzat» balio du Irrintzi taldearen *Haur* ***dantzaldia*** ikuskizunak. Berria - Kultura

Laka-Hariñordoqui bertsularia kantari entzunik bazkari-**dantzaldi** alai eta loriosekin bururatu dira oro. Herria

Eta jo aintzina besta giroan, zirko ikusgarriño batzuekin, dantza-jauzi, afari eta kontzertu-**dantzaldiekin** gauaren puntaraino. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**afari dantzaldi** (3); **dantzaldi bat** (15); **dantzaldi batean** (4); **dantzaldi batekin** (4); **dantzaldi baten** (5); **dantzaldi edo** (3); **dantzaldi eta** (9); **dantzaldi gaubele** (3); **dantzaldi handi** (3); **eta dantzaldi** (25); **eta dantzaldi bat** (3); **kontzertu eta dantzaldi** (6)

**aratsean dantzaldia** (4); **arratsean dantzaldia** (3); **azken dantzaldia** (4); **bezalako dantzaldia** (4); **bukatzeko dantzaldia** (3); **bururatzeko dantzaldia** (3); **da dantzaldia** (3)

**dantzaldia adartza rekin** (4); **dantzaldia entzun** (3); **dantzaldia entzun taldearekin** (3); **dantzaldia eztanda** (4); **dantzaldia eztiki** (6); **dantzaldia eztiki taldearekin** (4); **dantzaldia gaubele rekin** (3); **dantzaldia gaubele taldearekin** (5); **dantzaldia hiruak taldearekin** (4); **dantzaldia izan** (3); **dantzaldia izanen** (4); **dantzaldia izanen da** (3); **dantzaldia izango** (4); **dantzaldia izotz taldearekin** (3); **dantzaldia joselu anaiekin** (4); **dantzaldia kiki bordatxorekin** (4); **dantzaldia otsoak taldearekin** (9); **dantzaldia samain ekin** (3); **dantzaldia samain taldearekin** (10); **dantzaldia tabasco** (3); **dantzaldia triki** (3); **dantzaldia triki ta** (3); **dantzaldia trikia** (3); **dantzaldia xitoak** (20); **dantzaldia xitoak ekin** (3); **dantzaldia xitoak taldearekin** (11)

**duen dantzaldia** (3); **eta dantzaldia** (66); **eta dantzaldia samain** (5); **eta gauean dantzaldia** (3); **eta ondotik dantzaldia** (17); **etan dantzaldia** (15); **gauean dantzaldia** (5); **gauerditan dantzaldia** (6); **gero dantzaldia** (6); **goiti dantzaldia** (4); **haur dantzaldia** (3); **kontzertu eta dantzaldia** (4); **kontzertua eta dantzaldia** (5); **lehen bezalako dantzaldia** (4); **mutxikoak eta dantzaldia** (4); **ondotik dantzaldia** (57); **ondotik dantzaldia adartza** (3); **ondotik dantzaldia eztiki** (3); **ondotik dantzaldia gau** (3); **ondotik dantzaldia xitoak** (5); **taldearekin eta dantzaldia** (8); **tan dantzaldia** (5); **xingar eta dantzaldia** (4)

**alaska hoteleko dantzaldietan** (3); **dantzaldiak ere** (3); **dantzaldiak eta** (4); **dantzaldietan soinua** (3); **dantzaldiko erreginak** (4); **dantzaldira joateko** (3); **dantzaldirik ez** (3); **duen dantzaldiarekin** (3); **eta dantzaldiak** (4); **eta dantzaldian** (3); **eta dantzaldiarekin** (3); **hoteleko dantzaldietan** (5)

---

# dantzaleku *(181 agerraldi, 31 liburu eta 52 artikulutan; ETCn 1.169 agerraldi)* **1** *iz* dantzatzeko lekua. ik **dantzatoki.**

Eskuari esku, han bildutako jendea dantza-korda bat osatzen hasi zen pixkana-pixkana, Ifarkoia hoteleko areto nagusia **dantzaleku** bihurturik. Anjel Lertxundi

Tokatan biniloa jarrita, aspaldiko abesti zaharrak entzuten zituen bitartean sukaldea **dantzaleku** bihurtzen zuen emakumeak. Jasone Osoro

**Dantzaleku** arrunt batean bukatu nuen, harrapakari arrunten modura zebiltzan turista arruntez betea zegoena. Jon Muñoz

**Dantzaleku** bateko komunetara eraman ninduen, eta eskuan jarri zidan bidaiarako dirua. Fernando Rey

*Salon-Teatro* eta *Salon Cruceta* **dantzalekuak** zeuzkan 1907 urtean, eta 50 dantzaldi eman zituzten bien artean. Koldo Izagirre

Biok hiriguneko jatetxe batera joan ginen afaltzera, eta gero Sunset Boulevardeko **dantzaleku** batera. Xabier Olarra

Gehienetan, asteburuak Donibaneko "Sunset" **dantzalekuan** iragaiten nituen, 'Malibu orange' edanez, ingeles ala suediar kanpotiarrekin ligatzeko itxaropenaz beterik. Ramuntxo Etxeberri

Zuek betetzen dituzuen **dantzalekuetako** disc-jockeyak bakailao musika jarri beharra dauka. Pako Aristi

**Dantzalekuetako** argi sikodelikoak. Pako Aristi

Borroka **dantzalekuaren** barruan hasi zen, ixteko orduan, baina kanpoan jarraitu zuen. Iñigo Aranbarri

Bartzelonako gayen **dantzalekuetan** bikote heterosexualak direla gaur egun nagusi. Berria - Euskal Herria

Pasaiako kaleak eta hormak afixaz beteta zeuden, Hernaniko Young Play **dantzalekuan** jokatzekoa zen boxeo lehia iragarriz. Harkaitz Cano

Bonba-autoa zartarazi du ETAk Urdazubiko **dantzaleku** batean. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

54 Bide-jatetxea: "roadhouse" hitza errepide ertzean dagoen jatetxe-**dantzalekua** izendatzeko erabiltzen da. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bordatxo dantzalekuan** (5); **bordatxo dantzalekuaren** (3); **congreso dantzalekuko** (4); **dantzaleku batean** (3); **dantzaleku bateko** (4); **dantzaleku batera** (6); **dantzalekuaren alboan** (3); **dantzalekuaren aurka** (7); **dantzalekuaren aurkako** (3); **dantzalekuaren jabea** (4); **dantzalekuetara joan** (3); **doneztebeko bordatxo dantzalekuan** (3); **eta dantzaleku** (3); **eta dantzalekuetan** (5); **nuba dantzalekuan** (3); **nuba dantzalekuaren** (11); **nuba dantzalekuaren aurka** (5); **nuba dantzalekuaren jabea** (3)

---

# dantzalore *iz*

Bestelako izena du, baina gure aitak **dantzalorea** esaten zion, izena berak asmatuko zuen seguru asko. Joseba Sarrionandia

Bugainbileen usaina eta **dantzaloreen** mugimendua, ostera, etengabea, betirako bezala giroan. Joseba Sarrionandia

---

# dantzarazi, dantzaraz, dantzarazten **1** du *ad* dantzatzera behartu, dantza eragin.

21 aire eta kantu, entzuleak **dantzarazteko** : fandango, arin-arin, pasodoble, rumba, bolero eta bertze... Herria

Gaitzeko giroa ezarri dute jende guzia **dantzaraziz** . Herria

FIB-eko beterano Belle&Sebastianen pop jostaria etorri zen ondoren, ikuslegoa **dantzarazi** zuen saio argitsua. Berria - Kultura

Baziren txirula joaz sugeak **dantzarazten** zituztenak ere. Xabier Montoia

Sugea **dantzarazten** duena ez omen da musikaren soinua. Gotzon Garate

**2** irud/hed

Seguru nengoen gobernu haiek erabili eginen gintuztela eta, txotxongiloak bezala **dantzarazi** ondoren, ahantzi eginen gintuztela gero. Alberto Ladron Arana

Ikara ikusi du ziba **dantzarazten** ari den ume baten begietan. hogei minutuz **dantzarazi** zituen kanpaiak festa-doinuz. Harkaitz Cano

Buruan, zetazko txanoak, larruzko ertzarekin eta haizeak **dantzarazten** zituen hiru xingolekin. Karlos Zabala

Justu izotzak **dantzarazi** ondoren Cardhua eztarrira hustu dudanean. Pako Aristi

Esku ahurrean **dantzarazi** zituen txanponak une batez. etxeko leiho guztiak bonbardaketen beldurrez itxita eta kandela dardarati baten argi motelak piezen itzalak luzatu eta **dantzarazten** zituela. Aritz Gorrotxategi

Egia bestelakoa zen; Gavardi mingaina **dantzarazi** nahi zion, isilkako kontuak ager zitzan. Karlos Zabala

Lan gehiago eman ziguk ospitaleko medikuak limurtzeak hire lagunaren mihia **dantzarazteak** baino. Aingeru Epaltza

Horixe da, nonbait, gure amodioa, eraspena edo atxikimendua (nolazpait esateagatik) hitzetan **dantzarazteko** moldea. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dantzarazi zituen** (3); **dantzarazi zuen** (3)

---

# dantzari 1 *iz* dantza egiten duen pertsona, bereziki dantza talde batean.

Kristalezko ontzi fin bat lurrean jarrita, eta hanka arin eta biziko **dantzari** bat haren inguruan jiraka eta bueltaka. Bernardo Atxaga

Gero eta arinago **dantzariak**, eskuak eskua hartuta, gorputza gorputzaren aurka jarrita, begia begiaren eta ezpaina ezpainaren bila. Felipe Juaristi

**Dantzari** batek pauso zail bat egiteko erakusten duen erraztasun berarekin. Joxean Agirre

Hango kasinoko **dantzaria** naiz. Matías Mujika

Bi **dantzari** ari dira batera eta bestera agertoki huts batean. Oskar Arana

**Dantzariek** arkuak eta ezpatak. Berria - Harian

Bideoa eta dantza uztartu ditu Blanca Arrieta koreografo eta **dantzariak** '3600' obran. Berria - Kultura

Uztailaren 18an, ortziralea: 10.30etan, Kanboko karriketan, Eslobakia eta Siziliako **dantzariak**. Herria

Musikariak eta **dantzariak** ibiliko dira bazterren alegeratzeko. Herria

· **Dantzari**-pilotari horrek aire seriosa zeukan. Ramuntxo Etxeberri

Kathakali aktore-**dantzariak** jantzi pisutsua darama soinean, eta aurpegian, makillaje geruza lodia. Berria - Kultura

## 2 (izenondoekin)

Aurpegi pikortatsuak, sudur zapalak, sudur zuzenak, **dantzari** arinak, **dantzari** astunak... Lopez de Arana

Tomasek gorputz delikatuko neskatila misteriotsu bat aurkeztu zion, **dantzari** lirain gazte bat zen. Aritz Gorrotxategi

-Laztana, oso **dantzari** ona zara -urruma egin zuen neskak gero eta hurbilago. Lopez de Arana

Besta haundia izan zen, dena mintzaldi eder [...] eta euskal dantza, bi aldeetako **dantzari** hoberenekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Joxeaustinen aita **dantzari** amorratua zen. Xabier Etxabe

Pentsatu nuen zu bezalako andreak eta ni bezalako gizonak kristalezko ontzi hura bezalakoak garela, eta behin baino gehiagotan sentitu izan dugula **dantzari** ikusezin bat geure inguruan jiraka eta biraka Bernardo Atxaga

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Batzuetan lo bezala gelditzen nintzen ni ere, eta Obabako haranari begiratzen nion **dantzari** multzoaren gainetik. Bernardo Atxaga

Neska-mutilek, elkarri helduta, **dantzari**-kateak osatu zituzten. Fernando Rey

Bielorrusiako **dantzari** bikote bat. Herria

Beste zenbait arlo eta ekinalditan ez zen bera izan sortzaile eta gidari zuzena, baina bai ezinbesteko laguntzaile eta babesa: **dantzari**-elkartea eratzeko, antzerki-taldea sortzeko... Xabier Mendiguren Elizegi

Campuseko **dantzari**-lanpostu bat eskuratzeko ahaleginetan ari naiz... Lopez de Arana

**Dantzari** soineko garbi bat jantzi, orrazkera apaindu, zilar doratuko gerriko bat lotu, eta hartan ahoa eta eskutokia metal berekoak zituen sastagai bat ipini zuen. Patxi Zubizarreta

**Dantzari** argazkiak ageri ziren orrialde batean zabaldurik. Josu Zabaleta

Txistulariak, zaku karrerak, abeslari eta **dantzari** saioak, bertsolariak... Jokin Urain

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tango **dantzari** baten burua zian, gogoratzen nauk, edo neska dantzari batena. Josu Zabaleta

Lanbide honetan strip-tease **dantzariaren** pose ustel eta manipulatzaileak ez dira aski. Patxi Iturritegi

Aurora topless **dantzaria** izana zen Queens-en. Oskar Arana

## 5 (izenondo gisa)

Ur laster nabigaezinak, babuino **dantzari** oihulariak, sugeak lotan, hortz-hobi gorriak zurien odol gozoaren zain. Anton Garikano

Ni haren izter **dantzariari** begira nengoen. Pello Lizarralde

Mihi **dantzaria** zuen. Aingeru Epaltza

Ipurtargi gorri **dantzariak** balira bezala. Fernando Morillo

Eta nire gorputzak, mugitzerakoan, itzal **dantzariak** eratzen ditu pianoaren beltzean, piano gaineko argazki zaharretan, hormaren zurian. Anjel Lertxundi

Ozen irakurtzen hasi zen, begi bat itxiz letra **dantzariak** geldiarazteko. Koro Navarro

Artega ari zen gimnasioan borroka aurreko jausitxo ohi baino **dantzariagoak** oin-punta ezkerrekotik eskumakora tartekatuz. Josu Landa

## 6 (adizlagun gisa)

Saulen alaba Mikalek, leihotik begiratuz, David erregea jauzika eta **dantzari** ikusi eta mesprezatu egin zuen barru-barrutik. Elizen arteko biblia

Israelgo herrixka guztietatik bidera atera zitzaizkion emakumeak Saul erregeari, bozkarioz kantari eta **dantzari**, danbolinak eta txilinak joz. Elizen arteko biblia

Ospitaleko gelako leihoetan eguzkia **dantzari** zebilen hara eta hona. Edorta Jimenez

Zuzen begiratzen zidan, aurpegia aurreratuta, txinparta gozo eta maitekor bat begietan **dantzari**. Ramon Saizarbitoria

## 7 *dantzari talde* (*orobat* ***dantzaritalde*** *g.er.*)

Aretoan bertan, paretarik pareta saltoka dabilen **dantzari taldearen** irudiak ageri dira sarrerako pantaila erradoian. Berria - Kultura

**Dantzari talde** bat osatu zen, berebat koru txiki bat, zine-forum bat helduentzat eta haurrentzako zinea, "super 8" kamera zahar bat lortua baitzuen gotzaindegitik. Juan Kruz Igerabide

Euskal dantza monitore izaiteko, eskoletan eta **dantzari taldetan**. Herria

1979. urtean "Garaztarrak" **dantzari taldeak** omenaldi bat ederra eskaini zuen Fauxtin-en oroitzapenetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 8 *emakume/neska/neskato dantzari*

Etxe hartan, hirugarren solairuko geletako batean, bi emakume **dantzari** ohi bizi ziren, senatari zahar baten babestuak. Josu Zabaleta

Haragien toles zabalek neska **dantzari** baten gona bilduak zekarzkioten gogora. Karlos Zabala

Hau neska **dantzari** arabiar bat da. Lopez de Arana

Neska **dantzari** tropel bat sartu zen orduan plazara. Karlos Zabala

Eskuin aldeko barran jarrita zegoen zigarro bat erretzen eta agertokira atera berri zen hurrengo neskato **dantzariari** begira. Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bada dantzari** (3); **balleteko dantzari** (3); **bat dantzari** (11); **bere dantzari** (6); **bertan dantzari** (3); **beste dantzari** (6); **bezala dantzari** (3); **bi dantzari** (5); **bost dantzari** (6)

**dantzari apartak** (3); **dantzari ariko** (3); **dantzari ariko dira** (3); **dantzari bakoitza** (3); **dantzari bat** (13); **dantzari batek** (10); **dantzari batek aurreskua** (3); **dantzari batekin** (3); **dantzari baten** (14); **dantzari batzu** (8); **dantzari batzuk** (3); **dantzari bezala** (3); **dantzari bikaina** (5); **dantzari buruz** (4); **dantzari buruzko** (5); **dantzari dagokionez** (4); **dantzari eguna** (3); **dantzari ekin** (6); **dantzari eta** (70); **dantzari eta kantari** (4); **dantzari eta koreografoak** (5); **dantzari eta musikari** (8); **dantzari eta musikariak** (3); **dantzari eta soinulari** (6); **dantzari eta txistulariek** (5); **dantzari gazte** (9); **dantzari gazteak** (17); **dantzari gazteak ere** (3); **dantzari gazteei** (3); **dantzari gazteek** (4); **dantzari gazteen** (3); **dantzari gehiago** (3); **dantzari gisa** (4); **dantzari guziak** (4); **dantzari guztiek** (3); **dantzari guztien** (3); **dantzari ohi** (4); **dantzari profesional** (3); **dantzari profesionalak** (3); **dantzari talde** (17); **dantzari talde bat** (4); **dantzari talde hunek** (3); **dantzari taldea** (7); **dantzari taldeak** (15); **dantzari taldearen** (6); **dantzari ttiki** (12); **dantzari ttipi** (4); **dantzari txiki** (7); **dantzari txiki eguna** (3); **dantzari txiki egunean** (3)

**den dantzari** (5); **dira dantzari** (5); **donibane dantzari** (10); **du dantzari** (3); **dute dantzari** (3); **elgar oinka dantzari** (3); **ere dantzari** (4); **eta dantzari** (60); **eta dantzari ekin** (3); **eta ere dantzari** (3); **euskal dantzari** (5); **gainean dantzari** (3); **hainbat dantzari** (3); **hango dantzari** (3); **haur dantzari** (5); **herriko dantzari** (4); **herriko dantzari eta** (3); **jon maia dantzari** (3); **kantari eta dantzari** (8); **ko dantzari** (8); **koreografo eta dantzari** (4); **maia dantzari** (3); **munduko dantzari** (3); **musikari eta dantzari** (6); **neska dantzari** (7); **oinka dantzari** (3); **oso dantzari** (3); **soinulari eta dantzari** (4); **taldeko dantzari** (6); **xuberotar dantzari** (4); **zen dantzari** (4); **zirikolatz dantzari** (3); **zirikolatzeko dantzari** (7); **zirikolatzeko dantzari gazteak** (6); **zortzi dantzari** (3)

**baztango dantzariak** (3); **da dantzaria** (4); **dantzaria da** (5); **dantzaria eta** (7); **dantzariak dira** (5); **dantzariak ere** (8); **dantzariak eta** (26); **dantzariak izan** (3); **dira dantzariak** (12); **diren dantzariak** (4); **eta dantzaria** (8); **eta dantzariak** (32); **herriko dantzariak** (3); **jeikadiko dantzariak** (3); **jon maia dantzariak** (3); **kantari eta dantzariak** (3); **koreografo eta dantzariak** (6); **lehen dantzaria** (6); **lehen dantzaria da** (4); **maia dantzariak** (3); **musikariak eta dantzariak** (3); **taldeko dantzariak** (10); **zen dantzaria** (3); **zirikolatzeko dantzariak** (4)

**dantzariei begira** (6); **dantzariek aurreskua** (3); **dantzariek beren** (3); **dantzariek eta** (8); **dantzariek parte** (4); **dantzariek parte hartuko** (3); **dantzariekin batera** (3); **dantzariekin eta** (3); **dantzarien artean** (4); **dantzarien biltzarra** (12); **dantzarien biltzarrak** (20); **dantzarien eta** (3); **dantzarien ibilaldia** (3); **dute dantzariek** (5); **eta dantzariek** (20); **eta dantzariekin** (5); **eta dantzarien** (9); **euskal dantzarien** (34); **euskal dantzarien biltzarra** (10); **euskal dantzarien biltzarrak** (16); **haur dantzarien** (4); **herriko dantzarien** (3); **maia dantzariek** (3); **taldeko dantzariek** (5); **taldeko dantzariekin** (4); **zen dantzarien** (3); **zuten dantzariek** (3)

**dantzarik egin** (3); **dantzarik egiten** (5); **dantzarik ez** (5); **dantzaririk onena** (3); **eta zuek dantzarik** (3); **zortzi dantzarik** (3); **zuek dantzarik** (3); **zuek dantzarik ez** (3)

---

## dantzarisa *iz* emakume dantzaria.

Bronxekoa ei zen jatorriz, osterantzean ez nekien deus ere Ivyz: hasieran **dantzarisatzat** hartu nuen, gero cocotte-tzat, baina ez dut uste, benetan, ez bata ez bestea zenik... azken batean, egiazki modelo-lanetan ziharduelakoan nago. Joxe Austin Arrieta

---

dantzaritalde ik **dantzari 7**.

---

dantzasoka ik **dantza 13**.

---

## dantzategi *iz* dantzalekua, dantzatokia.

Musikategi bat ari dute muntatzen Herausta auzogunean eta **dantzategi** bat eraikiko goraxago aipatu liburutegiaren sahetsean. Herria

---

## dantzatoki *(23 agerraldi, 9 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 78 agerraldi; orobat **dantza-toki** 8 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 21 agerraldi)* *iz* dantzatzeko tokia. ik **dantzaleku**.

Autoan sartu eta osteguna zenez, Young Play **dantzatokirantz** joatea erabaki zuen, oraindik zerbait egongo zelakoan. Harkaitz Cano

Kontzertu guztiak 22: 00etan izango dira, Luyber **dantzatokian**. Berria - Kultura

Zaharrenak, musean ari ziren, gazteak aldiz, edan eta edan, erdi-mozkortzen, **dantzatokira** joan aurretik. Daniel Landart

**Dantzatokiko** bar ondoan luzaz edarien zain egonik, adiskideengana nindoala, zinez uste gabetarik, gure begiek elkar jo zuten. Daniel Landart

**Dantzatoki** bateko parkinean dago eta argazkian agertzen ez den norbaitekin ari da hizketan, boxeolari baten afixen ondoan. Harkaitz Cano

---

## dantzatu *(ETCn 7.182 agerraldi)*, dantza(tu), dantzatzen **1** da *ad* dantza egin.

Ontzat emango dute hasieran gaitzetsi dutena, buruargia deituko diote ergelari eta ezin hobeto **dantzatuko** dira besteren doinuaren hotsean. Jose Morales

Gerrialdea eta ipurdia bizi-bizi mugituz **dantzatzen** ziren, baina gehienbat gerrialdea mugituz, garai hartan. Fernando Rey

Mutil erromantiko batekin **dantzatu** naiz, baina ezin izan dut ezer egin. Joseba Urteaga

Berriro ere **dantzatuko** naiz Jaunaren aurrean. Elizen arteko biblia

Eta, biak ala biak, gaueko ordu txikiak arte **dantzatzen** ziren. Fernando Rey

Emakumeak, alai **dantzatuz**, honela kantatzen zuten, batzuek besteei erantzunez: [...]. Elizen arteko biblia

Azkenean Marga altxatu egin zen eta sueltoan **dantzatzen** hasi zen kuwaitarraren parean. Iban Zaldua

Eta harantzago, lorategiaren mugan ia, harrizko hormaren aurka ia, bellvedere bat, orkestra txiki batek noiz edo noiz jotzeko eta bikoteek lotuan **dantzatzeko** propio egina. Felipe Juaristi

Pega-pega eginda **dantzatzen** zela eta lehenengo deskuiduan atzaparra bragetara bota ziola. Patxi Iturritegi

Gramofonora hurbildu eta **dantzatzeko** musika ipini zuen. Koro Navarro

• **2** du *ad (dantzatzen dena aipatuz)*

Ederki **dantzatu** du ohorezko Aurreskua. Txillardegi

Herriko neska-mutilek udaberriko kantak eta dantzak abestu eta **dantzatu** ohi zituzten arratsero, biribilean jarririk. Jose Morales

Baltse zoroak **dantzatu** zituzten maitagarrien zirkuluaren inguruan. Julen Gabiria

Salaren erdian, leku karratu batean, lau bikote tangoa **dantzatzen** ari ziren. Lopez de Arana

**Dantzatu** behar duen piezaren erritmoa markatu nahi luke. Anjel Lertxundi

Mister Lewinek ez zeraman soinean, jakina, inolako etiketa-jantzi ilunik, eta **dantzatu** ere mazurka modura egiten zuen dena. Joxe Austin Arrieta

Suprefeturan bururatu dute manifestazioa, mutxikoak **dantzatzen** eta garagardoak edaten. Berria - Ekonomia

· Aurreskua **dantzatu** zen arin arina, holakotan ohi den bezala. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ortzirale aratsean Jondoni Joane suaren inguruan, mutxikoak **dantzatzen** ahalko dira. Herria

**3** (nor/zer osagairik gabe)

Eta istorio honen hasiera eraikitzeko baliatu dudan azken hotsaz, [...] luze eta zabal hitz eginen dizuet ondoko orrialdeetan, istorio honek klinki-klanka motel haren erritmoan **dantzatzen** baitu. Alberto Ladron Arana

Elkarrekin **dantzatzen** genuen, Rosak eta biok. Unai Elorriaga

Maitagarrietako batzuek erritmoz kanpo **dantzatzen** zuten. Julen Gabiria

Lehen ondo **dantzatzen** huen hirugarren zerbezatik aurrera. Urtzi Urrutikoetxea

**4** *irud/hed (gorputzaren zatiak)*

-Gustatzen? -keinu pinpirin batez zangoa **dantzatu** zuen, bi eskuekin gona belaunetaraino biltzen zuela- Josuren oparia. Aingeru Epaltza

Begira nola **dantzatzen** dituen aldakak! Fernando Rey

Ikazkinak mehatxu egin zion ukabila airean **dantzatuz** : [...]. Anjel Lertxundi

Begiak **dantzatu** eta desafiozko begiratuak bota ditu. Itziar Otegi

Antjerekin ezin nuen mingaina libre **dantzatu** Giselarekin bezala. Fernando Rey

Zer egin dut nik hi honela ausartzeko ene aurka mihia hain zakar **dantzatzera** ? Juan Garzia

Hire mihi luzea amarrukeriaz **dantzatu** ostean, jai duk uste baldin baduk ene kafetegian jotzen utziko diadala. Patxi Zubizarreta

Han etorri zitzaizkigun zaunka, isatsa **dantzatuz** eta saltoka, iritsi ginenean. Xabier Olarra

**5** (bestelakoak)

Aitak irriño bihurri bat **dantzatzen** zuen ezpainetan. Alberto Ladron Arana

Zaletuak sari eske hasi ditun, painelu zuriak airean **dantzatuz** . Patxi Iturritegi

Zigorra **dantzatu** zuen hiru zaldien bizkar gainean, pozik zegoela adierazi nahirik eta zigortzeko asmorik gabe. Jose Morales

Zakurra hezteko, dena den, makila **dantzatzea** bide erabat okerra dela esaten dute Merkatari soila izateko, Korpanoff jauna, ederki **dantzatzen** duzu ehizako ganibeta! Gotzon Garate

Asaldaturik zeuden, odol-egarriz eta pistola **dantzatzeko** gogoz. Aritz Gorrotxategi

Atera zuen patrikatik bere dokumentu preziatua, eta arma bat bailitzan **dantzatu** zuen etsaiaren sudurpean. Josu Zabaleta

Zuzendariordearen hatz lodixkek bolaluma **dantzatu** zuten airean. Aingeru Epaltza

Une hartantxe, Remigio, gurdi gainean eserita, esku-soinua **dantzatzen** hasi zen, *Esku-soinuaren printzesa* piezaren lehen konpasak joz. Juan Kruz Igerabide

Haizeak bandera gorriak **dantzatzen** zituenean. Pello Lizarralde

Europak laster **dantzatuko** zuen Herioren dantza. Alberto Ladron Arana

Dagoeneko badu bikotea talde zurigorriak UEFAko final-hamaseirenetan **dantzatzeko** : Austria Viena. Berria - Kirola

· Arrazakeria eta xenofobia ere **dantzatuko** nituzke basakeria horien arrazoitzat. Karlos Linazasoro

Gosea, egarria, hotza: horiek denak **dantzatu** zituzten lehen egunetan, harro-harro. Karlos Linazasoro

· Baina, nola **dantzatzen** da egoera hau? Hasier Etxeberria

**6** da *ad*

Esku ikustezin aldaberek eraginda **dantzatzen** den txotxongiloaren pare. Aingeru Epaltza

**7** (era burutua izenondo gisa)

Hizkuntza ulertzen ez zutenek ere ulertu zuten poesia zer den, poesia dramatizatua, ironikoa, **dantzatua** , antzeztua, nik dakit ba. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**airean dantzatuz** (4); **aurreskua dantzatu** (18); **aurreskua dantzatu eta** (3); **aurreskua dantzatu zuen** (4); **bat dantzatu** (8); **batek aurreskua dantzatu** (3); **batekin dantzatu** (4); **dantzatu behar** (6); **dantzatu du** (4); **dantzatu dute** (3); **dantzatu eta** (11); **dantzatu ez** (3); **dantzatu izan** (3); **dantzatu nahi** (6); **dantzatu nuen** (4); **dantzatu ostean** (4); **dantzatu zen** (4); **dantzatu zioten** (3); **dantzatu zituen** (6); **dantzatu zituzten** (7); **dantzatu zuen** (24); **dantzatu zuten** (9); **dantzatuko dira** (5); **dantzatuko dituzte** (3); **dantzatuko dute** (12); **dantzatuz eta** (5); **ere dantzatu** (4); **ere dantzatuko** (4); **eta dantzatu** (6); **eta dantzatuko** (3); **mutxikoak dantzatu** (3); **mutxikoak dantzatuko** (4); **mutxikoak dantzatuko dira** (3); **nahierara dantzatu** (4); **nola dantzatu** (5); **ohorezko aurreskua dantzatu** (4)

**bitxiez dantzatzeagatik** (3); **bitxiez dantzatzeagatik famatuak** (3); **dantzatzea eta** (3); **dantzatzeagatik famatuak** (3); **dantzatzeagatik famatuak diren** (3); **dantzatzeko aukera** (4); **dantzatzeko eta** (3); **dantzatzeko gogoz** (3); **eta dantzatzeko** (5); **mugimendu bitxiez dantzatzeagatik** (3)

**asko dantzatzen** (3); **bat dantzatzen** (6); **bat dantzatzen ari** (3); **dantza dantzatzen** (4); **dantzatzen ahal** (5); **dantzatzen ahal zinen** (5); **dantzatzen ahalko** (3); **dantzatzen ari** (16); **dantzatzen ari dira** (3); **dantzatzen ari zen** (3); **dantzatzen den** (3); **dantzatzen dira** (4); **dantzatzen dute** (4); **dantzatzen duten** (3); **dantzatzen ez** (4); **dantzatzen hasi** (8); **dantzatzen hasi zen** (4); **dantzatzen hasten** (3); **dantzatzen zen** (3); **dantzatzen ziren** (5); **dantzatzen zuen** (6); **dantzatzen zuten** (5); **dantzatzen zutenak** (3); **eta dantzatzen** (4); **flamenkoa dantzatzen** (4); **mazurka dantzatzen** (3); **mazurka dantzatzen ari** (3); **mutxikoak dantzatzen** (4); **mutxikoak dantzatzen ahalko** (3); **nola dantzatzen** (6)

---

## dantzatxo *iz adkor* dantza.

Peeves ez zen batere laguntzen ari: korridore jendetsuetan agertzen zen han-hemenka "Oi Potter, beti oker..." abestuz, eta orain kantaren araberako **dantzatxo** batekin gainera. Iñaki Mendiguren

---

## dantzazale *izond* dantzaren zalea dena.

Hortaz, erregeak Vienako Enperadoreari idatzi, eta bere asmoak azaldu zizkion, eta Vienakoak onartu, osaba bezala musika eta **dantzazale** amorratua baitzen bera ere, gure erregearen lehengusu propioaz gainera. Felipe Juaristi

**Dantzazaleen** eta ez hain **dantzazaleen** festan, gustu guztietarako ekitaldiak izan ziren. Berria - Kultura

Arrangoitze euskaltzale eta **dantzazaleen** bilgune izanen da igande honetan Mutxikoaren Egunaren mende laurdena ospatzeko. Berria - Kultura

---

## dantzazulo *iz adkor* dantzalekua.

**Dantzazuloko** giro itogarriak irteera bilatzera behartzen zuen behin eta berriro. Lutxo Egia

Zinemara tabernetara lagunen etxeetara **dantzazuloetara** joatea gero eta gogorrago egiten zitzaion. Lutxo Egia

**Dantzazuloa** Elgetako lubaki bat begitandu zitzaion Galderri. Lutxo Egia

---

## danzaldi ik **dantzaldi**.

---

## danzoi *iz* Kubako dantza eta musika, habaneraren antzekoa.

*Notas de La Habana* **danzoi** ederra (Ivan Lewisena), *Amanda* boleroa (Ricardok egina) eta *Así es la vida* timba-jazz moduan (Felipe Cabreraren pieza sutsua). Berria - Kultura

---

## dar-dar *(312 agerraldi, 73 liburu eta 13 artikulutan; ETCn 1.361 agerraldi; orobat* **dardar** *162 agerraldi, 51 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 395 agerraldi)* **1** *adlag* ikaraz, dardaraz.

**Dar-dar** aditzen nituen azalpen haiek. Txillardegi

Eskua **dar-dar** luzatu zuen Ronek. Iñaki Mendiguren

Haren izena entzute hutsarekin **dar-dar** hasten dira gazteen bihotz kartsuak. Jose Morales

Nik neuri dagokidana ongi dakit: **dardar** utzi ninduela, koloka, arnasa bera asaldatua. Txillardegi

Eta eskuak **dar-dar** zituela saltxitxa-erretilua hartu zuen. Iñaki Mendiguren

-Ezertan ere ez! -bota zion Filchek, masailak **dar-dar** zituela, zakar. Iñaki Mendiguren

Eskuak **dar-dar**, paper batzuk erakutsi zizkidan. Joxerra Garzia

Urduri nindoan, zangoak **dar-dar**, eta harat heldu nintzenean, atea zabalik ediren nuen. Joan Mari Irigoien

Koronelak, urrats bat aurrera egin, eta, goitik beheraino dardarka, lebitaren toles guztiak eta aurpegiko zimur bakoitza **dar-dar**, hilak bezain zurbil eta ahalegin handiz lortutako irmotasun etsi horrekin berak ere itxura izugarria zuela konturatu gabe, emazteari esan zion: [...]. Jose Morales

Zer uste duk, bada? -esan zidan, ahotsa **dar-dar**. Joan Mari Irigoien

Zutik jarri zen, barrena **dar-dar**. Karlos Zabala

Beldurrez **dar-dar**, nor zen galdetu zion presoak. Koldo Izagirre

## 2 (izen gisa) dardara.

Are **dar-dar** bortitzagoak egin zituen armairuak. Iñaki Mendiguren

Izan ere, noiz eta Mignoni gibeleko ile-xerloak jaso eta okzipuzio ile gabean eman bainion musu, **dar-dar** batek hartu zuen hura, eta bertze **dar-dar** batek ni, eta hala eta halatan sentitu ginen biak loturik **dar-dar** haietan. Joan Mari Irigoien

Aditzekotan ere, parketaren kexu arranguratsua, apaingarrien **dar-dar** ikaratia, kirrinka-hotsen bat edota parpailaren firfira, eta arropa zuri zurrunaren usain larderiatsua baino ez. Mirentxu Larrañaga

Leihatilak **dar-dar** soinua egiten zuen motorraren eraginaz. Iñaki Zabaleta

**Dardar** ikara hotz batek korritu zidan gorputza. Koro Navarro

· Hankek **dar-dar** txikia egiten zioten Agustinari, gertakari ikaragarri haiek Leireri eta abokatuari kontatzean. Aitor Arana

## 3 *dar-dar batean* *adkor* erabat dardaraz.

Hatzak **dar-dar batean** zebilzkidala ohartu nintzen. Alberto Ladron Arana

Hankak **dar-dar batean** neuzkan, dena bueltaka zebilkidan begien aurrean. Koro Navarro

Egin nuen urrats bat, urduri; egin nuen hurrengoa, urduriago; egin nuen beste bat eta beste bat, gero eta urduriago, harik eta zangoak **dar-dar batean** jarri zitzaizkidan arte, goitik behera egiten nuela. Joan Mari Irigoien

Ez zen konturatu Sonja **dar-dar batean** zegoela eta bi eskuekin oratu behar ziola mahaiari, lurrera ez jausteko. Anton Garikano

-Benetan, gure eskuetan jarri du Jaunak lurralde osoa; **dar-dar batean** daude denak gure aurrean. Jose Antonio Mujika

Buruko mina zeukan, urdaila gaizki, begiak itzaliak, indarrak urri, belaunak **dar-dar batean**, kemena galdurik... J.M. Olaizola "Txiliku"

Liebkind Bendelek besoei eragiten zien; **dar-dar batean**, garrasi egiten zuen Walden doktorearen belarrietan, bestea gorra balego bezala. Koro Navarro

Altxatu egin nintzen, **dar-dar batean** hosto bat bezala. Fernando Rey

Merkatuak **dar-dar batean** utzi dituen beste faktorea *Ivan* ekaitz tropikala izan da. Berria - Ekonomia

Japonian eraso mehatxu batek **dar-dar batean** jarri zituela indizeak. Berria - Ekonomia

## 4 *dar-dar egin*sup_1 ik **dardaratu**. (pertsonak edo gorputz zatiak)

Baten batek **dar-dar egin** zuen funtzionario-taldearen erdian. Jose Morales

Hermionek **dar-dar egin** zuen ikaraz. Iñaki Mendiguren

Hagridek hitz egin zuenean, **dar-dar egiten** zuen amorruz. Iñaki Mendiguren

-O, Jones jauna -esan zuen ahots ozen eta alaiaz, eta **dardar egin** zuen, jelatinazkoa balitz bezala. Koro Navarro

Lehen aldiz **egin** zuen **dardar** zure gorputzak Genoako hotel hartan **dardar egin** zuen moduan. Lourdes Oñederra

Ai ene! gorputz osoak **dar-dar egin** dio. Patxi Iturritegi

Etenaldia dardarizo batean oinarritzen da, eskuineko eskuak **dar-dar egiten** duela dirudi, emeki, paperaren gainean pausatua. Jon Alonso

Hermioneren ezpainek **dar-dar egin** zuten. Iñaki Mendiguren

Barre egitean, Schmidten masaila bigunek **dar-dar egiten** zuten. Lopez de Arana

Bizarrari tiratu zion, begiak kliskatu eta **dar-dar egin** zuen, ikasketa etxean ohi zuen bezala. Koro Navarro

Berebiziko ahalegina eginez, hatzek **dar-dar** ez **egitea** lortzen zuen, ahotsa irmoa eta argia izatea, begiek lasaitasuna agertzea. Jose Morales

Tania Kovaltxuki **dar-dar egiten** zioten eskuek, urduritasunaren eraginez. Jose Morales

Baina gauza bat esaten dizut, Les, hatzek **dar-dar egiten** zidaten. Koro Navarro

Josteko makina baten antzera **egiten** zion **dar-dar** bihotzak. Koldo Biguri

## 5 *dar-dar egin*sup_2 *(gauzak)*

Pinu egurra erre eta erre ari ziren galdarak eta haien paretek **dar-dar egiten** zuten lurrunaren presiopean. Karlos Zabala

Armairuak **dar-dar egin** zuen berriro, baina are dardara handiagoak egiten zituen Nevillek berak, hau urkamendira bezala baitzihoan aurrera. Iñaki Mendiguren

Lauoinka bizian hasten dira zaldiak, gurpiletako izpiak elkarrekin nahasten dira biribilki oroberdin batean, **dar-dar egiten** du bideak, eta beldurrezko oihuak jaulkitzen zaizkie bide bazterrean geldirik geratu diren oinezkoei. Jose Morales

Lurrak ostera **dar-dar egin** eta bere baitan itxi zen, zuloaren arrastorik utzi gabe. Joanes Urkixo

Brooklyngo zubia batzuetan **dardar egiten** duen harpa bat da. Harkaitz Cano

Ohe ondoko olio-lanparako argi horiak **dar-dar egin** zuen gela osoan. Anjel Lertxundi

## 6 *dar-dar egin*sup_3 *(testuinguru teknikoetan)*

Jakina da ahoskordek maiztasun askotan **egiten** dutela **dar-dar** batera. Lourdes Oñederra

Beraz, airea isurtzen da ahoskorden artetik eta horiek **dar-dar egiten** dute; ondorioz, ahotsa sortzen da. Lourdes Oñederra

Herskaria (/p/) ahoskabea denez, ezpainetako hersketak irauten duen bitartean, ahoskordek ez dute **dar-dar egiten**. Lourdes Oñederra

Berezkoa da hasperena ahoskabea izatea, igurtzia sortzeko adina aire igarotzeko ahoskordek elkarrengandik erabat urrundurik egon behar baitute eta horrela ezin baitute **dar-dar egin**. Lourdes Oñederra

## 7 *dar-dar eginarazi* ik **dardararazi**.

Glotisa igo ondoren, irekitzen denerako, biriketatik datorren aireak ez dakar nahikoa indar ahoskordei **dar-dar eginarazteko**. Lourdes Oñederra

## 8 *dar-dar eragin* dar-dar eragin. ik **dardararazi**.

Izuak **dar-dar eragin** zidan, ikara hezurretaraino sartu. Joan Mari Lekuona

Bidearen bi aldeetan paraturik zeuden, eta haizeak **dar-dar eragiten** zien hariei, harpa batenak balira bezala. Karlos Zabala

Gnomoak zabuka egin zuen eta hantxe bertan zerraldo erori zen ahoz behera, gela osoari **dar-dar eragin** zion danbatekoaz. Iñaki Mendiguren

Oraindik beste behin, lurrari ez ezik, zeruari ere **dardar eragingo** diot.. Elizen arteko biblia

Bat-batean, hain lurrikara gogorra izan zen, non kartzelaren oinarriei ere **dardar eragin** baitzien. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ahotsa dar dar (8); ahotsak dar dar (5); batek dar dar (3); beldurrez dar dar (3); bihotza dar dar (3); dar dar (307); dar dar ari (3); dar dar batean (37); dar dar egin (76); dar dar eginez (3); dar dar egiten (64); dar dar eragiten (3); dar dar jarri (8); dar dar zituela (6); dar dar zuela (5); dar darka (6); dute dar dar (5); ere dar dar (6); eskua dar dar (6); eskuak dar dar (10); eskuek dar dar (5); eta dar dar (11); ezpainak dar dar (4); ezpainek dar dar (5); harryk dar dar (3); hotzak dar dar (3); hura dar dar (3); ikaraz dar dar (3); lurrak dar dar (6); osoa dar dar (4); osoak dar dar (4); zangoak dar dar (7)

aurrean dardar (4); beldurrez dardar (12); bere dardar minetan (3); dardar bat (3); dardar batean (14); dardar egin (25); dardar egin zuen (13); dardar egin zuten (3); dardar egingo (4); dardar egiten (18); dardar egiten zioten (3); dardar eta (7); dardar minetan (3); ere dardar (5); eta dardar (12); eta dardar egin (4); jaunak dardar egin (3); oteiza bere dardar (3); zuen dardar (3)

**daratulu** **1** *iz* zurean-eta zuloa egiteko erabiltzen den tresna aho-bihurria. ik **ginbalet; laztabin.**

Nik indar egiten nuen, jiraka, **daratuluaz** egurra zulatzen ari banintz bezala. Juan Kruz Igerabide

**Daratulu** batekin erraz egiten da hatz-erdiko zuloa, eta hazbetekoa eta hatz eta erdikoa ere bai. Santiago Iruretagoiena

Aizkorakada bat eman, eta sudurra egin du; beste aizkorakada bat, eta horra ezpainak; **daratulu** handi batez egin ditu begiak. Jose Morales

Ideia finko hura, bada, [...] bakardade guztizko hartan handituz eta handituz, **daratulu** baten gisan ari zitzaion barneratzen. Josu Zabaleta

Dursley jauna Grunnings izeneko enpresa bateko zuzendaria zen: **daratuluak** egiten zituen. Iñaki Mendiguren

Iltzeak ez badira, **daratuluak**. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan)

Hirirantz zihoan bitartean, egun hartan lortzea espero zuen **daratulu**-eskabide handian bakarrik pentsatu zuen. Iñaki Mendiguren

---

**daratulutxo** *iz* daratulo txikia. ik **ginbalet.**

Dusseli pedalez eragiten zaion **daratulutxo** zaharkitu bat ekarri diote. Josu Zabaleta

---

dardai ik **dirdai.**

---

dardar ik **dar-dar.**

---

**dardara** *(1174 agerraldi, 194 liburu eta 35 artikulutan; ETCn 4.694 agerraldi)* **1** *iz* astinaldi labur eta arinen saila. ik **daldara; ikara.**

Bero pisua zen eta, haizerik ez bazebilen ere, lur errearen **dardara** zuen aireak. Anjel Lertxundi

Guk, berriz, badugu belarrian mintz mehe bat airearen **dardara** horiek jasotzen dituena eta garunera hots gisa igortzen dituena. Josu Zabaleta

Zeruko urdin leuna eta arbola hostoen **dardara** berde freskagarria. Ramon Saizarbitoria

Belaunen **dardara** bat, hain zuzen. Harkaitz Cano

'Nik ere ez dut etxera itzuli nahi,' esanen dizu Ednak astiro, ezpainen **dardara** bozaren soinuarekin apur apurka loturik. Joseba Sarrionandia

Ahotsa apalduz joan zen gero eta gehiago, harik eta ezpainen azken **dardaran** hil zitzaion arte. Karlos Zabala

Bitartean, Martinek aulkian itxaron zuen, lepoa tente, begiak erdi itxita, ezpainetan **dardara** bat, otoitzean balego legez. Edorta Jimenez

Bero maxkala egiten bazuen ere, Noraren eskuetako hotzak eta **dardarak** larritu zuten Andreas. Anjel Lertxundi

Ziztada bat lokietan, **dardara** bat hanketan. Xabier Mendiguren Elizegi

Emozioaren **dardaraz** baina oporraldi lasaian dabilenaren patxadaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Badirudi soinuaren **dardara** eta argiaren dirdira bat egitera doazela. Iñaki Arranz

Karrakak bazuen **dardara** antzeko bat, taup ababorrean eta taup gero istriborrean egiten baitzuen,sotoetatik odola bulkadetan baletorkio moduan. Edorta Jimenez

-Ez! -erantzun nion, ahotsean **dardara**, ziegaren bazter batean kuzkurtuta. Rafa Egiguren

**Dardara** batek hartu nau, burutik hanketara: bera... bera da zain nuena. Monika Etxebarria

**Dardara** sumatu zuen hanketan. Fernando Morillo

Hanketako **dardara** hura baino ez zuen sentitzen. Bego Montorio

**Dardarak** hartzen nau haren aitzinean berriz agertu beharko dudala burura datorkidan bakoitzean. Jon Muñoz

**2** (izenondoekin)

Argazkiko gizasemeak aingira batek arroka artean geldirik dagoenean egiten duen **dardara** kurbatu bera egiten duela dirudi. Harkaitz Cano

Ez du hitzik atera; gorputz atal guztiak zurrundu zaizkio, eta ekaitz horren ondotik **dardara** bortitzetan da hasi. Jon Muñoz

Irudipena dut betazalen **dardara** txiki batek -"espasmoa" litzateke hitza- iragar dezakeela oihuka jartzen duen trantzearen hasiera. Ramon Saizarbitoria

**Dardara** arin batek zeharkatzen dio gorputza, bere erlojuari begiratzen dio. Oskar Arana

Eskuak bolante gainean bermatzean **dardara** arin bat nabari du hatzetan. Pello Lizarralde

Bizirik dago, ez dut ezetz esaten; baina ez zen bizi mota hori Annyk gogoan zuena; **dardara** xumeak ikusten ditut, hedatzen eta utzikeriaz taupaka ari den haragi zurbila ikusten dut. Monika Etxebarria

Zirrara moral handietako **dardara** urduria sentitu zuen kolpetik doktoreak, eta emozioz ikara batean hartara hurbildu zen. Josu Zabaleta

Ahapeka ari zela, halako **dardara** pitzatu bat nabari zen haren ahotsean, Elleni zoriontasunezko lilura piztu ziona. Lopez de Arana

Burutik orporaino **dardara** ikaragarri batek astintzen zuela. Josu Zabaleta

Azkenean atea ireki eta kandela piztu zuenean, **dardara** bizian zegoela ikusi zuen Lisak. Karlos Zabala

Irritsezko **dardara** sentitzen du lipar batez. Oskar Arana

Bizkarra pixka bat kakotua, harengan ohikoa behar zuen ezinegon urdurizko **dardara** batek astindua, hantxe zegoen geldirik, [...] galtza laburregien azpitik galtzerdi urdinak ageri zitzaizkiola. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Dardara**-ahotsa zen nirea, negarrez hasteko zorian nengoen. Joxan Elosegi

Hitzek berek ezinbestearen berri eman aurrez, egia jakinarazi duen **dardara**-ahots apal batez. Joxan Elosegi

Estore hautsi baten **dardara** zarata. Harkaitz Cano

Egun hartan bihozgabeturik geratuko dira erregea eta buruzagiak, izuturik apaizak, **dardara**-ikaraz profetak. Elizen arteko biblia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nahasdurak sekula baino indar gehiagoz jo zuen, eta aldi berean gorputz **dardara** zinez ikaragarriek hartu zuten. Jon Muñoz

Diskoaren eztarri **dardara** apar moduan zabalduko da tabernako aire ospelean. Joseba Sarrionandia

Mugagaitz zegoen mutilaren aurpegiera: doi-doi antzematen zitzaion ezpain-**dardara** baizik ez, kolore-bizitasunik gabeko aho zimelduan. Anjel Lertxundi

Ahots **dardararik** gabe baina doinu ikaragarri bortitzez erantzun zion: "Bien sûr". Felipe Juaristi

Neskak ikara-**dardara** bat egin zuen, hozkirriak jota. Anjel Lertxundi

Bat-bateko topaketak izu-**dardara** sakona eragin zion. Askoren artean

Oso larrialdi-**dardara** garbiak jasotzen baitzituzten nire belarriek hark itsumustuan igorritako ultrasoinuetatik. Joxan Elosegi

Beldur **dardaraz** askatu ditut lokarriak. Josu Zabaleta

Zuek gure igarmen-**dardarak** eragozten ari zarete! Iñaki Mendiguren

Barne **dardarak** astindu zuen Joseba. Iñaki Zabaleta

**5** (testuinguru teknikoetan)

Fonetikoki ez du zentzu handirik dardarkari bakunaz hitz egiteak, **dardara**, berez, mugimendu errepikatua baita. Lourdes Oñederra

Fonetika-fonologien eremuan, ahots esaten zaio ahoskorden **dardarak** sortzen duen hots uhinari. Lourdes Oñederra

**Dardara** horrek oso hots-uhin konplexua sortzen du, alegia maiztasun askok osatua. Lourdes Oñederra

Hersketa bukatu eta ezpainak irekitzean abia daiteke **dardara**, baina **dardararen** abiatze hori ez da nahitaez berehalakoa izaten. Lourdes Oñederra

Ahoskorden **dardara** nahikoa berandu hasten bada, [...] kontsonantea hasperenduntzat hartzen da. Lourdes Oñederra

Hotsaren sortzean esku hartzen duten faktoreak arnasbehera, aho artikulazioa, laringearen **dardara** eta sudur erresonantzia dira. Isabel Arrigain

Lehen kasuan, haizea oztoporik gabe igarotzen da, eta aho sokak ez dira dardaratzen; bigarrenean, haizea igarotzeak hots **dardarak** eragiten ditu. Isabel Arrigain

Glotisa irikia baldin badago oso, ez da inolako **dardarik** gertatzen, eta hautemaniko hotsa aho barrunbetik aterako da. Isabel Arrigain

Argi-**dardara** (ingelesez *flicker*): badirudi ikusmen-sistemari "kosta egiten zaiola" argi periodiko baten aldakuntzak jarraitzea, horren maiztasuna segundoko ziklo batzuk baino handiagoa, baina hala ere apal samarra denean. Josu Zabaleta

Argi-**dardara** argi gertaera periodiko guztietan agertzen denez, proiekzio-lastertasuna geldiegia denean agertzen da zineman. Josu Zabaleta

## 6 *dardaran* (*71 agerraldi, 27 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 215 agerraldi*) dardaraz, dardarka

Eskuak **dardaran** zituen, kirioak airean, bihotza punpaka. Patxi Zubizarreta

Eskua **dardaran** nuen, **dardaran** hankak, **dardaran** bihotza. Edorta Jimenez

Begiak erdi itzuliak ditu, hortzak **dardaran**. Michel Oronoz

Ahotsa **dardaran** mintzatu zen: [...]. Patxi Zubizarreta

Dursleytarrak **dardaran** jartzen ziren pentsatuta zer esango zuten auzokoek Pottertarrak kale hartan agertuz gero. Iñaki Mendiguren

Ondoren auto astun batek **dardaran** jarri du etxea. Monika Etxebarria

Zer pasatu zaik, Joxe Ramon? -esan zidan amak ezpainak **dardaran**, zurbil-zurbil, ohe gainean etzanda ikusi ninduenean odola zeridala. Rafa Egiguren

## 7 *dardaraz* (*199 agerraldi, 63 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 617 agerraldi*) dardarka

Ume gaixoa **dardaraz** zegoen, gona eta galtzerdiak blai eginda. Karlos Zabala

Begira nola dagoen **dardaraz**, sukarra din noski. Juan Garzia

Nire gorputza **dardaraz** zegoen desiraren desiraz. Juan Martin Elexpuru

**Dardaraz** zaudelako dakit izututa zaudela. Juan Garzia

Amorruz **dardaraz** zituen besoak, eta, bat-batean, haurraren aurpegira makurtu eta garrasi egin zion: [...]. Irene Aldasoro

Harry izerditan eta **dardaraz** esnatu zen. Iñaki Mendiguren

**Dardaraz** edan zuen ardoa, zaindarien begiak bere gain sumatu baitzituen. Felipe Juaristi

Barrea ere **dardaraz** atera zitzaion, eta hotz den txakurraren zaunka gogorarazten zuen. Jose Morales

Gu abian jarri eta lurra **dardaraz** hasten zen, hiriak eta herriak **dardaraz**, gizon-emakumeak **dardaraz**, haizea bera ere **dardaraz** gu usaindu bezain arin. Felipe Juaristi

Heriok jotako doinua entzun eta **dardaraz** hasten dira gizaki-abereak. Felipe Juaristi

Pendulu astun bat da sismografoa; duen inertziagatik geldi geratzen da lurrikara bizkor bat denean, inguruan lurra **dardaraz** dagoela. Irene Aldasoro

## 8 *dardara batean* dar-dar batean.

Beldurra eta ikara jabetu zaizkit, **dardara batean** nago. Elizen arteko biblia

Semea adoratzen zuen, **dardara batean** bizi zen ezer gertatuko ote zitzaion. Koro Navarro

**Dardara batean** zeuzkan ezpainak. Anjel Lertxundi

-Ni eroan? -esan zuen Hagridek, **dardara batean**-. Iñaki Mendiguren

Inspektoreari begiratu diozu istant batez, eta totelka, **dardara batean**, horrela adierazi diozu: [...]. Rafa Egiguren

Moskun egunero botatzen dituzten kanoi salba guztiekin, hiria **dardara batean** daukate. Josu Zabaleta

Labe batetik bezala igotzen zen kea eta mendi osoa **dardara batean** zegoen. Jose Antonio Mujika

## 9 *dardara egin* dar-dar egin.

Aireak **dardara egin** zuen, eta laino txiki bat tartekatu zen eguzkiaren eta bi emakumeen artean. Anjel Lertxundi

Gorritzen eta ihartzen ari ziren hostoek **dardara egiten** zuten, zalantzan dauden belarriak balira bezala. Juan Kruz Igerabide

Kristalek **dardara egin** zuten. Anjel Lertxundi

Ezpainak **dardara egin** dio une batez. Koldo Izagirre

Haren haragiek **dardara egiten** zuten. Juan Kruz Igerabide

**Dardara egiten** dik jendeak hire aurrean. Jon Muñoz

Haren ahots gardenak altzairuak bezala **egiten** zuen **dardara**. Agustin Otsoa

## 10 *dardara eginarazi* dar-dar eginarazi.

Maiz egiten zituen txakurraren ametsak, tristeak, izugarriak, eta **dardara eginarazten** zioten, zotinka. Juan Kruz Igerabide

## 11 *dardara eragin* dar-dar eragin.

Denbora gutxi barru, zeru-lurrei eta itsaso-lehorrei **dardara eragingo** diet. Elizen arteko biblia

Herio aipatu izanak **eragin** zidan **dardara** ezkutatu ezinik. Edorta Jimenez

Haserreak **eragiten** zion orain **dardara**. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahoskorden dardara** (11); **ahotsak dardara** (3); **ahotsean dardara** (5); **argi dardara** (7); **baino dardara** (3); **barne dardara** (3)
>
> **dardara arin** (11); **dardara arin bat** (10); **dardara bat** (20); **dardara batean** (82); **dardara batean dago** (4); **dardara batean jarri** (8); **dardara batean zegoela** (3); **dardara batean zegoen** (4); **dardara batek** (11); **dardara batek hartu** (4); **dardara baten** (3); **dardara bedi** (3); **dardara bedi itsasoa** (3); **dardara berezia** (4); **dardara bizian** (19); **dardara egin** (48); **dardara egin zuen** (23); **dardara egin zuten** (3); **dardara egingo** (9); **dardara egingo dute** (4); **dardara egiten** (27); **dardara egiten zion** (4); **dardara egiten zuen** (3); **dardara egiten zuten** (3); **dardara eragin** (5); **dardara eragiten** (7); **dardara eta** (12); **dardara hasi** (3); **dardara hori** (4); **dardara horiek** (3); **dardara hura** (8); **dardara sentitu** (9); **dardara sentitu nuen** (4); **dardara sumatu** (4); **dardara txiki** (14); **dardara txiki bat** (9); **dardara txiki batek** (3)
>
> **dembak dardara** (3); **dembak dardara egin** (3); **duen dardara** (3); **ere dardara** (5); **eskua dardara** (3); **eskuak dardara** (5); **eskuaren dardara** (3); **eskuetan dardara** (4); **eta dardara** (34); **eta dardara batean** (4); **eta dardara bizian** (3); **eta lurrak dardara** (3); **ezpainetan dardara** (3); **guztiak dardara** (3); **halako dardara** (7); **lurrak dardara** (7); **lurrak dardara egin** (3); **osoa dardara** (5); **osoa dardara batean** (4); **zuen dardara** (7)
>
> **ahotsa dardaran** (7); **dardarak hartu** (5); **dardarak hartzen** (3); **dardaran ari** (3); **dardaran eta** (5); **dardaran hasi** (4); **dardaran hasten** (3); **dardaran jarri** (4); **dardaran jartzen** (3); **dardaran zegoen** (4); **eta dardarak** (5); **eta dardaran** (7); **etxe guztia dardaran** (3); **guztia dardaran** (3); **haren dardarak** (3)
>
> **ahoskorden dardararen** (3); **ahots dardararik** (3); **ahots dardararik gabe** (3); **antzera dardaraz** (3); **batere dardararik** (5); **batere dardararik gabe** (3); **dardarari dagokiona** (3); **dardararik egin** (5); **dardararik egiten** (4); **dardararik ez** (4); **dardararik gabe** (16); **dardararik gabeko** (5); **dardaraz ari** (4); **dardaraz dago** (4); **dardaraz egoten** (3); **dardaraz eta** (11); **dardaraz hasi** (8); **dardaraz hasi zen** (3); **dardaraz hasten** (6); **dardaraz jarri** (6); **dardaraz jartzen** (12); **dardaraz zegoen** (10); **dardaren interpretazioa** (3); **durduzaz eta dardaraz** (8); **ere dardaraz** (3); **eskuak dardaraz** (4); **eta dardaraz** (33); **ez zuen dardararik** (3); **gorputza dardaraz** (3); **hankak dardaraz** (3); **inolako dardararik** (3); **zuen dardararik** (3)

---

# dardaragailu *iz* dardaratzen den gailua, zakila forma duena eta masturbatzeko erabiltzen dena.

Sofan etzan nintzen, **dardaragailua** itzali eta kontuz atera nuen, orgasmoaren azken astinaldiak ezustean harrapatu ninduen. Juan Martin Elexpuru

Nire sexua taupadaka zebilen guztiz erotuta, baginako sarreraraino jaitsi nuen **dardaragailua** eta ferekatzen hasi biribil txikiak eginez. Juan Martin Elexpuru

**Dardaragailua** atera nuen poltsatik -ukimen naturala, silikona hutsa- eta ahoan sartu nion. Juan Martin Elexpuru

Zakila gogortzen ari zitzaiola ohartu nintzenean, zakar atera nion **dardaragailua** ahotik, eta esan: [...]. Juan Martin Elexpuru

**Dardaragailua** atera nuen zegoen tokitik eta, horrela, neure zukuez labandua, ipurditik sartu nuen, garraisi eragin zidan plazer bat sentitu nuen. Juan Martin Elexpuru

Berehala ohartu nintzen olioen kontuak bost axola ziela, eta eskutik kentzen zidaten **dardaragailua**, harekin hagitz gauza bitxiak egiteko, egia. Joxan Elosegi

---

## dardaragarri *izond* dardararazten duena.

Turuta **dardaragarriak** inarrosi zuen portu ttipia. Aurelia Arkotxa

Eta geu ere ez gara obra **dardaragarri** hau irakurtzeko gozamen intelektualik gabe gelditụko. Xabier Amuriza

Erudizio **dardaragarriz**. Antton Olano

---

## dardaraka *(133 agerraldi, 40 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 661 agerraldi)* 1 *adlag* dardarka. ik **dardarka; dardara 7; dardara 6.** (pertsonak edo gorputz zatiak)

Ni ere **dardaraka** nago. Mirentxu Larrañaga

Nipper Martin ere **dardaraka** ari da, ikarak jota. Mirentxu Larrañaga

**Dardaraka** hasten ziren nagusia azaltzen zen bakoitzean. Jose Morales

**Dardaraka** zutitu zen eta **dardaraka** ibiliz abiatu zen kanpandorreko eskaileretara. Aitor Arana

Maratila jiratzean, ordea, **dardaraka** sumatu zuen eskuin hanka. Berria - Kultura

Arropa astunen azpian gorde zen, **dardaraka**. Itxaro Borda

-Ume mukizu horrek inoiz matto deitzen badizu [...] kale gorrian utziko dut, elurretan, hotzak **dardaraka**. Mirentxu Larrañaga

Blai-blai eginik eta hotzez **dardaraka**, ohea beste pentsamendurik ez zuen buruan. Jose Morales

Begitartea jaso du, ahoa zabaldurik eta desirak **dardaraka**... Patxi Zubizarreta

**Dardaraka** dut eskua eta taupadaka bihotza. Jon Muñoz

Belaunak **dardaraka** zituen, eta bere buruarekin haserre zegoen. Agustin Otsoa

Sentsazio arrotz batek gorputza **dardaraka** jarri bazidan ere, irribarre ezti bat azaleratu zuten nire ezpain izutuek. Aritz Gorrotxategi

-Jaun ohoragarri hori, zein makurkeria ezinago gaitzesgarriz ari zara?- galdetu zuen Txitxikovek, gorputz osoa **dardaraka**. Jose Morales

Erantzunaren zain geratu zen, egonezinik, zilarbiziaren antzera **dardaraka** eskuak. Jose Morales

**2** (bestelakoak)

Trena abiadan doa **dardaraka**, gogor, ia arnasestuka. Joseba Sarrionandia

Zer sentimen ez zen ernatuko haren baitan, zer ez zitzaion barnean **dardaraka** hasiko, zer ez zen mintzatuko haren barne-muinetan! Jose Morales

Ur garbiaren joan-jinek sorrarazten dituzten zimurretan burdina puskak **dardaraka** ari. Aurelia Arkotxa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dardaraka ari** (8); **dardaraka hasi** (8); **dardaraka hasten** (5); **dardaraka jarri** (4); **dardaraka zegoen** (5); **eta dardaraka** (11); **hankak dardaraka** (3); **hotzez dardaraka** (5)

---

## dardarakada *iz* dardara. ik **dardarako.**

Tigreak txorimaloari lepora jauzi egiten badio, [argi]indar **dardarakada** bat ukaiten du; horrela, behiek zelaietan "argi-artzainekin" bezala, tigreek ere txorimaloekin ikasten dute gizonei begirune izaten. Gotzon Garate

---

## dardarakari *izond* dardaratzen dena.

Oihuok ikaragarriak izanen dira haizearen uluekin nahastu eta desitxuraturik, batzuetan zeharo ahulduak, urrundik datozela diruditela, besteetan oso anplifikatuak, beldurgarriro **dardarakariak** eta etsi etsi luzatuak. Joseba Sarrionandia

---

## dardarako *iz* dardara. ik **dardarakada.**

-Dama bat? -esan zuen Tootlesek, eta **dardarakoa** sentitu zuen. Julen Gabiria

Beren burua oldar hartatik une batez libre ikusi zutenek hartu zuten lasaitutik segundo batzuk irago ostean, enpatia izugarriko **dardarako** latz bat jabetu zen han zeuden guztiez. Joxan Elosegi

---

## dardarakor *izond* dardaratzeko joera duena, erraz dardaratzen dena.

Peruk papoa hantuz eta kanpineko mahai **dardarakorra** kulunkaraziz deklaratu zuen: [...]. Itxaro Borda

Zuhaitzak libre hazten ziren han, adaburuak zerumugan bat eginik, hodei berdeak bailiran, hosto **dardarakorrekiko** kupula itxuragabeak balira bezala. Jose Morales

Azkenik, bi oilagor, moko luzeen zamagatik motel, aireratu egin dira, elkarri segika maitasun jolasean, eta baso **dardarakorraren** gainean zurrunbilotu dira. Itziar Otegi

---

## dardaraldi *iz* dardara, astinaldia.

Ez zen jadanik negarrez ari, eta une batez **dardaraldi** baten beldurrez egon nintzen. Jon Muñoz

**Dardaraldi** batek hartu zuen. Koro Navarro

Argi urratzearen hasieran, bere buruari itzuli emanez doa eguna, etenka; ia entzuten dira lurraren erroak lizundurik jiraka; bere iluntasuna iraultzen duen lur zahar honen **dardaraldia**. Juan Garzia

Traidore hauek berriz agertu dira, historiak lurperatu dituela jakin baitakite; euren azken **dardaraldiak** dira baina. Berria - Mundua

Kanoi baten tiroak eragindako efektua **dardaraldi** huts-hutsa da. Koro Navarro

Orduan katearen **dardaraldi** suminak entzun nituen. Koro Navarro

---

## dardararazi *(37 agerraldi 25 liburutan eta artikulu 1ean; ETCn 91 agerraldi; orobat **dardarazi** 38 agerraldi 31 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 85 agerraldi)*, dardararaz, dardararazten 1 du *ad* dardaratzera behartu. ik **dardaratu 2; dardara 11.**

Goizeko hozkirriak **dardararazi** ninduen. Aingeru Epaltza

Izeba Gloriaren agerpenak zakur baten saingak baino bortitzago **dardarazi** ninduen. Aingeru Epaltza
Uholdea gertaturik, jo zuen ur-boladak etxea, baina ezin izan zuen **dardararazi**, sendo egina baitzen. Elizen arteko biblia
Une hartan, astinaldi batek telegrafo etxea **dardarazi** zuen. Karlos Zabala
Lurra bere oinarrietatik astintzen du, eusten dioten zutabeak **dardaraziz**. Elizen arteko biblia
Egongelan, oin astun batzuek zoruko zurajea **dardararazten** zuten. Alberto Ladron Arana
Zeru-lurrak **dardararaziko** ditut. Elizen arteko biblia
Eta gerria erritmo harrigarriro azkar batez **dardarazi** zuen. Patxi Zubizarreta
Haize-kolpe batek kandela-argia **dardararazi** eta itzali egin baitu. Itziar Otegi
Hango biztanleek esaten zutenez, denek entzun omen zuten haren hatsa argiaren garra **dardararazten**. Josu Zabaleta
Urrutian, gerrako turuta batek Orreagako airea **dardarazten** zuen. Koro Navarro

**2** irud/hed

Ikara antzeko batek **dardararazi** ziola ahotsa. Mirentxu Larrañaga
Baina hitz egin zuen, kirioak **dardararazten** zituen ahots gozo samin batez hitz egin zuen. Josu Zabaleta
Gaztetako irrika eutsiezin hura sentitu nuen barruan, erraiak **dardararazten**, gainezka egiteko zorian. Juan Luis Zabala
Eta liburuetan aurkitzen dituzu, aipu horiek zure baitako hariak **dardararazten** dituzte, eta horregatik jasotzen dituzu, bat etortze horren funtsaz jabetu nahian. Iñaki Iñurrieta
Ez ditzala gure uste burgestuak **dardarazi**. Anjel Lertxundi
Frantses botere zapaltzailearen oinarriak **dardararaziz**. Itxaro Borda
Horrek Estatu Batuetako epe luzeko interes-tasak **dardarazi** zituen. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dardarazi zuen (5)

---

# dardarati

*(173 agerraldi, 61 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 700 agerraldi)* **1** *izond* dardarka ari dena. ik **dardarti; dardaratsu.**

Taxiaren beirazko leiho **dardaratietatik** harantzago. Lopez de Arana
Lertxun garai batzuek, gainerako zuhaitz guztiei gaina harturik, bele-habia ikaragarri handiak gordetzen zituzten beren adaburu **dardaratietan**. Jose Morales
Ronek bere arratoi **dardaratia** sakelara sartu zuen. Iñaki Mendiguren
Bere bihotza ahotik bota behar zuela zirudien gorputz txiki, urduri eta **dardarati** hura. Juan Garzia
Mrs. Baldwinek gogor hertsi zituen bere ezpain **dardaratiak**. Lopez de Arana
Esku **dardarati** batez besapeko pistola haztatu nuen. Alberto Ladron Arana
-Nellie, goazen beste gelara- esan zuen abokatuak ahots **dardaratiz**, ahapeka. Lopez de Arana
Honela hasi zen, bere ahots **dardarati** samarraz: [...]. Josu Zabaleta
Arnasa luze eta **dardaratia** izan da. Urtzi Urrutikoetxea
Kandelaren argi **dardaratiak** deabru baten bisaia erakutsi zidan. Alberto Ladron Arana
Izarrek distira **dardaratia** egiten zuten zeru beltzaren atze-atzetik. ez zen funtsezko aldaketarik nabaritzen, ospitaleko ohetik aritzeak eragindako kaligrafia **dardaratiagoaz** haratago behintzat. Josu Zabaleta
Ihia bezain mehe eta **dardaratia**. Anjel Lertxundi

**2** (adizlagun gisa)

Barkatu -esan zion **dardarati**-, ez nizuke trabarik egin nahi... Igande arratsaldean, Bosgarren Etorbidea arrosaz jantzirik luzatzen zen, hautsez beterik, **dardarati**. Iñaki Mendiguren
Harrezkero soto ilun hartako txokoren batean kukuturik egonen zen, xagu izutia bezain gris eta **dardarati**. Alberto Ladron Arana
Neure buru gainean ikusten nituen dilindan eta **dardarati**. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ahots dardarati (3); dardarati bat (8); dardarati batez (7); esku dardarati (6); esku dardarati batez (4); eta dardarati (11); eta dardarati bat (3)
> ahots dardaratiaz (6); ahots dardaratiz (11); dardaratien artean (3); esku dardaratiez (3); eta dardaratia (4); eta dardaratia (4)

---

# dardaratidun

*izond*

Aitzitik, sagukume erraldoi batzuez erditu zen Amama Otso; denak ere, isats-luzeak eta bibote **dardaratidunak**. Mirentxu Larrañaga

---

# dardaratsu

**1** *izond* dardaratia.

Bere adimenari zegozkion eskuak alferrik ahalegintzen ziren bularraldean zabaldutako atorra lotzen eta gorputz heze **dardaratsua** berotzen. Jose Morales
Ahots lodi **dardaratsu** batek zerbait esan zuen ozenki. Jose Morales
Hasierako proiektoreek sarri eman ohi zuten halako irudi **dardaratsu** bat. Josu Zabaleta

**2** (adizlagun gisa)

-Bai jauna- erantzun zuen Joek **dardaratsu** isilune baten ondoren. Lopez de Arana

---

# dardaratu,

dadara(tu), dardaratzen **1** da *ad* dar-dar egin. ik **dardarikatu.**

Edomgo zelaietan barrena aurrera egitean, lurra ikaratu egin zen, ortzia **dardaratu**. Elizen arteko biblia
Ikaratu zen lurra eta **dardaratu**, zeruaren oinarriak mugitu, Jainkoaren haserreak baitzituen astindu. Elizen arteko biblia
Oinarrietaraino **dardaratzen** zen mendia, eta harkaitzek zabu egiten zuten. Koro Navarro
Errege da Jauna: **dardara** bitez herriak! hegadun izakien artean du tronua: ikara bedi lurra! Elizen arteko biblia
Zorua arinki **dardaratu** zen aretoko oinkaden eraginez. Jose Morales
Tren bat pasatu zen gure gainetik, eta arkua **dardaratu** egin zen. Koro Navarro
Uretan **dardaratzen** den kanabera bezala izango da. Elizen arteko biblia
Atea halako kolpeaz jo zuen non leihoak ere **dardaratu** baitziren. Koro Navarro
Hosto bat bezala **dardaratzen** nintzen, zer erran edo egin ez nekiela. Alberto Ladron Arana
Haurrak ilunpe itsuan **dardaratzen** eta denaz ikaratzen direnez, [...]. Xabier Amuriza
Eskua **dardaratu** egiten zaio eta beti egiten du okerren bat. Gotzon Garate

Zeren eskuak eta belaunak **dardaratzen** hasiak baitzaizkit,. Juan Garzia

Ahotsa apur bat **dardaratu** zitzaion, baina laster berreskuratu zuen sendotasuna. Alberto Ladron Arana

• **2** du *ad* ik **dardararazi.**

Oinaztuaren zartada ikaragarriak lur kiskalia **dardaratzen** duenean. Xabier Amuriza

Haien sudurzuloetatiko arnasen kanporatzeak betileak **dardaratu** zizkion. Iñaki Zabaleta

Hotzikara batek **dardaratu** ninduen, harrapatzen baninduten, Angeloren zori etsai bera izango nuela pentsatuz. Anjel Lertxundi

Eskualde hau Labartzatik ikusterik ez dagoelako, nik uste, halako zauskada azkarrago batek **dardaratu** nau barru-barruan. Txillardegi

Mitxelena lotsak **dardaraturiko** ahotsez mintzatu zitzaidan idazmahaiaren beste aldetik: [...]. Alberto Ladron Arana

Eta asalduak hartu nau goitik behera, eta zauskada bortitz batez **dardaratu** . Txillardegi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Mahaiko zamauan bermatu zituen Gabrielek bere hamar hatz **dardaratuak**, eta irribarre egin zion, urduri, taldeari. Irene Aldasoro

Irribarre **dardaratu** bat, begirada baten eromena segundo batzuen artean... Berria - Kultura

Idazkera asaldatu eta **dardaratuaz** kopiatua. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batek dardaratu** (3); **dardaratu egin** (7); **dardaratu egin zen** (5); **dardaratu egiten** (3); **dardaratu zen** (7); **dardaratu ziren** (3); **dardaratu zitzaion** (3); **dardaratzen eta** (5); **dardaratzen zen** (3); **dardaratzen ziren** (3); **dena dardaratzen** (3)

---

# dardaratze *iz* dar-dar egitea.

**Dardaratze** sotil hura ere nabaritu zizun gorputzean Joaquinek. Hasier Etxeberria

---

dardarazi ik **dardararazi.**

---

# dardari **1** *iz* dardara. ik **dardarizo.**

**Dardari** batek inarrosi ninduen, haren hatz puntak galtzontziloaren marratik beheiti hainbat zentimetro antzinatu zirenean. Aingeru Epaltza

**Dardari** tiki bat jabetu zen Kristinaren eskuaz. Aingeru Epaltza

Gizon izukaitzat genuen, bere onetik inoiz ateratzen ez zena, baina egun hartan aurpegiaren zurbilak salatzen zuen barneko **dardaria** . Aingeru Epaltza

Lehenago uste nuen banekiela sukarra eta **dardaria** zer diren. Aingeru Epaltza

**2** ***dardari batean*** dardara batean.

Gorputz guztia **dardari** batean hastean jaiki da Aingeru Epaltza

---

# dardarialdi *iz* dardaraldia.

**Dardarialdi** horietariko batean nengoela etorri zait aspaldi honetan izan dudan bisita bakarra. Aingeru Epaltza

---

# dardarika **1** *adlag* dardarka.

**Dardarika** zegoen, beldurrez baino areago, hiraz. Aingeru Epaltza

Agurea **dardarika** hasia zen. Aingeru Epaltza

**Dardarika** ari zen borreroaren eskua. Aingeru Epaltza

Kasik **dardarika** nengoen funtzionarioak delako papera Patxiren kameraren objektiboari eskaintzean. Aingeru Epaltza

• **2** *iz* dardara.

**Dardarika** bortitz batek astindu nau. Txillardegi

Hauek eginak dira plaka handi batzu pausatuz xutikoen gainean, eta horien **dardarika** urrun entzuten da. Herria

---

# dardarikan *adlag* dardarka, dardaran.

Lurra **dardarikan** hasi zen, zapartak gero ta hurbilago eta ozenago. Marzel Etxehandi

Iruzkiak aire errea dantzan zerabilan uzta-alorretan, Erronkaritik etorri ttirrittak geldi-geldia **dardarikan** ari ziren haritzetarik iruzkiaren dantza pikatuz haran guzian. Pablo Sastre

---

# dardarikatsu *izond* dardaratsua.

Boza higatu, erkastu eta kraskatu bezala zitzaion: halare aintzina ari zen kantuz, marraka **dardarikatsu** batean! Patziku Perurena

---

# dardarikatu, dardarika, dardarikatzen **1** da *ad* dardaratu.

Adiskidetasun eta are senidetasun erakutsi bat izanen zatekeen, nik, zerri honek, igandean nire aitzinean **dardarikatzen** zen ezker bular belztu eta sumindua izan ez banu gogoan. Aingeru Epaltza

Bozatarrak, agotak gituk, jendetzearen ipularrean bizi gituk, ikusten gituenak burua itzultzen dik, kurutzatzen gituena baztertzen duk, ez dik gure basotik nehork nahi, apezaren eskua sortu berriaren bataiatzeko, gure hilaren benedikatzeko, **dardarikatzen** duk. Michel Oronoz

• **2** du *ad* ik **dardaratu 2.**

Danbatekoak gainsolairu osoa **dardarikatu** zuen. Aingeru Epaltza

**3** (era burutua izenondo gisa)

Barre purrustadatxoak irteten zitzaizkion bat bestearen atzetik arnas-ziztuka gorputz **dardarikatutik** . Irene Aldasoro

---

# dardarina *iz*

Era horretan, gene berri bat atzeman zuten ikertzaileek, gero **dardarina** deitu zutena. Berria - Gaiak
Edozelan ere, Perez-Turren taldeak ez du argitu **dardarina** geneak zein funtzio betetzen duen. Berria - Gaiak

---

# dardaritu, dardari(tu), dardaritzen da *ad* dardaratu.

Egonarriz beterik, amaren galdea egin nion, eta orduan ere, ez zuela jartzea posible jakinarazi zidan boza **dardaritu** gabe. Aingeru Epaltza
Horretaz kezkatzeko paradarik ez nuela izanen ohartu nauk, aparkalekura atera eta gure autora hurbiltzean -eskuak **dardaritu** zitzaizkion-. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dardaritu gabe** (3)

---

# dardarizo *(ETCn **382** agerraldi)* **1** *iz* dardara.

**Dardarizo** batek astintzen zizkion betazalak. Matías Múgica
Halako **dardarizo** batek hartua zion bizkarra. Lopez de Arana
**Dardarizoak** hartu nau gorputz osoan. Txillardegi
**Dardarizoak** hartzen zuen nire larruazal osoa zure busti berria ondoan sentitzen nuenean. Xabier Mendiguren Elizegi
Gorputz guzitik pasa zaion atsegin gisako **dardarizo** hura. Patziku Perurena
**Dardarizo** bortitz batek inarrosi nau. Txillardegi
Belaunetan **dardarizoa** zuen eta sabelaren goialdea irakiten zeukan. Lopez de Arana
**Dardarizo** bat sumatu dut gure belaunek leunki topo egin duten lehen aldian. Patxi Zubizarreta
Ez zen horrelako **dardarizo** nabarmena ere. Xabier Mendiguren Elizegi
Eta oroz gain ahots doinu hark, **dardarizo** jadanik sumagarriaz haren arimaren zirrara salatzen baitzuen, amodioari eskaintzen zioten guztiari. Jon Muñoz
Mary Janek Gabrieli eta Browne jaunari begiratu zien eta, **dardarizo** batez, esan zuen: [...]. Irene Aldasoro
Alazneren gorputza aingira baten modura mugitzen zen, kateme hunkibera baten **dardarizoekin**. Fernando Morillo
"Rien" esan zuen, eta iruditu zitzaidan zerua urratzen zela "erre" frantsesaren **dardarizoaz**. Ramon Saizarbitoria

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berriro orekatzen zenean [hegazkina], ordea, lasai pasatzen genituen minutu batzuk, hurrengo tupustekoa, hego-**dardarizoa** eta balantzaldia etorri arte, noski. Joxe Austin Arrieta
Dardar batean utzi ninduen, hosto bat bezala, belaunek izu-**dardarizoaren** gaitza zutela. Fernando Rey
Barne **dardarizoa** sentitu zuen ostera, eta barruko ahotsaren eztenkada, ea Manuelekiko adiskidetasunak hainbat neke merezi zuen galdezka. Pedro Alberdi

**3**

Gauzak arreta gutxiagoz tratatzen ditugu-eta, gaitzak datoz ondotik: behi eroak, ardien *scrapie* edo **dardarizoa**... Edorta Agirre

**4** ***dardarizo batean*** dardara batean.

Espasmo azkar batek **dardarizo** batean jarri zizkion gorputz-atal guztiak. Lopez de Arana
Natalia eskailera barrenean erori zen; ez zuen ezer esan, ez zuen askatzeko ahaleginik egin, **dardarizo** batean geratu zen lanpas baten gainean. Aritz Gorrotxategi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dardarizo bat** (5); **dardarizo batean** (4); **dardarizo batek** (3); **eta dardarizo** (4)

---

# dardarizoka *adlag* dardarka.

Eta erreginak ez baitzuen ezeren susmorik, garagar hartatik jan, eta **dardarizoka** hasi zen. Patxi Zubizarreta
Istantean mandoa **dardarizoka** hasi zen eta berehala erregina bihurtu. Patxi Zubizarreta

---

# dardarka *(**560** agerraldi, **110** liburu eta **35** artikulutan; ETCn **2.614** agerraldi)* **1** *adlag* dardar egiten. ik **dardaraka**. (norbait)

Gizona **dardarka** hasi zen. Izerditan eta **dardarka** zegoen. Monika Etxebarria
**Dardarka** jartzen nintzen haren aurrean, eta zurbildu egiten nintzen inguratzen zitzaidanean. Koro Navarro
3.093 milioiren akzioak salerosi ziren atzo, edonor **dardarka** uzteko moduko kopuruak. Berria - Ekonomia
**Dardarka** eta zain-ikara batek astindurik hasten zen Nathaniel, kontakizuna eraman ezinik. Anjel Lertxundi
Adan, erabat ikaraturik, **dardarka**, alboan zeukan andrearengana jiratu eta halaxe esan zion: [...]. Bernardo Atxaga
Beldurrak airean, **dardarka**, txabusina eta zapatilak jantzi zituen. Lopez de Arana
-Hilen Bidezidorrak! -errepikatu zuen, **dardarka**, Théodenek-. Agustin Otsoa
-Nork? -xuxurlatu zuen Wendyk, **dardarka**. Julen Gabiria
Hotzak **dardarka** sartu zen egongelara. Unai Iturriaga
Hotzak eta urduritasunak **dardarka** nenbilen. Alberto Ladron Arana
Gizon batzuek boterea zuten pizgarri, pentsatu zuen hotzez **dardarka**. Alberto Ladron Arana
Han geratu zen eserita, izuikaraz **dardarka**, beraiei begira-begira. Iñaki Mendiguren
Neure onera etorri nintzenean, kolpetik zutitu nintzen, zuntz guztiak konbultsioz **dardarka**. Koro Navarro
Gero, amorruz **dardarka** eta orroka semea zegoen tokira joan zen. Askoren artean
Anaia **dardarka** hasi zen ikaraz eta, ez dakit zer sumatu zuen, ez zuen lehengo adore bera. Askoren artean
**Dardarka** egongo dira athleticzaleak. Berria - Kirola

**2** (gorputz zatiak)

Kokotsa **dardarka** zuen, halaxe jartzen zitzaion urduritzen zenean. Anjel Lertxundi
-Ez -esan zien Hermionek, bere eskuetan eskutitz bat zuela eta ezpaina **dardarka**-. Iñaki Mendiguren
Horrela ezin nion aurpegia osorik ikusi, nahiz eta ezagun zuen ezpainak **dardarka** zituela, bere kasa marmarka arituko balitz bezala. Koro Navarro
Hanka bat eta beso bat **dardarka** izan ditu gazte nafarrak atxilotu zuten egunetik. Berria - Euskal Herria
Belaunak **dardarka** zituen. Lopez de Arana
Hermionek **dardarka** altxatu zuen eskua. Iñaki Mendiguren
Eskua **dardarka** zuen, baina gehiago pozez, lotsaz baino. Julen Gabiria
Eskuak hotz eta **dardarka** zituen. Lopez de Arana

Berriz ere jarri zizkion hatzak **dardarka** neskaren erantzun irribarretsuak, lorategian bezalaxe, eta masailak gorritu zitzaizkion, eta bihotza arrapalada bizian jarri. Koro Navarro

Barre egitean, bizkar zabala eta bular handiak **dardarka** hasi zitzaizkion Madame Rigaudi. Lopez de Arana

Algararen algaraz, bularra pudding baten modura zebilkion **dardarka**. Joxe Austin Arrieta

Lerratu egin nintzen zangoak gogortuta, giltzadurak **dardarka**, magnetikoki erakarrita zure aterantz. Eduardo Matauko

**3** (bestelakoak)

Airea **dardarka** hasten da, eta geroxeago haizeño mehe bat hasten zait aurpegian jotzen. Oskar Arana

-Tirorik eman dizute? -xuxurlatu zuen Johnek, ahotsa **dardarka**. Julen Gabiria

Senarrak kandela piztu du, eta argia **dardarka** hasi da, argi egin beharraren izuz. Anjel Lertxundi

Dena **dardarka** hasi zen bere inguruan eta lautada osora hedatu zen ikara hura. Joanes Urkixo

Harryk aulkia **dardarka** sumatzen zuen bere azpian, motor-hotsa ere entzuten zuen. Iñaki Mendiguren

Leihoko kristalak eta edontziak **dardarka** hasi ziren, aliatuen bonbardaketa baten pean bezala. Jon Muñoz

Ahotsa eztarrian trabaturik, benetako kristal frantseseko kopa eskuan **dardarka**. Bego Montorio

Imanolen ahots bulartsuak **dardarka** ipintzen zituen ni nengoen zuhaitzeko hostoak. Juan Kruz Igerabide

Ermita osoa **dardarka** bezala hasi zen bat-batean. Fernando Morillo

Halako batean, lurra **dardarka** hasi zen, eta Niloren urak gainezka egin zuen, bere arrotik atereaz. Xabier Aranburu

Bat-batean telefonoa **dardarka** hasten da: Daniren izena agertzen da pantailan. Antton Olano

Mundua **dardarka** jarri zuen gertakari haren ondorioz, energia atomikoaren kontrako argudioek indar handia hartu dute. Berria - Gaiak

**4** (izen soil baten ezkerrean)

Estatistikaz pentsatzen, Joachim bere burua urkatuaz pentsatzen, etorkizunaz pentsatzen, hotz-**dardarka** hasi nintzen arte. Joxe Austin Arrieta

Ezpain-**dardarka** hitz egin zuen: [...]. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahotsa dardarka** (5); **amorruz dardarka** (4); **apur bat dardarka** (3); **argia dardarka** (3); **bat dardarka** (7); **behera dardarka** (4); **belaunak dardarka** (6); **beldurrez dardarka** (4); **bezala dardarka** (3); **da dardarka** (3)

**dardarka ari** (31); **dardarka ari da** (4); **dardarka ari dira** (4); **dardarka ari zaio** (3); **dardarka ari zen** (7); **dardarka ariko** (3); **dardarka daude** (3); **dardarka dauden** (4); **dardarka egin** (3); **dardarka eta** (25); **dardarka geratu** (3); **dardarka geratu zen** (3); **dardarka hasi** (55); **dardarka hasi da** (4); **dardarka hasi eta** (3); **dardarka hasi nintzen** (9); **dardarka hasi zen** (17); **dardarka hasi ziren** (6); **dardarka hasi zitzaizkion** (7); **dardarka hasten** (24); **dardarka hasten da** (6); **dardarka hasten zen** (3); **dardarka jarri** (21); **dardarka jarri zituen** (5); **dardarka jarri zuen** (5); **dardarka jartzen** (16); **dardarka nengoen** (7); **dardarka nituen** (3); **dardarka oraindik** (3); **dardarka sumatzen** (3); **dardarka zegoen** (24); **dardarka zeuden** (3); **dardarka zeukan** (4); **dardarka zeuzkan** (8); **dardarka zihoan** (3); **dardarka zituela** (8); **dardarka zituen** (10); **dardarka zuela** (4); **dardarka zuen** (9)

**dena dardarka** (3); **eraginez dardarka** (3); **ere dardarka** (7); **ere dardarka jarri** (3); **eskua dardarka** (8); **eskuak dardarka** (25); **eskuak dardarka ari** (4); **eskuak dardarka hasi** (3); **eta dardarka** (43); **eta dardarka hasi** (6); **ezpainak dardarka** (6); **gainean dardarka** (3); **goitik behera dardarka** (3); **handiak dardarka** (3); **hankak dardarka** (10); **hotzak dardarka** (3); **hotzez dardarka** (19); **kristalak dardarka** (4); **lurra dardarka** (4); **mundua dardarka** (3); **ni dardarka** (3); **ortzia dardarka** (3); **ortzia dardarka ariko** (3); **osoa dardarka** (4); **pozez dardarka** (3); **zangoak dardarka** (4); **zen dardarka** (6); **zuen dardarka** (3)

---

# dardarkari

**1** *izond/iz* ahotsez mintzatuz, mihiaren dardaratzearen bidez gauzatzen dena.

Artikulazio **dardarkaria**: mihia urrutiago ezartzen da sabaitik *l*-a egiten denean baino, baina dardaratu egiten da kolpe kopuru aldakor batez. Isabel Arrigain

**Dardarkariak dardarkari** izateko, nahikoa da ixte lasterraren errepikapen bat, baina gehiago ere izan daitezke. Lourdes Oñederra

Frantsesezko **dardarkaria**, "r" idazten dena alegia, ubularra da. Lourdes Oñederra

Era berean, **dardarkari** bakuna fonologiatik bakarrik uler daitekeen izena da. Lourdes Oñederra

Terminologia horretan, benetako **dardarkaria dardarkari** anizkuna deitzen da. Lourdes Oñederra

**Dardarkari** ezpainkariak Afrikako hizkuntza zenbaitetan ohiko dira Lourdes Oñederra

• **2** *izond* dararatzen dena.

Harresien erlaitzetan jarritako zuzien argi **dardarkariak** argitzen zuen hura. Agustin Otsoa

Kandelaren argitasun **dardarkari** geroago eta ahulagoak triste end giroa sakontzen du. Joseba Sarrionandia

Gero klarinaren nota **dardarkaria** entzun zen. Agustin Otsoa

Farolaren argi **dardarkari** eta hil-hurrenkaria. Joxe Austin Arrieta

Erritmoen apoteosia jazzaren oihartzuna, arina, **dardarkaria** eta koloretsua. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dardarkariaren eta** (3)

---

# dardarkaritasun

*iz* dardarkaria denaren nolakotasuna.

Egia da, haatik, **dardarkaritasuna** ari dela galtzen eta igurzkari bihurtzen, Pariseko prestigiozko hizkerarekin hasi omen zen aldaketa baten bultzadaz. Lourdes Oñederra

---

# dardarti

*(81 agerraldi, 40 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 378 agerraldi)* **1** *izond* dardaratia. ik **dardarati**.

Hitz bakarra xuxurlatu zuten haren ezpain **dardartiek**: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Hura lau zutabeko oheraino joan eta han etzanda zegoen, aurpegia esku **dardarti** batez estalita. Iñaki Mendiguren

Esku handi **dardartia** sudurrera eramaten zuenean. Irene Aldasoro

Nire zango **dardartiak** etxe baten parean gelditu ziren, zapataginen karrikan. Aingeru Epaltza

-Galde egiozu! -esan zion Ronek, hatz **dardartiaz** sir Cadoganen erretratuaren atzeko aldea seinalatuz-. Iñaki Mendiguren

Lehen aldiz, boz adar mehe-mehea atera zen aho **dardarti** horretatik. Aingeru Epaltza

Izumenak erotuta zekartzan begiak, eta ahots **dardarti**, lakar, isil-isilaz mintzatu zitzaidan. Koro Navarro

Ezin zuen hitzik egin, baina mugimendu **dardartiak** egiten zituen. Inazio Mujika Iraola

Kandelen argi ahul, **dardarti** eta salatzailea. Xabier Olarra

Arrabioz beteriko istilak, buztan **dardartizko** burubeltzez irakiten, espermatozoozko borbortegiak balira bezala. Joxe Austin Arrieta

Eraso egiteko prest dagoen kriskitin-suge **dardartia**. Jon Alonso

Eskaileretan behera, baranda itsaskor, **dardartiei** helduta. Koro Navarro

Pago baten hosto **dardartiek**. Ramon Saizarbitoria

Bada tristura bat hezea eta errea, betea eta betegarria, bildua eta beltza, [...] itzal **dardartien** mendean eroria, ixila, sorra, haizerik egundo ibili ez den basamortuetan jaiotzen dena. Iñaki Segurola

Perlekin batera ohar bat zekarren, zaharren letra **dardartiaz** idatzita: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** irud/hed

Zenbait minutuz, abstrakzio ameslari eta **dardartietan** galduta, alferrik saiatu nintzen ideiaren bat osatzen. Koro Navarro

Ahotsa bat-batean aldatzen zitzaion, ezin erabaki **dardarti** batetik [...], trinkotasun indartsu moduko batera. Koro Navarro

Erabaki-ezintasun hotz-**dardarti** baten eldarnioa. Joxe Austin Arrieta

**3** (adizlagun gisa)

Mio Byron, abesten du, ahotsa tristuraz **dardarti**. Oskar Arana

Eta tatuajea erakutsi dio, "Ermela", azalaren gainean **dardarti**. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dardarti batez** (3); **esku dardarti** (3); **esku dardartiz** (4)

---

# dardartsu *izond* dardaratsua.

Nagusiak, ahots **dardartsuz**, alegatu zuen Dahlmann-ek armarik ez zuela. Juan Garzia

Izan ere, beharrezkoa da aleaziorik sendoenezko nerbioekin munduratua izatea, edo, nerbioak **dardartsu** eta zapartatsuak baldin badira, neurriz kanpoko pasio batek, aberriaren aldekoak edo antzekoak, inor beretua izatea. Jon Alonso

---

# dardartu, dadar(tu), dardartzen du *ad* dardaratu.

-Eta nik ez zakiat zenbat denbora egingo dudan hire ondoan -ahotsa **dardartu** zitzaion, haize zakar batek jotako ihi herbala balitz bezala-. Anjel Lertxundi

Gau hartan, biok kanpoan hotzaz **dardartu** arte egon ondoren, nire gelara etorri zen neskatxa huraxe bera... Joxe Austin Arrieta

---

# dardo **1** *iz* eskuz jaurtitzen den gezi modukoa, txikia.

Beste herri askotan, **dardoz** eta lantzaz ekiten diote tornadu gisako haize zurrunbiloei. Patziku Perurena

Igel bat marrazturik zuen [postal] bat zen denen artean deigarriena, hiru **dardoz** hormari josita zegoena. Harkaitz Cano

Polizia agertu zenean, zakurrak oso urduri zeuden eta albaitariak **dardoak** bota zizkien, lokarrarazteko. Gotzon Garate

Tankeek jaurtigaiak tirokatu eta lehertzerakoan geziz osatuta dauden ehunka **dardo** aireratzen dira. Berria - Mundua

3,7 milimetroko **dardo** hauek biraka segitzen dute zerbaiten edo norbaiten kontra talka egin arte 300 metrora iristeko ahalmena dute. Berria - Mundua

**2** irud/hed

Gizon gazteari amodioaren **dardoak** zitzaizkion orduan berean bihotzean sartu. Aurelia Arkotxa

Dei bat sentitzen dut aldi bakoitzean, bete-betean jotzen nauen **dardoa**; nigan hariak dardararazten dituen soinua, musika isila... Iñaki Iñurrieta

**3** (dardo jokoan erabiltzen dena)

Hartu ditu hiru **dardoak** eta mahai aurrean jarri da, dianaren parez pare. Iñaki Iñurrieta

Egingo al dugu **dardotan**? -galdetu zion azkenean, lehen enkontru hartako izotza hausteko asmoz-edo, eta erantzunik itxaron gabe, hartu **dardo** bat eta jaurti egin zuen. Iñaki Iñurrieta

· Burtsako balore zerrenda bati **dardoak** botatzen ari diren tximino begi estaliek eta finantza analistek aukera bera dute balore arrakastatsuak zeintzuk izango diren aurreikusteko orduan. Iñaki Heras

**4** (hitz elkartuetan)

Baina honek **dardo** partida bat merezi du. Iñaki Iñurrieta

**5** esaldi iraingarria.

Askoz gehiago ziren auziaren gorabeherak ulertzen zituztenak, baina besteek ere noiznahi jaurtitzen zituzten beren **dardo** mingarriak. Joan Mari Irigoien

Udako oporrak amaituta,buruzagi politiko guztiek ekin diote jardun publikoari elkarri **dardoak** jaurtikiz. Berria - Euskal Herria

**6** ***dardo joko*** dardo berezi batzuekin helburuan jotzean datzan jokoa.

Han, **dardo** jokorako dianaren gainean egon behar zuten Verneren eleberri guztiek, aitak utzitako bildumen artean. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dardo bat** (3)

---

# darfurtar *izond/iz* Sudango Darfurrekoa, Darfurri dagokiona; Darfurreko herritarra.

**Darfurtarrak** beren etxeetatik alde egiten hasi ziren, eta iheslari olde handiak Txadera jo zuen babes bila. Berria - Mundua

---

# dari *iz* Afganistanen iparraldean mintzatzen den hizkuntza indoirandarra.

Paxtu eta **daria** dira Afganistango hizkuntza ofizialak Berria - Mundua

---

# dartsena **1** *iz* portu batean, eremu babestua, kaiez hornitua.

Den-dena azaltzen zidan, kaleen izenak, portuko **dartsenak**, paraje haietako lokalak, izen mordoa gogoan eduki beharra. Fernando Rey

Transatlantiko bat dela ohartzen naiz, ezin duena maniobra bat egin **dartsenan**. Berria - Euskal Herria

Bat-batean, iparreko **dartsenetako** kaira atera nintzen. Monika Etxebarria

Orain **dartsena** nagusien aldera, lantegien aldera, ekialde beltzean hondoratzen da, maletaz eta haur lokartuz mukuru beterik. Monika Etxebarria

**2** badia, arrada.

**Dartsenak** baditu zenbait legoa perimetroan, eta itsasora ematen duen bokalea hain da estua non aldiko ontzi bat baino gehiago ezin den pasa. Koldo Izagirre

Bokale hau bera ere, harkaitzezko gailur altu biren artean gordea, hiru **dartsena** ttipitan dago banatua. Koldo Izagirre

---

# darwindar **1** *izond* Ch. Darwinena, Ch. Darwini dagokiona. ik **darwinista**.

Eta berdin gertatzen zen teoria **darwindarrarekin**, eboluzioaren hautespen-teoriarekin, hura ere ukatzen baitzuen Lyssenkok. Juan Garzia

**2** Ch. Darwinen teoriaren aldekoa.

Gau batez etxera itzultzean, Jeneralak ustekabea eta mina hartu zuen Adan (horrela baitzuen animaliak izena, jenerala **Darwindarra** izaki) bere zain eserita aurkitu baitzuen, bere uniformeko jakarik ederrena soinean zuela, galoi eta guzti. Xabier Olarra

---

**darwiniano** *izond* darwinista, darwindarra.

Uko egiten zien (burlarik gabe, haatik) gure eztabaida etengabeei, zeinetan aldian-aldian agertzen baikinen platoniko, **darwiniano** edo, geroago, bergsonzale. Juan Garzia

---

**darwinismo** *iz* bilakaeraren teoria, hautaketa naturalean oinarriturik Ch. Darwinek moldatu zuena.

**Darwinismoaren** ilurakeria liberalismo ekonomiko eta politikoan ez ezik, Marx eta Engels-en klase-borrokan ere nabarmentzen da. Iñaki Heras

Ustez ekonomilariak izan zirela indibidualtasunari balizko oinarri zientifikoa eman ziotenak, balizko **darwinismo** sozialari oinarriak ezarriz, eta gizakia homo economicusa zela aldarrikatuz. Iñaki Heras

Unamunoren biologismo eta **"darwinismo** lingüístico"az. Joxe Azurmendi

Hezkuntza programa guztietatik **darwinismoa** kentzea. Pello Salaburu

**Darwinismoaren** kontu horiek, esan ohi zuen bezala, dibertitzeko asmatutako gauzak iruditzen zitzaizkion don Blasi. Josu Zabaleta

---

**darwinista** *izond* Ch. Darwinena, Ch. Darwini dagokiona. ik **darwindar**.

Nolabaiteko mito **darwinista** naturala ere eratu da honen guztiaren inguruan, Alain Minc saiogile frantsesaren hitzetan ederki asko jasotzen dena: "Kapitalismoak ezin dezake porrot egin, gizartearen egoera naturala da". Iñaki Heras

George Bushek ideologia «marxista-**darwinista**» berri bat sortu duela esan du; eta pentsamolde horrek ekonomiaren nagusitasuna eta indartsuenak bakarrik irautea bultzatzen duela adierazi. Berria - Kultura

---

**darwinzale** *iz* darwinista, darwindarra.

Bigarrengo hipotesia ikuspuntu **darwinzalea** da: ez dago inongo kode bultzakadarik. Jenaro Garate

---

dasdatu ik **dastatu**.

---

**dasta** *(ETCn 22 agerraldi; orobat* ***jasta*** *ETCn 9 agerraldi)* **1** *iz* gauza baten zaporea, dastamenaren bidez sumatzen dena. ik **gustu 2**.

Ardoak mahatsaren **dasta** dauka. Berria - Kultura

Txokolatearen **dasta** garratza miazkatu nuen aho barruan. Juan Kruz Igerabide

Hogei zentimetro luzeko patatak, **dasta** melenga ustel antzekoa dutenak. Josu Zabaleta

Animalia eta landare gaiek, su bizitan errerik, izaten duten usain eta **dasta**. Josu Zabaleta

Oroitzapen samurrak ekartzen baitzizkidan gogora, Prousti magdalenaren **dastak** ekartzen zizkion oihartzunen antzera. Juan Kruz Igerabide

Odolak sudurretik beheiti egiten zidan, ordea, eta haren **dasta** gaziak mingaina trabatzen. Aingeru Epaltza

Zigarro bat piztu eta gozamenez sentitu nuen lehendabiziko kealdiaren **dasta** garratza. Anjel Lertxundi

Denborarekin pilatutako hautsa erortzen zen paperetik, eta itsasoko **dasta** gaziekin nahasten zen. Juan Kruz Igerabide

Oraindik gogoan dut Marisaren ahoko **dasta**; oroitze hutsak listua sortzen dit mingainaren inguruan. Juan Kruz Igerabide

**2** irud/hed

Mementoko, kantu bakarreko diskatxo bat dugu eskuratua, **jasta** gisa, "Minuette Pop" kantuarekin: [...]. Herria

Haren ezpainen berotasuna belarrian, haren ile kizkur solte bat nire kopetan kilima eginez, eta eztarrian gora igotzen zitzaidan zoriontasunaren **dasta** eztia. Juan Kruz Igerabide

Dena dardara eta zapore nintzen, ni neu osorik gozamen, eztitasun, estasi..., ez dakit; eta ahoko **dasta** hura, amodioaren **dasta**, zirrara erotikoaren **dasta**. Juan Kruz Igerabide

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mahatsaren udazken-**dasta** udazkenean, eta mahaspasaren negu-**dasta** neguan. Joxerra Garzia

Halatan, memoriak SOS deiak bidaltzen zizkidan, begi-**dasta** bakoitza azken aukerakoa bailitzan. Itxaro Borda

**4** dastatzea.

Baionako Gau eskolak ere bere aldetik animazio bat antolatzen du: txistor **jasta**, hitzordua ebiakoitz honetan, 7etarik goiti Baionako merkatuan. Herria

Arrapitz sareko elkarteak eta Idoki markako ekoizkinak proposatuak izanen dira, karakoil **dastarekin** batera. Herria

21:00etan Oiherkoren trajeria ikusgarriaren aitzin **dasta** bat emanen du Zuberoako artisten *Hebentik* kolektiboak. Berria - Kultura

Zenbait behar ditugu lerrokatu, **jasta** bederen ukan dezan irakurleak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Graxik ere, zorigaitzez, ukan zuen alemanen salda hartarik **jasta**. Eneko Bidegain

Afrikako eta Euskal Herriko ohituren **jasta** emana izan zaie. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahoko dasta** (3)

---

**dastagai** *pred* dastatzeko.

Aurten, itxuraz, plater nagusi batzuk izango ditugu **dastagai**. Berria - Kultura

---

**dastagailu** *(corpusean* ***jastagailu*** *soilik) iz* dastagarria.

Aratsean Etxeberriko axoa **jastagailu**, ondotik soinu eta dantza. Herria

---

dastagaitz ik **dastatu 3**.

---

**dastagarri** **1** *izond* dasta daitekeena.

Natura **dastagarria** besterik ez du ikusi argi eta kolore artean: funtsean, paisaia eta emakumeak bakarrik. Koldo Izagirre

**2** (adizlagun gisa)

Imajina dezakezun sexu menu oparoena **dastagarri**. Jon Arretxe

**3** (izen gisa)

Argi, margo eta gorputz itxurak begien bidez; soinu mota oro belarriz; usain oro sudur zuloz; **dastagarri** oro ahoz; eta gorputz osoaren sentimenetik gogor eta bigun, hotz eta bero, leun eta latz, astun eta arin den oro, gorputzaren baitan nahiz landa. Imanol Unzurrunzaga

Era berean, dastamena eta ukimena ere egotz lekizkioke, **dastagarriak** eta ukigarriak hautematen dituela adierazteko, hautemateen kontzeptua zentzu guztietarako berbera baita. Xabier Kintana

---

**dastaka** *adlag* dastatzen.

Itxaropenaren eztia **dastaka**, geroaren jaki gozo eta guriak amets, Maastricht deitzen den hirira iritsi zen. Felipe Juaristi

---

**dastakari** *iz* dastatzailea.

Eta ez da batere harritzekoa; nire aurrekoetan, aita aldetik, Mantxa-aldeak ezagutu dituen **dastakaririk** hoberenak izanak ditut bi; orain, behin batean gertatu zitzaiena aipatuko dut, nire lehengo esana ongi egiztatuko duena: eman zieten ba txastatzeko aldea kupel batetik, eta iritzia eskatu zieten, nolakoa ote zen alegia ardoaren kalitatea, ona ala txarra. Patxi Ezkiaga

---

**dastaketa** *(orobat **jastaketa**)* **1** *iz* dastatzea.

Ardoa edaten akaberarik ez duenak, edarien **dastaketara** emanak. Elizen arteko biblia

Larunbat arratsaldeko seietan proposatua da lehen hitzordua, Euskal Herriko hamabi arno desberdinen **dastaketarekin**, lekuko txarangek animaturik. Herria

Hori da bilatzen duen gauza bakarra, ahoak ardoan **dastaketa** maitatzen eta bilatzen duen eran, gozotasunarekin batera; urak ardoaren erakartasuna edukiko balu, ahoak ez luke ardoa ura baino gogokoago izango. Joan Mari Lekuona

**2** irud/hed

Eta irakurketa ozena edota **dastaketa** isila eskatzen duten testuak dauden bezala, zeruak ere baditu, ikusmirazalearentzat, bere baldintzak: ederreste isila besterik ez du onartzen, begirada bakartiaren irakurketa biluzia. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Amoarrain eta saheski **jastaketa** Bidart trinketean. Txaplik eta Jonek kasurik ez; txokolate **dastaketan** ziharduten, bataren edo bestearen kostoa hobea ote zen. Herria

Arratsaldean taldeak auzoetan ibiliko dira, kaleetan dantza egin eta herritarrek eskainiko dieten ardo **dastaketekin** gozatuz. Berria - Kultura

Ondoren, Sagardo Festa: Buruntzaldeko produktu eta eskulangintza azoka, sagardo **dastaketa**, zekor erretzea, dultzaineroak... Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sagardo dastaketa** (4)

---

**dastaleku** *iz* dastatzeko lekua.

Hitzaldien ondoren, **dastaleku** bihurtutako beste areto batera pasatu ginen. Joan Mari Irigoien

Goizeko zortzietarako bideo pornoak eskaintzen zituen taberna, izokin-kolorez margotu eta **dastaleku** bihurtu dute. Iban Zaldua

---

**dastamen** **1** *iz* gorputzaren zentzumena, mihian datzana eta gauzen ahogozoa sumarazten duena.

Mihiari lotuta baitaude bizitza eta heriotza, Liburu santuak dioen bezala -ez noski mihia **dastamenaren** organo delako, hitzaren organo delako baizik-. Askoren artean

Horrela ikusten ditugu landareak bizidunen beherengo mailan elikatzen, hazten, indartzen eta ugaltzen; piztiak, berriz, ikusten, entzuten eta objektu gorpuzdunen presentzia usaimenez, **dastamenez**, ukimenez sumatzen. Imanol Unzurrunzaga

**Dastamena** eta usaimena oso estuki erlazionaturik daude [...], baina **dastamena** ez da usaimena bezain sentikorra. Irene Aldasoro

Beste zentzumenak bezala, **dastamena** ere galduz joaten da urteekin. Irene Aldasoro

Haurrek oso **dastamen** garatua dute, batez ere gauza gozoetarako. Irene Aldasoro

Olagarroa eskaintzen dugu, galegoek bakarrik prestatzen dakiten **dastamenari** gozo-mina eta hortzari sendo-bera zaion olagarro bikain hori. Koldo Izagirre

Sentsazio anitz biltzen dira horretan, hala ikusizkoak nola ukimenezkoak, nahiz usaimenezkoak nahiz **dastamenezkoak**, hasteko xigortzaile kromoztatuaren dirdira, gero zerrendak ebakitzen dituen labana, ogi xigortuaren usaina, urtzen den gurina, eta azkenik [...]. Jon Alonso

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Substantzia gozoei erantzuten dieten **dastamen**-papilak mihi puntaren inguruan daude. Irene Aldasoro

**Dastamen**-papilei eragiteko behar den kantitate minimoa mikrogramo baten ehunena da gutxi gorabehera. Irene Aldasoro

Larruazalaren oso barruan garatzen da **dastamen**-zelula, eta gero **dastamen**-papilan sartzen da; han, nerbioamaiera bati lotzen zaio. Irene Aldasoro

Zazpiehun mikrogramo inguruan dago **dastamen**-atalasea eta hamabi mikrogramo inguruan usaimen-atalasea. Irene Aldasoro

Laztanek, batez ere ahozko laztanek, ukimen, usaimen eta **dastamen** estimuluak jasotzen dituzte. Luis Elberdin

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Krisi epileptikoen aurretik, entzumen-, ikusmen-, **dastamen**-, usaimen- edo oinaze-haluzinazioak gertatzen dira askotan. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dastamen papila** (3); **dastamen papilak** (6); **dastamen zelula** (3); **dastamena eta** (5); **dastamena eta ukimena** (3); **usaimena eta dastamena** (5)

---

**dastarazi** *(orobat **jastarazi**)*, dastaraz, dastarazten **1** du *ad* dastatzera behartu.

Ondoan Izal-ko gazta **dastarazi** didate; eta aurrerago Baigorritik etorritako bat. Txillardegi

Gero, bi ogi pusken artean arroltze moleta baratzeko biperrekin janik, xahakoak hiruzpalau itzuli eginik -bakoitzak bere etxeko arnoa **jastarazteko** doia, auzokoarenarekin

konparatzeko- abiatu ziren berriz beheiti gizonak. Michel Oronoz

Jean Michel Ayçaguer-ek aldiz bere sagardoiko fruituak tinkatuko ditu eta heien jusa **jastaraziko**. Herria

Min zuriaren mende gertatu nintzen ia-ia Honorék bere pekari ananaren kutsuan, inolaz ere probatu behar nuela eta, **dastarazi** eta gero, baina neure senera itzultzea lortu nuen. Joxan Elosegi

**2** irud/hed

Beste emakume bat izan balitz, aiseago kanporatuko zuen, baina tantaz tanta **dastarazi** nahi izan zion etsipenaren kopa. Patxi Zubizarreta

Gaixoa herrazko oskol batean ixten doa eta **dastarazi** nahi izaten die mingostasuna bere esku bihurtutako ahaideei edo adiskideei. Jon Alonso

3. zikloko 350 bat haurreri bertsularitza **jastarazteko**. Herria

Bertsoaren alde magikoa **dastarazteko**. Berria - Kultura

Juanitok berak mendizale-talde bat sortu zuen, herriko gazteei mendia maitatzen irakatsi eta, bide batez, aberriaren ederra ere **dastarazteko**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hura joan eta gero, planetak jiraka jarraitu zuen, baina jiratze hark ez zidan ekartzen lehen bezalako zorabio gozorik, urdailaren ahoa inurritzen zidan hura bezalakorik, [...] bizitzera nindoan une bakoitzaren zirrara **dastarazten** zidan hura bezalakorik. Juan Kruz Igerabide

Argi eta distira eginez uxatu duzu nire itsumena; zure usain gozoa zabaldu duzu eta arnastu dut, eta zure irrikaz nabil ordutik; **dastatu** zaitut eta gose-egarri naiz; ukitu nauzu eta zure bakeak sugarretan nauka. Imanol Unzurrunzaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dastarazi nahi** (3)

---

**dastatu**, dasta(tu), dastatzen *(ETCn **8.311** agerraldi; orobat **jastatu** ETCn **805** agerraldi, **txastatu** g.er. eta **dasdatu** g.er.)* **1** du *ad* janari, edari edo kidekoen ahogozoa sumatzeko, haren kopuru txiki bat ahoratu.

Jesusek **dastatu**, baina ez zuen edan nahi izan. Elizen arteko biblia

Jeneralak xanpaina **dastatu**, eta kopa baztertzen du. Xabier Olarra

Ardoa **dastatu** bezain laster, oso agudo eta erraz oneratu zen. Lopez de Arana

Zenbait minutu egon nintzen kafearen gustua **dastatzen**. Rafa Egiguren

**Dastatu** nahi zenuke nire vodka? Jon Arretxe

Tea eta goxokiak **dastatu** bitartean. Jon Arretxe

Adjibek ogi puska bat hartu, granada uretan busti, eta **dastatu** egin zuen. Patxi Zubizarreta

Ez dakit gogorik izango duzun hain jaki xumeak **dastatzeko**. Antton Olano

Atera zieten gero eltzekaria gizonei, baina, **dastatu** bezain agudo, esan zuten garrasika: -honek pozoia du[...]! Elizen arteko biblia

Kulunka zerabilen gorputza, atzera eta aurrera, eta ez zuen gosaria **dastatu** ere egin. Mirentxu Larrañaga

Beharbada, afari goxo bat **dastatu** eta gero Michigan aintzira ertzean ibil gintezkeen. Patxi Zubizarreta

Oso gutxitan **dastatu** dut haxixa, han ura eta airea bezain ugaria den arren. Patxi Zubizarreta

Koilarakada garratz bat **dastatu** duenaren aurpegia jarri zuen gizonak. Anton Garikano

Harri gainera erori zen eta odolaren zaporea **dastatu** zuen. Iñaki Mendiguren

Haren ezpainen zaporea **dastatzeko** aukera izan nuen. Migel Angel Mintegi

Ez nuen beste porrot baten ozpina **dastatzeko** gogorik. Anjel Lertxundi

Ahoaren atzeko aldetik sudurrera igotzen diren lurrunei dagokielako jatearen eta edatearen atsegina; eta lurrunok, **dastatu** ez, baizik usaindu egiten dira. Irene Aldasoro

Euripean bustitzen egon naiz, eta lur hezearen lurrina **dastatzen**. Patxi Zubizarreta

**2** irud/hed

Balkoiko atea zabal-zabalik, itsas usaina **dastatzen** ari nintzen, anaiak hitz egin zidanean. Pedro Alberdi

Mendekuaren zapore gozoa **dastatu** nuen. Aingeru Epaltza

Mendekuaren gozoa **dastatzen** geratu zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Eguzkiaren sarrera **dastatzen** ari da. Pako Aristi

Ea bada, **dasta** dezadan alaitasuna, goza dezadan bizi-poza! Elizen arteko biblia

Adiskidantzaren xarma **dastatu** dudanez geroztik, nahi dut zuk orobat goza dezazun. Jon Muñoz

-Utz ezazu bizitza likits hau eta **dastatu** benetako bizitza... Patxi Zubizarreta

Bakarrik egon nahi nuke, eta bakardade mota ezberdinak sortu eta asmatu eta **dastatu**. Harkaitz Cano

**Jastatu** banuen **jastatu**, musu iturri horrek xoratua nindukan. Janbattitt Dirassar

Karguak boterea ematen die, eta, behin horretatik **dastatu** eta gero, ezin etsi dute hura gabe. Joxerra Garzia

Barealdiaren plazera **dastatzeko** beharra sentitu zuen eta ohean luze etzan zen. Josu Landa

**3** (dasta erroa hitz elkartuetan)

Mihiaren bitartez datozenak, aldiz, Eztiak edo Kiratsak, **Dasta**-gozoak edo **Dasta**-gaitzak. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ardoa dastatu** (3); **arte dastatu** (3); **bakarrik dastatu** (3); **bat dastatu** (10); **beste bat dastatu** (3); **bete betean dastatu** (3); **betean dastatu** (3); **dastatu ahal** (19); **dastatu ahal izan** (10); **dastatu ahal izango** (5); **dastatu behar** (3); **dastatu beharko** (3); **dastatu bezain** (3); **dastatu bitartean** (3); **dastatu ditu** (3); **dastatu du** (4); **dastatu egin** (5); **dastatu ere** (8); **dastatu ere egin** (6); **dastatu eta** (21); **dastatu eta gero** (4); **dastatu ez** (4); **dastatu gabe** (13); **dastatu gabea** (4); **dastatu gabeko** (3); **dastatu nahi** (14); **dastatu nahi izan** (4); **dastatu nuen** (15); **dastatu ondoren** (7); **dastatu zuen** (19); **dastatu zueneko** (4); **dastatu zuten** (3); **ere dastatu** (8); **eta dastatu** (7); **ez dastatu** (6); **gozoa dastatu** (6); **gozoa dastatu zuen** (3); **gustura dastatu** (3); **guztiak dastatu** (4); **hura dastatu** (8); **hura dastatu zueneko** (3); **inoiz dastatu** (3); **sekula dastatu** (3); **ura dastatu** (3); **ura dastatu zuen** (3)
>
> **dastatua ez** (3); **dastatua ez nuen** (3); **dastatuko ditut** (3); **dastatuz eta** (3)
>
> **bat dastatzeko** (3); **bat dastatzen** (3); **dastatzeko aukera** (15); **dastatzeko aukera izan** (3); **dastatzeko aukera izango** (3); **dastatzeko eta** (5); **dastatzen ari** (12); **dastatzen den** (4); **dastatzen eta** (5); **dastatzen zituen** (3); **dastatzen zuen** (9); **dastatzera ematen** (4); **gozoa dastatzen** (3); **hura dastatzen** (3); **sagardo dastatzea** (3)

---

**dastatzaile** **1** *iz* janariak edo edariak dastatzen dituen pertsona.

Gero, irensten du eta onespen-keinua egiten dio sommelierari, **dastatzaile** bikainenak baino antzezpen gehiago eginez. Anjel Lertxundi

Sampedrok jainkoa madarikatzeko baino ez du aipatzen, lepoa hautsita zoritxarren **dastatzaile** bilakatu zuelako. Pako Aristi

Baina jaki zehatz baten **dastatzaile** gozozaleari galdetzen badiogu zergatik den hain gozoa eta honek erantzun, atsegin zaidalako, hartan gustu hartzen dudalako, inork ez du esango hura gozo dela era arrazionalean, non eta gozotasun hori beste zerbaitetarako beharrezkoa ez den eta janaria helburu horrekin prestatua izan. Imanol Unzurrunzaga

**2** dastatzen duen pertsona.

Hain da handia da gozamen hori, non ezerk ezin baitu atsegina hondatu; ezinezkoa da horren **dastatzailea** hirugarren zeruraino igoa ez sentitzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**dastatze** *iz* janari, edari edo kidekoen ahogozoa sumatzeko, haren kopuru txiki bat ahoratzea.

Etzi egingo da Nerudaren *Lau Oda Elemental*-etan oinarrituriko pintxoen **dastatzea**, eta horretarako gonbidapenak hartu behar dira Bidebarrietako Liburutegian. Berria - Kultura

Han bertan, sagardo **dastatzea** eta otorduak egin ahal izango dituzte. Berria - Kultura

Etzirako, berriz, ume jolasak eta sagardo **dastatzea** antolatu dituzte, eta igandeirako herri bazkaria. Berria - Euskal Herria

Arabako Errioxako ardo **dastatzea**, barraskiloak, danborrada, txaranga... Berria - Kirola

Henri Cartier Bressonen argazki erakusketa eta gastronomia **dastatzea** daude programatuta. Berria - Kultura

Datorren ostiralean Zumaian izango da hurrengo **dastatzea**. Berria - Kultura

---

**data** **1** *iz* zerbait gertatzen den urtearen eta, eskuarki, hilabetearen eta egunaren adierazpena.

Jaiotze **data** eta tokia: 1891ko urtarrilaren 7an, Rosenheim-en (Bavaria). Alberto Ladron Arana

Agerpenaren **data** eta lekua. Xabier Arregi

**Data**, ordua eta lekukoen sinadurak. Aingeru Epaltza

Txartelaren ifrentzuari so egin nion: azken ikuskaketaren **data** zekarren, 1944ko urtarrilaren 4a. Juan Garzia

**Data** batzuk ageri ziren behean: "1936-10-4 / 1937-4-20 ta 23." Orri horiztatuez osatutako koaderno txiki bat, Mexiko DF-ko *Gráficas Cultura*-k inprimatua eta 1944ko **data** daramana. Juan Luis Zabala

Bi **data** dira filosofikoki ohargarriak Berpizkundearen hasieran eta amaieran: 1401, Nikolas Cusakoa jaio zen urtea, [...] eta 1600, Giordano Bruno-ren heriotzaren urtea. Askoren artean

**Data** Parisen ezarria, 17ko abuztuaren 30ean. Jon Muñoz

Urtarrilaren 27ko **data** abiapuntua izanen da, programazio arrunta urtarrilaren 30etik goiti ezarriko dutelarik plantan. Berria - Euskal Herria

Kaleratzeko **data** urriaren 28an daukat. Berria - Euskal Herria

Informazioa lortu duzun eguneko **data** ere jaso beharko dituzu. Askoren artean

Baina orain **data** ere banekien: ekainaren 6an. Txillardegi

Neba gaztearen gutunak, esate baterako, bi hilabete lehenagoko **data** du. Joseba Sarrionandia

Berria eta **data** egiaztatu nituen badaezpada, baina ez zegoen hutsik. Ramon Saizarbitoria

Ez zidan hitzik tartekatzeko aukerarik ematen, eta ordu arte baino zurrunbilotsuago aritu zitzaidan, datuak hor, **datak** hemen. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

**Data** zehatzik gabeko oroitzapen asko. Ramon Saizarbitoria

Erromatar Inperioaren gailurreko **data** zehazgabe batean idazten zuelarik, [...]. Iñaki Mendiguren

Agirikoa ez dela **data** zuzena. Ramon Saizarbitoria

Debutaren **data** gogoangarria afari on batekin eta xanpainarekin ospatu beharra zegoela esan zuen. Joan Mari Irigoien

Garaipen handia izan da hau, **data** historikoa Ondarretako kartzelan. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berez, Hamlet antzezteko asmoa zuten noski, baina, azken momentuan, **data** arazoak zirela medio edo, ezinezkoa gertatu zitzaien, eta haren ordez Godot antolatu zuten. Ramon Saizarbitoria

Gertakarien **data**-alderaketak baietsi egiten baitzuen irizpide hori. Txillardegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez baitu pertsonak gehiegi estimatzen bere jaiotza-**data** eta heriotza-**data** hurbil egotea. Idazte-**data** zehatzik ez badakigu ere, 1223az gerokoa da ziur. Unai Elorriaga

Argitaratze-**data** (eguna hila urtea, baldin badatoz). Askoren artean

Iraungipen **data** begiratu beharko zaie... Unai Iturriaga

Jordanek ematen duen konbertsio-**data** (1207) beste iturri batzuetan ere agertzen da, baina egungo kritikak ez du ontzat ematen. Askoren artean

Inprimatze-**data** bilatu zuen Ruche jaunak: MCDLXXVIII. Harriduraz txistu egin zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Derrigortasun **data** zutenetatik 275ek (%12,59) egiaztu gabe zuten lanpostuaren hizkuntz eskakizuna. Aingeru Epaltza

**5** ***iraungitze data***

Jogurtaren **iraungitze data** produktuaren galera arriskuak markatzen du. Ana Urkiza

Badaezpada ere, ez zion **iraungitze-data** begiratu poteari. Migel Angel Mintegi

Badirudi laster gainditukoduela bere **iraungitze data**. Patxi Iturritegi

Prozesuak badu **iraungitze data**, eta ezin da usteltzen utzi. Berria - Euskal Herria

Ama euskarak zahartzera egin duen bezala, poeten esperimentuek ere nahi baino azkarragoa dute **iraungitze**-data. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitzaren **iraungitze** data. Berria - Kirola

Poeten esperimentuek ere nahi baino azkarragoa dute **iraungitze-data**. Xabier Mendiguren Elizegi

Noiz arteko **iraungitze data** du diktadore lanbideak? Iñigo Aranbarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**amaiera data** (3); **argitaratze data** (3); **baina data** (5); **beste data** (7); **bi data** (11); **bi data horien** (4); **da data** (6)

**data aldaketa** (5); **data aldatzeko** (3); **data baino** (6); **data bat** (25); **data batzuk** (5); **data bera** (3); **data berean** (4); **data berria** (3); **data bezala** (3); **data da** (5); **data daiteke** (3); **data darama** (3); **data dira** (3); **data du** (8); **data duen** (5); **data dute** (4); **data ere** (12); **data esanguratsu** (4); **data eta** (28); **data eta leku** (3); **data eta lekua** (3); **data ez** (10); **data ez da** (4); **data ezarri** (4); **data gisa** (3); **data hartan** (3); **data hau** (5); **data hauetan** (5); **data hori** (25); **data hori baino** (5); **data horiek** (4); **data horien** (4); **data horien artean** (4); **data horietan** (4); **data horren** (8); **data horretan** (5); **data horretatik** (6); **data horretatik aurrera** (5); **data jakin** (5); **data jakinik** (4); **data jarri** (6); **data jarria** (3); **data jarriko** (3); **data nagusiak** (3); **data seinalatu** (3); **data zehatz** (3); **data zehatza** (17); **data zehatzak** (5); **data zehatzik** (12); **data zehatzik ez** (3); **data zehazteko** (3); **data zehaztu** (7); **data zehaztu gabe** (3); **data zuten** (3)

**dela data** (4); **den data** (4); **derrigortasun data** (23); **dira data** (4); **du data** (5); **duen data** (3); **edo data** (3); **egiteko data** (4); **egunaren data** (3); **eguneko data** (4); **ere data** (3); **eta data** (42); **eta data bat** (5); **eta data hori** (3); **eta heriotza data** (3); **ez data** (3); **ez dela data** (3); **hasiera data** (4); **hasierako data** (3); **hasteko data** (5); **hauteskundeen data** (4); **heriotza data** (5); **honen data** (3); **horren data** (3); **horretarako data** (3); **idazte data** (4); **iraungipen data** (3); **iraungitze data** (11); **jaiotza data** (7); **jaiotza data eta** (3); **jaiotze data** (12); **lau data** (3); **lehen data** (3); **lortzeko derrigortasun data** (6); **manifestazioaren data** (3); **post data** (7); **zen data** (8); **zenbait data** (4); **zuen data** (8)

**datak eta** (3); **datak ez** (3); **dataren arabera** (3); **dataren inguruan** (3); **datari buruz** (5); **datarik esanguratsuenak** (3); **datarik eta** (3); **datarik ez** (19); **datarik gabe** (3); **datarik jarri** (9); **datarik zehaztu** (4); **derrigortasun datak** (9); **du datarik** (7); **dute datarik** (4); **egiaztatzeko derrigortasun datak** (4); **eta datak** (8); **eta datari** (3); **eta datarik** (3); **ez dago datarik** (5); **ez du datarik** (6); **ez dute datarik** (3); **ez zuen datarik** (4); **heriotza datak** (3); **zein datatan** (4)

---

**datadun** *izlag* datako.

Bestelakoa da, Moviles (...), iraungitze **datadun** ipotxaren kasua. Berria - Ekonomia

---

**datatu**, data(tu), datatzen du *ad* data jarri; data mugatu.

Osorik irakurri nuen Moskun **dataturiko** albistea: [...]. *Les Contemplations* bilduman badu poema bat (I, XI), *Lise* izenekoa, 1843ko maiatzean **datatua**, hau da, Baionara heldu baino bi hilabete lehenago. Iñigo Aranbarri

Montevideon 1941eko urriaren 11n **dataturiko** berriak zioen legez, [...]. Edorta Jimenez

Urte hori zehaztu dute adituek San Migeleko erretaula **datatzeko**. Berria - Kultura

M. Ugarte-ren *Paisajes parisienses*-erako hitzaurrea (1901eko uztailean **datatua** berau), espainiera handi berria eraikitzeko ideia laboratuz. Joxe Azurmendi

Ohikoa da elementu berri honen etorrera (italiar) berpizkundetik eta greziar azterketen susperralditik hamabosgarren mendean **datatzea**, baina benetako abiapuntua hiru mende lehenago kokatu behar da... Iñaki Mendiguren

Ikerlari gehienek Augustoren lehen garaiko urteetan **datatu** nahiko lukete tratatua, K. a. 30. urte ingurutik oso hurbil. Santiago Iruretagoiena

---

**datatze** *iz* data jartzea; data mugatzea.

**Datatze** hori egin ahal izateko, elementu kimiko batean oinarritu dira astronomoak, berilioan. Berria - Gaiak

Gogorra gero, itzalak **datatze** hau, pentsatu zuen, polizia izateak ekarri zizkion azturen neurriaz harriturik. Harkaitz Cano

---

**datazio** *iz* datatzea.

Kristo aurreko 3200 urtetik 1800era bitarteko 95 **dataziotik** gora egin dituzte. Berria - Gaiak

Geroztik, azterketa sakonagoak egiteko aukera izan zen, **datazioak** egiteko karbono 14aren azterketak hasiak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Datazio** zehatzik ez dute zehaztu oraindik ikertzaileek, baina XVI. mendearen bigarren herenean idatzitakoa dela argitu dute. Berria - Kultura

Lurpetik ateratako material edo aztarna horiek noizkoak ziren jakiteko, karbono 14 bidezko **datazio** teknikak erabili dituzte. Berria - Gaiak

---

**datibo** *iz* zeharkako osagarriaren kasua, euskaraz *nori* kasua izendatzeko erabiltzen dena.

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako ekialdean ez da **datiboarekiko** komunztadura beti eta nahitaez betetzen. Koldo Zuazo

**Datibo** pluralean ekialdeko hizkeretan erabili ohi den *-er: laguner galdu zaie*. Koldo Zuazo

Eta gero hasten ginen deklinazioen eskailera zailetan gora, nominatiboa *qui* genitiboa *cuius,* **datiboa** *cui,* akusatiboa *quem*, [...]. Joseba Sarrionandia

---

**datil** **1** *iz* datilondoaren fruitua.

Artean **datil** bat ahoan dastatzen ari zela, [...]. Josetxo Azkona

**Datilak** jan dituzue, piku idorrak, pastiza zati zenbait. Xabier Montoia

Zenbait **datil** janez adorea berreskuratzeko. Jon Arretxe

Belar izpi bat, fruitu gorri bat, **datil** ihartu bat. Patxi Zubizarreta

Baina **datil** umeldu eta ubelduen uztari ihesi joanez, lur berri-berrira aldatu da. Xabier Olarra

Bere emaztearen sorterriko aljeriar oasitik Habibik ekarritako **datil** freskoen kutxa ireki zuen Maxek. Jon Muñoz

**Datila** oinarrizko elikagai izan da inguruotan ehunka urtean eta, ondorioz, eragin genetikoa du egun diabetesak qatartarrengan. Berria - Kirola

· Zakutxo bat **datil** eta kuia bete ur. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Datil**-platerkada bat jaten zuen bitartean surik eta ilargirik gabeko gau hartan. Xabier Aranburu

Gameluarentzako bazka, ur-putzua edo **datil**-palmondoak zeuden inguruneetan. Jon Arretxe

Bide baketsu bat da hori, non maiteminduek **datil**-ardotik edaten baitute, hilobien harresi leunduen kontra bermaturik. Juan Garzia

---

**datilondo** **1** *iz* datilak ematen dituen palmondo mota *(Phoenix dactylifera)*.

Oasiko **datilondoei** begira jarri zen mutila. Xabier Aranburu

Hirurehun putzu eta berrogeita hamar mila **datilondo** zeuzkan, baita koloretako karpa ugari ere haien artean jarririk. Xabier Aranburu

Neskaren ahotsa entzuten zuen mutilak, eta **datilondoen** hostoetan haizeak eragiten zuen marmarioa baino ederragoa iruditzen zitzaion. Xabier Aranburu

**2** (hitz elkartuetan)

Bere aurrean, gauean izarñoak egondako leku berean, **datilondo** ilara luzea, amaiezina, ageri zen, basamortuaren zabalera estaltzerainokoa. Xabier Aranburu

**Datilondo**-basoaren beste aldean zeuden haurrak, eta ez zuten sarraski hura ikusi. Xabier Aranburu

---

dato ik **datu**.

---

**datu** *(ETCn **170.434** agerraldi; orobat **dato** ETCn **396** agerraldi)* **1** *iz* zerbait jakitera iristeko balio duen argibide zehatza.

Fitxaren buruak erreferentzia bibliografikoa identifikatzeko behar diren **datu** guztiak eduki behar ditu: egilea, izenburua, argitaratze-lekua, argitaletxea, edizioa, jatorrizko data [...]. Askoren artean

**Datu** guztien gainetik, hori da jakin behar genukeena. Joxerra Garzia

Epaimahaiak dagoeneko aski **datu** bildu du horretarako. Patxi Zubizarreta

Zentzumenen bidez jasotzen ditugu **datuak**, eta gero geure erara interpretatzen ditugu. Ana Urkiza

FAOk emaniko **datuen** arabera (2004ko otsaileko txostena), harrapatzen ditugun hiru arrainetatik bakarra kontsumitzen dugu. Edorta Agirre

Borobilki ukatzeko, nik neuk ez dut aski **datu**. Koldo Izagirre

Bada txostenean bertan beste **datu** bat, *The Crook Factory* hark norentzat lan egiten diharduen argi apur bat dakarrena. Edorta Jimenez

**Datu** horiek interpretatzeko era desberdinak egon daitezke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Sindikatuek **datu** berberen oso irakurketa desberdina egin ohi dute. Iñaki Heras

**Datu** horietan oinarritzen naiz euskarak bazuela herritarren babesa esateko. Koldo Zuazo

Zernahi gisaz, iritzi horiek **datuetan** funtsatzen dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Inbentarioaren **datuek** bere buru hartan jarraitzen zuten -bost olio zahagi, hamaika ardo zahagi, hamasei gaileta kaxa...- bertan erantsita gelditu izan balira bezala, eta ezin zituen uxatu. Bernardo Atxaga

Ikasle bakoitzeko gastua adierazten dute 17. taulan aurkeztu ditugun **datu** horiek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Datu** haien benetakotasuna egiaztatzen ari zirela. Josu Landa

Galtze ekonomikoaz gain, urtetako artxibo eta **datuak** galdu ziren orduan. Herria

Azterketak ondo egitea mnemoteknia-kontua da, gutxieneko **datuak** ikasi eta ongi menderatu arte errepikatzea... Josu Zabaleta

Ez zidan hitzik tartekatzeko aukerarik ematen, eta ordu arte baino zurrunbilotsuago aritu zitzaidan, **datuak** hor, datak hemen. Anjel Lertxundi

Bigarren mailako **datu** asko dago [...] han ezin egon izan zirela adierazten duena. Koro Navarro

**Datu** hark hankaz gora ipini zidan ordura arte osaturik neukan puzzlea. Juan Kruz Igerabide

**2** (izenondoekin)

Denbora luzean **datu** faltsuak emanez. Pello Salaburu

**Datu** hotzak -mapetan azaltzen diren kilometroak- ponderatu egin behar zirela iruditu zitzaigun, eta, esaterako, heterogeneotasun indize bat erabili behar zela. Bernardo Atxaga

Elkarren ondoan metaturiko **datu** biografiko andanak. Aingeru Epaltza

**Datu** erreala da, benetakoa. Rafa Egiguren

**Datu** egiaztatuek ez zuten ezer esan nahi harentzat. Josu Zabaleta

Hainbat **datu** jakingarri eskaintzen dizkigutelako. Askoren artean

Ez gaitezen **datu** absolutuez fida, kontua da joerak ikustea holako datuak ditugunean aurrean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Datu** orokorrak ere, gehienak hutsik daude: izena Juan bakarrik, adina 42; hortik aurrerako datuak hutsik, ogibidea, helbidea, bizilagunak, ogibideaz aparteko zereginak. Joseba Sarrionandia

Ez du neskarekin hitz egin, poliziaren txosteneko **datu** hutsak darabiltza bahiketa berregiteko. Iñigo Aranbarri

Ez dugu **datu** homogeneoak ematerik izan, iturriak desberdinak direlako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

II. taulan **datu** konparatibo batzuk ageri dira: [...]. Koro Navarro

Barne Produktuari buruzko **datu** makroekonomikoez gain. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Datu** holografikoak biltzeko sistema gisa aurkeztu izan da garuna. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nolabait adierazteko, informazioa egunaren azalean dagoen **datu** sorta bat da, Maradona nor den, Olanok zer egin duen, Barçak zein fitxatu duen, atzo Madrilen nolako hilketa izan zen... Pako Aristi

Dela **datu**-biltze estatistikoko metodoen araberako laginak ateratzeko, dela aldez aurretik osagai adierazgarrienak zehazten ahalegintzeko. Xabier Arregi

**Datu**-bilketa taxuz egindakoak mende honen hasieratiko edo aurreko urte pixka batzuetakoak ditugu. Pello Zabala

Jende-samaldak ageri dira argazkietan, eta azpian informazio kutsua eman nahi izan dioten **datu**-multzoa, irakurleari ezer esaten ez diona. Pako Aristi

Kontua zera da: txukun antolatzea hilabetetan eta urtetan bilduriko **datu**-masa bat. Juan Garzia

Azterketa-teknikak behar bezain zorrotzak izanez gero, **datu**-corpus batek hizkuntzalaria gramatikara eraman zezakeela uste zen. Itziar Laka

Arrazoinamendu-mota hori indukziozkotik eta dedukziozkotik bereizten da, **datu**-segida bat azaltzerakoan hipotesi bat aurreratzen duelako. Askoren artean

Ikerketa sistematikoak -galdeketen bidez eginak, bertako **datu**-emaileen laguntzaz-. Isabel Arrigain

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bigarrenik, gizarte **datu** bat da Hizkuntza. Piarres Xarriton

Eta hala, gure Arabako ur gehienak Ebro ibai handirantz doazenez, klimatologia **datuak** ere Zaragozako Meteorologia Zentrora joango dira. Pello Zabala

Hiru formulario izango dira, zeure identifikazio **datuekin** bete beharko dituzunak. Joseba Sarrionandia

Erretinatik garuneko ikusmen-alde primariora igortzen ziren "zentzumen-**datu"** edo "inpresio"ekin parekatzen zen ikusmen-pertzepzioa. Xabier Olarra

Objektu materialak existitzen direla ustea sentimen- **datu** batzuen esperientzia dugula ustea besterik ez da. Askoren artean

Enpirismoan oinarriak sentipen-**datuak** dira. Askoren artean

Jatorrizko izenburuak jarri ditut, eta erabili ditudan bertsioen erreferentzia **datu** laburrak. Iñaki Heras

Interneten kultura-**datu** bankuaren itxuran ari zen sare batetik. Joxan Elosegi

Euri-**datu** eta datekin batera, behe-laino eta lanbro-lainoaren berri ematen zuen. Pello Zabala

**5** informatikan, informazio kodetua.

Berak zekielako makinari nola sartu **datuak** makinak bere lana egin zezan. Pello Salaburu

Behategi automatikoa da beste aurrerapen zehatz bikaina, gizakiaren laguntzarik gabe, **datuak** disketean prozesatzen doan tresneria. Pello Zabala

Windows sistemarekin, Ordenagailuaren disko gogorretik fitxategi bat borratzen denean, nahiz eta zakarrontzi birtuala hustu, **datuek** diskoan jarraitzen dute fisikoki. Fernando Morillo

**Datuak** ordenagailuan sartu, eta eramandako animaliei abeltzainaren zenbakia margotu diete bizkarrean. Patxi Iturritegi

Lantegi, kimika-laborategi eta **datu**-prozesagune da, besteak beste, gorputza. gizakiak badu abantaila handi bat makinaren aldean, gordetako **datuetara** iristeko lastertasunari dagokionez. Irene Aldasoro

Batu-baseak, **datu**-bankoak edo **datu**-guneak. Askoren artean

Garunean, ozentasun-, garaiera- eta tinbre-sentipen bihurtzen ditu bulkadok **datu**-prozesaketarako sistema landu batek, eta jatorrizko soinuaren norabideari buruzko zenbait informazio ere ematen du. Irene Aldasoro

**6** ***datu-base*** *(ETCn* ***6.562*** *agerraldi; orobat* ***datubase*** *ETCn* ***60*** *agerraldi)* informatika-datuen biltegia. ik **datutegi**.

**Datu-basean** informazio horrek duen identifikazio-zenbakia. Askoren artean

Hainbat **datu-basetan** eta laneko ordenagailuetan sartzeko klabeak. Jon Alonso

Edozein bitarteko (testua, irudia, bideoa,...) erabiltzeko aukera, iritzi-truke dinamiko eta askeagoa bideratzeko ahalmena eta **datu-base** erraldoiak kontsultatzeko erraztasuna. Txema Ramirez de la Piscina

*Philosopher's Index*ekin batera **datu basean** beste index batzuk ere aurki ditzakezu. Askoren artean

Badakigu **datu basea** kontsultatzen dela, ia mila bisita jasotzen ditu hilean. Berria - Euskal Herria

Bahitutakoen izenak bilduko dituzte **datu base** batean. Berria - Mundua

-Unibertsitateko web-guneko **datu-baseetara** joan. Askoren artean

Googleko **datu baseetatik** milioi bat webguneren helbideak nahi dituzte. Berria - Gaiak

Mille, sar zaitezke Donostiako Udalaren **datu-baseetan**? Fernando Morillo

Oroimena **datu-base** gisa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2001ean bi urte baino gehiagoko herritarren %27,6k zekiten euskaraz, Euskararen **Datu Basearen** arabera. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako datu** (6); **ahalik eta datu** (6); **azken datu** (9); **bada beste datu** (7); **badator datu** (5); **badira datu** (5); **baina datu** (21); **baino datu** (5); **bere datu** (6); **beste datu** (64); **beste datu bat** (25); **beste datu batzuk** (10); **beste hainbat datu** (8); **bi datu** (14); **buruzko datu** (40); **buruzko datu ugari** (5); **da datu** (22); **dago datu** (12)

**datu adierazgarri** (5); **datu asko** (16); **datu askorik** (5); **datu bakar** (6); **datu bakar bat** (6); **datu base** (33); **datu base bat** (5); **datu base batean** (5); **datu base hori** (5); **datu basea** (22); **datu baseak** (8); **datu basean** (22); **datu bat** (86); **datu bat ere** (6); **datu batzuk** (37); **datu berri** (10); **datu berriak** (9); **datu bilketa** (17); **datu edo** (6); **datu ekonomiko** (6); **datu ekonomikoak** (8); **datu eman** (24); **datu eman zituen** (19); **datu ere** (6); **datu esanguratsu** (9); **datu esanguratsu bat** (8); **datu esanguratsua** (13); **datu esanguratsua da** (9); **datu esanguratsuak** (10); **datu estatistikoak** (8); **datu eta** (40); **datu eta informazio** (6); **datu faltsu** (5); **datu faltsuak** (7); **datu fisiko** (7); **datu garrantzitsua** (7); **datu gehiago** (23); **datu genetikoak** (6); **datu gisa** (5); **datu gutxi** (9); **datu guztiak** (37); **datu guztien** (10); **datu hau** (12); **datu hauek** (38); **datu honek** (5); **datu hori** (68); **datu hori ez** (6); **datu horiei** (7); **datu horiek** (143); **datu horiek ez** (7); **datu horiek guztiak** (17); **datu horiek ikusita** (8); **datu horiekin** (12); **datu horien** (32); **datu horien arabera** (16); **datu horietan** (10); **datu horrek** (26); **datu horri** (7); **datu hotzak** (6)

**datu interesgarriak** (5); **datu kezkagarri** (6); **datu kezkagarriak** (10); **datu larriak** (5); **datu makroekonomiko** (7); **datu makroekonomikoak** (5); **datu nagusiak** (9); **datu objektiboa** (5); **datu objektiboa da** (5); **datu objektiboak** (12); **datu ofizialak** (14); **datu ofizialen** (26); **datu ofizialen arabera** (24); **datu ofizialetan** (5); **datu ofizialik** (5); **datu ofizialik ez** (5); **datu okerrak** (5); **datu ona** (9); **datu onak** (9); **datu orokorrak** (7); **datu oso** (5); **datu pertsonalak** (26); **datu sorta** (5); **datu tekniko** (6); **datu ugari** (17); **datu zehatz** (5); **datu zehatzak** (34); **datu zehatzak eman** (5); **datu zehatzik** (40); **datu zehatzik ez** (14)

**den datu** (6); **dira datu** (14); **diren datu** (9); **ditu datu** (5); **dituen datu** (12); **ditugu datu** (5); **ditugun datu** (10); **du datu** (9); **duen datu** (9); **dugu datu** (5); **dute datu** (7); **duten datu** (7); **edo datu** (6); **edozein datu** (6); **emandako datu** (11); **ere datu** (7); **eta datu** (85); **eta datu hori** (7); **eta datu horiek** (6); **eta hainbat datu** (5); **euskararen datu** (10); **ez da datu** (7); **ez dago datu** (10); **gaineko datu** (12); **hainbat datu** (65); **hainbat datu eman** (16); **hainbat datu ere** (6); **honako datu** (6); **honako datu hauek** (5); **hori datu** (6); **inguma datu** (9); **inguma datu basea** (5); **inguruko datu** (12); **oso datu** (12); **zein datu** (9); **zen datu** (10); **zenbait datu** (26); **zituen datu** (5); **zuen datu** (14)

**datua da** (13); **datua ere** (5); **datua ez** (5); **datua ez da** (5); **datua oso** (5); **eman zuen datua** (5); **emandako datua** (6); **eta datua** (5); **moduko datua** (7); **zuen datua** (8)

**arteko datuak** (6); **azken datuak** (17); **baina datuak** (8); **bateko datuak** (6); **bere datuak** (10); **bestelako datuak** (16); **bildutako datuak** (10); **buruzko datuak** (93); **buruzko datuak eman** (10); **buruzko datuak ere** (10); **buruzko datuak jaso** (5); **dagozkion datuak** (7); **daitezkeen datuak** (5)

**datuak aintzat** (11); **datuak aintzat hartuta** (7); **datuak argiak** (5); **datuak argiak dira** (5); **datuak argigarriak** (6); **datuak argigarriak dira** (5); **datuak aski** (6); **datuak aurkeztu** (6); **datuak azterti** (7); **datuak aztertuta** (6); **datuak baino** (7); **datuak beste** (6); **datuak bildu** (13); **datuak bildu eta** (5); **datuak biltzeko** (5); **datuak biltzen** (13); **datuak datu** (6); **datuak dira** (26); **datuak eman** (48); **datuak eman ditu** (10); **datuak eman zituen** (12); **datuak eman zituzten** (5); **datuak emango** (5); **datuak emateko** (7); **datuak ematen** (12); **datuak erabili** (10); **datuak ere** (45); **datuak ere eman** (19); **datuak esanguratsuak** (9); **datuak esanguratsuak dira** (9); **datuak eskatu** (7); **datuak eskura** (5); **datuak eta** (37); **datuak ez** (49); **datuak ez dira** (20); **datuak ez direla** (8); **datuak ezkutatu** (6); **datuak falta** (5); **datuak hartu** (9); **datuak hor** (6); **datuak hor daude** (5); **datuak ikusita** (6); **datuak jaso** (20); **datuak jaso ahal** (6); **datuak jasotzeko** (6); **datuak jasotzen** (7); **datuak kezkagarriak** (11); **datuak kezkagarriak dira** (7); **datuak kontuan** (16); **datuak oso** (19); **datuak oso onak** (5); **datuak zabaldu** (5)

**datuaren arabera** (12); **daude datuak** (5); **dira datuak** (12); **diren datuak** (17); **ditu datuak** (7); **dituen datuak** (10); **ditugun datuak** (6); **dituzten datuak** (12); **duten datuak** (9); **emandako datuak** (30); **emandako datuaren arabera** (6); **erroldako datuak** (8); **eta datuak** (51); **gaineko datuak** (17); **gipuzkoako datuak** (5); **herriko datuak** (5); **iazko datuak** (8); **inguruko datuak** (45); **jasotako datuak** (14); **langabeziaren datuak** (5); **matrikulazio datuak** (6); **osoko datuak** (10); **urteko datuak** (16); **z datuak** (26); **ziren datuak** (5); **zituen datuak** (13); **zituzten datuak** (5)

**datuei begiratuta** (6); **datuei buruzko** (5); **datuei dagokienez** (7); **datuei erreparatuta** (7); **datuek agerian** (5); **datuek agerian** (5); **datuek argi** (13); **datuek argi** (13); **datuek argi erakusten** (7); **datuek argi erakusten** (7); **datuek diotenez** (5); **datuek diotenez** (5); **datuek erakusten** (11); **datuek erakusten** (11); **datuek ez** (12); **datuek ez** (12); **datuek ez dute** (7); **datuek ez dute** (7); **datuekin alderatuta** (39); **datuekin alderatuz** (29); **datuekin alderatuz gero** (21); **diren datuek** (5); **diren datuek** (5); **emandako datuekin** (6); **iazko datuekin** (13); **iazko datuekin alderatuta** (6); **iazko datuekin alderatuz** (5); **urteko datuekin** (8); **urteko datuekin alderatuta** (6)

**argitaratutako datuen** (5); **atzo emandako datuen** (19); **aurkeztutako datuen** (5); **azken datuen arabera** (33); **batzordeak emandako datuen** (5); **bildutako datuen** (9); **bildutako datuen arabera** (8); **buruzko datuen** (6); **datuen arabera** (592); **datuen artean** (12); **datuen berri** (8); **datuen talaiatik** (10); **diren datuen** (6); **diren datuen arabera** (5); **dituen datuen** (31); **dituen datuen arabera** (27); **dituzten datuen** (8); **dituzten datuen arabera** (5); **elkarteak emandako datuen** (6); **eman dituen datuen** (6); **eman zituen datuen** (11); **emandako datuen** (170); **emandako datuen arabera** (168); **emaniko datuen** (9); **emaniko datuen arabera** (9); **ematen dituen datuen** (5); **en datuen** (6); **en datuen arabera** (6); **erakundearen datuen** (6); **erakundearen datuen arabera** (6); **eskainitako datuen** (13); **eskainitako datuen arabera** (10); **euskal herria datuen** (9); **eustaten datuen** (14); **eustaten datuen arabera** (14); **herria datuen** (9); **herria datuen talaiatik** (9); **inemen datuen** (7); **inemen datuen arabera** (7); **jakinarazitako datuen** (8); **jakinarazitako datuen arabera** (8); **jasotako datuen** (15); **jasotako datuen arabera** (14); **kaleratutako datuen** (8); **kaleratutako datuen arabera** (7); **lehen datuen** (16); **lehen datuen arabera** (16); **ministerioak emandako datuen** (6); **plazaratutako datuen** (6); **plazaratutako datuen arabera** (6); **sailak emandako datuen** (9); **zabaldutako datuen** (17); **zabaldutako datuen arabera** (17); **zituen datuen** (16); **zituen datuen arabera** (15)

**beste daturik** (7); **buruzko daturik** (6); **datuetan oinarritu** (6); **datuetan oinarrituta** (7); **datuetan oinarrituz** (6); **daturen arabera** (5); **daturen bat** (5); **daturik eman** (15); **daturik ez** (35); **daturik larrienak** (10); **daturik onenak** (7); **datuz eta** (5); **dira daturik** (7); **dira daturik larrienak** (5); **dituzte datuok** (5); **emandako datuetan** (6); **inguruko daturik** (8); **zenbait daturen** (6); **zenbait daturen arabera** (5); **zituen datuok** (7); **zuen daturik** (5)

---

datubase ik **datu 6**.

---

**datutegi** *iz* datu-basea, datu biltegia. ik **datu 6**.

Euskararen terminologia **datutegia** eguneratuko dute. Berria - Euskal Herria

**Datutegi** horretan azken hamar urteotako emaitzak gorde dituzte. Berria - Gaiak

---

**datutza** *iz* datu multzo handia.

Normala, ikusi egiten du beste sistema batera moldatu beharra duela **datutza** ofizial guztia: [...] Iñigo Aranbarri

---

**datxa** *iz* Errusiako landetxea.

Etxearen erdiko aldean ganbara zegoen, **datxa** guztietan bezala. Jose Morales

Klinika hiriko aldirietan zegoen, eta kanpotik, errepidearen aldetik, baso txiki baten mugan kokatutako **datxa** arrunt baten itxura zuen. Jose Morales

Baina ez dute errusiar jokatzen, nahiz eta abertzaletasunak eraginik Errusiako estiloaren araberako izba bat eraikitzen duten, nork bere **datxan**. Jose Morales

Jendea **datxetan** dagoela diost. Edorta Jimenez

---

**daunatu** *iz*

Emeki haatik, hasiak dira mediku orokorrak teletransmisioak egiten zuzenean beren ordenadoretik, **daunatoek** eta ortofonistek urratsa emekiago egiten dute. Herria

---

**dB** dezibelaren sinboloa.

Soinuaren intentsitate mailak dezibeletan adierazten dira (**dB**, forma laburtuan), entzumen-atalasetik gora. Irene Aldasoro

Logaritmikoa da dezibel-eskala, hau da, 10 **dB**-ko aldaketari ozentasun hamar aldiz handiagoa dagokio; 20 **dB**-koari ehun aldiz handiagoa; 30 **dB**-koari mila aldiz handiagoa, eta abar. Irene Aldasoro

Giza entzumenak hautematen duen gutxieneko ozentasuna dezibel (**dB**) bat duena da. Lourdes Oñederra

1.000 Hz-eko maiztasunean, entzumen-atalasea baino 120 **dB** gorago dago oinaze-atalasea, gutxi gorabehera. Irene Aldasoro

---

**deabru** *(1.920 agerraldi, 190 liburu eta 90 artikulutan; ETCn 7.713 agerraldi; orobat* ***debru*** *g.er. eta* ***deubru*** *g.er.)* **1** *iz* Jainkoaren aurka altxatu ziren aingeruei ematen zaien izena; singularrean, deabruen burua, gaizkiaren izpiritua. ik **demonio**.

Aingerua bere nahikari gaiztoz aingeru on izatetik **deabru** bihurtu bazen, nondik zuen hark ere **deabru** bihur zedin nahikari gaizto hori, egilerik hoberenak egindako aingerua izanik oso-osorik? Imanol Unzurrunzaga

Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, **deabru** guztiak botatzeko eta gaitzak sendatzeko indarra eta ahalmena eman zizkien. Elizen arteko biblia

Ireki ote ditzake **deabru** batek itsuen begiak? Elizen arteko biblia

Begiratu zuen eta labe inguruan **deabru** asko ikusi zituen burdinazko sardak eskuetan zituztela. Askoren artean

Bat-batean **deabrua** etorri zitzaion ikaragarrizko ekaitz-burrunba eta zarata artean. Askoren artean

**Deabruak** anitz sare badu ere arimen atzemateko. Aingeru Epaltza

Zuen etsaia, **deabrua**, zuen inguruan dabil, goseak dagoen lehoia bezala, nor irentsiko. Elizen arteko biblia

Dirua irrikatzen eta harri-koskorrak baino hobe irizten diotenak, **deabruak** itsutu egin nahi ditu. Askoren artean

-Gure semeak zentzua galdu du -emakumeak, erregutzaile-, **deabruak** limurtu zuen, eta galbidean ipini. Patxi Zubizarreta

José Tudelak ez ziola bere arima **deabruari** saldu. Felipe Juaristi

**Deabru** batek hilkorren alaba esposatzen duenean, bizialargun uzten du normalean. Koro Navarro

**Deabru** bakar batek gehiago zekien zeruko gauzez eta gehiago daki orain lurrekoez gizaki guztiek baino. Askoren artean

**Deabrua** tentatzen ari zitzaidan, eta amore eman nion preso egonezin hura kontsolatzera joateko nahiari. Jon Muñoz

Dena **deabruaren** tentaldia eta engainu maltzurra dela. Askoren artean

- **Deabruaren** abokatuaren itxurak egiten ari zara? -irribarre egin zidan berriz ere-. Jon Muñoz

**2** (izenondoekin)

Nik ez dakit nola izendatu, baina zenbaitek uste zuen **deabru** gaiztoaren eragina zela. Askoren artean

Salamancako leize batean, **deabru** zaharrak eskola bat antolatu du teologo-gaientzat. Anjel Lertxundi

Ez al zitekeen, bada, **deabru** engainatzaile guztiz ahaltsua, gizonez bezalaxe, sugegorriz ere mozorro eta itxuralda? Joan Mari Irigoien

**Deabru** tipi batek bere sutegia eraiki ote zuen, bada, ene buruan? Joan Mari Irigoien

Baina bazter batean egokitu zen, lurrak jaulkitako **deabru** ñimiño baten gisara. Patxi Zubizarreta

**Deabru** ikusezin batek mugitzen ditik hariak hiperespazioko tokiren batetik. Jon Alonso

**Deabru** ikusgarriak beldurrik ez, baina oso errespetu handia sortu zidan. Aitor Arana

Halako batean, **deabru** indartsu batek enbor handi bat hartu du, hanka azpian zapaldu nau, gero nire gainera salto egin du eta ia ito nau. Jose Morales

**3** (erkaketetan)

Hogeita hamahiru graduko hotz gogorra dago kalean, bisutsak orro egiten du **deabru** amorratu baten antzera. Jose Morales

Norma Lúcia **deabrua** bezain maltzurra zen. Karlos Zabala

**Deabrua** baino okerragoa zara. Koro Navarro

**4** deabruaz alderatzen den pertsona.

Garrantzi handiko eginkizunak zituen, berehala konpondu beharreko estatu-arazoak, ezin zuen minutu bat ere alferrik galdu, eta hortxe zeukan **deabru** burugogor hura alamena ematen. Jose Morales

Haiendako alabaina "zerri higanotak" edo **"deabru** heretikoak" ginen gu; "ostia-milikatzaileak" edo "suge papistak", berriz, haiek guretako. Aingeru Epaltza

-Mikel, **deabru** zikina, Murtutseneko lurrak enetako dituk! Itxaro Borda

Emakume guztiz gorrotagarri bat, **deabru** egiazko bat. Josu Zabaleta

- **Deabru** hutsa zen, ordea -gogorarazi zion Maxek-. Jon Muñoz

**Deabruak** ziren djinak. Xabier Aranburu

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elizaren teilatu gainean **deabru**-andanak zebiltzan batetik bestera zalapartaka. Askoren artean

Jesusen ondora iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen **deabru**-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren. Elizen arteko biblia

**-Deabru** gorputza daukak baina. Patxi Zubizarreta

Ikusi zuen Kako-okerren **deabru**-aurpegi beltzarana, zelan ari zen irteten uretatik tantaka. Julen Gabiria

Mugarik gabeko gizonak, aingeru aurpegia zuten deabruak, eta **deabru** isatsa zuten aingeruak. Jon Muñoz

-Filchi esan beharko nioke, benetan -esan zuen Peevesek santu-ahotsez, baina begietan **deabru**-irria zuela-. Iñaki Mendiguren

-Aristokrata madarikatu horiek eta egiazko **deabru**-semeak diren apezak beti trebeska ditiagu! Elena Touyarou

Santa Anako farola gorriak halako **deabru** antza ematen zion Hucken aurpegiari. Koldo Izagirre

Jakina, ez zen **deabru** kontua, nire barruko harra baizik. Bernardo Atxaga

Tourette bera dreabrutzearen fenomenoak lilluraturik zeukan, eta antzerki bat idatzi zuen Erdi Aroan Loudunen izandako **deabru**-hartzeen izurriaz. Xabier Olarra

Nola ibiltzen ahal haiz **deabru**-edabe honi zurrupaka? Aingeru Epaltza

*ik beherago* 9. Askoren artean

**5a** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Haren idazketa, edo idatzizko aldarrikaldia, profeta deabru-**suhar** batena zen bete-betean. Juan Garzia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emakumea jeloskor izaten da normalean gizon bat beste emakumeekin batzen denean, baina nola izan daiteke gizaki bat emakume-**deabru** batez jeloskor? Koro Navarro

Beste emazterik bazuela ez zuen ukatzen, baina emakume-**deabruak** ziren denak; Taibele zuen giza emazte bakarra. Koro Navarro

**7** (esapideetan)

Agiraka ari zen eztarria urratu beharrean, **deabru** guztiak aipatuz. Jose Morales

-Ala zazpi infernuetako **deabruak**! -egin zuen aldarri. Edorta Jimenez

-Infernuzolako bi mila **deabruak**! zer demontre ari zarete zuek, hemen? Elena Touyarou

Goiti erran dut, **deabruaren** buztana! Aingeru Epaltza

**Deabruetara** leialtasuna! Juan Garzia

Ostikoen ondotik, xehaturik, **deabrua** gostatzen zitzaion urratsari xuxen jarraitzea eta bere abantailetan zuen ez nahastea. Eneko Bidegain

**8** (izenondo gisa)

-Galai **deabru** hori! Jose Morales

-Ume **deabru** horrek zaldiak izutu ditu... Lopez de Arana

Orduan eskaileretan bi neska **deabru** haiek, auzoak agurtzen: urte askoan, Bender jauna! Fernando Rey

Ez dezakezu susma zalamandrana **deabru** horrek zer nolako lazkeria parrasta izkiriatu dion nire bizkar. Jon Muñoz

Zaldi **deabru** horiek ozta-ozta heldu dituk honaino; honen britxkara pasatu nauk azkenean. Jose Morales

Bi-murru karanbola **deubru** batzu ere zaharreri ikasiak. Herria

Ni ezingo nintzateke bizi Paris **deabru** honetan, egun guztian, espaloi batean. Karlos Zabala

Ni ezingo nintzateke bizi Paris **deabru** honetan, egun guztian, espaloi batean. Karlos Zabala

Gizona ez zen guztiz **deabrua** ere. Julen Gabiria

-Hiritarrentzat egina dun *funerarium* **deabru** hori. Daniel Landart

-Gai ote da erromantzez ganoraz egiteko, ala liburuak irakurtzen dituen lengoaia **deabru** horretan izkiriatu behar du? Edorta Jimenez

**9** (dagokion izenaren ezkerrean)

**-Deabru** mutikoak, zulo beretik egiten duzue kaka! Aingeru Epaltza

-Jaits ziztuan almenetatik, **deabru** haur mukizua! Aingeru Epaltza

**10** (non, zer, nola eta kidekoen eskuinean, galderetan eta)

Non **deabru** izanen du alu honek nire izena daraman karpeta? Aingeru Epaltza

Kezkak nire urratsak galgatzen, ordea: non **deabru** zebilen Kristina? Aingeru Epaltza

Zer **deabru** gertatuko ote zitzaion Joanes gaixoari. Eneko Bidegain

-Zer **deabru** duzu hau? Aingeru Epaltza

-Zer hitzordu eta zer **deabru**, ni orain baniak... Itxaro Borda

Zer **deabru** egiten zuen papistekin? Aingeru Epaltza

Baina, zer **deabru**, infantzoi nintzen, Migel Mailuren iloba. Aingeru Epaltza

Eta zer **deabru** inporta zaio nire haurretako ikaskide batekin gelditzen ba... Aingeru Epaltza

Baina nor **deabru** ote zen Anbroxio Misterio hori ez du oraino argitu Txominek. Eneko Bidegain

Nora **deabru** jo ote zuen? Daniel Landart

-Zergatik **deabru** joan behar zuen teilatura? Daniel Landart

Ez nezakeen zinez konpreni zergatik **deabru**, hainbeste eta hainbeste jende "bildu" behar zen eztei "ederrak" zirela errateko! Daniel Landart

Ontzitik irten gabea zen, eta nondik **deabru** atera ahal zituen numeroak, eta nori jakinaraz ziezazkiokeen. Edorta Jimenez

Nola **deabru** izan zitekeen mukizu hura hain argia? Oskar Arana

Ez daki nola **deabru** barnatu den hainbeste literaturaren zaldiko maldiko zurian. Jose Angel Irigaray

Itsasoa daukazula, zertan **deabru** imitatu Paris? Koldo Izagirre

## 11 *deabru gorria ikusi* senperrenak ikusi.

Graxik eta amatxik **deabru gorria ikusi** zuten Hendaiako zilo beltz hartan, baina jo, bederen, ez zituzten jo. Eneko Bidegain

Berriz ere **deabru gorria ikusi** beharko zuen hotzarengatik. Eneko Bidegain

· Bertze edozeinen gisa, nazien salbaikeriek gazte gazterik okaztatu zuten eta are gehiago, baitzekien aitatxiri **deabru gorria ikusarazia** ziotela, hainbertzetaraino non amatxik, ez zuen nehoiz haren berririk izan. Eneko Bidegain

## 12 *deabruak eraman*

**Deabruak eramango** ahal hau, malapartatu hori, sal nazak hala nahi baduk! Jose Morales

**Deabruak eramango** ahal ditu madarikatu horiek!, esan zuen erretxin. Anjel Lertxundi

**Deabruak eraman** dezala hire arima, ez al duk ikusten Estatuaren gurdi bat datorrela? Jose Morales

- **Deabruak eraman** nazala hori esnezalea ez bada eta pinta bat krema ez badakar gure kaferako. Lopez de Arana

**Deabruak eraman** zitzala eskuzabaltasuna eta funtzionarioen bihotz-handitasuna! Jose Morales

Ez, **deabruak daramala**! Jose Morales

**Deabruak** haramala, ergel lolo hori...! Joan Mari Irigoien

## 13 *deabruak hartu*

Xanti **Deabruak hartua** du eta norbait arima eta gorputz hartzen duelarik, ezin kasatua da, eta Deabruak ez du beste gogorik lurra ifernutzea baizik. Michel Oronoz

Città di Castellon ere beste emakume bat zegoen **deabruak hartua**. Askoren artean

Beti jendaje gaizkile bandolero basatien esku egondua izatean, infernuko **deabruak hartutako** gaztelua zela arrunt sinetsia zeukan inguruko jendeak. Patziku Perurena

**Deabruak hartuko** ahal hau, bare nazkagarria! Karlos Zabala

· Alabaina, Kasim **deabruak hartua** joan zen, altxorra berarentzat ez beste inorentzat izatea desio zuela. Patxi Zubizarreta

**Deabruak hartu** zuen, eta, bere onetik aterea, tabernara sartu, eta botila jaurti zion aurpegira. Patxi Zubizarreta

Philippekin mintzatzeak, dudarik gabe on egin zidan baina hura utzi orduko, berriz ere **deabruak hartua** nintzen. Daniel Landart

**Deabruak harturik** bezala margotzen du, eta, mihise bat bukatu orduko, beste bati ekiten dio lasterrean. Xabier Olarra

## 14 *deabruak jakin*

Hirugarrenean denek pentsatzen zuten: **"Deabruak zekik** nondik atera den hau!", eta harengandik aldentzen ziren. Jose Morales

Baina **deabruak daki** zer atera zen handik. Jose Morales

**"Deabruak daki** zertan ari den! Jose Morales

Lelokeria hutsa zen, txorakeria, asmakeria, **deabruak daki** zer!... Jose Morales

**Deabruak zekik**! Jose Morales

## 15 *mila deabru*

**Mila deabru**, horixe besterik ez nuen behar! Jose Morales

**Mila deabru**! denbora asko galdu dinat. Anton Garikano

Itxi ate hori, **mila deabru**!, esan zuen gero Umbertok. Anjel Lertxundi

-Ixo, **mila deabru**! Aingeru Epaltza

Egun batzuetan, kutxa osoak bete liburu (**mila deabru**, zeinen astuna den papera!) garraiatzen nituen, arropa xuri eta baxera kutxak tokiz aldarazten. Joxan Elosegi

- **Mila deabru**, Bea, mutikoa ez da hain umea! Koro Navarro

· Zer **mila deabru** erran nahi duk? Elena Touyarou

*ik gorago* 10.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da deabru** (5); **deabru asko** (5); **deabru bat** (15); **deabru batek** (9); **deabru baten** (12); **deabru batzuk** (4); **deabru beltzak** (11); **deabru bihurtu** (3); **deabru dira** (3); **deabru eta** (5); **deabru gorri** (3); **deabru gorria** (5); **deabru gorria ikusi** (3); **deabru gorriak** (3); **deabru guztiak** (8); **deabru guztien** (4); **deabru haiek** (3); **deabru hori** (12); **deabru horrek** (7); **deabru ote** (3); **deabru saldo** (3); **deabru saldo bat** (3); **deabru txiki** (4); **deabru zaharrak** (4); **deabru zen** (3); **eta deabru** (15); **eta zer deabru** (5); **itxurako deabru** (3); **mila deabru** (35); **nola deabru** (6); **non deabru** (10); **nor deabru** (3); **zazpi deabru** (3); **ze deabru** (5); **zen deabru** (3); **zer deabru** (20); **zuen deabru** (6)

**ala deabrua** (4); **baina deabrua** (4); **batean deabrua** (3); **bere deabrua** (4); **botilako deabrua** (3); **da deabrua** (4); **deabrua ari** (5); **deabrua ari da** (4); **deabrua atzetik** (7); **deabrua atzetik balu** (4); **deabrua baino** (5); **deabrua bera** (9); **deabrua bezain** (4); **deabrua bota** (3); **deabrua da** (7); **deabrua dagoela** (4); **deabrua dagoela buru** (3); **deabrua ere** (5); **deabrua eta** (10); **deabrua etorri** (3); **deabrua ez** (6); **deabrua harrikatzeko** (5); **deabrua ikusi** (6); **deabrua ikusi dut** (3); **deabrua izan** (7); **deabrua sartu** (4); **deabrua zela** (6); **deabrua zen** (6); **edo deabrua** (3); **eta bere deabrua** (3); **eta deabrua** (19); **hura deabrua** (4); **hura deabrua zela** (3); **nuen deabrua** (4); **ume deabrua** (3); **zen deabrua** (6)

**baina deabruak** (8); **deabruak alde** (5); **deabruak alde egin** (4); **deabruak asmatu** (3); **deabruak beeltzebulen indarrez** (3); **deabruak berak** (6); **deabruak bere** (8); **deabruak botatzen** (5); **deabruak daki** (14); **deabruak daki zer** (11); **deabruak daramala** (3); **deabruak egin** (3); **deabruak eraman** (5); **deabruak eramango** (10); **deabruak eramango ahal** (9); **deabruak ere** (4); **deabruak eta** (7); **deabruak ez** (10); **deabruak gizakia** (4); **deabruak gure** (4); **deabruak gure jaunaren** (3); **deabruak hartu** (7); **deabruak hartu zuen** (3); **deabruak hartua** (30); **deabruak hartua nintzen** (4); **deabruak hartua zegoela** (4); **deabruak harturik** (5); **deabruak harturik bezala** (3); **deabruak hartuta** (7); **deabruak hartuta bezala** (4); **deabruak hartutako** (10); **deabruak jainkoaren** (4); **deabruak naramala** (8); **deabruak oinazetua** (3); **deabruak zekik** (7); **deabruak ziren** (3); **ditu honek deabruak** (3); **edo deabruak** (3); **emaztea deabruak** (3); **eta deabruak** (33); **eta deabruak daki** (4); **ez deabruak** (3); **ezen deabruak** (5); **honek deabruak** (4); **hori deabruak** (3); **izenean deabruak** (4); **nik deabruak** (3); **nik deabruak beeltzebulen** (3); **zion deabruak** (3); **zuen deabruak** (10); **zure izenean deabruak** (3)

**arima deabruari** (9); **arima deabruari saldu** (4); **baina deabruaren** (3); **bat deabruaren** (4); **deabruarekin tratuan** (4); **deabruaren engainua** (4); **deabruaren eskolan** (7); **deabruaren eta** (3); **deabruaren hiztegia** (4); **deabruaren kontra** (4); **deabruaren kontrako** (4); **deabruaren kontua** (3); **deabruaren laguntza** (4); **deabruaren lakioa** (4); **deabruaren menpe** (7); **deabruaren musika** (5); **deabruaren seme** (3); **deabruaren tentaldi** (5); **deabruaren tentaldia** (7); **deabruaren tentaldia eta** (3); **deabruarenean izena** (4); **deabruarenean izena eman** (3); **deabruari arima** (4); **deabruari ere** (3); **deabruari eskaini** (3); **deabruari eta** (3); **deabruari saldu** (5); **dena deabruaren** (4); **dena deabruaren tentaldia** (4); **dituen deabruaren** (3); **du deabruaren** (3); **edo deabruaren** (3); **edo deabruari** (3); **eta deabruarekin** (3); **eta deabruaren** (22); **zen deabruaren** (7); **zion deabruari** (5); **zuen deabruaren** (9): eta deabruarena (3)

**aingeruen eta deabruen** (3); **baina deabruek** (4); **deabruek etorri** (3); **deabruek etorri eta** (3); **deabruek ezin** (5); **deabruen arteko** (4); **deabruen buruzagi** (3); **deabruetan hara** (5); **deabruren bat** (3); **eta deabruei** (4); **eta deabruek** (5); **eta deabruen** (13); **eta deabruen arteko** (4); **eta deabruzko** (7); **zela deabruen** (3)

**deabrudun** **1** *iz* deabruak harturiko pertsona.

Gogor jipoiturik eta izu-laborriak hartuta, zaldia lasterka joaten zen lau hanken eginahal guztian, **deabrudun** baten gisan. Jose Morales

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta **deabrudun** guztiak eraman zizkioten Jesusi. Elizen arteko biblia

Jesusek **deabrudun** mutua sendatu. Elizen arteko biblia

Jesus lehorrera jaitsi orduko, herriko gizon bat, **deabruduna**, atera zitzaion bidera. Elizen arteko biblia

Izan ere, haren merituei esker, itsu eta gor, mutu eta herren, urmindu eta perlesidun, **deabrudun** eta legenardun, itsasoan galdutako eta gatibu, denek aurkitzen dute erremedioa, eta edozein gaitz, premia edo arriskutan aurkitzen direnei laguntza ematen zaie. Askoren artean

**2** *izond* deabruak hartua.

Emakume **deabruduna** San Geminin. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deabruduna sendatu** (3)

---

**deabrukeria** *(orobat **debrukeria** g.er.)* **1** *iz* deabruari dagokion egitea; bihurrikeria.

Eta zer zen oilar mutuak egindako kukurrukua, deabruaren beste **deabrukeria** bat baino? Joan Mari Irigoien

Harri eta zur [...] baitzeuden, miraz ikusten ari zirena miraritzat ala **deabrukeriatzat** hartu behar ote zuten erabaki gabe. Felipe Juaristi

Homosexualitatea, berriz, **deabrukeriatzat** jotzen zuten, eta zuzenean sutara bidaltzen zituzten homosexualak. Luis Elberdin

Hau **deabrukeria**! maitatu zuen, harekin larrua jotzen aritu zen zoratu arte, baina hartaz deus ez zekien, ez eta haren adina ere. Elena Touyarou

Agian Elizabeth erreginak lagundu nahiko zion bere astrologo partikularrari, baina ordurako Deek azti gaizto eta **deabrukeria**-egilearen fama zuen, eta horrelako ospea zabalduegi dagoenean laguntzak eskaintzea ez da komenigarria izaten, ezta erreginentzat ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Ene seme, **deabrukeria** bat balitz, hasteko ez lukete toki irekian egingo eta, bigarrenik, ez lizukete deituko bedeinkatzera joateko. Koldo Biguri

**2** bihurrikeria.

**Deabrukeria** batean harrapatu haur bihurriak bezala. Aingeru Epaltza

Begiak ireki nituen eta ohartu nintzen mutilak hatzekin **deabrukeriak** egiten zizkiola bulban. Juan Martin Elexpuru

Seme etxekalte hezigaizto bat zuen, Aladin, eta hainbeste **deabrukeria** egiten zuen, azkenean aita penaren penaz hil baitzen. Patxi Zubizarreta

Azti afrikarrak anaia ttiki bat zuen, bai gaiztakerian bai **deabrukerian** hura bezain iaioa, eta beti jakiten zuten nor non zegoen. Patxi Zubizarreta

---

**deabrukume** *iz* deabruaren umea.

-Beraz, **deabrukume** horrek ez dizu ezer kontatu -zioen oihuka orain Koronelak, eskumakilaz Charlieri keinu eginez. Mirentxu Larrañaga

Hi, iruzurti eta gezurrontzi, **deabrukume** eta zuzenbide ororen etsai hori, ez ote haiz Jaunaren bide zuzenak okertzen aspertuko? Elizen arteko biblia

-Kontuz ibili, **deabrukume** hori! Patxi Zubizarreta

Zein haizek jo hau orain, **deabrukumea**? Patxi Zubizarreta

---

**deabrusa** *(corpusean **debrusa** soilik; ETCn 7 agerraldi)* *iz* emakume deabrua.

Aingeruaren itxurarekin **debrusa** ederra ere izaten ahal zela... Janbattitt Dirassar

---

**deabrutiar** *(corpusean **debrutiar** soilik; ETCn 1 agerraldi)* *izond* deabruzkoa. ik **demoniako**.

Diplomazia handikoa izan behar zen gatu **debrutiar** horien arteko erlazioen kudeatzeko, bakoitzak bere nortasuna defenditzen baitzuen. Ramuntxo Etxeberri

---

**deabrutto** *iz* deabrutxoa.

Bigarren planoan, berriz, tribunan zeuden agintari zibilak eta eliz ordezkariak agertzen ziren, bakoitza buruan adar pare banarekin, **deabrutto** edo txorimalo irrigarriak iduri. Joan Mari Irigoien

---

**deabrutu**[1], deabru(tu), deabrutzen **1** du *ad* deabru bihurtu, deabrudun bihurtu.

Ez bada hori deabruak oniriztea, nik ez dakit zer den deabrua, ikusten baitut, horren arabera, ahalordez oniritzi zidala, eta ahalordeon indarrez **deabrutu** ninduela emakume horrek, eta orain hemen nabil soto eta hilarriotan barrena penatzen. Anjel Lertxundi

Eta errementariaren emazteak berrogei orduz lo egin zuen jarraian, eta haren ondoren **deabruturik** egondako aldiaren eta askatu zenekoaren inolako oroitzapenik gabe esnatu zen berriro. Josu Zabaleta

Diruak **deabrutzen** zaituzte. Pablo Sastre

**2** irud/hed

Norberaren jarrera politikoaren arabera jainkotu edo **deabrutua** izan zen bere garaian. Berria - Kultura

Islama **deabrutzea** leporatu diote Mendebaldeari. Berria - Mundua

ERCko idazkari nagusi Josep Lluis Carod-Rovira **deabrutu** ondoren [...]. Berria - Euskal Herria

Polizia aski ez, nonbait, eta egunkari, irrati eta telebista ia guztiak erabili dituzte gu **deabrutzeko**. Xabier Montoia

Aitzitik, «etorkinak **deabrutu** eta masa atxiloketak eta zapalkuntza errazteko balioko» zutela esan zuen Indymedia webguneak. Berria - Mundua

Ez du droga trafikoaren gaia **deabrutzen**, eta ez du mando gisa lan egiten duten pertsonen gaineko iritzirik ematen. Berria - Kultura

Ez da **deabrutu** behar, baina erabilera zuzena eta erabilera okerra bereizi behar dira. Berria - Gaiak

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zarauztarrek ez zuten naufragoaren hizkuntza ulertzen, eta biraogile **deabrutu** baten istorioa asmatu zuten. Martin Anso

Satanek bidalitako amarrutzat hartu ote zuten, bada, aita-alaben kalesa, Salemen aspalditik zebilen gertakari **deabrutuen** histeriak hartaraturik? Anjel Lertxundi

---

**deabrutu**[2] *iz* deabruduna.

**Deabrutua** garrasika ari zen denbora guztian, bere ohatzeari loturik. Josu Zabaleta

**Deabrutuak** bizkor-bizkor jaisten zituen orain betazalak, eta gero berriro jaso, bere Jainkoaren bista ezin jasan izango balu bezala. Josu Zabaleta

**deabrutxo** 1 *iz adkor* deabru txikia.

-Hemen, **deabrutxo** honi jaten ematen, oiloei bezala- abuelok. Jon Maia

Adreiluzko etxeak, farolen argi lausotua, aurrealdeko etxeko eskaileretan noiz olgetan noiz borrokan zebilen **deabrutxo**-talde baten garrasiak, polizia baten ibilera sendoa eta gorabeherarik gabea. Lopez de Arana

Badut **deabrutxo** bat barruan, eta atera eta bihurrikeriaren batzuk egiten uzten ez badiot, total aspergarria bihurtzen da mundua niretzat. Oskar Arana

Gainean daramagun **deabrutxo** asegaitzarekin jolas gutxi, Lisa. Migel Angel Mintegi

-Hoa, motel, **deabrutxo** bihurria halakoa!- esan zuen. Mirentxu Larrañaga

**2** irud/hed

Gero mito horretan behigorri eta kobazuloetako **deabrutxo** denak sartzen dira, nazionalismoaren kausanteak guztiak: Arana Goiri, Barandiaran, Oteiza bera... Joxe Azurmendi

· Piperrautsezko **deabrutxo** beltzak ("bota sua lagunei zeure arnasarekin!"). Iñaki Mendiguren

---

**deabrutzar** *iz adkor* deabru handia. • (izenondo gisa)

Milaka eta milaka bizi omen ziren haren jauregian, [...] milaka eta milaka deabruk berotzen omen zioten gauero ohea; milaka eta milaka biolin **deabrutzarren** orkestra batek alaitzen omen zituen haren maitaldiak. Felipe Juaristi

---

**deabrutze** *iz* deabru bihurtzea.

Tourette bera **deabrutzearen** fenomenoak liluraturik zeukan, eta antzerki bat idatzi zuen Erdi Aroan Loudunen izandako deabru-hartzeen izurriaz. Xabier Olarra

Nork asmatu du ahoz aho dabilen kontakizun gaizto hori, eta, batez ere, cui prodest, nori egiten dio mesede horrelako prozeduren atzean beti egon ohi den **deabrutzeak**? Anjel Lertxundi

**Deabrutze** kolektibo baten lekuko gertatzen ari ez ote nintzen uste ere uste izan bainuen. Aingeru Epaltza

---

**deabruzale** *izond* deabruen zalea.

Hura guztia sekta **deabruzale** baten kontua zela, eta bai Elizak bai Poliziak neurriak hartu behar zituztela gertakarien gainean... Paddy Rekalde

Hiriko sekta eta talde **deabruzaleez** 9.547 karaktereko atal nagusia [egunkarian] eta 3.521eko zatidura, eta autobideko lapurketez, berriz, 6.401. Aingeru Epaltza

---

**deabruzko** 1 *izlag* deabruari dagokiona.

Santuak berak egin zion gurutzea, eta grina zoro eta **deabruzko** irudipen guztiak desagertu zitzaizkion. Askoren artean

**Deabruzko** erabakia hartu zuen bere buruaren aurka: etsipenaren hondora heldurik, bizitzari azkena jarri eta bere burua urkatzea erabaki zuen. Askoren artean

**Deabruzko** emakumeak, aro heroikoetako tragedietan [...] hain paper nabarmena jokatzera nola iritsi ziren azaltzen da. Iñaki Mendiguren

**Deabruzko** musika lagun zutelarik berriro, demonioek ubidea zeharkatu zuten, gainera erori zitzaien jaurtikigai uholdeari aurre eginez. Joanes Urkixo

**Deabruzko** makina baten bidez arima lapurtu baliote bezala. Aitor Arana

**Deabruzko** burua behar zuela joko hori asmatu zuenak. Unai Elorriaga

Jakintasuna **deabruzko** zerbait balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Burua erabat galdurik, leher gaizto egin beharrean abiatu zen lasterka, bere segizio **deabruzko** hura atzetik kendu ezinda. Josu Zabaleta

Haren sabotajearen ausardian eta eraginkortasunean bazen zerbait ia **deabruzkoa**. Oskar Arana

**2** irud/hed

Ukuilutik behien **deabruzko** marruma iristen zen, eta izerdi hotza botatzeko modukoa zen. Koldo Biguri

**Deabruzko** gaua igaro zuen eta, biharamunean, aldarte zapuztuarekin jaiki zen. Patxi Zubizarreta

**Deabruzko** amarru bat prestatu zuen niri sinestarazteko beisbol partida bat ikustera joan beharra neukala Shea Stadium-era. Oskar Arana

Umetan arrantzaleei entzuten zien **deabruzko** hizkuntza hura, euskara, ulertzen eta pixkanaka mintzatzen, hain zuzen. Inazio Mujika Iraola

Bere onetik aterea, barrenetik halako oldar **deabruzkoa** jaulkitzen zitzaiola, ezker-eskuin begiratu zuen. Patxi Zubizarreta

Bazterbidera hustu nuen sabela, ibilgailu **deabruzkotik** jautsi ahala. Aingeru Epaltza

Han, tiro egiten baizik ez zen nabarmendu, punteria **deabruzkoa** omen zuen. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta deabruzko (7)

---

deadarka ik **deiadarka**.

---

deadarkari ik **deiadarkari**.

---

**debadio** *iz ipar* eztabaida.

**Debadio** honetan, sintomatikoa irudi zaigu nola ipar euskal herriko diskurtso politikoa ez den hiru hamarkada hauetan den-mendrenik ere kantitu: euskaldungoaren arabera baino, etsaiaren mehatxuak zedarritutako hitzak plazaratzen zaizkigu. Berria - Kultura

---

**debadiokide** *(corpusean **debadio-kide** soilik)* *iz* eztabaidakidea.

Nora joan dira ene **debadio**-kide plaxentak? Itxaro Borda

---

**debalde** 1 *adlag* doan, urririk.

Hara doaz herriko polizia buruak astean bitan, **debalde** bazkaltzera. Pako Aristi

Garagardoa **debalde** gaur -esan zion-, **debalde** denentzat. Koro Navarro

Etortzen diren guztiei, izozki bana **debalde**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gainera, berari **debalde** aterako zitzaizkion Florenek garesti samar ordaindu beharreko zerbitzuak. Jon Arretxe

Hasieran **debalde** edo oso merke lortzen dituztek sustantziok mafietan, baina hilabete gutxiren buruan soldata erdia edo gehiago gastatzen ditek horretan. Josu Landa

Esan nahi dut bidaiak zientoka egin dituela, **debalde**, erretiroa hartu zuenetik. Berria - Kultura

Gauza inportante horiek guk disfrutatu ditugu, **debalde** eta modu naturalean, eta aberastu nahi izan ditugu gure esperientzia ttikiarekin. Pako Aristi

Gasturik ez, loa eta jana **debalde**. Fernando Rey

Jana eta ostatua **debalde**. Eskarne Mujika

**2** irud/hed

Denbora ez da inorentzat **debalde** pasatzen. Patxi Iturritegi

Askatasuna ez da inoiz **debalde** ateratzen. Joxerra Garzia

• **3** *adlag* alferrik.

Mendeen higadura ez da **debalde** izan guretzat: porroskatu gaitu... Itxaro Borda

Eguerdi irian berriz ausartatzen dira, baina desordre osoan eta **debalde**. Michel Oronoz

Besterik ez zuten erran, holakoetan erranaldi patetikoak **debalde** dira. Michel Oronoz

**Debalde** ene erreguak eta ene irainak. Aingeru Epaltza

**Debalde** ari haiz, motel. Aingeru Epaltza

**Debalde** saiatu zen Estefania gu adiskidetzera. Aingeru Epaltza

Egin dituen indarrak ez ziren **debalde**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Sosa **debalde** barreiatzeaz aski! Berria - Kultura

**4** (izenondo gisa)

Behar gorria baizik ez zenean bermatzen eta obratzen, mekaniko, hits eta **debalde** bihurtzen zen guztia. Itxaro Borda

Bizitza **debalde** baten bildumaren egiteko ordua hor neukan. Itxaro Borda

**5** ***debaldeko****sup_1 izlag* doakoa.

Epelean auto haren atzeko jarlekuan, **debaldeko** alokairuan, ordukako hotel batean bezala, azkenean estutu batzuk eman genizkion elkarri. Fernando Rey

Tonuan asmatzen duelakoan nago, **debaldeko** koipea beharrean neurriko azala ematen diolako Garciari. Iñigo Aranbarri

**"Debaldeko** Festa" jarri nion izena, baina ez zitzaidan uste bezain merke atera. Joxerra Garzia

Gobernuak **debaldeko** tratamendua eskaintzen die 50.000 laguni, baina horretarako ezinbestekoa da nortasun agiri bat izatea, eta jende askok, tartean presoek, ez dute horrelakorik. Berria - Gaiak

**6** ***debaldeko****sup_2 izlag* alferrikakoa.

**Debaldeko** bilkuren ondotiko bakardadearen izaria. Itxaro Borda

Gaua **debaldeko** solas nostalgikoen erresuma izan zitekeen. Itxaro Borda

Zazpi haurreko gure familia hartan ezagutu ezberdintasunen gainetiko elkartasuna bilatzen dut denetan: **debaldeko** ametsa, mundua dena baita, elkartasunaren eta aniztasunaren onarpena ezik. Piarres Xarriton

**7** ***debaldetan*** *adlag* alferrik.

Zazpi ahalak egin nituen haren "biltzeko" baina **debaldetan** izan zen. Daniel Landart

Negarrek ez dutela deus balio, **debaldetan** izaten direla? Janbattitt Dirassar

Gauzen erran nahi barnakorra ezagutzen ez baldin baduzu, zure izpirituaren baketzen akituko zara **debaldetan**. Itxaro Borda

Zerbait erratekotan zelarik, Unzalu hurbildu eta uzteko, isiltzeko erran zion Xarlesi, **debaldetan** zela haiekin, ez zuela merezi. Xabier Montoia

Egun batez joan zen komentu hartara eta burdin hesiak nahi ukan zituen inarrosi, baina **debaldetan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baina debalde** (3); **baina debaldetan** (8); **bainan debaldetan** (9); **da debalde** (5); **da debaldetan** (4); **debalde ari** (4); **debalde eman** (5); **debalde eta** (3); **debalde izan** (6); **debalde izanen** (3); **debaldetan ari** (5); **debaldetan ariko** (4); **eta debalde** (7); **eta debaldeko** (3); **ez da debalde** (4); **ez da debaldetan** (4); **ez ziren debalde** (4)

---

# **debaluatu**, debalua, debaluatzen **1** du *ad* diru baten balioa, beste diru batzuei buruz, gutxitu.

1993ko irailaren eta uztailaren artean, hainbat alditan **debaluatu** zituzten espainiar pezeta eta portugaldar ezkutua, eta aldi berean frantses liberak, daniar koroak eta irlandar librak (otsailean **debaluatua**) eraso gehiago pairatu behar izan zuten. Koro Navarro

Egoera horren ondorioz Banku Zentralak merkatuak ezarritako parekotasunari ezin eutsi dionean herrialdeko dibisa **debaluatu** egiten du (alegia, dolar bat erosteko bertako dirutan ordaindu beharreko prezioa areagotzen da). Iñaki Heras

Lehiakide handi batek, Txinak, 1994an bere dirua dolarrari buruz %50 **debaluatzea** erabaki zuenean. Koro Navarro

AEBetako zenbait adituren ustez, yuana %40 **debaluatuta** dago. Berria - Mundua

**2** irud/hed

Baina eztabaida asko **debaluatu** da, eta edukiak ixiltzen dira. Denon errespetua erosi dute, eta haien zinismoari enbidia edukitzeraino **debaluatu** gaituzte horrela. Berria - Ekonomia

Lantzen diren zenbait gaik abstrakzio-maila altua dute eta nekez itzul daiteke hori hizkuntza xehera **debaluatu** gabe. Askoren artean

Abuztuaren 11ko eklipse hainbat itxaropen piztu zuen eta **debaluatua** suertatu zena. Pello Zabala

---

# **debaluazio** 1 *iz* debaluatzea.

Prezioek gora egin zuten eta horrek soldaten **debaluazioa** eragin zuen. Berria - Mundua

Dolarraren urre-bihurgarritasunaren galera [...] eta ondoren etorri ziren dolarraren **debaluazioak**, Estatu Batuen indarraren ahultze erlatiboaren adierazgarri dira. Koro Navarro

Diru-masa izugarri murrizten da, beraz, **debaluazioaren** aurretik, eta berehala puzten da ostera **debaluazioaren** ondoren, espekulatzaileek ahal duten azkarrena ateratzen baitituzte irabaziak, aldez aurretik erositako dibisak garesti salduz. Koro Navarro

Banku zentralaren erreserben ahitzeak **debaluazioa** noiz ekarriko zain. Koro Navarro

**2** irud/hed

Diputatu gisa emandako hamalau urteetan «autogobernuaren **debaluazioa**» urratsez-urrats ikusteko parada izan duela dio. Berria - Euskal Herria

---

# **debar** *(orobat **debatar**) iz* Debakoa, Debari dagokiona; Debako biztanlea.

Hala, Gipuzkoan, Beterri baino hegoalderago dago Goierri; **debatar** batentzat Arrasate goian dago. Iñigo Aranbarri

Mikel Aizpurua **debarra**, Mirari Azula lekeitiarra. Herria

Simon Berasaluze **debar** beirate margolariari buruzko liburua plazaratu du Felix Elejaldek. Berria - Kultura

Hala nola **Debatarrak** izan diren Kanbon hemengo mendi eta mendizaleen ezagutzeko eta Kanboarrak laster joaitekoak dira Debara. Herria

**Debatarren** bisita. Herria

---

debatar ik **debar**.

---

**debate** **1** *iz* elkarrizketakideren arteko eztabaida.

Kanporatzeko erraztasunak ematea, idazleentzako literaturaren inguruko **debateak** sortzea. Ana Urkiza

Bi mutur horien artean dabil **debatea**. Anjel Lertxundi

**Debatea** izango da gaiaren inguruan. Berria - Gaiak

Nafarroan badago deslokalizazioaren **debatea**, gobernuak politika errazena egitea erabaki duelako. Berria - Ekonomia

Forum eraikinean eta Bartzelonako Nazioarteko Konbentzio gunean, nazioarteko 65.000 kongresistak eta 1.500 hizlarik parte hartuko dute hitzaldi eta **debateetan**. Berria - Kultura

Etorkinei buruzko **debatea**. Berria - Kultura

Hainbat katetan begiratu du **debate** batekin topo egin arte. Eider Rodriguez

Islamdarrak gainerako ikasleengandik apartatzeko iniziatiban, **debatea** da ez al gauden aurrerakoitasun faltsuen izenean makilatu nahi den arrazakeria baten aurrean. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Debate** publikoetan beti esaten dut erlijioa afera pribatua dela, ez dut nire kontzientziarekin egiten dudana zertan azaldu. Berria - Kultura

**Debate** ideologiko orori berezko zaion bezala, nahasmenduen eta emozioaren erdian planteatu da. Iñaki Heras

**Debate** zorrotza joanden osteguneko kontseilu bilkuran. Herria

**Debate** irekia da, baina egia da sozialki zabalduta dagoela genero indarkeria. Berria - Euskal Herria

Hor **debate** minkorra eskaini dute hautetsiek. Herria

**Debate** interesgarria egiteko aukera dago, hainbat arrazoik aginduta. Berria - Euskal Herria

Zenbatekoak kalkulatzen ibiltzea «okerreko **debatea**» litzateke Edmanentzat. Berria - Harian

Zer nolako **deebatea** eta norekin nahi duzue piztu zuen proposamenarekin? Herria

**3** ***mintzaldi-debate***

Euskararen geroa ez dela bulego hetsietan utzi behar uste du Hizkuntza Kontseiluak, horrengatik antolatzen du **mintzaldi-debate** publiko bat, "zer politika euskararentzat" gaiaren inguruan. Herria

Baigorriko kantonamenduko Basaizea elkarteak bere aurtengo **mintzaldi-debate** zikloa abiarazten du. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **debate bat** (7); **debate hori** (4); **debatea da** (3); **eta debate** (4); **eta debatea** (3); **mintzaldi debate** (4)

---

**debategune** *(orobat **debate gune**) iz* debateetarako gunea.

Gure filosofia politikoan, ez dugu **debategunerik** baztertzen. EKE **debate** gune bat da. Berria - Euskal Herria

«Nazio Eztabaidagunea **debategune** bat da, bere mugekin» gehitu zuen. Berria - Euskal Herria

---

**debatitu**, debati, debatitzen du *ad* debatean eztabaidatu.

---

debeatu ik **debeiatu**.

---

**debeiatu**, debeia, debeiatzen *(orobat **debeatu** g.er.)* du *ad* aspertu, gogaitu.

Testüa sobera mozten baldin badü idazleak, haren istoriari ezin gira jarraiki, galtzen gira eta **debeiatzen**. Herria

Austerlitzetik, huillan nizun eskola, Salpétrière delakoan, eta zinez-zinez **debeatzen** nintzan. Menane Oxandabaratz

Adibidez 1998an Barkoxen, hiru oren eta berrogei minütaz iraün züan Patrick Queheille-Kanpo-ren «Herriko semeak» pastoralak, eta ez ginen **debeiatü**. Herria

Hots ez züan **debeiatzeko** denborarik hartzen gure apez irakasle süharrak, espiritüa beti zabalik etxeki beitzüan. Herria

---

**debekapen** *iz* debekatzea.

Nola dauden jardute diskurtsibo jakin bati lotuta **debekapenak**, bazterketak, mugapenak, balioespenak, askatasunak, sexualitatearen arau-hausturak eta bere hitzezko, edo ez hitzezko, agerpen guztiak. Xabier Arregi

Erakutsiko da berba egiteko era hau nola dagoen sartuta, ez diskurtso zientifikoetan, baizik eta **debekapenen** eta balioen sistema batean. Xabier Arregi

---

**debekarazi**, debekaraz, debekarazten du *ad* debekatzera behartu.

Manifestaldiaren antolatzaile zen hain xuxen AuB alderdi berria, Autodeterminaziorako Bilgune deitzen dena, eta Batasunaren segida hartu duena nolazpait, PP-ko batzuk jadanik nahi luketena **debekarazi**...! Herria

Bainan lixta horrek bozetarat joaiteko baimena segurtatua ote du? batzuk nahi zuten **debekarazi**, baizik eta debekatua den Batasuna alderdiak duela sustatua! Herria

---

**debekatu** *(ETCn 27.581 agerraldi; orobat **debetatu** g.er.)*, debeka, debekatzen **1** du *ad* eragotzi, bereziki legez edo aginduz. ik **galarazi**. (norbaitek)

-Nik ez dizut ezer **debekatu**, ordea; ohartarazi baizik ez dizut egin. Jon Muñoz

Gobernadoreak **debekatu** zion aldizkari bat abiatu zuen. Koldo Izagirre

Zain daukat ama; eta, gainera, **debekatu** egin dit emakume ezezagunekin hitz egitea. Jon Muñoz

**Debekatzen** dizut emakume gaixo hori botatzea! Fernando Rey

Gure etxean ezin zen espainolez egin, aitak **debekatu** zuelako. Joseba Sarrionandia

Txindasvintok eta Rezesvintok **debekatu** egin zituzten erromatar legeak, eta ez zuten utzi ezta haiek aipatu ere egitea epaitegietan. Iñaki Iñurrieta

Medikuek **debekatu** zioten lehenengo gauza alkohola izan zen. Iban Zaldua

Europa lirain sortu berri horrek oraindik ez du **debekatu** antibiotikoen erabilera jeneralizatu edo indiskriminatua. Edorta Agirre

**Debekatu** egiten ditut kandelak! Irene Aldasoro

-Ez diozu erranen nik **debekatzen** dizudalako. Elena Touyarou

## 2 (zerbaitek)

1834ko lege batek **debekatu** egin zituen eliz barruko enterramentuak, higiene kontuagatik, eta orduz geroztik sortu ziren egungo Kanposantu berriak. Patziku Perurena

Jainkoaren legeak **debekatuak** dituen janariak. Elizen arteko biblia

Ingelesen Gutun Nagusiak **debekatu** egiten du gerra izanez gero atzerriko merkatarien salerosgaiak bahitzea edo konfiskatzea. Iñaki Iñurrieta

Lege Papiarrak **debekatu** egiten zien senadoreei, jaregin izandako emakumeekin edo antzerkian ibilitakoekin ezkontzea. Iñaki Iñurrieta

Eta gainera bere erlijioak **debekatu** egiten zion izaki bizirik hiltzea. Josu Zabaleta

Nazionalsozialismoa boterera heltzeak lehenbizi oztopatu eta gero **debekatu** egin zuen bere liburuen zabalkundea. Anton Garikano

Ez dut onartzen emakume izateak hainbat gauza **debekatu** behar didanik, ezta adinean aurrera egiteak ere. Ana Urkiza

Indarrean zegoen hiriko agintariaren erabaki bat, ez gauerdian bakarrik, baizik eta kanpaiaren hirugarren joaldiaz geroztik hirian barrena inor ibiltzea **debekatzen** zuena. Askoren artean

Baliotsuak dira nagikeria **debekatu** eta lana bultzatzen duten legeak. Esteban Antxustegi

Poligamia **debekatzen** duen erlijio bat poligamia baimenduta dagoen herrialde batean sartzen denean. Iñaki Iñurrieta

## 3 (subjektua agerian ez dela)

New Yorken **debekatu** egin zuten film hau, protagonistetako bat atxilotu zutelako. Harkaitz Cano

Hari ardoa **debekatzen** diote, honi bizikletan ibiltzea, urliari sonotonea kentzea, berendiari kantatzea, guztioi gauez irakurtzea. Anjel Lertxundi

Juliano agintariaren egunetan kristauei **debekatu** zitzaiela literatura eta oratoria irakastea. Imanol Unzurrunzaga

1880ko hamarraldian esklabotasuna **debekatu** zen arte, hamairu milioi esklabo eraman ziren Amerikara. Koro Navarro

Polonieraz hitz egitea **debekatu** eta alemanez hitz egitera behartu. Jokin Urain

Lukurreriarik itzelenak gertatu dira, korritua **debekatu** denean. Andres Urrutia

Burdinaren garraioa heriotza-zigorpean **debekatu** zuten. Iñaki Iñurrieta

Lur gainean narrasta dabiltzan piztiak **debekatuak** dituzue eta ezin izanen dituzue jan. Elizen arteko biblia

Batasuna alderdia **debekatua** da, ETA-ren aldeko bezala ekarria. Herria

Ez omen da posible, **debekatua** omen daukate. Agurtzane Juanena

Ingeles langileek **debekatua** zuten atzerrian lan egitea, eta enpresek ere galarazia zuten makinak esportatzea. Koro Navarro

**Debekatua** genuen elkarrekin hitz egitea, baina berdin zion. Anjel Lertxundi

Baina gauza bat da ez **debekatzea** eta oso bestea agintzea edo, bederen, konseilatzea. Koldo Zuazo

## 4 (adizlagunekin)

Hortik aurrerako juzguetan sartzea gogor **debekatu** zion bere buru jada sobera nahastuari. Karlos Linazasoro

Deitu zituzten, bada, eta Jesusi buruz hitzegitea edo irakastea zorrotz **debekatu** zieten. Elizen arteko biblia

Aitak erabat **debekatu** dio Dusseli gutunak idazten jarraitzea. Josu Zabaleta

Samurki **debekatu** zion berriro horrelakorik egitea. Askoren artean

Bidezkoa izango da pikareskak sustaturiko gezurrezko titulu, aurrizki eta azalpenak legez **debekatu** eta iruzurrak zorrotz zigortzea. Edorta Agirre

## 5 *(era burutua izenondo gisa).*

Fruitu **debekatua** ez da beti sagarra izaten, ezta beti emakumearen eskutik etortzen ere. Aingeru Epaltza

Mussoliniren kontrako irainez betetako liburu **debekatu** bat. Josu Zabaleta

"Guztiz heretiko susmagarri" gisa kondenatua izan zen Carranza eta haren Katixima liburu **debekatuen** "Index"-ean sartu zuten. Piarres Xarriton

Eskola mutil batek idazmahaiaren azpian gordea duen eleberri **debekatu** bat erakusten duen bezala. Karlos Zabala

Hamar urteko presondegi zigorra emanen ziotela paper faltsu eta arma **debekatuekin** ibiltzeagatik. Itxaro Borda

Hagrid basozainari oihan **debekatuaren** ondoko etxolan egindako bisitak. Iñaki Mendiguren

Daniel Romestant giza eskubide militantea eta Laurence Hardouin abokata sartu ziren aireportuko gune **debekatuetan** . Herria

Geroztik etxe hura maitasun **debekatu** haren aterpe ezkutu bihurtu zen. Martin Anso

Plazer **debekatu** hori berekoikeriaz gozatu nahi izan balu bezala. Karlos Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**agertzea debekatu** (5); **agertzea debekatu zuen** (3); **alde bat debekatu** (5); **amak debekatu** (4); **amak debekatu egin** (4); **ankarak debekatu** (3); **arteko ezkontzak debekatu** (3); **aspaldi debekatu** (3); **ateratzea debekatu** (4); **aurkeztea debekatu** (5); **azkenean debekatu** (3); **bainua debekatu** (3); **bat debekatu** (10); **batasunaren ekitaldia debekatu** (3); **batek debekatu** (4); **batzarra debekatu** (5); **berak debekatu** (3); **bizitzea debekatu** (3)

**debekatu ahal** (4); **debekatu arren** (9); **debekatu baliote** (3); **debekatu bat** (4); **debekatu behar** (15); **debekatu beharko** (6); **debekatu die** (6); **debekatu diete** (12); **debekatu dio** (15); **debekatu diote** (9); **debekatu ditu** (13); **debekatu dituzte** (5); **debekatu du** (46); **debekatu du herrizaingo** (3); **debekatu dute** (26); **debekatu edo** (5); **debekatu edo ez** (3); **debekatu egin** (190); **debekatu egin baitzuen** (3); **debekatu egin baitzuten** (3); **debekatu egin behar** (3); **debekatu egin beharko** (4); **debekatu egin die** (7); **debekatu egin dit** (5); **debekatu egin ditu** (3); **debekatu egin du** (19); **debekatu egin dute** (3); **debekatu egin nahi** (3); **debekatu egin zien** (10); **debekatu egin zieten** (7); **debekatu egin zion** (18); **debekatu egin zioten** (5); **debekatu egin zituen** (4); **debekatu egin zituzten** (4); **debekatu egin zuen** (32); **debekatu egin zuten** (16); **debekatu egingo** (12); **debekatu egingo du** (3); **debekatu egiten** (62); **debekatu egiten da** (3); **debekatu egiten die** (6); **debekatu egiten dizugu** (3); **debekatu egiten dizut** (4); **debekatu egiten du** (13); **debekatu egiten duela** (5); **debekatu egiten zien** (3); **debekatu egiten zion** (4); **debekatu ere** (3); **debekatu eta** (21); **debekatu eta gero** (4); **debekatu haiek** (3); **debekatu izan** (4); **debekatu izana** (12); **debekatu izana kritikatu** (3); **debekatu nahi** (25); **debekatu nahi du** (5); **debekatu nahi dute** (3); **debekatu ostean** (3); **debekatu zen** (5); **debekatu zidan** (3); **debekatu zien** (16); **debekatu zieten** (10); **debekatu ziguten** (3); **debekatu ziola** (3); **debekatu zion** (20); **debekatu zioten** (8); **debekatu ziren** (5); **debekatu zituen** (19); **debekatu zituzten** (6); **debekatu zuela** (7); **debekatu zuen** (57); **debekatu zuen atzo** (7); **debekatu zuenean** (3); **debekatu zuenez** (3); **debekatu zuten** (21)

**du debekatu** (3); **egitea debekatu** (21); **egitea debekatu zuen** (3); **ehiza debekatu** (6); **ehizatzea debekatu** (3); **ekitaldia debekatu** (27); **ekitaldia debekatu edo** (3); **ekitaldia debekatu izana** (4); **ekitaldiak debekatu** (3); **elkarretaratzea debekatu** (3); **ematea debekatu** (4); **epaileak debekatu** (5); **epaileak debekatu egin** (3); **erabat debekatu** (4); **erabiltzea debekatu** (12); **ere debekatu** (24); **ere debekatu egin** (8); **ere debekatu nahi** (3); **erretzea debekatu** (18); **erretzea debekatu du** (6); **erretzea debekatu dute** (3); **erretzea debekatu nahi** (3); **ertzaintzak debekatu** (3); **esportatzea debekatu** (4); **esportatzea debekatu zuen** (3); **eta debekatu** (15); **eta debekatu egin** (8); **ezkontzak debekatu** (3); **gizalege ordenantzak debekatu** (3); **gobernuak debekatu** (8); **gobernuak debekatu egin** (4); **guztiak debekatu** (9); **hartzea debekatu** (9); **herrizaingo sailak debekatu** (6); **hitz egitea debekatu** (6); **hori debekatu** (8); **horrek debekatu** (3); **horrek debekatu egiten** (3); **ibiltzea debekatu** (4); **igarotzea debekatu** (4); **inportatzea debekatu** (4); **inportatzea debekatu zuen** (3); **israelek debekatu** (3); **israelek debekatu egin** (3); **itzultzea debekatu** (3); **izatea debekatu** (3); **jatea debekatu** (3); **joatea debekatu** (10); **kamioiei debekatu** (3); **kamioiei debekatu egin** (3); **kontsumoa debekatu** (3); **legeak debekatu** (12); **legeak debekatu egiten** (9); **legez debekatu** (4); **liburu debekatu** (3); **manifestazioa debekatu** (6); **marlaska epaileak debekatu** (3); **marlaskak debekatu** (3); **marlaskak debekatu egin** (3); **ordenantzak debekatu** (3); **ordenantzak debekatu egiten** (3); **oro debekatu** (6); **parte hartzea debekatu** (6); **publikoetan erretzea debekatu** (8); **sailak debekatu** (6); **sailak debekatu arren** (4); **salmenta debekatu** (6); **salmenta debekatu du** (3); **saltzea debekatu** (5); **sartzea debekatu** (16); **sartzea debekatu zieten** (3); **udalak debekatu** (4); **uretan sartzea debekatu** (3); **urte debekatu** (4); **urte debekatu zuten** (3); **zuen ekitaldia debekatu** (6)

**arrantza debekatua** (4); **baina debekatua** (3); **debekatua baita** (3); **debekatua da** (11); **debekatua dago** (22); **debekatua dagoela** (3); **debekatua dagoen** (5); **debekatua dela** (6); **debekatua du** (7); **debekatua duen** (6); **debekatua duen zerbait** (5); **debekatua dugu** (3); **debekatua dute** (16); **debekatua dutela** (3); **debekatua egon** (5); **debekatua eta** (5); **debekatua ez** (3); **debekatua genuen** (6); **debekatua izaitea** (7); **debekatua izan** (11); **debekatua izan zen** (3); **debekatua izanen** (4); **debekatua izanik** (3); **debekatua izanki** (3); **debekatua omen** (3); **debekatua sartzea** (3); **debekatua zaio** (3); **debekatua zegoela** (6); **debekatua zegoen** (12); **debekatua zela** (3); **debekatua zen** (5); **debekatua zion** (3); **debekatua zuen** (9); **debekatua zuten** (9); **dela debekatua** (3); **edo debekatua** (3); **egitea debekatua** (5); **erabat debekatua** (5); **ere debekatua** (8); **erretzea debekatua** (4); **eta debekatua** (9); **fruitu debekatua** (5); **guztiz debekatua** (4); **hori debekatua** (5); **ibiltzea debekatua** (3); **jaunak debekatua** (5); **jaunak debekatua duen** (5); **legeak debekatua** (4); **legez debekatua** (4); **petikakoer debekatua** (3); **sartzea debekatua** (3); **urtez petikakoer debekatua** (3)

**arrantza debekatua** (4); **baina debekatua** (3); **debekatua baita** (3); **debekatua da** (11); **debekatua dago** (22); **debekatua dagoela** (3); **debekatua dagoen** (5); **debekatua dela**

(6); **debekatua du** (7); **debekatua duen** (6); **debekatua duen zerbait** (5); **debekatua dugu** (3); **debekatua dute** (16); **debekatua dutela** (3); **debekatua egon** (5); **debekatua eta** (5); **debekatua ez** (3); **debekatua genuen** (6); **debekatua izaitea** (7); **debekatua izan** (11); **debekatua izan zen** (3); **debekatua izanen** (4); **debekatua izanik** (3); **debekatua izanki** (3); **debekatua omen** (3); **debekatua sartzea** (3); **debekatua zaio** (3); **debekatua zegoela** (6); **debekatua zegoen** (12); **debekatua zela** (3); **debekatua zen** (5); **debekatua zion** (3); **debekatua zuen** (9); **debekatua zuten** (9); **dela debekatua** (3); **edo debekatua** (3); **egitea debekatua** (5); **erabat debekatua** (5); **ere debekatua** (8); **erretzea debekatua** (4); **eta debekatua** (9); **fruitu debekatua** (5); **guztiz debekatua** (4); **hori debekatua** (5); **ibiltzea debekatua** (3); **jaunak debekatua** (5); **jaunak debekatua duen** (5); **legeak debekatua** (4); **legez debekatua** (4); **sartzea debekatua** (3); **urtez petikakoer debekatua** (3)

**arma debekatuak** (3); **atal debekatuan** (5); **debekatuak daude** (3); **debekatuak dituzue** (6); **debekatuak izan** (11); **debekatuak izan dira** (3); **debekatuak izanen** (3); **debekatuen zerrendan** (3); **ere debekatuak** (5); **liburu debekatuen** (6); **maitasun debekatuak** (3); **oihan debekatuan** (4); **oihan debekatuaren** (5); **piztiak debekatuak dituzue** (3)

**debekatuko ditu** (4); **debekatuko du** (4); **debekatuko duen** (5); **debekatuko dute** (4); **ere debekatuko** (4); **erretzea debekatuko** (7)

**baina debekatuta** (7); **dago debekatuta** (5); **debekaturik baitzeuden** (4); **debekaturik dago** (16); **debekaturik daude** (7); **debekaturik du** (4); **debekaturik dute** (3); **debekaturik egon** (4); **debekaturik ez** (3); **debekaturik zegoen** (6); **debekaturik zeuden** (4); **debekaturik zeukan** (3); **debekaturiko zerbait** (3); **debekatuta dago** (59); **debekatuta dagoela** (9); **debekatuta dagoen** (11); **debekatuta dagoen arren** (3); **debekatuta daude** (17); **debekatuta dauden** (6); **debekatuta dauka** (3); **debekatuta daukate** (6); **debekatuta dute** (7); **debekatuta egon** (14); **debekatuta egon zen** (3); **debekatuta egongo** (7); **debekatuta egongo da** (7); **debekatuta egotea** (3); **debekatuta eta** (4); **debekatuta izan** (4); **debekatuta izango** (3); **debekatuta zegoela** (11); **debekatuta zegoela eta** (3); **debekatuta zegoelako** (3); **debekatuta zegoen** (19); **debekatuta zeudela** (3); **debekatuta zeuden** (4); **debekatuta zeukaten** (4); **debekatuta zuten** (4); **debekatutako eremu** (3); **debekatutako substantzien** (3); **debekatutako sustantzia** (3); **debekatutako sustantziak** (6); **debekatuz gero** (4); **egitea debekatuta** (7); **egitea debekatuta dago** (3); **ekitaldia debekatuz** (3); **ekitaldia debekatuz gero** (3); **erabat debekaturik** (3); **erabat debekatuta** (4); **ere debekaturik** (3); **ere debekatuta** (9); **erretzea debekatuta** (7); **eta debekaturik** (3); **eta debekatuta** (7); **ez dago debekatuta** (3); **guztiz debekaturik** (3); **guztiz debekatuta** (7); **guztiz debekatuta dago** (3); **hartzea debekatuta** (3); **hitz egitea debekatuta** (5); **hori debekatuta** (6); **hori debekatuta dago** (4); **ia debekatuta** (3); **oihan debekaturantz** (3); **saltzea debekatuta** (3); **zegoen debekatuta** (7)

**alderdiaren debekatzea** (7); **bat debekatzea** (3); **batasuna alderdiaren debekatzea** (7); **batasunaren ekitaldia debekatzea** (6); **baten debekatzea** (4); **bidaiatzea debekatzea** (3); **debekatzea aski** (3); **debekatzea aztertzen** (4); **debekatzea aztertzen ari** (4); **debekatzea da** (4); **debekatzea erabaki** (8); **debekatzea erabaki du** (3); **debekatzea eta** (11); **debekatzea ez** (4); **debekatzea ez da** (3); **debekatzea proposatu** (4); **debekatzea proposatu zuen** (3); **debekatzeak ez** (4); **debekatzearen alde** (9); **debekatzearen aldekoa** (3); **debekatzeaz gain** (4); **ekitaldia debekatzea** (16); **ekitaldia debekatzeak** (4); **erabat debekatzea** (3); **ez debekatzea** (7); **klonazioa debekatzea** (3); **omenaldiak debekatzea** (3); **politikoa debekatzea** (3); **politikoak debekatzea** (3); **sarrera debekatzea** (3); **sartzea debekatzea** (3); **txar umiliagarriak debekatzeari** (3)

**arteko ezkontzak debekatzeko** (8); **batasunaren ekitaldia debekatzeko** (6); **biltzarra debekatzeko** (3); **debekatzeko agindua** (7); **debekatzeko agindua eman** (3); **debekatzeko aukera** (4); **debekatzeko erabakia** (6); **debekatzeko eskaera** (6); **debekatzeko eskatu** (38); **debekatzeko eskatu die** (3); **debekatzeko eskatu dio** (4); **debekatzeko eskatu du** (5); **debekatzeko eskatu dute** (5); **debekatzeko eskatu zion** (10); **debekatzeko eskatu zuen** (4); **debekatzeko eskatuz** (3); **debekatzeko eskatzea** (4); **debekatzeko eta** (3); **debekatzeko ituna** (6); **debekatzeko lege** (5); **debekatzeko lege proposamena** (3); **ekitaldia debekatzeko** (24); **ekitaldia debekatzeko eskaera** (3); **ekitaldia debekatzeko eskatu** (7); **erabat debekatzeko** (5); **erretzea debekatzeko** (4); **ezkontzak debekatzeko** (10); **guztiak debekatzeko** (5); **guztiak debekatzeko eskatu** (3); **klonazioa debekatzeko** (4); **mota guztiak debekatzeko** (3); **sartzea debekatzeko** (4)

**bat debekatzen** (3); **batek debekatzen** (3); **debekatzen ahal** (3); **debekatzen badu** (3); **debekatzen badute** (4); **debekatzen baitu** (4); **debekatzen da** (3); **debekatzen didazu** (3); **debekatzen die** (8); **debekatzen digute** (3); **debekatzen dio** (5); **debekatzen ditu** (12); **debekatzen dituen** (6); **debekatzen dituzte** (5); **debekatzen dituzten** (3); **debekatzen dizut** (4); **debekatzen du** (31); **debekatzen duela** (6); **debekatzen duelako** (5); **debekatzen duen** (40); **debekatzen duen arren** (3); **debekatzen duen lege** (6); **debekatzen duen legea** (11); **debekatzen duena** (9); **debekatzen dute** (13); **debekatzen duten** (11); **debekatzen duten legeak** (3); **debekatzen eta** (5); **debekatzen ez** (8); **debekatzen saiatu** (4); **debekatzen zituen** (5); **debekatzen zuen** (10); **debekatzen zuena** (6); **debekatzen zutela** (3); **debekatzen zuten** (4); **du debekatzen** (3); **duela debekatzen** (4); **egitea debekatzen** (13); **erabat debekatzen** (12); **erabat debekatzen dute** (4); **erabiltzea debekatzen** (6); **eramatea debekatzen** (5); **ere debekatzen** (10); **ere debekatzen du** (4); **erretzea debekatzen** (11); **erretzea debekatzen duen** (4); **esportatzea debekatzen** (3); **espresuki debekatzen** (3); **eta debekatzen** (5); **ez du debekatzen** (3); **ez duela debekatzen** (4); **hartzea debekatzen** (3); **hiltzea debekatzen** (3); **hori debekatzen** (4); **izatea debekatzen** (6); **legeak debekatzen** (15); **legeak debekatzen duelako** (3); **legeek debekatzen** (3); **politikoak debekatzen** (3); **publikoetan erretzea debekatzen** (3); **saltzea debekatzen** (4); **sartzea debekatzen** (4); **tabakoa erretzea debekatzen** (4)

---

# **debekatzaile** *izond* debekatzen duena.

Lehenengoa, banatze-legea deritzana, **debekatzailea** da eta guztiei zuzenduta dago; bigarrena, mendekuzko edo penala izenekoa, aginduzkoa da eta ministro publikoei bakarrik zuzenduta dago. Esteban Antxustegi

«Drogomenpekotasunen aurreko politikak errotik aldatu behar dira», gehitu zuen: «zalantzan jarri behar dira bai eredu **debekatzaileak**, baita eredu banalizatzaileak ere». Berria - Euskal Herria

Ameriketako Estatu Batuen politika zigortzaile eta **debekatzailearen** menpe daude drogomenpekotasun politikak. Berria - Euskal Herria

---

# **debekatze** *iz* eragoztea, bereziki legez edo aginduz.

Korrika 13ren arduradunek ez dute **debekatze** hori onartzen. Herria

Zernahi gisaz ez da Eliza katolikoaren **debekatze** horietaz arranguratuko, ez baititu ezagutzen ere! Michel Oronoz

Uda nahasia Euskal-Herriarentzat, gaitzeko sukarra jauzirik, Batasuna alderdiaren **debekatze** horrekin. *Egunkaria*ren **debekatze** eskandalagarria, euskararen beherakada beldurgarria... Herria

Bizi dugun garai dorpe huntan (egunkari eta alderdi **debekatze**, euskararen ukatze, Itoizko inguruen urperatze eta bertze), Nafarroak batasun egun bat ezagutuko du, giro goxo batean, egitarau aberats batekin. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**debekatze hori** (3)

---

# **debeku** **1** *iz* debekatzea; debekaturiko gauza.

Han **debeku** batez hasten baitzen dena: "Erregelarekin eta konpasarekin ez bada, ez duzu ezer eraikiko". Jon Muñoz

ADNa klonatzeko, biderkatzeko, haren sekuentzia ateratzeko aukera izateak deuseztatu egin ditu hainbat **debeku** eta muga, organismoen ugaltze-zikloak zein geure kulturak ezarritakoak. Juan Garzia

Ez ginen lokartzera haizu, **debekuaren** beharrik ez nuen. Piarres Aintziart

Lerro ia sumaezin bat, dei eta **debeku** aldi berean, batu eta bereizi egiten duena. Iñaki Iñurrieta

Hainbeste **debeku**, mehatxu, kulpa eta konplexuren gainetik, desioak beren bidea egiten ari dira. Luis Elberdin

Nik ez nion deus esaten, **debeku** hura sortzetik beretik neureganatua banu bezala. Joan Mari Irigoien

Hamar Aginduek zenbait eginbehar eta **debeku** ezartzen dituzte eta, Jainkoaren borondatearen adierazle direnez, aginduok absolutuak dira. Askoren artean

Hala ere, jukutriaren bat egin zuen azken **debeku** hau ere nolabait saihesteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ingalaterrak, bere aldetik, produktu manufakturatuen gaineko muga-sariak murriztea erabaki zuen, inportazioaren gaineko **debeku** oro ezabatzea. Koro Navarro

**Debeku** hura errespetatu zuen amak, baita alargun egin zuen aro laburrean ere. banekien haur batek ezin zituela esan, eta **debekuak** hausteak ematen duen plazer ezkutuaz, amorru handiagoz esaten nuen. Joxan Elosegi

Legeak baimen edo **debeku**, agindu, xedatu, ezarri, zigortu edo saritu egiten du. Andres Urrutia

**Debeku** askoren atzean ekonomia omen dago. Anjel Lertxundi

Arretaz irakurri nituen **debeku** guztiak. Iñaki Zabaleta

Aho batez aitortzen dute etnologoek unibertsala dela intzestuaren **debekua**. Juan Garzia

Ostatuko arauak jakinarazi zizkidan, tartean, neskarik edo bestelakorik gelara eramateko **debekua**. Anjel Lertxundi

Solastatzeko eta pipatzeko **debekuak** bere horretan dirau. Xabier Montoia

Lege «eskasa» dela salatu zuen, **«debekuz** beterik baitago». Berria - Harian

Etxe barrurako mintzaira ezkutua baikenuen hura, **debekuz** baino areago lotsaz baztertua. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Etxe honetan **debeku** zorrotzak ditugu eta, beraz, ez zaitez arduratu, mesedez. Ibon Uribarri

Ez zuen hango agureek zituzten **debeku** itsusi eta errukarriak apurtzeko inolako asmorik. Ibon Uribarri

Gizakiak trukerako berez duen joera horrexek bideratzen du -baldin agintari politiko edo moralen **debeku** arbitrarioren batek galarazten ez badu- lanaren banaketa. Koro Navarro

Argitxo gorria piztuta, sartzeko **debeku** iraunkor eta erabatekoaren ikur gisa. Bego Montorio

Agindu eta **debeku** moralen, politika ororen, zientziaren beraren euskarri bakarra giza kontzientzia dela. Joxe Azurmendi

Baina **debeku** kristaua baino askoz lehenagotik ere, hagitz sinbologia aberatseko hegaztia izandu da belea munduko kultura guzietan. Patziku Perurena

Bost agindu zein **debeku** zentzuzkoren arrimuan hamar zentzugabe, alferrikakok egiten duela habia. Juan Garzia

Baina keinu hari zinezko **debeku** iritzi ez, eta neskaren ezpainetan pausatu zituen bereak. Patxi Zubizarreta

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jakinekotzat jotzen da metropolien arteko merkataritzak ez dakarrela kolonietan ere berdin jarduteko baimenik, eta hauek **debeku**-egoeran geratzen dira beti. Iñaki Iñurrieta

**Debeku** garaian, batez ere. Hasier Etxeberria

Zuzentzaileek, ahal balute, kode penalak berak baino gehiago agintzen duen **debeku**-multzo batek esku eta hankaloturik ez baleude. Jon Alonso

Kitto! **debeku** agindu bat eskatuko dut, horixe da egingo dudana! Koro Navarro

Bozketa egin zuten atzo Erresuma Batuko diputatuek leku publikoetan tabakoa erretzeko **debeku** proposamenen gainean, eta gehienak galarazpen osoaren alde agertu ziren. Berria - Gaiak

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alderdi mugagaitz eta itzaltsu horretan sartzeko herabe gara, barne-**debeku** moduko bat daukagu ilunpe horren muinean barneratzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Errudunei bizileku-**debekua** ezar liezaieke. Joseba Urteaga

## 5 eragozpena, traba. ik beherago **8.**

Erromako Aita Sainduak berak larderiatzen ahal duela laiko nornahi, edozein bekatu hilgarri, naturaz gaineko legeak hautsiz edo hitzarmenak ez begiratuz edo zerbait **debeku** gainditUz, egin duelarik, zehazkiago adieraziko den bezala. Piarres Xarriton

## 6 ***debeku izan*** da *ad*

Konradek bazuen babesleku bat, bere lagunarentzat **debeku** zena: musika. Xabier Olarra

**Debeku** ziren hordikeria eta jokoak, dantzak eta kantak, himnoak kenduta. Aingeru Epaltza

Ez zarete konturatzen nirean usu direla zuen sudurrentzat aspaldi **debeku** diren urrin gozoak. Jon Alonso

Egia erran, Orthezen mutiko batek gogoko izan ditzakeen gauza gehienak ziren **debeku**. Aingeru Epaltza

**Debeku** zela ibilgailurik handik aurrera pasatzea. Matías Múgica

**Debeku** da erretzea, *Gitane* bat bada ere. Monika Etxebarria

Guretzat denak haizu eta besteri dena **debeku** ari behar girela? Herria

## 7 ***debeku izan*** du *ad*

**Debeku** genuen lubakietara jalgitzea; patioan estu genbiltzan, lau murruen artean itoak, eta hatsa hartzeko nora jorik ez. Aingeru Epaltza

Nire muskuluek, eskuek, behatz puntek, ileak aurkitu zuten, antza, nire zerebroak **debeku** zuen memoria. Matías Múgica

Barka, adiskide maitea, ezein gogoeta **debeku** dut. Jon Muñoz

## 8 ***gernu debeku*** gernua kanporatzeko eragozpena.

Errotariaren alaba gaixo zegoen; sabela handituta zuen, eta sabeleko handitu hori **gernu-debeku** batez okerragotu zen. Josu Zabaleta

-Gibeleko gaixotasun bat du, kronikoa, larria -erantzun zion Andresek, ohetik urrunduz, neskak entzun ez zezan -; hidropesia **gernu-debekuarekin** okertu da orain. Josu Zabaleta

## 9 ***debekuzko*** *izlag*

Azken hiru urteotan 56 bat borroka-zakur aurkitu ditu Bilboko Udaltzaingoak eta **debekuzko** zakurtegi ugari. Gotzon Garate

Autoa kamioizalearen garajearen aurrean dago aparkaturik, **debekuzko** lekuan. Buru-belarri sartu ziren **debekuzkoak** zirelako xarma berezia zeukaten ekintza haietan, magian eta sorginkerietan. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**da debeku** (3); **debeku batez** (3); **debeku eta** (10); **debeku hori** (13); **debeku horrek** (5); **debeku horren** (5); **debeku hura** (3); **debeku osoa** (3); **debeku ziren** (3); **debekuak debeku** (3); **eta debeku** (16); **ezarritako debeku** (3); **zen debeku** (3)

**antxoaren gaineko debekua** (3); **aritzeko debekua** (5); **aurkako debekua** (3); **betetzeko debekua** (3); **bidaiatzeko debekua** (5); **bizitzeko debekua** (8); **bizitzeko debekua ezarri** (4); **da debekua** (3)

**debekua berretsi** (5); **debekua bertan behera** (6); **debekua beteko** (3); **debekua dela** (4); **debekua edo** (3); **debekua ekarri** (3); **debekua ere** (6); **debekua errespetatu** (4); **debekua eta** (12); **debekua ez** (7); **debekua ez da** (4); **debekua ezar** (3); **debekua ezarri** (21); **debekua ezarri zioten** (4); **debekua ezartzea** (3); **debekua hautsiko** (5); **debekua hautsiko balu** (4); **debekua izan** (3); **debekua jarri** (7); **debekua jarria** (3); **debekua jaso** (8); **debekua kendu** (9); **debekua kendu zuen** (3); **debekua kentzea** (5); **debekua kentzearen** (3); **debekua kentzeko** (4); **debekua luzatzeko** (3); **debekua salatu** (5); **debekua salatu zuen** (3)

**debekua zuen** (3); **du debekua** (5); **duen debekua** (4); **dute debekua** (13); **egiteko debekua** (7); **egoteko debekua** (4); **ekitaldiaren debekua** (3); **erabateko debekua** (4); **erabiltzeko debekua** (5); **ere debekua** (5); **erretzeko debekua** (7); **eta debekua** (11); **etxe hartako debekua** (4); **etxeko debekua** (5); **ez zuten debekua** (3); **frantzian bizitzeko debekua** (3); **gaineko debekua** (8); **hartako debekua** (4); **hartako debekua hautsiko** (3); **hurbiltzeko debekua** (4); **ibiltzeko debekua** (6); **joateko debekua** (3); **komunikatzeko debekua** (4); **kontrako debekua** (3); **politikoen debekua** (4); **sartzeko debekua** (7); **zen debekua** (3); **zien debekua** (3); **zuen debekua** (6); **zuten debekua** (8)

**baina debekuaren** (3); **bestelako debekuak** (3); **debekuak aurrera** (3); **debekuak debeku** (3); **debekuak ere** (5); **debekuak eta** (5); **debekuak ez** (7); **debekuak ez du** (4); **debekuaren alde** (7); **debekuaren alde egin** (3); **debekuaren aurka** (3); **debekuaren aurrean** (6); **debekuaren berri** (16); **debekuaren kontra** (3); **debekuaren ondoren** (3); **du debekuaren** (3); **ekitaldiaren debekuaren** (3); **eta debekuak** (8); **eta debekuaren** (3); **zuen debekuaren** (3)

**debekuari aurre** (3); **debekuari eustea** (4); **debekurik ez** (5); **eta debekuen** (3)

---

# **debekualdi** *(orobat **debeku aldi**)* *iz* zerbait, bereziki ehiza, debekatzen den denbora bitartea.

Zubi erromatarraren zuloetan aparailua eta sarea edukitzen zituen gordeta, **debekualdirako**. Koro Navarro

Egun bakar batean ere huts egin gabe joaten zen ehizara urte osoan, eta ezer botatzekorik ez zegoenean, **debeku aldietan**, azeri eta beleak ehizatzen zituen, norbait hil nahi balu bezala, egunero mendekuren bat prestatzen ari balitz bezala. Xabier Olarra

**Debekualdia** txantxetarako akuilu gisa baino ez zerabilen. Mirentxu Larrañaga

---

# **debekuka** *adlag* debekatuz.

Ez nuke jakingo esaten zerk bridatu zidan gogoa, lotsak, beldurrak, ala bekatuaren itzalak, baina halako hots sakon bat entzuten nuen neure erraietan, **debekuka**: et, tentu bide horretatik, ez duk egokia... Anjel Lertxundi

---

# debekuzko ik **debeku 9.**

---

**debere** *iz pl* etxeko lanak.

'**Debereak** egin dituzue ala?' esan zuen, txapela ondo sartuta buruan eta balantzaka. Joseba Sarrionandia

---

debetatu ik **debekatu**.

---

debileta ik **dibidieta**.

---

**debilidade** *iz* ahultasuna; ahulgunea.

Hirugarrena, abuztuak berezkoa duen eguna laburtzearena: eguzkia makaltze aldera isuria ikusten dela nabarmen, alegia, ahuleziak jota, **debilidadea** gorputzean duela. Pello Zabala

Zein erraz sortzen den gure buruko chip **debilidadeak** jotako horietan Propaganda jaun ahaltsuari saltzea komeni zaiona! Pello Zabala

Nahiko pertsona kariñosoak ziren biak ere, eta **debilidadea** zeukaten herriko pintoreekiko. Unai Elorriaga

Nire **debilidadea** dira, nolabait esateko. Harkaitz Cano

---

**debisa** *iz* aurrekontua.

Poudes-ek zuen beraz egin Luzaideko eliza berriarentzat behar zen marrazki andana edo proiektua, bai eta aurrekontu edo **debisa** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

debito ik **debitu**.

---

**debitu** *(ETCn 13 agerraldi; orobat* **debito** *ETCn 3 agerraldi) iz*

Gizarteek hainbat diru mota izan dituzte historian zehar, bai gatza, kakaoa edo urrea, bai gaur egungo diru papera, plastikozko dirua (kreditu eta **debitu** txartelak) bai diru elektronikoa, hots, berezko baliorik ez duten elementuak. Bestetik, **debito** eta kreditu txartelen kontratuetan «gehiegizko klausula eta baldintzak» ezartzen dituztela leporatzen dio kutxari. Iñaki Heras

---

**deblau** *adlag* deblauki.

Eta hark buru-makurtu batekin erantzuten ziola ikusirik, apoderatu, eta **deblau** esan zion: [...]. Matías Mujika

Eguneroko kontua! -esan zuen **deblau** Semion Semionovitxek-. Matías Múgica

---

**deblauki** *adlag* zalantzarik gabe, erabakitasunez; erabat.

-Etxalarren bizi da -gaztigatu zuen gizonak, **deblauki** . Elena Touyarou

Itzultzen ikusteak kontsolatzen zuen, nahiz ez zuen sekulan **deblauki** aitortuko. Elena Touyarou

**Deblauki** "bai" edo "ez" ihardesteko orde, horrelaxe "itzulikatu" nion ene erantzuna: [...]. Daniel Landart

Demoek delibero hori garaipen bezala ikusten dute **deblauki** . Herria

Malo, ADAko zuzendariaren proposamenaren alde dago **deblauki** CFDT sindikata. Herria

Gazteak **deblauki** esan du hau, zalantzarik gabe, galderak durduzatu eta arrapostuak herabetu duenik eman gabe. Koldo Izagirre

Hark baitzuen **deblauki** erran "Euskal Herria da euskaldunen aberria". Menane Oxandabaratz

-Ikus dezagun: hasteko, **deblauki** aitortzen du oraintsu arte ez duela irakurri Sterneren *Tristram Shandy*... *Jon Alonso*

-Egia **deblauki** jakin nahi baduzue, niri ez dit fitsik aitortu... Daniel Landart

Norbaitekin mintzatu nahi nuen garbiki, norbaitekin patxadan solastatu, norbaiti neure kezka larria **deblauki** aitortu. Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**deblauki aitortu** (3); **deblauki erran** (6); **deblauki eta** (4); **deblauki galdetu** (5); **deblauki galdetu nion** (3); **du deblauki** (3); **eta deblauki** (14); **supituki eta deblauki** (8); **zuen deblauki** (3)

---

**deblautasun** *iz* erabakitasuna, zalantzarik eza.

Baina berak esan zuen: "Ez, gelditu egin nahi dut, osorik ikusi nahi dut"; pozgarri egin zitzaidan bere nahia hain garbi azaltzea, haren **deblautasuna** eta autonomia, ia sekula ez bainion halako jokabiderik ikusi erietxeko bizimodu onez onekoan. Xabier Olarra

Gregen tumorrak lehenbizi guruin pituitarioari erasan zion; horregatik loditu zen eta erori zitzaion ilea; baina ez hori bakarrik, horrexek hustu zizkion hormonen eraginpeko agresibitatea eta **deblautasuna** , eta hortik sortuak ziren haren esanekotasun eta naretasun ez-normalak. Xabier Olarra

---

**deboila** *iz* suntsitzea; suntsikina. ik **deboiladura; deboilamendu**.

Haietarik franko ez ziren nehoiz ez itzuliko, batzuek beren zaldi ustelduen aixolbean 1940ko **deboilan** hilotz zeudelako eta gainerakoak oro Alemania iparreko kontzentrazio zelaietan preso. Itxaro Borda

Gustatzen zitzaion dineh-ko semeak eguzkiaren ohorez dantzan mirestea eta haize azkarreko gauetan jendeen **deboila** irudikatzen zuten egoitza erorietako ateak danbaka entzutea. Itxaro Borda

Ez ginen, ikastolako guraso izan arren, horrelako **deboila** kulturalen jasatera heziak. Itxaro Borda

**Deboila** intimoaren sentimendua are sakonagoa zuen ingurukoen bizimoduarekin berea konparatzen zuenean. Itxaro Borda

Rafaren barne **deboila** areagotu zuen lizentziamenduak: emazteak, adinean pasatuak eta famaz auherrak galera kide zituen oraingoan. Itxaro Borda

---

**deboiladura** *iz* suntsitzea; suntsikina. ik **deboila; deboilamendu**.

Nolanahikoak direla ere, errepublikar edo monarkiazale, gizarte zaharrak abusuz beteak daude, gizon zaharrak zimurrez eta etxe zaharrak **deboiladuraz** bezala. Koldo Izagirre

Oker erabiltzen dut hemen **deboiladura** hitza; txabola hitza baino ez nuke erabili behar. Koldo Izagirre

Bi etxetik batean bazen **deboiladuraren** bat, gehienean huntzak jana eta sasiak trabatua, batzuetan antzinakoa, berria maizago. lehen planoan, txabola bat zen **deboiladura**; bigarren planoan, alkate etxea zen **deboiladura** bat; hondoan komentua zen **deboiladura** bat. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deboiladura bat** (4); **zen deboiladura** (3)

---

# deboilamendu *iz* suntsitzea; suntsikina. ik **deboiladura; deboila.**

Okaka eta okitua, gogoari datxekionez oro nahaste eta **deboilamendu**. Jose Angel Irigaray

Begirada gelatik nekusan patioan galtzen zitzaidan bitartean, gogoan oro nahas eta **deboilamendu**. Jose Angel Irigaray

---

# deboilatu, deboila, deboilatzen **1** du *ad* suntsitu; nahasi, nahasmendua eragin.

1949an gerrak **deboilaturiko** Berlinen. Joxe Azurmendi

Zera erantsiko dut, Alemaniako erresuma ez zuela **deboilatu** eta, nolabait esateko, ezereztu, Frantziakoa bezala, normandiarrek eta sarrazenoek egin zioten gerra-mota berezi hark. Iñaki Iñurrieta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Etxe **deboilatu** bat aurkitu nuen eskuinean, beste deboiladura bat ezkerrean, beste bat gero, hiru edo lau aitzinago, sagarrondo baso ttipi baten ondoan, eta ezustean herritik urrats gutira aurkitu nintzen. Koldo Izagirre

Sierra Nevadako mendikateak mezu gris eta **deboilatua** zekarren ekialdeko ortzimugatik Javi Cillero

**3** (era burutua izen gisa)

"**Deboilatu**" hauek teilaturik gabeko lau hormak osatuak dira gehienetan, zenbait leihorekin, gehienak ere adreiluzko tabike batek tapiatuak eta tronera bihurtuak, sute arrastoekin alde guztietarik, eta barnean behiren bat edo ahuntz pare bat lurreko belarra edo hormako huntza lasai bazkatzen ari. Koldo Izagirre

---

# deboto ik **deboto.**

---

# deboto *(ETCn 112 agerraldi; orobat **debotu** ETCn 13 agerraldi; eta **debot** ETCn 40 agerraldi) izond/iz* jainkozalea, elizkoa.

Arima **debotoa**, zalantzarik gabe eta kordokarik gabe, erakusten zaionari jarraitzen zaionean. Patxi Altuna

Laborari **debota** eta fraile sinesgaitza elkarrekin ehortziak dira. Piarres Aintziart

Zaldun **debotoak** bat-bateko heriotzari aurrea hartu zion eta, penitentziaren armez babestuta, zigorrari ihes egin eta betiko bizilekuetan sartu ahal izan zen. Askoren artean

Non ditu holako ahalak, orain arte bere tropen indar erakustea baino hoberik egin ez duen president **debotak**? Herria

Eta emaztekiak gertatua jakinarazi zion bere amorante **debotari**. Joan Mari Irigoien

Aski izan bedi oraingoz Jainkoari sagaratutako birjina eta Kristoren mirabe txit **debotoez** esan duguna. Askoren artean

Erreparatu, ordea, aitortza **debotoaren** balioari, santu egin ez ezik, santutasuna adierazi ere egiten baitu. Askoren artean

Aita txit santua ikusteko gogo **debotoa** nagusitu zitzaion. Askoren artean

**Debotak** aldiz haserretuko dira bertuteak lur jo duela ikusirik, bai arranguratuko ere erlijioa agertu izanaz ahalez hain eskas. Jon Muñoz

Haatik, edo tronpatzen naiz, edo **debot** amoltsu horrek anitz behar du izkiriatu. Jon Muñoz

Jakizu beraz neure **debot** eskergabe horrek zorrotz tratatzen nauela oraino. Jon Muñoz

Zapatari batek deskuidoz esku batean sekulako ebakia egin zuelarik, San Markosen **debotoa** izaki, laguntza eskatu zion, eta osatu zen agudo batean. Pello Zabala

Superstiziozko sinesteetan erortzen ziren berriro, gauza miresgarrien azkeneko hondar hartaraxe atxikitzen ziren, magnetismoaren misterio horren **deboto** bilakaturik, zientziaren izenean defendatuz. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere deboto** (3); **debot amoltsu** (4); **debot latz** (4); **debot latz horren** (3); **debot zerutiar** (3); **deboto eta** (5); **eta debotoa** (3); **neure debot** (4); **nire debot** (3)

---

# debotoki *(ETCn 3 agerraldi; corpusean **debotki** soilik) adlag* debozioz.

Iduri egiten nuela ezen otoitzean ari nintzela, fintki eta **debotki**. Joan Mari Irigoien

Gero, buru-hezurra edariz betetzen du eta **debotki** hartarik edaten, bertze gomitatu guziei pasarazten dielarik ondotik edariz betea den buruhezurra. Aurelia Arkotxa

Heziena hala ere ahoa dugu: beti apal, **debotki** josia. Pablo Sastre

---

# debotu ik **deboto.**

---

# debozino ik **debozio.**

---

# debozio *(582 agerraldi, 53 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 1.220 agerraldi; orobat **debozino** g.er. eta **debozione** g.er.)* **1** *iz* erlijioaren eta elizkizunen atxikimendu gartsua. ik **jaiera; eraspen.**

**Debozioa** da, miresten dugunarenganako Maitasuna. Piarres Xarriton

Fededunen **debozio** eta eraikuntza sustatzeko. Askoren artean

Fedezko zera hauetan, izan ere, nork bere joera, gustu, nortasun, **debozio** edo teorien araberako irudipenak ikusten baititu. Iñaki Segurola

Eta **debozio** hura harritzekoa ere ez zela izkiriatu nuen, ez behintzat gogoan izanez gero bularrean eskegia zuen kutunari zion **debozioa**, hura bere emazte kristau zintzoak emana baitzen. Edorta Jimenez

Oskigilea gizon sinplea zen, Birjinaren zalea, zeinaren dominak baitzeramatzan, eta sinetsita zegoena **debozio** horrek eskubidea ematen ziola larru txarra erabiltzeko bere oinetakogintzan. Juan Garzia

Gaurko gizon-emakumeen **debozioa** suspertzeko eta gerokoen sinesmena sendotzeko. Askoren artean

Eta ez zegoen **debozio** hura baztertzeko prest: alda ziezazkiotela santuak eta martiriak, alda ziezazkiotela aitagurea eta alda ziezazkiotela elizaren dogma guztiak, baina utz ziezaiotela bakean Ticesko Ama Birjina, zen bezalakoa eta Soniak berak sentitzen zuen bezalakoa. Joan Mari Irigoien

Goizuetar askok izaten zuen ohitura mendiz Aranoko San Roke ermitara joateko, pesta eta **debozioa** nahastuz. Patziku Perurena

Aingeruenganako **debozioa**, eta Mikel santuaren amodioz egiten zuena. Askoren artean

Jaunaren Jaiotzarekiko **debozioa**, eta nola egun horretan denei laguntzea nahi zuen. Askoren artean

**Debozioz** eta esker onez, probidentziaren errukitasun mugagabea ezagutzen zuen orduan, esker-mezak atera, eta berriro ekiten zion bere bizimodu barreiatuari. Jose Morales

Antzinako paganoek basoen erdian ospatzen zitean, **debozioz** besoak altxaturik, aurpegia sortalderantz bihurturik, itxoinaldi magikoan. Xabier Olarra

**Deboziozko** erlikiek ere, pilan metatzen badira, nazka eragiten dute. Josu Zabaleta

## **2** (izenondoekin)

**Debozio** handiz ari zela otoitz egiten iritzi nion, eta [...] bere gogoeta eragotzi gabe atean iraun nuen. Ramon Saizarbitoria

**Debozio** handiko gizona zen, eta bere ernegaldiak izaten zituen arren, musulmanen legearen arabera bizitzen saiatzen zen. Xabier Aranburu

Gauak ilunduriko Ama Birjinaren kaperaren aurrean, belaunaulki batzuk besterik ez zeuden, nahas-mahasean, han belaunikaturiko emakumeen **debozio** beroak irauliak. Karlos Zabala

Nik ere errito batzuen betekizun moduan, ondare baten jasotzaile gisa bizi izan nuen txikitan kristautasuna: ez **debozio** gaixotirik, ez beldur traumatikorik. Xabier Mendiguren Elizegi

Juan izenak (edo sainduak), gurean hainen ugaria denak, izan bide du halako **debozio** kriptiko zabal bat. Patziku Perurena

Jesusen Bihotzean zuen sinesmen handia, **debozio** katoliko guztietan onuragarriena zela uste baitzuen, eta onartzen zituen sakramentuak ere. Irene Aldasoro

Badakizue ni ez naizela batere santujalea, baina san Asensiori bai, **debozio** berezia diot. Joan Mari Irigoien

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atsegin dut zuk anaiei teologia sakratua irakastea, baldin eta ikasketa horregatik otoitz- eta **debozio**-espiritua itzaltzen ez baduzu. Askoren artean

Hori **debozio**-liburuetan zetorren. Pello Zabala

Hori onuragarriago izango zaio **debozio**-argiaz gozatzea baino, loretan dauden bertuteez poztea baino, eta berak kosta ahala kosta gozatu nahiko lituzkeen sentimenduez osatzea baino. Joan Mari Lekuona

**Debozio** objektu izan beharrean, arte objektu bihurtu dira erakusketan. Berria - Kultura

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ameskeria batean oinarritzen den haur-**debozio** horretatik are eta gehiago libratzen zaretenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Asko dira gau eta egun beren ahalegin eta arreta osoa jakintza lortzen jartzen duten anaiak, beren bokazio santua eta otoitz **debozioa** bazterrera utziz. Askoren artean

Beren otoitz jardunean ohiko barne **debozioa** sentitzen ez bazuten, Jainkoak eskutik utziak zituela pentsatzen zuten. Askoren artean

## **5** irud/hed

-Enperatriza- errepikatu zuen apaizak, **debozio** handiko tonuan. Xabier Olarra

Nik ere lurrera jaitsi nituen begiak eta **debozio** handiz, pausatuki, joan nintzaion zangoak eskalatzen, orkatilaren borobiltasuna lehenik eta izter-mamiak gero miretsiz. Joxean Agirre

Piztu zitzaidan leitzeko grina, eta grina hori, atzera ere, **debozio** bilakatu zait. Berria - Kultura

Ez dakit nola, baina lanpara piztu aurreko arratsaldeko argiaz hasi ginen biok solasean, **debozio** handiz eta sakratutzat ditugun kontuez hitz egiten dugun tonu apaldu horretan. Anjel Lertxundi

Nabarmenak gertatuko zaizkigu sailkapenaren hastapenen **debozio** itsuak ohiko legeari ekarri dizkion hutsegiteak. Koro Navarro

Margak **debozioz** entzuten zituen haren hitzak, ikasle on batek bezala, noizbehinka buruarekin baietz eginez. Ramon Saizarbitoria

## **6** ***debozio-gai*** *(orobat* ***deboziogai****)*

Pentsatzen dut Eugenik alde batera utziko zituela dagoeneko erlijioren amarruak, eta guztiz barneratuta izango duela ergelen **debozio**-gaiei barre egiteak ez duela inolako ondoriorik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina niri iruditzen zait olgeta hauek hotzak eta gatzik gabeak bihurtzen direla, geure burua jantzi ahala **deboziogai** horien ezerezaz jabetzen garenean; azken batean, guk itsusten ditugun idoloak ez baitira beste haien ordezkari kaskar batzuk baino. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## **7** ***debozio-liburu*** ik **debozionario.**

Hori **debozio-liburuetan** zetorren. Pello Zabala

Erlijioa irakasteko dotrinek, santuen bizitzek, katiximek, **debozio liburuek**, testamentuek edota kanta izpiritualek bete dute euskal literaturaren historia. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baino debozio** (3); **begirune eta debozio** (9); **debozio apalez** (4); **debozio berezia** (5); **debozio bereziak** (3); **debozio biziz** (4); **debozio eta** (28); **debozio eta jaiera** (3); **debozio eta maitasun** (3); **debozio handia** (17); **debozio handia baitzion** (3); **debozio handia zion** (3); **debozio handiagatik** (3); **debozio handiagoa** (3); **debozio handiagoz** (5); **debozio handiko** (4); **debozio handikoa** (3); **debozio handiz** (73); **debozio handiz entzun** (3); **debozio handiz eta** (8); **debozio handiz etorri** (3); **debozio handiz hartu** (3); **debozio handiz otoitzean** (4); **debozio osoz** (3); **debozio santuaren** (3); **debozio santuaren espiritua** (3); **eta debozio** (58); **eta debozio handia** (6); **eta debozio handikoa** (3); **eta debozio handiz** (29); **eta debozio santuaren** (3); **eta hain debozio** (3); **fede eta debozio** (4); **frantziskori debozio** (3); **hain debozio** (6); **hain debozio handiz** (4); **halako debozio** (4); **honek debozio** (3); **oso debozio** (3); **otoitz eta debozio** (4); **san frantziskori debozio** (3); **zen debozio** (3); **zion debozio** (3); **zioten debozio** (3); **zuen debozio** (7); **zuen debozio handiz** (4)

**begirune eta deboziorik** (3); **bihotzeko debozioa** (3); **bihotzeko debozioa eta** (3); **debozioa eta** (7); **debozioak bultzatuta** (4); **debozioak eraginda** (10); **deboziora erakartzen** (3); **deboziorik gabe** (3); **deboziorik handienaz** (10); **eta debozioa** (8); **eta debozioagatik** (6); **eta debozioak** (3); **eta debozioaren** (4); **eta deboziorik** (7); **eta deboziorik handienaz** (5); **haren debozioa** (3)

**alde debozioz** (4); **apal eta debozioz** (3); **apaltasunez eta debozioz** (3); **arretaz eta debozioz** (4); **bere deboziozko** (3); **debozioz betea** (3); **debozioz beterik** (3); **debozioz egin** (3); **debozioz egin bezate** (3); **debozioz esaten** (3); **debozioz eskatzen** (3); **debozioz eta** (10); **debozioz hartu** (5); **debozioz jainkoari** (3); **debozioz meza** (3); **debozioz meza entzun** (3); **debozioz otoitz** (4); **eta debozioz** (42); **eta debozioz egin** (3); **eta deboziozko** (5); **frantziskoganako debozioz** (3); **halako debozioz** (4); **leialki eta debozioz** (4); **zen debozioz** (3); **zion debozioz** (4); **zuen debozioz** (5)

---

# deboziogai ik **debozio 6.**

---

# **deboziogune** *iz* debozioaren gunea.

Araban zabalduxeago oraindik, 26 parrokia eta ermitatan, eta Nafarroan areago: 51 gune eta txoko ditu San Andres apostoluak bere **deboziogune** direnak edo izandakoak. Pello Zabala

---

# **deboziokeria** *iz* debozio gaitzesgarria.

Esker oneko emakume adintsu begirale haiek nire apologista gertatu ziren; eta beren obra deitzen zioten horri agertzen zioten lehia itsua halako heinera eraman zuten, non nehork nitaz elerik den mendrena ere erraten baldin bazuen, **deboziokeriaren** alderdi osoak eskandalua eta laidoa auhendatzen baitzuen. Jon Muñoz

---

**debozionario** *iz* debozio liburua.

Liburua **debozionario** bat da, gaztelaniaz. Koldo Izagirre

-Elizak **debozionarioak** emoten dizkigu, eta tabakoa gordetzen du. Koldo Izagirre

---

debozione ik **debozio**.

---

**deboziotsu** *izond* debozio handikoa.

Anaiek, haren intentzio santu eta **deboziotsua** jakitean, etsenplu ona hartu zuten harengandik, eta gorespen eman zioten Jainkoari, bere anaia santuen alde gauza miragarriak egiten dituelako. Askoren artean

Espiritu Santuaz suturik, hain indartsu, hain **deboziotsu** eta zuhur, hain gozo, argi eta ulerterraz azaldu zuen Jainkoaren hitza, ezen biltzarrean zeuden guztiek, nahiz eta hizkuntza ezberdinetakoak izan, argi eta garbi ulertzen baitzituzten haren hitz guztiak, haietako bakoitzaren hizkuntzan hitz egin balu bezala. Askoren artean

Abadea, Walter Scottena, Jaunartzaile **deboziotsua** eta Vidocq-en oroitzapenak. Irene Aldasoro

---

debru ik **deabru**.

---

debrukeria ik **deabrukeria**.

---

debrusa ik **deabrusa**.

---

debrutiar ik **deabrutiar**.

---

**debut** **1** *iz* norbait, jendaurrean edo jarduera jakin batean edo toki jakin batean lehen aldiz aritzea.

Renata Tebaldi 1922an jaio zen Pesaron, Rossiniren sorterrian, eta 1944an egin zuen **debuta** Rovigon, Boitoren *Mefistofele*s operan. Berria - Kultura

Zakur borrokak eta boxeolari pasaitar gazte baten **debutaren** notizia ziren lehen orrialdeko notizietariko bi, letra handiegietan ageri ez ziren arren. Harkaitz Cano

24 urte zituen **debutaren** egunean. Berria - Kirola

Azpeitiko atzelariak **debuta** egingo du Realarekin partida ofizial batean. Berria - Kirola

Profesionaletan Mapei taldearekin egin zuen **debuta** Davisek, 2002an. Berria - Kirola

Hogei urterekin egin nuen **debuta**, Atotxan, iraileko egun eguzkitsu batean. Joan Mari Irigoien

Goizuetako gazteak atzo jakin zuen noiz egingo zuen **debuta**. Berria - Kirola

**Debuta** Labriten izango da. Berria - Kirola

**Debutean**, gainera, bi gol sartu nituen. Joan Mari Irigoien

**Debut** gogorra bada ere, lasai jokatzea gustatuko litzaidake. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Valenzuela jokalari hegoamerikarraren **debut** gaua. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**anoetan debuta** (3); **aurka debuta** (3); **aurka debuta egin** (3); **bere debuta** (9)

**debuta da** (3); **debuta egin** (45); **debuta egin dezake** (4); **debuta egin duen** (4); **debuta egin zuen** (9); **debuta egin zuenean** (3); **debuta egin zuenetik** (7); **debuta egingo** (26); **debuta egingo baitu** (4); **debuta egingo du** (17); **debuta egingo dute** (3); **debuta egitea** (10); **debuta egiteak** (4); **debuta egiteko** (16); **debuta egiteko aukera** (9); **debuta egiten** (4); **debuta lehen** (8); **debuta lehen mailan** (4); **debuta munduko** (3); **debuta profesionaletan** (14); **debuta realarekin** (4)

**du bere debuta** (3); **du debuta** (14); **dute debuta** (3); **egin du debuta** (3); **egin nuen debuta** (3); **egin zuen debuta** (53); **egingo du debuta** (9); **lehen mailan debuta** (5); **lehen taldearekin debuta** (3); **ligan debuta** (4); **mailako debuta** (5); **mailan debuta** (7); **mailan debuta egiteko** (3); **nuen debuta** (4); **profesional mailako debuta** (5); **taldearekin debuta** (4); **urte debuta** (9); **zubiaurreren debuta** (3); **zuen debuta** (55); **zuen debuta profesionaletan** (9); **zuen debuta realarekin** (3)

---

**debutante** *iz* debuta egiten duena. ik **debutari**.

Xabier Silveira nagusitu da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean, baina Estitxu Arozenak ere esku-eskura izan du txapela; **debutanteak** txukun aritu dira. Berria - Kultura

---

**debutarazi**, debutaraz, debutarazten *(corpusean* ***debutatuarazi*** *soilik)* du *ad* debutatzera behartu.

Iaz Ferrarik Bahreinen **debutatuarazi** zion auto berriari, urteko lehen bi karrerak auto zaharrarekin osatu ondoren. Berria - Kirola

---

**debutari** *iz* debuta egiten duena. ik **debutante**.

Bi **debutariek** bide oso desberdinak jarraitu dituzte profesionaletara iritsi ahal izateko. Berria - Kirola

Rossi txapelduna da, eta ni, **debutaria**. Berria - Kirola

Azpilikueta izango duzu ondoan, **debutari** bat. Berria - Kirola

**Debutari** onenaren saria Martinez de Irujo Iberoko pilotariak jasoko du. Berria - Kirola

---

**debutatu**, debuta(tu), debutatzen du *ad* debuta egin.

20 urterekin Londresko Covent Gardenen **debutatu** zuen, eta hurrengo hamarkadan balet klasikoaren obra nagusiak dantzatu zituen. Berria - Kultura

1937. urtean **debutatu** zuen zineman *Love Is in the Air* pelikularekin. Berria - Mundua

Hemezortzi urterekin hirugarren dibisioan **debutatu** zuen. Jon Alonso

2003ko ekainaren 6an **debutatu** zuen profesionaletan Iruñeko Labrit frontoian. Berria - Kirola

Larunbatean San Mamesen **debutatzeak** ilusio handia egiten dit. Berria - Kirola

**Debutatzeko** inoiz ez da berandu. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**debutatu eta** (4); **debutatu nuenean** (3); **debutatu zenuen** (3); **debutatu zuen** (21); **debutatu zuen profesionaletan** (6); **debutatu zuenetik** (3); **debutatuko du** (10); **debutatzeko aukera** (4); **urte debutatu zuen** (3); **urterekin debutatu** (4)

---

decubito ik **dekubito**.

---

# dedikatoria *iz* eskaintza.

Bere izena idatzita ikusi nuen lehenengo aldiz **dedikatoriaren** azpian. Eider Rodriguez

---

# dedikatu, dedika, dedikatzen *(93 agerraldi, liburu 31 eta 39 artikulutan; ETCn 1.493 agerraldi;)* **1** da *ad* aipatzen den egitekoan ari izan edo jardun.

Botere txiki baten jabe izatearen plazera, okerreko negoziora **dedikatu** ez izanaren segurantzia, konpetentziak ematen duen adrenalina, egun batzuetako izartxo izatearena, idazleez gain eurak ere hor direla erakustearena... Hasier Etxeberria

Ordutik aurrera, buru-belarri **dedikatuko** da bere obretara, bere mendekura. urre bila etorritako asko indio ehizara **dedikatu** ziren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Batzuek politikara **dedikatzeko** gomendatu zioten. Patxi Zubizarreta

Truman Capotek oso ahots fina omen zeukan eta akaso horregatik **dedikatzen** zen idaztera. Harkaitz Cano

Bada, niri, globalizazioaren garaian, [...] asko gustatzen zait dirua irabazteari uko egin eta hitz egitera **dedikatu** nahi duen gizonaren istorioa. Pako Aristi

Europan zehar bira bat egin zuenean ikusi zuen argi, lehen aldiz, musikara **dedikatu** nahi zuela. Berria - Kultura

Jakin izan banu, erlojugintzara **dedikatuko** nintzatekeen. Berria - Harian

"Pobreen" edo "zapalduen" alde jartzen da (alde dagoen pertsona bat izatera **dedikatzen** da, bere pertsonaren sinadurarekin besterik ez bada ere). Iñaki Segurola

• **2** du *ad* eskaini, opa izan. (norbaiti)

Bada, ipuin batzuk idatzi, beste batzuk garbira pasatu, ilustrazioak erantsi, azal gogorra jarri, liburua osatu, eta nebari **dedikatu** nion. Ana Urkiza

Han bizi izandako PNVko bi emakume historiko elkarrizketatuak nituen, Politxene Trabudua eta Balendiñe Albisu, eta euren liburu bana, **dedikatua** , oparitu zidaten. Pako Aristi

Baina ez pentsa urduri jarri zenik, bai zera, bere irribarrerik lasaiena **dedikatu** zidaan. Mikel Hernandez Abaitua

Frédéric Mistrali **dedikatutako** oroitarriaren paretik pasatzen naiz Mikel Hernandez Abaitua

**3** (zerbaiti)

Bere kontakizunaren zatirik handiena Alemaniako misioari **dedikatua** dago, eta bereziki Saxoniako probintziako gorabeherei. Askoren artean

Orson Welles amerikar filmagileari **dedikatu** zioten artikulua ikusiz, irriz hasi zen. Ramuntxo Etxeberri

Euskal kulturari **dedikatua** dagoen denda famatu horretan. Ramuntxo Etxeberri

Komunikazioa gure giza jarduera ia guztietan presente dagoen egitatea izanagatik, apenas **dedikatu** diogu inoiz une bat, tarte bat, berori aztertzeko edota hobetzeko. Txema Ramirez de la Piscina

Bizitzako proiektu apetatsuenari **dedikatzen** zizkion ahal zituen egun guztiak. Josu Landa

Norberaren bizitza intelektualean psikoanalisiari gehienez zortzi (8) minutu **dedikatu** behar zaio. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dedikatu nahi** (4); **dedikatu zion** (3)

---

# dedikatze *iz* eskaintza.

Aski da ikustea nola beren liburu **dedikatzeetan** ospatzen duten Duvergier, aita Siméon, Jean Filesac eta Joanes Etxeberri bezalako batzuek. Michel Oronoz

---

# dedikazio *(orobat **dedikazione** g.er.)* **1** *iz* arduratzea, aritzea, ardura.

Neurrigabe goraipatuz haren langile bizitza prestua, lur amaordeko baina betiere maitatuarenganako **dedikazioa** . Bego Montorio

Tira ezak Cortesetarantz, Raimundak oraindik ere profesioari **dedikazioa** eta beharrezko berotasuna ematen dio-eta. Urtzi Urrutikoetxea

Guztiei ahalegin, **dedikazio** eta diziplina handiagoa eskatu nahi diet. Berria - Kirola

Bakea eta askatasuna defendatzeko duten **dedikazioa** eta ausardia. Berria - Euskal Herria

Nobelek **dedikazio** , denbora gehiago eskatzen dute. Berria - Kultura

**2** ***dedikazio oso*** denbora osoa.

1945ean utzi baitzuen behin betikoz irakasle lana **dedikazio** osoaz idazle jarduteko. Monika Etxebarria

Udalerriak alkate serio eta **dedikazio** osokoa behar du, eta ez Estatuaren konturako lotsagabe bat gehiago. Bego Montorio

---

dedikazione ik **dedikazio**.

---

# dedio *interj* ik **redios**.

**"Dedio** !", esan zuen ahopeka. Martin Anso

- **Dedio** ! -gerturatu zen Joxe Mari, teilatutik jaitsi berria-. Juan Kruz Igerabide

Izan hadi zoriontsua, **dedio** ! Jesus Mari Mendizabal

-Ez naizela salamancarra, zamorarra nauk, **dedio** ! Jon Maia

---

# dedu **1** *iz* ohorea.

Bati, *Code Civil* delako horri, hain zuzen ere, egokitu zaizkio garaia, ospea eta **dedua** . Andres Urrutia

**2** ***deduzko*** ohorezkoa.

Erdi-betierekotasun **deduzko** bat. Juan Garzia

Magistratu **deduzko** batzuek asmatu dute, behin baino gehiagotan, erabereko legeria ezartzeko proiektua. Andres Urrutia

---

# deduktibo **1** *izond* dedukzioarena, dedukzioari dagokiona. ik **dedukzio 2.**

Metodo **deduktiboari** jarraituz. Askoren artean

Horiek beren baitan daramate ondorioa, argudiatze **deduktiboari** begiratuz gero bederen. Askoren artean

Diskurtso **deduktiboak** formalizatzea. Xabier Arregi

Kontzeptuak eraikuntza **deduktibo** birtual batean kokatzeko nahia izan beharrean, deskribatu beharko litzateke eurak agertzen diren eta zirkulatzen duten enuntziatuen eremuaren antolakuntza. Xabier Arregi

Harreman diskurtsiboak, ikusten denez, ez dira diskurtsoaren barrukoak; ez dituzte elkarren artean lotzen kontzeptuak eta hitzak; ez dute ezartzen esaldi edo proposizioen artean arkitektura **deduktibo** edo erretoriko bat. Xabier Arregi

Enuntziatua eraketa diskurtsiboari dagokio, esaldia testuari dagokion bezalaxe, eta proposizioa osotasun **deduktiboari** dagokion bezalaxe. Xabier Arregi

Jendearen adimen **deduktiboa** izugarria da. Joxean Agirre

**2** (izenondo elkartuetan)

Filosofoek infinituraino deskribatzen dute metodo hipotetiko-**deduktiboa** . Juan Garzia

Hempelek proposatu zuen azalpenari buruzko teoria filosofikoa bere eredu nomologiko **deduktiboaren** bidez. Askoren artean

Behaketaren bitartez edo eraketa matematiko-**deduktibo** luzeen bitartez. Jenaro Garate

Irakaskuntzan ohitura da razionalismoa eta enpirismoa kontrajartzea: beharbada egokiagoa litzateke [...] razionalismo matematiko-**deduktiboaz** (metafisiko) eta razionalismo induktiboaz (enpirista) mintzatzea. Askoren artean

**3** ***ez-deduktibo***

Jakin al daiteke zer sistema ez-**deduktiboren** arabera ipini ahal izan diren objektuok bata bestearen ondoan eta jarraian psikopatologiaren esparru zatikatu hori eratzeko [...]? Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eraikuntza deduktibo (3)

---

# deduktiboki *adlag* dedukzioaren bidez.

Bi gorputzek, beren biluztasunaz harrituak bezala, beren neurriko aritmetika binario ttiki bat asmatu dute eta -paperezko teorietan ezinkizun dena- **deduktiboki** osabete, eta, hori aski ez dela, bukaera post-axiomatiko asebetegarri batez errekurtsiboki bedeinkatu, biak goxoki, unibertsitateko arratsalde urduri haietan bezalaxe. Iñaki Segurola

---

# dedukzio **1** *iz* deduzitzea.

Premisetatik atera diren **dedukzioak** logikoak eta zorrotzak dira; baina premisa horiek, bi puntutan behinik behin, behaketa okerretan oinarritzen dira. Koro Navarro

Horietatik **dedukzioak** egiteko inferentzia-erregela batzuk zehazten dira eta, horrela, gure logikaren teoremak deduzituko dira. Askoren artean

Axioma kopuru jakin batetik ateratako eredu abstraktu baten **dedukzioa** . Xabier Arregi

Logika zuzena jarraitzen ez duten **dedukzioak** . Berria - Euskal Herria

Kontua ez da gauzak ezin izan zirela gertatu deduzitu den bezala, baizik eta oinarririk ez zegoela **dedukzio** hori egiteko. Koro Navarro

Eta bestelako **dedukzio** bat egiteko, ez al dago oinarririk? Koro Navarro

Enuntziatu nagusietan oinarritutako deribazio hau ezin da nahastu axiometan oinarritutako **dedukzio** batekin.- **Dedukzio** interesgarria, esan zuen Tribunok, nire bizkortasunak laketurik, antza. Xabier Arregi

**Dedukzio** batek eman dezakeen segurtasuna dut, ez besterik. Anjel Lertxundi

Metafisika orain ez da **dedukzio** razional bat, metafora bat baizik. Askoren artean

Ez dut **dedukzio** linealaren bidez jokatzen, zirkulu zentrokideen bidez baino. Xabier Arregi

Ez **dedukzio** silogistikoan [...] **dedukzio** matematikoaren eran baizik. Askoren artean

Adimenaren adigai hutsen **dedukzio** transzendentala. Ibon Uribarri

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **deduktibo.**

Horra Sherlock Holmesek berriro asmatu, miretsirik nengoen neure **dedukzio** -ahalmen ikaragarriarekin, beste ni bat izan ledin nahi nuen, neure buruari soinburuan onespen-kolpetxoak emateko. Oskar Arana

Ezagutza horretan, Jainkoaren ideia gorenetik hasi eta behera, ideia guztiak nahitaez bata bestearekin **dedukzio** -sistema batean josita daude, bakoitzak doi-doi bere toki jakina duela. Askoren artean

Logikaren ikuspegitik (proposizio-egituraren ikuspegitik, edo bera kokatuta dagoen **dedukzio** -sistemarenetik). Xabier Arregi

Sakabanatze honek diskurtso-mota bat ezaugarrituko du eta kontzeptuen artean definituko ditu **dedukzio** erak. Xabier Arregi

**3** kenteka.

Horretarako, nazioarteko zirkulazioari eragozpenak kendu ez ezik, uko egin behar izan diote kapitalen sarreren gaineko **dedukzio** fiskalen parterik handienari. Koro Navarro

Logikaren arabera, energiaren prezioen gorakoak nazio-errentaren gainean eragindako **dedukzioaren** ehuneko berean murriztu behar zuen soldaten erosahalmena. Koro Navarro

Gutxieneko osagarririk ez izanez gero, errenta kitatzerakoan beste diru sarrerarik ez duela frogatu ondoren, diru kopuru hori berdintzeko «beharrezko **dedukzioa** » erabiliko da. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> adigai hutsen dedukzio (3); adigai hutsen dedukzioaren (5); beren dedukzio (4); beren dedukzio transzendentala (3); beren dedukzioa (3); dedukzio bat (7); dedukzio honen (3); dedukzio transzendentala (10); dedukzioaren bigarren (3); hauen dedukzio (4); hutsen dedukzio (3)

---

# deduzigarri *izond* deduzi daitekeena.

Euren elkarrekiko gainjartzean eta elkarren ordez jartzean, euren aldiberekotasunean, bateragarria ez dena, eta euren jarraitasunean, **deduzigarria** ez dena. Xabier Arregi

---

# deduzitu, deduzi, deduzitzen du *ad* ideia orokor batetik abiatuz ideia partikular batera iritsi. ik **ondorioztatu.**

Gai izanik [...] teoria batetik aplikazioak **deduzitzeko** edo, alderantziz, arazorik konkretuenetik konturik teorikoenak ateratzeko. Juan Garzia

Horietatik dedukzioak egiteko inferentzia-erregela batzuk zehazten dira eta, horrela, gure logikaren teoremak **deduzituko** dira. Askoren artean

Gizakiaren ongi gorena denek komuna badute, hori ez da ezusteko batetik sortzen, Arrazoiaren izaeratik beretik baizik, gizakiaren esentziatik beretik **deduzitzen** baita. Piarres Xarriton

Metodologikoki axioma unibertsal gisa baliozkoa, handik zuzen **deduzitzeko** gainerako jakite guztien printzipioak. Askoren artean

Ideia egokietatik beti ideia egokiak **deduzitzen** dira; edo zehatzago esateko: "Modu argi eta berezian ezagutzen ditugun gauzak, edo gauzen propietateak dira edo haietarik **deduzitzen** direnak". Piarres Xarriton

Kontua ez da gauzak ezin izan zirela gertatu **deduzitu** den bezala, baizik eta oinarririk ez zegoela dedukzio hori egiteko. Koro Navarro

---

deduzko ik **dedu 2**.

---

defalku ik **desfalko**.

---

**defaut** *iz ipar* akatsa. ik **defektu**.

Zoin dira zure kalitate eta **defautarik** haundienak? Menane Oxandabaratz

Beti presaka ibiltzen naiz bideetan eta, hara beste **defaut** bat, hori ere aipatzen ahal zen, sekula ez behar den denborarik hartzea bizitzeko... Menane Oxandabaratz

Jende soilaren **defautak** oro bilduak ditut eta euskaldunaren kalitate pilik ere ez... Itxaro Borda

---

**defektu** *iz* akatsa. ik **defaut**.

Inperfekzioak emakumea edertzen duela, **defektu** txikiek emakumea bakar bihurtzen dutelako. Joseba Sarrionandia

Geratzen zaigu jakiteko, bada, efektu horren kausa, edo, hobeki, **defektu** horrena, zeren halako **defektuzko** efektuak bere kausa behar baitu. Juan Garzia

---

**defendabide** *iz* defendatzeko bidea.

Gaia solasera ekartzen zuenean, aita zenari ebatsitako erranera erabiltzen nuen **defendabide**: [...]. Aingeru Epaltza

---

**defendaezin** *izond* ezin defendatuzkoa.

Atzera goaz, Madrilerantz, hau **defendaezina** da dagoeneko. Jon Maia

Legea **defendaezina** da ikuspegi politikotik eta juridikotik. Berria - Euskal Herria

«Sozialistekin akordioa egitea **defendaezina**» dela nabarmendu du. Berria - Euskal Herria

2004ko uztailean **defendaezina** bilakatu zen haren jarrera. Berria - Mundua

---

**defendagarri** **1** *izond* defenda daitekeena.

Etikoki, bereziki, baina baita ekonomikoki ere, erabat **defendagarriak** dira lan mota horien gaineko debekuak. Iñaki Heras

Azkenean, euskaldunak izango gara guri buruz erabakiko dugunak eta gainera aukera politiko guztiak **defendagarriak** eta gauzagarriak izango dira. Berria - Harian

• **2** *iz* defentsa.

Eta zientzia, ez ote da pesimismoaren beldurra, eta hari ihes egiteko bide seguru bat?, ez ote da egiaren kontrako **defendagarri** tranpazko bat? Iñaki Segurola

---

**defendari** *iz* defendatzailea.

Laverde-k bultzatuta, ohore espainol katolikoaren zaldun **defendari**, hogei urte besterik ez duen Menéndez Pelayo atera da. Joxe Azurmendi

---

**defendatu**, defenda, defendatzen *(**2545** agerraldi, **148** liburu eta **1311** artikulutan; ETCn **28.888** agerraldi; orobat **defendiatu** g.er.)* **1** du *ad* (norbaiten edo zerbaiten) alde egin, babestu. ik **defenditu; aldeztu.** (pertsonak)

Zuk haren alde egin duzu, **defendatu** egin duzu. hirurehun eta zazpi mila eta bostehun gudari indartsu eta ausart zeuden, erregea etsaien aurka **defendatzeko**. Jose Morales

Lagundu zapalduari, egin justizia umezurtzari, **defendatu** alarguna! Elizen arteko biblia

Haiek erantzun: -egiptoar batek **defendatu** gaitu artzainen kontra. Elizen arteko biblia

Gure alabek izanen dute nork **defendatua**, hainbertze jendajeren artean. Aingeru Epaltza

-Hortaz, zergatik **defendatzen** dituzu Nancy eta Aurora? Oskar Arana

Nire arrebaren alaba **defendatu** beharrean aurkituko nuela neure burua. Oskar Arana

-Ez dut Pitagoras **defendatu** nahi... Jon Muñoz

Indartsuena da ahulena **defendatu** eta sostengatu behar duena. Andres Urrutia

Abokatuaren zeregina berak **defendatua** onik ateratzea zen, ez helburu politiko bat lortzea. Koldo Izagirre

Lekukoen salaketak faltsuak dira, baina nik ez dakit nola **defendatu**. Patxi Zubizarreta

**2** (gauzak)

Heroi batek bezala lubaki bat **defendatu** eta txistuka datozen balen artean bandera landatu. Koro Navarro

Bi bastioik **defendatzen** dute bazter hori. Aingeru Epaltza

Harresiaren inguruan lubakia zularazi zuen Migelek eta, atea hobeki **defendatu** beharrez, gainean itsu-leihoak irekiarazi. Aingeru Epaltza

Belateko gaina karlistek **defendatua** eta lubakiez babestua ikusi zuenean, Eugi aldera erretiratu eta Olaberriko mendatetik abiatu zen gero. Koro Navarro

Horrela izatera, aise **defendatuko** zuen duke handiak Irkutsk, eta, inbasio baten kontra irabazitako denbora lehenengo urratsa da hura behin-betiko azpian hartzeko. nobleak ez zirela behartuta egongo beren printzeei gerrara jarraitzera, salbu eta Estatua atzerritarren inbasio batetik **defendatzeko** bazen. Karlos Zabala

Azken eguna arte zaindu eta **defendatu** dute euren etxea, euren herria. Edurne Elizondo

Zakurrak bere eremua **defendatuko** du. Gotzon Garate

Zeren eta, erran baitzitzaien, euskaldun gazte haiei, eginbide zutela etsaien kontra Frantziaren **defendatzea** eta haiek sinetsi baitzuten. Piarres Xarriton

-Gurutzea **defendatzeko** nahi nuen nik, ordea, ezpata... Joan Mari Irigoien

Gu, aldiz, geure bizia eta ohiturak **defendatzeko** borrokatzen gara. Elizen arteko biblia

Xake taulan ez genuke peoi bat **defendatu** behar, horretarako, erregina arriskuan ipiniz. Xabier Kintana

Baina ez zen aski gordailua sortzea; **defendatu** beharra zegoen gizon bakoitzaren harrapaketatik. Juan Martin Elexpuru

Zuk haren alde egin duzu, **defendatu** egin duzu. Jose Morales

**3** (gauza abstraktuak)

Alde bakoitzak bere interesak **defendatzen** jarraituko du. Edurne Elizondo

Zer egin egoera horretan eskolak, intelektualek? balio absolutu irmoak **defendatu** ? Joxe Azurmendi

Julius Wolff-ek 1892an **defendaturiko** printzipioaren adierazle dira kirolariak eta astronautak baliatuz egindako aurkikuntza horiek guztiak. Irene Aldasoro

Bere jarrera enpiristak direla eta, esanahiaren oinarrian denotatzea (eta ez "zentzua") dagoela **defendatuz** Russellek Fregeren "zentzua"ren nozioa baztertu nahi zuen. Askoren artean

Emakume guztiek dute kanpotik ezarritako amatasunetik **defendatzeko** eskubidea. Luis Elberdin

Edouart Maneten margolanak **defendatu** zituen burgesen konformismo ergelaren kontra. Karlos Zabala

Ez da beharrezkoa hau adibideen bitartez **defendatzea** . Itziar Laka

Itxaropengarri bazaizu, jakizu Rakelek presidentearen errugabetasuna **defendatu** zuela. Patxi Zubizarreta

Gakoa egitura kimikoan dagoela **defendatzen** dute teoria batzuek. Irene Aldasoro

Baina, nola **defendatu** tesi hori? Askoren artean

Quinek jakintza-sistema holista **defendatzen** du. Askoren artean

Jaunak **defendatuko** baitu haien auzia eta bizia kenduko haiei kentzen dienari. Elizen arteko biblia

Badakigu nafartar doktoreak ederki **defendatu** zuela botere politikoaren herri etorkia. Piarres Xarriton

Autore honek beti **defendatu** duela gehiago idazketaren abentura, abenturaren idazketa baino. Mikel Hernandez Abaitua

Piezak lapurtzeak berak pieza horiek ederrak zirela baieztatzen baitu, eta edertasun hori sortu duenak ezin du maltzurkeriarekin edertasun hori **defendatu** eta babestu. Pako Aristi

• **4** da *ad* ik beherago **5.**

Berak ebaki eta eraso, bai, baina ez beti arrakastarik lortzen; poliki **defendatzen** bainintzen. Joxe Austin Arrieta

Ez ziren **defendatu** , egun haren santutasuna errespetatzeagatik. Elizen arteko biblia

25 kintze artio **defendatu** dira gogor bainan Michel-en esperientziak eta Benoit gaztearen trebetasunak egin dute diferentzia. Herria

Ez zinen **defendatu** , oso samur egin zenion berba. Koldo Izagirre

-Nik *txanpiak* entzun dizut- **defendatu** zen ama, ohi bezala, apal. Joan Mari Irigoien

Irribarrea galdu gabe **defendatu** zen Potzolo. Aingeru Epaltza

Ezin izan zen **defendatu** , defentsa guztiak gaindituak ziren, gainezkatuak. Sonia Gonzalez

Zoriontsuak gu, emakumeak hain gaizki **defendatzen** direlako! Jon Muñoz

**5** *bere, neure...* ***burua defendatu***

Bere **burua defendatu** zuen, nik iguriki bezala. Jon Muñoz

Hartz lotuak ezin zuela bere **burua defendatu** . Koro Navarro

Geure **burua defendatzen** ari ginen, Nafarroako Gobernuaren bonbardaketari erantzuten. Edurne Elizondo

Zeren noren defentsa egin zenuen zeure **burua defendatu** zenuenean? Koldo Izagirre

· Klodiok, bere **burua defendatu** nahirik, zin egin zuen Zizeronen etxean zela bitarte hartan. Juan Garzia

Bere **burua defendatzeko** , baina, gogor egiten zion. Gotzon Garate

Aseguru-agente onak gauza izan behar du bere **burua defendatzeko** bezeroekin eztabaida zail bihurriak sortzen direnean. Oskar Arana

-Zure **burua defendatzen** ausartzen zara gainera! Joxan Elosegi

Bi eskuekin atxiki eta ezker zangoa aurreratu nuen, neure **burua defendatzeko** plantan. Aingeru Epaltza

Eta gainera, gurago nuke neuk **defendatu** nire **burua** . Koldo Izagirre

**6** ***ezin defendatuzko*** ik **defendaezin.**

"Jonek gutun bat jaso zuen" edo "borroka gelditu zen" bezalako perpausek argi erakusten dute baieztapena, hots, subjektua-aditza gramatika harremanak egilea-ekintza "egiturazko esanahia" daukala, ezin **defendatuzkoa** dela. Itziar Laka

**7** ***defendatzearren*** defendatzeko.

-Eta gainera hire potikoa **defendatzearren** ni jo, gizatxar halakoa! Gauza arbuiagarriak **defendatzearren** gizaki baten odolaz eskuak kutsatu dituztenak. Patxi Zubizarreta

Euskal Herriaren egia maitasunez **defendatzearren** hainbat lagun dituzte espetxeetan. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

defenda daitekeela (5); defenda dezagun (7); defenda dezaten (3); lurra defenda (3); lurra defenda dezagun (3)

arte defendatu (4); aurrean defendatu (6); bat defendatu (4); batasuna defendatu (3); behar direla defendatu (3); behar duela defendatu (4); beharra defendatu (10); beharra defendatu du (3); beharra defendatu zuen (5); bera defendatu (3); bere burua defendatu (23); beren burua defendatu (3); beti defendatu (20); beti defendatu izan (9); bezala defendatu (7); burua defendatu (31); burua defendatu behar (5); burua defendatu zuen (5); da defendatu (4)

defendatu ahal (11); defendatu ahal izateko (8); defendatu baino (5); defendatu behar (81); defendatu behar da (5); defendatu behar dela (6); defendatu behar dira (4); defendatu behar direla (3); defendatu behar ditu (7); defendatu behar duela (4); defendatu behar duena (3); defendatu behar dugu (7); defendatu behar izan (6); defendatu beharko (12); defendatu beharko du (3); defendatu beharra (18); defendatu beharra dagoela (3); defendatu beharrean (12); defendatu beharrekoa (3); defendatu besterik (4); defendatu besterik ez (4); defendatu dira (3); defendatu ditu (7); defendatu du (40); defendatu duela (4); defendatu duen (7); defendatu dugu (6); defendatu dute (19); defendatu edo (4); defendatu egin (13); defendatu egin nintzen (4); defendatu ere (5); defendatu eta (32); defendatu ez (4); defendatu gabe (5); defendatu izan (23); defendatu izan du (5); defendatu nahi (35); defendatu nahi ditu (3); defendatu nahi dugu (3); defendatu nahi izan (4); defendatu nahian (4); defendatu nuen (3); defendatu ohi (3); defendatu zen (9); defendatu zituen (14); defendatu zituzten (9); defendatu zuela (4); defendatu zuen (151); defendatu zuen atzo (16); defendatu zuen bere (7); defendatu zuen eta (4); defendatu zuena (3); defendatu zuten (28)

dela defendatu (20); dela defendatu zuen (13); direla defendatu (8); duela defendatu (7); duela defendatu zuen (3); dutela defendatu (4); ederki defendatu (3); egitasmoa defendatu (3); erabakia defendatu (3); ere defendatu (7); ere defendatu zuen (3); eredua defendatu (3); eskubidea defendatu (16); eskubidea defendatu du (3); eskubidea defendatu eta (3); eskubidea defendatu zuen (4); eskubideak defendatu (14); eta defendatu (11); eta defendatu behar (5); etxeak defendatu (4); etxeak defendatu zituzten (4); ezin da defendatu (3); gabe defendatu (3); gogor defendatu (7); guztiak defendatu (4); hori defendatu (11); interesak defendatu (19); interesak defendatu behar (5); interesak defendatu beharrean (4); irmoki defendatu (3); izatea defendatu (3); jarrera defendatu (7); jarrera defendatu zuen (6); jokabidea defendatu (3); legea defendatu (3); nola defendatu (6); okupazioa defendatu (3); ondo defendatu (5); politikoa defendatu (3); proposamena defendatu (4); proposamena defendatu zuen (3); sutsuki defendatu (3); tinko defendatu (5); txapela defendatu (3); zela defendatu (7); zela defendatu zuen (3); zen defendatu (3)

ahala kosta defendatuko (3); aitaren etxea defendatuko (3); bezala defendatuko (3); defendatuko ditu (11); defendatuko dituela (13); defendatuko dituela adierazi (3); defendatuko dituen (6); defendatuko ditugu (6); defendatuko dituzte (5); defendatuko dituztela (6); defendatuko dituztela esan (3); defendatuko dituzten (5); defendatuko du (35); defendatuko du gaur (3); defendatuko duela (12); defendatuko duela esan (3); defendatuko duen (13); defendatuko dugu (17); defendatuko dut (11); defendatuko dute (9); defendatuko dutela (15); defendatuko dutela esan (3); defendatuko duten (5); defendatuko zuela (3); defendatuko zuen (5); egitea defendatuko (4); eskubidea defendatuko (7); eskubideak defendatuko (5); eskubideak defendatuko dituztela (3); eta defendatuko (6); etxea defendatuko (4); etxea defendatuko dut (3); europa defendatuko (4); europa defendatuko duela (3); hobekien defendatuko (3); interesak defendatuko (8); kosta defendatuko (3); madrilen defendatuko (4); neuk defendatuko (3); nola defendatuko (3); proposamena defendatuko (3)

autodeterminazio eskubidea defendatzea (3); autodeterminazio eskubidea defendatzeagatik (3); defendatzea da (16); defendatzea dela (3); defendatzea delako (3); defendatzea egotzi (5); defendatzea egotzi zion (3); defendatzea eta (14); defendatzea ez (3); defendatzea izan (3); defendatzea izango (6); defendatzea leporatu (3); defendatzeari ekin (3); defendatzeaz gain (4); eskubide guztiak defendatzea (3); eskubidea defendatzea (5); eskubidea defendatzeagatik (3); eskubideak defendatzea (9); eskubideak defendatzeagatik (7); eta defendatzea (4); ez defendatzea (4); guztiak defendatzea (4); interesak defendatzea (13); madrilen defendatzea (3)

aitaren etxea defendatzeko (4); askatasuna defendatzeko (8); aurka defendatzeko (3); aurrean defendatzeko (7); bat defendatzeko (7); batetik defendatzeko (3); beharko genituzke defendatzeko (3); bera defendatzeko (3); bere burua defendatzeko (36); bere interesak defendatzeko (3); beren burua defendatzeko (4); beren buruak

defendatzeko (4); beren interesak defendatzeko (3); bidez defendatzeko (3); burua defendatzeko (54); burua defendatzeko aukerarik (6); burua defendatzeko eskubide (3); burua defendatzeko eskubidea (6); buruak defendatzeko (4)

defendatzeko ardura (6); defendatzeko asmoa (5); defendatzeko asmoz (5); defendatzeko aukera (14); defendatzeko aukera izango (4); defendatzeko aukerarik (10); defendatzeko aukerarik izan (3); defendatzeko baizik (3); defendatzeko beharra (5); defendatzeko bidea (4); defendatzeko deia (5); defendatzeko deia egin (5); defendatzeko duen (4); defendatzeko duten (4); defendatzeko egin (11); defendatzeko egin zituzten (4); defendatzeko eskatu (8); defendatzeko eskubide (4); defendatzeko eskubidea (21); defendatzeko eta (16); defendatzeko gai (4); defendatzeko kemena (3); defendatzeko modu (3); defendatzeko orduan (5); defendatzeko prest (14)

dela defendatzeko (3); ditugun eskubideak defendatzeko (3); duintasuna defendatzeko (3); duten eskubidea defendatzeko (3); eskubidea defendatzeko (9); eskubideak defendatzeko (29); estatutua defendatzeko (4); eta askatasuna defendatzeko (3); eta defendatzeko (12); etxea defendatzeko (5); etxea defendatzeko modu (3); etxeak defendatzeko (3); euren burua defendatzeko (3); euren eskubideak defendatzeko (4); euskara defendatzeko (5); ez defendatzeko (3); genituzke defendatzeko (3); guztiak defendatzeko (6); herria defendatzeko (8); herriak defendatzeko (6); herriak defendatzeko egin (4); herritarren interesak defendatzeko (3); hori defendatzeko (6); hura defendatzeko (6); ideiak defendatzeko (4); interesak defendatzeko (31); langileen eskubideak defendatzeko (3); nafarroako interesak defendatzeko (4); neure burua defendatzeko (7); nortasuna defendatzeko (3); politikoak defendatzeko (4); ulster defendatzeko (3); zuzenean defendatzeko (4)

askatasuna defendatzen (7); autodeterminazio eskubidea defendatzen (5); autodeterminazioa defendatzen (5); baino hobeto defendatzen (3); bat defendatzen (8); bat defendatzen du (3); batasuna defendatzen (4); behar direla defendatzen (3); bera defendatzen (3); berak defendatzen (4); bere burua defendatzen (8); bezala defendatzen (3); burua defendatzen (15)

defendatzen ari (16); defendatzen aritu (7); defendatzen bazuen (3); defendatzen bazuen ere (3); defendatzen da (6); defendatzen dira (3); defendatzen diren (5); defendatzen ditu (14); defendatzen dituela (3); defendatzen dituen (13); defendatzen ditugu (5); defendatzen dituzte (9); defendatzen dituztela (4); defendatzen dituzten (17); defendatzen dituztenak (4); defendatzen du (55); defendatzen du eta (3); defendatzen duela (9); defendatzen duelako (5); defendatzen duen (46); defendatzen duena (6); defendatzen duenak (4); defendatzen duenaren (4); defendatzen dugu (12); defendatzen dugun (3); defendatzen dugunok (3); defendatzen dut (5); defendatzen dut nik (3); defendatzen dute (32); defendatzen dutela (6); defendatzen duten (21); defendatzen dutenak (3); defendatzen dutenei (4); defendatzen dutenek (3); defendatzen dutenen (4); defendatzen eta (8); defendatzen ez (5); defendatzen hasi (3); defendatzen jarraituko (16); defendatzen jarraituko du (3); defendatzen jarraituko duela (4); defendatzen jarraituko dugu (4); defendatzen jarraituko dutela (3); defendatzen saiatu (4); defendatzen zituen (5); defendatzen zituzten (7); defendatzen zuela (3); defendatzen zuen (26); defendatzen zuten (8)

dela defendatzen (20); dela defendatzen du (8); dela defendatzen duen (4); direla defendatzen (8); direla defendatzen du (4); dutela defendatzen (4); eajk defendatzen (3); ere defendatzen (4); eskubidea defendatzen (10); eskubidea defendatzen du (4); eskubidea defendatzen duten (3); eskubideak defendatzen (16); eskubideak defendatzen ditu (3); espainiaren batasuna defendatzen (3); eta defendatzen (17); etxeak defendatzen (6); federala defendatzen (3); geure burua defendatzen (4); giza eskubideak defendatzen (3); hau defendatzen (4); herria defendatzen (3); hobekien defendatzen (6); hobekien defendatzen duenak (3); hobeto defendatzen (5); hori defendatzen (7); ideiak defendatzen (6); interesak defendatzen (22); interesak defendatzen ditu (3); jarrerak defendatzen (4); nola defendatzen (3); nortasuna defendatzen (3); ondo defendatzen (7); ongi defendatzen (5); oso ondo defendatzen (4); psoek defendatzen (3); zer defendatzen (5)

defendatzera behartzen (3); defendatzera eta

---

## defendatzaile *(278 agerraldi, 55 liburu eta 93 artikulutan; ETCn 3.381 agerraldi; orobat* ***defendiatzale*** *g.er.)* **1** *izond/iz* defendatzen duena. ik **defenditzaile; aldezle.**

Soldadu **defendatzaileekin** nahasi naiz, nor naizen esan eta berehala ekarri naute berorren gorentasunarengana. Karlos Zabala

Zaila deritzot Olympiquek joaneko partidan baino talde **defendatzaileagoa** zelairatzea. Berria - Kirola

Egoera latza ekialdeko Siberiako alderdi hartarako, zeharo isolatua baitzegoen, bai eta haren hiriburuaren **defendatzaileentzat** ere, banaka batzuk baino ez baitziren. Karlos Zabala

**Defendatzaileen** artilleria apurra Angararen eskuineko ur bazterra babesteko moduan jarri zuten. Karlos Zabala

Inork ez zuen batere zalantzarik haren moralari buruz, balore etiko eta kristau gorenen **defendatzailea** zen. Karlos Zabala

Eskritura Sainduetatik abiaturik, Israelgo herriaren pareraino goititzen zituen Nabarrenkoxeko **defendatzaileak** eta, aldiz, filisteoen mailara beheititzen gure etsaiak. Aingeru Epaltza

Jabego pribatuaren **defendatzaile** sutsua zen Anacharsis. J.M. Olaizola "Txiliku"

Metodo axiomatikoaren **defendatzaile** sutsua Hilbert logikaria izan zen. Askoren artean

Neure haserrearen ordezkari aukeratu ditut, nire ohorearen **defendatzaile** gartsu baitira. Elizen arteko biblia

Denise Bombardier Kanadiarra frantsesaren **defendatzaile** amorratua. Herria

Garai hartan kosta ala kostako garapenaren **defendatzaile** sutsu eta beroa zen. Bego Montorio

Eta Smithen kasuan, esaterako, bere ideiak sarri baino sarriagotan gaizki interpretatu dituzte bai haren aldeko ustezko **defendatzaileek** bai kontrako arerio sutsuenek ere. Iñaki Heras

Irakurlearen **defendatzailea** zuzendariaren **defendatzaile** bihurtzen duk. Iñigo Aranbarri

Miguel Castells 1970eko Burgosko epaiketako abokatuetako bat izan zen (Mario Onaindiaren **defendatzailea**). Berria - Euskal Herria

Berdintasunerako **Defendatzailea** EAEko lehendakariaren dekretu bidez izendatuko da. Berria - Euskal Herria

### 2 *abokatu defendatzaile* ik **defentsari 3.**

Presoak berak eskaturik eta, Felipe II.aren baimenarekin, Doktor Nafarra izendatu zuten orduan haren **abokatu defendatzaile**. Piarres Xarriton

Bai, badakit orain emaztea eta **abokatu defendatzaileak** haren asmo ona eta apaltasuna goraipatzen hasiko direla, baina ezin izango dute haren errugabetasuna frogatu. Patxi Zubizarreta

Ihes egin gurako haiei epaiketa 1937ko martxoaren 16a eta 18a bitartean egin zitzaien, **abokatu defendatzaileen** artean Kosme Duñabeitia, lehena, izan zelarik. Edorta Jimenez

Akusatuek ez dute inolako **abokatu defendatzailerik** behar izan. Berria - Euskal Herria

### 3 *herri-defendatzaile* ik **ararteko.**

Huertasek 1977az geroztik Gipuzkoako zerrendaburu izan den Enrique Mugika Espainiako **herri defendatzailea** ordezkatuko du. Berria - Euskal Herria

Duten egoera salatzen jarraituko dute NOIko langileek eta etzi **herri defendatzailearekin** bilduko dira 12: 00etan, Iruñean. Berria - Ekonomia

Arrazoia eman dio Gasteizko **herri defendatzaileak**. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

abokatu defendatzailea (8); abokatu defendatzailea i (4); abokatu defendatzaileak (7); abokatu defendatzaileak i (4); abokatu defendatzaileen (3); berdintasunerako defendatzailea (3); defendatzaile gisa (3); defendatzaile izan (7); defendatzaile sutsu (9); defendatzaile sutsua (23); defendatzaile sutsua izan (3); defendatzaile sutsuak (5); defendatzaile sutsuak izan (3); defendatzailea da (3); defendatzaileak eta (3); defendatzaileak ez (3); eskubideen defendatzaile (5); eta defendatzaile (3); haren defendatzaile (5); interesen defendatzaile (3); irkutskeko defendatzaileak (3); irkutskeko defendatzaileen (3)

---

## defendatze *iz* (norbaiten edo zerbaiten) alde egitea, babestea.

**Defendatzea**, eskubide bat besterik ez baita. Itxaro Borda

---

## defendiatu ik **defendatu.**

---

## defendiatzale ik **defendatzaile.**

---

## defendidu ik **defenditu.**

**defenditu**, defendi, defenditzen *(**662** agerraldi, **88** liburu eta **338** artikulutan; ETCn **7.345** agerraldi; orobat **defendidu** g.er.)* **1** du *ad* defendatu. ik **defendatu; aldeztu**. (pertsonak)

-Ana, mesedez, hemeretzi urte ditu eta- **defenditu** ninduen ustekabean aitak. Jon Muñoz

Nire ahizpak **defenditu** eta putaseme hura bertan akabatu beharrean, kalera itzuli nintzen, mozkortzera eta ahaztera. Aitor Arana

Aitak eta amak irmo **defenditzen** naute; haiengatik ez balitz, ezingo nioke borrokari behin eta berriro horren seguru ekin. Josu Zabaleta

Kristauak paganoen erasoetatik **defenditzen** ditu Agustinek, salaketak guztiz injustuak direla ziur dagoelako. Imanol Unzurrunzaga

Ez diet erasotzen ditudanei gorroto, ez ditut **defenditzen** ditudanak maite. Patziku Perurena

Beti **defenditzen** zituen bere jostundegira etortzen ziren neskak. Bernardo Atxaga

**2** (gauzak)

36ko gure Estatutua berandu iritsi zela, GBBko sei kidetatik bik Francoren alde jarri gura izan zutela, Irun anarkistek bakarrik **defenditu** zutela. Markos Zapiain

Buruzagitza horretan amaitu zuen gizonak gerra, Valentziako iparraldeko frontea **defendituz**. Edorta Jimenez

Aberria eta tronua **defendituko** duten gudari ausartak. Juan Martin Elexpuru

Ongi **defenditu** zuten beren zelaia. Berria - Kirola

Hogeitaka aldiz **defenditu** zuen titulua, eta denetan garaile. Josu Landa

**3** (gauza abstraktuak)

Bushek, ordea, **defenditu** egin zuen Irakeko gerra. Berria - Mundua

Dolar bakoitza merkatari sen handiarekin **defenditzen** zuen. Jon Muñoz

1528an ordea, ekitaldi publiko batean, eta ikasle eta irakasleen aitzinean aurkeztu eta **defenditu** zituen Almain-en ideia demokratikoak. Piarres Xarriton

Lautréamont, Nodier eta beraien sentsibilitateko idazle askok eraso egin zioten jarrera horri, eta plajioaren abantailak **defenditu** zituzten, hain zuzen ere testu-lapurreta zelako erromantikoek aldarrikaturiko orijinaltasunaren etsai bortitzena. Bernardo Atxaga

Akademikoek, izan ere, **defenditu** nahi izan zuten gizakiak ezin duela gai filosofikoei buruzko zientzia bereganatu. Imanol Unzurrunzaga

Hemengo bizitzan Jaungoikoaren ikuspen iraunkorra izateko posibilitatea **defenditzen** du, era baikorregian agian. Imanol Unzurrunzaga

«Politika zintzo eta errealista» egiten ari direla **defenditu** zuen atzo Alemaniako Gizarte Gaietarako ministroak. Berria - Ekonomia

Euskadik eta euskaldunok etorkizuna erabakitzeko eskubide osoa dugula **defenditzera** etorri naiz. Berria - Harian

Euskaldunok eskubide bereziak ditugu hemen jaioak garelako, edo euskara **defenditu** behar dugulako, edo izaera antropologiko apartekoa dugulako. Joseba Zulaika

Kontzeptu hau oso baliagarria izan da pinturan [...], baina nekez **defenditu** daitekeen printzipio batean du oinarria. Josu Zabaleta

Jarrerak elkarrizketaren bidez **defenditu** behar dira, ez alde bakarreko erabakiekin liberalismo demokratikoa sutsuki **defendituz**. Gero, eskolak emanez batera, tesia egin behar izan nuen, eta tribunal baten aurrean **defenditu**. Berria - Euskal Herria

• **4** da *ad* ik beherago **5.**

Ni organujolea naizela esanda **defenditu** naiz, baina nire fede gabezia sumatu du. Pako Aristi

-Zer esaten ari haiz?- **defenditu** zen laguna- nik ez zioat inori azaldu hire sekretua. Joxerra Garzia

Ninik ahaleginen bat egiten bazuen, **defenditu** egiten zen bera, minduta baino tristeago. Josu Zabaleta

Gonzalez ondo **defenditu** zen ezker bolearekin eta sotamanoarekin. Berria - Kirola

**5** *bere, neure...* ***burua defenditu***

Zenbait halere berotuak dira: gure **burua defenditu** behar genukeela, edo kanpalekutik atera orduko, denek batean barreiatu behar genukeela, bakoitza bere alde, eta lurrean zabalik, amerikanoen beha egon. Marzel Etxehandi

Jakina, bere **burua defenditu** zuen besteari eraso eginez. Luis Elberdin

Hanna bere ukabil txikiak nire aurka altxatzen, ez dut ezagutzen, ez dut neure **burua defenditzen**, nabaritu ere ez nola haren ukabilek nire bekokia ukaldikatzen duten. Joxe Austin Arrieta

Geure **burua defenditzen** dugu AEBen aurrean. Berria - Harian

· Hanna bere ukabil txikiak nire aurka altxatzen, ez dut ezagutzen, ez dut neure **burua defenditzen**, nabaritu ere ez nola haren ukabilek nire bekokia ukaldikatzen duten. Joxe Austin Arrieta

-Pozik entzungo nuke kaikutzar iletsu hori bere **burua defenditzen**... Iñaki Mendiguren

Zeure **burua defenditzen** saiatzen bazinen, bizirik irentsiko zintuen, eta platerak txikitzen hasiko zen. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurrean defenditu** (5); **bere burua defenditu** (5); **beti defenditu** (3); **burua defenditu** (9); **defenditu ahal** (3); **defenditu behar** (21); **defenditu behar dugu** (5); **defenditu beharra** (4); **defenditu ditu** (3); **defenditu dituen** (4); **defenditu du** (4); **defenditu duen** (3); **defenditu dute** (3); **defenditu egin** (9); **defenditu egin behar** (4); **defenditu egiten** (3); **defenditu eta** (8); **defenditu ezin** (3); **defenditu izan** (7); **defenditu nahi** (6); **defenditu nahian** (3); **defenditu nuen** (3); **defenditu zituen** (6); **defenditu zuen** (41); **defenditu zuen atzo** (5); **defenditu zuten** (4); **dela defenditu** (4); **eskubidea defenditu** (4); **eta defenditu** (6); **hori defenditu** (3); **interesak defenditu** (8); **ondo defenditu** (7)

**aitaren etxea defendituko** (7); **arimarekin defendituko** (13); **arimarekin defendituko dut** (12); **defendituko ditu** (3); **defendituko dituela** (3); **defendituko ditugu** (4); **defendituko du** (7); **defendituko dugu** (6); **defendituko dut** (23); **defendituko dut nire** (4); **defendituko dut otsoen** (12); **defendituko zuela** (3); **eta arimarekin defendituko** (12); **etxea defendituko** (9); **etxea defendituko dut** (8)

**bere burua defenditzeko** (9); **bere burua defenditzen** (3); **burua defenditzeko** (13); **burua defenditzen** (11); **defenditzea eta** (3); **defenditzeko aukera** (5); **defenditzeko aukerarik** (3); **defenditzeko eta** (3); **defenditzeko gauza** (3); **defenditzen ari** (8); **defenditzen ditu** (3); **defenditzen dituen** (7); **defenditzen du** (18); **defenditzen du bere** (3); **defenditzen duen** (6); **defenditzen duena** (3); **defenditzen dugu** (5); **defenditzen dute** (7); **defenditzen duten** (5); **defenditzen eta** (3); **defenditzen zen** (3); **defenditzen zuten** (3); **dela defenditzen** (5); **eskubideak defenditzeko** (7); **eskubideak defenditzen** (4); **ez defenditzea** (4); **geure burua defenditzen** (3); **guztiak defenditzeko** (3); **interesak defenditzea** (3); **interesak defenditzeko** (4); **interesak defenditzen** (3)

---

**defenditzaile** *(**4** agerraldi, liburu **1** eta **3** artikulutan; ETCn **30** agerraldi)* *izond/iz* defendatzailea. ik **defendatzaile; aldezle.**

**Defenditzaile** beharrik ez diagu. Itxaro Borda

Destrade ez litzateke «harrituko» PSri egindako «opari politiko hori» Alain Jupperen **defenditzaileek** erabiltzen balute honen helegite auzian. Berria - Euskal Herria

Eta hizkuntzaren **defenditzaile** askok ere ez dute aski gipelapenik hartzen, behako orokor eta zabal baten emaiteko. Herria

---

defensa ik **defentsa**.

---

**defensor** *iz* defendatzailea.

Karlosen **defensorrak** jarri ziren teman. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**defentsa** *(orobat **defensa** g.er.)* **1** *iz* defendatzea; eraso batetik babestea.

Ezin dira bereizi **defentsa** eta erasoa. Berria - Kirola
Kanpoko etsaien aurkako **defentsa**. Esteban Antxustegi
Horixe da nire **defentsa** salatzen nautenen kontra. Elizen arteko biblia
Hori argumentu defentsibo bat da, eta **defentsa** zerbaiten beldur zarenean bakarrik erabiltzen da. Pako Aristi
Paulok eskuaz keinu egin eta honela hasi zuen bere **defentsa**: [...]. Elizen arteko biblia
Bere gain hartu zuen beraz Doktor Nafarrak artzapezpikuaren **defentsa**. Piarres Xarriton
Hark San Frantziskoren eskuetan utzi zuen apalki bere errugabetasunaren **defentsa**. Askoren artean
Euskaldungoaren **defentsari** unibertsalismoaren aitzakiaz uko egitera behartu nahi gaituzten filosofo, soziologo, sasi jakintsun batzuei. Herria
Teoria kantiarraren **defentsa** hor koka liteke. Askoren artean
Ahaztua zuten biek promes egin ziotela Buckbeaken **defentsa** prestatzen laguntzeko.Proteina arrotza gorputzaren barnean agertzen denean baino ez da aktibatzen inbasioaren aurkako **defentsa**. Iñaki Mendiguren
**Defentsa** on bat prestatzea oso garrantzi handikoa zaio plagiatzaileari. Joxerra Garzia
Ez duk **defentsa** txarra bizitzaren aurrean! Pako Aristi
Kosmologoak deabruaren eskolan ikasten dutenen **defentsa** sutsua egiten segitzen du. Anjel Lertxundi
Protagorasek egiten duen heziketa-sistema (*paideía*) egokiaren **defentsa** klasikoa. Askoren artean
Neke eta gaitz egiten zitzaiola, halatan, ni nehor hiltzeko gai izaitea, **defentsa** propioan ez bazen. Joan Mari Irigoien
AEBek «arriskuen aurkako **defentsa** aktiboa» ezarriko dute irailaren 11z geroztik. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **defentsibo.**

Lehen erasoaldia nirea izanik, orain **defentsa** lana egitea egokitzen zitzaidan. Karlos Linazasoro
**Defentsa**-sistema ahulak ditu gizakiak, gehienetan aski ongi moldatzen bada ere. Imanol Zurutuza
Bere burua engainatzen du, ordea, **defentsa**-sistema hauek betiko direla uste duenak. Jon Alonso
Arriskutik babesteko eta **defentsa**-neurriak hartzeko. Santiago Iruretagoiena
Zein **defentsa** mekanismo jarriko ditu martxan nartzisismo zaurituak iraganari aurpegi ez emateko, ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzeko. Joseba Zulaika
Baziren hirurogeita hamar urte bakterioen, birusen eta **defentsa**-mekanismoen ikerkuntzan ziharduela Institutuak. Juan Garzia
Metafisikak, Erlijioaren oinarria izan ezin den arren, hala ere, bere **defentsa**-arma gisa iraun behar duela. Ibon Uribarri
Grazia eduki edo ez, bat konturatzen zen arte irri hori **defentsa**-ezkutu izugarria zela, zitzaiola. Jon Alonso
Gene berekoiaren **defentsa**-estrategia seguru asko. Patxi Iturritegi
Akusazio horien aurrean bi izan dira zientziaren soziologiaren eremuko ikertzaileek erabili izan dituzten **defentsa**-argudioak: [...]. Askoren artean
Dementorren aurkako **defentsa**-eskolak hartzen. Iñaki Mendiguren
Harryren ikastalde osoa zegoen lur jota Arte Ilunen Aurkako **Defentsa**-maisuak postua utzi zuelako. Iñaki Mendiguren

**3** (gerra eta kidekoetan)

Horregatik, guztien borondateak bakarra behar du izan bakeari eta **defentsari** dagozkien gauzetan. Esteban Antxustegi
Gerra kontseilua jauregian bildu eta aginduak eman zituzten **defentsa** Angarako eskuin hegian pilatzeko eta hiriaren bi muturrak gotortzeko. Karlos Zabala
Eraso edo bonbardaketen une gorenetan kenduta, ziudadelaren **defentsak** aspertzeko denbora luzea uzten zien soldaduei. Aingeru Epaltza
Taldearen **defentsa** antolatu zuen, eta tiro-ariketa zehatz-mehatzak eginarazi. Juan Garzia
Urriko egun bat etorri zitzaion gogora, Beldarrainek militarren lerroko trintxeren eskema zaharra hautsi, eta **defentsa** sakabanatu eta ezkutukoak eratu baino lehenagokoa. Ramon Saizarbitoria
Arretaz jarraitu nituen Burdinazko Gerrikoa eta Bilboko **defentsa**: [...]. Rafa Egiguren
Chiracek Europaren **defentsa** bateratuaren ildoa lantzeko asmoa azaldu zuen. Berria - Mundua
**Defentsako** lanetan harresi, dorre eta ateen kalkulua sartzen dira eta etsaien etengabeko erasoei eusteko ikuspegiarekin egin behar dira. Santiago Iruretagoiena
Bi zimenduen artean tartea utzi behar da, **defentsako** tropak guda-lerroan jarri eta lubetaren gainean zutik egoteko bezain tarte zabala. Santiago Iruretagoiena

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **defentsibo.**

Eguna argitu bezain laster berriro mugitu behar izan zuten gudariek, artean Manciniren promesetan sinesten zuen **Defentsa** Juntaren aginduz. Jokin Urain
Georgiaren inbasio baten beldur, **defentsa** neurriak zorroztu dituzte Adjarian. Berria - Mundua
Han ez duela inongo **defentsa** mugimendurik ikusi adierazi du, ez barrikadarik, ez sua pizteko egurrik, ez gazte gehiagoren pilaketarik. Pako Aristi
Duke handiak eta Voranzoff jeneralak **defentsa** postuak bisitatu zituzten. Karlos Zabala
Horrela gure kontrol postuak eta **defentsa** guneak aztertu ahal izan nituen. Edorta Jimenez
Estatu Batuetako **Defentsa** sailak programatzeko hizkuntza berezi bat asmatu zuen. Pello Salaburu
Azaroan Herriko **Defentsa** Batzordea osatu zen, eta berari zegokion haren buru izatea. Edorta Jimenez
Herrialde horrentzat oso garrantzitsua da barne eta atzerri **defentsa** gastua (munduan egiten diren **defentsa** gastuen %40a), gastu sozialaren aldean astronomikoa, noski. Iñaki Heras
Lubakietako **defentsa**-lerroaren antza duen tomahawk begi keinu batekin. Harkaitz Cano

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Madril Francori errenditzeko helburuz Nazio **Defentsari** Buruzko Junta osatu zuten Miaja jeneralak, Besteirok, Casado koronelak eta bestek Edorta Jimenez

**6** (auzi eta kidekoetan) abokatu defentsarien multzoa; multzo horren jarduera.

Nire abokatua txanda eske joan zitzaion epaile jaunari, baina momorroia ez zegoen **defentsari** jaramon egiteko. Koldo Izagirre
Aurrena, baina, lau hilabeteko epea eman die alde biei, akusazioari eta **defentsari**, beren eskaerak egin ditzaten. Berria - Euskal Herria
Instrukzio fasea hasi zenean, berriz eskatu genuen kopia eta, gerora, makina bat aldiz eskatu izan dugu, akusazioen eta sumarioaren beraren sustraia izanik, **defentsa** prestatzeko ezinbestekoa delako. Berria - Euskal Herria
Goldsmithek berak argudiatu du ezin ziotela Gunen **defentsari** kontra egin. Berria - Mundua
**Defentsak** ez du argumentu gehiegirik behar bere bezeroaren errugabetasuna frogatzeko. Patxi Zubizarreta
Hilabeteko etena eskatu zuen Arantxa Zulueta abokatuak, **defentsen** izenean. Berria - Euskal Herria
Leporatzen zaien eroskeria delituak preskribitu egin duela argudiatu zuten fiskalak eta **defentsek**. Berria - Euskal Herria
Uruñuelaren **defentsa** txandaka eginen dute Iruñeko Abokatuen Elkargoko 50 abokatuk. Berria - Euskal Herria
Praktikak erakusten duela 18/98 moduko auzietan **defentsa** eskubidea kolokan jartzen dela. Berria - Euskal Herria
EAEko abokatuen kolegioak **defentsa** abokatuen jarrera babestu du. Berria - Euskal Herria
Jokalariaren **defentsa** Guillermo Alonso abokatuak egin zuen. Berria - Kirola
Horra **defentsa** naturala zigortzen duen lege zibil bat. Iñaki Iñurrieta
Uko egin omen dio nire **defentsari**. Anjel Lertxundi

**7** (kiroletan) atzekoaldeko jokalaria; atzealdeko jokalarien multzoa; jokalari horien jarduna.

Athleticeko **defentsek** ez dute aurkaria behar den moduan zaintzen. Berria - Kirola
"Une hartan, Rojasek hankartetik pasatu zion baloia **defentsari** eta...", tematu zen Manuel. Aritz Gorrotxategi
**Defentsari** ihes egindako baloiak Riverok gelditu zituen. Berria - Kirola

Eta ez da lau **defentsa** bikain ditugulako, talde osoak **defentsa** lana bikain egiten duelako baizik. Berria - Kirola

**Defentsa** gorritxoak 2006ko ekainaren 30era bitarteko kontratua zuen. Berria - Kirola

Athleticeko **defentsa** ez zen fin ibili aurrelari madrildarra geratzerako orduan. Berria - Kirola

Tau Baskoniak **defentsa** eskasa eginez hasi zuen partida. Berria - Kirola

Baiona Agenen **defentsa** joko gogorrean urtu da (19-25). Berria - Kirola

**Defentsa** sendoa eginez irabazi du Baskoniak, eta orain gertu dauka bigarren postua. Berria - Kirola

Ivanovicek ez bezala, etekin paregabea ateratzen dio Atamanek zonakako **defentsari** . Berria - Kirola

Gibelean Isaac da hutsunea, baina Traille ekarri dute **defentsa** zulatzeko. Berria - Kirola

Gonzalezek **defentsa** ikusgarria erakutsi zuen airez, boleaz. Berria - Kirola

Alkizak **defentsa** gainditu eta ate aurrera iritsi zen, baina ez zuen asmatu azken pasea ematen. Berria - Kirola

Txutxi Cos Alaveseko prestatzaile fisiko berriak **defentsa** zentral bat eta ezker hegalerako jokalari bana behar dituela azaldu zuen atzo. Berria - Kirola

## 8 (organismoan) *pl*

Baxu ditu **defentsak** gaixoak, eta bertan behera utzi behar izan dute kimioterapia oraingoz. Imanol Zurutuza

Urtarrilerako emango dizut ordua, **defentsak** bere onera etorri badira hurrengo zikloarekin hasteko. Imanol Zurutuza

Ohartu ziren, halaber, hiltzen zen jendeak **defentsak** modu arraroan gutxituta zituela. Luis Elberdin

**Defentsei** aurre egiten die horretarako [GIB birusak], babesleei. Berria - Gaiak

Meningitisa, funtsean, nerbio sisteman dauden **defentsen** galera da. Berria - Euskal Herria

Hala ere, kasu askotan birusa linfozitoak suntsituz joaten da, eta, hala, pertsonaren **defentsa** sarea hondatu egiten da. Luis Elberdin

Hiesaren birusak, berez, ez gaitu hiltzen, baina birusak gure linfozitoak jan egiten ditu, hau da, gure **defentsa** sistema suntsitzen du. Luis Elberdin

## 9 *pl* babesgarriak, babesak.

Horretarako **defentsak** jarri ziren zenbait lekutan, eta herriko elizaren atzealdean zegoena indartu. Edorta Jimenez

Zuhurtasunak **defentsak** sendotzea eta erasoaren zain geratzea aholkatzen du. Agustin Otsoa

Miretsi zuen laguntzailearen indarra bitxeroa barraren kontra tinkatuta kanoak behar zuen tarte zehatz hura mantentzeko, gurpil-gomazko **defentsak** sobera behartu gabe. Koldo Izagirre

Ithiliengo **defentsen** mendebaldeko postu aurreratua, Azken Aliantzaren ostean eraikitakoa. Agustin Otsoa

Beste batzuk ibaiaren ekialdeko ertzean **defentsa**-eraikinak presaka eraikitzen. Agustin Otsoa

**Defentsa** harresien hondakinak ageri ziren, harriak etxeko beste eraikuntzetan erabili bazituzten ere. Elena Touyarou

## 10 *defentsa egin* ik **defendatu**.

Argudioak zure ideia, proposamen edo ekarpenaren **defentsa egiten** du. Solidarioentzat bereziki zaila izan da herrien **defentsa egiteagatik** Itoizko Koordinakundeko kideen kritikak jaso izana. Askoren artean

Horra zergatik akusatua bera abisatu nuen garbiki, bere jujeen aitzinean ere, haren **defentsa egitea** onartzen nuela, bakar bakarrik, sekula hura heretikoa zela argi ikusten baldin banuen, ohartu orduko ene lana uzteko haizu banintzen. Piarres Xarriton

Herriak defendatzen aritu gara, baita bizimodu zehatz baten **defentsa egiten** ere. Edurne Elizondo

Prentsari ezer azaltzeko debekuak berak, ez ote zidan nahikoa argi esaten zein izan ziren zure berbak, zeren noren **defentsa egin** zenuen zeure burua defendatu zenuenean? Koldo Izagirre

Hainbat urtetan gure herriaren epaile zarela jakiteak ematen dit konfiantza neure buruaren **defentsa egiteko** . Elizen arteko biblia

## 11 *defentsa idazkari* Ameriketako Estatu Batuetan eta, defentsa ministroa.

Ameriketako Estatu Batuetako **Defentsa-idazkaria** zen, baina ezin kaka egitera ere bakarrik joan! Fernando Morillo

Bennett Alexander **Defentsa-idazkaria** zeru gorri piztuari begira geratu zen. Fernando Morillo

**Defentsa idazkariak** nabarmendu du Gobernuak ez dituela aldatuko Iraken eta Afganistanen dituen egitasmoak. Berria - Harian

Beste egunkari batek argitara emandako argazki batzuk «muntaiak» izan zitezkeela berretsi du Erresuma Batuko **Defentsa idazkari** Adam Ingramek. Berria - Mundua

Bere administrazioko **Defentsa idazkari** Donald Rumsfeldi «egia jakiteko eta hori Irakeko herriari zein mundu zabalari jakinarazteko» eskatu diola. Berria - Mundua

## 12 *defentsa ministro*

Sadun al Duleimi **Defentsa ministroak** iragarri zuen neurria: «Auto bakar bat ere ezin izango da sartu edo atera». Berria - Harian

Michelle Alliot-Marie Frantziako **Defentsa ministroak** DCN ontziola militarren pribatizazioari abiada ematen dion legegaia aurkeztu zuen atzo. Berria - Ekonomia

Jose Bono Espainiako Gobernuko **Defentsa ministroak** kargua utzi du. Berria - Euskal Herria

Israelgo **Defentsa ministro** Shaul Mofazek zehaztu du, dena den, hilabete eta erdiko epean desegingo dituztela kokaguneak. Berria - Harian

**Defentsa ministro** Geoff Hoon-ek armagintza nuklearrean aditu zen zientzialari britainiar baten izena eman zuen -David Kelly- BBCko informazio deseroso horien errunduntzat. Txema Ramirez de la Piscina

Kennedyren **Defentsa ministroa** izan zen, Vietnameko gerraren arkitektoa. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**abokatuek defentsa** (5); **aebetako defentsa** (45); **aebetako defentsa idazkari** (21); **aebetako defentsa idazkariak** (9); **aldeko defentsa** (16); **alliot marie defentsa** (12); **askatasunaren defentsa** (6); **aurkako defentsa** (21); **aurkariaren defentsa** (7); **autodeterminazio eskubidearen defentsa** (6); **baina defentsa** (8); **batuetako defentsa** (13); **batuko defentsa** (21); **batuko defentsa ministerioak** (5); **batuko defentsa ministro** (5); **bere buruaren defentsa** (6); **bere defentsa** (23); **bezalako defentsa** (5); **buruaren defentsa** (8); **da defentsa** (18)

**defentsa abokatu** (5); **defentsa abokatuak** (13); **defentsa abokatuek** (9); **defentsa agindu** (5); **defentsa ahula** (6); **defentsa aparta** (7); **defentsa apur** (8); **defentsa apur bat** (8); **defentsa argia** (5); **defentsa bat** (6); **defentsa bikaina** (7); **defentsa da** (28); **defentsa dela** (8); **defentsa egin** (41); **defentsa egin zuen** (15); **defentsa egingo** (10); **defentsa egitea** (13); **defentsa egiteko** (21); **defentsa egiten** (27); **defentsa egiten du** (6); **defentsa ere** (15); **defentsa eskasa** (7); **defentsa eskubidea** (46); **defentsa eskubidea bermatzeko** (5); **defentsa eskubidea urratzen** (10); **defentsa eskubideak** (11); **defentsa eskubidearen** (6); **defentsa eta** (86); **defentsa eta barne** (6); **defentsa ez** (12); **defentsa ezarri** (6); **defentsa gainditu** (8); **defentsa gogorra** (21); **defentsa gogorrak** (5); **defentsa gogortu** (11); **defentsa gogortu zuen** (7); **defentsa guztion** (5); **defentsa guztion esku** (5); **defentsa hartu** (5); **defentsa hobetu** (5); **defentsa hori** (6)

**defentsa idazkari** (32); **defentsa idazkari donald** (28); **defentsa idazkaria** (10); **defentsa idazkariak** (30); **defentsa idazkariaren** (5); **defentsa indartu** (5); **defentsa irmoa** (7); **defentsa itogarria** (9); **defentsa izan** (21); **defentsa izan da** (5); **defentsa izan zen** (8); **defentsa izango** (11); **defentsa izango da** (8); **defentsa jokoa** (8); **defentsa lan** (19); **defentsa lana** (24); **defentsa lanari** (8); **defentsa lanean** (20); **defentsa lanetan** (21); **defentsa ministerioak** (46); **defentsa ministerioan** (5); **defentsa ministerioaren** (23); **defentsa ministerioaren arabera** (5); **defentsa ministerioko** (20); **defentsa ministro** (130); **defentsa ministro geoff** (5); **defentsa ministro hazem** (8); **defentsa ministro jose** (17); **defentsa ministro michelle** (5); **defentsa ministro sergei** (5); **defentsa ministro shaul** (27); **defentsa ministroa** (30); **defentsa ministroak** (72); **defentsa ministroaren** (25); **defentsa ministroari** (9); **defentsa ministrordeak** (6); **defentsa on** (9); **defentsa ona** (34); **defentsa ona egin** (9); **defentsa onena** (9); **defentsa oso** (11); **defentsa prestatzeko** (16); **defentsa sendo** (7); **defentsa sendoa** (16); **defentsa sendoan** (5); **defentsa sistema** (15); **defentsa sistemaren** (5); **defentsa sutsua** (26); **defentsa sutsua egin** (13); **defentsa zibileko** (6); **defentsa zorrotza** (18); **defentsa zorrotza egin** (6); **defentsa zulatzea** (6)

**donald rumsfeld defentsa** (20); **du defentsa** (22); **duen defentsa** (5); **dugu defentsa** (7); **dute defentsa** (8); **edo defentsa** (5); **erresuma batuko defentsa** (21); **errusiako defentsa** (9); **errusiako defentsa ministro** (5); **eskubide guztien defentsa** (8); **eskubidearen defentsa** (7); **eskubideen defentsa** (46); **eskubideen defentsa eta** (6); **eskubideen defentsa guztion** (5); **espainiako defentsa** (47); **espainiako defentsa ministerioak** (13); **espainiako defentsa ministro** (15); **estatu batuetako defentsa** (13); **estatutuaren defentsa** (8); **eta defentsa** (121); **eta defentsa eskubideak** (5); **eta defentsa ministro** (6); **euroligako defentsa** (5); **euskararen defentsa** (9); **frantziako defentsa** (33); **frantziako defentsa ministerioak** (5); **frantziako defentsa ministro** (10); **frantziako defentsa ministroak** (9); **geoff hoon defentsa** (7); **giza eskubideen defentsa** (20); **gure defentsa** (6); **guztien defentsa** (12); **haien defentsa** (5); **haren defentsa** (6); **herrien defentsa** (8); **hizkuntza eskubideen defentsa** (6); **hoon defentsa** (7); **horren defentsa** (9)

**ilunen aurkako defentsa** (12); **ingurumenaren defentsa** (5); **interesen defentsa** (5); **irakeko defentsa** (29); **irakeko defentsa ministro** (12); **israelgo defentsa** (46); **israelgo defentsa ministro** (24); **izan zen defentsa** (5); **konstituzioaren defentsa** (5); **marie defentsa** (12); **marie frantziako defentsa** (13); **mofaz defentsa** (7); **nazioen defentsa** (5); **nire defentsa** (8); **oso defentsa** (7); **rumsfeld aebetako defentsa** (8); **rumsfeld defentsa** (20); **rumsfeld defentsa idazkaria** (5); **rumsfeld defentsa idazkariak** (11); **shaul mofaz defentsa** (5); **sokratesen defentsa** (8); **tauk defentsa** (5); **tauren defentsa** (8); **uelaren defentsa** (5); **uruñ zen defentsa** (9); **zonakako defentsa** (36); **zonakako defentsa agindu** (5); **zonakako defentsa ezarri** (6); **zuen defentsa** (25); **zuen defentsa ministroak** (6); **zuten defentsa** (14)

**argudiatu zuen defentsak** (6); **aurkako defentsako** (18); **aurkako defentsako irakasle** (5); **defentsak aurkeztutako** (8); **defentsak dio** (5); **defentsak egindako** (5); **defentsak eta** (11); **defentsak ez** (5); **defentsak helegitea** (5); **defentsak jarritako** (8); **defentsako abokatuak** (14); **defentsako abokatuaren** (8); **defentsako abokatuei** (5);

defentsako abokatuek (38); defentsako abokatuen (7); defentsako beharra (10); defentsako irakasle (5); defentsako lan (10); defentsako lana (28); defentsako lanean (26); defentsako puntua (5); dio defentsak (5); du defentsak (14); eskatu zuen defentsak (5); eta defentsak (18); eta defentsako (19); hzren defentsak (7); ilunen aurkako defentsako (18); zuen defentsak (23); zuten defentsako (5)

aldeko defentsan (5); aritu ziren defentsan (6); bai defentsan (13); baina defentsan (11); baita defentsan (6); baita defentsan ere (5); batez ere defentsan (8); bere buruaren defentsan (9); buruaren defentsan (11); da defentsan (11); defentsan ari (14); defentsan aritu (8); defentsan aritzea (5); defentsan baino (5); defentsan bikain (9); defentsan egin (9); defentsan egindako (9); defentsan egiten (11); defentsan egiten duen (5); defentsan ere (31); defentsan eta (41); defentsan eta erasoan (11); defentsan ez (17); defentsan ez ezik (6); defentsan hobetu (7); defentsan huts (6); defentsan indarrak (6); defentsan izan (5); defentsan lan (36); defentsan lan ona (8); defentsan lanean (5); defentsan maila (5); defentsan oinarritu (6); defentsan oinarritzen (11); defentsan ondo (11); defentsan ongi (10); defentsan ongi aritu (5); defentsan oso (11); defentsan oso ondo (5); defentsan sendo (23); defentsan zein (14); defentsan zein erasoan (11); du defentsan (5); dugu defentsan (7); erasoan zein defentsan (16); ere defentsan (9); eskubidearen defentsan (6); eskubideen defentsan (69); eskubideen defentsan lan (5); eta defentsan (57); eta politikoen defentsan (10); giza eskubideen defentsan (11); hizkuntz eskubideen defentsan (5); interesen defentsan (6); lanpostuen defentsan (5); politikoen defentsan (13); presoen eskubideen defentsan (12); senideen eskubideen defentsan (5); taldeak defentsan (5); zein defentsan (16); zen defentsan (7); ziren defentsan (7); zuen defentsan (14); zuten defentsan (7)

bere defentsarako (7); defentsarako behar (6); defentsarako elkartea (10); defentsarako elkartea talde (5); defentsarako elkarteko (5); defentsarako eskubidea (16); defentsarako eta (10); defentsarekin eta (5); defentsaren abokatuak (6); defentsaren arabera (5); defentsaren aurrean (5); defentsaren eta (10); defentsaren galderei (6); defentsari dagokionez (8); defentsarik ez (5); defentsarik gabe (16); defentsarik onena (13); ere defentsari (5); eskubideen defentsarako (20); eskubideen defentsaren (6); eta defentsarako (12); eta defentsaren (25); eta defentsari (6); giza eskubideen defentsarako (16); lehiaren defentsarako (10); uda ulsterren defentsarako (12); ulsterren defentsarako (13); ulsterren defentsarako elkartea (8); zion defentsari (5); zonakako defentsaren (6)

---

# defentsabide *iz* defendatzeko bidea.

Gure garai honetan, hizkuntza eta idazki politikoak dira defenditu ezin daitekeenaren **defentsabideak** . Iñigo Aranbarri

---

# defentsagabe *iz* defentsarik gabea.

Bera talaian zegoela jakinda, lasai asko sartu ginen posizio **defentsagabera** . Joseba Sarrionandia

---

# defentsaile *iz* defendatzailea.

EKB-k militante abertzaleak eta Giza eskubideen **defentsaileak** hartu izanen den erabakiaren zain erne egoiterat deitzen ditu, legearen betetze normalak Gabi askatasunerat ekarriko duela 17 urtez preso egon ondoan esperantzarekin. Herria

---

# defentsari 1 *izond* defendatzailea.

Oglaga tribuko indiar horren aurkako frogarriak oso ahulak omen dira, antza, indiar eskubideen **defentsariaren** aurkako konspirazio bat izan da tartean. Berria - Kultura

Hogeita seigarren gehigarri berean erranen dugu, halere, makur dabilela Marsilo Paduakoa, bere *Bakearen* ***Defentsaria*** delakoan, bortxatzeko eta esku hartzeko ahalmen oro ukatzen diolarik Elizari. Piarres Xarriton

Adingabeen **Defentsariak** 2002an egindako ikerketa bateko datuak ekarri zituen gogora Soledad Cruzek. Berria - Euskal Herria

## 2 futbolean eta kidekoetan, atzeko aldean jokatzen duena.

atezain bat, Christophe Bernet; **defentsari** bat, Nicolas Delmas; bi erdilari eta hiru aurrelari. Herria

Baloia hanketan zuela, bizpahiru **defentsari** iskin egin, gero atezainari, eta, atea libre zuenean gola sartzeko, [...]. Joan Mari Irigoien

## 3 ***adbokatu defentsari*** adbokatu defendatzailea.

Antonio Saez de Santamaria abokatu **defentsariak** Lauaxeta komunismoaren aurkakoa zela adierazi zuen, haren absoluzioa eskatzeko arrazoi gisa. Berria - Harian

Abokatu **defentsariarekin** egon zen azken aldian, pozoia eskatu zion, baina berehala konturatu zen okerraz. Jose Morales

Epaia emandakoan, frakez jantzitako abokatu **defentsariak** agurtu ondoren, eta haien begi errukior, erruduntasun-adierazle eta ezintasunez txundituei ihes eginez, akusatuak une batez atean elkartu ziren. Jose Morales

---

# defentsiba

## 1 ***defentsiban*** *adlag* defentsa jarreran.

Nire kasuan, uste dut **defentsiban** egoten zela, nahiz eta sekula ez nion inolako motiborik eman. Xabier Olarra

Zurrunegi eta **defentsiban** ibili omen zinen. Oskar Arana

Ni ikusi orduko, ordea, **defentsiban** jarri zen, erbinudea baino erneago. horrek ez ditu **defentsiban** jarri etorkizunean egin beharko dituztenen aurrean. Patxi Iturritegi

Burutik jota dago bera ere, biok zaudete -**defentsiban** jarri zen, era kaskarrean jarri ere-. Migel Angel Mintegi

«Hazkunde krisi moduko bat izan dugu; asko hazi gara eta guzti hori eramaten arazoak izan ditugu», gaineratu zuen; eta «zain egon gara, **defentsiban** », erantsi. Berria - Ekonomia

## 2 ***defentsibara*** *adlag* defentsiban.

Alderdi konstituzionalistak, berriz, Lizarra-Garazi indarrean egon zen bitartean, noraezean ibili ziren, komunikatiboki guztiz out, **defentsibara** , gotorlekuetan tinko. Txema Ramirez de la Piscina

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

defentsiban jarri (3)

---

# defentsibo *izond* defentsarena, defentsari dagokiona. ik **defentsa 2; defentsa 4.**

Hori argumentu **defentsibo** bat da, eta defentsa zerbaiten beldur zarenean bakarrik erabiltzen da. Pako Aristi

Zer nolako estrategia **defentsiboa** antola zitekeen halako etsai baten aurka? Joanes Urkixo

Fase **defentsiboa** izango da lehena eta bertan aire defentsako operazioak gidatzeko ahalmena frogatuko da. Berria - Euskal Herria

Maila **defentsibo** on horri eusteko. Berria - Kirola

Joko sistema **defentsiboa** erabili ohi du Manzanok. Berria - Kirola

Askotan, baliabide urritasun horrek justifikatu egiten du ez egin nahi izana, jarrera **defentsiboa** . Berria - Euskal Herria

Zapateroren diskurtsoa zuhurra, neurtua eta ia **defentsiboa** izan zen. Berria - Harian

Kanpoko ekonomiari dagokionez, Listen nazionalismo ekonomikoa **defentsiboa** da erasozkoa baino areago. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

defentsibo bat (4); jarrera defentsiboa (3)

---

## **defentsiboki** *adlag* era defentsiboan.

Kontsumitzaile elkarteek eta bestelako gizarte taldeek gero eta gehiago luzatzen dituzten eskaerei **defentsiboki** aurre egitea, eta azken batean, merkataritza politiken alorrarekin zerikusi handia duten helburuei edo arrazoiei begira ezartzen omen dira ekimen horiek. Iñaki Heras

---

## **defentsore** *izond* defendatzailea.

Eta oila-loka ura edatera jaiki ohi zenean, *Jonasek gorde dagiala* esan behar zen, Jonas baita arrautzen **defentsorea**, hala zioten Haltsu aldean. Pello Zabala

Epaiketaren aurrekoetan abokatu **defentsore** izango duena ezagutu du, hara, Mundakakoa da! faxista, baina herrikoa. Edorta Jimenez

---

## **deferente** *izond* hodiez mintzatuz, barrabiletik hazia iraizten duena.

Barrabiletatik zakilerako esperma isurbide edo hodi **deferenteak** moztean datza basektomia. Berria - Gaiak

Obulu, espermatozoide, hodi **deferente** eta Falopioren tronpei buruz hitz egin eta, ikasleak aspertzea al da heziketa sexuala? Luis Elberdin

---

## **deferentzia** *iz* adeitasuna, begiramena.

Patroiaren ilobari egindako **deferentzia**. Bernardo Atxaga

Zonbat eta zonbat **deferentzia** gune batetik bestera. Menane Oxandabaratz

---

## **definiezin** *izlag* ezin definituzkoa. ik **definigaitz**.

Harriei goroldioa nola, hitzari ere historian zehar eta hiztunon erabileran lotu zaion iradokizunerako, metaforarako, analogiarako, sinestesiarako dohain **definiezin** horrek ematen dio anekdotari literaturarako gai izateko aukera. Anjel Lertxundi

Badakit zeini gustatzen zaizkion begirada **definiezinak**, badakit zeinek ezin dion eutsi gorpuzkera lirain bati, gizasemeen arketipo guzti-guztiak ezagutzen ditut. Karlos Zabala

Izenak, hizkuntzaren azken osagai **definiezinak**, bat datoz gauzekin, errealitatearen azken osagaiekin. Markos Zapiain

Gauzen izpiritu **definiezina**, gorputzen arima, animaleen sena berdin ere. Piarres Aintziart

Eta maitasuna **definiezina** denez, ez dago arauak zehazterik maitajardunarentzat. Jenaro Garate

Beraz, Bera defini dezakeen aurretiko kausarik ez dagoelako, eta horregatik, zuzenki mintzo diren pentsalari guztiek onartzen dute Jainkoa **definiezina** dela. Xabier Kintana

---

## **definigabe** *izond* definitu ez dena.

Polonia osoan -Polonia zentzu zabalean hartuz, Baltikotik ia Itsaso Beltzeraino iristen zen Polonia zabal eta **definigabe** hartan- zortzi edo zazpi biztanletik bat judua zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **definigaitz** *izond* definitzen zaila, ia definiezina.

Hoztasun **definigaitza** sumatu du zure ahotsean, hoztasuna baino areago tristura edo antzeko zerbait. Lourdes Oñederra

Adak zirkin **definigaitz** bat egin zuen sorbaldak jasorik. Anjel Lertxundi

Esaterako, tripetan ernatzen zitzaion ezinegon lauso eta **definigaitz** hura. Jon Alonso

Berehala igarri nien, hitzik gabe ere airean bertan antzematen den zer **definigaitz** horri esker, bi haiek lankide huts baino gehiago zirela, bikote zirela alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Kolore **definigaitzeko** ore nazkagarri batez. Iban Zaldua

Kolorea **definigaitza** da, ez, **definigaitza** ez, Raimundo Silvak tonu zehatza aurkitu dio, goiz-zuria. Jon Alonso

---

## **definigaiztasun** *iz* definigaitza denaren nolakotasuna.

Lasaitasun hura, mugagabetasun hura, bien arteko erlazioaren **definigaiztasun** hura bukatzen zela. Lourdes Oñederra

---

## **definigarri** *iz* defini daitekeena.

Kontraesana, era berean, kontzeptuen arteko harreman **definigarria** da. Joseba Zulaika

Baina anbiguotasun hau erabat **definigarria** da, bere aldi bereko aukerak zenba daitezke eta esaldiaren egitura propioaren zatia dira. Xabier Arregi

Mooreren posizioa, adibidez, errealismo ez-naturalista batena da; errealista, "ona" berezko kualitate objektibo eta ezagutgarritzat jotzen duelako (kualitate lehen **definigarria** ez dena, beraz); ez-naturalista, "ona" kualitate horri izaera naturalik onartzen ez diolako. Askoren artean

---

## **definitibo** *izond* behin-betikoa; ondoren besterik ez duena.

Hiru hilabeteko epe berri bat ideki du, ondarkin guneen hautu **definitiboen** apailatzeko. Herria

Bihar gaur jakinen da noiz izanen den auzi **definitiboa**. Berria - Euskal Herria

Ez da erabat gauza bera izango 1223ko Erregela **definitiboan**. Askoren artean

Jainkoarenganako Egia "bakarra, osoa eta **definitiboa"**. Piarres Aintziart

Sinets dezaket zerbait, borroka naiteke zerbaiten alde, baina badakit ez dela **definitiboa** sinesten dudan hori. Berria - Kultura

Umea **definitiboa** izan zen, imajinatzen dut; baina kontua lehenagotik zetorren. Iban Zaldua

Orduan irten zen ametsetik modu **definitiboan**; ez oinak lurrean jarri zituelako, baizik eta igel bat zapaldu zuelako. Unai Elorriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **definitiboa izan zen** (3)

---

## **definitiboki** *adlag* behin-betiko, modu definitiboan.

**Definitiboki**, Gaztela Afrika ote da? Joxe Azurmendi

1899an, Inperio materiala **definitiboki** galdua [...], haren ordez espainolaren inperio izpiritual batean hasi da Unamuno amesten. Joxe Azurmendi

Frantses literatur sistema zentraletik, Pariseko editorial handiak beren idazle sareekin, osoki eta **definitiboki** kanpo den basamortu batean. Ana Urkiza

Arau objektiboak eta absolutuak egotea da hortaz **definitiboki** inportantea. Joxe Azurmendi

**Definitiboki** literarioa. Harkaitz Cano

Gatazka **definitiboki** gainditzeko. Berria - Euskal Herria

---

# definitu, defini, definitzen 1 du *ad* zehazki azaldu; hitz edo adigai bati dagozkion tasunak formula zehatz baten bidez mugatu.

Egoerak **definituko** du bertutea, adoreak arriskua **definitzen** duen legez, edo aberastasunak emankortasuna. Askoren artean

Lehenik errorea zer den **definitu** behar duzue. Imanol Unzurrunzaga

Hasieratik hasi beharko dugu, hots, kalitatea zer den **definituz**. Iñaki Heras

Zaila da, beraz, bizi-kalitatea **definitzea**. Berria - Gaiak

Bazegoen formula bat f (x) funtzioaren f' (x) deribatua **definitzeko**. Jon Muñoz

20.VI. atalako 13. artikuluan **definitu** dugun bezala. Esteban Antxustegi

Ondorioaren ahalmena **definitzen** du haren kausaren ahalmenak, kausa beraren esentziak ondorioaren esentzia azaltzen edo **definitzen** duen bezainbatean. Piarres Xarriton

Lege naturalak debekatu egiten du legeak **definitutako** zigorra baino handiagorik jartzea. Esteban Antxustegi

Proposizioen logikan egin dugun bezala, formulak **definitu** behar ditugu orain, baina hori egiteko, aurretik, terminoen multzoa zehaztu beharra dago. Askoren artean

Definizio semantikoekin bukatzeko formulen arteko bi erlazio **definituko** ditugu orain: ondoriotasun semantikoa eta baliokidetza semantikoa. Askoren artean

## 2 (adizlagun baten eskuinean)

Arkaismoa honela **definitu** dugu: arazoaldietan, zenbat eta atzerago geratu orduan eta bizikiago deitoratzen -eta agian historikotasun gutxiagoz idealizatzen- diren egoera zoriontsuago haietako batera itzultzeko ahalegina. Iñaki Mendiguren

Camus idazleak honela **definitu** du zoriona: bakoitzak eramaten duen existentziari buruzko adostasuna. Piarres Aintziart

Nola **definituko** dute zoriontasuna etorkizuneko hiztegiek? Pako Aristi

Eremu kontzeptua, definitu dugun bezala behintzat, historikoki **definituta** dauden irudi batzuetarako baizik ez da erabat egokia. Josu Zabaleta

Gainerako konektatzaileak "x" eta "y" **definitu** ditugunez, haien semantika honela zehaztuta geratzen zaigu: [...]. Askoren artean

Hau da, "perpaus gramatikala" kontzeptua, "aurkitutako perpausa" kontzeptuaren arabera **definituko** du, hala nola aurkitutako perpausen ezaugarri batzuen eta gramatiken ezaugarri batzuen arabera. Itziar Laka

Absolutuki mugagabea den izakia baitezpada **definitu** behar dela [...] kontaezinezko atributuek osatzen duten izakia bezala. Piarres Xarriton

## 3 zehaztu.

Mutikoek sexua **definitu** gabe edukitzen duten adina zen. Xabier Olarra

Jopuntua argi eta garbi **definituta** zegoen, eta halaxe beharko, pilotuak eta besteak ozta-ozta sei edo zazpi ordu lo eginda zeuden eta. Edorta Jimenez

Kamera (azkenean!) gutxiago mugitu dut hara eta hona, eta, ondorioz, objektuaren mugimenduak askoz ere **definituago** ageri dira. Joxe Austin Arrieta

## 4 (era burutua izenondo gisa)

Gazteentzako musika egiten duen talde baten kontsumitzailea, folk talde batena edo operarena nahiko soslai **definitukoak** izaten dira oro har, eta bata bestearengandik ondo bereiztuak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hemen ere ezin da pentsamenduaren sistema bat birsortu, ez bada diskurtso-multzo **definitu** batetik abiatuz. Xabier Arregi

Epistemologikoki bereizitako ikerketa-esparru **definitu** batzuetan. Askoren artean

Definizioak definitzaileen gauza zirela... eta ez **definituenak**. Anton Garikano

## 5 *ezin definituzko* ik **definiezin**.

Ezin **definituzko** leku bat zen, munduaren beste aldean. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahalmenaren arabera definitu** (3); **arabera definitu** (10); **arabera definitu behar** (6); **argi definitu** (3); **bat bezala definitu** (5); **bat definitu** (6); **berak definitu** (3); **bezala definitu** (16); **bezala definitu zuen** (4); **bidez definitu** (3)

**definitu ahal** (12); **definitu ahal izango** (4); **definitu bat** (4); **definitu batean** (4); **definitu behar** (30); **definitu behar da** (11); **definitu behar dira** (3); **definitu behar du** (4); **definitu beharko** (15); **definitu beharra** (7); **definitu ditu** (3); **definitu du** (24); **definitu du kataluniako** (3); **definitu duen** (5); **definitu duenez** (3); **definitu dugu** (4); **definitu dugun** (6); **definitu dugun bezala** (3); **definitu dute** (8); **definitu duten** (3); **definitu egin** (3); **definitu eta** (21); **definitu ezin** (3); **definitu gabe** (15); **definitu gabe dagoen** (3); **definitu gabeko** (10); **definitu gabeko formula** (3); **definitu genuen** (3); **definitu izan** (10); **definitu nahi** (12); **definitu ohi** (3); **definitu ondoren** (3); **definitu zituen** (9); **definitu zuen** (59); **definitu zuen bezala** (3); **definitu zuten** (6)

**den definitu** (5); **ere definitu** (3); **eta definitu** (5); **gisa definitu** (41); **gisa definitu du** (7); **gisa definitu dute** (3); **gisa definitu zuen** (11); **hala definitu** (5); **halaxe definitu** (7); **halaxe definitu zuen** (4); **hitz horiekin definitu** (3); **honela definitu** (18); **honela definitu zituen** (3); **honela definitu zuen** (8); **horiekin definitu** (4); **horrela definitu** (13); **horrela definitu du** (4); **horrela definitu zuen** (4); **hura definitu** (3); **nazio gisa definitu** (4); **nola definitu** (10); **ondo definitu** (5); **ongi definitu** (6); **oraindik definitu** (3); **oraindik definitu gabeko** (3); **politika definitu** (3); **zer den definitu** (4)

**definitua eta** (4); **definitua izan** (4); **definitua zuen** (3); **definituak eta** (3); **definituak izan** (3); **definituko bagenu** (3); **definituko ditu** (3); **definituko ditugu** (3); **definituko du** (7); **definituko duen** (4); **definituko dugu** (3); **definituko dute** (3); **definituko luke** (3); **definituko zenuke** (15); **era horretara definituriko** (3); **eta definitua** (3); **honela definituko** (3); **horretara definituriko** (3); **nola definituko** (17); **nola definituko zenuke** (14); **ondo definitutako** (3)

**bat definitzea** (5); **bat definitzeko** (7); **da definitzea** (4); **definitzea da** (7); **definitzea eta** (5); **definitzea ez** (4); **definitzea ez da** (4); **definitzeaz gain** (3); **definitzeko aukera** (5); **definitzeko aukera ematea** (4); **definitzeko erabilitako** (3); **definitzeko eta** (5); **definitzeko gai** (3); **definitzeko hitz** (4); **definitzeko orduan** (4); **definitzeko unean** (4); **definitzeko zaila** (3); **den definitzea** (4); **egitasmoa definitzeko** (3); **eta definitzea** (3); **gauzak definitzeko** (3); **gisa definitzea** (5); **gisa definitzeko** (4); **gisa definitzeko aukera** (4); **hau definitzeko** (3); **hura definitzeko** (4); **kide gisa definitzeko** (4); **lana definitzeko** (4); **nazio gisa definitzea** (3); **ongi definitzea** (3); **orokorra definitzea** (3); **zer den definitzea** (3)

**arabera definitzen** (18); **arabera definitzen da** (4); **bat definitzen** (16); **bat definitzen du** (5); **bat definitzen dute** (4); **batek definitzen** (3); **bera definitzen** (3); **berak definitzen** (4); **berak definitzen ditu** (3); **bereziak definitzen** (3); **bezala definitzen** (10); **bidez definitzen** (5); **bidez definitzen da** (3); **bitartez definitzen** (3); **burua definitzen** (3); **da definitzen** (6)

**definitzen ahalegindu** (3); **definitzen ahalegindu naizen** (3); **definitzen bada** (3); **definitzen baita** (6); **definitzen baitu** (6); **definitzen da** (38); **definitzen dela** (4); **definitzen den** (10); **definitzen dena** (4); **definitzen dira** (6); **definitzen diren** (6); **definitzen ditu** (15); **definitzen dituen** (4); **definitzen dituzte** (4); **definitzen dituzten** (5); **definitzen du** (49); **definitzen du bere** (4); **definitzen duen** (31); **definitzen duen hitza** (3); **definitzen duena** (8); **definitzen dugu** (6); **definitzen dut** (3); **definitzen dute** (20); **definitzen duten** (14); **definitzen duten ezaugarriak** (3); **definitzen dutenak** (3); **definitzen eta** (4); **definitzen ez** (5); **definitzen hasi** (3); **definitzen saiatu** (5); **definitzen zaila** (4); **definitzen zuen** (12); **definitzen zuen bere** (3); **definitzen zuten** (3)

**du definitzen** (4); **ere definitzen** (4); **estiloa definitzen** (3); **eta definitzen** (6); **ez da definitzen** (4); **ez du definitzen** (3); **gisa definitzen** (22); **gisa definitzen da** (5); **gisa definitzen du** (3); **gisa definitzen zuen** (3); **honela definitzen** (17); **honela definitzen da** (3); **honela definitzen du** (4); **hori definitzen** (5); **horrela definitzen** (3); **nola definitzen** (8); **nola definitzen duen** (3); **ondo definitzen** (3); **soilaren arabera definitzen** (3)

---

# definitzaile *izond/iz* definitzen duena.

Pertsonaren eta Estatuaren arteko harremanetan aztertzen du askatasunaren kontzeptu **definitzailea**, bi muturrak, indibidualismoa eta estatalismoa, gaitzetsi ondoren. Joseba Zulaika

Zehatzenak erabili dituzte, sinpleenak, zuzenenak, kalitate, sendotasun, materia eta gogoaren **definitzaile** direnak. Iñigo Aranbarri

Gure kultur errealitatera hurbiltzeko ez dugu lurralde politikoa hartuko **definitzailetzat**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Definizioak zuzentzen omen du oker hau; auzi honetan bertutea zer den definitu izan balu argi geratuko litzateke eztabaida ez dagoela gauzaren inguruan, hitzarenean baizik; hau horrela dela onartzeko, nork aurkitu **definitzaile** on bat? Imanol Unzurrunzaga

Seigarreni erakusteko ezen definizioak **definitzaileen** gauza zirela... eta ez definituenak. Anton Garikano

---

**definitze** *iz* zehazki azaltzea; hitz edo adigai bati dagozkion tasunak formula zehatz baten bidez mugatzea.

1999ko *Hezurrik gabeko hilak*-etik hona, estilo baten **definitze** eta fintzean sakondu du idazleak, eskuartean duguna bezain emaitza bikaina lortu arte. Berria - Kultura

---

**definizio** **1** *iz* definitzea; adigai bat definitzen duen esaldia.

**Definizioak** izan dezan generoa, generoa eta diferentzia, biak behar baititu izan definizio zuzen batek. Piarres Xarriton

Hori dela eta, zientziaren -jakitearen- bi **definizio** jaso genituen: (a) lehenengoa Izatearen zientzia, Izatea Izate legez ikusita. Askoren artean

Egia esateko, bi **definizio** horiek ez dira erabat ezin adostuzkoak. Josu Zabaleta

Irudiaren eta hitzezko **definizio** baten artean definiziozko elkarrekiko mendekotasun bat dagoela. Josu Zabaleta

Ohi denez, ez dute asetzen **definizio** horiek. Imanol Zurutuza

Gertaera hura «genozidiotzat» jo dute Hagako epaileek, hitzaren **definizioa** zabalduta. Berria - Mundua

Kontzeptu honek 100 **definizio** baino gehiago ditu. Berria - Euskal Herria

Arrazoimena gai al da lau hauek bereizteko eta **definizio** bidez mugatzeko, kolorea ikusmenez, ikusmena barne sentimenez eta barne sentimena berez sumatuko ez balitu, bitarteko baten falta sumatuta? Imanol Unzurrunzaga

Konstituzioan ezkontzaz ematen den **definizioa** aldatzea izango du aurki Kanadako Legebiltzarrak. Berria - Gaiak

Aski erraza ematen badu ere, **definizio** honek arazo handiak sortzen ditu auzia estatistikoki egiaztatzeko. Koro Navarro

**Definizio** hau ez dagokio lege hutsari, lege zibilari baizik. Esteban Antxustegi

**Definizio** hauetarik dator, Beldurrik gabeko Itxaropenik ez dagoela, ez eta Itxaropenik gabeko Beldurrik. Piarres Xarriton

Matematikaren oinarrizkotasuna **definizio**, axioma eta demostrazioetan funtsatzen da. Ibon Uribarri

**2** (izenondoekin)

Alta, "ez-beltza" "zuria" hitzaren **definizio** egokia al da? Askoren artean

Beraz, substantziaren **definizio** soiletik atera behar da haren existentzia. aski zaigu afektu bakoitzaren **definizio** orokor bat izatea. Piarres Xarriton

Esaldiaren halako **definizio** zabalarekin [...] zaila da ikustea nola ezagut daitezkeen enuntziatuak ez diren esaldiak eta esaldiak ez diren enuntziatuak. Xabier Arregi

Artea zer den eta zer ez den jakin, esperientziaz, gutxi gorabehera denok dakigun arren, askotan gertatzen zaigu ez garela gai haren **definizio** zehatza, haren mugak, haren eremua zehazteko. Josu Zabaleta

Ez dago globalizazioaren **definizio** argirik, kontzeptua bera oso iluna izanik, balio anitz dituelako. Pello Salaburu

Ez dut uste, oro har, euskal emakumearen **definizio** argirik dagoenik. Ana Urkiza

Euskal nortasunaren **definizio** guztiz berria zekarren (ez arrazan oinarritua, euskaran baizik). Joseba Zulaika

Ikusi al du inork **definizio** matematikorik zutik usteltzen? Jon Muñoz

**Definizio** funtzional gisa ideia hau hartuko dugu: [...]. Josu Zabaleta

Nazio kontzeptuari buruzko **definizio** bateratua hitzartzea. Berria - Harian

Ez dugu pretentsiorik, bistan da, adierazpenaren **definizio** bateratzaile bat emateko. Josu Zabaleta

Eta, eztabaida amaitzeko, are **definizio** definigaitzagoa: badu zeozer. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** irud/hed

Hori dela-eta, **«definizio** falta» egotzi dio Ibarbiak Kultura Garaikidearen Nazioarteko Guneari. Berria - Kultura

Ezin dut eraman **definizio** falta hori; komunikazioa ez da erraza, eta Ferminek seriedadetik brometara pasatzeko duen erraztasun horrek komunikazio ahalegina beste zereginik gabe denbora pasa moduan gauzaturiko zerbait dela sentiarazten dit. Pako Aristi

**Definizio** falta honek bigarren mailako hauteskunde bihurtu ditu Europako bozak. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Definizio** arazoa dago. Berria - Mundua

**Definizio**-paragrafoa: zuk emandako edo aukeratutako zentzuaren arabera definitu, karakterizatu edo azaldutako terminoak sartzeko erabiltzen da. Askoren artean

**Definizio**-sorta hau nahikoa errealista dela iruditzen zait. Iban Zaldua

Nire semeak nik idatzitako **definizio** liburua irakurriko luke. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egiaren izen-**definizioa**, hots, ezagutza bere objektuarekin bat etortzea, hemen onartu eta aurresuposatu egiten da. Ibon Uribarri

**6** bereizmena.

Formak bata bestetik bereizi ditut, **definizio** handiagoko koadroak eginez. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

arteraren definizio (4); baina definizio (7); beste definizio (8); beste definizio batzuk (3); bi definizio (4); buruz definizio (3); buruzko definizio (6); da definizio (6)

definizio argirik (3); definizio bakarra (3); definizio bat (31); definizio bat da (3); definizio bat eman (3); definizio baten (4); definizio bateratua (3); definizio batzuk (6); definizio batzuk ere (3); definizio berria (5); definizio edo (3); definizio egokia (5); definizio egokia eman (3); definizio eta (3); definizio falta (3); definizio hau (14); definizio honek (15); definizio honen (6); definizio honen arabera (4); definizio hori (23); definizio hori ez (3); definizio horiek (6); definizio horrek (8); definizio horrekin (3); definizio horren (7); definizio horren arabera (3); definizio ona (4); definizio soiletik (5); definizio zehatza (4); definizio zehatzagoa (3)

den definizio (5); edo definizio (3); ere definizio (3); eta definizio (18); ez da definizio (3); haren definizio (3); hau definizio (3); hitzaren definizio (3); honako definizio (4); honako definizio hau (3); hori definizio (3); kontzeptuari buruzko definizio (3); oso definizio (3)

bakoitzaren definizioa (4); beraren definizioa (3); bere definizioa (7); da definizioz (3); definizioa bera (3); definizioa da (7); definizioa ere (6); definizioa eta (11); definizioa ez (6); definizioa zer (3); definizioa zer da (3); definizioak eta (16); definizioak eta esanak (9); definizioak ez (8); definizioak ez du (4); definizioaren arabera (10); definizioaren barnean (3); definizioen arabera (6); definiziotik argi ageri (3); definizioz da (3); den definizioa (7); duen definizioa (3); eta definizioa (5); eta definizioak (7); gure definizioa (3); honen definizioa (3); horren definizioa (10); z definizioa (4); zenonen definizioa (4); zure definizioa (3)

---

**definiziodun** *izond* definizioz hornitua.

Liburu honetan hiru adibide argi ditugu *oulipo*koek erabili ohi zituzten prozedurenak: lipograma, translazioa eta literatura **definizioduna**. Xabier Olarra

---

**definizional** *izond* definizioarena, definizioari dagokiona.

XXI. mendeko atarian Zientziaren Filosofiaren ikusmolde analitikoa beste gai eta ikuspegiekin konfrontatzeko beharra ikusten hasi denean, Cassirerren obra kontinentalean aurki daitezke hainbat ekarpen substantibo osagarri, ohiko planteamendu analitiko **definizionalak** aberastu ditzaketenak. Askoren artean

---

**definiziotxo** *iz* definizio laburra.

L'Homme qui rit nobelan esaldi txiki honetan bildu du, oso modu politean, Euskal Herri ez beti ulerterrazegi honentzat oraintxe ere, neuretzat bederen, balio oso-osokoa dirauen gure **definiziotxoa** : "Peuple charmant, un peu sauvage". Koldo Izagirre

---

**defiziente** *izond* beharrezkoa edo egokia den zerbait falta duena.

Ez beza inork borondate okerraren kausa efizienterik galdetu; ez delako efizientea, **defizientea** baino; eta ez delako joera, alde egitea baino. Jenaro Garate

---

**defizit** **1** *iz* diru sarrerak gastuak baino txikiagoak diren egoera; diru sarreren eta gastuen arteko alde horren zenbatekoa. ik **zulo; ments 3**.

Administrazioaren **defizitak** (sarreren eta gastuen arteko aldeak, alegia) gehienez %3koa behar zuela izan? Iñaki Heras

Gastuak sarrerak baino handiagoak badira, **defizit** publikoa sortzen da. Iñaki Heras

Gastu soziala murrizten joan da **defizitari** aurre egiteko. Berria - Mundua

Amerikar **defiziten** handitasunak eta **defizit** haiek txikiagotzeko zailtasunak [...] maila ezezagunetaraino eraman zuten trukeen eta tituluen merkatuen egongaiztasuna. Koro Navarro

Alabaina, barne-eskaintzaren zurruntasuna, eta, bereziki, esportazio-eskaintzarena, hain izaten da handia, non aurrezkia gehitzeak ez baitu ekartzen nahitaez kanpoko **defizita** gutxitzea. Koro Navarro

Zein irtenbide aurki dezake Realak berezko **defizita** desagertarazteko? Berria - Kirola

**defizit** publikoa ezabatzea eragotziko du. Koro Navarro

Barne Produktu Gordinaren **defizita** %3,3koa da. Berria - Mundua

**Defizita** kitatzeko akordioarekin pozik. Berria - Harian

**Defizita** murrizteko balioko du. Berria - Harian

Beren **defizita** finantzatu nahi zuten estatuetatik. Koro Navarro

Ronald Reagan lehendakari hautatu zutenean, izugarri handitu baitzen estatubatuar aurrekontuaren **defizita** . Koro Navarro

Jaz %4-aren **defizita** ginuen; zenbat izanen da datorren urtean? Herria

Administrazio publikoen **defizita** 1977-1981 urteetan NPGaren %0,5 izatetik, NPGaren %3,5 izatera igaro zen 1982-1986 bitartean. zorren kitatze prozesua moteldu izanak eragin du **defizitaren** goranzko joera. Berria - Ekonomia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Alemanian, Irlandan eta Suedian izan dira **superabit** handienak, eta Erresuma Batuan, Espainian eta Grezian defizit handienak. Berria - Ekonomia

Bushek agindutako zerga murrizketak eta gastu militarren handitzeak **defizit** handia sortu dute: hil amaieran, 422.000 milioi dolarreko desoreka izango da gastuen eta sarreren artean, inoizko handiena. Berria - Ekonomia

Aiertzak garbi utzi nahi izan zuen musika kontzertu guztiek %50eko **defizit** ekonomikoa uzten dutela, nahiz eta oso arrakastatsuak izan. Berria - Kultura

Euskal buxetaren **defizit** orokorrak ez du % 0,007a pasatzen. Herria

Duela zortzi urte 40.100 milioi euroko **defizit** publikoa izan zuen Alemaniak. Berria - Ekonomia

Proposamenek baldintza malguagoak ezarriko dituzte **defizit** eta zor publikoa «handiegiak» murrizteko. Berria - Ekonomia

**Defizit** bikiak (publikoa eta kontu korrontekoa) salbu, dirua garestitzeko tartea dagoela erakutsi diote azken adierazle makroekonomikoek banku zentralari. Berria - Ekonomia

Espainiaren kasuan, **defizit** komertziala %30 hazi da urteko lehen 9 hilabeteetan. Berria - Ekonomia

Zuzendaritza klubaren **defizit** estrukturala murrizteko ahaleginetan dabilela. Berria - Kirola

Nola konponduko duzue Athleticen berezko **defizita** ? Berria - Kirola

Estatu Batuek kanpoko **defizita** ezabatzeko hartua zuten erabaki sendoa beste ekimen handi batzuetan ere agertu zen garai hartan. Koro Navarro

EBk espedientea ireki die Herbehereei eta Erresuma Batuari, gehiegizko **defizitagatik** . Berria - Ekonomia

AEBetako kontu korronteko eta aurrekontuetako **defizitak** eraginda, 1,31 dolarretik gora ibili zen atzo euroa. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Defizit** mugaren hausleak. Berria - Ekonomia

Estatu Batuetako kapitalen balantzak aldi horretan izan zuen **defizit** -hazkundea, hiru osagaien konbinazioaren emaitza da. Koro Navarro

Ikusteko dago orain zein eragin izango dituen **defizit** hazkuntza horrek. Berria - Ekonomia

2.750 milioi euro **defizit** estimazioan [...]. Berria - Ekonomia

2.750 milioi euro **defizit** estimazioan sartu gabeko kontabilitate «doiketen» ondorio dira, BPGren %0,35. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurrekontu- **defizit** aski handi bat finantzatzeko. Koro Navarro

Aurrekontu- **defizitaren** goratze orok, maileguz finantzatzen denean, eskari pribatuaren beste horrenbesteko murriztea eragiten du. Koro Navarro

Inbertsio **defizita** zuzentzea eta tasa guztiak jasotzeko, kudeatzeko, kitatzeko eta ikertzeko ahalmena izatea. Berria - Mundua

Nahiz eta dolarra aspaldian inoiz baino ahulago egon, AEBei ez die balio izan euren merkataritza **defizit** erraldoia arintzeko. Berria - Ekonomia

Vietnamgo Gerraren ondorioz merkataritza **defizitak** izan zuen hazkundearengatik. Iñaki Heras

Prezio egonkortasuna, enplegua areagotzea, eta atzerri eta estatu **defizitaren** kontrola. Iñaki Heras

· AEBetako kontu korronte **defizita** %21 handitu zen iaz . Berria - Ekonomia

**5** irud/hed

Psikologikoki naizelako desordenatua, baina ezin egin dezaket ezer erremediatzeko, ezkerra izatea bezalakoa baita, edo begi-okerra; **defizit** bat, alegia. Ramon Saizarbitoria

Eztabaida handia izan zen, euroak zekarren **defizit** demokratikoari buruz. Iñaki Heras

Juan Mari Olano eta Juan Joxe Petrikorena kartzelan egotea eta Arnaldo Otegi espetxeratze arriskuan izatea, esate baterako, prozesu honen **defizit** larrienaren seinale dira. Berria - Harian

Bat-bateko bertsolaritzak ikerketa mailan duen **defizit** handia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Era berean, kokaina maiz eta tarte luzez hartzeak **«defizit** kognitiboa eta azaleko zati jakinetako asaldurak» eragiten dituela ohartarazi du OMEk. Berria - Gaiak

Doris Allen psikologoak **"defizit** semantiko-pragmatiko"tzat deskribatzen du autismoaren alderdi hori. Xabier Olarra

Aipatu ikerketan, ageri-agerian gelditu zen masa-hedabideek Euskal Herrian duten sinesgarritasun- **defizita** , herritarren begia eta belarria asko zorroztu direlako azken urteotan. Txema Ramirez de la Piscina

Informazio **defizit** handi bat -demokraziaren **defizit** handia azkenean-. Baina **defizit** iraunkorra izaten jarraitzen du... zuzendu edo ordeztu ezin daitekeen zerbait. Joxe Azurmendi

**6** ***defizit korronte***

Giro politikoa ere zaila zelarik, **defizit korrontearen** puzteak truke tasen iragarpenak hankazgoratu zituen. Koro Navarro

1986an, bai Estatu Batuetako **defizit korronteak** , bai Mendebaldeko Alemaniako soberakinek eta orobat Japoniakoek, gora jarraitzen zuten etengabe. Koro Navarro

Goraldi horren aringarri bakarra, alde batetik, beste herrialde industrializatuen aurrekontu-zorroztasuna eta, bestetik, garapen-bideko herrialdeen **defizit korronteen** ezabatzea izan zen, behartua nahiz berezkoa. Koro Navarro

Epe laburreko maileguek eta inbertsioek oso eginkizun garrantzitsua izan zuten **defizit korrontearen** finantzaketan. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aebetako defizit** (6); **aurrekontu defizit** (3); **aurten defizit** (3); **defizit bikiak** (3); **defizit demokratiko** (6); **defizit demokratikoa** (8); **defizit demokratikoa agerian** (3); **defizit ekologikoa** (4); **defizit erraldoia** (3); **defizit handia** (8); **defizit handiak** (3); **defizit handiena** (3); **defizit hori** (4); **defizit komertziala** (4); **defizit korronteak** (4); **defizit korrontearen** (3); **defizit publiko** (9); **defizit publikoa** (58); **defizit publikoa barne** (4); **defizit publikoa bpgren** (5); **defizit publikoa izan** (7); **defizit publikoak** (5); **defizit publikoaren** (6); **defizit publikoari** (5); **dute defizit** (3); **erakundeen defizit** (3); **eta defizit** (8); **frantziaren defizit** (3); **frantziaren defizit publikoa** (3); **gehiegizko defizit** (5); **gehiegizko defizit publikoa** (4); **kontu korronteko defizit** (4); **korronteko defizit** (4); **merkataritza defizit** (3)
>
> **aebetako defizita** (6); **aebetako merkataritza defizita** (6); **aurrekontu defizita** (5); **aurrekontuetako defizita** (3); **bere defizita** (3); **berezko defizita** (6); **defizita barne** (6); **defizita barne produktu** (6); **defizita bpgaren** (3); **defizita bpgren** (5); **defizita du** (5); **defizita duten** (3); **defizita espero** (3); **defizita estaltzeko** (3); **defizita eta** (10); **defizita ez** (4); **defizita gutxitu** (3); **defizita gutxitzea** (4); **defizita iragarri** (3); **defizita izan** (8); **defizita izango** (6); **defizita izango du** (4); **defizita izateagatik** (4); **defizita kitatzeko** (4); **defizita lortzeko** (3); **defizita murriztea** (3); **defizita murrizteko** (5); **defizita murriztu** (3); **defizita pilatu** (4); **defizita sortzen** (3); **dolarreko defizita** (7); **du defizita** (3); **ehuren defizita** (7); **ehuren defizita kitatzeko** (3); **eta defizita** (4); **euroko defizita** (14); **euroko defizita du** (3); **euroko defizita izan** (4); **frantziako defizita** (4); **frantziaren defizita** (3); **gehiegizko defizita** (16); **gehiegizko defizita duten** (3); **gehiegizko defizita izateagatik** (4); **gorako defizita** (3); **kanpoko defizita** (3); **kontu korronte defizita** (3); **kontu korronteko defizita** (6); **korronte defizita** (3); **korronteko defizita** (6); **merkataritza defizita** (21); **milioi dolarreko defizita** (7); **milioi euroko defizita** (12); **milioiko defizita** (3); **sozialaren defizita** (3); **zen defizita** (3); **zero defizita** (4)
>
> **aebetako merkataritza defizitak** (3); **defizitaren eta** (6); **defizitaren muga** (5); **defizitaren zati** (3); **defizitarioa dela** (3); **defizitik handiena** (5); **gehiegizko defizitagatik** (5); **merkataritza defizitak** (8); **merkataritza defizitaren** (3); **zuen defizitaren** (3)

---

## **defizitario** *izond* defizita duena edo dakarrena.

Herrialdeak duen dibisa-premiak justifika dezake ekoizpen **defizitario** bat tokiko diruaz laguntzea, baldin dibisen balantza garbia positiboa bada. Koro Navarro

Esaterako, Trinidad eta Tobagon Iscott altzairutegi **defizitarioa** hartu, eta urte baten buruan errentagarri bihurtu zuen. Berria - Ekonomia

Kontuan hartu behar da hau oso euskaltegi txikia eta **defizitarioa** dela, eta, gjiainera, Nafarroan dagoela. Berria - Euskal Herria

Alemaniaren batasunak mendebaldeko partearen aurrezki gehiegizkoa xurgatu zuen, eta haren kanpoko kontuak **defizitarioak** bihurtu ziren. Koro Navarro

EKTren ustez, horrek erakusten du, oraindik ere, euskarazko egunkari bat egitea **defizitarioa** dela. Berria - Harian

Antzinaroaz geroztik, Mendebaldea **defizitarioa** zen Ekialdearekin egiten zituen trukeetan. Koro Navarro

Literatura garaikidearen itzulpena diru publikoz laguntzekotan, kalitatea erakutsi duten (eta **defizitarioak** izan daitezkeen) obrekin egin beharko litzateke, ez bestela. Berria - Kultura

Erakutsi dugu halako ekimen batek ez duela **defizitarioa** izan behar, ekimen batzuk sortzeak bidera ditzakeelako beste ekintza batzuk. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **defizitarioa dela** (3)

---

## **deflagrazio** *iz* bat-bateko gartzea.

Mundu bakarra dago, geurea, baina aldizka gutxieneko energia printzipiora -sura edo hazi germinalera- murrizten duten **deflagrazioen** mende dagoena eta berriro ere bere baitatik birsortzen dena, palingenesia perfektuki arautu eta amaigabean. Xabier Amuriza

---

## **deflazio** **1** *iz* prezioen maila orokorrak behera egitea.

**Deflazioaren** arriskua «atzean gelditu» dela, eta lehentasuna inflazioaren aurkako borroka izango dela iragarri zuen. Berria - Ekonomia

Diruaren asmakuntza, zalantzarik gabe, onuragarri gertatu zen jaulki zuten gobernuen mendekoentzat, nahiz eta asmakuntzak berekin ekarri zituen inflazioaren eta **deflazioaren** gorabeherak, sozialki iraultzaileak, baita lukurreriazko interesekin maileguan hartu eta emateko tentazioa ere. Iñaki Mendiguren

Ez da komeni berotuta zegoen ekonomia, zertxobait hoztu beharrean, gehiegi hoztea, eta ekonomia **deflazio** eta atzeraldi larri batean murgiltzea. Iñaki Heras

**2** (hitz elkartuetan)

**Deflazio** arriskuaren garaia pasa da. Berria - Ekonomia

Depresio Handiaren esperientziatik idatzi zuen bere *Teoria Orokorra,* **deflazio** garaian, atzeraldi garai larrian. Iñaki Heras

Erreserba Federalak, tamalez, ez zuen jakin krisiari irtenbidea aurkitzen; aitzitik, okerragotu egin zuen egoera: bizi zen **deflazio** garaian inflazioaren kontrola nagusitu zen. Iñaki Heras

---

## **deflazionista** *iz* deflazioarena, deflazioari dagokiona.

Sistema honek bazuen ordea alderdi **deflazionista** nabarmen bat, eta horri egotzi zitzaion Europako langabeziaren goraldia. Koro Navarro

Oro har, aditu askoren ustez, Maastricht-en ezarri zen politika **deflazionistak** hazkunde urria ekarri zion Europari. Iñaki Heras

---

## **deforestazio** **1** *iz* basogabetzea.

**Deforestazioaren** errua nekazariei botatzen diegu eta haien esku uzten ditugu baso-berritze lanak. Berria - Gaiak

1990 eta 2000. urteak bitartean Afrikan izaniko **deforestazioaren** %60 baso zatiak baratz txiki iraunkor bihurtzearen ondorio izan zen. Berria - Gaiak

**Deforestazio** basatian dihardute eremu zabaletan, bai; Amazonia aldean sekulako erreketak, kez dena estaltzen duten horietakoak egin bide dituzte zenbait sasoitan. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak «kezkagarritzat» jo du Afrikan azken urteotan gauzatzen ari den **deforestazio** prozesua. Berria - Harian

---

## **deformatu**, deforma, deformatzen **1** da/du *ad* forma aldatu.

Hezurrek [...] zurrunak izan behar dute, baina ez zurrunegiak, hobe baita presioaren eraginpean zertxobait **deformatzea** , haustea baino. Irene Aldasoro

Sinobialaren hantura kronikoak giltzadura-kartilagoa granulazio ehunez ordezten du, eta luzarora artikulazioak **deformatu** egiten dira, eta beren funtzioa galtzen dute. Berria - Gaiak

Museoan, zineman, telebistaren aurrean, oso-oso gutxitan egoten gara perspektibaren antolamenduak agintzen duen, edo hartarako aurreikusita zegoen, lekuan; konpentsaziorik ez balitz, bihurriturik, **deformaturik** baizik ez genituzke ikusiko irudiak. Josu Zabaleta

Beldur nintzen umea **deformaturik** edo irtengo zela... Lopez de Arana

**2** desitxuratu, itxuragabetu.

Egia guztiaz jabetzeko aukera izanik ezinezkoa baitzitzaion bertsio **deformatu** horiekin konformatzea. Iban Zaldua

Nahasketa mentala, errealitatearen pertzeptzio **deformatua** . Pako Aristi

Zenbat holako izengoiti ez ote da sortu izanen gure artean, grazia berezia ematearren, usario errotuko hitza apropos **deformatuz** ? Patziku Perurena

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zapata handi eta **deformatuak** . Indibidualismo **"deformatua"** da, Fromm-en terminoa erabiliz, nagusi: epe motzera begiratuz, harantzago begiratu eta ikusteko gai ez den indibidualismoa. Javi Cillero

Era berean esan behar da "gizakiaren onura **deformatua"** erabat kontrajartzen zaiola "gizartearen benetako onurari". Iñaki Heras

Edozein umerentzat garrantzirik gabea den pasadizo hark ondo azaltzen du zer nolako ispilu **deformatuen** galerian kondenatuta bizi izan nintzen ni. Anjel Lertxundi

---

# **deformatuki** *adlag* forma galdurik.

Nola adierazi zenbaterainoko zirrara egiten dizun auskalo zergatik xingola ordez lokarri-mutur bat daraman lepo **deformatuki** luzeko pertsona batek? Xabier Olarra

---

# **deformatzaile** *iz* deformatzen duena.

Batzuetan, barre egiten dugu Téophile Gautierren ateraldiekin; bestetan, berriz, haserretu egiten gara berarekin eta, bide batez, mania literarioz jositako idazle **deformatzaile** guztiekin. Bernardo Atxaga

Bazirudien hitz haiek putzu batera erori zirela, ur gardenak zituena, baina aldi berean hain **deformatzaileak** non jaitsi ahala ikus zitezkeen kiribiltzen, umearen buru zolan jainkoak daki zer itxura hartu arte. Anton Garikano

Gaur egun bertan ere, kubismoa bera, jendeak egiaz estilo artistiko bikaintzat hartzen badu ere, irudikapen **deformatzaile** bezala hartzen da, ia beti gutxi-asko argazkiarena izaten den analogia-arautik urruntzen den irudikapen modu bat bezala, alegia. Josu Zabaleta

---

# **deformazio** **1** *iz* deformatzea; deformatzearen ondorioa.

Argazki honi zeharka begiratzen bazaio, zuzen atzemango da irudikatzen den eszena, baina alferrik mugituko da ikuslea horman jarrita dauden argazkien **deformazioa** konpentsatzeko, zeharka fotografiatuak baitira horiek ere. Josu Zabaleta

Euren adimen ergelez ezin dute unibertsoko gauzen harmonia eta doitasuna begipean hartu eta ulertu, eta euren pentsaera gainditzen duen zerbaitek traba egiten badie, gauzen barne desorekari eta **deformazioari** egozten diote errua. Imanol Unzurrunzaga

Ahoko minbizia eta aurpegiko zauriak edo **deformazioak** dituzten gaixoei. Berria - Gaiak

Hazteko arazoak, **deformazioak** eta burmuineko gaitzak sortzen ditu. Berria - Harian

Gai gara larruazalean milimetro baten ehunen bateko **deformazioa** nabaritzeko. Irene Aldasoro

Zatitu denean, zanpatu eta uzkur bitez irudi horren muturreko parteak, **deformazio** oblikuoa izan dezan: luzera seiren bat murriztu eta zabalera, buelta hartzen duen lekuan, laurden bat. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Kultura modernoaren porrota ez dakar ez indibidualismoaren printzipioak, ezta onura morala eta norberaren interesa lortzea gauza bera direla dioen ideiak ere, "norberaren interesa" esaten zaion zer horren esanahiaren **deformazioak** baizik. Iñaki Heras

Edo agian dena izango zen urteetan (ni bezala) kirol kazetaria izandako baten **deformazio** profesionala. Jon Alonso

---

# **deforme** *izond* itxuragabea, eitegabea, formagabea.

Amuategi gaineko tontorrean laino **deforme** bat hormarena egiten prantatu zen, gorri zeharrargiz blai. Pello Zabala

Haurrak **deformeak** eta itxuragabeak baziren, abandonatzeko baimena ematen zien, auzo hurbilenetako bosti erakutsi ondoren. Iñaki Iñurrieta

---

# **defot** *izond* antzua.

Zeren ni ere gogaiturik bainengoen orduko, bai neskatxekin loturikako edozein kontu bekatutzat hartzeaz, eta bai gazte debot **defot** baten izaiteaz ere! Joan Mari Irigoien

---

# **defraudatu**, defrauda, defraudatzen du *ad* huts egin, desilusionatu, desengainatu.

Sentitzen dinat hirugarrenez hi **defraudatzea** , bisita bat egitera joan nindunan... Josu Landa

'Etzak erosi!', esan diot neure buruari, 'zer demostratu nahi duk?', eta gomendio horretan beldurra zegoen, **defraudatuta** geratzeko beldurra. Pako Aristi

**Defraudatuta** norekin, ordea, Gibrán Jalil Gibránekin ala neure buruarekin? Pako Aristi

Literaturak berak ez gaitu inoiz **defraudatuko** ; enparauak toreatu egin beharko ditugu. Ana Urkiza

---

# defunktu ik **defuntu**.

---

# **defunta** *izond/iz* emakumeez mintzatuz, hila, hildakoa. ik **defuntu**.

Don Pedroren ama **defuntak** zuk beraren arropak janztea espero du. Juan Garzia

-Beilan pasatu dudala gaua, neure Refugio **defuntaren** beilan. Juan Garzia

-Neure **defunta** lurperatzeko laguntzatxo baten eske nator. Juan Garzia

---

# **defuntatxo** *izond/iz adkor* defunta.

Esaiok bien bitartean **defuntatxoari** nik beti nahi izan niola eta nitaz akordatzeko loriara iristen denean. Juan Garzia

---

# **defuntu** *(orobat **defunktu** g.er.)* *izond/iz* hila, hildakoa. ik **zendu**.

"Eskerrak senar **defuntuari** !", egin du Sofiak. Patxi Iturritegi

Imanolek bere aita **defuntuarekin** itzelezko ikamika duela. Joseba Sarrionandia

Errege **defuntuaren** organoak honela banatu dira, berak desio zuen bezala: [...]. Patziku Perurena

Don Estebe eta don Kosme, bestalde, noiznahi biltzen ziren don Anxelmo **defuntuarekin** . Joan Mari Irigoien

Bob Marley **defuntuak** sinatuko zituzkeen halakoak, marihuanarentzako ongarri organikoa baino gehiago balitz, hots, zerraldo ez balego. Unai Iturriaga

Badela erabat hilen eta erabat bizien artean gradurik, mundu honetan segitzen duten **defuntuak** eta beren kezkez gu kezkatzera hilen artetik bisitan etortzen zaizkigun zenduak barne. Juan Garzia

Azaltzen nion, adibidez, **defuntuek** ez zutela eskubiderik gure bizitza baldintzatzeko, eta bost axola duela non ehortzen gaituzten, azken finean, ez baikara materia elikatuko duen materia organikoa baino. Ramon Saizarbitoria

---

# defuntzio *iz* hiltzea.

Hildakoentzat enkargatzen den koroa horietako bat enkargatzea gure harremanaren jaiotze eta **defuntzio** datak jasotzen dituen xingola batekin? Harkaitz Cano

---

# degeneratibo *izond* endekatzea dakarrena.

Gaitz neurologiko **degeneratibo** gehienekin horrela gertatzen da. Berria - Gaiak

Eritasun kroniko **degeneratibo** progresibo bat duen eri batek normalena litzateke bere neurologoarekin hitz egitea gaixotasunaren progresioari buruz eta erabakitzea ze momentutan ez duen beste tratamendurik hartu nahi. Berria - Harian

---

# degeneratu, degenera, degeneratzen *(orobat **dejeneratu** g.er.)* **1** da/du *ad* endekatu.

Kristautasuna sortuz gero, gizadiaren bizitzak ez du egin **degeneratu** besterik. Joxe Azurmendi

Ortografiaren arauak betetzen ez badira hizkuntza **dejeneratuko** dela. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ea, uztak musika **degeneratu** hori eta jo ezak *Sieg Heil!* Sodioa metal **dejeneratua** da: izan, hitzaren zentzu kimikoan baino ez da metala, ez noski eguneroko hizkuntzarenean. Anjel Lertxundi

**3** biziotsua, galdua.

Adierazi zuen ni **degeneratu** hutsa nintzela. Pello Lizarralde

Talentuz betetako gizon eder hura **degeneratu** nazkagarri bat besterik ez zen. Xabier Paya

Gizon maniako **degeneratuak**. Pello Lizarralde

Aldizkari zantarrak eta bideo **degeneratuak** nonahi. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **maniako degeneratu** (3)

---

# degeneratzaile *izond* endekatzailea.

Zibilizazioak asmatutako martingalarik **degeneratzaileenak** gailurra jo duela erakusten ari zaigu gazteria, eta inork ez du ohartu nahi. Patziku Perurena

Gehienez ere, esekitoki sentitzen naiz batzuetan, edo lanpara, karkaxa, hitz zauritu, gramatika **degeneratzaile**. Karlos Linazasoro

---

# degeneratze *iz* endekatzea.

Ezin nuen sinetsi hain aspaldi ez zela estudiante guztiz ganorabakoak izandako haiek, urte gutxiren buruan halako erosotze eta **degeneratze** mailara hel zitezkeenik. Jon Arretxe

---

# degenerazio *iz* endekatzea.

Orduan ere argi geratzen da Bera Jaungoiko perfektua dela inolako urritze eta **degeneraziorik** gabe bere izatean. Imanol Unzurrunzaga

Uste zuen gehiegi ikasteak ahultasuna ekartzen duela, **degeneraziora** eramaten gaituela. Anjel Lertxundi

*Volksgeist*a, Ortega-rentzat, positiboa izan liteke [...] eta negatiboa izan liteke; baina hau, antza, alde batetik filosofia higatuen liburuetako kontua omen delako (zer positibotasun aitor dakioke orduan gaur?), edo *Volksgeist* jatorraren **degenerazioa** delako, nazionalismo eta kostunbrismo bihurtua. Joxe Azurmendi

Musika kendu eta Athletic-en partidua ari zen entzuten, irratiz: horra **degenerazioak** zertara eraman gaitzakeen. Xabier Mendiguren Elizegi

Krafft-Ebingen arabera, erlijio eta kultura arauetatik amiñi bat aldentzen diren jokabide sexual guztiak "patologikoak" dira, gaixotiak, **degenerazio** mentalaren eta eromenaren adierazgarriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# degradagarri *izond* degradatzen duena.

Argi dago komedia giro nabaria eman nahi izan diotela lehen minututik amaiera arte irauten duen egoera **degradagarri** horri, telezaborreko programetan gertatzen den bezalaxe. Berria - Kultura

---

# degradakortasun *iz* degradakorra denaren nolakotasuna.

Bakterioei esker lortutako polimeroak duen abantaila nagusia bere **degradakortasuna** da, hau da, material horren erabilera bukatu denean, PHBa bera izango da biodegradaziozko erreakzioei hasiera emango dien produktua. Berria - Gaiak

---

# degradatu *(ETCn **1.100** agerraldi)*, degrada, degradatzen **1** du *ad* norbaitek duen gradua edo maila behetitu.

Dreyfus izeneko ofizial frantses judu bat atxilotu, **degradatu** eta hil arte erbesteratzearekin zigortu zuten. Karlos Zabala

Badirudi Karlos Burusoilak eraso ziola gehien elizgizonen ondareari, dela haren kontra suminduena bera zelako, dela haiek aita **degradatu** zutelako, dela herabeena izan zelako. Iñaki Iñurrieta

Jeneral feudodunak banan-banan **degradatu** eta hilarazi egin zituen. Iñaki Mendiguren

Baina ez zuen jakin, ordea, buruzagi barbaro haien gudalburua Ivan Ogareff zela, ezagutzen ez zuen ofizial errusiar bat, dukeak berak behinola **degradatu** zuena. Karlos Zabala

Erregea **degradatu** nahi, eta erregetza bera **degradatu** zuten. Iñaki Iñurrieta

**2** jatorrizko kalitatea kendu.

Azken berrogeita hamar urte hauetan herrialde industrializatuen ekonomi hazkunde bizkorra ekarri duen baliabide-kontsumo azeleratuak Lurreko basoak, lurzoruak, ura, airea eta biodibertsitatea **degradatu** ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horregatik egin zituen Karlomagnok, guk izan dugun printzerik arretatsu eta arduratsuenak, hainbeste araudi, feudoak beren jabeen alde **degradatzea** galarazteko. Iñaki Iñurrieta

Ez ditu osagai horiek **degradatzen**, zeluletako hormetatik iragazi eta haien eragin toxikoa murriztu baizik. Berria - Gaiak

Uraren zentzuzko erabilera bermatuko dugu, gastua proportzionalki banatuko dugu, eta bitartekoa **degradatzen** duenak ordainduko duela bermatuko dugu. Berria - Euskal Herria

• **3** da *ad* jatorrizko kalitatea galdu.

Hazkundealdian, zibilizazioa pixkanaka inguruko barbarotasunera **degradatu** zen atalase zabal batean zehar, kanpotarrari sarbide erraza eskaintzen ziolarik barruko ikuspegi erakargarrira. Iñaki Mendiguren

Usainak sortzeko gaiek alergiak sor ditzakete, azala ukitu edo gero ingurumenean **degradatu** ondoren. Berria - Gaiak

**4** (era burutua izenondo gisa)

Demokrazia **degradatu** batean bizi garela ematen du. Berria - Harian

Gure herria **"degradatua**, bortitza, zabarra, moldakaitza, kristau izenaren gauza-eza" deklaratu zuten. Koldo Izagirre

Degradazioak hondoa jotzen du batzuetan, mailarik **degradatuenera** jaitsiz. Jokin Urain

Etxe batez oroitu naiz zeure kantua aditzean, langile auzo **degradatu** batean alokatu nuen etxea. Berria - Kultura

Kasbako alderik **degradatuenetan** ere -Algeriaz ari da-, asko dira antena parabolikoak dituzten etxeak. Patxi Zubizarreta

**5** (era burutua izen gisa)

Marrazki burutuaren "azpian", haren itzalen, haren **degradatuen**, haren testuraren pean, marrazturiko objektuaz marrazkilariak duen egiturazko ezagutza irudikatzen duen "hezurdura" bat balego bezala. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **degradatu batean** (3); **degradatu eta** (3)

---

# degradazio 1 *iz* degradatzea.

Hiru ikertzailek jasoko dute aurten Kimika Nobel saria, proteinen **degradazio** kontrolatuaren inguruko ikerketa lanagatik. Berria - Gaiak

Pobreziak berekin daraman **degradazioa**, arimaren eta gorputzaren desohorea, han pairatu nuen nik, patu komun makurrak jotako prostituta eta gaixoekin batera. Eduardo Matauko

**Degradazio** moral hori Lynnie England soldaduaren irribarreak gorpuztu du, harro-harro, preso irakiar biluzien aurrean. Berria - Mundua

Zeren azken batean [...] berak ez zeukan ezkondu beharrik, Jainkoari eskerrak: ez zeukan **degradazio** hura jasan beharrik. Anton Garikano

Herri pobreek hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren **degradazioaren** artean aukeratu behar izaten dute. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Zein da gure askatasun maila egungo **degradazio** dinamikak edo hauetara garamatzaten antolamendu egiturak alderanzteko unean? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

· Sareok, maila globaleko gertakarien aurrean, tartean baitira pobrezia eta ingurumen **degradazioa**, maila lokaleko ondorioak izaten dituzte berehala. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

· Ingurumen eta gizarte **degradazio** egoera ulertu ahal izateko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

# degustazio *iz* dastatzea.

Bestalde, **degustazio** gastronomikoa eta kale antzerkia izango dira Areatzan, eguerdi aldean. Berria - Euskal Herria

---

# dei *(ETCn 35.127 agerraldi)* 1 *iz* deitzea; deitzeko hitza edo hotsa.

Horretan, ordea, **dei** batek, oihu batek, izen batek "Ulrich", astindu zuen haren lozorro sakona eta jaikiarazi zuen. Josu Zabaleta

Nahiz eta pausuko nintzen **deira** joan behar nuen, plazara, luzaz irauten zuen **dei** hartara. Marzel Etxehandi

Tentamenduaren **dei** hartan ez nuen kontzientziaren ezbairik izan. besteak, barrutik, haren mugimendu guztiak jarraitzen zituen, makurturik, belarria harriaren kontra jarririk, eta garrasi urragarriz erantzuten zien haren **dei** guztiei. Joan Mari Irigoien

*Credo!*, apez izaiteko **dei** bat ere izan zitekeena, eta ozentki eta bortizki deitu ninduena... Joan Mari Irigoien

Geroxeago, **dei** bat entzunda bezala, Mary Ann bera azaldu da atean. Bernardo Atxaga

**Dei** hura hartu eta lehenbiziko hegazkinera igotzea izan nuen lehen barne-bulkada. Xabier Olarra

Starfford inguruetan genbiltzan barne-irratitik **dei** bat jaso genuenean. Joxemari Urteaga

-Ba, lurraren **deia**, lurraren galdea. Michel Oronoz

-Emigrazio Zerbitzura eginen banu **deia**... Iñaki Zabaleta

Bazkaltzeko **deia**. Anjel Lertxundi

Laster zabaldu zen **deia** auzoan: batzarra frontoian. Juan Kruz Igerabide

Ezezagunei egiten zaie **deia**, hurbilenen kalterako. Andres Urrutia

Azkenean, behar zitzaien frantses guztiei frantses hizkuntza baizik ez mintzatzeko **deia** helarazi. Piarres Xarriton

Jendea elkartu eta kartelak egitekotan geratu ginen, manifestaziorako **deia** eginez. Xabier Mendiguren Elizegi

Boikoterako **deia** jende askok jarraitu du. Bernardo Atxaga

Sakelakoa erabili nuen **deia** egiteko. Aingeru Epaltza

Arrenka ari nintzaion oraino, afaritarako **deiak** jo zuenean. Jon Muñoz

Nola idazten dugun galdetzen zaigu beti; oso bakanetan gure irakurtzeko moduez eta irakurtzerakoan izaten ditugun bihotz-zimikoez, memoria argitzera etorritako **deiez**, adimenaren bideetan barna egindako joan-etorriez. Anjel Lertxundi

Eliseori **deia**. Elizen arteko biblia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Haietariko batek adarra jo zuen: oihartzunak **dei** luzea haranean barrena hedatu zuen. Agustin Otsoa

Eta orain bi laiko, goiz arratsetako **dei** luzeetan ene ondoan nituenak, tallurgoan hasi aitzin. Marzel Etxehandi

Ez dira gehiago **dei** orokorrean baizik ikusten. Marzel Etxehandi

**Dei** ilunari men eginez, senari jarraituz. Iñaki Iñurrieta

**Dei** urrun, ilun bat bezalako zerbait zen, pentsamendu logikoa amaitzen zen muga lanbrotsutik haratagoko tokiren batetik etorritako **deia**. Alberto Ladron Arana

**Dei** mugatua egin zen, saio hartan ezin baitzen nahi adina jende sartu. Xabier Mendiguren Elizegi

Otoitz egitera joateko **dei** santuaren oihartzunak. Jon Alonso

Berrogei urtean ibili zen horrela, harik eta Heriok **dei** hotza egin zion arte. Edorta Jimenez

Samen ahotsaren **dei** idorra entzun zuenean. Agustin Otsoa

Zilarrezko adarra jaso eta muinoaren bestaldean oihartzun egin zuen **dei** argia atera zion. Agustin Otsoa

Hoteleko enkontru sutsua, **dei** telefonikoak, "Rivadella" ostatuko agurra, [...]. Aritz Gorrotxategi

**Dei** marxista horren ahalmenaren aurrean amerikar sektore antikomunista batzuen larritasuna ez zen ezkutatzen. Iñaki Mendiguren

Hamarrak bost gutxitan zeharkatu zuen Sarak anbulatorioko ate nagusia, baina nola medikuak, bospasei minutu lehenago, **dei** larri bat izan baitzuen [...] ordubete egon behar izan zuen Sarak han, itxarongelan. Joan Mari Irigoien

Baina zer da **dei** deigarri hori, jaun André? Joan Mari Irigoien

Ez du atsedenik izango, kanpoko sorkari guztiek utzitako pozik eza, barrurako **dei** gertatzen baitzaio. Joan Mari Lekuona

Txapli komunera, eta minutugarrenera banan-banako **deia** taldekideei sudurrak nasaitzera. Unai Iturriaga

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barre-algaraka jarraitu zuen, Matson andrearen "Curtis!" **dei**-oihuei eta Matson jaunaren bekozkoari jaramonik egiteke. Mirentxu Larrañaga

Zenbait asteren buruan elgarrekilakoa egin behar genuen, **dei** denboran elgarren ondoan baiginen. Marzel Etxehandi

Ulrichek **dei** oihu zoli bat egin zuen, ozena, luzea. Josu Zabaleta

Roke, beretarrengandik alde, hauek ikasi ezineko lekuren batera biltzen zen gauerako; **dei**-paper askotan jarria baitzeukan haren burua Bartzelonako errege-ordezkoak, eta, estu eta larri beti, ez zen inorekin fidatzen. Patxi Ezkiaga

Lau ordu baino gehiago joango ziren Raimundo Silvak **dei**-gaztigua jaso zuen arte. Jon Alonso

Entzuna diat ezen oilarrak [...] bere eztarri ozen zorrotzaz duela egunaren jainkoa iratzartzen, eta, haren **dei**-hotsera, itsasoan nahiz suan, lurrean zein airean, beren gordelekuetara biltzen direla izpiritu bidegaldu eta herratuak. Juan Garzia

-Hiretako **dei** andana hartu genian atzo, baina ez hindugun atzarri nahi izan. Aingeru Epaltza

Horixe zekarren bat-bateko **dei** erauntsiak. Aingeru Epaltza

**Dei** seinaleak entzuten hasi zen: hiru, lau... Iñaki Zabaleta

**Dei** mordoxka egin behar izan diat baina, oraingoan behintzat, zorionekoak izan gaituk, azkenean harrapatu baitut. Alberto Ladron Arana

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiru-lau telefono **dei** aski izan nituen istripuaren xehetasunak eskuratzeko. Eta, hona hemen, ni, non natorkizun telefono-**dei** baten eske, Zuri erreguka. Aingeru Epaltza

Segapoto-**dei** bat jaso eta, gero, Goizeko-Kabi tabernara sartu delako. Iban Zaldua

Nahi zuten jakin noraino adi zitekeen Ibañetatik igorri adar **deia**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Sirena-**dei** batzuk entzun nituen urrun samar. Anjel Lertxundi

Larrialdi **dei** gehiago egin ziren hurrengo bi egunetan. Berria - Gaiak

Iaz, Unicefek 25 laguntza **dei** egin zituen denera. Berria - Gaiak

Txapli komunera, eta minutugarrenera banan-banako **deia** taldekideei sudurrak nasaitzera. Unai Iturriaga

Eta maitasun-**dei** nahastezin hori haurrengan distiratzen duena. Anton Garikano

Elkartasun **deiak**. Iñigo Aranbarri

Eta ni aho-zabalik geratzen ninduan, zeren ez bainuen, arestian erran bezala, Pedrok aditzen zuèn jainkozko barren-**dei** hura aditzen. Joan Mari Irigoien

Elizatik irtetean, bere Errege-**Dei** berezia irakurrarazi du Don Carlosek herriko plazan. Txillardegi

· Telefono **dei** mordoa izango dugu hemendik aurrera. Xabier Mendiguren Elizegi

## **5** telefono deia.

Zapi batekin telefonoa garbitu **dei** kruzial hori jaso ondoren. Harkaitz Cano

Azala sikatu eta mobilaz **dei** bi egin ditu. Paddy Rekalde

Telefonoa kakoan utzi eta Excelsiorrera deitu nuen, eta azkenean Eubanksen konpainia lanean ari zen platora pasatu zidaten **deia**. Fernando Rey

Ramon Etxegarai kazetariaren **dei** asmatikoa ukan eta gero, Nina eta Mikelek Manila hiriko mapa arretaz aztertu zuten. Ramuntxo Etxeberri

**dei** anonimoak egiten hasi ziren abokatuen bulegora. Unai Elorriaga

Astelehen hartan ordea, lanean nengoela Aneren **dei** bat pasatu zidaten. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaur, ostera, **dei** bat jaso dut, baina inork ez du berbarik egin eta eseki egin didate.gutun batean aitortu zidan ondo jabetzen zela, telefonoz ari bitartean, **deiak** izan zitzakeen ondorioez. Patxi Zubizarreta

Siestatik landa, Dongek sorpresa ona ukan zuen: **dei** anonimo bat. Ramuntxo Etxeberri

**Dei** pare bat egingo dut oraintxe berton. Jon Arretxe

Eseri lasai -esan digu irribarretsu-, **dei** bat egitera noa! Pako Aristi

Bera ere saiatu da **dei** batzuk **egiten** eta kontu pare bat konpontzen. Urtzi Urrutikoetxea

Batzuetan, esan dudan bezala, **dei** bat izaten nuen gauaren erdian eta goizeko ordu bietan edo hiruretan joan behar izaten nuen ospitalera. Koro Navarro

**Dei** dezente egin behar izan nituen harrapatu nuen arte. Ramon Saizarbitoria

## **6** konzentrazio esparruetan, biltzarra. ik **deialdi 8**.

**Deia** instituzio bat zen kontzentrazio kanpamenduetan. Eneko Bidegain

**Deira** nola joaiten ziren, ikusgarri zen; gure block-eko buruzagiak, aldiz, harat eta hunat laster egin behar zuen diziplina puxka baten ardiesteko, latinez oihu egiten zuela: "Linea recta! Linea recta!". Marzel Etxehandi

Laneko, jarririk ginen, berogian **deiak** (goizekoa eta arratsekoa, biak 6 orenetan) laburrak ziren (5 eta 10 minuta artean), **dei** orokorra 25/30 000 gizonenak, oren bat edo bi irauten zuelarik. Marzel Etxehandi

Eguerditan **deia** izaiten zen, salda xorta bat zerbitzatu aitzin. Eneko Bidegain

Beha egoiterik beltzena, satanki organizatua, arratseko **deia** da Gizonak lanetik jinak, anitzak afaltzekoak -afaria, eguneko apairu bakarra- 25/30 000 gizonek hantxet beha egon behar oren bat, edo bi edo berdin hiru, adizione huts bat zuzendu arte, edo norbait falta delarik, haren bila ibilirik Jainkoak daki non zakurrekin, triste hark **deia** entzun ez duelakotz, eta aurkituko dutelarik, zakurrak ehausika aztaletan ekarriko dute, orduan bilduko baitu makil ukaldi ederrik. Marzel Etxehandi

Alde batera edo bestera, lanera edo erretegira joaitekoak gara, gauaz garra darion ifernuko kezilo hari sugaia emaitekoak su hura kanpalekuaren bizkar gorenean da, **dei** plazaren gaineko aldean, zorigaitzeko argia, inguruko hamabost bat herrik ikus dezaketena. Marzel Etxehandi

**Dei**-biltzarretan geundelarik bere familiaz mintzatzen zitzaidan. Marzel Etxehandi

Oraino hirugarren egun bat hola iragan behar zuten; gero urkatuko zituzten, denen aitzinean, arratseko **deian**. Marzel Etxehandi

## **7** ***deiez*** dei eginez. ik **deika**.

-Jauna! -ganbarako ateetan **deiez** ari zen eskifaiako norbait. Edorta Jimenez

Isasi zen, beharbada, beste mundutik armarriaren bidez neuri **deiez**. Edorta Jimenez

Nor dago **deiez** Hamleti? Juan Garzia

## **8** ***dei auzi*** *ipar*

Filipe Bidart baldintzapean libratua izaiteari buruz, **dei-auzia** joanden ortziralean egin da. Herria

Pariseko ondoan, Versailles hirian, hasi da Alain Juppé gobernuburu ohiaren kontrako **dei-auzia**. **Dei auzira** joan dira denak elkarrekin Pauera. Herria

**Dei auzian** Filipe libre uztearen kontrako erabakirik hartuko balute epe luzerako kanpaina prestatzen ari gara. Berria - Euskal Herria

Tolosan iragan zen **dei auziko** erabakian hona zer irakurtzen dugun: "Interdit" gaztiguaz mehatxatu zuela apezpikuak Arbelbide. Xipri Arbelbide

## **9** ***dei auzitegi*** *ipar*

Parisko **Dei Auzitegiak** Iñaki Esparza estraditatzearen aldeko ebazpena kaleratu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Paueko **Dei Auzitegiaren** instrukzio ganberak ekainaren lehenean emanen du Amaia Rekarte, Yves Matxikote eta Haritza Galarraga Espainiaratzeko euroaginduari buruzko erabakiaren berri. Berria - Euskal Herria

Paueko **dei auzitegiak** berretsi egin zuen atzo Baionako auzitegiak bi demoren aurka hartu ebazpena. Berria - Euskal Herria

Erne egoitea noiz duen **dei-auzitegiak** aztertuko Filipe-k hel-arazi errekurtsoa, oraiko ustez urrian. Herria

Versailles hiriko **dei-auzitegiak** trenkatu du Alain Juppé gobernuburu ohiaren kontrako auzia. Herria

Agorreka Donazaharrekoak gaitzeko izuna izan baitzuen prediku batengatik (Baionako 3.000 liberakoa, 500etara jautsi zuen Pabeko **dei auzitegiak**). Xipri Arbelbide

Parisko **Dei Auzitegiak** Iñaki Esparza estradititatzearen aldeko ebazpena kaleratu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

## 10 *dei egin*sup_1 ik **deitu.**

Joanes! -eztul artean arerio ninduen harexeri **dei egin** zion-, lehena izango haiz. 'Erdu afaltzera! Edorta Jimenez

' **dei egin** zion amak sukaldetik. Joseba Sarrionandia

Josuek apaizei **dei egin** eta esan zien: [...]. Jose Antonio Mujika

Honela egin nizun **dei** : "Jauna, neure aita zaitut! Ez baztertu ni atsekabealdian, harroputzak nagusitzean, laguntzarik ez dagoenean". Elizen arteko biblia

Orduan, San Frantziskok basora joan eta **dei** egin zion: "Zatoz -esan zuen- eta hitz egiozu itsu honi!". Askoren artean

Dalilak bere belaunetan lo harrarazi zion Sansoni, eta gizon bati **dei egin** zion. Jose Antonio Mujika

Zuri egin dizut **dei** , Jauna, leize-zulotik. Elizen arteko biblia

Elgarri **dei egiteko** eztul bat aski zen, edo berdin bestelako seinale bat. Marzel Etxehandi

Nora dagizuket **dei** zuri, nerau zugan egonik? Imanol Unzurrunzaga

Ei, hi!, egin zion Hermannek **dei** . Anjel Lertxundi

Nork egin zion **dei** Ofizio Sainduari? Aingeru Epaltza

Elizak, Inperioa desagertu ondoren, aurrekari sekular hartatik hartu zuen eredua eta apezpikuen eskualde-batzarretara **dei egiten** hasi zen. Iñaki Mendiguren

Lehena preso alemanei **dei egin** zitzaien armadan sar zitezen. Marzel Etxehandi

-Baina hori esateko **dei egin** al diguzu? Aitor Arana

Bera izan zen, aitzakiaren bat tarteko, ondorengo egun batean telefonoz **dei egin** zidana. Joxean Agirre

· Askoz ere gorago igotzeko eginak gara, eta **dei** eta gonbita egiten digun Jainko leialak oso gaizki ikusten du guk ezerezkeria horiekin aski izatea. Joan Mari Lekuona

· *irud/hed* Arma haiek **dei egiten** zioten iragan hurbilari. Bernardo Atxaga

Bi hitz horiek nire "background" literario eta sentimental guztiari **dei egiteko** boterea dute. Ramon Saizarbitoria

Hitz batek beste bati **dei** egiten ziolako, bertsolariei gertatzen zitzaien antzera. Ramon Saizarbitoria

## 11 *dei egin*sup_2 *(egin ezabaturik)*

Jesusek lehen ikasleei **dei** . Elizen arteko biblia

Jaunak konbertsiora **dei** . Plaza iragaten ari zela, taberna zulotik **dei** . Koldo Izagirre

Txerri-itxurako eltzeitsu txiki bat eros nezakeen eta poltsikoan eraman, balizko iraintzaileak txanpona bota ziezadanerako, txanpona eltzeitsuan jaso eta iraintzaileari itzul bainiezaiokeen era hartan, txerriak txerriari **dei** . Joan Mari Irigoien

## 12 *dei eta dei*

Hori, telefonoz deika ez dihardutenean, ze gauez **dei** eta **dei** ibili omen dira, neskak eskaintzeko. Edorta Jimenez

Untziak dantzan bezala ari, gizon batzuk **dei** eta **dei**, jendea bildu beharrez. Janbattitt Dirassar

Dena den, denak ari dira **dei** eta **dei** . Herria

Denbora berean, saltegiak ere nola ez dira apaintzen! **dei eta dei** ari zaizkigu, dena kantu eta musika, Eguberri aintzinetik agurtuz, zernahi gauza eskainiz, jostagailu eta gaineratiko...! Herria

## 13 *dei gorte ipar*

Baionako auzitegian garrazki kondenatuak izan baitziren 63 "Demoak" trenbidetan musean artzea gatik, Paueko **dei gorteak** kondenua doi bat arindurik ezarri du. Herria

Paueko **dei gorteak** atzo Baionako auzitegiak aurtengo urtarrilaren 8an lehen instantzian ezarritako isunak emendatzea erabaki zuen: 52.920 euro dira guztira. Berria - Euskal Herria

Bordeleko **dei gortera** joko dute, aitzina egiteko asmoz, prefeta edo suprefetaren beldurrik gabe. Herria

Anartean, berak dei egina du Pariseko **dei-gorte** gorenerat eta auzitegi horrek kasua aztertzekoa du urriaren 8-an. Herria

Ikusiko orain ea dei eginen duen Paueko **dei gortearen** aitzinera. Herria

Pariseko **dei gorte** gorenak trenkatu du auzia: [...] Segi gazte mugimenduko hiru lagunak ez dituzte Espainiaratuko. Herria

Yolanda Molina abokatua auzitan pasatu da Paueko **Dei gortean** . Herria

Demoak **dei gortean** kondenatuak. Herria

Paueko **dei gorte** sozialak kalte ordainik batere gabe utzi ditu Ruwel-eko 162 langile ohiak. Herria

## 14 *dei helegite*

Elosua, Lamarca, Pelaez eta Esnaola abokatuek **dei helegiteen** defentsa egin zuten atzo Auzitegi Nazionalean. Berria - Euskal Herria

Juan Maria Atutxa, Gorka Knörr eta Kontxi Bilbaoren auzia bertan behera gelditzeko eskatzen zuen **dei helegitea** atzera bota zuen atzo EAEko Auzitegi Nagusiak. Berria - Euskal Herria

Erabaki honen aurka **dei helegitearen** bidea hartu eta gaurko egunean horretan daude. Berria - Euskal Herria

Orduan ere Ministerio Fiskalak Herrizaingo sailburuak aurkeztutako **dei helegitearen** alde egin zuen. Berria - Euskal Herria

Auzipetzeen aurkako **dei helegiteei** buruzko auzi-saioa aurki da egitekoa. Berria - Harian

Abokatuek **dei helegiteak** aurkeztu zituzten Zigor Aretoan. Berria - Euskal Herria

**Dei helegitea** aurkeztuko dute orain auzipetuek, Zigor Aretoaren aurrean. Berria - Euskal Herria

## 15 *hel dei* laguntza eskatzeko deia.

Jakina, edozein momentutan jaiki eta bagoitik jaistea daukazu, edota liburua itxi eta hel **deiak** egitea. Javi Cillero

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**aaroni dei egin** (8); **batasunak dei** (8); **batek dei** (13); **bati dei** (22); **bati dei egin** (14); **beste dei** (16); **beste dei bat** (10); **da dei** (11)

**dei anonimo** (9); **dei auzitegiak** (14); **dei bat** (298); **dei bat egin** (36); **dei bat egiten** (15); **dei bat ere** (8); **dei bat jaso** (45); **dei bat luzatu** (9); **dei bat luzatzen** (9); **dei bat zabaldu** (13); **dei bat zabaldua** (12); **dei bat zabaltzen** (8); **dei batek** (16); **dei baten** (35); **dei baten bidez** (13); **dei bera** (9); **dei berezi** (10); **dei berezi bat** (10); **dei berezia** (27); **dei berezia egin** (17); **dei daiteke** (11); **dei daitekeen** (11); **dei dakioke** (29); **dei dezala** (9); **dei diezaiokegu** (10); **dei egin** (949); **dei egin behar** (16); **dei egin die** (69); **dei egin diete** (21); **dei egin dio** (25); **dei egin diote** (11); **dei egin du** (28); **dei egin dute** (22); **dei egin eta** (115); **dei egin nahi** (13); **dei egin nion** (13); **dei egin zien** (149); **dei egin zieten** (30); **dei egin zion** (172); **dei egin zioten** (23); **dei egin zuen** (44); **dei egin zuten** (9); **dei egina** (13); **dei eginen** (15); **dei eginez** (43); **dei egingo** (32); **dei eginik** (26); **dei egiozu** (8); **dei egitea** (22); **dei egitean** (10); **dei egiteko** (27); **dei egiten** (224); **dei egiten die** (18); **dei egiten diegu** (28); **dei egiten dio** (8); **dei egiten diogu** (10); **dei egiten du** (16); **dei egitera** (9); **dei eta** (38); **dei gehiago** (9); **dei gorteak** (15); **dei hau** (16); **dei helegitea** (27); **dei hori** (38); **dei horren** (13); **dei horri** (13); **dei hura** (16); **dei jaso** (13); **dei zabala** (10); **dei zuzena** (22); **dei zuzena egin** (18)

**du dei** (9); **egin zion dei** (21); **egindako dei** (12); **eginiko dei** (8); **egiteko dei** (15); **egiteko dei egin** (11); **ere dei** (46); **ere dei egin** (13); **eta aaroni dei** (8); **eta dei** (118); **eta dei bat** (15); **eta dei egin** (47); **eta dei egiten** (14); **gizarteari dei** (8); **guztiei dei** (33); **guztiei dei egin** (25); **hartzeko dei** (13); **hartzeko dei egin** (9); **hartzera dei** (9); **herritarrei dei** (15); **herritarrei dei egin** (10); **ikasleei dei** (10); **izenari dei** (8); **jarritako dei** (9); **jaunak dei** (8); **jaunak dei egin** (8); **jaunari dei** (18); **jaunari dei egin** (8); **nik dei** (14); **nion dei** (8); **parte hartzeko dei** (10); **paueko dei** (34); **paueko dei gorteak** (11); **poliziari dei** (10); **poliziari dei egin** (9); **telefono dei** (105); **telefono dei bat** (37); **telefono dei baten** (13); **telefonoz dei** (10); **zien dei** (8); **zion dei** (25); **zuen dei** (16); **zuri dei** (10)

**aldeko deia** (27); **aldeko deia egin** (9); **ateratzeko deia** (11); **ateratzeko deia egin** (9); **azken deia** (10); **bat egiteko deia** (19); **batasunerako deia** (15); **batasunerako deia egin** (9); **baten deia** (20); **baten deia jaso** (12); **baterako deia** (15); **batzeko deia** (13); **batzeko deia egin** (11); **biltzeko deia** (21); **biltzeko deia egin** (18); **boikotatzeko deia** (8); **borrokarako deia** (9); **bozkatzeko deia** (24); **bozkatzeko deia egin** (16)

**deia berretsi** (10); **deia da** (8); **deia egin** (967); **deia egin die** (62); **deia egin diete** (26); **deia egin dio** (28); **deia egin du** (159); **deia egin dute** (88); **deia egin nahi** (9); **deia egin zien** (155); **deia egin zieten** (30); **deia egin zion** (54); **deia egin zuen** (197); **deia egin zuten** (81); **deia egina** (12); **deia egingo** (18); **deia egitea** (8); **deia egiteko** (14); **deia egiten** (75); **deia egiten diegu** (8); **deia egiten du** (18); **deia entzun** (24); **deia ere** (37); **deia ere egin** (21); **deia eta** (30); **deia izan** (17); **deia jaso** (75); **deia jaso eta** (10); **deia jaso zuen** (19); **deia jaso zuten** (13); **deia jasotzen** (8); **deia k** (9); **deia luzatu** (61); **deia luzatu zien** (11); **deia luzatu zion** (9); **deia luzatu zuen** (8); **deia luzatzen** (8); **deia zabaldu** (40); **deia zabaldu zuen** (8)

**egindako deia** (14); **egiteko deia** (108); **egiteko deia egin** (73); **egoteko deia** (12); **egoteko deia egin** (8); **elkarlanerako deia** (13); **elkarlanerako deia egin** (8); **elkarrizketarako deia** (11); **elkarrizketarako deia egin** (9); **emateko deia** (32); **emateko deia egin** (21); **eraikitzeko deia** (8); **erantzuteko deia** (13); **erantzuteko deia egin** (10); **errespetatzeko deia** (11); **eta deia** (21); **eusteko deia** (8); **gisa hartako deia** (12); **grebarako deia** (15); **grebarako deia egin** (10); **hartako deia** (13); **hartzeko deia** (180); **hartzeko deia egin** (134); **hartzeko deia luzatu** (8); **ibiltzeko deia** (12); **ibiltzeko deia egin** (12); **indarrak batzeko deia** (9); **izateko deia** (8); **jarraitzeko deia** (20); **jarraitzeko deia egin** (13); **joateko deia** (115); **joateko deia egin** (80); **jokatzeko deia** (17); **jokatzeko deia egin** (12); **kalera ateratzeko deia** (8); **lan egiteko deia** (14); **larrialdi deia** (17); **larrialdi deia egin** (10); **lasaitasunerako deia** (24); **lasaitasunerako deia egin** (21); **lehen deia** (8); **manifestaziora joateko deia** (30); **manifestaziorako deia** (40); **manifestaziorako deia egin** (20); **mobilizatzeko deia** (13); **mobilizaziorako deia** (16); **mobilizaziorako deia egin** (8); **negoziatzeko deia** (10); **negoziatzeko deia egin** (8); **parte hartzeko deia** (157); **telefono deia** (44); **telefono deia jaso** (10); **uzteko deia** (18); **uzteko deia egin** (10); **zuen deia** (15); **zure deia** (9)

**deiak egin** (12); **deiak eta** (16); **deiak ez** (8); **deiarekin bat** (10); **deiaren zain** (27); **deiari erantzun** (19); **deiari erantzunez** (22); **deiari ihardetsiz** (9); **deirik egin** (11); **deirik ez** (15); **deirik jaso** (13); **egindako deiak** (9); **egindako deiari** (14); **sos deiak** (24); **sos deietara** (10); **telefono deiak** (34); **telefono deiaren** (8); **telefono deirik** (10)

---

# deiadar *(ETCn 2.279 agerraldi; orobat* ***deihadar*** *g.er.)* **1** *iz* oihua.

Horrek ematen dizu indarra, ez sarjentaren **deiadar** eta irainek. Xabier Montoia

Sirenak, **deiadarrak** , biraoak, autoen motor-hotsak. Anjel Lertxundi

Filistearrek, **deiadar** hura aditzean, esan zuten: [...]. Elizen arteko biblia

**Deiadar** eta iskanbila artean, Jauna goretsi zuten beren arbasoen hizkuntzan. Elizen arteko biblia

**Deiadar** larrian esnatu zen Nathaniel. Anjel Lertxundi

Baina, dirudienez, ez zuen begiko egiten ari nintzena, eta **deiadar** batez eman zidan agindua: [...]. Juan Martin Elexpuru

Ilunabarrean **deiadarra** hedatu zen gudu-zelaian: "Nor bere hirira! Nor bere lurraldera!". Elizen arteko biblia

Haren belarrietaraino heldu zen nire **deiadarra** .

Zintzurra urratu eta lepoko zainak lehertzerainoko **deiadarra** egin zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Baina Lecœur andreak eta La Sarriettek txundidurazko **deiadarrak** egiten zituzten. Karlos Zabala

Haren **deiadarrek** eta katearen tirazoek nerbioak txikitzen zizkidaten. Koro Navarro

Gela guztia arrastoz beterik omen zeukan, milaka arrasto oroimenari **deiadar** mutuka. Pako Aristi

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Deiadar** handiz eta negar-malkoz egin zion otoitz. Elizen arteko biblia

-Harry! -Wooden **deiadar** larria iritsi zitzaion Gryffindorreko zutoinetatik-. Iñaki Mendiguren

Aluanek ez al du egundo entzun bizilagunei nolako **deiadar** ozpinduak egiten dizkien. Patxi Zubizarreta

**Deiadar** zatikatzailerik aireratu gabe, ez baita inor mintzerik komeni Habanako Unibertsitateko honetan. Edorta Jimenez

Bat-bateko **deiadar** batek bere lana egina zegoela adierazi zion Hermioneri. Iñaki Mendiguren

Kanpaien **deiadar** asaldatua entzuten zen, suteen distira gorri bizia ikusten zen. Jose Morales

Izpirituaren oihua, **deiadar** sinestezinez zeruak urratzen dituena. Joan Mari Lekuona

Ez nuen borrokan jarraitu, baina etsipenezko **deiadar** ozen, luze eta atzeneko batean aurkitu zuen hustubidea nire arimaren agoniak. Koro Navarro

**Deiadar** izutua zen isiltasunari entzuten ari nintzaiona, eta entzuten ari nintzaion baita ere ni nintzela, neu bakarrik, gurasoek bizi zuten eguneroko kabitu ezin itogarriaren kausa. Anjel Lertxundi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zure marinelen **deiadar** -hotsaz dardara egingo du itsasertzeko jendeak. Elizen arteko biblia

Entzuleen artean, ozenago bilakatu ziren marmarrak Ulibarriren jauregi ederrean, **deiadar** olatu hazkor bihurtu arte. Txillardegi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abisatu gabe, turuta- **deiadarrik** gabe, hemen da, eta bera erdi-erdian dago. Oskar Arana

Kanpalekura heldu zenean, gudarostea borrokara ateratzen ari zen, gudu- **deiadarrak** eginez. Elizen arteko biblia

Gizonei "Jainkoa garaile!" eman zien gudu- **deiadartzat** eta, gudari gazte hoberenak harturik, erregearen kanpalekuari eraso zion gauez. Elizen arteko biblia

Izu- **deiadarrak** entzuten dira: beldur-ikara, eta onik ez! Elizen arteko biblia

Gerra **deiadarra** zabaldu denean. Edorta Jimenez

Juditek hitzaldia bukatzean, herriak oihu handiak egin zituen eta hiri osoa poz- **deiadarrez** bete zen. Elizen arteko biblia

## 5 *deiadar batean* deiadar eta deiadar eginez.

**Deiadar batean** hasi zen, piztia basatien gisara orroka: [...]. Patxi Zubizarreta

Gogoan geratu omen zitzaion luzaroan Txikia lurperatu zutenean Andres Debak, Beasaingo Institutuko atezainak, **deiadar batean** egindako aldarria: "Hemendik aterako dituk ernamuinak". Xabier Mendiguren Elizegi

Inauterietako erreginaren jantziz, **deiadar batean** segitzen dio semearen hilkutxari: [...]. Iñigo Aranbarri

Batzar osoak **deiadar batean** erantzun zuen: -Bai, zeuk esan bezala egingo dugu! Elizen arteko biblia

## 6 *deiadar egin*

Besoak buruaren gainetik luzatuta, Susiek **deiadar egin** zuen: [...]. Lopez de Arana

"Lucy!", egiten du **deiadar** . Oskar Arana

'Denak ilaran irten eta trenaren kontra!' **deiadar egin** du beste soldadu batek. Joseba Sarrionandia

Oroitu egin baitzuen nola, bere lankide eta lagun batekin liskartu zen batean, **deiadar egin** zion: "Kaleko emakumea! Patxi Zubizarreta

Behin eta berriro **deiadar egin** zion atzetik santuari, erruki zekiola eskatuz, hil egingo zela-eta egarria arintzeko ur pixka bat ez bazuen. Askoren artean

Egin **deiadar** , herri-agintariok, egin garrasi, iraulkatu hautsetan, artaldearen gidariok! Elizen arteko biblia

Eta ahots handiz egiten zuten **deiadar** : "Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamena". Elizen arteko biblia

Oihuka egin nion Jaunari **deiadar** . Askoren artean

Hau zioen Amosek: Orroa dagi Jaunak Siondik, **deiadar** Jerusalemdik; larreak galduak dira, Karmel gaina lehortua. Elizen arteko biblia

Larrialdian dei egin nion Jaunari, **deiadar** ene Jainkoari. Elizen arteko biblia

· Jesusek, **deiadar** handia eginez, azken arnasa eman zuen. Elizen arteko biblia

**Deiadar** min eta izuzkoak eginen zituela. Jon Muñoz

· Kaio zuriek **deiadar** Agustin Otsoa

## 7 *deiadarra jo*

Oraindino ez da horien ehizean hasteko **deiadarra** jo. Edorta Jimenez

**Deiadarra jo** zuten eta hondartzan metatu ziren herritarrak. Ramuntxo Etxeberri

Laborariek **deiadarra jo** dute, Estatuak departamendu hau lurralde kaltetuen zerrendan ezar dezan, laborarieri araberako laguntzak ekarriak izan diezazioten. Herria

## 8 *deiadarrean* deiadarrez, deiadarka.

Eta bestea **deiadarrean** hasten zela ikusita, ama Méhudin altxatu egin zen. Karlos Zabala

**9** ***deiadarrez*** deiadarka.

Itsas orroa bezalako **deiadarrez**, zaldiz datoz, borrokarako lerroturik, zure aurka, Babilonia hiri eder. Elizen arteko biblia

Gizaki honek, horrela inguraturik dagoenean, hain estura sakona jasaten du, non Jainkoagana jasotzen baitu bere oihua esan ezinezko **deiadarrez**, zeruak jo eta pasa nahiz. Joan Mari Lekuona

Aitaren heriotzaren nolakoa, haren ehorzketaren iluna -ez ikur, ez ezpata, ez armarririk hilobian, ez errito noblerik, ez zeremonia formalik- **deiadarrez** daude, zerutik lurrera hoska irudi, ditzadan kontu garbiak eska. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adi nire deiadarrari** (3); **berriro deiadar** (3); **degiot jaunari deiadar** (4); **deiadar bat** (4); **deiadar batean** (5); **deiadar bipila** (3); **deiadar degizut** (3); **deiadar egin** (145); **deiadar egin du** (3); **deiadar egin eta** (3); **deiadar egin nuen** (4); **deiadar egin zien** (7); **deiadar egin zion** (22); **deiadar egin zioten** (6); **deiadar egin zizuten** (3); **deiadar egin zuen** (71); **deiadar egin zuenean** (3); **deiadar egin zuten** (7); **deiadar eginez** (3); **deiadar egingo** (8); **deiadar egitean** (5); **deiadar egiten** (14); **deiadar eta** (6); **deiadar handia** (4); **deiadar handiz** (4); **deiadar handiz eta** (3); **deiadar ozpinduka** (6); **deiadarra bota** (4); **deiadarra egin** (4); **deiadarra egin zuen** (3); **deiadarra entzun** (6); **deiadarra eta** (5); **deiadarra jo** (3); **deiadarra zabaldu** (3); **deiadarrak entzutean** (3); **deiadarrak entzuten** (3); **deiadarrak eta** (3); **deiadarrik ez** (3); **du deiadar** (10); **egin deiadar** (5); **egin zuen deiadar** (12); **egiten du deiadar** (6); **eske deiadar** (7); **eske deiadar egin** (3); **eske deiadar egitean** (3); **eta deiadar** (29); **eta deiadar egin** (15); **eta deiadarrak** (8); **jaunari deiadar** (5); **laguntza eske deiadar** (7); **nire deiadarra** (9); **nire deiadarrari** (3); **zen nire deiadarra** (3); **zuen deiadar** (13); **zuten deiadar** (3):aldeko deiadarra (3)

---

# deiadarka *(orobat **deadarka**)* *adlag* deiadar eginez. ik **deiadar 9; oihuka**.

Pete aditu dut, niri **deiadarka**. Mirentxu Larrañaga

Ahots bortitz bat entzun zuen orduan, **deiadarka**, inondik ere Goi Egiptoko azentuarekikoa. Patxi Zubizarreta

Orduan, ordezkari nagusiak, zutiturik, **deiadarka** esan zuen hebreeraz mintzatuz: [...].

Bere ikasleek, ondoraturik, eskatu zioten: "Kasu egiozu, **deiadarka** baitatorkigu atzetik". Joan Mari Lekuona

Jendeak **deiadarka** eta eztarria urratu beharrean onetsi zituen emakumearen hitzak. Anjel Lertxundi

-Ergel hutsa haiz -Husain, bortitz, **deiadarka**-. Patxi Zubizarreta

**2** ***deiadarka egin*** deiadar egin.

Ozenki egiten zuten **deiadarka**, esanez: "Noiz arte, Jaun santu eta egiazko horrek, ez diguzu justizia egin behar, gure hilketa lurrean bizi direnen lepotik mendekatu gabe utziz?". Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat deiadarka** (3); **deiadarka ari** (12); **deiadarka ari zen** (3); **deiadarka esan** (7); **deiadarka esan zuen** (4); **deiadarka eta** (4); **deiadarka hasi** (18); **deiadarka hasi zen** (8); **eta deiadarka** (19); **eta deiadarka hasi** (5); **oihuka eta deiadarka** (3)

---

# deiadarkari *izond/iz* deiadar egiten duena.

Zorigaiztoko bala bat txistuka abiatu dela jadanik berarengana, eztarri **deiadarkari** hori behin betiko isilaraztera. Jose Morales

Zer oihukatzen dute ebidentzien aldarrikariek; zer egia eztabaidaezinen **deiadarkariek**, norbait isilarazi nahi dutenean? Jon Muñoz

---

# deiadarkatu, deidarka(tu), deiadarkatzen *(orobat **deihadarkatu**)* du *ad* deiadar egin. ik **oihukatu**.

"Ama!" **deiadarkatuz**. Itxaro Borda

Etxegorri bikario ohiak, ez hain aspaldi kalonje izendatuak egin zuen predikua, herriko haur koruak, artzain-artistak moldatu kanta **deiadarkatzen** zuela. Itxaro Borda

Entzungo diezu "bakea, bakea" **deihadarkatzen** zapalduak oro batzen direnean. Patziku Perurena

---

# deiadarraldi *iz* deiadar joaldia.

Abisatu gabe, turuta-**deiadarrik** gabe, hemen da, eta bera erdi-erdian dago. Oskar Arana

---

# deiadarrarazi, deiadarraraz, deiadarrarazten du *ad* oihukarazi.

Unearen ahulaz baliatzen zen Jules nonbait harrapatu (ez bide zuen ebatsi?) konpaktu-irakurgailuan Yvesen lepoko zorrotik bristan ilki bederatzigarren sinfoniaren bosgarren mugimenduaren **deiadarrarazteko** Itxaro Borda

---

# deiadartu, deiadar(tu), deiadartzen du *ad* deiadarkatu.

Han edo hemen gazteak erakunde klandestinoan sartzen dira Herriaren askatzeko, jo ta ke irabazi arte **deiadartzen** dutela! Itxaro Borda

Zein errepika zen? *Hertzainak* taldeak eskaintzen ziguna? Jutsin demagun, euripean arto-landak handitzen zirela edo Garindainen, bizkarra kontuarrean bermatuz **deiadartzen** nuen "Estatuari gerra, gerra beti, bakean utzi arte!" zoragarri hura? Itxaro Borda

---

# deiadartxo *iz* deiadar txikia.

Hermannek pozezko **deiadartxoren** bat egin zuen. Anjel Lertxundi

---

# deialdi *(ETCn **21.937** agerraldi)* **1** *iz* norabait joateko, nonbait biltzeko edo zerbaiten parte hartzeko deia.

Errepublikako gudarosteek **deialdi** ez ohikoak egin zituzten boluntarioak errekrutatzeko. Jon Maia

Baiaren ala ezaren alde dena den, bada orai zernahi bilkura, hitzaldi eta **deialdi**. Herria

Nafarroako Estatuen **deialdia** ere egina zagok. Aingeru Epaltza

Biltzar nagusi baterako **deialdia** egitea erabaki zuten, afalondorako, jangela-egongelan. Jon Muñoz

Manifestaziorako **deialdia** egin duten alderdi eta eragileak Nazio Eztabaidaguneko ingurukoak direla uste du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

**Deialdia** euskal gizarte osoari zabaldu nahi diote eta manifestazioan parte hartzeko eskatu dute Elkarlanekoek. Berria - Euskal Herria

Taldeak **deialdi** berezia egin die zaleei Lizarrako kiroldegia bete dezaten. Berria - Kirola

Botoa ematera joateko **deialdia** egin dute 25ek. Berria - Mundua

«Bakearen eta presoen askatasunaren aldeko bozka» emateko **deialdia** egin zuen, hain justu. Berria - Mundua

Hauteskundeak aurreratu egin behar dira, garbi dago, eta ziurrenik egun gutxi barru zabalduko da **deialdia**. Migel Angel Mintegi

**2** (izenondoekin)

Udalbideren batzarra ez zelako egin **deialdi** irekiaren bidez. Berria - Euskal Herria

Batasunak ez zuen **deialdi** propiorik egin, eta Udalbiltzak Iruñean egindakoarekin bat egin zuen. Berria - Euskal Herria

Horrek eraginda etorri dira oraingo mobilizaziorako **deialdi** bateratuak. Berria - Euskal Herria

Joan den martxoaren 29an EHUko sindikatu guztiek [...] grebarako **deialdi** arrakastatsua egin zutenetik, egoera apur bat aldatu da. Berria - Euskal Herria

Euskal Herria politikoen herria da, ekintza, egitasmo, proiektu eta **deialdi** politikoen superabit nabarmena daukana beste edozein giza-alorren ondoan. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hauek dira orain artean manifestazioaren **deialdi** agiriari atxikimendua agertu dioten eragileak: [...]. Berria - Euskal Herria

*Gymnasium*era bidean, udaletxeko atarian gelditzen ginen errekruten **deialdi** -taula begiratzeko. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oasira heldu zirela ia hilabete betetzear zegoela Karabanako Buruak bilera **deialdia** egin zien guztiei. Ikertzaileen 13 sindikatuk eta Zientzia fakultateetako hainbat irakaslek egin zuten bat elkarretaratze **deialdiarekin** . Xabier Aranburu

Manifestazio **deialdiarekin** jadanik 34 gizarte eragilek eta 700 lagunek egin dute bat . Berria - Euskal Herria

Hegoaldean bi greba **deialdi** izan ziren (ekainaren 19an ELA eta LABena, eta 20an UGT eta CCOOrena). Berria - Harian

Lau edo bost soldadu-**deialdi** laster desmobilizatzekotan ei dira. Edorta Jimenez

EDFren kontrako boikot **deialdia** egin duzue berriki. Berria - Gaiak

**5** futbolean eta, partida baterako taldea osatzeko, entrenatzaileak jokalariak deitzea; deituak izan diren jokalarien multzoa.

Udan entrenamendu batzuk egiteko **deialdi** bati uko egin nionetik, ez naute deitu. Berria - Kirola

Min hartuta Mundialetik kanpo geratu ostean, iraganeko une gazi guztiak atzean uzteko eta beste bide bat hasteko balio dit **deialdi** honek. Berria - Kirola

Jose Anjel Iribar eta Migel Etxarri Euskadiko hautatzaileek atzo eman zuten hilaren 29an Hondurasen aurka jokatzeko egindako **deialdia** . Berria - Kirola

Riesgo eta Bergara lehen aldiz daude Lehen Mailako **deialdi** batean. Berria - Kirola

**Deialdi** honetan, hamabost jokalarietatik zortzi berriak dira. Berria - Kirola

Aspaldiko partez **deialdi** batean egon nintzen, eta jokatzeko aukera izan nuen. Berria - Kirola

**Deialdia** gaur goizean bertan ezagutaraziko du Aguirrek, azken lan saio arina egin ostean. Berria - Kirola

Argentinarrak lau partida daramatza Jose Maria Amorrorturen **deialdietatik** kanpo. Berria - Kirola

Raynald Denoueixek, beste behin, Reala Bko gazteekin bete behar izan du 18 jokalariz osaturiko **deialdia** . Berria - Kirola

Athleticen **deialdia** : Aranzubia, Pampin, Karanka, Yeste, Del Horno, Casas, Guerrero, Arriaga, Jonan, Solabarrieta, Prieto, Iraola, Murillo, Cesar, Gurpegi, Orbaiz, Tiko, Ezquerro, Urzaiz eta Etxeberria. Berria - Kirola

Javi Casas, **deialdian** . Berria - Kirola

**6** azterketa, lehiaketa edo kideko batera aurkezeko egiten den deia.

GAZTELUMA lehiaketaren **deialdia** . Herria

Datorren urteari begira, dena den, udako barnetegietako edo ikastaro trinkoetako ikasleentzat irailean beste **deialdi** bat egiteko aukera aztertzen ari direla azaldu zuten. Berria - Euskal Herria

**Deialdi** bat da, prozesu batean interprete-lana egin dezadan; akusatua nire herrialdeko errefuxiatu bat da. Eskarne Mujika

Proiektuak aurkezteko **deialdian** esaten da: «aurreko bi **deialdietan** jasotako erantzunek garbi erakusten dute Biologia Sintetikoa benetan bide egiten hasi den arloa dela». Berria - Gaiak

Bi **deialdi** zabaldu dituzte: euskal kantari bakarlarien lehiaketa eta eskultura baten egitea. Herria

Maiatzean argitaratuko dira laguntzak jasotzeko baldintzak zehazten dituzten **deialdi** publikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Berria - Euskal Herria

Egunkarian irakurri zuen Gipuzkoako Aurrezki Kutxak egindako berrehun lanpostutarako **deialdia** . Joan Mari Irigoien

Oposizioen **deialdiari** helegitea jarri diote sindikatuek. Berria - Euskal Herria

Joseba Jaka literatur beken **deialdia** aurkeztu zuen atzo Euskalgintza Elkarlanean fundazioak. Berria - Kultura

Iaz, **deialdi** honen bidez, 10.500 euroko laguntza jaso zuen irratiak. Berria - Euskal Herria

Nafarroan, herrialdeko gobernuak lizentziak banatzeko eskumena duenetik, bi **deialdi** antolatu ditu. Berria - Harian

Deialdia hutsik zela adierazi zuen Pedro Pegenautek, aurkeztutako eskaintzek **deialdi** publikoan ezarritako arauak ez betetzeagatik. Berria - Euskal Herria

Lanpostu **deialdia** . Herria

Oinarri berri batetik abiatutako diru laguntza **deialdi** berria behar dugu. Berria - Euskal Herria

**7** deia.

Telefono **deialdi** hark, nahitaez, nahasi ninduen. Daniel Landart

**Deialdi** bat ere egin zuen: «Mundu guztiak arretaz irakur dezala IRAk esateko duena eta batuta eta tinko mantendu dadila». Berria - Harian

Bada, Ernest Hemingwayk ez dio loriaren **deialdiari** huts egin nahi. Edorta Jimenez

**Deialdi** horrek berehalako erantzuna jaso du Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren partetik. Berria - Euskal Herria

Bruce Springsteenek Madison Square Gardenen jo zuen joan zen egunean eta New Yorkeko poliziak boikoterako **deialdia** egin eta bere diskoak puskatu zituen kontzertuaren sarreran. Harkaitz Cano

**8** (izenondoekin)

**Deialdi** anonimoak, mehatxuak, "bisitas" bere auzitegiko bulegoan, "bisitas" ere epaileen ordenagailuetan. Herria

Elkarlanerako **deialdi** zabala luzatu zuen hautetsiak. Berria - Euskal Herria

Ikurrinaren aldarrikapena eremu guztietara zabaltzeko **deialdi** berezia egin diete Iruñeko hainbat talde eta erakundek bertako biztanleriari eta eragileei. Berria - Euskal Herria

ETAri **deialdi** zuzena egin zion Ibarretxe lehendakariak, «argitu dezan euskal gizarteari libre eta demokratikoki erabakitzen utziko dion edo ez». Berria - Euskal Herria

**9** bigarren Mundu Gerrako konzentrazio esparruetan, biltzarra. ik **dei 6.**

Eguzkiaren lehen izpiekin batera, **deialdiarentzat** lerroan ezarri behar izan zuten, ohitura aspaldian hartua zuten bezala. Eneko Bidegain

**Deialdia** bururatu ondoan, preso bakoitzak bere ogi muturra eskuratu zuen. Eneko Bidegain

Hitzartu gara, arratsean, **deialdiaren** ondotik, isilik eta xutik, denak mendebalera itzuliko garela, etxekoez eta herriaz oroitzeko, eta otoitz egiteko ere. Marzel Etxehandi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina deialdi** (3); **beste deialdi** (5); **beste deialdi bat** (4); **bi deialdi** (3); **da deialdi** (4); **deialdi bakarra** (3); **deialdi bat** (17); **deialdi bat egin** (4); **deialdi batean** (8); **deialdi baten** (3); **deialdi bateratuak** (5); **deialdi berezia** (5); **deialdi berezia egin** (4); **deialdi berria** (4); **deialdi egin** (5); **deialdi egin dituzte** (3); **deialdi hau** (4); **deialdi hori** (6); **deialdi horren** (5); **deialdi horri** (3); **deialdi zabala** (10); **deialdi zabala egin** (7); **ere deialdi** (4); **eta deialdi** (4); **greba deialdi** (7); **hainbat deialdi** (5); **hainbat deialdi egin** (3); **telefono deialdi** (4); **zuen deialdi** (3)

**aurtengo deialdia** (3); **baterako deialdia** (5); **baterako deialdia egin** (3); **bere deialdia** (4); **biltzeko deialdia** (3)

**deialdia bere** (3); **deialdia bertan** (11); **deialdia bertan behera** (11); **deialdia da** (3); **deialdia dela** (5); **deialdia dela eta** (4); **deialdia egin** (95); **deialdia egin du** (17); **deialdia egin dute** (12); **deialdia egin duten** (5); **deialdia egin zien** (4); **deialdia egin zuen** (18); **deialdia egin zuten** (7); **deialdia egin zutenak** (3); **deialdia egingo** (5); **deialdia egitea** (6); **deialdia egiteko** (10); **deialdia egiten** (4); **deialdia erabat** (3); **deialdia ere** (5); **deialdia ere egin** (4); **deialdia euskal** (3); **deialdia hizkuntza** (3); **deialdia hizkuntza kontseiluak** (3); **deialdia jaso** (3); **deialdia luzatu** (7); **deialdia osatzeko** (7); **deialdia otsailean** (3); **deialdia une** (3); **deialdia zabaldu** (11); **deialdia zabaldu du** (4); **deialdia zabaldu dute** (3)

**diru laguntza deialdia** (4); **diru laguntzen deialdia** (6); **du deialdia** (9); **dute deialdia** (8); **egin du deialdia** (6); **egin dute deialdia** (3); **egin zuen deialdia** (7); **egin zuten deialdia** (3); **egindako deialdia** (3); **egiteko deialdia** (13); **egiteko deialdia egin** (8); **emango du deialdia** (3); **emateko deialdia** (4); **ere deialdia** (4); **eta deialdia** (5);

greba deialdia (33); greba deialdia bertan (5); greba deialdia dela (3); greba deialdia egin (3); grebarako deialdia (4); hartzeko deialdia (8); hartzeko deialdia egin (6); joateko deialdia (10); joateko deialdia egin (5); joateko deialdia jaso (3); jokalariko deialdia (6); jokalariko deialdia egin (4); laguntza deialdia (5); laguntzen deialdia (6); lehen deialdia (3); lurra deialdia (6); manifestaziorako deialdia (12); manifestaziorako deialdia egin (7); mobilizazio deialdia (3); p deialdia (4); parte hartzeko deialdia (8); partidarako deialdia (4); zuen deialdia (10); zuten deialdia (4)

aldeko deialdiak (4); aurreko deialdian (4); berritasunak deialdian (3); da deialdian (10); da deialdian sartu (5); deialdiak egin (4); deialdiak eta (3); deialdiak ez (6); deialdian dago (5); deialdian egoteko (4); deialdian egoteko aukerak (4); deialdian ere (6); deialdian ez (6); deialdian izango (4); deialdian izango da (3); deialdian sartu (50); deialdian sartu da (5); deialdian sartu ditu (4); deialdian sartu du (13); deialdian sartu zuen (4); deialdian sartuko (10); deialdian sartzea (4); deialdian sartzea erabaki (3); deialdian sartzeko (3); dira berritasunak deialdian (3); dira deialdian (6); ditu deialdiak (3); ditu deialdian (5); dituzte deialdian (6); du deialdiak (3); du deialdian (12); egiteko deialdiak (3); ere deialdian (9); eta deialdian (12); ez da deialdian (6); greba deialdiak (11); lehen deialdian (3); lurra deialdiak (9); mobilizazio deialdiak (3); partidarako deialdian (4); sartu ditu deialdian (3); sartu dituzte deialdian (4); sartu du deialdian (3); urteko deialdian (3); z deialdiak (5); zen deialdian (4); zuen deialdiak (3)

bat deialdiarekin (5); deialdiarekin bat (39); deialdiarekin bat egin (25); deialdiarekin bat egiteko (3); deialdiarekin bat egiten (4); deialdiarekin bat ez (3); deialdiaren arabera (5); deialdiaren aurka (6); deialdiaren berri (8); deialdiaren berri eman (3); deialdiari dagokionez (4); deialdiari erantzunez (3); deialdiari eustea (3); deialdiari eutsi (3); deialdiari jarraiki (3); deialdiari jarraikiz (4); deialdiari jarraituz (5); du deialdiarekin (6); duen deialdiarekin (4); duen deialdiarekin bat (3); duen deialdiaren (3); dute deialdiarekin (9); egin du deialdiarekin (4); egin duen deialdiarekin (3); egin dute deialdiarekin (8); egin zuten deialdiarekin (4); egindako deialdiarekin (5); egindako deialdiari (8); elkartearen deialdiari (3); greba deialdiarekin (8); greba deialdiarekin bat (4); greba deialdiaren (5); greba deialdiari (3); manifestazio deialdiarekin (3); zuten bat deialdiarekin (3); zuten deialdiarekin (5)

aurreko deialdietan (3); bereko deialdietan (3); bi deialdietan (3); deialdiekin bat (3); deialdietan behin (3); deialdietan emisio (3); deialdietan ere (6); deialdietan ere ez (5); deialdietan sartzen (4); deialdietatik at (6); deialdietatik kanpo (8); deialdietatik kanpo geratu (3); deialdiko berritasun (4); deialdiko berritasun nagusiak (3); deialdira itzuli (6); deialdira itzuli da (5); deialdirik egin (3); deialdirik egingo (4); deialditik at (10); deialditik at geratu (4); deialditik at utzi (3); deialditik kanpo (63); deialditik kanpo gelditu (3); deialditik kanpo geratu (15); deialditik kanpo geratuko (3); deialditik kanpo utzi (23); dira deialdiko (4); eta deialditik (6); eta deialditik kanpo (5); gisa bereko deialdietan (3); hauteskunde deialdietan (4); lurra deialdiko (3)

---

# **deialdigile** *iz* deialdi bat egiten duen pertsona.

Eguerdiko 12: 00etan milaka nekazari biltzea espero dute **deialdigileek**. Berria - Ekonomia

---

# **deiarazi**, deiaraz, deiarazten *(orobat **deitarazi** g.er.)* du *ad* deitzera behartu.

Sultanak **deiarazi** zituen eta etorri ziren haren oihal-etxolara. Askoren artean

Faraoiak, orduan, Egiptoko jakintsuak eta aztiak **deiarazi** zituen; eta hauek ere, beren aztikeriez, gauza bera egitea lortu zuten: nork bere makila jaurti eta suge bihurtu zen. Jose Antonio Mujika

Egun batez ohetik jaiki eta, oraindik sukarretatik libre ez zegoela, plazara **deiarazi** zuen Asisko herria predikurako. Eider Rodriguez

**Deiarazi** zuen berehala anaia hura eta agindu zion bertantxe aitor zezala bere barruan sortutako gorrotoaren pozoia. Askoren artean

Leoni **deiaraziko** diot, eta hura etorriko da eztabaidatzera. Josu Zabaleta

Pepponek gauerdi aldera **deiarazi** zion On Camillori, baina On Camillo heldu zenerako mutila hilotz zegoen. Koldo Biguri

Hortaz, arren niri telefonoz **deiaraziko** al diozu, Zuk? Mirentxu Larrañaga

Memento berean haatik, Angel Acebes espainol barne-ministroak auzitegirat **deitarazi** ditu Martxelo Otamendi, Iñaki Uria, Xabier Alegria eta Xabier Oleaga, tortura salaketak egin dituztelakotz, Madrilgo poderearentzat ez baiditaike torturarik izan espainol estadoan. Herria

Ez ditu ere entzun nahi ukan abokatek **deitarazi** 46 lekukoak, horietan eüskalzale ezagutu frango izanki! Herria

· David gotorleku hartan gelditu zen bizitzen, eta Daviden Hiri **deiarazi** zuen. Elizen arteko biblia

---

# **deiegile** *iz* dei egiten duen pertsona.

Zirkinik ere egin gabe, joka utzi nuen telefonoa, **deiegilea**, nornahi zela, aspertzeko ustean. Aingeru Epaltza

---

# **deigarri** *(ETCn **5.657** agerraldi)* **1** *izond* jendearen oharmena erakartzen duena.

Idazmahaian, berriz, zilarrezko marko **deigarri** batean, emakume bat. Migel Angel Mintegi

-Emakume bat aurkitu behar duzu, ilehori **deigarri** bat, apartekoa esan didatenez -begira geratu zitzaion. Migel Angel Mintegi

Kolore **deigarri** bakarra bere betaurrekoen euskarriaren arrosa zen. Bernardo Atxaga

Artearekin zerikusia zutenak izaki, oso desberdinak ziren argazkiak, baina denak egiten zitzaizkidan kilikagarriak, interesdunak, **deigarriak**, garden eta zehatzak... Anjel Lertxundi

Norbaitek 25 zentaboko txanpona bota zuen disko-jogailuan, 50eko hamarkadako juke-box hortera eta **deigarrian**. Iñaki Zabaleta

Arkitektura zibil **deigarri** gutxi egin da Italian. Anjel Lertxundi

Kondea aulki beltz **deigarri** garai batean eserita zegoen mahaiaren aurrean. Matías Múgica

Bere berezitasun guztien artean **deigarriena**, eta minik handiena ematen ziguna, bere borrokarako erresistentzia zen. Bernardo Atxaga

Europako mundu-ekonomiaren hedapenaren ezaugarri **deigarrienetako** bat. Koro Navarro

Taniari begira, oso ederra zelako, ez **deigarria**, baina bai berezia. Jon Muñoz

Haren hitzetan erratera, dotorea, baina ez karioa; ikusgarria, baina ez **deigarriegia**; modernoa, baina ez nabarmenegia. Aingeru Epaltza

**Deigarriena**, ezker orrialdeko azpiko zatidura: "Praktika satanikoak gure hirian?". Aingeru Epaltza

Leihoen inguruko eta teilatu-hegalaren azpiko erlaitzek abarrak eta loreak zeuzkaten zizelaturik, eta, zura berria zenez, oso modu **deigarrian** nabarmentzen ziren horma ilunen aldean. Jose Morales

**2** (izan eta kideko aditzarekin)

**Deigarria** zen gizon handi sendo hark zer esku delikatu luzeak zituen. Matías Múgica

**Deigarria** ere bazen datu hori. Unai Elorriaga

Janzkera, aldiz, askoz **deigarriagoa** zen. Jose Morales

Auschwitz-ekoa gertatu eta gero poesia egiten jarraitu dugu, baina hori baino **deigarriagoa** da antisemitismoa ez desagertu izana. Anjel Lertxundi

Bada, lehendik ezagutua nuen edabea baino **deigarriago** liburuak zitzaizkidan-eta, bat hartu nuen. Edorta Jimenez

Forma batzuk oso **deigarri** zitzaizkion. Xabier Olarra

Hiritar gizona zen, eta baserriko lilura ez zitzaion **deigarri**. Elena Touyarou

Jende xehearentzat **deigarri**, beldurgarri edo txundigarri gertatu izan da. Xabier Olarra

· Izenburua, berriz, **deigarria** zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Jatetxeak, gazte independentista batzuena, esan zigutenez, eta janari aldetik aitzakiarik gabea, dekorazio zinez **deigarria** zuen. Bernardo Atxaga

Plamaren laurden bat hartzen du argazki zuri-beltzak, baina neurria bezain **deigarria** du konposaketa ere: argazkiaren ezkerraldean nago ni, lehen planoan, burua pixka bat jiraturik kamera aldera. Anjel Lertxundi

· Gertatu zirenetatik baliagarria edo onesgarria edo interesgarria edo **deigarria** iruditzen zaiguna irazten dugu denboraren galbahean, eta ahalegin berebizikoak egiten ditugu kaltegarria edo oinazetsua zitzaiguna albo batera gera dadin. Anjel Lertxundi

Bada, ordea, kontakizun honetan **deigarri** eta harrigarri gertatzen den gauza bat: mendeku egarria. Jose Antonio Mujika

**3** (adizlagun gisa)

Beste batzuek losintxa egiten dihardute, oihalaren gelditasunetik; eta denek dute zertxobait, lore bat, bitxi bat, arroparen toles bat, ezpain izur bat, margolariak **deigarri** jarria. Josu Zabaleta

Eta igobidean oina jarrita neukala, hara non bi gizon agertu, **deigarri** handiak, eta alde bietan jarri zaizkion Lakatosi. Matías Múgica

**4** ***deigarri egin*** *(**15** agerraldi **9** liburutan; ETCn **70** agerraldi; **egin deigarri 6** agerraldi **5** liburutan)*

Ildo horretan, **deigarri egin** zait lehen serbokroata zen hizkuntza hura, egun, bitan banatu dela. Edorta Jimenez

Halabeharrak ekarri zidan lehen gauza, **deigarri egin** zitzaidan lehen errealitate izpia, Didier eta Simone nire lagunak bizi ziren eraikinaren sarrerako atea izan zen. Bernardo Atxaga

Ustekabeko isiltasuna **deigarri egin** zitzaion, nonbait, ontziburuari. Edorta Jimenez

Gogoan dut zein **deigarri egiten** zitzaidan amak "ukitu" eta aitak "ikutu" esatea. Ana Urkiza

Prezio urria baino areago, kontratuaren buruan azaltzen zen data **egin** zitzaion **deigarri**. Bernardo Atxaga

**5** ***deigarria egin*** *(**17** agerraldi, **7** liburu eta **7** artikulutan; ETCn **204** agerraldi; **egin deigarria 3** agerraldi **3** liburlutan)*

Neska batek hain zuzen hitz egitea **deigarria** egiten zitzaion. Bernardo Atxaga

Esmalte zuriaren koloreko liburu-apalategia **deigarria egin** zitzaion begietara. Mirentxu Larrañaga

**Deigarria egin** zitzaion, bitxiaz gainera, ez halako triskantza eta sarraskia gogoratzea, baizik eta kanta bero eta doinu argiko batez gogoratzea. Felipe Juaristi

Niri burezurra bera **egin** zitzaidan **deigarria**; izan ere, ez dakit zergatik [...] gizon argi bati zegokiola iruditu baitzitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Hurbiltasuna **egiten** zait **deigarria**: jakitea, ni jolasean ibiltzen nintzen bazter haietan, handik metro gutxira neuzkala bahitua eta bahitzaileak. Xabier Mendiguren Elizegi

· Haren itxura egin zitzaidan **deigarriena** ikusi nuenean. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adierazpen deigarriak** (3); **are deigarriagoa** (4); **artean deigarriena** (6); **baina deigarria** (9); **baina deigarria da** (6); **baina deigarriena** (3); **bezain deigarria** (5); **da deigarria** (6); **da deigarriena** (6); **deigarri bat** (18); **deigarri egin** (11); **deigarri egin zitzaidan** (4); **deigarri egiten** (4); **deigarri eta** (4); **deigarri gertatzen** (4); **deigarri hori** (3); **deigarria bada** (5); **deigarria bada ere** (5); **deigarria da** (47); **deigarria da oso** (5); **deigarria du** (3); **deigarria egin** (13); **deigarria egin zitzaion** (5); **deigarria egiten** (7); **deigarria ere** (4); **deigarria izan** (13); **deigarria izan da** (4); **deigarria izan zen** (5); **deigarria zen** (4); **deigarriak dira** (5); **deigarriak egin** (3); **deigarriak ere** (3); **deigarriena da** (3); **deigarriren bat** (4); **ere deigarri** (3); **eta deigarria** (9); **ez zitzaion deigarri** (3); **kolore deigarri** (3); **oso deigarria** (8); **oso deigarriak** (4); **zaio deigarri** (3); **zitzaion deigarri** (6)

---

# deigarrikiro *adlag* era deigarrian.

Park Avenue-ko boutiqueetan erositako gaineko garestiaren barruan gerriak **deigarrikiro** kulunkatuz sartu zen sukaldera. Iñaki Zabaleta

---

## deihadar ik **deiadar**.

---

## deihadarkatu ik **deiadarkatu**.

---

# deika 1 *adlag* dei eginez, deiez.

Aurrera jarraitu zuen bat-batean presa balu bezala, zaldi bakoitzari bere izenaz **deika**: "Blaky!, Faraon!, Zizpa!, Ava!, Mizpa!". Bernardo Atxaga

Kastela zaharra urduri zegoen, lurrean zetzanari **deika**: [...]. Itxaro Borda

Ahots bat niri **deika**. Anjel Lertxundi

Tom zen, liburu-dendatik **deika**, zer gertatu ote zitzaigun kezkaturik. Oskar Arana

Zazpi irudi zehatz, saltoka eta **deika**. Koro Navarro

Telenobelak ikusten, telebistako lehiaketei **deika**. Karlos Zabala

Heriotza **deika** denean hustu egiten dira jendez kaleak. Harkaitz Cano

Doi-doi izan zuen denbora opera ikusleak herioa **deika** zuela ohartzeko. Imanol Zurutuza

**Deika** duzun Jainkoak ordea dena ahal dezake. Jon Muñoz

Irudi hori **deika**, esperoan balu bezala zerumugaz bestaldean. Karlos Zabala

Halako abiadaz bizkortzen dute beren bidaia galdua non ezin baitute topatu **deika** dutena. Josu Zabaleta

-Anaia **deika** daukazu. Josu Zabaleta

Ez zaidala inor **deika** etorriko. Ana Urkiza

Atenea hirian zehar zebilen, Altzinooren mezulariaren itxura harturik, feaziarrei agoran biltzeko **deika**. Juan Kruz Igerabide

Telefonoa hasi zen **deika**. Daniel Landart

Herioari hasi zaio **deika**. Imanol Zurutuza

**Deika** eta oihuka hasi ziren laguntza. eske Pilotua ez zen aireplanotik irten, baina guri **deika** ari zen keinuka. Patxi Ezkiaga

**Deika** aritu gintzaizkion. Mirentxu Larrañaga

Goizetik eguerdiraino aritu ziren Baali **deika**, esanaz: "Baal, erantzun!". Jose Antonio Mujika

Horrek esan nahi zuen atean **deika** jardun zuena ikazkina edo ikazkinak bidalitakoren bat zela. Anjel Lertxundi

Ikaraz nengoen Estherrek **deika** jarraituko ote zuen. Koro Navarro

Mikel orduan Matxaini **deika** jarri dugu. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina zeregin handiagoak dauzkagu **deika**; menderatzailearena da gure asturua. Jon Muñoz

**2** ***deika eta deika***

Badakit emakumeok ez dugula gizonezkoei telefonoz **deika eta deika** aritu behar... badakit ez zaiela gustatzen. Mirentxu Larrañaga

Erraiak **deika eta deika** hasi zitzaizkidan. Daniel Landart

Eta elurretan egongo zen etzanda, hotzak harturik, zurrundurik, gogoa larriturik, oihuka, galdurik, laguntza eske agian, bere eztarriko indar guztiaz gaueko isiltasunean **deika eta deika**. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atean deika** (6); **berari deika** (3); **deika ari** (88); **deika ari da** (7); **deika ari den** (3); **deika ari dira** (3); **deika ari direla** (3); **deika ari zait** (6); **deika ari zen** (9); **deika ari zitzaidan** (4); **deika ari zitzaiola** (4); **deika ari zitzaion** (5); **deika aritu** (12); **deika bezala** (4); **deika entzun** (5); **deika eta** (11); **deika eta deika** (6); **deika hasi** (22); **deika hasi zen** (8); **deika hasten** (3); **deika ibili** (5); **deika jardun** (3); **elkarri deika** (4); **ere deika** (3); **eta deika** (18); **guri deika** (4); **hari deika** (5); **jendeari deika** (3); **nintzen deika** (3); **niri deika** (8); **norbait deika** (4); **norbait deika ari** (3); **telefonoz deika** (8); **zuen deika** (3); **zuri deika** (3)

---

# deikera *iz* deitzeko era, izena.

Horrexegatik beragatik, hizkuntza guztietan Deabruari hainbat eta hainbat **deikera** ematen zaizkio, alusiozkoak eta eufemistikoak, hala posible baita hura adieraztea izena

ahotan hartu gabe. Juan Garzia

Paralekoki, rabinoari ez zitzaion berezko **deikera** ematen, hots, "rabbi" edo "rabbénu" (gure rabbi), baizik eta Moréno (gure Maisu), edo Khakhàm (Jakintsua). Juan Garzia

Bi anaien harremana oso estua izan zen beti, egun osoa elkarrekin lanean, eta hargatik beharbada, inor ez zen harritzen iluntzean haien etxetik heltzen zitzaizkien oihu, **deikera** zantar, eztabaida txatxu eta sesiorik itxuraz latzen eta uste zitezkeen bortitzenak entzunik ere. Pako Aristi

---

**deiktiko** **1** *iz* gramatika-kategoriez mintzatuz, erakuslea.

Gorputzaren mintzoa, keinuak, lehen mailako baliabideak ditugu era berean, **deiktikoekin** batera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bakar bat ere ez dago sobera: aditzen ekimen etsigaitza; sustantiboen izate sustraitsua; izenordeen auzolanerako prestutasuna; adjektiboen juzkatzeko grina; atzizki-aurrizkien apaltasun ahaltsua; lokailuen zubi-lana; erakusle eta **deiktikoen** jendetasuna; [...]. Joxerra Garzia

• **2** (izenodo gisa)

Era berean esaldiei dagokionean: zenbait kasutan ezin dute euren zentzua ekoitzi ez bada testuinguruaren arabera (bai egoera jakin batera daramaten osagai **"deiktikoak"** biltzen badituzte; bai subjektu hiztuna eta bere solaskideak izendatzen dituzten izenordainak erabiltzen badituzte lehen edo bigarren pertsonan; bai osagai pronominalak edo loturako partikulak erabiltzen badituzte, lehenagoko edo etorkizuneko esaldiei dagozkienak); [...]. Xabier Arregi

---

**deikunde** *iz* Ama Birjinaren irudikapena, aingeruak Jesu Kristoren haragitzea iragartzen dionean.

Bazirudien une batetik bestera hilarriak altxatu eta hilobietatik gorpuak azaltzen hasiko zirela; besteren artean Elizabeth Siddal, bere adats gorriarekin, **deikundearen** txoria eta pasioaren lorea eskuetan. Andre Mariari Aingerua agertzearen edo **Deikundearen** eszena horrek, esate baterako, ezaugarri kodetu guztiak mantendu zituen normalean (errezel gorrizko ohea, erditzearen metafora gisa, lirioa eta beirazko ontziak, Andre Mariaren garbitasunaren metafora gisa, eta abar), baina eszenaren beraren irudikapena une bakoitzean nagusi zen estiloaren arabera egiten zen. Ramon Saizarbitoria

Baina Raimondik ez bezala, Vallejo Cosidak **deikundearen** ikonografian ezohikoa den Jaungoikoa irudikatu zuen. Berria - Kultura

---

**deiño** *iz adkor* deia.

Jean Haritschelhar-ek hori azpimarratu du, **deiño** bat zabalduz gazte zonbaiten artean talde berri batek har dezan segida... Herria

Horiek hola, ametsetarik artzea ote da **deiño** bat zabaltzea herriko bozak joan diten denetan pilotariek plaza-gizon deitzen zituzten (eta dituzten) batzuen arteko garraitaldi bat bezala? Herria

---

**deinosi** *iz*

**Deinosia** : gauzak beren alderdi itsusi edo ankerrenetik ikusteko joera makabroa. Karlos Linazasoro

Haiek ere, denak bezala, gaixo zeuden, **deinosiak** jota. Karlos Linazasoro

Eta geurean ere horretara iritsiak ginen: jada ez zegoen itxaropenerako tokirik, **deinosirako** baizik: atzo gaizki, bihar okerrago; atzo basakeria, gaur bihozgabekeria. Karlos Linazasoro

---

**deismo** *iz* mundua sortu duen Jainkoa bai, baina errebelaturiko erlijio edo dogmarik onartzen ez duen doktrina teologikoa. ik **teismo**.

Jantsenismo gisa zokoratua, **deismo**, arrazionalismo, agnostizismo eta ateismo gisa agertu zen berriro. Iñaki Mendiguren

---

**deista** **1** *izond* deismoarena, deismoari dagokiona. ik **teista**.

Baina Mendebaldeko gizakiaren fede nagusia sineskizun hau izan zen beti: unibertsoa legearen mende zegoela eta ez kaosaren esku; eta fede honen aro moderno beranteko bertsio **deista** edo ateista hau zen: unibertsoaren legea "naturaren legeen" sistema bat zela. Iñaki Mendiguren

**2** *iz* deismoaren aldekoa den pertsona.

Teologia transzendentala besterik onartzen ez duenari **deista** deitzen zaio, Natur Teologia ere onartzen duenari teista. Ibon Uribarri

Han ez zegoen funtsezko desberdintasunik **deisten** [...] eta ateisten artean. Iñaki Mendiguren

---

**deistiko** *izond* deista.

Arrazoimen espekulatibo soilak Jainkoaz ematen digun adigai transzendental eta determinatu bakarra adiera zehatzenean **deistikoa** da, h[au] d[a], arrazoimenak ez du ematen halako adigaiaren errealitate objektiborik, baizik zerbaiten ideia besterik ez du ematen eskura. Ibon Uribarri

---

deitarazi ik **deiarazi**.

---

**deitoragarri** *(ETCn 809 agerraldi)* **1** *izond* deitoratzeko dena. ik **negargarri**.

Istripu **deitoragarria** atzo, urriaren 22an, Labartzan, eguerdi irian. Txillardegi

Hauek salatu zuten nolako giro **deitoragarria** zen Dachau-ko kontzentrazio zelaian eta nola denak suntsituak izaiteko zorian ginen. Michel Oronoz

Hitler-en manuz han zen eraiki 1941-ean Dachau eta gisa bereko herio-kanpo **deitoragarri** heien iduriko zerbait. Herria

Baltasar Garzon epailearen instrukzio **deitoragarriak** onartu dituen fiskal nagusia. Berria - Euskal Herria

Banantze eta dibortzioek seme-alabengan uzten dituzten ondorio **deitoragarriez**. Aingeru Epaltza

Guardia Zibilaren mehatxuak eta Burrianako Udalaren xantaia **deitoragarriak** salatzen dituzte. Berria - Kultura

Egunkariko nagusiek ezin eraman, ordea, hutsune horrek nire zerbitzu-orrira ekar zezakeen zikin **deitoragarria**. Asko dira gaur egun ondasunak banatzeko modu **deitoragarri** honek engainatzen dituenak. Aingeru Epaltza

San Frantziskori dei egin zioten ahots **deitoragarriz**, beraren zerbitzura lanean ari zen gizona hain modu lazgarrian hiltzen utz ez zezan.. Askoren artean

**2** (izan eta kideko aditzarekin)

Pisuaren egoera, ostera, **deitoragarria** zen. Patxi Iturritegi

Terminologia-nahasmendu hauek **deitoragarriak** dira, jakina, baina interesagarriak, hala ere. Josu Zabaleta

**Deitoragarri** izan liteke, baina, larderia eta zigorraren beharra dugu guztiok. Gotzon Garate

**Deitoragarri** da ikustea badirela haien artean axola gabekoak. Herria

Aurelianori **deitoragarri** zitzaizkion berriok, azkena batez ere. Juan Garzia

Bestela, haien egoera **deitoragarria** litzateke; legeak obeditu besterik ez egin, eta gizarteko abantaila handienez gabetuak aurkituko lirateke. Iñaki Iñurrieta

Bainan halere bada gauza bat **deitoragarri** zaukuna. etikoki eta politikoki **deitoragarriak** direla zehaztu zuen. Herria

Tira, **deitoragarri** iruditzen zait, baina horrela aberasten da jendea. Migel Angel Mintegi

Haizea altxatu zen kanpoan eta bidean ez izatea **deitoragarri** kausitu nuen. Itxaro Borda

Adegiren jarrerari, aitzitik, **deitoragarria** iritzi zioten beharginek. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deitoragarri bat** (4); **deitoragarri batean** (5); **deitoragarri hortan** (3); **deitoragarria da** (13); **deitoragarria dela** (3); **deitoragarria zen** (4); **deitoragarritzat jo** (3); **egoera deitoragarria** (3); **eta deitoragarria** (3); **gertakari deitoragarri** (6); **herio kanpo deitoragarri** (3); **ixtripu deitoragarri** (3); **kanpo deitoragarri** (3); **ondorio deitoragarriak** (3)

---

# deitorale *izond* deitoragarria.

Fama txar lastimazko eta **deitoralea**. Pello Zabala

---

# deitoratu *(ETCn 3.120 agerraldi)*, deitora, deitoratzen **1** du *ad* negarreztatu, deitore egin. ik **auhendatu**. (zerbait)

Zanpa-auhen luzeko zakur, zurrunga xehe eta entzunezineko erle, bakardadea **deitoratzen** zuen otso-eme. Itxaro Borda

Haren falta maiz **deitoratu** zuen. Elena Touyarou

Dolu gisatsuz **deitoratua** zuen, aurreko urtean, bere andrearen heriotza ustekabekoa. Juan Garzia

Ez zirudien Sabethek inola ere **deitoratzen** zuenik dibortzio hura. Joxe Austin Arrieta

Bere gaztaroko bizitza bihotz-samin handiz **deitoratzen** egon zen. Askoren artean

Nork ez luke **deitoratuko** gisa horretan tratatua izana? Jon Muñoz

Ez da lehenengo aldia, dakikezun bezala, jadanik zure esklabo ez izatea **deitoratzen** dudana. Jon Muñoz

Destinu larria **deitoratuz** eta herioa desiratuz. Itxaro Borda

Nazioarteko auzitegiaren epaia jaso aurretik hil izana **deitoratu** dute agintariek. Berria - Harian

Jaurlaritzako eledunak **deitoratu** zuen «kea» saldu diela SEPIk, eta «kea haizeak daramala» Berria - Ekonomia

**2** (norbait)

Medikua jin zen alabaina, asko **deitoratu** ninduen, eta atseden har nezala baizik ez zidan manatu. Jon Muñoz

Handik ditut aterako berriz sofritzeko indarrak; han dut kausituko ontasun errukarria, eta kontsolaturik naizela usteko dut, zeren **deitoratuko** bainazu. Jon Muñoz

• **3** da *ad*

Horregatik arrazoiz **deitoratzen** zen Jeremias profeta atsekabetan sumindurik aurkitzen zenean, esanez: "Jaunaren onginahia ez dela amaitu, haren errukia ez dela agortu". Joan Mari Lekuona

**4** (era burutua izenondo gisa)

Ene jaun-andre zenduak eta **deitoratuak**, nire atsekaberik handienaz... Iñaki Mendiguren

Dakigunez, *alua* hitza Nicolas Landucchik edo Landuciok jaso zuen lehen aldiz hiztegi batera, 1562 urtean egin zuen hiztegi **deitoratu** hartan preseski. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deitoratu behar** (7); **deitoratu ditu** (3); **deitoratu du** (48); **deitoratu dute** (17); **deitoratu dutenez** (3); **deitoratu egin** (18); **deitoratu egin du** (3); **deitoratu egin zuen** (11); **deitoratu egiten** (3); **deitoratu eta** (4); **deitoratu zituen** (7); **deitoratu zuen** (73); **deitoratu zuen atzo** (4); **deitoratu zuenez** (8); **deitoratu zuten** (15); **deitoratu zuten atzo** (3); **dela deitoratu** (9); **dela deitoratu zuen** (4); **direla deitoratu** (4); **direla deitoratu zuen** (3); **duela deitoratu** (4); **dutela deitoratu** (3); **egitea deitoratu zuen** (3); **egitea deitoratu** (4); **ere deitoratu** (6); **ere deitoratu zuen** (3); **eta deitoratu** (5); **eta labek deitoratu** (3); **ez izana deitoratu** (5); **gogor deitoratu** (5); **heriotza deitoratu zuen** (3); **izana deitoratu** (11); **izana deitoratu du** (4); **izana deitoratu zuen** (4); **jarrera deitoratu** (3); **labek deitoratu** (4); **sindikatuek deitoratu** (3)

---

# deitoratzaile *iz* deitore egiten duen pertsona.

Hiri ertzetako leku bakartia, **deitoratzaileek** gezurrak moldatzeko, poetek enkarguz idazteko eta harginek letrak zizelkatzen apustuan aritzeko erabiltzen dutena. Xabier Olarra

---

# deitoratze *iz* negarreztatzea.

Edmea xifritzen zen Poliziak ETA erakundea laguntzeagatik gazteak arrastatzen zituenean zein auhen, negar eta **deitoratze** gutxi aditzen zen euskaldunen munduaren zurrunbiloetan. Itxaro Borda

---

# deitore **1** *iz* auhena, bereziki hondamendi handi batek eragina.

**Deitore** eta negarrak lubakian, gauaren erdian. Imanol Zurutuza

Moabeko muga-bira osoan zabaldu dira garrasiak, Eglaim-eraino **deitoreak**, Beer-Elimgo mugetaraino aieneak. Elizen arteko biblia

Haren ahotsa berriro garrasi eta **deitore** bilakatu zen. Lopez de Arana

Jerusalemgo alde zaharreko Harat al Maghariba (Marokoarren Auzoa) osorik birrindu zuen; han 135 etxe eraitsi zituen, **Deitoreen** Harresia-Al Buraken aurrean zabalgune handi bat egin eta auzo judua handitzeko. Berria - Mundua

**Deitorea** ez da marmarra. Jon Muñoz

**2** irud/hed

Polizia iritsi zen, eta anbulantzia baten sirenaren **deitorea** entzun zen. Koro Navarro

Eta pertsiana akabatuaren **deitoreak** lihozko euri finean barneratu ditu biak. Eider Rodriguez

**3** (hitz elkartuetan)

Zentzontle ezkutuko baten lau notako **deitore**-kanta. Oskar Arana

Pozoitzailea, bizpahiru lagun isilekin, berriro sartu, eta **deitore**-itxurak eginez biltzen zaio erreginari. Juan Garzia

**4** ***deitore egin*** ik **deitoratu**.

-Zer egingo dut -**deitore egin** ahalko zukeen berak ere-, edo zer izango da nitaz? Imanol Zurutuza

Egizu orain nitaz **deitore**, baldin ausartzen bazara; eta zoaz, baldin tentaturik bazaude, Bko kondearen basoa hartzara ikustera. Jon Muñoz

Abas begiak arranpalo geratu zen, harriduraz eta errezeloz beterik, eta akaberan, **deitore eginez**: [...]. Patxi Zubizarreta

· Dagoeneko, bi aldiz, sujet horri buruz **egin** ditudan **deitoreak** erantzun gabe gelditu dira. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egin deitore** (3); **eta deitore** (4)

---

# **deitoreka** *adlag* deitore eginez.

Gizaki bat bere buruaz **deitoreka** dakusunean, hil ondoren gorputza edo hilobian ustelduko, edo garretan edo piztien matrail artean ezabatuko zaiolako, pentsa dezakezu ez dela egiaz mintzo eta bihotz barruan baduela ezten ezkuturen bat. Xabier Amuriza

---

# **deitorekizun** *iz*

"Jaunok", erran zien, "hemen bilduak gertatu zaretelarik, dudarik gabe asmatuko zenuten hirurak **deitorekizun** berbera duzuela nire kontra. Jon Muñoz

---

# deittu ik **deitu**.

---

# **deitu**, dei *(orobat **deit**)*, deitzen *(ETCn **164.232** agerraldi; orobat **deittu** g.er.)* **1** dio-du *ad* norbaiten ohartasuna erakarri, bereziki haren izena esanez, edo hitzen edo seinaleren baten bidez. ik **dei 10; hots 14.**

-On Camillo! - **deitu** zion Kristok-. Patxi Altuna

-Ahmet, Ahmet! - **deitu** zion. Fernando Rey

Mutikoari **deitu** nion. Ramon Saizarbitoria

Hau lasterka joan, eta senarrari **deitu** zion. Jose Antonio Mujika

Zerbitzariari **deitu** eta galdetu nion ea eragozpenik izango ote zuen pizza hura berriz berotzeko sukaldean. Oskar Arana

**Deitu** eta galdegin zioten Rebekari: -Joan nahi al duzu berehala gizon honekin? Elizen arteko biblia

'Con permiso?' **deitu** duzu, sentitzen ez duzun txantxa-gogoa doinu mexikarra ateratzeko ahaleginetan jarriaz. Lourdes Oñederra

**Deitu** zuen Jesek Abinadab eta Samuelen aurrera eraman zuen. Elizen arteko biblia

Jakobek **deitu** zituen Rakel eta Lea bere artaldea zeukan lekura. Elizen arteko biblia

Berehala **deitu** zituzten erregearen idazkariak. Elizen arteko biblia

Gerenteak, salmentak gutxitu nituelako **deitu** ninduenean, besteak beste itxura zertxobait gehiago zaintzen ahalegindu beharko nukeela esan zidan. Ramon Saizarbitoria

Kontsulordea zentzuzko gizona zen, eta Bernabe eta Sauliri **deitu** zien, Jainkoaren mezua entzun nahirik. Elizen arteko biblia

Gero, adiskideetako bat, Filipo, **deitu** eta bere erreinu osoaren arduradun egin zuen. Elizen arteko biblia

Jaungoikoak **deitu** zaitu albora eta apalki onartu duzu bere nahia. Joxemari Urteaga

Hauxe da nola **deitu** ere ez dakigun Europako txoko hau. Iñigo Aranbarri

· Telefonoz **dei** niezaiokeen Sarari, hartarako bidea ematen baitzidan gutunak. Joan Mari Irigoien

**2** norbaitekin telefonoz komunikatu edo komunikatzen saiatu.

Nolanahi ere, iritziz aldatzen bazara, **deitu** hotelera eta elkarrekin joango gara afaltzera. Bernardo Atxaga

Itxaron egiten du egun batzuetan, eta ondoren agentziara **deitzen** du. Oskar Arana

Herenegun gauaz Ximurrak Josurenera **deitu** zuen, aski berandu, nitaz galdezka. Aingeru Epaltza

Lanera **deitu** zidan, nik ez nuen inoiz berarekin hitz egin ordu arte. Lourdes Oñederra

"Ez al du gugatik galdetu?", esan zidan Mary Annek ospitaletik **deitu** zidanean. Bernardo Atxaga

Saiatu nintzen Tomi autobus-geltokitik **deitzen**. Oskar Arana

Beraz, interesatuak diren guziek **deit** dezakete 05 59 59 35 19 zenbakirat. Herria

948172381 zenbakira **deitu** duzu. Aingeru Epaltza

Ordu biak aldera Rabinowitz doktoreak **deitu** du nire egoeraz galdetzeko, eta ebakuntzaren eguna aurreratu nahi al dudan esan dit. Bernardo Atxaga

Handik hiru astera, Aurorak **deitu** zion ustekabean. Oskar Arana

Gau hartan ez dakit nik **deitu** nion edo berak niri. Xabier Mendiguren Elizegi

-Poliziari **deitu** behar diogu berehala. Jon Muñoz

Baina zergatik ez duzu sakelako batetik **deitu**? Fernando Morillo

Berehala telefonoa hartu eta Smith-i **deitu** zion erakusketa bat eskaintzeko. Oskar Arana

Etxera **deitu** nizun, baina inork ez zuen telefonoa hartu. Jon Alonso

Beste telefono-zenbaki horretara **deitu** nuen, inor egongo ez zelako uste osoarekin. Oskar Arana

**3** norbaiti, norabait joateko edo zerbait egiteko eskatu.

Berriro **deitu** zioten leihatilara: klarionaren pare zurbildu zen Hanna. Joxe Austin Arrieta

Uztail erdiko arratsalde batean, Biarnoko lotinant jeneralarengana **deitu** ninduten berriz. Aingeru Epaltza

Epaileak Cooper eta Tim Russet NBC telebista kalteko aurkezlea **deitu** zituen deklaratzera. Berria - Gaiak

Israeldarrek, Jeroboam itzulia zela jakin zutenean, biltzarrera **deitu** eta Israel osoaren errege izendatu zuten. Elizen arteko biblia

Angel Berrueta gogoratzeko, manifestaziora **deitu** dute biharko Iruñean. Berria - Harian

Sintrabik grebara **deitu** ditu bertako kamioilariak. Berria - Ekonomia

Sindikatuek mobilizaziora **deitu** dituzte 10.000 langile baino gehiago. Berria - Ekonomia

Leiala da Jainkoa, eta berak **deitu** zaituzte bere Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin elkarturik bizitzera. Joan Mari Lekuona

Hanukkah jaien aurreko Sabathean, Anshel pulpitura **deitu** zuten, Torah irakurtzera. Koro Navarro

Emakumeak Bortxaketen Aurka taldeak, EBAk, hogeita lau orduko beila egitera **deitu** du, "oraintsuko biktimen aldeko" elkartasuna adierazteko. Oskar Arana

1940an alemaniarren kontra borroka egin zuten edo mobilizatuta egon ziren gizonezko guztiei gerrako presoen esparruetan Führer-entzat lan egitera **deitu** diete. Josu Zabaleta

Igande kari, San Pankrazioko kanpaiek **deitu** dute mezatara. Txillardegi

Ekin sinesmenaren borroka jatorrari eta eskuratu betiko bizia, hartarako **deitu** baitzaitu Jainkoak. Elizen arteko biblia

-Gaixo bat ikusteko **deitu** didate hona -esan zuen Andresek hotz-. Josu Zabaleta

Zuzendari literarioak egileari **deitu** zion gertaera absurduaren berri emateko. Jon Alonso

Lehenik bere esanetan eta egintzetan sinesteko eskatu zien salbaziora **deitu** zienei. Imanol Unzurrunzaga

ELA eta LAB pozik daude EAEko administrazio orokorrean atzo **deitu** zuten bi orduko lanuztearen jarraipenarekin. Berria - Ekonomia

Oi zu ene arima, Jainkoaren iduriak zeinatua, [...] Haren aingeruekin parekatua, Dohatsutasunera **deitua**, Zorionaren oinordekoa. Piarres Xarriton

Senditzen du orain bizian behin egiten den urrats baten egiteko **deitua** izan dela. Michel Oronoz

Ez nintzen **deituen** artean, ostera, eta kamainara egin nuen, ababorreko kanoien artera. Edorta Jimenez

- **4** da *ad* delako izena izan.

"Anaia unibertsala" **deitu** izan zaio, anai-arreba baititu sorkari guztiak. Askoren artean

Eta ez bedi inor priore **deitu**, baizik eta den-denak anaia txiki **dei** bitez. Askoren artean

Lapurreta **dei** dakioke, baita ere, limosnak gaizki erabiltzeari, egiaz erantzukizun handia denez eske-sariak jasotzea. Joan Mari Lekuona

Herri honetan astoari astoa **deitu** zaiok beti. Bernardo Atxaga

Irudiaren azalera eta haren antolamendua, haren konposizioa **deitu** izan dena, alegia.Teknikoki gradiente **deitu** ohi zaiona. Josu Zabaleta

Zienpiesak egur garraioan ibiltzen ziren mendi-kamioiei **deitzen** zitzaien. Bernardo Atxaga

Hauek ez onartzeari jakituria ez baina ergelkeria **deitu** behar zaio. Imanol Unzurrunzaga

Motosierra **deitu** tresna berantean baizik ez zaigu agertu, I958an. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Tolosatik zazpi legoatan dagoen San Martin **deitu** auzora. Piarres Xarriton

Gizon horietarik bat hil zuen egun batez Martín de Echaus **deitu** batek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haietarik batek, Kenaanaren seme Tzidkias **deituak**, burdinazko adar batzuk eginak zituen eta hau zioen. Elizen arteko biblia

Lurraren Goi Bilera **deituan** hartutako akordio guztiak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

- **5** du *ad* norbaiti edo zerbaiti halako izena eman edo esan.

Joxe -erantzun nuen-, baina den-denek Joseba **deitzen** didate. Bernardo Atxaga

-Ez **deitu** niri Noemi, **deitu** Mara, saminez bete bainau Jainko Ahaltsuak. Jose Antonio Mujika

June-kukuso txikia, hala **deitzen** genion arrebari. Oskar Arana

-Eta nik beti **deitu** izan dizut Osaba Nat, ez ala? Oskar Arana

- **Deitu** Nathan bakarrik, Tom. Oskar Arana

"Begigorriya **deitzen** dio berak", argitu nion. Bernardo Atxaga

Voltairek "geometra betokerra" **deitu** zion Euler-i. Jon Muñoz

Eta "Kabul" **deitu** zion lurralde hari. Elizen arteko biblia

Izotzila ere **deitu** izan diote [urtarrilari], Nafarroa aldean justu. Pello Zabala

Ondoren, Hiramek brontzea urtu eta "Itsaso" **deitu** zuen uraska biribil bat egin zuen. Elizen arteko biblia

Ez dakit gorrotoa ala amorrua **deitu** Annettek zuzendu zidan begiradan ikusi nuenari. Anjel Lertxundi

Liburu **deitu** nion proiektuari, baina egiaz ez zen erabat liburua. Oskar Arana

Ikusiko duzu, "jaun" **deitu** diodala jakiten duenean. Mirentxu Larrañaga

"Osabatxo, osabatxo" **deitu** eta muin egiten dit eskuan. Jose Morales

Nik dakidala, bi alditan **deitu** dit "laztana". Mirentxu Larrañaga

Nik ez nion putakume **deitu** Boggess epaileari. Fernando Rey

"Bihotzaren barru-barruan" **deitzen** zuten leku horretan. Julen Gabiria

## 6 *atean/atera deitu*

Inork atean **atean deitu** zain zegoela esango niken... Zirt eta zart, lasterka abiatu zen etxerantz, **atean deitzen** akitu gabe sartu, eta sukaldetik ontzitara bat ur eskuetan zetorren Martzelina zaharra abantzu uzkaili zuen. Nola ez bada errudun sentitu haien intimitatea bortxatu behar banuen, haien gelan **atean deitu** gabe sartu behar banuen. Anjel Lertxundi

Lasterka batean igotzen naiz; **atera deitzen** dut. Eskarne Mujika

Goiz batez, **atera deitu** zuten. Lander Garro

Lasterka batean igotzen naiz; **atera deitzen** dut. Eskarne Mujika

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**deit dezatela** (11)

**aldeko manifestaziora deitu** (8); **aldiz deitu** (27); **amak deitu** (11); **amari deitu** (12); **anbulantziari deitu** (12); **baina deitu** (8); **bat deitu** (21); **bat egitera deitu** (9); **batean deitu** (9); **batek deitu** (40); **batek deitu zuen** (11); **batera deitu** (63); **batera deitu eta** (8); **baterako deitu** (8); **bati deitu** (47); **bati deitu eta** (9); **bati deitu zion** (17); **batzarrera deitu** (18); **berak deitu** (25); **bere ganat deitu** (12); **bere izenez deitu** (15); **beregana deitu** (21); **beregana deitu eta** (9); **berehala deitu** (10); **berria deitu** (8); **berriro deitu** (24); **berriz deitu** (16); **bezala deitu** (11); **bilera batera deitu** (23); **bilera deitu** (11); **bilerara deitu** (21); **biltzera deitu** (9); **bulegora deitu** (15)

**deitu ahal** (29); **deitu ahal izango** (11); **deitu al** (11); **deitu behar** (187); **deitu behar da** (28); **deitu behar izan** (15); **deitu behar zaio** (31); **deitu beharko** (61); **deitu beharrean** (8); **deitu den** (8); **deitu didate** (9); **deitu die** (13); **deitu dio** (61); **deitu diogu** (8); **deitu diot** (36); **deitu diote** (26); **deitu diozu** (12); **deitu dit** (24); **deitu ditu** (177); **deitu ditu bere** (8); **deitu ditu herritarrak** (10); **deitu dituzte** (74); **deitu dituzten** (11); **deitu dizu** (12); **deitu dizut** (9); **deitu du** (336); **deitu du askatasunak** (10); **deitu du batasunak** (10); **deitu du biharko** (10); **deitu du gaur** (9); **deitu du gaurko** (16); **deitu duela** (9); **deitu duen** (34); **deitu duena** (8); **deitu dugu** (10); **deitu dugun** (10); **deitu duguna** (8); **deitu dut** (14); **deitu dute** (308); **deitu dute biharko** (16); **deitu dute gaur** (8); **deitu dutela** (8); **deitu duten** (63); **deitu dutena** (64); **deitu egin** (67); **deitu egin nion** (10); **deitu egin zidan** (9); **deitu egin zion** (9); **deitu egingo** (14); **deitu egiten** (14); **deitu elkarteak** (9); **deitu ere** (23); **deitu eta** (313); **deitu eta bere** (8); **deitu eta esan** (50); **deitu etxean** (8); **deitu ez** (29); **deitu gabe** (17); **deitu gaitu** (10); **deitu genion** (9); **deitu genuen** (8); **deitu itsas** (9)

**deitu izan** (186); **deitu izan den** (16); **deitu izan dena** (11); **deitu izan diote** (14); **deitu izan zaie** (15); **deitu izan zaio** (37); **deitu izana** (30); **deitu nahi** (78); **deitu nahi izan** (8); **deitu nien** (8); **deitu ninduen** (26); **deitu ninduten** (11); **deitu nion** (110); **deitu nionean** (8); **deitu niri** (10); **deitu nizun** (8); **deitu nuen** (48); **deitu ohi** (73); **deitu ohi den** (8); **deitu ohi dena** (11); **deitu ohi zaio** (8); **deitu omen** (16); **deitu ondoren** (8); **deitu ordez** (12); **deitu tokian** (14); **deitu zaio** (10); **deitu zidan** (93); **deitu zidanean** (11); **deitu zidaten** (22); **deitu zien** (81); **deitu zieten** (34); **deitu zigun** (10); **deitu ziola** (11); **deitu zion** (362); **deitu zion eta** (13); **deitu zionean** (8); **deitu ziotela** (9); **deitu zioten** (145); **deitu zituen** (164); **deitu zituen atzo** (13); **deitu zituen herritarrak** (8); **deitu zituzten** (55); **deitu zitzaion** (20); **deitu zuela** (10); **deitu zuen** (360); **deitu zuen atzo** (20); **deitu zuena** (13); **deitu zuenak** (8); **deitu zuenean** (11); **deitu zuten** (191); **deitu zuten atzo** (11); **deitu zutena** (9)

**deklaratzera deitu** (87); **deklaratzera deitu ditu** (16); **deklaratzera deitu izana** (9); **deklaratzera deitu zituen** (10); **du deitu** (10); **edo deitu** (11); **egiteko deitu** (20); **egitera deitu** (89); **egitera deitu ditu** (11); **egitera deitu dituzte** (10); **egitera deitu du** (9); **egitera deitu dute** (11); **egitera deitu zituen** (13); **egitera deitu zuen** (10); **egitera deitu zuten** (9); **egunkarira deitu** (8); **elkarretaratzea deitu** (19); **elkarretaratzea deitu du** (8); **elkarretaratzea deitu dute** (9); **elkarretaratzeak deitu** (9); **elkarretaratzeetara deitu** (9); **elkarretaratzera deitu** (48); **elkarretaratzera deitu du** (23); **elkarretaratzera deitu dute** (16); **emaiteko deitu** (11); **emateko deitu** (8); **ematera deitu** (10); **ere deitu** (75); **ere deitu izan** (20); **ertzaintzari deitu** (20); **ertzaintzari deitu zion** (11); **esanez deitu** (8); **eta deitu** (57); **eta deitu dute** (8); **eta deitu egin** (9); **etxera deitu** (37); **ez deitu** (34); **ez du deitu** (8); **ez zion deitu** (8); **gabe deitu** (8); **ganat deitu** (12); **gehiago deitu** (8); **gehiagorentzat deitu** (14); **gisa deitu** (8); **gisa deklaratzera deitu** (13); **greba egitera deitu** (9); **greba orokorrera deitu** (8); **grebara deitu** (52); **grebara deitu dute** (27); **guztiak deitu** (9)

**hala deitu** (26); **halaxe deitu** (8); **hartzeko deitu** (8); **hartzera deitu** (84); **hartzera deitu ditu** (16); **hartzera deitu du** (22); **hartzera deitu dute** (14); **hartzera deitu zituen** (8); **hartzera deitu zuen** (9); **hartzera deitu zuten** (8); **hauteskundeak deitu** (8); **horregatik deitu** (26); **horrela deitu** (16); **inork deitu** (8); **izenaz deitu** (8); **izenez deitu** (31); **jainkoak deitu** (9); **jokalari deitu** (12); **jokalari deitu ditu** (9); **kontzentrazioa deitu** (11); **lagunari deitu** (8); **lan egitera deitu** (9); **lanuztera deitu** (13); **manifestazioa deitu** (8); **manifestaziora deitu** (113); **manifestaziora deitu du** (47); **manifestaziora deitu dute** (41); **manifestaziora deitu zuten** (10); **mendeala deitu** (9); **mendeala deitu tokian** (8); **mobilizatzera deitu** (8); **mobilizazioetara deitu** (15); **mobilizazioetara deitu du** (8); **mobilizaziora deitu** (11); **nazionalera deitu** (8); **nik deitu** (10); **niri deitu** (10); **nola deitu** (52); **nola deitu behar** (25); **norbaitek deitu** (8); **nori deitu** (8); **orokorrera deitu** (11); **parte hartzeko deitu** (8); **parte hartzera deitu** (78); **poliziari deitu** (32); **poliziari deitu zion** (13); **telefonora deitu** (10); **telefonoz deitu** (115); **telefonoz deitu eta** (16); **telefonoz deitu nion** (8); **xehetasun gehiagorentzat deitu** (14); **zenbakira deitu** (10); **zerbitzariari deitu** (8); **zergatik deitu** (18); **zertarako deitu** (11); **zion deitu** (9); **zuen deitu** (9)

**auzitegirat deitua** (12); **deitua da** (12); **deitua den** (14); **deitua dute** (8); **deitua izan** (49); **deitua izan zen** (8); **deitua zen** (13); **deitua zuen** (22); **deitua zuten** (8); **deituak dira** (15); **deituak izan** (29); **deituak izan dira** (10); **deituak izanen** (9); **deituak izanen dira** (8); **ere deitua** (17)

**deituko da** (25); **deituko diat** (9); **deituko diet** (8); **deituko dio** (8); **deituko diogu** (31); **deituko diot** (52); **deituko diote** (20); **deituko ditu** (18); **deituko ditut** (8); **deituko dituzte** (15); **deituko dizut** (47); **deituko dizute** (8); **deituko du** (19); **deituko duela** (11); **deituko dugu** (10); **deituko duguna** (8); **deituko dut** (21); **deituko dute** (26); **deituko nioke** (9); **deituko ziola** (10); **deituko zion** (11); **hala deituko** (9); **noiz deituko** (12); **nola deituko** (11); **poliziari deituko** (16); **telefonoz deituko** (26)

**aldeko mugimenduak deituta** (8); **askatasunak deituta** (9); **batasunak deituta** (9); **bilbon deitutako** (8); **daude deituta** (14); **deituta elkarretaratzea** (8); **deituta erredakzioa** (8); **deituta zegoen** (15); **deituta zeuden** (14); **deitutako greba** (22); **deitutako manifestazioa** (12); **deitutako manifestazioan** (23); **ek deituta** (18); **elkarteak deituta** (8); **etxerat ek deituta** (15); **ezker abertzaleak deituta** (8); **ezker abertzaleak deitutako** (8); **labek deituta** (11); **mugimenduak deituta** (9); **plataformak deituta** (12); **sindikatuak deituta** (8); **sindikatuek deituta** (24); **taldeak deituta** (11); **zeuden deituta** (8)

**deituz gero** (14); **dira deituz** (10); **etxerat deituz** (9); **huntarat deituz** (9); **ostaturat deituz** (11); **zenbaki huntarat deituz** (8); **zenbakirat deituz** (8)

**deitura** *(ETCn **1.536** agerraldi)* **1** *iz* izena, deitzeko era.

Beste batzuk, ordea, langile "autonomo" gisa aritzen ziren, bere kasa alegia, eta kortsario izen estimatu hura izan beharrean pirata edo itsaslapur **deitura** mespretxuzkoa eraman behar izaten zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Unibertsoa (bestelako **deituraz**, Liburutegia) galeria hexagonalez osaturik dago. Anjel Lertxundi

Beharbada merezi du aipatzea Chomskyk bere irakasle Zelling Harrisi hartu ziola 'erregela formaldatzaile' **deitura**. Itziar Laka

Filosofoek [...] ehen Kausa edo Oinarria" esaten diote; baina mutakallim-n deritzenek **deitura** hori ardura handiz saihesten dute, eta "Eragilea" deitzen diote. Xabier Kintana

Gaztelaniaz *asimilación a distancia* **deitura** misteriotsua eman izan diote. Lourdes Oñederra

Kandelario, Kandela-eguna, Kandela-bedeinkatu-eguna, Kandelargi eguna, Kandelero-eguna, Kanderailu eguna, Kanderailu soilik... **deitura** horiek denak ditu horrenbesteko tradizioa izan duen festa otsaileko honek. Pello Zabala

Agustin deunaren **deituraz** 6 parrokia baditugu hegoaldean: Iruñean, Zigoitiako Etxaguenen, Kasedan, Arenazan, Elorrioko Etxebarrin, eta Erandion. Pello Zabala

Galdezka hasi zitzaion Bibaldo ea zer esan nahi ote zuen halako "zaldun ibiltari" **deiturak**. Patxi Ezkiaga

Jainkoaren bi **deiturak** -"Jainko goren eta ospetsua" eta "Jauna"- eta bi eskarik osatzen dute otoitza. Askoren artean

Ordena guztiko ardura duenarentzat *Ministro jenerala* edo *Anaiarte osoaren ministro* eta *morroi* **deiturak** erabiltzen dira. Askoren artean

Eta lehen ere nonbaitean esana naiz, dokumentu zaharretan maiz ageri dela UBICI **deitura** egungo HUICI ordez. Patziku Perurena

**2** abizena.

Izena dut nik Santos, **deitura** Elizalde. Iñaki Arranz

Garbia diat odola, aratza; alemanak ditiat **deitura** guztiak familiaren memoria eta artxiboetako paperak iristen diren puntutik gaur arte. Anjel Lertxundi

Guztiek zituztela **deitura** euskaldunak jakinarazi zien Amianok. Ramon Saizarbitoria

Aitortu ez arren, beste pena handi bat **deituraz** Fernández izatea omen zuen. Ramon Saizarbitoria

Behauzeko Dominique serora, **deituraz** Peyroutet, han ari da lanean 40 urte huntan, pobreenen artean. Herria

Bere izena eta lehen bi **deiturak**. Harkaitz Cano

Goian nire lagunaren izena zegoen idatzita, bere bigarren **deiturarekin** -David Imaz-, eta erdian titulua: *Soinujolearen semea*. Bernardo Atxaga

Haur bati, sortzen denean, noren **deitura** behar zaio eman? aitarena, amarena ala biena? Herria

Hobe izango zuen, beharbada, amaren **deitura** lehen **deituraren** aurretik jartzea. Irene Aldasoro

Ez zegoen inolako sinadurarik, ez izenik eta ez **deiturarik**. Jose Morales

**3** ***izen-deitura*** *(**62** agerraldi, **40** liburu eta **6** artikulutan; ETCn **618** agerraldi)* *pl* izen-abizenak. ik **izen 12**.

Igorlearen **izen**-deiturak eta helbidea. Joxemari Iturralde

Nire **izen**-deiturak telefono-gidan zeuden. Oskar Arana

Sarrera-orria betetzerakoan, errepikatu eta letraz letra eman behar izan zituen **izen**-deiturak. **Izen**-deiturarik gabeko atso bat ugaldean itoa, munduan milaka bezala. Nagusiak fitxa ekarri zion betetzeko eta bere **izen**-deiturak bertan idazteko eskatu. Juan Garzia

Emaztea eta semeak atzerrira joan ziren beste **izen**-deitura batzuk hartuta. Antton Olano

· Paper mordo hori egunez egun moldatzera lehiatzen garen guztiok doako harpidetzari esker izaten dugu goizero, bakoitzarendako ale izen-**deituraduna** etxeko postontzian sartuta. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitaren deitura** (6); **amaren deitura** (5); **benetako deitura** (3); **deitura eman** (3); **deitura hartzen** (3); **deitura zuen** (7); **gizonaren deitura** (3); **hautatu deitura** (3); **izen deitura** (9); **senarraren deitura** (4)

**izen deiturak** (32); **nire izen deiturak** (3)

**deiturarik gabe** (3)

**bestelako deituraz** (4)

**euskal deituren kronikak** (4); **izen deituren** (7)

---

deituradun ik **deitura 3**.

---

**deitzaile** **1** *izond* deitzen duena.

Beste batzuek metaforikoak dira, eta horiek ere metaforaren jatorrizko adieran ulertzen dituzte, eta badira, halaber, anfibologikoak ere, ustez maiz **deitzailetzat** erabiliak, beste batzuetan balio anitzekotzat jotzen diren arren. Xabier Kintana

• **2** *iz* dei egiten edo deitzen duen pertsona.

Manifestazioren **deitzaileen** artean Rafa Diez eta Pernando Barrena daude. Berria - Harian

**Deitzaileek** CCOO eta UGT iragarri zuten 3.000 inguru langileen %95ek bat egin zutela grebarekin. Berria - Ekonomia

Lanuzte teknikoa da, eta ez greba, enpresaburuak (autonomoak) baitira **deitzaileak**. Berria - Ekonomia

Eta populuak ikusi zuen hilen **deitzaile** zela Enpedokles. Juan Garzia

Lehergailuak non zeuden jakinarazteaz gain, 07:00etatik 09:00ak bitarte eztanda egingo zutela ohartarazi zuen **deitzaileak**. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

**Manifestazio** deitzaileen ustez, egungo esparru politikoak «agortuak» daude eta euskal herritarren hitza eta erabakiaren errespetuan eraikiko den esparru politiko berria lortzeko lana egin behar dela esan zuten. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**deitzaileen artean** (4); **dute deitzaileek** (3); **zuen deitzaileak** (3)

---

**deitzaldi** *iz ipar* deiztea.

Gainerako ardi bakoitzak bi pinta esne ematen dizkio eguneroko bi **deitzaldietan**. Itxaro Borda

**Deitzaldi** musikalek esnea emaiten. Herria

---

**deitze** *iz* zerbaiti izena ematea.

Eta hilotz ustelkor bat ekoizteari 'bizia ematea' **deitze** horrek salatzen du hobekienik Ideia horren gezurra eta ustela. Iñaki Segurola

---

**deitzi,** deitz, deizten du *ad ipar* behiak-eta jetzi.

Ardi lanen ondotik, behiak **deitzi** nituen eta behar bezala artatu. Daniel Landart

Tambo hartan Don Julianek behi esnadun eta ahatxe zonbeit hazten zituen eta **deitzi** esnea atez ate saltzen. Herria

Ondoan, arditegi berria, modernoa, hiru lau ehun ardi aise aterbetuko dituena, bazkatuko dituelarik neguminean artzainak eta **deitziko** oraiko tekniken arabera. Piarres Aintziart

Haraitzineko sinesteetan, arrautzaren partez, esnea zegoen, irakin gabea, **deitzi** berriaren hagunez desiragarri. Itxaro Borda

---

**deiztale** *iz ipar* behiak-eta deizten duen pertsona.

Fededunak ziren segurki bainan elizak urrun ziren eta ez zen pausa egunik behi **deiztalentzat** ez eta esneketarientzat. Herria

---

**deiztegi** **1** *iz ipar* behiak-eta jezteko tokia.

Xinoko behi esnadunen **deiztegien** ondoan. Herria

Bekersfield-en geldi aldi bat, jada aipatu Albert Goyhenetchen **deiztegiaren** ikusten, hor bazkaldu eta bidea hartu ginuen. Herria

Gaxuxa, beti lehena deitzi izan nahi duena, koskatzen zaio soroa ez delakotz gizen; ñapurrak aldi guziz kaikua uzkaltzen dio, **deiztegia** ez du sofritzen; xeila gainetik jauzi eginez eskapatzen zaio. Michel Oronoz

Albert Goyheneche hau Bakersfield alderat jada partitua eta han 8 mila behiko aterbe **deiztegiekin** jarria bere bi seme dauzkala berekin. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Nahiz oraino baden bide, sendi da Chino-ren usaina, han hemenka behi **deiztegi** batzu, bainan oraino gehienak haragitakoak estatu ederrean, nahiz bazka idortua den indar gaitza omen dauka bereziki urari esker, tropak ehunka eta klaseka, aratxe gehienak orai sortzen baitira, neguko azkartzeko gisan. Herria

---

**dejada** **1** *iz* pilota-jokoan eta, pilota ia indarrik gabe jotzea frontisaren inguruan uzteko.

Titinek buelta, eta Xalak **dejada** frontis erdian. Berria - Kirola

Tantoaren bukaeran Olaizolak **dejada** bota zuen txokora. Berria - Kirola

Bederatzigarrena egiteko aukeran zen, baina **dejada** bat txapa azpira joan zitzaion. Berria - Kirola

Nabarmentzekoa, **dejada** batera larri iritsi, eta ezkerrez zabalera irekita egin zuen tanto eder hura. Berria - Kirola

Ibarrak **dejada** huts egin zuen 21na ari zirela. Berria - Kirola

Capellanek hormabikoa jaso, **dejada** txokora, eta tantoa. Patxi Iturritegi

Horma biko bati, sake on bati eta zazpigarren koadrotik botatako **dejada** bati esker, aurretik jarri zen (18-19). Berria - Kirola

13-0taraino joan da Beloki hasi orduko, hiru sake, bi **dejada** eta bi-paret batekin besteak beste. Herria

Baina Berraondok orduan du **dejada** bat irriskatu urrundik eta kausitu. Herria

**2** irud/hed

Horrelakoetan gertatzen den bezala, eztabaidak jarrai dezake luze, baina **dejada** batekin amaitu nahi dut kapitulua. Pako Aristi

---

dejeneratu ik **degeneratu**.

---

**dekadente** **1** *izond* gainbehera doan zerbait adierazten duena.

Jaltako giro burges **dekadentearen** literatur irudi ezin hobeak utzi zizkigun: itsas-pasealekua, txutxumutxuak, asperdura infinitua... Iban Zaldua

Orduak pasatu ahala, berez nahiko **dekadentea** zen giroa are gehiago degeneratuz joan zen. Jon Arretxe

Austro-Hungariar Inperioa bezain zaharra eta **dekadentea** den familia baten bizitza iluna marrazten du nobelak. Berria - Kultura

Italiako hiriburu izateko esperantza guztiak galdurik, neke **dekadente** halako bat... Anjel Lertxundi

Ibaizabalez beste aldeko burdinazko paisaia **dekadenteak** logura dakarkizu. Urtzi Urrutikoeetxea

**2** jada boladan ez dauden estetika eta estiloetan oinarritzen dena.

Ez zuen poesia **dekadenterik** irakurtzen. Javi Cillero

Neskame desatsegin bati buruzko ipuin lizun **dekadente** bat. Anjel Lertxundi

Diktadore batek bere ihesean abandonatu eta sasiek hartutako udako etxalde **dekadentea**. Harkaitz Cano

Sevillako hotel **dekadente** batean elkar maitatzen. Eider Rodriguez

Haien atzean, erdi ezkutaturik, gaur **dekadentetzat** dauzkagun frantses-estiloko txalet aspaldikoak, beren harrizko fatxadaz eta arbelezko teilatuaz. Anjel Lertxundi

· Hurbiletik ikusi nahi nuen hiria esaten ziguten bezain **dekadentea** zen, paristarrak hain biziatuak ziren. Anjel Lertxundi

**3** irud/hed

Adak amaneratutzat zeuzkan Danelek [...] antolatzen zituen gure festa haiek, eta ez zitzaion jolas haietako ur **dekadenteetan** txapla-txapla ibiltzea gustatzen. Anjel Lertxundi

---

**dekadentismo** *iz* arte eta literatura-eskola, XIX. mendearen bukaerakoa, gaien eszeptizismoa eta gustuaren gehiegizko fintasun eta dotoretasuna ezaugarri dituena.

XIX. mendearen bukaeran, **dekadentismoak** bultzatuta eta indarrean zegoen gizarte-ereduaren kontrako erreakzioz, gai artifizialei buruz idazten eta hitzak dotoretasun eta fintasun gehiegizkoz erabiltzen hasi ziren idazle nagusietako bat izan zen Oscar Wilde. Antton Olano

Wilderen idazlanak zahartu badira ere [...] bizirik diraute bai autorearen pertsonalitatea islatzen duten bitxikeriengatik (komediak), bai **dekadentismoaren** garaiko ohitura eta gustuei lotutako xehetasunengatik. Mikel Hernandez Abaitua

---

**dekadentista** *izond* dekadentea (bigarren adieran).

Eta funtzionarioak adeitsuki ireki zuen marrazki **dekadentista** batez apaindutako zilarrezko tabako-kutxatila. Jose Morales

Pasoliniren *Ebanjelioa San Mateoren arabera* 1964 filmeko Jesukristo hirugarren mundutar haren eta Scorseseren *Jesukristoren azkeneko tentaldia* 1987 filmeko Kristo **dekadentistaren** artean. Josu Zabaleta

---

## **dekadentzia** 1 *iz* gainbehera, bereziki kulturala edo morala.

Orduan **dekadentziarik** ez dagoela egon, juzgatuko du, ez dagoelako nondik beheraturik. Joxe Azurmendi

Euskal Herria krisian dago; krisian dago, **dekadentzian** dagoelako; **dekadentzian** dago, kristautasunak ustelarazi duelako. Joxe Azurmendi

AEBetako Hegoalde Sakona **dekadentzia** , nostalgia eta sentsualitatearen eszenario bihurtu zuen. Berria - Kultura

Sistema zaharraren **dekadentzia** , eta sortzeko dagoen sistema berriarekiko izua. Anjel Lertxundi

Balore absolutuen egarriz bizi da Julien Sorel, balore absolutuak nozitzen ari diren **dekadentziaren** lekuko kezkatua da Stendhal. Anjel Lertxundi

Ancien Régime delakoaren **dekadentziarekiko** lilura eta mina. Anjel Lertxundi

Europa lotan zegoela, ikusten zuen, moral faltsu baten ohean etzanda, lo baino gehiago loakartuta, drogatuta, bere **dekadentzia** eragiten zion gezurraren lozorroan. Joxe Azurmendi

Jauregiak berak ere, Byronen tximino armiarma-lanparetatik zintzilikatuekin eta altzari napolitar apainduraz beteegien artean hara eta hona dabiltzan indioilarrekin, badu denboraz kanpokoaren eta **dekadentziaren** arteko nahastura doi hori. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **dekadente**.

Eraikin zuriaren inguruko zeruak kolore urdin leun bitxia du, turkesa esan liteke; horrek kutsu poetikoa ematen dio inguruari, eta **dekadentzia** giroa leuntzen du aldi berean. Xabier Paya

Ilunabarrean, bigarren mailako errepideetako moteletan, neoizko argien pean kokatzen ditu Cillerok pertsonaiak, hondoa jotzera iristen ez den **dekadentzia** giroan, eta giro horrek biltzen eta batzen ditu ipuinak oro. Berria - Kultura

Bigarren mailako aldi edo **dekadentzia** aldi bezala hartu ohi diren garai horietakoak. Josu Zabaleta

Halatsu arestiko krisi eta **dekadentzia** diskurtso nahinon arruntuan. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere dekadentzia** (3); **eta dekadentzia** (3)

---

## **dekalatu** *izond* atzeratua, desfasatua.

Baina hemen ere dudak izaten dira, jendeak mezu intermitente hori **dekalatua** , ordenagailuen hizkuntza bailitzan 1,0,1,0 segitzen duen kakofonia hori, biziaren miraila izateko pretentzioa duena, entzungarria zaienez. Berria - Kultura

---

## **dekalkatu**, dekalka, dekalkatzen du *ad* kalkatu.

Bat-batean oroitu nintzen, irakasleak nola hormetan edo eskola gelaren minean zegoen berogailuaren inguruan, gehiengoaren irri egingarri, hitz bat edo beste trebes ahoskatzen zutelako, auzoko lagunak **dekalkatzen** zituen. Itxaro Borda

---

## **dekalogia** *iz* munduaren amaiera bizi beharko duen belaunaldiaren gertaerak azaltzen duen hamar eleberrien saila.

«Nik uste dut ipuin hauek gazteek nahiz helduek irakurtzeko modukoak direla», azaldu du Linazasorok, «baina ez nuke nahi ipuin hauek nire beste ipuinen sailarekin ez dakit **dekalogia** edo zer osatuko dudan azkenerako nahasterik, oso kontu ezberdinak direlako». Berria - Kultura

---

## **dekalogo** 1 *iz* Jainkoaren legeko hamar aginduak.

"Hilen ez duzu!" **Dekalogoko** bosgarren manamenduaz. Piarres Xarriton

Ez **dekalogo** eta ez profetarik duen gizartea bilakatu gara. Joxe Azurmendi

**2** jarduera batean oinarrizkotzat hartzen diren hamar erregelako multzoa.

Tomás y Valiente-k **dekalogo** honetan laburbiltzen ditu Beccariak aldarrikatzen duen zuzenbide penalaren ezaugarriak: 1. Zentzuntasuna, 2. Zuzenbide penalaren legaltasuna, 3. Justizia penalaren izaera publikoa, auzi akusatzailea eta ez inkisitiboa, 4. Noble, burges eta herri xehearen arteko berdintasuna lege penalaren aurrean, 5. [...]. Juan Martin Elexpuru

Santutasuna irabazi nahi duen zuzentzailearen **dekalogoko** lehen aginduak dio, *ez dira egileak laidoen pisuarekin zamatu behar.* Jon Alonso

1999.ean, orduan bertsolari gazte ziren dozenerdi bati elkarrizketak egin ondoren, Pako Aristik honako **dekalogoa** osatu zuen haien esanen ondorio gisara: [...]. Andoni Egaña

Osakidetzako zuzendaritzak legealdi honetarako 10 puntuko **dekalogoa** prestatu du, sindikatuekin negoziatzeko. Berria - Euskal Herria

«Adiskidetzearen gaian gaizki ulertuak saihesteko **dekalogoa** » aurkeztu du taldeak. Berria - Euskal Herria

Van Bovenen **dekalogoa** onartzeko eskatu dio SAk Legebiltzarrari. Berria - Euskal Herria

Besteak beste, **dekalogoaren** hiru neurri nabarmendu zituen Goirizelaiak: [...]. Berria - Euskal Herria

Kataluniako Generalitateko presidente Pasqual Maragallek (PSC) bultzatutako **dekalogoa** zazpi puntutan utzi zuten. Berria - Euskal Herria

Gatazka baterako **dekalogoa** . Berria - Harian

Europako Konstituzioari ezetz esateko arrazoiak bildu dituzte **Dekalogo** gorri, berde eta morean. Berria - Euskal Herria

· Urtarrilaren 9an iragan bilkuran ABk 6an adostutako testu horri ezetza eman zion eta hastapeneko **dekalogoaren** hunkiezinezko 12 puntuei eutsi die. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Lerrook idazterakoan, SEPIko eta sindikatuetako ordezkariak «lan **dekalogo** » bat adosten ari ziren. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dekalogo bat** (7); **dekalogoa aurkeztu** (3); **van bovenen dekalogoa** (3)

---

## **dekametro** *iz* hamar metroko luzera neurria.

Kontzeptu hori ez da oso-oso zientifikoa, bistan denez; distantzia psikiko bat ez da neurtzen, eta are gutxiago **dekametroetan** . Josu Zabaleta

---

## **dekano** 1 *iz* unibertsitate fakultate bateko burua.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko **dekano** Jose Antonio Mendikutek. Berria - Euskal Herria

Hala ere, esan dezagun, erantzukizun lanpostuetan aritzeko (errektore, **dekano**, etab.) funtzionario izatea ezinbestekoa dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Dekano** jaunak eta Errektore jaunak haren etxean afaltzen zuten, gainera, igandero. Josu Zabaleta

Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultateko **dekano** ardura hartu zuen. Berria - Euskal Herria

**2** elkargo batean, urte gehien dituena edo bertan urte gehiago egin dituena.

Benat Etxeberri-Aintxartek bi urte kargu hortan beterik, abokaten elkargoak **dekano** berri bat hautatu du. Herria

Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko **dekano** Nazario Oleagari babesa eskatu diola jakinarazi zuen Goirizelaiak. Berria - Euskal Herria

Madrilgo Abokatuen Kolegioko **dekano** Luis Marti Mingarro ere izan zen atzoko bileran. Berria - Euskal Herria

Abokatek **dekano** berria. Herria

Tendentzia orotako **dekano** eta abokatuak Perben II legearen aurkako manifestaldia egin zuten otsailean Parisen. Berria - Euskal Herria

Beste bat abokatu, hirugarren bat Olueko kalonjeen **dekano**. Xipri Arbelbide

**3** *dekano orde* ik **dekanorde**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abokatuen dekanoak** (3); **dekano eta** (5); **dekano eta** (5); **dekano jauna** (6); **dekano jauna** (6); **dekano jauna eta** (4); **dekano jauna eta** (4); **dekano jaunak** (5); **dekano jaunak** (5); **dekano jaunaren** (5); **dekano jaunaren** (5); **dekanoak eta** (4); **fakultateko dekano** (5); **fakultateko dekano** (5); **fakultateko dekanoak** (4)

---

## dekanorde *(orobat **dekano orde**)* **1** *iz* elkargo batean, dekanoaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Berdintasunerako Legeak abokatuen eguneroko lanean nolako eragina duen aztertu zuen Juana Balmaseda Bizkaiko Abokatuen Elkargoko **dekanordeak**. Berria - Euskal Herria

**2** unibertsitate fakultate batean, dekanoaren laguntzailea, arlo jakin baten ardura duena.

Filosofian doktorea sari bereziarekin, EHUko Zientziaren Filosofiaren irakasle titularra eta, 1998az geroztik, hor bertan Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko **dekanordea**. Askoren artean

Fakultateko **dekano** ordeak erran du ken-araziko zituela euskarazko hitzak. Herria

---

## dekanotza *iz* dekanoaren kargua; dekanoaren bulegoa.

Sailak, Sindikatuen Mahaiak eta **Dekanotzak** gaitzespen-komunikatu bana erredaktatu dute, eta ikasle batzuk sinadurak biltzeaz arduratu dira. Iban Zaldua

Hurrengo egunetan **Dekanotzak** zenbait ikerketa-ahalegin bultzatu du, baina ez du ondorio garbirik aterako. Iban Zaldua

**Dekanotzatik**, duda izpirik gabe, glosolalia kasu argi eta garbi baten aurrean geundela adierazi zen. Karlos Linazasoro

---

## dekantazio *iz* zehaztea edo mugatzea.

96an eta 97an idatzi dituen nobeletan, aldiz, estilo oparo eta emankor horren **dekantazio** moduko bat antzematen da, soiltze aldera egindako ahalegin bat, baina estilo horren nortasun-agergarri funtsezkoenak galdu gabe. Jon Alonso

---

## dekapitatu *izond* burugabetua.

Juan Octavio Prenz, Magrisen lagun mina, poeta eta satira sozial handiko Inocencio Honesto **dekapitatuaren** fabula narrazio fantastikoaren idazlea. Berria - Kultura

---

## dekatloi *(orobat **dekatlon**)* **1** *iz* hamar olinpiar probaren multzoa.

**Dekatloian** Munduko Txapelketa hiru aldiz irabazitakoak, agur esan dio denboraldiari, muskuluetako lesio baten erruz. Berria - Kirola

Tomas Dvorak txekiarra, **dekatloian** hiru aldiz munduko txapelduna, Atenasen izango den zalantzan dago. Berria - Kirola

**2** irud/hed

Fabrikako kimikariaren **Dekatlona** osatzen duten espezialitateen artean higienikoena dateke: elokuentzian eta hitzetik-hortzerakotasunean trebatzen du, erreflexu-bizkortasunean eta ulertzeko eta zeure burua ulertarazteko gaitasunean; Juan Garzia

---

dekatlon ik **dekatloi**.

---

## deklamatibo *iz* deklamazioarena, deklamazioari dagokiona. ik **deklamazio 2**.

Cesar Carazok abeslari lana ezin hobeto bete zuen bere ahots **deklamatibo** eta argiarekin. Berria - Kultura

---

## deklamatu, deklama, deklamatzen du *ad* testu bat doinu egokiz esan.

Buruari eragin ziolarik, Koranaren bertset bat **deklamatzen** hasi zen: "Zuk ez daukazu nahi dituzunak onbidetik gidatzerik, baina Jainkoak nahi dituenak gidatzen ditu". Patxi Zubizarreta

Amaren historiak aditu, eta harekin batera **deklamatzen** zuten, oso gora, uholdearen poema: [...]. Fernando Rey

Villagera joan eta han egoten zen, Allen Ginsbergek gau osoan poemak nola **deklamatzen** zituen entzuten. Xabier Olarra

Errituala biribiltzeko, Fionn nire ikasle maiteak bere senitartearen kanta **deklamatu** beharko du. Joanes Urkixo

-Segur al hago ezen jakintsua ez dela nehoiz koleratzen...? -erran zidan, teatro edo komediako aktoreen gisarat **deklamatzen** zidala, hitzak eta isiluneak tartekaturik-. Joan Mari Irigoien

-"Ordua da hitzetatik ekintzetara pasatzeko"- Xerealek, hitzak **deklamatuz**. Iñaki Iñurrieta

Ahotsa puztu, eta **deklamatzen** hasi zen : "Ontzien sokak lasaituak daude, ezin diote mastari eutsi, eta belarik zabaldu ezin". Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deklamatu zuen** (4); **deklamatzen hasi zen** (4)

---

## deklamatzaile *izond* deklamatzen duena.

Pausa labur baten ondoren, aitari sarritan entzuna erantsi zuen hizketa-modu **deklamatzaile** puztu batez: [...] Anjel Lertxundi

**deklamazio** 1 *iz* deklamatzea.

Nagore Orbelzuren interpretazioa, gorputz mugimendua, antzezpena eta **deklamazioa** uztartzen dituena. Berria - Kultura

Gozamen hutsa da beren ahots sendoen **deklamazio** argia entzutea. Berria - Kultura

Baita **deklamazio** hutsa bilakatzeko arriskurik handiena duena ere: erretorika hutsa bilakatzekoa, alegia, hitzaren adierarik ohikoen eta makurrenean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bazkalondoko prosa, solas-prosa eta ez **deklamaziozkoa** dugu Cervantesena, eta bestelakorik ez du behar. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik **deklamatibo**)

Erromatar Inperioan, "Kristautasunak paganismoaren gain izandako garaipenak... **deklamazio**-gai berriak eman zizkion hizlariari eta eztabaida-puntu berriak logikariari. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Poemetan ere berdin, doinuaren metrikak eta oinak, eta hitzen eta esamoldeen banaketa txukun eta dotoreak, eta pertsonaia desberdinen artean banatutako bertso-**deklamazioak** irakurlea liluratu egiten dute, eta inolako eragozpenik gabe, liburuaren bukaeraraino eramaten dute. Santiago Iruretagoiena

---

**deklarapen** *(19 agerraldi, liburu 1 eta 16 artikulutan; ETCn 126 agerraldi)* **1** *iz* deklarazioa, adierazpena.

Historiak ez du menturaz salatuko sekulan, ea egin dituen **deklarapen** horiek berak sinesten dituen, baina gauza segurua da entzulerik bihirik ez duela konbentzitu. Herria

Joanden aste guzian aipatu da AB-ko kidek Mauleko Aberri Egunaren kari egin **deklarapena**: Franck Riboud ez dela Euskal Herrian ongi ikusia izanen Danone holdineko lantegiak bat batean hesten ditueno, milaka langile kanporatuz. Herria

Poloniako eta Australiako agintari gorenek ere antzeko **deklarapenak** egin zituzten. Berria - Mundua

Aholku parrasta bat, dela beren mozkinen **deklarapenerako**, dela erien asurantza kutxa istorioentzat. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Auzapezak berehala bete du katastrofe naturalaren **deklarapen** doziera. Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iturrian jasotako urak langileen izerdia baretzeko sororik urrunetaraino egin behar duen bidea ibili zuen haien amodioak, Isidoraren besoetan sortu eta Perikoren eztarrian itzaltzen zen freskura haren bidaia bakoitza maitasun **deklarapenaren** hizki bat bailitzan. Pako Aristi

Honat jiten direnak ekonomikoki ongi ateratzen dira, azken bost urtetan ehuneko hamabian emendatuak dira kostalde honetan fortunaren gaineko zerga **deklarapenak**. Herria

Zenbakiak bi aldetara doaz, batzu txarrera: enpresa **deklarapenak**, bastiza eraikuntzak. Herria

---

**deklaratibo** *izond* esaldiez eta kidekoez mintzatuz zerbait adierazten duena.

Perpaus **deklaratiboek**, oro har, gauza-egoera bat deskribatzen dute, zerbait esaten dute munduari buruz. Askoren artean

Perpaus **deklaratibo** batek adierazten duen proposizioa. Askoren artean

Honekin guztiarekin, esaldi **deklaratibo** arrunten eta esaldi performatibo deritzenen arteko bereizketa desagertu egiten da nolabait. Askoren artean

Esaldi **deklaratiboek** Austinek zerrendatutako hiru alderdiak izan ditzakete: eduki lokutiboa, indar ilokutiboa (baieztearena), eta ondorio perlokutiboak (norbait konbentzitzea, esaterako). Askoren artean

---

**deklaratu**, deklara, deklaratzen *(1231 agerraldi, 79 liburu eta 551 artikulutan; ETCn 14.965 agerraldi)* **1** du *ad* jendaurrean adierazi, jendaurrean aditzera eman.

Hannonek, erromatarrekiko negoziazioan, **deklaratu** zuen ez ziela onartuko Siziliako itsasoan eskuak garbi zitzaten. Iñaki Iñurrieta

Eta orain ere, homosexual **deklaratu** haizen neurrian, ez zaik faltako zirikada bat baino ge-hiago, eta entzun nahi ez dituanak entzun beharko dituk... Joan Mari Irigoien

Epimenides Kretakoa izan zen paradoxa honen sortzailea, **deklaratu** zuenean: "Kretatar guztiak gezurtiak dira". Xabier Olarra

Atxilotuetako batek telebistan **deklaratu** zuenez, «3.000-4.000 gizon Venezuela okupatzeko prestatzen ari ziren», lehenengo gune militarrei eraso eta gero Chavez kargugabetzeko. Berria - Mundua

PANeko eledun Gazi Hamaden esanetan, epe luzeko su-etena **deklaratzeko** Hamasek eginiko eskaintza errefusatu du Israelek. Berria - Mundua

Su-eten iraunkorra **deklaratu** du ETAk martxoaren 24an, eta egun batzuk geroago ari naiz ohar hauek idazten. Rafa Egiguren

· Txoriek ere tregua **deklaratu** zieten eltxoei iluntzera arte. Joxemari Urteaga

**2** (norbaitek epailearen edo kideko baten aurrean)

Poliziek ez dute oraindik epailearen aurrean **deklaratu**. Harkaitz Cano

Madrilgo Auzitegi Nazionalean **deklaratu** eta gero. Berria - Euskal Herria

Jokin Zeberioren zortzi ikaskidek Donostiako Fiskaltzan **deklaratu** dute. Berria - Euskal Herria

Gero, taldeka, putaseme batzuen aurrera **deklaratzera** joan gara. Jon Maia

Belgikako Dutroux auzian, hiru akusatuek **deklaratu** zuten atzo. Berria - Gaiak

Sexu gehiegikeriak jasan zituzten zortzi emakumek **deklaratu** dute epailearen aurrean. Berria - Gaiak

Polizian azaldu zen, **deklaratzeko** bera eta bera bakarra zela arrebaren jokabide arriskutsuen kulpantea. Matías Múgica

Kasua daraman epaileak ontziko armadorea deitu du **deklaratzera** inputatu gisa. Berria - Gaiak

Udalbiltzako 11 kide inputatu eta **deklaratzera** deitu ditu Garzonek. Berria - Euskal Herria

'Clearstream auziaz' **deklaratu** du Sarkozy Barne ministroak. Berria - Mundua

**Deklaratu** duten auzipetuak atzera galdekatuko dituzte gaurtik aurrera. Berria - Euskal Herria

Ofiziozko abokatuarekin **deklaratu** du. Berria - Euskal Herria

Hiru polizia horiek erraz ezagutuko lituzkeela **deklaratu** zuen epailearen aurrean Merinok. Berria - Harian

Oates honek eta beste lekuko batek **deklaratu** zuten berrogeitamak jesuitak Karlos erregea hiltzeko trama bat antolatzen ari zirela. Juan Martin Elexpuru

Lekukoek ezin dute aretoan egon **deklaratu** baino lehen, kanpoan egon behar dute. Koldo Izagirre

Psikologoa naiz, eta lekuko moduan **deklaratu** behar dut Agirre'tar Nikolaren kausan. Koldo Izagirre

Hiru urteko kartzela-zigorra jarri ziotenean bere burua errudun **deklaratu** ondoren lapurreta larria egin izanaz. Fernando Rey

· Asegarcek borondatezko hartzekodunen konkurtsoan lehen kiebra teknikoa edo ordainketa etendura izan zitekeena **deklaratu** zuen iragan asteazkenean, Bilboko Merkataritza Auzitegian. Berria - Kirola

Asteartean, kiebra **deklaratu** zuen Bruce Mismore finantza zuzendariak Houstongo auzitegi batean, Estatu Batuetan. Berria - Ekonomia

Batzordeko arduradun nagusiari, belarrira **deklaratu** zion. Itxaro Borda

**3** norbaiti zerbait adierazi.

Lotsati, bere dizipulua izan nahi nuela **deklaratu** nion; isildu zen, egunkaria irakurtzen jarri zen. Pablo Sastre

Badakit neure sentimenduak zuri **deklaratzera** ausartzeko, bihozberatasunaren beharretan naizela. Jon Muñoz

Telefonoz bere amodioa **deklaratu** nahi izango ziolako. Jon Alonso

[Irma] hogeita hamar urte geroago Parisen atzemango baitugu, Kléber abenidan, *citron-pressé* bat hartzen, eta Pawel bere aurrean, lehenbizikoz bere maitasuna **deklaratzen**. Pablo Sastre

**4** horretarako esku duenak norbait edo zerbait halako egoeran dagoela adierazi.

Auzia izan zen eta John Noxon "guilty in murder in first degree" **deklaratu** zuten. Gotzon Garate

Errugabe **deklaratu** behar da kulparik izan gabe defendatu beharrean aurkitu dena. Juan Martin Elexpuru

Hotela «debekatutako eremu» **deklaratu** du Voellerrek. Berria - Kirola

BBC irratiak esan duenez, printzesetan ohi ez bezala, oraindik ez dute adin nagusikotzat **deklaratu**. Josu Zabaleta

Justinianok baliozko **deklaratu** zituen Lege Papiarrek debekatutako ezkontza guztiak. Iñaki Iñurrieta

Reims-en bildutako apezpikuek **deklaratu** zuten elizetako basailuak haien inmunitatearen barruan zeudela. Iñaki Iñurrieta

Harik eta aita santua bera jaiki, eta, ex cathedra, hutsezintasuna Elizaren dogma **deklaratu** zuen arte. Irene Aldasoro

Errepublika Sozialista Sobietarra **deklaratu** zuten Georgia. Berria - Mundua

Aipatzekoa da pertsonak ero **deklaratzen** dituzten funtzionarioek ez dutela inola ere frogatua sano daudenik. Xabier Olarra

**5** (zergak eta) aitortu.

Horiek ordea, **deklaratu** behar dira; zuk badakizu hori, **deklaratu** behar dituzue... sarrera guztiak. Pablo Sastre

Han pasatzen zirenek beren salgaiak liburu haundi batean markarazten zituzten, **deklaratu** arau, eta, bukatzean, sinatu behar zuten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nagusiak langilea hartzen duela **deklaratu** behar dio gizarte segurantza kudeatzen duen URSSAFi. Berria - Ekonomia

Plutonioa: **Deklaratu** gabeko plutonioa erabili du maila txikiko esperimentuak egiteko. Berria - Mundua

Parisko enpresa batentzat ari ziren lanean, eta egunero 50 euro ordaintzen zizkieten, baina ez zeuden **deklaratuak**. Berria - Euskal Herria

HERRIKOAk 74000 Euro eskugain **deklaratzen** ditu, jaz 58000 E galtze erakusten zituelarik. Herria

Baionan estatuari zerga zuzenak pagatzen dituztenek, bana beste **deklaratzen** dituzte 12 000 Euro irabazi urtean.· Zoriontasuna doinu neutro eta idor batekin **deklaratzen** da jeneralean, eta, zergatik ez esan, etsipen aire batekin, etsitzen jakite bat baita zoriontasun deklaratua. Herria

**6** (era burutua izenondo gisa)

Ez, jaunak: zoriontasuna gauza **deklaratu** bat da beti. Iñaki Segurola

Behin zutabe batean esan nuen moduan, marxista **deklaratu** batek badauka Christian Diorren arropez janzterik. Berria - Kultura

Frankismorik gorrienean ere abertzale **deklaratua** zen Mitxelenak ez zuen ezkutatzen euskararen historia sozial tamalgarria. Berria - Kultura

Gaur, zer maitaturik ez daukan Euskalgintzak, bere produkzio eta fakturaziotik bizi den Euskalgintzak, euskara saltzeko dauka, hain zuzen ere: merkatuan balio erantsi gisa saltzeko, berek diotenez; atxikimendu **deklaratu** eta fakturatu bat da euskararen balio erantzia. Iñaki Segurola

Ez da ikusten, ez dago ikusterik, eta Heisenberg fisikoarekin batera pentsatu beharra dauka etsi-etsian diru-maite eta diru-gose **deklaratuak**: "moldatzen ikasi beharra dago gauzak ikusi gabe". Iñaki Segurola

**7** ***gerra deklaratu***

Mussolinik **gerra deklaratu** zuen. Fernando Rey

1940an Sobietar Batasunak gerra **deklaratu** zion Finlandiari, eta, neguko kanpaina odoltsu eta (sobietarrentzat) kaxkar baten ondoren, bake-ituna sinatu behar izan zuen SESBk. Lehen ministroak, orduan, Estatu Batuei **gerra** deklaratzea proposatzen du. Iban Zaldua

Ez diozu mundu osoari **gerra deklaratuko** neska batengatik, ezta? Fernando Rey

Gerla **deklaratu** diote, hemengo jende gutiz gehienek non den ere ez dakiten erresuma bati eta, buru bero andana bat badabil, karrikaz karrika. Elena Touyarou

· *irud/hed* Haserreak ito behar zuen, eta gizonei eraso ezinik, betirako gorrotoa eta erruki gabeko gerra **deklaratu** zien abere mota guztiei. Josu Zabaleta

Alegia deus, autoari gerla **deklaratua** zaio Angelun. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitzinean deklaratu** (3); **arratsaldean deklaratu** (3); **atzo deklaratu** (22); **atzo deklaratu zuen** (11); **atzo deklaratu zuten** (8); **aurrean deklaratu** (50); **aurrean deklaratu behar** (6); **aurrean deklaratu beharko** (5); **aurrean deklaratu ondoren** (3); **aurrean deklaratu ostean** (9); **aurrean deklaratu zuen** (9); **aurrean deklaratu zuten** (4); **auzitegi nagusian deklaratu** (10); **auzitegi nazionalean deklaratu** (22); **auzitegian deklaratu** (9); **babestuta deklaratu** (3); **batek deklaratu** (6); **batek deklaratu zuen** (3)

**deklaratu ahal** (3); **deklaratu aurretik** (4); **deklaratu baino** (3); **deklaratu baino lehen** (3); **deklaratu behar** (58); **deklaratu behar du** (6); **deklaratu behar dute** (5); **deklaratu behar duten** (3); **deklaratu behar izan** (14); **deklaratu behar izatea** (5); **deklaratu behar zuela** (4); **deklaratu behar zuten** (4); **deklaratu beharko** (24); **deklaratu beharko du** (8); **deklaratu beharko dute** (13); **deklaratu du** (31); **deklaratu duenez** (3); **deklaratu dute** (19); **deklaratu duten** (12); **deklaratu egin** (5); **deklaratu eta** (17); **deklaratu eta gero** (3); **deklaratu gabe** (3); **deklaratu gabeko** (7); **deklaratu nahi** (28); **deklaratu nahi izan** (6); **deklaratu nahi izateagatik** (6); **deklaratu nahi zuela** (4); **deklaratu nuen** (3); **deklaratu ondoren** (17); **deklaratu ostean** (29); **deklaratu ostean aske** (3); **deklaratu zien** (4); **deklaratu zion** (7); **deklaratu zioten** (5); **deklaratu zuelako** (3); **deklaratu zuen** (117); **deklaratu zuen atzo** (19); **deklaratu zuen epailearen** (8); **deklaratu zuen espainiako** (3); **deklaratu zuen eta** (3); **deklaratu zuenean** (5); **deklaratu zuenez** (3); **deklaratu zuten** (80); **deklaratu zuten atzo** (16); **deklaratu zuten hiru** (4); **deklaratu zutenez** (3)

**egin zutela deklaratu** (4); **epaiketan deklaratu** (6); **epailearen aitzinean deklaratu** (3); **epailearen aurrean deklaratu** (33); **ere deklaratu** (6); **ere deklaratu zuen** (3); **eremu deklaratu** (3); **eta deklaratu** (5); **etena deklaratu** (4); **etxean deklaratu** (3); **euskaraz deklaratu** (13); **euskaraz deklaratu nahi** (7); **gabe deklaratu** (12); **gabe deklaratu nahi** (8); **garzonen aurrean deklaratu** (7); **gerla deklaratu** (4); **gerra deklaratu** (25); **gerra deklaratu zien** (4); **gerra deklaratu zion** (5); **gerra deklaratu zioten** (3); **gisa deklaratu** (35); **gisa deklaratu behar** (4); **gisa deklaratu beharko** (3); **gisa deklaratu du** (3); **gisa deklaratu zuen** (11); **gisa deklaratu zuten** (6); **goizean deklaratu** (3); **harira deklaratu** (3); **inguruan deklaratu** (3); **inkomunikaturik deklaratu** (4); **inkomunikatuta deklaratu** (3); **inputatu gisa deklaratu** (21); **itzultzaile gabe deklaratu** (5); **itzultzailerik gabe deklaratu** (3); **kontra deklaratu** (3); **lagunek deklaratu** (4); **lagunek deklaratu dute** (3); **lekuko gisa deklaratu** (13); **lekukok deklaratu** (4); **nagusian deklaratu** (10); **nagusian deklaratu zuten** (4); **nazionala deklaratu** (3); **nazionalean deklaratu** (22); **nazionalean deklaratu behar** (4); **nazionalean deklaratu ostean** (5); **nazionalean deklaratu zuen** (4); **nazionalean deklaratu zuten** (3); **oraindik deklaratu** (3); **orduz deklaratu** (3); **orduz deklaratu zuen** (3); **ostegunean deklaratu** (3); **presok deklaratu** (3); **su etena deklaratu** (4); **zela deklaratu** (4); **zituztela deklaratu** (4); **zuela deklaratu** (4); **zuen deklaratu** (5); **zutela deklaratu** (7); **zutela deklaratu zuen** (4); **zuten deklaratu** (3)

**deklaratua zuen** (3)

**astelehenean deklaratuko** (3); **bihar deklaratuko** (10); **bihar deklaratuko du** (3); **bihar deklaratuko dute** (7); **deklaratuko du** (36); **deklaratuko du auzitegian** (3); **deklaratuko du epailearen** (5); **deklaratuko du gaur** (6); **deklaratuko duela** (3); **deklaratuko duen** (3); **deklaratuko dute** (40); **deklaratuko dute espainiako** (4); **deklaratuko dute gaur** (4); **deklaratuko duten** (4); **eta bihar deklaratuko** (3); **gaur deklaratuko** (20); **gaur deklaratuko du** (11); **gaur deklaratuko dute** (7); **gisa deklaratuko** (9); **gisa deklaratuko du** (3); **gisa deklaratuko dute** (6); **inputatu gisa deklaratuko** (8)

**aurrean deklaratzeari** (5); **aurrean deklaratzeko** (5); **auzitegi nazionalean deklaratzekoa** (3); **batzordean deklaratzeko** (4); **deklaratzeari uko** (5); **deklaratzeari uko egin** (4); **deklaratzeko eskubidea** (8); **deklaratzeko hitzordua** (3); **deklaratzeko prest** (7); **epailearen aurrean deklaratzeari** (4); **epailearen aurrean deklaratzeko** (3); **euskaraz deklaratzeko** (9); **euskaraz deklaratzeko eskubidea** (4); **ez deklaratzeko** (12); **ez deklaratzeko eskubidea** (3); **gerra deklaratzeko** (3); **gisa deklaratzeko** (3); **nazionalean deklaratzekoa** (3); **zen deklaratzekoa** (3)

**aurrean deklaratzen** (6); **auzitegi nazionalean deklaratzen** (4); **auzitegian deklaratzen** (3); **bat deklaratzen** (3); **deklaratzen ari** (5); **deklaratzen da** (5); **deklaratzen du** (4); **deklaratzen dute** (3); **deklaratzen ez** (3); **deklaratzen hasi** (5); **deklaratzen izan** (5); **deklaratzen izan zen** (3); **deklaratzen zuen** (4); **deklaratzen zuten** (3); **dira deklaratzen** (6); **epailearen aurrean deklaratzen** (6); **gerra deklaratzen** (3); **gisa deklaratzen** (3); **nazionalean deklaratzen** (4)

**atzo deklaratzera** (3); **aurrean deklaratzera** (9); **aurrera deklaratzera** (5); **auzitegi nazionalean deklaratzera** (3); **auzitegi nazionalera deklaratzera** (15); **bat deklaratzera** (3); **berasategi ere deklaratzera** (3); **deitu ditu deklaratzera** (4); **deitu du deklaratzera** (5); **deitu zuen deklaratzera** (3); **deklaratzera deitu** (87); **deklaratzera deitu ditu** (16); **deklaratzera deitu dituzte** (4); **deklaratzera deitu du** (6); **deklaratzera deitu eta** (5); **deklaratzera deitu izana** (9); **deklaratzera deitu zituen** (10); **deklaratzera deitu zituzten** (4); **deklaratzera deitu zuen** (4); **deklaratzera deitu zuten** (6); **deklaratzera deituak** (3); **deklaratzera deituko** (4); **deklaratzera deitutako** (4); **deklaratzera deitzea** (9); **deklaratzera deitzeak** (3); **deklaratzera deitzeko** (9); **deklaratzera deitzeko eskatu** (3); **deklaratzera eraman** (4); **deklaratzera joan** (19); **deklaratzera joan behar** (8); **deklaratzera joan beharko** (4); **deklaratzera joan ziren** (3); **deklaratzera joateko** (3); **ditu deklaratzera** (5); **dituzte deklaratzera** (4); **du deklaratzera** (5); **dute deklaratzera** (4); **epaileak deklaratzera** (3); **epailearen aurrean deklaratzera** (4); **epailearen aurrera deklaratzera** (4); **ere deklaratzera** (6); **eta deklaratzera** (8); **eta deklaratzera deitu** (6); **gisa deklaratzera** (22); **gisa deklaratzera deitu** (13); **gisa deklaratzera joan** (3); **inputatu eta deklaratzera** (4); **inputatu gisa deklaratzera** (14); **inputatuta deklaratzera** (4); **kide deklaratzera** (3); **kide deklaratzera deitu** (3); **lagun deklaratzera** (4); **lekuko gisa deklaratzera** (8); **nazionalean deklaratzera** (3); **nazionalera deklaratzera** (15); **otegi deklaratzera** (5); **subijana deklaratzera** (3); **subijana deklaratzera deitu** (3); **zuen deklaratzera** (4)

---

**deklaratze** *iz* adieraztea, aitortzea.

**Deklaratzeak** eta aitortzeak ere diru beltz izenekoa zuritu egiten dute, diruari bere zikin, gaitz edo bekatu fundazionala ritual edo izapide merke batekin barka dakiokeela erakutsi nahiz bezala. Iñaki Segurola

Donibane Garazin zituzten egiten urte oroz behar ziren **deklaratzeak** beren azinden akiten edo kitantxen ardiesteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bukatu da ez **deklaratze** hori. Berria - Euskal Herria

---

# deklarazio *(719 agerraldi, 51 liburu eta 349 artikulutan; ETCn 9.016 agerraldi; orobat* **deklarazione** *g.er.)* **1** *iz* adierazpena.

Gero Iraultzaren III. Urteko Loreilaren 4.ean, Grégoirek berak proposatu zuen bigarren **Deklarazio** baten bozkatzea, *Déclaration des droits des gens* zeritzona. Piarres Xarriton

Alde edukiko dugu, seguru aski, presondegiko psikologoaren **deklarazioa** ere. Koldo Izagirre

Batasunak Anoetan egin **deklarazio** eta erakunde armatuaren joka moldearen arteko kontradikzioa azpimarratu du Imazek. Herria

Parte hartu duten 140 herrialdeetako ministroek onartutako **deklarazio** adostuarekin batera, [...]. Berria - Gaiak

**Deklarazio** hau sinatzen dugun emakumeok, beste bake prozesu batzuetan beste emakume batzuek egin duten bezala, prozesu hau blindatzearen alde lan egingo dugu. Berria - Harian

Denis Donaldson berak hil zuela ukatzeko IRAk eginiko **deklarazioa** aintzat hartzen dugu. Berria - Mundua

Bartzelonako Udalak zezenek sentsibilitate psikikoa dutela dioen **deklarazioa** onartu du. Berria - Gaiak

Dar es Salamgo **deklarazioa** lau ataletan banatua dago: [...]. Berria - Mundua

1789ko Gizakien eta Hiritarren Eskubideen **Deklarazioak** ere jasotzen du ikuspegi hau. Juan Martin Elexpuru

Ingurumena Giza Eskubideen **Deklarazio** Unibertsalean sartzeko gonbidapena egiten zuen, irismen unibertsaleko lanabes juridiko bat eskura izatearren hain justu ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## **2** (epailearen edo kidekoen aurrean egina)

Eta aitak ez zuen jakin harik eta epaileek **deklarazio** bat eskatu zioten arte. Pello Lizarralde

Goizean, Prefekturan, behar genituen **deklarazio** guztiei buruzko txosten oso bat eskuratu nuen. Koro Navarro

Azkenean DISIPera eraman ninduten, ordu batzuk egon, **deklarazioa** hartu eta libre utzi ninduten. Pako Aristi

Poliziek alde egin zuten eta aitari esan zioten haiekin batera joan behar zuela **deklarazio** bat egiteko. Fernando Rey

Toshirori ez zitzaion burutik pasa ere egin gu gordeta egon gintezkeenik, zergatik eta bere **deklarazioen** beldur ginelako. Bernardo Atxaga

Azkarragaren arabera, edozein auzitegiren lan egiteko moduak inputatuen **deklarazio** judizialak izan behar du oinarri, eta ez **deklarazio** polizialak. Berria - Euskal Herria

Torturapeko **deklarazio** batek ez du baliorik. Berria - Euskal Herria

Fiskalak bi atleta greziarrak auzipetzeko eskatu du, **deklarazio** faltsuagatik eta dopin kontrol bat oztopatzeagatik. Berria - Kirola

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Deklarazio**-hartzea, baina, atzeratu egin da Batasuneko kideen abokatuek beste auzi batzuk dituztelako egun horretarako. **Deklarazio**-hartzeak atzo goizean hasi ziren. Berria - Euskal Herria

Cedric Vasseur Cofidiseko txirrindulariak **deklarazio** aktetan norbaitek bere sinadura faltsifikatu duela salatu zuen atzo. Berria - Kirola

Cabo, berriz, inkomunikatuta mantendu zuten **deklarazio** unean ere. Berria - Euskal Herria

Emaztearen **deklarazio** lerrook idazterakoan [...]. Berria - Harian

Razionalismo huts baten **deklarazio**-erabakia, birdenboran zientzia berriaren interpretazio filosofiko eta oinarriztapen metafisikoa izan nahi duena. Askoren artean

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iruzurra paper bidezko errenta **deklarazioetan** ezkutatzen dela uste du. Aurkezpen **deklarazioetan** botatako beste bitxikerietako bat Enrique Ordoñezek horrelako ekimenak bultzatzen dituzten enpresari mezenasen alde esandako laudorioak izan ziren. Berria - Ekonomia

Atxilotuen polizi **deklarazioetan** oinarrituta. Berria - Harian

Hortxe geratuko ziren trabatuta garrasi etsituak zein amodio **deklarazio** aldrebesen oihartzunak, jadanik adiezinak horman antigoaleko marrazkien moduan. Joseba Sarrionandia

## **5** ***gerra-deklarazio***

1939ko urrian, iraileko **gerra deklarazioa** eta lasterrera amaitu ziren lanera irteteko aukerak. Jokin Urain

Eta, ondoren, **gerra-deklarazioa** izan zen, eta Grosrouvre eta biok hantxe abiatu ginen. Jon Muñoz

Olmerten adierazpenak **«gerra deklaraziotzat»** jo zituen Meshaalek, eta Tel Avivek palestinarren lurrak atxikiko zituela salatu zuen.·*irud/hed* Sanchezek gerra **deklarazio** agerikoa egiten ziola ikusirik, Andres erne jarri zen. Berria - Mundua

Bi pilotariek **gerra deklarazioa** egin zioten elkarri. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurreko deklarazio** (3); **deklarazio bat** (14); **deklarazio batean** (4); **deklarazio bateratua** (3); **deklarazio eta** (6); **deklarazio faltsuak** (3); **deklarazio hartzea** (9); **deklarazio hartzeak** (10); **deklarazio hau** (4); **deklarazio hau sinatzen** (3); **deklarazio hori** (6); **deklarazio horiek** (5); **deklarazio horrek** (4); **deklarazio hura** (5); **deklarazio judizialak** (3); **deklarazio luzea** (3); **deklarazio luzea egin** (3); **deklarazio unibertsala** (7); **deklarazio unibertsalaren** (5); **egindako deklarazio** (3); **eginiko deklarazio** (3); **eskubideen deklarazio** (13); **eskubideen deklarazio unibertsala** (5); **eta deklarazio** (8); **giza eskubideen deklarazio** (9); **inputatuen deklarazio** (3); **inputatuen deklarazio judizialak** (3); **zuen deklarazio** (4)

**azken deklarazioa** (3); **baten deklarazioa** (4); **deklarazioa da** (9); **deklarazioa dela** (3); **deklarazioa egin** (10); **deklarazioa egingo** (3); **deklarazioa egitera** (3); **deklarazioa epaileak** (4); **deklarazioa ere** (3); **deklarazioa eta** (3); **deklarazioa ez** (3); **deklarazioa hartu** (46); **deklarazioa hartu die** (3); **deklarazioa hartu eta** (6); **deklarazioa hartu ondoren** (3); **deklarazioa hartu ostean** (5); **deklarazioa hartu zien** (4); **deklarazioa hartu zioten** (5); **deklarazioa hartuko** (3); **deklarazioa hartzea** (6); **deklarazioa hartzeko** (12); **deklarazioa oinarri** (3); **deklarazioa onartu** (4); **deklarazioa sinatu** (4); **die deklarazioa** (5); **dio deklarazioa** (4); **egindako deklarazioa** (14); **eginiko deklarazioa** (4); **epaileak deklarazioa** (9); **epaileak deklarazioa hartu** (6); **eskubideen deklarazioa** (6); **eta deklarazioa** (5); **euskal presoei deklarazioa** (3); **gerra deklarazioa** (18); **gerra deklarazioa da** (3); **gerra deklarazioa egin** (3); **giza eskubideen deklarazioa** (3); **hartu zion deklarazioa** (5); **hartuko die deklarazioa** (5); **nagusiari deklarazioa** (3); **nagusiari deklarazioa hartzea** (3); **presoei deklarazioa** (3); **presoei deklarazioa hartu** (3); **ustezko deklarazioa** (3); **zien deklarazioa** (4); **zion deklarazioa** (5); **zuen deklarazioa** (9)

**aurrean egindako deklarazioan** (3); **aurreko deklarazioetan** (4); **azken deklarazioan** (4); **deklarazioak egin** (3); **deklarazioak entzun** (4); **deklarazioak ere** (3); **deklarazioak eta** (5); **deklarazioak ez** (5); **deklarazioak ez dira** (3); **deklarazioak oinarri** (3); **deklarazioak oinarri hartuta** (3); **deklarazioak torturapean** (3); **deklarazioak torturapean egin** (3); **deklarazioan oinarrituta** (3); **deklarazioaren edukia** (3); **deklarazioetan oinarrituta** (5); **deklarazioetan ukatu** (3); **deklaraziorik egin** (4); **deklaraziorik hartu** (3); **egindako deklarazioak** (14); **egindako deklarazioak ez** (3); **egindako deklarazioan** (6); **egindako deklarazioetan** (7); **eginiko deklarazioak** (4); **eginiko deklarazioan** (3); **etxean egindako deklarazioak** (3); **ez zuen deklaraziorik** (3); **polizi deklarazioetan** (3); **polizi deklarazioetan oinarrituta** (3); **ustez eginiko deklarazioak** (3)

---

# deklarazione ik **deklarazio.**

---

# deklinabide **1** *iz* hitz batek kasuen arabera har ditzazkeen formen multzoa.

Indoeuropeoz **deklinabide** hau zegoen: [...]. Isabel Arrigain

Erran gabe doa Katonen testuak eta **deklinabideak** baino maiteago nituela une haiek. Aingeru Epaltza

**Deklinabidea** da izenaren morfologiako arlorik esanguratsuena. Koldo Zuazo

1979an arautu zen **deklinabidea**. Koldo Zuazo

**Deklinabideko** 'nola' kasuan. Koldo Zuazo

Bizidunen **deklinabidean** *-gan, -gana* eta *-gandik* atzizkiekin batera, *baitan, baitara* eta *baitarik* ere kontuan hartu zituen. Koldo Zuazo

**Deklinabide** honetan kasu bakoitzari desinentzia bat dagokio. Isabel Arrigain

Euskarak, ordea, **deklinabide** eranskorra du, hitzari atzetik eransten zaiona, eta horrek era honetako laburdurak egitea izugarri oztopatzen du. Iñaki Arranz

Asko baitira bai sintaxiaren bai aditzaren, **deklinabidearen** eta lexikoaren arloetan aztertu behar izan ditugun arazoak. Patxi Ezkiaga

Neure kasa ari nintzen alfabetatzen, aditzak nahiz **deklinabidea** nola-hala daude erabilita, aski modu bitxian, eta ezagun du bost hitzez behin jo behar nuela hiztegira. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orokorrean, bikoiztapenetan lehen osagaiak ez dauka **deklinabide** atzizkirik, bai ordea bigarrenak: *ageri-agerian, alfer-alferrik, bana-banako,* [...]. Iñaki Arranz

**Deklinabide** markak utzi eta preposizioetara iragan. Pello Salaburu

Aurrizkien, artizkien eta atzizkien bidez luzatzen (laburtzen) dira hitzak, baita **deklinabide** marken bidez ere. Iñaki Arranz

Atzizki jatorren bat, nik zer dakit, **deklinabide** kasu exotikoren bat... Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deklinabidea eta** (5); **deklinabidearen deklinabidekera** (3); **gazteen gogoko deklinabidearen** (4); **gogoko deklinabidearen** (4); **gogoko deklinabidearen deklinabidekera** (3)

---

## deklinabidekera *iz* deklinabidearen era.

Uda eta udako ikastaroa eta udako ikastaroko gazteak eta udako ikastaroko gazteen gogoak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabide eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen **deklinabidekerak** eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen **deklinabidekera** zehaztugabea eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen **deklinabidekera** zehaztugabearen kasuak eta udako ikastaroko gazteen gogoko deklinabidearen **deklinabidekera** zehaztugabearen kasuen atzizkiak eta... Iñaki Arranz

---

## deklinaezin 1 *izond* ezin deklinatuzkoa.

Sustantiborik ezagutzen ez zuen hizkuntza baten posibilitatea erabili nuen gogoan, aditz inpertsonalez edo epiteto **deklinaezinez** osaturiko hizkuntza batena. Juan Garzia

**2** irud/hed

Eta neure Elbira ponpoxaren bertze irri baten zain nengoen jadaneko, eguzki eta arrosa **deklinaezin** haiek ene baitan lora zitezen berriro... Joan Mari Irigoien

---

## deklinatu[1], deklina, deklinatzen 1 du *ad* hitz bat deklinabidearen arabera jokatu.

Güti dira artikülüa badüen herri izenak, bena badüelarik, izen arruntak bezala **deklinatzen** dira: Abaurrepetik, Ospitalepetik, Sarrikotapetik... Herria

Gogor egiten ez bazaizu onartzea *verbum* (aditza) esatean besterik ere adieraz dezakegula, denboratan **deklinatzen** dena, alegia. Imanol Unzurrunzaga

**2** irud/hed

Ordutik, emazte askearen pertsonaia sarritan agertuko da Sanden obran, modu ezberdinez **deklinatua**. Berria - Kultura

Nola **deklinatzen** zen gasna izugarri horren nortasun agiria? Itxaro Borda

Aditz intrantsitiboaz **deklinatzen** da maitemina, zeure gogo-gabea bailitzan. Pako Aristi

Maitasuna, aldiz, aditz trantsitiboaz **deklinatzen** da, zeuk nahitakoa delako. Pako Aristi

---

## deklinatu[2] *izond* apaldua.

Eguzkitan, ezin da esan eguzkiaren azpian zaudetenik, hain da apala, baizik eta eguzki **deklinatuaren** alboan. Joseba Sarrionandia

---

## deklinazio[1] *iz* argizari baten angelu distantzia zeru ekuatoarekiko.

Baldin eta zeru-gangako izar bakoitza haren bi koordenatuen bidez atzematen bada -haren garaiera eta haren **deklinazioa**, zenbaki osotan adierazia- [...]. Jon Muñoz

Axelek sestanteaz kalkulatuko du, eguzkiaren **deklinazioa** kalkulatzen den bezala, hogei metroko altura dutela urgainean. Joseba Sarrionandia

Axelek eguzkiaren **deklinazioa** neurtuko du, tenperatura gauerdian -6 ingurukoa bazen, eguerdian 6 ingurukoa izango da. Joseba Sarrionandia

· Eguzkia ekinokzioaren garaian Ariesen eta Libran mugitzen da biraka; gnomoaren luzera bederatzi partetan banatuz gero, haren itzalak zortzi parte hartuko ditu Erromako zeruaren **deklinazioan**. Santiago Iruretagoiena

---

## deklinazio[2] *(orobat **deklinazione** g.er.)* 1 *iz* deklinabidea.

Eta gero hasten ginen **deklinazioen** eskailera zailetan gora, nominatiboa *qui* genitiboa *cuius*, datiboa *cui*, akusatiboa *quem*, edo aditz irregularretan behera, *volo, nolo, malo,* eta *consecutio temporum* edo denboraren konkordantziaren arabera antolatu behar ziren esaldi subordinatuetan zehar, *scio quid feceris*, badakit zer egin zenuen, *sciebam* [...]. Joseba Sarrionandia

**2** (hitz elkartuetan)

Hitzen arteko lotura egiten duten **deklinazio** markak erabiltzea izan daiteke aukera bat. Iñaki Arranz

Zergatik Alizia, aurreko itzulpenetako Alice-ren lekuan? Lopez Gaseniren ustez, haur txikientzat hurbilagoa da izen hori, eta **deklinazio** atzizkiak jarrita, irakurtzeko inolako oztoporik ez du ematen gainera. Berria - Kultura

---

## deklinazione ik **deklinazio[1]**.

---

## dekodeezin ik **deskodeezin**.

---

## dekodetu ik **deskodetu**.

---

dekodetze ik **deskodetze**.

---

dekodifikatu ik **deskodifikatu**.

---

dekoloratu ik **deskoloratu**.

---

## dekomisio *iz* konfiskazioa.

Bigarren mailako DUPeko hainbat buruk esan dute iraganean bake prozesua IRAren armen **dekomisioan** kateatzea saihestu nahi luketela. Berria - Mundua

---

## dekonstruktibo *izond* dekonstrukzioari dagokiona.

**Dekonstruktiboa**: pare bat dozena urte bete du estilo honek eta indarrean dirau, nonbait: kontua da, adibidez, marmitakoa "desegin" eta osagai horiekin beste plater bat osatzea: piper morroaren esentziazko ozpin-lurrinetan beratutako hegaluzedun carpaccioa, parrillan erre ondoren saltsa bizkaitarrean beratutako patata eta itsaskien salda apartsua [...]. Edorta Agirre

· *Feeling, cool* eta holakoak esatea ikaragarri gustatzen zaie, eta, okerrago dena, *apokaliptiko,* ***dekonstruktibo****, identitario* eta horien tankerako berba zantar metakrilatozkoak Iñaki Segurola

---

## dekonstrukzio *iz* testuen analisi metodoa, hizkuntza-ikurraren adierazlearen eta adieraziaren arteko egokitasunik eza oinarritzat hartzen duena. ik **deseraikitze 2**.

**Dekonstrukzio** hitza asmatu duen Jacques Derridak testuak ikertzeko bide tradizionalak [...] baztertzen ditu eta ez du ez sistema, ez teoria, ez metodo ezta egitaraurik ere nahi, bai, ordea, testuen interpretazio subjetiboa, anitza eta heterogeneoa. Berria - Harian

**Dekonstrukzio** izenak hala iradokitzen duen arren, ez du suntsipena proposatzen, baizik eta esperientziaren estruktura linguistikoaz jabetzea. Berria - Kultura

Bertan perfekzioaren eta osotasunaren bila abiatzen den poetak, errealitateari ez-nahiko iritzirik, **dekonstrukzioa** aukeratuko du eta metonimia bereganatuko. Berria - Harian

Izan ere, aski da azken urteotako liskar politikoen inguruan idatzi dena errepasatu eta irainen **dekonstrukzioa** egitea, *cashero* edo *vascorro* osagaia behin eta berriro aurkitzeko. Bernardo Atxaga

Subiranotasunaren **dekonstrukzio** honek gaur egungo Estatuentzat ditu ondorio larrienak. Joseba Zulaika

Bizitza osoa artista eta zuzendari rolaren **dekonstruzioan** aritu da, baina gaur egun modu deseroso honetan ezagutzen dute Grifi bera: Italiako underground zinemaren aita. Berria - Kultura

---

## dekontrakzio *iz* lasaitasuna.

Bisitatzen ari gara... eee... zein leku xarmanta! -saiatu zen Mikel, **dekontrakzioa** erakutsi nahian. Ramuntxo Etxeberri

---

dekorado ik **dekoratu**[2].

---

## dekoradore *iz* dekoratzailea.

Nik adituak ditut askotan:... masoi, judio, usurero, politikero, bankero, kontratista, **dekoradore**, demokratiko, papelero, txatarrero, katedratiko, injinero, diplomatiko, tekniko, moderadore, publizista, akomodadore, libertadore, hotelero, pionero... eta beste hitz asko. Patziku Perurena

---

## dekoratibo *izond* apaintzeari dagokiona; apaingarria.

Orduan, gaijartzeileak -arront neska formala, moñoña eta txintxoa bera- gonbitea egin zion Iturriagari -arront mutiko korrekto, ortodoxo eta **dekoratiboa**-... Patziku Perurena

Elementu **dekoratiboak** badaude, eta baita objektuak ere. Berria - Kultura

Manuel LEKUONAk poesia **dekoratiboaren** alorrean sartzen ditu erreferenterik gabeko hitz hauek -apain-olerkia, bere hitzetan-. Iñaki Arranz

Zehatzago esanda, gogoeta egin nahi izan du feminitatearen erabilera **dekoratiboaz**. Berria - Kultura

Egitura geometrikoen arteko simetria jokoak nonahi, horrelaxe osatuta zeuden tapizaren motibo **dekoratiboak**. Iñaki Iñurrieta

Noizean behin Herder, Hegel, etab., aipatzen badira, aipatu, horren funtzioa **dekoratiboa** izaten da. Joxe Azurmendi

---

## dekoratu[1], dekora, dekoratzen **1** du *ad* apaingarriz hornitu.

San Ignazioren elizako ganga edo Tiepolok Venezian **dekoratu** zituen jauregietako hormak eta sabaiak, adibidez. Josu Zabaleta

-Ez al duzu gogoko nola **dekoratu** didan apartamentua? -esan zuen mutilak. orein-adajez, basoilar disekatuz eta basahuntz-buruz **dekoratutako** eskailera. Mirentxu Larrañaga

Bulegoa txukun eta dotore **dekoratua** zegoen. Migel Angel Mintegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Espejismo antzeko zerbait eskaintzen duela hiriak, dorreetako labirintoak, zubi **dekoratuak**, kupulak nonahi. Berria - Kultura

Paretak, plafoineko zutabeak, ateak **dekoratuak** dira. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> nola dekoratu (3)

---

## dekoratu[2] *(orobat* ***dekorado*** *g.er.)* **1** *iz* teatro edo zinema lan baten gertalekuaren irudikapena.

Konposizioa egiteko artea margolaneko irudiak (pertsonaiak, gauzak, **dekoratuak**) egoki kokatzeko eta antolatzeko artea zela uste izan da luzaro. Josu Zabaleta

Hollywooden **dekoratuak** margotzen jardun zuen 1940etan, eta New Yorken espresionista abstraktu gisa lanean 1950etan. Xabier Olarra

Film kubista bateko **dekoratutik** ateratako kupula baten azpian dabil batetik bestera. Jon Muñoz

Ezerk ez zirudien egiazkoa; inguruan kartoizko **dekoratua** nuela iruditzen zitzaidan, bat-batean aldatua izan zitekeena. Monika Etxebarria

Argazkian ageri den **dekorado** laburrak -argazkilari baten langelako kartoizko horma besterik ez dela dakigun arren -, markotik kanpo hedatu behar lukeen mundu zirraragarri bat iradokitzen digu. Harkaitz Cano

Taldea otsailaren 1az geroztik ari da lanean Baztanen, hainbat **dekoratu** eraikitzen eta Lekarozko ikastetxea girotzen. Berria - Kultura

Antzoki modernoetan bezala, oihala jaitsi behar izan gabe aldatu zuten **dekoratua**. Jon Muñoz

· Zuzendariak hartu zuen berba, **dekoratutzakoa** egiten zuen oihalaren aurrealdera urtenez. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Orain kalea da euskal literaturaren **dekoratua**. Ana Urkiza

Kontakizunaren giroa eta **dekoratua** bera ere, [...] Barojaren aspirazio behinenen ispilu dira. Josu Zabaleta

**Dekoratu** erromantiko hori ez da bakarrik literatura gotikoaren oroitzapena; era berean da idazlearen haurtzaroko bizikizun latzen emaitza. Koro Navarro

Beste mundu-erdia **dekoratu** bat baino ez dela uste duen mundu-erdi horretan sartu nintzen oharkabean. Joseba Urteaga

**3** (hitz elkartuetan)

Leku horietan hiru aldetako makina birakariak egoten dira, alde bakoitzean **dekoratu**-mota bat izaten dutenak. Santiago Iruretagoiena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dekoraturik gabe (3); eta dekoratua (4)

---

## dekoratugile *(orobat **dekoratu egile**) iz* dekoratuak egiten dituen pertsona.

Bere lan ofizialetako batzuk aipatu dizkigu: **dekoratu egile**, eskaparate jartzaile, obretako langile, horma margotzaile... Harkaitz Cano

---

## dekoratzaile **1** *iz* dekoratzen duen pertsona.

Etxea apaintzeko **dekoratzaileari** deitzen diogu, arazoak konpontzeko psikologoen beharra dugu, psikiatrei beldurra ere galdu genien. Pako Aristi

XVIII. mendetik hasita, bada, perspektiba zentral hori "aretoko leku desberdinetan daudenen begirada arrunt guztiekin" adostea izaten da **dekoratzailearen** artea. Josu Zabaleta

Matiasek ez zekien berezkoak ziren mantxa marroiak, hau da, **dekoratzaileren** batek eginak, ala dutxa horretatik pasatutako pertsona guztien aportazioak. Unai Elorriaga

**Dekoratzaile** trebe baten eskua ere nabaria zen. Migel Angel Mintegi

Van Daandarrek kaxa erraldoi bat, lehen mailako **dekoratzaile** batek apaindua. Josu Zabaleta

**2** ***barne-dekoratzaile*** barneen dekoratzailea.

Hona etorri nahi zuten orain koktelen bat edo beste edatera, Eviek eta bere morroi barne-**dekoratzaileek**, eta ezetz esan diot, inondik inora ere. Mirentxu Larrañaga

---

## dekoratze *iz* zerbait apaingarriz hornitzea.

Ernest hila zen, eta Harry, berriz, elizak **dekoratze**-lanetan baitzebilen, kanpoan ibiltzen zen beti. Irene Aldasoro

---

## dekorazio **1** *iz* dekoratzea; dekoratzearen ondorioa.

Durant jaunak berak zuzendu zuen langelaren **dekorazioa**. Mirentxu Larrañaga

**Dekorazioaren** arduradunari deituko dio berriro, bere izenazk: [...]. Josu Zabaleta

Muselinazko gortinek arratsaldeko argia moteltzen zuten, gelako **dekorazio** zainduari halako inoizkotasun airea emanez. Anjel Lertxundi

Jatetxeak, gazte independentista batzuena, esan zigutenez, eta janari aldetik aitzakiarik gabea, **dekorazio** zinez deigarria zuen. Bernardo Atxaga

Gangak **dekorazio** aberatsa zuen eta, denboraren joanaz jadanik leunduta ageri ziren haren apaindura urreztatuekin, argi puntuz izartuta zegoela irudi zuen. Karlos Zabala

Aberats-berri kutsuko **dekorazio** dotore-uste ezaineko bulego bateraino eraman gintuen. Anjel Lertxundi

**Dekorazioko** adituak eta arte ofizioetakoak elgarretaratuak izanen dira oihalezko aterbe batean urtegi nagusien ondoan. Herria

**2** apaingarria.

Hantxe zegoan emakume-tximeleta, **dekorazio** moduan erabilia portafolio batean. Koldo Izagirre

**3** dekoratua.

Daguerre-ren dioraman denboran zehar gertatzen ziren aldakuntzak, adibidez, **dekorazio** margotu handi batean argiztapen-aldaketen bidez lortuak. Josu Zabaleta

**Dekorazio** psikodelikoa, modako aldizkariren batetik kopiatua seguru asko. Patxi Iturritegi

Gora eta behera presaka doan jendeak ez du eurengan erreparatzen [...] plazaren **dekorazio** bihurtu dira dagoeneko. Sonia Gonzalez

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egia esan, emazteak eramaten zuen txarren, batez ere ama etxeko **dekorazio** kontuetan sartzen zenean. Patxi Iturritegi

Hirigintza eta eraikuntza publikoaren esparruan ospe merezia lortua bazuen ere, deseroso sentitzen baitzen **dekorazio** arloan. Patxi Iturritegi

Saloi-jangela handiak modaz pasatutako **dekorazio** estilo berarekin jarraitzen zuen. Joxemari Iturralde

Herri antzerkia, pastoralak, **dekorazio**-olerki gehienak eta kantutegi zaharra zein gaur egungoa, berriz, belarriz jasotzekoak badira ere, idatziz sortuak dira gehienak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Panel aglomeratuz egindako ate sinple eta **dekorazio**-konplexurik gabekoaren leihakumetik Josebak ia ezin zituen ikusi bezeroak. Iñaki Zabaleta

Hormetan etxe arruntetan aurki daitezkeen koadroak, norbaitek pintatutakoak batzuek eta besteak **dekorazio** dendetan erosten diren horietakoak. Berria - Kultura

Diseinu grafikoko espezialista batek **dekorazio** aldizkari baterako atondutako bodegoi postindustriala. Aingeru Epaltza

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Else Baumann abokatua zen, barne-**dekorazioa** maite zuen finantza abokatua. Patxi Iturritegi

Judaismoaren barruko kanpaina horrek, sinagogetako horma-**dekorazioaren** gaian kristautasunarena bezalako lasaikeriaren aurkakoak, bere ondorioak izan zituen judu eta kristauen arteko gudu-tokian. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta dekorazio (3); eta dekorazioa (3)

---

**dekoro** *iz* lotsa, duintasuna.

Puta naizen arren, nik ere neure ahalkea eta neure **dekoroa** dut, eta neure oinak neuretzat bakarrik ditut. Joan Mari Irigoien

Turistentzako lege berezi bat egingo baikenuke, estua bezain zorrotza, elizetan gutxieneko **dekoroarekin** sar daitezen. Joan Mari Irigoien

---

**dekoroso** *izond* itxurazkoa, erazkoa.

Izan ere, etxean zegoenean, garbitu aurretik gosaltzen zuen, baina pentsioan **dekorosoagoa** iruditu zitzaion lehenengo apur bat garbitzea. Unai Elorriaga

---

**dekretal** *iz* aita santuaren erabaki bat daukan gutuna.

Aita santuen **dekretalak**, zehatz esanda, erreskriptuak dira. Iñaki Iñurrieta

Elizgizonak gehiago bereizi ziren, eta ez zieten kasu egin erreformako legeei, berak ez baitziren izan erreformatzaile bakarrak; kontzilioetako kanonak eta aita santuen **dekretalak** bildu ziren; eta apaizeriak iturri garbiago batetik baletoz bezala jaso zituen lege horiek. Iñaki Iñurrieta

Hasi nintzen ezohiko ikastaldietan, sakramentuak eta arimaren salbamenari zuzenean doazkion beste gai izpiritualak hunkitzen dituzten **Dekretalen** tituluak argitzen, hor nituen mila baino gehiago entzuleen txalo artean, ezen aitzinean ez zitzaien **Dekretalen** bigarren liburua baizik aipatzen, ez zuten entzuten galde-ihardespenez, ordezkatzez, eliza-sariez, kontratuez, patronatuez, salaketez beste solasik. Piarres Xarriton

---

**dekretatu**, dekreta, dekretatzen **1** du *ad* dekretu bidez erabaki edo agindu.

Beherako kasu asko agertu direla eta, alerta **dekretatu** du El Salvadorko Gobernuak. Berria - Gaiak

Dolu nazionala **dekretatu** zenuen, txarto oroitzen ez banaiz. Iban Zaldua

Hain zuzen ere, Kubla Khanek "atseginaren kupula" **dekretatu** zuenean [...] belarrira iritsi zitzaion gerra iragartzen zuen arbasoen ahotsa. Xabier Olarra

Ingalaterran, arrazoirik gabe egindako atxiloketa soil bat, atxiloketa **dekretatu** duen ministroak berak konpondu behar du. Juan Martin Elexpuru

**2** erabaki.

Arriskua Stalin zela **dekretatu** zuten amerikarrek. Iban Zaldua

---

dekreto ik **dekretu**.

---

**dekretu** *(ETCn* ***17.716*** *agerraldi; orobat* ***dekreto*** *ETCn* ***17*** *agerraldi)* **1** *iz* botere betearazlearen idatzizko erabakia.

Enperadore erromatarrek, gure printzeek bezala, **dekretu** eta ediktuen bidez adierazten zuten beren borondatea. Iñaki Iñurrieta

Ongi iruditzen bazaio, idatzi beza erregeak **dekretu** bat, herri hori suntsitzeko aginduz. Jose Antonio Mujika

Cesare Battisti estraditatzeko **dekretua** sinatu du lehen ministroak. Berria - Mundua

Telebista kateek zineman inbertitzeko **dekretua** onartu du Espainiako Gobernuak. Berria - Kultura

Horrela bada, **dekretua** ematen dugu inori ez zaiola zilegi zuek eta zuen eliza ausarkeriaz asaldatzea, ez eta inolako irainez nekaraztea. Askoren artean

Kontsulen **dekretu** batek, VIII. urteko thermidorraren 24an, Justiziaren Ministroari eman dio agindua, gu haren etxera biltzeko eta "[...] arlo zibileko legeriaren oinarri nagusiak eztabaidatzeko". Andres Urrutia

Adi-adi egoten zen, eta pareta edo arboletan iltzatu **dekretuak** irakurtzen zituen. Elena Touyarou

Garai hartan anaiek tratu txar asko nozitu zuten, Lyongo Kontzilioak **dekretu** batez agintetik kendu zuen Frederiko enperadorearen aldetik. Askoren artean

1964an ateratako **dekretu** haren bidez itxi zuen irratia aldi baterako Francoren gobernuko Informazio eta Turismoko ministro zen Manuel Fraga Iribarnek. Iñigo Aranbarri

Berrikitan Espainiako Gobernuak **dekretu** bat eman du zakur arriskutsuei buruz. Gotzon Garate

**Dekretu** batek lan egiteko eskubidea eman zien preso politikoei. Jokin Urain

**Dekretu** baten bidez, nolanahi ere, Mikhail Kasianov kargugabeturiko lehen ministroaren behin-behineko ondorengo gisa Viktor Khristenko izendatu zuen Putinek. Berria - Mundua

*ik beherago* 5. Askoren artean

Lege horretatik abiatuta, ereduen politika arautzeko **dekretua** argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Berria - Harian

Probintzia honetako gobernadoreak ere **dekretu** bat plazaratu zuen. Karlos Zabala

Anartean, **dekretu** bat izenpetua izan zen, apez ihardokitzaileei erbesteratzea agintzen ziena. Elena Touyarou

1993ko **dekretua** bete gabe esleitu dira lanpostuak. Berria - Harian

Azken **dekretua** telegrafo hariaren bidez iritsia zen Siberiako probintzietara. Karlos Zabala

**Dekretu** horretako 13. artikulua eta hurrengo biak. Iñaki Iñurrieta

**2** irud/hed

Germaniar herriek ere, beren arazo partikularretan, Probidentziaren **dekretu** gisa hartzen zuten borroka, hura delitugilea edo usurpatzailea zigortzeko beti erne zegoelakoan. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eusko Jaurlaritzak tokiko telebista digitalak arautzeko egin duen **dekretu** zirriborroa. Berria - Harian

Bi **dekretu**-sailak, moralki gorantzakoak eta moralki beherantzakoak, Elizak Estatuan duen eraginaren froga dira. Iñaki Mendiguren

Jaiegunetan zabaltzearen aurka dauden sindikatuek zirriborroa jaso, eta orain alegazioak aurkeztu dizkiote **dekretu** egitasmoari. Berria - Ekonomia

· Formulak, ordea, sakratuak dira, otoitzak, **dekretu**-legeak eta hizkuntza hilak bezala, eta komarik ere ezin da aldatu haietan. Juan Garzia

*ik beherago* 7. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Honezkero, berdin-berdin nardatzen ninduen ez dakit nongo Udalbatzaren bandoak edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru **Dekretu** berriak. Aingeru Epaltza

Ildo beretik salatzen ditu Nafarroako Gobernuak euskarari buruz berrikitan onetsi dituenak, batez ere, 372/2000 Foru **Dekretua**, abendoaren 11koa. Herria

Curriculum **dekretu** horietan legez Espainiako Gobernuak finkatutako %55 hori bere egin eta gainerako zatia osatu beharko dute Gasteiz eta Iruñeko agintariek. Berria - Euskal Herria

Susa hirian zabaldutako suntsitze-**dekretuaren** kopia bat ere eman zion, Esterri erakusteko, hark ere jakin zezan. Jose Antonio Mujika

Orga lerro luzea Donibanerantz bideratu zen, erbesteratze **dekretua** beren herriko hautetsien eta Sozietate Iraultzailearen eskakizuna zela batere ez zekien arrantzale herriko biztanleen gehiengoan sekulako beldurra sortuz. Elena Touyarou

**5** ***dekretu bidez***

Ihizia haizu den denboraldia luzatu du gobernu berriak **dekretu bidez**. Herria

Duela 141 urte, atzoko egunez, Abraham Lincoln Estatu Batuetako presidenteak esklabotza debekatu zuen, **dekretu bidez**. Berria - Gaiak

Sindikatuek nabarmendu zuten iazko negoziazio kolektiboa **dekretu bidez** itxi zutela EAJk, EAk, PPk eta PSOEk. Berria - Ekonomia

Abbasek Barne segurtasunerako Poliziaren eta Mugetako Poliziaren gaineko eskuduntzak bere gain hartu ditu **dekretu bidez**. Berria - Mundua

Jaiak ezin ezar daitezke **dekretu bidez**. ez zuela lege **dekretu bidez** inposatzeko duen aukera baliatuko akordiorik ezean.· Segurtasun gorputzak erreformatzeko eskakizunei men egin eta orain arteko 12 segurtasun gorputzak hirura murriztu zituen larunbatean Arafatek, **dekretu bitartez**. Askoren artean

### 6 *errege* (*orobat* ***erret*** *g.er.*) ***dekretu***

Hortaz, erregeari ongi baderitzo, eman bedi honako **errege-dekretu** hau, Pertsia eta Media osorako balioko duena eta aldaezina izango dena: 'ez dadila berriro agertu Basti inoiz ere Asuero erregearen aurrean, eta eman dakiola erregina-titulua hura baino hobea den beste bati'. Jose Antonio Mujika

Espainiako Ministroen Kontseiluak atzo onartutako **errege dekretuaren** bidez lehengo asteko uholdeek eragin zituzten kalteak konpontzeko diru laguntzak bideratuko ditu. Berria - Euskal Herria

**Errege dekretuaren** hirugarren xedapen iragankorrean, etorkinen ezohiko «normalizazio» prozesu bat arautu zuen, etzi hasi eta maiatzaren 6an amaituko dena. Berria - Harian

Tatuajea debekatuta zegoen herrian, **errege dekretu** baten bidez, eta atzerritarrak genituen bezero nagusi. Javi Cillero

Irailaren 23ko 88/1091 **Erret Dekretu** Legegilearen, hau da, Aurrekontu Lege Orokorraren Testu Bateratuaren 29-2 artikuluan. Joseba Sarrionandia

**Errege dekretu** bat atera dute Belgikan edari alkoholdunen iragarkiak debekatzeko. Berria - Gaiak

### 7 *lege dekretu*

2002an PPk beste **lege dekretu** bat erabili zuen langabeziaren baldintzak gogortzeko. Berria - Harian

Sei hilabeteko epea izango dute multinazionalek orain arteko itunak **lege dekretu** berriaren arabera berritzeko. Berria - Mundua

Bezperan, hauteskunde kanpainan egindako promesa bete zuen: erregaiak nazionalizatzeko **lege dekretu** gorena sinatu. Berria - Mundua

**Lege dekretu** horren arabera, saltokiek, urtero, zortzi jai egunetan edo igandetan ireki ahalko dituzte ateak. Berria - Ekonomia

Espainiako Ministroen Kontseiluak atzo onartu zuen karbono dioxidoa isurtzeko eskubideen salerosketaren araudia, urgentziazko **lege dekretu** bidez. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **beste dekretu** (4); **beste dekretu bat** (3); **dekretu bat** (32); **dekretu batek** (9); **dekretu baten** (20); **dekretu baten bidez** (14); **dekretu baten bitartez** (5); **dekretu berria** (20); **dekretu berria egitea** (3); **dekretu berria onartu** (5); **dekretu berriak** (7); **dekretu berriaren** (3); **dekretu bidez** (23); **dekretu eta** (7); **dekretu hau** (3); **dekretu hori** (4); **dekretu horrek** (3); **dekretu horren** (11); **dekretu horren arabera** (3); **dekretu zirriborroa** (7); **dekretu zirriborroak** (5); **dituen dekretu** (6); **duen dekretu** (7); **duen dekretu bat** (3); **errege dekretu** (10); **errege dekretu baten** (4); **eta dekretu** (6); **foru dekretu** (4); **gehigarrien dekretu zirriborroa** (3); **jaurlaritzak dekretu** (3); **lege dekretu** (10); **lege dekretu bidez** (4); **osagarri gehigarrien dekretu** (3)
>
> **alkateak dekretua** (3); **arautuko dituen dekretua** (3); **arautzeko dekretua** (7); **arautzen dituen dekretua** (3); **arautzen duen dekretua** (3); **azken dekretua** (3); **bideratzeko errege dekretua** (3); **da dekretua** (3); **dekretua aldatu** (7); **dekretua aldatzeko** (5); **dekretua argitaratu** (8); **dekretua argitaratu zuen** (5); **dekretua atzera** (3); **dekretua bere** (3); **dekretua bertan** (12); **dekretua bertan behera** (12); **dekretua eta** (6); **dekretua etenda** (3); **dekretua eusko jaurlaritzak** (3); **dekretua ez** (12); **dekretua ez da** (3); **dekretua indarrean** (3); **dekretua izenpetu** (3); **dekretua kaleratu** (4); **dekretua onartu** (24); **dekretua onartu du** (5); **dekretua onartu zuen** (12); **dekretua sinatu** (5); **diru laguntzen dekretua** (3); **dituen dekretua** (8); **du dekretua** (3); **duen dekretua** (17); **duen dekretua onartu** (5); **egindako dekretua** (4); **emateko dekretua** (5); **errege dekretua** (7); **erregearen dekretua** (3); **eskolen dekretua** (3); **eta dekretua** (6); **foru dekretua** (6); **gobernuak dekretua** (3); **haur eskolen dekretua** (3); **jaurlaritzaren dekretua** (3); **laguntzen dekretua** (3); **lege dekretua** (5); **onartutako dekretua** (5); **ordainak emateko dekretua** (3); **osagarri gehigarrien dekretua** (4); **sortzeko dekretua** (3); **zen dekretua** (3); **zuen dekretua** (9)
>
> **arautzeko dekretuaren** (3); **dekretuak dio** (5); **dekretuak ez** (8); **dekretuak ez du** (3); **dekretuak jasotzen** (3); **dekretuan esaten** (3); **dekretuan sartu** (3); **dekretuaren arabera** (8); **dekretuaren aurka** (5); **dekretuaren aurkako** (3); **dekretuaren bidez** (6); **dekretuaren edukia** (4); **dekretuaren edukia legez** (3); **dekretuaren inguruan** (3); **dekretuaren kontra** (6); **dekretuaren ondorioz** (3); **dekretuari buruz** (3); **dekretuari esker** (4); **dekretuen bidez** (3); **den dekretuak** (3); **du dekretuak** (4); **eta dekretuak** (5); **foru dekretuak** (4); **gobernadorearen dekretuak** (3); **gobernuaren dekretuak** (4); **jaurlaritzaren dekretuak** (4); **jaurlaritzaren dekretuaren** (4); **nafarroako gobernuaren dekretuak** (4); **onartutako dekretuak** (4)

---

## dekretukada *iz adkor* dekretua.

Almirallen hitzetan, «beste **dekretukada** baten zantzuak» antzeman daitezke zirriborroan: «adostasunik ez balego, politikariek berriro euren proposamenak ezarriko dituztela iragartzen du». Berria - Ekonomia

Ez dute begi onez hartu Eudelek proposatutako itunaren zirriborroa: ez du azpikontratazioen gaia aipatzen eta «beste **dekretukada** baten abisu garbia» da. Berria - Harian

Lan itunaren gainean Eudelek eta CCOOk sinatutako akordioa gaitzetsi, eta abisua eman du: **«dekretukada** noiz ezabatu, orduan utziko diegu lanuzteei». Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **beste dekretukada baten** (4)

---

## dekubito (*orobat* ***decubito***) *iz* plano horizontal batean etzanda dagoenaren jarrera.

Nahiz eta funtsean dantza etnikoan oinarritu erlijiozkoak, hasierako eta bukaerako jarrerak, edo besoen adierazgarritasuna edo alboko **decubitoan** eginikoak zurien dantza garaikideko ekarpenak ziruditen, hirietako dantza laikoan itxuraldatuak. Badakizu, bizkar-**dekubitoa** derrigorrezkoa da. Berria - Kultura

---

## dela

### 1 ***dela ... dela*** naiz ... nahiz

Irudien gosea dute dagoeneko, fikziozko istorio bat ikusteko irrika, **dela** westerna **dela** amodiozkoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Edertasuna, **dela** morala **dela** naturala, propioki hauteman baino sentitu egiten da gehiago. Patziku Perurena

Neurketa horren ondorioz errazago proposa daitezke promozio bideak, **dela** soldatan **dela** ibilbide akademikoan ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Esteatohepatitisa diagnostikatzen bada, **dela** alkoholikoa **dela** ez-alkoholikoa, ez dago ezer egiterik. Berria - Gaiak

**Dela** politikan **dela** beste edonolako xede batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Parada hauta elkarteak zoin diren hobeki jakiteko eta elkarte horiek, **dela** kiroletan **dela** kulturari buruz, zertan ari diren. Herria

Ederki baitakigu, **dela** eskarmentuz **dela** mila aldiz kontatu den gauza delako, batzuetan iluntasunaren bidetik, iluntasunaren arima sakonaren bidetik erabateko itsualdira iristen dela. Jon Alonso

· **Dela** adinagatik, **dela** lagun faltagatik, **dela** laguna urruti dagoelako, **dela** lagunarekin haserre edo krisian gaudelako, **dela** besteak ez diolako gure desioari erantzuten... Luis Elberdin

---

## delako 1 *izlag* aipatutakoa, lehen aipatutakoa.

Hain segur ere, **delako** atsoak ez zuen behin ere amestuko gisako zalapartarik eraginen zuenik ugaldean horrela agertzean. Aingeru Epaltza

Bigarren lerroan datoz, **delako** hutsak sinesten dituztenak. Piarres Xarriton

Haren kalonjeek behartu ninduten **delako** komentuan kalonje bezala sartzera. Piarres Xarriton

Hauxe da **delako** morbo horren erresuma naturala. Iñaki Segurola

Ez delakotz berdin gertatzen arima horrekin eta beste **delako** arima begetatiboarekin eta sentsitiboarekin, hauek, erran dugun bezala, hiltzen baitira haien gorputzak hiltzearekin. Piarres Xarriton

Baina gero, gure **delako** doktor jauna Unibertsitatetik urrundu zen, lekuko honekin berarekin, Tolosatik zazpi legoatan dagoen San Martin deitu auzora. Piarres Xarriton

**2** *(aipatzen den izen propio, erderatikako izen edo kidekoren baten eskuinean).*

"Betierekotasun" **delakoa** ere ezin entzun nik, deliberatuki hartara adi-adi jarrita ere; gure urrats bakoitzeko hondar-aleen firfira izan ezik, ez baitut besterik entzuten. Joxe Austin Arrieta

-Polizia Dakota etxera iritsi zenean, Chapman **delako** hori hantxe atarian liburu bat irakurtzen aurkitu zuen. Bernardo Atxaga

Baina "bir" **delako** hura ez zen inoiz egoten "botikan" hartaz behartzen ginenean. Fernando Rey

"Chambre d'Amour" **delako** hori, oso leku polita omen da. Txillardegi

Nondik ote dator *ereiaro* **delako** hori? Pello Zabala

*La Voz de Guipúzcoa* errepublikanoa jasaterik ez zegok; eta *El Fuerista* **delako** hau erosten diagu aspaldisko honetan. Txillardegi

"Poesia zu zeu zara!" **delako** hura. Patziku Perurena

"Antxusa" **delakoa**, oiartzuarra, bere 22 urteetan hil zuten unean, Lizarragaren aginduz fusilatu zuten. Txillardegi

Hanka hautsia neukalako itxura egiten bainuen, eta ni bezala kamuflatuta zegoen mediku batek sinatutako dokumentua ere ez baitzitzaidan falta, *lesión grave de menisco* **delakoa** neukala zioena. Bernardo Atxaga

*Confraternity of Saint James* **delakoaren** kide dira senar-emazteak. Piarres Aintziart

Nik gorrotoa ere dexentekoa nion Café Odéon **delakoari**. Joxe Austin Arrieta

Atzoz geroz eskutan daukat baitezpadako Bidaiariaren ageria, *Credencial del Peregrino* **delakoa**. Piarres Aintziart

Oroitaraz dezagun Napoleon-ek Espainiako errege izendatu zuela eta españolek fueratu zituztela frantses soldaduak "Guerra de Independencia" **delakoan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

*Havertà* **delakoak** joera du txukuneza eta lotsagaldua izateko. Juan Garzia

Shakespeareren "latin gutxi eta greko gutxiago" **delakoak** lagundu ote zion bere antzerki-lanak egiten? Iñaki Mendiguren

**3** ***dena delako***

Gure landroverra marga edo **dena delako** buztin labainkor hartan zegoen ardatzeraino sartua. Joxe Austin Arrieta

Esne-zopak, edo galletak, edo morokila edukita, zertarako nahi duzu korfleis edo **dena delako** asmakizun hori? Xabier Mendiguren Elizegi

Jesus!, Walter-en musikak edota **dena delako** zerak txora-txora egiten naute. Mirentxu Larrañaga

Esne-zopak, edo galletak, edo morokila edukita, zertarako nahi duzu korfleis edo **dena delako** asmakizun hori? Xabier Mendiguren Elizegi

Horratx erromes, behartsu, alfer, pikaro edo **dena delako** bagamunduen aspaldiko martingala. katagorria edo **dena delakoa** ere horixe besterik ez zen, zelaiko hondamendiarekin, stadiumeko kaosarekin kontraste erabatekoa egiten zuen edertasuna, loraldi txikia. Patziku Perurena

**Dena delakoa** esaten dudala ere, gero eta gehiago erresumintzen baitzaitut, nonbait. Mirentxu Larrañaga

Oiher salako mahai ondoan eserita dago, bere dragoi bolak edo **dena delako** horiek marrazten. Iban Zaldua

Eta berdin ustez Metropolis horren lana aztertu zuten hiru aditu edo **dena-delako** horien kontuarekin. Oskar Arana

Hardy edo **dena delako** horrengatik? Joxe Austin Arrieta

Sistema immunologikoaren antigorputzak, **dena delakoagatik**, modu izugarri bortitzean hasten dira gorputzaren beraren ehunei eraso egiten eta dena suntsitzen. Iban Zaldua

Musika jotzen ari delarik, berdin dio konpaktoan, irratian edo **dena delakoan**, bere erasoaren iraina nabarmentzen du buruak. Pako Aristi

Zer dakita nik, epailearena, forentsearena, poliziarena edo **dena delakoarena**... Aingeru Epaltza

---

# delegaritza *(7 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 44 agerraldi)* *iz* delegazioa, ordezkaritza. ik **delegazio**.

Donostian, INEMen bulegoetan, ogasunaren Gipuzkoako **delegaritzan**... leku askotan zegoen mezu hori. Berria - Euskal Herria

Eta hala, **delegaritzatik** deitu diote honi eta **delegaritzako** buru baten lagun-laguna da hura. Iñigo Aranbarri

---

# delegatu[1], delega, delegatzen **1** du *ad* -en esku utzi, ordezkaritza eman.

Inoren esperoan egon gabe, inoren abangoardian **delegatu** gabe. Txema Ramirez de la Piscina

Kolektibitateak norbanako baten eskuetan **delegatutako** aginpidea da. Josu Zabaleta

Errazago **delegatuko** ditut inoren eskutan epailearen egitekoak, partaideren baten abokatuarenak baino. Imanol Unzurrunzaga

Telefonoa eta posta kodea paratu dituzte, joateko aukera ez dutenek botoa **delegatu** dezaten: 902 54 00 43, 170 Donostia. Berria - Kirola

Ezin nuen gauza guztietan buru-belarri sartu, eta azkenean **delegatzea** erabaki nuen. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Era berean, zentro **delegatuetan** ere izango dira hautestontziak, eta bertako kideek ez dute egoitza nagusira joan beharko botoa ematera. Enpresako kontseilari **delegatuarekin**. ik delegatu[2] 2. Berria - Euskal Herria

Herri Ordezkarien Komisario **delegatua**. Elena Touyarou

---

# delegatu[2] **1** *iz* ordezkaria.

Irakaslea ikasgelan egongo da bitartean-eta klaseko **delegatua** edo azpidelegatua aukeratzeko bozketa garatzen den. Pello Salaburu

Gaur Jaurlaritzako **delegatuekin** berbetan egon gozak... tira, berba egiten ez, eztabaidan. Unai Iturriaga

Castroko **delegatuek** helegitea aurkeztu zuten, eta Ligak arrazoia eman. Berria - Kirola

Hirigune elkargoko **delegatu** hautatua izan da.LAB eta ELA sindikatuetako merkataritza alorreko **delegatuek** manifestazioa egin zuten atzo Gasteizen. Herria

Hautagai demokratak gutxienez 2.162 ordezkarien botoa behar du, orotara 4.322 diren **delegatuen** artean. Berria - Mundua

Sammy zen, **delegatu** sindikala. Pablo Sastre

Edozein arazo edo arrazoi izanik ere, **Delegatuen** Batzarreko lehendakariaren baimenik gabe hiria ez uztea. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (izen elkartuetan)

1968ko martxoan, Donostiako zentsura **delegatuak** irizten dio «Errusia inguruko herrialdeen marxismo praktikoa edo sozialismoa» dela argitalpenaren ardatza, eta debekatu du. Berria - Harian

Orain bederatzi urte, Valentziara itzuli zen, kirol **delegatu** postua hartzeko. Berria - Kirola

**3** (beste kargu-izen baten eskuinean)

Eskalatzaileak soilik zuzendariarekin eta enpresako kontseilari-**delegatuarekin** erabiltzeko irribarrea zuen. Aingeru Epaltza

*ik* delegatu[1] 2.

Itsas Institutu Sozialeko lehendakari-**delegatu** gisa. Koldo Izagirre

---

**delegazio** *(69 agerraldi, 6 liburu eta 51 artikulutan; ETCn 827 agerraldi; orobat* ***delegazione*** *g.er.)* **1** *iz* ordezkaritza, ordezkariaren bulegoa.

Oinarrizko datuak usadioko deiak eginez bildurik -Suhiltzaileak, Udaltzaingoa, Gobernuaren **Delegazioa**-, 450 karaktereko albistea argitaratuko nukeen. Aingeru Epaltza

Geuk, jakina, ez genuen basakeria hartaz berririk izan egun batzuk geroago arte, **Delegaziotik** bi diplomatikoen paraderoaz galdezka hots egin zigutenean. Karlos Linazasoro

Gamesa konpainiaren «zerbitzuak sustatzeko» **delegazio** berria ireki du konpainiak Galesen. Berria - Ekonomia

**2** ordezkaritza, ordezkarien multzoa.

Palestinarren eskubide zibil urratuen berri emango duen **delegazio** internazional bateko kideak. Berria - Kultura

Badatoz ondoren fabrikako gorabeherak, Yinek segurutzat zeukan halako diru saria jasoko ez duen berri txarra, Japoniako **delegazio** bati harrera berak egin beharko diola zuzendariaren agindua... Pablo Sastre

Florentziako foru sozialean izan den **delegazioak** hango berri eman du. Herria

Irlandako **delegazioari** eginikako ongi-etorri berotik landa, 1932 an Dublinera joandakoei egin zaiote omenaldia. Herria

Sindikatuko **delegazio** bat Iruñeko Iratxe beilategira joango da gaur goizean. Berria - Euskal Herria

James Harkness WWFk Txinan duen **delegazioko** burua da. Berria - Gaiak

Bob Dietz OMEk Vietnamen duen **delegazioko** arduradunaren arabera, [...]. Berria - Gaiak

Europako Kontseiluko Biltzar Parlamentarioko **delegazioko** zuzendari Doros Christodoulidesek. Berria - Mundua

**3** delegatzea.

Edozein **delegazio**, ordea, ezerezean geratuko da akzioak utzi dituena batzarrean sartzen bada. Berria - Harian

Auzapezak emanak zizkion **delegazioak** bai itzuli dizkiola Jean Grenet-i. Herria

B ez zegoen ohituta erabakiak hartzen; izan ere, oso erabaki gutxi hartu zituen bere bizitzan, eta kasik bakar bat ere ez zen bere-berea izan; gehienetan beste hirugarren pertsonaren bidez edo **delegazioz** harturikoak izan ziren. Jon Alonso

Egia erran, zituen **delegazioak** ez ziren txipiak: Baionako finantzak, ekonomia, Herriko Etxeko langileria (830 langile), zezenketak eta Basusarriko golfeko erakunde berezian Baionaren lekua. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren arrapostua igurikatu ere gabe, osteguneko bilkuran kendu dio zerbitzu publikoko **delegazio** kargua. Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iruñeko eta Lakuako Hezkuntza **Delegazioetara** joango gara. Berria - Euskal Herria

Aragoiko Gobernu **Delegazioaren** arabera. Berria - Euskal Herria

SEA Arabako enpresarien elkartearen aurrean elkarretaratzea egingo dute langileek, bi enpresetako batzordeek deituta, eta, ondoren, manifestazioa izango da Lan **Delegaziora** bitartean. Berria - Ekonomia

Laiko **delegazione** bat izan da zer pasatzen zen jakin nahiz Baionara eta hor artetik entzun ahal izan dute Presidentak ere bost urtetarik kanbiatzen zirela. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **delegazio bat** (5); **duen delegazioan** (3); **duen delegazioko** (9); **duen delegazioko burua** (3); **europan duen delegazioko** (4)

---

delegazione ik **delegazio**.

---

**delektazio** *iz* atsegintasuna, gozamena.

Ana Morenak banan-banan erantzun zituen galdera bihurriak, **delektazio** apur batez ere bai esango nuke. Karlos Linazasoro

Armando Bonillak berak **delektazio** psikopataz aitortu baitzituen hemen paperean idaztekoak ere ez direnak. Karlos Linazasoro

---

**delfin**[1] *iz* Frantzian, erregeren premua. ik **dofin**.

Erregeak, hiltzeko tenorean, bere **delfinari** esaten zion izen sekretua, eta horrela errege berriak, ikusten den Frantziaz gainera, Frantzia ezkutua, misteriotsua, hartzen zuen herentziatzat. Anjel Lertxundi

---

**delfin**[2] *iz* izurdea.

Lupia, berdela, legatza, hegaluzea eta txitxarroa arrantzatzeko erabiltzen diren sareeek galzorian utzi ditute **delfin** arruntaren espeziea, baina izurde mulareen espezieari ere egiten die kalte Berria - Gaiak

---

**delfotar** *izlag* Delfokoa, Delfori dagokiona.

Ez baitago ezer garretan hain soinu izugarriz txinpartaka erreko denik, Feboren ereinotz **delfotarra** bezalakorik. Xabier Amuriza

---

**deli** *iz* delicatessen denda.

New Yorkeko asmakuntza dira **deliak**; erdi supermerkatu eta erdi taberna, urteko 365 egunetan eta 24 orduz irekita dauden lokal bereziak. Ezagunak zaizkidalako eragin didate barrea **delietan** edozer eskatuta ere *to stay or to go* galdetzen duten filmeko tallarini zerbitzari zakarrek eta parkeko bakartiengandik ihesi doazen ama izan berriek. Harkaitz Cano

**Delietako** kafe kaxkarraren kartoizko edalontzi urdinak ikusi hutsarekin. Harkaitz Cano

**Deliekin** edo **delirik** gabe, espainieraz egindako zinea zorioneko dago azken bolada honetan, frantziar zinemak ere gero eta gutxiagotan lortzen duena lortu baitu: bi film aldi berean New Yorkeko kartelera komertzialean egotea. Harkaitz Cano

---

**deliberamen** *iz* deliberamendua.

Hala, 1930 aldera aguretxo herabe bat zen osaba Barbaricô, eskastu eta maiztua, izugarri begilaburra; gôià lodi maneragabe batekin bizi zen, zeinetik txitean-pitean -**deliberamen** handirik gabe, hala ere- libratzen saiatzen baitzen. Juan Garzia

---

# **deliberamendu** 1 *iz* asmo sendoa.

Desesperoak ematen duen **deliberamenduarekin** oldartu omen zitzaidan emakumea. Joxean Agirre

-Tira -esan nion **deliberamenduz** -, itzuli egingo gara; zure osasuna da garrantzitsuena. Koro Navarro

Bertute eta **deliberamendua** nahi izan dute erakutsi, grebara deituz hiru egunez segidan. Herria

**2** erabakia.

Aljeriako egonaldia betiko **deliberamenduan** bururatua nuen: apeztu. Piarres Aintziart

Lapurdiko Biltzarraren **deliberamenduen** liburua, duela bi mende baino gehiagoko idazkiekin. Herria

Eta **deliberamendu** hartu dut mundura itzuli eta atxilotzaile eta iruzurgile arima-gabeen artean ibiltzeko. Anjel Lertxundi

Ene zaldiaren **deliberamenduaren** baitan utzi nuen bidea. Juan Garzia

Kasik herri guziek hitz beretan hartua dute "Natura 2000"-ren kontrako **deliberamendua**. Herria

Debaterik sortu ez duen **deliberamendu** bat hartua izan da frantses lege borroka anti terroristaren sailean. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Itungilearen borondaterik gabe ez baitago itunik; eta borondatea da azken **deliberamendu** ekintza. Esteban Antxustegi

· Horietarik 14ek herri- **deliberamendu** bat hartu dute 2x2 bidearen kontra. Herria

Muntadura **deliberamendu** larrienak jada hartuak dira eta indarrean emaiten ari. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apez izaiteko deliberamendua** (3); **deliberamendu bat** (4); **deliberamendu bat hartu** (3); **deliberamendu hura** (5); **deliberamenduaren berri** (3); **eta deliberamendu** (3); **herri deliberamendu bat** (3); **neure deliberamenduaren** (4)

---

# **deliberarazi**, deliberaraz, deliberarazten du *ad* erabakitzera behartu.

Jainkoarren, okasioa kausi bazeneza, **deliberaraz** ezazu artzain eder hori hain malenkoniatsu ez izatera. Jon Muñoz

Beharrezko bitartekoak berehala ditugu erabaki, eta nik hartu dut neure gain ama alaba gabe jalgi dadin **deliberarazteko** eginkizuna. Jon Muñoz

---

# **deliberatibo** *izond* deliberoarena, deliberoari dagokiona.

Hiru erretorika-genero bereizten dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuaren eta bideratu behar den persuasio motaren araberakoak: judiziala, **deliberatiboa** eta epidiktikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Entzuleak hizlariaren tesietara lerraraztea eta horren arabera jokatzea zen bi generootako hitzaldien xedea; iraganeko gaien gaineko kontuak ebazten ziren genero judizialean, eta etorkizunekoak **deliberatiboan**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# **deliberatu**, delibera, deliberatzen **1** da *ad* erabaki. (-tzera atzizkiaz)

Eta, ez bat eta ez bi, nekarren arazoa berehala azaltzera **deliberatu** nintzen. Txillardegi

Alabaina, isilik egotera **deliberatu** nintzen. Aingeru Epaltza

Bai, zinez **deliberatua** nintzen hola mintzatzerat, Josepe, eta erraitekoa nion nitaz ederki baliatua zela, bai eta trufatua! Janbattitt Dirassar

Biharamuneko damuari aurrea hartzera **deliberatzen** da. Iñaki Iñurrieta

Zirt edo zart egin behar eta, gorputzaz baino areago gogoaz jabetu zitzaidan bizitasuna alferrik ez galtzera **deliberatu** nintzen, zetorrena zetorrela. Aingeru Epaltza

Hala, urratsez urrats, pixkana-pixkana, agurea hiltzera **deliberatu** nintzen, begi hartatik betiko libratzeko. hamar liberako txanpona hartu, atzera utzi, eta azkenik bost liberakoa ateratzera **deliberatu** zen. Koro Navarro

Joantto **deliberatua** zen bere kargua molde arras eraginkorrean bete zezakeela erakustera. Elena Touyarou

Harraskakoa egitera **deliberatu** da Gabin. Iñaki Iñurrieta

Enrico eta biok guztiz **deliberaturik** geunden aukera ez galtzera. Juan Garzia

Geroago ulertuko nuen liburua saltzera **deliberaturik** zegoela etxera orduko. Juan Garzia

· Horretara ere onaren onez **deliberatu** zen. Juan Garzia

Noiz eta non **deliberatzen** ari zela atarian azaldu zen. Migel Angel Mintegi

**2** du *ad* erabaki. (-ela atzizkiaz)

Duda-muda une baten ondoren, trago bakar batean husteko gehitxo geratzen zela **deliberatu** zuen. Harkaitz Cano

**Deliberatzen** dute Josefa-k behar duela, denborarik galdu gabe, Espainiako gunera joan, lau gizon eta bi emazteren artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste hamar bat urrats egin nuen oraino aitzina eta gero **deliberatu** behar nuela gibelerat itzuli, delako neskaren aldean berriz iragan eta agurño bat bederen eskaini, alegia eta deusez. Janbattitt Dirassar

**Deliberatu** zuen, egun batez, Izpegiko errekara joanen zela, non ere gerezi ondotik erori baitzen Xanti. Michel Oronoz

Hark, hainbat sortaldetarren gisa, ez baitzen Artigas zalea, Buenos Aires maite zuen, baina Biltzarra beraren jaioterrian izan zedila **deliberatu** zuen. Juan Garzia

Gero polikiago pentsatu zuen eta **deliberatu** zuen ezetz, ideia polita zela, baina ez zela posible. Harkaitz Cano

**3** (-tzea atzizkiaz)

Batzuetan haserre jarraitzea **deliberatzen** nuen, baina eskolatik itzuleran kontatzeko ekartzen nituen guztiekin, ahaztu egiten zitzaidan hartutako erabakia. Josu Zabaleta

Fang-ek, esate baterako, sekretu bat dauka; ezezagun batek jotzen du haren atean; Fang-ek hiltzea **deliberatzen** du. Juan Garzia

Hiritik ahalik lasterren ihes egitea **deliberatu** zuen. Itxaro Borda

Atezainari galdetzea **deliberatu** nuen orduan. Josu Zabaleta

Hogei metrora patxadan itxarotea **deliberatu** zuen. Josu Landa

Diru-kutxan zeuden azken hondarrekin babarrun pote pila bat erostea **deliberatu** zuen Luis Angelek. Iñaki Iñurrieta

**Deliberatu** zuen bere iragan egun bakoitza hirurogeita hamar milaren bat oroipenetara laburtzea, eta gero oroipenok zifraz definitzea. Juan Garzia

Haurra izatea **deliberatzen** duten mementotik gurasoei modulu batzuk eskaintzen zaizkie ikasten hasteko, komunikazio arloetan trebatzeko. Berria - Euskal Herria

**4** (era burutua izenondo gisa)

Beharbada horregatik, gau hartako eztabaida inoiz baino garratzagoa izan zen eta Martak krudeltasun **deliberatu** batekin sakatu zituen Olatzen ahultasun jotzen zituenak. Harkaitz Cano

Banoa urrats **deliberatu** batean, oroimenean dauzkadala orain hiru eliza. besteok bildu eta hogei minutu geroago agertu zen ospakizunera, eltxoz jositako basotxora urrats **deliberatuz** sartuz ospakizuna bera gabe hastera gindoazen unean bertan. Piarres Aintziart

Gauza guztiak beren modura antolatzea gustatzen zaien emakume **deliberatu** eta agintzaile horietako bat zen andre hura. Josu Zabaleta

Gizon lerden, bizi, **deliberatua**; dena zain, dena pindar; jantzi beltz sinple eta galanta duela. Piarres Aintziart

**5** gogoan erabili.

Umeen, eroen eta batere **deliberatu** gabe, bat-batean eta irudimen soilez basabereek bezala erabakitzen duten zentzudunen ekintzak. Piarres Xarriton

Biziki luzaz, arta handirekin **deliberatu** ondoan, Espainiako eta Italiako anitz prelatu zendu ala oraino bizi direnak kontsultaturik eta, auzi honetako jaun kardinale hautetsi ospetsuen bozak bildurik, gure Aita Sainduak nahi izan du sententzia hau honela erabaki: [...]. Piarres Xarriton

-Funts horretan **deliberatzen** duzu Baionaren uztea? Janbattitt Dirassar

Bueltatzea **deliberatzen** hasia zela, olibondo batzuen parean gelditu zen arnasa hartzeko. Patxi Iturritegi

Dalitak bildu eta superintendentearen aholkuaz **deliberatzen** ari zirela, 200 bat jauntxo aizkoraz, ganibetaz, igitaiez eta lantzaz hornituak, traktoretan etorri eta dalitei erasotzen hasi ziren. Gotzon Garate

### 6 *deliberatzear*

Itunak **deliberatzear** dauden ekintzen inguruan bakarrik egiten dira. Esteban Antxustegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**delibera dezake** (3)

**aho batez deliberatu** (3); **aurten deliberatu** (3); **azkenean deliberatu** (4); **bat egitea deliberatu** (3); **bat egitera deliberatu** (3); **batez deliberatu** (3); **batez deliberatu du** (3)

**deliberatu bainintzen** (3); **deliberatu bainuen** (3); **deliberatu baitu** (5); **deliberatu baitzen** (5); **deliberatu baitziren** (3); **deliberatu baitzuen** (3); **deliberatu batekin** (4); **deliberatu behar** (3); **deliberatu beharko** (7); **deliberatu beharko du** (3); **deliberatu beharko dute** (3); **deliberatu da** (9); **deliberatu du** (83); **deliberatu dugu** (16); **deliberatu dut** (8); **deliberatu dute** (58); **deliberatu duten** (4); **deliberatu eta** (10); **deliberatu gabe** (4); **deliberatu genuen** (5); **deliberatu nintzen** (30); **deliberatu nintzen arte** (3); **deliberatu nuen** (51); **deliberatu nuen neure** (4); **deliberatu zen** (27); **deliberatu zenean** (4); **deliberatu ziren** (6); **deliberatu zuen** (74); **deliberatu zuten** (35)

**egitea deliberatu** (22); **egitea deliberatu du** (4); **egitea deliberatu dute** (4); **egitea deliberatu eta** (3); **egitea deliberatu nuen** (3); **egitea deliberatu zuen** (3); **egitera deliberatu** (7); **elkarteak deliberatu** (3); **ematea deliberatu** (4); **ematera deliberatu** (3); **eramatea deliberatu** (4); **ere deliberatu** (5); **erostea deliberatu** (3); **eta deliberatu** (13); **eta deliberatu nuen** (3); **gelditzea deliberatu** (4); **hartzea deliberatu** (4); **hartzera deliberatu** (3); **hautetsiek deliberatu** (6); **hautetsiek deliberatu dute** (6); **itxarotea deliberatu** (5); **ixtea deliberatu** (4); **jarraitzea deliberatu** (3); **jarraitzera deliberatu** (3); **joatea deliberatu** (10); **joatea deliberatu nuen** (4); **joatea deliberatu zuen** (3); **kentzea deliberatu** (3); **kontseiluak deliberatu** (6); **kontseiluak deliberatu du** (4); **mantentzea deliberatu** (3); **non deliberatu** (6); **parte hartzea deliberatu** (3); **sartzera deliberatu** (5); **segitzea deliberatu** (3); **uztea deliberatu** (9); **uztea deliberatu du** (3); **uztea deliberatu zuen** (3); **uztera deliberatu** (3); **zela deliberatu** (9); **zela deliberatu nuen** (4); **zela deliberatu zuen** (3); **zer deliberatu** (3); **zirela deliberatu** (4)

**arras deliberatua** (8); **beti bezain deliberatua** (3); **deliberatua dela** (5); **deliberatua du** (6); **deliberatua dute** (3); **deliberatua eta** (5); **deliberatua izan** (15); **deliberatua izan da** (12); **deliberatua izan zen** (3); **deliberatua naiz** (3); **deliberatua nintzen** (5); **deliberatua zen** (5); **deliberatua zuen** (5); **eta deliberatua** (8)

**deliberatuko du** (4); **deliberaturik nengoen** (4); **deliberatzen ari** (3); **deliberatzen da** (4); **deliberatzen den** (3); **deliberatzen du** (11); **deliberatzen duela** (3); **deliberatzen dute** (6); **egitera deliberatzen** (7)

---

# deliberatuki *adlag* erabakitasunez, erabakimenez.

"Betierekotasun" delakoa ere ezin entzun nik, **deliberatuki** hartara adi-adi jarrita ere; gure urrats bakoitzeko hondar-aleen firfira izan ezik, ez baitut besterik entzuten. Joxe Austin Arrieta

Doktoreek galdetzen dute ea gizakiaren izpiritua hiltzen den, hilkor diren gauzetara **deliberatuki** zuzentzen den bakoitzean. Joan Mari Lekuona

Euskaraz bizitze hori, ehuneko honenbesteko handi batean, D ereduko bizimodu bat aukeratzea da [...] kontzientzia izeneko poliziak bere buruarentzat egiten duen aukera bat, ohartuki, **deliberatuki**, txintxoki. Iñaki Segurola

---

# deliberatzaile *izond/iz* deliberatzen duena.

Anitz egin dute, duela urte bat berrehun bat jende bildu ginituen, gutiz gehienak **deliberatzaileak**, politikoak, ekonomikoak eta jendarte zibilekoak. Herria

---

# deliberatze *iz* erabakitzea.

Zeren, Axularrek berak zioen bezala, bekatuaren egiteko aski da puntu bat, gogoaren egozte bat, borondatearen **deliberatze** bat eta konsentitze bat. Joan Mari Irigoien

---

# deliberazio *(orobat **deliberazione**)* 1 *iz* deliberoa, erabakia.

**Deliberazio** hartara iritsi omen ziren behintzat Estatuko espezialistarik adituenak, hainbat eta hainbat froga egin ondoren. Karlos Linazasoro

Epaileak **deliberazio** hori aztertu eta berretsi edo ez egin beharko du orain. Berria - Mundua

Xiberoko herri alkargoaren biltzarra egin da Atarratzen; 2003eko budjetaz gain euskararen aldeko **deliberazione** bat presentatu du herri alkargoako kultur batzordeak. Herria

### 2 gogoan erabiltzea, pentsatzea.

**Deliberazio** etikoa jarduera praktikoaren esparruan gauzatzen da. Askoren artean

Grande Marlaska epaileak, **deliberazio** luze baten ondoren, espetxea saihesteko 400.000 euroko bermea jartzea erabaki zuen. Berria - Euskal Herria

### 3 (hitz elkartuetan)

Bill Clintonek Etxe Zuria utzi zuenean, bat baino gehiagok esan zuen Clinton bera zela erabaki ahalmen portzentaia minimo bat, **deliberazio** autonomia gutxieneko bat -ez gehiegi, ez gaitezen engaina- izan zuen AEBetako azken presidentea. Berria - Mundua

Erretorika, grekeraz, jendaurreko hizketa adierazteko erabiltzen zen; alegia, **deliberazio** biltzarretan, auzitegietan eta Greziako hiri konstituzionaletan -batez ere Atenasen- horretarako propio araututako beste egokiera batzuetan erabiltzen zen artea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# deliberazione ik **deliberazio**.

---

# delibero 1 *iz* erabakia.

-Errespetatzekoa duzu emazte horren **deliberoa**... Menane Oxandabaratz

Bai, badakit, neure segurtasuna ere tartean zegoen **delibero** hartan, baina horrek ez zuen zerikusirik izan telegrama ez bidaltzeko erabakian. Anjel Lertxundi

Preso joaiten ahalko zirenentzat, aldi huntako barka, hori izan da epaileen **deliberoa**. Herria

Funtsean kontseilu bilkura horretako 26 **deliberoetarik** 23 aho batez onartuak izan dira. Herria

Zuri obeditzeko **delibero** finkoan, zure hautuaren zain egon naiz begirunez etsia. Jon Muñoz

Artoizetik ihes joatea izan zen hartu zuen **delibero** bakarra. Itxaro Borda

Ez da, ordea, **delibero** erraza Fuentesentzat.Biarnoko hiriburuan ikasi zuen boteretsuek ez dituztela **deliberoak** goizetik gauera hartzen. Berria - Kirola

Izerdi patsetan esnatu nintzen, eta bat-batean hartu nuen Marroren etxeordeko ganbaratxoa hobeto miatzeko **deliberoa**, ea aurreko txandan topatu ez nuena topatzen nuen. Juan Kruz Igerabide

Demokraziaren eta errepublikaren balioak arriskuan zeudela argudiatuta, Demoek bortxakeriarik eza aktiboaren filosofian oinarritutako ekintza ikusgarriak egiteko **delibero** sendoa hartu zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Horrek are gaitzago egiten zidan nire **deliberoan** egotea. Aingeru Epaltza

### 2 (hitz elkartuetan)

Sekula bere pentsa-ildo propioen ikertzeko **delibero** ahalmenik gabe. Itxaro Borda

6etan, epaimahainaren **delibero** denboran, Galiziako dantzak, "Lembrazas gallegas" taldeak emanik. Herria

**3** erabakitasuna, erabakimena.

Ohiko kar erdi inkontzientieak emaiten didan **deliberoarekin** lotzen naiz Caminoari. Piarres Aintziart

Rustikori ere galdetu behar nion zein iritzi zuen gai garrantzitsu honetaz, isilik baitzegoen, **deliberoz** barik lotsaz, nik uste, Trigeziorekiko bere adostasuna erakutsi zuen. Imanol Unzurrunzaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **delibero bat** (7); **delibero bat hartu** (3); **delibero hori** (5); **delibero horrekin** (3); **deliberoa eta** (3); **deliberoa hartu** (14); **deliberoa hartu du** (4); **deliberoa hartu zuen** (3)

---

# deliberotsu *izond* erabakitasunez betea.

Behin baino gehiagotan gertatu zen bataren oiloak bestearen baratzeko mugak hautsi eta kalteak eragitea bertan, eta horrek auzi-mauzi mendekuak eragin zituen; ez baitziren, hala ere, inondik inora ongi ezkontzen lekuaren lasaitasunarekin eta Zuzendariaren izaera **deliberotsuarekin**. Juan Garzia

---

# delicatessen 1 *iz* jaki fin eta hautak, denda berezietan eta eskuarki prestatuak saltzen direnak.

Nola egiten zitzaion orain higuingarri ordura arte itsu-itsuan irensten zuen **delicatessen** parerik gabea? Karlos Linazasoro

Gozotegiek eta txarkuteriek, adiera zabalean, geroz eta litxarreria (bai fast food moduko zabor sasi-jangarriak, baita **delicatessen** plegukoak ere) gehiago ekoitziko dituzte, orduz kanpoko elikatze mugagabe horri erantzun oparoa emateko. Edorta Agirre

**2** (hitz elkartuetan)

Gabon gauaren bezpera da eta **delicatessen**-denda bihurtutako ardandegi zaharra jendez gainezka dago. *ik* deli. Euskadi eta Akitaniako **delicatessen** produktuen azoka. Iban Zaldua

**Delicatessen** motako produktuen masifikazioaren lekuko izango gara. Edorta Agirre

Sakela askorentzat zabalik dagoen **delicatessen** estilokoa. Edorta Agirre

Helburu nagusia, haien hitzetan, «irudiaren mundura bideratutako erakusketa aretoa bilakatzea da, **delicatessen** formatuan». Berria - Kultura

---

# delikadezia *iz* leuntasuna, mehetasuna.

Alemana organo ahaltsu bat da, baina ez du frantsesaren **delikadezia** melodikoa. Joxe Azurmendi

**Delikadezia** hori ezin dizut ukatu, beraz: ikasturtea amaitu arte itxaron zenuen, pribilegiozkoa izan zitekeen zure egoera horretaz ez aprobetxatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Bai, banuen **delikadeziazko** ukitutxo eme hori, gero futbol-zelaietan batere igartzen ez zitzaidana. Joan Mari Irigoien

**Delikadezia** falta da, pentsatu zuen, eta ez dut ahaztu behar bere menpeko naizela. Jon Alonso

---

# delikatasun *iz* leuntasuna, mehetasuna.

Ez zuela bizkitartean beldurrik izan ez bakarrik *Gero*-ren kapituluen ordena bestelakatzeko baina ere pasarte batzuen garbitzeko, apaintzeko eta leuntzeko, hots, perpaus osoen aldatzeko, kentzeko, emendatzeko, irakurle jendearen **delikatasunagatik**. Herria

---

# delikatu 1 *izond* leuna, fina, mehea.

Otorduak gauza **delikatu** eta ezustekoz osatuak ziren, eta sukaldariek etengabe bestelakotzen zuten janarien arkitektura. Juan Garzia

Diotenez, haurren haragia omen da munduan den jaki **delikatuena**. Aurelia Arkotxa

Adiskideok, Rosello guztian ez dago hau baino ardo **delikatuagorik**. Anjel Lertxundi

Balada **delikatu** biguna eta, bere melankoliarekin, bihotzarentzat eztigarria, zinez "erromantikoa". Koldo Izagirre

Ala xehetasunak Potterren belarri **delikatuentzat** desatseginegiak zirela pentsatu ote zuen? Iñaki Mendiguren

Nire urdail **delikatuak** gauez entsalada edo kontsomea eta barazki-purea besterik ezin du burutu. Joxean Sagaztizabal

Uraza eta eskarolen berde **delikatuak**. Karlos Zabala

Pila haiek, ibai hura, perla koloreko itzal **delikatuez** hornitzen ziren. Karlos Zabala

Begia eta belarria oso egitura **delikatu**, sentikor eta konplikatuak dira. Irene Aldasoro

Haien titiburu gorrituak gogor-gogorrak ageri ziren, kurba **delikatuek** dar-dar egiten zuten leun. Karlos Zabala

Irribarre maliziatsua egin dit, eta besoak gurutzatuta gaztanberazko bularrak gozatu ditu poliki, goitik beherako mugimendu **delikatuekin**. Patxi Iturritegi

Brunok bere hausnarketa egiten zuen bitartean ni Christianez gogoratzen nintzen, itxura **delikatu** eta jokamolde fineko intelektualaz. Bernardo Atxaga

Ia inork ez zuen han espero loro koloretsuen tankerako txoririk; ezta Vera bezalako haran berde eta emankorrik edo Cáceres bezalako hiri **delikaturik**. Bernardo Atxaga

Portzelanazko kikara bat bezain **delikatua** baita adiskidetasuna. Josetxo Azkona

Oldarkorra da, baina orobat **delikatua**, zenbait kirol-aurkari desatseginen modura. Juan Garzia

Praktikan, ordea, oso modu **delikatuan** egiten da itzulerako mugimendua, batere presarik eta minik gabe. Irene Aldasoro

Gero neskaren aita nire belarri aldera makurtu zen zerbait azaltzera, tonu **delikatuan**. Fernando Rey

**2** kontuzkoa, labaina, zaila.

Auzi **delikatua** da, bai. Iñaki Heras

Beste inoren esku utziko ez zuen zeregin **delikatua**. Iñaki Mendiguren

Betebehar **delikatu** eta konplikatu askoren zama zuen ofizio bat. Xabier Olarra

Lanaren parterik **delikatuena**, zerbait esatekotan, gizona oheratzea izaten zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Beregana jotzea gai **delikatuen** gaineko aholku eske. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **delikatu bat** (7); **delikatu batean** (5); **delikatu eta** (15); **delikatua da** (13); **delikatua eta** (4); **delikatuak dira** (3); **eta delikatu** (3); **eta delikatua** (10); **gai delikatua** (5); **gai delikatua da** (3); **hain delikatuak** (3); **lan delikatua** (4); **oso delikatua** (7); **oso delikatua da** (3); **oso delikatuak** (3)

---

# delikatuki *adlag* era delikatuan.

Ikusi nahi zituen neska aurpegi-politak, [...] **delikatuki** ibiltzen oin behatz-itsusi, gorrien gainean. Koro Navarro

Jantzirik zeuden oraindik, emakumeak jaka eta blusa irekirik bazituen ere, Raimundo Silva izan zen bular ageria bilduarazi zuena, hain **delikatuki** non Maria Sararen begi harrituak malkoz hezetu baitziren. Jon Alonso

Bultza egin zion gizonari **delikatuki** esku bat harenaren gainean jarriz. Aitor Arana

---

# deliktibo *izond* delituzkoa, delitu-. ik **delitu 2**.

Talde ekintzari loturiko dimentsio politikoa, eta ez ekintza **deliktibo** hutsa. Iñigo Aranbarri

Auzitegi Gorenaren ustez, CESIDek pisua erosi izana «ezin da hartu zantzu inkriminatoriotzat» eta ezin da ondorioztatu jarduera **deliktiboak** burutzeko erosi zenik. Berria - Euskal Herria

---

deliktu ik **delito**.

---

# delineaketa *iz* delineatzea.

Artxiboak, **delineaketa** mahaia alde batean, idazmahaia eta aulki batzuk leiho ondoan, eta kafe-tresna. Iñaki Zabaleta

---

# delineante *iz* (planoen) marrazkigilea.

"Egun osoa eserita egotea kaltegarri da nire hemorroideetarako, horregatik dut konfiantza Preparation-H ukenduan" zioen Allen Wooder izeneko batek, itxuragatik **delineantea**, iragarkiko argazkitik. Iñaki Zabaleta

Nik uste baino zientifikoagoa zen hura dena, **delineantea** sentitzen zinen artista baino gehiago, baina argi zegoen horrela hobeto aterako zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure aita **delineante** aritzen duk aspalditik. Xabier Etxabe

---

# delineatu, delinea, delineatzen du *ad* (planoak) marratzu.

-Bai, bederatzi ordu egunean **delineatzen**... Lopez de Arana

---

# delineatzaile 1 *iz* marrazkigilea.

Hogeita zortzi urte bete arte, ez zuen jakin marrazteko eta planoak egiteko gaitasuna zuela, **delineatzaile** bat ezagutu, eta orduan ikusi baitzuen nola marrazten zituen hark planoak. Xabier Olarra

**Delineatzaile** gisa hasi zen gero bere bizitza osoan lantegi izango zuen bulegoan. Anjel Lertxundi

-Lantegiko **delineatzaile** berri bat da. Monika Etxebarria

**2** (hitz elkartuetan)

-Ez zakiat zergatik, hik beti har dezakek **delineatzaile**-lanposturen bat. Lopez de Arana

---

# delineazio *iz* delineatzea.

Olibako monasterioko grafitoetako batzuk arkitektoek eginak direla uste du Ozkaritzek, **delineazio** teknika aurreratuen erabilera uzten baitute agerian. **Delineazio** akademian matrikulatzera etorri naiz hona goizeko autobusean Berria - Kultura

---

# delinkuente *iz* delitugilea, gaizkilea. ik **kriminal; delitugile**.

Hedebeltzak ibili dira hemen gaindi, eta Douarnenezko andere komisario bat jinarazi dute **"delinkuentearen"** harrapatzeko. Itxaro Borda

Neba jonki, puta-txulo, trafikante eta **delinkuentea**. Sonia Gonzalez

**Delinkuente** arriskutsua. Josu Landa

Pelikuletako **delinkuente** edo heroi modura imajina dezake aitona xalo eta bonetaduna. Eider Rodriguez

Kriminalak eta **delinkuenteak** gene egituraren bidez identifika litezkeela. Pello Salaburu

**Delinkuentea** balitz bezala tratatzea Arantxa Iturbe

---

# delinkuentzia 1 *iz* delitu bat egitea; toki edo garai jakin batean eginiko delitu kopurua. ik**delitugintza**.

Goizean Petare barriotik eduki dugun ikusmiraren bestaldean gaude orain, etxe-orratzen eremuan, miseriatik salbu, **delinkuentziatik** babesturik. Pako Aristi

Kaleko **delinkuentziak** komunitatearen bizitza hondatzen du. Iñaki Heras

Fenomeno demostratua da, terrorismoa dagoen lekuetan **delinkuentzia** baxua dela beti... Urtzi Urrutikoetxea

**Delinkuentzia** eta indarkeria eskutik doaz sarri, eta askotan, gainera, Polizia Nazionalak eta Ministerio Publikoak lagunduta. Berria - Gaiak

Ondo bizi omen da, baina **delinkuentziaz** kexatzen da. Pako Aristi

Gazteek, berriz, **delinkuentziara** jotzen dute. Berria - Gaiak

Auzo honetan estatuak **delinkuentziaren** aldeko politika bat egin du, hemengo errebeldia akabatzeko. Pako Aristi

**Delinkuentziak** Ingalaterran jasandako gorakada demasari buruz. Josu Landa

«Terrorismoaren, muga zainketaren edota antolatutako **delinkuentziaren**» inguruko gaiak. Berria - Mundua

Hor bete-betean sartuko lirakete aurrez aipatutako **delinkuentzia** antolatuaren aurreikuspenak eta errezeloak. Berria - Euskal Herria

**Delinkuentzia** gutxitzeko asmoz. Berria - Gaiak

EAEn, **delinkuentzia** %6 murriztu zen iaz. Berria - Euskal Herria

Benisti txostenak **delinkuentziaren** aurkako neurriak proposatu dizkio Frantziako gobernuari. Berria - Harian

Bizirik irauteko **delinkuentzia**. Edorta Agirre

Auzibide penala **delinkuentzia** jakin baten kontrako borroka gune bilakatzen da, eta, beraz, informazio prozesua beharko lukeena auzibide erasotzaile bihurtzen da, eta epailea, auzipetuaren etsai. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan)

Herrialdeetan diren diru-sarreren desberdintasunak oso loturik daude biolentzia eta **delinkuentzia** tasekin. Iñaki Heras

Alkateak esan duenez, Bilbok hiri segurua izaten jarraitzen du: «Ez gara ailegatzen Bartzelona (Herrialde Katalanak) edo Madril (Espainia) bezalako hiriek duten

**delinkuentzia** mailara». Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **delinkuentziaren aurkako** (7); **delinkuentziaren aurkako lege** (3); **eta delinkuentzia** (4)

---

**delirante** *izond* eldarniozkoa, deliratzailea.

Eta gauza bitxi bat sumatu nuen: egiten zituen iragarpenak, zentzugabeak ematen zuten arren, hutsik egin gabe betetzen ziren; ohiko zutabe deskriptiboak, ordea, **deliranteak** bihurtzen ari ziren. Iban Zaldua

Giro **delirante** hartan ezagututako poeta asko *Los detectives salvajes* liburuan agertzen dira mimetizaturik, omenaldi gisan. Berria - Kultura

---

**deliratu,** delira, deliratzen du *ad* gauza zentzugabeak esan, sugar altuaren edo nahasmendu baten ondorioz.

Berrogeitik gorako sukarrarekin dagoela, **deliratzen**. Bernardo Atxaga

Asko izan ei dira, ametsetan hitz eginez edo gaixoaldian **deliratuz**, gordean zeuzkaten hobenak kanporatu eta jakinarazi dituztenak. Xabier Amuriza

---

**deliriko** *izond* delirioarena, delirioari dagokiona.

Afal aitzin KAG neska bikotearen kantu **delirikoak**, afal ondoan filosofian sartuko gara Alex eskuketariarekin. Herria

---

**delirio** **1** *iz* deliratzea; deliratzen esaten dena. ik **eldarnio**.

monomaniaraino hel gaitezke, adimen-kozientetik ergeltasunaren lehen adigairaino, paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino, izaeraren neurositik **deliriorik** gabeko zorotasuneraino. Xabier Arregi

Ene **delirioen** entzuteko ohitura zuten eta ohitura horren arabera ekitera uzten ninduten. Lan horretan, 1980tik 1998ra bitartean **delirioak** zabalduriko atetik iragan ziren poema guztiak bildu zituen egileak. Itxaro Borda

**Delirioz** maite dudan bizitza errespetatzen badidate prest bainago edozein sufrikario eta samin jasateko, zure eta nire haurren konpainia gozatzeagatik. Jokin Urain

Gaueko auto-**delirio** paranoikoak salbu. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Horiek iraganean baraturik bizi diren nazionalisten **delirioak** dira. Joxe Azurmendi

---

delito ik **delitu**.

---

**delitu** *(ETCn **23.792** agerraldi; orobat **delito** ETCn **100** agerraldi)* **1** *iz* lege haustea.

Bi muga hauen artean daude onura publikoaren kontrako ekintza guztiak, **delitu** esaten zaienak, eta denak mailaka joaten dira, handienetik txikienera apalduz. Juan Martin Elexpuru

Gure jendarmeek honakoen lekukotasuna hartu behar izan zuten: 7 krimen, 82 **delitu**, 159 arau-hauste, 6 suizidio eta 15 auto-istripu, horietatik 3tan hildakoekin. Monika Etxebarria

2005ean 75.000 **delitu** eta hutsegite baino gehiago izan ziren EAEn. Berria - Euskal Herria

1989an Ogasun Publikoaren aurka 36 **delitu** egitea eta faltsutasuna egotzi diete. Berria - Ekonomia

Ezin da inor EEBBtatik bota **delitu** bat egiteagatik. Harkaitz Cano

Horrela askatu zen heriotzatik eta zigorretik, behin erakutsi zuenean berak ez zuela zerikusirik leporatzen zioten **delitu** harekin. Pello Salaburu

Etorkizunean gerta daitezkeen balizko **delituak** eragoztea da. Juan Martin Elexpuru

Epaileen iritzira geratzen da, beraz, **delitu** hauek zigortzea. Juan Martin Elexpuru

Fiskalak nabarmendu zuen Larizi egozten zaizkion **delitu** gehienak preskribituta daudela. Berria - Euskal Herria

Zigorrak, beraz, orekan egon behar du **delituak** eragindako kaltearekin. Juan Martin Elexpuru

Gauza bera gertatzen da **delitu** batean konplize bat baino gehiago denean. Juan Martin Elexpuru

Lasaikeriaren jatorria zein den aztertzen badugu, **delituen** zigorgabetasuna dela ikusiko dugu. Juan Martin Elexpuru

Buru-hilketa da gizonak egin dezakeen mota honetako **delitu** bakarra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kode penalak ez dik aipatzen **delitu** hori. Xabier Olarra

Garrantzirik gabeko ekintza mordoa debekatzea ez da **delituak** aurreikusteko bidea, **delitu** berriak sortzekoa baizik. Juan Martin Elexpuru

Munduko 70 herrialdetan homosexualitatea **delitu** da, Amnesty Internationalen arabera. Berria - Gaiak

Bada aldi berean maiztasun handikoa eta frogatzen zaila den zenbait **delitu**. isiltasuna koldarkeria izan daiteke, baina ez **delitua**. Juan Martin Elexpuru

Batzuetan burura etortzen zaidan: eskerrak gaixotzea ez den **delitu**. Anton Garikano

**2** (izenondoekin)

Genero indarkeria **«delitu** hutsa baino gehiago» dela nabarmendu du. Berria - Gaiak

Nahi eta nahiezkoa delako **delitu** larria saihesten ahalegin handiagoa jartzea, **delitu** arina saihesten baino, gizartea asko samintzen duena, gutxi samintzen duena baino. Berria - Euskal Herria

Tazitok dioenez, germaniarrek **delitu** larriak baizik ez zituzten ezagutzen: urkatu egiten zituzten traidoreak, eta irato egiten zituzten koldarrak; horiek ziren haien artean **delitu** publiko bakarrak. Iñaki Iñurrieta

Lapurreta da aztertu nahi dugun bigarren **delitu** morala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

ETAko kide izatea eta **delitu** ekonomikoak egitea egotzi zien. Berria - Harian

Gizon gehienek ez dute **delitu** handietarako zein bertute handietarako behar den kemenik. Juan Martin Elexpuru

Nik, epaileak, **delitu** jakin baten errudun jo behar zintuztedan. Juan Martin Elexpuru

Zure etsaiak **delitu** anker bat burutu duelako, beharrezkoa al da zuk ere beste antzeko bat egitea? Juan Martin Elexpuru

**Delitu** terroristengatik zigortutako presoak. Berria - Mundua

Edozein gobernuk, izen hau merezi badu, gezurrezko pisu eta neurria ematea **delitu** zigorgarri bihurtzen duenean, oso hurbil dago diruaren asmakuntza. Iñaki Mendiguren

Inportantea da **delitu** nabarmenak zigorrik gabe ez uztea. Juan Martin Elexpuru

Behin mutur honetaraino helduta, ezingo litzateke zigor handiagorik aurkitu **delitu** kaltegarri eta ankerragoentzat. ezjakintasun lotsatiak asmaturiko **delitu** ezinezkoak leporatuta. Juan Martin Elexpuru

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **deliktibo**.

Ez da **delitu** -ekintza zehatz bat ikertzen, gertaera soziopolitiko oso bat baizik. Berria - Harian

Esan zutenez, Chavezek «edozein **delitu** ekintza» erabil dezake «oposizio guztiari egozteko». Berria - Mundua

Ustezko **delitu** egoera bati irtenbide praktikoa eman genion. Berria - Euskal Herria

Ez dira delituak ikertzen, pertsonak baizik, eta **delitu** gertaera zehatzik ez dagoenez, auzipetuak zigortu nahi dituzte ez egin dutenagatik, izateagatik baizik. Berria - Harian

*Egunkaria*ren **«delitu** jarduneraren» jakinaren gainean zeudela. Berria - Euskal Herria

Autoan jartzen du ez direla epaitzen Manos Limpiasek eskaeran azaltzen dituen **«delitu** jarduerak». Berria - Euskal Herria

Zigortuek ez **dute** delitu aurrekaririk. Berria - Mundua

**Delitu** mota guztiak aztertzera eta bereiztera, eta zigortzeko bideak bilatzera. Juan Martin Elexpuru

Nafarroako Foru Zaharrean, **delitu** kontuak leitzen ari nintzela, [...]. Patziku Perurena

Lehia judizialaren bidezko jardunbidearen arabera, **delitu** -kasuetan, galtzen zuen alderdiak bizia eta ondasunak galtzen zituen, ahalik eta zigorrik handiena jasotzen zuen. Iñaki Iñurrieta

Gobernuak «tinko» ekingo duela Marbellako Udalaren kontrako auzibidean **delitu** zantzuak frogatuz gero. Berria - Mundua

Araudi horrek behartuko baititu eragile sozialak beren ofizioan ezagutzen dituzten **delitu** susmoen berri botere publikoei emaitera. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela )

Zenbat eta on publikoaren aurkakoagoak izan, eta estimuluak zenbat eta **delitu** -eragingarriagoak izan, orduan eta handiagoak izan behar dute gizakia delituetatik aldentzen duten oztopoek. Juan Martin Elexpuru

Legeei beldur izatea osasuntsua da, baina oso kaltegarria eta **delitu** sortzailea gizakiak gizakiari izatea. Juan Martin Elexpuru

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Umm El-Khayr umezalea, egin ez zuen droga **delitu** bategatik kondenatu zutena. Pablo Sastre

Washingtonek 11 «terrorismo **delitu** » egozten dizkio. Berria - Mundua

Ermuko Foroak kereila kriminala aurkeztu zuen herenegun Mahai Nazionala osatzen duten 28 lagunen aurka Nafarroako Lurralde Auzitegian, zenbait desobedientzia **delitu** leporatuta. Berria - Euskal Herria

1770ean 160 delitu zeudela heriotza-zigorra zutenak, lapurreta- **delituak** ere bai tartean. Juan Martin Elexpuru

Lehenengoari faltsutze **delituen** zigorrak ezar dakizkioke. Juan Martin Elexpuru

1985ean gertaturiko ustezko ustelkeria **delitu** hori dela medio. Berria - Mundua

Eta hauekin batera desagertzen dira erlijio **delitu** guztiak, oso izen lauso eta zehaztasun gutxikoak denak: federik eza, sakrilegioa, biraoa, ateismoa, etab. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Anakronismo- **delitu** batean erortzeko arrisku eta guzti [...]. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**artean delitu** (3); **aurkako delitu** (4); **baina delitu** (6); **baita delitu** (3); **batek delitu** (3); **beste delitu** (15); **beste delitu bat** (4); **beste delitu batzuengatik** (4); **bi delitu** (5); **da delitu** (8); **dela delitu** (5)

**delitu arina** (3); **delitu bakar** (4); **delitu bakarra** (15); **delitu bat** (34); **delitu bat egitea** (3); **delitu batean** (3); **delitu bategatik** (5); **delitu batek** (4); **delitu baten** (15); **delitu batengatik** (4); **delitu batzuengatik** (4); **delitu batzuk** (6); **delitu bera** (9); **delitu beragatik** (7); **delitu beragatik epaitu** (3); **delitu bihurtu** (8); **delitu bihurtzen** (3); **delitu edo** (4); **delitu egitea** (3); **delitu egiten** (3); **delitu egotzi** (4); **delitu egozten** (6); **delitu ekintza** (7); **delitu ekintzen** (4); **delitu ekologikoa** (12); **delitu ekologikoa egin** (3); **delitu elektorala** (3); **delitu eta** (18); **delitu eta hutsegite** (3); **delitu gehiago** (5); **delitu gehienak** (3); **delitu gehienak preskribituta** (3); **delitu guztiak** (3); **delitu handia** (3); **delitu handiagoa** (3); **delitu hauek** (3); **delitu hauen** (3); **delitu hori** (20); **delitu horiek** (9); **delitu horiengatik** (3); **delitu horrek** (4); **delitu horren** (3); **delitu izan** (7); **delitu jakin** (7); **delitu jakin bat** (4); **delitu larri** (6); **delitu larria** (9); **delitu larriak** (3); **delitu larritzat** (3); **delitu leporatu** (3); **delitu leporatuta** (3); **delitu leporatzen** (6); **delitu mota** (11); **delitu ordainezinak** (3); **delitu politikoa** (3); **delitu terrorista** (4); **delitu zantzu** (3); **delitu zantzuak** (10); **delitu zantzurik** (7)

**den delitu** (3); **dira delitu** (5); **du delitu** (7); **duen delitu** (3); **dute delitu** (4); **edo delitu** (4); **egindako delitu** (6); **egozten zaizkion delitu** (3); **eguneko delitu** (3); **eguneko delitu ekintzen** (3); **ere delitu** (8); **ere delitu bera** (3); **eta beste delitu** (4); **eta delitu** (26); **ez dela delitu** (4); **ez delitu** (3); **ez dute delitu** (3); **hainbat delitu** (7); **hiru delitu** (6); **honelako delitu** (3); **lau delitu** (4); **terrorismo delitu** (3); **ustelkeria delitu** (3); **ustezko delitu** (10); **zaizkion delitu** (3); **zein delitu** (6); **zenbait delitu** (5); **zibilak lau delitu** (3); **zuen delitu** (3)

**aurkako delitua** (5); **baina delitua** (5); **bere delitua** (4); **berriro delitua** (3); **da delitua** (14); **dela delitua** (4)

**delitua berriz** (4); **delitua da** (20); **delitua dela** (10); **delitua egin** (40); **delitua egin zuten** (5); **delitua egingo** (3); **delitua egingo lukeela** (3); **delitua egitea** (9); **delitua egiteagatik** (5); **delitua egiteko** (6); **delitua egiten** (14); **delitua egiten ari** (4); **delitua egiten jarraitzeko** (6); **delitua egon** (6); **delitua egotzi** (12); **delitua egotzi diote** (3); **delitua egotzita** (4); **delitua egozteko** (5); **delitua egozten** (7); **delitua ere** (5); **delitua eta** (6); **delitua ez** (9); **delitua iraungi** (3); **delitua iraungi egin** (3); **delitua izan** (8); **delitua izango** (3); **delitua larria** (3); **delitua leporatu** (11); **delitua leporatu die** (3); **delitua leporatuta** (5); **delitua leporatzen** (3); **delitua ote** (3); **delitua preskribatuta** (3); **delitua preskribituta** (4); **delitua suitzan** (3); **delitua zela** (3)

**desobedientzia delitua** (15); **desobedientzia delitua egitea** (3); **du delitua** (6); **edo delitua** (3); **egitea delitua** (4); **eroskeria delitua** (14); **eroskeria delitua iraungi** (3); **eta delitua** (5); **ez da delitua** (10); **ez dela delitua** (4); **ez delitua** (4); **faltsutzearen delitua** (4); **hauteskunde delitua** (5); **hilketa delitua** (7); **hori delitua** (3); **intelektualaren aurkako delitua** (3); **kontrako delitua** (5); **laguntza ukatzearen delitua** (3); **leporatutako delitua** (3); **otegik delitua** (3); **prebarikazio delitua** (4); **prebarikazio delituagatik** (3); **publikoaren kontrako delitua** (4); **sexu delitua** (3); **terrorismo delitua** (5); **tortura delitua** (3); **traizio delitua** (3); **ukatzearen delitua** (3); **ustezko delitua** (8); **ustezko delitua egin** (3); **zitzaien eroskeria delitua** (3)

**aurkako delituak** (4); **balizko delituak** (3); **da delituak** (4); **delituak berriz** (3); **delituak dira** (4); **delituak direla** (3); **delituak egin** (10); **delituak egiteko** (3); **delituak egiten** (4); **delituak egitera** (3); **delituak egotzi** (3); **delituak ez** (3); **delituak ikertuko** (3); **delituak ikertzen** (3); **delituak leporatu** (3); **delituak leporatzen** (3); **delituak preskribitu** (13); **delituak preskribitu egin** (10); **delituak saihesteko** (7); **delituak zigortzeko** (3); **diren delituak** (6); **egindako delituak** (5); **egozten zaizkien delituak** (7); **eroskeria delituak** (12); **eroskeria delituak preskribitu** (7); **eta delituak** (8); **lotutako delituak** (3); **ondorengo delituak** (3); **sexu delituak** (3); **ustezko delituak** (10); **zaizkien delituak** (7); **zaizkion delituak** (3)

**bere delituaren** (3); **delituaren berri** (3); **delituaren estaltzaile** (5); **delituaren estaltzaile izan** (3); **egindako delituaren** (3); **eroskeria delituaren** (5); **eroskeria delituaren estaltzaile** (4); **eta delituaren** (6)

**bere delituen** (4); **da delituen** (3); **delituen artean** (4); **delituen benetako neurria** (4); **delituen eta** (3); **delituen eta zigorren** (3); **delituen frogak** (3); **delituen inguruko** (3); **delituen jarraipena** (3); **delituen kasuan** (4); **delituen kopuruak** (3); **delituen larritasuna** (3); **delituez eta zigorrez** (10); **dituzten delituen** (3); **eta delituen** (5); **sexu delituen** (3); **terrorismo delituekin** (3)

**delituren bat** (15); **delituren bat egin** (5); **delituren bat egiten** (4); **deliturik egin** (29); **deliturik egin ez** (8); **deliturik ere** (4); **deliturik ere ez** (3); **deliturik ez** (10); **deliturik ez zela** (3); **deliturik handiena** (3); **deliturik leporatu** (5); **delitutzat hartu** (8); **delitutzat hartu da** (3); **delitutzat hartzen** (4); **delitutzat jo** (10); **delitutzat jotzen** (7); **delitutzat jotzen du** (3); **desobedientzia deliturik egin** (3); **dio deliturik** (3); **dio deliturik leporatu** (3); **ere delitutzat** (3); **ez dio deliturik** (3); **inolako deliturik** (8); **inolako deliturik egin** (5); **inongo deliturik egin** (3); **odol deliturik** (3)

---

# delitugai *iz* delitutzat hartzeko gauza.

Arazoa **delitugai** izango ez bazen ere, iruditzen zitzaidan ez zela gizalegezkoa -ezbehar fisiologikoren bat ez bazen behintzat- hoteletako izarak zikintzea. Ramon Saizarbitoria

Sinesgarritasuna hutsaren hurrengoa da hitzak direnean **delitugai** ; izan ere, tonuak, keinuak, gizonek bere hitzei eta ideiei atzetik eta aurretik eransten dieten guztiak, aldatu eta desitxuratu egiten du gizon batek esan duena. Juan Martin Elexpuru

---

# delitugile *(orobat* ***delitogile****)* **1** *iz* delitu bat egiten duen pertsona. ik **delinkuente**.

Kontuan hartu behar dira **delitugileen** adina, delituaren izaera, gaiztakeria maila, sortutako eskandalua eta seta, eta baita jendeak zigor beldurgarri baten beharrik baduen ala ez. Juan Martin Elexpuru

**delitugile** arrunt batzuk terrorista bihurtu eta Gobernu bat suntsitzeko gai den Europako eraso handiena diseinatu eta gauzatu dute. Berria - Mundua

Ertzaintzak, berriz, beti bezain zorrotz, Txinako mafiari egotzi dio G.L.S. (23 urte) eta F.R.G. (19 urte) **delitugile** txikiei gertaturikoa. Patxi Iturritegi

Beren zigorra bete duten **delitugile** ohiek. Berria - Mundua

**Delitugilea** 16 eta 18 urte artekoa bada, zigorra urtebete eta zortzi urte artekoa izango da. Berria - Euskal Herria

Magistratuak zigortu egiten ditu **delitugile** batzuk; beste batzuk zuzendu egiten ditu. Iñaki Iñurrieta

Frantzian, tortura erabiltzen da **delitugileen** aurka, eta Ingalaterran ez. Iñaki Iñurrieta

Germaniarren artean, beste herri guztietan ez bezala, **delitugilea** irainduagandik babesteko egiten zen justizia. Iñaki Iñurrieta

Emakume bat hiru egunez etxean giltzapetuta izatea, bahituta izatea eta jipoitzea, antza, ez da nahiko **delitu egilea** espetxeratzeko. Berria - Euskal Herria

Ustez **delitugileak** izan baina gero errugabeak direla frogatu diren horien datu genetikoak ere gorde egiten dira. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Hamabi urte AEBetako **delitugile** zerrendan. Berria - Kirola

**3** (izenondo gisa)

Garzonen arabera, Udalbiltza auzian egindako ikerketek eta aztertutako dokumentazioak «argi uzten dute Udalbiltza Kursaal hainbat indar nazionalista eta alderdi zein erakunde politikok sortutako beste Udalbiltzaren adar **delitugilea** dela». Berria - Euskal Herria

Legez kanpoko delinkuentzia antolatu, **delitugile** eta ETArekin lotura duen elkarte baten aurrean gaudela Berria - Euskal Herria

---

## delitugintza *iz* delinkuentzia.

Aldiz, **delitugintza** kopuru handia eta futbol selekzio ahula izateak izan dira Hegoafrikaren ahulgune nagusiak. Berria - Kirola

---

## delitukide *iz* norbaitentzat, delituan lagun izan duena.

Iritzi publikoa, ihesa, epailez landako aitorpena, **delitukide** baten aitorpena, mehatxuka eta liskar etengabean badabil irainduarekin, delituaren gorputza, edota antzeko beste arrasto batzuk aski dira hiritar bat atxilotzeko. Juan Martin Elexpuru

Gogoeta hauek metafisikoegiak irudituko zaizkio legeak **delitukideei** ahalik eta adostasun-arrazoi gutxien eskaini behar diela pentsatzen jarri ez denari. Juan Martin Elexpuru

---

## delizia *iz* atsegin bizia; gozamena.

Ez gaitzala mendeku desirak gailendu, ikusmena edo gogamena ez daitezela bekatuzko **delizietan** pausatu. Imanol Unzurrunzaga

Eta lizunkeria ez da gorputzen edertasunaren eta leuntasunaren bizioa, gorputzezko plazerak neurriz kanpo maite dituen arimarena baizik, edertasun espiruatalagoen eta **delizia** iraungigaitzen harmoniarantz garamatzan neurritasunari jaramonik egin gabe. Imanol Unzurrunzaga

Indiarrek sinesten dute Ganges ibaiko urek ahalmen santifikatzailea dutela: uste da ibaiaren ertzetan hiltzen direnek beste bizitzan zigorrik ez dutela izango, eta **deliziaz** betetako eskualde batean biziko direla. Iñaki Iñurrieta

· Altiplanoko **deliziak** . Aingeru Epaltza

---

## delizios *(orobat **delizius**)* *izond* atsegingarria, atsegintsua, gozatsua.

Munduko lorerik ederrenak zituzten ikusten, fruiturik **deliziusenak** zituzten jastatzen, soinu xoragarrienak zituzten entzuten... Aurelia Arkotxa

Zeren Bigarren Begiekin loa kentzen zidan leku ilun bat ikusten bainuen: kobazulo likits bat, Lubisek eta Pantxok erakutsitako **delizios** haren kontrakoa, dena errainuz betea. Bernardo Atxaga

Alabaina, hastapeneko horditasunetik urrun zegoen, zeinetan, bere burua ametsen eta fantasia **deliziosenen** poderioan utzirik, maitatu izanaren atseginaz gozatu baitzuen. Patxi Zubizarreta

Ahogozo **delizios** eta leuna. Patxi Zubizarreta

Hain baitzen enegan sortzen zuen sentimendua gozoa eta **deliziosa**. Jostetan bezala, hatz hori harrapatzera egin nuen eta hark lehengora itzuli zuen, keinu herabe-uste **delizios** batekin. Joan Mari Irigoien

---

## delizius ik **delizios**.

---

## delokalizazio ik **deslokalizazio**.

---

## delta 1 *iz* alfabeto grekoko laugarren letra.

PPAR- **delta** genea trukatuta, saguak uzkurtze geldoko zuntz gehiago sortzen ditu. Berria - Gaiak

**2** ibaien bokalean eratzen den hareazko gunea, gehienetan hiruki formakoa.

Itsasoaren erdian zegoen penintsula bat zen, urak hiri handitik hurbil isurtzen zituen ibai handiaren **deltaren** adar baten modukoa. Fernando Rey

Rodanoren **deltatik** hurbil. Iñaki Mendiguren

Danubioren **deltatik** Rhinen bokaleraino eta, Dover-eko itsasartean zehar, Britainiaraino. Iñaki Mendiguren

Topaketa Nilo ibaiaren **deltako** Damieta hirian gertatu zen. Askoren artean

Maiz eta ugari hazten da papiroa **Deltako** zingiretan, Alexandriatik gertu-gertuan. Jon Muñoz

Niger ibaiaren **deltan** daude finkatuta petrolioa ustiatzen duten multinazionalak. Berria - Mundua

Behatzaileek aztertuko dute lanek jada **deltako** hegaztietan zein landareetan izaniko eragina. Berria - Gaiak

**3** ***delta-hegal*** motorrik gabeko tresna hegalaria, hiruki formako haize-oihal batez eta hura gidatzen duen pertsonari eusten dion egitura batez osatua.

Ronek berak ere entzun nahi zion edonori kontatuko zion ia nola jo zuen **delta** -hegal bat Charlieren erratz zaharrean. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deltaren burujabetzarako mugimenduak** (4); **ibaiaren deltan** (6); **niger ibaiaren deltan** (5)

---

## deltoide *iz* besagaineko giharra, hiruki formakoa, besoa jasoteko balio duena.

"A zeinen ederra zauden! nola lortu dituzu **deltoide** horiek?" "zure izterrak ere ez dira makalak gero". Patxi Iturritegi

---

**dema** *(orobat **tema**)* **1** *iz* abereekin egiten den lehiaketa eta apostua; orobat beste kiroletan egiten dena.

Uztarriek 1.750 kiloko harria erabiliko dute, eta pisu neurtukoa izango da **dema**. Berria - Kirola

Aiarren arteko **dema** izango da gaur ikusgai, Aiako (Gipuzkoa) probalekuan, 22:00etan. Berria - Kirola

Hiru harri-jasotzaileen arteko **dema** estua ari da gertatzen azkenaldian, baina, gehienbat, 152ko kuboarekin aritu dira. Berria - Kirola

Peñagarikano, Nazabal, Larretxea eta Azurmendiren **dema**, 14 egurrera. Berria - Kirola

Azpeitiko zezen-plazan izango dute **dema** 10 minutuko hiru txandatan, eta 6.000 euro jokatuko ditu alde bakoitzak. Berria - Kirola

Trapagaran txapeldunak eta Jaizubiak 6.000 euroko **dema** izango dute igande honetan Azpeitiko zezen-plazan. Berria - Kirola

**Dema** hitzartu zutenetik buru-belarri aritu dira prestatzen norbera bere lagun taldearekin. Berria - Kirola

Ez baita indarkeria ekintzaren mailan sartzen alabaina, baina bai -gure **dema**, desafio, apustu, erronka, zeingehiagoka guztiak iduri ikusgarriaren ordenan gelditzen. Piarres Xarriton

**2** (gainerako kiroletan)

Damiano Cunego eta Gilberto Simoniren arteko urteko lehen borroka izango da, Giroa irabazteko hautagai biren arteko **dema**. Berria - Kirola

Carlos Garcia-Quesada liderraren eta Kaikuko Rodrigo Garciaren arteko **dema** ere bizi-bizia izan zen. Berria - Kirola

Discovery eta Libertyren arteko **dema** Gaztela-Leonen. Berria - Kirola

Ligako hiru saskiratzaile onenen arteko **demak** erakarri du arreta handiena. Berria - Kirola

**3** irud/hed norgehiagoka.

Hamaika mila plaza pasa eginak gaude gaudeneko, denboraren probaleku berrizahartuan, galtzaileen arteko **dema** alferrikakoan. Joxerra Garzia

*Code Civil* eta euskal foruak: **dema** baten lekukotza. Andres Urrutia

Kode Zibilaren oinarri berriak eta Foruen aspaldiko indarra: horra hor **dema** lazgarria. Andres Urrutia

Herritarren Zerrenda legez kanpo utziko balute, hauteskundeetako **dema** desnaturalizatuko litzateke gure ustez. Berria - Euskal Herria

Teoria bateratua aurkitzeko **demak** gidatu du Gross irakaslearen zientzia ibilbidea. Berria - Gaiak

Nobelak bi abantaila zituen: batetik, nire buruari **dema** jarriko nion eta, bestetik, komunikatzeko modurik errazena horixe zen. Ana Urkiza

Itzultzaileak berak sarreran dioenez, **dema** ez zen nolanahikoa. Berria - Kultura

Bertsolaria bakarka ari da, edo lagunarekin **teman**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Temako** saioetan -gehien-gehienetan beraz- bertsolaria aurkariaren argudioei erantzuten eta bereak asmatzen saiatuko da. Andoni Egaña

**Temako** saio baterako ez dago aldez aurretik zer bertso motarekin jokatu behar litzatekeen aholkuak ematen hasterik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**4** (hitz elkartuetan)

Berdin du non, ingelesak gola sartu dutenean interesa galdu du baloi-**demak**. *Berria - Kirola*

Gozoa da baita zelaietan zehar eraturiko gerra **demak** ikustea, norbera arriskukide izan gabe. Xabier Amuriza

**5** ***deman*** lehian, borrokan.

Jatetxe italiarrean pizza jangaitzarekin **deman** ari nintzen bitartean, [...]. Aingeru Epaltza

Isildu egin ziren biak, begiak begietan, sukalde erdian aurrez aurre, ezkutuko **deman**, zein zen irabazle denboraren neurketa esatera balihoa bezala. Iñaki Zabaleta

Han egongo da, konturatu ere egin gabe, dabilela hil edo biziko **deman**. Hasier Etxeberria

Utz, bada, alferrik nekaturik, odolez izerdizta daitezen, anbizioaren bide estuko **deman**. Xabier Amuriza

Aljeriako gerlaz geroztik itxuraz elkortua zeukan senarra, aitzur eta gaztainondo puskekin **teman** abandonatu zuen. Itxaro Borda

Diru eskasiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin **teman** izatera behartu du. Berria - Euskal Herria

**6** ***dema eta tema***

Idiaren **dema** eta **tema**. Berria - Harian

*ik beherago* 8.

**7** ***dema-harri***

Beraz, aurrera eta ezkerrera, tuneletik; kostatu egingo zitzaidala, oinez eta **dema**-harriari tiraka; esan beharrik ez. Joxean Sagaztizabal

**8** ***tema eta dema***

Alonso Alkatearen **tema** eta **dema** · Atera itzazu kontuak, Alkate jauna: zuri esker, gure **temak** eta **demak** gainditzeko laguntza psikiatrikoa behar dugula ikusten hasiak gara asko. Berria - Euskal Herria

*ik gorago* 6.

**9** ***idi dema***

Ostiralean idi **dema** jokatu zuten Aian, eta Mikel Rezabal probalariak irabazi zituen alde bakoitzak jarritako 1.200 euroak. Berria - Kirola

Aste Nagusiko jaiak direla baliatuta, idi **dema** ere izango da, Oribe eta Arteagagoitiaren uztarriekin. Berria - Kirola

Bart hasi ziren Bakioko (Bizkaia) idi **demak**, eta guztira bost egunez izango dira ikusgai. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arteko dema** (16); **arteko dema izango** (4); **dema ere** (3); **dema izango** (5); **eta dema** (5)

---

**demagogia** *iz* herri xehearen grinak kilikatzen eta erabiltzen dituen politika-era.

Tirania, Oligarkia eta **Demagogia** eztabaidatu ondoan, hiru eredu nagusien batuketaren hautua egiten zuen Zizeronek. Piarres Xarriton

Berdintasun printzipioa identikotasun printzipio bihurtuz endekatu zenean, orduan sartu zen **demagogia**. Josu Zabaleta

**Demagogiarik** gabe baiezta daiteke agintariak izan zirela sarraskiak bultzatu zituztenak. Berria - Kultura

**Demagogiarik** gabe, gehiegikeria barregarririk nahiz lilura gaixorik gabe. Markos Zapiain

Ez zegoen janaririk, beraz **demagogia** behar zuten. Jon Muñoz

-Mesedez, Mikel, ez hasi **demagogia** merkeekin. Patxi Iturritegi

Kultura sailburuak, aldiz, **«demagogia»** egitea egotzi zion Celaari. Berria - Kultura

Confebasken ustez akordio hori **"demagogia** egitea da, zergak ordaintzen dituztenen diruarekin irrespontsablea eta ideologizatua den paktu bat finantzatzea". Iñaki Heras

Erraza da **demagogia** egitea, eta zaila, kontsekuentea izatea. Ana Urkiza

Raxoik ukatu egin zuen gaiaz **demagogiaz** hitz egin izana. Berria - Kirola

Eskubideak ez dira **demagogiaz** gauzatzen, eta, are gutxiago, zozketak eginez gero. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **demagogia egitea** (5); **demagogia egitea egotzi** (3); **demagogia eta** (3); **demagogiarik gabe** (3); **eta demagogia** (5)

---

**demagogiko** *izond* demagogiarena, demagogiari dagokiona.

Eskuina aditua da diskurtso **demagogikoa** egiten. Berria - Harian

Baietzak Estatutu Proposamenaren kontrako «kanpaina **demagogikoak**» ahuldu eta neutralizatuko lituzkeela diote, eta Ibarretxeren proposamenak EAE Europatik «aldentzen» duela diotenei erantzuteko balioko lukeela. Berria - Euskal Herria

Behin eta berriz, eta oso kutsu utopiko eta **demagogikoaz** errepikatzen diren eslogan eta argumentu berak errepikatuz. Iñaki Heras

**Demagogikoa** iruditzen zait, ez datorrelako haien ezaugarriekin bat. Berria - Kirola

Liburutegiaren zuzendari berria, entzun dudanez, antzinako hizkuntzen ikasketari buru-belarri emana dagoen letragizon bat da [...] eta labangizonez jositako Buenos Aires alegiazko baten goralpen **demagogikoari**, orobat. Juan Garzia

Horrelako zerbaiten gainean izan zen, 1997 urtean, Thomas Friedman eta Ignacio Ramonet-en arteko eztabaida interesgarri bezain **demagogikoa**. Iñaki Heras

---

## demagogo

**1** *izond* herri xehea lausengatuz agintea eskuratu nahi duena.

**Demagogoa**, gaiztoa, kaltegilea, aberatsei gorroto eta pobreei maitasunik ez ziena zen. Josu Zabaleta

-Ez zaitez izan **demagogoa**, Henrik. Karlos Linazasoro

Dei nazazue **demagogo**, baina Madrilen, Alderdi Popularraren Genova kaleko egoitzatik hurbil, Orfila izeneko kale motzean, bi galeria eta beste bi Art Consulting daude. Berria - Kultura

Esaterako, parlamentari eledun berriak bere egitekoan zelan moldatzen ziren ikustea: hitz bat edo bitan definitzearren, Aintzane Ezenarro txukun, Unai Ziarreta zurrun, Nekane Erauskin hieratiko, Maria San Gil **demagogo**, eta Jose Antonio Pastor diskretu baina sendo. Berria - Harian

**2** *iz* herri xehea lausengatuz agintea eskuratu nahi duen pertsona.

Halako **demagogoak**, okela jateak duen balioa ukatuz, arras haserretzen zuen jende diruduna... eta harakinak. Josu Zabaleta

Kearney San Frantziskoko **demagogo** ospetsu bat izan zen, entzuleak hiriko orubeetan biltzen zituena. Xabier Olarra

Sarriegitan imitatzeko aukeraturiko aitzindariak ez dira buruzagi sortzaileak, ustiatzaile komertzialak edo **demagogo** politikoak baizik. politiko manipulatzaileek eta hedabideetako **demagogo** profesionalek ederki asko menderatzen dute langintza hori. Iñaki Mendiguren

---

## demagundu

, demagun(du), demaguntzen du *ad adkor* "demagun" esan.

Demagun, gainera, **demaguntzen** hasita, biharko egun zilar horretan, arrunt jantziak izango garela. Iñigo Aranbarri

---

## demagunka

*adlag adkor* "demagun" esaka.

Agirre Asteasukoak bezala, **demagunka** jardun... geure burua egungo prentsaren amaraunean hobeto ikusteko bada ere, zapi kutsatua musura eramaten. Iñigo Aranbarri

---

## demaguntze

*iz adkor* "demagun" esatea.

Demagun baietz, eta bide batez, **demaguntze** etengabean, gizakien arteko harremanei dagokienez, demagun bestelakoak izango direla hauek. Iñigo Aranbarri

---

## demanda

*(ETCn 4.263 agerraldi)* **1** *iz* istilua, errieta. ik **sesio**[1].

Zenbait gora-behera bihurri tarteko zirelarik (orduko euskaldunen egunkariko morroi eta nagusi batzuekin izandako **demanda**, hain zuzen ere). Iñaki Segurola

Mahaian behin baino gehiagotan izaten dira **demandak** eta erantzun txarrak alde batetik bestera. Josu Zabaleta

Hurrena, berriz, Iruñera etorri behar izan nuen lanera, bankuko zentralera, eta harrez geroztik gutxitan entzuten nituen horrelako **demandak**: herriko jaietan eta gabonetan etxera azaltzen nintzenean besterik ez, baina hutsik gabe egiten zidan amak galdera: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** eskabidea, eskakizuna, galdea.

Erraztu, ba jendeak beldurra hartu zuelako, doixtar itsaspekoak lanean hasiak ziren berehala eta inork ez zuen ontziratu gura, **demanda** handia zegoen. Koldo Izagirre

Ramsay jaunak bere buruaganako zeukan gupida itzel hura, erruki **demanda** hura, denean isuri eta putzuen eran zabaltzen zen bere oinetan. Anton Garikano

Jelosiazko garrasiak eta argibide **demandak**, masailekoak, damuzko musu beroak... Berria - Kultura

Lilyk nahi zuen bakarra zen tristurazko uholde ikusgarri honek, erruki gose asezin honek, haren aurrean amore emateko **demanda** honek ...]. Anton Garikano

Zure **demanda** oso ere kontuan edukitzekoa iduritu zaigu. Joan Mari Irigoien

**3** auzi eskea.

Isuna 1989 hainbat arrantzale, udaletxe, enpresari eta banakakok ezarritako **demanda** baten ondorio da. Berria - Gaiak

Film antisemita dela argudiatuta jarri zuten **demanda**, baina Florence Lagemi epaileak ebatzi duenez, «Gibsonen lanak ez du herri judutarren kontra egiteko biderik erabili», eta, ondorioz, ez dago hura debekatzeko nahikoa arrazoirik. Berria - Kultura

Altadisek 2003ko ekainean aurkeztu zuen Udalaren kontrako **demanda**, Odon Elorza alkateak arte garaikideko zentro bat eraikitzeko lurren jabetza eskatu ondoren. *Recording Industry Association of America*-k (RIAA) epaileen aurrean jarritako **demandei** esker Internet bidezko musika artxiboak bi aldiz gutxiago jaisten dira egun. Berria - Kultura

Amagoiaren mehatxuen jakitun egin beharko nuen: igarleak **demanda** aurkeztuz gero, berak ere agertu beharko zuen nirekin batean epailearengana, egunkariko buru izan-eta ustezko delituaren egunean. Aingeru Epaltza

Bilbogasen akzioen enkantearen aurkako Naturcorpen **demanda** onartu dute. Berria - Ekonomia

**4** ***demandan***

Argazki zahar bat zela-eta atso bat azaldu omen zitzaien **demandan**, gerran ere ez dakit zer istilu izan zutela-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire semea jaio berria zen; niretzat, miraria zen, eta ez nuen inorekin **demandan** hasteko asmorik. Luis Elberdin

Etxegileengana **demandan** edo protestan joan ordez geuk hartu behar genuela geure bizitokien ardura. Xabier Mendiguren Elizegi

Mutiko ahots bat bazuen, zoli-zolia, bere senarrarekin **demandan** ari zenean bi kilometrora ere entzun zitekeena. Josu Zabaleta

**5** ***demanda egin*** errieta egin.

-*Allume moi ça, sporca madonna!* - **demanda egin** zion belarrira zerbitzari zaharrak Emileri. Lopez de Arana

Kotxean sartu, ohizko muxua eman eta mutturrak okertuz **demanda egiten** dio Mikeli, mainati. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## demandadero

*iz*

Patriofiliotan ibili gabe **demandaderotik** erositako ogi xerra erreak gaztanberaz bete, mermelada apur bat bota gainean, eta jan... Jokin Urain

---

**demandagile** *iz* auzi-jartzailea.

Egindako kalteei erantzutea **demandagilearen** abokatua mantentzen laguntzea da, eta, bide batez, **demandagileari** satisfakzioa ematen. Xabier Olarra

---

**demandante** *iz* auzi-jartzailea.

Ezin da ukatu albisteak eduki difamatzailea duela, **demandantea** ETA banda terroristako kidea dela adierazi baitu. Berria - Euskal Herria

---

**demandatu** *iz* salatua izan den pertsona.

Albisteko okerra nahigabekoa izan zela argudiatu du **demandatuak**, eta presaren ondorio izan zela. Berria - Euskal Herria

**Demandatuak** euskaraz egindako aitorpena jasotzeari uko egin zion epaileak. Berria - Euskal Herria

---

**demantibulatu**, demantibula, demantibulatzen *ad*

Arratsero telebistako berrisailetako tele-reality antzeztuek goiti-botatzen dizkiguten gezurrezko egien eta egiazko gezurren herroka irudikatu digute; baina usaian deslotuak eta **demantibulatuak** bailiran aurkezten zaizkigunak, hauen joko eta testuaren dohainez sentsuaren hari magikoaz lotu dituzte buruan buru. Berria - Kultura

---

**demarkazio** *(orobat **demarkazione**)* **1** *iz* mugapea.

**Demarkazio** bakoitzeko euskaldunen ehunekoa hartzen du kontuan eta horren baitako euskararen erabilera ezartzen die telebistei. Euskaldunen eta ia-euskaldunen ehunekoen baturaren proportzioan bermatzeko euskara hutsezko [telebista] kate kopurua **demarkazio** bakoitzean, eta gainerakoei kuotak ezartzeko. Berria - Euskal Herria

**2** ***demarkazio muga*** muga-lerroa.

Doi-doia zerbait puskaren hartzeko artea utzi zieten haien kasua ez da larria etxea, xuxen, **demarkazio** mugaren gainean dute. Marzel Etxehandi

Bien artean muga luze bat jausten zen, **"demarkazione** muga", Donibane-Garazin gaindi, Arnegiraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **demarkazione muga** (3); **demarkazioneko muga** (3)

---

demarkazione ik **demarkazio**.

---

**demarratu**, demarra, demarratzen du *ad* oldarrean abiatu.

Autoa **demarratu** zuen, eta: [...]. Pablo Sastre

Lagunak barruan zirela, autoak **demarratu** zuen. Pablo Sastre

---

**demas** **1** *izond* ikaragarria, izugarria, gehiegizkoa.

Zer egingo eta tangoak abesten hasi zen bat-batean, sentimendu handia ipiniz kantuan eta keinu **demasak** eginez gorputzaz. Jon Arretxe

Masoka **demasa** ala umore beltza? Jokin Urain

Korronte alternoaren eragin txikitzaile **demasak** frogatzeko. Harkaitz Cano

-Osasunak, zerorrek esan duzunez, ez nau balentria **demasetara** bultzatzen. Txillardegi

Allan Poerena da, **demasa**! Joxemari Urteaga

- **Demasa**, jo! Joxemari Iturralde

**Demasa** dun! Antton Olano

**Demasa** iruditzen zaidak! Luis Elberdin

**Demasa** ginela esan digute, daukagun edadeagaz holako gauza bat egitea ere... Berria - Euskal Herria

Berak, ordea, "liluragarri" hitzari aski egoki iritzen ez, nonbait, halako erliebe batentzat; bere irudiko, hura eromena zen, zoramen hutsa, **demasa**, itzela, izugarria. Joxe Austin Arrieta

Oraingoan ere **demasa** harrapatu duk, txikito. Iñaki Iñurrieta

Ez da **demas** -demasa. Patxi Iturritegi

Esker onekoa da, **demasean**. Pello Zabala

**2** ***demaseko*** *(orobat **demasako** g.er.)* *izlag* demasa.

Hor zen artean azkeneko aldiz izan nintzenean utzi nion **demaseko** eskupekoa. Oskar Arana

Hortik nire meritua beste norbaiti ematera, bazegoen **demaseko** tartea. eta ez dakit parte onekoa ote den, gero, festa-egarri **demaseko** hau. Hasier Etxeberria

Eta ez dakit parte onekoa ote den, gero, festa-egarri **demaseko** hau. Joxerra Garzia

-Zu **demasako** harpajolea zara, Olga. Lopez de Arana

Artifizio gehiegi erabiltzea, hariak sobera lantzea, sigi-saga **demasako** gidoiak egitea ere leporatu izan zaio. Berria - Kultura

Handia ez, **demasekoa**. Hasier Etxeberria

---

**demasakeria** *iz* izugarrikeria.

Ekialde Erdiko eta Ekialde Hurbileko herrietako jarreretan dautzan botere-elementu eta geopolitika-elementu bereziak, eta zenbait **demasakeriak** erreibindikazio baten inguruan biltzeko eskain dezakeen aukera. Jon Alonso

---

**demasia** *iz* gehiegikeria.

Euri haiexen ondorioz irlan **demasia** izugarriak izan ziren, urak berrogeita hamar lagun eraman zituen. Pablo Sastre

Faxismoaren **demasiak** salatzen dituen aldetik dukeen balio onarturik ere, teknikaren aldetik huts egiten du.Ezkonduta daramaten 15 urteetan [...] Donatien libertino aseezinak egin dituen **demasiak** eginda, beti aterako da haren alde, beti barkatu du -baita bere ahizparekin ihes egin zuenean ere-, eta beti itzuliko da haren ondora. Edorta Jimenez

Kurioski, gerla honetan, ministerio gehienak suntsituak izan direlarik edo lapurtuak, gelditu da osorik, deus **demasiarik** gabe, urre beltzarena. Herria

---

## **demasiatu** *izond* gehiegikeriazkoa.

Ez da heresiologorik haien aztura **demasiatuak** txundiduraz kontatzen ez dituenik. Juan Garzia

---

## **demendren** 1 *izond* gutxiena

Ez zuen keinurik **demendrena** egin semeagana, Atanasiori eraso zion. Koldo Izagirre

**2** ***demendreneko*** *izlag* gutxieneko.

Erakuts iezadazu non den zapelatz ederra, haren ondoan iratzarririk egon behar baitut zazpi egunez segidan, **demendreneko** lo kuluxkarik egin gabe. Aurelia Arkotxa

Eta gainera, haren ustetan, delako guruintxoa garunaren erdian zintzilik dago, animali izpirituen **demendreneko** bultzadak mugitzeko gisan. Piarres Xarriton

Ez zuen maitasun giroa aldatzeko **demendreneko** arrazoirik ikusten. Gotzon Garate

Nik, bistan da, buru egiteko **demendreneko** asmorik ez. Jose Angel Irigaray

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **demendreneko lo kuluxkarik** (3)

---

## **dementor** *iz* munduan den izaki ilun eta izugarrienetakoa, giza itxurakoa baina hanka eta bururik gabea.

Hiru **dementor**, hiru **dementor** luze, beltz eta txanodun berari begira zeuden. Iñaki Mendiguren

**Dementor** zahar beldurgarri horrek zu ere ikaratu al zaitu, Weasley? Iñaki Mendiguren

-Zer dago **dementor** baten txanopean? Iñaki Mendiguren

**Dementorrak** ezin dira engainatu trikimailuz edo mozorroz... ezta ikusezintasun-kapaz ere -gaineratu zuen emeki, eta Harryk eta Ronek elkarri begiratu zioten-. Iñaki Mendiguren

Hauxe da benetako **dementor** baten antzik handiena duen izakia. Iñaki Mendiguren

Agian **dementorrek** izango dute musu bat honentzat ere... Iñaki Mendiguren

Zilarrezkoa bezalako zerbait irten da haren makila magikotik **dementorraren** kontra, eta hura jiratu eta joan egin da irristatuz bezala... Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **benetako dementor** (3); **dementor bat** (8); **dementor baten** (3); **dementor horiek** (3); **dementorrek ez** (3); **dementorrek ezin** (3); **dementorren aurkako** (6); **dementorren ondotik** (3); **eta dementorrak** (3); **zuen dementorren** (3)

---

## **dementzia** 1 *iz* zorotasuna.

**Dementzia** edo eromena izan zen Txileko Justizia Gorteak Pinochet ez epaitzeko erabili zuen argudioa. Berria - Mundua

Garuneko hodietako arazoak, **dementziak**, buruan hartutako kolpeak eta esklerosiak dira kasurik gehienetan disfagia arazoen kausak. Berria - Gaiak

Estresak **dementzia** eragin dezakeela ondorioztatu dute. Berria - Gaiak

Edo gainditzen gaituen zerbaitek inguratzen gaitu, edo **dementziak** jo gaitu biok. Fernando Morillo

Amonak ere **dementziak** jotzean arboletara igotzen dira, handik gehiago ez jaisteko. Harkaitz Cano

Teoria moten arabera eurei atxikitzeko gaixotasunaren estatusa, alienazioarena, anomaliarena, **dementziarena**, neurosi edo psikosiarena, endekapenarena eta abar. Xabier Arregi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Ez du datarik eman nahi, baina sinetsita dago **dementzia** larria gelditzeko botika aurki iritsiko dela. Berria - Gaiak

Gorenak **«dementzia** sendaezina» zuela ebatzi zuen eta bere aurkako salaketak baztertu zituen. Berria - Mundua

Diktadore ohiaren ustezko **«dementzia** arina». Berria - Mundua

Proben arabera, «gaindiezineko **dementzia** arina» zuen Pinochetek. Berria - Mundua

Pinocheten ustezko **dementzia** zalantzan jartzen dela kasu honekin. Berria - Mundua

Zahartzaroko **dementzia** eta bestelako gaitzak dituzten zentroko zaharrak laguntzeko Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Barazkiak eta fruta ugari jateak **dementzia** arriskua murrizten du. Berria - Gaiak

Huntingtonen gaitza endekapenezko gaitz neurologikoa da, eta **dementzia** arazoak eta mugimenduak kontrolatzeko ezintasunak sortzen ditu. Berria - Gaiak

Gaitz arraroa zela pentsatu zuten hasieran, baina oso **dementzia** kausa ohikoa da. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dementzia arina** (3); **ustezko dementzia** (3)

---

## demetitu ik **dimititu**.

---

## demisio ik **dimisio**.

---

## **demisionatu**, demisiona, demisionatzen du *ad ipar* dimititu.

Aldi huntan jakiten dugu Simone Ithurbide Ahatsako auzapezak **demisionatu** duela, zortzi egun laburren ondoan, bere lehendakari-orde kargutik. Herria

Xinan, Hong Kongeko minixtro lehena **demisionatu** dute, Tung Chee Wa, hauteskundedun demokrazia bati buruz, goizegi abiatu sari, erran diotenez. Herria

Andere presidenta berriz berean dago gogor, ez duela **demisionatuko** galdetzen dioten bezala. Herria

1880an 261 komentu hetsiak dira, 5643 jesuita kanporatuak; 200 jujek **demisionatzen** dute, lege horren aplika araztera bortxatuak ez izaiteko. Xipri Arbelbide

---

## demisione ik **dimisio**.

## **demiurgia** *iz* demiurgoarena, demiurgoari dagokiona.

Dena egingo bailukete hitz-trukaketa soil batez, eta inork zalantzarik badu **demiurgia** berri hauei buruz, mundua eta gizona bera horrelaxe egin zirela gogoratzea baino ez dauka, hitzez, alegia, hitz batzuez eta ez beste batzuez, gelditu ziren bezala geldi zitezen, eta ez beste modu batez. Jon Alonso

---

## **demiurgo** *izond/iz* unibertsoaren printzipio sortzailea.

Marcos **demiurgo** . Unai Elorriaga

**Demiurgo** pazientziatsu batzuek bilduak dituzte biografoarentzat ideia, fisionomia-gorabehera, gertakaririk. Juan Garzia

Gizona, liburuzain moldegabea, halabeharrak edo **demiurgo** maltzurrek sortua izan daiteke; unibertsoa, ordea, apal sorta hain dotore hori, hainbeste liburu asmagaitz... [...] jainko baten obra baizik ezin izan liteke hori. Juan Garzia

---

## **demode** *izond* modatik pasea.

Euskadi izena gailendu aurretik erabiltzen zen Euskaria, «egun **demode** dagoen izena», eta show izen indoeuropar polisemikoarekin elkartu du izenburuan, «urruntasuna eta aldi berean hurbiltasuna markatzeko». Berria - Kultura

---

## **demofarmazia** *iz* produktu kosmetikoen inguruko farmazia.

Horietan, farmaziaren historia, **demofarmazia** , fisiologia eta biokimika, bromatologia eta botanika landu dira. Berria - Euskal Herria

---

## **demografia** 1 *iz* giza multzoen estatistika bidezko azterketa; biztanleria.

Merkataritzaren, ekonomiaren, **demografiaren** berpiztea ez zen XV. mendearen bigarren erdia arte gertatu. Koro Navarro

**Demografiaren** aldetik ordea, aldaketa ikaragarria gertatu zaigu azken bi mendeetan, eta hori Frantziaren menpe dagoen Iparraldearen kaltetan. Piarres Xarriton

Hortik ere etor daitekeela **demografiaren** ondorioz sortutako ikasleen beherakada hori orekatzeko bide berriren bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lehenbiziko erronka **demografiarekin** lotua dago: 1960 eta 1975en artean ume asko jaio ziren Euskal Herrian, baldintza ekonomikoetan gertatu ziren aldaketen ondorio gisa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrek segur aski eskualdeko **demografian** aldaketa eragingo du. Berria - Harian

Frantziako **demografiaren** bilakaera ere kontuan hartuko dute plan hori egiterakoan. Berria - Harian

Kantonamendu horretan **demografia** azkarki goiti doa. Herria

Duela 50 urteko **demografiaren** arabera daude banatuak posta etxeak. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **demografiko**.

Ez dira **demografia** datuak kontuan hartu behar diren bakarrak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Demografia** aldaketak ere kontuan hartuko ditu aurrekontu proiektuak. Aurreneko eragilea lan-eskaintza gehiegizkoa da, **demografia** -eztandak eragina. Berria - Ekonomia

**Demografia** -leherketa aurrenik, eta horren ondoriozko migrazio-presioa gero. Koro Navarro

**Demografia** beherakadak ez du dena esplikatzen. Herria

Analisi batzuen arabera, 2010. urtea baino lehenago europar hiritarrek ez dituzte eskuratuko erretiro ordainketak, **demografia** arazoak direla eta. Pello Salaburu

Jaiotze-tasak barneko eragileen mende egoten baitira [...] baldin estatuak bere **demografia** -politika indarrez ezartzen ez badu. unibertsitateko ikasleen kopurua aurrerantzean gutxitu egingo dela onartu zuen: « **Demografia** kontua da». Koro Navarro

Martin Spielauer austriarra **demografia** ikertzailea da Alemaniako Max Planck institutuan. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gogoeta hori komentu eta monasterioetako sermoi eta hitzaldietan nagusiki egina izateak tratatu teologikoetan baino areago erlijio-**demografiazko** fenomeno baten laguntza izan zuen. Joan Mari Lekuona

Donostia-Baiona eurohiriko enpresa **demografia** da azterketaren bigarren ikerketa lerroa. Berria - Euskal Herria

Eustateko Gizarte- **Demografia** Estatistiken buru Enrique Moranen ustez. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **demografia eta** (5)

---

## **demografiko** *izond* demografiarena, demografiari dagokiona. ik **demografia 2.**

Garapen **demografikoak** eta enpleguaren bilakaerak gastua nabarmenki handituko dutela. Iñaki Heras

Europa eredu **demografiko** honen lehenbiziko urratsean egon zen XIX. mendearen erdi alderaino. Pello Salaburu

Azken mendeetan gertatutako hazkunde **demografiko** handia. Iñaki Heras

Aldaketa **demografikoaren** ondorioak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Biztanleriaren zahartze **demografikoarengatik** sortuko diren beharrak. Iñaki Heras

Atzerakada **demografikoa** : jaiotza-tasaren beherakadak [...] eragin iraunkorra izan du Hezkuntza Sistemaren ordezte-tasan. Berria - Euskal Herria

Baina, hala ere, orokorra izan zen krisia: erlijiozkoa, politikoa, ekonomikoa eta **demografikoa** . Koro Navarro

Beheraldi **demografikoa** eta segurtasun fisikoaren falta zela-eta. Koro Navarro

Latinoen edo hispanoen pisu **demografikoa** handia da, eta bizkor handitzen ari da. Berria - Mundua

Eskualde honetan, eta masa **demografikoa** oso handia den arren, hazkundearen erritmoa, biztanleko, lau aldiz lasterragoa da. Koro Navarro

Esan nahi duguna da eragile **demografikoez** gain badirela beste faktore batzuk kontuan hartu behar direnak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gurpil **demografikoa** : soldata apalek eta babes sozialik ezak jaiotzak sustatzen dituzte, seme alaba ugari izatea zahartzarorako bermetzat hartzen baita. Iñaki Heras

· Eusko Jaurlaritzaren arabera, nabaria da Bastidak, Oionek eta Guardiak edukiko dutela rol protagonista alor sozio- **demografikoan** , eta Oionek, berriz, industriari dagokionez. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldaketa demografikoak** (3); **demografikoa oso** (3); **hazkunde demografiko** (3)

---

## **demografikoki** *adlag* demografiaren aldetik.

Batzuk Euskal Herria baino txikiagoak diren herrialdeak dira, **demografikoki** zein ekonomikoki gu baino apalagoak», azaldu zuen sindikalistak. Berria - Euskal Herria

---

**demokide** *iz* Demoen higikundeko kidea.

Bi **demokide** arrastatu ditu polizak joan den ostiralean Baionako geltokian, ari zirelarik frantsesezko seinale idatzien euskarazko bertsioak idazten. Herria

Urtarrilaren 8an Baionako auzitegiak epaitu zituen lehen aldikotz 63 **demokideak** , SNCFk ezarri salaketari jarraituz. Berria - Euskal Herria

Jujeak ez ditu utzi nahi ukan euskaraz mintzatzerat bi **"demokideak"** , erranez gisa guziz fransesa badakitela. Herria

---

**demokrata** *(ETCn 9.861 agerraldi)* **1** *izond/iz* demokraziaren eta balio demokratikoaren aldekoa. (pertsonei buruz)

Mendebaldeko politikari liberal, sozialista eta **demokrata** guztiek. Piarres Xarriton

**Demokrata** naiz, legelaria, eta zuzenbide estatuan sinesten dut. Berria - Euskal Herria

**Demokrata** eta abertzale diren herritarren gehiengoak egindako lana. Berria - Euskal Herria

Izan gaitezen **demokratak** baina ez dezagula pentsa denok berdinak garenik, ez baita egia. Karlos Zabala

Horrela jokatzen dute hiriko señorito klasistek nekazariekin; horrela xenofoboek eta beste askok -fede oneko **demokratak** , tartean- euskaldunekin. Bernardo Atxaga

Zinezko **demokratek** danba-danba baino nahiago dute tar-tar-tar. Berria - Harian

Beren burua **demokratatzat** daukaten askok hain demokratikoak ez diren sentimenduak ere badituztela. Bernardo Atxaga

Terrorismoaren aurkako **demokraten** batasunaren lidergoa har dezala, irmoki eta konplexurik gabe. Berria - Euskal Herria

Aliatuek espainiar antikomunista -eta faxistak- hobetsi zituzten euskotar **demokraten** -eta antikomunisten- aldean. Edorta Jimenez

**Demokratek** eta biolentoek, azken finean, alderdi biek ideal demokratikoak dituzte: ideal judukristauak. Patziku Perurena

Europako Abokatu **Demokraten** Elkartearen presidentea. Berria - Harian

**2** (pertsonei buruz izenondoekin)

**Demokrata** peto-petoa zela ere entzun dut, heterodoxoa, hori bai, baina **demokrata** porrokatua. Joxerra Garzia

Ezagutzen dugu lehendik, eta badakigu **demokrata** porrokatua dela. Jokin Urain

Benetako **demokrata** ematen zuen. Bernardo Atxaga

Horregatik, **«demokrata** hutsa» delako, aldaketa handiak espero ditu Biurrunek. Berria - Euskal Herria

**Demokrata** zintzoa zen, demokrazia zer zen Europatik zetozkigun liburu eta modetan ikasi uste genuen hartan. Koldo Izagirre

Behin eta berriro berpizten den intelektualaren tipo mesianiko hori, Menéndez Pelayotar edo krausista lehenbizi, 98tarra gero, laster faxista, **demokrata** konstituzionalista hurrengo, herri espainolaren arima salbatzeko bokaziokoa beti. Joxe Azurmendi

Anarkista bat izan badaiteke nazi lehendabizi eta **demokrata** jatorra gero, zergatik ez torturatua torturatzaile? Xabier Montoia

**3** (gauzei buruz)

Europako Alderdi **Demokrataren** sortzaileetakoa izango da EAJ. Berria - Euskal Herria

Non koka daiteke Alderdi Liberal **Demokrata** : laboristen ezkerrean, laboristen eta kontserbadoreen artean? Berria - Harian

UDI Batasun **Demokrata** Independentearen babesa zuen. Berria - Harian

Gaur egun badakigu ez direla fidagarri populuaren ala herriaren izenean mintzo zaizkigun alderdi popular **demokrata** asko. Piarres Xarriton

Orain unibertsitate **demokrata** batek bultzatuta eta polizia **demokrata** baten laguntzaz, epaile **demokrata** baten kondena jaso dezakezu. Berria - Euskal Herria

Nazionalista etniko aseezinengandik oso gainetik dagoen Estatu **demokratak** beretzat esklusiboki nahi du "nazio" hitza. Joseba Zulaika

Gutiengo **demokratak** bozkatze unibertsala eskatzen zuen. erreportajeak eta artikulu satirikoak idazten hasi zen Moskuko egunkari **demokrata** berri batean. Koldo Izagirre

**4** alderdi demokrata bateko kidea.

Iaz arte diputatu **demokrata** izan zen Idahoko ordezkarien ganberan. Berria - Euskal Herria

10 botoemaile afroamerikarretatik bederatzik Al Goreren aldeko botoa eman zuten, hautagai **demokrata** aldekoa, beraz. Berria - Mundua

**Demokraten** hautagaia ere bikote homosexualen arteko ezkontzaren aurka dago. Berria - Gaiak

Argi eta garbi dago badela Bush-en kontrako jendea Estatu Batuetan eta ez bakarrik **demokratak** . Herria

Bushen kontra aukera gehien dituen **demokrata** da babestu beharrekoa: Clark, alegia. Berria - Mundua

John Kerry hautagai **demokratak** . Berria - Ekonomia

«John Kerryren aldekoa» zela garbi utzi nahi izan zuen, eta «munduan gauzak nola dauden ikusita, oso desberdina da errepublikanoa edo **demokrata** izatea», gaineratu zuen. Berria - Kultura

Eman botoa **demokratei** hauteskunde guztietan. Oskar Arana

Nader besteen lana izorratzen aritu arren, **demokratak** garaituak izatea ezinezkoa zela zirudien. Oskar Arana

Inkesten arabera, errepublikanoak eta **demokratak** parekatuta daude. Berria - Mundua

Laboristak eta liberal **demokratak** Eskozian koalizio gobernua osatzen dute. Berria - Harian

**Demokraten** primarioak hasi aurretik, bera zen hautagai bihurtzeko faboritoa. Berria - Mundua

**5** ***demokrata-kristau*** *(18 agerraldi, 2 liburu eta 12 artikulutan; ETCn 212 agerraldi; orobat* ***demokratakristau*** *g.er.) izond/iz*

1950eko hamarkadan eman zituen lehen pausoak politikagintzan, Alderdi **Demokrata-Kristauaren** eskutik. Berria - Harian

Batasun **Demokrata Kristauak** eta haren Bavariako alderdi kide Batasun Sozial Kristauak (CSU) irabazi zuten, baina ez zuten uste zuten bezainbesteko arrakasta izan. Berria - Mundua

UDC **Demokrata Kristauen** Batasuneko buru Pierferdinando Casinik Barne ministroa zoriondu zuen, «mafiari emandako kolpe erabakigarriagatik». Berria - Mundua

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, De Gasperi **demokrata kristauak** ministro izendatu zuen Palmiro Togliatti, PCIko idazkari nagusia. Anjel Lertxundi

Muturreko ezkerretik abiatu eta zentroraino doan sorta askotarikoa da: komunistak, berdeak, **demokrata-kristauak** daude tartean. Berria - Mundua

Gerra ostetik zirauen **demokrata kristauen** eta komunisten arteko etsaigo hitzartuak. Anjel Lertxundi

**6** ***kristau-demokrata*** *(44 agerraldi, 2 liburu eta 30 artikulutan; ETCn 572 agerraldi orobat* ***kristaudemokrata*** *g.er.) izond*

CDU Batasun **Kristau Demokratako** lehendakari Angela Merkelek. Berria - Mundua

Flandesko Alderdi **Kristau-Demokratako** (CD&V) presidente Yves Leterme. Berria - Mundua

SDKU Alderdi **Kristaudemokrataren** kandidatua. Berria - Mundua

Urteak pasa ahala, mugimendu **kristau-demokrata** hori sozialdemokraziara bilakatu zen. Berria - Mundua

Bi joera agertu ziren aurrez aurre: bat sozialdemokrata edo **kristau-demokrata,** eta bestea sozialismo internazionalista. Joseba Zulaika

**Kristau-demokrata** banintz bezala tratatzen ninduen! Fernando Rey

**Kristau demokratek,** bozen %47,2 eskuratuta, bakarrik zuzen dezakete, historian lehen aldiz, hiri-estatua. Berria - Mundua

**Kristau-demokratekin** egin behar izan dute ituna independentistek. Berria - Mundua

**7** *sozial-demokrata* ik **sozialdemokrata.**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi demokrata** (29); **alderdi demokrata ead** (3); **alderdi demokrata eta** (5); **alderdi liberal demokrata** (4); **alderdi sozial demokrata** (15); **batasun demokrata** (7); **batasun demokrata kristauak** (3); **batasun kristau demokrata** (3); **benetako demokrata** (4); **bere burua demokrata** (3); **burua demokrata** (3); **da demokrata** (4); **demokrata asko** (3); **demokrata batek** (3); **demokrata da** (6); **demokrata ead** (3); **demokrata eta** (23); **demokrata eta liberalen** (3); **demokrata gisa** (7); **demokrata guztiak** (4); **demokrata guztiek** (4); **demokrata guztien** (5); **demokrata izan** (5); **demokrata izatea** (3); **demokrata john** (3); **demokrata kristaua** (3); **demokrata kristauak** (6); **demokrata kristauak eta** (3); **demokrata kristauen** (5); **demokrata laboristako** (6); **demokrata naiz** (3); **demokrata porrokatua** (3); **eta demokrata** (17); **europako alderdi demokrata** (7); **girixtino demokrata** (3); **hautagai demokrata** (19); **hautagai demokrata john** (3); **john kerry demokrata** (10); **kerry demokrata** (10); **kerry hautagai demokrata** (3); **kristau demokrata** (12); **liberal demokrata** (7); **presidentetzarako hautagai demokrata** (3); **sozial demokrata** (21); **sozial demokrata laboristako** (6); **udi batasun demokrata** (3)

**alderdi demokratak** (31); **alderdi sozial demokratak** (7); **batasun kristau demokratak** (3); **batuko liberal demokratak** (3); **demokratak aebetako** (3); **demokratak alderdiko** (6); **demokratak dira** (4); **demokratak ere** (3); **demokratak eta** (16); **demokratak etxe** (4); **demokratak ez** (7); **demokratak ez dira** (3); **demokratak irabazi** (3); **diputatu demokratak** (5); **dira demokratak** (4); **ds ezkerreko demokratak** (4); **errepublikanoak eta demokratak** (4); **eta alderdi demokratak** (3); **eta demokratak** (16); **europako alderdi demokratak** (5); **ezkerreko demokratak** (8); **ezkerreko demokratak alderdiko** (4); **hautagai demokratak** (31); **john kerry demokratak** (6); **kerry demokratak** (7); **kerry hautagai demokratak** (10); **kristau demokratak** (8); **liberal demokratak** (9); **liberalak eta demokratak** (3); **presidentetzarako hautagai demokratak** (4); **senatari demokratak** (11); **sozial demokratak** (12)

**alderdi demokratako** (22); **alderdi demokrataren** (29); **alderdi demokrataren hautagai** (3); **alderdi demokrataren hautagaia** (3); **alderdi demokratari** (5); **alderdi liberal demokratako** (6); **alderdi sozial demokratako** (6); **batasun kristau demokratako** (5); **bere burua demokratatzat** (3); **beren burua demokratatzat** (5); **burua demokratatzat** (9); **demokratako buru** (4); **demokratako buru charles** (3); **demokratako presidente** (4); **demokrataren arteko** (4); **demokrataren hautagai** (3); **demokrataren hautagaia** (3); **demokratatzat jotzen** (3); **europako alderdi demokrataren** (6); **hautagai demokrataren** (10); **hautagai demokratari** (6); **john kerry demokrataren** (4); **kerry alderdi demokrataren** (3); **kerry demokrataren** (4); **kerry demokratari** (3); **kerry hautagai demokrataren** (5); **kristau demokratako** (7); **liberal demokratako** (7); **sozial demokratako** (6)

**abokatu demokraten** (6); **abokatu demokraten elkarteko** (3); **demokratek diote** (3); **demokratek eta** (7); **demokratek ez** (3); **demokratekin bat** (3); **demokraten alde** (10); **demokraten aldeko** (6); **demokraten artean** (7); **demokraten arteko** (8); **demokraten arteko batasuna** (3); **demokraten batasuna** (5); **demokraten buruak** (3); **demokraten elkarteko** (3); **demokraten hautagai** (5); **demokraten hautagaia** (3); **demokraten hauteskunde** (3); **demokraten primarioak** (4); **diote demokratek** (5); **dituzte demokratek** (3); **du demokraten** (6); **dute demokratek** (9); **errepublikanoek eta demokratek** (3); **eta demokratek** (11); **eta demokraten** (20); **eta demokraten artean** (3); **eta liberal demokratek** (5); **europako abokatu demokraten** (6); **ezkerreko demokraten** (3); **kristau demokratek** (6); **kristau demokratekin** (4); **liberal demokratek** (23); **liberal demokraten** (16); **liberal demokraten buruak** (3); **liberalen eta demokraten** (3); **nahi dute demokratek** (4); **sozial demokratek** (4); **zuten demokratek** (4)

---

## demokratakristau ik **demokrata 5**.

---

## **demokratera** *iz adkor*

Lehenago demokrataren batek "le fanatisme parle basque" esan ei bazuen, bada, "fanatismoa **demokrateraz** mintzo da" esan beharko dugu gaur. Joxe Azurmendi

---

## **demokratiko** 1 *izond* demokraziarena, demokraziari dagokiona. ik **demokrazia 4; demokrazia 6**.

Brasilen, sistema **demokratikoa** ez da gai Amazoniako lur-jabe handien txikizioei aurre egiteko. Iñaki Heras

Teoria **demokratikoaren** osaketaren historia luzeak grekoengan du iturburu. Esteban Antxustegi

FMI teorian, bere laguntza jasotzen duten herrialdeen erakunde **demokratikoen** alde izaten da. Iñaki Heras

Orduan, anaia guztiei [...] eskatzen zitzaien beren testigantza, anaiartearen betidaniko egitura **demokratikoaren** haritik; orain, ordea, dinamika goitik beherakoa da. Askoren artean

Berritze **demokratikorako** formulak bilatu behar dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eta lehen hauteskunde **demokratikoetan**, atzeko muturrera bidali gintuzten; hori gu, zeren beste batzuk zuzen-zuzenean zaborretara joan ziren. Juan Kruz Igerabide

Badakigu nafartar doktoreak ederki defendatu zuela botere politikoaren herri etorkia, haren izaera eta oinarri **demokratikoa**. Piarres Xarriton

Autore hauek indibidualtasunaren ekarpen positiboa azpimarratzen dute, esaterako, eskubide **demokratikoen** sortzaile gisa. Iñaki Heras

Ez daude pertsona gisa katalogatuak inon, ez dute eskubide zibilik edo **demokratikorik**. Jokin Urain

Nazionalismo **demokratiko** deitutakoaren oinarri soziala. Txema Ramirez de la Piscina

Lurraldekako eta taldekako estilo eta erabakiak lehenetsiz zentralismo **demokratikoaren** aurretik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Maastricht-eko Itunean ez da aipatu ere egiten behar adinako legitimazio **demokratikoa** duen autoritate politiko baten sorkuntzarik, Europako Banku zentralaren diru autoritatearen autonomia orekatuko duenik. Iñaki Heras

Horrela aurkeztuta, normaltasunak kutsu **demokratikoa** dauka, ez da inposizio modura agertzen. Luis Elberdin

Hamabi urtetako irakaskuntza faxista, zapaltzaile, atzerakoi, soilik mutilentzakoa jasan ondoren, prest nengoen azkenik irakaskuntza moderno, **demokratiko**, misto eta progresistaren gozoa dastatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Benetako parte-hartze **demokratikoari** buruzko eztabaida. Askoren artean

Antolakuntza partehartzaile eta **demokratikoa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Komunikazioaren demokratizazioa, eredu partehartzaileagoa, horizontalagoa, **demokratikoagoa**, gizatiarragoa eta sozialagoa lortzea, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Demokratek eta biolentoek, azken finean, alderdi biek ideal **demokratikoak** dituzte: ideal judukristauak. Patziku Perurena

Baziren hiri tiranikoak eta baziren bestelakoak, **demokratikoak**. Jon Muñoz

Alemaniako Errepublika **Demokratiko** ohia. Koro Navarro

1943an Italiara itzuli eta 1952tik 1963ra bitartean Alderdi Sozialista **Demokratikoko** idazkari nagusia izan zen. Fernando Rey

### **2** irud/hed

Hau dugu bakartasuna, hau presondegia, hau sistema guziz ohoratua eta berniz **demokratiko** batek zilegiztatua. Filipe Bidart

Inorenak ez zirenez, guztiek zuten, mitoaren hego **demokratikoei** esker, irudimenezko lurralde haietan atzera-aurrera ibiltzeko eskubidea. Anjel Lertxundi

### **3** (izan aditzarekin)

**Demokratikoa** da, gizatiarra; gizon-emakumeen multzoarena da, unibertsala. gatazkaren konponbideak **demokratikoa** izan behar du; ideien konfrontaziorako espazioa osatu behar da. Felipe Juaristi

Gaur Iraken egingo diren bozak ez dira **demokratikoak** izango. Berria - Harian

Baina liburutegiak, zentzu horretan, **demokratikoak dira**, haien irizpideak ez dituelako merkatuak finkatzen. Berria - Kultura

Arazo hori konpontzeko modu bakarra sorburuan **demokratikoak** diren eta kultur aniztasuna eta aniztasun etnikoa integratzeko gai diren esku-hartzeak dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Beren burua demokratatzat daukaten askok hain **demokratikoak** ez diren sentimenduak ere badituztela. Bernardo Atxaga

Kofradien plateamendu teorikoa, beraz, guztiz **demokratikoa** zen: arrantzaleen barruko funtzionamendurako ezin hobea. Markos Zapiain

Eredu honek aldaketa handiak ekarriko lituzke unibertsitatean, eta uste dugu, gainera, oso **demokratikoa** izango litzatekeela, nahiz badituen beste arazo batzuk. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez omen da behin ere Eliza **demokratikoa** izan... Menane Oxandabaratz

Uste dut badela **demokratikoa den** euskal nazionalismo bat ere. Berria - Kultura

### **4** ***ez-demokratiko***

Egoera **ez-demokratikoari** irtenbidea emateko. Berria - Euskal Herria

Gaur egun Iruñea «gune **ez demokratikoa**» dela azpimarratu zuen Abaurreak. Berria - Euskal Herria

Iñaki Uriari jarritako bermeak argi adieratzen du Espainiako Estatuaren izaera **ez-demokratikoa**. Berria - Euskal Herria

Estatu militar eta **ez demokratikoa** da Turkia; zigorgabetasuna dago. Berria - Mundua

Plataformen esanetan, 2003ko udal hauteskundeen ondotik, UEMA ere «erakunde **ez-demokratikoa** » bihurtu dute. Berria - Euskal Herria

PP eztabaida **ez-demokratikoa** eragozten saiatu zen. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**alderdi demokratiko** (67); **alderdi demokratiko guztien** (4); **alderdi demokratiko unionista** (9); **alderdi demokratiko unionistak** (15); **alderdi demokratiko unionistako** (13); **alderdi politiko demokratiko** (4); **arau demokratiko** (4); **askatasun demokratiko** (4); **baketsu eta demokratiko** (8); **batasun demokratiko** (8); **benetako prozesu demokratiko** (5); **bide demokratiko** (14); **bide demokratiko eta** (8); **defizit demokratiko** (6)

**demokratiko bat** (73); **demokratiko bat da** (4); **demokratiko batean** (44); **demokratiko batek** (10); **demokratiko baten** (46); **demokratiko baten alde** (12); **demokratiko baten aldeko** (6); **demokratiko baten bidez** (4); **demokratiko batera** (5); **demokratiko baterako** (17); **demokratiko baterako alderdiko** (4); **demokratiko batetik** (6); **demokratiko eskasa** (4); **demokratiko eta** (60); **demokratiko gisa** (8); **demokratiko guztiak** (6); **demokratiko guztiek** (4); **demokratiko guztien** (12); **demokratiko handia** (6); **demokratiko hori** (8); **demokratiko unionista** (9); **demokratiko unionistak** (15); **demokratiko unionistako** (13); **demokratiko unionistako buru** (4)

**dtp gizarte demokratiko** (4); **dup alderdi demokratiko** (27); **egoera demokratiko** (5); **egoera ez demokratiko** (4); **era demokratiko** (7); **eskubide demokratiko** (12); **eskubide demokratiko guztien** (4); **estatu demokratiko** (16); **estatu demokratiko batean** (6); **eta demokratiko** (37); **eta demokratiko bat** (4); **eta demokratiko baten** (6); **eta estatu demokratiko** (4); **europa demokratiko** (6); **ez demokratiko** (5); **eztabaida demokratiko** (6); **galdeketa demokratiko** (4); **gizarte demokratiko** (22); **gizarte demokratiko batean** (8); **gizarte demokratiko baterako** (8); **gobernu demokratiko** (9); **hauteskunde demokratiko** (4); **herri demokratiko** (7); **herrialde demokratiko** (10); **herrialde demokratiko batean** (5); **indar demokratiko** (7); **irtenbide demokratiko** (6); **jokaleku demokratiko** (4); **joko arau demokratiko** (4); **konponbide demokratiko** (13); **konponbide demokratiko bat** (4); **kontsulta demokratiko** (5); **kontsulta demokratiko baten** (4); **modu demokratiko** (5); **oinarri demokratiko** (7); **politiko demokratiko** (7); **politiko eta demokratiko** (9); **polo demokratiko** (4); **printzipio demokratiko** (5); **prozesu demokratiko** (36); **prozesu demokratiko bat** (19); **prozesu demokratiko batean** (4); **prozesu demokratiko baten** (7); **sistema demokratiko** (7); **trantsizio demokratiko** (4)

**alderdi demokratikoa** (14); **alderdi unionista demokratikoa** (7); **alternatiba demokratikoa** (13); **arabiar demokratikoa** (6); **askatzeko fronte demokratikoa** (7); **baketsua eta demokratikoa** (4); **batasun demokratikoa** (8); **benetan demokratikoa** (6); **berritze demokratikoa** (4); **borondate demokratikoa** (13); **bretainiako batasun demokratikoa** (4); **da demokratikoa** (7); **defizit demokratikoa** (8); **dela demokratikoa** (4)

**demokratikoa agerian** (4); **demokratikoa aldarrikatu** (4); **demokratikoa alderdi** (4); **demokratikoa behar** (6); **demokratikoa bermatzeko** (4); **demokratikoa bilatzeko** (6); **demokratikoa bultzatzeko** (6); **demokratikoa da** (44); **demokratikoa dela** (21); **demokratikoa den** (7); **demokratikoa egin** (6); **demokratikoa egiteko** (5); **demokratikoa eman** (7); **demokratikoa ematea** (3); **demokratikoa emateko** (10); **demokratikoa eraikitzea** (4); **demokratikoa eraikitzeko** (8); **demokratikoa eskuratzeko** (4); **demokratikoa eta** (44); **demokratikoa ez** (13); **demokratikoa izan** (25); **demokratikoa izango** (15); **demokratikoa izango bada** (5); **demokratikoa izateko** (6); **demokratikoa lortu** (7); **demokratikoa lortzeko** (9); **demokratikoa oposizioko** (5); **demokratikoa sinatu** (11); **demokratikoa sustatzeko** (5)

**egoera demokratikoa** (9); **erabaki demokratikoa** (8); **erabat demokratikoa** (6); **errepublika arabiar demokratikoa** (6); **errepublika demokratikoa** (21); **eskubide demokratikoa** (13); **estatu demokratikoa** (7); **eta demokratikoa** (57); **eta demokratikoa da** (9); **eta demokratikoa dela** (4); **eta konponbide demokratikoa** (4); **europa demokratikoa** (5); **ez da demokratikoa** (7); **ez dela demokratikoa** (4); **ez demokratikoa** (10); **eztabaida demokratikoa** (7); **fronte demokratikoa** (9); **gatazkari irtenbide demokratikoa** (6); **gobernu demokratikoa** (5); **hitzarmen demokratikoa** (31); **hitzarmen demokratikoa sinatu** (11); **irtenbide demokratikoa** (18); **irtenbide demokratikoa emateko** (6); **itxura demokratikoa** (5); **izaera demokratikoa** (4); **jokaleku demokratikoa** (4); **kalitate demokratikoa** (6); **konfrontazio demokratikoa** (4); **kongoko errepublika demokratikoa** (15); **konponbide demokratikoa** (26); **koordinadora demokratikoa** (15); **kurdistango alderdi demokratikoa** (4); **label demokratikoa** (6); **marko demokratikoa** (5); **nazional demokratikoa** (4); **oinarrizko hitzarmen demokratikoa** (31); **politiko demokratikoa** (4); **politiko eta demokratikoa** (7); **printzipio demokratikoa** (6); **prozesu demokratikoa** (48); **prozesu demokratikoa bultzatzeko** (5); **prozesu demokratikoa sustatzeko** (5); **sistema demokratikoa** (14); **trantsizio demokratikoa** (4); **unionista demokratikoa** (7); **zilegitasun demokratikoa** (7)

**alderdi demokratikoak** (16); **alderdi unionista demokratikoak** (11); **aliantza nazional demokratikoak** (4); **alternatiba demokratikoak** (4); **arau demokratikoak** (10); **askatasun demokratikoak** (10); **baketsu eta demokratikoak** (8); **baldintza demokratikoak** (14); **balio demokratikoak** (5); **berme demokratikoak** (8); **berme demokratikoak eta** (4); **bide demokratikoak** (20); **bide demokratikoak erabiliz** (7); **eta demokratikoagoa** (6)

**demokratikoak behar** (5); **demokratikoak bete** (4); **demokratikoak dira** (5); **demokratikoak diren** (6); **demokratikoak egin** (7); **demokratikoak erabiliz** (13); **demokratikoak eta** (27); **demokratikoak ez** (11); **demokratikoak ez diren** (8); **demokratikoak izan** (8); **demokratikoak izango** (8)

**dira demokratikoak** (3); **direla demokratikoak** (6); **diren berme demokratikoak** (4); **erreforma demokratikoak** (9); **eskubide demokratikoak** (25); **eta demokratikoak** (36); **eta demokratikoak erabiliz** (4); **ez direla demokratikoak** (6); **hauteskunde demokratikoak** (14); **hauteskunde demokratikoak egin** (5); **hauteskundeak demokratikoak** (5); **indar demokratikoak** (4); **instituzio demokratikoak** (4); **irtenbide demokratikoak** (6); **joko arau demokratikoak** (4); **koordinadora demokratikoak** (14); **nazional demokratikoak** (5); **oinarri demokratikoak** (13); **plataforma demokratikoak** (4); **politiko eta demokratikoak** (6); **politikoak eta demokratikoak** (6); **printzipio demokratikoak** (8); **prozesu demokratikoak** (4); **serbiako alderdi demokratikoak** (4); **unionista demokratikoak** (11)

**baketsu eta demokratikoan** (6); **demokratikoan egin** (5); **demokratikoan eta** (4); **demokratikoan gainditzeko** (4); **era demokratikoan** (9); **errepublika demokratikoan** (22); **eta demokratikoan** (15); **kongoko errepublika demokratikoan** (19); **modu demokratikoan** (11); **prozesu demokratikoan** (8)

**alderdi demokratikoaren** (8); **alderdi unionista demokratikoaren** (4); **alternatiba demokratikoaren** (7); **arabiar demokratikoaren** (6); **batasun demokratikoaren** (4); **demokratikoaren alde** (27); **demokratikoaren aldeko** (17); **demokratikoaren aldeko indarrak** (4); **demokratikoaren aurrean** (5); **demokratikoaren bitartez** (4); **demokratikoaren emaitzak** (4); **demokratikoaren eta** (7); **demokratikoaren inguruan** (4)

**errepublika arabiar demokratikoaren** (6); **errepublika demokratikoaren** (11); **eta demokratikoaren** (9); **eta konponbide demokratikoaren** (4); **gizarte demokratikoaren** (4); **herriko prozesu demokratikoaren** (6); **hitzarmen demokratikoaren** (15); **irtenbide demokratikoaren** (7); **irtenbide demokratikoaren alde** (4); **joko demokratikoaren** (6); **kongoko errepublika demokratikoaren** (4); **konponbide demokratikoaren** (31); **konponbide demokratikoaren alde** (14); **konponbide demokratikoaren aldeko** (12); **nazionalismo demokratikoaren** (4); **oinarrizko hitzarmen demokratikoaren** (15); **pds sozialismo demokratikoaren** (4); **prozesu demokratikoaren** (14); **sistema demokratikoaren** (8); **sozialismo demokratikoaren** (5); **unionista demokratikoaren** (4)

**alderdi unionista demokratikoari** (5); **demokratikoari eta** (5); **konponbide demokratikoari** (5)

**alderdi demokratikoen** (5); **askatasun demokratikoen** (5); **baketsu eta demokratikoen** (7); **bide demokratikoen** (14); **bide demokratikoen aldeko** (6); **demokratikoek ez** (4); **demokratikoen alde** (16); **demokratikoen alde egitea** (4); **demokratikoen aldeko** (17); **demokratikoen aldeko apustu** (5); **demokratikoen aldeko apustua** (5); **demokratikoen arabera** (4); **demokratikoen artean** (4); **demokratikoen aurka** (4); **demokratikoen aurkako** (4); **demokratikoen bidez** (10); **erakunde demokratikoen** (4); **eskubide demokratikoen** (11); **eskubide demokratikoen alde** (4); **eta demokratikoen** (22); **eta demokratikoen alde** (7); **eta demokratikoen aldeko** (6); **eta demokratikoen bidez** (5); **eta demokratikoetatik** (4); **herrialde demokratikoen** (4); **herrialde demokratikoetan** (4); **parametro demokratikoetan** (5); **politiko eta demokratikoen** (8); **udal demokratikoen** (11); **udalerri demokratikoen** (4)

**alderdi demokratikoko** (17); **alderdi unionista demokratikoko** (12); **arabiar demokratikoko** (13); **arabiar demokratikoko presidente** (5); **askatzeko fronte demokratikoko** (7); **demokratikoko buru** (9); **demokratikoko buru ian** (6); **demokratikoko kide** (6); **demokratikoko presidente** (9); **demokratikoko presidente mohamed** (4); **errepublika arabiar demokratikoko** (13); **errepublika demokratikoko** (24); **errepublika demokratikoko presidente** (4); **fronte demokratikoko** (7); **kongoko errepublika demokratikoko** (17); **koordinadora demokratikoko** (7); **kurdistango alderdi demokratikoko** (5); **unionista demokratikoko** (12); **unionista demokratikoko buru** (6)

**aldaketa demokratikorako** (6); **baldintza demokratikorik** (5); **demokratikorik ez** (7); **demokratikorik gabe** (5); **irtenbide demokratikorako** (5); **konfrontazio demokratikorako** (7); **konponbide demokratikorako** (23); **sistema demokratikotan** (4); **zilegitasun demokratikorik** (4)

---

## demokratikoki *adlag* era demokratikoan.

**Demokratikoki** aukeratutako legebiltzarrean adierazten den borondate orokorrarren mamitzea izan behar du legeak. Juan Martin Elexpuru

**Demokratikoki** hautatu duten presidentea da Chavez, eta AEBek hori onartzen dute. Berria - Mundua

Azken aldian %49 lortuta galdu genuen eta emaitzak **demokratikoki** onartu genituen. Berria - Harian

Herri eta nazio korsikarrak Europako eta Mediterraneoko testuinguruan **demokratikoki** bizitzeko eskubidea duela. Berria - Mundua

Alemanek **demokratikoki** paratu zuten tronuan Hitler. Markos Zapiain

Horren inguruko erabakiak **demokratikoki** eta jendaurrean egin behar dira. Berria - Gaiak

Denek batean, molde baketsuetan, **demokratikoki** eta biztanle guzien errespetuz, gaurko ta biharko herri elkargoa eraikiz. Herria

Sistema neoliberala **demokratikoki** aldatzeko eta egiturazko arazoak konpontzeko asmoa dutela. Berria - Mundua

Atxilotu eta telebistan agertu zenean, esan zuen "oraingoz" ez ditugu gure helburuak lortu, baina begira, sei urte eta gero hauteskundeak irabazi zituen, **demokratikoki** . Pako Aristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da demokratikoki** (5)

**demokratikoki aukeratutako** (6); **demokratikoki bere** (3); **demokratikoki erabaki** (3); **demokratikoki erabakiko** (3); **demokratikoki erabakitzea** (3); **demokratikoki erabakitzeko** (15); **demokratikoki erabakitzeko eskubidea** (5); **demokratikoki erabakitzen** (5); **demokratikoki erabakitzen dutena** (3); **demokratikoki eta** (8); **demokratikoki hartu** (3); **demokratikoki hartutako** (3); **demokratikoki hautatu** (3)

**eta demokratikoki** (42); **eta demokratikoki erabakiko** (3); **eta demokratikoki erabakitzeko** (11); **eta demokratikoki erabakitzen** (4); **etorkizuna demokratikoki** (9); **etorkizuna demokratikoki erabakitzeko** (3); **euren etorkizuna demokratikoki** (4); **gatazka demokratikoki** (3); **herritarrek demokratikoki** (3); **libre eta demokratikoki** (24); **libreki eta demokratikoki** (3)

---

## demokratikotasun *iz* demokratikoa denaren nolakotasuna.

Michavilak ez du zalantzan jartzen legearen **demokratikotasuna**. Berria - Euskal Herria

Normalizazioari begira, bost printzipio edo konpromiso beharrezkotzat jo zituen: indarkeriarik eza, bazterketarik eza, **demokratikotasuna**, berdintasuna eta pluralitatea. Berria - Harian

---

# demokratismo *iz* espiritu demokratikoa.

Liberalismoaren aurrean ere joera berriak sortu ziren, besteak beste, N. Bobbio, A. Giddens eta J. Habermas-en sozialismo liberala, errepublikanismo berria eta **demokratismo** erradikala hurrenez hurren. Askoren artean

Razionalismo eta progresismo burgesen etsaia, sozialismo eta anarkismo tankerako **demokratismo** erradikal eta kolektibismoen arerioa orobat. Joxe Azurmendi

---

# demokratista *izond* demokratismoarena, demokratismoari dagokiona.

Espainiak, Europa guztiak ez bezala, feudalismorik ez duela eduki, izango da harrokeria populista edo **demokratista** arrunt bat [...] hori Ortega-k arraza ustel baten seinaletzat erdeinatuko duen arren. Joxe Azurmendi

---

# demokratizatu, demokratiza, demokratizatzen **1** da/du *ad* demokratiko bihurtu, izaera demokratikoa hartu edo eman.

Bushen Ekialde Hurbila **'demokratizatzeko'** plana salatu du Al Kaedak. Berria - Mundua

Turkia bere kabuz **demokratizatzea** litzateke egokiena eta egiten duena nahikoa ez bada EBk horretan lagundu beharko lioke. Berria - Mundua

Espainiako Armada **«demokratizatuko»** duen ministroa jartzeko eskatu du EBk. Berria - Euskal Herria

Gobernu organoak profesionalizatzeko eta **demokratizatzeko** aitzakian, boterea bereganatu nahi du. Berria - Ekonomia

Banatuz taldeak zuzendaritza organoa eta asanblea **«demokratizatzeko** beharra» dagoela esan du. Berria - Ekonomia

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, esaterako, Noe Colmago irakasleak argi zeukan hauteskundeok urratsa direla «unibertsitatea **demokratizatzeko** bidean. Berria - Euskal Herria

Zientzia eta teknologia **"demokratizatu"** egin behar dira, eta gizarte osoak hartu behar du parte orain arte zientziaren eta teknologiaren esparruei soilsoilik zegozkien arazoetan. Askoren artean

40ko eta 50eko hamarkadetan oso jende gutxik zuen goi mailako ikasketak burutzeko aukera, 80ko hamarkadatik aurrera, baina, egoera zeharo aldatu da, jakintza **demokratizatu** da, eta horrek gizartea aldatu du, lehen eliteak zirenak masa bihurtu ditu. Berria - Kultura

Ez dago espezializazio eta erakuntza berezia eskatzen duen jarduera **demokratizatzerik**. Askoren artean

Halaber, *The pub ibiltaria* «artea **demokratizatzeko»** egitasmoa ere badela adierazi du De Felipek. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Egia da hori guztia Berpizkunde betean gertatu zela, Italiako iparraldean, eta Borgiarrek ezin gehiago **demokratizatua** zutela pozoiaren erabilera. Jon Muñoz

**3** (era burutua izenondo gisa)

Egungo diskurtsoak dio gizarte **«demokratizatuak»** berdintasuna bermatzen duela: arrakasta soziala lortzeko aukera berdina dugula guztiok, eta emakumeok ere aukera horiek aprobetxatu behar ditugula. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **demokratizatu egin behar** (4); **ekialde hurbila demokratizatzeko** (3); **eta demokratizatzeko** (3)

---

# demokratizatzaile *izond* demokratizatzen duena.

Gogor kritikatu zituen 1968ko Sobiet Batasunaren inbasioa eta 2.000 hitzen deklarazioa sinatu zuen, alderdiko buruzagitzari hasi berri zen prozesu **demokratizatzaileari** bide egiten utz ziezaion eskatuz. Berria - Kultura

Gaur egun, islamismoaren baitan dinamika **demokratizatzaileak** eta dinamika erradikalizatzaileak bereizi behar dira. Berria - Mundua

Beste kasu batzutan, aldiz, benetako asmo edo borondate **demokratizatzailea** dago. Berria - Euskal Herria

---

# demokratizatze *iz* demokratiko bihurtzea.

Prentsan orduan azaldu zuenez, «gizartearen **demokratizatzea»** kartzela barrura eraman nahi zuen. Berria - Harian

Bost ilabeteren buruko deputatuen bozak bururatu gogo baitituzte Irakian amerikarrek, bere mintzaldietan bilorik gabe mintzatu da andere bipil hori erranez berriz ere aitzina ereman beharrak direla Irakian **demokratizatze** urrats horiek eta besteak. Herria

---

# demokratizazio **1** *iz* demokratizatzea.

Kopistek, inprenta deabrutuz, **demokratizazio** horren kontra altxa eta, aldi berean, beren lanpostuak eta beren galga soziala gorde nahi zituzten. Anjel Lertxundi

Aipatu beharrekoa da zientziaren eta teknologiaren **demokratizazio** osoa ez dela posible, beti oinarrituko baitira epistemologikoki bereizitako ikerketa-esparru definitu batzuetan. Askoren artean

Areago, gaur bizitzen ari garena, gure egungo lehendakariak Kongresu amaieran iragarri zuen **'demokratizazio** gordin eta gogorraren' ondorioa da. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Hazkundea barne-eskariaren onurarako hobetzea, da erregimen horiek -zeinetarik batzuk **demokratizazio**-bidean baitaude- gaur duten erronka nagusietako bat. Koro Navarro

Gure kulturaren **demokratizazio** prozesuak ekarri du denboraren demokratizazioa ere. Berria - Gaiak

Gainera, zenbaitetan diasporek **demokratizazio** mugimenduak edota gatazka armatuaren areagotzea sustatzen ahal dituzte. herri honetan ez dagoela ez normalizazio akordiorik, ez **demokratizazio** akordiorik, ez autodeterminazio akordiorik eta ez bake akordiorik, denbora guztian begi bat Madrilera begira edukita. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **demokratizazio prozesuan** (3); **demokratizazioa eta** (5); **denboraren demokratizazioa** (4); **erakundeen demokratizazioa** (3); **zientziaren demokratizazioaren** (3)

---

# demokrazia **1** *iz* agintepidea hiritar guztiek hauteskunde bidez hautatutako ordezkarien eskuetan dagoen gobernu era.

**Demokrazia** ez da gizartearen egoera naturala. Iñaki Heras

Hiritarrak legea bere sentitzea da funtsean **demokrazia**. Markos Zapiain

Frantsesentzat zer da **demokrazia**? gehiengoaren nagusitasuna, besterik ez. Piarres Xarriton

Guretzat, aldiz, ez da **demokraziarik** izaiten ahal, gutiengoaren errespeturik ez denean. Piarres Xarriton

Leninek, beste ero horrek, argi ikusten jakin zuen: egiazko **demokrazia** ez da "pertsona bat, boto bat", "pertsona bat, dolar bat" baizik. Jon Alonso

Orain eta hemen **demokrazia** oso sistema injustua da, baina hala eta guztiz ere, eta maiz esaten den bezala, sistemarik hoberena da. Bernardo Atxaga

**Demokraziak** gizartean indiferentzia espazioak maite ditu: indiferentzia ideologikoa edo neutraltasun erlijiosoa bereziki. Joxe Azurmendi

Estatu mota ezberdinak bereizten ditut: monarkia, aristokrazia, **demokrazia**, aginte aitatiar eta despotikoa; nola ezartzen diren erakusten dut eta euren arteko abantailak eta eragozpenak alderatzen ditut. Esteban Antxustegi

**Demokrazia** ez da ogi zerutik etorria, arazoak konpontzeko tresna baizik; **demokrazia** sagaratzeak, paralisia dakar. Markos Zapiain

Egiaren eta justiziaren bidetik indartuko da **demokrazia**. Berria - Harian

Ezetzaren antagonismotik sortzen da identitatea, eta ezetzaren indarra du beharrezko mugimendu politiko batek **demokrazia** indarberritzeko. Joseba Zulaika

Komunikabideen askatasuna baitezpadakoa da **demokrazian**. Herria

Periklesek ez du inoiz ezkutatzen Athenai hiriak gerrari, indarrari eta inperioari zor diola **demokrazia**. Askoren artean

Masa gizartean **demokrazia** oso ahula da, ez eror daitekeelako baizik eta demokratikoa ez delako, geroago eta oligarkiagoa da. Patziku Perurena

## **2** (izenondoekin)

Gizarte garatuetan, batez ere estatu-oinarriak justifikatu ahal izateko, aurrera gehien egin duen sistema politikoa **demokrazia** formala izan da. Askoren artean

Zuzenbide-estatuaren eta **demokrazia** formalaren finkapena. Askoren artean

Mugimendu berri hauek egokitu ote daitezke ordena politikoan, Estatu independente bat izateraino iritsi gabe, eta **demokrazia** liberalaren printzipioak errespetatuz? Joseba Zulaika

Finantza fluxu horiek izan daitezke garatutako **demokrazia** kapitalistek kapital inbertsio produktiboak egiteko bidea Asiako, Amerikako edo Afrikako garapen bidean dauden herrialdeetan. Iñaki Heras

Nazioz gaindiko kapitalen interesa da **demokrazia** globala arautzen duena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Demokrazia** partehartzailearen barruan kokatzen den prozesu dinamiko, horizontal eta zabala. Txema Ramirez de la Piscina

**demokrazia** politikoak eta askatasun zibilek lotura zuzenagoa dute pertsonen segurtasun ekonomikoarekin, hazkuntza ekonomikoak baino. Berria - Ekonomia

Periklesen garaiko Athenaiko **demokrazia** erradikalean. Askoren artean

Ez dugu hedabide garrantzitsuenek handiesten diguten **demokrazia** mediatiko horretan sinesten. Txema Ramirez de la Piscina

Legeak duen abantaila aldiz, alderdi ttipiek ere badutela hola zonbait alkiren mentura, ez baita batere kalte hori **demokrazia** sano batean. Herria

## **3** gobernu demokratikoa.

**Demokrazia** guztiak isilik daude, Afganistango andreak bezain isilik. Pello Salaburu

Aipagarria da, Mendebaldeko **demokrazia** gehienetan, probidentzia-estatuaren sistemaren goreneko aldiarekin batera gertatu zela hor. Koro Navarro

Estatu Batuek harturiko gidaritzan zetzan huts-hutsik (gainerako **demokrazia** liberalen onespenarekin, gerraondoaren testuinguru berezian) diru-egonkortasuna eta nazioarteko finantza-sistemaren aurrerabidea. Koro Navarro

Halaxe izan da Europako **demokrazia** burgesen sorreran. Berria - Harian

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **demokratiko**.

**Demokrazia** egoeran ere, Aznarren denboran maiz ikusi dugun bezala, salbuespen egoerak erraz aplika daitezke bai politikan bai sistema judizialean, batik bat "terrorismoa" bezalako etsaiaren aurka. Joseba Zulaika

'Habanako gutuna' izenaz ezagutuko den **demokrazia**-hastapenei buruzko erabaki orokorra onestea. Edorta Jimenez

Reagan lehendakari amerikarren administrazioak eskatu zion filipindar diktadoreari bere botereari halako **"demokrazia"** itxura baten emaitea. Ramuntxo Etxeberri

Hala, urraketa horiei erreparatuta, defentsa ezin dela Konstituzioak ezartzen duen moduan garatu eta «egungo berme eta **demokrazia** erregimena» hausten dela dio Oleagak. Berria - Harian

Zalantzan jartzen da **demokrazia**-mota horretan sistemaren zilegitasuna baieztatzeko gehiengoen eta gutxiengoen arteko jokoa nahikoa ote den politika "mundializatu" denean. Askoren artean

## **5** (bigarren osagai gisa)

Garai hartan eta herri-**demokrazia** batean, ordea, besterik zen kontua. Juan Garzia

Berlusconik zaldun **demokrazia** ezarri nahi zuen, non boterearen aristokraziako agintari goren-gorenak euren ekintzen erantzukizunetik kanpo egongo ziren eguneroko bizitzan. Berria - Mundua

Kritikoek esaten dute oinordetza-**demokrazia** bihurtzen ari dela egungo sistema politikoa. Berria - Mundua

Jainko **demokrazia** egon eta jainko hori demokraziaren sustatzaile nagusia balitz bezala. Berria - Mundua

Justiziarik gabe ezinezkoa baita ingurumenaren babesa izatea, are gutxiago ingurumen **demokrazia** lortzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## **6** ***demokraziazko*** ik **demokratiko**.

PSOEk sortu dituen itxaropen faltsuei so egotea baino, mobilizatzeko deia egiten diogu, Euskal Herria bake eta **demokraziazko** jokaleku batera eraman ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Karia hortarat *Régions eta Peuples Solidaires*eko alderdieri dei egina zuten ongi erakusteko egiten duten urratsa **demokraziazkoa** eta bakezkoa izan nahi dela. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aebek demokrazia** (3); **askatasuna eta demokrazia** (9); **baina demokrazia** (7); **baita demokrazia** (3); **bakarra demokrazia** (4); **bake eta demokrazia** (4); **bakea eta demokrazia** (21); **batek demokrazia** (3); **benetako demokrazia** (14); **da demokrazia** (22); **dago demokrazia** (3); **dela demokrazia** (3)

**demokrazia ahuldu** (3); **demokrazia arriskuan** (4); **demokrazia babestu** (3); **demokrazia bat** (12); **demokrazia batean** (26); **demokrazia batean bizi** (5); **demokrazia baten** (3); **demokrazia bera** (9); **demokrazia berreskuratzeko** (4); **demokrazia berria** (7); **demokrazia berriro** (3); **demokrazia berriz** (5); **demokrazia berriz indarrean** (3); **demokrazia bultzatu** (4); **demokrazia da** (4); **demokrazia deitzen** (4); **demokrazia egoeran** (3); **demokrazia ekarriko** (5); **demokrazia eraikitzea** (3); **demokrazia ere** (5); **demokrazia eskatu** (3); **demokrazia eskatu zuten** (3); **demokrazia eskatzeko** (3); **demokrazia eta** (93); **demokrazia eta askatasuna** (8); **demokrazia eta askatasunaren** (3); **demokrazia eta bakea** (8); **demokrazia eta bakearen** (4); **demokrazia eta giza** (3); **demokrazia eta justizia** (3); **demokrazia eta legea** (3); **demokrazia eta oinarrizko** (3); **demokrazia eta sozialismoa** (3)

**demokrazia euskal** (12); **demokrazia euskal herriarentzat** (8); **demokrazia ez** (22); **demokrazia ez da** (10); **demokrazia ez dela** (4); **demokrazia eza** (10); **demokrazia eza salatu** (3); **demokrazia ezarri** (13); **demokrazia ezarri nahi** (3); **demokrazia ezarri zenetik** (3); **demokrazia ezartzeko** (11); **demokrazia ezartzen** (3); **demokrazia ezin** (3); **demokrazia falta** (6); **demokrazia formala** (3); **demokrazia gehiago** (4); **demokrazia hitza** (4); **demokrazia hitzarekin** (3); **demokrazia izan** (3); **demokrazia kontzeptuaren** (3); **demokrazia kristauaren** (3); **demokrazia liberalaren** (3); **demokrazia lortzeko** (7); **demokrazia maila** (3); **demokrazia mota** (3); **demokrazia nahi** (6); **demokrazia non** (3); **demokrazia oso** (4); **demokrazia parte** (26); **demokrazia parte hartzailea** (10); **demokrazia parte hartzailearen** (7); **demokrazia sendotu** (3); **demokrazia sendotzeko** (3); **demokrazia sistema** (3); **demokrazia soilik** (3); **demokrazia sozialista** (3); **demokrazia sustatzeko** (5); **demokrazia zer** (6); **demokrazia zer den** (4)

**den demokrazia** (6); **denek demokrazia** (3); **dio demokrazia** (3); **du demokrazia** (4); **duen demokrazia** (11); **dute demokrazia** (9); **edo demokrazia** (3); **egiazko demokrazia** (5); **ekialde hurbilean demokrazia** (4); **erabateko demokrazia** (4); **ere demokrazia** (7); **espainiako demokrazia** (9); **espainian demokrazia** (5); **eta demokrazia** (131); **eta demokrazia ekarriko** (4); **eta demokrazia eta** (5); **eta demokrazia euskal** (4); **eta demokrazia ezartzeko** (3); **eta demokrazia lortzeko** (4); **eta demokrazia parte** (6); **europar demokrazia** (5); **euskal demokrazia** (5); **euskal herrian demokrazia** (4); **ez da demokrazia** (4); **gure demokrazia** (5); **hauetan demokrazia** (3); **herrian demokrazia** (4); **herriaren demokrazia** (3); **hori da demokrazia** (4); **hori demokrazia** (7); **horrek demokrazia** (5); **hurbilean demokrazia** (4); **independentzia eta demokrazia** (3); **iraken demokrazia** (5); **iranen demokrazia** (4); **iranen demokrazia sustatzeko** (4); **jainko demokrazia** (3); **justizia eta demokrazia** (5); **kristau demokrazia** (3); **mailako demokrazia** (3); **mendebaldeko demokrazia** (3); **munduko demokrazia** (4); **nolako demokrazia** (3); **oinarritutako demokrazia** (4); **politikoak demokrazia** (3); **ustezko demokrazia** (3); **zein demokrazia** (3); **zuen demokrazia** (4)

**baina demokrazian** (3); **bakean eta demokrazian** (7); **da demokrazian** (3); **demokraziak eta** (3); **demokraziak ez** (8); **demokraziak ez du** (3); **demokrazian bizi** (6); **demokrazian bizitzeko** (3); **demokrazian eta** (11); **demokrazian ez** (6); **demokrazian ezin** (3); **demokrazian ideia** (3); **demokrazian oinarritutako** (7); **demokrazian sakontzea** (5); **demokraziarako batasuna** (3); **demokraziarako bidea** (5); **demokraziarako epaileak** (8); **demokraziarako epaileak erakundeko** (6); **demokraziarako liga** (5); **du demokraziak** (4); **espainiako demokraziak** (4); **espainiako demokrazian** (4); **espainiako sasi demokraziak** (3); **eta demokraziak** (4); **eta demokrazian** (19); **eta demokrazian oinarritutako** (4); **eta demokraziara** (3); **eta demokraziarako** (6); **eta demokraziarekin** (3); **frantziako demokraziarako** (3); **kristau demokraziak** (4); **sasi demokraziak** (3)

**alderdien legea demokraziaren** (3); **askatasuna eta demokraziaren** (3); **askatasunaren eta demokraziaren** (12); **aurkako eta demokraziaren** (3); **bakearen eta demokraziaren** (3); **da demokraziaren** (12)

**demokraziaren alde** (27); **demokraziaren aldeko** (43); **demokraziaren aldeko batasuna** (3); **demokraziaren aldeko batasunak** (3); **demokraziaren aldeko epaileak** (4); **demokraziaren alderdiko** (3); **demokraziaren arauak** (7); **demokraziaren aurkako** (17); **demokraziaren aurkako eraso** (3); **demokraziaren aurkakoa** (11); **demokraziaren aurkakoa da** (3); **demokraziaren aurkakoa dela** (4); **demokraziaren aurkakoak** (3); **demokraziaren azken** (3); **demokraziaren baloreak** (3); **demokraziaren bidean** (11); **demokraziaren bidean aurrera** (4); **demokraziaren defentsa** (4); **demokraziaren eta** (43); **demokraziaren eta askatasunaren** (8); **demokraziaren eta bakearen** (6); **demokraziaren eta giza** (4); **demokraziaren funtsa** (7); **demokraziaren gainbehera** (3); **demokraziaren gaineko** (3); **demokraziaren garaipena** (7); **demokraziaren historian** (3); **demokraziaren ikuspuntutik** (4); **demokraziaren izenean** (17); **demokraziaren joko** (5); **demokraziaren joko arauak** (5); **demokraziaren kontra** (9); **demokraziaren kontrako** (17); **demokraziaren kontrakoa** (12); **demokraziaren kontrakoa dela** (4); **demokraziaren kontrakoa izan** (3); **demokraziaren kontzeptua** (3); **demokraziaren mugak** (4); **demokraziaren oinarri** (7); **demokraziaren oinarria** (5); **demokraziaren oinarriak** (11); **demokraziaren oinarrien** (3); **demokraziaren oinarrizko** (11); **demokraziaren oinarrizko printzipioen** (3); **demokraziaren porrota** (3)

**dira demokraziaren** (6); **direla demokraziaren** (3); **du demokraziaren** (5); **ekintzak demokraziaren** (3); **erabakia demokraziaren** (4); **erreferenduma demokraziaren** (3); **espainiako demokraziaren** (6); **eta demokraziaren** (95); **eta demokraziaren alde** (9); **eta demokraziaren aldeko** (11); **eta demokraziaren aurkakoa** (5); **eta demokraziaren bidean** (5); **eta demokraziaren kontrako** (3); **eta demokraziaren oinarrizko** (3); **euskal demokraziaren** (3); **izenean demokraziaren** (3); **kultura eta demokraziaren** (3); **legea demokraziaren** (3); **osatutako upld demokraziaren** (3); **politikaren eta demokraziaren** (3); **ppk demokraziaren** (3); **upld demokraziaren** (4); **upld demokraziaren aldeko** (4)

**barne demokraziarik** (3); **dago demokraziarik** (6); **demokraziari buruz** (4); **demokraziari buruzko** (4); **demokraziari eta** (4); **demokraziari kalte** (3); **demokraziarik ez** (10); **demokraziarik ez dagoela** (3); **demokraziarik eza** (11); **demokraziarik ezaren** (3); **demokraziarik gabeko** (3); **demokraziaz ari** (3); **demokraziaz eta** (5); **demokraziaz hitz** (7); **demokraziaz hitz egiten** (3); **diote demokraziari** (3); **eta demokraziari** (13); **eta demokraziarik** (3); **eta demokraziaz** (3); **eta demokraziazko** (3); **ez dago demokraziarik** (6)

---

# demokraziazale *izond* demokraziaren zalea dena, demokrata.

John Stuart Mill ingeles pentsalari liberal eta **demokraziazalearen** hiru saiakera nagusiak eman dituzte argitara, euskaratuta. Berria - Kultura

---

# demokraziondo

-Zer demokrazia eta **demokraziondo**! -erantzun zuen, zorrotz, Cristina andreak-. Koldo Biguri

---

# demokristau *izond/iz* demokrata-kristaua, kristau-demokrata.

On Camillo eta Peppone, apaiz **demokristaua** bata eta alkate komunista bestea, Pinocchiorekin batera, literatura italiarreko pertsonaiarik ezagunenak dira mundu osoko irakurleen artean. Koldo Biguri

«Komunitateen big-bang» delakoa iragarri du Flandesko CD&V alderdi **demokristauak**. Berria - Mundua

Ibarretxe alderdi **demokristau** abertzale eta erreformatzaile batek jarritako agintaria da. Hasier Etxeberria

Forza Italiak, UDCko **demokristauek**, eskuineko Aliantza Nazionalak eta Lega Nord federalistek osatutako gobernua. Berria - Ekonomia

Atzera buelta egin, herrira itzuli eta **demokristauen** egoitza aurrean gelditu ziren. Koldo Biguri

**Demokristauek** ere ultimatuma eman diote Berlusconiri. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi demokristauak** (4); **jarrera duten demokristauak** (3)

---

# demolinguistiko *izond* hizkuntza-demografiari dagokiona.

Zentzuzkoak ziren arrazoiak: gertakari linguistikoak, soziolinguistikoak eta **demolinguistikoak** zeuden aukeraren oinarrian. Koldo Zuazo

Euskararen informazio **demolinguistikoa** (hizkuntzaren demografia) erabilgarri izateko datuen espazioa, beren kokapena, ondo zehaztea behar-beharrezkoa dela esan zuen Isasik. Berria - Euskal Herria

**Demolinguistikoa**, hau da, ahalik eta hiztun kopuru hazienak erabiltzea. Koldo Zuazo

---

# demoniño ik **demonio**.

---

# demoniako *izond* deabruarena. ik **deabrutiar**.

Gizakiaren altxor espiritual nagusia, bere borondate arrazionala, indar espiritual **demoniako** batetik erreskatatzeko borroka. Iñaki Mendiguren

Denboran zehar, Mendebaldeko jentilen borondateak judu-helburu ekonomiko honetan izan zuen gero eta kontzentrazio **demoniakoagoak** sari bikaina izan zuen emaitza gisa. Iñaki Mendiguren

Germaniar neobarbarismo **demoniakoaren** igarleek. Iñaki Mendiguren

---

# demoniakoki *adlag* era demoniakoan.

*Limes*-a ez zen izan zibilizazioaren gordeleku bakarrik, baita probidentziazko salbagailu ere barbaro erasotzailearentzat berarentzat, bere baitan zituen indar **demoniakoki** autosuntsitzaileen aurka. Iñaki Mendiguren

---

# demonino ik **demonio**.

---

# demonio *(308 agerraldi, 88 liburu eta 17 artikulutan; ETCn 1.471 agerraldi; orobat* **demonino** *g.er. eta* **demoniño** *g.er.)* **1** *iz* deabrua. ik **deabru**.

Zazpi aldiz ezkondua zen Sara hori, baina Asmodeo **demonio** gaiztoak hil egin zizkion senar guztiak, berarekin ohean elkartu baino lehen. Jose Antonio Mujika

**Demonio** edo izpiritu gaiztoren batek gizon nahiz emakume bati eraso egiten dionean, erre itzazu honen aurrean arrainaren bihotza eta gibela, eta amaitu dira erasoak. Jose Antonio Mujika

Ehundaka **demonio** bidearen beheko aldetik aurrera zetozen eta babes lerrorako aldapari ekiten hasiak ziren. Joanes Urkixo

Ez al dakizue Azpimunduko **demonioak** hemendik dabiltzala, den-dena errausten eta zapuzten? Joanes Urkixo

Azpimundura bidaliko zaitut zeure **demonio** kirastunekin batera! Joanes Urkixo

Kalejira **demonio** nekrofagoekin, Gilderoy Lockhart. Iñaki Mendiguren

Zeren lehenbailehen egotzi behar baitzitzaion **demonio** gaixto hura gorputzetik, mutilak onerat eginen bazuen. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Baina, zer egin lezake, egungo gizartean, sabelean **demonio** zoragarri bat sortu zaionak, kasik inguru guzia aingeru zuri totalitarista aspergarri baten alde jarri denean?

mundu guziak nere (bere?) **demonio** gaiztoa aingeru txintxoz mozorrotu nahi duela ikustean? Patziku Perurena

**Demonio** ilegorri hura zutitu eta oihuka hasi zitzaidan: [...]. Alberto Ladron Arana

Gizaera, nortasuna, nork bere baitan daraman **demonioak** moldetzen baitu. Patziku Perurena

**3** (irain hitz gisa)

**-Demonio** ergela..., entzuidazu -ahapeka ari zen ahots larrituaz, bere eskuak besaulkiaren beso banatan jarrita, niri mugimendurik txikiena ere galarazteko-. Fernando Rey

Isil hadi, **demonio** ergela! Itziar Otegi

-Idealista ergela!... beti malenkoniaz joa, bere baitan bildua, eta orai hau! **Demonio** alua!-. Jose Angel Irigaray

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Demonio** armadaren gibel aldean, Gol zaldiaren gainean lepoa luzatzen saiatzen ari zen gertatzen zena ikustearren. Joanes Urkixo

**Demonio** hordak ziren. Joanes Urkixo

Eta sinetsi ere ez dut sinesten, **demonio** aldra batek gure herria suntsituz gero, gutarikoak defendatu gabe geratuko direnik. Joanes Urkixo

-Ito nadila **demonio** putzuan! Harkaitz Cano

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haurrak behar bezala babestuta ez daudenean, haien odola edo bizi-ahalmena zurrupatzen du banpiro baten gisa, eta indar horrekin sortzen ditu seme-**demonio** gehiago. *ik beherago* 6. J.M. Olaizola "Txiliku"

**6** (izenondo gisa) ik **demontre 3.**

Ez dut neska **demonio** hori berriro ikusi nahi. Patxi Iturritegi

Hori mutil **demonioa** ! Koro Navarro

Non ote da emakume **demonio** hau? Patxi Iturritegi

-A zer familia **demonioa** : igarlea, saltzailea eta espia. Harkaitz Cano

Zakur borrokak salatu dituen atso **demonio** horietako bat. Harkaitz Cano

Aurkako sentimenduak sortzen zizkion oraindik pirata **demonio** hark. Fernando Morillo

Zapata-garbitzaile zimur **demonioa** ! Irene Aldasoro

Etorri berriak eskumuturrak igurtzi zituen, bizkor; laxagoa lotzea bahuen, beltz **demonio** horrek! Jon Alonso

-Hik ere ikasi dun hitz **demonio** hori, Fiona? Lutxo Egia

-Zer grina **demonio** duk hik? Koro Navarro

Nire biloba eta zure osaba zena ere, Julen, hemen dago, Sida **demonio** horrek harrapatuta... Patxi Zubizarreta

Laster batean inguratu zaio adiskide bat laguntzera; beste bi, gero; beste lau, hurrena; baina ez dute maratila **demonioarekin** asmatzen. Karlos Linazasoro

Demoniozko hiri **demonio** hartan, demoniozko ikuskizuna kale **demonioetan** . Anjel Lertxundi

**7** (adizlagun baten eskuinean) *adkor*

Gero, aparkalekutik azkar **demonio** atera, eta ezkerretara jo dute kale zabal batetik, gurpilak erre beharrean. Patxi Iturritegi

Kontuak kontu, tripa hutsik eta azkar **demonio** ekin nien neure kankarrekoei, halako suertez non, ordu bete geroago, laugarrena edan orduko, tristezia mugagabe batek baizik ez baininduen lotzen errealitateari. Aingeru Epaltza

Serio **demonio** jarri. Patxi Iturritegi

Bistan da sasoi-sasoiko daudela eta kirola serio **demonio** hartu dutela. Berria - Kirola

Zu ere engranajearen zati bat zara, gu bezain biolento eta hiltzaile, baina kontzientzia lasai **demonio** duzu lan zikina guk egiten dugulako. Harkaitz Cano

Argi **demonio** esateko, sekula ez da ezagutu hura baino mutiko harroputzagorik. Julen Gabiria

Ikasleek zintzo **demonio** bete zuten agindutakoa. Josetxo Azkona

Eta ohera sartuko haiz, bestondoa trankil **demonio** ematzera. Aingeru Epaltza

Hor non sartzen zaigun atetik barrenera, ikusi ere egin gintuen ate atzean nola geunden kuzkur **demonio** . Patziku Perurena

Goi aldean, paparraren hasieran bertan, botoiño moñoño bat izango lukeena zehatz **demonio** marraztua. Xabier Olarra

• **8** *interj* ik **demontre.**

**-Demonio** , utz nazazu bakean -oihu egin nuen. **-Demonio** !, gorrotatzen ditut -esan zuen Monak, besoak antxumaturik-. Fernando Rey

Kakazaharra, kakazaharra, **demonio..** .! Fernando Rey

Portatu diskrezioz, **demonio** ! Unai Iturriaga

Non sartu zara, **demonio** ... Josu Landa

Konturatuko ziren gero beroa sentitzen zela, ez Egipton bezainbat, baina bai, **demonio** , egun batzuk benetan beroak zirela.· Mila **demonio** ! -egin zuen oihu Starkeyk. Pello Salaburu

-Mila deabru eta bi mila **demonio** , norekin eta nola...? Aingeru Epaltza

Arraio **demonio** ! ez al zen konturatzen nik ez nuela ezertxo ere sentitzen! Jasone Osoro

Eta nik baietz egin nuen berehala buruarekin, baietz **demonio** , ea ez al nuen irudimena kontrolatzen ikasi. Karlos Linazasoro

**9** (galdetzaile baten eskuinean) ik **demontre 2.**

Nor deabru zaitut eta nora **demonio** zoazkit? Aingeru Epaltza

Gamma izpi bat zer **demonio** zen jakitea desiratu zuen, ze itxura ote zuen. Harkaitz Cano

*ik beherago* 12. Askoren artean

-Eta zu zein **demonio** madarikatu zara? Harkaitz Cano

Nondik **demonio** atera ote da zozo-mikote halako hau?! Jesus Mari Mendizabal

Zergatik **demonio** egon behar ote dute oheek ondo aireztatuta, ikusita umeek holako presa eskergabez utzi zituztela abandonatuta? Julen Gabiria

**10** ***demoniozko*** *izlag*

**Demoniozko** hiri demonio hartan, **demoniozko** ikuskizuna kale demonioetan. Anjel Lertxundi

Onartu zuen, gainera, pobreziaren kontrako borroka bere bizitza osoko zeregina izan zela **demoniozko** euri haiez geroztik. Bego Montorio

**11** ***demonioak hartu***

**Demonioak** hartu balitu bezala joan ziren mojak. Josu Zabaleta

· Gerrariek **demonio** guztiek hartuta egiten zuten oihu. Jon Alonso

Atsoa eliz bidean doa / Gona gorria jantzirik, / Ezkondu behar, behar duela / **Demonioak harturik** . Anjel Lertxundi

**12** ***zer demonio*** *interj* ik **demontre 2.**

Ederto funtzionatzen nuen, **zer demonio** , herriko kanpaijole handiena izanda ere prest izaten nuen fusila behar zenerako. Urtzi Urrutikoetxea

**-Zer demonio** , debaldetan gelditu niza gaur? Michel Oronoz

-Ez, neska, ez. **Zer demonio** . Ezin dun horrela arrazoinatu. Eneko Bidegain

Bai, baina **zer demonio** Behar baino zazpi edo zortzi mila pieza gutiago baizik ez zituzten zenbatu. Eneko Bidegain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asmodeo demonio** (4); **azkar demonio** (5); **demonio atera** (3); **demonio guztiak** (4); **demonio hori** (4); **demonio horiek** (3); **demonio hura** (4); **demonio jarri** (3); **demonio nekrofagoekin** (4); **edo demonio** (3); **hau demonio** (3); **kalejira demonio** (4); **kalejira demonio nekrofagoekin** (4); **lasai demonio** (10); **mila demonio** (3); **non demonio** (5); **nora demonio** (3); **serio demonio** (13); **zer demonio** (9); **zintzo demonio** (5)

---

## demoniokeria *iz* deabrukeria.

**Demoniokeria** da. Hasier Etxeberria

---

## demoniologia *iz* demonioaren azterketa.

Kultura handikoa, **demoniologiak** tentatzen zuen. Iñigo Aranbarri

---

## demonizatu, demoniza, demonizatzen du *ad* demonio izaera eman.

Orain erromantizatua XIX. mendean tuberkulosiarekin kasu, orain **demonizatua** minbizia eta are gehiago egun hiesarekin gertatzen den legez, Susan Sontagek humanismo ariketa horren bidez ikustarazi zigun zenbateraino den ahaltsua norbanakoon borondatea, zigorrarekin estu lotua edo zigorraren mozorroz arinki hedatzen den pentsamenduari aurre egiteko. Berria - Kultura

---

## demonizazio *iz* demonizatzea.

Rocco Buttiglione kultura ministroa kexu agertu da [...] eta bere nagusiaren irudia defenditu du: **«Demonizazio** kanpaina dago». Berria - Kultura

---

## demonografo *iz* deabruak deskribatzen aditua den pertsona.

Debruaren zigilu hau seinale txiki bat da; puntu horretan larruak sentikortasun guztia galtzen du, hala diote behintzat garai hartako legelari **demonografo** guztiek. Juan Martin Elexpuru

---

## demonstratu ik **demostratu**.

---

## demonstrazio ik **demostrazio**.

---

## demontre 1 *interj* harridura, haserrea edo kidekoak adierazteko hitza. ik **demonio 8**.

**Demontre**! Itziar Otegi

**-Demontre**! -esan zuen Martinek-, hemen hotz handia egiten du. Koro Navarro

**-Demontre** -izututa esan zuen Mirarik-. Fernando Morillo

Baina, **demontre**, ez esan barregarria ez denik! Fernando Morillo

Ez, **demontre**, uste dut Hynes hori baino zerbait gehiago dela... Irene Aldasoro

Neka-neka eginda, **demontre**! Mirentxu Larrañaga

Nahikoa da egun batekin, **demontre**! -eskatzeko, **demontre**! -ekin zion berriro, alferrik baina, Napoleonek. Berria - Kirola

**2** *(galdetzaile baten eskuinean).* ik **demonio 9**.

**Zer demontre** nahi duzu? -galdetu zion zakar. *ik beherago* 6. Eta **zer demontre** lortu nahi duk hik anaia bat duan itxurak eginez! Migel Angel Mintegi

-Baina... nor **demontre** duzu gogoan? Elena Touyarou

Nork **demontre** pentsatu behar zuen ihes egingo zuenik? Anton Garikano

-Noiz **demontre** esan behar diguzu operatuta zauden ala ez? Aitor Arana

-Aizu, Gianfranco, noiz **demontre** aterako gara? Badira bi ordu makillatuta nagoela. Patxi Iturritegi

Eta, nola **demontre** zeureganatzen dituzu? Mirentxu Larrañaga

Kezka bat nuen, halere, eta ez txikia: nola **demontre** bukatuko dut hau? Xabier Mendiguren Elizegi

Kristala kristalaren kontra, zipriztinak eta -nola **demontre**?- xaboi apur bat begian. Fernando Morillo

Oraindik ez dakit non **demontre** erosten zuen. Iban Zaldua

-Ez dakit batere non **demontre** garen! -oihukatu zuen arrantzaleak. Elena Touyarou

-Epa, Stan, nondik **demontre** hator? Lopez de Arana

Nora **demontre** garamatza horrek?, galdetu zuen. Berria - Euskal Herria

Zergatik **demontre** biziko ote da jendea hirietan? Lopez de Arana

**3** (izenondo gisa) ik **demonio 6**.

-Ume **demontre** hau -esanaz agurtu zuen Justo-, ez duela irekiko eta ez duela irekiko. Joxemari Urteaga

Baina ez, aizak, ez duk bidezkoa, sutan jartzeko modukoa duk burges **demontreek** hau guztia jatea! Karlos Zabala

Amesgaizto **demontre** horrek beti uzten du ezertarako gogorik gabe, tristuraz eta melankoliaz betea. Patxi Iturritegi

Horra zertarako balio zuten formula **demontre** haiek! Jon Muñoz

Ortuzainak barre egiten zuen atseginez; bi gizonak maite zituen, urdai arrautzopila egingo ziela agintzen zien, "Paris **demontre** horretan" inon jango ez zuten bezalakoa. Karlos Zabala

Zuek ezin duzue ezer jakin, zuek ume **demontreok**! Joseba Sarrionandia

· Sandra zuen izena, baina ez naiz gogoratzen ez abizenaz, ez eta zein erakunde **demontretakoa** ote zen. Iban Zaldua

**4** (izen gisa)

'Erdu etxera, **demontre** hori!!' agintzen zen ozenago. Joseba Sarrionandia

Gogoan ote du hori **demontre** horrek? Juan Garzia

Alde hemendik, **demontreok**! Joseba Sarrionandia

Aski dun, **demontrea**! -zaldiek irrintzi egin zuten, aitari arrazoi eman nahi baliote bezala -. Anjel Lertxundi

**5** ***demontreko*** *izlag*

Liburu-denden salmenta kopurua **demontreko** barometroa da gizartearentzat". Jon Muñoz

**6** ***zer*** *(orobat* ***ze demontre****)* *interj* ik **demonio 12.**

**Zer demontre**! Jon Muñoz

**Zer demontre**! -esan zuen mutilak. Mirentxu Larrañaga

**-Zer demontre**, Bautista! Koro Navarro

Hi detektibe... itxura badaukak, **zer demontre**!, ez haiz gaizki moldatuko -besoa luzatu zuen berriro-. Migel Angel Mintegi

Horrelakoxea zen Ignatius Gallaher; eta, **zer demontre**, nahitaez miretsi behar. Irene Aldasoro

Eta gainera, **zer demontre**!, neurri batean ez zitean inori kontu eman beharrik, ez batak eta ezta besteak ere. Migel Angel Mintegi

Eta joan egin behar, **zer demontre**; erosi zuenetik bigarren edo hirugarren aldia zuan. Iban Zaldua

· 'Ze ama eta ze **demontre**!' esan zuen Juan Bautistak irribarrez. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina zer demontre** (9); **dakit nola demontre** (5); **dakit zer demontre** (3) demontre ari (4); **demontre aurkitu** (4); **demontre biziko** (3); **demontre da** (5); **demontre egin** (6); **demontre egiten** (3); **demontre egon** (3); **demontre gertatu** (4); **demontre gertatzen** (10); **demontre ote** (4); **demontre sartu** (6); **demontre zen** (3); **ea zer demontre** (4); **eta zer demontre** (3); **noiz demontre** (8); **nola demontre** (33); **non demontre** (17); **non demontre aurkitu** (3); **non demontre sartu** (4); **nor demontre** (6); **nora demontre** (4); **ze demontre** (21); **zer demontre** (75); **zer demontre ari** (4); **zer demontre da** (4); **zer demontre egin** (5); **zer demontre egiten** (3); **zer demontre gertatu** (3); **zer demontre gertatzen** (10); **zer demontre ote** (3)

---

# demostraketa *iz* demostrazioa.

*Graph* **demostraketa** *As Crew* kolektiboarekin. Herria

---

# demostratibo *izond* demostratzen duena.

Inferentzien, ondoz ondoko inplikazioen eta arrazoiketa **demostratiboen** ordena. Xabier Arregi

Matematikak eredua izan dira diskurtso zientifiko gehienentzako, zorroztasun formal eta **demostratibora** heltzeko euren ahaleginean. Xabier Arregi

Dagoeneko gertatu diren gertaera enuntziatiboen sail batean aurkitzen da; denbora **demostratibo** batean ezartzen da, bertan aurreko uneak ez dira sekula galtzen, eta, beraz, ez dute behar berriro ekitea eta berdin-berdinak errepikatuak izatea atzera presenteak egiteko. Xabier Arregi

---

# demostratu, demostra, demonstratzen *(orobat* ***demonstratu*** *g.er.)* **1** du *ad* frogatu.

Aurkako efektua ere **demostratu** da laborategian, hau da, tentsio mekanikoa sortzea korronte elektrikoa igarotzean. Irene Aldasoro

Egia hau **demostratuta** dagoela iruditzen zait, nahiz eta jakin paradoxa bat irudituko zaiela adimen laburrekoei. Juan Martin Elexpuru

Baina **demostratuko** baldin banu heriotza ez dela ez beharrezko eta ez egoki, irabazia nuke humanitatearen kausa. Juan Martin Elexpuru

Izan ere, hamargarren kapituluan argudioen bitartez saiatu banaiz ere **demostratzen** monarkia beste Estatu mota guztiak baino aproposagoa dela, aitortzen dut horixe dela liburu honetan ez demostratuta baizik probable bezala gelditu den gauza bakarra. Esteban Antxustegi

Ideia honi baitagokio soilik, gizakia libre izatea eta besteentzat desiratzea bere buruarentzat desiratzen duen ongia, gorago **demonstratu** dugun bezala. Piarres Xarriton

Ez da **demostratu** torturatu dituztenik. Jokin Urain

Ez al zituen gorroto dogma guztiak, **demostratu** gabeko baieztapen guztiak, inperatibo guztiak? Juan Garzia

**2** erakutsi.

Nola edo hala, ez nintzela emakumea **demostratu** nahi nuen. Ana Urkiza

Egunen batean, zu baino gizonago naizela **demostratuko** dizut! Juan Kruz Igerabide

Penagarria duk, zeren eta hik liburu pare bat argitaratu eta horretarako balio huela **demostratu** baihuen, ez nik bezala, ikusten duk? Mikel Hernandez Abaitua

Edo zerbait garela **demostratu** nahi dugulako... Xabier Etxabe

Sasoian zegoela **demostratzeko**, dudarik gabe. Anjel Lertxundi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Gauza **demostratua** da gizakiak, gizaki denetik, errealitatea ikusi, interpretatu, dominatu behar izan duela; gure haitzuloetan dauzkagu frogarik bikainenak. Anjel Lertxundi

Fenomeno **demostratua** da, terrorismoa dagoen lekuetan delinkuentzia baxua dela beti... Urtzi Urrutikoeetxea

Logika hutsa irakaspen **demostratua** da eta bertan denak a priori ziur-ziurra izan behar du. Ibon Uribarri

Horregatik, honela inoiz ezin da hipotesi bat egia **demostratuan** eraldatu. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dela demostratuz** (3); **demostratu behar** (4); **demostratu nahi** (7); **demostratua da** (3); **demostratua geratu** (3); **demostratuko dizut** (3); **demostratzen ari** (3); **ezer demostratu** (4); **gizonago naizela demostratuko** (3); **naizela demostratuko dizut** (3)

---

# demostrazio *(orobat* ***demonstrazio*** *g.er. eta* ***demostrazione*** *g.er.)* **1** *iz* frogatzea, froga.

Matematikaren oinarrizkotasuna definizio, axioma eta **demostrazioetan** funtsatzen da. Ibon Uribarri

"Ezein triangelu angeluzuzenek ez du azaleratzat karratu bat" emaitzaren **demostrazioaren** erdian, Diofanteren *Aritmetikak* liburuaren ertzean betiere, aieruaren froga bat aurkitu zuen Euler-ek, n=4rako. Jon Muñoz

Zer arraiotarako baliatuko zitzaien matematikako **demostrazio** ezezagun haiek edukitzea? Jon Muñoz

Nola aterako zuten ondorio hori **demostrazio** baten bidez ez bazen? Jon Muñoz

Garai hartan, Holmboek ez zion inolako akatsik aurkitu Abelen **demostrazioari**; ez, behinik behin, formula hura aztertu zuten beste matematikariek baino areago. Haiek asmatu zuten **demostrazioa**. Jon Muñoz

Paper-orri puska batean nahi adina leku izango zuen bere **demostrazioa** zehatz-mehatz idazteko. Jon Muñoz

Historiak hala jasoko du ezintasunaren **demostrazioa** izan zela lehenengo **demostrazio** matematikoa! Jon Muñoz

Kasu honetan, ordea, frogak **demostrazio** baten ziurtasun apodiktikoa duela aurrez ikusten da. Ibon Uribarri

Beraz, argi dago Jainkoaren existentziaren, Haren batasunaren eta Haren gorpuzgabetasunaren frogak soil-soilik munduaren betierekotasunaren hipotesitik erdietsi behar direla, **demostrazioa** horrela erabatekoa izango baita, mundua betierekoa zein sortua izan. Xabier Kintana

Giza gorputza [...] zilborretik abiatuz trazatutako zirkuluan eta horri dagokion karratuan inskribatzeko modukoa izatea da gorputz horren perfekzioaren azken **demostrazioa**. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan)

Alfabetoa greziar mundura zertxobait lehenago iritsi izanak mesede egin zien **demostrazio** bidezko jarduera haiei. Jon Muñoz

· Bikiak matematika-**demostrazio** baten grinak hartuak! Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere demostrazioak** (11); **demostrazio baten** (5); **demostrazio haiek** (3); **en demostrazioak** (3); **eta demostrazioak** (3); **grosrouvrek bere demostrazioak** (3); **nire demostrazioak** (3)

---

demostrazione ik **demostrazio.**

---

# demotiko *iz* egiptoar herri idazkera.

Grezieraz, edo **demotikoz** (garai hartako Egiptoko idazkera arruntaz, alegia), tinta horia mirra-uretan diluituz idatziak! Jon Muñoz

Ptolomeo III.a faraoiaren dekretua [...] **demotikoan** eta grezieraz idatzia duen Kristo aurreko 238. urteko granitozko harri grisa aurkitu du Alemania eta Egiptoko arkeologoz osatutako talde ikertzaile batek, Nilo ibaiaren deltan. Berria - Kultura

---

# dena

## 1 *denetariko* ik **denetariko.**

## 2 *den-dena*

Udazkenaren etorrerari amore emanez bezala, **den-dena** tristatu egin zen nire inguruan. Bernardo Atxaga

**Den-dena** galdu zuen batera, kolpe bakar batez. Karlos Zabala

Sugarra ez da itzaliko, eta **den-dena** hartuko du suak, hegoaldetik iparralderaino. Elizen arteko biblia

Kontua, **dena den**, ez da agortzen horretan. Andres Urrutia

Eguzkipean gertatzen denari begira egon izan naiz, eta horra, **den-dena** huskeria da, haizea atzeman nahi izatea bezala. Elizen arteko biblia

Ontzietako mastek, eskifaien aldarriak, kaioen hegalaldiak, lehorrekoen joan-etorriak, **den-dena** zitzaidan arrotz. Edorta Jimenez

- **Den-dena** diat gogoan. Xabier Olarra

- **Den-dena** dugu Jainkoaren nahikariaren araberakoa. Patxi Zubizarreta

**Den-dena** hetsia, herioaren itxura ematen zuela. Daniel Landart

Harritzekoa, **den-dena** datorkit gogora orain arte sekula etorri ez zaidan bezala. Karlos Zabala

**Den-dena** laztandu: ilea, garondoa, belarriak, lepoa, bizkarra, ipurmasailak, aldaka, izterrak, bernak, oinak... Luis Elberdin

**Den-dena** egoera bikainean utzi du, Clinten esanetan. Mirentxu Larrañaga

Orduan esan nuen nire artean Jainkoa handia dela eta **den-dena** zoragarri antolatua zegoela, bizitza sinplea da eta jendea ez da konturatzen. Karlos Zabala

Aladinek **den-dena** aztiak esan bezala bete zuelarik, gorakoan fruitu miresgarri haietako batzuk hartu zituen. Patxi Zubizarreta

Alabaina, hitzek ezin dute **den-dena** adierazi, ezta hurrik eman ere Han zeukatean, **den-dena**, nire aurrekarien kondena-agiritegian. Juan Kruz Igerabide

Ireki zuenean, ustelduta zegoen barruan **den-dena**: jantziak, liburuak, kutxatilak... Jon Muñoz

Opari xumeak onartzen ez dituenak dena nahi dik, seguru aski, **den-dena**. Xabier Olarra

Dena berdina zen: izarak, hormetako pintura horia, [...]; **den-dena**, salbu eta Alaitz: nire emaztearen ordez Alaitz baitzegoen. Iban Zaldua

Orduan **den-dena** denari Jainkoa edo Unibertsoa deritzagu, eta guttien-guttiena denari partikula elementala. Iñaki Segurola

Iluntasunik ilunean ere, gauez eta egunez, egunez eta gauez, egiten dugun guztia ikusten duzu Zuk, den-den-**den dena**. Koro Navarro

## 3 *dena dela* *(4224 agerraldi, 173 liburu eta 919 artikulutan; ETCn 10.835 agerraldi)* dena den.

**Dena dela**, poztu nintzen, eliza ondoan, aitatxi ikusi nuelarik! Daniel Landart

Ez zen, **dena dela**, inorendako kalte izan. Aingeru Epaltza

Ez du, **dena dela**, axola handirik. Aingeru Epaltza

Azken boladan, **dena dela**, aldatu samarra zebilean. Migel Angel Mintegi

Onartzen baldin badugu, **dena dela**, datu horiek egokiak direla, hau da, EAEn errazago aurkitzen dutela lana LBH egiten dutenek, honek esan nahiko luke EAEko eta Espainiako egoerak desberdinak ditugula. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

-Kontatu behar ez niakeen xehetasun bat emango diat, **dena dela**. Txillardegi

Jendeak, **dena dela**, lasai hartzen du lana. Gotzon Garate

Begirada eman tresnari, begirada luzea **dena dela**, eta berriro kutxan gorde zuen, hartutakoan bezain arretatsu. Felipe Juaristi

Gutako inor ez zegoen erregea zerbitzatzeko, errepublikazaleak eta iraultzaile ohiak baikinen gehienok; **dena dela**, gutxi batzuek baino ez zuten jarraitzen "ez dira pasatuko" aldarriarekin tematurik, zapalgailu zilindroa gainetik pasatua zitzaiela jabetu ere gabe. Juan Kruz Igerabide

Ate-joka ez zitzaidan behintzat inor etorri eta tira; **dena dela**, nik ezin ulertu zergatik tematzen zen Ivy, bestelako bere iritzietan-eta emakume modernoa izanik, gure harreman hura ezkontza bihurtzen. Joxe Austin Arrieta

Oso azkar erretiratu ninduan, **dena dela**. Xabier Olarra

Pasternaken *Zivago Doktorea* Italiako argitaletxe komunista batek argitaratu zuen, eragozpen eta zailtasun handiz, **dena dela**. Felipe Juaristi

· Bai, zuk esaten duzuna esaten duzula, oroitzapen ona duzu Luisekin izandakoaz, izandako hori **dena dela**. Lourdes Oñederra

## 3a *dena delako* *(311 agerraldi, 101 liburu eta 53 artikulutan; ETCn 3.198 agerraldi)*

Gure landroverra marga edo **dena delako** buztin labainkor hartan zegoen ardatzeraino sartua. Joxe Austin Arrieta

Esne-zopak, edo galletak, edo morokila edukita, zertarako nahi duzu korfleis edo **dena delako** asmakizun hori? Xabier Mendiguren Elizegi

Jesus!, Walter-en musikak edota **dena delako** zerak txora-txora egiten naute. Mirentxu Larrañaga

Esne-zopak, edo galletak, edo morokila edukita, zertarako nahi duzu korfleis edo **dena delako** asmakizun hori? Xabier Mendiguren Elizegi

Horratx erromes, behartsu, alfer, pikaro edo **dena delako** bagamunduen aspaldiko martingala. katagorria edo **dena delakoa** ere horixe besterik ez zen, zelaiko hondamendiarekin, stadiumeko kaosarekin kontraste erabatekoa egiten zuen edertasuna, loraldi txikia. Patziku Perurena

**Dena delakoa** esaten dudala ere, gero eta gehiago erresumintzen baitzaitut, nonbait. Mirentxu Larrañaga

Oiher salako mahai ondoan eserita dago, bere dragoi bolak edo **dena delako** horiek marrazten. Iban Zaldua

Eta berdin ustez Metropolis horren lana aztertu zuten hiru aditu edo **dena-delako** horien kontuarekin. Oskar Arana

Hardy edo **dena delako** horrengatik? Joxe Austin Arrieta

Sistema immunologikoaren antigorputzak, **dena delakoagatik**, modu izugarri bortitzean hasten dira gorputzaren beraren ehunei eraso egiten eta dena suntsitzen. Iban Zaldua

Musika jotzen ari delarik, berdin dio konpaktoan, irratian edo **dena delakoan**, bere erasoaren iraina nabarmentzen du buruak. Pako Aristi

Zer dakita nik, epailearena, forentsearena, poliziarena edo **dena delakoarena**... Aingeru Epaltza

## 4 *dena den* *(7332 agerraldi, 124 liburu eta 2491 artikulutan; ETCn 28.662 agerraldi –denak presntsakoak-)* aurreko esaldian adierazten dena gorabehera, eta hura osatuz, esaten denari laguntzen dion esapidea. ik **nolanahi 4.**

**Dena den**, gu orain hemen nazioaz ari gara, jakinez euskarazko "sorterria" besterik ez dela izaitez nazioa. Piarres Xarriton

**Dena den**, pikoak, erlijiozko karga sinbolikoa du zaharrena. Patziku Perurena

**Dena den**, gauzak horrela izanik ere, behar ditugu hitz hauek atxiki. Piarres Xarriton

Campeche, **dena den**, hiria da oraindik, giza kolonia bat. Joxe Austin Arrieta

Historia garratz hartan bazen zerbait, **dena den**, Ez ahantz, **dena den**, gerlariak ez ezik, Jainkoaren hitza hedatuko duten gazte jakintsuak ere behar ditugula. Juan Kruz Igerabide

Zu, Loretxu, nahiz ez zaitudan sekulan ikusia, baina haatik ikusi nahi gorria, eta nahiz arras guti solastatuak garen, dena ere minitel lauso baten bitartez, zu, **dena den**, ez zarela enetzat hain arrotza! Janbattitt Dirassar

Ondo ezagutzen nuela uste dut; [...] neure burua bezainbat ezagutzen nuen, eta badakit ardura osoz saiatzen zela gizonekiko erakarmen hura modu egokian bideratzen; **dena den**, ordea, iruditzen zitzaidan gizaseme basatienak zituela gogoko, ematen baitzuen bere izaera adeitsu eztia kontrako energia basaz behar zuela elikatu. Juan Kruz Igerabide

Nagusiak, bere asmoaren kontra, emaztetzat hartzen ez badu, atsegin ez duelako, ez du haren berrerospena galaraziko; **dena den**, ez du atzerritarrei saltzeko eskubiderik, iruzur egingo lioke eta. Elizen arteko biblia

Ez orain, **dena den**. Oskar Arana

Düsseldorfekoa omen zen, nire aldameneko hori, eta ez hain gaztea ere: hogeita hamarretik gorakoa bai behintzat, ni baino gazteagoa **dena den**. Joxe Austin Arrieta

Tira, ez al dizu sekula lorerik bidaltzen, **dena den**? Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)**

**den dena aitortu** (5); **den dena azaldu** (3); **den dena egin** (3); **den dena ematen** (5); **den dena esan** (7); **den dena ezin** (6); **den dena galdu** (5); **den dena geldirik** (3); **den dena hutsik** (5); **den dena ikusi** (5); **den dena jakin** (3); **den dena jakitea** (3); **den dena kontatu** (23); **den dena kontatuko** (7); **den dena kontatzen** (3); **den dena ondo** (4); **den dena prest** (4); **den dena suntsitu** (3); **den dena ulertu** (6); **den dena ulertzen** (5); **den dena utzi** (4); **den dena zekiela** (4); **den dena zekien** (7); **den dena zeukan** (4); **den denak eraman** (3)

**dena agerian** (11); **dena ahazten** (12); **dena ahaztu** (21); **dena aitortu** (20); **dena aldatu** (45); **dena aldatu da** (12); **dena aldatu zen** (11); **dena aldatzen** (24); **dena aldatzen da** (11); **dena alde** (22); **dena alferrik** (34); **dena amaitu** (23); **dena apailu** (11); **dena argi** (41); **dena argitu** (17); **dena atera** (12); **dena aurkitu** (12); **dena azaldu** (20); **dena azaltzen** (11); **dena aztertu** (12); **dena bare** (11); **dena bat batean** (11); **dena bat izan** (22); **dena batera** (63); **dena behar** (33); **dena behar bezala** (18); **dena beltz** (15); **dena bera** (22); **dena berdin** (28); **dena berria** (11); **dena berriro** (14); **dena berritua** (12); **dena berriz** (14); **dena bertan behera** (30); **dena bete** (12); **dena betetzen** (19); **dena beti** (22); **dena bezala** (15); **dena bihar** (11); **dena biltzen** (12); **dena bost** (15); **dena bukatu** (33); **dena da** (575); **dena da posible** (21); **dena dago** (83); **dena daki** (18); **dena dakigu** (11); **dena dakizu** (11); **dena dauka** (13); **dena dela** (2046); **dena dela ere** (14); **dena delako** (136); **dena delako hori** (19); **dena delakoa** (87); **dena delakoagatik** (12); **dena delakoak** (32); **dena delakoari** (11); **dena delarik** (11); **dena den** (3669); **dena du** (31); **dena du alde** (13); **dena duk** (19)

**dena egia** (22); **dena egin** (84); **dena egina** (26); **dena eginda** (21); **dena egingo** (12); **dena egitea** (13); **dena egiteko** (29); **dena egiten** (60); **dena eman** (104); **dena eman behar** (25); **dena emanda** (13); **dena emango** (20); **dena emateko** (32); **dena emateko prest** (18); **dena ematen** (54); **dena ematera** (11); **dena entzun** (21); **dena entzuten** (24); **dena erabakita** (18); **dena eraman** (13); **dena ere on** (26); **dena errazagoa** (11); **dena erre** (17); **dena esan** (84); **dena esan behar** (31); **dena esana** (12); **dena esanda** (36); **dena esanda dago** (20); **dena esateko** (21); **dena esaten** (22); **dena espantu** (30); **dena estaltzen** (13); **dena euskal** (12); **dena euskaraz** (28); **dena ez** (346); **dena ez baita** (11); **dena ez da** (137); **dena ez dago** (14); **dena ez dela** (25); **dena ez zen** (26); **dena ezin** (41); **dena gaizki** (20); **dena galdu** (42); **dena galdua** (22); **dena galduta** (22); **dena galtzen** (13); **dena garbi** (22); **dena gelditu** (11); **dena gertatu** (22); **dena gertatzen** (44); **dena gertatzen dela** (29); **dena gezurra** (32); **dena gogoan** (12); **dena gure** (16); **dena hankaz gora** (32); **dena hartu** (20); **dena hartzen** (14); **dena hemen** (12); **dena hondatu** (13); **dena hor** (13); **dena horrela** (11)

**dena ikusi** (46); **dena ikusita** (17); **dena ikusten** (42); **dena ilun** (31); **dena irabazi** (24); **dena irentsi** (12); **dena isilik** (16); **dena itzuli** (13); **dena izan** (62); **dena izan da** (13); **dena izan zen** (15); **dena izango** (34); **dena izango da** (20); **dena izorratu** (12); **dena jainkoaren** (11); **dena jakin** (39); **dena jakin nahi** (12); **dena jakingo** (11); **dena jakiten** (11); **dena jan** (13); **dena jestu** (13); **dena joan** (11); **dena kantu** (17); **dena kendu** (16); **dena kolore** (14); **dena konpondu** (12); **dena konponduko** (25); **dena konponduta** (14); **dena konpontzen** (14); **dena kontatu** (88); **dena kontatu zion** (16); **dena kontatuko** (22); **dena kontatzen** (24); **dena kontrolatzen** (11); **dena kontrolpean** (31); **dena kontuan** (14); **dena larderia** (14); **dena lasai** (16); **dena lausengu** (12); **dena libre** (15); **dena mehatxu** (28); **dena nahasten** (22); **dena nahastu** (13); **dena normal** (16); **dena ondo** (241); **dena ondo atera** (19); **dena ondo badoa** (11); **dena ondo egin** (13); **dena ondo joan** (16); **dena ongi** (175); **dena ongi aterako** (13); **dena orain** (19); **dena oso** (99); **dena oso ondo** (16); **dena pikutara** (26); **dena posible** (16); **dena prest** (136); **dena prest dago** (23); **dena primeran** (14); **dena saldu** (11); **dena suntsitu** (13); **dena txukun** (23); **dena ulertu** (37); **dena ulertzen** (31); **dena utzi** (39); **dena xarmatuta** (20); **dena xarmatuta utzi** (20); **dena zegoen** (47); **dena zekien** (27); **dena zen** (104); **dena zera da** (14); **dena zuen** (15); **dena zuri** (18); **dena zuzen** (17)

**denak ados** (64); **denak ala denak** (19); **denak alde** (25); **denak ari** (34); **denak ari ziren** (12); **denak baino** (32); **denak balio** (15); **denak barrez** (13); **denak bat** (76); **denak bat etorri** (12); **denak batean** (30); **denak batera** (209); **denak behar** (25); **denak berdin** (56); **denak berdinak** (42); **denak betan** (13); **denak beti** (15); **denak bezala** (17); **denak bildu** (26); **denak biltzen** (13); **denak daude** (32); **denak denen** (15); **denak dira** (83)

**denak ederki** (31); **denak egin** (13); **denak egiten** (14); **denak elgarrekin** (25); **denak elkarrekin** (55); **denak elkarren** (19); **denak eman** (11); **denak emanda** (11); **denak etxera** (11); **denak euskaraz** (14); **denak ez** (190); **denak ez dira** (30); **denak ez ziren** (12); **denak ezin** (43); **denak galdu** (15); **denak gogotik** (12); **denak gomit** (50); **denak gomit zirezte** (23); **denak gomitatuak** (11); **denak gure** (15); **denak han** (15); **denak haren** (19); **denak harritu** (29); **denak hartzen** (11); **denak hemen** (18); **denak hil** (25); **denak hilko** (11); **denak hor** (18)

**denak ikusi** (15); **denak isildu** (13); **denak isilik** (35); **denak isilik geratu** (12); **denak izan** (16); **denak joan** (48); **denak joan dira** (14); **denak kontent** (12); **denak lanean** (11); **denak loriatuak** (27); **denak nahasian** (15); **denak omore onean** (16); **denak onak** (11); **denak ondo** (17); **denak ongi** (36); **denak ontsa** (14); **denak pozik** (24); **denak prest** (12); **denak untsa** (17); **denak utzirik** (15); **denak zeuden** (22); **denak ziren** (40)

**denek aho batez** (14); **denek alde** (12); **denek badakigu** (35); **denek badakite** (23); **denek bat** (81); **denek bat egin** (11); **denek batean** (19); **denek batera** (67); **denek behar** (29); **denek berdin** (15); **denek beren** (29); **denek bezala** (15); **denek dakite** (20); **denek dakiten** (16); **denek diote** (23); **denek dute** (51); **denek egin** (38); **denek egiten** (34); **denek egiten dute** (12); **denek elgar** (12); **denek elgarrekin** (50); **denek elkar** (12); **denek elkarrekin** (20); **denek entzuteko** (17); **denek entzuteko moduan** (14); **denek esaten** (18); **denek ez** (47); **denek ez dute** (18); **denek ezagutzen** (83); **denek ezagutzen dugu** (11); **denek ezagutzen zuten** (16); **denek gauza** (18); **denek gauza bera** (13); **denek ikusi** (25); **denek izan** (14); **denek jakin** (25); **denek jakingo** (17); **denek nahi** (44); **denek nahi dute** (12); **denek onartu** (19); **denek onartzen** (21); **denek ongi** (13); **denek pentsatzen** (14); **denek ulertu** (12); **denek uste** (27); **denek uste zuten** (13); **denek zekiten** (31); **denek zuten** (21)

**denen agerian** (11); **denen ahotan** (44); **denen aintzinean** (63); **denen aitzinean** (21); **denen artean** (297); **denen arteko** (45); **denen artetik** (15); **denen aurka** (13); **denen aurrean** (109); **denen beharra** (37); **denen bistan** (19); **denen buru** (498); **denen erdian** (15); **denen etxea** (26); **denen etxean** (130); **denen etxeko** (28); **denen etxeko gela** (13); **denen etxeko gelan** (11); **denen gainetik** (28); **denen gostukoa** (21); **denen gustukoa** (16)

**besta on deneri** (15); **denen izenak** (14); **denen izenean** (24); **denen kontra** (13); **denen loriagarri** (15); **denen onetan** (36); **denen zerbitzuko** (11); **deneri aintzindu** (22); **deneri idekia** (85); **deneri idekia da** (19); **deneri idekiak** (14); **deneri ongi etorri** (27); **goresmenak deneri** (21); **milesker deneri** (14); **on deneri** (58); **ongi etorri deneri** (118)

---

## denario *iz* erromatarren garaiko dirua, eskuarki zilarrezkoa.

Zaku bete **denario** bildu zuen eskean. Juan Garzia

Berrehun **denarioren** ogia ez litzateke nahikoa bakoitzak puska bat izateko. Elizen arteko biblia

Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun **denariotan**, eta behartsuei eman? Elizen arteko biblia

Zilarrezko **denarioa** hogei ontzatik hamaseira jaitsi zuen eragiketa egin zen orduan. Iñaki Iñurrieta

Eta **denarioaren** laurdena bi as eta erdirekin egiten zelako, sestertzioa deitu zioten. Santiago Iruretagoiena

Beraz, hortik ateratzen da oinak hamasei hatz dituela, eta brontzezko **denarioak** ere beste hainbeste as dituela. Santiago Iruretagoiena

Jesus jaio zen urtean norbaitek **denario** bat jarri izan balu banku batean, eta txanpon hori banku horretan egon izan balitz gaur arte interesak irabaziz, bere balioa lurra adinako urrezko bola batena izango litzateke. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**denario bat** (5); **denarioren ogia** (3); **hamabi denario** (3)

---

## denbora *(orobat **denpora** g.er.)* **1** *iz* gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea. ik**aldi**.

Espazioa eta **denbora**, errealitateaz dugun ikusmoldearen kategoria nagusiak diren horiek. Josu Zabaleta

**Denbora**, distantzia, luzera, bolumen, pisu eta balioaren neurri estandarrak gizarte-bizitzako premiak dira edozein mailatan, maila primitibotik gora. Iñaki Mendiguren

**"Denbora** istantez osatua da"; erran nahi baita, denboraldi txiki ugariz osaturik dagoela, beren iraute laburrarengatik gehiago ezin zati daitezkeenez. Xabier Kintana

**Denborarekin**, baretu egin zitzaion erregeari haserrea, baina ezin zuen gogotik kendu Basti, ez eta harekin gertatua eta haren aurka hartutako erabakia ere. Jose Antonio Mujika

Esperientzia askok erakutsi dute begiak ez dituela bi argi gertaera sinkronikotzat atzematen **denboran** aski bereiziak ez baldin badira. Josu Zabaleta

Zergatik ezabatzen da **denbora**, heriotza kenduz gero? Juan Kruz Igerabide

Ez dago, beraz, **denbora** absoluturik, **denbora** "orokor" bat baizik. Josu Zabaleta

Ikuslearen **denbora** eta irudiaren **denbora**. Josu Zabaleta

Azkar joan ohi da **denbora** elkartean; giro hura gizonezkoontzat baketsua delako, nik uste. Ramon Saizarbitoria

**Denbora** aurrera joan ahala, aldaketa hauek barne eta kanpo arazo larriak eragingo dituzte Ordenan. Askoren artean

Ez zirudien oso egoera larria, eta, **denbora** aurrera, nire kide guztiek elkarri bromak egiteari ekin zioten. Bernardo Atxaga

Dena den, arazoa **denbora** da; **denbora** igarotzen sentitzen duzula eta [...]. Ramon Saizarbitoria

Lasai eta **denbora** hartuz Lubisek, Ubanbek, Opinek eta nik; presaka Pantxok eta Sebastianek. Bernardo Atxaga

**Denbora** ematen nion denborari, orduak eta egunak xahutzen nituen alferrik. Bernardo Atxaga

**-Denborak** esango du -esan nuen azkenean, ez bainuen nahi estutasun hura luza zedin-. Oskar Arana

Nabarmenki desberdina da, batek zerbait badela ikustea, inoren esanari sinetsiz, edo egiaren argitan ikusten dena, edozeinek egiaztatzeko moduan; lehena **denboraz** alda daiteke, besteak aldaezin iraungo du betiko. *ik beherago* 6. Imanol Unzurrunzaga

Denboraren **denboraz** nork bere bidea hartu baldin badu ere, badirudi "hilabete", "hil", "ilberri", "il-argi", denek jatorri bat eta bakarra dutela hizkuntzaren historian. Pello Salaburu

Antzeko gauza gertatzen da **denborarekin**: **denbora** kasik ziberaldiberekotasuna da ziberespazioan. Askoren artean

Ez da egia **denbora** urrea denik; denbora arnasa da, bizitzak behar duena bere ziklo guztiak gauzatzeko. Pako Aristi

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **tenporal**[1].

Daniel profetarengandik hasita, **denbora**-epe hori edozein motatako eraso eta larrialdiren iraupen-irudi bihurtu da. **Denbora** parte bat sortzen ari den neurrian, beste parte bat, horren aurrekoa, desagertzen delako. Askoren artean

Pertzepzioaren **denbora** faktoreak. Josu Zabaleta

Agerpenen kausalitatea **denbora**-baldintzetan funtsatzen denez, [...]. Ibon Uribarri

Liburu honen abiapuntua histori azterketarako eremuak bilatzea izan zen, beren espazio- eta **denbora**-mugen barruan berez ulergarriak izango zirenak, kanpotiko gertaera historikoen erreferentziarik gabe. Iñaki Mendiguren

Hori, ordea, adimenak agerpenei eta beren izateari **denbora**-ordena emateari esker gertatzen da, agerpen horietako bakoitzari, ondorioa den heinean, aurreko agerpenei begira a priori determinatutako **denbora**-kokapen bat atxikitzen dion heinean. Ibon Uribarri

**Denbora**-segidaren oinarri-esakunea kausalitatearen legearen arabera. Ibon Uribarri

**Denbora**-dimentsioko kontraste hau espazio-dimentsioan ere agertzen da. honek gure adimenaren adigaietatik erabat at geratzen diren **denbora**-harremanen arabera baino ez du bihurtzen begiesgarria lotura hura. Iñaki Mendiguren

Argi-fenomenoen **denbora**-desberdintasunak. Begiaren **denbora**-bereizmena. Josu Zabaleta

Baina zilegizkoa da **denbora**-blokeak sekuentziatze hau izaera dokumentaleko produkzio original bat bezala ikustea. Josu Zabaleta

Istant horietako bakoitzean, erran nahi baitut **denbora**-atomo bakoitzean, [...]. Xabier Kintana

## 3 delako bitarte horren zati mugatua.

Ordea, **denborak** eta **denborak** zaudek, eta haiek **denbora** hartan egin zutena guk **denbora** honetan egin nahi izaitea **denboraren** kontra joaitea izanen lukek... Joan Mari Irigoien

Halaxe egon ginen **denbora** batean, hura mugitu gabe, ni mugitu gabe, estatuak bagina bezala. Juan Kruz Igerabide

Ez dakit zenbat **denbora** behar izan genuen; ordubete, beharbada. Ramon Saizarbitoria

Han egon ginen biok lurrean, ez dakit zenbat **denboraz**, luzeegi nolanahi ere. Ramon Saizarbitoria

Zinema-aretora sartzen denean, berriz, nahiko **denbora** luzea behar izaten da edozer gauza ikusi ahal izateko (pantaila kenduta, jakina, [...]). Josu Zabaleta

**Denbora** guztian euria jauts-ahala ari... eta haize basaren zafraldiak hezurretan barna sartzen zitzaizkidan. Daniel Landart

Adibidez, zutik eta mugitu gabe egon zela jardunak iraun zuen **denbora** osoan. Anjel Lertxundi

**Denbora** luzea egin zuen geldirik, eta ni ezin egonik, harik eta, berriro abiatu zelarik, jaiki, kanpoko atea zabaldu eta jauzi egin nuen arte. Juan Kruz Igerabide

Bata bestearen ondoren oso **denbora** laburrean datozen argizko estimuluek izan dezateke elkarreragina. Josu Zabaleta

**Denbora** asko egin genuen isilik, nork nori barkamena eskatuko. Anjel Lertxundi

Ez nuen kukurruku jotzeko **denbora** handirik izan. Aingeru Epaltza

Ez didazu **denbora** asko ematen, laburregia iruditzen zait epea. Migel Angel Mintegi

Nahastu egin zela burutik **"denbora** gehiegi egoten zelako liburu artean". Bernardo Atxaga

- **Denbora** guti daramat zurekin, Joanes, eta oraino ez zaitut behar bezala ezagutzen. Joan Mari Irigoien

**Denbora** hartu nuen erantzuteko. Anjel Lertxundi

"Oso **denbora** gutxi kentzen dit", erantzun nion. Bernardo Atxaga

- **Denbora** gutxiko kontua izango da, ez kezkatu- Teresari begiratu zion berriro. Migel Angel Mintegi

Eguna argitu arte nahiko **denbora** izango zutela iritzita ari ziren lamiak lanean. Pako Aristi

Hala ere, **denbora** dezente egin nuen hitz egokienak paperera ekartzen. Anjel Lertxundi

**Denbora** dezentez egon gara horrela, elkarri loturik eta ahoa zabaldu gabe. Anjel Lertxundi

Hartara ez genian hainbeste **denbora** pasa izango pinguino haien artean. Bernardo Atxaga

**Denbora** joana berreskuratzeko ahaleginean. ez zen isildu bide guztian, lo joan zen **denbora** kenduta. Juan Kruz Igerabide

Pentsatzeko **denbora** eskatu zidan, eta gauean esango zidala. Josu Zabaleta

Nahiago dut **denbora** idazten eman. Bernardo Atxaga

Ez daukagu **denbora** bat soilik, **denbora** asko baizik, eta, tartean, amildegiak. Juan Kruz Igerabide

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irudi hori argazki-xafla batean jaso nahi izango balitz, oso esposizio-**denbora** luzea beharko litzateke horretarako. Josu Zabaleta

Irudikapen-**denbora**. Josu Zabaleta

Baina beste mota batzuetako filmek erakutsi dute argien nola eraberritzen duen proiekzio-denborak filmaketa-**denbora**. Josu Zabaleta

Aireztatze **denbora** labur bakoitzak Joanesi bizia luzatzeko irudipena emaiten zion. Eneko Bidegain

Oparotasun-**denboran** oroitu gosealdiaz; aberastasun-egunetan, pobreziaz eta lazeriaz. Elizen arteko biblia

Ikuslea irudiaren sorkuntzaz, filmologoek dioten bezala, irudiaren sorkuntza-**denboraz**, [...]. Josu Zabaleta

## 5 delako bitarte horren unetzat hartua "lehen" eta "gero" baten artean. ik**garai**[1].

Hemen eta orain, Lur honetan, **denbora** honetan, gorputz honetan, arima honetan, hil gaberik, berpiztu gaberik, zatika soilik hilez eta etengabe berpiztuz, gorputz eta arima, gorputz eta buru. Juan Kruz Igerabide

Alabaina, gure **denbora** haiek ez ziren gerra aurrekoak: "ez daukate zer eginik; amets hutsa da horiena", adierazten zidan, azken batean, bere azalpenekin. Juan Kruz Igerabide

Inoiz arrakastarik izan badu, ez naiz **denbora** horien lekuko izan. Aingeru Epaltza

Eguneroko dutxa ere ez da aski, gure ume-**denboran** astean behingoa -larunbaterokoa- aski eta gehiegi zelarik. Iñaki Segurola

Gazte **denbora** guzia Parisen iragan zuen eta berrogeita zazpi urtetan itzuli zen Euskal Herrira. Eneko Bidegain

Ikasle gehienak gazteak dira eta gerla **denbora** biziki urrun ikusten dute. Eneko Bidegain

Aitari zerbitzu-**denbora** bururaino beteko nuela agindu nioan. Xabier Olarra

## 6 ***denborarekin*** *(494 agerraldi, 120 liburu eta 200 artikulutan; ETCn 5.835 agerraldi)* denbora igarotzearekin.

Baina denborak dena sendatzen du, dena usteltzen eta ontzen du, eta **denborarekin** Joxe "Joxe zena" bihurtzen da. Iñaki Segurola

**Denborarekin** hori guztia baretuz joaten da, eta egoera berrira ohitzen gara. Luis Elberdin

**Denborarekin** fedea epeltzen joan zitzaien Bretainiako biztanleei, eta Erdi Aroko erlijiosotasun sutsua apaltzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pentsa daitekeenez, urtearen barnean bi garai nagusi bereizten zituzten gure aurrekoek, hizkuntzak horretan nahiko gardena baitirudi: uda eta negua, gerora eta **denborarekin** lau bihurtuko zirenak, negua, udaberria, uda eta udazkena. Pello Salaburu

Gorotz horiek erre eta erre, **denborarekin**, gatz berezi bat sortzen zen Amoni eskaintzak egiten zitzaizkion inguru eta tximinietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hasieran, zelula pare bat baino ez da izaten; gero, **denborarekin**, arrautza osatuz joaten da, eta aurrerago umekia osatzen da. Luis Elberdin

Ez dut Teresa maite, baina **denborarekin** maiteko dut. Bernardo Atxaga

**Denborarekin** -beti gertatzen da bazterrean utzitakoarekin, infernuarekin ere gertatuko litzaiguke-, kolegioko bizimoduaren mira ere sortu zitzaigun. Bernardo Atxaga

Historiak utzi zauriak dituzue estatu muga horiek, baina, **denborarekin** sendatuko dira zauri horiek ere. Piarres Xarriton

**Denborarekin** barkatu diot! Ramuntxo Etxeberri

## 7 *denbora askoan*

Gorpua aurkitu zen unean, ez zen pentsatu hiltzailea gai izango zenik, ez **denbora askoan** behintzat, berehala abian jarri zen ikerketari itzuri egiteko. Koro Navarro

Nik hura **denbora askoan** ezin izan nuen ulertu; Nunuk, ordea, irribarre egin eta isildu egiten zen. Ander Irizar

Gelditu egin zen, ordea, pauso batzuk eman ondoren, eta aurreneko aldiz **denbora askoan**, aurreneko aldiz heriotza eman nahi izan ziotenetik, ireki egin zitzaizkion belarriak, eta hego haizeak basoko hostailari ateratzen zion soinua entzun zuen. Bernardo Atxaga

**Denbora askoan** kontrazepzioa emakumeen esku utzi dute gizonek. Luis Elberdin

Amiantoa **denbora askoan** arnasteak asbestosia, mesotelioma eta biriketako minbizia eragiten ditu, besteak beste. Berria - Ekonomia

Bueno, gizona zeharo jota egon zen **denbora askoan**. Koro Navarro

Zure begietan irakurri nuen minak zulatuko dit arima **denbora askoan**. Arantxa Iturbe

## 8 *denbora bateko* *izlag* garai batekoa.

**Denbora bateko** amonak, nekazari aurpegikoak eta lurrerainoko gonak zituztenak. Fernando Rey

Bazko aratsaldeko finalan, ez **denbora batekoa**, baina jende alde ederra Garatenean. Herria

Galtzaleetan aldiz, denetarik Duhauk, eta Itoizek falta **denbora bateko** segurtasun hura. Herria

Martxoko gau batez Jean d'Enhaut Crêteko bere etxean, mahai aurrean jarri da, bere ilobei **denbora bateko** kontuak esateko asmoz. Pablo Sastre

Zerbait argazkilari edo politikari zahartutik, garai berrietako molde eta ideiez ezer jakin ez eta **denbora bateko** amarru eta eskujokari-arte limurtzaileei egoskor eusten dieten pertsona klase horretatik zerbait. Ander Irizar

## 9 *denbora batez* denbora-bitarte batez.

Begirada izoztu zitzaion, eta isilik egon zen **denbora batez**. Anjel Lertxundi

Star benetakoa, **denbora batez** Bulgariako telebistan publikoaren arrakastaz lan egindakoa baitzen. Edorta Jimenez

Honek, emaztea eskarmentatu nahian, **denbora batez** dorre batean giltzapetu zuen. Martin Anso

Begiak ixten ditu, **denbora batez** horrela gelditzen da, itsua bezala, aurpegi soraioz. Xabier Olarra

**Denbora batez**, errukia sentitu nuen zure tristurarengatik. Agustin Otsoa

Ahoan aski gustu tzarra utzia didan ixtorioa, **denbora batez** izarren erdian ibili ondoan gaitzeko zeru miresgarrian! Janbattitt Dirassar

Jaiotzen dena sorrarazten eta horren existentzia halako **denbora batez** iraunarazten duena. Xabier Kintana

**Denbora batez** xoragarri zen gure Euskaldunak ikustea, igande egunetan, pilota partidetan, merkatuetan, bakotxa bere gerriko gorriarekin eta bere makilarekin. Xipri Arbelbide

## 10 *denbora berean* aldi berean.

Bat-batean, hitz horrek izpiritu guztia berotzen eta **denbora berean** goibeltzen zidan. Daniel Landart

**Denbora berean** ene andrea, ene ama eta ene alaba. Janbattitt Dirassar

Atari handi bat, harrera profesionala eta **denbora berean** beroa, zurezko eskailera distiratsuak. Piarres Aintziart

Libre eta **denbora berean** zinez preso. Daniel Landart

Bi pertsonek gauza bera esan dezakete **denbora berean**; eurak bi direnez bi enuntziazio ezberdin izango dira. Xabier Arregi

## 11 *denbora galdu*

Aitarentzat, gainera, jendearekin hitz egitea **denbora galtzea** zen. Arantxa Iturbe

Kubara joatea **denbora galtzea** iruditzen zaidak. Jon Muñoz

Berri-agentziek ez zuten **denbora galdu**, eta gertakariaren gaineko jakingarriak biharamunean bertan agertu ziren Sud Ouest eta Belfast Telegraph egunkarien azalean. Patxi Iturritegi

Patar baten kaskoan, kamioiak gelditu direnean, ohartzen naiz gurekin diren español batzuk ez dutela **denbora galdu** bidean. Marzel Etxehandi

**Denbora galdu** gabe haren atzetik abiatu zen. Migel Angel Mintegi

Nik **denbora galtzekotan**, nahiago pelikula on batekin. Arantxa Iturbe

Ez nion, haatik, uko egin nire maistrarekiko adiskidetasunari, eta **denbora galdua** berreskuratzen ere saiatzen nintzen noizbehinka. Juan Kruz Igerabide

Ez nuke nahi, inondik ere, zuk horrenbeste **denbora galdu** eta ordainetan ezer ez eskuratzea. Oskar Arana

Duda egin nuen Prousten ***Denbora*** **galduaren** *bila* eta Joyceren *Ulises*-en artean. Jon Alonso

Tren--aldaketetan **galdutako denbora** ere kontuan hartuz gero, hamahiru bat orduko bidaia. Anjel Lertxundi

Zentzugabeen artean, ez **galdu denborarik**; egon luzaro, ordea, burutsuen artean. Elizen arteko biblia

Egun hartan ere iritsi gabe zegoen Godot, eta, **denbora galdu** alde, solasean ari ziren. Iñaki Iñurrieta

· Aurreko arratsean, Ttipiren agentziako itxarongelatik ateratzea lortu ondotik ez zuen **denbora** alferrik **galdu**. Aingeru Epaltza

Ez naiz horretaz arituko, **denbora** alferrik **galtzea** da-eta. Karlos Zabala

Orduan, bidal ezazu norbait nahi duzun orduan, nik ezin dut **denbora** gehiago **galdu**, eta telefonoa eskegi zuen. Jon Alonso

Atzera-aurrera asko egin eta gero, eta **denbora** erruz **galdu** ondoren, [...]. Anjel Lertxundi

## 12 *denbora galtze* *iz*

Gainerako guztiak adabaki eta **denbora galtze** soil zirela. Hasier Etxeberria

Julian ez zen intelektual horietakoa, inondik ere; **denbora galtze** alferrikakoak iruditzen zitzaizkion nobela eta antzekoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Segi ezazu, Morales, segi eta utz itzazu alde batera itzulinguruak eta alferrikako **denbora galtzeak**. Joxemari Iturralde

Guk karakol haiek irensten genituen abiada ikusita, neure buruari esan ohi nion sarritan ea ez ote zen **denbora galtze** izugarria Isidoraren lan hura guztia minutu urri batzuk besterik irauten ez zuen otordu goxo hura egiteko. Pako Aristi

-Tira, ez da izan erabateko **denbora galtzea**. Iñaki Mendiguren

## 13 *denbora gutxian*

Zahartu egin zen **denbora gutxian**, eta urritu egin zitzaion bizitzeko gogoa. Felipe Juaristi

Marrok anartean hogeita bizpahiru urte besterik ez zituen izango, baina **denbora gutxian** bildua zuen, merezita bildu ere, izengoiti gaiztoa. Juan Kruz Igerabide

**Denbora gutxian** gauzak asko aldatzen ari ziren soinujoleen munduan. Iñigo Aranbarri

Teknologia berriei esker, edozein motatako bilaketak egiteko gune oso aberatsa eta emankorra eratu da **denbora gutxian**: sarea. Askoren artean

Oso **denbora gutxian** nazi sutsuak bilakatu ziren. Ramon Etxezarreta

Hain **denbora gutxian** hainbeste aldatu izanak harrituta zeukan gizona. Arantxa Iturbe

Horren **denbora gutxian** ez dut astirik izango nigan pizten duzun guztia adierazteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Une horretan Zigorren buruan argitxoa piztu zen bigarren aldiz **denbora gutxian**. Bernardo Atxaga

Kasualitate gehiegi **denbora gutxian**. Patxi Iturritegi

## 14 *denbora gutxira*

Darling jaun-andreek etxea utzi eta **denbora gutxira**, hiru umeek oheen alboan zituzten lanparatxoek su goxoa ematen segitzen zuten. Julen Gabiria

Argiak itzali egin zituzten, bidaiaren solasak tartekatzen joan ziren eta **denbora gutxira** Helenek zurrunga ttiki batzuk egiten zituen. Iñaki Zabaleta

Hasierako hatsa, **denbora gutxira** arrosen usaina bailitzan arnasten nuela konturatu nintzen. Jasone Osoro

Ines joan eta **denbora gutxira** izan zuen detektibe ikastaroaren berri. Migel Angel Mintegi

Abiatu eta **denbora gutxira** Joxe gelditu egin da. Pello Lizarralde

Tolosan ezkutatu ziren, baina handik **denbora gutxira**, etxejabea beldurtu zelako edo presaka zirelako, atzera berriz errepidera irtetea erabaki zuten. Joseba Zulaika

Handik **denbora gutxira**, inportazioko *Golf* bat erosi nuen, istripua izandakoa, oso prezio onean. Juan Kruz Igerabide

Sinestezinegia baitzen, neskatxa hura, **handik denbora gutxira** berriro gure hilobi-tontorrera igotzen ikusi nuena, nire alaba izan zitekeela. Joxe Austin Arrieta

Frantziskoren kanonizaziotik **denbora gutxira**, Aita Santuak enkargaturiko legenda ofiziala argitaratu zen. Askoren artean

Maizenik, jaiotzan ematen du bere burua agertzera eritasunak, edo jaiotzatik oso **denbora gutxira**. Juan Garzia

Handik oso **denbora gutxira** egin genituen geure karta-parteak. Anjel Lertxundi

## 15 *denbora gutxiren buruan*

**Denbora gutxiren buruan**, Big Lanniek uste baino askoz lehenago, bilobatxoa bere kasa ibiltzeko gai izan zen. Mirentxu Larrañaga

**Denbora gutxiren buruan**, hautsontzi guztiak zigarrokinez beteta ageri ziren, eta pattar botilak erdi hutsik. Pedro Alberdi

Argibide zehatzak eman zizkigun, eta haiek jarraituz, **denbora gutxiren buruan** gain batera iritsi ginen. Ramon Saizarbitoria

Zeure kasa pentsatzeari uzten diozu, eta **denbora gutxiren buruan** ez zara zeure bizitzaren jabe. Oskar Arana

Bere sabelean minez eramandako seme-alaba guztiak, **denbora gutxiren buruan**, are eta min handiagoz hilobian utzi behar izaten zituen. Askoren artean

## 16 *denbora irabazi*

-Pentsatuko dut -agindu nien, **denbora irabazteko**, nahiz eta garbi eduki ez nintzela joango eta ahaleginak egingo nituela Idoia ere joan ez zedin-. Juan Kruz Igerabide

Erantzun aproposaren bila **denbora irabazteko**, ez nintzela oroitzen esan nion. Ramon Saizarbitoria

**Denbora irabazteko** taktika zaharra. Jon Alonso

Maiatza iritsi zen, eta liburuak irensten hasi zen Andres, ea horrela galdutako **denbora irabazten** zuen. Josu Zabaleta

Era horretan beste edonola baino **denbora** gehiago **irabaziko** dut. Koro Navarro

Produktibitatea, bestalde, eginkizunen espezializaziotik dator, espezializazioari esker aski **denbora irabazten** baita. Koro Navarro

**Denbora irabazi** beharra daukazu, eta irabazten den denbora diruz bakarrik irabaz dezakezu, zure denboratxoa salduz irabazitako diruaz, hain oker ere. Iñaki Segurola

## 17 *denbora luzean*

**Denbora luzean** egon zen galtzontzilotan bulegoan, Miarritzeko kluba gogoan. Migel Angel Mintegi

**Denbora luzean** izan zen Dabid Israelgo errege. **Denbora luzean** zutik geldi dagoen pertsonak ez dio behar hainbat lagunduko odolari. Jose Antonio Mujika

Oso **denbora luzean** aritu zen bi masailak xaboiz igurtzitzen. Jose Morales

Etxe-barruan **denbora luzean** egoten edo etsitzen ikasia. Iñaki Segurola

Orratzak **denbora luzean** eduki behar ziren, mugitu gabe; itxaron egin behar zen, haiek leku buxatuak zulatu arte, odola berriz ibil zedin. Juan Kruz Igerabide

Besteak ez dira **denbora luzean** geratuko. Koro Navarro

Ahaztu egin nintzen listariaz **denbora luzean**, eta gero, aurkitu nahi izan nuen batean, ez zen haren arrastorik ere azaldu Iruaingo etxean. Bernardo Atxaga

Halaxe egon ginen, ezpainak itsatsita, **denbora luzean**, bietako inork atzera egin gabe, ahoa erdi zabalik, arnasaren lurruna elkarri emanez. Juan Kruz Igerabide

Oroitzen nuen nola zebiltzan putzuan katutxo jaioberri batzuk igerian, larri, harrizko horman gora igotzen saiatuz, berriro eroriz, eta berriro indar guztiekin igeri eginez, **denbora luzean**, harik eta, akiturik, putzuaren erdiko zurrunbiloak irentsi eta betiko murgildu ziren arte. Juan Kruz Igerabide

Ondo entrenatutako atleta batek **denbora luzean** manten dezake 0,4 edo 0,5 zp-ko indar jarraitua. Irene Aldasoro

Azalpen ona zirudien, eta hari eutsi nion **denbora luzean**. Bernardo Atxaga

Kruasanak jatea turkoak iraintzeko modua izan zen **denbora luzean**. Anjel Lertxundi

· Halaz guztiz, uste baino **denbora luzeagoan** eutsi zion bizimodu hitsari. Migel Angel Mintegi

Sofi **denbora** tarte **luzean** egon zen geldirik zaldiaren ondoan: isilik, harriturik, izutuxea. Fernando Rey

## 18 *denbora-pasa*[1] *(197 agerraldi, 92 liburu eta 39 artikulutan; ETCn 1.657 agerraldi; orobat **denborapasa** 22 agerraldi, 15 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 203 agerraldi, eta **denporapasa** g.er.-izen nahiz adizlagun gisa-)* iz denbora modu atseginean igaroarazten duen gauza.

Ene **denbora-pasa** bakarrak: telebixtari so edo oinezko ibilaldi zenbait, ardurenik Angeluko itsasalderat. Janbattitt Dirassar

Arratsaldean ere izaten zituzten beren **denbora-pasak**: sugandilak eta arrabioak harrapatzen jardun, madariondora igo, landareak ureztatu. Josu Zabaleta

Zerrendak osatzea da **denbora pasa** hauetako eginbeharra. Iñaki Arranz

Izatez, maitasun film bat intelektualentzat bezalaxe naiz ni: **denbora-pasa** bat, aldi baterako jostagarria, laster ahaztekoa, berez gaizki ez dagoen, baina gutxiago izanda ere ongi legokeen gauza bat. Josu Zabaleta

Sophie ezagutu zuelarik, maitasunak bide berriak ireki zizkion, **denbora-pasa** berriak. Eneko Bidegain

Gizarteko aurrerapenek beste **denbora-pasa** batzuk eskaintzen dizkiete. Gotzon Garate

Labur esanda: zaletasunak baino gehiago **denbora-pasak** ditut nik, ezinbestekoak lan-mundutik kanpo bizi garenon egunak hain luzeak izanik. anatomiaz aspertzen nintzenen, hitz gurutzatuak betetzen aritzen nintzen, karpetan eramaten nuen **denbora-pasen** aldizkaritik. Xabier Montoia

· Bazirudien aspaldiko kontua zela, baina berriro **denborapasan** hasi nintzen. Xabier Olarra

Nire **denborapasako** irakurketa, berriz, zientzia eta abeltzaintzaren inguruko aldizkariz osatua da gehienbat. Xabier Olarra

## 19 *denbora-pasasup_2 adlag* denbora igarotzen.

**Denbora pasa**, nik ere hartu nuen Pariserat itzuli baten egiteko usaia, ardura larunbatarekin. Janbattitt Dirassar

Handik itzuli eta *Sightseeingboat* batera igo nintzen, **denbora pasa**, besterik gabe. Joxe Austin Arrieta

Uda honetan, **denbora-pasa** hartu ditudan liburu horietako bat Kunderaren nobela antzeko bat izan da, *La lenteur*. Xabier Mendiguren Elizegi

Bizkarreta, Linzoain, gero Erro: **denbora pasa**, hitz eta izen gureak ezpainetan atsegaleki darabiltzat. Piarres Aintziart

Ez dira egiten **denborapasa**, edota neskak harrituta uzteko! Javi Cillero

Ez gara haiengana **denbora-pasa** joaten. Arantxa Iturbe

Hamarrak arte geratu zen gurekin egongelan **denbora-pasa**, alde egin behar zuela ulertarazi ezin zitzaiola. Josu Zabaleta

Zorionez, eguerdia da; ez naiz gose, baina bazkaldu behar dut, **denbora-pasa**. Monika Etxebarria

Argi dauka lanean ari denean ez dela **denbora-pasa** ari. Ana Urkiza

## 20 *denbora-pasagailu*

Amatxi Koxepak badaki oraingo gazteek badituztela beren **denbora pasagailuak**. Eneko Bidegain

## 20a *denbora-tarte*

**Denbora tarte** hori, oro har hartuta, laburra dela eman lezake, baina oso luzea da zentzumenen beste lorpen batzuekin alderatzen baldin bada. Josu Zabaleta

6 hilabete eta 13 egun joan ziren zehazki **denbora tarte** horretan. Txillardegi

**Denbora tarte** batez ohe ertzean egon ginen eserita, eraztunari begira-begira. Ander Irizar

**Denbora tarte** batean Ararateko mendi-mazelari iratsia egon eta gero handik altxatu zen. Fernando Rey

"Ilunbarra baino **denbora-tarte** hoberik ez zagon mozkortzeko", esango zuen Stanek. Lopez de Arana

Ezerez huts eta ilun batean emana baitzuen oso-osorik **denbora tarte** zehazgabe hura. Juan Luis Zabala

**Denbora-tarte** labur horretan Tsin-go Cheng erregeak ordu arte bizirik zeuden beste sei erresumak eraitsi zituen. Iñaki Mendiguren

**Denbora tarte** luze batez, aita ere "frontean" izan zen niretzat, amak "eroria" zela erran zidan egun hura arte behinik behin. Alberto Ladron Arana

Urdaila beteta daukagunok, aldiz, gero eta **denbora-tarte** urrunagoetan pentsatzen dugu. Pako Aristi

## 21 *denboraren buruan*

**Denboraren buruan**, noizbait, batere funtsik gabe ikasi nuen baietz ba, Luixa Pariserat lekutua zela. Janbattitt Dirassar

Bada, horretara nindoan, orain, **denboraren buruan**, euskal idazle onak ditugula gure artean. Pello Salaburu

**Denboraren buruan** haziok ernaldu egiten dituk, zuhaitzaren enbor-adarrak dituztela lur, eta haren barruko zainetan dutela bizigarria. Edorta Jimenez

**Denboraren buruan** berritz zabaltzen didate atea eta, usaiako miaketaren ondotik, lehoien pasabidea harturik, banoa ibiltokira. Filipe Bidart

· Zenbait **denboraren buruan**, jatetxeko etxekanderearenganik ikasi nuen zer zen gertatua. Janbattitt Dirassar

Ez du asmatzen zer esan hainbeste **denboraren buruan**, batez ere Baionari behin betiko agurra eman ziola baieztatu zienetik lagun guztiei. Javi Cillero

## 22 *denborazko* ik *gorago* 2.

Gertaeren **denborazko** jarioa. Xabier Arregi

Jesukristoren **denborazko** jaiotza. Joan Mari Lekuona

Idazleari on egiten dio **denborazko** tarte bat jartzea gertatu zenaren eta oroitzen denaren artean. Anjel Lertxundi

**Denborazko** faktoreek ere eragin handia dute, ordea, ikusmenean. Josu Zabaleta

Sekulako aldeak daude denboran zehar emanez joaten den irudiaren (filma, bideoa) eta denbora iragankorrik ez duen irudiaren (margolana, grabatua, argazkia) artean: lehenengoak baizik ezin eman dezake **denborazko** ilusio sinesgarririk. Josu Zabaleta

Jarraitasun batez, **denborazko** iraunkortasun batez hornitua. Xabier Arregi

Badira denboran neutroak diren harremanak, adarrak, deribazioak; badira beste batzuk **denborazko** norabide mugatua inplikatzen dutenak. Xabier Arregi

Mendekotasun hau hierarkikoa izan daiteke bakarrik, baina **denborazko** bektore bat ere ekar dezake berarekin. Xabier Arregi

Sinbolo logiko gehiago sar genitzake hizkuntzan, hala nola eragile modalak ("posible" edo "beharrezko") edo **denborazkoak** (logika modala eta denboraren logika). Askoren artean

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**adina denbora** (37); **ahalik eta denbora** (24); **ainitz denbora** (16); **anitz denbora** (10); **arauzko denbora** (27); **aski denbora** (27); **aurreko denbora** (8); **azken denbora** (118); **azken denbora hauetan** (23); **azken denbora hautan** (21); **azken denbora hotan** (54); **aztertzeko denbora** (12); **badu denbora** (9); **baino denbora gehiago** (47); **baino denbora gutxiago** (9); **behar adina denbora** (8); **behar beste denbora** (10); **behar den denbora** (30); **behar duen denbora** (11); **behar duten denbora** (8); **behar duzun denbora** (10); **beharreko denbora** (10); **bere denbora guztian** (11); **bigarren denbora** (14); **bitarteko denbora** (14); **den denbora guztian** (10)

**denbora alferrik galdu** (34); **denbora alferrik galtzea** (18); **denbora alferrik galtzen** (24); **denbora anitz** (13); **denbora apur bat** (45); **denbora aski** (12); **denbora asko** (347); **denbora asko baino** (8); **denbora asko behar** (32); **denbora asko beharko** (11); **denbora asko da** (13); **denbora asko egin** (20); **denbora asko eman** (17); **denbora asko ez** (17); **denbora asko galdu** (13); **denbora asko igarotzen** (8); **denbora asko pasatu** (17); **denbora asko pasatzen** (9); **denbora askoan** (65); **denbora askoren** (8); **denbora askorik** (43); **denbora aurrera** (57); **denbora aurrera doa** (8); **denbora aurrera joan** (11); **denbora aurrera zihoan** (12); **denbora azkar** (8); **denbora baino** (21); **denbora bat** (58); **denbora batean** (80); **denbora bateko** (10); **denbora baten** (20); **denbora baten buruan** (8); **denbora batera** (72); **denbora baterako** (15); **denbora batez** (185); **denbora behar** (187); **denbora behar da** (27); **denbora behar du** (23); **denbora behar duela** (8); **denbora behar dugu** (9); **denbora behar dute** (13); **denbora behar izan** (31); **denbora behar izaten** (14); **denbora behar zuen** (9); **denbora beharko** (77); **denbora beharko da** (12); **denbora beharko du** (15); **denbora beharko zuen** (8); **denbora bera** (30); **denbora bera ere** (8); **denbora berarekin** (8); **denbora bere** (12); **denbora berean** (461); **denbora bete** (9); **denbora biziki** (8); **denbora da** (43); **denbora daramat** (8); **denbora determinazio** (11); **denbora dezente** (47); **denbora du** (8)

**denbora ederra** (38); **denbora ederra lagun** (9); **denbora ederrarekin** (8); **denbora eduki** (9); **denbora egin** (49); **denbora egin zuen** (22); **denbora egingo** (12); **denbora egiten** (9); **denbora egon** (16); **denbora eman** (68); **denbora emanez** (8); **denbora emango** (11); **denbora emateko** (9); **denbora ematen** (22); **denbora erdian** (11); **denbora erdiz** (20); **denbora errealean** (12); **denbora eskatu** (26); **denbora eskatu zuen** (8); **denbora eskatzen** (16); **denbora eskatzen du** (8); **denbora eta espazioa** (17); **denbora eta espazioaren** (10); **denbora eta leku** (9); **denbora falta** (18); **denbora frango** (10); **denbora franko** (10); **denbora galdu** (71); **denbora galdu gabe** (10); **denbora galdua** (9); **denbora galduaren** (15); **denbora galduaren bila** (11); **denbora galduko** (9); **denbora galtzea** (27); **denbora galtzeko** (15); **denbora galtzen** (46); **denbora gehiago** (278); **denbora gehiago behar** (49); **denbora gehiago beharko** (10); **denbora gehiago eman** (19); **denbora gehiago ematen** (16); **denbora gehiago eskatu** (8); **denbora gehiago galdu** (10); **denbora gehiago izango** (8); **denbora gehiago pasatzen** (8); **denbora gehiagoz** (23); **denbora gehiegi** (72); **denbora gehien** (46); **denbora gehiena** (63); **denbora gehienean** (15); **denbora gelditu** (16); **denbora goxoa** (9); **denbora guti** (65); **denbora guti barne** (45); **denbora gutiz** (18); **denbora gutxi** (159); **denbora gutxi barru** (18); **denbora gutxi behar** (8); **denbora gutxi izan** (12); **denbora gutxiago** (35); **denbora gutxiagoan** (9); **denbora gutxian** (146); **denbora gutxira** (47); **denbora gutxirako** (19); **denbora gutxiren** (20); **denbora gutxiren buruan** (18); **denbora guzia** (21); **denbora guzian** (38); **denbora guztia** (93); **denbora guztian** (423); **denbora haietako** (12); **denbora haietan** (18); **denbora handirik** (10); **denbora hartako** (19); **denbora hartan** (103); **denbora hartan guztian** (13); **denbora hartu** (38); **denbora hartu behar** (8); **denbora hartu zuen** (8); **denbora hartuko** (12); **denbora hartuz** (27); **denbora hartzen** (20); **denbora hau** (10); **denbora hauetan** (30); **denbora hautan** (35); **denbora heietan** (8); **denbora hetan** (17); **denbora honetan** (41); **denbora honetan guztian** (19); **denbora hori** (87); **denbora hori guztia** (8); **denbora horren** (9); **denbora horretan** (117); **denbora horretan guztian** (19); **denbora hortan** (13); **denbora hotan** (57); **denbora huntan** (23); **denbora hura** (20)

**denbora igaro** (40); **denbora igaro ahala** (16); **denbora igaro zen** (10); **denbora igarotzen** (9); **denbora irabazi** (24); **denbora irabazteko** (24); **denbora irabazten** (10); **denbora iragan** (17); **denbora iraun** (11); **denbora izan** (74); **denbora izan zuen** (8); **denbora izango** (34); **denbora jakin** (25); **denbora jakin batean** (9); **denbora jakinean** (13); **denbora joan** (46); **denbora joan ahala** (18); **denbora kontua** (45); **denbora kontua da** (12); **denbora kontuan** (8); **denbora labur** (22); **denbora labur barne** (8); **denbora laburra** (13); **denbora laburrean** (89); **denbora laburrez** (25); **denbora laburrik barne** (13); **denbora libre** (16); **denbora librea** (31); **denbora librean** (8); **denbora luze** (51); **denbora luzea** (185); **denbora luzea behar** (17); **denbora luzea beharko** (8); **denbora luzea da** (10); **denbora luzea egin** (8); **denbora luzea eman** (19); **denbora luzea pasatu** (10); **denbora luzea zeraman** (11); **denbora luzeago** (9); **denbora luzeagoa** (9); **denbora luzeagoan** (11); **denbora luzean** (200); **denbora luzean egon** (12); **denbora luzerako** (8); **denbora luzerik** (12); **denbora luzez** (193); **denbora luzez egon** (14); **denbora mugarik** (8); **denbora mugatu** (9); **denbora nahikoa** (20)

**denbora ona** (18); **denbora onak** (17); **denbora onena** (33); **denbora onenak** (14); **denbora orotan** (12); **denbora osoan** (43); **denbora osoko** (13); **denbora osoz** (32); **denbora pasa** (194); **denbora pasa ahala** (9); **denbora pasak** (12); **denbora pasako** (8); **denbora pasatu** (51); **denbora pasatu ahala** (14); **denbora pasatzeko** (24); **denbora pasatzen** (23); **denbora pixka bat** (63); **denbora pixka batean** (8); **denbora poxi bat** (14); **denbora puska** (83); **denbora puska bat** (27); **denbora puska batean** (24); **denbora puska batez** (8); **denbora puxka** (14); **denbora sobera** (20); **denbora tarte** (182); **denbora tarte bat** (12); **denbora tarte batean** (11); **denbora tarte batez** (9); **denbora tarte honetan** (14); **denbora tarte hori** (10); **denbora tarte horretan** (40); **denbora tartea** (16); **denbora txarra** (17); **denbora zeraman** (10)

**duela denbora** (23); **duela zenbait denbora** (12); **duela zonbait denbora** (15); **egin zuen denbora** (19); **egindako denbora** (11); **egiteko denbora** (37); **egon ginen denbora** (8); **egon zen denbora** (34); **egoteko denbora** (8); **emandako denbora** (13); **emateko denbora** (10); **ematen zuen denbora** (14); **espazio eta denbora** (11); **espazioa eta denbora** (60); **gainerako denbora** (9); **galdutako denbora** (26); **gazte denbora** (17); **gerezi denbora** (13); **gerla denbora** (8); **hain denbora gutxian** (22); **hain denbora laburrean** (10); **hain denbora luzean** (12); **hainbat denbora** (16); **hainbertze denbora** (10); **hainbeste denbora** (128); **halako denbora** (12); **handik denbora batera** (60); **handik denbora gutxira** (17); **haur denbora** (14); **horrenbeste denbora** (25)

**ia denbora guztian** (11); **idazteko denbora** (9); **igarotako denbora** (12); **iragan denbora** (13); **iraun zuen denbora** (17); **izan denbora** (8); **izan zen denbora** (14); **izan zuen denbora** (9); **izateko denbora** (9); **lan denbora** (17); **laneko denbora** (11); **lehen denbora** (15); **nahi adina denbora** (11); **nahiko denbora** (29); **nahikoa denbora** (47); **nahikoa denbora izan** (8); **nahikoa denbora izango** (9); **nire denbora guztian** (9); **oso denbora gutxi** (28); **oso denbora gutxian** (30); **oso denbora laburrean** (18); **pentsatzeko denbora** (17); **prestatzeko denbora** (13); **zenbait denbora** (44); **zenbat denbora** (272); **zenbat denbora behar** (27); **zenbat denbora beharko** (22); **zenbat denbora egin** (16); **zenbat denbora egingo** (12); **zenbat denbora eman** (17); **zernahi denbora** (9); **zonbait denbora** (28)

**afari denboran** (18); **azken denborak** (17); **bakantza denboran** (9); **bazkari denboran** (32); **ber denboran** (173); **bere denboran** (103); **bilkura denboran** (10); **denborak aurrera egin** (49); **denborak erakutsiko** (8); **denborak esango** (22); **denborak esango du** (20); **denboran atzera** (35); **denboran atzera egin** (9); **denboran aurrera** (12); **denboran barrena** (11); **denboran eta espazioan** (18); **denboran gertatzen** (14); **denboran zehar** (100); **denboran zehar gertatzen** (8); **espazioak eta denborak** (8); **gazte denborako** (32); **gerla denborako** (9); **haur denborako** (35)

**bere denboraren** (8); **egon zen denboran** (10); **espazioan eta denboran** (34); **garizuma denboran** (10); **gazte denboran** (79); **gerla denboran** (93); **gerra denboran** (25); **gure denboran** (11); **hainbeste denboran** (48); **haur denboran** (72); **horrenbeste denboran** (11); **iraultza denboran** (10); **iraun zuen denboran** (8); **kanpaina denboran** (12); **meza denboran** (36); **napoleon en denboran** (8); **neure denboran** (12); **pasatako denboran** (8)

**denboraren arabera** (23); **denboraren buruan** (67); **denboraren denboraz** (9); **denboraren eta espazioaren** (10); **denboraren joana** (8); **denboraren joanak** (12); **denboraren joanean** (24); **denboraren makina** (9); **denboraren poderioz** (87); **denboraren zati** (9); **denborarik eman gabe** (13); **denborarik gabe** (30); **denborarik gabeko** (9); **denborarik onena** (28); **espazioaren eta denboraren** (39); **ez dago denborarik** (10); **ez du denborarik** (15); **ez dugu denborarik** (10); **ez dut denborarik** (15); **ez dute denborarik** (8); **ez zuen denborarik** (14); **ez zuten denborarik** (8); **hainbeste denboraren** (10); **zenbait denboraren** (9); **zonbait denboraren** (9); **zonbait denboraren buruan** (8)

**denboraren denboraz** (9); **denboraz kanpo** (13); **denboraz kanpoko** (8); **hainbeste denboraz** (13); **zenbait denboraz** (19); **zenbat denboraz** (26)
**espazio denborazko** (8)

---

## denborabako *izond* denboragabea.

Altamira-ren nazioa -politikoa eta ezpolitikoa, historikoa eta **denborabakoa** - ekibokoa da, eta A. Rivero Rodríguez-ek haren kontraesan errepikatuak seinalatzen ditu. Joxe Azurmendi

Izpirituaren jarduna, dio Ortega-k, **denborabakoa** da (pentsamendu bakoitza, erabaki bakoitza, istantekoa da); arimarena, denboran iraunekoa (triste edo alai egon). Joxe Azurmendi

---

## denboradun *izond* denboraz hornitua.

Eta irudia **denboraduna** baldin bada, zer harreman dago kontaketaren denboraren eta irudiaren denboraren. artean? Josu Zabaleta

Kontzeptu hori aise heda daiteke, probetxu handiz gainera, aztertzen ari garen gai honetara, denboraren irudikapenera, bi irudi desberdinen artean -**denboradunak** izan zein ez izan- denborazko hutsarte edo eten bat dagoen guztietarako, denborazko egoera batetik bestera inolako jarraitasunik ezarri ezin daitekeen jauziak diren guztietarako. Josu Zabaleta

---

## denboragabe 1 *izond* denbora igarotzeak erasaten ez diona.

Imajinatzen ari ziren, beren onurarako, bizitza moderno osasuntsu, seguru eta gogobetegarria miragarriro present zegoela bat-batean hasitako orainaldi **denboragabean**. Iñaki Mendiguren

Eskubideak **denboragabeak** eta kulturgainekoak dira, gizakitzat hartzen dugun edozeinenak direlako, hain zuzen. Askoren artean

Dena dela, **denboragabeak** izanik ere, eskubide unibertsalak historian zehar eraiki eta formulatu dira. Askoren artean

Eta, azken buruan, mendiak edo ibaiak baino **denboragabeagoak** ziruditen teoremek! Jon Muñoz

Instituzioen "arrazoizkotasun" **denboragabe** abstraktua. Joxe Azurmendi

Urstoff **denboragabe** jator, bene-benetakoa, inguruko mendietako harri eta izotza. Juan Garzia

Jainkoaren ikuspen **denboragabe** eta betikoan. Iñaki Mendiguren

**2** ***denboragabeko*** *izlag* denboragabea.

Estoikoentzat Inperioko legeak ez dira giza konbentzioak [...] baizik, aldaezinak berak ere, **denboragabekoak**. Joxe Azurmendi

---

## denboragabetasun *iz* denboragabea denaren nolakoa.

Eta larrazkena zen eta, larrazken orotan bezala, arin zihoan denbora goiti-beheiti, baina mementu hartan ez, zeren atseden hartua baitzen **denboragabetasunaren** magalean. Joan Mari Irigoien

Intrahistoriaren metafora ia denek egona, pasibitatea adierazten dute, eta **denboragabe** eta zedarrigabetasuna. Joxe Azurmendi

Bukatu da **denboragabetasunaren** menia eta aurki beteko dira pisu guztiak auzotarrez. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## denboragaindiko *izlag* denbora igarotzeak erasaten ez diona.

Herri espainolaren barne-esentzia eternal hori da **denboragaindiko** intrahistoria bezala metaforizatu duena Unamu-no-k, egiaren toki eta osasunaren iturri zerugaindiko, Espainiaren gaurko gaixoarentzat erremedioa. Joxe Azurmendi

---

## denboragarren

Gerora, **denboragarrenean**, eta arian-arian, ikasi egin dugu. Iñigo Aranbarri

**Denboragarrenean**, ea amaitu duten galdetu du, eta baietz erantzun dutenen artean gizonezko bati agindu dio idazlana denek entzuteko moduan irakur dezan. Iñigo Aranbarri

**Denboragarrenera**, apal, eskaera hau: [...]. Koldo Izagirre

---

## denboral ik **tenporal**[1].

---

## denboraldi *(ETCn **59.970** agerraldi)* 1 *iz* halako denbora hedadura.

Zazpi urteko hirurogeita hamar **denboraldi** daude erabakita zure herriarentzat eta hiri santuarentzat. Elizen arteko biblia

Santuak dio Jainkoak jada eginik daukala etorkizun den guztia, nahiz eta milaka eta milaka urte behar izan hori gertatu ahal izateko, munduak **denboraldi** hori guztia iraungo badu behintzat. Joan Mari Lekuona

Horrela jokatu zuen Davidek filistearren artean bizi izan zen **denboraldi** guztian. Elizen arteko biblia

Dramaren hasieratik igarotako lau mende eta erdiko **denboraldia** desgokiro laburra dela eta bukatu gabeko prozesu baten aurrean gaudela. Iñaki Mendiguren

Juduek [...] K.a. 166tik K.o. 135era bitarteko hirurehun urteetan egindako hainbat matxinadarekin kontraste bizian, kristauak sekula ez ziren armaz matxinatu erromatar jazarleen aurka gutxi gorabehera luzera bertsuko **denboraldi** batean. Iñaki Mendiguren

Mundu sinikoan, adibidez, batasun politiko iraunkorra ezarri zuen lehen aldiz Tsin-go estatu inperiogileak hamar urte baino gutxiagoko **denboraldian**. Iñaki Mendiguren

24 urte kargutan zarela Saran, **denboraldi** horretan euskarak aitzinera ala gibelera egin du hemen? Herria

**Denboraldi** luzean dihardutén indar historikoek eragindako efektu bateratzailea. Iñaki Mendiguren

Gero, **denboraldi** bat geroago, urte batzuk geroago, itsua eta bera Venezian zeudelarik, [...]. Felipe Juaristi

Hurbildu zitzaion eta **denboraldi** batez biak elkarri begira geratu ziren, biak elkarren zantzuan, zirkin egiteke. Felipe Juaristi

Handik **denboraldi** batera jakin nuen, hain zuzen, Ivanen emaztea herrira itzuli zela haurrekin. Eskarne Mujika

Ama ikustera joaten ziren, hasieran behintzat, ospitale psikiatrikora, han egoten zen **denboraldi** luzeetan. Aitor Arana

Eta hurrena, biok ikasketak amaitzen ditugunean, **denboraldi** luze bat egingo dugu han: urtebete, bi urte... Juan Kruz Igerabide

**Denboraldia** zen frantsesak Moskutik oinez zihoazela ihesi. Felipe Juaristi

**2** aste edo hilabete batzuetako denbora hedadura, zerbait egiten edo zerbait gertatzen dena.

**-Denboraldi** batez Kanarietan bizi izan nintzen. Pako Aristi

Hala dela esan diot, **denboraldi** bat pasatzen ari naizela hemen liburu bat idazteko. Pako Aristi

Urtero joaten ginen hirurok amarekin **denboraldi** bat han pasatzera. Arantxa Iturbe

Jakina, udatiarrek edo turistek abuztuko Aste Nagusiko jaiak baizik ez zituzten ikusten -udako **denboraldiak** hiru hilabeteko iraupena izaten baitzuen-, eta ez San Sebastian egunekoa. Askoren artean

Demagun iniziazio-proba bat izan zela hura: uhartean **denboraldi** bat pasatzea, norberaren indar soiletara libraturik, inork ezer ez dakiela. Iñaki Iñurrieta

Hasieran **denboraldi** bateko ezkutaldia zena, luzatzen hasiko da. Joxean Agirre

Gurasoei ere esan diet, nahi badute etortzeko hona bizitzera **denboraldi** batean. Hasier Etxeberria

Gizonak, lanagatik, **denboraldi** luzeak eman behar izaten zituen kanpoan. Joxemari Iturralde

Ni zuenean ere **denboraldiak** egindakoa naiz. Arantxa Iturbe

Pariseko nire egonaldiari buruz ez zuen hitzik aipatu, eta nik ere ez nuen alferrik gezurrik esateko lanik hartu; besterik gabe, **denboraldi** hura existitu izan ez balitz bezala egin genuen. Ramon Saizarbitoria

Usherrek berak hala eskatuta, neronek lagundu nion **denboraldi** baterako hilobiratze haren prestakuntza lanetan. Koro Navarro

Kartzelan ere **denboraldi** batez eduki zuten preso, eta gero libre utzi zuten, kargurik gabe. Berria - Euskal Herria

**Denboraldi** honetako gripea azken urteetako arinenetakoa izan da Hego Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

## 3 jarduera jakin batek irauten duen denbora bitartea.

Dantza, musika eta antzerkia Baluarteko **denboraldi** berrian. Berria - Kultura

**Denboraldi** berria urrian hasi eta urtarrilean amaituko da. Berria - Kultura

**Denboraldi** osorako sarrerak nahi dituztenek datuak bidali beharko dizkiote Baluarte Fundazioari. Berria - Kultura

**Denboraldi** berrirako 2.600 abonamendu dauzka orkestrak, eta hori da muga. Berria - Kultura

Hori dela eta, musika klasikoa eta garaikidea uztartuko ditu programazioak, «eta gertuko musikak protagonismo berezia izango du **denboraldi** osoan», arduradunek atzo azaldu zutenez. Berria - Kultura

Bilboko Orkestra Sinfonikoak «klasikoaren eta modernoaren arteko programazio orekatua» eskainiko du 2004-2005eko **denboraldian**. Berria - Kultura

**Denboraldia** irailaren 31n hasi eta 2005eko ekainaren 10ean amaituko da. Berria - Kultura

Osasunako presidentetzara iritsiz geroztik, hirugarren **denboraldia** hastera doa Patxi Izkorentzat. Berria - Kirola

Sei **denboraldi** Espainiako ligako bigarren mailan egin ostean, lehen mailan da Iruñeko Osasuna taldea. Iñigo Aranbarri

43 punturekin amaitu zuen **denboraldia**, hamabigarren. Berria - Kirola

Westerveldek beste **denboraldi** baterako kontratua du. Berria - Kirola

Albertok hamaika **denboraldi** daramatza lehen taldean. Berria - Kirola

Naroa Agirrek **denboraldi** bikaina egin du pista estalian. Berria - Kirola

Decok eta Valeronek **denboraldi** hobeak egin dituzte, baina aulkian egongo dira. Berria - Kirola

Talde polita dauka, **denboraldi** txukuna egiteko modukoa. Berria - Kirola

**Denboraldi** izugarria izan baitzen hura niretzat, erabakigarria lehen taldera igotzeko, hogeita bost gol sartu ez nituen, bada [...] eta beste hainbeste eman!Osasunako gorritxoek **denboraldi** ona daramate, Ibex-35 indizeak bezala. Joan Mari Irigoien

Ortzegunero bezala, txotxeko **denboraldiak** irauten duen bitartean, Hernaniko Rezola sagardotegian hiru bertsolari ari dira kantuan afalondoan. Berria - Kultura

2003-2004 **denboraldian**, Hegoaldean, gripeak 100.000 pertsonako 546 kasuko tasa izan zuen gaina jo zuelarik. Berria - Euskal Herria

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Denboraldi** hasiera ikusgarria egin dute Valverdek, Vinokourovek, Julichek eta Contadorrek. Berria - Harian

**Denboraldi** hasieran aurkarien defentsa gogorrek bereziki sufrituarazi zioten arren, azken hilabeteetan asistentzia asko eman ditu sortzen duen aipatutako arretaren ondorioz. Berria - Harian

Bolada txarra bizi du ACB Ligan, **denboraldi** hasierako erritmo altua mantentzeko ezina dela-eta. Berria - Kirola

Tau Baskoniak Nicholas Drew fitxatuko du **denboraldi** bukaera arte ACBko azken txanpari aurre egiteko. Berria - Harian

Dena den, badakizu **denboraldi** amaieran kontuak aurkeztu beharra izaten dela. Berria - Kirola

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Ez gaude kirol **denboraldian**. Jon Muñoz

Bilboko Orkestra Sinfonikoaren 2004-2005 ganbera **denboraldia**. Berria - Harian

Rossiniren obraz gain, 'Salome' eta 'Erwantung' ere lehenengo aldiz ikusiko dira Bilboko elkartearen hurrengo opera **denboraldian**.'Marching Band' batek aurkeztu du jazz **denboraldia**. Berria - Kultura

Andorra La Vellako Udalak eratu du emanaldia, Musika eta Dantza **denboraldiaren** barruan. Berria - Kultura

Estropada **denboraldia** uztailean hasten den arren, taldeek lan luzea eginda izaten dute ordurako. Berria - Kirola

Ehiza **denboraldia** laburtzea; ehiza baimena lortzeko azterketa zorrotzagoak egitea. Berria - Euskal Herria

Aurtengo sagardo **denboraldiaren** lehen txotxa Periko Alonso Realeko jokalari ohiak eta bere seme Xabi eta Mikel Alonsok, Realeko jokalariek, egin zuten. Berria - Euskal Herria

Iazko indusketa **denboraldian** gertatu zena dute gogoan arkeologoek. Berria - Harian

Jende askok goi **denboraldian** egiten du lan, hoteletan edo turismoarekin lotutako beste jarduera batzuetan. Berria - Mundua

12 urte eta gehiago duten gaztentzat, ausagailuak eskainiak dira opor **denboraldian**. Herria

Astean 35 oreneko lan-**denboraldia** nola behar litakeen martxan ezarri. Herria

## 6 ***aurre-denboraldi*** *(9 agerraldi, 4 artikulutan)*

Zazpi jokalarirekin hasi du Baskoniak **aurre-denboraldia**, oraindik taldea osatzeke dagoen arren. Berria - Kirola

Josu Sarriegik **aurre-denboraldian** izan duen lesioak agerian utzi du atzelari baten falta. Berria - Kirola

**Aurre-denboraldiko** partidatan boladaka maila ona erakutsi duten arren. Berria - Kirola

## 7 ***denboraldi-aurre*** *(262 agerraldi, 167 artikulutan)*

**Denboraldi-aurrea** hasi da. Berria - Kirola

Sotak eta Lopezek jada egina dute **denboraldi-aurre** bat lehen taldearekin. Berria - Kirola

Emaitzei erreparatuta, **denboraldi-aurre** txukuna egin dugu: bost partida irabazi, bat berdindu eta bi galdu. Berria - Kirola

**Denboraldi-aurre** lasaia nahastu duen gauza bakarretakoa. Berria - Kirola

Uztailaren 19an hasiko du **denboraldi-aurrea**. Itziar Otegi

Motoen abiadura mugatzeari buruz **denboraldi-aurrean** piztu zen eztabaida airean da. Berria - Kirola

7 partida jokatuko ditu Osasunak **denboraldi aurrean**. Berria - Kirola

Uztailaren 26an **denboraldi-aurreko** egonaldia hasiko dute. Berria - Kirola

Kalitatezko fitxaketak egin arren (Rakocevic), **denboraldi-aurreko** partiden emaitza ez da aurreko urteetakoa izan. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

ari da denboraldi (9); ari den denboraldi (6); ariko dira denboraldi (5); athleticek denboraldi (10); athleticek denboraldi honetan (5); aurten denboraldi (6); aurtengo denboraldi (6); azken denboraldi (11); baina denboraldi (28); baina denboraldi honetan (9); beste denboraldi (34); beste denboraldi bat (5); beste denboraldi baterako (8); beste denboraldi batez (13); beste denboraldi batzuetan (6); bi denboraldi (53); bi denboraldi egin (9); bi denboraldi eta (6); bost denboraldi (12); da

denboraldi (74); da denboraldi aurrea (7); da denboraldi aurrean (5); da denboraldi hasiera (6); da denboraldi honetan (29); dela bi denboraldi (5); den denboraldi (18)

denboraldi amaiera (29); denboraldi amaiera arte (7); denboraldi amaieran (57); denboraldi aurre (24); denboraldi aurrea (72); denboraldi aurrea lehen (7); denboraldi aurrean (83); denboraldi aurreko (70); denboraldi aurreko azken (6); denboraldi aurreko lana (6); denboraldi aurreko lehen (8); denboraldi bat (50); denboraldi bat egin (5); denboraldi batean (38); denboraldi baten (6); denboraldi batera (7); denboraldi baterako (30); denboraldi baterako kontratua (7); denboraldi batez (74); denboraldi batzuetan (6); denboraldi berean (5); denboraldi berria (10); denboraldi berrirako (10); denboraldi bikaina (29); denboraldi bikaina egin (6); denboraldi bikaina egiten (10); denboraldi bikaina osatu (5); denboraldi bukaera (18); denboraldi bukaera arte (8); denboraldi bukaeran (21); denboraldi bukaerara (6); denboraldi daramatza (13); denboraldi egin (31); denboraldi egin ditu (11); denboraldi egin zituen (13); denboraldi erdian (7); denboraldi eta (9); denboraldi guztia (8); denboraldi guztian (28); denboraldi hartan (21); denboraldi hasiera (70); denboraldi hasiera honetan (9); denboraldi hasierako (54); denboraldi hasierako helburua (8); denboraldi hasieran (128); denboraldi hasieratik (41); denboraldi hau (22); denboraldi honen (10); denboraldi honetako (42); denboraldi honetako lehen (5); denboraldi honetan (396); denboraldi honetan egin (6); denboraldi honetan ere (5); denboraldi honetan ez (13); denboraldi honetan jokatu (10); denboraldi honetan lehen (14); denboraldi honetarako (5); denboraldi hori (5); denboraldi horretan (17); denboraldi hura (5); denboraldi igaro (6); denboraldi ikusgarria (10); denboraldi kaskarra (5); denboraldi luze (17); denboraldi luze batez (5); denboraldi luzea (9); denboraldi luzeak (7); denboraldi ona (28); denboraldi ona egiten (7); denboraldi ona izan (7); denboraldi oso (18); denboraldi osoa (17); denboraldi osoan (50); denboraldi osoan zehar (7); denboraldi osoko (6); denboraldi osorako (5); denboraldi txarra (7); denboraldi txukuna (25); denboraldi txukuna egin (6); denboraldi txukuna egiten (6)

denboraldiz denboraldi (9); dio denboraldi (6); dira denboraldi (23); dira denboraldi honetan (7); ditu denboraldi (11); ditu denboraldi honetan (8); donostia denboraldi (11); du denboraldi (64); du denboraldi aurrea (12); du denboraldi honetan (18); duen denboraldi (10); dute denboraldi (26); dute denboraldi aurrea (8); egin duen denboraldi (6); egin zuen denboraldi (6); egingo dute denboraldi (5); eibarrek denboraldi (7); erakutsi du denboraldi (6); ere denboraldi (9); eta denboraldi (90); eta denboraldi amaieran (8); eta denboraldi hasierako (5); eta denboraldi honetan (17); ez da denboraldi (11); ez du denboraldi (5); gasteiz denboraldi (5); hamalau denboraldi (5); handik denboraldi (5); handik denboraldi batera (5); hasiko du denboraldi (10); hiru denboraldi (20); ia denboraldi (9); iaz denboraldi (6); iazko denboraldi (9); izan da denboraldi (8); izan zen denboraldi (5); lau denboraldi (9); orain bi denboraldi (19); orain denboraldi (5); orain hiru denboraldi (5); osasunak denboraldi (5); oso denboraldi (19); oso denboraldi ona (7); realak denboraldi (13); realak denboraldi honetan (9); sei denboraldi (13); taldea denboraldi (5); taldeak denboraldi (12); zazpi denboraldi (7); zen denboraldi (24); zen denboraldi batez (7); ziren denboraldi (5); zituen denboraldi (5); zuen denboraldi (29); zuen denboraldi aurrean (6); zuen denboraldi hasieran (6); zuten denboraldi (7)

amaitu zuen denboraldia (7); ari den denboraldia (6); aurreko denboraldia (14); aurtengo denboraldia (22); azken denboraldia (11); baina denboraldia (7); bigarren denboraldia (20); bigarren denboraldia du (10); bosgarren denboraldia (7); da denboraldia (33); da denboraldia amaitu (5); datorren denboraldia (11); den denboraldia (18)

denboraldia amaitu (71); denboraldia amaitu arte (29); denboraldia amaitu bitartean (13); denboraldia amaituta (18); denboraldia amaitzear (5); denboraldia amaitzeko (34); denboraldia amaitzeko geratzen (5); denboraldia arte (7); denboraldia bukatu (40); denboraldia bukatu arte (18); denboraldia bukatuta (13); denboraldia bukatzeko (6); denboraldia da (11); denboraldia du (49); denboraldia du lehen (5); denboraldia egin (8); denboraldia egiten (9); denboraldia egiten ari (7); denboraldia eta (5); denboraldia ez (16); denboraldia ez da (11); denboraldia hasi (71); denboraldia hasi aurretik (24); denboraldia hasi zenetik (20); denboraldia hasiz (5); denboraldia hasteko (13); denboraldia hastera (5); denboraldia izan (9); denboraldia izango (11); denboraldia luzea (10); denboraldia luzea da (7); denboraldia ondo (7); denboraldia ondo hasi (5); denboraldia osatzen (5); denboraldia oso (13); denboraldia prestatzen (14); denboraldia txarra (5); denboraldia zen (8); denboraldia zuen (5)

dira denboraldia (14); dira denboraldia amaitzeko (13); du denboraldia (50); du denboraldia amaitu (10); dute denboraldia (6); ehiza denboraldia (5); eta denboraldia (18); geratzen dira denboraldia (7); hasi du denboraldia (10); hasi zuen denboraldia (9); hasiko da denboraldia (6); hirugarren denboraldia (11); hirugarren denboraldia du (6); hurrengo denboraldia (12); iragan denboraldia (8); jokatuko du denboraldia (7); lehen denboraldia (17); lehen denboraldia du (6); rally denboraldia (5); seigarren denboraldia (5); sekulako denboraldia (10); urteko denboraldia (5); zen denboraldia (9); zortzigarren denboraldia (5); zuen denboraldia (26)

bi denboraldiak (5); denboraldiak aurrera (7); denboraldiak aurrera egin (5); denboraldiak taldean (6)

aurreko denboraldian (95); aurreko denboraldian espainiako (5); aurtengo denboraldian (99); azken denboraldian (10); bigarren denboraldian (21); da datorren denboraldian (18); datorren denboraldian (197); datorren denboraldian ere (11); datorren denboraldian europako (6); datorren denboraldian europan (10); datorren denboraldian ez (5); datorren denboraldian lehen (9); datorren denboraldian osasunan (6); datorren denboraldian txapeldunen (5); datorren denboraldian uefa (7); den denboraldian (85)

denboraldian baino (5); denboraldian bezala (5); denboraldian bigarren (5); denboraldian egin (6); denboraldian egindakoa (5); denboraldian ere (24); denboraldian espainiako (10); denboraldian europako (7); denboraldian europako lehiaketak (5); denboraldian europan (13); denboraldian europan jokatzeko (6); denboraldian ez (28); denboraldian ez duela (6); denboraldian iritsi (5); denboraldian izan (16); denboraldian jokatu (10); denboraldian lehen (20); denboraldian lehen mailan (9); denboraldian lortu (5); denboraldian osasunan (7); denboraldian realean (5); denboraldian talde (5); denboraldian txapeldunen (13); denboraldian txapeldunen liga (7); denboraldian uefa (8); denboraldian zehar (23)

aurreko denboraldiaren (5); den denboraldiaren (5); denboraldiaren amaieran (12); denboraldiaren azken (7); denboraldiaren azken txanpan (6); denboraldiaren bigarren (7); denboraldiaren hasieran (9); denboraldiaren lehen (9); du aurreko denboraldian (5); du aurtengo denboraldian (8); du datorren denboraldian (26); du hurrengo denboraldian (6); dute datorren denboraldian (6); eta aurreko denboraldian (6); eta datorren denboraldian (14); eta denboraldian (10); heldu den denboraldian (31); hurrengo denboraldian (61); iazko denboraldian (10); iragan denboraldian (64); iragan denboraldiaren (5); joan den denboraldian (31); joan zen denboraldian (12); lehen denboraldian (33); pasa den denboraldian (15); zen denboraldian (13); zen iragan denboraldian (5); zuen denboraldian (5)

aurreko denboraldietako (7); aurreko denboraldietan (13); azken bi denboraldietako (6); azken bi denboraldietan (27); azken denboraldietako (15); azken denboraldietan (57); azken hiru denboraldietan (14); azken lau denboraldietan (7); bi denboraldien (5); bi denboraldietako (7); bi denboraldietan (56); bost denboraldietan (5); datozen bi denboraldietan (11); denboraldietan ez (10); denboraldietan izan (6); hiru denboraldietan (21); hurrengo bi denboraldietan (6); lau denboraldietan (16)

aurreko denboraldiko (33); aurreko denboraldiko azken (5); aurtengo denboraldiko (24); bi denboraldiko (5); da denboraldiko (14); da denboraldiko lehen (5); datorren denboraldiko (9); den denboraldiko (16); denboraldiko azken (43); denboraldiko azken jardunaldian (8); denboraldiko bere (13); denboraldiko bere lehen (6); denboraldiko bigarren (22); denboraldiko bolada (5); denboraldiko bosgarren (7); denboraldiko helburu (8); denboraldiko helburu nagusia (8); denboraldiko helburua (7); denboraldiko hirugarren (8); denboraldiko laugarren (9); denboraldiko lehen (110); denboraldiko lehen garaipena (20); denboraldiko lehen partida (8); denboraldiko lehenengo (11); denboraldiko maila (8); denboraldiko partida (25); denboraldiko partida garrantzitsuena (7); denboraldiko partidarik (7); denboraldiko seigarren (6); denboraldiko talde (5); denboraldiko taldea (5); denboraldiko une (13); denboraldiko unerik (18); denboraldiko unerik garrantzitsuena (5); donostia denboraldiko (5); du denboraldiko (11); du denboraldiko lehen (7); eta denboraldiko (22); eta denboraldiko lehen (8); iragan denboraldiko (46); iragan denboraldiko maila (5); joan den denboraldiko (13); kontra denboraldiko (5); kros denboraldiko (5); zen denboraldiko (5); zuen denboraldiko (6); zuen denboraldiko lehen (5)

aurtengo denboraldirako (13); azken bi denboraldiotan (10); azken denboraldiotan (16); bi denboraldiotan (10); bi denboraldirako (6); bi denboralditan (16); bi denboralditarako (5); bi denboraldiz (6); datorren denboraldirako (28); datorren denboralditik aurrera (5); denboraldirako kontratua (10); denboraldirako kontratua sinatu (8); denboraldirako taldea (9); denboraldirik onena (8); denboralditik aurrera (8); denboraldiz denboraldi (9); hiru denboraldirako (6); hiru denboralditan (10); hurrengo denboraldirako (19)

---

**denboraldiaurre** *iz* kirol denboraldi ofizialen bat hasi aurreko denbora-bitartea.

Iristear da azkenean apirilaren 18a motoziklismo **denboraldiaurre** hau orain arteko luzeena izan da, eta motoak ezpata bihurtu dira, ohorearen izenean egingo den borroka baten arma eta lekuko. Berria - Kirola

---

**denboralditxo** *iz* denboraldi laburra.

Ohandoko etxekoandreak etxe bat zeukan Altzateko auzoan, eta hara joana zen **denboralditxo** bat pasatzera. Koro Navarro

Pedro **denboralditxo** batez gelditu zen Jopen Simon izeneko larrugin baten etxean. Elizen arteko biblia

Gauza zoragarri hura milikatzen eman nuen **denboralditxoa**, berak nirea kementsu edoskitzen zuen bitartean. Juan Martin Elexpuru

Horren ondorioz, 1905eko matxinadaren ondoren **denboralditxo** bat eman zuen espetxean. Jose Morales

Eginkizun horrek **denboralditxo** bat entretenitu ninduen. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

denboralditxo bat (11)

---

**denborale** 1 *iz* ekaitza.

Trumoiaren burrunba isildu zen istant batean, eta **denborale** lazgarria, bide bihurgunea atzean utzirik, amildegiaren hondoetan galtzen ari zen. Karlos Zabala

**Denboralea** zetorren, baina ordu bitarako aterrunea bazen gutxienik. Josu Landa

**Denboralea** lehertu zen. Anjel Lertxundi

**Denboralea** igaro arte itxoin zuten eta sutondoan jarri ziren, denbora pasa. Koro Navarro

**denboraleak** eragindako arazoak konpondu arte lana «normal» egingo badute ere, egoera bere onera itzulitakoan, berriro aztertuko dutela egoera. Berria - Harian

Azkorria itsasontzi baten ibilerarekin alderatuko nuke; itsaso jabala eta haize onak gozatuko ditugu, baina, seguraz ere, **denboraleak** eta itsaso zakarrak ere; taldearen indarraz eta inguruaren elkartasunez aurpegi emango diegula espero dut. Berria - Ekonomia

**2** irud/hed

Ezer esan barik iraun zuen Mentxuk segundo batzuetan, baina ez hainbestetan elkarrizketaren jabe izatearren erabiltzen zuen taktikari amore emateagatik, sustrai-sustraitik zetorkion haserre-**denboraleari** badaezpadako hutsartea emateko baino. Josu Landa

---

denboraltze ik **tenporaltze**.

---

denborapasa ik **denbora 19**.

---

# denborapasagarritasun *iz* denborapasagarria denaren nolakotasuna.

Nobela hau, bada, bere laburtxotasun fisiko-kronometrikoari esker, **denborapasagarritasunezko** funtzio gaizto horretatik libre gelditzen da, eta horrenbestez, oso asko irabazten du, eta de facto egiten duena da denbora gutxi pasarazi, jan edo hil, eta ikaragarri jantzi eta atsegindu. Iñaki Segurola

---

# denboratasun *iz* denborari dagokionaren edo denboran gertatzen denaren nolakotasuna.

Zer ondorio izan dezaketen desorekek, **denboratasun** ezberdinek, iraupen ezberdinek. Xabier Arregi

Kristau-teologoen artean askok pentsatu zuten munduaren betikotasuna ezin dela razionalki ez frogatu ez ukatu, eta munduaren **denboratasuna** sinetsi egin behar dela Bibliari men eginez. Askoren artean

Bakarrik zegoenean, berehala itzaltzen ziren oroitzapenen intziri eta espantu haiek, eta Pontitok baretasuna iradokitzen zion: jenderik gabeko Pontito bat, liskarrik gabea, **denboratasunik** gabea. Xabier Olarra

---

# denboratxo *iz adkor* denbora.

**-Denboratxoa** darama horrela. Joxemari Urteaga

Apaizak **denboratxo** bat eman du lekukook geure onera itzul gaitezen. Anjel Lertxundi

Noraezean ibili zen **denboratxo** batean, bueltaka, eta azkenean aurkitu zuen Auzo Elkarteko kidea. Unai Iturriaga

Denbora irabazi beharra daukazu, eta irabazten den denbora diruz bakarrik irabaz dezakezu, zure **denboratxoa** salduz irabazitako diruaz, hain oker ere. Iñaki Segurola

Joritasun ikusmira hark isilik eduki gintuen **denboratxo** batean. Jon Maia

**Denboratxo** batez jarrita egon zen, burua txabolatik aterata, Darling andrearekin arrakasta horretaz hizketan. Julen Gabiria

**Denboratxoa** da, gaizkiulerturik gerta ez zedin eta soldatarik gabeko oro, hots, etxekoandreak, langabetuak, ikasleak eta abarrak kanpoan gera ez zitezen, Emakumeen Nazioarteko Eguna deitzen dela. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **denboratxo bat** (6); **denboratxo batera** (3); **denboratxo batez** (3); **denboratxoa behar** (3; **eta denboratxo** (5)

---

# denborazkotasun *iz* denboran gertatzen denaren, denborari dagokionaren nolakotasuna.

Bi determinazio horien arteko topagunea da, eta topaketa hori gertatzeko konfigurazioak dira, beraz, apailuaren **denborazkotasuna**. Josu Zabaleta

Ikusleak irudiarekin duen harreman "existentzialak" badu, beraz, espaziozkotasun bat, oro har espaziozko egitura orokorrari egotz dakiokeena; eta badu, horretaz gainera, **denborazkotasun** bat ere. eskegitze honen helburua da eraketa diskurtsiboen **denborazkotasuna** ezaugarritzen duten harremanak agerraraztea. Josu Zabaleta

---

# denda *(3267 agerraldi, 217 liburu eta 465 artikulutan; ETCn 74.903 agerraldi)* **1** *iz* jendaurreko salmentarako etxe edo lekua. ik **saltegi; saltoki**.

Alde batera **denda** bat, kafe etxe bat eta ogi labe bat zituen, eta bestera bazar bat eta beste **denda** bat. Patxi Zubizarreta

Hango eraikinei josi zien begirakunea: okindegia, Kirxaren kafea, osaba Kamilen **denda**, bizartegia, bazarra eta Raduan Husainiren etxea. Patxi Zubizarreta

Altzari-saltzailea, Colón de Larreategin *Versalles* **denda** daukana. Javi Cillero

Liskar bat izan nian **dendako** nagusiarekin. Lopez de Arana

**Dendako** enplegatu guztien uniformea janzten zuen. Aingeru Epaltza

-Ez naiz hemen geratuko; bezeroak ditut **dendan**. Jon Muñoz

Arropa zuriko **denda** batean saltzaile moduan lan eginez ateratzen zuen bizimodua. Koro Navarro

Erabilitako liburuen **denda** bat zen, nahas-mahasez mukuru betea eta gaizki antolatua. Oskar Arana

Bigarren eskuko salgaien **denda** bat zen hura. Josu Zabaleta

Carmarthenen erosi ditiat, bigarren eskuko **denda** batean. Koro Navarro

Zinemak, jolas-aretoak, tebeoak aldatzen zituzten **dendak**, [...]. Javi Cillero

Zapatari judu baten **denda** bisitatuko diagu. Anjel Lertxundi

Hantxe zabaldu zuten berandu gabe **denda**, lokala eskuratu eta hiru bat hilabetera. Merkataria **denda** zabaltzen ari zen. Joan Mari Irigoien

**Denda** txiki bat ireki zuen Glasnevin Roaden. Irene Aldasoro

**Denda** guztiak irekita zeuden. Karlos Zabala

Taberna itxi eta kirol-**denda** bat jarri beharko diagu... Joan Mari Irigoien

Bada ez, ez da albiste, **denda** txiki baten irekiera (edo itxiera) albiste ez den bezala. Pako Aristi

**denda** bikain bat zuzentzen genuen, badiotsuet, eta irabazi politak ematen zizkigun, gainera. Mirentxu Larrañaga

-**Denda** hutsik egon arte itxaroteko agindu dit. Karlos Zabala

**2** (izenondoekin)

Andre gaztearen ametsetan, **denda** moderno argitsu bat ageri zen, etxe dotoreetako aretoak bezain aberatsa, bere erakusleihoko beiren araztasuna kale zabal bateko espaloian erakusten zuena. Karlos Zabala

*International Stores* **denda** handiko goiko leihoan. Koro Navarro

Baiona Ttipiko **denda** itxietako erakusleihoek itzultzen zidaten irudiari erreparatu nion. Alberto Ladron Arana

Batelak alokatzen zituen egurrezko **denda** txiki bat. Aritz Gorrotxategi

Herriko edo auzoko **denda** txiki edo koxkorra: jenero gutxi baina klase askotako (ogia, opilak, lekaleak, laboreak, hestekiren bat, latak, etc.) eta marka bakarreko produktuak, ordutegi askea, prezio bizi edo oso biziak, [...]. Edorta Agirre

Horien ordez, self sistemaz funtzionatzen duten **denda** eskergak eta *fast food* txarra saltzen duten establezimenduak indartuz doaz. Edorta Agirre

Grand Avenueko **denda** famatuetan ez ezik, ustekabean eta aspaldiko partez, eliza batean ere sartu naiz, San Patrick katedralean hain zuzen. Patxi Zubizarreta

Patata frijituen italiar **denda** tentatzailearen ondotik igaroz. Koro Navarro

Jende ilarak ikusi nituen garraiobideen zain, jende ilarak **denda** hutsen aurrean zain. Jon Muñoz

**Denda** haustu eta zikinak beste izaera bat hartzen du norbaiten bisita espero duzunean. Patxi Zubizarreta

Malagako Auzitegiaren aginduz, 100 gimnasio, **denda** dietetiko bat, eta bost etxebizitza arakatu zituzten atzo. Berria - Gaiak

Portuko **denda** hippyan erositako poster handi bat. Anjel Lertxundi

Gero eta luzeagoak ziren kale pobreen lerro argituak, banan-banan desagertzen ziren **denda** keinukariak. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Denda** -mutil hasi zen Zabalguneko merkatu-plazako postu batean. Aingeru Epaltza

Erru guztia **denda** -lapur horrena duk. Fernando Rey

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Rambuteau kalearen izkinan, nobedade **denda** handiaren apal hutsen artean, enplegatu batzuk zeuden zutik. Karlos Zabala

Aurrealdean, liburu- **denda** eta garajea zeuzkan, patio batera ematen zuen korridore batek bereiziak. Jon Muñoz

Nekatuta zegoen liburu- **dendako** lanaldi luzeagatik. Jon Muñoz

Musika eta irrati **denda** erakargarria, ondo atondua. Lopez de Arana

Argazkia turistentzako souvenir **denda** batean egin genuen Sausalitoko kale estu batean. Bernardo Atxaga

Horretan XVII. mendeko italiar altzari bat begiztatu nuen zaharkin **denda** batean. Josu Zabaleta

"Odxela" izeneko moda- **denda** txiki bat zeukan Artekale-ko muturrean. Txillardegi

Montorgueil eta Montmartre kaleetan ere baziren janari **denda** eder-ederrak. Karlos Zabala

Gabon gauaren bezpera da eta delicatessen- **denda** bihurtutako ardandegi zaharra jendez gainezka dago. Iban Zaldua

Vienan kafe-etxeak bezala Marseillan kafe **denda** bat jarri baitzuten urte batzuk lehenago [...] Egiptotik ekarritako hainbat kafe-zaku saltzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hantxe, galtzadaren erdian, urdaitegi **denda** handi eder bat erakutsi zion begi bazterrez. Karlos Zabala

Hiriko animali **denda** guztietan ibili ziren antzeko katu baten bila. Patxi Zubizarreta

Quai de la Mégisserieko txori- **denda** handienetariko batean sartu zen Max. Jon Muñoz

Kontulari-lan bat erdietsi zuen oihal- **denda** batean. Oskar Arana

Giltzarrapo bat erosi nuen kinkila **denda** batean. Juan Kruz Igerabide

Xingola **denda** txikia modu onean eskualdatu zuen, eta, horri eskerrak, amaren zorrak kitatu zituen. Karlos Zabala

Las Vegasen tatuaje **denda** batera sartu zen. Patxi Zubizarreta

Biharamunean, bahitura **denda** batera eraman nuen kondesaren besokoa. Koro Navarro

Kanpotik edozein *grocery,* edozein denetariko- **denda** bezalakoa zen. Iñaki Zabaleta

· Goizean telebistako Bosgarren Kateari edo Tele- **Dendari** begira egoten nintzen (Tele- **Denda** deiturikoan egunero badira gauza harrigarriak), Jesus Mari Mendizabal

**5** ehunez, larruz... estaltzen den zuraje batez egindako etxola modukoa, leku batetik bestera eraman daitekena.

Ezin konta ahala **dendak**, larruz, feltroz edo zeta oihalez eginak, dirdai egiten zuten eguzki printzen argitan. Karlos Zabala

Bi mila tatariarrek zituzten han beren **dendak** ordena egokian jarriak, eta zaindari anitz zebilen erne inguruan. Karlos Zabala

Kirgiz ibiltarien leinu handiko tribu zenbaitek [...] Irtish eta Obi ibaien beste aldera aldatu zituzten beren **dendak**, inbaditzaileen harrapaketetatik ihesi. Karlos Zabala

Ilundu arte ibili ondoren, Tigris ibai ondoan jarri zuten **denda** gaua igarotzeko. Jose Antonio Mujika

Harith beduinoa eta bere emazte Nafisa batetik bestera ibiltzen ziren basamortuan zehar, eta leku jakinetan baino ez zuten kokatzen **denda** : gameluarentzako bazka, urputzua edo datil-palmondoak zeuden inguruneetan. Jon Arretxe

**6** kanpadenda.

Itxuraz, Cho Oyu gailurra jo zuen urriaren 13an (8.201 metro), eta beherantza zihoala, ekaitz batek harrapatu eta 7.800 metrora zegoen **denda** batean sartu zen. Berria - Kirola

Kanpinera iritsi bezain laster, motxila **dendan** utzi, arropa garbia hartu, eta dutxa hartzera joan naiz. Patxi Zubizarreta

Bertan bazkari legea egin, eta, **dendak** muntatzeko astirik gabe, Danek urjauziak ikustera eraman gaitu. Patxi Zubizarreta

Lau mila **denda**, hamar mila manta, botikak eta hainbat tona elikagai bidali zituzten kanpalekuetara astelehenean bertan. Berria - Mundua

Handik 50 metrora Gatumbako gunea ikusi genuen, *sheting*ak kiskalita (NBEko Errefuxiatuak Laguntzeko Agentziak egindako **denda** inprobisatuak) eta NBEren jeepez josita. Berria - Mundua

**7** jostunaren edo zernahi eskulangileren lantegia.

Eta "Xangrenekua" espartingilearen **denda** pasata, Plaza Zaharrean sartu nintzen. Txillardegi

Hartarako, larrugin- **denda** bat non bilatuko hasi zen. Matías Mujika

Joan da Pernando zapata- **dendara**, hartu du hauspo handi bat eta sartu du barruan larruak ondu eta gero geratzen den azal hori, ikaragarrizko kiratsa duena. Koro Navarro

**8** ***barazki denda*** *(orobat* ***barazkidenda****)* eskuarki barazkiak saltzen diren denda.

Hirian barneratu zen eta azkenik, **barazki denda** baten aurrean eseria, agure bat ikusi zuen. Patxi Zubizarreta

Arreta biziz begiratzen nien **barazki-denda** bateko ateaz bestaldean atzematen ziren zurezko kutxa iltzez, mahaspasaz, sufrez eta xaboiz beteei eta Moskuko gozoki lehorrez beteriko potoei. Jose Morales

Budek denda eta saltoki askotako erakusleihoetan pausatu zuen begirada: janaridendak, ikuztegi txinatarrak, jatetxeak, loradendak, **barazkidendak**, jostundegiak, gozotegiak. Lopez de Arana

**8a** ***denda-aurre*** *(19 agerraldi, 13 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 64 agerraldi; orobat* ***dendaurre*** *5 agerraldi 3 liburutan; ETCn 4 agerraldi)*

Ongi gogoan dut **dendaurre** baten kristalean islatua ikusi nuela: bezperako jertse grisarekin, urduritasuna igarri-igarrian, burua edonora jiratuz. Patxi Zubizarreta

**Denda aurrean** paratutako eserlekuan mugitzen da, pazientziarik gabe, armatuta dago. Jon Alonso

Ordu berean, Gamaliel Villalpandoren ama, Inés andrea, bere semearen **denda aurrean** karrika eskobatzen ari zela, han iritsi zen, eta ate itxi gabetik barrura sartu, Abundio Martínez. Juan Garzia

Eta gertatu zen Adjib, nahi gabe, bere aitaren **denda aurretik** igaro zela. Patxi Zubizarreta

**Dendaurretako** kristalak ispilu gisa erabiltzen nituenean. Patxi Zubizarreta

· Jaki- **denda aurre** guztietan (eta ez gurean bakarrik) usain berezi eta bitxiak egon ohi ziren. Txillardegi

Afaltzeko ezer ez duela gogoratu eta kale bukaerako janari- **denda aurrean** gelditu da. Alberto Barandiaren

**9** ***denda-jabe*** *(orobat* ***dendajabe*** *g.er.)*

Lasai, motellak, baretu zituen **denda jabeak**; azken bolada honetan negozioa baxu antzean dabil. Jon Alonso

Karriketako **denda-jabeek** biharamunerako ezertxo ere espero ez balute bezala, leku guztietan aurkitu uste nuen nik zahar kutsu bera. Txillardegi

Eskuarki hauek guztiok lurjabeak, merkatariak eta **dendajabeak** dira. Gotzon Garate

**Denda-jabeari** esandakoa errepikatu diot epaileari, damu itxura muturreraino eramanik. Joxerra Garzia

**10** ***denda-leiho*** *(orobat* ***dendaleiho****)*

**Denda**-leihotik pasatzen zen bakoitzean, eskerrak ematen zizkion nagusiari, isilpean. Jon Muñoz

Bakan joan ohi ginen elkarrekin hiribura, amatxokumeen gauza iruditzen zitzaien, jantzi turista izozki hondartza, **dendaleihoak** ikusten ibiltzearekin identifikatzen zuten hango espaloiak zapaltzea. Koldo Izagirre

**11** *denda-oste* ik **dendaoste**.

**12** ***denda-zulo*** *(orobat* ***dendazulo****)*

Osaba Kamilek aulki batean esertzeko usadioa zuen, bere **denda-zuloaren** atarian, eta lozorroan egoten zen, euli uxatzailea bularraldean hartua. Patxi Zubizarreta

Osaba Kamil bere **dendazuloaren** barnean zegoen, aulkian loak hartua. Patxi Zubizarreta

Bisita labur bat besterik ez zioten egiten etxe zahar kulunkarien beste etxadiari [...], erdipurdiko interesa baizik ez baitzieten pizten hango barraskilo biltegiek, hango barazki egosien saltokiek, hango barruki edo likore **denda zuloek**. Karlos Zabala

**13** *kanpa-denda* ik **kanpadenda**.

**14** ***kanpin denda*** *(**43** agerraldi, **12** liburu eta **16** artikulutan; ETCn **445** agerraldi; orobat* ***kanpindenda*** ***9*** *agerraldi, **5** liburutan; ETCn **17** agerraldi)* kanpadenda.

Zelaitxo batean zeukaten jarrita **kanpin**-denda. Joxemari Iturralde

Argazki nagusian, gazteak euritan **kanpin** denda artean Etxarri Aranatzen. Iñigo Aranbarri

Kaltetuek agerian igaro dute gaua, **kanpin** dendarik ez zutelako. Behin baino gehiagotan, Josefinak eraman behar izan dik **kanpin**-dendaraino, ezin xutik egon-eta. Berria - Mundua

**Kanpindendaren** kanpoaldean zigarro bat erdibana erretzen ari ziren bi soldaduetako batek. Harkaitz Cano

· Praketako poltsikoetan bilatu nuen... eta zerrikume hark egundoko **kanpin**-denda zeukan jadanik! Sonia Gonzalez

Halako batean esnatu, goxo-goxo gorputza eta... egundoko **kanpin-dendarekin** esnatu, *canadiense familiar* horietakoa bai, gutxienez. Joxean Sagaztizabal

**15** ***oihal denda****sup_1* oihalez eginiko denda.

Astebete egon nintzen kanpaleku nagusian, hogei oheko **oihal**-dendan [...] alta eman zidaten arte. Harkaitz Cano

**16** ***oihal denda****sup_2* oihalak saltzen diren denda.

**Oihal-denda** baten jabe zen merkataria, eta ardi-mozketa bere aurrean egin zezaten nahi izaten zuen, faltsifikazioak saihestearren-edo. Xabier Aranburu

Ostiralero bezala, otoitz orduan, bere aitaren **oihal-denda** zaintzen zegoen Mamu, hura meskitan zen bitartean. Juan Kruz Igerabide

Izen berri kristaua hartuta, kontulari-lan bat erdietsi zuen **oihal-denda** batean. Oskar Arana

-Zatozte, zatozte! -zioen, gizalegezko keinu nabarmenak eginez, saltzaile batek **oihal-denda** baten aurrean. Jose Morales

**Oihal**-denda izandako elizaren portxean eserita, pixka bat edanda eta zeregin handirik gabe, gai zen gauza horietan pentsatzeko. Anton Garikano

**17** ***paper denda*** *(orobat* ***paperdenda****)* papera, idazteko gauzak eta kidekoak saltzen den denda. ik **papertegi**.

Enparantzaren bestaldeko **paper-dendan**, hainbat koaderno erakutsi zioten. Jon Muñoz

**Paper-dendaren** batean sartu eta, postalen bat erosteko aitzakian, italiera praktikatuko nuen dendariarekin. Anjel Lertxundi

Arratsalde batean Barchini zaharra iritsi zen apaizetxera, herriko **paperdendaren** jabea, alegia. Koldo Biguri

Amonak bilduak zituen liburuxka hartu nian, **paper denda** batera jaitsi ninduan eta osorik fotokopiatu nian. Jon Muñoz

Egindako lanaz harro, inprimatu eta **paper denda** bateko faxez igorriko zuen Alberdi jaunaren erredakziora. Unai Iturriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**altzari denda** (10); **argazki denda** (3); **arma denda** (3); **arropa denda** (24); **arropa denda batean** (4); **auzoko denda** (8); **baina denda** (3); **bere denda** (6); **beren denda** (3); **beste denda** (5); **bi denda** (3); **bitxi denda** (8); **bitxi denda bat** (3); **da denda** (6); **dagoen denda** (3)

**denda aldera** (4); **denda asko** (5); **denda askotan** (4); **denda atzera** (3); **denda aurrean** (11); **denda aurretik** (5); **denda barnean** (4); **denda barneko** (3); **denda barruan** (17); **denda barrura** (5); **denda bat** (83); **denda bat dago** (4); **denda bat ireki** (4); **denda bat jarri** (8); **denda bat zabaldu** (5); **denda bat zeukan** (6); **denda batean egiten** (9); **denda batean erosi** (3); **denda batean sartu** (6); **denda baten aurrean** (5); **denda baten bila** (3); **denda baten jabe** (3); **denda batera eraman** (3); **denda batera joan** (4); **denda batera sartu** (6); **denda berri** (5); **denda berria** (5); **denda dotore** (6); **denda erdi** (3); **denda erosi** (3); **denda espezializatuetan** (4); **denda eta taberna** (9); **denda gehienak itxita** (6); **denda guztia** (3); **denda guztiak** (5); **denda guztietako** (3); **denda guztietan** (6); **denda handi** (14); **denda handi batean** (3); **denda handian** (3); **denda handien** (3); **denda ireki** (8); **denda irekiko** (3); **denda irekita** (3); **denda itxi** (25); **denda itxi ondoren** (4); **denda itxita** (8); **denda izan** (3); **denda izango** (3); **denda jarri** (7); **denda kendu** (3); **denda on** (4); **denda ostean** (4); **denda osteko** (3); **denda saldu** (5); **denda txiki** (28); **denda txiki bat** (10); **denda txikia** (6); **denda txikiak** (6); **denda txikian** (3); **denda zabaldu** (8); **denda zabalik** (4); **denda zahar** (3); **denda zeukan** (3); **dendarik denda** (6); **dendaz denda** (15); **dendaz denda ibili** (4)

**disko denda** (4); **fnac denda** (4); **gauzen denda** (4); **harryren denda** (3); **herriko denda** (5); **hestebete denda** (3); **hire liburu denda** (3); **inguruko denda** (4); **izeneko denda** (4); **jaki denda** (4); **janari denda** (21); **janari denda bateko** (3); **jantzi denda** (7); **jarri dituzte denda** (3); **kaleko denda** (6); **kaleko denda batean** (3); **kanpin denda** (18); **kirol denda** (13); **kirol denda bat** (6); **liburu denda** (127); **liburu denda bat** (16); **liburu denda batean** (9); **liburu denda itxita** (3); **liburu denda on** (3); **liburu denda txiki** (3); **liburuen denda** (3); **lurrin denda** (11); **moda denda** (3); **musika denda** (3); **oihal denda** (8); **paper denda** (3); **salgaien denda** (3); **saltzen dituen denda** (4); **saltzen zituen denda** (6); **saltzen zituzten denda** (3); **sonbrailu denda** (3); **tabako denda** (10); **tabako denda bat** (3); **taberna eta denda** (3); **txori denda** (3); **zaharkin denda** (4); **zaharren denda** (3); **zapata denda** (6)

**arropa dendak** (5); **dendak eta eskolak** (4); **dendak ikustera** (3); **dendak itxi** (6); **dendak itxirik** (3); **dendak itxirik zeuden** (3); **dendak jaiegunetan** (3); **kanpin dendak** (13); **liburu dendak** (13)

**bere dendako atean** (3); **dendako andreak** (3); **dendako atarian** (4); **dendako atea** (5); **dendako atean** (9); **dendako atearen** (4); **dendako atetik** (3); **dendako bazter** (3); **dendako diru kutxaren** (4); **dendako emakumeak** (3); **dendako erakusleihoan** (4); **dendako erakusleihoari** (3); **dendako erakusleihoari begira** (3); **dendako jabea** (3); **dendako jabeak** (5); **dendako kristala** (3); **dendako nagusiak** (4); **dendako neskameak** (3); **janari dendako** (10); **kirol dendako** (4); **liburu dendako** (26); **lurrin dendako** (8); **roma dendako** (5); **tabako dendako** (10)

**andrearen dendan** (3); **beiraki dendan** (3); **dendan egin** (3); **dendan egindako** (3); **dendan erosi** (3); **dendan erositako** (6); **dendan erosten** (3); **dendan esnatu** (3); **dendan ikusi** (3); **dendan jarraitzen** (3); **dendan lan egiten** (5); **dendan lanean** (4); **dendan sartu** (29); **dendan sartu zen** (8); **dendan sartzen** (5); **dendan utzi** (5); **dendan zegoen** (4); **fnac dendan** (3); **janari dendan** (9); **kanpin dendan** (3); **liburu dendan** (35); **liburu dendan erositako** (3); **licores bravos dendan** (3); **lurrin dendan** (4); **mattin dendan** (5); **oihal dendan** (3); **osabaren dendan** (3); **saltzaile baten dendan** (3); **sartu zen dendan** (4); **sartu ziren dendan** (3); **tabako dendan** (7); **txori dendan** (3); **zapata dendan** (8)

**dendara eraman** (3); **dendara erretiratu** (3); **dendara etorri** (3); **dendara iritsi** (3); **dendara itzuli** (6); **dendara jaitsi** (7); **dendara joan** (32); **dendara joan zen** (5); **dendara joango** (3); **dendara joateko** (5); **dendara joaten** (7); **dendara sartu** (23); **dendara sartu zen** (4); **dendarako bidean** (3); **liburu dendara** (19); **liburu dendara sartu** (5); **lurrin dendara** (4); **rakelen dendara** (5); **tabako dendara** (7); **txori dendara** (3); **zapata dendara** (4)

**auzoan zuen dendaren** (3); **dendaren aitzinean** (3); **dendaren atzealdean** (10); **dendaren atzealdeko** (5); **dendaren atzealdera** (4); **dendaren atzeko** (3); **dendaren aurrean** (21); **dendaren aurretik** (6); **dendaren aurretik igarotzen** (3); **dendaren barruan** (7); **dendaren gainean** (5); **dendaren gainean bizi** (3); **dendaren gaineko** (3); **dendaren jabea** (5); **dendaren jabeak** (5); **dendaren kanpoaldean** (6); **dendaren kargu** (5); **dendaren ondoan** (3); **dendarik denda** (6); **liburu dendaren** (22); **liburu dendaren aurrean** (3); **liburu dendarik** (3); **roma dendaren** (5)

**arropa denden** (3); **dendatik alde egin** (4); **dendatik atera** (8); **dendatik atera zenean** (3); **dendatik ateratzen** (3); **dendatik desagertu** (3); **dendatik irten** (16); **dendatik irten zen** (6); **dendatik irteten** (4); **dendatik irteten ikusi** (3); **dendatik irteterakoan** (3); **dendatik joan** (3); **dendatik kanpora** (4); **dendaz denda ibili** (4); **dendei tiro egin** (3); **denden artetik** (3); **denden aurretik** (3); **denden urteko fakturazioaren** (3); **irten zen dendatik** (4); **liburu dendatik** (6); **liburu dendaz** (4); **liburu dendek** (5); **liburu denden** (15)

**dendetako ateak** (3); **dendetako erakusleihoak** (5); **janari dendetako** (3)

**altxatutako dendetan** (3); **arropa dendetara** (3); **dendetan aurki** (4); **dendetan erosi** (3); **dendetan salgai** (4); **dendetan saltzen** (4); **dendetan sartzen** (4); **dendetara eraman** (3); **dendetara joaten** (4); **iritsiko da dendetara** (4); **liburu dendetan** (27); **liburu dendetan salgai** (3); **liburu dendetara** (12); **ohiko dendetan** (3)

---

## dendagune *(orobat **dendagune**)* *iz* denden gunea.

Militarren ohiko ezinegonari ere aurre egin behar izan zion iaz: 300 bat soldaduk Manilako **dendagunea** hartu zuten. Hiriko **denda guneko** Oktogono plazan dago (Pest), etorbidea zeharkatzeko zain. Berria - Mundua

---

dendajabe ik **denda 9**.

## **dendakide** *iz* denda berekoa.

Espero ez bezala, gaurko gosariko albisteak zaldiek eragindako gihar minak edota egunsentia izan beharrean (biak ere ongi nabarmentzeko gisakoak), Luis izan da, eta Rubenek, haren **dendakidea** izaki, jakinarazi digu: Patxi Zubizarreta

---

## dendaleiho ik **denda 10**.

---

## dendaltza ik **dendaritza**.

---

### **dendaño** *iz* denda txikia, dendatxoa.

Ikaratzeko moduko astinduak ematen dizkio haizeak gure **dendaño** ezdeusari. Xabier Montoia

---

## **dendaoste** *(corpusean **denda-oste** eta **dendoste** g.er. soilik; ETCn **15** agerraldi)* *iz* dendaren atzeko aldea; dendaren atzealdeko gela.

**Denda-ostean** gela txiki bat zegoen, lore horiko paperaz eta izokin-koloreko gortinez apainduta. Lopez de Arana

Filosofo bikain horrek Martyrs kaleko janari-denda bateko **denda-ostean** ikasi zuen arabiera! Jon Muñoz

Tea edaten zuten **denda-oste** eroso antolatuan. Jon Muñoz

Zapata-dendan elkartzen omen ziren neska eta agurea, eta Ixtaber alproja hark, libreago egoteagatik, edozein aitzakiarekin, **dendostera** bidaltzen zuen Pernando. Koro Navarro

Rigaudek kutxa erregistratzailea itxi eta kristalezko atetik **denda-ostean** sartu zen. Lopez de Arana

Garai bateko merkatariek bezala, lan orduak saltegi nagusiko **denda ostean** ematen zituen lagunen batekin tertulian. Ramon Saizarbitoria

Gero denda, **dendostea** eta etxea erakutsi zizkion Andresi. Josu Zabaleta

**Denda-ostera** gonbidatu zituen Habibik, ilobaren esku utzirik denda. joka ezazue bakarrik bazeundete bezala, gela batean, **denda osteko** gelan, egizue itxura inork ez dizuela entzuten. Jon Muñoz

Ederki nekien nik atexka hura Romako **denda ostekoa** zela. Alberto Ladron Arana

---

## **dendari** **1** *iz* denda duena, denda batez arduratzen dena.

**Dendaria** marrubiak paratzen ari da zumezko saski dotoreetan, miniaturetako antzerkitxo baterako atrezzoa balitz bezala. Alberto Barandiaren

Urteetan kafea erosi izan duen denda txikian **dendariak** ez ezagutuarena egiten dio. Oskar Arana

-Ez guztiz freskoa! -errepikatu zuen **dendariak**, zurbil-zurbil, ezpainak dardarka. Karlos Zabala

Ahapean hitz batzuk trukatu ondoren, biak, eroslea eta **dendaria**, dendako erditzaletara sartzen ziren. Alberto Ladron Arana

Beheko **dendariak** ez digu gehiago fidatu nahi, eta azken abisua dela esan dit administratzaileak, zor ditugun hilabeteak ordaintzen ez badizkiogu, sentitzen duela, baina... Iñaki Iñurrieta

Azokako **dendarien** mandatuak hara eta hona eramaten, lau txakur txikiren truke. Paddy Rekalde

Saltoki handien irekiera eteteko eskatu dute Bizkaiko **dendariek**. Berria - Ekonomia

Boulevarden «bertako **dendari** gehiago egotea» nahiko lukete elkarteko arduradunek. Berria - Ekonomia

Ez da izan filosoforik, nik dakidala, handizkako saltzaile edo **dendaririk**. Juan Garzia

**2** (izenondoekin)

**Dendari** txikiak, hainbat saltoki, loreak saltzen dituzten neska etsituak, soldaduak, poliziak, kabaretak, eta, seguru asko, baita prostitutak ere. Edorta Jimenez

Azkenean, **dendari** txiki-jatorraren aldeko artikulu negarti horiek sinatzen dituztenak, guztiok bezala, autoa hartu, eta hiri-periferian dagoen HiperEroski, Carrefour, Mammouth edo Pryca erraldoirantz abiatzen dira, asteko edo hilabeteko erosketak egitera. Iban Zaldua

Denak langileak eta **dendari** xumeak ziren familia batean ni nintzen karrera bat ikasten lehenengoa. Joseba Urteaga

Amaraun (Internet) bidez konektatuko gara **dendari** ibiltariarekin, ongi datorkigun astegun ilunabarrean behar ditugun produktuak ekar diezazkigun. Edorta Agirre

Adin indefinituko **dendari** txinoa. Joseba Sarrionandia

**Dendari** eta artisau juduen haurrek. Felipe Juaristi

-Ederra sartu ziguan **dendari** putakume horrek -Hausterrek. Iñaki Iñurrieta

· Postu hartan Tuilerietatik ateratako hondarrak baizik ez ziren saltzen, **dendari** andreak aldarrikatzen zuenez. Karlos Zabala

Tripa zorroa ondo betea dute burges horiek, betekada orokorrezko gobernu honi sostengua ematen dioten **dendari** gizon horiek. Karlos Zabala

**3** (izenondo gisa)

Berariaz eskatu nion emakume **dendariari** Nancy Mazzucchelli-ren marka zeramaten bitxi guzti-guztiak erakusteko. Oskar Arana

"Total, kalimotxoa egiteko da", esan diote bertako ardoa goratzen hasi zaien emakume **dendariari**. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (adizlagun gisa)

Eta zer egin zuen erreka jo zuenean?, **dendari** hasi zen lanean. Jose Morales

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

goizero-goizero elkartzen ziren han berriketan jardutera bulegari gazteak, **dendari** laguntzaileak, beren aiten bulegoetan lan egiten zuten gazteak edo burtsako ajenteen ikasleak eta abokatuak. Koro Navarro

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Katalogoa ez da ia aldatzen, eta aditua da kinkila **dendariekiko** tratuan. Iban Zaldua

Agustin Kirrimarrok ukitu *chica* eman dio arropa-**dendari**, eta ia bikoiztu egin ditu arropen salneurriak. Anjel Lertxundi

Uste zuen liburu-**dendari** baten laguntzaile bihurtzea nekez izan zitekeela egitasmo zirraragarria. Oskar Arana

Bederatziak jo eta laster agertu zen Schimek andre zaharra -Karl-Denk kaleko tabako-**dendaria**-, hitz-aspertu bat egiteko asmoarekin. Anton Garikano

**7** *ipar* jostuna.

Amak, **dendari** profesionala zenez, bazituen etxean hiruzpalau langile, Baigorriko burgesiako jende franko amak beztitzen zituen garai batean. Ana Urkiza

Ama Singer makinan ari zela, bere **dendariekin** josteko lanetan. Ana Urkiza

Hango emazteak **dendari** onak izanez, han erosi oihalarekin, arropa eta atorra koloretsuak eginaraziko dizkiote. Herria

Alabainan bi hauiek izan ziren joan den urtarrilean, Senegaleko Sadio herrira, 3 astez, hango emazte **dendari** talde batekin hitzegiten, eta proiektu berezi hunen bidean ezartzen. Herria

Pastoraleko arropak leküan berean eginik izanen dira, lan xehe hortan ariko direlarik 35 emazte **dendari**, Erramun Garzia Zabalegi Errenteriako (Gipuzkoa) ofiziozko

jostünaren lagüngoareki. Herria

Seroretako **dendari** -eskolatik pasatuak ziren. Itxaro Borda

Bizi osoa lanean eramana zuen, Parisko soto bateko **dendari** atelierrean. Itxaro Borda

Singer, Baionako enpresa, **dendari** tresna xaharrak eman dizkiguna Afrikara eramaiteko. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dendari batek** (3); **dendari baten** (3); **dendari eta** (8); **dendari hark** (3); **dendari onak** (3); **dendari su** (4); **dendariak bere** (3); **dendariak eta** (3); **dendariak ez** (5); **dendarik denda** (6); **dendarik ez** (6); **eta dendari** (6); **eta dendariak** (4); **eta dendariek** (7); **galdetu zion dendariak** (3); **herriko dendari** (3); **liburu dendariak** (3); **liburu dendarik** (3); **zion dendariak** (8); **zuen dendari** (4); **zuen dendaria** (3); **zuen dendariak** (10)

---

## dendarigo *iz* dendaritza.

Hiru gaztek berek egin bertsutan eskertu dituzte bereziki **dendarigoan** arizan diren presuna guziak, ikusteko ederrak baitziren arropak. Herria

---

## dendaritza *(orobat **dendaltza** g. er.) iz ipar* jostunaren lanbidea.

Ohartu gira arras miserian bizi direlarik ba dituztela gaitzeko trebetasunak **dendaritzan** . Herria

Sukaldaritzan trebe, **dendaltzan** halaber, nolaz ez kantari. Herria

Katiak margotu jantziak harturik, bai eta Baionako "Singer" **dendaritzako** tresna zenbaitekin. Herria

Angeluko **dendaritza** elkarteak moda desfile bat antolatzen du ostiral arrats honetan, seiak eta erditan, Herriko Etxeko besta gelan. Herria

---

## dendatxo *iz* denda txikia.

Orain urte batzuk, bigarren eskuko liburuen **dendatxo** batean nenbilela, nire ezagun baten sinadura ikusi nuen liburu baten kortesiazko orri zurian. Anjel Lertxundi

Sindikatuak debekaturik zeuden, eta langileak jantokian bazkaltzera behartu zituen, eta baita kontsumorako ondasun guztiak fabrikako **dendatxoan** erostera, prezio izugarri altuetan. Iban Zaldua

Nahiago nuke oihal zurizko lanak egiteko **dendatxo** bat eduki eta lanean jarraitu. Josu Zabaleta

Dogubayaziteko **dendatxo** batera eraman nau pasaportearen fotokopia pare bat egitera. Jon Arretxe

Tratuan aritu naiz merkatariekin **dendatxorik dendatxo** , presarik gabe, opari txiki ugari erosiz senide eta lagunentzat. Jon Arretxe

Beheko solairuan bada musika **dendatxo** bat, eta hor abangoardiako lanak, jazza eta halakoak saltzen dituzte. Edorta Jimenez

Brighton Beach-en liburu **dendatxo** bat daukan judu bat, Isaac Bergstein, oso adiskide dut. Gotzon Garate

---

## dendatzar *iz adkor* denda handia.

Kalera irteterakoan, sekulako **dendatzar** berri bat topatu dut Esnategi kaleko izkinan: "Abalia y Sagastume -Ultramarinos y comestibles finos". Txillardegi

- **Dendatzar** hauetan akats ttikiren bat duten arropa, kamerak, musika ekipoak... topatuko dituzue, guztia garantizatua eta txip baino txipago. Patxi Zubizarreta

---

## dendaurre ik **denda 8**.

---

## dendazulo ik **denda 12**.

---

## dendoste ik **dendaoste**.

---

## dendrina *iz* foraminifero bentoniko mota.

Izan ere, infekzioen kontra borrokatzeko gorputzak duen babes sistemaren zelula giltzarrietako bat dira **dendrinak** . Berria - Gaiak

Laborategian egindako saio batean jabetu ziren **dendrinek** egiten zuten lanaz. Berria - Gaiak

---

## dendrita 1 *iz* neuronaren protoplasmaren hedadura adarkatua.

**Dendrita** izeneko zelulek minutu gutxian erantzuten diote kanpotik etorritako birusen erasoari. Berria - Gaiak

Identifikatu ostean, erasoaren aztarnak nodulu-linfatikoraino eramaten ditu **dendritak** . Berria - Gaiak

Axoia hainbat adarretan banatzen da bere azken muturrean, eta adar horietatik transmititzen da seinalea ondoko neuronetara, zelularen atal nagusiaren inguruko **dendriten** bitartez. Irene Aldasoro

Ehunezko partikula biribilkara bat da zelularen gorputza, garro edo **dendrita** asko dituena. Irene Aldasoro

Behin sinapsia gainditu eta gero, azetilkolinak **dendritaren** zelula-mintzaren irazkortasuna aldatzen du eta horrenbestez beste nerbio-bulkada bat sortzen; nerbio-bulkada horrek ere beste sinapsi bat topatu arteko bidea egingo du, eta berriz hasiko da prozesua. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

**Dendrita** zelulek zaintzaile lana betetzen dute; organismo arrotzak identifikatu eta erne jartzen dituzte beste zelulak. Berria - Gaiak

Diesel motorrek sortutako kedar partikulek **dendrita** zelulei kalte egiten diela frogatu baitute. Berria - Gaiak

---

## dendu *iz* oreka.

Eta **dendua** galtzeko, marrazki bat, egunkari honetan inoiz atera den laidogarrienetakoa: diskoteka batean, hazpegiz zein jantziz egoki karakterizatuta, "gazte latinoak"; batzuk dantzan, besteak labanak aterata... Iñigo Aranbarri

---

## deneatu, denea, deneatzen du *ad* ezeztatu.

Mutilak sua piztu, jan eta loak hartu zuen, hain **deneaturik** , non ez baitzuen ezertan ere pentsatzen. Josu Zabaleta

Gauerdi aldera, ibiltzez nekatuta, esturak eta beldurrak **deneatuta**, loak hartu zuen azkenik aulki batean. Josu Zabaleta

Lehenengo Germano eta gero Nonis biak, **deneaturik** erori ziren lurrera. Josu Zabaleta

---

# denetariko 1 *izlag* mota guztietakoak dituena, denetarik duena. (gauzei buruz)

**Denetariko** jakiak eta tratu onena agintzen dituzte, «guztia txanpon zintzo gutxiren truke». Berria - Mundua

Zurgindegian **denetariko** egur-motak eta zurezko ontziak zeuden gorderik. Jose Morales

Hala ere, **denetariko** jarrerak piztu ditu immigrazioaren auziak. Berria - Mundua

Alderdi kontserbadoreen artean ere **denetariko** iritziak daude. Berria - Euskal Herria

**Denetariko** esperientziak bizi izan ditut irakaskuntzan. Joxerra Garzia

Txolindurik, **denetariko** ergelkeriak botatzen zituen bata bestearen atzetik. Jose Morales

Eta **denetariko** nekeak eta ezbeharrak opatu zizkion Nozdriovi. Jose Morales

Vivaldiren Gloria, ondoren tekno eta dance musika, antzerkia, poema irakurketa, Txaikovski, berriro teknoa, berriro dance musika, folklorea... **denetariko** nahasketa, nolabaiteko kultura ezaren adibidea. Edorta Jimenez

Biharamunean, trena abiatzekotan zela, geltokiko **denetariko** dendan [...] trapuzko tigrea erosi nuen. Edorta Jimenez

Auzirik korapilatsuenak garbitu zituzten, asko eta **denetarikoak**. Garai hartan printzeak beste arazo asko zituen kezkabide, **denetarikoak**, zein baino zein gogaikarriagoa. Jose Morales

· Kanpotik edozein *grocery,* edozein denetariko-**denda** bezalakoa zen. Iñaki Zabaleta

## 2 (bestelakoei buruz)

Burua **denetariko** txorien habia eginda. Edorta Jimenez

**Denetariko** saltzaileak. Xabier Montoia

Hortxe dira Agirren hitzaldia entzuten Sarekoak eta Sarekoak ez direnak, **denetariko** arrainak, eta baita begia kendu behar ez zaien faxistetako batzuk ere. Edorta Jimenez

Raskolnikek eta **denetariko** arloteek burua berotzen diete, boterearen kontra jartzen dituzte, boterearen eta ordenaren kontra, eta jendea aise matxinatzen da zapaldurik dagoenean. Jose Morales

**Denetariko** jendea, orotariko edariak, baina guztiek asmo bera: film pornoa ikustea. Xabier Mendiguren Elizegi

Lolo zaharra, patu txarreko boxeolari izandakoa eta orduan bertako garbitzaile eta **denetariko** morroi zurruteroa. Paddy Rekalde

Askotariko ekintzak prestatu dituzte aurten, **denetariko** publikoari zuzendurik. Berria - Kultura

Nire logian **denetarikoak** daude. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **denetariko amarruak** (3); **denetariko iritziak** (11); **denetariko iritziak daude** (3); **denetariko jendea** (9); **denetariko jendeak** (3); **eta denetariko** (18)

---

# denge *iz* eritasun epidemikoa, sukarrak, negelak, eta buruko eta giharretako minak ezaugarritzen dutena.

**Denge** birusak giza zelulei nola erasaten dien argitu du [...] ikertzaile talde batek. Berria - Gaiak

**Denge** birusaren 2 aldaerak izan ohi du proteina hori, azalean. Berria - Gaiak

**Dengea** eltxoen bidez zabaltzen den gaixotasuna da. Berria - Gaiak

AEBetan, adibidez, oso zabaldua dago intsektu hori, eta ez da **dengea** edo sukar horia duen inor agertu. Berria - Gaiak

Indonesian 91 lagun hil eta 4.500 inguru kutsatu dira **dengearekin**. Berria - Gaiak

Boliviaren iparraldean 118 dira jadanik **dengeaz** kutsatutakoak. Berria - Gaiak

Iaz, lehen 11 hilabeteetan, 43 lagun hil ziren **denge** gaitzak jota. Berria - Gaiak

**Denge** gaitza kezka iturri da munduko leku askotan, bereziki Karibe inguruan eta Erdialdeko Ameriketan. Berria - Gaiak

658 lagun hil dira Indonesian **denge** izurri baten ondorioz. Berria - Gaiak

---

# denominazio *iz* izendapena.

Ikuspuntu berbera zeukan erlijio bakoitzeko sekta bakoitzak bere senide ziren sekta guztien aurka; eta hainbat **denominazioren** jarrera honek -guztien artean komun zutena ez aitortu eta bakoitzak besteen errebindikazioak ez onartu nahi izatekoak- eman zion agnostikoari birao egiteko aukera. Iñaki Mendiguren

---

# denotatibo *iz* adierazlea.

Errealitatea ezin da erabat ordezkatu hitzen bitartez; hitzak berak ez du eduki **denotatibo** hutsik, konnotatiboa ere badu. Berria - Euskal Herria

Hartu berripapera, joan sailez sail aurrera, eta tituluak irakurriz, hor begiztatzen da nolabaiteko estilorik, aseptikoa gehienetan, orekatua, **denotatiboa**. Iñigo Aranbarri

---

# denotatu, denota, denotatzen 1 du *ad* adierazi, erakutsi.

Hitzak balio jakin bat du, eta horren araberakoa da **denotatzen** edo adierazten duena. Isabel Arrigain

Egiazko izen propioak, hots, izen logikoki propioak, **denotatu** egiten du soilik. Askoren artean

Izen propioak designatzaile zurrunak dira; designatzaile bat zurruna da baldin eta objektu bera **denotatzen** badu mundu posible orotan. Askoren artean

Halere, bada deskribapen zurrunik ere: "lauren erro karratua" deskribapenak, adibidez, zenbaki bera **denotatzen** du mundu posible orotan. Askoren artean

"Frantziako erregea"ren gisako deskribapen zehaztuak ulergarri lirateke nahiz eta ezer ez **denotatu**, hori osatzen duten terminoak ("Frantzia" eta "errege") zuzenean edota deskribapen bidez ezagutzen baititugu. Askoren artean

"Fikziozko" irudiak (zeinetan **denotatzen** dutena ez baita existitzen errealitateko munduan: adarbakoitzaren irudia, adibidez). Josu Zabaleta

Termino singular baten estentsioa berorrek **denotatzen** edo erreferitzen duen objektua da. Askoren artean

**Denotaturiko** substantziak hizkuntzaz bestekoak dira, eta errealitatearen munduari dagozkio (horma fisiko hori, esaterako). Isabel Arrigain

## 2 (era burutua izen gisa)

Horietan guztietan dago analogia, baina irudiaren bi **denotatu** bereizten baldin badira: **denotatu** konkretu bat, eredua dena, eta **denotatu** abstraktu bat, erreferentzia-prozesu osoarena dena. Josu Zabaleta

---

# denotatze *iz* adieraztea, erakustea.

Bere jarrera enpiristak direla eta, esanahiaren oinarrian **denotatzea** (eta ez "zentzua") dagoela defendatuz Russellek Fregeren "zentzua"ren nozioa baztertu nahi zuen.

Askoren artean

---

**denotazio** *iz* denotatzea.

Irudikapenaren gaia bera ere ez da guztiz garrantzizkoa, zeren irudikapenaren gai hori baino askoz ere gai zabalagoa eta oinarrizkoagoa den **denotazioaren** azpigai bat baizik ez baita, izatez. Josu Zabaleta

Ez dago **denotazio** soilezkoa den irudirik [...] irudi orok konnotazio asko bideratzen du, kode batzuen jokoaren arabera (kode horiek beroriek aldi berean ideologia baten mende daudelarik). Josu Zabaleta

Konstante bakoitzari unibertsoko elementu finko bat egokitzen diogu eta bere erreferentzia edo **denotazioa** dela esango dugu. Askoren artean

Interpretazio-eremua zenbaki arrunten multzoa bada, konstante baten **denotazioa** zenbaki arrunt finko bat izango da. Askoren artean

Deskribapen bidezko ezagutzaren oinarrian ezagutza zuzena dagoen bezala, deskribapen zehaztuen oinarrian **denotazioa** egongo da. Askoren artean

Russellek esanahi ororen oinarrian **denotazioa** dagoela defendatzen du. Askoren artean

Ideia egokia deitzen dut, bere baitan eta objektuarekin harremanik gabe ikusten den heinean, egiazko ideiaren propietateak edo **denotazio** intrintseko guztiak badituen ideia. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> denotazioa edo erreferentzia (3); edo denotazioa (3)

---

denpora ik **denbora**.

---

denporapasa ik **denbora 18**.

---

denso ik **dentso**.

---

**dentadura** *iz* hortzeria, hortz-haginak.

Etxera etorri zen bezain laster **dentadura** bat egin zuen, eta franko polita atera zitzaion. Patziku Perurena

---

**dentasun** *iz* denaren nolakotasuna.

Bestela esanda, dena bere hartan, **dentasun** edo guztitasuna bai beharbada, hura harrapa dezake eta menderatu, baina bestelako gauzarik ez, taxuzko gauzarik ez. Iñaki Segurola

Orduan, lausotasun horren erdian, edo gainean, edo are hobeki, hortik ihesi... dagoenetik **dentasunera** eramango gaituzten izen salbagarrien (izanaren heldulekuen) behar gorrian gara. Iñaki Segurola

---

**dentifriko** **1** *iz* hortzetako pasta.

Ispilutik **dentifrikoa** barreiatzen denean batez ere. Unai Elorriaga

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken **dentifriko**-tantak iturriko zulotik desagertu ostean, lanegunean pentsatzen hasi zen Matias. Unai Elorriaga

**Dentifriko** upats batean heldu zitzaizkion hitzak. Koldo Izagirre

Hats zorigaiztokoa atera zitzaion kedarrezko bulardun den Liskarrari, **dentifriko**-gabeziak kirasturiko ahotik. Xabier Olarra

**3** (izenondo gisa) hortzetako pastari dagokiona.

Iñaki Linazasoro zegoen sariak ematen, Tolosako alkate hautatu berria, bere irribarre **dentifrikoarekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**dentikulu** *iz* paralelepipedo angeluzuzen formako apaingarria, joniar ordenan eta bestetan frisoko goialdean lerrokaturik jartzen dena

Tarteko espazioari, grezieraz *metope* esaten zaio eta honela banatu behar da: **dentikuluak** bere altueraren erdia izan behar du, aurreko aldetik, zabalean; tartearen sakonera, berriz, izan dadila **dentikuluaren** aurreko aldearen hirutik bi adinakoa. Santiago Iruretagoiena

Antzinako eraikitzaileek ez zituzten ez onartu eta ez erabili modiloiak edo **dentikuluak** frontoietan, baizik eta erlaitzak bakar-bakarrik. Santiago Iruretagoiena

Erlaitzetan **dentikuluak** zizelkatuko balira [...]. Santiago Iruretagoiena

Esan beharko genuke **dentikuluak** direla obra joniarretan leihoen lekua betetzen dutenak. Santiago Iruretagoiena

Horregatik, obra grekoetan inork ez lituzke **dentikuluak** modiloien azpian jarriko, ez baita posible gapirioen azpian astazaldiak jartzea. Santiago Iruretagoiena

---

**dentista** **1** *iz* hortz-haginetako gaitzak artatzen dituen sendagilea. ik **odontologo**.

Atzo eguerditik ordubietara bitartean **dentistarengana** joan beharra nuen, Jan Luykenstraat kalera. Josu Zabaleta

-Ahaztu egin zitzaidan esatea: **dentistarenera** joan beharra dut, orain, hamabietan. Eider Rodriguez

**Dentistarenetik** kalera atera ginenean, Margotek eta amak dendak ikustera joan behar zutela esan zidaten. Josu Zabaleta

**Dentistaren** laguntzailea oso jatorra da zinez. Josu Zabaleta

Elkor eta zurrun jarri nintzen, **dentistaren** aulkian banengo bezala. Jon Alonso

Apartamentu txiki batean bizi ziren, **dentista** baten bulegoaren azpian. Koro Navarro

Unión kaleko egoitza kontsulta arruntetarako erabiltzen zuen, eta ez zuen bezeria urria izango Erregeren **dentista** izatearen kontu horrekin. Iban Zaldua

Houstongo Hilary Bryant 40 urteko **dentistak** ustekabean jakin zuen bere senarrak iruzur egiten ziola. Gotzon Garate

Gainontzeko umeek **dentista** pribatuetara jotzen dute. Berria - Euskal Herria

**Dentisten** eta oftalmologoen doako zerbitzua eskatu dute sindikatuek, eta emakumeentzat azterketa. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dusselek bere **dentista** kontsulta zabaldu du. Josu Zabaleta

Zutitu nintzen, salto egin nuen **dentista** -jarlekuan. Fernando Rey

Han **dentista** -besaulki bat zegoen, etzateko moduko aulki-bizkarrekoa, burua bermatzekoa eta guzti. Fernando Rey

AEBetako **dentista** elkarte baten arabera, haur askok erpurua zurrupatzeko duten ohiturak kalte larriak eragin ditzake hortzen garapenean eta lerrokatzean. Berria - Gaiak

### 3 *dentista-laguntzaile*

Haurrak jaio berritan hiltzea leporatu zioten amari, 40 urteko **dentista-laguntzailea** . Berria - Gaiak

Batita AROTCARENA 51 urte laborari, Florence BARNETO 27 urte **dentista laguntzaile** , Jean-Claude BIDART 29 urte mekanizier. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dentista bat** (4); **dentista baten** (3); **dentistarenera joan** (4)

---

## dentsifikatu, dentsifika, dentsifikatzen du *ad* dentsoago bihurtu.

Jendeen ohiturak aldatu eta bizilekuak **«dentsifikatu** » behar direla gehitu zuen.«Lur gutiagoren baliatzeko, herriek hartuko dituzten lege batzuk errespetatu beharko dira». Berria - Ekonomia

Horregatik, Lakuaren ustez, zonalde batzuk «berriro ere **dentsifikatu** beharra dago». Berria - Harian

---

## dentsitate 1 *iz* gorputz baten masaren eta bolumenaren arteko erlazioa.

Errusiar hondakinen orbita berean bazebilen beste objektu bat, tamainaz ez nolanahikoa, egia esan, baina **dentsitate** txikikoa hala ere -2,1 g/cm3-koa bakarrik-. Patxi Iturritegi

Isurkari hori gainean geratzen da, urak baino **dentsitate** txikiagoa izanik. Karlos Zabala

Aire hotzak **dentsitate** eta pixu handixeagoa duenez, beheruntz egiten du. Pello Zabala

Supermerkatuetako plastikozko poltsa arruntak polietilenoz eginak daude, **dentsitate** baxuko polietilenoz hain zuzen ere. Berria - Gaiak

Materia eta energia osoa izugarrizko **dentsitatea** zuen puntu batean kontzentraturik. Joxerra Garzia

Sarritan, energiaren **dentsitatea** hainbestekoa da, non goritasuna lor baitaiteke, eta argia igortzeraino iritsi baitaiteke. Fernando Morillo

### 2 irud/hed ik **trinkotasun**.

Halaz grisa da munduko kolorerik egiazkoena, zuria eta beltzaren nahasketa neurriak osatzen duelarik grisaren **dentsitatearen** oinarri arin nahiz sakona. Itxaro Borda

Itxura guztien arabera, garbi dago azterketa horrek **dentsitate** poetiko handiagoa salatuko lukeela egungo bertsolarien artean 1980. urtetik aurrekoen artean baino. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez dago inon hemen dagoen **dentsitate** kulturalik. Berria - Kultura

Sasoian dagoenak ez duela ikaragarriaren esperientzia, zein baita hitzei nolabaiteko **dentsitatea** eman diezaiekeen bakarra. Imanol Zurutuza

Manifestazioaren hasiera aldera noa lasterka, beroki polarren eta ikurrinen **dentsitatea** nahikoa iruditu zaidan multzo ibiltari bat topatu arte. Iban Zaldua

### 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kobrezko hariak baino korronte **dentsitate** 2000 aldiz handiagoak garraia ditzakete. Berria - Harian

Gehiegizko biztanle kontzentrazioek ingurumenari edo garapenari kalte egiteko arriskua dagoen lurraldeetan, edo biztanle **dentsitate** txikiak giza ingurumenaren hobekuntza galaraz eta garapena eragotzi dezakeenetan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Dentsitateak** hektareako 15 eta 30 etxebizitza bitartekoa izan beharko du. Berria - Euskal Herria

Jakina da, gainera, hiri **dentsitateak** armonikoa behar duela izan. Berria - Euskal Herria

"Hiri" hitzaz izendatzen duguna, sistema interkonektatu hori, jende eta zerbitzu **dentsitate** handi batekin-eta, hori mamitzen ari da. Bernardo Atxaga

Gaia entzun eta kantatzen hasi bitarteko tartea izaten da keinu-**dentsitate** biziena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gerrako arrisku **dentsitate** handia dago beraz. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baino dentsitate** (3); **baten dentsitate** (3); **dentsitate baxuko** (3); **dentsitate eta** (3); **dentsitate handia** (3); **dentsitate handiko** (3); **dentsitate poetiko** (4); **dentsitate poetikoa** (4)

---

## dentsitatedun *izond* dentsitatez hornitua.

Dentsitatea duen gorputz bat, beste dentsitate batekin, egurrarenarekin topatzen den arte baieztatzen ahal den gorputz **dentsitateduna** . Jon Alonso

---

## dentso (orobat **dentso** g.er.) *izond* dentsitate handikoa. ik **trinko**.

Zentro **dentso** horretara erakarritako materia guztia zulo beltz bihurtzen zen eta inguruko orbitako materia guztiak donut baten gisan biltzen zuen zentroa. Harkaitz Cano

Substantzia **dentsoago** bat, hala nola ura (edo beste edozein jariakin biologiko), ezin da hain erraz konprimitu. Irene Aldasoro

Titanen atmosfera **dentsoak** oso gutxi uzten du ikusten, opakoa baita hein handi batean. Berria - Gaiak

Gelatina baino **dentsoagoak** dira otolitoak, eta atzean geratzeko joera dute burua mugitzen denean. Irene Aldasoro

Keinu erabakior batez titia, elastikoa eta **dentsoa** , bere zorrotik atera zuen. Jon Alonso

Hiru bezerok ia guztiz betetzen zuten mostradore aurreko espazio urria, eta botikako eguratsa lar **dentsoa** zitzaion Mentxuri. Josu Landa

Bizitza **dentsoak** , gogorrak, muturrekoak biziz. Berria - Kultura

Oso musika interesgarria da, **dentsoa** eta aberatsa. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dentso eta** (4)

---

## denuntzia 1 *iz* salaketa.

Kontsumo-gizartearen bizioen **denuntzia** . Iñaki Heras

- **Denuntzia** jarri behar zaie, **denuntzia** . Pablo Sastre

Mesedez eta faborez **denuntzia** jartzeko eskatu zidaten. Joxerra Garzia

**Denuntzia** aurkezten denetik erabakia hartu arteko denbora murriztu egin behar da. Berria - Euskal Herria

Fred Eckhard NBEko bozeramaileak azaldu zuen, aldiz, nazioarteko erakundeak ez daukala Shortek salatutakoa egia denik egiaztatzeko ahalik eta ez duela **denuntziarik** bideratuko. Berria - Mundua

Nire **denuntziak** ez zuen bide luzerik egin, eta, askotan bezala, alferrikako mendeku txiki batekin konformatu behar izan nuen. Joxerra Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

«Bahiketa» **denuntzia** bat jarriko du Afrika Erdiko Errepublikan. Berria - Mundua

---

# **denuntziatu**, denuntzia(tu), denuntziatzen du *ad* denuntzia jarri. ik **salatu**.

Beti lapurtzen zioten bizikleta, lapurrek bazekiten ez zuela **denuntziatuko**. Mikel Hernandez Abaitua

- **Denuntziatu** egingo diagu, eta ematen diguten diruarekin beste pote pila bat erosiko diagu -Xerealek. Iñaki Iñurrieta

---

# **deontologia** 1 *iz* etikaren alorra, lanbide bati dagozkion eginbeharrez eta printzipioez ari dena.

Baina abokatuak, **deontologiak** nire itzala izatera behartu duen legekumeak, ez du nire trauma edertu nahi. Anjel Lertxundi

**«Deontologia** profesionalak» eskatzen dielako, epaiketa uztea erabaki zuten atzo defentsako hamar abokatuk. Berria - Harian

Zuzentasun eta **deontologia** izaten da horietako gehienen ardatza. Edorta Agirre

Tupustean, argazkilariaren **deontologia** pitzadurarik gabearen berri ematen hasten zaigu, atertu ere egin gabe. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **deontologiko**.

Biziaren bukaerari buruzko medikuen **deontologia** kodea eta osasun kodea aldatuko ditugu. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lizentzia hori hartu izanak bere historialari-**deontologia** lotsarazi ordez, idazle-sena hauspotu dio. Anjel Lertxundi

---

# **deontologiko** *izond* deontologiarena, deontologiari dagokiona. ik **deontologia 2**.

Zer dio kode **deontologikoak**? Berria - Gaiak

Kode **deontologiko** guztiak urratu dira, informazioa ebatsi dute, iritzia manipulatu dute, salaketa gaiztoenak egin dira oinarri logiko txikienik gabe. Txema Ramirez de la Piscina

Horretarako egin baitziren kode **deontologikoak** ere: aldian behin urratuak eta hautsiak izan daitezen. Joan Mari Irigoien

Ni beti nago presoaren alde, badut neure kode **deontologikoa**. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kode deontologiko** (3); **kode deontologikoak** (3)

---

# **deontologikoki** *adlag* deontologiari dagokionez.

Etikoki ez dago erdibidean kokatzerik, baina **deontologikoki**, hala jokatu behar du kazetariak. Txema Ramirez de la Piscina

---

# **departamendu** *(orobat **departemendu** g.er. eta **departamentu**)* 1 *iz* Frantzia banatzen den administrazio barruti bakoitza, burutzat prefeta duena.

Foruak kendu dizkigute, bi hizkuntza desberdin mintzaturik ere Biarnoarekin batu gaituzte eta **departamenduko** hiriburu gisa Paue inposatu digute. Elena Touyarou

Anaiaren gorputza ez zuten hil-harrietara eraman, baizik eta, berehala hil-autoan sartu zuten, geroxago Pauera joateko, han baitago **departamenduko** krematorium bakarra. Daniel Landart

Basses-Pyrénées **departamenduaren** kudeaketarako haien postuetan beste bi ordezkari izendatuak izan ziren. Elena Touyarou

1 400 000 euro berexi ditu **departamenduak** 50 herritako argiak eta elektrika muntadurak berritzeko. Herria

Geroxeago jakin zuen apez arnegatua eta Lozère **departamenduko** diputatua zela. Elena Touyarou

Kantonamenduko, **departamenduko** eta eskualdeko hautetsiak elkarrekin jarri ziren. Itxaro Borda

Interpola, estatuko, **departamenduko** eta eskualdeko poliziak gibeletik zeuzkala, sei hilabetez Txoko bidez bide eta motelez motel ibili zen. Itxaro Borda

Gure **departamenduak** hiru zenatur ditu hautetsi behar. Herria

Preso politikoen hurbilketa, amnistia, mundializazioaren aurkako nekazaritzako ekimenak eta euskal **departamendua**. Itxaro Borda

Euskal-**departamenduaren** alde diren guziak ez dira abertzaleak eta gainerat abertzale guziak ez dira euskal-**departamenduaren** aldekoak. Herria

Raffarin eta Euskal-**departamendua**: ezetz eta ezetz. Herria

Frantziatik berenganaturiko "Reichsland"eko biztanleak artean frantziar zirela bihotzez eta frantziar nazioaren gainerakoak artean ez zuela onartzen **departamentu** horien mozketa. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Petain marexalak erabaki zuen orduan kontseilu jeneralak deituko zirela **departamendu**-kontseilu. Herria

Hor dauzka bai lekuko gure **departamendu**-diosesak bere ospitaleak bereziki, estrenaldi ofizialeetan goretsi berriak diren Bordères eta Irisarrikoak hala-nola, biak ere zinez aipagarriak. Herria

Dagun astetan puntu bat eginik date **departamentu** mailan den lan taldean. Herria

**3** ik **departamentu**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**departamendu berri** (8); **departamendu berri bat** (5); **departamendu berriaren** (3); **departamendu berriaren aldeko** (3); **departamendu kondu** (3); **departamendu mailan** (3); **departamendu osoan** (7); **departamendu osoko** (4); **euskal departamendu** (15)

**departamendua sortzeari buruzko** (6); **euskal departamendua** (76); **euskal departamendua sortzeari** (6); **gure departamendua** (3); **loire atlantique departamendua** (6)

**departamenduak eta akitaniak** (3); **ezarriko ditu departamenduak** (3); **lagunduko ditu departamenduak** (3); **lurraldeak eta departamenduak** (3)

**correze departamenduan** (4); **gure departamenduan** (24); **pirinio atlantikoetako departamenduan** (5); **saint denis departamenduan** (3); **var departamenduan** (3)

**departamenduaren alde** (41); **departamenduaren alde agertu** (4); **departamenduaren aldeko** (67); **departamenduaren aldeko elkarteak** (5); **departamenduaren aldeko hautetsien** (12); **departamenduaren aldeko mugimenduari** (3); **departamenduaren aldekoa** (6); **departamenduaren aldekoak** (5); **departamenduaren aldekoek** (8); **departamenduaren aldekoen** (3); **departamenduaren arteko** (6); **departamenduaren arteko hitzarmena** (3); **departamenduaren aurka** (8); **departamenduaren aurkako** (3); **departamenduaren esku** (3); **departamenduaren eskumena** (4); **departamenduaren inguruko** (5); **departamenduaren izenean** (3); **departamenduaren kontra** (4); **departamenduaren laguntzarekin** (3); **departamenduaren partea** (3); **euskal departamenduaren** (146); **euskal departamenduaren aldarrikapena** (8); **euskal departamenduaren alde** (34); **euskal departamenduaren aldeko** (43); **euskal departamenduaren aldekoa** (4); **euskal departamenduaren aldekoak** (5); **euskal departamenduaren aldekoek** (4); **euskal departamenduaren aurka** (3); **euskal departamenduaren kontra** (4); **euskal herri departamenduaren** (5); **euskal herriko departamenduaren** (3)

**euskal departamenduari** (21); **euskal departamenduari buruzko** (10); **euskal departamenduari ezetz** (3); **euskal departamenduaz** (3)

**departamenduko batzorde iraunkorrak** (3); **departamenduko buru** (4); **departamenduko ekipamendu** (3); **departamenduko eta eskualdeko** (3); **departamenduko herri** (3); **departamenduko kideak** (3); **departamenduko kontseilu** (5); **departamenduko kontseilu orokorrak** (3); **departamenduko kultur** (3); **departamenduko laborantza** (17); **departamenduko laborantza ganberak** (3); **departamenduko laborantza ganberako** (3); **departamenduko mendi** (3); **departamenduko posta** (3); **departamenduko**

**turismo** (6); **departamentu mailan** (3); **euskal departamendurik ez** (8); **loire atlantique departamentua** (3); **max brisson departamenduko** (4)

---

# departamenduburu *(10 agerraldi 10 artikulutan; ETCn 71 agerraldi; orobat **departamendu buru** 39 agerraldi 35 artikulutan; ETCn 77 agerraldi; orobat orobat **departamentuburu** eta **depardamentu buru** iz* departamendu bateko burua.

Lasserre **departamenduburua**, Alain Rousset lurraldeburua, Philippe Gregoire prefeta. Herria

Lasserre **departamenduburuak** kontseilari guziak gomitatu ditu berrikitan "Nafarroako parlamentura". Herria

Hor aurkituko dira **departamendu-buruaren** inguruan, herriko hautetsi, kontseilari orokor, prefeta, Lurraldeko kontseilari, Akademiako errektore, Drac-eko arduradun... Herria

Genaro Costa UNEDeko Literatura **departamendu burua** eta Paco Gutierrez UNEDeko Filologiako dekanoa oso sutsu mintzatu ziren gure hizkuntzen alde, eta oso intesatuta agertu ziren. Berria - Kultura

**Departamendu buruak** moztu du estreinaldiko xingola, inguruan zauzkala Pierre Andre Durand Baionako suprefeta, Roland Dufour pilota federazioko lehendakaria, Frantxua Maitia Lurralde kontseilaria, Jean Mixel Galant kontseilari orokorra, Charente eskualdeko Doublet zenaturra [...] eta bertze hautetsi zenbeit. Herria

Ekainaren erdi aldean ginen Jose Ocaña deituriko **departamentuburua** etorri zitzaidanean ziegara. Jokin Urain

*Banker´s Trust*-eko Atzerriko Moneta **Departamentuburua** da. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Kontseilu jeneral edo orokorrean lan gaitza egin zuen, **departamenduburu** kargua ere bere gain harturik dotzena bat urtez, 1964-etik 1976-erat. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jacques lasserre departamenduburua** (3); **lasserre departamendu burua** (11); **lasserre departamendu buruak** (12); **lasserre departamendu buruaren** (3); **lasserre departamenduburuak** (3); **lasserre departamenduburuaren** (5); **lasserre departamenduburuari** (3)

---

# departamenduka *adlag* departamenduen arabera.

Frantziako Iraultza handiaren keinka hartan, Frantzia guzia zatikatu zuten **departamenduka**, untsa okerki eskualde batzuetan segurik, eta departamenduetan herriak multxoka ezarri, multxo horiek deituz preseski kantonamendu. Herria

**Departamenduka** egiteko partez, bozak egin litazke lurralde osoka. Herria

Lurralde-bozak eta kantonamendu-bozak iragan dira bainan hauteskunde horietarik landa hautetsien artean berriz izaiten dira bozak lurraldeka eta **departamenduka**, giderrak nork nun bere esku ukanen dituen finkatzeko. Herria

---

# departamental *izond* departamenduari dagokiona.

Hasteko, denak ados dira, Herriko Etxe aitzinetik pasatzen den bide **departamentala** ez dela egokia. Berria - Euskal Herria

---

# departamentalista *izond* departamenduen araberakoa.

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan mugimendu abertzaleak «planteamendu **departamentalista**» gainditu eta nazio gisa etorkizuna egituratzeko balio dezakeen instituzionalizazioaren alde egin behar du. Berria - Ekonomia

---

# departamentalizazio *iz* departamentuetan zatitzea.

**Departamentalizazio** klasikoa duten antolaketak, maizenik finantza, merkaturatze, giza baliabide eta ekoizpen zuzendaritza sailetan banatuta. Iñaki Heras

---

# departamentu *(ETCn 8.849 agerraldi; orobat **departamendu** ETCn 51.250 agerraldi -**40.999** entziklopedian-)* **1** *iz* administrazioko saila. (gobernuetan)

AEBetako Altxorraren **Departamentuak**, edo bere heteronimorik ezagunena omen den Munduko Diru Funtsak gidatu eta babesturiko politikaren ondorio. Iñaki Heras

Defentsa **Departamentuko** galdeketa egileek FBIko agente zirela esan zuten. Berria - Harian

Ez nire sailean ez Ogasun eta Ekonomi **Departamentuan**. Aingeru Epaltza

Nafarroako Gobernuko Bide Azpiegituren Kontrolerako **Departamentuak**. Berria - Harian

Larrañagak **departamentu** hori aski ongi ezagutzen du, Lurralde Antolamenduko sailburuordea izan baitzen. Berria - Harian

Irakeko alderdi islamikoaren atzerri **departamentuko** arduraduna. Berria - Harian

Patronalari lau milioi euro «oparitzea» egotzi dio Joseba Azkarragak zuzentzen duen **departamentuari**. Berria - Ekonomia

Azkenik, Sarea erabiltzen duen arrantzalea nor ote den eta, badakigu Estatu Batuen Estatu **Departamenduko** norbait dena. Edorta Jimenez

Segurtasun Nazionaleko **Departamentuko** eledun Brian Roehrkaseeken hitzetan, Estatu Batuak ez daude mehatxu egoeran. Berria - Harian

Fernando Tapia erakunde bereko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako **Departamentuko** diputatua. Berria - Kultura

Zazpi orri, Ekonomi eta Ogasun **Departamentuan** ohi duten babo-hizkera hanpatuan. Aingeru Epaltza

Sukaldeko leihotik erakunde publiko batek betetzen zuen eraikina ikusten zuen; berak ez zekien zer erakunde zen, epaitegia ote zen, ministerioaren ordezkaritza ote zen, gobernu autonomikoaren **departamentu** bat ote zen. Jon Alonso

Long Beacheko polizia **departamentuan** zebilen azken aldian, baina utzi egin omen zuen lana. Javi Cillero

**2** (enpresa eta kidekoetan)

Kautxu-lantegiko kredituen **departamentuko** zuzendariordea zen Durant jauna. Mirentxu Larrañaga

Euskadiko Kutxako Ikerkuntza **departamentuko** zuzendariak. Berria - Ekonomia

Emakume haren senarra zen fenomenoa, Brent izeneko tipo bat, zuzendari mailaraino iritsia zena, aurrezki **departamentuaren** arduraduna. Xabier Olarra

Kontabilitate **departamentutik** pasatu behar zutela fakturek. Iñaki Iñurrieta

Igogailuan aitzakia bat landu du, **departamentuko** nagusiari esateko metroa hondatu egin dela, edo etxetik irten eta sua pizturik utzi duenez itzaltzera itzuli dela. Eider Rodriguez

Gurutze Gorriko **departamentu** berean geunden, Publizitate **Departamentuan**. Lopez de Arana

Monasterio bakoitza ia **departamentu** banatuetan zatituta geratu zen, bakoitza bere diru-sarrerekin eta erantzukizun bereziekin... Iñaki Mendiguren

**3** (unibertsitate eta kidekoetan)

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika **Departamentuak** abiatutako ekimenari esker. Berria - Harian

Coloradoko Estatuko Unibertsitateko bere bulegoa aurkitzeko jarraibide zehatzak eman zizkidan, bera han baitzen irakasle laguntzaile, Animalien Zientzien **Departamentuan**. Xabier Olarra

Schmidt Nielsen-ek eta Ipar Karolinako Duke Unibertsitateko Fisiologia **Departamentuko** haren lankideek ondorio horiek argitaratu zituztenean, [...]. Irene Aldasoro

Chris Mulder Herbehereetako Vanderbilt Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Gastroenterologia **Departamentuko** medikua da. Berria - Gaiak

Flitwick eta Sinistra irakasleek, Astronomia **departamentukoek** , Justin eritegira eraman zuten. Iñaki Mendiguren

Beste denbora puska handi bat, ordea, mintegietan, solasaldietan, sinposiumetan, nazioarteko kongresutan, eta, askoz ere sarriago oraindik, haien **departamentuetako** edo ikerketa-zentroetako asteroko bileretan igarotzen dute. Jon Muñoz

**4** administrazio barrutia.

Cauca **departamentuko** Santander de Quilichao hiritik hasiko dute martxa, eta Errepide Panamerikarra -herrialdea hegotik iparrera zeharkatzen duena- erabiliko dute Calira iristeko. Berria - Mundua

Batzuek ziotenez gazitegiko medikua zuen aita, OíConnor zeritzon ingeles bat, eta beste zenbaiten arabera, berriz, El Salto-ko **departamentuko** zaldi-hezle edo arrastolariren bat. Juan Garzia

Bihotz erdiragarria duk **departamentu** adinako oihan-sail handiak ketan desagertzen horrela ikustea. Jon Muñoz

**5** apartamentua.

Halarik ere, dezepzio handiz ikusi nuen, horren prestigio handiko lana izanik, soldatak aldirietako auzo batean bi gelako **departamentu** ziztrin bat alokatzeko beste aukerarik ez ziola eskaintzen. Joxan Elosegi

Nire belaunen gainean jarri nuen eta **departamentuko** bi ateetan barrena gaintzen ari zen iluntasunean zuek denek ezagutzen dituzuen laztan horiek hasi ziren. Matías Múgica

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako justizia departamentuak** (4); **departamentu mailan** (3); **estatu departamentuak** (6); **gizarte politikarako departamentuak** (5); **hezkuntza departamentuak** (3); **justizia departamentuak** (6); **kultura departamentuak** (7); **nafarroako kultura departamentuak** (3); **osasun departamentuak** (9)

**aebetako energia departamenduak** (5); **aebetako estatu departamenduak** (5); **aebetako estatu departamentuko** (3); **batuetako estatu departamentuko** (3); **defentsa departamenduak** (4); **defentsa departamentuaren** (4); **departamentuko arduraduna** (3); **departamentuko arduradunek** (3); **departamentuko eledun** (4); **departamentuko eledunak** (3); **departamentuko idazkari** (3); **energia departamenduak** (6); **estatu departamenduak** (9); **estatu departamentuko** (10); **estatu departamentuko eledun** (3); **justizia departamenduak** (7); **kultura departamentuko** (4)

**defentsa departamenduaren** (3); **defentsa departamenduko** (3); **estatu departamenduaren** (4); **estatu departamenduari** (3); **estatu departamenduko** (16); **estatu departamenduko eledun** (4); **estatu departamenduko eledunak** (3); **polizia departamenduko** (4); **yorkeko polizia departamenduko** (3)

---

## departamentuburu ik **departamenduburu**.

---

## **dependentzia** 1 *iz* inoren esku dagoenaren, zerbaiten mendeko denaren egoera. ik **mendekotasun**.

Buruko gaitzak maiz lotzen dira ezinarekin, eta **dependentziarekin** ; horri aurre egiteko urratsak egiten ari dira gaixo eta senideak. Berria - Harian

Petrolioarekiko **dependentzia** 2020rako hautsiko dugu. Berria - Harian

Barne barneko sekretuen agertzeak **dependentzia** sortzen du. Piarres Aintziart

Enpresek ez dituzte oferta hauek gure mesedetan egiten, guregan etengabe erosten jarraitzeko **dependentzia** sortzeko baizik Urre-patroiaren garaian ere, nazio ekonomiek elkarren arteko **dependentzia** handia zuten. Pako Aristi

Gizarteak inposatutako **dependentzia** ekonomikoagatik. Luis Elberdin

Azpigarapenaren funtsa **dependentzia** asimetrikoaren bidez azaltzen da. Iñaki Heras

Estatu-nazioen arteko **dependentzia** militar multilaterala. Joseba Zulaika

Adin batera heldutako seme-alabak berezko **dependentziatik** (ahultasunak eragindako heziketa eta babes beharretik) irteten direnean, hiriko kide libre bihurtzen dira. Juan Martin Elexpuru

Emakume askok erasotzailearekiko **dependentzia** emozionala dute eta, sarritan, jasotzen dituzten tratu txarren errudun ere sentitzen dira. Berria - Euskal Herria

Jainkoarekin edo naturarekin batzean eta arimak substantzia jainkozkoarekiko duen **dependentziaren** esplizitazioan datza dohatsutasuna edo salbamena. Piarres Xarriton

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbait animaliak kidetasun-lotura sendoak sortzen dituzte, elkarren arteko **dependentzia** loturak esango genuke. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Dependentzia** sistema nazionala ezartzen duen lege proiektua Parlamentura bidali duela iragarri du Espainiako Gobernuak. Berria - Harian

**Dependentzia** aseguru pribatuak izenpetzea aurreikusten ari da, babes publikoaren osagarri gisa. Berria - Harian

Gizarte Segurantzan, berriz, **Dependentzia** Sistema Nazionala garatzeko Lege Integrala iragarri zuen atzo Calderak. Berria - Ekonomia

---

## **dependitu**, dependi, dependitzen da-du *ad* -en mende egon,

**Dependitzen** du zer definizio ematen zaion "zorion" hitzari... Ana Urkiza

**-Dependitzen** du zendako. Menane Oxandabaratz

· **Dependitzen** da herriko kontseilariek eta administrazioneak zer proiektu duten, eta geroa nola prestatzen duten... Herria

---

## **depilagailu** *iz* depilatzeko gailua.

Baita nire Braun **depilagailu** berria ere, dena zuretako, harribitxiz jantzi nahi nauten zu baino nerabe olinpikoagoz betea dago herria. Koldo Izagirre

---

## **depilatu**, depila, depilatzen du *ad* ilea kendu.

Zuk gosaltzen duzun bitartean nik izterrak **depilatuko** ditut. Jasone Osoro

Gogoan dut neska germaniar batekin nengoela, zangoak **depilatzen** ez zituena, mutil-lagunak debekatu egiten ziolako. Ramon Saizarbitoria

Esnetan bustitako madalena pusketa eztarrian trabatu zitzaidan hantxe bertan, sukaldean eta nire aurrean, gona kendu eta aulkian eserita hankak **depilatzeko** prestatu zenean. Jasone Osoro

Hankak **depilatzeko** argizariaren bila komunera sartu nintzen. Lander Garro

**Depilaturik** ote duen edo ez. Eider Rodriguez

---

## **depilazio** *iz* depilatzea.

Zangoetan, baita bizkarrean ere, hasi zitzaizkidan bilo luze, mehe, garden eta sendo batzuk hazten: **depilazio** krema guztiei egiten zieten aurre. Joxan Elosegi

---

## **deportatu**[1], deporta, deportatzen du *ad* norbait, arrazoi politikoez edo zigor gisa, erbesterarazi. ik **deserritu**.

Berrikitan Saudi Arabiak **deportatu** egin ditu Indiako 76 haur. Gotzon Garate

Geroago, 1794an, Iparraldeko zenbait herri hustu eta 4.000 biztanle Landetara **deportatu** zituzten. Jokin Urain

Dekretu bat izenpetua izan zen, apez ihardokitzaileei erbesteratzea agintzen ziena, non ez zuten Guianara, gaizkile arriskutsuenak eramaten zituzten *Outre-mer* deitu zoko urrun hartara **deportatuak** izan nahi. Elena Touyarou

Lyssenkoren teoriei uko egin ziotenak Siberiara **deportatu** zituzten, eta asko ez ziren handik itzuliko. Juan Garzia

Euskal errefuxiatuak kontzentrazio barrutietara **deportatzea** lortu zuen. Jokin Urain

-Detenitu eginen zintuzkete eta Espainiara **deportatu**. Iñaki Zabaleta

Josif Stalinek 160.000 turkiar meskhetiar **deportatu** zituen Georgiatik Uzbekistanera. Berria - Harian

Deus ez nekien naziek 1942an **deportatu** eta erail zuten amona errusiar honi buruz. Joxan Elosegi

Sekula ere ez zidan esan, gainera, haren senitarteko gehienak Frantziako lurretatik **deportatu** zituztela. Joxan Elosegi

Copenhague-ko poliza gizonak baziren ehunka Büchenwald-era **deportatuak**. Marzel Etxehandi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alemaniara deportatu** (4); **alemaniara deportatua** (4); **baina deportatu** (3); **baina deportatu egin** (3); **cabo verden deportatua** (3); **deportatu edo** (3); **deportatu egin** (8); **deportatu eta** (4); **deportatu zituen** (3); **deportatu zituzten** (13); **deportatu zuten** (15); **deportatu zutenean** (3); **deportatua egon** (4); **deportatua egon zen** (3); **deportatua izan** (5); **deportatua izan zen** (3); **deportatuak izan** (7); **deportatuak izan ziren** (4); **deportaturik egon** (3); **eta deportatu** (4); **eta deportatua** (3); **siberiara deportatu** (3); **verden deportatua** (3)

---

# deportatu[2] **1** *iz* arrazoi politikoez edo zigor gisa, erbesteratua izen den pertsona.

Iheslari eta presoez gain, baita **deportatuak** eta kontzentrazio barrutietan egondakoak ere. Jokin Urain

Bazekien **deportatu** ohi batzuek elkarteak muntatu zituztela eta urtean behin biltzen zirela. Eneko Bidegain

Gogoratuko ez nintzen ba **deportatuen** trenekin? Edorta Jimenez

**Deportatuen** egoera juridikoa erregularizatzea zen helburu nagusia. Berria - Euskal Herria

Kontzentrazio-esparru nazietatik bizirik irten zirenen eta Seine-et-Oise departamentuko **deportatuen** Elkartea. Joseba Urteaga

**2** (hitz elkartuetan)

Block-a hartan pasatu bi hilabeteak, ene **deportatu** biziko gogorrenak izan dira. Marzel Etxehandi

Dachau-ra igortzen zituzten **deportatu** taldeen artean [...] frantses komando ttipi bat jin zen, eta gure ondoan ziren block 24ean. Marzel Etxehandi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deportatuen artean** (3)

---

# deportatze *iz* norbait, arrazoi politikoez edo zigor gisa, erbesteraraztea.

Buhamiek, ordu arte ez bezala eta **deportatze** berri baten beldurrez, erosi zituzten han-hemenka lur poxi batzu, etxe batzu... Herria

-Herritar guzien **deportatzea**? Elena Touyarou

---

# deportazio *(orobat* ***deportazione*** *g.er.)* **1** *iz* deportatzea.

Atxiloketak, epaiketak, konfinamendu eta **deportazioak**, inoiz eten ez baziren ere, indarberritu egingo dira 1983an. Jokin Urain

Paris erori berri, juduen **deportazioak** hasi ziren eta zurrumurruak zebiltzan milaka atzerritar atxilotzen zituztela belodromo eta estadioetan. Anjel Lertxundi

**Deportazioek** galaraziko al dituzte etorkinek hesia gainditzeko egiten dituzten ahaleginak? Berria - Harian

Epe luzean **deportazioa** erraztuko duen beldur dira etorkinak. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haien **deportazio** data eta heriotzako esparruetara eraman zituen konboiaren zenbakia. Joxan Elosegi

Japoniako justiziak jokalariaren **deportazio** agindua eman eta errefuxiatu estatusa ukatu dio. Berria - Kirola

Faxistek **deportazio** mehatxu zuzenak egiten zizkieten Euzko Gudarostean borrokan ari zirenen senideei. kartzelatik libre geratu ziren hainbati **deportazio** zigorra ezarri baitzieten: Badajozera, Cuencara, Cadizera, Caceresa, Almeriara... Jokin Urain

1962an **deportazio** eta konfinamendu politikari ekin zioten agintari frantziarrek, lau euskal iheslariren aurka hartutako neurriekin. Jokin Urain

Joanesek **deportazio** garaiko xehetasun guziak atxiki zituen bere golkoan. Eneko Bidegain

Berantago baizik ez zen hasi **deportazio** denboran pairatu zituenetaz mintzatzen, Berantago baizik ez zen hasi **deportazio** denboran pairatu zituenetaz mintzatzen. Eneko Bidegain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deportazio garaiko** (3); **deportazioari buruzko** (3); **eta deportazio** (4)

---

# deportazione ik **deportazio**.

---

# deporte *iz* kirola.

Nagusia hasi zitzaion galdera arraroak egiten, aber bakarrik bizi zen, aber **deportea** egiten zuen, aber umeak izateko pentsamenturik al zuen... Pablo Sastre

---

# deportibo **1** *izond* kirolari dagokiona, kirol-. ik **kirol 2**.

Berpizkundeko pietate bat iduri zukeen, ez baleramatza oinetako **deportibo** zartatuak, praka bakeroak eta ez dakit zeren aurkako komitearen kamiseta bat. Unai Iturriaga

Ia kilo erdia balio zuen erloju **deportiboari** begira. Karlos Linazasoro

Auto **deportibo** bat aparkaturik zegoen aurrealdean. Lutxo Egia

Arrateko igoera, 1941. urteaz geroztik urtero korritzen zena, Eibarko Klub **Deportibok** antolatuta. Berria - Kirola

• **2** *iz* kirol autoa.

Nire belarriek Julio Iglesiasen aire bat ezagutu zuten **deportiboko** leiho irekietatik kanpora. Aingeru Epaltza

Dena dela, dudatan nago zein aukeratu; Hyundai Coupea, adibidez, asko gustatzen zait, baina dotorea izan arren ez dauka zaldi askorik; badakizu, "pobreen **deportiboa**" deitzen diote. Jon Arretxe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
oinetako deportibo (3)

---

deposito ik **depositu**.

---

**depositu** *(57 agerraldi, 19 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 1.318 agerraldi; orobat* ***deposito*** *23 agerraldi, 7 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 143 agerraldi)* **1** *iz* likidoentzako biltegia. ik **andel**.

Goroldio eta huntzez inguratuta, urtegi bat zegoen; erabilerarik gabe geratutako **depositua**, izatez. Bernardo Atxaga

Joe Harlandek ur apur bat atera zuen latorrizko **depositu** batetik. Lopez de Arana

Ura berunezko hodiekin eramango bada, aurrena **depositua** egin bedi iturburuan. Santiago Iruretagoiena

Komuneko **depositoaren** gainean zegoen, kokotseko granotxo bat lehertu nahian. Iñaki Mendiguren

Balkoian barreiaturik, DKW motozikleta baten zatiak zeuden [...] **deposito** gorrimina karelaren gainean zaldizka zegoen. Juan Garzia

Langilea mangera **depposituan** sartu eta gasolina botatzen hasi da. Pello Lizarralde

Labouheyren bakarrik, pinudi erraldoiaren erditsuan, **depositua** gasolinaz betetzerakoan, kafetxo bat hartu dut. Txillardegi

**Depositua** erregaiz ondo hornituta atera, eta kateak eraman. Berria - Harian

Erreserbako **depositua** zabaltzeko ordua denez, palankari tira egiten diot. Josu Zabaleta

Kargaren zati hutsal bat Pasaian utzi eta **depositoa** fuelolioz betetzeko helburuz sartu ziren badiara, bokalea igaro bezain pronto otsoaren eztarrian behera labaintzen zirela susmatu gabe. Harkaitz Cano

Gipuzkoako Diputazioak 100.000 litroko bi **deposito** eta 2.000 litroko beste bat eraiki ditu ur hornidurak hobetu eta lehorteari aurre egiteko. Berria - Euskal Herria

**2** irud/hed

Ez dago gauza goxoagorik, **depositua** beteta eta potroak lehertzear dauzkatenean, popatik hartzera bidaltzea baino. Jon Arretxe

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Olio **depositua**k, gasolina **depposituak**, zula-zula eginda dago dena. Josu Zabaleta

Baina okerragoa zen fuel **depositoak** bere hartan uztea, putzura isurita su eman gabe. Koldo Izagirre

Erregai **depositu** handi bati lotutako pisu handiko espaziontziak dira transbordadoreak. Berria - Gaiak

Myrtle Negarti azkeneko komuneko ur-**depositoan** zegoen eserita. Iñaki Mendiguren

Lurra utzi eta bi minutura erori ziren lurrera aireratzeko erabilitako erregai **deposito** hutsak. Berria - Gaiak

**4** gorputegia.

Erail dituzten kamaradak zauzkatek hor, **depositoan**. Koldo Izagirre

Hilerriko **depositoan** zauzkatek gorpuak. Koldo Izagirre

**5** biltegia.

Munizioen **depposituak** hustea falta zen. Jokin Urain

Levertek gaiztagin elkarteko kide izatea, arma eta munizio **deposito** bat edukitzea eta lehergaien legea talde antolatuan urratzea leporatzen dizkio. Berria - Euskal Herria

· Esplikatu zidanez, bizimodu sedentarioa eginez, gizen-**deposito** bat formatzen da begietan barrena, osasunaren kaltean. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
depositua beteta (3)

---

**deprabazio** *iz* galdukeria.

Bortitza eta probokatzailea idatzietan, **deprabazio** garaikidearen erretratua egiten duela diote kritikoek. Berria - Kultura

Besteak horren **deprabazioak** dira gehienez ere. Joxe Azurmendi

---

**depredadore** *izond/iz* harrapakaria. ik **depredatzaile**.

Esaterako, tranpak jarriz gero, edo **depredadoreak** sartuz gero, baliteke erremedioa gaixotasuna baino okerragoa izatea. Jon Alonso

---

**depredatzaile** *izond/iz* harrapakaria. ik **depredadore**.

Halakorik suertatuz gero, irri maltzurrak **depredatzailearen** itxuratik gehiago izaten zuen. Berria - Kirola

---

**depredazio** *iz* harrapatzea.

Aipu-ehiztariaren lanak literaturaren **depredazio** alferrikakora ohi darama, ordea, eta nire asmoa oso bestelakoa da: frogatu edo nahi nuke ezen ageri ez diren horiek, ageri ez den gai horixe dela, hain zuzen, Borgesen Gaia. Juan Garzia

---

**depresibo** **1** *izond/iz* depresiorako joera duena. ik **depresio 2**.

Hamaika gaixo **depresiborekin** tratatu behar izan baitut kontsultan, antzeko koadro klinikoekin. Joan Mari Irigoien

Suizidiorako joerak agertutako gaixoen herenak arazo bipolarrak zituzten (fase **depresiboak** eta maniakoak tartekatzen dituen buruko gaitza). Berria - Euskal Herria

Errepresioaren erruz hantu biktima nortasuna, nortasun **depresiboa** da: norberak bere egoeraz negar egin dezake, negar eginaraz. Itxaro Borda

Beti izan zuen halako joera **depresibo** bat. Bernardo Atxaga

Patolojia **depresiboa** suizidioaren zergati nagusia dela baitakigu,Egunkariko zuzendariak ezin zion ezer aipatu, ordea, kritikari gizajoak oso izaera minbera eta **depresiboa** zuelako. Berria - Euskal Herria

Bere jabeak gurtzeko eta miazteko dagoen txakur **depresibo** bat. Iñaki Segurola

**Depresibo** bati segituan sumatzen zaio: askoz ere motelago dabil, makurtuta, ez zaizkio hitzak ateratzen... Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Ez, ordea, larunbat **depresibo** batean. Aingeru Epaltza

Desenkantuaren jardina kultibatzen duten "alesandrino **depresiboak"** deritze Rortyk. Joxe Azurmendi

**3** ***maniako-depresibo*** *izond* fase maniakoak eta depresiboak aldizkatzen dituena.

Izadiak edo Jainkoak zertarako sortu ote dituen autismoa, psikosi **maniako** -depresiboa, eskizofrenia eta halako gaixotasun lazgarriak. Xabier Olarra

Ibarretxek «gaitz bipolar **maniako** depresiboa» duela. Berria - Euskal Herria

Problema **maniako** -depresiboak dituzten psikiatrak. Gotzon Garate

· *iz* Hanna oso sentibera zen, suminkorra oso, tenperamentu antzemanezin horietako bat; Joachimek zioen bezala: **maniako** -depresiboa. Joxe Austin Arrieta

**Maniako** -depresibo bihurtzeko unean, zainak korapilatzen nabaritzen ditut. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **maniako depresiboa** (5)

---

# **depresiboki** *adlag* depresioz.

Sufrimenduz, pasioz, obsesiboki, minez, **depresiboki** , etengabeko bonbardaketa baten antzera bizi zuen poesia, bizia. Berria - Kultura

---

# **depresio** *(orobat **depresione** g.er., **deprezio** g.er. eta **deprezione** g.er.)* **1** *iz* gogo beheraldia.

Urrats bat baizik ez nuen eskas, psikiatrek **depresio** deitzen duten gogoaren beheraldiaren ataria zeharkatzeko. Aingeru Epaltza

Akromatopsiaren lehenbiziko asteetan, ia bere burua hiltzera bultzatzeko moduko **depresioak** jota ibili zen. Xabier Olarra

Urte eta erdi darama bajan **depresioa** dela eta. Iban Zaldua

**Depresio** hasi berriari aurre egiteko. Joxemari Iturralde

Bizitza aktiboa egiten uzten ez dion **depresio** baten mende dago. Bernardo Atxaga

Wolfgang Pauli, bere garaiko fisikaren egoerarekin etsita zegoen bolada batean, **depresio** latz baten mendean erori zen, eta orduantxe omen zuen, beste etsimenduzko kolpe batean, neutrinoaren hipotesia bota. Iñaki Segurola

"Dohaina" madarikazio bihurtu zen harentzat: **depresio** sakon batek jo, eta, handik laster, hil egin zen. Xabier Olarra

Drogaren eraginez, edo izan zituen bikote-krisiengatik, edo arrazoi ezkutuagoengatik, **depresio** patologikoak izaten hasi zen Adela, eta droga gehiago behar izaten zuen haietatik irteteko. Juan Kruz Igerabide

**Depresio** neurotiko arina diagnostikatu zion. Patxi Iturritegi

Hori **depresio** arin baten sintoma izan daiteke. Berria - Gaiak

New Yorkera itzuli behar dudanero **depresio** galanta harrapatzen dut. Harkaitz Cano

**Depresio** batek oraindik itxi gabe dauden zaurietan jotzen omen du. Agurtzane Juanena

Noiz bihurtzen da tristura **depresio** ? Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **depresibo.**

Gaixotasun neurologikoak eta **depresio** sindromea. Berria - Gaiak

Adibidez, **depresio** arazo larriak dituztenen %53k bestelako gaitzen bat garatzen dute. Berria - Gaiak

[Dieta aldatzeak] besteak beste, **depresio** eta oroimen arazoak areagotu dituela ondorioztatu du Erresuma Batuko ikertzaile talde batek. Berria - Gaiak

Jaitsialdi eta **depresio** garaietan ehundaka aldiz gogoratu zen neska harekin. Joxemari Iturralde

Bi egunez egon zen **depresio** -egoera horretan. Josu Zabaleta

**Depresio** hasiera hura botikak sendatuko zidan istant batean. baditut beste hiruzpalau lagun psikiatra, **depresio** mota guztien berri eman izan didatenak. Joxemari Iturralde

Zure inguruko jenden artean gero eta **depresio** kasu gehiago ikusten duzu. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duelarik) )

Hartaz konturatzea hondamena izan daiteke gazte autista dohaintsuentzat adin horretan, eta **depresio** -sorrarazle eta suizidio-eragile izan da noiz edo noiz. Xabier Olarra

Imipramina hartzen hasi zen, **depresio** -kontrakotzat saltzen den botika bat. Xabier Olarra

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Adimen- **depresio** larria zuten gaixoei, bekoki-lobuluetako zatiak kendu ohi zitzaizkien 1930eko urteetan. Irene Aldasoro

**5** beheraldia.

Pickwick sindromean, arnasaren **depresio** larria eta odol guztia oxigenatzeko gutxiegitasuna gertatzen dira, garuneko arnasgunearen depresioari lotuak. Xabier Olarra

Beroaldi sutsua noiznahi arrimatu ohi da, batez ere hegoaldiren bat sortzen bada; edo beroaldiko **depresio** termikoren bat sortzen bada. Pello Zabala

Ezaguna da argumentua [...]: **depresioen** kausa eskari eskasia da, besteak beste, gizarte aberatsetan gero eta gehiago aurrezten delako. Iñaki Heras

Hala, **Depresio** Handiaren esperientziatik idatzi zuen bere Teoria Orokorra, deflazio garaian, atzeraldi garai larrian. Iñaki Heras

Lehen globalizazio prozesu handia, lehen *laissez-faire* globala, Gerra Handiarekin eta 1930. urtearen hamarraldiko **depresio** handiaren hondamendiarekin eraitsi zen. Iñaki Heras

**6** sakongunea.

Tumorearen ertzean sortutako zelulak zabalduz doaz, harik eta tumorearen **depresio** -kurban ezartzen diren arte. Berria - Gaiak

**7** meteorologian, presio apalen gunea.

Behe-presioak nagusitzen direnez, **depresio** horrek berak haize indartsurik ez normalean, baina bero lamadak bidaltzen ditu goranzka eta ipar / ipar-ekialderantz. Pello Zabala

Hemen gurean, presio altuarekiko gune edo antizikloiaren jiran, haizea eskuinerantz doan bezala, eta ezkerretara **depresioetako** haizea, han, hego hemisferioan, guztiz alderantziz: antizikloietan haizea ezkerretara, eta borraska-guneetan, berriz, hor, eskuinerantz. Pello Zabala

Depresio-gune baten oso ondoan dator antizikloia, eta, hau ere, agudo alde egiteko, hartara, beste **depresio** bati txokoa prestatuz. Pello Zabala

**8** *depresio-gune* ik **depresiogune.**

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **depresio batetik** (3); **depresio eta** (4); **depresio handi** (3); **depresio handiak** (3); **depresio nagusia** (3); **depresio sakon** (3); **depresioa da** (3); **depresioa ez** (3); **depresioa ez da** (3); **depresioak izan** (3); **depresioak jota** (20); **depresioak jota zegoela** (3); **depresioak jota zegoen** (3); **depresioan erortzen** (3); **depresioaren aurkako** (6); **depresioaren kontrako** (10); **depresioaren kontrako botiken** (3); **depresioari aurre** (4); **dira depresioak** (3); **edo depresioa** (3); **edo depresioak** (3); **eta depresio** (7); **eta depresioa** (5); **eta depresioak** (4); **eta depresioaren** (3)

---

# **depresioaldi** *(orobat **depresio aldi** g.er.)* *iz* depresioaren mendeko aldia.

Oraingoz **depresioaldi** batean nago, ikusten duzun bezala. Josu Zabaleta

Hau, noski, **depresioaldiaren** kontuan sar dezake nahi duenak, baina jakin beza halakoak adineko naizenetik ezagutu izan ditudala **depresioaldiak** . Neskafe poto hutsaren aurreko **depresioaldiak** . Joxean Agirre

Hark esaten dio Cadyren ondoren izan zuen andregaiarekin ezkondu zela bi urte lehenago, baina emazteak bere buruaz beste egin duela **depresio aldi** batean. Josu Zabaleta

Zientzia orok bezala, biologiak bere aldarteak ditu, txandakako bere baikorraldiak eta bere **depresioaldiekin** . Juan Garzia

---

## **depresiogune** *(orobat* ***depresio-gune****)* *iz* meteorologian, presio apalen gunea.

Egundo ezagutu ez zuten **depresiogune** baxua, borraska deitzen dioguna, inoiz izan duten presio baxuenaz. Pello Zabala

Santander hirian, 1941ean, inoiz ez bezalako **depresiogunea** , 950 milibaretakoa etorri zen parera. Pello Zabala

Carolin **depresio gune** sakona eman eta eman aritu zen atzo, hego-mendebaldeko haize bolada bortitzekin Euskal Herria zigortuz. Berria - Kirola

---

## depresione ik **depresio**.

---

## **depresore** *iz* sendagaiez mintzatuz, zenbait nerbio zentroren aritzea murrizten duena.

Idatziaren arabera, gehien hartzen diren substantzia psikoaktiboen artean **depresoreak** , bizigarriak, opioideak eta haluzinogenoak daude. Berria - Gaiak

---

## **depreziatu**, deprezia, depreziatzen du *ad* diruaren edo ondasun baten balioak behera egin.

Dirua asko urrituko da, 1. **depreziatu** egin behar delako gehiena; 2. parte bat atzerrira eraman beharko delako; eta 3. mundu guztiak gordeko duelako, inork ez baitio printzeari utzi nahiko berak berez lortzea espero duen etekina. Iñaki Iñurrieta

Ordainketa-balantzan krisia izanez gero, diruari **depreziatzen** uzteko aukerak, hain zuzen ere, saihestu egiten du doikuntza osorik ekonomiaren aldagai errealen mende (eskaria, ekoizpena, enplegua) utzi beharra. Koro Navarro

---

## **depreziazio** *iz* depreziatzea.

Diruaren **depreziazioaren** eragin inflazionistak. Koro Navarro

Euroaren lehen bi urteetako ahultasunak (%30eko **depreziazioa** dolarrari buruz) [...]. Koro Navarro

Oraindik ere, estatuak, zergen bidez, maileguen edo **depreziazioaren** bidez, finantza-baliabide handiak mobilizatu behar zituen, sortzen ari zen burokraziaren eta infanteriako gudaroste berriak, hobeto hornituak eta ugariagoak, eta garestiagoak beraz, finantzatzeko. Koro Navarro

Politika hori permisiboa eta inflazioeragilea gertatzen bada, interes-tasen beherakadak kapitalen irteera garbiak bultzatuko ditu, eta inflazioa orekatuko lukeen truke-tasen **depreziazioa** eragingo luke luzarora. Koro Navarro

Etengabeko erabilerak sortzen duen **depreziazioarengatik** ez balitz, [...]. Jon Alonso

---

## deprezio ik **depresio**.

---

## deprezione ik **depresio**.

---

## **deprimente** *izond* depresioa eragiten duena. ik **deprimigarri**.

Mutil gazteentzat ona zen (nahiz bere ustez hitzaldi aretoetako giroa zakarra eta **deprimentea** izan, ia jasanezina) hari entzute soila, hari begiratze soila. Anton Garikano

Gure herriko eta kanpoko politika auzoz auzo dabilen zirku **deprimenteenaren** antza hartzen ari den garaiotan, [...]. Berria - Kultura

---

## **deprimigarri** *izond* depresioa eragiten duena. ik **deprimente**.

Igandeetan giro astun, lozorrozko, **deprimigarri** bat izaten da hemen. Josu Zabaleta

Andres bezalako gizon urduri eta kezkatsu batentzat **deprimigarria** izan behar zuen ikuskari hark. Josu Zabaleta

Zinema aretoko iluntasun erdi sakon erdi ahul **deprimigarrian** . Karlos Linazasoro

Alde batetik Van Hoeven, juduen auzia [...], inoiz iristen ez den inbasio hori, janari txarra, tentsioa, giro **deprimigarria** , Peterrenaren desilusioa, eta beste alde batetik Bepen ezkontitza, Mendekoste jaia, loreak, Kuglerren urtebetetzea, tartak eta errebista-antzokien, zinemen eta kontzertu aretoen historiak. Josu Zabaleta

---

## **deprimitu**, deprimi, deprimitzen **1** da/du *ad* depresioa eragin.

Erretzeko biziora itzultze horrek eta altzairu tristeez hornituriko leku txiki eta itxi batean hainbeste denbora egoteak sobera **deprimitu** ninduen. Ramon Saizarbitoria

[Animalia etxekotu eta etxe-barrukoek] gu bezalaxe dira ondoezten, gaixotzen, ergeltzen, **deprimitzen** eta "hiltzen". Iñaki Segurola

Ez nintzen izugarri **deprimitu** , ez zen hori izan. Iban Zaldua

**Deprimitua** ote nagoen, triste ikusten omen nau. Agurtzane Juanena

Horrek esan nahi du hilekoarekin zaudela edo **deprimitzera** zoazela une batetik bestera. Lourdes Oñederra

Orduranko gaizki zegoen Mari, nahiko **deprimiturik** eta negarrez hasteko prest edozein momentutan. Joxemari Iturralde

"Ez nian Cesarrena esan ez **deprimitzearren"** , zuzendu zait Joseba euskaraz. Bernardo Atxaga

Edonor **deprimitzeko** moduko lekua zela pentsatu zenuen sartu bezain laster. Sonia Gonzalez

Boca-River **derbia** , finalerdietan. Berria - Kirola

**2** (era burutua izenondo gisa)

Tristura umeekin sendatzen ez bada (zure tristura amatasunak sendatuko ez balu), zer pasako dio ama **deprimitu** batek umeari. Lourdes Oñederra

Ez du logelan berriro sartu nahi, giro goibel eta **deprimitu** horrek itoko duen beldurrez. Sonia Gonzalez

Beren suizidio egunerako falta diren egunak zenbatuta dauzkaten **deprimitu** kronikoak. Harkaitz Cano

---

## **depuradora** *iz* araztegia.

Horri buru egiteko, 2004ean bukatu beharra litaikeen **depuradora** handi baten obratzen hasiak dira Apraitzen. Herria

---

**depuratu**, depura, depuratzen **1** du *ad* garbitu.

Estatu aparatuen erantzukizunak **depuratzea** torturari dagokionez eta polizia indar errepresiboak desagertzea. Berria - Euskal Herria

**2** araztu.

Hortaz, paradoxak sinplifikatu eta **depuratzeko**, analisi semantiko bat aurkezten dugu, zeini esker sei paradoxa berri aurki daitezkeen. Askoren artean

Dantza **depuratuz** joan da, segurtasuna irabazi dudan neurrian, elementuen beharra gutxituz joan delako, baina zaila egiten zait nire koreografiez hitz egitea, barrutik bizi ditudalako. Berria - Kultura

---

**depurazio** *iz* depuratzea.

Txekhoven **depurazio** estilistikoa bere talentuaren ondorioa baino ez da; baina soberako apaingarririk batere ez idazteko bere grina hori ez ote dator denborarik ez zeukan jakinbidetik? Pako Aristi

---

deputatu ik **diputatu**.

---

**derbetar** *izond/iz* Likaoniako Derbekoa, Derberi dagokiona; Derbeko biztanlea.

Honako hauek zituen lagun: Sopater, Pirroren semea, Bereakoa; Aristarko eta Segundo, tesalonikarrak; Gaio, **derbetarra**, eta Timoteo; eta Tikiko eta Trofimo, Asiako probintziakoak. Elizen arteko biblia

---

**derbi** **1** *iz* herri edo eskualde bereko bi kirol talderen arteko partida.

Bilbo Basketen eta Tauren arteko **derbiak** 12.000 ikusletik gora batuko ditu etzi Bizkaia Arenan. Berria - Harian

Errugbian, Lapurdiko **derbian** angeluarrak nagusitu zaizkie hendaiarrei, 29/13. Herria

450 behari etorri dira Angelu Donibaneko zelaira bi ekipa auzoen arteko **derbiaren** ikusterat. Herria

Giro gaitza, holako **derbietan** ohi den gisa, gainera Bilboko besten bete-betean. Herria

Berriz **derbirako** sarrerak saltzen harrapatzen bahaut, txikitu egingo haut! tartetxoa aurkituko du gaur Osasuna eta Realaren arteko **derbia** ikusteko. Jon Alonso

UEFA esku-eskuan du, eta **derbia** irabaziz gero aurrea hartuko lioke Osasunari. Berria - Kirola

Bidasoak eta Arratek euskal **derbia** jokatuko dute gaur Artalekun (18: 30). Berria - Kirola

**Derbiek** berezko motibazioa izaten dute, baina orain datorrenak guretzat garrantzi berezia du Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Usandizagak ukatu egin du ez dagoela **derbi** girorik. Berria - Kirola

**Derbi** izaera sentituko ez balute bezala kantxaratu ziren. Berria - Kirola

Igandeko partidak **derbi** kutsu handiagoa du, bi taldeok sailkapeneko azken postuetan gaudelako. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Helduden larunbaten izanen da mugimendu Baionan, Biarritze errezibituz bi hirien arteko rugbi **derbiaren** kari. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko derbi** (3); **derbi bat** (13); **derbi batean** (5); **derbi guztiak** (4); **derbi jokatu** (4); **eta derbi** (3); **euskal derbi** (8); **euskal derbi bat** (3); **euskal derbi batean** (3)

**arratek derbia jokatuko** (4); **arteko derbia** (24); **arteko derbia jokatu** (4); **arteko derbia jokatuko** (6); **athletic derbia** (5); **athleticen arteko derbia** (4); **athleticen aurkako derbia** (5); **aurkako derbia** (21); **azken derbia** (4); **bera berak derbia** (3); **berak derbia jokatuko** (3); **biharko derbia** (4); **bizkaitarren arteko derbia** (3); **da derbia** (4); **derbia bihar** (3); **derbia da** (4); **derbia dela** (3); **derbia delako** (3); **derbia eta** (3); **derbia galdu** (3); **derbia gaur** (3); **derbia ikusteko** (4); **derbia irabazi** (5); **derbia izan** (5); **derbia izango** (13); **derbia izango da** (10); **derbia izatea** (3); **derbia jokatu** (20); **derbia jokatu zuten** (5); **derbia jokatuko** (51); **derbia jokatuko da** (3); **derbia jokatuko dute** (42); **derbia jokatzeko** (4); **derbia oso** (3); **du derbia** (5); **dute derbia** (5); **duten derbia** (3); **eta arratek derbia** (4); **eta derbia** (5); **euskal derbia** (19); **euskal derbia jokatuko** (9); **igandeko derbia** (5); **jokatuko duten derbia** (3); **larunbatean derbia** (3); **larunbateko derbia** (3); **lehen derbia** (12); **lehen derbia jokatuko** (3); **reala athletic derbia** (4); **sasoiko lehen derbia** (3); **taldeen arteko derbia** (4)

**arteko derbiak** (4); **arteko derbian** (8); **athleticen aurkako derbian** (5); **aurkako derbian** (16); **biharko derbian** (3); **derbian erredakzioa** (3); **derbiaren ondoren** (4); **derbirako sarrera** (6); **derbirako sarrerak** (11); **derbirako sarrerarik** (3); **duten derbiari** (3); **eta derbiak** (3); **euskal derbiak** (3; **euskal derbian** (5); **gaurko derbian** (4); **igandeko derbian** (3); **jokatuko duten derbiari** (3); **jokatutako derbian** (4); **mendizorrotzako derbian** (3); **realaren aurkako derbian** (5); **zuen derbian** (3)

---

**derbitxe** *(ETCn **79** agerraldi; orobat **dervitxe** ETCn **2** agerraldi)* *iz* musulman lekaidea, aszetismoaren bidez santutasuna iritsi nahi duena.

**Derbitxeak** eta sufiak txingar gorien gainetik zebiltzan larrain bat adinako lur zerrenda batean. Fernando Rey

**Derbitxeen** gorputz biluzi izerdituak ur tanten pare irristatzen ziren txingar distiratsuen artetik. Fernando Rey

**Dervitxeak** behar du bere bizitzan ilusio bat. Pablo Sastre

Zeren Rumi poeta sufiak eta haren **derbitxeek** bezala, astean behin-edo, bere dantza errituala egiten baitzuen Emmanuelek ere. Joan Mari Irigoien

Haiek izan ziren, **derbitxe** persiarren mozorropean, Ala Al-Dinen eta Zobeidaren etxeko atea jo zutenak. Patxi Zubizarreta

---

**deretxo** **1** *iz ipar* zuzenbidea. ik **dretxo**.

Gu Eusko Armadan sartu ginenean, Paueko unibertsitatera joan zena **deretxoa** ikastera. Itxaro Borda

Zinezko entziklopedia zelako fama zuen ala teologia, ala filosofia, ala literatura, ala musika, ala **deretxo** zibil eta Elizako **deretxoan**. Xipri Arbelbide

Ez baitzen eliza **deretxoan** aditu haietarik, baimenik gabe esposatu zen bere kusiarekin. Michel Oronoz

Eusko Ikaskuntzak bere gain hartuak ditu aurten Maite Lafourcade **deretxoko** irakasleak segurtatzen dituen kurtsoak euskal eskubideetaz. Herria

Franck Moderne Sorbonako **deretxo** erakasle ezagutuari eskatuko dio txosten bat. Herria

Uztaritzeko seminarioan egin zituen bigarren mailako ikasketak eta gero Bordeleko Unibertsitatean ekonomia eta **deretxo** sailekoak. Herria

**2** eskubidea.

Bere semea gizondua dela jakiteko **deretxoa** badu. Elena Touyarou

Ez ote zuen bizimolde normalago baten eramateko **deretxorik**? Itxaro Borda

-Ez dago **deretxorik** -trumilka eta bultzaka sartzen da bulegoan-, ez dago **deretxorik**; nork aldatu dizkit joan den asteko liburu komentarioak, nor izan da kabroi hori...? Xabier Mendiguren Elizegi

Bainan alare, ez dago **deretxorik** koñak botilla ustuta gero egin genduna egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**deriba** *iz* desbideratzea.

Frekuentzien aldaketa faktore anitzen ondorioa izan daiteke, batzuk zorizkoak -geneen **deriba**, esaterako- eta beste batzuek, aldiz, organismoen moldaketan eragina izango dute -adibidez, hautespen naturalak edo sexualak-. Askoren artean

---

**deribatu**[1], deriba(tu), deribatzen **1** da/du *ad* eratorri.

Haren Volksgeistak ere [...] Herrien Psikologiatik ematen du eratorria, edo hobeto, haren deribazioen deribazio edo garapen paralelo frantses eta ingelesen batzuetatik **deribatua**. Joxe Azurmendi

Eta sistema hau definitua izango da deskribatu ahal bada nola **deribatzen** diren bata bestetik diskurtso ekonomikoaren difrakzio-puntuak, nola arautzen duten batak bestea, nola inplikatzen duten elkar (nola balioaren kontzeptuari buruzko erabaki batetik **deribatzen** den salneurriari buruz erabakitzeko puntu bat). Xabier Arregi

Ikatza erretzeak sortzen du gehienbat euri azidoa, % ia 60an, eta arroliotik **deribatuek**, % beste 30ean. Pello Zabala

**2** (era burutua izenondo gisa)

Deskribapen arkeologikorako (eta kontuan izan gabe hemen prozeduraren ahalezko joan etorriak), kontrajartze honek azterketaren terminus a quo delakoa osatzen du, kontraesan **deribatuek** terminus ad quem delakoa osatzen duen artean. Xabier Arregi

· Baldintza perpausen, ondoriozkoen, eta abarren lokarri sintaktikoa *ba -, bait -, baina, baizik...* dira, *bai*ren **deribatuak** denak. gero eta garestiago izango da erregaiaren **deribatuak** lortzea. Joseba Zulaika

Osagaien artean bat testosteronaren **deribatua** delako. Berria - Euskal Herria

Fenolaren **deribatu** kloratu baten fabrikazioan lortzen den azpiproduktua da. Berria - Gaiak

Kautxu eta metalezko piezak egiten dituen Tecmesa fabrika, espezie eta **deribatuen** denda bat eta Labe-Txiki okindegietako labe bat erre zituen suak; ondoko enpresetan kalteak arinagoak izan ziren. Berria - Ekonomia

**3** (matematikan) ik **deribatu**[2].

Ukitzaileetatik abiatuta, kurbara jo zitekeen berriz; funtzio **deribatutik** bera **deribatua** zen funtziora jo zitekeen berriz. Jon Muñoz

**4** desbideratu.

Dekretuak esaten duenez, ebakuntza **deribatutako** osasun zentroan egin bada, Osasun Sailak zuzenean ordainduko ditu ebakuntzaren gastuak. Berria - Euskal Herria

---

**deribatu**[2] *iz* funtzio erreal batentzat, funtzioaren gehikuntzaren eta aldagaiarenaren arteko zatiduraren limitea, aldagaiaren gehikuntzak zerorantz jotzen duenean.

**Deribatua**, esate baterako, zer zen ulertu uste zuen Ruche jaunak, nahiz nozio horrek ez zion oroitzapen onik utzi: funtzio baten aldiuneko aldaketa neurtzea. Jon Muñoz

**Deribatuaren** nozioa aurrez irudikatu zuten prozedurak erabili zituen, mendebaldeko matematikariak baino bostehun urte lehenago. Jon Muñoz

Hori guztia jakin beharra ote zeukan ikertzen jarraitzeko: funtzioak, aldaketak, limiteak, **deribatuak**...? Jon Muñoz

Bazegoen formula bat f (x) funtzioaren f' (x) **deribatua** definitzeko. x aldagaiaren funtzio bat baldin bada f (x), haren **deribatua** f' (x) adieraziko da. Jon Muñoz

Hori duk bere **deribatuaren** berdina den funtzio bakarra. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haren deribatua** (3)

---

**deribazio** **1** *iz* eratortzea.

Lan horretan tipoen logika aurkezten dute, eta zenbait printzipio logikoren **deribazio** matematikoak, zehazki, aritmetikoak, azaltzen dituzte. Askoren artean

Haren *Volksgeist*ak ere [...] Herrien Psikologiatik ematen du eratorria, edo hobeto, haren **deribazioen deribazio** edo garapen paralelo frantses eta ingelesen batzuetatik deribatua. Joxe Azurmendi

Enuntziatu nagusietan oinarritutako **deribazio** hau ezin da nahastu axiometan oinarritutako dedukzio batekin. Xabier Arregi

Ahalezko ordena ezberdin hauek atribuzioaren, artikulazioaren, izendapenaren eta **deribazioaren** teorietan beha daitezkeen mendetasun harremanek mugarritzen dituzte. Xabier Arregi

Beraz, suposatzen du bere eraldaketetan, bere segidako sailetan, bere **deribazioetan**, enuntziatuen arloak ez diola obeditzen kontzientziaren denboratasunari bere beharrezko eredua bailitzan. Xabier Arregi

Gogoratzea komeni da teoria batek azalpen maila ezberdinak (oinarriak eta metodologiak), teorien bitarteko aspektuak, euron **deribazioak** eta aplikazioak dauzkala beti. Xabier Amuriza

**2** (hitz elkartuetan)

Arkeologiak horrela diskurtso baten **deribazio**-zuhaitza osa dezake -eta hau da bere gai nagusienetako-. Xabier Arregi

**3** desbideratzea, adarra.

Plastikozko **deribazioak** ekarri zuen arazo horrentzako konponbidea. Irene Aldasoro

Odola ez da gatzatzen, eta nahi denean ireki daiteke **deribazioa** gaixoa makinara konektatzeko. Irene Aldasoro

Gerta daiteke bi edo hiru urteren buruan **deribazioa** infektatzea, eta, orduan, beste besora edo izter batera aldatzen da. Irene Aldasoro

**4** matematikan, deribatua kalkulatzea.

**Deribazioari** dagokion zeregina da hori. Jon Muñoz

Eragiketa bihurtu zen **deribazioa**, mota berri bateko eragiketa, zenbakiekin ez, baizik kurbei lotutatuko kantitate aldakorrekin aritzen zena. Jon Muñoz

---

**dermatitis** *iz* larruazalaren hantura.

**Dermatitis** edo soriasisen aztarnarik ere ez zen ikusten, ezta izerdi edo begizulorik ere, eta ile arrastorik ere ez hanka edo besoetan. Bernardo Atxaga

---

**dermatologia** *iz* medikuntzaren adarra, larruazala eta haren eritasunak aztertzen dituena.

Itxaronaldi luzeenak ginekologia, traumatologia, oftalmologia eta **dermatologia** espezialitateetan izaten direla adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Caroyln Willis Amershango **dermatologia** departamenduko medikuak. Berria - Gaiak

Hiru salbuespen daude hala ere, ginekologia, **dermatologia** eta psikiatria zerbitzuei dagokiena hain zuzen ere. Berria - Harian

---

**dermatologo** **1** *iz* dermatologian espezialista.

Baimena eskatu zuen lanean, **dermatologoarenera** joateko. Unai Elorriaga

Oso emakume dotorea zen **dermatologoa** eta hutsaren hurrengo sentitu nintzen haren ondoan. Joxan Elosegi

Begiak zerura goratu eta beste gazur dosi bat txertatu zidan **dermatologoak**. Joxan Elosegi

Estetizista ez zela erantzun zidan **dermatologoak**. Joxan Elosegi

**2** (izenondo gisa)

Rousset medikuak, Lyon-eko medikuntza fakultateko erakasle **dermatologoak** dio tanke amerikanoak hor ditugula zenbait aste barne... Marzel Etxehandi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zidan dermatologoak** (3)

---

**dermatomikosi** *iz* larruazaleko eritasuna, onddoek eragina.

Oinetan sarri izaten dira, baina baita gorputzean ere; **dermatomikosi** deitzen zaio. Berria - Harian

---

**dermatosi** *iz* larruazaleko eritasuna.

Psoriasia **dermatosi** kronikoa da, eta ezkata zuriz eratutako plaka gorriak dira ezaugarri nagusiak. Berria - Gaiak

---

**dermio** *iz* eremua, barrutia; basoa ez den udal lurraldea.

1990an, harria Elizondoko Soalarreko **dermiotik** desagertu eta Gartzaingo Ezkaldo mendian azaldu zen, ustez, etxe bateko ateburu gisa erabiltzeko. Berria - Kultura

Arano, Elduaien eta Goizuetako **dermioak** elkar mugatzen duten ingurutsuan, ezaguna da Abaden Gurutzea lekuizena. Patziku Perurena

· Eta liburu asmatuek asmakizun munduan sartzen gintuzten, balizko euskal **dermio** ahulduan, lastertasuna bihurtuz abiadura, orain arte beharrezkoa izan dena derrigorrezko eginez hemendik aitzinat. Pello Salaburu

---

**dermis** *iz* ornodunen epidermisaren azpiko ehun konjuntiboa.

Folikulu ugari ditu larruazalak, epidermisean hasi eta handik behera **dermisera** iristen direnak. Irene Aldasoro

Larruazalaren parterik handiena **dermisa** da, geruza mamitsuago bat, 1,5-2 mm-ko lodierakoa, gutxi gorabehera, eta odolhodi, nerbio-zuntz eta izerdi-guruinez ongi hornitua. Irene Aldasoro

**Dermisaren** goiko aldea izurtsua da, eta haren formari egokitzen zaio epidermisaren azpiko aldea (geruza basala). Irene Aldasoro

Batez ere kolagenoz osatuta dago **dermisa**. Irene Aldasoro

Larrua, izan ere, animalien **dermisa** kimikoki tratatuta lortzen da. Irene Aldasoro

---

**dermoestetika** *iz* medikuntzaren adarra, larruazalaren estetikaz arduratzen dena.

Joakin metrosexual, serio diñotsut, batzuk **dermoestetika** ta besteok zurrut, zirugia ta lifting euro milioi batzuk, dagoeneko neska emoten dozu zuk. Josu Zabaleta

---

**dermoestetiko** *izond* dermoestetikari dagokiona.

Agentzia **Dermoestetikoa** Barne ministro Harrisonen agindupean dago. Jon Alonso

Jules Tribuno, Agentzia **Dermoestetikoko** nire ugazaba! Jon Alonso

---

**derogatu**, deroga, derogatzen da/du *ad* ezeztatu, indargabetu.

Beraz, legea **derogatu** egin behar bada, egin dadila, eta lehenbailehen. Berria - Euskal Herria

---

**derogazio** *(corpusean* ***derogazione*** *soilik) iz* ezeztapena, indargabetzea.

Aurtengo sasoineko **derogazione** bat ukan da, bainan laster hasiko dituzte obrak norma horietan sartzeko. Herria

---

**derrame** *iz* isuria, jarioa.

Ospitalera eraman dutela dio albisteak, buruko **derrame** batekin. Pako Aristi

---

**derrapatu**, derrapa, derrapatzen du *ad* errepideetan eta, lerratu.

Zuhur gidatu zuen Rossik, apenas **derrapatu** zuen, soilik abiadura bat-batean moteltzerakoan atzeko gurpilak errepidearen kontra jo zuen batean izan ezik. Berria - Kirola

Balaztei eragin, gurpilak blokeatu, **derrapatu**, eta gelditu, dena segundo gutxian. Berria - Kirola

---

**derrapatze** *iz* lerratzea.

Eman eta eman ari zela, kateak pinoi batetik bestera salto egin zion eta Boonenek, eseri eta esprintari berrekin behar izan zuen, gurpilaren **derrapatzeari** ahal zuen moduan eutsi ondoren. Jokin Muñoz

---

derrefente ik **derrepente**.

---

**derrepente** *(68 agerraldi, 23 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 558 agerraldi; orobat* ***derrefente*** *g.er.)* **1** *adlag* bat-batean.

Harrigarria zen: **derrepente**, denak berdin-berdin segitzen zuen ni gabe! Joxe Austin Arrieta

Bigarren motorra ere **derrepente** gelditu zenean, izialdura sortu zen, jakina. indioilar bat, oinazturak izutu eta **derrepente** makakorroka hasi zena. Joxe Austin Arrieta

Emaztea, ileak **derrepente** elektrizatuta, buruz behera joan zitzaion haragi zirpilari, garrasika. Xabier Mendiguren Elizegi

Izutu zen oso, bidenabar esan, etxera hain **derrepente** sartu nintzenean. Matías Múgica

Karpeta urdina hartu eta **derrepente** egin zuen kanpora jauzi. Harkaitz Cano

Eta orain, **derrepente**, korrika eta muturka. Txillardegi

Ez dakit ba, horrela, **derrepente**, ez dugu ia elkar ezagutzen... Harkaitz Cano

Aurpegia aldatu zitzaion **derrepente**. Antton Olano

Motor-hotsa airean, **derrepente**. Joxe Austin Arrieta

-Ixo **derrepente**! -orro egin zuen Kako-okerrek, eta bozeramaileak atzerantz eraman zituzten, arrastaka. Julen Gabiria

**2 *derrepentean*** *(37 agerraldi 23 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 407 agerraldi) adlag* derrenpente, bat-batean.

**Derrepentean** hilko zen, inondik ere. Antton Olano

Azkenean, betikoa, poltsa dela **derrepentean** hustu dena: Abuztu dena pesta, poltsari ongi kosta. Pello Zabala

Baina zakurra **derrepentean** isildu zen. Harkaitz Cano

Jateari utzi zion, ez zuen lorik egiten, eta bizitzeko gogorik ez zuela esaten zigun behin eta berriz, nahiago zuela **derrepentean** hil. Patxi Iturritegi

Elurtzan zehar jarraituko duzu noraezean, eta galdu egin zarela ohartuko zara **derrepentean**. Joseba Sarrionandia

**3 *derrepenteko*** *izlag* bat-batekoa.

Hauxe bai **derrepenteko** zaparrada zaratatsu eta haizetsua, azkar asko hustu da jendez etorbidea, alarma jo balute bezala. Joxe Austin Arrieta

Maitatzea jarduera (aktibitatea) da eta ez saiatze pasiboa; beti adi egotea, ez **derrepenteko** joera. Jenaro Garate

**4 *derrepente batean*** bat-batean.

Bizkai aldean maiz erabilia, **derrepente batean** hedatu da bazter gehienetara. Pello Zabala

Horiexei heldu die Gabik **derrepente batean**. Jokin Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta derrepente** (9); **eta derrepentean** (4); **segituan derrepente** (5)

---

# derrigor

*(240 agerraldi, 52 liburu eta 104 artikulutan; ETCn 6697 agerraldi)* **1** *adlag* nahitaez, nora ezean.

**Derrigor** ipinitako gai batean nola moldatzen den da gakoa. Andoni Egaña

-Zubira iristen denean, **derrigor** geldituko da -esan zuen Agustinak-. Aitor Arana

-Baina badago bisita bat **derrigor** onartu beharko duzuna. Koldo Izagirre

Badauzkat gaur **derrigor** egin beharreko beste erosketa bi. Josu Landa

Baina, justiziazkoa behar zuen izan, **derrigor**, zigorra bezala saria ere, Jaungoikoagandik datozen ongietako bat justizia delako. Imanol Unzurrunzaga

Orain arte kultura esaten ari ginena, fedea esan genezake orain (ez fede erlijiosoa **derrigor**; halere balio handien humusa, erlijioa izan ohi da gehienetan). Joxe Azurmendi

Jakintsuak **derrigor** zoriontsu izan behar duela sinesten badugu [...]. Imanol Unzurrunzaga

Historiako edo etikako arazoak **derrigor** metafisikako esferan eta maneran ebaztea eskatzen duelako. Joxe Azurmendi

-Mahastiak, kaioak eta enbata, **derrigor** kostan jaioa izan behar du -esan zigun lainezaz beterik. Joxean Agirre

Hark idazten ez duena, **derrigor** beste batek idatzi beharko duelako. Karlos Linazasoro

Gerran bizirauteko gai izateak, ez du esan nahi **derrigor** gerratik kanpo bizirauteko gaitasuna duzunik. Harkaitz Cano

Nik arma guztiak nituen, hark obligazioak besterik ez, kodearen arabera jokatu beharra zuen **derrigor**, eta nik armada guztia bidali nuen haren kontra. Karlos Zabala

Erleen ametsek amesgaiztoak izan behar dutelako **derrigor**. Unai Elorriaga

**2** *iz* nahitaezko gauza.

Egun bakarrean danak egitea ez da **derrigorra**, Rufino. Xabier Amuriza

**Derrigorra** ez zan, baiña lagunak ematen zuten tabarra ez jasotzearren, pakeagatik, atera egin bear danei baso-erdi bana ardo. Iñaki Segurola

Urduliztar batzuk domekaro Andrakara etorten ziran txikiteoan, Ruforen tabernara, eta han **derrigorra** zan soinua jotea. Xabier Amuriza

Irlako espainiar denak falangista egiteko **derrigorra** zutela. Edorta Jimenez

Baina eskarmentuak dio emakumeok zaintzeko **derrigorrari** uko egin ezean, beste inor ez dela mugitzen. Berria - Euskal Herria

Zorionez, handik egun batzuetara Francoren gobernuaren delegatu Miguel Espeliusek horren **derrigorrik** ez zela esan behar izan zuen, horrek ere paperen bidez. Edorta Jimenez

Gogoak berak egiteko guztietan barne **derrigorrik** ez edukitzea eta, menperaturik, berau nolabait eraman eta jasan beharrik ez izatea lehenkien inklinazio xumeak eragiten du. Xabier Amuriza

**3 *derrigorrean*** *(83 agerraldi, 19 liburu eta 41 artikulutan; ETCn 1.170 agerraldi) adlag* derrigor.

**Derrigorrean** babesten nauten lau horma hauen artetik. Hasier Etxeberria

Elizak gustuko zituen batek **derrigorrean** izan behar zuen gogoko tren-geltoki hura. Fernando Morillo

Nik, ordea, **derrigorrean** ekarri nituen, arrastaka, eta itsasontziko eserlekuen azpian lotu. Juan Kruz Igerabide

Horiek aho betean baina **derrigorrean** bota beharreko kunplimendu ezdeusak dira, gezur zuriak, ezer ez esatea adinakoak. Iñaki Segurola

Beldur nintzen azafataren bat lehenik onez onean eta ertzainen bat gero mehatxuekin ez ote ziren nire bila etorriko, **derrigorrean** hegazkinean sartu eta hain arrotz egiten zitzaidan helmugako hirira bidaltzeko. Joxean Agirre

Mendiak, beraz, hurrengo gauean igaro beharko, **derrigorrean**. Karlos Zabala

Haiei aurre hartu behar, bada, **derrigorrean**; lehenago iritsi behar Krasnoiarskera [...] bide nagusitik kanpo ahalik beranduena abiatzeko. Karlos Zabala

**4 *derrigorreko*** *(4 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 70 agerraldi) izlag* derrigorrezkoa.

**Derrigorreko** gaitasun oinarria: Atal horretan zerrendatzen diren gaitasunak halabeharrez menperatu beharko dira hurrengo ziklora sartzeko: kontatzea, mintzatzea, irakurtzea idaztea eta bizikidetza. Berria - Euskal Herria

Napumoceno jauna hil eta usaiako **derrigorreko** bost eguneko epea pasatuta, haren enpresan neurririk ezin luzatuzkoenak hartu eta gero, Carlos, iloba, notarioarengana joan zen, osabaren testamentua irekitzeko formalitaterako. Pablo Sastre

Zizeron ikertzea **derrigorrekoa** zen hizlarigaientzat. Imanol Unzurrunzaga

Larru-gauzekin bezala, izpiritukoekin ere: lehen bizio zena orain kasik **derrigorreko** bihurtua. Iñaki Segurola

**5 *derrigorrez*** *(226 agerraldi, 57 liburu eta 96 artikulutan; ETCn 2.489 agerraldi) adlag* derrigor.

**"Derrigorrez** behar duzuna notario akta da" esan zion Udaletxeko neskak. Ramon Saizarbitoria

**Derrigorrez** aurkitu behar norberaren gustuko zerbait. Hasier Etxeberria

Edozein lizundu, gaixotu edo ustelduko da hemen, eta denborarekin ia **derrigorrez** lizundu, gaixotu eta ustelduko gara denok, baina izoztu, ez dago inor izozteko moduko hotzik tropiko sargoriotan. Joseba Sarrionandia

Emakumeak poltsatxo bat zeraman ezkerreko eskuan; besaurrean, berriz, juduek **derrigorrez** josi beharreko besoko horia, Dabiden izarrarekin. Anjel Lertxundi

Kanpoko lainoen kotoinezko itsasoari behako bat **derrigorrez** bota nahi zuela. Ramuntxo Etxeberri

Behar diot Karanba Suare Kulibali sorginari **derrigorrez** deitu. Itxaro Borda

Borroka behin betiko **derrigorrez** irabazi behar bailuan. Itxaro Borda

Adak DIB deitzen zuen horietako liburu bat (**derrigorrez** irakurri-beharrekoa) erosi nuen gero. Anjel Lertxundi

Orduan, **derrigorrez**, berekin joateko aukera eskainiko zidan, eta, suerte apur batekin, Victoriarekin jaisteko aukera izango nuen. Ramon Saizarbitoria

Ekaitz-giroa zegoen, eta abiatu egin behar, **derrigorrez**, bidean barrenako gure lorratza ezabatu baino lehen. Joxe Austin Arrieta

Batek baino gehiagok esan izan du ero batena behar zuela izan **derrigorrez** halako irtenbide gordinak. Hasier Etxeberria

Barre egin genuen, **derrigorrez**. Joxe Austin Arrieta

**6** ***derrigorrezko*** *(455 agerraldi, 66 liburu eta 291 artikulutan; ETCn 7.601 agerraldi) izlag*

Hamabi urte nituela, **derrigorrezko** eskola amaitu nuen, oso nota bikainekin. Eskarne Mujika

Lehendik zituzten bi egunez gain, astelehenetan ere **derrigorrezko** baraua ezarri zuten. Askoren artean

Autobusak **derrigorrezko** geldialdia egin zuenez, hantxe jaitsi zen. Unai Iturriaga

Marinan **derrigorrezko** bisita egin ostean, berriro sartu dira Ronda kalean. Izan ere, ordurako hizkuntza periferikoak kontuan hartzea eskakizun formal **derrigorrezkoa** zenez, Euskal Idazleen Elkarteari egin zioten gonbita. Sonia Gonzalez

Ez da **derrigorrezkoa**, baina naturala da. Karlos Zabala

Jacquesek ez baitzuen ikusten legerik behar ez zuen lanbiderik, legea mundua ulertzeko eta ordenatzeko tresna **derrigorrezko** baitzitzaion. Felipe Juaristi

Zeremonia **derrigorrezkoa** zen beretzat, ia errituala. Josu Landa

Modua izanez gero bidaiatzea **derrigorrezkoa** balitz bezala. Arantxa Iturbe

Autoa **derrigorrezkoa** zuen, indizioa behar zuen gaixoarengana lehenbailehen iristeko. Arantxa Iturbe

Orain arte beharrezkoa izan dena **derrigorrezko** eginez hemendik aitzinat. Pello Salaburu

Besteen bizitzetan baimenik gabe sartzen den apopilo, lekuko **derrigorrezko**, gorrotoz eta higuinez zapuzten duten gonbidatu madarikatu, betiko madarikatu. Felipe Juaristi

Arau estu eta **derrigorrezkoen** mende bizi nintzen umetan, arau estu eta **derrigorrezkoen** mende eduki nahi gaituzte orain. Anjel Lertxundi

Elorria kastitate **derrigorrezkoaren** zuhaitza eta lorea izan dela. Pello Zabala

**Derrigorrezko** hezkuntza hiru ataletan banatzea proposatu dute. Berria - Euskal Herria

**Derrigorrezko** Bigarren Hezkuntza, 12 eta 16 urte artekoa. Berria - Euskal Herria

Lehenbiziko gauza: hasi baino lehen, lau hankatan jarri beharra dago, derrigor- **derrigorrezkoa** da gehienentzat. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina derrigor** (4); **behar du derrigor** (9); **behar dute derrigor** (3); **da derrigor** (7); **derrigor egin** (4); **derrigor egin behar** (3); **derrigor esan** (4); **derrigor irabazi** (10); **derrigor irabazi behar** (8); **derrigor izan** (4); **derrigor izango** (3); **dira derrigor** (3); **du derrigor** (16); **dugu derrigor** (3); **dute derrigor** (4); **eta derrigor** (8); **ez da derrigor** (3); **ez derrigor** (8); **ez du derrigor** (3); **hori derrigor** (4); **zuen derrigor** (6)

**behar derrigorrean** (3); **derrigorrean bete** (3); **derrigorrean egin** (3); **eta derrigorrean** (3); **ez derrigorrean** (3)

**baina ez derrigorrez** (3); **bat derrigorrez** (3); **batzuk derrigorrez** (3); **behar du derrigorrez** (4); **behar nuen derrigorrez** (4); **behar zuen derrigorrez** (3); **beharko dute derrigorrez** (3); **da derrigorrez** (4); **derrigorrez behar** (3); **derrigorrez bertan** (3); **derrigorrez bete** (8); **derrigorrez bete beharrekoa** (3); **derrigorrez egin** (7); **derrigorrez egin behar** (5); **derrigorrez eman** (3); **derrigorrez entzun** (3); **derrigorrez entzun behar** (3); **derrigorrez eta** (3); **derrigorrez ibili** (3); **derrigorrez ibili behar** (3); **derrigorrez ikasi** (3); **derrigorrez irabazi** (6); **derrigorrez irabazi behar** (3); **derrigorrez irakurri** (3); **du derrigorrez** (6); **dute derrigorrez** (5); **egitasmo nuklearrak derrigorrez** (3); **eta derrigorrez** (3); **ez da derrigorrez** (3); **ez derrigorrez** (9); **nuen derrigorrez** (4); **nuklearrak derrigorrez** (3); **zuen derrigorrez** (5)

**beharreko derrigorrezko** (3); **da derrigorrezko** (7); **da derrigorrezko ikasgaia** (4); **dbh derrigorrezko bigarren** (3)

**derrigorrezko baldintza** (3); **derrigorrezko bigarren** (39); **derrigorrezko bigarren hezkuntza** (3); **derrigorrezko bigarren hezkuntzako** (19); **derrigorrezko bigarren hezkuntzan** (12); **derrigorrezko bigarren hezkuntzara** (3); **derrigorrezko bisita** (3); **derrigorrezko eskola** (3); **derrigorrezko eskolaldirako** (8); **derrigorrezko eskolaldirako euskal** (7); **derrigorrezko eskolatzea** (3); **derrigorrezko eta** (3); **derrigorrezko hezkuntza** (10); **derrigorrezko hezkuntzan** (5); **derrigorrezko ikasgaia** (5); **derrigorrezko ikasgaia izango** (3); **derrigorrezko ikasketak** (4); **derrigorrezko irakaskuntza** (5); **derrigorrezko ondorio** (3); **derrigorrezko oporrak** (3); **derrigorrezko zaintzari** (3); **derrigorrezko zaintzari intsumisioa** (3); **derrigorrezko zerbitzu** (3)

**dio derrigorrezko** (3); **ere derrigorrezko** (4); **eta derrigorrezko** (16); **eta derrigorrezko bigarren** (6); **ez da derrigorrezko** (5); **zituen derrigorrezko** (3)

**da derrigorrezkoa** (10); **derrigorrezkoa al** (3); **derrigorrezkoa da** (46); **derrigorrezkoa dela** (18); **derrigorrezkoa den** (5); **derrigorrezkoa du** (8); **derrigorrezkoa dute** (3); **derrigorrezkoa ez** (3); **derrigorrezkoa iruditzen** (3); **derrigorrezkoa izan** (9); **derrigorrezkoa izan behar** (3); **derrigorrezkoa izango** (15); **derrigorrezkoa izango da** (4); **derrigorrezkoa izatea** (7); **derrigorrezkoa zen** (11); **derrigorrezkoa zuen** (5); **egitea derrigorrezkoa** (4); **ematea derrigorrezkoa** (3); **eta derrigorrezkoa** (4); **euskara derrigorrezkoa** (5); **ez da derrigorrezkoa** (10); **hartzea derrigorrezkoa** (3); **hori derrigorrezkoa** (5); **ia derrigorrezkoa** (5); **irabaztea derrigorrezkoa** (6); **irabaztea derrigorrezkoa da** (3); **lortzea derrigorrezkoa** (3); **zen derrigorrezkoa** (3)

**derrigorrezkoen mende** (3); **derrigorrezkotzat jo** (7); **derrigorrezkotzat jo zuen** (6); **derrigorrezkotzat jotzen** (3); **eta derrigorrezkoen** (3); **eta derrigorrezkoen mende** (3)

---

# derrigorrezkotasun *iz* derrigorrezkoa denaren nolakotasuna. ik **derrigortasun**.

Justiziak, argi dago, bere lana egin behar du, gure konstituzio arauak errespetatuta eta Estatuaren jarraitasunaren **derrigorrezkotasuna** eta defentsa sekretuaren exijentziak aintzat hartuta. Berria - Mundua

---

# derrigortasun *(41 agerraldi, 2 liburu eta 11 artikulutan; ETCn 535 agerraldi)* **1** *iz* derrigor izateko nolakotasuna.

Geroago ETAk egin duen fetixetik urrun zegoen, Estatua **derrigortasun** ez desiratua dela dirudi. Joseba Zulaika

Bai jainkoei buruz sinesten dugunak eta bai gizonei buruz dakigunak, irakasten digute, agindu, **derrigortasun** natural bategatik duela gainekoak agintzen. Joxe Azurmendi

Horregatik, **derrigortasun** hori baztertzeko eskatu die. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Justiziako funtzionarioek eta karrera judizialeko kideek euskara modu eraginkorrean ikasteko **derrigortasun** eta lehentasun neurriak hartzea. Berria - Harian

Plangintzaldian (1997-2002) Jaurlaritzak bere buruari jarritako **derrigortasun** indizea %40,74koa izan zen (1996ko datuetan oinarrituz), baina epe horren amaieran bere lanpostuen %34,90k zuen zehaztua **derrigortasun** data, orotara 2.185 lanpostuk. Berria - Euskal Herria

Planak hartzen zituen 6.261 langileetatik 2.185ek zuten ezarria hizkuntz eskakizuna lortzeko **derrigortasun** data, baina horietatik 913k baino ez zuten lortu. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**derrigortasun data** (23); **derrigortasun datak** (9); **derrigortasun indizea** (3); **egiaztatzeko derrigortasun** (4); **egiaztatzeko derrigortasun datak** (4); **eskakizuna lortzeko derrigortasun** (6); **eta derrigortasun** (3); **lortzeko derrigortasun** (6); **lortzeko derrigortasun data** (6)

---

# derrigortu *(254 agerraldi, 50 liburu eta 139 artikulutan; ETCn 3.422 agerraldi)*, derrigor(tu), derrigortzen **1** du *ad* derrigor behartu.

**Derrigortu** egin gintuzten, kapitain jauna. Koldo Izagirre

Nazio independente eta gerrari hartan, gonbidatu egin behar zen, ez **derrigortu**; eman edo itxaronarazi egin behar ziren jabea hil eta jaberik gabe zeuden feudoak; sariak eman eten gabe, hobespenen beldurra sartu behar zen. Iñaki Iñurrieta

Ez dago kristaurik hango jardun lehorra inork **derrigortu** gabe irakurriko duenik. Iñaki Segurola

Esklabo berriak ez du nagusi batentzat **derrigortuta** lan egiten; esklabo berriak aberatsa izan gabe aberatsak bezala bizitzeko bere burua behartzen du lan egitera. Pako Aristi

Ezin ditut **derrigortu** domina hartzera. Berria - Euskal Herria

Senarraren hilobian etzatera ere **derrigortzen** dute. Berria - Gaiak

Biharamunean, susmoa zuten, hilik egongo ziren, edo bestela tren batean sarturik Alemaniara bidean garraio, alemanen gerra-fabriketan lan egitera **derrigorturik**. Felipe Juaristi

Inork ez zintuen **derrigortu** kakazahar hori hartzera. Unai Iturriaga

Desamortizazioaren garaian fraideek komentuak uztera **derrigortu** zituzten, baina itzuliko zirela uste zutenez, gauza asko ezkutuan gordetzea erabaki zuten. Berria - Kultura

Hau da nire mundua, dontsuon mundua, eta ez nau inork **derrigortuko** nahi ez dudan bizitza batera! Anjel Lertxundi

Ikara larriak zeharkatu zuen plazara **derrigortutako** jendetza. Itxaro Borda

Baina hura guztia Gobernuak **derrigortu** zuen esklaustrazioarekin bukatu zen. Martin Anso

Biak txarrak horiek, debekatzea eta **derrigortzea**. Iñaki Segurola

**2** (era burutua izenondo gisa)

Koldo Mitxelenak muga-mugako egoera **derrigortu** batetik, gerrarenetik, begiratu zien galdera horiei. Anjel Lertxundi

Ume **derrigortuak**, izpiritu menderatuak. Anton Garikano

Ez zuela hitz egin nahi irudi zuen, galdezka eta galdezka ito arte ez baitzen hasten erantzunak ematen, eta **derrigortuaren** plantan egiten zuen beti ere. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bizitzera derrigortuta** (3); **derrigortu du** (5); **derrigortu eta** (3); **derrigortu zuen** (8); **derrigortuko balute** (3); **derrigortuta dago** (9); **derrigortuta daude** (8); **derrigortuta daudela** (3); **derrigortuta egon** (3); **derrigortuta sentitzen** (3); **derrigortuta zeuden** (4); **derrigortzen du** (7); **derrigortzen dute** (4); **derrigortzen zuen** (3); **du derrigortzen** (3); **egitera derrigorturik** (3); **egitera derrigortuta** (10); **egitera derrigortzen** (4); **ematera derrigortu** (3); **erabiltzera derrigortzen** (3); **ez du derrigortzen** (3); **hartzera derrigortzen** (3); **irabaztera derrigortuta** (5); **sartzera derrigortu** (5)

---

# **derrokatu**, derroka, derrokatzen du *ad* (boteretik) erorarazi, eraitsi.

Irango kurduek Xah **derrokatzen** lagundu zuten 1979an, baita autonomia eskatu ere, baina ez zuten lortu. Jon Arretxe

Peron ere Donostian egurastuko zen udan, gero, **derrokatuta** erbestera jo zuenean, Maria Cristina hotelean egoten zen ostatuz. Koldo Izagirre

---

# **derrot**

**1** ***derrotean*** *iz* gelditu gabe, kolpe batean.

Armagnac kopa ere **derrotean** hustu eta mahaian utzi zuen kolpe bat emanda. Ramon Saizarbitoria

---

# **derrota**¹ *iz* desegigoa, porrota.

Biharamunean, **derrotaren** berri izanda, berriz ere hustu behar izan zuten lekua. Aingeru Epaltza

Orain, **derrotak** barreiaturiko nafarrak batu nahirik ari zen lanean, Ezpeletako eta Lekorneko jaunen babespean. Aingeru Epaltza

Gerra Zibileko nazionalismoaren **derrotaren** ondoren, lehen aldiz iritsia zen euskal gizarte nazionalista erailketa beharkizun politikotzat justifikatzera. Joseba Zulaika

---

# **derrota**² *iz* ibilbidea, joaira.

Ez zen haize txarra hura gure ontzien **derrotarako**. Edorta Jimenez

---

# **derrotatu**, derrota(tu), derrotatzen **1** du *ad* azpiratu, garaitu, bentzutu.

Bizitzak akiturik eta **derrotaturik** dauden lagunak, itxaropena inoiz ere beteko ez dutenak. Berria - Kultura

**Derrotatuak**, baina ez bentzutuak. Koldo Izagirre

Hirugarren hatsa zen indar guztiek alde egin eta bat erabat **derrotatua** dagoenean bilatzen dena. Harkaitz Cano

**2** (era burutua izenondo gisa)

Janzten zuen arropa zahar eta zarpailarekin, nazio **derrotaturen** baten zutoihala ematen zuen. Joseba Sarrionandia

---

# derrotean ik **derrot**.

---

# **derrotxe** *iz* eralgitzea, xahutzea. ik **irion**.

Agian **derrotxe** horregatik, edo beharbada basurde batek bakarrik ez zuelako seiren ihesak hondaturiko morala sendatuko, zazpigarrena agertu zitzaionean, utzi zuen eskopeta lurrean, besoak jaso eta uxatu omen zuen piztia. Pako Aristi

---

# dervitxe ik **derbitxe**.

---

# **desabantaila** *(ETCn **2.032** agerraldi; orobat **desabantail** g.er.)* **1** *iz* alde txarra.

Oso labur bada ere diru batasunari buruz aipa daitezkeen abantailak eta **desabantaila** nagusiak jasoko ditugu. Iñaki Heras

Bakarrik bidaiatzearen onura eta **desabantailez** mintzatu gara. Patxi Zubizarreta

Miope izatearen **desabantailei** buruz. Harkaitz Cano

Bada beste **desabantaila** aipagarri bat: herrialde guztiek truke-tasa politikari uko egin beharra. Iñaki Heras

Kolonien **desabantaila** -merkataritzarako askatasuna galtzen baitute- ondo berdinduta geratzen da metropoliaren babesaz, hau armaz edo legeen bidez baliatzen baitzaie. Iñaki Iñurrieta

Volkswagenek **desabantaila** nabaria du pertsonal kostuetan Alemaniako bere lehiakideekiko. Berria - Ekonomia

Energia nuklearrak baditu abantailak, baina **desabantailak** handiagoak dira. Berria - Gaiak

Emakumea izatea **desabantaila** zen... Ana Urkiza

Aldaketak abantailak eta **desabantailak** izan ditzake. Berria - Kirola

Gauzen pentsatzaile eta munduaren miatzaile bezala, hau da, kulturalki, euskaldunok baditugu **desabantaila** askoren artean abantailatxo batzuk, bazterrak aurrera begiak irekita ibiltzeko. Joxe Azurmendi

Nahikoa **desabantaila** izan zuten azkeneko bizilekuan ere. Mirentxu Larrañaga

Salmentak jaisten ari dira, oro har, eta hizkuntza gutxitu batean lan egiten dugunok, gainera, **desabantailan** gaude. Berria - Kultura

Buruargitasuna nagusiki ondoretasunezkoa dela esaten denean [...] iradokitzen da alferrikakoak direla **desabantailan** daudenen heziketa bultzatzeko gizarte-politikak. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Horren zuzena ez bada ere, eurekiko «zeharkako diskriminazioa» gertatzen dela esan zieten, «ustez neutrala den edozein xedapenek, irizpidek edo jarduerak gutxitu bat **desabantaila** egoeran uzten duenean». Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abantailak eta desabantailak** (7); **baina desabantailak** (3); **desabantaila da** (4); **desabantaila handia** (3); **desabantaila hori** (4); **eta desabantaila** (5); **eta desabantailak** (8); **izatea desabantaila** (4)

---

# desadostasun *(ETCn 7.203 agerraldi)* **1** *iz* adostasunik eza.

Hutsarengatik hasten ziren eztabaidak; aitaren eta semearen arteko **desadostasunak** ez zuen arrazoi berezirik behar izaten azaltzeko; erabateko eta guztizko **desadostasuna** zen. Josu Zabaleta

Akademia zaharraren eta berriaren arteko **desadostasuna**. Imanol Unzurrunzaga

Zikloen joera aldatzeko ezarri behar diren ekonomia-politikako neurri eraginkorrenei buruzko **desadostasuna** da nagusi ekonomia-zientzian. Iñaki Heras

Erakunde hori 1928an desegin zen, agintari faxistekin zituen **desadostasunengatik**. Josu Zabaleta

Aguirrerekin izandako **desadostasunak** ahaztu ditut, eta zorte ona opa diot. Berria - Kirola

Eta hori ez zuten izan **desadostasun** bakarra idazleak eta argitaratzaileak Nemo kapitaina zela eta. Karlos Zabala

Baina gero **desadostasunak** sortu ziren haien artean. Iñaki Mendiguren

Arraposturik ez ematea erabakia zuen, gisa horretan bere **desadostasuna** erakustearren. Patxi Zubizarreta

Baita noble batzuek ere -beren **desadostasuna** adierazi nahi izan zuten. Aingeru Epaltza

Atzo, Valery Karpinek azaldu zuen **desadostasuna**. Berria - Kirola

**Desadostasunak** hitzartzea zen biderik onena gure ustez, baina, arrazoi askorengatik, ez da posible izan. Berria - Euskal Herria

Harmonia **desadostasun** bihurtzen ote dute "erlijio nagusiek", Frazerrek uste duen bezala? Iñaki Mendiguren

Horren aurkako erantzun bortitzak **desadostasunezko** elementu bat sartu du herriaren errebindikazioan. Piarres Xarriton

Beharrezko dira **desadostasuna**, desberdintasuna, gatz alea eta ziape garaua: faxismoak ez ditik nahi, debekua jartzen ziek, eta horregatik hi ez haiz faxista; denak berdinak nahi ditik eta hi ez haiz berdina. Juan Garzia

**Desadostasunak desadostasun**, Euskal Herriko alderdi gehientsuenek uste dute Elkarri-k lan ona egin duela bakearen eta normalizazioaren alde. Berria - Harian

Baina San Gilek, **desadostasunak desadostasun**, botoak eman egingo zizkiola argitu zion ondoren Lopezi. Berria - Harian

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Desadostasun** handiak G8ren bileran 'demokraziarako' planaz. Berria - Mundua

Berdin zitzaidan: neskaren nire hitzekiko **desadostasuna** handiago, gehiago bizitzen ari zen nire sua. Anjel Lertxundi

Asmoetan bat egin arren, praktikan **desadostasun** sakonak dituzte Azaleko **desadostasunak**. Berria - Euskal Herria

Oinarrizko **desadostasunak** euskal gizartea eta nazioa ulertzeko moduari buruzkoak direla adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Ageriko **desadostasuna**. Berria - Euskal Herria

Funtsezko **desadostasunak** erakunde komunek eta foralek izan behar dituzten eskumenen gainean izan zituzten. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Desadostasun** oihu batzuk ere entzun dira, Tomenak eta Estherrenak bereziki. Patxi Zubizarreta

**Desadostasun** hots batzuk, gero, Zapaterori eta Raxoiri bien arteko bileretan euskal herritarren etorkizuna ez dutela erabakiko adierazi zienean. Berria - Harian

Londres eta Paris artean dauden aldeak agerikoak dira oso, deskontu britainiarra eta nekazaritza laguntzak dira **desadostasun** iturriak. Berria - Harian

Talde politikoen **desadostasun** giroaren eraginez. Berria - Euskal Herria

Dagokion lekuan hobeto ulertuko dugu **desadostasun** mota hau. Imanol Unzurrunzaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irizpide **desadostasun** hori eragiten duten arrazoiak aztertzeko unea ez bada ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erreparatu orain [...] INE (Espainiako Estatistika Erakunde Nazionala) eta EUSTAT (Euskal Estatistika Institutua) erakundeen arteko estatistika **desadostasunari**. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arteko desadostasun** (9); **dauden desadostasun** (3); **desadostasun bat** (4); **desadostasun eta** (3); **desadostasun handiak** (10); **desadostasun handiena** (4); **desadostasun handienak** (3); **desadostasun hori** (4); **desadostasun horiek** (7); **desadostasun nagusia** (3); **desadostasun nagusiak** (4); **desadostasun sakonak** (7); **desadostasunak desadostasun** (3); **dira desadostasun** (3); **eta desadostasun** (5); **zen desadostasun** (3)
>
> **arteko desadostasuna** (9); **bere desadostasuna** (9); **beren desadostasuna** (4); **buruzko desadostasuna** (4); **dagoen desadostasuna** (3); **desadostasuna adierazi** (4); **desadostasuna agerian** (3); **desadostasuna agertu** (16); **desadostasuna agertu dute** (3); **desadostasuna agertu zuen** (3); **desadostasuna agertzeko** (7); **desadostasuna agertzen** (3); **desadostasuna azaldu** (4); **desadostasuna azaldu du** (3); **desadostasuna erakutsi** (4); **desadostasuna eta** (4); **du bere desadostasuna** (4); **erabateko desadostasuna** (4); **eta desadostasuna** (3); **euren desadostasuna** (6); **gure desadostasuna** (4); **sindikatuen arteko desadostasuna** (3)
>
> **alderdien arteko desadostasunak** (4); **artean desadostasunak** (7); **arteko desadostasunak** (29); **arteko desadostasunak agerian** (3); **baina desadostasunak** (3); **dauden desadostasunak** (4); **desadostasunak agerian** (5); **desadostasunak agertzen** (3); **desadostasunak desadostasun** (3); **desadostasunak direla** (3); **desadostasunak egon** (5); **desadostasunak ez** (3); **desadostasunak gainditzeko** (6); **desadostasunak handiagoak** (3); **desadostasunak handiak** (5); **desadostasunak izan** (12); **desadostasunak izan zituen** (3); **diren desadostasunak** (5); **dituen desadostasunak** (4); **dituzten desadostasunak** (7); **ere desadostasunak** (3); **eta desadostasunak** (12); **izandako desadostasunak** (3); **sakoneko desadostasunak** (4); **sindikatuen arteko desadostasunak** (4); **ziren desadostasunak** (3)
>
> **artean desadostasunik** (4); **arteko desadostasunei** (3); **arteko desadostasunek** (3); **arteko desadostasunen** (3); **desadostasunik ez** (3)

---

# desadostu, desados, desadosten da *ad* desadostasuna izan.

Eta **desadostu** ginen eta geroztik ez dut gogorik heieri dirua emateko. Menane Oxandabaratz

---

# desafekto *iz* aurka agertzen dena.

Preso epaituek soilik zuten bigarren aukera hori, lan egiteko eskubidea epaitu gabeko **desafektoentzat** zen bitartean. Jokin Urain

Azken batean, 1936 eta 1941 urte arteko kintoetan, erregimenak **"desafekto"** izendatuentzat prestatutako soldadutza bereziak ziren. Jokin Urain

---

**desafiagarri** *izond* desafiatzailea, erronka-jotzailea.

Sareen artean ezkutatuak, katu batenak bezain **desafiagarri** eta geldiak ziren bere begiak. Harkaitz Cano

---

**desafiakor** *izond* desafiatzailea, erronka-jotzailea.

Honen begiak, zirrararekin kristalduak, intentsitate trajikoz **desafiakor**, haienekin elkartu ziren segundu batez, eta dardar egin zuten ezagupenaren atarian; Anton Garikano

---

**desafiatu**, desafia, desafiatzen du *ad* erronka jo, desafio egin.

Xarles bozkarioz **desafiatuz**, hasperen bat bota eta ezpain izkinan landaturiko zigarreta meharrari su eman zion. Itxaro Borda

Ni Jaun ahalguztidunaren izenean natorkizu, zuk **desafiatu** dituzun israeldar gudarosteen Jainkoaren izenean. Elizen arteko biblia

Hybrisak bultzatzen du, esate baterako, Prometeo, ezin eutsizko bortxaz, Zeus **desafiatzera**. Juan Garzia

Hantxe, neguko hotza **desafiatuz**, bizkarreko tatuajea erakutsi zion mutilak. Jasone Osoro

"hamabost ale" esan zuen, eta aurpegia loratu egin zitzaion, grabitatearen legea **desafiatzen** zuen keinu batekin. Harkaitz Cano

Ohm-en legea **desafiatuz** igarotzen dira seinale elektrikoak gorputzean zehar. Irene Aldasoro

-Bestaldera bagoaz -jakinarazi zion, **desafiatuz** bezala. Elena Touyarou

---

**desafiatuki** *adlag*

Eta, orduan, Antonio zutitu zen, atxiki zuen bularretik bizkaitarra, eta **desafiatuki** eta dixidatuki erran zion: [...]. Joan Mari Irigoien

---

**desafiatzaile** **1** *izond/iz* desafiatzen duena, erronka-jotzailea.

-Zer irabazten dut horrekin? -galdegin zion neskatxak, oldarkor, begi **desafiatzaileak** hanpatuz. Felipe Juaristi

Jaitsiarazi rituzten bagoietatik; zain zeuden zaindariak, gauez jantzita, eta ofizial batek esan zuen ahots handiz, ahots mehatxugarriz, ahots **desafiatzailez**. Felipe Juaristi

Lehen tiroak **desafiatzaileek** tiratu dituzte zuzen zen bezala baina ordainak ukan ere laster. Herria

**2** (adizlagun gisa)

Ez ahaztu delako detektibe ziztrinak ilehoria astebetean aurkitu zuela -**desafiatzaile** begiratu zion-. Migel Angel Mintegi

Joanes, garbiketa lanak bukatu ondoren, Aloizen aurrean jarri zen, eskumuturrak aldaketan, **desafiatzaile**. Felipe Juaristi

Beste lepo batzuetan urrundik ikus zitezkeen biribil gorri handiak eta erdian puntu gorri handiak, zirikatzaile, **desafiatzaile**, jomuga-seinale baten gisa: hona egin behar duzue tiro, unea heltzean. Urtzi Urrutikoetxea

---

**desafinamendu** *iz* desafinazioa.

Kanpoko parte hartzaileek eta sopranoek **desafinamenduren** bat egin zuten. Berria - Kultura

---

**desafinatu**, desafina, desafinatzen **1** du *ad* gozakaiztu, tonutik kanpo jarri.

Hala ere, beso bakarrarekin moldatzen zen Gandolfo, eta, **desafinatzen** zuen arren, gauza zen Beethovenen Eroica jotzeko, segidan eta arnasarik galtzeke. Felipe Juaristi

Lelo hura ezpainetan, **desafinatzen** ari zen, ahapetik, kokotsa aitzurraz karraskatzen zuen bitartean. Lopez de Arana

Asko **desafinatzen** zuen berak kontrakoa uste izan arren. Mikel Hernandez Abaitua

*Zorionak* kantari hasi zen Mentxu, eta besteek bat egin zuten apalagotik, **desafinatzeko** beldurrez. Josu Landa

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gauean pianoa jotzen zuen, logelan piano zahar eta **desafinatu** bat baitzuen. Eskarne Mujika

Gero eta nekezago zitzaion pianoaren nota **desafinatuak** jasan behar izatea. Josu Landa

Txistu **desafinatu** bat atera zitzaidan. "Alkateak nahi zaituela", errepikatzen zuen turuta-hots **desafinatuak**. Harkaitz Cano

Aitona Patxi, ahots apur bat **desafinatuarekin**, kopla-sail luze bat hasi zen kantatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hots desafinatuak** (3)

---

**desafinazio** *iz* desafinatzea.

Kantariak ez zuen ahotsik (afoniak jota), **desafinazioa** iraunkorra zen bere eztarrian. Berria - Kultura

---

**desafio** *(ETCn **4.391** agerraldi; orobat **desapio** g.er.)* **1** *iz* erronka.

Orain, **desafio** bezala hartzen dut nekea. Piarres Aintziart

Denok batera ari ginen kantuan, ozenki ari ere, **desafio** moduan-edo, Koronelak ezinbestean entzun gintzan. Mirentxu Larrañaga

**Desafioa** euskal departamenduaren aldeko 46.000 izenpe biltzea izan daiteke. Berria - Euskal Herria

-Gogoratuko ez dinat ba! -egin zion arrapostu haren lagun txikiak, bestearen galderan zegoen **desafioa** onartuz. Patxi Iturritegi

Baina bikoteak berean jarraitu du, lotsarik gabe, esturarik gabe, **desafioa** joz. Karlos Linazasoro

Andrearen astrakanezko jaka izan zen, bular aski oparoari moldatua, **desafioari** tinkoago eutsi ziona. Irene Aldasoro

Horretan ere badatza Bestelako Komunikazioaren **desafioa**: ohiko lanabes komunikatibo aspergarri eta zaharkituak alde batera utzi eta bestelako molde berritzaileak aintzat hartzean, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

**2** (izenondoekin)

**Desafio** handia, denboran Seaskak egin zuenaren idurikoa, sasi eskolak sortuz euskara indartzeko. Herria

Ez da **desafio** txikia izango. Berria - Ekonomia

Gure jarrera ere aldatu egin beharko genuela **desafio** berriari aurre egingo bagenion. Xabier Mendiguren Elizegi

**«Desafioei** sendo» aurre egin eta %28 hazi da BBK. Berria - Ekonomia

Lehenengoz jo nuen egunetik gordetzen zuen, begiradan, **desafio** eta gorroto erremin bat. Iban Zaldua

**Desafio** ikaragarria da ingeniariarentzat bola-ahokadura motako giltzadura biologikoa, aldakaren eta izterraren arteko junturan biltzen baitira presio handienak. Irene Aldasoro

Pario ausarta bi artistak nahastea, Barrek berak dioen bezala: «Konfrontazio hori **desafio** alimalea» da. Berria - Kultura

Charliek begietara so egin dio zuzen-zuzen, **desafio** agerikoan, eta ez dio begirik kendu, eskolan Munnings jaunarekin egin ohi zuen bezala errietan hasten zitzaionean. Mirentxu Larrañaga

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Hil nazala -erantzun zuen Gülbaharrek harro, **desafio** ahotsaz-. Fernando Rey

**Desafio**-puntu bat erakutsi zuen hasieran begiradan. Irene Aldasoro

Martak gaitzespen begirada bota zion Olatzi, *prozedura jarraitu beharko zenuke* edo *arauak arauak dira* esan nahiko zuen begirada bat, **desafio** keinu batekin Martaren begien pareraino jaso zuena. Harkaitz Cano

Bisitariak nire **desafio** tonua antzeman zuelakoan nago. Edorta Jimenez

Zure ahotsak **desafio** ukittua du. Lourdes Oñederra

Ordu bat etzanik egon ondoan, eta eguzkiaren samina eztitzera doala, xutitu naiz, halako **desafio** sendimendu batekin kaskoan "ez diat barkatu behar". Piarres Aintziart

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orain, bat-batean eta ustekabean ohore-**desafio** baten erdian murgilduta zegoenean, ez zuen onartuko beraren kontrako irainik txikiena ere. Anton Garikano

## **4** (apustu eta kidekoetan)

**Desafio** bat Hazparneko plazan. Herria

Larunbat huntan jokatuko da partida, urriaren 5 ean, dirua jokoan emanik, lehenagoko **desafioetan** bezala. Herria

**Desafio** hau eta bestea lehengo modan eginak ziren Denek-Bat Elkartearen trinketean. Herria

Hazparneko artzain batek **desafio** hau botatu zuen: punta batetarat ekartzen ahal zituela 200 harri, lerro lerro ezarriak, metro guzietan, hiru oren barne. Herria

Etzirena horrara joan preseski Amedée Arce eta Leon Dongaitz beren **desafio** haundiaren jokatzera! Herria

Ortzirale huntan Donibane Lohizuneko Ravel ezkerparetan **desafio**: Irujo-Ezcurra II eta beste, aratseko 8tan haste, Jokoberri! Herria

Pilotarekin hasiko da gaualdia aratseko 8ak eta erditan, **desafio** partida batekin, hautetsi eta besta komitekoen artean. xakur xapelketa, ardi moxte **desafio**, belar mozte dailuz edo segaz... Herria

Ortziralean, Bainoako trinket Modernean, seiak eta erditan jokatuko da lehen partida bat **desafioan**: Andre Kurutcharry batetik eta Loquillo mexikarra bestetik. Herria

Aian jaio zen bertsolari hau, 1780an, aspaldi beraz, eta behin **desafioa** jokatu omen zuen beste bertsolari batekin, ez dakigu norekin. Pako Aristi

Iñaki Azurmendik eta Joxemari Olasagastik hitzordua dute gaur Tolosako Kantabriko tabernan, 20:30etik 21:00etara, Azurmendik 16 oinbikotara bota dion **desafioaz** hitz egiteko. Berria - Kirola

## **5** ***desafio egin*** *(**43** agerraldi, **16** liburu eta **19** artikulutan)* ik **desafiatu.**

Ez da zure bizitza arriskatzen duzuna niri **desafio eginez**. Agustin Otsoa

-Non daude? -galdetu zuen Browne jaunak **desafio eginez** bezala. Irene Aldasoro

-Dei diezaiokezu, nahi baduzu -**desafio egin** nion, jakinik harrokeria hutsagatik ez ziola inola ere deituko. Ramon Saizarbitoria

Sindikatuei **desafio egin** eta negoziazioak zapuzten ibili da. Berria - Ekonomia

Ea, bada, **egiozu desafio** nire jaunari, Asiriako erregeari. Elizen arteko biblia

Atera hadi leihora, frankotiratzaileei **egiek desafio**. ulertzen zaila da erakunde legegileak lege ordenamenduari **desafio egitea**. Harkaitz Cano

Baziren musikari eta dantzariak, aurpegia kolorez margoturik eta arropa koloretsuz jantziak; akrobatak, saltoka eta jauzika fisikaren legeei **desafio egiten** zietenak. Xabier Montoia

Astilleroren iazko nagusitasunari **desafio egin**, eta irabazle atera dira bermeotarrak. Berria - Kirola

Bere dohain hotzen zirkuluaren erdian eserita egoten zen, ezkongairen batek zirkuluari **desafio egin** eta bizimodu distiratsu bat eskain ziezaion zain. Irene Aldasoro

Begi haiek atzera eragiten zioten eta **desafio egiten** zioten: haietan ez zegoen pasiorik, ez zegoen gogo-bahitzerik. Irene Aldasoro

· Bake prozesuari gorazarre eta prekarietateari **desafio**. Berria - Harian

## **6** ***desafioa egin*** *(**14** agerraldi, **9** liburu eta **4** artikulutan)*

Mendeku-min eta guzti, Rafael Leonidas Trujillori **desafioa egiteko** ausardia behar zen. Edorta Jimenez

Dantxari Estudianteak **desafioa egin** zion Bautistari, botatzeko bertso batzuk, eta hark onartu egin zuen. Koro Navarro

Raimundo Silvak nahikoa eduki ahal izan zuen erantzunaren nahasmenarekin, baina **desafioa egitea** nahiago izan zuen. Jon Alonso

GameBoy partida bat jokatzeko **desafioa egin** dit; erraz irabazi diot, eta, biseraz ez ezik, beraren Nintendoaz ere jabetu natzaio. Iban Zaldua

Nik, aldiz, osaba-izeben etxera bisita egitera joaten nintzelarik, konturatzen banintzen lehengusu dotorea harrokerian hasten zela nire aurrean, borrokarako **desafioa egiten** nion. Pello Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **da desafio** (4); **da gaur desafio** (3); **desafio bat** (17); **desafio bat bezala** (3); **desafio berri** (7); **desafio egin** (18); **desafio egin eta** (4); **desafio eginez** (7); **desafio eginez bezala** (3); **desafio egiteko** (4); **desafio egiten** (13); **desafio eta** (5); **desafio gisa** (3); **desafio hau** (4); **desafio hori** (3); **desafio horri** (3); **desafio torneoa** (4); **desafio torneoan** (4); **desafio torneoaren** (9); **desafio torneoaren finala** (3); **desafio torneoko** (12); **desafioa da** (3); **desafioa egin** (5); **desafioa egiten** (3); **desafioa eta** (3); **desafioa izan** (4); **desafioari aurre** (3); **desafioari aurre egiteko** (3); **desafioei aurre** (3); **desafioz bezala** (4); **desafiozko partida** (6); **dira desafio** (3); **erremontea desafio** (4); **erremonteko desafio** (3); **estatuari desafio** (3); **eta desafio** (8); **eta desafioa** (5); **eta desafioak** (3); **gaur desafio** (4)

---

# desafioka *(orobat **desapioka** g.er.)* *adlag* desafio eginez.

Egingo dugula, ez dugula, baietz eta ezetz, erronka eta **desafioka** ibili ostean erabaki dute, erdi txantxetan erdi benetan, baina onartuz gero ezinezkoa da atzera egitea. Xabier Mendiguren Elizegi

Piztia kaiolatu bat bezalaxe ibiltzen zen orain bere bizilekuan, belarria ate kontra jarri ea bestea oraindik han zen entzuten, eta horman zehar hari **desafioka**. Josu Zabaleta

Segituan kendu zitzaien urari zioten beldurra, eta konturatu orduko, itsasoari **desafioka** hasi ziren. Berria - Kirola

Xaxik eta Pierrak, elkarri **desafioka**, denbora galarazi zidaten. Itxaro Borda

Berak etzuena errana, **desafioka** bezala, denak salatu behar, bazuela Errepublikaren hogoi aldiz jautz-araztekoa! Herria

Belar piloa nuen aurrean, **desafioka**. Joxean Sagaztizabal

Esan nian ezin ginela babo honetaz fidatu -esaten du Joanak, Joani ostera **desafioka** begiratuz-. Antton Olano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **desafioka ari** (3); **desafioka bezala** (3)

**desaforatu** *izond* bere onetik aterea.

Metala zati batzuetan nahiko **desaforatua** ibili zen, eta egurraren artean klarinetea aipatu beharko genuke bere lan politagatik. Berria - Kultura

---

desagerarazi ik **desagerrarazi**.

---

**desagerketa** *(46 agerraldi, 11 liburu eta 22 artikulutan; ETCn 334 agerraldi)* **1** *iz* desagertzea. ik **desagerpen**.

Bada Budur dendan esnatu zelarik, berehala ohartu zen senarraren eta kateorratzaren faltaz, eta, bi **desagerketak** loturik egon zitezkeela pentsatuz, negarrez hipaka, milatan eta milatan madarikatu zuen bere patua. Patxi Zubizarreta

Azken hiru urteotan legez kanpoko atxiloketak, **desagerketak** eta exekuzioak areagotu egin dira Txetxenian. Berria - Mundua

Nepalgo Informazio ministroak adierazi zuen azken hilabeteetan jazotako ezkerreko 17 kideren **desagerketa** ikertuko zutela. Berria - Mundua

Erreskate taldeko arduradunek uste zutenez, astelehenean bertan izandako lainoak eragin zuen **desagerketa**: okerreko bideren bat hartu zuelako edo lainoak istripuren bat eragin zuelako. Berria - Euskal Herria

Senarraren galerak bezainbat nahigabetzen zuen semearen **desagerketak**, eta, haren oroigarri, gela handi batean marmolezko hilobi bat eraikiarazia zuen. Patxi Zubizarreta

Hala ere, ez du zentzurik Marieren lehen **desagerketaren** eta bigarrenaren artean lotura posiblerik ez dagoela esateak. Koro Navarro

Dabiden anaia ere, Joseba, lur joa geratu zen ustekabeko **desagerketa** harekin eta urtebetez egon zen etxetik irten gabe. Patxi Zubizarreta

Subjektu kasuaren nozio partikularra da desagertu dena, eta bere **desagerketak** forma sail oso baten berezko **desagerketa** ekarri du. Isabel Arrigain

Anfibioen **desagerketa** asko azkartu da Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Azkenengo urte eta erdian 12 eta 15 urte arteko ehun haur ingururen **desagerketa** kasuekin txosten bat osatu dute Nampulako mojek, eta dozenaka froga aurkeztu dituzte. Berria - Gaiak

· Pistolak, hilketak, gorpu-**desagerketak**, komisariako galdeketak genero poliziakoaren intrigaz eta topikoez baliatuz ondu ditu Linazasorok *Mendekuaren graziaz* honetako zazpi narrazioak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desagerketaren berri** (3)

---

**desagerkor** *izond* desagertzeko joera duena.

Kausaren kausalitatearen eta bere berehalako efektuaren arteko denbora **desagerkorra** izan daiteke (biak, beraz, aldiberekoak izan daitezke), baina kausak efektuarekin duen hartuemanak determinagarria dirau denboraren ikuspuntutik. Ibon Uribarri

Sentsazio **desagerkorra** atsegin dut. Berria - Kultura

Garai hartan, **desagerkor** deitzen zitzaien infinituki txikiei, eta tangenteei, berriz, ukitzaile. Jon Muñoz

---

**desagerlari** *iz* desagertzen den pertsona.

Baina horien artean batek edo bik badakite **desagerlariak** zergatik alde egin duen; edo badute arrazoi bat osatzeko adina datu. Pako Aristi

Balizko **desagerlari** bat sentitu izan naiz ni beti. Pako Aristi

Alabaina, **desagerlari** on bat izango nintzatekeela uste dut, maite zaituztenengan min gehiegirik eragiten ez duten horietakoa. Pako Aristi

---

**desagerpen** *(108 agerraldi, 29 liburu eta 55 artikulutan; ETCn 2.852 agerraldi)* **1** *iz* desagertzea. ik **desagerketa**. (pertsonak)

Poliziarengandik, Rosarioren **desagerpena** ikertzeko promesa baizik ez nuen erdietsi. Aingeru Epaltza

Garaterekin Parlamentu ondoko taberna batean egiten nuen topo gehienetan, eta bertan argitu zidan zuen **desagerpenaren** misterioa. Xabier Montoia

Eta euren betiko **desagerpenaz** konturatu ere ez gara egingo. Sonia Gonzalez

18.000 erkideren **desagerpenaren** errudun dela aitortu berri du berak. Hasier Etxeberria

Habitatak suntsitzea animali eta landare espezie askoren **desagerpena** eragiten ari da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Atxiloketak, **desagerpenak** eta giza eskubideen urraketa ohikoak dira erakundearen arabera. Berria - Mundua

**2** (gauzak)

Arabako erremolatxa azukrearen **desagerpena** ekarriko duen erreforma onartu zuen atzo Europako Batzordeak. Berria - Ekonomia

Nik ere hauteman ahal izan dut hor uniforme aleman baten berehalako **desagerpen** edo agerpena. Urtzi Urrutikoetxea

Trenbide zaharraren **desagerpenarekin** libre geratuko diren lurrak kudeatzeko modua. Berria - Harian

-Agenden **desagerpenak** zer pentsatua eman dik noski. Aingeru Epaltza

Positibotasun baten **desagerpenak** eta beste baten azaleratzeak biltzen du zenbait transformazio mota ezberdin. Xabier Arregi

Globalizazioaren fenomenoak bere izatean bertan dauka enpresen naziotasunaren **desagerpenaren** ernamuina. Koro Navarro

Ez dakigu, hala ere, horrek bikote iraunkorren **desagerpena** ekarriko duen. Luis Elberdin

Ala liluraren **desagerpena** da bizitzaren gainbeherari hasiera ematen diona? Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desagerpena da** (3); **desagerpenak eta** (3); **desagerpenaren berri** (5); **etaren desagerpena** (3); **metaken desagerpenak** (3); **zuen desagerpenaren** (3)

---

**desagerrarazi** *(525 agerraldi, 83 liburu eta 291 artikulutan; ETCn 2797 agerraldi; orobat* ***desagertarazi*** *194 agerraldi, 30 liburu eta 43 artikulutan; ETCn 437 agerraldi; eta* ***desagerarazi*** *g.er.)*, desagerraraz, desagerrarazen du *ad* desagertzera behartu.

Aita desagertu zela noizbait, edo **desagerrarazi** zutela, ez nion oso ongi ulertu. Inazio Mujika Iraola

**Desagertarazi** nahi gaituzte, hil nahi gaituzte, lurperatu nahi gaituzte. Herria

**Desagerraraziko** ditut Jeroboamen ondorengoak, simaurra erabat **desagerrarazi** ohi den bezala. Elizen arteko biblia

Denbora irabazteko, exekutatutakoa **desagerraraztea** zen hurrengo pausoa. Harkaitz Cano

Gorpua **desagerrarazteko** ardura izan zuten hiltzaile batzuek. Koro Navarro

Euren lagun espainolek zuek lokalizatu eta laguntza eskatu dietela zuek **desagerrarazteko** . Joseba Sarrionandia

Azken baten, mesedea egin genien berauei gaizkile bat **desagertarazita** . Berria - Kultura

Nabokovek, eleberri bat idazten amaitu orduko, **desagerrarazi** egiten omen zituen eleberria prestatu eta idazterakoan baliatutako liburu guztiak. Anjel Lertxundi

Hondakinak **desagerrarazteko** sistema. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zitrato edo oxalato ioiek berehalaxe **desagerrarazten** dituzte kaltzio ioiak. Irene Aldasoro

Mikel Arana EB-Berdeetako bozeramaileak Auzitegi Nazionala ixteko eta **desageraratzeko** eskatu zuen. Berria - Euskal Herria

Hegazkinaren arrastoa desagertu egin da, denborak **desagerraraziko** ditu gainerakoak bere denboran, zain egoteko pazientzia edukitzea nahikoa. esaldi eta keinu oro **desagerrarazi** genuen ordurako murritza zen gure harremanaren errepertoriotik. Jon Alonso

Europako eta Mendebaldeko herrialde aberatsenetan aspaldian **desagerrarazita** dagoen polioak ere ikaragarriko galerak egiten ditu luherri afrikarrean. Berria - Mundua

Segurtasuna ekarri zuela pentsatu zuen, arriskua **desagerrarazi** zuela. Anton Garikano

Diskurtsoa aztertzea kontraesanak **desagerraraztea** eta berriro agerraraztea da. Xabier Arregi

Eta gauzen izaeratik faltsukeria **desagerraraziz** gero, denak egiazkoak bihurtuko ote dira? Imanol Unzurrunzaga

Behelaino itxiak errepidea **desagerrarazi** zuen eta bere autoaren motorraren zarata zen kanpo mundutik jaso zezakeen bakarra. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat desagerrarazi** (5); **betiko desagerrarazi** (6); **desagerrarazi arte** (8); **desagerrarazi behar** (16); **desagerrarazi behar dira** (3); **desagerrarazi ditu** (8); **desagerrarazi dituzte** (3); **desagerrarazi du** (4); **desagerrarazi dute** (3); **desagerrarazi egin** (14); **desagerrarazi egin behar** (3); **desagerrarazi egin zituen** (4); **desagerrarazi egingo** (5); **desagerrarazi egiten** (5); **desagerrarazi eta** (13); **desagerrarazi nahi** (22); **desagerrarazi nahi du** (4); **desagerrarazi nahi dute** (4); **desagerrarazi nahi izatea** (3); **desagerrarazi ondoren** (5); **desagerrarazi zituela** (3); **desagerrarazi zituen** (13); **desagerrarazi zituzten** (11); **desagerrarazi zuen** (12); **desagerrarazi zuten** (8); **edo desagerrarazi** (6); **erabat desagerrarazi** (8); **eta desagerrarazi** (13); **eta desagerrarazi egin** (3); **guztiak desagerrarazi** (8); **kantxatik desagerrarazi** (3); **lanpostu desagerrarazi** (3)

**desagerraraziko ditu** (4); **desagerraraziko ditut** (5); **desagerraraziko dituzte** (4)

**desagerraraztea da** (9); **desagerraraztea dela** (4); **desagerraraztea erabaki** (3); **desagerraraztea eta** (5); **desagerraraztea lortu** (4); **desagerraraztea zen** (3); **desagerrarazteko abiatu zuten** (3); **desagerrarazteko modua** (3); **desagerrarazteko nazioarteko** (3); **desagerrarazteko neurriak** (5); **desagerrarazten dituen** (4); **desagerrarazten lagunduko** (3); **desagerrarazten zuen** (3); **eta desagerraraztea** (3); **eta desagerrarazteko** (3); **eta desagerrarazten** (3); **gaitza desagerraraztea** (6); **gorpuak desagerrarazteko** (3); **guztia desagerrarazten** (3); **guztiak desagerraraztea** (3); **guztiz desagerraraztea** (3); **hondakinak desagerrarazteko** (3); **lana desagerrarazteko** (4); **lana desagerrarazteko nazioarteko** (3)

**bat desagertarazita** (3); **desagertarazi egingo** (4); **desagertarazi eta** (6); **desagertarazi nahi** (9); **desagertarazi zuen** (3); **desagertaraziko duzue** (4); **desagertaraziko duzue gaiztakeria** (4); **erabat desagertarazi** (3); **gaizkile bat desagertarazita** (3); **horrela desagertaraziko** (4); **horrela desagertaraziko duzue** (4)

---

# **desagerrarazle** *izond* desagerrarazten duena.

Ez duk alferrik egiten Serantes, patrikek baditek berezko joera irensle bat, zulo beltzen pareko halako indar **desagerrarazle** bat. Harkaitz Cano

---

# desagertaraz ik **desagerrarazi**.

---

# **desagertu** *(ETCn* ***56.040*** *agerraldi)* , desager, desagertzen **1** da *ad* ageritik kendu, ikustezin edo sumaezin bihurtu. (pertsonak eta animaliak)

**Desagertu** egin nintzen, beraz, eta mundutik apartatzen nauen paraje maite batera egin nuen alde. Geroxeago, noizbait, Bittor ere **desagertu** zen eta, nik dakidala, ez zen sekulan gehiago Sarara itzuli. Hasier Etxeberria

Noiztenka **desagertzen** zen, eta hiruzpalau umerekin agertzen berantago. Elena Touyarou

Gizonak edo emakumeak **desagertu** egiten zirelako Espainiara iritsi orduko, edo Kubara itzultzen zirelako iritsi eta handik hiru hilabetera. Jon Muñoz

Lankide guztiak lekutuak ziren, **desagertuak** , aienatuak, itzaliak, irentsiak, hogei, berrogei, hirurogei edo ehun errublo sakelaratuta. Matías Múgica

Fidantzapean aske badaude **desagertu** egingo dira. Oskar Arana

Baina aita garretan **desagertu** zen, eta Fionn bera, hari laguntzeko ahaleginean, amildegira jausi eta sutan erretzen hasi zen. Joanes Urkixo

Orain, animalia asko **desagertu** direnean, [...] itsasoko arrain mota asko betiko galdu ditugunean, orain, mundua ekologismora itzuli da eta ingurumenaren zaindari egin. Pello Salaburu

Kontua da neska etorri bezala **desagertu** zela. Iñaki Iñurrieta

Hannak oraindik maite du, aspaldi hil bazen ere, hots, **desagertu** . Joxe Austin Arrieta

Gizona urtu egingo zen, **desagertu** egingo zen, arrastorik utzi gabe. Juan Kruz Igerabide

Txoria urruntzen ikusi nuen, eta puntu bat bilakatu zen, eta hura ere **desagertu** egin zen. Juan Kruz Igerabide

Komisarioa dabil zure bila, oraintxe pasatuko dizut -esan zuen garitan antzeman nion irribarre okertuarekin, eta atea itxiz **desagertu** zen, esaldiaren lekuko gisa ke zirimola bat airean utziz. Joxean Agirre

Beraz, jaiotzen denik **desagertzen** ez bada, zer gertatzen da ba hildakoekin? Juan Kruz Igerabide

36ko gerran **desagertuen** inguruan Euskal Herrian egiten ari diren lana. Berria - Euskal Herria

*ik beherago* 6. Askoren artean

**2** (gauzak)

Aurpegi bat itsatsi zen une batez leihoaren kontra eta **desagertu** egin zen gero. Monika Etxebarria

Aspaldiko parteko irribarrea **desagertu** egin zitzaion, supituan Samsa bilakaturik berriro. Unai Iturriaga

Pospoloak behin eta berriz **desagertzen** zaizkit. Koro Navarro

Hawthorne-ren eskuizkribua **desagertu** egin zen. Oskar Arana

-Gogoratzen nauk nola **desagertu** ziren duro zilarrak. Pako Aristi

Arbola asko **desagertu** egin ziren, beste batzuk erbesteratu, gaur egun Alpeetan soilik aurki daitekeen gabonetako izeia kasu. Pako Aristi

Sobietar blokearen hondamendiarekin batera, kapitalismoak zuen eragozpen handienetako bat **desagertu** zen. Koro Navarro

Taniak besarkatu ninduenean, dardarka oraindik, urdaileko mina **desagertu** egin zitzaidan. Jon Muñoz

Hitz barruko *h* guztiak **desagertu** dira bokal artean zeudenean. Isabel Arrigain

Hemen Amerikan denbora **desagertu** egiten da. Koro Navarro

**Desagertu** egin ziren hiriko soinu urrunak. Koro Navarro

Kristaleko zikinak **desagertu** egiten dituk. Iñaki Iñurrieta

Hizkeramodu hori ia **desagertu** da dagoeneko. Juan Garzia

Itoitz erabat suntsitu ondoren, 903 urteko historia **desagertu** da. Edurne Elizondo

Bizidunak bizirik diraueino, badela unean uneko bizitza bat, **desagertzen** dena, ondoren beste bat birsortzeko. Xabier Kintana

Hauek ere egiazko existentzia duten akzidenteak direla, hortaz, etengabeki sortuak, eta bata **desagertzen** denean beste bat sortzen dela. Xabier Kintana

**3** (-tik adizlagunekin)

Bapatean Block-etik **desagertu** zen. Marzel Etxehandi

Baionako katedrala **desagertu** egingo zen bere lekutik, eta harenak izandako oinarrietan hartuko zuen leku nire gizatasunaren oroitzapenak, gaztelu garden baten antzera. Hasier Etxeberria

Hurrengo lainoa agertu eta leiho paretik erabat **desagertu** arte ez naiz jaikiko. Harkaitz Cano

Gure bistatik **desagertu** baino lehen, atzealdeko leihora zutiturik Marilin zakurtxo toaila-puskatzailea ikusi ahal izan genuen. Joxemari Iturralde

Horrelaxe **desagertu** ziren begien bistatik hamar egun, eta halako egoera paradoxiko batzuk sortu ziren. Pello Salaburu

Jekill doktorearen azpegiak **desagertu** zaizkio aurpegitik, begi bistakoa da erabaki bat hartu berri duela. Jon Alonso

Txakur makilatuaren ibilera abailduarekin **desagertu** zen gure bistatik. Anjel Lertxundi

Agur esan zidan, eta korridore ilun batetik **desagertu** zen, bere hiru seme-alaba txikiak atzetik zihoazkiola. Iban Zaldua

## 4 (-n adizlagunekin)

Bentaria -itzal zapuztua- ilunean **desagertu** zen. Felipe Juaristi

Atsoa kale-kantoian **desagertu** zen, pauso labur arinez eta ezker eskuaz besokoari ahal zuen moduan eutsiz. Anjel Lertxundi

Sasien atzean **desagertu** ziren emakumeak. Koro Navarro

Hiru zalgurdiak **desagertu** ziren hautsezko hodei batean. Karlos Zabala

Izotz puskak azken egunetan ausarki lerratu ondoren, **desagertu** egin ziren uretan behera, eta bospasei baizik ez ziren ageri bi ibai bazterren artean. Karlos Zabala

Inork ez zuen ikusi estolda-zuloan behera **desagertzen**. Jon Muñoz

Mutila kanpora irten eta herriko kale ilunen artean **desagertu** da, ni bulegoan bakarrik utzita. Jon Arretxe

Gero airera igo eta hodeien artean **desagertu** zen. Koro Navarro

Urrutian **desagertu** zen Mileto. Jon Muñoz

Bisigua **desagertu** zen kostalde honetan, txitxarroa gero eta gutxiago dago, eta berdela sartu nahi digute. Paddy Rekalde

## 5 (era burutua izenondo gisa)

Eta hara non orain, bere iloba, Enrietaren semea, haur **desagertu** hura, Saran azaltzen zen. Elena Touyarou

Nik aspalditik ezagutzen nituen heike gerlari **desagertuen** istorioak eta haiei buruzko kantu tristeak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bestalde, Pertsona **Desagertuen** sailaren eraginkortasuna ehuneko hirurogeian jaitsi zen, poliziaren hurrengo urtekariak aitortzen zuen moduan. Iban Zaldua

Modu berean, Natura ere kontserbatzailea baita, koxis delakoan, ipurtezurrean, buztan **desagertu** baten aztarna daramagu. Juan Garzia

Galeper birrindu, **desagertu** hartatik luma batzuk eta moko odoleztatua baino ezin izan zituen aurkitu. Itziar Otegi

Antzinako munduko zibilizazio **desagertuetatik**. Oskar Arana

Kultura heleniko **desagertuaren** itzelezko mausoleoaren teilatuan. Iñaki Mendiguren

Gure inguruan ziren landa eta mahastiek zuten, iduriz, herria zaintzen eta ez gaztelu harresi **desagertuek** jendea eta ontasunak gerizatzen. Piarres Aintziart

## 6 (era burutua izen gisa)

Tunisiako kostazainak **desagertuen** bila jarraitu zuten atzo, Susseko kostaldean. Berria - Mundua

Cistude arrantza ontzitik lau **desagertuen** xerka segitzen dute, horietan bada bat frantsesa, bi euskaldun Ondarrukoak, eta portuges bat. Herria

1978ko Munduko Kopan Argentinak lortu zuen garaipena aztertzen zen, ziegetan, milico-en esku zeuden atxilotuen, **desagertuen** eta euren senideen ikuspegitik. Berria - Kirola

Bi aste iraun zuen ekaizte latz hark; 2 hildako eta **desagertu** bat ondorioz. Pello Zabala

5 hildako, 3 **desagertu** eta zenbatu ezineko galerak. Pello Zabala

Hildako, zauritu eta **desagertuen** kopurua oraindik ez dago argi, baina Poliziak 412 lagun hil zirela adierazi zuen atzo. Berria - Mundua

Nafarroako Fusilatuen eta **Desagertuen** Senitartekoen Elkarteak. Berria - Kultura

Pertsona **Desagertuen** Institutua ari da horretan. Berria - Harian

## 7 ***desagertzear*** *adlag* desagertzeko zorian.

Europako Legebiltzarrak atzo aurkeztu zuen txosten batek dioenez, katamotz iberiarra **desagertzear** dago. Berria - Gaiak

Hamar minutu ez dira **desagertzear** egon naizela, eta ez dut kontaturik ez dut, hiru segundoz ikustatu ditudan liztor horien pasaldia ez bada. Josu Zabaleta

Hareatza luzea hutsik ageri zen, itsasoan **desagertzear** zegoen eguzkiaren isla laranjapean. Ramon Saizarbitoria

Nobelaren azken lerroak irakurtzen zituen "chaise longue" batean, sutondoan eserita, eta amaitu ondoren, orriak altzoan zituela geratzen zen, nik neure leihotik itsasoan **desagertzear** nekusan urrezko eguzki berari so. Ramon Saizarbitoria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**behin betiko desager** (5); **betiko desager** (6); **desager dadila** (4); **desager dadin** (11); **desager daiteke** (7); **desager ez** (8); **desager ez daitezen** (4); **desager litezke** (4); **desager nadila** (4)

**agertu eta desagertu** (7); **arriskuak desagertu** (4); **artean desagertu** (17); **artean desagertu zen** (7); **asko desagertu** (15); **aspaldi desagertu** (9); **atetik desagertu** (5); **atzean desagertu** (8); **autoa desagertu** (5); **autoa desagertu egin** (4); **azkenean desagertu** (5); **azpian desagertu** (6); **baina desagertu** (10); **baina desagertu egin** (6); **baita desagertu** (4); **bat batean desagertu** (11); **bat desagertu** (31); **bat desagertu da** (8); **bat desagertu zen** (4); **bata desagertu** (5); **batean desagertu** (30); **batean desagertu zen** (13); **batean desagertu ziren** (4); **batera desagertu** (5); **batetik desagertu** (6); **batez desagertu** (4); **batzuk desagertu** (10); **batzuk desagertu egin** (4); **begi bistatik desagertu** (5); **begien bistatik desagertu** (4); **behera desagertu** (5); **behera desagertu zen** (4); **behin betiko desagertu** (10); **berehala desagertu** (19); **berehala desagertu zen** (9); **berehala desagertu ziren** (5); **berriro desagertu** (4); **betiko desagertu** (18); **betiko desagertu behar** (6); **bezala desagertu** (13); **bezala desagertu zen** (7); **biak desagertu** (5); **bistatik desagertu** (31); **bistatik desagertu zen** (16); **da desagertu** (16); **dakizuna desagertu** (5); **dela desagertu** (6); **dena desagertu** (5)

**desagertu ahala** (6); **desagertu arren** (5); **desagertu arte** (39); **desagertu aurretik** (14); **desagertu baino** (12); **desagertu baino lehen** (10); **desagertu baita** (4); **desagertu baitziren** (4); **desagertu behar** (32); **desagertu behar du** (5); **desagertu behar duela** (9); **desagertu beharko** (8); **desagertu beharra** (4); **desagertu bezain** (5); **desagertu bezain laster** (4); **desagertu da** (89); **desagertu da eta** (5); **desagertu dadila** (5); **desagertu dela** (30); **desagertu delako** (5); **desagertu den** (21); **desagertu dena** (6); **desagertu dira** (83); **desagertu dira eta** (6); **desagertu dira jada** (4); **desagertu direla** (20); **desagertu diren** (15); **desagertu edo** (5)

**desagertu egin** (387); **desagertu egin behar** (24); **desagertu egin da** (55); **desagertu egin dela** (6); **desagertu egin dira** (35); **desagertu egin nintzen** (5); **desagertu egin zela** (13); **desagertu egin zen** (157); **desagertu egin zirela** (5); **desagertu egin ziren** (52); **desagertu egingo** (89); **desagertu egingo da** (36); **desagertu egingo dela** (7); **desagertu egingo dira** (18); **desagertu egingo litzateke** (4); **desagertu egiten** (97); **desagertu egiten da** (35); **desagertu egiten dira** (21); **desagertu egiten direla** (4); **desagertu egiten zela** (5); **desagertu egiten zen** (12); **desagertu egiten ziren** (5); **desagertu eragin** (6); **desagertu ere** (4); **desagertu eta** (73); **desagertu eta gero** (7); **desagertu ez** (9); **desagertu gabe** (6); **desagertu izana** (13); **desagertu muinoetako** (4); **desagertu muinoetako kultu** (4); **desagertu nahi** (11); **desagertu omen** (4); **desagertu ondoren** (24); **desagertu ondoren ere** (7); **desagertu orduko** (5); **desagertu ostean** (7); **desagertu zela** (25); **desagertu zelarik** (6); **desagertu zen** (344); **desagertu zen arte** (12); **desagertu zen egunean** (5); **desagertu zen eta** (12); **desagertu zenean** (32); **desagertu zenetik** (13); **desagertu zirela** (16); **desagertu zirela jakinarazi** (4); **desagertu ziren** (140); **desagertu zirenean** (11); **desagertu zitzaion** (5); **desagertu zitzaizkion** (4)

**dira desagertu** (8); **dirua desagertu** (4); **edo desagertu** (8); **egin eta desagertu** (6); **eguzkia desagertu** (4); **erabat desagertu** (40); **erabat desagertu da** (4); **erabat desagertu zen** (9); **erabat desagertu ziren** (4); **ere desagertu** (37); **ere desagertu egin** (11); **ere desagertu egingo** (4); **ere desagertu zen** (6); **ere desagertu ziren** (4); **eta berehala desagertu** (6); **eta bistatik desagertu** (10); **eta desagertu** (103); **eta desagertu arte** (4); **eta desagertu egin** (29); **eta desagertu egingo** (4); **eta desagertu egiten** (18); **eta desagertu ziren** (4); **eta gero desagertu** (6); **ez da desagertu** (12); **ez dela desagertu** (6); **ez dira desagertu** (6); **ez zen desagertu** (6); **ez ziren desagertu** (6); **gabe desagertu** (13); **gaitza desagertu** (5); **gauean desagertu** (4); **gauean desagertu zen** (4); **gauzak desagertu** (4); **gaztea desagertu** (4); **gero desagertu** (13); **gero desagertu egin** (7); **gora desagertu** (5); **guztia desagertu** (8); **guztiak desagertu** (28); **guztiak desagertu dira** (4); **guztiak desagertu egin** (8); **guztiak desagertu ziren** (4); **guztiz desagertu** (16)

**haiek desagertu** (6); **hil edo desagertu** (6); **hil eta desagertu** (5); **hildako eta desagertu** (4); **hori desagertu** (18); **hori desagertu egin** (5); **horiek desagertu** (8); **horiek desagertu egin** (4); **hura desagertu** (14); **hura desagertu egin** (6); **ia desagertu** (12); **ia desagertu egin** (6); **iluntasunean desagertu** (4); **indarkeria desagertu** (6); **irribarrea desagertu** (5); **irribarrea desagertu egin** (4); **kale kantoian desagertu** (5); **kantoian desagertu** (5); **lanpostu desagertu** (6); **laster desagertu** (7); **mina desagertu** (4); **neska desagertu** (4); **nola desagertu** (7); **ondoren desagertu** (6); **ondorioz desagertu** (4); **oraindik erabat desagertu** (4); **oro desagertu** (7); **pertsona desagertu** (11); **pertsona desagertu zirela** (5); **pertsona desagertu ziren** (4); **taldea desagertu** (6); **urte desagertu** (4); **utzi gabe desagertu** (9); **zeharo desagertu** (6); **zen desagertu** (9); **zergatik desagertu** (7); **ziren desagertu** (7); **ziren desagertu muinoetako** (4); **zuhaitzen artean desagertu** (4); **zuk dakizuna desagertu** (5)

**aspaldi desagertua** (4); **desagertua baitzen** (4); **desagertua da** (7); **desagertua dago** (5); **desagertua dela** (5); **desagertua zela** (9); **desagertua zen** (57); **desagertua zitzaion** (4); **desagertuak diren** (4); **desagertuak ziren** (18); **desagertuen bila** (4); **desagertuen inguruko** (4); **ere desagertua** (11); **ere desagertua zen** (4); **eta desagertua** (6); **eta desagertuak** (10); **eta desagertuen** (7); **pertsona desagertuen** (4)

**batean desagertuko** (5); **berehala desagertuko** (6); **berez desagertuko** (4); **betiko desagertuko** (7); **bezala desagertuko** (7); **da desagertuko** (11); **desagertuko balira** (8); **desagertuko balitz** (13); **desagertuko da** (32); **desagertuko dela** (11); **desagertuko den** (5); **desagertuko denik** (4); **desagertuko dira** (23); **desagertuko direla** (14); **desagertuko lirateke** (6); **desagertuko liratekeela** (4); **desagertuko litzateke** (16); **desagertuko zela** (6); **desagertuko zen** (8); **desagertuko zirela** (5); **dira desagertuko** (7); **erabat desagertuko** (7); **ere desagertuko** (10); **eta desagertuko** (5); **ez da desagertuko** (11); **ez dira desagertuko** (7); **guztiak desagertuko** (4); **inoiz desagertuko**

(4); **laster desagertuko** (5); **noiz desagertuko** (5)

**aspaldi desagertutako** (4); **bat desagertuta** (9); **bat desagertuta dago** (6); **desagerturik daude** (6); **desagerturik zegoen** (8); **desagertuta dago** (17); **desagertuta dagoen** (5); **desagertuta daude** (30); **desagertuta daude oraindik** (5); **desagertuta daudela** (5); **desagertuta dauden** (11); **desagertuta egon** (18); **desagertuta egon zen** (6); **desagertuta jarraitzen** (9); **desagertuta jarraitzen dute** (5); **desagertuta zegoen** (22); **desagertuta zeuden** (12); **desagertutako atxilotuen** (6); **desagertutako atxilotuen senideen** (6); **desagertutako pertsonen** (4); **egun desagertuta** (4); **erabat desagertuta** (5); **eta desagertuta** (5); **eta desagertutako** (17); **geroztik desagertuta** (4); **ia desagertuta** (6); **oraindik desagertuta** (4); **pertsona desagertuta** (8); **pertsona desagertuta daude** (6)

**desagertutzat jo** (7); **desagertutzat jotzen** (6); **desagertuz doa** (4); **desagertuz gero** (11); **desagertuz joan** (12); **desagertuz joan da** (5); **desagertuz joango** (4)

**betiko desagertzea** (4); **desagertzea da** (13); **desagertzea dela** (5); **desagertzea ekarriko** (5); **desagertzea ere** (7); **desagertzea eta** (10); **desagertzea litzateke** (4); **desagertzea nahi** (8); **eta desagertzea** (15); **guztiak desagertzea** (5); **indarkeria desagertzea** (8); **inkomunikazioa desagertzea** (6)

**asko desagertzeko** (4); **behin betiko desagertzeko** (5); **betiko desagertzeko** (7); **desagertzeko arrisku** (6); **desagertzeko arrisku larrian** (4); **desagertzeko arriskua** (16); **desagertzeko arriskua dagoela** (5); **desagertzeko arriskuan** (33); **desagertzeko arriskuan dago** (4); **desagertzeko arriskuan daude** (8); **desagertzeko arriskuan dauden** (4); **desagertzeko bidean** (11); **desagertzeko eskatu** (18); **desagertzeko eskatzen** (4); **desagertzeko eta** (4); **desagertzeko zorian** (27); **desagertzeko zorian dago** (4); **desagertzeko zorian dauden** (4); **espezie desagertzeko** (4); **eta desagertzeko** (16); **etari desagertzeko** (10); **etari desagertzeko eskatu** (5); **ez desagertzeko** (4); **indarkeria desagertzeko** (5)

**desagertzekotan egon** (4)

**agertzen eta desagertzen** (11); **ahala desagertzen** (4); **ari dira desagertzen** (6); **artean desagertzen** (4); **azpian desagertzen** (6); **bat desagertzen** (17); **bat desagertzen da** (5); **bat desagertzen denean** (5); **batean desagertzen** (5); **batera desagertzen** (6); **berehala desagertzen** (10); **berehala desagertzen da** (6); **betiko desagertzen** (4); **bezala desagertzen** (5); **bistatik desagertzen** (4); **da desagertzen** (16); **dela desagertzen** (4)

**desagertzen ari** (65); **desagertzen ari da** (6); **desagertzen ari den** (5); **desagertzen ari dira** (7); **desagertzen ari direla** (6); **desagertzen ari zela** (6); **desagertzen ari zen** (4); **desagertzen ari ziren** (6); **desagertzen bada** (10); **desagertzen badira** (6); **desagertzen baita** (5); **desagertzen da** (66); **desagertzen da eta** (5); **desagertzen dela** (8); **desagertzen den** (23); **desagertzen dena** (4); **desagertzen denean** (17); **desagertzen dira** (32); **desagertzen direla** (6); **desagertzen diren** (21); **desagertzen direnean** (7); **desagertzen eta** (7); **desagertzen ez** (10); **desagertzen hasi** (13); **desagertzen hasi zen** (5); **desagertzen ikusi** (17); **desagertzen ikusi zituen** (4); **desagertzen ikusi zuen** (4); **desagertzen joan** (9); **desagertzen zela** (5); **desagertzen zen** (42); **desagertzen zirela** (5); **desagertzen ziren** (30)

**dira desagertzen** (9); **erabat desagertzen** (11); **erabat desagertzen da** (5); **ere desagertzen** (6); **eta berehala desagertzen** (4); **eta desagertzen** (43); **eta desagertzen ari** (4); **eta desagertzen diren** (4); **eta desagertzen zen** (4); **ez da desagertzen** (10); **ez dela desagertzen** (4); **ez zen desagertzen** (5); **gabe desagertzen** (12); **guztia desagertzen** (4); **guztiak desagertzen** (4); **hori desagertzen** (5); **hura desagertzen** (5); **mugak desagertzen** (6); **mugak desagertzen ari** (5); **nola desagertzen** (10); **nola desagertzen zen** (4); **oro desagertzen** (4); **oro desagertzen da** (4); **utzi gabe desagertzen** (7); **zen desagertzen** (5)

---

## desagertzaile *izond* desagertzen dena.

-Armairu **desagertzaile** hori ikaragarri baliotsua zen! -ari zitzaion poz-pozik esaten Norris andreari-. Iñaki Mendiguren

---

## desagertze *iz* ageritik kentzea, ikustezin edo sumaezin bihurtzea.

Haren bat-bateko **desagertzeak** saratarren erran-merranak sustatu zituen, baina ez luzaz. Elena Touyarou

Ez al dakizu besterik haren **desagertzeaz** ? Patxi Zubizarreta

Hamidaren **desagertzetik** egun gutxiren buruan. Patxi Zubizarreta

-Ez ginen lasai zure **desagertzearengatik** . Elena Touyarou

Gure ustez, oraingo **desagertze** hau aurrekoaren klase bereko bitxikeriaren bat da, eta, astebeteren buruan, edo hilabete baten buruan agian, geure artean izango dugu Marie berriz ere. Koro Navarro

Goiz batez **desagertze** baten aurkikuntza egin dut, absentziak ezarri nau doluan, honek iraunen zuela zenbait hilabetez. Piarres Aintziart

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**desagertze bat** (3); **desagertzearekin batera** (5); **edo desagertze** (4); **eta desagertze** (8); **haren desagertzeaz** (3); **rugovaren desagertzeak** (3)

---

## desagertzear *adlag* desatzertzeko zorian.

Katamotza **desagertzear** dagoela ohartarazi du Europak . Berria - Gaiak

Jainkoak, itun berria agintzean, aurrekoa zahartutzat ematen du, eta zaharkiturik dagoena **desagertzear** dago. Elizen arteko biblia

Gero Frankoek kolonizatu omen zuten **desagertzear** zegoen herrixka. Piarres Aintziart

**Desagertzear** den zeluloidearen teknologiaren abantailetako bat zen hori. Berria - Kultura

Maite genituen **desagertzear** zeuden mundu horiek, genituen diot, hor kanpotarrekin batera multzo berean urturik genbiltzalako. Itxaro Borda

Aurten ia **desagertzear** egon den Kelme taldeak Valentziako Gobernuaren diru laguntzarekin lortu du aurrera egitea. Berria - Kirola

Azken egunak ditu Belaustegik Alemanian, bere taldea krisian baita, **desagertzear** . Berria - Kirola

Espezie asko, **desagertzear** . Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**desagertzear dago** (5); **desagertzear dagoela** (4); **desagertzear dagoen** (8); **desagertzear daude** (4); **desagertzear dauden** (3); **desagertzear egon** (4); **desagertzear zegoen** (4); **eta desagertzear** (3); **ia desagertzear** (3)

---

## desagradabe *izond* desatsegina.

Horregatik bidaltzen zizkien koadro bi; normala bata, **desagradablea** bestea. Unai Elorriaga

Eta modu eskandalosoan saldu zituzten koadro **desagradableak** aitaginarrebak eta errainak. Unai Elorriaga

---

## desahogatu, desahoga, desahogatzen da *ad* barrua hustu, barrena arindu.

Norbaitekin **desahogatu** behar dinat, ez dun erraza beti euliena den adiskidantza azaleko horrekin konformatzea, zerbait gehiago nahi dinagu batzuetan, eta lagunak gutxi ditun bizitza honetan, hiruzpalau, ez gehiago. Harkaitz Cano

---

## desahuziatu *izond* etsipena hartua, etsitua.

Gastrolatra **desahuziatu** batzuk (mutilzahar eta neskazaharrak, gehienbat) izango dira ezinbesteko eta zorioneko salbuespenak. Edorta Agirre

---

## desailkatu, desailka, desailkatzen du *ad* sailkapenetik atera.

Ez du sailkatzen; **desailkatu** egiten du. Juan Garzia

---

## desaire *iz* purrustada, erdeinua.

Gainera, mutiko haiek harro hutsak izaten ziren, eta **desaire** asko egiten zizkiguten ukuiluetan morroi ibiltzen ginenoi. uste zuen, bertzalde, ezen begirunea eta obligazinoak bi aldeetarat zeudela, eta goiti beheitikoak zirela beheiti goitikoak bezainbat; eta **desaireak** beti zeudela, edo gehienetan, soberan. Bernardo Atxaga

---

## desajustatu *izond* desegokitua.

Iruñeko Orfeoiari buruz ere, antzera: lan ona egin zutela baina desajuste erritmiko ugari [...] eta sarrera **desajustatu** batzuk. Berria - Kultura

---

## desajuste *iz* egokitasunik eza, desoreka.

Beste momentu batzuetan, *Iesus Dominus*-en adibidez, **desajuste** erritmiko eta entonaziozkoak egon ziren. Berria - Kultura

**Desajusteak** ugariak izan ziren, eta batzuk oso nabariak, erritmikoak gehienak. Berria - Kultura

---

## desakonpasatu *(corpusean* ***deskonpasatu*** *soilik)* *izond* konpas edo erritmotik kanpokoa.

Nik, aldiz, zehar-begiz eta tarteka erreparatu nion, hiriko alde zaharrak dituen pasagune estuetan aurretik jartzen zitzaidanean bereziki, bere ibilera **deskonpasatu** samar horiek miretsiz, takoien gainean baldrexka. Joxean Agirre

---

## desakonpasatuki *adlag* konpas edo erritmotik at.

Honek hozki betetzen zituen eskariak, eskuak **desakonpasatuki** mugituz. Iñaki Zabaleta

---

## desakordio 1 *iz* adostasunik eza.

Alor horretan iritzi ugari dira eta pentsalarien artean **desakordioa** da nagusi. Xabier Kintana

**Desakordioek** bere mementuan halako zarata eragin zuten, baina akordioak inongo oihartzunik ez dute izan. Berria - Harian

Agustin deunaren bizitza kezkaz, zalantzaz, akordioz eta **desakordioz** josita dago eta estuki lotzen da bere pentsamenduarekin. Imanol Unzurrunzaga

**2** (hitz elkartuetan)

Ideien historia bati dagokionez, zeinak kontraesanak batu nahiko lituzkeen irudi global baten erdi-gaueko batasun batean [...] arkeologiak **desakordio** -espazio ezberdinak deskribatzen ditu. Xabier Arregi

· Aipaturiko erakundeen arteko langabezia estatistika **desakordioak** ohikoak izaten dira, baita langabezia estatistikak apaintzearren egiten diren hainbat komeria metodologiko ere. Iñaki Heras

---

## desakort *izond* bat ez datorrena, gaizki ematen duena.

Izan ere, zer pentsa daiteke ezberdinagorik, elkarren kontrakoagorik eta **desakortagorik**, izaki hilkorra hilezkor eta betikoarekin bildurik, ekaitz ankerrak batasunean jasatea baino? Xabier Amuriza

Etxe **desakortak** bata bestearen gainean pilatzen dira, harresi amilduak, ugerra, garabiak -metal itzalezko lertxunak-. Sonia Gonzalez

---

## desakralizatu, desakraliza, desakralizatzen du *ad* izaera sakratua kendu.

Eliza aspaldi **desakralizatu** zuten, eta orain Iruñeko Udalarena da haren jabetza. Berria - Euskal Herria

Frantsesa **desakralizatzen** lagundu dit euskarak. Berria - Kultura

Telebista hargailuak berak, telebistako irudia marko baten barruan kokatzen duelarik [...] estatutu berezi bat ematen dio irudi horri, izaera artistikotik albait urrunena ( **desakralizatua** ), "solasari" eta etenik gabeko "jarioari" atxikiagoa. Josu Zabaleta

---

## desakreditatu, desakredita, desakreditatzen *(orobat* ***deskreditatu****)* 1 du *ad* izena kendu, entzutea kendu.

'Erlojuak **desakreditatuta** daude...' esango duzu. Joseba Sarrionandia

Inspirazioa oso **deskreditatuta** dago gaur egun, baina gehiegizko erraztasunean sinisten dugu. Ana Urkiza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Argitasun huts horrek larrua ukitzen du [...] eta larruak ikara zolia eduki ohi du, inpresio konparaezina, pentsarazten duena jainkoen kreazio **desakreditatua** ez ote den izango, eszeptiko eta ateoen laidorako. Jon Alonso

---

## desaktibatu, desaktiba, desaktibatzen da/du *ad* indargabetu.

Hemisferio hori berriro aktibatu eta bestea **desaktibatu** zitzaienean, ordea, atzera dena hasieratik ikasi behar izan zuten arratoiek. Irene Aldasoro

Bulkada bakoitzaren ondoren, nerbioa **desaktibaturik** geratzen da segundo baten milaren batean. Irene Aldasoro

Hitzek ez dute askorik balio, erabiliaren erabiliaz, maiztu egin dira, **desaktibatu** egin ditugu. Iñigo Aranbarri

Noizbait, hala ere, ETAren su-etenak "Beste" nagusi horietako bat **desaktibatu** digu. Joseba Zulaika

Bide batez, irmotasun itxura erakutsi du PSOEk, eta PPren mezua **desaktibatu** du, neurri batean: ERCren menpe ez dagoela agertu du, PPk horixe leporatu arren; ez dagoela prest independentistekin etengabeko eztabaidan egoteko. Berria - Harian

Euskal presoentzako Guantanamorekin amesten dute, horrela nahi gaituztelako: bizirik ez, hilik baizik, eta horrela ezin bada, damututa, beldurtuta, **desaktibatuta** . Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desaktibatu du** (3)

---

## desaktibazio *iz* desaktibatzea, indargabetzea.

Gazteen aktibazioa eta parte-hartzea bultzatzen dira; instituzioek, aldiz, **desaktibazioa** bilatzen dute. Berria - Harian

Kaleko artearen **desaktibazioa** . Berria - Kultura

**desalojatu**, desaloja, desalojatzen du *ad* hutsarazi, etxe-hustuketa eragin.

Eta 2001ean, bi mileniotako sufrimenduaren ostean, eskatzen dio Aita Santuari, infernua **desalojatu** eta eraisteko. Berria - Kultura

Gure egoera salatzeko margoketa gorriak egitea biolentzia omen da; aldiz, gaztetxeak bortizki **desalojatu** edota gazteak torturatzea, biolentzia ikustezina bilakatzen da. Berria - Euskal Herria

---

**desalojo** **1** *iz* (etxe) hustuketa.

Gainerakoak gaztetxeen eta gune autogestionatuen aldeko leloak izan ziren: *Okupazioa, Herri bat gaztetxe bat,* ***Desalojo*** *gehiagorik ez...* *Berria - Euskal Herria*

Poliziaren **desalojoaren** arrazoia da ez dutela nahi ekimen horrek segida izatea, PSOEk, bestela, ezustean, itzelezko arazoarekin topo egingo lukeelako gobernu berrian hasi bezain pronto. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Segi gazte erakunde independentistak eta sozialistak gogor salatu nahi du Iruñeko Euskal Jai Gaztetxearen aurkako eraso eta **desalojo** saiakera. Berria - Euskal Herria

---

**desamets** *iz* ametsik eza.

Errealismoa **desametsa** da. Joxe Azurmendi

---

**desamodio** *(orobat* ***desamorio*** *g.er.)* **1** *iz* maitasunik eza.

Hainbat egoerak sortzen digute **desamodioa**; esate batera, erantzunik gabeko amodioak. Luis Elberdin

Maitasuna sortzen den une berean jaiotzen da **desamodioa** ere. Pako Aristi

**Desamodio** sendaezin baten ostean. Berria - Kultura

Orain dena da **desamodioa**, ezin ulertua, zerbezaz lepo egin eta frakaso gorria. Karlos Linazasoro

Eta oinazea, eta **desamodioa**, eta porrota, eta ezin eramana, eta huts-mina, eta gorrotoa... horiek denak gizakiak erro-errotik bizi ditu; ez hala, piztiek. Karlos Linazasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Benek amaitzen dute berdin: **desamodio** eta bakardade sentipenarekin. Berria - Kultura

Adrian Perez taldekidea da kantu gehienen egilea: 12 kantu, denak euskaraz, maitasun ixtorio, **desamodio** kantu, eguneroko gertakaritxo... Herria

Amodio eta **desamodio** kontuak idatzi zituen Lazarragak. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desamodioa ere** (3); **eta desamodioa** (5)

---

desamorio ik **desamodio**.

---

**desamortizazio** *iz* ondasun amortizatuak, merkaturatzeko libre utzi.

XIX. mendean, Mendizabalen **Desamortizazioaren** ondorioz monasterioa horma zahartuta geratu zenean, agure bat ibiltzen zen hondakinen artean, beti mutu, beti edozein hotsi adi. Martin Anso

Aita Bedaio, XIX. mendeko **desamortizazioak** inork ez bezala ezagutzen dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

**Desamortizazioaren** garaian fraideek komentuak uztera derrigortu zituzten, baina itzuliko zirela uste zutenez, gauza asko ezkutuan gordetzea erabaki zuten Berria - Kultura

---

**desanexio** **1** *iz* anexioa indargabetzea.

Kontsulta bat egin zuten herritarren artean, eta gehiengo osoak esan zuen **desanexioaren** alde zegoela.Arrastariako biztanleen %66 eta Lezamakoen %69 **desanexioaren** alde agertu ziren. Berria - Euskal Herria

**Desanexiorako** bidea Hondakin Planta ezartzeko Amurrioko Udalak agertu zuen asmoak ireki omen zuen, 1998an. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Orain 16 urte **desanexio** prozesua hasi zutenean, Markinako Udalak ez zien babesik ematen bolibartarrei. Berria - Euskal Herria

Berriari Andoni Lariz Bolibarko **Desanexio** Batzordeko kideak. Berria - Euskal Herria

---

**desanexionatu**, desanexiona, desanexionatzen da/du *ad iz* anexioa indargabetu.

2002ko uztailaren 21ean aurkeztu zuten formalki **desanexionatzeko** txostena Amurrioko udaletxean. Berria - Euskal Herria

---

**desanimatu**, desanima, desanimatzen da/du *ad* gogogabetu, adoregabetu.

Ezin diote lasai begiratu etorkizunari, eta gogo handiz jardun arren, azkenean **desanimatu** egiten dira pitin bat. Berria - Kirola

-Agerian dago hanka sartu duguna, baina ez gaitezen **desanimatu**. Jon Arretxe

Bakar-bakarrik ikusten nuen neure burua, hainbeste **desanimatzen** eta adoregabetzen ninduten erantzuki haiek gehiago egingo ez ziezazkidaten modukoa bihurtzeko lan gaitz hari ekiteko. Josu Zabaleta

Salatzaileak salatuz espero dute tortura salaketak gutxitzea, jendea **desanimatzea**. Berria - Euskal Herria

Nik erantzun nion ez nengoela **desanimaturik**, eta bere interesaren berri jakinda inoiz baino esperantza handiagoa nuela. Fernando Rey

Eta orain, gauean -**desanimatuta** eta esku hutsik, jota eta galduta ezkutuka etorri ondoren honaino-, orain txartela, hainbesteko gorrotoa eta beldurra eragin zizkiona, lurrean zegoen. Anton Garikano

---

**desanimo** *iz* adorerik eza, adoregabetasuna.

Negoziazio luzeak eta korapilatsuak eta halako **desanimo** orokorra zabaldu da fabrikan, aldez aurretik sentitutako derrota batena. Jon Alonso

**desanparatu**, desanpara, desanparatzen **1** du *ad* babesgabetu.

Bere zurbilean txukun, erruki emateko moduko prestu itxuraz, erremedio gabe **desanparatua** ... Pablo Sastre

1961eko uztailaren 21ean, Ernest Hemingway, Ketchun, Idahon, Union kaleko bizartegiko aulkian esertzen delarik, ahul bezain **desanparatuta** sentitzen da. Harkaitz Cano

Neska horrek ageri duen samurtasuna nahi genuke gure gaisoaldietan; haur hori, berriz, hain dago **desanparaturik** ... Pako Aristi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Aspirina irentsi eta gero ere lehengo aurpegiera **desanparatuarekin** jarraitzen du neskatxak, lasai baina tristerik. Xabier Mendiguren Elizegi

Zirkuko jabea -"ni enpresari apal bat besterik ez nauzu"- dirua galtzen ari zen, zirkua han, orube **desanparatu** hartan geldirik eta emanaldirik eskaini gabe. Harkaitz Cano

---

**desanparo** *iz* babesik eza, babesgabetasuna.

Bi eskuekin estaltzen zuen aurpegia, inork bere samina ikus ez ziezaion, eta negarrarekin batean isilkako intziri bat ateratzen zitzaion, damua, beldurra, lotsa edo **desanparoa** uxatzeko konjuru baten moduan, ahopeka. Joxean Agirre

Geroztik, niretzat **desanparoak** ez dauka beste soinurik: neguaren ilunpetan, hezurretaraino sartzen den izotzaren erdian, arrankatu ezin duen auto baten karranka errukarria. inguratzen duen familiaren erdian, etxera datozkion lagunen erdian, luxuaren tartean halako betegabetasun bat nabari zaio, osagai horiek guztiak izan arren **desanparoa** erabat estaltzea lortzen ez duen pertsona baten malenkonia punttua. Pako Aristi

Apurka-apurka autoak martxan jarri eta alde egiten zuten auzotik, eta ni lo geratzen nintzen, beroa gozatuz, **desanparo** haren erdira atera beharrik ez neukalako. Pako Aristi

Nobelako pertsonaia batzuen desolazioa, urruntasunaren **desanparoa** , Ozeano Antartikoko hotz hondogabeen itolarria geratu zaizkit. Jokin Urain

Harentzat nirea izango zen **desanparoa** : tipo bat gauaren bakardadean idazten. Pako Aristi

---

**desantolamendu** *iz* antolamendurik eza.

Sinesten dut badela unibertsoan azken indar antolatzaile betirako bat: ez da pertsona bat, Buddha edo Jesusen gisakoa, baizik eta apika **desantolamenduaren** aurkako antolaketa bat edo. Xabier Olarra

---

**desantolatu**, desantola, desantolatzen **1** da/du *ad* antolaketa galdu edo kendu.

Hezurraren forma emanik, presio funtzionalaren norabidean antolatzen eta **desantolatzen** dira hezurraren elementuak, eta presio funtzional horren zenbatekoaren arabera handitzen edo gutxitzen dute beren masa. Irene Aldasoro

Euren adar armatuak **desantolatzea** onartu duten Irakeko indar politikoak hauek dira: [...]. Berria - Mundua

Gurutzearen itzalean ezkutatuta beraien hitz anbiguoaren pozoiaz langileria **desantolatu** nahi duten horiei dagokienez... Koldo Biguri

Izugarri **desantolaturik** bizi zen, eta amorraturik ere bai batzuetan; kaos bridagabea zen nagusi haren munduan. Xabier Olarra

**2** (era burutua izenondo gisa)

Munduko erlijiorik **desantolatuena** da *camdombléa*, hori da haren xarmaren iturria, eta orain arauez bete nahi dute. Karlos Zabala

---

**desantolatze** *iz* antolaketa galtzea edo kentzea.

Herrialdeko segurtasun indarren **desantolatze** bat eta prozesu politikoaren etete bat behar litzateke horrelakorik gertatzeko. Berria - Mundua

---

**desantzeko** *izond* antzarik ez duena.

Materiaren gorputzetan ez baitago inolako kolorerik, gauzen antzekorik ez **desantzekorik** . Xabier Amuriza

Forma **desantzekoak** eta itxura ezberdinak zirela bide. Xabier Amuriza

---

**desantzekotasun** *iz* desantzekoa denaren nolakotasuna.

Ez da ez zenbakia ez ordena, ez handiera ez txikiera, ez berdintasuna ez desberdintasuna, ez antzekotasun ez **desantzekotasuna** . Joan Mari Lekuona

---

desapio ik **desafio**.

---

desapioka ik **desafioka**.

---

**desaprobetxatu**, desaprobetxa, desaprobetxatzen du *ad* etekinik ez atera, alferrik galdu.

Ta gela propioan leihate propioa izatea lujoa zen Matiasentzat, eta pertsona ez dago munduan lujoak **desaprobetxatzeko** . Unai Elorriaga

Horrelako aukerak bizian behin bakarrik izaten dira, eta ezin dugu aukera **desaprobetxatu** . Berria - Kirola

Hura zen buztantxoa **desaprobetxatzeko** modua ene uzkia eskean zebilenean! Aitor Arana

---

**desapropos** *izond* aproposa ez dena, desegokia.

Agian telefonoa hartuko zuen Nekanek hurrengo tutualdian eta erabat une **desaproposean** harrapatzen zenuela esango zizun. Harkaitz Cano

---

**desarau** *iz* araurik eza.

**Desarau** berri baten proposatzailea, arau bihurtzean huts egin duena. Xabier Olarra

Ubikuotasunaren dohaina du, **desarauzko** fenomeno horri atzetik dohain substantiboa ipini zionak zer esaten zuen ez bazekien ere. Karlos Linazasoro

Menturaz kriminal ederren artean kokatu behar izan naute, menturaz ez didate aurkitu **desarauko** ezer. Koldo Izagirre

## **desarauketa** *iz* desarautzea.

Horien aurrean errezeta-liburu berrian, **desarauketa**, pribatizatzea eta zerga presioaren murrizketa neurriak dira nagusi. Iñaki Heras

---

## **desarautu**, desarau(tu), desarautzen du *ad* arauak ezabatu.

Eta lehia horrek lasterketa bat ekarri du, nork lehenago **desarautu**, pribatizatu eta zergak jaitsi, eta horrek guztiak auzitan jarri ditu keynestar garaitik zetozen gizarte-konpromisoak. Koro Navarro

Langabezia izugarri hazi da Mendebaldeko Europan, orobat hazi da pobretasuna Atlantikoaren bi aldeetan, finantzak mundu industrializatu osoan **desarautu** dira eta diru-egongaiztasuna zabaldu da. Koro Navarro

Finantzen berrikuntza kateatu hau ez zen inola ere gertatuko, baldin finantza-merkatuak bata bestearen ondoren **desarautu** ez balira. Koro Navarro

Enpresen deslokalizazioa, lan merkatua **desarautzea** eta ongizate estatua desegitea ez da globalizazioaren ulerkera bakarra. Berria - Euskal Herria

---

## **desarautze** 1 *iz* arauak ezabatzea.

Munduko ekonomiaren integrazio gero eta handiagoak eskatzen duen erregulazio modu berrien ordez, **desarautze** lehiakor bat ari da nagusitzen, eta **desarautze** hori, nazioarteko mailatik nazio mailara igaro ondoren, finantzen eremutik, modu arriskutsuan, gizartearen alorrera ari da igarotzen. **Desarautzea**, pribatizazioa eta zergak murriztea izan ziren liberalismora bihurtutako politika ekonomikoen giltza-hitzak. Finantzen berrikuntza kateatu hau ez zen inola ere gertatuko, baldin finantza-merkatuak bata bestearen ondoren **desarautu** ez balira. Koro Navarro

Azken prozesu horren argitan ulertzen da, arrazionalizazio ideologikoak gorabehera, 1970eko hamarraldiaren amaieran abian jarri ziren **desarautzeen** uholdea. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Ekonomian gertatu den globalizazio eta merkatuen **desarautze** prozesuaren areagotzeagatik. **Desarautze**-politikak, bere aldetik, komunikazioen iraultzarekin batera, finantza-globalizazioaren prozesua sendotu du. Iñaki Heras

· Horiez gainera, finantza-**desarautzea** ere aipatu behar da, garai bateko erakargarritasuna eman baitzion berriz New Yorki -Londresen aurka-, nazioarteko finantzaren gune nagusi gisa. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> desarautzea eta (6); merkatuen desarautzea (3)

---

## **desarduratu**, desardura, desarduratzen da *ad* ardura galdu, arduragabetu.

Zer eta, orain osasunaz **desarduratzen** ikasi beharra! Jose Angel Irigaray

---

## **desarildu**, desaril, desariltzen **1** da/du ad arildua dagoena desegin.

Adio egitura hexagonalari: lipar gutxiren jiran, mataza **desarildu**, eta glukosa bilakatu zen atzera. Juan Garzia

---

## **desarmamendu** *iz* desarmatzea.

Saddam HusseinIrakiako presidentak hel arazi diote ONU-ko arduraduneri galdegina zakotena, erran zezan xeheki nola zen jarraiki erakunde horren manamenduari **desarmamenduaren** gora beheretan. Herria

---

## **desarmatu**, desarma, desarmatzen **1** du *ad* armak kendu. ik **armagabetu**.

**Desarmatu** zuten Abundio, artean hantxe baitzeukan labana odolez betea eskuan. Juan Garzia

Azaltzen zuen zein molde errazean hamar mila kidetako batailoiak **desarmatu**, zaldi ederrak kalitu eta gerla-tresnak berenganatu zituzten alemanek, borrokarik gabe kasik. Itxaro Borda

Inurriek bezala hartu zuten ontzia, **desarmatu** egin gintuzten, ni muturrean jo eta lurrean utzi ninduten odoletan. Koldo Izagirre

Ez **desarmatu** heure jendea. Juan Garzia

IRAk Gabonak baino lehenago **desarmatzeko** konpromisoa adierazi zuela esan zuten bi gobernuburuek. Berria - Mundua

Milizietako 40.000 kide **desarmatuko** dituela iragarri du Gobernuak. Berria - Mundua

**2** irud/hed

Txarrena ere irten daiteke, ordea, halako aurreikuspenetatik, iragartzen den gaitzaren aurrean zeharo **desarmaturik** gaudenean. Juan Garzia

Giza ekintzen arrazoia figuren neurrien arrazoiak bezain ziurtasun handiz ezagutuko bagenu, handinahikeria eta zikoizkeria **desarmatuta** gelditutko lirateke. Esteban Antxustegi

**Desarmatu** nauena, salako ispiluan bere buruari eta mini-gonak ematen zion itxurari begiratu ondoren, Paola niri begira geratu dela ikustea izan da. Harkaitz Cano

Aterpean sartu orduko eltzekariaren usain onak eta profeta itxurako gizon irribarre bizardunak **desarmatu** naute. Piarres Aintziart

Pescadorren ustez, liburuan «hainbat mito» **desarmatzen** dira. Berria - Kultura

**3** (era burutua izenondo gisa)

Hotzak eta goseak geunden, Piamonteko partisanorik **desarmatuenak** ginen, eta ziur aski prestatugabeenak ere bai. Juan Garzia

Bi talde osatu ziren kaian: euskal borrokalari **desarmatuak** alde batean, eta buruzagi politikoak bestean. Jokin Urain

**4** desmuntatu.

Erabat **desarmatu**, garbitu, eta piezaz pieza armatu nuen. Jesus Mari Mendizabal

Lisatzeko oholaren oina **desarmatu** nuen (hankak azpitik sartzea galaraziko baitzion), altuera kalkulatu, eta lau hanka egurrezkoren gainean ezarri nuen, mahai arruntaren moduan. Jesus Mari Mendizabal

Behean hautsa eta ilunpea, besterik ez, ontzia **desarmatzen** ari diren dozenaka mailuek joka ekin diotelarik berriz. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> arabiarrak desarmatzeko (5); desarmatu eta (5); desarmatu ezean (3); desarmatuko dituela (5); desarmatzea eta (3); desarmatzeko eskatu (5); desarmatzeko eta (4); desarmatzeko prest (3); desarmatzen ari (3); milizia arabiarrak desarmatzeko (4); miliziak desarmatzeko (9)

---

## **desarmatze** *iz* armak kentzea, armagabetzea.

Khartumek jakinarazi du Gobernuaren aldeko milizien **desarmatzea** hurrengo hastean hasiko dela. Berria - Mundua

Matxinatuen **desarmatzearen** inguruan, prozesua beranduenez datorren urriaren 15ean hasiko dela adierazten du akoardioak. Berria - Mundua

Boli Kostako presidente Gbagbok lehen ministroari botere handiagoak ematea, altxatutako milizien **desarmatze** prozesua eta lege erreformak Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desarmatzea eta** (3)

---

# desarme 1 *iz* desarmatzea.

**Desarmea** eta bakea bultzatzeko asmoz. Fernando Morillo

Akats handia izan da **desarmea** lehentasun gisa jartzea. Berria - Mundua

Eskuin muturreko talde armatuen **desarmea**. Berria - Mundua

Milizien **desarmea** NBEko Segurtasun Kontseiluak Khartumentzat aurreikusitako zigorrak baztertzeko baldintzetako bat da. Berria - Mundua

DUPen helburua, IRAren erabateko **desarmea** izango litzateke. Berria - Mundua

**Desarme** psikologikoaren prozesu honen onuradunak ez dira gobernariak edo gobernatuak, ezta gutxiengo menderatzailea edo barne-proletalgoa ere. Iñaki Mendiguren

**Desarmea** Ikuskatzeko Batzordeari. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan)

IRAk **desarme** prozesuan konpromiso sendoa erakutsi eta urratsak erritmo egokian eman al ditu? Berria - Mundua

**Desarme** iragarpena taktikatzat jotzen dute. Berria - Harian

Errusiarekin eginiko **desarme** itunen ondorioz desegin beharreko bonba nuklearretako buruetatik atera dute. Berria - Gaiak

DUPeko presidente Ian Paisley Nazioarteko **Desarme** Batzorde Independenteko buru John de Chastelainekin bildu zen. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **desarme batzorde** (6); **desarme batzorde independenteko** (3); **desarme prozesua** (7); **desarme prozesuan** (4); **desarme prozesuaren** (3); **desarme urratsak** (3); **nazioarteko desarme** (6); **nazioarteko desarme batzorde** (6)
>
> **armatuen desarmea** (4); **desarmea egiaztatzeko** (3); **desarmea eskatu** (4); **desarmea eta** (7); **desarmea exijitu** (3); **desarmea ikuskatzeko** (3); **desarmearen argazkiak** (10); **desarmerako nazioarteko** (14); **desarmerako nazioarteko batzorde** (13); **erabateko desarmea** (12); **eta desarmea** (3); **eta iraren desarmea** (3); **iicd desarmerako nazioarteko** (6); **iraren desarmea** (13); **iraren desarmearen** (6); **iraren desarmearen argazkiak** (5); **iraren erabateko desarmea** (4); **milizien desarmea** (4); **zuen iicd desarmerako** (4)
>
> **desarme batzorde independenteko** (3); **desarme prozesua** (7); **desarme prozesuan** (4); **desarme prozesuaren** (3); **desarme urratsak** (3); **nazioarteko desarme** (6); **nazioarteko desarme batzorde** (6)
>
> **armatuen desarmea** (4); **desarmea egiaztatzeko** (3); **desarmea eskatu** (4); **desarmea exijitu** (3); **desarmea ikuskatzeko** (3); **erabateko desarmea** (12); **iraren desarmea** (13); **iraren erabateko desarmea** (4); **milizien desarmea** (4)
>
> **desarmearen argazkiak** (10); **iraren desarmearen argazkiak** (5)
>
> **desarmerako nazioarteko batzorde** (13)

---

# desarmonia *iz* harmoniarik eza.

Ez dago ere **desarmoniarik** gizabanakoak lagun hurkoekin dituen harremanen eta Jainkoarekin duen harremanaren artean. Iñaki Mendiguren

---

# desarra 1 *iz* desarratzea, giro egitea.

Behingoan, tiro baten **desarra** entzun dute eskuin aldean. Karlos Zabala

Mikel Strogoffek eta Nadiak **desarrak** entzuten zituzten, garrasiak, laguntza eske, tatariarren alarauak ibaian gora... Karlos Zabala

Fusilen **desarra**! -esan zuen bere artean-. Karlos Zabala

Laurak arte ez zen emirra plazan sartu, turuten eta dunbalen zalapartaren erdian, kanoien eta mosketeen **desarraren** artean. Karlos Zabala

Angara zabal-zabala da leku hartan, eta ezin inola ere handik igaro setiatuen **desarren** azpian. Karlos Zabala

Kanpai-hotsez iragartzen omen dute begiraleek, **desarraren** tximista ikusi ahala, bizpahiru segundoko aurrerapenez, Santa Barbara eta Artolatik granadak herrirantz noiz irten diren. Txillardegi

Zeren eta dozena bat lagun baikindoazen, *Itsasoko Ama*koak... guztiok ere ongi armaturik, **desarrarako** prest... Joan Mari Irigoien

Potzoloren begi meharrak bi pistola ziren, **desarratzeko** prest. Aingeru Epaltza

Angarako kanpamentuko kanoiak **desarra** bota eta bota hasi ziren. Karlos Zabala

Ordea, kanoiak **desarra** egin zuenean, bertatik jaurtikirikako bola kasik geldi geratu zen mahai gainean, mahai gainean geldi zegoenak aitzina egiten zuelarik, tximistak hartua bezala. Joan Mari Irigoien

Arratzaindik egiten genituen **desarrei** erantzunez, Donostiatikako granadak ere etengabe lehertzen ziren gure inguruan. Txillardegi

**2** irud/hed

Esketxak bere segida izan zezan, nik halaberean ihardetsi behar nion, neure ukabila haren kokots punttadunaren aldera **desarratuz**, betiere bisaia ukitzeraino gabe. Aingeru Epaltza

**Desarra** gozo baten gisara eragin zidan haren larru-azalaren uki guriak blusa baporetsuaren ehun mehearen azpian. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan)

Baina orduan fusil **desarra** ikaragarri bat lehertu da telegrafo bulegotik hurbil, eta bala zaparrada batek leihoetako kristalak txikitu ditu. Karlos Zabala

---

# desarrañatu ik **desarranjatu**.

---

# desarranjatu, desarranja, desarranjatzen *(orobat **desarrañatu**)* du *ad*

Felisa, bero honekin, barnean daiteke eta ez dut **desarranjatu** nahi. Piarres Aintziart

Ez nuen nahi haur denborako oroitzapen leunak gero piztuko ziren konfliktuek **desarranjatu** zitzaten. Piarres Aintziart

Besteak **desarranjatzen** gaitu, kontzientziaren lotik ateratzen. Piarres Aintziart

Mila ta mila urtez darion uraren marra infinituaren zatitxo bat egin dut goizean, ertzean ibiliz, ene biziaren iraupen mikroskopikoak elementuak ez dituelarik batere **desarranjatzen**. Iduritu zaut goiko bisitari batzu etxe huni buruz beheiti ari zarela eta ez naiz menturatu hemen bizi den artzaina **desarrañatzera**. Piarres Aintziart

Laguntza espiritual horren ondotik, hatsa atxiki zuen eta bere ondoan zeukan txinatar 'gladiatorrea' **desarrañatu** zuen. Ramuntxo Etxeberri

Senar-emazteak bizi izan dira beren etxe untsa antolatuan nehore **desarrañatu** gabe Herria

---

## **desarrantza** *iz*

Han aritzen ziren Goioren ama eta beste saregileak driban harrapatu eta lotuta geratutako arraina banan bana **desarrantzan**. Joseba Sarrionandia

---

## **desarratu**, desarra(tu), desarratzen **1** du *ad* (arma batek) jaurtigaia bota, tiro egin.

Gerokoa badakik: lagunari bi tiro **desarratu** eta gero, delako txostenaren bigarren partea ezabatu zian ordenagailutik. Aingeru Epaltza

Bere fusila etengabe **desarratzen** zuen Txapero nire laguna, bat-batean isil-isilik antzeman nuen, eta geldi-geldirik. Txillardegi

Hirugarrenak jaitsi ditu taberna aurreko eskilarak, eta atea zabaldu ondoren, arma **desarratzen** hasi da. Berria - Kultura

Kontu handiz **desarratu** nuen: bertan erori zen Albert, antsiarik ere gabe, kolpetik. Juan Garzia

Eta apuntatu zuen Mattinek eskopeta piztiaren kontra, baina ez zuen **desarratzen** ... Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Txantxatiak bakean beza bere partea burutu; pailazoak bitza barrez leherraraz beren birikak **desarratzeko** pronto daudenak. Juan Garzia

---

## **desarrazoi** *iz* arrazoirik eza; arrazoiaren aurkako gauza.

Horrela hasten ziren sesioan, gizona arrazoi zorrotzen armarekin eta andrea bere suminarenarekin huts-hutsik; eta bataren eta bestearen arrazoi eta **desarrazoiak** ezin askatuzko katramilan nahastekatzen ziren. Fernando Rey

Banaka-banaka frogatu behar du isunen **desarrazoia**, zentzugabekeria. Karlos Linazasoro

Niri ez zitzaidan ongi iruditu, Godot-ek zerikusi handiagoa baitu arrazoiarekin **desarrazoiarekin** baino, eta esan nien analistentzat ez nekiela, baina idazleontzat Beckett etsenplu eredugarria zela. Ramon Saizarbitoria

*Euskaldunon Egunkaria* ixtearen arrazoietako bat euskararentzat askatasun gehiago ekartzea zela Gobernutik deklaratu zutenen **desarrazoi** modua bera ere bai. Iñaki Segurola

Gauzak bere onetik ez ateratzea erabaki zuen, **desarrazoiaren** sareetan ez erortzearren. Karlos Linazasoro

Esana arrazoiari dagokio, edo **desarrazoiari**; botea edo botakina informazioari (eta kulturari). Iñaki Segurola

Edozein ordutan eta harira etorri gabe aipatzen zituzten Benito gizajoari buruz[...] egotz lekizkiokeenik pentsatuko ez nukeen nolakotasunak; batzuk, gutxieneko objektibotasuna zuenarentzat, erabat **desarrazoizkoak** zirenak. Ramon Saizarbitoria

Hain da gauza krudela seme-alaben **desarrazoia**! Jon Muñoz

---

## **desarrazoitze** *iz*

Hor konpon zuen boto eta abstentzioekin, ni inozentziak bizi nau, **desarrazoitze** lan eder honek, entenitzen? Patziku Perurena

---

## **desarroilatu** *(ETCn 14 agerraldi; orobat **desarrollatu** ETCn 1 agerraldi)*, desarroila, desarroilatzen da/du *ad* garatu.

Besteen moduan eta guztion markoetan **desarroilatuko** dira orokorki haren pentsabideak: estatu-gizartetik baino askoz zailagoa baita norbere denboratik aparte jartzea, libertatean pentsatzeko. Joxe Azurmendi

Literarioki Hugok ez du gero horrela **desarroilatu**, baina alde biok Pasaiak berak ere badauzka bere barruan. Koldo Izagirre

---

## **desarroilismo** *(orobat **desarrollismo**)* *iz* kosta ahala kostako garapenaren aldeko politika.

Gure inguru hauetan ere **desarroilismoaren** urteetan antzera bizi zen jendea, dramatismo gutxiagorekin akaso, baina antzera. Berria - Gaiak

AHTren eta **desarrollismoaren** aurkako herri mugimendu sendo bat. Berria - Euskal Herria

**Desarrollismoaren** ondorio suntsitzaileak geldiarazteko. Berria - Euskal Herria

Leku gatzgabeak iruditu zitzaizkigun gehienak: txikienak etxalde miserableak ziren, eta handienak itsusiak, nekazaritza-**desarrollismoak** jotako nukleoak. Iban Zaldua

---

## **desarroilista** *(corpusean **desarrollista** soilik; ETCn 6 agerraldi)* **1** *izond* desarroilismoarena, desarroilismoari dagokiona.

Eredu **desarrollisten** aldeko apustua da, herri honek alternatiba gisara behar dituen gune sozial eta ekologikoak proposatu gabe. Iñaki Heras

Ekimenaren helburua «proiektu **desarrollista**» horren kontrako herri mugimenduari bultzada ematea da. Berria - Euskal Herria

**2** *izond/iz* desarroilismoaren aldekoa.

Berrikuntza semantiko honek egoera bitxi bat eragin du azkenean: hala **desarrollistak** nola ekologistak bere diskurtsoak berregituratu beharrean izan dira, elkarrekin moldatu ahal izatearren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

## desarrollatu ik **desarroilatu**.

---

## desarrollismo ik **desarroilismo**.

---

## **desartikulatu**, desartikula, desartikulatzen **1** du *ad* giltzadura desegin; ataletan bereizi.

Irri zozoak kokotxa **desartikulatu** zion. Itxaro Borda

Guk horren aurrean diogu Euskal Herria ez dagoela hiru eremutan artikulatua, baizik eta **desartikulatua**. Berria - Euskal Herria

Estatu espainolak euskal erakunde politiko tradizionalak ezabatzen eta Euskal Herria **desartikulatzen** zuen momentuan, [...]. Joxe Azurmendi

**2** irud/hed

Zalu eta modernotzeko, bihurritu eta **desartikulatu** beharra dago, airostu, zehaztu, lexikoa berritu, sintaxia malgutu; hitz batean (euskararekin ezin omen dena), irauli eta birfundatu egin behar da hizkuntza. Joxe Azurmendi

**3** desegin.

Margeren salaketari esker, Interpolek **desartikulatu** ahal izan ditu erakunde beldurgarri horrek ia mundu guztian zehar sakabanaturiko tentakulu lindirgatsuak. Iban Zaldua

Ezker abertzalea **desartikulatzeko** estrategiak porrot egin duela. Berria - Euskal Herria

Margeren salaketari esker, Interpolek **desartikulatu** ahal izan ditu erakunde beldurgarri horrek ia mundu guztian zehar sakabanaturiko tentakulu lindirgatsuak. Iban Zaldua

**4** (era burutua izenondo gisa)

Jendea dantzan ari izango da, mugimendu zoro eta **desartikulatuekin**. Joseba Sarrionandia

---

# desartikulazio *iz* desartikulatzea.

Atentatu bat ez bada, biktimaren bati egindako elkarrizketa, edo talde baten **desartikulazioa**... Anjel Lertxundi

Aldaketa fonetikoaren ondorioz azterketa batzuk anbiguoak eta beste batzuk ezinezkoak gertatu ohi direnez, **desartikulaziorako** betebeharreko baldintzak ere aldatu ohi dira, eta horrenbestez, haren emaitzak ere bai. Isabel Arrigain

---

# desartilatu, desartila, desartilatzen du *ad* artilleria kendu.

Bilbo ebakuatzean Santoñara pasa zen; bertan **desartilatu** eta ondoren Bordelera (1937-VIII-28). Edorta Jimenez

---

# desasosegatu, desasosega, desasosegatzen da *ad* desosegatu, baretasuna galdu. ik **urduritu; artegatu**.

Horrela jardun nuen, pixkanaka, poliki eta soseguz bezain nerbioso, urduri eta **desasosegaturik**. Joxean Sagaztizabal

---

# desasosegu *iz* desosegua. ik **urduritasun; artegatasun; ezinegon**.

Horrelakoetan, saioaren kondarrean, halako **desasosegu** bat geratzen zaio bertsolariari. **Desasosegua** erabat jabetu zen berataz. Andoni Egaña

Traizioak eragindako **desasoseguak** ebaki txikiak egin zituen Galderren hitzetan. Lutxo Egia

---

# desastre 1 *iz* hondamena, hondamendia; erabateko porrota.

Noaingo **desastrearen** albisteak kulebrina batekin harrapatu zuen Migel, suzko armen misterioen lehen eskolan. Aingeru Epaltza

Kolpe gogorra ez ezik, B-12rena gertatu zenez geroztik hondamendia zela iritzi genion, itzulbiderik eta atzerabiderik gabeko **desastrea**. Jon Alonso

Sekulako **desastrea**, eta dena, hire errua! Aingeru Epaltza

Berehalaxe konpondu zen **desastrea**, baina gauza jakina da katuaren pixak sekulako usain txarra duela. Josu Zabaleta

Gerraren amaia **desastre** erabatekoa izan huen. Josu Landa

Nire bizitza **desastre** osoa da. Iban Zaldua

Oporren tarte luze bat eztabaidatzen pasatu genuen, bidaia hura **desastre** bat izango zela konturatzen hasi ginenetik. Iban Zaldua

Batzuetan zerbait desio dugu, nahiz eta jakin ezinezkoa dela, edo **desastrea** ekarriko digula. Xabier Mendiguren Elizegi

**Desastre** bat besterik ez zela, azkenaldi hartan, bien arteko hartu-emana... Joxemari Iturralde

Ortega-k behin eta berriro agertu du bere susmoa, eman ohi ziren Espainiaren gaitzaren esplikazio guztiak, Bourbondarren etorreraz, edo 98ko **desastreaz**, edo elizaren itxikeriaz, edo jendearen alferraz, edo ezaxola publikoaz, etab., kaskalak zirela denak. Joxe Azurmendi

**2** (izan aditzarekin) penagarria, oso txarra, erremediorik gabekoa.

Donostia **desastrea** dela diozu. Berria - Kultura

Horretan euskara **desastre** bat da. Berria - Kultura

Oteizaren artelanen gainean ez dagoela kontrolik, pieza faltsuak egiten ari direla, kudeaketa **desastre** hutsa dela. Berria - Kultura

Ohean **desastre** hutsa naiz. Luis Elberdin

Ezin ukatu: **desastre** hutsa ginen sukaldean. etxe hartan ezer ez zegoelako bere lekuan eta **desastrea** nintzelako. Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desastre bat** (7); **desastre hutsa** (19); **desastre hutsa da** (3); **desastre hutsa zen** (3); **desastrea da** (3); **eta desastre** (4); **hura desastre** (3)

---

# desastroso *izond* ezin txarragoa, penagarria.

Ez pentsa Mendigurenek liburua utzi eta ikus-entzunezkoetan murgiltzea aldarrikatzen duenik: desiraren eta desiratuaren arteko irudiaren bitartekaritza ere **desastrosoa** baita. Xabier Mendiguren Elizegi

Josetxu txiki morroskoa, sukaldean ematen zituen ordu luzeak gorabehera, sukaldari **desastrosoa** zen, berak kontrakoa pentsatu arren. Jon Arretxe

Soinu-jole marmartiari duintasunez betetako keinua egin ondoren, dantzan hasi zen, eskusoinuaren musikaz eta Julenek hartutako panderoaren erritmo **desastrosoaz** lagundurik. Jon Arretxe

---

# desataskatu, desataska, desataskatzen du *ad* buxadura kendu.

Guk ere ["sukalde ekonomikoa"] erabili genuen azkenean etxean genuena, hasieran ez zegoen pizteko modurik eta aitak produktu berezi bat erosi zuen hura **desataskatzeko**, leherketa bat egin zen eta hautsezko txanpinoi bat sortu, bonba atomikoaren itxurakoa baina miniaturan. Mikel Hernandez Abaitua

---

# desatrakatu, desatraka, desatrakatzen da *ad* desamarratu.

Eta motorra puzka hasi, helizea jirabiran abiatu eta enbarkazioa, nagiak atera eta kraz kraz krazkraz, **desatrakatuz** mugitu den instantean, litekeen lurralderik irrealenerantz zoazela igarriko duzu. Joseba Sarrionandia

---

# desatsegin *(ETCn 2.198 agerraldi)* 1 *izond* gogokoa ez dena, gustokoa ez dena. (pertsonak)

-Astindu zure lumak -esan zion Salomon zahar eta **desatsegin** hark. Julen Gabiria

Ez dago zertan bueltak ematen jardun beharrik, pertsona **desatsegin** bat da, beste gutxi bezala. Josu Zabaleta

Eztenkadak botatzen zituen etengabe Harry hain pertsona **desatsegina** zergatik ote zen galdetuz. Iñaki Mendiguren

Langile **desatsegin**, oldarkor, tematiaren erreputazioa lortu zuen ministerioan. Patxi Zubizarreta

Baiezko deserosoa egin nuen buruaz, neu izan bainintzen zuzendariarengana jo zuenetako bat Öchlerrek neskame **desatsegin** bati buruzko ipuin lizun dekadente bat irakurri

zigula salatzera. Anjel Lertxundi

Pertsonaia **desatsegin** eta zakar hura, batailoi karlistak ausardiaren arabera sailkatzen hasi zen gero. Koro Navarro

Zure atearen atzean aldarte latzeko jendaila **desatsegin** eta makurra bizi zen. Eduardo Matauko

**2** (gauzak)

Begirada **desatsegina** du, betazalak jaso ditu eta begi gogorrez egiten dit so. Monika Etxebarria

Goitik behera begiratu zidan, begi hotz eta **desatseginez**. Anjel Lertxundi

Ahotsa **desatsegina** zuen; gorputzean bilo asko duten horiei dagokiena, iruditu zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Keinu **desatsegin** bat egin zuen berehala. Harkaitz Cano

Estatua hura **desatsegina** eta ergela iruditu zitzaidan. Monika Etxebarria

Presaka hitz egiten zuen emakumeak, gertakizun **desatsegin** hartaz jardutea deskortesia irudituko balitzaio bezala. Anjel Lertxundi

Ororen gainetik, egoera penagarri eta **desatsegin** bati ihes egin niolako, poza zen sentitzen nuena. Ramon Saizarbitoria

Hurrengo ametsa arras **desatsegina** izan zen. Ibon Uribarri

Nire pipa izekitzeko gogoa nuen, baina **desatsegina** izanen zen haien arreta neureganatzea pospoloa piztean. Monika Etxebarria

Arazo bera sortu zen, ez hain era mehatxagarrian, gizaki zuriaren lan **desatsegin** eta oinarrizkoenak egiteko zuria ez zen jendea inportatu zen eskualdeetan. Iñaki Mendiguren

Usain zorrotz-**desatseginak** nagusi, etxekoen ordez. Juan Garzia

Gnomoek susmo txarrez eta era **desatseginean** begiratzen zioten. Iñaki Mendiguren

**3** (izan da aditzarekin)

Josebari oso **desatsegina** egiten zitzaion Mamousineko bizimodua. Bernardo Atxaga

Hori ordaintzeko bere zaletasunerako denborarik uzten ez dion eta **desatsegin** zaion lan batean dihardu. Berria - Kultura

Zorionez, ez zitzaidan gertatzen nire lankideari bere ama begi-okerrarekin bezala; ez zitzaidan nire lekua, nire mundua, nire asteroidea, etengabe **desatsegin**. Bernardo Atxaga

Ez zitzaien **desatsegin** indar erakustaldia egitea burgesia harro hari, hasberriak balira bezala tratatzen baitzituen. Monika Etxebarria

Baina besterik da gogoak antzemanda, beharrizanen arabera atsegin zaidana; **desatsegin** balitzait egokitu beharko bainuke. Imanol Unzurrunzaga

• **4** (adizlagun edo predikatu gisa)

Gogotsuago agertuko nintzaion **desatsegin**. Aingeru Epaltza

Barkaidazu, beraz, Jainkoarren, **desatsegin** aritu banatzaizu. Juan Kruz Igerabide

Andresi **desatsegin** gertatzen zitzaion beste gauza bat izaten zen ikustea nola, disekzioak egin ondoren, sobratzen ziren zatiak gorriz pintatutako galdara batzuetan sartzen zituzten. Josu Zabaleta

**5** (izen gisa)

Albiste zorigaiztokoa baitzen huraxe, **desatsegin** atsegingarria inondik ere. Mirentxu Larrañaga

Amaiak Leireren atea kanpotik ireki eta neska, euritako hori bat eskuetan zuela, autoaren ondoan zutik agertu zenean, etxezainaren aurpegian **desatsegin**-keinu iragankor bat azaldu zen. Aitor Arana

Kantentzat "subjektuari gogoeta egiten uzten ez dion (...) atsegin edo **desatsegin**-sentipen bat" da afektua. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **desatsegin bat** (20); **desatsegin bat egin** (3); **desatsegin baten** (4); **desatsegin batez** (3); **desatsegin eta** (8); **desatsegin hark** (3); **eta desatsegin** (6); **gai desatsegin** (3); **gauza desatsegin** (3); **usain desatsegin** (3)
>
> **benetan desatsegina** (3); **bezain desatsegina** (3); **desatsegina egin** (5); **desatsegina egiten** (3); **desatsegina eta** (5); **desatsegina iruditu** (3); **desatsegina izan** (15); **desatsegina izan behar** (3); **desatsegina izan da** (3); **desatsegina izan zen** (4); **desatsegina izaten** (3); **desatsegina zen** (6); **desatsegina zitzaion** (3); **eta desatsegina** (10); **ez zen desatsegina** (3); **oso desatsegina** (7); **zen desatsegina** (3)
>
> **desatseginak izan** (3); **era desatseginean** (3); **eta desatseginak** (4); **ondorio desatseginak** (3)

---

# desatsegingarri *izond* desatsegina eragiten duena.

Ziro Lidiarekin zuen ibai-muga **desatsegingarriaz** libratu zen, Lidia konkistatuaren gain zuen agintea Anatoliako kostaraino hedatuz; Dariok uste izan zuen bera libra zitekeela Helasen gerakin burujabearekin zuen itsas muga **desatsegingarritik** Helas osoa bere subiranotasunaren mende jarrita. Iñaki Mendiguren

---

# desatseginkiro *aldag* era desatseginean.

Ingalaterran Maudlin ahoskatzen da, eta hortik dator maudlin adjektiboa, **desatseginkiro** sentimentala esan nahi duena. Xabier Olarra

---

# desatsegintasun *iz* desatsegina denaren nolakotasuna.

Ingalaterran Maudlin ahoskatzen da, eta hortik dator maudlin adjektiboa, **desatseginkiro** sentimentala esan nahi duena. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **desatsegintasuna adierazten ez** (3); **eta desatsegintasuna adierazten** (3)

---

# desatxikimendu *iz* atxikimendurik eza.

Bere ondorio logikoa suizidioa da, benetako **desatxikimendua** jainko batek bakarrik lor dezake eta. Iñaki Mendiguren

Huts egiten du bateraezintasuna dagoelako filosofoaren **desatxikimenduaren** eta ahaldun politikoen ezaugarri diren metodo hertsatzaileen artean. Iñaki Mendiguren

Bigarren pareak - **desatxikimenduak** eta antzaldaketak- arrakasta izaten du aldaketa hori egiten, eta otzantasuna du ezaugarri. Iñaki Mendiguren

**Desatxikimenduaren** jarrerak bere adierazpiderik zurrun eta sutsuena Budaren irakaspena adierazi nahi duen filosofian aurkitzen du. Iñaki Mendiguren

---

# desatxikitze *iz* atxikimendua galtzea.

Bere ondorio logikoa suizidioa da, benetako **desatxikimendua** jainko batek bakarrik lor dezake eta. Iñaki Mendiguren

Horra psikoanalisiak errealitatearen proba deitzen duena, doluaren garaiko lan geldi saihestezina, hildako gurasoarekiko gehiegizko atxikimenduaz hasi eta, bizitzaren alde, gero eta **desatxikitze** handiagoez apaltzen dena. Joxan Elosegi

Hemen ere bada erdibide bat: **desatxikitze**-mugimenduaren bidez erretiratzea, eta ondoren antzaldaketaren modura adierazita itzultzea. Iñaki Mendiguren

---

**desautomatizatu**, desautomatiza, desautomatizatzen du *ad* automatikotasuna kendu.

Baliabide poetikoen oinarria dugu, aitzitik, plazaratzen dituzten edukien harrera **desautomatizatzeko**, hau da, berezi bihurtzeko, gaitasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Desautomatizatu** egin du formulazio honek entzuleen harrera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

**desaxolatu**, desaxola(tu), desaxolatzen da *ad* ezaxolatu.

Arrunt **desaxolatu** dira Agerrez. Aingeru Epaltza

---

**desazeleratu**, desazelera, desazeleratzen du *ad* abiadura progresiboki gutxitu.

Obabako errepide nagusian, kamioi batek bozina jo zuen; beste bide batean, motor batek azeleratu egin zuen ia paroxismoraino eta segidan, errebuelta itxi batera iritsia zelako edo, ia isiltzeraino **desazeleratu**. Bernardo Atxaga

---

**desbabestu**, desbabes(tu), desbabesten du *ad* babesa kendu.

Fionnek ez zuen esker txarrekotzat agertu nahi; hortaz, buelta erdia emanda, hain **desbabestuta** uzten zuten begi beltz haiei aurre egin zien. Joanes Urkixo

---

desbaliatu ik **desbaliotu**.

---

**desbalio** *iz* baliorik eza.

Batzuentzat balioa dena beste askorentzat ez: edo harentzat **desbalioa** delako (nik uste dut, jende askori balio erlijiosoekin hori gertatzen ari zaiola), edo harentzat indiferente delako (ekologia oraindik inposatu nahi zaigun "Europako" ideia arrotza da bat baino gehiagorentzat), etab. Joxe Azurmendi

---

**desbaliotu** *(orobat **desbaliatu**)*, desbalio, desbaliotzen **1** du *ad* baliogabetu.

Lehen horiek ardietsi dute Viktor Ianukovitch errusotiarra [...] nausiarazi zuen bozaldiaren **desbaliotzea** eta parlamentuak deliberatu du bozak berriz eginen direla. Herria

Hortik letorke gorputzaren **desbaliotzea** izpirituaren ontzi material bezala ulerturiko arimaren aurrez aurre. Piarres Xarriton

Kontzientziak ekintzarako **desbaliatzen** gaituela ere atera daiteke noski hortik, eta ez dabil hortik urruti modernitatearen pathosa: ekintzarik gabeko kontzientzia ala kontzientziarik gabeko ekintza, horra auzia. Juan Garzia

**2** diruaz mintzatuz, balioa jaitsi.

Herri hortako gobernua beha zagon Arjentinak **desbalia** zezan bere dirua. Herria

Zeren orain ez baldin badu **desbaliotzen**, sei hilabeteren buruan beharko du egin eta orduan errekarat joanen gira, gehiago **desbaliotzerat** bortxatua izanen baita! Menane Oxandabaratz

---

**desbaliotze** *iz*

Bozen **desbaliotze** hori jakin orduko, izigarriko bozkalentzia erakutsi dute karriketan eta plazetan eta beldur ederrik eman ere Errusiari. Herria

Ze gizona dugun bestenaz, gostatzen zaio nik uste, sosaren **desbaliotze** hori, bainan aski gizon bertutekoa baita, egin behar baita hori, eta eginen du! Menane Oxandabaratz

---

**desbaloratu**, desbalora, desbaloratzen du *ad* balioa kendu.

Horrela **desbaloratzen** dira, sarritan, antologietan agertzen ez direnen kexa arrazoizkoak. Pako Aristi

---

**desbandada**

**1** ***desbandadan*** *adlag* arrapaladan.

Ez zen iraultzaile edo euskaldun etiketa paparrean ibilia eta ez zuen gero **desbandadan** alde egin. Joseba Sarrionandia

---

**desbankatu**, desbanka, desbankatzen du *ad* norbaitek beste norbait bere egoera edo tokitik kendu, hura norgehiagoka batean garaituz gero.

Espainolak prentsaren monopoliotik **desbankatuko** ditiagu Lander Garro

---

**desbarajuste** *iz* nahaste-borrastea.

**Desbarajuste** bat ibiltzen du... Pablo Sastre

---

**desbarbarizatu**, desbarbariza, desbarbarizatzen du *ad* barbarotasuna kendu.

Askoren arteko adibide bat Adrianopolis da, bere izenak gogoratu duelarik gaur arte bigarren mendeko enperadore handi baten ahalegina tradizionalki barbaroak ziren traziarrak **desbarbarizatzeko**. Iñaki Mendiguren

---

desbardin ik **desberdin**.

---

desbardindu ik **desberdindu**.

desbardinki ik **desberdinki**.

desbardintasun ik **desberdintasun**.

**desbarrabildu** *(ETCn 1 agerraldi)*, desbarrabil, desbarrabiltzen da *ad ipar* barrez lehertu. ik **deskojonatu**.

Jon eta Mikel **desbarrabiltzen** ari ziren, hizkera amurizianoan esanda. Unai Iturriaga

**desbentura** *iz* zorigaitza, ezbeharra.

Handik aurrera, protagonistek elkar ezagutu, eta mila abentura eta beste hainbat **desbentura** bizi behar izan zituzten, orain gogoratzen ez ditudanak. Joan Mari Irigoien

Abentura eta **desbentura** liburuak dira, entretenigarriak, eta umeek eta gaztetxoak alde horrekin geratuko dira bereziki. Berria - Kultura

Neure orduko bizimoldearen berri emaiteko, ez dizut, ordea, portu haietan ezagutu nituen jendeen inventariuma eginen, zeren [...] zuhaurk imajina baitezakezu nolakoak izan zitezkeen ene egun haietako benturak eta **desbenturak**. Joan Mari Irigoien

**desbenturatu**, desbentura(tu), desbenturatzen da *ad* zorigaiztoko, zorigaitzezko bihurtu.

Eta nihaurk ere nigar egin nuen orduan, lurraren baitarik, presondegirako bidean nindoala jada, zaldi gainean loturik, benturaren benturan **desbenturaturik** eta bihotz-hildurik, sei soldadu haien artean... Joan Mari Irigoien

**desbenturatuki** *adlag* zorigaitzez.

Larrutik ordainduko duala erran diat, eta larrutik ordainduko duk! -keinatu ez ezik jaurtiki ere egiten zuen gizon baten aitzinean zegoen anaia, **desbenturatuki**. Joan Mari Irigoien

**desberdin** *(3844 agerraldi, 191 liburu eta 1289 artikulutan; ETCn 51.090 agerraldiorobat **desberdin** g.er.)* **1** *izond* beste ezaugarri edo nolakotasun batzuek dituena. ik **ezberdin; diferente; bestelako.**

Logika **desberdin** hori literatura fantastikoan agertzen dela sarritan, besterik ez dakit. Bernardo Atxaga

Ez zegoen aldi berean hain berdin eta hain **desberdin** izaterik. Jon Muñoz

Ezin dezifratu, ordea; 500 karaktere **desberdin** baino gehiago zituzten eta! Jon Muñoz

Kono mota horietako bakoitza uhin-luzera **desberdin** baterako da sentibera. Josu Zabaleta

Adibide gisa, "Platonen ikaslea" eta "Alexandro Handiaren irakaslea" izenek erreferentzia bera dute, Aristoteles, baina desberdinki aurkezten digute erreferentzia hori; esanahi **desberdina** dute, zentzu **desberdina** dutelako. Askoren artean

Ezaugarri **desberdin** bat duelako (irudi bati mugimendua gehitu baino gehiago egiten duelako). Josu Zabaleta

Garapen-maila **desberdineko** nazioen arteko konkurrentziaren ondorio negatiboak. distantzia **desberdinetara** dauden objektuak zehatz fokatzeko. Koro Navarro

Euskara da, horrenbestez, gure nortasunaren ezaugarri funtsezko bat, **desberdin** egiten gaituena, eta bereizi, denak berdindu, berdinak izan gabe, nahi gaituen mundu honetan. Pello Salaburu

Nola, alabaina, gizaki **desberdinei** lege berberak eman? Andres Urrutia

· Nire zibilizazioan, nire **desberdin** denak, kalte ez baina aberastu egiten nau. Josu Zabaleta

**2** *pl* ezaugarri edo nolakotasun berak ez dituztenak.

Euriak bi hots **desberdin** zituela esan ohi zuten, bata tanto guztiek batera egiten zutena eta bestea tanto batzuek banaka egiten zutena. Bernardo Atxaga

Halere, hiru aurkezpen **desberdin** horiek baliokideak dira Kantentzat. Askoren artean

Bi gaitz horiek gerraren gaitz bakarraren bi adierazpen **desberdin** ziren. Iñaki Mendiguren

Fetuan egiten den, ala gizaki hazitxoan, aski **desberdinak** dira diagnostiko genetiko bidezko aurreikuspenak. Juan Garzia

Hizkuntza eta idazkera bi ikur sistema **desberdin** dira. Isabel Arrigain

Nola konpara daitezkeen bi lege **desberdin**. Iñaki Iñurrieta

Hemendik aurrera oso izaera **desberdineko** hiru maila bereizten ahaleginduko gara, beraz: "Politika" hitzak, izen gisa azaltzen denean, bi esanahi **desberdin** zituen grekoen pentsamenduan. Josu Zabaleta

Edontzi batek ez ditzake une berean bi edari **desberdin** bere barruan eduki. Joan Mari Lekuona

Bi forma **desberdin** horiek hurrenez hurreneko bi aldiei dagozkie. Isabel Arrigain

Bi pertzepzio modu **desberdin** aztertzen dituzte teoria hauek. konfigurazio geometriko **desberdin** guztien artean. Josu Zabaleta

Behin baino gehiagotan, gerta daiteke banako berek bi adierazpen predikatibo **desberdin** asebetetzea. Askoren artean

Zenbat mutazio **desberdin** bakartu dituzu? Juan Garzia

Bultza egiten diote elkarri, estropezu egiten dute elkarrekin, denak dira bat eta denak dira **desberdin**. Imanol Zurutuza

**3** itxuran edo nolakotasunean aldaketak edo aldeak dituena.

Batek pentsa lezake mundu **desberdin** eta injustu honetan injustiziak iparraldearen eta hegoaldearen artean bakarrik, edo herri aurreratuen eta atzeratuen artean bakarrik, gertatzen direla. Pello Salaburu

Kornearen kurbatura **desberdina** dela eta, lerro bertikalen eta horizontalen irudiak ez dira zehaztasun beraz eratzen erretinan. Irene Aldasoro

**4** (predikatu eta adizlagun gisa)

**Desberdin** sentitzen zen, bestelako. Juan Garzia

Moderniaren heroiak **desberdin** jokatzen du. Joseba Zulaika

**Desberdin** idatziak zeuden arren, berdin irakurri zituen. Joxemari Urteaga

Gaur egungo estatuetan, lur-sailak **desberdin** banatuta daude. Iñaki Iñurrieta

Bertsolariak, **desberdin** sortzen du era bateko doinuak izan edo bestekoak. Andoni Egaña

*s* eta *z* letrez idazten direnak **desberdin** ahoskatzen diren euskalkietan. Lourdes Oñederra

Esate baterako, u eta i **desberdin** entzuten dira, bokal horietako bakoitza ekoizterakoan hiztunaren ahotsbideak, forma eta neurri ezberdinak hartzen dituelako. Lourdes Oñederra

Huts handiak egiten ditugunok ze **desberdin** jokatuko genukeen bigarren aukera izanez gero! Julen Gabiria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegi desberdin** (4); **bi gauza desberdin** (4); **bi modu desberdin** (5); **desberdin ari** (4); **desberdin asko** (7); **desberdin askotan** (6); **desberdin bat** (17); **desberdin batean**

(8); **desberdin batera** (5); **desberdin batzu** (8); **desberdin batzuen** (4); **desberdin daude** (6); **desberdin dira** (11); **desberdin diren** (5); **desberdin egin** (6); **desberdin egiten** (6); **desberdin eta** (20); **desberdin frango** (5); **desberdin hauek** (6); **desberdin horiek** (15); **desberdin horien** (8); **desberdin ikusten** (6); **desberdin izan** (12); **desberdin izan zituen** (4); **desberdin izango** (4); **desberdin samarra** (4); **desberdin sentitzen** (6); **ekitaldi desberdin** (7); **ere desberdin** (6); **eta desberdin** (11); **forma desberdin** (4); **gauza desberdin** (9); **guztiz desberdin** (6); **hain desberdin** (7); **herri desberdin** (6); **hizkuntza desberdin** (10); **ikusmolde desberdin** (5); **ikuspegi desberdin** (4); **irudi desberdin** (5); **modu desberdin** (12); **mota desberdin** (13); **oso desberdin** (11); **sail desberdin** (6); **toki desberdin** (4); **zentzu desberdin** (4)

**aldean desberdina** (8); **aro desberdina** (4); **arras desberdina** (9); **arrunt desberdina** (4); **aski desberdina** (7); **baina desberdina** (10); **baina desberdina da** (4); **bakoitza desberdina** (10); **bakoitza desberdina da** (6); **beti desberdina** (4); **da desberdina** (12); **dena desberdina** (10); **dena desberdina da** (5)

**desberdina baita** (5); **desberdina da** (140); **desberdina dela** (26); **desberdina delako** (15); **desberdina den** (16); **desberdina den arren** (5); **desberdina dena** (5); **desberdina du** (12); **desberdina duk** (4); **desberdina dute** (9); **desberdina duten** (4); **desberdina egin** (5); **desberdina egiten** (5); **desberdina eman** (5); **desberdina eta** (7); **desberdina izan** (49); **desberdina izan behar** (4); **desberdina izan da** (6); **desberdina izan daiteke** (4); **desberdina izan zen** (11); **desberdina izan zuten** (4); **desberdina izanen** (9); **desberdina izango** (47); **desberdina izango da** (17); **desberdina izango dela** (6); **desberdina izango zen** (4); **desberdina izatea** (5); **desberdina izaten** (10); **desberdina izaten da** (4); **desberdina naiz** (4); **desberdina zela** (8); **desberdina zen** (40)

**egoera desberdina** (13); **egoera desberdina da** (6); **erabat desberdina** (30); **erabat desberdina da** (4); **ere desberdina** (17); **esanahi desberdina** (6); **eta desberdina** (17); **eta desberdina da** (4); **gauza desberdina** (6); **guztiz desberdina** (22); **guztiz desberdina da** (5); **hain desberdina** (6); **hau desberdina** (5); **iritzi desberdina** (6); **oso desberdina** (84); **oso desberdina da** (20); **oso desberdina izan** (6); **oso desberdina izango** (13); **oso desberdina zen** (8); **oso gauza desberdina** (4); **partida desberdina** (7); **partida desberdina izango** (4); **zeharo desberdina** (8); **zerbait desberdina** (14); **zu desberdina** (4)

**alde desberdinak** (5); **alderdi desberdinak** (4); **animazio desberdinak** (7); **animazione desberdinak** (4); **anitz eta desberdinak** (4); **arras desberdinak** (16); **arras desberdinak dira** (4); **arrazoi desberdinak** (6); **arrunt desberdinak** (9); **artean desberdinak** (4); **aski desberdinak** (11); **aukera desberdinak** (5); **baina desberdinak** (4); **bezain desberdinak** (6); **bide desberdinak** (7); **denak desberdinak** (5); **denok desberdinak** (4)

**desberdinak adierazten** (5); **desberdinak agertzen** (5); **desberdinak al** (6); **desberdinak al dira** (5); **desberdinak aztertzen** (4); **desberdinak badira** (11); **desberdinak baina** (4); **desberdinak baitira** (4); **desberdinak bata** (4); **desberdinak daude** (14); **desberdinak daudela** (5); **desberdinak dira** (115); **desberdinak dira eta** (5); **desberdinak direla** (47); **desberdinak direlako** (12); **desberdinak diren** (31); **desberdinak diren bi** (7); **desberdinak ditu** (9); **desberdinak ditugu** (8); **desberdinak dituzte** (17); **desberdinak dituztela** (9); **desberdinak dituztelako** (4); **desberdinak dituzten** (11); **desberdinak egin** (8); **desberdinak egiten** (6); **desberdinak egon** (4); **desberdinak ekarriko** (4); **desberdinak ematen** (6); **desberdinak erabili** (4); **desberdinak erabiliz** (4); **desberdinak erabiltzen** (8); **desberdinak ere** (12); **desberdinak eskaintzen** (4); **desberdinak eta** (30); **desberdinak ez** (5); **desberdinak ezagutu** (6); **desberdinak gara** (12); **desberdinak garela** (4); **desberdinak ginen** (5); **desberdinak hartzen** (4); **desberdinak ikusten** (5); **desberdinak izan** (60); **desberdinak izan arren** (12); **desberdinak izan daitezke** (4); **desberdinak izan dira** (4); **desberdinak izan ohi** (7); **desberdinak izan ziren** (5); **desberdinak izanagatik** (4); **desberdinak izanen** (4); **desberdinak izanen dira** (4); **desberdinak izango** (18); **desberdinak izango dira** (6); **desberdinak izanik** (10); **desberdinak izanik ere** (6); **desberdinak izatea** (12); **desberdinak izaten** (15); **desberdinak izaten dira** (6); **desberdinak kontuan** (5); **desberdinak ordezkatzen** (4); **desberdinak oso** (4); **desberdinak sortu** (4); **desberdinak zirela** (8); **desberdinak ziren** (23); **desberdinak zituzten** (4)

**dira desberdinak** (11); **egoera desberdinak** (7); **ekitaldi desberdinak** (4); **elkarren oso desberdinak** (4); **era desberdinak** (8); **erabat desberdinak** (26); **erabat desberdinak dira** (4); **ere desberdinak** (23); **ere desberdinak dira** (8); **errealitate desberdinak** (7); **erritmo desberdinak** (4); **estilo desberdinak** (6); **eta desberdinak** (21); **eta oso desberdinak** (4); **ezaugarri desberdinak** (6); **forma desberdinak** (7); **gai desberdinak** (9); **gara desberdinak** (4); **gauza desberdinak** (21); **guztiak desberdinak** (12); **guztiak desberdinak dira** (4); **guztiz desberdinak** (12); **hain desberdinak** (26); **hain desberdinak diren** (4); **helburu desberdinak** (6); **hizkuntza desberdinak** (10); **ikusmolde desberdinak** (15); **ikuspegi desberdinak** (8); **ikuspuntu desberdinak** (6); **iritzi desberdinak** (28); **izen desberdinak** (8); **jarrera desberdinak** (7); **kasu desberdinak** (4); **kultura desberdinak** (6); **maila desberdinak** (8); **modu desberdinak** (14); **molde desberdinak** (5); **mota desberdinak** (29); **mota oso desberdinak** (4); **nahiko desberdinak** (4); **ondorio desberdinak** (5); **oso desberdinak** (109); **oso desberdinak dira** (21); **oso desberdinak direla** (13); **oso desberdinak diren** (6); **oso desberdinak izan** (11); **oso desberdinak izango** (4); **oso desberdinak ziren** (4); **politiko desberdinak** (4); **sail desberdinak** (5); **sistema desberdinak** (4); **talde desberdinak** (5); **zeharo desberdinak** (10); **zein desberdinak** (8); **ziren desberdinak** (4)

**desberdinei buruzko** (5); **desberdinei buruzko** (5); **desberdineko bi** (6); **desberdineko jendea** (4); **desberdineko pertsonak** (4); **egoera desberdinean** (4); **elkarte desberdinek** (4); **era desberdinean** (10); **ezaugarri desberdineko** (4); **garapen maila desberdineko** (6); **izaera desberdineko** (7); **jatorri desberdineko** (4); **kolore desberdineko** (6); **maila desberdineko** (12); **maila desberdinekoak** (4); **modu desberdinean** (23); **mota desberdinei** (4); **mota desberdinei** (4); **oso desberdinean** (5); **oso desberdineko** (4); **oso modu desberdinean** (7)

**desberdinen arabera** (11); **desberdinen artean** (43); **desberdinen arteko** (36); **desberdinen artetik** (4); **desberdinen bidez** (6); **desberdinetako jendea** (5); **desberdinetakoak dira** (7); **desberdinetakoak diren** (4); **era desberdinetako** (4); **garai desberdinetako** (6); **herri desberdinen** (4); **herrialde desberdinetako** (7); **izen desberdinen** (4); **kolore desberdinetako** (5); **kultura desberdinetako** (5); **lurralde desberdinetako** (4); **maila desberdinetako** (6); **maila desberdinetakoak** (4); **mota desberdinen** (10); **mota desberdinetako** (8); **politiko desberdinen** (4); **sail desberdinetako** (4); **talde desberdinen** (5)

**aldi desberdinetan** (4); **arlo desberdinetan** (7); **beren urrats desberdinetan** (4); **desberdinetan ari** (5); **desberdinetan egin** (6); **desberdinetan eta** (9); **egoera desberdinetan** (7); **era desberdinetan** (6); **eremu desberdinetan** (4); **eta desberdinetan** (4); **eta leku desberdinetan** (4); **eta modu desberdinetan** (4); **garai desberdinetan** (10); **gune desberdinetan** (14); **herri desberdinetan** (8); **hiru toki desberdinetan** (5); **hizkuntza desberdinetan** (8); **joko desberdinetan** (4); **leku desberdinetan** (16); **mail desberdinetan** (5); **maila desberdinetan** (11); **modu desberdinetan** (20); **molde desberdinetan** (5); **mota desberdinetan** (6); **multzo desberdinetan** (4); **neurri desberdinetan** (4); **oso desberdinetan** (9); **oso modu desberdinetan** (4); **sail desberdinetan** (13); **testuinguru desberdinetan** (4); **toki desberdinetan** (16); **urrats desberdinetan** (4)

**desberdinez osatua** (4); **desberdinez osatutako** (7); **era desberdinez** (8); **ikuspuntu desberdinetatik** (6); **kolore desberdinez** (4); **modu desberdinez** (5)

---

**desberdindu**, desberdin(du), desberdintzen *(ETCn **2.152** agerraldi; orobat **desbardindu** g.er.)* **1** da/du *ad* tasun desberdinak hartu, desberdina izan.

Horren ondoren, segmentuok, ordura arte berdin-petoak, **desberdindu** egingo dira, eta zeinek bere nortasun berezia hartu. Juan Garzia

Gutxienez, Ipar Euskal Herria Frantziatik **desberdindu** da, baiezkoa nagusitu baita. Berria - Harian

Elementu berekin, unitate berekin, infinituraino aniztu eta **desberdindu** da mundu bizia eboluzioan zehar. Juan Garzia

Messi beste jokalari guztiengandik **desberdintzen** dela argi dago. Berria - Kirola

Zertan **desberdinduko** da zure PS Casenaverenetik? Berria - Euskal Herria

Hizkuntzak dialektoetan **desberdintzea**.

Horretan **desberdintzen** dira krokodiloen amak eta gure amak. Berria - Kultura

• **2** du *ad* desberdintasunak sumatu edo ezarri.

Gauza batzuk berdinak iruditzen zaizkigu beti eta ezin ditugu bizitza osoan **desberdindu**. Unai Elorriaga

Jendeak ez baititu **desberdintzen** ostatuetako eta elkartetako edantegiak, beraz elkarteen barneko biziaz ez baita tuntik jabetzen. Herria

Alderdien jokaerak zein denboraren joan-etorriek deuseztasuna noiz estali duten ere bereiztu izan dugu eta horretarako inguruabarrak **desberdindu** beste batzuen artean, beste horietan abusuak eskatzen baitu, zalantzarik gabe, legeen erantzuna. Andres Urrutia

Hizkuntzan, **desberdindu** egin behar da teorian zer dagoen, eta praktikan zer lortu dugun. Berria - Euskal Herria

Cruzek bi heriotza mota **desberdintzen** ditu: gertukoena eta inpertsonala deiturikoa. Berria - Gaiak

Torino **desberdindu** beharko banu eta bakandu ezagutzen ditudan gainerako hirietatik, ia amaierarik gabeko arkupeak (hogeita bi kilometro) eta oregano-usaina (pizzek eraman ohi duten espezie nagusia) nabarmenduko nituzke hiriaren ezaugarritzat. Anjel Lertxundi

Teknikariak bi arazoak **desberdindu** nahi izan zituen atzoko lezioan. Berria - Euskal Herria

Zein da, ordea, benetako beharren eta behar faltsuen arteko aldea? nola jakin biak **desberdintzen**? Iñaki Heras

**3** desberdin bihurtu.

Biak **desberdintzen** dituena gauza organiko bat da. Josu Zabaleta

Kulturak edo legeak bakarrik **desberdintzen** gaitu. Askoren artean

Heldu dire honat Korsikara doazen bezala edo Bretainiara, ikusteko zein diren gure ohidurak, zerk **desberdintzen** gaituen bestetarik. Herria

**4** (era burutua izenondo gisa)

Zelula-desberdintzea ikertu nahi bazen, zelula **desberdinduz** osaturiko organismoak hartu behar ziren aztergai, beren gihar, nerbio, larru, giltzurrun eta abarrekin. Juan Garzia

Obozito baten gunearen lekuan, beste bat jartzen da, zelula **desberdindu** batetik hartua. Juan Garzia

Eragiketa eta eginkizun oso **desberdinduak** dituzten antolaketak izaten dira oro har. Iñaki Heras

Nazioartean Euskal Herria nazio berezko eta **desberdindua** dela adieraztea. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desberdindu behar** (5); **desberdindu beharko** (3); **desberdindu egiten** (4); **desberdindua dela** (5); **desberdindua dela adieraztea** (4); **desberdintzen dira** (5); **desberdintzen gaituena** (3); **eta desberdindua** (5); **eta desberdindua dela** (5); **hizkuntza desberdintzea** (3); **zelula desberdindu** (3); **zelula desberdintzea** (4)

---

## desberdindugabe *izond* desberdindu ez dena.

Tumor horiek sailean transplanta daitezke sagu batetik bestera, eta badaukate beren baitan aukera zabala zelula desberdindu motatan [...], baina bestelako mota bat ere bai, **desberdindugabea** , enbrioi goiztiarren zelulen antzekoa. Juan Garzia

---

## desberdinkeria *iz* desberdintasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Hala ere, eskolak, gero eta gehiago, askotariko gizartearen isla gara, baina askotan diferentziak **desberdinkeriak** dira, eta eskolak horren aurkako iraultza egin behar du. Berria - Euskal Herria

Eta **«desberdinkerian** » eta «maximalismoetan» erortzeko tentazioez ohartarazi zuen. Berria - Ekonomia

---

## desberdinketa *iz* desberdintzea.

Eta biak nahasteko joera baldin badago, horrek esan nahi du **desberdinketa** fonetikoaren zioa agerian dagoela oraindik, nabarmentzen dela bikote horretan. Isabel Arrigain

---

## desberdinki *(orobat **desbardinki** g.er.)* *adlag* era desberdinean. ik **desberdin 4**.

Euskarazko kapitulu bakotxa da erdaraz ere agertzen bainan itzulpena izan gabe, **desberdinki** kondaturik. Herria

Adibide gisa, "Platonen ikaslea" eta "Alexandro Handiaren irakaslea" izenek erreferentzia bera dute, Aristoteles, baina **desberdinki** aurkezten digute erreferentzia hori; esanahi desberdina dute, zentzu desberdina dutelako. Askoren artean

Hiru ziren orain egongelan: beste biak gazteak ziren, hogeita bost urte ingurukoak, baina **desberdinki** jantziak ziren. Ramuntxo Etxeberri

Batzuentzat mendia lanbide, bertzeentzat ahusabide, denek inguramena beren gisa zaitzen, zoin **desberdinki** haatik! Herria

---

## desberdinkiro *adlag* desberdinki.

Eta asea eta gosea hain bidegabe -eta **desberdinkiro** banatzen dituen merkatu sexualeko arrakastak ere badu, bistan denez, bekatuaren eta atentatuaren kutsu bat... jendeen jende-artearentzat. Iñaki Segurola

---

## desberdintasun *(982 agerraldi, 98 liburu eta 193 artikulutan; ETCn 12.459 agerraldi; orobat **desbardintasun** g.er.)* **1** *izond* desberdina denaren nolakotasuna. ik **diferentzia**.

Hizkuntza mekanismoa (Geneveko maisuaren hitzak errepikatuz), oso-osorik, **desberdintasun** eta identitateen inguruan gauzatzen da, eta haiek ez dira hauen ordaina baizik. Isabel Arrigain

Gainerakoak -desadostasunak zein **desberdintasunak** - aurpegian nabarmentzen zitzaizkion, eta, batez ere, arnasa hartzerakoan zeukan sudur-zuloak betetzeko modu erdi etsi erdi haserretuan. Anjel Lertxundi

"Hizkuntza da forma bat, ez substantzia bat", **desberdintasun** edo baliokidetasun negatiboek gauzaturikoa. Isabel Arrigain

Zer **desberdintasun** zegoen elkarrizketa haren eta, demagun, nire lagun horrek bere amorante batekin izandakoaren artean. Anjel Lertxundi

Zerk sortarazi ditu **desberdintasun** horiek? Isabel Arrigain

**2** (izenondoekin)

Zein da Ekialdea eta Mendebaldearen arteko **desberdintasun** nagusia? Berria - Gaiak

Ereduon konbinatoriak dakar proteinen aniztasun eta **desberdintasun** zabala. Juan Garzia

Bada **desberdintasun** nabarmen bat unibertsitate publikoen eta pribatuen artean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Haien planteamenduetan baziren **desberdintasun** nabariak. Askoren artean

Antzekotasun-puntu horiek **desberdintasun** ohargarri batek, behintzat, orekatzen ditu. **Desberdintasun** tekniko asko eta sakonak daude bi irudi mota horien artean. Iñaki Mendiguren

Maizegi, nahasi egiten dira **desberdintasun** biologikoa eta **desberdintasun** soziala edo kulturala. Juan Garzia

*Bourgeoisie* eta langile-klasearen arteko **desberdintasun** ekonomikoa ezabatzeko mehatxua. Iñaki Mendiguren

Berdintasun politikoak baldintzen **desberdintasun** muturrekoena desagerrarazi duenean, [...]. Andres Urrutia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina antzekotasun-puntu horiek nabarmen uzten dituzte **desberdintasun** -puntu harrigarri batzuk ere. Iñaki Mendiguren

Globalizazio neoliberala gertatzen ari den honetan, herrien arteko **desberdintasun** egoera itxuraz iraultzen ari dela diote. Iñaki Heras

Bi hizkuntzen arteko **desberdintasun** maila oso bestelakoa izan daiteke, erkatuko diren hizkuntzen arabera. Isabel Arrigain

Badago beste **desberdintasun** mota bat, erabatekoa dena: ahaideak ez diren hizkuntzen artean gertatu ohi dena, hain zuzen.Beste **desberdintasun** kategoriari dagokionez, [...]. Isabel Arrigain

Zeren hizkuntza erakundeari berez dagokiona baita, hain zuzen, **desberdintasun** maila bi horien arteko paralelismoari eustea. Isabel Arrigain

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duelarik)

Lan-indarraren ordainketa da munduko espazio ekonomikoaren beste faktore **desberdintasun** -eragile egiturazko bat. Koro Navarro

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurraren propietateek eransten dituzte, noski, zapore- **desberdintasun** hauek. Santiago Iruretagoiena

Edozein hizkuntzatako edozein hots- **desberdintasun** bereizteko gai jaiotzen gara nonbait. Lourdes Oñederra

Sexu- **desberdintasuna** eta eskoptofilia. Josu Zabaleta

Argi-fenomenoen denbora- **desberdintasunak** . Josu Zabaleta

Ez du molekula- **desberdintasunak** egiten ugaztun bat beste bat ez bezalako. Juan Garzia

Seguru zegoelako nire senarra izango zena semetzat hartuko zuela eta bien artean gizonezkoen arteko konplizitatea sortuko zela, heziketa- **desberdintasun** guztien gainetik. Joseba Urteaga

Erkaketa horretan ez ditugu kontuan hartu herrien artean dauden biztanleko errenta **desberdintasunak** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horretaz gain, irizpide **desberdintasun** nabariak daude ikerketa ebaluatu eta balioztatzeko orduan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Jarrera- **desberdintasun** horren adibide hutsal baina, hala ere, esanguratsua. Iñaki Mendiguren

Izaera- **desberdintasun** hau gobernu arbitrarioarekiko zuten jarrera desberdinean islatzen zen. Patu **desberdintasun** hori bidegabekeria hutsa iruditu zait. Iñaki Mendiguren

· Hizkuntza sistema bat da: sistema linguistiko bat, ideia **desberdintasun** sail batez konbinaturiko hots **desberdintasun** sail bat da. Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aniztasun eta desberdintasun** (7); **artean dagoen desberdintasun** (3); **artean desberdintasun** (11); **arteko desberdintasun** (44); **arteko desberdintasun bakarra** (3); **arteko**

**desberdintasun bat** (4); **arteko desberdintasun horiek** (3); **arteko desberdintasun nagusia** (3); **badira desberdintasun** (3); **baina desberdintasun** (6); **beste desberdintasun** (14); **beste desberdintasun bat** (7); **bien arteko desberdintasun** (3); **da desberdintasun** (5); **dagoen desberdintasun** (3

**desberdintasun bakarra** (14); **desberdintasun bakarra da** (3); **desberdintasun bat** (26); **desberdintasun batekin** (4); **desberdintasun batzuk** (4); **desberdintasun biologikoa** (3); **desberdintasun egoera** (3); **desberdintasun eta** (3); **desberdintasun fonetikoa** (3); **desberdintasun foniko** (3); **desberdintasun garrantzitsu** (4); **desberdintasun garrantzitsu bat** (3); **desberdintasun handi** (4); **desberdintasun handi bat** (3); **desberdintasun handia** (3); **desberdintasun handiak** (9); **desberdintasun handirik** (3); **desberdintasun hauek** (6); **desberdintasun honen** (3); **desberdintasun hori** (34); **desberdintasun horiek** (17); **desberdintasun horien** (5); **desberdintasun horrek** (6); **desberdintasun horren** (5); **desberdintasun horri** (3); **desberdintasun maila** (3); **desberdintasun nabariak** (4); **desberdintasun nabariak daude** (3); **desberdintasun nabarmen** (5); **desberdintasun nabarmen bat** (5); **desberdintasun nabarmenak** (8); **desberdintasun nagusia** (6); **desberdintasun nagusiak** (3); **desberdintasun txiki** (9)

**dira desberdintasun** (6); **diren desberdintasun** (3); **eta desberdintasun** (24); **eta desberdintasun hori** (5); **gure desberdintasun** (3); **hizkuntzen arteko desberdintasun** (4); **horien arteko desberdintasun** (3); **hots desberdintasun** (3); **izaera desberdintasun** (3); **pobreen arteko desberdintasun** (3)

**artean dagoen desberdintasuna** (3); **arteko desberdintasuna** (65); **arteko desberdintasuna adierazten** (3); **bion arteko desberdintasuna** (3); **da desberdintasuna** (6); **dagoen desberdintasuna** (3); **dator desberdintasuna** (3); **desberdintasuna aberastasun** (3); **desberdintasuna adierazten** (3); **desberdintasuna da** (5); **desberdintasuna eta** (5); **desberdintasuna ez** (3); **eta desberdintasuna** (6); **ren arteko desberdintasuna** (3); **zuen desberdintasuna** (3)

**antzekotasunak eta desberdintasunak** (4); **artean dauden desberdintasunak** (3); **arteko desberdintasunak** (45); **bokalen arteko desberdintasunak** (3); **dago desberdintasunak** (3); **dauden desberdintasunak** (6); **desberdintasunak agerian** (5); **desberdintasunak agerian geratu** (3); **desberdintasunak areagotu** (5); **desberdintasunak areagotu egin** (4); **desberdintasunak daude** (3); **desberdintasunak daudela** (3); **desberdintasunak direla** (4); **desberdintasunak direla eta** (3); **desberdintasunak ere** (3); **desberdintasunak eta** (6); **desberdintasunak ez** (3); **desberdintasunak handitu** (3); **desberdintasunak murriztu** (3); **desberdintasunak oso** (4); **desberdintasunak sortzen** (5); **dira desberdintasunak** (5); **diren desberdintasunak** (4); **ditugun desberdintasunak** (3); **eta desberdintasunak** (21); **funtsezko desberdintasunak** (3); **hizkuntza desberdintasunak** (3)

**aniztasun eta desberdintasunaren** (3); **aniztasun eta desberdintasunaren** (3); **arteko desberdintasunaren** (5); **arteko desberdintasunaren** (5); **arteko desberdintasunen** (5); **arteko desberdintasunik** (4); **da desberdintasunik** (3); **dago desberdintasunik** (4); **desberdintasunek ez** (3); **desberdintasunek gora** (3); **desberdintasunen gainetik** (5); **desberdintasunik ez** (4); **eta desberdintasunaren** (7); **eta desberdintasunaren** (7); **ez dago desberdintasunik** (3); **funtsezko desberdintasunik** (4)

---

**desberdintze** **1** *iz* tasun desberdinak hartzea, desberdina izatea. ik **desberdinketa**.

Horrenbestez, aukera ematen du animalia baten osabidea eta zelulen **desberdintzea** aztertzeko. Juan Garzia

Ez zegoen garbi ea guneak, arrautzan ehun guztiak sorrarazteko gauza izanik, hartarako zenbait gaitasun galtzen ote zituen **desberdintzean** zehar. Juan Garzia

"Disko imaginal" direlakoen **desberdintzea** ikertzen ari zen Hardon. Juan Garzia

Beste ezaugarri batez -adibidez, *b, c, d* eta abarrez- ordezka daitekeen *a* hizkuntza ezaugarria izanez gero, ordezkaketak ekarriko duen **desberdintzea** hiru eratara gerta daiteke: [...]. Isabel Arrigain

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola hasten da eta taxutzen mota guztietako forma dialektalak agertaraziko dituen **desberdintze** prozesua? Isabel Arrigain

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurralde bakartuetako hizkuntza **desberdintzeak**. Isabel Arrigain

Segmentu horien baitan burutzen da zelula-**desberdintzea**, bide zehatz-zehatzez. Juan Garzia

· Organismo konplexuei -sexu bidezko ugalketaz baliatzen direnei- dagokienez, luzaroan ebazteke egon da guneak eta zitoplasmak zer parte duten bakoitzak zelula-**desberdintze** fenomenoetan. Juan Garzia

---

**desbertebratu**, desbertebra, desbertebratzen du *ad* desegituratu.

Enpresariek eta admnistrazioek terrenoa irabazi dute, langileria subjektu bezala **desbertebratuz** eta horren ondorioak agerikoak dira: prekarietatea, azpikontratazioa, diskriminazioa, autonomoen egoera... Berria - Ekonomia

---

**desbestelakotu**, desbestelako, desbestelakotzen du *ad* ez-bestelako bihurtu, berdindu.

Edonola ere, bestelakoak beti izan du ospe gaiztoa, gehienak berehala ahalegintzen dira hura **desbestelakotu** eta berdintzen, lurperatuz baizik ez bada ere. Markos Zapiain

---

**desbiazio** *iz* desbideratzea.

Lehen aulki lerroaren eta azkenaren artean, bi dezibelio baino gutxiagoko soinu **desbiazioa** zegoen. Berria - Kultura

---

**desbidatu**, desbida, desbidatzen *(orobat* ***desbiratu****)* du *ad* desbideratu.

Suak irabazi egin baitzuen eta bazterrak mihizka erre baitzituen, eguzkiaren zaldien indar sutsuak Faetonta **desbidatu** eta eter osoan eta lur guztietan zehar arrastatu zuenean. Xabier Amuriza

Nor da abrekeria hori asmatu duena? badakigu orai hemeretzi gizonek **desbiratu** dituztela lau hegazkinak, biga Boston-etik joanak, bat New-York-etik, azkena Washington-etik. Herria

---

**desbide** *iz* okerreko bidea.

Eta formak beren bidetik ateratzen ziren, koloreak beren ubidetik, baina, halarik ere, guztia ez zen nahastekamendu huts eta **desbide**. Joan Mari Irigoien

Astoa han zetzan leher egina eta zopiloteek, asebetearen ostean inguruko zuhaitzetan kokaturik, disekatuak ziruditen; gu berriro abiatu ginen gure **desbidean**. Joxe Austin Arrieta

Ezin konta ahalekoak izaiten baitziren konfesionea solizitatzen zioten herritarrak, beren egunorozko **desbidetik** bidezko biderat egiteko asmotan. Joan Mari Irigoien

Horra, bada: gezurrezko beitaz duzu egiaren zamo bapoa arrantzatuko; halaxe baititugu jende zuhur burutsuok, inguru-setioz eta soslai-erasoz, **desbidez** xuxen asmatzen bideak. Juan Garzia

· Zeren naturak andere gisan gobernatzen baitu, eta bere **desbideagatik** gaude historiara, historia pentsagaitzera zabalik. Xabier Amuriza

---

desbidealatze ik **desbideratze**.

---

**desbideraezin** *izond* ezin desbideratuzkoa.

Jedediah Buxtonen kalkulu eskergek etengabe egiten zuten aurrera beren martxa finko eta **desbideraezinean**, eta, hartarako, ez zeukan eguneroko bizimodua alde batera utzi beharrik. Xabier Olarra

---

**desbideraketa** *(33 agerraldi, 9 liburu eta 10 artikulutan; ETCn 348 agerraldi)* **1** *iz* desbideratzea. ik **desbiderapen**.

2005ean pentsio guztiak gutxienez %3,5 haziko direla baieztatu zuen: «%2 inflazioari dagokio eta %1,5 prezioen **desbideraketei** ». Berria - Ekonomia

Legeek euren eskuetan dagoen oro egiten dute ezkontzetan **desbideraketa** eta gaitzespenak saihesteko, horiek konponezinak baitaitezke. Andres Urrutia

Zientziaren bidearen bitartez, behin urratu ondoren inoiz ixten ez den eta **desbideraketarik** baimentzen ez duen bide bakarraren bitartez. Ibon Uribarri

Gobernu mota bakoitzaren argiak eta itzalak, bai eta **desbideraketak** , hots, Tirania, Oligarkia eta Demagogia eztabaidatu ondoan, hiru eredu nagusien batuketaren hautua egiten zuen Zizeronek. Piarres Xarriton

Positibotasunen, jakitearen, irudi epistemologikoen eta zientzien artean agerrarazi nahi da ezberdintasunen joko osoa, harremanena, **desbideraketena** , desdoitzeena, independentziena, autonomiena, eta nola artikulatzen diren elkarren artean euren historikotasun bereziak. Xabier Arregi

Egia eta errakuntza, eta beraz, baita itxura ere errakuntzarantz doan **desbideraketa** gisa, judizioetan soilik aurki daitezke. Ibon Uribarri

**2** (izenondoekin)

Obrarentzat aurreikusitako gastua hasierako 26,5 milioi euroetatik 38,7 milioira pasatzea ez da **«desbideraketa** nabarmena», proiektuak izan ziten aldaketak aintzat hartuta. Berria - Euskal Herria

Berunen **desbideraketa** txiki batek hil egingo luke pazientea, elektrokuzioz, txerri bat bezala. Xabier Olarra

Azkenean ameskeriek hartuko dute errealitatearen lekua, eta **desbideraketa** desonestuek gozamen jatorrena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Funtsen **desbideraketa** salaketak. Berria - Mundua

Kriminalitatea bera -"monomania gizahiltzaile" ospetsuen ondotik- **desbideraketa** modu bat bihurtzen da, nola edo hala zoramenarekin lotua. Xabier Arregi

Ia egunero, ia sistematikoki, burutzen ari nintzen irakurketak bazuen maiz bere ezinbestezko **desbideraketa** tasa. Txillardegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herrilan eta Garraio diputatuak onartu zuen «diru- **desbideraketa** » izan dela: Aldundiak hasieran jakinarazi zuen 122 milioi euroko kostua izango zuela, eta, atzo, berriz, diru-atala 133ra helduko dela aitortu zuen. Berria - Euskal Herria

Ustelkeria, diru **desbideraketak** , eroskeria... Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diru desbideraketa** (3)

---

**desbiderapen** *(16 agerraldi, 4 liburutan; ETCn 128 agerraldi)* *iz* desbideratzea. ik **desbideraketa**.

**Desbiderapen** bakanak zentsura bidez gaindi daitezke, eta beren kausak kritikaren bidez. Ibon Uribarri

Autismoaren gaiak ontologiaren galderarik sakonenak ukitzen ditu, **desbiderapen** errotikakoa inplikatzen baitu garunaren eta gogamenaren garapenean. Xabier Olarra

Bere helburura iritsi balitz bezala, uler bedi esanahi arruntean, hau da, bidaiaren bukaera, **desbiderapen** ontologikorik gabe, bidaiariek esaten dutena, alegia. Jon Alonso

---

**desbiderarazi**, desbideraraz, debiderarazten du *ad* desbideratzera behartu, bidea aldarazi edo galarazi.

Musikaren esanahi sakona agindu saihetsezin bat iruditzen zitzaion, bere bidetik **desbiderarazi** eta bere baitan zerbait hausteko modukoa. Xabier Olarra

Komando batek ontzia erabiliz Israelen aurkako erasoa jo nahi zuen, baina eskifaiak horri uko egin zionean, ontzia **desbiderarazi** eta 50 preso palestinar askatzeko exijitu zuten. Berria - Mundua

Janzkera aproposa graziarik gutxien zuen gorputz alderditik begiradak **desbiderarazteko** [...] bular tenteak eta aldaka sendo eta biribilek berehala erakartzen baitzuten ingurukoen soa. Migel Angel Mintegi

Pantaila hondoko irudia aldatu eta gero, jokoaren bila hasten da jokoak gordetzen dituen karpetan, baina ñirñir batek postarantz **desbiderarazten** dizkio begiak: mezuak dauzka. Antton Olano

Eta hantxe segituko zuen begiz begi mezulariaren itzalari kosk eta kosk, Mariak [...] ukondokada bat eman ez balio, begien gezia **desbideraraziz** , eta karrikan gora zetozen musikariak hatz luzeaz erakutsi izan ez balizkio. Felipe Juaristi

---

**desbideratu**, desbidera, desbideratzen **1** da *ad* bidetik atera; bidea aldatu.

Suhiltzaileen kamioi bat kale-kantoira iritsi eta orroka **desbideratu** zen, gorri eta dirdaitsu, kea zeriola. Lopez de Arana

Bi zaldi beltzek tiratutako kotxe beltz distiratsu bat [...] ziztuan kale-kantoira iritsita **desbideratu** egin zen beste kale batean barrena. Lopez de Arana

Comalarantz zuzendu zuen pausoa, bidetik **desbideratu** gabe. Juan Garzia

Errepidetik **desbideratu** eta landabide bat hartuta itsasertzetik gertu zegoen taberna batera joan zen. Migel Angel Mintegi

**Desbideratu** egin da antzinako bidetik, sekula ibili gabeko bideetan ibiltzeko. Elizen arteko biblia

Bere ibilbidetik **desbideratu** eta Bordeleraino iritsi zen, arazo teknikoen aitzakia erabiliz. Felipe Juaristi

Don Pedrok zehaztasunez adierazi zion zein bidegurutzetan **desbideratu** zen Bernardino. Bernardo Atxaga

Ez zaitez **desbidera** ez eskuin, ez ezkerretara. Elizen arteko biblia

Harriz inguraturiko putzu hartara **desbideratzen** zen ibaiko uraren parte bat, gero handik erriberako lantegietara eramateko. Juan Kruz Igerabide

Nik neure mandatua egin behar nuen, inora **desbideratu** gabe. Txillardegi

Harry bizkor goratu zen, baina haizeagatik erratza **desbideratu** egiten zitzaion pixka bat. Iñaki Mendiguren

Orduantxe, zaldizko bat atera zitzaien bidera, eta segizioa **desbideratu** egin zen. Agustin Otsoa

Ardi galduaren bila joango naiz, **desbideraturik** dabilena artalderatuko, hautsia duenari hanka lotuko, gaixoa indartu egingo dut. Elizen arteko biblia

Bide hura ez da **desbideratzen** Permeraino, eta Jelabuga, Menzelinsk, Birsk, Zlatust herrietan zehar pasatzen da Europatik irten aurretik. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Guztiz **desbideratu** ziren bide okerretik, piztiarik higuingarri eta mesprezagarrienak jainkotzat hartuz. Elizen arteko biblia

Baina gehiegi **desbideratu** naiz kontatu nahi nuenetik. Anjel Lertxundi

Nire nerabezaroko irakurketen kontuak **desbideratu** egin nau nekarren haritik baina ez urrutiratu inguruan eta azken urte hauetan tamalez ikusi dudanetik. Anjel Lertxundi

Ez naiz, ez, egiatik **desbideratuko** . Elizen arteko biblia

Lasaitasuna hartu zuen Norak, hizketa-gaia **desbideratu** egiten zela ikusirik. Anjel Lertxundi

Emakumeen arreta lanetik oihuengana **desbideratu** zen. Anjel Lertxundi

Honek berak adierazten du berriz ere hitzak noraino dauden ideologikoki **desbideratuak** . Jon Alonso

Laguntza publikoak unibertsitate pribatura **desbideratu** dira. Berria - Kultura

Zerga horren ondorioz, dolarretako finantzaketa-eskaria Estatu Batuetako merkatuetatik euromerkatuetara **desbideratu** zen. Koro Navarro

Noizbait, ordea, gauzak **desbideratzen** hasi ziren. Iñaki Iñurrieta

• **3** du *ad* bidetik aterarazi.

Madarikatua itsua **desbideratzen** duena! Elizen arteko biblia

Hesitu zuten bide zaharra, **desbideratu** zituzten oinezkoak, eta hasi ziren eskailerako maila zaharrak kentzen. Urtzi Urrutikoetxea

Errepide bat egiten ari dira inguru horretan, eta ondorioz, ibaia **desbideratu** behar izan dute. Berria - Gaiak

Zintzoak bidea erakusten dio lagun hurkoari, gaiztoak **desbideratu** egiten du. Elizen arteko biblia

Hark agindu bezala bota zituzten lantzak ezkongaiek, baina Ateneak denak **desbideratu** zituen, edo zutabe batera, edo hormara. Juan Kruz Igerabide

Artalde galdua zen nire herria, bere artzainek **desbideratua**. Elizen arteko biblia

Nehork ez du serioski sinetsiko Parisera joan behar den hegazkin hori Tripoli edo Damaseko aireportuetara **desbideratu** nahi zenukeela. Ramuntxo Etxeberri

Ezpata **desbideratu** zuen bere burua babesteko. Joanes Urkixo

Gizakiek geografia zuzendu nahi izaten dute mendiak zulatuz eta ibaiak **desbideratuz**. Koldo Biguri

Lantzean behin, elkarrizketatik belarria **desbideratu** eta goiko pisura lerratzen nuen, nahi gabe. Harkaitz Cano

Gero begirada **desbideratu** eta begiratu azkar bat eman zion bulegoari-. Migel Angel Mintegi

Ikuskizun desatsegin hartatik begiak **desbideratuz**. Iñaki Mendiguren

**4** irud/hed

Zenbakia markatu orduko konturatu zen zentralean hartuko ziotela telefonoa; handik bere departamentura **desbideratuko** zutela deia eta, azkenik, azpi-departamentura. Unai Elorriaga

Parmatour operadore turistikoaren arduradun gisa dirua **desbideratu** izana leporatzen diote. Berria - Ekonomia

Gurasoen sineskeria berberek **desbideratu** dituzte judatarrak. Elizen arteko biblia

Asko dira beren burutazioek **desbideratuak**, irudipen maltzurrek okertu dizkiete gogoetak. Elizen arteko biblia

Dena den, horrela arazoa **desbideratu** beste ezer ez dugu egiten. Askoren artean

Eta orain biblia xaxtar hori ateratzen duk atentzioa **desbideratzeko**... Harkaitz Cano

Erdi kantuan hasi zen gero, gaia **desbideratu** nahirik. Anjel Lertxundi

Erraiten ziguten ezen arimak bideratu behar zuela gorputzak **desbideratua**. Joan Mari Irigoien

**5** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Adiskidetasuna beste zerbait duk, noski, ez dik zerikusirik sexu bereko pertsonekiko sentitzen den erakarpen **desbideratu** hori asetzeko grinarekin. Xabier Olarra

Bihotz **desbideratua** damuaren baitara ekartzen duena. Andres Urrutia

Zein munta handikoa zen bekatari **desbideratuen** salatzea. Joan Mari Irigoien

Testu neutro bat eta 98 bide-uzte, 98 urrats **desbideratu**. Xabier Olarra

Bestela jokatzen zenuen zuk [...] **desbideratuak** zuzentzea nahi baitzenuen eta ez galtzea. Askoren artean

**Desbideratuen** aurka aholkuz eta etsenpluz, ez zigorrez. Askoren artean

Koadroari dagokionez, Pascal Bonitzerrek deskoadratzea deitu duena da, koadratze **desbideratua**, alegia, koadratze gisa markatua eta koadratze hori automatikoki begiradarekin berdintzetik urruntzen ahalegintzen dena. Josu Zabaleta

**Desbideratze** handiegia, jo eskuinerantz. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arreta desbideratu** (7); **arreta desbideratu nahi** (3); **bat desbideratu** (7); **batzuk desbideratu** (3); **begirada desbideratu** (4); **begirada desbideratu zuen** (3); **desbideratu behar** (10); **desbideratu behar izan** (5); **desbideratu den** (3); **desbideratu dira** (3); **desbideratu du** (4); **desbideratu egin** (21); **desbideratu egin da** (4); **desbideratu egin zen** (4); **desbideratu egin zuten** (3); **desbideratu egiten** (9); **desbideratu eta** (21); **desbideratu gabe** (6); **desbideratu izana** (3); **desbideratu nahi** (12); **desbideratu nahi izan** (3); **desbideratu omen** (3); **desbideratu zen** (11); **desbideratu zituen** (5); **desbideratu zituzten** (4); **desbideratu zuen** (17); **desbideratu zuten** (6); **dirua desbideratu** (8); **dolar desbideratu** (4); **edo desbideratu** (6); **ere desbideratu** (3); **ezkerrez desbideratu** (3); **eztabaida desbideratu** (3); **gaia desbideratu** (4); **milioi dolar desbideratu** (4)
>
> **arreta desbideratzea** (4); **arreta desbideratzeko** (4); **atentzioa desbideratzeko** (4); **desbideratzea eta** (4); **desbideratzeko eta** (4); **desbideratzen ari** (9); **desbideratzen ari dira** (3); **desbideratzen dira** (3); **desbideratzen zuen** (3); **dirua desbideratzea** (4); **ez desbideratzeko** (3); **pribatura desbideratzen** (4); **pribatura desbideratzen ari** (4)

---

# desbideratzaile *izond* desbideratzen duena.

Erregulartasuna ez zaio hemen kontrajartzen enuntziatu **desbideratzailea** (ez-ohikoa, profetikoa, berandutzailea, jeniala edo patologikoa) ezaugarrituko lukeen irregulartasunari iritzi arruntaren ertzetan edo ohikoagoak diren testuetan. Xabier Arregi

[Esaldi] ustekabekoa, harrigarria, logikoki aurretik jakin ezin dena, estiloaren aldetik **desbideratzailea**. Xabier Arregi

---

# desbideratze *(orobat **desbidealatze** g.er.)* **1** *iz* bidetik ateratzea; bidea aldatzea.

**Desbideratze** handiegia, jo eskuinerantz. Josu Zabaleta

Donibane Garaziren **desbideratze** proiektuaz arranguraturik, herritar multxo batek elkarte berri bat sortu du: Uharte Bizirik. Herria

Funtsean, Ebro ibaiaren **desbideratze** planoan sartzen da egitasmo hau. Herria

**2** irud/hed

Errenten nazioarteko **desbideratzeak**. Koro Navarro

Uste dugu antiautonomismoa ezker abertzalearentzat arrotza dela, eta **desbideratze** baten ondorioa dela. Berria - Euskal Herria

Egiatiko **desbideratze** hau ere ez litzateke eguzkia suz egina dela edo ortzia hemisferio bat dela edo gisa bereko gauzak sinetsiko lituzkeenaren parekoa. Xabier Kintana

Ez da lehen aldia holako **desbidealatze** bat agitzen zaiola eüskal hiztegiari. Herria

Ekialdeko bideak Jesusen dotrineko sorburu berora zeraman, hasierako argitasun hutsera, iturri emankorrera; baina, aldi berean gehiegikeria astzetikoetara, azalpen gordinetara, **desbideratze** arriskutsuetara. Patziku Perurena

Klase nagusiaren ideologiak ezartzen eta inposatzen ditu normala eta **desbideratze** sexuala zer den dioten irizpideak. Luis Elberdin

Imajina, beraz, Unamuno-ren **"desbideratze** afrikanistek" zer grazia egingo zioten: Espainia, ez Europa, baina Afrika dela, edo afrikartu egin behar duela, eta antzekoak. Joxe Azurmendi

**2** (hitz elkartuetan)

Donibane Garaziren **desbideratze** proiektuaz arranguraturik, herritar multxo batek elkarte berri bat sortu du: Uharte Bizirik. Herria

Funtsean, Ebro ibaiaren **desbideratze** planean sartzen da egitasmo hau. Herria

**Desbideratze** kasu haluzinagarrienak gertatu ohi dira sistema autoritarioenak bideratzen diren herrietan. Joxan Elosegi

**3** ***desbideratze tipiko*** (estatistikan)

Langile batek, egunero, goizeko 08:00etan pizten badu bulegoko ordenagailua, nahikoa dugu **desbideratze** tipikoa zein den kalkulatzea, portaera legitimoak eta subertsiboak bereizteko. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **desbideratze sexuala** (3)

---

**desbiderazio** *iz* desbideratzea.

Izpi horiek, milimetro baten mila milioireneko **desbiderazioa** antzemateko gai direla diote adituek. Berria - Gaiak

Protoi baten zabalerako **desbiderazioak** antzemateko gai dira. Berria - Gaiak

---

**desbiderkatzaile** *iz* biderkaketa bat batuketa bihurtzen duena.

**Desbiderkatzaile** baten modura aritzen da logaritmoa. Jon Muñoz

---

**desbiktimazio** *iz*

Fernandezek adierazi zuenez, **«desbiktimizazioa** bultzatu behar da». Berria - Euskal Herria

---

desbiratu ik **desbidatu**.

---

**desbirgatu**, desbirga, desbirgatzen du *ad* birjintasuna kendu.

Noski, banekien nork **desbirgatu** ninduen, baina hari ez nion sekula kontatuko, nahi zuen bezala. Karlos Zabala

---

**desbisatu**, desbisa, desbisatzen du *ad*

Eguna *4L*a auto motor zatien bisatzen eta **desbisatzen** pasatu ondoan, ateratzen imajinatzen nuen gizona. Itxaro Borda

---

desbista ik **desbixta**.

---

**desbistatu**, desbista, desbistatzen du *ad* itxuratxartu, itsusitu.

Ur hegiko etxe berriak ez direnetz goraxko izanen eta ez ote duten beraz ingurumena **desbistatuko**. Herria

---

**desbixta** *(orobat* ***desbista****)* *iz ipar* itxura txarra.

Eskerrak noizean behin Etxebarriaren koadroek asperdura, kolore saturazio eta **desbistatik** ateratzen gaituen. Berria - Kultura

Larre hautetsiak erran du damugarri zaukala postako etxearen itxura hitsak Hazparneko plazari emaiten dion **desbixta**. Herria

Xendra hortarik ibiltzen bazirezte, aspaldi ohartuak zirezte ere komun hauen **desbixtari**. Herria

---

desblokatu ik **desblokeatu**.

---

desblokatze ik **desblokeatze**.

---

**desblokeatu**, desblokea, desblokeatzen *(ETCn* ***866*** *agerraldi; orobat* ***desblokatu*** *ETCn* ***36*** *agerraldi)* du *ad* prozesu edo jarduera bat normal gauzatzeko eragozpenak kendu.

Ez aurrera, ez atzera zegoen legea **desblokeatzea** lortu dute. Berria - Euskal Herria

Bake prozesua **desblokeatzeko** aukera ikusten du Londresek. Berria - Mundua

Krisia egunotan **desblokeatuko** dela espero dute Blairrek eta Ahernek. Berria - Mundua

Negoziazioak **desblokeatuta** eta borondateak bateratuta, ekaina erdialdea baino lehen Europako Konstituzioaren gaineko akordioa lortzeko konpromisoa hartu dute. Berria - Mundua

Metalaren negoziazioak **desblokeatzeko** eskatu du CCOOk Bitan zatitutako gizartea da, eta zaila da egoera hori **desblokeatzen**. Berria - Ekonomia

Lamahi eta Kohalpur hiriak lotzen dituen errepidea **desblokeatzera** zihoazen poliziei eraso egin ondoren. Berria - Mundua

Bizkarrezurraren inguruko giharrak laxatu ditugu, ornoak urrundu ditugu, eta artrosi motaren bat baldin badago artikulazioetan, hori ere **desblokeatu** dugu. Berria - Gaiak

Ugalde hil ondoren **desblokeatu** zituen kontuak. Berria - Harian

Hala, hiru urtetan, 20.000 milioiko kredituak **desblokeatzera** gonbidatu zituzten bankuak, lehentasunezko hamabost herrialderen alde Lantegia zutik atxikitzeko erreserba fondoko dirua **desbloka** dezan. Koro Navarro

---

**desblokeo** *iz* desblokeatzea.

Legebiltzarrak auziaren **desblokeoan** izan dezakeen egitekoa nabarmendu du [...] Araba Buru Batzarreko lehendakariak. Berria - Harian

Kennametal Ibericako enpresako langileek mugagabeko greba bati ekingo diote gaur, lan hitzarmenaren **desblokeoa** exijitzeko. Berria - Ekonomia

ELA eta LABeko merkataritzako 30 ordezkarik elkarretaratzea egin zuten atzo Donostian, Merkataritza Federazioaren egoitzaren aurrean, Gipuzkoako metalaren, ehunaren eta larruaren sektoreetako negoziazio kolektiboen **desblokeoa** exijitzeko. Berria - Ekonomia

---

**desdantzari** *izond*

Bada, oso itxura **desdantzaria** zuten, bat-batean algara bat entzun zenean publikoaren artean. Julen Gabiria

---

**desditxa** *(orobat* ***destitxa****)* *iz* zoritxarra, zorigaitza.

Malurak eta **desditxak** jorik. Han berean ikusi nituen, barreiaturik eta sakabanaturik, neure zorionaren zorigaiztoko hondakinak, neure ditxaren **desditxak**. Joan Mari Irigoien

Ala, nire **desditxak** baino gehiago, nik eragin nituenak interesatzen zitzaizkien? Karlos Linazasoro

Bateko etsitze, besteko etsi-behar, etsipen eta **destitxa**! Iñaki Segurola

---

**desdoblamendu** *iz* erdibitzea.

-Nork daki, Jector, agian bai, **desdoblamendua** edo *whatever,* zerbaitetan sinesten hasi beharko dut berrogei urteetatik aurrera. Harkaitz Cano

Otsagabia txostena, **«desdoblamenduaz»** teorizatzen duen agiria, KASen jatorriarekin lotzeak historiaren «ezezagutza nabarmena» erakusten duela esan zuen Alegriak. Berria - Euskal Herria

---

**desdoitu**, desdoi, desdoitzen da *ad* desegokitu.

Atalase hauen banaketa, batera gerta daitezkeenak, batzuk besteen mendeko izan daitezkeenak edo denboran **desdoituak** egon daitezkeenak. Xabier Arregi

---

**desdoitze** *iz* desegokitzea.

Horrela, haustura arkeologikoen azterketak helburutzat du finkatzea, hainbeste aldaketa ezberdinen artean, hierarkiak, osagarritasunak, bat etortzeak eta **desdoitzeak**: laburbilduz, jarraitasun-ezen sakabanaketa deskribatzea. Xabier Arregi

Kontraesana, ostentzen den edo ostendua den batasun baten irudipena da: berak kontzientearen eta inkontzientearen, pentsamenduaren eta testuaren, idealtasunaren eta adierazpenaren gorputz kontingentearen arteko **desdoitzean** du lekua, beste inon ez. Xabier Arregi

---

**desdontzeilatu**, desdontzeila, desdontzeilatzen du *ad* birjintasuna kendu.

Galaia jaiki eta trebe da jantzi, haren bisitako; dontzeila zena horra **desdontzeilatu** sekula santako. Juan Garzia

---

**desdramatizatu**, desdramatiza, desdramatizatzen du *ad* dramatismoa kendu.

Egia da hildakoak, espetxeratuak eta abar izanik tartean, zaila dela umorea erabiltzea, baina hala ere uste dut badagoela **desdramatizatu** beharra, geure buruari barre pixka bat egin eta gauzei ironia handiagoz begiratu beharra. Berria - Kultura

Edozein arazo larriren aurrean gauzak ongi aztertu eta gero egoera larri hura **desdramatizatu** egin behar zela. Joxemari Iturralde

Orain Gobernuak, literatoak, politiko arrazoizkoak, Aita Santua bera, problemak **"desdramatizatzen"** eta jendea lasaitzen ahalegintzen dira, estabilitatean eta orekan gaudela konbentzituta bizi behar dugu denok. Joxe Azurmendi

---

deseatu ik **desiatu**.

---

**desegigo** *iz* gudu edo borrokaldi batean porrot egitea.

Errusia saiatu zen erabateko eragina zertzen Serbiaren gain, hau onik atera berria zuelarik turkiar armaden eskuetan jasan zezakeen **desegigotik**. Iñaki Mendiguren

Ez dakizue zer den **desegigoa**, hartan etsimena aurkitu behar duzuela uste baduzue. Josu Zabaleta

---

**desegile** **1** *izond/iz* desegiten duena.

Jakin ezazu bada Don Kijote Mantxako adoretsua naizela, kalte okerren **desegilea**. Patxi Ezkiaga

Zure berregileak bizkorragoak izan bitez **desegileak** baino; urruti zuregandik hondatzaileak! Elizen arteko biblia

Hitz horien [...] aparteko grazia sano hori beste iturri batetik dator, beheragoko maila batetik, hau da, barrenagotik: erdara (eta kultura) gutxiko jende argiaren mintzotik; hizkuntzaren egile bezainbat **desegile** direnen ganbara ezin hustuzkotik. Iñaki Segurola

**2** (hitz elkartuetan, elkarketak izenongo balioa duela)

Oraingo mito-**desegile** horien beharrik ez dugu izan demokrazia horren erlatibismoa erreparatzeko. Joxe Azurmendi

---

**desegin**, desegiten **1** du *ad* (zerbait) egina izan aurretik zegoen era edo itxurara bihurtu, suntsitu, deuseztatu.(pertsonak eta kidekoak)

Gurasoen ustez, azido sulfurikoan **desegin** zuten. Juan Kruz Igerabide

Errege indartsu batek erraz-erraz [...] **desegin** ditzake bere handinahiaren aurka dauden etsaiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Desegin** ditzagun fedegabeak, gu geu fedegabetzatz har ez gaitzatzen. Juan Martin Elexpuru

Jentilak **deseginak** gertatu ziren eta lautadara egin zuten ihes. Elizen arteko biblia

Delitu batzuek bat-batean **desegiten** dute gizartea edota honen ordezkariak. Juan Martin Elexpuru

Ezta obus puska batek aurpegia **desegin** dion eta horrenbestez bizitza osorako emakume bati zirrara eragiteari uko egin dion lagun horri ere. Josu Zabaleta

Orain ere, bada, **desegin** ezazu aurrean dugun gudaroste hori. Elizen arteko biblia

Poliziak turisten autoetan lapurtzen espezializatutako talde antolatua **desegin** du. Aingeru Epaltza

· *irud* Hainbeste saltsa eta kontutan nengoen sartua, **desegina** nengoen. Koro Navarro

Bezeroek **deseginak** dituzte begitarteak. Pako Aristi

**2** (gauzak)

Harresiak deuseztu eta **desegin** zizkietela eta jauregiaren bi muturretan zeuden defentsarako dorreak porrokatu eta eraitsi. Joan Mari Irigoien

**Deseginak** gertatu ziren ontziak, ur handietarantz abiatu baino lehen. Elizen arteko biblia

Azkenik, makina guztia suzko jaurtikiekin eta balezta-tiroekin **desegin** zuten. Santiago Iruretagoiena

Esnatu zenean, ohe gainean eraiki zuen txorimaloa haserre **desegin** eta itsuaren mozorroa hautatu zuen berriro. Harkaitz Cano

Bota egingo dituzue aldareak, zutarri sakratuak apurtu, zutoinak erre, jainko-irudiak **desegin**. *Elizen arteko biblia*

Tenpluan prostituzio sakraturako erabili ohi ziren gelak ere **desegin** zituen. Elizen arteko biblia

Hindu buruberoek, 1992ko abenduan, Ayodhyako Babri mezkita **desegin** zuten. Gotzon Garate

Betelen zegoen kultu-lekuko aldarea ere **desegin** zuen Josiasek. Elizen arteko biblia

Gero irudia belzten da poliki-poliki, eta gero **desegiten** da, dena hauts. Alberto Barandiaren

Kuxin zaharra piltzarretan **desegin** zen, kirurgia estetikoak birrindutako azal zahar bat balitz bezala. Jon Muñoz

Janarian hartzen diren proteinak beren osagai aminoazidoetan **desegiten** dira. Irene Aldasoro

Papertto zuria zabaldu zuen, erdiko tolesdura **desegin** gabe. Aingeru Epaltza

Berehalaxe **desegin** zitzaion infekzio-gunea. Askoren artean

Izan ere, radioak erradiaktibitatea eman eta masa galtzean, materia sortu edo **desegin** zitekeelako tesia zalantzan jartzen zuen. Xabier Olarra

Gorputzeko zelula eta molekula bakoitza etengabeko aldaketa-prozesuan dagoela, **desegin** eta berregin. Irene Aldasoro

Orrazkera di-da batean **desegin** zitzaion. Fernando Morillo

Bere hitzak airean **desegiten** ziren. Bernardo Atxaga

## **3** (gauzak; irud)

Maletak **desegin** ondoren berriro ere hoteleko tabernan elkartu ginenean, [...]. Ramon Saizarbitoria

Ohea **desegin** zuten, maindireak zintzilik zeuden, urreak hutsuneak egiten zituen bien arteko bururdian, grinaz beroturiko buru batzuk iraulka ibili izan balira bezala. Karlos Zabala

Ederrak trebeki **desegin** zion zinta. Itxaro Borda

Santurtzitik Gdanskerako bidaia hartan behelainoak tapatu zuen zerua, borratu zituen buiak eta **desegin** zuen itsasoa. Joseba Sarrionandia

## **4** (gauza abstraktuak)

Inperioa **desegin** zenean, aita santuaren ondoan aurkitu zuen babes. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sanz-Guillaume hiltzen delarik, 1032an, Gaskoiniako printzipatua **desegiten** da. Michel Oronoz

Herri-finantzek **desegin** egiten dute merkataritza beren bidegabeekin, mutirikeriekin, gehiegizko zergekin. Horretarako produkzio-bideen jabego pribatua **desegin** behar da nahitaez. Iñaki Iñurrieta

Eraldaketa-prozesua kultura bat **desegin** eta beste molde batean berregitea da. Iñaki Mendiguren

Ondorio txarra eragotziko da, kausa eragilea **desegin** gabe. Juan Martin Elexpuru

Denboraren errotarriak ezin zuen atxikimendu hura **desegin**. Bernardo Atxaga

Beraz, neba-arreben arteko ezkontza besterik gabe **desegina** gelditu zen. Gotzon Garate

Zama astun bat **desegin** eta joan zitzaion bihotzetik. Anton Garikano

Ordu arteko zalantza izpia, Teresak esandakoa gezurra ote zen, **desegina** zegoen betiko. Bernardo Atxaga

Bestek egindako lana **desegitea**, hori duk nire lana. Harkaitz Cano

Ziurtasun morala, estu hartuta, probabilitate bat besterik ez dela pentsatzen duenari, **desegin** egingo zaio paradoxa. Juan Martin Elexpuru

Oso gutxik, irizpide orokorretan oinarrituta, **desegin** dituzte mendez mende pilatutako hutsegiteak. Juan Martin Elexpuru

Zezenen eta akerren odolak ez baititzake bekatuak **desegin**. Elizen arteko biblia

Deusek **desegin** ez lezakeen bizitza betierekoaren sinbolo da lizarra. Patziku Perurena

Jakizu, nik ere bihotzaren barru-barruan **desegin** ezineko moduan ezarria daukadala zure oroitzapena. Askoren artean

Behin egindakoa ezin dugunez **desegin**, barkamenaren botere miragarri hori beste ordena bati dagokio. Joseba Zulaika

## **5** (era burutua izenondo gisa)

Hildakoak, zaurituak, familia **deseginak**, hondamendia,... hori da gerrak utzi zuena. Pello Salaburu

Ohe **desegin** baten irudia zegoen bere buruan. Harkaitz Cano

Ohe **deseginaren** erliebea aztertzea aski izango zuen Monika bakarrik edo norbaitekin lo egina zen jakiteko. Joxean Agirre

Itsasontzi hauetarik haratago, dorre zahar **desegina**, *el otro Pasage* esaten dioten etxe multzoa, eta mendi baten gailur hirukoitza. Koldo Izagirre

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**alderdia desegin** (5); **armada desegin** (3); **asko desegin** (3); **auzitegi nazionala desegin** (3); **azkar desegin** (3); **bat desegin** (24); **bat desegin du** (5); **bat desegin dute** (4); **bat desegin zuen** (3); **batean desegin** (4); **batek desegin** (3); **batetik bestera desegin** (3); **bera desegin** (4); **berehala desegin** (4); **bestera desegin** (3); **bezala desegin** (3); **da desegin** (5); **dena desegin** (4)

**desegin arte** (9); **desegin aurretik** (4); **desegin baino** (4); **desegin baitzen** (3); **desegin behar** (28); **desegin behar dira** (4); **desegin behar zuela** (3); **desegin beharko** (5); **desegin beharra** (4); **desegin beharreko** (3); **desegin berria** (3); **desegin da** (15); **desegin daitezen** (3); **desegin dela** (3); **desegin dira** (5); **desegin dituzte** (4); **desegin du** (15); **desegin dute** (16); **desegin edo** (7); **desegin egin** (32); **desegin egin behar** (3); **desegin egin zen** (11); **desegin egin zuen** (7); **desegin egingo** (13); **desegin egingo da** (5); **desegin egiten** (32); **desegin egiten da** (6); **desegin egiten dela** (3); **desegin egiten dira** (3); **desegin egiten dute** (3); **desegin egiten zen** (4); **desegin eta** (89); **desegin eta berregin** (3); **desegin eta beste** (5); **desegin eta gero** (3); **desegin ez** (8); **desegin gabe** (17); **desegin nahi** (21); **desegin nahi izan** (3); **desegin ondoren** (16); **desegin zela** (5); **desegin zen** (49); **desegin zen arte** (6); **desegin zenean** (8); **desegin zenetik** (10); **desegin zezaten** (5); **desegin zioten** (3); **desegin ziren** (4); **desegin zituen** (18); **desegin zituzten** (5); **desegin zitzaidan** (4); **desegin zitzaion** (3); **desegin zuela** (3); **desegin zuen** (35); **desegin zuena** (3); **desegin zuten** (19)

**edo desegin** (9); **egin eta desegin** (8); **elkartea desegin** (3); **erabat desegin** (9); **ere desegin** (7); **eta desegin** (33); **eta desegin egiten** (8); **eta gobernua desegin** (3); **etxea desegin** (3); **ez da desegin** (4); **ez desegin** (5); **ezkontza desegin** (3); **familia desegin** (3); **gabe desegin** (3); **gobernua desegin** (8); **gobernua desegin eta** (3); **gutxira desegin** (3); **guztia desegin** (7); **guztiak desegin** (10); **hau desegin** (3); **hori desegin** (7); **hura desegin** (11); **hura desegin zuen** (3); **inperioa desegin** (3); **ituna desegin** (3); **izar desegin** (4); **izar desegin eta** (4); **legebiltzarra desegin** (3); **maletak desegin** (3); **manifestazioa desegin** (3); **nazionala desegin** (6); **nola desegin** (7); **ohea desegin** (4); **orduko desegin** (3); **postura desegin** (3); **postura desegin dute** (3); **santutegia desegin** (3); **sare bat desegin** (8); **sarea desegin** (10); **talde bat desegin** (4); **talde hori desegin** (3); **taldea desegin** (23); **taldea desegin egin** (3); **taldea desegin eta** (3); **taldea desegin zen** (4); **zaharrak desegin** (3)

**desegina da** (3); **desegina eta** (4); **desegina izan** (6); **desegina izan zen** (3); **desegina izango** (3); **desegina zegoen** (4); **desegina zen** (4); **deseginak dira** (4); **deseginak gertatu** (3); **deseginak zituen** (4); **deseginda dagoela** (3); **deseginda dagoen** (3); **deseginda eta** (3); **deseginda zegoen** (5); **deseginez gero** (4); **erabat deseginda** (3); **eta desegina** (5); **eta deseginez** (5); **ohe deseginaren** (3); **taldea deseginda** (5)

**bat desegitea** (5); **batasuna desegiteak ez** (3); **batzordea desegitea** (3); **desegitea agindu** (3); **desegitea da** (3); **desegitea erabaki** (8); **desegitea eta** (15); **desegitea ez** (4); **desegitea izan** (3); **desegitea onartu** (3); **desegiteagatik juan** (4); **desegiteak ez** (5); **desegitearen alde** (3); **desegitearen aurkako** (3); **desegitearen gainean** (3); **desegitearen inguruan** (4); **desegitearen kontra** (3); **desegiteari buruz** (4); **desegiteari uko** (4); **eta desegitea** (8); **ez desegitea** (4); **ez desegiteagatik** (17); **ez desegiteagatik juan** (4); **hirukoa desegitea** (3); **ituna desegitea** (3); **legebiltzarra desegitea** (4); **legebiltzarra desegitea eta** (3); **sa ez desegiteagatik** (4); **taldea desegitea** (6); **taldea desegitearen** (4); **taldea desegiteari** (4); **taldea desegiteari uko** (3); **taldea ez desegiteagatik** (11)

**abertzaleak taldea desegiteko** (6); **autoak desegiteko** (4); **auzitegi nazionala desegiteko** (3); **bat desegiteko** (4); **desegiteko agindu** (8); **desegiteko agindu du** (4); **desegiteko agindua** (7); **desegiteko asmoa** (5); **desegiteko asmorik** (3); **desegiteko asmoz** (4); **desegiteko emandako** (5); **desegiteko emandako agindua** (5); **desegiteko erabakia** (3); **desegiteko eskatu** (19); **desegiteko eskatu dio** (3); **desegiteko eskatu du** (6); **desegiteko eskatzen** (3); **desegiteko eta** (14); **desegiteko plana** (3); **desegiteko prozesua** (4); **desegiteko zorian** (3); **eta desegiteko** (7); **ez desegiteko** (10); **gorenak sa desegiteko** (3); **guztia desegiteko** (4); **haiek desegiteko** (3); **hura desegiteko** (3); **kokaguneak desegiteko** (3); **legebiltzarra desegiteko** (6); **legebiltzarra desegiteko eta** (3); **nazionala desegiteko** (3); **sa desegiteko** (9); **sa desegiteko agindua** (4); **sa desegiteko emandako** (3); **sa taldea desegiteko** (3); **taldea desegiteko** (15); **taldea desegiteko agindu** (3); **taldea desegiteko eskatu** (3); **taldea ez desegiteko** (5)

**ahoan desegiten** (3); **bat desegiten** (5); **batzuk desegiten** (3); **berehala desegiten** (7); **bezala desegiten** (4); **dena desegiten** (5); **desegiten ari** (40); **desegiten ari dela** (3); **desegiten ari dira** (5); **desegiten ari zen** (19); **desegiten bada** (3); **desegiten da** (10); **desegiten dela** (4); **desegiten delarik** (3); **desegiten den** (7); **desegiten dena** (3); **desegiten denean** (3); **desegiten dira** (11); **desegiten diren** (6); **desegiten direnak** (3); **desegiten direnean** (3); **desegiten ditu** (4); **desegiten dituen** (8); **desegiten du** (12); **desegiten duen** (3); **desegiten duena** (4); **desegiten dute** (6); **desegiten eta** (13); **desegiten eta suntsitzen** (3); **desegiten ez** (4); **desegiten hasi** (12); **desegiten hasi zen** (4); **desegiten zen** (7); **desegiten ziren** (6); **desegiten zirenak** (3); **desegiten zuen** (5); **edo desegiten** (3); **egin eta desegiten** (3); **egiten eta desegiten** (6); **erabat desegiten** (4); **eta desegiten** (29); **guztiak desegiten** (4); **guztiz desegiten** (3); **hori desegiten** (4); **nola desegiten** (5); **zergatik desegiten** (3)

---

# **deseginarazi**, deseginaraz, deseginarazten du *ad* desegitera behartu.

Tel Aviveko gobernua **deseginarazten** hasiko da, gaur bertan, hesi horren zati bat. Berria - Mundua

Laster, 1517an Gaztelako gobernübüriak Xabierreko gaztelüa **deseginarazi** züan, salbü etxea bera. Herria

---

## deseginezin *izond* ezin deseginezkoa.

Automata bigun, **deseginezina** . Xabier Olarra

---

## deseginkor *izond* desegiteko joera duena.

Ederra eta distiratsua izan behar zuen azaletik, arina eta **deseginkorra** , koloreak bata bestearekin urtuz tximeleta hegoaren koloreak bezala. Anton Garikano

---

## desegintza *iz* desegitea.

**Desegintzaren** azken etapan. Iñaki Mendiguren

Ikuspegi honetatik eliza unibertsalen *raison d'être* delakoa zibilizazio gisa ezagutzen ditugun gizarte-motak bizirik gordetzea da, bizi-hazi baliotsua kontserbatuz interregno arriskutsuan, espeziearen ordezkari hilkor baten **desegintzaren** eta beste baten sorreraren artean. Iñaki Mendiguren

---

## desegintzarre *iz* desegitea.

Zeren guk ezagutzen dugun mundua gorrotoaren obra baita, eta haren **desegintzarrea** maitasunaren obra izango baita. Juan Garzia

Eta ikusi zuen heriotzaren **desegintzarrea** ez zela beste mila mugimendu alferrikakotara oldartzen den tropel zurrunbilotsu horren askapena baino. Juan Garzia

---

## desegite **1** *iz* suntzitzea, deuseztatzea.

Sistema kapitalista eta inperialista da Euskal Herriaren berdintze, **desegite** eta sunsitzearen hobenduna, Estado frantsesa kudeatzaile. Herria

Ez dugu inon bukatu nahi: etengabeko egiteak eta **desegiteak** dira gure hegaldiak. Iñaki Segurola

1973an desegin egin zen MIL, eta **desegite** horren gastuei aurre egiteko hainbat lapurreta egin zituzten MILeko kideek. Berria - Kultura

Lurretik sortutakoak desegiten direnean [...] berriz ere lurrera itzultzen direla, eta airetik sortzen direnak ere zeruko eskualdeetara itzultzen direla, eta ez dutela inolako suntsipenik jasaten, baizik eta beren **desegite** horretan eraldaketa jasanez, berriz ere lehen izan zuten propietatea izatera itzultzen direla. Santiago Iruretagoiena

Gorputz politikoaren **desegite** orokorra etorri zen. Iñaki Mendiguren

Kulturen **desegite** suntsitzaileak gizateria osorako galera dakar. Askoren artean

Espetxe politikak horixe bilatzen duelako, presoaren **desegite** politikoa eta fisikoa. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gorputzeko molekula orok etengabe jasaten duen **desegite** - eta berregite-prozesu bizian behar den energia-bankua eratzeko. Irene Aldasoro

SA taldearen **desegite** auziaren inguruan, berriz, Eusko Legebiltzarraren eskumen eta eskubideak urratu izan direla ere salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Garbi daukagu hori osasun publikoaren **desegite** eta pribatizazio politika dela. Berria - Euskal Herria

Armadoreak segurua kobratuko zuen eta enbarkazioa **desegite** eta burdinurtze lanetarako urgaineratu eta ekarri zuten atoian Kaioarriko nasa txikiraino. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ehud Olmert Israelgo lehen ministrordeak Ameriketako Estatu Batuei hitzeman diela etxe **desegite** gehiago ez dela egongo. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desegite eta** (3); **desegitearen alde** (3); **desegitearen aurkako** (3); **desegitearen gainean** (3); **desegitearen inguruan** (4); **desegitearen kontra** (3)

---

## desegitura *iz*

Hiztegira jo dut egitura hitzaren bila, **desegitura** ere zer den jakiteko, Anjel Lertxundi

---

## desegituraketa *iz* desgituratzea.

Mendebaldeko zein garapen bidean diren gizarteetan **desegituraketa** gero eta bistakoagoa izanik, [...]. Iñaki Heras

Desestrukturazioa: egun, elikadura ordena ekonomiko eta sozialaren egituraketa edo **desegituraketaren** funtsezko elementua da; geroaldian, baina, ez dira aintzat hartuko elikatzearen elementuak, atalak eta osagaiak. Edorta Agirre

Bere aita Ernest Haas argazkilari ezagunaren argazkien **desegituraketarekin** erakusketa aurkeztu du Alex Haasek Iruñean. Berria - Kultura

---

## desegituratu, desegitura, desegituratzen **1** du *ad* egitura kendu.

**Desegituraturik** omen dut nortasuna. Anjel Lertxundi

Familia eta gizarte harremanak ere **desegituratuko** lituzke. Berria - Ekonomia

Gogor gaitzetsi du, beraz, «lan taldea **desegituratzeko** asmoa. Berria - Ekonomia

Bolognako Prozesuak giza zientzietako karrera gehienak **desegituratuko** ditu. Berria - Harian

Lan-indarra eskuratu baina aldi berean usadiozko gizarte-, familia- eta ekoizpen egiturak **desegituratzen** baititu. Koro Navarro

Gogor salatu zuen zenbait idazleren jokabidea, euskara eta Euskal Herria batzen ahalegindu beharrean, txikikeriak eta txokokeriak erabiliaz, hizkuntza desegiten eta **desegituratzen** zihardutelako. Koldo Zuazo

Baina indar horiek erabat **desegituratuta** daude, Israelek azken urteotan haiek suntsitzeko egin duten. Berria - Mundua

Guztiz deseginda eta **desegituratuta** ageri zaigu 1945-1964 garaiko euskara. Koldo Zuazo

**2** (era burutua izenondo gisa)

Euskal Herriko toki askotan gizarte banatu eta **desegituratua** dugu. Berria - Harian

Gizarte **desegituratu** eta ekonomia kinka oso larri honen erdian, indarkeria da guztiz nagusituta. Berria - Mundua

Ekoizpen sektoreen bilakaera **desegituratua** . Berria - Harian

Igurzkarietan goitik beherako arrasto **desegituratuak** agertzen dira, igurtziak sortutako zarataren energia irregularrari dagozkionak. Lourdes Oñederra

Estutzearen ondoriozko igurtziak sorturiko aire mugimendu **desegituratua** . Lourdes Oñederra

Euskal Herriko toki askotan gizarte banatu eta **desegituratua** dugu. Berria - Harian

Ekoizpen sektoreen bilakaera **desegituratua** Berria - Harian

---

## **desegituratze** *iz* egitura kentzea.

Pobrezia, inmigrazioa, kulturen **desegituratzea**, errorik eza, etsipena... Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Elikatze-jokamoldeen **desegituratze** honen eraginez. Edorta Agirre

Baztertzea eta zokoratzea nazioarteko mailan, eta pobretzea eta gizarte-**desegituratzea** nazio barnean. Koro Navarro

---

## **desegoki** **1** *izond* egokia ez dena.

Batzuetan pentsatzen diat musikaren bidez gauza **desegokiak** eta moralaren aurkakoak adierazten direla. Xabier Olarra

Betaurreko **desegokiak** jantzi izan balitu bezala bere bizitza guztian. Harkaitz Cano

Arrazoiren batengatik, analistaren bat metodo akastsu batek tronpatu zuen, edo erreaktibo badaezpadako batek, edo ohitura **desegoki** batek. Juan Garzia

Halako bikote **desegokiekin** maiz gertatzen den bezala, denak zeuden ezkontzaren alde: errabinoa, ahaideak, Hadassen lagunak. Koro Navarro

Hizkera burlati **desegokiarekin**. Iñaki Mendiguren

Esan gabe doa Elsek ez zuela batere gustuko senarraren portaera **desegoki** hura. Patxi Iturritegi

Aristokraten edozein gehiegikeria edo jokaera **desegoki** diruak konpontzen zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Topet-Etxahunez eta Xiberoaz ikuspegi **desegoki** zonbait. Herria

Teoriaren egitura identifikatzeko prozedura **desegokia**. Askoren artean

Kanta gaskoi zahar bat zen hura, martxaren neurria ematen zuena; leku zelaietan oso ona, baina **desegoki** samarra bide malkar haietan. Koro Navarro

Gerora gutxienez hiru edo lau aldiz errepikatuko zuen "muga zaitezte gertakizunetara" bere ustez **desegoki** hura. Ramon Saizarbitoria

Leku itxuraz **desegokietan** ere sortu izan dira mamuak. Bernardo Atxaga

Honela deitzen diogu, era nahiko **desegokian**, Frantziskori. Askoren artean

Aitona Nikolasek ez zuelako begi onez ikusten zein modu **desegokian** egotzi zuen aitak etxetik Xalbador lehengusua. Joan Mari Irigoien

Berrikuntza guztiak **desegokitzat** jotzen ohi dituzten horietakoak. Ibon Uribarri

Banatu behar al nuen nik **desegokitzat** neukan panfleto hori? Txillardegi

**2** (mugaturik, izan edo kideko aditzekin)

Baina orain, Sasha hildakoan, **desegokia** zen horretaz aritzea. Jose Morales

Soil-soilik esan dezakegu, beraren jokamoldea kasu bakar batean izan dela **desegokia**. Patxi Zubizarreta

Eta egia esan, ikuskaria ez zen **desegokia**. Askoren artean

Izen horiek, bestalde, berehala kanpo uzteko modukoak dira, pertsona edo pertsonaiaren nortasunari guztiz **desegokiak** zaizkiolako. Jon Alonso

Triglifoen eta metopen banaketa nahasia zelako eta **desegokia**. Santiago Iruretagoiena

Azterketa biokimikorako erabilerraza bezain **desegokia** zen azterketa fisiologikoetarako. Juan Garzia

Liburu gehienak **desegokiak** iruditu zitzaizkidan. Bernardo Atxaga

Azken batean, eredu hori oso **desegokia** bihurtu zen orduko ingurune ekonomikoarentzat. Iñaki Heras

Erakunde zaharrak sarritan **desegokiak** eta erabiltezinak gertatzen dira. Iñaki Mendiguren

• **3** (adizlagun edo predikatu gisa) ik **desegokiro**.

Etsita nenbilen, zertan **desegoki** jokatu ote nuen zalantzan. Txillardegi

Badira oso lege onak, baina oso **desegoki** eginak. Iñaki Iñurrieta

Sentitzen dut hain **desegoki** berba egin behar izatea. Patxi Zubizarreta

**Desegoki** jantzia zetorren, jilbaba, kapela eta sandalia pare batekin. Patxi Zubizarreta

Guztiz **desegoki** hazi zaituzte. Josu Zabaleta

-Oi... izugarria! -ihardetsi zion Marshall andreak gutxiespenez, hitzari **desegoki** iritzita-. Mirentxu Larrañaga

Iragan otsailaren 15ean, Espainiako Auzitegi Nazionalak **«desegoki** emandako baldintzapeko askatasuna bertan behera geratzea» eta bere kartzelatzea agindu zuen berriro. Berria - Euskal Herria

Galarazi **desegoki** direnei ekintzarako bidea. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **desegoki bat** (3); **desegoki batek** (3); **desegoki eta** (7); **desegoki hura** (5); **eta desegoki** (5); **ideia desegoki** (3); **modu desegoki** (3)
>
> **bezain desegokia** (3); **da desegokia** (3); **desegokia da** (12); **desegokia dela** (12); **desegokia delako** (3); **desegokia den** (3); **desegokia duten** (3); **desegokia ere** (3); **desegokia eta** (4); **desegokia iruditzen** (4); **desegokia izan** (9); **desegokia izan zela** (3); **desegokia izango** (10); **desegokia litzateke** (6); **desegokia zen** (6); **edo desegokia** (3); **erabat desegokia** (4); **eta desegokia** (9); **ez da desegokia** (3); **ez zen desegokia** (3); **guztiz desegokia** (5); **hain desegokia** (4); **hamaikako desegokia** (6); **hamaikako desegokia zelairatzeagatik** (3); **jarrera desegokia** (3); **oso desegokia** (5); **politikoki desegokia** (3); **zen desegokia** (3)
>
> **desegokiak dira** (4); **desegokiak direla** (5); **desegokiak dituzten** (3); **desegokiak eta** (7); **desegokiak izan** (5); **desegokiak zirela** (3); **desegokian jarria** (3); **desegokitzat jo** (9); **desegokitzat jo zituen** (3); **desegokitzat jo zuen** (3); **edo desegokiak** (5); **inon leku desegokietan** (3); **jokabide desegokiak** (4); **leku desegokian** (3); **leku desegokietan** (4)

---

## **desegokiera** *iz* egokiera falta.

Badira izan barruko ondasunei hain atxikiak, non, konturatu gabe, **desegokierak** geratzen baitzaizkie bihotzean. Joan Mari Lekuona

Gauzen egungo ordenari egokitzen ez zaizkionak edo esperientziak berak erakutsitako **desegokierak**; horiek dira, eta besterik ez, aldatu edo birmoldatu ditugunak. Andres Urrutia

Berehalaxe itzali genuen [irratia], noski, dantza-musika, izan ere, ez baitzen batere egokia **desegokiera** hartan... Joxe Austin Arrieta

---

## **desegokietsi**, desegokiets, desegokiesten du *ad* desegokitzat hartu.

Jarraian, prologomania **desegokietsi** zuen, "aspaldian erabili baitzuen jada trufagai, Kixotearen aitzinsolas antzetsuan, Ingenioen Printzeak". Juan Garzia

---

## **desegokikeria** *iz* desegokitasun gaitzesgarria.

Urkaturik hilez **desegokikeria** itzela egingo zuela uste zuen. Jose Morales

Istilurik gabe onartzen zioten **desegokikeria** hori, egiaz zer esan nahi zuen ez bazekiten ere. Josu Zabaleta

Herri etimologiak [...] zoriaren halabeharrez jokatu ohi du eta **desegokikeria** bat lortu ohi du. Isabel Arrigain

---

## **desegokiro** *adlag* era desegokian. ik **desegoki 3**.

**Desegokiro** sumatu ote zuten gurasoek beren aukeren balioa edo kalitatea? Joxan Elosegi

Zera aurkituko dugu, ordea: dramaren hasieratik igarotako lau mende eta erdiko denboraldia **desegokiro** laburra dela eta bukatu gabeko prozesu baten aurrean gaudela. Iñaki Mendiguren

*Sentimenaren idealak* dei dakizkieke, **desegokiro** bada ere. Ibon Uribarri

---

# desegokitasun

**1** *iz* desegokia denaren nolakotasuna.

Bi dira terminologia horren **desegokitasunaren** arrazoiak. Lourdes Oñederra

Britainiarren defentsa sistemen **desegokitasuna** zorrotz kritikatu zuen. Edorta Jimenez

Ez batak eta ez besteak ez zuen inolako **desegokitasunik** ikusten horretan. Irene Aldasoro

Honelako sistemaren **desegokitasuna** nabaria da. Iñaki Mendiguren

Beste eredu horren **desegokitasunek** eta sortzen dituen irregulartasun ugariek iradokitzen dute hori ere ez dela hizkuntzarako eredu egokia. Itziar Laka

**Desegokitasun** astronomikoek iraun egin zuten Julio Zesar astronomoen konklusioei diktadore-laguntza emateko egoeran egon eta "juliotar" egutegia sartu zuten arte. Iñaki Mendiguren

Gaitzak jasaten guztiz nekatu eta aspertu arte, gizakia ez da jarriko **desegokitasun** zapaltzaileak konpontzen eta egiarik nabarmenenak onartzen. Juan Martin Elexpuru

**2** (hitz elkartuetan)

Eta horrenbestez ez ditut adierazi nahi bakarrik eta nagusiki hitz-**desegokitasunak**, errepikapen nahiz truka-bihurriketa onartezinak, ez eta hitzandikeria astunezko zati eramangaitzak, baizik eta bazkalondoko prosa horren eite oro har indargea. Juan Garzia

---

# desegokitu

, desegoki(tu), desegokitzen **1** da *ad* egokitasuna galdu.

Ikastetxeko ate nagusia gainditu nueneko, mundua **desegokiturik** bezala aurkitu nuen, eta irudipen hura gero eta nabarmenagoa egin zitzaidan aldapan behera nindoala. Pedro Alberdi

Nola errekastoaren urak inoiz, naturaren poderioz handiturik, legokiekeen ubideari **desegokitu** eta malda arrotzetan behera amiltzen diren; hala gizakiaren ekintzak ere, patuaren halabeharrez arazoturik, asmo eragile guztiari alderatu, eta ustekabeko nora ezean suertatzen dira. Pedro Alberdi

**2** oker gertatu, oker tokatu.

Lehenbizikoa, irailaren 26an izan bazuten, azkenengoa, ekainaren 6an egokitu zitzaien, **desegokitu**, hobe esanda. Pello Zabala

Dohain bainoago kondena beltz izugarria dela Nemesiori **desegokitu** zaiona, lehen itxura batean kontrakoa balirudike ere. Karlos Linazasoro

---

# desegokitzaile

*izond* desegokitzen duena.

Beraz ez da, sena bezala, egokitzailea, ez eta behar primarioa bezala, funtzionala, arras **desegokitzailea** eta disfuntzionala baizik. Berria - Harian

---

# desegonkor

*izond* egonkorra ez dena.

Eguraldia apurren bat sosegatzen deneko sasoia ere bai: aire-masa **desegonkorren** borrokak mantsotzen direlako. Pello Zabala

Autoek daramaten karga aerodinamiko baxuek balaztatze distantzia luzatu egiten dute, eta gidariak lan egin behar du autoa **desegonkorra** delako maniobra horretan. Berria - Kirola

---

# desegonkortasun

*iz* desegonkorra denaren nolakotasuna.

PSOE «**desegonkortasuna** eta ezinegona» sortzen ari delako lurralde politika arloan. Berria - Euskal Herria

**Desegonkortasun** handia zegoen, bai estatu kolpe saioaren aurreko garaietan baita 1981ean estatu kolpea gertatu zenean ere. Berria - Euskal Herria

KASek helburu politikoa zuen, **desegonkortasun** sozial eta instituzionala eragitea. Berria - Euskal Herria

Herrialdean sortu nahi duten **desegonkortasunaren** estrategiak kontrako eragina izan duela ohartuta. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

1989ko elkarrizketak hasi zirenerako Aljeriako Iraultzak higadura eta **desegonkortasun** sintomak zituela. badirudi interes boteretsu eta neurrigabe bat dagoela euskal herritarrengan **desegonkortasun** eta beldur faktore bat zabaltzeko. Berria - Harian

---

# desegonkortu

, desegonkor(tu), desegonkortzen da/du *ad* desegonkor bihurtu, egonkortasuna galdu edo galarazi.

Proposamen honek ez du Estatua **desegonkortu** edo elkarbizitza orekarik leherrarazi nahi. Berria - Euskal Herria

Euren asmoa ez dela, inondik inora, Arabako Aldundia eta Udala **desegonkortzea**. Berria - Euskal Herria

Berezko simetria-akatsen ondorioz, arazo handiak agertzen ziren: inperfekzio txikienek prozesu osoa **desegonkortzen** zuten. Fernando Morillo

Prozesuotan beti daude bidea **desegonkortzeko** ekimenak. Berria - Harian

---

# desegun

*iz* okerreko eguna.

**Desegunetan** beti da desordu . Iñaki Arranz

---

# desehortzi

, desehortz, desehorzten du *ad* norbait edo zerbait, ehortzirik dagoen lekutik atera.

Zenbaiten ustez, emakume hori **desehortzi** eta errito sataniko batean erabili zuten. Aingeru Epaltza

Sabino **desehorztean** jazotako guztia zehatz-mehatz jakin nahi zuela hil aurretik. Ramon Saizarbitoria

Zeren desehorztea eta zoria loturik baitaude: gudariak bere berna **desehortzi** ezinak, patuaren gaindiezina eta kanpokotasuna adierazten du. Markos Zapiain

Deliberatu baitzen hurrengo egunean berean kutxaren desestaltzerat eta **desehorzterat**. Joan Mari Irigoien

---

# desehorzketa

*iz* desehorztea.

Alderdi "gizatiarrez" baino gehiago arduratu zela aitatasunaren azterketa biologikoaren inguruko aurrerapen zientifikoen dibulgazioaz, eta, nola ez, **desehorzketaren** alderdi etiko eta legalaz -gorpuzkiak bizidunok bezala daude legearen babespean-. Ramon Saizarbitoria

Ceferino Xemein azaldu zen, esanez, Sabinoren **desehorzketa** gertakizun garrantzitsua izaki, agiri bat egitea eskatzen zuela. Ramon Saizarbitoria

Hirugarren **desehorzketaren** argazkiak. Ramon Saizarbitoria

**desehorzte** *iz* zerbait, ehortzirik dagoen lekutik ateratzea.

Annie Parmentier-ek bezala, **desehorztea** zela-eta pena handia sentitzen zuela esan zuen. Ramon Saizarbitoria

Zeren **desehorztea** eta zoria loturik baitaude: gudariak bere berna desehortzi ezinak, patuaren gaindiezina eta kanpokotasuna adierazten du. Markos Zapiain

---

desein ik **deseinu**[1].

---

deseinatu ik **diseinatu**.

---

**deseinu**[1] *(orobat **desein**)* *iz* asmoa, xedea.

Ai!, jainkoek ez zuten, baina, **desein** hori. Xabier Olarra

Doluan lagun izango hituen, zeren, munduaren begientzat ez baitago patu tragikoagorik, halabehar tragikoaren **deseinaz** adiskide bat hiltzen duenarena baino... Xabier Olarra

Alabaren ohantzetik ilobaren lehen negarrak entzun orduko, aitatxik kontsideratu zuen **deseinu** gorenetara deitua nintzela, eta horren marka zela halako datan munduratu izana. Aingeru Epaltza

---

deseinu[2] ik **diseinu**.

---

**desekonomia** *iz* okerreko ekonomia.

**Desekonomiak** sortzen dira. Edorta Jimenez

---

**desenamoratu** *izond* maitasun sentimena galdu duena.

Biak **desenamoratuak**. Jasone Osoro

---

**desenbaltsamatu**, desenbaltsama, desenbaltsamatzen du *ad* baltsamatzea desegin.

Momiak **desenbaltsamatzeko** ona omen denez, ezin hobeki etorriko zaiguk. Aingeru Epaltza

---

**desenbarkatu**, desnbarka, desenbarkatzen da-du *ad* lehorreratu.

'Ushuaian **desenbarkatuko** naiz,' esanen diezu. Joseba Sarrionandia

Korsikar ogroak Cape Jean aldean **desenbarkatu** du. Iñigo Aranbarri

Izpiritu espainola ondua zegoen, feniziar, greko, erromatarrek han **desenbarkatu** baino lehen. Joxe Azurmendi

---

desenbarko ik **desenbarku**.

---

**desenbarku** *(orobat **desenbarko**)* *iz* lehorreratzea.

**Desenbarkurako** leku egokiagoa behar da bilatu. Joseba Sarrionandia

Ingelesek **desenbarkoa** eginen zutela entzuten zen Bilbon, bi alderditara jokatu nahi zuela iruditu zitzaidan, nik ezeren ahalmenik baneuka bezala. Koldo Izagirre

Hirurak alderako jaso zuten **desenbarku** agindua, Ruperren kantu baten bidez. Unai Iturriaga

---

**desenfokatu**, desenfoka, desenfokatzen **1** da/du *ad* fokutik atera.

Eta amak erakutsi egiten zizkidan, baina nik desilusio pixka bat hartzen nuen **desenfokatuta** zeudelako, eta aita atze-atzean baizik agertzen ez zelako, itzal ñimiño baten moduan. Fernando Rey

**2** (era burutua izenondo gisa)

Etxeko pasabide luzeak are luzeago ematen du, seguruenik begirada handitu eta **desenfokatuaren** ameskeria da. Sonia Gonzalez

· *irud/hed* Ironiak: literatura **desenfokatua** Berria - Kultura

---

**desenfoke** *iz* fokatze okerra.

Zaila zen erantzunok argazki hari ostea, **desenfokeak** erantzun iturri handienak, begiak, laino zuri fin eta mehar batez estali baitzituen, paperezko Nerearen komunikazio gaitasuna lausotuz. Eider Rodriguez

Eta **desenfokerako** zaletasuna gorrotatu zuen, bere burua madarikatu zuen *Tendences* aldizkariak eta *fashion* argazkilarien joerak imitatu izanagatik. Eider Rodriguez

---

**desenfundatu**, desenfunda, desenfundatzen du *ad* zorrotik atera. • *irud/hed*

Mikelek txiskeroa **desenfundatu** zuen patrikatik. Unai Iturriaga

---

**desengainagarri** *izond* desengainatzen duena.

Halaxe gelditzen naiz ni, hizkuntzari dagokion aldetik, Arizkungo herri desertore, engainagarri eta **desengainagarritik** [...] txit banatua eta bereizia. Iñaki Segurola

**desengainatu**, desengaina, desengainatzen **1** da *ad* norbaitek ikusi okerra dela zerbaitez edo norbaitez duen uste positiboa.

Ikusten dut, sentitzen dut, sinesten dut, **desengainatu** naiz. Josu Zabaleta

Hitz egiten zutelarik, zainetan ziren, loriatuak, berotuak... ondotik, aldiz, Maddalenek mutiko horien ezagutza egiten zuelarik, beti **desengainatua** gelditzen zen. Ramuntxo Etxeberri

**Desengainatu** baizik ez direnak doazela, bada, aurrera, arima libre eta bihotza bare. Josu Zabaleta

**Desengainatuta** atera zen handik mutila, ametsetan inoiz gehiago ez zuela sinetsiko esanez bere buruari. Xabier Aranburu

-Oraindik ez? -galdetu zuen Dembak, benetan harrituta, **desengainatuta** eta haserre, artean heldu ez zirelako-. Anton Garikano

Nolabait herriak baditu arrazoiak **desengainatuta** eta zapuztuta egoteko, eta Humala atsekabe horretaz baliatu da. Berria - Mundua

Nahikoa **desengainatuta** dago guztiekin ere. Harkaitz Cano

Lurrean ukitu eta neurtu zitekeenarekin arrunt etsita, Ingalaterrako jakintsuen jakituriaz **desengainatuta** , [...] Lurrean ukitu eta neurtu ezin denaren bila abiatu zen, aingeruen hizkuntza entzun, ulertu, aditu eta deszifratzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

• **2** du *ad* norbaiti ikusarazi okerra dela zerbaitez edo norbaitez duen uste positiboa.

Hochedék ezin **desengaina** zaitzake. Josu Zabaleta

Ez dut, jakina, nire senarra **desengainatzeko** inolako asmorik. Antton Olano

Egia esan, ez dut inoiz ezertan **desengainatu** . libertate zaletasun gaizki ulertuak erakarririk anarkia ezarri nahi dutenak **desengainatu** nahi ditudalako. Antton Olano

Horrek pittin bat **desengainatu** egiten nau. Berria - Harian

Berarekin nengoenean, ordea, hain nengoen beldurtuta egin edo esaten nuen edozer gaizki hartu, eta **desengaina** nezakeelako, non liluratuko zuen formula ziur eta erabatekoaren beharra sentitu bainuen. Ramon Saizarbitoria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Laborista **desengainatuak** erakarri dituzte, baita kontserbadore ohi batzuk ere. Schopenhauer bera gozatzaile **desengainatua** izanik, sinesteak oro, itxaropenak, olertiak, ilusioak azpikoz goratu zituen. Berria - Harian

Horrela bada, elkarte bat antolatu zen pertsona erne, **desengainatu** , eszeptikoz osatua. Josu Zabaleta

---

**desengainatze** *iz* norbaitek sentitzen duen inpresio txarra, zerbaitez edo norbaitez duen uste positiboa okera dela ikustean.

**Desengainatzearen** fasea ez da behintxo bateko une laburra izaten, gatazketan luzatzen da. Joxe Azurmendi

---

**desengainu** *(ETCn **641** agerraldi)* **1** *iz* desengainatzea. ik **desilusio**.

Pozaren ostean laster etorri ziren **desengainuak** , ostera. Edorta Jimenez

-Beti da plazera zu ikustea -esan zuen-, baina ez dut nahi Trumbell jaunak **desengainurik** har dezan. Oskar Arana

**Desengainu** itzela hartuko zuen inoiz harekin elkarrizketa serio bat edukitzea lortzen bazuen. Oskar Arana

-Begira, Arantxarekin hitz egitean, egundoko **desengainua** hartu zutela esan ez, baina adierazi bai, egin zidak. Fernando Morillo

Umearen kontuarekin **desengainu** handia hartu du, guztiz traumatizatuta dago. Patxi Iturritegi

Izugarrizko **desengainua** hartzeko beldur naiz; beraz, nahiago dut amets egitearekin konformatzea. Xabier Aranburu

Bozen ondoren **desengainua** hartuta ala baikor sentitzen zara? Berria - Mundua

**Desengainu** handia izan zuen Jonek fedearekin eta eskolapioekin. Xabier Mendiguren Elizegi

**Desengainu** handia islatu zen haren begitartean. Migel Angel Mintegi

**Desengainu** bat zutenean, isiltasunean bilatzen zuten babesa. Xabier Olarra

Batez ere amodiozko **desengainuak** nituen zintzurrean trabatuta. Fernando Rey

Nahitara huts egin ote zuen, eta **desengainu** bat eman?; katuaren eta arratoiaren jostaketan ote zebilen berarekin? Patxi Zubizarreta

**Desengainu** handia eman dit. Berria - Kultura

**Desengainu** handia izan al da horren gutxi jokatzea? Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Halako **desengainu** katean ari zen Hadass sarrarazten eta ari zen bera sartzen, eta hainbeste arau ari zen urratzen, non sekula ere ez baitzen gai izango haien guztien zigorra ordaintzeko. Koro Navarro

Zalantza izpirik edo **desengainu** aztarnarik ttipienak mezu osoaren sinesgarritasuna suntsi lezake. Txema Ramirez de la Piscina

· Pavese berriki etorria zen konfinamendutik eta oso goibel zegoen, amodio- **desengainu** bat jasan zuelako. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desengainu bat** (3); **desengainu eta** (3); **desengainu handia** (8); **desengainu handia izan** (5); **desengainua adierazi** (3); **desengainua hartu** (10); **desengainua hartu zuen** (3); **desengainua hartuko** (3); **desengainua hartuta** (3)

---

**desengantxatu**, desengantxa, desengantxatzen da *ad* deslotu, askatu.

Bertan behera utziko dut Goio, bizitzatik **desengantxaturiko** bagoiaren moduan. Joseba Sarrionandia

---

**desenkajatu** *izond* desegina.

Oraindino ikus dezaket bere aurpegiera, tinko baina **desenkajatua** , zapaldua, estutua, zanpatua eta behearen kontra egotzia. Sonia Gonzalez

---

**desenkantatu**, desenkanta, desenkantatzen **1** du *ad* aztikeriatik aterarazi.

Enric Argullol eta Eugeni Trías bezalako filosofoek gaineratzen dute naturatik sobera urrundu garela, eta bai natura bai mundua **"desenkantatu"** egin dugula. Patxi Zubizarreta

Santxok Dulzinea **desenkantatzeko** azoteak hartzen dituen bitartean Sansonek tenploa bertan behera bota zuela gogoratzen du, eta hantxe hil zirela guztiak. Patxi Ezkiaga

**2** (era burutua izenondo gisa) desengainatua.

Donostiaren xarma esanezinak erakarritako intelektual **desenkantatuak** . Iñaki Iñurrieta

---

desenkanto ik **desenkantu**.

---

## desenkantu *(orobat* ***desenkanto****)* *iz* desengainua.

**Desenkantuaren** jardina kultibatzen duten "alesandrino depresiboak" deritze Rortyk, Nietzscheren terminoaz. Joxe Azurmendi

Irakasleen artean, berriz, Zorroagako Filosofia Fakultatean ari ziren Espainiako intelektual ospedunak batzuk, euskal mitoa hurbiletik dastatzera etorriak-edo, trantsizioko **desenkantoak** jotzen zituen bazterretatik ihesi. Iñaki Iñurrieta

---

## desenklavatze *iz*

Tripako gantzagatik atorra horailak leher zorian, besoak V moldean airean altxatuz, ezagunak txukunki agurtuz, suprefeta eta hedebeltzen buruak Joanesen omenaldian zirelako paradaz baliatuz, enklavatze edo **desenklavatze** solas serioagoetara bihurtzen ziren. Itxaro Borda

---

## desenkoadratze *iz* koadrotik atera.

Ez da ahaztu behar **desenkoadratze** horiek oso kritika gogorrak ekarri zizkietela beren garaian [...] une horretako pinturan guztiz indarrean zegoen koadratzearen konbentzioa argazkilaritzaren ikusmolde nabarmen batez kutsatzen zutelako. Josu Zabaleta

---

## desenkontru *iz* bat ez etortzea.

Hasi berritako gure goiti-beheitiak eta hondar urteetako **desenkontruak**. Aingeru Epaltza

Drama pertsonalak, deserrotzearen zauriak, errotzeko borondatea, enkontruak-**desenkontruak**. Berria - Kultura

---

## desenkusa 1 *iz* aitzakia, eta bereziki hutsegite bat zuritzeko bidea. ik**estakuru**.

Irribarretxoa egin zuen, baina ez indiskrezioaren **desenkusa** eske, gaizkiulertua gozatzen baizik. Anjel Lertxundi

Elizatik irteterakoan, bultza honi eta **desenkusa** hari egin nuen Jeronimorenganaino. Anjel Lertxundi

**Desenkusa** honi eta bultza hari egin behar izan nuen neskarenganainoko bide jendetsua. Anjel Lertxundi

Egoitza hartatik nola aldegin ote nuen, horixe ere ez dakit; azalpenik gabe, **desenkusarik** gabe: joan egin nintzen, kito. Joxe Austin Arrieta

Itzultzeko orduan, luzatu eta luzatu, **desenkusa** eta aitzakia ugari, egoerari errua botaz. Elizen arteko biblia

Momentuko urduritasunean Monikari argibide bat, **desenkusa** bat zor niola pentsatu nuen. Joxean Agirre

**Desenkusak** azaldu eta adiskidetu egingo gara. Joxan Elosegi

**Desenkusak** egin nizkion alemana ez jakinik, eta hark ere, frantsesa biziki gaizki mintzo zuela. Marzel Etxehandi

Zuei haren **desenkusak** agertu behar dizkizuet, baina lasaiago gaudela, aireportuan. Patxi Zubizarreta

Denek Anastasioren **desenkusak** entzun zituzten, baina haiek ez zieten kendu barru-barruan sortu zitzaizkien nazka eta irain-sentimendua. Aitor Arana

Onar itzazu ene **desenkusak**. Patxi Zubizarreta

Doilorkeria honi, gai garen maiestate eta antze guztiaz behar diogu, aurpegi ez ezik, **desenkusa** ere eman. Juan Garzia

Ohiko istorio bat, eskatu gabeko **desenkusa** gehiegirekin apaindua. Anjel Lertxundi

**Desenkusazko** irribarretxoa egin dit, lotan uste ninduelako seguru asko. Anjel Lertxundi

Ez diozu **desenkusazko** deus esan, ez diozu barkamenik eskatu. Anjel Lertxundi

Baten bati barkamena eskatzea gauza zaila da, urguilu tematiaren eta damu negartiaren artean oreka bilatzeko egintza labaina, eta beste pertsona horren aurrean bihotza benetan ireki ezean, **desenkusa** guztiek huts eta faltsu ematen dute. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Alessandroren **desenkusa** hitzak entzun orduko, jakin zuen emakumeak, eskarmentu handiko izaki, zerbait ezkutatzen ziola maitaleak. Felipe Juaristi

Jarraitu egin nion gure Super-Constellation-eraino, alferrikako telegramak artean eskuan neramatzala, **desenkusa**-mota oro adierazten niola, hari bost axola izan arren desenkusok. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desenkusa eta** (3); **desenkusa hari** (3); **desenkusak egin** (3); **desenkusaren bat** (4); **desenkusazko keinu** (3); **eta desenkusa** (6); **eta desenkusa hari** (3); **honi eta desenkusa** (3)

---

## desenkusagarri *izond* desenkusa daitekeena.

Halaz guztiz, horiek ere ez dira guztiz **desenkusagarri**. Elizen arteko biblia

---

## desenkusaka *adlag* desenkusak eginez.

-Nekaturik eta aldarte txarrean nengoen -hasi zen Hinbad **desenkusaka**-. Patxi Zubizarreta

**Desenkusaka**, bere baitan egiten zuen: "ene emaztearenak, emakume gisara, egin dik, baina ni, neure urteekin, ez nauk lizunkeriara limurtzen diren horietarikoa". Patxi Zubizarreta

Erdi **desenkusaka** erdi erasoan hasten da: txantxa bat izan dela, barkatzeko, baina ez nukeela horrela hartu behar. Anjel Lertxundi

Zezina, sardina zaharrak, jengibre-opilak, mahaspasak... -eskuak mugitu zituen **desenkusaka**-. Anjel Lertxundi

---

## desenkusatu, desenkusa(tu), desenkusatzen 1 da *ad* norbaitek bere hutsegitea zuritu.

-Oso erloju txikia eta kaxkarra zen, amona... -**desenkusatu** nintzen. Joan Mari Irigoien

-Bizarra atera arte, behintzat, gurean babestu nahi izan genuen -**desenkusatu** zen ama. Patxi Zubizarreta

Ez zintudan mundutik guztiz bazter dagoen zoko honetara ekarri behar, Hester -**desenkusatu** zen Mathilde jarraian-. Anjel Lertxundi

-Parkatu -**desenkusatu** eta lurrera begira geratu zen, eskuak begien aurrean jarrita. Juan Luis Zabala

Zeuk ere ikus dezakezu -**desenkusatu** zen Andreas, erremediorik ez duen gauza baten aurrean erakutsi ohi den garrantzirik gabeko etsipenez. Anjel Lertxundi

Neure artean pentsatu dut ez daukala zergatik **desenkusatu** konpresa batzuk haztatzeagatik. Agurtzane Juanena

**2** aitzakiak jarri.

Behin baino gehiagotan gonbidatu zuen Joanes Iraurgik merkataria Lekeitiora, bere herrira, baina Saltzek ezetz eta ezetz **desenkusatzen** zen, ez zuela astirik esaka, benetako arrazoia bestelakoa bazen ere, isil-gordean zeukana. Felipe Juaristi

Horren ordez, **desenkusatu** egin nintzaion auskalo zein aitzakia jarriz. Anjel Lertxundi

Danceny **desenkusatu** zen, alditxartuxe zela erranez; eta nik, ez bainuen estakururik, kantatu behar izan nuen. Jon Muñoz

**Desenkusatu** nintzen ez nituelako igandeko haragi errea eta hiru barazkiak jango. Koro Navarro

-Apenas zakiat dantzan - **desenkusatu** zitzaion Ada, deliberamendu handirik gabe. Anjel Lertxundi

**3** du *ad* norbaiten hutsegitea zuritu.

Alkateak markesari begiratu eta bekainak jaso zituen, emakumearen hitzak **desenkusa** zitzala eskaturik. Anjel Lertxundi

**Desenkusa** nazak! -eskatu zidan adoretsu. Anjel Lertxundi

Baina trintxera asko abandonatzeko aitzakia ere izan zen, eta, azken finean, porrotaren arduraz **desenkusatzen** zituen. Ramon Saizarbitoria

Saguak **desenkusatu** ere egiten ditu (horrelakoa da egoskorren gaiztakeria), azalduz emakume dohakabeetatik batzuk leher eginik hil zirela, beste batzuk lurrera erori eta lepoa hautsita, eta beste batzuk suspergarri faltaz. Xabier Olarra

**4** ***bere burua desenkusatu***

Eta barka ezak zakarkeria -**desenkusatu** zuen bere burua-. Jon Muñoz

Auzitara eramanik, honela **desenkusatu** omen zuen bere burua: [...]. Joxerra Garzia

Ibiltzeari utzi gabe, hunkiturik eta lotsaz gorriturik, bere burua **desenkusatzen** zuen jendearen aurrean, zeren eta bera gaztetxoa zen, ezdeusa, ezer gutxi egin zuen eta ez zen inola ere heroia, baina, hala ere, berak baino lehenago benetako heroi eta martiri askok izandako heriotza ohoragarri eta eder bera emango zioten. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desenkusatu da** (4); **desenkusatu egin** (14); **desenkusatu egin zen** (6); **desenkusatu eta** (4); **desenkusatu nintzen** (9); **desenkusatu zen** (35); **desenkusatuz bezala** (3); **desenkusatzen hasi** (3); **eta desenkusatu** (6); **eta desenkusatu egin** (4); **hala desenkusatu** (3)

---

## desenkusatze *iz* norbaitek bere hutsegitea zuritzea; aitzakiak jartzea.

-Guk darabilgun eredua oso duk espainola -oharra lagun kazetariak, **desenkusatze** aire batez... Iñigo Aranbarri

---

## desenpate *iz* berdinketa haustea.

Larunbatean hasiko dira ligaxkako partidak, abenduaren 11n final-laurdenak, abenduaren 23an finalerdiak, eta abenduaren 6an, 8an edo 15ean jokatuko da finala Galarretan (**desenpateen** eta ETB1en beharren arabera). Berria - Kirola

---

## desentonatu, desentona, desntonatzen du *ad* gaizki eman.

Paisajearekin sekulan **desentonatzen** ez duten gauzak. Koldo Biguri

---

desentralizazio ik **dezentralizazio**.

---

## desentxufatu, desentxufa, desentxufatzen du *ad* deskonektatu.

**Desentxufatuta** gelditzen da igogailua, ez gora ez behera. Unai Elorriaga

Eguzkia, spot-ligth itzel hori, **desentxufatuta** dago. hilargiak errauts azala du edifikzioen gainean. Patziku Perurena

---

## desentzierro *iz*

**Desentzierroa** Martutenen. Berria - Harian

---

deseo ik **desio**.

---

## deserabilera *iz* erabilerarik eza.

Eraz eta moldez ez dugu legeen indargabetzea baimendu, legearen **deserabilera** edo erabilerarik eza tartean direla. Andres Urrutia

---

## deseraginkortasun *iz* eraginkortasunik eza.

Sindikatuen praktika murriztaileek, makinaren oldar hiltzaileari galga jartzeko **deseraginkortasun** antolatuaren forma bezala asmatuek, langileen beste xede baterako balio izan zuten. Iñaki Mendiguren

---

## deseraiki, deseraiki, deseraikitzen **1** du *ad* eraiki dena desegin.

Urtegia **deseraikitzera** joan zirela argi utzi zuten. Edurne Elizondo

**2** testuak eta kidekoak analizatzean, hizkuntza-ikurraren adierazlearen eta adieraziaren arteko egokitasunik eza oinarritzat hartu.

Deskripzioei garrantzi handia ematen dien kontapoesia ederra aurkeztuko zaigu eta irakurleak ulermenerako bidean kodeen erraietan sartu eta **deseraikitzea** izango du eginkizun. Berria - Harian

Derridak Mendebaldeko zientzia eta metafisikaren bazterrak astindu ditu eta ohiko logozentrismoaren ontologiaren subjektuaren (eta objektuaren) eraikuntza **deseraiki**, hizkuntza eta testuen zirrikituak aldenduz, lurrikara bilakatu arte. Askoren artean

Ibon Aranberrik (Deba, 1969), eskultura eta diseinu patroiak deskodetzeko sentsibilitatea erabiliz, kultura ikonoak hobeto ulertzera garamatza, **deseraiki** behar diren edo aintzat hartu behar ez diren historiaren eraikitzaile gisa. Berria - Kultura

Hitzez ematen zitzaizkion poemak eta aforismoak eta aginduak marrazkien bidez desegin, **deseraiki**. Karlos Linazasoro

---

## **deseraikitze** 1 *iz* eraiki dena desegitea.

Afganistango talibanak, Budaren eskultura erraldoiak apurtzen hasiak ziren eta ene buruari galdetzen nion, eraikitzea artea bada, zergatik ez ote den gauza bera **deseraikitzea**. Hasier Etxeberria

**2** testuak eta kidekoak analizatzean, hizkuntza-ikurraren adierazlearen eta adieraziaren arteko egokitasunik eza oinarritzat hartzea. ik **dekonstrukzio**.

Villasol-ek eginiko *Elogio segundo de La Folía;* Erdi Arotik datorren itxuraren **deseraikitze** gozoa. Berria - Kultura

---

## **deseraikuntza** *iz* deseraikitzea. ik **dekonstrukzio**.

Adierazgarritasunaren definizioa, eta artea subjektibotasunarekin lotzen duten definizioak batez ere, erro-errotik kritikatu izan dituzte hirurogeiko hamarraldian Jacques Derrida eta **"deseraikuntza"** edo "dekonstrukzio"-ren beste filosofo batzuek, eta Julia Kristeva eta beste kritiko askok. Josu Zabaleta

---

## **deserantsi**, deserants, deseransten du *ad* erantsia duena kendu.

Heriotzaren goibeltasuna **deserantsi** ezinean ibili eta gero, beharrezkoa dut, urpean egon denak bezala, tonuz aldatzea. Bernardo Atxaga

---

## **deserdikatze** *iz ipar* dezentralizazioa.

Badira ere **deserdikatze** diotenak bainan **deserdikatze** horrek ere ez ote du ba halako oker aire bat? Herria

---

## **deserdiraketa** *iz ipar* dezentralizazioa.

Bai erraiten diogu erakasleen kopuruaren mantentzeari, egiazko **deserdiraketa** eginez, administrazio zentralistaren ibilmolde pisua arinduz. Herria

Departamenduak gero eta gehiago eremu hunkitzen ditu, 1982ko **deserdiraketa** erreformaz geroztik abiatua den bidean. Herria

2004 udako **deserdiraketa** lege berriaren arabera, estatuak lekuko botere baten esku utziko baitu Baionako portuaren jabetza eta gidaritza. Herria

---

## **deserdiratze** *iz ipar* dezentralizazioa.

Ondotik, kasetalari multxo batekin bildu gira Raffarin-en **deserdiratze** xede hori begi onez ikusten dugula erraiteko bainan ez dugula edozoin neurri motel onartuko. Herria

Frantses Estaduaren **deserdiratzeko** (décentralisation) xedea Pariseko gobernuak joanden ostiralean Nantes-ko hirian ofizialki plazaratzen zuela eta, Eusko Alkartasunak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak bedera ordezkari bidaltzen zuten egun hortan berean ipar Euskal Herriak bere erakunde propioa zoin duen baitezpadako argiki erraiteko. Herria

---

## **deseroso** 1 *izond* erosotasunik gabea.

Idazten ari zenaz galdetzea bururatu zitzaidan, baina ez nuen ausardiarik izan, ez nion-eta bere lanaren balizko lekuko **deseroso** haietako baten inpresioa eman nahi. Anjel Lertxundi

Aulki **deseroso** batean eserita, eskuak eta hankak lotuta. Keinu **deseroso** bat bihurtu nion. Felipe Juaristi

Baiezko **deserosoa** egin nuen buruaz. Anjel Lertxundi

Isilik geratu ziren gai **deseroso** hari berriro heltzeko beldurrez. Harkaitz Cano

Gogoeta **deserosoak** egiteko garaia da. Txema Ramirez de la Piscina

Janson leran erdi etzanda jartzen zen, jarrera **deserosoan**, erdi lo balego bezala. Jose Morales

Fernandorekin bikote eginez lotu ninduten, besoa bihurrituta, izan zitekeen erarik **deserosoenean**; horrela egin genuen Puertorainoko bidea. Jokin Urain

Norbait begira zutelako sentipen **deserosoa** zeukan. Iñaki Mendiguren

Isiltasun **deserosoa** saihestu nahian, hiriaz hitz egiten hasi nintzen. Anjel Lertxundi

Garbi zegoen **deserosoa** egiten zitzaiola gaia. Anjel Lertxundi

Poetak **deserosoak** egiten zaizkio errealitate egunerokoan haragiztaturiko errepublika politikoari. Anjel Lertxundi

**2** (izan eta kideko aditzarekin)

Pentsatzen nuen **deserosoa** zela edonorentzat leku arrotzean turista bakartiaren moduan ibiltzea. **Deserosoa** zen egoera. Bernardo Atxaga

Oso egoera **deserosoa** zen hura niretzat. Ramon Saizarbitoria

Emakume mota asko dago, baina esango nuke emakumeak **deserosoak** garela. Ana Urkiza

Umbertoren hatzak nire kokotsean jarraitzen zuen, eta nik, begiak erdi itxita, **deserosoa** baitzitzaidan Umbertoren begirada aztertzailea eraman beharra. Anjel Lertxundi

Ideia gogaikarria eta **deserosoa** zitzaion erabat. Harkaitz Cano

Umeak lo jarraitzen zuen, baina gero eta **deserosoagoa** zitzaidan bera han ikustea. Harkaitz Cano

Berarentzat **deserosoagoa** da niretzat baino. Anjel Lertxundi

Senarrik **deserosoena** ez da, hala ere, ama bat bezain gogaikarria izaten. Jon Muñoz

**Deserosoak** ez ezik, garestiak ere badira. Berria - Ekonomia

Horregatik, telefono saioak **deserosoak** gertatzen zitzaizkidan. Ramon Saizarbitoria

**3** (adizlagun gisa)

Enrique Del Valle, 27 urtekoa, Espainiako Segovia hirian jaioa, **deseroso** mugitu zen Citroën 11CV erraldoiaren larruzko eserlekuaren gainean. Alberto Ladron Arana

Baina egingo nuke susmatu duela zerbait bereizia gertatu zaigula, **deseroso** mugitzen hasi baita sofan. Anjel Lertxundi

**Deseroso** sumatzen dut Yolo, baina ez dut uste Ferminen agerpenagatik denik. Pako Aristi

Aita **deseroso** bihurritu zen aulkian. Wood isildu egin zen, eta **deseroso** ematen zuen. Anjel Lertxundi

Haien arnasestu, hasperen eta auhenen lekuko, **deseroso** sentitu naiz. Patxi Zubizarreta

-Oso arraro sentitu naiz -esan zuen Ronek, sorbaldak **deseroso** goratuz-. Iñaki Mendiguren

Gretaren begiradak **deseroso** sentiarazi zuen Gabriel. Irene Aldasoro

Nihilismorako joera hark **deseroso** jartzen ninduen. Anjel Lertxundi

Zutik geunden, bata besteari **deseroso** begira. Alberto Ladron Arana

Emakumeak, **deseroso**, bekain beltzez margotuak jaso zituen. Patxi Zubizarreta

-Ez -erantzun zuen Tiborrek, **deseroso** eta lotsatuta. Ander Irizar

Hasperen egin zuen, ez estututa, baina bai **deseroso**. ondoko mahaian eseri zen, lotsati eta **deseroso**. Jon Muñoz

-Spagettiak, olagarroa eta entsalada -jarraitu du **deseroso**, baina irribarretsu. Patxi Zubizarreta

**Deseroso** samar sentitzen zen. Iñaki Mendiguren

Ez dugu nahi beti guztiz **deseroso** egon; deserosotasun maila jaistea nahi dugu. Berria - Mundua

Lehenengo begiradan, etxeak estu eta **deseroso** daudela ematen du, hiriaren harrizko gerrikora igota. Koro Navarro

Badirudi, hala ere, inor ez dagoela **deseroso**. Lourdes Oñederra

Eguna joan eguna etorri, gero eta **deserosoago** ni. Joxerra Garzia

**4** (-en atzizkiaren eskuinean)

Inoren txamarra bat neraman soinean, norbaitek niri ospitalean utzia, enbarazu egiten zidana, handiegia baitzen niretzat, eta denbora guztian sentitzen nuen haren **deserosoa**. Joxe Austin Arrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aulki deseroso** (3); **aulki deseroso batean** (3); **baina deseroso** (3); **deseroso bat** (3); **deseroso batean** (5); **deseroso batean eserita** (3); **deseroso begiratu** (3); **deseroso dago** (4); **deseroso egon** (5); **deseroso ematen** (3); **deseroso ere** (3); **deseroso eta** (18); **deseroso horretan** (4); **deseroso hura** (5); **deseroso mugitu** (9); **deseroso mugitu zen** (7); **deseroso nengoen** (3); **deseroso samar** (11); **deseroso samar sentitu** (3); **deseroso samarra** (4); **deseroso sentiarazi** (6); **deseroso sentiarazten** (15); **deseroso sentiarazten zuen** (6); **deseroso sentitu** (27); **deseroso sentitu naiz** (3); **deseroso sentitu nintzen** (6); **deseroso sentitu zen** (10); **deseroso sentituko** (3); **deseroso sentitzen** (21); **deseroso sentitzen hasi** (3); **deseroso sentitzen nintzen** (3); **deseroso sentitzen zen** (4); **deseroso zegoen** (5); **du deseroso** (4); **egin du deseroso** (3); **egoera deseroso** (8); **ere deseroso** (4); **eta deseroso** (28); **eta deseroso sentiarazten** (3); **horrek deseroso** (3); **jarrera deseroso** (3); **oso deseroso** (7); **ronek deseroso** (3); **urduri eta deseroso** (3)

**bat deserosoa** (3); **deserosoa baita** (4); **deserosoa da** (16); **deserosoa dela** (5); **deserosoa egin** (6); **deserosoa egiten** (8); **deserosoa egiten zitzaidan** (5); **deserosoa eta** (4); **deserosoa gertatzen** (4); **deserosoa izan** (5); **deserosoa izan zen** (3); **deserosoa izango** (3); **deserosoa sortu** (3); **deserosoa zela** (4); **deserosoa zen** (7); **deserosoak izan** (3); **egoera deserosoa** (8); **eta deserosoa** (6); **eta deserosoago** (5); **eta deserosoak** (6); **gero eta deserosoago** (4); **isilune deserosoa** (4); **oso deserosoa** (6); **talde deserosoa** (5)

---

# deserosoki *izond* erosotasunik gabe.

Indartsu samar jo die kristala, larritasunez, **deserosoki**. Karlos Linazasoro

**Deserosoki**, Del Valle ohartu zen Heydrichen bulegoko izu-ikara bera ere halako malenkonia gozo batez gogoratzen hasia zela. Alberto Ladron Arana

---

# deserosotasun **1** *iz* desorosoa denaren nolakotasuna; egoera deserosoa.

Larritasuna, **deserosotasuna** edota hilobi-itxura iradokitzen zuten objektuz mukuru betea. Mirentxu Larrañaga

**Deserosotasuna** begitartean, bizargina isil-isila geratu zen. Patxi Zubizarreta

Badirudi zuzentasunak itsustu egiten duela eguneroko bizitza arrunt akatsez betea, **deserosotasuna** dakarkiola arrunton bizitza inperfektuari. Anjel Lertxundi

**Deserosotasun** horren ondorioz edo haren ordezko, ugari edan zenuen; nik ere bai. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere jokabide horretatik inolako ezbeharrik eta **deserosotasunik** sortuko ez zaizuelako uste osoan. Jon Alonso

Nire **deserosotasunak** hor zirauen, ordea. Monika Etxebarria

Entzuleari zer edo zer sentiarazi nahi diogu, gozamena, gorrotoa, **deserosotasuna**... Berria - Kultura

**2** *pl* norbait deseroso sentiarazten duten gauzak.

Ez zaude hemengo **deserosotasun** hauekin ohituta. Anjel Lertxundi

Ingurunearen **deserosotasunak** saihesteko ahalmena, Nahiago dut toki honetako anaiek neke eta **deserosotasunak** Jainko Jaunaren maitasunagatik eramatea. Irene Aldasoro

Eta sendotasuna ez al dugu, akaso, erabiltzen **deserosotasun** guztiak eta gure ahalmenetik kanpo dauden gauzak arbuiatzeko? Imanol Unzurrunzaga

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Deserosotasun** sentsazio difuminatu baten menpe, tragoxka luzea eman zion edariari. Aritz Gorrotxategi

Potzolok **deserosotasun** keinu batez jasan zuen ziria. Aingeru Epaltza

Estatu hori mantentzeko zergak ordaintzen ditugunez, ez dugu nahi beti guztiz deseroso egon; **deserosotasun** maila jaistea nahi dugu.. Berria - Mundua

Beharbada, **deserosotasun** puntu bat agerian instalazioen modernotasunagatik -argitasun gehiegizkoagatik, batez ere-. Ramon Saizarbitoria

•**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Familia osoak eman zion aholku ez zezala Mathilde berarekin eraman, Espainiako etengabeko kalapita politikoak eta herri atzeratu bateko bizi-**deserosotasunak** arrazoi nagusi. Anjel Lertxundi

---

# deserrealitate *iz* errealitaterik eza.

Ustezko iraganean hartzen dutela aterpe, mitotik gertu, **deserrealitatean** direla hazten, ahazten dituela bideko lokatzak eta, edozein kritika bide bozatuz, hala dutela lasaitasun amniotikoa eman eta zabaltzen. Iñigo Aranbarri

---

# deserregulazio *iz* desarautzea.

Informazio-fluxu librearen filosofo berriak estatuarenak ziren hedabideen **deserregulazioa** (pribatizazioa, alegia) eskatzen hasi ziren. Txema Ramirez de la Piscina

---

# deserri *iz* erbestea. ik **desterru**.

**Deserria** eta kartzela ezagutu dituen gizon jazarria aipatuko dute, zalantzarik gabe. Hasier Etxeberria

-Biziera gerra da... **deserri** arrotzean jasan beharreko pausaldi iheskorra... Txillardegi

Bi urteko gerrak eta hiru urteko **deserriak** egindako tartea kontuan hartuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

-"Bakarrik utzi naute", errepikatu ohi zuen osabak, "bakarrik **deserri** honetan ahaztu". Txillardegi

Eta joan zenean kanpora, pena hartu genuen eta mina ere bai, bagenekielako **deserrira** zihoala eta **deserriak** ez duela barkatzen. Berria - Kultura

Isabel erregina **deserrira** joan berria baitzen. Txillardegi

Matxinadak huts egin, eta jenerala iparraldera bidali zuten **deserrira**, eta han tristuraz eta herriminez hil zen. Felipe Juaristi

**Deserrira** doazen zigortutakoak balira bezala. Felipe Juaristi

Gero **deserritik deserrira**: Haifatik Libano hegoaldera. Berria - Kultura

Egunotan erabaki horren kontrako manifestazio eta protesta franko egin dituzte palestinarrek, hala etxean nola **deserrian**. Berria - Mundua

Hogeita hemezortzi urtez **deserrian** zain egon ondoren. Txillardegi

Geroztik, Parisko **deserrian** bizi izan zen, noizbehinka ihesaldi ero hura nola egin zuen hitzaldi luzeetan esplikatuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bitartean, **deserriko** urrezko kaiolan bizi beharrak Parisko bizimodu eztia mingostu zion, eta baita bere kera eta itxura aldatu ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Artea **deserria** da. Berria - Kultura

## **deserriratu**, deserrira, deserriratzen da/du *ad* atzerriratu, erbesteratu. ik **deserritu**.

Denbora bazihoan, hustuz joan ziren mahaiak, eta zure koadrilakoak izan ziren **deserriratu** ziren azken gonbidatuak, zaratarik egin gabe, eta nik zeharka begiratu nien, uste nuelako hura izan zitekeela agurra. Lander Garro

Rasputinen heriotzaren berria azkar zabaldu zen San Petersburgon, eta tsarrak **deserriratu** egin zituen konplotean parte hartutako guztiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Asiriako erregeak, eskari hura entzunik, eraso eta hartu egin zuen Damasko; hango bizilagunak Kir-era **deserriratu** zituen, eta Retzin erregea hil. Elizen arteko biblia

Bitartean juduak **deserriratzera** edota kristautasunera konbertitzera behartu zituzten. Iñaki Mendiguren

Ez kezkatzeko esan zion, azkenean Parisko parke hartan **deserriratutako** bi espainiar besterik ez zirela. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **deserriratze** *iz* atzerriratzea, erbesteratzea.

Ondorioz, nahiz eta alde materialetik begiratuta Thuleko jende hark asko irabazi, **deserriratzeak** berarekin izaten dituen arazoak sortu ziren, batez ere depresioak, eta psikologoek lanari ekin zioten. Bernardo Atxaga

Bi atal ia simetrikotan banatuta, bi **deserriratze** beharturen testigantza biltzen du *Riomundo*-k. Berria - Kultura

Beren erlijio-legearen lanketan gizarte-zementu berria aurkitu zuten eta gurasoen lurraldetik **deserriratzearen** ondorio ekonomiko tamalgarriak erbestean merkataritzan trebetasun berezia garatuz gainditu zituzten. Iñaki Mendiguren

Eskomikatuak, **deserriratzeak**, intolerantzia, kale gatazka eta borrokak. Esteban Antxustegi

Antza zenez, **deserriratzea** zen gure familiaren patua. Alberto Ladron Arana

---

## **deserritasun** *iz* deserria izateko nolakotasuna.

Jende-oldeen legea zen: etorri-berriek, azkenek, beren miseria eta **deserritasunaren** indar ukiezinarekin bultza egiten zieten aurreko migraziokoei. Iñaki Zabaleta

---

## **deserritu**, deserri(tu), deserritzen *(orobat **desherritu** g.er.)* **1** da/du *ad* norbait bere herritik kanpo bizitzera behartu. ik **atzerriratu**.

Siberiara **deserritu** beharko zutela. Koldo Izagirre

Jadanik esana dudanez, Lapurdi aldean emandako hogei urte hartan, ez nuen nik **deserritutako** karlistekin harreman jarraiturik izan. Txillardegi

Pintatzen ditut, hain zuzen ere, gerra erabat **deserritzeko**. Berria - Kultura

Aspaldi honetan Frantzian **deserriturik** bizi den osaba zaharrari egindako bisitaldietan ez bada... bat ere ez. Txillardegi

On Fermin apaiz apal hark, herrixka apal hartan **deserriturik**, bakardade osoan hila. Txillardegi

**2** (era bururua izenondo edo izen gisa)

Baiona alde horretan **deserrituen** aldeko Batzorde bat edo badagoela jakin diat. Txillardegi

Baionako kaleetan **deserritu** mordoa zebilen, batera eta bestera; erdi biluzik askotan, hotza eta etsipena gainditu nahiz beti, erabat mozkortuta. Txillardegi

Etorri ala itzuli egin ziren ere ez zekiten **deserritu** haiek baino askoz gutxiago. Urtzi Urrutikoetxea

---

## **deserritze** *iz* norbait bere herritik kanpo bizitzera behartzea.

Horren hunkiturik utzi ninduen lehen **deserritze** hark non zernahi onartzeko gauza bainintzen luzaroan neure jatorrizkotzat eduki nuen herrira itzultzekotan bazen. Joxan Elosegi

---

## **deserrotu**, deserro(tu), deserrotzen **1** da/du *ad* norbait edo zerbait, bizi den lekutik edo bere girotik atera.

Atzerriko otomandar erregimenaren pean greziar komunitate kristau ortodoxo menderatua ere neurri batean **deserrotua** izan zen bere lurraldetik. Iñaki Mendiguren

Hiriko bizimoduan **deserroturik** daude. Berria - Mundua

Era berean, norberaren bekatu eta hutsegiteak, oraingoz erabat **deserrotu** ezin direnak, etsi-etsian eraman behar dira Jainkoaren borondatearen zelai garbi-garbira. Joan Mari Lekuona

Neska gaztetxo bat, nerabezarora iristen, bere gizarte ingurutik bortizki **deserrotu** eta inguru estu, urduritasunez eta beldurrez larritu batean sartua. Josu Zabaleta

Elikagaia egun deslokalizatua dago, hots, tradizioz zegozkion sorterri, lantze tradizional eta gorabehera klimatikoetatik **deserrotua**, deskonektatua, eta joera hori areagotu egingo da aurrerantzean ere. Edorta Agirre

Bekatua gure bizitzetatik **deserrotu** eta aienatzeaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Behean, autoak eta ahizparen gorpua, kolpe bakar batean bizitzaren zainetatik **deserrotua**. Aitor Arana

**Deserrotuta** ikusten zuen bere burua. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gerra baino ezagutu ez duen belaunaldi **deserrotua**. Berria - Kultura

Gazte **deserrotu** baten inguruko kontakizuna. Berria - Kultura

Drogen ondotik hiesa etorri zen, sarraskia ekarri zuen madarikazioa; banan-banan garbitu zituen gazte **deserrotuak** eta ez-konformeak, politikaz etsia hartutakoak, utopia iraultzaileez nazkatuak. Juan Kruz Igerabide

Zuhaitzak bai, errotu egiten ditun, baina gizakia jende **deserrotua** dun berez. Joseba Sarrionandia

Kale zikinak, trafiko kaotikoa, jende etsia eta **deserrotua** bazterrik bazter... Patxi Iturritegi

Alde batetik arazoaldiak aurkitzen ditugu, proletalgo **deserrotu** eta arranguratsuak ez ezik, kolonizazio-enpresak ere eskala handian sortzen dituztenak. Iñaki Mendiguren

**Deserrotu** batekin nahikoa diagu. Urtzi Urrutikoetxea

Istorio eta pertsonaien artean ugariak dira etorkinak, iheslariak, **deserrotuak**, edozein arrazoi dela medio sorterria utzi eta beste norabait joatera beharturik daudenak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> deserrotu eta (4)

---

## **deserrotze** *iz* norbait edo zerbait, bizi den lekutik edo bere girotik ateratzea.

Arazoen artean **deserrotzea** eta baztertze soziala izan daitezke nabarmenenak. Berria - Euskal Herria

**Deserrotze** horrek etengabeko mugimendu batera bultzatzen ditu, bilaketa batera, eta marrak egiten dituzte beren biografia pertsonaletan. Berria - Kultura

Urruti bizi beharrak, hala ere, nahitaezkoa izango du nolabaiteko **deserrotzea**. Jokin Urain

Drama pertsonalak, **deserrotzearen** zauriak, errotzeko borondatea. Berria - Kultura

**Deserrotzearen** aurkako borrokak batzen ditu bi pertsonaia nagusi horiek. kartzela zigorren helburua presoak gizarteratzea dela nabarmentzen da eta presoen **deserrotzea** saihestu behar dela azpimarratzen da. Berria - Kultura

---

## deserroztapen *iz* deserrotzea.

Positiboa **deserroztapena** da Finkielkrautentzat, Ilustrazioaren ezaugarria. Joxe Azurmendi

---

desert[1] ik **desertu 4**.

---

desert[2] ik **deserta**.

---

## deserta *(orobat **desert**)* *iz ipar* azkenburukoa, postrea.

Orduan, emazteak eta haurrak landa berdeetan barreiatuko dira eta emeki-emeki uzkurturik, mota guzietako **deserta** eta errazimenta goxoen egiteko, pikor laranja deliziosen biltzen hasiko dira. Aurelia Arkotxa

Bazkaria, Xiberoko ikastolek plantatürik 12 eurotan: (entselada, axoa errisa, gazna, **deserta**, kafea, ondokoa). Herria

Bixkotx eta **deserta** hormatuak fabrikatzen ditu, dela euskal pastiza, dela Pilpa markakoak, 3A sozietatearen izenean. Herria

Eta nahi zutenendako irrisa jateko, paella, eta gero irrisa **desertan** ere... Menane Oxandabaratz

Gauza batzu, sukrekiak-eta, eztiki horiek eta, **desertak**-eta -ene emazteak erran lezake-, horiek partikularzki maite dituztala... Menane Oxandabaratz

Hemen nabil [...] gazta zabalgarriarekin eta yogurrekin egin litezkeen saltsak eta **desertak** irakasten moja xahar bati eta lau sozial gazteri. Koldo Izagirre

**Deserteko** hor ziren, eta loriatuak, *Udazkena* xahar-etxean diren pentsunerak, euskal giro hortan untsa goxatu direnak... Ramuntxo Etxeberri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deserta eta** (3)

---

## desertatu, deserta, desertatzen **1** du *ad* armadatik ihes egin.

Berak **desertatu** egin duela dio, baina ez naiz fidatzen. Alberto Ladron Arana

Ez du **desertatu**, Bruselan horren asmotan ibili bazen ere. Edorta Jimenez

Edonor fusilaraz dezakete **desertatu** eta ihes joateagatik. Mirentxu Larrañaga

Mertzenariorik ere bildu nuen neure ostera, bide jakile trebeak omen eta **desertatzen** lehenak izaki. Juan Garzia

Berehala uko egin nion **desertatu** eta ihes joateko burutazioari. Mirentxu Larrañaga

Ameriketako Estatu Batuetako Armadatik **desertatu** zuen 1965ean, bi Koreen artean zebilela. Berria - Mundua

Duranek partiduaren aginduei otzan men eginez bere postutik **desertaturik** [...] komunistekin bat egitera eraman zituen tropak, azken porroteraino. Edorta Jimenez

Mertzenario buruek 18 paramilitar hil zituzten, **«desertatzera** zihoazelako». Berria - Harian

• **2** da *ad*

Gerra piztu aurretik **desertatu** ziren guardia zibil berberak itzuli ziren herrira. Jon Maia

Maletaren bat ere abandonatu behar izan zuten bertan behera, trenbidearen erdian, zabal-zabalik, gaixoari sabela ireki eta itxi gabe **desertatzen** duten zirujau koldarren moduan. Harkaitz Cano

Ondorioz, anitz euskal idazlek erdarara **desertatuko** du. Markos Zapiain

**3** irud/hed

Hark ez zuen **desertatu** bere kargu errepublikarretik. Jon Maia

**4** (era burutua izenondo gisa)

Kerguelen komisarioaren gogoetak bulego **desertatuetan** barna hegaldatzen ziren. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desertatu egin** (3); **desertatu eta** (6); **desertatu eta ihes** (5)

---

## desertatze *iz* armadatik ihes egitea.

Orduan hasi ziren **desertatzeak**; handik berehalaxe, altxamenduak. Juan Garzia

---

## desertifikazio *(17 agerraldi, liburu 1 eta 10 artikulutan; ETCn 123 agerraldi)* *iz* basamortutzea, basamortu bihurtzea.

Lurren **desertifikazioak** oreka ekologikoa hausten du, eta horrek, hori gertatzen den lekuetan, ondorio larriak ekar ditzake. Berria - Gaiak

Kutsadura toxikoa, natur baliabideen gehiegizko ustiapena eta lurraren **desertifikazioa** eragiten duen gehiegizko hirigintza. Berria - Euskal Herria

**Desertifikazioa** mugatzeko neurri zorrotzik hartu ezean, 100 milioi lagunek gosete latzak pasako dituzte. Berria - Gaiak

Murrizte hori ekarri duten faktore garrantzitsuenak hazkunde demografikoa, **desertifikazioa** eta lurzoruen higadura dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

## desertizazio *(5 agerraldi, liburu 1 eta 3 artikulutan; ETCn 31 agerraldi)* *iz* basamortutzea, basamortu bihurtzea. ik **desertifikazio**.

Aire-kutsaduraz gainera, **desertizazioa** ere ez da urruti izango. Pello Zabala

Oraindik Daliasko **desertizazioak** konponbidea izan dezake, baina orain beste ur erabiltzen jarraitzen badute, hemendik 15 urtera urik gabe egongo dira. Berria - Euskal Herria

---

## desertore *(orobat **desertur** g.er.)* **1** *iz* armadatik ihes egiten duena.

Etorkinak, **desertoreak** eta zelatariak atxilotuko ditugu, epaitu ez dituzteino presondegiratuko, eta laguntzaileei gauza bera gertatuko zaie. Elena Touyarou

Gerlako **desertore**, errefuxiatu edo ihesliar mota guztien aztarnak bil bagenitza, ustekabeak izanen genituzke. Piarres Xarriton

1990ean INA Irakeko Akordio Nazionala alderdia, Husseinen Armadako **desertoreek** osatua nagusiki, sortu zuen eta idazkari nagusia izan zen. Berria - Mundua

Itsasuko **desertore** eta iheslarien ahaideak. Elena Touyarou

Bentan **desertore** karlista bati galde egin zioten, baina hark ezin izan zuen Karlos Ohandoren berri eman. Koro Navarro

Eskerrak gure musikari horiek aleman **desertoreak** ziren eta ez benetako errusiarrak. Felipe Juaristi

Hobendun haundi bat omen zen, Frantziaren kontra ari zena, **deserturrak** laguntzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Milaka soldadu **desertore** izateagatik auzipetu dituzte. Berria - Mundua

**Desertorea** izatea erabakitzen duena ez duk beldurtia, bizirik irauteko senari jarraitzen dion gizaki bat besterik ez duk. Koldo Biguri

Zu akziotik zaude erretiratua, ekintzetatik... gerra batean baztertuta gelditu den **desertore** bat zara... Pako Aristi

**2** (izenondo gisa)

B-52ko pilotu **desertoreen** gutunak *Newsweek*-en. Iñigo Aranbarri

Marcel Carne finaren *Quai des Brumes* lainotsuaren soldadu **desertorearen** drama ariman tatuaturik zeramala baitzirudien. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desertore diskoa** (5); **desertore diskoak** (5); **oskorriren desertore** (4); **oskorriren desertore diskoa** (3)

---

## desertsio ik **desertzio**.

---

## **desertu** *(orobat **desiertu** g.er.)* **1** *iz* basamortua.

**Desertua** leku berezia da, eta hara erretiratzen ziren antzinako denboretan munduaz aparte -gizarteaz, hiriaz aparte- bizi nahi zuten guztiak, hala anakoretak nola epailearen beldur ziren gaizkileak edo maitasun dezepzio bat jasan eta bakardade gorrian murgiltzeko promesa egindako etsiak. Bernardo Atxaga

**Desertuak** (elurrezkoak barren) deitu egiten du gizona, metafora arketipikoa burutzera, uste izanez, bere arimak, han, nonbait, urrutiko bakardadean, gorputza menderatu lezakeela zigorrez eta martirioz, edozein jainkotze amesturen alde, lurra gaitzetsiz zeruratze bidean. Patziku Perurena

Etorkizunean baliatuko zaizu batez ere, bakarrik aurkitzen bazara, **desertuan** galduta, gamelurik gabe. Itziar Otegi

Nafarroako lurren herena **desertu** bihurtzeko irriskutan omen da. Herria

**Desertura** joaten ziren guztiek proba latzen bat zeukaten zain. Bernardo Atxaga

Atacamako **desertuan** badago 300 000 biztanleko hiri bat. Herria

Aduanetako 13 langile hil zituzten atzo Aljeriako **desertuan**. Berria - Mundua

Kaliforniako Mojave **desertuan** dagoen aireportu komertzial batean egingo du ontziak bere lehen hegaldi ofiziala. Berria - Gaiak

Ikaratu egingo ginateke urezko **desertuan**, itsasoan alegia, bakarrik gelditzuz gero, eta beste horrenbeste hondarrezkoan edo harrizkoan galduko bagina. Bernardo Atxaga

**Desertuko** gamelu egarritu bat bazina bezala. Xabier Paya

**Desertuko** karabanak gelditzen al ziren oraindik han, Elias Canettik *Marrakexeko ahotsak*en kontatzen duen moduan? Bernardo Atxaga

**Desertuko** klimak ez du jasotzen apenas euririk. Pello Zabala

**2** (izenondoekin)

Zure ausentziak inguratzen bainau ni, **desertu** beltz batek bezala, eta nire ausentziak zu. Joan Mari Irigoien

Arroka biluzi gaitzengatik, **desertu** ikarragarriengatik, leku ilunengatik eta leku horietan aurkitzen diren munstroengatik. Aurelia Arkotxa

Herrestan zebilen, hala ikusten zen kartelean, **desertu** urrikigabe eguzki-erre batean barna. Matías Mujika

Nahiz **desertua** den, ez da arras **desertu** idor hutsa, bada zernahi bazka desberdin eta sasuxeka artaldek maite dituztenak. Herria

Egozten ninduena itzal galduen **desertu** fingabekorat eta ezdeustasunaren hondar gabeko leizerat. Joan Mari Irigoien

**3** irud/hed

Ehun mila jende bilduagatik, nintzen egoeran Senpere **desertu** zabal eta minerala zen. Itxaro Borda

Bortxatuak gara **desertuan** idaztera. Ana Urkiza

**4** (hitz elkartuetan)

**Desertu** mota guztiek ikara ematen digute. Bernardo Atxaga

Gero, **desertu** minez, badoa berehala Algeriako hego-alderat. Herria

**5** *izond* inor bizi ez dena; pertsonarik ez dagoena.

Eliz atarian, leku **desertu** eta antzinako hartan, gaztetxo talde bat azaldu zen behingoan, hutsetik sortuta bezala. Bernardo Atxaga

Alabaina, hondartza **desertu** honetan ibili naizen orotan, zernahi orenez, bake handi bat hartu izan dut bihotzean. Koldo Izagirre

Oihan nasaiak eta eremu **desertuak** zeharkaturik. Piarres Aintziart

Aspaldian iritsi zen Hildakoen ikara muino hartara eta inguruko landa **desertuetara**. Agustin Otsoa

Uharte **desertu** batetara joan behar bazinu bizitzera zoin liburu har zinezake zurekin? Menane Oxandabaratz

Gero hiri isilera eta muinoaren gaineko etxe **desertu** handira iritsi ziren. Agustin Otsoa

Neure borondatez erretiratua nintzen lehen solairuko gelaxka **desertu** eta huts batera, giza presentzia orotatik urrun. Juan Garzia

Jainkoak oparo eratu zuen arima, bide estu eta **desertuetan** barrena zuzendu zuen, eskutik eraman zuen maitasunaren leizeraino, bere baitaraino. Joan Mari Lekuona

**6** (adizlagun gisa; orobat **desert**) hutsik.

Norvegiarrek eta japoniarrek akabatuko dituzte eta, itsasoa **desertu** geratuko denez gero, plastikozko baleak puztu eta soltatu beharko ditugu... Joseba Sarrionandia

Kirol zelaia ere ia **desertu** zegoen. Bernardo Atxaga

Agian badu zerikusirik ospakizunaren arraroak, bat-batean eguzkia irten eta Portugal **desert** geratu baita; eta mutu. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desertu bat** (3); **desertu batean** (3); **desertu eta** (6); **desertua eta** (4); **desertuaren erdian** (3); **eta desertu** (4); **uharte desertu** (4)

---

## **desertugune** *iz* eremu desertua.

Afrikan, Zudaneko Darfur aldeko **desertugunearen** aldean, bi batasun musulmanok baderabiltzate gasaila gogorrak elgar iretsi beharrez armadak, bere aztaparra erakusten duelarik. Herria

---

desertur ik **desertore**.

---

## desertzio *(orobat* **desertsio** *g.er.)* **1** *iz* desertatzea.

**Desertzioa** gogor zigortuta dago, andrea. Harkaitz Cano

-SSetako kide baten **desertzioa** ez duk nazien gustuko albistea izanen -egin zuen irribarre Ibarrak. Alberto Ladron Arana

Ihes egin behar du **desertzioaren** krimen barkaezinetik, baita "betebeharrarekiko zabarkeriaren" hutsegite larritik ere. Iñaki Mendiguren

Abandonua eta autokontrola sormenaren ordezko alternatiboak dira; **desertzioa** eta martirioa mimesiaren dizipulutzaren ordezkoak. Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

Hurrengo urteetan eginen zituen urratsek are nabarmenago utziko zuten gure lagunaren arroztea: ezkontzea -nola eta elizaz!-, aitatzea... bene-benetako **desertzioa** etsaiaren trintxeretara. Aingeru Epaltza

Kalte egin zioten, orobat, alderdi barruko ezadostasun politikoek, zeinek alderdiaren bertikalismoa kritikatu zuten disidenteen **desertzioa** eta kanporatzea eragin zuten. Berria - Mundua

Estatu globalaren aurrean exodoa eta **desertzioa** praktika daiteke, eta bizitza eta kultur alternatibetan gauzatu, kontrabotereak eratuz, bizitzeko molde independenteak sortuz. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> desertzioa eta (3)

---

## deseseki, deseseki, desesekitzen du *ad* telefonoa, pausaturik dagoen tokitik hartu.

Oraindik urduri, idazle gazteak irratia itzali eta, badaezpada ere, telefonoa **desesekirik** utzi du. Patxi Zubizarreta

---

## deseskegi,deseskegi, deseskegitzen du *ad* deseseki.

Telefonoa **deseskegi** eta egunkariko prostituta haietako bati hots egin zion. Harkaitz Cano

---

## desesperagarri **1** *izond* desesperatzen duena, etsigarria. ik **amorragarri**.

**Desesperagarria** zen segundoz segundoko jario hori harraskako metalaren kontra entzutea. Harkaitz Cano

**Desesperagarria** egiten zitzaidan, izan ere, Jaungoikoa ulertu eta nigan sentitu baino lehen dena amaitu egingo zela pentsatzea. Xabier Aranburu

**Desesperagarria** da, epeak ez direla betetzen ari ikustea da gogorrena. Berria - Kirola

Zer deabru kontatzen ahalko zien herri pobre **desesperagarri** horretaz? Ramuntxo Etxeberri

Nire bizitza okerrez beterikoa da, kaotikoa, egiaren bilaketa **desesperagarrian**. Berria - Kultura

· Gurasoenetik alde egiten nahiz, bere aitarendako **desesperagarri**, poliziei harrika ematen. Aingeru Epaltza

**2** (izen gisa)

Familiaren bizitza ez al da **desesperagarri** zaila? Lopez de Arana

---

## desesperamendu *iz* desesperazioa.

Ikaragarriko **desesperamendua** senditu nuen ni baitan. Daniel Landart

Hots, **desesperamendua** irakur zitekeen haien begitarte goizegi zaharkituetan. Daniel Landart

Kolera handi batek hartu ninduen, denbora berean **desesperamenduaren** indar zitalek bortizki kolpatzen nindutela. Daniel Landart

---

## desesperante *izond* desesperagarria, norbait bere onetik ateratzeko modukoa. ik **amorragarri**.

**Desesperantea** naiz. Ana Urkiza

---

## desesperantza **1** *iz* itxaropenik eza.

Hurbilegi sentitzen ditu traiziorik zaharrenak ere, berbertan dauka maitatu gabe bazterrera utzi zuen haren begirada hain goibela, erantzun gabe utzi zituen gutunak eta haien zain egon zenaren **desesperantza**. Pako Aristi

Herriaren arima inguru geografikotik menpekotzen duten Herrien Psikologiazaleak [...] konturatu barik, **desesperantzara** kondenatzen ari dira herri espainola. Joxe Azurmendi

Maitale arbuiatuak ere, bere **desesperantzaren** poderioz mundutik at sentitzen zenak, gosaria prestatu beharko du, bizarra moztu, bulegora joan, bere adiskideen komentarioa entzun kirolari edo telebistako programari buruz, [...]. Bernardo Atxaga

**Desesperantzak** gainezka egiteko puntuan, dokumentu bat zabaldu eta idazten hasi da: [...]. Anjel Lertxundi

Ordurako, alkoholak erreak zizkion giltzurrun-gibelak; **desesperantzak**, berriz, etorkizuna. Anjel Lertxundi

Ez zuen nehork nehoiz urratsa bete eta bakoitzak beren zokoan aditzen ziren auhen eta intzirika, ilunpearen **desesperantza** urratzen. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Adreiluzko ezetz kuadrikulatuak baikorren lerdea ari duenerako; ibai-harrizko ezetz biribilak, hitzezko kromletx hutsak, **desesperantza** egunetako aterpe eta babesleku behin-behineko. Joxerra Garzia

Gizonek bidean kalituko nindutela halaber iragan zitzaidan kasko zokotik, **desesperantza** ximixta baten antzera, autoa gelditzen zen oroz. Itxaro Borda

---

## desesperatu, desespera, desesperatzen **1** da/du *ad* itxaropena galdu edo galarazi, etsipena hartu, etsia hartu; amorratu. ik **etsi**.

Eta ez badiote erritmorik ematen, galdu egiten da, **desesperatu**, lo hartu nahi lukeen haur ernegatua bezala. Patziku Perurena

Aita **desesperatu** egiten zen porruak edo beste edozer galtzen zitzaionean. Joseba Urteaga

Hasieran **desesperatu** egiten nintzen, jakina. Iban Zaldua

Horrek itsutzen, zoratzen eta **desesperatzen** gaitu; horrek ateratzen gaitu geure onetik. Luis Elberdin

Fonseca jaunaren hutsegiteek **desesperaturik**, Maria da Graçak bere gain hartu zuen Adelia aurkitzeko erantzukizuna. Bego Montorio

Eta aitak hasperen egin zuen, zeren **desesperatzen** hasia baitzen andaluzaren hitz-jarioarekin. Joan Mari Irigoien

Izanez ere, **desesperatuta** zaude proposatzen dizuten lexiko horrekin, neurri batean absurdoa dela konturatzen zara, ez daukala etorkizunik. Berria - Euskal Herria

Bi egun oso zain, esperoan **desesperatuta**. Berria - Kirola

**Desesperatuak** egon behar zuten nire gurasoek halako zerbait onartzeko. Anjel Lertxundi

Une hartan etsita eta **desesperatuta** sentitu nintzen. Joseba Urteaga

Eta horrek **desesperatu** egin ninduen. Joseba Urteaga

**Desesperatu** egiten da bat hasieran: [...]. Harkaitz Cano

**Desesperatzekoa** bazen naski: ez nintzen Parisera etorri bazterrak sutan jartzeko. Itxaro Borda

Zoroa edo **desesperatua** behar du. Urtzi Urrutikoetxea

**2** (era burutua izenondo gisa)

Nire poemak ez ziren batere **desesperatuak**, bizitzari eginiko kantuak baizik, bizitzaren opariz beterik sentitzen nintzen eta. Juan Kruz Igerabide

Segituan abiatu zen kale estuan behera, ziztu bizian, neska **desesperatuaren** oihuei ihesi: "Julen, itxaron, mesedez, itxaron!!!" Infernuko garren artean kiskaltzen eta oihu **desesperatuak** egiten. Jon Arretxe

Oso labur azalduko dizuet dei **desesperatu** honen zergatia. Fernando Morillo

Ahalegin **desesperatua** izan zen, bere buruari frogatzeko egoera hark ez ziola batere ardura. Julen Gabiria

Nik biziki eskertzen nion ahalegina, eta, sexua egiten genuenean batez ere, **desesperatu** batek bezala estutzen eta besarkatzen nuen. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ahalegin desesperatua (3); desesperatu egiten (8); desesperatu egiten dira (3); desesperatuta nago (4)

---

# desesperatuki *adlag* etsipenez; desesperazioz.

Handinahikeriaren hegoez hegaldaturik, zu zoroki, suharki, kartsuki eta **desesperatuki** maitatzera ausartu naiz. Karlos Linazasoro

Aldi berean, **desesperatuki** hasi nintzen buztinezko zorua atzaparkatzen, sator trebeena izanik ere ez nuela ihesbiderik banekien arren. Jon Alonso

Ikara menderatu ezinik bat-batean altxa eta, erasoari aurre egin ahal izateko, armairua eta sofa luze bat hasi zarete **desesperatuki** lekuz aldatzen. Rafa Egiguren

Gizonak, herioa handik gertu zebilkiola sumaturik, oihu egin zuen **desesperatuki** Maniako-depresibo bihurtzeko unean, zainak korapilatzen nabaritzen ditut eta gauaren erdian, bilkuratik etxerakoan "Ama!" deitzen dut **desesperatuki**. Josetxo Azkona

Ez zitzaidan irudi Joanes hila zenik: gauezko bideek, egunaren irrealitatearen oinarria **desesperatuki** agerian uzten zidaten. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta desesperatuki (3)

---

# desesperazio 1 *iz* desesperatzea, etsipen gaiztoa. ik **etsipen**.

Amorrua, inpotentzia, **desesperazioa**, negarra... denetik sentitu nuen senarrak amorantea zuela jakin nuen une hartan. Jasone Osoro

Ez zitzaidan gauza interesgarririk edo dibertigarririk bururatzen; neure ezintasunaz dolutzea baino ez, eta **desesperazio** horretan, "gabon" esanez betirako desager zedin ere desio izan nuen. Ramon Saizarbitoria

Eta **desesperazioak** eman zion, ausaz, karta hura idazteko ausardia, baldintza normaletan nekez idatziko zuena. Joan Mari Irigoien

Ilunpea du bere alde, hiltzera dihoan animaliaren **desesperazio** arriskutsua, piztia setiatuaren oldarra. Pako Aristi

Urduri daudelako hartutako erabakia da, **desesperazio** politikoan oinarritua, badakitelako aldaketa politikoa abian dela. Berria - Euskal Herria

Egia horrek egia korala izan behar luke beti, lagunartean eta umore eder batean esatekoa aukeran, eta etsimendu eta **desesperazio** gabeko etsitze eta desengainu sano batekin bustia. Iñaki Segurola

Gero berriz etortzen ziren jendartean ezkutaturik, lanaren aitzakiaz, mozkorraren **desesperazioaz**. Lourdes Oñederra

**2** ***desesperazioz*** *adlag*

-Erne berriz! -egin zion oihu, **desesperazioz**. ez zuen haren ahotsik atzera entzun, harik eta, "sanitario", "sanitario" **desesperazioz** oihuka, ondoan belaunikatu zitzaion arte. Ramon Saizarbitoria

Gwainek ahal zuen moduan eusten zion, **desesperazioz**, ez baitzuen galtzaile irten eta ohorea galdu nahi. Juan Kruz Igerabide

Henrikek dena aise ikasten zuen, Konradek, berriz, kosta arren, ikasitakoa **desesperazioz** edukitzen zuen gogoan, gutiziaz, munduan zeukan altxor bakarra hura zela baleki bezala. Xabier Olarra

Hilotzak non jausi, bertan lurperatzen zituzten elkarren gainean, bakoitza bere senideak lurperatzen saiatuz; malkoz eta negarrez husturik itzultzen ziren; gero asko eta asko **desesperazioz** bertan oheratzen ziren. Xabier Amuriza

Hondoratzear daude eta **desesperazioz** lur jotzear. Joan Mari Lekuona

**3** ***desesperaziozko*** *izlag*

**Desesperaziozko** oihu batekin, piratak Tom Luzearen gainetik salto egin zuen itsasora. Julen Gabiria

**Desesperaziozko** oihu lazgarrienak haur negarti baten lanturu bihurtzen dira, erizaina eriaren gelan sartu orduko. Anjel Lertxundi

**Desesperaziozkoak**, depresiozkoak, minberak, kontraesan eta ezinulertuzkoak: «Agian gaua izango da bizitza, eta eguzkia heriotza», idatzi zuen. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan)

Prusiarrak **desesperazio** hasperen bat egin du (artista alua, eruditoa, beti posatzen esan nahi duenak bezala) eta zigarro bat piztu du. Harkaitz Cano

Nire porrota onartzen ikasi nuen, gertaera ezinbesteko gisa, nire patu gisa, halako moldez non, beste edonorentzat **desesperazio** iturri zatekeena, niretzat itxaropen mugagabearen iturri baitzen. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta desesperazioa (3)

---

# desespero *iz* desesperazioa.

**Desesperoak** ematen duen deliberamenduarekin oldartu omen zitzaidan emakumea. Joxean Agirre

Bera kuartelean eduki duten bi gauetan, galdeketa egiteko askatzen zutela mutila, eta gau osoan sekulako orroak entzuten zirela, oinazearen orroak, **desesperoaren** orroak, giza arrastoak oro galtzeko zorian dagoen baten orroak. Anjel Lertxundi

Nire **desesperoan**, hatza ahoan busti eta begiak zabal zitzan ahalegindu nintzen, hasieran leun-leun, segidan, berriz, gero eta zakarrago. Anjel Lertxundi

Galerianoak, **desesperoaren** herioan, buruz ontzen ari zen bertsoak paperera pasatu ditu letrak ondo dakizkien beste galeriano baten laguntzarekin. Anjel Lertxundi

Horrela ibili zara, batetik bestera, **desesperotik desesperora**, harik eta filosofo zahar-zahar batekin topo egin duzun arte, eta orduan betiko galdera egin diozu: zertarako bizi? Javi Cillero

---

**desespiritu** *iz* espirituk eza.

Plá-ren *intolerància* horrek conquistadore eta campeadore kastillanoen **desespiritu** agor, idor, ihar eta elkorra itsasten dio hemengo eta nonahiko gogo hezeari. Iñaki Segurola

---

**desestabilizatu**, desestabiliza, desestabilizatzen du *ad* egonkortasuna galarazi.

Ejerzitoarekin ezin dutenez, nazio osoa jarri nahi dute hankaz gora, **desestabilizatu**, hondamenera eraman, ea bide horretatik gobernuaren suntsiketa lortzen duten. Pako Aristi

---

**desestabilizazio** *iz* egonkortasuna galtzea, desestabilizatzea.

Lurra berotzen ari da eta **desestabilizazio** klimatikoa, gero eta nabariago. Berria - Euskal Herria

---

**desestali**, desestal, desestaltzen **1** du *ad* estalkia kendu.

Handik pixka batera, aurpegia **desestali** eta altxatu egin zen. Irene Aldasoro

Esku hotzak luzaturik, hildakoari burua **desestali**, eta ezpainak zabaldu zizkion. Patxi Zubizarreta

Inaugurazioan Amunarriz misiolariaren izena idatzita duen plaka bat eta Oteizaren *Ertz hutsa* eskultura **desestaliko** dituzte. Berria - Kultura

-Sir John Gray-ren estatua **desestali** zenean izan zen. Irene Aldasoro

Gurasoen garrasiak sordinarekin ito nahian bezala, belarriak esku ahurrekin estali eta **desestali** ditu Elenak, olatu hotsak gogora ekarriz. Eider Rodriguez

Mugitzen ari den objektu bat haren atzean dagoen gainazalaren ehundura estaliz eta **desestaliz** doa mugitu ahala. Josu Zabaleta

**2** agertu.

Niregandik aparte bizi eta nirekin ikustekorik batere izan ez zuen bertze Ttipi bat **desestaltzen** ari zitzaidan. Aingeru Epaltza

Geroago, besteak beste, John L. Austin eta H. Paul Grice-k [...] hizketa-ekintzak aztertu zituzten, eta semantikaren eta pragmatikaren arteko lotura **desestali** zuten. Askoren artean

Gizaki modernoaren moralari bere sustrai nagusiak **desestali** zizkion (arrazoimena, askatasuna, osasuna, sexua). Askoren artean

Nola ahantzi, bada, osabaren lezioneak, noiz eta zientziaren sekeretuak **desestaltzen** eta erakusten hasi baitzitzaidan, niri bakarrik, eskola partikular haietan! Joan Mari Irigoien

**3** (era burutua izenondo gisa)

Jendea adi-adi zegoen, pipitarik jan gabe, ez zen ezer entzuten ahal plato **desestalian**. Karlos Linazasoro

---

**desestalpen** *iz* desestaltzea.

Presentzia hori da estalirik dagoena gizakiarengan arartegabea delako eguneroko obratzean eta, zeinaren **desestalpena** ibilera filosofikoaren errainua bera den eta, ondorioz, baita etikarena ere. Piarres Xarriton

---

**desestaltze** *iz* estalkia kentzea; agertzea.

Filmeko irudiaren bat-bateko agerpen hori ahaztu egiten dela proiekzioan, aurkezten diren gauzen pertzepzioaren mesedetan, egiazko "pantaila-efektuarekin" konpara daitekeen modu batean azaltzen baitzaizkigu gauza horiek, estaltze eta **desestaltze** progresiboen bidez. Josu Zabaleta

**Desestaltze** horrek (*scientia intuitiva*) arrazoimenaren askieztasuna agerian jartzen zuen hura obratzen du: atributu jainkozkoek gauza singularren esentziak inplikatzen dituzten erak atzematea Piarres Xarriton

---

**desestekatu**, desesteka, desestekatzen du *ad* esteka kendu.

Kolpe hark begiak irekiarazi zizkidan: ahots huts besterik ez zen txotxongilo baten lagun egin nintzen; gero, ohartu nintzen ez zela istripurik izan: **desestekatuak** izan ginen, auskaloko zein ordokitan bertan utziak. Karlos Linazasoro

---

**desestekatze** *iz* esteka kentzea.

Jada ezin nion ikuskizun hari ihes egin: nola ez nintzen ohartu hura ez zela istripu lizun kontaezin bat izan, **desestekatze** xume baina izugarri bat baizik? Karlos Linazasoro

---

**desestimatu**, desestima, desestimatzen du *ad* aintzat ez hartu.

Berehala **desestimatu** zuen pentsamendu hori, guztiz partziala eta partidista zelako. Unai Elorriaga

Berehala **desestimatu** zuen ideia hori, harria erretzea beti izan delako prozesu nekagarria; eta errentagarritasun gutxikoa, edozelan ere. Unai Elorriaga

---

**desestresatu**, desestresa, desestresatzen da *ad* estresa kendu.

Kalera estresatzera datozen urbano desfasatuak bihurtu dira gure baserritar gazteak, eta kaleumeak, aldiz, hilean behin **desestresatzera** mendira, naturara edo eskalatzera doazen pastillero bukolikoak. Pako Aristi

---

**desestrukturazio** *iz* desegituratzea.

**Desestrukturazioa**: egun, elikadura ordena ekonomiko eta sozialaren egituraketa edo desegituraketaren funtsezko elementua da; geroaldian, baina, ez dira aintzat hartuko elikatzearen elementuak, atalak eta osagaiak. Edorta Agirre

---

**deseterealizazio** *iz* eterealizazioa ezabatzea.

Horrek guztiak hizkuntz **deseterealizazioa** adierazten du, gizartearen sekularizazioaren ikurra baino ez dena. Iñaki Mendiguren

## **deseuropartu**, deseuropar, deseuropartzen da *ad* europar izateari utzi.

Adibidez, Finkielkrautek azken 50 urte honetan mundua, edo Europa bera, **"deseuropartzen"** eta "desmendebaltzen" ari dela, ikusi uste badu Parisen, kezka handiz, kezka handia Espainian apenas ematen du justu **"deseuropartzea"** izan litekeenik, azkeneko 500 urte ezeuropar konstantearen ondoren... Joxe Azurmendi

---

## **desezkutatu** *izond*

Unverborgen: ez-ezkutatua, **desezkutatua** . Karlos Linazasoro

---

## **deseztarri** *iz* eztarria ez dena.

Nirea, lehen neukan huraxe bera, edo beste norbaiten ahotsa irtengo zaidan ahotik, irtengo zaidan **deseztarri** honetatik. Hasier Etxeberria

---

## **desfaboratu** *izond/iz* kaltetua.

Mendebaldeko herrialdeek baliabideen erabilpen arrazional eta aurrezkizkoa egitea, herrialde **desfaboratuenek** bere oinarrizko beharrak asetzeko beharrezko hazkundea iritsi ahal izan dezaten, segitu beharreko bidea izan daiteke, hazkunde kontzeptutik bereiziriko garapen mota elkartasunezko eta eboluzionatuago batera begira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hala eta guztiz ere, akats handia izango litzateke etorkizuneko belaunaldien ongizateaz kezkatzea eta gaur egungo **desfaboratuen** gabeziez ez arduratzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

## **desfabore** *iz* faborerik eza, kaltea.

Maiz ez nintzen neure buruaren jabe izaiten, eta Jainkoaganik ustez errezibitzen nituen faboreak eta abantailak bihurtzen zitzaizkidan, finean, **desfabore** eta desabantail. Joan Mari Irigoien

---

## **desfalko** *(orobat **defalku**)* *iz* norbait bere zaintzapean dauden besteren ondasunez jabetzea; funtsak desbideratzea.

-Ez duzu inoiz **desfalkorik** egin? Karlos Linazasoro

Gogoratu zituen anonimoak, eta haien barruan nola zekarren egunkariko berri-atalak "diruzainaren **defalkua"** ; gogoratu zuen [...] aitak, azken gauean, zin egin ziola Loewenthal zela lapurra. Juan Garzia

---

## **desfasatu**, desfasa, desfasatzen **1** da *ad* desfasea gertatu.

Lagunen ezpain mugimendua eta beren esaldien soinua **desfasatuta** antzemanen dituzu. **Desfasatuta** hago. Joseba Sarrionandia

**2** gehiegikerian bizi.

Zuek hor zehar **desfasatuta** ibili zareten artean, ni txosnan lanean jo eta su. Unai Iturriaga

**3** (era burutua izenondo gisa)

Esnatu beharra daukazu zure sentiberatasun **desfasatu** horretatik. Irudítu zitzaion lerrook emakumea idealizatu egiten zutela, ikuskera erromantiko txepel eta aski **desfasatu** batetik eginak zirelako. Ramon Etxezarreta

Adituen arabera, produktu gama **desfasatua** , koordinazio eskaseko eta bikoizketez betetako ekoizpena eta Asiako zein Europako beste autogileen lehia gero eta gogorragoa dira Opelen egoera kaskarraren eragile nagusiak. Berria - Ekonomia

Kalera estresatzera datozen urbano **desfasatuak** bihurtu dira gure baserritar gazteak, eta kaleumeak, aldiz, hilean behin desestresatzera mendira, naturara edo eskalatzera doazen pastillero bukolikoak. Pako Aristi

---

## **desfase** *iz* pertsona edo gauza baten eta beste pertsona edo gauza baten artean egokitze edo doitzerik eza.

Tximista lehertzean, adar bakoitzeko leherketa horren guneekiko **desfaseak** dakar horrenbesteko danbar hots segidokoa. Pello Zabala

Aurrekontuaren **desfaseak** ere kritika ugari eragin zituen 13,8 milioitan zenbatu zen gastua iaz eta 22,3 gastatu ditu. Berria - Kirola

Meatzeetako giro mihi-gaizto laxoan, nire gizakaltetasun zehazkabearen eta nire bizimoduaren otzantasun nabariaren arteko **desfasea** bista-bistakoa zen. Juan Garzia

**Desfase** burokratiko horren kontra ez dago ezer egiterik. Karlos Linazasoro

**Desfasea** : EAEko biztanleen euskaldun kopurua ia %50 denean, Administrazioko atalen %96,3k erdaldun izaten jarraitzen dute. Berria - Euskal Herria

· Batzuk kazetaritza edo literatura testuak dira [blogetan], besteak gogoeta pertsonalak; genero aldetik badira zutabe modukoak, eta badira benetako **desfase** pertsonalak, inolako araudi eta zerarik gabe idatzitakoak. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta desfase (3)

---

## **desfilarazi**, desfilaraz, desfilarazten du *ad* desfilatzera behartu.

Atso deabru horrek merkatu guztia **desfilarazi** behar ote du hemen barrena, zer esaten ari garen jakiteko? Karlos Zabala

---

## **desfilatu**, desfila, desfilatzen **1** da-du *ad* pertsona ilara bat jendaurrean igaro, bereziki soldadu talde bat agintarien aurrean.

Soldaduek diziplinatuago **desfilatzen** dute musikaren konpasean. Xabier Olarra

201. Eskuadroia, Ozeano Barean ohorez jantzia dena, hiriburuko kaleetan barrena **desfilatu** zuen, kaleok loriazko dardaretan zirelarik. Edorta Jimenez

Gay eta lesbianen altxamendu egun hartaz geroztik 30 urte bete dira aurten eta **desfilatzen** duten polizia homosexualek jasotzen dute txisturen bat, txaloak nagusi diren arren. Harkaitz Cano

Eta meza bukatu zenean, denak jarri ziren ilaran umeen atzetik, eta segizio isila herrian zehar **desfilatu** zen, plazaraino. Koldo Biguri

Barne patioa zalapartatzen zuten haur logaletuak nire begi paretik **desfilatu** ziren, banan-banan, beren guraso birika-handiekin batean. Aingeru Epaltza

Pasodoblearen martxan **desfilatu** genian gorpuaren aurretik. Koldo Izagirre

Burua tente **desfilatu** genuen, ondo ari ginelako eta bagenekielako nor eta zer ordezkatzen genuen. Berria - Euskal Herria

Dantzariek, musikariek eta sasi-epaiketan parte hartu behar zuten akusatu, epaile, abokatu eta guardia txantxoek kalerik kale **desfilatzeari** ekin zioten plazarako bidean. Bernardo Atxaga

Nazien aldeko Dibisio Urdineko kide ohi batek **desfilatu** izana gaitzetsi zuten hainbat ordezkari politikok. Berria - Euskal Herria

Berrehun eta berrogeita hamar mila pertsonak **desfilatzea** espero da eta beste hainbat ikusle izatea errepidearen alde bietan banaturik. Harkaitz Cano

Jaizkibel konpainiak goizez eta arratsaldez **desfilatzea** lortu du aurten. Berria - Harian

Txinan, Iraultza Kulturalaren garaian zeuden, eta guardia gorriak zebiltzan kaleetan **desfilatzen**. Rafa Egiguren

Jainkosa grekoen biluztasunak eta gazteluko dama erromantikoen brokatuzko soinekoak bere aurrean **desfilatzen** ikusiko balitu ere, ez zen hain zoriontsua izango. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Mugitu gabe **desfilatzen** hasia zen, martxan ari balitz bezala. Fernando Rey

Arratsean, Dudleyk harro **desfilatu** zuen egongelan uniforme berriarekin. Iñaki Mendiguren

Anitzek, txantxetan, "asfaltoko soldaduak" erraten diete, zeren, uniforme beltza janzteaz eta **desfile** ikusgarriak antolatzeaz aparte, sekula ez baitute beren ustezko balio militarrik erakutsi. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arratsaldean ere desfilatu** (3); **aurrean desfilatzen** (3); **desfilatzeko baimena** (3); **desfilatzeko eskubidea** (3); **eta desfase** (3)

---

# desfile 1 *iz* desfilatzea. ik **parada**[1].

New Yorkeko parade edo **desfile** guztietan manifestari adina polizia izaten da beti. Harkaitz Cano

Hondarribiko bestetan, egun mugimendutsua zuten alardeen **desfileen** hura. Herria

Goizeko hamaikak aldera abiatuko da karrozen **desfilea**. Berria - Euskal Herria

Orangisten **desfileetan**, komunitate katolikoaren auzoetatik igarotzean pizten dira normalean istiluak. Berria - Mundua

Gainerako hiru argazkietan kirolarien **desfileetako** irudiak ageri dira. Edorta Jimenez

Pilar de Miotaren, Azeguiñe eta Tytti Thusberg disenatzaileen **desfileek** emango diote hasiera Modorrrari. Berria - Kultura

Jauregitik zezen-plazarako **desfilea** are ikusgarriagoa izan zen. Joan Mari Irigoien

**Desfilearen** lehen lerroan hilkutxa zekarren laukotea. Berria - Ekonomia

Takolo, Pirrritx eta Porrotx izan ziren, **desfilearen** buruan, arreta handiena sortu zutenak. Berria - Euskal Herria

Gainera, ezin izan dute leku gogaikarriagorik aukeratu udaberri-udako **desfilerako**. Patxi Iturritegi

Maleta eskuan, axolagabe ibiltzen saiatzen nintzen, **desfile** batean bezain zurrun ibiliko nintzen baina. Alberto Ladron Arana

**Desfileak** bost ordu inguru iraungo ditu orotara. Harkaitz Cano

60 karrozatik gora izan ziren **desfilean**. Berria - Gaiak

Bayburt-eko etorbide nagusitik **desfilean** pasatu berri diren militar dotoreak. Jon Arretxe

Yale eta Columbia unibertsitate ospetsuek eta Vietnamgo beteranoek ere parte hartzen dute **desfilean**. Harkaitz Cano

Langileek protestaldia egin zuten udal korporazioa **desfilean** zihoala profitatuz. Berria - Euskal Herria

**2** (aditzen objektu gisa)

**Desfilea** azaroaren 18an egin zen. Edorta Jimenez

Astean behin edo egiten genuen **desfilea**, margaritak lehenengo, pelaioak gero eta, atzetik, errekete auxiliarrak eta, batzuetan bakarrik, falangea. Joseba Sarrionandia

Inauterietako **desfilea** ikusi nahi zutelako.Urtean behin, komunitate zentzua indartzeko helburuz, **desfileak** antolatzen dituzte hirian indartsu diren gizataldeek. Josu Zabaleta

**Desfilea** bukatu ondoren zaila da etxera ezer ez eramatea. Harkaitz Cano

**Desfilea** amaitu ostean. Berria - Gaiak

Dena den, **desfilea** irteten den lekua edozein izanda ere, Areatzan bukatuko dela ziurtatu zuen Uriguenek. Berria - Euskal Herria

**3** (izenondoekin)

Begien aurrean agertu zitzaizkion Dnieper ibaiaren gaineko zubi bateko irudiak, Vienako **desfile** militar batekoak, Budako gazteluko harrera batekoak. Xabier Olarra

Egunero egiten zela bertan guardiaren **desfile** militar bat, San Telmoko kuarteletik [...] harresiko lurrezko ateraino. Askoren artean

100 lagunek baino gehiagok osatutako **desfile** koloretsua izango da. Berria - Kultura

Haren ondoren, tankeak atera zituzten kalera, kamioi metrailetadunak, bazookak, eta **desfile** izuzkoa antolatu zuten, pauso irmoz, sorbaldak zut, begiradak aurrera. Karlos Linazasoro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azaroaren 26an, Xuriatea ostatuan, 2005eko Korrikako moda **desfilea** izan da. Herria

Azkenean esango didazu haur-**desfile** batean parte hartu duzula. Lopez de Arana

Aparkalekutik behera joanda, baina, kamioi **desfile** handia zegoen.Hartuko dute ministro baten hitz bat, jeneral baten erabaki bat, batzorde baten eztabaida bat, eta luzerako erantzukizuna eta ikuspegia erakusten duten elkarrizketa historikoak egingo dituzte fantasma **desfile** honetatik. Berria - Harian

Horrelako arratsaldeetan autobusak lerroka kokatzen ziren zirku-**desfile** bateko elefanteak bezala. Lopez de Arana

Bordeleko herriak loreak jaurtitzen ditu Euskal Brigada pasatzean, hiri honetako liberazio **desfilean**. Koldo Izagirre

**5** irud/hed

Del Valleren oihu asaldatuak eten zuen irudi izugarri haien **desfilea**. Alberto Ladron Arana

Hudson ibaiari buruzko aipamenak ere sarri egiten ditu Dos Passosek: beti langar eta ketan; denetariko itsasontzien **desfile** amaigabeen agerlekua; [...]. Lopez de Arana

Eta horregatik baliatzen eta erabiltzen dut, beharbada, neure euskara hau, Axularren eredurat, bere mila forma eta korapilotan, hemen jira eta han bira, letren eta hitzen **desfile** koloretsuan. Joan Mari Irigoien

Adigai- eta esperimentu-**desfile** txukun batez ordezkatzea ahalegin-anabasa bat. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desfile bat** (10); **desfile batean** (7); **desfile batean parte** (3); **desfile bateko** (3); **desfile eta** (3); **desfile militar** (4); **desfile militarra** (5); **desfile militarra egin** (3); **desfilea egin** (5); **desfilea egiteko** (3); **desfilea eta** (3); **desfilean parte** (4); **eta desfile** (3); **inauterietako desfilea** (5); **karroen desfilea** (3); **moda desfile** (5); **moda desfile bat** (4); **moda desfilea** (6); **moda desfileak** (4); **olentzeroren desfilea** (3); **soldaduen desfile** (3)

---

# desfilosofatze *iz*

Eta ber gisan dator akordura *Magrittek ez omen zuen pipatzen*, egile orotariko honen apunte eta gogoeta liburua, **desfilosofatzea** helburu zuen filosofia liburu jostaria. Berria - Kultura

---

## desfokalizatu, desfokaliza, desfokalizatzen da/de *ad* desfokatu.

Gauzen inguruak, objektuen ertzak noizbehinka bat-batean **desfokalizatu** eta halako dar-dar dantza modukoan hasten zitzaizkion, haririk gabeko txotxongiloak bailiran. Joxemari Iturralde

---

## desfokatu, desfoka, desfokatzen **1** da/du *ad* fokutik atera.

**Desfokatuta** zeuden arren, bat eta berbera, Alargun Beltza zen argazkikoa, dudarik gabe. Harkaitz Cano

Argazkiak **desfokatuz**. Lander Garro

**2** irud/hed

**Desfokatu** zait mundua, konpondu ezin dudan gaitza neure egin dudalako, nire atxiloketak zuengan duen eragina. Lander Garro

**3** (era burutua izenondo gisa)

Veronica bera agertzen zen argazki **desfokatuan**, ohe batean, izara artean irribarrez. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> argazki desfokatu (3)

---

## desformakuntza *iz ipar* deformazioa.

Italiar emazte bat izan zen hori, Salernekoa, sendatua, duela 50 urte, bihotzeko **desformakuntza** bat zioten hari ezagutua, ezin sendatuzkoa. Herria

---

## desformatu, desforma, desformatzen da/du *ad ipar* deformatu.

Tortura ukatze horiek, iduri-eta Unai Romano gaztearen aurpegi **desformatua** leiztafin inoxent batek eginiko xixtaño baten ondorioa baizik ez zela... Herria

---

## desgaikuntza *iz* gaitasungabetzea.

Sei hilabeteko kartzela zigorra, kondenak irauten duen bitartean hautetsia izateko **desgaikuntza**, eta prozesuak eragindako kostuak ordaintzea. Berria - Euskal Herria

---

## desgarai *iz* garai desegokia. ik **destenore**.

Gure ohaide-nesketara al goaz ba, ema-jabeek ohi duten bezala, etorri eta deituta, **desgaraia** izanda ere, etxean sartzeko? Patxi Ezkiaga

Treneko azken bagoian ibiliko balitz bezala, beranduegi ohartzen zen kontu guztiez eta **desgaraiz** erantzuten zien kortesiazko galdera apalei. Patxi Iturritegi

Berandu eta gaizki iristen baitira, edo **desgaraian**. Joxemari Iturralde

Oso momentu txarrean datorkidala, hau guztia **desgaraian** zetorkidak eta kontrapausoan. Joxemari Iturralde

Otso horren triskantza nahiago zuten, aukeran, desorduan eta **desgaraian** eguzkia ikustea baino, belar-bazka izorratzen zielako goitik behera. Pello Zabala

Desegunetan beti da desordu / (--...) / destenorean, guztia desarau / (--...) / **desgaraian**, dena desegoki. Iñaki Arranz

---

## desgaraitu *izond*

Ikusmolde estandarraren tankera analitikoaren eredu, beharrezkoa da liburuaren irakurketa eta azterketa, sarritan **desgaraituegitzat** har baldin badezakegu ere. Askoren artean

---

## desgaratu, desgara, desgaratzen du *ad* garatzea desegin.

Lan handi xamarra daukat, beraz, neure burua eta bizia lantzen eta **desgaratzen**, baina, ikastaroan erakutsi zaigun bezala, onartzen dut horretarako nere [...] biziak nerea izateari utzi beharko liokeela, eta inorena ez izatera pasa, hizkuntza bezalaxe. Iñaki Segurola

---

## desgarratu *izond* bihotz-urragarria, guztiz samina.

Bizitzeko eta idazteko eskubidea eure egin zuten, eta honelako lanak utzi dizkigute ondorengoei: **desgarratuak**, gordinak, intentsoak. Berria - Kultura

---

## desgastatu, desgasta, desgastatzen du *ad* higatu, gastatu.

Gogoan dut artean ere nola ateratzen nintzen paseoan nire zapata-zolak **desgastatzera**, belardietara, hausnar egitera gelditu gabe. Fernando Rey

Zergatik uste duzu Kataluniako gaiak **gehiago** desgastatzen duela? Berria - Harian

---

## desgaste *iz* higatzea, ahultzea.

Madrilera astero joan behar izateak eragiten dien **«desgaste** fisiko eta psikikoa». Berria - Euskal Herria

Hala ere, eta iraganeko akatsak errepikatuz, ez du gatazka konpontzeko plan bat proposatzen eta bere borondatea ezker abertzaleari **desgastea** eragitea eta bere oinarri soziala bereganatzea da, lehentasunezko helburu gisa interes partidistak jarriz. Berria - Euskal Herria

**Badirudi** desgaste handiagoa eragiten diola exekutiboari Kataluniako gaiak. Berria - Harian

Eta hori da klase politikoari gertatzen ari zaion **desgastea**. Txema Ramirez de la Piscina

---

## desgazitu, desgazi, desgazitzen du *ad* gatza kendu.

Ur beharretan izanez Espainia bere lurrentzat [...] Katalunia eta Almeriaraino 400 bat lantegi eginen dituztela, ur batzuen **desgazitzea**, eta 120 bat barradera eta beste obra, 25 urteren lana. Herria

---

## desgidari *iz* okerreko gidaria.

-Adibide baterako, har itzazue gure... nola esan zuen bada Begiralek joan den astean?, gure **desgidari** nazionalak. Koro Navarro

---

**desgiro** 1 *iz* giro desegokia.

Bi urte horietan **desgiroaren** eraginez kalteak nozitzen dituzten harriak zimenduetan erabiliko dira. Santiago Iruretagoiena

**2** (ik **giro**[1] **2**)

Ikastolako giroa **desgiro** bihurtzeko bidean, batzar bat izan genuen. Joxerra Garzia

Beude bi pieza horiek buru-buruan, hitzalditxook egin ditudan bitartean izan dugun **desgiroaren** erakusgarri. Joxerra Garzia

**Desgiroaren** unerik bortitzena, 1997ko uztailean izan zen, Miguel Ángel Blanco zinegotziaren heriotzarekin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

**desgisatu**, desgisa, desgisatzen **1** da/du *ad* desitxuratu.

“Xabier” izenak “Etxeberri” erran nahi zūan, bena hau **desgisatzez** joan zen. Herria

Arren, modari sobera jarraiki nahiz trajeriaren **desgisatzea** eta llabürtzea beno hobe da beste antzerki mota berri baten hontzea, Berzaitzek eta Patrick Queheillek egiten düen bezala. Herria

**2** mozorroz estali.

Irringarri ematen dute, bisaia desitxuratzen die, maskaraz **desgisatuak** iduri. Aingeru Epaltza

Gure semeak maite dituen filme guztiz pedagogikoetako heroi transgalaktiko zangomotza iduri zuen, sugar **desgisatu** eta lekuz kanpokoa "Lisboako" histuran. Aingeru Epaltza

---

**desgobernu** *iz* gobernurik eza.

«Ministerioan dagoen **desgobernua** ere» azaltzeko galdegin zion. Berria - Mundua

---

**desgogara** 1 *adlag* gogoz kontra, gogo gaiztoz.

Nahi izatera, bazuen gisa hartan erreakzionatzea, baina **desgogara** egingo zuen. Patxi Zubizarreta

Aspertu itxurako prostituta bi zeuden alboko jatetxe apalean, inguruan zebilzkien gizonei **desgogara** erantzuten, haien bromatxoak aguantatuz nola edo hala. Jon Arretxe

Formalitate ezeroso eta zuhurgabekeriazkoek kreditua **desgogara** jartzen dute, iruzurrak baztertu gabe; estutu egiten dute, babesa eman beharrean. Andres Urrutia

Eltze betea seinalatu zuen **desgogara**, bere aitzinean bor-bor. Aingeru Epaltza

Zuzendaritzaren erantzukizuna hartu nuen nire gain, **desgogara** edo nahiezik, baina indar handiz. Karlos Linazasoro

Doktorea altxatu egin zen eta, **desgogara**, hilobi artean herrestan abiaturik, hormarantz egin zuen. Patxi Zubizarreta

Gero eta **desgogarago** ari ginen. Joxe Austin Arrieta

Bazen han **desgogara** sentiarazten ninduen zerbait: nire aurreko ispilua, urreztaturiko markoduna. Joxe Austin Arrieta

**2** (izenondo gisa)

Keinu **desgogara** bat egin zidan bere libretan idazten segitzen zuen bitartean. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baina desgogara** (3); **eta desgogara** (4)

---

**desgogo** 1 *iz* gogorik eza.

Hizkuntza eta tonu desberdinetan, hiru ahotsak heriotzaz mintzo ziren, eta tentsio-uneen atzetik etorri ohi den **desgogoa** jabetu zen nire aldarteaz. Bernardo Atxaga

Baina uste baino luzeago zihoan setioa, eta gero eta handiagoa zen gazteen **desgogoa**, otorduetan txantxak egiteko garaian ere. Harkaitz Cano

**Desgogo** ikaragarri batek barrena astintzen ziolarik. Josetxo Azkona

Urteek, **desgogoak** eta bakardadeak poliki sustatu zuten aldez gogoko zitzaion baina inoiz ere kanpora nabarmenduko ez zuen criollismo hori. Juan Garzia

Nire **desgogoan** gehiegizko ahalegina egiten dut. Josu Zabaleta

Kapitaina, bitartean, egunero bezala, animaliak zenbatzeari lotuta zegoen, **desgogoz** eta amorru sentsazio batez. Josetxo Azkona

Horrelaxe ihes egiten dio nork bere buruari, baina gehienean ezin du alde egin; bere buruari **desgogoz** inkaturik gelditzen da eta gorroto du, ez baitu ulertzen, eri dela, gaitzaren zergatirik. Xabier Amuriza

**2** ***desgogora*** desgogara.

Eta ideologia ekologistek alde hau **desgogora**, gordeka bezala eta beste erremediorik ez dagoelako bakarrik bakarrik aitortzen dute. Xabier Amuriza

Jakaren barruko patrikara sartu zuen eskua, **desgogora**, igande arratsaldean eskupekoa eman eta berehala gastatu ondoren eskupeko berri baten bila etorri den seme-kozkorrari bigarren ordain bat eman behar dionaren gogo gabeziarekin. Harkaitz Cano

---

**desgrabatu**, desgraba, desgrabatzen du *ad* zerga arindu.

Ez zaie aparteko zergarik jarriko, eta ez dute errenta aitorpenean **desgrabatzeko** zailtasunik izango. Berria - Harian

Baita lanera joateko autoan egindako kilometroak **desgrabatzeko** ere. Berria - Harian

Ezin dituzte **desgrabatu**, esaterako, etxeagatik edo seme-alabengatik izandako gastuak. Berria - Harian

---

**desgrabatze** *iz* zerga arintzea.

Gainera, litekeena da gaur egun gainontzeko gizarte aurreikuspen sistema pribatuekin egiten ari den legez, aseguru pribatuek **desgrabatze** fiskalak, zerga-arintzea ekartzea, zerbitzu publikoa hornitzeko bilketa publikoaren kaltean. Berria - Harian

---

**desgrabazio** *iz* desgrabatzea.

**Desgrabazio** handiagoak lortzeko bezeroei egiten dizkiedan gomendioez. Iban Zaldua

Aurrerantzean **desgrabazioetan** pentsio plana enplegukoa edo banakakoa den aintzat hartzeko eskatu die. Berria - Harian

Museo horiei zuzendutako laguntzek % 50eko **desgrabazio** fiskala izango lukete. Berria - Kultura

## **desgrazia** *(orobat **deskrazia** g.er.)* **1** *iz* zoritxarra, zorigaitza, ezbeharra.

A ze **desgrazia** mutu jaio balitz... Xabier Etxabe

Badakit gizon bat bezala arituko zarela **desgraziaren** aurrean, esan zuen medikuak. Jon Alonso

**Desgraziak** ekartzen ditu horrek. Unai Elorriaga

Ez zuen nire pentsatzeko moduak ekarri nire **desgrazia**, besteen pentsatzeko moduak baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Itxura denez, **desgraziaren** bat gertatu zitzaioan aspaldiko garaietan. Juan Garzia

**Desgrazia** handia baita espainola izan beharra. Joxe Azurmendi

Nahiko **desgrazia** badauka holakoa izanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez da terapia txarra norbere **desgrazien** bizkar barre egiten jakitea. Xabier Etxabe

Hau duk hau **desgrazia** nirea. Pablo Sastre

**2** (hitz elkartuetan)

Kalean zurekin gurutzatzen direnen begiradetan **desgrazi** aztarnak nahi dituzu antzeman. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desgrazia eta** (3); **desgrazia eta mixeria** (3)

---

## **desgraziatu** *izond/iz* zoritxarrekoa.

-Alkatea hi haiz, eta zerbait egin beharko huke Oinaze **desgraziatu** horren semeagatik -esan zuen On Camillok. Koldo Biguri

-Bisusturtea **desgraziatua**, baina uzta ona. Pello Zabala

Eta etxera itzuli nintzenean lan eske joan behar izan nuen nire bizkar eta **desgraziatu** haien guztien bizkar milioiak egin zituztenengana. Koldo Biguri

---

## **desguaze** **1** *iz* autoak atzaltzea; autoak ataltzeko lekua.

Deitu egin zioten, **desguazeko** batzuk zeuden tartean. Koldo Izagirre

Poliziak bazekien zelula kriminal bat ari zela osatzen Molinaoko basatzan, Angelita Kastoriadis-en **desguazean**, Errepublikaren aurka oldartzeko. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Noski, ez da hodeia artean ere, ez eta gutxiagorik ere; laino matazatxo merke **desguaze** modukoa, lainokume ttiki xarpail tximatsua. Pello Zabala

---

## **desgurutzatu**, desgurutza, desgurutzatzen du *ad*

Norma Lúcia etengabe aritzen zen hankak gurutzatzen eta **desgurutzatzen** haren zuzenbide erromatarreko eskoletan. Karlos Zabala

Eta nola haserretu nintzen, aldiz, handik gutirat, ikusi nuenean Maddalen eta zu haren laguntzerat zindoaztela... -eta, esku gurutzatuak **desgurutzatzen** zituela berriro gurutzatzeko, gaineratu zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

---

## desgustatu ik **disgustatu**.

---

## desgusto ik **disgustu**.

---

## desgustu ik **disgustu**.

---

## ***deshabillé*** *iz* logela-mantala.

Susto txiki bat hartzen du Mikelek, atzera begiratu eta Maribel ikusten du, ***deshabillé*** polit eta iradokor batez jantzirik. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **deshelenizatu**, desheleniza, deshelenizatzen du *ad* osagai helenistikoak kendu.

Kristautasuna **deshelenizatzeko**. Iñaki Mendiguren

---

## **deshelenizatze** *iz* osagai helenistikoak kentzea.

Kristautasun helenizatua onartu zutelarik, Ekialdekoek beren erlijioa **deshelenizatzeari** ekin zioten heresiak berenganatuz hurrenez hurren, nestorianismoa izanik horietako lehena. Iñaki Mendiguren

---

## **desheredatu**, deshereda, desheredatzen **1** du *ad* senipartetik kendu.

Alaba **desheredatuko** zukeen harekin ezkonduez gero, esan zuen Ramsay jaunak. Anton Garikano

Eta zure familian izan duen historia, Euskal Herriko edozein familiatako bera da gutxi gorabehera: aitona bat azken karlistadan preso hartua, gero Kubara soldadu eramana Espainia defendatzera, handik pattarzaletutxoa itzuli eta birraitonak **desheredatua**. Joxe Azurmendi

**2** irud/hed

Baina gero, historia horretatik guztitik zeure burua **desheredatu**, eta bide berrien bila ortozik irten gura duzu mundura zure jendearekin. Joxe Azurmendi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ezinbestean homosexual, zismatiko, **desheredatu**, agot, judu-masoniko, ijito buhame eta "munduko madarikatu guztiekin" batera anateman erortzeko. Joxe Azurmendi

Eta mulatoak, beltzak eta munduko gainerako **desheredatuak** ongi zeuden misioetako lurretan, ez bere etxean. Joan Mari Irigoien

---

## desherritu ik **deserritu**.

## **deshidratatu**, deshidrata, deshidratatzen **1** du *ad* urgabetu, ura kendu.

Hain **deshidratatuta** iritsi nintzen, non botila bat fanta hustu bainuen... baina litrokoa! Joan Mari Irigoien

Kostata lortu nuen, pare bat alditan, Marga nirekin eramatea; bigarrenean, edonola ere, kasik **deshidratatu** egin zitzaidan Irumugarrietarako bidean. Iban Zaldua

Kutsatutako urak beherako gogorrak eta okadak eragiten dizkie edaten dutenei, eta, ondorioz, haietako asko **deshidratatu** egiten dira. Berria - Gaiak

Oso **deshidratatua** eta ahul dago, eta hitz egitea kosta egiten zaio. Berria - Euskal Herria

Beroarekin erdi **deshidratatuturik** zeuden, eta ez zeukaten hizketarako kemenik. Berria - Kultura

Gero 250ºC-ra berotzen genuen bisulfato horregaz azido tartarikozko nahaste bat, hala azido tartarikoa azido pirubiko bihurtuz **deshidratatzen** da eta destilatu. Juan Garzia

**2** irud/hed

Konfuzio bera ere harrituko zukeen, baina filosofia politiko **deshidratatu** hori ere inspirazio eraginkorragoa zen bizimodu profesional kolektibo batentzat Dioklezianoren aroan mundu helenikoan zegoen literatur kultura arkaiko hutsa baino. Iñaki Mendiguren

**3** (era burutua izenondo gisa)

Danimarkatik belar **deshidratatu** pixka bat ekarri zuen Administrazioak, eta hori erosteko laguntzak eman zituen, baina oso kopuru txikia izan zen galerekin alderatuz Berria - Harian

---

## **deshidratatzaile** *izond* deshidratatzen duena.

**Deshidratatzailea**: landarezkoei hezetasuna (ura) tenperatura jakin batean atera eta, era horretan, iraupen luzeagoa bermatuko du. Edorta Agirre

---

## **deshidratazio** *(orobat* ***desidratazio*** *g.er.)* **1** *iz* deshidratatzea.

Ura besterik ez zuen eskatzen, **deshidratazioaren** eraginagatik. Joan Mari Irigoien

Guztiek oinazeak eta **deshidratazioa** jasan dituzte 23 egun horietan. Berria - Euskal Herria

Buruko minak, nekea eta **deshidratazioa** ditu. Berria - Euskal Herria

**Desidratazioa** saihesteko komeni da farmazietan saltzen dituzten soluzioak hartzea, edota etxeko limoi-ur alkalinoa prestatzea. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan)

Bersnteinen esanetan, haurdunaldian umekiak **deshidratazio** arazoak izaten dituelako gertatzen da hori. Berria - Gaiak

Gaitzak jotako pertsonek beherakoa, botatzeko gogoa eta sukar handia izaten dituzte, eta ondorioz **deshidratazio** sintomak agertzen zaizkie aise. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta deshidratazioa** (5); **nekea eta deshidratazioa** (3)

---

## **deshumanizatu**, deshumaniza, deshumanizatzen du *ad* giza ezaugarriak kendu.

Mitoek gehiegikeria karga bat izaten dute eta lurrun mistiko batean bilduta egoten dira, eurak **deshumanizatu** eta besteak jarraitzaile itsu bihurtzen dituena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Torturatu zutenean munduko gizonik maitatuena sentitu zela, eta poliziari begi itsuak atera zizkionean, berriz, zeharo **deshumanizatua**. Karlos Linazasoro

**Deshumanizatutako** jana, alegia. Edorta Agirre

---

## **deshumanizazio** **1** *iz* deshumanizatzea.

Lerro zuzenak **deshumanizaziora** eramaten gaitu. Harkaitz Cano

Eta horrekin indibidualismoa, moralkeria, pentsamenduaren atzerapena, **deshumanizazioa**, pestea Luisa, pestea! Pako Aristi

Eta errua, inon izatekotan, kategorizazioan -eta beraz, hizkuntzaren **deshumanizazioan**- bertan dagoela esatea dagokidala uste dut. Iñigo Aranbarri

**2** (hitz elkartuetan)

Eta horrek larritzen gaitu gehien, **deshumanizazio** egoerarik ankerrena ere nola eraman daitekeen, nola posible den aspertzea Auschwitzen. Berria - Kultura

---

## **desiatina** *iz* Errusiako antzinako eremu neurria, 10.925 metro koadroren baliokiea.

Anaiak eta biok hamar mila **desiatina** lur eta mila nekazaritik gora ditugu. Jose Morales

Hor soroak hasten dira, eta berrogeita hamar **desiatina** harantzago beste baso bat dago, koinatuak landatua hura ere, eta harantzago beste bat. Jose Morales

---

## **desiatu** *(23 agerraldi, 9 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 374 agerraldi; orobat* ***deseatu*** *14 agerraldi, 8 liburu eta 3 artikulutan: ETCn 235 agerraldi)* **1** du *ad* desiratu.

Nola esango nion ezetz, neu ere **desiatzen** nengoen eta. Juan Martin Elexpuru

Baina beti falta dena **desiatzen** eta dagoena muzintzen duanez gero, bizitza erdizka eta pozik gabe irristatu zaik, eta ustekabean ohaburuan heriotza agertu zaik, denaz aserik eta beterik abiatu aurretik. Xabier Amuriza

Neskatoa aitarekin egoteko **desiatzen** dago, hori seguru dakigu. Joxemari Iturralde

Mikelek Amaia lehenbailehen hiltzea **desiatu** zuen une batez eta, **desiatu** zuenaz jabetu zenean, bere ahizpa bost axola zitzaiola ohartu zen. Aitor Arana

Baionatik alde egiteko **desiatzen** ikusi ditugu. Berria - Euskal Herria

Presoon gurari eta ametsik onenak urte berrian bete daitezela **desiatuz** zuzendaritzaren izenean. Jokin Urain

Nik beren zakil jaikiak ikusten nituen, eta **desiatzen** nengoen norbaitek sar ziezadan, baina barrezka eta nire gorputzarekin jolasean jarraitzen zuten eurek. Juan Martin Elexpuru

Iruditu zitzaion garai bateko kontuak itzuli zirela ostera ere, nerabetasun garaiak, aspalditik **desiaturiko** senargai batek, azkenik, etxera deitzen zuenean bezalaxe. Joxemari Iturralde

**2** (era burutua izenondo gisa)

Honelako beste munstro eta izugarri batzuk ere sortzen zituen, alferrik, naturak ez baitzien hazten utzi, eta ezin izan zuten adin-lore **desiaturik** erdietsi, ez janik aurkitu, ez Venusen egintzan elkartu. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desiatzen nago** (4)

## **desibili**, desibil, desibiltzen du *ad* ibili den bidea kontrako norabidean ibili.

Ibilia **desibili** eta norabide egokia berreskuratu. Aingeru Epaltza

Ibilia atzera berriz **desibiltzea** da funtsean bertsolariaren teknika hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Etorri bidea pauso pisuekin **desibili** du. Eider Rodriguez

Gelditu ere ez zen gelditu, bere urrats nagiekin bat eginez bakarrik ibilitakoa haren ondoan **desibiltzeari** lotuko nintzelako segurtasun osoan. Aingeru Epaltza

## **desideologizatu**, desideologiza, desideologizatzen du *ad*

Autore gutzi-guztiek insistitzen zutela, elkarrizketa aldez aurretik **"desideologizatu"**, "zedarritu", urrutiko azken printzipioetatik hurbileko arauen mailara ekarri, "maila pragmatikoan" planteatu behar horretan. Joxe Azurmendi

«Jendartea nahastu eta **desideologizatu** » nahi dutela leporatu die. Berria - Euskal Herria

**Desideologizatuta** daudela, desmobilizatuta, ez dutela euskara maite eta abar. Jokin Muñoz

## **desideologizazio** *iz* desideologizatzea.

Euskararen **desideologizazioak**, ordea, beldurtu egiten du Saizarbitoria, euskaltzaletasuna ahul bailezake. Markos Zapiain

## **desideratu**, desidera, desideratzen **1** du *ad* desiratu.

Lur jorik irten ginen, deuseztaturik, etsi-etsian desiratzen genuelarik dena buka zedin eta gu geu ere akaba gintezen; orobat **desideratzen** genuela, hala ere, elkarrekin egotea, gure artean hitz egitea, batak besteari laguntzea oroitzapen artean hain arestiko hura exorzizatzen. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Instrumentu **desideratua**. Berria - Kultura

## **desideratum** *iz* desira, helburua.

**Desideratum** horrek jokabide etikoa eskatzen du, gainera: giza arima partaide bada harmonian, logosera hurbiltzea da duen eginbeharra. Askoren artean

Hemen ez dago egiaren **desideratum** zuzentzailerik. Askoren artean

Bada zortzi orrialdeotan halako **desideratum** aire bat, halako giro light asaldagarria. Iñigo Aranbarri

## **desidia** *iz* zabarkeria, gogorik eza, utzikeria.

Espaloiak aitzurtuko ditut, eta **desidiazko** zotalak irauliko, bizipozaren urregorria kausitu arte. Joxerra Garzia

## desidradazio ik **deshidratazio**.

## desiertu ik **desertu**.

## **designatu**, designa, designatzen du *ad* izendatu.

Fregeren esanetan, izen batek bere erreferentzia **designatzen** du, izena objektuaren ordezko bat da hizkuntzan. Askoren artean

Arauak era errekurtsibo batean ematen dira, eta formulak **designatzeko** metahizkuntza baten sinboloak erabiltzen dira. Askoren artean

## **designatzaile** *iz*

Izen propioak **designatzaile** zurrunak dira; **designatzaile** bat zurruna da baldin eta objektu bera denotatzen badu mundu posible orotan: "Aristoteles" izen propioak, esaterako, pertsona bera denotatuko du mundu denetan, nahiz eta mundu horretan Aristotelesek ez izan guk geurean egozten dizkiogun ezaugarriak. Askoren artean

**Designatzaile** ahulek, ostera, erreferente desberdina dute mundu batean eta bestean. Askoren artean

## **desigual** *izond*

Eta nola gaztelaniaz "diferente" eta **"desigual"** desberdinak eta **desigualak** diren, biak diferenteak, ezberdinak eta bestelakoak, euskaraz ere biak hartu behar dira kontuan, omen. Pello Salaburu

## **desikasi**, desikas, desikasten du *ad* ikasi dena ahazten saiatu.

Geuk egiten dugunez, geuk desegin dezakegu eta, ondorioz, ikasitako guztia **desikas** daiteke. Ana Urkiza

Eta bizitzako ehun arrazoiren eskolan, ikasitakoak **desikasten** joan zara. Joxe Azurmendi

Petroniok erabat **desikasi** zuen idazteko artea, imajinatua zuen bizia bizi izan zuen orduko. Juan Garzia

Sare neuronal artifizialei behintzat horixe gertatzen zaie, apur apurka hilez gero ikasitako guztia atzekoz aurrera pasatzen zaie, bere siliziozko bizitza **desikasiz** bezala. Joseba Sarrionandia

## **desilabagiletze** *iz* silabagile izateari uztea.

Errepara, adibidez, goraxeagoko kenketen ondorengo urrats litzatekeen egiteko hitzaren ahoskerari: /egiteko/ Š e (c) iteko (jarraitutasun asimilazioz) Š eiteko (kontsonante jarraituaren kenketaz) Š ejteko (i bokal itxiaren **desilabagiletzeaz**). Lourdes Oñederra

## desilusio *(ETCn 846 agerraldi)* **1** *iz* zerbait edo norbait, uste ez bezalakoa dela ikustean izaten den sentimena. ik **desengainu; deslilura.**

Negar eginen nuen, gogotik; hainbestekoa zen sentitzen nuen **desilusioa**. Fernando Rey

Ordubete baino gutxiagoan alaitasunak **desilusioa** ekarri du. Josu Zabaleta

Errusiara egindako txangoa zoragarria izan zen, gogo-pizgarria alderdi batzuetatik, baina tristura eta **desilusioa** ere sortu zizkidan. Xabier Olarra

Bata penak eta **desilusioak** belztua da, bestea alaitasunak eta aberastasunak argitua. Xabier Olarra

Une batez **desilusio** labur bat ikusten zaio aurpegian, baina irakurtzen jarraitzen du gero. Josu Zabaleta

Nik **desilusio** pixka bat hartzen nuen desenfokatuta zeudelako, eta aita atze-atzean baizik agertzen ez zelako, itzal ñimiño baten moduan. Fernando Rey

Horregatik sortzen dute maitasunezko ezkontzek oinaze eta **desilusio** gehiago komenentziaz egindakoek baino. Josu Zabaleta

Joana zen irritsezko eta **desilusiozko** orgia. Anton Garikano

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Desilusio** handia izan zen, askoz begi hobea izango zela espero baikenuen, bestea baino askoz hobea, ikusmenean aldaketa funtsezkoa ekartzeko modukoa. Xabier Olarra

Lehenengo aldiz egin genuenean, **desilusio** handia hartu nuen; beste zerbait espero nuen. Luis Elberdin

Amak erantzun zion esanez berekin **desilusio** handia hartu genuela denok, eta behin baino gehiagotan nahigabeak ere eragin zizkigula. Josu Zabaleta

**Desilusio** galanta hartzen du, jaun haren izena Ki-jo-te ahoskatzen zela jakiten duenean. Xabier Olarra

Une batez **desilusio** labur bat ikusten zaio aurpegian, baina irakurtzen jarraitzen du gero. Josu Zabaleta

Honek Mendebaldeko arimen **desilusio** sakona adierazten zuen, eta Mendebaldeko erlijio-gerra deituen ondorena zen. Iñaki Mendiguren

Edo **desilusio** optiko bat, zehatzago. Harkaitz Cano

Sekulako **desilusioa** izan zela. Luis Elberdin

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Desilusio** berbak kutsu txarra zeukan baina ez zen, behintzat, etsia edo etsi gaiztoa bezain kutsu txarrekoa. Lutxo Egia

Bere burezur belztua besaulkiaren bizkarrean bermatuta, ezpainak oker **desilusio** keinu batean, eta barre-irudi ozpindu batekin. Fernando Rey

Esperantzari leiho bat zabaldu, eta **desilusio** usaina sartu zitzaigun, paper fabrikek zabaltzen zuren kiratsa baino ere minago. Joxerra Garzia

**Desilusio** mota berezi bat. Xabier Olarra

Amodio erromantikoa, eragin kristauaren mendez mendeko azken fruitua da, gorputz gabeko jantzi polixko asmatu bati segika egiten den **desilusio** bidea. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desilusio bat** (3); **desilusio handia** (6); **desilusio handia hartu** (3); **desilusioa hartu** (3); **desilusioa hartuko** (3); **eta desilusio** (4); **eta desilusioa** (3)

---

## desilusiogarri *izond* desilusioa ekartzen duena.

Ordu arte ikusitakotik, **desilusiogarri** gertatu izan zitzaizkion gauza franko; sekulako poza eman zion, ordea, etxea eta familia ikusteak. Xabier Olarra

---

## desilusionatu, desilusiona, desilusionatzen **1** da *ad* ilusioa galdu. ik **desliluratu.**

Herritarrak **desilusionatuta** geratu ziren. Josu Zabaleta

Hasperen egin zuen, **desilusionaturik**. Migel Angel Mintegi

Milaka eta milaka perutarren aukera bihurtu da egun; baita klase ertaineko sektoreetako perutarrena ere, **desilusionatuta** baitaude alderdi tradizionalekin. Berria - Mundua

**2** du *ad* ilusioa kendu.

Bart gauean ere elkarri musuka ari ginen, baina Peterren masailek **desilusionatu** egin ninduten, ez baitziren itxura duten bezain leunak. Josu Zabaleta

**Desilusionatu** egin zaitut, modutsuagoa izango nintzela espero zenuen. Josu Zabaleta

Kontu handiz ezkutatzen nion Lisettari ez nituela Croceren liburuak ezagutzen, zeren, nolako miresmena zidan ikusita, ez nuen nahi **desilusionatzerik**. Fernando Rey

**3** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Orduan zorigaitz pixka bat sentitu nuen eta neure burua ikusi nuen fededun **desilusionatu** baten itxuran. Matías Múgica

Ba ote zen inolako bertuterik erlijiozko tolerantzian, non baretu baitzen Mendebaldeko mundu **desilusionatua** kristau-aroko hamazazpigarren mendearen bukaera aldera? Iñaki Mendiguren

Dena den, «pertsonaia **desilusionatuen** istorioak» kontatu arren, ez da liburu ezkorra. Berria - Kultura

Euren xedea «ezkerreko nahiz eskuineko **desilusionatu** guztiak biltzea» da. Berria - Euskal Herria

---

## desilusionatzaile *izond* desilusionatzen duena.

Mendebaldeko basamortuan noraezean zebiltzanak -arbasoen egiazko Jainko bakarrarengandik aldenduta, esperientzia **desilusionatzaile** batek irakatsi zielarik parroki estatuak, eliza sektarioak bezala, ez bakea baizik eta ezpata ekartzen zuten idoloak zirela -tentatuta egon zitezkeen gizatasun kolektiboari heltzeko, idolatratzeko objektu alternatibo gisa. Iñaki Mendiguren

---

## desilustratu *izond* ilustrazio gabekoa.

Nola ahal izango ditu frantses jator batek "ulertu", izan ere, musulmanen ohitura **desilustratuak** eta erlijio islamikoaren sura itxuragabekoak, eta bere kulturaren balio berdinekotzat hartu? Joxe Azurmendi

---

## desilustratuki *adlag* ilustraziorik gabe.

Orduan indibiduoaren autonomiak erlatibismoaren kaos total berera garamatza orain **"desilustratuki"**...; ez jakitera alegia zer dagoen ondo, zer gaizki, zer den kultura, artea... Joxe Azurmendi

---

## desinatzaile *(orobat **dezinatzaile**)* *iz* disenatzailea.

León Abadias kanpaina-**desinatzaileari** eskatu zion domina-zirriborroa; eta berak "Medalla de Montejurra" izeneko bat aurkeztu zion Erregeri. Txillardegi

**2** (izenondo gisa)

Bere bizitzan profezur **dezinatzailea** zen Donibane Lohitzunen, erretreta hartu arte 1997ean. Herria

---

# **desinbertitu** *izond* desinbertsio baten ondoriozkoa.

Zifra horiek epe luzeko deritzaten fluxu garbiei dagozkie, bestela esanda, urtebete baino gehiagorako fluxuei, parte nagusia eta kopuru **desinbertituen** ordainketa kenduta. Koro Navarro

Kataluniako eta Espainiako konpainien balizko baturak hainbat aktibo **desinbertitu** saldu beharko lituzke lehia agintarien onespena izateko Berria - Ekonomia

---

# **desinbertsio** 1 *iz* inbertitu den kapital bat ateratzea.

Hainbat **desinbertsio** egitera behartuta egongo da talde berria. Berria - Ekonomia

Endesak aurkeztutako 1.469 milioi euroko irabaziak Aunan eta Smartcomen egin dituen **desinbertsioetan** oinarritu direlako. Berria - Ekonomia

Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak zainduko ditu **desinbertsiook**. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

1976an gobernu militarra amaitu eta gero, gobernu demokratikoek diktadurak izan zuen desindustrializazio eta **desinbertsio** politika jarraitu zuten. Berria - Mundua

---

# **desindustrializazio** 1 *iz* industrializazioa galtzea edo ezabatzea, industria kentzea.

Indiaren kolonizazioak ez zituen bizitza-mailaren atzerapena eta **desindustrializazio** garrantzitsua bakarrik eragin; aldi berean, iraupenezko laboreak desagerrarazi zituen, eta XIX. mendean goseteak areagotu. Koro Navarro

Inoiz etengo al da Ezkerraldearen **desindustrializazioa**? Berria - Ekonomia

Frank Gehry arkitektoaren lanak hiriaren biziberritzea sinbolizatzen du, eta **desindustrializazioak** ekarritako etsipenaren aurrean garaipena. hazkundea gehienbat kanpotik bultzatzen denean, lehengo estatus periferikora itzultzeko arriskua dute (kapitalek ihes egitea eta **desindustrializazioa**), baldin zorduntze-krisiren bat gertatzen bada, adibidez. Urtzi Urrutikoeetxea

**2** (hitz elkartuetan)

**Desindustrializazio** prozesu zorrotza. Berria - Euskal Herria

1976an gobernu militarra amaitu eta gero, gobernu demokratikoek diktadurak izan zuen **desindustrializazio** eta desinbertsio politika jarraitu zuten. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desindustrializazioaren aurkako plataformak** (3)

---

# **desinentzia** *iz* flexio morfema.

Deklinabide honetan kasu bakoitzari **desinentzia** bat dagokio. Isabel Arrigain

Erro bat, atzizki bat eta **desinentzia** bat. Isabel Arrigain

**Desinentzia** ezabatzean, flexio enborra edo erradikala lortzen da. Isabel Arrigain

Aglutinazioa gauzatu zen garaia, indoeuropar hizkuntzan **desinentziak** eratu zirena baino lehenagokoa bailitzateke. Isabel Arrigain

*Hylo* delakoa, zeina, gauza bitxia, baltsamaturik aurkitzen baita alkali-erroen **desinentzietan**: *metilo, butilo,* eta abar. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desindustrializazioaren aurkako** (3); **desindustrializazioaren aurkako plataformak** (3)

---

# **desinfektagarri** *(8 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 40 agerraldi)* 1 *iz* desinfektatzen duen produktua. ik **desinfektatzaile.**

Bainugelan nabarmena zen beste batzuen hortzoreak eta klorozko **desinfektagarriek** utzitako usaina. Lopez de Arana

Afaltzeko ordurako ozta-ozta itzuli zen etxera, botilatxoz karga-karga eginik, eta zuzen-zuzenean bere gelara sarturik, **desinfektagarriz** blai egin zen. Josu Zabaleta

Kolonia eskatu du **desinfektagarri** bezala erabiltzeko, eta baselina, argizari bezala erabiltzeko. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

**Desinfektagarri** pote hutsak erakustera behartzen dituzte. Berria - Gaiak

**3** (izenondo gisa) desinfektatzen duena.

Hemen ere iritsieran dutxak, bizarginak, likido **desinfektagarriak** eta jantzi aldaketak genituen zain. Urtzi Urrutikoetxea

---

# **desinfektante** *(2 agerraldi, 2 liburutan; ETCn 11 agerraldi)* *iz* desinfektatzen duen produktua. ik **desinfektatzaile.**

Oso **desinfektante** ona omen da. Joxean Sagaztizabal

Tabako usaina, kolonia usaina, **desinfektante** usaina, behi usaina usna zitekeen. Joseba Sarrionandia

---

# **desinfektatu**, desinfekta, desinfektatzen 1 du *ad* infekzioa edo infekzioa sortzeko gaitasuna kendu.

Barazkiak gordinik janez gero, garbitzerakoan uretan lixiba tanta bat bota **desinfektatzeko**. Berria - Harian

Gordinik kontsumitzeko, aurretiaz ikuzi diazinon-ur edo ehetan; bestela, zuritu 3-b motako labanarekin eta, ondoren, **desinfektatu** hau. Edorta Agirre

Gu dutxatu bitartean gure arropak **desinfektatu** egingo ei dituzte. Urtzi Urrutikoetxea

Gaitza agerturiko lekuetan hegaztiak hil dituzte (120.000 denera), berrogeialdiak ezarri dizkiete herritarrei eta ibilgailuak **desinfektatu** dituzte. Berria - Gaiak

Gaitza agerturiko lekuetan hegaztiak hil dituzte (120.000 denera), berrogeialdiak ezarri dizkiete herritarrei eta ibilgailuak **desinfektatu** dituzte. Berria - Gaiak

Postuko gizonei adierazi zien herriko botikara zihoala **desinfektatzeko** gauzak erostera. Koldo Biguri

Jendea txizaz **desinfektatzeko** mania berbera. Joxean Sagaztizabal

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hor, ur **desinfektatu** horren azpian, begira zale sadikoa dago. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desinfektatu egingo** (3)

**desinfektatzaile** *(4 agerraldi, 2 liburutan; ETCn 152 agerraldi)* **1** *izond* desinfektatzen duena. ik **desinfektagarri**.

Osasun-garbiketako kamioia etorri, eta auzo osoan ibili zen denak gortu beharrean, ta-ta-ta-ta, alde guztietara hauts **desinfektatzaileak** zabalduz. Juan Kruz Igerabide

Hauts **desinfektatzailearen** lainopean sartzen ginenean, ez genuen ezer ikusten. Juan Kruz Igerabide

**2** *iz* desinfektatzen duen produktua.

Beraz, Bev Shaw-k atea irekitzen dienean aurpegi ona jarriko du, nahiz eta barrutik iristen zaien katu-txixen, txakur hazteriatsuen eta **desinfektatzailearen** kiratsak atzera eragiten dion. Oskar Arana

---

**desinfektatze** *iz* infekzioa edo infekzioa sortzeko gaitasuna kentzea.

Gaixoa hil dezakeen **desinfektatze** bat. Josu Zabaleta

Bereizkuntza analitikoa bizitzaren saneatze, **desinfektatze** lan bat izango litzateke. Josu Zabaleta

**Desinfektatze** lanak abian jarri dituzte eskualdeko agintariek. Berria - Mundua

---

**desinfektazio** *iz* desinfekzioa.

**Desinfektazio** automatikoaz hornituriko dutxak baizik ez ziren oraindik martxan, baina maiz askotan matxuratzen ziren haiek ere, bezero batzuk itoaraziz. Joxan Elosegi

---

**desinfekzio** **1** *iz* desinfektatzea.

Enpresak, greba amaitzean, garbitasun plan berezia jarri zuen abian, eta orain inguru batzuen **desinfekzioa** baino ez da falta. Berria - Euskal Herria

**2** irud/hed

Talde berriaren sinesmena barruraino errotua zutenek, eta suzko **desinfekzio** batekin garbituak eta purifikatuak izateko batere gogorik ez zutenek, ihes egin zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (hitz elkartuetan)

Hirugarren mailan eman zizkiguten **desinfekzio**-arauak aplikatuz. Joseba Urteaga

Gregorio ahitua zegoen eta bazekien laster gaixotu eginen zela, hurrengo **desinfekzio** egunean edo asteroko dutxaldian, negu kupidabako hartan. Koldo Izagirre

Gainera, gaitzak ez hedatze aldera, **desinfekzio** lanetan ziharduten. Berria - Mundua

---

**desinflazio** **1** *iz* inflazioak behera egitea.

Horren ondorioz, Europan eta Japonian **desinflazioa** eragotzi zuen, eta arindu Estatu Batuetan. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Ekonomia industrializatuen erosahalmena aski gehituz, petrolioaren prezioaren beherakadak jarduera suspertu zuen, aldi berean herrialde haiek jadanik egina zuten **desinflazio**-ahalegina luzatuz. Koro Navarro

---

**desinformatibo** *izond* desinformatzen duena.

Madrilgo Gobernuak makinatu zuen estrategia **desinformatibo** erraldoia. Txema Ramirez de la Piscina

---

**desinformatu**, desinforma, desinformatzen **1** du *ad* berri manipulatuak zabaldu, xede jakin batzuk lortzeko.

Jende asko ez da ohartzen benetako egoeraz, hedabide nagusiek informazioa ezkutatu eta nahita **desinformatzen** dutelako. Berria - Harian

Haren ustez, zenbaitetan modu interesatuan nahasten dira terminoak, eta modu horretan herritarrak **«desinformatzen»** dira gai oso sentikorretan, «terrorismoa edo ETA eta haren amaiera posiblea kasu». Berria - Euskal Herria

Funtsezko kontuei dagokienez, benetan axola duten gauzez, beti bezain **desinformatuta** baikaude Informazioaren Gizarte honetan. Joxerra Garzia

**Desinformatuta** gaude, ezin dugu esan ATBren industria plana gustuko dugun edo ez dugun. Berria - Ekonomia

**2** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Gizarte **desinformatuetan** bakarrik gertatzen da gezurra esan eta herritarrek gezur hori sinestea. Berria - Gaiak

---

**desinformazio** **1** *iz* informazio falta.

Jendeak ez daki dokumentu hori egiteko eskubidea duela; beraz, **desinformazio** handia dago. Berria - Harian

**2** desinformatzea.

Pasadizo hau **desinformazioaren** paradigmatzat hartzen da mundu osoko Komunikazio-fakultateetan. Txema Ramirez de la Piscina

Herritarren **desinformazioa** sortzen ari dira horrelako datuekin. Berria - Euskal Herria

Nazioartean ospe handia duten zenbait erakundek ere -Amnesty International tartean- kosk egin zioten **desinformazioaren** amuari, hasieran behintzat. Txema Ramirez de la Piscina

Irakeko gerran kazetari iparamerikarrek sortutako manipulazioa eta **desinformazioa**. Berria - Kultura

Pentsamolde bakarra, ideologien kontrola eta **desinformazioaren** espiritu itogarriak haizatzea Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

**«Desinformazio** kanpaina» antolatzea leporatu diete PPko buruzagiei. Berria - Harian

Azpimarratzekoa da Aznarrek fan klub aparta daukala; **desinformazio** lana egin zuten eta geroztik ez dira lelo horretatik atera. Berria - Euskal Herria

Patrick Cassan "Le Journal du Pays Basque" egunkariko berriketariak azaltzen du frantses prentsak Madrilgo gertakariaz ukan duen postura: ardurenean bezala, **desinformazio** lan bat, Madrilgo poderearen ikuspuntua itsutuki zabalduz. Herria

---

**desinhibitu**, desinhibi, desinhibitzen *(orobat **desinibitu**)* **1** da *ad* lotutasuna galdu, herabetasuna galdu.

Geroztik, paradigma horrixe jarraitu diote nire hordialdi gehienek: alegia, **desinibitzeko**, lotsa galtzeko, ondo pasatzeko hasten naiz edaten, adin horretako guztiek egiten duten bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Loturarik gabeko pentsamendu aske eta jatorrizko baten lekukoa ere iruditzen zitzaion, beti bezala, **desinhibitua**, estilo garatukoa, bururatua. Jon Alonso

---

**desinhibizio** **1** lotutasunik eza, herabetasunik eza.

Baina aztoramena, askatasuna, **desinhibizioa**, ez dira lobulu frontaletako lesioen ondorio bakarrak. Xabier Olarra

Ematen zuen lobulu frontaleko zauriak **"desinhibizio"** moduko bat ekarri ziola. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan)

Batzuetan, sindromeari **"desinhibizio**-gaixotasun" deritzo Bennettek Xabier Olarra

---

desinibitu ik **desinhibitu**.

---

**desinstalazio** *iz* instalazioa desegitea.

Instalazioa eta **desinstalazioa**, biak izan daitezkeela neurri bereko adierazpenak, alegia. Hasier Etxeberria

---

**desintegratu,** desintegra, desintegratzen **1** da/du *ad* zerbait zatietan edo bere osagai guztietan banatu.

Laser izpi hura **desintegratu** eta segundo zatiki baten barruan, metro bat haruntzago agerraraztea lortu zuten. Berria - Gaiak

Abiadura horretan, aireko molekulekin igurtzimendu handia sortzen da eta segundu gutxitan **desintegratzen** dira; jendeak ikusi zuen zutabea sortzen da horrela, gas beroarekin. Berria - Gaiak

Atmosferan berriro sartzean **desintegratu** egin behar duela ez dakien txakurtxo horrek. Koldo Izagirre

John Lennonek berak ez luke ezer galduko, honezkero goitik behera **desintegratuta** egongo delako. Unai Elorriaga

Errazagoa da atomoa **desintegratzea**, aurreiritzi bat **desintegratzea** baino. Berria - Harian

**2** (gauza abstraktuak)

Eztabaida da gehiegizko tolerantziak ez ote dituen jarriko bai Mendebaldeko baloreak bai hitzartzen ari garen Europako identitatea **desintegratzeko** bidean. Ikaragarrizko entitate politiko hauek gutxiengo menderatzaileen azken hitzak dira hilzoriko zibilizazioetan **desintegratzen** ari diren gizarte-gorputzetan. Anjel Lertxundi

**Desintegratzen** ari diren inperio guztietan armada guztien onuradunik nabarmenenak beraietan izen-emandako atzerritarrak eta barbaroak izan dira. Iñaki Mendiguren

Ezaugarri berberak ikus daitezke **desintegratzen** ari zen mundu siriakoan Islamak izandako aurrerapenean eta **desintegratzen** ari zen mundu indikoan hinduismoak izandako aurrerapenean. Iñaki Mendiguren

Denbora, hala ere, asko luza daiteke *limes*-aren atzeko barbaroek **desintegratzen** ari den zibilizazioaren eremu gutiziatuan sartzea lortu baino lehen. Iñaki Mendiguren

**3** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Esan ohi den moduan, gaurko Euskal Herria gizarte **desintegratu** bat da administratiboki, politikoki, sozialki, linguistikoki, kulturalki. Joxe Azurmendi

Errusiari Georgia «gaixo eta **desintegratu** bat» komeni zaio. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desintegratzen ari** (33); **desintegratzen ari den** (17); **desintegratzen ari diren** (5); **desintegratzen ari zen** (8); **eta desintegratzen** (6); **eta desintegratzen ari** (6)

---

**desintegratze** *iz* zerbait zatietan edo bere osagai guztietan banatzea.

Atomoen **desintegratze** elektrolitikoaren bidez, oraindik ondo ezagutzen ez diren ioi eta elektroi horiek azaltzen dira. Josu Zabaleta

---

**desintegrazio** **1** *iz* desintegratzea.

Indar elektromagnetikoak karga duten partikulen artean du eragina, indar ahulak materiaren **desintegrazioan** eragiten du (eguzkian, esaterako). Berria - Gaiak

**2** (gauza abstraktuetan)

Zatiki hauek, kolapsoaren ondoren zibilizazioen **desintegrazioak** sortuek, askatasuna lortzen dute, beste zibilizazio garaikide batzuetatiko osagai atzerritarrekin gizarte eta kultur konbinazioak osatzeko. Iñaki Mendiguren

Hau gertatzen denean, gizartea **desintegrazioaren** bidean sartzen da. Iñaki Mendiguren

**Desintegrazioen** abiapuntu diren kolapsoen azterketak zera erakutsi digu, sarritan gizartea osatzen duten parroki estatuen artean gerra izugarri bortitza piztu izana dela kolapsoaren okasio, sintoma edota kausa ere. Iñaki Mendiguren

Hazkundeak, **desintegrazioak** bezala, ziklikoki erritmikoa den mugimendu bat erakusten duela. Iñaki Mendiguren

Diferentziazioa hazkundearen marka den bezala, estandarizazioa **desintegrazioaren** marka da. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxe baten tamainako masa handi batek bakarrik iraun bide dezake berorik **desintegrazio**-energiaren bizkar. Estatu unibertsalek badute hirugarren ezaugarri nabarmen bat: susperraldi [...] baten adierazpide dira **desintegrazio**-prozesuan. Juan Garzia

Mendebaldeko Zibilizazioa zela bere espezieko ordezkari bakarra, **desintegrazio**-seinale ukaezinik ageri ez zuena. Iñaki Mendiguren

Kolapso eta **desintegrazio**-faseetan aurki litekeen erregulartasuna hemen ez da agertzen. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estatu unibertsalek joera bizia dute berez helburu balira bezala jokatzeko, nahiz eta benetan gizarte-**desintegrazioaren** prozesuan fase bat bakarrik izan. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten desintegrazioaren** (3); **eta desintegrazioen** (3); **gizarte desintegrazioaren** (5); **kolapso eta desintegrazioen** (3); **zibilizazioen desintegrazioak** (3)

---

**desintegrazioaldi** *(orobat **desintegrazio-aldi** g.er.)* *iz* desintegrazioa gertatzen den aldia.

Zibilizazio bat bere sorrera, hazkundea eta kolapsoa kontuan hartzen ditugun heinean unitate ulergarria gertatu arren, ez dela hori gertatzen **desintegrazioaldian**. Iñaki Mendiguren

**Desintegrazioaldian** desintegratzen ari den gizartearen salbatzaile gisa agertzen dira. Iñaki Mendiguren

Nahiz eta hazkundealdia, **desintegrazioaldia** bezalaxe, erronka eta erantzunen txanda-sail bezala azter daitekeen, aurkitu dugu ezinezkoa dela uhin-luzera estandar eta komunik bereiztea txanda-segidarentzat. Iñaki Mendiguren

Gainera, kronologikoki hiru aldi horiek zibilizazio zaharraren **desintegrazio**-aldiarekin, interregnoarekin eta zibilizazio berriaren sorraldiarekin pareka daitezke gutxi

gorabehera. Iñaki Mendiguren

---

# desinteres *iz* interesik eza.

Belaunaldi berria Aranaren arrazismoaren aurka zegoen, hizkuntza eta kulturarenganako **desinteresa** ulertezina zitzaion. Joseba Zulaika

**Desinteres** hain erabateko horrek ez du jaso bere ordain-saririk. Juan Garzia

Gusto honek ez du baietzak **desinteresa** adieraziko lukeen lekuan ezetz esateko bakarrik agintzen, baizik eta ahal den ezetzik gutxiena esatea, behin eta berriz ezetz esan beharreko leku guztietatik aienatzea, urruntzea. Patziku Perurena

Nahi nuen ziur izan nafar dotorearen mateletan ikusi nuen arrosa kolorea bidean bildu zuten beroak baino gehiago ene soak eta behar bada niri buruzko **desinteres** eskasak eragina zutela. Piarres Aintziart

---

# desinteresatu *izond* desinteresa -bereziki norberaren onurarekiko- erakusten duena.

Baina, jakina, beti izaten da laguntzaile **desinteresatu** bat oinak lurrean jartzen laguntzen diguna. Bernardo Atxaga

Herriaren sentimendu **desinteresatu** eta idealista. Iñaki Mendiguren

Jendeak adiskidetasun **desinteresatua** irrikatzen du gehien. Xabier Olarra

Geldo ziren zalantzarik gabe beren baitaren sakonean, espekulazio **desinteresatura** emanak, hitz-jolas burutsura, eztabaida dotore, sofistikatu eta doakora. Juan Garzia

Ongileak nekez izaten dira ospetsuak, eta beraien onegintzak erabat **desinteresatuak** ez badira, behintzat, baliteke erabat ez merezi izatea ere. Iñaki Mendiguren

Gizakia ez da ez inurri **desinteresatua**, ez ziklope tratagaitza, "animalia soziala" baizik. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> erabat desinteresatua (3)

---

# desintoxikatu, desintoxika, desintoxikatzen du *ad* gai baten efektu toxikoak ezabatu.

Ilbeherak **desintoxikatu** egiten digu gorputza, garbitzearen aldera jotzen du, barruko sapak mugitu, ureztatu eta izerdiarazi, sapa-izerdiak mugiarazi eta atera, garbiketa behartuz. Pello Zabala

---

# desintoxikazio 1 *iz* gai baten efektu toxikoak ezabatzea.

Ondoren, David Minor izeneko norbaitez hitz egiten hasi zen; bere taldeko buru izan omen zen klinikan, eta badirudi hura sendaturik zegoela jada, Rory **desintoxikazioa** utzi eta birgaitze-programan sartu zenerako. Oskar Arana

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agintarien esanetan, horietatik 220.000 **desintoxikazio** zentroetan daude eta beste 60.000 drogazaleentzako bereziki prestatutako errehabilitazio zentroetan. Berria - Gaiak

**Desintoxikazio**-zentroan ezagutu nituen, ordea, bestelakoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Alferrik edaria uzteko **desintoxikazio** toki horietan sartzea. Gotzon Garate

## 3 *desintoxikazio aldi*

Ez dizkizut kontatuko, beraz, drogaren garaiko abenturak edo **desintoxikazio aldiko** mixeriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Taldeak atera egin zuen zulotik eta, Bhatia eritegian **desintoxikazio aldia** igaro ondoren, Mother Theresak zuzentzen zuen Rehabilitation Center-en sartu zuten. Gotzon Garate

---

# desio *(787 agerraldi, 123 liburu eta 150 artikulutan; ETCn 6.912 agerraldi; orobat* **deseo** *41 agerraldi, 8 liburu eta 21 artikulutan; ETCn 594 agerraldi)* 1 *iz* desira. ik **desira**.

Bakoitzak bere istorioa dauka, bere bizipenak, gustuak eta nahiak, bere ametsak eta grinak, bere beldurrak eta konplexuak, bakoitzak bere **desio**, maitasun eta pasioak. Luis Elberdin

**Desioa** desberdina da gizonengan eta emakumeengan. Juan Kruz Igerabide

Askotan gertatzen da analisten artean errealitatea eta **desioak** nahastea -berezko interes pekuniarioagatik, noski-. Iñaki Heras

Jendeak **desioak** ditu. Esteban Antxustegi

Brankiek eta kimek, intziri nahasmen zoroan, **desioa** piztu zuten uharte aspaldian esploratu gabeetan. Karlos Linazasoro

Nire bidez zure **desioa** gauzatu ahal izango duzu. Patxi Zubizarreta

-Zure **desioak** agindu dira niretzat -erantzun zion Nur Al-Dinek. Patxi Zubizarreta

Lepotik heldu eta itotzeko **desioa** sentitu nuen, baina ez nintzen gai. Ramon Saizarbitoria

**Desioa** bete-betean zetorkion. Patxi Zubizarreta

Ezinezkoa zait ordea **desio** horri amore ematea. Bernardo Atxaga

Ez dut oraingoz **desioa** burutu. Bernardo Atxaga

Azken **desio** hori konplituko balitzait, [...]. Joxerra Garzia

Erotismoak gure **desioaren** atean jo orduko, heriotza ere sartu egiten duk erotismoarekin batera. Anjel Lertxundi

## 2 (izenondoekin)

Testamentuaren bitartez, **desio** zahar bat, hil aurretik xedatua, ezagutaraziko zidaten guraso hilek. Eskatu hori baino **desio** handiagoa. Joxan Elosegi

Ezaguna zen orduko **desio** ezkutuen eremu hori, baina zientziaren esparrura eraman zuen Freudek. Berria - Harian

Bere gaztetako amets eta **desio** frustatuak kontatu zizkion. Jasone Osoro

Mogueimeren **desio** fisiko guztia ziztu batean iraungi zen. Jon Alonso

Heterosexualen **desio** homosoziala. Lourdes Oñederra

Zuk diozun hori **desio** basatia da! Xabier Paya

Madrilgo atentatu lazgarriaren biktimen bizipenak eta **desio** apurtuak ezagutzen ditugu. Berria - Kultura

Eta bat-batean **desio** latza, hordigarria gaindu zitzaidan haiek denak baino gehiago izateko. Matías Múgica

Ez al duzu zuk beste **desio** berezirik? Joan Mari Irigoien

Nire **desio** bikoitza: gertakizuna idatzi bihur dadila; eta idatzia izan dadila gertakizun. Joseba Urteaga

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakumeak, langetako sarreretan, beren hilotz eta **desio**-zamarekin hurbiltzen diren txalupei so daude, Gure **desio** falta zurituko duen arrazoi baten bila arituko bagina bezala. atzetik heltzen didate, atzetik bortxatzen naute pentsatzera, zerbait izatera beraz, nire atzean existentziazko burbuila arinetan hatsanka, **desio**-lanbrozko burbuila da.

Jon Alonso

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Osabarekin kalera gosaltzera nindoala esan nien gurasoei, beren zorion- **desioa** jaso ostean. Aitor Arana

Eta Erdi Aroko pentsaeraren alderdi horiek ere ez dira ahaztu behar, nahiz aitortzekoa izan ez zetozela bat orduko gizakiak barru-barrutik sentitzen zuen autonomia- **desioarekin**, bai, ordea, egitura sozial eta politikoen egoerarekin. Askoren artean

**5** ***desio izan*** du *ad*

Ez zuen maite, ez **zuen desio**, baina mesprezatu ere ez zuen egiten. Patxi Zubizarreta

Maddalenek huts egin zion, ez zion inoiz erantzun berak nahi eta **desio izan zuen** moduan. Joxemari Iturralde

Herri honek behin betiko **desio** eta merezi **duen** bakea. Berria - Euskal Herria

Oraindik, ordea, gure arteko zenbaitek errealitate hori arbuiatu eta zazpi euskal probintzietako jende gehienak **desio** ez **duen** zerbait eskatzen dute. Bernardo Atxaga

Harritu egin ninduen minutu batzuk lehenago aho mingots, zimel hura **desio izana**. Ramon Saizarbitoria

-Gutxien **desio dudan** gauza da, baina gehien **desio dudana** ere bai. Joan Mari Irigoien

Mahai-inguru, hitzaldi eta antzekoek deprimiturik uzten naute, **desio nukeena** baino paper tristeagoa egiten baitut. Ramon Saizarbitoria

Gure obra erdizka gera zedin **desio zuten**. Bernardo Atxaga

Biak ala biak ere, hala Ibrahim Farai nola Abas, hilik **desio zituen**. Patxi Zubizarreta

Egunen batean ausartuko naiz eta eskatuko diot hain gogotsu **desio dudana**. Juan Martin Elexpuru

Ez **diet** beste ezer **desio**. Agurtzane Juanena

Haren gorputzaren berotasun hezea **desio ninduenean**... Patxi Zubizarreta

· Baina orduan bai nik **desio** berak korrika alde egin lezan. Joxe Austin Arrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azken desio** (3); **bat desio** (6); **bat desio zuen** (3); **berak desio** (4); **bere desio** (3); **besterik desio** (3); **da desio** (6); **denok desio** (4); **desio bakarra** (7); **desio bat** (7); **desio du** (7); **desio dudan** (4); **desio dudana** (5); **desio duela** (5); **desio duen** (5); **desio dugu** (4); **desio dugun** (5); **desio duguna** (3); **desio dut** (5); **desio dute** (3); **desio duten** (4); **desio eta** (17); **desio ez** (4); **desio guztiak** (5); **desio hori** (7); **desio horiek** (4); **desio izan** (16); **desio izan nuen** (4); **desio izan zuen** (7); **desio izatea** (4); **desio izeneko tranbia** (10); **desio nuen** (10); **desio nuena** (4); **desio sexuala** (7); **desio zuela** (3); **desio zuen** (22); **desio zuena** (6); **desio zuten** (3); **dutela desio** (3); **edo desio** (7); **egotea desio** (4); **ere desio** (4); **eta desio** (26); **gehiago desio** (4); **gure desio** (3); **hori desio** (3); **izatea desio** (5); **nahi eta desio** (3); **nire desio** (7); **zedin desio** (3)

**baita desioa** (4); **bere desioa** (10); **bere desioak** (5); **beste desiorik** (6); **beste desiorik ez** (4); **bigarren desioa** (6); **desioa adierazi** (3); **desioa agertu** (7); **desioa agertu zuen** (4); **desioa baino** (6); **desioa bete** (7); **desioa da** (9); **desioa eskatu** (3); **desioa eta** (14); **desioa eta eszitazioa** (3); **desioa ez** (4); **desioa piztu** (5); **desioak eta** (8); **desioaren eta** (3); **desioen arabera** (3); **desiorik ez** (4); **desiorik onenak** (3); **edo desioa** (3); **eta desioa** (10); **eta desioak** (14); **eta desioaren** (5); **eta desioen** (3); **eta desioz** (3); **gure desioa** (4); **gure desioak** (5); **gure desioaren** (5); **nire desioa** (6); **zuen desioa** (3)

---

# desira

*(**1019** agerraldi, **124** liburu eta **80** artikulutan; ETCn **4.219** agerraldi; orobat **desir** g.er.)* **1** *iz* zerbait nahi izatea; nahi den gauza. ik **desio.**

Nahaste ikaragarri bat gara: azido nukleikoak eta oroitzapenak, **desirak** eta proteinak ditugu osagai. Juan Garzia

Gurariaren eta **Desiraren** artean ez da batere ezberdintasunik, hauxe ezpada: **desira**, eskuarki, gizakiei dagokiela, beren gurariei ohartuak diren aldetik, eta, horregatik, honela defini daitekeela: **desira** gurari bat da, bere kontzientzia duena. Piarres Xarriton

**Desira** ez da egitura sozial bat. Joseba Zulaika

Nahi duzunik ez duzu lortuko, harik eta zugan zeure **desira** hiltzen ez den arte. Joan Mari Lekuona

Une horretatik aurrera **desira** bat baizik ez nuen izan, helburu bat, ardura bat bakarra: nire iraganaz gogoratu. Josu Zabaleta

Bera da gure zorionaren iturri, bera gure **desiren** helmuga. Imanol Unzurrunzaga

Nire defentsa **desiraren** eskubideetan oinarritzen da, Jainkoarengan, berak jartzen baitu txoririk txikiena ere **desiraz** dar-dar. Oskar Arana

Animaliaren **desira** berehalakoa delako, **desiraren** eta desiratuaren artean ezin duelako ezer tartekatu, ez bada **desira** indartsuago bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Maitasuna eta **Desira** gehiegizkoak izan daitezke. Piarres Xarriton

Oraindik ere, beste behin, neuk ordaintzeko **desira** azaldu nuen, hitz totelka. Ramon Saizarbitoria

Mendeku hartzeko **desira** sentitu nuen noski. Ramon Saizarbitoria

Selim Aluanek hori guztia miretsi zuen eta, geroenean, **desira** piztu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Gelditu egin zen berriro, nire **desira** lehertzeko zorian zegoenean. Juan Martin Elexpuru

Gauzaren bat nahi duzunean, Unibertso osoa hasten da konspiratzen zure **desira** bete dadin. Bernardo Atxaga

Nire **desira** asetzen baduzu, zure buruko ile bat bera ere ez da hondatuko, eta arrakasta emango dizut egiteko guztietan... Koro Navarro

Ez al zuen, bada, bere **desirak** betetzeko eskubiderik? zuhaitzaren alimaleko erroaren gainean jarriak ginela biak, **desiraren** zorionak hartu ninduen osoki. Patxi Zubizarreta

Beraren **desiren** objektu hura desmitifikatu eta emakume hura benetan zer zen agerian uzteko betebeharra, alegia: Brooklyngo etxekoandre ezkondu zoriontsu bat bi umerekin eta beharbada beste baten esperoan. Oskar Arana

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Nora ez ote garamatza **desira** zapuztu batek? Jon Muñoz

**Desira** itsuen eta ezinasezko zikoizkeriaren arabera. Piarres Xarriton

-Ez al duzu **desira** gaiztorik izaten? Koro Navarro

Zeren, lehenik **Desira** gaizto bat pairatzen duzu eta gero Tristurak garaitzen zaitu. Piarres Xarriton

Gero, sentikortasunik ezean erortzeko **desira** handia. Koro Navarro

Herrian kokatzekoak diren bi gazte haueri goresmenak eta **desira** hoberenak. Herria

Goresmenak burrasoeri eta **desira** hoberenak Raphael sortu berriari! Herria

**Desira** bizi batek betetzen ninduen oinetatik buruko ileetaraino. Josu Zabaleta

Gure bihotzeko **desirarik** sakon eta irrikatuenak. Iñaki Mendiguren

Baina Maiestate zerutar horren **desira** distiratsu biziemaileak nazkagarriro oinperatuak izan dira. Xabier Olarra

Bere **desira** ezkutua adierazten dizu naturaltasun osoz. Patxi Iturritegi

Gola zen estrategia elaboratuaren, **desira** aseezinaren, erritualizazio ondo markatuaren amaiera, salbuespen puntua, joko guztiari zentzua eta gozamena ematen ziona. Joseba Zulaika

Nahi jainkotiar eta **desira** egokiei harrera on egitea. Askoren artean

Atsegin agertzeko **desira** orokor horrek dakar kortesia. Iñaki Iñurrieta

Legearen hitzarekin bat egin duen nia eta Lege horren aurka borrokatzen den **desira** ez-zilegia. Joseba Zulaika

Bat-bateko **desira** batek, grina batek, Krisztinaganako sentipen suhar eta eroaldiko batek. Xabier Olarra

Ukitze hutsaz, haragizko **desiraren** ziztada bizia sentitu zuen. Irene Aldasoro

Grinazko **desira** eta arrazoizko **desira** kontrajartzea. Piarres Xarriton

Jainkoaganako ohiko **desira** hau ez da hori esandakoan eskuarki ulertzen dena. Joan Mari Lekuona

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halaxe ari nintzen Demokrazia predikatzen, hitz horrekin, gizonaren ezaugarriez eta zoriaz, arau multzo bat ez baina **desira** multzo bat adierazten ari nintzela konturatu ere egin gabe. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela )

Sekula ikusi dudan neskarik **desira**-kengarriena zen. Xabier Olarra

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Don Felix izeneko apaiz gaztetxo bat zuen aitorlea, itxuraz gizon lasaia eta gozoa, baina otzantasun ebanjelikozko kapa baten azpian aginte-**desira** lausoak ezkutatzen zituena. Koro Navarro

Gerla **desiraren** ekiditea ala gerla **desira** hori bera molde ezberdinez eramatea. Itxaro Borda

Oso-osorik gauzatzen du, beraz, antzekotasun ideala, analogia-**desira** ororen funtsean dagoen ilusio magikoaren premia asetzeko egokia. Josu Zabaleta

Izadiaren berariazko imitazioak, berriz, gizonak egiten duen izadiaren imitazioak, beti eskatzen du errepikapen-**desira** bat. Josu Zabaleta

Herio **desira**, norberarekiko bortizkeria halaber [...] inkomunikazioaren harresietan bermatzen zen, Itxaro Borda

**6** ***desira izan*** du *ad* ik **desiratu.**

Ez ditu haize freskoa eta zuhaitz berdeak desiratzen, landaldeko nasaitasun erabatekoa **desira du**. Koro Navarro

Noizbait arribatu da **desira ginuena**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zoaz, ene alaba, otoitz eginen dut **desira duzun** hori lor dezazun. Fernando Rey

Abere gainera igo ziren eta azkar-azkar ibili ziren, etxarteren batera iritsi nahirik ilundu baino lehen; baina gorde zitzaien eguzkia eta baita **desira zutena** iristeko esperantza ere. Patxi Ezkiaga

Anai Maseo hain beterik geratu zen **desira zuen** apaltasun bertute horretaz eta Jainkoaren argiaz, ezen handik aurrera beti alai agertzen baitzen. Askoren artean

Baina gauzak ziren bezalakoak ziren eta ez norberak **desira zituen** eran. Hasier Etxeberria

-Munduratu dudan alaba **desira nuke** azken aldiko ikusi. Itxaro Borda

Desiraren jokoan sarturik gaude hemen azkenik, **desira duguna** beti absentzia baita, beti galdutako zerbait, eta, sekretuan, "Beste" nagusi hori hain zuzen "Beste" izaten jarrai dadila desiratzen dugu. Joseba Zulaika

**7** ***ez-desira***

Jakina, gertatua, biografiatua edo hila, nolazpait: Orientetikako ez-irrika edo ez-**desira** meditantea bezala, Mendebaldeko ongizate etsia edo ongi-bizitze irudipenezkoa bezala. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desir diotegu** (4); **desir dugu** (3); **desir dut** (3); **desir taldeko** (3); **noir desir** (7); **noir desir taldeko** (3); **on desir** (5)

**ana urkizaren desira** (3); **baten desira** (6); **bere desira** (12); **beste desira** (6); **bizitzeko desira** (3); **da desira** (6); **den desira** (20); **desira baino** (3); **desira bakarra** (7); **desira bat** (22); **desira batek** (5); **desira baten** (4); **desira bera** (3); **desira beroenak** (5); **desira besterik** (3); **desira besterik ez** (3); **desira bete** (5); **desira bete dadin** (4); **desira betetzen** (3); **desira bizi** (3); **desira da** (3); **desira deitzen** (3); **desira dezakeen** (6); **desira edo** (6); **desira eta** (24); **desira ez** (10); **desira ezin** (3); **desira guztiak** (9); **desira hau** (3); **desira hoberenak** (14); **desira hori** (18); **desira horrek** (3); **desira horren** (3); **desira hura** (4); **desira izoztuak** (4); **desira nezakeen** (4); **desira zen** (3); **desira zuen** (4); **du desira** (4); **duen desira** (8); **edo desira** (4); **egiteko desira** (9); **ene desira** (3); **eta desira** (45); **eta desira hoberenak** (5); **eta gure desira** (3); **gaituen desira** (3); **gure desira** (13); **haren desira** (11); **ikusteko desira** (5); **izateko desira** (4); **maitasuna eta desira** (5); **neure desira** (3); **neurrigabeko desira** (3); **nire desira** (8); **saihesteko desira** (3); **sortzen den desira** (17); **urkizaren desira** (3); **urkizaren desira izoztuak** (3); **zen desira** (3); **zeure desira** (3); **zuen desira** (8); **zure desira** (12)

**baten desirak** (6); **bere desirak** (9); **beren desirak** (3); **beste desirarik** (3); **den desirak** (3); **desirak bete** (5); **desirak ere** (5); **desirak eta** (6); **desiraren artean** (3); **desiraren eta** (11); **desiraren eta desiratuaren** (5); **desiraren eta desiratuaren** (5); **desiraren logika** (3); **desirarik ez** (4); **desirek lagun** (6); **desirek lagun dezatela** (4); **desiren eta** (3); **desiren eta** (3); **desiren eta** (3); **desiren helmuga** (3); **desiren helmuga** (3); **desiren helmuga** (3); **diren desirak** (3); **eta desirak** (9); **eta desiraren** (15); **eta desiraz** (10); **eta desirazko** (3); **eta desirek** (3); **eta desiren** (6); **eta desiren** (6); **gure desirak** (4); **gure desiraren** (3); **gure desirek** (6); **gure desirek lagun** (5); **gure desiren** (5); **gure desiren** (5); **gure desiren** (5); **gure desiren helmuga** (3); **gure desiren helmuga** (3); **gure desiren helmuga** (3); **haren desirak** (4); **nire desirak** (3); **poztasunezko eta desirazko** (3); **sortzen den desirak** (3); **zure desirak** (3)

---

# desiragai *iz* desiraren gaia.

Bikoiztu, hirukoiztu ditzagun, ez beldurrik izan, intzestu zoragarri horiek, eta garbi izan dezagun gure **desiragaia** zenbat eta gertuago izan, orduan eta liluragarriagoa izango dela hartaz gozatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Ddesiragai** partzial bat, gutxi gorabehera, edo irrikaren gai bat. Josu Zabaleta

---

# desiragarri 1 *izond* desira sortzen duena; desiratzeko modukoa.

Plater **desiragarri** bat, konpainia on bat, kantu bat, laztan bat, hitz bat. Patxi Zubizarreta

Zein basatiki joko liokeen larrua gorputz **desiragarria** duenaren kontzientzia osoz begiratzen dion emetxo horri, zutik jarrita, burua koltxoira makurrarazita! Pako Aristi

Ez dago haurtzaroa baino adin **desiragarriagorik**: kezkarik ez, etorkizunean pentsatu beharrik ez... egin ziren bozketa ezkutuetan bera hautatu zuten treneko gizonik **desiragarriena**. Jose Morales

Subjektibitatea adieraztea gauza normaltzat, eta are **desiragarritzat** ere [...] hartua den garai honetan. Josu Zabaleta

Jakina, hortxe dago koska, aukeren berdintasunean, errealitatean nekez betetzen den egoera **desiragarri** horretan. Iñaki Heras

-**Desiragarria** zaudela, besterik ez. Xabier Olarra

**2** (izan aditzarekin)

Egoera hori, argi dago, ez da **desiragarria**. Koro Navarro

Ez da ez etikoa, ez **desiragarria**, ezta justua ere. Berria - Gaiak

Batzuetan gorroto du hain **desiragarri** izatea. Patxi Iturritegi

Zalantzarik gabe, **desiragarria** litzateke gai guztiak legeak arautuak izatea. Andres Urrutia

Edertasun handiko mutila zen Adonis, amoltsua eta **desiragarria**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bi polo ditu zientziak bere bidearen mugarri: **desiragarri** dena eta posible dena. Juan Garzia

Teknikoki edo ekonomikoki posible dena batzuetan ez dela sozialki edo politikoki posible ez **desiragarria** ere. Iñaki Heras

Ikusi zuen emakumeak fruitua tentagarria zela eta arbola guztiz ikusgarria, jakituria lortzeko **desiragarria**. Jose Antonio Mujika

Ederra zen eta gorputzez luzea, eta oso azalprintz **desiragarrikoa**. Juan Garzia

**3** (adizlagun gisa)

Hitz batean, ezingo zintuzket **desiragarri** ikusi, nahi izan banu ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Mendiko leizea egin zuen bizileku, eta hara eramaten zituen **desiragarri** egiten zitzaizkion gizonezkoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Badakite zertan ari diren iragarkiotan pertsonaia guztiak gazte, lirain, alai eta **desiragarri** azaltzean. Joxerra Garzia

**4** ***ez-desiragarri*** *izond*

Ezinbestekoa da aipatzea, ekimen hauek taxuz aplikatuta ere, gerta daitezkeela hainbat efektu ez **desiragarri** eta garrantzitsu. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baino desiragarriago** (4); **baino desiragarriagoa** (5); **da desiragarria** (4); **desiragarri egiten** (5); **desiragarri eta** (3); **desiragarria da** (4); **desiragarria den** (3); **desiragarria ere** (3); **desiragarria izango** (3); **desiragarria litzateke** (3); **eta desiragarri** (5); **eta desiragarria** (10); **ez da desiragarria** (3); **ez desiragarria** (5); **hain desiragarri** (4); **jakituria lortzeko desiragarria** (3); **lortzeko desiragarria** (3)

**desiragarriki** *adlag* era desiragarrian.

"Baina zer du hiri honek horren **desiragarriki** basati izateko?" marmartu zuen Angiek lan-mahaira itzuliz. Iñaki Zabaleta

---

**desiragarritasun** *iz* desiragarria denaren nolakotasuna.

Gauza bera gertatzen da zorionaren kontzeptuarekin, *eudaimonia* terminoak ematen duen bizitza neurtuak ez baitu zerikusi handirik *makar* (hortik, hain zuzen, *makaristos*) adierak biltzen dituen **desiragarritasuna**, aberastasuna edo arrakasta bezalako edukiekin. Askoren artean

---

**desirakor** *izond* desiragarria.

Axier gero eta hurbilago, gero eta laztankiago, gero eta **desirakorrago** tabernatik tabernara: gerritik ebatu bere aurretik pasarazteko, laztan iheskorrak esku eta masailean, gutiziak irristatzen dituzten berbak. Sonia Gonzalez

---

**desiramen** *iz* desiratzeko ahalmena.

Gure sentsuzko **desiramenaren** zirrarak gainditzeko ahalmena daukagu gutxi bada ere onuragarria edo kaltegarria zaigunaren errepresentazioen indarrez. Ibon Uribarri

---

**desirapen** *iz* desira.

Eta **desirapen** bortitza gailendu zitzaizun ostera, sukar itzel baten antzera: kosta ahala kosta, margo hura zeuretzako nahi zenuen. Hasier Etxeberria

Hiltzaileen **desirapen** berberak edukitzeaz lotsarazten dituela gainerako abertzaleak. Hasier Etxeberria

---

**desirarazi**, desiraraz, desirarazten du *ad* desiratzera behartu.

Gorputzeko sofrimenduek, arimarenak bezala, bakardadea **desirarazten** dute. Jon Muñoz

Beldurrak bainu bat **desirarazten** zion. Koro Navarro

Eta haren lelo etengabeari, ele bat baizik ez dizut galdatzen, nire isiltasunak erantzuten zion, iduriz ez ziola uzten elerik igurikatzen, desiratzen zuena areago **desirarazteko** ez bazen. Jon Muñoz

Geure haurren zoriona **desirarazten** digun sentimendu hagitz natural hori. Jon Muñoz

-Gogorik handienarekin bizitza **desirarazten** diguna... Pako Aristi

-Eta gogorik itsuenarekin heriotza ere **desirarazten** diguna... Pako Aristi

---

**desiratsu** *izond* desiraz betea.

Poema musikatuen artean indar berezia du *Doctor Deseo*ko Francis Díez-en "Jadetsi-eziña" kantak, bere ahots zakar eta **desiratsuan**: [...]. Joseba Zulaika

---

**desiratu** *(843 agerraldi, 141 liburu eta 265 artikulutan; ETCn 4.377 agerraldi)*, desira(tu), desiratzen **1** du *ad* desira izan. ik **desiatu**.

Heriotza ere **desiratu** diat, hara... -gehitu zuen ahots apal-apalez. Xabier Olarra

Nik behintzat, hori **desiratzen** dizut. Daniel Landart

Tinko esaten zuen, erlijiosoak otoitzaren grazia **desiratu** behar duela gauza guztien gainetik. Askoren artean

-Zoaz, bada, **desiratzen** zaituzten gizon horiekin. Iñaki Zabaleta

Hura urkabean ikustea **desiratu** zuen, mihia dilindan, begiak hobietan ateratzeko zorian. Patxi Zubizarreta

Neska horietako bat izatea **desiratu** nuen. Eider Rodriguez

Hik ni **desiratzea** nahi diat nik. Eskarne Mujika

High Street bitan ireki eta irents nendin **desiratu** nuen. Koro Navarro

Hura zetorren ontzia hondoratu edo itsasora erori eta ito zedin **desiratu** zuen. Bego Montorio

**Desiratzen** nago behar bezalako dutxa bat hartu, eta maindire zuriekiko ohe batean lo egiteko. Patxi Zubizarreta

Katalina **desiratzen** zegoen gerra bukatzeko. Koro Navarro

Tinko esaten zuen, erlijiosoak otoitzaren grazia **desiratu** behar duela gauza guztien gainetik. Askoren artean

Hobe **desiratzen** dena ikusi, ikusten ez dena **desiratu** baino. Elizen arteko biblia

Barruak astindu zizkion ideia horrek Ruche jaunari, berehala hasi baitzen, une batez, lehentxeago **desiratu** zuenaren kontrakoa **desiratzen**. Jon Muñoz

Huraxe bai berak amestu zuen aberastasuna, betidanik **desiratu** izan zuen handitasuna. Patxi Zubizarreta

Irrika suharrez **desiratzen** nituen. Koro Navarro

Zer gehiago **desira** dezakezu? Jon Muñoz

Zer **desira** zezaketen besterik! Koro Navarro

**Desira** ezazu Jainkoak betidanik erabakirik daukana, eta onar ezazu Jaunak bere maiztasun-asmoan zuretzat aukeratu zuen tokia. Joan Mari Lekuona

Aurrealdean zeukan, azkenean, hiri handi maitea, hainbesteko herriminez oroitua, hainbesteko grinaz **desiratua**. Karlos Zabala

Jaun auzapezak **desiratu** du ongi etorri eta urte on deneri. Herria

Andere auzapezak deneri urte berri on **desiratu** dauku osagarri onarekin. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Behin eta berriro aipatzen du gorputz **desiratuaren** absentzia. Joseba Zulaika

Ezin eskuratu duen Lisboa hiri **desiratua** begi aurrean duen errege bat. Jon Alonso

Objektu bilatua aurkitu eta bilatzailearekin bat egin arte ez du atsedenik helburu **desiratuan**. Imanol Unzurrunzaga

Biharamun **desiratu** haren esperantzan, Al-Husainen meskitara jo ohi zuen otoitz egitera. Patxi Zubizarreta

Hala eta guztiz ere, oso urduritasun atsegina zen, debekatua, **desiratua**, irrikatua. Patxi Zubizarreta

Futbolaren guztia da azken une luze **desiratu** hori: goooool! Joseba Zulaika

Ezin da buruan sartu, ezin da onartu, emakumeak -objektu **desiratua**, baina ez desiratzailea, sexugabea eta tatxagabea- beste emakume bat maitatzea. Luis Elberdin

Desiraren eta **desiratuaren** arteko tartea desagerrarazteko nahia. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat desiratu** (5); **bat desiratuz** (3); **beti desiratu** (3); **desiratu behar** (6); **desiratu du** (8); **desiratu egiten** (4); **desiratu eta** (14); **desiratu eta gutiziatu** (3); **desiratu izan** (10); **desiratu izan zuen** (3); **desiratu nahi** (3); **desiratu nuen** (14); **desiratu zuen** (25); **desiratua da** (3); **desiratuko duzu** (3); **desiratuko nuke** (3); **eta desiratu** (9); **hainbeste desiratutako** (8); **izatea desiratu** (9); **izatea desiratu zuen** (3); **izatea desiratuz** (4); **jakitea desiratu** (3); **jakitea desiratu zuen** (3); **nola desiratu** (5); **nola desiratu nuen** (3); **on desiratu** (4); **on desiratuz** (5); **ona desiratu** (3); **zedin desiratu** (5); **zedin desiratu zuen** (3)

**ainitz desiratzen** (5); **ainitz desiratzen diotegu** (3); **ainitz zorion desiratzen** (10); **aspalditik desiratzen** (3); **bat desiratzea** (3); **bat desiratzen** (31); **bat desiratzen diogu** (8); **bat desiratzen diotegu** (11); **bat desiratzen dugu** (4); **bat diotegu desiratzen** (8); **benetan desiratzen** (3); **beretzat desiratzen** (3); **beretzat desiratzen duen** (3); **berri on desiratzen** (3); **bezala desiratzen** (4); **biziki desiratzen** (5); **bizitzea desiratzen** (3); **dadin dakogu desiratzen** (4); **dakogu desiratzen** (7); **dakotegu desiratzen** (3)

**desiratzen ahal** (5); **desiratzen ari** (3); **desiratzen dagoela** (3); **desiratzen den** (4); **desiratzen dena** (5); **desiratzen diegu** (10); **desiratzen diogu** (22); **desiratzen diotegu** (58); **desiratzen diotegu ainitz** (3); **desiratzen diotegu eta** (8); **desiratzen diotegu kuraia** (3); **desiratzen diotegu xantza** (3); **desiratzen du** (9); **desiratzen dudan** (4); **desiratzen duela** (3); **desiratzen duen** (10); **desiratzen duen ongia** (3); **desiratzen duena** (5); **desiratzen duenean** (3); **desiratzen dugu** (34); **desiratzen dugu nekatto** (3); **desiratzen dugu sortu** (4); **desiratzen dugu urte** (3); **desiratzen dut** (9); **desiratzen duten** (8); **desiratzen edo** (3); **desiratzen egoten** (3); **desiratzen eta** (3); **desiratzen ez** (9); **desiratzen nago** (4); **desiratzen nuen** (8); **desiratzen nuena** (4); **desiratzen zegoen** (10); **desiratzen zuen** (25); **desiratzen zuena** (6); **desiratzen zuten** (10)

**diogu desiratzen** (4); **diotegu desiratzen** (16); **du desiratzen** (5); **dugu desiratzen** (3); **edo desiratzen** (3); **egitea desiratzen** (3); **ere desiratzen** (8); **eta desiratzen** (17); **eta desiratzen dugu** (3); **eta desiratzen zuen** (3); **ez zuen desiratzen** (3); **gehien desiratzen** (5); **guzieri desiratzen** (3); **guztiek desiratzen** (3); **hori desiratzen** (3); **irrikaz desiratzen** (4); **izatea desiratzen** (4); **izatea desiratzen zuen** (3); **nik desiratzen** (3); **nola desiratzen** (3); **on bat desiratzen** (16); **on desiratzen** (19); **on desiratzen diogu** (3); **on desiratzen diotegu** (6); **on desiratzen dugu** (3); **suerte on desiratzen** (3); **uros bat desiratzen** (3); **xantza on desiratzen** (5); **zerbait desiratzen** (5); **zorion ainitz desiratzen** (5); **zorion desiratzen** (11); **zorion desiratzen diotegu** (6); **zorionean eta desiratzen** (4); **zoriontsu bat desiratzen** (8); **zuen desiratzen** (3)

---

## **desiratzaile** *izond* desiratzen duena.

Ezin da buruan sartu, ezin da onartu, emakumeak -objektu desiratua, baina ez **desiratzailea**, sexugabea eta tatxagabea- beste emakume bat maitatzea. Luis Elberdin

Ikuslea subjektu **desiratzaile** gisa. Josu Zabaleta

Gorabehera honetan kontua da zer komeni zaion **desiratzaileari**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Garbi dago eskubidea dugula emakumea **desiratzailearen** suari amore ematera derrigortzen duten legeak ezartzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## **desirkunde** *iz* desira.

2003 ko urtea hasi zauku eta nahi nituzke irakurleeri agiantza eta **desirkunde** hoberenak helarazi, segur ahantzi gabe HERRIA astekarian lan egiten duten guzieri. Herria

Urtarrileko lehen ostirale aratsean, jaun auzapezak urte berriari buruz bere agiantza edo **desirkunde** hoberenak aurkeztu ditu: kontseilari laguner, herriko langile eta elkarte buru direneri. Herria

*Homo homini lupus:* hori da lehen errealitatea, jendearen lehen **desirkundea**. Piarres Aintziart

Hura ez baitzen bere **desirkundeetan** ihartzen eta iraungitzen zen gizona, baina lehiatuki lehiatzen zena eta bere gogoa gogor atxikitzen zuena, azkeneraino. Joan Mari Irigoien

---

## **desiros** *izond* desiraz betea.

Eta nik aitari behatu, eta ohartu nintzen ezen are zabalagoa egin zitzaiola irria, zorioneko berriaren jakiteko **desiros**; amak, aldiz, fidakaitz zirudien, zorion ustezkotik zorigaitzik handiena igurikiko balu bezala. Joan Mari Irigoien

Handik aitzina, finean, bere bidaietarik itzultzen zen bakoitzean, Mattinengatik galdetuko zuen lehenik eta Matinengatik galdetuko zuen ondotik, harekin eskriman edo ehizan ibiltzeko **desiros**. Joan Mari Irigoien

---

## **desitsaste** *iz* itsatsirik dauden bi gauza bereiztea.

Gainera, kartelak gero eta altuago (eta maizago) jartzeko ohitura hartu zuten erasotzaileek, eta Sandrak, txikitxoa denez, gero eta zailtasun handiagoak zituen bere **desitsaste**-ahaleginetan. Iban Zaldua

---

## **desitsatsi**, desitsats, desitsasten da *ad* itsatsirik dauden bi gauza bereizi.

Astiro hormatik **desitsasten** doan argazkia zara orain, bakar-bakarrik tolesdurez betetako ispiluaren aurrean. Berria - Kultura

Goxo-goxo egiten zuen tira, **"desitsasteko"**, zioen berak, urratu gabe. Juan Garzia

Susmatu bezala, larru berdea **desitsasten** hasi zen, pegatina txar bat bailitzan. Jon Alonso

---

## **desitxura** *iz* itxurarik eza.

Nahasi egiten nituen egoerak, itxurak edo **desitxurak** egin behar izaten nituen uneetan. Joxan Elosegi

Desegunetan beti da desordu / (--...) / Destenorean, guztia desarau / (--...) / Desgaraian, dena desegoki: / deserrotze, / **desitxura**, / desbide; / desenkusa, / desengainu, / desditxa. Iñaki Arranz

---

## **desitxuraketa** 1 *iz* desitxuratzea.

**Desitxuraketaren** kontzeptua bera aski susmagarria da, jakina, ezin baitaiteke esan zentzu absolutu batean **desitxuraketarik** gertatzen denik, zilegizkotzat ematen den forma batekin alderatuz baizik. Josu Zabaleta

Asko eta asko (gehiena, Ortega-ren susmoan), ez da espainol jatorra, Espainia jatorraren **desitxuraketa** baizik. Joxe Azurmendi

Antso III.aren irudiaren inguruan abertzaleek egindako manipulazio eta **desitxuraketa**. Berria - Euskal Herria

Adierazgarritasuna **desitxuraketatik** sortzen da, beraz; hortxe du, agian iturburua. Josu Zabaleta

Ñoñostia, ñoñostiarrak Donostia eta donostiarren **desitxuraketa** esanguratsua, aski zabaldua. Iñaki Arranz

**2** (hitz elkartuetan)

Lehenengo planoaren eta atzeko planoaren arteko proportziorik ezak, gehiegizko perspektibak, eragiten dute **desitxuraketa**-efektu hori. Josu Zabaleta

Herri etimologiak kalteturiko hitzen **desitxuraketa** mailak ez ditu funtsezko desberdintasunak sortzen. Isabel Arrigain

· Espainiako Gobernuaren informazio **desitxuraketari** aurre egiteko Berria - Euskal Herria

---

## **desitxuratu**, desitxura, desitxuratzen **1** da-du *ad* norbaitek edo zerbaitek bere itxura galdu. ik **itxuragabetu**. (pertsonak edo pertsonaren aurpegierak)

Usaingarri baliotsuen ordez, errautsez eta zikinez estali zuen bere burua; erabat **desitxuratu** zen, eta distiratsu apaindu ohi zuen gorputza ile-adats nahasiz estali. Elizen arteko biblia

Gero baztanga beltzak lazki du **desitxuratzen**: begi bat galdua, aurpegian du orain arima. Markos Zapiain

Naturak ez nau gizon handia egin, adinarekin **desitxuratu** zait aurpegia, eta gaixotasunak kendu egin dizkit nituen indar apurrak. Juan Garzia

Bai ertzaina eta bai ustezko erasotzailea, **desitxuratuta** ageri dira. Iñigo Aranbarri

Tartagliari aurpegia **desitxuratu** zion ezpatatik Galois akabatu zuen balaraino. Jon Muñoz

Aurpegia **desitxuratua** zuen, bala zuloak bular, sabel eta buruan, eta besoak gorantz postura arraroan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Urkamendiak zeuden, sarreratik ez urruti, eta bertan, zintzilik, aurpegia **desitxuratua**, eskuak gogortuak, soin enborrak baldar airean eta oinutsik, soldadu alemanak. Felipe Juaristi

Neskak ez zuen ikusten ez gizonaren aurpegi listuz bustia eta neurririk gabeko amorruak **desitxuratua**, ez errebolber beltza. Jose Morales

Eta han zegoen Sam, belauniko, aurpegia penak **desitxuraturik**. Agustin Otsoa

Haren atzean, itzal sakonek **desitxuratuta**, Angelaren aurpegi zurbila. Alberto Ladron Arana

Aurpegia ordenagailuz **desitxuratua** du, nor den ez ezagutzeko moduan babestua. Iñigo Aranbarri

Handituta zeukan ezkerreko bekaina eta haragi ponpatuak bekokia **desitxuratzen** zion zantarki. Josu Landa

Otsotzarmendi jaunari hortzeria berria ipini zioten, saioa hasi aurretik zendu zen Borge jaunarena, hain zuzen ere, nahiz eta ahoa guztiz **desitxuratzen** zion. Karlos Linazasoro

**2** (bestelakoak)

Hiru hegaztien hegada alderraiak **desitxuratzen** zuen aldian-aldian ilargiaren itxura onkotea. Anjel Lertxundi

Estilo batzuek modu sistematiko batean **desitxuratzen** dituzte beren irudiak ikusgai denaren bertsio errealista batekin alderatuta. Josu Zabaleta

Ametsek **desitxuratu** egiten dituzte oroipenik zehatzenak. Lutxo Egia

-Ez zenuen arrisku hori hartu behar -erran nion, urduritasunak **desitxuraturiko** ahotsaz. Alberto Ladron Arana

Gazteak goitik behera begiratu zion Budi, ibilaldi luzeak **desitxuratutako** zapatetatik eskumutur gorrietaraino. Lopez de Arana

Noizean behin gertatzen da **desitxuratzen** ditugula hitz batzuk, -hain zuzen haien forma zein esanahaia ondo ezagutzen ez ditugulako-, eta inoiz edo behin, hizkuntza erabilerak ohiko bilakatu ohi ditu forma desitxuratu horiek. Isabel Arrigain

Zerk eragin dezake idazkera norberak ez ulertzeraino **desitxuratzea**? hitzak luzatu eta luzatu egiten zituelako, Molinak ohi zuen gisan, **desitxuratzeraino**. Iñaki Iñurrieta

Garbi-garbi gogoratu nuen nola izaten ziren gauza batzuk batere **desitxuratu** gabeak. Koro Navarro

**3** (era burutua izenondo gisa)

Gogoan daukat ura eskatzen zidan haur **desitxuratu** bat ere. Alberto Ladron Arana

Etxetik ateratzear geundela, egongelan sartu eta aita topatu nuen, aurpegi **desitxuratuarekin**. Alberto Ladron Arana

Hiljantziz estalitako gorputz **desitxuratu** baina oraindik arnasa hartzen zuen batez... Koro Navarro

Haren betaurreko bluetan ikusten zuen Mikelek bere figura **desitxuratua**. Unai Iturriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegia desitxuratu** (7); **aurpegia desitxuratua** (7); **aurpegia desitxuratuta** (4); **desitxuratu arte** (3); **desitxuratu egin** (14); **desitxuratu egin dute** (3); **desitxuratu egiten** (9); **desitxuratu egiten da** (3); **desitxuratu egiten du** (3); **desitxuratu eta** (6); **desitxuratu gabe** (4); **desitxuratu izana** (3); **desitxuratu nahi** (8); **desitxuratu nahian** (3); **desitxuratu zuten** (4); **desitxuratua dago** (3); **desitxuratua zuen** (3); **desitxuratuta ageri** (3); **desitxuratuta zegoen** (3); **erabat desitxuratu** (7); **erabat desitxuratua** (6); **eta desitxuratu** (6); **eta desitxuratua** (3); **eta desitxuratuak** (4); **eta desitxuraturik** (3); **eztabaida desitxuratu** (3); **guztiz desitxuratuta** (3); **hitza desitxuratu** (3); **irudi desitxuratua** (5); **izaera desitxuratu** (3)

**bera desitxuratzen** (3); **desitxuratzea egotzi** (5); **desitxuratzea eta** (4); **desitxuratzen du** (6); **desitxuratzen duen** (3); **desitxuratzen eta** (3); **desitxuratzen zion** (3); **eta desitxuratzen** (5)

---

# desitxuratze *iz* norbaitek edo zerbaitek bere itxura galtzea.

Berrikuntzaren eta **desitxuratzearen** artean ia beti izaten den lotura, hori nahi dugu hemen azpimarratu. Josu Zabaleta

**Desitxuratzearen** ideia oso interesgarria da, aldiz, **desitxuratze** hori arauzko bihurtzen saiatu ezean. Josu Zabaleta

**Desitxuratze** semantikoa. Iñaki Arranz

Kopiatzeko ariketa kaligrafikoei ekin aurretik, letraren **desitxuratze** prozesu bat egongo zen. Iñaki Iñurrieta

Adam Smithen obraren **desitxuratze** edo manipulazioaren lekuko ona da aipu hau, sakonago aztertzen bada. Iñaki Heras

---

# desitxuroso *iz* itxura txarrekoa.

Erretiratzeko proposamena **desitxurosoa** izan zen. Berria - Kultura

---

# desizozteke *adlag* desizoztu gabe.

Emultsionagailuak, izozturiko elikagaiak pure edo krema bihurtzen ditu, **desizozteke**, sukaldari presatiak itxoin gabe: segundo gutxiren buruan pronto izango du krema, betegarria, salda -edo barazki-hondoa, izozki edo sorbetea, bere lurrin eta guzti. Edorta Agirre

---

# desizoztu, desizotz/desizoztu, desizozten 1 da/du *ad* izoztua dagoena bere egoera normalera etorri edo ekarri.

Harraskako iturria ireki eta uraren pean utzi zuen lata minutu pare batez, **desizoztu** zedin. Harkaitz Cano

Lege berriak ez dio edonori ematen enbrioiak **desizozteko** ahalmena, organismo jakin bati baizik. Berria - Gaiak

Hiru eguneko epean arazoa konpontzen ez bada karramarroa **desizoztu** eta hemengo maioristei merkezurrean saldu beharko diegu. Harkaitz Cano

Orduan, agian, aginte-kontrolak **desizoztu** egingo dira. Josu Zabaleta

**-Desizoztu** eta berotu on bat eman ondotik, bai itxurari bai usainari erreparatuz gero, primeran eta hatz-mamiak txupatzeko moduan dagoela dirudi. Josetxo Azkona

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta hara non, urtebete beranduago, enbrioi **desizoztuetatik** bi zelula-lerro sortu dituela aldarrikatzen duen Valentziako IVIk. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desizoztu eta** (3)

---

# desjabetu, desjabe, desjabetzen 1 du *ad* norbaiti zerbaiten jabetasuna kendu. (ondasun materialena)

Jaunak, zuen Jainkoak, berak egotzi eta **desjabetuko** ditu, zuek beraien lurraldeen jabe egin zaitezten, Jaunak, zeuen Jainkoak, hitz eman dizuen bezala. Elizen arteko biblia

2005ean bakarrik, 40 milioi nekazari **desjabetu** zituzten. Berria - Mundua

Aireportu zaharrerantz noa zuzenean, gure birraitonari **desjabetutako** lurretan egindako aireporturantz. Mikel Hernandez Abaitua

Eskutik heldu eta muin egin zion eta esan zion, ez zaitut galdu nahi!, **desjabetutako** jabea sentitzen zen. Bego Montorio

· 25 etxe **desjabetuko** ditu Estatuak xedea bultzatzeko. Berria - Euskal Herria

Orotara 117 hektarea lur eta 59 etxe **desjabetu** behar dituzte. Berria - Euskal Herria

Espainiako Sustapen Ministerioak, hala ere, aireportuaren inguruko lurrak **desjabetzen** jarraituko du. Berria - Euskal Herria

Zein lur eremu eta zein etxe **desjabetu** beharko dituzten zehaztu gabe. Berria - Euskal Herria

**2** (bestelakoena)

Egia da halaber, haur hura **desjabetu** zutela zuzenez bereak zituen gauza guzietaz, familiaren geriza eta maitasunetik hasiz. Elena Touyarou

Zeren bakartasunaren helburu nagusia presoa arrunt kontrolatzea baita, arrunt iniziatibarik gabe uztea, bere nortasunaz arrunt **desjabetzea**, arrunt maltsotzea. Filipe Bidart

Neure kontsumitzaile eskubideaz ere **desjabetua** izan nintzelako. Itxaro Borda

Munduko Diru Funtsak berriz, truke-tasen ikuskaritza-egitekoaz **desjabeturik**, ezin izan zuen gauza handirik egin herrialde industrializatuen ordainketa-balantzetan 1980ko hamarraldian agertu ziren desoreka handietan. Koro Navarro

• **3** da *ad* norbaitek zerbaiten jabetasunari uko egin.

Berentzat ezer ere gorde gabe gauza guztiez **desjabetzen** zirenak bakarrik onartzen zituen Ordenan, bai Ebanjelio santuak dioenagatik, baita gordetako ondasunak eskandalu-bide gerta ez zitezen ere. Askoren artean

Berentzat ezer ere gorde gabe gauza guztiez **desjabetzen** zirenak bakarrik onartzen zituen Ordenan. Askoren artean

Bere buruaz **desjabetzeko** grina, Jainkoagandik eta Jainkoarentzat bakarrik bizitzeko. Askoren artean

**4** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Enpresa **desjabetuen** kopuruak 1975ean jo zuen gailurra. Koro Navarro

Juduentzako eta beste zenbait **desjabeturentzako** aldi baterako ostatua. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desjabetu behar** (6); **desjabetu behar dituzten** (3); **desjabetu beharko** (4)

---

# desjabetza *iz* desjabetzea.

Hesiak, bukatzen badute, 700 bat kilometro izango ditu, [...] 1948an eta 1967an batez ere, gauzatutako okupazio eta **desjabetza** areagotuta. Berria - Mundua

Beraien ilundurak ingurua setiatzen dik, bazekitek euskararen hiltzea, ohituren desagertzea, lurraren **desjabetza** eta horrelako mila gai... Itxaro Borda

Bi preso ohien ondasunen **desjabetza** ekarri duen auzia preskribituta dagoela salatu, eta «halako erokeria juridikoak egiten hastea mendekutzat» jo zuten. Berria - Euskal Herria

Kopuru horretan eraikuntzak, **desjabetzak**, zuzendaritza lanak eta beste gastu batzuk sartzen ziren. Berria - Euskal Herria

---

# desjabetzaile *iz* desjabetzen duen pertsona.

Zinezkotasun osoz, argi eta garbi deitzen zion lapurra bere buruari, eta ironiaz hitz egiten zuen modari jarraituz eta harrokeriaz beraiek **"desjabetzaileak"** zirela esaten zutenez. Jose Morales

---

# desjabetze 1 *iz* norbaiti ondasun baten jabetasuna kentzea. ik**desjabetza**.

**Desjabetzeak** 26 jaberi eragiten zien. Berria - Euskal Herria

Arantzazu, Rodilen erreketaren eta Mendizabalen **desjabetzeen** oste eta ondorio berdotsean, 1880tik aurrera abiatu zen. Pello Zabala

**Desjabetzeak** egiteko dirutza aurrekontuen %3 dela dio Elizondok. Berria - Euskal Herria

Sarraskia 1996ko apirilaren 17an egin zuen Poliziak, Para estatuko etxalde baten **desjabetzea** eskatzen zuen manifestari talde baten kontra tiro eginda. Berria - Mundua

Jukosen egungo agintariek filialaren **«desjabetzea»** salatu eta irabazleari ohartarazi zioten 7.000 milioi euroren truke «burukomin galanta» erosi dutela. Berria - Ekonomia

Indarrez egindako **desjabetzeak** saihesteko kontrolak jarriko ditugu. Berria - Mundua

Ordenan sartzen ziren kleriko jakintsuen **desjabetzea**. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

EAEk trenbide azpiegitura berria egiteko behar diren lurrak eskuratu ahal izateko **desjabetze** espedienteak kudeatzen lagunduko du. Berria - Harian

**Desjabetze** agiria sinatzeko. Berria - Euskal Herria

Etxe horretan bizi zena alokairuan zen, baina jabeak ez zuen haren berri eman, eta **desjabetze** prozesua, ondorioz, legez kanpokoa izan zen. Edurne Elizondo

Obrak hasita daude hainbat eremutan, eta agintariek **desjabetze** eta okupazio tramiteak legeari jarraitu gabe egin dituztela salatu dute. Berria - Mundua

**Desjabetze** kasuetan legeei buruzko informazioa ematea da Lurra Zainen eginbidea. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko azpikontratazioaren arrakasta, partez, enpresa multinazionalek garai hartan **desjabetze**-arriskuaren gorakadari eman zioten erantzuna izan zen. Koro Navarro

Espainiako Sustapen Ministerioak **Desjabetze** Planak dionari jarraiki, [...]. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oraingoz ez da etxe **desjabetzerik** aipatzen Biriatun. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desjabetze planak** (3); **desjabetze prozesua** (8); **desjabetzeko aukera** (4); **eta desjabetze** (3)

---

# desjarrai *izond* desjarraitua, jarraitutasunik gabea.

Lukrezioren atomismoa **desjarraia** da eta hutsunea edozein gauza motaren barruan sartzen du: ez dago hutsuneak barnatu gabeko materiarik, ez materiaz hornitu gabeko hutsunerik. Xabier Amuriza

---

# desjende *iz* jende ez den izakia.

Mundu horretatik kanpora, ordea, jende informatuak ederki daki elkarrekin uztartu ezineko hotsen segida irrigarria eta, beraz, arbuiagarria besterik ez dagoela, eta hitzik gabeko piztien heineko **desjende** zaunkaria. Iñaki Segurola

---

# desjosi *izond* joskerarik gabea.

Pintzeladak bortitzak ziren, bizkorrak eta **desjosiak** , protesta baten etengabeko seinaleak eta aieruak balira bezala. Joan Mari Irigoien

---

**desjudizializatu**,desjudizializa, desjudizializatzen du *ad* epaiketen mendetik atera.

Fiskalek etengabe eskatzen digute hezkuntza **desjudizializatzeko** , ez bidaltzeko beraiei benetako garrantzirik ez duten kasuak. Berria - Euskal Herria

---

**desjudizializatze** *iz* epaiketen mendetik ateratzea.

Urte politiko batetik bestera honako aldaketa hauek nabarmendu ditu Elkarri-k: Espainiako Gobernuaren aldaketa, Eusko Jaurlaritzaren proposamenaren **desjudizializatzea** , PSE-EEk Estatutua berritzeko proposamena iragartzea eta Batasunak herri galdeketan oinarritutako eskaintza agintzea. Berria - Euskal Herria

---

**deskabezatu**, deskabeza, deskabezatzen du *ad* burua kendu.

Zurginak [...] **deskabezatzeko** matxetearen ahoa erakusten zien. Koldo Izagirre

---

**deskafeinatu**, deskafeina, deskafeinatzen **1** du *ad* kafeina kendu. • *irud/hed* urardotu.

Eta tartean, hirugarren bidearen auto-ilaran trabaturik, agintearen eskarmentuak erabat **deskafeinaturiko** balizko sozialdemokrazia, dagoeneko oso bereak dituen nolabaiteko sintesia posibilista geroz eta merkeagoaz, geroz eta hutsalago. Iñaki Heras

Emeki-emeki, Kontseilu Nagusiko indarrarekin, 2010eko perspektibak **deskafeinatu** ditu. Berria - Euskal Herria

Ostiralak nolabait **deskafeinatuak** geratu dira iaz FIAk eginiko aldaketen ondotik. Berria - Kirola

**2** (era burutua izenondo gisa)

EA eta Aralar «Ezker Abertzalearen diskurtsoaren kopia **deskafeinatu** » batekin ari direla deitoratu zuen. Berria - Euskal Herria

**3** kafe deskafeinatuko kikara.

Carvalhok bere irribarre-erdiaz agurtu ninduen, eta **deskafeinatu** bat eskatu zuen, sakarinarekin. Iban Zaldua

Makinako **deskafeinatua** aukeratu nuen (gogoratu nuen kafeina nerbioentzat kaltegarria dela). Lander Garro

---

**deskalabratu**, deskalabra, deskalabratzen du *ad* zauritu; hondamena ekarri.

Gaur egun ez zaio inori gorputza horrela **deskalabratuko** . Joxerra Garzia

Takoien gainean zuen ibiltzeko tankera deserosoak ( **deskalabratu** egingo zela ematen zuen begiratu batera, eta gerritik heltzeko gogoa ematen zuen), poltsa eskuetan eramateko zuen modu dotoreak [...] edo bere sorbalda beti biluziak mugitzeko erak nahastu egiten ninduten. Joxean Agirre

---

**deskalabru** *(orobat* ***deskalabro****)* *iz adkor* hondamena, kalte larria.

Madrilen Amadeo de Saboya "italianoa" errege zegoelarik, Nafarroako Orokietan gertatutako **deskalabruaren** gakoa ausarki azaltzeko tenorea iritsi zaigu. Txillardegi

-"Amorebietako Pakea" bataiatu duten **deskalabruaren** aurrekoa. Txillardegi

Italiar mafiaren **deskalabroaren** ondoren, errusiarra omen da gaur egun indartsuena. Harkaitz Cano

Horiek dira aurtengo **deskalabruaren** errudunak. Joxerra Garzia

Heriotzari egindako keinu horren atzean bere deabruak, kalamidadeak eta **deskalabruak** bizi izandako idazle baten arima erraria dago, pertsona baten ibilbide literario oparoa, bitxia eta hunkigarria. Berria - Kultura

Izan ere, oinordekotza zela eta, erregeen eta beren ahaidekoen artean sekulako **deskalabroa** baitzegoen. Patziku Perurena

Lagundu zenduak kontatzen, mesedez, esan nien, edo lagundu **deskalabru** hau kontatzen, mesedez, akaso **deskalabru** hitza erabiliko nuen, oso nirea baitut, **deskalabru** , eta orain jabetzen naiz ez dela egoera haren berri emateko hitzik egokiena, ez; eta, hala ere, **deskalabru** erabiliko nuen, seguru, lagundu **deskalabru** hau kontatzen, mesedez, eta, huraxe bota bide nuelako, Scwzsek eta Dodovek ez zuten nire eskaera ulertu, eta zer kontatzera erantzun zidaten, hilak ugariak izan arren, **deskalabrua** bakarra baitzen, jakina. Karlos Linazasoro

---

**deskalifikatibo** *iz* deskalifikatzen duen hitza.

Uste dut, Unamuno-ren barrukoak benetan prozesu ikaragarri konplexuak izan direla, bizpahiru **deskalifikatibo** psiko-moralekin sinplifikatzerik ez dagoenak. Joxe Azurmendi

---

**deskalifikatu**, deskalifika, deskalifikatzen *(orobat* ***diskalifikatu*** *g.er.)* **1** du *ad* itzala kendu; gaitzetsi.

Atzo arte lagun izandakoak **deskalifikatzen** dira: "betiko notable eta politikeroak" baino ez omen dira. Joxerra Garzia

Norbait **deskalifikatzeko** orduan "nazionalista" deitu eta kito. Joseba Zulaika

Gure erlijiokoa ez den askotxo dabil jendea munduan, beste gabe **deskalifikatu** ezin duguna. Joxe Azurmendi

Bertso hori txarra dela, eta, besterik gabe, bertsolaritza osoa **deskalifikatzen** du Mujikak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Saiogile bizi eta prestua izan zen, eta modernitateari sistemaz uko egin zion autore klasiko izateak ez luke aski arrazoi izan behar haren jakite maila besterik gabe **deskalifikatzeko** . Berria - Kultura

Gernikako Estatutua **deskalifikatu** zuten argudio berberekin ari dira gaur egun Estatutu Berrirako Proposamena arbuiatzen. Konfuziar filosofia ez zela benetan hil bera sortu zuen gizartearekin batera, baizik eta hibernazio-aldi bat jasan zuela soilik, eta hil ez dena berez **deskalifikaturik** dagoela "arima" bezala berragertzeko. Berria - Harian

**2** (kiroletan) kanporatu.

Pedreña Hondarribiako estropadan **deskalifikatu** egin du TKEko Batzorde Teknikoak. Berria - Kirola

Kanadako Sari Nagusitik **deskalifikatu** egin zituen FIAk Williams eta Toyota taldeak. Berria - Kirola

Haatik 1999an odolaren kontrola bat eginik Giroaren finala bezperan, **diskalifikatu** zuten Italiako atorra arrosa berak zuelarik. Herria

**3** kalifikazioa kendu.

Mendillorriko 3.440 etxebizitzetatik oraindik 2.992 **deskalifikatu** gabe daudela ezagutarazi zuen kontseilariak; argitu zuen, ordea, etxebizitza horiek guztiak 2007rako **deskalifikatuta** izanen direla, eta, ondorioz, merkatuaren baldintzen arabera salduko direla. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

deskalifikatu egin (3)

**deskalifikazio** 1 *iz* deskalifikatzea.

Auto-bonbak izan dira, hauteskundeak, manifestaldiak, presoen gose-grebak, baraualdiak, bide-mozketak, ekitaldiak, oihuak, haserreak, **deskalifikazioak**, dimisio-eskaerak, lantuak, negarrak, malkoak, amorruak... J.M. Olaizola "Txiliku"

Eliza Katolikoak eta alderdi kontserbadoreek gure kontra egindako erasoak, irainak eta **deskalifikazioak** kontuan hartuta, [...]. Berria - Euskal Herria

«Beste hizkera eta jarrera bat» erakusteko eta **«deskalifikazioak** eta irainak» albo batera uzteko deia egiten zien sindikatuetako arduradunei. Berria - Euskal Herria

«Oposizioari erantzuteko **deskalifikazioak** erabiltzea» egotzi zion Lopezek. Berria - Euskal Herria

Klase politikoaren zati batek zuhurtziaz jokatu du, **deskalifikazioetan** erori gabe. Berria - Euskal Herria

Itun horren helburu bakarra euskal nazionalismoaren **deskalifikazioa** eta askatasunak murriztea zelako. Berria - Euskal Herria

Euskal curriculuma osatzeko prozesuak **deskalifikazioz** beteriko eztabaida eragin zuen atzo Eusko Legebiltzarrean. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondoekin)

Euskal gizartea gogaituta dago, hainbeste kritika, irain eta **deskalifikazio** politiko eta pertsonalengatik. Berria - Euskal Herria

Ikusten baitugu, ikusi, ez biolentzia bakarrik, ideiak eztabaidatzen direnean ere, eztabaidaren zati handiena eta batez ere sutsuena, ideia horien edo ekintza haien jabeen "analisi" eta **deskalifikazio** pertsonaletan zentratzen dela. Joxe Azurmendi

Ezin direla **«deskalifikazio** generikoak» egin. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> deskalifikazioak eta (3)

---

**deskanatu**, deskana, deskanatzen da/du *ad* zorabiatu, alditxartu.

Hara, egia esango dizut, aita Estanis: nahiago nuen jo eta bertan harriaren azpian **deskanatuta** hil izan banintz, orain sofritzen ari naizenarekin bizitzea baino. Pako Aristi

---

deskansu ik **deskantsu**.

---

**deskantsagarri** *izond* deskantsarazten duena.

Jatetxe gozoa, zuhaitz pean harri lauzazko mahainekin, toki lasai eta sanoa, gogo-bihotzen **deskantsagarria**. Herria

---

**deskantsatu**, deskantsa, deskantsatzen **1** du *ad* (zer osagairik gabe) atseden hartu.

Iritsi zen The White Swan-eraino eta barrura sartu zen **deskantsatzera**, tea hartzeko asmoz. Joxemari Iturralde

Ibiltariak, orduan, adar luzeko pago baten babesa aukeratu eta bertan **deskantsatzera** etzaten da. Bernardo Atxaga

Ohean etzanda imajinatu nuen, **deskantsatzen**, oinutsik. Bernardo Atxaga

Besteren leku ezezagunean, inorena ez den denbora krudelaren zati bat mailegu hartuko duzu eta zati hori nahikoa izango duzu, azkenean **deskantsatzeko**. Lourdes Oñederra

Izango duk han non **deskantsatu**. Juan Garzia

-Orduan hoa **deskantsatzera**. Juan Garzia

Neuk egingo dut, zuk **deskantsatu**. Josu Landa

Eta barra aurreko hormaren kontra **deskantsatzen** zuten garagardo bidoi huts batzuen gainean jesarri ziren biak, Idoia eta Koldo. Sonia Gonzalez

**2** (zer osagaiaz)

**Deskantsatu** zuen nire sorbaldan bere eskua, nekatuta balego, edo non edo non eutsi beharra baleuka bezala. Pablo Sastre

Azal erori zaildua ezkutatzera behartzen du koketeriak, baina leunek gorputz nekatua **deskantsatzen** diote. Alberto Barandiaren

**3** da *ad*

**-Deskantsatu** ote zen zuen ama? -galdetu zion Martinek andereñoari. Koro Navarro

Louis-ek biharamunean **deskantsatu** nintzenez, errana bainion nahi nuela ibili. Piarres Aintziart

Zergatik **deskantsatzen** gara eta bidaiatzen dugu urteko sasoi batzuetan eta ez beste batzuetan? Luis Elberdin

**4** (era bururuta izenondo gisa)

Argindarrik ez zenean, mundua samurragoa zen, eta **deskantsatuagoa**. Pako Aristi

**Deskantsatuagoa** zen, lana soilik egunaren argitan egin zitekeelako. Pako Aristi

Ea nola nengoen; begi-bistakoa zela pastillak on egin zidala, **deskantsatu**-aurpegia nuela-eta. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> deskantsatu behar (4)

---

deskantso ik **deskantsu**.

---

**deskantsu** *(ETCn **521** agerraldi; orobat **deskansu** g.er., **deskantxu** g.er eta **deskantso** g.er.)* **1** *iz* atsedena, atseden hartzea.

Egun hau **deskantsuari** emanen diot. Piarres Aintziart

Isiltasuna, **deskantsua**, bakea. Joxean Sagaztizabal

Etxeak ez zeukan igogailurik eta lehen pisuan **deskantsu** txikia egin zuten. Unai Elorriaga

Baserrian lana gogor egin bai, baina **deskantsua** ere luzea. orduan, arrazoi analitikoa, ez atzera eta ez aurrera, trabatzen eta katigatua bezala gelditzen zelarik, arrazoirik sarkorrenak **deskantsuzko** lur heze baten bila abiatzen ziren. Xabier Etxabe

Entrenadoreak astebeteko **deskantsua** eman ziola. Unai Elorriaga

Ez zion bere buruari **deskantsurik** ematen. Bernardo Atxaga

**2** lasaitasuna.

Berehala joan zait dutxak utzitako **deskantsu** sentsazioa. Mikel Hernandez Abaitua

Eta eni ez zaut batere gaizki, urte guzia hiri haundi horietan diren jendeek-eta nahi dute **deskantsu** poxi bat, eta nahi dute itsasorat buruz jin eta mendirat-eta, hemen denak badituzte eta, jin ditela. Menane Oxandabaratz

Azken partida **deskantsu** osoan jokatuko du. Herria

Ekar dezagula besta horrek **deskantsu** eta bihotzeko bake. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berehala joan zait dutxak utzitako **deskantsu** sentsazioa. Mikel Hernandez Abaitua

Astialdia, beraz, **deskantsu** denbora izan zen orduan, bereziki herritar apalentzat. Berria - Gaiak

Badu urteak eta urteak [...] aipu dela kirol-portu edo **deskantsu**-portu baten muntatzea Zokoan, tokia gisa hartakoa dela-eta... Herria

Guy Poulou auzapezak ez du erran portu hori eginen den edo ez, bakarrik galde frango badela, **deskantsu**-untzi horientzat tokia eskas izanez. Herria

**4** ***deskantsuan*** atseden hartzen.

Maiz lau haur ttikiekin daude **deskantsuan**. Herria

Pentsamendua **deskantsuan** eta alferkerian utzi beharrean, erraza egingo ez zaion liburu bat zabaldu duelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Bildu nuen luma, utzi nuen moila gainean **deskantsuan** koilara edo olagarroa, ez naiz zehazki oroitzen, jaitsi nintzen burdina guztiak hautsez estaltzen dituen Txileko fosfatoan oberola zurituz, [...]. Koldo Izagirre

Bizi, lanean ari, **deskantsuan**, atsegin eta atsegabeetan, amodioetan edo samur. Piarres Aintziart

**5** ***deskantsu hartu*** atseden hartu.

Arratsaldeko zazpietan belarrezko ohe antzeko batean etzan naiz, **deskantsu hartzeko**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Grebaren ondoren **deskantsu hartzeko** beharko dik... Jon Maia

· Txahala bota eta **deskantsu** pixka bat **hartzeak** on egingo lioke, baina neska egoskorra da, tematia, ez du inolaz ere amore eman nahi [...] eta gainera ez du horretarako astirik. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskantsu poxi** (4); **deskantsu poxi bat** (3); **deskantsurik gabe** (3)

---

# **deskantsuki** *adlag* lasai.

Bi urte honetan hiriak indarrean emaiten hasia du alta plano bat serioa, nahiz eta txirrindolariek eskura dezaten **deskantsuki** eta seguritate osoan ibiltzeko parada. Herria

---

# **deskantxaratu**, deskantxara, deskantxaratzen da *ad* kantxatik atera.

Niri ez zait iruditu batere **deskantxaratu** denik. Berria - Kirola

---

# deskantxu ik **deskantsu**.

---

# **deskapitalizatu**, deskapitalizatu, deskapilizatzen du *ad* aberastasun iturri bat kapitalez gabetu.

Horrela, **deskapitalizatu** gabe -pobretu gabe- kontsumora bidera daitekeena ateratzen da. urtetan inbertsio txikiena egin gabe, zaharkituta eta **deskapitalizatuta** zegoen erabat enpresa, eta ordainketa-etena agindu zuen halako batean, kiebrak jota. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

# **deskapitalizazio** *iz* deskapitalizatzea.

Ustez, espekulaziotik eta **deskapitalizaziotik** urrun, lantegiaren etorkizuna bermatzea zen proiektu haren helburua. Berria - Ekonomia

Teknikaren aurrerapen horiek aukera ematen dute baliabideetara iritsi eta gero eta gehiago ateratzeko, eta erabilpen intentsibo horrek oinarri naturalaren hondatze bizkorrago bat eta kapital naturalaren **deskapitalizazioa** dakarkigu hurrena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Deskapitalizaziorik** ez egiteko, erreserbetatik dirua ez ateratzeko eta inbertsioak zehaztuko dituen industria plan bat egiteko eskatu zioten ozen Lartundori. Berria - Ekonomia

---

# **deskapotable** *izond* **1** kapotaduna.

Jerryk arroparen sokari begiratzen zion, edo garajean zegoen 68ko Chevy **deskapotableari**. Koro Navarro

**2** *iz* kabrioleta.

**Deskapotablea** utzi zuten lekura itzuli ziren zuzenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hantxe zegoen Jean Claude, **deskapotablearen** kapota estalian apoiatuta, lerden, garai, dotore. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **deskarauki** *adlag*

- **Deskarauki**! Unai Iturriaga

---

# **deskarboxilatu**, deskarboxila, dekarboxilatzen da *ad* konposatu batetik karbono dioxidoa bereizi.

Prozesuan, azidotasuna gutxitu egiten zitzaien (**deskarboxilatu** egiten ziren) eta urtze-puntua ere jaitsi. Juan Garzia

---

# **deskarga** **1** *iz* deskargatzea.

Berebileko kofrea ezkaratzeko ateari buruz itzuli zuten, **deskarga** errexteko. Eneko Bidegain

Ontzien sarrera eta **deskarga** ikusi nahi nuen, kargagatik uretan ondo sartuak heltzen zirenak. Joseba Sarrionandia

Bokarta garaia zen, portuan egonean egoteko entretenigarriena, ordu hartarako eginak egongo baziren ere **deskarga** eta salmenta gehienak. Ramon Saizarbitoria

Zaragozan eta inguruko parajeetan, euri eta kazkabarretan 122 litroko **deskarga** egin zuen ordu gutxian. Pello Zabala

**Deskarga** normal batean milioi bat pasa wat doaz: gehienak berotan lehertzen dira. Pello Zabala

Hotzikara txipitan durduzatzen zen aldiro, voltaje apaleko **deskargak**. Koldo Izagirre

Rosie Judori ere bizia barkatu zioten, txundidura handiz, 1.500 voltioko **deskarga** elektrikoa bere gorputzetik batere kalterik sortu gabe pasatzen zela ikusi ondoren. Harkaitz Cano

Burdinbideko hari elektrikoa jota **deskarga** hartu zuen, eta gero lurrera jausi zen. Berria - Euskal Herria

Espainiako Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, lukuru asmorik gabeko **deskargak** eta kopiak legezkoak dira. Berria - Harian

**2** (izenondoekin)

**Deskarga** bortitz bat sortu zen metaletik eta besoan hedatu zitzaion gorputz guztia argiztatu arte. Joanes Urkixo

Pena pixkat eman zidan mikrofonoak **deskarga** hilgarri hori eman zionean, euria hasi eta segituan. Berria - Kultura

Badaudela inolako seinale edo erredurarik eragiten ez duten **deskarga** txikiak ematen dituzten elektrodoak ere: elektromiogramak, hain zuzen ere. Berria - Euskal Herria

Jakina da neurona orok noizean behin **deskarga** espontaneoak sortzen dituela, sarrera-seinalerik batere gabe. Irene Aldasoro

Nire eskuekin gerria ukitu nionean karranpa antzekoa sumatu nuen, **deskarga** txiki bat bezala. Jasone Osoro

Zure adrenalina guztia topera, **deskarga** itzela izan zen. Sonia Gonzalez

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

13:45ean, Bilboko Texagorri kalean kamio batetik **deskarga** lanak egiten ziharduela, [...]. Berria - Ekonomia

Hainbat txantxa eta ziri entzun behar izan zituen **deskarga**-lanetan ari ziren Pequod ontziko marinelen partetik. Anjel Lertxundi

**Deskarga** saltoak hasten dira kilometrotako hodei adartzar horien sakanetan: positibo-negatiboen borroka trumiltsua. Pello Zabala

**Deskarga**-biltegiak tartean baziren ere, Manhattanen bukaerak gogora ekarri zion portuan zehar astiro aurrera doan gabarra baten brankaren irudia. Lopez de Arana

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur-**deskargak** urtegia husten du, eta honen ertzak goian eta lehor uzten ditu. Naturak, jakintsua denez, jaten dugun bakoitzean eta sexua egiten dugun bakoitzean gure neuronak txoratzen dituen plazer **deskarga** batekin saritzen gaitu. Iñaki Mendiguren

Elektrizitate **deskargak** jasanarazten dizkiete eta plastikozko kableekin jotzen dituzte. Berria - Mundua

Langa zuzen jartzean trenbideko goi tentsioko lerroa jo zuen eta 3.000 volt.-ko elektrizitate **deskarga** jaso zuen. Berria - Ekonomia

Hodeitzar horietan bildutako bero-**deskargak** auskalo zenbatekoak izango diren. Pello Zabala

**5** harmen desarra.

Hormaren aurrean paraturik, Uritz jeneralak ez zuen txintik ere atera; eta isilaldi betean zain zegoelarik jaso zuen iskiluen **deskarga** bortitza. Txillardegi

Infanteriaren **deskargak** entzuten dira: "Euri tanta sarriek latoiaren aurka egiten duten bezalako hotsa". Jon Alonso

Emakume bat, lehen aldiz, azken **deskarga** egiteko ardura hartzekoa zen [alardean]; Ertzainek ez zuten deskargarik egiten utzi, berandu egin zitzaiela argudiatuta. Berria - Harian

**6** (hitz elkartuetan)

Eguerdi aldera, garrasiak entzun ditut ez oso urruti, ez dut oso ondo ulertzen baina iruditu zait "¡Viva España!", ¡"Arriba España!" diotela, eta segituan fusil **deskargak** eta herio-garrasi izugarriak. Bernardo Atxaga

Fusilaketa **deskargak** entzuten zituen gauetan. Koldo Izagirre

**7** ***deskarga elektriko*** elektrizitate deskarga.

Hipotalamoa suntsitu **deskarga elektrikoen** bidez. Luis Elberdin

8: 40tan trenbidearen burdinbideko kable bat aldatzen ari zen eta **deskarga elektrikoa** jaso zuen. Berria - Ekonomia

Harryk ere salto egin zuen, **deskarga elektriko** handi bat hartu izan balu bezala. Iñaki Mendiguren

Mutilaren erreakzioa zeharo histrionikoa izan zen, **deskarga elektriko** batek astindu berri zuela pentsatzeko modukoa. Xabier Mendiguren Elizegi

**8** ***deskargan***

Bakailaoaren **deskargan** genbiltzala. Koldo Izagirre

Non da orduko kaiko jendea, non orduko ontzi oholezko handi haiek, eta non dira gizon indartsu haiek, aritzen zirenak **deskargan**. Anjel Lertxundi

Jesar zaitez putzuari buruz arrainaren **deskargan** erabiltzen diren zurezko eskorga zahar horietarik batean. Koldo Izagirre

Zu lehorrekoa zara, zuk ez dakizu, hala hobe-ta, zer den emakume gazteak beltzez ikustea hiru eta lau hankagorrirekin arrain eskean **deskargan**, gizonik zailduena ere mareatzen duen puta anker horrek senarra kendu diolako.· Merkatuaren parean karga-**deskargan** geldirik zegoen hozkailu-kamioi batean. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten deskarga** (3); **deskarga bat** (3); **deskarga elektriko** (6); **deskarga elektrikoa** (4); **deskarga elektrikoak** (8); **deskargak eta** (3); **elektrizitate deskarga** (3); **eta deskarga** (5); **eta deskargan** (3)

---

# deskargagailu *iz* deskargatzeko gailua.

**Deskargagailuari** heldu eta aizkora enborrean bezalaxe sartu nuen belarretan, sakon-sakon. Joxean Sagaztizabal

Belar-**deskargagailu** bat zen; behin zorura ezkero, sardearekin aldameneko biltegira. Joxean Sagaztizabal

Belar-**deskargagailuari** lauortzekoa edo deitu zion. Joxean Sagaztizabal

---

# deskargatoki *iz* deskargatzeko tokia.

Ilargi-gauetan, bakarkako ibilaldi luzeak egiten nituen sarritan Meatzeetako lurralde basatian gaindi, kraterraren hegiraino, edo malkar erditik zeharka, **deskargatokiaren** malda-bizkar gris zarrastatuan barrena. Juan Garzia

Bada oraindik jenderik, gauez **deskargatokira** joan, legar grisez beteriko zakuak bizkarrean itzuli, legar hori xehetu, egosi, eta beti ere erreaktibo berriz tratatzen duenik. Juan Garzia

---

# deskargatu, deskarga(tu), deskargatzen **1** du *ad* zerbaiti karga kendu edo arindu. ik **zamagabetu**.

Egunaz portuan lan egiten dute, bizkarketan, kargamentuak ontzietara sartuz, ontziak **deskargatuz**. Matías Múgica

Estibadoreen eta garabizaleen greba mugagabeak bete-betean harrapatu zuen *Amenofis II.a* ontzia eta han geratu zen [...] **deskargatu** beharrekoa ezin **deskargatu** eta ez gora eta ez behera. Harkaitz Cano

Beste aldeko moilan **deskargatzen** ari ziren bela-ontzi handi zuria. Irene Aldasoro

Ez haut ikusi kamioia **deskargatzen**. Pablo Sastre

Idi orgek **deskargatzen** dituzte hondartzan burdin mineralaz betetako ontziak. Koldo Izagirre

**Deskargatu** eta **deskargatu** jarraitzen zuten; iraulki orgek beren barazki karga botatzen zuten lurrera, adokin karga bat izan balitz legez. Karlos Zabala

Ontziko eskifaia ordura arte harrapatutako arraina kamioira **deskargatzen** ari zen 04: 30ak inguruan. Berria - Ekonomia

Arrainak saskietan ezartzen ziren itsasuntzietarik **deskargatzerakoan**. Herria

**2** karga bat kendu.

Deustuko kanalean Mike, altzairu-bobinak **deskargatu** eta Stavangerrera doa. Urtzi Urrutikoetxea

Balea-koipeaz betetako upelak **deskargatzen** ari ziren marinel zalapartari batzuk. Anjel Lertxundi

Getarian **deskargatu** zuten antxoa gehien: 40.000 kilo, euskal ontzien eta besteen artean. Berria - Ekonomia

Pirita **deskargatzen** ari ziren garabietan. Koldo Izagirre

Bi abantaila kausitzen dizkiote Bokaleko lantegiari: Aturri hegi hegian dela, beraz herdoileria zuzenean **deskarga** daitekeela lantegira. Herria

Anttonek maletak **deskargatu** zituen furgonetako atzealdetik eta hirurak sartu ziren aireportura Egun batean, kamioi batetik hilak **deskargatu** zituzten kanposantuaren ataurrean. Joxemari Iturralde

Lehenik, biriketara bidali behar da odola, han oxigenoz kargatu dadin eta karbono dioxidoa **deskargatu** dezan. Irene Aldasoro

Alarma faltsua bidaliko duelako larrialdi zentrora, bateria **deskargatuta** dagoela esanez. Berria - Euskal Herria

**3** su armetan, balak atera.

Errebolberra kargatu eta **deskargatu** egin zuen, Martari hainbat aldiz ikusi zion keinua imitatuz. Harkaitz Cano

Pistola **deskargatu** bitartean, katuari eragin dio nahi gabe. Rafa Egiguren

Zergatik ez zenuen arma distira ematen hasi baino lehen **deskargatu**? Harkaitz Cano

**Deskargaturik** zeuden etsaiaren armak. Aingeru Epaltza

**4** *(Internetetik)*

Norenak dira ba gaur goizean Internetetik **deskargatu** dituzun argazkiak? Patxi Iturritegi

Jatorrizko materiala eskura dezaketelako, musikarientzako prestatutako edizio zainduetan, eta berehala **deskargatu** ordenagailuan. Berria - Kultura

Debekatuta egongo da, nolanahi ere, artxiboak **deskargatzea**, aldez aurretik baimenik izan ezean. Berria - Harian

Erabiltzaile bakoitzak besteak proposatzen dituen fitxak bere ordenagailura **deskargatzen** ahal ditu, Interneten bitartez Berria - Harian

**5** irud/hed

Begirada ikusmira hartan galdu eta lasaitzeko ahaleginak egiten ari zen neska, une batez gutxienez ere tentsioa **deskargatu** nahian edo. Juan Luis Zabala

-Bere gorrotoa gure kontra **deskargatzeko**. Xabier Olarra

Batek baino gehiagok ukan zuen bere furiaren eta ezintasunaren haren kontra **deskargatzeko** xedea, baina sobera unatuak ziren ausartzeko. Elena Touyarou

Hau da, salaketak, hausnarketak eta pentsamenduak garatu eta **deskargatzeko** mundu artifizialak sortzen dituen artista. Berria - Kultura

Baliteke horiek horrela izatea, eta baliteke, orobat, irakasleon egitekoa gure jakinduria gelan **deskargatu** eta horrenbestez hor konpon egitea. Joxerra Garzia

Gero, behazuna **deskargaturik**, isolatu egin zen bere konbultsioak zaintzeko. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**deskargatu eta** (4); **deskargatu zituzten** (4); **deskargatu zuten** (3); **deskargatzen ari** (10); **deskargatzen ari ziren** (6); **eta deskargatu** (5); **eta deskargatzeko** (3); **kargatu eta deskargatu** (4)

---

## deskargatxo *iz* deskarga txikia.

Azpialde horretatik agudo hasten ez bada tximisten bati esker, **deskargatxoa** egiten...! Pello Zabala

---

## deskargatze *iz* zerbaiti karga kentzea edo arintzea; zerbaitetik edo nonbaitetik karga kentzea.

Florenti aurreko gau ikaragarria etorri zitzaion gogora, nola iritsi zen barazkien artean, nolako hilzoria jasan zuen merkatu nagusiaren erdian, nola ihes egin zuen elikagai **deskargatze** amaigabe hartatik. Karlos Zabala

---

## deskargu *iz* norbaitek akusazio edo kontu hartze batetik bere burua zuritzeko arrazoia edo desenkusa.

Addarri ez zaio ziri-bertsoa guztiz aldendu, munduan egindako deabru-lanen partea emateko bere txanda iritsirik, Leviatanen aurrean bere lanen **deskargua** egiten hasi denean: [...]. Anjel Lertxundi

Baldin neure hitza betetzen ez banuen, eta baldin ordaintzen ez banuen zuzentki eta onestki neure bekatuaren **deskargua** eta pagamendua. Joan Mari Irigoien

---

## deskarrilatu, deskarrila, deskarrilatzen da/du *ad* erraileti**k** atera.

Behar ez denean gutxiagorekin ere **deskarrilatzen** du. Pako Aristi

Nik horrelako emakume bat banu, horrelako emakume bat, merezi izango likek inork trena geldiaraztea, argiak itzaltzea eta trena **deskarrilatzea**. Lopez de Arana

Alemaniarren konboiak **deskarrilatzeko** sabotajeak egiten zituen erresistentziak. Jokin Urain

Trenak bi eratara sentitzen du ukitzen duen oro: zarata batetik, eztanda, zartadaren erotsa, eta **deskarrilatzeko** arriskua bestetik. Pako Aristi

---

## deskarrilatze *iz* erraileti**k** ateratzea.

Bihurgune horretan hainbat istripu gertatu zen hurrengo urteetan; larriena 1875 urtean jazo zen: **deskarrilatze** baten ondorioz hirurogeita hamabi lagunek galdu zuten bizitza. Iban Zaldua

---

## deskart *adlag ipar* **1** bereiz, aparte.

Gogoratu zitzautan honaratekoan, ene herrian berean, agoten auzotik pasatu nintzala, ur hegian, zubiz bertzalderdian... jauregia bezala, funtsean..., baina jauregitik **deskart**. Michel Oronoz

**2** (izenondo gisa)

Hiru gizonek, dena mehatxu arizanik, sokaz estekatua zuten jabea eta arrunt toki **deskartean** utzia. Herria

**3** ***deskartean*** *adlag* bereiz, urrun.

Alde batetik, hautetsi batzuen arrangura, toki hori **deskartean** dela, denetarik frango urrun, hiribarnetik hurbilago hobe litakeela. Herria

---

## deskarta egin *iz ipar*

Bestalde, Istillarte beti han du, aintzintzera, pilotaren gainean eta zoin xuxen! hor da **deskarta** eginen eta ez duguia kondatuko 42-32 eta 46-35 ere. Herria

Gero haatik **deskarta** egin da, 26-18 eta 35-24, bi irabazleak hobeki konponduz. Herria

---

## deskartatu, deskarta, deskartatzen du *ad* joko kartez mintzatuz, utzi, arbuiatu.

Alainek sobre bat atera zuen txalekuaren barruko patrikatik, eta hamar milako sorta gizenetik bost billete apartatu zituen Laranja Mekanikoari luzatuz, **deskartaturiko** karta parea mahai gainera botatzen duen muslariaren keinu utziaz. Harkaitz Cano

**deskarte** **1** *iz* jokoko kartez mintzatuz, uztea, arbuiatzea.

Pentsatzea organismo bizidun haiek guztien baitan gaitzak eta birusak zelulekin pokerrera ariko zirela une hartantxe, beren bizitzak eta maite zituen jendearenak hankaz gora jarri zitzakeen **deskarte** egokiaren esperoan. Harkaitz Cano

· San Agustin, beraz Santo Tomas berdin; Descartes, beraz Kant kanpora, **deskartez**. Joxerra Garzia

**2** irud/hed

Buruko osasun arazoen diagnostikoa **deskartearen** bidea erabiliz egiten dela diote batzuk. Berria - Gaiak

Jose Luis Korta klubeko prestatzaileak arrazoi nagusi bat du: «Alde guztietatik erasotuak gaude, nik hasieran 30 mutil nituen, eta **deskarteak** egin behar izan genituen. Berria - Kirola

---

**deskastatu** *izond* zaputza.

Ene ekibokazio espantagarria zen eta hemendik beretik barkamena eskatzen diet herri honi, Pérez **deskastatuari**, euskal atsoei eta suhi txintxo guziei, umilki, belauniko eta etzanda, pasa, zapaldu eta ttu egin nire gainean, arrontik barkagaitza den nire ofuskazio gaizto horrengatik. Patziku Perurena

---

**deskatalogatu** *izond* liburuez eta kidekoez mintzatuz, katalogotik aterea dena.

Baditinat kasper **deskatalogatu** batzuk modu onean. Patxi Iturritegi

---

**deskiribildu**, deskiribil, deskiribiltzen **1** du *ad* kiribila desegin. ik **deskorapilatu**.

Sabaitik dilindan, berriz, bi lanpara jigant zeuden, baita zetazko mila xingola ere, hango eta hemengo habeetarik esekiak eta mila koloretakoak, aire korronteen eraginaz kiribiltzen eta **deskiribiltzen** zirenak, fantasiazko sugeak iduri. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Jesukristoren nortasunaren enigma asko ez da behar bezala **deskiribildu**, ilunpean datza oraindik. Berria - Kultura

Artistak, edozein lagunen bizialdiko edozein une hartu, une horretan gogoan duena **deskiribildu** eta garatu, eta bertan adierazten dizu unibertso osoa, edozein horri dagokion ikuspuntutik argitua. Markos Zapiain

*Farorantz*-en, baina, maiteminak ezin ditu maitatuaren munduak guztiz **deskiribildu**, agerian jarri. Markos Zapiain

Azkenik, geldiro bidaiatzen hamaika ordu eginik -Errusiako nekazari-lurrak **deskiribilduz** joan ziren pixkanaka-, Leningradoko geltoki bikain batera iritsi ginen Xabier Olarra

---

**desklasatu**[1], desklasa, desklasatzen da *ad* gizarte klase jakin batekoa izateari utzi.

Bestea, beti aipatzen dudan euskal mundu ideologizatu horretatik kanpo dago, **desklasatua** da. Ana Urkiza

---

**desklasatu**[2], desklasa, desklasatzen da *ad* *ipar* mailaz apaldu.

Ardatxenea eta Heguidarrea zelaiko bi bide **desklasatuak** izanen dira. Herria

Herriko bide batzuen **desklasatzea** «Pialexenia» eta Sohano-n. Herria

---

**desklasifikatu**, desklasifika, desklasifikatzen **1** du *ad* agiriez-eta mintzatuz, sekretu gisa klasifikatua dagoena jakitera eman.

Argazkiok berriki **desklasifikatu** dituzte eta Interneten jarri. Berria - Kultura

Ni Gobernuko kide naizen artean ez da ETAren terrorismoaren aurkako borrokari eragin diezaiokeen dokumentu bakar bat ere **desklasifikatuko**. Berria - Euskal Herria

Bildumako txostenak 1988ko maiatzean **desklasifikatu** ziren. Edorta Jimenez

Paraguain, Txilen eta AEBetan **desklasifikatutako** agirien arabera, Pinochet izan zen bultzatzailea Berria - Mundua

**2** (era burutua izenondo gisa)

Kolonbiak Washingtonen duen enbaxadore Luis Alberto Morenok atzo zehaztu zuenez, 1991ko «dokumentu **desklasifikatu** baten zatiak» argitaratu ditu Newsweek-ek. Berria - Mundua

Horri buruzko txostena hil horrexetako 31n idatzi zuen Iralak, baina txosten hori ez dago **desklasifikatuen** bilduman. Edorta Jimenez

---

**desklasifikatze** *iz* agiriez-eta mintzatuz, sekretu gisa klasifikatua dagoena jakitera ematea.

Securitate-aren artxiboen **desklasifikatzeak**, ordea, bestelako ikuspegia eskaini digu, mendebaldarroi kontatu zitzaigun mendeku politikoko istorio hartatik urrun samar dagoena. Iban Zaldua

---

**desklasifikazio** *iz* desklasifikatzea.

Securitate-aren agirien **desklasifikazioari** buruz esaten nuena. Iban Zaldua

---

**deskoadraketa** *iz* deskoadratzea.

**Deskoadraketa** zineman (*Non récondiliés,* J.-M Straub eta D. Huillet, 1965) eta pinturan (*Bi kanpandorre Kopenhagen ilunabarrean,* J. Clausen Dahl, 1825). Josu Zabaleta

---

**deskoadratu**, deskoadra, deskoadratzen **1** du *ad* irudi nagusia, daukan laukiaren erditik aldaratu.

[Komikietan] izan ere, "normaltzeko" joerak badu asebeteko dela espero izatea, irudiaren barne aldakuntzen bitartez (kamera mugitu eta berriro koadratuz, adibidez) edo irudiak sekuentzia batean sartuz (komikiaren beste biñeta baten bitartez lehenengoan **deskoadratuta** zegoena ongi koadratuz). Josu Zabaleta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Azkenean onartu egiten da, estilo baten ezaugarri bezala, eta, denbora baten buruan, ikusleak ez du gehiago ametsik egiten berriro koadratzen ari dela, eta den bezala

onartzen du irudi **deskoadratua**, eta haren konposizio moduaz gozatzen ikasten du. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> deskoadratzea eta (3)

---

# deskoadratze *iz* irudi nagusia, daukan laukiaren erditik aldaratzea.

**Deskoadratzea** [...] erdialdea hustea da, gauza esanguratsu oro handik kentzea (irudian zulo bat egitea denez), erdialdea irudikapenean esanahi gutxi duten gaietarako uztea. Josu Zabaleta

Beste era batera esanda, **deskoadratzea** erabilera teoriko bat da, inplizituki markoaren diskurtso-balioa azpimarratzen duena. Josu Zabaleta

**Deskoadratzea** deszentratze bat da, beraz. Josu Zabaleta

**Deskoadratzean** koadroaren ertzek irudikatzen den eszena ebaki egiten dutela ematen du, eta ebakitzeko indar hori azpimarratzen da. Josu Zabaleta

Irudi finkoak, margolana ala argazkia izan, ez du uzten ezabatze hori egiten, eta, hala, **deskoadratzeak** balio estetikoa izaten du beti horrelakoetan. Josu Zabaleta

---

# deskodeezin *(corpusean **dekodeezin** soilik) izond* ezin deskodetuzkoa.

Pergamino **Dekodeezinaren** Ordena Misteriotsua; Merezimendu eta Gosearen Erregeak; Hegoaldeko Izarraren Semeak; [...]. Xabier Olarra

---

# deskodetu, deskode, deskodetzen *(orobat **dekodetu** g.er.)* **1** du *ad* mezu bat kodetzeko erabili den kodea alderantziz erabiliz, mezu haren jatorrizko forma lortu.

Entzuleak bere ezagutza sintaktikoa, morfologikoa, lexikoa abian jartzen ditu seinalea **deskodetzeko**. Lourdes Oñederra

Irakiarren mezuak harrapatu eta **deskodetzeko**, eta baita gure borrokalariei jarraibideak Morsez bidaltzeko ere. Juan Kruz Igerabide

Antza, bere zerebro txikiak ez daki iritsi zaion azken mezua **deskodetzen**. Patxi Iturritegi

Halaber, ongi entzunda ere, ez da gai izango hotsak **deskodetzeko** eta behar bezala mezua ulertzeko. Lourdes Oñederra

*Tetraodon nigroviridis* espezieko arrain baten genoma **deskodetu** du Frantziako ikertzaile talde batek, eta horri esker, espezien eboluzioaren inguruko gauza asko jakin dituztela esan dute. Berria - Gaiak

Esaten zaigu nola, kristautasunaren hasieratik sekretu hori klandestinoki bizirik mantendu den, besteak beste artearen bitartez (**deskodetu** beharreko arte obren bitartez). Berria - Kultura

**2** irud/hed

Ruche jauna ziur zen lagunaren gutunak argibide ezkutuak gordeko zituela isilpean, agerian adierazten zuenaz gainera, eta berak beharko zituela, nola esan?, **deskodetu**: bai, hori zen hitz egokia. Jon Muñoz

Ikusmen-aparatuaren eginkizuna ez da, haren iritzian, ez inputak **"deskodetzea"**, ez pertzeptuak "eratzea", informazioa ateratzea baizik. Josu Zabaleta

Ala musika **"deskodetzen"** ikasi ote zuen, eta, norbaitek irakatsirik, halako eta halako forma "artzain" edo "udaberri" girokoak zirela eta araberako irudi batzuk zegozkiela? Xabier Olarra

Ibon Aranberrik, eskultura eta diseinu patroiak **deskodetzeko** sentsibilitatea erabiliz, kultura ikonoak hobeto ulertzera garamatza, deseraiki behar diren edo aintzat hartu behar ez diren historiaren eraikitzaile gisa. Berria - Kultura

Ez dut izan begirada haren benetako esanahia oraino **dekodetzerik**. Lander Garro

**3** (era burutua izenondo gisa)

Gainean, mezu **dekodetu** batek zioen: "Hamburgoko sukurtsalaren defizita 500.000 dolarrekoa, gutxi gorabehera"; Heintzek izenpeturik. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> genoma deskodetu (5)

---

# deskodetzaile **1** *iz* deskodetzeko gailua.

Telebista digitalera sarbidea izateko **deskodetzailea** 99 euroren truke erosi ahal izango da, edo hilean sei euroren truke aloka daiteke. Berria - Ekonomia

**2** deskodetzen trebea den pertsona.

Gutun sekretuen **deskodetzaile** bikaina zen Wallis, Viète bezala. Jon Muñoz

**3** (izenondo gisa)

"Horra berriz mediku **deskodetzailea"** egin zuen bere artean Ruche jaunak. Jon Muñoz

---

# deskodetze *(orobat **dekodetze**) iz* mezu bat kodetzeko erabili den kodea alderantziz erabiliz, mezu haren jatorrizko forma lortzea.

Gertatzen zaiguna da, irudiaren lehen mailako **dekodetzea** egitea erraza denez, bigarrenerako pausoa emateak lana eskatzen digula. Berria - Harian

**Dekodetze** naturala egiten badakite, hots, pertsona bat ikusten dute. Berria - Harian

Irratiz igorri behar dituzten mezuak aldez aurretik adosturiko liburu jakin bateko orrialdeen arabera kodifikatzen dira; beraz, mezu-hartzaileak **deskodetze** lanerako liburu jakin horren edizio bereko kopia bat beharko luke. Edorta Jimenez

---

# deskodifikatu, deskodifika, deskodifikatzen *(orobat **dekodifikatu** g.er.)* **1** du *ad* deskodetu.

Gormutuen zeinukera agertzen zait ametsetan ere, mezu ezkuturen bat **deskodifikatu** nahi balit bezala. Jokin Urain

Hauek dira XXI. mendea baino lehenago **deskodifikatu** diren genomak eta hor ikusten da organismoaren egitura aberastasunak eta geneen kopuruak ez dutela nahitaez harreman garbirik [...]. Pello Salaburu

**2** irud/hed

Egungo euskara **deskodifikatu** dut, hizkera errazagoa lortze aldera; izan ere, egun, ulertzeko zailak diren hitzen arteko loturak erabiltzen dira. Berria - Kultura

Armarik masiboena daramazu lepo gainean, dena identifikatu eta **dekodifikatu** nahi duen begirada hori, koadroak zatika ikusten dituena, izenburua, garaia, teknika, neurria; Berria - Kultura

---

# deskodifikatzaile *iz* deskodetzailea.

Lasserre bezalakoen ulertzeko **deskodifikatzaile** bat behar da, Canal katearekin bezala. Berria - Euskal Herria

## **deskojonatu**, deskojona, deskojonatzen **1** da *ad adkor* barrez lehertu. ik **desbarrabildu**.

Hi, zera, gauza guztiez **deskojonatzen** haiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Hori kontatu zidanean **deskojonatu** egin zen eta kito. Jon Arretxe

Irene aurpegira **deskojonatu** zait hitz totelka proposamena egin diodanean. Jon Arretxe

**2** hondatu.

Ohol handi bat bilatu eta trafiko seinale **batzuk** deskojonatu. Jon Arretxe

Florenen kanperak haginka **deskojonatzea**? Jon Arretxe

---

## **deskojono** *iz adkor* barrez lehertzea.

Potroetaraino nago irakasleek agintzen dizkiguten txapak irakurtzen eta zure liburua guztiz desberdina da, **deskojonoa**! Jon Arretxe

Ixabel eta Morgan, gorri-gorri eginda **deskojonoaren deskojonoaz**. Joxean Sagaztizabal

---

## **deskokatze** *iz* enpresez-eta mintzatuz, jarduera herrialdez aldatzea. ik **deslokalizazio**.

**Deskokatzearen** aurrean pisuzko industria sarea eta enpresaburu belaunaldi berria abantaila direla uste du Iraolak. Berria - Ekonomia

**Deskokatzearen** fenomenoaren eraginak minimizatzeko, neurriak har daitezen nahi du Ganberak. Berria - Ekonomia

Aseguru horren zati bat, **deskokatzeagatik** lortutako aurrezkietatik ordaindu ahalko litzateke eta langileen likidazioaren konturako kopuru batekin osatuko litzateke. Berria - Ekonomia

Parke teknologikoak klonatzea: txostenaren arabera, enpresa handiak dira **deskokatzetik** abantaila gehien lortzen dituztenak. Berria - Ekonomia

---

## **deskolokatu**, deskoloka, deskolokatzen **1** du *ad adkor* lekuz kanpo jarri.

Zalaparta bai kantxan, mugitu bai, atzera eta aurrera, baina manomanista baldarren moduan, beti **deskolokatuta**. Berria - Kirola

**2** irud/hed

Nahiko **deskolokatua** utzi ninduen. Jasone Osoro

Egia esan, **deskolokatu** egiten nau tipo horrek, Marcosek. Unai Elorriaga

Beldur inkontzientea zuen, itzulera arkeologiko horrekin fisikoki eta metafisikoki **deskolokatuta** geratuko zela. Joseba Sarrionandia

Beldur inkontzientea zuen, itzulera arkeologiko horrekin fisikoki eta metafisikoki **deskolokatuta** geratuko zela. Joseba Sarrionandia

-"Etorriko dun Herio, eta hire begiak izanen ditin", halaxe bota nioan, bat-batean, brausta, ilehori begiurdinari, eta begira-begira geratu zitzaidaan, **deskolokatuta**, eta gero beste aldera begira jarri zuan, zalantzan. Iñaki Iñurrieta

---

## **deskolonizatu**, deskoloniza, deskolonizatzen du *ad* herrialde batek kolonia gisa daukan lurralde bati askatasun politikoa eman.

Nik benetan pentsatzen dudana da, Taiwan **deskolonizatu** egin behar dela oraindik, eta hasi egin beharko dugula hitz egiten zer nahi duen benetan Taiwango jendeak berak. Berria - Kultura

Gibraltarrek **deskolonizatu** beharreko herrialdeen zerrendan jarraitzea nahi du, azken finean, eta Madrilek zein Londresek izatea azken hitza. Berria - Mundua

Herrien autodeterminazioa lortzeko eta Afrikan **deskolonizatzeko**, zuen borrokaren baitan sendotzen da gure elkartasuna. Berria - Mundua

---

## **deskolonizatzaile** *iz*

Horrek metropolien aurkako XX. mendeko **deskolonizatzaileen** teorikoak ezagutu zituen (Memmi, Sengor, Lumumba, Guevara) eta kultura menderatzailearen eta menderatuaren arteko dialektika modu berri batean aurkeztu zion euskal pentsamenduari. Askoren artean

---

## **deskolonizazio** **1** *iz* deskolonizatzea.

**Deskolonizazioa** bururatzea, hori da egin beharrekoa. Berria - Harian

**Deskolonizazioaren** amaieran sorturiko itxaropenak ezeztatuz, herrialde aberatsen eta herrialde pobreen arteko errenta-aldeak ez dira azken berrogei urteotan murriztu. Koro Navarro

**Deskolonizazioa** «oso gaizki» kudeatu zela eta horrek Afrikan eragin zuzena izan duela. Berria - Kultura

Merezi du erakunde horiek **deskolonizazioaren** garai berean sortu zirela gogoratzea. Koro Navarro

Eskualde periferikoen lehen industrializazio-saioak **deskolonizazioaren** ondorengoak dira. Koro Navarro

Fronte Polisarioak Mendebaldeko Sahara **deskolonizatzeko** konpromisoa betetzeko eskatu dio Nazio Batuen Erakundeari. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

**«Deskolonizazio** arazo bat» dago gaur egun Saharan, Irizarren aburuz. Berria - Kultura

Bigarren Mundu Gerra osteko **deskolonizazio** prozesuaren ondoren, [...]. Joxe Azurmendi

**Deskolonizazio** garaiaren ondoren argi ikus daiteke Islamak izugarrizko indarra duela. Berria - Euskal Herria

Nazio Batuen **deskolonizazio** komiteak egoera aztertu aurretik, britainiarrek garapen instituzionalerako instrumentuak eta autonomia handiagoa eman zizkioten Gibraltarri. Berria - Mundua

**Deskolonizazio**-filosofia eta zurriburri postmodernoaren anatematik. Joxe Azurmendi

**Deskolonizazio** Konferentzia. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskolonizazio prozesua** (5); **deskolonizazio prozesuaren** (3); **eta deskolonizazio** (3); **mendebaldeko sahararen deskolonizazio** (3); **sahararen deskolonizazio** (3)

---

## **deskoloratu**, deskolora, deskoloratzen (*orobat* ***dekoloratu*** *eta* ***deskoloretu***) da/du *ad* kolorea kendu edo galdu.

Albak ez ziren denak izarikoak, meza-soineko zenbait **deskoloratuak** ziren, hortaz apez frantses, belgikano eta italianoek ez zuten axolarik, baina apez alemanek ez zuten hori onartzen, mezako sakrizio sainduaren desohoratzea zitzaien. Marzel Etxehandi

Amaitutakoan, nor bere dendara erretiratu gara eta, denda barnean girorik ez bazegoen ere, azkenean tarte bat hartu dut hanketako ilea **dekoloratzeko**. Patxi Zubizarreta

Beste lanbide bat imaginatu behar banio idazle honi, argazkiak **deskoloretzen** irudikatuko nuke, Pariseko karrika estu bateko artesau denda ezdus batean. Berria - Kultura

---

deskoloretu ik **deskoloratu**.

---

**deskonbertitu**, deskonberti, deskonbertitzen du *ad* deskonbertsioa egin.

Lortu izan dugunean geure burua **deskonbertitzea** , hasierako desolamenduaren ondoren, askatasuna gelditu zaigu. Joseba Zulaika

Uste izatekoa da autobiografiarako konbertitu edo **deskonbertituak** "beste" nortasun erabat berria bereganatu duela. Joseba Zulaika

---

**deskonbertsio** *iz* erlijiozko konbertsioaren alderantzizko higidura.

Mugimendu hauek izan daitezke bai Jainkoa bezalako ideia batenganako konbertsioa (San Agustin), edo, alderantziz, ateismoaren **deskonbertsioa** besarkatu eta idazteari bizitza entregatzeko erabakia (Sartre). Joseba Zulaika

Historikoki, **deskonbertsio** publikoari "apostasia" deitzen zitzaion. Joseba Zulaika

Erlijioan, kulturan, ideologian, politikan, **deskonbertsio** masiboak egitera behartuak izan gara. Joseba Zulaika

---

**deskonektatu**, deskonekta, deskonektatzen **1** du *ad* zirkuitu edo makina batera doan korronte elektrikoa eten.

Zenbaitetan deitu nion, baina operadoreak telefonoa **deskonektatua** zegoela esan zuen. Fernando Rey

Raimundo Silvak egoera imajinatzen du, emakumea neskamea izango da, noski, telefonoa orain dagoen hartunetik **deskonektatzen** du, [...]. Jon Alonso

Hirugarrenean huts eginez gero, ordenagailua berez **deskonektatuko** zen eta berritik hasi beharra izanen. Aingeru Epaltza

Kilkerra atera du gero poltsikotik eta pantailak telefono sarerik ez daukala erakutsi dionean, **deskonektatu** egin du, bateriarik ez dezan alferrik gal. Hasier Etxeberria

**2** irud/hed

Israel Gazatik **«deskonektatzeko** » Sharonen plana sustatu du Bushek . Berria - Mundua

A-68an sartu direnean **deskonektatzen** saiatu da Lola. Patxi Iturritegi

Elikagaia egun deslokalizatua dago, hots, tradizioz zegozkion sorterri, lantze tradizional eta gorabehera klimatikoetatik deserrotua, **deskonektatua** . Edorta Agirre

Apur bat **deskonektatuta** egon gara gaiarekin, lehertu den arte. Berria - Kirola

Gaztetxo horiek errealitatetik **deskonektaturik** daude erabat. Berria - Gaiak

Horregatik, gauean, kosta egiten zaigu egunerokotik **deskonektatzea** eta atseden hartzea. Berria - Gaiak

Aktualitateaz **deskonektatu** nahi ez zuen adimen zorrotzak bizi zuen Martin, eta horrek, ni, asko poztu ninduen. Berria - Kultura

**3** (era burutua izenondo gisa)

ez naiz ariko partikulen etengabeko behatze edo begieste iraunkorraren ezinkizunaz, identitatearen eta jarraikitasunaren galeraz; nola den behatze hori gertakari etenak, **deskonektatuak** edo loturagabeak zeratzea eta... ixo, ixo, aski da eta gehiegi. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskonektatzeko plana** (5); **gazatik deskonektatzeko** (5)

---

**deskonexio** **1** *iz* deskonektatzea.

Espainiako Estatu osoan aritzen diren telebista kateei **deskonexioak** egin behar izatea eta horietan euskararen kuotak ezarri beharra azpimarratu du Mendigurenek. Berria - Euskal Herria

Telefonia operadoreari tarifa gehigarriko zenbakien **deskonexioa** eskatu. Berria - Euskal Herria

**2** irud/hed

**Deskonexioa** eta ezaxola alde batera utzi, eta oso animaturik hasi zen bere rock talde eta pieza gustukoenez hizketan: batez ere Grateful Dead taldeaz. Xabier Olarra

Gazako **deskonexioak** ez du egoera asko aldatu, palestinarrek presondegi handi batean preso segitzen baitute. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan)

Joan den astean **deskonexio** planaren kontrako zentsura mozioa gainditu zuen Sharonen kabineteak, laboristen sostenguari esker. Berria - Mundua

Armadako 40 bat goi-ofizialek atzo dokumentu batean jakitera eman zutenez, palestimarren **deskonexio** plana «Israelgo estatuarentzat arriskutsua» izan daiteke. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskonexio plana** (20); **deskonexio planak** (4); **deskonexio planari** (5); **duen deskonexio** (5); **gazako deskonexio** (4); **gazako deskonexio plana** (3); **sharonen deskonexio** (4)

---

**deskonexo** *izond* konexiorik gabea.

Eta aurreko egunean egindakoaren irudi **deskonexo** baina argiek eztanda egiten zuten bere begien aurrean. Berria - Kultura

---

**deskonfiantza** *iz* konfiantzarik eza.

Dena den, orduan Alianza Popularra zen taldeko kideekiko zein UCDkoekiko harremanean, **«deskonfiantza** » zen nagusi, elkarrizketan aurrera egin ahala Bujandak azaltzen duenez. Berria - Euskal Herria

---

**deskonfiatu** *adlag* konfiantzarik ez duena.

Umetan, bere basamortuan, errementari talde **deskonfiatu** baten balakuak eta zigorrak jaso ondoren, judutarren tabernakulu batean deserriratua izan zen, aurreneko Testamentuaren Kutxa altzoan zeramala. Patziku Perurena

---

deskonpasatu ik **desakonpasatu**.

## **deskonpentsazio** *iz* desoreka.

Eta betikoa, **deskonpentsazioa** arau, bai argazkietan, bai atxilotuen soslaian, bai albistearen trataeran. Iñigo Aranbarri

Batetik zein bestetik begiratu, **deskonpentsazioa**, gaitza da. Iñigo Aranbarri

---

## **deskonposaketa** *iz* deskonposatzea.

Analisi horrek, -berezko **deskonposaketak** bezala-, hitz batean sartzen diren azpibanakoak ezagutzea du helburu. Isabel Arrigain

Bere mugetan begietsitako edozein espazio halako osokia da, non bere zatiak **deskonposaketa** orotan beti berriro ere espazioak baitira, eta horregatik, espazioa amaigaberaino zatigarria da. Jarraituki aurrera egiten duen **deskonposaketan** zatiak beti berriro ere zatigarriak baldin badira, orduan zatiketa, h[au] d[a], itzulera, baldintzatukitik bere baldintzara doa *in infinitum.* Ibon Uribarri

---

## **deskonposatu**, deskonposa, deskonposatatzen **1** da/du *ad* multzo bat edo osotasun bat osatzen duten osagaiak edo zatiak banatu.

Hizkuntza etengabe ari da interpretatzen edo **deskonposatzen** iristen zaizkion banakoak. Isabel Arrigain

Izpi hori zazpi koloreetan **deskonposatzen** da, eta azken-azkenean, erne egonez gero, diz-diz berde bat agertzen da. Iñaki Iñurrieta

Errealitatetik hautematen duena **deskonposatu** eta gero bestela berrosatu: hara nola eraikitzen duen margolariak, poetak zein zientzialariak bere unibertso-ikuspegia. Juan Garzia

Cavalierik bezala, lerro andana batean **deskonposatu** zuen Hassanek larruaren azalera! Jon Muñoz

**2** (kimikan)

Oxigenoa ezinbestekoa da elikagaiak kimikoki **deskonposatzeko**. Irene Aldasoro

Molekula horiek badute gai bat, errodopsina, argi-quantumak zurgatu eta erreakzio kimikoz beste bi substantziatan **deskonposatzen** dena. Josu Zabaleta

Konpostajea da zaborretako osagai organikoak oxigenoaren bidez **deskonposatzeko** prozesua. Berria - Euskal Herria

Fosfatoa **deskonposatu** eta karbonozko geruza trinko eta iragaztezina sortzen da, plastikoa oxidazioaren aurrean babestuko duena. Berria - Gaiak

Amiantoa 800°C-ra **deskonposatzen** bada, hodibihurrak ere **deskonposatu** beharko luke. Juan Garzia

Zenbat eta fluxu hori handiagoa izan, orduan eta erretinako zelula gehiagori eragiten die, errodopsina **deskonposatzeko** erreakzio gehiago gertatzen dira, eta nerbio-seinalea indartsuagoa izaten da. Josu Zabaleta

**3** (matematikan)

Zenbakiak faktore lehenetan **deskonposatzen** eta zati 2, zati 3, etab. egiteko irizpideak ikasi. Jon Muñoz

Zenbaki bakoitza nahitaez **deskonposatzen** da faktore lehenetan; faktore horien kopurua finitua da, eta zenbakia haien biderkadura da. Jon Muñoz

Gauza jakina da Gaussez geroztik era bakarrean **deskonposa** daitezkeela zenbaki oso guztiak, zenbaki lehenen biderkadura mugagabe gisa, alegia. Jon Muñoz

**4** (era burututa izenondo gisa)

Labirinto moduko bat paratu dute zenbait oihal zeharrargi erabiliz, eta haietariko batean proiektatuko da ispilu zatiek argi **deskonposatuarekin** marrazten duten paisaia. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> deskonposatu eta (3); deskonposatzen da (3)

---

## **deskonposatzaile** **1** *izond/iz* deskonposatzen duena.

Zatiak sintesi **deskonposatzailearen** itzuleraren bitartez eta itzulera bertan ematen baitira lehen-lehenik. Ibon Uribarri

Bizidunak hiru taldetan sailka daitezke; ekoizleak, kontsumitzaileak eta **deskonposatzaileak**. Berria - Gaiak

**Deskonposatzaileek** ere materia organikoa erabiltzen dute eta mineralizazioan zuzenki eragiten dute. Berria - Gaiak

---

## **deskonposatze** **1** *iz* multzo bat edo osotasun bat osatzen duten osagaiak edo zatiak banatzea.

Munduaren konplexutasuna molekula linealetan, erreakzio-katetan **deskonposatze** hori, dudarik gabe, laket zitzaion giza burmuinari, jaiotzatik heriotzara denbora jarraitu eta lineal batean mugitzen ohitua. Juan Garzia

Enperadore gabeko interregnum ikaragarri baten ondoren, elkarren aurka aritzen dira azken orduko **deskonposatze**-borroka batean. Joan Mari Lekuona

**2** (matematikan)

Kakalardo horiek hildako egurraren erabilgarritasunaren adierazle dira haren **deskonposatze** faseetan. Berria - Gaiak

Gero, faktore lehenetan **deskonposatze** ospetsua dator: zenbaki oso bat modu bakarrean lortu daiteke (biderkagaien ordenamendua kontuan hartu gabe), zenbaki lehenak biderkatuz. Jon Muñoz

---

## **deskonposizio** **1** *iz* deskonposatzea.

Uretako landaretzak konposatu organikoen **deskonposizioan** duen eragina. Berria - Gaiak

Miserikordiako hileta-zerbitzukoek gorpuak plastikoetan biltzen dituztelako, usteldu gabe irauten dute **deskonposizioa** eragozten duen ganbera batean. ibaietako funtzio guztiak metabolismoa, **deskonposizioa**, arrainen migrazioa, ongarrien atxikipena... ondo gertatzea ere beharrezkoa da. Ramon Saizarbitoria

Hortxe aurkitzen dugu Bernard Lassudrie-Duchêne-k 1982 "ekoizpen-prozesuen nazioarteko **deskonposizioa"** izendatu duena. Koro Navarro

Zurgatze eta **deskonposizio** horren proportzio desberdinak dira kolorearen ñabardurak. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Nahikoa, bi gizonezkoren gorpuak **deskonposizio** fase aurreratuan ikusteko. Aritz Gorrotxategi

Kolore eta sexu, tamaina eta **deskonposizio** egoera guztietan ikusi dut heriotza. Berria - Kultura

---

## **deskonpresio** *iz* presioa kentzea.

Bilboko urpekari bat hil zen atzo Espainiako Mouro uhartean, uretatik ateratzean **deskonpresiorik** egin ez zuelako. Berria - Euskal Herria

Ornoen **deskonpresio** axialerako mahaia da gailuaren izena. Berria - Gaiak

---

## deskonsolamendu ik **deskontsolamendu**.

## **deskonstruktore** *iz* deseraikitzen duena.

**"Deskonstruktore"** zorrotzak dira eta edozein kausaren eta borroka ideiaren azpian ideologiko edo mitikotik dagoen guztiaren induskatzaile gupidagabeak. Joxe Azurmendi

## **deskontaminatu**, deskontamina, deskontamintzen du *ad* kontaminazioa kendu.

Autore batzuek iragarri, espero edo desio dutenez, etorkizun hurbileko sukaldean gure eskuak eta kontsumitu behar ditugun produktuak **deskontaminatzeko** berariazko ontzia izango dugu, ohiko harraskatik at. Edorta Agirre

## **deskontaminazio** *iz* deskontaminatzea.

Ildo horretatik, oso garrantzitsua da mundu mailako III. Gizarte Foroan (MFG) "informazioaren ekologia" deitu zaien **deskontaminazio** prozesuen aldeko apustua egitea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## **deskontatu**, deskonta, deskontatzen du *ad* kopuru batetik beste kopuru bat kendu.

Kupotik 32 milioi euro **deskontatzea** erabaki zuen Jaurlaritzak joan zen urteko maiatzean. Berria - Euskal Herria

Irailean eman zuen erantzuna Ogasun Ministerioak: diru bera **deskontatu** zuen BEZaren eta zerga berezien likidaziotik. Extra gisa arrautza bat emanez gero, jornaletik **deskontatu** egiten zieten ordaintzeko egunean. Berria - Ekonomia

Prezioen igoeren efektua **deskontaturik**. Iñaki Heras

Doikuntza teknikoek eta adierazle ekonomikoek **deskontaturiko** zenbatekoa 32,2tik 32,5era igo zuten. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskontatu zuen** (3); **deskontatuko ditu** (3)

## **deskontent** *adlag* ez pozik.

Zuberoako populua ere **deskontent** dagoke. Joan Mari Irigoien

Gizona, behin betiko ameslaria, beti bere zorteaz **deskontent**. Piarres Aintziart

## **deskontentamendu** *iz* deskontentua, pozik eza.

Ai, zein handia izan zen ene **deskontentamendua**, eta zein neurrigabekoa ene desgustua, eta nola bekaiztu nintzen orduan ere hargatik! Joan Mari Irigoien

## **deskontentu** 1 *iz* pozik eza.

Huriak badirela sinesteak erakusten du mahomatarrak lurrean duen emaztearenganako **deskontentu** noblea; izan ere, arima edukitzea bera ere ukatzen dio. Xabier Olarra

• **2** *izond* pozik ez dagoena.

Europa osoan "herriaren" aurkiketan dihardute intelektual **deskontentuek**; edozertan herriaren (edo orduan esaten hasi ziren bezala: nazioaren) "jeinuaren" bila. Koldo Izagirre

## **deskontestualizatu** *izond* testuingurutik aterea.

Eta zalantzarik egon ez dadin, ez harri eta ez Harri, bakandua, **deskontestualizatua**, hainbagarrenez, Arestik Tomas Meaberi eskaini zion poema hura: [...]. Iñigo Aranbarri

Protagonistak gauero telebistaren aurrean biltzea eta hor komentatzea eguneko kontuak eta gorabeherak, telebista horretako irudi isolatuen bitartez kanpoko irudi **deskontestualizatuak** jasotzen ditugun bitartean. Unai Elorriaga

## **deskontrol** *iz* kontrolik eza.

Gero, autoaren edo motorraren edo kamioiaren **deskontrola** ikusgarria izaten zen, zirraragarria: iraulikoak, itzuli-mitzuliak, oinezkoen harrapaketak... Karlos Linazasoro

Neurri batetik aurrera **deskontrol** izugarria dakar. Pako Aristi

## **deskontrolatu**, deskontrola, deskontrolatzen **1** da *ad*

Baina, onenean zegoela, jas!, gauza **deskontrolatzen** hasi zen. Patxi Iturritegi

Tira, motel, txorakeria batengatik horrela **deskontrolatzea** ere, esan nion neure buruari. Karlos Linazasoro

**2** (era burutua izenondo gisa)

Pauso erabat **deskontrolatu** batzuk eman eta lurrera jausi zen andrea. Unai Elorriaga

Eta dantzaren eztanda-une horietan denetarik gerta daiteke, festa **deskontrolatu** batean gerta daitekeen moduan. Berria - Kultura

Egoera erdi **deskontrolatu** batean. Berria - Kultura

## **deskontsolamendu** *(orobat **deskonsolamendu** g.er.)* *iz* nahigabea, atsekabea.

Amona **deskontsolamendutik** erabateko duintasunera pasa da esaldi gutxi batzuetan. Harkaitz Cano

Neure etsimenduan eta neure **deskonsolamenduan**, ama besarkatzeko gogoa etorri zitzaidan. Joan Mari Irigoien

-Utzidazu neure **deskontsolamenduarekin** kontsola zaitzadan! -esan zuen, kandelaren garra babestuz eskuekin. Juan Garzia

## **deskontsolatu**, deskontsola, deskontsolatzen **1** da/du *ad* nahigabetu, atsekabetu.

A Brasileira kafetxearen jabeak, heteronimoen abantailarik ez zuenak, **deskontsolatuta**, luze itxita izan zuen kafetegia gertaera lazgarri haren ondorioz. Harkaitz Cano

Erotuta eta **deskontsolaturik**. Koro Navarro

Maisua gurutzean hil eta izuaren izuz sakabanaturiko Emausko dizipuluak bezala ikusten ditu Ortega-k "ko desastreak" **deskontsolaturiko** intelektual espainolak, Quixoteren inguruan euren negarren eukaristia ospatzen. Joxe Azurmendi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Alargun **deskontsolatuaren** papera hartu eta barrez lehertzen hasi da Hector. Harkaitz Cano

---

# deskontsolatuki *adlag* nahigabe handiz.

Ondoren, biek ala biek egin zuten negar, **deskontsolatuki**. Joan Mari Irigoien

---

# deskontu *iz* deskontatzea; deskontatzen den kopurua.

Ostatuan bertan ondo hartu naute, baita **deskontua** egin ere logelaren prezioan... Jon Arretxe

Kalitatezko zerbitzua jasotzen ez denean bezeroek duten eskubidea delako, hurrengo fakturan **deskontuak** egingo dituztela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Ertzainei egiten zaien **deskontu** ederraz baliatuz. Patxi Zubizarreta

Potreta erakusleihoan paratzen utziz gero, **deskontua** izateko aukera duzue. Harkaitz Cano

-Ez dago **deskonturik**! -esan dit oso modu zakarrean, ia pikutara bidaliz-. Jon Arretxe

- **Deskontu** bereziak soilik gizarte-laguntza jasotzen dutenentzat. Iñaki Heras

Erretxina akastun baten fakturaren gaineko **deskontu** bat. Juan Garzia

Tasen murriztea, **deskontuaren** maila edota finantza-ekarpenen zenbatekoa herrialde zordunarekiko adostasunez erabakitzen ziren. Koro Navarro

**Deskontu** handiak eskaintzera behartuta daude enpresak. Berria - Ekonomia

Jaurlaritzak 10,5 milioi gehitu dizkio Kupoaren **deskontuari**. Berria - Ekonomia

Aurrekontuak 862.363 milioi eurokoak izatean adostu ziren, hau da, BPG Barne Produktu Gordinaren %1,045 Erresuma Batuak 10.500 milioi eurotan murriztu behar izan zuen **deskontu** britainiarra, nekazaritzako ditu laguntzak berriz aztertzearen truke. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> deskontu bat (3); deskontu britainiarra (8)

---

# deskontzentrazio *(corpusean **dezkontzentrazio**, inprimatze akatsa) iz*

**Dezkontzentrazioa**: jakinduria eta ezagutzak ez dira alor horretan bilduko; elikatzea egintza periferiko huts bilakatuko da. Edorta Agirre

---

# deskontzertante *(corpusean **deskonzertante** soilik) iz* nahasgarria, txundigarria. ik **durduzagarri**.

Bat-bateko zirrara **deskonzertante** bat da, belarrizulo edo begizuloetatik sartzen dena, eta une horretatik aurrera pertsona berdina ez zarela sentitzen duzu: oreka kosmikoa ari da, zure ordez gauzak bere lekuan jartzen, oreka kosmiko horrek gauzak egon daitezen eskatzen duen lekuan. Harkaitz Cano

---

# deskontzertatu, deskontzerta, deskontzertazen da/du *ad* nahasirik utzi, txunditurik gelditu. ik **durduzatu**.

Horrek, hasiera batean, jendea **deskontzertatu** egin zuen. Anjel Lertxundi

Ene enpatia txit sentikorra, maiteñoak, zeren arrano beltzaren tabernan nire egoera hauskor berean baitzeuden naufragiotik eskapaturiko dozena eskas bat mozkor arrail erabat **deskontzertaturik**. Patziku Perurena

---

# deskontzertu *iz* nahasmendua, txundimena.

Victor Hugok sinpatia handi adina **deskontzertuz** ikusi du Euskal Herria. Koldo Izagirre

Gerra horretan galtzaileak direlako ia denak, herriari kaleen izenak ere aldatzen dizkion jauntxo hori ezik, eta mutikoa galtzailearen **deskontzertu** horretara heltzen da. Berria - Kultura

---

# deskonzertante ik **deskontzertante**.

---

# deskoordinatu *izond* koordinaziorik gabekoa.

Horrenbeste kezkatzen zuen, ezen, azalpen sakonagoen bila, amarauna arakatu baitzuen bere trebezia guztiaz: ezin zuen sinetsi milaka erabiltzaile **deskoordinaturen** emaitza izan zitekeenik hura guztia. Iban Zaldua

---

# deskoordinazio *iz* koordinaziorik eza.

Batzuetan halako **deskoordinazioak** izaten dira gure artean eta. Aingeru Epaltza

Ez da ulergarria halako **deskoordinazioa**. Berria - Euskal Herria

Arartekoaren txosten batek auzitan jarri zuela lurraldeen arteko desoreka dagoela ekimenetan, erakundeen arteko **deskoordinazioaz** gain. Berria - Euskal Herria

Hori dela eta, **deskoordinazioa** areagotu egin da eta zenbait liskar izan dira anbulantzietako gidarien eta enpresen artean.Gaurkoa huts bati edo **deskoordinazio** konplexuren bati egotziko nioke nik, zalantzarik gabe. Berria - Ekonomia

---

# deskorapilatu, deskorapila, deskorapilatzen *(orobat **desopilatu**)* da/du *ad* korapiloa askatu. ik **deskiribildu**.

Keinuaren azpian egon litezkeen ñabardurak eta bertze korapilo guztiak ere bat-batean **deskorapilatu** balira bezala. Joan Mari Irigoien

Orduan, korapiloaren **deskorapilatzeko** eta bere buruhaustearen erremediatzeko, hasi zen emazteki hura besoak eta zangoak higitzen baterat eta bertzerat. Joan Mari Irigoien

Antzerki taldeak kümitatzen dü jentea problematika zonbaiten **desopilatzera**. Herria

**deskorapilatze** *iz* korapiloa askatzea.

Orduan ginuen orduan miresten Lafitten klasea, beste nehork ez bezala parte har arazten zaukularik, latinaren edo griegoaren itzuli-mitzulien **deskorapilatzeetan** . Herria

---

**deskortes** *izond* adeitasunik gabea, jendetasunik gabea. ik **gisagabe**.

Agertu dizut nolakoa zen aita bere menekoekin, grosier eta **deskortes** , hertsi eta itxekin, eta erran ere dizut ezen arras bertzelakoa zela haren jokabidea, bera baino handiagoak edo aberatsagoak zituenean bisitari. Joan Mari Irigoien

---

**deskortesia** *iz* adeitasunik eza, jendetasunik eza. ik **gisagabekeria**.

Presaka hitz egiten zuen emakumeak, gertakizun desatsegin hartaz jardutea **deskortesia** irudituko balitzaio bezala. Anjel Lertxundi

**Deskortesia** batek ez zuen inoiz mintzen. Irene Aldasoro

Badakin Danelek ez dituela horrelako **deskortesiak** barkatzen. Anjel Lertxundi

Amorraturik dago, sekula ez diote-eta hain **deskortesia** zabarrik erakutsi. Anjel Lertxundi

Gabrieli burutik pasatu zitzaion Ivors andereñoa ez zegoela han eta **deskortesiaz** alde egin zuela. Irene Aldasoro

Norak ez zion deus esan, ez zion **deskortesiazko** jokabideaz konturik eskatu. Anjel Lertxundi

---

**deskorteski** *adlag* adeitasunik gabe.

Erran zuen, grosierki eta **deskorteski** : [...]. Joan Mari Irigoien

---

**deskortxatu,** deskortxa, deskortxatzen du *ad* kortxoa kendu.

Hirugarren Remelluria **deskortxatzeaz** batera amatatu zuen telebista, Dionisosen diskoen artean bilatzeko. Kontserba latak irekiko dira, botilak **deskortxatuko** dira. Unai Iturriaga

---

deskrazia ik **desgrazia**.

---

deskreditatu ik **desakreditatu**.

---

**deskribaezin** *izond* ezin deskribatuzkoa.

Keinu **deskribaezin** batek desitxuratzen zuen haren aurpegia. Alberto Ladron Arana

Gorputz guzian, jantzietan eta oroz gainetik larruan, denetan sartua, errotua zitzaion usain higuingarri eta **deskribaezin** hura. Eneko Bidegain

Hura jasotzean, a zer nolako poz **deskribaezina** ... Pako Aristi

Rasputinek beste ikur batzuk aurkitu zituen orduan: aurrekoaren antzekoak batzuk, antzemangarriagoak besteak -zuhaitzak, adibidez-, eta baita bitxi eta **deskribaezinak** zirenak ere. Iban Zaldua

Orduan sentitu nuena **deskribaezina** da. Aitor Arana

Baina, ai, nola deskriba **deskribaezina** ...! Joan Mari Irigoien

---

**deskribagaitz** *izond* deskribatzen zaila dena, ia deskribaezina.

Zer nolako bermea dute, erantzukizun hitzaz gainera, euskaldunen hitza edo euskaldunen borondatea bezain **deskribagaitzak** diren aho beteko esapideek? Anjel Lertxundi

Ipurdia oso egokiro beterik neukan eta hark betetasun sentsazio atsegina eta plazer **deskribagaitza** ematen zidan Aitor Arana

---

**deskribagarri** *izond* deskriba daitekeena.

Aukera hauek ez dira diskurtsoaren ernamuinak (hauek aldez aurretik mugatuak eta irudikatuak leudeke era ia mikroskopiko batean); araututako moduak dira (eta neurri horretan **deskribagarriak** ) diskurtsoaren posibilitateak lanean jartzeko. Xabier Arregi

Sareon kopurua ez dago aldez aurretik definitua; azterketaren frogak bakarrik erakuts dezake ea existitzen diren eta zeintzuk existitzen diren (hau da, zeintzuk diren **deskribagarriak** ). Xabier Arregi

Enuntziazio-koexistentzia atzealde honen gainean askatzen dira, maila autonomo eta **deskribagarri** batean. Xabier Arregi

Kontua zen eraketa diskurtsiboen ondo zehaztutako multzo bat agerraraztea, euren artean zenbait harreman **deskribagarri** dituzten eraketa diskurtsiboen multzo bat alegia. Xabier Arregi

---

**deskribaketa** *(8 agerraldi, 5 liburutan)* *iz* deskribapena.

XIX. mendean Afrikako lurraldeak zeharkatzen zituzten bidaiariek idatzita utzi zituzten **deskribaketak** . Pako Aristi

*Obabakoak* euskal mundu ruralaren trasunto gisa ikusi dute askok, literatura obrak hortxe aurrean dagoen zerbaiten **deskribaketa** balira bezala, armairu bat ere hortxe dagoen bezala bernizatuko duenaren zain. Bernardo Atxaga

Errealitateak **deskribaketa** gainditzen zuen. Bernardo Atxaga

Laguntza eskatuko dizue, gero **deskribaketa** egiteko ezagutu behar dituela esanen du. Joseba Sarrionandia

Horri buruzko teoria etikoa giza izatearen **deskribaketa** batetik abiatuz eraiki dezakegu. Askoren artean

---

**deskribapen** *(474 agerraldi, 96 liburu eta 53 artikulutan; ETCn 5.206 agerraldi; orobat* ***deskribipen*** *g.er.)* **1** *iz* deskribatzea. ik **deskripzio**.

Gutunean Jose Luis Garaik Kubako iraultzaren **deskribapena** egiten dio Lehendakariari, iraultzaileen aldeko jarrera argia erakutsiz. Edorta Jimenez

Amaren **deskribapena** egiten denean, emakumearena ere egitea; bestela, emakumea beti anulatu egiten baita. Ana Urkiza

-Gertakari baten **deskribapena** baino zerbait gehiago egin zuen atzo zure argazkilari horrek. Anjel Lertxundi

-Egidazu **deskribapena** berriz... Rafa Egiguren

Joek zerbitzariari eskatu dio ea ikusi zintuzten eta zuen **deskribapena** eman dio. Ramuntxo Etxeberri

Walterrek emandako **deskribapenarekin** bat zetorren. Iñaki Zabaleta

Gizarte-mailen **deskribapenari** begiratuta, gu beheko klasekoak ginela uste zuten batzuek. Xabier Mendiguren Elizegi

Aspergarria iruditzen zait **deskribapenetan** hainbeste luzatzea. Antton Olano

*Bihotzaren nasara* izeneko lana aurkeztu nuen, ipuina baino gehiago malenkoniaren **deskribapena** zena. Ana Urkiza

Hainbat egoeraren **deskribapenetan** ezinezkoa da gogo-egoeren hiztegia erabat ordezkatzea. Askoren artean

Liburuan orri hunkigarrienetarikoak dira, hain justu, garai horien **deskribapenak**. Berria - Kultura

Introspekzio lirikoa nagusitzen da gizartearen **deskribapenaren** gainetik, oroimina, melankolia adierazten duen aldarte bat. Ibon Uribarri

**Deskribapen** bidezko ezagutzaren oinarrian ezagutza zuzena dagoen bezala, **deskribapen** zehaztuen oinarrian denotazioa egongo da. Askoren artean

Baina txikitan irakurri eta entzundako izaki honen **deskribapenak** arras okerrak ziren, egiazkoa ikusita. Aitor Arana

**Deskribapenak** izugarri sotilak dira, xehetasun adierazgarriez beteak. Berria - Kultura

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

"Frantziako erregea"ren gisako **deskribapen** zehaztuak ulergarri lirateke nahiz eta ezer ez denotatu. Askoren artean

Askoz interesgarriagoak dira zientzia-fikzioko teknologia berrien **deskribapen** xeheak. Xabier Olarra

Ez du merezi ziegaren **deskribapen** fisikorik egiterik: ziega bat zen, kitto. Jon Alonso

Ahalegínduko naiz -exenpluak eta ideiak handik eta hemendik bahituz, noski- **deskribapen** orokor bat egiten. Bernardo Atxaga

Egia esan, zaila da berak egiten dituen **deskribapen** paregabeak bestelako hitzetan adieraztea. Koldo Izagirre

«Nekrofiloa eta zentzugabea» Bushen atzerri politikaren **deskribapen** bikaina da. Berria - Mundua

Mekanismoaren **deskribapen** baldar bat egitea da, beharbada, burdinazko ziri bat baino askoz gehiago denari *iltze* esatea. Irene Aldasoro

Etxearen **deskribapen** aspergarri honekin erabat gogaitua izango zaitut seguruenera. Josu Zabaleta

Egin ditu argazkiak uztartu eta hiru dimentsioko irudi bat lortzen da, eta horrela kalitate handiko **deskribapen** topografikoa ikusten dugu. Berria - Gaiak

Zer esan dezakegu orain aldaketaren **deskribapen** arkeologikoaz? Xabier Arregi

Hemen, beste edozein kasutan bezala, batu beharrak daude barneko eta kanpoko **deskribapenak**. Xabier Olarra

Irudirik gabeko hitzezko **deskribapenak**. Xabier Olarra

· Ez dagokit juzkatzea, **deskribapen** ahalik neutroena baita nire zientziaren lanabes behinena. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enuntziatuen azterketak **deskribapen** maila berezi bati dagokio. Xabier Arregi

Kontsideratuko dut ez eredu teoriko zorrotz bat eraiki dudala, baizik eta **deskribapen**-eremu koherente bat askatu dudala. Xabier Arregi

Lehen ere batzuek **deskribapen**-elementu gisa erabili zutena, orain, askotan erabiltzen da sailkapenerako etiketa modura, inolako barren-edukirik gabe. Lourdes Oñederra

Eta azterketak, gainera, teoria eskatzen digu, diskurtso bat sortzea, enuntziatu, judizio eta guzti: erkaketa-judizioak, judizio arau-emaileak, **deskribapen**-judizioak, etab. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baten deskribapen** (5); **da deskribapen** (3); **deskribapen arkeologikoa** (4); **deskribapen arkeologikoak** (3); **deskribapen bat** (3); **deskribapen batek** (3); **deskribapen baten** (5); **deskribapen bidezko** (3); **deskribapen eta** (4); **deskribapen hauetan** (3); **deskribapen honek** (4); **deskribapen hori** (4); **deskribapen zehatz** (3); **deskribapen zehatza** (7); **deskribapen zehaztu** (4); **deskribapen zehaztuak** (5); **deskribapen zehaztuen** (5); **duen deskribapen** (4); **ere deskribapen** (3); **eta deskribapen** (6); **horrelako deskribapen** (3)

**araberako deskribapena** (5); **araberako deskribapena baino** (3); **baten deskribapena** (8); **bere deskribapena** (5); **deskribapena baino** (5); **deskribapena baino ahaltsuagoa** (3); **deskribapena da** (4); **deskribapena egin** (3); **deskribapena egiteko** (4); **deskribapena egiten** (11); **deskribapena ez** (8); **deskribapena ez da** (4); **enuntziatuen deskribapena** (3); **zuen deskribapena** (3)

**bere deskribapenaren** (3); **deskribapenak egiten** (3); **deskribapenaren arabera** (3); **deskribapenik egiten** (3); **eta deskribapenak** (3)

---

# deskribarazi, deskribaraz, deskribarazten du *ad* deskribatzera behartu.

Greziako landaldeetako lasaitasunaren halako ideia batek maitasun-sentimenduak **deskribarazi** zituen. Iñaki Iñurrieta

---

# deskribatu, deskriba, deskribatzen *(orobat **deskribitu** g.er.)* **1** du *ad* zerbaiten ezaugarriak azaldu.

**Deskribatu** dut nolakoak diren Flores Kaperotxipiren koadroko "abarkadunak". Anjel Lertxundi

Aldaketa horien lekuko izan nahi du, *Ancien Régime* delakoaren azken hondarrak **deskribatu** nahi ditu. Anjel Lertxundi

Ilargitarrak **deskribatu** zituen, Sir John Herschelen irispide luzeko teleskopioaren bidez ikusitakoaren arabera. Xabier Olarra

Perpaus deklaratiboek, oro har, gauza-egoera bat **deskribatzen** dute, zerbait esaten dute munduari buruz. Askoren artean

Agirian **deskribatu** duten egoera beltza da: 852 milioi pertsona goseak jota daude munduan. Lehenago **deskribatu** dugun lubrikazio hidrostatikoaren antza du prozesu horrek. Berria - Gaiak

Aristotelesek sistema ontologiko bat proposatzen digu, artikulu honetan labur **deskribatu** duguna. Askoren artean

Saia zaitezte gutxienez haien begien distira **deskribatzen**. Jose Morales

Dupinen ezaugarri horiek **deskribatzea** zen nire asmoa. Koro Navarro

-Zoriontsu izatearen ezina **deskribatzeko** idazten duzu. Anjel Lertxundi

Euskaraz bi modu dauzkagu erortzen ari den elurraren abiadura **deskribatzeko**. *Bernardo Atxaga*

Kantuan hasi baino lehenago autore bakoitzak bazekien nola **deskribatu** bere heroiak. Askoren artean

Napoleonek Santa Elenan gerra *belle occupation* gisa **deskribatu** zuen. Iñaki Mendiguren

Ezin dizut **deskribatu**, oso polita da. Josu Zabaleta

Enuntziatuen arteko harremanak **deskribatzen** ahalegindu naiz beraz. Xabier Arregi

**2** (adizlagunekin)

Koloretako irudiak erakusten genizkionean halako arazoak gertatzen ziren arren, aise eta zehaztasunez **deskribatu** zituen. Xabier Olarra

Posible balitz bezala bi gizonek, garbi eta zehatz **deskribatuak** beren xehetasun guztiekin, elkarren antza izatea! Juan Garzia

-Ezin al duk zehatzago **deskribatu**? Rafa Egiguren

Sir Launcelotek hain xehe **deskribatu** zuen hausturaren eta urraduraren oihartzuna. Koro Navarro

Mundua objektiboki edo zientifikoki **deskribatzeko** erabiltzen ditugun hitzekin azaldu ezin dena. Askoren artean

Organismook handika eta xehero aztertu eta **deskribatzea** denbora kontua da, hots, lan-bolumenari dagokiona. Juan Garzia

Zein zorrotz eta gordin **deskribatzen** dituen gerrako eszenak eta gerrak sortarazten dizkion egoera psikologikoak. Anjel Lertxundi

· Berotasun eta etorri oparoz **deskribatu** zuen esnegintza ingelesaren zitalkeria. Anton Garikano

Errealismo osoz **deskribatzen** digu Homerok nola jokatzen duen botere klaseak edo aristokraziak politikan. Askoren artean

Kartografo baten fideltasunaz **deskribatzen** zuen hiria ilargian baizik ez zen existitzen. Ander Irizar

**3** (inpertsonaletan)

Erakunde berezi hau Azterlan honen lehenagoko zati batean **deskribatu** da. Iñaki Mendiguren

1940etan, autismoaren ezaugarri nagusiak lehenbizikoz **deskribatu** zirenean, argi eta garbi geratu zen idiot *savant* gehienak autistak zirela. Xabier Olarra

Holako ikuskizün bat ez da **deskribatzen**: entzün eta ikusi behar da. Herria

Ezin da **deskribatu**, ikusi egin behar, bizi egin behar. Karlos Zabala

Espazio fisikoa aski zehatz **deskriba** daiteke [...] bina-bina elkarren perpendikularrak diren hiru koordenatu (koordenatu "kartesiarrak") ardatzekiko geometriaren bidez. Josu Zabaleta

Ez da **deskriba** daitekeen egitura bat, mugaezineko garapen bat baizik; zentzu honetan, inkontzientea ere bada. Joseba Zulaika

Puskak, **deskribatu** diren moduan, 'puska erauziak' dirudite. Koro Navarro

1,8 miloi espezie inguru **deskribatu** eta klasifikatu badira ere, Lurreko espezie bizi guztien benetako kopurua ez da ezagutzen oraindik. Berria - Gaiak

**4** ***deskriba-zail***

Joyce-ren Ulysses 20 edo 21 urterekin irakurri nuen ingelesez eta horretan isuritako izerdiek modu **deskriba**-zail batean busti ninduten. Ana Urkiza

**5** ***ezin deskribatuzko*** ik **deskribaezin**.

Egoera mugatuko ereduak **ezin deskribatuzko** ingelesaren zati handiak osagai-egiturazko ereduak deskriba ditzakeela erakutsi dugu. Itziar Laka

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**deskriba daiteke** (10); **deskriba daitekeen** (4); **deskriba daitekeena** (4); **deskriba daitezke** (9); **deskriba dezake** (3); **deskriba ezazu** (3); **deskriba ezin** (3); **nekez deskriba** (3); **nola deskriba** (3)

**bat deskribatu** (4); **bezala deskribatu** (7); **da deskribatu** (6); **den deskribatu** (3); **deskribatu ahal** (11); **deskribatu ahal izango** (5); **deskribatu baino** (3); **deskribatu behar** (20); **deskribatu behar dira** (3); **deskribatu behar dugu** (3); **deskribatu beharko** (3); **deskribatu bezala** (6); **deskribatu da** (3); **deskribatu den** (3); **deskribatu dena** (3); **deskribatu diren** (3); **deskribatu ditu** (6); **deskribatu ditugun** (5); **deskribatu dituzte** (5); **deskribatu du** (9); **deskribatu duen** (4); **deskribatu dugun** (5); **deskribatu dut** (5); **deskribatu dute** (5); **deskribatu eta** (12); **deskribatu izan** (3); **deskribatu nahi** (13); **deskribatu nuen** (5); **deskribatu zidan** (3); **deskribatu zion** (6); **deskribatu zituen** (18); **deskribatu zuen** (46); **deskribatu zuen moduan** (3); **deskribatu zuena** (3); **deskribatu zuten** (11); **dizut deskribatu** (4); **dut deskribatu** (5); **eta deskribatu** (6); **ezin dizut deskribatu** (3); **ezin dut deskribatu** (5); **gisa deskribatu** (23); **gisa deskribatu zuen** (10); **hala deskribatu** (3); **honela deskribatu** (10); **honela deskribatu zuen** (4); **honetan deskribatu** (3); **horrela deskribatu** (5); **mehatz deskribatu** (3); **nola deskribatu** (12); **zehatz mehatz deskribatu** (3)

**deskribatuko ditu** (3); **deskribatuko ditugu** (3); **deskribatuko zenuke** (9); **deskribatuko zenuke zure** (5); **nola deskribatuko** (12); **nola deskribatuko zenuke** (9)

**bat deskribatzea** (7); **deskribatzea ez** (3); **deskribatzea ez da** (3); **deskribatzeko erabili** (3); **deskribatzeko eta** (6); **deskribatzeko modu** (3); **deskribatzeko modurik** (3); **egitura deskribatzeko** (4); **egoera deskribatzeko** (6); **eta deskribatzea** (4); **eta deskribatzeko** (4); **multzo bat deskribatzea** (3)

**bat deskribatzen** (18); **bat deskribatzen digu** (3); **bat deskribatzen du** (3); **berak deskribatzen** (7); **berak deskribatzen du** (3); **da deskribatzen** (3); **deskribatzen ahal** (3); **deskribatzen ahalegindu** (3); **deskribatzen ari** (7); **deskribatzen da** (12); **deskribatzen den** (5); **deskribatzen digu** (7); **deskribatzen dira** (10); **deskribatzen diren** (4); **deskribatzen ditu** (21); **deskribatzen dituela** (3); **deskribatzen dizkigu** (4); **deskribatzen du** (51); **deskribatzen duen** (26); **deskribatzen duena** (4); **deskribatzen duenean** (3); **deskribatzen dute** (9); **deskribatzen duten** (6); **deskribatzen eta** (10); **deskribatzen saiatzea** (3); **deskribatzen ziren** (3); **deskribatzen zituen** (9); **deskribatzen zituzten** (3); **deskribatzen zuen** (15); **deskribatzen zuten** (5); **egoera deskribatzen** (4); **ere deskribatzen** (3); **eta deskribatzen** (9); **ez da deskribatzen** (3); **gisa deskribatzen** (4); **honela deskribatzen** (6); **honela deskribatzen du** (4); **hura deskribatzen** (4); **hura deskribatzen zuen** (3); **mehatz deskribatzen** (4); **moduan deskribatzen** (3); **mundua deskribatzen** (5); **nola deskribatzen** (3); **ondo deskribatzen** (3); **ongi deskribatzen** (3); **ongi deskribatzen du** (3); **zehatz mehatz deskribatzen** (4)

---

## deskribatzaile **1** *izond* deskribatzen duena. ik **deskriptibo**.

Konstruktibista sozialen ikerketek izaera **deskribatzailea** dute, eta arrazoiketa arau-emaileari ez diote lekurik egiten. Askoren artean

Erakunde politikoen zientzia, **deskribatzailea** da funtsean, baina oso ondo har dezake kontuan batzuetan historiaren aldetiko ikuspegia, bere batasunari kalterik egin gabe. Isabel Arrigain

Agian gertuago leudeke sofista batzuk estilo **deskribatzailetik** arau-emailetik baino. Askoren artean

Hizkuntz mailak, hala nola fonemika, morfologia, edota sintaxia, gramatikak egiteko eskaintzen diren tresna **deskribatzaileak** dira batez ere. Itziar Laka

**2** *iz* deskribatzen duen gauza.

Horrela, AND eragilearen aurreko eta ondorengo **deskribatzaileek** dituzten sarrera guztiak eskuratuko dituzu. Askoren artean

NOT erabiltzen da, **deskribatzaileren** bat kendu nahi denean. Askoren artean

Dena dela, bilaketa ez da **deskribatzaileen** bitartez bakarrik egiten; idatz dezakezu edozein termino arrunt. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adierazpen deskribatzaile** (3)

---

## deskribatze *iz* zerbaiten ezaugarriak azaltzea.

Eta horni nezakeen **deskribatze** bakoitza behako bikoitz batez, buruko begiek ikusten dutena gauza bat denez gero, eta bertzea, bihotzeko begiek... Joan Mari Irigoien

**Deskribatzearen**, trazu bereizgarrietan eratzearen, ezaugarritzearen eta sailkatzearen artean dagoen harremana eta menpetasun-jokoa. Xabier Arregi

---

deskribipen ik **deskribapen**.

---

deskribitu ik **deskribatu**.

---

## deskribu *iz* deskribapena.

Baina honen guztiaren sentidua, barne-barnean, ez da hertsiki historikoa, zerbait puntu batean edo prozesuren batean gertaturen **deskribuzkoa** (baina, gero, izan nahi luke hori ere). Joxe Azurmendi

---

## deskriptibo *izond* deskribatzailea.

Gehienak artikulu **deskriptiboak** izaten ziren, laburrak eta sinpleak. Iban Zaldua

Enuntziazio **deskriptiboa** izango litzatekeela medikuntza-diskurtsoan agertzen diren formulazioetako bat. Xabier Arregi

Baroja gizon herabea zen, lotsakorra, literatur naturalismoaren gordintasun **deskriptiboa** hastio zuena. Josu Zabaleta

Hiztegi historikoa eta **deskriptiboa**, toki eta mota guzietako euskal hitz-ondarea biltzen duena. Herria

Esaldi baloratiboak eta **deskriptiboak** txandakatu. Askoren artean

Lehenengo jarduera **deskriptiboa** da; bigarrena, aldiz, preskriptiboa. Askoren artean

Zein da kontua, literaturaren funtzio **deskriptiboa** versus funtzio kritikoa? Ana Urkiza

Esan behar da, gainera, Baudouin de Courtenay-ren jarrera esplikatzailea dela **deskriptiboa** baino areago. gauzen gaineko arreta ia **deskriptiboa** edo naturalista. Lourdes Oñederra

Maila errealista-**deskriptiboa** utzi eta sinboliko-ideologiko hutsean ari baita egilea. Xabier Mendiguren Elizegi

---

deskriptzio ik **deskripzio**.

---

**deskripzio** *(142 agerraldi, 51 liburu eta 21 artikulutan; ETCn 1.371 agerraldi; orobat* ***deskriptzio*** *g.er.,* ***deskrizio*** *g.er. eta* ***deskripzione*** *g.er.)* **1** *iz* deskribapena. ik **deskribapen**.

Niretzat, zailena eta ederrena, **deskripzioa** da. Ana Urkiza

Inporta duena da besteek zer esaten duten, nola mugitzen diren... **deskripzio** bat da, nire begiekin egina, noski, baina **deskripzio** bat. Ana Urkiza

**Deskripzioetan** erabilitako irudiak ere ez ditugu aldatu. Jose Antonio Mujika

Maisuak ipuina osatzeko egitura bat inposatu dio: gertalekua, pertsonaien **deskripzioa**, gertaera, ondorio morala... Patziku Perurena

Atomoaren **deskripzioak**, horrenbestez, baduke sorkuntzatik aurkikuntzatik beste. Juan Garzia

Euskarazko hotsen **deskripzio** eta sailkapenerako komenigarri da sabaikariak eta sabaiaurrekoak [...] bereiztea. Lourdes Oñederra

Mozkina sobera aberatsa izanez, geroko uzten ditut **deskripzio** eta analisiak, eta bihiz bihi goxatuko dut orduan uzta. Piarres Aintziart

**Deskripzioei** garrantzi handia ematen dien kontapoesia ederra. Berria - Harian

Pertzepzio hutsezko **deskripzioak**. Xabier Arregi

**2** (izenondoekin)

Orduantxe hasi nintzen **deskripzio** txikiak egiten (gelatik zer ikusten nuen, egun bat kontatzen...). Ana Urkiza

Bat-bateko bertsoa sortzeko prozeduren **deskripzio** zehatza. Berria - Kultura

**Deskripzio** hutsetik atera gabe, [...]. Lourdes Oñederra

Ikerketa ez da, oro har, baieztapen orokorretatik eta **deskripzio** soil batzuetatik askoz areago joan. Lourdes Oñederra

Makineria horren **deskripzio** teknikoa nahiko sinplea da. Irene Aldasoro

Txekhovek trebezia handiz erabiltzen ditu era askotako baliabideak: eszenen arteko elipsiak, **deskripzio** objektiboak eta elkarrizketa tinkoak. aktore-lanaren sendotasuna erabiltzen dira **deskripzio** astunak saihesteko. Berria - Kultura

Esan daiteke, bada, objektu jakin batentzat badirela hainbat **deskripzio** posible, eta **deskripzio** jakin batentzat, berriz, hainbat aurkezpen posible. Juan Garzia

· Makina ustekabean deskonektatuz gero gerta zitekeenaren **deskripzio** kasik danteskoak eskaintzen zituen. Iban Zaldua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pertzepzioaren teoria konstruktibistetan oinarritutako **deskripzio**-eredu bat. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barne-**deskripzioaz** izan dugun ezaguera, luzaroan, genetika klasikoaren metodoetan oinarritu da. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskripzio bat** (7); **deskripzio eta** (5); **deskripzio zehatza** (5); **deskripzioa eta** (3); **eta deskripzio** (6); **haren deskripzioa** (3); **munduaren deskripzio** (3)

---

**deskripzionalista** *izond*

Ala bitartezko irudikapenak dira (jarrera **deskripzionalista**), hizkuntza bidezko irudikapenen gisa? Josu Zabaleta

---

deskripzione ik **deskripzio**.

---

**deskripziozale** *izond* deskripzioen zalea dena.

**Deskripziozalea** banaiz. Ana Urkiza

---

**deskristautze** *iz* kristaua fedetik aldentzea.

Kontzilioak kolokan jarri zituela Elizaren zutabe batzuk eta Europan **deskristautze** prozesua abiatu zela. Berria - Harian

---

deskrizio ik **deskripzio**.

---

**deskronika** *iz*

Ikusten duela kronikaria tematzen dela zentzurik ez duen maneran, **deskroniken** ildotik eta abar. Jose Angel Irigaray

---

**deskubriarazi**, deskubriaraz, deskubriarazten du *ad* deskubritzera behartu.

Ajmátova **deskubriarazi** zidanari beti eskertuko diot poesia liburu hura oparitzea. Berria - Kultura

Irudiaren sorreraren misterioa **deskubriaraztea**. Berria - Kultura

Sistema horrek gauza bat **deskubriarazten** zizun berehala: kontua ez zela marra batzuk egitea, masa batzuk irudikatzea baizik, errealitateak hiru dimentsio baitzituen. -Dena den, zure amak euskal rocka **deskubriarazi** zidan eta nik dizkiot errugbiaren sekretuak ulertarazi. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**deskubrimendu** **1** *iz* aurkikuntza.

Garaipen hori espazioaren konkistarekin edo gurpilaren **deskubrimenduarekin** konpara liteke gizateriaren historian. Ana Urkiza

Irlaren **deskubrimendu** eta kolonizazioaren historiaz eta han instalatutako lehen familiez hitz egin zuen. Bego Montorio

1947an hasten da kontakizuna, bonba atomikoa sortu zuen talde berak beste **deskubrimendu** are ikaragarriago bat egiten duenean. Berria - Kultura

**"Deskubrimendu"** hitz horri, ordea, komatxoak jarri dizkiogu guk, bai baitakigu Vitruvio ez zela erabateko ezezaguna inoiz izan Erdi Aroko kulturarentzat. Santiago Iruretagoiena

Nerabe batentzat **deskubrimendu** gutxi daude bere gorputzarena eta sexualitatearena baino garrantzitsuagoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Arriskuak alde batera utzi eta egin berria nuen **deskubrimenduan** murgiltzea erabaki nuen. Bernardo Atxaga

Hatzak kliskatzen zituen, sekulako **deskubrimendu** zientifikoa egin izan balu bezalako pozez. Anjel Lertxundi

Guretzako **deskubrimendu** itzela izan zen: hain guapoa eta euskalduna! zoritxarreko **deskubrimendua**. Ana Urkiza

Meatze-zulo hori ikusita, liluratuta geratu da, hau bai **deskubrimendua**! Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (hitz elkartuetan)

Berak mandoen berri izan zueneko **«deskubrimendu»** sentsatzioa ikusleari helarazi nahi izan diola gaineratu zuen zuzendariak, «oso jende gutxik dakielako mandoek kokaina nola garraiatzen duten. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskubrimendu bat** (5)

---

# **deskubritu**, deskubri, deskubritzen **1** du *ad* ezagutzen edo ikusten ez zena aurkitu.

Umetan **deskubritu** ez nuen meatze-zulo hori aurkitzea zen nire helburua: Larregi azpikoa, Huarte gordeta eduki zutenekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Amerika **deskubritu** zenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Umeek altxor distiratsua **deskubritu** zuten. Julen Gabiria

Gorpua igandean **deskubritu** zuten, baina heriotza ostiral arratsaldean bertan gertatua zen. Iban Zaldua

Aspaldi agortu zen inork zapaldu gabeko eremu berriak **deskubritzeko** ametsa. Anjel Lertxundi

Peru Abarka doktoratu zen unibertsitatearen kokapena **deskubritzea** gelditzen zaigu orain. Anjel Lertxundi

Orain berarekin zer egin ari dira eztabaidatzen, beren ezkutalekua **deskubritu** duenez gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Zulo asko **deskubritu** izan da leku ezkutuetatik hasi direlako. Koldo Izagirre

Geroztik, anitzak izan direla **deskubritu** ditudan lekuak, anitzak ateka, portu eta herrialdeak. Aurelia Arkotxa

Handik urte frankora, penizilina **deskubritu** eta gero. Fernando Rey

"Lotan zaudek!", nik, denen begien bistan zegoen zerbait **deskubritu** izanaren poz inozoaz. Anjel Lertxundi

Mundua -lur eta itsaso guztiak- esploratu eta **deskubritu** ditugunean, geure baitara bildu eta bihotz-erraietako eremu psikologikoak ere ezagutu ditugunean, konturatu egin gara edertasunak ez duela eremu jakinik. Anjel Lertxundi

**2** (gauza abstraktuak)

Bizia **deskubritu** dut, sinpleki. Ana Urkiza

Orduan, Darling jauna negarrez hasi zenean, egia **deskubritu** ahal izan zen. Julen Gabiria

Nork **deskubritu** du Jeronimoren sekretua, nork jarri du neska gaztea Labaingo bidean? Anjel Lertxundi

Susmatu bezala, konspirazio baten aurrean ginela **deskubritu** zuen Margek. Iban Zaldua

Poliziaren adimen argia ez da gai ebidentzia **deskubritzeko**: mahai gainean eta denen bistan dago lapurtutako gutuna. Anjel Lertxundi

Bere gorputzaren edertasuna **deskubritu** eta tasatzen hasi den neskakoxkorrak bezala. Patziku Perurena

Pelikulako hiltzailea nor den **deskubritu** arte itxoiteko. Edorta Agirre

Cortazar kasualitatez **deskubritu** nuen, gaztetan, herriko liburutegian. Berria - Kultura

Eskolan **deskubritu** zenuen, hala ere, irakurketarako eta idazketarako zaletasuna. Ana Urkiza

**Deskubritu** dudalako, gaur egungo poesiaren bitartez, modu atseginean eta arin heltzen zarela literaturaren oinarrira. Ana Urkiza

Rafarekin **deskubritu** zuen Mentxuk farmakopearen artisautza. Josu Landa

Nire emetasuna estali egin dudala **deskubritu** dut eta orain, galdezka hasi naiz konstrukto bat ez ote naizen... Ana Urkiza

**3** (era burutua izenondo gisa)

Déroulède nazionalista eta Hugozaleak Pasaiako alkatea, apaiza, herri guztia mobilizatu zituen Hugoren etxearen bila, eta azkenean festa handi bat egin zuten eta etxe **"deskubritua"** inauguratu. Koldo Izagirre

· Nire judu izaera **deskubritu** berriak azaleratutako oroitzapena, dudarik gabe. Anjel Lertxundi

Heldutasun-sentipen **deskubritu** berri batekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Argi ikuste horretan izango zuen zerikusia nire idazle-dohain **deskubritu** berri hark. Xabier Mendiguren Elizegi

Pasaia oraindik propaganda eta fama zirkuituetatik kanpora dago, natura huts **deskubritu** gabea da, eta zoragarria da. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat batean deskubritu** (4); **bat deskubritu** (12); **bat deskubritu nuen** (4); **bat deskubrituko** (3); **batean deskubritu** (5); **berak deskubritu** (3); **berri bat deskubritu** (4); **deskubritu behar** (3); **deskubritu beharreko** (3); **deskubritu ditut** (3); **deskubritu du** (5); **deskubritu duen** (4); **deskubritu dut** (10); **deskubritu egin** (4); **deskubritu eta** (12); **deskubritu eta gero** (3); **deskubritu izan** (6); **deskubritu nahi** (3); **deskubritu nituen** (6); **deskubritu nuen** (26); **deskubritu nuenean** (5); **deskubritu zenean** (3); **deskubritu zenuen** (5); **deskubritu zituen** (4); **deskubritu zuela** (3); **deskubritu zuen** (17); **deskubritu zuten** (7); **deskubrituko ditu** (3); **deskubrituko du** (6); **eskolan deskubritu** (3); **eta deskubritu** (3); **gero deskubritu** (3); **gero deskubritu dut** (3); **kasualitatez deskubritu** (3); **zela deskubritu** (5)
> **bat deskubritzen** (4); **deskubritzea izan** (3); **deskubritzeko aukera** (3); **deskubritzen ari** (8); **deskubritzen du** (4)

---

# **deskubritzaile** *iz* aipatzen dena deskubritu duen pertsona.

Irakurle eta beharbada bihar lur berrien **deskubritzaile** izanen zaren horri, utzadazu hemen kontseilu batzuen emateko lekua. Aurelia Arkotxa

Edo, hobeto, etxe horren **deskubritzaileaz**. Koldo Izagirre

Literatura arrotzen ederraren **deskubritzaileak** (Calderón, etab.). Joxe Azurmendi

Orduan ailegatu ziren mundua zabaltzen ari ziren **deskubritzaileak**, eta erlijiosoak, eta zientzialariak, eta militarrak, eta kolonoak. Joseba Sarrionandia

· Bidaiantak isilik zeuden, berak ere larru zurikoak baitziren, beharbada' **"deskubritzaile"** eta kolonizatzaileen umeen umeen ondokoak. Aurelia Arkotxa

---

# **deskubritze** *iz* ezagutzen edo ikusten ez zena aurkitzea. ik **aurkikuntza**.

Bi gauez jadanik nolako aldaketak eta **deskubritzeak** ez dira izan harendako, gure ondarearen balioa, Historiaren garrantzitasuna herriaren oinarri bezala. Michel Oronoz

---

# **deskubritzeke** *adlag* deskubritu gabe.

Lagun horiek ez dute inolako lotsarik esateko izaki benetan zoragarria, erliebeduna, argi-ilunak dituena, eta oraindik **deskubritzeke** dagoena emakumea dela. Ana

Urkiza

**deskuidatu**, deskuida, deskuidatzen **1** da *ad* arreta galdu, behar adina kontu ez egin, oharkabetu.

Aztore otzanenak ere, **deskuidatuz** gero, begiak eratziko dizkizu. Anjel Lertxundi

**Deskuidatu** eta, taka, bi zentesimagatik moztu ninan gaizki. Pablo Sastre

Distantzia gordetzen zuen, hotz tratatzen gintuen, **deskuidatuta** ere ez zigun eskua ematen. Anjel Lertxundi

Eta, ziur egon: ez dira **deskuidatuko**! Pello Zabala

Ez **deskuidatu**, beraz, lizar-gara eta garañoei punttak traskailtzen. Pello Zabala

**2** *irud/hed (baldintzazko esaldietan)*

Baina, **deskuidatzen** bada, hurrengoan bera erreko diagu. Bernardo Atxaga

**Deskuidatu** hadi eta bide horretatik azkenean zurdo bukatuko duk. Iñaki Iñurrieta

**Deskuidatuz** gero, Donostiaren erreketa garaiko trasteak egongo ziren han. Iñaki Iñurrieta

**Deskuidatzen** bahaiz, bera duk egileetako bat... Iñaki Iñurrieta

**Deskuidatzen** bazara filologoa da. Jose Angel Irigaray

**3** nahasi.

**Deskuidatu** egin nintzela esanez eskegi nuen. Joxean Agirre

-Ez, **deskuidatu** egin zara. Fernando Morillo

Eta gu okerreko etxean, **deskuidatuta**, gure tarrapatakan! Harkaitz Cano

Ez, ez dira **deskuidatu**, jakinean eman dute kolpea, eta jendea ere jakinean aukeratu dute, euskarari ahalik eta kalterik gehien egitea helburu. Joxerra Garzia

Geologiaz ez dakit ezertxo ere eta **deskuidatuta** egon naiteke beraz, baina oso behartua eta sinesgaitza iruditu zitzaidan argumentuko aitzakia hori, herria eraiste eta berreraikitzearen ingurukoa. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**da deskuidatu** (3); **deskuidatu egin** (6); **deskuidatu gabe** (3); **deskuidatuta ere** (6); **deskuidatuta ere ez** (4); **deskuidatuz gero** (17); **deskuidatzen bahaiz** (4); **deskuidatzen bazara** (7); **dira deskuidatu** (13); **eta deskuidatzen** (5); **eta deskuidatzen bazara** (3); **ez deskuidatu** (5); **ezin da deskuidatu** (3); **ezin dira deskuidatu** (11); **ezin gara deskuidatu** (9)

---

deskuido ik **deskuidu**.

---

deskuidotxo ik **deskuidutxo**.

---

**deskuidu** *(66 agerraldi, 34 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 622 agerraldi; orobat* ***deskuido*** *63 agerraldi, 21 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 251 agerraldi)* **1** *iz* arretarik eza.

Bizitza arrasto bat da, klarionaz egindako marra estu zuri bat, eta geu orekari hauskorrak besterik ez gara; behean, zain, amildegia dago edo itsas sakona edo basamortua edo zauriaren izena; eta inor ez da libratzen, lagun, **deskuidu** txiki bat izatetik. Karlos Linazasoro

Hori bai, **deskuidu** santu batean eskola ez balego arestian esan dudan bezain ondo, eta, jakinduria deskargatzeaz gain ikasleen interesa pizteko erantzukizuna ere guri balegokigu, orduan onartu beharko litzaidake gelan umorerik sekula erabiltzen ez duen irakaslea ez daitekeela irakasle ona izan. Joxerra Garzia

Homosexualen aurkako legezko ehizak ehiztari zintzo bihurtua ninduen: harrapakinaren **deskuidu** baten zain-zain egoten nintzen. Anjel Lertxundi

Hemen jendea beldurrarekin bizi da, ustekabean bezala sentitzen da bizirik, bizitzea heriotzaren **deskuidu** bat balitz bezala. Joseba Sarrionandia

Ez zuten **deskuidu** batean ezer apurtzerik nahi. Fernando Morillo

*ik beherago* 6. Askoren artean

**Deskuido batean** ezkerreko hankako behatza motortzerrarekin ebaki, eta eskuinarekin txingoka nabil, bi makuluren arrimoan. Patziku Perurena

Baina bai pega-pega eginda dantzatzen zela eta lehenengo **deskuiduan** atzaparra bragetara bota ziola. Patxi Iturritegi

*ik beherago* 4. Askoren artean

Nire babes-ahalmenen ahuldadeaz oharturik, nire **deskuidua** baliatzeko, alegia. Anjel Lertxundi

Barkamena eskatu nion nire **deskuiduagatik**. Anjel Lertxundi

**2** nahastea.

Gorroto latza ez ezik, **deskuidu** ederra daukate horrela mintzo direnek. Joxerra Garzia

**3** (hitz elkartuetan)

Filosofiak filosofia, eta entretenimendu solasak entretenibide, bai esan daitekeela gezur-**deskuidu** handirik gabe, eguratsa egurasteko eta egurasgarri dugula benetan euskaldunok. Pello Zabala

**4** ***deskuiduan*** *(ETCn 334 agerraldi;* ***deskuiduan*** *ETCn 91 agerraldi)* *adlag* oharkabean; bestela bezala; kasualitatez.

Dena dela, **deskuiduan** Iturbidek ez badizu esan, nik esaten dizut orain. Migel Angel Mintegi

Ez dakit zertan zabiltzan hemen, beharbada **deskuiduan** zaude, baina horrela ez bada, zer edo zer nahi bazenu nigandik, jai duzu, aspaldi eman genituen amaitutzat gure harremanak. Migel Angel Mintegi

Jarraian korridore batera zoaz, gillotina-leiho baten aurrean, eta **deskuiduan** urrezko haginik ote duzun galdetzen dizute. Urtzi Urrutikoetxea

Eta guztiz endredatuta nagoenean problemaren amaraunean, tak!, **deskuiduan** bezala, bere desira ezkutua adierazten dizu naturaltasun osoz.. Patxi Iturritegi

**Deskuiduan** arazoren bat badu, ekarri nigana berehala Orduantxe, **deskuiduan** bezala baina asmo sendoa agertuz, nire gorputza mahai gainean jarri eta, mahaiaren ertzari oratua zuen eskua azpian hartu nion. Juan Kruz Igerabide

Gauza bat esango niola gainera, ongi kontuan hartzeko: **deskuiduan** dena gaizki ateratzen bazen, preparatzeko; obispoaren ondoan ikusi nahi nuela, eta hormaren kontra! Inazio Mujika Iraola

-Hor behean aitona xahar bat dagoelako gurpil-aulkian, bere Potto ikusi nahi duela, bere Potto ikusi nahi duela builaka... ez haiz ba hi izango, **deskuiduan**? Jesus Mari Mendizabal

-Harroputz halakoa!-zu bai bizi! **deskuiduan** ez duzu ba jacuzzia ere izango? Patxi Iturritegi

**-Deskuiduan** inork ikusi bazaitu, jende artean ikusiko zintuen. Anjel Lertxundi

**5** ***deskuiduz***

Harry konturatu zen Slytheringo egongelarako bidea **deskuiduz** galdetu zioten Ravenclaweko neska zela hura. Iñaki Mendiguren

Baina airean zegoenean, kalatxori edo aztore baten antzera hegan, galdu egin zen bat-batean geure begien bistatik, desagertu, itzuri; **deskuidoz** edo propio, ez dago jakiterik, baina, era batera zein bestera, aienatu, ostendu egin zen. Karlos Linazasoro

**6** ***deskuidu batean*** (baldintzazko esaldietan) ik gorago **4.**

**Deskuido batean** irabazten badut, urte guztia izango dut lana bukatzeko. Xabier Etxabe

Eta, **deskuidu batean**, baldin epaimahai iparrik gaberen batek gure ipuina sarituko balu, [...]. Anjel Lertxundi

Eta, **deskuidu** batean, baldin epaimahai iparrik gaberen batek gure ipuina sarituko balu, ez dugula Dontsu Etxetik kanpoko inor barregarri uzteko eskubiderik. Anjel Lertxundi

Hori bai, **deskuidu** santu batean eskola ez balego arestian esan dudan bezain ondo, eta, jakinduria deskargatzeaz gain ikasleen interesa pizteko erantzukizuna ere guri balegokigu, orduan onartu beharko litzaidake gelan umorerik sekula erabiltzen ez duen irakaslea ez daitekeela irakasle ona izan. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskuido batean** (4); **deskuidoa izan** (3); **deskuidu batean** (3); **deskuiduan bezala** (3); **deskuiduan ez** (4); **deskuiduan ez ote** (3); **eta deskuiduan** (3)

---

## deskuidutxo *(corpusean* ***deskuidotxo*** *soilik) iz adkor* deskuidua.

Ez, ordea, guk nahiko genukeen erara, gauez euria eta egunez eguzkia! Aa, gure esku balego! Hauek izaten dira Propaganda jaunaren **deskuidotxoak**. Pello Zabala

---

## deskulturizazio *iz* kulturaz gabetzea.

Horretarako eman duen arrazoia harrigarria da: ikastolek **deskulturizazioa** eta akulturizazioa eragiten dute. Berria - Euskal Herria

Ikastolek **deskulturizazioa** eragiten dutela argudiatuta Baionako epaile Florent Szewczyk-ek haur bat ikastolatik aterarazi duelarik, ebazpen hori salatu eta Seaskari babesa agertu diote Kontseiluak, ABk eta EAk. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deskulturizazioa eragiten dutela** (4); **ikastolek deskulturizazioa** (5); **ikastolek deskulturizazioa eragiten** (3)

---

## deskuraiatu, deskuraia, deskuraiatzen da/du *ad* kuraia galdu edo kendu.

Beraz ez da **deskuraiatu** moldatua zuen bake plana baitakote baztertu, bereziki Palestindarrek. Herria

Zaintzaleak beren aldetik ere entseatzen ziren ahal bezainbat **deskuraiatzera** ibiltokiko ateraldiei buruz, bereziki arratsaldeko ateraldientzat ahal bezain berant ateraraziz, batzuetan bost eta erdietan, azken orduan, ilunean, eta ibiltokitik zeldara sartzean afaria atxemaiten nuen jadanik zerbitzatua mahai gainean, arrunt hoztua... Filipe Bidart

---

## deslai 1 *adlag* bidea galdurik; abandonaturik.

Honela, gogoaren sentikortasunak ez ei dauka egonleku jakinik; horretan oso **deslai** eta galduta dabiltzala uste dut. Xabier Amuriza

Herri bueltan zeuden lur guztiak jaberik gabe geratu ziren, olibondoak, gari sailak eta lantzeko lurrak, **deslai** zeuden, zeinek landu gabe. Jon Maia

Europa eta Afrikako hainbat tokitan **deslai** ibili ondoren. Xabier Montoia

Koitadu errukarriak izan behar, **deslai** utzitako arima galduak... Karlos Zabala

**2** (izenondo gisa) bidea galdu duena; abandonatua. ik **deslaitu 2.**

Aitak bekainak jaso zituen. "Zer gertatu da?", galdetu zuen begirada **deslai** batez. Anjel Lertxundi

Haren irribarrea, nire galderari erantzunez, haren nireganako begirada **deslaia**, batzuetan beldur ere banaiz erotzen ari ote den. atarramenturik praktikoena ateratzea lortu zuela zelta jatorriko bere irudimen haren ibilera **deslaietatik**. eskortara itzultzen den ardi **deslai** bat bezala, eta gero atzera otzan-otzan hutsaren aldera lerratzen. Joxe Austin Arrieta

-Nor, baina, txakur **deslai** baten antzera hartzen duzun dohakabe hori? Patxi Zubizarreta

Uso **deslaiak** dabiltza harrizko erpinaren inguruan jira-bira ausartean. Javi Cillero

Lanik aurkitu ezinda goibeldurik zebilen Arabako herri **deslairen** batean. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deslai bat** (3); **deslai dabilen** (3); **deslai eta** (3); **zehar deslai** (3)

---

## deslaitu, deslai(tu), deslaitzen 1 da *ad* deslai utzi.

Gure gogoak ezin du, ordea, hura berriro gomutaratu; gure bizitzan geraldi bat gertatu baitzen eta mugimendu guztiak sentimenetatik noranahi **deslaitu** baitziren. Xabier Amuriza

Eta lotan, hala ere, gure lohadarretan zehar zabalduriko lehenkiak ez dira mugida sentikorretatik urrun **deslaitzen**, gizakume itzartua bere buruaz birjabetzen baita. Xabier Amuriza

**2** (era burutua izenondo gisa) ik **deslai 2.**

Elkarrekin afaltzera joanda, bada, futbolari famatuak horrela galdetu zion bere lagun **deslaituari**: [...]. Matías Mujika

-Zergatik duzu itxura **deslaitu** hori eta zer dira soinean dituzun zarpa horiek? Matías Mujika

---

## deslegitimatu, deslegitima, deslegitimatzen du *ad* legitimotasuna kendu.

Legez kanporatzearen orbana Europara zabaldu dutelako eta, modu horretan, Europako hauteskundeak ere **deslegitimatu** dituztelako. Berria - Euskal Herria

Xakiren helburua «Espainiako ordenamendu juridikoa **deslegitimatzea**» dela esanez arrazoitu zuen operazioa. Berria - Harian

Aldiz, gehiengoak ez arrazoirik eman eta ez kendu egin liezaioke inori; ez egiarik oinarritu, ez baliorik legitimatu eta ez **deslegitimatu**. Joxe Azurmendi

*Aski Da!* taldeko kide zara eta talde hori **deslegitimatu** nahi izatea egozten diozu EAJri. Berria - Euskal Herria

---

## deslegitimazio *iz* deslegitimatzea.

Historian sistema bakoitzak bere balioen legitimazio eta **deslegitimazio** araudia izaten duela, indargintzaren legitimazio eta **deslegitimazioena** barne. Joxe Azurmendi

Balioak absolutuak ala erlatiboak diren eztabaidak eta iritziak, bortxaren legitimazio edo **deslegitimazio** razionalaren arazoarekin ez dauka zerikusi handirik. Joxe Azurmendi

---

## desleial 1 *izond* leialtasunik gabea, leialtasunik ez duena. (pertsonak)

Hator emakume **desleial** bat zigortzera. Jon Muñoz

Ez duzue nitaz mendekatu behar, zuen maitale **desleial** horiez baizik. Jon Muñoz

Ez al genuke adiskide **desleiala** onartu behar, laguntza-emailea eta leiala onartzen dugun bezala? ez nauk, izan ere, egon hire zain anaia bere anaia **desleialaren** zain egoten den bezala, edo adiskidea bere adiskide ihesi joanaren zain egoten den bezala, ez; epailea eta biktima batera dena akusatuaren zain egoten den bezala egon nauk. Xabier Olarra

Seinale eske ari da gizaldi gaizto eta **desleial** hau. Elizen arteko biblia

Norbait, gizaldi **desleial** eta bekatari honen aurrean, nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, [...]. Elizen arteko biblia

Baina Juda **desleial** hori ez zen beldurtu, eta prostituziora jo zuen berak ere. Elizen arteko biblia

Bertzeak hilak edo -traidore **desleialak** !- beren herri espainolduetara itzuliak ziren, ahalkeaz, ohoreaz eta erregerekiko obligazioez bertze eginik. Aingeru Epaltza

Azpildar **desleialok** eta azpildar bilauok, ez duzue lotsarik! Joan Mari Irigoien

**2** (gauzak)

Nafarroa Baik estrategia ilegitimo eta **desleialen** bidez ezker abertzalea ordezkatu nahi du hauteskundeetan. Berria - Euskal Herria

**Desleialak** ikusi eta nazka ematen didate: ez dute zuk hitz emana gogoan hartzen. Elizen arteko biblia

Lehia **desleiala** egitea leporatu diote Abantoko harrobiari. Berria - Euskal Herria

Asiako herrialdeek egiten duten konkurrentzia **desleiala** eta erakusten ari garen bortizkeria ez dira batere onuragarriak ontziola berrien kontrataziorako. Berria - Ekonomia

Microsofti isuna jarri dio Brasilek, «konkurrentzia **desleialagatik** » Berria - Gaiak

**3** (izan aditzarekin)

Konfuziok dio ezen zuhurtasunez jokatzen duena ez dela haserretzen gizakiek engainatzen dutenean, eta ez dela orobat tristatzen **desleial** zaizkionean. Juan Kruz Igerabide

Zeri izan hatzaio leial edo zeri **desleial** ? Xabier Olarra

Baina emaztea senarrarekin **desleial** den bezalaxe, **desleial** izan zara nirekin, Israel. Elizen arteko biblia

Errebelde eta **desleial** izan gara Jaunarekin. Elizen arteko biblia

Begira, laster hilko zara, eta herria, sartzera doan lurraldeko jainko arrotzei jarraituz, nirekiko **desleial** izango da; utzi egingo nau eta zurekin eginiko ituna hautsiko.Baina israeldarrak, buruzagi haiei aditu ordez, **desleial** izan ziren Jainkoarekiko eta sasijainkoak gurtu zituzten, berauen aurrean ahozpeztuz. Aztikeria adinako bekatua da **desleial** izatea, sasijainkokeria bezain hutsala setakeria. Elizen arteko biblia

Espainiarekin **«desleiala** » izatea leporatu zion Zapaterori. Berria - Gaiak

Ez dizut errua egotziko, zaren bezala maite zaitut, sutsu eta ahazkor, errenditu eta **desleial** , horrela maite zaitut. Eduardo Matauko

Izan ere, gure gurasoak **desleialak** izan ziren, Jaunari, gure Jainkoari, atsegin ez zaiona eginez. Elizen arteko biblia

Bihotzez **desleialak** dira beti, nire bidetik ibili nahi ez dutenak. Elizen arteko biblia

Gizaki batek beste bati eman diezaiokeen gauzarik handiena erregalatzen badio, [...] eta konturatzen bada bestea **desleiala** zaiola, eta gizatxar bat bezala portatzen dela, ba al du haserretzeko eta mendekua eskatzeko eskubiderik? Xabier Olarra

**4** (adizlagun gisa)

Nire anaiei esaten ari nintzaien **desleial** portatzen ari garela zurekin, isilik gorde baitugu Lancelotek egiten dizun iraina. Juan Kruz Igerabide

Norbaitek Jaunarekiko **desleial** jokatzen badu, herritarrari zaintzeko nahiz mailegaturik hartua zion zerbaitetan iruzur eginez, [...]. Elizen arteko biblia

Nik adiskidantzaren oinazea zela uste nuena ez zen agian jelosiaren edo bere maitaleari **desleial** iritzi izanaren dolua baizik. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

desleial izan (22); desleial izan eta (4); desleial izango (5); desleial izatea (4); desleiala izan (5); emazte desleiala (3); eta desleial (7); eta desleiala (3); jainkoarekiko desleial (3); jaunarekiko desleial (3); konkurrentzia desleiala (3); lehia desleiala (7); senarrari desleial (4); senarrari desleial izan (4)

---

# desleialkeria *iz* desleialtasun gaitzesgarria; egintza desleiala.

Ez dea alabaina zinezko **desleialkeria** , jukutria beltza, zeure adiskidea zugandik urrun uztea, zu gabe ezin bizitzera ohitu duzun ondoren? Jon Muñoz

Astia eman diot damu dadin, baina ez dio bere **desleialkeriari** uko egin nahi izan. Elizen arteko biblia

**Desleialkeria** jasan ezin duen Jaunaren haserrea piztu egingo da gizaki haren aurka. Elizen arteko biblia

Adulteriogileen eta hiltzaileen zigorra emango dizut eta, zeure **desleialkeriagatik** haserre eta amorruz, heriotzara kondenatuko. Elizen arteko biblia

Ez din inola ere **desleialkeriaz** jokatuko ez inor engainatuko. Antton Olano

Epaileak ere ospetsu izan ziren, nor bere erara; haiek guztiak ez ziren **desleialkerian** erori, ez eta Jaunarengandik aldendu ere. Elizen arteko biblia

Egin dituen **desleialkeria** eta bekatuengatik hil egingo da. Elizen arteko biblia

---

# desleialtasun 1 *iz* leialtasunik eza. ik **desleialkeria.**

Hark nire **desleialtasuna** eta nik haren mesfidantza bizi izan genuen garaira. Ramon Saizarbitoria

Baita beste pitzadura izugarri hura ere, Sergioren **desleialtasunak** eragina. Joan Mari Irigoien

Zelatan egoten da lapurra bezala eta **desleialtasun** asko sortarazten gizonen artean. Elizen arteko biblia

Arazoaren gakoa ez zegoen balizko adarretan, senarraren **desleialtasunak** emakumearen kontu korrontean izan zezakeen eraginean baizik. Migel Angel Mintegi

Hala ez balitz, ikusten ez duguna sinestearen ausarkeria saihestu nahian gurasoekiko **desleialtasunezko** bekatuan jausiko ginateke. Imanol Unzurrunzaga

**2** irud/hed

Aldaketa batean agintzen duena da lehendanik bazegoen materiak bertan jarraitzea: iraganarekiko **desleialtasuna** erlatiboa da, hein batekoa. Isabel Arrigain

**3** (hitz elkartuetan)

Horietan opari antzeko bat egiten zidan zakurrak, zurekiko **desleialtasun** keinu klandestinoa. Lander Garro

Schumacher gizajoak andrearen **desleialtasun** usain pixka bat sumatzen ote zuen, hori zen nire irudipena. Fernando Rey

---

# desleku *iz* leku desegokia. ik **ezleku.**

Desorduetan eta **deslekuetan** , halaxe ibiltzen dira maitaleak. Harkaitz Cano

Ez nekien zer erran, hain nengoen leku hartan **deslekuan** . Joan Mari Irigoien

Eta zerbikalak **deslekuan** . Koldo Izagirre

Badira hondar batzuk [...], badira galera eta garbiketaren ondotik gelditu diren euskarakin batzuk han-hemenka, baina hortik gora deus gutxi: euskararen izeneko eta euskara izan nahiko zarata nahasi batzuk, kontzientzia, eginbehar eta ideien **deslekuaren** axalenetik ezinka jaiotzen direnak. Iñaki Segurola

---

# deslekutu, desleku(tu), deslekutzen da *ad* deslekuan gertatu.

Bere zatiak **deslekutzen** eta lerrotik kanporatzen baitira; zatiok ere, beraz, lohadarretan disolbatu ahal izan behar dute, azkenean denak gorputzarekin hiltzeko. Xabier

Amuriza

Sanbuka, **deslekutua** , galeren bizkar gainera erori zen; danbatekoaren gogorrak galerak elkarri atxikita zeuzkan sokak hautsi zituen; hondoratu egin ziren haietariko asko. Jon Muñoz

---

# deslerrokatu, deslerroka(tu), deslerrokatzen da *ad* lerrotik edo ildotik atera.

Kontraesana da Zapaterorentzako nazioartean PPk egindakoaren ildotik **deslerrokatu** nahi izatea, eta, bien bitartean, barne politikan politika bera jarraitzeko itxurak ematea. Berria - Euskal Herria

---

# deslilura *iz* desilusioa. ik **desengainu.**

Barojaren **deslilura** . Berria - Kultura

Atzoko aurkezpenean, 36ko gerraren garaiarekin idazleak erakutsi zuen **deslilura** nabarmendu zuen. Berria - Kultura

Nola izan zitekeen ordu batzuk lehenago lilurak harturik egoitea, eta orain **deslilurak** , eta nola egin zezakeen pertsona batek ordu gutiren buruan zorionaren eta atseginaren eguzkitik dolore doloretsuaren haitzulo beltzerat...? Joan Mari Irigoien

**Deslilura** politikoaren inguruan osatutako filmaren bidez, hamalau urte zituztenetik elkarren ondoan egon diren bikotearen gorabeherak kontatzen ditu. Berria - Kultura

**Deslilura** politikoak eta bortizkeria giroak. Berria - Kultura

---

# desliluratu, deslilura, desliluratzen du *ad* desilusionatu. ik **desengainatu.**

Kazetaritza mota hori, egunez egun errepikatuta, iraultzailerik nekaezinena ere aspertzeko eta **desliluratzeko** gai da. Txema Ramirez de la Piscina

Lehenengoz irakurri zuenean Zizeronen lengoaia perfektutik urruntxo aurkitzeak **desliluratu** zuen. Imanol Unzurrunzaga

Eta urrundu egin nintzen handik, penaturik eta **desliluraturik** , neure baitan galtzaile, guztiz galtzaile, orein hark heriotza hautatu zuelako, nik bizitza eskaini nion arren. Joan Mari Irigoien

Harik eta Sara mutilari halaxe mintzatu zitzaion arte, etsita eta **desliluratuta** : [...]. Joan Mari Irigoien

---

# desliluratzaile *izond* desliluratzen duena.

Behatzetan bainuen oraindik haren azalaren gozotasun epela, buruan oraindik haren azalaren usaina, haren musuen ahogozoa ezpainetan oraindik, haren ahotsaren hotsa belarrietan oraindik, haren besarkada estuaren eraztuna gerriaren inguruan, haren samurtasunaren xarma suharra neure osotasunean oraindik, baita iratzartze gozagarri eta **desliluratzailea** izan eta luzaroan ere. Josu Zabaleta

---

# deslogika *iz* logikarik eza.

Aluarekin (beretzat, *verenda mulieris*) egiten den [...] egintza gaiztoa=larrua jotzea, non kausitzen baita haragikeria asmatu zuten apaizek segitu zuten **deslogika** berbera. Iñaki Segurola

---

# deslokalizatu, deslokaliza, deslokalizatzen 1 du *ad* deskokatu.

Elikagaia egun **deslokalizatua** dago, hots, tradizioz zegozkion sorterri, lantze tradizional eta gorabehera klimatikoetatik deserrotua, deskonektatua. Edorta Agirre

**2** enpresez eta kidekoez mintzatuz, deslokalizazioa egin.

Helburua ez da enpresak **deslokalizatzea** . Berria - Ekonomia

Enpresak **deslokalitzea** ez duela galaraziko, baina AEBetan geratzen direnei pizgarriak emango dizkiela. Berria - Mundua

CCOOko arduradunak kritikatu zuen zerbitzuak **deslokalizatzen** ari direla enpresa asko: «hemengo erabiltzaileen deiak doan desbideratu eta Vodafone, UNI2 eta Atentoren moduko konpainiek Argentinan eta Marokon ezarri dituzte zentroak, hango langileei askoz gutxiago pagatzen baitiete». Berria - Ekonomia

Enpresa «gero eta gehiagok», soldata baxuagoak ordaintzeko, ekoizpena **deslokalizatzeko** hartu dituzten erabakiak direla-eta, «ezinegona» aipatu du Legebiltzarrak. Berria - Ekonomia

---

# deslokalizazio 1 *iz* enpresez eta kidekoez mintzatuz, jarduera herrialdez aldatzea. ik**deskokatze.**

Enpresen **deslokalizazioa** , lan merkatua desarautzea eta ongizate estatua desegitea ez da globalizazioaren ulerkera bakarra. Berria - Euskal Herria

**Deslokalizazioa** arazo serioa da Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiarentzat. Berria - Ekonomia

**Deslokalizazioak** ia bi mila lanpostu deuseztatu ditu azken hilabeteotan Euskal Herrian. Berria - Ekonomia

**Deslokalizazioen** ondotik, horrek «berlokalizazioa» eraginen luke. Berria - Euskal Herria

Mundializazioaren ondoriozko **deslokalizazioak** . Edorta Agirre

Makina-erremintak ere **deslokalizazioaren** erronkari aurre egin beharko diola aitortu zuen Barrenetxeak. Berria - Ekonomia

Antropologiako adar honek jorratu behar ditu elikagaien **deslokalizazioa** , elikadura-kolonialismoak (macdonalizazioa), orduz kanpoko "ezinbesteko" elikatze-azturak, inkomunikazioa, *frankensfood* "ikaragarriak", mestizaiak, kokakolonizazioa, etab. Edorta Agirre

Enpresetan etengabe gertatzen ari diren birmoldatzeak **«deslokalizazio** isil baten aldaerak dira». Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Deslokalizazio** prozesua hastera doa. Berria - Ekonomia

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako auto osagaien industriaren etorkizuna «korapilatsua» dela, «baina epe laburrean **deslokalizazio** arriskurik ez» dela azpimarratu zuen atzo Autogintzako Osagaien Industriako cluster-ak. Berria - Ekonomia

SPD alderdiko lehendakariak gogor kritikatu ditu DaimlerChrysler enpresaren aurrezte plana eta **deslokalizazio** mehatxuak. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta deslokalizazioak (6)

---

# desloratu, deslora, desloratzen *(orobat **desloretu** g.er.)* du *ad* birjintasuna kendu.

Neskak **desloratzeak** beldurra ematen zien gizonei. Karlos Zabala

Hilabeteak eman nituen ohera eraman nahi nuela ulertu zuen arte eta hilabete gehiago ni **desloratzea** onartu zuen arte. Karlos Zabala

Hura beldurrez ni **desloratzeko** eta ni aspalditik gogo bizian haren **zakila** xurgatzeko. Karlos Zabala

Zortzi egun besterik ez dira neska horrekin izandako harremanetik jaiotako hamahiru urteko mutikoa **desloratu** zuela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**desloratzaile** *iz* desloratzen duen pertsona.

Niretzat polita zen, baldintza guztiak betetzen zituelako nire **desloratzailea** izateko, kontu konplexua da, arras pertsonala. Karlos Zabala

Santu **desloratzailea** da eta kontsolatzailea andre bakartientzat. Karlos Zabala

---

**desloratze** *iz* birjintasuna kentzea.

Nire **desloratzearen** inguruko fantasia zen. Karlos Zabala

---

desloretu ik **desloratu**.

---

**deslotu**, deslot, deslotzen **1** du *ad* loturik dagoena askatu.

Bakarrik **deslotzen** diren zapatek bezala. Harkaitz Cano

Bagoia aitzina doa, hemen lotua, han **deslotua**. Marzel Etxehandi

Lapak harkaitzetarik **deslotzeko** erabiltzen zuen eta, atorra azpian, gerrikoari loturik zeraman ganibetaren giderra hunki zuen. Elena Touyarou

Esku batek paretako bi taula **deslotzen** eta kentzen ditu. Xipri Arbelbide

Annyk eskuak **deslotu** ditu eta belauna askatu. Monika Etxebarria

Bere aitari usu aipatzen zion; bainan hau ezin **deslot** alaba maite horren ganik! Xipri Arbelbide

**2** irud/hed

Errexago da funtsean bihotza aberri irabazle batetik **deslotzea**. Piarres Aintziart

Inork ere ez dik oroimenaren korapiloa **deslotzen**. Patziku Perurena

---

**desluzitu**, desluzi, desluzitzen du *ad* distira galdu.

Balzaren pasma beltzak programatu gabeko oldar pelotero eta kepotero egina baitzuen berriki eta nola inorantzia haundia erreinatzen baitzen ekitaldi folkloriko horren ospazioari buruz, hagiz **desluzitua** gelditu omen zen, publikorik gabe, borrokalarik gabe, enfin oldar fantasma bat, penagarria. Patziku Perurena

---

**desmadratu**, desmadra, desmadratzen da/du *ad adkor* (norbait, zerbait) bere onetik atera, neurria galdu edo galarazi.

Matiasi iruditu zitzaion soinekoko loreak erabat **desmadratuta** zituela ordurako, eta lore batzuk zituela ukondoetatik zintzilik eta beste batzuk emakumearen aurpegia jaten ari zirela eta sudurretatik sartzen ari zitzaizkiola. Unai Elorriaga

Han zeuden ikusle orduko **desmadratzen** nahiz odolusten hasiei fin portatzeko esateaz ahaztu gabe, isiltasun eta errespetu osoz. Karlos Linazasoro

---

**desmadre** *iz adkor* (norbait, zerbait) bere onetik ateratzea, neurrigabekeria.

Amaieran, musika klasikoa jotzen bukatu ordez, sekulako **desmadrea** antolatzen genuen, jazz kutsuko abesti bat haritzat harturik. Iban Zaldua

Saloun lau frantsesakin eta bi inglesakin ligatu duzula, eta orko plaia **desmadre** utsa dala, ta ez dakit zer. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**desmaila** *iz* garaiera-diferentzia, koska. ik **desnibel**.

1300 kilometrako "Himal Race" lasterkaldi-ibilaldia egiteko, Annapurnaren inguruan; orotara, 45.000 metrako **desmaila**. Herria

Hameka egunez iraganen da lasterkaldia: orotara 300 kilometra, 13.000 metra **desmaila**, abiatzea 2800 metretan, zazpi etapa segurik 4500 metra baino goragokoak izanen direlarik. Herria

Beti izan dut biziarekin 20 urteren **desmaila** bat. Menane Oxandabaratz

---

**desmaitemindu**, desmaitemin, desmaitemintzen da/du *ad* maitemindua egoteari utzi.

Eta orduan maitemintzen edo **desmaitemintzen** gara, edo tornado batek hamar mila pertsona erailtzen ditu Ertamerikan, eta gertaera bat zein bestea dira nire ikuspegitik ulergaitz, eta batak zein besteak du transzendentzia ikaragarria kosmosak bere oreka manten dezan. Harkaitz Cano

---

**desmaitemintze** *iz* maitemindua egoteari uztea.

Eta honek bizitzako gertaera guztietarako balio duela esango nuke, berdin gertaera lazgarri eta dimentsio handiko ezbeharretarako edo eta eguneroko miseria, maitemintze eta **desmaitemintzeetarako**. Harkaitz Cano

---

desmakilatu ik **desmakillatu**.

---

**desmakillatu**, desmakilla, demakillatzen *(corpusean **desmakilatu** soilik)* du *ad* makillajea kendu.

Londresetik Manhattango Frank E. Campbell Funeral Etxera ekarri zutenean **desmakilatu** egin behar izan zuten gorpua: izan ere, Londresen hilotza makilatu zutenek lady ingeles mizkin bat bailitzan makilatu zuten. Harkaitz Cano

---

**desmaneratu** *izond* manerarik gabea.

Gazteria modernoaren gaitzik nabariena horrexetan sumatzen dut: nahiz eta arrunt **desmaneratuak** iruditu, artifiziozko manerari ematen dioten inportantzia osoan. Patziku Perurena

**desmarkatze** **1** *iz* jokalari bat, markatzen duen beste batengandik libre gelditzea. ik**desmarke**.

**Desmarkatzea** egin, ala toki berean gelditu? sakonean bilatu, ala bizkarrez baloiari eutsi? Berria - Kirola

**2** irud/hed

PSE-EEko eledunak Batasunari eskatu zion halako gertaeretatik «argi» **desmarkatzeko**. Berria - Euskal Herria

---

**desmarke** **1** *iz* desmarkatzea.

Aloisi eta Bodipo, **desmarkeak** sakonean bilatu beharrean, denbora guztian bizkarrez aritu ziren. Berria - Kirola

Eman, buelta, motzean, sakonean, **desmarkea**... Berria - Kirola

**2** irud/hed

Amak ez zuen ondo eraman aitaren **desmarkea**. Jokin Muñoz

Bestalde, PSE-EEk praktikan PPrekiko **desmarkea** erakutsi behar zuen. Berria - Euskal Herria

---

**desmartxa** **1** *iz ipar* urratsa, zuzemena, gestioa.

Behin, ausartu nintzen nire kasu administratiboaren aipatzera... eta **desmartxa** guziak egin zituen nire laguntzeko. Ramuntxo Etxeberri

Gure aspaldiko xedea betetzerat zoan, mila urrats eta **desmartxa** berea emaitekotan ziren, bai diru aldetik eta bai legezko gorabehera eta tratuen aldetik. Herria

Aurtengo hau nahi izan dugu Xiberoan antolatu, han gaindi abiatua baitugu urte bat eterdi huntan **desmartxa** berezi bat, hango herriko etxeetan euskararen erabilera egin ahala sustatzeko asmoz. Herria

Apezpikuen eta barne ministroaren **desmartxa** horien berri eman zion Batikanok Baionako apezpikuari. Xipri Arbelbide

Diote haatik euskal selekzioaren alderako **desmartxa** hau ez dela bertze selekzioen aurkakoa. Herria

Jendeak **desmartxa** orokor batean lagundu beharko ditu beren urrats desberdinetan: plantatze xede, sozietate egite,.. Herria

Bastimendu egokiago batean haatik, hain segur Larzabalen, eta horri buruz ari dira **desmartxetan**. Herria

Hara zergatik kar handiarekin ari diren hangoak bretoiera berreskuratzeko eta azkartzeko **desmartxetan**. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Euskal munduko edozein langile sokorrituko zuen bestalde, mila gisetarat, bere beribileko zerbitzuak eskainiz, ezagutzak eginaraziz, edo bidaiak, diru **desmartxak** eta holako. Herria

Gure iduriko, inportanta da kalitate **desmartxa** horien ezagutaraztea. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desmartxa orokor batean** (6); **eta desmartxa** (3); **jendeak desmartxa orokor** (6)

---

**desmasia** **1** *iz* kalte edo hondamendi itxuragabea; gehiegikeria.

Haiengandik jakin genuen erromazaleen **desmasien** berri: etxeetan indarrez sartze, ebaste, su emate, ukaldika erabiltze, emakume bortxatze, aihotzez kolpatze... nork bere istorio ikaragarria zekarren, nork bere izua, nork bere mina, baita nork bere gaitzespena ere, gure aldera. Aingeru Epaltza

Bi urtez harriak xehatu zituen kanpoak: ogi, arto, baratze, mahasti, denak funditruak izan ziren, zer **desmasiak**! Michel Oronoz

Portugalen bereziki **desmasia** izigarriak egin ditu suak. Herria

Sekulako **desmasiak** egin ditu lur-ikarak Algerian: den gutienik 1600 hil eta zaurituak milaka. Herria

Indonesian gaindi jasanikako tsunami izigarri haren **desmasiak**. Herria

Frantzia Iparreko Somme eskualdean uholdeak egin **desmasiak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Afrikan, larrepotek **desmasia** izigarriak egiten ari dituzte, Senegaletik Tchad-eraino, Mauritania, Malia eta Niger-en gaindi bazter guziak suntsituz. Herria

Zernahi gehiegikeria egiten da ohorearen, zuzentasunaren bai eta Jainkoaren izenean ere, eta zernahi **desmasia** egiten da horrela. Elena Touyarou

150 airekok 10 minutuz bost miliarren **desmasia** egin omen zuten. Marzel Etxehandi

Nehork aipatzen ez zuen eta denak ikaratzen zituen gaitzak sekulako **desmasiak** egiten zituen gure artean. Marzel Etxehandi

Hainbeste bekaturi erremedio jarri behar zitzaiola, libertinaje hura guztia **desmasia** bat besterik ez zela, eta ea nork konponduko zuen... J.M. Olaizola "Txiliku"

Oroit atzoko ala gaurko nazional-katolizismoek egin **desmasiez**. Piarres Xarriton

**2** irud/hed

Edaria eskatu eta hura etorri bitartean, erdialdean borborka ari zen jende multzoari begirazoa: besoak eta zangoak nahas-mahasean, **desmasia** dezibelikoaren eta bihotz taupadak nahasteko moduko erritmoen agindura denak. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan)

Sri Lankaherria ere hor da, zinez inarrosia izana hau ere duela hiru hilabete itsas **desmasia** hartan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desmasia egiten** (3); **desmasia frango** (3); **desmasia handiak** (5); **desmasia haundiak** (3); **desmasia izigarriak** (4); **desmasiak egin** (7); **desmasiak egin ditu** (5); **desmasiak egiten** (5); **desmasiak eta** (3); **egin desmasiak** (4); **eta desmasia** (3); **eta desmasiak** (3); **eta desmasien** (3); **haren desmasiak** (4); **sekulako desmasiak** (6); **sekulako desmasiak egin** (4); **zer desmasiak** (5)

---

**desmaskaratu**, desmaskara, desmaskaratzen du *ad* benetako nortasuna agerian utzi.

Beren ofizioa "sakonagoan" omen dauden iruzurrak eta interes ezkutuak, ideologiak eta irrazionalkeriak psikoanalizatzea eta **desmaskaratzea** bilakatu da, soziologiaren, filosofiaren, antropologiaren eta psikoanalisiaren laguntza guztiekin. Joxe Azurmendi

Baina, bene-benetan, komunistak -errusiar nahiz txinatarrak- ez zeuden geldirik, plan argi eta maltzur bat zuten, Anaia Martinek **desmaskaratu** zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**desmaterializatu**, desmaterializa, desmaterializatzen **1** da *ad* materialtasuna kendu.

**Desmaterializatzen** diren museoak izango dira erakargarrienak. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Obra **desmaterializatua** errebindikatzen du, eta merkatua arbuiatzen Berria - Kultura

---

**desmaterializatze** *iz* materialtsuna kendu.

Rivera fisikaria eta hondakin kutsatzaileen analisietan aditua da; Vogel prebentzio materialetan eta hondakinen **desmaterializatze** prozesuen ikertzailea da; eta Kit Strange Resource Recovery Forum-eko zuzendaria da. Berria - Euskal Herria

---

**desmatrikulatu**, desmatrikula, desmatrikulatzen da *ad* zerrenda edo erregistro ofizial batetik izena kendu.

Eta orduan, matrikulatu eta **desmatrikulatu** den azkeneko hirian, gizon horrekin joan duk bizitzera. Iban Zaldua

---

**desmen**

**1** ***desmen egin*** ez obeditu, ez onartu.

Mona Matthews, 26 urteko estra, Emil Boggess epaileak atzo hirurogei eguneko kartzela-zigorra jarri ziona epaimahaiari **desmen** egiteagatik, libre utzi dute gaur goizaldean kartzelan hamabi ordu emanda. Fernando Rey

Ordu batzuk eman dituela giltzapean, **desmen** -egiteagatik. Fernando Rey

Baina letania harekin hasi eta hirugarren egunera polizia agertu zen, ordena publikoari **desmen** egiteagatik atxilotuta zaude. Bego Montorio

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desmen egiteagatik** (3)

---

**desmenbraketa** *iz* zatikatzea.

"Desastrea"ren ondoren ere, koloniak galdu arren, **"desmenbraketa"** politikoaren gainetik, Inperioak "arraza izpiritualki" batua izaten jarraitzen duela sinetsi gura da. Joxe Azurmendi

---

**desmendebaldu**, desmendebal, desmendebaltzen da *ad* mendebaleko herrein ezaugarriak galdu.

Azken 50 urte honetan mundua, edo Europa bera, "deseuropartzen" eta **"desmendebaltzen"** ari dela. Joxe Azurmendi

---

**desmerezimendu** *iz* meritua edo merezimendua galtzea.

Munduko sistema politikoaren eta ekonomikoaren artean dauden kontraesanak ikusirik, eta kontuan izanik, halaber, sistema politiko horiexen sinesgarritasunaren eta zilegitasunaren ahultzea, apatia eta **desmerezimendua** sustatu besterik ez da lortzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

**desmesuratu** *izond* itxuragabekoa, neurritasunik gabekoa.

Eta ikusi zuen 53 orrialde zituela hitzaurreak edizio horretan, eta iruditu zitzaion 53 orrialdeko hitzaurre bat guztiz gauza **desmesuratua** dela, eta liburua itxi zuen. Unai Elorriaga

---

**desmilitarizatu**, desmilitariza, desmilitarizatzen **1** da/du *ad* izaera militarra galdu edo kendu.

Alde batetik, matxinatuen egoera **desmilitarizatzen** zihoan: jada ez zuten beren armen erakustaldi hain nabarmenik egiten. Karlos Linazasoro

Olabarriak torturaren aurkako itun handi bat egitea eta Guardia Zibila **desmilitarizatzea** ere galdegin zuen. Berria - Harian

Ildo horretan eusten diogu Caqueta eta Putumayo departamenduak **desmilitarizatzeko** proposamenari. Berria - Mundua

Nazioarteko ikuskatzaileen lekukotzarekin egingo litzateke trukaketa hori, aurretik **desmilitarizatutako** eremu batean. Berria - Mundua

Guardia Zibilaren kuartela eraikitzea gaitzetsi zuten atzo Barakaldoko jaietako konpartsek, Lasesarreko Auzotarren Elkarteak eta Barakaldo **Desmilitarizatzeko** Plataformak. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bahituak trukatzeko, gune **desmilitarizatua** eskatu du FARCek. Berria - Mundua

Gizarte **desmilitarizatu** baten alde lan egiteko konpromisoa hartu zuten udal taldeek mozio hartan. Berria - Euskal Herria

Gasteiz **desmilitarizatuan** bizitzeko «desira kolektiboa». Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **barakaldo desmilitarizatzeko** (4); **barakaldo desmilitarizatzeko plataformak** (3); **gasteiz desmilitarizatua** (17); **gasteiz desmilitarizatua herri** (5); **gasteiz desmilitarizatua taldeak** (5); **gasteiz desmilitarizatuak** (5)

---

**desmilitarizazio** **1** *iz* desmilitarizatzea.

Ipar Irlandaren **desmilitarizazioa** bizkortzeko. Berria - Mundua

Talde armatuen **desmilitarizazioa** eta su-etenak aztertzen dituen Behaketa Batzorde Independenteak apirilerako txostena aurkeztuko du. Berria - Mundua

Azken hilabeteotan, bai kuartel berriaren, bai armak ekoizten dituen ITP enpresaren aurkako elkarretaratzeak antolatu dituzte **desmilitarizazioaren** aldeko eragile sozialek. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriak duen gatazka politikoaren **desmilitarizazioan** Batasunak «eragile aktiboa» izan nahi duela azaldu du Arnaldo Otegik, **Desmilitarizazio** sozialaren alde. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Preso eta exiliatuak etxean egoteak erakutsiko luke **desmilitarizazio** prozesua amaituta dagoela. Berria - Euskal Herria

Horretarako, **desmilitarizazio** programa bizkor burutu behar du, eta poliziaren ekinbide politikoa bukatu. Berria - Mundua

**Desmilitarizazio** mahaiaren zati bat litzateke hori, eta badirudi baduela alde politikoan jarduteko plangintzaren bat ere. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desmilitarizazioa bizkortzeko** (4); **desmilitarizazioa eta** (5)

---

**desmilitartu**, desmilitar(tu), desmilitartzen du *ad* desmilitarizatu.

Georgia eta Hego Osetiako agintariek gatazka zonaldea **desmilitartzea** adostu zuten atzo, Gatazka Konpontzeko Komisio Mistoak Tbilisin eginiko bileran. Berria - Mundua

---

**desmitifikatu**, desmitifika, desmitifikatzen du *ad* mito izaera kendu.

'Koherentzia' hitz madarikatua bihurtu da, gure jokaeraren azterketa moduko baten esanahia edo erantsi baitzitzaion; **desmitifikatu** egin nahi nuke hori. Pako Aristi

Autoritate karismadun oro **desmitifikatu** egin zuela eta nahi zuela legearen subiranotasuna, zenbat eta arbitrariotasun gutxiagorekin hobe. Esteban Antxustegi

Horrela mito berri handiago batekin **desmitifikatuta** geratzen da mito zahar guztietatik gure historia. Joxe Azurmendi

Frankismoaren kontra aritu ziren hainbaten ibilbidea hizpide hartuta, trantsizioaren heroiak **desmitifikatzen** ditu idazle katalanak. Berria - Mundua

Nire iloba lotsati eta maiteminduaren buru-osasunarengatik, gatibu zeukan xarma hura desegiteko betebeharra neukala sentitu nuen, beraren desiren objektu hura **desmitifikatu** eta emakume hura benetan zer zen agerian uzteko betebeharra, alegia. Oskar Arana

Borreroak atsegin ditu borreroei buruzko txisteak; batetik, ogibidea **desmitifikatzeko** balio dutelako, eta bestetik, umorearen funtsa nork bere buruari barre egitean dagoelako. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desmitifikatu egin** (3)

---

**desmitifikatzaile** *izond* desmitifikatzen duena.

Bai, xelebrekeria franko dago testu honetan, baina jarrera **desmitifikatzaile** baten ondorioz betiere. Xabier Olarra

Oro har, azpimarra beltza dute falangisten edo faxisten ekintzen inguruko azalpen gordinek, eta, baita, egileak zabaldu nahi dituen iritzi **desmitifikatzaileek** ere. Orobat esan daiteke errealitatearen oneste betegin, soraio eta ikaragabearen alderdi libelante-subjetibo edo **desmitifikatzaile** -objetibotik, hots, errealitatearen gurtze patologikotik. Berria - Kultura

---

**desmitifikazio** *iz* desmitifikatzea.

Emakumearen gorputzaren **desmitifikazioa** . Politika lan funtsezko hori analizatzea eta deskribatzea maite zuen Michel de Certeauk baina aitortzen zuen gero bortizkeriak egin dezakeen hizkuntzaren **desmitifikazioak** bidea irekitzen diola bataila politiko egiazkoari, eta ez literario hutsari. Piarres Xarriton

---

**desmitologizatzaile** *iz* desmitologizatzen duen pertsona.

Mitoez eta **desmitologizatzaileez** . Markos Zapiain

---

**desmitologizatze** *iz* izaera mitologikoa kentzea.

Antzeko **desmitologizatzea** datorkigu gaur egun politikaren barrutira. Joseba Zulaika

---

**desmobilizatu**, desmobiliza, desmobilizatzen **1** du *ad* mobilizatuak izan diren militarrak bizitza zibilera itzularazi.

Lau edo bost soldadu-deialdi laster **desmobilizatzekotan** ei dira. Edorta Jimenez

Ezta **desmobilizatuko** balituzte ere. Josu Zabaleta

2005. urtea bukatu aurretik ekintzaile guztiak **desmobilizatu** eta desarmatu beharko dira. Berria - Mundua

**Desmobilizatutako** paramilitarrek lege onurak eta gizarteratzeko laguntzak jaso ditzatela eskatzen du AUCk. Berria - Mundua

Lehenengo eta behin, kanpora zerrendatik emakume guztiak: denak etxeko andre, denak **desmobilizaturik** , orduko bat bera ere ez "gertakari" inolakorik kontatzeko zuenik. Juan Garzia

• **2** da/ad *ad* gizarte mobilizazio bat gelditu edo geldiarazi.

Jendea **desmobilizatu** egin da; dena egina zegoela pentsatu izan du, eta bazterrean gelditu da. Edurne Elizondo

Konfiantza gehiegi jarri da epaitegien bidean eta, azkenean, horrek jendea **desmobilizatzea** ekarri du. Edurne Elizondo

Zatiketa horrek jarraitzaileak **desmobilizatzea** eragin du eta, bide batez, Janukovitx aurkaria indartzea. Berria - Mundua

---

**desmobilizazio** **1** *iz* mobilizatuak izan diren militarrak bizitza zibilera itzultzea.

Konfidentzialtasunez jakinarazi zaidanez, horretarako aginduak emanak dira, baina itxarotea erabaki da, ea bitartean Europan egoera argitu egiten den, eta maiatzaren 2ko errebista egin ondoren gauzatu ahal diren **desmobilizazioak** . Edorta Jimenez

**2** gizarte mobilizazio bat geldiaraztea.

Ekimen bateratu ezak **«desmobilizazioa** » dakar, dio EAE-ANVk. Berria - Euskal Herria

Garapen profesionala, egungo gatazka egoeran, **«desmobilizaziorako** tresna bat» besterik ez dela izango uste du ELAk. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Asko ikasi da hiru urteetan: neskak, esaterako, **desmobilizazio** prozesuetatik at uzten zituzten. Berria - Gaiak

Nazio Batuen Erakundearen haur soldaduen ituna sortu da, **desmobilizazio** egitasmoak eratu dira hainbat herrialdetan eta haurrak erreklutatzen dituztenak legez jazartzeko bidea ireki da. Berria - Gaiak

---

desmontatu ik **desmuntatu**.

---

**desmoralizatu**, desmoraliza, desmoralizatzen du *ad* adorea kendu.

Atxilotua **desmoralizatu** nahi izan du txukelak: [...]. Koldo Izagirre

Orain erreformistak **desmoralizatuta** eta ahulduta geratu dira. Berria - Mundua

---

**desmoralizatzaile** *izond* desmoralizatzen duena, adorea kentzen duena. ik **etsigarri**.

Mendebaldeko industrialismo inportatuaren ondorio **desmoralizatzailea**, adibidez, bereziki nabarmena izan zen Hego-ekialdeko Asian, non industri iraultza exotiko batek [...] komunitateen nahastura geografikoa eragin baitzuen. Iñaki Mendiguren

---

**desmoralizazio** *iz* adoregabetzea.

**«Desmoralizazioa»** agertzeaz gain borroka armatuak zentzurik ez duela aitortzea seinale ona dela adierazi zuen Juan Fernando Lopez Aguilar Justizia ministroak. Berria - Euskal Herria

---

**desmotibatu** *izond* motibazioa edo gogoa galdu duena.

Animo eroriak altxatzen, idazle **desmotibatuak** adoretzen, idazle alferrak aupatzen, nartzisoak balakatzen. Jon Alonso

---

**desmotibazio** *iz* motibazioa galtzea.

Erabiltzen dugun hizkuntzak ez du emozioak transmititzeko balio, eta, horren ondorioz, **desmotibazio** handia sortzen ari gara. Berria - Euskal Herria

Badira ikerketak langabeziarako laguntzen eta lanerako **desmotibazioaren** arteko erlazioa aztertzen dutenak eta oso emaitza desberdinak dituztenak. Iñaki Heras

---

**desmozkortu**, desmozkor, desmozkortzen da/du *ad* mozkorra kendu.

Zernahi sufrituz **desmozkortzen** ari nintzen bitartean, nola ez oroit ere Mathiasek bezperan erran zidanaz? Daniel Landart

---

**desmudatu**, desmuda, desmudatzen da *ad* aurpegiera edo itxura aldatu.

Dirade **desmudatzen** . Herria

---

**desmultiplikatu**, desmultiplika, desmultiplikatzen du *ad* mutilplikazioaren alderantzizko eragiketa egin.

Ikuspegi zabalago batetik begiratuta, errealitatea **desmultiplikatuz** errefraktatzen duen kristalaren metafora hori da, beharbada, denbora oro har irudian irudikatzeari aplika dakiokeen formularik iradokorrena: denbora errefraktatua, gelditua, **desmultiplikatua**, zatikatua, eta orainaldi batera bihurtua beti. Josu Zabaleta

---

**desmundu** *iz* mundu ez den mundua.

Kartzelero bakoitza jainkotxo bihurtzen da **desmundu** hauetan, bere nortasuna sendotu nahian besteekiko agintean. Jokin Urain

Holakoxe kontraizanez eta kontrako ertzen bat-egitez egina dago gure **desmundu** hau; "elurra, zuria delarik, beltza da" esan ohi zen euskaraz ere. Iñaki Segurola

Eta behin **desmundu** behere hauetaraino amildurik, munduko zorne, ustel, herio eta ezinbizi guztia neuretzat espresuki egina dela sentitzen dut. Iñaki Segurola

---

**desmuntaia** *iz* desmuntaketa.

Erlatibismoaren anabasan gaude: nola etorri gara kaos honetara? hori esplikatzeko Finkielkrautek, pentsamendu modernoaren errepaso bat eginez, metafisikaren **desmuntaiaren** historia bezala ulertzen du prozesu hori. Joxe Azurmendi

---

**desmuntaketa** **1** *iz* demuntatzea, ataletan desegitea.

Hurrengo egunerako utzi genuen egitekorik lazgarriena, aire kanpaiaren **desmuntaketa**. Juan Garzia

Tresneria horren alokatzeak 250 euro eta 300 euroren artean gostako du, garraia, muntaketa eta **desmuntaketa** barne. Herria

Beti eskasetan gaude, bereziki muntaketa eta **desmuntaketarako**. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

-*Technology*... -esan zuen orduan, eta ez, emakumeei entzuten ohitua nagoen bezala, ezjakintasun soilarengatik, burla modura baizik: horrek ez ninduen aldenarazi, dena den, tresnaskaren **desmuntaketa**-lanetik; jakin nahi nuen zergatik ez zebilen. Joxe Austin Arrieta

---

**desmuntatu**, desmunta, desmuntatzen *(orobat **desmontatu** g.er.)* **1** du *ad* ataletan desegin.

Hirurehun pieza ezberdinetan **desmuntatu** eta berrehun kutxatan sartu behar izan zuten berrehun eta hogeita bost tonako estatua. Harkaitz Cano

Sutximista berri-berri bat **desmuntatzea** ekintza kriminala besterik ez zen. Iñaki Mendiguren

Balkoian barreiaturik, DKW motozikleta baten zatiak zeuden, Emiliok **desmuntaturik** erosi baitzuen. Juan Garzia

Hilabetero **desmuntatu** eta garbitzen diat atalez atal. Aingeru Epaltza

1976. urtean **desmuntatu** zuten erreaktore nuklear baten hondakinak. Berria - Gaiak

Gero, inurri-langile saldo bat bailiran, txosnak **desmuntatu** eta joan egin ziren. Xabier Aranburu

Artista oro saiatzen duk bere teknikaren mekanismoa **desmuntatzen**, hura nola dagoen egina ikusteko eta, behar izanez gero, hotzean erabiltzeko. Anjel Lertxundi

Ez naiz hasiko orain Leireren estrategia **desmuntatzen**, baina iruditzen zait azken aldi honetan dinamika txarrean sartu garela. Patxi Iturritegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ura ardatzen maila baino gorago zegoen, eta zer esanik ez lurrean sakabanatuak nituen motor **desmuntatuaren** piezei buruz. Joxe Austin Arrieta

---

**desmuntatze** *iz* ataletan desegitea.

**Desmuntatze** lanetan ziharduen Iraun Zabaleta atxilotu zuten. Berria - Euskal Herria

---

**desnaturaldu**, desnatural, desnaturaltzen **1** da/du *ad* desnaturalizatu.

Donostiarrek, nola pixka bat zibilizatu egin diren -**desnaturaldu** alegia-, basatitzat daukate Pasaia. Koldo Izagirre

**2** (era burutua izenondo gisa)

Arrantzale eta bateleren Pasaia ez da inzibilizatua, baizik naturala; Donostia hiritartua -liberala- ez da zibilizatua, baizik **desnaturaldua** soil-soil. Koldo Izagirre

---

# desnaturalizatu, desnaturaliza, desnaturalizatzen **1** da/du *ad* naturaltasuna galdu edo galarazi. ik **desnaturaldu.**

Ildo horretan, Herritarren Zerrenda legez kanpo utziko balute, hauteskundeetako dema **desnaturalizatuko** litzateke gure ustez. Berria - Euskal Herria

Ezkerreko indarra baldin bada, ezin du proiektua **desnaturalizatu**. Berria - Euskal Herria

Beste batzuetan aurrerabide baketsua jazarpen ofizialek eten dute, eta sustraitik moztu edo **desnaturalizatu** egin dute, politikan sartzera edo armak hartzera behartuz. Iñaki Mendiguren

Txokolatea, ogia, latako antxoa, gazta, salda, urdaiazpikoa, kefirra, ardoa, azukrea, bakailao gazia, kafea, olioa, tortilla... ez dira *sensu stricto* naturalak, hainbat prozesu teknologikori esker **desnaturalizatuak** baizik, naturan horrelakorik ez baitago. Edorta Agirre

**2** (era burutua izenondo gisa)

Beatrice gazteari dagokionez, inoiz baino sarriago jasan behar izan zituen aita oilartu eta **desnaturalizatu** haren bortxak. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# desnaturalizazio *iz* desnaturalizatzea.

Beharrezkoak ez diren azpiegitura garestiak, ingurumenari erasoak, festaren kontrola eta **desnaturalizazioa** eta ondare historikoaren suntsipena. Berria - Euskal Herria

Batere itxura onekoak ez ziren ardatz txiki horiek benetako **"desnaturalizazioa"** eragiten ari ziren espazioan. Jon Muñoz

---

# desnaturatzaile *izond* desnaturalizatzen duena.

Horregatik definitu zen lehendabizi eragiketa ideologiko, **desnaturatzaile** gisa. Josu Zabaleta

---

# desnaufragarazi, desnaufragaraz, desnaufragarazten du *ad* naufragiotik librarazi.

-Baina ez al ninduzun pelukeriara eraman behar? -eta erdi altxatzen hasten da, bere bularrak **desnaufragaraziz**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# desnazifikazio *iz* kutsu nazia ezabatzea.

Gerraren ostean *Entnazifisierung*-a **desnazifikazioa** hasi zen Alemanian, urte haietako izugarrikerien arduradunak erabakitze guneetatik kentzeko. Berria - Mundua

---

# desnazionalizatu, desnazionaliza, desnazionalizatzen du *ad* izaera nazionala kendu.

Baina gero pentsatu genuen bide hori inperialismoari zubi bat egitea besterik ez zela, eta umeak **desnazionalizatzen** ari ginela, eta produktu autonomoak sortzea erabaki genuen. Bernardo Atxaga

---

# desnazionalizazio *iz* desnazionalizatzea.

1990 eko hamarkadaren hasieran, **desnazionalizazioa** egin zenean, Ivan izan zen fabrikaren gehiengoa eskuratzeko egokiera onenetarikoan zegoen pertsonetako bat: hainbat urte egin zituen fabrikako sindikatu ofizialaren ordezkari, eta hiru urte gerenteorde; bazekien hariak nola mugitu, eta akzioen gehiengoa eskuratu ahal izan zuen. Iban Zaldua

---

# desneurri *iz* neurri desegokia.

Ez zituen pisu neurketa haiek osasun kontuengatik burutzen, nahiz eta jakin bazekien argalduz gero ez zitzaiola, maiz gertatu bezala, pittin bat asmatikoa zelako, arnasa **desneurrian** larrituko. Bernardo Atxaga

---

# desnibel **1** *iz* garaiera-diferentzia, koska.

Hemendik harako **desnibelak** askotan ekartzen baitu neguan han elurra egotea eta hemen ez. Aitor Arana

Orduantxe hasten zen mila eta bost ehun metro inguruko **desnibela** gainditzeko saioa, hain zuzen ere zatirik gogorrena. Patxi Zubizarreta

Baserria mendi magalean dago eta baserriak egiten duen **desnibelaren** erabilera azpimarratu du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Milaka metroko **desnibel** ikaragarri bat igaro, eta haruzkaldeko behere hartan, laino guztien azpiko ezereztegietan, hauts zikin bat zainetan eta huts garbi bat bihotzean, jonkia dabil espediziotik espediziora, bere izpiritu eroria, ertz zailenetik abiatuz, hutsetik hutsagora altxako duen jenero zuen bila, orratz-puntatik orratz-puntarengora. Iñaki Segurola

**2** (errepideetan)

1.800 metroko **desnibela** du gorantz etapak. Berria - Kirola

172 kilometroko etapa gorabeheratsuan, 1.300 metroko **desnibela** zuen saioan, Herrera mendate bihurria tartean zegoen etapan. Berria - Kirola

Etapa bihurria da, laburra, baina 65 kilometro gorantz egiten dituena, 3.700 metroko **desnibelarekin**. Berria - Kirola

Lasterkariek 21 km kurrituko dute, 1215 metroko **desnibelarekin** goiti buruz. Herria

· 8 kilometro eskas ditu eta %6,9ko **desnibela**. Berria - Kirola

Azken lau kilometroek %10etik gorako **desnibela** dute. Berria - Kirola

Azken hiru kilometroak dira tenteenak: %10eko **desnibela**, %14ko aldatsekin. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batez besteko desnibela** (3); **desnibela du** (3); **desnibela dute** (3); **metroko desnibela** (8); **metroko desnibelarekin** (3)

---

# desnutrizio **1** *iz* elikadura gutxiegitasuna edo urritasuna.

**Desnutrizioa** suntsipen handiko armarik okerrenarekin parekatu zuen. Berria - Gaiak

1990etik 2015era **desnutrizioa** duten umeen kopurua erdira jaistea da helburua. Berria - Gaiak

**Desnutrizioak** jotako neska-mutilen %73 garapen bidean dauden hamar herrialdetan bizi dira. Berria - Gaiak

Argaltzeko dieta askok, esaterako, **desnutrizioa** eragiten dute. Berria - Euskal Herria

Herrialde horietan **desnutrizioa** zuzenean dago lotuta minbiziarekin. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Umeen %32k, gainera, **desnutrizio** mailaren bat dute. Berria - Gaiak

Haren arabera, munduan 840 milioi lagunek **desnutrizio** arazoak dituzte. Berria - Gaiak

Ageriko **desnutrizio** kasu askoren atzean, hain argiak ez diren beste hainbat daude. Berria - Gaiak

12 egunetan hondakinen artean egon zenez **desnutrizio** zantzuak zituen, baina, bizirik irauteko ura lortu ahal izan zuen. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desnutrizio arazoak** (5); **desnutrizio arazoak dituzte** (3); **lagunek desnutrizio arazoak** (3)

---

desobedentzia ik **desobedientzia.**

---

desobedentzialari ik **desobedientzialari.**

---

# desobediente *izond/iz* desobeditzen duena, esanekoa ez dena. ik **desobeditzaile.**

Ez da jokalari **desobediente** bakarra izan, baina bere ahotsa izan da galdera jasanezinenei oihartzuna eman diena: futbola zergatik ez dute arautzen langileen mundu mailako eskubideek? Berria - Kirola

Gogor pertsegitzen eta zigortzen zuen desobedientzia setatia; eta setatsu **desobediente** zen anaiari, zigorra bete ostean ere, nekez itzultzen zion bere onginahia. Askoren artean

Baina Batera-k osagai berriak bilduko zituen: estrategia **desobedientea** (eraginkorra dela erakutsiz), osagai identitarioak eta antolakuntza indartsuagoa. Berria - Euskal Herria

Izan daitezela **desobediente** agintariek hartzen dituzten erabakien aurrean. Berria - Kirola

Azken batean, justiziarekin da esaneko **desobedientea** , eta ikuspegi horretatik bilatzen du aldaketa politiko eta soziala. Berria - Euskal Herria

Horregatik, **desobedienteak** jakin behar du gatazkarekin egingo duela topo: «gatazka batetik abiatzen da, eta gatazka eragiten du». Berria - Euskal Herria

Helburuak lortzeko eraginkortasuna bilatu behar du **desobedienteak**, eta horretarako bidea sozializazioa da: «konbikzio pertsonalaren fruitu dena iritzi kolektiboan txertatu behar du, eraginkorra izango bada». Berria - Euskal Herria

---

# desobedientzia *(orobat **desobedentzia** g.er.)* 1 *iz* ez obeditzea, desobeditzea.

Inork ez du esango (edo ez luke esan behar) hiritarrek, gobernu tiraniko baten kontra **desobedientzia** erabiltzeko eskubidea ez dutenik. Askoren artean

Prest gaude edozein **desobedientzia** zigortzeko. Elizen arteko biblia

Fiskalak zortzi hilabeteko espetxe zigorra eskatu du Javier Mirandarentzat, **«desobedientzia»** egotzita. Berria - Kirola

Ez bagenuen betetzen, **desobedientzia** egotziko ziguten. Berria - Harian

**Desobedientzia** leporatuta atxilotu zutela eta 50 suziri atzeman zizkiotela zabaldu zuen EAEko Herrizaingo Sailak. Berria - Harian

Hain kaltegarritzat zeukan anaiaren **desobedientzia** eta hain onuragarritzat obedientzia, egitez eta etsenpluz irakasten baitzien anaiei gauza guztietan xaloki obeditzen. Askoren artean

Eta hogeitaka urte igaro ondoren **desobedientziaren** teoria deskubritu zuten moketadun bulegoetako iraultzaile abertzale batzuek. Jokin Urain

**Desobedientzia** horren sari, Salazar-ek kargutik kendu zuen de Souza Mendes eta herbesteratu. Herria

Halere, mirestekoa da **desobedientzia** horren gaztigua lehenago ez zeukan hobaria izatea, hau da, adimena. Xabier Kintana

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

Japoniako legeak larri zigortzen zuen **desobedientziarik** txikiena. Iñaki Iñurrieta

**«Desobedientzia** arina» egitea egotzi eta 30 egunetan hamarna euroko isuna jartzeko eskatu du fiskalak. Berria - Euskal Herria

Asier Basabek **«desobedientzia** larria» egin zuela oinarritzeko, honako frogak erabiltzen ditu [...]. Berria - Harian

Bera gauza guztietan apal eta esaneko izanik ere, gogor pertsegitzen eta zigortzen zuen **desobedientzia** setatia. Askoren artean

Kontsul ohiaren memoria ohoratua da 1988az geroz, "presuna zuzen" gisa, haren **"desobedientzia** baitezpadakoa" laudatzen dela-eta. Herria

Hala irakurtzen nuen gutxienik presaka desagertzen ziren aurpegi haietan eta azaltzeko zailak izan arren nolabait **desobedientzia** garaile bat adierazten zuten espresioetan. Urtzi Urrutikoetxea

Euren barru ezkutuan hasi ziren, halere, gaiztoak izaten ageriko **desobedientzian** amildu aurretik, ez baitzen egintza txarra burutuko aurrez gogo txarra izan ez balitz. Imanol Unzurrunzaga

**Desobedientzia** zibila, greba orokorrak, boikota, eta antzeko borroka moldeak erabiliz. Berria - Mundua

Gure gizartean hain erroturik ditugun konformismo eta autoritarismoari aurre egiteko gomita da bere ekarpena, baita **desobedientzia** zibilerako deia ere. Txema Ramirez de la Piscina

Erakundeei diru arazoak sortu nahi dizkiegu **desobedientzia** zibilaren bidez. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Klasikoen artean **desobedientzia** kasuak aztertzen direnean kanpoan utzi ohi da Sokratesen heriotza eta beste adibide garbiagoak lantzen dira, esaterako, Antigonaren kasua. Askoren artean

**Desobedientzia** ekintza batekin hasi zen gizateria; ez ahal da amaituko obedientzia-ekintza batekin! Txema Ramirez de la Piscina

Getxoko epaitegiak auziari bidea eman zion, eta **«desobedientzia»** delitua egotzi zien 39 ikasleri. Berria - Euskal Herria

Alderdien legez kanporatzearekin, Euskal Herrian **desobedientzia** mugimendu bat eratu zen, Europan aurrekaririk ez duena. Berria - Harian

Sinatzaileak **«desobedientzia** kanpainarekin» bat egiteko prest egongo lirateke, nahiz eta hori dela eta kartzelara joan behar izan. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

«Gobernu **desobedientzia»** egingo zutela ohartarazi zuten Brusela-Halle-Vilvoorde hautes-barrutiako 22 alkatek, barrutia ez badute banatzen ekaineko hauteskundeen aurretik. Berria - Mundua

**5** ***desobedientzia egin***

**Desobedientzia egin** izana ukatu dute Atutxak, Knörrek eta Bilbaok. Berria - Harian

«Aurrekoetan ere **desobedientzia egin** dut», azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Ez zutela, inolaz ere, **desobedientzia egiteko** asmorik azaldu zioten hirurek epaimahaiari. Berria - Harian

Hala ere, hilabetez egunean bost euro ordaintzeko zigorra eskatu zuen fiskalak epaitutako bakoitzarentzat, «autoritateari **desobedientzia egitea»** leporatuta. Berria - Euskal Herria

Maria Angeles Montes fiskalak «agintari judizialei **desobedientzia egitea**» egotzi die Egibar, Larreina eta Morcillori. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**autoritateari desobedientzia** (3); **baita desobedientzia** (3); **da desobedientzia** (10); **da desobedientzia zibila** (6); **dela desobedientzia** (4)

**desobedientzia arina** (3); **desobedientzia delitua** (15); **desobedientzia delitua egitea** (3); **desobedientzia deliturik** (3); **desobedientzia deliturik egin** (3); **desobedientzia egin** (10); **desobedientzia egitea** (8); **desobedientzia egitea egotzi** (3); **desobedientzia egotzi** (3); **desobedientzia eta** (9); **desobedientzia eta erresistentzia** (6); **desobedientzia larria** (8); **desobedientzia zibil** (3); **desobedientzia zibila** (59); **desobedientzia zibila eta** (7); **desobedientzia zibilak** (5); **desobedientzia zibilaren** (28); **desobedientzia zibilari** (9); **desobedientzia zibilari buruzko** (3); **desobedientzia zibilaz** (4); **desobedientzia zibilean** (3); **desobedientzia zibileko** (4); **desobedientzia zibilera** (3)

**desobedientziari buruzko** (3); **eta desobedientzia** (17); **eta desobedientzia zibila** (3); **ez dela desobedientzia** (3); **gabeko desobedientzia** (3); **judizialei desobedientzia** (3); **otegiri desobedientzia** (3); **zuen desobedientzia** (4)

---

# desobedientzialari *(orobat **desobedientzialari** g.er. eta **desobedientzilari** g.er.) iz*

XIX. mendean AEB eta Mexikoren arteko gerra salatzeko zergak ordaintzeari uko egin zioten lehen **desobedientzialariek**. Berria - Euskal Herria

Autodeterminazioaren aldeko Biltzarretan (ABK) eta ***Desobedientzialariak*** taldean jarduna da Xabier Sarasua, 34 urteko aretxabaletarra. Berria - Euskal Herria

---

desobedientzilari ik **desobedientzialari.**

---

# desobeditu, desobedi, desobeditzen dio-du *ad* ez obeditu, desobedientzia egin.

**Desobeditu** egin zenioten Jaunari eta, zeuen ausarkerian, mendira igo zineten. Elizen arteko biblia

Jainkoari **desobeditu** eta bidegabekeria handiak egin ondoan, [...]. Xabier Kintana

Pariseri **desobedituz**, abertzaleekin joanen dira Borotraren zerrendan. Herria

Atzematen nituen infernura igorria izateko hutsak: aitamei artetan **desobeditu**, eskolatik landa herriko plazan gelditu pilotan aritzeko, [...]. Piarres Aintziart

Ez dizut **desobeditu** nahi: baina, zure aurrean belauniko, halatan dizut fermu eskatzen edeki nahi didazun zoriona, utzi didazun bakarra. Jon Muñoz

Agindutakoa beteko du eta ez nau **desobedituko**. Patxi Zubizarreta

Baietz, sarjentuaren agindua **desobeditu** nuela, agindu burugabea eta "buruhiltzailea" zelako. Mirentxu Larrañaga

Lehenik, Goi-goikoaren legea **desobeditu** du; gero, irain egin dio senarrari, eta hirugarren, adulterio egin du eta umeak izan ditu beste batekin. Elizen arteko biblia

Botere tiranikoa **desobeditzea** zilegi ote den. Askoren artean

Manupekoek Jainkoaren agindua bete beharko dute eta, horrenbestez, giza legeei **desobeditzeko** eskubidea dute. Askoren artean

Ez ukatzea, **desobeditzea** zen; zigortu egin zen delitu hori, eta desobedientziaren iraupenak beste zigor bat merezi zuela iruditu zitzaien. Iñaki Iñurrieta

Ez zuen identifikatu nahi izan, eta, azkenean, atxilotu egin zuten **desobeditzeagatik**. Berria - Euskal Herria

Laborantza ganberaren eraikitzea **desobeditzea** izanen da politikoki eta zibilki. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desobeditu egin** (3); **desobeditu eta** (4); **eta desobeditu** (3)

---

# desobeditzaile *izond/iz* desobeditzen duena, esanekoa ez dena. ik **desobediente.**

Nire ustez Sokrates ez zen benetako **desobeditzailea** izan. Askoren artean

Langile mugimendu autonomoko kide izan zinen duela 30 urte, eta, egun, globalizazioaren aurkako **desobeditzaileekin** duzu gehienbat harremana. Berria - Kultura

Italiako **Desobeditzaileen** mugimenduko kide dela ukatu egin zuen, Artelekuko hitzaldian, Toni Negrik. Berria - Kultura

---

# desobiratu, desobira(tu)l, desobiratzen du *ad* hobitik atera.

Beharbada, sotoan lurperatuta zegoen Lydie Vidal, eta zakurrak bere hezur bat **desobiratzen** zuen bakoitzean ipuin bat idatziko zuen, Lydie Vidalen erara. Harkaitz Cano

---

# desodorante *iz* gorputzeko usain desegokia kentzeko produktua.

Haraxe joan ziren bizarra egiteko labana eta krema, talko hautsak, **desodorantea** eta hortzetako eskuila. Koro Navarro

Larruazalak, hala ere, aurre egiten die oraingo eraso kimiko gehienei, bai atmosferako kutsadurak eraginei, eta bai xaboi, garbigarri, **desodorante**, hauts eta bestelako gaiek eraginei. Irene Aldasoro

Erresuma Batuko zientzialarien esanetan, **desodoranteek** eta bestelako kosmetikoek bularreko minbizia eragin dezakete. Berria - Gaiak

Garbitzeko, ilea apaintzeko, **desodorante** gisa edo usain ona sortzeko erabiltzen diren aerosolen konposatu organikoek beherakoa eta belarrietako mina eragiten diete haurrei. Berria - Gaiak

---

# desohiko *izond* ezohikoa.

Martaren tonuan bazen zerbait **desohikoa**, samurregia Marta izateko, Marta ez zen Marta bat, zerbait okertu izan balitz bezala. Harkaitz Cano

---

# desohoragarri *izond* desohoratzen duena.

Orain nire azkena da, bizitza negargarria eta heriotza **desohoragarria**. Gotzon Garate

Ezkontza **desohoragarria**. Gotzon Garate

Denek barkatzen zieten, gazteak baitziren eta atseginak, eta azken batean ez zutelako inoiz ezer **desohoragarririk** egin. Ander Irizar

**Desohoragarria** da gezurti izatea, eta beti du lotsa bere gain. Elizen arteko biblia

---

# desohorante *izond/iz* cf **desodorante.**

Nahi gabe, baina bigarren gora! horrekin kosmetika **desohorantearen**, dutxako jel-zaletasunaren eta kapitalismo aseptiko eta deRmokratikoaren kontrako kontsigna eder bat asmatu zuten. Iñaki Segurola

Gorputzak bere usaina galdu du, eta bere ohorea ere bai: erruz saltzen omen dira **desohoranteak**. Iñaki Segurola

**desohoratu**, desohora, desohoratzen **1** du *ad* desohorea ekarri, ohorea kendu.

Zuen semeak nire alaba **desohoratu** du eta nik ordaina eskatzen dut. Elena Touyarou

Zoaz eta ez nazazu **desohoratu** jendearen aurrean. Patxi Zubizarreta

Nire izen santua **desohoratu** zuten beren egintza higuingarrien bidez. Elizen arteko biblia

Badakizu nola iraintzen nauten eta lotsarazten, nola **desohoratzen**. Askoren artean

Ez bedi zapaldua **desohoraturik** gera, gorets bezate zure izena dohakabe eta behartsuek. Elizen arteko biblia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Whitman eta Mallarmé [...] beren aitzindari maitea, harako Edgar Allan Poe **desohoratu** eta ospe txarreko hura ohoratzen. Oskar Arana

Adaxka gazte, poeta apostata, ohorez, susmoz eta oroimenez beteriko **desohoratuak**. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desohoratu egin** (4); **desohoratu egiten** (3); **desohoratu eta** (3); **desohoratuko zenuke** (3); **desohoratzen du** (4); **eta desohoratzen** (3); **hurkoaren emaztea desohoratzen** (4

---

**desohore** **1** *iz* ohorea galtzea; ohorea galdu duenaren egoera; ohorea kentzen duen zera.

Gehexan Jaureneak arbasoen ilobi aitzinean zin egin zuela familiaren **desohorea** zurituko zuela. Elena Touyarou

Gazteluan, gurdian doan zaldunari txistu egiten dio jendeak, **desohore** baita gurdian agertzea. Juan Kruz Igerabide

Baina landestarren kontra galtzeak ez du batere **desohorerik**. Herria

Irabazleentzat ohorea Sant Andreseko hortan, baina **desohorerik** ez nehorendako. Herria

Gogoan baitzuten Dinak jasandako **desohorea**. Jose Antonio Mujika

Pobreziak berekin daraman degradazioa, arimaren eta gorputzaren **desohorea**, han pairatu nuen nik, patu komun makurrak jotako prostituta eta gaixoekin batera. Eduardo Matauko

Bide bakarra zegoen **desohoreari** ihes egiteko: ezpata atera eta armak eskuetan hiltzea. Aingeru Epaltza

Funtsean, gobernamenduaren helburua da **desohorean** hil zaitezela. Koldo Izagirre

Zorigaitz eta **desohore** zuei, baldin egin didazuen iraina gibelat egozten ez baduzue. Joan Mari Irigoien

Ez harrotu aitaren **desohoreaz**: aitaren **desohorea** ez da harrobide zuretzat. Elizen arteko biblia

Gizon hordia izatea zinez tristea da, eta gure seme-alabon bizitza ere **desohorez** lohitu dut, nor ez da ahalketzen aita mozkorra dela esaten. Gotzon Garate

Gainera, maila jaitsi, soldata eten eta **desohorezko** kanporaketa egin zion AEBetako Armadak. Berria - Mundua

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Bere buruari hasi zen esaten lotsa eta **desohore** handia dela halako Errege handiaren izenean eskatzen duenari laguntza ukatzea. Askoren artean

Ezin ziezaiokeen bizitzarik barka, **desohore** zehatz-mehatz haren ondoren. Juan Garzia

Edo, ba ote da munduan **desohore** handiagorik handiki bat neskame urdanga batekin ezkontzea baino? Joan Mari Irigoien

**Desohore** izugarria familiarentzat. jabearen iritzian erabateko **desohorea** zen bere jatetxearentzat babarrun- edo dilista-plater bat ateratzea. Josu Zabaleta

Ustezko **desohore** hori ulergarria izango zen duela mende bat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan)

**Desohore** kutsua zuten lanbideak bilatzen baitzituzten. Askoren artean

**4** ***desohorea ekarri***

Kalte baizik ez die desiratzen bere arrebaren heriotza eta familiaren **desohorea ekarri** duten guztiei. Aingeru Epaltza

Eskandalua gorabehera, Harryk bere buruari **ekarri** zion **desohorea** gorabehera, ez zitzaion behin ere burutik igaro ezkontzari amaiera ematerik. Oskar Arana

Ohorea edo **desohorea ekar** lezake hizketak, hondamendi gerta lekioke gizakiari mihia. Elizen arteko biblia

· Familiari **desohore ekartzen** ziotela. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desohorerik batere** (3); **desohorerik gabe** (5); **desohorez betea** (3); **desohorez betea** (3); **desohorez beterik** (5); **desohorez beterik** (5); **eta desohore** (4); **eta desohorea** (6); **eta desohorez** (4); **eta desohorez betea** (3)

---

**desoinordetu** *izond* oinordetza galdu duen pertsona.

Frakasatuz betetako itsasontzi bat ginen: erreka jotakoak, Ingalaterra guztiko **desoinordetuak**. Harkaitz Cano

Estatu helenikoetako hiritarrak, iskanbila politiko edo ekonomikoengatik **desoinordetu** eta porrot eginak; herri konkistatuak. Iñaki Mendiguren

Baztertuek, **desoinordetuek**, bere barkuan zetozen haietako batzuek berberek [...] Amerikako beste baztertuekin, beltzekin eta indioekin, estolderietatik hasi eta Empire Statearen gailurreraino. Harkaitz Cano

---

**desokupatu** *izond* lanik edo egitekoerik ez duena.

Idazleok eta jende **desokupatuak** horrela fitxatzen dugu egunero gure bulegoan, gure faktoria imajinarioan: baguette bat eta *Le Monde* erosiz. Harkaitz Cano

---

**desokupazio** **1** *iz* materiaz hustutzea.

Esferetan eginiko **desokupazioek** zabaldu zioten bidea ilargiarekin harremanduriko eskultura seriea egiteko. Berria - Kultura

Okupazio-**desokupazio** jokoen bidez, esperimentazioko proposamenak eramango dituzte aurrera Klera Laborategia delakoan. Berria - Kultura

**2** lurraldeez mintzatuz, hartu dena berriro utzi.

Benetako plana zera da: egoera bere hartan mantentzea, «Gazaren **desokupazioa**» deitzen diozularik. Berria - Mundua

---

**desolagarri** *izond* hondamenezkoa.

**Desolagarri** samarra da leku hau, ez zaizu iruditzen? Harkaitz Cano

---

**desolamendu** *(ETCn **35** agerraldi; orobat **desolamentu** g.er)* **1** *iz* atsekabe bizia. ik **desolazio**.

Lortu izan dugunean geure burua deskonbertitzea, hasierako **desolamenduaren** ondoren, askatasuna gelditu zaigu. Joseba Zulaika

Gabeko leku habitaezin batean, **desolamendua** jaun eta jabe zen erbestean. Bernardo Atxaga

Nahikoa da begiratu bakarra **desolamenduaz** jabetzeko, baina eroso sentitzen zara hala ere giro horretan. Rafa Egiguren

**2** (hitz elkartuetan)

**Desolamentu** ukitua areagotzen dute. Edorta Jimenez

---

desolamentu ik **desolamendu**.

---

# desolatu, desola, desolatzen 1 *ad* guztiz atsekabetu.

Hala ere erabat **desolaturik** ematen zuen; hala ere lasaitua hartuko zuen hura joandakoan. Anton Garikano

**2** osorik hondatu edo suntsitu.

Gure ezkerretara, **desolaturik** ageri zen Bradshaw Range, laurogeietan zilarra eta urrea aurkitu zituzten parajea. Xabier Olarra

**3** (era burutua izenondo gisa)

Inguru **desolatuan** alaitasun printzen eran lehertu ziren zaldi kolore bizi haiek. Harkaitz Cano

Zelai **desolatu** batean urratsak urratsei lotuz. Piarres Aintziart

Itsasoak pixkana jaten duen lur adarrera iritsi eta bertan geratzea, itsas hegazti **desolatuaren** antzera, bakardadean. Anton Garikano

Kokin-aireak harrotu zion burumuin **desolatua** eta bitxiki begiratu zion: [...]. Itxaro Borda

Gaurik **desolatuenean**. Karlos Linazasoro

Polo aldeko bakardade izoztuetan barrena espedizio **desolatu** batean. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> desolatu batean (4)

---

# desolazio *(ETCn 107 agerraldi)* 1 *iz* atsekabe bizia. ik desolamendu.

**Desolazio** horren erdian ere fantasmarik onartzen ez zuen ernetasun bati eusten zion. Anton Garikano

Hausnartzearen poderioz, putzua itsaso bihurtu zen, eta arraintxoak tiburoi eta balea, eta eskua eguzki aldera jarriz hodei zabalak hedatu zituen mundu nimiño hartara, eta hala milioika gizaki ezjakin eta errugaberi iluna eta **desolazioa** ekarri zien. Anton Garikano

Garbiketako gizonak makina itzali zuenean, bikoiztu egin zen **desolazioa**. Harkaitz Cano

**Desolazioaren** aingeruak etor daitezela! Itxaro Borda

**2** hondamen osoa.

Gustavok kostaldea ikusi zuen gertu, labarrak eta labarrak bata bestearen atzetik, **desolazioaren** irudia. Felipe Juaristi

Begiak kostaldeko lurrean iltzaturik, hango **desolazioa** ikusmiratuz, beti bat, malenkoniaz jota. Felipe Juaristi

Castejongo geltokia **desolazio** lehorrez inguratua... Juan Luis Zabala

Eta ikuspegi horretan bakardadea, **desolazioa** eta inkomunikazioa dira nagusi, (auto) ironiarako joera zoli batekin batera. Berria - Kultura

**Desolazioen** inventariuma egin nuen Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Eztanda nuklear baten osteko **desolazio**-kutsu bat du haren pinturak. Xabier Olarra

**Desolazio** ukitua oro har. Paddy Rekalde

---

# desondra *iz* desohorea.

Aurreko eper lumagalduak adierazten duen **desondra** berbera adierazten dizu ondoko uso kolpatu honek. Patziku Perurena

Pikotara joateak, **desondrarik** handiena esan nahi zuen: gaizkileak bizirik lotuta; heriotzera zigortutakoen esku moztuak; burua edo gorpu osoa. Patziku Perurena

Ez, ez litzaizueke sekula bururatuko ordaindu gabe alde egitea, ederra **desondra** tedesko batentzat, baina aukeran nahiago dut kobratu gabe gelditzea, sarritan gertatzen zait hori italiar txoro askorekin. Anjel Lertxundi

---

# desondratu, desondra, desontratzen du *ad* desohoratu.

Emakumeak **desondratzeko** eta erasotzeko. Patziku Perurena

**-Desondratuta** nago -esan zuen Pepponek-. Koldo Biguri

---

# desoneskeria *(orobat **desonestkeria** g.er.) iz* lizunkeria.

Eta esaten badizut bihotz onez onartzen dudala gure porrota nire **desoneskeria** zigortzeko, sinetsi behar duzu benetan damuturik nagoela. Koldo Biguri

Bakarrik diot ez duzula eragotzi gizon baten **desoneskeriak** nire gizonei egoztea egin ez duten falta bat. Koldo Biguri

Emaitzek jakin-min izugarria sortu zuten 1886an bere monografia argitara eman zuenean, eta gogoberotasun terapeutikoaren uholdearen pean ez zitzaion kontuan hartu bere arinkeria, gupidarik eza eta, apika, **desoneskeria**. Xabier Olarra

---

# desoneski *adlag* lizunki.

Anitz gizon ari baita andrez gaizki aipatzen, artizki eta **desoneski** baitituzte aipatzen. Aurelia Arkotxa

---

# desonest *(orobat **desonestu**)* 1 *izond* moralaren arabera lohitzat hartzen dena. ik **lizun 2**.

Gizon **desonestua** dela konturatu naiz eta... Koldo Biguri

Jartzen zelarik maisua haren menerat, paseatu zuen, finean, zangalatraba, mando bat iduri, emazteki lizun eta **desonest** hura, haren nahiaren eta gutiziaren betetzeko. Joan Mari Irigoien

Erakasle bat haurrei tratu **desonestak** egiteaz hobengabe ekarria. Herria

Azkenean ameskeriek hartuko dute errealitatearen lekua, eta desbideraketa **desonestuek** gozamen jatorrena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** irud/hed

Legatza beti da legatz, urraburua beti da urraburu, betiko eltzekaria benetako osagarriz dago egina, prestaketa **desonest** orori uzkur. Berria - Kultura

---

desonestkeria ik **desoneskeria**.

---

desonestu ik **desonest**.

---

desopilatu ik **deskorapilatu**.

---

desorden ik **desordena**.

---

**desordena** *(orobat **desorden** g.er. eta **desordenu** g.er.)* **1** *iz* ordenarik eza; nahaspila.

Arauaren etsaia da, eta **desordenaren** eta krimenaren koloreko ororen adoratzailea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zikinkeria eta **desordena** nagusitu ziren etxean. Jose Morales

Hauteskundeak baliogabetuz gero «kaosa eta **desordena**» nagusituko direla Georgian. Berria - Mundua

Esan izan da bigarren dinastiako **desordenan** bereganatu zutela basailuek beren fiskoetako justizia. Iñaki Iñurrieta

Halakoetan legegileak dihardu aginpide hertsitzailearen erabiltze hutsean, gizartearen **desordenarik** okerrenak aurreikusteko eta grina eta abusuei mugak jartzeko. Andres Urrutia

Bosch-entzat, horixe zen larrimina sorrarazteko modurik onena: aurrez aurre jartzea mundu alegiazko baten **desordena** gure eguneroko munduaren ordenarekin. Juan Garzia

**Desordena** seinale bat baizik ez da. Josu Zabaleta

Ordenak **desordena** dakarrela eta **desordenak** ordena berria, aldaketa eta entropia geroago eta gehiagorekin. Joseba Sarrionandia

Unibertsoa estaltzen duen oihalaren bestaldean, **desordenaren** ordena ageri baita. Fernando Morillo

Entropiak sistema baten **desordenaren** neurria ematen du. Fernando Morillo

Poltsa zabalik zegoen, eta haren edukia **desordenuan**, norbait zerbaiten bila ari izanaren marka. Aingeru Epaltza

Berniza urtua zen, masa higuingarriak eta bigunak geratzen ziren, **desordenan** -biluziak, biluztasun beldurgarri eta likitsaz. Monika Etxebarria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gelan **desordena** handia sortuz. Joan Mari Irigoien

Gure bizitzen **desordena** sakratua soil-soilik ondoretasunezkoa dela, tradiziozkoa. Jeinuaren **desordena** zoragarri gisara. Juan Garzia

Eritasun fisiko larri batez mintzatzen zen nire laguna, adimenaren **desordena** estugarri batez. Koro Navarro

Gainpopulazioaren sendabide tradizionala goseari, izurriari, **desordena** zibilari eta gerrari biztanleria murrizten uztea zen. Iñaki Mendiguren

Abortua «delitu gorrotagarria» eta **«desordena** moral larria» da. Berria - Gaiak

Eskuarki **desordena** nahasian dauden era guztietako errepresentazio-erak. Ibon Uribarri

Gehiegi hurbiltzera ere ez gara ausartzen, ustekabeko ostiko batez **desordena** ordenatu hori hausteko beldurrez. Berria - Kultura

Bigarren ordena hori labirinto miragarri bat da, jenialki ordenatua itxurazko **desordena** baten barruan. Xabier Kintana

**3** *pl* nahasmenduak.

Gu omen gara **desordenak** eragiten ditugunak, baina haiek eraisten dituzte herriak. Berria - Euskal Herria

Desobendientzia delitua eta **desordenak** eragitea leporatu zieten Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan)

Balore-nahasketa, esker ona baztertzea, arimen kutsadura, sexu-perbertsioak, ezkon-**desordenak**, adulterioa eta lizunkeriak. Elizen arteko biblia

**5 *desordena publiko***

Iluntzean atxilotutako hirurei **desordena publikoak** eragitea eta agintariei begirunerik ez izatea egotzi diete. Berria - Harian

Epaileak bi gazteei **desordena publikoak** leporatu eta astero sinatzeko baldintzarekin aske utzi zituen atzo. Berria - Euskal Herria

Guardia Zibilak Iruñeko 25 urteko emakume bat atxilotu du **desordena publikoen** delitua egotzita. Berria - Euskal Herria

Beste lau hilabeteko zigorra ere eskatu zuen **desordena publikoengatik**. Berria - Euskal Herria

Solidarioei **desordena publikoa** eragin izana egotzi zieten eta atzo bertan agertu ziren epailearen aurrean, Iruñean. Berria - Euskal Herria

Defentsak, berriz, inolako **desordena publikorik** ez zela izan eta kasua absolbitzeko eskatu zuen. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desordena eta** (5); **desordena publikoa** (14); **desordena publikoa eragin** (5); **desordena publikoa eragitea** (3); **desordena publikoak** (12); **desordena publikoak eragitea** (5); **eta desordena** (18); **eta desordena publikoa** (3); **eta desordenak** (3); **eta desordenaren** (3); **eta desordenatuak** (3); **itxurazko desordena** (3)

---

**desordenadore** *iz adkor* ordenadorea.

Beste askotan bezala, Fernando Videgainen "Crónica negra medieval" leitu nuenean, ohartto ezerez batzuk jaso nituen nere **desordenadore** madarikatu honetan, eta hementxe daude oraindik. Patziku Perurena

---

**desordenatu**, desordena, desordenatzen du *ad* **1** ordena desegin. ik **nahaspilatu**.

Amari kexuka joaten zitzaion gure neskame Natalinak liburuak **desordenatzen** omen zizkiolako. Fernando Rey

Jokalarietako batek **desordenaturik** bultzatzen ditu kartak beste batenganantz eta horrek batzen ditu. Monika Etxebarria

Kontu handiz **desordenaturik**. Irene Aldasoro

**2** (era burutua izenondo gisa)

Azkeneko gazte taldeak, eta zaharrak ere bai, mahai **desordenatu** ardoz bustien inguruan zeuden. Josu Zabaleta

Bulegoak bazar **desordenatua** ematen zuen. Fernando Morillo

Fontanis auzotik, ilara luze eta **desordenatuetan**, manifestalariak iristen hasi ziren. Josu Zabaleta

Fabrika aterpe-zulo zikin eta **desordenatu** bat zen, haize-lasterrez betea. Juan Garzia

Eta hamaika paper, **desordenatuak** itxura batean. Berria - Harian

Sistema bat ez da inoiz justua eta beti da **desordenatua**. Harkaitz Cano

**3** neurrigabea, eragabea. ik **ordenagabe**.

Eusten diete, bada, berekoikeriaz, eta erortzen dira askatasun **desordenatuan**, berezko isuriekin barkabera izanez. Joan Mari Lekuona

Edozein atsegin **desordenatuk** eragozten dizu hori guztia, eta orduan deitoratzen duzu: "ez dut maitasunik, ez dut desirarik". Joan Mari Lekuona

Zeren orban haiek ezin baitzitezkeen izan ene bekatuaren seinaleak eta ene plazer **desordenatuen** ordain baizen...! Joan Mari Irigoien

---

# desordenatuki *adlag* ordenarik gabe.

Idaztea gure dolorea da, eta badakigu elea paperean **desordenatuki** etzaten dugunero, munduaren aldatzeko partez guhaur garela norabide zehatzik gabe itxuraldatzen zilo beltz bilakatzeraino. Ana Urkiza

---

desordenu ik **desordena**.

---

# desordre *iz ipar* desordena.

Eguerdi irian berriz ausartatzen dira, baina **desordre** osoan eta debalde. Michel Oronoz

**Desordrea** eta iraültza ez zütüan maite, bena bai zinez karitatea, jüstizia, alkartarzüna. Herria

Badakit **desordre** hori sortzen dela apeztasunak dakarren aberastasunetik bainan ez dut oraino ikasi ordenan bizitzen! Menane Oxandabaratz

-Apez izan naizenetik, "le Sacrement de l'Ordre" beraz "ordrea" ukan diat bainan animaleko **desordrean** bizi naiz! Menane Oxandabaratz

---

# desordu *(ETCn 279 agerraldi)* **1** *iz* ordu desegokia. ik **ezordu**.

Desegunetan beti da **desordu**. Iñaki Arranz

Argia urratu baino lehen, neguaren bihotzeko **desordu** hozpera hartan. Pako Aristi

**Desordu** horietan bat-batean Hertzainak edo Ramones entzuten hasten bazara, bolumen altu samarrean gainera, [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Niri ahazten zitzaidan gauean telebista itzaltzea, **desorduetan** nenbilelako beti. Pako Aristi

Telefonoz deitu ohi zidan tarteka, **desorduetan** askotan, onez onean jeneralean baina amenazoekin ere bai tarteka. Joxean Agirre

**Desordueta**n gehiegi hitz egin, eta behar denean mutu. Joxerra Garzia

Izan ere, beti da **desordu** heriotzaren ordua. Imanol Zurutuza

**Desordu** da Vienako negu hotzean Mozartentzat, eta malkoak isurtzen dira musikagilearen masailetan behera. Imanol Zurutuza

Soinujoleak bere lagunekin afal zezakeen bere lanaren ondoren, nahiz **desordua** izan, nahiz jende gehiena alde eginda egon eta zerbitzu gehienak, kafetegia barne, itxita. Bernardo Atxaga

**Desordueta**n eta deslekuetan, halaxe ibiltzen dira maitaleak. Harkaitz Cano

**2** ***desorduan*** *adlag*

Osaba Jack osasunez pattal dabil, hirian zurekin **desorduan** ibiltzeagatik, eta Londresko bere medikuak eguerdiko hamabietan gibel-orezko ogitartekoak jatea eta 1889ko xanpaina edatea gomendatu dio. Antton Olano

Goizaldera etorri zitzaizkion, **desorduan** eta zalapartaka, Nikolas tsarraren morroiak, eta arrastaka eraman zuten, Polonia aske baten alde egin nahi zituen oihuak kolpe eta burdin hotsekin isilaraziz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere etxe propioan elkarrekin eta **desorduan** aurkitu izanak errudun zirela argiro erakusten zuen. Martin Anso

Etxekoandreak ohituraz kanpoko eginkizunen bat zuela eta **desorduan** joan da etxera eta senarra ohean goxo-goxo harrapatu du umeak zaintzen dituen neskatoarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta, orduan, otso horren triskantza nahiago zuten, aukeran, **desorduan** eta desgaraian eguzkia ikustea baino, belar-bazka izorratzen zielako goitik behera. Pello Zabala

**3** ***desorduko*** *izlag*

Berak irribarre, nire **desorduko** txisteen aurrean beti egin ohi zuen bezala: bekokia ximurtuz bi bekainen artean. Joxe Austin Arrieta

Esan dituenak, **desorduko** irakurketek eta bera baino zailduagoko espirituek eraginak direla, ez dut batere zalantzarik. Koldo Izagirre

Nomadak eta **desorduko** bestak beti izan zaizkie nahasgarri agintari zibilei. Berria - Kultura

Herritxo zokoratu hartan hazi ginen [...], eta etorkizuna geure iragana lakoa izango zela uste genuen batzuetan, denborarekin orain garen bezain urrunak eta **desordukoak** izango ginenik egundo susmatu gabe. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beti da desordu** (3); **desordu da** (3); **desordu heriotzaren ordua** (3)

---

# desoreka **1** *iz* orekarik eza.

Produktu manufakturatuen prezioak edo zerbitzuenak ez bezala, lehengaien prezioak izugarri aldatzen dira merkatuetan eratzen diren **desoreken** arabera, **desoreka** horiek errealak nahiz aurrez ikusiak izan. Koro Navarro

700.000 euroko **desoreka** izan da diru-sarrera eta gastuei dagokienez. Berria - Kultura

Genoa, Augsburg eta Anberesko bankariei maileguak eskatu behar izan zizkien estatuak, baina horrek erresumaren finantzen **desoreka** areagotzea besterik ez zuen ekarri. Iban Zaldua

«Eskualdeen arteko **desorekak**» ekidin behar direla aipatu zuen. Berria - Euskal Herria

Udalerri autonomoen eta komunitaten garapenetan gerta daitekeen **desorekari** aurre egiten saiatzea. Berria - Mundua

**Desoreka** sortzen ari da orain euskal eta erdal taldeen tartean, oraintsu arte ez bezala, euskararen kaltean orain. Pello Salaburu

Egungo egoera diglosikoak sortzen duen **desoreka** gainditu nahi bada, hori guztia ezinbestekoa da. Berria - Euskal Herria

Halako **desoreka** bat gertatu zen keinuen berotasunaren eta hitz faltaren artean, besarkada gehiegizkoa egin zuena. Ramon Saizarbitoria

Datorren urterako **desoreka** hori murriztea aurreikusi dutela ere adierazi du gerenteak. Berria - Kultura

**Desoreka** hau zuzendu egin behar da. Pako Aristi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Erakunde honen ardurak ziren, besteak beste, herrialde kideen ordainketa balantzetan sor zitezkeen **desoreka** iragankorrak finantzatzea, [...] eta nazioarteko dirua zabaltzea. Iñaki Heras

Herritarrek berreskuratutako arma kopuru handiek «Ekialde Hurbilaren **desoreka** iraunkor bat eragin dezakete». Berria - Mundua

Petrolioaren prezioa eta **«desoreka** globalak» dira munduko ekonomiarentzako arrisku handienak. Berria - Ekonomia

Espainiako estatuko analfabeto funtzionalen mapak argiro erakusten du Iparra eta Hegoaren arteko amildegia, **desoreka** ekonomikoaren erakusle, seguru asko. Txema Ramirez de la Piscina

**Desoreka** termodinamikoa. Patxi Iturritegi

Pekinek **desoreka** sozialak amaitzera bideratutako politika bultzatuko du. Berria - Mundua

Dagoeneko, hainbeste zigor jaso ondoren, prest zaude edozein **desoreka** emozional eta psikologikori aurre egiteko. Rafa Egiguren

**Desoreka** geldoa izan zen, gogaitze nagi bat, gerora neurriz gaineko asaldura bizia bihurtu zitzaiona. Karlos Zabala

«Oinarrizko **desoreka**» aintzat hartzeko eskatzen zuen. Berria - Euskal Herria

Ordainketa-balantzen aldi bateko **desorekak** finantzatzea -politika ekonomikoak zaintzeko eskubidearen truke-. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hortaz, merkatuan gertatzen den **desoreka** arazo bat da langabezia. Iñaki Heras

Egindako ikerketen arabera, 60ko hamarkadan ere atzematen zituzten elikadurako **desoreka** kasuak. Berria - Gaiak

Diru alorrean nazioarteko elkarlana beharrezkoa da oso, izan ere, nazioarteko merkataritza herrialdeentzat aberastasunaren iturri izateaz gainera, herrialdeen arteko diruen **desoreka** iturria ere bai baita askotan. Iñaki Heras

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

hirigune metropolitanoen hedapen beldurgarriak eta lurralde **desorekak** saihesteko. Berria - Euskal Herria

Botere **desoreka** aintzat hartu behar da analisi guztietan. Berria - Euskal Herria

Ipar-Ipar merkataritza- eta finantza-**desorekak**. Juan Garzia

Tokian tokiko barne **desorekak** gogoan hartu gabe. Edorta Jimenez

Nortasun **desorekak** eta menpekotasun gaitzak dira ugaritzen ari direnak. Berria - Gaiak

Horrek «genero **desorekak** larriagotu» ditzakeela uste du OMEk. Berria - Gaiak

Eta mesedea baino handiagoa izan zen eragin zion buru **desoreka**. Harkaitz Cano

Tetraplejia, afasia, higimen-**desoreka**. Anjel Lertxundi

· Elikadura **desoreka** kasuen erdietan aldaera genetiko bat atzeman dugu. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artean dagoen desoreka** (6); **artean desoreka** (5); **arteko desoreka** (26); **arteko desorekak** (4); **batuetako desoreka** (3); **da desoreka** (3); **dagoen desoreka** (7); **desoreka bat** (4); **desoreka eta** (7); **desoreka handia** (8); **desoreka handia dago** (3); **desoreka hori** (12); **desoreka horiek** (3); **desoreka horrek** (3); **desoreka nabarmena** (5); **desoreka sortzen** (3); **desoreka soziala** (4); **desoreka soziala gainditzeko** (3); **desoreka sozialak** (6); **desorekak eta** (3); **duen desoreka** (5); **duen desoreka soziala** (3); **elikadura desoreka** (4); **elikadura desorekak** (12); **estatu batuetako desoreka** (3); **eta desoreka** (6); **finantza desorekak** (4); **gizarte desoreka** (3); **sortzen duen desoreka** (4)

---

# desorekatsu *izond* desoreka handikoa.

Nahiz eta antze-lanetan motzagoa ibili hasieran amaieran baino, Rodolfo garbia atera zuen, berekoia eta **desorekatsuaren** rolean; bularretako ahots gardena gehienetan zabaldu zuen hala goi tesituran nola behekoan. Berria - Kultura

---

# desorekatu, desoreka(tu), desorekatzen **1** da/du *ad* oreka galdu edo galarazi.

Barrezka, bultza egin zidan, **desorekatu** eta ohe gainera eror nendin. Bernardo Atxaga

Bisean-bis heldu zen emazte xaharra jotzen du eta **desorekatzen**, eror arazi gabe beharrik. Herria

Kontu honek zeharo **desorekatuko** gaitu azkenean. Jon Muñoz

Amodiotik erretiratua zaudela diozu, **desorekatu** zintuen nahigabe batetik irten eta zeure izaera berriro nibelatzeko. Pako Aristi

Albiste txarra da denontzat, **desorekatu** egiten duelako sektorea. Berria - Harian

Haren pisuak liburu-dorrea **desorekatu** zuen, eta, liburu guztiak bertan behera eroriko zirela zirudienean, liburuen gainean ukalondoa bermaturik eutsi zion saltzaileak dorreari. Anjel Lertxundi

Bilbo inguruetan bildu zen, gehienbat, jende etorri berria, eta guztiz **desorekatu** zen hango bizimodua. Koldo Zuazo

Gure ongizate gizarte honek ere **desorekatu** egin du negozioaren eta astialdiaren arteko harremana. Berria - Gaiak

Harry zutitu zenean, alde batera **desorekatuta** zegoelako sentipen arraroa izan zuen. Iñaki Mendiguren

**2** (era burutua izenondo gisa)

Nazioartean den indar erlazio **desorekatua** dela eta, nekez esan daiteke merkataritza trukeak askeak direnik. Iñaki Heras

Tentazioa handia da, ez da pertsona **desorekatuegia** izan behar. Harkaitz Cano

Antzezlanetan, batez ere, nabari dira gizarte **desorekatuaren** ondorioak direla pertsonaien ajeak eta kezkak. Zentroaren eta periferiaren espezializazio produktiboak beren arteko elkartruke **desorekatuak** sustatzen ditu. Berria - Kultura

Garapen-bideko herrialdeetan, izugarri **desorekatua** da oraindik ere soldaten eta mozkinen arteko balio erantsiaren banaketa. Koro Navarro

Abokatuak gogorarazi zuen Mijailovic nortasun **desorekatua** duen pertsonatzat jo dutela mediku adituek. Berria - Mundua

Begiak **desorekatuak** zituen, bat bestea baino gorago. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **balantza desorekatu** (3); **balantza desorekatzeko** (3); **desorekatu egin** (5); **desorekatu eta** (5); **desorekatu zuen** (8); **desorekatua da** (4); **desorekatua dela** (3); **desorekatzen du** (3)

---

# desorekatzaile *izond* desorekatzen duena.

Azpilan zapaltzaileak edo **desorekatzaileak** gauzatu dituzte zerbitzu sekretu eta mertzenarioek, bat eginik. Berria - Mundua

Eutsi egin zaio eredu **desorekatzaileari**, plangintzaren aurretik indarrean zeuden lursailen okupazioak bere horretan utziz. Berria - Harian

Euskotramoena oso mingarria, oso **desorekatzailea** eta eskubide urratzailea da. Berria - Euskal Herria

Onartezina da, inondik ere, nire jokaera: eskandaluzkoa, iraultzailea, **desorekatzailea**; lege-haustailea, lizuna, probokatzailea. Karlos Linazasoro

---

# desorekatze *iz* oreka galdu edo galaraztea.

Gobernuan izan zelarik, nazioartean gobernu sandinistaren kontrako **desorekatze** kanpaina bat aldarrikatzen tematu zen Reagan. Berria - Mundua

---

# desorganizazio *iz* organizaziorik eza.

**Desorganizazioa** organizatzera mugatu ziren lehen unetik, jendeak ideal batengatik odola oparo ematen zuen bitartean. Jokin Urain

Erromatarren formazio militarretan orduan nagusi zen **desorganizazio** ikaragarri hau ez zen barbaroentzat sekretu bat. Iñaki Mendiguren

---

## desorgindu *izond* sorginkeria kendu zaiona.

Eleberrietan, paladinak, nigromanteak, maitagarriak, zaldi hegodun edo adimendunak, gizon ikustezin edo zauriezinak, pertsonaia handien jaiotzaz edo hezkuntzaz arduratzen ziren sorgin eta aztiak, jauregi sorgindu eta **desorginduak**. Iñaki Iñurrieta

---

## desorientatu, desorienta(tu), desorientatzen da/du *ad* orientazioa galdu edo galarazi. ik **noragabetu**.

**Desorientatu** egin gaitun. Lutxo Egia

Egoerak **desorientatu** ninduen. Berria - Kultura

Kilkerrek pertsonak gidatzeko kantatzen zutela, baina koitaduek, gehienetan, jendea **desorientatu** egiten dute denek batera kantatzen dutelako. Bego Montorio

Erabateko ilunpe hartan erabat **desorientatuta**, haztamuka aritu zen errezelekin. Iñaki Mendiguren

Apur bat **desorientatuta** ez, seko galduta. Harkaitz Cano

---

## desorientazio *iz* orientaziorik eza. ik **noraez**.

Garaiko gertaerez eta jendeaz galdetzean, agerikoak ziren haren **desorientazioa** eta nahasmenduaren sakona. Xabier Olarra

Izara zuriak, horma zuriak, ohe zuriak erreparatu ditudanean, ezohiko logelan esnatzearen larritasuna eta **desorientazioa** sentitu dut. Joseba Sarrionandia

Entzuleak sentsazio bera, **desorientazioa**, izan dezake New Yorkeko *TV on the Radio* taldearen lehen diskoa *Desperate youth, blood thirdsty babes* entzutean, hain da harrigarria, askea eta ertzez beterikoa. Berria - Kultura

Atxilotuaren segurtasunik eza eta **desorientazioa** eragiteko. Berria - Harian

---

## desoroimen *iz* oroimenik eza.

Pixka bat zonbi, **desoroimenean** bezainbat errepikapenean galduxe. Jose Angel Irigaray

---

## desoroitu, desoroi(tu), desoroitzen du *ad* zerbaiten oroimena galdu.

Guzti-guztia **desoroitu** dun? Anton Garikano

**Desoroitua** eta aipatu gabea, ezin du galdua egon zeren inor ez dabil bere bila, eta norbait balebil ere, nola deitu izenik jakin gabe? Anton Garikano

---

## desoroitze *iz* zerbaiten oroimena galtzea.

Halere, nere zentzuek halako poz eta indar berri bat dakarte menditik, agian, **desoroitze** eder honi esker. Patziku Perurena

---

## desoroso 1 *izond* erosoa ez dena.

Baina lagun **desorosoa** izan zen, bide batez, apetitua ireki eta gero inoiz asetzen ez zuen neurrian. Santiago Iruretagoiena

Gu elkarri besarkatuta ari ginen egiten bidea, egoera nahikoa **desorosoan**, baina amodioa zein gauza ederra den, besterik ez genuen pentsatzen. Josu Zabaleta

Agintariak, beste behin, **desorosoa** izan daitekeen informazioa ezkutatzen ari direla dirudi. Berria - Mundua

• **2** (adizalgun gisa)

Ni **desoroso** eta urduri sentitzen nintzen. Fernando Rey

---

## desorraztu, desorratz/desorraztu, desorrazten du *ad* orrazketa desegin.

Ariketa atsegin bati ekiten nion orduan: **desorraztu** egiten nuen Fubuki neure gogoan. Joxan Elosegi

---

## desosegatu, desosega, desosegatzen du *ad* sosegua galarazi.

Kezka batek **desosegatzen** zuen. Iñaki Zabaleta

Artista AEBetan bizi da egun, harat-honat, eta lehen ohikoak zituen hiri paisaiak, natura hilak ia, landa giroko eszenak dira orain, **desosegatuak** asko, baina, era berean, oso eraginkorrak. Berria - Kultura

---

## desosegu *iz* sosegurik eza.

Aise baieztatzen ahal dugu **desosegua**, kontraesanak eta noraeza gutxitan izan direla XX. mende hondar honetan bezain handiak. Hasieran gaizki pasatzen nuen: **desosegu** urdurian, kabitu ezinez, jainkoak ala deabruak antzezten nauen jakin nahirik... Daniel Landart

Ez dezala irakurleak nire liburuan sosegurik bilatu, **desosegua** aurkituko baitu; zeren orrialde hauetan barrena ez baitabil heroirik edo irabazlerik, derrotaren armada baizik; bai, derrotaren armada eta patu idatziaren kontra borrokatzen den gizagaixoa... Karlos Linazasoro

Beldurrak sortutako **desoseguari** eman beharko diogu emakume horren historia hain azaletik ezagutzearen errua. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bost egunen buruan halako aldaketa bortitz eta guztizko batek gizaki batengan sor dezaken **desosegua**, noraeza eta nekea izugarria dela kontuan izanik, [...]. Karlos Linazasoro

Abantxu beti deseroso eta **desoseguan** bizi da. Jose Angel Irigaray

---

## desoxidatu, desoxida, desoxidatzen du/du *ad* gai baten molekuletako oxigenoa kendu.

Antozianinak, zuk noski ondotxo dakizunez, lore gorri eta urdinen pigmentuak dira: erraz oxidatzen eta **desoxidatzen** diren sustantziak dira, glukosa ere halakoa baita, eta glukosaren oxidazioaren okerbide bat baino ez da diabetesa. Juan Garzia

---

# desoxirribonukleiko

**1** ***azido desoxirribonukleiko*** kromosomen osagai nagusia den azido nukleikoa.

Londresera itzulita, x izpiak erabili zituen azido **desoxirribonukleikoa** aztertzeko. Berria - Gaiak

Bakterioei esker lortuak dira, hain zuzen honako hauek: geneen baitako gai ondoretasun-eramaile gisa azido **desoxirribonukleiko** (ADN) delakoak jokatzen zuen papera zehaztea. Juan Garzia

Analisia egiteko, odol laginetik hartutako ADN (azido **desoxirribonukleikoa**) jartzen da plaka horren gainean, behar bezala markatuta. Berria - Gaiak

ADN azido **desoxirribonukleiko** zatien edo zelula normalen «bikoizketa sinpleak» egitea begi onez ikusten du Vatikanoak, baina ez klonazioa. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azido desoxirribonukleiko** (3); **azido desoxirribonukleikoa** (3)

---

# desozializazio *iz* sozializazioa desegitea.

**Desozializazioa**: janariak mahaikiderik gabe, bakardadean egingo ditu gizabanakoak. Edorta Agirre

---

# despalatalizazio *iz* palatalizazioa desegitea.

Nolanahi ere, esan daiteke **despalatalizazioaren** agortzea onesten duela -ill- grafiak. Lourdes Oñederra

Hemen sartu beharko genituzke euskaraz **despalatalizazioak** sortutako *te¥a* > *tejla* bezalakoak ere, nahiz eta horietan ez den kontsonantea osorik aldatzen, baizik palataltasuna. Lourdes Oñederra

---

desparadiso ik **desparadisu**.

---

# desparadisu *(orobat **desparadiso**)* *iz* paradisurik eza.

Nola aspaldiko Paradisuan [...] gertatu zen gizon-emakumearen suntsipena eta gure arrazaren hondamendia, sugeak emandako sagarrari Evak kosk egin zionean, halaxe da Ruak kezkaren **desparadisua** aurkitu zuen, sagarrari kosk egin ordez, egarriak akuilaturik portuko ostatu batera sartu zenean baso bat ur eskatzera. Felipe Juaristi

Estatuaren zakurren azio eta atzaparkada haien bero errea hotzildua delarik, orain, hemen, *Ostiela!* izeneko **desparadisu** honetan, gauza batzuk esan daitezke, lehen, ordu gazi haietan, gorputz-arima torturatuen bistan, esan ez zitezkeenak. Iñaki Segurola

---

# desparejatu, despareja, desparejatzen da/du *ad* bikotea osatzen duten bi gauza banandu.

Itsasoak gauez hondarraren gainean abandonatzen dituen objektuen antzera, jaberik gabe eta **desparejaturik** irudikatu nituen idazlea eta Monika elkar ezagutu zuten goizean. Joxean Agirre

---

# desparekatu, despareka, desparekatzen *ad* pareak ez osatu.

Pareta isodomoa dela esaten da ilara guztiak lodiera berdinekoak direnean; pseudoisodomoa izango da elkarren ondoko ilarak **desparekatuta** daudenean eta altuera desberdinekoak direnean. Santiago Iruretagoiena

---

# desparpajo *iz* lotutasunik eza, herabetasunik eza.

Orduan ahots zaharrak kisketari eragin zion, ahots zaharrek izaten duten **desparpajoaz**. Unai Elorriaga

Iturriaga beti bezala fresko eta **desparpajoarekin**. Berria - Harian

---

# despatxatu, despatxa, despatxatzen du *ad* bota, kaleratu.

Mafioso itxura du ordea pisua alokatzen duenak, eta gainera Prusiarra eta biok bikotetzat hartu eta berehala **despatxatu** gaitu. Harkaitz Cano

Beste paraje batzuetan, bere barrutian astalarra eta kardulatza zituenak, eliz-dorrean gauerdiko lehen kanpaia entzun orduko, bere belazetik kardulatz bat atera eta mugante zuen etxadiko lurretara bota behar zuen, bere soroetatik belar txarra **despatxatu** nahi bazuen. Pello Zabala

---

despatxo ik **despatxu**.

---

# despatxu *(orobat **despatxo**)* *iz* bulegoa.

Buruan zerabilen distribuzio berriaren arabera, solairu nagusia eremu publikoa izango zen: **despatxua**, harrera-gela, saloi-biblioteka, jantokia, sukaldea eta officea; eta goiko planta familiaren bizitza pribaturako txokoa: sala, jantzitokia, logelak, bainugelak. Patxi Iturritegi

**Despatxua** altuera ertaineko panelez banatuta zegoen, eta hosto mamitsu eta berde argiko bi landarek apaintzen zuten. Iñaki Zabaleta

**Despatxuko** lankideen ahotan zebilen konparazio jostariaren arabera. Patxi Iturritegi

Psikoterapeuta ergelen baten **despatxura**. Pako Aristi

---

# despazio *izond* poliki, astiro.

Goazen **despazio**, mantso-mantso hobeto heltzen da helmugaraino-eta. Pello Zabala

---

# despedida *(ETCn **607** agerraldi; orobat **despeida** g.er. eta **despeira** g.er.)* **1** *iz* azken agurra, agurra.

Paraje batzuetan, urki-makilez ospatzen omen dute urte-zaharraren **despedida**: espiritu gaizto guztiak uxatzeko. Pello Zabala

**Despedidako** bazkarian. Pako Aristi

Zeremonia tristea izan zen, garrantzizko zerbaiten **despedidaren** tankera hartu nion nik. Koldo Izagirre
Bihar, **despedida** edo agurraren jaia. Edorta Jimenez
Iluntzean Kororen etxera joan gara afaltzera Lope, Mikel, Betty eta laurok, **despedida** bat eskaini nahi baitigu gure lagun onak. Pako Aristi
Lehengo ospea hartu zuen berriro, **despedida** eta horrelakoetarako deitzen zuten maiz. Koldo Izagirre
**Despedida** egokiak nola idatzi behar diren. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Eta **despedidarik** idatzi gabe alde egin behar zuen gainera. Koldo Izagirre
Sentimentalenak muxuka eta pattarreroenak balantzaka hasi baino lehentxeago bere **despedidako** hitzaldia egin zuen Albertok. Xabier Mendiguren Elizegi
-Bederatzigarren palkoan egongo gara -gogorarazi digu amak, **despedidako** muxua eman aurretik. Arantxa Iturbe
Koadrilakoekin **despedidako** afaria egin nuen. Xabier Mendiguren Elizegi
Asko maite zintuela, oso ongi pasa zuela zurekin (hori bazenekien, hori badakizu), baina hartzeko bidaia hura **despedidatzat**. Lourdes Oñederra
Hunentzat azken bilkura baitzen, **despeidakoa** nolazpait. Herria
Afaltzera gonbidatu ninduzun baina **despedidakoa** zen hura, azken afaria, eta emandako muxua Judas Iskarioterenaren antzekoa. Xabier Mendiguren Elizegi
**Despedidakoan**, ordea, sekula ahantziko ez zituen hitzak esan zion itsuak. Felipe Juaristi
-Bi gauza eskatu nahi dizkizut -esan nion-, **despedidarakoan**. Joxe Austin Arrieta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alabaina, lehenago beste **despedida** ekitaldi bat egin behar digute. Edorta Jimenez
**Despedida** egunean bezalatsu, barneko tristura iluna eta bere ezpainen pozoi gozoaren beharra aipatzen zizkion. Joxemari Urteaga
**Despedida** gaua dela-eta zerbait berezia egitea proposatu zien Frai Joxek. Xabier Mendiguren Elizegi
Ez zen **despedida** musurik egon. Aritz Gorrotxategi
-Bere eskuz idatzitako **despedida** gutun bat aurkitu diagu idazlearen etxean. Joxean Agirre
Aipamen nekrologikoetan ez zen oharkabean pasatu bere etxeko gelan aurkitutako **despedida** oharra. Joxean Agirre

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Esaten nizun bezala, dena Manoloren ezkon-**despedida** ospatu genuen taberna hartan hasi zen. Juan Martin Elexpuru

**4** ***despedida egin***

Bertan **egingo** genuela **despedida** uste nuen, baina Hamedek, ikastetxera joateko gogorik ez eta, lagun egingo zidala esan zidan. Xabier Montoia
Lagun talde batek **despedida egin** zion Olga Senior Ocampori. Pako Aristi
Clinton amerikano presidentak **despedida egin** diote herritarreri telebixtan eman duen mintzaldian. Herria
· **Despeida** bat hunkigarria **egin** diote herriko etxean, kargudun asko bildurik karia hortarat. Herria

**5** ***despedida eman*** kaleratu, bidali. ik **despeditu.**

Biharamunean jakin nuen don Alejandrok kapatazari **despedida** eman ziola. Juan Garzia
Andre Ageda hartaz konturatzen baldin bazen, **despedida** emango zion Ignaziari, eta eskandaluak ez zion atarramentu onik ekarriko neskari. Koro Navarro
· Behatz erakuslea bere ezpain bizartsuetan jarri eta keinu batez **despedida** eman zidan. Matías Múgica

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **despedida eman** (5); **despedida gisa** (3); **despedidako afaria** (3); **eta despedida** (3)

---

# despeditu *(ETCn 42 agerraldi; orobat **despeitu**)*, despedi, despeditzen **1** du *ad* agur esan.

Goizero-goizero, emazteak, musu eman eta gero, "izan dezazula idazketa on bat" esanez **despeditzen** du senarra. Karlos Linazasoro
Anartean, solas hunkigarri batzuekin, kasik nigarra begian, **despeitu** du Bordeleko jendea. Herria
Eskua emanez **despeditu** zuen Pedro Páramok. Juan Garzia
Coca-cola hormatua hurrupatzen genuen hartan, kideak bi musu iheslariz **despeditu** ninduen. Itxaro Borda
**Despeditu** egin ninduen gero, txokolatea dastatzeko astirik eman gabe, Italiako enbaxadorearen zain zegoela argudiatuz. Felipe Juaristi
Nasatik **despedituko** zaituztet, musuzapi zuri batekin. Koldo Izagirre
Emazteak berak **despeditu** zuela moilan, elkarri agur egiten ziotela. Koldo Izagirre
Enborra asto gainetik jaitsi, eta atzera obispoa **despeditzeko** puntuan ginela, Karmen atera zen benta barrutik asaldatuta. Inazio Mujika Iraola
Emaidazue ordu erdi bat lagunak **despeditzeko**. Koldo Izagirre

**2** (da aditz gisa)

-Ba al dakizu nola **despeditu** zen Yolo aitarengandik? -dio Ferminek nire arreta galduaren bila. Pako Aristi
Lagunengandik **despeditu** zen, bere paperak erre zituen, Parisen Providence hotelean hartu zuen ostatu, sastakaia erosi zuen, Marat hil zuen, gizona baineran zegoelarik. Felipe Juaristi
Ikusia ei zuen Sabeth, gu biok Café hartan elkarrengandik **despeditzen** ari ginela, behinola, Parisen. Joxe Austin Arrieta
Denek elkarri esku eman -hainbeste esku-gurutzatzeri barrez-, eta irlanderaz **despeditzen** ziren. Irene Aldasoro
"Hasta mañana" batez **despeditu** zen, formula hori erabiltzeko ohitura zuelako ziur asko. Ramon Saizarbitoria
Gauerdi aldera **despeditu** nintzen. Juan Garzia
Presaka **despeditu** nintzen. Matías Múgica

**3** *ipar* kaleratu, kanporatu, bidali.

Hiru urte barne, France-Telecom etxeak hogoi mila langile eta enpleatu **despeituko** ditu, erretretan jarriko direnak zonbait urte adina bete baino lehen... Herria
Batto aspaldixkoan aipu dena, nagusiek langileak hartzen ahal bi urteko kontratu berezi batekin bainan bi urte horietan langile horiek noiz nahi eta kasik nola nahika **despeitzen** ahal! Herria
2400 langile badirelarik orotarat, zonbait ehun kanporat **despeituko** dituztela, ez dela besterik egiten ahal. Herria
125 kanpotiar papergabe badituzte jadanik Europako lurretarik beren etxe alde **despeituak**, atzerritar horiek gero ta nekezago onartuak diren Europa huntako herrietarik. Herria
Astearte goizean, Chirac presidentak **despeitu** du Jean Pierre Raffarin gobernuburua eta haren ordezko ezarri Dominque De Villepinorai arte barne-minixtro zena... Herria

**4** (gauzei buruz)

680.000 tona burdin eta herdoilki sarrarazi ditu enpresak, aldiz 320.000 tona altzairuzko barra **despeitu** ditu portutik mundu zabalera. Herria
ADA-ko altzairu barrak, errepidez kamioietan igortzeko orde untziz **despeituak** baitira. Herria
Aroa doi bat dudagarri izana gatik proposatuak ziren bi mila sagarno pintak oro **despeituak** izan dira bi oren eta erdi barne. Herria
Esperantza dut Hazparnetik eraman arrengurak laster **despeituko** dituzula, zure sail berriari karraskan lotzeko. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **despeditu egin** (4); **despeditu eta** (3); **despeditu ginen** (4); **despeditu zen** (4); **despeditzera etorri** (3); **despeitu du** (4); **eta despeditu** (4); **urrun despeitu** (3)

**despegatu**, despega, despegatzen da/du*ad* desitsatsi.

Halako batean euli bat **despegatu** zen koadrotik. Unai Elorriaga

despeida ik **despedida**.

despeira ik **despedida**.

despeitu ik **despeditu**.

**despejatu**, despeja, despejatzen du *ad* buruaz mintzatuz, argitu.

Utzidazu pixka batean... burua **despejatu** arte... Pako Aristi

**despektibo** *izond* erdeinuzkoa, mespretxuzkoa.

"Ze istorio klase idatzi duzu?", galdetu zidan kritiko batek, modu nahiko **despektiboz**. Ana Urkiza

Baliteke, baina, Leitzan bertan askori aditua nago, "jitoak bezelaxe zien hunjaroak, eta Albergeko hortan uzten zittuen beren karroak"; esaera **despektibo** moduan ere bai "hau demono hunjaroa" eta gisakoak. Patziku Perurena

**despektiboki** *adlag* erdeinuz, mespretxuz.

*Musiú:* kanpoko edozein, apur bat **despektiboki**. Pako Aristi

**despenalizazio** *iz* zigorgabetzea.

Kalamukien **despenalizazioa**, kirolarien errendimedua ez hobetzeaz gain, kirolarien «gizarte ohituretan» sar daitezkeelako erabaki dute. Berria - Kirola

**despendiatu**, despendia, despendiatzen *(orobat **despenditu**)* du *ad ipar* xahutu.

Beste anitz sailetan ere sosa frango **despendiatzen** da sobera karkulatu gabe. Herria

Biziki estimatzen dute eta nahi dute orai ikus dezagun nola **despendiatzen** duten sos hori. Herria

Orotara 3,7 miliun (eurotan bixtan da) **despendituak** ditu Irulegiko sotoak. Herria

Iraken gerla egun bakar batez **despenditu** den dirua aski izanen zen alta larrepote oldea geldiarazteko. Herria

**despendio** *iz* xahupena.

148.000 euroren **despendioak** bozkatuak izan dira (90.547 euro zirelarik 2003-an). Herria

Gisa oroz, Jean Marie Bousqueten iduriko, ez du **despendioen** emendioak Erien Axurantza Kutxaren diru ziloa esplikatzen. Herria

Tribunalak jakin arazirik ez zela onhartua izan, herriak ez du pusatuko afera bainan bertze molde batean lanean ariko da eta buxetean atxikiko du dirua behar den **despendio** zenbaiti buru egiteko. Herria

Ba omen ditutzue zuen artean "euskalzaleak", edo "abertzaleak" edo holako batzu, beren herriaren maitez, ohiduren amodioz, ikusgarriko lanak, ikasketak, eta **despendioak** ere egiten dituztenak, ez galtzerat uzteko irriskutan diren ontasun batzu... Herria

despenditu ik **despendiatu**.

**despentsa** *iz* jakitegia, janaritegia.

Eta **despentsan** gordeta neukan jateko guztia agortzen ari zen. Jasone Osoro

Gogoan neukan Josureneko **despentsa** gehienetan erdi hutsean, pote bat ilar zuri zegoela aitzineko egunean. Aingeru Epaltza

Korrika eta presaka joan eta **despentsan** zuten guztia jarri zuten anaiek mahaian: ogi apur bat, beste ardo pixka bat eta, bazkaria oparoago egiteko, eltzekari pitin bat sukaldetik. Askoren artean

Sukaldariarekin fidatzen ez zela eta, **despentsako** kontaduriak eta agortzen zihoazen jatenen nondik norakoak ere hantxe seinalatzen hasi zen, denen bistara. Harkaitz Cano

**despertadore** *iz* iratzargailua.

Aurren aurrenekotz, atera bere maleta zokotik eta, **"despertadore"** handi bat ipintzen zuen mahai gainean, kuerda eman ondoren. Patziku Perurena

**despertsonalizatu**, despertsonaliza, depertsonalizatzen du *ad* nortasuna kendu.

Motibo erlijiosoak **despertsonalizatu** zituen [Oteizak], eta irudi estatikoak eduki espiritualeko ontzi dinamiko bihurtu. Berria - Kultura

**despertsonalizazio** *iz* nortasuna kentzea.

Gizarte loturak erortzean, **despertsonalizazioaren** gailurrean, pizten da faroa, edertasunik distiratsuena, eta abentura bitxienetarako aukera. Markos Zapiain

Ados, umeak hazteak, elikatzeak eta hezteak ez dauka preziorik horren aurrean, baina kezkagarria bihurtzen ari da ustez herri aurreratuenetan gertatzen ari den

despertsonalizazioa. Berria - Gaiak

---

# despetxatu *izond* hisiak joa, hisiaduna.

Nik uste dut txorakeria horiek ondo libratzen ez diren idazle **despetxatuen** asmaketa direla, eta ez zaiela jaramonik egin behar. Bernardo Atxaga

---

# despetxo *iz* hisia, arbuioa.

Berak orduan neskarena eta berea, biak jan omen zituen **despetxoz**. Bernardo Atxaga

Egun arraro batez, **despetxo** une batean, Gilles minez lehertu, dena kontatu zion Elisari. Pablo Sastre

---

# despido *iz* kaleratzea.

PSOEko gobernuak hasi zuen gero PPk areagotu duen eskubideen murrizketen bidea; **despido** librea ez zuen PPk ezarri, PSOEk baizik. Berria - Euskal Herria

Iritsi berria zen bulego hartara **despido**-kartaren bila eta orain bere aurrean zeukan nagusia esanez bera zela elementurik egokien eta prestatuena. Joxemari Iturralde

---

# despieze *iz* ataltzea.

Eta **despiezean**: "lehenbiziko bilbotarra". Iñigo Aranbarri

---

# despilfarratu, despilfarra, depilfarratzen du *ad* irion, eralgi.

Eta hiru andre zahar dauden lekuan hiruretako bat kariñoa **despilfarratzen** hasten bada, beste biek ere kariñoa **despilfarratzeko** joera izaten dute. Unai Elorriaga

**Despilfarratzea** zen hori. Unai Elorriaga

---

# despilfarro *iz* iriotea, eralgitzea, eralgiketa.

Bada, **despilfarro** hori, gauzak ondo eta serioski programatuz geroz, ez zen gertatuko. Patziku Perurena

---

# despistarazi, despistaraz, despistarazten du *ad* arrastoa galarazi.

Georgek **despistarazi** egin zuen beste kirats-bonba bat botata, nik bizkor kaxoia ireki eta hartu egin nuen... hauxe. Iñaki Mendiguren

---

# despistatu, despista, despistatzen 1 da/du *ad* bidea galdu edo galarazi.

-Galdu egin naiz; ikasle batekin bere baserrira joan eta **despistatu**, horixe gertatu da. Joxean Sagaztizabal

-Orain bai, orain bai -gogoratu zuen osabak ere-, Jokin esatean **despistatu** nauzu. Joxemari Urteaga

Talde berri horren sartzeak pittin bat **despistaturik** utzi zuen Rekexo. Joxemari Iturralde

Baina telebistako dokumentalak zaharrak dira askotan eta **despistatu** egiten naute. Unai Elorriaga

-Tira, tira; ez segi ni **despistatzen**. Xabier Olarra

Ez nuen estudiante-garaitik ikusten, eta ni bezain **despistatuta** -edo harrituta, edo gogaituta- dagoela dirudi. Iban Zaldua

**2** arreta galdu edo galarazi.

Eta pentsatzen zuenean apur bat **despistatzen** zenez, ihes egin zion kopak eskutik halako batean eta Rosarioren balkoiko lorontzian lehertu zen. Unai Elorriaga

Altua **despistatu** zen une batean, *Prostatas* delakoa hurbildu zitzaidan, eta zera esan zidan, ahapeka, etzaiok beltzari sarrerarik erosi, nik merkeago saltzen dizkiat. Jon Alonso

**3** arrastoa galdu edo galarazi.

Azkenean **despistatu** nuen pelma hura ere. Harkaitz Cano

Atariko atezaina **despistatu** ondoren, larruzko berokia goraino igo, eguzkirako betaurreko handiak ipini eta ezer gertatu izan ez balitz bezala irten egin nintzen. Sonia Gonzalez

Espainiako Gobernuak ETAren argudioa jarri zuen martxan iritzi publikoa **despistatu** eta ezker abertzalea jomugan jartzeko. Berria - Euskal Herria

Gero, gainera, **despistatzeko** ere egiten nian; komandoetan genbiltzanok amarru gisa jokatzen genian hala. Juan Kruz Igerabide

Berez liburu gehiago publikatu zituen E.H. Beregorrek baina, bost horiek kenduta, **despistatzeko** ziren beste guztiak. ezberdinegia batzuetan, jendea **despistatzeko** modukoa. Unai Elorriaga

Ez hadi kezkatu -erantzun nion ardoari tragoxka bat emanez, **despistatzearren**. Joxemari Iturralde

**4** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Tipo **despistatu** samarra izan liteke, eta honen trakeskeria xarmagarri iruditu neskari. Xabier Mendiguren Elizegi

Arestian poeta **despistatuen** topikoaz mintzatu naiz. Joan Mari Irigoien

Agian hauek orduko "intelektual" **despistaturen** baten fantasiak besterik ez zirela pentsa dezake norbaitek. Joseba Zulaika

Alabaren keinu **despistatuak**. Iban Zaldua

A zer nahaste-borrastea datekin! ni baino **despistatuagorik**! Patxi Iturritegi

Bigarren platera hasi berria nuen eta gurutzegramarekin jarraitzen nuen **despistatuarena** hobeto egitearren. Joxemari Iturralde

Aurrean zuen **despistatu** itxurako gorbatadun bitxiaren solemnitateaz harrituta. Juan Luis Zabala

Agintariek berehala ikusi zuten irakasle **despistatu** itxurako preso hark zekalea palaz pilatzen baino lan probetxuzkoagoa egin zezakeela bulegoetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **despistatu eta** (7); **despistatu eta** (7); **despistatu samar** (3); **despistaturen bat** (6)

---

# despiste 1 *iz* oharkabea, bide-galtzea, arrasto-galtzea.

Barruan behar zuten pasarte batzuk kanpoan geratu dira, azken orduko **despisteak** tarteko. Berria - Kultura

Erabakigarria izan zen Bettini ehiztariaren **despiste** txikia, helmugako marran oso gutxigatik irabazi baitzuen Saunier Duvaleko txirrindulariak. Berria - Kirola

Inoiz **despiste** politak ikusi izan ditugu egunkarietan. Pello Zabala

Zure **despistearen** ganduan itsu-makila bilakatu zen, oasis bat. Eider Rodriguez

Igande batean, mezatara zihoan aitzakian eta kartzeleroaren **despisteaz** baliatuz bisita egin zidan Akelarrek. Jokin Urain

**2** (hitz elkartuetan)

**Despiste** keinua ahalegindu da irudikatzen. Sonia Gonzalez

---

**despit** **1** *iz* hisia, arbuioa. ik **hisia 2**.

Ezin ukatuko dut Adaren **despitak** min eman zidala. Anjel Lertxundi

Nik ez dakit zinezkoa edo **despit** hutsezkoa izan zen amorio hura. Joan Mari Irigoien

**2** *-en **despit** -a* gorabehera.

Bere grazia emekararen **despit**, bortitz eta ausikikorra zuen ahotsa. Juan Garzia

Badirudi berotasunak apur bat lasaitu zuela, lo sakona egin baitzuen, kaleko zarata gorabehera, eta nik alde egin beharrari zion beldurraren **despit**. Joxe Austin Arrieta

Asaldagarria da nolabait, Horkheimer eta Adornoren **despit** moderniaren mitoak nola arrakalarik txikiena gabe dirauen Euskal Herriko progresian. Joxe Azurmendi

---

**despitatu** *izond* arretagabea; galdua.

Aski bailitzateke emakumezko turista **despitatu** bakar bat Azpilgo elizan bere gona motzekin sartzea, guztia hankaz gora jartzeko... Joan Mari Irigoien

---

**desplazamendu** **1** *iz* higitzea, lekualdatzea.

Afrika ekialdeko kostaldeari ere eragin zioten eta orotara milioi bat pertsona baino gehiagoren **desplazamendua** behartu zuten. Berria - Harian

Dagoeneko 16 lagun dira presoak bisitatzeko **desplazamenduetan** hildakoak. Berria - Harian

Historia berriaren ezaugarri funtsezkoenetako bat jarraitasun-ezaren **desplazamendua** da. Xabier Arregi

Kontzeptuen **desplazamendua** eta eraldatzea. Xabier Arregi

Nabokov ere, apika, liburu perfektu, infinitu, inoiz akaburik izango ez zuen hartaz ari zen - **desplazamenduz**, translazioz, esango genuke -, bere beste zaletasunean jarduten zuelarik. Iñaki Iñurrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Gerra Hotzaren bukaeraren ondotik piztutako edota azaleratutako gatazka etnikoek eragindako populazio **desplazamendu** handiei aurre egin nahian. Berria - Harian

Nik aurrera eta atzera egiten ditudan saltoak eta narratzailearen ikuspuntu-**desplazamenduak** ez dira estetika hutsa, edo joko nostalgikoak. Txillardegi

---

**desplazatu**, desplaza, desplazatzen **1** da/du higitu, lekualdatu.

Gorputzaren grabitate zentroa ezari-ezarian **desplazatzen** da higidura emearekin batera. Iñaki Iñurrieta

Nazio Batuen Erakundeak bildutako eta Irakeko Gobernuak zabaldutako datuen arabera, eraso sektarioen ondorioz 30.000 irakiar baino gehiago **desplazatu** dira. Berria - Mundua

Bi milioi lagun **desplazatu** ziren eta soilik 200.000 erbesteratu. Berria - Harian

Oihal zatiak bezala harrotu eta **desplazatzen** diren basamortuetako axal belo sotilak. Harkaitz Cano

Pinporta biribil bat, gotorra, egun batetik bestera milimetro batzuk **desplazatu** zena, aurpegian behera. Unai Elorriaga

Banaketa hesiak jada 15.000 palestinar jaioterritik **desplazatzera** behartu ditu. Berria - Mundua

**2** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Munduko 23,7 milioi **desplazatuen** krisi larriaz ohartarazi du NBEk. Berria - Mundua

Hamalau milioi **desplazatu**, hilko dituzten beldurrez bizi direla salatu du txostenean. Berria - Mundua

200.000 lagun hiltzeaz gain, 1,5 milioi **desplazatu** eta errefuxiatu eragin zituzten. Berria - Mundua

NBEk salatu du banaketa hesia beste **desplazatu** uholde bat eragiten ari dela. Berria - Mundua

Hondamendi handiek milioika pertsona bihurtu dituzte errefuxiatu edota barne **desplazatu**. Berria - Harian

Kolonbiako **desplazatuen** bizi-baldintzak hobetzeko egitasmoa. Berria - Gaiak

Irakeko **Desplazatu** eta Migrazio Ministerioak datu kezkagarri bat jakinarazi zuen atzo. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **barne desplazatu** (3); **desplazatu eta** (3); **eta desplazatuak** (3); **milioi desplazatu** (4)

---

**desplazer** *iz* plazerrik eza.

Nahigabe edo **desplazer** handi baten ondoren, halako ezinegona sartzen zitzaidan gorputzean. Joan Mari Irigoien

-Plazeraren ondotik **desplazera** duzu... Itxaro Borda

Zeren plazerrarekin itsutzen denak edireiten baitu azkenean **desplazerra**, eta zeren aski plazer baita, bertzenaz ere, oinazerik ez izaitea... Joan Mari Irigoien

Taldeak, multzoak, saldoak norainoko **desplazera** pizten dion bazekien lehenagotik. Aingeru Epaltza

Emakumeak, kopeta ilundurik, **desplazerezko** imintzio bat egin zuen. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desplazera duzu** (4); **ondotik desplazera duzu** (3); **plazeraren ondotik desplazera** (3)

---

**desplazu** *iz*

Zirela ordezkoek beren armak soinean egokitzean sorturikoak, zirela haien mugimendu bakoitzak jantzi eta botei erantsitako uhal eta abireta muturreko burdin-ziriak irabiatzean sorturikoak, zirela haien **desplazuek** furgoien ateetako erro eta kisketak bortxatzean sorturikoak. Pedro Alberdi

---

**desplegatu**, desplega, deplegatzen da *ad* zabaldu, tolesgabetu.

Behar den denbora hartuz, **desplegatu** zuen eta irakurtzen hasi zen: [...]. Daniel Landart

Denbora ematen zuen etzaten, SNCFko ohe hertsien mihise bereziak **desplegatzen** eta kotoi arruntezko estalia ez hozteko moduan hedatzen. Itxaro Borda

**desplomu** *iz* desoreka.

Noiz arte iraün dezake desoreka, **desplomü** horrek? goiz edo berant, praubeen kexüak atakiko dü iparraldeko jente xurien mündü aberats hau. Herria

---

**despojatu** *izond* soildua.

«Bilutsa, **despojatua** », iruditu zitzaion, «ezabatzearen otoitza, otoitz isila». Berria - Kultura

---

**despojo** *iz* utzikina, hondarra.

Ametsaren **despojoak** gogoratu eta beste alferreko gogoeta batzuk egin ondoren, manta artetik atera zituen oinak. Unai Elorriaga

---

**despolitizatu,** despolitiza, despolitizatzen **1** du *ad* izaera edo eduki politikoa kendu.

Mota honetako azpiegituretan auziak **despolitizatu** egin behar dira. Berria - Euskal Herria

Azken batean, EAJk **despolitizatu** zuen prozesua, PSOEri babes handia eman baitzion eskaera bakarrarekin: borroka armatua bukatzea. Berria - Harian

**2** (era burutua izenonodo gisa)

Jarduera militarrak militante **despolitizatuak** sortzen omen zituen, eta emaitzek ez zuten egin beharreko sakrifizioa merezi. Rafa Egiguren

---

**despolitizazio** *iz* despolitizatzea.

Azken bi hamarkadetan sistemak aurrera eramaniko gizartearen **despolitizazioa** [...] harrigarria da egun Euskal Herriak duen gazte mugimendua izatea. Berria - Euskal Herria

Vital Kutxaren **despolitizazioaren** aldeko apustua egin behar dela gaineratu zuen Rojok. Berria - Ekonomia

---

**despopulatu,** despopula, despolupatzen **1** du *ad* biztanleriarik gabe utzi.

Inperioaren berezko gizarte-gaitzen batengatik **despopulaturiko** lurretan. Iñaki Mendiguren

**2** (era burutua izenonodo gisa)

Herri **despopulatua** zen, eta apenas aldaketarik gabe eutsi zion herriak bere arkitekturari, makinek bota zuten arte. Edurne Elizondo

Espazio publikoak eta pribatuak talka egiten dute bertan, gizabanakoak eta jendetzak, mugikortasunak eta mugikortasun ezak, gune urbanizatuek eta **despopulatuek** , ordenak eta anabasak. Berria - Kultura

---

**despopulatze** *iz* biztanleriarik gabe uztea.

**Despopulatzearen** patuaren alternatiba gisa. Iñaki Mendiguren

---

**despopulazio** *iz* biztanleriarik gabe uztea.

Hainbat herri berez hustu ziren 50eko hamarkadan; beste batzuetan, Itoitzen, Artozkin edo Muniainen, beste fenomeno paralelo bat gertatu da: eragindako **despopulazioa** . Edurne Elizondo

50eko hamarkadan gertatu zen **despopulazioa** . Edurne Elizondo

---

**desposesio** *iz* posesiorik eza.

Gertatzen da halako mendean-hartzerik, posesio edo **desposesiorik** , lobulu tenporaleko epilepsia duten batzuengan. Xabier Olarra

---

**despota** **1** *iz* ankerkeriaz eta nagusikeriaz agintzen duen pertsona. ik **tirano**.

**Despota** hau, Asiako bitxienetarikoa, emakumez bakarrik osatutako guardia batek zaintzen zuen; keinu hutsez ematen zituen aginduak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beti garbi izan ezazue erlijioak despotismoaren sehaska direla; lehenengo **despota** apaiza izan zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gure lehengo legegileek, eraitsi dugun **despotaren** esklaboak, tirano haren neurriko legeak utzi dizkigute, eta oraindik ere hura lausengatzen segitzen dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jose II.a Mendebaldeko munduko **despota** ilustratuetako bat izan zen Frantziako Iraultzaren aurreko belaunaldian. Iñaki Mendiguren

Charvet zen taldeko **despota** , hura baitzen bai larderiatsuena, bai eskolatuena. Karlos Zabala

**Despota** baten krudelkeria ez dagoelako indarraren tamainan, oztopoenean baizik. Juan Martin Elexpuru

· Dokumentuak zazpi herrialde jotzen ditu **despotatzat** : Ipar Korea, Iran, Siria, Kuba, Bielorrusia, Birmania eta Zimbawe. Berria - Mundua

**2** (izenondo gisa) ik **despotiko.**

Estatu libre bateko hiritarrak ezin du erregе **despota** baten esklaboen antzera jokatu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Inurriak, [...] menpean dituen izaki **despota** eta gaiztoa hiltzen ari dela ikustean helmuga eta helbururik gabe ibiltzen hasi eta beren burua Heriori eskaintzen dioten moduan, halaxe hasi ziren Sauronen izakiak. Agustin Otsoa

Arrazoimen **despota** horri muzin egin diote, ordea, Herder-ek, erromantizismoak, positibistek, antropologoek... Joxe Azurmendi

**3** (hitz elkartuetan)

Beti iraun zion bere zakur egurtu itxura horrek; halere, guregan eta, batez ere, gure amarengan husten zuen bere indar burlati eta tematia, bere **despota** -indarra. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> despota baten (3)

---

**despotia** *iz* despotismoa.

K. a. 3000. urte aldera hasi eta gotortuz joan diren **despotia** teknologikoek [...] eragindako bortxakeria itzel eta bizitzaren sarraski itxuragabekoen aurka sortu diren mugimendu anitzetako bat da budismoa. Joxe Azurmendi

---

# despotiko *izond* despotari dagokiona, despotismoan oinarritzen dena.

Zigorren gogortasuna izuan oinarritutako gobernu **despotikoei** komeni zaie batik bat. Juan Martin Elexpuru

Nola kanbioak traba egiten dien estatu **despotikoei**. Iñaki Iñurrieta

Hori egia da batez ere inperio **despotiko** handietan:Erromatar probintziak gobernu-era **despotiko** eta gogor batek sakailatuta zeudela. Iñaki Iñurrieta

Sila bezalako diktadore **despotiko** baten bitartez. Juan Martin Elexpuru

Saguen alderdiko kazike liberala don Juan zen, tipo basati, **despotiko**, gorputz eta indar handikoa. Josu Zabaleta

---

# despotikoki *adlag* era despotikoan.

Zalantzarik gabe eta **despotikoki** hitz egiten zuen; grazia handiz kontatzen zituen istorio berdeak, iruzkin zakarrak eragiten zituztenak. Josu Zabaleta

---

# despotismo 1 *iz* legeek mugatzen ez duten gobernu era.

Tiranoen **despotismoaren** biktima izan naiz hamar urtez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Estatuak eskatzen du ordena hori finkoa izan dadila, **despotismoan** gertatzen diren zorigaitzak gerta ez daitezen, han, dena arbitrarioa denez, dena baita ziurgabea. Iñaki Iñurrieta

Askoren **despotismoa** ezin daitekeelako zuzendu bakar baten **despotismoarekin** baizik, eta despota baten krudelkeria ez dagoelako indarraren tamainan, oztopoenean baizik. Juan Martin Elexpuru

Ohorea, beraz, **despotismo** mugatuko monarkien oinarrizko irizpideetarikoa da. Juan Martin Elexpuru

Espero dut gure irakurle argituek ulertuko gaituztela eta ez dutela nahastuko **despotismo** politiko zentzugabea, libertinajearen irriken **despotismo** txit lizunarekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** nagusikeria.

Batetik apaizen harrokeriak, tiraniak eta **despotismoak** [...] eta bestetik arrunkeriak, ikuspegi motzak eta erlijio doilor eta asmaziozale horren dogma eta misterioen txepelkeriak, laster kamustuko lukete arima errepublikarraren fiertasuna. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Askatasun politiko mugagabean eta menpekotasun mugagabean desagertu egiten dira ohorearen ideiak [...] lehenean, legeen **despotismoak** alferrikakoa egiten duelako besteen oniritziaren bila ibiltzea; bigarrenean, gizonen **despotismoak**, existentzia zibila ezabatzen duelarik, ahuldu egiten duelako. Juan Martin Elexpuru

Garai honetan hasi zen iritziaren **despotismoa**, hau baitzen besteengandik onurak lortzeko eta legeek aurreikusten ez zituzten kalteei ihes egiteko bide bakarra. Juan Martin Elexpuru

Tiranoen **despotismo** nardagarriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan)

Naturak gizonari bere bihotzaren sakonean jarri dion **despotismo** dosia askatzeko dauden bide sekretuak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** ***despotismo ilustratu***

Guk mundu guztiaren parte-hartzea nahi dugu; Ibarretxek, berriz, gutun bat soilik eman digu, **despotismo ilustratuan** egiten zen moduan. erabakiak Salomonek, **despotismo ilustratuaren** beste adibide horrek, bezain ongi hartzen jakin zuela, tesi guztiak plan estrategiko bakarrean uztartuz, denak hurrenez hurren, harmonian eta era lojikoan paratuz.Orduan nazioen nazioari, herrien herrialdeari 200 malko isuri eta malkoak odol tanta bihurtu ziren, antzinako **despotismo ilustratu** katolikoaren aztarnek Al-Andaluseko amesgaiztoa topatu zutenean. Berria - Euskal Herria

**Despotismo ilustratuak** dagoeneko ez dauka inongo baliorik arlo horretan, edozer egin baitaiteke emakumeen alde emakumerik gabe.· Arrazionaltasunaz trufatzen den azalkeriaren **despotismo** ez **ilustratua**. Berria - Euskal Herria

---

# despreokupatu, despreokupa, depreokupatzen da *ad* ezaxolatu, arduragabetu.

Euskal Herrira besterik gabe atsegiteko egin duen etorreran, **despreokupatuta** egin duen bidaian, preokupazio batzuek eta kezka ideologiko batzuek menperatu dutela, eta hori obran ere nabari dela. Koldo Izagirre

---

# despresentifikatu, despresentifika, despresentifikatzen *ad*

Eurak **"despresentifikatzea"**. Xabier Arregi

---

# desprestigiatu, despretigia, despretigiatzen da/du *ad* prestigioa galdu edo kendu.

Londresko Gobernua, bere aldetik, saiatu zen BBC bera **desprestigiatzen**. Txema Ramirez de la Piscina

Borrokan kontsekuenteenak direnak **desprestigiatzeko**. Jon Alonso

---

# desprestigio 1 *iz* ospe galera, prestigio galera.

Politika profesionalaren **desprestigioak** punturik gorena erdietsi du azken urteotan mundu osoan, inoizko jardun publikorik nobleena izan zitekeena arimarik gabeko marketing-ariketa huts-hutsa bihurtu da. Txema Ramirez de la Piscina

Kontrarioen **desprestigioa** bilatzen zuten trapu zikinak airera atera.Hegelen ostean, erlijio kristauaren **desprestigioa** gainditu, kontratik bada ere, leku berria aurkitzen lagundu zuten autore horiek. Jon Alonso

**2** (hitz elkartuetan)

Berrehun urte iraun duen **desprestigio** kanpainaren ondoren, Sade zuzenean, etiketa eta irizpide horien eraginpean irakurtzea, geure burua urlasterraren esku uztea izango litzateke ia ezinbestez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# despreziadore *iz* gutxiesten duen pertsona.

Konparazio bateko, **"despreziadore"** sano baten karta:... Patziku Perurena

---

# desprezio *iz* arbuioa, mespretxua. ik **erdeinu**.

Aurreko txandan, Orixeren **"desprezioak"** entenitzen saiatu gabe eskandalotzat hartu dituen herri baten mixeria aipatzen nuen. Patziku Perurena

---

**despribiligiatu**, despribiligia, despribiligiatzen du *ad* pribilegioak kendu.

Euskaldunak (eta euskaldunaren antzera dagoen edozeinek: dadila norbait Baionan lesbiana, ala luteranoa Iruñean), bera **despribilegiatzen** duen sisteman, arinago erreparatzen die sistemaren puntu flakoei, eszeptikoago egoten da harenganako. Joxe Azurmendi

---

**desproportzio** *(orobat* ***desporporzio*** *g.er.)* *iz* proportziorik eza.

Zenbait kontakizunek diotenez, Bantam-en hamar neska omen daude mutil bakoitzeko; horrelako **desproportzio** bat gehiegizkoa litzateke: famili kopurua, beste klimetako kopuruen aldean, bat eta bost eta erdiren arteko proportzioan egotea ekarriko luke. Iñaki Iñurrieta

Hain da deigarria **desproporzioa** ! Pako Aristi

---

**desproportzionatu** *(orobat* ***disporporzionatu*** *g.er.)* *izond* heinetik kanpokoa, neurritik kanpokoa.

Mekanikoen jefea gizon **desproportzionatua** zen. Unai Elorriaga

Sabai garaiak, horma osoko leihate arkudunak, eta haritz eta pago zurez eginiko eskailera monumentala, zertxobait **desproportzionatua** akaso baina barne-espazioaren osotasunari halako ukitu dotorea ematen ziona. Patxi Iturritegi

Proposaturiko tesi eszeptikoa kolokan jartzeko, Humek "bikote **desproportzionatuen"** edo "erabat kontrako buruen" argudioa erabili zuen: bi artelan guztiz desberdinak aukeratu eta gero, bata argi eta garbi bestea baino balio handiagokoa dela jakiteko, frogapean jartzen dira. Askoren artean

Horrek esplikatzen du dugun dinamika, dugun sare komertzial **disproporzionatua** . Berria - Euskal Herria

---

desproporzio ik **desproportzio**.

---

**despuztu**, desputz/despuztu, despuzten da/du *ad* hantua edo puztua dagoena hustu. ik **hertu**.

Aurpegia errauts-koloreko orbainez beteta zeukan eta bere itzelezko soin haragitsua globo baten gisan **despuzten** hasi zitzaion. Lopez de Arana

---

**desregularizazio** *iz* desarautzea.

Malgutasun arautua nahi dugu eta ez enpresak nahi duen lanaldiaren **desregularizazioa** . Berria - Ekonomia

---

**destaina** **1** *iz* erdeinua, mespretxua.

Une hartan ez zegoen Adaren **destaina** , edo Adaren barrea, edo Adaren erantzun axolagabea baino ukendu ozpingarriagorik nire egoera minarentzat. Anjel Lertxundi

Txiroen minaren eta itzalik ezaren aurrean, aberatsek soraioa eta are **destaina** beste erantzunik ez dute. Lopez de Arana

Agintearekiko urrutiramendua eta diruarekiko **destaina** . hala, fede zaharraren zamaz libraturik, aurre egin ahal izan zien ingurukoen ezinikusi, **destaina** eta zitalkeriei. Joxean Agirre

Badakidala alegia, inori putakumea esatea, goraipatu nahian esaten zaionean ez dela **destaina** . Patxi Ezkiaga

Keinu hartan ez zegoen inolako **destainarik** ez kontu-hartzerik. abadeek **destainez** inpernukoak deitzen zituzten hauspoak esku artean. Anjel Lertxundi

Poliziaz pentsatzen zuenean sorbaldak jaso, edo **destainezko** keinu bat egiten zuen ahoaz. Josu Zabaleta

Husainek, aitaren **destainek** gogaiturik eta pazientziak errea, esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

-Bakarrik egin ezak orduan -gainezka egiten zion **destainak** -. Aingeru Epaltza

**2** (aditzen objektu gisa)

Richardek mendeku gosea eta **destaina** zituen orain begietan. Harkaitz Cano

Egingo nuke, oker handirik esateko beldurrik gabe egin ere, **destaina** ziola ez Italiari bakarrik, baita italierari ere. Anjel Lertxundi

Min emanen lidake Roselliri **destaina** eginen balio. Fernando Rey

Ez ordea Jaungoikoa ukatzeagatik, Jaungoikoari **destaina** egiteagatik baizik. Koldo Biguri

"Jar zaitez ba zeu sukaldari!" esan zidan erdi **destaina** egiten zidala. Koldo Izagirre

Herriko jendeak lehenengo printzeari [...] errespetua eta begirunea zor zion bezala, bigarrenari **destaina** eta mesprezua besterik ez ziola erakusten. Felipe Juaristi

Antzeman nion **destaina** , nork eta nik, bat-batean, zerekin eta argazki batekin halako interesa agertzeagatik [...] baina aldizkariarentzat inoiz lan egin zuen argazkilari baten izena eman zidan azkenean. Alberto Barandiaren

Nk baino hobeto ezagutzen dituzu zure arrebak edo zure amak jasan behar izan zituzten **destainak** eta irainak. Anjel Lertxundi

**3** (izenondoekin)

Senar-emazteen arteko ezkon bizimodua jasanezina izan daitekeela bizitza garratz, **destaina** gogor, eguneroko mesprezu, kontraesan jarraiko, zorrotz eta doilorrak tartean badira. Erakusketaren zuzendariak eta bertako enplegatuek **destaina** ergelez hartu ninduten. Andres Urrutia

Judu mugigaitzek harrigarriro arrakastatsua zen kristautasunari buruz agertzen zuten **"destaina** sakon egonarritsu" hori. Iñaki Mendiguren

Ea zertarako, galdetu zion Duffy jaunak, **destaina** zaindu batez. Irene Aldasoro

Halako **destaina** bizi zorrotz batez. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan; orobat **destain** g.er.)

Kexatu da, **destaina** puntu batez. Anjel Lertxundi

**Destaina** keinu nahi gabea atera zitzaion ustekabean da Ruari. Felipe Juaristi

Ahoa, ezkerrerantz apur bat okerturik **destain** -imintzio moduko batean, ebaki bat bezalako mehar-zorrotza zen. Juan Garzia

Leihora aterea ikusten nuen, niri begira bere begi erdi itxiekin, **destaina** eta atsekabe ezpainekin, ile beltzarana mutilen modura moztua zuela matrail beltztuen inguruan. Fernando Rey

Hor nonbaiten ibiliko duk liburua - **destaina** itxurak eginez esan nion. Edorta Jimenez

**5** ***destaina-aire*** *(orobat* ***destainaire****)*

Lehorrean gertatzen zenari halako **destaina** aire batez eta erruki puntu batekin begiratzen zion. Edorta Jimenez

**5a** (adizlagun gisa)

-Gutiesten nauk, Edu - **destainaire** -. Aingeru Epaltza

**6** ***destaina egin*** ik **destainatu**.

Min emanen lidake Roselliri **destaina eginen** balio. ez ordea Jaungoikoa ukatzeagatik, Jaungoikoari **destaina egiteagatik** baizik. Fernando Rey

"Jar zaitez ba zeu sukaldari!" esan zidan erdi **destaina egiten** zidala. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **destaina eta** (6); **destainaz begiratu** (3); **destainaz eta** (5); **eta destaina** (3); **halako destaina** (3)

---

destainaire ik **destaina 5**.

---

# destainaka *adlag* destaina eginez.

Hasieran beldur zen anaiari nahigabea emango ote zion, jale txikia baitzen hura, janari onez **destainaka** baizik mintzatzen ez zena gizon ezjakinen gisan. Karlos Zabala

---

# destainatsu *izond* destaina erakusten duena.

Iniziazio horrek hartzen zuen gauzatze-moduan, ordea, gogorkerian gogor, aise ezagutu zitekeen P.ren gogobide **destainatsua**, distantzia hierarkikoak markatzeko eta ikasleon artaldea laidozko makilapean erabiltzeko grina hain bere hura. Juan Garzia

---

# destainatu, destaina(tu), destainatzen du *ad* destaina egin.

Egin dezagun, destainaz **destainatzen** ditugun espainol horiek, ez ditugula **destainatzen**; eta euskaldunok mespretxuz mespretxatzen gaituzten horiek, jada ez gaituztela mespretxatzen. Joxe Azurmendi

Ilustrazioa [...] historia memeloputz horretantxe dago kokaturik, [...] literatura nordiko ez-grekolatino "barbaroak" ere goitik behera **destainatuz** bere gehiagotasun klasizista burgoitik. Joxe Azurmendi

Positibismo eta razionalismoa **destainatzen** ari da, errekara botatzen modernitatea, progresoa mespretxatzen, intelektualismo "transpirenaikoa" erdeinatzen, Espainiari lehenago berak aldarrikaturiko europeizazioaren lekuan balio eternal erlijioso eta mistikoetara hots egiten. Joxe Azurmendi

---

# destajuan *adlag* buru-belarri.

Mendebaldeko ehungintza-hiri guztien inguruetan, merkatariek, **destajuan** lan egingo zuten eta hiriko langileek bezalako eskariak egingo ez zituzten langileen bila, iruleak eta ehuleak milaka errekrutatu zituzten. Horregatik esaten da euskal presoen kolektiboan **destajuan** irakurtzen dela, harrapazka irensten dela letra inprimatu oro, eta idatzi ere erruz egiten da, etengabe, gutunak batez ere. Koro Navarro

---

# destakamendu 1 *iz* bereizitako tropa.

Memento hartan, tatariarren **destakamendu** bat plaza nagusitik irten eta une bat lehenago Mikel Strogoff eta haren laguna ibiltzen ari ziren karrikan sartu zen. Karlos Zabala

Armada osoa zen edo **destakamendu** bat? Karlos Zabala

Zalditeriako **destakamendu** bat duk, Omsk aldetik datorrena -esan zuen bere artean. Karlos Zabala

Botere zentrala Adjaria inbaditzeko **destakamendu** militarrak eratzen ari da. Berria - Mundua

Zaldi uzbekak ez zeuden prestaturik, eta Mikel Strogoffek alde pixka bat kendu zien **destakamenduko** zaldizkoei. Karlos Zabala

**Destakamenduko** burua berehala etorri zen, tiro hotsa entzutean. Karlos Zabala

Behinola, gotorleku horietan kosakoen **destakamenduak** izaten ziren, herrialde hura bai kirgizen kontra bai tatariarren kontra babesteko. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Bukharako gerlari **destakamendu** bat zen, Omsk aldera zihoana hiria ikuskatzera. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **destakamendu bat** (7); **tatariarren destakamendu** (3)

---

# destakatu, destaka, destakatzen 1 da/du *ad* nabarmendu.

Uholdeak sarritan beren azioak egiteaz gainera, ekaitz eta tximist-oinaztuen kronikak dira maiatzaren akorduan **destakatzen** direnak. Pello Zabala

Eta errealitatearen interpretazio molde razional bat **destakatu** behar zuena, errealitatearen uko bihurtzen da, salto mortale logiko batean arrazoia hermeneutikatik ontologiara jauzaraziz. Joxe Azurmendi

**2** destakamendu batean egon.

Bi polizia haiek, "munduko leku bakartiena" zen Ellesmore hartan **destakatuta** ei zeudenak, pertsonaia nagusi ziren Ottawako pubetan kontatzen ziren txisteetan Bernardo Atxaga

---

# destape *iz*

Ez pentsa, hala ere, porno gogorra ikusten genuenik; erotismo txatxua zen gehienetan, Espainian ***destape***-aren urteak zirela eta. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# destartalatuta *pred* zaharkitu eta matxuratuta.

Ehun urte inguru ditu pianoak eta seko **destartalatuta** dago. Harkaitz Cano

---

# destatu, desta, destatzen 1 du *ad* su arma bat, begiak eta helburuak eratzen duten lerro zuzenean ezarri.

**-Destatu**! Iñigo Aranbarri

Errebolberra **destatu** eta katua sakatu zuen, azkenik. Harkaitz Cano

Katxok, ostatuko izkinatik, fusila jaso zuen, **destatu** zuen; eztanda bat aditu zen, eta Martinek, bizkarrean zauriturik, balantza egin zuen, Ohando askatu eta lurrera erori zen. Koro Navarro

Karlosek, ezinegonez, hostoen soinua aditu zuenean, **destatu** eta tiro egin zuen. Koro Navarro

Fusila hartu du eta iheslariaren aldera **destatu** kontu handiz. Karlos Zabala

Pistola atera nuen, J ipintzen zuen bala sartu, ispiluaren aurrean jarri eta bihotzera **destatu** nuen, eskuaz tinko eutsirik. Juan Kruz Igerabide

Sabelera eta saihetsetara **destatuz** ipini zizkidaten pistola eta fusilak, ziztatuz eta tiro egin eta hilko nindutela mehatxatuz. Jokin Urain

Phips-ek, kanoiak kargatzeko agindu, lehorrean matxinaturiko eskifaiarantz **destatu**, bere gizon "ustel" guztiak bazter mortu hartan utzi, eta han abiatu zen ostera zenbait marinel leialekin. Juan Garzia

Bere makila magikoa zuzen-zuzenean haren bihotzera **destaturik**. Iñaki Mendiguren

Udaletxearen aurrean, oinak lurrean tinko finkaturik, gure aurka **destatu** zituzten fusilak. Joan Mari Irigoien

Gizonak errebolber bat **destatu** zuen bere ahoaren kontra. Lopez de Arana

Amildegi bat dago egunen batean hilko garela jakitearen eta begi aurrean guztiaren amaiera ikustearen artean, pelotoia armak **destatuz**, beste inork baino hobeki adieraziko du diferentzia lehen aldiz mirakuluz bezala itzuri eta gero. Jon Alonso

**2** irud/hed

Gure argazkilari Patxiren mototsa, bizpahiru kamera lepotik dilindan; haur josteta batean bezala, hamabortz-hamasei pauso guztietan brastako batez itzuli eta bere tramankuluren batekin **destatzen** zuen bere gibelera, hilkutxa garraiatzen zuen orgatila koadroan zarratu nahirik. Aingeru Epaltza

-Ikusi norekin topatu naizen -haren hatz luzeak nire andrea **destatu** zuen-. Aingeru Epaltza

Fionnek ezpata jaitsi zuen amildegiaren hondora **destatu** arte. Joanes Urkixo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **destatu eta** (3); **destatu zuen** (6)

---

## **destenore** *iz* tenore desgokia. ik **desgarai**.

Hori guztia **destenorez** eta itzulbiderik ez zegoela gogoratu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Igandea izanik, **destenore**, inondik ere, inora deitzeko. Aingeru Epaltza

Ez diat galdetuko zertan henbilen han halako **destenorean**, bai baitakit hi bezalako zaldun batek ez lukeela sekula bere konkisten berri emanen... Alberto Ladron Arana

Gogaiturik zegoen, nonbait, halako **destenoretan** bizkar gainera etorritako lanarekin, eta lehenbailehen bururatu nahi zuen egitekoa. Aingeru Epaltza

Hortxe, kamioneta zahar berde **destenoreko** horretan. Aingeru Epaltza

Desegunetan beti da desordu / (--...) / **destenorean**, guztia desarau / (--...) / desgaraian, dena desegoki. Iñaki Arranz

· Estufa ondoan eseri naiz, **destenore** bainengoen, eta murmu astunak hartu baino lehen, patrikan neraman koaderno txikia atera dut. Anjel Lertxundi

---

## **destenple** *iz* ondoez hozbera, alditxarra.

Neure epeltasunean are lazgarriagoa egiten zitzaidan langile haien hotza, haien aurpegietako **destenplea**. Pako Aristi

Badirudi Fermin ez dela konturatu; ni bai, ordea, eta hurbildu egin natzaio, **destenpleak** eragiten dizkizun sorbalda mugimenduak bere altzoan amatatu nahian. Pako Aristi

---

## **destera** *iz* zorroztarria.

**Destera** zahar burbuilatsuetan mihiak eta mintzoak zorrozten saiatzen naiz goldeak beti nabar atxikiz. Itxaro Borda

---

## **desterratu**, desterra, desterratzen **1** du *ad* erbesteratu.

Gure aita preso egon zen Donostiako Infernuan, gero Extremadurako herri batera **desterratu** zuten... Jokin Urain

Eblo **desterratu** zuten Córdoba-raino, Aznar aldiz libro utzi euskal arrazakoa zelakotz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pobreak geure burua **desterratu** beharko dugu hemendik! Pablo Sastre

**2** irud/hed

Ahanzturara **desterratua** banuen ere, handik bi ordura, ni autobusean, bera espaloian, berriro ikusi nuen Cour de Romen, lehen bezain penagarri. Xabier Olarra

Ez nago ni (Weber bera ez zegoen bezala) gizarte modernoan intentzio edo intuizioa, konbentzimendua, etikatik **desterratu** beharra dagoela uste dutenekin, Joxe Azurmendi

**3** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Hitz erabiliena izatetik hitz **desterratuena** izatera iritsi baita Jaungoikoa euskal literaturan. Anjel Lertxundi

Zu bezalako jende pertsegituari eta **desterratuari** geriza eman izan diona. Joan Mari Irigoien

**Desterratuari**, lur arrotzean dabilela, nondik datorren ahaztu eta galduta sentitzea baino ezer txarragorik ezin zaio gertatu. Jon Maia

Goiko datuei gehitu agintarien aurrera sinatzera agertu behar zutenak, ondasunak kendu zizkietenak, isunak zituztenak, karguak kendu zizkietenak eta **desterratuak** eta 50.000 errepresaliatu egiten dituzte. Jokin Urain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desterratu zuten** (3)

---

## **desterratze** *iz* erbesteratzea.

Bainan **desterratze** hau ez zen obratu ahal izan, Frantzia gerlan sartu baitzen, aldi bat gehiago, Inglaterrarekin: bazuketen hain segur buhamietaz bertzalde kezka nagusiagorik! Herria

---

## **desterru** *(orobat **destierro** g.er.)* **1** *iz* erbestea.

Sei urte dira, bertze hautabiderik ezean, **desterrurako** bidea hartu eta Parisat joan zinela. Joan Mari Irigoien

Milaka dira [...] gizakion espiritu inkisidoreak eragin dituen suntsiketak, erreketak, txikizioak, hilketa eta salaketak, kartzela-aldiak, **desterruak**, pertsekuzioak, torturak... Anjel Lertxundi

Laspiurrek kartzela, tortura eta **desterrua** ezagutu zituen. Berria - Kultura

Izan ere, **desterrua** ez duk lur bat, guganik kanpoan dagoena, baina gure baitakoa, zeren **desterru** handiagoa dik etxean dagoenak, baina burua beheiti, ezen ez etxetik kanpoan dagoenak, baina burua goiti. Joan Mari Irigoien

Lerrouxek Badajozko **desterrura** bidali zuen urtean (1934) argitaratu zuen Castelaok bere nobela bakar hau: *Os dous de sempre*. Babilonako **desterrutik** landa... Pablo Sastre

**2** (hitz elkartuetan)

Bere herritarrentzat, Mexika, **desterru** abiapuntu da; beste anitz hego amerikarrentzat **desterrurat** iragan-gune. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **desterrurat joan** (4); **eta desterrua** (3)

---

# **destestu** *iz* testurik eza.

Adbertsatiboa **destestua** da, atzerako bidea, baieztapenari, ordura arte ehundutako diskurtsoari egindako abordada. Iñigo Aranbarri

---

# destierro ik **desterru**.

---

# **destilagailu** *iz* destilatzeko tresna.

Zilarbizi gordinak ez duela askorik balio, baina purifika daitekeela, whiskya bezala, sasialtzairuzko zein terrakotazko **destilagailutan**. Juan Garzia

**Destilagailuak** eta lurrezko ontziak egitea errazago bide zen Holandako harea urre bihurtzea baino. Juan Garzia

---

# **destilaketa** *iz* destilatzea.

Prest zegoela **destilaketa** hori niretzat egiteko, bizia salbu agintzen banion. Juan Garzia

---

# **destilategi** *iz* deslitaketak egiten diren etxea edo tokia.

Ezkaia eta beste usain-belar batzuk biltzen zituzten, aroa zenean, handik ez oso urrun baitzegoen **destilategi** bat [...] non ezkai-esentzia destilatzen baitzuten. Joan Mari Irigoien

Vodka egiteko Errusiako gobernuak han zuen **destilategi** batean jarri zuten lanean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezkutuko **destilategia** daukat. Jon Arretxe

Hirian zuen edari-etxearen negozioak porrot egin zion, bigarren mailako **destilategi** eta garagardogileetara mugatu baitzuen bere finantzen egoerak. Irene Aldasoro

**Destilategi** abandonatua zirudien lokalak. Josu Landa

---

# **destilatu** *(ETCn **310** agerraldi; orobat **distilatu** ETCn **155** agerraldi)*, destila, destilatzen **1** du *ad* isurkari bat lurrun bihurtu ondoren berriro isurkari bihurtu, berarekin nahasirik dauden gai lurrunkorretatik bereizteko.

Bentzenoaren matrazean "ilar erdi baten lodierako" potasio xorta bat bota (hala zioen eskuliburuak) eta maratz-maratz **destilatu** nuen guztia. Zenbat litro ardo **destilatu** duzue etxaldean? Juan Garzia

**Destilatu** gabeko vodka zakarraren usain ikaragarria zerion. Jose Morales

Sagasti zaindu gabe bat, erlauntza multzo bat bertan behera utzia, etxola bat basoan astigar-ziropa **distilatzeko**. Oskar Arana

Rektifikatzeak zera esan nahi du, zatika **destilatzea**, arauzkotik gorago zein beherago irakiten duten zatiak baztertuz eta "bihotza" jasoz. Juan Garzia

Handik ez oso urrun baitzegoen destilategi bat [...] non ezkai-esentzia **destilatzen** baitzuten. Joan Mari Irigoien

Hodibihurrezko hoztailuaren muturretik, harribitxien moduko argi-izpiak ispilukatzen zituzten tanta lodi urrekoloretan erortzen zen azidoa: hots, tindiz tindi **"destilatzen"**, istilera tantakatzen zen, lira bat hamar tantako gure irabazia. Juan Garzia

Iazko uztako 1,5 milioi hektolitro **destilatzera** behartuak izan ziren, nehork ez baitzituen erosi. Berria - Harian

Petrolioaren eta **destilatutako** produktuen erreserbak. Berria - Ekonomia

**2** irud/hed

Haitzuloan goiko harriek hezetasuna izerditzen eta tantak **destilatzen** dituzte. Xabier Amuriza

Lurrunketaz galdua dirudien gainazaleko ura ez dago benetan galdua, baizik eta urrutiko leku eta sasoietan beheratuko da, bere zikinkeria guztiak **destilatuta**, euri bizi-emailearen forman. Iñaki Mendiguren

Urtebete joan da eta goiz batez zikloa hasten da berriro, eta mixeriaren tanta aukerakoenak denboraren alanbikean **destilaturik**, eramanaren ontzia betetzen hasten da. Jon Alonso

Maitasuna zen, pentsatu zuen Lilyk, oihala mugitzeko itxura eginez, eta gainera **destilatua** eta iragazia. Anton Garikano

Gorputzetik arima **destilatzea** baitut helburu, prozesu kimiko-alkimiko baten bidez. Joan Mari Irigoien

Alkimiaren arragoan, beraz, beruna urre bihurtzea ote da helburu, ala beste hau: argiaren sortze-bidea, bizitzaren nondik norakoan ipurtargi-arrasto bat egitea, existentziaren zama astunetik argitasun arina **destilatuz**? Juan Kruz Igerabide

Airean ahotsak entzuten dituzten agintedun eroek urte batzuk lehenagoko idazle akademiko kaskar baten buruan sortutako utopiak **distilatzen** dituzte. Iñaki Heras

**3** (era burutua izenodo gisa)

Poliziak xiringak, odol poltsatxoak eta ur **destilatuko** anpuluak atzeman zituen logeletan. Hartatik pixka bat disolbatu nuen ur **destilatutan**: soluzioa arrea zen, bazuen noski akatsen bat azukre hark. Berria - Kirola

---

# **destilatze** *iz* isurkari bat lurrun bihurtu ondoren berriro isurkari bihurtu, berarekin nahasirik dauden gai lurrunkorretatik bereiztea.

**Destilatzea** gauza polita da. Juan Garzia

---

# **destilazio** *iz* destilatzea.

Beheko sotoan botiloi bat bentzeno tekniko aurkitu nuen, ehuneko 95 aratz: deus ez baino hobea noski, baina, eskuliburuen arabera, aurrena rektifikatu egin beharra zegoen eta gero azken **destilazio** bat eragin, sodioaren presentzian, azken hezetasun-arrastoez askatzeko. Juan Garzia

**Destilazio**-prozesu bat. Santiago Iruretagoiena

---

# **destinatibo** *iz* euskal deklinazioan, *-entzat* kasua.

**Destinatiboan** -*entzat* zein -*endako* onartu zen: lagunarentzat zein lagunarendako biak dira Batua. Koldo Zuazo

Ez dute uste soziatiboko -*kin*, **destinatiboko** -*endako* eta hurbiltze adlatiboko -*rutz*, esate baterako, aintzakotzat hartu behar direnik. Koldo Zuazo

---

**destinatu**, destina, destinatzen du *ad* pertsona bat leku jakin batean aritzeko izendatu.

Gerra piztu aurreko udan, Valladolidera **destinatu** zuten kanonigo. Inazio Mujika Iraola

Pentagonoak Iraken **destinatutako** soldadu estatubatuarren kopurua 105.000ra gutxitxea aurreikusita zeukan. Berria - Mundua

Auschwitzera, 1944ko azarora arte ez zuten **destinatu**. Juan Garzia

Komando 64erat **destinatua** niz, irailaren 21ean, Wupertal-en. Michel Oronoz

Gutun batean esaten zidan Metzetik Sarrebourg-era **destinatu** zutela. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> destinatu zuten (3)

---

**destinatzaile** *iz* zerbaiten hartzailea.

Ulertzen da eskubidearen transferentzia erresistentzian bakarrik datzala, transferentzia egin aurretik transferentziaren **destinatzaileak** guztirako eskubidea baitzeukan. Esteban Antxustegi

---

**destinazio** *iz* helburua, norakoa.

Auzapezak berak erran die *Zabalik*eko arduraduneri, elgar ikusi dutenean berriki, ez duela nehor “baztertuko” etxearen **destinazio** berria aipatzean. Herria

---

**destindatu**, destinda, destindatzen du *ad* tindua kendua.

Egunsentiaren etorrerarekin iluntasunaren beltza **destindatzen** hasi da. Berria - Kultura

---

**destino** *(ETCn* ***1.320*** *agerraldi; orobat* ***destinu*** *ETCn* ***143*** *agerraldi)* **1** *iz* patua, zoria, halabeharra.

Nire **destinoak**, ordea, komeni zaidanaren justu beste muturrekoa erabaki du beti. Anjel Lertxundi

Heldu zen bere **destinoa** esku artean hartu behar zuen adinera. Pablo Sastre

Militar-leinukoa zen, eta bere zaharragoen **destino** epikoaren nostalgia sentitu zuen. Juan Garzia

Hiltzen garenean, denborak bere lana eginen du: gelditzen den obraren **destinoa** zer izanen den gero luze batean, nehork ez dezake erran. Ana Urkiza

Geure **destinoari** jarraitzeko bereizi ginen, bakoitza haran ezberdin batera. Juan Garzia

Eta haien lanarekin jarraitzea gure **destinoa**. Arantxa Iturbe

**2** helmuga; lanpostua.

Burgosko prozesuan kondenatutako hamahiru, 1971ko urtarilaren 11n atera gintuzten hainbat **destinotara**. Jokin Urain

Zigorren kontra estutu da gehiago, desagertu nahian, eta hamar segundotan hamar **destino** posible bururatu zaizkio, Pascuako uhartea eta Siberiako estepa barne. Eider Rodriguez

Tren hartara igo nintzenean, zerbait luzatzen ari nintzela sentitu nuen, hari mutur bati tiraka-tiraka neramala bizitza osoa eta trenak berriz hari horretatik tiratzen zuela sentitzen nuen, nire hurrengo **destinoraino**. Jon Maia

Hurrengo **destinoa** esperantza zela ez dut nik kantatuko. Jon Maia

Tren hartara igo nintzenean, zerbait luzatzen ari nintzela sentitu nuen, hari mutur bati tiraka-tiraka neramala bizitza osoa eta trenak berriz hari horretatik tiratzen zuela sentitzen nuen, nire hurrengo **destinoraino**. Jon Maia

Artean Pedriño [...] suerteak edo dena delakoak Haziendako ministerioan jarri du, "sei mila errealetako" **destino** batean. Pablo Sastre

Hemen, lehen graduko moduluan, ea **destinorik**, garbiketa lanik alegia, ez al zuen nahi galdetu zion kartzeleroak. Jokin Urain

**3** (hitz elkartuetan)

Komunitate nazionala (pentsamendu, sentimendu, **destino** komunitatea) komunitate linguistikoa da, hizkuntzak egiten du nazioa. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> bere destinoa (3); destino batasuna (3)

---

destinu ik **destino**.

---

destitxa ik **desditxa**.

---

**destoki** *iz* toki desegokia. ik **desleku; ezleku.**

Susmoek ere bai baitute beren tokia -eta **destokia**, jakina-. Patxi Altuna

---

**destokitu** *izond* bere tokitik aldatua.

Zenbaitek entzuten omen zituen -baina nola ostiatan entzuten zituen?- delako ancestral voices haiek ez direla estatuaren orkestra eta koruek jotako pieza kaxkar baten distortsio **destokitu** bat baizik. Iñaki Segurola

---

**destokitze** *iz* bere tokitik aldatzea.

Ezinaren transferentzia, lekualdatze edo **destokitze** itxuragabe bat gertatu da hor: nere ezina hitzaren berezko ezin bihurtu da eta, horrenbestez, delako hitz horrek berekin du ezina. Iñaki Segurola

**destolestatu**, destolesta, destolestatzen du *ad* destolestu.

Fardelak laxatzen eta **destolestatzen** hasi baino lehen aitaren ohiko erritualari aitzinatzen zitzaiola, Mattinek erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

---

**destoleste** *iz* tolesturik dagoena zabaltzea.

**Destolestu**, lisatu eta berriro irakurri zuen eskuz idatzitako orria. Joxemari Urteaga

Orri bakarra **destolestu** eta irakurri zuen. Joxemari Urteaga

---

**destolestu**, destoles(tu), destolesten **1** du *ad* tolesturik dagoena zabaldu. ik **destolestatu**.

Gonetako faltrikeratik ateratako aldizkari puska **destolestu** zuen. Josu Landa

Ardura handiz **destolestu** du tabernariak, zigiluz beteriko agiri bat da. Koldo Izagirre

Plastikozko krokodilo itxurako piszina puzgarri bat atera zuen bertatik eta lurrean **destolestu** zuen. Harkaitz Cano

Paper batzuk poltsikotik atera, **destolestu**, eta hitz egiten hasi da. Iñaki Iñurrieta

Itxita neuzkan begiak, zabalik besoak, **destolestuak** bernak itsasoaren haize kirrira. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Haren itzal sabairantz isuri, luze, **destolestua**. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **destolestu eta** (3); **destolestu zuen** (4)

---

**destorbu** *iz* eragozpena.

Oraingoan ba datorkigu liburu berri batekin, "Prestige" petrolio untziaren **destorbuaz** idatzi duena. Herria

Lehen batailak zinezko **destorbuak** izan ziren frantziar gudarosteentzat eta Paris mehatxatua zen Elena Touyarou

---

**destrabatu**, destraba(tu), destrabatzen du *ad* traba edo eragozpena kendu.

Konturatu nintzen giza albainuz egina zela ahotsa, ahoak hortzak zeuzkala eta hitz egitean trabatzen eta **destrabatzen** zen mihi bat, eta lur gainean bizi den jendearen begi guztiak bezalakoak zirela emakumearen begiak. Juan Garzia

Ez ote nintzen hargatik ez mutu baina kasik mutu jaio, harik eta, kolpearen eraginagatik, traba guztiak **destrabatu** eta spirituek beren bidea ediren zuten arte... Joan Mari Irigoien

---

**destrenpu** *iz ipar* alditxartzea.

**Destrenpuaren** ilunean argi egin zezakeen esaldi biribil eta erabatekoa. Aingeru Epaltza

Behialakoan ontziko **destrenpua** zela kausa menturaz, ez nintzen konturatu, baina itsas aldetik haizea indartsu zetorren. Itxaro Borda

Sekulan baino jende gehiago ibili da, hiritar eta baserritar, urte guziz Parisen izaiten den laborantza Feria-erakusketa nagusi hortan! batzuetan jendea jendearen gainean, nehorat ezin abantza, baitira **destrenpu** zerbait ukan dutenak ere! Herria

---

**destrenpuño** *iz adkor* destrenpu txikia.

Orai, itsas-haindian, haizea ari dela naski berriz onerat itzultzen bainan itzultze horren efetua, efetu ona, ez dela aise ageriko helduden uda baino lehen, heldu baita bozak iragan-eta! xuxen ari ote dira hola mintzo direnak? oraiko **destrenpuño** horrek zenbat iraunen duen, ez da aise aintzinetik erraitea... Herria

---

**destroier** *iz* gerraontzi lasterra, artilleria ertainekoa, konboiak babesteko erabiltzen dena. ik **destruktore**.

Lehorrez egiten ahal genuen zerbait, baina ingelesek **destroier** bat edo beste bidaltzen ez bazuten faxistak apaltzeko galdua genuen kostaldea. berak ere ez dakiela zergatik etorri zen Francisco Franco autoz [...] Hernán Cortés **destroierrean** etorri ordez. Koldo Izagirre

---

**destronazio** *iz* tronutik kentzea.

1868ko "iraultzaren" ondoren (Isabel II.aren **destronazioa**, Alfontso XII), adierazpen askatasunarekin, positibismoa liberalismoari asoziatua agertu da, idealismoa eta espiritualismoa erregimen zaharraren aliatutzat jotzen ziren bitartean. Joxe Azurmendi

---

**destruitu**, destrui, destruitzen du *ad* suntsitu, ezereztu.

Erdiak **destruitu** bestiak ereman. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**destruktore** *iz* destroierra.

Errepublikaren Gobernuaren agindupeko **destruktorea**, 1928an eraikia. Berria - Harian

Korazatuak, hegazkinuntziak, **destruktoreak**, eta gainerakoa, finantzak hankaz gora uzteko moduko kaltea izan zen. Jon Alonso

Merkantziontzia Kalaportura sartzen zen artean, *Nabarra*k aurre egin eta ordu erdiko batailari eutsi zion, irabazteko batere esperantzarik gabe, **destruktorea** hamabost bider handiagoa zelako. Joseba Sarrionandia

**Destruktore** batek jaso gintuen ordu eta erdiren inguruan. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agindupeko destruktorea** (3); **destruktore batean** (3)

---

## **desubikazio** *iz*

**Desubikazio** domestikoa: etxea den tenplutik aterako da fenomeno honen inguruko liturgia, eta, hortaz, elikatzea profanatu egingo da, jarduera funtzional hutsa bihurtuko da. Edorta Agirre

---

## **desuztartu**, desuztar, desurtzatzen du *ad* uztarria kendu.

Nolanahi ere -hauxe da laburpenaren laburpena eta alfabetoaren bukaera- plajioa eta kalitatea uztartu edo **desuztartu** nahian dabilena hemeretzigarren mendean dago oraindik. Bernardo Atxaga

---

## deszentralizatu ik **dezentralizatu**.

---

## deszentralizazio ik **dezentralizazio**.

---

## **deszentramendu** *iz* deszentratzea.

Forma ezberdinak hartuz, gai honek etengabeko papera jokatu du XIX. mendeaz geroztik: hain zuzen, **deszentramendu** guztien aurrean subjektuaren subiranotasuna eta antropologiaren eta humanismoaren irudi bizkiak salbatzea. Xabier Arregi

Kontua da sakabanaketa bat zabaltzea, murriztu ezingo dena, sekula ere ez, ezberdintasunen sistema bakar batera, barreiapen bat zabaltzea, uztartuko ez dena erreferentzia ardatz absolutuekin; kontua da **deszentramendu** bat gauzatzea, pribilegiorik utzi gabe inongo erdiguneri. Xabier Arregi

---

## **deszentratu**, deszentra, deszentratzen **1** da/du *ad* erdigunetik atera.

Oteizak eta Chillidak hilarri tradizionalen espazio hertsi, borobil, erdigunetua hartu eta haren ordez obra ireki, **deszentratu**, plano desberdinetara zabaldua egin zutenean, hautsi eta distortsionatu egin zuten betiko espazio hura. Joseba Zulaika

Irudiak ez du interesik, ez du ongi funtzionatzen, irudi horretan zerbait **deszentraturik** ez badago. Josu Zabaleta

Orainago psikoanalisiaren, hizkuntzalaritzaren, etnologiaren ikerketek subjektua **deszentratu** dute bere nahiaren legeekiko, bere hizkuntzaren formekiko, bere jardutearen arauekiko, bere diskurtso mitiko edo alegiazkoarekiko Xabier Arregi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Lehen ere aipatu ditugu margolari edo argazkilari batzuek egin izan dituzten irudi **"deszentratuak"** edo "deskoadratuak", irudiaren ingurua, eremuz kanpokoa, kontuan eduki beharra eragiten dutenak. Josu Zabaleta

Arnheimek egiten dituen analisiak irudi exzentratuez edo **deszentratuez** diharduenean dira batez ere konbentzigarriak, irudi horietan zentroen arteko lehia oso indartsua eta bizia izaten baita. Josu Zabaleta

Euskaldun izatea bera ere -ez diot nik- ez dago, nahita ere, edozein txoropitoren esku, ez behintzat nere moduko **deszentratuen** (zentro-kontrakoen) esku. Iñaki Segurola

---

## **deszentratze** *iz* erdigunetik ateratzea.

Badira, hain zuzen, zentratze horren ukazioan oinarritzen diren estiloak, nahita egindako **deszentratze** batean oinarrituak, markoaren adierazgarritasun-balio batzuk azpimarratzeko eginak gehienetan. Esan liteke, ia-ia, horrelako irudiei dagokienez, zentratzearen teoria baino gehiago, etengabeko **deszentratze** baten estetika bat lantzen duela zinez. Josu Zabaleta

Deskoadratzea **deszentratze** bat da, beraz, Josu Zabaleta

---

## **deszibilizazio** *iz* zibiilizaziorik eza.

Lurralde multzo hori da periferia, metropoliarekiko baino ez diren eremuak, **deszibilizazioa**. Iñigo Aranbarri

---

## **deszifraezin** *(ETCn **27** agerraldi; orobat **dezifraezin** ETCn **6** agerraldi)* *izond* ezin deszifratuzkoa.

Pentsatu zuen etxe inguruan oihuka zebilen hizkuntza **deszifraezin** hura hildako beltz haserreen marmarra zela. Anton Garikano

Interesgarriagoa zen, baina **dezifraezina**, beraren historiaren jatorria. Juan Garzia

Chiracek, aurrekoan, berariaz **deszifraezina** eta hutsala egin zuen telebistako agerraldia. Berria - Harian

Zenbaitek tunelaren ahora begiratzen zuen graffiti **deszifraezinez** adornatutako trenaren muturra noiz agertuko zen zelatan. Iñaki Zabaleta

Kimikako ikasle orok, zeinahi ere trataturen aurrean, jakinean egon behar luke ezen orri horietako batean, beharbada lerro edo formula edo hitz bakar batean, beraren etorkizuna dagoela idatzirik, karaktere **dezifraezin** baina halako batean, "gero", argi bilakatuko direnetan. Juan Garzia

Diamante-lapur haietako batzuen ezizen bitxi eta **deszifraezinen** berri ere bazuten garabietako langileek. Harkaitz Cano

Esnatzen naiz nire ametsen hizkuntza **deszifraezinaren** aurrean betazalak astunduta, mutu subkontzientearen hainbeste ordutako iharduera indartsutik erauzi ezin ditudan hitzen aurrean. Pako Aristi

---

## **deszifragaitz** *izond* deszifratzen zaila dena, ezin deszifratuzkoa.

A-issà" Andramari-Amabirjina da (edo soilki "andrea"); guztiz kriptiko eta **deszifragaitza** dugu, espero izatekoa zenez, "Odò" hitza, zeharbide horretaz baliatu beharra baitzegoen, noraezean eta besterik ezinean, Kristo zelarik aipagai. Juan Garzia

---

## **deszifamendu** *(ETCn **4** agerraldi; orobat **dezifamendu** ETCn **1** agerraldi)* *iz* dezifratzea.

Ematen badute, barruko eta berehalako **dezifamendu** batean bezala, pertsonaia batek isilean bizi duenaren hitzezko bertsioa. Xabier Arregi

Lau hitz hauek: irakurketa, ikurra, **deszifamendua**, oroimena [...] sistema bat definitzen dute, zeinak baimentzen duen ohiturarekin iraganeko diskurtsoa bere inertziatik ateratzea. Xabier Arregi

---

**deszifrapen** *(ETCn **0** agerraldi; orobat **dezifrapen** ETCn **1** agerraldi)* *iz* deszifratzea.

Datuen lanketa kuantitatiboa, zehaztu daitezkeen ezaugarri batzuen araberako deskonposaketa, ezaugarri horiei buruz ikertuko da euren arteko korrelazioa, **dezifrapen** interpretatiboa, maiztasunen eta banaketen azterketa Xabier Arregi

---

**deszifratu**, dezifra, dezifratzen *(**54** agerraldi, **25** liburu eta **4** artikulutan; ETCn **973** agerraldi –637 literaturan-; orobat **dezifratu** **57** agerraldi, **16** liburu eta **2** artikulutan; ETCn **171** agerraldi)* **1** du *ad* kode ezezagun batean idatziriko mezu baten esanahia jakitea lortu.

Lan horretan bere opor eta aurrezki guztiak xahutzeko gauza baitzen, inork **deszifra** ezin dezakeen hieroglifiko-mordoa etxera eramatearren. Joxe Austin Arrieta

Ezkutuko klabe hori **deszifratu** ezean, egilearen mezua galdu egiten da. Iñaki Arranz

Asko kostatzen zitzaidan irakurtzea, testua **deszifratu** behar izango banu bezala. Joseba Urteaga

Badirudi mende hartan idatzitako liburu bat aise **deszifratu** beharko luketela gaur egungo kriptografoek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Liburutegiko MME 408 eskuizkribua da, **deszifratu** gabe dago eta sekula baino misteriotsuago jarraitzen du. J.M. Olaizola "Txiliku"

George Hughtinghton, Arkeologia Saileko ikerlerik distiratsuenetakoa lanean hasi zen, testua **dezifratu** nahian. Pako Aristi

Beren artean erabiltzen zuten kodea, Paul D-rentzat **deszifratu** ezina. Anton Garikano

Hitzik gabeko hizkuntza hau **deszifratzen** ikasten badut, mundua **deszifratzea** ere lortuko dut. Xabier Aranburu

Ogam idazkera **deszifratzeko** bide egokiena euskara dela egiaztatu duten ikerketen berri ematen du artikuluak. Berria - Kultura

"B Lineal" idazkera minoikoa A. Ventris eta I. Chadwick jaunek **dezifratu** zuten grezieraren baliabide gisa. Iñaki Mendiguren

Hegoaldetik bidaltzen zituzten idatziak **dezifratzen** jardun dudala esango banio? libretan agertzen diren zirriborroak txosten horien transkripzioak balira? Rafa Egiguren

Ezin **dezifratu**, ordea; 500 karaktere desberdin baino gehiago zituzten eta! Jon Muñoz

Benetako Alkimista bat, kodeak **deszifratzen** lagunduko didana. Xabier Aranburu

Baina nik, buruz behera irakurrita, **deszifratua** nuen irakurtzen ari zen liburua: eleberri dibertigarri bat zen. Monika Etxebarria

· ADNaren sekuentziazioaren % 97 hurrenkeran zehaztua zegoen, mendea bukatu orduko, eta gainera kromosoma batzuk **deszifratuak** ere: 21. kromosoma, esaterako, Down sindromearekin erlazionatua. Pello Salaburu

Kode genetikoa **dezifratzea**; geneen erreplikazio-prozesua atzematea. Juan Garzia

**2** irud/hed

Saiatu nintzen oroitzapen haiek **dezifratzen**, alferrik ordea. Koro Navarro

Erritmo horiek mendeetan errepikatu izan dira; haren arbasoek **deszifratu** dituzte errepikapen horiek. Pako Aristi

Pilotariek ez baitute gehienetan ezer esango eta esaten dutena **deszifratu** egin behar, nahasmena sortzeko baita, Halatan, **dezifratzeko** zeinuz josiriko liburu hau Joseba Zulaikaren *Ehiztariaren erotika* gogoangarriarekin batera irakurri behar da. Berria - Kirola

Azkenik, Kanten Arrazoimen hutsaren kritika **dezifratzen** ahalegindu zen. Josu Zabaleta

Aingeruen hizkuntza **deszifratzen** eta ulertzen zuen kristalezko bola. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oraindik ez dut ikasi **deszifratzen** poltsak beteak sentitzen dituen jende horren aurpegian ageri den keinuaren deitura. Pako Aristi

Azterlanari 800 urtez ekin ondoren, uste dut esan genezakeela egun ere ez direla oraindik ez misterio guztiak **dezifratu** ez inkognita guztiak garbitu, nahiz eta, zalantzarik gabe, asko aurreratu den. Xabier Kintana

Ikusi bai, alegia, baina zer ikusten ari zen **deszifratzeko** gai ez balitz bezala. Xabier Olarra

Ez da jada mundua **dezifratzea** soilik kontua: hura aldatzea ere bada. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dezifratu gabe** (21); **dezifratu gabe zegoen** (21); **lineala oraindik dezifratu** (21); **oraindik dezifratu** (21); **oraindik dezifratu gabe** (21)

---

**deszifratze** *(orobat **dezifratze**)* *iz* kode ezezagun batean idatziriko mezu baten esanahia jakitea lortzea.

Etorri zelarik letren marrazteko garaia, etxean eta eskolan, irakurtzen ikastea, garai zoriontsua izan zen enetzat **dezifratze** garai hori. Ana Urkiza

Diskurtso medikoaren subjektuak zer ditzakeen funtzioen multzoa, hau da, begiratze, galdetze, **deszifratze**, erregistratze, erabakitze funtzioen multzoa. Xabier Arregi

Hainbat jakintsuri (hizkuntzalari eta enigmazale) dirua eskaini zien **deszifratze**-lanak egin zitzaten, eta, haien lanak alferrikakoak zirela ikusten zuen neurrian, gero eta irrikagarriagoa egiten zitzaion liburuaren sekretua argitzea. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**detaile** **1** *iz* xehetasuna, zehaztasuna. ik **ñabardura**.

Eztabaida, umeak, aiztoa, bare zulatua, odola, arrastoak eskaileran, erantzunik gabeko tinbre hotsak, jatetxeko aulkia, sukaldeko zapiak, bidean galdu zen etxeko zapatila... badago **detaile** gehiago eskatzerik? Iñigo Aranbarri

Liluratu egiten zara luxua eta grazia den **detaile** horrekin. Koldo Izagirre

Aurpegia da, ordea, argazkiko **detailerik** onena. Xabier Etxabe

Ez dizkidazu **detaile** asko kontatu, baina alderdi polit hori ez dut hain garbi ikusi. Josu Landa

Ergel ez besteak, mundu honetan **detaileak** eta ñabardurak jokatzen duten paper handiaz jabetzen ez direnok! Koldo Izagirre

*Zorrotz begiratutako trenak* nobelak ere kutsu autobiografikoa du zenbait **detailetan**. Fernando Rey

Pintoreak errealitatearen **detaileak** baino ezin ditu irudikatu, zati ñimiño eta berez hutsalak. Alberto Barandiaren

Beti inguruetara begira ibiltzen naiz, guztia behatzen, **detaileak** jasotzen. Berria - Kultura

**Detailetik** osotasun bat lortu nahi du. Berria - Kultura

**Detailetik** abiatuta, mundu bat sortzen du. Berria - Kultura

Ederki daki **detaile** partikularretik orokorrera pasatzen. Patxi Iturritegi

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

**Detaile** txikietan joaten zaie bizitza gerra pasatakoei. Xabier Etxabe

Derbia **detaile** txikiek erabakiko dutela adierazi zuen. Berria - Kirola

Heriotzaren eszenatokian **detaile** txikienak erabakigarri bihurtzen dira. Joxean Agirre

Virgiliorenak dira nekazari zoriontsuei egindako gorazarreak, Virgiliorengandik ikasiak **detaile** xumeenek duten garrantziari buruzkoak. Berria - Kultura

Urte hartako apirilean atzera bota zuen epaileak boskimanoek jarritako salaketa, **detaile** tekniko baten faltan Survivalen arabera. Berria - Gaiak

Horregatik ematen zaigu mozkortu arterainoko informazioa: infogramak, aurpegiak, izenak, **detailerik** morbosoenak... Iñigo Aranbarri

Dagoeneko dena dago prest: gai jartzaileak, epaileak eta bestelako **detaileak**. Berria - Harian

**3** adeitasun seinalea.

Eskertu nion **detailea**. Harkaitz Cano

Zainduko ditugu **detaileak**, eta malbak, etorkizunean, Hiru edo Lau milagarren urtean. Bernardo Atxaga

Bitarte horretan guztian, hitz bat ere ez niri, ezta begiradarik ere; lanerako amorru hark niri zerbait esatetik edo nirekin **detaileren** bat izatetik libratuko balu bezala. Anjel Lertxundi

**Detaile** horrek txoratzen ninduen. Eider Rodriguez

**Detaileak** markatzen du diferentzia, ez maite dugunarengandik espero dezakegunak. Anjel Lertxundi

**Detaile** bat bere aldetik. Lourdes Oñederra

Ez zuen horrelako **detailerik** espero, eta luze eskertu zion opari-egileari. Jon Alonso

Ez badiozu deus erregalatzen, **detaile** emeak batere estimatzen ez dituzun astazakila zu. Patziku Perurena

Oso **detaile** polita izan da... Lopez de Arana

Halako leku dotoretara pittin bat berandu iristea dotoreziaz ukituriko **detaile** bitxia zela. Joxemari Iturralde

**4** (hitz elkartuetan)

Zakurtxoa da Ainhoa Artetak duen diba **detaile** bakarra, gainerantzean ez du eszentrizitate berezirik. Harkaitz Cano

Lurdesek lanaren erosoa azpimarratzen zidan, eta eguraldi **detailearen** balioa eta jendearen aldetiko estimu posiblea. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **detaile asko** (3); **detaile bat** (7); **detaile guztiak** (5); **detaile hori** (5); **detaile horiek** (4); **detaile polita** (5); **detaile txiki** (3); **detaile txikietan** (3); **eta detaile** (4); **oso detaile** (4)

---

## detailetxo *(orobat* ***detalletxo*** *g.er.)* **1** *iz* detaile txikia.

**Detailetxo** bat falta du, ordea: nola edo hala argi uztea poemaren "ni" hori gizonezkoa dela, pertsonaia asmatzea, alegia. Joxerra Garzia

Komikietan ikasi genuen, istorio nagusitik kanpo, biñetaren ertzean, istorioarekin zerikusirik ez duen **detailetxo** bat jar daitekeela, biñetaero edo egileak nahi duenero errepikatzen dena. Andoni Egaña

**2** adeitasun seinaletxoa.

Izan ere, bera bezalako neska eder batek eskubide osoa baitzuen halako **detailetxoak** izateko. Joxemari Iturralde

Inoiz ez zara nitaz gogoratzen, ez duzu **detailetxo** bat ere izaten... Xabier Mendiguren Elizegi

Musikari jaioek musika-nota baten oihartzunetan konposizio oso bat aurreigarri ahal duten legez, Gustavo Duranek **detailetxo** horrexetan antzeman ahal izan du Ernest Hemingwayren nortasun konplexuaren gakoa. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **detailetxo bat** (3)

---

## detailezale *izond* detaileen zale dena.

**Detailezaleren** batentzat utz genezake, lirismo espantagarri honen paraleloak Pirinioez haraindiko literatura arrazistetan xerkatzea. Joxe Azurmendi

---

## detalletxo ik **detailetxo**.

---

## detektaezin *izond* ezin detektatuzkoa.

Milaka pertsonak egiten dute bizimodu normala saihetsen azpian taupada-markagailu elektroniko bat dutela, **detektaezina**, ez bada irrati-transistore bat inguruan denean egiten dituen klik-hots erregularrengatik. Irene Aldasoro

---

## detektagailu *(ETCn 928 agerraldi)* **1** *iz* ikusten ez den zerbait detektatzeko gailua. ik **detektore**.

Alarma sinpleak, **detektagailu** bolumetrikoak, infragorri bidezko **detektagailuak**, ultrasoinu bidezko **detektagailuak**, kontaktu magnetikoak... askotariko alarma sistemak daude. Berria - Harian

Zergatik ez dakizula, gezurretako bonbarekin hamaika **detektagailu** pasa dituen kazetariak hartu dizu gogoa ostera ere. Iñigo Aranbarri

**Detektagailu** bikaina da giza sudurra, oso motz geratzen bada ere sentikortasunean animalia eta intsektu askorekin konparatuz gero. Irene Aldasoro

Ematen du egoera larrien **detektagailua** duela. Alberto Barandiaren

Gure **detektagailuak**, esan liteke lasai, ez dabiltza. Iñigo Aranbarri

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arma **detektagailu** batekin joan ziren salara, han haien tresnak bzzzz egin zuen, eta moketa kendu zuten, gero taulak kendu zituzten, eta ez zen deus. Berria - Euskal Herria

Neroni berdin dit eskuz miatzen dituzten edo metal-**detektagailua** erabiliz egiten duten; ez dit axola zelan egiten duten, egiten badute. Berria - Euskal Herria

Eta lantegi horretan ez zegoen, gainera, ez morroilorik, ez alarmarik, ez suteen aurkako sistemarik, ez ke-**detektagailurik**. Jon Muñoz

Atzo, esaterako, gezur **detektagailu** bati egin zion aurre, gero bertako emaitzak AEBetako Dopinaren Aurkako Agentziari bidaltzeko. Berria - Kirola

Georges Charpak CERNeko fisikariak partikula **detektagailu** iraultzailea asmatu zuen. Berria - Gaiak

---

## detektatu, detekta, detektatzen **1** du *ad* zerbaiten presentzia hauteman.

Planetaz gain, ordea, izotz partikulak ere **detektatu** ditu teleskopioak. Berria - Gaiak

Metalak **detektatzeko** sistema batekin ere egin zuten topo. Rafa Egiguren

Antzinako gure arbasoentzat hil edo biziko kontua zela, askotan, soinu arrotzak **detektatu** eta kokatzeko ahalmena. Irene Aldasoro

Zianuro-ihesak **detektatzeko** sistema bat ere badutela dio horren inguruan enpresak. Berria - Gaiak

Faxistek Gure Gizonaren irratia **detektatu** izana ere posible da. Edorta Jimenez

Lurrikarak **detektatzeko** erabiltzen diren sismografoek bezala jokatzen dute egitura horiek. Irene Aldasoro

Oso erraz **detektatzen** da glukosa gernuan. Irene Aldasoro

Iturri isotopiko batek bidalitako gamma erradiazioa hezurrean zehar igaroarazi eta distira-neurgailu baten bidez **detektatzea**. Irene Aldasoro

Argi ultramorea **detektatzeko** gauza den Galaxy Evolution Explorer (Galex) sateliteari esker egin dute aurkikuntza. Berria - Gaiak

Begian, automatikoki doitzen dira argiarekiko sentikortasuna eta xehetasun txikiak **detektatzeko** gaitasuna, unean uneko baldintzen arabera. Irene Aldasoro

Foku patologikoa **detektatzeko** eta behaketa teknikak erregistratzeko. Xabier Arregi

**2** (gauza abstraktuak)

Gezurrak **detektatzeko** amerikarrek asmatutako tramankulu berri bat. Josu Landa

Gizartearen gorrotoa **detektatzen** ikasi nuenean. Pako Aristi

Sistema horrek iruzurrak **detektatzeko** balio ez duela ikusi da, ikerlarien zintzotasunean oinarrituta baitago. Berria - Gaiak

Animalia batek, gorputzeko tenperatura gehiegi hozten ari zaiola **detektatzen** duenean, giharrak mugimenduan jartzen ditu, ariketa horren bidez energia sortu eta berotzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egiazko behar eta premiak zein diren **detektatzeko**. Berria - Kultura

Mutazio bat **detektatzen** badugu, garbi esan dezakegu pertsona horrek familiako hiperkolesterolemia duela. Berria - Gaiak

Urraketak non eta zergatik gertatzen diren **detektatzeko** eta politika eraginkorrak ahalbidetzeko, urraketa horiek eperik laburrenean desager daitezen. Berria - Euskal Herria

**3** (pertsonengan)

Nire gorputz osoa pertsona hura bakarrik **detektatzeko** programatuta egongo balitz bezala. Mikel Hernandez Abaitua

Gu ideia nazionalsozialistetara zorrotz lotzea izaten zen haren lana, baina baita gure artean egon zitezkeen infiltratuak **detektatzea** ere. Anjel Lertxundi

Nabilen lekuetan emakume interesgarri baten presentzia **detektatzen** dudanean hobeto sentitzen naiz, ez hain bakarrik. Pako Aristi

Maitale krudelak amoros inozo eta koitaduari igartzen dion moduan, halaxe **detektatzen** dute ikasleek irakasle bat noiz den hasi berri esku-txuri asmo onekoa, hartaz trufa, iseka eta ahalik burla gehien egin ahal izateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Osakidetzak azkeneko zortzi urteetan bularreko minbizia atzeman die 2.140 emakumeri, gaitza aurrez **detektatzeko** 1995. urtean martxan ipinitako ekimenari esker. Berria - Euskal Herria

Ordubetean gizonezkoen antzutasuna **detektatzen** duen testa sortu dute. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **detektatzeko eta** (4); **detektatzeko gai** (3); **detektatzeko sistema** (3); **detektatzen da** (3); **gaitza detektatzeko** (3)

---

# **detektatzaile** *iz* detektagakilua.

Ez ditugu ikastetxeetan metal **detektatzaileak** ezarriko. Berria - Euskal Herria

---

# detektiba ik **detektibe**.

---

# **detektibe** *(orobat **detektiba** g.er.)* **1** *iz* polizia-ikerketa pribatuez arduratzen den pertsona.

Ikus dezakezunez **detektibe** pribatua naiz, **detektibe** kolegiatua -zehaztu zuen, azkenari indarra emanez. Migel Angel Mintegi

Badakit nirea ez dela lanbide arrunta, baina **detektibeok** hezur-mamizkoak gara, suhiltzaileak edo bulegariak bezalaxe. Migel Angel Mintegi

Bukatzeko zeure burua babestea besterik ez zitzaizun falta, eta **detektibe** bat hartzea deliberatu zenuen, Ostolazari laguntzeko aitzakiaz baina zeure burua babesteko asmoz. Migel Angel Mintegi

Denbora dezente eta diru asko gastatu nuen kasu zaharrak argitzen dituzten **detektibeak** eta ikertzaileak kontratatuz, baita ospitaleetan ere, eta zuen amak egia zioela onartu behar izan nuen. Aitor Arana

Ordu arte hiriko **detektibe** erdi-lokartu bat besterik ez zen. Xabier Olarra

-Ez noski, mutikoa **detektibearena** egiten zabilek, edo poliziarena. Josu Landa

**Detektibe** logikaz betea eta sen handikoa, Sherlock Holmes-engandik hasita **detektibe** guztien eredua izango zena. Koro Navarro

Buelta emanda zorrotz begiratu zion **detektibe** muturluzeari, mesfidantza handiz, haren barrukoa antzeman nahi balu bezala. Migel Angel Mintegi

Aita, **detektibe** arretatsu bezala, bazter guztiak miatzen ari zen, semeari zer gertatu ote zitzaion jakin nahirik. Askoren artean

Zakarias Putxapal **detektiba** famatüa hor date, misterio horren argitzeko. Herria

**Detektibeei** hain gogoko zaien tonu sasi-zientifikoan idatzia zegoen. Joxean Agirre

3 nobeletan Amaia Ezpeldoi emazte **detektibearen** inkestek Bretainia, Parise eta Herri Urratsera eramanen dituzte irakurleak. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Senak esaten dit, **detektibe**-senak -lokira eraman zuen hatz erakuslea. Migel Angel Mintegi

-Ez al duzu uste **detektibe**-aurpegia daukala? Lopez de Arana

**Detektibe** agiria eta berrogeita hamar euroko billetea jarri zituen harrera-mahaiaren gainean. Migel Angel Mintegi

-Gure belarrietara iritsitakoaren arabera lanbidean denbora luzea ez eramateaz gain, ez duzu beste **detektibe**-agentziekin, alderdi politikoekin edo instituzio publikoekin inolako harremanik. Migel Angel Mintegi

Erakunde errepresibo baten ordez **detektibe** sare profesionala sortzea proposatu omen zuen, herritarren zerbitzura edo Gobernuaren aginduetara. Joxean Agirre

Gainera, **detektibe** lizentzia atera zuenetik saltsa lodi batean sudurra sartzeko aukera aurkezten zitzaion lehenbiziko aukera zen. Migel Angel Mintegi

Beste biei kontatzen ari zitzaien nola hasi zen bera soldadutza amaitu eta segituan **detektibe** lanetan. Joxemari Iturralde

Kontakizun hartan, aitonari entzundako zenbait anekdotatatik abiatuta, 1950eko hamarkadan girotutako **detektibe** eta pozoiketa istorio bat harilkatu nuen. Iban Zaldua

Gizon batek, alproja batek, gero ikusi ahal izan nuenez, nire bizitzari buruzko **detektibe** nobela idatzi zian. Lopez de Arana

Ines joan eta denbora gutxira izan zuen **detektibe** ikastaroaren berri. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **detektibe bat** (5); **detektibe eta** (3); **detektibe pribatu** (5); **eta detektibe** (3)

---

# **detektore** *(ETCn 117 agerraldi)* **1** *iz* detektagailua.

Orain, ordea, kontu on zientifikoak aurrera doazen hainbestean, horrenbesteko bitxikeriak jakiteko aukera ere ematen zaigu, tximist eta oinaztuen **detektoreak** hainbat eskualdetan paratu baitituzte. Pello Zabala

Egia zientifikoa, berriz, era zientifikoan, '**detektore** zientifikoez' jasoa eta azaldua dela. Jenaro Garate

**2** (hitz elkartuetan)

Ke **detektoreak**? Aireportuetako metal-**detektoreetan** salatu egiten dituzte giltzek iheslariak. Harkaitz Cano

'Aingeru itxurako deabru asko!' esan zuen. 'Baina deabru **detektorea** daukat nik!' Joseba Sarrionandia

---

# **detekzio** 1 *iz* detektatzea.

Geneen **detekziorako** teknika bioinformatikoak asko hobetu direlako. Berria - Gaiak

Etxean animaliaren bat duen edonork nabarmen daki komunikazio honetan emozioen **detekzioak** garrantzia handia duela. Berria - Gaiak

**Detekzioari** iruzur egiteko. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Munduko klimatizazio zentro bikainena dago sudur-zuloen atzean, eta, harekin konbinaturik, **detekzio**-sistema bat, sentikortasun harrigarrikoa, kimikari analitikoek oraindik ezin esplikatu izan dutena. Irene Aldasoro

3000 modeloko tren horien ezaugarrien artean, aipagarriak dira, besteak beste, honakoak: egitura arina, aleazio eta aluminioarekin eginak, [...] babes eta gidatze sistema automatikoa, suteen **detekzio** eta itzaltze sistema, eta, zaintzarako zein informazio eta entretenimendurako bideo sistema. Berria - Ekonomia

---

# **detenitu**, deteni, detenitzen **1** du *ad* atxilotu.

1958ko ekainean **detenitu** zuten Dodaka. Jokin Urain

**-Detenitu** eginen zintuzkete eta Espainiara deportatu. Iñaki Zabaleta

Ematen zuen jendea **detenitzen** ari zirela. Joseba Sarrionandia

Isilpean **detenitutako** preso hauen kasuek agerian ezartzen dute, [...]. Berria - Mundua

Atxilotze epea luzatu diete asteartean **detenitutakoei**. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izen gisa)

Informazio agentziek adierazi zutenez, **detenituak** atxilotu eta berehala eraman zituzten Guardia Zibilak Madrilen duen egoitza nagusira. Berria - Euskal Herria

Larunbata arte, Baionako polizia etxean izan dute **detenituta** Askatasunako kidea eta larunbatean eraman zuten Parisera. Berria - Euskal Herria

Kuartelera hurbiltzen ziren **detenituen** senitartekoei ez zietela pasatzen uzten, eta atxilotuen oinaze oihuak entzuten zirela alboko etxeetatik, batez ere goizaldean. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **detenitu zuten** (4)

---

# **detentzio** *(orobat **detentzione**)* **1** *iz* atxilotzea. ik **atxiloketa.**

1962an Etxebarriko Bandak laminazio fabrikan-eta egindako greba gogorren ondorioz, laurogeitaka **detentzio** eta kartzelatze gertatu ziren. Jokin Urain

1967 eta 1968ak, bereziki salbuespen aldian, **detentzioak** emendatzea dakarte. Jokin Urain

La Santé-ko kartierretik atera eta **detentzione** normalean sartu bezain laster, ibiltokira atera nintzen euskal presoen atxemaitera. Filipe Bidart

Kantuz aritzea debekatua delakotz, sobera harrabots egiten nuelakotz eta **detentzionea** trabatzen, baita euskaraz ari nintzelakotz ere eta mezu batzuk pasarazten ahal nituelakotz ene kantuaren bidez zaintzaleak deus ulertu gabe. Filipe Bidart

**Detentzio** luzeak: susmagarriak 60 egun arteko epean izan ditzakete giltzapean, epailearen aurrera eraman gabe. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Guantanamon, gaur egun, 500 preso inguru giltzapetuta daude, **detentzio** baldintza eta defentsa eskubideetarako nazioarteko arau guztietatik kanpo. Berria - Mundua

**3** *detentzio gune* ik **detentziogune.**

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **detentzione normalean** (4)

---

# **detentziogune** *(orobat **detentzio gune**)* *iz* atxilotuek edukitzeko gunea.

AEBek hamar bat **detentziogune** sekretu dituztela dio txosten batek. Berria - Mundua

Horiek guztiak horrela, Washingtoni presio egiteko eskatu dio AIk Europako Batasunari, Guantanamoko **detentziogunea** itxi dezan. Berria - Mundua

Hainbat txetxeniar atxilotzen dituztela **detentziogune** ez ofizialetan eta han torturak jasanarazten dizkietela. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat detentziogune** (3)

---

detentzione ik **detentzio.**

---

# **detergente** *(**4** agerraldi, **3** liburutan; ETCn **209** agerraldi; cf **garbigarri** **19** agerraldi, **9** liburu eta **5** artikulutan; ETCn **250** agerraldi)* *iz* garbiketan erabiltzen den produktua, olioa eta koipea uretan disolbatzen laguntzen duena. ik**garbigarri.**

Behazunak ez du entzimarik, baina bai behazun-gatzak: **detergenteak**, funtsean. Irene Aldasoro

Kostata baina, bilatuta hura, "Eguzkiaren lilura" kristal-**detergente** flasko bi erosi zituen (baita baso bat ere). Pablo Sastre

Gazte batzuk elkarri judo-giltzak egin nahian zebiltzan trenbidearen koskatik oso hurbil, eta **detergente**-kaxaz kargatutako andre batzuk [...] kontu kontari eta zigarro erretzen ari ziren. Bernardo Atxaga

---

# **determinagarri** *izond* determina daitekeena.

Ez da, beraz, ezagutzaren objekturik bere baitan, baizik agerpenen errepresentazioa besterik ez oro harrezko objektu baten adigaiaren menpean, alegia, agerpenen anizkunkiaren bitartez **determinagarria** den objektua. Ibon Uribarri

Bere sintesia berezkotasunaren aplikazioa den heinean, determinatzailea dena, ez **determinagarria** sentsua den legez, eta beraz, sentsua *a priori* bere formaren arabera apertzepzioaren batasunari jarraiki determina dezakeenez gero, [...]. Ibon Uribarri

Ideiaren bitartez soilik **determinagarria** edo determinatua den gauza bakana. Ibon Uribarri

---

# **determinagarriki** *iz*

Lehenak, oro harrezko **determinagarrikia** esan nahi du, bigarrenak, bere determinazioa (biak adiera transzendentalean, ematen denaren eta hau determinatzeko eraren bereizketa oroz abstraitzen baita). Ibon Uribarri

Horretarako norbere buruaren begiespena behar da, eta honek a priori emandako forma, h[au] d[a], denbora du oinarrian, sentsuzkoa dena eta **determinagarrikiaren** harmenari dagokiona. Ibon Uribarri

## **determinagarritasun** *iz* determinagarria denaren nolakotasuna.

Adigai bakoitza bertan barnebildua ez dagoenari begira indeterminatua da, eta **determinagarritasunaren** oinarri-esakunearen menpean dago. Ibon Uribarri

Halako adigai bakoitzaren **determinagarritasuna** kontrajarritako bi predikaturen artean legokeen erdiko baten bazterketaren oinarri-esakunearen orokortasunari (universalitas) menperatzen zaio. Ibon Uribarri

---

## **determinatu,** determina, determinatzen **1** du *ad* mugatu; zehaztu; ondorioz ekarri.

Eraikuntza diegetiko guztiak, izan ere, gizartean izan lezaketen onargarritasunaren arabera mugatuak dira, gizarte batean indarrean dauden konbentzioek, kodeek, sinbolismoek **determinatuak**, beraz. Giza jokaeraren alderdi jakin batek osagarri genetiko bat izateak ez du inolaz ere esan nahi geneek soilik **determinatua** denik alderdi hori. Josu Zabaleta

Analogia bera ere kodetua dela esaten du, eta horrenbestez kulturak **determinatua** mutur batetik bestera. Josu Zabaleta

'Nik pentsatzen dut'-ek nire izatea **determinatzeko** ekintza adierazten du. Ibon Uribarri

Eta egin behar hori ez datza arrazoimenak **determinaturiko** nahimenean, arrazoimenaren eta ororen erro den gogoan bertan baizik, maitagogoan. Jenaro Garate

Nola konpontzen dira zelularen eta organismoaren tasunak **determinatzeko**? Juan Garzia

Geneak bere baitan dauka proteina jakin baten egitura **determinatzen** duen informazioa. Juan Garzia

Egituren eta kimika zelularraren materiala **determinatzen** duten geneak. Juan Garzia

Batasuneko Mahai Nazionala erabat **determinatuta** dago. Berria - Harian

Intentsioa, ostera, estentsioa **determinatzen** duen funtzio bat da: mundu posibleetatik estentsioetara doan funtzio bat. Askoren artean

Gobernamenduak herrialde baten politika **determinatzen** duten baloreak, arauak eta printzipioak azpimarratzen ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Berezko ordena razional edo natural horrek **determinatzen** du moral baten objektibitatea. Joxe Azurmendi

Jainkoak zerbaiten egitera **determinatzen** duen edozein gauzak ez du bere burua determinatugabea berez egiten ahal. Piarres Xarriton

• **2** da/du *ad* erabaki.

Aspalditik **determinatua** nintzen, determinismoz eta ez determinazioz. Piarres Aintziart

Eskubide kolektiboen eta beren buruak eta beste askorenak **determinatzeko** ahalaren jabe. Iñaki Segurola

**3** (era burutua izenondo gisa)

Existitzen den edozein gauzak adierazten du Jainkoaren ahalmena, modu zehatz eta **determinatu** batean gauza guztien kausa dena. Piarres Xarriton

Esnetegiaren ateetako isiltasun **determinatuak** gintuen urtero harritzen. Itxaro Borda

· *(gramatikan)* Hizkuntza semitikoek, adibidez, alborakuntza soilez adierazten dute izen determinatzailearen eta izen **determinatuaren** arteko erlazioa. Isabel Arrigain

**4** ***ezin determinatuzko***

Ez naiz hasiko elektroiaren gorabeherekin, ez naiz ariko haren ibilbide ezin **determinatuzkoaz**, haren posizioa eta momentua (noiz-nongoak) batera jakin ezinaz. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**determina daiteke** (5); **determina dezake** (4); **determina dezakeen** (3); **determina la** (3); **ezin determina** (4); **soilik determina** (4)

**adigai determinatu** (3); **arabera determinatu** (4); **bitartez determinatu** (5); **bitartez determinatu behar** (4); **denbora determinatu** (3); **determinatu ahal** (17); **determinatu ahal izango** (6); **determinatu ahal izateko** (7); **determinatu bat** (7); **determinatu batean** (5); **determinatu baten** (3); **determinatu batera** (3); **determinatu behar** (16); **determinatu behar da** (3); **determinatu eta** (6); **determinatu ez** (3); **determinatu ezin** (3); **determinatu gabe** (8); **determinatu gabe geratzen** (3); **determinatu gisa** (3); **determinatu izan** (4); **determinatu izan du** (3); **ere determinatu** (3); **eta determinatu** (8); **gelditzera determinatu** (3); **zehatz eta determinatu** (4); **zehazkiago determinatu** (5)

**arabera determinatua** (5); **batek determinatua** (3); **bitartez determinatua** (4); **determinatua da** (7); **determinatua dago** (6); **determinatua dagoela** (3); **determinatua dagoen** (7); **determinatua dela** (4); **determinatua den** (13); **determinatua den bezainbatean** (3); **determinatua eta** (6); **determinatua izan** (6); **determinatuak dira** (3); **determinatuak diren** (3); **determinatuak izan** (3); **determinatuak izan daitezkeen** (3); **determinatuko lukeen** (3); **egitera determinatua** (6); **ere determinatuak** (3); **muga determinatuak** (3); **osoki determinatua** (3); **zehatz eta determinatuan** (3)

**a priori determinatuta** (6); **arrazoimenak determinatutako nahimenean** (3); **determinatuta dago** (3); **ezein adigai determinaturik** (4)

**a priori determinatzeko** (4); **a priori determinatzen** (9); **arabera determinatzen** (15); **arabera determinatzen duen** (3); **arabera determinatzen dut** (3); **batek determinatzen** (8); **bera determinatzen** (4); **bitartez determinatzen** (3); **denboraren arabera determinatzen** (4); **determinatzen ahal** (3); **determinatzen baldin** (3); **determinatzen da** (5); **determinatzen den** (3); **determinatzen dituen** (10); **determinatzen dituen zientzia** (3); **determinatzen dituzten** (7); **determinatzen du** (26); **determinatzen duela** (4); **determinatzen duen** (37); **determinatzen duen heinean** (3); **determinatzen duena** (6); **determinatzen dugu** (3); **determinatzen dut** (4); **determinatzen dute** (5); **determinatzen dutela** (4); **determinatzen duten** (15); **determinatzen ez** (11); **determinatzen ez duen** (3); **egitera determinatzen** (5); **egoera determinatzen** (3); **gisa determinatzen** (3); **izpiritua determinatzen** (3); **osoki determinatzen** (3); **zerbaiten egitera determinatzen** (3)

---

## **determinatuki** *adlag* erabakitasunez.

Haren moral probisional edo "behin-behineko moralaren" bigarren arauak, ekintzaren orduan enura guztiak bazterrera uzteko eta **determinatuki** aritzeko agintzen du. Joxe Azurmendi

---

## **determinatutasun** *iz* determinatua denaren nolakotasuna.

Buruargitasunaren (edo bereizmenaren) oinarri-esakune honek lehenaren xalotasuna (asmamenarena) asko zedarriztatzen du, eta arrazoimenak hemen elkarren aurka dauden bi alderdien interesa erakusten du, alde batetik, hedapenaren interesa (orokortasunarena) generoei dagokienez, beste aldetik, edukiarena (**determinatutasunarena**) espezieen anizkuntasunari dagokionez, zeren adimenak lehen kasuan asko pentsatzen baitu bere adigaien azpian, bigarrenean, ordea, are gehiago beraietan. Ibon Uribarri

---

## **determinatzaile** *izond/iz* determinatzen duena.

Izan ere "langabeziaren **determinatzaile** estrukturalak ez badira aldatzen", langabeziak berriz ere gora egingo baitu. Iñaki Heras

Zientzia-ezagutzaren eraketan esperientzia berak (bakar batek, alegia) kontzeptualizazio teoriko anitz onartzen dituenez, esperientzia ahalke da bere baitan zientziaren eraketa teoriko-kontzeptuala determinatzeko, eta funtzio **determinatzaile** hori faktore sozialen esku geratzen da. Askoren artean

Askatasun transzendentalak arrazoimen hau bera sentsuen munduaren kausa **determinatzaile** orotatik beregaina izatea eskatzen du. Ibon Uribarri

Murriztapen burugabea litzateke, nahiz eta Francoren ikuspenen azken eragilea lobulu tenporaleko epilepsia eta "oroimen" krisialdiak izan, haren oroimenaren eta artearen **determinatzaile** bakarrak hor daudela uste izatea. Xabier Olarra

Hizkuntza semitikoek, adibidez, alborakuntza soilez adierazten dute izen **determinatzailearen** eta izen determinatuaren arteko erlazioa. Isabel Arrigain

---

## **determinatze** *iz* mugatzea; zehaztea; ondorioz ekartzea. ik **determinazio**.

Nigan substantziala dena subjektu transzendental gisa ezagutzen dudala uste dut, **determinatze** ororen oinarrian dagoen kontzientziaren batasuna besterik ez dudanean pentsamenduan ezagutzaren forma soil gisa. Ibon Uribarri

Eskolastika Behereko eskola eta joeren arteko borrokan erlijio-sentimendua eta erlijio-esperientzia sentsibilitate- eta bizipen-ahalmena hainbat gehiago galtzen ari ziren,

zenbat eta haiek gero eta gehiago pasatu, Eskolastika berantiarreko Filosofian eta Teologian, **determinatze** eta zarpailtze kontzeptual eta gnoseologikoaren (teoriko-ezagutzazko) objektu izatera. Joan Mari Lekuona

---

# **determinazio** 1 *iz* determinatzea.

Landek frogatu zuen, ordea, kolorearen **determinazioa** ez zela ez leku batekoa ez absolutua. Xabier Olarra

Ikuslearen eta irudiaren arteko harremanaren **determinazio** fisiologikoak eta psikologikoak [...] ez dira aski, jakina, harreman hori oso-osorik deskribatu ahal izateko. Josu Zabaleta

Izan ere, ez **determinazio** absolutuak, ezta erlatiboak ere, ezin dira begietsi hauei lotuak dauden gauzen izatearen aurretik, eta beraz, *a priori.* *Ibon Uribarri*

Denboraren **determinazio** transzendental bat, berriz, kategoriarekin homogeneoa da (beronek **determinazio** horren batasuna osatzen baitu), orokorra den eta apriorizko arau batean funtsatzen den heinean. Ibon Uribarri

**2** erabakia; erabakimena.

ETAren erabakiarekin batera, etorri behar dute beste erabaki, beste **determinazio**, beste akordiorako gaitasun batzuek. Berria - Harian

Produkzio-harremanen, **determinazio** ekonomikoen eta klaseen arteko borrokaren azterketa historikoaren bidez. Xabier Arregi

EAJko lehendakari Josu Jon Imazek, herriek **«determinazio** librerako eskubidea» duten bezala, emakume eta gizonen arteko harremanean eskubide bera errespetatu behar dela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Kontseiluak sei helburu izango lituzke: «Bakea, giza eskubide guztiak pertsona guztientzat», «indar politiko guztien legeztatzea», «nazio kontzientzia eta eraikuntza», «soberania eta **determinazio** askea», «lurraldetasuna eta subjektu nazionala» eta «gizarte integratua». Berria - Euskal Herria

Egitasmo handietarako beharrezkoak diren **determinazio** eta kuraia falta zaizkigu. Berria - Harian

**3** erabakitasuna.

Bozen ahotsa, **determinazioa**, zuzentasun intelektuala gustatu zitzaizkion. Itxaro Borda

Haren ibilerak asmo edo xederen batek bultzatua zirudien, zangoak -gorputzeko beste atal guztien gainetik- adimenari berari gailendu balitzaizkio bezala, ibilbidea hautatzeko **determinazioan**. Pedro Alberdi

Aspalditik determinatua nintzen, determinismoz eta ez **determinazioz**. Piarres Aintziart

Segurtasun indarrek lanean **«determinazio** osoz» jarraituko dutela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Nagusiak irakatsi zuhurtasun eta **determinazioaz** jokatzen zen Txoko. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harreman hori irudiekiko harreman indibidual oro biltzen duten eta hartan eragina duten **determinazio** multzo baten barruan harturik dago, gainera. Josu Zabaleta

Harremanen joko honek **determinazio** -hastapen bat osatzen du eta berak -emaniko diskurtso baten baitan- baimentzen ditu edo baztertzen ditu zenbait enuntziatu. Xabier Arregi

**Determinazio** erakustaldia egin behar da prozesua trabatu nahi dutenen aurrean. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hautemapen guztien denborazko hartuemanean a priori determinatuta dagoen batasun sintetiko hori denbora-**determinazio** enpiriko guztiek denbora-**determinazio** orokorren erregelen menpean egon behar dutela dioen legea da. Ibon Uribarri

Esan dezatela argi eta garbi: autodeterminazioa ez, hetero-**determinazioa** da bidea. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**barneko determinazio** (3); **baten determinazio** (4); **bere determinazio** (9); **beren determinazio** (4); **denbora determinazio** (11); **denboraren determinazio** (6); **determinazio bat** (5); **determinazio gisa** (13); **determinazio guztiekin** (3); **determinazio guztien** (3); **determinazio hau** (3); **determinazio hori** (4); **determinazio oinarri** (3); **determinazio oro** (4); **determinazio ororen** (4); **determinazio osoa** (8); **determinazio osoaren** (14); **determinazio osoaren oinarrian** (3); **determinazio osoz** (3); **determinazio soil** (5); **determinazio soil gisa** (4); **eta determinazio** (8); **gauza baten determinazio** (3); **izatearen determinazio** (4); **nire izatearen determinazio** (3)

**barneko determinazioak** (4); **baten determinazioa** (4); **berbaitango gauzen determinazioak** (3); **bere determinazioa** (4); **bere determinazioaren** (5); **bere determinazioen** (3); **denboraren determinazioaren** (3); **determinazioa baino** (4); **determinazioa baino ez** (3); **determinazioa da** (5); **determinazioa den** (3); **determinazioa ere** (3); **determinazioak besterik** (3); **determinazioak besterik ez** (3); **determinazioaren baldintza** (3); **determinazioaren bitartez** (4); **eta determinazioa** (3); **gauzen determinazioak** (4); **objektuaren determinazioa** (3)

---

# **determinismo** 1 *iz* gertaerak eta egiteak, eta orobat jokabide moralak, aldez aurreko arrazoien mende daudela dioen filosofia-dotrina, gizakiari borondate askea ukatzen diona.

Gorputzaren **determinismoak** bete zuen bere eginbide mekanikoa. Piarres Aintziart

Joera marxistan, beraz, **determinismo** ekonomikoa da nagusi. Iñaki Heras

1970eko hamarkadan garatu zen soziobiologiak **determinismo** genetikoa aldarrikatzen zuen giza portaera azaltzeko. Askoren artean

**Determinismo** biologikoaren bertsiorik baldarrenaren oinarriak jarri dituen doktrina multzoa gorpuztuz joan direnen erantzukizuna. Juan Garzia

**Determinismo** teknologikoaren bertsiorik gogorrenetan, gainera, teknologia hartzen da gizartearen konposizioa eta egituraketa-moduak determinatzen dituen faktore nagusitzat. Askoren artean

Agustin deunak ez dio lekurik uzten **determinismo** teologikoari, nahiz eta Jaungoikoak aurrez jakin zer aukeratuko dugun. Imanol Unzurrunzaga

Naturak gizakiari muga gaindiezinak ezartzen dizkion arren, **determinismo** moral guztien kontra zegoen Kant. Berria - Kultura

Globalizazioari buruzko beste mito edo auzi garrantzitsua prozesuaren **determinismoarena** da: globalizazioa "geldiezina" eta "ahalguztiduna" da. Iñaki Heras

Aspalditik determinatua nintzen, **determinismoz** eta ez determinazioz. Piarres Aintziart

**2** (hitz elkartuetan)

Iturri bertsutik edaten dute: [...] ekonomia **determinismoaren** uretatik, alegia. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**determinismo teknologikoaren** (5); **eta determinismo** (3)

---

# **determinista** *iz* determinismoarena, determinismoari dagokiona.

"Kausalitateak", berriz, lege naturalen bat inplikatzen du eta, horren arabera, kausa eta efektua modu **deterministan** lotzen ditugu. Askoren artean

Mundua ez da **determinista**, ez dago ziurtasun osoz esaterik kausa batek zer-nolako efektua izango duen. Berria - Harian

"Askatasuna" gogoaren ezaugarri ukaezina da, alegia, ez dago lege zurrun eta **deterministarik** gogo-egoerak aurreikusi eta azalduko dituenik. Askoren artean

Nekez uka daiteke, ordea, arazoari irtenbidea eman nahi bazaio, gutxi laguntzen dutela hurbilketa edo hausnarketa **deterministek** eta partzialek. Iñaki Heras

Agustin ez da, greziarrak bezala, fatalista, ez eta **determinista** ere; Historiaren ikuspen probidentzialista defenditzen du. Imanol Unzurrunzaga

Arazoa da [...] gaitzaren analisiari ekiteko hartu den tresneria intelektualak berak -positibista izan gura baita- nahitaez gure ibilaldia kalezaku **determinista** batera ez al duen kondenatzen. Joxe Azurmendi

---

**detonadore** *iz* detonagailua.

Hasieran esan zuten armak eta **detonadoreak** geneuzkala, baina ezin izan dute ezer frogatu. **Detonadoreen** baitan dagoen presioa aintzat hartuz tritio-ihesa eragoztea ezinezkotzat jo du. Berria - Euskal Herria

---

**detonagailu** **1** *iz* leherketa eragiteko gailua.

Lehergailua biziki lanjerosa denez, badakizue, **detonagailua** kargarekin ez batu azken momentua arte, eta erlojuarekin ere kontua izan, orratz handia kendu eta txikia utzi borne elektrikoarekin kontaktua egin dezan. Joseba Sarrionandia

Bigarren Mundu Gerraren ostean garatu ziren hidrogeno-bonbek (hau da, fusio-bonbak) leherrarazteko fisio-bonba txiki bat erabili behar izaten zuten **detonagailu** gisa. Berria - Gaiak

Atzerapenez eztanda egingo dute gero haiek **detonagailuari** berriro sakatzen diotenean. Harkaitz Cano

Artisau bonbak zartarazteko **detonagailuak**. Itxaro Borda

Erabilitako lehergai mota, aurkitutako **detonagailuen** ezaugarriak, [...]. Txema Ramirez de la Piscina

Madrilgo sarraskian bezala, **detonagailuak** kobrezkoak ziren. Berria - Mundua

**Detonagailuetan** erabiltzen den tritioa da minbizia eragiten duena. Berria - Mundua

Europan ere gerraren espoletak **detonagailuan** jo du-eta, itxurazko bakea lehertu egin da Alemania Polonian sartu eta Ingalaterrak eta Frantziak hari gerra aldarrikatu diotenean. Edorta Jimenez

Izan ere, klitoriaren mokoan hainbat eta hainbat ukipen errezeptore daude bilduta, eta horregatik da makina lehergarri baten **detonagailua** bezala. Luis Elberdin

**2** (hitz elkartuetan)

Poliziaren arabera, **detonagailu** eta leherkari zantzuak aurkitu dituzte etxean. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **detonagailu eta** (3); **detonagailuak eta** (3)

---

**detonatzaile** *iz* detonagailua.

**Detonatzaile** edo horietakoa zen, benetakoak bezalakoa baina hotsa besterik ateratzen ez zuena. Migel Angel Mintegi

Ez zuten gauza handirik atzeman, salbu kagula beltz bi, ordulari zaharkitua, lau **detonatzaile** eta metroak metroari hari elektriko Itxaro Borda

---

**detonazio** *iz* lehergai baten leherketa.

**Detonazioa** entzun zen, pisu astun bat lurraren aurka erortzen. Aritz Gorrotxategi

Hedabideon susmoek, ordea, beste norabide batetik jo zuten: Rue Vaubaneko **detonazio** bortitzak tomahawk klaseko misil baten lana ematen zuen. Patxi Iturritegi

---

**detraktore** *izond/iz* gaitzeslea.

Asko eta itzal handikoak izan dira Corominesen kritikari **detraktoreak** eta askoz ugariago, berriz, gaiari buruz erreferentziatzat hartu duten adituak. Berria - Kultura

Inon baino ameslariago bizi gintezke hirian, eta alde zoragarri hori oso kontuan hartu beharko lukete Bilbo, Paris edo Londres bezalako hirien **detraktore** kamutsek. Bernardo Atxaga

---

**detrimental** *izond* kaltegarria, kalte-sortzailea.

Etika humanista, etika autoritatezkoaren alderantziz, printzipio honetan oinarritzen da: 'ongia' gizakiarentzat ona dena da eta gaizkia gizakiarentzat **detrimentala** dena; balio etikoaren irizpide bakarra gizakiaren ongizatea izanik. Jenaro Garate

---

**detritus** *iz* masa gotor usteldua, hondakina. ik **usteltza**.

Beren burua [...] **detritustzat** duten pertsonaiok. Markos Zapiain

---

**detxema** *(corpusean **detxima** soilik; ETCn 7 agerraldi)* *iz* hamarrena.

Zerga horiek ziren **detximak**, erran nahi baita bildu uzten hamargarren partea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ordu arte nola ordaintzen zuten Elizari zor zitzaion hamarrena edo **detxima** [...]? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**detxematu** *izond* sarraskitua.

Tribu **detxematuaren** azken cherokeea. Jon Alonso

---

detxima ik **detxema**.

---

deubru ik **deabru**.

---

**deun** **1** *izond* santua.

Herri zintzo baten askatasun **deunaz** ari nintzan. Juan Luis Zabala

Gogoratu nola ezkutatzen den jainkotasuna, alegia, nola ezezta litzakeen etsaiak eta ez duen egiten, eta nola uzten duen bere gizatasun txit **deuna** hain gogorki jasaten. zeren ez baita seme-beldurra bakarrik gauza ona eta guztiz **deuna**, baita morroi-beldurra ere; eta gizonak gauza hoberik iristen ez duenean, asko laguntzen du bekatu larritik irteteko. Patxi Altuna

Idazti **Deunak** jainkotzearen nemesi moral eta intelektuala protestanteen morrontza izan zen, trentotar katolizismoak, artean apaizgoan oinarrituak, izan ez zuena. Iñaki Mendiguren

**2** (pertsona izen baten eskuinean)

Agustin **deuna** tradizio filosofiko-teologiko asko biltzen dituen aro baten eledun dugu. Imanol Unzurrunzaga

Jende asko izan da Jose **deunaren** zaindaritza nahi izan duena: hor daude arotz eta zurginak. Pello Zabala

-Andre **Deuna** Mari Martxoko, gure behia larrean aseko. Pello Zabala

Biak joan ziren Epifanio **deunaren** omenez eraikitako elizara. Felipe Juaristi

Haurra zela, beti ikusten zuen bere herrixkako elizan Santiago Mairu-hiltzaile **Deunaren** irudi bat, bere zaldi zuriaren gainean. Xabier Aranburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **agustin deuna** (5); **agustin deunak** (9); **agustin deunaren** (11); **agustin deunarentzat** (3); **ander deuna** (8); **ander deuna ikastolako** (4); **deuna ikastolako** (4); **deuna ikastolako zuzendariak** (3); **sopelako ander deuna** (5)

---

## deus 1 *izord* ezer. (baiezko ez diren esaldietan)

Ez zuen **deus** argitaratu ez Frantzian ez Salamancan; 1542an agertu zen haren lehen liburua; 50 urte zituelarik egileak. Piarres Xarriton

Ez zen **deus** ikusten, eta luzaz ez zuten argi bat ere hauteman. Aurelia Arkotxa

Ingelesek ez dute **deus** xutik utzi. Marzel Etxehandi

Heian ez nuenetz **deus** entzun Euskal Herriaz Biarnoan, ala sorlekua ahantzia nuen! Piarres Aintziart

Ez dakite **deus** eta ez dute ezer ulertzen, ilunpean dabiltza. Xabier Kintana

Utopiaz **deus** ez dakien presidenteak bere historia beltza idazten jarraitu zuen. Edurne Elizondo

Nire uniformeak ezin izan zuen **deus** aldatu baina, gutxienez, poliziburuarenganaino iristea lortu genuen. Joxe Austin Arrieta

**Deus** aldatzerik ez, bere ondorengo horrek aski luzaroan itxaron baitu, eta borondatez atzera egiteko batere asmorik ez, omen. Joxe Austin Arrieta

· Eta **deus** banaiz, herritar euskalduna naiz. Patziku Perurena

**Deus** badaki euskaldunak, otea zer den dakike. Patziku Perurena

**Deus** ez bada gertatzen ere, igor beti mezua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· Baina zinez normala da orain bi urte doi idatzi nuen testuan nire **deus** ez ikuste edo ez sentitze hori? Anjel Lertxundi

· Azken patarrean gibelatu naiz, **deus** erran gabe. Piarres Aintziart

Elkarri **deus** erran gabe. Daniel Landart

Ez du biziki munta, Doktor agurgarria, jendek gu geu judika gaitzaten, bereziki **deus** zuzen jakin gabe jujatzen baldin bagaituzte. Piarres Xarriton

Bi igande pasatu ditut **deus** idatzi ezinik. Anjel Lertxundi

· Espetxeratu txiro **deus** gabea bihurturik zegoen. Oskar Arana

· Ez baitut uste sekulan **deus** ikasi dudan, bihotzez ez bada. Patziku Perurena

Nere beginini lausook modernismo tasadorez zikindu zirenetik, bihotzak apenas sumatzen duen **deus**. Patziku Perurena

Apenas estimatu eta ikasi dugun **deus** zinezko larresenetik! Patziku Perurena

**2** (ezezko esaldietan -ik adizkia duen izenondo edo kidekoen ezkerrean)

Egia erran, Kattalinek ez du **deus** zehatzik iragarri helduden asteburuko. Eneko Bidegain

Denen buru, **deus** arrarorik ez... Herria

Baina definizio horrek ez du **deus** makurrik, gauzak ere ez beraz. Piarres Aintziart

Ez zen **deus** garrantzizkorik handik goiti gertatzen ahal. Piarres Aintziart

**Deus** espantagarririk ez. Aingeru Epaltza

· Han **deus** ikustekorik ez dagoen arren, pertsianak izan ezik. Joxe Austin Arrieta

Helburuetan ere **deus** ikustekorik ez zuten batak eta bertzeak. Aingeru Epaltza

Bi besta horiek ez dutelarik elgarren artean **deus** ikustekorik, bat erlisioneari lotua, bestea estatu laikoari, badute biek halere elgarren eite. Michel Oronoz

Ez dutela **deus** egitekorik Europan eta orain arte aldizkatu diren gobernuek Estatuko ateak sobera zabalik utzi dizkietela.· Zuzena balitz auzi hori horrela epaitua izatea nehork ez luke **deus** kontrakorik nahiko. Eneko Bidegain

Iparraldean, aldiz, ez da **deus** horrelakorik nabarmen. Piarres Xarriton

Ez zen holakorik **deus**. Pello Salaburu

· Ez baita hor **deus** mirakulurik, lurraldeak eta beraz jendeak hain hurbil izanez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Deus** mugimendurik ez zen gehiago ondo haietan. Janbattitt Dirassar

Barkatu, baina zertaz mintzo zara? ez naiz oroit **deus** lanik zuri eskaturik. Janbattitt Dirassar

Nahiz, abokaten arabera, hiruentzat segurik, **deus** frogarik ez omen den. Herria

**3** (ezezko, galderazko edo baldintzazko ez diren esaldietan)

Baina goiz hartan, **deus**; entzuten nuen gauza bakarra, isiltasuna. Filipe Bidart

Bainan hortarik aparte, **deus**. Menane Oxandabaratz

Aitzindari bat zen, **deus** erranagatik segidan lurreratua. Piarres Aintziart

**4** (deklinabide adizkiekin)

**Deusek** ez duela debekatzen euskararen erabilpena auzitegi batean. Herria

Bainan etzauzte **deusek** baztertu hartu bidean, geroztik. Herria

Gerla denboran ohartu bainintzen zertaz gai den gizona, **deusek** edo nehork ez balin badu atxikitzen. Piarres Aintziart

Aitzineko egunetan uste izan zuen **deusek** ezin zuela bere egoera makurragotu. Aingeru Epaltza

**Deusek** erakusten al du, ba, gure gizaeraren errepresioa, puzker batek bezain ederki? Patziku Perurena

Ez zuen nahi **deusek** alda zezan urte luzeetan lortu zuen oreka. Elena Touyarou

Hiria, **deusek** salbatzekotan, hiriaren bestelamoduzko bazterruneek salbatuko lukete, hiriaren hiri-barruko salbuespenek. Iñaki Segurola

Espainiako eremu zabal neurri gabeko hutsak jendearen behakoa goiti, zeruraino eramaiten duela, lurrean **deusek** ez duelakotz soa lotzen. Piarres Aintziart

Ebatsi dute 450.000 euroren gauza eta hori nehor **deusi** ohartu gabe. Herria

Mutikoa ez da **deusi** ohartzen. Michel Oronoz

Ez dio antzik ematen **deusi**. Iñaki Segurola

Ez du **deusen** eskasik ukanen, baina zuk hemendik joan behar duzu, lehen bai lehen. Elena Touyarou

Ez diat astirik izan **deusen** galdegiteko, ez eta argia ere. Filipe Bidart

Besoak uzkurtu zituen, **deusen** axolarik gabe. Aingeru Epaltza

Eta egun, deusik jan gabe nago, ez baitut **deusen** gutiziarik. Janbattitt Dirassar

Ixilik dago, bere ondokoa ez **deusetan** trabatzeko gisan naski. Herria

Dena beltzuri arizana da, erran eta erran ez duela **deusetan** huts egin. Herria

**Deusetako** gusturik ez nuen. Janbattitt Dirassar

Nehor ez zen **deusetaz** ohartu. Marzel Etxehandi

Izpirituak ez dezake deus irudika eta ez daiteke iraganeko **deusez** oroit, Gorputzak diraueno baizik. Piarres Xarriton

## 5 *alegia deus ez* (*orobat* **deusez** *g.er.*)

**Alegia deus ez**, atorraren petik, Maien titi puntekin jostatzen nintzen. Itxaro Borda

Berria ohi zuen gisara eman zion, bidenabarrean, **alegia deus ez**. giza izatearen dardara hunkigarrienak eta miseria egunerokoenak erakusten dizkigu, **alegia deus ez**, ezer gertatuko ez balitz edo kontatuko ez baligu bezala. Aingeru Epaltza

Ni zutitu nintzen eta, **alegia deus ez**, arditegira abiatu. Daniel Landart

Beti oroituko naiz, herriaz hobeki jabetzeko, zer-nolako laguntza paregabea ekarri zidan, **alegia deus ez** eta hain denbora laburrez. Daniel Landart

Laster berriz abiatu naiz eta gibeletik atzeman dut gizon gaztea, harekin eginez zenbait urrats, lagundu nahi baitut, **alegia deusez**. Piarres Aintziart

-Eta kasu okerrena ikustekoa dugunentz aments -segitu zuen arotzak, **alegia deus ez** -. Elena Touyarou

Zure anaia jauna hemen da atzoz geroztik -esan zuen, **alegia deus ez** -.· Berdin hasi zirela ordu haietan alegia **deus** hitz pollitez gauza itsusiak apaintzen. izigarri maite nuen, denetako abilena zen ene ustez, alegia **deus**. Matías Múgica

## 6 *alegia eta deusez*

Mahaitik xutitu nintzen, eta kanporat joan **alegia eta deusez**... Janbattitt Dirassar

Aitamenganat joana nintzen egun batez, **alegia eta deusez** galdetu nien neska hura zer egina zen. Janbattitt Dirassar

Neurri horiek dituzte kanbiatu nahi **alegia-eta deusez**: Helduden urtetik harat, alargunduaren sos jiteak ez dituztela batere izari berean hartuko kondutan. Herria

Maltzurkeri bipertsu batekin historiazaleak xehetasun horiek guziak banatzen zituen, **alegia eta deusez**, arras ongi zekielarik Historia dela bazter nahasle, eztabaida piztaile, ez bere baitarik, neutroa baita -izan behar luke segurik- baina gizonek bereganatzen baitute beti eta hola bata bestearen kontra altxatzen direlakotz. Michel Oronoz

## 7 *deus ere*

**Deus ere** ez dute ulertzen inoiz kazetariek. Joxan Elosegi

**Deus ere**, ez bada ahotsa zertxobait apaltzea bera sartzean, ez bada samurtasun eta begirune ukitu bat izatea irribarreetan bere aurrean, deus ez, ez bada errainak noizean behin esatea: [...]. Ez nuen **deus** ere konprenitzen. Ibon Uribarri

Gizarte bat ez da **deus ere** unibertsitaterik gabe. Pello Salaburu

Tomek **deus ere** ez zekienez gero Harryren lehengo bizitzaz, ez zion inondik ere antzeman zertaz ari ote zen hura. Oskar Arana

Hala ere, Jaunak ez dit agertu zergatik; ez dit **deus ere** jakinarazi. Elizen arteko biblia

Zergatik "bizi" behar dut **deus ere** ez dena? Joxe Austin Arrieta

Ez diot **deus ere** ez esaten ez eskatzen, ordea. Joxe Austin Arrieta

Izan ere, halakoxea da amodioaren agintea, maitearen zeretik kanpo ez baita **deus ere** sexu bat bestearentzat. Andres Urrutia

-Bainan ez duzu **deus ere** haundirik egin... Menane Oxandabaratz

Baina **deus ere** ez funtsezkorik. Eneko Bidegain

Ez zegoen, baina, **deus ere** egiterik. Gotzon Garate

Eta aitak **deus ere** ezin egin, urrun baitzegoen, Jainkoak daki non... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Urteak eman nituen **deus ere** ulertu gabe. Karlos Zabala

Batek laguntza osoa, besteak **deus ere** ez. Pello Salaburu

Baina, hona, Adoniasek errege izendatu du bere burua, zuk **deus ere** jakin gabe. Elizen arteko biblia

## 8 *deus gutxi* (*orobat* **gutti** *g. er. eta* **guti**)

**Deus guti** dakigu ondoan dagoen pertsonaz. Piarres Aintziart

**Deus guti** uzten ahal diat dirutan, zorren bat ez bada. Aingeru Epaltza

**Deus gutxi**, musuren bat ahoan eta zirri batzuk, baina esango nuke zerbait gertatuko zela, Rodolfo hil izan ez balitz. Laguntza guziak **deus guti** ziren. Karlos Zabala

Hori **deus gutxi** da, ordea, mundu guztian ordaindu behar denaren aldean. Gotzon Garate

Indarrik gabeko egiak **deus guti** egin eta eragiten du. Piarres Aintziart

Eguraldiaz mintzatu zen, eta radarrari buruz, honetaz **deus gutxi** zekien arren. Joxe Austin Arrieta

Sinetsiko nauzu nahi baduzu baina egia hauxe da: **deus guti** dudala erraiteko! Janbattitt Dirassar

Badira galera eta garbiketaren ondotik gelditu diren euskarakin batzuk han-hemenka, baina hortik gora **deus gutxi**. Iñaki Segurola

## 9 *deus ez*

**Deus ez**, nire pistolaren eta nire ezpataren kontra. Aingeru Epaltza

**Deus ez**, zakur-ametsa da dena, ihesean doan mundua. Fernando Rey

- **Deus ez**, zoritxarrez, egoera hau alda dezakeenik. Harkaitz Cano

-Deabruendako **deus** ez, aingeruendako, izatekotan. Aingeru Epaltza

Gureak berriz **deus ez**, zero. Iñaki Zabaleta

Deus ere, ez bada ahotsa zertxobait apaltzea bera sartzean, ez bada samurtasun eta begirune ukitu bat izatea irribarreetan bere aurrean, **deus ez**, ez bada errainak noizean behin esatea: [...]. Ibon Uribarri

## 10 *deusik*

**Deusik** ez zuen erran Pantxikak. Janbattitt Dirassar

**Deusik** erran gabe Ermita xutitzen da eta petrola lanpa berriz piztera doa. Michel Oronoz

**Deusik** ez dugu aditu, ez gara nehorat atera. **Deusik** ez, kasik. Janbattitt Dirassar

Ez du **deusik** ikusten, hain da pisua eta tinkoa ilunbea. Michel Oronoz

Baina ez nuen **deusik** esan. Txillardegi

Baina ez zen holakorik **deusik** gertatu. Pello Salaburu

Egin duenak ez duela **deusik** salatu, gauza batzuk baitira bakoitzak beretzat atxikitzen dituenak. Janbattitt Dirassar

Bizi honek **deusik** ez dik balio! Janbattitt Dirassar

Hemengo berri **deusik** ez dakit... Janbattitt Dirassar

Luzaz entseatzen dira arrazoinka, baina mutikoak ez du **deusik** entzun nahi. Michel Oronoz

Damurik ez dizuet beste **deusik** erraten ahal. Elena Touyarou

Seinale horiei esker, itzultzean **deusik** ez zitzaigun gertatu. Aurelia Arkotxa

Zeldaren iluntasuna, beste **deusik** ez egiteko, eta logalea nagusitzen zait. Filipe Bidart

Ez dut gehiago **deusik** galtzeko. Ramuntxo Etxeberri

Izebari ez zioten sekulan **deusik** kondatzen. Eneko Bidegain

Horrez gainera ezeren **deusik** ez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gainbeheraldi luze tristagarri hartan nik **deusik** ezin eginik, umezurtz sentitu nintzen zinez. Txillardegi

Horrela prestatu zuen beretzat Eliza distiratsua, zikinik eta zimurrik edo antzeko **deusik** gabea, Eliza santu eta kutsagabea. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**alegia deus** (33); **alegia deus ez** (29); **arte deus** (8); **artean deus** (9); **baina deus** (34); **baina deus ez** (12); **bainan deus** (12); **baino deus** (10); **baita deus** (12); **baitu deus** (21);

baitute deus (8); baitzen deus (12); bertze deus (12); beste deus (51 besterik deus (12); buruz deus (16); da deus (173); da deus ere (21); dago deus (39); daki deus (14); dakigu deus (7); dakit deus (15); dela deus (39)

deus adierazi (10); deus aditu (9); deus aipatu (14); deus aldatu (19); deus aldatuko (12); deus aldatzen (11); deus arrarorik (16); deus aurkitu (12); deus aurkitzen (7); deus baino (18); deus baino lehen (7); deus balio (35); deus berezirik (32); deus berriagorik (11); deus berririk (35); deus berririk ez (11); deus egin (165); deus egin gabe (24); deus eginen (7); deus egiteko (8); deus egitekorik (12); deus egiten (46); deus egiten ahal (8); deus egiten ez (7); deus egiterik (27); deus egiterik izan (7); deus eman (17); deus entzun (21); deus entzuten (14); deus erabaki (8); deus erantzun (32)

deus ere (614); deus ere biderako (11); deus ere egin (42); deus ere egiten (9); deus ere ekarten (9); deus ere esan (14); deus ere esaten (9); deus ere ez (113); deus ere jakin (13); deus ere ulertu (7); deus ere ulertzen (16); deus erraitekorik (10); deus erraiten (8); deus erran (78); deus erran gabe (25); deus erran nahi (13); deus erraten (10); deus esan (172); deus esan ez (8); deus esan gabe (39); deus esan nahi (12); deus esanen (7); deus esango (9); deus esateko (8); deus esatekorik (9); deus esaten (47); deus esaten ez (7); deus eta (8)

deus ez (624); deus ez bailitzan (11); deus ez baita (9); deus ez da (57); deus ez dago (9); deus ez dela (32); deus ez duela (9); deus ez zekiela (12); deus ez zela (7); deus ez zuen (7); deus ezin (21); deus falta (7); deus frogarik (10); deus gabe (12); deus galdetu (14); deus galdu (10); deus galtzeko (16); deus galtzekorik (7); deus garbitasunik (9); deus gehiago (20); deus gehiagorik (8); deus gertatu (39); deus gertatu ez (16); deus gertatuko (17); deus gertatzen (19); deus gisaz (11); deus guti (110); deus guti behar (8); deus gutxi (85); deus handirik (16); deus hoberik (10); deus holakorik (9); deus ikasi (10); deus ikusi (22); deus ikustekorik (73); deus ikustekorik ez (26); deus ikusten (31); deus izan (8); deus jakin (29); deus jakin gabe (7); deus jakin nahi (9); deus jan (9); deus jaso (7); deus jokoan (7); deus larririk (8); deus lortu (11); deus makurrik (14); deus nahi (12); deus onik (68); deus onik ez (16); deus positiborik (8); deus txarrik (19); deus ulertu (16); deus ulertzen (23)

diat deus (10); dio deus (13); diot deus (9); dira deus (7); du deus (221); du deus balio (7); du deus egin (12); du deus ere (12); du deus erran (9); du deus esan (10); du deus esaten (7); du deus galtzeko (7); du deus ikustekorik (11); dudala deus (11); duela deus (61); dugu deus (59); dugu deus egin (8); dugula deus (10); duk deus (13); dut deus (88); dut deus ere (15); dute deus (96); dute deus egin (11); dute deus ere (13); dutela deus (23); duzu deus (33); duzu deus ere (8); edo deus (16); elkarri deus (8); ere deus (29); eta deus (100); eta deus ere (11); eta deus ez (26)

ez baita deus (9); ez baitu deus (18); ez baitute deus (8); ez baitzen deus (11); ez da deus (152); ez dago deus (38); ez daki deus (13); ez dakigu deus (7); ez dakit deus (15); ez dela deus (37); ez deus (36); ez diat deus (9); ez dio deus (12); ez diot deus (9); ez du deus (205); ez dudala deus (9); ez duela deus (58); ez dugu deus (45); ez dugula deus (9); ez duk deus (12); ez dut deus (79); ez dute deus (91); ez dutela deus (21); ez duzu deus (23); ez genuen deus (9); ez hartu deus (11); ez nion deus (19); ez nuela deus (9); ez nuen deus (65); ez zaio deus (8); ez zegoen deus (11); ez zekien deus (11); ez zen deus (66); ez zidan deus (20); ez zien deus (7); ez zion deus (21); ez zitzaidan deus (9); ez zuela deus (32); ez zuen deus (166); ez zuten deus (50); ezin deus (13); ezin du deus (9); ezin dugu deus (11); ezin duzu deus (7); gabe deus (12); galtzeko deus (12); gehiago deus (10); genuen deus (10); haatik deus (8); hari deus (7); hartaz deus (9); hartu deus (11); hartu deus ere (11); horrek deus (12); horretan deus (9); horretaz deus (11); ia deus (22); ia deus ere (8); inori deus (16); izan zuen deus (8); izan zuten deus (13); kontra deus (7); nik deus (16); nion deus (19); nuela deus (10); nuen deus (67); nuen deus ere (15); nuen deus esan (9); oraindik deus (9); oraino deus (12); orduan deus (7); zaio deus (12); zegoen deus (11); zekien deus (13); zen deus (71); zen deus ere (8); zen deus gertatu (11); zezakeen deus (9); zidan deus (20); zidaten deus (7); zien deus (7); zion deus (25); zitzaidan deus (9); zuela deus (34); zuela deus ere (7); zuen deus (181); zuen deus egin (9); zuen deus ere (22); zuen deus erran (8); zuen deus esan (28); zutela deus (7); zuten deus (66); zuten deus egin (15); zuten deus ere (11)

alegia deusez (8); alegia eta deusez (29); bertze deusen (7); beste deusek (12); deusek ere (24); deusek ere ez (14); deusek ez (58); deusek ez du (11); deusen beldurrik (7); deusen eskasik (29); deusetarako balio (15); deusetarako balio (15); deusetarako ez (16); deusetarako ez (16); deusetaz ohartu (7); du deusen (7); eta deusen (12); eta deusez (32); eta deusez (32); ez deusen (9)

---

deusestatu ik **deuseztatu**.

---

deusestu ik **deuseztu**.

---

# deusez 1 *iz* erereza.

Piztu zaion esperantzak gainean hutsa eta azpian **deuseza** duela. Aingeru Epaltza

Indarrak **deusezetik** atereaz. Aingeru Epaltza

Eta jaten du harrak, azkenean, hitza, usteltzerat eta husterat uzten du, **deusez** bihurtzen du, eta **deusez** horren gainean eraiki nahi izaiten dugu ondoren bizitza... Joan Mari Irigoien

Erruki zaitezte belarrondoko baten nekea ere merezi ez duen beste **deusez** horretaz. Anjel Lertxundi

Bere bakardadetik eta bere **deusezetik** munduaren deuseza besarkatu zuenean. Joan Mari Irigoien

Zeren, geure **deusezetik** bertze **deusez** bat amoroski besarkatzen dugunean, erortzen dira mugak eta loratzen zaigu bihotzean eguzki bizi gori bat, urrerik urretsuena baino distiratsuagoa dena. Joan Mari Irigoien

Hala, neure **deusez** horretan bizi nahi nuke etxeko elizattoan, amaren eta haren zerbitzariaren ondoan, mundutik bereizirik, Jainkoari beha... Joan Mari Irigoien

Eta moilatik herrira zoazela, **deusez** handi bat zabalduko da ahoa lez zure aurrean. Joseba Sarrionandia

Bost urteko epean Estatuaren diru laguntza ia **deusezean** gelditiuko da, eta bestalde gure gastuak handituko dira. Berria - Euskal Herria

• **2** *izond* ezdeusa.

Azken isil bat ukan zezala nire bizitza triste eta **deusezak**. Oskar Arana

Haiek dituk, inor izatekotan, sasikume **deusez** galantak. Mirentxu Larrañaga

Bi egun, gehiagorik ez, bere bulegoan trapu **deusez** baten gisara erabili ninduenetik. Aingeru Epaltza

Ezkontza **deuseza**, bi ezkontidek edo eurotariko batek onusteaz egina bada, ez da duda-mudazkoa seme-alaben egoera zibilerako. Andres Urrutia

Gizaseme **deusez** bat nintzela. Mirentxu Larrañaga

-Ez haiz **deusez** bat, Charlie. Mirentxu Larrañaga

Gezurra dirudi hain **deuseza** den zerbaitek holako zarata ateratzea. Pello Salaburu

---

# deusezgarri *izond* deusezten duena.

Urrutitik ikustatu nuen Itsasoari izena eman zion mendia: haren mazeletan euforbioa hazten da, edenen **deusezgarria**; gailurraldean satiroak bizi dira, haragikeriara emanak diren gizon anker basa batzuek. Juan Garzia

---

# deusezkeria *iz* ezdeuskeria.

Gizarte **deusezkeria** horiek, hain zuzen ere, sortzen zituzten, ezkon hitzetan eta ezkontzetan, deserosotasuna, premia larriak eta zergatik ez esan, patuaren ezinbestekotasuna ere. Andres Urrutia

---

# deusezpen *iz* deuseztea.

Eta ezin dugu, bizitza luzatuz, heriotzaren denbora izpirik kendu ez laburtu, **deusezpena** beharbada laburragoa izan dakigun. gauzak hazi eternalez osatuak dagozenez gero, bere zartadaz banatuko dituen edo bitarteetatik barruratu eta disolbatuko dituen indarrik heltzen ez deno, naturak ez du ezeren **deusezpenik** ikusten uzten. Xabier Amuriza

---

# deuseztaezin *izond* ezin deuseztatuzkoa.

Ea nonbait, eta agian neure Norbera pentsatzailean, batasun zatiezin eta **deuseztaezinik** dagoen, edo zatigarria eta iragankorra soilik dena besterik ez dagoen. Ibon Uribarri

**deuseztaezintasun** *iz* deuseztaezina denaren nolakotasuna.

Norbaitek arima materiaren zati bakuna dela esan ahal izango baligu, orduan honetatik iraunkortasuna eta, izaera bakunarekin batera, bere **deuseztaezintasuna** erator genezakeen esperientziak beraz irakasten duenetik abiatuta. Ibon Uribarri

---

**deuseztaile** *izond* deusezten duena. ik **deuseztatzaile**.

Kant **deuseztailearen** Dialektika transzendentala ordu arteko Metafisika ororen ezeztapena da, Metafisika hau itxurazko jakintza soila den heinean. Ibon Uribarri

---

**deuseztapen** 1 *iz* deuseztatzea.

Honek, bere aldetik, erorialdia eta susperraldia izaten ditu, eta azken susperraldi horren ondoren azken **deuseztapena**. Iñaki Mendiguren

Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna zailtzen duten oztopoen **deuseztapena**. Berria - Euskal Herria

Montik ez du ez inolako azterketa ekonomikorik, ez azalpenik eskaini, jabetza intelektualaren **deuseztapenak** berrikuntzari mesede egiten diola arrazoitzeko. Berria - Ekonomia

*Soinujolearen semea*k Eneida-n aipatzen diren «marfilezko atetik» sartzen diren ametsen **deuseztapena** kontatzen du, pertsonaiaren esnatzea. Berria - Kultura

Hasieran, Humek burutzen duen Metafisikaren kausalitate-legearen oinarritzapenaren **deuseztapena** da egia Kantentzat. Ibon Uribarri

Inork ez zuen bera ikusi ohol mutur hartatik **deuseztapenaren** uretara murgiltzen. Anton Garikano

**2** (hitz elkartuetan)

Horren arabera, arrazoi ekonomikoek derrigortutako **deuseztapen** espedientea sinatuko dute lekualdatzea nahi ez duten langileentzat. Berria - Ekonomia

---

**deuseztarazi**, deuseztaraz, deuseztarazen du *ad* deuseztatzera behartu.

Guk hitz bat egin orduko, bertatik ditu **deuseztarazi** bere ilobaren lebak, ezen uste zuen, nonbait, Poloniako erregearen aurkako prestaketa zirela; baina, hobeki azterturik, konturatu da berorren gorentasuna zutela xede. Juan Garzia

---

**deuseztasun** *iz* ezereztasuna.

Gurasoen edo tutoreen parte-hartzea lege positiboek agintzen dute eta horren ez izanak ez du erakartzen beste ondoriorik **deuseztasun** zibila baino. Andres Urrutia

Alderdien jokaerak zein denboraren joan-etorriek **deuseztasuna** noiz estali duten ere bereiztu izan dugu. Andres Urrutia

Aski-eztasuna eta **deuseztasuna** leporatzea beti ere gauzei, eta gabezia eta hutsa sentitzea, eta horrez gainera asperdura, hori iruditzen zait niri giza izatean aurki daitekeen bikaintasun- eta noblezia-seinalerik handiena. Juan Garzia

---

**deuseztatu**, deusezta, deuseztatzen (*411 agerraldi, 86 liburu eta 167 artikulutan; ETCn 5.665 agerraldi; orobat* ***deusestatu*** *g.er.*) **1** da/du *ad* erabat desegin edo suntsitu, deusez bihurtu. ik **deuseztu**.

Kezka eta estutasun guztiak aienatu ziren, gorputz nekatua iluntasunean **deuseztatu** zen. Jose Morales

Gorputza **deuseztatzen** zitzaiola, mendi gailurreko elurrak urtzen direnean bezala. Juan Kruz Igerabide

Ez dut sentitzen nola datorren, behinola bezala, lo maltzur hori, nire hurbilean ezkutaturik zelatan dagokidana, burutik heldu, begiak itxi eta **deuseztatu** nahi nauena. Josu Zabaleta

Gu suntsitzeko eta **deuseztatzeko** ahalegina prestatu zuten han. Jokin Urain

Neure begien aurrean ikusten dut zer-nola segaz ebaki eta bertan behera zimeltzen utzi gaituzten, erabat **deuseztatzeraino**. Mirentxu Larrañaga

Kontseiluko kontseilarien kontseiluei jarraikiz, azpilanaz eta azpijokoaz baliatuko zela Frantzia, finean, Milani eusteko, Napoli erakartzeko, veneziarren **deuseztatzeko** eta Italia osoaren azpiratzeko. Joan Mari Irigoien

Egiaztatu dugu **deuseztatutako** armak IRAren armategi osoa osatzen dutela. Berria - Harian

Mikroorganismoek **deusezta** ditzaketen konposatu organikoei esaten zaie biodegradagarriak. Berria - Gaiak

*Orlistat* ere erabiltzen da, gantzak **deuseztatzen** laguntzeko; 12 urtetik gorakoei eman dakieke botika hau. Berria - Gaiak

Ehun eta hamabost mitxeleta hegan, postontzia **deuseztatuz**, gizonaren angustia haragituz. Karlos Linazasoro

Agindu ezazu, zure erreinuko juduak hondatzearren, Hamanek bidali zituen gutunak **deuseztatzeko**. Elizen arteko biblia

Gero jakinen dut, Munich-etik trena joan aitzin gure zaintzaleek manua ukan zutela hilen paper guzien **deuseztatzeko**. Michel Oronoz

New Yorken **deuseztatutako** azken eraikuntza historikoa izan omen zen Penn Station. Bernardo Atxaga

Etsaia inarrosten du eta haserre gorritzen, baina ez **deuseztatzen** ez suntsitzen. Piarres Xarriton

**2** (gauza abstraktuak)

Izpiritua zeharkatzen duen guztia inmateriala denez berehala **deuseztatzen** delako. Joseba Urteaga

Estatua **deusezta** dezaketen barruko kausei buruz. Esteban Antxustegi

Erlijioa **deuseztatu** gabe erregeak suntsitzea, herensugeari buru bakarra moztea baita. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Alderdien Legea **deuseztatu** egin behar da. Berria - Euskal Herria

Azteken eta inken zibilizazioak **deuseztatuz**, eta bertako biztanleria suntsituz. Koro Navarro

Eskubidez, ezin da itunen bitarteko adostasunez ezarritako botere gorena **deuseztatu**. Esteban Antxustegi

Gizarte eta legeria berri hark, neurri handi batean bederen, Euskal Herriarena **deuseztatu** zuen arian-arian. Andres Urrutia

Gaitza erabat **deuseztatu** baino gaitzetatik ongiak ateratzea egokiagoa zela erabaki baitzuen. Imanol Unzurrunzaga

Esklabotza **deuseztatu** zen eguna ospatzeko ekitaldi ugari egin ziren atzo munduan. Berria - Gaiak

Proposamenak, dekretuz ezartzen bada bereziki, lanpostuak sortu ordez **deuseztatu** ere egingo lituzke. Iñaki Heras

Batzarrak badu pribilegioen eta jabe-eskubideen **deuseztatzeko** xedea. Elena Touyarou

Nire damuaren zintzotasuna eta lapurretaren arina kontuan hartuta, **deuseztatuta** uzten zuen epaileak nire kontrako auzia. Joxerra Garzia

Zalantza guztiak **deuseztatu** dizkidazulako. Imanol Unzurrunzaga

Izan ere, kanpoko sentsua irudikatu baino ez egiteak, irudimenak determinatzen duen begiespen-ahalmen bera **deuseztatuko** luke. Ibon Uribarri

Geroago, "antionkogene" izeneko beste gene batzuk aurkitu ziren, onkogeneen eragina **deuseztatzen** zutenak. Juan Garzia

Bizitzak dena **deuseztatzen** du. Ander Irizar

**3** (era burutua izen gisa)

Herri bateko etxe **deuseztatuek** itxura ezin beldurgarriagoa erakusten zuten. Lutxo Egia

Beckett antonomasikoan, berriz, Lur-Agertoki zabal, zehaztugabe, ko(s)miko-metafisiko batean dihardute pertsonaia nortasun guztiz prekariokoak, espazio-denbora **deuseztatu** batean. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**deuseztatu arte** (3); **deuseztatu baitzuen** (3); **deuseztatu behar** (11); **deuseztatu dituzte** (3); **deuseztatu edo** (3); **deuseztatu egin** (15); **deuseztatu egin behar** (4); **deuseztatu egin zen** (3); **deuseztatu egingo** (3); **deuseztatu egiten** (5); **deuseztatu eta** (4); **deuseztatu gabe** (4); **deuseztatu nahi** (13); **deuseztatu nahi ditu** (3); **deuseztatu zen** (4); **deuseztatu zuen** (4); **deuseztatuko luke** (3); **deuseztatzea eta** (3); **deuseztatzea izan** (3); **deuseztatzearen alde** (4); **deuseztatzen ari** (4); **deuseztatzen du** (6); **deuseztatzen duen** (3); **deuseztatzen eta** (5); **deuseztatzen ez** (3); **deuseztea zen** (3); **erabat deuseztatu** (4); **erabat deuseztatzen** (3); **esklabotza deuseztatu** (3); **eta deuseztatu** (7); **eta deuseztatu egin** (4); **eta deuseztatzea** (5); **eta deuseztatzeko** (7); **eta deuseztatzen** (3); **eta deusezteko** (3); **guztiak deuseztatu** (3); **guztiak deuseztatzen** (3); **hau deuseztatu** (3); **hori deuseztatzeko** (3); **lanpostu deuseztatu** (3); **oro deuseztatuko** (3)

# deuseztatzaile *izond* deuseztatzen duena.

Gauza bat da zientziaren gabezia, muga eta arriskuen berri ematea (analisiaren osagai **deuseztatzailea** litzatekeena); eta beste bat, arras zailagoa, parte-hartze publikorako ereduak proposatzea eta horiek modu eraginkorragoan indarrean jartzea (analisiaren alderdi eraikitzailea litzateke). Askoren artean

Arrunki zeloak bezala ezagutzen den periodo **deuseztatzaile** hau airoski gainditu nuen ordea, eta gaur egun arrangura barik imajina dezaket Susana zure besoetan. Eider Rodriguez

# deuseztatze *iz*

Drogen ondotik hiesa etorri zen, sarraskia ekarri zuen madarikazioa; banan-banan garbitu zituen gazte deserrotuak eta ez-konformeak, politikaz etsia hartutakoak, utopia iraultzaileez nazkatuak; diktaduraren azken urteetako **deuseztatzea** baino askoz ere odoltsuagoa izan zen hura. Juan Kruz Igerabide

Nazismoaren abiapuntuak gorroto eta **deuseztatzea** izan ziren, arraza edo herri batek ustez duen nagusitasun genetikoan oinarrituta. Berria - Harian

Abraham Lincolni eskuz esku eman omen zion bikote iraultzazaleak idatziriko Manifestu Komunista, gero esklabotza **deuseztatzearen** defendatzaile ospetsua izango zen presidentea Illinoisko senataria besterik ez zenean... J.M. Olaizola "Txiliku"

Destino bariatuak ukan baititzake lanak, itzal/pizte anitz edo **deuseztatze** oso. Ana Urkiza

Hau adibidez *Vernichtungslager*-a da, **deuseztatze**-esparrua alegia, esan digutenez. Urtzi Urrutikoetxea

# deusezte *iz* deuseztatzea.

Lurralde honetan gertatutako gizarte tituluen **deusezte** orokorrean hitz hauek mirariz salbatu ziren gu etengabe nazkarazteko. Xabier Olarra

# deuseztu *(157 agerraldi, 32 liburu eta 53 artikulutan; ETCn 1.144 agerraldi; orobat* ***deusestu*** *g.er.)* **1** du *ad* deuseztatu. ik **deuseztatu.**

Burbuila zuriak botatzen zituen tren-makinak, kotoia bezain trinkoak, aire gordinean eta leiho beltzeko etxe zurrunetan **deuseztuko** zirenak. Lopez de Arana

Bere orbita espirala da, beraz, azkenean, Marteren azaleran **deuseztuko** da. Berria - Gaiak

Lur guztia erraustua izango da, baina ez erabat **deuseztua**. Elizen arteko biblia

Bameko eraikinen %85 **deuseztu** zituen, gainera, seismoak, eta 75.000 pertsona bizilekurik gabe utzi. Berria - Mundua

Harresiak **deuseztu** eta desegin zizkietela eta jauregiaren bi muturretan zeuden defentsarako dorreak porrokatu eta eraitsi. Joan Mari Irigoien

Bide berriak egin dituzte indigenen lurretan, eta oihana **deuseztén** ari dira. Berria - Gaiak

Arma nuklearren **deuseztea** eta herrialdearen segurtasuna loturik daude. Berria - Mundua

Horra gure etsaiak **deuseztuak**, suak irentsi ditu horien ondasunak. Elizen arteko biblia

Valentzia eta Asturias izeneko errejimentuak, **deuseztuik**; Alcolea izenekoa, osoki deseginik. Txillardegi

Nola ur zorrotak sugarra **deuseztén** duen, hala azti-formula bat, arriskuaren eta beldurraren uxagarri. Aingeru Epaltza

**2** (gauza abstraktuak)

Europako Ekialdeko zenbait erakunde **deuseztu** egin direla. Edorta Jimenez

Nork sortu zituen irrika hilezkorrak, orain zuek, sakrilego doilorrak, azpiratu eta **deuseztu** nahi dituzuenak? Karlos Zabala

Esklabotasuna **deuseztén** arrakasta izandako gizarte batek ziur aski har zezakeen bihotz kristau-ideal baten aurrekaririk gabeko garaipen honetatik, garai bereko gerra-erakundea **deusezteko** zereginari ekiteko. Iñaki Mendiguren

Sistema juridikoa **deuseztu** edo aldatzeko erabakia ez zuten Nafarroako Gorteek hartu; alderantziz: berriro biltzeko debekua jaso zuten. Berria - Kultura

Argi utzi zuen berreraiketa lanak soilik talibanen agintea **deuseztu** eta 28 hilabetera hasi zela. Berria - Mundua

Gauza faltsuak kearen antzekoak dira; egia, ostera, sendoa da, eta tinkoa, eta bere argitasunak gezurraren iluntasuna **deuseztén** du. Patxi Zubizarreta

Haren argudioak, direnak direla, **deuseztea** ez da oztopo izanen. Jon Muñoz

Egiptoren harrokeria **deuseztuko** dute eta jendetza guztia suntsituko. Elizen arteko biblia

-Ez da diskoteka bat, ez! -erantzun diot, bere erreparoak **deuseztuz**. Pako Aristi

Sindromea **deuseztu** edo mendean eduki zuelako. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**deuseztea zen** (3); **deuseztu egin** (3); **deuseztu egingo** (3); **deuseztu eta** (5); **deuseztu ez** (3); **deuseztu nahi** (3); **eta deusezteko** (3)

# deuseztuezin *izond* ezin deuseztukoa.

Erregeak ongi baderitzo, eman bedi berorren izenean eta ezarri Pertsia eta Mediako legeen artean **deuseztuezineko** agindu hau: [...]. Elizen arteko biblia

# deusgabe *izond* deus ez duena.

**Deusgabeak** dituk. Xabier Montoia

# deuskeria *iz* ezerezkeria.

Hobe da isilik egotea, **deuskeriak** erratea baino. Jose Angel Irigaray

# deuskil *iz*

Zer egin diezadakete niri, **deuskil** hauek? Koldo Izagirre

## **deustuar** *izlag/iz* Deustukoa, Deusturi dagokiona; Deustuko biztanlea.

Entrenatzaile **deustuarrak** ezinbestekotzat jo zuen taldea lasai aritzea. Berria - Kirola

Mardones Bilbokoa da, eta 24 urte ditu; Salvador **deustuarra** da, eta 27 urte ditu. autoen joan-etorriek eragindako burrundarak eta horren arriskuak kezkatzen ditu gehien **deustuarrak**. Berria - Euskal Herria

Lehen egun honetan *Elfo Negro* **deustuarrak** gonbidatu gisa etorri ziren eta beraz gau hotz honetako lehenengo kontzertua egin zuten. Berria - Kultura

---

## **deuterio** *iz* hidrogenoaren isotopoa, nukleoan protoi bat eta neutroi bat dituena.

Hidrogeno-mota horri **deuterio** deritzo eta itsasoan oso ugaria da. Berria - Gaiak

Fusio erreakzioan erabiltzen den erregaia **deuterioa** da. Berria - Gaiak

---

## **deutoronomio** *iz* Testamentu zaharreko lehen zatiaren azken liburua.

Moisesi Sinai Mendian errebelatutako lege judua, eta Pentateukoan edo Moisesen bost liburuetan dagoena: Genesia edo Hasiera, Exodoa edo Irteera, Lebitarren Liburua, Zenbakiak eta **Deuteronomioa**. Koro Navarro

Barruan pergamino ñimiño batzuk ditu, **Deuteronomioko** bertsoak idatzirik dituztenak. Koro Navarro

Jainko Legearen Liburua gobernurako bere eskuliburu gisa erabiltzeko aholkatzen dio Karlosi, **Deuteronomioa** 17,18-20ko aginduaren arabera, non agintzen zaion erregeari legearen kopia egiteko apaizen liburutik, beti berekin eraman eta etengabe irakur dezan. Iñaki Mendiguren

---

## **dexente** *(170 agerraldi, 53 liburu eta 20 artikulutan; ETCn 794 agerraldi)* **1** *zenbtz adkor* dezente, asko xamar.

Eskailera **dexente** igo behar duk, baina merezi dik. Xabier Mendiguren Elizegi

Urte **dexente** pasatu da geroztik. Jon Alonso

Jende **dexente**, soinua potente, giro ederra. Xabier Mendiguren Elizegi

Nabaritzen zaizu kirol **dexente** egindakoa zarela. Lourdes Oñederra

Nire sudurra luzeskoa ote den, izan nuen horretaz kezkaren bat edo beste nerabezaroan, baina aurrerantzean batere ez; geroztik, izan ere, emakume **dexentek** askatu izan bainau sasi gutxiagotasun-uste horietatik. Joxe Austin Arrieta

Egiari hutsik egin gabe esan dezaket segundo **dexente** kendu zizkidala hain arrotza zitzaidan hiri hura nire betiko hiria zela konprenitzeak Ikastaro **dexente** ematen da sormena nondik nora bideratu. Bernardo Atxaga

Elizak traba **dexente** jarri ohi dizkio apostasia egin nahi duenari. Berria - Harian

Aitor edo Lekobideren faltsifikazioak ere kultura **dexente** gabe ez dira egiten. Joxe Azurmendi

Dantza egiteko amorratzen dagoen jendeak indiferentzia **dexentez** hartu du hauen emanaldia. Pako Aristi

*ik beherago* 5. Askoren artean

**2** (adizlagun gisa)

Zerbait esan dut pinturaz baina hitzik ez kirolaz, **dexente** gogo-jardunez eta ezer ez begirale izan nintzeneko udalekuez. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi karabinerok, batetik, jauzi egin ditek **dexente** hazia zetorren Bidasoara. Txillardegi

**Dexente** flakaturik eta zaharkiturik aurkitu nuen gaixoa. Txillardegi

**Dexente** kostata, lortu zuen Londresera etor zedin berarekin. Joxemari Iturralde

Haren klaseetan **dexente** aspertzen nintzen eta uste dut orduantxe jarri nintzela idazten, eskolan bertan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hanna desgogara baina **dexente** mintzo da hartaz, nahiz eta niri, zenbat eta xehekiago jardun, hainbat eta gutxiago interesatzen zaidan. Joxe Austin Arrieta

Lisboako aireportuan **dexente** zain egotea egokitu zitzaion. Harkaitz Cano

Lastotik **dexente** joango zen, beraz, mintzalditxootan. Joxerra Garzia

Nik badiat pizarren bat emakumetik, aurkiren bat ere bai iraultzailetik, eta umetik berriz **dexente**. Patziku Perurena

· Bat baino gehiago behintzat, **dexente** gehiago. Lourdes Oñederra

Bera baino **dexente** gazteagoak. Fernando Rey

Fakultateko irakasleak baino **dexente** hobeto interpretatzen, irakurtzen eta hitz egiten zuen latinez. Jasone Osoro

**3** (izenondo gisa) itxurazkoa.

Orain, horri esker, kotxe **dexentea** daukat, arropa **dexenteak**, gela **dexentea**, eta beharbada egunen baten. Jon Arretxe

Haurrak zeudenean handi guztiek haurrei buruz edo haurrekin hitz egiten zutela eta ez zegoela gai interesgarri bati buruzko elkarrizketa **dexente** bat aurrera eramaterik. Lourdes Oñederra

**4** ***dexenteko*** *izlag*

Ikusten? -esan zuen ordubete geroago, esploratzaile bilakatzeko prozesuan **dexenteko** aurrerapena eginda-. Bernardo Atxaga

**Dexenteko** karga garraiatuagatik ere, neure buruaren jabe eta xutik egoteko gauza nintzen. Aingeru Epaltza

Gogoan dut, noizbait eskola-liburuen batean-edo klase sozialen gaia atera eta **dexenteko** eztabaida sortu zela gure artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Oraindik **dexenteko** bidea geratzen zaie, gainera. Berria - Harian

Jakablu barneko patrikan zeraman pisu **dexenteko** paketea, eta haren ondoan txekea, pisu arinekoa. Unai Iturriaga

Nik gorrotoa ere **dexentekoa** nion Café Odéon delakoari. Joxe Austin Arrieta

Adinik aproposena, hortaz, tabernarik taberna ordu franko eta gastu **dexentekoa** egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

**5** ***dexentez*** *adlag*

Gaur gauean sei baino **dexentez** gehiago erre dituzu. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baina dexente** (4); **baino dexente** (10); **denbora dexente** (6); **dexente aldatu** (3); **dexente bat** (3); **dexente denbora** (3); **dexente eman** (3); **dexente gehiago** (3); **dexente hitz** (3); **dexente izan** (5); **dexente pasatu** (3); **diru dexente** (3); **ere dexente** (4); **eta dexente** (3); **jende dexente** (5); **ordu dexente** (3); **urte dexente** (3)

---

## **dezeleragailu** *iz* abidurak behera egiteko gailua.

Nolabaiteko oreka gorde beharra zegoen etengabe etorkizunera proiektatzen zen bizidunaren joera naturalaren eta **dezeleragailuak** eragiten zuen denbora-atzeratzearen artean. Iban Zaldua

**Dezeleragailua** inbertitu eta 2043 urtera itzultzeko agindua sakatu zuen. Iban Zaldua

Supersoken teorian oinarritutako partikula **dezeleragailua** amaituta zegoen, azkenik. Iban Zaldua

---

**dezelerazio** *iz* abidurak behera egitea.

Ondorioz, 4 G-ko **dezelerazio** zitala lortu zuen pistan izan zen bitartean, abiadura 86 km/h murrituz. Berria - Kirola

**Dezelerazio** ikurrak ez dira horren argiak, eta behin-behineko txostenaren arabera, bere horretan jarraituko du Berria - Ekonomia

---

**dezente** *(1079 agerraldi, 95 liburu eta 591 artikulutan; ETCn 11.886 agerraldi)* **1** *zenbtz* asko samar. ik **dezente.**

Jende **dezente** zebilen sartu-irtenean, nor bere otarrarekin, nor sarezko zakutoarekin. Anjel Lertxundi

Lagun judu **dezente** zuen aitak -neuk bakarrik dakit garai hartan zenbat amorrarazten eta lotsatzen ninduen horrek-. Anjel Lertxundi

Praktikan nahiko irazgaitza bada ere, ur **dezente** igarotzen uzten du azalak, bi modutan. Irene Aldasoro

Euskal Herrian ere barre txiki **dezente** entzun behar izan nituen kontu hari buruz. Alberto Ladron Arana

Artean eguerdia izanagatik, puta **dezente** zegoen atari eta kale-kantoietan. Anjel Lertxundi

Itzul gaitezen 1938. urtera, eta esan dezagun Bírók patentatutako birolumaren prototipoak akats **dezente** zituela oraindik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dei **dezente** egin behar izan nituen harrapatu nuen arte. Ramon Saizarbitoria

Urte asko izanagatik eta pisu **dezente** galdu izanagatik, ez zen laurogei kilotik oso urruti ibiliko. Jon Alonso

Denbora **dezente** egon nintzaion begira haren ibilera abailduari. Anjel Lertxundi

Orduko ardo **dezente** edanda zegoen izeba Marge. Iñaki Mendiguren

Denbora **dezentez** irauten zion pozak, eta, ni gelara itzuli eta gero ere, kantari jarraitzen zuen, harik eta etxekoandreak errieta egiten zion arte. *ik beherago* 6. Anjel Lertxundi

· **Dezente** diru gastatuta, Edith eta biok goiko solairuko bainugela berritu berria genuen. Oskar Arana

**2** (adizlagun gisa)

**Dezente** edan dut orduko, eta zigarroen kea lodi hedatzen da aretoan zehar. Eskarne Mujika

Aztertu, **dezente** aztertu izan da azken urteotan Garapen Iraunkorra. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Dezente** bota zion andere mahats likoretik eta pattarretik gutxixeago. Karlos Zabala

Botila eskuratu eta berriz ere **dezente** bete zituen kopak. Migel Angel Mintegi

Zelano berak **dezente** zuzentzen eta leuntzen du bere kontakizuna idatzi zuen bigarren obran. Askoren artean

Bien bitartean sabeleko putzua **dezente** bete zitzaion. Migel Angel Mintegi

Indultuekin eta, egoera **dezente** aldatu zen hamar urtean. Jokin Urain

Trafikoa **dezente** murrizturik zegoen, ia ez zen bigarren lerroan aparkaturiko kotxerik ikusten. Migel Angel Mintegi

Esparrua **dezente** murrizten zaie bazter haietako txabola. · -Nago gizaseme **dezente** aberatsa izango dela. Jokin Muñoz

Oro har, ni **dezente** zoriontsua naiz, akats eta guzti, gustatzen zait daramadan bizitza. Ana Urkiza

Urte **dezente** geroago kiratsak han zirauela kontatzen digu Liviok berak. Iban Zaldua

Orain arte baino **dezente** azkarrago jazoko dira aldaketak aurrerantzean. Edorta Agirre

"Intelektualak", ordea, zu baino **dezente** baldarrago, beste zerbait dauka gogoan. Rafa Egiguren

**3** (izenondo gisa)

Astiro-astiro, terreno barriak erosten joan zan, soloak eta basoak, eta halantxe hornidu eban etxalde **dezentea**. Odol jario **dezentea** eragin zidan. Xabier Amuriza

Mendikaskoa edo malda **dezentea** harrapatu behar, baldin erraz hegatuko badira. Patziku Perurena

Baratze lur puska **dezentean**, fraideek gerezi ardoa egiteko adina eta gehiago ere ematen baitzuten zuhaitzok. Felipe Juaristi

Ia koxkortzen ari zaizkio haurrak, hurrak, biziaren habi ttikietan, lihozko izara xuriberdaxka mehe batez estaliak, eta soinean kargamen liriko **dezentea** sumatzen, gure hurritz andereak. Patziku Perurena

**4** ***dezenteko*** *izlag*

Eta kontuan hartuta ni une hartan eserita nengoen gelako liburuen eta eskuizkribuen balioa, jaraunspena **dezenteko** dirutza izango zen orotara. Oskar Arana

**Dezenteko** isilune luzea izan zen. Mirentxu Larrañaga

Kontramitoak, berriz, **dezenteko** itzala izan du gurean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Dezenteko** arrakastaz erdietsi zuen, gogoa gizonaren inguruan lasterka bizian ibil ez zekion. Mirentxu Larrañaga

Jo du arotzarengana, eta eskatu dio puska **dezenteko** bat ken diezaiola oheari, hartara hankaluze malapartatu horiek hankak tolestuta ere kabitu ez daitezen. Joxerra Garzia

Obrak han zalaparta **dezentekoa** sortu zuen. Esteban Antxustegi

Aberia **dezentekoa** zeukan, eta biharamunera arte ezin omen zuten konpondu. badaki lorail honek azaleko mapen egoera aprobetxatu eta bero **dezentekoak** ekartzen. Rafa Egiguren

**5** ***dezentetan*** *adlag*

Bihotz oneko gizona zen: irribarrez hartzen ninduen beti, nahiz eta **dezentetan** jolaserako gogorik ez zuen izaten. Aitor Arana

Halako batean bi estudiante sartu dira, Urtzi eta Juanjo; **dezentetan** etortzen dira tabernara. Iban Zaldua

**Dezentetan** tokatu zait berarekin aritzea, eta horrela korritzen du berak… [...].. Berria - Kirola

Mireiak **dezentetan** aipatzen zintuen. Fernando Morillo

**6** ***dezentez*** *adlag*

Beharbada, orain horregatik moldatzen naiz aita hil aurretik baino **dezentez** hobeto amarekin. Anjel Lertxundi

Haren kontakizunak nireak baino **dezentez** gehiago iraun zian. Jon Muñoz

Buruaren atzealdean, motots zuria saretxo batean bildua; betaurrekoak, sudur-zubia baino **dezentez** beherago jarriak. Anjel Lertxundi

Zutik jartzeko gai izan baino **dezentez** lehenago ikasten du umeak non dauden inguruko parke guztiak. Arantxa Iturbe

Donostia da **dezentez** aurretik euritan. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldaketa dezente** (3); **aldaketa dezente egin** (3); **alde dezente** (4); **arazo dezente** (21); **arazo dezente izan** (12); **aukera dezente** (20); **aukera dezente izango** (4); **baina dezente** (7); **baino dezente** (64); **baino dezente gazteagoa** (3); **baino dezente gehiago** (10); **baino dezente handiagoa** (5); **baino dezente lehenago** (5); **baino dezente okerrago** (3); **baloi dezente** (3); **bera baino dezente** (4); **buruhauste dezente** (5); **dei dezente** (3); **denbora dezente** (47); **denbora dezente egin** (6); **denbora dezente igaro** (5); **denbora dezente izan** (3)

**dezente aldatu** (18); **dezente aldatu da** (11); **dezente aldatuko** (5); **dezente aldatzen** (3); **dezente ari** (4); **dezente aurreratu** (5); **dezente baldintzatu** (3); **dezente behar** (4); **dezente behar izan** (3); **dezente bildu** (6); **dezente bildu zen** (3); **dezente bota** (4); **dezente da** (4); **dezente dago** (3); **dezente daramatza** (4); **dezente daude** (7); **dezente dira** (4); **dezente diru** (3); **dezente ditu** (9); **dezente dituzte** (3); **dezente duela** (3); **dezente egin** (37); **dezente egin behar** (3); **dezente egin beharko** (3); **dezente egin du** (3); **dezente egin dut** (3); **dezente egin nuen** (3); **dezente egiten** (5); **dezente egon** (4); **dezente eman** (11); **dezente ematen** (4); **dezente eragin** (4); **dezente ere** (4); **dezente eta** (6); **dezente falta** (5); **dezente galdu** (6); **dezente galdu zuen** (4); **dezente gazteagoa** (3); **dezente gazteagoak** (3); **dezente gehiago** (18); **dezente geroago** (3); **dezente gorago** (3); **dezente gutxiago** (7)

**dezente handiagoa** (9); **dezente hitz** (3); **dezente hitz egin** (3); **dezente hobea** (3); **dezente hobeto** (4); **dezente hobetu** (18); **dezente hobetu beharko** (3); **dezente hobetu du** (4); **dezente huts** (3); **dezente huts egin** (3); **dezente ibili** (3); **dezente igaro** (7); **dezente igaro da** (4); **dezente igo** (4); **dezente igo da** (3); **dezente ikasi** (4); **dezente ikusi** (4); **dezente irabazi** (3); **dezente irabazten** (3); **dezente izan** (34); **dezente izan ditu** (4); **dezente izan ditugu** (4); **dezente izan du** (4); **dezente izan dut** (3); **dezente izan zituen** (4); **dezente izan zuen** (3); **dezente izango** (10); **dezente izaten** (5); **dezente jaitsi** (3); **dezente jaso** (4); **dezente jokatu** (9); **dezente jokatzen** (6); **dezente jokatzen ari** (3); **dezente kosta** (6); **dezente kostatu** (4); **dezente lehenago** (10); **dezente lortu** (4); **dezente mugitu** (3); **dezente murriztu** (4); **dezente nabaritu** (4); **dezente okerrago** (3); **dezente sartu** (5); **dezente sortu** (6); **dezente sufritu** (14); **dezente sufritu zuen** (6); **dezente utzi** (3); **dezente zaildu** (5); **dezente zegoen** (8)

**diru dezente** (10); **duela urte dezente** (4); **egoera dezente** (3); **egun dezente** (4); **eragin dezente** (3); **ere dezente** (26); **eta dezente** (28); **gauza dezente** (3); **gauzak dezente** (5); **gauzak dezente aldatu** (3); **gol dezente** (6); **gol dezente sartu** (3); **gorabehera dezente** (5); **gorabehera dezente izan** (3); **hilabete dezente** (3); **hori dezente** (3); **horrek dezente** (5); **huts dezente** (3); **ika mika dezente** (3); **jende dezente** (14); **jende dezente bildu** (3); **jokalari dezente** (11); **jokatzeko aukera dezente** (3); **kilometro dezente** (4); **kritika dezente** (3); **lan dezente** (14); **lan dezente egin** (3); **lesioekin arazo dezente** (4); **mika dezente** (3); **min dezente** (3); **minutu dezente** (3); **ordu dezente** (5); **partida dezente** (4); **pisu dezente** (3); **puntu dezente** (3); **talde dezente** (3); **urte dezente** (25); **urte dezente daramatza** (3); **urte dezente eman** (3); **uste baino dezente** (4)

**baino dezentez** (17); **baino dezentez gehiago** (3); **denbora dezentez** (6); **dezenteko aldea** (3); **dezenteko hobekuntza** (3); **dezentekoa izan** (3); **dezentez gehiago** (3); **dezentez handiagoa** (3); **dezentez handiagoa da** (3); **egun dezentetan** (3); **eta dezenteko** (3); **zalantza dezenterekin** (3)

---

dezentralisazio ik **dezentralizazio**.

---

# dezentralizatu, dezentraliza, dezentralizatzen *(orobat **desentralizatu** g,.er. eta **deszentralizaztu** g.er.)* **1** du *ad* zerbait zuzendaritza zentral baten mendetik kendu.

Foroak beti esan izan du planifikazio baten ostean, zerbitzuok **dezentralizatu** egin beharko direla eta arlo publikora bildu. Berria - Euskal Herria

Besteak beste, EIEko egitura **dezentralizatu** eta Nafarroako egitasmoak indartzea erabaki zuten bileran. Berria - Kultura

Confebasken ustez, negoziazio kolektiboak ezin du ekoizpena **dezentralizatzea** eragotzi. Berria - Ekonomia

Itunak gizarte asegurantzaren kudeaketa **dezentralizatuko** luke, baina frantsesa hizkuntza nagusitzat duen Waloniari egun jasotzen dituen laguntzak ziurtatuko lizkioke. Berria - Mundua

Gauzak askoz gehiago **dezentralizatu** behar dira. Berria - Euskal Herria

Botore Judiziala **dezentralizatzeak** eta horren egitura autonomikoak sortzeak Justiziaren hurbilagoko kudeaketan izango zuen eraginaz. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Liburuak estatu **dezentralizatuetan** elkarlan horizontala nola gauzatzen den azaltzen du. Berria - Euskal Herria

Oraingoz bazterrera utziko duela eredu **dezentralizatua**. Berria - Euskal Herria

Erromatar Inperioaren adibideari esker, hobeto zehatz daitezke izan daitezkeen bi egituratzeek -hau da, inperioak eta egitura **dezentralizatuak** - merkataritzaren esparruaren gainean dituzten ondorio desberdinak. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dezentralizatu eta** (4); **dezentralizazio legearen** (4); **dezentralizazioaren inguruko** (3)

---

# dezentralizatze *iz* zerbait zuzendaritza zentral baten mendetik kentzea.

Era berean, EAJ eta PSC ere, besteak beste, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia **dezentralizatzearen** alde agertu izan dira, EAEko eta Kataluniako justizia organo propioen garapena aldarrikatuz. Berria - Euskal Herria

---

# dezentralizazio *(orobat **desentralizazio** g,.er., **dezentralisazio** eta **deszentralizazio** g.er.)* **1** *iz*

Eskualde kontseiluek, **dezentralizazioari** esker, eskumen gehiago lortuko badute ere, legeak Parisen erabakiko dira. Berria - Euskal Herria

Joera hori Mendebaldean baino ezin izan zen sortu, botere politikoaren ohiz kanpoko **dezentralizazio** baten baitan. Koro Navarro

Andre Labarrère Paueko auzapezak berriz erran du Salisen errana zuena, ez duela sinesten egiazko **"dezentralizazio"** bat gauzatuko dela. Herria

Mundu Gerran nagusitutako estatuek atondu zuten hein handi batean, **dezentralizazioa** bultzatu eta Alemania berriz potentzia bilakatzea eragozteko. Berria - Mundua

Nola eragingo du **dezentralizazioak** gizartearekiko harremanetan? Berria - Euskal Herria

Bestela, menpekotasuna dago, **dezentralizazio** administratiboa. Berria - Euskal Herria

Konponbidea hasiko da **dezentralizazio** politikoaren proiektua abiarazten denean. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

**Dezentralizazio** prozesurako hainbat auzi teknikotan aurrerapausoak ikusi dituzte albaniarrek eta serbiarrek. Berria - Mundua

Europako Kontseiluak duela urtebete ikerketa egin zuen, eta Kosovon **dezentralizazio** prozesu abiatzea komeni dela ondorioztatu zuen. Berria - Mundua

**Dezentralizazio** egitasmoa eta aurrekontua tinkatzeko aitzakiaz, bere programa aitzina eramaten du Gobernuak, eskola enpresa soil bat bihurtuz. Berria - Euskal Herria

Mazedoniako gutxiengo albaniarrari eskubide gehiago ematen dizkion **dezentralizazio** legearen inguruan erreferenduma egin zuten igandean. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 2 aldiz agertzen direnak)**

**dezentralizazio legearen** (4)

---

# dezentralki *adlag*

XIX. mendeko Estatu zaharrak goitik agian zabaltzen ari dira Botere ekonomiko, finantzario, militarren multiuztarketa errazagotzeko; behean herri(ar)en kartzelak izaten jarraitzen dute, gehienez ere kartzelaren gestioa **dezentralkiago** modernizatuz. Joxe Azurmendi

---

# dezentzia *iz* lotsa ona, prestutasuna.

Kolore biziak baztertu ziren, **dezentziaren** izenean. Monika Etxebarria

Ohiko **dezentziaren** legeak pixkaren bat zikindu beharra sortzen bada, hainbat kalte. Matías Múgica

-Besteok ere beldur galanta genuen -esan zidan gogor-, baina baita lotsa eta **dezentzia** apur bat ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezgai eta inozo sentitzen baitziren haren aurrean, bai baitzekiten esku haien fereka desiragarria bezain mingarria izan zitekeela haien atzaparkada, **dezentziak** eta modu onek mende hartan markatzen zituzten neurrietatik harago joanez gero, desegoki zen hitzen bat esanez gero edo komeni ez zen laztan edo xirriren bat desgaraian eginez gero. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gizon jatorrei dagokien **dezentziarekin** idazten dutenek [...] jakin bezate niregan topatuko dutela, ez hainbeste erantzuteko zain dagoen gizona, egizale baketsua baizik. Juan Martin Elexpuru

---

dezepzino ik **dezepzio**.

---

# dezepzio *(ETCn 611 agerraldi; orobat **dezepzino** g.er. eta **dezepzione** g.er.)* **1** *iz* desilusioa, desengainua, etsipena. ik

kamusada.

Hitz bat aukeratu behar bagenu pasarte honen irakurketak eragindako inpresioa adierazteko, hitz hori zalantzarik gabe **dezepzioa**, lilura galtzea, litzateke. Pedro Alberdi

-**Dezepzioa** hartu al zenuen kartelean ez Kellyrena baizik nire izena irakurri zenuenean? Iñaki Zabaleta

Orduan ere ez nuen ezer esan, baina **dezepzio** txiki bat hartu nuen. Harkaitz Cano

Berriro abian jarri zenean, halako **dezepzio** bat sumatu nuen: bihotzaren sakonean jendeak pena zuen etenaren laburragatik. Bernardo Atxaga

Peter Pan ez ikusteak **dezepzioa** ekarri zion. Julen Gabiria

Sekulako **dezepzioa** sentitu nuen, ikaragarrizko zapuzketa: hasi baino ez eta gelditu egin behar? Migel Angel Mintegi

**Dezepzioa** azaldu zuen nolabait Gainekoak arratsean berriro bildu ginenean. Joxan Elosegi

Elkar ulertu gabe, **dezepzioak** eta amorruak jota. Harkaitz Cano

**Dezepzio** txiki bat izan zen Albertorentzat, ziur baitzegoen gizon hura ez zela estaziotik etorri. Iban Zaldua

Beldur izan zen ezusteko **dezepzio** ezezagun batek ez ote zion bere bihotz zoriontsu eta loriatsua itzaliko. Patxi Zubizarreta

Amen batean Arrietaren **dezepzioa** kezka bihurtu zen. Migel Angel Mintegi

**Dezepzio** handiz ikusi nuen, horren prestigio handiko lana izanik, soldatak aldirietako auzo batean bi gelako departamentu ziztrin bat alokatzeko beste aukerarik ez ziola eskaintzen. Joxan Elosegi

**Dezepziozko** muzin teatrala egin zuen. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

Maria Sarari ez litzaiokeela gustatuko, sumin begiratuko liokeela, baita, agian, **dezepzio**-adierazpen jasanezin batekin ere. Jon Alonso

"Ez duk hainbesterako izango", ukatu dio Txapik **dezepzio** punttu batez. Pako Aristi

· Desertua leku berezia da, eta hara erretiratzen ziren antzinako denboretan munduaz aparte -gizarteaz, hiriaz aparte- bizi nahi zuten guztiak, hala anakoretak nola epailearen beldur ziren gaizkileak edo maitasun **dezepzio** bat jasan eta bakardade gorrian murgiltzeko promesa egindako etsiak. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dezepzio bat** (3); **dezepzio txiki bat** (3)

---

# **dezepzionagarri** *izond* dezepzionatzen duena.

Serrano Izkorentzat, Pio Baroja ia beti korrontearen aurka ibili zen «intelektual indibidualista, egoskor, aldakor eta askotan **dezepzionagarria**» izan zen, baina idazle emankor, iradokatzaile eta handia ere bai. Berria - Kultura

---

# **dezepzionante** *izond* dezepzionagarria.

Emaitza oso **dezepzionantea** izan da. Berria - Kultura

Oso **dezepzionantea** da, jasotzen duena oso gutxi da sortutako espektatibekin alderatuta, Berria - Kultura

---

# **dezepzionatu**, dezepziona, dezepzionatzen **1** da/du *ad* dezepzioa hartu edo harrarazi.

Ama **dezepzionatu** egin da, iruditu zaio ez dudala kemen handirik jarri nire hitzetan. Anjel Lertxundi

Buruari eragin zion ezker-eskuin, garbi zegoen **dezepzionatu** egin nuela. Anjel Lertxundi

Kanpoko itxurak **dezepzionatu** egin ninduen, hesiak eta sarrerak ez zuten nik hainbestetan amestu nuen bikaintasunik. Anjel Lertxundi

**Dezepzionatuta** nago berarekin. Bernardo Atxaga

-Ederki gaude! -esan zuen **dezepzionaturik**-. Migel Angel Mintegi

Gauzak ziren bezala azaltzea, ordea, andrea **dezepzionatzeaz** gain -kontent-kontent ematen zuen ustezko zomorroiaren aitzinean-, buruz gainetiko lana iduritu zitzaidan. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hamaikagarren abestira iritsita galdera bakarra zegoen marraztua Palladiumera bildutako gizonezkoen aurpegi **dezepzionatuetan**: non ote da geure gazte denborako musa, sexuaren jainkosa helezin hura? Patxi Iturritegi

· *Desolé* triste bat besterik ez diot esan eta **dezepzionatu** aurpegiarekin joan da. Eider Rodriguez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat dezepzionaturik** (3); **dezepzionatu egin** (5)

---

# dezepzione ik **dezepzio**.

---

# **dezibel** *(ETCn 192 agerraldi; orobat **dezibelio** ETCn 165 agerraldi)* **1** *iz* hotsaren intentsitatea neurtzeko banakoa.

Soinuaren intentsitate mailak **dezibeletan** adierazten dira (dB, forma laburtuan), entzumen-atalasetik gora. Irene Aldasoro

**Dezibela** oharmen unitate logaritmikoa da, intentsitate biren erlazioa neurtuz, hotsaren ozentasuna neurtzen duena. Lourdes Oñederra

Giza entzumenak hautematen duen gutxieneko ozentasuna **dezibel** (dB) bat duena da. Lourdes Oñederra

Legeak 30 **dezibelio** ezin direla gainditu dio. Berria - Euskal Herria

Pplanta martxan jarritakoan Zornotzako etxebizitzetan 55 **dezibelioko** zarata izango dela dio plataformak. Berria - Euskal Herria

NATOk onartu du 180 **dezibeliotik** gorako soinu intentsitateak kaltea eragiten diela zetazeoei. Berria - Gaiak

Hiri batean nork erabaki behar du barruti jakin batean eta goizeko ordu batean horrenbeste **dezibeliotik** gorako zaratarik ez dela onartuko? Berria - Harian

Ez dakigu haatik zenbat **dezibeletako** arrabotsa egiten eta zenbat keroseno erretzen duen. Herria

Bion bozak **dezibeletan** goiti ari ziren. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Logaritmikoa da **dezibel**-eskala, hau da, 10 dB-ko aldaketari ozentasun hamar aldiz handiagoa dagokio; 20 dB-koari ehun aldiz handiagoa; 30 dB-koari mila aldiz handiagoa, eta abar. Irene Aldasoro

**Dezibelio** diferentzia jakin batek erabakitzen du tokiaren arrakasta gautxori unibertsitario, artista, bohemio, gauche divine hura guztia hara erakartzeko. Iñaki Iñurrieta

---

# **dezibeliko** *iz* dezibelarena, dezibelari dagokiona.

Gorroto du motorrero puzkartion terrorismo **dezibelikoa**. Iñaki Iñurrieta

Eta 'As noites Radio Lisboa' kantu kosmikoaren kristalezko uhain **dezibelikoetan** ... ez dakit nola egin zen! Ramuntxo Etxeberri

Edaria eskatu eta hura etorri bitartean, erdialdean borborka ari zen jende multzoari begirazoa: besoak eta zangoak nahas-mahasean, desmasia **dezibelikoaren** eta bihotz taupadak nahasteko moduko erritmoen agindura denak. Iñaki Iñurrieta

dezibelio ik **dezibel**.

dezifraezin ik **deszifraezin**.

dezifragaitz ik **deszifragaitz**.

deziframendu ik **deszifframendu**.

dezifratu ik **deszifratu**.

dezifratze ik **deszifratze**.

**dezilitro** *iz* edukiera neurria, litroaren hamarrenaren baliokidea (dl).

-Bi **dezilitro** emango dizkiat prezio berean eta hiretzat delako. Juan Garzia

**dezima**[1] *iz* Kuban bat-batean botatzen den bertso modukoa.

Irratian hitz-hutsarteak galgarri dira oso, eta plazan edo telebistan baino abiada askoz ere handiagoan botatzen omen dituzte **dezimak** . Andoni Egaña

Horrelako **dezimei** *depai* (décimas escritas para aparentar improvisadas) izena jarri diete Kuban. Andoni Egaña

Balio beza horren erakusgarri **Dezima** eta Bertso Inprobisatuaren Iberoamerikako IV. Jaialdi-Jardunaldietan euskal bertsolaritzaren ordezkariak aurkeztu zuen testuaren zati honek. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**dezima**[2] *iz* gradu zentigradu baten hamarrena.

Begirale bat ari zaio termometroari begira, 37,2°C markatzen duela ikusita lasaiturik, bi **dezima** ez baita larritzeko arrazoia, ez herriko medikuari ez umearen gurasoei deitzeko ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ba, egun horretan 37 eta **dezima** bat iritsi zuen. Pello Zabala

-Bai, **dezima** batzuk izango ditu. Arantxa Iturbe

**dezimagile** *iz* dezimak ontzen dituena. ik **dezimista**.

Kuban Alexis Díaz Pimienta **dezimagilea** da ikertzaile nabarmenena. Andoni Egaña

**dezimal** *izond* hamartarra.

Condorcet-en historia **dezimala** gogoratzen zaio; Hegel, Spengler eta Vico-k proposaturiko morfologiak; Hesiodoren gizonak, zeinak urretik burdinara endekatzen baitira. Juan Garzia

**dezimario** *izond* legeez mintzatuz, donadoei zerga bat ezartzen ziena.

Konstantinok ez zituen kendu lege **dezimarioak** . Iñaki Iñurrieta

**dezimetro** *iz* hamar zentimetroko luzera neurria (dm).

Hara bidean inork ez zituela ikusi behar-eta, lurrera bota zen Marcos teatralki eta, Bigarren Mundu-Gerrako argazkietan bezala, arrastaka egin zuen aurrera pare bat **dezimetro** . Unai Elorriaga

**dezimista** *iz* dezimak ontzen dituena. ik **dezimagile**.

1996.eko Bertso Egunaren kariaz, Alpujarrako trobadoreak, Menorkako glosadoreak eta Kubako **dezimistak** ekarri genituen. Andoni Egaña

Irrati-emisora bakoitzak omen du **dezimistei** buruzko bere saioa. Andoni Egaña

**dezimo** *iz* loteria-txartel baten hamarrena.

Max: kobratu, Venancio! eta zuk, ekatzu **dezimoa** , Markesa! Pablo Sastre

**dezimononiko** *izond* hemeretzigarren mendekoa.

XX. mendearen hasieran Azorinek, Unamunok eta beste batzuek nobela txikien edo nivola izenekoen bidea sortu zuten, nobela **dezimononiko** handiei bizkarra emanez.

dezinatzaile ik **desinatzaile**.

dezkontzentrazio ik **deskontzentrazio**.

# di-da *adlag adkor* **1** istant batean.

Hori **di-da** egingo diagu. Pablo Sastre

Etsaiak **di-da** suntsituko zaitu. Matías Múgica

Arropa **di-da** erantzi eta ohearen ondoan belaunikatu zen pijama jantzita. Lopez de Arana

Autoa bigarren ilaran aparkatu eta **di-da** erosi huen briotx zatia. Iban Zaldua

-Ekintzan ari garela, erabakiak **di-da** hartu behar dituk. Alberto Ladron Arana

**Di-da** betaurrekoak kendu eta eskuan suntsitu zituen: kristalak lurrera erori ziren, distiratsu. Lopez de Arana

Sukaldean txikitu beharreko guztia **di-da** txikitzen zuten aizto harrigarriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Karta-joko oso bat apurtu du, horrela, **di-da**, arraiokume horrek! Koldo Biguri

Eta utzi izan baliote, **di-da**, bi minutuan amaitua izango zuen lana, kito. Patxi Iturritegi

*Otsailgo loreak ez du sagarrik ematen* botako dizute, **di-da**, aldamenetik. Pello Zabala

**Di-da** eta oparo eman zenion, hark zuri eskatu baino lehen ere, baina besoa beldur antzean eta presaka luzatu zenion. Eduardo Matauko

**2** ***di-da batean*** *adlag* istant batean.

Agian erabat desagertzera ailegatuko nintzela eta nire arazo guztiak **di-da batean** konponduko zirela. Jesus Mari Mendizabal

Don Manuelek **di-da batean** egin zituen paperak. Xabier Mendiguren Elizegi

Autoko haizetakoa garbitu ezinik, **di-da batean** zoazenean, beti egiten du euri mardula eta gehiegizkoa. Pello Zabala

Gauza bat esan diezazuket, hara, zuk edo hemengo edozein jaunek egiten duena, **di-da batean** egiten dudala nik. Koro Navarro

**Di-da batean** irakurtzen nituen eta besteek ez. Ana Urkiza

Nora joan behar duen jakin eta han agertu **di-da batean**. Pako Aristi

**3** ***di-da bateko*** *izlag*

Eta joan behar zutenean **di-da** bateko kontua izaten zen. Paddy Rekalde

diabeta ik **diabetes**.

# diabetes *(orobat **diabeta**)* **1** *iz* metabolismoaren eritasuna, odolean eta gernuan glukosa gehiegi dakarrena.

**Diabetesa** gaixotasun bat da, odoleko glukosaz arduratzen den mekanismoa bere onera ekartzeko insulina emanez tratatzen dena.Bada era horretako joera mordoa, halako edo halako HLA haplotipoarekin loturikoa; besteak beste, haurraren **diabetes** intsulinamendekoa eta hemokromatosi idiopatikoa, burdinaren metabolismoaren gaitz larri samarra. Irene Aldasoro

Bainan bet betan **diabeta** bortitz bat jinik osagarria kraskatu zaio eta Piarres ezagutzen zuten guziek sekulan asmatuko ez zutena gaitzak bururat egin dio. Herria

Gozokiaren aurrean jartzen bada **diabetesa** daukana. Jenaro Garate

Txerrien zelulak, **diabetesa** sendatzeko itxaropena. Berria - Gaiak

**Diabetesa** inhibitu dute, odoleko zelulak pankreako zelulak bihurtuta. Berria - Gaiak

Horietako kasu bat I motako ***diabetes*** *mellitus*-a da. Berria - Gaiak

Loditasuna eta **diabetes** 2a eragiten duen zelulen mekanismoa aurkitu dutela iragarri dute Ameriketako Estatu Batuetako zientzialariek. Berria - Gaiak

**Diabetesa** dutenen %15ek oinetako arazoak dituzte. Berria - Gaiak

Osasun sistemen gastuaren %5-10 **diabetesak** eragindako arazoekin lotuta dago. Berria - Gaiak

**Diabetesak** hiesak baino jende gehiago hiltzen du. Berria - Gaiak

**Diabetes** kronikoa du eta egoera larrian egona da. Berria - Mundua

Eritasun kardiobaskularrak, **diabetes** batzuk, alergiak, asma, gizentasuna... Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Diabetes** kasuetan gertatzen da hori. Berria - Gaiak

Duela urte pare bat Autogen enpresa australiarra Tongako uharte batera zuzendu zen bertakoen **diabetes** tasa altuak erakarririk. Berria - Gaiak

Gizentasunaren ondorioz gero eta maizago agertzen dira orain artean helduen artean soilik agertzen ziren eritasunak, horien artean **diabetes** mota batzuk. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **diabetes kronikoa** (3)
>
> **amak diabetesa** (4); **amak diabetesa sendatzeko** (4); **diabetesa da** (4); **diabetesa duten** (8); **diabetesa duten gaixoen** (3); **diabetesa dutenen** (4); **diabetesa sendatzea** (4); **diabetesa sendatzea lortu** (3); **diabetesa sendatzeko** (13); **dute diabetesa** (5); **egun diabetesa** (3); **eta diabetesa** (11); **motako diabetesa** (3); **zelula amak diabetesa** (4)

# diabetesdun *iz* diabetesa duen pertsona. ik **diabetiko**.

**Diabetesdunek** itxaropentsu egoteko arrazoiak dituzte, baina hala ere, argi utzi nahi nuke terapia berri bat sortzetik urrutik gaudela oraindik. Berria - Gaiak

# diabetiko **1** *izond* diabetesa duena.

Ehun aditu inguru bildu dira Eibarren, oin **diabetikoen** tratamenduaz eta prebentzioaz hitz egiteko. Berria - Gaiak

Sole **diabetikoa** da, bihotzekoak eman zion eta zubi koronario hirukoitza egin behar izan zioten. Berria - Mundua

**2** *iz* diabetesa duen pertsona.

Asko dira itsu geratzen diren **diabetikoak**. Berria - Gaiak

**Diabetiko** kronikoa da, eta azken urteotan mediku kontrol urriak salatzen ari da epailearen aitzinean. Berria - Mundua

65 urtetik gorakoek, **diabetikoek** eta biriketako, bihotzeko, giltzurrunetako edo gibeleko gaixotasun kronikoak dituztenek, hain justu. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diabetiko kronikoa da** (3); **diabetikoa da** (3)

---

# diaboliko *izond* deabruzkoa.

Burutazio **diaboliko** batek eraginik. Patxi Zubizarreta

Satanismoa eta posesio **diabolikoak**, Magia zuria/Magia beltza, Sorginkeria gaur eta abar. Aingeru Epaltza

Haren begitarte kasik beltzak halako itxura **diabolikoa** hartua zuelarik, deiadarka jarraitu zuen: [...]. hiru hatzekin gurutzea egiteko era **diabolikoa**. Patxi Zubizarreta

---

# diabolo-menta *iz*

Tabernan **diabolo**-menta edo granadina bat erosten die, gero oiloak lapurtzera joango dira. Pablo Sastre

---

# diada[1] 1 *iz* Kataluniako egun nazionala.

Irailaren 11 guziz ospatzen dute Katalanek beren hiriburu gehienetan Aberri Eguna edo **Diada** deitua. Herria

Kataluniako presidente kargua hartu zuenetik lehen **Diada** zuen Maragall sozialistak. Berria - Mundua

**Diada** Nazionalaren bezperako mezu instituzionalean. Berria - Mundua

Zazpi mila pertsona inguruk parte hartu zuen atzo **Diada** Nazionalaren baitan Onze de Setembre batzordeak deitutako manifestazio bateratuan Berria - Mundua

**2** *(Balear Uharteetan)*

Herrialde Katalanak: Mallorcan (Balear uharteak) **Diada** ospatu zuten, 1229an Jaume Garailea-k gidatutako tropek hiria hartu zutela gogoratzeko.Baleareetako Gobernuak irailaren 12an egiten du **diada** ofiziala. Berria - Mundua

Menorca uhartean **diada** ospatu zuten, eta Ciutadella hirian udal bandako musikariek uko egin zioten Espainiako ereserkia jotzeari. Berria - Mundua

**3 *diada egun***

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxek **Diada** egunerako idatzi duen agiria irakurriko du Bellpug-en (Lleida), bihar, **Diada** egunean. Berria - Euskal Herria

Kataluniako Alderdi Popularreko buruak **Diada** egunean bandera espainiarra udaletxetako balkoietatik kendu duten alkate sozialistei «legea betetearazteko» eskatu zien. Berria - Mundua

Egunkaria-ren aldeko Kataluniako plataformak elkartasuna adierazten duten egutegiak banatuko ditu Katalunian **Diada** egunean, bihar. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diada egunean** (3); **diada ospatu zuten** (3); **diadaren egunean** (5)

---

# diada[2] *iz* elkarren artean lotura hertsia duten bi izaki edo printzipiok osatzen duten bikoa.

Platonentzat Ideia zenbakia zen: Monada, **Diada**, etab.-. Askoren artean

---

# diadema 1 *iz* koroa erdiaren itxura duen apaingarria.

Emakume taldeak ere ageri ziren, berriketan, bularraldea urre koloreko xaflez apaindua eta burua igitai-ilargiaren itxurako **diadema** altxatu batez koroatua. Karlos Zabala

Arbasoen izen ospetsuak zeramatzan harribitxien lau erreskadatan zizelkatuak eta zure handitasunaren ezaugarria zuen buruko **diademan**. Elizen arteko biblia

Eraztuna sudurrean, belarritakoak eta **diadema** zoragarria buruan. Elizen arteko biblia

Ilean **diadema** bat zeukan, bitxilore txiki-txiki batekin, eta, musu eman zidanean, kizkur batek kilima egin zidan belarrian. Juan Kruz Igerabide

Janzkera tradizionala eramaten dute: beira alez osatutako **diadema**, Indiako Ozeanoko maskorrez egindako lepokoa eta kolore biziko soinekoak. Berria - Kultura

Mardokeo, errege-jantzitan, urrezko koroa eta liho gorrizko **diadema** zeramatzala atera zen jauregitik. Elizen arteko biblia

Bisuteriazko **diadema** bat baino ez da, behin dantzaldi baterako erosi zuena... Xabier Paya

**2** (hitz elkartuetan)

Koroa distiratsu izango zara Jaunaren eskuan, errege-**diadema** zeure Jainkoaren eskuan. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diadema bat** (3); **eta diadema** (3); **urregorrizko diadema** (3)

---

# diademadun *izlag* diademaz hornitua.

Kortxoaren dunbotsarekin batera, **diademadun** emakumeak txilio bat jaulki zuen. Lopez de Arana

Eguna amaitzeko, oturuntza bat eskaini zioten, eta hantxe jarri zuten mahaiburu kortesanoa, **errege-diadema** buruan jarria. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diademadun emakumeak** (4)

---

# diadoko *iz* greziar printzipe erregegaia.

Hau ulertu dugularik, Errenazimentuko tirano guztiak, Scala eta Montefeltre, Visconti, Borgia eta Medici bezalakoak, beren ezaugarri txikienetan ere, Federiko II.aren seme eta ondorengo direla ulertzen dugu, `Bigarren Alexandro´ honen **diadokoak**. Iñaki Mendiguren

---

# diafragma 1 *iz* bularra eta sabelaldea bereizten dituen gihar luze zapala.

**Diafragmaren** jaisteak sarrarazten du airea biriketara; barrunbe torazikoaren eta abdomenaren artean dagoen ehunmihise bat da **diafragma**. Irene Aldasoro

Mekanismo automatiko bat abiarazten baita, arnasarik ez hartzeko nahi kontzientea baino indartsuagoa, saihets, **diafragma** eta biriketako muskuluak mugiarazten dituena aire garbia sar dadin. Irene Aldasoro

Gorputzeko muskuluetariko askok, hala nola hesteetakoek, maskurikoek edo **diafragmak**, isil-isilik egiten dute beren lana, ahalegin kontzienterik gabe. sabel aldean kolpe

izugarria jaso zuen, heste meharra zauritu eta hainbat saihets eta **diafragma** hautsi zitzaizkion. Irene Aldasoro

**2** argazki kameran, zenbat argi sartu kontrolatzen duen irekidura.

Metalezko xaflaz egindako gailu bat da **diafragma**. Irene Aldasoro

Kamera sinpleetan, nahikoa da obturadorea, baina argazkilariak ahalbide gehiago izango du **diafragma** bat jartzen bazaio. Irene Aldasoro

Kameraren **diafragmak** begiko irisa imitatzen du. Irene Aldasoro

Linternaren laguntzaz azaldu zizkion **diafragmaren** zabalerari eta esposizio denborari buruzko zertzeladak. Josu Landa

**3** umetokiaren lepoan, esperma sar ez dadin, ezartzen den disko modukoa, mehe eta malgua.

Antisorgailu bezala baginaren hondoan ipini behar nuen **diafragma** bat eta gel espermizidaz betetako botilatxo pare bat eman zizkidan. Joseba Urteaga

Honeyk kendu egin zuen **diafragma**, eta han abiatu ziren biak gauero-gauero familia bat sortzeko zereginean saiatzera. Oskar Arana

**4** bi barrunbe bereizteko mintza edo trenkada.

Poliuretano erdizurrunez egindako bi bentrikulu ditu bihotz artifizialak eta poliuretanozko lau **diafragma** malgu, odol-ganbara eta aire-ganbara bereizteko. Berria - Gaiak

**5** (hitz elkartuetan)

Erregai-ponpa **diafragma**-ponpa bat izan ohi da. Irene Aldasoro

Haurtzaroko polioaren ondorioz, alde batean ez zuen **diafragma**-mugimendurik. Xabier Olarra

· Iris-**diafragma** batek kontrolatzen du objektiboaren irekiera; hark erabakitzen du zenbaterainoko eremua utziko zaion argiari objektibotik zehar filmera iristeko. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diafragma eta** (3); **eta diafragma** (3)

---

**diagnosi** *(161 agerraldi, 15 liburu eta 99 artikulutan; ETCn 2.247 agerraldi; orobat* **diagnosia** *g.er.)* **1** *iz* diagnostikatzea. ik **diagnostiko**.

Ez Maeztu-rekin, ez Unamuno-rekin, etab., Ortega inorekin ez dator bat Espainiaren gaitzaren **diagnosian**. Joxe Azurmendi

Ondarearen gaia Planaren hiru ardatzetako bat bezala jorratu dute bultzatzaileek, baina **diagnosia** ezin oso baikorra izan. Berria - Kultura

Bigarren helburua Euskal Herrian egiten den artearen **diagnosia** egitea da. Berria - Kultura

Euskal Herriko egoera ekonomikoaren **diagnosia** eta gerorako estrategiak eztabaidatu dituzte. Berria - Ekonomia

Bennett **diagnosirako** azti bat ez ezik -esan zidan- ezagutzen dudan kirurgialaririk errukitsuena ere bada. Xabier Olarra

Lehenago, gernuaren itxuran eta haren analisi kimikoan oinarritzen ziren medikuak **diagnosiak** egiteko eta tratamenduak emateko. Irene Aldasoro

Arafaten mediku Ashraf Al Kurdiren arabera, «ez dago **diagnosirik**»: «ez dakigu zer duen gaizki». Berria - Mundua

Horra **diagnosia** baieztatua, eta patogenesia igarria: orain terapiarekin asmatu behar. Juan Garzia

Horra **diagnosia** baieztatua, eta patogenesia igarria: orain terapiarekin asmatu behar. Juan Garzia

**Diagnosirako** Elkarrizketa Programa (DIS) erabiltzen hasi ziren psikologoak. Berria - Gaiak

Euskal Herriko Gazteriaren Eskubideen Agiria eta Euskal Herriko gazteriaren egoeraren **diagnosia**. Berria - Harian

**2** irud/hed

Nire gaitzak baino **diagnosi** errazagoa zuen harenak: ez daki irakurtzen. Iñigo Aranbarri

Holako **diagnosi** gogorra -segur aski okerra ez dena- egin ondoren, ematen duen konponbidea elebakar bihurtzearena da: mintzo gaitezen denak euskaraz, eta euskaraz bakarrik, edo ingelesez, euskaldunak ez direnekin. Pello Salaburu

Egoeraren **diagnosi** «okerra» egitea leporatu zion taldeari. Berria - Harian

Munduko prezioek nazio-ekonomien gainean eragiten dituzten efektuak enpirikoki aztertzen, nazioarteko egoeraren **diagnosi** zehatzagoak egiten eta eredu multinazionalak eraikitzen hasi ziren. Koro Navarro

Espainiako eskuineko egunkariek "emaitzaren porrota" frantsesei [...] egotzi izan dieten artean, aurrerakoiagoek ezetzaren **diagnosi** psikologikoari ekin diote. Iñigo Aranbarri

Ekintza-bide hori, bi kasuetan, aberrazio bat izan zen, egia espiritual eta intelektualaren arteko erlazioaren gezurrezko **diagnosian** oinarritua. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan)

Sedanok dionez [...] neurosi obsesiboa -hori baita ni kalifikatzeko erabili ohi duen **diagnosi** etiketa- jaiotzetik dakarkigun izaera ez delarik ere [...] pertsonaren bizitzan oso goiz azaltzen omen da. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **buruzko diagnosi** (3); **diagnosi bateratua** (10); **diagnosia egin** (13); **diagnosia egin eta** (3); **diagnosia egiteko** (7); **diagnosia eta** (4); **diagnosiaren arabera** (3); **egoeraren diagnosi** (4); **egoeraren diagnosia** (14); **egoeraren diagnosia egin** (6); **z diagnosia** (3

---

**diagnostikatu**, diagnostika, diagnostikatzen **1** du *ad* eritasun bat sintomen eta azterketen emaitzen bidez zehaztu.

Hilabete geroago, dibortzio-ebazpena iritsi baino askoz lehenago, minbizia **diagnostikatu** zidaten. Oskar Arana

Hiru urte zituenean, neurologo batengana eraman zuten Temple, eta hark autismoa **diagnostikatu** zion neskari. Xabier Olarra

Medikuak silikosia **diagnostikatu** eta lanerako ezgauza izendatu zuten arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaitza lehenbailehen **diagnostikatzea** urrats garrantzitsua dela diote, garunak kalte txikia badu, errehabilitazioa are errazagoa izaten delako. Berria - Harian

Seinale horiek, askotan, baliagarriak gertatzen dira gaixotasunak ikertzeko eta **diagnostikatzeko**. Irene Aldasoro

Hau da benetako sendabidea zuzen **diagnostikaturiko** gaitzarentzat. Iñaki Mendiguren

Sendagileak sarritan gaixo txarrak izaten dira; beren burua **diagnostikatzen** dute, eta beren kabuz sendagaiak hartzen dituzte. Berria - Euskal Herria

**2** irud/hed

Eskola horren sortzaileak Gizarte Sinikoak pairatzen zuen gizarte-gaitza tradiziozko errito eta praktikekiko axolagabekeriak eragina zela **diagnostikatu** zuen. Iñaki Mendiguren

**3** (era burutua izenondo gisa)

Hilketa batek, halakotzat ezagutua izateko, esku jakin bat behar du, eta kausa bat, arrazoi argi bat edo pasio itsu bat, edo eromen **diagnostikatu** bat. Iñaki Segurola

**4** ***ez-diagnostikatu*** *izond*

Gaur egun ziur dakigu gure alabaren heriotza ez zuela suge-pozoiak eragin [...]; heriotza burezur-basearen haustura ez-**diagnostikatuaren** ondorio izan zen, *compressio cerebri,* ezponda txiki hartan izandako erorikoak eragina. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **autismoa diagnostikatu** (3); **bat diagnostikatu** (3); **diagnostikatu eta** (3); **diagnostikatu zion** (3); **diagnostikatu zioten** (14); **diagnostikatu zuten** (3); **diagnostikatzeko aukera** (3); **diagnostikatzeko sistema** (4); **diagnostikatzen dira** (6); **gaitza diagnostikatzeko** (3); **gaitzak diagnostikatzeko** (5); **gaixotasuna diagnostikatzeko** (3); **kasu diagnostikatzen dira** (3); **minbizia diagnostikatu** (5)

**diagnostiko** *(261 agerraldi, 26 liburu eta 138 artikulutan; ETCn 6.085 agerraldi; orobat **diagnostika** g.er.)* **1** *iz* diagnostikatzea. ik **diagnosi**.

Orain arte, gaixo baten oheburura deitutako medikuak **diagnostiko** bat egiten zuen, eta hartatik saiatzen zen eritasunaren bilakaera aurreikusten, hots, pronostikoa egiten. Juan Garzia

**Diagnostikoa** ezin txarragoa izan zen: minbizia. Joan Mari Irigoien

Informeak, azkenean, **diagnostiko** bat zekarren, baita gaitzari aurre egiteko sendagaiak ere: antsiolitikoak eta lasaigarri antidepresiboak. Joan Mari Irigoien

**Diagnostikoa** zuzena iruditu zitzaion; trataera zen zaila. Josu Zabaleta

Eztul txiki bat egin, eta sendagileek egindako **diagnostikoa** berretsi zidan, inondik ere. Javi Cillero

Erresonantziak lehen **diagnostikoa** ezeztatu zuen: Asier Olaizolak zentimetro eta erdiko haragi-etena dauka eskuin gihar dorsalean. Berria - Kirola

Don Jose familiako medikuaren **diagnostikoa** garbia izan zen: "Penaz hil da" esan zuen. Joxemari Urteaga

Eusko Jaurlaritzak Bularreko Minbiziaren **Diagnostiko** Goiztiarrerako programa abian jarri zuenetik, [...]. Berria - Harian

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Diagnostiko** klinikorako begirada bakar bat nahikoa izan daitekeen arren, autista den gizakia ulertzea espero badugu, biografia osoa ezagutu beharra daukagu: ez du balio erdizkako ezerk. Xabier Olarra

**Diagnostiko** goiztiarrari esker, gainera, orain, hamar hilabete edo urtebete inguruko haurrei ari gara jartzen inplanteak. Berria - Gaiak

**Diagnostiko** psikiatrikoa dutenek herentzia jasotzeko eskubidea ere galtzen dute. Berria - Euskal Herria

Emakumearen uteroan txertatu aurretik, **diagnostiko** genetikoa egingo zaie enbrioiei. Berria - Gaiak

Saiatu dira ezkontaurreko **diagnostiko** isilpekoak-edo egiten eta heterozigotoen arteko ezkontzak eragozten. Juan Garzia

Zer da ezarri aurretiko **diagnostiko** genetikoaren teknika? Berria - Gaiak

Fetuaren zelula bakan batzuk aski dira jaio aurretiko **diagnostiko** delakoa egin ahal izateko. Juan Garzia

**3** irud/hed

**Diagnostikoa**, begi-bistakoa: triangelu eramangaitz baten amaiera dohakabea. Aingeru Epaltza

Denborarekin egin nuen **diagnostikoa**: erromantikoa nintzen, eta erromantikoa izan nintzelako sufritu nuen hainbeste. Joan Mari Irigoien

Ainhizek berehala eskaini zidan **diagnostikoa**, bere ohiko orojakile tonuaz: "Nabaria da hau ordena militarrek menderatutako lurraldea izan zela [...]". Iban Zaldua

Esan daiteke errealitate horren zergatiaren **diagnostikoak** oso desberdinak direla, eta, arazoa larria denez, tratamendu egokia ezartzeko **diagnostiko** egokia egitea ezinbestekoa da noski. Iñaki Heras

Lau sindikatuei (ELA, CCOO, LAB eta UGT) egoera ekonomikoari buruzko **diagnostiko** «irreala» izatea egotzi zien. Berria - Ekonomia

Tomek autoaren egoeraz **diagnostiko** oker hori egiten zuelarik, itzuli egin nintzen, aipatutako gasolindegia atzeko leihotik ikuste aldera. Oskar Arana

Errobi/Urdazuri lurralde horren **diagnostikoa** eskaini duten teknikalariek erran dutenez, Akitaniak berak ekarri behar lioke 900.000 euro eta kasik milioi eterdia artean garapen proieiktu horri laupabost urtetan obratzeko. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Vienako **diagnostiko**-zentro baten postalaster batekin hasi zen. Juan Garzia

Horiek eritasun bakoitzean duten funtzioa zehazteak **diagnostiko**-test fidagarriak eta oraingoak baino sendagai eraginkorragoak ekar baititzake. Berria - Gaiak

**diagnostiko** lan bat egitea, ariketa prospektibo bat ondotik eta lurralde antolaketa eskema osatu zen hiru probintzien antolaketarako puntu estrategiko bat. Berria - Euskal Herria

**5** eritasun baten seinaleak edo sintomak ezagutzeko antzea.

Sendagile hura -gizon ikastuna-, **diagnostikoa** oso gutxik ohi duten bezala menderatzera iritsia zen. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurreko diagnostiko** (7); **aurreko diagnostiko genetikoa** (5); **aurretiko diagnostiko** (6); **aurretiko diagnostiko genetikoa** (3); **bularreko minbiziaren diagnostiko** (3); **diagnostiko bat** (10); **diagnostiko bat egin** (3); **diagnostiko bat egiten** (3); **diagnostiko bateratuak** (3); **diagnostiko batetik** (3); **diagnostiko berbera** (3); **diagnostiko genetikoa** (9); **diagnostiko genetikoa egiteko** (3); **diagnostiko genetikoak** (3); **diagnostiko goiztiarra** (4); **diagnostiko goiztiarrerako** (4); **egoeraren diagnostiko** (4); **eta diagnostiko** (5); **ezarri aurreko diagnostiko** (4); **ezarri aurretiko diagnostiko** (5); **minbiziaren diagnostiko goiztiarrerako** (3); **txertatu aurreko diagnostiko** (3)

**aurreko diagnostikoa** (4); **diagnostikoa egin** (13); **diagnostikoa egin eta** (4); **diagnostikoa egitea** (3); **diagnostikoa egiteko** (6); **diagnostikoa egiten** (4); **diagnostikoa eta** (8); **egoeraren diagnostikoa** (8); **erakasleak aholkatu diagnostikoan** (3); **eta diagnostikoa** (3)

**diagnostika bat** (4); **diagnostika bat eramanen** (3); **erabilpena neurtzeko diagnostika** (3); **neurtzeko diagnostika bat** (3)

---

**diagonal** **1** *iz* poligono batean, hurrenez hurreneko ez diren bi erpin biltzen dituen lerro zuzena.

Aldea 1 duen karratuaren **diagonala**. Jon Muñoz

Hona jakingarri nagusia: karratua 2 duen zenbaki bat da **diagonalaren** luzera! Jon Muñoz

**Diagonal** horren neurria ematen zaio atrioaren luzerari. Santiago Iruretagoiena

· Eta plazaren **diagonala** zeharkaturik, Abenidaren kale-ahoan barrendu zen. Pedro Alberdi

**2** *izond* poligono batean, hurrenez hurreneko ez diren bi erpin biltzen dituena.

Luzean eta zabalean 10 oin dituen karratu horretan, lerro **diagonal** bat egingo da angelu batetik bestera. Santiago Iruretagoiena

Ezkerretik eskuinera zein eskuinetik ezkerrera, goitik behera zein behetik gora, are lerro **diagonal** bati jarraiki ere, irakurketak hurrentasunean du oinarri sendoa. Iñaki Arranz

· Uztartze erdiak presioa egiteko, eta baita hegalek ere, jaurtiketa **diagonalak** egiteko. Berria - Kirola

Axedreza hausten duen bakarra Manhattango irla alderik alde zehartzen duen Broadway **diagonala** da. Harkaitz Cano

**3** ***diagonalean*** *adlag*

Lauki bat **diagonalean** mozten duten bi hirukiak. Ibon Uribarri

Hogeita Hamargarren Errepidearen bila ari gara; errepide hori zeharka-meharka doa **diagonalean** ipar mendebalderantz. Oskar Arana

Nire gela erakutsi dit: ohe handia dauka, bakarrik lo eginez gero **diagonalean** lo egin dezakezun horietako bat. Harkaitz Cano

**Diagonalean** zeharkatu zuen gela, bien artetik pasatuz. Iñaki Iñurrieta

Ezpondatik elkarrekin jaitsi eta ibai ondoko larrea **diagonalean** zeharkatu bezain laster sastrakara jo dute. Pello Lizarralde

-Harry, mugitu **diagonalean** lau laukitxo eskuinera. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diagonal horren** (3); **diagonala eta aldea** (4); **haren diagonala** (3); **karratuaren diagonala** (3); **lerro diagonal** (3)

---

**diagrama** **1** *iz* multzo baten zatien eskema grafikoa; aldaketen, bilakaeren eta kidekoen adierazpen grafikoa.

Material grafikoa (argazkiak, koadroak, estatistikak, **diagramak**, etab) lortzen laguntzen dizu. Askoren artean

**Diagramaren** puntu batera helduta, edozein bidetatik jo dezakegu. Itziar Laka

Komunikazio-ekintza ez bat-batekoaren **diagrama**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Giltzurrun artifizial baten **diagrama** eskematikoa. Irene Aldasoro

Bihotz-birika makinaren **diagrama**. Irene Aldasoro

Logikan, Euler-en **diagrama**. Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan)

Egoera mugatuko gramatika "egoera-**diagrama"** bezala itxura daiteke grafikoki. Itziar Laka

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bezalako diagramen** (3); **egoera diagrama** (3)

---

# diakono 1 *iz* apaiza baino maila bat beheragoko elizgizona.

Eta Jainko Jauna Eliza santu katoliko eta apostolikoaren baitan zerbitzatu nahi duten guztiei, maila guztietakoei: apaiz, **diakono**, subdiakono, akolito, exortzista, irakurle, atezain eta kleriko guztiei, erlijioso eta erlijiosa guztiei, donadu eta postulante guztiei. Askoren artean

Joan Mari Uriarte Donostiako gotzainak lau **diakono** apaiztu zituen herenegun eguerdian Donostiako Artzain Onaren katedralean egindako elizkizunean. Berria - Euskal Herria

Frantziskok, Kristoren **diakonoak**, Ebanjelio santua kantatu zuen. Askoren artean

Ez litzateke harrituko Isaacs-ek elizan karguren bat izango balu, **diakono** edo bereter izango balitz, zernahi ere den bereter izate hori. Oskar Arana

**2** Elizaren lehen denboretan, limosnak banatzeko kargua zuen kristaua.

**Diakonoak** ere agurgarri eta hitzeko gizon izan daitezela, ez ardozale, ez eta irabazi zikinei emanak ere. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan)

Jainkoaren santuak **diakono**-jantzia jartzen du, diakono baitzen, eta Ebanjelio santua kantatzen du ahots ozenez. Askoren artean

---

# diakonoburu *iz* diakonoen burua.

Horra nola kontatu zuen historia Martin Arraya-koak, Iruñeako kalonje eta Aibar ibarreko **diakonoburuak**, bere kapituluari bidali gutunean. Piarres Xarriton

---

# diakonotza *iz* diakonoaren lanbidea edo kargua.

Lehenik, izan bitez aztertuak eta, gero, akasgabe badira, bete bezate **diakonotza**-zerbitzua. Elizen arteko biblia

---

# diakre *iz ipar* diakonoa.

Bainan nor dira **diakreak** elizan? Herria

Gure Diosesan baditugu sei **diakre**, hiru Euskal Herrian eta hiru Biarnoan. Herria

Jakin bedi halere Elizaren hastapenetan emazte **diakreak** bazirela: hori bederen. Herria

Ortziralean joaiki Pariserat aurkitu behar baitzuen bere lagunak **diakre** eginak ziren elizkizunetan. Herria

Biharamunean, 10.000 haur bildu ziren, goizean San Leoneko kirol zelaian, 5 **diakre** ordenatuak zirelarik. Herria

---

# diakritiko 1 *iz* letrez mintzatuz, bereizgarri gisa ezartzen zaion ikur edo marka.

Transkripzioan apostrofo biribilduaren itxurako **diakritikoa** gehitzen zaio herskari arrunten ikurrari. Lourdes Oñederra

Ingelesez ez dago **diakritikorik**. Lourdes Oñederra

Ahoskabetasuna adierazteko, **diakritikoetara** jo behar da. Lourdes Oñederra

Artikuluaren izenburua **diakritikoen** artean edo batere gabe idatz dezakezu (gure adibideetan izenburuak hutsik ageri dira, praktikoagoa baita), baina inoiz ez letra etzanez. Askoren artean

**2** (izenondo gisa) bereizgarria dena.

Bestetik, hizkuntza guztietan erabiltzeko balioko lukeen alfabeto batek ikur **diakritikoez** oztopatua azaltzeko arriskua izango luke. Isabel Arrigain

Tilderik ez düe frantses idazmaxinek, bena ordezkatzen ahal da tilet hegaldünaz, galdor **diakritikoaz**, hots «accent circonflexe» delakoaz. Herria

---

# diakronia *iz* hizkuntza-gertakariak denboran zehar duten bilakaera; bilakaera horren azterketa.

Sinkronia eta **diakronia**, aspaldixko irakatsi zuen Coseriuk, ez dira hizkuntzaren mailako bereizkuntzak, metoduaren mailakoak baizik. Lourdes Oñederra

Sinkronikoaren eta **diakronikoaren** burujabetasuna eta elkarren mendekotasuna batera azaltzeko, gorputz batek plano baten gainean egindako proiekzioaz erka dezakegu. Isabel Arrigain

Hain bereiziak ikusten zituen **diakronia** eta sinkronia [Saussure-k], non uste baitzuen **diakroniaren** arloko aldaketek ez dutela sistema aldatzean eraginik izaten. Isabel Arrigain

Amado Alonso-k, bere aldetik, **diakronia** sinkronian sortzen dela baieztatu du. Isabel Arrigain

Hizkuntzaren **diakroniak** /t/: /d/ (*dit: didazu*) bezalako txandakatzeak utzi dizkigu. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta diakronia** (8); **eta diakroniaren** (3); **sinkronia eta diakronia** (5)

---

# diakroniko 1 *izond* diakroniarena, diakroniari dagokiona.

Gure jakintzaren alderdi estatikoari buruzko guztia sinkronikoa da, eta **diakronikoa**, berriz, bilakaerekin zer ikusia duen guztia. Isabel Arrigain

Lege sinkronikoa eta lege **diakronikoa**. Isabel Arrigain

Arazoak ez zuela zerikusirik euskararen aldaera diatopiko edo **diakronikoekin**. Jon Alonso

Ikuspegi sinkronikoen eta **diakronikoen** arteko erlazioa eta analisi fonologikoan aintzat hartu beharreko beste zenbait arazo funtsezko. Lourdes Oñederra

Hizkuntzalaritza **diakronikoak**, aldiz, bi ikuspegi bereizi behar ditu: bata ikuspegi prospektiboa, denboraren bidea jarraitzen duena, eta ikuspegi retrospektiboa bestea, denboran atzeraka doana; horregatik, azterbideak bikoa izan behar du. Isabel Arrigain

**2** irud/hed

Gertaera historiko batzuen oroitzapen **diakronikoa** egiten du Zunzunegik. Asiako edo Mendebaldeko Erdi Aroko janaria sinkronikoa da (mahaira eseritakoan, denetik noiznahi du bazkaltiarrak eskura jateko) eta Mendebaldeko oraingo otordua, berriz, **diakronikoa** (hurrenez hurren datoz jan-edanak, banan-banan, ordena jakin batean). Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **denaren eta diakronikoa** (3); **diakronikoa da** (4); **diakronikoa denaren** (4); **diakronikoaren eta** (4); **diakronikoaren eta sinkronikoaren** (4); **eta diakronikoa** (8); **eta diakronikoa denaren** (3); **eta diakronikoaren** (5); **gertaera diakroniko** (5); **gertaera diakronikoak** (6); **hizkuntzalaritza diakronikoa** (4); **hizkuntzalaritza diakronikoak** (6); **sinkronikoaren eta diakronikoaren** (4)

---

# diakronikoki *adlag* diakroniaren aldetik.

Aldaketak **diakronikoki** baizik ez dira existitzen. Isabel Arrigain

**Diakronikoki** ere ikus daiteke afrikatze bilakabide interesgarri bat. Lourdes Oñederra

Saussurek, positibismoaren ikusmoldetik, hizkuntza jakin batean **diakronikoki** hurrenez hurren datozen terminoak, hizkuntza sistema jakin horretaz kanpo irudikatzen ditu, harekin zer ikusirik ez balute bezala. Isabel Arrigain

---

# dial 1 *iz* irrati hargailu baten eskala, irrati igorgailuak hautatzeko balio duena.

Paris, Praga, Budapest irakurri zuen **diala** mugitu ahala, *Ici Radio France Internationale...* Udalak berak badu irrati bat, eta 93.7 **dialean** eta Internetez www.pamplona.es helbidean entzun daiteke. Joseba Sarrionandia

Bonnie Tyler-ek **dialeko** 102an *I really need you tonight* oihu egiten dit burkoaren azpitik. Sonia Gonzalez

Irrati baten **dialari** eragiterakoan ateratzen diren hotsak iruditu zitzaizkidan. Anjel Lertxundi

Irratia piztu, eta **dialari** eragin nion atzera eta aurrera, harik eta musika klasikoa bakarrik emititzen zuen irrati bat aurkitu nuen arte. Anjel Lertxundi

Hamaikak paseak ziren eta hatza **dialean** jarrita -egunak aurrera eta atzera pasarazteko ahalmena duela dirudien dialarekin kontuz- irratiari adi zegoen. Harkaitz Cano

EHNEko bozeramailearen ahots ezaguna entzun duenean gelditu du **diala**. Patxi Iturritegi

Antifrankistek **dialean** bilatzen zuten beste frekuentzia bat Radio Paris zen. Berria - Kultura

**Diala** gora eta behera hasi nintzen mugitzen: denetan kontu bera. Xabier Mendiguren Elizegi

Adineko jendeak ez zuen ohiturarik irratiko **diala** batetik bestera dantzatzeko. Pello Zabala

**Diala** beti bere hartan. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Kurt sukalde ondoko gelatik itzuli zenean, ez zen gehiago **dial** -hotsik entzun.· Haren hotsak ez zuen, ordea, guztiz estaltzen atzera-aurrera zebilen irrati- **dial** batena. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta dialari eragin** (3)

---

# dialektal *iz* dialektoarena, dialektoari dagokiona.

Ez dagoela dialekto naturalik, ezaugarri **dialektal** naturalak baizik. Isabel Arrigain

Hizkuntza estandarra baztertu eta forma **dialektalak** erabiltzera behartu dituzte. Berria - Mundua

Bi eratara jokatu ohi du: negatiboki, aurrea hartzen baitio zatikatze **dialektalari**, berrikuntzak itoaz sortzen diren unean bertan; eta positiboki, batasuna atxikitzen laguntzen baitu, berrikuntza horiek onartzean eta zabaltzean. Isabel Arrigain

Presidentearen hizkerak ikutu **dialektal** handiegia zuen txinatarren %73rentzat. Unai Elorriaga

---

# dialektalizazio *iz* dialekto bihurtzea.

Hainbat hitzek froga dezakete euskara zaharrak batasun handiagoa zuela oraingoak baino, **dialektalizazio** prozesua berria dela. Berria - Kultura

---

# dialektika 1 *iz* eztabaida batean zerbait frogatzeko erabiltzen diren bideen multzoa; kontrako tesiak gainditzean datzan arrazoibidea.

Sokratesek **dialektika** azkartu zuen, solaskideen kontraesanak erakutsiz, batik bat berak "soilik ez dakidala dakit" erabilitako esaldia zela eta. Askoren artean

Unibertsalaren eta partikularraren arteko **dialektikan** jarri izan ohi dira sarritan euskaldunena bezalako herri txikien dilemak. Joseba Zulaika

Nik ere erreformistarena egin dut, **dialektikaren** gozamenagatik. Koldo Izagirre

Filosofiaren gainontzeko atalei buruz baino gehiago dakit nik **dialektikaz**. Imanol Unzurrunzaga

**Dialektikak** irakatsi zidan arestian aipatutako proposizioak egiazkoak direla. Imanol Unzurrunzaga

Egia esateko, Mendebaldea-Ekialdea **dialektika** bizirik da. Edorta Jimenez

Diru premiaren eta kirol arloaren arteko **dialektika** horretan, erraza da kontraesanean erortzea. Berria - Kirola

Legearen eta justiziaren arteko **dialektikak** Kieslowskiren zinema zipriztindu zuen. Berria - Kultura

Hala ere, Serrano Izkoren hau, izatekotan, **dialektikaren** apologia da, ez dogmatismoarena. Berria - Kultura

**Dialektika** gaizto hori eraginkorra izan da oso istorio faltsu bat eraikitzeko. Berria - Mundua

Kantek **Dialektikaz** itxuraren Logika ulertzen du, eta itxura honen aurkikuntza, kritika eta gaindipena dira **Dialektika** transzendentalaren egitekoak. Ibon Uribarri

**2** irud/hed

Pistolen **dialektika** erakargarriagoa zitzaiola, egunkarietako lehen orrialdean deskubritu zenuen. Xabier Montoia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arteko dialektika** (10); **arteko dialektikak** (4); **bere dialektika** (4); **dialektika eta** (5); **dialektika horretan** (3); **dialektika transzendentala** (9); **dialektika transzendentalaren** (11); **dialektika transzendentalaren bigarren** (4); **dialektika transzendentalaren lehen** (4); **dialektika transzendentalean** (4); **dialektikak irakatsi** (3); **edo dialektika** (3); **eta dialektika** (3)

---

# dialektikazale *izond* dialektikaren zalea dena.

Katu **dialektikazalea** dugu Joann Sfarrena eta rabino gaixoaren sinesmena kordokaraztea lortuko du behin baino gehiagotan. Berria - Kultura

---

# dialektiko 1 *izond* dialektikarena, dialektikari dagokiona.

Eskola **dialektiko** zaharren jolasen artean zegoen galdekizun hau ere: bola bat zulo batetik ezin bada pasa, zer esan behar da, bola handiegia dela edo zuloa txikiegia dela? Ibon Uribarri

Baina borroka **dialektiko** batean ari ginenez, zalantza hori aitortu beharrean, beste galdera batekin jo nuen erasora: [...]. Ramon Saizarbitoria

Nire erantzunaren zain jarraitzen zuen besteak, kopa ahora astiro eramanez, lehia **dialektikoa** irabazi zuelakoan. Anjel Lertxundi

Kritika **dialektiko** eta komunikatibo bikainak daude, esan gabe doa, eta eleberri **dialektiko** apartak: *Lisboaren setioaren historia.* Nia ez da elementu estatikoa, elementu **dialektikoa** baizik. Markos Zapiain

Txillardegi egundo ez da **dialektikoa** izan, ezta komunikatiboa ere, baizik humanista tragiko bat. Markos Zapiain

Bordaren metodoa ez da **dialektikoa**, baizik mistiko ezkertiarra. Markos Zapiain

Bi atal nagusietan zatituko dugu Dialektika: lehenak, arrazoimen hutsaren adigai transzendenteez, bigarrenak, arrazoimen hutsaren arrazomen-inferentzia transzendente eta **dialektikoez** jardungo du. Ibon Uribarri

Antinomia konponezinetan korapilaturik amaitzen du, "begitazio metafisikoen" kontraesan **dialektikoetan** bere buruari kontraesanez, pasatua duelako bere ahal eta baliabideen esparrua. Askoren artean

Beti aitzakia bera ipintzen zion genetikari: materialismo **dialektikoarekin** bateraezina izatea. Juan Garzia

Hori da materialismo **dialektikoaren** apaiz berriek diotena. Iñaki Heras

Ateraldiekin lotu beharra dago inolaz ere bertsolarien gaitasun **dialektikoa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Irudikapenezko arteak izadia imitatzen du, eta imitazio horrek plazerra ematen digu: baina, alderantziz, eta ia modu **dialektikoan**, arteak eragina du "izadian", edo izadia ikusteko dugun moduan, gutxienez. Josu Zabaleta

**2** *iz*

**Dialektiko** zorrotza bada ere, aurkezten du tesia, aurkezten du antitesia, baina nekatuegi gelditzen da sintesiraino iristeko, edo ahantzi egiten zaio. Markos Zapiain

Platonek jadanik kritikatu zuen Eleatar Zenon **dialektiko** sotila bera sofista gaiztotzat joz. Ibon Uribarri

**3** (izenondo elkartuetan)

Tradizio marxistaren ikuspegi **dialektiko**-estrukturalean oinarrituriko bulgarizazioan. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inferentzia dialektiko** (5); **inferentzia dialektikoen** (3); **itxura dialektiko** (4); **itxura dialektikoaren** (4); **materialismo dialektikoaren** (3)

---

# dialektikoki *adlag* era dialektikoan.

Beraz, elkarri **dialektikoki** kontrajarritako judizioak biak izan daitezke faltsuak. Ibon Uribarri

Subjektuak topatzen dituen irudiek **dialektikoki** elikatzen dute haren iruditeria: irudi horiei esker subjektuak identifikazioen eta objektuen erregistroa jokarazten du, baina, alderantziz, ezin ditu irudi horiek atzeman lehendik eginik dituen identifikazioen bidez ez bada. Josu Zabaleta

Forma horiek [...] mugatuak direlako, beren baitan oposizioak eta kontraesanak pairatzen dituzte, ez dira arrazoizkotasun osokoak, eta arrazoimenak **dialektikoki** gainditu egiten ditu denak banan-banan, sintesi razional betegineraino iristeko noizbait. Askoren artean

Fullaondok esan zuenez, «ideologia jakin bat **dialektikoki** defendatzeagatik» utzi nahi du PSOEk HZ legetik kanpo. Berria - Euskal Herria

**Dialektikoki** bada ere, gure biltzarraren azkeneko diskurtsoan esan nuena baieztatzen du: Aralarrek lortu ditu bere helburuak bi bidetatik: bata eginez, eta bestea eraginez. Berria - Euskal Herria

---

# dialekto *(orobat **dialektu** g.er.)* 1 *iz* hizkuntza bat banatzen den era nagusietako bakoitza. ik **euskalki.**

Hizkuntzak **dialektoetan** desberdintzea. Isabel Arrigain

Euskara bat onetan, egia da, **dialekto** edo izkera asko dirala. Koldo Zuazo

**Dialektoaren** eta hizkuntzaren arteko desberdintasuna kantitatean datzala, ez izaeran. Isabel Arrigain

Bere kasa utzitako hizkuntzak **dialektoak** izango lituzke soil-soilik; eta **dialekto** horietan bata besteen gainetik ezarriko litzatekeen **dialektorik** ez legokeenez, etengabe zatikatuko litzateke. Isabel Arrigain

**Dialekto** bat guztientzako hizkuntza ofizial bihurtuz gero, nezkez iraungo du bere hartan **dialekto** abantailatu horrek. Isabel Arrigain

Batzuetan, **dialekto** bati hizkuntza izena eman zaio literatura bat sortu duelako; hori da hain zuzen portugesa eta nederlanderaren kasua. Isabel Arrigain

**Dialektoen** aurka literatura hizkuntza bat sortu duten faktoreak. Isabel Arrigain

Ez dagoela **dialekto** naturalik, ezaugarri dialektal naturalak baizik. Isabel Arrigain

Bereizketa **dialektoetaraino** edo azpi-**dialektoetaraino** ere iritsiko da. Ibon Uribarri

Azken batean, latinaren **dialektoak** ziren haiek. Koldo Zuazo

Ez da gizalege onekoa italieraz erantzutea **dialektoan** hitz egiten dizunari. Juan Garzia

Veneziako **dialektoan** idatzi zuen. Anjel Lertxundi

Saioa herritarren artean erabiliena den Kurmandji **dialektoan** emititzen da. Berria - Mundua

**Dialektoz** zagok, zer gehiago nahi duk esatea nik. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Dialekto** ezaugarrien estudioa hizkuntza kartografiako lanen abiapuntua izan da. Isabel Arrigain

Segur aski, ez genuke irizpide finko batekin bat egingo, aldagai sare batekin baizik, isoglosa zenbaitekin, zeren eta nik uste dut horren antza izango lukeela emaitzak, **dialekto** mapa batena. Ana Urkiza

**Dialekto** ikuspuntutik, Frantsesa euskara bezain hizkuntza aberatsa izan zen duela aspaldi, baina orain kasik frantseski guziak hilak dira. Herria

Ez da **dialekto** kontua; kurduak gara, hori da dena. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi dialekto** (3); **dialekto bat** (6); **dialekto baten** (3); **dialekto eta** (3); **dialektoa ere** (4); **dialektoan jatorrizkoan** (9); **dialektoen arteko** (5); **dialektoen arteko aldeak** (3); **eta dialekto** (3); **eta dialektoaren arteko** (3); **eta dialektu** (3); **hainbat dialekto** (5); **milango dialektoan jatorrizkoan** (6); **triesteko dialektoan** (4); **triesteko dialektoan jatorrizkoan** (3)

---

# dialektologia 1 *iz* hizkuntzalaritzaren adarra, dialektoak aztertzen dituena.

Garbi dago fonetikak **dialektologiari** lagun diezaiokeela. Lourdes Oñederra

Agian bertako **dialektologiari** ekarpenen bat egin ziezaiokeen... Pablo Sastre

Pedro Irizar hil zen atzo, euskal **dialektologia** gehien ikertu zuena, Madrilgo bere etxean, 93 urte zituela. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **dialektologi**) ik **dialektologiko.**

Gehienak, **dialektologia** arlokoak. Berria - Kultura

**Dialektologia** Batzordeko burua zen, eta Gramatika Batzordeko eta Exonomastika Azpibatzordeko kidea, besteak beste. Berria - Kultura

**Dialektologi** lana garrantzitsu dela transkripzio sistemen garapenerako, besteak beste. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dialektologia batzordeko (3)

---

# dialektologiko *izond* dialektologiarena, dialektologiari dagokiona. ik **dialektologia 2**.

Ikerketa horiek aztergai beregainak zituzten: fonetika eta aldaketa fonetikoa, aldagarritasun **dialektologikoa**, haur-hizkuntza eta (agian garrantzizkoena) txandakatze sinkronikoa. Lourdes Oñederra

Urruñako euskararen azterketa **dialektologikoa**. Berria - Kultura

*Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak* eta Jose Luis Erdoziaren *Sakanako Hiztegi* ***Dialektologikoa*** liburuak argitaratu ditu Nafarroako Hezkuntza Sailak. Berria - Kultura

---

# dialektu ik **dialekto**.

---

# dialexe *iz*

Logikariak estualdian jartzen omen zituen galdekizun zahar eta sonatua, haiek, edo **dialexe** txiro bati heldu behar izatera, edo beren ezagutza-gabezia eta beren antze osoaren hutsaltasuna berrezagutu behar izatera behartzen zituen galdekizuna, hau da: Zer da egia? Ibon Uribarri

---

# dialisi 1 *iz* odolaren arazketa artifiziala.

Gaur egun, giltzurruneko arazo larriak dituztenek badute aringarri bat: **dialisia**. Berria - Gaiak

Bere helburuak hobeto bete dituen tresna da giltzurrun artifiziala, **dialisi** delako prozesu kimiko sinple eta fidagarriak erakusten duenez. Irene Aldasoro

Pozoitze-kasuek konponbide ona dute askotan, **dialisiaren** bitartez substantzia toxikoak kanporatu eta odola garbitzen baita. Irene Aldasoro

Geroztik, egunean lau ordu pasatzen zituen gizon honek ospitalean, **dialisia** egiten. Berria - Gaiak

## 2 soluzio bateko gaiak osmosi bidez bereiztea.

Likido biologiko batean, odolean esaterako, dauden ezpurutasunak mikroporozko mintz batetik iragazarazteko teknika da **dialisia**. Berria - Gaiak

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaixoaren odola dabil mintzaren alde batean, eta **dialisi**-fluidoak beste aldean. Irene Aldasoro

**Dialisi**-denboran lo egin dezake gaixoak. ezin da egin milioi bat **dialisi**-unitate eta berrogeita zortzi kilometro hodi ukabilaren tamainako makina batean sartzeko bezain **dialisi**-mintz fin eta sendorik. Irene Aldasoro

---

# dialogatu *izond* dialogoaren bidezkoa.

Razionaltasun **dialogatu** batean orientatzeko. J. Joxe Azurmendi

Caro Baroja-k honela zioen garai horretako testu **dialogatu** bat komentatuz, [...]. Joxe Azurmendi

---

# dialogo 1 *iz* elkarrizketa.

Alferrik da, ordea, **dialogoa** komunikabideen erakusleihoan egin nahi izatea: Setien, Arzalluz, Otegi eta Patapalo maila bereko deabru egin dituzten komunikabideetan ez dago elkarrizketarik. Joxerra Garzia

Badakik puristek beti esaten dutela elkarrizketa ugarirekin ez dagoela prosa narratibo onik, **dialogoak** antzertirako utzi behar direla. Mikel Hernandez Abaitua

Edozein filmek balio dit lokartzeko, nahikoa dut **dialogoak** entzutea ezer ulertu gabe ere. Mikel Hernandez Abaitua

*Oturuntza* **dialogoan** (haren obra ederrena beharbada) hauxe dio Platonek -hobeki erraiteko Sokratesek-, [...]. Piarres Aintziart

*Fedro* **dialogoko** pasarte batean (274c-277a), Teuth eta Tamusen mitoa kontatu zuen Platonek. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 2 (hitz elkartuetan)

Osterantzean, Foroak ikusten zuen proposatutako **dialogo** prozesua oso burokratizatuta zegoela bost interes-talderen artean, honakoak baitziren: langile sindikatuak, GKEak, herri indigenak, nekazarien sindikatuak eta multinazionalak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

# diamant ik **diamante**.

---

# diamante *(orobat* ***diamant*** *g.er.)* 1 *iz* karbono huts kristaldus osaturiko harri bitxia, guztiz gogorra eta distiratsua.

Harribitxiak lantzen zituen Isaac Josephek; esmeraldak eta **diamanteak** batik bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aspaldidik lantzen dituzte **diamanteak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero, ordea, Hegoafrikako meategietan **diamante** ugari ateratzen hasi zirenean, gauzak asko aldatu ziren harribitxien lantegietan esaterako. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Diamanteak** beste era batera moztu eta lantzeko modua asmatu zuten. tamaina ertaineko **diamante** bat platinoan ezarria. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Diamantezko** eta zafirozko bitxi bat. Berria - Kultura

Tiranteak fraka dotoreetatik dilindan zituen gizon bat alkandoraren **diamantezko** mahuka-bikiak lotzen ari zen. Lopez de Arana

Bere orratza, **diamantezko** ferra bat, bere lekutik ez zela higitu egiaztatu nahi zuen. Lopez de Arana

**Diamantea** bezain gogor bihurtuko zaitut. Elizen arteko biblia

## 2 (izenondoekin)

Milaka eta milaka **diamante** "gordin" -landu gabeak- zuzenean Amsterdam aldera bideratzen hasi ziren Hegoafrikako meategietatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Diamante** landu bakar batez eginiko ohe batean. Juan Garzia

**Diamante** leundu gabea dugula gizakiok barruan; zaindu egin behar duzu altxor hori, landu, alferrik galtzen utzi ez. Juan Kruz Igerabide

Gutxitan ikusi den moduko **diamante** distiratsu batek estaltzen omen zuen erregearen kutxako sarraila-zuloa. Anjel Lertxundi

Eguzkiaren txinpartak, batzuetan, argiari tonu latz bat ematen baitio, **diamante** leun eta itxia bailitzan. Jon Alonso

**Diamante** kosmiko hori, izar zahar baten bihotz konprimitu baten modukoa, kristaldutako ikatz zati bat da. Berria - Gaiak

**3** irud/hed

**«Diamante** literariotzat» du hark idatzirikoa. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Denbora laburrean, merkatuaren egonezinak hondoratu egin zituen Amsterdameko (eta beste hainbat lekutako) **diamante**-lantegi txikiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Munduko **diamante**-meatokirik handienak aurkitu ziren holandarren antzinako kolonia horretan. Koro Navarro

**Diamante** mina baten segurtasunerako. Berria - Mundua

De Beers munduko **diamante** enpresarik garrantzitsuenetakoa da. Berria - Gaiak

**Diamante**-zati haiekin bitxi ezin hobeak egiteko mandatua. J.M. Olaizola "Txiliku"

Harriaren azalean egindako erretentxoaren ertzetan **diamante**-printzaren bat altxatuko zen, agian, baina besterik ez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egia esan, ongi etorri zitzaien **diamante**-lapurrei txakurren afera. Harkaitz Cano

**Diamante** zein arma trafikotik. Berria - Mundua

**5** frantziar joko kartetako saila, diamantea irudikatzen duen irudia duena.

Gau batez gaztelura etorri omen zaio buruzagi gaztelaua isilka, eta hark eskainitako urre, **diamante**, zaldi eta balio haundiko gauzen truke gure lurrak eta gaztelua saldu traidore zerriak! Patziku Perurena

**6** ***diamantezko eztei*** hirurogeigarren urteurrena.

Ilabete hunen hastean Jean François eta Ginette Sire senar emazteek ospatu dituzte beren **diamantezko** ezteiak, erran nahi baitu 60 urte ezkondurik. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diamante bat** (6); **diamante guztiak** (3); **diamante handiek** (3); **diamante landu** (3); **diamantea bezain** (5); **diamantez egindako** (3); **diamantezko botoia** (5); **diamantezko botoia zeukan** (3); **diamantezko botoidun** (3); **diamantezko ezteiak** (6); **egin zuen diamantezko** (4); **eta diamante** (9); **eta diamanteak** (6); **eta diamantez** (3); **eta diamantezko** (5); **zuen diamantezko** (4)

---

# diametralki *adlag* erabat.

Era berean etsaia mirrindu egiten da eta uzkurtu eta tentaldiek alde egiten dute, gauza espiritualetan ari den pertsonak etsaiaren tentaldiei mutur beltza ipintzen dienean, **diametralki** kontrakoa eginez Patxi Altuna

---

# diametro *iz* lerro zuzena, zirkunferentzia edo esfera baten zentrotik igaroz haren bi puntu batzen dituena.

Zirkuluak bere baitan hartzen duen zuzenkirik luzeena da **diametroa**, luzera osoan zeharkatzen baitu zirkulua. Jon Muñoz

Brontzezko hamar ur-ontzi ere egin zituen, orga bakoitzerako bana; bina metroko **diametroa** zuten, eta mila eta seiehuna litro ur hartzen. Elizen arteko biblia

Begia globo bat da, ia esferikoa, bi zentimetro eta erdi inguruko **diametroa** duena. Josu Zabaleta

Hire aitak **diametroa** kalkulatu zian, gutxi gorabehera, eta pi 3,14 eta gainerako guztiarekin egin zian kalkulua. Josu Zabaleta

Xafla horiek elkargainka antolaturik daude, erdian zirkulu formako irekidura bat uzteko moduan, irekidura horren **diametroa** doitu ahal izateko objektiboaren tutuan kokaturiko uztai baten bidez. Irene Aldasoro

Kolomarteak handitzen joaten diren neurrian, fustearen **diametroa** ere neurri berean handitu beharko da. Santiago Iruretagoiena

Ardatz biribilaren **diametroa** gakoak duen neurrikoa izango da, baina larakoek 1/16 gutxiago izango dute. Santiago Iruretagoiena

Hodi ñimiño batzuk dira osteonak, 15 mm luze eta 0,25 mm zabal **diametroan**. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baten diametroa baino** (6); **diametroa baino** (9); **diametroa baino askoz** (3); **diametroa du** (8); **diametroa duen** (6); **diametroa izango** (7); **diametroa zuen** (4); **diametroaren erdia** (7); **diametroaren erdia izango** (4); **diametroaren heren** (3); **diametroko zuloa** (3); **duen diametroaren** (4); **kilometroko diametroa** (12); **kilometroko diametroa du** (6); **kolomaren diametro** (3); **kolomaren diametroa** (4); **kolomaren diametroaren** (3); **kolomaren diametroari** (3); **metroko diametroa** (9); **metroko diametroa duen** (5); **metroko diametroko** (3); **zentimetroko diametroko** (5)

---

# diana[1] **1** *iz* tiro helburu baten erdigunea.

Hantxe zeuden zeru grisa, mendi berdea, **diana** zuri eta beltza, sukalde atariko txolarre arreak. Bernardo Atxaga

Zintzilik, **diana** bat, bere zirkulu kontzentrikoekin, koloreak higatu samar jaurtialdi askoren arrastoengatik. Iñaki Iñurrieta

Hartu ditu hiru dardoak eta mahai aurrean jarri da, **dianaren** parez pare. Iñaki Iñurrieta

Letra handi-handitan idatzi du, eta **diana** itxurako lardaskeria batean izena sartu gura izan du. Urtzi Urrutikoeetxea

Artean, PPk ezker **abertzalea** «dianan jarri» zuela salatu zuen Batasuneko mahaikideak. Berria - Harian

**2** irud/hed

Adituek ezagutza teknikoan oinarriturik botatzen zituzten beren aurreikuspenak; eta kazetariek, berriz, dardoak, Wall Street burtsako baloreez osaturiko itu edo **diana** berezi bati. Iñaki Heras

---

# diana[2] **1** *iz* kasernetan, soldaduak jaiki daitezen, jotzen den doinua.

Goiz-goizetik hasten da txistularien **diana**, eta gero bata bestearen atzetik etortzen dira Ituren eta Zubietako joaldunak, Lizarrako gaita-joleak eta trikitilariak. Xabier Etxabe

Goizeko 10.30etan emanen zaio egunari hasiera, **Diana** eta suziriekin. **"Diana"** tokea ere ezagutu uste izan nuen behin eta berriz, Motako Gazteluko tropak oro berehala esnatu nahi izan balituzte bezala. Herria

**Diana** eta erretreta joaldietan. Askoren artean

**2** irud/hed

Goizean jaikitzen giñanean, lenengo **diana**, eper kantua: tu-tu-tu. Patziku Perurena

Eginahalean, begi bat behartu nuen iratzargailuaren aldera; oraindik hogei minutu baino gehiago **diana** jo arte. Aingeru Epaltza

---

# diapasoi *(orobat **diapason** g.er.)* **1** *iz* U oindunaren formako gailua, metalezkoa, kolpekatzen denean la$_3$ nota jotzen duena.

**Diapasoia** alde batera utzita, musika-soinuak ez dira maiztasun bakar bateko bibrazio garbiak; aitzitik, oinarrizko maiztasun batek eta hura baino maiztasun garaiago batzuen (harmonikoak direlakoen) nahasturak sortuak dira, eta maiztasun horien konbinazioak ematen du bi instrumentu edo bi soinu mota elkarrengandik bereizten dituen tonu berezia. Irene Aldasoro

Soinuaren tinbrean datza, esate baterako, tronpeta baten eta **diapasoi** baten arteko diferentzia. Irene Aldasoro

**2** irud/hed

Sekula ez nuen lortzen neure gorputzaren **diapasoiaren** arabera jardutea. Joxan Elosegi

Viena niretzat munduaren **diapasoi** bat bezala izan duk. Xabier Olarra

Muinoa, agi denez, Finca Vigía ederra dagoenekoa da, Ficok eta biok kubatarraren urrats nekatuen **diapasonak** markaturik igo genuena, bera. Edorta Jimenez

---

diapason ik **diapasoi**.

---

**diapo** **1** *iz ipar* diapositiba.

**Diapoek** osatzen dute muntatzea. Berria - Kultura

Gai beraz, argazki eta **diapo** eder batzu agertuz, Rouyre eta Sain-Macary jaunek egin dute mintzaldi bat dena ginarria Urrunako zinegelan. Herria

Benoît Duvivier jaunak, 2001-2002etan eginak izan diren arkeoloji xekatzeak ezagutaraziko ditugu eta argipen bat proposatuko dauku, aipatuz etxearen arkeolojia, guzia **"diapo"** zenbaitzuekin argitua. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Luhusoko salan, Beñat Errecalde-ren **diapo**-erakusketa, euskal mendiaz. Herria

Bi egun horietan, bertzalde: argazki, **diapo** eta bideo erakusketak, kondairak, zirkoa, ekoizpen mahaiak. Herria

· Mintzaldiarekin batean izanen dira ere **diapo**-argazkiak. Herria

Dena den, beren argazki-**diapo** eta filmen erakusteko xedea dute hemen gaindi. Herria

---

**diapoaldi** *iz ipar* diapositiba emanaldia.

Luhusoko salan, Beñat Errecalde-ren **diapo**-erakusketa, euskal mendiaz, Herria

---

**diaporama** *iz* ikus-entzunezko teknika, pantaila batean edo gehiagotan zenbait proiektore konbinatuz diapositibak proiektatzean oinarritzen dena.

Kanpainaren nondik norakoak azaldu ditu, umorez beterik, **diaporama** baten laguntzaz, jendea desafiora lotzeko eta animoak emateko. Berria - Euskal Herria

17.30 Salan: **Diaporama** Beñat Errecaldek emanik. Herria

Josek, *" Prestige " untziaren hondoratze deitoragarria* **diaporama** ederra erakutsi die CM1 eta CM2-ko ikasleei. Herria

"Ekialdean Eüskaraz" **diaporama** laster salgai! Herria

Christophe de Pradak **diaporama** delako bat moldatü dü, 'Antso Handia' pastoralaren mustraketan hartü ehün bat argazki herrokatzen direlarik, Xalbador koblakari famatüak hontü züan 'Nafarroari' kantorea entzüten den bezala. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Josu Iztueta kideak *Nairobitarren ibilbideak* izeneko **diaporama** saioa eskainiko du, 22:00etan. Berria - Euskal Herria

· Sartzea deneri eta urririk idekia, bai erakusketarako bai mintzaldi-**diaporamarako**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diaporama eta** (3)

---

**diapositiba** **1** *iz* argazki irudi positiboa, euskarri gardenean emana, eskuarki pantaila batean proiektatzen dena. ik **diapo**.

Maxek makina piztu, eta lehenengo **diapositiba** pantailan agertu zen. Jon Muñoz

**Diapositiba** batzuk ikusten hasi ginen. Anjel Lertxundi

Adelak **diapositibak** botatzeko aparatua piztu berria zuen. Juan Kruz Igerabide

Behin, **diapositibak** jartzen ari zela, gela ilun zegoen eta gure aitak zigarro bat piztua ikusi zuen iluntasunaren erdian. Fernando Rey

Nork demontre nahiko ote zituen banda biribileko magnetofono haiek, **diapositibak** ikusteko tresna haiek, koktelak nahasteko ontzi haiek. Joxan Elosegi

Irudia azkar desagertu zen, beste bat etorri zen, pasatzen diren **diapositibak** bailiren, estuarioan zen berriz ere. Jon Alonso

**Diapositiben** edo argazkien bidez ere eman izan dizkigute gaiak. Andoni Egaña

Ez ahal nintzaizun, behintzat, oporretatik bueltan **diapositibak** edo bideoa erakusten dizkizun ahaide edo lagun hori bezain astun aspergarri portatuko! Anjel Lertxundi

**Diapositiben** pantailaren kordoiari tiratzeko. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Seigarren, zazpigarren eta zortzigarren ikasturteetan segidan jarri ziguten **diapositiba**-sorta bera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitzaurre moduko bat besterik ez zen hura, **diapositiba**-gelako iluntasuna aprobetxatuta jolasean eta txorakerietan ari ginen bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Diapositiba**-proiektore bat, proiektatzen ari den bitartean, bera ere mugitzen baldin bada, hark proiektatutako irudia mugikorra izango da, baina ez du izango berezko mugimendurik. Josu Zabaleta

Horregatik geratu dira apur bat zapuztuta pelikularik ez baina **diapositiba**-saio bat eskainiko dietela jakindakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Argazki markoak erabiliko zituen erakusleihoan **diapositiba** markoak balira bezala. Joxemari Urteaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diapositiba bat** (4); **eta diapositiba** (3)

---

**diario** *iz* egunerokoa.

Bere **diarioak** irakurtzen hasi, eta bere eguna zein hotz deskribatzen duen ikusten duzu, eta diruari egiten dizkion aipamen etengabeak, eta berak antolatu festetara joaten zirenen izenez beteta daudela testuak. Berria - Kultura

---

**diarrea** *iz* beherakoa.

Mahaiak berak argazki bat merezi zuen: *Cinema&Theater* ale bat, marmeladaz eta **diarrearen** kontrako pektinaz beteta, dantzari argazkiak ageri ziren orrialde batean zabaldurik, bi marmelada pote, opil erdi alde batean eta opil laurden bat beste nonbait, [...]. Josu Zabaleta

**diasistema** *iz* hizkuntzalaritzan, maila goragoko sistema, partzialki kideko diren sistema bi edo gehiago dauzkana.

Euskera ez da oraingoz sistema bat, **diasistema** bat baizik. Iñaki Segurola

---

**diaspora** **1** *iz* judu herriaren sakabanaketa.

Judueria historikoa **diaspora** zen. Iñaki Mendiguren

**Diasporak** barreiatutako judu sefarditarrak berriz ere diaspora bidea hartu behar izan zuten, berriz ere Europan zehar non kokatu ezinik ibili judu alderraien eran. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina kontraste horrek beste bat ispilatzen du, **Diasporako** juduteriari funtsezkoen zaiona, hain zuzen, "jende"en [...] artean barreiaturik, Jainkoaren deiaren eta erbesteratuaren eguneroko miseriaren arteko tirabiran tenk. Juan Garzia

Judu-**diasporaren** suntsitzea bere europar bizilekuan. Iñaki Mendiguren

**2** sorterrritik sakabanaturiko herri edo erkidegoen zatien multzoa.

Lituaniako **diaspora** (3 milioi lagun) bertan bizi den herritar kopurua bezain handia da ia. Berria - Mundua

Armenian eta **diasporan**, 1915-1923an Turkiako Inperioko militarrek hil zituzten milioi eta erdi armeniarrak ekarri zituzten gogora atzo, genozidioa oroitzeko antolaturiko ekitaldietan. Berria - Mundua

Herrialdeko bertako merkatari-klaseen existentzia eta Txinako Itsasoaren inguruan Txinako **diasporak** sorturiko merkataritza-sare harrigarria izatea dira Ekialde Urrunaren ezaugarriak. Koro Navarro

Oso azkar zabaldu zen pintorearen sona euskal **diasporan**. Joxean Agirre

Ondorioz, euskal **"diasporaren"** hainbat lekutan eraiki zituzten frontoiak. Ramuntxo Etxeberri

Geldigune bakoitzean **Diasporako** euskaldunak juntatzen dira taldeari eta plazer handi batekin kantu bat edo bestean parte hartzen. Herria

Eusko Jaurlaritzak **diasporaren** parte-hartzea nahi du Ibarretxeren proposamenean. Berria - Euskal Herria

Dei bateratua egin dute 170 erakunde palestinarrek baino gehiagok, 1967an okupatutako lurraldeetan (Gaza eta Zisjordania, Jerusalem barne), 1948ko lurraldeetan (gaur egun Israel den eremuan) eta **diasporan** ere. Berria - Harian

**'Diaspora'**, etxekoen kontra. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diaspora elkarteak** (5); **diaspora ez** (4); **diasporan bizi** (3); **eta diasporan** (3); **eta diasporaren** (3); **eta euskal diasporako** (3); **euskal diaspora** (13); **euskal diaspora elkarteak** (5); **euskal diasporako** (9); **euskal diasporan** (5); **euskal diasporarekin** (3); **euskal diasporaren** (5); **judu diaspora** (6); **judu diasporak** (4); **judu diasporaren** (3)

---

**diastilo** *iz/izond*

Bost dira tenpluen altxaera-motak eta hauek dira horien izenak: piknostiloa, hau da koloma-lerro zerratuak dituena; sistiloa, tarte handixeagoarekin dauzkanak; **diastiloa**, tarte oraindik handiagoarekin; areostiloa, kolomarteak komeni baino irekiagoak dituena; eustiloa, tarteak egoki banatuta daudenean. Santiago Iruretagoiena

**Diastiloaren** konposizioa, berriz, honelakoa izaten da: kolomarte-tartean hiru kolomaren diametroa sartu ahal izatea eskatzen du, adibidez Apolo eta Dianaren tenpluan bezala. Santiago Iruretagoiena

Estilobatoen gainean kolomak egingo dira, goian esanda bezala; tenplu piknostiloa bada, piknostiloetan bezala; edo sistilo, **diastilo** nahiz eustiloa bada, bakoitza goian esandakoaren eta arautuakoaren arabera. Santiago Iruretagoiena

Hau da eraikuntza **diastiloen** proportzioak finkatzeko metodoa. Santiago Iruretagoiena

---

**diastole** **1** *iz* bihotzaren hedapen mugimendua. ik **sistole**.

Ibiltari erneak noizbait antzemango dio sistole-**diastoleen** segida horri. Iñaki Iñurrieta

**Diastole** arritmikoek maitasunarekin zerikusi handia dute, berez sortzen dira, berez nekatzen zuten gizona poemak idazten zituen bitartean. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Inguruaren ezagutze eta bilatze horretan zabaltzen eta biltzen dena, sistole eta **diastolearen** erritmoan, bizia eta heriotza, kreazioarena da baita. Ana Urkiza

Bi hitz, amodiozko bi kolpe bezala, infinituraino errepikatuak, sistole eta **diastole** perfektuan! Joan Mari Irigoien

Itsasoaren zelai ilun bizia desagertu egingo da, begiak antzeman dezakeen espazio guztia zurituta, hila izaraz beztitzen den moduan, eta ez da itsas bihozkadarik izango gehiago, ez sistole ez **diastolerik**. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**sistole eta diastole** (5)

---

diatonika ik **diatoniko 2**.

---

**diatoniko** *izond* **1** musika-eskalez eta sistemez mintzatuz, bost tonuz eta bi tonuerdiz osatua.

Modulazio **diatonikoa** naturalagoa da, eta erosoagoa du bitarteen arteko distantzia. Santiago Iruretagoiena

Tetrakordio **diatonikoak** bi tonu ditu elkarren jarraian, eta hirugarren tonuerdiarekin bukaera ematen zaio tetrakordioari. Santiago Iruretagoiena

· Bestela, berriz, teatroak handiagoa izan behar baldin badu, orduan altuera lau partetan banatu behar da, hau da, hiru gelatxo-lerro markatuko dira alderik alde, bata harmonikoarentzat, bestea kromatikoarentzat eta hirugarrena **diatonikoarentzat**. Santiago Iruretagoiena

• **2** *(orobat **diatonika** g.er.)* *izond/iz* eskusoinuez mintzatuz, sistema diatonikoko notak jotzen dituena.

Huraxe izan omen zen lehen esku-soinu modernoa, **diatonikoa**, geroko kromatiko eta bandoneoi guztien aitzindaria. Koldo Izagirre

Kepa Junkera bilbotar akordeoi **diatoniko** joile aparta. Herria

Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsulariek dute eskusoinu **diatoniko** joileen besta hori aurkeztu. Herria

Partitura guztiak soinu **diatonikoz** jotzeko eginak daude, eta herrialde bakoitzetik 15 abesti aukeratu dituzte. Berria - Kultura

Soinu kromatikoa jotzen zuen, baina txikiarekin hasia zen, **diatonikoarekin**, etxean, aitari ikasita. Koldo Izagirre

Orai berexten dira bi tresna mota, kromatikak eta **diatonikak**. Herria

**Diatonika** etorri zen Bilbora 1889 inguruan, tren bidetan ari ziren italiano langilei esker eta hemen euskaldunek izendatu zuten trikiti edo trikitixa. Herria

**3** irud/hed

Autoaren itxura **diatonikoak** ulertarazi dizu istripu larri baten aurrean zaudetela. Lutxo Egia

**diatopiko** *izond* hizkuntza-aldaerez mintzatuz, hiztunen geografia-etorkiak eragiten duena.

Baina gure artean inork apurtzen ez zuen isiltasunak garbi erakusten zuen arazoak ez zuela zerikusirik euskararen aldaera **diatopiko** edo diakronikoekin, ez erdararen presioak eragindako isoglosa-ezabatze tamalgarri batekin, ez euskal bokalismoaren galerarekin, ez autogorrotozko agerpen batekin, ezta mintzagaiaren auzi ia-metafisiko eta hainbeste eta hainbeste aldiz eztabaidatuarekin ere. Jon Alonso

---

**dibagazio** *iz* digresioa, itzulingurua.

Euskararen sustapena erabat zilegia da, ETAk bere **dibagazioetan** interesgarritzat jotzen duen edo ez aparte utzita. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta zelai gainean pasatzen ziren hegaztiei begira edo **dibagazio** filosofikoetan despistatzeko joera handia izan, Joan Mari Irigoien idazlea (Altza, 1948) ez zen futbol jokalari makala izan Berria - Kultura

---

**dibalente** *izond* kimikan 2 balentzia duena.

Naturak ez zigun laguntzen: ondorioztatu genuen nikela burdina **dibalentearekin** batera zihoala beti ere, bikario batek bezala ordezkatzen zuela, itzal ilaun bat bezala jarraitzen ziola noranahi, anaiatxo txiki-txiki bat bezala: ehuneko 0,2 nikel, ehuneko 8 burdina. Juan Garzia

---

**diban** **1** *iz* eserleku luzea eta biguna, eskuarki bizkar eta besorik gabea. ik**sofa**.

Belusezko **diban** gorri eta ezinago bigun batean eserita zegoen, geldi-geldirik, margolan beltz handi bati begira. Jose Morales

Beheko aldea erosoa zuen, ohiko laketgarriez hornitua - **diban** bat, besaulkiak, telebista, margolan eskegiak-, baina oso-oso gutxitan erabiltzen zirela begitandu zitzaidan. Xabier Olarra

Eseri egin ginen; **diban** luze apal batean ni; hura, berriz, leihoari eta erloju biribil garai bati bizkar emanez. Juan Garzia

Hainbat bezero, **dibanetan** eseriak, nargile erretzen eta tea edaten ari ziren. Patxi Zubizarreta

**Dibanean** eroso eserita. Jose Morales

Hala bada, **dibanak** hustu egin ziren eta, gauerdirako, hiru pertsona besterik ez zen geratzen. Patxi Zubizarreta

Egongelara eraman zituen, **diban** estuan ohe moduko bat prestatu, eta hantxe egin zuen lo. Jon Alonso

Hortxe bertan lo egin dezakezu, jauna, **diban** horretan. Jose Morales

Hantxe nengoan, etxe isilpeko hartan, altzariei, **dibanari** begira, delituaren aztarnen bila bezala... Xabier Olarra

**Diban** dotorea du bere kontsultan. Berria - Harian

Nik, berriz, berriro adierazi nien ez nintzela izango Beckett gizajoa Lacanen **dibanean** etzaten lagunduko zuena. Ramon Saizarbitoria

**2** (hitz elkartuetan)

Gela biluziaren erdian, terako katiluz bete-beteriko kaxa-**diban** bat zegoen, bai eta janaria mahaian bero edukitzeko kobrezko ontzi berezi bat eta kafe-iragazki bat ere. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diban bat** (3); **dibanean eseri** (4); **eta dibanak** (3)

---

**dibergente** **1** *izond* gauza bi edo gehiagoz mintzatuz, elkarrengandik urruntzen doazenak.

Estalki mehe batek, putzada leun batek, dado-tiraldi isil batek, ez ote gaituen lerrarazi gureak ez ziren bide **dibergente** bitara. Juan Garzia

Aitzitik sinesten zuen denbora serie infinituetan; denbora **dibergente**, konbergente eta paraleloen halako sare gero eta zabalago, zorabiozko batean. Juan Garzia

Ez, hala ere, gudaroste **dibergente**, paralelo eta azkenik bat eginen pirpira, bestelako higidura helgaitzago, barrenekoago bat baizik, armada horiek nolabait iragartzen zutena. Juan Garzia

Arrazen bilakaeraren ildo **dibergenteak**. Xabier Olarra

**2** (adizlagun gisa)

Erdi Aroaren azken aldiko iluminazio askotan badira sakontasuna adierazten den eszenak, baina ustez irudiaren planoari buruz perpendilularrak behar zuten marrak konbergente eta ihes-puntu baterantz zuzenduta marraztu ordez **dibergente** marrazten direnak. Josu Zabaleta

---

**dibergentzia** **1** *iz* gauza bi edo gehiagoz mintzatuz, elkarrengandik urruntzea.

Enuntziazio-modalitateen **dibergentzia** (landareen azterketa sistematikoen kasuan hautemate eta hizkuntza kode zorrotza erabiltzen da eskala konstante baten arabera; deskribapen metodikorako kodeak nahikoa libreak dira eta kokapenerako eskalek oszila dezakete). Xabier Arregi

Bera kokatuta dagoen lekua definitzen da; alternatiba txertatzen den gunea agerrarazten da; **dibergentzia** eta bi diskurtsoak elkarren ondoan ipintzen diren lekua finkatzen da. Xabier Arregi

**2** desadostasuna.

Jendetzen globalizazioaren ondorioz, **dibergentziak**. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Euren ahaltasuna bera kontzeptuen jokoen baitako **dibergentzia**-puntuek mugatzen dute. Xabier Arregi

---

dibersiño ik **dibertsio**.

---

dibersifikatu ik **dibertsifikatu**.

---

dibersino ik **dibertsio**.

---

dibersio ik **dibertsio**.

---

dibersione ik **dibertsio**.

---

dibersitate ik **dibertsitate**.

---

**dibertiarazi**, dibertiaraz, dibertiarazten du *ad* jostarazi, ongi pasarazi.

Paraliteraturak bestelako zeregin batzuk ditu, **dibertiaraztea** adibidez. Berria - Kultura

---

dibertidu ik **dibertitu**.

---

**dibertigarri** **1** *izond* jostagarria, bidertiarazten duena.

Liburu **dibertigarria** da, baina ez du alderik ere Joop ter Heul-ekin. Josu Zabaleta

Ez zitzaidan gauza interesgarririk edo **dibertigarririk** bururatzen. Ramon Saizarbitoria

Begien bistakoa zen zerbitzarien izerdi usainarena kontatzeak ez zuela inongo zentzurik, eta, batez ere, ez zela gertaera **dibertigarria**. Ramon Saizarbitoria

Anekdota **dibertigarriak** kontatu zituen. kanpamendu kontuak ekarri zituen hizpidera, lagunak, lansariak, egiten zituzten lapurretak, ingelesekin gertatzen zitzaizkion pasadizo **dibertigarriak**. Patxi Zubizarreta

Ez pentsa ikasturte osoa **dibertigarria** izan zenik Hogwartsen. Iñaki Mendiguren

Burla **dibertigarri** bezain jakintsua duzu hauxe. Askoren artean

Eta elkar masturbatzea ere oso gauza ederra da, jolas sinplea eta **dibertigarria**. Luis Elberdin

**Dibertigarri** zitzaidan nolako destaina harro-nabarmenez janzten zuen azterketetan, arauzko alkandora faxistaren ordez, kokospeko beltz xelebre bat. Juan Garzia

Bizitzaren alderdi aspergarriak **dibertigarri** bilakatu nahi nituen.Hiriak zaharrak, **dibertigarriak** eta lasaiak dira. Berria - Gaiak

Koreografoak «modu **dibertigarrian**» uztartu nahi izan ditu humanismoa eta alaitasuna, bere koroegrafietako bi ardatzak. Berria - Kultura

**2** (pertsonak) ik **jostakin**.

Aparta zen aita, eta baita **dibertigarria** ere, edozein kontu bere interesaren arabera moldatzen hasten zenean. Anjel Lertxundi

Henny Mets neska alaia eta **dibertigarria** da, baina oso gora hitz egiten du. "Bere onera etortzen zen", **dibertigarria**, xarmagarria, xaloa, lagunkoia izaten zen. Josu Zabaleta

**3** (adizlagun gisa)

Elinorren iritziz, ezin **dibertigarriago** aritu zinen. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baino dibertigarriagoa** (3); **da dibertigarria** (6); **dibertigarri bat** (5); **dibertigarri eta** (3); **dibertigarria da** (15); **dibertigarria egin** (4); **dibertigarria eta** (5); **dibertigarria iruditu** (4); **dibertigarria iruditzen** (7); **dibertigarria izan** (12); **dibertigarria izan da** (4); **dibertigarria izango** (4); **dibertigarria zen** (8); **eta dibertigarri** (6); **eta dibertigarria** (14); **eta dibertigarria da** (3); **eta dibertigarriak** (6); **eta dibertigarriak** (6); **eta dibertigarriena** (3); **ez da dibertigarria** (4); **gauza dibertigarriak** (3); **gauza dibertigarriak** (3); **oso dibertigarria** (19); **oso dibertigarria da** (5); **oso dibertigarria izan** (3); **oso dibertigarria zen** (4)

---

**dibertimendu** *(orobat **dibertimentu** g.er.)* *iz* jostatzea, josteta, denbora-pasa. ik **divertimento**.

Zeren eta etxeko guztiak biltzen baikinen suaren ingururat, eta han beti izaiten genuen perpausik eta **dibertimendurik** aski. Joan Mari Irigoien

Querini matematikaria da ofizioz eta arrakasta dezenteko ipuinlaria **dibertimenduz**. Anjel Lertxundi

Fermin gaixo zegoen, artritisak jota, eta **dibertimenduzko** zientzia liburuak irakurtzen ematen zuen denbora guztia. Josu Zabaleta

Jostun italiar harentzat, berriz, soinekoak moztea ez zen **dibertimendua**. Fernando Rey

**Dibertimendurako** tartea eskaini nahi du filmak; hezkuntzarako ere tresna garrantzitsua izatea nahi du. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **dibertimendu bat** (3)

---

dibertimentu ik **dibertimendu**.

---

**dibertitu** *(ETCn **1.395** agerraldi; orobat **dibertidu** g.er.)*, diberti, dibertitzen **1** da *ad* jostatu, ongi pasatu.

Ni nire seme-alabekin **dibertitzen** naiz! Fernando Rey

Emagalduekin **dibertitzen** ziren, atari sakratuetan emakumeekin harremanak izaten zituzten eta gauza debekatuak sartu zituzten tenpluan. Elizen arteko biblia

Eta **dibertitzen** ginen iskanbila sortuz lizunkeriekin eta bizikletan zebiltzan emakumeen izterren artean egindako begiratuekin. Pello Lizarralde

Esperientzia oso positiboa izan da: gazteak gehiago **dibertitzen** dira eta era osasuntsu batean. Berria - Euskal Herria

Gainera, han dantzaren helburu nagusia **dibertitzea** da Joan dira **dibertitzeko** garaiak! Berria - Kultura

-Gazteak zarete, **dibertitzeko** sasoia duzue. Javi Cillero

Lehen jendeak hizketan bazekien, eta **dibertitzen** ere bai! Pako Aristi

Erromeriak, festagune bezala, **dibertitzeko** era bezala, zapuztu egin ziren. Pako Aristi

Berriro diot, **diberti** zaitezte, baina ez ezazue maita. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

• **2** (du aditz gisa) ik **dibertiarazi**.

Pertsona horiekin izaten zituen solasaldiek ez zuten ez aspertzen ez **dibertitzen**. Fernando Rey

Hizkuntzaren alderdi hori jolas gisa hartu izan dut, betidanik **dibertitu** izan nau. Ana Urkiza

Bazekien ene obsesioen berri eta nahi ninduen naski **dibertitu**. Piarres Aintziart

Victoriak ere ez zuen deus esaten; irribarrez begiratzen zidan -irribarre jostagarriz, esango nukeen-, nire ezintasunaren eragile izateak **dibertituko** balu bezala. Ramon Saizarbitoria

Abiadurak **dibertitu** egiten du Rossi. Berria - Kirola

**3** (era burutua izenondo gisa)

Osabari begira geratu nintzen une batez, bere irribarre **dibertituari**. Aitor Arana

Bere buruaz nagusitutako estuasun hartatik segundu batean igaroz beste mutur hotz, **dibertitu** eta baita maltzur samar hartara. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**asko dibertitzen** (3); **diberti zaitezte** (4); **dibertitu egiten** (8); **dibertitu eta** (5); **dibertitzea eta** (3); **dibertitzeko era** (4); **dibertitzen ari** (8); **dibertitzen da** (4); **dibertitzen naiz** (4); **dibertitzen zen** (3); **dibertitzen ziren** (3); **ere dibertitu** (3); **eta dibertitzeko** (3); **gehiago dibertitzen** (3)

---

# **dibertsifikatu**, dibertsifika, dibertsifikatzen *(orobat **dibersifikatu** g. er.)* **1** du *ad* askotariko bihurtu.

Kontuan hartu behar da beste banku zentral batzuk diru erreserbak **dibertsifikatzen** ari direla, dolarraren kalterako. Berria - Ekonomia

Petrolio gordinaren kotizazioaren beherakadak eta egongaiztasunak esportazioak **dibertsifikatzeko** premia larria azpimarratu baino ez dute egiten. Koro Navarro

Industria sozietate publiko bat sortzea, kapital pribatua eta publikoa konbinatzea eta industria politika **dibertsifikatzea**. Berria - Ekonomia

Ikasleei beren neurriko eskaintza egitea eta eskaintza **dibertsifikatzen** jarraitzea. Berria - Euskal Herria

Gure burua adigai-joko oso batez aske utzi behar dugu, hain zuzen jarraitasunaren gaia bakoitzak bere erara **dibertsifikatzen** duten adigaien jokoaz. Xabier Arregi

Industri egitura eta azpiegitura gutxi **dibersifikatuak**. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Besteok, bestelako baserriak baditugu, ustiategi txikiak, **dibertsifikatuak**, salmenta zuzena bultzatzen dutenak. Berria - Harian

Gaitasun gero eta zabalagoak eta **dibertsifikatuagoak**. Semiperiferiak, nahiz eta ez egon beti esportazioan espezializatua, ekoizpen-oinarri **dibertsifikatuagoa** izaten du. Santiago Iruretagoiena

Mundu mailako edo Espainia eta Frantziako makroegitasmo kultural uniformizatzaileen aurrean, **dibertsifikatuagoak** diren bertako egitasmo eskuhartzaile txikiek baitute arrakasta eta etorkizuna. Patziku Perurena

---

# **dibertsifikatze** *iz* askotariko bihurtzea.

Guztira, 130 saltoki berri irekiko ditu beraz, **dibertsifikatze** dendak ere kontutan hartuta. Berria - Ekonomia

Ekonomia hola tinkatzen delarik egokiena **dibertsifikatzea** da. Herria

---

# **dibertsifikazio** **1** *iz* dibertsifikatzea.

Kooperatiben gizarte sistema zabaldu nahi dugu eta **dibertsifikazioa** eta berrikuntza bultzatzeko ahalegina egingo dugu. inbertsioen **dibertsifikazio** geografikoa. Berria - Ekonomia

Ekoitzitako eta esportaturiko ondasunen **dibertsifikazio** erabatekoa eta barne-merkatuaren eta esportazioen hazkunde orekatua. Koro Navarro

Sektoreen **dibertsifikazioa** ere erronka garrantzitsua dela gaineratu zuen, «autogintza industriak horrenbesteko eragina izan ez dezan». Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

**Dibertsifikazio** eta hedapen egitasmo horretarako, inbertsiogile handiei zuzendua izango den Saltzeko Eskaintza Publikoa (SEP) ere aurkeztu du, bere kapitala %20 handitzea ahalbidetuko diona. Berria - Ekonomia

**Dibertsifikazio** bidean, orain bezala: kalitatea vs.kopurua. Edorta Agirre

· Helburu hori lortzeko, energia **dibertsifikazioa** bultzatuko dute gas naturala sustatuz, batez ere. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**dibertsifikazioa eta** (3)

---

# **dibertsio** *(orobat **dibersino** g.er., **dibersiño** g.er. eta **dibersione** g.er.)* **1** *iz* jostaketa, josteta, jolasa.

Euren **dibertsioetako** bat autobusetik erortzeko plantak egitea zen. Julen Gabiria

Egun hartako **dibertsioa**, paper puskak mastekatu eta gela sabaira jaurtitzea zen. Joseba Sarrionandia

Erronka? bai, **dibertsioa** ere izan daiteke, handia, hori itzultzea, eta udako arratsalde bero batzuk horretan pasatzeko aukera polita. Berria - Kultura

Pelikulak egitea negozioa ez baizik eta **dibertsioa** zen garaian. Fernando Rey

Pernod botila zuten **dibertsio** bakarra. Rafa Egiguren

Festa hura gozamen eta **dibertsio** hutsa izan zen. Aitor Arana

Tamalez, bizitza ez da **dibertsio** zoroa bakarrik. Patxi Iturritegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizi bai, baina beste **dibertsio** giro zoro hori falta. Iñigo Aranbarri

Jostaketa eta **dibertsio** zentzu desberdin hori, haurtzaro-gaztaroko heziketa berezi hori harremanetara azaleratzea, tirabirak sortzea. Iñaki Zabaleta

**Dibertsio** leku aproposak. Koro Navarro

Zer gara ba, ETAren **dibertsio** komandoa? Berria - Euskal Herria

**Dibertsio** moduei eragin egiten die adinak. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**dibertsioa eta** (3); **dibertsioa zen** (3); **eta dibertsio** (4)

---

# **dibertsiozale** *(orobat **dibertsio zale**)* *izond* dibertsioaren zalea dena.

**Dibertsiozaleak** dira. Edorta Jimenez

Gazte jolasti eta **dibertsio** zalea izanik ere, gauza lizunez hitz egiten ziotenei ez erantzuteko erabakia hartu zuen. Askoren artean

---

# **dibertsitate** *(orobat **dibersitate** g.er.)* **1** *iz* aniztasuna, askotarikotasuna.

Beldurtu edo harritu ordez, bozkariatu egiten zen giza hotsen **dibertsitate** horrekin. Oskar Arana

**Dibertsitate** biologikoa eta ekosistemak babesteko funtsezko prozesuak eta beharrezko eremuak manten daitezen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Antxoa gutxiko eta antxoarik gabeko urte hauek zer pentsatua emango digute, agian, aspaldi gure itsasertzeraino gerturatzen zen arrainen tamaina, **dibertsitate** eta kopuruaz ahaztuta bagaude ere. Edorta Agirre

Aurtengo programan, **dibertsitatea** nagusi da, obra klasiko batzu eta gaurko musikaren inguruan. Herria

Herrien Europaz hitz egiten dudanean, ez naiz ari estatu gehiagoz, baizik eta Europako **dibertsitatea**, herriak, kulturak eta hizkuntzak ordezkatuta egongo diren Europaz. Berria - Euskal Herria

**2** bestelakotasuna.

Hindu Gizartearen eta Mendebalde modernoaren arteko kultur leizea ez zen **dibertsitate** hutsaren kontua. Iñaki Mendiguren

Honek estatu-nazioek baino aisago konponduko bailituzke **dibertsitate** etnikoak eta interes nazional ezberdinek sortutako tirabira zahar eta berria. Berria - Mundua

**Dibertsitatean** batuta. Berria - Harian

Baina taldearen **dibertsitatea** ez da horretara mugatzen; alderantziz, etengabe sartu ziren egitura ezberdinetan. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Konstituzioak «zerga **dibertsitatearen** sistema» babesten duela gogorazi zuten. Berria - Euskal Herria

Hizkuntza **dibertsitatea** ukatzen du: soilik estatuen hizkuntzak eta kulturak ezagutzen ditu. Berria - Euskal Herria

Badago batasun- **dibertsitate** zerebral, psikologiko, afektibo, intelektual eta subjektibo bat. Askoren artean

Organismo dentsitate eta **dibertsitate** handiagorako joera dute ekotonoek. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dibertsitatea eta** (3); **eta dibertsitate** (3)

---

## dibertso 1 *iz* askotarikoa.

Izan ere, gauzadiaren barruan gauza bakar bat sortzeko gauza den gorputz kopuru finituak diharduela emanik ere, nondik, non, zein indarrez eta nola elkar topaturik batuko dira hain materia pielago handian eta hain nahasmahas **dibertsoan** ? Xabier Amuriza

**2** bestelakoa.

Arrazoia inon ez da Jainko **dibertso** eta librea, lehendik ongi ezarrita dagoenaren gainean segitzen baitu axtarka; hortaz, Jainkoa bezalaxe, bolada bateko jostailu libertigarritzat eman zaigu Arrazoia ere. Patziku Perurena

---

## dibezi *iz* ijitoa.

Baina ez da **dibezietan** azalduko. Koldo Izagirre

---

## dibidendo ik **dibidendu**.

---

## dibidendu *(orobat **dibidendo** g.er.)* 1 *iz*

Maileguen gainean ordaindutako interesak eta atzerritar inbertitzaileek beren herrira eramandako **dibidenduak** eta mozkinak kontuan hartzen badira, [...]. Koro Navarro

Bakearen **dibidenduaren** bitartez, Eusko Jaurlaritzak armagintzan dihardutenekin harremana izatea galarazi nahi du. Berria - Euskal Herria

Akzioen **dibidendoen** gaineko zerga kentzeaz gainera, hurrengo plana oinordekotzen gaineko zerga kentzea omen da. Iñaki Heras

Ia 24 milioi euroren inbertsioak sustatu zituen iaz eta, aurtengo urtarrilean, akzioko 0,17 zentimoko **dibidendua** banatu zuen. Berria - Ekonomia

759 milioi euroko amortizazioek kaskartu dute emaitza, baina 1,75 euroko **dibidendua** ordaintzeko prest dira. Berria - Ekonomia

Akziodunei pagatutako **dibidenduak** %65 handitu direla eta, aurten, akzioko 0,88 euro emango dizkiela jakinarazi dute buruek. Berria - Ekonomia

Gamesak iaz banatu zituen **dibidendoak** estreinako aldiz (0,36 euro akzio bakoitzeko), baina agintariak osagarri bat emateko aukera aztertzen ari ziren. Berria - Ekonomia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Banco Guipuzcoanok **dibidendu** osagarriak banatuko ditu. Berria - Ekonomia

Akzio bakoitzeko 0,43 euroko **dibidendo** osagarria onartu du konpainiako batzar orokorrak. Berria - Ekonomia

TELECINCO Espainiako telebista kateak **dibidendu** berezia ordainduko die akziodunei, inbertsio aukera argirik ikusten ez badu. Berria - Ekonomia

**Dibidendu** ikusgarriak Microsoften akziodunentzat. Berria - Ekonomia

Esku dirutan, berriz, 25 pennyko (0,378 euro) aparteko **dibidendu** eta beste sei pennyko (0,09 euro) **dibidendu** arrunta ordainduko dizkio Britainiako taldeari. Berria - Ekonomia

Cementos Lemonak akzioko 0,15 euroko **dibidendu** gordina banatuko du urtarrilaren 3an. Berria - Ekonomia

Kaudimen aldetik Espainiako bigarren erakundea gara, eta, gure inbertsioen dibertsifikazioari esker, gainbalio eta **dibidendu** handiak eskuratu ditugu. Berria - Ekonomia

Zenbait enpresen **dibidendu** mardulak Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan)

Akziodunen artean **dibidendu** banaketa berezia egitea aztertzen ari da administrazio kontseilua. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dibidendua banatuko** (4); **dibidendua banatuko du** (4); **dibidendua ordainduko** (3); **euroko dibidendua** (10); **euroko dibidendua banatuko** (4)

---

## dibidieta *(orobat **debileta** g.er.)* *iz* danbor bertikaleko tornua, kable baten bidez pisu handiak mugitzeko erabiltzen dena.

Soka batzuen azpitik igarotzeko makurtu, **dibidieta** kirrinkari baten ondotik limurtu eta brankara iritsi ziren. Lopez de Arana

Modelo horren gainean makina bat jarri zuen dibidieta **birakari** baten gainean, eta horrekin hiriak setiatzeko makina bat hartu eta harresiaren barrura ekarri zuen. Santiago Iruretagoiena

Batzuek palanka eta tornu bidez lan egiten dute, beste batzuek polipasto bidez, edo **dibidieta** bidez, eta bakarren batzuk baita danborren bidez ere. Santiago Iruretagoiena

Horrek esan nahi du hiru gizon-ilara tiraka jarriz, **dibidietarik** gabe ere azkarrago igotzen dela pisua goraino. Santiago Iruretagoiena

Orduan, danborraren inguruan lotutako beste soka bat **dibidietara** eramaten da; soka hau danborraren eta ardatzaren inguruan lotzen da. Santiago Iruretagoiena

Eta **debiletaren** kontra lehertua foniako portatilaren zati bat. Koldo Izagirre

---

## dibinidade ik **dibinitate**.

---

## dibinisatu ik **dibinizatu**.

---

**dibinitate** *(orobat* ***dibinidade*** *g.er.)* **1** *iz* jainkotasuna, jainko izaera. ik **dibinotasun**.

Ez da jakitea ezta egia ere, ez da erreinua ezta jakituria, ez da ba ez batasuna ez **dibinitatea** edo ontasuna. Joan Mari Lekuona

Kabalarentzat, letra horrek *En Soph* delakoa adierazten du, **dibinitate** mugagabe, puru-purua. Juan Garzia

**2** jainkoa.

Ordurarte **dibinitate** femeninoen nolakotasunak eta izenak eurak ere aldatuz. Berria - Kultura

Ez zuten soilik kristauen Jainkoaz gaitzesaten, baizik eta beren panteoiko **dibinitate** arkanoez ere. Juan Garzia

---

**dibinizatu** dibiniza, dibinizatzen *(corpusean* ***dibinisatu*** *soilik)* du *ad* jainkotu, jainkoetsi.

Sentsualitarea bera **dibinisatua** zen. Piarres Aintziart

---

**dibino** **1** *izond* jainkozkoa.

Bakoitzak emaiten zuen bere iritzia, erakutsiz giristinoentzat Jesus hil-eta piztu zela hirugarren egunean, juduentzat, aldiz, profeta bat zela, bertzerik ez, are gutiago Mesias **dibinoa**. Herria

Gure bakearen kalterako maiz, ardiak eta artzain **dibinoak** gatazkatzen ziren. Itxaro Borda

Eta ondorioen kausarik inola ikusten ez dutenez gero, ahalmen **dibinoak** eginak direla uste dute. Xabier Amuriza

*De caelo* (Zeruari buruz) izenburua duen liburuaren lehenengo atalean dio Aristotelesek argizagiak, astroak direla gauza **dibinoetan** gehien ageri diren zerak, horien baitan baitago higidura, eta horiek arima batek biziarazten ditu. Askoren artean

Gure maisuek erraiten ziguten Bossuet handiak zuela Luis XIV.aren indarra sustraitu, oinarritu, eskubide **dibinoko** boterea asmatuz eta teorizatuz. Piarres Aintziart

-Jo ezak orain idiarena kopoi **dibinoan**, Amancio! Inazio Mujika Iraola

**2** irud/hed

Nik uste dut oso jende gutxik jar dezakeela auzitan egia hori, soilik eskuin muturreko espainolistek, edo aspaldiko ezker **dibinoak**, askotan saloiko faxismoan bukatu duenak. Bernardo Atxaga

Komunera bidean, Zorroagako **dibinoen** ondotik pasatu nauk, eta ba al dakik zer entzun diedan? Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**zure odol dibinoaz** (4)

---

**dibisa**[1] **1** *iz* atzerriko dirua; estatuko banku nagusiak ateratako dirua beste diruekiko.

Zenbait salgaik, **dibisak** edota ondasun higiezinen merkatuek, kasu. Iñaki Heras

Urrearen ordez, dolarra edo beste **dibisa** indartsuren bat ipinita. Koro Navarro

Ostiralean inoizko balio handiena hartu zuen euroak AEBetako diruarekiko, eta aste honetan 1,35 dolarreko muga gaindituko duela espero dute adituek; urriaren erdialdetik hona %10 garestitu da EBko **dibisa**. Berria - Ekonomia

Espekulatzaileek ahal duten azkarrena ateratzen baitituzte irabaziak, aldez aurretik erositako **dibisak** garesti salduz. Koro Navarro

Truke-tasa izenekoak definitu behar dira (atzerriko **dibisa** bakoitzeko bertako zenbat diru unitate ordaindu behar den). Iñaki Heras

**Dibisak** zor izateak bere ekoizpen-egitura munduko merkatuko premietara egokitzera behartzen du herrialde mailegu-hartzailea. Koro Navarro

Eta gero ere baditugu, hori **dibisaz** ordainduz, Hego Afrikako arnoak. Menane Oxandabaratz

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Truke-tasak, eskuarki, egunero finkatzen dira nazioarteko **dibisa** merkatuetan. Iñaki Heras

Beste herrialdeetako **dibisa** erreserbak salduz. Iñaki Heras

Tobin-ek duela hogei urte baino gehiago munduan zehar egiten diren **dibisa** trukeak zamatuko lituzkeen zerga bat ezartzea proposatu zuen. Iñaki Heras

Frankfurteko **dibisa** azokan. Berria - Ekonomia

Atzerriko finantza fluxuek inbertsio, turismo, nikel esportazio eta **dibisa** bidalketak eta deszentralizazio neurriek eragin zuzenak izan zituzten ekonomiaren suspertzean. Berria - Mundua

**Dibisa**-eskasiari eta inbertsio lokalaren beherakada izugarriari aurre egin behar zioten gobernuen jarrera. Koro Navarro

[Kotoigintza] herrialdeko **dibisa**-iturri nagusia bihurtuko zen hamarraldi batzuetan. Koro Navarro

**3** goiburua.

*Austriae Est Inperare Orbi Universo:* bost bokalen perfekzioa biltzen da inperio austrohungariarraren **dibisan**. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**dibisa merkatuen** (3); **dibisa merkatuetan** (8); **dibisen merkatuan** (4); **eta dibisa** (3); **frankfurteko dibisa** (3)

---

**dibisa**[2] *iz* goiburua.

*Austriae Est Inperare Orbi Universo:* bost bokalen perfekzioa biltzen da inperio austrohungariarraren **dibisan**. Anjel Lertxundi

Itakatik itzulian bainentorren, **dibisa** bat jarri nuen etxeko atean: *itzulpena itzulera da.* Iñaki Arranz

---

**dibisio** *(ETCn* ***1.482*** *agerraldi; orobat* ***dibisione*** *g.er. eta* ***dibizione*** *g.er.)* **1** *iz* erakunde edo kideko bateko zatietako bakoitza.

Frantziako Poliziako Terrorismoaren Kontrako **Dibisioak** (DNAT) egin zuen operazioa, Espainiako polizien laguntzarekin. Berria - Euskal Herria

Garajearen miaketa Frantziako Polizia Judizialak eta Terrorismoaren Aurkako **Dibisio** Nazionalak burutu zuten. Berria - Euskal Herria

Asteleheneko atxiloketen inguruko ikerketa **Dibisio** Antiterrorista Nazionalak (DNAT) eta Orleanseko polizia judizialak hartu dute bere gain. Berria - Euskal Herria

**2** (enpresetan)

Hari lagundu zioten MCCko hiru **dibisioetako** buruek: finantza taldeko Juan Maria Otaegi, industria taldeko Jose Luis Olasolok eta banaketa taldeko Constan Dacostak. Berria - Ekonomia

Arrasateko Kooperatibako **dibisioak** 26,5 milioi irabazi zituen, 2002an baino %24 gehiago. Berria - Ekonomia

**Dibisioa** bi sektoretan banatzen da: Mondragon Automocion CHP eta Mondragon Automocion BCM. Berria - Ekonomia

Orain, bi **dibisioetako** holding-ean, alor zibilean gelditzen da ontziola, eta alor horren etorkizuna pribatizazioan dago soilik. Berria - Ekonomia

Arrasateko Kooperatibako automozio **dibisioak** 903 milioi euro fakturatu zituen iragan urtean. Berria - Ekonomia

**3** (kartzeletan)

Presondegi bakoitzean «euskal militante multzotxo bat» baizik ez dagoela argitu du, preso horiek **dibisio** desberdinetan banatuak direlarik. Berria - Euskal Herria

Arauak zuzendari bakoitzak bereak ezartzen zituen zegokion sailean, horrela, gerta zitekeen lehen **dibisioan** onartutako zerbait emakumeen aldean zorrozki debekatuta egotea. Jokin Urain

Eta hola-hola eramaiten gaituzte, blokeko hirugarren estaitik, airean, eskaileretarik beheiti, bloketik pasabidera, pasabidetik kurutzebidera, beste pasabidetik eskaileretara, gaineko blokeetarik behereko **dibisionera**, **dibisionetarik** kartierrera... Filipe Bidart

Fresnesen gizonentzako **dibisio** bakoitzak bere zuzendaria du, beste zuzendari bat dago emakumeen espetxean, eta hauen gainetik zuzendari nagusia. Jokin Urain

**4** arma edo sail guztietako errejimentuak eta zerbitzuak biltzen dituen gudaroste zati nagusia, bi brigadak edo gehiagok osaten dutena.

Geometriaren arabera ordenaturik ageri ziren konpainia, batailoi, erregimentu, brigada eta **dibisioak**. Felipe Juaristi

Bide bazterrean ipinitako lehergailu batek zuen eztanda egin, AEBetako Armadaren infanteriako 4. **dibisioko** konboi bat albotik igarotzean. Berria - Mundua

Bizente Egia 140 brigadako 44 **dibisioko** kapitainaren laguntzailea, Intxortako heroia. Koldo Izagirre

Poloniaren agindutara dagoen Nazioarteko **Dibisioak** 12.000 soldadu ditu, 22 estatutakoak, Joan-etorrian aritu da autoz, estatu nagusi fantasma baten bila, **dibisioko** estatu nagusiaren bila, subdibisioko estatu nagusiaren bila... Berria - Mundua

"Zergatik gelditu zarete?" egiten zuen orro Chikamaugan erasoa agindu zuen **dibisioko** jeneral batek, **Dibisio** blindatuak urak bezala jokatu behar du. Xabier Olarra

**Dibisio** motorizatuaren joaldia hasi zenetik errepublikazaleek defentsa eta kontraerasoa prestatu dute. Edorta Jimenez

Eta azkenik, irailaren 8an, etorri behar zuena, **dibisio** nazien suge berde-grisa Milango eta Turingo kaleetan barrena, tupusteko esnatze gogorra. Juan Garzia

Eskolta behingoz gelditu zen zalditeria- **dibisio** baten erdian; zaurituak eta hildakoak ugari ziren, baina Mariskalak aginduak eman behar zituen. Jon Alonso

**5** kiroletan, maila. ik **maila 9**.

Mina honek gero, Atletitik pasatu eta, Osasunarekin jokatuko zuen luzaroan bigarren **dibisioan**. Joseba Sarrionandia

Hemezortzi urterekin hirugarren **dibisioan** debutatu zuen. Jon Alonso

Zeditu moduan bigarren eta hirugarren **dibisioko** ekipoetan jardun zuen noraezean, azkenik Osasunan jokatzeko. Joseba Sarrionandia

Bigarren **Dibisiora** igotzeko moduan gara. Pedro Alberdi

Hots, Angeluarrak ongi finkaturik egonen dira heldu den urtean ere ohorezko **dibisio** horretan. Herria

Clippers bigarren izan da Pazifikoko **Dibisioan**. Berria - Kirola

Utah Jazzek 16-16 marka du eta Ipar-Mendebaldeko **dibisioko** liderra da. Berria - Kirola

**6** aritmetikan, zatiketa.

Sumak eta errestak orain, multiplikazioneak eta **dibisioneak** gero, guztiak nahasirik batzuetan. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurkako dibisio nazionala** (3); **dibisio nazional** (3); **dibisio nazionala** (4); **dibisioak dnat** (3); **dibisioko lidergoa** (3); **dnat dibisio** (5); **infanteria dibisioko** (3); **kontrako dibisioak** (3); **kontrako dibisioak dnat** (3); **mendebaldeko dibisioko** (3); **terrorismoaren aurkako dibisio** (4); **terrorismoaren kontrako dibisioak** (3)

---

dibisione ik **dibisio**.

---

dibizione ik **dibisio**.

---

# dibo *iz* maila goreneko opera-kantaria.

Txartel hauek opera kantariari pasa eta operaren ondoren, kamerino bakoitzaren sarreran **diboak** errezibitu nahi dituenen zerrenda azaltzen omen da. Harkaitz Cano

---

dibortza ik **dibortzio**.

---

dibortzatu ik **dibortziatu**.

---

# dibortziatu, dibortzia, dibortziatzen *(orobat **dibortzatu** g.er.)* **1** da *ad* senar-emazteak elkarrengandik legez bereizi. ik **hautsi 8**.

Chaim Mattosek ez du nigandik **dibortziatzeko** baimenik. Koro Navarro

**Dibortziatua** naiz, elkarrengandik **dibortziatuak** gara hor beheko emakume hori eta biok. Juan Luis Zabala

Kartzela zigorra ezarriko diete Israelen emazteari **dibortziatzen** uzten ez dioten gizonei. Berria - Gaiak

Aldika-aldika mehatxu egiten baitzion alabari ez ziola testamentuan ezer emango baldin eta ez bazen **dibortziatzen** "maritxu nazkagarri hura" utzita. Oskar Arana

Une horretatik aurrera, orain baino askoz ere azkarrago lortuko dute senar-emazteek **dibortziatzea**. Berria - Euskal Herria

-Zergatik **dibortziatu** ziren? Joxe Austin Arrieta

Ze hor dabilkio egunero Helena, bere lagun **dibortziatu** berria. Patxi Iturritegi

**2** (era burutua izenondo edo izen gisa)

Sartzeko esan nion, eta nire bizilaguna, emakume **dibortziatua**, batere lotsarik gabe zelatan aritzen zitzaidana [...] atea zabaldu eta nire gonbidatuari begira-begira geratu zitzaion. Koro Navarro

Ez nintzen engoitik berrogeita hamabi urteko gizon **dibortziatu** eta galdu bat. Oskar Arana

Aurreko urtean emakume gazte **dibortziatu** batek kontatu zidan Estrasburgoko sendagile batek abortatzen lagundu ziola. Joseba Urteaga

Ez nekien ezkongabea, alarguna, **dibortziatua** ote zen. Koro Navarro

Bat **dibortzatua**, bertze bat ama-zuzenak galduak, hirugarrena bere familian berriz hartua; badira haiez arduratzen diren elkarteak, bainan ez luzaz. Herria

Neskatan nahi eta okerreko tokira iritsitako **dibortziatu** berri dotore-ustearen irudi biribila. Aingeru Epaltza

Langabetuak, alkoholikoak, **dibortziatuak**, telebistari begira dauden gizaki bakartiak. Koro Navarro

Alargun alaia eta **dibortziatu** zoriontsua. Oskar Arana

Hainbat **dibortziatu** elkartek, ordea, ez dute gustuko atal hori. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dibortziatu aurretik** (4); **dibortziatu egin** (5); **dibortziatu egingo** (3); **dibortziatu eta** (5); **dibortziatu zen** (4); **zergatik dibortziatu** (3)

## **dibortzio** *(orobat **dibortza** g.er.)* **1** *iz* senar-emazteak elkarrengandik legez bereiztea.

Atzo gauean hain zegoen Friedel haserre, non **dibortzioarekin** ere mehatxatu bainininduen. Koro Navarro

**Dibortzioa** eskatu izan balit, emango nioan. Xabier Olarra

**Dibortzioa** legeztatu dute Txilen, bederatzi urteko eztabaiden ostean. Berria - Gaiak

Gure artean **dibortzioa** debekatu behar ez dugulako ustetan jardun dugu. Andres Urrutia

Oro har, **dibortzioa** ezin daiteke eman arrazoirik gabe. Andres Urrutia

Nire senarra da **dibortzioak** bereizten gaituen arte... Lopez de Arana

**Dibortzioa** eskuratu duen ezkontideak gorde behar ditu, kalteordain moduan, ezkontza kontratuan itundutako abantailak. Andres Urrutia

**Dibortzioa**, poligamia eta izatezko bikoteak gaitzetsi egiten ditu [Vatikanok]. Berria - Gaiak

Egungo egunean kultu askatasuna da oinarrizko legea eta erlijio doktrina gehienek baimentzen dute **dibortzioa**. Aingeru Epaltza

Chaim Mattosi, gizon erotzat zutenez gero, ez zioten baimenik eman **dibortzioaren** jardunbideak abian jartzeko. Koro Navarro

Julie Lescaut dibortziatua da, bainan **dibortzioa** ongi iragan da, aita jiten dela alaben ikustera eta ez duela deus herrarik emazte ohiaren kontra. Herria

Horiek horrela, argi dago **dibortzioaren** onuragarritasuna grinen arrisku eta indarkerian dagoela. Andres Urrutia

Kontuan hartu behar duzu Nafarroan oso bakanak zirela banantzeak eta legez kanpokoak **dibortzioak**. Alberto Ladron Arana

**2** irud/hed

**Dibortzio** handia dago hor Elizaren baitan. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere emaztea uzten duenak eman diezaiola **dibortzio**-agiria. Elizen arteko biblia

Hark 1998ko azaroan aurkeztu zuen **dibortzio**-eskaera, eta hilabete geroago, **dibortzio**-ebazpena iritsi baino askoz lehenago, minbizia diagnostikatu zidaten. Oskar Arana

Bi ume ditut, eta **dibortzio** epaiketa baten zain nago. Txillardegi

Hego Euskal Herrian 6.386 **dibortzio** eta banaketa kasu izan ziren 2004an. Berria - Euskal Herria

2004an 2.476 **dibortzio** kasuetatik 1.611 bikotekideek hitzartuta egin ziren. Ekonomian aurreratuago dauden lekuetan, non emakumea ekonomikoki independenteagoa den, **dibortzio** tasa handiagoa da. Berria - Euskal Herria

Nork ez du bere inguruan, **dibortza** egoera ezagutzen, familiako haurridetan, lagunetan edo herrian berean? Herria

**Dibortzio** legearen aldaketa urte luzeetan iraun duen eztabaida izan da. Berria - Euskal Herria

· **Dibortzio** lege proiektua onartu du Espainiako Gobernuak. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halere, inoiz baino ikasiago eta libreagoa ote da, ezkontz **dibortzioen** konparazio, inoiz baino aiseago ateratzeko afanean, inoiz baino jende gehiago kartzelan sartzen duen gizartea? Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **dibortzio agiria** (10); **dibortzio agiria idatzi** (4); **dibortzio eta** (5); **dibortzio kasu** (3); **dibortzio kasuak** (3); **dibortzioa ere** (3); **dibortzioa eskatu** (8); **dibortzioa eskatzeko** (8); **dibortzioa eskatzen** (3); **dibortzioa eta** (3); **dibortzioaren legea** (3); **dibortzioaren ondoren** (4); **dibortzioari buruzko** (4); **dibortziorako ahalmena** (5); **dira dibortzio** (3); **dute dibortzioa** (3); **eta dibortzio** (6); **eta dibortzioa** (7); **ezkontza eta dibortzioa** (3)

---

## **dibujatu,** dibuja, dibujatzen du *ad* marraztu.

Hormako posterra, zuri-beltzezko hatz-marka erraldoia **dibujaturik** zuena, nabari zitekeen oraindik. Harkaitz Cano

Liburu bat azpimarratzen ari garenean, nahi gabe, gure esku ahurrean **dibujaturik** dauden iragan eta etorkizun posible guztiak ere ari gara iragaten arkatzaren muturraz. Harkaitz Cano

Joxeri bibote azpian irribarre labur bat **dibujatu** zaiola iruditu zaio Abeli. Pello Lizarralde

---

## **dibujo** *iz* marrazkia.

Oso ondo etorriko zaio **dibujo** ikastea jostun profesionala egiteko. Bernardo Atxaga

Parisko kabaretetan Toulouse-Lautrec-ek egiten zituen **dibujoek** bat-bateko interesa sorrarazi baliote bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

**Dibujo** lehiaketa irabazi nuenean irribarre egin zidan. Arantxa Iturbe

Ezpainetan irribarre urrun baten **dibujoak** dirau. Pello Lizarralde

---

## **dibulgatibo** *izond* dibulgaziozkoa.

Unibertsitate publikoan artearen historia lizentziatura berriak ezin izan dio erantzun gizarteak behar duen alde **dibulgatiboari**. Berria - Kultura

Joxe Azurmendik zuzentzen du, eta filosofia arloko itzulpenak, liburu **dibulgatiboak** eta saiakerak ekoitzi eta zabaltzea du xede, euskaraz beti. Berria - Kultura

---

## **dibulgatu** *izond* jendarteratua.

Ez historiaren filosofian bakarrik. Ezagutzaren teorian bertan, haren perspektibismoa baino apenas egongo da kapitulu **dibulgatuagorik** Ortega-ren pentsamenduan. Joxe Azurmendi

---

## **dibulgatzaile** *izond* dibulgazio lana egiten duen pertsona.

Berriki ludohizkuntzalaritzari arreta berezia eskaini diotenen artean, Màrius Serra dugu ikertzaile eta **dibulgatzailerik** ezagunenetako bat. Iñaki Arranz

Nafarroako historia, etnografia eta toponimia ikertzaile eta **dibulgatzailea**, horra definizioa. Berria - Kultura

XVIII. mendeko ekonomiaren **dibulgatzaile** moralistek, hau da, filosofo politikariek -utilitaristek, zehazki- hartu baitzuten lelo liberal horren oinarria hedatzeareen lana. Iñaki Heras

Begien bistakoa da ez dudala deus berririk esango, aurretik esanak daude esaten diren guztiak, eta honako hau jende askok esan du gaurgero, **dibulgatzaile** sutsua besterik ez naiz. Karlos Zabala

---

## **dibulgazio** **1** *iz* albisteez eta kidekoez mintzatuz, jendarteratzea.

Kontua da prentsa arinena ere, *Paris Match*-en tankerakoa, alderdi "gizatiarrez" baino gehiago arduratu zela aitatasunaren azterketa biologikoaren inguruko aurrerapen zientifikoen **dibulgazioaz**. Ramon Saizarbitoria

Euskal herritarren zerbitzura egongo den etengabeko trebakuntza, argitalpen politika edota **dibulgazioa** bultzatzeko. Berria - Euskal Herria

Zientziaren **dibulgazioak** ez du izan inoiz gaur duen ohiartzuna, dela zientzia museoen bidez, dela beste edozein baliabideren bitartez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ondare kulturalaren eta naturalaren zabaltze turistikoa eta kulturala, eta **dibulgazio** zientifikoa. Berria - Harian

Hiru urteotan ikerketa, prestakuntza eta **dibulgazio** kulturala eta zientifikoa bideratuko dituen pertsona. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erran nahi nuke hau ez dela ikerketa edo unibertsitateko mailako bilduma bat, baizik eta **dibulgazio** eta gogoeta lan bat euskarari buruz, publiko zabal batentzat egina. Herria

Gureak **dibulgazio** mailako liburuak dira, eta, gainera, zortzi euro baino ez ditu balioko liburu bakoitzak. Berria - Kultura

Nahiko zientziazalea naiz, **dibulgazio** mailan bada ere. Fernando Morillo

**Dibulgazio** liburuak. Berria - Gaiak

. Eekitaldiko sariak banatu dira, 28 **dibulgazio** artikuluren artean egin du epaimahaiak aukeraketa. Berria - Gaiak

*Limes* **dibulgazio** bilduma berriaren lehen zenbakian. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garrantzi berezia eman beharko genioke euskarazko zientzia **dibulgazioari** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

CAF-Elhuyar zientzia **dibulgazioko** XII. sarien banaketa. Berria - Gaiak

**4** ***dibulgaziozko*** *adlag*

Ez dakit zehatz **dibulgaziozko** saiakera on batek zein ezaugarri behar dituen izan. Berria - Kultura

Horrez gainera, liburuak badu **dibulgaziozko** dimentsio interesgarri bat. Askoren artean

Lan teknikoa, ez **dibulgaziozkoa** , baina baliagarria, nolanahi ere, historia politikoa egiteko, Jimenok dioenez. Berria - Kultura

Hango argitaletxe populista hartan akademikoegitzat daukate, hemengo elitista honetako arduradunentzat, berriz, **dibulgaziozkoegia** da. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta dibulgazio (5); zientzia dibulgazioa (4)

---

# didaktika **1** *iz* irakaskuntzaren teoria eta metodoa.

Aristotelesen liburuen sailkapena Andronikok eginikoa da, eta horrek **didaktika** , logika eta sistematikotasuna hartu zituen aintzat. Askoren artean

Margarita Lorenzo Reizabal [...] arduratu da orkestrarako eta talde instrumentaletarako kantuak **didaktikaren** ikuspegitik berrikusi, aztertu eta sistematizatzeaz. Berria - Harian

Zientzia esperimentalen **didaktikaren** XXI. topaketak. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

200 lagunentzako tokia izango duen ekitaldi aretoa, 225 metro koadroko mediateka, **didaktika** aretoa eta kafetegia egingo dituzte. Berria - Harian

Irailaren 16 tik 20 era datorren ikasturtean erakasle izan nahi dutenentzat **didaktika** ikastaroa antolatua izanen da. Herria

Margarita Lorenzo Reizabal **didaktika** arduradunak esana: [...]. Berria - Harian

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Filologia eta Hizkuntzaren **Didaktika** Departamentuak abiatutako ekimenari esker. Berria - Harian

---

# didaktiko **1** *izond* irakaskuntzari, didaktikari dagokiona, helburutzat irakastea duena.

Asmoa zientifikoa eta **didaktikoa** da aldi berean, erakusketak artearen historian erabakigarria izan zen garaia adibide zehatzarekin aztertzen duelako eta adibide hori artearen historian orokorra izan zen aldaketa azaltzeko gai delako. Berria - Kultura

Gainera, pentsatu zuen bere artean, baliabide **didaktiko** berriren bat ere izan zitekeen hura, eta hobe zuen bazterrak ez gehiago nahastea. Joxerra Garzia

Bertsolaritzak eta ahozko sorkuntza artistikoek egin behar duten ekarpena ikertzea eta sekuentzia **didaktikoak** eskaintzea da Elkarteak esku artean duen lanetako bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Marko teorikoa eta aplikazio **didaktikoa**. Berria - Euskal Herria

Ez da batere onuragarria, ikuspuntu **didaktikotik** , bi ikuspuntuak batera erabiltzea azalpen bakar batean. Isabel Arrigain

Eztabaidaren ardatza, iruditzen zaidanez, bere leku naturaletik aterata dago, eta irizpide pedagogiko edo **didaktikoek** [...] jardun literarioa baldintzatzen dute, literatura baztertu nahi izateraino bere-berea duen plazatik. Anjel Lertxundi

Beste sei joko **didaktiko** kaleratu ditu. Berria - Euskal Herria

Haurrentzako lantegi **didaktikoak** antolatu ditu bihartik igandera bitartean Ikastolen Elkarteak. Berria - Kultura

Kataluniako Ikus-entzunezko Kontseilua 'Com veure la TV' material **didaktikoa** banatzen ari da ikasturte honetan, doan. Berria - Harian

Poesia **didaktikoaren** aitalehenari. Juan Garzia

Guk "aho-fitxa" deitu izan dugun unitate **didaktiko** horietako bat. Andoni Egaña

Talde **didaktikoa** sortu genuen eta azkar zabaldu zen Euskal Herri osoan. Berria - Euskal Herria

Ez liburu **didaktikoak**, doktrinako liburuak baizik. Jon Muñoz

Ondorengoei dena beren asmoen arabera era **didaktikoan** antolatzea. Ibon Uribarri

**2** (hitz elkartuetan)

Nire metodo pedagogiko-**didaktikoak** erabili eta gero inola ere espero ez nuena, ordea, jaso nituen bezalako erantzunak jasotzea zen. Joxerra Garzia

CD-Romek, helburu **didaktiko**-pedagogikoa badute ere, oso modu entretenigarrian ematen dituzte informazioa eta ariketak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> baliabide didaktikoak (3); didaktiko bat (7); didaktikoa da (4); didaktikoa emango (3); didaktikoa ere (3); didaktikoa eta (3); erakusketa didaktikoa (4); eta didaktikoa (3); helburu didaktiko (3); helburu didaktikoa (3); joko didaktiko (3); kanpaina didaktikoa (3); kontzertu didaktikoa (5); material didaktiko (5); material didaktikoa (13); material didaktikoaren (3); unitate didaktiko (3); unitate didaktikoa (4); unitate didaktikoak (3); unitate didaktikoaren (5)

---

# didaktikoki *adlag* era didaktikoan.

Ulertu beharko da, beraz, **didaktikoki** lagungarriak baino ez direla oro har jartzen diren mugak, ezaugarriak eta arrazoiak. Askoren artean

Zenbat ohar, argi, txukun eta **didaktikoki** azalduak! Berria - Kultura

Helburua da ahozko lekukotasunak biltzea, eta horrekin, gero, **didaktikoki** lan egitea. Berria - Harian

---

# didaktikotasun *iz* didaktikoa denaren nolakotasuna. ik **didaktismo**.

**Didaktikotasun** horrek ez dio zorroztasun historikoa kentzen». Berria - Kultura

# didaktismo *iz* didaktikotasuna.

Epe hartako bere poesia, bereziki, **didaktismoz** eta gai sozialetako kezkaz ukitua dago. Berria - Kultura

Azken buruan, gure multzoak bateragarriak izaten dira sarritan, eta bereizketak zientifikotasunari baino, azalpenaren **didaktismoari** zor dio. Iñaki Arranz

Bi joera nagusiren arteko talka izan da beti haur eta gazte literaturan: **didaktismoaren** eta transgresioaren artekoa. Berria - Kultura

Argitaletxeek askotan eskolaren beharretara bideratzen dituzte liburuak, balio jakin batzuk lantzeko; **didaktismoa** beti dago bizirik. Berria - Kultura

---

# didaskalia *iz* antzerki lan bati buruzko berrien multzoa.

Hala, hainbat pasadizo elkarrizketa soil gisa daude idatziak, narraziorik gabe eta antzerki-testuen bereizgarri diren **didaskaliak** erabiliz. Itziar Otegi

**Didaskaliak**, akotazioak, nabari-nabariak dira, eduki poetiko eta iradokitzaile handikoak. Berria - Kultura

---

# didaskaliko *izond* didaskaliarena, didaskaliari dagokiona.

Horiek guztiak garaiz azalduak zizkidan aurretik nire karguan egon zenak, alemanen talentu **didaskaliko** horrekin, saileko lan-jardunean, hasieratik bukaeraraino, gorde behar den garbitasun-erritual miragarria nire aurrean justifikatzeko. Juan Garzia

---

# diedro *izond/iz* angeluez mintzatuz, elkar ukitzen duten bi planok osatzen dutena.

**Diedroen** kontrakortasuna erakusten du ondoren ageri den eskultura sailak. Berria - Kultura

---

# diegesi **1** *iz* zinema edo antzerki lan baten kontakizunaren garapena.

Zentzu hutsal honetan, irudikapenezko irudiak irudimenezko mundu bat erakusten du, **diegesi** bat. Josu Zabaleta

Espazioa eta denbora irudian irudikatzeko modua, narraziozkoa izaten den helburu globalago baten arabera erabakitzen den eragiketa bat izan ohi da, beraz, maizenik: **diegesizko** espazioa eta denbora nahi dira irudikatu, eta irudikapen-lana, hain zuzen, **diegesi** bat, edo **diegesi** zati bat irudi bihurtzean datza. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Hirurogeiko hamarraldian Japonian zinemaskopen filmatutako film askotan [...] mugimendu autonomoa izaten du markoak, bere ardatzaren gainean biratuz, edota dardara nabarmenaz, **diegesi**-edukiak inondik ere justifikatzen ez duelarik, baina era nabarmen horretan zinemagileak **diegesi**-edukiari atxiki nahi izan dion emozio bat "adierazten" delarik. Josu Zabaleta

· Narrazio-**diegesizko** egiturek eragiten dutela, ia beti, zineman emozioa gertatzea, eta zeharbidez baizik ez duela eraginik horretan irudiak. Josu Zabaleta

---

# diegetiko *iz* diegesiariarena, diegesiari dagokiona.

Eraikuntza **diegetiko** guztiak, izan ere, gizartean izan lezaketen onargarritasunaren arabera mugatuak dira. Josu Zabaleta

Gai dela, beraz, elkarren segidan datozen blokeen arteko erlazio **diegenikoak**, eta denborazkoak ere bai, horrenbestez, bere buruan kateatzeko. Josu Zabaleta

Ballet mécanique filmean Fernand Léger-ek ziburu baten muturrean jarri zuen kamera bat, eta filmagaitik urrundu eta hurbildu eragin zion, mugimendu hori inolako begi **diegetikori** atxiki ezin zitzaiola. Josu Zabaleta

Oso lotura estua dagoela alde batetik antzerki-eszenaren eta antzerkiko eszenografiaren eta bestetik pinturako eszena-antolamenduaren, eta azkenik, filmeko eszenan, batasun dramatiko bat duen eremu **diegetikoaren** antolamenduaren artean. Josu Zabaleta

---

# dientzefalo *iz* entzefaloaren erdialdea.

**Dientzefaloak** funtzio oinarrizkoak erregulatzen ditu, loa, jangura eta libidoa bereziki. Xabier Olarra

Lobulu frontaletako, **dientzefaloko** eta guruin pituitarioko lesioak. Xabier Olarra

Amnesiko batzuek dituzten lesioak [...] **dientzefaloaren** eta lobulu tenporalen erdialdeko oroimen sistemetara nabarmenki mugatuak izaten dira. Xabier Olarra

Beste batzuek, aldiz [...] beste hirugarren lesio-eremu bat izan ohi dute, kortexaren barnealdean, sakon, garun-aurrean edo **dientzefaloan**. Xabier Olarra

---

# diese *(corpusean **diesi** soilik)* *iz* musika notez mintzatuz, tonu erdi goragogokoa; antzinako grekoen artean lotu laurden goragokoa. ik **bemol**.

Modulazio harmonikoak bi tonu ditu tetrakordioan, eta bi **diesi** edo tonu-laurden (**diesia** tonuaren laurdena da; beraz, tonuerdi batean bi **diesi** jarri behar dira). Santiago Iruretagoiena

---

# diesel **1** *iz* motorrez mintzatuz, barne errekuntzakoa eta konpresio altukoa dena, erregai astunekin aritzen dena.

Era berean, erregai garbiagoak eta **diesel** motako motorren gaineko neurriak hobetzea ere proposatu zuten. Berria - Gaiak

**2** diesel motako motorra.

Punpa elektriko eta **diesel** indartsuak erabiliz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gure baforearen **dieselak** Guardaplatako Farolako harkaitzetan habia egina duten antxetak txilioka altxarazten dituenean. Koldo Izagirre

**3** diesel motorra duen ibilgailua.

Edu, ez ezaala sekula **diesel** kaka bat eros, ez ezaala! Aingeru Epaltza

**4** diesel motorrentzako erregaia.

Horrezaz gain, baina, gai kutsakor gutxiago isurtzen ditu biodieselak ohiko gasolioaren edo **dieselaren** aldean. Berria - Gaiak

Gasolina esportazioak %33 jaitsi zituen [Txinak] iragan hilabetean, **dieselaren** inportazioak, berriz, %175 igo zituen 2003ko uztailarekin alderatuta. Berria - Ekonomia

**Diesel** garbia jartzeko aukera daukagu orain, baina jende gehienak betikoa jartzen jarraitzen du, merkeagoa delako. Berria - Harian

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

CAFek amaitu duen azken lanen artean dago Dublin eta inguruetarako **diesel** trena. Berria - Ekonomia

Gure trena (Campeche-Palenque-Coatzacoalcos) nik uste baino hobea suertatu zen: **diesel**-makina eta lau bagoi, aire egokitu eta guzti. Joxe Austin Arrieta

Mallorcako Tren Zerbitzuetarako 10 **diesel** unitate. Berria - Ekonomia

**Diesel** motorrak berez ez dira gasolioarekin kurritzeko asmatuak, baizik eta olio erregaiekin. Herria

**Diesel** motor batek baino gas toxiko gehiago botatzen du erretzaileak. Berria - Gaiak

Palenquek badu **diesel** -motor bat, argindarra ematen duena. Joxe Austin Arrieta

36 milioi euroren truke, aldi berean **diesel** eta argindar trakzioa duten eta merkantzietarako erabiliko dituen 12 lokomotor erosiko dizkio Euskotrenek. Berria - Ekonomia

**Diesel** karburadore baten beirazko behatxuloaren aurrean geunden. Joxe Austin Arrieta

**Diesel** hotsa entzun dugu eta izerdi hotzak geldi lotu gara, geure baitara bilduak besterik ezean. Urtzi Urrutikoetxea

**Diesel** usaina, atearen hots metalikoa eta sirenak desberdintzeko gaitasuna ere barru-barruraino sartuak ditugu. Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diesel motor** (5); **diesel motorra** (4); **diesel motorrak** (4); **eta diesel** (5)

---

diesi ik **diese**.

---

# dieta[1] **1** *iz* jaki jakin batzuk baino ez hartzea.

Oliba olioak eginkizun supraestrukturala betetzen du, **"dieta** mediterranear" ezin politikoago horren ardatz bakarra delako. Edorta Agirre

**Dieta** begetariano zorrotz bat arretaz planifikatu behar da, gorputzak behar dituen funtsezko aminoazido guztiak falta ez daitezen. Irene Aldasoro

Berendia amarengana joan eta, haren janari ezin gozoagoak lagundurik, hemengo **dieta** betibera -txapati, dal, arroza eta curry- ahanztera saiatuko da. Xabier Montoia

Ez, inoiz ez dut etsiko nire **dieta** iparramerikarrarekin. Ramon Etxezarreta

Atkins **dieta** bultzatzen duen enpresa auzitara, osasun arazoak sortzen dituelako. glutenik gabeko **dieta** egitea da zeliakoen aukera bakarra. Berria - Gaiak

**2** janari mota eta kopuruaren kontrola.

**Dieta** asmatu dute, gosearen bidez sendatzen dute jendea! Jose Morales

Denek uste dute biharamunean bizimodu berri bati ekingo diotela, biharamunetik aurrera behar bezala gobernatuko direla, biharamunetik aurrera **dieta** egingo dutela, baina ez da horrelakorik gertatzen. Jose Morales

Argaltzeko **dieta** egin eta ia zeukan pisuaren bosten bat kendu zuen ezkondu osteko lehenbiziko urtean, xarmarik gabeko 70 kiloetatik liraintasunezko 60 kiloetaraino. Oskar Arana

**Dieta** oso zorrotz baten bitartez, eta bere burua asko zainduz, aurrera ateratzea lortu zuen Wattek; guztiz galdu zituen mutiko potolo samar eta zoriontsuaren plantak. Iban Zaldua

**"Dieta** pixka batek ez dio kalterik egiten inori" errepikatzen zuen amak. Joseba Urteaga

Mendebaldean **dietarik dieta** gorputz idealaren atzetik lehiatzen diren horiek bezalakoxe grina eta itsutasuna erakusten zuela bere helburura iristeko. Bernardo Atxaga

Hainbeste **dieta** eta hainbeste mediku pasata ere ez zen kilo madarikatu bat gainetik kentzeko gai. Unai Iturriaga

Guztiei kaloria gutxiko **dieta** jarri zieten; batzuei gantz askokoa, eta besteei hidrato karbonoetan oinarritua. Berria - Gaiak

Gantz asko duen **dietak** argaltzen lagun diezaieke emakumeei, kirola eginez gero. Berria - Gaiak

**3** ohiko elikadura.

Gure etxeko **dieta**, batatez gain, garbantzu eta dilistetara mugatzen hasi zen, eta, horregatik, gero eta maizago kanpoan bazkaltzen nuen. Iban Zaldua

Etorkizunean gure **dieta** erruz aldatuko den arren, osasuntsu bizitzeko beharko ditugun funtsezko osagai eta elikagaiak gaurko berberak izango dira. Edorta Agirre

Osagai berberak hartuta, askoz ere **dieta** osasuntsuagoa izango dugu, gehienok konturatzeke ere. Edorta Agirre

Beste edozein animaliak baino **dieta** aberatsagoa baitu gizakiak. Irene Aldasoro

**Dieta** urriagatik glukogenoa ahitu bada, gorputz guztian (batzuetan, nabarmen) pilaturik dagoen gantza hartu, eta glukosa bihurtzen du. Irene Aldasoro

Proteina kantitate egokia duen **dieta** batek hogei edo hogeita hamar gramo urea sortuko ditu egunean. Irene Aldasoro

Arrainak gure **dietan** duen eginkizuna arras aldatuko da. Edorta Agirre

**Dieta** orekatua egitea da garrantzitsuena, benetan osasun ona izateko sekretua orekan dago. Berria - Euskal Herria

Zerbitzariak esanda dakit ostiraletan aldatu egiten duela **dieta**, zainzuriak, amuarraina eta fruta eskatzen dituela, Ramon Saizarbitoria

**4** (hitz elkartuetan)

Estudioko arduradunak gero eta **dieta**-kopuru urriagoak jartzen hasi direlako. Anjel Lertxundi

Hamabost kilo ere kentzen zituen **dieta** aldi haietan. Berria - Kultura

· Gizon arraro eta ezatsegin bat zen; barazkijale-**dieta** zorrotz-zorrotza egiten zuen eta kaleargi itzali baten amultsutasun eta nortasun berberak zeuzkan. Oskar Arana

Behiak 35.000 ditu, eta asko dirudi belar-**dieta** monotonoz bizi den animalia batentzat. Irene Aldasoro

**5** irud/hed

Geldialdi baten premia sumatu zuen; hainbat egunetako **dieta**: ez Oihaneko Liburutegirik, ez Grosrouvrerik, ez Manausik, ez adiskide leialik. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dieta bat** (3); **dieta egin** (4); **dieta eta** (6); **dietak eta** (3); **dietak ez** (3); **duen dieta** (3); **eguneroko dietan** (3); **eta dieta** (9); **gabeko dieta** (3); **glutenik gabeko dieta** (3); **gure dietan** (3)

---

# dieta[2] *iz* bizilekutik kanpo ari den pertsonari eguneko ordaintzen zaiona.

EAEn parlamentariek soldata finkoa dute, eta Nafarroakoek, berriz, **dietak** jasotzen dituzte. Berria - Harian

Nire enpresan, bidaietako **dietak** pagatzeko ere trabak, entzutekoak izaten ahal ziren zuzendariordearen garrasiak, ohiz kanpoko faktura bat aurkeztuz gero. Aingeru Epaltza

Hasieran geure **dietak** kobratzen genituen, eta ez ziren huskeria. Juan Garzia

**Dietak**, aldiz, bederatzi euro ordainduko dira aurten, 9,60 euro 2005. urtean eta 2006ean 10,30 euro, Adegiren proposamenaren arabera. Berria - Ekonomia

Ordainak: **Dieta** erdia soldata igoeraren arabera igotzea nahi du, baina guztientzat ez du onartzen. Berria - Ekonomia

Patronalak, baina, ez du lanaldirik murriztu nahi, eta sindikatuei exijitu die **dieta**, kilometraje, gaixo-agiri, azpikontrata eta kontratazioaren inguruko proposamenak bertan behera uzteko. Berria - Ekonomia

Irakasleen soldata %3, 35 igoko da, zerbitzuetan ari direnena %4 eta **dietak** eta antzinatasuna, berriz, %3. Berria - Euskal Herria

---

# dietario *iz* egunerokoa, agenda.

Hain zuzen, idazle baten **dietario** moduko bat agertzen da eleberri honetan. Berria - Kultura

Bidaia-koaderno baten itxura izango du testuak, egutegi bat idatziko dut, **dietario** baten idazketa-modua hartuko dit idatziko dudanak? Berria - Kultura

· Agenda-21, aurrerantzean ere, XXI. menderako **dietario** bat balitz bezala hartuko al dugu? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

**dietetika** 1 *iz* medikuntzaren adarra, dietak metabolismoaren aldetik aztertzen dituena.

Idoiak eta Beñatek esnea ez erosteko esan izan diote beti, eskoletan **dietetika** eta horrelakoak ematen hasi zirenetik. Lander Garro

Farmazia industrian eta **dietetikan** erabil daitezkeen produktuak lortzeko. Berria - Gaiak

Maria Jose Rossello **dietetikan** eta nutrizioan aditua. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan) ik **dietetiko**.

Mesedez ama, utz iezaiozu noizbait **dietetika** jakiak erosteari. Koldo Izagirre

---

**dietetikari** *iz* dietetikan aditua den pertsona. ik **dietista**.

Larunbat huntan zortzi (urriaren 19 an) Laperle salan, herritarrak gomit dira ezagutzera eskoletako haurren gostuak, **dietetikari** batek egin ikerketarik abiatuz. Herria

---

**dietetiko** *izond* dietetikaren irizpideen araberakoa; dietari dagokiona. ik **dietetika 2**.

Bainuetxe bat, otordu **dietetikoak** ematen dituztena... Ramon Saizarbitoria

Neurri **dietetikoak** eta ariketa fisikoa ere ezinbestekoak dira. Berria - Gaiak

Ekaineko operazioan oinarrituta eta Malagako Auzitegiaren aginduz, 100 gimnasio, denda **dietetiko** bat, eta bost etxebizitza arakatu zituzten atzo. Berria - Gaiak

Bazkaltzeko ordua iristen denean, Raimundo Silvak hiru arrautzako tortila txorizoarekin prestatuko du, gibelak oraindik eramaten duen gehiegikeria **dietetikoa**. Jon Alonso

AEBetako Elkarte **Dietetikoek** aurten egindako beste ikerketa baten arabera, bestalde, elikaduraren osagarriak hartzen dituztenek, normalean, «bizimodu osasuntsua» egiten dute eta euren bizi kalitatea hobetzeko xedearekin hartzen dituzte, zer hartzen ari diren jakin gabe. Berria - Gaiak

---

**dietista** *iz* dietetikan aditua den pertsona. ik **dietetikari**.

Kazetariak desagertzen ari dira gero eta gehiago, eta haien ordez adituek idazten dute aldizkarietan, medikuek, **dietistek**, abokatuek, psikiatrek, irakasleek, asesoreek, gai guztiei ukitu farmazeutikoa edo penala emanez. Pako Aristi

Etorkizuneko elikagaiek oraingoek baino gantz saturatu gutxiago edukiko dituzte: bromatologo, nutriologo eta **dietistek** garrantzizkotzat jotzen dituzten gantzen kopurua - osasunarentzat kaltegarri gertatzen direnak, batik bat- urrituz joango dira gure dietan. Edorta Agirre

Menu horien ardura **dietista** diplomatuek dutela azaldu dute enpresako ordezkariek, «gehienak Gasteizko EHUko fakultatean aritutakoak». Berria - Harian

---

**difamatorio** *izond* difamatzen duena.

Geroago, demokrata-kristauekin ere etsaitu egin zen, bai eta kartzelaldia jasan ere Alcide De Gasperi demokristau buruzagiaren ustezko gutun **difamatorio** batzuk plazaratzeagatik. Koldo Biguri

---

**difamatu**, difama, difamatzen du *ad* norbaiten ohorearen edo izen onaren kaltean jendaurrean hitz egin edo idatzi.

Gero gutun anonimoak bidaltzen dizkizute irainez beteta, eta berdin zure lagunei ere gero, haiek **difamatzen** dituzula esanez. Mikel Hernandez Abaitua

Txirrindulariak **difamatu** dituela ohartarazi diote, eta hilaren 20a baino lehenago zuzenketa publikorik egiten ez badu auzitara joko dutela. Berria - Kirola

UA «kalumniatu, iraindu eta **difamatu**» zuelako jarri du salaketa Benitok. Berria - Euskal Herria

---

**difamatzaile** *izond* difamatzen duena. ik **difamatorio**.

Ezin da ukatu albisteak eduki **difamatzailea** duela, demandantea ETA banda terroristako kidea dela adierazi baitu. Berria - Euskal Herria

2 *iz* difamatzen duen pertsona.

Batzuetan komeni zela gaizki hitz egitea, alegia, kargu hartu behar zitzaiela **difamatzaileei**. Bernardo Atxaga

---

**difamazio** 1 *iz* difamatzea.

Zortzi urteko kartzelaldia ezarri zioten, duela bi urte, *Inja Chah Nist* nobelan (Leku hau ez da lubaki bat) Saied Ali Khamenei aiatolari egindako ustezko **difamazioen** ondorioz. Berria - Kultura

Ibarretxeren aurka **«difamazioa**» erabiltzea egotzi dio EAJk PSE-EEri. Berria - Euskal Herria

NPD Alderdi Nazional Demokratikoa (eskuin muturrekoa) **difamazioagatik** salatu dute kantzilerrak. Ez nintzen **difamazio** bat zabaldu izanaz ohardun; gutxiago, damu. Berria - Mundua

**«Difamazio** onartezina» da domina hori lortzeko bere gobernuak lobby bat kontratu zuela esatea. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Difamazio** ahaleginak aintzat hartu eta hala adierazi zion oturuntzaren ondorengo poema luze eta ditiranbikoan: [...]. Bernardo Atxaga

2002ko estatu kolpearen ondotik, petrolio greba, matxinada militar saioak eta **difamazio** kanpainak egin ditu oposizioak, Washingtonen babes publikoarekin. Berria - Mundua

Bere eguneroko pribatuan, gogor ekiten dio *The London Times*-etik abiaturiko **"difamazio** kanpainaren" aitzi. Iñigo Aranbarri

**Difamazio** kasuak ere aipatzen ditu, baldintza beretan. Berria - Harian

---

**difenilhidantoina** *iz* gai antiepileptikoa, neuronei eragiten diena.

1977. urtean, beste bi produkturi buruz hitz egiten hasi ziren: **difenilhidantoina** eta 5-tiodextro-glukosari buruz. Luis Elberdin

---

diferent ik **diferente**.

---

**diferente** *(455 agerraldi, 83 liburu eta 107 artikulutan; ETCn 4.835 agerraldi; cf* ***desberdin*** *3844 agerraldi, 191 liburu eta 1289 artikulutan; ETCn 51.090 agerraldi; orobat* ***diferent*** *g.er.)* 1 *izond* desberdina, bestelakoa.

Adituek 500 arraza **diferente** badirela diote. Gotzon Garate

Euskal herri-literaturaren genero eta agerkariak elkarren hain **diferente** izanik, zentzugabea litzateke genero eta agerkari horiek guztiak metodo bakar baten bidez aztertzen saiatzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Polita da, ironikoa, **diferentea** eta, era berean, tradizio iragan baten azken alea. Xabier Mendiguren Elizegi

Bertsolari **diferentea**, euskaldun **diferentea**, kirolari **diferentea**. Iñigo Aranbarri

Gauza asko egiten saiatu bazara ere, **diferentea** izaten ahaleginduta ere, egunerokotasunak jan ote zaituzten kezka sortu zaizu. Lourdes Oñederra

Dena da **diferentea** Indian. Gotzon Garate

Zertan zen **diferentea**, hori da esaten hain erraza ez dena. Iñigo Aranbarri

Harem hura Fezekotik **diferentea** zen oso. Pablo Sastre

Horrek erakusten du zer begi **diferenterekin** behatzen den alde batera eta bestera. Pello Salaburu

"Erroztapena" Finkielkrautek eta Simone Weilek zein begikera **diferentearekin** tratatzen duten. Joxe Azurmendi

-Marka jartzera eta dirua jokatzera joatea oso **diferentea** da, Luisa. Pako Aristi

Lortutakoa ez da gauzez gabetzea, baizik era **diferentean** kontsideratzea. Piarres Xarriton

Orain egiten denaren ez oso modu **diferentean**. Joxe Azurmendi

**2** *pl*

Gaztetatik sentitu dut bi mundu **diferentetako** partaide nintzela. Ana Urkiza

Kimika berezia izan zen, beti, bi horien artean, larruz eta barruz hain **diferenteak** izan arren. Aingeru Epaltza

Izan ere, bi begi pare **diferente** zituen paisaje haiek guztiak ikusteko: garai bateko begiak (urdinak); eta oraingoak (grisak). Unai Elorriaga

Ez da harritzekoa hori gertatzea Euskal Herriko unibertsitateak bi estatu **diferentetan** banatzen direnez, eta hiru administrazio **diferenteren** menpean direnez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zer arraroa gertatzen den Gasteiztik Bolognaraino joatea mugako poliziarik ikusi gabe, autopista **diferenteak** baina autopista bakar bat balitz bezala dena. Mikel Hernandez Abaitua

Idazleak eta, batez ere, emakumezko idazleak, **diferente** izateko eskubidea duela aldarrikatzen du. Ana Urkiza

Morala zer den ere ez dakigu; biek tesi **diferenteak**, kasik kontrarioak azaltzen dituzte. Joxe Azurmendi

**3** (adizlagun eta predikatu gisa)

Ordu t'erdi egoten naiz bertan eta beti **diferente** kobratzen dit amonatxo txinatarrak. Harkaitz Cano

Hark **diferente** jotzen zian. Iñigo Aranbarri

Agian hatz-puntek **diferente** bibratzen dute ukitzen edo ferekatzen dituzten koloreen arabera, ez dakigu. Jon Alonso

Interesgarria litzateke, adibidez, Euskal mendiak zein **diferente** ikusi dituzten Humboldtek eta Hugok alderatzea. Koldo Izagirre

Beste batzuk, berriz, guztiz **diferente** ikusten ditugu: petralak, itxiak, berekoiak, egoskorrak... Xabier Mendiguren Elizegi

Ezberdintasunak bi ziren: norberaren larruan **diferente** sentitzen dela eta, garrantzitsuena, pelikuletan ez bezala altxatu egin zitzaidala. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrexek egiten gaitu gizakiak **diferente** beste animalia guztien artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskal herri-literaturaren genero eta agerkariak elkarren hain **diferente** izanik, zentzugabea litzateke genero eta agerkari horiek guztiak metodo bakar baten bidez aztertzen saiatzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arras diferentea** (3); **aski diferentea** (5); **baina diferentea** (3); **da diferentea** (5); **diferentak ziren** (4); **diferente bat** (7); **diferente batean** (3); **diferente direla** (3); **diferente eta** (3); **diferentea da** (18); **diferentea dela** (4); **diferentea duk** (3); **diferentea eta** (4); **diferentea izan** (7); **diferentea izango** (3); **diferentea izatea** (3); **diferentea zela** (4); **diferentea zen** (15); **diferenteak baitira** (4); **diferenteak dira** (8); **diferenteak direla** (3); **diferenteak egin** (3); **diferenteak izan** (7); **diferenteak ziren** (11); **dira diferenteak** (3); **ere diferente** (3); **eta diferentea** (5); **gauza diferentea** (3); **gauza diferenteak** (3); **guztiz diferentea** (4); **guztiz diferenteak** (3); **hain diferente** (6); **ikuspegi diferenteak** (4); **kultura diferenteak** (3); **modu diferente** (3); **modu diferenteak** (3); **oso diferentea** (17); **oso diferentea da** (8); **oso diferenteak** (9); **zen diferentea** (5)

---

# diferentki *adlag* era diferentean.

Zientzia hauetaz **diferentki**, Ekonomiak ez ditzake ari den fenomenoen parametro guztiak ezagutu. Iñaki Heras

---

# diferentzia *(446 agerraldi, 78 liburu eta 151 artikulutan; ETCn 6.987 agerraldi; cf **desberdintasun** 982 agerraldi, 98 liburu eta 193 artikulutan; ETCn 12.459 agerraldi; orobat **diferenzia** g.er. eta **liferentzia** g.er.)* **1** *iz* desberdintasuna, bestelakotasuna.

Horrela **diferentzia** sexualaren bestetasuna onartu eta ukatu egiten zen batera. Joseba Zulaika

Hobe da **diferentzia** errespetatzea, balioestea eta bultzatzea, eta ez uniformetasun militarista zurrun eta ankerra ezartzea. Luis Elberdin

Oso urrundik begiratuta, inurri berdinak dira gizajende guztiak: **diferentziarik** ez dago. Joxe Azurmendi

Geroago etorri da, **diferentzia** nazionala arrazan eta holako sakontasun misteriotsuetan bilatzea. Koldo Izagirre

Funtsean ez dakite bestea/bestelakoa toleratzen; **diferentzia** bera zaie, funtsean, jasangaitza. Joxe Azurmendi

Orain dela berrehun urte, **diferentziaren** eta aniztasunaren benetako apologista izan zen Sade. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Tolerantzia beti izan da **diferentziaren** eta "desordenaren" babeserako printzipioa. Joxe Azurmendi

**Diferentziarekin** bizitzen ikasteko. Joxe Azurmendi

Definizioak izan dezan generoa, generoa eta **diferentzia**, biak behar baititu izan definizio zuzen batek. Piarres Xarriton

**2** *pl*

"Gu" baten karakterea edo homogeneitatea gehiegi azpimarratuz, haren barruko **diferentziak** ezaba genitzake. Joxe Azurmendi

**Diferentzien** inportantzia edo inportantziarik eza, ez dago **diferentzietan**, **diferentzion** kontsiderazio moldean baizik. Joxe Azurmendi

**3** aldea.

Horregatik, **diferentzia** nabaria dago Aro Modernoko zenbait filosofok egindako antzeko saiakerekin. Askoren artean

Hamabi arrosaren eta bi arrosaren arteko **diferentzia** aritmetikoa dela. Jon Alonso

Garapen-bideko ia herrialde guztietako errenten arteko **diferentziek** ezabatu gabe dirautenez, [...]. Koro Navarro

Irabazleak karraskan abiatu dira 9-0 eramanez, galtzaileek ez dutelarik **diferentzia** hori bete ahal izan. Herria

Entsegu baten **diferentzia**. Herria

Zazpi goleko **diferentziaz** irabazi beharko dio emakumeen taldeak. Berria - Kirola

Santi Perezek aldiz, Covatillan eta Navacerradan bost minutuko esfortzuan atera zion **diferentziaren** erdia atera zion Roberto Herasi 35 minutuko lanean, atzo erlojupekoan.Une oro jakingo dugu nor doan aurretik, zenbateko **diferentziaz**, **diferentzia** hori nola handitu edo txikitzen den. Berria - Kirola

Txartel-zulatzaileak **diferentzia** ordainarazi zion. Joseba Urteaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antagonismoak **diferentzia** multzoa hartu du eta zelai guztia bi alderdi elkarren aurkakoetara sinplifikatzen du. Joseba Zulaika

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Europa ikasten ari da balio eta kultur **diferentziekin** bizitzen. Joxe Azurmendi

Irakaslearekin iritzi **diferentziarik** egongo gero. Joxe Azurmendi

Beste horiek glebako jopuak izango ziren, noski, garai haietan jada bazen halako klase-**diferentziarik**. Jon Alonso

Irudia garuneko bi toki ezberdinetan eta segundoaren ehuneneko baten denbora-**diferentziaz** erreproduzitu. Jon Alonso

Gol **diferentziak** erabakiko du, ziurrenik, nork egingo duen aurrera. Berria - Kirola

Inkomunikazioa ez zela adin-**diferentziari** bakarrik egoztekoa, eta bai izaera berezi, aldi berean lotsati eta petral bati. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artean diferentzia** (5); **arteko diferentzia** (45); **arteko diferentziak** (10); **bada diferentziarik** (3); **baina diferentzia** (8); **baina diferentzia batekin** (4); **da diferentzia** (7); **dagoen diferentzia** (3); **diferentzia bakarra** (4); **diferentzia bat** (4); **diferentzia batekin** (10); **diferentzia da** (5); **diferentzia den** (3); **diferentzia egin** (5); **diferentzia eta** (6); **diferentzia ez da** (3); **diferentzia handia** (3); **diferentzia handiak** (7); **diferentzia handienak** (3); **diferentzia handirik** (8); **diferentzia hori** (11); **diferentzia horiek** (3); **diferentzia horren** (3); **diferentzia txiki** (3); **diferentziak diferentzia** (3); **diferentziak diferentzia** (3); **diferentziaren eta** (3); **diferentziarik ez** (5); **diferentziarik ez dago** (3); **du diferentzia** (8); **dute diferentzia** (6); **egin du diferentzia** (3); **egin dute diferentzia** (3); **eta diferentzia** (7); **eta diferentziaren** (4); **eta diferentziarik** (3); **funtsezko diferentzia** (3); **gure arteko diferentzia** (3); **zer diferentzia** (10); **zer diferentzia den** (3)

---

# diferentziadun *izlag* diferentzia duen.

Hau guztia, jakina, hamaika eratako **diferentziadun** poroen izaerak eragiten du, lehentxoago azaldu dugunez, gauzen izaera eta ehundura ezberdinen arabera. Xabier Amuriza

---

# diferentzial 1 *izond* diferentziari dagokiona. ik **bereizgarri.**

Diskurtsu **diferentziala** sortu behar dugu, kontura daitezen herri honetan zerbait gertatzen ari dela Berria - Mundua

**2** matematikan, ekuazioez mintzatuz, deribatuak dituena.

Leibnizek eta Newtonek mendearen hasieran plazaraturiko problemen askabideak urrats handiak egin zituen: koadraturak, ekuazio **diferentzialen** integrazioa. Jon Muñoz

Kalkulu diferentzialean, Euler-en metodoa, ekuazio **diferentzialei** dagokiona. Jon Muñoz

**3** irud/hed

bera ez da "doxologia" bat; baizik eta diskurtsoaren modalitateen azterketa **diferentziala**. Xabier Arregi

"Gogo **diferentziala"** agertu zen bezalaxe sortu zen "begirada integrala". Jon Muñoz

**4** *iz* bi kopururen konparazioaren emaitza den kopurua.

Hori da irabazi eta gastuen arteko **diferentziala**. Berria - Kirola

1987ko lehen seihilekotik aurrera, argi zegoen egin nahi zen eskariaren **diferentzialaren** aldaketa ez zegoela abian. Koro Navarro

Finantza-inbertitzaileek Estatu Batuetako interes-tasen **diferentzialari** buruz egindako arbitrajeen eragina. Koro Navarro

Paradoxa ematen badu ere, hutsa izan zen aldi horretan Japoniaren eta G7ko bere kideen arteko eskari-**diferentziala**. Koro Navarro

Estatu Batuen eta haien kideen artean barne-eskariaren hazkunde-**diferentzialean** egin beharreko aldaketa, munduko hazkundeak haren eraginik jasan gabe egin zitekeen era horretan. Koro Navarro

Hollis Chenery-k 1966an aurkeztu zuen "bi **diferentzialen"** ereduak 1981 azpimarratzen duenez, ez da barne-aurrezkiaren falta kanpoko finantzaketara jotzea esplikatzen duen arrazoi bakarra. Koro Navarro

Urtero hiru hilerako euriborraren gainetik %2,5eko **diferentziala** lortzea helburu dute, errentagarritasuna bermatu ezin den arren. Berria - Ekonomia

**5** ***kalkulu diferentzial*** kalkulu infinitesimalaren zatia, deribatuen kalkuluaz aritzen dena.

Kalkulu infinitesimala (**kalkulu diferentziala**, kalkulu integrala). Jon Muñoz

**Kalkulu diferentzialaren** eta kalkulu integralaren aitzindaria izan zen, Leibniz eta Newton baino urte batzuk lehenago. Jon Muñoz

**Kalkulu diferentzialean**, Euler-en metodoa, ekuazio diferentzialei dagokiona. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalkulu diferentziala** (6)

---

# diferentziatu, diferentzia(tu), diferentziatzen da/du *ad* desberdindu, bestelakotu.

Ikuspegi ingeles hori, aldiz, estetikoa da, eta aldez aurretik, deskubritzen duen mundu horretan bere barrua bete nahi du, sentimenduak elikatu, horrekin izpiritualki identifikatu edo **diferentziatu**. Koldo Izagirre

Azkenik, diskurtso ugariren artean deskriba daitezke batak bestea mugatzen duten harremanak, bakoitzak bereak egiten dituelarik bere singulartasunaren seinale bereizgarriak, **diferentziatuz** bere eremua, bere metodoak, bere tresnak, bere erabilpen esparrua Xabier Arregi

---

# diferentziazio 1 *iz* bereizkuntza, bereiztea, desberdintzea.

Ez da harrigarria garunaren garapenean halako **diferentziazioa** gertatzea, zentzumen bat hain goiz galdu eta beste zentzumen batzuen konpentsaziozko hobetzearen ondorez. Xabier Olarra

Produktuaren **diferentziazio** handiagoa versus estandarizazioa. Iñaki Heras

Hazkundeak [...] **diferentziazioa** inplikatzen du hazten ari den gizartearen zatien artean. Iñaki Mendiguren

Gero eta **diferentziazio** handiagoa izango da gizarte desberdinen historien artean, eta garbi dago gizarte desberdinek ezaugarri nagusi desberdinak dituztela, batzuk artean nabarmentzen direlarik, beste batzuk erlijioan, beste batzuk industri asmamenean. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Hazkundearekin batera zertzen den **diferentziazio**-prozesu objektiboaren kontrapartida subjektiboa. Iñaki Mendiguren

**3** funtzio baten diferentziala kalkulatzeko eragiketa.

Bikoteka antolatuta zeuden lehenengo multzokoak: batuketa/kenketa, biderketa/zatiketa, berbidura egitea/erro karratua ateratzea; eta modu berean zegoen antolatuta pare berria ere: **diferentziazioa** eta integrazioa bata bestearen alderantzizkoak ziren. Jon Muñoz

---

# diferenzia ik **diferentzia.**

---

# diferitu, diferi, diferitzen 1 da *ad* desberdindu, bestelakotu.

Zeren figuren kokaera eta mugidak nolakoak izan, halaxe behar dute poroen formek **diferitu**, eta hodiak ere ehunduren arabera ezberdindu. Xabier Amuriza

**2** ***diferituan*** *adlag* hotsak, doinuak eta irudiak, hartzen diren mementuan ez, baizik eta geroagoko batean emitituz.

Egungo mendebaldeko hiritarrak kontsumitzen dituen ekoizpen gehien-gehienak **diferituan**, bakarka eta parte hartzeko nahiz elkar ekintzarako aukera gutxirekin

kontsumitzen dituela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Barakaldoko *Barakaldes* frontoian da partida (18: 00ak inguruan hasiko da; TVE1ek goizeko 04: 00etan emango du, **diferituan**). Berria - Kirola

Asegarce enpresak jakinarazi du final hori **diferituan** emango duela Espainiako La2 kateak, 20: 30etik aurrera. Berria - Kirola

---

## difikultate *iz* zailtasuna, oztopoa.

Hortan diat **difikultate** pixka bat... Menane Oxandabaratz

---

## difizil *izond* zaila, nekeza.

-X ez da **difizila** -kalkulatzen zuen-, eskaintzen diodana janen du, bestela etxean gera dadila. Itxaro Borda

---

## difraktatu, difrakta, difraktatzen **1** da *ad* difrakzioa gertatu.

Lehen legea hau da, kultur irrada integral bat, argi-irrada integral bat bezala, bere osagaien espektroan **difraktatzen** dela, gauzaki errefraktario batera sartzean. Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

Osagai ekonomiko eta politikoak **difraktatu** gabeko kultura baino lasterrago ibiltzen dira; "kultur" osagaia astiroago ibiltzen da. Iñaki Mendiguren

**3** (era burutua izenondo gisa)

Honela, desintegratzen ari den zibilizazioak eta aldenduriko bere kanpo-proletalgoak limes militar batean duten gizarte-trukean, zibilizazioaren irradiazio **difraktatuak** pobretze tamalgarria jasaten du. Iñaki Mendiguren

---

## difrakzio **1** *iz* uhin batek, oztopo bat jotzean edo irekidura baten zehar igarotzean, izaten duen hedatze norabidearen aldaketa. • *irud/hed*

**Difrakzioa** gerta daitekeela, halaber, gizarte-gorputz arrotzean inolako inpakturik gabe, gizarte irradiatzailea dagoeneko kolapsoa izan eta desintegratzen ari bada. Iñaki Mendiguren

Kultur irrada integral baten abiadura eta sartze-ahalmena, bere osagai ekonomiko, politiko eta "kulturalek" -**difrakzioaren** ondorioz, bakoitza bere aldetik dabilenean- izaten dituzten abiadura eta sartze-ahalmenen batez bestekoak dira. Iñaki Mendiguren

Bateraezinak diren postulatuak jokoan jartzea, sistemaren jatorrian bertan, adiskidetu ezin diren eraginen gurutzaketa, nahiaren lehen **difrakzioa**, gizarte bat bere buruari kontrajartzen dion gatazka politikoa eta ekonomikoa, [...]. Xabier Arregi

**2** (hitz elkartuetan)

Diskurtsoaren ahalezko **difrakzio**-puntuak zehaztea. Xabier Arregi

Sistema hau definitua izango da deskribatu ahal bada nola deribatzen diren bata bestetik diskurtso ekonomikoaren **difrakzio**-puntuak, nola arautzen duten batak bestea, nola inplikatzen duten elkar. Xabier Arregi

---

## difteria **1** *iz* eztarriko eritasun infekziosoa, sukarra eta arnasa hartzeko eragozpena ekartzen duena.

Roser ikerlariaren taldeak [...] **difteria**, tetanos, kukutxeztula, meningitis mota bat eta B hepatitis gaixotasunen aurkako konbinazioa sortuko dute. Berria - Gaiak

Sukarrak ez zuen amore ematen, **difteria** zen. Joseba Urteaga

Degterevskin bakarrik bost ume daude **difteriak** jota. Jose Morales

Taibelek seme bat eta bi alaba eman zizkion senarrari, baina txikitan hil ziren hirurak: kukutxeztulaz bat, elgorriaz bestea, eta **difteriaz** hirugarrena. Koro Navarro

Bepen etxean **difteria** dute, eta sei astetan ezin du gurekin harremanik izan. Josu Zabaleta

Txikitan hil zen, **difteriak** jota. Jose Morales

**Difteriaren** gaixotasuna inokulatzea erabaki zuten denen artean. Karlos Linazasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Botika berriak tetanosa, faringe-**difteria**, kukurruku-eztula eta polioari aurre egiteko balio du. Berria - Gaiak

---

diftongo ik **diptongo**.

---

## difuminatu, difumina, difuminatzen **1** da/du *ad* lausotu.

Pelikuletan-eta lagun bat identifikatzerik nahi ez denean, itzal moduko batez **difuminatzen** da haren aurpegia. Anjel Lertxundi

Gobernuaren erantzukizuna [...] lausotua geratzen zen, **difuminatua** azpijokozko itsaso baten erdian. Jon Alonso

Urteak pasatu ahala, **difuminatu** egin zen -eta egin zaigu- Borgesen ikuspegi politikoa. Anjel Lertxundi

Gauak ekarri dizkion nahigabe guztiak **difuminatuz** doaz karrikako asfalto zikina zeharkatu ahala. Sonia Gonzalez

Batxilergoko lehenengo urte hartako irakasleak gogoratu nahi ditudanean, laino uher batean **difuminatuta** ageri zaizkit ia denak. Xabier Mendiguren Elizegi

Almibarrak fruta **difuminatzen** duen bezala **difuminatu** zion haizeak burmuina. Unai Elorriaga

Leihoaren eta mahaiaren artean zegoen emaztea, eta haren gorputzaren isla **difuminatzen** zuen gelako argi motelak. Anjel Lertxundi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Kanpotik zetorren argitasun **difuminatuak** paretaren zauriak erakutsi zizkidan. Koldo Izagirre

Baziren lehen planoak eta urrutikoak, baziren argazki **difuminatuak**, desfokatuak, Fotomaton enpresetatik ebatsiak. Harkaitz Cano

Ohartu ote zen? deserosotasun sentsazio **difuminatu** baten menpe, tragoxka luzea eman zion edariari. Aritz Gorrotxategi

Ezerk ez zuen lehengo kolorea eta distira, lehengo ertz definitua eta forma ezaguna, nabarra-urdina nagusitzen zen nonahi, **difuminatuak** eta zirriborro lausoak, fokutik kanpoko argazkia bezalakoa zen dena. Jon Alonso

---

## difusio **1** *iz* jariakin edo kideko bat hedatzea.

Oxigenoaren barneratzea eta karbono dioxidoaren (hondakin nagusiaren) kanporatzea **difusioaren** bidez egiten da: prozesu sinple bat da **difusioa**, kanpoko eta barruko kontzentrazioen arteko aldearen mende dagoena. Irene Aldasoro

Uzkurdura abiarazteko behar den kaltzio ioien kontzentrazioa ezin da handitu **difusioaren** bidez ez bada. Irene Aldasoro

**2** zabalkundea, hedapena.

**Difusioa**, espazializazioa interesatzen zaigu; ñabardurak eta ukituak manipulatzen ditugu. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Difusio**-bobina bati konektaturik dago igorgailua; sabelaren larruazalean kokatzen da, plastikozko estalki baten barruan. Irene Aldasoro

Einstein eta giza erlazioen bilakaera aldatu zuten **difusio** fenomenoak. Berria - Harian

Distantzia laburretan baino ez da lortzen **difusio** maila egokia. Irene Aldasoro

**Difusio** bidez ere ur kopuru aipagarri bat galtzen da larruazaletik [...] izerdi-guruinekin zerikusirik gabe. Irene Aldasoro

Kanal txikiek ez dute segurtatzen behar adina oxigeno eta elikagai helduko zaienik [zelulei] **difusio** bidezko prozesu normalaren bidez. Irene Aldasoro

---

# difusionista *izond*

Zibilizazio bat bakarra -hau da, geurea- dagoelako ideia okerra aztertu eta baztertzen da; baita teoria **"difusionista"** ere, hots, zibilizazio orok Egipton duela bere jatorria. Iñaki Mendiguren

---

# difuso *izond* lausoa.

Bere "Espíritu de la raza vasca"n [...] *Volksgeist*ik ez dago, esango nuke, kontzeptu bezala (Herder edo Hegel-en eran), apenas Herrien Psikologiaren ikerketetako adieran ere zehazki, baina bai erruz metafora mistiko **difuso** bezala. Joxe Azurmendi

---

# diga **1** *iz ipar* dikea.

Donibane Lohizune eta Ziburu ederki gerizatzen ditu Artako dike edo **digak**. Herria

Duela 25 urte eraikia doi doia, Angelu hego aldeko **diga** lanjerean da. Herria

Itsasoaren eskualdetik **diga** bat eraikiz. Herria

**Diga** hori da gero azkartu eta luzatu beste bi menderen buruan. Herria

Jadanik ere eskualde horren gerizatzeko itsasoaren hegiz-hegi ezarria diote harrizko **diga** bat. Herria

**Digan** agertu urrakoak antolatuko dituzte, barnera morteroa brauki sakatuz. Herria

Haize ukaldien gatik kokaturik gelditu da portuko **digaren** kontra pare bat orenez eta bere kuskua hiru lekutan zilatua izan du. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Zazpi lagun ito diraeta nun nahi bada zernahi makur, urak, ikaragarriko oldarrean, geriza-**diga** batzu ere gainditurik eta asko tokitan leher-arazirik... Herria

---

# digante *izond/iz* erraldoia. ik **zigante**.

Gizatxar **digantez** mukuru dagoen lurgainean atseginik aurkitu ezinik, [...]. Patziku Perurena

Diru-meta **digante** piloa. Hasier Etxeberria

Izugarri handiak ziren, benetako **diganteak**, baina bere gorputzaren handitasun berbera zeukan beraien inozentziak. Bernardo Atxaga

Hazi egiten da txingurri dena ere, **digante** izateraino. Hasier Etxeberria

Horrela sarritan **digante** aurpegiak hegan eta lekutarainoko gerizaz ikusten dira, edo baita mendi handiak edo mendietatik erauzitako haitzak ere eguzkiari aurrea hartzen edo alboan joaten. Xabier Amuriza

Diru-meta **digante** piloa, Hasier Etxeberria

---

# digerigaitz **1** *izond* digeritzen zaila dena. ik **txegosgaitz**.

Araujo jauna, kontuan izan arrautza gehiegik kalte egiten duela eta pepinoa **digerigaitza** dela. Bego Montorio

Ogi kraskatsu egin berri **digerigaitzak**. Edorta Agirre

Ez dago jaki **digerigaitzik**, andrea! Bego Montorio

**2** irud/hed

Gizakiak dira **digerigaitzak**, batez ere emakumeak. Bego Montorio

---

# digerigarri **1** *izond* digeri daitekeena, digeritzeko modukoa.

Horregatik, animaliei utzi behar diegu landare-proteina eraldatu eta hartatik forma **digerigarriago** bat ateratzeko ardura, baina % 10 eta % 15 bitarteko eraginkortasuna besterik lortu gabe. Irene Aldasoro

Umeentzat nahi ez den purea, bitamina **digerigarri** eta desiragarria litzateke oso, enpresen kasuan, inbertsiogileentzat. Berria - Ekonomia

**2** irud/hed

Dogma bihurtu nahi zuten Vitruvioren tratatu horrek ez zuela erromatarren munduan halako funtzio dogmatikorik inoiz izan, haien arkitekturan barietate harrigarri eta nekez **digerigarria** antzematen baitzen. Santiago Iruretagoiena

---

# digeritu *(34 agerraldi, 17 liburu eta 5 artikulutan; ETCn 733 agerraldi)*, digeri, digeritzen **1** du *ad* janariak, urdailean eta hesteetan, gorputzak bereganatzeko gai bihurtu.

Jateko eta, oro har, **digeritzeko** ona. Xabier Olarra

Eltzeko jakia «astuna eta **digeritzen** zaila» gerta zitekeela. Gantza **digeritzea** nahiko zaila da, heste-entzima gehienak uretan baino ez baitira disolbatzen. Berria - Kultura

Ezin gara landareetatik bizi, heste meharra ez baita gai hosto eta zurtoinen parte handi bat osatzen duen zelulosa **digeritzeko**. Irene Aldasoro

Urdail-urinarekin lan egiten duten entzimak gai dira okela **digeritzeko**; nola ez dute, bada, urdailaren pareta bera **digeritzen**? Irene Aldasoro

Arrano bat ogia jan eta **digeritzera** ohitu zituela. Josu Zabaleta

· Balearen hesteetako hondakin **digeritu** gabeak. hain larriki zauritu zuen batak bestea sabelean, non urdaileko zauritik **digeritu** gabeko janaria ateratzen baitzitzaion. Irene Aldasoro

**2** irud/hed

Gizarte-gorputzaren kontserbazio-instintuak nahiko indar du **digeritu** ezin duen guztia arbuiatzeko. Josu Zabaleta

Muddy Watersen *Forty days and forty nights* bluesa entzunez **digeritzen** askoz errazagoa da lehor-lehorrean irakurrita baino... J.M. Olaizola "Txiliku"

Humanismoak horien indarkeriazko ekintza guztiak, horien gehiegikeriarik makurrenak, **digeritu** eta linfa zuri eta apartsu bilakatzen ditu. Monika Etxebarria

Bi bukaera alternatibo daude zibilizazio batek beste bat bortxaz irentsi eta **digeritzeko** egiten dituen ahaleginei dagokienez. Iñaki Mendiguren

Gas Naturalek (- %1,11) ere kapital hedatzea onetsi du, irenstera ei doana **digeritzeko** . Berria - Ekonomia

Komunikatu beharrik sentitu gabe **digeritu** du abentura guztia. Josu Zabaleta

**3** ***ezin digerituzko***

**Ezin digerituzko** hondakinak, heste-paretetako zaborrak, behazun eta pankrea-urin hondarrak eta hestean bizi diren bakterio pila edukitzen ditu heste meharraren azken muturretik heste lodira igarotzen den gaiak. Irene Aldasoro

---

# digestibo 1 *izond* digestioari dagokiona. ik **digestio 4.**

Hartara, hura kontenplatzen geratu, eta landareen sistema **digestiboari** buruzko zerbait absolutoa frogatzen zuenean bezala, sentitu zuen basakeria otzandua zegoela, eta kaosaren erresuma menperatua. Anton Garikano

**2** *iz* digestioari laguntzen dion produktua.

Bazkariaren ondoren **digestibo** bat dastatzen zuen. Bego Montorio

Kafea eskatu zuen, bizkor, Ez, ez dut **digestiborik** nahi, horixe da jatetxeen herriak pattarren, uxualen eta koñaken leinuari ematen dion izena, eta ez da falta botika honek duen urdailaren aldeko bertuteaz zin egiten duenik. Jon Alonso

---

# digestio *(ETCn 1.884 agerraldi; orobat* ***dijestio*** *ETCn 12 agerraldi)* **1** *iz* digeritzea.

Benetako **digestioa** urdailean hasten da. Irene Aldasoro

Eginkizun nagusienetarikoa da proteinen **digestioa** , heste meharrean egina. Irene Aldasoro

**Digestioan** parte hartzen duten entzima gehienek ingurune azidoan lan egiten ez dutenez, pankreako jariakin bat injektatzen zaio lehenik janari likidotuari, neutralizatzeko. anaiaren etxera joan, bazkaldu, **digestioa** egiteko kamamila hartu, lo-kuluxka egin. Irene Aldasoro

Muskuluek parte hartzen dute jatean, edatean, **digestioa** egitean eta arnasa hartzean. Irene Aldasoro

Adelak belar-ura prestatu zigun, **digestioa** hobeto egiteko: erregaliza, anisa eta limoi-lorea. Juan Kruz Igerabide

Risottoak eragindako gogoetek eta bazkalosteko **digestioaren** murmua arindu beharrak Giardino Realera eraman naute. Anjel Lertxundi

Gizona bere **digestio** guztien bilduma da. Iñaki Iñurrieta

**2** (izenondoekin)

**Digestio** pisua ari naiz egiten berogailutik gertu, badakit aldez aurretik ere lanaldia galdua dela. Monika Etxebarria

Behin baino gehiagotan galdetu zioten Martinek eta Bautistak zer zuen horren triste egoteko, hagineko minez al zegoen, **digestio** motelak, familiako nahigabeak edo maskuriko gorabeheraren bat ote zuen. Koro Navarro

Andresek aukera ona izan zuen ezkortasuna eta baikortasuna ondorio organikoak direla egiaztatzeko, **digestio** txarrak eta onak bezalaxe. Josu Zabaleta

**3** irud/hed

Almirantea filosofi otordu presazko haren **digestioa** egiten ari zela. Xabier Olarra

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **digestibo.**

Gorputzaren **digestio** -sistema eta gai kimikoak prozesatzeko gunea gai dira dieta normal baten osagaietatik sortzeko ATPa. Irene Aldasoro

Adituen arabera, ordea, horrelako botikek, maiz hartuz gero, **digestio** aparatuan arazoak sor ditzakete. Berria - Gaiak

Zirkulazioaren parte batek gibelera eramaten ditu **digestio** -hoditik xurgaturiko elikagai molekulak. Irene Aldasoro

Horrez gainera, **digestio** -prozesuan pilaturiko hondakinak desagerrarazteko sistema eraginkor bat ere behar da. Irene Aldasoro

Oraindik ez da azalpen sinesgarririk aurkitu urdail-paretak bere urin eta entzimen **digestio** -ahalmenaren aurrean duen immunitatea azaltzeko. Irene Aldasoro

Bestalde, garai honetan **digestio** -etendurak ere gertatzen dira. Berria - Harian

Sanzek **digestio** arazoak ditu. Berria - Euskal Herria

Janariek dituzten bertuteak ez lirateke **dijestio** -puntua izatera iritsiko. Santiago Iruretagoiena

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Uhal garraiatzaile batenaren jiteko prozesua da, funtsean, heste meharrean egiten den janari-**digestioa** . Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **digestio aparatuan** (3); **digestio aparatuaren** (4); **digestioa egiteko** (3); **digestioa egiten** (5); **edo digestio** (3); **eta digestio** (6)

---

# digestore *iz*

Kuban, esaterako, **digestoreak** 80ko hamarkadan hasi ziren funtzionatzen, argirik ez zegoen lekuetarako. Berria - Euskal Herria

---

# digital 1 *izond* zenbakien bidez adierazten dena. ik **numeriko 2.**

Autoko koadro **digitalera** egin nuen so: 99.08.05 01:32 17.5ºC. Aingeru Epaltza

Denbora beti aurreraka doan irudipena (gertairudia, esango luke Orixek), areagotu egin da erloju **digitalak** ugaldu direnetik. Joxerra Garzia

Termometro **digital** zehatzak, azalerako eta barruko tenperatura (k) neurtzeaz gainera, bere kronometroak jakinaraziko digu elikagaia noiz dagoen prest, beroaldia amaitutakoan. Edorta Agirre

Ate aurrean gelditu naiz, itxita zegoen, kode **digital** batez. Joseba Urteaga

Postmodernitatearen gizakia homo **digitalis** bilakatu da, gogoeta abstraktu eta analitikorako gero eta elbarrituago, gero eta ezinduago. Txema Ramirez de la Piscina

**2** zenbakiak eta letrak adierazteko, eta irudiak eta hotsak erreproduzitzeko seinale diskretoen bidez aritzen dena.

2004rako aurreikusi den telebista analogikoaren ordez, **digitala** sartzen denean aldaketa handia etorriko baita. Iñaki Heras

Teknikariak paper bat atera zuen besapean zeraman karpetatik, zinta metriko bat soineko poltsikotik, eta argazki kamera **digital** txiki bat. Jon Alonso

Nire kolega honek zortzi pistako grabagailu **digital** bat eta mahai bat utziko dizkigu gure diskoa izango dena grabatzeko. Unai Iturriaga

Irudi **digitalaren** munduan dauden joera berritzaileen erakusleiho handia da Artfutura jaialdia. Berria - Kultura

Udazkenean, telebista **digital** interaktiboa zerbitzua ematen hasi nahi du Euskaltelek. Berria - Ekonomia

Euskaldun berriaren inguruko filma bideo **digitalean** grabatu eta gero pasatuko dute zinemara. Berria - Kultura

Bisa eta pasaporteetan argazki **digitala** , hatz markak edo betseina ipiniko dira. Berria - Mundua

Mendea bukatzen ari ginenean sinadura **digitala** garatzen ari ziren euskal epaitegiak. Pello Salaburu

Globalizazioaren gakoak teleteknologiak dira (satelitea, diru elektronikoa, informatika, Internet, sare telematikoak, teknologia **digitala** , CD-Rom, DVD, errealitate birtuala, adimen artifiziala, bioinformatika eta beste horrenbeste). Askoren artean

Komunikabideen arteko konbergentzia **digitala** aztertu behar genuen. Iñaki Zabaleta

Gasteizko egitarauarekin alderatuta, Resfest 2004 zinema **digitaleko** jaialdiko hainbat eduki aurreratuko dituzte Donostian. Berria - Kultura

Arte **digitalak** hamar urteko historia besterik ez du. Berria - Kultura

Euskal Agiritegi Nazionala euskarri **digitalean** eratzeko. Berria - Kultura

Aro **digitalean**, ordea, bi zenbakirentzat bakarrik dago tokia, eta hirua bazterketaren zenbakia bihurtu zaigu horrenbestez. Joxerra Garzia

**3** Interneten bidez zertzen dena.

Gazteentzako agerkari **digitala** jarri dute 'bertsozale.com' webgunean. Berria - Kultura

'Cyclingnews.com' kazeta **digitalak** 2005. urteko txirrindulari onena izendatu du. Berria - Kirola

Prentsa **digitalak** izugarri egin du gora mundu osoan, azken bost urteotan. Txema Ramirez de la Piscina

Hilaren 10ean halako amets hutsa, edizio **digitalean**, paperera pasa ez zena: [...]. Iñigo Aranbarri

Ostegunean, *El Diario Vasco*-ren edizio **digitala** irakurtzen: [...]. Iñigo Aranbarri

Kontsultarako entziklopedia **digital** garrantzitsuenetako bat da. Askoren artean

Telebistan ere ez nuen edizio **digitalik** ezagutu. Joxerra Garzia

«Europa itxaroten ari zen musika denda **digitala**» sortu du Apple enpresak. Berria - Kultura

Googlek eratu nahi duen liburutegi **digitalaren** antzekoa izango da. Berria - Kultura

Euskal Liburutegi **Digitalaren** Ataria (www.euskadi.net/LiburutegiDigitala) erakunde bien arteko akordioari esker jarri da abian. Berria - Kultura

Europako Liburutegi **Digitala** sortzeko lehen pausoak ematen ari dira. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agerkari digitalak** (3); **arte digitalak** (5); **digital bat** (3); **digital eta** (3); **digitala eta** (6); **digitala osatzeko** (3); **digitala sortu** (3); **digitalak atzo** (3); **edizio digitala** (3); **edizio digitalak** (4); **enpresa digitalak** (4); **kamera digital** (4); **liburutegi digitala** (6); **liburutegi digitalak** (3); **mapa digitala** (3); **teknologia digitala** (3); **telebista digital** (3); **telebista digitalak** (8); **tokiko telebista digitalak** (5)

**aro digitalean** (3); **bideo digitalean** (3); **digitalari buruzko** (4); **digitalean egindako** (3); **digitalen bidez** (3); **digitaletan euskararen** (4); **digitaletan euskararen presentzia** (3); **edizio digitalean** (4); **euskarri digitalean** (3); **formatu digitalean** (3); **garai digitalean** (3); **liburutegi digitalaren** (4); **liburutegi digitalean** (5); **telebista digitalaren** (3); **telebista digitaletan** (4); **telebista digitaletan euskararen** (4); **tokiko telebista digitaletan** (3)

---

# digitaldun *izlag* digitaleko.

Sonyk erosiko dizkio soberan dituen leiar **digitaldun** reflex kamera guztiak. Berria - Ekonomia

· Hortxe bertan zutitu ginen guztiok (kamera **digitaldunak** jo eta ke lanean). Berria - Kultura

---

# digitalina *iz* kuku-prakaren hostoetatik ateratzen den gaia, bihotzeko eritasunetan sendagai gisa erabiltzen dena.

Agindu zidan lau egunez egunean **Digitalina** 10 tanta hartzeko, eta gero, gosariaren, eguerdikoaren eta jatekoaren aurretik, Coramine 10 tanta. Edorta Jimenez

---

# digitalitate *iz* digitala izateko nolakotasuna.

**Digitalitateak** ez zuen salbatu, Eitb24 webgunean ere, halaxe zekarren: "Aquariumeko Urdin marrazoari eutanasia egingo diote". Iñigo Aranbarri

---

# digitalizatu, digitaliza, digitalizatzen *(orobat **dijitalizatu** g.er.)* **1** du *ad* digital bihurtu, modu digitalean eman. ik **numerizatu.**

Badakit nire ahozko testigantza hau idatzi, **digitalizatu** eta inprimatu egingo dutela, hala espero dut behinik behin, eta horregatik segur aski izan dut tentazioa. Karlos Zabala

Ahotsa **digitalizatu** eta automatikoki ezagutzeko sistema bat garatzen ari naiz, horregatik aukeratu naute. Javi Cillero

Irudi txikia hiru dimentsiotan **digitalizatzen** dute erreprodukzioa nahi den eskalan egin ahal izateko. Berria - Kultura

Euskal hiztunei azken berrogei urteotan egin zaizkien grabazioak **digitalizatu** dituzte proiektu aitzindari batean. Berria - Kultura

Dokumentazio zentro bat **digitalizatzea** teknikoki ez da lan zaila. Berria - Kultura

*Antso Jakituna* Fundazioak **digitalizatuak** dituen 2.800 liburu. Berria - Kultura

Euskaltzaindiak Eguzkitzaren obra osoa **digitalizatuko** du aurten. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Liburuaren edizio **digitalizatuak**. Berria - Kultura

*Telepartitura* webgunea musika partitura **digitalizatuen** Internet bidezko salerosketen arloan «erreferentzia» bihurtu nahi dute Carcamok eta Astigarragak. Berria - Kultura

Gaur egun *Caja Vital Kutxa*ren menpeko erakunde honek lau milioi eta erdi irudi baino gehiagoko funts **digitalizatua** dauka eta 12.000 izenburu. Berria - Kultura

2.800 liburu zabaldu dira Liburutegi **Digitalizatuan**; horietatik 1.800 euskaraz idatzitako eskuizkribuak dira. Berria - Kultura

Gizarte **digitalizatuan** eduki intelektualak edo ezagutzak ez du erraz errepika ezin daitekeen edukiontzi fisiko bat. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**digitalizatu ditu** (3); **digitalizatu eta** (11); **eta digitalizatu** (3)

---

# digitalizazio **1** *iz* digitalizatzea. ik **numerizazio.**

**Digitalizazioa**, ordura arteko soinujoleena zuen, bi atzamarrekin dena, atz lodia atzean gordeta. Iñigo Aranbarri

Ezin pentsa liteke egungo webgunea orduan abiatutako **digitalizaziorik** gabe. Berria - Kultura

**Digitalizaziorako** eskaner aurreratuenak erabiltzen dituzte. Berria - Kultura

Neurri txikiko eskultura baten **digitalizaziotik** egin dute lau tonako obra. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Industria aroan patenteen eragina industriara bakarrik mugatzen zela uste zen; baina gizarte mugimenduek indarra-hartzeak eta **digitalizazio** prozesuak bestela erakutsi dute. dagoeneko emititzen ari diren euskara hutsezko tokiko telebistei laguntzeko eskatu dute, ekoitzi beharreko programazio orduetara iritsi ahal izateko eta **digitalizazio** prozesua egin ahal izateko. Berria - Gaiak

Hori guztia antolatzeko eta publikoarentzat eskuragarriagoa izan zedin, irudien **digitalizazio** sare bat osatzeko proiektua jarri genuen abian Berria - Kultura

---

# digitalki *adlag* digitalizazioaren aldetik.

Tarte globala dago lehenik, **digitalki** pobreak eta aberatsak diren herrialdeen artekoa, alegia. Berria - Gaiak

---

digitazino ik **digitazio**.

---

**digitazio** *(orobat **digitazino**)* **1** *iz* hatz-higidura.

Atzean utzi nahi nituen arpegioak eta eskalak, **digitazioak**, akademia eta pianoko andereñoa. Anjel Lertxundi

Gogo biziz ekiten diet **digitazioei**, arpegio eta glissando batzuk egiten ditut, pieza erraz bat jotzen dut segidan. Anjel Lertxundi

Estiloaren alde nagusia **digitazinoan** eta hauspoaren erabileran dago. Xabier Amuriza

Gaurko gazteek kristoren **digitazioa** daukate atzamarretan, garbitasuna, baina berezko senik ez badago ez dago batere graziarik. Pako Aristi

**Digitazioa** egiteko beste modu bat zuten [Rufino Arrolak eta]. Xabier Amuriza

**2** (hitz elkartuetan)

Urtebete inguruan, Kepa Junkeragaz, gauza barriak eta joteko teknika diferenteak ikasi zituan, batez be, **digitazino** arloan. Xabier Amuriza

---

digito ik **digitu**.

---

**digitu** *(orobat **digito** g.er.)* *iz* 0-tik 9-ra bitarteko ikurretako bakoitza. ik**zifra**.

Telefono zenbakia duen papera han dago oraindik, mahaiaren gainean, sei **digitoak** markatzea baino gauza errazagorik ez dago. Jon Alonso

Ondoren hamar **digituko** zenbaki bat, 917 eskualde-zenbakiarekin hasten zena. Oskar Arana

Kontrol kabina presurizatuan bi kreatura adimentsu zihoazen [...] paralaxia akats ñimiño batengatik -algoritmo baten azken **digituan**, hain zuzen ere-, Lurraren eremu grabitatorioan sartuak zirenak. Patxi Iturritegi

Lehenengoan zehatz-mehatz deskribatzen zuen [...] Singapurko burtsaren erorketa, eta bestean, **digitu** batean ere hutsik egin gabe, hiru hilabete geroagoko inflazio- eta langabezia-tasak zeintzuk izan ziren. Iban Zaldua

· Aritmetika bitarra erabiltzen du konputagailuak, hau da, biko eskala bat; eskala horretan, bat eta zero dira **digitu** bakarrak, eta, beraz, bai edo ez erabaki besterik ez dute egiten eragiketa aritmetiko guztiek. Irene Aldasoro

---

**diglosia** **1** *iz* elebitasun mota, hizkuntza edo hizkera bat beste baten mendeko gertatzen dena.

Ikasi dute azkenean hizkuntza normalkuntza zer den, **diglosiari** nola hartu gaina. Jokin Urain

**Diglosia** gaitzesgarri baten seinale ikusten du berak gaztelaniaren presentzia hau euskal esaldietan, baina hizkeraren adierazkortasuna ez ote dugun aberasten galdetu behar genukeela iruditzen zait. Iñaki Arranz

Elkarte hauetan dauden partaideek, norberaren egoeran eta partiduetan, euskararen marjinazioa salatzeko borroka gogorra egingo dute, **diglosia** protestaren bitartez gainditzuaz. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **diglosiko**.

**Diglosia** egoera honetan, ez da euskara orain baino gehiago babestu behar? Berria - Kultura

Euskarak gaztelaniarekiko izan duen eta daukan **diglosia** egoera modu barregarri batean puzten dute, eta gure miseriak agerian uzten. Iñaki Arranz

Egun ez dugu hizkuntza barruko **diglosia** arazorik, egun kultur hizkuntza euskara batua ala gaztelania batua hautatu, hortxe dugu koska. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diglosia egoera** (3)

---

**diglosiko** *izond* diglosiarena, diglosiari dagokiona. ik **diglosia 2**.

Gaur egungo egoera **diglosikoak** sortzen duen desoreka soziala gainditzeko. Berria - Euskal Herria

Egoera **diglosikoa** gainditzeko neurriak. Berria - Euskal Herria

Badira beste batzuk, txiste **diglosikoetarako** bidea ematen diotenak, Uzkiano eta horrelakoak. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diglosikoak sortzen duen** (4); **egoera diglosikoa** (3); **egoera diglosikoak** (5); **egoera diglosikoak sortzen** (4); **egungo egoera diglosikoak** (4)

---

**dignatario** *(orobat **dignitario** g.er.)* **1** *iz* autoritate, izen edo ohore handiko kargua duen pertsona.

Erregearen mozkorraldiak, printzearen txiste arrazistak, erreginaren ateraldi zelebreak, presidentearen eta gainontzeko **dignatarioen** duintasun-eza, gortearen inguruan burutzen ziren hamaika negozio ustelen eragiketak. Iban Zaldua

Buruzagi zenaren **dignitario** zaharrek. Aurelia Arkotxa

**2** ***goi dignatario***

Goi **dignatarioei** emandako arrain goitizen haiek, hogeita hamar sosean esleituriko kondesa eta baronesa haiek Manoury jauna barreneraino izutu zuten. Karlos Zabala

---

**dignatu**, digna, dignatzen da *ad* zerbaitetara makurtu.

Orain, ostera, begira nola, ikusiaren asez nekaturik, inor ez den **dignatzen** zeru sapai gardenera begiratzen! Xabier Amuriza

---

dignitario ik **dignatario**.

---

**dignitate** **1** *iz* autoritatea edo ohorea dakarren kargua.

Soldadua Erregearen **dignitate** gorenari bakarrik dagozkion aintzazko arma beraz apaindua izatea! Askoren artean

Zuk, benetan, guztien gainetik goza zenitzakeen bonbaziak eta ohoreak eta munduko kargu gorenak, zeure esku baitzenuen Enperadore ospetsuarekin eskubide osoz

esposatzea, zeure eta haren **dignitateari** zegokion aintza dirdaitsuz. Askoren artean

**2** duintasuna.

Guraso triste haien umeak ginen eta **dignitatez** bederen, edo urguilu propioz, ez genuen lur eta behi gorotz urrineko "pasibitate" haren pairatzea merezi, ziotenaz. Itxaro Borda

Enetzat **dignitate** kontu bat da. Ana Urkiza

Blasen presentziaz ohartzean geldirik geratu zen, **dignitatez**, eta hotzean geratu zitzaion begira. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# digrafo *iz* hots bakarra adierazten duen letra bikotea.

*Frases palindromas euzkéricas* jarri zion izena Kirikiñok lehiaketari, eta bete beharreko arau berezi bat ezarri zuen: **digrafoak** (ts, tz, tx) letra bakartzat hartu behar ziren. Iñaki Arranz

Esaldirik motzena bilatu behar zuten, garai hartako euskaltzaleek euskal letratzat jotzen zituzten guztiak (**digrafoak** izan ezik) erabilita. Iñaki Arranz

---

# digresio *iz* 1 kontakizun edo mintzaldi batean, bidenabarrezko zerbaitek aritzeko, gai nagusirik aldaratzea.

Atal hau aurreko atalaren bukaeran azterturiko Juliano filosofo enperadorearen kasutik sortutako **digresio** bat da. Iñaki Mendiguren

Istorio bitxi bat kontatu zidan, tarteka-marteka karabineroen eta italiarren kontra egiten zituen **digresioz** zipriztindua. Anjel Lertxundi

-Gaztigatzen diogu salatuari, bere **digresioekin** jarraitzen baldin badu, eten eginen diogula mikrofonoa. Koldo Izagirre

'Mugimendua'ren benetako esangurari buruzko **digresioa**. Xabier Kintana

Barka bekit **digresioa** baina, burutazio hau hona ekartzean Händel handiaren *Israel Egipton* oratorioa entzuten ari naizela ohartu naiz. Berria - Kultura

Premiazkoa da zure kimikari solaskideak, **digresioen** hain zalea bera, lehenbailehen handik bide zuzenera itzul zaitzan. Juan Garzia

Izkribatzaile trebatu gabe baten lana zen nabarmen: erretorikoa, erdizka zintzoa, **digresioz** eta laudorio neurrigabez betea, hunkigarria, pedantea eta trabatsua. Juan Garzia

Gauzak azaltzeko nire metodoa **digresioa** da. Karlos Zabala

**2** (izenondoekin)

**Digresio** ttiki bat orain argazkiei buruz. Harkaitz Cano

Kontakizunari ondo datozkion **digresio** historiko eta kultural batzuen ondoren, lapurren haitzuloraino eraman dut Abaxi. Anjel Lertxundi

Ez zen falta noski bertan **digresio** pintoreskoa eta apostrofe beregainekoa. Juan Garzia

Lehen begi-kolpean ez dirudi **digresio** moralizatzaile hauek nahikoa zerikusirik dutenik Raimundo Silvak Mogueime pertsonaiatzat onartzeko eduki dituen erresistentziekin. Jon Alonso

---

# dijestio ik **digestio**.

---

# dijitalizatu ik **digitalizatu**.

---

# dikasterio *iz* Erromako kuria osatzen duten erkundeetako bat.

Benetako ekumenismoa gauzatzeko, baina, Eliza katolikoko hierarkia, aita santua, **dikasterioak**, nuntzioak... traba bat da. Berria - Harian

---

# dike 1 *iz* uraren indarrari eusteko murru lodia. ik **diga; eustorma.**

Alde batean ainguratokiren bat balego eta inongo ibairik ez traba egiteko, orduan beste aldetik malekoi edo **dike** bat egingo da hormak edo lubeta eginez, eta honela eratuko da portuaren ahoa edo bokalea. Santiago Iruretagoiena

Soldaduak eta espetxeratuak zuzendu omen zituen, ibai batean **dike** bat egiteko lanetan. Juan Kruz Igerabide

Ez da **dikerik** eraiki beharrik portua babesteko. Berria - Harian

Errumanian, Bulgarian eta Serbian **dikeak** ezarri dituzte ibaiertzean. Berria - Mundua

**Dike** bat lehertu da eta 5.000 lagun ebakuatu dituzte Errumanian. Berria - Mundua

Ibaia, euriteek uhertua, **dikeen** kontra indar izugarriz oldartzen da. Xabier Amuriza

New Orleanseko **dikeak** apurtu eta urak gainezka egin du berriro hainbat auzotan. Berria - Harian

Danubio ertzeko **dikeak** sendotzeko. Berria - Mundua

Bi **dike** hautsi dira eta 10.000 lagunek ihes egin beharko dute. Berria - Mundua

Karearekin eta hartxintxarrekin nahastuta era guztietako eraikuntzei sendotasuna emateaz gainera, itsasoan **dikeak** egiten direnean, urpean ere gogortu egiten da. Santiago Iruretagoiena

Marea gora ustezko **dike** seguruaren zirrikituetatik agertzen den bezala. Agustin Otsoa

**Dikeetan** zehar ibili nintzen lasterka, Beauvoisis auzoko karrika hutsetan. Monika Etxebarria

**Dikeko** eskailera gorolditsuetan behera jaitsi, eta eskua sartu nuen uretan. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagi gisa )

Babes **dikea**, aspaldiko eskaera. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen babes **dikeak** 435 metroko luzera, eta 13-16 metro bitarteko altuera izango du. Berria - Harian

Kanpo **dikea** dela proiektuaren %80, «kalte handiena eta hondartzako txikizio guztia eragingo duena». Berria - Euskal Herria

[Ura] berdeska eta uher, eta haren baitan ispilatua goragoko elurtegi zuriaren isla, txalupa bat ur bazterrean, segmentu-**dikea**, arimarik ez. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **babes dike** (4); **babes dikea** (9); **babes dikeak** (3); **dike bat** (14); **dike bat lehertu** (3); **dike hautsi** (3); **dike hori** (3); **dikea eraikitzeko** (4)

---

# dikotomia 1 *iz* adigai edo kideko bat bi alderditan zatitzea, bereziki biak aurrez aurrekoak edo oso desberdinak direnean.

Ohiko **dikotomietan** (behagarri/ez-behagarri; behagarri/teoriko, etab.) erori gabe. Askoren artean

Homeroren hori ez zait iruditzen batere formulazio kaskarra *Fictio sive realitas* **dikotomia** gainditu eta biak, fikzioa eta errealitatea, uztartzeko. Anjel Lertxundi

Deskribapen honek gramatikal/ez-gramatikal **dikotomia** orokorrago egitea eskatzen du, gramatikaltasun-mailen ideia bat garatuz. Itziar Laka

Lan honetan ez dugu **dikotomia** hori jorratuko. Askoren artean

**Dikotomia** binomio laguntzaile bihurtu behar. Ana Urkiza

**2** (izenondoekin)

Gure kasuan, **dikotomia** faltsu horrek, bata bestearen arerio bailitzan, bi aukeraren artean hautatu beharrean jartzen du: euskalduna izatea edo unibertsala izatea, ezinbestez bietarik bat aukeratu behar da. Askoren artean

Prozesuan, jakina, interes intelektual eta sozial desberdinak eta heterogeneoak agertzen dira, ohiko terminologian interes epistemiko eta ez-epistemiko **dikotomia** absolutuan banatzen zirenak. Askoren artean

Hirugarren gai-zerrendaren bertutea da **dikotomia** absolutu hori berori kontingentea dela erakustea Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan)

Bigarren, gizadiaren arraza- **dikotomia** hori erlijio-, kultur, politika- eta ekonomi **dikotomiekiko** desberdina zen gaindiezina zen leizea ezartzerakoan. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **da dikotomia** (4); **dikotomia hori** (7)

---

# dikotomiko *izond* dikotomiarena, dikotomiari dagokiona.

Hartara, orokortze eta ikuskera **dikotomiko** bat saihesteko asmoz, beste orokortze eta ikuskera **dikotomiko** bat proposatu da. Berria - Kultura

---

# dikotomista *izond*

Bakarrik, Finkielkrauten mentalitate erradikalki **dikotomistan** honek esan nahi duena da: ala balio absolutu batzuk daude, ala dena berdin da (eta baliorik ez dago beraz). Joxe Azurmendi

---

# dikromato *iz* azido dikromikoaren gatza.

Azido sulfurikoa, sodio kloratoa, binil kloruro monomeroa, sodio **dikromatoa** ... Berria - Euskal Herria

---

# diktadore 1 *iz* aginpide osoa bereganatu eta inolako kontrolik gabe aritzen duen gobernaria.

**Diktadore** izena, ez da nahikoa irakurlea leziatzeko? Iñigo Aranbarri

Dominikar Errepublikako **diktadore** Rafael Leonidas Trujilloren lekaioek eta morroiek trebe jarduten zuten. Edorta Jimenez

Espedizioaren helburua Machado **diktadorearen** erregimena behera botatzea da. Edorta Jimenez

Irakeko **diktadoreari** amore emanarazi beharrez, beren populuen iritzia enganatuz, gerla-bideari fidatu zaizkion Ameriketako eta Europako zenbait estatuburu. Piarres Xarriton

Zartatu zen bonba bainan ez zuen hil **diktadorea**. Herria

Bukatuko ote zen diktadura **diktadorearen** heriotzarekin batera? Bernardo Atxaga

Eta hori da **diktadoreei** min handiena ematen diena: diren bezalakoak azaltzea arte-obra batean. Felipe Juaristi

Franco gure **diktadore** zaharra itzaltzera zihoalarik, [...]. Piarres Xarriton

Pinochet, Xileko president eta **diktadore** ohia, 89 urtetan, arras gaizki da burutik beheiti berriki ukan duen histura larri batekin. Herria

Esanguratsua zen **diktadore** komunisten ohiko epiteto kutuna "bake-maitale" izatea. Iñaki Mendiguren

Berlusconi **diktadore** sasikoa. Anjel Lertxundi

Gutierrezek **diktadore** izenda dezake bere burua. Berria - Harian

**Diktadore** batek bere ihesean abandonatu eta sasiek hartutako udako etxalde dekadentea. Harkaitz Cano

Argi eta garbi dago gehiengo osoa ukanez gero lege Biltzarrean, **diktadore** gisa jokatu dela Aznar. Herria

**2** irud/hed

Kontsumitzaile horiek berak omen dira **"diktadore** globalak". Iñaki Heras

Bueno, hainbesteko erantzukizuna duen postuan dagoen pertsonak beti izan behar du zuzena, **diktadore** samarra esango nuke, aurpegira barre egiten dizutelako bestela jokatuz gero. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan)

Ildo horretan, Txabarriren **«diktadore** jokaera» kritikatu eta berarekin ados ez daudenak «baztertzea» egotzi zion. Berria - Euskal Herria

Gobernua eta Hauteskunde Batzordea horren aurka agertu zirenean, **diktadore** portarea zela salatu zuten taldeok. Berria - Mundua

**4** erromatarren artean, larrialdietan hautatzen zen gobernari gorena, aginpide osoa bereganatzen zuena.

Sila bezalako **diktadore** despotiko baten bitartez, hark desegiteko izan zuen kemen berbera eraikitzeko duen baten bitartez, alegia. Juan Martin Elexpuru

Desegokitasun astronomikoek iraun egin zuten Julio Zesar astronomoen konklusioei **diktadore**-laguntza emateko egoeran egon eta "juliotar" egutegia sartu zuen arte. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **augusto pinochet diktadore** (8); **diktadore gisa** (4); **diktadore handia** (4); **diktadore ohia** (14); **diktadore ohiak** (9); **diktadore ohiaren** (19); **diktadore ohiari** (3); **diktadore zaharra** (3); **diktadorea auzipetzeko** (4); **diktadorea hil** (10); **diktadorea hil ondoren** (3); **franco diktadorea** (9); **marcos diktadoreak** (3); **pinochet diktadore ohiaren** (3); **pinochet diktadorea** (3): franco diktadoreak (4); **txileko diktadore** (10); **txileko diktadore ohia** (3)
>
> **amerikako hainbat diktadorek** (4); **diktadorearen agintaldian** (4); **diktadorearen aurkako** (5); **diktadoreari etxe barruko** (4); **diktadoreari etxe barruko** (4); **duvalier diktadorearen** (5); **franco diktadorearen** (14); **marcos diktadorearen** (6); **pinochet diktadorearen** (5); **trujillo diktadorearen** (3)

---

# diktadoretxo *iz* diktadore txikia.

Noiz ikusiko dugu jauntto hori tribunal baten aintzinean? Frantziak onart dezakea aldarrikatzen duen demokrazian izan diten Flosse bezalako **diktadoretxo** batzu? Herria

---

# diktadura (orobat *diktatura* g.er.) 1 *iz* diktadore bat buru duen gobernu era.

**Diktadura** ezarri eta internazionalismo proletarioa gauzatu. Rafa Egiguren

**Diktadurak** eta autoritarismoek aurpegi asko dituztela. Jokin Urain

Gogoratzen haiz nola borrokatu ginen **diktaduraren** kontra? Mikel Hernandez Abaitua

Francoren **diktadurak** agintzen zuen; beraz, poliziak nahi beste egun eduki zezakeen edonor komisarian. Rafa Egiguren

**Diktadurako** epaitegi militar baten aurrean. Jokin Urain

**Diktadurako** desagertuen aldeko omenaldi ugari egin zituzten atzo Buenos Airesen. Berria - Mundua

Raul Alfonsin presidentearen garaian onartu zituzten **diktaduraren** erantzuleei immunitatea emateko legeak. Berria - Mundua

**Diktaduraren** kontrako borrokan, aurreko muturrean ibili ginen demokraziaren alde. Juan Kruz Igerabide

Gizon hura gudarosteko kapitain bat zuan, **diktaduraren** garaian. Jon Muñoz

Argentinako **diktaduratik** ihesi jo zuen Quitora. Berria - Kultura

Ez duzu uste **diktaduraren** azkena hurbil egon daitekeenik. Rafa Egiguren

Aurreko 40 urteak **diktaduren urteak** izan dira herrialde horietan; zehazki, langileen aurkako **diktaduren urteak** . Berria - Kultura

**2** (izenondoekin)

**Diktadura** militar baten mende gaude; askatasuna berreskuratzeak esan nahi du zapalkuntza militar hori ezagutu eta aurre egin behar zaiola. Joseba Zulaika

Ezerk ez zion galarazten **diktadura** politiko bati espetxean sartzea zientzialariak, "zientzia burges" bat praktikatzen zutela eta. Juan Garzia

Erresistentzia kutxak hustuta zeuden urtetako **diktadura** gogorraren ondoren. Bernardo Atxaga

Hamar urteko **diktadura** iraultzailea beharrezkoa duk, Frantzia bezalako herrialde bat askatasunean bizitzen ohituko bada. Karlos Zabala

Urteak eta urteak iraungo zuen **diktadura** ilun bati ireki zitzaizkion ateak. Pello Salaburu

Botere ekonomikoak kontrolatutako **diktadura** faxista batean bizi gara. Berria - Mundua

Izularri ideologikoaren eta **diktadura** poliziakoaren presiopean. Juan Garzia

Fidelek **diktadura** zikin eta usteldu bat erorarazi zuen. Jon Muñoz

1945 eta hurrengoak: **diktadura** estalinista, errusifikazio politika. Edorta Jimenez

**3** irud/hed

Eibar errepublika independente moduko bat izan zen urte luzetan Bizkaia eta Gipuzkoa nazionalista eta zintzokoteen erdian, abadeen **diktaduratik** libre samar. Koldo Izagirre

Ez da beti amore eman behar gorputzaren **diktaduraren** aitzinean; batzuetan, gutxien uste denean, Minoria Arrazionalak irabazten du. Unai Iturriaga

Katolikoen hurrengo aita santuak «erlatibismoaren **diktadura** » hautsi beharko lukeela esan du Ratzingerrek . Berria - Harian

Horiekin batera merkatuaren **diktadura** ezarri da, edukien degradazioa eta audientzien alienazioa. Txema Ramirez de la Piscina

Enpirismoaren **diktadura** esaten diot nik. Lander Garro

Andresek ezarri nahi zuen **diktadura** zientifikoa ez zen onartzen etxe hartan. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Diktadura** egoera batean, jo dezagun, edozein erakunderen aurkako erasoak [...] bakoitzaren berezitasunez gain, denak batzen dituen egoera komun zerbaiten aurka doaz. Joseba Zulaika

Areago, Ernest Hemingwayren itzulerak **diktadura** erregimenari mesede egin zion. Edorta Jimenez

**Diktadura** podore islamista baten eta herritarren artean. Herria

**Diktadura** -garaiko vietnamitetan botatako paskinen bilduma harrigarria osatu dute Lazkaoko beneditarrek. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argentinako diktadura** (3); **augusto pinocheten diktadura** (4); **azken diktadura** (3); **diktadura amaitu** (5); **diktadura batean bizi** (3); **diktadura bizi** (3); **diktadura denboran** (4); **diktadura ezarri** (7); **diktadura garaian** (28); **diktadura garaiko** (21); **diktadura garaitik** (3); **diktadura gogor** (3); **diktadura militar** (7); **diktadura militarra** (5); **diktadura militarrak** (4); **diktadura militarraren** (4); **erlatibismoaren diktadura** (3); **francoren diktadura** (15); **francoren diktadura garaian** (3); **iraungo zuen diktadura** (3); **pinocheten diktadura** (7); **pinocheten diktadura garaian** (4); **proletargoaren diktadura** (3); **urteko diktadura** (5)

**argentinako diktadurako** (3); **argentinako diktaduran** (3); **diktadurako biktimei** (4); **diktadurako biktimen** (6); **diktadurako krimenengatik** (3); **diktaduraren aurka** (10); **diktaduraren aurkako** (5); **diktaduraren garaian** (7); **diktaduraren kontra** (3); **diktaduraren kontrako** (4); **diktaduraren ondoren** (3); **diktaduren aurka** (3); **francoren diktadurak** (6); **francoren diktadurako** (5); **francoren diktaduran** (4); **francoren diktaduraren** (11); **jeneralaren diktaduraren** (3); **pinocheten diktadurak** (3); **pinocheten diktaduran** (4)

---

# diktaduraldi *iz* diktadura dagoen aldia.

Eta jakina den moduan, estatubatuar zerbitzuek Fulgencio Batistaren **diktaduraldian** , beste edozein leku eta egoeratan egin izan duten moduan, ez zuten alde bakarrean jardun. Edorta Jimenez

---

# diktaketa *iz* diktatzea.

Egun batean **diktaketa** bat egiteko eskatu zidan ortografia ona zuela erakusteko. Joseba Urteaga

Arratsero, Uil behartu egiten nuen biderketa-taulak ikastera, eta **diktaketak** eginarazten nizkion. Juan Kruz Igerabide

EKE eta AEKren **diktaketan** bi maila egonen dira, lehena euskara ikasten ari direnentzat eta bigarrena euskaraz idazten dutenentzat. Berria - Euskal Herria

---

# diktamen *iz* irizpena.

Euskararekiko kontsultetan erakunde ofiziala da eta hizkuntza honen alorrean berari dagokio ziurtagiriak, argibideak eta **diktamenak** eskaini-ematea... Herria

Emaitza horrekin onartu zuten atzo Madrilen, Diputatuen Kongresuan, bikote homosexualei ezkontzeko baimena ematen dien eta Espainiako Kode Zibila aldatuko duen lege proposamenaren **diktamena** . Berria - Harian

---

# diktarazi, diktaraz, diktarazten du *ad* diktatzera behartu.

Zerbait **diktarazi** nahi zuenean edota gutunen batzuk idazmakinaz mekanografiatu nahi bazituen, telefonoz deitu behar izaten zien inguruko hainbat zuzendariri, harik eta lanpetuta ez zegoen neskaren bat aurkitzen zuen arte. Mirentxu Larrañaga

Etxekoandreak, ordea, ez zeukan ez zerrendarik eta ez inolako errejistrorik, baina buruz zekizkien ia guztien izenak; halatan, gehiago luzatu gabe, **diktarazi** egin zizkion Txitxikovek. Jose Morales

---

# diktatorial *izond* diktadura izaerakoa.

Ez da berria boterearen ideia hau, aspaldiko gizarte patriarkal, feudal eta **diktatorialetan** hori bera baitzerabilten. Piarres Xarriton

Askatasun honetan funtsatzen da arrazoimenaren existentzia, eta honek ez du autoritate **diktatorialik** , baizik bere agindua beti hiritar askeen adostasuna besterik ez da. Ibon Uribarri

Ekialde Hurbileko erregimen **diktatorial** , faxista, autoritario eta fundamentalista guztien kontra gaude. Berria - Mundua

Leninen alderdi bakarreko erregimen **diktatorialaren** arrakasta, haren imitatzaileen kopuruak erakusten du. Iñaki Mendiguren

Euskalerria Irratia diru laguntzarik gabe utzi izana erabaki «maltzur, **diktatorial** eta antisoziala» dela. Berria - Euskal Herria

---

**diktatorialki** *adlag* era diktatorialean.

Izadiari helburuak bortxaz eta **diktatorialki** ezarriz hauek izadiaren ikerkuntza fisikoaren bidetik bilatu beharrean. Ibon Uribarri

---

**diktatu**, dikta, diktatzen **1** du *ad* pertsona batek hitzak edo esaldiak, beste batek idatz ditzan, ozen esan.

Neskatxa gazte horrek izkiriatu dion gutuna, nik **diktatu** nion. Jon Muñoz

Pentsa zitekeen bere bizi-egitaraua **diktatu** ziola hil aurretik aitak mutil gazteari. Jon Muñoz

Joan paper eta lapitz eske; nik **diktatuko** dizut idatzi behar duzuna. Fernando Rey

Gaurkoz ez gara gauza Frantziskok idazki hau noiz idatzi edo **diktatu** zuen zehazteko. Aldi eta toki berean kokatzen da **diktaturiko** idazkietan azkena den Anai Bernardoren Bedeinkapena ere. Askoren artean

Sekula ez dakite nola **diktatu**, eta diktatzen hasten direnean batere zentzurik ez duen gauzaren bat esan ohi dute beti. Antton Olano

Eta zure urratsak gida ditzadan, zure hitzak **dikta** diezazkizudan galdatzen didazu! Jon Muñoz

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bertso **diktatuak** dira gehienak, ez bete-betean inprobisatuak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nobela honetan gutun **diktatu** asko dago eta horrek baliabideak ematen dizkio idazleari. Jon Muñoz

Ez zuen zakurrak, hartan ari ginelarik, fraidearen **diktatua** eten zezakeen ezer egingo. Joxerra Garzia

Ongi ikusiko dut norbaitek idazlearen estiloa eta **diktatuaren** traketsa hitz ederragoz apaintzea, aski baitut nire aldetik idazle trebe eta iaioagoei gaia eskura jartzearekin. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat diktatu zion** (3); **diktatu eta** (3); **diktatu zion** (4); **diktatu zuen** (4)

---

diktatura ik **diktadura**.

---

**diktografo** *iz*

Nire iritziz, ez da hobea bizitza ematea sudurra besteren bizitzan sartuta **diktografo** ibiltari madarikatu bat izan arte. Lopez de Arana

---

**dikzio** *iz* hitzak ahoskatzeko era. ik **ahoskera**.

-Argi behar du **dikzioak** eta entzuleek ezagutzeko moduan interpretatu behar da doinua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ingeles talde on guztiek bezala, ahoskera edo **dikzioa** asko zaintzen dute. Berria - Kultura

Lehenengo parte osoan errejistro erdi grabea landu zuen gehienbat, eta esakera edo **dikzio** perfektua erakutsi zuen. Berria - Kultura

---

**dikzionario** *(orobat **dizionario**)* **1** *iz* hiztegia.

Ez bainekien hitz horrek zer esan nahi zuen ere eta **dikzionariora** jo behar izan dut!. Berria - Kultura

Osabak Parisen egin zuen **dikzionario** hura, buruz ikasteko asmotan nengoena. Joan Mari Irigoien

**Dikzionarioa** hitzen logela zela, eta hantxe genuela hura, guk noiz zabalduko zain, hitzek ezkutatzen zituzten ametsak eskura genitzan. Joan Mari Irigoien

Eta berba haiek intsektuen moduan bilatzen zuten zirrikitu bat gure bizimodu arrunten umilazioan, **dizionariorik** gabeko gure gau tristeen zuloan. Joseba Sarrionandia

**2** irud/hed

Eta luma bat zen haren urguilua, eta bertze bat hitz handi hura -ohorea-, bere **dikzionario** partikularraren lehen hitza eta azkena zirudiena. Joan Mari Irigoien

---

**dilatatu**, dilata, dilatatzen **1** da/du *ad* zerbaiten neurria edo bolumena handitu.

Big bang delakotik sortua dela, eta energia, infinituki trinkoa artean, tupustean **dilatatu** dela eztanda gaitz horren bitartean. Juan Garzia

Masailak gorritu eta arteriak **dilatatu** egiten dira. Luis Elberdin

Epidurala aplikatzeko, ez da utero lepoa **dilatatu** arte zain egon behar. Berria - Gaiak

**Dilatatutako** polimero horrek balbula baten egitekoa betetzen du. Berria - Gaiak

Aldi berean, musikaren iraupena **dilatatzen** zen, trumilka hanpatzen zen. Monika Etxebarria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Emakumeak begi beltzak zeuzkan, **dilatatuak**. Lopez de Arana

Medikuaren linternatxoak begi-nini **dilatatu** batzuk argitu zituen. Joxemari Urteaga

Egun horietan umetokiko lepoa **dilatatuago** egoten da. Luis Elberdin

---

**dilatazio** *iz* dilatatzea.

Gorputz-atal guztiak handituak zituen, eta zainen **dilatazioagatik** dena desitxuratua ikusten zuen. Askoren artean

Alpeetatik jaisten den udako haize beroak eragindako sapak, bat-batean badator behintzat, pertsonarik zuhurrena erotzerainoko **dilatazioa** eragin omen dezake neguko haize hotzak uzkurtutako burmuinetan. Anjel Lertxundi

Espazio bat betetzen duen **dilatazioak**, beroak esaterako. Ibon Uribarri

Izterren **dilatazio** hezeari so gelditu nintzen, halako miresmen atabiko batez. Karlos Linazasoro

Musika denboran da, eta gertatzen den gauza bakoitza bereganatzeko halako **dilatazio** bat behar du. Berria - Kultura

---

dildilika ik **dildilka**.

---

**dildilka** *(orobat **dildilika**)* *adlag* dardarka.

Begiak herts eta negar egiten dut opus 80 musika zati hartako pianoa **dildilka** dagoen gune beti berdinean, notak ez dakiela zutitzea ala erortzea den bere destinua. Berria

- Kultura
Barre etsia ezpainetan **dildilika** . Itxaro Borda

---

**dildo** *iz* kontsolagailua, zakilaren itxurako objektua.

**Dildo** beltza, infernu beltza! Paddy Rekalde

---

**dilema** *iz* era berean onak edo txarrak diren bi irtenbideren artean hautatu behar den egoera.

Apaizaren taldeko batek, altoa emanda, jaitsarazi zuen [...] gailur mistiko haietatik, epelak hartu edo gurekin etorri **dilema** soila aurkeztuz. Koro Navarro

Zuk agirian jarri duzu bidegabekeria bat, eta **dilema** latz baten aurrean ipini duzu jendea: isilik bazaude onartzen duzu abusua, onartzen ez baduzu hitz egin behar duzu. Koldo Biguri

Estatutuaren aurreko garaietan, eztabaida nagusietako bat erreformaren eta haustураren arteko **dilema** zen. Berria - Euskal Herria

Unibertsalaren eta partikularraren arteko dialektikan jarri izan ohi dira sarritan euskaldunena bezalako herri txikien **dilemak** . Joseba Zulaika

Ez dit **dilema** guztiz sakon eta neure-neurea erabakitzeko aukerarik eman: heroi naiz ala bilau? Anjel Lertxundi

Azken batean, merkatua bai edo merkatua ez, edo estatua bai edo estatua ez eta gisako **dilemak** , hein handi batean, faltsuak direla ikusi da. Iñaki Heras

**Dilema** garbia izan da: subiranotasuna eta boterea ez galtzeko, lehenik subiranotasuna eta boterea entregatu egin behar. Joseba Zulaika

Torturaren inguruan sortzen diren **dilema** moralak "klasikotzat" har ditzakegu etikaren alorrean. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dilema bat** (3); **dilema baten** (5); **dilema baten aurrean** (3); **dilema hau** (3)

---

**diletante 1** *iz* profesionala izan gabe, jarduera batean edo batzuetan aritzen den pertsona.

Banekien, ordea, liskarra ez zela mutur-joka bukatuko, bata bestearen aurka hitz egite hura bi **diletanteen** arteko esgrima-saio soila baitzen. Anjel Lertxundi

Poeta amateur- **diletantetzat** dut, beraz, neure burua. Joxerra Garzia

• **2** *izond* diletanteari dagokiona.

Ezagutzen ez bazuen ere, aurki eman zion buelta hain berea zuen jarrera **diletanteaz** . Anjel Lertxundi

---

**diletantismo 1** *iz* diletantea denaren nolakotsauna.

**Diletantismoak** horixe baitu bere alde: puntu-puntuan esaten ez den egiari oso zaila gertatzen zaio gero bere lekua hartzea. Anjel Lertxundi

Autokritika moduko bat egin duzu, **«diletantismoa** » aitortuz. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Emozioaren dardaraz baina oporraldi lasaian dabilenaren patxadaz, "omen" baten atzean babesturiko **diletantismo** -ikasleak. Xabier Mendiguren Elizegi

· Gizaje kalpardun hura, bere arrano-begiradarekin eta bere arte-, zientzia- eta literatura- **diletantismoarekin** -aisialdietan margolari, biolinista eta musikagile, eta guztiz aparteko jenio gailena-, ausardia handiko engainatzaile bat baizik ez zen. Josu Zabaleta

---

**diligentzia**[1] *(orobat **dilijentzia** g.er.)* *iz* bidaiarien garraioan erabiltzen zen zaldi orga handia.

Sei mandok tiratutako **diligentziari** . Koldo Izagirre

Lau **diligentzia** pasatzen ziren handik egunero, eta nire ardura mandoei jaten eta edaten ematea zen, eta haiek garbitzea. Bernardo Atxaga

Andresek berokia jantzi eta **diligentziara** igo zen; errepide hautsez betean aurrerantz jo zuen. Josu Zabaleta

Hurrengo goizean, **diligentziak** bere bideari ekin zion ostera. Bernardo Atxaga

**Diligentziak** geldialdia egiten zuen bihurgunean. Jon Maia

**Dilijentzia** haiek sarrerako zubi altxagarria pasa eta, Plaza Zaharra gurutzatu orduko, Eskotilla kalean barrena jarraitzen gintzaizkien gu, korrika eta oihuka. Txillardegi

**Diligentzia** lauhazka zihoala maldan behera, sasian sartu zen idi izutu dohakabe bat. Koldo Izagirre

Eskolta ematen dio **diligentziari** . Koldo Izagirre

**Diligentziak** kudeatzen zituen, maltzurkerian eta ijitokerian ibiltzen zen beti. Koro Navarro

Gizondutakoan ez nintzela nekazaria izango agindu nion neure buruari, **diligentziako** nagusia izango nintzela, maiorala alegia. Bernardo Atxaga

Trenak bazterrean utziko zuela **diligentzia** , eta bazterrean utziko ninduela ni. Bernardo Atxaga

---

**diligentzia**[2] *iz* zuzemena, urratsa. ik **izapide; desmartxa.**

**Diligentzia** horiek denak egin gabe erabaki zuen epaileak, birritan, torturengatik polizien kontra jarritako salaketa artxibatzea. Berria - Euskal Herria

Hor dago Stephen Lawrence gaztearen kasuan gertatutakoa, labankadaz hil zutenak zigorrik gabe utzi zituen epaimahaiak, Poliziak egindako **diligentzia** nahasien ondorioz. Berria - Kultura

Epaitegiak, gainera, solidarioek salatu zituzten tratu txarren inguruko **diligentziak** zabaldu zituen. Edurne Elizondo

Donostiako Auzitegiko Fiskaltzak Batasunaren belodromoko ekitaldiaren harira irekitako **diligentzien** ondoren erabaki zuela kereila jartzea. Berria - Euskal Herria

EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakari zen Manuel Maria Zorrillak bi aldiz erabaki zuen **diligentziak** artxibatzea, kereilaren funtsak ez zuela delitu zantzurik argudiatuta. Berria - Euskal Herria

**Diligentziak** urteetan sekretupean egon dira. Berria - Euskal Herria

**Diligentzia** horietan, besteak beste, EHAK-ko presidentea, diruzaina, idazkaria eta prentsa arduraduna daude auzipetuak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diligentzia horiek** (7); **diligentziak irekitzeko** (3); **diligentziak zabaldu** (3); **egin beharreko diligentziak** (3); **eta diligentziak** (3); **kontrako diligentziak** (3)

---

dilijentzia ik **diligentzia**[1].

---

## dilin 1 *iz* kanpai edo kideko baten hotsa.

Ezkila txiki baten **dilina** gero eta hurbilago. Lopez de Arana

Musika kutsua zuten **dilinak**. Jon Muñoz

**Dilin** egin zuten. Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan)

**Dilin**-hots apal batzuek baizik ez zuten urratzen haien isiltasuna. Jon Muñoz

Baporea kostatik urrun zegoela, kanpai baten **dilin**-hotsa entzun zen. · Arauzko tenorean, azken kanpai **dilina** jo, amarrak askatu, *steam-boat*aren gurpil indartsuek bere pala artikulatuez ura astintzen hasi, eta *Kaukaso* lurrun ontzia bizkor-bizkor lerratu zen Nijni Novgorod osatzen duten bi hirien artetik. Jon Muñoz

**3** ***dilin-dalan**sup_1 adlag* kanpai hotsaren onometopeia.

**Dilin-dalan** aditzen zen ezkil hotsa dorrean. Xabier Olarra

Alegerago jarri nintzen hiriko kanpai guztiak baterat jotzen hasi zirenean, **dilin-dalan**, **dilin-dalan**, haiek ere ene libertate sorberria ospatu nahi balute bezala. Joan Mari Irigoien

**4** (izen gisa)

Pixka bat astintzea nahikoa izan zen egongelako guztiek haren **dilin-dalan** sarkorraren soinua entzuteko. Aitor Arana

**5** ***dilin-dalan**sup_2 adlag* dilindan.

Gero, lasai ostera bat egin zuen orubean zehar, linterna **dilin**-dalan zerabilela. Lopez de Arana

**6** (izen gisa)

Pareta jo eta kabletik zintzilik gelditu zen, **dilin-dalan** eroan, bere baitatik ateratako horma-erlojuaren pendulua balitz bezala. Aingeru Epaltza

---

## dilinbi-dalanba *adlag* kulunkatzen.

Polizia bat igaro zen handik, porra **dilinbi**-dalanba zerabilela. Lopez de Arana

---

## dilinda 1 *iz* kulunka.

Historia bi poloren arteko **dilinda** gisa harturik: "abstrakzioaren" poloa alde batetik, estilo zehatza inorganikoa duena, [...] eta *Einfühlung* poloa bestetik, naturalismoarena, [...] joera eta xede indibidualak mamitzen dituena. Josu Zabaleta

Egoera prosaiko batean murgildua nago oraindik, ibili arau erdi lo, besoak halako **dilinda** malin batean ari eta ari. Piarres Aintziart

• **2** *adlag* zinzilik.

Malkoak **dilinda** zeuzkan. Itxaro Borda

**3** ***dilindan** adlag* zintzilik.

Belarritako luzeak **dilindan** eta zapatillak zangoetan. Aingeru Epaltza

Jarririk nago, besoak **dilindan**. Monika Etxebarria

Aho zabalik, ezpaina **dilindan** hurreratu zen dendara. Patxi Zubizarreta

Hura urkabean ikustea desiratu zuen, mihia **dilindan**, begiak hobietan ateratzeko zorian. Patxi Zubizarreta

Usoak **dilindan** zeuden zetazko zapiak bezala. Karlos Zabala

Begien aurrean **dilindan** nuen kinkearen argia da oroitzen dudan azken gauza. Harkaitz Cano

Plastikozko sokatik **dilindan** ziren ohe estalkiak hartu zituen mutikoak. Aurelia Arkotxa

Denen aitzindari, gure argazkilari Patxiren mototsa, bizpahiru kamera lepotik **dilindan**. Herriko etxean, balkoitik **dilindan** nik dakita zenbat bandera, frantsesa, nafarra eta euskal ikurriña barne. Aingeru Epaltza

Theok paltoa estekatu zuen, papoan **dilindan** zerabilen LAPDko sherif plaka, oihal zuri zatiaz kukutzen entseatu zela. Itxaro Borda

· Apaleko folioa txerta-lekutik askatu, eta **airean dilindan** erori da, udazkenean orbela erortzen den gisan. Joxerra Garzia

Titiak **dilindan** zebilzkion, norbait popatik ematen ari baitzitzaion txakurka zegoelarik. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **airean dilindan** (4); **belarrietatik dilindan** (3); **besoak dilindan** (8); **besotik dilindan** (3); **dilindan ezarri** (4); **dilindan gelditu** (3); **dilindan ibiltzeko** (3); **dilindan ikusi** (3); **dilindan utzi** (5); **dilindan zegoen** (7); **dilindan zeraman** (4); **dilindan zeuden** (6); **dilindan zituen** (4); **lepotik dilindan** (15); **sabaitik dilindan** (3); **soka batetik dilindan** (3); **sokatik dilindan** (6); **zuhaitzen gainean dilindan** (3)

---

## dilindaka *adlag* dilindan, zintzilik.

Haizeak pailaka makabroan **dilindaka** erabiliko zituen gorpuak ikusteko ustea ote nekarren? Koldo Izagirre

Zaldun haien arterat egin nuen bat-batean, paparretik **dilindaka** nuen erlikiontzi iduriko hura eskuan. Joan Mari Irigoien

---

## dilindari *izond* dilindan dagoena.

Betea eta zurbila zuen aurpegia, eta bere belarrietako gingila lodi **dilindarietan** eta sudur-hegal zabaletan soilik kolore ukitu bat. Irene Aldasoro

Ez zitzaidan ahozko ihardespenik gogoratu: bizkarra erakutsi eta entzungailu **dilindariari** kontu nion. Aingeru Epaltza

Ana Morena ez zen gehiegitxo kexatu, oro galdua duenaren etsipenarekin askatu zuen bularretako bikoitza, eta airean utzi zituen lau bular **dilindariak**, tilin eta talan, denbora luzez. Karlos Linazasoro

---

## dilindatu, dilinda, dilindatzen 1 da *ad* dilindan egon.

Gogoan daukat artaburu heldu ederrak **dilindatzen** ziren ene leihoa. Koldo Izagirre

Haren paparoan gurutzea **dilindatzen** zen eta horrek salatzen Erromako Elizarekiko menekotasuna. Aingeru Epaltza

Maddi apezaren lepotik **dilindatu** zen. Itxaro Borda

• **2** du *ad* kulunkatu.

Aldirietako azken kaleetaraino iritsi eta haizeak balantza eztian **dilindatzen** zituen zuhaitz soildu batzuk ikusi nituen. Joxan Elosegi

**3** zintzilikatu.

Ikasgelaren murru batean **dilindatuak** zituen nik egin marrazki zenbait, batean behi pare bat uztarturik goldea tiratzen zutela. Piarres Aintziart

**4** (era burutua izenondo gisa)

Kulunka egiten dute arropek, sareek, soka bilduek, esponjek, zurezko kaiolan dagoen perikitoak eta krabelin gorriz beteriko lorontzi **dilindatuek**. Koldo Izagirre

## dilingan *adlag* dilindan.

Berehala garbiketak, xuriketak, hauek aterpearen barnean **dilingan** ezarriz, jada arribatuak diren erromesen jantzien ondoan, eta jo kanpora. Piarres Aintziart

---

## dilingo 1 *adlag* dilindan, zintzilik.

Papera ezpain izkinan **dilingo** atxikitzen zuen, ezker eskuaz eskuineko ahurrean tabakoa abar fin moldatzen zuela. Itxaro Borda

Zuhaitz aldaxkaren puntan **dilingo** zegokeen hosto idor herbal bat zela zirudion. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Orain gelditzen da zinez **dilingo** Santa Gurutzeko elkartetxeko beste hamaika langilen geroa. Herria

Antolabiderik ez bada ezagun, eskolek dei eginen diote auzitegiko adituari, sobera denbora huntan gauzak **dilingo** daudela. Herria

---

## dilingotu, dilingo, dilingotzen da *ad* dilindatu.

Eskolako lagun ankerrek Zazpietan txikienari, zizare lekedatsua lepo ondoan pausatu zioteneko aberearen lerrakoaz eta sukalde zolapean **dilingotu** soka eratxikorrean harrapatu ulu tristearen azken burrunbaz oroitzen gara bereziki. Itxaro Borda

Hargatik, zioen, estatuak nahiago du beti hil ondoan *légion d'honneur* bat **dilingotu** zerbitzari leial baten hilkutxaren gaineko oihalean, bizirik deino hura zaindu baino. Itxaro Borda

---

## dilista *(orobat **txilista** g.er.)* 1 *iz* belar landarea, bi hazi biribil dituzten lekak ematen dituena*(Lens culinaria)*.

Noiz jango ote ditut berriro **dilistak**? Patxi Zubizarreta

-Ez daukat ezer berezirik, **dilistak** hirugiharrearekin eta antxoak, gustu baduzu! Pako Aristi

Legatza eta **dilistak** hozkailuan gorde ditut. Sonia Gonzalez

Janaria txarra zen: ur zikina **dilista** apur batzuekin. Berria - Harian

Orduan, eman zizkion Jakobek anaiari ogia eta platerkada **dilista**. Elizen arteko biblia

Ozta-ozta igartzen dira **dilistaren** neurriko argi-iturri bana mutilaren ninietan. Edorta Jimenez

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazen han **dilista**-sail bat. Elizen arteko biblia

**Dilista**-ale bat ematen du eta! Anjel Lertxundi

Jabearen iritzian erabateko desohorea zen bere jatetxearentzat babarrun- edo **dilista**-plater bat ateratzea. Josu Zabaleta

Ugaztunen **dilista**-tankerako begia, gurea, eta intsektuen abaraska-tankerako begia, euliarena. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, irud/hed)

Burdinazko **txilista**-xaflatxo distiratsuz apaindutako jaka du eta zetazko turbantea. Gotzon Garate

**4** ***ur dilista*** *Lemnaceae* familiako familiako belar landarea, ur geldietan hazten dena eta dilistaren antza duena*(Lemna* sp.*)*.

Defentsarako mekanismo bat garatu du **ur dilistak**, osagai kutsakorretatik babesteko. Berria - Gaiak

Ibai geldoetan hazten den landare bat da *Lemna Minor* **ur dilista**. Berria - Gaiak

**Ur dilistak** biltegi funtzioa betetzen duela esan zuen hark, eta haiei erreparatzea besterik ez dagoela uretara iristen diren osagai toxikoez jabetzeko. Berria - Gaiak

Klorinatoak, fluorinatoak, kloro-fluoratuak eta beste zenbait substantzia kimiko xurgatzen ditu *Lemna Minor* **ur dilistak**. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dilista tankerako** (4); **dilistak eta** (3); **minor ur dilista** (4); **ur dilista** (4); **ur dilistak** (4)

---

## dilistazale *izond* dilisten zalea dena.

Uso **dilistazaleak**, uso goraipatuak, omenduak eta sarituak. Hasier Etxeberria

Egia esatera, **dilistazalea** zen, baina ongitxo zekien hura pobreen jakia zela, eta haien mahaien seinalea. Patxi Zubizarreta

---

## dilubio *iz* uholde handia.

**Dilubioaren** ate guztiak lur gainean eta lurreko uren gainean ireki zirenean, [...]. Jon Alonso

Azazkal berritzea, narrastien larru berritzea bezala, gu izaki **dilubioaz** aurrekoekin lotzen gaituen aztarna bat da. Iñaki Iñurrieta

Hala, alegien garaian, uholde eta **dilubioen** ondoren, gizon armatuak irten ziren lurretik, eta elkar suntsitu zuten. Iñaki Iñurrieta

---

## diluitu, diluitu, diluitzen 1 da/du *ad* soluzio baten kontzentrazioak behera egin.

Hartara, mantendu egiten da gorputzeko ur kantitatea, eta odola **diluitzeko** eta hura berriro kontzentrazio normalera bihurtzeko erabiltzen da handik aurrera gorputzeratzen den fluidoa. Irene Aldasoro

Larruazalak urari nolanahi pasatzen utziko balio, beste mintz askok bezala, bainuontzian puzteko arriskua genuke, ura larruazaletik barrura odola **diluitzera** sartu ahala. Irene Aldasoro

Grezieraz, edo demotikoz [...], tinta horia mirra-uretan **diluituz** idatziak! Jon Muñoz

**2** irud/hed

Bere ahotsari nolabaiteko narritadura itoa adierazten utzi zion lehen aldiz, nahiz eta nolabait baketsua zen tonu batean **diluitu** zuen. Jon Alonso

Justu-justu jaio zen helenismoan hezia izateko garaian, Mendebaldearen Goiz Aro Modernoko "Berpizkunde" oraindik **diluitu** gabeari zegokion heziketan, alegia. Iñaki Mendiguren

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ekuazioa xuxen betetzen zen soluzio **diluituetan**. Juan Garzia

Prozesu garrantzitsu asko ez lirateke gertatuko ura eta beste substantzia batzuk igaroko ez balira soluzio **diluitu** bat eta soluzio kontzentratu bat bereizten dituen mintz batetik. Irene Aldasoro

Arazo bera dute arrainek, haien odola ere, gurea bezala, itsasoko ura baino askoz **diluituagoa** baita. Irene Aldasoro

---

dimatar ik **dimoztar**.

---

**dimentsio** 1 *iz* espazioan gauzen tamaina kalkulatzeko erabiltzen diren magnitudeetako bakoitza.

Hiru **dimentsio** horiek aise uler daitezke intuizioz, oinarritzat gure gorputza eta gorputzak espazioan duen kokaera harturik: bertikala [...] grabitatearen eta zutiko egoeraren noranzkoa da; bigarren **dimentsioa**, horizontala, sorbalda-lerroa izango litzateke, gure aurrean dugun ikusmugaren paraleloa; hirugarren **dimentsioa** sakontasunarena da, hortaz, gorputza espazioan aurreratuz doan noranzkoa. Josu Zabaleta

Ziape garauak eta izarren esferak, biek hiru **dimentsio** dituztelako, elkarren antza dute, azken hori izugarri handia eta bestea guztiz ttikia izan arren, **dimentsioen** existentziaren ideia berbera dutelako bietan. Xabier Kintana

Ikusmenezko espazioaren arazoa, izan ere, sakontasuna atzematearena baita gehienbat, beste bi **dimentsioak** zuzenago, anbiguotasun gutxiagorekin atzematen baitira. Josu Zabaleta

Ezin igaro daiteke hiru **dimentsiotako** eszena batetik bi **dimentsioko** irudi batera informaziorik batere galdu gabe. Josu Zabaleta

Unibertsoa lau **dimentsioko** sarea da: hiru **dimentsio** espaziokoak dira, eta bestea denbora. Berria - Harian

Ikuspegi historikoak kosmos fisikoaren mugimendu zentrifugoa erakusten digu espazio-denboraren lau **dimentsioko** markoan. Iñaki Mendiguren

Bere herriaren hiru **dimentsioko** maketa izugarri zehatza zuen, nonbait, Magnanik buruan. Xabier Olarra

Bi bideo ere baditu eginik, bigarrena hiru **dimentsiotan** landua. Herria

Hiru **dimentsiotan** jira-biran dabiltzanean elkarrengandik nahiko aparte dauden molekulak hurbildu egiten dira gainazal batek adsorbitzen dituenean. Irene Aldasoro

Laugarren **dimentsioko** lekuren batean finkatuta geratu da iraganeko irudi bat, eta une hartantxe iritsi zitzaizun. Koro Navarro

Laugarren **dimentsioan** barrena ote nenbilen ba?! Jesus Mari Mendizabal

**2** irud/hed

Krisiaren bigarren **dimentsioa** finantzen alorrekoa da gehiago. Koro Navarro

Finantza-zabalkundearen, truke-tasen egonkortasunaren eta diru-politikaren autonomiaren arteko hiru **dimentsioko** arbitraje honen baldintzak. **Dimentsio** bat da edozein formulazio enuntziatu gisara ezaugarritzen duena. Koro Navarro

Eraketa diskurtsiboa deskribatzea bere **dimentsio** guztietan eta bere ezaugarriak kontuan izanda. Xabier Arregi

Diskurtsoen deskribapen arkeologikoa historia orokor baten **dimentsioan** zabaltzen da. Xabier Arregi

Garai hartan, zorionezko eta lilurazko aldi bat bizi izan nuen berriro, aurrekoaren aldean oso bestelakoa, beste **dimentsio** batekoa. Juan Kruz Igerabide

Talde ekintzari loturiko **dimentsio** politikoa. Iñigo Aranbarri

Zientziaren **dimentsio** kontestuala. Askoren artean

**Dimentsio** sozial eta ekonomikoak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Oteizaren **dimentsio** guztiak bilduko zituen erakusketa. Berria - Kultura

Erabatekoa duk haien eta nire arteko inkomunikazioa, haiek beste **dimentsio** batean daudelako, autobidearen **dimentsioan**. Juan Luis Zabala

**3** tamaina; gorabehera.

Bai -baieztatu zuen Ruche jaunak-, berdinak dira, **dimentsioan** izan ezik. Jon Muñoz

Gertaera lazgarri eta **dimentsio** handiko ezbeharretarako. Harkaitz Cano

Gure enpresen batez besteko **dimentsioa**. Iñaki Heras

Finantzen **dimentsioak** eginkizun bereziki garrantzitsua betetzen du hemen. Koro Navarro

Garai horretan eratu ziren [...] industria eta finantza-talde handiak [...] nazioarteko **dimentsioa** hartu zuten (Siemens, Nestlé, Saint-Gobain, Ericsson, Westinghouse, Kodak...). Koro Navarro

Ikusmolde honetatik, oso bestelako **dimentsioa** hartzen du enpresa multinazionalen jardueren eskualde-polarizazioaren fenomenoak. Koro Navarro

Izan ere, giza eraikuntzetan, halabeharrik ez badago, atalen **dimentsio** ezberdinak ikusmenari min egiten dio, nolabait. Imanol Unzurrunzaga

Denboraren iraganak bere **dimentsio** osoa hartzen du bakartasun eremu horietan. Filipe Bidart

Asisko Frantziskoren eta Che Guevararen **dimentsioak** elkarrekin lotzen ikasi behar dugu, subjektibotasunaren eta objektibotasunaren **dimentsioak** ados jartzen. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erlijioaren historiak unitarioa eta progresiboa dirudi, zibilizazioen historien aniztasun eta errepikakortasunaren kontrastez; eta denbora-**dimentsioko** kontraste hau espazio-**dimentsioan** ere agertzen da. Iñaki Mendiguren

Horrek ez du esan nahi bertsolarien arte-**dimentsioa** adibidez, eliza, parlamentu edo epaitegietako oratoriarena baino handiagoa denik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gaixotasunak gizarte **dimentsioa** hartu du. Xabier Arregi

Bigarren arrazoiak enpresaren barne eta kanpo **dimentsioaren** arteko erlazioarekin du zerikusia. Iñaki Heras

Genero **dimentsioa** gatazken konponbidean. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bere dimentsio** (6); **beste dimentsio** (33); **beste dimentsio bat** (16); **beste dimentsio batean** (7); **bi dimentsio** (9); **da dimentsio** (3); **dimentsio bakar batean** (4); **dimentsio bat** (22); **dimentsio bat eman** (3); **dimentsio bat ematen** (3); **dimentsio bat hartzen** (5); **dimentsio batean** (8); **dimentsio berri** (5); **dimentsio berri bat** (4); **dimentsio berria** (4); **dimentsio horiek** (5); **dimentsio osoan** (4); **dimentsio politikoa** (5); **dimentsio sozial** (4); **dimentsio soziala** (6); **dimentsioa ez** (3); **dimentsioa hartu** (4); **dimentsioa izango** (3); **espazio dimentsioan** (3); **espaziozko dimentsioa** (3); **eta dimentsio** (7); **gatazkak nazioarteko dimentsioa** (5); **genero dimentsioa** (3); **hiru dimentsio** (10); **hirugarren dimentsioa** (3); **horren dimentsio** (4); **laugarren dimentsioan** (3); **nazioarteko dimentsioa** (8)
>
> **bi dimentsioko** (10); **bi dimentsiotako** (5); **dimentsioko espazioan** (3); **dimentsioko irudi** (4); **dimentsiotako irudiak** (3); **eta hiru dimentsioko** (5); **hiru dimentsioko** (31); **hiru dimentsioko espazioan** (3); **hiru dimentsiotako** (17); **hiru dimentsiotako irudiak** (3); **hiru dimentsiotan** (15)

---

**dimentsiodun** *izond* dimentsiokoa.

Telebistan agertzen diren pinguino, lehoi, ñu eta gainerako bi **dimentsiodun** interesgarriak. Edorta Agirre

---

**dimentsiozkotasun** *iz* bi dimentsioko izateko nolakotasuna.

Badirudi, esate baterako, haurrek ez dutela, 3 urte inguru arte, irudien bi **dimentsiozkotasuna** ongi atzematen, eta irudi horiek eragiten dizkieten erretinako proiekzioak objektu errealek eraginak balira bezala tratatzeko joera dutela. Josu Zabaleta

---

**dimetil**

**1** ***dimetil eter***

Hiruzpalau urtetan **dimetil** eterra (DME) izango dugu, kamioientzat. Berria - Harian

---

**dimetilglioxima** *(corpusean* ***dimetilgloxima*** *eta* ***dimetilgliosima****)* *iz* gai kimiko konposatua $CH_3C(NOH)C(NOH)CH_3$ formulakoa.

Azido fluorhidrikoz eraso, horra burdinarekin amoniakoa, horra nikelarekin [...] **dimetilgloxima**, horra magnesioarekin fosfatoa, beti berdin, egun santu guztietan: berez, ez zen oso kilikagarria. Juan Garzia

Goizaldeko hirurak jota, hona emaitza: lehengo nikel-**dimetilgloximazko** lainotxo gorrixka barik, prezipitatu nabariki oparo bat. Juan Garzia

---

**diminuendo** *iz* musikan, hots intentsitatearen behera egite progresiboa.

Victoria eskua telefonora luzatzen, ni neu deia jasotzen, Pavanaren crescendo laburra **diminuendo** gero, eta pianoagoan ahitzen -"zoragarria iruditu zait", berak-, ostera sakonago lokartzeko. Ramon Saizarbitoria

---

**diminutibo** *iz* hitzez mintzatuz, txikigarria.

**Diminutiboa** erabiltzeko eskubidea gailegoek bakarrik izan behar lukete; gazteleraz ez du funtzionatzen, eta euskaraz tripako mina ematen du, eta ondoren goragalea. Pako Aristi

Hitza bere **diminutiboarekin** pasatu zen frantsesera. "'n saròd", plural maiestatikoa, jadanik ez hala ulertua [...]; badu beste aldaera bat, "sarôdín" **diminutibo** jostakina. Aurelia Arkotxa

---

**dimisio** *(orobat* ***demisio*** *g.er.,* ***demisione*** *g.er. eta* ***dimisione*** *g.er.)* **1** *iz* agintea edo kargua uztea.

Madrilek 1870ean izendatutako Diputazio "anti-foralaren" **dimisio** orokorra, eta ordezkoren baten ezarpena segurtatzea. Txillardegi

Zuzendarien **dimisioak** soilik emango lioke «sinesgarritasun puntu bat» asteazkeneko bilerari. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere hiru puntuko adierazpena kaleratu zuen, Suduperen **dimisioa** dela eta. Berria - Euskal Herria

Atzo, berriz, **dimisioekin** kezkatuta agertu zen Frantziako lehen ministroa. Berria - Gaiak

Baina orain **dimisio** gehiago etor litezke. Berria - Ekonomia

Presidente ohiak «bahiketa politikoa» salatu eta ez zela **dimisio** formalik egon zehaztu zuen. Berria - Mundua

Aurreko hautatzaile Iñaki Saezek **dimisio** ezeztaezina aurkeztu du. Berria - Kirola

Ekainaren 25ean jakinarazi bazuten ere, atzo aurkeztu zuen Athleticeko Zuzendaritzak **dimisio** ofiziala. Berria - Kirola

**2** (aditzen objektu gisa)

Etikarik gabeko portaera honek krisi larria eragin zuen NYT kazetan [...]: bost goi arduradunek **dimisioa** eman zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Udaberrian, herritik alde egin eta bere kargutik **dimisioa** ematea erabaki zuen. Josu Zabaleta

Alderdi Popularrak **dimisioa** emateko esan dio Alonsori, «egindako gestio txarragatik». Berria - Harian

Bidezkoena izango zen **dimisioa** aurkeztea. Joxan Elosegi

**Dimisioa** aurkeztu zuen Britainia Handiko Barne Ministerioan bertan, ez baitzegoen batere ados egiten zuen lanaren ordainetan ematen zioten soldatarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horixe dio Ernst Weltekek, Bundesbankeko lehendakariak, bere **dimisioa** azaltzeko idatzi duen gutunean. Berria - Ekonomia

Villepinek **dimisioa** baztertu du, «bidegabeki akusatuta» delakotz. Berria - Harian

Alkatearen **dimisioa** eskatu zuten askok, gerra behar bezala egin beharrean bigunkerian eta txibierro frijituak ardao zuriarekin jaten ematen zuelako denbora. Joseba Sarrionandia

Azpildarrek alkatearen **dimisioa** eskatzeko eskubidea dute, haren jokabidearekin ados ez badaude. Berria - Harian

Nire **dimisioa** onartzeko modu benetan harrigarria iruditu zitzaidan. Joxan Elosegi

Bigarren iragarpen horrek ez du oraingoz **dimisiorik** eragin, bainan burtsan %3 jaitsi ziren berehala. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lula presidenteari helarazitako **dimisio** gutunean zera zioen Paloccik: [...]. Berria - Mundua

Halaber, Javier Balza Herrizaingo sailburuaren **dimisio** eskaera egiteko ezker abertzaleak erabilitako argudioak «gezurra» direla gaitzetsi du. Berria - Euskal Herria

**Dimisio** eskariak baztertu ditu Ariel Sharonek. Berria - Mundua

NASAko presidentearen **dimisio** eskaria onartu egin du Bushek. Berria - Gaiak

Lasak eta Rodríguezek halakorik egin ez badute ere, badago beren ibilbidean poesia idaztearekiko -ez poesiarekiko- halako **dimisio**-suerte bat. Anjel Lertxundi

-Nire bizitza **dimisio**-segida baten historia da. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alkatearen dimisioa** (5); **alkatearen dimisioa eskatzeko** (3); **annanen dimisioa eskatu** (3); **aurkeztu zuen dimisioa** (7); **aurretik dimisioa eman** (4); **barne ministroaren dimisioa** (3)

**dimisioa aurkeztea** (6); **dimisioa aurkezteko** (7); **dimisioa aurkezteko eskatu** (3); **dimisioa aurkeztera** (4); **dimisioa aurkeztu** (89); **dimisioa aurkeztu zion** (7); **dimisioa aurkeztu zuen** (32); **dimisioa aurkeztuko** (8); **dimisioa berretsi** (4); **dimisioa eman** (214); **dimisioa eman zion** (4); **dimisioa eman zuen** (68); **dimisioa emango** (25); **dimisioa ematea** (10); **dimisioa emateko** (30); **dimisioa emateko eskatu** (10); **dimisioa emateko prest** (4); **dimisioa ematen** (5); **dimisioa ematera** (9); **dimisioa eragin** (11); **dimisioa eskatu** (88); **dimisioa eskatu du** (24); **dimisioa eskatuko** (5); **dimisioa eskatzea** (5); **dimisioa eskatzeko** (25); **dimisioa eskatzeko eskubidea** (3); **dimisioa eskatzen** (13); **dimisioa galdegin** (4); **dimisioa onartu** (8); **dimisioa onartu zuen** (3); **dimisioa onartzeko** (4); **dimisioa onartzen** (3)

**diputatuaren dimisioa** (6); **diputatuaren dimisioa eskatu** (3); **eman zuen dimisioa** (12); **gobernuaren dimisioa** (3); **hautatzaileak dimisioa eman** (3); **herrizaingo sailburuaren dimisioa** (5); **idazkariaren dimisioa** (4); **iragarritako dimisioa** (3); **ministroak dimisioa eman** (9); **ministroaren dimisioa** (14); **ministroaren dimisioa eskatu** (6); **nagusiaren dimisioa** (4); **ongizate diputatuaren dimisioa** (3); **ordezkariek dimisioa eman** (3); **presidenteak dimisioa aurkeztu** (4); **presidenteak dimisioa eman** (4); **presidentearen dimisioa** (13); **presidentearen dimisioa eskatu** (5); **rumsfelden dimisioa eskatu** (3); **sailburuaren dimisioa** (5); **zinegotziaren dimisioa** (3); **zuzendariak dimisioa eman** (5)

**bere demisionea eman** (9); **bere demisionea emana** (3); **demisioa eman** (5); **demisioa eman du** (3); **demisionea eman** (15); **demisionea eman du** (7)

---

dimisione ik **dimisio**.

---

**dimitiarazi**, dimitiaraz, dimitiarazten *(orobat* ***dimitituarazi****)* du *ad* dimititzera behartu.

Hori dela eta, baztertuta zegoela iritzi zioten hainbat adituk Rumsfeldi **dimitiarazi** egingo ziotela espekulatzen zuten askok. Berria - Mundua

Martxoko Iraultzaren metxa, Nikolas II.ari **dimitiarazi** zion matxinada. Koldo Izagirre

-Ez, benetan diotsut, dimisioa aurkeztu nuen niri **dimitituarazi** baino lehen. Lopez de Arana

---

**dimititu**, dimiti, dimititzen *(orobat* ***demetitu*** *g.er.)* **1** du *ad* dimisioa eman, dimisioa aurkeztu.

Anartean, [...] Jauat Jazem al Kuraishik bere kargutik **dimititu** zuen atzo, «soldadu estatubatuarren basakeriak» salatzeko gisan. hauteskundeak ez badira normaltasunez egiten ahal, nire kargutik **dimitituko** dut. Berria - Mundua

Ez al du Ibarretxeren gobernuak krisi ikara txiki bat ere ezagutuko? ez al du inork **dimitituko**? Hasier Etxeberria

Lularen eskuineko eskuak ez du **dimititzeko** asmorik. Berria - Mundua

Demokratikoa balitz Gobernuak **dimititu** egingo lukeela uste du Eak. Berria - Euskal Herria

Oraindik ikusten dut neure burua, Mercierrekin, Pétrou aferaren ondorioz aurreko urtean **dimititu** zuen funtzionario frantses harekin, haren bulegoan. Monika Etxebarria

Saint-Justek zioen aski dela tronuan iraute hutsa, berehala **dimititu** eta monarkia bera desegin gabe, edonor izan dadin gillotinaren merezient. Markos Zapiain

**2** (era burutua izenondo gisa)

Orain, ordea, Aralar ildokoek, LABeko kritikoek, Iparraldean zerrendak osatu ezinik dabiltzanek, zinegotzi **dimitituek**... jada ez dute Tximinorik ikusi nahi. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batek dimititu** (6); **dimititu du** (3); **dimititu egin** (22); **dimititu egin behar** (3); **dimititu egin du** (3); **dimititu egin zuen** (7); **dimititu egingo** (4); **dimititu eta** (5); **dimititu zuen** (13); **dimititzeko eskatu** (3); **dimititzera behartu** (3); **gobernuak dimititu** (3); **presidenteak dimititu** (3)

---

## dimitituarazi ik **dimitiarazi**.

---

## **dimorfismo** *iz* landare eta animalietan, bi forma desberdin agertzeko nolakotasuna.

Haien **dimorfismoagatik** da hori. **Dimorfismoa** edo ez, badira arrak eta emeak, ezta?

---

## **dimoztar** *(orobat **dimatar**)* *izlag/iz* Dimakoa, Dimari dagokiona; Dimako biztanlea.

Hala adierazi zion Berriari Andoni Garaik, han egondako **dimoztarrak**, etxera bidean autobusean zihoala. Berria - Euskal Herria

Oraingoz, **dimoztarra** da bere postua galdu ez duen jokalari bakarra. Berria - Kirola

**Dimoztarrak** ere buruan hartutako kolpe baten ondorioz utzi behar izan zuen zelaia. Berria - Kirola

Atzelari indartsua, azkarra eta zintzoa da **dimatarra**, baloia jokatzeko orduan hobetu behar du. Berria - Kirola

---

## ***din-dan*** *adlag* kanpaien hotsen onomatopeia. ik **dindan**.

Baina, erlojaria ez zenez, uraren bidez neurtzen zituen osabak dindanak -bere dindanak, alegia, zeren eta, bertzenaz, mila dindan suerte izan baitzitezkeen, batzuk **din-dan** eta bertzeak diiiiiin-daaaaaan, haiek laburragoak eta hauek luzeagoak-, erabiliz. Joan Mari Irigoien

Eta ene bihotza ere bertze kanpai bat zen jada, bertzeekin batean jotzen ari zena, **din-dan**, **din-dan**, ene alegrantzia eta ene bizipoza adierazi nahi ziona mundu osoari. Joan Mari Irigoien

· **-Din-dan**, balendan, urkatu, urkatu, urkatu! -hasi zen aita haur moduan imintzioka Anjel Lertxundi

---

## **dina** **1** *part* adina, bezainbat. (-tzeko-ren eskuinean)

Uste baitu hura dela tamainako etsaia, bere neurriko etsaia, bere indarrak probatzeko **dina** den etsaia, eta harekin nahi baitu ikasi zer den beldurra sentitzea. Iñaki Segurola

Elgetako atzelariari torneo batean sartzeko aukera eman diote, eta atzokoan bertan egoteko **dina** badela erakutsi zuen. Berria - Kirola

Hona hemen gu zure aurrean, geure erru eta guzti, zure aurrera aurkezteko **dina** ez bagara ere. Elizen arteko biblia

Bera ez zen izan erregetzarako gai, ezta ezpata legendarioaren jabe izateko **dina** ere. Joanes Urkixo

Eta opari horiek hartzeko **dina** agertu behar zuen. Fernando Rey

Nobeletan izan ohi da bataren kemena bestearen bihotza bereganatzeko **dina**; baina ni, nobelen egian ez sinesteaz gain, ez nintzen sentitzen zuretzako duina. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (-en atzizkiaren eskuinean)

Ezereza, izen baten **dina** egiten den momentutik, izatearen ohantzean etzaten da. Iñaki Segurola

Kanpora ateraraazten ditu, eta paper-biltzaileek ematen diotenarekin kafearen **dina** egiten omen du. Koldo Izagirre

Benetan luze genuen uda, urtaro oso baten **dina**! Xabier Olarra

Zorioneko aroa eta zoriontsua ehun-urtea, nire ekintza famatuak argitara direnekoa, brontzezko irudien **dina** izanik edo marmol-harritan zizelaturik, nahiz oholetan pintaturik, geroko gerorako oroigarritzat! Patxi Ezkiaga

• **3** *-en **dina*** -en duina.

Bere auzo deabruaren gaiztakerietatik babesteko, San Migelek bere kabuz jaso zuen, itsasoaren erdian, goiaingeru baten **dina** izango zen egoitza hau. Josu Zabaleta

Neskatxa kortejatzera datorren mutila, ez dela alegia haren **dina**. Patziku Perurena

**4** *-en **dinako** izlag*

Horra nire erasoaren xedea; horra nire **dinako** etsaia; horra erdietsi nahi dudan jomuga. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten dina** (3); **dina polizia** (3); **eta dina** (6)

---

## dinako ik **dina 4**.

---

## **dinamika** **1** *iz* mekanikaren adarra, higidura aztertzen duena sortzen duten indarren ikuspegitik.

Hemen oharrarazi behar da ez ditudala begi-aurrean kasu batean Matematikaren oinarri-esakuneak, ezta bestean **Dinamika** (fisiko) orokorraren oinarri-esakuneak ere. Ibon Uribarri

**2** elkarri loturik dauden egitate edo gertakarien segida.

**Dinamika** eta lastertasun desberdinak gorabehera, bat eta bera izan behar duela norabidea Edukia ez ezik, bertso-saioen **dinamika** ere aldatu egiten da: ariketa bitxiagoak, bihurriagoak asmatzen dira, bertsogintza gero eta korapilatsuago, gero eta zailago eginez. Koldo Zuazo

Merkatuaren **dinamikaren** parte handi bat esku-hartze publikoek egituratzen zuten sistemaren aldi berekoa da. Koro Navarro

Erreakzio keynestarrak beste bide batetik eraman nahi izan zuen metaketaren **dinamika**. Koro Navarro

Orduan, anaia guztiei [...] eskatzen zitzaien beren testigantza, anaiartearen betidaniko egitura demokratikoaren haritik; orain, ordea, **dinamika** goitik beherakoa da. Askoren artean

Obra hidrauliko handien atzean dauden interesek sortzen duten **dinamika** apurtzea oso zaila dela. Edurne Elizondo

Maskarada bat da muntatu 1999an Idauze-Mendin, eta **dinamika** hortaz baliatuz, hara pastorala berri bati lotu direla ere. Herria

Sindikatu alemaniarrak **dinamika** horretan eror ez daitezen animatzen ditu ELAk. Berria - Ekonomia

**3** (izenondoekin)

Solidarioen ekimenak, ordea, **dinamika** berri bat ekarri zion 1995. urte hasieran borrokari. Edurne Elizondo

Ordena **dinamika** berrian sartua zegoen, eta ez ziren falta hasierako memoriaren eta norabide berrien arteko tirabirak. Askoren artean

Globalizazioa, beraz, **dinamika** luze batean kokatzen da. Koro Navarro

Bestalde, alderdi abertzaleek sortu dute **dinamika** iraunkor bat Abertzaleen Batasuna plataformaren inguruan. Herria

Munduko ekonomia osatzen duten parteek gero eta elkarrekin txertatuago daude, eta txertatze horrek bere **dinamika** berezia ematen dio munduko ekonomiari, estatuen kontroletik gero eta urrunago dagoen **dinamika**. Iñaki Heras

Egoera berri horrek **dinamika** indartsu bat sortarazten du Iparraldean: herri guzietan, sustengu komite batzu sortzen dira, Xanen kasua esplikatzeko. Herria

Gaur egun, islamismoaren baitan **dinamika** demokratizatzaileak eta **dinamika** erradikalizatzaileak bereizi behar dira. Berria - Mundua

Gure egintzen bidez, Xiberoako kultura saileko **dinamika** sortzailean sartu nahi dugu. Herria

Edukiak interesatzen zaizkigu ororen gainetik, eta **dinamika** parte-hartzaileak sustatu gura ditugu langileen artean. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hasieran egun bateko lanuzteak egin zituzten, baina duela 19 egun greba **dinamika** indartzea erabaki zuten. Berria - Ekonomia

Lan **dinamikaren** muina elkarlana izan da. Berria - Harian

Ratzingerren eta Martiniren arteko bloke **dinamika** hausteko, beste hautagai baten inguruan negoziatu beharko dutela espero dute adituek. fidagarritasunaren eredu diren talde- **dinamikak**. Berria - Harian

Itxuraz hazkunde- **dinamika** oso sendoa duten herriek [...] ez dute zalantzarik egin nazioarteko zuzeneko inbertsioak oso kontrol zorrotz baten pean jartzeko. Koro Navarro

Kontrol sozialaren zilegitasunaren alde egiteko erabili izan den estrategia orokorra prozesu sozialak zientziaren eta teknologiaren eraketa- **dinamikan** bertan txertatzen direla erakustea izan da. Askoren artean

Ipar Amerikan eta Britainiar Inperioaren gerriko zurian ez bezala, kapitalen esportazioak, eskualdeotan, ez zetozen lehendik hasitako metaketa- **dinamika** bati eustera. Koro Navarro

«Elkarlan **dinamika** iraunkorra» abiatu nahi duela azaldu du Iruñean [Ibaetako Foroak]. Berria - Harian

Bidaia bizi- **dinamikan** sartzen da: kanposantukoek ez dute bidaiarik egiten, normalean... Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**akordioaren dinamika** (3); **aldeko dinamika** (16); **arteko dinamika** (6); **baina dinamika** (3); **baten dinamika** (3); **bere dinamika** (7); **beste dinamika** (4); **beste dinamika bat** (4); **da dinamika** (3); **den dinamika** (7); **dinamika abiatuko** (3); **dinamika aldatu** (3); **dinamika apurtu** (3); **dinamika bat** (17); **dinamika bat abian** (3); **dinamika batean** (4); **dinamika baten** (4); **dinamika berri** (10); **dinamika berri bat** (6); **dinamika berria** (4); **dinamika berriak** (7); **dinamika eta** (20); **dinamika ez** (3); **dinamika hori** (13); **dinamika horrek** (8); **dinamika horren** (4); **dinamika horretan** (11); **dinamika iraunkor** (5); **dinamika iraunkorra** (3); **dinamika propioa** (3); **dinamika sindikal** (3); **dinamika txar** (3); **dinamika zabala** (4); **diren dinamika** (3); **du dinamika** (3); **duten dinamika** (3); **edo dinamika** (4); **ekitaldiaren dinamika** (4); **elkarlan dinamika** (3); **elkarrizketa dinamika** (7); **eta dinamika** (24); **harreman dinamika** (3); **herrian dinamika** (3); **inguruan dinamika** (3); **kapitalistaren dinamika** (3); **kontrako dinamika** (3); **lan dinamika** (6); **orain arteko dinamika** (3); **presoen aldeko dinamika** (4); **salaketa dinamika** (3); **taldearen dinamika** (5); **zein lan dinamika** (3)

**aldeko dinamikak** (3); **aldeko dinamikan** (3); **dinamikak dira** (3); **dinamikan dauden** (3); **dinamikaren baitan** (3); **dinamikaren barruan** (3); **dinamikaren ondorioz** (3); **dinamikari eutsi** (3); **eta dinamikak** (3); **taldearen dinamikak** (3)

---

# dinamiko *izond* dinamikari dagokiona; higidura inplikatzen duena edo dakarrena.

Espazio-adierazle guztiak aurkituko dira, beraz, hemen: estatikoak (perspektiba, adibidez), **dinamikoak** (irudiak mugimendurik badu gertatzen den mugimenduaren paralaxia, adibidez). Josu Zabaleta

Hirukirik **dinamikoena**, nolanahi ere, Taiwan, Hong Kong eta Txinako hegoaldeko enpresek osatzen dute. Koro Navarro

Sakontasun-adierazle **dinamikoak**. Josu Zabaleta

Erdi Aroko gizarte estatikoaren partez Berpizkundeari zegokion gizakiaren eta gizarte **dinamikoaren** aldeko apustua egiten da Joanes Uharteren *Zientzietarako Argimenen Azterketa*n. Askoren artean

Oroimena, ikuspegi **dinamikotik** hartua, etengabe berrikusi eta berregina. Xabier Olarra

Oreka **dinamikoa** bilatzen dut. Ana Urkiza

Bestaldean ezagutu ditut talde **dinamikoak**, Udaletxez Kanpoko Erakundeak, kultura benetan maitatu eta maitasun hori benetan zabaldu nahi dutenak. Pako Aristi

Uda eta bertsoa modu **dinamikoan**, jolas modura planteatzen da. Berria - Kultura

Eta hori egin dute solidarioek, era **dinamiko** eta berezi batean. Edurne Elizondo

Sistema **dinamikoen** simulazioa. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dinamiko bat** (6); **dinamiko eta** (12); **dinamiko eta demokratiko** (3); **dinamiko gisa** (3); **dinamikoa da** (9); **dinamikoa dela** (4); **dinamikoa eta** (12); **dinamikoak dira** (5); **era dinamiko** (3); **eta dinamikoa** (9); **eta dinamikoak** (5); **gizon dinamiko** (3); **irekia eta dinamikoa** (3); **oso dinamikoa** (4); **oso dinamikoa da** (3); **prozesu dinamiko** (5); **prozesu dinamiko eta** (3); **talde dinamiko** (3)

---

# dinamikoki *adlag* era dinamikoan.

Gorputza zein haragia pertsona osoari dagokio, **dinamikoki** hartua, bere baitan bildua dagoen eta bere interes egoisten arabera mugitzen den heinean, Espirituaren eraginez bizi denaren kontrakoa hain zuzen. Askoren artean

**Dinamikoki** formulaturik, EAPren teoriaren arabera, bi herrialdeen arteko inflazio -aldeek badute joera bat truke-tasen alde biko mugimendu simetriko batek oreka ditzaten, halako eran non truke-tasa errealak aldatu gabe jarraituko baitu. Koro Navarro

Gaur egun dauden gizarte primitiboak estatikoak dira, baina argi dago hasieran **dinamikoki** progresiboak izango zirela. Iñaki Mendiguren

---

# dinamikotasun *iz* dinamikoa denaren nolakotasuna. ik **dinamismo**.

Hizkuntzaren ezarena bizi beharko zukeen Oteizak, cromlechetan ageri zaizkigun neolitikoko aztarnak baino biziagoak baitira hizkuntzak eskaintzen eta eraikitzen dizkigun jentil-baratzeak; betikoak bezain gaurkoak; egunero-egunero berrituak, hizkuntzak hain berea duen **dinamikotasunarekin**. Anjel Lertxundi

---

# dinamismo *iz* dinamikoa denaren nolakotasuna. ik **dinamikotasun**.

Mundu mailako merkataritzaren **dinamismoa** ez dator printzipio horretatik, konkurrentziarenetik baizik. Koro Navarro

Egoera ekonomiko kaskarrei aurre egiteko kooperatiben **dinamismoa** goraipatu zuen sailburuak eta horri esker lehiakortasunari eusten ziotela azaldu zuen. Berria - Ekonomia

Bertzalde, Euskal Herriak duen **dinamismoa** dugu eskas Bretainian. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako gizartearen **dinamismoak** eta herri erakundeen ordezkaritzak sortu zuten batasuna izan da Gipuzkoak joan den 25 urteotan egin duen aurrerabidearen giltza. Berria - Euskal Herria

Eraketa diskurtsiboa ez da, hortaz, garatzen doan osotasuna, berezko **dinamismoa** eta inertzia duena. Xabier Arregi

Baina ezagutu ez bada bere mugimendua, berezkotasuna eta barruko **dinamismoa**, ez da izan bera inbasio estruktural batetik babesteko. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dinamismoa eta** (3); **eta dinamismoa** (5); **merkataritzaren dinamismoa** (4)

---

# dinamita 1 *iz* osagai nagusitzat nitroglizerina duen lehergaia.

Lehergaia **dinamita** zela esan zuten, ez, aldiz, talde armatuak maiz erabiltzen duen Titadyne. Berria - Mundua

Gau batez komando ezberdinen artean banatu zen **dinamita**, ekintza berriak planifikatuz. Itxaro Borda

Pakete horretan bost kilo **dinamita** daude. Koldo Biguri

Banekielako etxe zaharraren azpiko hartzuloan sei bidoi gasolina, laurogeita hamabost metraileta [...] zazpi ametrailadora eta hiru kintal **dinamita** zeudela ezkutaturik. Koldo Biguri

Atentatua ongi planifikatua egon zen, baina **dinamitak** huts egin zuen. Koldo Izagirre

Guardia zibil bat hil zen **dinamitak** eztanda egin zuenean. Iñaki Zabaleta

Suaren, gauaren eta **dinamita** zartatuaren usaina maite zuen. Itxaro Borda

Bretainian **dinamita** lapurtzen laguntzeagatik. Berria - Mundua

Kasko moderno batek indio zaharraren aurpegia babesten du, eta harro erakusten du eskuetan **dinamitazko** txistor luzea, txortena zut. Pako Aristi

**2** irud/hed

Athleticek **dinamita** dezente daukalako aurrealdean. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behaka egona naiz ba ote zen **dinamita** zilorik, baina bat ere ez dut ikusi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Dinamita** kartutxoak ebasten ditut, amets egiten dut Victor Chavarriren jauregia suak hartuta ikusten dudala. Koldo Izagirre

37 **dinamita** txotx aurkitu zituzten Aix-en-Provenceko auzitegitik hurbil, estolda sarrera batean ezkutatuak. Berria - Mundua

Ahosabaian **dinamita** bonba bat jartzeko gogoa ematen du, gauza hauek ikusita. Josu Zabaleta

Gerrillari maoistek ipinitako **dinamita**-kargen aztarnak. Jon Alonso

Fusila eta **dinamita** puska busti haiek bigarren karlistadaren denborakoak baino ez zirela. Itxaro Borda

Barruan detonagailuak eta **dinamita** arrastoak. Berria - Harian

Ongi aukeratutako liburu batek -Kropotkinen edozeinek, esate baterako- gehiago zezakeela inon diren **dinamita**-pila guztiek baino. Inazio Mujika Iraola

36ko gerra hasi zenean, Trafariako (Portugal) **dinamita** fabrika batean ari zen lanean. Berria - Harian

Alabaina nehor ez zen harritu, **dinamita** ohointzatik landa, Hutx militante potoloa libre eta kargurik gabe atera zenean. Itxaro Borda

Ondoko asteetan **dinamita** ebasle saldoak ez zuen ezer susmagarririk antzeman. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dinamita ebatsi** (3); **dinamita erabili** (3); **dinamita zela** (3); **dinamitaz betetako** (5); **eta dinamita** (6); **kilo dinamita** (7); **lehergaia dinamita** (3); **zen dinamita** (3)

---

# dinamitari *iz* dinamitatzailea.

Badakit zuk uste duzula gauza guztien gainetik dauden **dinamitari** horietako bat zarela. Lopez de Arana

---

# dinamitatu, dinamita(tu), dinamitatzen du *ad* dinamitaz zartatu.

Polizi ikerketaren arabera «Madrilgo industrialde batean azpiestazio elektriko bat **dinamitatu** nahi zuten». Berria - Harian

Baietz esan zian, bere emazteari begietara finko begiratuz, bai, bera zela transformadorea **dinamitatu** izanaren arduradun bakarra. Josu Zabaleta

Argi dago ETAk alderdien demokrazia **dinamitatu** nahi izan duela. Berria - Harian

Garabi berriak ekarriko dituzte laster eta bokalea **dinamitatzen** ari dira ura handitzeko. Koldo Izagirre

---

# dinamitatzaile 1 *iz* dinamitatzen duena.

Anarkista erromantiko bat bertso humanitario barregarriak idaztera bultzatzen duen ideia berberak bultzatzen du **dinamitatzaile** bat bonba jartzera. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Jaime Ignacio del Burgok, bere aldetik, «Konstituzioaren **dinamitatzaile**» izatea leporatu zion Maragalli. Berria - Euskal Herria

---

# dinamitatze *iz* dinamitaz zartatzea.

Eta horrekin **dinamitatzeak**, sabotajeak... Horrekin, bada, gerra bukatu arte ez genian astirik izan alargunari eskerrak ematera joateko... Josu Zabaleta

---

# dinamitazo *iz adkor* dinamita-ukaldia.

**Dinamitazo** galanta, ziurra duk hori. Harkaitz Cano

Ez zen **dinamitazorik** izan, ez Madrilen eta ez beste inon. Harkaitz Cano

---

# dinamitero *iz* dinamitazailea.

Bateko **dinamitero** asturiarrak, besteko pilotu germaniarrak. Lutxo Egia

Nork ez zuen sinetsiko Espainia nazionalean Asturiasko **dinamiteroek** erre zutela Gernika? Lutxo Egia

**dinamizatu**, dinamiza, dinamizatzen du *ad* dinamismoa eman.

Alderdikerien gainetik, herritarrak **dinamizatu** eta aktore bihurtu. Berria - Euskal Herria

Nazio eraikuntza sustatzea eta mugimendu sozialak **dinamizatzea**. Itxaro Borda

Nafarroaren kasuan ez al da interesgarria helduen bertso eskolak serioski **dinamizatzea**, bertsolari, bertsozale aditu, gai-emaile, epaile berrien habia izan daitezen? Berria - Kultura

Europako ekonomia eta hazkundea **dinamizatzea**, komunikazioa hobetzea eta Europak nazioarteko ordenuan merezi duen postua ziurtatzea. Berria - Mundua

Horrek gure ekonomia **dinamizatuko** du. Berria - Euskal Herria

Sektorea **dinamizatzeko** eta gaztetzeko. lurzoruaren lege berria, babes publikoko etxeak pribatuak baino gehiago izatea, etxebizitzen alokairua sustatzea eta udalen lurzoruak **dinamizatzea**. Berria - Euskal Herria

Gure burmuineko sistema linbikoak feniletilamina izeneko substantzia bat sortzen du (FEA), hau da, burmuina estimulatzen eta **dinamizatzen** duen anfetamina. Luis Elberdin

---

**dinamizatzaile** 1 *izond/iz* dinamizatzen duena.

Hortik abiatuta, talde **dinamizatzaile** bat elkargune horren eginbeharra definitzen eta helburuak zehazten hasi zen. Berria - Euskal Herria

Hanka ona du, defentsan eta erasoan ongi moldatzen da, eta handia den arren, **dinamizatzailea** da; beharko du Miarritzek Heineken Kopan sailkatzeko itxaropenari eusteko. Berria - Kirola

Zeregin horretan 2.500 **dinamizatzaile** ariko direla eta 35.000 herritarri zuzenean aurkeztuko zaiela azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Euskararen erabilera bermatzeko eta bi hizkuntzatan lan egiteko **dinamizatzaileak** behar direla azaldu zuen. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

11 lagun arituko dira tailerretako **dinamizatzaile** lanetan. Berria - Euskal Herria

Sozioekonomiaren alorrerako behategi lanak egiteaz gain, gizarte **dinamizatzaile** aktibo izateko borondatea du eragile sozioekonomikoen artean. Berria - Harian

Karlos Aizpurua Iparraldeko bertsolaritza **dinamizatzailearen** hitzak dira horiek. Berria - Kultura

---

**dinamizatze** *iz* dinamismoa ematea.

Harremanetarako/talde **dinamizatzeko** gaitasunak. Herria

---

**dinamizazio** 1 *iz* dinamizatzea.

Sanzok pozez ikusi du azken lau urteotan egoerak hobera egin duela, «etxebizitzaren gaineko politikaren **dinamizazioaren** eta enpleguaren hazkundearen ondorioz». Berria - Harian

Mediterraneoaren **dinamizazio** ekonomikoa. Berria - Mundua

Zailtasunei buruz Kultura sailburuak dio, besteak beste, orain artean ez dela izan planaren komunikazio politika «argirik» eta ez dela talderik osatu planaren aholkularitza edo **dinamizazioa** egiteko. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Animazio eta **dinamizazio** lanetan esperientzia. Herria

**Dinamizazio** ariketak, «irakasle bakoitzak egokien irizten dion eran erabiltzeko aukera izan dezan». Berria - Kultura

Batasunaren **dinamizazio** prozesuan lanean ari zela, Ekin sortzeko egiten ari ziren prozesuan gogoeta egitea eskaini ziotela eta hor ere parte hartu zuela esan zuen. Berria - Euskal Herria

**Dinamizazio** eta aholku taldea. Berria - Euskal Herria

---

**dinamo** *iz* energia mekanikoa energia elektriko bihurtzen duen tresna.

Jira egiten zuen bizikletaren gurpilak, jira argi farolaren **dinamoak**: atsegina zen jiratze hark sortzen zuen zurrumurrua entzutea. Bernardo Atxaga

Harriturik gelditu zinen zein tresna tipi eta irudiz ezdeusa zen ikusirik: **dinamo** bat funtsean, biradera bati eraginik elektrika sortzen zuena. Xabier Montoia

Sotoko **dinamoak** erregairik baduen begiratzea komeni zaigu, gauean ez badugu argirik gabe geratu nahi. Aitor Arana

-Agian hondatu egingo zen **dinamoa**, besterik gabe. Aitor Arana

---

**dinar** *(orobat **dinare** g.er.)* *iz* Aljeria, Irak, Kuwait eta beste zenbait herrialdetako diru banakoa.

Serbian diru ofiziala **dinarra** den bitartean, Montenegron euroa erabiltzen dute, euro eremuan sartuta ez badago ere. Berria - Mundua

Irakeko Gobernuak 115.000 **dinar** (100 dolar) emango dizkio Falujara itzuli nahi duen familia bakoitzari. Berria - Mundua

Estatu Batuetako eta Irakeko segurtasun indarrek bere etxea miatu eta **dinar** faltsuak aurkitu zituzten. Berria - Mundua

Basoran dela, Abu Qais-i, muga pasatzeagatik, denda bateko gizon lodi batek 15 **dinar** eskatu dio... Pablo Sastre

Ez daukagu **dinar** bakar bat ere. Juan Kruz Igerabide

Zuk bost mila **dinar** jasoko dituzu, eta mila **dinar** balio duen zaldi bat. Patxi Zubizarreta

Nik armairu hau egin, eta dagozkidan lau **dinarrak** kobratzera etorri naiz... Patxi Zubizarreta

Juduak emana zion mila **dinarreko** zorroa galtzetan gorde zuen. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dinar eman** (4); **dinar eskatu** (3); **hamar mila dinar** (3); **mila dinar** (12); **mila dinar balio** (3)

---

**dinastia** 1 *iz* familia bereko oinordetzazko erregeen edo kidekoen saila.

Txinako **dinastia** batzuetan araututa zegoen enperadorearen anaiak izatea oinordeko, eta ez haurrak. Iñaki Iñurrieta

Oinordetzazkoa zen, erregeak **dinastia** beraren barruan hautatzen zirelako, eta semeak zirelako oinordeko. Iñaki Iñurrieta

"Jagellon" lituaniar **jatorriko** dinastia bat da, Polonian 1386tik 1572ra erreinatu zuena. Karlos Zabala

Pepinen errege izendatzearen formulan ikusten denez, Karlos eta Karloman ere gantzutu eta bedeinkatuak izan ziren; eta jaun frantziarrek beste ezein **dinastiatako** inor ez hautatzeko hitza eman zuten. Iñaki Iñurrieta

Ptolomeoen **dinastiako** errege-erregina guztien artean, hura izan zen bere herria benetan maitatu zuen bakarra. Jon Muñoz

Liu Pangek sorturiko Han **dinastiak** arrakasta izan zuen funtzionariotza eraginkor eta onargarria eratzen. Iñaki Mendiguren

Ahmès-en arabera, papiro zaharrago batean oinarritua dago testu hori, eta Ammenemes III.a, XII. **dinastiako** seigarren erregearen erregealdian idatzi zen papiroa. Jon Muñoz

Hirugarren **dinastiaren** hasieran, ia herritar xehe guztiak ziren jopu. Iñaki Iñurrieta

Tenorez etorri zen premu berria **dinastiari** segida ematera. Aingeru Epaltza

Bisirrak lehenago semea ezkontzeko aholkatu zion, hartara ziurtatu egingo baitzuten **dinastiaren** jarraipena. Patxi Zubizarreta

Latinoamerikako diktadurarik odoltsuenetako bat somozatarren **dinastiak** osatua eta 1936tik 1979ko uztailaren 19a arte iraun zuena. Berria - Mundua

Hala, munduko **dinastia** komunista bakarra da Hego Korea. Berria - Mundua

**2** irud/hed

Bush **dinastiako** George W. Bush presidenteak, George Bush CIAko zuzendari ohi eta AEBetako presidente ohiaren semeak, [...]. Harkaitz Cano

Gaur egun posible da Baionan Grenet **dinastia** botatzea eta Donibane Lohizunen Alliot-Marie Herriko Etxetik kanporatzea. Berria - Euskal Herria

Han izan ziren Luziano Juaristi Atano X.a eta Juan Mari Juaristi Atano XIII.a, bestek beste, atanotarren **dinastiaren** ordezkari gisa. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan)

Erakusketa, batez ere, Antso III Nagusiarekin (1004-1035) hasi eta Antso Azkarrarekin (1194-1234) amaitzen den errege **dinastia** baten kultur emaitzaren lekuko gisa aurkeztuta dago. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bigarren dinastia** (3); **bigarren dinastiako** (7); **bigarren dinastiako** (7); **bigarren dinastian** (10); **bigarren dinastiaren** (6); **dinastia baten** (3); **dinastiako erregeen** (3); **dinastiako erregeen** (3); **dinastiaren hasieran** (7); **han dinastiaren** (3); **hirugarren dinastian** (4); **hirugarren dinastiaren** (6); **hirugarren dinastiaren hasieran** (4); **lehen dinastiako** (4); **lehen dinastiako** (4); **lehen dinastian** (3); **lehen dinastiaren** (3)

---

# dinastiko *iz* dinastiarena, dinastiari dagokiona.

Herbehereak, arrazoi **dinastikoak** zirela-eta, Karlos V.aren inperio zabalaren parte bihurtu ziren. Koro Navarro

Paper nabarmena jokatu zuten agintari **dinastikoek** arlo honetan berpizkundeak abiarazten, adibidez, zenbait enperadore txinatarrek bildutako liburutegi harrigarriak. Iñaki Mendiguren

Barru osoa urdin izateak odola urdin izateak baino legitimitate **dinastiko** handiagoa eman behar luke... Anjel Lertxundi

Ez da, espazio politiko ireki bezala, etnia tradizionalen bizikidetzarako lekua, baizik horien ukoa [...] Estatu **dinastikoko** etniekin lehian eta horien aurka pentsatua, bera etnia bakarra. Joxe Azurmendi

---

# dinbi

**1** ***dinbi-danba*** *adlag* kolpe bortitzen onomatopeia.

Ate kulunkariari **dinbi-danba** eraginez irten zen arrapaladan sukalderantz. Mirentxu Larrañaga

Makila hartu zuen orduan eta, patiora irten zelarik, **dinbi-danba** astindu zuen balizko lapurra. Patxi Zubizarreta

20.000 lagunetik gora dauden kirol gunean, **dinbi-danba** hastea ere nekez eman daiteke ontzat. Berria - Kirola

Gero, Mattinek, **dinbi-danba**, egurtu egin zuen berriro. Martin Anso

Neskak, kateme amorratu baten tankeran, lodiarengana apuntatu, eta **dinbi-danba**, bi tiro egin ditu segidan kanoi motzeko Franchiarekin. Patxi Iturritegi

Kepa, bitartean, makilekin **dinbi-danba**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gazteluko kanoiek ongi etorria ematen zieten bitartean, **dinbi-danba** eta **dinbi-danba**. Joan Mari Irigoien

**2** (izen gisa)

Binaka, aurrez aurre eta ezpata banarekin, orain hik jo eta gero nik jo, jo hik jo nik, **dinbi-danba** batzuren ostean, ai ene, bietako bat behera. Edorta Jimenez

Orduan bai gorritu nintzela, bihotzeko **dinbi-danba** hark zart egingo zidala ematen zinan. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** ***dinbi eta danba***

Trailutzar antzeko bat zebilkion **dinbi eta danba**, zanpaka; mamia hezurretik tarratatu nahi zion arantza-mutur handi bat balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

Plastikozko bidoi huts zenbait eskuratu eta **dinbi eta danba** ekin diote. Xabier Montoia

Nola berak sentitu zuen han barruan mutila, **dinbi eta danba**, ostikoka itxura batean, eta nola uste izan zuen, ondorioz, futbolari zetorkiola haurgaia... Joan Mari Irigoien

Lurra **dinbi eta danba** ari da erortzen hilkutxa gainera. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dinbi danba** (23); **dinbi eta danba** (7); **eta dinbi** (4); **eta dinbi danba** (3)

---

# dinbili

**1** ***dinbili-danbala****sup_1 adlag* kanpaien hotsaren onomatopeia.

Koltxoiari lau pertsona artean heldu, eta **dinbili-danbala** erabiltzen genuen, astinduka. Patxi Zubizarreta

Goiz batean, gutxienik ustean, aireplanoak agertu ziren zeru oskarbian eta **dinbili danbala** hasi ziren kanpaiak, **dinbili danbala**, eta aireplanoak herri gainean jirabiraka, burdinazko enara erraldoiak, ilunak, astiro, ozen, eta kanpai hotsak egundokoak baino larriagoak. Joseba Sarrionandia

**2** (izen gisa)

Etxera heldu eta leihora inguratzen nintzen, kanpaien **dinbili danbala** entzuten zen orduekin eta, leihotik begiratuz gero, laino grisak ikusten ziren trapu zaharren moduan zeru garbitik pasatzen. Joseba Sarrionandia

**3** ***dinbili-danbala****sup_2 adlag* balantzaren onomatopeia.

**Dinbili-danbala** sartu zen orga zubian. Koro Navarro

Gero, emakumeei begiratu eta irribarre egin zien, eskuin eskuaz haiek agurtu eta aurrera segitu zuen, noiz edo noiz **dinbili-danbala** aldera eginez, nora ote zihoan ondotxo jakin gabe. Felipe Juaristi

Haurrak, ia biluzik, nire hanketara etorriko dira **dinbili-danbala**; nik jaso egingo ditut, neure haurrak gogoan, zeinak, ordurako, helduak izango diren, aberatsak, eta zoriontsuak, non edo non. Eskarne Mujika

**4** ***dinbili danzan*** *adlag* balantzaka.

Hirurak abiatu dira: aizkolari-kontrabandista, **dinbili** dantzan; Xangarin, zalu-zalu; zuberotarra, muga-pasa kontatzen ari zaiguna. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dinbili danbala** (11)

---

# dindai *iz* eguzkiaz mintzatuz, dirdaia.

Oraintxe bertan zerua urdindu egin da, eguzki **dindaiak** agertu dira... Iñaki Zabaleta

Geroxeago, neguko eguzkiaren **dindai** epelak joko ditu tarteka txintxillu miragarri horiek, eta urrezko laztanez goxatu,eta lehen polen sorgindu bihurtu, haizeak aidean hartu eta inguruz inguru firundan zabal ditzan. Patziku Perurena

---

**dindan** 1 *iz* kanpaien hotsa. ik **din-dan**.

Baina, erlojaria ez zenez, uraren bidez neurtzen zituen osabak **dindanak** -bere **dindanak**, alegia, zeren eta, bertzenaz, mila **dindan** suerte izan baitzitezkeen, batzuk din-dan eta bertzeak diiiiiin-daaaaaan, haiek laburragoak eta hauek luzeagoak-, erabiliz. Joan Mari Irigoien

Eta erlojuak diiin-daaan, diiin-daaan egiten segitzen zuen... baina beren laburrean zein luze egin zitzaizkidan **dindan** haiek!, harik eta amets hartarik haginetako minik gabe itzarri nintzen arte, bat-batean orduan ere. Joan Mari Irigoien

Horrela, nola ur isuriaren mailak emaiten baitzuen **dindanaren** neurria, maila hura marka batez seinalatu, eta handik goiti ontzi osoa markatzen zuen, neurri hura bere **dindanen** unitatetzat harturik. Joan Mari Irigoien

2 ***dindanean*** *adlag*

Haur batzuk dabiltza **dindanean** burdinazko kateei eskutxoekin helduta, zaintzaileek eguneko lehen zigarroaz gozatzen duten bitartean. Joxean Agirre

Han zeuden idazlea lurrera abaildu zenean haurrak **dindanean** bakarrik utzi eta bertaratu ziren bi umezainak. Joxean Agirre

---

**dindatu**, dinda(tu), dindatzen *ad* hots egin.

Utziozu zeure izateari **dindatzen** eta burrunbatzen / berba eta egitandia bakoitzean. Berria - Kultura

---

**dindilin** *adlag* zintzilik.

Altza, errekondoetan airoso eta lerden altxatzen den zuhaitz beltz hori, txintxilikario ttikiak **dindilin** dituela, hosto orlegi berdexka finak agudo musker beltzitu egiten zaizkion altza. Pello Zabala

---

dindiliskatu ik **dingilizkatu**.

---

dindilizka ik **dingilizka**.

---

**dingili**

1 ***dingili-dangolo*** *adlag* balantzaka.

Panpina ematen duzu alde batetik bestera, **dingili**-dangolo, pareta jo arte. Rafa Egiguren

---

**dingilindango** *iz* kulunka.

Beldurrak jota geratu natzaio begira, bere gorputz sendoaren itzalguneak, bere ibilpauso nekatua, bere sabelpeko **dingilindango** iluna, bere keinuek islatzen duten etsipen sakona. Joseba Sarrionandia

---

dingilisko ik **dingilizka**.

---

**dingiliz** *adlag* dingilizka.

Batzuetan bost eta gehiago ere ikusten dira, aura leunetan balantzaka, bata bestetik **dingiliz** eta azpitik itsatsita, harriaren indarra elkarri pasatuz: hain sarkor nagusitzen da bere indarra. Xabier Amuriza

Berehala gaitz berri edo izurri hau edo uretara jausten da, edo uztetan sartzen da, edo beste giza janari eta aberebazka batzuetan, edo eguratsean bertan **dingiliz** geratzen da. Xabier Amuriza

---

**dingilizka** *(ETCn 87 agerraldi; orobat **dindilizka** ETCn 45 agerraldi; eta **dingilisko** g.er.)* *adlag* zintzilik, dilindan.

Liuba eserita zegoen, besoak atzerantz **dingilizka**, halako ahulezia atsegin baten mende, ezin zoriontsuago, eroturik bezala. Jose Morales

Zutik geratu zen luzaro, bihotza azkar taupaka, giltza **dingilizka** zuela sarraila aurrean. Lopez de Arana

Txakurtxoa zeure alboan jarriko da [...] bere mihi luze eta artega **dingilizka**, bera ere kristalera begira. Joseba Sarrionandia

Mikeleneko neskameak hartzen du, beti ere zigarro bat ezpainetatik **dingilizka**. Xabier Mendiguren Elizegi

Berokiak, kapelak eta bufandak esekitokietatik **dingilizka**. Lopez de Arana

Bizkarraren alde bietara boxeo-eskunarruak zeroatzan **dingilizka**. Josu Landa

Horrelakoetan hartzen du prentsak "laugarren boterea" deitu izan den horren antzik handiena, eta lintxatua, beti ageri da eder paperezko arbola muturrean **dindilizka**. Iñigo Aranbarri

San Txilibristo, bixigua ezpainetatik **dingilisko**. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> atzerantz dingilizka (4); besoak atzerantz dingilizka (3)

---

**dingo**

Erakundeak azaldu duenez, hartz zuriak, izurdeak, **dingoak** eta hegaztiak urduri daude, eta ez dute «behar bezala» atseden hartzen. Berria - Gaiak

---

dinosaurio ik **dinosauro**.

**dinosauro** *(ETCn 1.474 agerraldi; orobat* ***dinosaurio*** *ETCn 75 agerraldi eta* ***dinosauru*** *ETCn 90 agerraldi)* **1** *iz* Bigarren Aroko narrasti erraldoia, burua txikia, lepoa eta isatsa oso luzeak, eta aurreko hankak atzekoak baino laburragoak zituena.

'Hominidoen sasoia baino lehenagokoak, **dinosauroak** munduaz jabetu baino lehenagokoak. Joseba Sarrionandia

**Dinosauroak** desagertu zirenean [...] ugaztun txiki batzuk zuhaitzetara igo ziren, basoko landaretzan segurtasuna bilatzeko asmoarekin. Mundu bateko biztanle guztiak, inurrietatik garai bateko **dinosauroetaraino** . Luis Elberdin

Balea bera baino handiagoa zen, oso lepo eta isats luzekoa, **dinosaurio** baten itxurakoa. Bernardo Atxaga

'Mapusaurus roseae' **dinosauroak** ehizarako elkartzen zirela iradoki dute. diplodokoaren antzeko **dinosauro** baten hezur pelbianoaren fosila. Berria - Gaiak

'Tyrannosaurus Rex' **dinosauro** handiaren arbasoa aurkitu dute Txinan. Berria - Gaiak

**Dinosauro** haragijaleen artean handienetarikoak ziren *Mapusaurus roseae* deituak. Berria - Gaiak

Bestea, berriz, **dinosauro** belarjale baten fosila da. Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Oraingo honetan, gainera, taldea sasoian dagoela eta iraganeko indarrarekin aurkeztuko da Donostian, rockaren **dinosauro** zaharren antzik gabe. Berria - Harian

Fidel **dinosauro** bat da eta antigoaleko ideiak defendatzen ditu, baina bizi dadila urte askoan. Berria - Kultura

Neskatilak berehala konturatzen ziren **dinosauro** gezurti biren aurrean zeudela, eta ez zieten ia jaramonik egiten. Jon Arretxe

Askoz eskala txikiagokoa da, ez da **dinosauro** nuklearrak bezain konplikatua. Berria - Harian

Metropoliko zinema kazetariak intelektualegiak dira, nonbait, halako **dinosauro** populistak ikonotzat hartzeko. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Bi **dinosauro** espezieren fosilak aurkitu dituzte Antartidan. Berria - Gaiak

**Dinosauro** mota berri baten fosilak aurkitu dituzte Amazonian. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dinosauro bat** (6); **dinosauro baten** (4); **dinosauro baten hezur** (3); **dinosauro espezie** (3)

---

dinosauru ik **dinosauro**.

---

**dintel** **1** *iz* ateez mintzatzu, burua. ik **ateburu**.

Goiko aldeko erlaitza, goiko **dintelaren** gainean jartzen dena, pronaoan altxa diren kolomen kapiteletako goiko ertzaren maila berean geratuko da. baoak hamasei eta hogeita bost oin bitarteko altuera baldin badu, baoaren goiko aldea **dintelaren** laurdenera ekarri arte murriztuko da. Santiago Iruretagoiena

**Dintelak** eta habeak, izan ere, paretekin kargatzen direnean, gilbortu egiten dira erditik, eta zartatuz, hautsi egiten dira paretak. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan)

Arku-dobelen bitartez kargak habeetatik edo **dintel**-buruetatik kanpora eramaten direnean, Santiago Iruretagoiena

---

**dinteldu** *izond* ateburuz hornitua.

Tenplu greziarren arkitektura **dinteldu** eta harrizkoaren aldeko interes handia erakusten duen arren, [...]. Santiago Iruretagoiena

---

**diofantiar** *izond* ekuazioez mintzatuz, Alexandriako Diofanteren izena daramatenak.

Ekuazio **diofantiarrak** . Jon Muñoz

---

**dioklezianiko** *izond* Diokleziano enperadoreari dagokiona.

Metropolitano edo artzapezpiku horiek, bestalde, sistema **dioklezianikoan** diozesi deitzen ziren probintzi multzo horietako baten administrazio-erdigune zen aulkiko apezpikua onartu zuten beren primatu gisa. Iñaki Mendiguren

Lau augustotar probintzien -*Narbonensis, Aquitania, Lugdunensis* eta *Belgica*-ren- azpibanaketa **dioklezianikoaren** eskema Toki-apezpiku bat, bere aulkia erromatar probintzia **dioklezianiko** baten erdigune zuena. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko prefektura **dioklezianikoa** azkenean zatitu egin zen Alexandria, Jerusalem, Antiokia eta Konstantinoplako lau patriarka-hirien artean. Iñaki Mendiguren

Apezpikuek, metropolitanoek eta primatuek leialtasuna zieten eskualdeko patriarkei, hierarkikoki pretoriar prefektu **dioklezianikoen** parekoei. Iñaki Mendiguren

---

**dionisiako** *(orobat* ***dionisiko*** *g.er.)* *izond* sentsuen plazerren jainkoa zen Dionisiosi dagokiona. ik **dionisiar**.

Besta **dionisiakoan** , mozkortze sakratuarekin, entusiasmoarekin, denboraren ezabatzeko ilusioa lor daiteke. Ana Urkiza

Geure lobulu frontalen agintetik opor batzuk hartzeko premia izaten dugu; zentzumen eta desiren festa **dionisiako** batean murgiltzeko, alegia. Xabier Olarra

Dantza sakratu **dionisiakoa** da hori noski, ez dantza friboloa. Joxe Azurmendi

Errito **dionisiakoetan** , infernuko ateetako zaindari Phylakosi bildots errea jaurtitzen zioten leizera, haren ama infernutik libratzeko. Patziku Perurena

Irudi eta egitura mitikoak erabiltzeko, artista **dionisiakoa** da. Ana Urkiza

Norman O. Brown-en kristautasun **dionisiakoa** . Joseba Zulaika

Bizitzaren zentzu jentil, **dionisiakoari** alegia, natur olde eta jaiera suhar edonoiz libreekin, instintoen berenezko jaialdi argitsuari biziartean, gezurrezko moral baten aginduen zamapean gizakia astotu eta makurtu gabe. Joxe Azurmendi

---

**dionisiar** *(orobat* ***dionistar****)* *izond* dionisiakoa.

Nietzscheren ustez, artistak izaera **dionisiarra** du; indartsua da, bizia, mugikorra, eta ez apolinear razionalistak bezala, ordenatuegia eta lasaia. Askoren artean

Jon, gizon zintzo eta onpuska, erromantiko sinestuna zen funtsean, Theresa lekuko; beraz pentsalari agortua, eta Nietzsche **dionistarraren** azpiko. Patziku Perurena

---

dionisiko ik **dionisiako**.

---

dionistar ik **dionisiar**.

---

**dioptrea** *iz* erregela modukoa, muturretan betaurreko bana duena, norabide bat zehazteko edo angelu bat neurtzeko balio duena.

Nibelatzeko **dioptrea** edo ur-sestrak edo korobatea erabiltzen dira, baina seguruagoa da korobatea, **dioptreak** eta ur-sestrek inoiz huts egiten baitute. Santiago Iruretagoiena

---

**dioptria** *(orobat **diotria** g.er.)* *iz* leiarren ahalmenaren unitatea, 1 metroko foku distantzia duen leiarrari dagokiona

Ni, aldiz, mehea eta argala atera nintzaien eta, hamar urte bete nituenerako, zortzi **dioptria** nituen begi bakoitzean. Joan Mari Irigoien

Lehenago, optikan izana nintzen eta hango gizona nire **dioptriak** neurtzen tematua zen, hautsitako kristalen ordezkoak zuzen paratu beharrez. Aingeru Epaltza

Edonon barregarri geratzeko moduko **dioptria** kopurua zeukatenak ere zoriontsuak ziren egun horietan. Unai Elorriaga

Begi-lagunetako **diotriak** zuzentzeko ere zuzenean joan daiteke espezialistarengana, baina konjuntibitisa sendatzeko norberaren sendagilearengana joan beharko da lehendabizi. Berria - Harian

---

**diorama** *iz* argi, forma eta perspektiben konbinaketen bidezko muntaketa, ikusleari higidura sentipena ematen diona.

Zinema eta bideoa era honetako irudi moduak dira; gaur egun ohikoak dira, baina horiek asmatu aurretik ere izan dira denborazko irudiak, oraingoek duten koplexutasunetik urruti bazeuden ere: Daguerre-ren **dioraman** denboran zehar gertatzen ziren aldakuntzak, adibidez, dekorazio margotu handi batean argiztapen-aldaketen bidez lortuak, ez ziren handiak, film dokumental xumeenarekin alderatzen badira. Josu Zabaleta

Goizean, monasterioari bisitaldia, **diorama**, basilika, jatetxea. Joseba Urteaga

---

**diosal** *(ETCn **1.458** agerraldi; orobat **diosala** g.er.)* **1** *iz* norbait aurkitzean egiten zaion gizalegezko adierazgarria.

"Hola" esan bainion, **diosal** gisa *kaixo* erabiltzen ez dudalako. Ramon Saizarbitoria

Eskua kapelura marinelen **diosala**, kapeluan izarrik ez. Koldo Izagirre

Espaloirik gabeko bideetan, oinezkoak **diosala** zor dio parean edo inguruan egokitzen zaion oinezkoari; gizalegeak hala agintzen du. Juan Luis Zabala

**Diosal** kikildu bat murmurikatu nien nire paretik pasatu zirenean. Alberto Ladron Arana

-Baita zuei ere -andrearen **diosal** abegitsua-. Aitor Arana

Bihotza jauzika jarri zitzaidan lehenbiziko "Kaixo, Oliver!" **diosala** entzun nuenean, baina hark ez zuen jarraipenik izan. Xabier Olarra

Emazteak buru ukaldi hotz batez ihardetsi zion nire **diosalari**. Aingeru Epaltza

Doi-doian txori ttipi eta kolore-bitxiek beren harpadun mingainetako mintzo goxo-eztiaz, egunsenti gorri-arrosari **diosala** eman zioten. Patxi Ezkiaga

**Diosala** itzuli, eta ondoko kaletik gora jarraitu du. Alberto Barandiaren

Zori onez edo txarrez, baditut han-hemenka **diosala** ukatzen didaten ezagunak. Joxerra Garzia

Heil Hitler!, Klausek, irribarrez, eta biok eskua jaso genuen **diosal** gisa. Anjel Lertxundi

Emakumea altxatu egin zen, eta Aluanen esku gainera makurtu zen **diosal** gisara. Patxi Zubizarreta

Beste bat eskatu nuen, eta, **diosalik** gabe, egunkaria erakutsi nion; Spadek begirada labur bat zuzendu zion, eta niri irribarre bat, laburragoa oraindik. Iban Zaldua

Bi musu izan ziren; esan nahi dut ez zela **diosaletarako** erabiltzen den keinu iheskor hori, eta luze sentitu nuela bere ezpainen freskotasuna masail bakoitzean. Ramon Saizarbitoria

**Diosalezko** hitz pare bat apal-apal esan eta gero. Anjel Lertxundi

**2** ***diosal egin*** *(**43** agerraldi, **26** liburutan; ETCn **180** agerraldi)*

Besoa altxatu nuen **diosal egiteko**, baina Patzikuk, begiak errepidean iltzatuak nonbait, ez ninduen ikusi ere egin. Juan Luis Zabala

Txitxikovek, kapelua erantzi, eta **diosal egin** zion kalesatik, adeitasun handiz. Jose Morales

Leihoetatik begira zeuden gizon eta emakumeetako batzuek "kaixo!" **egiten** zioten **diosal** eta Raymondek agurtu egiten zituen, eskuari eraginez eta irribarreka. Mirentxu Larrañaga

Aurrera egin zuen, ezker-eskuin **diosal eginez**, harik eta Kirxaren kafe etxera heldu zen arte. Patxi Zubizarreta

Normalena elkarri **diosal egin** eta nork bere bidean aurrera jarraitzea izango zen. Juan Luis Zabala

Orduan neuk **egin** nion **diosal** Martxelori, kafetxeko atetik. Juan Luis Zabala

Norbaitek esan zuen bezala, putek eta kamareroek kalean egunargiz **diosal egiten** dizutenean, garaia da hiriz aldatzeko. · Gainerako bisitariak imitatuz, ertzainari **diosalik egin** gabe irten zen Juntetxetik. Harkaitz Cano

Nagusiak agindu zorrotza eman zien **diosalik** edo hitzik ez **egiteko** lekaio ezagunei. Jose Morales

**3** ***diosala egin*** *(**36** agerraldi, **25** liburu eta artikulu **1**ean)* diosal egin.

Fariasa zeraman eskua jaso zuen **diosala egiteko**. Unai Iturriaga

Asaldatu antzean, Hamidak ere **diosala egin** zion, eta, bitxi samarra iritzirik, puska batean egon zitzaion begira. Patxi Zubizarreta

**Diosala egin** eta zoazte. Jose Antonio Mujika

Harriturik **egin** zion **diosala**, frantsesez, eta elkar besarkatu zuten, estu; gero, xuxurlaka aritu ziren, besarkaturik. Juan Kruz Igerabide

Eskua goitituz **egin** nion **diosala** Maddiri. Aingeru Epaltza

Orduan ere urrundik **egin** zidan **diosala** eskua jasota. Koldo Izagirre

· Besoa altxatu behar zuela **diosal** faxista **egiteko**. Mikel Hernandez Abaitua

Ripak lehen **diosala** eta hitzak euskaraz egin zituen. Berria - Euskal Herria

**4** ***diosalak egin*** *(**13** agerraldi, **4** liburutan)* diosal egin.

**Diosalak egin** ondoren, esan zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Ikustekoa baita zeinen urria den gizasemeok elkarri **diosalak egiteko** erabiltzen dugun imintzioen errepertorioa. Joxean Agirre

-Jaun agurgarri hori, ezin baztertuzko betebeharrtzat hartu dut gizalegezko **diosalak egitera** etortzea. Jose Morales

Askotariko **diosalak egin** zizkion ispiluari, frantsesaren nolabaiteko antza zuten hotsak ateraz aldi berean. Jose Morales

Aurrena, gobernadorearen etxera joan zen gizalegezko **diosalak egitera**. Jose Morales

Frantsesez **egindako** elkarren arteko **diosalen** ondoren, [...]. Anjel Lertxundi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Irribarre onbera bat zebilkion jostalari aho aldean, eta behin tranbiara igo eta txartela ordaindu zuelarik, gidariari egindako adeitasunezko **diosal**-irri zabal bilakatu zitzaion. Mirentxu Larrañaga

Konfiantza-itxura bikainez gidatu zuen Templek autoa atetik barnerantz, segurtasun-guardiarekin **diosal**-keinu txeratsu bat trukatuz. Xabier Olarra

Elkarri ohiko **diosal** hitzak esan ondoren, " ¿te has enterado?" galdetu zidan. Ramon Saizarbitoria

Begiradak bat egin orduko, eskua jaso eta **diosal** modukoa egin zion. Migel Angel Mintegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bati diosal** (3); **diosal egin** (20); **diosal egin eta** (4); **diosal egin zion** (6); **diosal egiteko** (4); **diosal egiten** (12); **diosal gisa** (4); **diosal modura** (3); **diosala egin** (17); **diosala egin eta** (3); **diosala egin zion** (3); **diosala egiteko** (6); **diosala egiten** (6); **diosala eman** (5); **diosala eta** (3); **diosalaren ondoren** (3); **diosalik edo** (3); **diosalik egin** (11); **diosalik egin gabe** (7); **egin zidan diosala** (3); **eta diosal** (6); **eta diosala** (6); **gizalegezko diosalak egitera** (9); **nire diosalari** (3)

---

**diosaldu**, diosal, diosaltzen du *ad* diosal egin.

Louise sartu zenean, makurtuta aurkitu ninduen telefonoa lurretik jasotzen eta ea jarrera hori den lagun zaharrak **diosaltzeko** era berria galdegin zidan irribarrez. Hasier Etxeberria

---

**diosalka** *adlag* diosal eginez.

Denak elkarri deika, pozez **diosalka**. Josu Zabaleta

---

diosesa ik **diozesi**.

---

diosesetxe ik **diozesi 2**.

---

diotria ik **dioptria**.

---

**dioxido** **1** *iz* molekulan bi oxigeno atomo dituen oxidoa.

Aldaketa baikor batzu erakustera emaiten dituzte, hala nola nitrogeno **dioxido** kutsaduraren neurria apaldu den. Herria

Biriketako eta arnasteko arazoak sortzen ditu nitrogeno **dioxidoak**, asma, alergiak eta ozonoa troposferan sortzea eragiten du. Berria - Mundua

Berde koloreko hostoak gorri bihurtzen dira, landareak minek isurtzen duten nitrogeno **dioxidoa** xurgatzean. Berria - Gaiak

Sufre **dioxido** kontzentrazio arriskutsuak atzeman dituzte Muskizen. Berria - Euskal Herria

Martxoaren 15ean Jaurlaritzaren neurgailuak 227 eta 228 mikrogramo sufre **dioxido** neurtu zituen metro kuboko. Berria - Euskal Herria

Plutonio eta uranio **dioxidoa** nahastuz erregaia sortzeko diseinaturiko lantegia Txinari salduko diotela iragarri du Gobernuak. Berria - Mundua

**2** ***karbono dioxido***

Tenperatura igotzea, **karbono-dioxidoaren** (CO2) atmosferako kontzentrazioak gora egitearen ondorioz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Atmosferara zenbat **karbono dioxido** isur dezaketen esango die Europako Batasunak enpresei. Berria - Euskal Herria

Arnasten dugun aire berriak % 21 oxigeno eta % 0,03 **karbono dioxido** du; arnasan kanporatzen dugun aireak, berriz, % 16 edo % 17 oxigeno du, eta % 3,5 **karbono dioxido**. Irene Aldasoro

Garrantzitsua da prozesu hori biriken eta odolaren artean oxigenoa eta karbono **dioxidoa** trukatzeko. Irene Aldasoro

Animaliaren barruan dagoen **karbono dioxidoaren** kontzentrazioa inguruko uretan dagoena baino handiagoa denez, kanpora egiten du **karbono dioxidoak**. Irene Aldasoro

**Karbono dioxidoaren** isurketak jaisten ari dira. Berria - Gaiak

**Karbono dioxido** isuriak murrizteko beharra dagoelako. Berria - Harian

**Karbono dioxido** gasen ondorioz, ozeanoetako PH mailak behera egin du. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atmosferako karbono dioxido** (6); **dioxido kopurua** (5); **dioxido maila** (8); **karbono dioxido** (62); **karbono dioxido isuriak** (4); **karbono dioxido kopurua** (5); **karbono dioxido maila** (7); **sufre dioxido** (3); **tona karbono dioxido** (4)

**karbono dioxidoa** (55); **karbono dioxidoa isurtzeko** (3); **nitrogeno dioxidoa** (5); **nitrogeno dioxidoa xurgatzean** (4)

**karbono dioxidoak** (5)

**karbono dioxidoaren** (14)

**karbono dioxidoen** (4)

**karbono dioxidorik** (4)

---

**dioxina** **1** *iz* konposatu organiko nitrogenoduna, oso pozoitzsua.

**Dioxina** da munduko gairik toxikoenetakoa, eta %60-70 erraauste plantek sortzen dituzte. Berria - Euskal Herria

Errauste plantek ez omen dituzte oso gai kutsagarri arriskutsuak sortzen (karbono-dioxidoa, azufre-dioxidoa, **dioxinak**, furanoak, kadmioa, beruna...). Berria - Euskal Herria

Justxenko **dioxinaz** pozoitu zutela jakinarazi dute haren medikuek. Berria - Mundua

Hondakinek uzten dituzten **dioxinaz** betetako errautsak produktuetara heltzen dira, eta, horien bidez, pertsonengana. Berria - Euskal Herria

Gantz gramo bakoitzeko pikogramo bat **dioxina**. Berria - Gaiak

0,1 nanogramo **dioxina** eta furano baino gehiago ezingo da isuri metro kubikoko. Berria - Euskal Herria

Alemaniatik inportatzen zuten pentsu hori, eta, itxura guztien arabera, **dioxinaz** kutsatuta zegoen. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frantzian **dioxina** kontzentrazioa Irlandan baino hamar aldiz handiagoa da. Berria - Euskal Herria

**Dioxina** eta furano maila normalean baino altuagoa izan ohi da elikagaiak erraauste planta, zentral elektriko edo gai kimikoekin lan egiten duen enpresa batetik gertu jasotzen direnean. Berria - Gaiak

Zaborra errausteak **dioxina**-emisio handia dakarrela ere esan zuten hizlariek. Berria - Euskal Herria

Errauste plantek, une oro, **dioxina** kopuru «handia» isurtzen dutela dio. Berria - Euskal Herria

Bizilagunek arnastutako **dioxina**-kantitatearen oso portzentaje txikiak direla errraustegiek sortutakoak. Berria - Gaiak

Justxenkori TCDD **dioxina** mota antzeman diotela baieztatu du Zimpferrek, hain zuzen ere, **dioxina** mota gogorrena. Berria - Mundua

1999 an Belgikan eta ere Frantzian, oilasko, arroltze, xerri ta beste... **dioxina** gostuarekin; Frantzia hegoaldean urte berean, behi odolez trafikatu arnoa. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dioxina eta furano** (7); **dioxina eta furanoak** (4); **dioxina gehiegi** (3); **dioxina kopuru** (3); **dioxina kopurua** (3)
**dioxinak eta furanoak** (4)
**dioxinaz kutsatutako** (3)

---

# diozesi *(ETCn* ***180*** *agerraldi; orobat* ***diosesa*** *ETCn* ***531*** *agerraldi -horietako* ***528*** *Herria aldizkarian edo iparraldeko autoreen literaturan-)* **1** *iz* erromatar inperioan, probintzia edo prefektura bat zatitzen zen barrutietako bakoitza.

Metropolitano edo artzapezpiku horiek, bestalde, sistema dioklezianikoan **diozesi** deitzen ziren probintzi multzo horietako baten administrazio-erdigune zen aulkiko apezpikua onartu zuten beren primatu gisa; **diozesi** hitza Elizak hartu zuen, baina apezpiku bakar baten eskumenari aplikatu zion. Iñaki Mendiguren

**2** elizbarrutia.

Hasiak ziren Baionako **diozesian** apez batzuk ohartzen belaunaldi berri bat ari zela sortzen Euskal Herrian. Piarres Aintziart

Vannes Bretainiako hiri eta **diosesako** apezpikua Bretainiarra da bera.Aita Saindu erreformatzaile batzuek miretsi ahal izan zituen, baina haien mendean ere ikusi sorterriko bere arbasoen jauregiak suntsitzen zituztela eta Baionako **diozesiari** 40 parrokia lapurtzen higanoten eta sorginen kutsutik haien zaintzeko aitzakiarekin. Herria

Azpilkueta erretiratu zen "bere zahartzaro hondarraren eramateko, Coimbrako **diozesian** eta San Romaneko herrixkan, bazuen parropiako elizara". Piarres Xarriton

**Diosesako** liturgia batzordekide batek animatuko du tailer hau. Herria

**Diosesako** euskaldunen beila ere harat eginen da uztailaren 14an. Herria

27 urtez egon naiz Tchaden, misionest gisa, **diosesa** berri batean, musulmanoen artean. Herria

**3** ***diozesi etxe*** *(corpusean* ***diosesa-etxe*** *eta* ***diosesetxe*** *soilik)*

Eta joan den egunean euskarazko Vatikano II liburua presentatua izan da Baionako **diosesa**-etxean. Herria

Ortzegunean, Baionako **diosesetxean**, emaztea eta kristautasunaz mintzaldia, Arantxa Olaizola eta Marise Gerra-rekin, aratseko 7etan. Herria

Lehen kurtsoak emanak izanen dira toki, egun eta tenore hauetan: Baionako **diosesetxean**, urriaren 7 an, 14 etan eta 20.30 etan; Miarritzeko San Josep gelan, urriaren 2 an, 18.30 etan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**baionako diosesa** (3); **baionako diosesak** (9); **baionako diosesako** (4); **baionako diosesatik** (3); **baionako diosesetxean** (3); **diosesako beilak** (3); **diosesako eskola** (4); **diosesaren kondu** (3); **tolosako diosesaren** (4)

---

# diplodoko *iz* 25 metroko dinusauro belarjalea, buru-txikia, oso lepo eta isats luzeak dituena.

**Diplodokoaren** antzeko dinosauro baten hezur pelbianoaren fosila. Berria - Gaiak

---

# diplodokoko *iz* bikoetan loturik agertzen den bakterio biribil mota.

Horretaz gain, baina, **diplodokoko** izeneko bakterio bat aurkitu zuten garai hartako laginetan. Berria - Gaiak

---

# diploma **1** *iz* titulu akademiko, sari edo kideko bat baieztatzen duen agiria.

**Diploma** eta ohorezko aipamenak gorabehera, oso zaila gertatu zitzaion Estatuaren bulegoren batean lana lortzea. Jose Morales

Ezagutzak ahoz azaltzea beharrezkoa izango da gradu titulua eskuratzeko, hau da, gaur egungo lizentzia edo **diploma** eskuratzeko. Berria - Euskal Herria

Eskola-psikologiako **diploma** baterako prestatzen ari zen Parisen. Joseba Urteaga

Albertok kolegioa utzi eta Turinera etorri zen lizeoko **diploma** lortzeko azterketa egitera. Fernando Rey

Berrehun ikasle inguruk izena eman dute bi ikasturteko **diploma** lortzeko. Berria - Kultura

Nekazari eskolako BTS **diploma** erdietsi bezain laster. Itxaro Borda

Atzo Azkoitian izan zen, METCA masterraren **diplomak** banatzen. Berria - Kirola

Ikastaroan parte hartu zuten 13 ikasleri **diplomak** eman zizkien Mendikoik. Berria - Ekonomia

Eman didate **diploma**, latinez idatzia. Piarres Aintziart

18.000 euro eta **diploma** bat eskuratuko ditu, Donostiako Miramar jauregian eginen den ekitaldian. Herria

Bakoitzak 15.000 euroko dirusaria eta Javier Mariscal artistak diseinatutako garaikurra eta **diploma** jaso ditu. Berria - Kultura

Gertu, oso gertu izan nuen olinpiar **diploma**. Berria - Kirola

Eskola giristinoek eskaintzen duten formakuntza hortan sartzeko behar da lehenik unibertsitateko lizentzia edo "maitrise"**diploma**. Herria

Baxoa 3 urte heineko **diploma**, euskararen ezagutza on bat, Hezkuntza arloko ezagutza edo esperientzia. Herria

Baxoko **diploma** ukaiten dutenen kopurua. Herria

**Diploma**: maitrisa (baxoa 4 urte). Herria

· Denbora teorikoaren %50 gehiago behar izaten dute ikasleek **diploma**, erdi mailako ikasketen agiria, eskuratzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**2** errege edo kideko batek zigilu eta armekin bermatzen duen dokumentua.

Badirudi, dio Dubos abadeak, **diploma** berean Anastasio enperadoreak prokontsul izendatu zuela Klodoveo. Iñaki Iñurrieta

[Antso III.aren] agintaldian sinatutako **diplomen** sorta kritiko arrazoitua argitaratu dute, Roldan Jimenoren eta Aitor Pescadorren eskutik. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

2001-eko ikasleen **diploma**-eskaintza egunean. Herria

Nekazaritza ekologikoko ikasleen **diploma** ekitaldia egin da Tolosan. Berria - Ekonomia

Epsilon-Euskaldi taldeak Mondragon Unibertsitatearekin batera antolatzen duen METCA masterraren **diploma** banaketa ekitaldian. Berria - Kirola

Paretetan zintzilikaturik, **diploma** mordo bat ageri. Txillardegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zorigaitzez, Espainiak ez du ingeniaritza **diploma** horri baliorik emaiten. Herria

Batxiler eta lizentzia **diplomak** pasa zitzaten nahi zuen, gero kolejio horretarako, bai eta Garazi eta Hazparnerako irakasle diplomatuak izateko. Xipri Arbelbide

Bizkitartean, urte hartan hiruk eskuratua zuten batxiler **diploma**. Xipri Arbelbide

Jostun **diploma** zuen, gaztetan eskola batean aterea. Pello Lizarralde

Ezagutzak ahoz azaltzea beharrezkoa izango da gradu titulua eskuratzeko, hau da, gaur egungo lizentzia edo **diploma** eskuratzeko. Berria - Euskal Herria

Goi teknikari **diploma** lortu zuen. Berria - Mundua

Kattinak, salbatzaile **diploma** zeukanez, bizkarrean zaflakoka lehen artak, menturaz ere azkenak, eskaini zizkidan. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**diploma bat** (8); **diploma baxoa** (4); **diploma eman** (3); **diploma eta** (7); **diploma izatea** (3); **diplomen kopiak** (6); **eta diploma** (4); **heineko diploma** (6); **heineko diploma**

baxoa (4)

# **diplomadun** *izond/iz* titulu bati dagokion diploma duena. ik **diplomatu**.

Trebetzaile **diplomadun** batek, laguntzaile batzuekin, ibilaraziko ditu jimastikalari gazteak sail desberdinetan segurtasun osoan. Herria

Gareskoa da Sanjurjo; Filologia Hispanikoan lizentziaduna eta ingelesean **diplomaduna**. Berria - Euskal Herria

Beste puntu inportantea: **diplomadun** guziek lana jadanik atxemana dutela. Herria

Goi mailako ikastegian irekitze-hitzaldiko azken esaldia esaten ari den **diplomaduna** bailitzan. Jon Muñoz

# **diplomata** *iz ipar* diplomazialaria.

**Diplomata** handia da, eta hanitx abilki bere alde biltzen dütü hanko jaunak, eliza gizonak eta merkatari-burgesak. Herria

Heien aldeko protestak egin ditu haatik hogei bat **diplomata** kargudun dauzkan batasun batek. Herria

Badute oraino xedea, India eta Pakistaneko Bombay eta Karachiko hirietan hala-nola, segitzeko beren tratuak beren enbaxadore eta **diplomatekin**. Herria

Egia da, ofizioko jende horiek ez dira eleketari trebeak, ez dira "élégants" hoietarik, ez dira **diplomatak**... Menane Oxandabaratz

# **diplomatika** *iz* antzinako diplomen eta dokumentuen azterketa zientifikoa.

Liburukietan lan egin dutenak gai askotan espezializatuak izan dira: Erdi Aroari dagokion liburukian Agustin Azkarate (arkeologian), Jose Antonio Munita (palografia, **diplomatika** ikerketa tekniketan), [...]. Berria - Kultura

# **diplomatiko** **1** *izond* diplomaziari dagokiona. ik **diplomazia 4**.

Ea behintzat harreman **diplomatikoak** eteten diren. Edorta Jimenez

Espainiak ez zuen harreman **diplomatikorik** Poloniarekin. Berria - Kultura

Iturri **diplomatikoen** arabera, 160 dira osteguneko protestan hilak. Berria - Mundua

Frankistek ez zeukaten Ajuriagerra eta italiarren arteko jolas **diplomatikoak** errespetatzeko batere asmorik. Jokin Urain

Eliza katolikoak, berriz, hirurak errugabeak zirela esan eta immunitate **diplomatikoa** eman zien. Berria - Mundua

Izan ere asko izaten baitziren bidean BSCkoek harrapatu eta barruak miatzen zizkieten Espainiako kutxa **diplomatikoak**. Edorta Jimenez

Espedizio hark ez zuela inolako helburu **diplomatikorik**. Alberto Ladron Arana

Adituek SSen espedizioa bidaia **diplomatikotzat** edo jo zuten. Alberto Ladron Arana

Papik zioen bezala, pena zen organizazioan halako harreman gaitasuneko pertsona bat eduki eta fronte **diplomatikorik** ez izatea. Bernardo Atxaga

1943ko udagoien hori baino lehenago Francoren ordezkari **diplomatikoren** bat edo beste Finca Vigían ibilia zen. Edorta Jimenez

Modu **diplomatikoan** gogorarazi zion ordainketarena. Migel Angel Mintegi

**2** diplomaziaz aritzen dena.

Baina orduan **diplomatikoagoa** zen beste gurutzatu batek, Sahério de Archelles izenekoak, elkar ulertzeko zubi bat egin zuen. Jon Alonso

-Baloi horiek neuk ekarri ditut goizean, baina ez zuk horrela jaurtitzeko- bota dio bietan **diplomatikoenak**. Jokin Urain

Nahiko **diplomatikoa** izan zela, ez hotza ezta ordea amultsua ere. Joxemari Iturralde

Urteak daramatzate pilotan eta biek erantzun **diplomatikoenaren** alde egiten dute: «Zein nahiago? biekin gustura». Berria - Kirola

Gerry Adamsek, agian, tonu itxaropentsuagoa izan zuen, hizkera **diplomatikoa** erabiliz. Berria - Harian

• **3** *iz* diplomazialaria.

On da ixilean jokatzea hori baita **diplomatikoen** lana, on da ere agerian jokatzea kantariek egin duten bezala. Herria

Faxistak Madrilen sartuz gero euren enbaxadan aterpetu zitezkeela esan zieten Herbehereetako **diplomatikoek**, Paraguaikoek, Poloniakoek, askok. Edorta Jimenez

Bi **diplomatikoak** desagertuak, militarren kuartela eraitsia, hiria desolazio urdin ezin sinetsizkoan murgildua. Karlos Linazasoro

**Diplomatiko** mutur-txuriari arrazoia emanez. Iñaki Segurola

**4** (hitz elkartuetan)

Gerra amaitu ostean **diplomatiko** karrera egin zuen, harik eta Erregimenak Gorteetako diputatu izendatu zuen arte. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diplomatiko bat** (8); **diplomatiko batean** (4); **diplomatiko batek** (9); **diplomatiko baten** (3); **diplomatiko egiptoarra** (5); **diplomatiko eta** (7); **diplomatiko ohi** (3); **diplomatiko ohik** (3); **eta diplomatiko** (7); **kutb diplomatiko egiptoarra** (3); **militar eta diplomatiko** (3); **modu diplomatiko** (3); **zuen diplomatiko** (8)

**arteko harreman diplomatikoak** (7); **bide diplomatikoa** (6); **bide diplomatikoari** (4); **bide diplomatikoen** (3); **diplomatikoa izan** (3); **diplomatikoak eta** (3); **diplomatikoak eten** (4); **diplomatikoak eten zituen** (3); **diplomatikoak etenda** (3); **diplomatikoak hautsi** (4); **diplomatikoen arabera** (5); **diplomatikoen bidez** (3); **egoitza diplomatikoa** (3); **eta diplomatikoa** (3); **eta diplomatikoak** (4); **harreman diplomatikoak** (27); **harreman diplomatikoak eten** (4); **harreman diplomatikoak etenda** (3); **harreman diplomatikoak hautsi** (4); **irtenbide diplomatikoa** (4); **iturri diplomatikoek** (12); **iturri diplomatikoen** (7); **iturri diplomatikoen arabera** (5); **ordezkari diplomatikoa** (3); **ordezkaritza diplomatikoan** (3); **zuen diplomatikoak** (3)

# **diplomatikoki** *adlag* era diplomatikoan; diplomaziaren aldetik.

Gobernu berria Ameriketako Estatu Batuek urtarrilaren 7an **diplomatikoki** ezagutu zuten arren, CIAk hasiak zituen planak, Habanarako bidean zetorren Fidel Castroren agintaldia hantxe bertan amai zedin. Edorta Jimenez

Marcosen mafiak jakin izan du seguraski ez zela **diplomatikoki** posible izanen gure desagertaraztea. Ramuntxo Etxeberri

**Diplomatikoki** ez dago inolako zalantzarik Erresuma Batuak Gibraltarren gainean zuen eskubideaz. Berria - Mundua

# **diplomatu** **1** *izond/iz* diploma bat duena. ik **diplomadun**.

Batxiler eta lizentzia diplomak pasa zitzaten nahi zuen, gero kolejio horretarako, bai eta Garazi eta Hazparnerako irakasle **diplomatuak** izateko. Xipri Arbelbide

Abokatua eta Zientzia Politikoetan **diplomatua**, RPR alderdiko (oraingo UMP) idazkari nagusi izan zen 1998-99 artean. Berria - Mundua

Bi ikasturtekoa da ikastaroa, lehengo urtean hasi zirenez, aurten izango dira lehen **diplomatuak** (berrogei inguru). Berria - Kultura

**2** ***ez-diplomatu***

Lehendakariaren agindu berri batek zioenez, hemezortzi urteko ikasle ez-**diplomatuek** soldadutzara joan behar zuten. Juan Kruz Igerabide

**diplomatura** *iz* unibertsitate gradua, lizentziatura baino maila bat apalagoa.

Gehienak lehen mailako ikasketak dituzten arren (%28), badira baita **diplomaturak** (%9) eta lizentziaturak ere (%13). Berria - Euskal Herria

Graduko eta graduondoko ikasketen gaurko lizentziaturak edo **diplomaturak** eta masterrak egitura prestatzen, hain zuzen. Berria - Euskal Herria

Zenbait estatuk badituzte horretarako programa bereziak [...] aurrezki plan horien bidez aukera desberdinak eskaintzen dituztenak: **diplomatura** egiteko, lizentzia ateratzeko, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bi titulazio ofizial eskainiko ditu egoitza horrek: fisioterapiako **diplomatura** , eta industria diseinuko ingeniaritza teknikoko lizentziatura. Berria - Euskal Herria

---

**diplomatxo** *iz* diploma txikia.

Lehen urtea bururatu zidan, CELG, *Certificat d'Études Littéraires Générales* delako **diplomatxoa** lortzen nuela. Piarres Aintziart

---

**diplomatzaile** *(orobat* ***diplomatzale****)* *izond/iz* diplomatikoa.

“Laster Master” inkomunikazio ikastaro azkarra eta **diplomatzailea** , Unibertsitate of deuseko kudeatzaileak: Kike Amonariz, Antton Elorriaga eta Asisko Urmeneta. Herria

Bertze bat Valentin Moïsseiev **diplomatzalea** , hiru urte hautan preso daukatena espiungoan arizanik, omen, Hego Korearekin. Herria

Tratu hori egina zen, omen, bakearen fagoretan, amerikano **diplomatzale** bat ararteko jarririk, bere ber eta nehork manatu gabe ari zena, diotenaz. Herria

---

diplomatzale ik **diplomatzaile**.

---

**diplomazia** **1** *iz* politikaren adarra, estatuen arteko harremanei dagokiena.

Izan ere, **diplomazia** gerraren aurpegietako bat da. Edorta Jimenez

Ezein gerrak ezingo du **diplomazia** galarazi, inoiz ez. Edorta Jimenez

Aurreneko aukera, eta inportanteena, **diplomazia** da. Berria - Mundua

Erak eta moduak ere halakoxeak zituen berak; **diplomaziarenak** , larregizkoak beharbada. Edorta Jimenez

-Barkatu, Oskar, **diplomaziaren** hizkera aldrebesaz nahasten bazaitut. Alberto Ladron Arana

Nik esanen nuke Eva Duarteren elizkizunetan Franco azaldu ez baldin bazen **diplomaziaren** arauek hartara behartzen zutelako izanen zela kausa Koldo Izagirre

**2** delako harremanak zertzen dituzten pertsona eta erakundeen multzoa.

Adostasuna bilatzen dute **diplomazia** biek; espainiarrenak eta amerikarrenak. Edorta Jimenez

AEBko **diplomaziak** "lagun" manukorren beharra zeukan, bertako goi mailako filipindar gizarteaz baliatu nahi baitzuen. Ramuntxo Etxeberri

Erdikoa printze, printzesa eta **diplomaziako** kideentzat zegoen atondua, eta haren gainean Londreseko oletatik ekarritako mahai erdiko apaingarri balio neurtezineko batek ñir-ñir egiten zuen. Karlos Zabala

**3** kontu korapilotsuak tratazeko sotiltasun eta trebetasuna.

**Diplomazia** eta psikologia pixka batekin egin ezin denik ez dago. Anton Garikano

Kattalinek giroa eztitu nahi du eta bere iritzia goxotasun eta **diplomazia** handienarekin emaiten dio. Eneko Bidegain

Gérard-ek **diplomaziaren** aldi du eta gauzak zinez pentsatzen dituen bezala erraiteko ordez, nahiago du zurikerietan luzatu, giro txarrik ez sortzeko goiz goizetik eta, bereziki, ez baitu oraino bere gain hartu nahi, Sophie-ren aitzinean, bere zinezko barnea. Eneko Bidegain

Eta **diplomazia** ez dago preseski SSek ongien egiten dituzten lanen artean. Alberto Ladron Arana

-Ioiok esandakoa egia bada, berandu gabiltza, ez? -Mikelok **diplomaziaz** hoztu nahi izan du sua. Urtzi Urrutikoetxea

Ordainketarena gogorarazi zion **diplomaziaz** . Migel Angel Mintegi

**Diplomaziaz** nahiz bortxakeria gordinez. Joxe Azurmendi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **diplomazi**) ik **diplomatiko**.

Mundu zabaleko **diplomazia** arduradunen bileraren amaieran. Berria - Mundua

Errusiako eta Txinako **diplomazia** ordezkariak Teheranerat joatekoak ziren atzo arratsean. Berria - Mundua

Polisarioaren irtenbide bakarretako bat erreferendumaren aldeko jarrerari tinko eutsi eta **diplomazia** lana indartzen ahalegintzea da. Berria - Mundua

**Diplomazia** arloaz orain arteko Europako komisario Michel Barnier arduratuko da. Berria - Mundua

Hori baino lehenago, 1961eko urtarrilaren 3an, Amerikako Estatu Batuek Kubarekiko **diplomazi** harremanak eten zituzten. Edorta Jimenez

Indiako britainiar gobernuak ingelesa bihurtu zuen **diplomazi** korrespondentziarako bitarteko eta 1835ean baita goi-mailako hezkuntzarako ere. Iñaki Mendiguren

Lege, **diplomazia** eta politika alorretako gure grabitate zentroa Baker Planean eta Konponbide Planean datza. Berria - Harian

Berak ez zuen **diplomazi** balixarik aipatu, baina besteak hitz horiek erabiltzeak nolabaiteko nagusitasun zantzuez janzten zuenez, ez zuen bere okerretik aterako. Jon Alonso

1850eko urteetan izenpeturiko merkataritza-itunak berrikustea lortu zuen, eta era horretan amaitu zen herrialde honen **diplomazia** gutxiagotasuna. Koro Navarro

Petro-boterea **diplomazia** kontua da. Berria - Harian

Pepponek azkenetan zeukan bere **diplomazia** -erreserba. Koldo Biguri

Marga Madrilera joan zen **Diplomazia** Eskolara. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diplomazia arduradunek** (3); **diplomazia buru** (3); **diplomazia buruak** (5); **diplomazia eta** (5); **eta diplomazia** (7)

---

**diplomaziaburu** *(orobat* ***diplomazia buru*** *g.er.)* *iz* estatu bateko diplomaziaren burua.

Erresuma Batuko **diplomaziaburuaren** irudiko, haatik, «hori gertatzeaz nahikoa kezkatuta dago Teheran, eta honek berak agerian uzten du nazioarteko erakunde honen eraginkortasuna». Berria - Mundua

Frantziako **diplomaziaburuaren** iritzian, baina, Teheranekin elkarrizketak berriro abian jar daitezke, Iranek betetzen baditu IAEArekin hartutako konpromisoak. Berria - Mundua

Pekingo gobernuaren **diplomaziaburua** . Berria - Mundua

Bileran parte hartu zuen, hain zuzen, Irakeko lehen ministroak berak eta haren **diplomaziaburu** Hoshiar Zebarik. Berria - Mundua

Munduko **diplomazia** buruak aldarrikapen agiri bateratua hitzartzen saiatuko dira. Berria - Mundua

Ameriketako Estatu Batuetako jarduneko **diplomaziaburu** Colin Powellek boz hauetan parte hartzera deitu ditu sunitak. Berria - Mundua

Tel Avivera joatekoak dira, datorren astean, AEBetako gobernuko bi goi arduradun eta EBko estatuetako **diplomaziaburu** andana ere. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako diplomaziaburu** (4); **aebetako diplomaziaburu condoleezza** (3); **aebetako diplomaziaburuak** (5); **batuetako diplomaziaburu** (4); **batuetako diplomaziaburu colin** (3); **diplomaziaburu colin** (5); **diplomaziaburu colin powellek** (4); **diplomaziaburu condoleezza** (4); **estatu batuetako diplomaziaburu** (4)

---

**diplomazialari** *iz* bere estatua atzerrian ordezkatzeko egitekoa duen pertsona. ik**diplomatiko**.

Gobernuburu eta **diplomazialari** ugari bildu dira Kairoko estatu hiletan. Berria - Mundua

AEBetako **diplomazialari** bat hil dute Karachin. Berria - Mundua

Erresuma Batuko Atzerri Ministerioko **diplomazialari** batek. Berria - Mundua

Carlos Evans **diplomazialari** ingelesa. Berria - Kultura

Egiptoko iturrien arabera, berriz, bahitzaileek ez zuten **diplomazialaria** zauritu. Berria - Mundua

Uzbekistanek **nazioarteko** diplomazialari eta kazetari talde bati Andijon bisitatzen utzi zion atzo, segurtasun neurri handien artean. Berria - Harian

Garai hartan otomandar gobernua beharturik baitzegoen **diplomazialari** azeriak erabiltzera Mendebaldeko botereekiko harremanetan, jada ezin baitzituen guduan soilik menderatu. Iñaki Mendiguren

Ondoren, 36 urte eman zituen **diplomazialari** lanetan Alemania eta Frantzian Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diplomazialari bat** (3); **diplomazialari bat hil** (3); **diplomazialari batek** (3)

---

**dipolo** *iz* elkarren hurbil dauden, eta bat positiboa eta bestea negatiboa diren bi poloen multzoa.

Molekula batzuek **dipolo** elektriko bat daramate beren baitan, hots, ipar orratz ñimiñoak bezala jokatzen dute eremu elektriko batean: orientatu egiten dira, batzuk nagiroago beste batzuk baino. Juan Garzia

Hobe Lurrean irautea, **dipoloekin** jostatzea hoberik ezean, bentzenoa araztu eta etorkizun ezagun baina gertu eta ziurki trajiko baterako prestatzea. Juan Garzia

---

**dipsomania** *iz* alkoholismoa, alkoholzalekeria.

Adurrek erabaki zuen zure bizitzaren porrota, Adurrek eraman zaitu **dipsomaniaren** bidetik. Anjel Lertxundi

**Dipsomaniaren** erabateko erremedio bakarra -esan zuen noizbait William Jamesek- erlijiomania da. Xabier Olarra

---

**dipsomaniako** *(orobat **dipsumaniako**)* *izond/iz* dipsomaniak joa dena.

Zuk, **dipsomaniako** borondate gabe horrek, jainkotu egin zenuen halabeharra, eta zaren oro Adurren eskuetan jarri zenuen, Adur hartu duzu zure etorkizunaren arduraduntzat eta jabetzat. Anjel Lertxundi

Isabel Clyde-ren senarra, Ralph Nolton, gerente-lanak egiten zituena, **dipsumaniakoa** zela... Lopez de Arana

---

dipsumaniako ik **dipsomaniako**.

---

**diptero**[1] *izond* intsektuez mintzatuz, mintzezko bi hego, aho xurgatzailea eta metamorfosi osoa duena; horrelako intsektuek osatzen duten ordenako kidea.

Zaldiak eta zaldizkoak ezin ihes egin eskualde zingiratsu horren bazter guztiak betetzen dituzten intsektu **dipteroen** ziztadei. Karlos Zabala

**Diptero** horien eztenetik libratzeko. Karlos Zabala

Mikel Strogoffen zaldia, **diptero** pozoitsu horiek eztenkaturik, saltoka zebilen mila ezproiren izar puntadunak saihetsean sartuta legez. Karlos Zabala

---

**diptero**[2] *izond* eraikinez mintzatuz, alde guztietan bi ilara zutabe dituena.

Tenplu **dipteroak** zortzina koloma ditu aurrean eta atzean, baina bi koloma-ilara ditu santutegiaren inguru guztian. Santiago Iruretagoiena

· Santutegiaren handitasuna erakusteko eta koloma **dipteroaren** inguruan jartzeko. Santiago Iruretagoiena

---

**diptiko** **1** *iz* margolanez mintzatuz, liburu baten gisa ixten diren bi oholez osatua.

**Diptiko** hau Giottoren eskolakoa da. Jon Muñoz

Kristau-aroko hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren mendeetako bizantziar **diptikoetako** bolietan. Iñaki Mendiguren

**2** paperezko orri erditik tolestu batek osatzen duen eskupapera.

Euskal Herria eta bertakoen izaera ezagutzeko tresnatzat» jo zuen euskara leitzarrak. D ereduaren aldeko kanpaina **diptikoen**, irratiaren eta telebistaren bidez zabalduko dute. Berria - Euskal Herria

---

**diptongatu**, diptonga, diptongatzen **1** da/du *ad* diptongo bihurtu; bi bokal, silaba berean ahoskatu.

Hizketa katean elkarren segidan doazen bokal bi **diptongatzea** -alegia, nolakotasun biak silaba bakarrean esatea- erritmo kontua da. Lourdes Oñederra

**Diptongatu** gabe dauden bokal bikote horietan (ue, ie). Lourdes Oñederra

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ez dago bokal ahuldurik, ezta **diptongaturik** ere. Lourdes Oñederra

---

**diptongatze** *iz* diptongo bihurtzea; bi bokal, silaba berean ahoskatzea.

Nahiz eta horrekin ez den ulertu behar **diptongatze** guztiak lenitiotzat hartu behar direnik. Lourdes Oñederra

Kenketak, **diptongatzeak** eta disimilazioak, banan bana hartuta denek dute zio fonetikoa. Lourdes Oñederra

Bokal **diptongatzea** eta nolakotasunen disimilazioa (*oe* > *oj*), Lourdes Oñederra

---

# diptongo *(orobat **diftongo** g.er.)* *iz* silaba berean ahoskatzen diren bi bokalen multzoa.

Bi bokal-nolakotasun silaba bakarrean gertatzea da **diptongoa**. Lourdes Oñederra

Oharmenaren gertakari interesgarria da, bokal biren bilkura ingurunetik isolatuta entzuten badugu (lan akustikorako programaren baten laguntzaz), zail gerta daitekeela bereiztea **diptongoa** ala hiatoa den entzuten duguna. Lourdes Oñederra

Bestalde, *ie* **diptongoa** *i@* bilakatu da, baina *ie* idazten da oraindik ere. Isabel Arrigain

Kontsonanterdiek osatzen dituzten goranzko **diptongoak** eta bokalerdiek osatzen dituzten beheranzkoak ere erritmikoki ezberdin dira. Lourdes Oñederra

Izan ere, **diptongoa** katemaila inplosiboaren kasu berezi bat baizik ez da. Isabel Arrigain

**Diptongoen** monoptongazioa -asmilazioaren aldaera bat baizik ez dena-, [...]. Isabel Arrigain

'O' batek eta 'e' batek ez baitute **diptongoa** osatzen. Joan Mari Irigoien

**Diptongoan** den *i* bokalak bere ondorengo *s* eta *ts* busti eta *x* edo *s* eta *tx* bihurtu ditu, hurrenez hurren. Koldo Zuazo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> diptongoak eta (3)

---

# diptongodun *izond* diptongoa duena.

Euskalki orotako hiztunek mailegu berri horiek palatalaz ahoskatzen dituztela islatu eta estandartzeko nahia bada arauaren zioa, ez da ulertzen zergatik ez den **diptongodun** kasuetara ere zabaldu (esaterako, *pantaila*). Lourdes Oñederra

---

# diputatu *(orobat **deputatu** g.er.)* **1** *iz* herriak biltzar legegilerako hautaturiko ordezkaria.

Handik gutxira politika aktiboan sartu zen eta bere hautagaitza aurkeztu zuen **diputatu** izateko. Monika Etxebarria

Alderdi Laboristak hemeretzi **diputatu** ditu eta bera da koalizioa osatzeko aukera gehien dituen alderdia. Aurretik ere izan genuelako **diputatu** bat Madrilen, 1996an. Berria - Mundua

Gaur, beraz, zazpi **diputatu** aukeratuko dituzte lau milioi inguru botoemaile eskoziarrek. Haren aita ere **diputatu** hautatu zuten eta joan-etorriak egiten zituen Erromatik Turinera. Berria - Mundua

Alderdi Liberalak bozen %32,6 eta 117 **diputatu** lor ditzake. Berria - Mundua

Kontserbadoreek bozen %31,8 eta 109 **diputatu** eskuratzea espero da. Berria - Mundua

CiUk hiru **diputatu** galduko lituzke, eta bederatzirekin geratuko. Berria - Euskal Herria

Hamabi urte eman zituen Andoni Monfortek Espainiako Gorteetan **diputatu**. Berria - Euskal Herria

Hortik aurrera Gorteetako **diputatua** izan zen 1977ra arte. Edorta Jimenez

Gerra amaitu ostean diplomatiko karrera egin zuen, harik eta Erregimenak Gorteetako **diputatu** izendatu zuen arte. Edorta Jimenez

Sarkozy jaunak hartuko dituela Euskal Herriko **diputatu** eta zenaturrak, lau hautetsi: Grenet, Poulou, Lassalle, Borotra eta Lamassoure euro-diputatua barne. Herria

Mega-hauteskundeak antolatu ditu [Chavezek] , kargu guzti-guztiak berritu edo berlejitimatzeko: presidentea, **diputatuak**, gobernadoreak, alkateak eta zinegotziak. Pako Aristi

31 **diputatu** abstenitu egin ziren. Berria - Euskal Herria

Milan Kunderak dio itzultzaileak garrantzitsuagoak direla Europako Parlamentuko **diputatu** guztiak baino. Anjel Lertxundi

Gregoire apezaren eta Barrere Conventioneko **diputatuaren** Iraultza garaiko erranek zer edo zer iragartzen zuten, alabaina. Itxaro Borda

Erromako **diputatuak**, lege greziarren bila bidali zituztelarik, Atenasera eta Italiako hirietara joan ziren. Nancyko **diputatu** egin zuten alabaina bere lagunek, eta Pariseko Estatu Orokorretara bidali, 1789an. Iñaki Iñurrieta

FPLPeko **diputatu** Khalida Jarrarrek *Berria*ri adierazi zionez, [...]. Berria - Mundua

Unione Naziunale taldeko Korsikako Lurralde Asanbleako **diputatu** eta Korsika Nazione alderdiko buru Jean-Guy Talamoni baldintzapean libre utzi zuten igande gauean. Berria - Mundua

## **2** (izenondoekin)

1803an, garai hartako Juan Miguel Galduroz erretoreak eta Francisco Aguirre **diputatu** jeneralak behar ziren baimenak eskuratu zituzten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gure frantses pentsalari, kazetari, irakasle, apezpiku, **diputatu** xuri ala gorrien gogoak ez dira hainbat aldatu. Piarres Xarriton

Hemen ziren Manuel Irujo eta Telesforo Monzon, Madrilgo Kongresuan **diputatu** abertzaleak orduan. Pello Zabala

Javier de Landaburu **diputatu** nazionalista zen, bai, Máximo Saizarvictoria **diputatu** sozialistarekin batera alde egin zuen Gasteiztik gure beste aiton-amonen janari-dendako furgonetaren maletalekuan ezkutatuta erbestera ihes egiteko. Mikel Hernandez Abaitua

Likuden sostengu nahikoa ez eta oposizioko **diputatu** laboristen bozekin plana aurrera ateratzea espero da. Berria - Mundua

Gazan eta Zisjordanian oro har 17 **diputatu** emakume daudela. Berria - Mundua

Chris Patten, Westminsterreko **diputatu** kontserbadore ohia. Berria - Harian

Turkiako Legebiltzarreko **diputatu** ohi kurdua. Berria - Mundua

Dari Ali al Faiad xiita **diputatu** dekanoa zen -87 urte zituen- Legebiltzarrean. Iñigo Aranbarri

## **3** (euskal aldundietakoa) ik **ahaldun**.

Aldundiko **diputatu** nagusiak argitu zuenez, [...]. Berria - Euskal Herria

Foru Aldundiak **diputatu** eta ahaldun nagusi ohiak omendu ditu. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako **diputatu** nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarrik aurreratu zuenez, [...]. Berria - Kultura

1898an **diputatu** izateko hautatu zuten. Askoren artean

Arabako Herrilan eta Garraio **diputatu** Rodolfo Saenz de Ugartek nahiz Ogasun **diputatu** Juan Antonio Zaratek agerraldia izan zuten, atzo, Biltzar Nagusietan. Berria - Euskal Herria

Ogasun **diputatu** Iruarrizagak Sailaren errugabetasuna aldarrikatu zuen. Berria - Euskal Herria

Alderdian «oxigenorik gabe» gelditzen ari dela adierazi zion *Berria*ri Sabin Arana foru **diputatu** ohiak. Berria - Euskal Herria

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Diputatu** karguaren zina bukatzean kartzelara eraman zuen esaldia bota zuen: [...]. Berria - Mundua

**Diputatu** hauteskundeetan ere aurkeztu zen, baina Bernard Marie Miarritzeko auzapeza nagusitu zitzaion. Berria - Euskal Herria

**Diputatu** akta sinatu eta Soriarako bidea hartu zuen Solabarriak, HBko beste bi diputatuekin. Berria - Euskal Herria

Harrezkero, abuztuaren 18an egingo diren bi hauteskundeetan **diputatu** postua lortu arte zain egon behar du, lehen ministro lanetan hasteko. Berria - Mundua

Frantziako Legebiltzarreko **Diputatu** Batzordeak zigorrak gogortzeko proposamena egin du. Berria - Euskal Herria

Oraindik gordeta ditu **diputatu** txartela. Berria - Euskal Herria

Lurralde Asanblearako bozetan botoetan gora egin zuten nazionalistek, baina **diputatu** kopuru bera lortu zuten. Berria - Mundua

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Trukagarritzat jotzen dituen 50etik gora bahitu ditu FARCek: lau diputatu, gobernadore ohi bat, 12 eskualde **diputatu**, Presidentetzarako hautagai ohi bat, hiru estatubatuar

eta segurtasun indarretako 34 lagun. Berria - Mundua

**6** ***diputatuen ganbera*** legebiltzarra.

Aurreko legegintzaldian, PPk Espainiako Zigor Kodeari eginiko erreforma bertan behera uzteko proposamena ontzat jo zuen atzo **diputatuen ganberaren** osoko bilkurak. Berria - Euskal Herria

Ildo horretan aurkeztu zuen Genaro Estrada taldeak txosten bat herenegun Mexikoko **Diputatuen Ganberan**. Berria - Euskal Herria

Asteazkenean Uruguaiko **Diputatuen Ganberako** nazioarteko kontuen batzordean eta Senatuko nazioarteko Batzordean mintzatu zen. Berria - Euskal Herria

Dominique Villepin Frantziako Barne ministroak Poliziak igandean egindako operazioa «arrakastatsua» izan dela azaldu zuen atzo Frantziako **Diputatuen Ganberan** egindako agerraldian. Berria - Euskal Herria

Carlos Mesa presidentearena bata eta **Diputatuen Ganberako** Garapen Ekonomikorako Batzordeak aurkeztutakoa bestea. Berria - Mundua

· Buenos Airesko Legebiltzarreko zein **Diputatuen Ganberako** presidenteek eta alderdietako ordezkariek hitzaldia egin ondoren, Ibarretxek hartuko du hitza. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi laboristako diputatu** (6); **alderdiko diputatu** (15); **aldundiko diputatu** (9); **ankarako legebiltzarreko diputatu** (4); **arabako diputatu** (18); **arabako diputatu nagusi** (8); **baiko diputatu** (6); **baiko diputatu uxue** (6); **baina diputatu** (8); **bat diputatu** (7); **beste hiru diputatu** (7); **bi diputatu** (14); **bilbao bizkaiko diputatu** (7); **bizkaiko diputatu** (13); **bizkaiko diputatu nagusi** (4); **bost diputatu** (10); **bozetan diputatu** (4); **da diputatu** (4); **diote diputatu** (4)

**a** (15); **a lasagabasterrek** (10); **diputatu ahmed** (4); **diputatu akta** (4); **diputatu artean** (10); **diputatu aukeratu** (10); **diputatu aukeratu zuten** (7); **diputatu bakarra** (7); **diputatu bat** (32); **diputatu bat lortzeko** (5); **diputatu batek** (9); **diputatu baten** (5); **diputatu batzuek** (12); **diputatu begoñ diputatu begoñ diputatu daude** (5); **diputatu demokratak** (5); **diputatu ditu** (17); **diputatu dituen** (4); **diputatu dituzte** (5)

**diputatu emilio** (11); **diputatu emilio olabarriak** (10); **diputatu erreformistek** (4); **diputatu eskuratu** (9); **diputatu eskuratu zituen** (5); **diputatu eta** (80); **diputatu eta sei** (4); **diputatu eta senatari** (5); **diputatu eta senatariek** (6); **diputatu galdu** (5); **diputatu gehiago** (7); **diputatu gehien** (6); **diputatu gehienek** (8); **diputatu gisa** (6); **diputatu guztiek** (5); **diputatu hautatu** (10); **diputatu hautatu zuten** (6); **diputatu hautatuko** (4)

**diputatu izan** (12); **diputatu izango** (18); **diputatu izango ditu** (9); **diputatu izateko** (9); **diputatu jaime** (5); **diputatu jaime ignacio** (5); **diputatu javier** (6); **diputatu jeltzaleak** (9); **diputatu josu** (8); **diputatu josu erkorekak** (5); **diputatu juan** (5); **diputatu kargua** (14); **diputatu kargua hartu** (4); **diputatu kopuru** (5); **diputatu laborista** (6); **diputatu laboristak** (4); **diputatu lortu** (17); **diputatu lortu zituen** (10); **diputatu lortuko** (9); **diputatu lortuta** (4); **diputatu luis** (12); **diputatu luis maria** (8); **diputatu mari** (5); **diputatu mari carmen** (4); **diputatu nagusi** (30); **diputatu nagusi jose** (4); **diputatu nagusi joxe** (12); **diputatu nagusi ramon** (8); **diputatu nagusia** (19); **diputatu nagusiak** (30); **diputatu nagusiak atzo** (4); **diputatu nagusiak eta** (4); **diputatu nagusiaren** (5); **diputatu nagusiari** (7)

**diputatu ohi** (14); **diputatu ohia** (11); **diputatu ohiak** (15); **diputatu ohiaren** (5); **diputatu postua** (4); **diputatu sozialista** (7); **diputatu sozialistak** (7); **diputatu talde** (4); **diputatu talde batek** (4); **diputatu tontxu** (5); **diputatu tontxu camposek** (4); **diputatu uxue** (8); **diputatu uxue barkosek** (4)

**a** (4); **a** (7); **du diputatu** (5); **duen diputatu** (8); **duen diputatu begoñ dute diputatu** (4); **eajko diputatu** (19); **eajko diputatu emilio** (7); **eajko diputatu josu** (7); **eako diputatu** (9); **eako diputatu begoñ ercko diputatu** (5); **ere diputatu** (6); **erkoreka diputatu** (5); **erkoreka diputatu jeltzaleak** (4); **espainiako kongresuan diputatu** (5); **espainiako kongresuko diputatu** (6); **eta diputatu** (28); **eta hamaseko diputatu** (4); **eta trebakuntza diputatu** (6); **feineko diputatu** (5); **foru aldundiko diputatu** (7); **foru diputatu** (10); **garapen iraunkorreko diputatu** (10); **gipuzkoako diputatu** (34); **gipuzkoako diputatu nagusi** (7); **gipuzkoako diputatu nagusia** (6); **gipuzkoako diputatu nagusiak** (17); **gonzalez txabarri diputatu** (6); **hainbat diputatu** (10); **hamabi diputatu** (5); **hamabost diputatu** (5); **hamaseko diputatu** (11); **hbko diputatu** (5); **hemeretzi diputatu** (4); **hiru diputatu** (21)

**iraunkorreko diputatu** (10); **iraunkorreko diputatu luis** (10); **josu erkoreka diputatu** (5); **ko diputatu** (9); **ko diputatu ohia** (8); **kongresuan diputatu** (8); **kongresuan duen diputatu** (5); **kongresuan eajko diputatu** (4); **kongresuko diputatu** (7); **laboristako diputatu** (6); **lau diputatu** (18); **legebiltzarreko diputatu** (25); **legebiltzarreko diputatu ohi** (4); **madrilen diputatu** (6); **nafarroa baiko diputatu** (5); **ogasun diputatu** (4); **parlamentuko diputatu** (4); **ppko diputatu** (6); **psoeko diputatu** (4); **sei diputatu** (5); **sinn feineko diputatu** (5); **taldeko diputatu** (4); **trebakuntza diputatu** (6); **txabarri diputatu** (6); **txabarri gipuzkoako diputatu** (21); **upnko diputatu** (4); **upnko diputatu jaime** (4); **zazpi diputatu** (7); **zen diputatu** (8); **zortzi diputatu** (10); **zuen diputatu** (22); **zuen diputatu batek** (4)

**alderdiko diputatua** (6); **baiko diputatua** (5); **diputatua da** (15); **diputatua ere** (6); **diputatua eta** (11); **diputatua ez** (4); **diputatua izan** (18); **diputatua izan zen** (13); **diputatua kargutik** (4); **diputatua kongresuan** (4); **diputatua lortzeko** (5); **eajko diputatua** (7); **eako diputatua** (6); **eta diputatua** (11); **eta trebakuntza diputatua** (5); **ko diputatua** (9); **lasagabaster eako diputatua** (4); **legebiltzarreko diputatua** (8); **nafarroa baiko diputatua** (5); **trebakuntza diputatua** (5)

**alderdiko diputatuak** (5); **azpiegituretarako diputatuak** (4); **baiko diputatuak** (11); **bide azpiegituretarako diputatuak** (4); **diputatuak atzo** (23); **diputatuak atzo adierazi** (5); **diputatuak azaldu** (5); **diputatuak azaldu zuenez** (4); **diputatuak berak** (5); **diputatuak eman** (5); **diputatuak eman zuen** (4); **diputatuak ere** (5); **diputatuak erredakzioa** (4); **diputatuak esan** (15); **diputatuak esan zuen** (6); **diputatuak espainiako** (5); **diputatuak eta** (23); **diputatuak ez** (7); **diputatuak iragarri** (4); **diputatuak jakinarazi** (6); **diputatuak jakinarazi zuenez** (4); **diputatuak nabarmendu** (5); **duen diputatuak** (5); **eajko diputatuak** (20); **eajko diputatuak eta** (4); **eako diputatuak** (38); **ekintzako diputatuak** (4); **erkoreka eajko diputatuak** (4); **espainiako kongresuko diputatuak** (4); **eta diputatuak** (9); **eta trebakuntza diputatuak** (4); **foru diputatuak** (28); **garapen iraunkorreko diputatuak** (4); **garraio diputatuak** (6); **gizarte ekintzako diputatuak** (4); **hiru diputatuak** (6); **ingurumen foru diputatuak** (6); **iraunkorreko diputatuak** (4); **kongresuan duen diputatuak** (4); **kongresuko diputatuak** (5); **kultura diputatuak** (4); **lan diputatuak** (4); **lasagabaster eako diputatuak** (11); **nafarroa baiko diputatuak** (10); **ogasun diputatuak** (7); **ppko diputatuak** (8); **trebakuntza diputatuak** (4); **upn ppko diputatuak** (5); **zuen diputatuak** (10); **zuen eajko diputatuak** (6); **zuen eako diputatuak** (15)

**bi diputatuk** (4); **diputatuaren arabera** (4); **diputatuaren dimisioa** (6); **diputatuaren esanetan** (6); **diputatuaren iritziz** (5); **diputatuaren ustez** (7); **diputatuei soldatak** (4); **diputatuek eta** (9); **diputatuen artean** (7); **diputatuen bi** (4); **diputatuen ganberako** (6); **diputatuen kongresuan** (25); **diputatuen kongresuko** (9); **diputatuen kongresura** (5); **diputatuen kontseiluak** (9); **diputatuetako bat** (4); **diputatuk bozkatu** (5); **diputatuk bozkatu zuten** (4); **diputatuk eta** (7); **dute diputatuek** (10); **espainiako diputatuen** (14); **espainiako diputatuen kongresuan** (8); **eta diputatuen** (6); **foru diputatuaren** (5); **frantziako diputatuek** (7); **hainbat diputatuk** (4); **legebiltzarreko diputatuen** (6); **nafarroa baiko diputatuaren** (5); **zenbait diputatuk** (5); **zuten diputatuek** (4)

---

## **diputatugai** *iz* diputatu izateko autagaia.

Gazatik hautatutako diputatuei Zisjordaniara joatea galarazi zien Israelgo Gobernuak; ondorioz, bideokonferentzia bitartez egin zuten karguaren zina Ramalara joaterik izan ez zuten **diputatugaiek**. Berria - Mundua

Konstituzioaren Zaindarien Kontseilua kontserbadoreen eskuetan dago, eta otsailean izango diren Legebiltzarrerako hauteskundeetan ehunka **diputatugai** erreformazaleren hautagaitza baztertzea erabaki zuen. Berria - Mundua

---

## diputaziño ik **diputazio**.

---

## **diputazio** *(783 agerraldi, 29 liburu eta 387 artikulutan; ETCn 14.162 agerraldi; orobat **diputaziño** g.er. eta **diputazione** g.er.; cf **aldundi** 1591 agerraldi, 22 liburu eta 777 artikulutan; ETCn 33.265 agerraldi)* **1** *iz* probintzia bateko interesak kudeatzeko hautatzen den korporazioa. ik **aldundi**.

**Diputazio** probintzialeko administrarietatik hasi eta ospitaleko kinina Atocha kaleko botiketan saltzen zuen barneko ikasleen elkarte bateraino. Josu Zabaleta

Hori dela-eta, epea luzatzeko eskatuko dio Ligari, Pontevedrako **Diputazioarekin** negoziatzen ari baitira. Migel Angel Mintegi

Horrela jokatu zen **diputazio** hori, bere ahal guziez Nafarroaren ona bilatuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nafarroako **Diputazio** frankistak dirua ematen zigun euskaraz genekienoi, azterketa baten bidez bagenekiela erakutsi ondoren. Pello Salaburu

**Diputazio** probintzialeko administrarietatik hasi eta ospitaleko kinina Atocha kaleko botiketan saltzen zuen barneko ikasleen elkarte bateraino. Josu Zabaleta

Arabako Batzar Nagusiek, EAJ, PSE-EE, EA eta EB-Berdeak taldeen botoekin, PPk proposatutako aurrekontuaren proiektua **diputazio** foralera bueltatzeko eskatu zuten atzo. Berria - Euskal Herria

Azkenean dirua beti iristen denez, bilbotarrek Bizkaiko **Diputazioaren** diru laguntzarekin ACB ligako lekua erosi zuen. Berria - Kirola

Nafarroak ez luke EAErekin bat eginen **diputazio** gisara, erkidegoaren maila mantenduz baizik. Berria - Euskal Herria

Jose Juan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Aldun Nagusiak atzo **Diputazioaren** laguntza eskaini zuen. Berria - Kirola

**Diputazioaren** eta udalen ordezkarien artean ere gehiengoa dute EAJ-EAk, eta, hortaz, haien hautagai Carlos Etxepare izendatuko dute Kutxako presidente hilaren 29an. Berria - Ekonomia

Dagoeneko 20.000 piezatik gora bereizi dira San Telmo museotik eta **Diputazioaren** funtsetatik zentro berrira eramateko. Berria - Kultura

[Hegoaldean] herriko bozak alde batetik eta bestetik **diputazio** delakoen berritzea bai eta, Nafarroan, probintzia hortako parlamentuarena. Herria

Sute batek **Diputazioaren** eraikina suntsitzen du. Askoren artean

**2** diputazioaren egoitza.

Bizkarretik heldu, eta **Diputazio** aldera jo genuen berriz, ahalegina kontsolatzen saiatzen nintzela. Inazio Mujika Iraola

Ondoren, UAGAko ordezkaritza **Diputaziora** sartu eta idazki bat helarazi zion Eloy Lopez de Foronda Nekazaritza ahaldunari. Berria - Ekonomia

Beste txapeldun armatuen erdian, han joan zen, **Diputazioko** ate nagusia igaro, eta eskaileretan gora. Inazio Mujika Iraola

Orri gutxi haiek iragaitzaz pasatu, eta, azken orrian, **Diputazioko** balkoi nagusiaren argazkia topo, bandera gorri-horia esekita zeukala. Inazio Mujika Iraola

**3** (hitz elkartuetan)

Horregatik, ofizialtasunean babestu behar izan zuten maiz, udaletxeetan eta **diputazio** jauregietan, alkate soinu eta prozesioetan. Iñigo Aranbarri

**4** hautetsi erakunde baten ordezkari multzo txikia.

1559ko otsailean, Nafarroa Behereko Estatuetako ordezkariek, Bastidan bildurik, Pauera **diputazio** bat igortzea erabaki zuten, ministro "higanoten" predikuez kexatzera. Aingeru Epaltza

Nolaz eta erregina berriaren gerizpean ari zirela deklaratzen baitzuten, "heretikoak" Nafarroatik kanpora zitzatela fermuki galdatzera bidaiatu zen delako **diputazioa** Paueko errege-jauregiraino Aingeru Epaltza

**5** ***diputazio iraunkor*** legebiltzar baten ordezkari den batzordea.

Eusko Legebiltzarreko **Diputazio Iraunkorra** astelehenean bilduko da Naval ontziolari buruz eztabaidatzeko. Berria - Ekonomia

Javier Madrazo EB-Berdeetako koordinatzaile nagusiak, aldiz, txalotu egin zuen Eusko Legebiltzarreko **diputazio iraunkorraren** ebazpena, «Navalen etorkizunarekiko gizarteak duen konpromezua islatzen» duelakoan. Berria - Ekonomia

Espainiako Kongresuko **Diputazio Iraunkorrak** ezezkoa eman zion atzo Aznarren gobernua ganberan azaltzeari. Berria - Euskal Herria

PPk gehiengoa duen **Diputazio Iraunkorreko** mahaiak muzin egin dio oposizioko alderdien eskaerari. Berria - Euskal Herria

**Diputazio iraunkorreko** mahaia bost kidek osatzen dute. Berria - Euskal Herria

**6** ***foru diputazio***

1918 an Nafarroako **Foru Diputazioarekin** batera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako **Foru Diputazioek** sortu zuten Euskaltzaindia. Herria

Euskadiko Garraio Agintaritzak oniritzia eman dio Supersur egitasmoari, Bizkaiko **Foru Diputazioak** aurkeztutako Hegoaldeko Saihesbidearen proiektuari. Berria - Euskal Herria

PPk iragarri du uraren lege proiektuaren kontra dagoela; testuak **foru diputazioen** eskumenak urratzen dituela dio. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arabako diputazioa** (11); **bizkaiko diputazioa** (6); **diputazio iraunkorreko** (3); **diputazioa eta** (14); **diputazioa eta san** (3); **eta diputazio** (3); **eta diputazioa** (5); **gipuzkoako diputazioa** (13); **gipuzkoako diputazioa eta** (4)

**arabako diputazioak** (39); **arabako diputazioak eta** (7); **bizkaiko diputazioak** (19); **bizkaiko diputazioak eta** (3); **dio diputazioak** (5); **diputazioak atzo** (3); **diputazioak berak** (3); **diputazioak donostiako** (3); **diputazioak du** (3); **diputazioak egindako** (3); **diputazioak emandako** (4); **diputazioak ere** (5); **diputazioak eta** (35); **diputazioak eta gasteizko** (3); **diputazioak eta mankomunitateek** (3); **diputazioak eta nafarroako** (4); **diputazioak ez** (7); **diputazioak ez duela** (3); **diputazioak jakinarazi** (6); **diputazioak jakinarazi du** (3); **ditu diputazioak** (4); **donostia gipuzkoako diputazioak** (6); **du diputazioak** (12); **du gipuzkoako diputazioak** (7); **dute gipuzkoako diputazioak** (4); **eta arabako diputazioak** (3); **eta diputazioak** (18); **eta gipuzkoako diputazioak** (5); **gipuzkoako diputazioak** (72); **gipuzkoako diputazioak eta** (9); **udalak eta diputazioak** (3); **zion diputazioak** (3); **zuen diputazioak** (4)

**arabako diputazioan** (3); **arabako diputazioaren** (11); **arabako diputazioari** (5); **bizkaiko diputazioarekin** (4); **bizkaiko diputazioaren** (9); **bizkaiko diputazioari** (7); **dio gipuzkoako diputazioari** (3); **diputazioan eta** (6); **diputazioarekin eta** (5); **diputazioaren aurrean** (6); **diputazioaren diru** (3); **diputazioaren eta** (9); **diputazioaren jarrera** (6); **diputazioaren jarrera salatu** (3); **diputazioaren laguntza** (7); **diputazioari eta** (6); **eta diputazioaren** (6); **eta diputazioari** (3); **gipuzkoako diputazioarekin** (6); **gipuzkoako diputazioarekin eta** (3); **gipuzkoako diputazioaren** (12); **gipuzkoako diputazioari** (11); **nafarroako diputazioan** (3); **nafarroako diputazioaren** (3)

**diputazioek eta** (5); **diputazioek eta udalek** (3); **diputazioen eta** (4); **eta diputazioek** (3); **eta diputazioen** (3); **eta gipuzkoako diputazioek** (7); **gipuzkoako diputazioek** (7); **jaurlaritzak eta diputazioek** (3)

**arabako diputazioko** (3); **azkoitia gipuzkoako diputazioko** (4); **bizkaiko diputazioko** (9); **bizkaiko diputazioko euskara** (4); **diputazioko arduradunek** (3); **diputazioko ate** (4); **diputazioko aurrekontuak** (3); **diputazioko eta** (5); **diputazioko euskara** (4); **diputazioko garapen** (4); **diputazioko garapen iraunkorreko** (3); **diputazioko giza** (3); **diputazioko gizarte** (3); **diputazioko ordezkariak** (4); **diputazioko presidente** (3); **eta diputazioko** (6); **gipuzkoako diputazioko** (22); **gipuzkoako diputazioko eta** (3); **gipuzkoako diputazioko garapen** (3)

---

# diputazioburu *(corpusean **diputazio buru** soilik)* *iz* diputazio baten buru den pertsona.

Carlos Iturgaitz EAEko PPren lehendakariak eta Jose Antonio Pastor Bizkaiko PSE-EEko idazkariak, Jose Luis Bilbao Bizkaiko **diputazio buruaren** agerraldia eskatu zuten atzo, Ibarra auzia-ri buruz argitaratu diren informazio berriez azalpenak emateko. Berria - Euskal Herria

---

# diputaziokide *iz* diputazioko kidea.

Aitatxik **diputaziokide** izateko proposamena bildu zuen, zenbait egun geroago. Aingeru Epaltza

**Diputaziokide** guztiak betoskoz eta mutur okerturik bueltatu ziren beren herri, eliza eta gazteluetara. Aingeru Epaltza

**Diputaziokide** batzuek -elizaren eta herri xehearen ordezkariek bereziki, [...]. Aingeru Epaltza

---

# diputazione ik **diputazio**.

---

# dir-dir *(**412** agerraldi, **54** liburu eta **11** artikulutan; ETCn **912** agerraldi; orobat **dirdir** **21** agerraldi, **10** liburu eta **5** artikulutan; ETCn **69** agerraldi)* **1** *adlag* distiratuz. ik **diz-diz**.

Gogoan nuen izar horiek berberak **dir-dir** ari zirela nire sorterrian, orain jende guztia lo zegoen eta bihar denak betikoa egiteko altxatuko ziren herrian. Fernando Rey

Argizko isuriak nonahi ageri dira **dir-dir**, ispilu batean legez. Karlos Zabala

Marro begira zegokien, beti egon ohi zen bazter batetik, eskuan whiskia eta begiak **dir-dir** zituela. Juan Kruz Igerabide

Aurpegia alai eta begi zurbilak maltzurkeriaz **dir-dir** zituela. Iñaki Mendiguren

Ateneak, begiak **dir-dir**, Telemakoren itxura hartu zuen orduan, eta Itakako gizon bulartsuekin hitz egin zuen. Juan Kruz Igerabide

**Dir-dir** ikusi nituen betaurreko biribilen atzean, doktorearen begiak urduri mugitzen ziren, eta haiek ere bi arrain arraro ziruditen, gorrituak, itxuragabeki puztuak. Alberto Ladron Arana

Zigarro baten muturra **dir-dir** ikusten du: Ryan-ek jarraitu egin dio aparkalekuraino. Oskar Arana

Zerbait zegoen **dir-dir** aurreko paretan. Iñaki Mendiguren

Betaurreko biribil haiek, ebaketa gelako argi itsugarrietan **dir-dir**. Alberto Ladron Arana

**2** (izen gisa) ik **dirdira**.

Eta, beirari eta likidoari eta **dir-dir** haiei beha liluraturik bezala geratzen nintzela, besoak luzatuz eta luzatuz joan zitzaizkidan espazioan barrena eta denboran barrena... Joan Mari Irigoien

Eta begi basatiak erakusten zizkigun, **dir-dir** indartsua. Alberto Barandiaren

**3** ***dir-dir egin*** distiratu. **dirdira 3**.

Hiriaren gainean, zeru zohardiari esker, eguzkiak **dir-dir egiten** zuen, itsasoaren aldean zegoen jada, erortzen ari zen, argi biguna jaurtitzen zuen, argizko fereka bat. Jon Alonso

Izan ere, zertarako jaio dira futbol-izarrak, Olinpoko zeruan **dir-dir egiteko** ez bada? Berria - Kultura

Zilarrezko ikurrak **dir-dir** egiten zion bularrean. Iñaki Mendiguren

Ziztagailu batek **dir-dir egiten** du; eztarritik izterrondoraino irekitzen dute bere gorputza; dena ikus dezake, baina ez du minik sentitzen. Oskar Arana

Haientzat baino ez zuten ordu hartan semaforo argiek **dir-dir egiten**. Harkaitz Cano

Argiek indarge egiten zuten **dir-dir**, aurpegien soslaiak agertu, hurbildu eta aienatu egiten ziren, arrainak akuario lupeztuan bezala. Lopez de Arana

Han zegoen Maria Sara ]...] eta bera ere bai, lotsarik gabe, beldurrik gabe, bere burua argiari erakutsiz, hau ahula bazen ere, maindire zuriak baizik ez zuen **dir-dir egiten**, ilargiaren argiak blaituko bailuen. Jon Alonso

Hermannen irribarreak ere **dir-dir egiten** zuen. Anjel Lertxundi

IPE Londresko merkatuaren pantailetan inoiz agertu ez diren zifrek **dir-dir egin** zuten atzo. Berria - Ekonomia

· Publizitatearen eta irudien mundu zorabiagarrian futbol-izar bat nintzen, inoiz baino **dir-dir** handiagoa egiten zuena. Joan Mari Irigoien

Begiek, lanpararen beheko argiak ukiturik, **dir-dir** berezia egiten zuten. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begiak dir dir** (30); **begiek dir dir** (16); **dir dir** (205); **dir dir egin** (29); **dir dir eginez** (4); **dir dir egiten** (75); **dir dir zituela** (14); **dir dir zuela** (4); **suak dir dir** (3)

---

## dirdai *(251 agerraldi, 71 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 715 agerraldi; orobat* ***dardai*** *g.er.)* **1** *iz* distira, dirdira.

Polizia baten gerrikoaren mihi metalikoaren **dirdai** berberarekin. Patxi Zubizarreta

Midak kalezuloa iragan mendeetako harribitxietako bat izan zen eta argizarien **dirdaia** izan zuen, noizbait, Kairoko zeruan. Patxi Zubizarreta

Plaza nagusira iristen da; gizonaren inguruan etxeek **dirdai egiten** dute; bai, metal horiz eta kristalez eginda baitaude. Eskarne Mujika

Tximistaren **dirdaiak** horrelaxe itzaltzen ditu une labur batez beste argi guztiak. Jose Morales

Ezusteko albiste hark interesaren **dirdaia** piztu zuen doktorearen begietan. Patxi Zubizarreta

Orduan, hamar otso larriren talde batek, goseak amorraturik, begiak **dirdai** jarioka txingarren pare, almadiaren barrura egin zuen jauzi. Karlos Zabala

Une hartan, **dirdaia** begietan, Afifi andereak esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

**2** (izenondoekin)

Erdian, urrezko sutontzi bati **dirdai** naroa zerion. Juan Garzia

Gero, beste aldean, urrearen **dirdai** gorrixkak ispiluak horizkatzen zituen. Karlos Zabala

Foku elektrikoen **dirdai** zurbila ikusten zen hiriaren gainean, gotorlekuko teilatuen gainetik. Jose Morales

Zeru goibela **dirdai** laranjaz blai zegoen. Lopez de Arana

Orduan, tximista baten **dirdai** izugarria nagusitu zen eta suzko bola bat leiho batetik sartu eta bestetik atera zen. Lopez de Arana

Hiri handia neukan nire oinetan, kale dotoreetako argiak **dirdai** urrunean. Pako Aristi

Afifi andereak, halako **dirdai** ameslaria begietan, irribarre egin zuen. Patxi Zubizarreta

Halako **dirdai** maleziazko bat islatu zen bere begi kasik lokartuetan. Patxi Zubizarreta

Alkohol gehiegiak eragindako **dirdai** zilartsua dute haren begi estrabikoek. Anjel Lertxundi

Dardarka zeukan ezpainartea, eta **dirdai** eutsiezin halako bat zerien begiei. Anjel Lertxundi

**3** (adizlagun gisa)

Burua atzera bota du eta begiak **dirdai** dauzka. Monika Etxebarria

Baina inoiz lehenago ikusi gabea balu bezala ari zen, begiak **dirdai** zituela. Bego Montorio

Laino-arte gero eta ugariagoetako argi-txinta horixkek lainoetako griskara zama-tsuarenekin kontrastatzen zuten, **dirdai** eta ubel. Anjel Lertxundi

· Baserrira iritsi da: han dago Mendaolatza, goizeko eguzkia leihoetan **dirdai**. Pako Aristi

**4** ***dirdai egin*** *(16 agerraldi, 12 liburutan; ETCn 43 agerraldi)* ik **dirdaitu**.

Haren bular zabalaren gainean gurutze batek eta hiruzpalau dominak **egiten** zuten **dirdai**. Karlos Zabala

Sekulako kandelak bailiran, **dirdai egiten** zuten Konstantinoplako minareteek Urrezko Adarraren inguruan. Jon Arretxe

Hodei argien artean **dirdai dagien** ortzadarrak bezala. Askoren artean

Ispilu honetan, hain zuzen, **dirdai egiten** du pobretasun zoriontsuak, apaltasun santuak eta amodio esanezinak. Askoren artean

**Dirdai egin** zenidan begi ahuletara, nigan bortizki errainutuz, eta dar-dar jarri nintzen maitez eta ikaraz. Imanol Unzurrunzaga

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fedekideek mendi malda elkorretan gora ekin zioten egunsentiko argi-**dirdai** goibelean. Juan Garzia

Eguzki-**dirdaiaren** islan, aintzira garden bat zirudien ordokiak. Juan Garzia

Trumoi burrunben eta tximista **dirdaien** ondoan, haize zakarraren menpe, zaparradako tanta lodiek bortizki bustia. Juan Luis Zabala

Niretzat kimika etorkizuneko ahalmen ezkutuzko laino zehazkabe halako bat zen, zeinak, su-**dirdaiz** zarrastaturiko kiribil beltzetan biltzen baitzuen nire geroa. Juan Garzia

Argia berdina zunan orduan eta orain, ez hain gorrixka; baina su-**dirdairik** gabeko argi txiro bera zunan, orain dagoen lanairearen zapi zurian bildua. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begiak dirdai** (3); **dirdai egiten** (12); **dirdai egiten zuten** (5); **dirdaia begietan** (3); **eta dirdai** (4); **halako dirdai** (4)

---

## dirdaiarazi, dirdaiaraz, dirdaiarazten du *ad* dirdai egitera behartu.

Tximarroa zen eta gominak **dirdaiarazten** zion ilea. Patxi Zubizarreta

---

## dirdaigabe *izond* dirdairik ez duena.

Kopeta bete kezkaren azpian, bere begi orain **dirdaigabeek** halako aurpegiera etsitu, noragabetu eta akitua nabarmentzen zuten. Patxi Zubizarreta

---

## dirdaika *(10 agerraldi, 5 liburutan; ETCn 52 agerraldi) adlag* dirdai eginez. ik **dirdirka**.

Eguzkia **dirdaika** ibilgailuetako kristaletan eta karrozeria metalizatuetan. Anjel Lertxundi

Hamidak, begietan jakin-gosea eta ezustea **dirdaika**, galdegin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Bihotzak punpaka jarraitzen zuen, begitartea gorriturik, begiak bozkarioz **dirdaika**. Patxi Zubizarreta

Oholen artean trenbideko argiei **dirdaika** antzeman dakieke. Monika Etxebarria

Iritsi da itxaropenari leihoak zabaltzen hasteko ordua, eguzki urretsuz **dirdaika** dagoen itsaso ardo-kolorean aurrera. Anjel Lertxundi

## dirdaitsu *(63 agerraldi, 37 liburutan, ETCn 381 agerraldi)* **1** *izond* distiratsua. ik **dirdiratsu**.

Santuaren anaia eta ikasle batek arima zoriontsu hura ikusi zuen, izar **dirdaitsu** baten itxuran. Askoren artean

Festa-apaindurak argi **dirdaitsuz** edertzen ditu denak, eta bakearen bedeinkapenak bildutako guztien bihotzak alaitzen. Askoren artean

Lur-sail lokaztuak izotz **dirdaitsuz** estalita agertu ziren goiz batean. Iñaki Mendiguren

Begi beltz **dirdaitsuak** zituen, elkarrengandik bereizi xamarrak. Lopez de Arana

Haiengana lasaikiro hurreratu, eta bere begirakune **dirdaitsua** luzatu zien. Patxi Zubizarreta

Gona **dirdaitsuko** talde ilun hartatik jaulki ziren gaueko hitz kezkagarriak. Karlos Zabala

-Jakituria **dirdaitsuaren** aldean hutsa da gure axaleko adimena. Patxi Zubizarreta

Gela ertain bat zen, dotorea, zola argizariztatu eta **dirdaitsuarekikoa**. Patxi Zubizarreta

Egun **dirdaitsua** zetorren, Nafarroan askotan gertatu ohi diren egun ezinago eder horietakoa. Txillardegi

**2** (adizlagun gisa)

Erotuta bezala pasa ziren mutilak nire ezkerretatik eta nire eskuinetatik, maldan gora arnasestuka, baionetak **dirdaitsu**. Txillardegi

Argazkiko eguzkia goi-goian zegoen, **dirdaitsu**. Lakarko etxeen aldera ari. Anjel Lertxundi

Jainkoaren begirada tximista bezala **dirdaitsu** sartzen da arima horren zolagunean, eta hain pozik geratzen da, non gutxitzat baitauka sofrikizun oro. Joan Mari Lekuona

Begitartea **dirdaitsu** zihoan, Korana buruz esaten, eta jendeak, bihotz eman nahian, inguratu egiten zuen. Patxi Zubizarreta

Brixtakoan, begiak **dirdaitsu**, hots egin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

**3** ***begi-dirdaitsu*** *izond* begi dirdaitsuak dituena.

Horren ondoren, Atenea begi-**dirdaitsuak** Ulisesen lagun zahar Mentorren itxura hartu zuen, eta Telemakorengana joan zen. Juan Kruz Igerabide

Orduan, Kronosen semeak tximista bat jaurti zuen jainkosa begi-**dirdaitsuaren** aurrera. Juan Kruz Igerabide

Behor eder arinak ala neskato begi **dirdaitsuak**? Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aintzaz dirdaitsu** (3); **atenea begi dirdaitsuak** (5); **begi dirdaitsuak** (6); **begiak dirdaitsu** (6); **dirdaitsu ageri** (5); **dirdaitsu ageri zen** (3); **dirdaitsu bat** (5); **dirdaitsu batek** (3); **dirdaitsu baten** (3); **dirdaitsu batez** (3); **eta dirdaitsu** (3); **zuri dirdaitsua** (3)

---

## dirdaitsudun *izond*

Gaurdaino ere, harrigarri ere harrigarri, armairuen goreneko apalek badakarkigute antzinatik itzulian haren oroigarri preziaturik: blondazko txal beltz printz **dirdaitsudunik**. Juan Garzia

---

## dirdaitu *(11 agerraldi, 5 liburutan; ETCn 407 agerraldi)*, dirdai(tu), dirdaitzen da/du *ad* distiratu. ik **dirdai 3; dirdiratu**.

Kanpoan, izarloka baten isats iheskorra **dirdaitu** zen abuztuko izartegian. Aingeru Epaltza

Antzigarrak eskailera-mailetan eta espaloietan **dirdaitzen** zuen. Lopez de Arana

-Nor ote da? -galdegin zuen, eta begiak halako moldez **dirdaitu** zitzaizkion, begi-niniek argi hutsezkoak eman baitzuten. Patxi Zubizarreta

Hazpegiak laxaturik, begitartea irribarre ameslari batez **dirdaitu** zitzaion. Patxi Zubizarreta

Beren begirakuneak gurutzatu egin ziren atzera, eta gizonarenak lehengo ausardiarekin **dirdaitu** zuen, lehengo handinahi imintzio, eta garaipen eta oldarkortasun berberarekin. Patxi Zubizarreta

Eguzki apalaren argiak autoaren aurreko aldea eta gurpiletako metala **dirdaitzen** ditu. Pello Lizarralde

Ilunabarraren argiak Long Island aldeko lantegiaren leihoak garretan jarri, atoiontzien ataketan **dirdaitu**, marra kiribil hori-laranjen itxura hartuta ur-korronte berde-marroiaren gainean atsedena hartu eta ezari-ezarian Hell Gate-ra gora egiten ari zen goleta baten bela puztuetan dir-dir egiten zuen. Lopez de Arana

---

## dirdaize *iz* dirdira.

Mendi-magalean bermaturiko bitxi bat, bere burua eguzkiaren boluptuositateari eskaintzen ziona, dena **dirdaizez** estalia, Jon Alonso

---

## dirdari *izond* dirdaitzen dena.

Tabernetan ateak irekita zeuden, eta argi tarte **dirdariak** igortzen zituzten kale aintziratu ilunetara. Josu Zabaleta

---

## dirdir ik **dir-dir**.

---

## dirdira *(258 agerraldi, 80 liburu eta 46 artikulutan; ETCn 2.053 agerraldi)* **1** *iz* distira. ik **dirdai**.

Izakien buru gainean, sabai-modukoa hedatzen zen, kristal distiratsuaren **dirdira** zuena. Elizen arteko biblia

Haien etxean ikusi nituela mende zaharraren azkeneko ilargiaren **dirdira** eta gizaldi berriaren lehenbiziko eguzki izpien distirak. Pello Salaburu

Gero, bat-batean, iluntasuna nagusitzen zen ostera, ilargiaren **dirdirak** aspaldi galdua baitzuen bere zilarra, hodei sabel-astun baten atzean ezkutatu zenetik. Anjel Lertxundi

Artean urrearen **dirdira** itzali gabe nuelako-edo erdi itsuturik, Lisboako argia inoiz baino motelagoa begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

Kandela piztuaren **dirdira**, alfa eta omega, omega eta alfa. Iban Zaldua

Suzirien eta sutzarren garren **dirdira** lanbroek ahulduta agertzen zen han-hemenka. Agustin Otsoa

Badirudi soinuaren dardara eta argiaren **dirdira** bat egitera doazela. Iñaki Arranz

Linterna baten argipean lagunen aurpegiak ikusi dituzu, zurea bezala emozioaren **dirdirak** argituta, eta barrezka hasi zarete denak. Xabier Mendiguren Elizegi

Izuaren **dirdira** begietan, galarrenak eragiten duen haizea baino dantzariago eskuak. Edorta Jimenez

Zaharrenek bere ilusioneak galduak baldin badituzte ere, ttipien begietan ametsaren **dirdira** ageri zen. Herria

Haren begirada apartekoa zen; bere baitan murgildua zirudien eta eskubide huts-hutsaren **dirdira** zuen. Monika Etxebarria

Aspaldian irakurritako liburu eraginkor haien **dirdira** berreskuratu nahi zenuke, baina urteak igaro dira, ezin orduan bezalakoxe jarraitu. Berria - Kultura

**2** (izenondekin)

Adi-adi zegoen, kristalen hautsaren **dirdira** ahularen beste aldera begira. Lopez de Arana

Hondar horien artean galdurik, beiraren edo mikaren **dirdira** ñimiñoei su motelak darizkie tarteka. Monika Etxebarria

Hor etorri zait kontsultara aurpegian irribarre zabala eta begietan **dirdira** berezia duela, pozik. Luis Elberdin

Eman eta eman eskuilarekin, eskailerako mailei **dirdira** berezi hori atera nahian. Alberto Barandiaren

Estuarioak dir-dir egiten zuen muinoen artean, ibaiko ura **dirdira** hutsa zen. Jon Alonso

Eder eta distiratsu da **dirdira** bizitan: / zure, Goi-goiko horren, irudi da. Askoren artean

Ez dago **dirdira** argirik eta garbirik inon. Hasier Etxeberria

Zaratarik egin gabe, oharkabean ia, estilo propioa landuz eta gure literatur mundutxoaren **dirdira** farfailetatik urrun. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beroak **dirdira** -galdak eragiten dizkio asfaltoari. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hamar kilometroz gidatu zuen kamioia, bide ilun eta beltzetan barna, argi **dirdira** ttipiena ere ikusi gabe. Eneko Bidegain

Mississipiaren ibaiadarrei antzeman nien han behean, laino artetik, eguzki-**dirdiran** barrena, latoi edo brontzezko zainak ziruditen. Joxe Austin Arrieta

Gune erromantikoa, Igeldoko harri hareatsuez eraikitako etxeen horaila ilunabarrean, Victoria Eugenia Antzokia, Kursaal zubiko farolen urre **dirdira** ibai azalean. Ramon Saizarbitoria

-Ea ba -begietan izandako poz **dirdira** hantxe iraungi zitzaion. Edorta Jimenez

Bakearen lo-**dirdira**. Herria

**5** ***dirdiran*** *adlag*

Ho, ho! ihardetsi zion ermitak, begiak **dirdiran**. Herria

Tiborrek inguruan begiratu zuen, harro, betaurrekoak pozez **dirdiran**: "Oker geunden, nonbait". Ander Irizar

Bidarraiko maldan gora, kabalkadaren soka luzea zoan zaldunen urratsetan, dena kolore, dena alegeratasun, jauntzi ederrak **dirdiran**, haur dantzari guziak lorios, ondotik herriko plazan bildua zen publiko guzia xarmatuz. Herria

**6** ***dirdira egin*** *(14 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 19 agerraldi)* distiratu. ik **dir-dir 3**.

Milioi bat leihok **dirdira egiten** zuten. Lopez de Arana

Gerrarako aizkorak eta labanak daramatzate, eta pinturaz eta olioz bustitako gorputz biluziek **dirdira egiten** dute. Julen Gabiria

Leiak estalirik, **dirdira egiten** zuten landa-zelaiek egun argitan, Alfonso Espin y Moya ikustera iritsi ez zen egun berrian. Edorta Jimenez

Aski ikusi duen baten begiak zituen, **dirdira egiten** zutenak adinak eta ikusitakoak ilundu gabeko zolitasun batez. Anjel Lertxundi

· Han izanen da kontinente izoztuaren zerrenda luzea, **dirdira** zuria eginez hegosortaldetik. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> baten dirdira (5); dirdira egin (4); dirdira egiten (10); dirdira egiten zuten (5); dirdira eta (6); duen dirdira (3); eguzkiak dirdira (3); eta dirdira (3); haien dirdira (3) begiak dirdiran (3)

---

## dirdiradun *izond* dirdira duena. ik **dirdiratsu**.

Halere, eguzki ilkitzetik datozen izpi **dirdiradunak** erlaino zurixkaren urratzen hasiak dira. Aurelia Arkotxa

Ur beltz **dirdiradunaren** klaxka-klaxka ilargi zuritan. Aurelia Arkotxa

Beribil zabal **dirdiradunean** zabilan ixil ixilik lehena... eta harri hausten ari bigarrena izerdi lapetan, elgarri soako bat ere egin gabe bat eta besteak. Herria

---

## dirdiraka *(10 agerraldi, 6 liburutan; ETCn 69 agerraldi) adlag* dirdira egiten. ik **dirdirka**.

Begirada altxatu zutenetarik askok argi zurbila ikusi zuten, une batez **dirdiraka** leiho estuen atzetik, eta suzko garretan gero, azkenean itzali zen arte. Agustin Otsoa

Lau helizeak **dirdiraka** hantxe, zeru ezin urdinago hartan, baita atzeko hiru lemak ere. Joxe Austin Arrieta

Agorrileko egun hau loriagarria da, itsasoa **dirdiraka** ari baina uhinak handi. arratsean txalupa batzuetako bonbillak ikusten zituen, han eta harantzago, munduaren bihotz ilunaren taupadengatik osatzen ziren olatuen arabera **dirdiraka**. Aurelia Arkotxa

Oinez zihoala, Ontziolako garabiaren parean bi guardia zibil inguratu zitzaizkion, trikornio beltza **dirdiraka**. Joseba Sarrionandia

Garaia, noblea eta harroa zen, herri hartan ordura arte ikusitako gizon guztiak bezalakoa, eta begiak **dirdiraka** jarri zitzaizkion borrokan pentsatze hutsarekin. Agustin Otsoa

---

## dirdirant *(orobat **dirdirante**) izond* distirantea.

Kazetariak urrundu bezain laster, taldeko lau gizonek oihu egin zioten, eta, hurbildu zenean, roketa jaurtigailu **dirdiranta** besapean, Starskyk belaunetara metrailatu zuen. Itxaro Borda

Itsastxakur eguzkizaleak ere izango dira izotz lauzen gainean etzanda, euren morfologia arraroa luzitzen; euren burusoil **dirdiranteak**, euren begi borobil eta amultsuak, euren bibote luzeak, euren gorputz astun aratza. Joseba Sarrionandia

---

## dirdirante ik **dirdirant**.

---

## dirdirarazi, dirdiraraz, dirdirarazten **1** du *ad* dirdiratzera behartu. ik **distirarazi**.

Erregeak ikusiko du, guk ezpatak zorrotik atereaz eta eguzkitan **dirdiraraziz**, gatazka hasia dela. Jon Alonso

Lisboa setiatzen duten armak **dirdirarazten** eta sutzen dituen uztail ezin gartsuagoa. Jon Alonso

Leihotikako argitasun izpiek ilunpe beltza ukatzen zuten, eta gelako kirten metalikoak **dirdirarazten**. Txillardegi

Su lama batek -pasioak eta gartsutasunak hartutako bere bihotzetik etorriak-, begiak **dirdirarazi** zizkion. Patxi Zubizarreta

Mahaia xahutu zuen, trapu busti batez igurtzi, eta zura oihal idor batez **dirdirarazi**. Elena Touyarou

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ordu erdi garrenean termometroa higitzen hasi zen, zegokionez: altzairu **dirdirarazizko** orratza, koadrante horailaren gainean bare beltz baten gisa aldaro eginez, 95°an geratu zen. Juan Garzia

---

## dirdiratsu *(69 agerraldi, 28 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 717 agerraldi)* **1** *izond* distiratsua. ik **dirdaitsu**.

Hori baino beherago, marmorean landuriko halako plataforma, taula edo aldare zibil baten antzekoa dago, luzea, gorrixka, **dirdiratsua**. Edorta Jimenez

Urrunean agertzen ziren saltegien eta iragarki erraldoien neonezko argiek pinpirin **dirdiratsuak** ziruditen. Ramuntxo Etxeberri

Gau arropa **dirdiratsuekin** jantzirik egoten omen ziren, eskote zabalekin, izugarri erakargarriak, usain arraroko zigarroak erretzen, opioa igual. Joseba Sarrionandia

Nik hurbiletik begiratu nion ezpainetan zeraman pintura gorri **dirdiratsura**, eta galdetzen nion nire buruari: zikintzen ote du pintura horrek? Pello Lizarralde

Auto beltz **dirdiratsu** bat, biziki ederra. Daniel Landart

Irribarretsu begiratu zidan, begi **dirdiratsu** eta garbiz. Ander Irizar

Bere lehen astea bururatzeko Maitaldiak talde **dirdiratsu** bat ekarriko du taulagainera gaur arratsean. Berria - Kultura

Etxola umel osoa argitasun **dirdiratsuz** bete zuen, eta Harryk epeltasunak biltzen zuela sentitu zuen. Iñaki Mendiguren

**2** (adizlagun edo predikatu gisa)

Eguzkia **dirdiratsu** sartzen zen leihotik eta bete-betean jotzen zuen begietan. Jose Morales

Matelak gorri zituen eta begiak **dirdiratsu**, sukarra balu bezala. Elena Touyarou

Bat-batean: ia neketsua zen horrela guztiz gogor, **dirdiratsu** bilakatzea. Monika Etxebarria

Haren begitartea egunsentia bezain **dirdiratsu** dago. Monika Etxebarria

Nire begiak emango nizkizuke ikusten ari naizena ikus zenezan, gurutzatuen armada ibaitik behera, ura leun eta **dirdiratsu**, ura baizik izan ezin daitekeen moduan. Jon Alonso

Julian fraile xaharra alegeraki mintzo, aurpegia alai, irri ezti bat ezpainetan, begiak **dirdiratsu**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begiak dirdiratsu** (3); **bezain dirdiratsu** (3); **dirdiratsu bat** (4)

---

## dirdiratu *(42 agerraldi, 20 liburu eta 7 artikulutan; ETCn 198 agerraldi)*, dirdira(tu), dirdiratzen da-du *ad* distiratu. ik **dirdira 6; dirdaitu.**

Mendi gailurretako elurrak eta harkaitz grisak ispiluen moduan **dirdiratuko** dira gauean. Joseba Sarrionandia

'Seven eleven' saltegi baten hizki berde handiek gudroi bustiaren ispiluan **dirdiratzen** ziren. Ramuntxo Etxeberri

Apezaren aurpegi zurpail eta finean artearen edertasuna **dirdiratzen** dela dirudi. Piarres Aintziart

Giro miragarri batean **dirdiratzen** du Pasaiako plazak. Koldo Izagirre

Amaren garai bateko apaintze-mahaiaren gainean **dirdiratu** zuen ispilu handiaren aurrean gelditu eta neure burua xeheki aztertzeari ekin nion. Ander Irizar

Denek urrezko arropak zituzten eta eguzkiak baino gehiago **dirdiratzen** zuten. Aurelia Arkotxa

Haren begi eder galduek suzko globoen gisa **dirdiratzen** dute eta haren ile bakanek lurrunez aureolatzen diote burezurra. Monika Etxebarria

Begiak, ordea, distiraka zituen, gaua zenbat eta ilunago izan, orduan eta areago **dirdiratzen** duten izarren antzera. Agustin Otsoa

Gaueko iluntasunean **dirdiratzen** duten harribitxiak bezala. Xabier Kintana

Sarkozyk dio Frantziak munduan **dirdira** dezan bilatzen duela. Berria - Harian

· ik dirdirarazi.

Apal apala mintzatzen da, malko hastapen batek ezkerreko begia **dirdiratzen** diola. Eneko Bidegain

Eguzki apal txuriak bazter guztiak **dirdiratzen** zituen. Daniel Landart

Nekez gordetzen zuen irria eta emozioak begiak **dirdiratzen** zizkion. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dirdiratzen zuten** (5)

---

## dirdirka *(30 agerraldi, 21 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 105 agerraldi; orobat **dir-dirka** 3 agerraldi, 2 liburutan; ETCn 10 agerraldi)* *adlag* dir-dir egiten. ik **dirdiraka.**

Denak elkarrekin berriz etxe aldera zihoazenean, zeruan izarrak **dirdirka** hasten zirela ikusten zuten, eta zapoak aditzen zituzten. Koro Navarro

Joan dira lainoak zeruan, izarrak **dirdirka** dira. Oskar Arana

Irri egiten zuen eguzkiak, soroko ihintzetan **dirdirka**. Patziku Perurena

Argi berde bat **dirdirka** ari zen Kidd badiaren gainean, piraten errekaren ahotik hurbil. Julen Gabiria

Ministroak Snaperen portaeragatik txundituta zirudien, eta zuzendariak betaurrekoen atzean **dirdirka** zituen begiak. Iñaki Mendiguren

Beltzarana eta ile motza, begietan perla beltz bi zituen **dirdirka**, jostari. Edorta Jimenez

Sakelako salatoskopioa irtenda zegoen osaba Vernonen galtzerdi zaharretatik eta biraka eta **dirdirka** zebilen lurrean. Iñaki Mendiguren

Hareatzez haraxeago, ortzemuga urruna urratzen zuten kretazko mendien tontorrek, zuritasun itsugarriz **dirdirka** noiznahi, baita egun euritsuetan ere, eguzkiak beti argituko balitu bezala. leihotik kanpoko hostoak **dirdirka** ari ziren oraindik, eta leihatiletan eta formikazko gainean osatzen zituzten irudiei begiratu nien. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dirdirka ari** (4); **dirdirka ari zen** (3); **eta dirdirka** (3)

---

## dirdirkari *izond* dirdirka ari dena.

Dumbledoreren begi **dirdirkariek** Weasley bikien aldera begiratu zuten. Iñaki Mendiguren

Sorterria, itsaso zabal eta ilunaren bazterrean, itsaso beti jazarleari paparra ematen zioten harritzarren magalean, olatu etengabeen mugan, argi **dirdirkari** bolada bat besterik ez zen, han atzean ezkutatzen, uhinak tolestuz etzaten diren lekuan, munduaren azalgain urrunean. Joseba Sarrionandia

---

## dirdirkatu, dirdika(tu), dirdikatzen da *ad* dirdirka aritu.

Horrela, bada, Ortega-eta "arrazismo biologikotik" libratu nahi dituen arrazoibide ilun horren pean **dirdirkatzen**, zalantza gabe badago egia bat zilegizkoa, arraza usu aipatze hutsak ez duela inor arrazista bihurtzen. Joxe Azurmendi

---

## dirdizka *adlag* dirdirka.

Mailaka-mailaka parpailez jositako soineko luzeak eta dominaz hornitutako uniformeak nahasi ziren batzuk besteekin, eta berebiziko ikuskizuna eman zuten, ispiluetan **dirdizka** mila islatan ugaltzen zen ehun lanpararen argipean. Karlos Zabala

Haren begiak urdin ilunak ziren, begikera zuzen argi tolesgabekoak, **dirdizka** beti betileen arkuaren azpian. Karlos Zabala

**Dirdizka** zeuzkan begi gori-goriak aurpegian, milaka ile-xerlo sutuz inguratuak. Jon Muñoz

---

## direktiba 1 *iz* zuzentaraua.

Europako Batasuneko **direktibaren** arabera, enpresek denbora behar dute euren betebeharrak eta horretarako inbertsioak ezagutzeko. Berria - Ekonomia

Parmalat gaiari buruz duela bi aste eztabaidatu zuten arren, Europako Batzordeko ordezkariek konpainien funtzionamenduarekin lotuta dauden **direktiba** komunitarioei buruz hitz egingo dute. Berria - Ekonomia

Europako Batasunaren **direktiba** bati jarraiki, Belgikako estatuan bizi diren atzerritarrentzat (882.000) eta asilo eskatzaileentzat 2008. urterako derrigorrezko egingo duen nortasun agiri elektronikoa lehenbailehen indarrean jarri nahi du ministro federalak. Berria - Mundua

Europak biokarburanteei buruzko **direktiba** ateraia du 2003-an, landare erregaien erabilpena bultzatzen du; Frantzian aldiz bio erregaiik ez da legez aipu. Herria

Baina, Bolkenstein **direktiba**, hiper liberaltzat ekartzen dutena, laster euro parlamentuan eztabaidatzekoa dute. Herria

**2** zuzendaritza.

Entzun ezak ondo, mutiko: berriz ere halako alukeria batekin izorratzen banauk, bankilloari brilloa eta guzti atera beharko diok ipurdiarekin, mekauenlaostia!, berdin zaidak **direktibak** zer esaten duen, kabroi halakoa... Xabier Mendiguren Elizegi

---

# direktibo *iz* zuzendaritzako pertsona.

Arraun elkarteko **direktiboen** artean. Koldo Izagirre

Konpainiako **direktibo** zenbaitek. Berria - Ekonomia

---

# direktor ik **direktore**.

---

# direktore *(orobat **ditektor** g.er. eta **direktur**)* *iz* zuzendaria.

Astebete lehenagotik hasi zen ensaiatzen jendea, maisua **direktore** zutela. Matías Múgica

Egunak joan ahala, martxarik ez neban ikusten eta **direktoreari** esan neutsan: [...]. Xabier Amuriza

Hango **direkturra** zen Mongaston apeza, jakitate handiko gizona. Herria

Louis Etxeberri zen lehenik **direktora**, hura diputatua zen. Menane Oxandabaratz

Joan nintzan eta "¿qué?" eta "bueno"; txoferrak hoteletik ekarri eta hotelera eroan; atzera eta aurrera; "hoy esto" **direktoreak** eta "vale" nik, nahikoa, eta atzera hotelera. Xabier Amuriza

---

# direktorio **1** *iz* Frantziako iraultzan, 1795-1799 epean botere betearazlearen kargu hartu zuen bost kideko batzordea.

Iraultza Frantsesaren Konbentzioaren ondotik heldu zen gobernu mota izan zen **Direktorioa** (Directoire), eta 1795etik Napoleonek 1799an estatu kolpea eman zuen arte iraun zuen. Koldo Izagirre

Frantziar iraultzaileak sekula ez ziren nekatu Solon eta Likurgo aipatzen, eta beren andereak eta **Direktorioko** kideak ustez soineko "klasikoak" zirenez jantzi zituzten. Iñaki Mendiguren

Gizon arraro samalda batek inguratu nau; zarpatsu, pildatan bilduak, Callot-en figurak balira bezain harro eta dotore; **Direktorioko** *Incroyables*-en bonetak buruan. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Bada, 1959ko urtarrileko lehen egunetan **Direktorioaren** indarrek Unibertsitatea hartu zuten, eta huraxe beren lubaki egin. Edorta Jimenez

**Direktorioko** batzuek Escambrayko Mendietan ziharduen kontrairaultzaren lerroetara jo zuten. Edorta Jimenez

**3** informatikan, atxibo edo programen zerrenda.

Hogeita hamar minutu horietan bildutako irudi, hots eta sentipen meta zertu, antolatu, sailkatu eta nire garunera ekarri baizik ez nuen egin behar, ordenagailuko **direktorio** ezberdinetan artxibaturiko testuen idurira. Aingeru Epaltza

Banan-banan begiratzera etsia, lehenbizikoetariko baten izenak terneziazko irribarrea jalgiarazi zidan: "edu-1", "debalde" **direktorioan**, sei egun lehenago Ttipik eman txostenaren lehen orrian nire izen-deiturekin batean agertzen zen bera. Aingeru Epaltza

**4** enpresen edo kidekoen helbide multzoa.

Ikerketa-esparru zehatz batean argitaratzen diren aldizkako argitalpenak ezagutzeko **direktorio** hau oso egokia izango zaizu: 2003: *Ulrich's International Periodicals Directory* 2002-2003 (including Irregular Serials&Annuals), New Jersey, R. R. Bowker. Askoren artean

**5** ***azpi-direktorio***

Potzolok gauza gehiago erran zidan, aise ere gehiago, eta hor egon behar zuten, nonbait, nire gogo elbarrituaren azpi-**direktorioren** batean. Aingeru Epaltza

---

# direktur ik **direktore**.

---

# direkzio *(orobat **direzio** g.er. eta **direkzione** g.er.)* **1** *iz* norabidea.

Zirkuluaren kurba ukitzen duten triangeluen erpinak egon daitezela atalen arteko igoera eta eskaileren **direkzioetara** begira jarrita, lehenengo korridore zirkularreraino. Santiago Iruretagoiena

Joera honek indar handia hartu zuen garunaren egituraren ikerketak "oinarrizko" zenbait eginkizunetan espezializatuta zeuden zelulak, (ertzak, marrak, **direkzio**-mugimenduak, eta abar pertzibitzen espezializatuak) existitzen zirela frogatu zuenean. Josu Zabaleta

**2** helbidea.

Zeren pentsatu bainuen ezen napolitarrari geure Nafarroako jauregiaren **direkzionea** eman behar niola, bere Donejakuerako bidean ingurutik iragan zitekeenez gero, eta bisitatxoren bat egin, bidenabar. Joan Mari Irigoien

**3** zuzendaritza.

Aste honetan, irrati eta telebistako informazio guztiak beren desadostasuna agertu dute [...] **direkziotik** informazioa neurtu eta matematikoki ordenatzera derrigortzen dituztela-ta. Berria - Euskal Herria

**4** gidagailua.

Zirkuitu mantsoa da, baina ez hori bakarrik; norabide aldaketa asko ditu, eta beharrezkoa da autoaren **direkzioak** azkar erantzutea. Berria - Kirola

Landabengo lantokiaren bezero nagusiak, hots, Renault enpresak, **direkzio** elektrikoen salneurria merkatzeko eskatu dio TRWri. Berria - Mundua

Gaur egun, hori da lantokiko kontraturik handiena, lehengo **direkzio** hidraulikoak egiteari utzi zionetik, eta bi kate erraldoi daude horretarako prestatuta, hirurogei langilerekin. Berria - Harian

Autobuseko aire girotua edo **direkzio** lagundua ere motor elektriko berberak elikatzen ditu. Berria - Gaiak

Gauza bat bada guztiek onartzen dutena, horren froga eta argazkiak badaudelako: Williams autoaren gidagailu edo **direkzio** barra hautsi zen. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**direkzio elektrikoen** (4); **direkzio elektrikoen salneurria** (3)

---

direkzione ik **direkzio**.

---

**direlako** **1** *izlag* aipatutakoak, lehen aipatutakoak. ik **delako**.

Lehen oharpena da "gogojardunak" **direlako** izen honetaz adierazten dela nork bere barrena aztertzeko, hausnartzeko, kontenplatzeko eta hitzez nahiz gogoz otoitz egiteko edozein modu. Patxi Altuna

Halaxe dio Carlos Bakerrek, **direlako** basko horiek nor diren zehaztu barik. Edorta Jimenez

**2** *(aipatzen den izen propio, erderatikako izen edo kidekoren baten eskuinean).*

Zure ikasgelan ba al dago beste horien, iraultzaile **direlako** horien mandatariri k? Matías Múgica

Uhartearen aldean oraindik zutik zirauten arbotanteak edo **direlako** horiek bizi-bizi ari ziren distiratzen zeru beltzean. Joxan Elosegi

Erfjord-ek iradoki du "laido" **direlako** horiek (zeinak grekerazko kodize batean gorderik baitaude) ebanjelio galduak direla. Juan Garzia

Izan ere, kreazioko zentzugabeetan azkarrenak omen dira *incohone* **direlako** horiek. Xabier Olarra

Biztanleriaren gutxiengo txiki bat, *struldbruggs* **direlakoak**, hilezkor dira. tasun haietariko batzuk, "alosteriko" **direlakoak**, Jean-Pierre Changeux-en lanak jarriak zituen agerian. Juan Garzia

Horiek dira *self-fulfilling prophecies* **direlakoak**, hau da, esate edo egite hutsagatik betetzen diren profeziak. Iñaki Heras

Baina berri onak ere badituzte *os dragoes* **direlakoek**: Diego erasoko erdilari brasildar bikaina fitxatu dute. Berria - Kirola

Badira hamar gene, HOM gene **direlakoen** saila osatzen dutenak, euli-enbrioiaren baitan kargua dutenak eratu berri diren segmentuen nortasuna zehazteko. Juan Garzia

Arima edo *aparecido* **direlakoen** izatea bera ere erlijioak predikatzen zuenarekin lotua ikusi behar da. Bernardo Atxaga

*Tusculanas* **direlakoetan** jasorik dago Eskilo Pitagorasen ordenako kide izan zela. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**ari direlakoan** (4); **direlakoan da** (8); **direlakoan dago** (5); **direlakoan daude** (6); **direlakoan dira** (3); **direlakoan gaude** (4); **direlakoan nago** (9); **direlakoan zaude** (3); **egingo direlakoan** (3); **ez direlakoan** (7); **izanen direlakoan** (3); **izango direlakoan** (16)

---

direzio ik **direkzio**.

---

**dirigismo** *iz* gehiegizko esku hartzea.

Koordinazioa behar dugu, dudarik gabe, bestela ez dakigu zertarako behar ditugun denak, eta norabide berean joan behar da, Katalunian edo Frantzian gertatzen den bezala, baina arriskua dago: **dirigismoa**. Berria - Kultura

---

**dirigista** *izond* gehiegizko esku hartzea duena.

Egiazko arazo taktikoa izango zen haientzat: arras **dirigistak** baziren ere, konpainiako ahaltsuek ezin agindu zieten koadroei beharrak beren solairuan, eta ez behekoan, obratzeko. Joxan Elosegi

---

**diru** *(ETCn 188.265 agerraldi)* **1** *iz* salgai trukean edo salgaien balioa gauzatzeko berariaz erabiltzen papera edo metalezko pieza.

**Diruak**, beste edozein ondasun edo zerbitzuk bezala, erosle edo eskatzaile batzuk ditu eta saltzaile edo eskaintzaile batzuk. Iñaki Heras

Aberatsak luxura eta harrokeriara, **diru** pilatzera bezain emanak dira. Iñaki Heras

Txanponez txanpon **dirua** bildu. Jose Morales

Esaten genian egunen batean New Yorkera etorriko ginela **diru** asko irabaztera. Lopez de Arana

Besta hauek **diru egiteko** eginak dira eta hauen antolatzaile diren elkarteak huni buruz ari dira eta huni buruz bakarrik. Herria

*ik beherago* 37. Askoren artean

**Diru egiteko** modu asko daude. Gotzon Garate

Merke, ez **diru** gutxi gastatzen duelako, baizik gastatzen duen **diru** hori, proportzioz, herri garatuetan erabiltzen dena baino apalagoa delako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Baina ez naiz hasiko **dirua** botatzen. Jose Morales

Oso **diru** gutxi da hori. Jose Morales

Bat ekarri diat; eskerrak **diru** guztia galdu aurretik erosi nuen. Jose Morales

Bere **diru** guztia banatu zuen Erromako eskaleen artean. Jose Morales

Berdin zaio zenbat **diru** xahutzen duen. Lopez de Arana

Ez trukatu adiskidea **diruarengatik**, ez eta anaia maitea ere urrerik finenagatik. Elizen arteko biblia

Pentsatzekoa da zenbat eta **diru** gehiago izan garantia ere handiagoa dela kalitatezko zerbait eskaintzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Negozio bat irekitzeko beste **diru** emango zion, baldin eta trukean zin egiten bazuen ez zela inoiz ere berriro Chicagora itzuliko. Oskar Arana

**Dirua** emango dizut haien aldera. Jose Morales

**Diru** egiteko modu asko daude. Gotzon Garate

Kasu honetan erakunde publiko batek **diru** pribatua erabiltzen du. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Alderantziz, enpresa pribatu batek **diru** publikoak erabil ditzake ikerketak egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Baina herrialdean oso **diru** gutxi zegoenez, **diruaren** balioa eman zieten fruitu eta abereei. Iñaki Iñurrieta

Ez bitez ibil bizileku horietarako sos edo **diru** eske dabilen inorekin batera. Askoren artean

- **Diru**-eskean atera zitekek bizimodua aurrera... Lopez de Arana

**Dirua** itsua da eta itsugarria, fede guztien gisan, baina baita ezin ikusizkoa delako ere, jainko bakarrak izaten diren legez. Iñaki Segurola

Gaur **dirua** ("benetako" **dirua**, diru handi edo gizena) sare informatikoan, kabitu ezineko abiadan, jo batera eta jo bestera dabiltzan numero elektronikoen kendu-emana da. Iñaki Segurola

· Gizarteek hainbat ditu mota izan dituzte historian zehar, bai gatza, kakaoa edo urrea, bai gaur egungo **diru** papera, plastikozko **dirua** (kreditu eta debitu txartelak) bai **diru** elektronikoa, hots, berezko baliorik ez duten elementuak. Iñaki Heras

Zesarren garaian, lur-zatiak izan ziren zor guztiak ordaintzeko **dirua**. Iñaki Iñurrieta

Bildumari **diruz** okitu bat zen hura, eta Harryren bi margolan erosia zen 1976an. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Diru** pila eskuratu nian. Lopez de Arana

**Diru** piloa gastatu eta hurrengo egunean buruko mina. Lopez de Arana

Zer dira horietako asko, hainbat eta hainbat langile-kapitalisten belar-ekarpen hutsez osaturiko izugarrizko **diru**-metak baino? Iñaki Heras

Guztia pentsatu bezala ateratzen bada, **diru**-turrusta handi bat izango dugu laster. Oskar Arana

**Diru** kontuak unibertsitatean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Diru** aferetan oso aitzinean dabiltza Indian eta kulturan ere bai. Gotzon Garate

**Diru**-iturri joria. Gotzon Garate

Garai latza zen niretzat ere ordukoa (emaztearekin arazoak, osasun-arazoak, **diru**-arazoak). Oskar Arana

-Bai jauna, **diru**-jokoa da hori -esan zuen tabernariak. Lopez de Arana

Merkatariek inportaturiko luxuzko ondasunak eskuratzeko, izan ere, **diru**-baliabide handiak behar ziren. Koro Navarro

Alabaren ezkontzak gurasoei **diru** galtzea dakarkie. Gotzon Garate

Atzerriko **diru**-aurreztea ez zetorren bertako industrietan jadanik kopuru handietan inbertitu zen barneko **diru**-aurreztea osatzera. Koro Navarro

Herrialde inportatzaileen nazio-errentei eragindako **diru**-hustea handiagoa edo txikiagoa izan zen mendekotasun energetikoaren mailaren arabera. Koro Navarro

Oso aberatsa zen, baina ez zekena, gastatzailea baizik; ez **diru**-pilatzaile, ondasunen xahutzaile baizik; negozio-gizon zuhurra, baina administratzaile burugabea. Askoren artean

Ez eraman **diru**-sakelarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez makilarik, ez oinetakorik, ez eta soinekorik aldatzeko. Askoren artean

Zozketa egiten zen, egun argiz: zortea alde zutenek, halabeharraren bestelako baiezpenik gabe, zilarrezko **diru**-pezak jasotzen zituzten. Juan Garzia

**Diru** bileteak karterara sartu eta txanpon batzuk utzi zituen **diru** kontuaren ondoan propina gisa. Joxemari Iturralde

Apal-apal aitortu zuen berak **diru-txartel** hura beste bati ostu ziola eta ez zuela polizia ikusteko gogo handirik. Gotzon Garate

Tenpluan merkatariak aurkitu zituen idi, ardi eta usoak saltzen, eta **diru-trukalariak** ere bai, han eserita. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehenago neure artritis eta erretiro-**diruez** nenbilen axolaturik. Gotzon Garate

**4** *pl*

Negar batean banatu genituen zenduaren **diruak**. Karlos Linazasoro

Knot jaunak harrera ona egin zien **diruei**, harri bitxiei eta tabakoari. Juan Garzia

Horra ba **diruen** iturria argiturik. Edorta Jimenez

Goizean, esnatzen zaretenean, kontatu zuen **diruak**, zuen bitxiak; ez duzue ezer faltako. Eskarne Mujika

Hara gure **diruak** zertan erabiltzen dituzten. Patxi Zubizarreta

**Diruen** kutxa besartean sendo atxiki zuen. Edorta Jimenez

Normalean, ikerkuntzak behar dituen **diruen** zamaren atal bat, ez txikia, dela unibertsitateetan, dela enpresetan beretan ere, zuzenean edo zeharka administrazioak segurtatzen du, diru publikoa izaten da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Petrolioaren **diruak** dira beste eztabaidagai bat. Pako Aristi

**5** gauzen prezioaren unitate adierazgarria, merkataritza transakzioak gauzatzea ahalbidetzen duena. ik **moneta**.

Larunbatean oraino, sagarnoaren **bestako** dirua euroa izan da. Herria

Gero, dibisen merkatuan, **diru** hori saldu egiten du, alegia beste dibisa baten ordez trukatu, esaterako dolarraren ordez. Iñaki Heras

Abantailen aldetik, funtsezkoena, egonkortasuna da: **diru** bakarra izanik, eta beraz, herrialde desberdinen artean truke-tasan alderik ez izatea ezinbestekoa da ekonomia hazkunderako. Iñaki Heras

Beraz, kanbioa **diru** berriaren balioaren eta **diru** zaharraren balioaren artean izango da. Iñaki Iñurrieta

**Diru** batzuen balio-igoera jarraituak era berean bultza ditzake enpresa nazionalak beren ekoizpena **diru** ahuleko eskualde eta herrialdeetara eramatera. Koro Navarro

Estatuek edo herrialdeek beren **diruei** buruz truke egonkortasuna bermatzeko sortzen duten arau multzoari Nazioarteko Diru Sistema esaten zaio. Iñaki Heras

Japoniako nazioarteko zuzeneko inbertsioen parte garrantzitsu bat, 1985 ondoren, yenaren balio-igoeraren ondorio bide da, bai dolarrari buruz, bai europar **diruei** buruz. Koro Navarro

**Diruaren** krisi honi petrolioaren krisiak eta Estatu Batuetako diru-egokitzeak eragindako munduko atzeraldiaren ondorioak gaineratu zitzaizkion. Koro Navarro

Estatubatuar diruaren kudeaketa nazionalaren eta **diru** horren nazioarteko estatutuaren arteko kontraesana. Koro Navarro

Gutxitan gertatzen da **diru** baten flotazio erabatekoa; alegia, bestela esanda, diru-politikaren beregaintasuna ez da perfektua izaten. Koro Navarro

Dolarra apreziatu egin zen yenari buruz, baina, apreziazio hori ez baitzen orekatu asiar diruak debaluatuz, apreziazio errealeko joera arriskutsu batean geratu ziren **diru** horiek. Koro Navarro

Prozesuak aurrera egin zuen eta 1995eko abenduan Europako Kontseiluak Madrilen egin zuen bileran jarri zitzaion euro izena Europako Batasuneko **diru** bateratuari. Iñaki Heras

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urte horretan bertan ezarri ziren euroaren eta **diru**-mota nazionalen bi noranzko truka-neurri ezeztaezina. Iñaki Heras

Euroaren esparrua ez omen da **diru** edo moneta esparru optimo bat. Iñaki Heras

Nazio barneko merkataritzak, izan ere, trukea eragozten zuten oztopo ugari zituen, feudalismoaren garaitik heredatuak -bidesariak, zubien gainekoak eta zubien azpikoak, hirien sarreretakoak, **diru**-unitate ugari, sarritan trukera jotzera behartzen zutenak-. Koro Navarro

Dolarra **diru**-eredua ez den arren, nagusi dela esan daiteke, bai nazioarteko merkataritza eta finantza eragiketetan, bai erreserba **diru** gisa ere. Iñaki Heras

Globalizazio hori ez da gerra ondoren ezarri ziren **diru**-, finantza- eta merkataritza-arauen emaitza. Koro Navarro

Inflazioaren kontrolean eta **diru** egonkortasunean zentratzen ziren neurri monetarista horiek interesgarriak izan ziren langabezia-tasa apalak, industria egitura sendoa eta estatuaren babes sozial handia zuten herrialdeentzat. Iñaki Heras

Finantza-globalizazioa eta **diru**-egongaiztasuna. Koro Navarro

Koiunturazko egokitzearen aurrean, [...] **diru**-zirkulazioa egokitzea eta hura erregularki haztea proposatu zuen monetarismo pragmatikoak. Koro Navarro

**7** txanpona.

Leku **batean** diru asko dago, paper baino **diru** gehiago dagoenean; gutxi dago, **diru** baino paper gehiago dagoenean. Iñaki Iñurrieta

Zure etxean bizirik gelditzen direnek apaiz horren aurrean ahozpeztu beharko dute, zilarrezko **diruren** bat edota opilen bat eskatzeko, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

**8** ***dirutan***

Ordainetan beste mahasti bat emango dizut, hori baino hobea, edo, nahiago baduzu, **dirutan** ordainduko dizut. Jose Antonio Mujika

Etxeko jende horrek guztiak ordaintzen zion bere zerga, **dirutan** edo salgaietan, Victorioren osabari. Josu Zabaleta

Axola dizu **dirutan** ordaintzea? Migel Angel Mintegi

Bezeroek, denek batera eta batak bestea kutsatuz, gordailuak **dirutan** eskatzea da arrisku honen ezaugarri nagusia. Koro Navarro

Horiek ziren hizpide adreilu-fabrikan, jendarmeak baino errukiorragok eta gizatasun handiagokoak izaten baitziren, aurretiazko hitzarmenen ostean batez ere, bai **dirutan**, bai bestelako baliozko gauza batzuetan. Urtzi Urrutikoetxea

Ekonomia neoklasikoaren aztergaia, jabetzea posible den gauzetara mugatzen dela, **dirutan** baloragarri eta elkarrekin trukagarrietara alegia. Itziar Eizagirre / Amaia

Lizarralde

· Laurehun txanpon, merkatarien **dirutan** . Jose Antonio Mujika

Handik egun batzuetara aitak 150 florin ematen dizkit, edo Suitzako **dirutan** dagokiona. Josu Zabaleta

Dibisa debaluatu egiten du (alegia, dolar bat erosteko bertako **dirutan** ordaindu beharreko prezioa areagotzen da). Iñaki Heras

Park Avenue-ko jauntxo bat; **dirutan** igerian bizi da, zinez. Oskar Arana

## 9 ***diru-agintari*** *iz*

Epe motzean mozkin handiak lortzeko obsesio hori, **diru** -agintarien kontrolik gabe, arras txikituta geratu zen Estatu Batuek petrolioaren bigarren krisiaren ondoren hartu zuten diru-politikarekin. Koro Navarro

**Diru-agintariek** erasotako parekotasuna aldezteko egindako ahaleginak, izan ere, espekulazioa elikatzen du, espekulatzaileak dibisak merke erosten jarrai bailezake, banku zentralaren erreserben ahitzeak debaluazioa noiz ekarriko zain. Koro Navarro

Europako **diru agintariak** ohartarazi zuen datozen hilabeteetan zeharkako zergen igoeren eta energia produktuen ondorioz inflazioaren urte arteko tasak aldakortasuna agertuko duela. Berria - Ekonomia

## 10 ***diru batasun***

Irtenbide berri bat sortu da ordea: **diru-batasuna** eratu da Europan 1999. urtean, munduko beste leku batzuei ere tentagarria gerta dakiekeena. Koro Navarro

Europako hamabi herrialdeen artean **diru batasuna** sortzea, oso prozesu historiko garrantzitsua izan da. Iñaki Heras

Nolabait esanda, **diru batasuna** batasun politikorako bidezidorra izan baita. Iñaki Heras

Ekonomia eta **Diru batasuna** oinarri politikorik gabeko eraikuntza bat da diru bateratu bati nekez eutsi diezaiokeena. Iñaki Heras

Bilakaera nominalen halako konbergentzia batek argi eta garbi baldintzatzen zuen **diru-batasunaren** proiektuaren susperraldia. Koro Navarro

**Diru Batasuneko** herrialdeek egitura ekonomikoa desberdina dute, lehiatzeko ahalmena desberdina, arazo ekonomikoei aurre egiteko modu oso desberdinak eta lekuan lekuko marko instituzionalak, horiek ere desberdinak. Iñaki Heras

## 11 ***diru beltz*** ogasunari ezkutatzen zaion dirua, eskuarki ilegalki eskuratua.

Gies&Co enpresak bazituen oraindik milako billete batzuk **diru beltzean** , baina zerga mordo bat aurrez ordaintzeko erabili dituzte, eta hala diru garbi bihurtu dira orain. Josu Zabaleta

Senarra eta biok ez gara ezagunak alderdi honetan, apartamentu hau inbertsio hutsa baita, **diru beltza** zuritzeko propio erosia. Migel Angel Mintegi

Adierazle horietan ez dira hartzen kontuan hainbat jarduera, esaterako, nahita ezkutatzen diren zenbait eragiketa, **diru beltzari** eta ezkutuko ekonomiari dagozkionak. Iñaki Heras

*Consumer* aldizkariaren ikerketa baten arabera, higiezinen hamar agentziatatik seik **diru beltza** erabiltzeko inolako trabarik ez dute jartzen. Berria - Ekonomia

Diru-kontuen antz handiegia hartzen hasten dira gauzak [...] eta jende arteko tratua azokako tratuaren pare jartzen da, hitz zurien azpitik **diru beltza** dabil ebaska gure barrengo ixilpoltsetan. Iñaki Segurola

## 12 ***diru bilketa***

**Diru-bilketak** egiten ditugu kalean. Oskar Arana

Gero beste lagun eta adiskide batzuek **diru-bilketa** bat egin zuten ni mundua ikustera bidaltzeko. Fernando Rey

Monumentu txiki bat eraikitzeko **diru-bilketa** bat egitea bururatu zitzaion Ruche jaunari. Jon Muñoz

**Diru-bilketa** antolatuko dut gaixo guztien artean eta kripta bat egingo dizut. Jose Morales

Sozietate Zergak ogasunen **diru bilketaren** hazkundea sustatu du. Berria - Ekonomia

**Diru-bilketa** Jerusalemgo kristauen alde.

Presoen batasuna denez axolatzen zen, **diru bilketaz** barne. Itxaro Borda

Taldetxo hura ere xuxurlan ari zen bizi-bizi, eta Dursley jaunak ez zien **diru-bilketarako** itsulapiko bakar bat ere ikusi. Iñaki Mendiguren

**diru bilketarako** kanpaina publikoa ere hasia zegoela. Berria - Euskal Herria

Izen aldatze, obrak haste eta **diru bilketa** kanpaina. Herria

## 13 ***diru biltze*** diru bilketa.

**Diru-biltze** harekin ez genekien zer egingo zuten. Karlos Linazasoro

Ekologia zerga baten itxurapean **diru biltze** hutsari eutsi nahi dio Eusko Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Izan ere, aberatsa izateko, oro har, handik eta hemendik **diru biltzeaz** gainera, diru kontuetan behartsua bezain begiratua izan behar baita, eta kopla gutxirekin aritu, noski. besta gaitza izan da, **diru biltzearen** aldetik ere arras emankorra, ikastolen onetan eta euskararen alde... *Telethon*-arentzat **diru biltzea** egin da ere Ustaritzen ekintza eta ikusgarri batzuen bitartez eta jenden emaitzez. Migel Angel Mintegi

Integrazio prozesua ahalbidetzeko eta bitartekoak lortzeko **diru-biltze** kanpaina egin behar du Integrazio Batzordeak. Berria - Euskal Herria

Postetako langileen sindikatek diotenaz, gero-eta gehiago **diru-biltze** zerbitzu bilakatua da Posta, gero-eta gutiago zerbitzu publiko izanez, posta heste, enplegu murrizte eta gainerateko hersturekin. Herria

## 14 ***diru egonkortasun***

Halako erakunderik ez zegoenez gero, Estatu Batuek harturiko gidaritzan zetzan huts-hutsik [...] **diru-egonkortasuna** eta nazioarteko finantza-sistemaren aurrerabidea. Koro Navarro

Inflazioaren kontrolean eta **diru egonkortasunean** zentratzen ziren neurri monetarista horiek interesgarriak izan ziren langabezia-tasa apalak, industria egitura sendoa eta estatuaren babes sozial handia zuten herrialdeentzat. Iñaki Heras

**Diru-egonkortasunerako** programek ordu arte ezezagunak ziren mailetara eraman baitzituzten bertan interes-tasa errealak. Koro Navarro

## 15 ***diru eskaintza***

**Diru eskaintza** bat ere egin zidaten, hemendik urrun, atzerrian, bizi ahal izateko. Joxean Agirre

Biktimentzat ez da erraz, biktimizatzen duen egoera batetik atereaz, **diru eskaintza** horien baieztatzea, urteetako sufrikario militantea ez baita salgai, anitzetan entzuten eta irakurtzen denez, purruxka txepel batzuen trukean. Itxaro Borda

Bertan egin zuen **diru-eskaintza** · **Diru eskaintza** herrialde jakin bateko ekonomian dagoen diru kopurua da, ez soilik txanpon edo diru-paper kopurua, baizik eta txanpon, diru-paper eta banku sistemak dituen banku-gordailuak. Askoren artean

Diru politika, bi hitzetan esanda, **diru eskaintzaren** eta interes tasen kontrolean datza. Iñaki Heras

Aginte ekonomikoek herrialde jakin batean dagoen **diru eskaintza** kopuru osoa kontrolatu nahi izaten dute, **diru eskaintza** kopuru osoak erlazioa baitu ekonomia jakin batean ekoizten den ondasun eta zerbitzu kopuru osoarekin eta, azken batean, errenta osoarekin. Iñaki Heras

Horrek esan nahi du Banku Zentralak uko egiten diola **diru-eskaintzaren** kudeaketa hautazko orori, eta **diru-eskaintza** horren bariazioak ordainketa-balantzaren saldoaren bilakaeraren mende geratzen direla huts-hutsik. Koro Navarro

## 16 ***diru etxe***

Uztaila arte egingo den saiakera BBK eta BBVA **diru-etxeek** ordainduko dute. Berria - Euskal Herria

· Zera gertatzen da, eragiketak iraun bitartean bi txanpon-mota izaten direla: indartsua, zaharra alegia, eta ahula, berria; eta indartsua balioa galduta dagoenez eta **Diru-etxean** baino jasotzen ez denez, eta, beraz, kanbio-letrak txanpon berrian ordaindu behar direnez, badirudi kanbioa txanpon berriaren gainean doitu beharko litzatekeela. Iñaki Iñurrieta

Dirua duen eta letrak hartzen dituen bankaria behartuta dagoelako txanpon zaharrak **Diru-etxera** eramatera, berriak jasoko baditu, hartara galdu egiten duelarik. Iñaki Iñurrieta

## 17 ***diru ez*** *(orobat* ***diruez*** *g.er.)* *iz mug* dirudik ez izatea.

Hauek dira ikaslearen nekeak: **diru eza** batik bat [...] eta **diru eza** esanez gero, ez dut uste zoritxar horretaz gehiago esan beharrik dagoenik; ezer onik ez baitu dirurik ez

duenak. Patxi Ezkiaga

**Diru ezak** zaildu egiten baititu ekintza guztiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Analfabeto izateak, **diruezak**, tradizioak eta senarren mende egoteak kate itogarria leporatzen diete emakumeei ezkontzan. Gotzon Garate

-Lehen ere esan dut-eta, gertatzeko dagoenik ez du piztitzar honek erantzuten; egingo balu, batere axolarik ez lioke **diru ezak**. Patxi Ezkiaga

## 18 *diru funts*

Etorkinek bidalitako **diru-funtsak**. **Diru-funtsek** hondoa jotzen zieten larriune orotan, emaile berriren bat agertu ohi zitzaien; halaxe gertatu izan zen betidanik. Koro Navarro

Neurriak langabezia murrizten duen neurrian, izan ere, **diru-funts** gutxiago beharko lirateke-eta langabetuei ordaintzeko. Iñaki Heras

PSEk proposatu du pentsioen **diru funtsa** sortzeko, banaketari edo dibortzioari buruzko epaiek agintzen dutena betetzen ez diren kasuetan «adingabeen gutxieneko beharrizanak bermatze aldera». Berria - Euskal Herria

Garatzeko bidean diren herrialdeei klima aldaketak eragindako kalteei aurre egiten laguntzeko **diru funtsa** bat eratu zuen. Berria - Gaiak

Alvaro de Sotok Tel Aviveko gobernua kritikatu zuen atzo, PANi dagozkion **diru funtsak** atxikitzeagatik. Berria - Mundua

*Federal Reserve Board*ek, irailaren bukaeran, *Long Term Capital Management* **diru-funtsaren** salbamendua antolatu zuen. Koro Navarro

Hala, 1995ean Mexikon izan zen finantza krisia, edota, 1997 eta 1998 urteetan, Asiakoa galarazteko arazoek argi utzi dute FMI-ren **diru funtsak** ez direla gai munduko kapital pribatuaren fluxuak kontrolatzeko. Iñaki Heras

· Hori eginez, **Diru Funtsa** Munduko Bankuaren jarduera-eremura hurbildu zen. Koro Navarro

AEBetako Altxorraren Departamentuak, edo bere heteronimorik ezagunena omen den Munduko **Diru Funtsak** gidatu eta babesturiko politikaren ondorio. Iñaki Heras

Beste lekuetan, Afrikan, Latino Amerikan, nazioarteko finantza-erakundeek, hau da, Nazioarteko **Diru Funtsak** (NDF) eta Munduko Bankuak, sistematikoki sustatu dute kapitalismoaren sarrera. Koro Navarro

Nazioarteko **Diru Funtsak** esaten baldin badu ekonomiaren hazkundea ez dela uste zen bezain handia izango, edo uste baino hobea izango dela, munduko burtsa guztiak gori-gori jarriko dira. Pello Salaburu

Rodrigo Rato Nazioarteko **Diru Funtseko** kudeaketa zuzendariak ere «ekonomiaren hazkuntza sendoa» iragarri zuen. Berria - Mundua

## 19 *diru gordailu*

EEBBetako **diru-gordailuetan** bildutako ondasunak... 325.666,00 dolar. Lopez de Arana

Hala ere, banketxe pribatuek ere sortzen dute dirua, diru baitira, esan bezala, bertako **diru-gordailuak**. Iñaki Heras

Gorde bitez abadesa eta ahizpak monasterioan **diru-gordailurik** hartzetik, askotan gauza horietatik sortzen baitira asaldurak eta eskandaluak. Askoren artean

Banku askok uste dute interes tasak igotzen doazen heinean **diru gordailuengatik** ordaintzen duten tasa baino gehiago igo ahal izango dituztela maileguen tasak. Berria - Ekonomia

## 20 *diru gose* (*orobat* ***dirugose*** *g.er.*) *iz*

Gorde **diru-gosetik**, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere. Elizen arteko biblia

Arerio hori **diru-gosea** zen, aberastasunak irabazi eta gordetzeko gehiegizko grina. Askoren artean

Itxura guztien arabera, hiruetako batek, **diru-goseak** bultzaturik, beste biak hil zituen. Martin Anso

**Diru-goseak** eraginda, irabazia lortu nahiko dute hitz maltzurrez, baina aspaldidanik dago erabakita haien kontrako epaia. Elizen arteko biblia

Soineko dotoreen eta altzari garestien ikusmirak **diru-gosea** pizten zion. Patxi Zubizarreta

Merkataritza guneen **«diru gose** asegaitzari» leporatu diote ordutegiak aldatzeko ekimena. Berria - Ekonomia

Debekatua dudarik gabe, bainan **diru-gosez**, iduri luke denak haizu direla. Herria

· *izond* Ez izan **diru-gose**; egon pozik duzuenarekin, Jainkoak esana baitu: Ez zaitut utziko, ez baztertuko. Elizen arteko biblia

Ez zaitez, (ez dut uste baina) hala bazina ere, andrezale, **diru-gose** eta tripazain agertu. Patxi Ezkiaga

Minduta eta haserre itzuli zen handik Chicagora, arte-munduaren aurkako eta mundu hartan zebilen odol-zurgatzaile eta urdanga **diru-gose** guztien aurkako erdeinuz gainezka. Oskar Arana

**"Dirugosea** halakoa!", esan zuen Txitxikovek bere artean. Jose Morales

**Diru gose** dabil patronala, beti bezala. Berria - Ekonomia

## 21 *diru kopuru*

Diru eskaintza herrialde jakin bateko ekonomian dagoen **diru kopurua** da, ez soilik txanpon edo diru-paper kopurua, baizik eta txanpon, diru-paper eta banku sistemak dituen banku-gordailuak. Iñaki Heras

Lan horretarako, diru-aginteak **diru-kopurua** eta hazkundea hainbat eratara kontrolatzen du: [...]. Iñaki Heras

Legeak **diru-kopuru** bat ezartzen zuen jarauntsiaz gabetzen zien emakumeei emateko. Iñaki Iñurrieta

Hilabetero Bereziortuak neskatoaren kutxako kontu korrontean **diru kopuru** bat sartzen ziok. Joxemari Iturralde

Zuhurra izango nauk, eta **diru-kopuru** bat bereiziko diat urtero, ondorengoentzat, baldin eta Jainkoak emazte ugalkorra ematen badit... Jose Morales

Ezin nuen halako **diru kopuru** handia inguratu, banekien. Matías Múgica

Enpresa askotan aldez aurreko erretiroak onartzen dira, **diru kopuru** handiak emanda. Iñaki Heras

**Diru kopuru** polita zen saria, bide batez esanda. Jon Muñoz

Ekialdeko armada lekale lehorrez hornitzen zuen dendari auzoko batekin elkartu eta **diru kopuru** ederrak irabazi zituela zabaldu zen bazterretan. Karlos Zabala

**Diru kopuru** izugarria eskaini nioan. Jon Muñoz

Aluko muskila arrosa milikakatu zion, zor zion **diru kopurua** bular artean pausatu aitzin. Itxaro Borda

## 22 *diru kutxa* (*orobat* ***dirukutxa*** *g.er.*) dirua gordetzeko kutxa.

**Diru-kutxan** zeuden azken hondarrekin babarrun pote pila bat erostea deliberatu zuen Luis Angelek. Iñaki Iñurrieta

Pozten gara, hala ere, idazteko makinak eta **diru-kutxa** gure arropa gelan gordeta zeudelako. Josu Zabaleta

Liburu-dendako **diru-kutxaren** gainean, hantxe beren lore-ontzian, mimosek ez zuten beren usain ona galdu. Jon Muñoz

Hurrengo egunean, bere **diru-kutxan** nik emana sartzen zuen, bezeroentzako txartel berriak egin, artxiboan sartu, libreta berriak egin, eta bezeroentzat prestatzen zituen etortzen zirenerako. Xabier Olarra

Denek eskudirua kontatua zuten, beren orriak eman, eta **diru-kutxak** kameran sartu zituzten. Xabier Olarra

Zuzendariak zeuzkan **dirukutxa** nagusiaren giltzak. Gotzon Garate

Edaten hasi zen; **diru-kutxatik** lapurretan; leporaino zorretan sartzen. Irene Aldasoro

Athleticeko bazkide-zenbakia, autoko irratia sintonizatzekoa, elkarte gastronomikoko atea irekitzen duen txartelarena, azken analisietako leukozito eta hematien zenbakia, **diru-kutxa** automatikoa, segurtasunezko kutxa, [...]. Jon Alonso

· **Diru kutxa** zabaldu zen grebari aurre egin ahal izateko eta kopuru handiak bildu ziren. Jon Maia

Komunitateko **Diru-Kutxa** Batzordeko kide garrantzitsua zen. Mirentxu Larrañaga

Azkenik *Crédit Agricole* **diru kutxak** sariztatzen ditu urte aldizka gazteen formakuntza deramaten elkarteak. Herria

Dena den, diru gehiena ez da Reichen **diru-kutxetatik** ateratzen, Himmler zuhurrak enpresaburu eta goi mailako kargu anitz erakarri baititu, ikerketa aldrebes horiek ordain ditzaten. Alberto Ladron Arana

Nahiz eta [...] NBE Nazio Batuen Erakundeak Iran zigortu dezakeen, petrolioaren salneurria dela-eta estatuko **diru kutxak** bapo gizendu dituela diote adituek. Berria - Ekonomia

## 23 *diru laguntza* (*3606 agerraldi, 42 liburu eta 1023 artikulutan; ETCn 20.857 agerraldi;* ***dirulaguntza*** *136 agerraldi, 16 liburu eta 66 artikulutan; ETCn 3.988 agerraldi*)

Zikiratzeko zerbitzua eskaintzen dugu dohainik, eta **diru-laguntza** bat ematen digute horregatik. Oskar Arana

Ea **diru-laguntzarik** eman behar al zuten ikasteko asmoa zuten herritarrentzat. Arantxa Iturbe

Proiektu militarren inguruan aurrez ikusten diren ikerketetarako **diru laguntzak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Museoa, berriz, erakunde publikoa zen, eta erregeak ematen zizkion **diru-laguntza** oparoei esker bizi zen. Jon Muñoz

Nik ez nuen itzuli nahi; konbentzitu egin ninduten, **diru laguntzetatik** bizi ginelako. Jokin Urain

Horren adibide klasiko bat eskaintzen du Boeing eta Airbus enpresen arteko merkataritza-guduan **diru-laguntzek** izan zuten garrantziak. Koro Navarro

Zikiratzeko zerbitzua eskaintzen dugu dohainik, eta **diru-laguntza** bat ematen digute horregatik. Oskar Arana

Aitak **diru-laguntzak** jaso zituen, etxea berregiteko. Juan Kruz Igerabide

Idortearen ondorioei aurre egiteko, EHNEk **diru laguntzak** eskatu ditu. Berria - Ekonomia

Kasik **diru laguntza** publikorik gabe ari zarete, denbora berean, hemengo hogei bat elkarte desberdin laguntzen duzue, nola gertatzen da mirakuilu hori? Herria

Herrialde garatuek esportazioei emaniko **diru laguntzak** %20 murriztuko direla iragarri zuen. Berria - Ekonomia

Palestinako Aginte Nazionalari luzatzen dizkioten zuzeneko **diru laguntzak** eten egin zituzten atzo Ameriketako Estatu Batuek eta Europako Batzordeak. Berria - Mundua

Ontziolen **diru laguntzak** luzatzea eskatu du Bruselak. Berria - Ekonomia

Sarako herriak 30.000 liberako **diru laguntza** ekartzen dio akordio horri. Herria

**Diru laguntzen** menpe, horiek galtzeko beldurra nagusitzen da. Edurne Elizondo

Hor dago neska txuria argazkian, hor dago ume beltza, biak geldi-geldirik, aro berri baten aurrean paralizatuta, gure **diru-laguntzaren** zain baleude bezala mugitzen hasteko. Pako Aristi

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria informazioaren gizartean sartzeko martxan jarri zuen *Konekta Zaitez* **diru-laguntzen** programa. Iñaki Heras

**Diru laguntza** kanpaina. Herria

## 24 *diru merkatu*

Azken egunetan, dolarraren gaineko mesfidantza zabaltzen ari da **diru merkatuetan**, eta euroarekiko duen truke tasan nabari da. Berria - Ekonomia

Dolarraren eta euroaren arteko eguneroko lehian, atzo Europako diruak inoizko baliorik handiena lortu zuen **diru merkatuetan**. Berria - Ekonomia

Euroak nabarmen egin zuen gora **diru merkatuetan** eta %0,5 inguru igo zen Frankfurten. Berria - Ekonomia

Gerta zitekeen **diru-merkatuan** interes-tasek behera egitea. Iñaki Heras

Era berean, nazioarteko **diru merkatuetako** salerosleen portaerak ere garrantzia du. Berria - Ekonomia

Munduko kapital handiek, beti errentagarritasun handienaren bila, burtsa, bono eta **diru merkatuetatik** beste merkatuetara ere jauzi egin dute. Berria - Harian

## 25 *diru paper* (*orobat* ***dirupaper*** *g.er.*) paperezko dirua, urretan alda zitekeena; banku billetea. ik **billete.**

Horietariko bat pianojoleari hurbildu zaio, ehun dolarreko **diru papera** eskuan. Javi Cillero

Nik ez dizut hamabi errublo emango, hamabost baizik, zuk ezertxo ere egin gabe, hutsaren truke; eta ez dizkizut zilarrezko txanponetan emango, **diru-paperetan** baizik. Jose Morales

Bidarten arrastatuak izan dira bi landestar gazte, 50 euroko **diru paper** faltsu batzu sakatu nahiz ari zirenak. Herria

Gizonak sosez pagatua izatea eskatzen zuen, beti, eta "asignatua", Pariseko gobernuak zabaldu **diru-papera**, ez zuen onartzen. Elena Touyarou

Bizkar-zorrotik boltsa bat atera eta **diru-paper** mordo handi bat erakutsi zigun. Juan Luis Zabala

Estatuaren **diru-paperetan**. Jose Morales

## 26 *diru parekotasun*

Trukea finko mantentzen da, aldaketa banda edo maila zehatz baten inguruan (aldaketak gertatzen badira debaluazioak edo rebaluazioak izaten dira, alegia, **diru-parekotasunaren** aldaketak). Iñaki Heras

1960ko hamarraldiaren ondorengo nazioarteko finantza pribatuen gorakada ezin lotu zen Bretton Woodseko itunek finkaturiko **diru-parekotasunen** erregimena mantentzearekin. Koro Navarro

## 27 *diru partida* (*orobat* ***dirupartida*** *g.er.*)

Kultura eta Turismo Saileko **diru partida** 207.828.488 eurokoa da. Berria - Harian

Gaur gaurkoz, oraindik, proiektuak ez du **diru partidarik**. Berria - Harian

2004ko aurrekontuetan **diru partida** bat eskatzen zen, liburutegi digitalaren eta liburutegi nazionalaren proiektuak bideratzeko. Berria - Kultura

Gipuzkoako Foru Aldundiak **diru partida** berezia sortuko luke sareko museoen aldikako erakusketak diruz laguntzeko. Berria - Kultura

**Diru-partida** berri honek, ordea, hizkuntza politika osatzeko lehen urratsak ematea du xede. bi milioi euroko **diru partida** onartu zuen Eusko Jaurlaritzak enpresa pribatuen esku dauden bizkartzainen zerbitzua finantzatzeko. Berria - Euskal Herria

Proiektuen hazkunde hori **diru partidetan** islatu beharko litzateke. Berria - Harian

Gipuzkoako Ganberak formaziorako **diru partidak** handitu ditu. Berria - Ekonomia

## 28 *diru politika*

**Diru politika**, bi hitzetan esanda, diru eskaintzaren eta interes tasen kontrolean datza. Iñaki Heras

"Estatu-nazioak gero eta ahalmen gutxiago du **diru-politika** kontrolatzen. Joseba Zulaika

Epe motzean mozkin handiak lortzeko obsesio hori, diru-agintarien kontrolik gabe, arras txikituta geratu zen Estatu Batuek petrolioaren bigarren krisiaren ondoren hartu zuten **diru-politikarekin**. Koro Navarro

Banku Zentralak ekonomian dagoen diru kopurua kontrola dezake, **diru politika** jakin bat ezarriz helburu ekonomiko jakin batzuk lortzeko. Iñaki Heras

**Diru-politikaren** beregaintasuna ez da perfektua izaten. Koro Navarro

Beraz, diru batasuna, eta ondorioz, **diru politika** bateratua ezartzerakoan, beste erakunde batek hartzen du bere gain ardura garrantzitsu hori. Iñaki Heras

Horregatik uste dugu **diru politika** malgutzeko tartea dagoela. Berria - Ekonomia

Zerga politika, **diru politika**, atzerri politika eta errenta politika. Iñaki Heras

## 29 *diru poltsa* (*orobat* ***dirupoltsa*** *g.er.*)

Dendatik irtetean sartu zirenean baino dezente arinago zeukaten **diru-poltsa**. Iñaki Mendiguren

Baina Quenuk bizia ateratzeko erakusten zuen ganora ederra **diru poltsaren** kalterako gertatu zitzaien bi gazteei. Karlos Zabala

Portok jokalariak saldu eta **diru poltsa** gizentzeko asmoa izan du aurten. Berria - Kirola

Oporrak bukatu eta fabrikara itzuli nintzenean, nire lankideek denen artean bildutako **diru poltsa** eman zidaten, hamabost egun horietan galdu nuenaren zati bat bederen jaso nezan. Jon Maia

Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, **diru-poltsa** berak zuenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako. Elizen arteko biblia

· Esku batez txanpon batzuk eman zizkion, eta bestearekin, berriz, **diru poltsatxo** bat. Edorta Jimenez

Arretarik gabe hartu zuen, baina kontatu egin zuen, eta eskumuturrean, pultsera baten gisa, zeraman **dirupoltsatxoan** gorde. Juan Martin Elexpuru

## 30 *diru sari* (*orobat* ***dirusari*** *g.er.*)

Etxean ez ziguten **diru-sari** handirik ematen eta sosik gabe ibiltzen ginen beti. Hasieran, eguneko hogeita bost piastrako **diru-saria** emango didate. Iban Zaldua

Inork ez dio beste talde bati partida bat irabazteagatik **diru saririk** ematen 23. jardunaldian. Berria - Kirola

Kaltetuek erregerengana jo zezaketen, **diru-sari** bat agindu baitzien konpentsazio gisa. Iban Zaldua

**Diru-sari** bat egokitu zion Nizamek, eta behatoki bat eraikiarazi Isfahango hirian. Jon Muñoz

Azterketak egingo zituztela, eta emaitzarik onena lortzen zuenarentzat izango zela udalaren **diru-saria**. Arantxa Iturbe
Edek urte oparoa izan zuenez, **diru-saria** handitu zion Hazeli eta baita itsas txakurren larruzko beroki bat oparitu ere. Mirentxu Larrañaga
Catherineren etxera joan behar dut bigarren eta azken **diru saria** jasotzera. Iñaki Zabaleta
Bi garraioaldiak eginak ditut eta orain azken **diru saria** eskuratu nahi dut. Iñaki Zabaleta
**Diru saririk** gabeko etxeko lanak EAEko BPGren %32,5 dira. Berria - Ekonomia
Jean-Charles Marchiani eurodiputatu ohia atzo auzipetu zuten, ustez legez kanpoko **diru sariak** jasotzeagatik. Berria - Mundua
Hilabetero **diru sari** berezi bat eskura dezake enplegatzaileak jatorri horretako gazte bat enpresan onartzeagatik. Berria - Harian
Iruditzen zait ez duela odol-kontuetan nahastu nahiko, ez bada **diru-sari** tentagarri baten truke. Josu Landa
Erran nahi dut, ene arbasoen bi jauregietako Jaunak hiru urte honetan gure Erregek laguntzen dituela errentaz eta **diru saritan**, Pirinioetako ibar hertsiak zaintzen dituztelakotz luteranoen aitzi. Piarres Xarriton

## 31 *diru sarrera*

Gure **diru-sarreren** arabera bizi behar dugu... Lopez de Arana
Saiatu nintzen astero halako **diru-sarrerak** nola lortzen zituen jakiten. Xabier Olarra
Eta, hala, **diru-sarrera** polita izango dugu. Mirentxu Larrañaga
Bere **diru-sarreren** mugen barruan bizi da, bere izaeraren mugen barruan, bere baliabide emozionalen mugen barruan. Oskar Arana
Guk kobratzen dugu geure soldata, baina hiru hilabete **diru sarrerarik** gabe pasata enpresak kiebra joko duen beldurra daukagu. Pako Aristi
Harryren ondarearen zatirik handiena Tomentzat eta Rufusentzat zen, eta Brightman's Attic-eko **diru-sarrera** guztiak ere bien artean erdibana. Oskar Arana
Aitorpena egitera behartuta daude 8.500 eurotik gorako **diru sarrerak** izan dituztenak. Berria - Ekonomia
ELAk **diru sarreren** %81 kuotetatik biltzen du. Berria - Ekonomia
Industria-iraultzak eragindako produktibitatearen hobetzeak ez zuen ekarri, aldi berean, **diru-sarrera** banatuen masa handitzea. Koro Navarro
**Diru-sarreren** eta mozkinen gehiegizko kontzentrazioak eragindako barneko merkatuen murriztasunak kanpoko merkatuen bilaketa guztiz lehiatsua ekarri zuen. Koro Navarro
**Diru-sarreren** gero eta kontzentrazio handiagoaren emaitza bide da emigrazioaren ugariak adierazten duen azpienplegu handia. Koro Navarro
Fenomeno horren hasieran inportazioen murrizte bortitz bat gertatu zen, Europako eta Estatu Batuetako krisiak eraginik, esportazioko **diru-sarreren** beherakadaren ondoren etorri zena. Koro Navarro

## 32 *diru sistema*

Gobernuek azkar ezarri dute berriz beren diruen artean parekotasun finkoko sistema bat, egoki daitekeena ordea (1972az gero Diru Sugea deritzana, Europar **Diru Sistema** gero, EDS, 1979aren ondoren). Koro Navarro
Halako zerbait zen Diru Batasuna osatu aurretik Europako Batasunean indarrean zen Europako **Diru Sistema**. Iñaki Heras
Bretton Woodseko sistematik heredaturiko erakundeen (NDF eta Munduko Bankua) eginkizun arautzaileari eta nazioarteko **diru-sistemaren** etorkizunari buruzko hausnarketa. Koro Navarro
Izen hori merezi duen nazioarteko **diru-sistema** bat berreraikitzeari dagokionez, ez dirudi plazaratu denik. Koro Navarro
Halaber, munduko **diru sistema** antolatzeko lankidetza formula berriak ezartzeko saioak ere egin zituen. Iñaki Heras

## 33 *diru truk* (orobat *dirutruk*) adlag

Izreelgo Naboti esan diot bere mahastia **diru truk** niri saltzeko edota, nahiago bazuen, beste mahasti bat emango niola berearen ordez. Elizen arteko biblia
Manzanok **diru truk** esan zituen esandakoak. Geroago atsegin ez bazaio, libre joaten utziko dio; ez du salduko **diru truk**, ezta esklabo egingo ere, berea izatera behartu baitu. Berria - Kirola
Baita presazko sexu-beharrak asetzeko beren burua **diru truk** eskaintzen zuten emaztekien etxe goxoak ere. J.M. Olaizola "Txiliku"
Gutiz gehienak 19garren mendean Roca presidentaren garaian erahil zituzten, batzutan **dirutruk**, hango lur gaineko eta azpiko ontasunetaz jabetzeko. Herria

## 34 *diru truke* iz

**Diru truke** egonkorrei eustea eta nazioarteko dirua zabaltzea. G-7ko Taldeak **diru trukearen** gorabehera handiak kritikatu izanak eragin gutxi izan du dibisa merkatuetan. Iñaki Heras
Barrako emakumeak ez dio niri egin didan **diru-trukea** egin nahi izan. Edorta Jimenez
Barrako emakumeak ez dio niri egin didan **diru-trukea** egin nahi izan. Edorta Jimenez
Indarka ezin zutela ikusirik, erasotzaileak saiatu ziren gazteluko jauna **diru trukean** haien alde jartzen. Martin Anso

## 34a *diru truke* adlag ik **truk 4.**

- **Diru truke**, edozer gauza egin daiteke Varsovian. Koro Navarro
Halakoa da gure mendea, preso hartzen ahal dituztela eta preso atxikitzen **diru-truke** behar bada. Herria
Errudunari **diru-truke** arrazoi ematen eta errugabeari zuzenbidea ukatzen diozuenok! Elizen arteko biblia
Erleak ezin omen dira **diru truke** saldu, trukatu baizik -ehuna, garia, ardia eta beste erabil daitezke trukea egiteko- edo besterik gabe erregalo gisa eman. J.M. Olaizola "Txiliku"
BPGan **diru truke** lor daitezkeen ondasunak eta zerbitzuak kontabilizatzen dira, ez besterik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## 35 *diru xehe* eskuarteko dirua, eguneroko beharretarako esku artean erabiltzen dena.

Broadwayra atera nintzen **diru xehe** bila. Koro Navarro
**Diru xeherik** ba al duzu aldean? Lopez de Arana
Telefonora lagundu, zenbakia markatu eta nituen **diru xeheak** eman nizkion, ni ere bakarrik nengoela esaten ausartu gabe. Ramon Saizarbitoria
Monak poltsan aztamuka bilatu eta dolarreko hiru billete eta **diru xehe** pixka bat aurkitu zuen. Fernando Rey
Bost euroko billetea utzi zuen barra gainean, eta **diru xehea** jaso gabe, aldakak binbili-bonbolo, kalerantz abiatu zen. Migel Angel Mintegi
-Dolar bat baino ez dut **diru xehean**. Lopez de Arana

## 36 *diru zorro* (orobat *diruzorro* g.er.) ik **kartera.**

Joan den astean lapurtu zizkioten **diru zorroa** eta sakelakoa. Koldok **diru-zorroa** atera zuen praketako atzeko poltsikotik eta milako bat luzatu zion. Berria - Kirola
Hala ba, **diru zorrotik** helbidea atera eta telegrama bat bidali nion. Koro Navarro
**Diru-zorroa** atera eta bi billete luzatu zizkion. Alberto Ladron Arana
Aitak larruzko diru-**zorrotik** ordaindu dio. Urtzi Urrutikoetxea
Sakelako **diru zorroan** bere aitaren argazkia eramaten zuen. Gotzon Garate
Autodidaktak kartoi bioletazko bi errektangelu atera ditu bere **diru-zorrotik**. Monika Etxebarria
Sidney buruargia zen, iluna eta arduratsua, eta **diru zorro** bat eta kartera bat zeuzkan. Koro Navarro
Sonja ez duk sekula hirekin joango, ezta **diru-zorroa** mila florinekoz beteta baldin badaukak ere. Poltsatik **diru-zorro** bat atera zuen, zilar monedaz betea.

• (ekonomian)

Asko igo ziren iaz lehengaien salneurriak, eta horrek mesede egin dio Sidenorren **diru zorroari**: 63,4 milioi euroko irabazi garbia izan du. Berria - Ekonomia
Finantza-inbertsioena (edo **diru-zorroko** inbertsioena) ez bezala, sorterritik kanpo jardungo diren enpresak sortzea, garatzea edo menderatzea da nazioarteko zuzeneko inbertsioen helburua. Zuzeneko eta **diru**-zorroko inbertsioetan bakarrik [...] kapitalen irtenaldi gordinen batuketa, edo, bestela esanda, atzerrian egindako inbertsioen multzoa, igaro zen, 1840an 2.000 milioi dolar baino gutxiago izatetik, 9.000 milioi izatera 1870ean. Koro Navarro
Bost errublo bildu zituenean, **diru-zorrotxoa** josi eta beste bat betetzeari ekin zion. Jose Morales

**37** ***dirua egin***

**Dirua egin** zitekeen motorraren negozioan, diru pila. Irene Aldasoro

Kuba ez zen leku txarra beltzen trafikoarekin **dirua egiteko**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haren esanetan, ez da etikoa, zientzia aurkikuntzekin **dirua egitea**. Berria - Gaiak

Zinemagile askok **dirua egitea** baino ez dute buruan. Berria - Kultura

Iraupeneko nekazaritzaren ordez **dirua egiteko** nekazaritza ezarri zen. Iñaki Mendiguren

Konturatu nintzen saregile beharretik aparte arropak garbitu eta plantxatzen zituela etxean **dirua egiteko**. Joseba Sarrionandia

Ez da garestia: ia langile guztiek hartzen dute; zuzendaritzak ez du debekatzen, eta herriko botikaria **dirua egin** eta egin ari da. Eskarne Mujika

Ukiezin bati, **dirua egiten** badu, bilduko zaizkio goi kastakoak. Gotzon Garate

**Dirua egindako** familia ziren, bai, baina bere onenak emandakoa, ziotenez. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendea beti sineskor agertzen da nekerik gabe **dirua egiteko** kontuan. Irene Aldasoro

**38** *esku diru* ik **eskudiru**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**adina diru** (57); **ahal izateko diru** (10); **aldeko diru** (18); **aldeko diru laguntza** (9); **artean diru** (13); **arteko diru** (14); **askatasunaren aldeko diru** (8); **aski diru** (10); **askok diru** (7); **askoz diru** (8); **askoz diru gehiago** (8); **atzerriko diru** (8); **aurtengo diru** (10); **bai diru** (11); **baina diru** (47); **baino diru** (78); **baino diru gehiago** (45); **baino diru gutxiago** (17); **baita diru** (7); **bat diru** (7); **batean diru** (8); **batek diru** (17); **batzuek diru** (10); **behar adina diru** (14); **beharreko diru** (25); **bere diru** (55); **beren diru** (19); **beste diru** (36); **bestelako diru** (12); **bete diru** (8); **bideratutako diru** (10); **bildutako diru** (7); **da diru** (67); **da diru hori** (7); **da diru laguntza** (9); **dagoen diru** (7); **dagokion diru** (11); **dela diru** (9); **den diru** (52); **den diru kopurua** (9); **dien diru** (7); **dio diru** (12); **dira diru** (21); **diren diru** (31); **diren diru laguntzak** (10)

**diru alde** (9); **diru aldetik** (34); **diru anitz** (8); **diru apur** (42); **diru apur bat** (35); **diru apurra** (10); **diru apurren** (7); **diru apurren bat** (7); **diru arazo** (21); **diru arazo larriak** (8); **diru arazoak** (27); **diru arazoengatik** (7); **diru arazorik** (9); **diru asko** (211); **diru asko behar** (14); **diru asko irabazi** (7); **diru asko irabazten** (12); **diru askorik** (16); **diru bakarra** (15); **diru bakarraren** (7); **diru baliabide** (11); **diru baliabideak** (15); **diru bat** (7); **diru batasuna** (16); **diru baten** (8); **diru behar** (10); **diru beharko** (7); **diru beharrean** (7); **diru bera** (9); **diru berri** (8); **diru bila** (10); **diru bilketa** (35); **diru biltze** (18); **diru dezente** (10)

**diru edo** (10); **diru emaileen** (14); **diru eman** (7); **diru eskaintza** (11); **diru eske** (35); **diru eta** (49); **diru ez** (13); **diru falta** (12); **diru faltagatik** (9); **diru funtsa** (18); **diru funtsak** (46); **diru funtsaren** (13); **diru funtseko** (12); **diru gaietarako** (8); **diru galera** (11); **diru galerak** (9); **diru gehiago** (241); **diru gehiago behar** (10); **diru gehiago beharko** (8); **diru gehiago eman** (7); **diru gehiago eskatu** (13); **diru gehiago irabazten** (13); **diru gehiago jaso** (8); **diru gehiegi** (16); **diru gehien** (31); **diru gehiena** (14); **diru gisa** (8); **diru gose** (20); **diru gosea** (26); **diru goseak** (24); **diru gosez** (9); **diru gutxi** (37); **diru gutxiago** (57); **diru gutxirekin** (8); **diru guzia** (7); **diru guztia** (105); **diru guztia gastatu** (7); **diru guztiak** (17); **diru guztiaren** (9); **diru handia** (8); **diru harekin** (9); **diru hau** (11); **diru hori** (226); **diru hori ez** (10); **diru horrek** (13); **diru horrekin** (49); **diru horren** (32); **diru horretatik** (8); **diru hura** (32)

**diru irabazi** (10); **diru irabazten** (10); **diru iturri** (82); **diru iturri nagusia** (10); **diru iturria** (14); **diru iturriak** (41); **diru kontu** (19); **diru kontua** (19); **diru kontuak** (52); **diru kontuen** (21); **diru kontuen epaitegiak** (7); **diru kontuetan** (19); **diru kopuru** (158); **diru kopuru bat** (35); **diru kopuru handia** (12); **diru kopuru hori** (20); **diru kopurua** (105); **diru kopuruak** (19); **diru kopuruan** (7); **diru kopuruaren** (7); **diru kopuruari** (8); **diru kopururik** (8); **diru kutxa** (27); **diru kutxak** (7); **diru kutxan** (8); **diru kutxaren** (8); **diru laguntza** (758); **diru laguntza bat** (32); **diru laguntza baten** (7); **diru laguntza batzu** (13); **diru laguntza bereziak** (7); **diru laguntza eman** (19); **diru laguntza emango** (22); **diru laguntza ematea** (13); **diru laguntza emateari** (8); **diru laguntza eskatu** (9); **diru laguntza eta** (9); **diru laguntza ez** (10); **diru laguntza gehiago** (27); **diru laguntza handiagoak** (11); **diru laguntza handiak** (10); **diru laguntza hori** (16); **diru laguntza horiek** (19); **diru laguntza horien** (8); **diru laguntza jaso** (18); **diru laguntza jasoko** (11); **diru laguntza jasotzen** (15); **diru laguntza publiko** (7); **diru laguntza publikoak** (24); **diru laguntza zuzenak** (7); **diru laguntzak** (634); **diru laguntzak eman** (18); **diru laguntzak ematea** (13); **diru laguntzak emateko** (16); **diru laguntzak ematen** (18); **diru laguntzak ere** (13); **diru laguntzak eskatu** (7); **diru laguntzak eta** (16); **diru laguntzak eten** (7); **diru laguntzak ez** (18); **diru laguntzak itzuli** (8); **diru laguntzak itzultzeko** (7); **diru laguntzak jaso** (18); **diru laguntzak jasotzeko** (20); **diru laguntzak jasotzen** (16); **diru laguntzarekin** (10); **diru laguntzaren** (35); **diru laguntzari** (14); **diru laguntzarik** (89); **diru laguntzarik ez** (11); **diru laguntzarik gabe** (28); **diru laguntzarik jaso** (9); **diru laguntzei** (19); **diru laguntzek** (13); **diru laguntzen** (179); **diru laguntzen banaketa** (7); **diru laguntzen berri** (9); **diru laguntzen inguruko** (7); **diru laguntzen murrizketa** (8); **diru laguntzen zenbatekoa** (7); **diru laguntzetan** (15); **diru laguntzetatik** (7); **diru laguntzez** (7); **diru mailan** (9); **diru merkatuetan** (8); **diru meta** (10); **diru mordo** (9); **diru mordoa** (25); **diru mordoxka** (12); **diru nahikorik** (14); **diru nahikorik ez** (7); **diru negozio** (9)

**diru paper** (8); **diru papera** (7); **diru partida** (26); **diru partidak** (11); **diru pila** (19); **diru pixka** (90); **diru pixka bat** (86); **diru politika** (68); **diru politikak** (8); **diru politikaren** (15); **diru politikari** (12); **diru poltsa** (15); **diru poxi** (11); **diru poxi bat** (8); **diru premia** (13); **diru premiak** (8); **diru premian** (7); **diru publiko** (19); **diru publikoa** (62); **diru publikoak** (13); **diru publikoarekin** (14); **diru publikoaren** (11); **diru publikorik** (7); **diru publikoz** (8); **diru saila** (12); **diru sari** (14); **diru saria** (29); **diru sariak** (12); **diru saririk** (14); **diru sarrera** (91); **diru sarrera garrantzitsua** (8); **diru sarrerak** (86); **diru sarrerak izan** (12); **diru sarrerarik** (16); **diru sarreren** (52); **diru sarreretan** (10); **diru sartze** (10); **diru sartzeak** (13); **diru sistema** (10); **diru truk** (9); **diru truke** (29); **diru zama** (22); **diru zenbakiak** (7); **diru zerbait** (9); **diru zorro** (11); **diru zorroa** (38); **diru zorroa atera** (10); **diru zorroan** (7); **diru zorrotik** (9)

**ditu diru** (21); **ditu diru laguntza** (8); **dituen diru** (46); **dituen diru laguntzak** (20); **dituzte diru** (16); **dituzten diru** (27); **dituzten diru laguntzak** (10); **dizkien diru** (9); **dizkien diru laguntzak** (7); **dolarreko diru** (21); **dolarreko diru laguntza** (10); **du diru** (64); **duela diru** (14); **duen diru** (39); **duen diru laguntza** (9); **dugu diru** (11); **dugun diru** (8); **dut diru** (13); **dute diru** (47); **dutela diru** (8); **duten diru** (34); **edo diru** (29)

**egindako diru** (9); **egiteko diru** (17); **egiteko diru laguntza** (7); **ekonomia eta diru** (18); **emandako diru** (39); **emandako diru laguntza** (9); **emandako diru laguntzak** (11); **ematen dizkien diru** (7); **ere diru** (45); **erosteko diru** (7); **estatuaren diru** (8); **eta diru** (516); **eta diru asko** (23); **eta diru gaietarako** (7); **eta diru gehiago** (21); **eta diru gehien** (7); **eta diru gutxiago** (7); **eta diru hori** (23); **eta diru horrekin** (8); **eta diru iturri** (9); **eta diru kontuak** (9); **eta diru kopuru** (24); **eta diru laguntza** (24); **eta diru laguntzak** (29); **eta diru pixka** (8); **eta diru publikoa** (8); **eta diru sarrerak** (8); **eta nazioarteko diru** (8); **euro diru** (9); **euroko diru** (114); **euroko diru laguntza** (63); **euroko diru sarrerak** (11); **europako diru** (16); **europar diru** (12); **euroren diru** (7); **eusko jaurlaritzak diru** (8); **eusko jaurlaritzaren diru** (11); **ez da diru** (14); **ez diru** (29); **ez du diru** (13); **ez duela diru** (9); **ez dut diru** (7); **ez dute diru** (12); **ezohiko diru** (7); **gabe diru** (8); **garatzeko diru** (7); **gero diru** (8); **gero eta diru** (18); **gobernuak diru** (20); **gobernuak diru laguntza** (7); **gobernuaren diru** (14); **gure diru** (13); **gutxieneko diru** (8); **hainbat diru** (16); **hainbeste diru** (23); **haren diru** (7); **hori diru** (9); **horrenbeste diru** (14); **horretarako diru** (11)

**iaz baino diru** (8); **izan zen diru** (7); **izateko diru** (15); **jasotako diru** (29); **jasotako diru laguntza** (7); **jaurlaritzak diru** (11); **jaurlaritzaren diru** (21); **jaurlaritzaren diru laguntza** (10); **kanpoko diru** (17); **legez kanpoko diru** (16); **milioi dolarreko diru** (17); **milioi euroko diru** (39); **munduko diru** (7); **nahiko diru** (11); **nahikoa diru** (20); **nazioarteko diru** (100); **nazioarteko diru funtsa** (11); **nazioarteko diru funtsak** (31); **nazioarteko diru funtsaren** (12); **nazioarteko diru funtseko** (12); **ndf nazioarteko diru** (9

**ondorioz diru** (9); **orain diru** (9); **ordaindu beharreko diru** (9); **taldeak diru** (8); **udalaren diru** (7); **urteko diru** (10); **zein diru** (9); **zen diru** (42); **zenbat diru** (97); **zenbat diru beharko** (7); **zeukan diru** (8); **zeukaten diru** (10); **zion diru** (14); **zioten diru** (7); **ziren diru** (21); **zituen diru** (12); **zituzten diru** (14); **zituzten diru laguntzak** (8); **zuen diru** (57); **zuten diru** (23)

**ahal izateko dirua** (7); **alde dirua** (7); **apostuetako dirua** (8); **apustuetako dirua** (58); **ateratako dirua** (7); **baina dirua** (31); **batean dirua** (7); **batek dirua** (7); **batzuek dirua** (7); **behar den dirua** (7); **behar zuen dirua** (8); **bere dirua** (36); **beren dirua** (10); **bideratutako dirua** (9); **bildu dirua** (15); **bildutako dirua** (19); **da dirua** (48); **den dirua** (56); **dira dirua** (7)

**dirua alferrik** (14); **dirua atera** (30); **dirua ateratzeko** (21); **dirua ateratzen** (11); **dirua aurkitu** (7); **dirua aurreratu** (11); **dirua aurrezteko** (13); **dirua aurrezten** (9); **dirua aurreztu** (9); **dirua baino** (20); **dirua barra** (7); **dirua barra barra** (7); **dirua behar** (78); **dirua behar da** (14); **dirua behar dut** (10); **dirua bere** (11); **dirua beste** (7); **dirua besterik** (9); **dirua bildu** (24); **dirua bildu eta** (11); **dirua biltzea** (16); **dirua biltzeko** (42); **dirua biltzen** (23); **dirua da** (42); **dirua desbideratu** (8); **dirua doblean** (7); **dirua eduki** (7); **dirua edukitzea** (7); **dirua egin** (11); **dirua egiteko** (20); **dirua ekarri** (9); **dirua ekartzen** (11); **dirua eman** (71); **dirua eman zion** (11); **dirua emango** (24); **dirua ematea** (7); **dirua emateko** (15); **dirua ematen** (34); **dirua ere** (58); **dirua eskaini** (15); **dirua eskatu** (27); **dirua eskatzen** (18); **dirua eskuratu** (7); **dirua eskuratzeko** (7); **dirua eta** (128); **dirua ez** (77); **dirua ez da** (14); **dirua ez dela** (12); **dirua ez zen** (7)

**dirua falta** (12); **dirua galdu** (9); **dirua galtzen** (21); **dirua gastatu** (7); **dirua gastatzeko** (8); **dirua han** (7); **dirua hartu** (33); **dirua hartu eta** (8); **dirua hartu nahi** (7); **dirua irabazi** (22); **dirua irabaztea** (14); **dirua irabazteko** (39); **dirua irabazten** (22); **dirua itzuli** (30); **dirua itzuli beharko** (9); **dirua itzuliko** (12); **dirua itzultzea** (9); **dirua itzultzeko** (11); **dirua itzultzen** (7); **dirua izan** (10); **dirua izango** (8); **dirua jarri** (17); **dirua jarriko** (13); **dirua jartzen** (14); **dirua jaso** (30); **dirua jasoko** (8); **dirua jasotzeko** (10); **dirua jasotzen** (18); **dirua lapurtu** (8); **dirua lortu** (7); **dirua lortzea** (11); **dirua lortzeko** (38); **dirua nabarmen** (8); **dirua nahi** (15); **dirua non** (11); **dirua nondik** (8); **dirua ordaindu** (11); **dirua parean** (8); **dirua utzi** (8); **dirua xahutzen** (7); **dirua zen** (8); **dirua zor** (17); **dirua zuritzea** (8); **dirua zuritzeko** (8)

**du dirua** (46); **duen dirua** (41); **dugun dirua** (9); **dut dirua** (11); **dute dirua** (25); **duten dirua** (20); **edo dirua** (14); **egiteko dirua** (16); **emandako dirua** (10); **ere dirua** (32); **erosteko dirua** (19); **eta dirua** (260); **etarentzat dirua** (9); **ez da dirua** (8); **ez dirua** (9); **ez du dirua** (8); **gero dirua** (10); **gure dirua** (9); **haren dirua** (8); **horrek dirua** (8); **horretarako dirua** (15); **irabazitako dirua** (8); **izateko dirua** (8); **jasotako dirua** (17); **lortutako dirua** (9); **nik dirua** (11); **nire dirua** (16); **nuen dirua** (13); **ordaintzeko dirua** (26); **zen dirua** (34); **zeukan dirua** (7); **zion dirua** (19); **zuen dirua** (63); **zure dirua** (7); **zuten dirua** (29)

**da diruaren** (9); **den diruaren** (9); **diruak eta** (9); **diruak ez** (16); **diruarekin batera** (8); **diruaren aldetik** (17); **diruaren balioa** (17); **diruaren bila** (9); **diruaren erdia** (7); **diruaren eta** (18); **diruaren parte** (11); **diruaren parte bat** (9); **diruaren prezioa** (19); **diruaren truke** (25); **diruaren zati** (14); **diruaren zati bat** (9); **diruari buruz** (7); **diruari esker** (14); **diruari uko** (7); **diruaz gain** (8); **duen diruaren** (7); **emandako diruarekin** (7); **ere diruaren** (8); **eta diruak** (30); **eta diruarekin** (8); **eta diruaren** (37); **eta diruari** (14); **zuen diruaren** (10)

**baina dirurik** (11); **dago dirurik** (9); **dirurik behar** (18); **dirurik edo** (7); **dirurik eman** (8); **dirurik ematen** (9); **dirurik ere** (12); **dirurik eta** (7); **dirurik ez** (148); **dirurik ez duela** (7); **dirurik gabe** (57); **dirurik hartu** (9); **dirurik hartu nahi** (8); **dirurik izan** (9); **dirurik izango** (7); **dirurik jaso** (10); **dirurik nahi** (9); **dirutan ordaindu** (9); **du dirurik** (26); **dugu dirurik** (7); **dut dirurik** (23); **dute dirurik** (13); **erosteko dirurik** (24); **erosteko dirurik ez** (12); **esku dirutan** (9); **eta dirurik** (22); **eta dirurik gabe** (8); **ez dago dirurik** (8); **ez dirurik** (35); **ez dirurik ez** (10); **ez du dirurik** (20); **ez dugu dirurik** (7); **ez dut dirurik** (23); **ez dute dirurik** (13); **ez nuen dirurik** (8); **ez zuela dirurik** (8); **ez zuen dirurik** (11); **ez zuten dirurik** (7); **hori dirutan** (7); **nuen dirurik** (8); **ordaintzeko dirurik** (17); **ordaintzeko dirurik ez** (8); **zen dirurik** (7); **zuela dirurik** (10); **zuen dirurik** (13); **zuten dirurik** (7)

**bat diruz** (8); **diruz beteta** (9); **diruz eta** (18); **diruz ez** (8); **diruz lagundu** (46); **diruz lagunduko** (31); **diruz lagunduko ditu** (8); **diruz lagunduko du** (8); **diruz lagundutako** (18); **diruz laguntzea** (19); **diruz laguntzeko** (38); **diruz laguntzen** (33); **diruz ongi** (10); **du diruz** (9); **ere diruz** (10); **eta diruz** (30)

---

## **dirualde** *iz ipar* diru kopurua.

Bost miliun euro xahutuko ditu nunbait han orotarat eta **dirualde** bera altxatuko du lurrak arrasaltzearekin etxe-egileeri. Herria

Tarnosen, usu elgarrekin diren hiru lagunek bost ehun mila euro pasaturik [...] irabazi dituzte zaldi lasterraldietan, hiruen artean euro bat eta erdi irriskatu ondoan! **dirualde** ederra zinez, hiru parte egin-eta ere! Herria

AZF dena mehatxu arizan da gobernuari, gaitzeko **dirualdea** eskatuz, bestenaz hamar bunba leher-araziko dituela burdin-bide batzuen gainean... Herria

AZF dena mehatxu arizan da gobernuari, gaitzeko **dirualdea** eskatuz, bestenaz hamar bunba leher-araziko dituela burdin-bide batzuen gainean... Herria

Mitterrand seme horrek duela zenbait urte hamahiru milion altxatu baditu negozio oker batzuetan leporaino sartuak iduri duten batzuen ganik, nolaz ez den jakiten ahal xuxen zer lanen saritzat eskuratu zuen holako **dirualdea**? Herria

---

**dirualdeño** *iz ipar* diru kopurua txikia.

Berriz ere solasa da zerbitzu parrasta bat kenduko duela edo arinduko segurik zonbait hilabete barne orobat, nun ez dioten lurraldeek **dirualdeño** bat emaiten galtzen omen duenaren alderat. Herria

**Dirualdeño** bat ere hitzeman, nahiz askok igurikatzen zuten baino gutiago. Herria

---

# dirubide *iz* dirua lortzeko bidea. ik **irabazpide**.

Lana maite dugula diogunean, **dirubidea** maite dugula esan nahi ote dugun, hori da nire errezeloa. Joxerra Garzia

Hermitage saldu egingo dute beste **dirubiderik** topatu ezean. Edorta Jimenez

Iruditzen zait taberna bat ez dela **dirubide** hutsa soilik. Pako Aristi

Ontziak egiten ikasi, **dirubide** apur bat zertu, eta Bostonera etorri zen. Juan Garzia

**Dirubideak** moztuta, zein etorkizun luke Vlaams Blokek? Berria - Mundua

Mina-k begiak hesten zituen eta uzten zuen aitzina ar zedin bere afera edo **dirubidetan**, ez baitzuen nahi Iruñeko hirian gosetea hedatzen ikusi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laster ez zuten [merkataritza] bereizi lukurreria ankerrenetatik, monopolioetatik, zerga-bilketetatik eta **dirubide** gaizto guztietatik. Iñaki Iñurrieta

---

# dirudun *izond/iz* diru asko duena, aberatsa. ik **izandun**.

Lagun **dirudunak** nituen, maitale **dirudunak**: aurrena nik bilatzen nituen, hurrena haiek bilatzen ninduten, izan ere -konturatu al zara inoiz?-, oso ederra nintzen. Eduardo Matauko

Etxejabe **diruduna** zela. Elena Touyarou

Sinetsarazi beharko genien Europar enpresari **dirudunak** ginela eta gure Hong Kongeko bulegoentzat diploma gabeko idazkariak behar genituela. Ramuntxo Etxeberri

Kanpotiar enpresa **dirudun** askok hor zituzten beren bulegoak. Ramuntxo Etxeberri

1930. urtean, belgiar **dirudun** batek bultzatu zuen Shanghai hirian 'auditorium' izeneko frontoi baten proiektua. Ramuntxo Etxeberri

Roig **dirudunaren** gutizia, jostailu errentagarria da Vila-real. Berria - Kirola

Ingalaterran Arsenalek marka guztiak ondu ditu, Manchester United **dirudunaren** aurrean. Berria - Kirola

Aita Frankfurt-am-Main-en jaio zen; gurasoak **dirudunak** zituen. Josu Zabaleta

**Dirudun** ugari bizi duk hemen inguruan. Joxemari Iturralde

Egun, ordea, aberatsak ez ezik, **dirudun** ez direnak ere gogaitzen dira. Berria - Gaiak

Hamar urte dira jo eta ke ari naizela lausengatzen hemengo **dirudun** zeken zikin batzuk. Koldo Biguri

Han **dirudunak** mugitu dira Don Carlosen alde, beren ondasunak gal beldurrez. Txillardegi

Diruak badu **dirudunaren** ingurutik igarotzen diren putre eta aprobetxategi guztiak erakartzeko ahalmen berezia. J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dirudun bat** (4); **dirudun batek** (3); **dirudun baten** (6); **dirudun eta** (7); **diruduna eta** (3); **dirudunak egin** (3); **dirudunak ere** (3); **eta dirudunak** (3); **eta dirudunen** (3); **familia dirudun** (6); **gizon dirudun** (3); **jende diruduna** (3)

---

diruez ik **diru 17**.

---

# dirugabe *izond* dirurik ez duena.

Pentsatuz hobe nuela mutikoskor **dirugabea** izateari sekula utzi ez banio. Iñaki Segurola

Horrela da eta horrela izanen da ahaltsuak eta ahulak, agintariak eta menpekoak, dirudunak eta **dirugabeak**, gizonak eta emakumeak diren artean. Aingeru Epaltza

Erbesteratu politiko **dirugabe** harengan, Cafiren lagun min harengan, ez zuen ikusten behiala hondartzara berari bisita egitera joaten zitzaion Chiaramonte hura, arraunean eta igerian aritzen zena. Fernando Rey

Iruditu zitzaion **dirugabea** izaten zeneko garaia urruti, oso urruti zeukala, eta azken finean modu alai-ero bezain burugabean gastatu zuela Karolinerekin berari zegokion bizi-mailari eusteko behar zuen dirua. Matías Mujika

---

# dirugabetu *(corpusean **diru gabetu** soilik)* *izond* dirua kendu zaiona.

Ondoren, haragizko aita graziazko semea -jadanik **diru** gabetua- hiriko gotzainaren aurrera eramaten saiatu zen. Askoren artean

---

# dirugarri *izond* dirubide dena.

Zer bilakatzen da bezeroak inguratzeko grazia galdu duen puta?; zertara etortzen da edo zertaratzen, haragi bizigarri eta **dirugarria** izandako hura? Iñaki Segurola

---

# dirugile *izond* dirua egiten duena.

Exekutibo **dirugile** edo **dirugile** exekutiboaren atarramentua jolas txoro edo umekeria gisa ikus liteke. Iñaki Segurola

Otoitz ongileitk Teknika **dirugilera** hamabost egunean trabestitu zirenak. Iñaki Segurola

---

# dirugintza *iz* dirua egiteko jarduera.

Erromatar gobernua berehala ohartu zen **dirugintza** ekumenikoak tresna politiko gisa zuen balioaz. Iñaki Mendiguren

Itxaropen AB-ri, Londrestik San Frantziskora itzuli zenean 1875eko udazkenean, Estatu Batuetako **Dirugintzan** lanpostu bat eman zioten. Xabier Olarra

---

dirugose ik **diru 20**.

---

**dirugune** *iz* diruaren gunea.

Baina ez, erabakita zegoen: **dirugune** bat lehertuko nuen, XX. mende bukaerako egiazko agintegune bat. Hasier Etxeberria

---

**diruketa** *iz* dirutza.

2005eko aintzinkondua: itzulikatzeko **diruketa** 274.230 E, horietarik 168330 inbeztizamenduentzat. Herria

Garapena bultzatzeko egitasmo horren barne sartzen da, halaber, mikrokredituen erabilpena zabaltzea eta estatu garatuenetan lan egiten duten afrikarrek euren herrialdetara bidaltzen dituzten **diruketei** fiskalitate trabak arintzea. Berria - Mundua

Londreseko lurrean dagoen Riggs bankoak, Washingtonekoak, alderatu dituela 1998an **diruketa** batzu normalki bahituak eta giltzaz kondenatuak izan beharko zutenak. Herria

Ikastolaren biziarazteko, zenbat ekitaldi, pilota partida, besta, afari... burasoek berek **diruketa** handia ekartzen zutela, ikastolaren autofinantzamendua segurtatuz. Herria

Nornahik pentsa dezaken bezala, **diruketa** horrek Txinako mafia erakundeen gosea piztu zuen. Ramuntxo Etxeberri

**Diruketa** kendu ziotean hilotza honaino ekartzearren. Aingeru Epaltza

---

**dirukoi** *izond* diruzalea.

**Dirukoi** nazkagarriak! Migel Angel Mintegi

---

dirukutxa ik **diru 22**.

---

dirulaguntza ik **diru 23**.

---

dirupaper ik **diru 25**.

---

dirupartida ik **diru 27**.

---

**dirupeko** *izlag*

Baina nik ez ditinat **dirupeko** ezkontzak onartzen. Antton Olano

---

dirupolitika ik **diru 28**.

---

dirupoltsa ik **diru 29**.

---

dirupoltsatxo ik **diru 29**.

---

dirusari ik **diru 30**.

---

dirustatu ik **diruztatu**.

---

dirustatzaile ik **diruztatzaile**.

---

dirustatze ik **diruztatze**.

---

**dirutegi** *iz* elizetan, limosna botatzeko ontzia.

Ganden igandean, meza nagusi denboran, apeztegia huts zela pentsatuz, leiho bat bortxaturik, sartu dire; bainan umil eta biribil beharriak apalik, **dirutegian** ulirik bertzerik ez dute kausitu eta dire petzero gelditu absoluzionik gabe eta dirurik gabe. Herria

· Begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko **dirutegian** limosna botatzen. Elizen arteko biblia

Apaizburuek dirua jaso eta esan zuten: "Ez da zilegi diru hau tenpluko **dirutegira** botatzea, odoletan zikindua baita". Elizen arteko biblia

---

dirutruk ik **diru 33**.

---

**dirutsu** *izond* diru asko duena.

Sortu zitzaion aukerari ez zion uko egin, eta [...] gizon adintsu baina **dirutsu** batekin ezkondu zen. Migel Angel Mintegi

Asko estimatzen da euria laborarien artean: Urtarrila euritsu, urtea **dirutsu**. Pello Zabala

---

**dirutu**, diru, dirutzen **1** da/du *ad* diru bihurtu; saldu.

Hitza nola **dirutu** zen: [...]. Patziku Perurena

Tabako gorri amerikarra, auskalo nondik ekarritako blue-jeanak nahiz etorki zalantzakorreko motozikletak, beti izaten zuen esku artean **dirutzen** ahal zen zerbait. Aingeru Epaltza

**2** aberastu.

Halakoetan negarrez bukatzen zuen beti, besteren min eta etsipenaz **dirutzen** zirenen kontra gaizkierranka. Alberto Ladron Arana

Erregina Zuriak ere, agintari naziekin esne-mamitan bizi ondoren, haiek alde eginda ere bere negozio ilunekin **dirutzen** segitzen zuen. Alberto Ladron Arana

---

**dirutxo** *iz adkor* dirua.

---

**dirutza** *(orobat **dirutze**) iz* diru kopurua, eskuarki handia. ik **diruketa**.

Jasotzen dituzten **dirutzei** errentagarritasun jakin bat ordainduz eta mailegatzen dituen **dirutzei** berriz, hura baino handiagoa eskatuz. Iñaki Heras

Bazeuzkaten euren laborategiak, eta Artearen sekretuak erakutsiko zizkidatela agintzen zidaten..m izugarrizko **dirutzen** truke. Xabier Aranburu

---

dirutze[1] ik **dirutza**.

---

**dirutze**[2] *iz* diru bihurtzea; saltzea.

Aurtengo **dirutze** xifrea 110 milioi eurokoa da. Herria

---

**diruzain** *iz* **1** erakunde bateko diru arazoez arduratzen den pertsona.

Erregeak mandatariak bidali zituen eskualdeko funtzionario guztiak biltzeko: eskualdeburu, gudalburu, gobernari, kontseilari, **diruzain**, epaile, legegizon eta agintariak. Elizen arteko biblia

Hiriko **diruzain** Erastoren izenean eta Kuarto anaiaren izenean agur. Elizen arteko biblia

Euskaltzainburuarekin batera euskaltzainburu ordea, idazkaria, **diruzaina** eta Jagon eta Iker sailburuak ere hautatuko dituzte euskaltzainek. Berria - Kultura

Ondotik **diruzainak** konduak emanik administrazio kontseilua arraberritu da. Herria

Bankuko **diruzainak**, Ashok Takkar-ek, goizeko 10:40etan lau gizon ikusi zituen sarrera nagusitik sartzen. Gotzon Garate

Gurasoen aldetik, garai hartan Juntako **diruzaina** nabarmendu zen beste guztien gainetik. Joxerra Garzia

Erregeren **diruzainek** ez zioten lehengoan bezain harrera onik egin. Aingeru Epaltza

Hiriko **diruzain** Erastoren izenean eta Kuarto anaiaren izenean agur. Elizen arteko biblia

Erromako nobleziako zalduna, eta aita santuaren Estatuetako **diruzainaren** semea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jack Dromey **diruzainak** horretaz deus ez zekiela jakinarazi ondoren ikerketa bat abiatuko zuela esan zuen atzo. Berria - Mundua

Urte hartan, Batasuneko **diruzain** Jon Gorrotxategi eta Mikel Corcuera atxilotu zituen Frantziako Poliziak, auto barruan 200.000 euro zeramatela. Berria - Euskal Herria

Thierry Breton frantses gobernuko **diruzain** handiak ez du ari nahi jendea lausenga eta lausenga. Herria

Gogoratu zituen anonimoak, eta haien barruan nola zekarren egunkariko berri-atalak **"diruzainaren** defalkua". Juan Garzia

Honekin batera dohakian txartelak, ikusiko duan bezala, nire **diruzainagandik** hogeita bortz luis jasotzeko baimena ematen dik. Jon Muñoz

**Diruzain**, Christine Bessonart (Senpere) **diruzain** lagun, Pierre Cocagne (Ahetze). Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Iruñeko Udalak **diruzain** lanpostua betetzeko 2002an egindako deialdia bertan behera utzi du Nafarroako Administrazio Gaietarako Auzitegiak, euskara meritutzat ez jotzeagatik. Berria - Euskal Herria

Hirugarrena: Christian Bonnehon, herriko **diruzain** mailean. Herria

**3** (izenondo gisa)

Hori guzia bere ministro Gordon Browon ministro **diruzainari** esker. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**breton gobernuko diruzain** (4); **diruzain eta** (3); **diruzain handi** (3); **diruzain handia** (6); **diruzain handiak** (7); **diruzain lagun** (3); **diruzain nagusia** (5); **diruzain nagusiak** (7); **diruzain orde** (7); **diruzaina ere** (3); **diruzaina eta** (5); **dromey diruzainak** (3); **eta diruzainak** (3); **gobernuko diruzain** (17); **gobernuko diruzain handia** (5); **gobernuko diruzain handiak** (4); **gobernuko diruzain nagusiak** (5); **jack dromey diruzainak** (3); **nicolas sarkozy diruzain** (5); **rprko diruzain** (6); **sarkozy diruzain** (5); **sarkozy diruzain nagusia** (3); **sarkozy gobernuko diruzain** (3)

---

**diruzaintza** **1** *iz* diruzainari dagozkion zereginen multzoa; diruzainaren lanbidea.

Henrique zaldunak erantzun zuen erregea lasai geldi zitekeela, berak dena ahalik eta hobekien egingo zuela, Jainkoaren laguntzarekin, eta **diruzaintzaren** zaitasunari zegokionez aitorkide diskretua izango zela. Jon Alonso

Ekainaren 7an beharra baitute deputatuen biltzarra, ekainaren 9ko dute, Blair eta **diruzaintzako** ministroarekin, orok jakin beharko zein behar den ingles dirua, euroa ala lehengoa? Herria

CFDTren iritziz, **diruzaintza** horretako gabezia aitzinetik prestatua zen. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

On Afonso **diruzaintza** arazoak ez ezkutatzeko bezain zintzoa izan zen, eta honek bere alde hitz egiten zuen, lañotasuna eta argitasuna ez baitira munduko agintari guztiak, gureak alde batera utzi gabe, apaindu ohi dituzten kualitateak. Jon Alonso

## diruzale *(orobat **diru zale** g.er.)* 1 *izond/iz* diruaren zaleegia dena. ik **zeken; zikoitz.**

Ez zen gazte lizunen artean haragi-gehiegikerien atzetik ibili, ez eta ez zuen merkatari **diruzaleen** artean diru eta ondasunetan konfiantza ipini ere. Askoren artean

Entzun zuten hau guztia fariseu **diruzaleek** , eta barre egiten zioten Jesusi. Elizen arteko biblia

Baina berez ez zen **diruzalea** , ez zuen dirua bera maite, ez zegoen zikoizkeriaren mende. Jose Morales

**Diruzaleak** bere etxea hondatzen du, eroskeria gorroto duena luzaro biziko da. Elizen arteko biblia

**Diruzale** amorratua omen zen. Gotzon Garate

Orduan managerra, **diruzale** aseezin hori, jakin-minez dago zer gertatuko ote den neskak sudurrik ez duen tipo higuingarri hori ikusten duenean. Fernando Rey

Aberats bat hil da, bere ondasunak zentzuz eta zuzenbidez banatu gabe; **diruzaleak** berehala inguratu dira bazter guztietatik, gizakion berezko joera da hori... Jose Morales

Karabanan ez da inor falta izango, hor doa mediku mozkorra, eta jokalari profesionala, eta prostituta, eta bankuaren zuzendari **diruzale** eta lapurra [...] eta eskuburdinez lotutako presoa, hirira ailegatzean urkatuko dutena. Joseba Sarrionandia

**2** irud/hed

Zaleek jokalarien portaera **diruzalea** gaitzetsi zuten Romaredan jokatu azken lehian. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diruzale eta** (3); **diruzalea da** (3)

---

## diruzalekeria 1 *iz* diruzaletasun gaitzesgarria. ik **zekenkeria; zikoizkeria.**

Horrela, **diruzalekeria** ez da urrearen bizioa, urrea gehiegi maite duen gizakiarena baizik. Imanol Unzurrunzaga

Menelaok, berriz, agintean iraun zuen, handikien **diruzalekeriari** esker. Elizen arteko biblia

Beraz zure aldaketak diru asko irabazteko aukera eman badizu, **diruzalekeria** izango da, ez eboluzioa. Pako Aristi

Semeak, ordea, ez zebiltzan aitaren bidetik; **diruzalekeriari** emanak, eskupekoak onartzen zituzten eta epai okerrak egiten. Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

**Diruzalekeriak** gaztearen begitarte xarmangarria ilundurik, maleziaz galdegin zuen: [...]. Ez da egokitzat jo negozio zibil arruntetan, non etekinak finkotasun batez zehatz baitaitezke, korrituen hainbatekoa **diruzalekeriaren** atzaparretan eta mailegu emaileen lizentziapean uztea. Patxi Zubizarreta

Kontuan izan, tripazalekeriak eta **diruzalekeriak** agintzen duten lekuan, zulo lizun eta zatar bat dagoela, guztiz arriskutsua dena. Joan Mari Lekuona

---

## diruzaletasun *iz* diruzalea denaren nolakotasuna. ik **zekentasun; zikoiztasun.**

Esaten zutenak erreformatuta ere Eliza hura katoliko gorrotagarrien bide beretik zihoala gero eta gehiago, itxurakeria, apainkeria eta **diruzaletasuna** barne. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sawu, Timor eta Sondako itsaso epel eta tiburoiez betetakoetan perlak bilatzera bultzatu zuena ez zen izan **diruzaletasun** edo aberasgogoa, inondik ere, bizitzaren ikuspegi erromantikoa eta abenturarako joera ezin neurtuzkoa baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Diruzaletasuna** euren esperantza guztien hondamen ziurra dela jakin bezate. Imanol Unzurrunzaga

---

diruzorro ik **diru 36.**

---

## diruztatu, diruzta, diruztatzen *(orobat **dirustatu**)* du *ad* diruz hornitu. ik **finantzatu.**

Haurren eta familien laguntzeko planak **diruztatzen** jarraituko dute. Berria - Euskal Herria

Garapen proiektu kolektibo hori **dirustatuko** duten botere publikoak hor ziren: Sylviane Alaux Akitaniako deputatua, eta Vincent Bru Ezpeletako kontseilari orokorra, [...]. Herria

Nahi duen guztia egiteko baliabideak baditu, baina ez du erabaki Iparraldean adar bat sortzea edo bere xedeak **diruztatzea** . Berria - Ekonomia

Laborariek zerga andana bat ordaintzen diote Laborantza Ganberari, besteak beste Arrapitzen lana bezalakoak **diruztatu** ahal izateko. Berria - Ekonomia

Batzu uzkur ere zerga berri bat jarri beharko dela erakunde berriaren **dirustatzeko** eta jadanik aski zerga pagatzen dela. Herria

Udal bakoitzak **diruztatzen** du sindikatua, baina diru iturriak ez dira zuzenean zergetatik etortzen. Berria - Harian

Antoine d'Abbadie d'Arrast (1810-1897) astronomoa, euskal kultura **diruztatu** duen lehena izan da, bertsu et pilota partidak antolatuz, besteak beste. Herria

---

## diruztatzaile *(corpusean **dirustatzaile** soilik; ETCn **6** agerraldi; )* *iz* diruztatzen duen pertsona.

Zenbait proiekturen **dirustatzaileak** ez dira argi eta garbi markatuak oraino. Herria

---

## diruztatze *(orobat **dirustatze**)* *iz* diruz hornitzea.

Alain Juppe RPR alderdiaren **diruztatze** auzi bategatik kondenatua izana da eta helegite auzia udazkenean izanen du. Berria - Euskal Herria

Ezkerrak **diruztatzea** proposatzen baldin bazuen, eskuina heiagora ozenez aurka agertuko zen. Itxaro Borda

Lurraldeburuen gisa, hauxe dute naski handiena: gobernuak esku gehiago uzten diotela bainan karga emendatze horren araberako **dirustatzea** batere segurtatu gabe... Herria

Sei urtez luzatuko den hitzarmen horren lehen **dirustatze** erabakiak baieztu dituzte, besteak beste Hizkuntza politikaren 4 miliun liberak. Herria

Ministroa interesatua agertu bazen orokorrean, ez zuen **diruztatze** konkreturik aipatu. Berria - Kultura

Miarritzek berak **diruztatzearen** %40 bere gain hartu badu, Frantses Estatuak %37,3 ordaindu du. Berria - Kultura

Unedicen **diruztatzea** kargu sozial horietatik etorri behar dela zioen. Berria - Ekonomia

Beraz, beti bezala, Frantziako Estatuak herriak elkartzera bultzatzen ditu, baina gero pixkanaka-pixkanaka **diruztatzetik** ateratzen da. Berria - Euskal Herria

---

## disapointatu, disapointa, disapointatzen du *ad* desliluratu, desengainatu.

Danek argudiatu du lan asko duela, kosta egiten zaiola bere presidenteari buruz egiten ditugun txantxak onartzea, eta ez daukala behar lukeen bezainbesteko objektibitaterik. "Clintonek **disapointatu** egin nau". Patxi Zubizarreta

---

**disc-jockey** *iz* diskoteka batean diskoak jartzen dituena.

Zuek betetzen dituzuen dantzalekuetako disc-**jockeyak** bakailao musika jarri beharra dauka. Pako Aristi

Talde bat billarrean jolasten, mahaietan bikote batzuk, hiruzpalau mutil disc-**jockeyaren** kabina inguruan... Pako Aristi

---

disdira ik **distira**.

---

disdiratsu ik **distiratsu**.

---

disdiratu ik **distiratu**.

---

**diseinadore** *iz* diseinatzailea.

Beharbada ingelesei ez zaie kanpokoa ardura (ez al dira Bill Blass **diseinadore** amerikarra eta Guernica nahikoa kanpotar?), edo beharbada zuek behar ez diren tokietara zabaltzen dituzue zuen kezkak eta penak. Lutxo Egia

---

**diseinatu**, diseina, diseinatzen *(ETCn 13.235 agerraldi; orobat **deseinatu** g.er. eta **disenatu** g.er.)* **1** du *ad* fabrikatu behar den zerbaiten marrazkia edo zirriborroa egin. ik **proiektatu 6**.

Alemania eta Frantziako teknikariek 1992an **diseinatu** zuten EPR erreaktorea. Berria - Euskal Herria

Ingeniari batek, makina bat **diseinatzen** duenean, haren eraginkortasuna zenbaterainokoa den jakin nahi izaten du. Irene Aldasoro

Atenasko Akropoliaren sarrera **diseinatu** zuen arkitektoa. Irene Aldasoro

Gure hiriak gizonezko arkitektoek **diseinatutakoak** dira gehien bat. Harkaitz Cano

"Kolore-kubo" bat **diseinatu** zuen, algoritmo bat, garunak uhin-luzera desberdineko distirak konparatzeko eredu bat zena. Xabier Olarra

Batetik jokoak eta programak pirateatuz, eta bestetik web orriak **diseinatuz**, diru mordoa eskuratzen du. Antton Olano

Oinetakogilearen teknika eta larrua baliabideak dira; helburua, aurretik **diseinaturikoa**, oinetakoak berak. Askoren artean

Giltzurruna, berriz, ingeniaritza kimikoko sistema bat da, ingeniari batek ezin berdinduzko maisutasunez **diseinatua** eta kudeatua. Irene Aldasoro

Astiro eta jarraituki indar egiteko **diseinaturik** dago muskulu lisoa, eta, osasuntsu egonez gero, ez da nekatzen. Irene Aldasoro

Erran nahi dut ere, eta hunek biziki hunkitzen nau, hark zuela **deseinatu**, orai denek hain maite dugun euskal bandera, ikurriña... Menane Oxandabaratz

**2** (gauza abstraktuak)

Eraikuntza europar demokratiko eta soziala ahalbidetuko duen estrategia **diseinatu** behar da. Berria - Euskal Herria

Bost urteko plana **diseinatu** dute horretarako. Berria - Gaiak

Horrenbestez, herrialdeko Banku Zentralak **diseinatzen** du diru politika. Iñaki Heras

Horrela **diseinatutako** irudi epistemologikoak irizpide formal kopuru jakin bati obeditzen dionean [...] esango da eraketa diskurtsiboak zientifikotasun atalasea iragan duela. Xabier Arregi

Neuretzako moduko bizitza bat **diseinatu**, neure neurrira eginikoa, sentimendurik gabea... Antton Olano

Espainiako administrazioak historikoki **diseinatu** dituen zapalketa neurriek segida izan dute Iparraldeko lurraldeetan. Filipe Bidart

Ez da ongi **diseinatutako** bake horietako bat, Historiako aldi berriak bezala hitzarmen batez argi eta garbi bukatutako gerren ondoren etortzen direnetakoa. Josu Zabaleta

Sistema bere burua iraunarazteko **diseinatutako** munstro bat da. Jon Alonso

Aurretiaz **diseinaturiko** kaosa. Berria - Kultura

**3** (era burutua izenondo gisa)

Baina nahikoa al da hizkuntza baten zeinuek enuntziatu bat osa dezatela, eurak ekoitziak (artikulatuak, **diseinatuak**, fabrikatuak, marraztuak) izan badira modu batera edo bestera, denboran une batean eta espazioan puntu batean agertu badira, ahoskatu dituen ahotsak edo eratu dituen keinuak existentzia materialaren dimentsioak eman badizkie. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arabera diseinatu** (3); **arkitektoak diseinatu** (4); **bat diseinatu** (9); **bat diseinatuko** (3); **berak diseinatu** (4); **berak diseinatutako** (6); **diseinatu behar** (12); **diseinatu ditu** (7); **diseinatu dituzte** (4); **diseinatu du** (11); **diseinatu duen** (6); **diseinatu dut** (3); **diseinatu dute** (10); **diseinatu duten** (4); **diseinatu eta** (22); **diseinatu eta egin** (3); **diseinatu ziren** (3); **diseinatu zituen** (4); **diseinatu zuen** (25); **diseinatu zuten** (8); **diseinatuko du** (5); **diseinatuko dute** (3): moneok diseinaturiko (4); **estrategia diseinatu** (4); **estrategia diseinatu behar** (3); **plana diseinatu** (4); **politika diseinatu** (3)

---

**diseinatzaile** *(orobat **disenatzaile** g.er.)* **1** *iz* diseinatzen duen pertsona.

John Roebling, zubiaren **diseinatzaileak**, kaiko oinarrien eta transbordadore baten artean hanka harrapatu zuen planoak bukatu eta egun gutxira. Harkaitz Cano

Aitortu behar dut ez dudala gustuko Dario Urzai **diseinatzailearen** elastikoa. Berria - Kirola

Gorputzaren erregai-sistemak ezarritako betekizunak oso zorrotzak badira ere, oso butsuak dira hartarako mekanismoak, eta ez dute inolako eragozpenik **diseinatzaileak** jarritako desafioari aurre egiteko. Irene Aldasoro

*Imagen de Venezuela* aldizkariko **diseinatzailea** eta koordinatzailea da. Pako Aristi

Rame **diseinatzaile** grafikoa da, Ramalakoa. Berria - Mundua

Vivianne Westwood punkaren **diseinatzaileari** atzera begirakoa eskaini diote Londresen. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lortu ere lortu du bere enpresa sortzea, eta bere-kasako aholkulari eta aziendategien **diseinatzaile**-lanetan aritzea mundu osorako. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urte horietan mundu osoko arropa **diseinatzailerik** estimatu eta eraginkorrenetakoa izan zen Balentziaga, Christian Diorrekin batera. Kamera-**diseinatzailearen** hurrengo arazoa aberrazio kromatikoarena da. Berria - Kultura

Konputagailu-**diseinatzaileak**, berriz, bere esperientzia balia dezake garuna ulertzeko. Irene Aldasoro

Altzari **diseinatzailea** dela esan dit. Patxi Iturritegi

Geroago, arte-zuzendari eta iragarki-**diseinatzaile** aritu zen. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta diseinatzaile** (4)

# diseinu (*ETCn* ***14.667*** *agerraldi; orobat* ***deseinu*** *g .er.)* **1** *iz* diseinatzea; estetikaren alorra, ekoizpen industrialetan eta kidekoen forma berriak eta beren funtzioetara egokituak bilatzen saiatzen dena.

Bergara, Barañain, Azpeitia eta Tolosako antzokien **diseinua** edota aholkularitza egin du. Berria - Kultura

Zutabeak 52 metro inguruko altuera du, eta William Railton-en **diseinuaren** arabera eraiki zuten. Ramon Saizarbitoria

Euskal curriculumaren **diseinuan** izango dira sare publikoko eragileak. Berria - Euskal Herria

Bernersek 1991n aurkeztu zuen sare elektronikoaren **diseinua** eta batetik bestera bidaiatzeko erabiltzen diren loturak. Berria - Gaiak

Bizidunak aztertzean, askotan erabili izan da makinaren edo artefaktuaren analogia, biek barneratzen baitute antolaketa edo **diseinua**. Askoren artean

Ordenagailuz egindako diseinu sistemen bidez, produktuaren **diseinuan** egin beharreko aldaketak ziztu batean egiten dira. Iñaki Heras

Arazo interesgarri batzuk planteatzen ditu kontrol-sistema horren **diseinuak** eta funtzionamenduak. Irene Aldasoro

Zamudion daukagun proba bankuan ere motorrerako turbinen osagaiak probatzen dira, **diseinua** hobetzen da... Berria - Harian

McLaren etxearen **diseinua** burutsua eta arriskatua da, aldi berean. Berria - Kirola

Odol zirkulazioaren **diseinuak** duen ahultasun harrigarri bat gogorarazten digu linfak. Irene Aldasoro

Azalaren eta bildumaren **diseinua**: Esteban Montorio. Edorta Jimenez

**Deseinu** eta española ikastea. Herria

Londresko **Diseinuaren** Museoa tokiz aldatuko dute. Berria - Kultura

**2** (izenondoekin)

**Diseinu** grafikoko espezialista batek dekorazio aldizkari baterako atondutako bodegoi postindustriala. Aingeru Epaltza

**Diseinu** politeko zorro batean. Edorta Agirre

Dekoraziorako aukeratu zuen kretonazko ehuna, berriz, ez zuen hainbeste aukeratu **diseinu** garaikideari men egitearren. iMac ordenagailuaren **diseinu** originalarekin bat etortzeko, sagua eta teklatu bereziak diseinatzea erabaki zuen Applek. Mirentxu Larrañaga

Orokorrean Renaultek oso **diseinu** garbiak egin izan ditu. Berria - Kirola

Konexio-kableak ikusi ditugularik, itzul gaitezen orain makinaren **diseinu** orokorrera. Irene Aldasoro

Oxigenoarekiko dugun erabateko mendekotasunari egotzi behar zaizkio gorputzaren **diseinu** teknikoaren ezaugarri asko. Irene Aldasoro

Lau hankako animalia baten **diseinu** mekanikoak bi arku ditu. Irene Aldasoro

**Diseinu** formalek ez dute emoziorik adierazten. Askoren artean

**3** irud/hed

**Diseinu** komuna dago, eta Kataluniako Estatutuaren erreforma sostengatuko dugu, baita Ibarretxeren Egitasmoa ere, Kongresura heltzen bada. Berria - Mundua

Mapa politikoa erabat berregiteak, Mendebalde modernoaren **diseinu** iraultzailera moldatzeko, miseria ekarri zuen milioika gizakirentzat, Poetari bezala, filosofoari ere herri bakoitzak agertzen duen **diseinu** historikoa interesatzen zaio: herri bakoitzaren sorrera, hazkuntza, heldutasuna, eta erorikoa nola gauzatzen den. Iñaki Mendiguren

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berak sortutako **diseinu**-enpresak bizimodu lasaia eskaintzen zion, eta. Patxi Iturritegi

**Diseinu**-arazo zailak ditu sistemak ingeniaritza kimikoan. Autobus berria, **diseinu** fasean. Irene Aldasoro

**Diseinu**-ezaugarri burutsu ugari dituen energia-iturri autopropultsatu gisa ikusten du ingeniariak gorputza. Irene Aldasoro

Tenplu-mota desberdinak aipatu nituen, alegia, zenbat **diseinu**-estilo dauden eta horietako bakoitzari zein xehetasun dagokion. Santiago Iruretagoiena

Pop eta op arteak, minimalismoa eta abstrakzioa, **diseinu**-margolanak eta argazkiak, bideo-artea eta Espresionismo Berria... Oskar Arana

Sentsoreen **diseinu** akats bat tartean, zundak lurra jo zuen. Berria - Gaiak

Ingeniari biomedikoak baditu, gaur egun, bere ikerketetan antzemandako **diseinu**- edo funtzionamendu-akats askori aurre egiteko baliabideak ere. Irene Aldasoro

Gorputzean hainbat aldiz hauteman den **diseinu**-ekonomia horrekin betetzen ditu larruazalak bere eginkizun ugariak. **Diseinu**-eskakizun normalak baino askoz zorrotzagoak beharko direla. Irene Aldasoro

New York hirian **diseinu** irakasle den aldetik, ikasleek nanokulturak sortzeko egin duten apustua aztertu zuen atzo. Berria - Harian

Makina-erreminten **Diseinu** lehiaketa. Berria - Ekonomia

**Diseinu** Saria jaso dute Nicolas Correa, Danobat eta Inecok. Berria - Ekonomia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Moda **diseinuan** lan egin du orain arte Blamik batik bat. Berria - Kultura

Ditximaketa horren ondoren iraun zuen espezie bakar baten haritik sortu ziren ornodunak, ugaztunak eta abar, eta beste oinarrizko animalia-**diseinu** asko desagertu egin ziren; zorizko gertakari harengatik ez balitz, orain ez ginen agian hemen egongo. Berria - Kultura

Bideo **Diseinua**: Koldo Leniz. Berria - Kultura

**6** ***diseinuzko***

Zumezko aulki bat ageri zen ohearen oinetan, **diseinuzko** kuxin batekin. Koro Navarro

**Diseinuzko** paperontzia publizitatez eta garagardo lataz beteta. Patxi Iturritegi

Filmetako afixa zenbait hormetan, margolari handien koadro batzuen erreprodukzioak, **diseinuzko** altzari postmodernoak... Unai Iturriaga

Amesten duten **diseinuzko** munduaren arabera bizi dira, eta gure errealitatea zein den ez dakite. Berria - Harian

Herriko nekazariak, erlezain autonomoak, gozogile artisauak, onddo-biltzaileak, txalupako arrantzaleak... traîteur eskulangilearen ospea hartuko dute, **diseinuzko** elikagai bikainak ekarriko dizkigute-eta. Edorta Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**autoen diseinua** (3); **bere diseinuak** (5); **bildumaren diseinua** (5); **diseinu akats** (3); **diseinu bat** (4); **diseinu berri** (3); **diseinu berriak** (4); **diseinu eta** (6); **diseinu ezaugarri** (3); **diseinu grafiko** (8); **diseinu grafikoaren** (4); **diseinua egin** (4); **diseinua egiteko** (3); **diseinua egiten** (3); **diseinua eta** (16); **diseinuak eta** (3); **duen diseinu** (3); **eta bildumaren diseinua** (5); **eta diseinu** (16); **eta diseinu grafikoa** (3); **eta diseinua** (6)

**curriculumaren diseinuan** (3); **diseinuan eta** (9); **diseinuan parte** (3); **diseinuaren museoa** (3); **diseinuari eta** (3); **eta diseinuaren** (3); **euskal curriculumaren diseinuan** (3)

---

# diseinugile **1** *iz* diseinatzailea.

Besteak beste, gotorlekuen **diseinugile** handia izan zen. Koldo Izagirre

Hara zer egiten duen **diseinugileak**: errodamenduak koipezko geruza mehe batez babesten saiatu. Irene Aldasoro

Alabaina, Jacob-ek zioenez, eboluzioa ez da **diseinugile** hutsa, brikolajegilea baizik, oportunista hutsa eta, orduan, eboluzioa optimizazio-prozesu gisa aztertzea ez da zuzena. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan)

Eta hala, atorraren azpitik, jantzi-**diseinugile** ezagun baten sinadura zeukan bularretakoan bilduak, harro agertu ziren bularrak, bi titi sendo, gordelekutik irteteko grinatsu. Migel Angel Mintegi

---

# diseitu ik **liseritu**.

**disekagai** *iz* disekatzeko gaia.

Mendearen lehenbiziko urte haietan, grina handiz ikasten zuten medikuek anatomia; baina, erlijioaren jarraibideak zirela eta, zailtasun handiak zituzten **disekagaiak** lortzeko. Juan Garzia

**disekatu**, diseka, disekatzen **1** da *ad* lastoztatu.

Astoa han zetzan leher egina eta zopiloteek, asebetearen ostean inguruko zuhaitzetan kokaturik, **disekatuak** ziruditen; gu berriro abiatu ginen gure desbidean. Joxe Austin Arrieta

Ezaugarri haiek guztiak, ordea, **disekatutako** gorpu batenak bezalakoak ziren. Anjel Lertxundi

Museoetako bilduma klasikoak obsoleto dira, zaharkituak dira dagoeneko, museifikatuak eta **disekatuak** daude, eta horien ordez hobe duzue lore bati, txakur bati, fetixe bati gogor eustea. Joseba Zulaika

Plangintzan erantzule direnak jo eta ke aritu dira sailkatzen eta **disekatzen**. Bernardo Atxaga

Begitarte hori merezi du, ez baita behin ere okertu bere iragana atxiki eta erabiltzeko moduaz: **disekatu** egin du, besterik gabe. Monika Etxebarria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Supazterra, laratza, hauspoa, tigre buru **disekatua**, telebista, betamax eta bideo zintak. rokodilo **disekatuen** ahoak eskaparateetan, animalia bezatuen logura eternalaren ordezkari. Joseba Sarrionandia

Handik ordubetera Agustina Aragoikoaren titi **disekatua** baino espainolagoa naiz. Iñigo Aranbarri

Ez ote ditudan erakusten artista **disekatuak**, ez ote ditudan hilotzak baino erakusten, ez ote naizen ari orri erdi hau museo bihurtzen. Berria - Kultura

Epigrama **disekatua**. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> animalia disekatuak (3)

**disekatzaile** *iz* disekatzen duena.

Egiazko arrainak mortsa eta fokaren beldur bizi diren bezala, halaxe bizi dira testuak beraien sailkatzaile eta **disekatzaileen** hurbiltasunean. Bernardo Atxaga

Ba, sentitzen dut esatea, baina Thuletik etorritako jendeari irakurzaletasuna erantsi nahi dion komitea sailkatzaile eta **disekatzailez** beteta dago. Bernardo Atxaga

**disekzio** **1** *iz* disekzionatzea.

Andresi desatsegin gertatzen zitzaion beste gauza bat izaten zen ikustea nola, **disekzioak** egin ondoren, sobratzen ziren zatiak gorriz pintatutako galdara batzuetan sartzen zituzten. Josu Zabaleta

Garai batean, gerra ondoko urteetan, autokritika egiteko ohitura genuen, hots, egindako okerrak ozenki aztertu eta haien **disekzioa** egitekoa. Fernando Rey

**2** (hitz elkartuetan)

Ikasle gehienak irrikatan zeuden **disekzio**-salara iritsi eta eskalpeloa gorpuetan sartzeko, ankerkeria primitibozko hondar atabiko bat geratuko balitzaie bezala. Josu Zabaleta

Ikasturtea hasi eta hilabete batzuetara, hotz egiten zuen garaian, **disekzio** eskolak hasi ziren. Josu Zabaleta

Hildako animaliak, **disekzio** bidez, bizi-itxuran gordetzea. Bernardo Atxaga

**disekzionatu**, disekziona, disekzionatzen du *ad* landare edo hilotz bat zatietan metodoz banatu.

Bestela, kirofano batean Jenna Jamesonen pankrea **disekzionatzen** bukatuko dugu: denok zirujau. Berria - Kultura

Milaka liburu idatzi dira bere obra interpretatzeko, bere estiloa **disekzionatzeko**, bere ideologia aztertzeko. Jon Alonso

Ironia zorrotz eta, aldi berean, arin batez baliatzen da egilea mundu probintziano hori **disekzionatzeko**. Berria - Kultura

Gustuko du musika horrela **disekzionatzea**, notak bakartzea, isolatzea, nota bakoitza tarte txuriez inguraturik ikustea. Alberto Barandiaren

disenatu ik **diseinatu**.

disenatzaile ik **diseinatzaile**.

**disenteria** *iz* eritasun larria, heste lodiko hanturak eta zauriak, eta odol eta mukizko beherakoek ezaugarritzen dutena. ik **sabeldura**.

Eulia izurribide izan daiteke eta gaixotasun asko kutsa ditzake -tifusa, **disenteria**, kolera, antraxa eta agian gehiago ere bai- hanketako iletxoetan eraman baititzake gaixotasun horiek sortzen dituzten bakterioak. dena ondo joanez gero, tifusik, **disenteriarik** edo bestelako epidemiarik gure artean piztu ezean, laster, ziurtatu zigutenez, leku atseginagoren batera joango ei ginen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ondorioz, askok beherakoa edo **disenteria** bezalako gaitzak harrapatzen dituzte. Berria - Gaiak

Indian uretatik bizirik atera diren 65.000 bat pertsonari kolera, sukar ustela, **disenteria** eta A hepatitisaren kontrako txertoak jartzen hasi dira sorosle taldeak. Berria - Mundua

Fusilatuta hiltzen ez zena **disenteriak** hiltzen zian han. Koldo Izagirre

1803ko irailaren 5ean hil zen Tarenton, Napoli inguruan, **disenteriak** eta malariak jota. Jon Muñoz

**disenteriko** *iz* disenteriak jotako pertsona.

Obusak sortutako zein zulotan, taigako harrobietara bidalitako zein taldetan, **disenterikoen** zein etxolatan hil zen? Felipe Juaristi

diseritu ik **liseritu**.

**disertazio** *(orobat* ***disertazione*** *g.er.)* *iz* mintzaldia.

Suak zirauen egoten zen sukaldeko mahaiaren puntan **disertazio** edo latinetik erdararako itzulpenak ontzeko, hiztegi mardulak eskumenean. Itxaro Borda

Eta Montseren amak aurrera eta aurrera ekiten zion, hitzari hitza zerraiola, harik eta bere **disertazioa** liburuen liburutik ateratako argudio ustez errebatiezin harekin bukatzen zuen arte: [...]. Joan Mari Irigoien

---

disertazione ik **disertazio**.

---

**disfagia** **1** *is* irensteko eragozpena edo ezintasuna.

Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, esate baterako, egun 23.000 lagun inguruk **disfagia** dutela gogorarazi zuten atzo topaketako arduradunek. Berria - Kultura

Kasurik gehienetan **disfagiak** garuneko hodietako arazoen ondorioz sortzen dira, hemiplegien eta antzekoen ondorioz. Berria - Gaiak

Beti ere, **disfagiaren** atzean dagoen gaitza zein den ondo jakin behar da lehendabizi, gero eta gehiago jakin, gehiago lagunduko diogu eriari. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Eri hauek **disfagia** arazoak izateaz gain, kasu askotan arazo gehiago ere izango dituzte: mugitzeko, hitz egiteko, jarduera intelektualerako... Berria - Gaiak

Nola konpontzen dira **disfagia** kasuak? Berria - Gaiak

---

**disforia** *iz* gogo aldarteen gorabehera.

Hiru baldintza bete beharko dituzte eskatzaileek: genero **disforia** izatea euren generoarekin gustura ez egotea, gustuko duten generoarekin bi urtez bizi izatea eta etorkizunean ere horrela bizi nahi izatea. Berria - Gaiak

---

**disfrazatu**, disfraza, disfrazatzen da *ad* mozorrotu.

Vladimirrek berak karakterizazio ahalegin itzela burutu behar izan zuen: hogeita hamar kilo gizendu ondoren, trajea eta korbata eskuratu zituen, eta baita txistera ere, eta horrela pasatzen zuen eguna, **disfrazaturik**, lantegian gora eta behera, Montecristo puruak erretzen etengabe. Iban Zaldua

---

**disfrutatu**, disfruta, disfrutatzen du *ad* gozatu.

Eta nik izugarri **disfrutatzen** nuen. Jasone Osoro

Denborarekin ikasi nuen **disfrutatzen**, postura hartan gizonezkoak nesken menpe zeudela konturatu nintzenean, hain justu. Jasone Osoro

Gogoko zuen atso haiek zirikatzea, besteen bizitzetan arakatzen eta txutxumutxuka jendea larrutzen baino **disfrutatzen** ez zutenak. Unai Iturriaga

Baina erratza pasatzen **disfrutatzen** nuen nik, batez ere. Arantxa Iturbe

Ikusgarria zen nola **disfrutatzen** zuen edozein tabernatan ogitartekoak janez, edo pintxoekin. Mikel Hernandez Abaitua

Isilik egon zen pixka batean, botere izpi hartaz hobeto **disfrutatzearren**. Joxemari Iturralde

Sexuaz **disfrutatzea** ona da guztientzat. Luis Elberdin

Baliteke hitz batzuk ez gustatzea, hitz batzuekin ez **disfrutatzea**, Kafkaren *Prozesua*-rekin **disfrutatzen** ez den bezala. Unai Elorriaga

Elkarrekin maiteminduta egoteaz gainera, atsegin dugu elkar, eta elkarren konpainiarekin **disfrutatzen** dugu. Koro Navarro

Hamaiketan, ikaslerik patxadatsuenak atseden ordua **disfrutatzea** doaz kalera. Pako Aristi

Udazkenetan soilik **disfrutatu** daitezkeen arratsalde epel horietako bat zen. Iban Zaldua

Zertarako bizitza, **disfrutatzeko** ez bada? Sonia Gonzalez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asko disfrutatu** (7); **asko disfrutatu genuen** (3); **disfruta dezagun** (6); **disfrutatu ahal** (3); **disfrutatu egin zenuen** (3); **disfrutatu egiten** (12); **disfrutatu egiten du** (4); **disfrutatu eta** (5); **disfrutatu genuen** (3); **disfrutatu nahi** (3); **disfrutatzeko beste** (3); **disfrutatzeko beste modu** (3); **disfrutatzeko eta** (3); **disfrutatzen ari** (5); **disfrutatzen du** (3); **disfrutatzen dugu** (3); **disfrutatzen dute** (6); **disfrutatzen ez** (4); **disfrutatzen nuen** (3); **eta disfrutatu** (5); **eta disfrutatzeko** (6); **eta disfrutatzen** (8); **gehiago disfrutatzen** (3); **izugarri disfrutatzen** (3)

---

**disfrute** *iz* gozatzea.

Nik ere merezi dut **disfrutea**, gozamena. Jasone Osoro

---

**disfuntzio** **1** *iz* zerbaiten funtzionamenduan gertaturiko nahasmendua.

XX. mendearen bigarren erdiko nazioarteko harreman ekonomikoen **disfuntzioek** eragin dizkiote, izan ere, bultzada nagusiak finantza globalizazioari. Koro Navarro

PP hitzarmena manipulatu eta haren mesedetan erabiltzen saiatu baita, eta ondorioz, **disfuntzioak** gertatu dira. Berria - Euskal Herria

Charcotek uste osoa zuen buruko gaitz batzuen kausa ez zela organikoa, psikologikoa baizik, hau da, gizakiak jasandako nahasmenduek edo **disfuntzioek** sortua. Berria - Kultura

Saiatu ere saiatu gara portaera horren araberako **disfuntzioak** zertan diren azaltzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Internetekiko menpekotasuna **disfuntzioa** da sarearen erabileran, eta zenbait zantzu ditu portaeran, fisiologian eta alderdi kognitiboan. Berria - Harian

Iodoaren gehiegizko kontsumoak tiroidearen **disfuntzioa** eragin diezaieke «pertsona sentiberei». Berria - Gaiak

Emakumeen sexurako gogo falta ere, botika konpainiek **«disfuntzio»** bihurtu dutela gaitzetsi dute. Berria - Gaiak

Emakumeek orgasmoa koitoaren bitartez ez diren beste modu batzuetan lortzea [...] zergatik eta noiztik da **disfuntzio** sexuala? Luis Elberdin

Oso zabaldua dagoen gaixotasuna da, beraz, erekzioaren **disfuntzioa**. Berria - Gaiak

Bada banakuntza bat batetik emozioaren ikuspegi "neutroen" [...] eta bestetik emozioa subjektuaren emaitzen beheraldiekin batera gertatu ohi den **disfuntzioaren** erakusgarri bezala hartzen duten ikuspegi negatiboagoen artean. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

**Disfuntzio** arazoak sortu ziren taldean. · Emakumeen sexu **disfuntzioa**: aski zabaldutako arazoa dela diote botika konpainiek, baina zientzialari askoren arabera, ez dago hori osasun arazo zabaldua dela esateko nahikoa ebidentziarik. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**disfuntzio sexuala** (4); **erekzioaren disfuntzioa** (5)

---

## **disfuntzional** *izond* disfuntzioarena, disfuntzioari dagokiona.

Laburbilduz, esan dezagun ikasketa berri hauen sistema oso **disfuntzionala** izan dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Analitikoki **disfuntzionalagoa** da *cultura vasca* kontzeptu territorialean nahastea batetik munduko hizkuntza komunitate zaharrenetakoa, txikia, bizi-kinkan dagoena, eta bestetik hainbat kontinentetan milioika hiztunek hitz egiten dituzten bi hizkuntza komunitate. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beraz ez da, sena bezala, egokitzailea, ez eta behar primarioa bezala, funtzionala, arras desegokitzailea eta **disfuntzionala** baizik. Berria - Harian

---

## **disgeniko** *izond* gene desegokien metaketaren faktoreei dagokiena.

Beste batzuen ustez, bada zerbait ezinbestean **disgenikoa** zibilizazioak giza izaeran duen eraginean, eta zibilizazio-aldi baten ondoren "odol berri" barbaroaren infusioz bakarrik indarberritu daiteke arraza. Iñaki Mendiguren

---

## **disgregazio** *iz* sakabanatzea, desgitea.

Behin pigmentuaren **disgregazioa** gertatuz gero, erreaktibo jakin batetik 23 tanta gaineratzeko zioen arauak. Juan Garzia

---

## **disgustagarri** *izond* nahigabetzen duena, atsekabea sortzen duena.

Botatzen nuen gosariarekin batera gainera jendeen soak jasan behar nituen, urera keldarra ttanttaka igortzen nuelako, ilun, biketsu, urrintsu eta azkenean **disgustagarri** . Itxaro Borda

---

## **disgustatu**, disgusta, disgustatzen *(orobat **desgustatu**)* **1** da/du *ad* nahigabetu, atsekabetu. ik **gaitzitu**.

Egia erran **desgustatuak** ginen eta beste hegazkin bat hartu dugu itzultzeko. Ramuntxo Etxeberri

Adiskideetan adiskideenarekin nitaz mintzatzeak **disgustatzen** ninduen arren. Itxaro Borda

Kontseilariak ez ditu **disgustatu** nahi. Jon Alonso

Joanesek gertakizuna arras **disgustaturik** kontatzen zuen, horrelako kalbario zientifikoen pairatzeko baldin bazen ez zela gehiago inora ere abiatuko erantsiz. Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta gatu zainart batek punpa egin zidan altzora "gatxit!" **disgustatu** ozenaz haren haizatzera behartua nintzelarik, Theresen so aurkari larderiazuaren mehatxupean. Itxaro Borda

---

disgusto ik **disgustu**.

---

## **disgustu** *(orobat **desgusto** g.er., **disgusto** g.er. eta **desgustu** g.er.)* **1** *iz* nahigabea, atsekabea. ik **bihozmin**.

Aitak sekulako **disgustua** zuen, Montserekin hautsi nuelako. Joan Mari Irigoien

-Izango ez du ba **disgustua** Ranierok? Junot hori playboy hutsa da eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrimatzen zaizkizun lagun horiek baietz **disgusturen** bat ekarri. Anjel Lertxundi

**Disgustu** ederra ekarri zigun bururdi horrek. Josu Zabaleta

Telefonoz deitzeko txanpon batzuk eskatu, eta **disgustua** ematen didazu. Ramon Saizarbitoria

**Disgustu** bat eman behar dizut. Anjel Lertxundi

-Hemen daukazu motxila, seme... **disgustuak** baino ez dizkidazu ematen! Jon Maia

**Disgustua** hartu zuten alde batera utzi zuelako alabak musika. Unai Elorriaga

Orduan hartu zuten **disgustua** 3.Dkoen alabaren gurasoek. Unai Elorriaga

-Ez zaitut hartuko zenukeen **disgustuaz** hil nahi. Ramon Saizarbitoria

Izugarrizko **disgustua** hartuko luke gajoak. Lopez de Arana

**Disgustu** handia hartu zuen harekin bizitzen jarri nintzenean. Anjel Lertxundi

Hargatik nigan **disgustua** zen hedatzen ari. Itxaro Borda

Amaren **disgustua** ! Joan Mari Irigoien

Aurrez aurrekoetan, berriz, beti bezain neurritsu jokatzen zenuen, alai eta irritsu ere bai, tratuaren poderioz bai baitzenekien zer nuen gogoko zer **disgustuko** . Xabier Mendiguren Elizegi

Julenek **disgustuz** begiratu zion. Fernando Morillo

Mahaietakoek **disgustuzko** zirkinen bat edo beste egin zuten. Anjel Lertxundi

Etziren, iduriz, apezpikuaren gostukoak holako okasionetan gertatzen ziren gehiegikeriak, eta bere **desgustua** apezpiku-gutun batean jakin arazi zien eliztarreri. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Arduradunak **disgustu** keinu bat egin zuen. Bernardo Atxaga

Don Pedrok **disgustu** imintzio bat egin zuen. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **disgustu handia** (5); **disgustu handia hartu** (4); **disgustua hartu** (3); **disgusturen bat** (4)

---

## **disidente** *izond/iz* nagusi den sistema edo ideologiatik aldentzen dena.

Vazquez Portal kazetari **disidentea** askatu dute. Berria - Mundua

Gerra Hotzaren garaian intelektual **disidenteen** jazarpena, giltzapetzea eta hilketa ohiko kontuak izan ziren ekialdeko erregimenetan. Iban Zaldua

Horietako asko mertzenario gisa lanean ari diren soldadu **disidenteak** dira. Berria - Mundua

Horretarako, garaiko talde, kolektibo eta aldizkari **disidenteen** lanak utzitako «distira handieneko elementuak» biltzen saiatu da erakusketako komisarioa. Berria - Kultura

Egun ezagunak diren artista plastiko, zinemagile eta idazle askoren bidea esperientzia **disidente** eta erdi-klandestino horietan hasi zen. Berria - Kultura

Kulpa eta lotsa direla eta, pertsona ezingo da normatik irten, ezingo da **disidente** izan. Luis Elberdin

Hori ere galarazten baitigu ETAk, **disidente** izateko eskubidea. Joxerra Garzia

Osasun arazoak argudiatuta, aske utzi dute Raul Rivero **disidentea** . Berria - Mundua

Taldeak oso gogor zigortzen ditu **disidenteak**: taldetik egozten ditu. Luis Elberdin

Harik eta **disidenteekin** harremanetan sartu zen arte, antza. Edorta Jimenez

Poliziaburuak IRAren bizkar ezarri ditu ustezko **disidente** errepublikano andanaren aurka eginiko hainbat gaztigu ekintza. Berria - Mundua

Poliziaburuak IRAren bizkar ezarri ditu ustezko **disidente** errepublikano andanaren aurka eginiko hainbat gaztigu ekintza. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**disidente errepublikano** (5); **errepublikano disidenteak** (6); **errepublikano disidenteen** (3); **kazetari disidentea askatu** (3); **lau disidente** (3)

---

# disidentzia 1 *iz* nagusi den sistema edo ideologiatik aldentzea.

Oposizioa dagoela [Kuban] egia da, baina ez dugu benetako oposizioa **disidentziarekin** nahastu behar. Berria - Mundua

Chavezek gauzen ikuspegi autoritarioa dauka, [...] eta berarekin lana egiten dutenek esan didate ez duela **disidentzia** onartzen. Pako Aristi

**Disidentziarako**, kritikarako eskubidea hiltzen baitu ETAk bere atentatu bakoitzean. Bi izen datozkit gogora: Mikel Azurmendi eta Ramon Etxezarreta, bata kanpoko erbestera eta bestea barruko erbestera kondenatuak, biak behar-beharrezko ditugunak euskalgintzarako, sarri **disidentziatik** izango bada ere. Joxerra Garzia

Euskarak ez al dio beste mutila deitzen aingeru eroriari, erromantikoek **disidentziaren** eredutzat zeukaten artearen deabru guardakoari? Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artea **disidentzia** forma bat da bokazioz eta definizioz. Anjel Lertxundi

*Nire aitaren etxea defendituko dut,* idatzi zuen Gabriel Arestik, hori esatea **disidentzia** modu nabarmena zen garai zailetan. Anjel Lertxundi

Handik etorri zitzaion bere **disidentzia** puntua, iraultzailea baino, matxinatua izatea, bizi izan zuen gizarte haren kontrako matxinatua. Paddy Rekalde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**antolatzeko eta disidentziarako** (4); **disidentziarako eskubideak** (6); **elkartzeko eta disidentziarako** (3); **eta disidentziarako** (8); **eta disidentziarako eskubideak** (6)

---

# disimetria *iz* simetriarik eza.

Pertsonaia maskulinoen eta femeninoen arteko **disimetria** (haiei begiratzeko ahalmena ematen baitzaie, eta hauek begiratuak izateko jartzen baitira). Josu Zabaleta

---

# disimilatu, disimila, disimilatzen da *ad* disimilazioa gertatu.

Hala /maitea/ majtia ahoskeran disimilazio bat gertatu da azken bi bokalen artean; hobeto esan, lehenengoa bigarrenetik **disimilatu** egin da, /e/ -> i ordezkatzeari esker, ondorengo bokaletik areago desberdindu baita. Lourdes Oñederra

---

# disimilazio 1 *iz* hitz batean, bi fonema berdin edo antzeko, desberdin bihurtzea.

Hotsa ingurunetik bereziago egiten duen ordezkatzea da **disimilazioa**. Lourdes Oñederra

**Disimilazioaren** ondorioa seinale garbiagoa, nabarmenagoa izaten da eta ahoskera-ahalegina handiagoa. Lourdes Oñederra

Hala /maitea/ *majtia* ahoskeran **disimilazio** bat gertatu da azken bi bokalen artean; hobeto esan, lehenengoa bigarrenetik disimilatu egin da, /e/ -> i ordezkatzeari esker, ondorengo bokaletik areago desberdindu baita. Lourdes Oñederra

**2** irud/hed

**Disimilazio** molekularra; hartzidura; berezko delako sortzea; ardoari buruzko ikerketak; [...]. Juan Garzia

---

# disimulaezin *iz* ezin disimulatuzkoa.

Martak bazuen Olatzek berekiko sentitzen zuen miresmen **disimulaezinaren** berri. Harkaitz Cano

Halatan ere: ez da psikoanalisia-kontuetan asko ikasia izan behar jakiteko dado-potoak amaren altzoa irudikatzen duela eta ardo-botilak, berriz, faloaren libidozko altxamendu **disimulaezina**. Anjel Lertxundi

---

# disimulagaitz *iz*

Allikeneko garaiez oroitu, eta betirako joan direnen hutsunea gero eta nabarmenagoa izaki, gero eta **disimulagaitzago**. Txillardegi

---

# disimulatu, disimula, disimulatzen *(orobat **diximulatu** g.er.)* 1 du *ad* gorde, ezkutuan gorde; isil-misil egin; zuritu.

Nik, urtetan, ile motz-motza eraman izan dut, bularra **disimulatzen** ibili izan naiz, eta mutilen moduak hartzen nituen, gidatzeko moduan, karabinarekin tiro egitean... Ana Urkiza

-Zer esango dut etxean? -atera zitzaidan estutasuna **disimulatzeko** gai ez nintzela. Ramon Saizarbitoria

Etxe barruan **disimulatuta** egoten den zulo bat, ezta? Bernardo Atxaga

Utz egiozue, utz egiozue bekatu larriaren marka nahi duen eran **disimulatzen**. Anjel Lertxundi

Ubelduari begira gelditu ziren adi, **disimulatzeko** lanik hartu gabe. Bernardo Atxaga

Zein jantzi agindu din, bada? -galdetu nion ostera, nire jakinmina batere **disimulatu** gabe. Anjel Lertxundi

Mingaina lodituta neukala **disimulatu** ezinik. Anjel Lertxundi

Txarto **disimulatutako** harrotasuna islatzen zen Joseluren aurpegian. Josu Landa

Malko iheskorren bat ezkutatu ezina, barruko hunkidura algaraka **disimulatu** nahia. Xabier Mendiguren Elizegi

Neure barne-asaldua ahal bezala **disimulatuz**, sartu egin naiz bertara. Txillardegi

Gure etxe-sotoko ezkerretan, **disimulatuz** (norekiko ote disimulutan ni, ordea?) umetango "putzu" famatua bilatu nuen. Txillardegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Giza domatzailerik **disimulatuena** eta eraginkorrena baita errepika, nahinolako errepika xoragarria. Patziku Perurena

Ezin jakin Kandido Mierren ondorioak txunditu egin duen ala inozokeriarekiko iseka **disimulatuak** hartaratu duen bere barreazal behin ere neutrala izan ez dena. Pako Aristi

**3** ***ezin disimulatuzko***

Minbera zeuzkan atzamar-kozkorrak, eta kaskezurraren kontra jotako kolpe batek **ezin disimulatuzko** oinazea eragin zion. Josu Landa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

berehala disimulatu zuen (3); disimulatu behar (3); disimulatu egin (5); disimulatu gabe (4); disimulatu nahi (7); disimulatu zuen (7); disimulatzen ahalegindu (4); disimulatzen ahalegintzen (3); disimulatzen saiatu (6); edo disimulatu (3); ezin disimulaturik (3); hura disimulatzen (3); nekez disimula (3)

---

# disimulatugabe *izond* disimulatzen ez dena.

Epilogo beldurgarri agresibo hau, faxismo espainolaren apologia **disimulatugabe** bat, alde guztietara irainez betea. Joxe Azurmendi

---

# disimulazio *iz*

**Disimulazioa**, aldiz, «simulazioz kanpoko edozein prestakuntza lani» deitzen dio Egañak. Berria - Harian

Bertsotarako prestakuntzan simulazioa eta **disimulazioa** nahastea ezinbestekotzat jotzen dut. Andoni Egaña

Zutabeak idazten, irrati-kolaborazioak egiten, komikiak marrazten... ohitzen den bertsolariak, **"disimulazio"** lan handia egiten du. Andoni Egaña

---

# disimulo ik **disimulu**.

---

# disimulu *(orobat **diximulu** g.er.)* **1** *iz* bestela bezala aritzea, disimulatzea.

Gizarteak agindu dizkigun obligazioak dira **disimulua** eta hipokresia: eman diezaiegun amore. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina emakumeagoa zen, bazuen atsegingarri izateko gogoa, hipokrisia, **disimulua**. Josu Zabaleta

Ikasleen artean harat-honat nenbilen ni, **disimulu** askorik gabe egiten ari zirena gainbegiratzen. Joxerra Garzia

Nik, **disimulu** handiz begiratzen nion. Aritz Gorrotxategi

Eta nik, **disimulu** ederrean, hura gogoan hartu eta koadernoan idatzi. Joxerra Garzia

Jendeak arnasa hartu du **disimuluaz**, eta txalo jotzen hasi da. Txillardegi

Gure bizkarrean, irandar soldaduen atzean zeuden gutarrak arretaz begira zeuden ea nola hartzen gintuzten; **disimuluarekin** beste aldera begiratu, eta batzuk gure atzetik zetozela ikusi nuen. Juan Kruz Igerabide

Zenbait egunez egia latza **disimulu** alferretan guk pasa ondoren [...] Lizarra bera erori zen liberalen eskuetan. Txillardegi

**2** (hitz elkartuetan)

**Disimulu** aurpegia jar ezan. Juan Garzia

**3** ***disimuluan*** *adlag* bestela bezala arituz.

Aitak, amarengana **disimuluan** itzulita, esan zion belarrira: [...]. Juan Kruz Igerabide

-Consuelo, zoaz begiratzera **disimuluan**, ea atera naitekeen hemendik... Jon Maia

Eta **disimulutan** hurbildu nintzen; bera bertan ez aurkitzekotan lehenengo aldiz oso kezkatuta. Txillardegi

**Disimuluan** pasa nintekeen, baina nahiago izan nuen arriskatu, idazten zaila zen izen bat bota. Berria - Kirola

-Zer moduzkoa da? -galdetu zion Feynmanek Russelli, **disimuluan** Wittgensteinen aldera seinalatuz. Fernando Morillo

Ezkerraldeko angelura begiratu dut **disimuluan** eta dra! Patxi Iturritegi

Haren urrina aditu zuen, **disimuluan** izterrak ikusi zizkion. Pablo Sastre

Eskua poltsikotik atera eta eskua atzerantz eramanda, **disimuluan**, burdina arteko zirrikituan utzi zuen. Joseba Sarrionandia

Zertarako **disimuluan** ibili. Hasier Etxeberria

Mukiak maukarekin garbitu ditu, **disimuluan**. Jokin Muñoz

**4** ***disimuluz*** *adlag* disimuluz.

**Disimuluz** jokatu nuen hasieran, neure buruarekiko errezeloz eta gainerakoekiko ahalkez. Karlos Linazasoro

Gero musua garbitzen du, **disimuluz**, eskugainarekin, irri egiten duen bitartean. Alberto Barandiaren

Medikua sartzean gaixo hark, **disimuluz**, katua ohetik behera jaitsi eta lurrean utzi ohi zuen.. Josu Zabaleta

Gorputza pixka bat jiraturik, gizakoteari begira jarri nintzen **disimuluz**. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

disimulu handiz (8); disimulurik gabe (10); disimulurik gabeko (3); disimuluz eta (3); eta disimulu (3); eta disimulurik (6)

---

# disjuntibo *izond* hautakaria.

Identifikazio zabal eta ireki horren arazoa hau da: gogo-egoerak propietate artifizial bihurtzea, multzo **disjuntibo** ireki batekin identifikatzen baitira (adibidez, beldurra=--... v p1 v p2 v p3 v...). Askoren artean

Judizio **disjuntiboak** bi edo esakune gehiagoren arteko hartuemana barnebiltzen du, baina ez ondoriozkoa, baizik kontrajarpen logikoarena, baten esferak bestearena baztertzen duen heinean. Ibon Uribarri

Judizio **disjuntiboan**, beraz, ezagutzen komunitate jakin bat dago, ezagutzen elkarren bazterketaz osatzen dena. Ibon Uribarri

Argipena edonala ere judizio kategorikoari dagokiola, baina ez hipotetikoari, ezta **disjuntiboari** ere. Ibon Uribarri

Arrazoimenak sortzen duen adigai baten determinazio logikoa arrazoimen-inferentzia **disjuntiboan** funtsatzen da. Ibon Uribarri

---

# disjuntu *izond* multzoez eta kidekoez mintzatuz, elementu komunik ez dutenak.

Desberdinak laurak: hasierako hirurak, atal bakarrez eginak; eta azkena, berriz, bi adar **disjuntuz** osatua. Jon Muñoz

Tetrakordioak bost dira: lehenengoa baxuena da, grekoek *hypaton* deitzen dutena; bigarrena tartekoa da, eta *meson* esaten zaio; hirugarrena konjuntua da, eta *synhemmenon* deitzen zaio; laugarrena **disjuntua** da, eta *diezeugmmenon* deitzen da; bosgarrena denetan altuena da, eta grezieraz *hyperbolaeon* esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

---

# disjuntzio *iz* bi elementuren arteko erlazioa, batak bestea baztertzen duena.

Dialektikan ikasia dut, halaber, azaldu berri ditudan proposizio lotuetan aurreko partea hartu ezkero berari erantsita daramala ondokoa; eta oposizio edo **disjuntzio** gisa azaldu ditudanetan hauetariko bat edo gehiago ukatuz gero, zerbait baiezkoa geratzen da besteen ukapenaren eraginez. "•" sinboloarekin hizkuntza naturaleko “edo” **disjuntzioa** -:Sinboloaren bidez **disjuntzioa** adieraziko dugu.

---

diska ik **disko**.

---

diskagintza ik **diskogintza**.

---

**diskal** **1** *izond* disko-.

Datorren astean eginen diote ebakuntza, eten **diskala** baitu. Berria - Kirola

Bizkarrean duen hernia **diskalak** nabarmen egin baitu hobera. Berria - Kirola

Hernia **diskala**, neumonia eta urdail-hesteetako odoljarioa zirela medio iragan beharreko beste hiru ospitalealdiren ondoren jadanik 30 urte ingurukoari legez hasi zitzaion mintzatzen, erretiroaren atarira iritsita biak ere. Pako Aristi

Hipertentsioa, diabetesa, bi aldaketan ebakuntza egiteko beharra, ernia **diskala** eta fibrilazio aurikularra ditu.

**2** (izenlagun gisa)

76 urtetan, Alemanian da operazione batentzat, **diskal** etendura baten artatzen eta famak ez ditu hain onak bere osasunarentzat beste gisan ere. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diskala eta** (3); **diskala eta fibrilazio** (3); **ernia diskala** (3); **ernia diskala eta** (3); **hernia diskala** (4); **hernia diskalak** (3)

---

diskalifikatu ik **deskalifikatu**.

---

**diskapazidade** *iz* gaitasunik eza; ahalmen urritasuna.

**Diskapazidadea**, barneratu nahi duen misterio bat da. Berria - Kultura

---

diskatxo ik **diskotxo**.

---

**diskete** *(orobat* ***diskette*** *g.er.)* **1** *iz* informatika datuak biltzeko diskoa, babesten duen azal gogorretik ezin atera daitekeena, ordenagailuan sartzen dena datuak hartzeko edo uzteko.

Aztarna horiek zein ote ziren galdetu nioan neure buruari; zehatzago esanda, zer motatakoak ote ziren: testu idatzia, **disketea**, banda magnetikoa, bideo-banda, mikrofilma? Jon Muñoz

Begoñak beterik zeukan **disketea** sarrioei hartutako argazkiekin. Aingeru Epaltza

Ezabatuta zeuden, **diskete** hondatu batean bezala. Jon Muñoz

Nire bezeroek esan dute beti **diskete** horretan ARBren agiri faltsu bat gorde zutela. Berria - Mundua

John Warner senatariak iragarri zuen Pentagonoak beste **diskete** bat aurkitu zuela, torturen irudi gehiagorekin. Berria - Mundua

Kartazala itxi aurretik **diskette** batean New Yorken idatzitako eleberriaren kopia bat sartu nuen. Harkaitz Cano

Defentsaren ustez, gazteen kontrako nahikoa froga ez dago, ez baitago fanzinea egin zen ordenagailurik edo aldizkariaren **disketerik** ere. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

-Eta ez da egongo kopiaren bat, segurtasun-**disketeren** bat...? Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diskete bat** (4)

---

diskette ik **diskete**.

---

disketxe ik **diskoetxe**.

---

**diskisizio** *iz* gai baten azterketa arretatsu, sotil eta zehatza, askotan bide-batezkoa.

Noiznahi korridorean topatu eta egundoko **diskisizio** filosofikoak izaten ditu arteari buruz eta musikari buruz. Harkaitz Cano

Argi zegoen gainera, bestelako **diskisizio** literario-filosofikoak albo batera utzirik, geuk saiatu beharko genuela irtenbide bat aurkitzen. Karlos Linazasoro

---

**disko** *(ETCn* ***1.817*** *agerraldi; orobat* ***diska*** *ETCn* ***2.847*** *agerraldi –horietako 1.167* ***Herria*** *aldiakarikoak-, eta* ***dizka*** *g.er.)* **1** *iz* gauzaki biribila eta zapala.

-Biscaynetar gerlaria izan nintzen, baina ez nuen gerlariaren sena erakutsi... -ezkutua **disko** bat bailitzan hartu eta indarrez itsasora jaurtiki zuen. Joanes Urkixo

Lau metro zabaleko **disko** solidoa da antena hori. Berria - Gaiak

Sarearen behealdean gurpil itxurako **disko** handiak daude. Berria - Gaiak

Haren ondoan, urrezko **disko** itxurako kobrezko plater bikain batean, edontzi estu batzuk, gainaldea puntuz eta kolorezko irudiz bete-betea zutenak. batzuek, aldiz, zurezko ziren eta zorutik zenbait arraz jasorik zeuden, harri leunezko **disko** banaz gailurturiko lau edo sei enborren gainean bermaturik. Jon Muñoz

Metalezko **disko** txikia, bertute, dohain edo zerbitzu gutxi edo gehiago jatorrak saritzeko emana. Xabier Olarra

Metal beltzezko **disko** astuna biraka erabiltzen zuten telefono zaharrak. Joxan Elosegi

Ikusia nago Ejipto zaharreko artean **"disko** hegalduna" izeneko irudi ederra. Patziku Perurena

Konoa zilindroaren erdia dela edo eguzkia **disko** bat dela pentsatzen duenaren uste okerra. Xabier Kintana

**2** irud/hed

Bera ere, ilargiaren **disko** zurbil orain ia estaliari begira jarri, eta gogoetan zegoela ematen zuen. Irene Aldasoro

Eguzkiaren indarrarengatik eguzkiarekin aurrez aurre geratzen delako, haren **disko** osoaren distira hartzen du bere baitan. Santiago Iruretagoiena

Eguzkiaren **diskoak** 30 minutuko angeluko diametroa du, eta Artizarrarenak, berriz, minutu batekoa. Berria - Gaiak

Katigamenduen kabinan hots bat aditu zen eta **disko** gorriak piztuitzalia egin eta zuri bihurtu zen, eta nik kabinatik giltza atera eta lasterka joan nintzen nasa aldera. Fernando Rey

**"Disko** imaginal" direlakoen desberdintzea ikertzen ari zen Hardon; hots, beldarrean, intsektu helduaren erabidea prestatzen duten zelula multzoak nola doazen desberdinduz. Juan Garzia

## 3 ornoen arteko disko modukoa.

**Disko** hori ornoarteko diskoa da, golf-pilota zabal baten itxurako egitura bat, ornoen eta bizkarrezurraren arteko motelgailu gisa funtzionatzen duena. Irene Aldasoro

Sendagile batek bizkarreko **disko** bat dela esaten dit, beste batzuk nerbioak sendatzen saiatzen dira. Koro Navarro

Pentsio bat lortzea izango nuke, eta horrez gainera baita milaka dolar batzuk ere, baina nire **disko** lokatuak ez du horretarako balio. Koro Navarro

Polimero hori gel fin bat da berez, ornoarteko **diskoak** gogortzeko erabiltzen denaren parekoa. Berria - Gaiak

Beste aje mingarri bat ere eragiten du zutikako jarrerak: **disko**-hernia. Irene Aldasoro

**Diskoko** hernia da bizkarreko lesio arrunten artean larriena. Berria - Gaiak

## 4 xafla biribila, soinuak grabatzeko eta erreproduzitzeko erabiltzen dena.

**Disko** bat atera zuen pilotik, eta aparatuaren platerean jarri. Bernardo Atxaga

Binilozko hemezortzi **disko** dira orotara. Harkaitz Cano

CD-aren tiraniatik ihesi, oraindik botoi-sakatze arruntaz haratago nire eskuek orratz bat hartu eta **disko** bat jartzeko errituala. Harkaitz Cano

Orratzak **diskoan** egiten duen eztul txiki horrek ez du batere ukitzen melodia. Monika Etxebarria

Agente espainiarrak Parsifalen **diskoaren** azala garbitu zuen musuzapiaz. Alberto Ladron Arana

Tarteka, ulertzen ez genituen hitz batzuk entzuten ziren, 78 r.p.m.-ko **disko** zahar batetik ateratakoak bailiran. Iban Zaldua

Beste **disko** bat atera, zapitxo batez garbitu eta gramofonoan ipini zuen. Alberto Ladron Arana

-Parsifal! -hots egin zuen Hansek, **disko** haietako bat hartuz -. Alberto Ladron Arana

*No teacher, No guru, No method* **diskoa** biraka hasi zen hi-fian... Unai Iturriaga

Errepikatzen eta errepikatzen den **disko** akastuna da, hipnotikoki errepikatzen **disko** akastuna. Jon Alonso

Orratz marketsak **disko** zaharraren ildo beltzari eutsi eta nota bizkorrek segitu zuten baserriko sabaiko egurats ilunaz jabetzen. Alberto Ladron Arana

Hala grabatu zituzten "Triki-trixa de Azpeitia (Zakabi y Egañazpi) " izena zeramaten bi **disko** txiki haiek. Iñigo Aranbarri

Eskaparatean, Cheren biografia sendoa, euskerazko nobela batzuk, **disko** kañero zenbait eta kamisetak. Unai Iturriaga

Eta **disko** kaka horiek guztiak. Koro Navarro

· **Disko** marratua baizik ez dugu entzun Euskal Herriko politikan. Berria - Euskal Herria

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Disko**-zorroko giza irudiak hilobiaz haraindiko tximino bat ematen zuen. Aingeru Epaltza

Argazkilari zebilela, musika taldeentzako **disko** azalak, kartelak, eta sorkuntza lanak burutu zituen. Lander Garro

Bidean galduko ziren, edo anonimatoan galdu, "herrikoia" bihurtu **disko** azaletan. Pako Aristi

Sukaldeko horma guztiak **disko** portadaz beteta ditu. artetan bazterreko **disko**-makinaraino joan eta hartan sartzen zituzten marinelei eskaturiko txanponak. Harkaitz Cano

**Disko** entzungailua zegoen tokiraino hurreratua zen Mentxu azken berbaldia aditu artean, eta kartoizko zorroak begiz barik atzazalez ikuskatzeari ekin zion. Josu Landa

-Armaturik dabilen **disko**-saltzaile bat? Alberto Ladron Arana

Latomierska hiribideko **disko**-denda handian topatu zuen beste bat, *Temperamental* izenburukoa. Iban Zaldua

Liburu- eta **disko**-saltoki atseginak, marka onenetako arropa-dendak, beirate distiratsuko gozotegiak eta luxuzko jatetxe, pub nahiz kafetegiak. Jon Arretxe

Une kritiko batean gaude, **disko** salmentak asko jaitsi direlako. Berria - Harian

Warner Music **disko** ekoizlea eta Fnac saltokia. Berria - Gaiak

Lanean ari dela, bat-batean ingurura begiratu du, **disko**-bar osoa aztertuz; ezer nabarmenik ez: batzuk dantzan, besteak eserita, taldeka hitz egiten, komunetara joan-etorrietan. Pako Aristi

Durangoko **disko** eta liburu azoka. Berria - Kultura

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arratsaldeetan diskodenda batera joaten ginen, txanpon batzuen truk jazz **disko** berriak entzutera. Javi Cillero

Bi neskatxen etxean topatu nituen jazz-**disko** zahar batzuk aditzen ematen nituen egunak. Fernando Rey

Musika **diskoak** ekoizten dituen enpresa baterako egiten dut lan. Alberto Ladron Arana

· Musika-**disko** zaharreko giroa. Paddy Rekalde

## 7 informatikan, datuak biltzeko euskarri elektromagnetikoa, disko forma duena.

Urte horretan asmatu zituzten konputagailuetan erabiltzen hasi ziren **disko** malguak. Pello Salaburu

"Bi **disko** formateatu bako", pentsatu zuen Gorkak, askoz ere praktikoago. Patxi Iturritegi

Bere aldi bereko memoria sei tetrabytekoa (sei bilioi bytekoa alegia) da, eta **disko** zurrunean 160 bilioi byte sartzen dira. Pello Salaburu

## 8 Greziako atletek jaurtitzen zuten harrizko edo burdinazko atal biribila; gaur egun, atletek jaurtitzen duten metalezko eta zurezko atal biribila.

Jaiki, **disko** bat hartu, jiraka ibili, eta eskutik ziztu bizian askatu zuen. Juan Kruz Igerabide

Hasieran **diskoa** harrizkoa zen, kobrezkoa gero. Berria - Kirola

Zeren eta gimnasioan dauzkaten estatua guztiei auzitegian ari diren hizlarien itxura eman baitiete, eta foroan dauzkatenei, berriz, **disko**-jaurtilarien edo lasterkarien edo pilotarien itxura. Santiago Iruretagoiena

Pisu-jasotzaileek eta **disko**-jaurtitzaileek eman zuten hezur-mineral kantitate handiena, eta, haien ondoren, korrikalariek eta futbolariek. Irene Aldasoro

Virgilijus Alekna **disko** jaurtitzaile lituaniarra. Berria - Kirola

Bost proba ziren: stadion, luzera jauzia, **disko** jaurtiketa, xabalina eta borroka. Berria - Kirola

## 9 *disko festa* (*orobat* ***diskofesta***)

Ez da trikitia, **disko festa**, txistorra, gazta, sagardoa, toka eta igel-jokorik faltako. 17:30: **Diskofesta** Joseina Etxeberriarekin. Berria - Kirola

## 10 *disko gogor* (informatikan)

**Disko gogorrean** gordetako informazio guzti-guztia hondatzen du, programa guztiak pikutara! Antton Olano

Windows sistemarekin, Ordenagailuaren **disko gogorretik** fitxategi bat borratzen denean, nahiz eta zakarrontzi birtuala hustu, datuek diskoan jarraitzen dute fisikoki. Fernando Morillo

Batzuetan, oroitzapen guztiak ezabatzea nahiko nuke, **disko gogorra** formateatzen denean bezalaxe, sutara botatako liburu bat bezalaxe, eta handik aurrera bizitza berri bat idatzi pantaila garbian. Juan Kruz Igerabide

· *irud/hed* Memoriaren **disko gogorrean** artxibaturik eta asimilaturik zuen irudi hura. Unai Iturriaga

Memoriaren **disko gogorrean** gordetakoak, aldiz, edertu egiten dira denborarekin. Joxerra Garzia

## 11 *disko-jogailu* (*orobat* ***diskojogailu*** *g.er.*)

Mahaiaren gainean ontzi bat iratze landare batekin, zilarreria bere kaxan sartuta eta **disko-jogailu** bat. Koro Navarro

**Disko-jogailuan** jartzen genituen kanten artetik Margaren gustukoena aukeratzeko. Harkaitz Cano

Norbaitek 25 zentaboko txanpona bota zuen **disko-jogailuan**, 50eko hamarkadako juke-box hortera eta deigarrian. Iñaki Zabaleta

Ximurrak "nire" deitzen zuen **disko-jogailua** piztuta. Aingeru Epaltza

Aingeru guardako bat bezala izango naiz, **disko-jogailuaren** altabozak barruko patioetara aterako ditut bizilagunek nire bildumako kanturik leunenak entzun ditzaten. Harkaitz Cano

**Disko-jogailuan** aspaldi amaitu zen Rubén Gonzálezen diskoa. Edorta Jimenez

Bi Technish **disko-jogailu**, kablerik gabeko bost mikro eta zenbait binilo. Berria - Kultura

Garraioa errazteko, **disko-jogailuaren** ordez grabagailua aukeratu zuen. Bego Montorio

**Diskojogailuaren** platera biraka ari den bitartean, itxurazko estutze edo zabaltze mugimendu bat sumatzen da, espiralaren zentzuaren arabera. Josu Zabaleta

## 12 *disko konpaktu*

Garbiketa egin beharko luke: atzoko soberakinak plateretan gogortzen, harria gainezka; **disko konpaktu** piloa lurretik sakabanatuta. Sonia Gonzalez

*Un petit noir, s'il vous plaît* esaten diot barrakoari eta **disko konpaktuak** ikustera noa, merke daude batzuk, Django Reinhardten bat hartzen dut. Mikel Hernandez Abaitua

**Disko konpaktu** bat grabatuko dute *Jesusen Alabak* ikastetxean. Berria - Kultura

Espainiako Poliziak denera 33 disko gogor, kanpoko bost memoria, 437 **disko konpaktu** eta DVD eta bi eskuko ordenagailu atzeman zituen. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**azken disko** (6); **baina disko** (6); **bere disko** (14); **beste disko** (14); **beste disko bat** (11); **bi disko** (25); **biltzen dituen disko** (5); **binilozko disko** (5); **bost disko** (8); **da disko** (15)

**disko azoka** (8); **disko bakarra** (6); **disko bakoitza** (7); **disko bat** (135); **disko bat da** (5); **disko bat egin** (5); **disko bat eta** (5); **disko bat grabatu** (7); **disko bat grabatuko** (7); **disko bat grabatzea** (5); **disko bat grabatzeko** (10); **disko bat jarri** (6); **disko bat kaleratuko** (5); **disko batean** (29); **disko batek** (8); **disko baten** (12); **disko batzuk** (7); **disko berri** (16); **disko berri bat** (7); **disko berria** (103); **disko berria aurkeztuko** (9); **disko berria kaleratu** (6); **disko berria kaleratuko** (6); **disko berriak** (13); **disko berrian** (30); **disko berrian irune** (5); **disko berriaren** (19); **disko berriko** (23); **disko berriko kantuak** (10); **disko bikoitz** (5); **disko bikoitza** (10); **disko bilduma** (6); **disko ditu** (5); **disko eta** (29); **disko eta liburu** (6); **disko gogorrean** (11); **disko grabatu** (21); **disko grabatu ditu** (9); **disko grabatu zituen** (7); **disko guztiak** (11); **disko hau** (29); **disko honek** (11); **disko honen** (5); **disko honetako** (9); **disko honetan** (25); **disko hori** (15); **disko horretako** (5); **disko hura** (8); **disko jartzaile** (8); **disko jartzailea** (6); **disko jartzaileak** (12); **disko jartzaileen** (6); **disko jogailu** (7); **disko jogailuan** (5); **disko kaleratu** (25); **disko kaleratu ditu** (17); **disko konpaktu** (5); **disko liburuak** (6); **disko onena** (5); **disko onenaren** (8); **disko osoan** (5); **disko saldu** (6); **disko ugari** (8); **disko zahar** (8)

**ditu disko** (8); **dituen disko** (11); **du disko** (18); **du disko berria** (8); **duen disko** (19); **dute disko** (10); **eta disko** (74); **eta disko azoka** (6); **eta disko bat** (12); **grabatutako disko** (5); **hainbat disko** (14); **hiru disko** (25); **izeneko disko** (6); **lau disko** (9); **lehen disko** (10); **lehenengo disko** (8); **liburu eta disko** (24); **milioi disko** (11); **milioi disko saldu** (5); **nire disko** (6); **oso disko** (6); **sei disko** (7); **taldearen disko** (5); **zen disko** (6); **zuen disko** (8); **zuzeneko disko** (20)

**aurreko diskoa** (9); **aurreneko diskoa** (5); **azken diskoa** (31); **azken diskoa aurkeztuko** (8); **azkeneko diskoa** (12); **bakarkako diskoa** (5); **bakarkako lehen diskoa** (5); **bere azken diskoa** (10); **bere bigarren diskoa** (12); **bere lehen diskoa** (10); **bere lehenengo diskoa** (5); **bigarren diskoa** (50); **bigarren diskoa kaleratu** (10); **bosgarren diskoa** (5); **da diskoa** (14); **desertore diskoa** (5)

**diskoa argitaratu** (8); **diskoa atera** (16); **diskoa atera du** (9); **diskoa aurkezteko** (13); **diskoa aurkeztuko** (38); **diskoa aurkeztuko du** (32); **diskoa da** (29); **diskoa egin** (10); **diskoa egiteko** (15); **diskoa entzun** (5); **diskoa ere** (6); **diskoa eta** (8); **diskoa grabatu** (23); **diskoa grabatu zuenetik** (5); **diskoa grabatzeko** (16); **diskoa grabatzen** (9); **diskoa izango** (10); **diskoa izango da** (7); **diskoa kalean** (10); **diskoa kaleratu** (82); **diskoa kaleratu berri** (10); **diskoa kaleratu du** (33); **diskoa kaleratu eta** (6); **diskoa kaleratu zuen** (9); **diskoa kaleratu zuenetik** (7); **diskoa kaleratuko** (21); **diskoa kaleratuko du** (16); **diskoa kaleratzeko** (5); **diskoa osatzeko** (5); **diskoa osatzen** (9); **diskoa osatzen duten** (6); **diskoa plazaratu** (7); **diskoa prestatzen** (6); **diskoa zabaltzen** (5); **diskoa zuzenean** (6)

**dituen diskoa** (8); **du diskoa** (25); **duen diskoa** (9); **dugu diskoa** (5); **dute diskoa** (20); **estreinako diskoa** (6); **eta diskoa** (18); **grabatu du diskoa** (6); **grabatu dute diskoa** (7); **hirugarren diskoa** (18); **hurrengo diskoa** (5); **izeneko diskoa** (6); **laugarren diskoa** (11); **lehen diskoa** (64); **lehen diskoa atera** (6); **lehen diskoa kaleratu** (10); **lehenengo diskoa** (36); **lehenengo diskoa kaleratu** (7); **osatutako diskoa** (5); **taldearen lehen diskoa** (5); **zuen diskoa** (19); **zuten diskoa** (7); **zuzeneko diskoa** (13)

**azken diskoan** (11); **azkeneko diskoan** (5); **bere lehenengo diskoan** (6); **bi diskoak** (5); **bigarren diskoak** (5); **bigarren diskoan** (11); **da diskoan** (9); **desertore diskoak** (5); **dira diskoan** (5); **diskoak entzuten** (9); **diskoak ere** (9); **diskoak eta** (16); **diskoak ez** (6); **diskoak grabatu** (9); **diskoak grabatzen** (6); **diskoak oso** (5); **diskoan azaltzen** (5); **diskoan bezala** (5); **diskoan ere** (5); **diskoan mikel** (13); **diskoan mikel lizarralde** (12); **diskoan parte** (14); **diskoan parte hartu** (11); **ditu diskoak** (10); **ditu diskoan** (6); **du diskoak** (5); **dute diskoan** (10); **eta diskoak** (36); **eta diskoan** (5); **hurrengo diskoan** (5); **lehen diskoak** (5); **lehen diskoan** (15); **lehenengo diskoan** (21); **liburuak eta diskoak** (10); **parte diskoan** (7)

**aurreko diskoarekin** (7); **aurreko diskoetan** (10); **azken diskoko** (6); **bi diskoekin** (5); **da diskoaren** (14); **diskoarekin alderatuta** (6); **diskoaren aurkezpena** (5); **diskoaren grabazioa** (5); **diskoaren izenburua** (5); **diskoen artean** (7); **diskoko abestiak** (5); **diskoko kantuak** (13); **diskoren bat** (8); **diskorik grabatu** (12); **diskorik kaleratu** (6); **diskorik onena** (7); **diskorik onenaren** (6); **eta diskoaren** (7); **eta diskoen** (14); **liburuen eta diskoen** (8)

**azken diska** (11); **bere diska** (21); **bere diska berria** (18); **bere lehen diska** (8); **bi diska** (16); **bi diska berri** (6); **bigarren diska** (9); **da diska** (12); **da diska hau** (5); **diska bat** (26); **diska bat ere** (7); **diska berri** (50); **diska berri bat** (15); **diska berria** (39); **diska berria aurkeztuz** (8); **diska berriaren** (7); **diska bikoitz** (6); **diska eta** (15); **diska eta liburuen** (8); **diska hau** (22); **diska hori** (7); **diska hunen** (5); **diska huntan** (11); **diska plazaratu** (10); **du diska** (7); **duen diska** (6); **en diska** (5); **eta diska** (28); **eta diska berri** (6); **euskal diska** (6); **euskal diska eta** (6); **hiru diska** (5); **hirugarren diska** (8); **lehen diska** (30); **lehen diska bat** (5); **liburu eta diska** (17); **ren diska** (5)

**dizka bat** (3); **dizka berri** (4)

---

# diskoetxe

*(**5** agerraldi, **3** liburu eta artikulu **1**ean; ETCn **3.173** agerraldi -horietako 1.617 **Berria** egunkarikoak-; orobat **disko etxe** **2** agerraldi, **2** artikulutan; ETCn **83** agerraldi; **disketxe** **413** agerraldi, **4** liburu eta **224** artikulutan; ETCn **1.817** agerraldi -horietako 1.063 **Berria** egunkarikoak-; eta **dixkaetxe** g.er.)* **1** *iz* musika diskoak argitaratzen dituen etxea.

Eskerrik hanitx NEGU GORRIAK eta ESAN OZENKI **diskoetxeari**. Herria

Iker Goenaga zizurkildarrak diska berri bat plazaratu du, Elkar **disketxeak** argitaraturik. Herria

Iruñeko **disketxeak** sei disko argitaratuko ditu datozen hilabeteetan. Berria - Kultura

Horretaz gain, Sony Classical eta Decca **disko etxeentzat** hainbat grabazio egin ditu. Berria - Kultura

Decca Records **diskoetxeak** ez zuen onartu *The Beatles* taldea 1962an. Pello Salaburu

Beren kabuz grabatu, ekoitzi eta kaleratu dute; **«disketxeen** presiorik gabe». Berria - Kultura

New Yorkera etorri zenean otorduak eta lo-lekua **disketxeak** ordaintzen zizkion, eta hori bukatu zenean noraezean geratu zen. Harkaitz Cano

Horrela deitzen genituen hegoaldeko **disketxe** handi batean diskorik grabatu ez zuten iparraldeko taldeak. Ramuntxo Etxeberri

Hemeretzi euskal **disketxe** aste honetan Cannesen egin den Midem disko industriaren azokan izan dira. Berria - Kultura

Euskal **Disketxeen** Elkarteko presidente eta Elkar **disketxeko** editorea. Berria - Harian

## 2 (hitz elkartuetan)

-Egia erran batzuetan iduritzen zitzaigun hegoaldeko **diskoetxe** arduradun horiek pixka bat... arrazistak zirela gurekiko. Ramuntxo Etxeberri

RIAAk, AEBetako **disketxe** enpresa handienak, bestalde, Interneteren 774 erabiltzaile salatu zituen atzo. Berria - Gaiak

· Musikariak gara, eta musika egitera goaz; herri **disketxea** eratu dugu eta autogestioan oinarrituta, gure lanak argitara ematera goaz. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agorila disketxeak** (8); **disketxe berriak** (3); **disketxeak argitaraturik** (4); **disketxeak kaleratu** (9); **elkar disketxeak** (8); **emi disketxeak** (3); **euskal disketxe** (3); **gaztelupeko hotsak disketxeak** (8); **gor disketxeak** (9); **metak disketxeak** (16); **musikherria disketxeak** (3); **oihuka disketxeak** (3)

**agorila disketxearen** (6); **agorila disketxearen bidez** (4); **disketxearekin atera** (3); **disketxearekin kaleratu** (8); **disketxearen bidez** (9); **disketxearen eskutik** (13); **disketxearen webgunean** (3); **disketxearentzat eginiko** (3); **elkar disketxearekin** (4); **elkar disketxearen** (7); **elkar disketxearen bidez** (3); **gaztelupeko hotsak disketxearen** (6); **gor disketxearekin** (3); **herri disketxearen** (5); **metak disketxearen** (4); **oihuka disketxearekin** (5); **oihuka disketxearekin kaleratu** (3); **oihuka disketxearen** (3)

**agorila disketxeko** (3); **disketxeen elkarteko** (3); **disketxeko arduradunak** (10); **disketxeko arduradunaren** (5); **disketxeko editorea** (4); **elkar disketxeko** (8); **elkar disketxeko arduradunak** (3); **euskal disketxeek** (4); **euskal disketxeen** (4); **euskal herriko disketxeek** (3); **euskal herriko disketxeen** (3); **gor disketxeko** (7); **metak disketxeko** (5); **oihuka disketxeko** (5); **oihuka disketxeko arduradunaren** (3)

---

# diskofesta ik **disko 9**.

**diskogailu** *iz* disko-jogailua.

**Diskogailuaren** ondoan zeuden biniloak ikusten hasi zen Fonseca. Josu Landa

Une bakoitzerako propio aukeratuta zeukan musika jartzen zuen **diskogailu** zahar batean. Mikel Hernandez Abaitua

**Diskogailuan** musika jotzen ari da. Monika Etxebarria

---

**diskogintza** *(orobat **diskagintza** g.er.)* *iz* diskoak egiteko jarduera. ik **diskografia.**

Euskal **diskogintzaren** krisia gero eta larriagoa dela azpimarratu dute Euskal Herriko disketxe nagusiek. Berria - Harian

**Diskogintzaren** egoera zaila dela ohartarazi du, eta euskal musikarena are zailagoa. Berria - Harian

Gure **diskogintzaren** zutabe nagusietako bat galtzeak zer ondorio ekarriko dion sektoreari ikusteke dago. Berria - Harian

Birmoldaketa basatia pairatzen ari da **diskogintza**, eta ez du atzerabiderik. Berria - Harian

Richard Wagnerren Berlingo museoak **diskogintzaren** historia biltzen duen erakusketa jarri du abian. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskal diskogintzaren** (3)

---

**diskografia** **1** *iz* diskogintza.

Ordura arteko **diskografia** oso urria zenez, 1961ean irratia sortu eta berehala hasi zen Joxe Mari Iriondo trikitilariak grabatzen. Berria - Kultura

**2** egile edo interprete baten diskoen multzoa.

Arriagaren piezen **diskografia** jasotzen du, halaber, webguneak. Berria - Kultura

Gure **diskografia** errepasatzen duen ibilbidea eskainiko dugu», aurreratu du Tapiak. Berria - Kultura

Van Morrison... eta haren **diskografia** osoa. Unai Iturriaga

**3** (hitz elkartuetan) ik **diskografiko.**

Europako Batzordeak **diskografia** munduko Sony Music eta BMG multinazionalen arteko bat-egitea onartu du. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diskografia osoa** (3)

---

**diskografiko** *izond* diskoari edo diskografiari dagokiona. ik **diskografia 3.**

Nire lan **diskografiko** osoa oso gaizki banatua egon delako eta gauza asko erdi galduta gelditu direlako. Berria - Kultura

Musikaren festa bihurtzen da urtero Grammy sarien banaketa ekitaldia, AEBetako industria **diskografikoak** ematen dituen sari garrantzitsuenen jaia. Berria - Kultura

Frantziako merkatu **diskografikoaren** %3,5 banatzen du Wagramek, eta Europako lehen hamar banatzaileen zerrendan dago. Berria - Kultura

Motown zigilu **diskografikoa**. Berria - Kirola

Hau da taldearen lehehengo emaitza **diskografikoa**. Berria - Kultura

Berriki idatzitako kantuek osatuko dute *The Who*ren itzulera **diskografikoa**. Berria - Kultura

Euskal musikaren historia **diskografikoa** oso laburra izanik, abesti asko inon grabatu gabe daudela diote *Alboka*ko kideek. Berria - Kultura

---

diskojogailu ik **disko 11**.

---

**diskonforme** *izond/iz* konforme ez dagoena.

Honek, **diskonforme** aurpegiz, martxan jarri zuen autoa. Iñaki Zabaleta

---

**diskontinuitate** *iz* jarraitutasunik eza.

Egun hauetan, memoriaren **diskontinuitatea** izango da, askotan etorri zait gogora [...]. Berria - Kultura

**Diskontinuitatearena** eta errepikapenarena. Joseba Zulaika

---

**diskontinuo** *izond* etena, jarraitutasunik gabea.

Dena den, higiduraren betikotasunak arazo asko sortzen dizkio filosofoari, batez ere zerupeko higidura **diskontinuo** eta desordenatuak direla eta. Askoren artean

---

**diskordante** *izond* bat ez datorrena, ados ez datorrena.

Neholako gogoeta **diskordanterik** ez zen jalgitzen ahal kontraste malenkoniatsu honetarik; aitzitik, ezin esan ahalako batasuna zerion guztiari. Koldo Izagirre

Usteko duzu beharbada metatze hau **diskordantea** dela eta kontzertu nahasi hauetarik ez dela ateratzen ahal gaitzeko xaribari bat besterik. Koldo Izagirre

Diptongoaren definizio honek, diptongoa katemaila inplosiboen hatsapen orokorrera bihurtzen baitu, agerian uzten du diptongoa ez dela zerbait **diskordante**, sailkaezin, gertakari fonologikoen artean, pentsa litekeen bezala. Isabel Arrigain

---

**diskorde** *izond* bat ez datorrena, ados ez datorrena. ik **diskordante.**

Eta bere gorputz guztian populu ikusezin eta **diskorde** bat sentitu zuen, bereizteko gogo larriz. Juan Garzia

---

**diskordia** *iz* desadostasuna.

Sentitu ote zuen inoiz Borgesek bere zortearen barren-barreneko **diskordia**? Juan Garzia

Urtearen hausguneak berak nahasten baititu hotz-beroak, biok beharrezkoak, hodeiak oinaztua egin dezan, elementuen **diskordia** izan dadin eta iskanbila handian airea suz

eta haizez sumindurik altxa dadin. Xabier Amuriza

---

**diskoteka** *iz* musika grabatuarekin dantza egiten den lokal publikoa.

Ezpain gorri goxo haien artetik hortzadura zuria agertu zen, **diskotekako** argi beltzak are gehiago indartzen zuena. Unai Iturriaga

**Diskoteketan** gorputzak harro erakutsi, arrimatzekoak noiz ipiniko itxoiten, adurra zerion ergelen batek dantza egiteko eskatuko zien itxaropenaz. Sonia Gonzalez

**Diskoteka** baten atarian hil zuten, atzo goizaldean. Berria - Euskal Herria

Ez zuen lorik hartuko ezustean euren autoa **diskoteka** ibiltari bilakatu duten parrandero horietako batek haranalde osoaren isiltasuna-edo apurtu ez balu. Pako Aristi

**Diskoteketako** argi-bola bitxi bat zegoen zintzilikatua sabaian. Jasone Osoro

-Ez al dago bakailaorik gabeko **diskotekarik**? Pako Aristi

Ez duk hori latinoen **diskotekak** dauden tokia? Iñigo Aranbarri

80ko hamarkadako **diskoteka** batetik ateratako argi-pista batean dantza egiten duten koloretako planetak gara. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diskoteka bat** (4); **diskoteka batean** (16); **diskoteka baten** (3); **kaleko diskoteka** (3)

---

**diskotxo** *(orobat* ***diskatxo****)* *iz* disko txikia.

Hautsirik, hara han azazkalaz harramazkatzen den **diskotxo** dirdaitsu astuna, bihotza zabaltzen eta zangoetatik bideko nekea desagerrarazten dizuna, guk "erregetxoa" esaten dioguna. Juan Garzia

Hiru kantutako single-**diskatxo** bat ere grabatu 2001ean Kultulan disketxean. Herria

Tolosako *Bonberenea*k helarazi dauku grabatu berria duen **diskatxoa**, "Peiremans" izenburukoa, bost kantuz osaturik. Herria

---

**diskrepantzia** *iz* bat ez etortzea, desadostasuna.

Jada **diskrepantzia** ez da arazoa, eztabaida ez da metodoa. Hasier Etxeberria

Lehenagotik aski etsai ez bagenu bezala, geure artean gabiltza **diskrepantzia** traizio bilakatu eta geure arrazoia handiagotuko delakoan. Hasier Etxeberria

---

diskret ik **diskretu**.

---

diskreto ik **diskretu**.

---

**diskretu** *(ETCn* ***1.743*** *agerraldi; orobat* ***diskret*** *g.er. eta* ***diskreto*** *ETCn* ***110*** *agerraldi)* **1** *izond* elementu kontagaiez edo etenez osatua, jarraitua ez dena.

Plastikaren azterkizuna ez baita, izan ere, elementu **diskretuz**, etenez eratzen diren sistemak, continuum bat baizik, progresiboki, gradualki aldatuz doazen elementuak baizik. Josu Zabaleta

Hori guztia kopuru **diskretuaren** generoko akzidenteak direlako, horrelako akzidenteak jasotzeko gai diren izakiek lortzen dituztenak. Xabier Kintana

**2** zuhurra, zentzuduna.

Gizon **diskretuaren** zilegitasuna. Anton Garikano

Pertsona **diskretuak** dira, pazientzia santuaz entzuten dituzte zabaltzen diren zurrumurruak. Jon Alonso

Pertsona **diskretua** naiz eta zure sekretua ongi babestuta dago. Xabier Mendiguren Elizegi

Oso andre **diskretua** zen eta oso dotorea, eta horrelako lan bat gogoz hartuko nukeela esan nuen neure artean. Joxan Elosegi

Ah!, debozio hori erremedio hauta da -egiten zuen hasperen kalonjeak- eta zu bezalako pertsona beneragarri eta **diskretu** batek, Coppequesne, hari sakrifikatu behar dio Anastasiaren maitasuna. Juan Garzia

**3** nabarmentzen ez dena.

Kristauen taldekoa zen Arrigain, baina ez zen ibiltzen fede horren nabarmenkerian: apala izaki, **diskretua**, euskaldunen lege zaharrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Neskamea sukaldea txukuntzen ari da, edo arropa lisatzen, ez da nabarmentzen, hagitz **diskretua** da bere lanean. Jon Alonso

Ikusezina bazina baino **diskretuago** ibili beharra dago hemen, ahotsa altxatzea edo protesta edo neurriz kanpoko poza eta, oro har, nabarmentzen den ezein jokabide dutxa hotzarekin apaltzen baitute. Anjel Lertxundi

Oraindik fitxatu gabea izanagatik, oso bizitza **diskretua** zeraman. Harkaitz Cano

Batzar **«diskretuak»** izango dira, baina ez ezkutukoak. Berria - Euskal Herria

Emakumeek, alderdi edo sindikatu batekoak edo bestekoak izan, urte asko daramatzagu lan **diskretu** eta isilean. Berria - Euskal Herria

Muzindu ez zedin, barre egin nuen, baina algararik gabe, barre **diskretua**. Ramon Saizarbitoria

Banekien halaber, azken garaietan, karitatezko egite eskuzabal baina **diskretuetan** agertu izan zela delako sentikortasuna. Koro Navarro

Ez nien garrantzirik ematen haren balizko jostaketa lizunei, izatekotan ere **diskretuak** baitziren. Migel Angel Mintegi

Espanturik gabeko dotorezia **diskretu** baten adierazle da, izan ere, erakusketa osoa. Berria - Kultura

Soineko urdin ilun **diskretu** batean biltzen zuen bere gorputz biribildua. Unai Iturriaga

Ebe, leku **diskretuagoa** zelakoan, bertan sartu zen behar fisiologikoak asetzearren. Sonia Gonzalez

Eta lekua **diskretu** samarra zenez, musuka errabiatuan hasi ginen. Txillardegi

Baita igorlearen eta hartzailearen arteko harreman onek onartzen duten umore **diskretuzko** zertzelada arina ere. Jon Alonso

Inez atarian agurtu eta zuhaitz **diskretu** bat bilatu nuen maskuria husteko. Harkaitz Cano

**4** (adizlagun gisa)

Parlamentari eledun berriak bere egitekoan zelan moldatzen ziren ikustea: hitz bat edo bitan definitzearren, Aintzane Ezenarro txukun, Unai Ziarreta zurrun, Nekane Erauskin hieratiko, Maria San Gil demagogo, eta Jose Antonio Pastor **diskretu** baina sendo. Berria - Harian

**5** ***diskretuxeago***

Izan ere, bere ibilerak gorabehera, bere "partidak" gorabehera, **diskretuxeagoa** izan balitz, Donatienen zorigaitzen katea ez zen hain luzea izango. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diskreten aholkuaz** (3); **diskretoak izan** (3); **diskretu bat** (3); **diskretu eta** (4); **diskretua izan** (3); **era diskretuan** (3); **eta diskretoa** (3)

**diskretuki** *adlag* nabarmendu gabe, diskrezioz.

**Diskretuki** begiratu nion baina nahikoa izan zen. Daniel Landart

Perfumea erabiltzen zuen, **diskretuki**, eskuzapian. Irene Aldasoro

Betbetan joan zauku Jean Hirigoyen, Asiako misionesta, ustegabeka bezala, **diskretuki**, bizi izana zen bezala funtsean. Herria

Mariarekin biltzen segitzen bazuen, **diskretuki** egiten zuen, behin ere ez zapataginarenean. Aingeru Epaltza

Zenbat aldiz ahalegindu zarete zuek irakurtzen kalean eman dizueten esku-orri "alternatibo" horietako bat eta, ezinaren ezinez, gertuen zenuten paperontzian utzi duzue -**diskretuki**, hori bai (oharkabean igarotzea gustukoa baituzue)- orriaren erdira ere iritsi gabe? Txema Ramirez de la Piscina

---

diskrezino ik **diskrezio**.

---

**diskrezio** *(ETCn* ***1.567*** *agerraldi; orobat* ***diskrezino*** *g.er. eta* ***diskrezione*** *g.er.)* **1** *iz* nabarmentzen ez denaren, zuhur aritzen denaren nolakotasuna edo jokaera.

**Diskrezio** hori eskertzen dio, arreta bereziz zaintzea, baina aldi berean uretatik ateratako beste edozein narrasti umezurtz zainduko lukeen prestutasun arruntarekin. Harkaitz Cano

Baldintzei dagokionez, nire **diskrezioa** segurtzat jo dezakezue; baina lana eta zuhurtasuna, azken hau bestea bezainbeste, ez dira merke saltzen gaur egun. Migel Angel Mintegi

Suhiaren ibilerak gorabehera, **diskrezioa** gordetzeko gai izan zen ezkontzako lehen urteetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Diskrezioa** eskatu dute manifestua lantzen ari diren emakumeek. Berria - Euskal Herria

Gobernuak baduela «zenbait informazio» hori ziurtatzeko, baina «zuhurtziagatik eta **diskrezioagatik**» ezin ditu zabaldu informazio horiek. Berria - Euskal Herria

Itxurak ere ez dio laguntzen **diskrezioan** [...] bi metroko mutila edozeinek ikusten du-eta urruti egonda ere. Xabier Etxabe

Gehiengoak larderia eta eta oldarkeria du, gutxiengoak **diskrezioa**. Berria - Mundua

Diruaren laguntzaz eta harreman onak izanez gero, bazegoen erabateko **diskrezioaz** beharrezko mediku-zaintza lortzea. Ramon Saizarbitoria

Piano musika eme bat zeukaten giroa gozatzeko; argi leun, zeharkakoak mahai bakoitzari intimitate eta **diskrezioa** emateko. Xabier Mendiguren Elizegi

Burgoiak ziren, sinesten zuten honetan edo hartan, ohorean, gizakien bertuteetan, **diskrezioan**, bakardadean, emandako hitzean, eta baita emakumeengan ere. Xabier Olarra

**2** (izenondoekin)

Nik kontrako txosten bat bidali nuen operazioaren arriskuak agerian utziz, eta **diskrezio** osoa aginduz erantzun zidaten. Joxean Agirre

Ordu laurden geroago Teresa azaldu zen, **diskrezio** handiz jantzita, paradarako apropos. Migel Angel Mintegi

Geroago, **diskrezio** handiagoz eta laburrago, gizonaren aurpegiari erreparatu nion. Bernardo Atxaga

Komunetako leihoak ziren iheslariak **diskrezio** handienarekin ateratzeko bidea. Eneko Bidegain

Eta aurrea hartu zizun erantzunik eskatu barik [...] pausaje harroan, lagun batek uste zion **diskrezio** apurragatik mindua. Koldo Izagirre

Txoko batean Hideki Yukawa fisikaria zegoen, bere isiltasun eta **diskrezio** japoniarrarekin. Fernando Morillo

**3** (hitz elkartuetan)

**Diskrezio**-arau guztiez trufatu beharra: paper pertsonaletan induska ibiltzea, esku-poltsak zabaltzea, niri zuzendu ez zen posta ireki eta irakurtzea. Joxan Elosegi

**Diskrezio** eta seriotasun giroan. Berria - Ekonomia

**4** ***diskrezioz*** ik **diskretuki**.

**Diskrezioz** ezkontzekoak ziren, Londresen. Koro Navarro

Ramírez kapitaina, **diskrezioz** ibiltzen ahalegintzen zen arren, ondo ezaguna zen inguru hartan. hasieratik **diskrezioz** jokatu dugu, eta aurrera ere horrela jarraitu behar dela uste dugu. Fernando Morillo

Prozesuan EAJk Espainiako Gobernuarekin **«diskrezioz** eta leialtasunez» lan egingo duela adierazi zion Erkorekak Zapaterori. Berria - Euskal Herria

Laurogeita hamarretik gora urte zituela hil zen, **diskrezioz** eta duintasunez. Juan Garzia

· Leiho aldera jiratu du burua, baina ez lotsaz edo nire begirada eraman ezinez, **diskreziozko** jarrera batez baizik. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diskrezio osoz** (11); **diskrezioa apurtu** (3); **diskrezioa eskatu** (3); **diskrezioa eta** (3); **diskrezioz egin** (4); **diskrezioz egin behar** (3); **diskrezioz eta** (7); **eta diskrezio** (8); **eta diskrezioa** (9); **eta diskrezioz** (3)

---

**diskrezional** *izond* arauen mendean ez dagoena, norbaiten iritziaren araberakoa dena.

Antropologia modernoak, berriz, gizakiaren jarduera modu **diskrezionalean** gidatzerik ez dagoelako iritzira jotzen du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

diskrezione ik **diskrezio**.

---

**diskriminatu**, diskrimina, diskriminatzen **1** du *ad* pertsona edo talde bati bestelako tratua —besterik adierazten ez bada okerragoa— eman, erlijio, sexu, jatorri, hizkuntza edo politika arrazoiengatik.

Legeak euskaldunak **diskriminatzen** ditu apartheidak beltzekin egiten zuen bezalaxe. Legeak, oro har, **diskriminatu** egiten ditu homosexualak, ezkontzari dagokionez. Iñaki Arranz

Zekena da biktimak jatorriaren arabera **diskriminatzea**. Berria - Euskal Herria

Herritarrik ez dela **diskriminatuko** hizkuntzaren izenean. Berria - Harian

Inor ez daiteke bere hizkuntzarengatik **diskriminatua** izan. Berria - Euskal Herria

Sexu arrazoiengatik **diskriminatzen** ez duen alardea. Berria - Euskal Herria

Galesdunak **diskriminatzea** egotzi diote Ingalaterrako Unibertsitateari. Berria - Mundua

Grebarako eskubidea eta **diskriminatua** ez izateko eskubidea. Berria - Ekonomia

Neurri handiagoan edo txikiagoan eskema hori bera aurkituko dugu jendea **diskriminatuta** eta, aldi berean, konplexuak jota sentitzen den edozein tokitan. Bernardo Atxaga

Kulturaren Planean euskaraz egiten den sorkuntzak positiboki **diskriminatutako** lekua behar du. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ikasle **diskriminatuak**. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**diskriminatu egiten** (5); **diskriminatzen ditu** (3)

---

# **diskriminatzaile** *izond* **1** diskriminatzen duena.

Hedabideen ardura berdintasuna lortzea izan beharko luke, baina oraindik ere tratamendu **diskriminatzaileak** eta batzuetan iraingarriak ikus ditzakegu albisteetan. Berria - Euskal Herria

Ikusi behar da zapi hori noraino den balio bat, noiz den aberasgarria eta noiz **diskriminatzailea**. Berria - Euskal Herria

Prozedura **diskriminatzaile** horren parte handi bat inkontzientea da. Ana Urkiza

Homosexualitatearekiko lege **diskriminatzaileak** dauden herrietan lesbianen eta gayen aurkako biolentzia handitu egiten dela. Berria - Harian

Legea, besteak beste, gazteekin **diskriminatzailea** delako. Berria - Ekonomia

Emakumezkoentzako **diskriminatzailea** den lanbide kualifikazio eta ordaintze sistema zuzentzea. Berria - Ekonomia

Hegoaldeko herrialdeentzat **diskriminatzaile** ez den neurri bat da enpresa multinazionalei eskatzea atzerriko jardueretan beren jatorrizko herrialdeetan indarrean dauden segurtasun-, ingurumen- eta enplegu-neurri berak errespeta ditzatela. Koro Navarro

Sindikatu ez-abertzaleek «arrazistatzat eta **diskriminatzailetzat**» jo zuten akordioa. Berria - Mundua

Argitaletxeek momentu honetan daukaten politika positiboki **diskriminatzailea** dela esango zenuke? Ana Urkiza

## **2** ***ez-diskriminatzaile*** *izond*

Bide luzea dauka oraindik egiteko, 2003ko Espainiako lege ez-**diskriminatzailearen** arabera aurreproiektua lege bihurtzeko epea hiru eta hamazazpi urte artekoa baita. Berria - Harian

Urdanibia plazatik abiatu berri zen alarde ez **diskriminatzaileari** harrera egiteko igo ziren udaletxeko balkoira. Berria - Harian

Alarde publikoa eta ez **diskriminatzailea** eskatzen duen herritar talde bat garela erakutsi nahi dugu. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**diskriminatzailea dela** (6); **eta diskriminatzaile** (3); **eta ez diskriminatzailea** (3)

---

# **diskriminatze** *iz* pertsona edo talde bati bestelako tratua —besterik adierazten ez bada okerragoa— ematea, erlijio, sexu, jatorri, hizkuntza edo politika arrazoiengatik.

Nagusia, bat: **diskriminatze** ahalmenarena, kapital mugimendu guztiak ez baitira kaltegarriak. Iñaki Heras

---

# **diskriminazio** *(253 agerraldi, 15 liburu eta 158 artikulutan; ETCn 4.062 agerraldi)* **1** *iz* pertsona edo talde bati bestelako tratua —besterik adierazten ez bada okerragoa— ematea, erlijio, sexu, jatorri, hizkuntza edo politika arrazoiengatik. ik **bereizkeria; bazterketa.**

Estatu batek bere menpe dauzkan herri xumeen artean **diskriminaziorik** edo bereizkuntzarik egin baleza, hala nola, hizkuntza, sineste, ohitura edo kultura indartsuenak indartuz eta ahulenak ahulduz, orduan sor litezke arazoak. Piarres Xarriton

**Diskriminazioa** jarrera kolektiboa da, aspaldikoa, ohar gabe, anitzetan inkontzienteki, gizonezkoek eta emakumezkoek egiten dutena. Ana Urkiza

Oraindik ere kezkatzen nauen arazo moral bat dago sakonean, hots, naturaren berezko injustizia, konpondu ezineko **diskriminazioa**. Xabier Mendiguren Elizegi

«Aukeraketa orok **diskriminazioa** dakar», zioen Borgesek. Berria - Kultura

Emazte naizela **diskriminazioen** bitartez ohartu naiz... Ana Urkiza

Atzerritarren Legea **«diskriminazio** administratiboa ahalbidetzen duten elementuak» dituela aipatu zuen sindikatuak. Berria - Ekonomia

**Diskriminazio** genetikoa debekatzen duten legeak jarri dira indarrean Estatu Batuetan eta Europan: hemendik aurrera ez da zilegi izango, beraz, pertsona bati lana emateko edo aseguru bat egiteko bere datu genetikoak eskatzea. Berria - Gaiak

Soldaten justizia, **diskriminaziorik** eza, lanpostua pertsonen profilera egokitzeko aukera eta egonkortasuna. Berria - Ekonomia

Nazio Batuen **Diskriminazioaren** Prebentziorako eta Gutxiengoen Babeserako Azpibatzordea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## **2** bereizketa.

Zelula hartzaile asko izateak eragingo du, ziur asko, sentikortasun bikain hori eta berak ahalbidetuko du barneratzen diren seinaleen datu prozesaketa sofistikatuak [...] hain **diskriminazio** ona egitea. Irene Aldasoro

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Diskriminazio** hesi hau erronka serioa da guretzat, palestinarrontzat. Berria - Mundua

Erasoen berri emateaz gain, emakumeen **diskriminazio** egoeraz ere hitz egin du Alk. Berria - Gaiak

2.000 edo 4.000 usain inguru bereizten ditu; konpara daiteke kopuru hori begiaren **diskriminazio**-ahalmenari dagokionarekin (200 kolore inguru) eta belarriari dagokionarekin (2.000 garaiera maila). Irene Aldasoro

Beste jatorri bat «langileen erantzuna zatitzeko» patronalaren **«diskriminazio** dinamiketan» ikusten du Diezek. Berria - Ekonomia

Nola babestu interesatua **diskriminazio** iturri horretatik? Berria - Gaiak

## **4** ***diskriminazio positibo***

Lege baztertzaile esplizituak ezereztu eta **diskriminazio positiboa** egiteko ekintza ugari egin dira, bestalde. Berria - Gaiak

Euskarak **diskriminazio positiboa** behar duela erantzun diote euskara sustatzeko. Berria - Euskal Herria

Seaskak **diskriminazio positiboa** aldarrikatzen du ahulenarentzat. Berria - Euskal Herria

Albistea idaztean emakumeenganako **diskriminazio positiboa** erabili beharko litzateke, objektibotasunaren kalterako bada ere? Berria - Euskal Herria

**Diskriminazio positiboa** ezarri nahi da Federazioaren Batzar Orokorrean eta Zuzendaritza Batzordean emakumeen parte-hartzea sustatzeko Ijitoak ere salbatzen dituk orduan hire **diskriminazio positibo** horretan. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**arteko diskriminazioa** (3); **diskriminazio positiboa** (12); **diskriminazioa da** (3); **diskriminazioa eragiten** (5); **diskriminazioa eta** (10); **diskriminazioa ez** (4); **diskriminazioa gertatzen** (4); **diskriminazioa salatu** (8); **diskriminazioa salatu nahi** (4); **diskriminazioaren kontrako** (3); **duten diskriminazioa** (7); **emakumeen diskriminazioa** (3); **emakumeen diskriminazioaren** (3); **eta diskriminazio** (8); **eta diskriminazio positiboa** (3); **eta diskriminazioa** (11); **eta diskriminazioaren** (4); **genero diskriminazioa** (6); **pairatzen duten diskriminazioa** (3); **zeharkako diskriminazioa** (3)

---

# **diskurritu**, diskurri, diskurritzen du *ad* pentsatu, asmatu; gogoeta egin.

"Lana... **diskurritzeko** ona da," esan zuen Patxik; besteen irribarreak sumatuz, barre irudian bera ere. Pablo Sastre

---

diskurso ik **diskurtso**.

---

# diskurtsibo 1 *izond* diskurtsoarena, diskurtsoari dagokiona. ik **diskurtso 4**.

Lotura **diskurtsiboak** egiten ez dakien baten ahulezia. Anjel Lertxundi

Jarrera **diskurtsiboa**, ez miresle edo kontenplatzaile soila, prozedura lexiko eta fonetikoekin indartzen du. Xabier Amuriza

Konparazioa Lukrezioren osagai **diskurtsibo** nagusietakoa da. Xabier Amuriza

San Agustinenak izan edo Rousseau-renak izan, Konfesioak gertakizun **diskurtsiboan** oinarritzen dira, aitortza beti hizkuntzaren baitako ekintza ahozkoa baita. Joseba Zulaika

Gure sintaxia kontrara dagoelako antolatua, "sintaxi informatibo-logiko-**diskurtsiboak"** eskatuko lukeenaren beste aldera. Pello Salaburu

Eremu **diskurtsiboaren** azterketa oso bestela dago orientatua; kontua da enuntziatua atzematea bere gertatzearen estutasunean eta singulartasunean. Xabier Arregi

Baina batasun **diskurtsibo** hau, bestalde, homogeneoa eta modu uniformean aplikagarria al da? Xabier Arregi

Denbora ez da adigai **diskurtsiboa** edo orokorra, deitzen zaion moduan, baizik eta sentsuzko begiespenaren forma hutsa. Ibon Uribarri

## 2 *ez-diskurtsibo izond*

Zer motatakoa da aprioriko intuizioa? ez-**diskurtsiboa** dela diote razionalistek. Askoren artean

Arkeologiak, horrela, harremanak agerrarazten ditu eraketa diskurtsiboen eta eremu **ez diskurtsiboen** (erakundeak, gertaera politikoak, jarduteak eta prozesu ekonomikoak) artean. Xabier Arregi

Historia naturala, gramatika orokorra eta aberastasunen azterketa modu analogoan osatu dira eta hirurak XVII. mendean zehar; baina aberastasunen azterketaren eraketa-sistema lotuta zegoen baldintza eta jardute **ez diskurtsiboen** kopuru handi bati (salgaien joan-etorria, moneta manipulazioa eta bere ondorioak, merkataritzaren eta manufakturen babes-sistema, moneta bihurtutako metal kopuruaren oszilazioa). Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **da eraketa diskurtsiboak** (3); **diren eraketa diskurtsiboen** (3); **diskurtsibo bat** (23); **diskurtsibo bat aztertzea** (3); **diskurtsibo bat ezaugarritzen** (4); **diskurtsibo batean** (7); **diskurtsibo batek** (6); **diskurtsibo baten** (8); **diskurtsibo bati** (4); **diskurtsibo ezberdinen** (4); **diskurtsibo guztiak** (3); **diskurtsibo hau** (3); **diskurtsiboak ez** (4); **diskurtsiboen artean** (4); **diskurtsiboen arteko** (3); **diskurtsiboen azterketa** (5); **eraketa diskurtsibo** (50); **eraketa diskurtsibo bat** (14); **eraketa diskurtsibo baten** (6); **eraketa diskurtsiboa** (8); **eraketa diskurtsiboak** (17); **eraketa diskurtsiboaren** (6); **eraketa diskurtsiboek** (3); **eraketa diskurtsiboen** (27); **eraketa diskurtsiboen azterketa** (4); **eta eraketa diskurtsiboen** (4); **ez diskurtsiboen** (5); **formazio diskurtsibo** (6); **gertaera diskurtsiboen** (3); **jardute diskurtsibo** (34); **jardute diskurtsibo bat** (4); **jardute diskurtsibo batek** (3); **jardute diskurtsiboa** (8); **jardute diskurtsiboak** (10); **jardute diskurtsiboaren** (4); **jardute diskurtsiboen** (9); **multzo diskurtsibo** (3)

---

# diskurtsiboki *adlag* diskurtsoaren aldetik; era diskurtsiboan.

Alferrik filosofatuko nuke, h[au] d[a], **diskurtsiboki** gogoetatuko nuke hirukiari buruz, horren bitartez definizio soilera arte baino urrunago ez nintzateke iritsiko, arrazoizkoa bertatik hastea denean. Ibon Uribarri

Bere objektuak **diskurtsiboki** kategorien bitartez ez, baizik intuitiboki sentsuzkoa ez den begiespen batean ezagutzea. Ibon Uribarri

Ederki juzga daiteke sintetikoki eta a priori, baina **diskurtsiboki** besterik ez adigaien arabera, eta inoiz ez intuitiboki adigaien eraikuntzaren bitartez. Ibon Uribarri

---

# diskurtsibotasun *iz* diskurtsiboa denaren nolakotasuna.

Esandako gauzak baldin badaude -eta bakarrik hauek- euren arrazoi zuzena ez da bilatu behar esandako gauzetan edo eurak esan dituzten gizon-emakumeengan, baizik eta **diskurtsibotasun**-sisteman, berak gertatzen duen ahaltasun edo ezintasun enuntziatiboetan. Xabier Arregi

---

# diskurtso *(orobat **diskurtso** g.er. eta **diskurtsu** g.er.)* 1 *iz* mintzaldia; solasa.

**Diskurtso** dotore eta ezinago hobe harilkatuan, liburuaren nondik-norako, helburu eta tekniken berri ematen du. Karlos Linazasoro

Loreak, **diskurtso** laburrak, kamerak eta folk musika. Edorta Jimenez

**Diskurtso** laburrik egiten ez dakite, ostera. Edorta Jimenez

Txaloek eten egiten dute Thomasen **diskurtsoa**. Edorta Jimenez

Bashkimek ere txalo egiten du; **diskurtsoa** etetearren, nire ustez. Edorta Jimenez

**Diskurtso** zuzenak ziren, benetako komunista batenak, alegia; orduan, denok txalo eta oihu egiten genuen pozik hain gauza zuzenak eta ongi esanak entzutean. Pello Lizarralde

Oraindik ere gogoan zuen Sousa doktoreak barre handiak egin zituela **diskurtso** luze harekin, hark esandakoaren arabera, *zatozte Eguberrietan nirekin afaltzera,* batekin labur baitzitekeen. Bego Montorio

On Afonso Henriquesek gurutzatuei egin zien **diskurtsoa** berrirakurtzen duenean, [...]. Jon Alonso

Olatzi batzuetan gogorra egiten zitzaion Martaren **diskurtsoa**. Harkaitz Cano

## 2 gogoetabidea; arrazoibidea.

**Diskurtso** honen arabera, lehiakortasunak, lehiak, ez omen dio ekonomiari -eta beraz, gizarteari- inolako onurarik ekarriko. Iñaki Heras

Batzuk hasi direlako **diskurtso** bat eraikitzen: garaileen eta galtzaileen **diskurtsoa**. Berria - Euskal Herria

Kalapitak izan ziren gure artean, gehienek erranez ezkerren **diskurtsoa** materialista hutsa zela eta klaseen arteko borrokaren ondorio eta kausa. Piarres Aintziart

Litotesa dugu, itxuraz, bertsolarien ironiarako estrategia nagusia, antitesia eta anafora **diskurtsoa** antolatzeko baliabide erabilienak diren bezala. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Politikan dagoen **diskurtsoak** dio, paradisuan ez gaudela, baina oso ondo gaudela, kasik Leibniz-en "mundu posibleetarik hoberenean" alegia, edo gutxien txarrean, hori omen baita demokrazia. Joxe Azurmendi

**Diskurtsoak** eraikitzen du errealitatea, eta, ikuspegi hainbat **diskurtso** dagoenez, **diskurtso** adina mundu dago. Joxerra Garzia

Onartuta baldintzak argi eta garbi definitzen direla, zilegi izan liteke **diskurtsozko** multzoak eratzea zuzen deskribatutako harremanetan oinarrituta, arbitrarioak izango ez diren **diskurtsozko** multzoak, baina, hala ere, ikusezinak iraungo dutenak. Xabier Arregi

## 3 (izenondoekin)

**Diskurtso** erretorikorako argudioak egoki formulatzea da da *elocutio*aren egitekoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beraz ezin daitezke bideak eta helburuak nahastu, lehiakortasun sakratuaren **diskurtso** ofizialak -edo bakarrak- egin duen bezala. Iñaki Heras

**Diskurtso** oportunista eta erreakzionarioaren lekuko ederra da erantzun mota hori ikuspegi kritikodunentzat. Iñaki Heras

Enigma horri buruzko **diskurtso** ulergarri bat osatu behar du erlijioaren filosofiak. Askoren artean

Kontzeptu horiek guztiz arruntak dira gure belarrietarako [...] mendebaldeko filosofia guztiaren bizkarrezur eta aldi berean gogoeta-gai nagusi izan baitira joan deneko hogeita bost mendeotan, baita gaurko edozein **diskurtso** intelektualetako osagai ezinbesteko ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Godfrey Harold Hardy matematikari handiak zioen: "narrazio zientifiko orok **diskurtso** metaforikoa du oinarri". Iñaki Heras

Honen iritzian, hain zuzen, **diskurtso** filmikoa zulatu eta hartan irudika ezina azaleratzeko aukera ematen duten "absentziaren figura" horietako bat da begirada hori. Josu Zabaleta

**Diskurtso** light bat badago, jeneralean abertzaleen aurka ustiatzen dena, Estatua pasea dagoela, iraganekoa dela. Joxe Azurmendi

Baina **diskurtso** estetikoari dagokionez, *Quousque tandem...!* idatzi zuenean batez ere, etengabea eta ozena du euskal arimaren aldarria. Anjel Lertxundi

Horretarako, poesian **diskurtso** bereziki irrazionala ikusten zuen tradizio jadanik mendetsuaren aurka borrokatu behar izan zuen. Xabier Amuriza

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **diskurtsibo**.

Honelakorik egiten den aldi gutxi horietan, bertso bakoitza, bere **diskurtso**-izaera galdu gabe, **diskurtso**-segmentu bilakatzen den (makro) diskurtsoa sorrarazten da antolabide horri esker. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Inprobisazioaren berezko baldintzek agintzen diote bertsolariari oro har nabarmen aldatuko ez den **diskurtso**-egitura bati atxikitzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsolaritzan izango duten aplikazioari begira, interesgarriagoa da erretorika-kanonak antzinatean ulertzen ziren bezala ulertzea, bertsolariek **diskurtso**-atalak ontzen ari direnean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nolanahi ere, **diskurtso**-unitate zabalagoren baten osagarri denean ere, bat-bateko bertsoak ez du bere berbaldi izaera inoiz galtzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Damua beste arlo bateko kontua da, beste **diskurtso**-mota bati dagokio. Oskar Arana

Deskoadratzea erabilera teoriko bat da, inplizituki markoaren **diskurtso**-balioa azpimarratzen duena. Josu Zabaleta

Dena den, zenbait sektoretan **diskurtso** aldaketak egon direla iruditzen zaie, eta hori irtenbide politikorako prozesurako baikorra dela uste dute. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gainera, nabarmen ikusten da, bai malgutasunaren alde eta baita kontra egiteko bontsai-**diskurtsoan** ere, kausa-efektu eta *post hoc, ergo propter hoc* diskurtso faltsua: [...]. Iñaki Heras

**Mediku-diskurtsoaren** "kokapen" ezberdinak sakon-sakonetik aldatuak izan dira XIX. mendean. Xabier Arregi

*Naissance de la clinique* lanean ikerketaren muina zen **mediku-diskurtsoaren** enuntziazio-formen aldaketak XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran. Xabier Arregi

Ez darabilen hizkuntza normalizazioaren paradigmak, ez lurraldetasunari lotutako eskubide-**diskurtsoak**, ez elementu fosildu gehiegi dituen ezker-**diskurtsoak**, eta ez, batez ere, bortxa-salaketa-kexa dinamikan sortu duen pedagogia tamalgarriak balio dute gaur egun euskal herria garatzeko oinarri moduan. Txema Ramirez de la Piscina

Diskurtso txiki bat da, nolabait, puntu bakoitza, bertsolariak eskala txikian jardun erretoriko guztia errepikatu behar izaten duen azpi-**diskurtsoa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ari den diskurtso** (3); **baina diskurtso** (7); **bat diskurtso** (3); **bere diskurtso** (7); **beste diskurtso** (17); **beste diskurtso bat** (3); **beste diskurtso batzuk** (3); **beste diskurtso mota** (3); **bi diskurtso** (3); **buruzko diskurtso** (3); **da diskurtso** (13); **den diskurtso** (13); **dira diskurtso** (4); **diren diskurtso** (3); **diskurtso aldaketa** (3); **diskurtso arteko** (4); **diskurtso bakarrak** (4); **diskurtso bat** (19); **diskurtso batean** (5); **diskurtso baten** (18); **diskurtso baten baitan** (3); **diskurtso batzuk** (5); **diskurtso berri** (3); **diskurtso ekonomikoa** (3); **diskurtso eta** (8); **diskurtso handi** (3); **diskurtso hau** (4); **diskurtso hauek** (3); **diskurtso honen** (4); **diskurtso hori** (14); **diskurtso horiek** (5); **diskurtso horrek** (6); **diskurtso horren** (6); **diskurtso horri** (4); **diskurtso klinikoak** (4); **diskurtso koherente** (3); **diskurtso kritikoak** (3); **diskurtso kritikoak eta** (3); **diskurtso molde** (4); **diskurtso mota** (18); **diskurtso ofiziala** (8); **diskurtso ofizialak** (3); **diskurtso politiko** (6); **diskurtso politikoa** (7); **diskurtso politikoan** (4); **diskurtso politikoaren** (3); **diskurtso politikoek** (3); **diskurtso psikiatrikoaren** (3); **diskurtso unitate** (4); **diskurtso zientifiko** (4); **diskurtso zientifikoaren** (3); **diskurtso zientifikoen** (4); **du diskurtso** (4); **duen diskurtso** (8); **duten diskurtso** (3); **edo diskurtso** (6); **edozein diskurtso** (3); **eta diskurtso** (32); **ez diskurtso** (4); **gabeko diskurtso** (3); **gaineko diskurtso** (3); **hainbat diskurtso** (3); **hau diskurtso** (3); **hori da diskurtso** (3); **izan da diskurtso** (3); **lukeen diskurtso** (3); **zuen diskurtso** (3)

**aguirrek diskurtsoa** (3); **aguirrek diskurtsoa aldatu** (3); **aldeko diskurtsoa** (13); **bateko diskurtsoa** (3); **bere diskurtsoa** (9); **beren diskurtsoa** (3); **buruzko diskurtsoa** (10); **da diskurtsoa** (8); **den diskurtsoa** (8); **diskurtsoa aldatu** (5); **diskurtsoa antolatzeko** (4); **diskurtsoa baino** (4); **diskurtsoa bere** (7); **diskurtsoa da** (7); **diskurtsoa edo** (3); **diskurtsoa egin** (3); **diskurtsoa egingo** (3); **diskurtsoa egiten** (3); **diskurtsoa entzuten** (3); **diskurtsoa eta** (7); **diskurtsoa ez** (12); **diskurtsoa ez da** (7); **diskurtsoa izan** (4); **duen diskurtsoa** (6); **eta diskurtsoa** (7); **euren diskurtsoa** (3); **haien diskurtsoa** (4); **haren diskurtsoa** (3); **imazen diskurtsoa** (3); **jokoetako diskurtsoa** (3); **lore jokoetako diskurtsoa** (3); **metafisikako diskurtsoa** (3); **metodoari buruzko diskurtsoa** (3); **modu bateko diskurtsoa** (3); **nire diskurtsoa** (3); **oteizaren diskurtsoa** (3); **zuen diskurtsoa** (6)

**bakarrik diskurtsoaren** (3); **bere diskurtsoak** (4); **bere diskurtsoan** (6); **bere diskurtsoaren** (4); **buruzko diskurtsoan** (3); **da diskurtsoak** (5); **da diskurtsoaren** (8); **den diskurtsoak** (3); **den diskurtsoaren** (6); **dira diskurtsoaren** (6); **diren diskurtsoak** (6); **diskurtsoak entzunda** (3); **diskurtsoak eta** (4); **diskurtsoak ez** (3); **diskurtsoan bertan** (4); **diskurtsoaren maila** (3); **diskurtsoaren objektu** (3); **diskurtsoaren objektuak** (3); **diskurtsoaren ordenan** (3); **eta diskurtsoak** (5); **eta diskurtsoaren** (6); **ez da diskurtsoaren** (3); **mediku diskurtsoaren** (3); **ren diskurtsoan** (3)

---

# **diskurtsodun** *izlag*

Honen ondorioa da, pertsona xume eta ezjakin askok azkarrago aurreratzen duela **diskurtsodun** pentsalari horiek baino. Joan Mari Lekuona

---

# **diskurtsogintza** *iz* diskurtsoak egiteko jarduera.

Azterketa horren emaitza, berriz, Erretorika izan zen: **diskurtsogintzaren** nondik norakoak argitzen duen teoria, aldi berean **diskurtsogintzaren** praxia hobetzeko bidea ematen duena. Joxerra Garzia

Gaur egungo erretorikan, aldiz, **diskurtsogintzan** etengabe, sinergia bidez eta elkarri eraginez diharduten alderdiak dira kanonak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# diskurtsu ik **diskurtso**.

---

# diskusiño ik **diskusio**.

---

# **diskusio** *(orobat **diskusiño** g.er. eta **diskusione**)* *iz* eztabaida.

Zenbat **diskusio** nere aurreneko andregai eder gizartezale harekin. Patziku Perurena

Egia esango dizut: **diskusioaren** momentu batean, gustura sartuko nion labana, eskuan izan banu... Joan Mari Irigoien

Lehengoan **diskusioa** izan zuen ahizparekin. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diskusione hura** (3)

---

# diskusione ik **diskusio**.

---

# **diskutiezin** *izond* ezin eztabaidatuzkoa.

Guebokinder Artximandrita agintari moral eta izpirituzko gorena zen, eta bere esanak **diskutiezinak** ziren. Jon Alonso

---

# **diskutigarri** *izond* eztabaidagarria.

Bere teoriak dio denbora ezerekiko loturarik gabe lerratzen dela, kanpokoaren eraginik gabe, alegia, eta niri oso **diskutigarria** iruditzen zait iritzi hori. Bernardo Atxaga

Hitzek eta ideiek berek, ez izan, edo esan nahi, baina balio egiten dute; ez dira diferenteak, originalak, **diskutigarriak**, etab., baizik onak ala gaiztoak, kito. Joxe Azurmendi

**Diskutigarria** duk proletargoaren diktadura, ez duk uste? Koldo Izagirre

---

# diskutitu, diskuti, diskutitzen du *ad* eztabaidatu.

Nire gurasoek askotan **diskutitzen** zuten, orduko ez baitziren ongi konpontzen. Joan Mari Irigoien

Lucasek, arrazoiketa zuhur horren ostean, inbidiaz entzun zuen Maria eta Marcosen eztabaida, urteak eman zituelako berak inorekin **diskutitu** gabe. Unai Elorriaga

Garai hartan ez zen gurasoen agintea **diskutitzen**. Xabier Etxabe

Osasun mentalerako zer ote den hobea **diskutitzen** jardun dugu. Eider Rodriguez

Nolatan, bada, **diskutitu** hitzik ere egin ezin duen gizonarekin? Imanol Unzurrunzaga

Horregatik ez dute **diskutitzen**. Unai Elorriaga

---

# dislexia *iz* irakurmenaren nahasmendua, garuneko lesio batek eragina.

Irakurtzeko, idazteko, nahiz hitzak letraz letra esateko arazoak eragin ditzake **dislexiak**. Forma genetikoa, gaitza duen gizabanakoaren edo familiaren baitan, beste nahasmendu genetiko batzuei loturik ager daiteke, hala nola **dislexiari**, arreta-faltaren nahasmenduari, nahasmendu obsesibo-konpultsiboei, edo Touretteren sindromeari. Berria - Gaiak

---

# dislexiko *izond/iz* dilexia duena.

Hala, bere buruaz beste egiten saiatuko den bideo saltzailea, errotulugile **dislexikoa**, etxe saltzaile handinahia [...] ezagutuko ditugu, besteak beste. Berria - Kultura

Adituen esanetan, hamar haurretatik bat **dislexikoa** da. Berria - Gaiak

---

# dislipemia *iz* odoleko lipido mailaren alterazioa.

Honako hauek dira gaitz horietako batzuk: Arteria-hipertentsioa, diabetesa, bihotzeko arazoak, **dislipemia**, hepatopatia, gaixotasun neurologikoak eta depresio sindromea. Berria - Gaiak

---

# dislokatu, disloka, dislokatzen 1 da/du *ad* hezurrez eta kidekoez mintzatuz, lokatu.

Uste dut txori batzuei hegoak **dislokatzen** zaizkiela. Unai Elorriaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Banaka zein taldekako joaldien ondorioz hiltzeraino kolpatu eta jadanik panpina **dislokatua** bihurturiko mutikoa hagetan iltzatu zuten, gizagaixoaren oihu eta auhenei elkor. Itxaro Borda

---

# dislokazio *iz* dislokatzea.

Mundu guztiari esaten zion gauza bera: museoa, trenak, hegoak, **dislokazioak**. Unai Elorriaga

---

# dismetria *iz* berdinak izan behar zuten hezurren edo atalen luzera-aldea.

Pedalkada moduaren azterketa da lehena, hankek pedalei eragiteko mugimendua simetrikoa den, **dismetriarik** balego, hori konpontzeko. Berria - Kirola

---

# disnea *iz* arnasa hartzeko eragozpena.

Neskak hidropesia zuen, gonbitoak, **disnea** eta espasmo arin batzuk. Josu Zabaleta

---

# disneykeria *iz*

Peter eta Wendy liburuan odola agertzen da, bai; eta jendea hiltzen da, eta hori kontatu egiten da, **disneykeriarik** gabe. Julen Gabiria

---

# disolbaezin 1 *izond* ezin disolbatuzkoa.

Almidoi **disolbaezin** bat da glukogenoa, gordetzeko egokia. Irene Aldasoro

Amonio kloruroarekin aproba egitea bururatu zitzaidan, gai baita berun oxidoarekin egonkorki konbinatzeko, kloruro **disolbaezin** eta geldo bat emanik eta amoniakoa jareginik. Juan Garzia

Landare-jatorriko erretxina fosilak dira, urtze--puntu altu samarrekoak, eta aurkitzen eta merkaturatzen diren egoeran olioetan **disolbaezinak** dira. Juan Garzia

Asmakuntza argitsu bat egin dute, beren nitrogenoa azido urikoaren moldean paketatzea bururatu baitzaie; uretan **disolbaezina** baita, egoera solidoan kanporatzen dute azido uriko hori, uraren bitartekaritzarik gabe. Juan Garzia

**2** *adkor/hed*

Bere bizitza bideratzeko pentsatzen zituen sistema guztiek uzten zituzten jauskin **disolbaezinak**, bere sistemen hasieratiko huts egitea erakusten zutenak. Josu Zabaleta

Gaur konbentzigarria otuko litzaioke giza nahimena askea dela; bihar, izadiaren kate **disolbaezina** kontsideratu ondoren, askatasuna norbere buruari egindako iruzurra besterik ez dela eta izadia baino ez dagoela usteko luke. Ibon Uribarri

---

# disolbagarri *izond* disolba daitekeena.

Nire gizonaren errezetan margo-emaile **disolbagarri** bat zetorren. Juan Garzia

Oso gas **disolbagarria** da amoniakoa, eta oso energia gutxi behar da, edo batere ez, hura gorputzean sortzeko. Irene Aldasoro

Erretxinak ke, ur-lurrun eta anhidrido karbonikotan bere pisuaren ehuneko 16 galtzen zuenean, oliotan **disolbagarri** izateko puntura iritsia zela jotzen zen. Juan Garzia

Urre soluzioetan **disolbagarria**. Xabier Olarra

**disolbakin** *iz* disolbatzailea (produktua).

Tinta poto ilara oso bat apal baten gainean, eta **disolbakin** botila pare bat, bere usain azkar bereziarekin. Txillardegi

---

**disolbarazi**, disolbaraz, disolbarazten du *ad* disolbatzera behartu.

Tinta poto ilara oso bat apal baten gainean, eta **disolbakin** botila pare bat, bere usain azkar bereziarekin. Txillardegi

---

**disolbatu**, disolba, disolbatzen *(orobat **disolutu** g.er.)* **1** da/du *ad* gorputz baten molekulak likido batean barreiatu. ik **urtu**.

Ontzi bat urez bete, gatz pittin bat **disolbatu** bertan, [...]. Juan Garzia

Odolean **disolbaturiko** oxigenoa. Irene Aldasoro

Nitrogenoa ez da ondo **disolbatzen**, ez uretan, ez odolean. Irene Aldasoro

Kalamuaren osagai nagusia den TCHa ez da hidrosolublea; beraz, infusio batean hartzen badugu, ez da uretan **disolbatuko**. Berria - Harian

Elikagaien osagai kimikoak, listuaren edo urdail-urinen eraginez **disolbaturik**, odolera igarotzen dira urdailaren edo digestio-hodiaren barne-estalduratik zehar. Irene Aldasoro

Soluzio asea da tenperatura jakin batean bertan **disolbatu** daitekeen adina solugarri duena. Xabier Olarra

Orain, ostera, oso partikula txikitan zatituta dago, eta kasu batzuetan, ia **disolbaturik**. Berria - Euskal Herria

**2** desegin, barreiatu.

Munduaren murruek bat-batean, gar hegalari gisan, ihes egin ez dezaten, hutsunean **disolbaturik**. Xabier Amuriza

Egunen luzera amaigabean, iragan denbora osoak orain arte apurtuko zukeena, ezabatuz eta **disolbatuz**, gainerako denboran ezingo litzateke sekula berritu. Xabier Amuriza

Hedatzen dena **disolbatu** egiten baita, hil, beraz. Xabier Amuriza

Bazirudien han egoteko arrazoia abstrakzioan **disolbatuz** zihoala, amesgaizto bat bezala goizargiaren aurrean. Fernando Morillo

Artifiziozko kontzeptualizazio hori guztia Ezerezean **disolbatzen** baita. Joan Mari Lekuona

Naturak zer bakoitza berriro bere elementuetara **disolbatzen** du, baina ez du ezer hutseraino ezerezten. Xabier Amuriza

Beraz, arimaren izate guztia ere **disolbatzea** bidezko da, kea goiko aire lekuetan bezala. Xabier Amuriza

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ur gehiena eta solido **disolbatu** gehienak kendu egiten zaizkio. Irene Aldasoro

Presio hori ondo baitator odoleko ura eta solido **disolbatuak** irazki-unitateetako gune txikitxoetan barrena bultzatzeko. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **disolbatu egingo** (3); **disolbatu egingo** (3); **disolbatu egiten** (5); **disolbatu egiten** (5); **uretan disolbatu** (3); **uretan disolbatu** (3); **uretan disolbatu** (3); **uretan disolbaturik** (3): uretan disolbaturiko (3)

---

**disolbatzaile** **1** *izond/iz* disolbatzen duena; disolbatzen duen produktua. ik **disolbakin**.

Oliotan edo antzeko **disolbatzaileren** batean nahasitako pigmentoekin egindako tinta bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ferrojel bat **disolbatzaile** batek puztutako sare polimeriko bat da, burdin oxidozko nanopartikulez betea. Berria - Gaiak

Horretarako ironia behar, ordea, herdoilak erre eta askatzen dituen **disolbatzailerik** eraginkorrena. Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

Lisak, gainera, aberetu nahi zuen; bizpahiru egunez ihes egiten zion, beldur baitzen harengana hurbildu eta borondatea deuseztatuko zion **disolbatzaile** baten indarrarekin. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan)

Pintorea zen, izerdi keruaren azpian sumatzen zituen **disolbatzaile** eta akriliko zantzuek argiro adierazten zuten bezala, baina ez zen artista arrakastatsua. Iban Zaldua

• **4** *izond* deuseztzailea, desegilea.

Baina gizakiak kemen **disolbatzailea** du irudika daitekeen sufrimendurik basatiena edo pentsa daitekeen oinazerik sofistikatuena eroangarri bihurtzeko. Anjel Lertxundi

---

**disolbente** *iz* disolbatzailea, disolbakina.

Aldamioa badaukagu, baina pintzelak eta **disolbentea** erosi beharko ditugu... Xabier Mendiguren Elizegi

---

**disoluto** *izond* moral lasaiekoa, lizuna.

Eta informazio **disolutoa** ere bai, eta libertinoa. Unai Elorriaga

---

disolutu ik **disolbatu**.

---

**disoluzio** **1** *iz* gorputz baten molekulak likido batean barreiatzea; barreiatze horrek osatzen duen nahastura. ik**soluzio**[1].

Droga bat gorputzera sartzeko, eraginkorragoa da larruazala ukenduz igurztea **disoluzio** urtsu batez gaina bustitzea baino. Irene Aldasoro

Zientzialari bati galdetzen badiogu honetaz, berehala azalduko digu zer gertatzen zaien arrautzaren proteinei, ematen diren polimeroen prozesu fisiko-kimikoak, bertako **disoluzioen** ezaugarri elektrikoak, fluidoen mekanika, erreologia eta beste prozesu asko. Berria - Gaiak

**2** irud/hed

Patrizioarekin ez da nahastu behar, hura **disoluzio** saturatua baitzen. Xabier Olarra

**3** deuseztea, desegitea.

Gaur egun iraultza irudikatzeko era bakarra agintearen **disoluzioa** da, ez agintearen konkista. Txema Ramirez de la Piscina

Baina, ordutik, artea ez da **disoluzio** orokorraren koska bat estuago egiten duen torloju bat baino. Anjel Lertxundi

Spengler-entzat mendebaldea honezkero "zibilizazio" edo **disoluzioaren** fasean sartua dago, kultura (edo arima) grekoa Alexandro Handiaren ostean bezalaxe, eta erromatarra Zesar-en ondoren. Joxe Azurmendi

Ministro Kontseiluak gorteen **disoluzioa** agintzen duen dekretua onartu zuen eta, gero, Aznarrek hartutako erabakiaren berri eman zuen hedabideen aurrean. Berria - Euskal Herria

Popper-ek, bestalde, indukzioaren arazoaren **disoluzioa** aldarrikatu du bere metodologia faltsazionistan. Askoren artean

Zientzialari bati galdetzen badiogu honetaz, berehala azalduko digu zer gertatzen zaien arrautzaren proteinei, ematen diren polimeroen prozesu fisiko-kimikoak, bertako **disoluzioen** ezaugarri elektrikoak, fluidoen mekanika, erreologia eta beste prozesu asko. Berria - Gaiak

---

## ***disonante*** 1 *izond* hots konbinaketez mintzatuz harmoniarik ez duena.

Biriketako hauspotik ateratzen zitzaizkion hots eta ziztu **disonanteen** arabera, hats edo hitz egiten zuen bakoitzean Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Hedabide horiek guztiak komunikazio **disonantearen** erakusle dira, talde ekonomiko eta politiko handien eraginpetik eraikitzen joan diren egitasmo errealak. Txema Ramirez de la Piscina

Berdin hitz egin liteke komunikazio **disonanteaz** edota zirikalariaz ere. Txema Ramirez de la Piscina

Izaten baitira leku batzuk ahotsari berez bidea mozten diotenak: adibidez leku **disonanteak**, grekoek *catechountes* deitzen dituztenak. Santiago Iruretagoiena

---

## **disonantiko** *izond* disonantea.

Regek asmatu zuen ereserkiak: Ave Maria **disonantiko** laburra eta piano eta erdi bolumenetik garatzen dena. Berria - Kultura

Dupre-ren Passion deritzon sinfoniatik zatiki **disonantikoa**. Berria - Kultura

---

## **disonantzia** 1 *iz* hots konbinaketez mintzatuz armoniarik eza.

Musikarekiko kontzientzia analitikoa konprenitzeko kontzeptuak jorratuko dituzte, hala nola: zentru tonala, **disonantzia**, erretardoa, kadentzia, kontrapuntua, horizontalitatea, bertikalitatea, harmonikoak, tentsioa... Berria - Kultura

**Disonantzia** metalikoak pianoarekin nahasi ahala gelak ilundu eta kaleko hormak agertu dira gau argitan. Xabier Paya

**2** irud/hed

Misantropiak ere badu bere tokia kontzertu honetan: osotasunaren harmoniarako beharrezkoa den **disonantzia** baizik ez da. Monika Etxebarria

---

## **disoziatu,** disozia, disoziatzen du *ad* bereizi, banatu.

Betikor dirauten zer guztiek edo kolpeak aldaratu behar dituzte, gorputz solidoa daukatelako, eta ez sartzen utzi barne zatiak **disozia** ditzakeen ezeri, materiaren lehenkien kasuan bezala. Xabier Amuriza

---

## **disoziazio** *iz* disoziatzea, haustea.

**Disoziazioak** ere pare homofonikoak sortzen ditu: jakinez/jakin ez, etakideak/eta kideak, bihar/bi har... Iñaki Arranz

**Disoziazioaz** hitz egiten genuen homonimia eta homofonia aipatzean, errepikapenaren atalean, eta berriro ekarri behar dugu orain hizpidera. Iñaki Arranz

---

## **disparate** *iz* zentzugabekeria, itxuragabekeria. ik **aldrebeskeria**.

-Zer **disparate** egin behar duk? Koro Navarro

Hori da **disparatea**!», zioten komunikabide horiek duela lau urte. Berria - Kirola

Baina, eskua sartzen hasita, zergatik ez konpondu toki publikoetan denon lotsagarri dauden euskarazko **disparateak**? Joxerra Garzia

Komeni da, horrelakoen eskarmentua jasotzea, tentuz ibiltzeko, eta zernahi gertatutakoan ere, **disparate** handirik ez botatzeko. Pello Zabala

Zenbat **disparate** egin zituen Eliz Amak, ezinbesteko eta premiazko ez ziren aginddu-magindduei garrantzi itxuragabea emanez! Pello Zabala

Planteamendua bera **disparate** nabarmena bada ere, gupidarik gabe erabili dute azken orduko gure ilustratuek iskilu gisa, indioak konbertitzeko beren gurutzadan. Markos Zapiain

Baina bada **disparate** komunikatibo nabarmenik ere. Joxerra Garzia

---

## **disparatetxo** *iz adkor* disparatea.

Datu horiek ematen digute zer pentsa, askotan horretaz berbetan hasitakoan, **disparatetxoak** ere entzuten baitira. Pello Zabala

---

## **disparatu,** dispara, disparatzen **1** du *ad* tiro egin. (su armekin)

**Disparatu** egingo nioan, eta trenaren abiadaren gutxitzea aprobetxatuz, geltokira iritsi baino lehen egingo nian ihes handik. Mikel Hernandez Abaitua

Fikzioan, don Pedro borrokan ikusten genuen, bere buruaren defentsan **disparatzen**, damu hartzen lagun hurkoari heriotza emateagatik. Bernardo Atxaga

Nire zereginaz arduratu nahi nian bakarrik, zera, kanoiak seinalatuko zidan gizonaz, **disparatu** eta handik lehenbailehen ateratzeko, bagoitik behera saltatu eta laguna motorrarekin zain nuen lekurantz lehenbailehen korrika egiteko. Mikel Hernandez Abaitua

Ez zuen keinurik egin, eta ez nuen **disparatu** beharrik izan. Rafa Egiguren

Ez da argazkirik agertuko baina jendeak odolez zipriztindutako pistola bat irudikatuko du lurrean eta arma **disparatu** berri duen esku hilotza ondoan. Joxean Agirre

Katu batek ez du bada, bakarrik **disparatzen**, alajaina! Harkaitz Cano

**2** (bestelakoekin)

Txominek tiragoma patrikatik atera, sardea gidatu, gomak luzatu, **disparatu**... eta harriak bekokian jo zuen nagusia, jesus amen batean! Joan Mari Irigoien

**3** irud/hed

"Gizatasunaren erlijio" batek, Comte-ren positibismoaren molde zurrunean tiraketan huts egin zuenak, mundua sutan jarri zuen komunismo marxistaren kanoi-zulotik **disparatu** zutenean. Iñaki Mendiguren

Eta hurbilduko da leihora, begiratuko dio kameleoi batek euli bati begiratuko liokeen bezala, eta **disparatuko** du eskua, zast. Alberto Barandiaren

Gaurko pubak, tabernak, dantzalekuak eta neuronak **disparatuta** daramatzaten gaztez betetako kaleak. Pako Aristi

---

## **disparo** 1 *iz* tiro egitea, desarra.

Bere barnean tiro hotsak entzutean, bihotzaren taupadek argazki-makina automatikoaren **disparo** bizien abiadura hartu zuten. Joxemari Urteaga

**2** irud/hed

Liutprandoren **disparorik** ohargarriena zera zen: [...]. Iñaki Mendiguren

---

# dispentsa *iz* betebehar batekiko salbuespena.

Bekatu egiten du, benialki bederen, irakasle hoberenen irakaspen egiazkoaren eta arruntaren arabera, batere arrazoirik gabe berak egin legeen aurkako **dispentsak** emanez. Piarres Xarriton

---

# dispentsario *iz* artategia, bereziki doakoa.

Gero **dispentsarioa** jarri genuen. Arantxa Iturbe

-Mesedez, **dispentsarioa**? -galdetu zion ikusitako lehen andreari. Josu Landa

---

# dispepsia *iz* digestio nahasmendua, goragalea, urdaileko mina eta bihotzerrea eragiten dituena.

Neurritsu izatearen desabantailei iskintxo egiteko **dispepsiaren** bekatura emana den pertsona. Xabier Olarra

Prozesua okertzen bada biziagarri bihurtzen dira... eta hortik atera zuen idazle gaizto hark, Jeremiah Blenn doktoreak, andreak direla **dispepsia** gehien sufritu ohi dutenak. Xabier Olarra

---

disperso ik **dispertso**.

---

# dispertsatu, dispertsa, dispertsatzen da *ad* sakabanatu, barreiatu.

**Dispertsatu** ondoren, berriz dago Iruñeko espetxean. Berria - Euskal Herria

Baina egia biribilagoa da dauden baliabideak **dispertsatuta** daudela. Berria - Kultura

---

# dispertsio 1 *iz* sakabanatzea, barreiatzea.

Beste aplikazioetako bat polimero partikulak uretan barreiatuta daudenean lortzen da, hots, **dispertsio** polimerikoetan. Berria - Gaiak

**Dispertsioaz** gaindi, Fosterrek lortu du estilo bateratua ematea bere taldeko kideek diseinaturiko eraikinei. Berria - Gaiak

Autokontrolaren eta **dispertsioaren** artean mugitzeak autofikzioak eraikitzen lagundu dio beti, eta, ondorioz, istoriak lapurtzen dituela onartzen du. Berria - Kultura

**2** (espetxeratuena)

Lehenago ere erabilia zuten presoen **dispertsioa**, baina ordutik modu orokorrean egin zuten. Jokin Urain

Ez dira euskaldunak **dispertsioa** pairatzen duten preso bakarrak. Berria - Euskal Herria

Alacantera bidali gintuzten **dispertsioarekin**. Jokin Urain

**Dispertsioa** estatu espainolaren estrategia politiko bat dela presoak pertsona bezala deseginda uzteko. Pako Aristi

Oraindik ere gerra estrategia bati erantzuten diolako espetxe politika honek, **dispertsioa** eta isolatze politikoa oinarri hartzen dituelarik. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan)

Alonsok PP-PSOE Ituna eta euskal presoen **dispertsio** politika mantentzeko asmoa helarazi zien. Berria - Euskal Herria

**Dispertsio** politika «hain ankerra» zenik ez zuela uste helarazi omen zien gose grebalariei. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dispertsio politika** (3); **dispertsioa eta** (3)

---

# dispertso *(orobat **disperso** eta **dispertsu**)* *izond* sakabanatua, barreiatua.

Horrela Idako mendi garaietatik argisentian su **dispertsoak** ikusten ei dira eta gero globo bakarrean bezala batzen eta diskoa osatzen ei dute. Xabier Amuriza

Laugarrenaren xedea honela defintu zuen: «han eta hemen barreiaturik dagoen edertasun **dispertsua** biltzea eraikuntza poetiko baten barnean». Berria - Harian

Baina testuak interpretatzeko modua ere oso **dispersoa** zen. Unai Elorriaga

Halakoak direlako anarkistak gehienetan, **dispersoak**. Unai Elorriaga

---

dispertsu ik **dispertso**.

---

# displasia *iz* organo edo ehun bateko garapen anomalia.

**Displasia** duten umeen bat-bateko heriotza (SIDDT) izena jarri diote gaixotasunari. Berria - Gaiak

---

# displubiatu *izond*

Atrio **displubiatua**, berriz, zera da: estali gabeko eremuaren markoari eusten dioten habeak urak behera eramateko erretenekin prestatuta dauzkana. Santiago Iruretagoiena

Etxeetako patioak bost era desberdinetakoak izaten dira eta hauek dira itxuraren arabera hartzen dituzten izenak: toskaniarra, korintoarra, tetrastiloa, **displubiatua** eta gangatua. Santiago Iruretagoiena

---

# disponibilitate *iz* erabilgarritasuna.

**Disponibilitate** edo beti eskura egote hau oraingo bertsolariek ohitura edo ia berezko jarrera moduan jaso dute. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## **disposaketa** *iz (testuinguru ironikoan)*

Zuen **disposaketan** geratzen gara. Iñaki Arranz

## **disposatu,** disposa, disposatzen du *ad* agindu; xedatu.

Jainkoaren nahia baita giza izaerak bere ahuldadeak eduki ditzan (horrela **disposatu** zuen zuzentasun jainkozkoak lehen gizakiaren bekatua zela-eta). Joan Mari Lekuona

## **dispositibo** **1** *iz* gailua.

Horregatik jarri zuten **dispositibo** bat igogailuan. Unai Elorriaga

Iraganera bidaiatzeko **dispositiboa** asmatu zuen hura bera. Iban Zaldua

**2** irud/hed

Larruazalaren **dispositiboa** martxan jarri zitzaion, egongelan izugarrizko hotza egiten zuela konturatu zen halako batean. Unai Iturriaga

Kausalitate bat egozteak ahalbidetu zion Freudi inkontzientearen hipotesia planteatzea, eta horren azaltzea atzemateko, **dispositibo** bat sortu zuen: **dispositibo** analitikoa. Berria - Kultura

**3** helburu baterako antolatzen diren pertsonen eta gauzen multzoa.

Komenigarria izan liteke Poliziaren Gorputz Nagusiko A12GO7793 funtzionarioari eta Donostiako polizia etxeko gertaeren garaiko (Informazio) komisario nagusiari deklarazioa hartzea, komandoaren iritsiera aurreikusia zela-eta antolatutako **dispositiboari** buruzko eta bertan parte hartu zutenei buruzko argibideak eman ditzaten. Berria - Harian

**4** *ipar* xedapena. ik **disposizio.**

Departamenduko eskema berezia muntatu du, gure lurraldea deseginez, barnealdea Biarnorekin nahasiz; **dispositibo** horretan segitzen bagenuen, abertzaleok irabazi baino gehiago galduko genuela aipatu nuen, kanporatua izan aitzin. Berria - Euskal Herria

Estatuak eta Kontseilu Nagusiko lehendakariak diotenarekin bat egiten dut, hala nola ez dela Kontseilu Nagusiaren eskumena bere lurraldea bitan zatitzeko **dispositiboa** martxan ezartzea. Berria - Euskal Herria

## **disposizio** *(orobat* ***disposizione*** *g.er.)* **1** *iz* antolaera, kokaera.

**Disposizioa** gauzak modu egokian jartzea da eta, kalitatearen bidez, konposizioan obraren egikera dotorea lortzea. Santiago Iruretagoiena

Batasunak «jarrera irekia eta **disposizioa** berresten du abertzaleak aho batez mintza» daitezen. Berria - Euskal Herria

Arkitekturan egiten diren lanak hauek dira: erregulaketa, grekoek *taxis* deitzen dutena; **disposizioa** , grekoek *diathesis* deitzen dutena, neurriratzea, proportzionatzea eta egokitzea, eta administrazioa, grekoek *oeconomia* deitzen dutena. Santiago Iruretagoiena

Liburu honetan leku publikoen **disposizioari** buruz arituko naiz. Santiago Iruretagoiena

Eta, hemen eta munduko parte honetan, ni biktima hori izaiteko **disposizionean** nagok, baita martirioaren palma eta koroa irabazteko ere, baldin beharrezkoa bada... Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan)

**Disposizio** -motak grezieraz *ideae* deitzen dira, eta hauek dira: traza (*ichnographia*), altxaera (*orthographia*) eta perspektiba (*scaenographia*). Santiago Iruretagoiena

**3** jarrera, prestasuna.

Virginiak lan egiten zuen kafetegira joan eta zuzen galdetu beharrean, jarri beharrean berarekin aurrez aurre, begiz begi, eta ikusi istant bakar batean nireganako zeukan **disposizioa** , postal batez baliatzen nintzen. Bernardo Atxaga

**Disposizio** berberak eduki behar nituzke itsasoz bestalde aurkitzen denarentzat ere, nahiz eta etsaia izan. Joan Mari Lekuona

Biolentziaren arazoari soluzio bat bilatzearen eta bilatzeko izpiritu edo **disposizioaren** arazoarekin. Joxe Azurmendi

**4** (filosofian)

Proposizioa ez naiz maneiatzen ari, baina onartuko nuke agertuko balitz; hau da, haren ustea izateko **disposizioa** dut, prest nago-. Askoren artean

Zail da jakiten **disposizioak** zer diren edota **disposizioen** analisirik egokiena baldintzazko analisi murriztailea den. Askoren artean

**Disposizio** bat zertan datzan esan nahi dugunean ezinbestekoa da adieraztea **disposizio** hori omen duen objektuak zer nolako joera edo jokabidea izango duen baldintza zehatz batzuen pean. Askoren artean

Bi ezaugarri aipatu ditugu: erantzunaren mendeko disposizioak, **disposizio** guztiak bezalaxe, ahalmenak dira eta, gainera, subjektu baten erantzunaren mendekoak dira. Askoren artean

Ildo horretan, **disposizioei** (eta Lockeren propietate bigarrenei) "ahalmenak" esaten zaie. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egiteko disposizionean** (3)

## **disposizional** *izond* filosofian, disposizioarena, disposizioari dagokiona.

Ustea hemen gertaturikoa izan daiteke -proposizio bat maneiatzen dudanean hura onartuz- edo **disposizionala** -proposizioa ez naiz maneiatzen ari, baina onartuko nuke agertuko balitz; hau da, haren ustea izateko disposizioa dut, prest nago-. Askoren artean

Propietate lehenen eta bigarrenen arteko bereizketarekin estu loturik, propietate kategorikoen eta **disposizionalen** arteko bereizketa egiten da egun. Askoren artean

Hauskorra izatearen eta gorria izatearen propietate **disposizionalen** arteko desberdintasun bat azpimarratu nahi dut. Askoren artean

## **disposizionalista** **1** *izond* disposizionalismoari dagokiona.

Horretarako erabili izan den bide bat Gilbert Ryle-k (1949) proposatu zuen gogo-egoeren tratamendu **disposizionalista** da. Askoren artean

Bereizketa klasiko hori justifikatzen duen ahalmenaren nozioaz baliatuz propietate **disposizionalen** eta kategorikoen arteko bereizketa ekarri dut gogora. Askoren artean

Horretarako gauzaren ezaugarriak eta gaitasunak era **disposizionalista** batean definitu behar dira, joera edo propentsio legez ulertuta (probabilitateen bidez). Askoren artean

**2** *iz* disposizionalismoaren aldekoa.

Atzera begiratu behar hori oso kritikatua izan da eta, **disposizionalisten** ustez, ez da beharrezkoa, posible baita zerbaiten funtzioa aurrera begira egindako teoria baten bitartez definitzea. Askoren artean

## disposizione ik **disposizio.**

disproporzionatu ik **desproportzionatu**.

# **disputa** **1** *iz* liskarra, eztabaida, eskatima. ik **demanda; sesio**[1].

Adierazgarri gerta daiteke, ikuspegi horretarik, amaren urtebetetzean izan zuten **disputa** eta eztabaida. Joan Mari Irigoien

Elkartu berriak ziruditen, baina **disputa** zaharrak zekartzaten bilerara, eta ez zuten eztabaidan berehala hasteko denborarik galdu nahi. Pako Aristi

**Disputa** moraletan bi zentzutan azter dezakegu desadostasunaren iturria. Askoren artean

**2** ***disputan***

Hala ulertu du eta polemizatu du Ortega-k 1908ko artikulu batean Maeztu-rekin **disputan** : [...]. Joxe Azurmendi

Rock taldea Alkatearekin **disputan** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta mila zarata zikin elkarren kontra **disputan** , azokako tristuran, plaza beteko tristuran. Iñaki Segurola

Mila aldiz aritua naiz berarekin **disputan** , baina alferrik: hark bereizi egiten ditu beti, nik ezin bereizi ditudanak. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **disputak eta** (3)

# **disruptibo** *izond* etetea edo haustea eragiten duena.

Neure buruari galdetu nion zergatik egiten ote zidaten hain zirrara erotiko gutxia nire aurretik bikiniaren topik gabe pasatzen ziren emakumeek, eta efektu **disruptibo** deritzanagatik izango zela erabaki nuen, alegia, hainbat figura ia berdin toki ez oso handi batean elkartuz gero sortzen den efektuagatik. Bernardo Atxaga

Gure sentsibilitateari lehoiaren begiari zebrekin bezala gertatzen zaio, itsutu egiten da, blokeatu, nahastu erabat efektu **disruptiboaren** kariaz. Bernardo Atxaga

# **distante** **1** *izond* urruna.

Bazen zerbait samurra Martaren jarrera zakar, **distante** eta itxura batez desatseginean. Harkaitz Cano

Bazuen halako idazle **distante** eta helezinaren kutsu bat emakume hark. Harkaitz Cano

**2** (adizlagun gisa)

Hainbestekoa izan zen aldaketa, Roberto bera ere konturatu egin baitzen ordura arte kasu zipitzik egin ez eta oso **distante** mantendu zela Telleria, Harkaitz Cano

# **distantzia** *(ETCn* ***19.995*** *agerraldi; orobat* ***distanzia*** *g.er. eta* ***distantzi*** *g.er.)* **1** *iz* bi punturen arteko bitartea.

Berriro neurtzen dut, nire begiez, hodeietatik bereizten nauen **distantzia** . Josu Zabaleta

**Distantzia** hori ezin neur daiteke. Josu Zabaleta

Hiru metroko **distantzia** zegoen haien artean. Patxi Iturrítegi

Mila bat metroko **distantzian** , ipar-ekialde orientazioan, arrautza formako objektu geometriko bat begiztatu zuten. Josu Landa

Gauza naiz lau kaleko **distantziara** irakurtzeko autoen matrikulak. Xabier Olarra

Legeak 250 metroko **distantzia** eskatzen baitu den gutienetik horrelako labe baten eraikitzeko. Herria

Kristalinoaren eta kornearen neurrietan eta kristalinoaren eta erretinaren arteko **distantzian** dauden gorabeherak ez dira guztiz zorizkoak. Irene Aldasoro

Pertsona bati, erabateko ilunpean, argi-puntu baten **distantzia** kalkulatzeko eskatuz. Josu Zabaleta

**-Distantzia** atxiki ezazu! Itxaro Borda

Dakusazunean mugimenduan ari diren bi gauzak denbora berean bi **distantzia egiten** dituztela, [...]. Xabier Kintana

Etxeraino jarraitu zion, neurri-neurriko **distantzia** gordez. Aritz Gorrotxategi

Mekanismo optiko horrek, bi irudi bateraraziz, objektuaren **distantzia** adierazten du eskala batean. Irene Aldasoro

Iturburutik bokalerainoko **distantzia** . Jon Muñoz

**Distantzia** hori Heletatik Hazparnerakoaren neurrrikoa dela. Piarres Aintziart

Argazki-makina bikoitz sinkronizatu bat hartu eta bi objektiboak begien arteko **distantzia** berera jarririk. Josu Zabaleta

Saihesten saiatzen gara, haien ibilbidea besteratzen, halako **distantzia** batean edukitzen. Bernardo Atxaga

Zein den lurrak aldi bakoitzean eguzkiaren inguruan biraka ari dela, eguzkira duen **distantzia** , eta zein den lurraren makurdura, egunak ere halakoxeak izango dira: batzuk gau luzekoak eta hotzak, beste batzuk gau laburrekoak eta beroagoak. Pello Salaburu

Galdu egin da isilik, poetaren hitzak airean, ametsak loaldian eta maitasuna **distantzian** edo denboran galtzen diren bezala. Felipe Juaristi

**Distantziak** memoria uzten du, gainerakoa eraman ondoren. Berria - Kultura

**2** *irud /hed*

Modulazio diatonikoa naturalagoa da, eta erosoagoa du bitarteen arteko **distantzia** . Santiago Iruretagoiena

Ez duzu hautsi nahi horrenbeste urteko **distantzia** . Lourdes Oñederra

Losintxa bat, familiaz galdetu, nonbait geratu: edozein gauza bien arteko **distantzia** laburtzeko. Patxi Iturritegi

Gauak, aitzina egin ahalean, bere logika ezarri zigun, elkarrenganako **distantzia** laburtuz hizketagaiak intimotasunera lerratu bezala. Aingeru Epaltza

Jarri duzun aurpegiarekin, erabili duzun doinuarekin, sinesten ez duenaren **distantzia** markatzen saiatu zara. Lourdes Oñederra

Aitaren etxea defendatzeko bere modua da: **distantzia** markatzen dakiena. Oteizarenganako begiramena dago Arestiren aldetik, baina baita **distantziak** markatzeko premia ere. Anjel Lertxundi

Zuka hasi zitzaidan **distantzia** eta efektu handiagoak lortzearren. Joxemari Iturralde

**Distantzia** apur bat hartu behar duzu, bestela hiriak zurrupatu egiten zaitu. Harkaitz Cano

Gaiarekiko **distantzia** hartzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gero **distantzia** ezarri dut, ez hoztasunez. Piarres Aintziart

**Distantzia** bat jarri beharra dago beti bestearekin, gehiegizko komunikazioa ez da inoiz onuragarria suertatzen. Joxemari Iturralde

Politikan, ezinbestekoa egiten da aipu markek ezartzen duten **distantzia** . Iñigo Aranbarri

Arberen meriendaren eta guk Urrestillan jaten dugun txuletaren artean dagoen **distantzia** arazo politiko hutsa da, **distantzia** politiko bat da, historiak ezarri duen espazio galdu bat, ametsez, proiektuz, balaz, ezintasunez eta odolez betetako zulo beltza. Pako Aristi

Adiskidetasunetik distantziara, **distantziatik** gorrotora, gorrotik mendekura jauzi egingo dute protagonistek. Berria - Kultura

Kontatzen dena norberaren baitan berregitea da narrazio literarioaren funtzioetako bat, **distantziak** banatzen dituen sortzailea eta irakurlea esperientziaren bidez lotzea. Iñigo Aranbarri

**3** (izenondoekin)

**Distantzia** laburretan baino ez da lortzen difusio maila egokia. Irene Aldasoro

Bizikletan **distantzia** luzeak egiten ohitua dago. Berria - Harian

Ahots hura sortu den lekura **distantzia** luzea ez badago, hitz bakoitza argi entzun eta banan bereiztu behar dugu. Xabier Amuriza

Zaldia hartu eta **distantzia** luzeak korritzera ohitu nintzen. Juan Garzia

**Distantzia** luzeko telefono-deia neure kontu izango zen gainera. Oskar Arana

Ehun bat metro izango dira handik hona, laurogei akaso, **distantzia** handia nolanahi ere. Karlos Linazasoro

Corley sarbidearen ondoan geratu zen zutik, aurreko ateko harmailetatik **distantzia** txikira. Irene Aldasoro

Bi punturen arteko **distantzia** motzena. Irene Aldasoro

Lau ikuspuntu horiek beste horrenbeste koadratze modurekin egokitzen dira (eta filmatzeko lau **distantzia** desberdinekin, orobat), eta elkarrekin adostu ezinekoak dira. beti ikusten direlako gauzak hotzago, **distantzia** handiagoaz, norberari gertatu ez zaizkionean. Josu Zabaleta

Zure ahotsaren doinuaren **distantzia** hotz hura. Lourdes Oñederra

Egiturekiko erlazio horiek halako **distantzia** psikiko bat deitu ohi den hori kalifikatzen dute. Josu Zabaleta

Ikusle baten eta balio plastikoen jokoaren arabera antolatuta dagoen irudi baten arteko **distantzia** psikologikoa erregulatu behar da. Josu Zabaleta

**Distantzia** "metafisiko" batetik begiratuta ("Jainkoaren begiarekin"), mundua dena bat ikusten da nonbait finean. Joxe Azurmendi

Ate automatikoan zehar irteten diren guztiak ikusi ahal izateko **distantzia** aproposean zutabe baten ondoan gelditu denean, igarotako urteen zamak lasaitu egin du berehalakoan. Lourdes Oñederra

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Distantziaren eta tamainaren arteko lotura oso nabarmen ageri da tipologia honen frantses-ingeles itzulpenean, zeren ingelesez **distantzia** -eskala bat baita eskala hori, *extreme long shot*-etik hasi (oso urruneko planoa) eta *extreme close-up*-eraino (oso hurbileko planoa). Josu Zabaleta

· Horrela bada, bizkor-bizkor geratzen ziren tarantasaren atzean bideko zutoin **distantzi** erakusleak. Karlos Zabala

· Garraio publikoaren **distantzia** -denbora bikoa hobetu behar dugu. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Klase- **distantzia** bat, baina berezia, izenik gabea. Joseba Urteaga

Zibilizazio-kutxa bat, bost edo sei mila urteko denbora- **distantzia** egin zuena Historiako ozeanoan zehar. Iñaki Mendiguren

CIA teknologiaz mozkortua ibili zen zenbait urtez, ordenagailuek segurtasun- **distantzia** guztiak areagotu balituzte bezala. Fernando Morillo

Badakizue nola hitz egiten duten batzuek segurtasun **distantzia** gordeta, sesioan hasiz gero zakurra eta katua balira bezala elkar ez txikitzeko? Fernando Rey

**6** ***distantzia fokal*** foku luzera.

Lauzpabost segundoren buruan niniak **distantzia fokala** kalkulatzeari ekin zion. Unai Iturriaga

Txirotasun eta miseriaren aurrean **distantzia fokala** kalkulatzen hasten diren argazkilari horiek egiten duten tankerako erreportaia egiten ari zen: kakaputa bat. Unai Iturriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ametsen distantzia** (3); **ametsen distantzia neurtzera** (3); **artean dagoen distantzia** (3); **artean distantzia** (4); **arteko distantzia** (33); **baina distantzia** (7); **behar den distantzia** (3); **besteko distantzia** (3); **bien arteko distantzia** (3); **da distantzia** (7); **dago distantzia** (3); **dagoen distantzia** (6); **den distantzia** (6)

**distantzia apur** (3); **distantzia bat** (17); **distantzia batera** (5); **distantzia berberera** (4); **distantzia berean** (3); **distantzia berera** (5); **distantzia da** (8); **distantzia desberdinetara** (3); **distantzia edo** (3); **distantzia egin** (3); **distantzia ere** (6); **distantzia eta** (13); **distantzia ez** (8); **distantzia handia** (5); **distantzia handiagoa** (4); **distantzia handiegia** (4); **distantzia hartara** (3); **distantzia hartu** (6); **distantzia hartu behar** (3); **distantzia hartzeko** (3); **distantzia hartzen** (3); **distantzia hori** (14); **distantzia horrek** (3); **distantzia horretan** (3); **distantzia horretatik** (5); **distantzia jakin** (3); **distantzia luzea** (5); **distantzia luzeko** (6); **distantzia markatzen** (3); **distantzia neurtu** (6); **distantzia neurtzera** (3); **distantzia psikiko** (6); **distantzia psikiko bat** (3); **distantzia psikikoa** (3)

**distantziak distantzia** (3); **duen distantzia** (5); **egiazko distantzia** (4); **egiazko distantzia ez** (3); **eta distantzia** (27); **ez dago distantzia** (3); **halako distantzia** (8); **halako distantzia bat** (3); **kilometroko distantzia** (5); **metroko distantzia** (4); **nire ametsen distantzia** (3); **oso distantzia** (9); **segurtasun distantzia** (3); **zuen distantzia** (3)

**arteko distantziak** (9); **arteko distantziarik** (3); **dago distantziarik** (3); **distantziak distantzia** (3); **distantziak eta** (7); **distantziak ez** (4); **distantziaren erdia** (4); **distantziaren eta** (4); **eta distantziak** (7); **eta distantziaren** (6); **ez dago distantziarik** (3); **inguruko distantziara** (4); **kilometroko distantziara** (8); **metroko distantzian** (3); **punturen arteko distantziarik** (3)

---

**distantziamendu** *iz* distantziatzea.

Oso eragingarria da Andres Lima eszena zuzendaria aktoreen artean egotea, nolabaiteko **distantziamendu** kritikoa sortzen duelako bere interbentzioekin. Berria - Kultura

**Distantziamenduak** hoztasuna ekar dezakeela. Anjel Lertxundi

Perpaus hau Barandiaran-en kritika eta **distantziamendu** bezala ailegatzen da. Joxe Azurmendi

---

**distantziatu**, distantzia(tu), distantziatzen da *ad* urrundu.

Euren alderdiak hain **distantziaturik** egon arren, emakume politikari hauen arteko kidetasuna da gaur gaurkoz etorkizunerako politika berri baten promesarik garbiena, ez emakumeak direlako, onartzen duten politikaren logika desberdina delako baizik. Joseba Zulaika

---

**distantziatxo** *iz* distantzia txikia.

Bere gorputzetik halako **distantziatxo** batera bizi zen Duffy jauna, bere ekintzei begi-zeharka eta zalantzakor begira. Irene Aldasoro

---

distanzia ik **distantzia**.

---

**distentsio** **1** *iz* harreman, egoera edo kideko baten tentsioak behera egitea.

Zahatoa lagun genuela gazta puska bana jan genuen hirurok, une hartako **distentsioa** baliatuta. Juan Luis Zabala

Bakea eta **distentsioa**, ezkutuko elkarrizketetatik baino ez daiteke etor. Joxerra Garzia

Gobernu autonomoaren eta zentralaren arteko harremanen bideratzearekin sortutako **distentsioa** dela-eta, [...]. Berria - Ekonomia

Aldi berean, ekoizpen-ahalmenen **distentsioak** prezioak jaistera bultzatzen ditu enpresak. Koro Navarro

Elkarrizketa eta negoziazioaren bidetik, hitzezko eta egitezko **distentsiotik** etorriko da konponbidea. Berria - Harian

Sumindura **distentsio** bihurtzeko, inkomunikaziotik elkarrizketara igarotzeko. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zalantzarik ez dago **distentsio** prozesu horien balioaz eta efektu politikoaz. Berria - Harian

Espainiako Gobernuari **distentsio** neurriak «kemenez» har ditzan eskatu zion, bereziki «euskal preso guzti-guztiak Euskadira hurbiltzeko». Berria - Harian

Estatuari **distentsio** politika bati ekin diezaion eskatzen diogu. Berria - Euskal Herria

Alderdi eta eragile abertzaleek **distentsio** keinuak eskatu dizkiote Zapaterori, besteak beste, espetxe politikan aldaketak egin ditzala. Berria - Harian

Gatazka gaindituzeko **«distentsio** ahaleginak» beharrezko direla. Berria - Euskal Herria

Egun dauden aukera politikoen aurrerabidea sendotzeko, funtsezkoa da azkar eta erabakitasunez **distentsio** garai batean sartzea. Berria - Euskal Herria

**3** ehunez eta lotailuez mintzatuz, luzatze bortitza.

Aitor Lopez Rekarte eskuin hegalekoak, berriz, **distentsioa** izan zuen. Berria - Kirola

Eskuin belauneko alboko barne lotailuan **distentsioa** du aurrelariak. Berria - Kirola

Eskuin belauneko lotailuetako **distentsio** baten ondorioz hiru astez jokatu gabe egon ostean. Berria - Kirola

Erresonantzia magnetikoak uste baino emaitza hobeak erakutsi zituen, ez zegoen zuntz hausturarik, gihar **distentsioa** baizik. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **distentsio keinuak** (4); **distentsio neurriak** (4); **eta distentsio** (3); **eta distentsioa** (5)

---

**distiko** *iz* bi lerroko ahapaldia.

Halabeharrak nahi izan zuen, edo beharbada zoritxarrak, hitz uniboko hauek lerro bakarrean elkar zitezen, modu honetan legenda baten indarrarekin aurkezten direlarik, **distiko** bat bezalakoak dira, erranairu erantzunezina bezalakoak. Jon Alonso

---

**distikor** *izond* distirakorra.

Gero, haizearen indarra behar beste berotu denean eta suaren oldar larria gehitu zaionean, orduanoinaztuak, heldua bailitzan, hodeia bet-betan apurtzen du eta gar bizkorra sortzen da, bere argi **distikorra** bazter guztietara helaraziz. Xabier Amuriza

---

distilatu ik **destilatu**.

---

**distira** *(2903 agerraldi, 239 liburu eta 281 artikulutan; ETCn 14.173 agerraldi; orobat* ***disdira*** *g.er. ETCn 84 agerraldi;* ***dixtira*** *g.er. eta* ***dizdira*** *ETCn 251 agerraldi)* **1** *iz* zerbaitek berez ematen edo islatzen duen argi bizia. ik**dirdai; dirdira.**

**Distira** eta handitasuna ditu inguruan, indarra eta poza bere bizilekuan. Elizen arteko biblia

Argitsua da jakinduria, itzalezina haren **distira**. Elizen arteko biblia

Haren eskuei **distira** darie, han baitauka gordea bere indarra. Elizen arteko biblia

Kirtenari **distira** emateko gaiaren potea. Iñaki Mendiguren

Airearekin jostatzen, aireak jostailu zituen hostoei **distira** emanez. Juan Garzia

Eguzkia beheranzko bidean bazen ere, berebiziko **distira** atera zion lapurrak gerritik zintzilik zeraman aiztoari. Anjel Lertxundi

Gurasoen arreoko zilarreriaren piezei banan-banan **distira** ateratzen. Anjel Lertxundi

Ingoren hilarriko letrek **distira** galdu zuten. Anjel Lertxundi

Izarren **distirak** edertzen du zerua. Elizen arteko biblia

Gure bihotzetan bere obraren **distirak** argi egiten digun bitartean behinik behin. Joxean Agirre

Eguzkiak urrezko eta brontzezko babeskiak jo zituenean, **distirak** argitu egin zituen mendiak, lastargi izekiak bailiran. Elizen arteko biblia

Eguzki beteak, gorenean, pozezko **distirak** eragiten zituen neskaren organdizko soinekoan. Anjel Lertxundi

Haren bekozkoak, haren begien **distirak** adierazi zidaten okerretik nindoala. Aingeru Epaltza

Leunaren leunaz eta **distiraren** distiraz masailak satenaren pareko utzi arte bizarra egin. Jose Morales

Begien **distiran** ezagun zuen gogotik hartuko zuela eskupekoa, apezaren ondoan etzatearen ordain. Aingeru Epaltza

Ehun neska-mutil haien atzetik Pekingo printzea etorri zen[...] ehun morroik bultzaturiko gurdixka baten gainean eserita, dena gorri, dena **distira**. Felipe Juaristi

**2** (-en atzikizkiaren eskuinean)

"Aita hil egingo da" esan nion neure buruari, zeru zati karratuan izar baten **distiraren** bila. Ramon Saizarbitoria

Zaldizkoen oldarra, ezpaten **distira**, lantzen tximistak! Elizen arteko biblia

Labanaren mihiaren **distira** miretsi zuen. Itxaro Borda

Faroaren **distira** bakarrik sartzen zen momentu batez geletan. Anton Garikano

Hortz-haginen **distira** ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Eguzkiaren **distira** honelakoa da, ilargiarena halakoa eta izarrena bestelakoa. Elizen arteko biblia

Uraren **distira** bazterretan... Patziku Perurena

Irudimenak lizunkeriaren sugarra erraz pitz baitezake [...] edota bihotz garbiaren **distira** lausotu. Askoren artean

Quenu-Gradelletarren urdaitegi handiaren **distira** itzaltzen ari zen. Karlos Zabala

Gerrialdetik gora metal goriaren **distira** bezalako argitasunez inguratua. Elizen arteko biblia

Bere begietan bustiaren **distira** azaldu zen, nire erantzunak hunkitu izan balu bezala. Bernardo Atxaga

Izarren **distiratik** urrun dagoen norbait, gazteentzat eredugarria, profesional aparta. Berria - Kirola

**3** (izenondoekin eta izenlagunekin)

Zerutik **distira** handi bat irteten zela iruditu zitzaion. Askoren artean

Lantza Santuak gero eta **distira** biziagoa zabaltzen zuen. Alberto Ladron Arana

Kontrabidean datozen autoen-eta argi-printzek **distira** urdin-gorri azkarrak eragiten dituzte autobuseko kristaletan eta sabaian. Anjel Lertxundi

Patrikatik zilarrezko domina atera zuen, zilarrezko katea bati lotua, **distira** berezikoa. Felipe Juaristi

Zakur-zulotik bi **distira** biribil dagozkio begira-begira. Anjel Lertxundi

**Distira** hotza eta hutsa zuen harriak. Ander Irizar

Soldaduari eroria zitzaion buruko musuzapia eta orain haren burusoilak **distira** izerditsu bat zabaltzen zuen ilunabarreko argi gorrixkaren pean. Alberto Ladron Arana

**Distira** sakon bat begi grisetan. Alberto Ladron Arana

**Distira** urrun, hits eta gorrixka zuen, arratsaldeko azken ordukoa. Agustin Otsoa

-Zuk uste? -begiratu zidan **distira** nekatu batez-. Juan Kruz Igerabide

Eguraldiak ere **distira** berezia eman zion omenaldi egunari. Joxean Agirre

**Distira** harrigarria zuen suzko gurdi bat sartu zen etxeko atetik eta hiru jirabira egin zituen batetik bestera. Halako argiaren **distira** miragarriaz kanpotik gidatuak eta barrutik indarberrituak, bidearen zati on bat Jainkoari gorazarreak eta gorespenak kantatzen egin zuten. Askoren artean

Gorputzeko **distira** harrigarri hura barne-argitasun miragarriaren adierazgarri balitz bezala. Askoren artean

Iparraldetik zetorren elur eta zilarrezko **distira** ikusi zuen. Agustin Otsoa

Haien jolasak eta begien etengabeko **distira**. Xabier Olarra

Kemenezko **distira** bat begietan, Fionnek ezpata zorrotik atera eta airera altxatu zuen. Joanes Urkixo

Kale-argien **distira** mamu-sortzailea. Aingeru Epaltza

**4** irud/hed

Saioa ez zen txarra izan, baina **distira** falta izan zitzaion. Berria - Kultura

Horri esker lortuko du bertsoak **distira**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Distira** gutxiko finalak Antiguan. Berria - Kirola

Jan Ullrichen parte-hartzeak emango dio **distira** handien Suitzako Itzuliari. Berria - Kirola

Jerusalemek **distirazko** etorkizuna. Elizen arteko biblia

Haren begi lausotuek ezin diote eutsi zure perfekzioaren **distirari**. Askoren artean

Zailtasun hauen guztion irtenbidea aurkitzean dago Lukrezioren talentuaren **distira**, ez orain poeta gisan bakarrik, *tout court* idazle gisan baizik. Xabier Amuriza

Baina Txekiako selekzioaren **distira** itzaltzen joan zen. Berria - Kirola

Cenci familiaren **distira** paregabea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hamabost egunez, joko olinpikoen **distira** mundu osora hedatuko da Greziatik. Herria

Eta nola ez ikusi gizarteko garailearen **distiran** berezko tontotasunaren seinale garbi bat? Iñaki Segurola

Haren begi lausotuek ezin diote eutsi zure perfekzioaren **distirari**. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Distira** marra bat gau beltza ezabatzen. Ilunabarreko eguzki-printza bat sartu zen leiho irekitik, eta haren **distira**-ildoan hauts-ale urreztatuak zebiltzan dantzan. Urtzi Urrutikoeetxea

Nahiz eta bertso horrek ez duen izango segur aski [...]. lehen pentsatuaren **distira** mailarik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Denek lan aspergarri batekin zokoratu zuten dohaina betirako, bizimodu gris batekin ilundu zuten euren **distira**-gune bakarra. Pako Aristi

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argi-**distiraren** intentsitatea berdina zen kasu guztietan. Xabier Olarra

Argi-**distira** zuri-urdin bat irten zen bi makilen muturretik. Iñaki Mendiguren

Beiraren baten ñirñir iheskorrak olatu baten zilar **distira** argitzen zuen haien erdian. Karlos Zabala

Kopa, ezkutu, plater eta estatuek zilar- eta urre-**distira** botatzen zuten ilunpetan. Iñaki Mendiguren

Hodeiek brontze **distira** ematen diote itsasoari. Koldo Izagirre

Ur sorginduak kristal-**distira** izoztuak islatzen ditu. Itziar Otegi

Begi-**distira** horrek bihotzetik heltzen badik, arimaren barreneraino sartuko zaik gezi baten antzera. Jose Morales

Jaroslavek ez zion ulertu, baina Kafkaren begirada zeharkatzen zuen labana **distira** hark konbentzitu zuen. Harkaitz Cano

Nahiz eta horrek ez zuen deus aldatzen eta ez zion inongo aldetik ezer kentzen haren gaztetasun-**distirari**. Oskar Arana

Ukabilaz beste eskua jo zuen, begietan ohiko ero-**distira** zuela. Iñaki Mendiguren

Baina ez nian nahi egiazaletasun-**distira** bitxi haiek, nahiz eta apur bat kezkagarriak izan, nire zoriona lausotzerik. Xabier Olarra

Ulermen-**distira** moduko bat sumatu uste izan zuen aurpegietan. Jon Muñoz

**7** ***distira egin*** ik **distiratu.**

Ez baitugu gorputzik, izarren moduan **distira egin** dezakeenik. Felipe Juaristi

Eguzkiak **distira egiten** zuen nire buruaren gainean. Juan Kruz Igerabide

Sinaitik dator Jauna, Seir aldetik sortu da argia bezala, Paran menditik **egin** du **distira**. Elizen arteko biblia

Bere aurpegiak **distira egiten** zuen hori esaterakoan. Julen Gabiria

Valentziara iritsi baino geltoki batzuk lehenago Albufera ikusi zen, ispiluaren gisa **distira eginez**. Josu Zabaleta

Eguzkia ezkutatzen ari zen itsaso aldetik, eta armadurak **distira egiten** zuen, hain zegoen garbia. Felipe Juaristi

Kamamilek **distira egiten** dute ihintzak zipriztindurik. Juan Garzia

Izuak **distira egin** zuen Juana Bixentaren begietan. Anjel Lertxundi

Emaiezu kemena, eutsi diezaioten; garbi itzazu, **distira egin** dezaten. Askoren artean

Itzalpean bizi zirenei argiak **egin** die **distira**.

· Izarrek **distira** dardaratia **egiten** zuten zeru beltzaren atze-atzetik. Josu Zabaleta

Lantxurda-tantek **distira** esnetsua **egiten** zuten ilunpeetan. Anjel Lertxundi

**8** ***disira eginarazi*** distira eragin.

**Distira eginarazten** dizue. Koro Navarro

**9** ***distira-emaile*** *iz* gauzakiei distira emateko produktua.

Tabernan **distira**-emailearen eta zerrauts freskoaren usaina zegoen. Lopez de Arana

Lasterketa-erratz honek lizarrezko kirten aerodinamiko superfina dauka, diamantea bezain **distira-emaile** gogor batez tratatua da. Iñaki Mendiguren

Barruan pote handi bat zegoen, Fleetwood markakoa, erratz-kirtenentzako **distira**-emailearekin. Iñaki Mendiguren

**10** ***distira eragin***

Gizajo hori Gorteko jaunen zapatei **distira eragiten** Donostian uda alai bat bota nahi izan zuelako. Koldo Izagirre

Bedeinkatua izan dadila itzain ezezagun hura, ene pentsamenduari **distira eragiteko** eta, jakin gabetarik, ene arimaren oroitze magiko hau sortzeko ahalmena ukan duenez! Koldo Izagirre

**11** ***distira izan*** du *ad*

Badira zeruko izakiak eta lurrekoak, baina zerukoek eta lurrekoek ez **dute distira** bera. Elizen arteko biblia

Txinan ere, **distira duen** oro ez omen da urre. Berria - Ekonomia

Teilatuen gaineko zeruak bioleta koloreko **distira zuen**, ilargirik gabe, izarrik gabe. Koro Navarro

Baina haren begiek berebiziko **distira zuten**. Karlos Zabala

Sarrailak aho itxiaren gisako **distira zuen**. Matías Múgica

Haren gorputzak harribitxia zirudien, aurpegiak tximistaren **distira zuen**. Elizen arteko biblia

Metal goriaren **distira zuen**, eta suaren antzeko zerbaiten erdian zegoen. Elizen arteko biblia

· Banbu hostoek zilar **distira zuten** goizeko argitan, eta haizeak higitzen zituen. Ibon Uribarri

**12** ***distira-ez*** *iz*

Ibilbide luzeko trenek hauts gehiago eta neke gehiago zuten gainean, lurralde ezberdinetan zahartu denaren txapa-azala, beste garai bateko ukitu bat, herdoilera iristen ez den **distira**-ez bat. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aintzaren distira** (3); **aintzaren distira eta** (3); **argi distira** (10); **argiaren distira** (6); **argien distira** (5); **aurpegiak distira** (3); **aurpegiak distira egiten** (3); **baina distira** (5); **baitzuen distira** (3); **batek distira** (4); **bateko distira** (5); **baten distira** (21); **baten distira ikusi** (3); **begiek distira** (5); **begien distira** (9); **begietako distira** (8); **begietan distira** (10); **bere distira** (21); **beren distira** (7); **beste distira** (4); **beste distira bat** (4); **bezala distira** (5); **bezalako distira** (6); **den distira** (5); **die distira** (3)

**distira ageri** (4); **distira ahula** (3); **distira apur** (4); **distira apur bat** (4); **distira atera** (3); **distira ateratzeko** (5); **distira ateratzen** (7); **distira ateratzen ari** (3); **distira bat** (22);

distira begietan (3); distira bera (5); distira berde (3); distira berezi (4); distira berezi bat (3); distira berezia (7); distira betean (3); distira bitxi (3); distira bizi (6); distira bizia (6); distira biziak (4); distira botatzeko (3); distira da (3); distira dezan (3)

distira egin (49); distira egin zuen (16); distira egin zuten (9); distira eginez (3); distira egingo (6); distira egitean (4); distira egiten (98); distira egiten duen (4); distira egiten dute (6); distira egiten zion (5); distira egiten zuela (3); distira egiten zuen (37); distira egiten zuten (28); distira eman (5); distira emateko (7); distira ematen (8); distira erakusten (3); distira ere (7); distira eta (35); distira eta beronen (3); distira ez (5); distira falta (3); distira galdu (3); distira galdua (4); distira gorri (9); distira gorrixka (4); distira gutxi (4); distira guztia (3); distira handia (3); distira handiagoa (3); distira handiko (12); distira harrigarri (3); distira hori (7); distira hotz (3); distira hura (7); distira ikus (3); distira ikusi (9); distira ikusi zuen (4); distira ikusten (5); distira iluna (3); distira itzali (3); distira itzaltzen (5); distira izan (5); distira izugarria (3); distira paregabea (3); distira pixka (3); distira pixka bat (3); distira urdin (3); distira urrun (3); distira zabaltzen (3); distira zen (4); distira zerion (4); distira zuen (13); distira zuri (3); distira zuten (10)

du distira (9); duen distira (4); duten distira (3); edo distira (4); egin die distira (3); egin zuen distira (3); egiten du distira (5); egiten zuen distira (4); eguzkiak distira (4); eguzkiaren distira (13); eguzkitan distira (5); eguzkitan distira egiten (4); ere distira (9); errautsen distira (3); eta distira (56); eta distira egin (5); eta distira egiten (5); eta haren distira (3); etengabeko distira (3); ez zuen distira (4); ez zuten distira (3); garai bateko distira (4); gero eta distira (3); haien distira (3); hain distira (4); halako distira (11); halako distira bat (3); haren distira (14); horren distira (3); igurtzi zuen distira (3); ilargiak distira (6); ilargiaren distira (6); izarrek distira (3); izarren distira (3); jainkoaren aintzaren distira (3); koloreko distira (5); labanaren distira (4); lantzak distira (3); longinos lantzak distira (3); uraren distira (3); urrearen distira (5); urrezko distira (3); zen distira (10); zilar distira (4); zuen distira (19); zuen distira ateratzeko (3); zuten distira (11)

argi distirak (4); baten distirak (3); begien distirak (4); distirak eragiten (4); distirak eta (8); eguzkiaren distirak (3); haren distirak (4); ilargiaren distirak (4); izarren distirak (4)

argi haren distiraz (3); begiak distiraz (5); begien distiran (3); bere distiraz (4); distirarik ez (7); distirarik gabe (6); distirarik gabeko (6); distiraz betea (3); distiraz betetako (4); distiraz eta (7); distiraz inguratu (3); eta distirarik (3); eta distiraz (4); ez zuen distirarik (3); izarren distirarik (3)

---

## **distiradun** *izond* distira egiten duena.

Sei kilometro egin zituen oinez John Shillito-renera, erosteko xingola horia, botoi **distiradunak** eta parpaila beltza. Anton Garikano

---

## **distiradura** *iz* distira.

Eguzkia hondoratua zen jadanik, baina akaberako **distiradura** halako batek pizturik zeukan lautada bizi isila, gauak ezabatu aurretik. Juan Garzia

---

## **distiragabe** 1 *iz* distirarik ez duena.

Estalkien islara orban hori bat ematen zuen, baina argiagoa, ezpainak, eta begi niniak ere, margul, eta haragia bezala zurbil eta **distiragabe** bihurturik, bereizten ere ez zirela. Josu Zabaleta

Zapata **distiragabeekin** / oinak arrastaka. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Posta elektronikotik etorritakoa laburtzeko lan **distiragabeari**, hizkera periodistikoaren ustezko bizitasunaren kolorea baizik ez nion erantsi. Aingeru Epaltza

Mutil **distiragabe** baina segurua gertatu zen, fidatzeko modukoa: eta esperientziak erakusten du horixe dela, fidagarritasuna, bertuterik iraunkorrena, inon erosten ez den eta sekula galtzen ez dena. Juan Garzia

**3** ***distiragabeko*** *izlag* distiragabea.

Nire mahaitik gertu emakume gazte eta beltzaran bat zegoen, azal **distiragabekoa**, ezpain txiki eta lodiak zituena. Joseba Urteaga

---

## **distiragabetasun** *iz* distiragabea denaren nolakotasuna.

Aristokraziak gaizkiaren ezaugarri oro arbuiatzen du: makurkeria, koldarkeria, iluntasuna, ahultasuna, **distiragabetasuna**, taldetasuna eta abar. Askoren artean

---

## **distiragarri** 1 *izond* distira egiten duena, distiratsua. ik **distirant; distirakor**.

Denak jantzi zuri eta **distiragarriekin** apaindurik eta mutil ezin ederragoen itxura hartuta. Jon Alonso

Plaza, batez ere, **distiragarria** da. Koldo Izagirre

Strass **distiragarriz** lotzen ziren zapata ikaragarri altuak, zerurik urrunenera iristeko gai ziruditen plataforma sentsualak. Jasone Osoro

Azken bertsoa laino atzetik irtendako eguzkia bezain **distiragarria** da, iturriko ura ez da gardenago. Anjel Lertxundi

Filosofiako arazoek kezkatzen duten edozein pertsona argituk bere begiak orri hauetara begira jartzea aski izango du, bere baitan argitasunik **distiragarriena** piztu dakion. Josu Zabaleta

**2** (izen soila -en atzizkiaren eskuinean)

Kamiseta laburrak agerian uzten duen gerrialdean izerdi-geruza mehea, azal leunaren **distiragarri**... Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **distiragotu**, distirago(tu), distiragotzen du *ad* areago distiratu.

Mutilaren kalez-kaleko itxurak, edertasunaren ikuskizuna eragotzi ordez, indartu egiten zuen kontrastez, belar apalen konpainiak lore-sorta biziak **distiragotzen** dituen gisa, arropa adabakitsu zarpailek estaltzen zuten gorputz hark ez baitzuen ederrean berdinik. Anjel Lertxundi

---

## **distiraka** *iz* distira eginez.

Geldi zeuden, erregearen soldadu harroek inguraturik, burdinazko bularra **distiraka** egunsentian. Felipe Juaristi

Behean, urrun, Elronden etxeko lanparak ikusi zituzten **distiraka**. Agustin Otsoa

Zure gainean izarrak **distiraka**, badirudi gaueko haize finak "maite zaitut" dioela. Gotzon Garate

Atsoak pizturiko metxa bat ari zen **distiraka**. Koldo Izagirre

Bere begiak **distiraka** hasi ziren jakin-minez, bi izarren antzera. Felipe Juaristi

Itzuli zenean, **distiraka** zekarren monokuloa begian. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

begiak distiraka (3); distiraka ari (7); distiraka zituen (3)

---

## **distirakor** *izond* distira egiten duena. ik **distirant**.

Lagunok, urrea, zeinarekin konparatzen baitute maitasun hau, hain da aratza eta **distirakorra**, non doi-doi eusten baitiote begiek. Joan Mari Lekuona

Gizakiaren bihotza alaitzen duen ardoa, aurpegia **distirakor** egiten duen olioa eta giza indarrak berritzen dituen ogia. Elizen arteko biblia

---

**distiraldi** 1 *iz* distirazko aldia.

**Distiraldien** arteko denbora tarte hori laburra den bitartean, aldi berean gertatutakotzat pertzibitzen dira **distiraldiak**. Josu Zabaleta

Gaizki bereiziko dituzte, argi ahul luze samar bat eta **distiraldi** labur bizi bat, emititzen den energia-kopurua bietan berdina baldin bada. Josu Zabaleta

**Distiraldiaren** argitan, zuhaitzaren enborrean Martin ikusi, eta tiro egin zuen ostera ere. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Bigarren eragina **distiraldi**-segida bat, elkarren segidan oso bizkor. Josu Zabaleta

· Gar-**distiraldiren** bat sumatzen zuenean, kanpaia jotzen zuen behealdeko jendeari abisatzeko. Koro Navarro

---

**distiramen** *iz* distira; distira-ahalmena.

Babiloniak, Londresek eta New York-ek **distiramen** ankerrez sustatu izan dute gizonen irudimena. Juan Garzia

---

**distirant** *(45 agerraldi, 20 liburu eta 12 artikulutan; ETCn 218 agerraldi; orobat* ***distirante*** *ETCn 26 agerraldi; g.er. eta* ***dixtirant*** *ETCn 4 agerraldi)* *izond* distira egiten duena, distiratsua. ik **distiragarri; distirakor; distiratzaile.**

Maleta zurrunak eta metalezko kutxa **distirantak**, berriz, oso-oso astunak aise suma zitekeenez, mordoka abiatu ziren horrela zalgurdietan. Txillardegi

Zerua batetik bestera gurutzatzen zuen hodei luze bikoitzaren marra morea, gorri bihurtu zen azkar, baita laranja **distirant** ere gerora. Txillardegi

Poltsatik praka motzak atera zituen, borrokarako bereziak, zeta ematen zuen oihal **distirantezkoak**. Josu Landa

Haien gainean, murrutik dilindan, arrosa kolorezko bihotz **distirant** handi bat, piztuak ziren elektrika-anpuluz hornitua. Aurelia Arkotxa

Han, urrun, pixka bat ezkerretik, West Bay eta East Bay elkartzen diren lekuan, Long Pointeko punta mehe luzea, uraren blu **distirantean** izpi horailez piztua. zurezko eskultura ikusgarri legun **distirantak**. Aurelia Arkotxa

Neguko haize zakarra, kale heze **distirantak**. Oskar Arana

Gona luze **distiranteko** gazte bati besotik helduz. Txillardegi

Zurezko zoruak ezin **distirantago** edukitzeko. Iñaki Iñurrieta

---

distirante ik **distirant**.

---

**distirantedun** *izlag* distiranteko.

Beraz, bota **distirantedun** alkateak bere lanpostuan mantendu zuen Floren, udal jagolea. Eider Rodriguez

---

**distirarazi**, disdiraraz, distirarazten *(orobat* ***distirazi****)* du *ad* distiratzera behartu, distira eragin.

Euriak karrika zolak **distirarazten** zituen. Itxaro Borda

Eguzkiak haren ezpata **distirarazi** zuen. Anjel Lertxundi

Gu izan ezik, beste inor ez, mutikoa eta biok, inguruan euri-uholdea, bera kukubilko eta nire zapatak **distirarazten** bere zapiarekin, zirt-zart... Joxe Austin Arrieta

Bere bizitzan zehar Jaunak miragarriro **distirarazi** zuen gizon harrigarri hau [...] heriotzan are eta distiratsuago egin zuen. Askoren artean

Eguzkiak buruak argitzen ditu, alaitsu **distirarazten** dio aizkorari, eta burua moztuko dioten gizonak berak ere irribarre egiten du. berdel urrekarek, bizkarra txartatu berdexkez ildaskatuta, beren saihetsetako nakar aldakorrari **distirarazten** zioten. Jose Morales

Neskak eraztunak, besokoak, belarritakoak zituen jantzita, argi mehean **distirarazten** ziotenak. Koro Navarro

Janari osatuak jainkotiarren bihotza alaitzen du eta haien aurpegia **distirarazten**. Xabier Olarra

Nire pausoen hotsa farolen argiak **distirazitako** espaloi bustian, ur-putzuetan, tarte belartsuetan. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> distirarazi zuen (4)

---

**distirari** *izond* distiranta.

Bandera gorria zeruan kulunka zuten bi goleta ingelesen ondoren hiru mastako brasildar ontzi bikain bat zihoan, zuri-zuria, harrigarriro garbi eta **distirari**. Josu Zabaleta

Elur-puska bat bailitzan zuriz **distirari**. Josu Zabaleta

---

**distiratasun** *izond* distira.

Hauen **distiratasunak** liluraz bete zituen hasieratik ikusliarrak. Berria - Kultura

---

**distirati** *izond* distiratsua.

Hortik aurrerakoa hogei metro ezkerretara zihoan gurdi eskegiaren beheko plataforman zegoen automobilari erreparaka pasatu zuen, haren gurpil-oskola biribil **distiratiei** mira eginda. Josu Landa

---

**distiratsu** *(1387 agerraldi, 187 liburu eta 136 artikulutan; ETCn 6.991 agerraldi; orobat* ***disdiratsu*** *ETCn 83 agerraldi;,* ***dixtiratsu*** *g.er. eta* ***dizdiratsu*** *g.er.)* **1** *izond* distiratzen duena, distiraz betea. ik **dirdaitsu; dirdiratsu.**

Diamante **distiratsu** batek estaltzen omen zuen erregearen kutxako sarraila-zuloa. Anjel Lertxundi

Izan ere, Eguzkia izar **distiratsu** bat baino ez da Plutonetik begiratuta. Berria - Gaiak

Harkaitz gorri, malkartsu eta **distiratsu** batzuek inguratzen dute. Fernando Rey

Frantzisko eta Domingo santuak, munduko bi argi **distiratsu** haiek, Erroman zeuden. Askoren artean

Pazifiko anaiak bi ezpata **distiratsu** ikusi zituen santuaren ahoan. Askoren artean

Alde batean bizitza ikusten zuen, eta beste aldean heriotza, bi itsaso **distiratsu**, sakon, ederren antzera, eta horizontean elkartzen ziren, mugarik gabeko eremu zabal batean. Jose Morales

Bihotza esker onezko irri **distiratsu** batez ari zitzaidan taupaka. Oskar Arana

Non daude Danelen festa **distiratsu** haiek, non dantzarien poztasuna. Anjel Lertxundi

Abiatzeko eguna iritsi zen azkenik, eta segizio **distiratsu** eta oparoa iparraldera zaldiz joateko prestatu zen. Agustin Otsoa

San Migel, aingeru **distiratsu** gailena, ezpataduna, zeruetako heroia, garailea, Satanen menderatzailea. Josu Zabaleta

60ko hamarkadaren hastapenean ezagutu nuen Parisen, ikasle **distiratsu** eta lagun on. Herria

Abuztu bereziki argi eta **distiratsu** batean, arratsalde batez, zoriontsu nintzela jakin baino urte batzuk lehenago. Koro Navarro

Nik, berez, txantxetan esan nuen, baina Sabethi ideia **distiratsua** iruditu, eta horra, benetan abiatu behar pikondo baten bila, landan barrena. Joxe Austin Arrieta

Oparotasun **distiratsu** hau haizepe puzten da ezin esan ahalako harrotasun eta arrandi batean. Koldo Izagirre

Ile **distiratsuko** mutilak eta adats laburreko neskak pega-pega eginda ari ziren dantzan. Lopez de Arana

Begi urdin **distiratsuko** emakume itsu bat zen abesbatzaren zuzendaria. Xabier Olarra

Beste gazte batzuk, ile leun **distiratsukoak**, aurpegi-zurbilak, mozkoteak, matrail-hezur markatuak eta begi sakonak zituztenak, [...]. Koro Navarro

Beltzarana zen, begi **distiratsu** eta irtenekikoa, aurpegia espresio bizikoa, hitz-arina, adimen bizkorrekoa. Josu Zabaleta

San Frantziskok berak bisitatu zuen eta argi handi-**distiratsu** batek inguratu zuen goizera arte. Askoren artean

Sua pizteko agindu nuen, su handi **distiratsua** egiteko. Felipe Juaristi

Neska begi-argiak, sofan lirain eta tente eserita, irribarre **distiratsua** egin zion mutilari. Mirentxu Larrañaga

**Distiratsua** zuen irribarrea. Ramon Saizarbitoria

Larrua beltza zuten eta **distiratsua**. Felipe Juaristi

Mercedes berri-berri bat zen, urdin iluna, egun hartako zerua bezain **distiratsua**. Migel Angel Mintegi

Modu **distiratsuan** bukatu da OLBEren 52. denboraldia. Berria - Kultura

**2** (izen soila izan aditzarekin)

Eder eta **distiratsu** da dirdira bizitan: zure, Goi-goiko horren, irudi da. Askoren artean

Ilargia bezain handi eta eguzkia bezain **distiratsu** zen izar bat bezalakoa zen. Edorta Jimenez

Haren begiak sugarra bezain **distiratsu** ziren, buruan diadema asko zituen eta berak beste inork ez zekien izena zeraman idatzia. Elizen arteko biblia

Tabernako emakumeak **distiratsu** zituen begiak. Anjel Lertxundi

Gorritua zuen Patriciak sudur punta, masailak ikatz puskak balira bezala **distiratsu**. Koro Navarro

Begiak **distiratsu zituen**, eta irri maltzur higuingarria ezpain inguruan. Iñaki Mendiguren

Ez zekien aurpegia **distiratsu zuela**, Jaunarekin mintzatu izan zelako. Jose Antonio Mujika

Koroa **distiratsu izango** zara Jaunaren eskuan, errege-diadema zeure Jainkoaren eskuan. Elizen arteko biblia

**3** (adizlagun edo predikatu gisa) ik **distiratsuki.**

Ester **distiratsu** zihoan, guztiz eder. Elizen arteko biblia

Marte **distiratsu** dago gaur gauean. Iñaki Mendiguren

Garbi-garbia zegoen ontzigaina, **distiratsu** zeuden berunezko karel-barandak eta soka-gakoak. Anjel Lertxundi

Bularra eta bizkarra **distiratsu** zeuzkan izerdiagatik. Bernardo Atxaga

Munduko alde ezberdinetan egindako mirari eta egintza harrigarrien bidez, **distiratsu** agertzen da. Askoren artean

Zerua oskarbi zegoen, desagertua zen haizea, eta ilargi beteak **distiratsu** argitzen zuen mendebaldean. Koro Navarro

Zorua eta mahaiak **distiratsu** bernizaturik. Jose Morales

Distira egiten baitzuen zeruaren kontra, perla eta zilarrezko galburua bezain **distiratsu**. Agustin Otsoa

Isilik geratu zen, ezpainak **distiratsu**. Lander Garro

Basozain botak zeramatzan, makinako olioz **distiratsu** galtzak. Koro Navarro

Txahal-hezur bat marraskatzeari ekin zion, masailak koipez **distiratsu**. Jose Morales

Hegalak ere **distiratsu**, hutsunean finko, zabukaldirik gabe dagoeneko, oskarbian geldi. Joxe Austin Arrieta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Giuaren semea, Parisen uneoro Mariorekin egoten zen mutil zurbil begi-**distiratsu** hura, borrokan hil zen Espainian. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argi distiratsu** (5); **argi eta distiratsu** (3); **aurpegia distiratsu** (9); **aurpegia distiratsu zuela** (4); **begi distiratsu** (6); **begi distiratsu eta** (5); **begiak distiratsu** (15); **begiak distiratsu zituen** (3); **beltz distiratsu** (4); **bezain distiratsu** (27); **bezain distiratsu zen** (4)

**distiratsu ageri** (10); **distiratsu ageri zen** (3); **distiratsu agertu** (4); **distiratsu agertzen** (5); **distiratsu argi** (3); **distiratsu azaltzen** (3); **distiratsu baina** (4); **distiratsu bat** (63); **distiratsu bat ikusi** (3); **distiratsu bat zen** (3); **distiratsu batean** (5); **distiratsu batek** (9); **distiratsu baten** (21); **distiratsu baten antzera** (3); **distiratsu batez** (5); **distiratsu batzuk** (3); **distiratsu bihurtu** (4); **distiratsu dago** (3); **distiratsu dago gaur** (3); **distiratsu egon** (3); **distiratsu eta** (34); **distiratsu guztiak** (3); **distiratsu haiek** (6); **distiratsu haiekin** (5); **distiratsu hark** (3); **distiratsu hartan** (5); **distiratsu hartatik** (3); **distiratsu hau** (3); **distiratsu hori** (3); **distiratsu hura** (7); **distiratsu ikusi** (4); **distiratsu ikusten** (6); **distiratsu zegoen** (8); **distiratsu zen** (4); **distiratsu zen izar** (4); **distiratsu zeuden** (9); **distiratsu zituela** (10); **distiratsu zituen** (4); **distiratsu zuela** (4)

**eder eta distiratsu** (3); **eguzki distiratsu** (3); **eguzkia bezain distiratsu** (9); **eguzkia distiratsu** (3); **ere distiratsu** (3); **eta distiratsu** (53); **eta distiratsu bat** (8); **eta distiratsu batean** (3); **eta distiratsu zegoen** (3); **ezpata distiratsu** (3); **garbi eta distiratsu** (6); **gorri distiratsu** (3); **guztiz distiratsu** (4); **hain distiratsu** (3); **handi distiratsu** (4); **handi eta distiratsu** (3); **hego distiratsu** (3); **hego distiratsu zituela** (3); **hodei distiratsu** (3); **ilargia distiratsu** (4); **izar distiratsu** (12); **izar distiratsu bat** (5); **jantzi distiratsu** (3); **marte distiratsu** (3); **marte distiratsu dago** (3); **sei hego distiratsu** (3); **zeru distiratsu** (3); **zuri distiratsu** (9)

**adibide distiratsua** (3); **argi distiratsua** (6); **begirada distiratsua** (3); **beltz distiratsua** (4); **bezain distiratsua** (8); **distiratsua atera** (3); **distiratsua atera zuen** (3); **distiratsua da** (3); **distiratsua egin** (4); **distiratsua eta** (23); **distiratsua ikusi** (3); **distiratsua izan** (9); **distiratsua zegoen** (3); **distiratsua zen** (12); **distiratsua zuen** (9); **eguzkia bezain distiratsua** (4); **eta distiratsua** (33); **ezpata distiratsua** (7); **gorri distiratsua** (3); **guztiz distiratsua** (3); **hain distiratsua** (5); **ideia distiratsua** (4); **zen distiratsua** (3); **zuri distiratsua** (4)

**baino distiratsuago** (9); **baino distiratsuagoa** (4); **distiratsuago egin** (3); **distiratsuagoa izan** (3); **eta distiratsuago** (6); **eta distiratsuagoa** (4); **gero eta distiratsuago** (3)

**begi distiratsuak** (6); **begi urdin distiratsuak** (3); **beltz distiratsuak** (4); **berde distiratsuak** (3); **bezain distiratsuak** (4); **distiratsuak bezala** (3); **distiratsuak dira** (4); **distiratsuak eta** (12); **distiratsuak ikusi** (4); **distiratsuak zabaldu** (5); **distiratsuak ziren** (3); **distiratsuak zituen** (9); **eta distiratsuak** (18); **ezkutu distiratsuak** (3); **hain distiratsuak** (3); **hortz distiratsuak** (4); **izar distiratsuak** (4); **kolore distiratsuak** (3); **urdin distiratsuak** (6); **zuri distiratsuak** (5)

**begi distiratsuekin** (4); **begi distiratsuz** (3); **distiratsuaren gainean** (6); **distiratsuren bat** (3); **distiratsurik ez** (4); **distiratsuz agertzean** (3); **distiratsuz betea** (3); **eguzki distiratsuaren** (3); **eta distiratsuz** (6); **eta ospe distiratsuz** (3); **izar distiratsuena** (3); **izar distiratsuenak** (4); **izar distiratsurik** (3); **izar distiratsuz** (4); **izarrik distiratsuena** (4); **kolore distiratsuko** (3); **modu distiratsuan** (3); **ospe distiratsuz** (3); **ospe distiratsuz agertzean** (3); **urdin distiratsuan** (3)

---

## **distiratsudun** *izlag* distiratsuko.

Hanka **distiratsudun** bi zaldi beltzek tiratutako kotxe beltz distiratsu bat aurre-aurrean paratu zitzaion. Lopez de Arana

Armadura **distiratsudun** zaldunak eta beltzez eta zilarrez ostilaturiko zaindari garaiak. Agustin Otsoa

Atzean utzi zituzten eseritako begi **distiratsudun** irudi handiak. Agustin Otsoa

---

## **distiratsuki** *adlag* era distiratsuan. ik **distiratsu 3.**

Catherine atean zegoen, ilea harroki orraztua, ezpainak **distiratsuki** gorrituak. Iñaki Zabaleta

---

## **distiratu** *(197 agerraldi, 67 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 681 agerrald; iorobat **disdiratsu** g.er.)* **1** du *ad* distira egin. ik **dirdaitu; dirdiratu.**

" **Distira** beza argiak ilunpetan" esan zuen Jainkoak berak piztu du argia gure bihotzetan. Elizen arteko biblia

Urrezko erlojuak **distiratu** egin zuen eguzkipean. Migel Angel Mintegi

Puntu honetan du **distiratzen** argiak; eta beste inon ere ez hemendik kanpo. Joan Mari Lekuona

Jakintsuek ortziak bezala **distiratuko** dute, eta besteei bide zuzenetik ibiltzen lagundu dietenek izarrak bezala betierean. Elizen arteko biblia

Bi gizon ikusi zituen fusilez armatuak, oso modu itsusian **distiratzen** zuten baionetekin. Koro Navarro

Zorigaitzez gure bekatuek merezitu zuten, Espainietako aldeetan kristau fedeak **gehienik** distiratzen zuen denboretan, Aita Sainduak atera zezan, sekulan agertu beharko ez zen gutun bat. Piarres Xarriton

Zeruko hirian aingeru eroriek hutsik utzitako lekuak, birjintasuna gordeko dutenek eta beren kastitateagatik **distiratuko** dutenek beteko dituzte zuei esker. Askoren artean

Teologo bezala **distiratu** zuen alabaina Carranzak Kontzilioan eta Aita gehienak harritu ziren preso sartu zutelarik. Piarres Xarriton

Gupidaren antzeko zerbaitek ere **distiratzen** zuen prostitutaren begi harroetan. Jose Morales

Ororen begietan **distiratzen** dute esker oneko malkoek... Jose Morales

Begien ordez, bi izpik **distiratzen** zuten zure begi-zuloetan. Koro Navarro

Itxaropen-izpi batek **distiratu** zuen bat-batean. Jose Morales

**Distiratu** egiten dik, Dan. Koro Navarro

-Nolanahi ere, zerbaitetaz hil beharra dago- distira burugabez **distiratu** zuen haren begiradak-. Jon Muñoz

Agian garaztar jakintsun horren omenak berriz **distiratuko** du, duela lau mende bezala. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eguzkiak zure bihotzean hainbeste **distiratzen** du, haren izpiak hain dira indartsuak, non zure buruan diren lainoak desagerrarazten dituen. Herria

**2** (da aditz gisa)

Landa loretsuak kolore mardulez **distiratu** ziren eta deneriko zuhaitzei bide eman zitzaien, aske eta airea zulatuz. Xabier Amuriza

Bokarta-olioaren arrasto mehe bat **distiratzen** zen haren ezpainpean. Aingeru Epaltza

Ikaragarri **distiratu** zitzaizkion begiak ekialdera so egitean, zeru ertz trinko hura zulatu nahi izan balu bezala. Karlos Zabala

Urrezko hagina zimiztaren itzal ubelarekin **distiratu** zen. Itxaro Borda

**3** (era burutua izenondo gisa)

Halakoa izaten da erien bistan ageri diren haluzinazio ñabar eta engainagarrien kasua, eta gauza oso **distiratuen** edotа ñimiñoegietan begiak ezartzen dituztenena, "ikusmenaren izpiritua" ahultzen zaienean. Xabier Kintana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bezala distiratu** (3); **bezala distiratzen** (8); **distiratu arte** (3); **distiratu zuen** (6); **distiratzen du** (9); **distiratzen duen** (14); **distiratzen duena** (3); **distiratzen dute** (5); **distiratzen duten** (5); **distiratzen hasi** (3); **distiratzen zen** (5); **distiratzen ziren** (3); **distiratzen zuela** (4); **distiratzen zuen** (28); **distiratzen zuten** (18); **gehiago distiratzen** (3)

---

## **distiratxo** *iz* distira ahula.

Nolanahi ere, ez zuen une hartaz gozatzeko astirik izan, **distiratxo** hura agertu bezain laster ezkutatu baitzen. Alberto Ladron Arana

---

## **distiratzaile** *izond* distira egiten duena. ik **distirant.**

Erdi Aroko monasterio bateko ilunpeen putzutik ("... heriotza zigorrarekin kondenatuak berak kartzelatzeko ere erabiliko ez litzatekeen dorre baten barren-barrenean", aurkitzaileak berak esan bezala) aterata, bertan hobiratu zenetik hainbat mende egin ondoren, berriz ere itsasargi **distiratzaile** bezala azaldu zela Berpizkundeak antzinateari zion mirespen eta liluramenaren testuinguruaren barruan. betaurrekoak erantzirik, begi ilun, sakon eta **distiratzaile** haiekin, Goiori esan zion: [...]. Santiago Iruretagoiena

Erdi Aroko monasterio bateko ilunpeen putzutik aterata, bertan hobiratu zenetik hainbat mende egin ondoren, berriz ere itsasargi **distiratzaile** bezala azaldu zela Berpizkundeak antzinateari zion mirespen eta liluramenaren testuinguruaren barruan. Santiago Iruretagoiena

---

## **distiratze** *iz* distira egitea.

Begi zorrotzekoa zen eta berekin ekartzen zituen askotan **distiratze** lan atergabeari esker jatorrizko edertasunera itzultzen ziren xarmarik gabeko objektu txiki zikin itsustuak. Joxan Elosegi

---

## distirazi ik **distirarazi**.

---

## **distopia** *iz* dena ezin okerrago gertatzen den egoera imaginarioa.

Antzinako utopietan gobernu formarik onenak nolakoa izan behar zuen azaltzen zen bitartean, egungo **distopia** batzuetan estatuak nolakoa ez duen izan behar erakusten da. Askoren artean

Orwell-en estatu-**distopia** da adibiderik argiena. Askoren artean

---

## distorsionatu ik **distortsionatu**.

---

## **distortsio** **1** *iz* zerbaiten ezaugarrien edo formaren alterazioa.

PPk **distortsioa** eragin eta errealitatea desitxuratu izana salatu zuen atzo Quesadak. Berria - Euskal Herria

Egongaiztasunezko lehen osagai bat asiar eremu honetako konkurrentziaren baldintzen **distortsioari** dagokio. Koro Navarro

Agintariak saia daitezke eskaria areagotzen, baina ekonomiak oparoalditik dakartzan **distortsio** eta desorekek ekonomiaren sustapena bertan behera utz dezakete. Iñaki Heras

Bistan da konkurrentziaren **distortsioa** dagoela hegazkin konpainien alde. Berria - Mundua

Truke-tasa errealen **distortsiozko** efektu hori orobat izan da garrantzitsua krisia eskualde osoan zabaltzerakoan. Koro Navarro

Beno, duela asko izan zen, baina telebista denboraren **distortsio** hutsa da. Pako Aristi

Marketina ez al da ba izango, pertsuasioaren eta informazioaren **distortsioaren** bidez [...] kontsumitzaileari indarra kentzeko beste estrategia bat? Iñaki Heras

**Distortsio** horien aurrean adi egoteko jarrera izan du, neurri batean, bertsolaritzaren mugimenduak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Burezurreko giltzaduren helburu nagusia zera da: mundura jaio aurretik erditze-kanala igarotzean buruak jasan behar duen **distortsio** handiari amore ematea. Irene Aldasoro

Grabitate uhinak antzeko prozesua dira: antzekotasuna da indar guztien*modus operandi*-a uhinak eta partikulak trukatzea dela; grabitatearen kasuan, ordea, "uhinak" espazio-denborako **distortsio** oso txikiak dira. Berria - Gaiak

**2** argi edo hots uhinen alterazioa, irudiak edo doinuak bere hartan jasotzea eragozten duena.

Lente sinple baten lehenengo akatsa irudiaren **distortsio** bat da, teknikoki aberrazio esferikoa esaten zaiona. Irene Aldasoro

Orekatu daitezke zuzena ez den ikuspegi batek sortzen dituen erretinako **distortsio** guztiak. Josu Zabaleta

Bozgorailuaren **distortsioak** haizearen ehuna tarratatu zuen, gure belarriak negarrez ipini. Karlos Linazasoro

Lasai eta presarik gabe egin dugu lan, eta nahi genuen soinua lortu dugula esango nuke, **distortsio** eta efektu handirik gabekoa. Berria - Kultura

· Delako *ancestral voices* haiek ez direla estatuaren orkestra eta koruek jotako pieza kaxkar baten **distortsio** destokitu bat baizik. Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esportazioei emandako kredituek «merkataritza **distortsioak**» eragiten dituztela. Berria - Ekonomia

Agenteek baimenik ez dutenez aurretiko denbora-**distortsioak** jasan dituzten espazio-uneetara jauzia egiteko, ia ezinezkoa da krimenaren eszena eta xehetasunak taxuz berreraikitzea. Iban Zaldua

Puntu horretatik aldentzen den bezain laster azaltzen baitira perspektiba **distortsioak**. Josu Zabaleta

**4** bihurritua.

Istripuaren ondoren goragalea eta mina zituen Ermukoak eta medikuek bizkarrezurreko zerbikalean **distortsioa** izan dezakeela argitu zuten. Berria - Kirola

---

## **distortsionatu**, distortsiona, distortsionatzen *(orobat **distorsionatu** g.er.)* **1** du *ad* distortsioa eragin.

Ikerketen emaitzak desitxuratzea eta haien zentzua **distortsionatzea**, horra zertaz egon behar genukeen kezkaturik. Juan Garzia

Muturrera jota, komunikazioa bera ere eten daiteke, edo sarritan **distortsionatu** egiten da eta, ondorioz, mezua ez da behar bezala heltzen. Iñaki Arranz

Esportazioen laguntzei eta merkataritza **distortsionatzen** duten barneko laguntzei buruz ere mintzatu dira Parisen. Berria - Ekonomia

Bada zerbait, baina, bakartasun sentsazio hori baldintzatzen eta **distortsionatzen** duena. Filipe Bidart

Eta kezkatzen gaitu nola kontatzen zaigun hori guztia, judas begiak, ahur edo ganbil, beti **distortsionatzen** baitu bestaldean dagoena. Iñigo Aranbarri

Aaurreko teilatu eta eraikinen formak **distortsionatuta** ikusten ziren. Anjel Lertxundi

Hirurok elkarrekin igaro ditugun uneak patetikoki **distortsionatuz**. Eider Rodriguez

**2** (era burutua izenondo gisa)

Handik berehala, ordea, kontrol-mahaiaren aldetik txistu-hots **distortsionatu** bat entzun zen. Patxi Iturritegi

Hire inbidiak okerbideraturik baizik ezin huen izan nitaz horrelako irudi **distortsionaturik**. Xabier Olarra

Teklak zanpatuta, ez nion deus ere aterarazi ohiko soinu **distortsionatuaz** aparte. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **distortsionatu eta** (3)

---

## **distortsionatzaile** *izond* distortsionatzen duena.

Konbentzio hau ilusio egozentriko **distortsionatzaile** baten kimua iruditzen zitzaion. Iñaki Mendiguren

---

## distraidu ik **distraitu**.

---

## **distraitu**, distrai, distraitzen *(ETCn **357** agerraldi; orobat **distraidu** g.er.)* **1** da/du *ad* arreta galdu edo galarazi. ik **oharkabetu.**

Baina ez hadi **distraitu**, lanean ari hintzen eta lanean segi behar duk. Jon Alonso

-Zer koaderno? -galdetu zuen Gegenbauerrek, **distraituta**. Anton Garikano

Hortaz... hortaz, autobus hau -jarraitu zuen bizkor, Stan **distraitzeko** itxaropenez- noranahi joaten dela esan duzu? Iñaki Mendiguren

Ilararen buruan sortu zen zirriparrak **distraitu** egin zuen, ordea. Iñaki Mendiguren

Sarritan, bulegora sartzen zenean, egiaztatzen zuen doktorea **distraiturik** egon zela edozein gauzarekin eta itxaroten eduki nahi izan zuelako ez zuela lehenago hartu. Joxemari Iturralde

Beti gertatzen zaidan moduan, beste liburu batzuek **distraitu** naute liburutegian eta hiru ordu eman ditut Koldo Mitxelenan. Xabier Etxabe

**2** era atseginean denbora pasa edo pasarazi.

Eta Harry bakarrik utzi zuten, beso bigun eta erorian zuen minaren zaztadetatik **distraitzeko** lagunik gabe. Iñaki Mendiguren

Negua iritsi zenean, gau luze hotzek etxetik kanpo **distraitu** eta denbora pasatzeko babesleku bat bilatzera behartu zuten Hurtado. Josu Zabaleta

Rosak askotan Dumasen eleberriak eta Bécquerren poesiak irakurtzen zizkion zaurituari, **distraitzeko**. Koro Navarro

Gomazko pilotaren boteak **distraitu** egiten zuen Matias nerbioso zegoenean edo bere burua lekuz kanpo sentitzen zuenean. Unai Elorriaga

Paul D etorri eta hurrengo goizean egongelan belauniko, Sethe **distraitu** egin zen bi lauki laranja haiekin, 124a leku mortua zela adierazten zuten haiekin. Anton Garikano

Berak sarrarazi zuela gnomoa jendea **distraitzeko**. Iñaki Mendiguren

**3** (era burutua izenondo gisa)

Keinu dotore **distraitu** harekin. Anton Garikano

Irakurtzea, ikastea eta irratia entzutea beste zerekin **distraiturik** ez baitugu izaten guk. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **distraitu egin** (3); **distraitu egiten** (3)

---

## **distraituki** *adlag* arreta jarri gabe.

Bidean, eskuetan neraman orrialde sorta **distraituki** zabaldu eta irakurtzen hasi nintzelarik, bihotzak palasta egin zidan, lehen esalditik ohartu bainintzen zeinen ezagun egiten zitzaidan ahots hura. Joxean Agirre

---

**distrakzio** *(orobat **distratzione** g.er.)* **1** *iz* arreta galtzea edo galaraztea.

Joan zaitezte zeuen bizilekura eta utz nazazue bakarrik, Jainkoa lagun, garizuma hau hemen egiteko asmoa baitut, espirituaren inolako **distrakziorik** gabe. Askoren artean

Zenbait minuta, luzeak, luzeak egoiten gara -bakoitza otoitzean ari bide da, **distratzionerik** gabe! Marzel Etxehandi

Gogora dezagun terroristek **'distrakzio'** bonba bat ezarri zutela McDonald's jatetxe batean Nord-Osteko antzokia bahitu aurretik, 2002an. Berria - Mundua

**Distrakzio** ekintza da Berria - Mundua

**2** josteta, denbora-pasa.

Munduaren **distrakzioek** zugandik urrun ninderamatelarik ere, ez nintzen haatik zugandik bereiz. Jon Muñoz

Aitor dut abentura horrek ez dukeela zailtasunaren merezimendua; baina **distrakzio** bat izanen da bederen, asper-asper eginik bainago. Jon Muñoz

---

distratzione ik **distrakzio**.

---

**distributibo** *izond* banatzailea.

Guk errealitate ororen multzoaren ideia hau honegatik hipostasiatzen dugu, alegia, adimenaren esperientziazko erabileraren batasun **distributiboa** esperientziaren osokiaren batasun kolektiboa bihurtzeagatik dialektikoki. Ibon Uribarri

Batasun kolektibo jakin bat ezartzen duen heinean adimenaren ekintzen xede gisa, zeinak gainerakoan batasun **distributiboaz** soilik jarduten duten. Ibon Uribarri

---

**distribuzio** **1** *iz* banatzea, banaketa.

Kontinenteak ez dira markatuta egongo, baina hirien argitasunaren irudia diren puntu zuriek, beren **distribuzio** desberdinean, ohizko mundu geografia iradokiko dute. Joseba Sarrionandia

**2** (hizkuntzalaritzan)

Bloomfieldarrentzat, bestalde, banaketa edo **distribuzio** osagarrian azaltzen ziren hotsen sailkapen-tresna zen fonema. Lourdes Oñederra

**3** eraikin edo etxebizitza batean, zatiak antolaturik dauden era.

Buruan zerabilen **distribuzio** berriaren arabera, solairu nagusia eremu publikoa izango zen: despatxua, harrera-gela, saloi-biblioteka, jantokia, sukaldea eta officea; eta goiko planta familiaren bizitza pribaturako txokoa: sala, jantzitokia, logelak, bainugelak. Patxi Iturritegi

Bizileku berezi honetan sartu eta zapart egiten du egunak; **distribuzioa** alegera, erosoa eta orijinala da. Koldo Izagirre

**4** (hitz elkartuetan)

Eta haietako egun batean, **distribuzio**-planoa marrazten ari zela, gogogabeturik aurkitu zen Gortari, gaitzen bat inkubatzen egongo balitz bezala. Patxi Iturritegi

---

**distribuzionalista** *izond/iz* hizkuntzalaritzan, hizkuntza banakoak esanahiari begiratu gabe deskribatzen dituen metodo estrukturalistari dagokiona; metodo honen aldekoa dena.

Bego, beraz, oraingoz aipatzea adi egon behar dela estrukturalismoa entzun edo irakurtzean: ez direla gauza bera Europako estrukturalista "funtzionalistak" eta Ameriketako estrukturalista **"distribuzionalistak"**. Lourdes Oñederra

---

distrika ik **distritu**.

---

distriktu ik **distritu**.

---

distrito ik **distritu**.

---

**distritu** *(ETCn **305** agerraldi; orobat **distrito** ETCn **182** agerraldi; **distrika** g.er., eta **distriktu** g.er. )* *iz* administrazio barrutia.

Gare de Lyonen -eta kontu bera lehen egunetan ezagutu nuen hainbat kale eta **distritutan** ere-, ezerk ez zuen herrietako bizimodurik iradokitzen. Anjel Lertxundi

San Giovannin bezalaxe **distrituko** beste herri guztietan ere, animazio berbera zegoen, argi distira ohi ez bezalako berbera. Josu Zabaleta

Gero **distrituko** administrazioak, tundrako bizimoduak neskatilarentzat zekartzakeen osasun arriskuak zirela eta, barnetegian sartzea erabaki zuen. Pablo Sastre

Ez dago epailerik lagun diezazukeenik ez eta abokaturik ere, txotxolotzat hartzeko moduko galderak egiten dizkizutenean; han norbera, **distrituko** fiskala, takigrafoa eta beraiek besterik ez zegoen. Xabier Olarra

**Distrituko** epaileak edo Mexikoko Auzitegi Gorenak hara iritsiko balitz kasua sakonago aztertzeko bide ematen du helegiteak. Berria - Euskal Herria

-**Distrito** honetako buru egiten duena... Inazio Mujika Iraola

1997. urteaz geroztik [Mexikoko] **Distritu** Federaleko gobernua gidatzen du. Berria - Mundua

Hainbat estatu legek oraindik ere 4,7 milioi herritarri bozkatzea eragozten diete 48 estatutan eta Columbia **distrituan**. Berria - Mundua

Luisek **distritoen** zenbatze sistema azaldu dio, tipularen irudia, gune baten inguruan biribilean kateatzen eta gainjartzen diren **distritoak**, eta bera bederatzigarrenean bizi dela. Lourdes Oñederra

---

**distrofia** *iz* egoera patologikoa, elikadura-nahasmenduak eragina, hazkundeari edo organo baten garapenari erasaten diona.

30 eta 26 urteko seme-alabek giharretako **distrofia** dute, eta ez dago sendatzeko itxaropenik. Berria - Gaiak

Zelula amen bi lerro horietatik ehun berriak sortu gura dituzte ikertzaileek, alzheimerraren, parkinsonaren, minbiziaren, gaitz koronarioen, diabetesaren edo muskuluen **distrofiaren** kontrako tratamenduetan erabili ahal izateko. Berria - Gaiak

---

**disturbio** *iz* nahasmendua, zalaparta, istilua.

Borroka luzea da, **disturbio** eta hegemoniako alternantziez, eskomikatu eta debekuz betea. Joan Mari Lekuona

distzipulu ik **dizipulu**.

---

**disuaditu**, disuadi, disuaditzen du *ad* zerbaitetarako asmoa kendu.

Alabaina, laster utzi behar izan nuen zaletasun hau, eta ez [...] osasun arazorik sufritzen edo loditzen ari nintzelako, ez, prezioak edonor **disuaditzeko** modukoak zirelako baizik. Jon Alonso

---

**disuasio** **1** *iz* zerbaitetarako asmoa kentzea.

**Disuasio** nuklearra, gure segurtasunaren eta gure premiazko interesen zainketaren berme handiena da. Berria - Mundua

Chiracek azaldu zuen Frantziak gaur egun eskuko daukan **disuasio** nuklearra neurriko erantzunak emateko egokitua dela. Berria - Mundua

RAID Bilaketetarako, Laguntzarako, Esku-hartzerako eta **Disuasiorako** Poliziaren elitezko unitateko orain arteko arduraduna. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan) ik **disuasorio**.

Arma termonuklearren abantailen jarraitzaile sutsua zen, **disuasio**-politika gisa eta Ameriketako Estatu Batuen defentsarako. Fernando Morillo

Sharon: «Eskubidea dugu **disuasio** bideak izateko». Berria - Mundua

Piongiangek ulertu behar du haren zeinahi ekintzari aurre egiteko **disuasio** indarra dugula. Berria - Harian

Lan Ikuskaritza indartu egingo da orain, eta diskriminazioaren kontrako **disuasio** zigorrak gogorragoak izango dira. Berria - Euskal Herria

Errepresioaren poderioz ETA **disuasio** gaitasunik gabe gelditu dela uste dute gutunaren egileek. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **disuasio nuklearra** (3)

---

**disuasorio** *izond* zerbaitetarako asmoa kentzen duena. ik **disuasio 2**.

Han, denak kaputxadunak izanik, ez zegoen inor ezagutzerik, baina haiek behin eta berriz esaten zuten estatubatuarrak zirela, euren nazionalitatea adierazteak nolabaiteko eragin **disuasorioa** edukiko zuelakoan edo. Jon Alonso

---

**disulfuro** *iz* molekulan bi atomo sufre dituen sulfuroa.

Gatz hori, berez, usaingabea da, baina erreakzionatu egiten du nola edo hala larruarekin, beharbada keratinaren **disulfuro**-zubiak erreduzituz, eta egun batzuetan kimikaritzat salatzen zaituen metal keru iraunkor bat jaregiten du. Juan Garzia

---

**disyuntiba** *iz* alternatiba.

Beste faktore batzuk ikus daitezke, hiru idazle hauek batzen dituena: a) odolusten ari diren herrietan jaio eta bizi dira, b) bortizkeriaren aurrean dilema handia dute, c) pertenentzia **disyuntiba** pairatzen dute: bihotzez eta justiziaz zapalduekin egonik, erlijioz, arrazaz edo klasez menperatzaileen taldekoak dira. Berria - Kultura

---

disziplina ik **diziplina**.

---

disziplinatu ik **diziplinatu**.

---

ditare ik **titare**.

---

ditari ik **titare**.

---

diti ik **titi**[1].

---

ditiburu ik **titiburu**.

---

**ditiranbiko** **1** *izond* ditiranboari dagokiona.

Epopeia eta poesia tragikoa eta, gainera, komedia eta poesia **ditiranbikoa**, eta auletika eta zitaristika gehiena, denak dira imitazioak ikuspuntu orokorretik. Askoren artean

Poesia **ditiranbiko** batzuk, Homero eta Virgilioren aurkako zirikadekin. Juan Martin Elexpuru

**2** gehiegizko gorazarrezkoa.

Eta don Pedrok hirurogei urte bete zituen egunean difamazio ahaleginak aintzat hartu eta hala adierazi zion oturuntzaren ondorengo poema luze eta **ditiranbikoan**: "hartza esaten dizute, eta baduzu, bai, harekin antzik, zeren zure ahoan eztia izaten baita maiz". Bernardo Atxaga

Eta batere ulertu ez nion goraipamen **ditiranbiko** luze bat hasi zuen hizkera hanpurutsu batez. Josu Zabaleta

---

**ditiranbo** *iz* antzinako Grezian, Dionisosen edo Bakoren ohoretan ontzen zen poesia-lana; gehiegizko gorazarrea.

Argentinarra izateak, bere tamalgarrian, eragotzi egingo dit **ditiranboan** erortzea -nahitaezko generoa baita hori Uruguaien, gaia uruguaiar bat denean. Juan Garzia

---

## **ditxa** *iz* poza, zoriona.

Zeure zorionean, izeba ero edo osaba pakete mozkortzioren bat izateko **ditxa** bazenu, solastu harekin, galdegin handien gauzak nola diren, eta hark erranen dizu noski. haizea aldeko suertatu eta ehiza-zakurraren usnaketatik libratzeko **ditxa** izan zuela. Iñaki Segurola

Garaiko **ditxa** eta desditxen aurpegia bilakatu zen Jean Gabinena. Berria - Kultura

Moralista batzuek arrazoitu zuten diruen jabe izateak ez dakarrela beti zorionik eta beste **ditxa** modu batzuk zuzenagoak direla beharbada. Juan Garzia

Trastez betetako gelaxka ziztrin hartara sartzen naizenean, sudur-zuloak zabal zabaltzen ditut **ditxaren** usaina hartzeko. Jesus Mari Mendizabal

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ditxa eta** (5); **ditxa izan** (3); **ditxazko ditxa** (3)

---

## **ditximaketa** *iz* sarraskia.

Naturaren zaleak horrenbeste deitoratzen duten animalien **ditximaketak** ez dira berriak, ordea. Iban Zaldua

Gautxoek eragindako **ditximaketaren** albistea. Iban Zaldua

---

## **ditxo** *iz* esaldi errimaduna, barre eragitekoa edo ziria sartzekoa.

**Ditxoa** jenero bat den bezala, kopla ere aparteko jeneroa dela uste dut. Andoni Egaña

**Ditxoekin** hasi eta puntuaren erantzunera jo dut. Andoni Egaña

Nere amatxi zena ere dena **"ditxo"** ta "arrazoinlari" handia omen zen. Menane Oxandabaratz

---

## **ditxoka** *(orobat **titxoka**)* *adlag* ditxoak esaka.

Bertsutan, eta **ditxoka**-ta hola... Menane Oxandabaratz

Horiek ziren atsenaldietako jostekak, pilotan edo kaniketan ari ez ginelarik **titxoka** ari ginela. Herria

---

## **ditxolari** *(orobat **titxolari**)* *iz* ditxoak paratzen dituen pertsona.

**Ditxolari** edo zirtolarien usadioak bizi-bizirik dirau sustraiak baserrian dituztenentzat. Andoni Egaña

Gezurra badirudi ere, **ditxolarien** teknika lantzen arituko ziren eskolan, eta horixe zuten etxean lantzekoa: hitz bat aukeratu, edozein, eta harekin errimatzen duen esaldi bat erantsi gero hari. Joxerra Garzia

Bertsolariek eta **ditxolariek** beti kontatzen ditek, meza eta bezpera arteko kermezetan, haurra beltza sortu zitzaien Manex eta Memenaren istorio irrigarria: kedarrez likisturiko gizonaren tximiniarena aditzean, karkazailka lehertzen gintukan, apeza barne. Itxaro Borda

Zer kostatzen zaio ba **ditxolari** on bati, bertsoa osatzeko hiru-lau oinarrizko kontzeptu hartu, haien esparruan lan egiten ikasi eta bere jarioa diskurtso bilakatzea? Andoni Egaña

Errematea nola eman jakingo du ordea **ditxolariak**: [...]. Andoni Egaña

---

## **ditxoso** 1 *izond adkor* zorionekoa, gogaikarria. ik **dontsu 2**.

Zenbat saltsa ez dute sortu eta zenbat buruhauste koarta-tenpora dontsu eta **ditxoso** horiek! Pello Zabala

Entziklopedia **ditxosoari** buruzko informazio orriak erakutsi zizkion mutilak. Jasone Osoro

Ehundik gora, 120tik gora aurkitu eta bildu ditut, martxo **ditxoso** eta dontsu honekiko errefrauetan. Pello Zabala

### 2 ***ditxosozko*** zorionekoa, gogaikarria.

Zu eta zure **ditxosozko** gimnasia! Anjel Lertxundi

Baina **ditxosozko** paraplegikoa hor zegon, oraindik arrantzaka. Patxi Iturritegi

Makina bat bider entzunda neuzkan estudiante garaian egindako **ditxosozko** bidaia hari buruzko batailatxoak, eta egun hartan berriro suertatu zen betiko leloa: [...]. Jon Arretxe

Beti jakin genuen idazle bihurtzeko asmoa zuela, bere **ditxosozko** nobela horrekin zuen tema. Iban Zaldua

Erabat idatzita nuela buruan nobela **ditxosozkoa**; konpromisoetatik libre egotea behar nuela lanean jartzeko. Ramon Saizarbitoria

Etengabe jarduten baitzuen ea noiz arduratu behar nuen hilarri **ditxosozkoaz** itaunka. Ramon Saizarbitoria

Alabaina gure Agur **ditxosozko** honek ikusiak ditu bereak eta bost. Patziku Perurena

---

## **diu** *iz*

**DIU** siglak Umetoki Barneko Gailu esan nahi du (gaztelaniazko *dispositivo intrauterino* hitzen siglak dira). Luis Elberdin

Hari **DIU** edo umetoki barneko gailua kendu behar zioten medikuek. Berria - Gaiak

Horretan oinarritzen da **DIU** honen kontrazepzio modua. Luis Elberdin

Mundua ez zen apenas deus ere aurreratu pilula edo **DIU** bezalako metodoak asmatu aurretik. Karlos Zabala

Gaur egun, bosgarren belaunaldiko **DIUak** ditugu: material hobeekin eginda daude, emakumearen umetokira moldatzeko forma egokiagoak dituzte, seguruagoak dira eta eragiteko mekanismo sofistikatuagoak dituzte. Luis Elberdin

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **diu hormonala** (3); **mirena diu** (4); **mirena diua** (10); **mirena diuak** (6); **mirena diuarekin** (4)

---

## **diuretiko** *izond/iz* gernu-eragilea.

Ezaguna da garagardoaren eragin **diuretikoa**. Irene Aldasoro

Barrua garbitzen du, **diuretikoa** da, izerditzen eta toxinak botatzen laguntzen du. Pello Zabala

"Ipuru ardoa" izeneko **diuretikoa**, 60 gr. ipuru ale, 10 gr. limoi azal, eta litro bete ardo zuriz egiten da, zortzi hamar egun ontzen edukiz. Patziku Perurena

---

## **divertimento** 1 *iz* dibertimendua.

Aitzitik: errealistek eta berauen aldekoek munduan gertatzen denarekin zerikusirik ez duen jostaketa soila izatea leporatu ohi diote, **divertimento** hutsean geratzea. Bernardo Atxaga

Egiazki, **divertimento** bat besterik ez zen: gustatu egiten zitzaion tertulietan, berak eta bere lagunek hoteleko kafetegian arratsaldero egiten zuten solasaldiaren hasieran, "argaldu egin naiz" edo "gizendu egin naiz" esatea; komentario arrunt hark lagunarteko giroa argitzen zuelako errepikapenaren poderioz. Bernardo Atxaga

*Fidel izan beharraz* gertaerak eta pertsonen arteko harremanak katramilatzen eta korapilatzen doazen komedia -edo melodrama baten parodia- bat da, barregarria eta serioa aldi berean; **divertimento** arin bat kanpotik, gizartearen kritika zorrotz sakona barrutik. Antton Olano

**2** suitearen antzeko musika lan instrumentala, forma jakinik gabekoa.

**Divertimento** moduan interpretatu zuen Menak Beethovenen 4. sinfonia eta ez zen oker ibili. Berria - Kultura

---

## **dixidatuki** *adlag* mehatxu eginez.

Eta, orduan, Antonio zutitu zen, atxiki zuen bularretik bizkaitarra, eta desafiatuki eta **dixidatuki** erran zion: [...]. Joan Mari Irigoien

---

## **dixidu** *iz* mehatxua.

Ibarrunen den ORMA lantegiak **dixidu** askoren ondotik izan da zerratzeko ordena beltza. Herria

Lizardiko zelaian dugun ORMA lantegia zerratzeko **dixidutan** dugu. Herria

---

## diximulatu ik **disimulatu**.

---

## diximulu ik **disimulu**.

---

## dixkaetxe ik **diskoetxe**.

---

## dixtira ik **distira**.

---

## dixtirant ik **distirant**.

---

## dixtiratsu ik **distiratsu**.

---

## **diz-diz** *(152 agerraldi, 38 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 313 agerraldi; orobat **dizdiz** 25 agerraldi, 12 liburutan; ETCn 80 agerraldi)* **1** *adlag* distiratzen. ik **dir-dir**.

Dena ilun, kanpoko hondarraren ardora izan ezik: hegazkinaren hegalak ilargi-argitan **diz-diz**, hotz. Joxe Austin Arrieta

Bitartean adi begiratzen zion detektibeari, begi txikiak **diz-diz**, bi argitxo motel iluntasunean. Migel Angel Mintegi

**Diz-diz** zituen begiak, eta gertatzen ari zitzaiena ulertzeko gogoz eta damu-minez begiratu zion aitari, asaldaturik bainoago. Anjel Lertxundi

Kanpora irten zenean, euriz **diz-diz** zeuden kaleak, eta pozik zen bere gabardina arre zaharraz. Irene Aldasoro

Ikusi behar zenuen emakumea! -esan zuen, begiak **diz-diz** jarriak. Migel Angel Mintegi

Bihurgune geldo batek sortzen duen putzuan, nenufar horiak eta ninfa ardo kolorekoak ikus daitezke **diz-diz**, eguzkiaren argitan. Hasier Etxeberria

**2** (izen gisa)

Diwan-i-Khas ganberako **diz-dizak** eta zeru haren edertasuna lehengo aberastasunaren ataltxo urri bat besterik ez dira, ispilu txar batek emandako irudi hutsa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aitaren begiek **diz-diz** bizia zabaltzen zuten. Alberto Ladron Arana

**3** ***diz-diz egin*** distira egin, distiratu.

Loroaren begiek **diz-diz** egiten zuten ilunpean. Jon Muñoz

Gau ilunean **diz-diz** egiten duen izarrak bezala distiratzen zuen Frantziskok, ilunpeak uxatzen dituen egunsentiak bezala. Askoren artean

Hortz zuriek **diz-diz** egiten zioten. Matías Múgica

Urrezko txanpon txiki batek **diz-diz** egin zion ahurrean. Irene Aldasoro

Martxa-lerroan igaro zitzaizkidan albotik, besoak batera-batera zabukatzen zituztela, botoiak eta botak distiratsu ageriz, eta eguzki-argiak baionetetan **diz-diz** egiten zietela. Mirentxu Larrañaga

Haren larruak **dizdiz** egiten zuen eta haren usainak garunak betetzen zizkidan; pentsamendua lausotua nuen guztiz. Juan Martin Elexpuru

Langileagoa denak ohore gehiago izan dezala, bere ospeak **diz-diz** egin dezala bere ondorengoengan. Juan Martin Elexpuru

**4** *diz-dizka* ik **dizdizka**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begiak diz diz** (5); **begiek diz diz** (6); **diz diz egin** (8); **diz diz egiten** (26); **dizdiz egiten** (11); **dizdiz egiten zuen** (4)

---

## dizdira ik **distira**.

---

## dizdiratsu ik **distiratsu**.

---

## **dizditsu** *izond* distiratsua.

Baldosa distiratsuak zituen eta bainuontzia ere bai, zuria eta **dizditsua** eta bai lababo bat ere eta, ingururik gabe esateko, komuntzuloa, bere kidekoen artean deituko luketen bezala. Matías Mujika

Bat-batean hantxe zuten aurrean Parisko gau **dizditsua** eta ez zekiten harekin zer egin. Matías Mujika

---

dizdiz ik **diz-diz**.

---

**dizdizari** **1** *izond* diz-diz egiten duena.

zurezko teilatuek zeharka distiratzen dute ilargiaren argitan, metal **dizdizari** baten antzera, eta ez da inon inor ageri, lo dago dena. Jose Morales

Ez baita [ilargia] ageri, ohi bezala, disko **dizdizari** soil gisa, esfera, globo, gorputz, izar gisa baizik, hots, laranja koloreko masa erraldoi bat bezala unibertso hutsaren erdian. Joxe Austin Arrieta

Beherantz begira geratzen zen gero, lurrean zulo bi egiteko gai ziren begi **dizdizari** haiekin. Julen Gabiria

Hagitz ugaria da ordea liburua, nere betiko soilkeriotan ito nahi izateko; literatur urraketa honen harira, bai baitu beste oharpen **dizdizari** anitz. Patziku Perurena

Eta hartzen dute aizto bat, garbia, **dizdizaria**, eta odolez zikindua itzultzen dute bere lekura nire eskuek. Karlos Linazasoro

**2** (adizlagun gisa)

Mississipiaren gainetik, hor nonbait, gindoazen (eskuineko begiaz ikusi nuen), oso altura handian eta erabat lasai, gure helizeak goizaldeko eguzkitan **dizdizari**. Joxe Austin Arrieta

Zeruko alde garbian izarren bat edo beste ageri zen **dizdizari**. Josu Zabaleta

Aurrera darraigu hegan; gailurreko gurutzea dakusat, zuri, **dizdizari**, baina bakarti oso. Joxe Austin Arrieta

---

**dizdizka** *(orobat **diz-dizka** g.er.)* *adlag* diz-diz egiten, distiratzen.

Errauts-koloreko traje bat soinean; idazluma bat eta arkatz bat, txaketaren goiko patrikan; zetazko gorbata **dizdizka**; zapata marroi ingelesak. Anjel Lertxundi

Garagardoaren kolorea hartua du itsasoak ere, han urrunean, eguzki izpiak gainean **diz-dizka**. Xabier Mendiguren Elizegi

Geroago ilea moztu zioten, eta orduan buru berdin eta ongi orraztua eramaten zuen, **dizdizka** brillantinagatik. Fernando Rey

Zerurantz begiratzen zuen, Guadalajarako ordoki gainean **dizdizka** zeuden izarretarantz. Tentela behar du izan gizonak [...] uste izateko milaka milioi unibertso horiek gizona, zomorro burugabe hori, josta dadin eta harriturik gera dadin baizik ez dihardutela jiraka eta **dizdizka**. Bernardo Atxaga

Begiak **dizdizka** eta larri baditu ere, ez du ematen oso edanda dagoenik. Anjel Lertxundi

Zinismo-espresio bat agertzen zitzaion **dizdizka** begietan. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begiak dizdizka** (5)

---

dizionario ik **dikzionario**.

---

**diziplina** *(orobat **disziplina** g.er. eta **lizifrina**)* **1** *iz* ordena atxikitzeko arauen multzoa; arau horien araberako jarduera.

Kanpalekuko **diziplina** guzia haren eskuko zen. Marzel Etxehandi

Gizakiei arau komun bat, **diziplina** bat, antolamendu bat eman ahal izateko, fedea behar da, ilusioa. Josu Zabaleta

Bere mezu-hartzaile kristauentzat honela jarraipide gisa **diziplina** militarra gomendatzean, Klementek ordena ezarri nahi zuen Elizan. Iñaki Mendiguren

Estrategiaz aparte, hoberena kasu hauetan jarraitasuna eta **diziplina** dira. Askoren artean

Kazetaritzak teknika eta **diziplina** ematen dizkio idazleari. Ana Urkiza

Pilulak eguneroko **diziplina** eskatzen du, hartzea ahaztu ez dezagun. Luis Elberdin

Büchenwald-eko esperientzia genuenentzat, Dachau-ko bizia jasan zitekeen, bai eta **diziplina** ere. Marzel Etxehandi

Gure bizitzan aurreneko aldiz, kolegioko **diziplina** estuaz at genbiltzan. ezin zuen jasan udalekuaren ardura zuten mojen **diziplina** itsua. Bernardo Atxaga

**Diziplina** atxikitzeko eginen zuten hori. Koldo Izagirre

Argi dago Argentinan **diziplina** handiz ezarri zirela Washingtoneko adostasunaren hainbat errezeta. Iñaki Heras

Toki honetan **diziplina** oso zorrotza gordetzen zen gauza guztietan, bai isiltasunean eta lanean, bai Erregelako gainerako arauetan. Askoren artean

Beraz **diziplina** pixka bat izan behar dugu guk ere... Menane Oxandabaratz

Bi gauza horiek batera egiteko nire gaitasuna eta **diziplina** benetan miresten zituen. Juan Kruz Igerabide

Denbora dezente egin nuen hitz egokienak paperera ekartzen, hasieran Elsbethi idatzi nahi niolako eta gero **diziplinaz** gehiago beste ezergatik baino. Anjel Lertxundi

Erabakiak **diziplinaz** onartzen zituen. Jon Alonso

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arazoen egoera honetan, haurrak sortzea ez litzateke jada senar-emazteen arazo pribatua izango eta nonahiko **diziplina**-botere inpertsonal baten ardura publikoa izango litzateke. Iñaki Mendiguren

Hau bai **diziplina** eredu miragarria! Koldo Biguri

Hitz batean, beraien biziera **diziplina**-ispilu izatea nahi zuen gainerakoentzat. Askoren artean

**Diziplina**-gabezia tipikoa erakutsi zuten enperadoreagana iristeko erraztasunaz abusatzean. Iñaki Mendiguren

Ikasleen **diziplina** faltak minduta eta etorkizun hobearen bila, Milanen erretore plaza lortu zuen. Imanol Unzurrunzaga

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Teknologia modernoak mekanizazioa edo arauketa ekarri zuen, eskulangileena ez ezik, baita hauen ugazabena (nazionalizazioa, etab.), herri-administrazioarena ("burokratizazioa") eta politikariena (alderdi-**diziplina**). Mendebaldeko gizakiak "Erdi Aroko" kristau-**diziplina** galdu izana, ez Jainkoari, baizik eta bere buruari eskertu zionean hasi zen bere modernotasuna. Iñaki Mendiguren

**4** jakintza adarra, irakasgaia; kirol jarduera-mota.

Garbi dago historiaren gisako **diziplina** bat existitzen denetik dokumentuak erabili izan direla, eurei galderak egin zaizkiela, eurei buruz galderak egin direla. Xabier Arregi

Ez dago, beraz, norbere buruaren ezagutza osatuko lukeen ezein Psikologia arrazionalik irakaspen gisa, baizik **diziplina** gisa besterik ez. Ibon Uribarri

Era horretan dialektika deritzon **diziplina** guztien **diziplina** sortuz. Imanol Unzurrunzaga

Askotan, nahastu egin ohi dira filosofia **diziplina** gisa eta filosofiaren historia. Askoren artean

Arkitektoaren zientzia **diziplina** anitz eta hainbat eratako ezagutzaz jantzitako zientzia da. Santiago Iruretagoiena

Ezagutza aztertzen duen **diziplina** filosofikoa da epistemologia. ideia erromantikoek **diziplina** ugari ukitu zituztela, geografia eta filosofia, kasu, eta ez bakarrik hasierako arlo estetikoak, artea edo literatura. Askoren artean

Jakitearen sistema zuhaitz baten pareko ei da: metafisika da erroa, fisika enborra, adarrak zientzia espezializatuak (mekanika, fisiologia, psikologia) eta fruituak **diziplina** praktikoak (teknika, medizina, etika). Askoren artean

Gerraren **diziplinan** hezteko ahaleginak egin nituen. Joseba Sarrionandia

Somarribak bi **diziplinak** korrituko ditu, erlojupekoa eta errepidekoa. Berria - Kirola

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ongiari eta gaizkiari buruz ari garelarik, auzi hau moralaren **diziplina** alorrekoa dela ez dut uste inork zalantzarik egingo duenik. Imanol Unzurrunzaga

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Antzin Aroko pentsamenduan jakite- **diziplina** nagusia ontologia zen. Askoren artean

Teologia deituriko buru- **diziplina** berriaren arabera. Iñaki Mendiguren

Uztaritzen futbolean, eta Joko Olinpikoen atletismo **diziplinetan**. Piarres Aintziart

Filosofiaren osotasun guztia izendatzen duen filosofi **diziplina** baten errotulua ere bada. Piarres Xarriton

**7** penitentzia; zigorra.

gogor hilduratzen zuen bere burua barauez, **diziplinaz**, negar-malkoz eta otoitz eginez gau eta egun. Askoren artean

Bere etsenpluaz argi utziz haragi menderakaitz eta alferra etengabeko **diziplinaz** eta probetxuzko ekintzaz hezi behar dela. Askoren artean

Karitateko Ahizpa batena bezalako **diziplina** eta buru-ukatzearekin, argaltzeko dieta egin eta ia zeukan pisuaren bosten bat kendu zuen ezkondu osteko lehenbiziko urtean. Oskar Arana

Ahitua eta gorputzez guztiz birrindua egonik ere, ez zen sekula gelditu bere perfekzioaren ibilbidean, eta ez zuen arindu ere **diziplinaren** laztasuna. Askoren artean

**8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **diziplinario**.

Batzorde horren eginkizuna izango da **diziplina**-neurriak hartzeko oinarririk ba ote dagoen erabakitzea. Oskar Arana

Usaian, **diziplina** zelaian lau aste egon eta oraino bizi zirenak laneko komando batetarat igortzen zituzten. Michel Oronoz

Lurie irakaslearen aurka egindako salaketak ikertzen ari den **diziplina**-batzordeak ez zuen atzo deus ere esan emango duen epaiaz. Oskar Arana

Espainiako Piraguismo Federazioko **Diziplina** Batzordeak zigorra bere hartan mantentzen du. Berria - Kirola

Espainiako Kirol **Diziplina** Batzordeak Racingi puntua kendu zion. Berria - Kirola

1940an [...] Soldadu Langileen **Diziplina** Batailoiak sortu ziren. Jokin Urain

**Diziplina** Batailoiko indarrak kanposantuko hormen luzeran lerrokaturik ziren. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrazoimen hutsaren diziplina** (7); **arte diziplina** (6); **bere diziplina** (4); **beste diziplina** (8); **bi diziplina** (4); **da diziplina** (3); **den diziplina** (6)

**diziplina anitzeko** (4); **diziplina apur** (4); **diziplina apur bat** (4); **diziplina arauak** (3); **diziplina arteko** (5); **diziplina artekoa** (3); **diziplina bat** (14); **diziplina batailoietan** (8); **diziplina baten** (6); **diziplina batzordea** (3); **diziplina batzordeak** (47); **diziplina batzordeak atzo** (3); **diziplina batzordeak ez** (3); **diziplina batzordeak hartu** (3); **diziplina batzordeak lau** (4); **diziplina batzordean** (4); **diziplina batzordearen** (12); **diziplina batzordera** (4); **diziplina behar** (7); **diziplina berri** (4); **diziplina da** (4); **diziplina eta** (23); **diziplina ez** (3); **diziplina gisa** (4); **diziplina guztien** (3); **diziplina handiarekin** (3); **diziplina handiz** (5); **diziplina hau** (4); **diziplina hautsi** (5); **diziplina hori** (5); **diziplina horietan** (3); **diziplina horretako** (3); **diziplina horretan** (11); **diziplina militarra** (4); **diziplina ongia** (3); **diziplina oro** (3); **diziplina orotan ondo** (3); **diziplina zorrotza** (10); **diziplina zorrotza eta** (4)

**duen diziplina** (5); **dute diziplina** (3); **edo diziplina** (6); **espainiako kirol diziplina** (14); **eta diziplina** (57); **eta diziplina horretan** (3); **federazioko diziplina** (4); **federazioko diziplina batzordeak** (4); **filosofiaren diziplina** (3); **hutsaren diziplina** (7); **kirol diziplina** (30); **kirol diziplina batzordeak** (16); **kirol diziplina batzordean** (3); **langileen diziplina** (7); **langileen diziplina batailoietan** (6); **soldadu langileen diziplina** (7); **zen diziplina** (4); **zuen diziplina** (5)

**cross diziplinan** (3); **den diziplinan** (3); **diren diziplinetan** (3); **diziplinak eta** (3); **diziplinako batzorde** (3); **diziplinen arteko** (7); **eta diziplinaz** (3); **half pipe diziplinan** (5); **inolako diziplinarik** (3); **kirol diziplinako** (4); **kirol diziplinako batzorde** (3)

---

## diziplinagabe *izond* diziplinarik ez duena.

Eta gero Silvioren ezaguna zen orkestra-zuzendari baten esaldi ospetsua ere bazegoen, zeinak, Bergamon tournée batean zegoela, kantari arretagalduei eta **diziplinagabeei** esan zien: [...]. Fernando Rey

---

## diziplinagabetasun *iz* diziplinagabearen nolakotasuna.

**Diziplinagabetasun**-espiritu bat zabaldu zen gure artera eta, haren eraginez, bertan behera utzi ziren kultura -eta gorpuzkera-desberdintasunak. Irene Aldasoro

---

## diziplinario *iz* diziplinari, bereziki zigorrari, dagokiona. ik **diziplina 8**.

Iragan mende bukaeran, frantses armada **diziplinarioa** Eussa sartu zelarik, gizonak urrunean zeudela gerizarik gabeko eme-mundu horrek gaitzeko sarraskiak pairatu zituen: bortizkeria, bortxaketa, ebasketa, ohointza indartsu, erreketa, suntsiketa. Itxaro Borda

Gero gertaera horrek zer nolako ondorioak ekarri zituen deskribatzen du, ondorio **diziplinarioak**. Jon Alonso

· Agiria sinatu nuen; nirekin batera, Garridok eta **Diziplinarioko** buruak. Edorta Jimenez

---

## diziplinarteko *izlag* zenbait jakintza eta arte alorrek elkarrekin parte hartzen dutena.

Ez da harritzekoa, bada, irudi abstraktuaz, eta balio plastikoez oro har, idatzi diren lehenengo teoria-lanak Bauhausek, 1920ko hamarraldian argitaratu izana, Alemanian pinturako, eskulturako eta arkitekturako abangoardiako artista gehienak elkartu zituen arte-eskola **diziplinarteko** handi hark, hain zuzen. Josu Zabaleta

---

## diziplinartekotasun *iz* diziplinartekoa denaren nolakotasuna.

Berezitasunetik **diziplinartekotasunera**. Pello Salaburu

---

## diziplinatu, diziplina(tu), diziplinatzen *(orobat **disziplinatu** g.er.)* **1** da/du *ad* diziplinapean jarri; araupean jarri.

Horrela, "balioak galdu dira" edo "gazteek ez dituzte ezagutzen balioak" esanez, gizartea estu-estu lotzen zuen "betiko" ordena zahar hura galdu egin dela, deitoratzen da; eta gazteak lehengo manera jatorrean berriro **diziplinatu** beharra dagoela, esan gura da funtsean. Joxe Azurmendi

*Limes*-ak **diziplinatu** egiten du betetzeko eginkizunak, lortzeko helburuak eta gainditu beharreko zailtasunak emanez, etengabe gogor ahalegintzera behartzen baitute horiek. Iñaki Mendiguren

Nahaste eder batean bizi ziren orduan, batez ere, Trentoko Kontzilioak familiaren segimendua, apellidoak eta beste **diziplinatu** zituen arte. Patziku Perurena

**2** (era burutua izenondo gisa)

Argia ez ezik saiatua eta **diziplinatua** genuen Lizardi, eta, banketxeko lanaz gain, zuzenbideko matrikula librea egin eta karrera amaitu zuen hurrengo urteetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Horixe bai armada **diziplinatua**. Xabier Montoia

Entzule **diziplinatuek** ulertu zuten musika arriskutsua izan zitekeela. Xabier Olarra

Militante fina, dedikazio osokoa, **diziplinatua**, sakona bere gogoeta eta ekarpenetan... Berria - Ekonomia

Gazte irakiarrek txukunak eta **diziplinatuak** izan behar dute. Juan Kruz Igerabide

Ariketekin segitu nuen, nire buruari behin eta berriro agintzen niolarik: zaildua behar duk egon, **diziplinatua** behar duk izan. Anjel Lertxundi

· Soldaduek **diziplinatuago** desfilatzen dute musikaren konpasean. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta diziplinatua** (3)

---

# **dizipulu** *(orobat **distzipulu** g.er.)* **1** maisu baten ikaslea edo jarraitzailea.

Nik maisu horren **dizipulu** bat ezagutu nuen San Franciscon, eta **dizipulu** horren alabarekin ezkondu nintzen. hantxe geratu nahi nuen betiko, Tabor mendian Jesusen **dizipuluak** bezala. Javi Cillero

Dena barkatzen zuenak ez zuen bere **dizipuluaren** traizioa barkatu. Bernardo Atxaga

Platonek Sokrates hil eta berehala idatzi bide zuen, **dizipuluak** oraindik maisuarena ahal bezain fidel ematen zuen garaian. Markos Zapiain

Seneka ageri zen erdian; inguruan, haren esanak liburuetara aldatzen, **dizipuluak**. Imanol Zurutuza

Belauniko jarrita, zapi batez estutzen dio berak zauria, **dizipulu** hark Senekari bezala. Imanol Zurutuza

Irakasle Laguntzailearen **dizipulua** izatea une oroko gozamena zen niretzat. Juan Garzia

Gipuzkoar hau antropologoa da, Jose Miguel Barandiaranen **dizipuluetarik** bat. Herria

Ez zen isiltzen, hasi zenetik dena memoriaz jakingo balu bezala ari zen eta Marx, maisutzat baino gehiago, **dizipulutzat** aipatzen zuen ia. Jon Maia

Lotsati, bere **dizipulua** izan nahi nuela deklaratu nion; isildu zen, egunkaria irakurtzen jarri zen. Pablo Sastre

Ikusi nahi nuelako euskal hizkuntzalariekin halako kezka duen Torquemadaren **dizipulu** honek nolako argumentuak erakusten zituen baieztatzen duena indar horrekin baieztatzeko. Pello Salaburu

**2** (izenondoekin)

Taulerren sermoiek jarraipena eman diote Eckharten pentsamenduari haren kondenaren ondoren, baina esan beharra dago ere Tauler **dizipulu** soila baino zerbait gehiago izan dela. Joan Mari Lekuona

Nire **dizipulu** kuttuna izan zinen, bakarra, neure erraietatik jaiotako semea bazina bezala. Juan Kruz Igerabide

Ni Bordelen arribatu nintzelarik, beste Aitasaindu bat zen Erroman, Paulo VI, intelektuala, teologo frantses aurrerakoien **dizipulu** estua, ene ustez arrazoiaren eta fedearen arteko borroken erdian tira hala ari gudukan. Piarres Aintziart

Maimoni dagokionez, betiere Aristotelesen **dizipulu** zintzoa izanik, unibertsalek izpiritutik kanpoan ez dutela existentziarik aldarrikatzen du. Xabier Kintana

Aldi batez, ordea, Bakoren **dizipulu** bikaina izan zen, ezin golosagoa eta gularat eroria. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere dizipulu** (3); **dizipuluetarik bat** (3)

---

# **dizipulutza** *iz* dizipuluaren egoera.

Abandonua eta autokontrola sormenaren ordezko alternatiboak dira; desertzioa eta martirioa mimesiaren **dizipulutzaren** ordezkoak. Iñaki Mendiguren

---

# dizka ik **disko**.

---

# **dm** *iz* dezimetroaren sinbolo nazioartekoa.

Pantailan erdaraz jazartzen zitzaidana astiro irakurtzeari ekin nion: "Sex M. 26/6 zm, 1,95 m, 100 **dm**, aiduru, GI Ivan" Fanchi bitxiki so geratu nintzaion: berriro ere ez nuen tutik ulertzen. Itxaro Borda

---

# **do** *iz* musika-eskalako lehen nota, germaniar eskalako C notaren kidea.

Baina gero, Madrilgo "Or konpon" tabernan bere lagun falangistekin bilduta, doinu mutu hura -mi-re-**do-do-do**-sol-**do**-re-mi-**do**- "Cara al sol con la camisa nueva" bihurtu zen, inperio berri bat sortu nahi zutenen ereserki gudazalea. Xabier Mendiguren Elizegi

Veneziarrak ibai-tutu bakoitzari musika eskalan zegokion nota atera behar zion: **do**-re-mi-fa-sol-la eta si. Felipe Juaristi

Candendok Bachen Preludioa eta Fuga **Do** minorrean BWV 546 eskaini zuen. Berria - Kultura

Kraus-en (1756-1792) Sinfonia **Do** nagusian eman zuten hasteko. Berria - Kultura

Opari gisara, Bach-en **Do** nagusiko sonatako Largoa eman zuen. Berria - Kultura

Joseph Martin Krausen **Do** maiorreko sinfonia-rekin ekingo diote kontzertuari. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **do maiorren** (3); **do minorrean** (4); **do re** (15); **do re mi** (12); **do re sol** (3); **meza do maiorren** (3); **mi do** (7); **mi do re** (3); **re mi do** (4)

---

# doai ik **dohain**.

---

# **doaika** *(orobat **dohaika**)* antza denez. ik **doike**.

Amodioa erakusteko badira **doaika** modelo ainitz edo forma ainitz, ez dakit nola egin behar litaken... Menane Oxandabaratz

Eta ez dut jakin zer egin duen beste pareak, **doaika** irabazi! Herria

Aldi huntan ez naiz xehetasunetan sartuko: herriko pestak ziren, **dohaika** andere batzuen ondoan lokartu dira gehienak eta hobe segur, geroarentzat; paso beraz. Herria

---

# **doaike** *(orobat **dohaike**)* antza denez. ik **doike**.

**Doaike** amaren aldetik izanen da, aitaren aldetik ez du izanen. Menane Oxandabaratz

Badu horrek kasik 30 urte, arraina biziki maite nuen, eta noizbait, arraina jan ondoan -**doaike** arraina ez zen freskoa edo... zoazi zu-, dena botoi gorri gelditu nintzen, bisaia

eta papoa eta hola... Menane Oxandabaratz

Erantzuna ona izan behar zen **doaike**, bigarren atea berehala ireki baitzen. Ramuntxo Etxeberri

**Dohaike** beste manera baten ikusten ditu aferak Amak! Menane Oxandabaratz

Gaia eta mintzalaria ikusirik **dohaike**, sekulako jendezionea hurbildu zauku: hiruetan hogoi jendez goiti. Herria

---

# doako *(orobat **dohako** g.er.)* *izlag* doan ematen edo hartzen dena.

Pausoa moteltzen dute **doako** egunkaria hartzeko. Urtzi Urrutikoetxea

Diru asko xahutu nahi zuen ezkontzan jendea gonbidatzeko eta **doako** bazkari bat egiteko denentzat hotel batean. nonahi dago **doako** ikuskizunetara zaletutako jendea. Pello Lizarralde

Kontzertuak **doakoak** izango dira. Berria - Kultura

Helburua, gatibutza soilaz gain, Alemaniako ekonomiari **doako** lan-eskua ematea ere bazen, presoa lehertu arte behartuz lanera. Urtzi Urrutikoetxea

-**Doako** barnetegi bat aurkituko zionat. Eskarne Mujika

Zerbait baditek orain ere, horiek ez zekitek guri **doako** mesederik egiten. Hasier Etxeberria

Eskertzekoa da horrelako gizon garbiaren adiskidantza **doakoa**. Hasier Etxeberria

Biziak emandako dohainak arrazoigabe eta **doakotzat** hartzen zituen. Monika Etxebarria

Ez zen erraza izan: baldarkeria ez zitzaidan **doakoa** irten. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**doako hezkuntza** (3); **doako laguntza** (3); **doakoa da** (14); **doakoa izango** (12); **doakoa izango da** (8); **doakoa izango dela** (3); **doakoak izango** (3); **doakoak izango dira** (3); **doakoak izatea** (4); **dute doako** (3); **eta doako** (4); **eta doakoa** (6); **eta doakoa da** (3); **liburuak doakoak izatea** (3); **sarrera doakoa** (7); **sarrera doakoa izango** (5); **testu liburuak doakoak** (3); **unibertsala eta doakoa** (3)

---

# doakotasun *(orobat **dohakotasun** g.er.)* *iz* doakoa denaren nolakotasuna.

Liburu maileguen **doakotasuna** aldarrikatuko dute liburuzainek. Berria - Kultura

Eta jatorrizkoen zein itzulpenen irakurketa haiekin sentitzen nuen barne poza **doakotasunari** zor nion, nonbait, artearen txanpon eder horren gozamenari. Anjel Lertxundi

Jainkoaren dohainaren eta errukiaren **doakotasuna** hainbat aldiz nabaritu duelarik, Frantziskok gauzarik onena opa dio anai Leoni: Jainkoak bere aurpegia erakuts diezaiola eta bakea eman. Askoren artean

Barkamena exijentzia bada, barkamenaren **doakotasuna** galdurik gelditzen da. Joseba Zulaika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**doakotasuna mailegu** (3); **doakotasunaren alde** (3); **ikasliburuen doakotasuna** (6); **ikasliburuen doakotasuna mailegu** (3); **ikasliburuen doakotasunaren** (5)

---

# doan *adlag* ezer ordaindu gabe. ik **dohainik; urririk**.

Sarrera **doan** da. Berria - Harian

Liburuek behintzat **doan** izan behar dute. Koldo Izagirre

**Doan** emango dizut. Karlos Zabala

Esker onez (baina hotz antzean, egia aitortzeko) agurtu nituen bi urtez bizilekua eta mantenua **doan** eman zizkidaten Duhau jaun-andereak. Txillardegi

Nire fede berritua ez dut gogoetetan aurkitu [...] lagun hurkoen artean jasoa baizik, eguneroko maitajardunean Espiritu Santuak **doan** emana baizik. Jenaro Garate

Ez zuen bazkaririk ordaindu: kontua zuelako edo Madame ipurtandiak **doan** ematen ziolako. Ramon Saizarbitoria

**Doan** hartu duzue, eman **doan**. Elizen arteko biblia

Estatuari **doan** atera zaio urteetan pertsonen zaintza. Berria - Euskal Herria

Euskara ikasten duen helduari ikasketak **doan** atera behar zaizkio, eta **doan** ez bada, gutxienik, modu eskuragarrian. Berria - Euskal Herria

Merkantzia hori noizbait saldu behar izango banu, zuri **doan** eskainiko nizuke. Patxi Zubizarreta

Aljerko Lyautey kasernan **doan** banatzen zitzaien gitane zigarreta merkea erretzen zuen Beinatek. Itxaro Borda

*Doctor Blues Band*ek disko berria **doan** jarri du Interneten. Berria - Kultura

Urtean behin **doan** egiten den kontzertua da. Harkaitz Cano

-Lau dinar -erantzun zion zurginak-, baina zure dohainez gozatzeko aukera emango bazenit, **doan** egingo nizuke. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**doan atera** (4); **doan banatu** (5); **doan banatzen** (4); **doan bidaiatzeko** (4); **doan bidaiatzeko aukera** (3); **doan da** (5); **doan dira** (4); **doan egiten** (3); **doan eman** (5); **doan emango** (15); **doan ematea** (3); **doan ematen** (9); **doan ematen dizut** (3); **doan eskainiko** (6); **doan eskaintzen** (4); **doan izan** (6); **doan izan behar** (4); **doan izango** (17); **doan izango da** (10); **doan izango dira** (4); **doan izatea** (5); **doan jarri** (3); **jasoko dute doan** (3); **liburuak doan** (3); **sarrera doan** (16); **sarrera doan da** (3); **sarrera doan izango** (8)

---

# doantasun *iz* doakotasuna.

Jakina da Frantziskorengan **doantasunak** edo gratuitateak duen garrantzia. Askoren artean

---

# doantza ik **dohaintza**.

---

# doarik *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **doan** agertzen da)* *adlag* doan. ik **dohainik**.

Kherson probintzian oso merke saltzen zuten lurra, edo **doarik** ematen zuten, jendea han bizitzen jar zedin. baina berak ez zien ezer **doarik** ematen, eta, batzuetan, jasoriko oparia gorde, eta oparigileari berari saltzen zion geroago. Jose Morales

---

# dobatxakur *(orobat **dobazakur**)* *iz* dogoa.

Kasualitateari esker, **dobatxakur** bat gurutzatuko da bere bidean. Berria - Kultura

-Kaixo, Potter -garrasi egin zuen Pansy Parkinsonek, **dobatxakurrek** bezalako aurpegi zabala zuen Slytheringo neska batek-. Iñaki Mendiguren

Ezin artatsuago zaintzen dituzte euren **dobazakurrak** eta alanoak, eurekin lo egitea atsegin izateraino. Jon Alonso

Kokoriko eserita izugarrizko **dobatxakur** alai baten antzera. Karlos Zabala

dobazakur ik **dobatxakur**.

**dobela** **1** *iz* arku edo ganga bat osatzen duten harri ziri-formako bakoitza.

Modu egokian antolatu behar dira, hain zuzen ere, pareten pisua arintzen saiatuz eta arkuak **dobeletan** zatituta eta junturak zentrora begira dituztela jarriz. Santiago Iruretagoiena

Orduan, angeluetako pilareak neurri zabalekoak egin baldin badira, **dobelei** eutsi eta aparailuari sendotasuna emango diote. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan)

Arku-**dobelen** bitartez kargak habeetatik edo dintel-buruetatik kanpora eramaten direnean, [...]. Santiago Iruretagoiena

**doberman** *iz* zaintzarako eta babeserako txakurra aski handia eta gihartsua.

Neguriko bere landetxe bikainean bi **doberman** zeuzkan, arra eta emea. Gotzon Garate

Motzago heltzen dio estekatik **dobermanari**. Oskar Arana

Beriainen etxeko **dobermanak** bost urteko alabatxoari koska egin zion. Gotzon Garate

Rottweiler, **doberman**, boxer, pitbull arrazetakoak. Gotzon Garate

Edifizio guztian beldur latza zioten **doberman** horri. Gotzon Garate

**dobla** **1** *iz* tolesa.

Zigarro bat piztu eta lau **dobla** egindako egunkari bat atera zuen jakaren sakelatik. Anjel Lertxundi

Emakume zaharrak txintik esan gabe koipeztatu zuen bizkar loratua, eta bi **doblako** oihal bat lotu zion soineko josi berriari barrutik. Anton Garikano

**2** ***dobla egin***

"Lisboatik" aterata, gauerdiari aspaldi egina nion **dobla**, Alde Zaharreko ostatutzar batean anaiarekin topatu nintzenean. Aingeru Epaltza

**3** ***dobla-dobla egin*** doblatu.

Mezua **dobla-dobla** egin, eta mahaiaren aldaroa zuzentzeko baliatzea pentsatu nuen. Anjel Lertxundi

Ez zuen eraitsi, baina **dobla-dobla** eginda geratu zen gau batean. Jokin Urain

Denak hasi ziren denak barrez, lehen bezala, aurpegiak alaitasunez piztuta eta ahoak zabalik, gerritik **dobla-dobla** eginda. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dobla dobla (4)

dobladu ik **doblatu**.

**dobladura** *iz* tolesa.

Ekintza-gizon, abenturazale, bildumatzaile, erudito, bidaiazale, saloietako gizon, idealista gogoz kontra, hori baita bere **dobladuren** atzean ageri den pertsonaia. Josu Zabaleta

**doblaje** *iz* bikoizketa.

**Doblajeaz** hitz egin zidan gero. Xabier Mendiguren Elizegi

**doblaka** *adlag* jauzi bikoitzak eginez.

Batez ere eskuartean aztertzeko arazoetan iritzi subjektiboak, erdizka eta hiru, dantzan hasten direnean gure inguruan, jauzika eta **doblaka**. Pello Salaburu

**doblako** *iz* Gaztelako urrezko txanpona. ik **dobloi**.

Hantxe zegoela lapurra, ehun **doblako** eta mando hankarina kendu zizkiona. Patxi Ezkiaga

**doblarazi**, doblaraz, doblarazten du *ad*

-Ezin dot, Tom, Hogwartseko eginbeharrak dodaz- esan zion Hagridek, bere esku handiaz Harryren bizkarra jo eta mutikoari belaunak **doblaraziz**. Iñaki Mendiguren

**doblatu**, dobla, doblatzen *(orobat **dobladu** g.er.)* **1** du *ad* tolestu.

Paper-muturra hartu, goxo-goxo **doblatu**, eskerrak eman, eta karteran gorde nuen. Anjel Lertxundi

Aho-zapia astiro **doblatzen** nuen bitartean, astiro esan nuen: [...]. Matías Múgica

-Mozkortuta ni? -esan zuen agureak haserre itxuraz eta arrandiaz, eta oin gainean **doblaturik**, abokatuak bere erretolikan ohi duen bezalako keinu barregarri batez-. Josu Zabaleta

Angelok begiak erretiratu zituen katiluaren ondoan **doblatuta** zeukan atzeratutako egunkari zahar koipeztatutik, eta ezpainak hozkatu zituen. Anjel Lertxundi

**2** ad/du *ad* bikoiztu.

Engoitik herritarren kopurua **doblatu** da. Berria - Harian

Osabak opariak **doblatu** zituen; alferrik. Pablo Sastre

Herriaren parte hartzea **doblatu** behar zela. Herria

Anartean zikin biltzearen zergak **doblatuko** dira. Herria

2050ean, 150.000 presuna helduko dira 100 urtetara, 60 urtez gotikoak **doblatuko** direlarik eta 80 urtez goitikoak hirukoiztuko. Herria

Urte bakoitz afera zifra **doblatu** du, Baltimoreko enpresa amerikar batekin lotu ondoan. Herria

Eta, behin gari-orratzak lurraren gainean azaldu orduko, ikusi eta erreparatu beharra **doblatu** egiten zen, eta igandearen buelta zen, soroz soro, etorkizuna nolatsu zetorren edo nolatsu burutu zitekeen iragarpen ilusiozko eta itxaropenezkoa seinalatzeko. Pello Zabala

Samina areagotzen dugu gure intziriak sakonagotzen eta gure malkoak **doblatzen** dituen gastuak eginez. Xabier Olarra

Bestalde, Aljeriako Gerla egina zuen, franko luzaz, eta beraz, bazekien han egon denbora **doblatua** zela erretreta ardiesteko karkuletan. Daniel Landart

Banabeste batean, uraren prezioa kasik **doblatua** da jadanik dotzena bat urte barne. Herria

**3** errepikatu.

Seigarren maila egin ondoan **doblatu** behar nuela erran zidan buruzagiak. Piarres Aintziart

**4** zirkuitu batean, lehiakide bati bira osoko abantaila atera.

Inoiz, erlojupekoan ere, aurreko bat **doblatzeko** aukera izan eta arerioa ez umiliatzearren haren atzetik amaitu zuen Indurainek. Joseba Zulaika

**5** (era burutua izenondo gisa)

Dirua aurrez aurre emateak sortzen dion egonezari itzuri nahian bidet ondoan uzten ditu billete **doblatuak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Punta **doblatu** batek seinalaturiko orrialdean zabaldu zuen Norak liburua. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **doblatu du** (3); **kasik doblatu** (3)

---

# doblatuki *adlag* ahalegina doblatuz.

Eta udaberria heldu, eta bere entseiu eta ahalegin haiek berretzen eta emendatzen zituela eta haietan beroki eta **doblatuki** enplegatzen. Joan Mari Irigoien

---

# doble *(ETCn **1.094** agerraldi)* **1** *izond* bikoitza; bikoa.

Arku **doble** bat xoragarria, harrirudiak denborak erdi janik badira ere. Piarres Aintziart

Aurrez aurreko eserleku **doble** gehienak erdi hutsik zeuden. Anjel Lertxundi

Budapest erakutsi digute, hiri **doblea**, Buda alde batetik, burjesa eta Pest bertze aldetik, langilea. Herria

San Julianeko zilo **doblea** ikusgarria da, zinez. Piarres Aintziart

Txistuz lagunduriko Gipuzkoako dantza herrikoien bilduma bat da diska **doble** hortan aurkitzen, Jose Inazio Ansorenak zuzendutako Donostiako Udal Txistularien Bandak emanik. Herria

-Giltza **doblea** hartu duzu? -galdatu nion, azkenean, ez aise. Daniel Landart

Horiekin bertze gela guzietako gako **doblearen** zaina. Herria

Hasi hadi korapilo **dobleak** egiten metroko tartean. Koldo Izagirre

Bat **doblea** eta bestea indibiduala, ezta? Xabier Mendiguren Elizegi

Ordena **doble** honek (baldintzagabea eta baldintzatua, heterogeneoa baina zatiezina, legearen gainetik baina legearen baitan) aporia egoeran uzten gaitu, Derridarentzat "irtenbiderik gabea" gainera. Joseba Zulaika

Bestalde, orri **dobleekin** ez bezala, holako liburuttoa nun nahi balia laiteke. Herria

Inbertsiogileak ohituta daude, konpainia noblean baino, konpainia **doblean** ibiltzen. Berria - Ekonomia

**2** bi halakoa.

Gainera, lan **doblea**, aitaren partea ere egin beharko bainuen! Daniel Landart

Horregatik, beldur **doblea** ematen zidan. Matías Múgica

Jubilatuak ez direnendako tarifa **doblea** dela aipatuz. Koldo Izagirre

Kafe **doble** bat jarridazu, mesedez! Pako Aristi

Harik eta zerbitzariak bermut **doblea** mahaian utzi zion artean. Edorta Jimenez

Prezio **doblean** saldu beharko dinat! Unai Iturriaga

Zure inguruan pasatzen den guztia ikusten duzu, argitasun **dobleaz**. Anton Garikano

Bainan balio **doblekoa** da zuk guri erakatsia. Herria

· Eta hango irabaziak hemengoen **doblea** edo gehiago! Janbattitt Dirassar

6447 ziburutar 1999-an, behinere izan den gehiena! duela lau ehun urteko heinaren **doblea** nunbait han... Herria

Kotizazioaren **doblea** guti gorabehera. Berria - Harian

• **3** *adlag* bi halako intentsitatean edo kopuruan.

Aire bustiarekin **doble** sentitzen da, hala hotza nola beroa, **doble**! Pello Zabala

Laneko orduak kalitate handieneko orduak direlako eta **doble** balio dutelako. Unai Elorriaga

Dena **doble** ikusten nuen, Herr Schumacherrek bezala. Fernando Rey

Ni arabiarra izango banintz [erregaia] **doble** igoko nuke! Berria - Harian

• **4** *iz* zineman-eta, ordezkoa; beste bat bezalako pertsona.

Lauraren **doblea** First Nationalek kontratatu du eta haren postua betetzeko eskatu dit. Fernando Rey

Hi joten ikustea egundoko txokea zoan, trikitiaren eboluzinoaz apur bat jakitun gengozanok higan Rufinoren **doble** egin-egina ikusten gendualako, ha zaharrean eta hi gaztean. Xabier Amuriza

Jonen **doblea** da Noj, eta **doble** horren presentzia da, Atxagaren ustez, ipuinaren «oinarririk sendoena». Berria - Kultura

Gogoratzen, Zorroagakoek nola esan zuten Aurorak eta Marujak antza zutela?, ba horixe! Maruja Auroraren **doblea** huke. Iñaki Iñurrieta

Ondo fijatzen bahaiz, ispiluaz bestaldean ematen ditugun irudiak **doble** inperfektuenak dituk. Iñaki Iñurrieta

Burdinazko esfera handi bat ezarri zuen bere semetxoaren sorbalda gainean, haren **dobleak** hegan egin zezan. Juan Garzia

**5** ***doblea*** *pred*

Tristurak erdia dira gustuko lagunarekin; pozak, **doblea**. Arantxa Iturbe

Ikusirik hemen gaindi egunean pasatzen diren 7 500 kamioi horiek, **doblea** izanen direla 2015-ean. Herria

Zeren hark neuri eginaren ordaina bihurtu nahi bainion, eta **doblea** bihurtu nahi nion, ahal izanez geroz. Joan Mari Irigoien

Nahiago duela maltzurraren kaltea sufritu, gizajoaren aldetik **doblea** jasan baino. Ramon Saizarbitoria

Madrilgoak barriz, oso lan sastarrak eginda, **doblea** kobratzen du! Koldo Izagirre

0-0 amaituta, etxetik kanpo sartutako golek berdinketa kasuan **doblea** balio dutenez, Real Madril sailkatuko litzateke. Berria - Kirola

Bozen % 16 ardietsiz eta 23 alki segurtatuz, 12-en orde, kasik **doblea**. Herria

**6** ***dobleak*** *pl (musean)*

Gerta zekizkiokeen joko guziak pasatu zitzaizkion eskuetatik hiru errege eta parekoek hordago botatzen handian, **dobleak** bi errege eta bi astorekin, hogeita hamaika eskutik

medeekin... Eneko Bidegain

**7** ***doblean*** *adlag* bi bati.

Dirua **doblean** Atanon, Irujo eta Eulateren alde. Berria - Kirola

Apustuetako dirua **doblean** irten zen Olaizola eta Otxandorenaren alde. Berria - Kirola

Parioak, beti **doblean**, ez dira kantitzen, ez-eta 29-35 edo hiruzpalau tantotarat jinen direlarik ere. Herria

Logroñoko finalean, Titinen herrian, parioak kontra zituzten Xalak eta Goñik, **doblean**, eta 5-2 galtzen. Herria

**Doblean** zegoen lehen dirua, eta 45-100i hasiko omen dira kantuan bihar artekariak Atano III.a frontoian. Berria - Kirola

**8** ***dobleko***

Urtea bukatzear zela, ordea, juzgatu nuen **dobleko** eskubidea nuela printzeari nirekiko zituen eginbeharrak gogorarazteko. Matías Múgica

Horregatik izaten genuen **dobleko** poza. Patziku Perurena

· Atzera egiterik ez eban sekula pentsaten, bere **dobleko** gizonari paparretik heldu behar bajakon bere. Xabier Amuriza

**9** ***bi doble eginda***

Eta izeba Kate ere ia bi **doble** eginda zegoen barrez, hain gogoko izan baitzuen txantxa. Irene Aldasoro

**10** *doblezka* ik **doblezka**.

**11** ***doble puntu*** (*orobat* ***pundu***)

Soka tira, **doble puntu** emaiten duena, gehienik 680 kilo pizu duten taldeekin. Herria

Ohi den bezala, 5 entsegu izanen dira, soka tira bertze guzien gainekoa eta **doble pundu** emanen duena. Herria

Usaiako lasto altxatze, untzi ekartze, kontrabandisten lasterketa eta orga altxatzeaz bertze izanen da soka tira 680 kiloetan neurtua eta **doble pundu** balioko duena. Herria

Helduden igandeko entseguek behexiko dituzte orroituz soka tirako entsegua **doble pundu** negurtua izanen dela. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apustuetako dirua doblean** (4); **dirua doblean** (7); **dirua doblean irten** (3); **doble bat** (4); **doble pundu** (3); **doblean irten** (4); **doblean irten zen** (3); **eta doble** (4); **eta doblea** (3); **ta abildade doblea** (3)

---

# doblefilan *adlag* bigarren ilaran.

Gidatzen doala, halako batean gelditu, **doblefilan** aparkatu, pareko gozotegian sartu, eta segituan, bonboi kaxa handi bat besotan, kotxera itzultzen ikusten dugu. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# doblezka *adlag ipar* bi aldiz.

Bi gisetarat abertzalea niz, **doblezka** abertzalea niz! Menane Oxandabaratz

Bestalde, untsalaz eta legez-lege, preso direnak ez litazke beren familietarik sobera urrun behar, ez **doblezka** zigortuak izaiteko. Herria

Aroa zinez alde izanki, bakoitzak izan du usaiako gauza frankoren ikusteko parada, baina han edo hemen zerbait arraro ere begiztatu duke, eta orduan berak eramana zuenetik berdin **doblezka** ere eskaini duke. Herria

Bizi ditela urostasunean eta **doblezka** goresmen jakitean laborariak badirela oraino Beskoitzen. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta doblezka** (3)

---

# dobloi *iz* Espainian Aro Berrian erabili ziren zenbait diru urrezkoren izenak.

Brigantin eta galera mordoa hondoratu eta arpilatu zituzten, Brasilgo tabakoz eta azukrez zamatuak, aparte utzita urre-hautsa, eta **dobloiz** eta zortziko pezaz beteriko zakuak. Juan Garzia

Edo urre eta zilarrezko txanponak ereiten zituela ortuan, **dobloiak** noiz agertu zain. Berria - Kultura

Dagoeneko aztertuak diren lurraren formazio geologikoak honela daude sailkaturik: lehena, edo behekoena, harriz, hezurrez, mando ustelduz, gas-hodiz, meatzarien tresnaz, antzinako estatua sudurgabez, **dobloi** espainolez eta arbasoz osatua. Xabier Olarra

---

# dobro *iz* gitarra mota, aurreko aldean metalezko disko erresonatzaile bat duena.

Oraingoan Olivierrek **dobro** distiratsu bat ekarri zuen, noizean behin jotzeko. Berria - Kultura

---

# docker (*orobat* ***doker***) *iz* kaiko langilea, zamaketaria.

Gizonezkoetan, berriz, **dockerrek**, esate baterako, astean zortzi-bederatzi shilling kobratzen zuten. Pablo Sastre

Itsaso txarrak arribada atzeratuko zuela etsita zeundenean, "Isla de Luzon" deletreatu zuen **doker** zaharrak espainiera txukunean zure aldamenean, largabista bafore sabelandi bati noratua. Koldo Izagirre

Bertan otorduak ematen zituzten, ostaliertzat **dockerrak**, inguruko langileak, Pontrique kaleko putetxeko damak... zituztela. Pablo Sastre

Atal batean, omenaldi triste bat egiten dio Londonek Dan Cullen **dockerrari**: gogorrean usatutako langile ikasizalea, bere kamaraden defendatzaile sutsua, nagusiek arabera zigortua, bizitza goseak igaro eta gero, hidropesiaz eta beste zenbait gaitzen ondorioz, artean ospitale malaparteko batean hiltzen ari zena... Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **doker zaharrak** (3)

---

# dodekaedro *iz* hamabi pentagono erregularrek mugatzen duten poliedroa.

Oktaedroa, alegia, bi piramide berdin, haien oinarri karratuetatik itsatsiak, zortzi aurpegiak triangelu aldekide dituela; **dodekaedroa**, hamabi aurpegiak pentagono erregular dituena; eta ikosaedroa, hogei aurpegiak triangelu aldekide dituena. Jon Muñoz

---

# dodekagrammaton *iz* hamabi letrako multzoa.

Ez zaio inoiz aplikatu ez **dodekagrammatonari** ez eta berrogeita bi letrako izenari ere *-em ha-mefôr* deitura; berau izen berezia (tetragrammatona) baita, azaldu dugun

bezala. Xabier Kintana

---

**dodekasilabo** *izond* hamabi silaba dituena; hamabi silabako ahapaldi lerroa.

Neure denboran behin bakarrik izan dut egokiera Polyolbioneko, Michael Drayton-en epopeia topografiko horretako hamabost mila **dodekasilaboak** aztertzeko. Juan Garzia

---

**dofin** *iz* Frantziako erregearen seme nagusia. ik **delfin**[1].

Erregeren mosketariak ere harat-honat dabiltza eta halaber guardia suitzar eta eskoziarrak, Louvren gelditu ez direnak, bederen, **dofina** eta erregina-ama babestearren. Aingeru Epaltza

---

**dogma** 1 *iz* erlijio edo filosofia-eskola batean, oinarrizkotzat eta ezin eztabaidatuzkotzat hartzen den baiezpena. ik **sinesgai.**

Azter ditzagun arretaz erlijio okaztagarri honen **dogma** zentzugabeak, misterio beldurgarriak, zeremonia amorragarriak eta moral ezinezkoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez da **dogma** bat, nahiz eta beste ikuspuntu batetik, hots, bere erabilera ahalgarriaren alor bakarraren, h[au] d[a], esperientziaren ikuspuntutik oso ederki eta apodiktikoki froga daitekeen. Ibon Uribarri

Ezin da maitemindua egon bi pertsonarekin batera, Jainko maitea, zenbat jende hiltzen da egunero **dogma** ergel hori dela kausa? Karlos Zabala

Arimaren hilezkortasunaren **dogmaren** aurka agertu zen. Jon Muñoz

Willard van Orman Quine, Nelson Goodman eta Wilfrid Sellars-ek neopositibismoaren **dogma** batzuk arbuiatu zituzten. Askoren artean

Harik eta aita santua bera jaiki, eta, *ex cathedra,* hutsezintasuna Elizaren **dogma** deklaratu zuen arte. Irene Aldasoro

Aurrerapena, zientziaren etorkizuna, teknika eta produkzioa gurtzea mito burgesak dira, XIX. mendean zehar **dogma** bilakatu zirenak. Iñaki Heras

**Dogmarik** gabeko enpirismoa. Askoren artean

Tiranoen eta haien lekaioen kontra... eta **dogma** hertsien kontra. Joan Mari Irigoien

Gehiegi sinesten duzue biolentzian, **dogma** ukiezina bailitzan, erlijioetan bezala. Mikel Hernandez Abaitua

**Dogma** horiek faltsuak ziren, baina oso baliagarriak. Iñaki Iñurrieta

Erlijioak giza ekintzak beharrezko direlako **dogma** ezartzen duenean, legeen zigorrek gogorragoak izan behar dute, eta polizia begiraleago, zertarako-eta gizakiak, halakorik gabe utzikerian eroriko bailirateke, arrazoi horiexek behartuak izan daitezen; baina erlijioak libertatearen **dogma** ezartzen badu, hori besterik da. Iñaki Iñurrieta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Heriotza-zigorra tiraniak aldarrikatu zuen lehendabizi, **dogma** kontu batzuetan eliza nagusiarekin bat ez zetozenen aurka erabiltzeko. Juan Martin Elexpuru

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaur egun nagusi den kristau **dogmak** erakusten duenez, Jainkoak paradisu batean bilduko ditu zintzoak. Josu Zabaleta

Hemen Maimonek ez ditu bereziki filosofoak aipatzen, filosofiaren espekulazioa erlijio-**dogmari** aplikatzen dioten teologoak baizik, *mutakallim-n* deritzenak, hain zuzen. Xabier Kintana

Jarraitzen nuen analisi-metodoa ez zen gehiago liburu-**dogma** bat; egunean-egunean berrikuskatzen zen, findu zitekeen, gure xedeetara egokitu, arrazoimena, frogak eta hutsegiteak konbinatzen zituen joko sotil batez. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dogma bat** (10); **dogma eta** (3); **dogma ezartzen** (3); **dogma guztiak** (5); **dogmak zientzian** (5); **eta dogma** (6); **eta dogmak** (3); **ez da dogma** (3); **kristau dogmak** (3)

---

**dogmakeria** *iz* dogmatismoa.

-Don Estebe bezalako apaiz ezin itxiago bat, Azpil **dogmakeriaren** tunelean sartu zuena -erantzun zidan, keinu bat eginez, haserretik etsipenerako bidean-. Joan Mari Irigoien

---

**dogmatika** *iz* dogma multzoa.

Azken finean, Aranzadi eta Barandiaran maisuengandiko **dogmatika** heredatuaren biktima Caro Baroja ere (horien epigono). Joxe Azurmendi

Adimen arruntak gogoz onartuko lukeela bera esperientzia-ezagutza eta arrazoizko bilkuraren bitartez gogobetetzea agintzen duen egitasmoa, **dogmatika** transzendentalak bera pentsatzean gehien aritutako buruen ikuskera eta arrazoimena askoz gainditzen dituzten adigaietara igotzera behartu beharrean. Ibon Uribarri

---

**dogmatiko** 1 *izond* dogmari dagokiona.

Objekzio denak objekzio **dogmatiko**, kritiko eta eszeptikoetan sailka ditzakegu. Ibon Uribarri

Objekzio **dogmatikoa** esakune baten aurka zuzentzen dena da, kritikoa esakune baten frogaren aurkakoa. Ibon Uribarri

Eta honela, arrazoimenaren kritika gabe bere ibilera jarraitzen duen Filosofia **dogmatiko** orori buruzko zalantza osoa ongi oinarritua egongo litzateke. Ibon Uribarri

Enpirismo **dogmatikoaren** aurrean, Quinek dogmarik gabeko ekarpen propioa egiten du. Askoren artean

Baldin eta arrazoimen hutsaren erabilera espekulatiboan edukiaz ere dogmarik ez badago, orduan metodo **dogmatiko** oro desegokia zaio. Ibon Uribarri

**2** dogmatismoari dagokiona.

Nik uste, pluralismoa ez dela ona, txikizio **dogmatiko** batek utzi duen hondar pila moral eta materiala baizik ez denean. Joxe Azurmendi

Katolizismo **dogmatiko** frankista itogarriaren aurka. Joxe Azurmendi

Teoriak bi fasetan banatzen den prozesuan eratzen dira, Popperrek garbi esan bezala: 'fase **dogmatiko** bat, eta askotan beste bat kritikoa'. Askoren artean

Batzuetan hizkuntza gutxituei atxikitutako kultura txikiek sektarismo **dogmatiko** ikaragarria erakusten dutela, kanon orokorrak ezartzen duena baino gogorragoa inondik ere. Berria - Ekonomia

Pentsaera absolutista **dogmatikoak**, batzuek eufemikoki "unibertsalista" deitu nahiago duten horrek [...]. Joxe Azurmendi

Hain egoera prekario eta ilunetan, baikortasun **dogmatikoa** ezkortasun **dogmatikoa** bezain justifikaezina zen. Iñaki Mendiguren

**3** *izond/iz* pertsonez mintzatuz, bere iritziak ezin eztabaidatuzko egiatzat dauzkana.

Ekintzaile erradikal batek nahitaez **dogmatiko** bat izan behar duela, sinestarazi nahi izaten zaigu. Joxe Azurmendi

Galdekizun haiei ihardespena ez da, noski, **dogmatiko** gogoberoaren jakin-nahiak nahiko lukeen modukoa gertatu. Ibon Uribarri

Metafisikaren etorkizuneko sisteman, filosofo **dogmatiko** guztien buru izan zen Wolff sonatuaren metodo zehatzari jarraiki behar gatzaizkio. Ibon Uribarri

Zuk zeuk diozu buru sinplista eta **dogmatikoek** ukatzen dutela gainerakoek arrazoia izan dezaketela edo eurei entzutea merezi duela. Berria - Euskal Herria

Bere adimenaren esfera neurtu ez duen [...] **dogmatiko** ez-kritikoaren aurkako eraso eszeptiko hauek, [...]. Ibon Uribarri

Nazionalismoa nahitaez beti eskuindarra dela, **dogmatikoentzat** dogma baita. Koldo Izagirre

**4** pertsona dogmatikoari dagokiona.

Handiuste **dogmatiko** haien bazterketari esker argitasuna eta artifiziorik gabeko uste osoa lortzen dute, arrazoimena bere eremu berezian ezartzen duten heinean. Ibon Uribarri

Ez dut ikusten ekintza erradikal bat zergatik pentsamendu **dogmatiko** batekin identifikatu behar den. Joxe Azurmendi

Frogaren pisuak determinista gezurtatzen du hemen, ez agnostikoa, Spenglerrek bere determinismo **dogmatiko** eta dokumentatu gabearekin kontuan hartu ez zuen puntua. Iñaki Mendiguren

Eta orduantxe hartutako bideari jarraitu genion, batzuetan oso era **dogmatikoan** jarraitu ere. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dogmatikoa da** (6); **dogmatikoaren aurkako** (3); **erabilera dogmatikoan** (3)

---

**dogmatikoki** **1** *adlag* era dogmatikoan.

Esaterako, orain dela hamar bat urte **dogmatikoki** eta sutsuki literaturaren autonomia defendatzen zuten zenbait autore gaur egun eleberri engaiatuak edo tesi nobelak argitaratzen ari dituk. Mikel Hernandez Abaitua

Balio berez edo tradizionalki absoluturik aurkitzen ez badu de fakto kultura (demokratikoa) n, absolutizatu egiten ditu balio batzuk eta **dogmatikoki** bermatu. Joxe Azurmendi

**2** dogmaren ikuspuntutik.

**Dogmatikoki** bazterturiko kristautasunetik bizirik iraundako legatu espirituala. Iñaki Mendiguren

Dogmatismoari ohituta dagoenez, bere oinarri-esakuneak ere **dogmatikoki** zapuzten dituen pozoina edaten du zurrut luzeetan. Ibon Uribarri

Hala ere, apodiktikoki ziurra da era berean inoiz ez dela aurkakoa itxura apur batekin, are gutxiago **dogmatikoki**, baieztatu ahal izango duen gizakiren bat azalduko. Ibon Uribarri

---

**dogmatismo** **1** *iz* jarrera edo jokaera dogmatikoa.

Arrazoiak ematen dituenak **dogmatismo** oro baztertzen du eta bestearengan kide bat aitortzen. Xabier Amuriza

Aldizkariak askatasuna eta errespetua aldarrikatzen du, **«dogmatismoa**, sineskeria eta intolerantziari» aurre egiteko. Berria - Euskal Herria

Oinarri absolutuak izanik, zuzenean Jainko bakarrarengandik bildutako hitzak, fundamentalismoa eta **dogmatismoa** sustraitu daitezke bertan. Berria - Euskal Herria

Hala ere, Serrano Izkoren hau, izatekotan, dialektikaren apologia da, ez **dogmatismoarena**. Berria - Kultura

Oro har, aurrebaldintzak, **dogmatismoa** eta liskarrak nagusi dira esparru honetan; eta, beraz, ekonomia, zientziaren eta artearen artean dagoen jakintza esparru bat da; sasi-zientzia bat. Iñaki Heras

Ari da aldaketa garrantzitsu bat gertatzen zenbaiten ustez ezartzen diren diru ekonomiazko politiken **dogmatismoan**: interes tasak behar adina egingo dute behera. Iñaki Heras

Aurreko hiru urteak baino inbertsio gutxiago eginen direla ohartarazi zuen, eta zero defizitaren **«dogmatismoa** hautsi» beharra azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

"Ongizate estatuaren" britainiar sistemari zegokionez, pixkanaka eta **dogmatismorik** gabe alderdi politiko guztien legegintzazko ekarpenen bidez eraiki zen. Iñaki Mendiguren

Egungo idazleak muzin egiten dio Ahots Handiari, **dogmatismoari**, idazletzaren boterear. Iñigo Aranbarri

**2** (izenondoekin)

Bai **dogmatismo** zientifikoaren aldetik eta bai eszeptizismo agnostikoaren aldetik. Iñaki Mendiguren

Indargintzaren inguruan bezala da abortoarekin, drogarekin, eta asaldura soziala probokatzen duten beste arazo askorekin: **"dogmatismo** etiko eta juridikoz", "logika estriktoki binario" sinplez erreakzionatzen du gizarteak horien aurrean, ziurtasun galdua azkar berreskuratzeko. Joxe Azurmendi

Lehenago ere kritiko askok esan izan du Espainiak pentsamendu propiorik [...] inoiz ez duela sortu, eta **dogmatismo** erlijiosoa izan dela ez horren zioa. Joxe Azurmendi

---

**dogmatizatu**, dogmatiza, dogmatizatzen du *ad* norberaren iritziak dogma gisa azaldu.

Laster erori zen berriro bere zorakerian, eta **dogmatizatzen** hasi zen. Juan Martin Elexpuru

Heriotza-zigorra erabiltzen da herria sediziora eramateko sektaren alde agerian **dogmatizatzen** dutenen aurka. Juan Martin Elexpuru

Balio estetiko izugarria duten ekuazioen bidez, eta zientifiko adjektiboaz, oro har, zera lortu nahi da askotan: eztabaidagai diren ekonomiaren eta gizartearen zenbait aspektu **dogmatizatzea**. Iñaki Heras

---

**dogmatizatzaile** *izond/iz* dogmatizatzen duena.

Ondorio hauetarako fio ziren Tolosako **Dogmatizatzaile** ospetsu batekin, zeudenen artean entzutetsuena eta ospe handikoena, Guialdo zuen izena, gizon ausarta zen, asmamenean garratza, sutsua jenioz, harroxkoa, eta Eskritura Sainduak sakon ezagutzen zituen, Hebraiera hizkuntza ezin hobeki ulertzen zuen, eta denetan eztabaidarik handienetarako prest egoten zen. Jon Alonso

---

**dogmatizazio** *iz* dogmatizatzea.

Bai, beste autore askok ere azpimarratu izan dute marxismoaren **dogmatizazio** eta teologizaziorako joera. Iñaki Heras

---

**dogo** *iz* txakur handia eta sendoa, mutur motza duena eta zaintzarako eta babeserako erabiltzen dena.

Aitonaren bertsioen arabera, daniar handi bat zen, baina beste batzuetan **dogo** bat deskribatzen zuen, eta behin batean San Bernardo bat zela aipatu zigun. Iban Zaldua

Bestelakoak: 131 pitbull, 96 argentinar **dogo**, 32 brasiliar fila, 49 kanariar presa, 37 napolitar mastin, [...]. Gotzon Garate

Beste harkaitz batek **dogo** bat itxuratzen du Itsasandiari zaunka ari balitz bezala. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argentinar dogo** (4)

---

dohagabe ik **dohakabe**.

dohai ik **dohain**.

dohaika ik **doaika**.

dohaikabe ik **dohakabe**.

dohaike ik **doaike**.

**dohain** *(orobat* ***doai*** *g.er. eta* ***dohai*** *g.er.)* **1** *iz*. emaitza, bereziki Jainkoak ematen duena edo naturatik hartzen dena. ik **mesede**; **opari**.

Lehengo garai gozoak eta orain elkarrekin dasta zitzaketen loriak aipatu zizkion, erregalu eta **dohain** ugari oparitu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gutxi batzuei emandako **dohaina** da. Iñaki Mendiguren

Jainkoak emandako **dohaina**; edo madarikazioa, beharbada. Juan Garzia

Anaiok, eman diezazkiogun eskerrak leialki eta debozioz Jainko gure Jaunari bere **dohain** guztiengatik. Askoren artean

**Dohain** ezberdinak ditugu, Jainkoak eman nahi izan dizkigunen araberakoak. Elizen arteko biblia

Fedea Jainkoaren **dohain** bat dela errana da. Herria

Emazte ona **dohain** bikaina: Jaunari begirune diotenentzat dago gordea. Elizen arteko biblia

Beraz, agintzaria, **dohain** hutsa izanik, fedeari dagokio. Elizen arteko biblia

Jainkoaren Erreinua, **dohain** eta exijentzia. Elizen arteko biblia

-Zeruaren **dohain** bat izango litzateke. Patxi Zubizarreta

Irritsezko urtebetea, bizitzaren **dohain** bakarra bortxaketa balitz bezala. Anton Garikano

-Zaldun prestu hori: **dohain** baten eske natorkizu. Juan Kruz Igerabide

Hilekorik ez, haurdunaldirik ez, ba al dago **dohain** hoberik? Patxi Zubizarreta

Beste gauzen antzera, dirua **dohainez**, mailegutan, akuran edo salerosian eman daiteke. Andres Urrutia

Espiritua lehen-**dohaintzat** hartu dugunok intzirika gaude geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain. Elizen arteko biblia

**2** ik **bertute**.

**Dohain** hori guztiei zegokien; baina era berean bakoitzak bere bertute berezia zuen. Askoren artean

Errana naiz diskrezioa ez zela haren **dohainetarik**. Aingeru Epaltza

Barnetasunak ez du zertan obra literario on bat eman; baina **dohain** hori gabe eginkizunak are eta zailagoa dirudi. Bernardo Atxaga

Clara Parkek, artista autista baten amak, honela izendatu du **dohain** hori: "objektua ikusi bezalaxe (sormenari lekurik eman gabe) geroago papereratzeko ahalmen ez-ohikoa". Xabier Olarra

Gu ere halako **dohain** batek igurtzirik sentitzen ginela esan liteke. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahalmen indartuen nahiz jende dohaintsuen egiturak behar ziren arakatu, eta **dohain** horiek garunean zer oinarri duten aztertu. Xabier Olarra

Hau da, ubikuotasunaren **dohaina** du, desarauzko fenomeno horri atzetik dohain substantiboa ipini zionak zer esaten zuen ez bazekien ere. Karlos Linazasoro

Pozarren emango nituzke nire ondasunen erdiak zure **dohain** horietako batzuen jabe izateagatik! Jose Morales

Dotorezia paregabea, ahots ederra, eta **dohain** ugari, filosofia jardunerako, bereziki. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Irudipena neukan haiek bazutela sekretu bat nik ezagutzen ez nuena, neskekin aritzeko **dohain** bat niri falta zitzaidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Apartamentuan prestatzen nuen neuretzako gosaria, baina ez nuenez atsegin sukaldean aritzea eta **dohainik** ere ez nuenez horretarako, bazkariak eta afariak jatetxeetan egiten nituen gehienetan. Oskar Arana

Urruneko gauza asko entzuteko **dohaina** ere badut. Agustin Otsoa

Eta gure etxekoek ba zakiten zazpi seme heldu direlarik segidan, zazpigarrenak **dohain** bat baduela... Menane Oxandabaratz

**3** (gauzei buruz)

Marrazkera txukunekoa, begirada sukartsuko gizonaren grabatuak ez zuen, ordea, aparteko **dohain** artistikorik. Anjel Lertxundi

Ez da literaturaren **dohain** esklusiboa: pinturak eta musikak idatziak bezain ondo lortzen dute, zinemak zeresanik ez. Xabier Mendiguren Elizegi

Kantuak badu beste **dohain** bat, arestian literaturaren helburutzat jo duguna: irakurlea edo entzulea hunkitzeko gaitasuna, Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (izenondoekin)

Eskasia handien ondoan **dohain** handiak nabari zitzaizkion Stepheni. Xabier Olarra

**Dohain** handiak zituela putakeriak ikasteko eta gauzatzeko. Migel Angel Mintegi

Harreman estuetarako **dohain** berezia zuen, ongi konpondu zen hango eskimalekin, eta nolabaiteko espezialista bihurtu zen medikuntza polarrean. Xabier Olarra

Sendagile izateko ez bezala **dohain** bereziak zituela jendea hipnotizatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Zer, laztana, harrituta? -albora begira jarri zen, gizonak bere **dohain** fisikoak hobeto ikus zitzan. Migel Angel Mintegi

Zé Luisek **dohain** apartak zituen ohean eta, elkarrengandik bereizi ondoren ere, elkartu egiten ginen batzuetan eta larrua jotzen. Karlos Zabala

Amorragarria bere bizia eta ingurukoena katramilatzeko haren **dohain** aparta. Aingeru Epaltza

Zuzentzaileak bikoizteko **dohain** azpimarragarria du. Jon Alonso

Zorionak eman zizkien dorre-eraikitzaileei, asmamena eta sormena bezalako **dohain** modernoez blaituriko beren sen praktikoarengatik. Jon Alonso

Gottfried Mind izeneko "kretino inuzente" bat, 1768an Bernan jaioa, marrazteko **dohain** harrigarria erakutsi zuena umetatik. Xabier Olarra

Santuaren **dohain** miragarria guztien jakitera iritsi zen, gizon-emakume asko korrika joan baitzen ikustera. Askoren artean

Horraino iritsi zen nire **dohain** huts egin ezinezkoa. Oskar Arana

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eboluzioak haren baitan ezarritako **dohain**-hornidurak aukera ematen dio gizakiari lur honen gainean bizitzeko. Juan Garzia

Usain goxozko ontzitxo batean bezala, herri horretan daude bildurik Indiak dituen **dohain**-lurrin bene-benetakoak. Gotzon Garate

Haurtxoak ezin uler zezakeen noski halako **dohain**-opari bikaina egokitzea berari, gizon helduak gero poema zizelka zezan! Juan Garzia

Egingo nuke, zure buru argiaren **dohain**-ahalmenak hortxe agertzen dituzula. Patxi Ezkiaga

Izan ere, berezko **dohain** sail zabala erakusten bide zuten; alde biologikoaren adierazpen gordin eta ukitu gabeak. Xabier Olarra

Are gehiago, garbi geratu zen autista savant askok **dohain** mota bat baino gehiago izaten zutela. Xabier Olarra

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Errege **dohain** bat egin nahi nion, aspaldian hortarako begiratzen nuena zigarreta paketa bat. Marzel Etxehandi

Ateneak jainko-**dohaina** bidali zion, eta han zeuden guztiak harriturik begiratzen zioten. Juan Kruz Igerabide

Argi ikuste horretan izango zuen zerikusia nire idazle-**dohain** deskubritu berri hark, noski. Xabier Mendiguren Elizegi

Beren kemenagatik eta borrokalari-**dohainengatik** hamarka mutil gazte aukeratu zituen kontu handiz Hassanek ekialde osoan. Jon Muñoz

Zeren eta horrelako administrazio-**dohainak** izan, baina horiek garatzeko inolako jabetzarik ez zutenentzat, monasterioek, beren ondare izugarriekin, eremu zabala eskaintzen baitzuten. Iñaki Mendiguren

Bainu publikoetan lan egiten zuen, baita ezkontzak bideratzen ere, eta horren guztiaren eraginez ikaragarri zorroztu zituen bere behaketa **dohainak**. Patxi Zubizarreta

Judu-ezaugarriak, Mendebaldeko jentilek luzaroan beren arteko juduei esleituak, judu-diasporak Mendebaldeko munduan bizi izandako egoera bereziaren ondorio zirela eta ez heredaturiko arraza-**dohain** bereziren baten ondorio. Iñaki Mendiguren

Chris eta Lorraine beldur ziren Stephenek, hizkuntza bereganatzen hasiz gero, ez ote zituen galduko bere ikusmen-**dohain** miragarriak, hala gertatu baitzitzaion Nadiari, halabeharrez nahiz bestela. Xabier Olarra

Honetan ere profeta-espirituak Frantziskoren espiritu-**dohain** berezia nabari uzten zuen. Askoren artean

- **7** *adlag* doan, dohainik.

-*Honeydukes*en esne-gozoki berri bat dute, eta **dohain** ematen zuten probatzeko. Iñaki Mendiguren

Turismo guneetako hotel eta tabernetan promozionatzen duten 'Happy hour' edo 'ordu zoriontsua'ren ondoan, zeinetan kopa bat hartuz gero bigarrena **dohain** ematen dizuten, bizitzaren nekeak eta gure indarren ahuldadeak 'Ordu txepela' dakarkigu maiz, zeinak ordu baten makalaldiari amore ematen badiozu bigarrenaren zama dakarkizun **dohain**. Pako Aristi

«Donostia hiriak **dohain** uzten digu», azaldu du Idirinek. Berria - Kultura

· **Dohaineko** eskolta eta guzti eduki zezakeen, nahi izanez gero. Harkaitz Cano

Pentsamendu horiek ez ziren **dohainekoak**, Patri. Hasier Etxeberria

Morroi horrixe ematen diot **dohainezko** gauren bat berak nahi duenean... Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adina dohain** (3); **badu dohain** (3); **baina dohain** (8); **baina dohain hori** (3); **baino dohain** (3); **bere dohain** (34); **bere dohain eta** (4); **bere dohain nagusia** (5); **beren dohain** (5); **berezko dohain** (5); **beste dohain** (15); **beste dohain bat** (5); **beste dohain batzuk** (4); **bestelako dohain** (3); **bi dohain** (4); **da bere dohain** (3); **da dohain** (3); **den dohain** (5); **dituen dohain** (5)

**dohain aberatsak** (3); **dohain aparta** (4); **dohain apartak** (11); **dohain apartak zituen** (3); **dohain bat** (40); **dohain bat da** (3); **dohain bat zela** (3); **dohain batez** (4); **dohain batzuk** (5); **dohain bera** (3); **dohain berezi** (16); **dohain berezi bat** (6); **dohain berezi hori** (4); **dohain berezia** (25); **dohain berezia zuen** (4); **dohain bereziak** (14); **dohain bereziak zituela** (3); **dohain bereziren** (3); **dohain berezirik** (6); **dohain bereziz** (3); **dohain bikainak** (7); **dohain desberdinak** (3); **dohain edo** (5); **dohain ematen** (4); **dohain eta** (37); **dohain eta bertute** (3); **dohain eta grazia** (3); **dohain ezin** (3); **dohain fisiko** (5); **dohain fisikoak** (3); **dohain gutxi** (3); **dohain guztiak** (18); **dohain guztien** (5); **dohain haiek** (3); **dohain handia** (7); **dohain handiak** (9); **dohain handiko** (5); **dohain harrigarria** (5); **dohain hau** (19); **dohain hau eman** (7); **dohain hauek** (4); **dohain hori** (36); **dohain horiek** (29); **dohain horiek guztiak** (3); **dohain horien** (3); **dohain horrek** (3); **dohain horretaz** (3); **dohain horri** (3); **dohain hura** (4); **dohain hutsez** (3); **dohain ikaragarriak** (4); **dohain ikusgarriak** (4); **dohain nagusia** (14); **dohain onak** (5); **dohain onena** (4); **dohain oso** (3); **dohain ugari** (4)

**du dohain** (6); **duen dohain** (6); **edo dohain** (3); **espiritu santuaren dohain** (3); **eta dohain** (47); **eta dohain bereziak** (3); **eta dohain hori** (4); **eta dohain horiek** (6); **fisikoki dohain** (4); **gure dohain** (4); **guztiek dohain** (3); **halako dohain** (8); **haren dohain** (5); **hori dohain** (3); **horretarako dohain** (3); **jainkoak dohain** (4); **jainkoaren dohain** (11); **musikarako dohain** (5); **nire dohain** (6); **nuen dohain** (3); **oso dohain** (4); **santuaren dohain** (5); **zein dohain** (5); **zituen dohain** (4); **zuen dohain** (6); **zure dohain** (4)

**argiaren dohaina** (3); **bere dohaina** (3); **berezko dohaina** (9); **berezko dohaina zuen** (3); **biziaren dohaina** (3); **bizitzeko dohaina** (3); **digun dohaina** (3)

**dohaina baita** (3); **dohaina bidali** (4); **dohaina bidali zion** (4); **dohaina da** (9); **dohaina dauka** (3); **dohaina du** (6); **dohaina dute** (3); **dohaina dutenak** (3); **dohaina eman** (7); **dohaina ematen** (3); **dohaina ere** (4); **dohaina eta** (5); **dohaina ez** (7); **dohaina ez da** (3); **dohaina hartu** (3); **dohaina izan** (7); **dohaina zuela** (3); **dohaina zuen** (10); **duen dohaina** (4); **duten dohaina** (5); **egiteko dohaina** (12); **egiteko dohaina eman** (4); **emandako dohaina** (4); **eta dohaina** (5); **hitz egiteko dohaina** (6); **hitzaren dohaina** (5); **izateko dohaina** (3); **jainkoaren dohaina** (11); **jaunaren dohaina** (3); **profezi dohaina** (7); **sekulako dohaina** (3); **sendatzeko dohaina** (3); **zeukaten dohaina** (3)

**bakoitzak bere dohainak** (3); **bere dohainak** (42); **bere dohainak erakusteko** (4); **bere dohainak erakutsi** (4); **beren dohainak** (7); **berezko dohainak** (3); **bertute eta dohainak** (3); **bestelako dohainak** (3); **diren dohainak** (4); **ditu bere dohainak** (5); **dituen dohainak** (8)

**dohainak dira** (3); **dohainak ditu** (9); **dohainak dituela** (3); **dohainak dituen** (4); **dohainak eman** (4); **dohainak erakusteko** (5); **dohainak erakutsi** (10); **dohainak erakutsi zituen** (3); **dohainak ere** (7); **dohainak eskaini** (3); **dohainak eta** (15); **dohainak ez** (6); **dohainak oro** (3); **dohainak zituela** (3); **dohainak zituen** (7)

**egiteko dohainak** (4); **eta bere dohainak** (3); **eta dohainak** (17); **gure dohainak** (3); **haien dohainak** (3); **haren dohainak** (10); **hartutako dohainak** (3); **izateko dohainak** (6); **jainkoaren dohainak** (5); **nire dohainak** (3); **onaren dohainak** (3); **zituen bere dohainak** (3)

**bere dohainei** (5); **bere dohainekin** (4); **bere dohainen** (5); **bere dohainen berri** (4); **beren dohainen** (4); **dohainaren arabera** (3); **dohainei esker** (4); **dohainei eusten** (3); **dohainen artean** (10); **dohainen bat** (11); **dohainen berri** (5); **dohainen eta** (3); **dohainen jabe** (3); **dohainetako bat** (6); **dohainez betea** (4); **dohainez eta** (3); **espiritu santuaren dohainez** (3); **eta dohainen** (4); **jainko dohainen** (3); **jainkoaren dohainez** (4); **santuaren dohainez** (3); **savanten dohainen** (3)

---

## **dohaindu**, dohain(du), dohaintzen *(orobat **dohaitu**)* du *ad* dohatu.

Bizitzaren gorabeherek bikain **dohaindu** zuten arte horretarako. Aldian behin iruditzen zaigu Jaungoikoak **dohaindu** dituela europarrak harengan sinisten ez badute ere. Patxi Zubizarreta

Kinka larri hartan gajoari ez zion balio izan erregea aita izenez **dohaitu** zuen lehenengoa izanak. Xabier Amuriza

Talentu handiko matematikoa eta fisikoa omen zen, markaz gaineko memoriaz **dohaindua**. Matías Múgica

---

## **dohainik** *adlag* doan, ezer ordaindu gabe.

Pub ezagun batean garagardo bina **dohainik** edateko gonbitea aurkitu dugu mahai gainean. Edorta Jimenez

Gauza horiek ez baitira **dohainik** izaten. Ramon Saizarbitoria

Gainera, medikuek beti kobratzen duzue zerbait, eta zure zerbitzuak, orain ere, ez dira **dohainik** izango... Joan Mari Irigoien

"Lehenengotan **dohainik**; behin berotuta, dirutan", horra hango legea. Edorta Jimenez

Ez zizkiguten **dohainik** eman, ez pentsa. Pello Salaburu

Euri oparoa da haren grazia, ez gure merituek lortua, baizik eta, hitzak berak dioenez, **dohainik** emana. Imanol Unzurrunzaga

Nahiz eta abadeak eta monjeek **dohainik** utzi zieten eliza Frantzisko eta anaiei, inolako ordainsaririk edo errentarik gabe, [...]. Askoren artean

Nancyk laguntzailea behar du bitxigintzako negoziorako, eta baldin eta Aurorari ez bazaio axola garbiketan eta sukaldean laguntzea, **dohainik** har dezake logela. Oskar Arana

Horrela Longartek **dohainik** jarraitu ahal izan zuela probak egiten eta ikasten. Koldo Izagirre

**Dohainik** ateratzen zitzaizkiola telefono dei guztiak, baina ez bazkide zelako. Joxemari Iturralde

Nonahi, zuek eta zuen eskifaiek behar duten guzia eska dezakezue, **dohainik**, behar duzuena errezebituko duzue. Aurelia Arkotxa

Moro batzuk ari ditun portuan **dohainik** banatzen, protesta gisara edo. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat dohainik** (4); **beste dohainik** (3); **da dohainik** (6); **dira dohainik** (5); **dohainik aterako** (4); **dohainik banatzen** (3); **dohainik da** (5); **dohainik egiten** (3); **dohainik eman** (6); **dohainik ematen** (4); **dohainik eskaintzen** (4); **dohainik eta** (6); **dohainik ez** (3); **dohainik handiena** (4); **dohainik izango** (5); **dohainik izaten** (3); **dohainik onenak** (3); **edo dohainik** (3); **eta dohainik** (7); **ez dira dohainik** (4); **guztia dohainik** (3); **sarrera dohainik** (5)

---

## **dohainikako** *izlag* doakoa.

Batzuen eta bertzeen ibilerei begirik kendu gabe, ohiko erretiratu tropak so egiten zion **dohainikako** ikuskizunari, inguruko berdeguneetako zuhaitzen itzalpean gerizaturik

Aingeru Epaltza

---

# dohaintasun 1 *iz* doakotasuna.

Bi baldintza ezarriak ditugu hastapenetik denen artean, laikotasuna eta **dohaintasuna**. Herria

**2**

Soldaduen **«dohaintasuna** eta garbitasun morala» goraipatu eta euren «sakrifizioari» esker «faxismoa eta nazismoa garaitu» eta «askatasuna garaile» atera dela iritzi zion. Berria - Mundua

---

# dohaintsu *(orobat **dohaitsu** g.er.) izond* dohainez betea.

Nekez lortuko zituen hamar urteko ume normal **dohaintsuenak** ere, espazioa, itxurak eta itzalak marrazteko gaitasun hura eta Nadiak zuen perspektibaren zentzu bikaina. Xabier Olarra

Bada modua [...] gizaki **dohaintsuzko** arraza bat sortzeko, zuhurki antolatuz hartarako ezkontza egokiak belaunaldi segida batean. Juan Garzia

Neurologoek beren arreta, beste alde bateko joera-aldaketa nagusitua zen orain: ahalmen indartuen nahiz jende **dohaintsuen** egiturak behar ziren arakatu, eta dohain horiek garunean zer oinarri duten aztertu. Xabier Olarra

Behatzaile ez hain **dohaintsuek** katuak salbuesten dituzte, ez baitute ematen gu iaz ginen baino zuhurrago edo zintzoago. Xabier Olarra

Edozeinentzat gustagarri izan behar denaren zapore uniformea izaten dute nazioarteko best-seller-ek idazle hauek gehienetan **dohaitsuak** izan arren. Berria - Kultura

---

# dohaintza *(ETCn **2.515** agerraldi; orobat **dohaitza** ETCn **11** agerraldi, **doantza** g.er. eta **dohantza** ETCn **9** agerraldi)* 1 *iz* norbaiti, borondatez eta saririk espero izan gabe, ematen zaion gauza, eskuarki baliotsua. ik **donazio 2**.

Nolabait ere ez baitzuen sekula ahazten bizitza **dohaintza** bat, opari bat zela. Biziarteko errenta inorentzen da; diru kopuru baten erabilera dohainezkoa, mailegu hutsa da; korriturik eta itzultzeko asmorik gabeko eskuzabaltasuna, **dohaintza** da. Xabier Olarra

**Dohaintza** eta mailegua eskuzabaleko ekintzak dira; akura eta inorentzea, ostera, inola ere ekintza ez-bidezkoak. Andres Urrutia

Baten batek bere orubea beste bati **dohaintzan** edo salmentan uzten badio, [...]. Esteban Antxustegi

**Dohaintzak** egiten dizkigute. **Dohaintzen** alde nago, eta oinordetzen aurka. Joxan Elosegi

Aurrez emanda zeuden **dohaintzek** bere hartan iraun zuten. Iñaki Iñurrieta

**Dohaintzen**, oinordetzaren eta ondare txikien gaineko zerga ezarri nahi du berriz, baita inbertsio publikoen funtsen eta burtsa transakzioen gainekoak ere. Berria - Mundua

Zaharberritzeko pizgarri fiskalak, kultur erakunde publikoei egindako **dohaintzei** kenketak, [...]. Berria - Kultura

Begira zer dioen gurean, Gipuzkoako lurralde historikoan, Oinordetza eta **Dohaintzen** gaineko Zergari buruzko testuak: [...]. Iñaki Heras

Hauteskunde kanpainan, Tabare Vazquezek iragarri zuen bere alderdia garaile izanez gero Muhrrek Uruguaiko Liburutegi Nazionalari emango zizkiola **doantzan** Onettiren eskuizkribuak. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Hamar akreko soro batean alderik alde sutauts lerro bat egin zuen, eta, orduan, oihu batek burua itzularazi zion, **dohaintza**-emaile eskuzabalak poxpolo piztu bat botea baitzuen bat-batean ildoaren hasieran. Xabier Olarra

Irabazi asmorik gabeko fundazio bat (Trust) izango da ehunen jabe, onuradunak **dohantza** egileak izango dira eta ikertzaileek soldata moduko bat jasoko dute. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dohaintzan eman (3)

---

dohaitsu ik **dohaintsu**.

---

dohaitu ik **dohaindu**.

---

dohaitza ik **dohaintza**.

---

# dohakabe *(ETCn **1.205** agerraldi; orobat **dohagabe** g.er., **dohaikabe** g.er. eta **doikabe** g.er.)* 1 *izond* zorigaiztokoa, zorigaitzak joa.

Bere katearen zama lehenik sentitzen duen emakume **dohakabe** batek. Jon Muñoz

Tony, gizon **dohakabe** batek eska al lezake asilorik gaur gauerako zure gelan? Lopez de Arana

Herri **dohakabea** eta jende **dohakabea**! Patxi Zubizarreta

Batez ere, errukarri zaizkit nire mujik **dohakabe** horiek. Jose Morales

Belauniko, otoitz egin zuten azken aldiz izaki **dohakabe**, bakezale eta on haren alde. Karlos Zabala

Maitasuna da paradisu galdua, Adan eta Eba **dohakabe** haiek, basilisko zitalak atzipeturik, betiko suntsitu ziguten lur aratz amestua. Karlos Linazasoro

Solas egiten bada aipatu jende **dohakabe** horiekin [...]. Herria

Behartsu eta **dohakabe** naiz, baina Jauna da nitaz arduratzen. Elizen arteko biblia

Zoriontsu ez dena **dohakabea** al da? Imanol Unzurrunzaga

Ez soilik lehiatu da **dohakabe** jende horien zorra kitatzera, orobat eman die munta handiko diru kopuru bat. Jon Muñoz

Jainkoak ni frogatzeko egin nau **dohakabe**. Patxi Zubizarreta

**Dohakabeak** egun haietan haurdun daudenak eta bularreko haurrak dituztenak!

**Dohakabea** ni! neure herriaren hondamendia eta Hiri Santuaren galera ikusteko jaioa naiz! Elizen arteko biblia

Nire **dohakabea**! krudel hori entzun dizudanez geroztik. Jon Muñoz

Ene errukarria! ene **dohakabea**! Jose Morales

**2** (gauzei buruz)

Donostiak ez du beldurrik, baina hiri **dohakabe** hau akitua dago. Koldo Izagirre

Lur beltz, lur amorragarri, lur madarikatu eta **dohakabe** honen gainean zuhaitz adar bat ikusi zuenetik, urkabea prest zeukan gizonak. Patziku Perurena

Miletan nahiagoko zukeen goiz **dohakabe** hartan ez jaiki. Daniel Landart

Gaiztoak bizitza **dohakabe** eta errukarriz zigortzen baititu eta zintzoak bizitza dohatsuz saritzen. Imanol Unzurrunzaga

Kontsumismoa bizitzeko estilo bat bilakatu da, bizitzeko filosofia **dohakabe** bat. Pako Aristi

1901eko Lore Jokoen sarrera-hitzaldi **dohakabe** hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Munduan dudan guztia emanen bainuke abentura **dohakabe** hori saihestu ahal izateko. Jon Muñoz

Aspaldi huntan ezindua zagon, ixtripu **dohakabe** baten ondorioz. Herria

Argi eta garbi erran zuten han nobela amodio **dohakabe** batek herrian atxikia zintuzkala. Jon Muñoz

Ez itzazue itsu-itsuan sinetsi hitz **dohakabe** itxurakook, agian itxura besterik ez dira izango eta! Karlos Linazasoro

**3** (izen gisa)

-Zerorrek diozun bizibide horretakoa nauzu; eta, mindurak, dohakabeak eta **zoritxarrak** beren habia hortxe, nire arima barruan, badute ere, ez da horregatik besteen atsekabeetarako urrikalmena aldendu bertatik. Patxi Ezkiaga

• **4** *iz* pertsona dohakabea.

**Dohakabeari** eskua zabaltzen dio eta behartsuari laguntza ematen. Ireki ahoa zuzentasunez epaitzeko, **dohakabe** eta behartsuen eskubideak babesteko. Elizen arteko biblia

Egunsentian jaikitzen da hiltzailea, behartsua eta **dohakabea** hiltzen ditu. Elizen arteko biblia

Zergatik itxi dizkiezu begiak sokatik zintzilikatutako **dohakabe** horiei? Anjel Lertxundi

Lagun hurkoa gutxiesten duenak bekatu egiten du; zorionekoa **dohakabeez** errukitzen dena. Elizen arteko biblia

Nori ez zaizkio alderdirik sentikorrenak dardaraz jartzen, ikusten dituenean milaka **dohakabe** miseriak eta etsipenak beren jatorrizko egoerara jaurtita. Juan Martin Elexpuru

**Dohakabe** haiek ozta-ozta alde egiten zuten militarren bidetik. Karlos Zabala

Mespretxuz, **dohakabe** gizajoak bazinete bezala begiratzen dizue behin eta berriz. Rafa Egiguren

**Dohakabearen** garrasiek jada egindako ekintzak eskatzen al dizkiote, menturaz, itzultzen ez den denborari? Juan Martin Elexpuru

Ni ere **dohakabe** zorigaiztoko bat naizelako. Karlos Linazasoro

Izatearen arintasun jasanezinak oro berdinduko gaitu, sasoi-beteko nahiz elbarri, aberats nahiz pobre, zoriontsu nahiz **dohakabe**, azken argiaren zantzuan. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**behartsu eta dohakabe** (3); **dohakabe bat** (11); **dohakabe batek** (3); **dohakabe baten** (6); **dohakabe batzuk** (3); **dohakabe eta** (12); **dohakabe guztien** (8); **dohakabe guztien pozbidea** (7); **dohakabe haiek** (7); **dohakabe haien** (3); **dohakabe haren** (4); **dohakabe hartan** (3); **dohakabe hau** (6); **dohakabe hauek** (5); **dohakabe honek** (4); **dohakabe hori** (11); **dohakabe horiek** (7); **dohakabe horien** (3); **dohakabe horrek** (4); **dohakabe horri** (3); **dohakabe naiz** (4); **egun dohakabe** (6); **emakume dohakabe** (6); **eta dohakabe** (11); **eta dohakabe naiz** (3); **gizon dohakabe** (4); **hiru dohakabe** (3); **neska dohakabe** (3)

**adiskide dohakabea** (3); **arras dohakabea** (4); **arras dohakabea naiz** (4); **baina dohakabea** (4); **dohakabea da** (4); **dohakabea eta** (7); **dohakabea eta behartsua** (5); **dohakabea naiz** (6); **dohakabea ni** (6); **dohakabeak egun haietan** (3); **dohakabeen alde** (3); **dohakabeen eskubideak** (3); **duen dohakabea** (3); **eta dohakabea** (4); **gure adiskide dohakabearen** (3); **jende dohakabea** (3); **nire dohakabea** (4)

---

## **dohakabekeria** *iz* dohakabetasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Ohart eta laudagarri da haurreri ttipitik erakustea badirela hor gaindi **dohakabekeriak** jo dituen gizon eta emazte. Herria

---

## **dohakabeki** *adlag* dohakabetasunez, era dohakabean.

Buruko zapi batean amultsuki bildu eta magalean kulunkatzen zuela dio norbaitek, edo jaio orduko hil den haurraren hilotza bezala laztantzen zuela arma itzali berria, **dohakabeki** negar eginez. Joxean Agirre

---

## **dohakabetasun** *iz* zorigaitza. ik **dohakaitz**.

Baina kalera irten orduko, whiskiaren eraginpetik at geratu zen, erabat babesgabe, eta **dohakabetasun** motel ikaragarri batek karraskatu zion barrena. Mirentxu Larrañaga

**Dohakabetasun** handi bat, nondik datorkion ez dakiena eta ariman kabitu ezin zaiona. Pako Aristi

Agure haiek zahartzaroaren errukarritasunari, zatartasunari, **dohakabetasunari** ihes egin eta gaztetasunaren dohainez gainezka izango balira bezala. Ibon Uribarri

---

## **dohakabetu**, dohakabe(tu), dohakabetzen du *ad* dohakabe bihurtu.

Bihar gauean zain edukiko nauzu, eta jinen zara, hutsik egin gabe, baldin ez baduzu zeure Cécile arras **dohakabetu** nahi. Jon Muñoz

Ezkongabezia da niretzat egoera posible bakarra, ez baitut ezein emakumerik **dohakabetu** nahi, eta emakume guztiek baitute dohakabe izateko joera. Joxe Austin Arrieta

---

## **dohakaitz** *iz* zorigaitza, dohakabetasuna.

Neure **dohakaitzen** jakitun egin nuen, nonbait; goizaldeko lauretan pentsiotzarreko atean ginen, arraboska unibertsitatekumeak bezala. Aingeru Epaltza

Tabernan bakarrik gelditzeak ito egiten ninduen, eta azken galiziano moxkortzioari debalde ematen nion edaten bere penak eta morriñak konta ziezazkidan, besteen **dohakaitzaz** goxatuz nire egonezina, istorio zaharrekin atzeratuz nire loezina. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## dohako ik **doako**.

---

## dohakotasun ik **doakotasun**.

---

## **dohamen** *iz* dohaina.

-Zorioneko bila ibilketa, eta zorioneko topaketa -esan zuen Santxok orduan-; areago-eta, oker hori zuzentzeko eta irain hori garbitzeko **dohamena** izaten badu nire nagusiak, eta berorrek dioen erraldoi putakume hori erailtzen badu. Patxi Ezkiaga

---

dohantza ik **dohaintza**.

---

## **dohatasun** *iz* dohatsutasuna, zoriona.

**Dohatasunez** argitu zen Noraren begirada, eta gonbitea onartu zuen irribarre alai batez. Anjel Lertxundi

Ordu arte ezagutu gabeko bake eta **dohatasun** egoera deskubritzen ari zen. Patxi Zubizarreta

---

## **dohatsu** 1 *izond/iz* Jainkoak ematen duen zorion beteaz gozatzen dena.

**Dohatsu** bihotz barnez pobreak, haiena baita zeruetako erresuma; **dohatsu** doluan daudenak, neure aldera deituak baitirateke kontsolatuak izateko. Itxaro Borda

**Dohatsuak** zutaz, zuk jasandako zigorrengatik, nahigabetzen direnak, poztuko baitira zuregan eta ikusiko betierean zure alaitasuna. Elizen arteko biblia

Jainkoak ez du erran ez zaitela aberats, baizik eta **dohatsu** pobreak! Itxaro Borda

Santa Maria Birjina **dohatsuarengandik** jaio zen. Askoren artean

Ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit **dohatsuari**; Mikel, Gabriel eta Rafael **dohatsuei** eta espiritu **dohatsuen** talde guztiei. Askoren artean

Hona hemen Frantzisko gure aita txit **dohatsuak** Jaunaren nekaldia ohoratu, gogoratu eta goresteko eratu zituen salmoak. Askoren artean

Horra zergatik Bernat **dohatsuak** erraten duen bere Meditazioen hastapenean: [...]. Piarres Xarriton

Gaur, gainera, santu nafar baten eguna da: Fiteroko Raimundo **dohatsuarena**. Pello Zabala

- **2** *izond (gauza abstraktuei buruz)*

Bizi **dohatsua** bila ari zarete herio lurrean; ez dago han. Imanol Unzurrunzaga

Gaiztoak bizitza dohakabe eta errukarriz zigortzen baititu eta zintzoak bizitza **dohatsuz** saritzen. Imanol Unzurrunzaga

Oi pobretasun **dohatsua**, maitatzen eta besarkatzen dutenei ondasun betierekoak eskaintzen dizkiena! Askoren artean

- **3** *izond/iz* zerua erdietsirik, Elizak, santuen azpitik, eredu gisa hartua duen pertsona. ik**beato**.

Aspaldi du ainitzek galdegiten zutela Elizari De Foucauld **"dohatsu"** izenda zezan. Herria

Elizak eskaintzen dauzkigu eredu edo modelo bezala, hala nola egun hauetan hain aipatua den Kalkutako Terexa **dohatsua**. Herria

Elizak ezarri du **dohatsuen** lerroan, hori da sainduen herrunkaren aitzineko maila. Herria

Ramon Llull kataluniar **dohatsuak**. Piarres Xarriton

Penna San Giovanniko Joan **Dohatsua**, 1275 inguruan hila. Askoren artean

Eskerren bihurtzeko, sortzez Donibandarra zen Joanes Maiorga **dohatsuari** burdinezko estatua bat eraiki zion kolejioaren aintzinean Arbelbidek. Xipri Arbelbide

**4** *izond/iz* zorionekoa.

Ene ikusmoldean, ni nintzen errukarria eta nire laguna **dohatsua**. Aingeru Epaltza

Zenbat mementu on iragan nituen gela hartan eta zein **dohatsu** eta zein zoriontsu izan nintzen haietan, osaba Joanikotekin! Joan Mari Irigoien

Gauza horren hobeki ulertzeko, hemen ohartu behar da etengabeko aldaketa batean bizi garela eta onera edo txarrera aldatzen garen arabera, **dohatsu** edo dohakabe deitzen gaituztela: haurtxo bat edo mutil bat zena hilotz bilakatzen delarik, alabaina, dohakabea deitzen da eta alderantziz, zorioneko daukagu bizi guztiaren betea higatu ahal izan duena Gorputzeko eta Izpirituko osasunean. Piarres Xarriton

Makina bat alditan desio izan zuen, Jainkoak hala nahirik, bihotzekoak jotako **dohatsuen** taldean kokatzea! Patxi Zubizarreta

Ez zuen ezer sentitzen, harrotasunik ez, jabe izateak dakarren kezka **dohatsurik** ez, beldurrik ez hura galtzeko. Anton Garikano

Nik ere lo **dohatsu** bat egin nuen. Marzel Etxehandi

**5** (adizlagun gisa) ik **dohatsuki**.

Eta Pisako dorrean osabarekin **dohatsu** sentitu banintzen, are **dohatsuago** sentitu nintzen istant hartan Pisako katedralean. Joan Mari Irigoien

Nola, ordea, **dohatsu** bizi, bizitzarik ere ez bada? Imanol Unzurrunzaga

Dolcinoren inguruan tropelkatzen ziren **dohatsu**, eta murmurikatzen: "Aita, aita, aita!". Juan Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aita dohatsu** (3); **dohatsu bihotz** (4); **dohatsu eta** (6); **dohatsu hau** (3); **dohatsu hori** (3); **foucauld dohatsu** (3); **gizon dohatsu** (7)

**aita dohatsua** (25); **aita dohatsua bere** (3); **aita frantzisko dohatsua** (7); **aita txit dohatsua** (4); **baby suggs dohatsua** (4); **birjina dohatsua** (4)

**dohatsua agertu** (8); **dohatsua agertu zitzaion** (7); **dohatsua anaia** (4); **dohatsua asis** (4); **dohatsua asko** (3); **dohatsua asko poztu** (3); **dohatsua bere** (8); **dohatsua bizi** (4); **dohatsua ere** (3); **dohatsua eta** (13); **dohatsua etorri** (6); **dohatsua etorri zen** (4); **dohatsua hain** (4); **dohatsua heldu** (3); **dohatsua heldu zen** (3); **dohatsua hil** (7); **dohatsua hil eta** (3); **dohatsua ikusi** (4); **dohatsua ikustera** (9); **dohatsua jaunarengana** (3); **dohatsua la** (3); **dohatsua la verna** (3); **dohatsua leku** (6); **dohatsua portziunkulako** (4); **dohatsua portziunkulako santa** (4); **dohatsua rieti** (3); **dohatsua rieti ondoko** (3); **eta frantzisko dohatsua** (6)

**frantzisko aita dohatsua** (3); **frantzisko dohatsua** (234); **frantzisko dohatsua agertu** (7); **frantzisko dohatsua anaia** (4); **frantzisko dohatsua asis** (4); **frantzisko dohatsua asko** (3); **frantzisko dohatsua bere** (5); **frantzisko dohatsua bizi** (3); **frantzisko dohatsua ere** (3); **frantzisko dohatsua eta** (9); **frantzisko dohatsua etorri** (5); **frantzisko dohatsua hain** (3); **frantzisko dohatsua heldu** (3); **frantzisko dohatsua hil** (7); **frantzisko dohatsua ikusi** (4); **frantzisko dohatsua ikustera** (9); **frantzisko dohatsua jaunarengana** (3); **frantzisko dohatsua la** (3); **frantzisko dohatsua leku** (5); **frantzisko dohatsua portziunkulako** (4); **frantzisko dohatsua rieti** (3)

**dohatsuagana eta** (3); **dohatsuagana itzuli** (4); **dohatsuagana itzuli ziren** (3); **dohatsuagana jo zuen** (4); **frantzisko dohatsuagana** (19); **frantzisko dohatsuagana eta** (3); **frantzisko dohatsuagana itzuli** (4); **frantzisko dohatsuagana jo** (4); **gure aita dohatsua** (3); **pobretasun dohatsua** (3); **suggs dohatsua** (4); **txit dohatsua** (5); **zegoen frantzisko dohatsua** (3); **zen frantzisko dohatsua** (12); **zuen frantzisko dohatsua** (8)

**aita dohatsuak** (33); **aita frantzisko dohatsuak** (9); **baby suggs dohatsuak** (7); **baina frantzisko dohatsuak** (4)

**dohatsuak agindua** (3); **dohatsuak anai** (4); **dohatsuak barne** (4); **dohatsuak berak** (3); **dohatsuak bere** (9); **dohatsuak beste** (4); **dohatsuak beste bertso** (3); **dohatsuak dei** (3); **dohatsuak dei egin** (3); **dohatsuak edo** (3); **dohatsuak erantzun** (31); **dohatsuak erantzun zien** (3); **dohatsuak erantzun zion** (25); **dohatsuak erantzun zuen** (3); **dohatsuak esan** (18); **dohatsuak esan zien** (3); **dohatsuak esan zion** (9); **dohatsuak eskerrak** (3); **dohatsuak eskerrak eman** (3); **dohatsuak eta** (3); **dohatsuak ez** (10); **dohatsuak ez zuen** (5); **dohatsuak ezin** (3); **dohatsuak sarritan** (4); **dohatsuak zure** (6)

**ere frantzisko dohatsuak** (3); **eta frantzisko dohatsuak** (11); **frantzisko dohatsuak** (283); **frantzisko dohatsuak agindua** (3); **frantzisko dohatsuak anai** (4); **frantzisko dohatsuak barne** (4); **frantzisko dohatsuak bere** (8); **frantzisko dohatsuak beste** (3); **frantzisko dohatsuak dei** (3); **frantzisko dohatsuak erantzun** (29); **frantzisko dohatsuak esan** (17); **frantzisko dohatsuak eskerrak** (3); **frantzisko dohatsuak ez** (7); **frantzisko dohatsuak ezin** (3); **frantzisko dohatsuak sarritan** (4); **frantziskok dohatsuak** (4); **orduan frantzisko dohatsuak** (5); **suggs dohatsuak** (7); **txit dohatsuak** (5); **zien frantzisko dohatsuak** (5); **zion frantzisko dohatsuak** (9); **zituen frantzisko dohatsuak** (5); **zuen aita dohatsuak** (3); **zuen frantzisko dohatsuak** (12)

**dohatsuarekin bizi** (3); **dohatsuarekin bizi izan** (3); **frantzisko dohatsuarekin** (7); **frantzisko dohatsuarekin bizi** (3)

**aita dohatsuaren** (21); **aita frantzisko dohatsuaren** (15); **aita txit dohatsuaren** (4); **ama birjina dohatsuaren** (3); **birjina dohatsuaren** (13); **birjina dohatsuaren eta** (3); **da frantzisko dohatsuaren** (3); **dardan dohatsuaren** (6); **dardan dohatsuaren beila** (4); **dardan herritar dohatsuaren** (3)

**dohatsuaren aurrean** (3); **dohatsuaren beila** (4); **dohatsuaren beila agorrileko** (3); **dohatsuaren bitartez** (6); **dohatsuaren bizitza** (5); **dohatsuaren eliza** (4); **dohatsuaren eliza bat** (3); **dohatsuaren elizara** (3); **dohatsuaren esku** (3); **dohatsuaren eta** (12); **dohatsuaren eta honen** (3); **dohatsuaren eta santu** (4); **dohatsuaren gorpua** (3); **dohatsuaren heriotza** (3); **dohatsuaren hilobira** (4); **dohatsuaren izenari** (3); **dohatsuaren lagun** (3); **dohatsuaren laguntza** (4); **dohatsuaren lehen** (4); **dohatsuaren maitasunagatik** (3); **dohatsuaren merituei** (3); **dohatsuaren merituei esker** (3); **dohatsuaren merituengatik** (4); **dohatsuaren ofizio** (3); **dohatsuaren otoitz** (3); **dohatsuaren otoitz leku** (3); **dohatsuaren santutasuna** (3); **dohatsuaren zaurien** (3)

**eta frantzisko dohatsuaren** (18); **frantzisko dohatsuaren** (152); **frantzisko dohatsuaren bitartez** (6); **frantzisko dohatsuaren elizara** (3); **frantzisko dohatsuaren esku** (3); **frantzisko dohatsuaren eta** (7); **frantzisko dohatsuaren hilobira** (3); **frantzisko dohatsuaren izenari** (3); **frantzisko dohatsuaren laguntza** (3); **frantzisko dohatsuaren lehen** (4); **frantzisko dohatsuaren maitasunagatik** (3); **frantzisko dohatsuaren merituei** (3); **frantzisko dohatsuaren merituengatik** (4); **frantzisko dohatsuaren otoitz** (3); **frantzisko dohatsuaren santutasuna** (3); **frantzisko dohatsuaren zaurien** (3); **frantzisko txit dohatsuaren** (6); **gure aita dohatsuaren** (3); **herritar dohatsuaren** (3); **kapitulua frantzisko dohatsuaren** (6); **maria birjina dohatsuaren** (5); **san frantzisko dohatsuaren** (3); **txit dohatsuaren** (11); **zen frantzisko dohatsuaren** (3); **zuten aita dohatsuaren** (3)

**aita dohatsuari** (5); **aita frantzisko dohatsuari** (4); **baitzion frantzisko dohatsuari** (3); **birjina dohatsuari** (5); **burua frantzisko dohatsuari** (6); **dohatsuari agurra** (3); **dohatsuari bere** (4); **dohatsuari esan** (3); **dohatsuari esan zion** (3); **dohatsuari eta** (8); **dohatsuari hitzeman** (4); **dohatsuari hitzeman genien** (3); **eta frantzisko dohatsuari** (5); **frantzisko dohatsuari** (87); **frantzisko dohatsuari bere** (4); **frantzisko dohatsuari esan** (3); **frantzisko dohatsuari eta** (8); **frantzisko dohatsuari hitzeman** (3); **txit dohatsuari** (4); **zion frantzisko dohatsuari** (21); **zioten frantzisko dohatsuari** (4)

**dohatsuei eta** (3); **dohatsuen lerroan** (5)

## dohatsuki 1 *adlag* dohatsutasunez.

Oso egoki eta **dohatsuki** definitua izan baita adiskidetasuna: Jaungoiko eta giza gaietan adostasun onbera eta karitatezkoa. Imanol Unzurrunzaga

Etxea, lasai eta mutu, goizeko eguzkitan bainatzen ari zen **dohatsuki** . Karlos Zabala

Liubaren begi **dohatsuki** itxietan, irribarre lauso eta zoriontsuan, ezin berdinduzko egarria zegoen, ezin asezko gosea. Jose Morales

**2** zorionez.

Ortzirala zen, eta osabak erabakia zuen, **dohatsuki** , ezen astelehenean itzuliko ginela Florentziarat, Pedro Huizirenganat, eta, hala, meza haren aditzeko parada izaiten ahal nuen, baldin osabak azken orduan bertzerik manatzen ez bazuen bederen. Joan Mari Irigoien

## dohatsutasun *iz* zoriontasuna, zoriona.

Bere kontzebitzeko lehen unetik beretik, ez zen izan bakarrik zuzena baina ere dohatsua, arimako **dohatsutasun** bereziaz dohatua. Piarres Xarriton

**Dohatsutasuna** ez da bertutearen saria, bertutea bera baizik eta ez dugu hura gozatzen gure irritsak hezten ditugulako baina, alderantziz, hura gozatzen dugulako ditugu haiek hertsatzen ahal. Piarres Xarriton

Gisa guztietara arima lasaitzeaz bestalde, hauxe ere badu doktrina horrek, erakusten digula zertan datzan zorionaren gailurra edo **dohatsutasuna** ; hots, Jainkoaren ezagutza hutsean baitago. Piarres Xarriton

**Dohatsutasunaren** eta zorion betearen kontrakoa zorigaitz osoa eta miseria dela. Piarres Xarriton

Zer den gure azken helburua eta kreatuak eta berrerosiak izan garen **dohatsutasuna** zer den eta zer baztertu behar dugun betiko zorigaitza. Piarres Xarriton

Arima arrazoiduna sustantzia bat da, berez sostengatzen dena, gorpuzgabea, hilezkorra, Jainkoak ezerezetik kreatua, noiz eta non ere isurtzen baitio gorputzari, berez haren substantziazko forma izateko, **dohatsutasuna** erdiets dezan, graziari eta egintza onei esker. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**edo dohatsutasuna** (6)

## dohatu, doha, dohatzen 1 du *ad* dohainen batez hornitu. ik **dohaindu**.

Oi zu ene arima, Jainkoaren iduriak zeinatua, Haren eiteak apaindua, Hari fedeak hitzemana, Haren izpirituak **dohatua** , Haren odolak irabazia, [...]. Piarres Xarriton

Dere kontzebitzeko lehen unetik beretik, ez zen izan bakarrik zuzena baina ere dohatsua, arimako dohatsutasun bereziaz **dohatua** . Piarres Xarriton

Bi aldiz izana naiz zure etxean, zaldun maitea: baina maitalearen rola utzi eta gizon amodioaz **dohatuarena** hartu duzunez geroztik, nehork ez zaitzake nehon kausi, egoki den bezala. Jon Muñoz

Ez ote litzateke posible duintasunez eta edertasunez eta gozamenerako ahalmenez **dohaturiko** egintza batez baliatzea? Ramon Saizarbitoria

**2** hornitu.

Inbestizamenduaren ondorioa hauxe da: gazteriaren zerbitzuak leku eta material aldetik anitzez hobeki **dohatuak** direla leku berrian. Herria

Beren ordenagailua web cam tresnaz **dohatua** dutenek mundu guzitik segitu ahal izan dute Korrika zuzenean. Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Oroit nintzen zein genuen denen arteko **dohatuena** : Hazpandarra. Eta huna Retegi gaztea, Luzaidar xapeldun famatuaren semea, pilotari ernea eta **dohatua** . Piarres Aintziart

Apez ixil eta **dohatu** hori, musika ere ezagutzen, besteak beste, prezatu dute Baztanen eta haratago. Herria

Bertsularia ere da euskal artistetan bikainen eta **dohatuenetarik** bat. Herria

## dohoztiritar ik **donoztiritar**.

## doi 1 *izond/iz* neurri egokikoa; behar adinakoa; ozta-oztakoa.

Arauzko kalibre **doi** hartara errenditu behar genituen zilindroak. Juan Garzia

Ez dut gogoan ele **doi** eta egoki hori atzeman nuen, Kristinak tupustez eten baitzidan hasi gabeko jarduna. Aingeru Epaltza

Izen ezinago arrunta da Alemanian Müller, Italian Molinari bezala, elkarren baliokide **doi** baitira deiturok. Juan Garzia

Bitartean, haren ahoan estutu nintzen makina bateko pieza **doi** bat bere zuloan sartzen den bezala. Karlos Zabala

Erreberentzia **doi** bat egin zion, belaunak pitin bat makurturik. Anjel Lertxundi

Bitxia zen, hainbeste urte bakarrik bizi izan ostean, patxada **doi** batekin itxaroteko gai ez izatea. Patxi Zubizarreta

Demagogiarik gabe, gehiegikeria barregarririk nahiz lilura gaixorik gabe, orain eta hemen dugun mina eta zikina eman digu Otamendik, hitz lau **doi** , dotore eta ederraz. Markos Zapiain

Atzetik bere ibilera miresteko denbora **doi** bat izan nian. Joxean Agirre

Lehen sorospenen azalpen **doi** batzuk ere eman ziren, badaezpada: zer egin erredura kasuetan, min larria hartuz gero, hezurren bat bihurrituz gero... Karlos Linazasoro

Euskal gobernu estreinatu berriko lehendakaria da Garaikoetxea, asko eta askorentzat herriak behar zuen gizona, garai berriko gidaria, ezaugarri **doi** eta egokien jabea. Xabier Mendiguren Elizegi

Begi ertzetik begiratzen nion Adelari, beraren ondoan eserita; eta lasai zegoela ematen zuen, triste-itxura **doi** batekin. Juan Kruz Igerabide

Intxaur muskatu **doi** batekin nahasirik. Patxi Zubizarreta

*ik beherago* 6. Askoren artean

Halako narrastasun eta zabartasun **doi** baten arrasto hautemangaitza. Jose Morales

Azkura moduko zer bat, jo-muga bete-betean jotakoan ere apenas dardar **doi** bat eragitera hel daitekeena. Joxerra Garzia

**2** (izan aditzarekin)

Gure abeniko hain hotz nola errazetan, bozkarioa deitzen dioguna **doi** izaten da plazer. Jon Muñoz

Zeren eta, gizon pribatu baten ontasunak ez baitira horretarako **doi** , eta, bestalde, gizon bakar baten ahalmena laburregia baita gizon guztiengana adiskidetasunez heltzeko. Piarres Xarriton

**3** (izenaren ezkerrean)

Berezgoak ez du bakarrik nahi, **doi** aberastasun, **doi** jende buru, **doi** lur eremu, **doi** alaitasun. Piarres Xarriton

Egoskia bere **doi** gradura iritsi zela erabaki zuenean, ontzia erretiratu zuen sutatik. Anjel Lertxundi

• **4** *adlag* neurri egokian.

Soineko granate ondo egokituak gorpuzkera **doi** betea markatzen ziola. Iñaki Iñurrieta

Zizela esku osoaz helduta zeukan, eta eskumuturraren higitze **doi** neurtuz gidatzen zuen, mailuaz zizelburuari kolpetxo bizkorrak etengabe ematearekin batera. Iñaki

Iñurrieta

Zapi Sidolez **doi** bustiaz igurtzi zuen. Iñaki Iñurrieta

Eder izana baino, edertasunaren halako zantzu dotore asko gordetzen jarraitzen zuen artean, haren aurpegi leun **doi** makilatuak, orrazkera jasoak, gorputzaren gerritik gorakoari zuzen-zut eusteko manerak erakusten zutenez. Anjel Lertxundi

Soa eman zidan opari, kanela-adarraren usainean **doi** bildua. Harkaitz Cano

Hertsiki, ezagutza kontzeptuen bidez eskuratzen da (natura); Ideiekin (adibidez, Jainkoa) pentsatu egiten da -razionalki-, baina **doi** ezagutu ez. Askoren artean

Ez dut oina mindua, eta bota ere **doi** eta neurri daukat. Matías Múgica

· Ibili gabe edo ibili **doi** dagoen baso-bazterren baten bila. Anjel Lertxundi

## **5** ozta-ozta; justu.

Cesar beste irakasleak, berriz, **doi** mugitzen ditu aurpegiko muskuluak, barre-irudi bat baino haratago joan gabe. Bernardo Atxaga

Esaiozu euskarazko hitz bat baserritarrari mendian; hitz horren aitzinetik, **doi** zinen gizon bat harendako; hitza esandakoan, anaia zaitu. Koldo Izagirre

Baina **doi** eusten dio zutik bere gorputzari: berehala erori da berriz lurrera. Harkaitz Cano

Alkoholak **doi** gaina hartu aurretik ematen duen argitasun puntu horretan. Iñaki Iñurrieta

Une horretantxe sartu da Godot kaletik, **doi** Gabinen azken hitzak entzuteko tenorean. Iñaki Iñurrieta

**Doi** puntu bakan batzuetan bakarrik hausten zela perfil lau hura. Iñaki Iñurrieta

Bi urte **doi** pasatu dira kontakizun nagusia idatzi nuenetik. Anjel Lertxundi

Astebete gabe -Errege egunean **doi** - jokatu nuen lehen partida Barçarekin. Joan Mari Irigoien

Baina ordu erdi **doi** geratzen zitzaidan burutik pasatu zitzaidana burutzeko! Anjel Lertxundi

Hoteletik gertu afaldu, eta gauerdia **doi** oheratu nintzen. Anjel Lertxundi

Denbora **doi** daukat Piazza delle Erben xutikari bat hartu eta Giotto bisitatzeko. Anjel Lertxundi

Bi ordu pasatxo hirurogeita hamar kilometro **doi** egiteko. Berria - Kultura

Bihurgune asko ditu kaminoak Marielexaraino, eta **doi** pasa berria zen trenaren bizkarra ikusteko heldu ziren bertako geltokira. Pako Aristi

Etxeko armarria, jauregiko aitzinaldeko paretan zegoena, balkoiaren gainean **doi** eta erdi-erdian. agian horregatik Raimundo Silvak ez du argia pizten, horregatik eta **doi** hasi den argitzal hau ez hondatzeko. Joan Mari Irigoien

-Gizon bat akabatu diat -esan nion, berbok **doi** nire sudurraren muturra baino harago iristeko moduan. Edorta Jimenez

Senekak dioenaren **doi** kontrakoa ere esan liteke: inork ezin du luzaroan iraun mozorrorik gabe. Anjel Lertxundi

-Nik... bidea erraztu? -esateko **doi** atera nuen indarra. Anjel Lertxundi

Daga biluzi bat bota zion, eta beraren oinetan erori zen **doi** . Juan Garzia

Ez nintzen zurekin ari, Jaime- esan zuen kapitainak **doi** , justu entzuteko moduan. Bernardo Atxaga

Ez alferrik: bederatzi segundo **doi** eskatuko diegu aurki, eta, hori lor dezatenean, zortzi. Joxerra Garzia

## **6** ***doi bat*** *adlag* apur bat.

Ez zaude **doi bat** akitua? Jon Muñoz

Begiak kliskatzen ditu, goiza berriz aurkitzeak **doi bat** itsuturik. Monika Etxebarria

Geroenean, Josebak **doi bat** hobera egin, etxetik irteten hasi, eta luze gabe urrunera joko zuen, Norvegiako Bergen-era hain zuzen ere. Patxi Zubizarreta

Hitz bihotz-altxagarri haiekin, Afifi anderea **doi bat** masailgorritu zen makillaje gorriztaren azpian. Patxi Zubizarreta

-Eta zer egin behar zuen? -galdegin zion, **doi bat** sumindurik-. Elena Touyarou

Hala, gosea **doi bat** jabaltzen zitzaion. Eneko Bidegain

Oheratu aurretik leihoa **doi bat** zabalik utziko dut. Patxi Zubizarreta

**Doi bat** dudan egon ondoan erraiten diot. Marzel Etxehandi

**Doi bat** etsipenak jota, **doi bat** beldurturik, [...]. Oskar Arana

Lore saltzalearen begitartea **doi bat** lañotu zen. Janbattitt Dirassar

Bizi **doi bat** nahasia zeramatela. Michel Oronoz

Lurralde **doi bat** zabala eta jendetze kopuru handia zeukaten herriek, hala nola, Italiak eta Alemaniak. Piarres Xarriton

## **7** ***doi-doi*** *(314 agerraldi, 93 liburu eta 32 artikulutan; orobat* ***doidoi*** *g.er.)* *adlag* ozta-ozta.

**Doi-doi** sartzen zen sofa apartamentuko atean zehar. Harkaitz Cano

Neska haietako askori ez zieten mutilekin dantzarik egiten uzten; "pornografia" hitzaren esanahia ere **doi-doi** ezagutuko zuten. Bernardo Atxaga

Emakumea izterrondoak **doi-doi** estaltzen zizkion minigona zimurtua lisatzen saiatu omen zen bi eskuekin. Joxean Agirre

Herri mortu **doi-doi** argiztatu horretan ez zen inon ere Ximurraren ibilgailu handiaren arrastorik. Aingeru Epaltza

Haren mapan (1: 500000) ezin zen, egia esan, ezer askorik nabaritu [...] eta idatzita zeuden izen bakarrak (gorriz, lupaz **doi-doi** irakurgarri) maien hondakin-leku batzuen adierazgarri. Joxe Austin Arrieta

**Doi-doi** izan zuen Ruche jaunak garrasi hau botatzeko astia: [...]. Jon Muñoz

Katilu-itxuran tolestuak zituen eskuak zabaldu zizkidan, **doi-doi** , barrukoa ikus nezan. Mirentxu Larrañaga

Teresa, Teresa ezin iritsirik, azken metroa **doi-doi** harrapatzen duenaren larritasunaz bizitzen. Lourdes Oñederra

Ez ahal zen... - **doi-doi** isildu zen, bere nahia adierazteko zorian egon zelako lotsaz gorriturik-. Mirentxu Larrañaga

Potzoloren autoa, lehengo ortziraleko bera, ateratzen ikusteko astia izan nuen **doi-doi** . Aingeru Epaltza

Eta oraindik ordubiak **doi-doi** . Joxe Austin Arrieta

## **7a** (izenondo gisa)

Ohean erdi agondu, eta musu **doi-doi** bat eman nion ahoan. Anjel Lertxundi

## **7b** zehazki.

Arratsaldeko lauretan, **doi-doi** . Mirentxu Larrañaga

Konoaren hormen pendiza **doi-doi** kalkulaturik zegoen erauziriko materiala hondoraino lerratu bai baina oldar handiegirik har ez zezan.Zentro horretatik zirkunferentzia bat egin behar da, **doi-doi** zortzi parte horietako bat hartuz diametro bezala. Juan Garzia

Boterearen kritikoak dira: **doi-doi** Botereari gustatzen zaizkion modu-modukoak. Joxe Azurmendi

Giltzadura bateko bi hezurrak ez dira egon ohi **doi-doi** ahokatuta, baizik eta bata bestearen arabera mugitzen da, biraketa eta labainketa konbinatuz. Irene Aldasoro

## **8** ***doi-doia*** *(405 agerraldi, 46 liburu eta 186 artikulutan -ia guztiak Herriakoak-; orobat* ***doidoia*** *g.er.)* *adlag* ozta-ozta.

Graxik ezpainak **doi-doia** mugitzen zituen, baietz herabe baten ateratzeko. Eneko Bidegain

**Doi-doia** behako hotz bat San Migel elizako ateladari. Piarres Aintziart

Ohiko petrola lanpako argi ahulak **doi-doia** argitzen duen etxolako barne ttipian, bada jende. Michel Oronoz

**Doi-doia** izan dut neure besoetan hartzeko astia. Jon Muñoz

Hatsa **doi-doia** hartzen zuen eta handik laster hil zen, trenean. Eneko Bidegain

Pierra, anaia zaharrak **doi-doia** ekidin zuen Aljeriakoa, Ameriketara joan zelako, osaba Johnen gonbitari erantzunez. Itxaro Borda

Enrieta indargabetua zen eta **doi-doia** egoten zen zutik. Elena Touyarou

Lore sorta animaleen artetik **doi-doia** ageri zen Maddalenen izei merkezko hilkutxa. Itxaro Borda

Arratsetik goizaldera zerua **doi-doia** iluntzen zuen urte sasoi hartan eta latitude haietan, eta lemazainak aise gidatzen zuen ontzia Volgan gora edo behera zebiltzan txalupa, gabarra eta txanel ugarien artetik. Karlos Zabala

Ganbara txar bat, ohearen tokia **doi-doia**, eta beste barne bat, hau izanki sukalde, jantoki eta bulego. Janbattitt Dirassar

**8a** justu-justu, zehazki.

**Doi-doia** Victoriaren hoteleko bueltan beste bat zegoela gogoratu nuen: antzeko itxurakoa eta Suitza edo Suitzarra izenekoa; ez dakit ongi. Ramon Saizarbitoria

Badakigu, egun hauetan Vatikanoak argitaratu dituen dokumentuei esker, 1933ko apirilaren 12an, Hitler kantzelaria, **doi-doia** aitzineko martxoaren 23an botere osoaz jabetua zelarik, [...] Edith Stein judu gazte katoliko jakintsuak idatzi ziola Pio XI.ari, oso-osoa irakurri behar den gutun miresgarria. Piarres Xarriton

**8b** (izenondo gisa)

Jiratu eta diosala **doi-doia** eginik, alde egin zuen. Gaitzerizpen hori, derragun parentesi artean, [Jacques Reboul-ek] Valéry-ri buruz benetan zuen aburuaren alderantzi **doi-doia** da. Anjel Lertxundi

**9** ***doi-doian*** *(17 agerraldi, 6 liburutan) adlag* ozta-ozta.

Kopetan musu bat eman eta malkoei **doi-doian** eusten ziela, aurpegia estali zion berriro. Harkaitz Cano

Arma ebatsien ordez pika irrigarri bat neraman orain, **doi-doian** zorroztua. Aingeru Epaltza

**9a** (izenondo gisa)

Brankara joan zen, ez eror bai eror, oinen gaineko ibilera **doi-doian**. Anjel Lertxundi

**10** ***doi-doietarik*** *(52 agerraldi, 9 liburu eta 40 artikulutan -ia guztiak Herriakoak-) adlag ipar* ozta-ozta.

**Doi-doietarik** atxiki zuten ama, alditxartzera zoala. Michel Oronoz

Arrebak **doi-doietarik** ezagutu zuen. Eneko Bidegain

Hainbertze inarrosi, non **doi-doietarik** ez bainuen jaiotzea hileta bilakatu. Aingeru Epaltza

Behin, **doi-doietarik** izan zen ez bainuen ezponda jo...! Daniel Landart

Lehena nagusitu, nahiz **doi-doietarik**. Herria

Baionak **doi-doietarik** hutsegin zuen gol baten sartzea, partida bukatu baino segundo batzuk lehenago. Berria - Kirola

Hor jakiten dut oren bateko autobusa **doi-doietarik** hutsegin dudala. Piarres Aintziart

Iduriz, Noel Mamere behar zen nagusitu "berdeen" arteko bozkatze hortan bainan Alain Lipietz aintzindu zaio, **doi-doietarik** bada **doi-doietarik**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**baina doi** (9); **baina doi doia** (4); **bainan doi** (6); **baino doi** (11); **baino doi bat** (7); **bat doi** (14); **bat doi doia** (6); **batek doi** (7); **batek doi doi** (4); **batzuk doi** (4); **begiak doi** (7); **begiak doi doia** (4); **bera doi** (4); **bi urte doi** (4); **burua doi** (11); **burua doi bat** (9); **da doi** (12); **da doi doia** (5); **denbora doi** (4); **dira doi** (6); **ditu doi** (4); **ditu doi doia** (4); **doi atera** (4)

**doi bat** (682); **doi bat bederen** (7); **doi bat egin** (5); **doi bat eman** (8); **doi bat ere** (10); **doi bat eta** (4); **doi bat gehiago** (4); **doi bat harritu** (6); **doi bat harritua** (4); **doi bat kanbiatu** (4); **doi bat lasaitu** (5); **doi bat lehenago** (4); **doi batean** (7); **doi batekin** (10); **doi baten** (6); **doi batez** (12)

**doi behar** (4)

**doi doi** (316); **doi doi ikusten** (4); **doi doi iristen** (4); **doi doi izan** (13); **doi doi lortu** (4); **doi doi ukitu** (6); **doi doi ukitzen** (6)

**doi doia** (405); **doi doia bi** (8); **doi doia bizpahiru** (4); **doi doia hamalau** (4); **doi doia hasia** (5); **doi doia hiru** (5); **doi doia izan** (6); **doi doia zenbait** (5); **doi doia zonbait** (6)

**doi doian** (18); **doi doietarik** (53); **doi egiteko** (4); **doi eta** (7); **doi eusten** (4); **doi ezagutzen** (4); **doi ikusi** (4); **doi ikusten** (5); **doi iristen** (4); **doi izan** (15); **doi izan zuen** (7); **doi lortu** (4); **doi ukitu** (6); **doi ukitzen** (7)

**du doi** (6); **du doi doia** (5); **duela doi** (14); **duela doi doia** (13); **dute doi** (5); **egun doi** (4); **ere doi** (25); **ere doi bat** (16); **ere doi doi** (4); **eta doi** (87); **eta doi bat** (42); **eta doi doi** (13); **eta doi doia** (18); **euskara doi** (5); **euskara doi bat** (5); **ezen doi** (6); **ezen doi doia** (4); **ezpainak doi** (7); **gauzak doi** (4); **gauzak doi bat** (4); **hamar urte doi** (4); **hartan doi** (4); **hau doi** (4); **hilabete doi** (10); **hori doi** (9); **hori doi bat** (7); **hura doi** (11); **hura doi bat** (7); **justu eta doi** (4); **kilometro doi** (4); **kilometro doi egiteko** (4); **nahiz doi** (4); **nik doi** (4); **non doi** (6); **oraino doi** (4); **oraino doi bat** (4); **orduan doi** (4); **urte doi** (25); **urte doi doi** (4); **urte doi doia** (8); **urte zituela doi** (4); **urtebete doi** (4); **zen doi** (7); **ziren doi** (5); **ziren doi doia** (4); **zituela doi** (4); **zituela doi doia** (4); **zituen doi** (4); **zuen doi** (6)

**baina doi doia** (4); **bat doi doia** (6); **begiak doi doia** (4); **da doi doia** (5); **denbora doia** (7); **ditu doi doia** (4); **doi doia** (405); **doi doia bi** (8); **doi doia bizpahiru** (4); **doi doia hamalau** (4); **doi doia hasia** (5); **doi doia hiru** (5); **doi doia izan** (6); **doi doia zenbait** (5); **doi doia zonbait** (6); **doia bi** (8); **doia bizpahiru** (4); **doia egin** (6); **doia eta** (8); **doia hamalau** (4); **doia hasia** (5); **doia hiru** (5); **doia izan** (10); **doia zenbait** (5); **doia zonbait** (6); **du doi doia** (5); **duela doi doia** (13); **eta doi doia** (18); **ezen doi doia** (4); **urte doi doia** (8); **ziren doi doia** (4); **zituela doi doia** (4)

**doi doietarik** (53); **ezin doiagoa** (5); **hitz doiak** (4)

---

## doigabetasun *iz* egokitasunik eza.

Bestalde, filosofiatik begiratuta, Unamunoren traiektorian **doigabetasun** logiko deigarri bat dago afera honen inguruan, ene ustean oraindik aski argitu ez dena, eta argitzapena, nik uste, politikoa duena, ez filosofikoa. Joxe Azurmendi

---

## doigarri *izond* doi daitekeena.

Alde horretatik, begiaren kristalinoa sofistikatuagoa da kameraren objektibo **doigarria** baino; izan ere, kameran, objektiboaren posizioa mugituz aldatzen da foku-luzera; begian, berriz, kristalinoaren forma aldatuz doitzen da foku-luzera. Irene Aldasoro

---

## doika 1 *adlag* apurka.

Amerikanoekin beregaintasun baten hartzen ari dira **doika** bederen irakiarrak eta beraz horra sistima berri bat badutela sortua. Herria

**2** ***doika-doika*** apurka-apurka.

**Doika-doika**, nahasmendua arintzen zitzaiola sentitu zuen. Patxi Zubizarreta

Eta badira, Frantzia erdiko Vezelaytik Konpostelarako bidea **doika doika** egiten dutenak zenbait urteren gostuz, astia ere falta bailukete ainitzek segidan egiteko. Herria

---

## doikabe ik **dohakabe**.

---

## doike *adlag* dudarik gabe. ik **doiake**.

Filmetakoen gisako ihesa izan zen, eta Giselak, **doike**, halako eszena bat ikusi izanen zuen filmen batean, eta orduan hartan zegoela uste zuen noski. Fernando Rey

Eta goitik etorriko zen **doike** ezpata zorrotza eta, batik bat, lilura zuria. Iñaki Segurola

Bai, **doike**, zuk beraiek maite dituzulako. Gotzon Garate

Hangoa dugu, **doike**, inguruotako urik onena. Koldo Izagirre

---

## doiketa *(18 agerraldi, 4 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 167 agerraldi)* **1** *iz* doitzea. ik **doikuntza**.

ez da guztiz desegokia izango leku estu eta espazio itxietan lan egiten denean, kolomei proportzio lerdenagoak emanez lan egitea, jakinik ildaxken **doiketa** hori daukagula

lagungarri. Santiago Iruretagoiena

Hiru ordenetatik, ordena joniarra hartu nuen eta, horri dagokionez, proportzioak erabiliz gero moduluen arteko **doiketarik** zehatzena emango duten arauak zein diren erakutsi dut. Santiago Iruretagoiena

Inprimatzaileak, espezialista bereizten duten keinu geldo eta zehatz horiekin, **doiketak** egingo ditu, eta handik gutxira *Lisboako Setioaren Historia* faltsua kontatzen duten paper-orriak arin-arin ateratzen hasiko dira. Jon Alonso

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herrialde zorpetuentzako egiturazko **doiketa** programak diseinatu zituen. Iñaki Heras

Abbey Nationaleko egituraren berregituraketa sakon batean oinarrituko du proposaturiko **doiketa** plana. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zeharo sentsibilizaturik gaudela pobreziak, egitura-**doiketak** eta zor programek, nazioarteko merkataritzak eta jabetza intelektualerako jardunbideek Giza Eskubideei eragiten dizkieten kalte larriez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mugakide diren lander aberats eta pobreen arteko finantza **doiketa** eztabaidatu ez denez. Berria - Mundua

Krisia hirukoitza izan zen: likideziarena, parekotasun **doiketarena** eta konfiantzarena. Iñaki Heras

2.750 milioi euro defizit estimazioan sartu gabeko kontabilitate **«doiketen»** ondorio dira, BPGren %0,35. Berria - Ekonomia

---

# doiki *adlag* doitasunez.

Azkenik, izan liteke nahas-mahas **doiki** zedarritzen zail bat: xenofobo, aldizka sentimendu eta espresio arrazisten agertzaile, etab., eta hala ere pentsaera eta jarrera ez arrazistakoa funtsean. Joxe Azurmendi

**2** ozta-ozta.

Soilik bukaeran, eskuz idatzitako gehigarri bat, faxak utzi ohi duen tinta arrastoen artean **doiki** irakur zitekeena: [...]. Hasier Etxeberria

Ahots-doinu berberaz eta hizkera berberaz mintzatzen dira milioidunarekin eta tabako-saltzaile arruntarekin, nahiz eta, jakina, barru-barruan **doiki** kikiltzen diren milioidunaren aurrean. Jose Morales

---

# doikuntza *(74 agerraldi, 14 liburu eta 18 artikulutan; ETCn 1.140 agerraldi)* **1** *iz* doitzea. ik **doiketa.**

Beira ez da batere material ona bat-batean halako **doikuntzak** egiteko. Irene Aldasoro

Gernuaren eratze-erritmoaren **doikuntza** automatikoa metodo burutsu eta argia da odolaren bai bolumena eta bai kontzentrazioa [...] kontrolatzeko. Irene Aldasoro

Horren ondorioz, ez da beteko ekonomiaren **doikuntza** automatikoa defendatzen zuten ekonomilari liberalen oinarrizko lege eta nolabaiteko dogma. Iñaki Heras

Alemaniar eta japoniar ekoizleen mozkinen tarteen murrizteak bigundu zuen, bestalde, truke-tasen **doikuntza**. Koro Navarro

Nazioarteko Diru Funtsak eta Munduko Bankuak ezarritako **doikuntzak**. Berria - Mundua

Teoria tradizionala ez zen eskariaz ia arduratzen, dirua eta denbora historikoa ez zituen kontuan hartzen (**doikuntzak** berehalakoan gertatzen zirela uste zen). Koro Navarro

**Doikuntza** koiuntural eta erregulazio ekonomikorako ahalmenen parte handi bat galdu dutelarik, [...]. Koro Navarro

**"Doikuntzaren** gizarte-kostua" (hau da, pobretasuna larriagotzea) deitu zaion horretan [...]. Koro Navarro

Ingurunearen zaintzan azken urteotan jarritako arretak ez du **doikuntza**-filosofiaren benetako berrikusterik ekarri. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adin horretatik aurrera, kristalinoaren **doikuntza**-ahalmena -egokitze delakoa- galtzen hasten da. Irene Aldasoro

Telemetro elkartuan, objektiboari estekaturik dago **doikuntza**-botoia palanka edo espeka bidez. Irene Aldasoro

Azken batean, urre-patroiaren garaian bezala, pagamendu-balantzako **doikuntza** mekanismoek herrialde bakoitzeko barne ekonomia jardueran izango dute eragina. Iñaki Heras

Alemaniako Opelen lantegiak izan daitezke Detroiten azken **doikuntza** planarekin kaltetuenak. Berria - Ekonomia

Italiak abian jarri du 7.500 euroko **doikuntza** plana. Berria - Ekonomia

Herrialde zordunei kredituak ordaintzeko eman nahi zitzaizkien erraztasun horiek **doikuntza**-politikak abian jartzeko baldintzapean eskaini ziren. Koro Navarro

Enpleguaren eta aldaketa teknologikoaren arteko **doikuntza** prozesua ez dela ez bat-batekoa ez eta automatikoa ere. Iñaki Heras

Izan ere, aldaketa sakon horiek ekonomiaren egiturazko **doikuntza** krisia baitakarte. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurrekontu **doikuntza** egin behar izan da, baina beherapen horien proposamena ez da gurea izan. Berria - Euskal Herria

Munduko finantza-**doikuntzaren** nolakotasun partez bortxatu horrek agertzen du zergatik egin zuten gora interes-tasa errealek petrolioaren bigarren krisialdian. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **doikuntza automatikoa** (5); **doikuntzak egin** (3); **egiturazko doikuntza** (4)

---

# doilor **1** *izond/iz* mesprezua bereganatzen duena, leialtasunik edo esker onik agertzen ez duena. ik**bilau; zital.**

Pertsona zuzenaren sufrimendua pertsona **doilorraren** kondenazioa da. Karlos Zabala

Sartu, eta hitzetik hortzera topo egin zuen buruz buru Ixinen ikusi zuen gizon **doilor** harekin, Tomsken ikusi zuen gizon anker harekin, handik pixka batera hiria tatariarrei eman behar zien traidorearekin. Karlos Zabala

Horrela sortu zuen ama **doilorraren** literatur tipoa, ordura arte ezezaguna. Itziar Otegi

Izaki **doilor** eta hiltzaile hura hiltzea zen egokiena: mila bider merezia zuen. Agustin Otsoa

Atzera, zakur **doilorrak**! Iñaki Mendiguren

Gizaki libreak sortu nahi ditugula, eta ez jainko baten adoratzaile **doilorrak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Ea, prestatu borrokarako, zital **doilor** hori! -oihu egin zion sir Cadoganek. Iñaki Mendiguren

Guztiek, bizpahiru **doilor** eta zerbait izan nahi duten ergel batzuk kenduta, gertatzen ari dena batere ulertzen ez dutenek. Agustin Otsoa

**Doilor** batek ene aita hiltzen du; eta horren truke nik, haren seme bakarrak, **doilor** horixe dut zerura igortzen. Juan Garzia

-Hara, ezin duk, **doilorra** halakoa! Jose Morales

Egin eta berrerosi gintuena eta bere erruki hutsez salbatuko gaituena; guri, zital eta **doilor**, ustel eta kirasdun, eskergabe eta gaiztooi, on guztiak egin eta egiten dizkiguna. Askoren artean

**Doilorrak** bide asko har ditzake; zintzoak, bakarra. Jose Morales

**2** (izenondo baten ezkerrean)

Animalia **doilor** nazkagarri hori. Fernando Rey

Baina merezi zian, bai, **doilor** zikin hark. Karlos Zabala

Horra nora iritsi den **doilor** ustel hau! Jose Morales

Ziri ederra sartu zidak Sobakevitxek, **doilor** ziztrin horrek! Jose Morales

- **Doilor** malapartatu hori! -esan zion Txitxikovek oihuka. Jose Morales

-Atzera, **doilor** harroputz hori! Iñaki Mendiguren

**Doilor** zitala! -esan zion Ronek. Iñaki Mendiguren

Herria askatutakoan, **doilor** traidore guztiak konderriko kartzelara eramanak zituen. Javi Cillero

Ez da bilau alerik bizi Danimarka guztian **doilor** galanta ez denik. Juan Garzia

Berekoi hutsa da, eta **doilor** txiki bat. Josu Zabaleta

Nire funtzionarioetako bat bera ere ez da ona, **doilor** hutsak dira denak! Jose Morales

**3** (gauzei buruz)

Bihotz **doilor** horren taupada da! Koro Navarro

Elurrak tristura ekarriko du, eguzkia aterako da baina orduan edertasun malenkoniatsu bat eman besterik ez dio eginen zuritasun **doilor** honi. Koldo Izagirre

Bushek soldaduak gutxietsi eta gerra **doilor** batera bidali ditu. Berria - Kultura

Abere horiek landareen gisa bizi daitezela makurkeriarik **doilorrenean**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Norgehiagoka kontu **doilor** haiek itzali ziren behin betiko. Karlos Zabala

Ikusten dut fede **doilor** horretako Jainkoa izaki arduragabe eta basatia dela, egun batean mundua sortu eta biharamunean sortu izanaz damutu dena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kontu-ordainketa **doilor** horrengatik, osaba Marchìn-ek osaba deitua izateko eskubidea galdu zuen. Juan Garzia

Urzairen aburuz, «helburu **doilor** eta arbuiagarriekin», eta «eduki faltsu eta iraingarriekin» kritikatu dute bere lana. Berria - Kirola

Materia materia da, ez noble eta ez **doilor**, infinituki eraldagarria, eta ez du batere axola haren etorki hurbilak. Juan Garzia

Kloruroak oro har jendaila dira, gehienean azpiproduktu **doilor**, higroskopiko eta ezer gutxitarako onak. Juan Garzia

Mendeka ezak haren hilketa **doilor**-ezaina. Juan Garzia

**4** (izan aditzarekin eta kidekoekin)

**Doilor** dena doilor agertzen da. Sentimenduen ekaitza keinu haietako bakar bat ere -nahi bezain bizi edo **doilor izan** dadin ere- baztertu gabe igarotzen badugu, [...]. **Doilorrak** dira, baina ez dute nahi inork **doilorrak** direla esaterik. Josu Zabaleta

Lapurra izanen da seguruen, baina ez **doilorra**. Xabier Montoia

Ni ez naiz horren **doilorra**. Josu Zabaleta

Finean emakume guztiak dira **doilorrak**, gauza bera nahi dute denek, hau da, gizona erregistrora edo aldarera eraman. Bego Montorio

**Doilorregia** iduritu zitzaidan semearen xalotasunaz profitatzea nire andrearen ohean usmaka aritzeko. Aingeru Epaltza

**5** (adizlagun edo predikatu gisa) ik **doilorki**

Doilor dena **doilor** agertzen da. Josu Zabaleta

Besarkadatik aske geratu zelarik, errukarria iruditu omen zitzaion emakumea, hain otzan eta mirabe, nik beti bezain **doilor** segitzen nuen bitartean. Joxean Agirre

Han bai bakardadea **doilor** gailentzen! Txillardegi

Azkenean **doilor** eta ziztrin sentiarazi du neska. Patxi Iturritegi

**6** (izen gisa -en atzizkiaren eskuinean)

Gezurraren **doilorraz** zure estimuaren ezgai bilakatu izanarena baino. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **doilor bat** (6); **doilor eta** (21); **doilor hori** (10); **doilor horrek** (6); **doilor hutsa** (3); **doilorra zen** (3); **eta doilor** (6); **eta doilorra** (3); **eta doilorrak** (3); **ez doilor** (3); **gizon doilorra** (3); **jende doilor** (3)

---

# doilorkeria *iz* doilortasun gaitzesgarria; doilorrari dagokion egintza.

Baina **doilorkeria** ez da ez legeei eta ez arrazoiari lotutako sentimendua, iritzi komunari baizik. Juan Martin Elexpuru

Norainoko hutsalkerian, zikoizkerian, **doilorkerian** eror daitekeen gizakia! Jose Morales

Baina zergatik **doilorkeriarik egin**? Jose Morales

**Doilorkeria** hutsa, baina guri zer? Juan Garzia

Esan zuen ez zela harritzekoa hain argal egotea, **doilorkeriak** ez baitzion gizentzen uzten. Karlos Zabala

Nazio gerrari batean, non indarra, ausardia eta suhartasuna ohoragarri diren, deliturik gorrotagarrienak **doilorkeriatik**, trikimailutik eta maltzurkeriatik sortzen dira. Iñaki Iñurrieta

Diktadorearen senideek, berriz, **«doilorkeriatzat»** jo zituzten abokatuen adierazpenak. Berria - Mundua

Bururatu zitzaion, ordea, behin baino gehiagotan, **doilorkeriaz** jokatzen ari zela, baina hain zen Linda zoragarria! Koro Navarro

Agure hori eta bere alaba errukarria hil egin dituzte, **doilorkeria** osoz, gainera. Lopez de Arana

Izan ere, nazio batentzat kaltegarriagoak dira **doilorkeriazko** delituak kemenezkoak baino. Juan Martin Elexpuru

**Doilorkeriaren** historia unibertsala geneetan itsatsirik daukagu, mikrofilm batean bezala, eta edozein mementotan zizelka dezakegu koska berri bat oroimen gorde horretan, nik M zizelkatua nuen bezala aitaren ezkontzako trajean gorderik neukan bala hartan. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta doilorkeria** (3); **hori doilorkeria** (3)

---

# doilorki *adlag* doilorkeriaz.

Bere bizi preziatuarekin batera, guztia baitzioten **doilorki** kendu. Juan Garzia

Bi alderdiei egotzi zien «atentatuaren ondorioetatik alderdi etekinak **doilorki**» atera nahi izatea. Berria - Euskal Herria

Bere tximinoak guztiz **doilorki** tronpatu zuela. Josu Zabaleta

Horiek guztiak itxaropen ezainak zirela, hurkoaren zorigaitzez **doilorki** baliatzea bailitzateke. Juan Garzia

Tamalez, Iñigok bere ondoan eserarazi nau jatetxera heldu bezain pronto, eta Charlyk **doilorki** abandonatu nau Ruben ezkongabe-berriagatik. Iban Zaldua

Grinak krudelki eta **doilorki** nagusitzen zaizkio adimenari. Imanol Unzurrunzaga

---

# doilorkume *izond adkor* doilorra.

Eta halaxe **doilorkumeak** ura ardo bihurtu omen zuen mozkor-afari batean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ni ez nauk aurkarien aurpegira tomate-jaurtika ibiltzen den **doilorkume** bat! Koldo Biguri

Ez ezazue erail, ez ezazue atzerriratu; astakeria horiek erregeei eta haiek imitatzen saiatzen diren **doilorkumeei** dagozkie bakarrik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hemen gertatzen dena zera da: herrian badagoela **doilorkume** bat, koldar beltz bat, mingain pozoitsua daukan Judas Iskariote bat, nire idazkari sinadura daukan paper bat iragarki-taulan jartzen dugun bakoitzean, haren gainean "Peppone astoa" ipiniz dibertitzen dena. Koldo Biguri

---

## doilortasun *iz* doilorra denaren nolakotasuna.

Milioidunak badu abantaila handi bat: begietsi ahal du batere gutiziarik gabeko **doilortasun** hutsa, inongo kalkulutan oinarritzen ez den **doilortasun** hori. Jose Morales

Egia esan behar bada, poz ñimiño bat ere nabaritzen du, **doilortasun** moduko bat, jendeak polizia gisa hain argiki ezagutzen duenean. Hasier Etxeberria

Ezin esan daiteke hiriko damak ere **doilortasunerako** malda leun horretan behera irristatzen zirenik Jose Morales

---

## doilortu, doilor(tu), doilortzen **1** da/du *ad* doilor bihurtu.

Berrogeiak gibelera utzita ere, ez dut uste neure burua **doilortzea** denik bizia eman didanari ama guztiz amultsuarena jokatzera uztea. Aingeru Epaltza

Ni oinazetu, beheititu, **doilortu** izana ez ote duk aski, hilobiko bakea ere nahi didak kendu? Jon Muñoz

Nik zu **doilortu** ! Jon Muñoz

Ez litzateke bada amaren aginpidea **doilortzea** , ez litzateke amaren aginpidea deuseztea aginpide hori arinkeriazko jaidura baten peko ezartzea [...]? Jon Muñoz

Helduko da garaia, goizegi heldu ere, non emakume hori, bere erorikoan **doilortua** , ez baita niretzat emakume arrunt bat baizik izanen. Jon Muñoz

**2** (era burutua izenondo gisa)

Izaki pertsegitu, **doilortu** , gosetu haiekin otordu miserableak konpartitzen nituen tabernazulo miserable ezkutatuetan. Matías Múgica

Dueloa gladiadore esklabo **doilortuek** herriari ematen zioten ikuskizun arrunta zelako Juan Martin Elexpuru

---

## doilortze *iz* doilor bihurtzea.

Sedanok maitasuna eta desira bereizi beharra neurotiko obsesiboen joera dela esaten zidan, eta nobelagile suediar horrek emango ziola beharbada Freud-i Bizitza erotikoaren **doilortze** orokorra idazteko bidea. Ramon Saizarbitoria

---

## doiño *iz ipar (*doi*-ren txikigarrria)* apurñoa.

Holaxe bakarrik, dugu guk ere berraurkituko egiazko anaitasunaren bidea eta gure **doiño** hura eskainiko gizartearen elgar-bizirat, hunek hain beharra duena, zuhurtziaren, bakearen eta elkartasunaren mailean, nihungo haundikeriarik gabe. Herria

Bertsulari munduak ere izana zuen hurbiltze hortan bere **doiñoa** . Herria

Kanpotiarreri ere emaiten diotegu eskualde hotako joko, kantu, dantza eta gaineratikoen axaletik bederen **doiño** bat ezagutzeko parada. Patxi Zubizarreta

Berriz ere **doiño** bat kanbiatu dute 1958-ko lege-nagusia. Herria

Schroeder presidentaren ezkerra eta Angela Merkel andere eskuindarrarena, **doiño** batez hau lehen atera bada ere. Herria

---

## doinu *(orobat* ***doiñu*** *g.er. eta* ***doñu*** *g.er.)* **1** *iz* kanta daitekeen musika nota segida. ik **melodia.**

Tartiniren **doinu** baten bariazioei ekin zien gero. Felipe Juaristi

Zu kantatzen ari zinen **doinu** horixe bera entzuten dut ametsetan. Anjel Lertxundi

Harpalariak jotzen zuen **doinu** haren esanetara hasi zen mugitzen. Irene Aldasoro

Nik, **doinu** horretan aritzeko asmorik ez nuenez, [...]. Andoni Egaña

Agur Jaunak izeneko **doinua** . Felipe Juaristi

Biolin bat atera armairutik eta taberna-usaineko **doinu** bat aireratu zuen. Felipe Juaristi

**Doinu** bat ahots apal sakonez kanta-marmariatzen zetorren kilometrotan. Irene Aldasoro

Hotelera itzulita, haizezko musika-tresna batzuen **doinuak** entzun nituen alboko gelatik, Stephenenetik. Xabier Olarra

Lehengo **doinu** bera -sehaska kantu batena-. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sorkariengatik 'Jaunaren Gorespenak' eratu eta gero, Frantzisko dohatsuak beste bertso santu batzuk egin zituen, bere **doinu** eta guzti, Dama pobreen kontsolamendurako. Askoren artean

*The Chameleons* taldearen **doinu** hura. Iban Zaldua

Sarriegiren **doinuek** trinkotasuna ematen diote jaiari, eta **doinu** horien bidez dute bertakoek nahiz atzerritarrek jaiaren zentzuaz, adierazpenaz, liluraz eta gozamenaz ohartzeko aukera. Askoren artean

Keinu egin zion Davidi, eta *Padam Padam* **doinuaren** notek bete zuten eskola. *Dragoi bola*ren **doinuan** aritu izan dira gazteak bertsotan. Bernardo Atxaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Belarria luzatzen zuen ea **doinu** militarren batek iragartzen zuen emirraren gudalburua zetorrela. Karlos Zabala

**Doinu** dotoreko abesti bat kantatzen hasi zen. Jose Morales

Azkenean, orkestra leihoaren ondora iritsi zen, eta ziega osoa **doinu** alaiz, erritmikoz bete zuen, polifonia harmoniatsuan. Jose Morales

Disko zenbakiduna birarazirik, **doinu** metalikoaren nota bakarrak erasan zion berriz ere korridoreari. Aingeru Epaltza

Damiánek alemaniar deitzen den **doinu** motel eta bigunari ekin zion, poliki-poliki, eta **doinua** , bere ibilbidea egin ondoren, itzuli egin zen berehala hasierakora. Felipe Juaristi

Behin eta berriro **doinu** nagusira itzultzera eta behin eta berriro **doinu** nagusitik abiatzera. Felipe Juaristi

Kideekin adostu behar genuke saioan erabilgarri izan daitezkeen **doinu** ezohiko batzuen zerrenda. Andoni Egaña

**Doinu** egokian kantatuz gero, harekin batean datorren testuaren ebokazioak hitzez dioen baino gehiago adierazteko aukera ematen dio bertsolariari. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Usadiozko **doinu** herrikoiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Léak, bere buruari eutsi ezinik, **doinu** maltzurrez bota zuen: [...]. Jon Muñoz

**Doinu** benazko eta malenkoniatsua iruditu zitzaidan halakoa eta baleen dantza etorri zitzaidan burura. Felipe Juaristi

Kathleenek irlandar **doinu** hautatu batzuk jo zituen, eta txalo beroak jaso zituen. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertso "ikusgarriagoa" egite aldera, **doinu** -neurriak luzeagotu nituen. Andoni Egaña

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezin izanen ote nintzateke ni saiatu... jakina, ez litzateke musika **doinu** bat izanen... Monika Etxebarria

Klararen biolin- **doinuak** udako lehen madariak bezalakoak baitzitzaizkien, bigunak eta biribilak. Felipe Juaristi

Egiazko hasierak, tronpeta soinu baten gisa agertzen, jazz **doinu** baten lehendabiziko noten gisa, bat-batean, asperdura eteten, iraupena sendotzen. Monika Etxebarria

Kantaren pausoak dantza- **doinu** bat bailitzan markaturik. Anjel Lertxundi

Joanito Dorronsorok bi milatik gora bertso-**doinu** bildu zituen Bertso-doinutegian. Andoni Egaña

**5** ahotsaren tonu aldaketen segida, hizketa motaren ezaugarri gertatzen dena.

Hizketaren osagai hori, delako **doinu** hori litzateke azentu terminoaren jatorrizko zentzutik gertuen dagoena. kanpotarren hizkeran ezaugarririk nabarmenenetakoa "**doinua**" izaten da. Lourdes Oñederra

Berriro esaten zuen izena, eta orduan hizketako **doinu** hark emaztea iratzarri eta harengana joatera behartzen zuen. Joanttok halako ikara zerbait hauteman zuen haren hitzetan eta, **doinu** berean segitu zuen. Anton Garikano

Alafede! -baietsi zuen gazteak, agurea izozturik utzi zuen **doinuaz**. Elena Touyarou

"Sukaldean jartzeko..." errepikatu diote hamar-hamabi urteko neskatoek, erdi lolita limurtzaile, erdi etxekoandre arduratsuaren **doinu** eta imintzioz. Xabier Mendiguren Elizegi

**6** (izenondo eta izenlagunekin)

-Zoaz, bada, Ivan Grigorievitxengana -esan zuen Ivan Antonovitxek, **doinu** samurragoz-. Jose Morales

Eta Kleopatraren legioak? -galdetu zuen Ruche jaunak, **doinu** enigmatikoz-. -Nik nahi dudan arte geratuko haiz hemen! -esan zuen don Ottaviok, **doinu** ikaragarri hotzez. Jon Muñoz

Kapitainak galdegin zion, ez kapitainaren **doinu** aginte handikoz, adiskidearen **doinu** irribarretsuz baizik. Felipe Juaristi

Bere hitzek sortutako ondorioaz gogobeterik, **doinu** atseginez ekin zion Ruche jaunak: [...]. Jon Muñoz

Pasarte zirikagarriak gorabehera, **doinu** serioa zuen gutunak. hark soil-soilik ihardetsi dit, **doinu** sarkor batez: "Bertze hutsegite bat gehiago da, aitor dizut; baina bertzeekin batera konpondua izanen da. Jon Muñoz

Prokuradoreak haren **doinu** ironikoari ez zion kasu izpirik eman eta aitzina jarraiki zuen, aho bero. Elena Touyarou

Beheranzko **doinuak**, muin-perpausekin lotzen ditugunak, eta goranzko **doinuak**, bai-ala-ezko galderekin lotzen ditugunak. Itziar Laka

Ongi zekien ezkutatzen bere hizkerako hungariar **doinu** arina. Anton Garikano

Eta frantses **doinu** nabarmenez, hitz hauek esan ditu Erregek: [...]. Txillardegi

Nederlanderaz jarraitu zuen gero, Willemena ez bezalako **doinu** kantari batez: ez al zara jabetzen, baina? Anjel Lertxundi

Erregutzen dizut, Eszter maitea -eskatu zidan hotsandiko **doinuz**, zutik jarriz-, [...]. Ander Irizar

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erritmo-ereduak, **doinu**-ereduak, azentu-egiturak eta, oro har, kontsonante eta bokalekin batera ahoskera osatzen duen guztia. Lourdes Oñederra

Genero libertinoaren estilo baliabideak [...] Laclosek beste estilo desberdinekin nahasten ditu, errejistro eta **doinu** aniztasuna emanez bere obrari. Jon Muñoz

Bertsolariok erabiltzen dugun **doinu**-kopurua. Andoni Egaña

Ez diogu **doinu**-aukeraketari behar besteko garrantzirik ematen. Andoni Egaña

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elkarrizketa hura sekretupean gorde beharko zutela adierazten zion hitz-**doinu** hark. Felipe Juaristi

Erabat linguistikoa denaren muturrean, azentua eta esaldi-**doinua** dauzkagu. Lourdes Oñederra

Diosala galdera-**doinu** zorrotzez egin nion: [...]. Aingeru Epaltza

Demagun oinarrizko perpaus-**doinu** nagusi bi eratzen ditugula: [...]. Itziar Laka

Gaitzetsi dizudan liskar **doinu** horretarik itzurtzeko. Jon Muñoz

Ahots **doinu** hark, dardarizo jadanik sumagarriaz haren arimaren zirrara salatzen baitzuen. Jon Muñoz

Sutsuki ari da, herexiaren kumeek ohi dutenez, gaskoi **doinu** nabarmenean. Aingeru Epaltza

Baserritarren aipatzeko manera hura, gutiespen **doinu** hura ez zitzaizkion batere gustatu. Elena Touyarou

Josuren mintza-**doinu** betiere neutroak begiak bihurrarazi zikidan. Aingeru Epaltza

Ausardia-**doinu** behartu bat zuen nire ahotsak, eta lotsaturik nengoen nire estrategia ziztrinaz. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ahots doinu** (19); **baina doinu** (6); **baino doinu** (4); **baten doinu** (9); **bere doinu** (13); **bere doinu eta** (4); **bertso doinu** (5); **bertso doinu eta** (4); **beste doinu** (12); **beste doinu batzuk** (4); **den doinu** (8)

**doinu alai** (7); **doinu aldaketa** (4); **doinu apur** (4); **doinu apur bat** (4); **doinu bat** (42); **doinu batean** (8); **doinu batekin** (6); **doinu batez** (9); **doinu bati** (4); **doinu batzuk** (5); **doinu bera** (6); **doinu berberaz** (4); **doinu berean** (7); **doinu berriak** (7); **doinu bitxi** (4); **doinu edo** (5); **doinu eta** (52); **doinu eta guzti** (5); **doinu eta neurri** (10); **doinu eta neurrian** (4); **doinu guztiak** (4); **doinu hark** (6); **doinu herrikoiak** (5); **doinu hori** (23); **doinu horiek** (9); **doinu horrekin** (4); **doinu hura** (12); **doinu librean** (4); **doinu mota** (6); **doinu mota bat** (4); **doinu polifonikoak** (4); **doinu tradizionalak** (5); **doinu zoragarri** (4)

**du doinu** (6); **eta doinu** (62); **eta doinu librean** (4); **euskal doinu** (5); **gero eta doinu** (4); **halako doinu** (15); **neurri eta doinu** (5); **zion doinu** (4); **zuen doinu** (16)

**ahots doinua** (6); **ahotsaren doinua** (6); **baten doinua** (15); **bere doinua** (6); **doinua aldatu** (6); **doinua aldatuz** (6); **doinua baino** (4); **doinua entzun** (8); **doinua ere** (6); **doinua eta** (15); **doinua ez** (7); **doinua zuen** (7); **eta doinua** (18); **haren doinua** (5); **mintza doinua** (4); **zuen doinua** (9)

**bestelako doinuak** (4); **biolin doinuak** (4); **doinuak bildu** (5); **doinuak bildu ditu** (4); **doinuak ekarriko** (5); **doinuak ekarriko ditu** (4); **doinuak entzun** (14); **doinuak entzun ahal** (4); **doinuak ere** (14); **doinuak eta** (24); **doinuak eta hitzak** (4); **doinuak jotzen** (4); **eta doinuak** (19); **folk doinuak** (5); **haren doinuak** (4); **hitz eta doinuak** (4); **jazz doinuak** (8); **musika doinuak** (8); **musikaren doinuak** (4); **pop doinuak** (4); **rock doinuak** (4); **trikiti doinuak** (4)

**doinuarekin batera** (5); **doinuekin batera** (7); **doinuekin eta** (4); **doinuekin hasi** (6); **doinurik gabe** (5); **doinuz beteriko** (4); **doinuz eta** (5); **eta doinuz** (4); **ez suntsitu doinuan** (4); **liliak doinuan** (4); **suntsitu doinuan** (4); **zuen doinuaz** (5)

---

# doinu *(orobat **doiñu** g.er. eta **doñu** g.er.)* **1** *iz* kanta daitekeen musika nota segida. ik **melodia**.

Tartiniren **doinu** baten bariazioei ekin zien gero. Felipe Juaristi

Zu kantatzen ari zinen **doinu** horixe bera entzuten dut ametsetan. Anjel Lertxundi

Harpalariak jotzen zuen **doinu** haren esanetara hasi zen mugitzen. Irene Aldasoro

Nik, **doinu** horretan aritzeko asmorik ez nuenez, [...]. Andoni Egaña

Agur Jaunak izeneko **doinua**. Felipe Juaristi

Biolin bat atera armairutik eta taberna-usaineko **doinu** bat aireratu zuen. Felipe Juaristi

**Doinu** bat ahots apal sakonez kanta-marmariatzen zetorren kilometrotan. Irene Aldasoro

Hotelera itzulita, haizezko musika-tresna batzuen **doinuak** entzun nituen alboko gelatik, Stephenenetik. Xabier Olarra

Lehengo **doinu** bera -sehaska kantu batena-. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sorkariengatik 'Jaunaren Gorespenak' eratu eta gero, Frantzisko dohatsuak beste bertso santu batzuk egin zituen, bere **doinu** eta guzti, Dama pobreen kontsolamendurako. Askoren artean

*The Chameleons* taldearen **doinu** hura. Iban Zaldua

Sarriegiren **doinuek** trinkotasuna ematen diote jaiari, eta **doinu** horien bidez dute bertakoek nahiz atzerritarrek jaiaren zentzuaz, adierazpenaz, liluraz eta gozamenaz ohartzeko aukera. Askoren artean

Keinu egin zion Davidi, eta *Padam Padam* **doinuaren** notek bete zuten eskola. *Dragoi bola*ren **doinuan** aritu izan dira gazteak bertsotan. Bernardo Atxaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Belarria luzatzen zuen ea **doinu** militarren batek iragartzen zuen emirraren gudalburua zetorrela. Karlos Zabala

**Doinu** dotoreko abesti bat kantatzen hasi zen. Jose Morales

Azkenean, orkestra leihoaren ondora iritsi zen, eta ziega osoa **doinu** alaiz, erritmikoz bete zuen, polifonia harmoniatsuan. Jose Morales

Disko zenbakiduna birarazirik, **doinu** metalikoaren nota bakarrak erasan zion berriz ere korridoreari. Aingeru Epaltza

Damiánek alemaniar deitzen den **doinu** motel eta bigunari ekin zion, poliki-poliki, eta **doinua**, bere ibilbidea egin ondoren, itzuli egin zen berehala hasierakora. Felipe Juaristi

Behin eta berriro **doinu** nagusira itzultzera eta behin eta berriro **doinu** nagusitik abiatzera. Felipe Juaristi

Kideekin adostu behar genuke saioan erabilgarri izan daitezkeen **doinu** ezohiko batzuen zerrenda. Andoni Egaña

**Doinu** egokian kantatuz gero, harekin batean datorren testuaren ebokazioak hitzez dioen baino gehiago adierazteko aukera ematen dio bertsolariari. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Usadiozko **doinu** herrikoiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Léak, bere buruari eutsi ezinik, **doinu** maltzurrez bota zuen: [...]. Jon Muñoz

**Doinu** benazko eta malenkoniatsua iruditu zitzaidan halakoa eta baleen dantza etorri zitzaidan burura. Felipe Juaristi

Kathleenek irlandar **doinu** hautatu batzuk jo zituen, eta txalo beroak jaso zituen. Irene Aldasoro

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertso "ikusgarriagoa" egite aldera, **doinu**-neurriak luzeagotu nituen. Andoni Egaña

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezin izanen ote nintzateke ni saiatu... jakina, ez litzateke musika **doinu** bat izanen... Monika Etxebarria

Klararen biolin-**doinuak** udako lehen madariak bezalakoak baitzitzaizkien, bigunak eta biribilak. Felipe Juaristi

Egiazko hasierak, tronpeta soinu baten gisa agertzen, jazz **doinu** baten lehendabiziko noten gisa, bat-batean, asperdura eteten, iraupena sendotzen. Monika Etxebarria

Kantaren pausoak dantza-**doinu** bat bailitzan markaturik. Anjel Lertxundi

Joanito Dorronsorok bi milatik gora bertso-**doinu** bildu zituen Bertso-doinutegian. Andoni Egaña

## **5** ahotsaren tonu aldaketen segida, hizketa motaren ezaugarri gertatzen dena.

Hizketaren osagai hori, delako **doinu** hori litzateke azentu terminoaren jatorrizko zentzutik gertuen dagoena. kanpotarren hizkeran ezaugarririk nabarmenenetakoa "**doinua**" izaten da. Lourdes Oñederra

Berriro esaten zuen izena, eta orduan hizketako **doinu** hark emaztea iratzarri eta harengana joatera behartzen zuen. Joanttok halako ikara zerbait hauteman zuen haren hitzetan eta, **doinu** berean segitu zuen. Anton Garikano

Alafede! -baietsi zuen gazteak, agurea izozturik utzi zuen **doinuaz**. Elena Touyarou

"Sukaldean jartzeko..." errepikatu diote hamar-hamabi urteko neskatoek, erdi lolita limurtzaile, erdi etxekoandre arduratsuaren **doinu** eta imintzioz. Xabier Mendiguren Elizegi

## **6** (izenondo eta izenlagunekin)

-Zoaz, bada, Ivan Grigorievitxengana -esan zuen Ivan Antonovitxek, **doinu** samurragoz-. Jose Morales

Eta Kleopatraren legioak? -galdetu zuen Ruche jaunak, **doinu** enigmatikoz-. -Nik nahi dudan arte geratuko haiz hemen! -esan zuen don Ottaviok, **doinu** ikaragarri hotzez. Jon Muñoz

Kapitainak galdegin zion, ez kapitainaren **doinu** aginte handikoz, adiskidearen **doinu** irribarretsuz baizik. Felipe Juaristi

Bere hitzek sortutako ondorioaz gogobeterik, **doinu** atseginez ekin zion Ruche jaunak: [...]. Jon Muñoz

Pasarte zirikagarriak gorabehera, **doinu** serioa zuen gutunak. hark soil-soilik ihardetsi dit, **doinu** sarkor batez: "Bertze hutsegite bat gehiago da, aitor dizut; baina bertzeekin batera konpondua izanen da. Jon Muñoz

Prokuradoreak haren **doinu** ironikoari ez zion kasu izpirik eman eta aitzina jarraiki zuen, aho bero. Elena Touyarou

Beheranzko **doinuak**, muin-perpausekin lotzen ditugunak, eta goranzko **doinuak**, bai-ala-ezko galderekin lotzen ditugunak. Itziar Laka

Ongi zekien ezkutatzen bere hizkerako hungariar **doinu** arina. Anton Garikano

Eta frantses **doinu** nabarmenez, hitz hauek esan ditu Erregek: [...]. Txillardegi

Nederlanderaz jarraitu zuen gero, Willemena ez bezalako **doinu** kantari batez: ez al zara jabetzen, baina? Anjel Lertxundi

Erregutzen dizut, Eszter maitea -eskatu zidan hotsandiko **doinuz**, zutik jarriz-, [...]. Ander Irizar

## **7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erritmo-ereduak, **doinu**-ereduak, azentu-egiturak eta, oro har, kontsonante eta bokalekin batera ahoskera osatzen duen guztia. Lourdes Oñederra

Genero libertinoaren estilo baliabideak [...] Laclosek beste estilo desberdinekin nahasten ditu, errejistro eta **doinu** aniztasuna emanez bere obrari. Jon Muñoz

Bertsolariok erabiltzen dugun **doinu**-kopurua. Andoni Egaña

Ez diogu **doinu**-aukeraketari behar besteko garrantzirik ematen. Andoni Egaña

## **8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elkarrizketa hura sekretupean gorde beharko zutela adierazten zion hitz-**doinu** hark. Felipe Juaristi

Erabat linguistikoa denaren muturrean, azentua eta esaldi-**doinua** dauzkagu. Lourdes Oñederra

Diosala galdera-**doinu** zorrotzez egin nion: [...]. Aingeru Epaltza

Demagun oinarrizko perpaus-**doinu** nagusi bi eratzen ditugula: [...]. Itziar Laka

Gaitzetsi dizudan liskar **doinu** horretarik itzurtzeko. Jon Muñoz

Ahots **doinu** hark, dardarizo jadanik sumagarriaz haren arimaren zirrara salatzen baitzuen. Jon Muñoz

Sutsuki ari da, herexiaren kumeek ohi dutenez, gaskoi **doinu** nabarmenean. Aingeru Epaltza

Baserritarren aipatzeko manera hura, gutiespen **doinu** hura ez zitzaizkion batere gustatu. Elena Touyarou

Josuren mintza-**doinu** betiere neutroak begiak bihurrarazi zikidan. Aingeru Epaltza

Ausardia-**doinu** behartu bat zuen nire ahotsak, eta lotsaturik nengoen nire estrategia ziztrinaz. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahots doinu** (19); **baina doinu** (6); **baino doinu** (4); **baten doinu** (9); **bere doinu** (13); **bere doinu eta** (4); **bertso doinu** (5); **bertso doinu eta** (4); **beste doinu** (12); **beste doinu batzuk** (4); **den doinu** (8)
>
> **doinu alai** (7); **doinu aldaketa** (4); **doinu apur** (4); **doinu apur bat** (4); **doinu bat** (42); **doinu batean** (8); **doinu batekin** (6); **doinu batez** (9); **doinu bati** (4); **doinu batzuk** (5); **doinu bera** (6); **doinu berberaz** (4); **doinu berean** (7); **doinu berriak** (7); **doinu bitxi** (4); **doinu edo** (5); **doinu eta** (52); **doinu eta guzti** (5); **doinu eta neurri** (10); **doinu eta neurrian** (4); **doinu guztiak** (4); **doinu hark** (6); **doinu herrikoiak** (5); **doinu hori** (23); **doinu horiek** (9); **doinu horrekin** (4); **doinu hura** (12); **doinu librean** (4); **doinu mota** (6); **doinu mota bat** (4); **doinu polifonikoak** (4); **doinu tradizionalak** (5); **doinu zoragarri** (4)
>
> **du doinu** (6); **eta doinu** (62); **eta doinu librean** (4); **euskal doinu** (5); **gero eta doinu** (4); **halako doinu** (15); **neurri eta doinu** (5); **zion doinu** (4); **zuen doinu** (16)
>
> **ahots doinua** (6); **ahotsaren doinua** (6); **baten doinua** (15); **bere doinua** (6); **doinua aldatu** (6); **doinua aldatuz** (6); **doinua baino** (4); **doinua entzun** (8); **doinua ere** (6); **doinua eta** (15); **doinua ez** (7); **doinua zuen** (7); **eta doinua** (18); **haren doinua** (5); **mintza doinua** (4); **zuen doinua** (9)
>
> **bestelako doinuak** (4); **biolin doinuak** (4); **doinuak bildu** (5); **doinuak bildu ditu** (4); **doinuak ekarriko** (5); **doinuak ekarriko ditu** (4); **doinuak entzun** (14); **doinuak entzun ahal** (4); **doinuak ere** (14); **doinuak eta** (24); **doinuak eta hitzak** (4); **doinuak jotzen** (4); **eta doinuak** (19); **folk doinuak** (5); **haren doinuak** (4); **hitz eta doinuak** (4); **jazz doinuak** (8); **musika doinuak** (8); **musikaren doinuak** (4); **pop doinuak** (4); **rock doinuak** (4); **trikiti doinuak** (4)
>
> **doinuarekin batera** (5); **doinuekin batera** (7); **doinuekin eta** (4); **doinuekin hasi** (6); **doinurik gabe** (5); **doinuz beteriko** (4); **doinuz eta** (5); **eta doinuz** (4); **ez suntsitu doinuan** (4); **liliak doinuan** (4); **suntsitu doinuan** (4); **zuen doinuaz** (5)

---

# **doinuanitza** *iz* doinuaniztuna.

Hamaika ahotsen harmonia **doinuanitza**. Berria - Kultura

## **doinuka** *adlag*

Aurrera jarraitu zuen bere jarrera arretagabearekin: ingurura begira, bere kolkorako **doinuka**, eta artista navajoa, berriz, han egon zen, marrazketan buru-belarri murgildurik, zirkinik egiteke ia. Xabier Olarra

---

## **doinusu** *izond*

Aita Tillous ere barne, bere xuberotar hitz **doinusuarekin**, laket baitzen harekin solastatzea Herria

---

## **doinutegi** *iz* doinu bilduma.

Musikologiatik hurbil daiteke norbait bertso-**doinutegia** aztertzera edo bertsolarien kantaera desberdinei interpretazioren bat saiatzera. Andoni Egaña

Hiru dira beraz, bertsolariek beren **doinutegia** osatzeko darabiltzaten iturri nagusiak: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## **doinutxo** *iz adkor* doinua.

Maddiri izugarri gustatu zitzaion mugikaria: sekulako irribarrea marrazten zen haren aurpegian azpian jarri eta **doinutxoa** hasten zen bakoitzean. Iban Zaldua

«Inork ez du sinisten Azkarragaren **doinutxoa**», gaineratu zuen Lopezek. Berria - Ekonomia

---

## **doinuxka** *iz* doinutxoa.

Paseoko mutilen txilio gordin txorrotxen ostean, badakizu, neska ahotsak badu ba, belarri-ixkinan halako **doinuxka** kilimatiagoa... Pello Zabala

---

## **doinuzale** *izond* doinuen zalea dena.

**«Doinuzale** apartekoa zen», dio Berzaitzek, eta hori ez da goresmen gutxikoa, jendeen belarrietan berehala sartzen diren doinu gozagarriak sortzeko gaitasunarentzat ezagutua den euskal artista batek erranik. Berria - Kultura

---

## **doitasun** **1** *iz* zehaztasuna. ik **prezisio.**

Goi mailako **doitasuna** duten piezak mekanizatuko dituzte. Berria - Ekonomia

Ez dago ongi norberak bere lana aipatzea, baina **doitasun** handiz egindako azterketa da. Askoren artean

Harrituta geratuko da [makina] zein txukun eta nolako **doitasunez** egina dagoen konturatzen denean. Santiago Iruretagoiena

Harmonia eta **doitasuna** falta dela ideietan. Iñaki Iñurrieta

Euren adimen ergelez ezin dute unibertsoko gauzen harmonia eta **doitasuna** begipean hartu eta ulertu. Imanol Unzurrunzaga

Planetatik 206.452 kilometrora zegoela egin zituen argazkiak, eta ez zituzten adituek horrenbesteko **doitasuneko** argazkiak espero. Berria - Gaiak

Ez duk judu presturik Eternalaren agindua **doitasunez** bete dezakeenik. Josetxo Azkona

**2** (izenondoekin)

Horrelako istripuak saihesteko bertan aurki **doitasun** handiagoko radarrak jarriko dituztela esan zuen atzo Frantziako Garraio ministro Dominique Perbenek. Berria - Gaiak

Aztertutako etxalde batzuetako emaitzak dudakoak dira, eta **doitasun** handiagoko testak egin beharko dira. Berria - Gaiak

Satelite-teleskopioak, propio, unibertsoko leku urrunak arakatzeko prestatu nahi dituzte, eta, ondorioz **«doitasun** handiko» sistema garatu behar izan dute. Berria - Gaiak

Gero eta **doitasun** eta prestasun handiagoarekin egiten dute lan. Berria - Harian

Gauza guztiak **doitasun** zehatzarekin eta natura-legeen arabera arakatu ondoren, obren eraikuntzan aplikatu zituzten,Oreka ezin hobea eta **doitasun** milimetrikoa. Santiago Iruretagoiena

Bandera kontaezinak, harrizko arranoaren mehatxuzko keinua, lerro beltz haien **doitasun** izugarria... Alberto Ladron Arana

Geldiro mintzatzen zen, esaldiei xarma ematen zien halako nagitasun batez, mingain astun samarrean hitzen **doitasun** kolore-bizia azpimarratzen zuen zalantza apur bat zuela. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

**Doitasun**-tresnekin lan egiten du Stanleyren enpresa berean, ordezko piezen sailean. Xabier Paya

Hunkiturik nago, nire gorputza atsedenean dagoen **doitasun**-makina bat balitz bezala sentitzen dut. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **doitasun handiagoko** (3); **doitasun handiko** (3); **doitasun handiz** (3); **eta doitasun** (5); **eta doitasuna** (3)

---

## **doitu,** doi(tu), doitzen da/du **1** *ad* neurri egokira etorrarazi. ik **egokitu.**

Telemetroa behar bezala **doiturik** dagoenean, zehatz fokaturik geratzen baita objektiboa. Irene Aldasoro

Harresien distantzia desberdinetara gera zitezela, alegia, Arkimedesek bere makinen jaurtiketa **doitu** ahal izan ez zezan. Jon Muñoz

Honela **doituta** tutuen nibela, ez dira altxatuko ez beherakoan eta ez gorakoan. Santiago Iruretagoiena

Kanpoko ispilu eta lenteak **doituz**, erretinako irudia pixka bat mugitzea lortzen da. Irene Aldasoro

Esku oneko artilari batek [...] 81 mm-ko mortero bat baliatuz, 4-5 granada (2 fosforozko, 2-3 su-emaile) baizik ez lituzke behar tiroa **doitu** eta puxka ttikitan den-denak lehertzeko. Pablo Sastre

Hori baino gehiago egiten du begiak, haren kristalinoa automatikoki **doitzen** baita objektuaren distantziara. Irene Aldasoro

Neke handirik gabe **doi** daiteke begia 10.000tik 1era arteko argi intentsitateetara. Irene Aldasoro

Automobilaren motorrak, adibidez, pedal bat du, erregaifluxua **doituz** azeleragailu gisa funtzionatzen duena. Irene Aldasoro

**Doitu** beharrekoak dira hitzok, bai noski. Iñaki Heras

Sistema horretan lortzen diren irabaziak edo laguntzak, egindako ekarpenetara **doitzeko** joera da nagusi. Iñaki Heras

Egungo ekonomia sistema ez dela, inondik inora, automatikoki **doitzen** den mekanismo bat. Iñaki Heras

Enpresaburuek eta sindikatuek 35 orduen legea **«doitzeko»** eskatu zuen atzo Jacques Chirac Frantziako Errepublikako presidenteak. Berria - Ekonomia

Panazko uniformea zeraman, primeran **doitua**, Rainbow Division izenekoaren intsigniez apaindua eta xingolez eta galoiz hornitua. Lopez de Arana

Bere jokamoldea berak antolatu, egokitu, **doitu** beharra daukan animalia dugu gizon-emakumea. Joxe Azurmendi

Hizkera **doitu** eta landuaz. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bankariek etekina ateratzen dute diru zaharra estatu horretatik kanporatzean, zeren eta, hartara, diru zaharraren gainean kanbio **doitu** batek emango lukeen abantaila berdina lortzen baitute. Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**arabera doitu** (3); **automatikoki doitzen** (6); **doitu ahal** (3); **doitu behar** (4); **doitu egin** (3); **doitu eta** (6); **doitzeko edo** (3); **doitzen da** (3)

---

# doitzaile *iz* doitzen duen pertsona.

Senarraz ari zen: berrogei urteen bueltan, andre txiki beltzaran honek, aurrezturik zuenarekin, gizon gazte xarmant bat, Lecointe lantegiko **doitzaile**, oparitu zion bere buruari. Monika Etxebarria

---

# doitze *iz* neurri egokira etorraraztea.

**Doitze** plana lantegien biziraupena ziurtatzeko nahikoa izango dela uste du Hendersonek, bi urtean 500 milioi euro aurreztuko baitira. Berria - Ekonomia

Garapenerako proiektuak lagundu eta **doitze** programetarako maileguak ematen dituzte, ez besterik. Berria - Gaiak

Bost urte lehenago bera saiatu zen afinaziorako gako-**doitze** lanak burutzen, baina emaitza penagarria izan zen eta orduan bai, egun hartan bertan deitu behar izan zion afinadoreari, biharamunean pianoa joko bazuen. Josu Landa

---

# doixtar *izlag/iz* alemaniarra.

**Doixtar** itsaspekoak lanean hasiak ziren berehala eta inork ez zuen ontziratu gura. Koldo Izagirre

Zelako marraixu garaua, **doixtar** komandante hura! Koldo Izagirre

Halan jakiten genduan zenbaterainoko triskantzeak egiten eben geure kaskoen ganetik Bilborantz abiatzen ziran Heinkel eta Junker **doixtarrak**. Lutxo Egia

Ez nuen konprenitzen **doixtarren** jokamoldea, ez inglandarrena. Koldo Izagirre

---

doker ik **docker**.

---

doktor ik **doktore**.

---

doktoradu ik **doktoratu**.

---

# doktoradutza 1 *iz* doktore gradua; doktore gradua lortzeko ikasketak. ik**doktorego**.

Filosofian lizentziatua da EHUn eta gaur egun **doktoradutza** egiten ari da Universitat de Barcelona-n. Askoren artean

1909ko urriaren 18an sortu zen, Turinen, Norberto Bobbio, eta hiri berean egin zuen Filosofia eta Letretako **doktoradutza**. Berria - Kultura

1995ean, EHUn Antropologia ikasketak sortu zituztenean, bere eskola guztiak euskarazkoak ziren, baita **doktoradutza** eskolak ere. Berria - Kultura

**2 *doktoradutza tesi*** doktore tesia.

**Doktoradutza** Tesi argitaragabea. Koldo Zuazo

---

# doktoral

**1 *tesi doktoral*** *(**9** agerraldi, **3** liburu eta artikulu **1**ean)* doktore tesia. ik **doktore 6**.

Euskararen berezko pobretasun eta barne egituren zaharkitutasuna, Unamuno-k, tesi **doktoralarekin** hasi eta, bere periodorik "abertzaleenean" ere jada seinalatua zuen. Joxe Azurmendi

Gaur egun, karrera bukatu dutenentzat beka onak ere badaude, bai hemen tesi-**doktoralak** egiteko eta bai atzerrian egiteko. Berria - Euskal Herria

Baina Tansleyk bere gelara joan behar izan omen zuen, tesi **doktorala** idazteko. Anton Garikano

Egunkari-saltzaileek horrelako aldizkariak gordetzen dizkidate, egunkari-saltzaileak jende abila dira eta buru argi-argikoak, norbaitek tesi **doktorala** egin beharko luke prentsaren alderdi interesgarri hori aztergai hartuta. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**tesi doktorala** (3)

---

# doktoratu, doktora, doktoratzen *(orobat **doktoradu**)* du *ad* doktore tesia eginik doktore gradua lortu.

Filosofian **doktoratu** zen Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Askoren artean

1989an, Alemaniara joan zen ikastera eta eklesiologian **doktoratu** zen. Herria

Euskal Filologiako adarrean **doktoratu** zen, unibertsitate berean, 1995ean. Berria - Kultura

Peru Abarka **doktoratu** zen unibertsitatearen kokapena deskubritzea gelditzen zaigu orain. Anjel Lertxundi

Filosofian lizentziatua Bordelen, eta Parisen **doktoratua**, filosofia-irakaslea izan da urte askotan Orthezen. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**doktoratu zen** (9)

---

# doktore *(orobat **doktor**)* 1 *iz* unibertsitate ikasketa sail batean maila gorena lortu duen pertsona.

-Esan diot, ordea, **doktore** jauna hemen dagoela! Anton Garikano

Zer moduz zaude, **doktore** andrea, **doktore** andrea izan beharrean **doktore** jauna balitz ezberdina izango zen, errazagoa, dudarik gabe. Jon Alonso

Utzidazu gogoratzen, Rassool **doktore** andrea", dio Mathabane-k, "ez dagokigula guri zigorrak ezartzea. Oskar Arana

**Doktore** emakume bat dugu nobelako protagonista nagusia. Berria - Kultura

Hortaz, Pangloss **doktore** hilezkorraren hitzak aipatuz, guzti-guztia hoberako gertatu zen. Oskar Arana

Baina **doktore** noble eta handi batek dio: [...]. Joan Mari Lekuona

Stanford Unibertsitateko Jordan **doktore** iktiologo ospetsuak. Xabier Olarra

Aita Bartolome elizako **doktore** jakintsua da. Joan Mari Irigoien

Laburdurak zehazki *Legum Doctor* (Zuzenbideko **Doktore** ) adierazten du. Xabier Olarra

Arturo Rebollo Bideetako, Ubideetako eta Portuetako Ingeniaritzan **doktore** da, bai eta geologoa ere. Edurne Elizondo

Siena hirian, teologia santuan **doktore** zen erlijioso batek, ulertzen oso zailak ziren Idazki Santuko zenbait pasarteri buruz galdetu zion. Askoren artean

-Fisikan **doktorea** Cambridgeko Unibertsitatean, elektrokimikaren inguruko tesi batekin. Fernando Morillo

Bera eta senarra Andrew Levitt izeneko kirurgia plastikoko **doktore** baten adiskide egin ziren. Oskar Arana

Deiturarekin eta ondasunekin batera hartu zuen herentzian haien titulua ere; haren familian **doktore** ziren aitaren ondoren semeak, aitaren ondoren semeak Héraclius Gloss deitzen ziren bezalaxe. Josu Zabaleta

Bederatzi urte geroago, aldiz, agindu zahar horrek ez du Sorbonako **Doktoreen** Kontseilua ikaratu. Aingeru Epaltza

## 2 irud/hed

Harold Shipman 'Herio **doktoreak'** artatutako 215 gaixoren heriotza ziurtagiriak sinatu zituzten medikuek, eta arduragabekeriaz jokatzea leporatzen die orain epaileak. Berria - Gaiak

Egia erdiaren maisua eta gezur osoaren **doktorea** . Txema Ramirez de la Piscina

## 3 medikua.

Ene hortzak azter ditzazun ekarrarazi zaitut, **doktore** jauna. Patxi Zubizarreta

Erresonantzia magnetikoak aztertu ditu Ibáñez **doktoreak** . Imanol Zurutuza

Eta **doktore** hura, amarekin xuxurla batean hizketan, amaren erreguei entzungor, burua ezezka mugituz... eta betaurreko biribil haiek, ebaketa gelako argi itsugarrietan dir-dir. Alberto Ladron Arana

Goiz erdian etorri da **doktorea** ohiko bisita egitera, eta etxera bidaliko duela esan dio gaixoari. Imanol Zurutuza

Defentsak oraindik ere baxu samar, baina, aurreko analisiaren aldean, hobeto zituela esan zien Domínguez **doktorearen** ordezkoak. Imanol Zurutuza

Zoroen, **doktorearen** eta erizainen arteko harremanak. Jose Morales

Bai kalezuloan bai ingurumarietan **"doktore"** esaten zioten, eta seguruenik berau zen gaixoek halako titulua emana zioten bakarra. Patxi Zubizarreta

Haren laguntzailea, Joseph Mengele **doktore** zorigaitzean ospetsua, SSetako kapitaina eta Auschwitz-eko medikua, Verschuer-en agindupean. Juan Garzia

Asteartean Oosthuizen **doktore** albaitaria etorri arte itxarotea dauka, baina gaixo hau antzu geratuko da edonola ere, eta nahi izango ote du emakume honek aker antzurik? Oskar Arana

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kondenatu eta kendu ziotenetik **doktore** titulua eta abokatutzan jarduteko eskubidea [...]. Anton Garikano

Franz Kafkak 1906ko ekainaren 18an jaso zuen Zuzenbidean **Doktore** titulua, eta, urtebeteko praktika judizialak egin ondoren, 1907ko urriaren 1ean hasi zen Assicurazioni Generali izeneko aseguru etxean lanean. Pedro Alberdi

Andresek ez zuen eztabaidan hasi nahi izan, eta Madrila joan zen, **Doktore** -mailarako ikasgaien azterketak egin zituen, eta Valentzian idatzia zuen tesia irakurri zuen. Josu Zabaleta

Maiatza hurbiltzen ari zela, **Doktore** azterketa egitera Madrila zihoala esan zion Andresek arrebari. Josu Zabaleta

Hübel -medikuntza-ikasle nagia-, eta Rübsam doktorea, **doktore** lanak aspaldi utzi zituena. Anton Garikano

Bost **doktore** sari berezi eman ditu Nafarroako Unibertsitateak. Berria - Gaiak

Jaun serio, beltzez jantzi, betaurrekodun, **doktore** -itxurakoren baten eta apaiz hezur-huts, sotana saretuz jantziren baten artean. Josu Zabaleta

## 4 judutarren legea erakusten zuen irakaslea; kristautasunaren dogmak azaltzen dituen teologoa.

Gure Legeko **doktorerik** ospetsuenen esanetan. Xabier Kintana

Rabbik halako **doktorearen** hitzak halako kasuan ontzat eman ditu. Xabier Kintana

Siriar hitz horrekin egileak Talmudaren garaiko **doktoreak** adierazten ditu, kaldear edo siriar hizkuntza (arameera) erabiltzen zutenak. Xabier Kintana

Nire adinekoa-edo zelarik, burutsu eta adimendutsu zen Jesus, sinagogako **doktoreen doktore** eta jakintsuen jakintsu. Joan Mari Irigoien

Eta maisu haien bidez ezagutu nituen maisuen maisu ziren Elizako jakintsu eta **doktoreak** -jondone Agustin Hiponakoa, edo jondone Tomas Akinokoa, konparazione, [...]. Joan Mari Irigoien

## 5 *doktore gradu*

Vienako Unibertsitatean, **doktore gradua** lortzeko aurkeztu zuen tesia Palestinako Itsaso Hilean dagoen gatzari buruzkoa zen. Felipe Juaristi

**Doktore gradua** lortu ondoren edo lortzear dagoela, laguntzaile gisa has daiteke ikertzaile berria bere prestakuntzaren bigarren aldian. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

## 6 *doktore tesi* (*39 agerraldi, 9 liburu eta 18 artikulutan; ETCn 841 agerraldi*) ik **doktoral; doktorego 3**.

Lizentzia edo ingeniari titulua eskuratzeko ikasketak amaitu ondoren, **doktore tesia** egin behar du ikerkuntza lanetan hasi nahi duenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Filosofian lizentziatua da eta gaur egun **doktore-tesia** egiten ari da Eusko Jaurlaritzaren beka batekin. Askoren artean

Igor Horrillo farmazialaria **doktore tesia** prestatzen ari da depresioaren gainean. Berria - Gaiak

AEBetan defendatu zuen **doktore-tesiaren** itzulpena. Berria - Kultura

**Doktore-tesian** Helendarren Biltzarra aztertu ostean, *Boterea gizarte homerikoan* liburua argitaratu zuen 2002. urtean. Askoren artean

**Doktore tesian** Lauaxetaren iturri literarioak aztertu zituen Kortazarrek. Berria - Kultura

Hortzak estututa aritzen da proiektu guztietan, dela unibertsitateko **doktore-tesian** , dela lagunarteko pala-partiduetan. Xabier Etxabe

## 7 *doktore ondoko* *izlag* graduondokoa.

**Doktore ondoko** beka baten bitartez Center for the Study of Language and Information (Stanford) ikerkuntzagunean urtebete eman zuen lanean. Askoren artean

Doktoregoa (biziaren eta kognizioaren arteko erlazioei buruzkoa) eta **doktore ondoko** egonaldia (Ingalaterrako Sussex-eko Unibertsitatean) egiteko, Eusko Jaurlaritzaren bekak jaso zituen. Askoren artean

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**chasuble doktore** (5); **chasuble doktore maitea** (3); **doktore andrea** (3); **doktore antonio casasek** (3); **doktore bat** (6); **doktore batek** (8); **doktore baten** (3); **doktore da** (5); **doktore delako** (3); **doktore eta** (10); **doktore gradua** (5); **doktore hauek** (3); **doktore izendatu** (3); **doktore izendatuko** (4); **doktore jauna** (16); **doktore jaunaren** (4); **doktore maitea** (4); **doktore tesi** (4); **doktore tesia** (17); **doktore tesia egiten** (4); **doktore tesiak** (3); **doktore tesian** (8); **doktore titulua** (8); **doktore titulua izatea** (4); **edo doktore** (3); **egindako doktore** (3); **egun doktore** (3); **egun doktore tesia** (3); **elizako doktore** (3); **erpurutxo doktore** (3); **eta doktore** (12); **funtzionario doktore** (5); **honoris causa doktore** (11); **irakasle doktore** (3); **rassool doktore** (3); **walden doktore** (5); **zen doktore** (5); **zientzietan doktore** (3); **zuen doktore** (6); **zuen doktore tesia** (3); **zuzenbidean doktore** (3)

**batez doktorea** (3); **becker doktorea** (3); **buxi doktorea** (22); **chasuble doktorea** (18); **doktorea bera** (3); **doktorea bere** (11); **doktorea da** (26); **doktorea ere** (4); **doktorea eta** (28); **doktorea eta biok** (5); **doktorea etorri** (3); **doktorea ez** (11); **doktorea ez zen** (6); **doktorea izan** (3); **doktorea izan zen** (3); **doktorea zen** (7); **erpurutxo doktorea** (3); **eta doktorea** (7); **filosofian doktorea** (8); **filosofian doktorea eta** (3); **fuhrmann doktorea** (5); **gloss doktorea** (14); **herio doktorea** (4); **ingeniaritzan doktorea** (3); **jaun doktorea** (3); **jekyll doktorea** (3); **kutz doktorea** (7); **kutz urta doktorea** (3); **lloyd doktorea** (5); **maria sara doktorea** (26); **psikologian doktorea** (3); **sara doktorea** (26); **schenker doktorea** (8); **shevirev doktorea** (10); **sousa doktorea** (3); **townsend doktorea** (4); **urta doktorea** (3); **walden doktorea** (19); **xang doktorea** (3); **zen doktorea** (15); **zuen doktorea** (4); **zuzenbidean doktorea** (3)

**aldaba doktoreak** (5); **baina doktoreak** (6); **bilbao doktoreak** (7); **buxi doktoreak** (12); **casado doktoreak** (3); **chasuble doktoreak** (6); **corgean doktoreak** (3); **dio doktoreak** (4); **doktoreak barre** (4); **doktoreak bere** (12); **doktoreak deitu** (3); **doktoreak dira** (6); **doktoreak ere** (6); **doktoreak esan** (10); **doktoreak eta** (6); **doktoreak ez** (15);

doktoreak ez zuen (6); doktoreak hasperen (3); doktoreak hitz (3); du doktoreak (4); erantzun dio doktoreak (3); eta doktoreak (12); fuhrmann doktoreak (15); funtzionario doktoreak (10); funtzionario doktoreak dira (4); gloss doktoreak (6); heras doktoreak (10); johnson doktoreak (3); kutz doktoreak (10); las heras doktoreak (10); maria sara doktoreak (18); orbe doktoreak (3); rabinowitz doktoreak (4); sanchez doktoreak (3); sara doktoreak (18); schenker doktoreak (6); shevirev doktoreak (20); sousa doktoreak (6); walden doktoreak (22); xang doktoreak (4); zen doktoreak (4); zion doktoreak (3); zuen doktoreak (15)

azkue doktoreaarn (4); chasuble doktoreari (4); doktorearekin batera (3); doktoreari buruz (3); doktorearekin hitz (4); doktorearekin hitz egin (3); doktorearen begiak (3); doktorearen eta (7); doktorearen etxera (4); doktorearen hitzak (6); doktorearen zain (3); doktoreari buruz (3); eta doktorearen (4); eta doktoreari (3); fuhrmann doktoreari (4); halako doktorearen (4); heras doktorearen (4); herio doktorearen (3); johnson doktorearen (3); las heras doktorearen (4); maria sara doktorearekin (5); maria sara doktorearen (8); sara doktorearekin (5); sara doktorearen (8); schenker doktorearekin (3); schenker doktorearen (9); shevirev doktorearen (6); shevirev doktoreari (7); walden doktorearen (12); walden doktoreari (4); xang doktorearen (4); xang doktorearengana (3); zion doktoreari (6)

doktoreek bedeinka (4); doktoreek bedeinka bedi (4); doktoreen botoek (3); doktorek eman (3); doktorek eman diote (3); funtzionario doktoreek (3); funtzionario doktoreen (13); funtzionario doktoreen botoek (3); funtzionario doktorek (4); funtzionario doktorek eman (3); zenbait doktorek (3); zuten doktoreek (3)

---

# **doktoregai** *iz* doktore tesia egiten ari den ikaslea.

Ni aulkian jarrita nengoen eskola hasi orduko, ni bezala hoberik ezean **doktoregai** bihurtzea erabaki zuen gelakide batekin, eta horra non azaldu zinen zu. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrelako kasuetan, ondo dago **doktoregaiak** ordaintzea bazkaria. Joxerra Garzia

Fermin Arkotxa historian **doktoregaia**, Jean-Claude Larronde zuzenbidean doktorea eta Jacques Garat Lillen historiako irakaslea. Berria - Harian

Jean Louis Davant eta Piarres Xarritton euskaltzain historialariek, Peio Etcheverry-Ainchart historia **doktoregaiak** eta Antton Curutcharry historia erakasleak nehor baino hobeki badakite artxiba zahar horiek zer balio duten. Piarres Xarriton

---

# **doktorego** *(orobat **doktorgo** g.er. eta **dorkorgoa** g.er.)* **1** *iz* doktore gradua; doktore gradua lortzeko ikasketak.

**Doktoregoa** lehenbailehen erdietsi nahi dut. Daniel Landart

Hogei urtetako eskuratua zuen jadanik legeetako **doktoregoa**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nahiz zuzenbidezko bi sailak landu, bakarrik sail kanonikoaren **doktoregoa** zuen eskatu; bi sailak irakatsi zituen bizkitartean Cahorseko eta Tolosako unibertsitateetan. Piarres Xarriton

Hori ikusita, denbora pasa alde, **Doktoregorako** ikasgaiak ikastea erabaki zuen. Josu Zabaleta

EHUn **doktoregoa** egiten ari da Filosofian. Askoren artean

**Doktoregoa** (biziaren eta kognizioaren arteko erlazioei buruzkoa) eta doktore ondoko egonaldia (Ingalaterrako Sussex-eko Unibertsitatean) egiteko, Eusko Jaurlaritzaren bekak jaso zituen. Askoren artean

Sistema horretan mailak oso markatuak daude: oinarrizko tituluak ematen dituzte unibertsitate batzuek, bigarren mailan daude lizentzia mailakoak ere ematen dituztenak eta azkenean, erpinean, goimailako titulazioak eta **doktoregoa** ematen dituzten unibertsitate ezagunenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

1983. urtean, gizarte zientzietako **doktoregoa** bukatu zuen. Berria - Gaiak

Eta nik neuk ere **doktoregoa** ahalik eta azkarrenik bururatzea agindu nion 1978an. Txillardegi

Askoz ere ikerkuntza sakonagoa egiten da **doktoregoarekin** loturik dauden programak irakasten dituzten sailetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lan hau egiteko, Eusko Jaurlaritzaren **doktorego** aurreko beka baten laguntza izan dut. Berria - Kultura

Hainbat ikasgai irakatsi zituen bai lizentziaturan, bai eta **doktoregoan** ere. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Gurasoen ustez oraindik **doktorego** ikastaroetan matrikulatuta nago. Jon Arretxe

Hiria uztearekin batean, utzi egin nituen **doktorego**-ikastaroak ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Zein diren unibertsitate hoberenak ikasketa jakin batzuetan, edo ikerketa mota batean, edo **doktorego** programa batean, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

EOSekin eta EGOrekin harreman estuak ditugu, EHUrekin ere musikologia **doktorego** programa bat dugu eta Baionako kontserbatorioarekin ere lan egiten dugu. Berria - Harian

Kontzertu guztiak azterketa soziologiko joria egiteko abagune badira, *Extremaduro*ren musikaldi batekin **doktorego** lana presta liteke gazteriaren kontsumo ohiturei buruz. Berria - Kultura

**3** ***doktorego tesi*** *(25 agerraldi, 4 liburu eta 18 artikulutan; ETCn 558 agerraldi)* doktore tesia. ik **doktore 6**.

Jamila Hussein **doktorego tesia** egiten ari da Harvardeko Hezkuntza Graduatu Eskolan (AEB). Berria - Mundua

Bizkaiko geografiari buruzko **doktorego tesia** amaitzea. Txillardegi

Bukatu gabe utzi duen **doktorego-tesia**. Iban Zaldua

Elena Urrestarazu Nafarroako Unibertsitateko ikertzailea da eta **doktorego tesia** aurkeztu berri du. Berria - Gaiak

Milanoko Unibertsitatean defendatu zuen bere **doktorgoko** tesia. Herria

Ander Iturriotz Lauzirika irakasleak bere **doktorego-tesian** aztertu du boterea gizarte homerikoan. Txema Ramirez de la Piscina

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bere doktorego (3); buruzko doktorego (3); buruzko doktorego tesia (3); doktorego ikastaroa (5); doktorego ikastaroak (5); doktorego ikastaroetan (3); doktorego programa (6); doktorego tesi (3); doktorego tesia (15); eta doktorego (7)

---

# **doktoresa** *iz* doktore andrea.

-Jakin beharko zenuke gaur Judith Sastre **doktoresari** gertatu zaiona. Joan Mari Irigoien

---

# **doktoretza** **1** *iz* doktoregoa.

Milka Metso soziologia **doktoretza tesia** prestatzen ari da Frantziako Tolosako Simone Sagesse taldean. Berria - Euskal Herria

Hannak damu du Filosofiako **doktoretza** egin izana. Joxe Austin Arrieta

Erdietsi zituen horrela bi eliza errenta bakun, haiei esker ikasketak ordaindu ahal izan baitzituen **doktoretza** iragan arte. Piarres Xarriton

Erdietsiz bat bestearen ondotik Eliza legeetan batxilergoa, lizentzia eta **doktoretza** mailak, bai eta Aulkietarako lehiatu "Prima" deitu ospetsuena beretu arte. Piarres Xarriton

Baina beste tesi asko bezala hura ere, behin aurkezturik eta tesigileak **doktoretza** eskuraturik, tiraderaren batean galdurik gera zitekeen. Edorta Jimenez

Letra eta filologia hispanikoetan Lizentziatura eta Maîtrise egin zituen, euskal letra eta filologian DEA eta **Doktoretza**. Ana Urkiza

Japoniako herri literaturaren ikerle ospetsuak amaitu berria duen **doktoretzako** lanean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oinarrizko zientzietan egiteko **doktoretza** ondoko dirulaguntzak %32an igo ditu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**2** (hitz elkartuetan)

"Gure nahigabe" hura Gegenbauerren hutsa zen, hiru hilabete lehenagoko **doktoretza**-azterketan. Anton Garikano

Unibertsitatean irakasle hasi, eta **doktoretza** ikastaroak egin behar izan nituen aurrena. Joxerra Garzia

Bera izan zen nire **doktoretza**-zuzendari. Lourdes Oñederra

**3 *doktoretza-tesi*** *(14 agerraldi, 7 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 283 agerraldi)* doktore tesia.

Maletatxoan zeraman gerora 'La Era Trujillo' izenpean apailatuko zuen **doktoretza-tesia** izango zuena idazteko baliatuko zituen oharrak, eskuizkribuak eta dokumentuak. Edorta Jimenez

Lan intelektual bat zen, finean, **doktoretza tesi** bat ere izan zitekeena. Ana Urkiza

**Doktoretza tesia** Massachusettseko Teknologia Institutuan amaitu zuen, 1990ean. Berria - Kultura

Laster aurkeztuko du bere **doktoretza-tesia**: Manex Edorzaintzi-Etxarten Biografia, poetika eta obra. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere doktoretza** (3); **doktoretza egin** (3); **doktoretza ikasketak** (3); **doktoretza tesia** (10); **eta doktoretza** (5)

---

doktorgo ik **doktorego**.

---

# doktrina

*(orobat **dotrina** g.er.)* **1** *iz* ideia-multzo egituratua.

Teoria konparatibisten artean eboluzionismoa eta primitibismoa ikusiko ditugu, teoria unibertsalistetan lege naturalaren **doktrina**, eta teoria partikularistetan idealismo alemaniarra. Askoren artean

Lege naturalaren **doktrinak** hiru oinarri orokor ditu: [...]. Askoren artean

Merkantilismoa, benetako **doktrina** baino areago, praktika multzoa izan zen, eta berehala kondenatu zuen pentsamendu ekonomikoak. Koro Navarro

Pelagioren **doktrinaren** ildotik sortzen da auzi hau. Imanol Unzurrunzaga

Jainkoaren gorpuztasunaren **doktrina**. Xabier Kintana

Aurrerapena eta giza historia kulturala lotzen dituen **doktrina** da eboluzionismoa. Askoren artean

Alde horretatik, anarkismoa aukera-aukerako **doktrina** zen niretzat, erakutsi izan ziguten guztiaren ukazioa zekarrelako bere baitan: ez jainkorik, ez nagusirik. Xabier Mendiguren Elizegi

Sakrifiziorako jarrera hau ezin etor zitekeen azken orduko **doktrina** batetik, geure baitan egon behar zuen, nola edo hala, txertatua. Agurtzane Juanena

**Doktrina** honen arabera enpresaren helburua ez da mozkinak edo irabaziak maximotzea, gizartearen beharrei erantzutea baizik. Iñaki Heras

Baina hori aitortzeak halabeharrarren **doktrina** onartzera behartzen al gaitu? Iñaki Mendiguren

**Doktrina** honen defendatzaile egoskorrenak. Xabier Olarra

**2** (izenondoekin)

K. a. V. mendean sortzen diren **doktrina** eklektikoetan ere ez da faltako arrazoiaren subiranotasuna aldarrikatuko duenik. Askoren artean

Jakitun talmudikoek ez idaztea erabaki zuten, eta, hartara, **doktrina** filosofikoak [...] Ahozko Tradizioaren atal sekretu bihurtu zituzten. Xabier Kintana

Literaturaren nabarduretan igerikatzen hasia nintzen; ohartu gabe ere naski **doktrina** teolologikotik urrunduz nindoan. Piarres Aintziart

**Doktrina** liberala, ez da harritzekoa, nazio hegemonikoetan -Herbehereetan aurrena, Ingalaterran gero- gorpuztu zen. Koro Navarro

Boltxebikismoa eta **doktrina** iraultzaileak gorantz doaz. Lopez de Arana

Joera edo **doktrina** marxistarentzat, ekonomiaren helburua ekoizpenaren erlazio sozialak aztertzea da. Iñaki Heras

Elizak **doktrina** sozial bat badu. Berria - Euskal Herria

Tradizio klasiko horrek bi **doktrina** esoteriko zituen oinarri. Xabier Kintana

Israel herrian sasiprofetak izan ziren bezala, zuen artean ere izango dira sasimaisuak, **doktrina** kaltegarriak zabaltzen saiatuko direnak. Elizen arteko biblia

Izan ere, bitartean Marxek, Nietzschek, Freudek, aski erakutsi dute holako **doktrina** garbiek zer zikinkeria ezkuta lezakaten. Joxe Azurmendi

**Doktrina** norberekoi eta ezmoral honen ezinbesteko ondorioa sineslea zerbitzu publikotik gero eta gehiago aldentzea izan zen. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zientzialariek ezin baitzuten zientifikoki egia omen zen **doktrina**-gorputz bat kritikatu gabe betiko jarraitu. Iñaki Mendiguren

Neoklasizismoak eman zigun fruitu oparoenak, **doktrina**-kutsuko Peru Abarka klasikoak, laburbiltzen du, elkarrizketa moduan, galeria honetan arnasten ari garen ideologia baserri zalearen muina. Anjel Lertxundi

Gure izaerak geure baitan izan balu jatorria, zalantzarik gabe gu geu izango ginatekeen gure jakituriaren jatorri, eta ez genuke **doktrina** bidez, hots, maisuak irakatsita, lortu beharrik izango. Imanol Unzurrunzaga

Tenperamentu eta **doktrina** mailako desberdintasun horiek zail bihurtu zuten bi herrientzat elkar ulertu eta elkarrez fidatzea. Iñaki Mendiguren

Normalizazioa ez da **doktrina** kontuetan ados jartzea, baizik eta, arlo horretan ditugun desberdintasunak mantenduz, denok gure egin dezakegun esparru juridiko-politiko baten inguruan ados jartzea. Berria - Euskal Herria

Aspaldidanik sortzen hasiak ziren eskolak han-hemenka premiari erantzuteko: erregearen funtzionarioentzat, jauntxoen semeentzat, edo Elizako **doktrina** irakasleentzat, besteak beste. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erlijio **doktrina** gehienek baimentzen dute dibortzioa. Berria - Euskal Herria

Agirian Elizaren sexu **doktrina** ofizialaz (antsorgailuez, homosexualitateaz eta zelibatuaz) ari direla zehazten dute, «bai eta emakumeen egoeraz eta Elizaren demokratizazioaz ere». Berria - Euskal Herria

Gauza bera gertatzen da berez masa **doktrina** den marxismoan, baina ez Kapitalean irakurtzeko, nahiz eta bai Manifestuan. Xabier Amuriza

Aspaldi handiko urteetan nagusi dabilkigun politika eta ekonomia **doktrinari** neoliberalismo izena eman zaio. Iñaki Heras

· Positibismoak sortarazi duen hizkuntza **doktrina** multzo antolatuetatik onena. Isabel Arrigain

**5** ik **dotrina**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere doktrina** (5); **bikoitzaren doktrina** (5); **da doktrina** (3); **den doktrina** (4); **doktrina bat** (4); **doktrina berri** (3); **doktrina da** (3); **doktrina eta** (16); **doktrina hau** (6); **doktrina honen** (5); **doktrina hori** (7); **doktrina horrek** (5); **doktrina kontuetan** (3); **duen doktrina** (3); **duten doktrina** (3); **efektu bikoitzaren doktrina** (5); **elizaren doktrina** (4); **eta doktrina** (8); **gure doktrina** (4); **haren doktrina** (5); **kristau doktrina** (3); **lege naturalaren doktrina** (3); **naturalaren doktrina** (3); **zuen doktrina** (3)

**doktrinan eta** (3); **doktrinarako kongregazioko** (3); **doktrinaren arabera** (7); **doktrinaren kontra** (3); **erregela eta doktrinaren** (3); **eta doktrinaren** (7); **eta doktrinaren arabera** (3); **eta doktrinaz** (6); **fedearen doktrinarako** (4); **fedearen doktrinarako kongregazioko** (3)

---

# doktrinal

*izond* doktrinarena, doktrinari dagokiona.

Antinomia honetatik egiazko erabilera lor daiteke, ez dogmatikoa, kritikoa eta **doktrinala** baizik. Ibon Uribarri

Hortaz, Jainkoaren izatearen irakaspena sinesmen **doktrinalari** dagokiola aitortu behar dugu. Ibon Uribarri

Zalantzan jarri ziren Verreyk plazaratutakoak; [...] akastuntzat jo ziren haren azterketak; baina benetako objekzioa, horien atzetik, **doktrinala** zen izatez. Xabier Olarra

ETAren arazoa bera, ordea, franko besterik da, moralki, absolututasun **doktrinalen** kontu ezlekukoak baino. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

## doktrinamendu *iz* doktrinatzea.

Azkenik, Elizarena geratzen zen; horretan, apaiza zen mailaz igotzeko aukera zeukan bakarra, baina ez zeraman bide onik, ateo eta agnostiko andanarekin bat eginda; izan ere, gurekin ez zuen **doktrinamendu** handirik aterako. Juan Kruz Igerabide

## doktrinante *(corpusean **dotrinante** soilik) izond/iz adkor* doktrinatzen duena.

Ulergarritasun horretan laketzeko ez dago zientziaren bulgarizazio **dotrinantea** irenstea bezalakorik. Iñaki Segurola

Gezurrezko galdu-ustearen **dotrinanteak** psikologo klinikoaren pare dira, eta terapia bergizarteratzaile bat nahi lukete obratu Iñaki Segurola

## doktrinario *izond* doktrina bat zurruntzasunez defendatzen duena.

Klase-gatazkaren arazoa konpontzeko Mendebaldeko Europaren planteamendua [...] ez zen amerikarra eta errusiarra bezalakoa, ez baitzen hain **doktrinarioa**. Iñaki Mendiguren

Euskal kulturak espainolak eta amerikanuak gainditu ditu gauza batean: euskal letratua munduko inor baino **doktrinarioago** da. Patziku Perurena

Jendetasun eta tolerantzia eskolak nekez jasaten nituen Ttipi garai bateko **doktrinarioarengandik**. Aingeru Epaltza

Frantses politikari errepublikazale **doktrinario** batekin. Josu Zabaleta

## doktrinatu, doktrina(tu), doktrinatzen du *ad* doktrina jakin bat azaldu, doktrina haren aldekoak ugaltzeko asmoz. ik **leziatu**.

Charveten begietan, herriaren ordezkari ziren, eta bizi-bizi **doktrinatu** zituen; Gavardek, bitartean, haiekin topa egiten zuen, goikoen eta behekoen artean bereizketarik egiten ez zuen dendariaren plantan. Karlos Zabala

Rousseauk garbi uzten du zeintzuk diren heziketa sexual burgesaren helburuak: "Nerabeen sexualitatea gogor zapaltzea eta kastitatearen bidean **doktrinatzea"**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lau liburu eta DVDetan ez dago **doktrinatzeko** asmorik, ez dago diskurtsorik. Berria - Harian

## doktrinatzaile *izond* doktrinatzen duena.

Litekeena da batek baino gehiagok testua **doktrinatzaile** samartzat ikustea: eskolarako adin txikikoen testu baterako lekuz kanpokoa iruditzea, alegia. Iñaki Heras

Jendea gero eta gogaituagoa baitago errealismoaren aitzakiaz irentsi behar izan duen kalamatika **doktrinatzailearekin**. Anjel Lertxundi

## doktrinatze *iz* doktrina jakin bat azaltzea, doktrina haren aldekoak ugaltzeko asmoz.

Prentsak eta politikariek euren liburuetan «historiaren ikuspegi separatista, xenofobo eta **doktrinatze** nazionalistazko bat ematen delako ideia» eskaintzen diotela iritzi publikoari. Berria - Euskal Herria

## doktrinomania *iz* doktrinaren zaletasun bizia.

Alde batean **doktrinomania** eta kobrantza, kostako dena kosta, eta bertzean gustorik eza, pasiorik batere eta kultura are eskasagoa, harrigarri litzateke hemen zerbatto, ttintta bat, xirtaño baten itzala bada ere, sortzea. Patziku Perurena

## dokudrama *iz* dokumental dramatikoa.

Telebistarako film bat grabatzen ari ziren, XIX. mendeko Ruhr arroko fabrika bati buruzko **dokudrama**, eta, Alemanian nahi zutena bezalako lantegirik topatzen ez zutenez, Europako Ekialdera jo zuten. Iban Zaldua

## dokumental 1 *izond* dokumentuena, dokumentuetan oinarritzen dena. ik **dokumentu 5; dokumentazio 3**.

Ikerketaren helburua jauregiari buruzko informazio **dokumentala** biltzea, eta jauregiaren barnealdean zein kanpoaldean izan daitezkeen aztarna arkeologikoak ezagutzea da. Berria - Kultura

Nobelek iturri **dokumental** gisa funtziona dezakete? Ana Urkiza

Arlo hauek administratiboki batuta eta zainpean dagoen biztanleria masak osatzen ditu, bizitza eta osasun-arau jakin batzuen arabera balioetsia, erregistratze era **dokumental** eta estatistikoen arabera aztertua. Xabier Arregi

**2** dokumentu izaera duena, dokumentu gisa erabiltzen dena.

Henri Cartier-Bresson-en formula famatu hura, argazkia (argazki ona) "instantearen eta geometriaren topagune" gisa definitzen zuena, argazki **dokumental** orotarako zabal daiteke. Josu Zabaleta

Irudi **dokumentalak** berak ere, bere balioa mundua den bezalakoa erakustean oinarritzen duen arren, badu partetxo bat sormenaren ospe horretan. Josu Zabaleta

Ikusten duen irudia errealitate **dokumental** batekin erabat berdintzen duen telebista-ikuslearengan. Josu Zabaleta

Zinema **Dokumental** eta Laburraren Bilboko Jaialdiak. Iñigo Aranbarri

Asko dira balio **dokumental** handia duten film kaxkarrak. Berria - Kultura

Fikziozko zinemagintza eta zinemagintza **dokumentala** bereizi beharrean, bi «estrategia» horiek batzearen aldekoa da Victor Erize zinemagilea. Berria - Kultura

Funtzio hori arras indartu eta zabaldu da aro modernoaren hasieraz geroztik, paisaia, erretratua eta gisa horretako genero **"dokumentalak"** azaldu zirenetik, hain zuzen. Josu Zabaleta

• **3** *iz* film dokumentala.

**Dokumental** batean jaso dute diskoaren grabazio prozesua. Berria - Kultura

'Muerte en Gaza' **dokumentala** gaur Giza Eskubideen jaialdian. Berria - Kultura

Telebistako **dokumental** batean ikusi zuen hori guztia. Unai Elorriaga

BBCko **dokumentalak** besterik ez dituelako ikusten telebistan. Berria - Euskal Herria

Aitzakia gutxiagorekin egindako **dokumentalak** botatzen dituzte telebistan. Arantxa Iturbe

Zinemari dagokionez, 1982tik hona hainbat lan fikziozkoak eta **dokumentalak** filmatu zituen. Berria - Kultura

Naziek Austrian egin desmasiak aipatzen dituen 'Mein Mörder' filma eta 'Sisai' **dokumentala** saritu ditu FIPAk. Berria - Kultura

Begiratu zion **dokumental** bati begiratzen zaion moduan. Unai Elorriaga

Beste bi sailen barruan hainbat **dokumental** ikusteko aukera izango da Nazioarteko Zine Dokumentalaren I. jaialdi honetan. Berria - Kultura

Gaur, gazteak erromeriren batera hurbiltzen badira folkloreari buruzko **dokumental** bat egitera doanaren jarrerarekin doaz. Pako Aristi

Frantziako eskuin muturrari buruzko **dokumental** batean. Eneko Bidegain

**Dokumentaletako** argazkilari edo zinemagile handiak, Flaherty-rengandik hasi eta Depardon-enganainokoak, mundua erakustearekin batera beren begirada erakusten digutenak dira. Josu Zabaleta

Nazioarteko Olinpiar Batzordeko kide batzuen ustelkeria agerian uzten duen **dokumental** bat emango du BBCk gaur gauean. Berria - Kirola

Berrogeita hamar ondoko hamarraldian [...] kritikari askok (Eric Rohmer-ek, besteren artean) filma, beste gauza askoren artean, "bere filmaketaren **dokumental** bat" ere badelako ideia zabaldu zuten. Josu Zabaleta

**4** (izenondoekin)

**Dokumental** laburrekin hasi zen emanaldia. Anjel Lertxundi

Horregatik, **dokumental** luzea egin nahi dugu. Berria - Kultura

**Dokumental** etnografikoak, egile dokumentalak, **dokumental** artistikoak eta bestelako lanak. Berria - Kultura

**Dokumental** sozialetik fikziozko zinemara. Berria - Kultura

Prest gaude era berean eguneroko istorioak, hurbilago senti ditzakegun horiek, **dokumental** fikzionatuetan ikusteko, eta prest, finean, gure bizimodua ere ispilu batean ikusteko. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hainbat eraikin enblematikoen gainean egindako **dokumental** sail baten barruan eskainiko dute Guggenheim museoaren eraikuntza. Berria - Kultura

Orson Wellesek Euskal Herriari buruzko **dokumental** saila egin zuen, Erresuma Batuko telebistarentzat. Berria - Kultura

X Films ekoiztetxearen inguruko mahai-inguruarekin amaituko da, gaur, Ikuspuntua **dokumental** jaialdia. Berria - Kultura

Mediatekako arduradunek Argentinari buruzko eleberri, **dokumental**, CD eta DVD hautaketa bat proposatuko dute erakusketaren osagarri bezala. Herria

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehiaketara fikzioa ez diren edozein generotako filmak aurkeztu ahal dira: dokumental etnografikoak, egile **dokumentalak**, dokumental artistikoak eta bestelako lanak. Berria - Kultura

**7 *film dokumental***

Daguerre-ren dioraman denboran zehar gertatzen ziren aldakuntzak, adibidez, dekorazio margotu handi batean argiztapen-aldaketen bidez lortuak, ez ziren handiak, **film dokumental** xumeenarekin alderatzen badira. Josu Zabaleta

Miguel Angel Rodriguezek zuzendutako **film dokumentalak** Argentinako militarren aurkako epaiketen artxiboak ekarri ditu argira, lehendabiziko aldiz. Berria - Kultura

Arturo Cisneros iruindarraren **film dokumentala** saritu dute Zinema Independentearen Jaialdian. Berria - Kultura

**Film dokumentalen** atalean, Xabier Iñarrairaegik eta Carlos Erizek eskuratu dute lehen saria, *Orbelaren soinua* lanarekin. Berria - Kultura

'Control Room' **film dokumentala** 'Forum' sailean onartzea erabaki dute. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat dokumental** (3); **bi film dokumental** (3); **buruzko dokumental** (15); **buruzko dokumental bat** (6); **dokumental bat** (27); **dokumental bat egin** (3); **dokumental bat egiteko** (4); **dokumental bat eta** (3); **dokumental batean** (20); **dokumental batean ikusi** (6); **dokumental batekin** (3); **dokumental baten** (5); **dokumental eta** (16); **dokumental eta laburraren** (4); **dokumental faltsuak** (3); **dokumental honek** (4); **dokumental honetan** (3); **dokumental hori** (3); **dokumental onenaren** (5); **dokumental sail** (3); **dokumental serioa** (3); **du dokumental** (4); **duen dokumental** (3); **eta dokumental** (7); **film dokumental** (13); **zinema dokumental** (6); **zinema dokumental eta** (6)

**bizitzari buruzko dokumentala** (3); **buruzko dokumentala** (16); **dokumentala aurkeztu** (3); **dokumentala aurkeztuko** (5); **dokumentala aurkeztuko du** (5); **dokumentala da** (4); **dokumentala egin** (4); **dokumentala egin du** (3); **dokumentala egingo** (3); **dokumentala egiteko** (5); **dokumentala egiten** (3); **dokumentala egiten ari** (3); **dokumentala emango** (7); **dokumentala emango dute** (6); **dokumentala eta** (7); **dokumentala izango** (3); **du dokumentala** (4); **duen dokumentala** (6); **duen dokumentala aurkeztu** (3); **egindako dokumentala** (3); **eta dokumentala** (6); **film dokumentala** (21); **inguruko dokumentala** (5); **izeneko dokumentala** (4)

**buruzko dokumentalak** (5); **da dokumentalaren** (4); **dokumentalak dira** (3); **dokumentalak eta** (7); **dokumentalak ikusten** (3); **dokumentalak izango** (3); **dokumentalaren bidez** (3); **dokumentalari buruzko** (4); **dokumentalen atalean** (4); **dokumentalen nazioarteko** (3); **dokumentalen sailean** (3); **dokumentalik onenak** (4); **du dokumentalak** (3); **eta dokumentalak** (9); **eta dokumentalen** (3); **film dokumentalak** (8); **film dokumentalaren** (5); **film dokumentalean** (3); **film dokumentalen** (8); **zinema dokumentalaren** (7)

---

**dokumentalgile** *(ETCn* ***82*** *agerraldi; orobat* ***dokumental egile*** *ETCn* ***42*** *agerraldi)* *iz* dokumentalak egiten dituen zinemagilea. ik **dokumentalista 2.**

**Dokumentalgilearen** antzera kamera jarri eta gertatzen dena filmatu edo antzerki zuzendariaren modura pertsonaiak gidoi baten arabera zuzendu dituzu? Berria - Kultura

Ni ez naiz kamerarekin ibili **dokumentalgilea** bezala, ni pertsonaien artean ibili naiz, errealitatean. Berria - Kultura

William Karel **dokumental egileari** omenaldi berezia eskainiko dio FIPAk. Berria - Kultura

Giorgio Moser **dokumentalgile** eta gidoigile italiarra iragan larunbatean hil zen, Erroman, 81 urterekin. Berria - Kultura

**Dokumental egile** independenteei laguntza eta babesa ematea du helburu *Hot Dogs* foroak. Berria - Kultura

*Atzera begirakoa* izeneko sailean, **dokumentalgile** ezagun baten lanak eskaini dituzte. Berria - Kultura

---

**dokumentalgintza** *iz* dokumentalak egiteko jarduera.

Fikzioa eta **dokumentalgintza** xede berari begira landutako «bi estrategia» dira Victor Erizeren ustez. Berria - Kultura

Madrilgo Zinema eskolako irakasleak **dokumentalgintzaren** sorreratik gaur arteko berezitasunak erakutsiko ditu. Berria - Kultura

Brasili buruzko dokumentalak eta Kubaren ingurukoak aurkeztuko dira, «Brasilgo **dokumentalgintza** aberatsaren erakusgarri eta Kubako garai handien lekuko», Cazenavek azaldu zuenez. Berria - Kultura

---

**dokumentalista** **1** *iz* batez ere dokumentuetan oinarrituriko idazlanak ontzen dituena.

Aurretik gertatu ziren industria iraultzek, ehule, irule, garraiolari, muntatzaile, tornulari edo errementarien bizi-modua aldatu zuten, gaur egungoak, aldiz, informazioa prozesatzen eta banatzen dutenen bizi-modua aldatu dute (idazle, **dokumentalista**, liburuzain, irakasle, diseinatzaile, zuzendari eta abarrena, alegia). Iñaki Heras

Iñaki Goiogana **dokumentalista** eta historialariak gidatu eta lagunduta, Abertzaletasunaren Arteako Agiritegian aurkitu ditu Izagirrek Monzonen poemak, Euzko Deya aldizkariaren Parisko korrespondentzia biltzen zuen karpetan. Berria - Kultura

Badaude informatikari eta programatzaile peto-petoak, eta badira kazetari eta **dokumentalistak** ere. Berria - Euskal Herria

1996tik [...] **dokumentalista** postu bat eta berrikiago lehen mailako erakasle bat emaiten dizkiote aspaldiko elkarteari. Herria

**2** dokumentalak egiten dituen zinemagilea. ik **dokumentalgile.**

Hango zinemagintzaren zati bat ezagutzen dugu, aspaldidanik badira-eta oso **dokumentalista** interesgarriak, betiere egile frantsesen baten laguntzarekin bere ikuspuntua eman diguna. Berria - Kultura

Antropologiaren bideetan sartuta, **dokumentalistaren** lana bete du egileak, erromantizismoa gogora ekartzen duen estetikari muzin egin gabe. Berria - Kultura

---

## **dokumentalki** *adlag* dokumentuen bidez.

Gaur zinemara etorri delako, hain zuzen, kondenatua gezurretan edo egiatan nola hil zen ikustera, edo aktore ospetsuak hiltzen zelakoa nola egiten zuen, edo egiatan eta **dokumentalki**, izenik gabeko ajustiziatua nola hil zen ikustera. Jon Alonso

---

## **dokumentario** *iz* dokumentu multzoa.

Helegiteetan argudiatu dutenez, *Egunkaria*-ren eta bere enpresa taldearen **dokumentario** guztia epaitegiaren esku dagoen arren [...] *Egunkaria*-renak ez diren agirien irakurketa okerretan eta logikarik gabeko dedukzioetan baino ezin izan du oinarritu epaileak, *Egunkaria* ETArekin lotzeko. Berria - Euskal Herria

---

## **dokumentatu**, dokumenta, dokumentatzen **1** da *ad* zerbaiten berri dokumentuen bidez jakin.

Gaiari buruz ondo **dokumentatu** zen urte luzeetan zehar. Iban Zaldua

Orduan, gaiaren inguruan **dokumentatzen** hasten naiz: hainbat liburu irakurri, notak hartu... Ana Urkiza

Esango nuke, beste lanekin baino ia gehiago **dokumentatu** nintzela, baina ez nuen lortu torturatzaile baten larruan sartzea. Ana Urkiza

• **2** zerbait, dokumentuen bidez argitu edo frogatu.

Guztira herrialdeko 37 herritan egiten diren dantza motak **dokumentatu** dituzte. Berria - Kultura

«Espedienteak behar bezala **dokumentatzeko** informaziorik ezak» eragin duela aipatutako atzerapena. Berria - Euskal Herria

**Dokumentatzeko** egiten zuen lana ere paregabea zen. Karlos Zabala

Manuel Lekuonak inork baino hobeki bildu eta **dokumentatu** zuen "Irungo Mayoen" kantu ezaguna ere, honako ahapaldi honetxetara biltzen da: [...]. Patziku Perurena

1659an **dokumentaturik** dago, Maria Jesus Muñoz Izagirrek gogoratzen duen bezala, udalak ordaindu zuela bezperan jo zuten atabalarien kontratua. Askoren artean

**Dokumentaturik** dagoen lekua da. Berria - Kultura

Testigantza hauek gabe ere, anai Frantzisko eta beronen anaiartearen historia ongi **dokumentatua** iritsi zaigu. Askoren artean

**3** du *ad* nortasun agiriaz edo kideko dokumentu batez hornitu.

Jose Luis Rodriguez Zapaterok amnistia eman zezakeen immigrazioan, paperik gabekoak **dokumentatuz**, hori behar baitute lan egin eta baita gizarteratzeko ere. Berria - Euskal Herria

Zergatik ez dituzte **dokumentatu** nahi egoerarik okerrenean lanean ari diren milaka pertsona? Berria - Euskal Herria

**4** (era burutua izenondo gisa)

Errealitate historiko **dokumentatuak** eta fikzioa konbinatuz. Berria - Kultura

Forma aldetik ondo bai ondo garatu eta zoritua agertzen da bertsolaritza lehen aipamen **dokumentatu** horietan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Berari hurbilen, **dokumentatuen** eta ezagunenak zitzaizkion gertaera historikoak zirela ondorioz argibide gutxienekoak bere ikerketaren xederako. Iñaki Mendiguren

· Hizkuntzaren iraganaren aro **dokumentatu** gabeak berreraikitzeko (ikus saio berrienak, LAKARRA 1995) aintzat hartu beharreko bidea litzateke bokal-harmoniarena. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dokumentatu eta** (3); **dokumentatzeko eta** (3); **eta dokumentatu** (3)

---

## dokumentaziño ik **dokumentazio**.

---

## **dokumentazio** *(orobat **dokumentaziño** g.er. eta **dokumentazione** g.er.)* **1** *iz* dokumentu multzoa.

Nahiz eta **dokumentazio** ugari eduki eskura, bere obraren iturri nagusia Zelanoren hiru idazlanak dira. Askoren artean

30eko hamarkadako hiriari buruzko **dokumentazioa** biltzen aritu da Mazurski; hala nola liburuak, argazkiak eta agiriak. Berria - Kultura

Gerrako kaltetuen elkarteak bi urtean pilatu duen **dokumentazio** guztia eman zion Lamarkari, eta EAEko Arartekoak aztertuko zuela agindu zien. Berria - Euskal Herria

**Dokumentazioa** erakusteko modu errutinatsuagatik, autobusean doazen bidaiariek ezagun dute ohituta daudela polizien presentziara. Anjel Lertxundi

Paperik gabe, **dokumentazioa** eskatzen bazioten galdua zegoen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hazparnera, errefuxiatu politikoaren **dokumentazioa** eta lana eskuratu ahal izateko paperak betetzera. Rafa Egiguren

Artxibo publikoetako **dokumentazioa** katalogatzeko. Berria - Kultura

Funtsezko lana da sortzen den **dokumentazioa** gordetzea, historia egiteko. Berria - Harian

Duela bi urte hasi ziren **dokumentazioa** prestatzen. Berria - Harian

Urriaren 25a baino lehenago aurkeztu beharko dute taldeko arduradunek **dokumentazioa** UCIren egoitzan. Berria - Kirola

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Berak bakarrik askoz ere gehiago kontatzen du donostiarren izaerari eta historiazko bilakaerari buruz **dokumentazio** oparoko milaka orri lehorrek baino. Askoren artean

Izan ere, Arrasaten zegoen **dokumentazioa** «oso aberatsa» zen. Berria - Kultura

Talde bilbotarrak ekainaren 15ean aurkeztu behar du **dokumentazio** osoa eta oraindik 1,7 milioi euro falta zaizkio eskakizun horiei aurre egiteko. Berria - Kirola

1244an Genoan eginiko Kapitulu jeneralak Frantziskori buruzko ahalik eta **dokumentazio** zabalena biltzea agindu zuen. Askoren artean

Egunkaria SAren **dokumentazio** ekonomikoa Epaitegiaren esku dagoenean, Atxilotuei **dokumentazio** faltsua eta armak ere aurkitu zizkietela azaldu zuten. Berria - Euskal Herria

Behin-behineko **dokumentazioa** eman ziguten azkenean, eta Baionako lantegi batean hartu gintuzten. Rafa Egiguren

Panderojoleak ez beti, baina sarritan agertzen dira soinujolearen ondoan gerraurreko **dokumentazioan**. Iñigo Aranbarri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **dokumental**.

Orain naizen bezain alferra nintzen orduan ere **dokumentazio**-lanerako; eta orain baino lotsagabeagoa edozertaz idazten jartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Historia beti eta nonahi, gizarte guztietan, iraupenaren forma espontaneoak, nola antolatuak, erakusten dituen **dokumentazio** materialak (liburuak, testuak, kontaerak, erregistroak, batzar-agiriak, eraikuntzak, erakundeak, araudiak, teknikak, gaiak, ohiturak eta abar) lantzea eta baliatzea da. Xabier Arregi

Zentroko arduradunek, gainera, **dokumentazio** prozesua hasi beharko dute, eta prestakuntza eta lekukotze prozesuari ekin, nagusi egin artean gazteok euren burua jantzi eta lan mundurako treba daitezen. rai Larreko-k, Jose Maria Jimeno Juriok eta beste batzuek, **dokumentazio** mugak gainditu eta gertatu zenaren isla utzi dute. Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuak ez du batere interesik eta baliabiderik jarri geure eta eskatzaileen **dokumentazio** eskaerei erantzuteko. Berria - Euskal Herria

Bere alabaren jatorrizko idatziak Amsterdameko Holandako Gerrako **Dokumentazio** Institutuari (RIOD) utzi zizkion. Josu Zabaleta

Osasun Txostenen **Dokumentazio** Zerbitzuaren funtzionamendua eta bertan behar egiten dutenen lan baldintzak hobetzea. Berria - Euskal Herria

Palestinarrentzat beraientzat ere garrantzitsua da **dokumentazio** atala, askotan ez baitute lehen eskuko informazioa lortzerik. Berria - Harian

**4** ***dokumentzio gune*** *(4 agerraldi 3 artikulutan; ETCn 61 agerraldi; orobat* ***dokumentaziogune*** *ETCn 22 agerraldi)* dokumentazio zentroa.

**Dokumentazio gune** hori ikertzaileentzat izango da baliagarria. Berria - Kultura

Bertzalde Emazteek diote elkarteak jakinarazten du **dokumentazio gune** bat daukala zabalik Eihartzea kultur etxean. Herria

Elkarteak jakinarazten du **dokumentazio gune** bat daukala zabalik Eihartzea kultur etxean. Herria

Ez duzu ahaztu behar beste bide automatizatu batzuk ere badituzula: CD-Roma, mikrofilmak, mikrofitxak, etab. Horiek guztiak eskura dituzu egun edozein **dokumentaziogunetan**. Askoren artean

**5** ***dokumentazio zentro*** *(34 agerraldi, 2 liburu eta 22 artikulutan; ETCn 448 agerraldi; orobat* ***dokumentazio zentru*** *6 agerraldi liburu 1ean; ETCn 16 agerraldi)*

Badira ere erakusgunetaz bertzalde **dokumentazio zentroa**, ikus-entzunezkoa eta abar... Herria

Liburutegia eta **dokumentazio zentroa** ez dira oraino idekiak museoan, ez-eta Oteizaren marrazkiak oraino ikusgai. Herria

Bildu zerbait biltzen zen, baina **Dokumentazio Zentru** indartsua nahi genuen osatu. Andoni Egaña

Bestalde, Bertsozale Elkarteak, Xenpelar **Dokumentazio Zentroaren** bitartez, biltze eta artxibatze lan etengabean dihardu, artxibo hori interesik duen ororen esku jarririk. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Donibane Lohitzuneko Ravel lizeoan ematen zidaten **Dokumentazio zentrora** joateko baimen berezia. Ana Urkiza

Bazkalostean, Bruselako **Dokumentazio Zentro** Feministako kideekin, Belgikako hainbat emakume talderekin, Amazone elkarte feministarekin eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako zentrokoekin bildu ziren. Berria - Euskal Herria

Lehenengo, Mercator ikerketa eta **dokumentazio zentroko** George Jonesek hitz egingo du. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arte garaikideko dokumentazio** (3); **artelekuko dokumentazio** (3); **dokumentazio bila** (3); **dokumentazio eta** (6); **dokumentazio faltsua** (14); **dokumentazio faltsua eramateagatik** (3); **dokumentazio faltsua eta** (3); **dokumentazio gune** (4); **dokumentazio guztia** (14); **dokumentazio hori** (3); **dokumentazio hura** (3); **dokumentazio lan** (9); **dokumentazio lan handia** (5); **dokumentazio lana** (4); **dokumentazio ugari** (7); **dokumentazio ugari atzeman** (4); **dokumentazio zabala** (3); **dokumentazio zentro** (3); **dokumentazio zentroa** (6); **dokumentazio zentroak** (4); **dokumentazio zentroan** (3); **dokumentazio zentroaren** (5); **dokumentazio zentroen** (3); **dokumentazio zentroko** (3); **dokumentazio zentrora** (4); **dokumentazio zentrua** (3); **du dokumentazio** (4); **dute dokumentazio** (4); **eta dokumentazio** (22); **eta dokumentazio faltsua** (4); **garaikideko dokumentazio** (3); **xenpelar dokumentazio** (13); **xenpelar dokumentazio zentroaren** (3); **xenpelar dokumentazio zentrora** (3); **zein dokumentazio** (3)

**beharrezko dokumentazioa** (3); **buruzko dokumentazioa** (5); **den dokumentazioa** (3); **dokumentazioa atzeman** (3); **dokumentazioa aztertzeko** (3); **dokumentazioa biltzen** (4); **dokumentazioa epez** (3); **dokumentazioa erakusteko** (3); **dokumentazioa ere** (6); **dokumentazioa eskatu** (8); **dokumentazioa eskatzen** (5); **dokumentazioa eta** (5); **dokumentazioa ez** (3); **dokumentazioa jaso** (4); **ere dokumentazioa** (3); **eskatutako dokumentazioa** (5); **eta dokumentazioa** (17)

---

dokumentaziogune ik **dokumentazio 4.**

---

dokumentazione ik **dokumentazio.**

---

dokumento ik **dokumentu.**

---

# dokumentu

*(orobat* ***dokumento*** *g.er.)* **1** *iz* zerbait frogatzeko edo zerbaiten berri emateko balio duen agiria.

**Dokumentu** horrek 40 kapitulu ditu, eta bertan ukitu gabeko oso gai gutxi dago. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Dokumentu** horiek biak I. motako akordioak dira, horrela deituak alegia, gobernuek berretsiak eta, beraz, irmoagoak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez dago ez proba, ez **dokumentu** eta ezta arrazoirik ere ni zigortzeko. Berria - Mundua

Izen denak **dokumentuan** dauzkak. Edorta Jimenez

Joanttok ez zuen gogotik baztertu ahal izan **dokumentu** horrek zioena. Elena Touyarou

Horiek guztiak **dokumentu** batean bildu nahi ditu. Berria - Euskal Herria

**Dokumentu** hark esaten zuenez, hilaren 29ko iluntzean Euzko Indarrako batzuek parrokoarengana jo zuten, sakristiako giltzak eskatzera. Edorta Jimenez

EAJk **dokumentu** bat helarazi zien kantonaletan aurkezten diren hautagaiei. Berria - Euskal Herria

**Dokumentua** aztertzen hasi orduko, hara... Jon Muñoz

Ikertzaileek lau mila zazpiehun eta laurogeita bi **dokumentu** katalogatu dituzte. Iban Zaldua

**Dokumentu** bat zabaldu zuen eta atzera itxi. Unai Elorriaga

Idazkariaren helburua zen kartzelako **dokumentu** guztiak faltsifikatzea. Unai Elorriaga

**Dokumentu** honen kopia gordetzeko. Edorta Jimenez

Arrasateko udal artxiboko ehunka **dokumentu** hondatu ditu urak. Berria - Kultura

Behin ere ez da zalantzan jarri argazki-irudiak **dokumentu** gisa duen zilegitasuna. Josu Zabaleta

Errusiara estraditatzeko agindua zen, baina ez berehala... estradiziorako **dokumentua** iritsi eta handik astebetera baizik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nola jakin dezaket **dokumentu** hau ez denetz faltsua? Elena Touyarou

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

XV. mendetik hasi eta XX.era arteko **dokumentu** pribatuak eta publikoak daude egoitzan. Berria - Kultura

**Dokumentu** itxia zen, eta ez dugu inongo aukerarik izan ekarpenik egiteko. Berria - Harian

Beraz, ez dizugu aholkatzen artxibora joatea **dokumentu** berezien bila, praktikoagoa baita **dokumentu** arruntez baliatzea. Askoren artean

Ehun bat orrialdeko **dokumentu** elebiduna. Herria

1991ko **«dokumentu** desklasifikatu baten zatiak» argitaratu ditu Newsweek-ek. Berria - Mundua

Beste **dokumentu** argitaragabe batek jakinarazten dio ezen, [...]. Juan Garzia

Haren heriotzari buruzko **dokumentu** berriak agertu dira. Joseba Zulaika

Philippe Veyrin historialariak diosku **dokumentu** zaharrek ez dutela inolaz ere Lapurdiko agintari gorenak [...] nola hil ziren zehazten. Martin Anso

**Dokumentu** zaharrek erakusten digute bide bat badela Donazaharretik, Zaron gaindi, [...]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jada erabaki dute zeintzuk **dokumentu** digitalizatu eta zeintzuk fisikoki artxibatu. Berria - Harian

CNIren bi **dokumentu** sekretu desklasifikatzera iritsi da bere ardura arintzeko asmoz. Berria - Euskal Herria

Eskriturak eta notaritzako beste **dokumentu** mami handikoak izenpetzera. Josetxo Azkona

Mugikortasun arloko azpiegiturei dagokienez, hasierako **dokumentuak** tranbiaren alde egiten zuen. Berria - Euskal Herria

**Dokumentu** egiaztatzaileak dira guretzat; entzuleak haiek sentitu eta bertan ikusi baditu, nire hitzek ez diote ezer irakasten; bere baitan daramatzan irudietan antzematen du egia. Imanol Unzurrunzaga

**3** irud/hed

Horren arabera, eta aipaturiko mugak ahaztu gabe, hizkuntza **dokumentu** historiko bat da. Isabel Arrigain

Historia, era tradizionalean, iraganeko monumentuak "memorizatzen" ahalegintzen da, eurak **dokumentu** bihurtzen. Xabier Arregi

Plana **«dokumentu** amaitu gabea eta bizia» dela nabarmendu dute egileek, ekarpenei zabalik. Berria - Kultura

**4** (informatikan)

XML edozein **dokumentu** etiketatzeko hizkuntza da. Berria - Euskal Herria

**Dokumentu** konplexuak sortzeko balio du, irudiekin, bideoarekin nahiz soinuarekin. Berria - Euskal Herria

Orain arte, **dokumentu** gehienak HTMLn jaso izan dira, baina bere lekua hartzen ari da XML. Berria - Euskal Herria

Googleren liburutegiak 15 milioi **dokumentu** jasoko ditu. Berria - Kultura

Ez dago agiririk, ezta **dokumentu** informatiko bakar bat ere. Berria - Mundua

Informatika, **dokumentu** elektronikoen kudeaketa, Internet guneen sormena eta abar... Herria

Alternatiba gisa, koadernoak, folioak, konputagailu-**dokumentuak**, etab. erabil ditzakezu. Askoren artean

Oharrak edozein euskarritan jaso daitezke (paper puska bat, koaderno bat, konputagailuko **dokumentu** bat, liburu baten bazterrak). Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **dokumental.**

Milaka agiri proposatu dituzte, **dokumentu**-frogarako, hiru aldeen artean, hala nola txosten politikoak, polizia txostenak, akusatuen deklarazioak, autoak, gizarte erakundeen estatutuak eta aktak, agiri ekonomikoak, prentsako artikuluak... Berria - Harian

"Mikel & Soledad" **dokumentu**-eleberria, Jean Chalvidant eta Gracianne Hastoy-ek aitzineko egun horietan plazaratua. Herria

Egilearen esanetan, Europa moldatu duten estiloen anabasa da [musika] lana, **dokumentu**-opera ere bai, halako lekukotasuna. Berria - Kultura

Zentro edo liburutegi bakoitzak bere **dokumentu**-bildumaren katalogoa eskaintzen du. Askoren artean

Beste **dokumentu** sorta bat atera nion. Edorta Jimenez

Gizartean argazkiak **dokumentu**-eginkizuna izatea gehienbat.Irakeko Poliziak [...] hainbat ordenagailu eta **dokumentu** kaxa eraman zituen. Josu Zabaleta

**Dokumentu** itxura du ia lanak, baina maitasunezko istorio ederra agertzen da finean. Berria - Kultura

1982an Irargi Euskadiko **Dokumentu** Ondare Zentroa jarri zuen martxan Kultura Sailak. Berria - Harian

Borja Aginagalde, Eusko Jaurlaritzako **Dokumentu** Ondarearen arduraduna. Berria - Kultura

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iritsi zaizkigunak hauek dira: lege-**dokumentu** bat (Erregela), aholku-idazki bat, neurri on batean autobiografia dena (Testamentua) eta gutun batzuk. Askoren artean

1920ko hamarkadan egindako lehen trikiti grabazioak lortu dituzte, eta 4.300 prentsa **dokumentu** digitalizatu eta sarean jarri dituzte. Berria - Kultura

Elkarte ("Religio") deitzen ziren garai hartako legedi kanonikoan eta eliz **dokumentuetan**, gaur ordena edo kongregazio deitzen ditugun elkarteak. Askoren artean

Merkatal ganbararen laguntzarekin galdeketa **dokumentu** bat pikoan emana dute hemen gaindiko ostatu/jatetxeek. Herria

"Barne **dokumentuak** faltsutzeagatik" idatzi du eskua dardaritu gabe. Aingeru Epaltza

Egitasmoaren ildo nagusiei buruzko proposamenak biltzen dituen txostena jaso eta lan **dokumentu** gisa erabilgarria dela erabaki du. Berria - Kultura

Euskararen erabilpena izan dadila sistematikoa herri-**dokumentu** guzietan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argazki eta dokumentu** (3); **arteko dokumentu** (4); **baina dokumentu** (3); **baita dokumentu** (3); **bat dokumentu** (3); **beste dokumentu** (8); **beste dokumentu batean** (3); **beste edozein dokumentu** (3); **bi dokumentu** (4); **buruzko dokumentu** (8); **buruzko dokumentu bat** (4); **da dokumentu** (4); **den dokumentu** (4); **diren dokumentu** (3); **dituen dokumentu** (6); **dituen dokumentu bat** (3)

**dokumentu asko** (4); **dokumentu bakar** (3); **dokumentu bat** (50); **dokumentu bat aurkeztu** (3); **dokumentu bat helarazi** (3); **dokumentu bat sinatu** (3); **dokumentu batean** (19); **dokumentu batek** (4); **dokumentu baten** (7); **dokumentu batzuk** (15); **dokumentu eta** (10); **dokumentu faltsuak** (7); **dokumentu faltsuak eramaten** (3); **dokumentu gehienak** (3); **dokumentu gisa** (7); **dokumentu guztiak** (6); **dokumentu haien** (3); **dokumentu hark** (3); **dokumentu hau** (4); **dokumentu hauek** (3); **dokumentu helarazi** (3); **dokumentu historiko** (5); **dokumentu historikoak** (4); **dokumentu honen** (4); **dokumentu hori** (25); **dokumentu horiek** (19); **dokumentu horrek** (8); **dokumentu horren** (6); **dokumentu horretan** (7); **dokumentu hura** (3); **dokumentu ofizial** (6); **dokumentu ofizialetan** (3); **dokumentu ondarearen** (8); **dokumentu ondarearen arduradunak** (3); **dokumentu zaharrek** (4)

**du dokumentu** (4); **duen dokumentu** (3); **edozein dokumentu** (4); **eta dokumentu** (33); **eusko jaurlaritzako dokumentu** (3); **hainbat dokumentu** (13); **hiru dokumentu** (3); **irargi dokumentu** (3); **jaurlaritzako dokumentu** (3); **jaurlaritzako dokumentu ondarearen** (3); **lan dokumentu** (3); **nire dokumentu** (4); **orrialdeko dokumentu** (5); **paper eta dokumentu** (3); **zen dokumentu** (3); **zituen dokumentu** (4); **zuen dokumentu** (6); **zuten dokumentu** (4)

**aurkeztutako dokumentua** (3); **da dokumentua** (3); **dokumentua da** (8); **dokumentua erakutsi** (3); **dokumentua ere** (3); **dokumentua ez** (5); **dokumentua ez da** (4); **dokumentua onartu** (4); **dokumentua sinatu** (10); **dokumentua sinatu zuten** (3); **dokumentua zen** (3); **duen dokumentua** (9); **eta dokumentua** (3); **irizpide dokumentua** (3); **irizpide dokumentua onartu** (3); **izeneko dokumentua** (6); **orrialdeko dokumentua** (3); **zuen dokumentua** (6); **zuten dokumentua** (3)

**aipatzen ditu dokumentuak** (3); **aurkeztutako dokumentuak** (4); **buruzko dokumentuak** (7); **dauden dokumentuak** (4); **dio dokumentuak** (29); **dira dokumentuak** (3); **diren dokumentuak** (4); **ditu dokumentuak** (9); **dituzte dokumentuak** (3); **dituzten dokumentuak** (3); **dokumentuak atera** (3); **dokumentuak aztertzeko** (4); **dokumentuak bi** (5); **dokumentuak bi hizkuntzetan** (3); **dokumentuak dio** (4); **dokumentuak dioenez** (6); **dokumentuak dira** (6); **dokumentuak ere** (6); **dokumentuak eskatu** (3); **dokumentuak eskuratzeko** (3); **dokumentuak eta** (10); **dokumentuak ez** (5); **dokumentuak ez du** (3); **dokumentuak faltsutzea** (7); **dokumentuak zituen** (3); **du dokumentuak** (6); **duela dio dokumentuak** (4); **duten dokumentuak** (4); **eta dokumentuak** (22); **eta dokumentuak faltsutzea** (4); **garaiko dokumentuak** (3); **izeneko dokumentuak** (3); **ziren dokumentuak** (4); **zituzten dokumentuak** (4)

**den dokumentuaren** (3); **dokumentuaren arabera** (19); **dokumentuaren bidez** (4); **dokumentuaren egileek** (6); **dokumentuaren egileen** (3); **dokumentuaren egileetako** (4); **dokumentuaren egileetako baten** (3); **dokumentuen artean** (4); **dokumentuen bidez** (3); **dokumentuetako bat** (3); **dokumentuetako batzuk** (3); **dokumentuetan agertzen** (3); **dokumenturik ez** (6); **dokumenturik gabe** (3); **izeneko dokumentuaren** (5)

---

# dokumentutzar *iz adkor* dokumentu luzea.

Pagotxa, hi!, liburu osoa sarean irakurgarri: egundoko **dokumentutzarra**, betileak pantailan itsatsita uzteko bezain luzea bai. Berria - Kultura

---

# dolamen *iz* auhena.

Hain handiak izan baitira erreinuko jendearen goresmenak eta gogo batekoa ere herriaren **dolamena**. Piarres Xarriton

Herritarren edo beren nahigabe pertsonalen kontatzera heldu zitzaizkion hautetsien **dolamenen** aditzen egoteak nekatzen zuen. Elena Touyarou

Hain segur ez dut neure denbora haren **dolamenak** entzuten galduko, baldin inora ez bagaramatza. Jon Muñoz

Zonbat egon ote dire hemengo Altantiko itsaso haundiari so, beren sort herria **dolamenetan** kantatuz. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Ez ditugu **dolamen** gostu batekin aipatuko hemen gure berri txarrak, ez baitu lehengoen nigarrak gerorako gemenik. Herria

---

# dolar *(orobat **dollar** g.er.)* **1** *iz* Ameriketako Estatu Batuetako oinarrizko diruaren izena.

-Hemen dituzu bost **dolar**. Lopez de Arana

Bost **dolar** ba al dituzu? Lopez de Arana

Zazpi **dolar** eta berrogei zentabo. Iñaki Zabaleta

Sei **dolar** eta hirurogeiko lenteja platerkada bat hartu eta hamar dolarreko propina utzi dit... Harkaitz Cano

Eguberri oro eta urtebetetze oro, Bain andreari hamar **dolarreko** urrezko txanpon biribil berri bat eman ohi zion. Mirentxu Larrañaga

Milioi bat **dolarreko** bizitza-poliza erabateko bat saldu nion 1976an, garai hartarako dirutza izugarria. Oskar Arana

130 **dolar** aldatzeko, lehendabizi txandaren zain egon behar. Gotzon Garate

-Zergatik uste duzu jende guztiari hamar **dolar** kobratu diotela? Fernando Rey

1500 **dolar** eskatzen ditu, alfonbran pilatutako hauts geruza barne dela. Harkaitz Cano

Emakumeak, orduan, zakurra atzera emateko, milioi bat **dolar** eskatu dio. Gotzon Garate

54ko Plymouth gorri bat erosi zuten 325 **dolarretan**. Koro Navarro

Eskuizkribu oso batengatik hiru eta lau milioi **dolar** artean pagatzen da. Oskar Arana

Hogei margolan saldu ziren, eta ia bi milioi **dolarreko** irabaziak egin. Oskar Arana

Hura Espainiara etortzen hasi zen garaian hogei lagunek bazkaltzen zuten **dolar** batekin! Bernardo Atxaga

Milioi **dolar** mordoa kostatuko zaizu konferentzia hau. Mirentxu Larrañaga

Hilean hamar bat **dolar** irabazten dute. Gotzon Garate

-Eta zer egin daiteke astean hamabost **dolar** irabazita? Lopez de Arana

Zorionez, berrogeita hamar **dolar** zituen poltsikoan. Lopez de Arana

Berrogeita lau mila **dolar** eskudirutan. Xabier Olarra

- **Dolar** bat txanponetan. Lopez de Arana

Madame Rigaudi kutxan gordetzeko zilarrezko **dolar** erdia eman ondoan. Lopez de Arana

-Zerbait erosten duzunean, ez gastatu dolar bat baino gehiago -esan zuen Holbrookek, Monari bost **dolarrekoa** itzulita -. Fernando Rey

## **2** (ekonomian)

Truke-tasak **dolar** bateko 150 yen eta 1,80 marko ziren. Koro Navarro

EBZk atzo inoizko baliorik handienean ezarri zuen euroaren truke ofiziala (1,3146 **dolar**). Berria - Ekonomia

Frankfurten 1,3549 **dolar** salerosi ziren euro bakoitzeko. Berria - Ekonomia

Eragile pribatuek 900.000 milioi **dolar** korronte inguru mailegatu, ezarri edo inbertitu zituzten garapen-bideko herrialdeetan. Koro Navarro

Ekonomisten arabera, erreserba horietatik %70 **dolar** aktiboetan inbertitu ditu Txinak. Berria - Ekonomia

AEBetarako inportazioak 153.000 milioi **dolarrekoak** izan ziren eta esportazioak, berriz, 98.100 milioikoak. Berria - Ekonomia

Japoniako nazioarteko zuzeneko inbertsioen parte garrantzitsu bat, 1985 ondoren, yenaren balio-igoeraren ondorio bide da, bai **dolarrari** buruz, bai europar diruei buruz. Koro Navarro

**Dolarraren** urre-bihurgarritasunaren galera. Koro Navarro

**Dolarraren** apreziazioak eragin positiboa izan zuen beste ekonomien lehiakortasunean. Koro Navarro

Inbertsore batek, 1990ean, azken enpresa horren 10.000 **dolar** erosi izan balitu, 2000. urtean 13,4 milioi **dolar** izango zituen. Iñaki Heras

Enpresak berak egindako aurreikuspenaren arabera, 12 milioi **dolar** fakturatuko dituzte aurten. Berria - Ekonomia

1998an, UNCTADek jasotako datuen arabera, 60.000 enpresa multinazionalek kontrolaturiko 500.000 filialen negozio kopurua, guztira, 11.000 mila milioi **dolarrekoa** zen. Koro Navarro

**Dolar** ahula, gainera, merkataritza defizita arintzeko bide gisa ikusten da. Berria - Ekonomia

Alemaniaren per capita errenta 22.000 **dolar** inguruan zebilen 1997an. Edorta Jimenez

Herrialde bat garapen bidean dagoela esaten da, kasu, 6.000 **dolar** per capita errentatik behera badago. Iñaki Heras

**Dolarretako** epe luzeko obligazioen interes errealeko tasa. Koro Navarro

Errusiako Bankuak, adibidez, gaur egun 113.000 milioi **dolar** ditu atzerriko diru erreserbetan. Berria - Ekonomia

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Merkatu horien **dolar**-eskaintza, alde batetik, Estatu Batuetako erakunde eta enpresetatik zetorren, interes-tasa guztiz apalak atzera eragiten baitzieten. Koro Navarro

**Dolar** erreserbak murriztu nahi ditu Txinak. Berria - Ekonomia

**Dolar**-soberakinak ez zituzten munduko gainerako banku zentralek eskatzen urre bihurtzeko. Koro Navarro

Ostiraletik 50 **dolar** zentimo garestitu eta upeleko 55,67 **dolar** ordaindu zituzten une batez. Berria - Ekonomia

**Dolar**-pilek bere maleta galkatzen zuten bitartean, [...]. Alberto Ladron Arana

## **4** beste zenbait herritako diru unitatea.

Euroarekiko baliorik txikiena du orain dolarrak, baina beste diruekiko ere antzera dabil: 11 urteko baliorik txikiena libera esterlinaren aurrean (1,8277), hiru urteko txikiena yenarekiko, hamar urtekoa Kanadako **dolarrarekiko** eta sei urtekoa Australiako **dolarrarekiko**. Berria - Ekonomia

Franko suitzarra eta koroa norvegiarra azken bederatzi urtetako baliorik handiena iritsi dira, **dolar** kanadarrak 12 urteko baliorik garestienean dago, eta libera esterlinak azken bederatzi hilabeteetako mailarik handiena lortu du. Berria - Ekonomia

Arcelorrek haren kapital guztia eskuratu nahi du, eta titulu bakoitzagatik 71 **dolar** kanadar (50,8 euro) ordaintzeko prest dago. Berria - Ekonomia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**bat dolar** (41); **bat dolar baino** (4); **bederatzi dolar** (6); **bederatzi mila dolar** (7); **berrehun dolar** (4); **berrogei dolar** (5); **berrogeita hamar dolar** (13); **bi dolar** (24); **bi dolar baino** (5); **bi dolar eta** (5); **bilioi dolar** (7); **bost dolar** (19); **bost mila dolar** (6); **bostehun dolar** (4)

**dolar ahula** (4); **dolar artean** (20); **dolar arteko** (10); **dolar baino** (37); **dolar baino ez** (5); **dolar baino gehiago** (14); **dolar baino gutxiago** (5); **dolar baino gutxiagorekin** (5); **dolar balio** (35); **dolar balio ditu** (6); **dolar balio du** (5); **dolar balio zituen** (8); **dolar balio zuen** (4); **dolar bat** (44); **dolar bat baino** (15); **dolar bat eta** (4); **dolar batekin** (8); **dolar bateko** (9); **dolar batzuk** (4); **dolar behar** (17); **dolar behar ditu** (6); **dolar beharko** (9); **dolar beharko dira** (4); **dolar bideratu** (5); **dolar bildu** (4); **dolar desbideratu** (4); **dolar ekarri** (4); **dolar eman** (30); **dolar eman ditu** (5); **dolar eman dituzte** (8); **dolar emango** (22); **dolar emango dituela** (4); **dolar emateko** (5); **dolar ematen** (13); **dolar erdi** (4); **dolar erdi bat** (4); **dolar eskaini** (11); **dolar eskatu** (20); **dolar eskatu zituen** (4); **dolar eskatzen** (5); **dolar eskuratu** (5); **dolar eta** (37); **dolar eta erdi** (6); **dolar eta laurogeita** (5); **dolar galdu** (11); **dolar garestitu** (6); **dolar gastatu** (13); **dolar gehiago** (16); **dolar gutxiago** (10); **dolar horiek** (7); **dolar inguru** (41); **dolar inguruan** (4); **dolar inguruko** (8); **dolar ingurukoa** (6); **dolar irabazi** (16); **dolar irabazi ditu** (6); **dolar irabazi zituen** (7); **dolar irabazita** (4); **dolar irabazten** (12); **dolar jarri** (4); **dolar jaso** (12); **dolar jasoko** (6); **dolar jasotzea** (4); **dolar jasotzen** (5); **dolar kostatu** (5); **dolar kostatuko** (6); **dolar kostatzen** (4); **dolar ordaindu** (50); **dolar ordaindu behar** (5); **dolar ordaindu beharko** (8); **dolar ordaindu ziren** (5); **dolar ordainduko** (13); **dolar ordainduko ditu** (4); **dolar ordaintzen** (6); **dolar pagatu** (4); **dolar sendoaren** (5); **dolar sendoaren alde** (4); **dolar ziren** (6); **dolar zor** (8)

**egunean dolar** (5); **egunean dolar bat** (4); **eguneko dolar** (10); **eguneko dolar bat** (7); **ehun dolar** (14); **eta dolar** (8); **hamabi dolar** (4); **hamabost dolar** (6); **hamar dolar** (33); **hamar mila dolar** (11); **hamar milioi dolar** (4); **hemezortzi dolar** (4); **hiru dolar** (6); **hogei dolar** (7); **hogeita bost dolar** (6); **hogeita hamar dolar** (4); **lau dolar** (6); **lau milioi dolar** (4); **mila dolar** (56); **mila dolar balio** (4); **mila dolar horiek** (4); **mila milioi dolar** (16); **milaka dolar** (4); **milaka milioi dolar** (12); **miliar dolar** (21); **milioi bat dolar** (21); **milioi dolar** (432); **milioi dolar artean** (7); **milioi dolar baino** (12); **milioi dolar behar** (9); **milioi dolar beharko** (9); **milioi dolar bideratu** (4); **milioi dolar desbideratu** (4); **milioi dolar eman** (11); **milioi dolar emango** (8); **milioi dolar eskaini** (9); **milioi dolar eskatu** (17); **milioi dolar eta** (5); **milioi dolar galdu** (7); **milioi dolar gastatu** (7); **milioi dolar gehiago** (12); **milioi dolar gutxiago** (4); **milioi dolar inguru** (22); **milioi dolar inguruko** (5); **milioi dolar irabazi** (10); **milioi dolar jaso** (7); **milioi dolar jasoko** (4); **milioi dolar kostatuko** (4); **milioi dolar ordaindu** (13); **milioi dolar ordainduko** (8); **milioi dolar zor** (5); **milioika dolar** (16); **miliun dolar** (18); **miloi dolar** (6); **sei dolar** (7); **zazpi dolar** (6)

**aebetako dolarra** (4); **dolarrak gainditu** (9); **dolarrak gainditu ditu** (4); **dolarraren ahulezia** (4); **dolarraren aldean** (7); **dolarraren arteko** (5); **dolarraren balio** (11); **dolarraren balioa** (8); **dolarraren eta** (4); **dolarraren gaineko** (4); **dolarraren jaitsiera** (4); **dolarrari buruz** (7); **eta dolarra** (11); **eta dolarrak** (5); **eta dolarraren** (22); **eta dolarraren arteko** (5); **euroa dolarraren** (5); **euroak dolarrarekiko** (7); **euroaren eta dolarraren** (7); **milioi dolarrak** (8); **zuen dolarra** (4)

**dolarrean amaitu** (6); **dolarrean amaitu zuen** (4); **dolarrean ezarri** (4); **dolarrean itxi** (6); **dolarrean itxi zuen** (6); **dolarrean salerosi** (9); **dolarrean salerosi zen** (6)

**bat dolarreko** (16); **berrogeita hamar dolarreko** (4); **bilioi dolarreko** (9); **bost dolarreko** (4); **dolarreko aurrekontua** (9); **dolarreko balioa** (13); **dolarreko bermea** (5); **dolarreko billete** (5); **dolarreko billete bat** (4); **dolarreko billetea** (5); **dolarreko defizita** (7); **dolarreko diru** (21); **dolarreko diru laguntza** (10); **dolarreko eskaintza** (4); **dolarreko eskaintza egin** (4); **dolarreko galerak** (11); **dolarreko galerak eragin** (4); **dolarreko inbertsioa** (4); **dolarreko irabaziak** (9); **dolarreko isuna** (18); **dolarreko isuna ezarri** (4); **dolarreko isuna jarri** (6); **dolarreko isuna ordaindu** (4); **dolarreko kalte** (6); **dolarreko kalte ordaina** (4); **dolarreko kostua** (5); **dolarreko kotizazioa** (4); **dolarreko kotizazioa lortu** (4); **dolarreko laguntza** (13); **dolarreko marka** (5); **dolarreko muga** (9); **dolarreko ordainsaria** (4); **dolarreko ordainsaria eskaini** (4); **dolarreko prezioa** (4); **dolarreko saria** (17); **dolarreko soldata** (5); **dolarreko txeke** (4); **dolarreko txeke bat** (4); **dolarreko zorra** (17); **dolarrekoa da** (17); **dolarrekoa izan** (15); **dolarrekoa izan da** (7); **dolarrekoa izan zen** (7); **dolarrekoa izango** (5); **dolarrekoa izango da** (5); **dolarrekoa zen** (8); **dolarrekoak izan** (5); **dolarrekoak izan ziren** (5); **ehun dolarreko** (9); **ehun dolarreko billetea** (4); **hamar dolarreko** (13); **hamar milioi dolarreko** (4); **mila dolarreko** (13); **mila milioi dolarreko** (11); **mila milioi dolarrekoa** (4); **milioi bat dolarreko** (13); **milioi dolarrekin** (5); **milioi dolarreko** (213); **milioi dolarreko aurrekontua** (6); **milioi dolarreko balioa** (7); **milioi dolarreko defizita** (7); **milioi dolarreko diru** (17); **milioi dolarreko galerak** (9); **milioi dolarreko irabaziak** (8); **milioi dolarreko isuna** (8); **milioi dolarreko kostua** (4); **milioi dolarreko laguntza** (11); **milioi dolarreko saria** (6); **milioi dolarreko zorra** (14); **milioi dolarrekoa** (38); **milioi dolarrekoa da** (13); **milioi dolarrekoa izan** (8); **milioi dolarrekoa izango** (5); **milioi dolarrekoa zen** (5); **milioi dolarrekoak** (8); **milioi dolarrekoak izan** (5); **miloi dolarreko** (5)

**bat dolarren** (4); **dolarren bueltan** (5); **dolarren gainetik** (5); **dolarren inguruan** (5); **dolarren muga** (5); **dolarren muga gainditu** (4); **dolarren truke** (17); **dolarrera ailegatu**

(5); **dolarrera igo** (7); **dolarrera irits** (5); **dolarrera irits daitekeela** (5); **dolarrera iritsi** (39); **dolarrera iritsi da** (11); **dolarrera iritsi zen** (22); **dolarrera jaitsi** (5); **dolarrera jaitsi zen** (5); **dolarreraino iritsi** (4); **dolarretan amaitu** (5); **dolarretan amaitu zuen** (4); **dolarretan ere** (4); **dolarretan ezarri** (6); **dolarretan ezarri zuen** (6); **dolarretan itxi** (5); **dolarretan itxi zuen** (5); **dolarretan saldu** (10); **dolarretan saldu zen** (5); **dolarretan salerosi** (18); **dolarretan salerosi zen** (16); **dolarretan salerosten** (4); **dolarretan zegoen** (8); **dolarretara iritsi** (11); **dolarretara iritsi zen** (6); **dolarretara jaitsi** (6); **dolarretik behera** (8); **dolarretik gora** (46); **dolarretik gora ibili** (4); **dolarretik gora salerosi** (4); **dolarretik gorakoa** (4); **hamar dolarren** (4); **milioi dolarren** (16); **milioi dolarren truke** (9); **milioi dolarrera** (12); **milioi dolarrera igo** (5); **milioi dolarrera iritsi** (5); **milioi dolarreraino** (6); **milioi dolarretako** (5); **milioi dolarretan** (15); **milioi dolarretan saldu** (5); **milioi dolarretik** (18); **milioi dolarretik gora** (8); **petrolioa dolarretan** (4)

---

## **dolardun** *izond* dolarrak dituena.

Bainu-jantzitan ere igartzen zaie **dolardunak** direla; eta horien ahotsak, nonahi aditzen diren horien txikle-ahotsak (Via Appiakoak bezala), ene, zeinen jasanezinak diren, hori bai hori Ongizatearen Jendilajea. Joxe Austin Arrieta

---

## **dolare** *(orobat* ***tolare*** *g.er.)* **1** *iz* mahats aleak, olibak, sagarrak eta kidekoak, haietatik zukua ateratzeko, zapaltzen diren tresna; tresna hori dagoen tokia.

Larrainak alez beteko dira, **dolareek** ardoz eta olioz gainez egingo dute. Elizen arteko biblia

Garauez beteko dira zure aletegiak, ardo berriz gainezka egingo **dolareek**. Elizen arteko biblia

Gizon batek mahastia landatu zuen eta harresiz inguratu; lurrean **dolarea** egin eta mahastizainaren dorrea eraiki zuen.

1500 kilo sagar erosi dituzte Donaixtiko Eztigar kooperatibari, sagar hori jo, pasta **dolarean** tinkatu eta sagar-zukua edo jusa kupeleratu, ondotik haren jastatzeko aukera emanez han zagon jendeari. Herria

**Dolarea** ere sukaldetik hurbil jarriko da; eta orduan zerbitzua erosoa izango da olioa emango duten fruituekin lan egiteko. Santiago Iruretagoiena

**Dolarea** ez bada tornu bidez mugitzen dena, baizik eta hagaz eta habe bidez zanpatzen dena, ez da berrogei oin luzekoa baino txikiagoa egingo; hala hagalariak lekua izango du libre. Santiago Iruretagoiena

Eta **dolareetan** ez balira tornuak, prentsak eta palankak prestatu, ezin izango genuke ez olioaren distiraren eta ez mahastietako fruituaren emaitzarik izan gure atseginerako. Santiago Iruretagoiena

Trailu berak jotzen du galburua eta barreiatzen du lastoa, eta olioa ez da oliba-patsarekin nahasten **dolare** berak zapaltzen dituelako. Imanol Unzurrunzaga

Etxeak bazuen atzeko aldean adobezko hesi-horma bat, arbaztaz estalia, barruan ukuilua, gurdiarentzako teilapea, aihendegia, **dolarea**, bodega, olio-errota eta zenbait patio eta eskorta hartzen zituena. Josu Zabaleta

-Zergatik dituzu, bada, jantziak gorri, **dolarean** mahatsa zapaltzen duenak bezala? Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

Aingeruak lurra igitaitzen hasi eta lurreko mahastia bildu zuen, eta Jainkoaren zigorraren **dolare** handira bota. Elizen arteko biblia

Hark **dolarea** zapaldu eta Jainko ahalguztidunaren haserre biziaren zigor-ardoa aterako du. Elizen arteko biblia

Erbesteraturik bizi izan da geure artean, bakardadearen **dolarea** estutuz egin du bere literatura eta sinadurarik gabe, umezurtz, munduratu dituen liburuek jitoan doazen uharteen edertasuna dute, inorenak edo inongoak ez zirelako beharbada. Joxean Agirre

**3** (hitz elkartuetan)

Eduegi baserria Debagoieneko XVI. mendeko baserri-**dolareen** bilakaeraren eta egokitzapenaren adibide bikaina da. Berria - Euskal Herria

**4** *adkor* kartzela.

Bada, gure **dolarean** hotsa zabaldua zen egoteko erne guztiok hegoaldeko patiora, gertatu behar zuela han ikustekoren bat. Koldo Izagirre

Urak bide egin du Agirre'tar Nikola **dolare** hartatik bortxaz atera zutenez geroztik. Koldo Izagirre

Lasai, aittitte: hi gutarra haiz, **dolarepekoa** beti! Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**dolarea egin** (3); **dolarean mahatsa** (3); **dolareetan ez** (3); **dolareko patsa** (3)

---

## **dolarizatu,** dolariza, dolarizatzen du *ad* diru gisa dolarra hartu.

EBZko arduradunek euroaren apreziazioaz kezka agertzea da beste bat, gure monetaren ahultzeak Eurogunean kanpoko inbertsiogileak kezkatu baina gure **dolarizatutako** enpresei mesede egiten baitie. Berria - Ekonomia

---

## **dolarizazio** *iz* dolaritzatzea.

Ekuadorren, hiperinflazioa eteteko, ekonomiaren **dolarizazioaren** aldeko erabakia hartu zen 2000. urtean, hau da, nazio-dirua ezabatu eta haren ordez dolarra jartzea. Koro Navarro

---

## **dolikozefalia** *iz* dolikozefaloa denaren nolakotasuna.

Sintoma nagusiak ondorengoak dira: jaiotza pisu eskasa, **dolikozefalia**, betazal-arrail txikiak, belarri deformatuak, mikrognatia, aho txikia, garrasi edo oihu berezia, eta giltzaduretako zurruntasunak. Berria - Gaiak

---

## **dolikozefalo** *izond/iz* burezur obala duena.

Antzinako grekoak, zibilizazio europarraren asmatzaileak, jatorri ariarreko **dolikozefaloak** eta ile-horailak zirela, iparraldetik Heladera migratuak. Joxe Azurmendi

Brakizefalo beltzaran eta **dolikozefalo** horailen komeriekin, [...]. Joxe Azurmendi

Makina bat jende garai hartan ibilia da, bera **dolikozefaloa** zelakoan, salbatua ustean. Joxe Azurmendi

Ai! **dolikozefaloaren** burezur luze ederra, ile motz eta tentez hornitua. Monika Etxebarria

---

## dollar ik **dolar**.

---

## **dolmen** *iz* trikuharria, jentil-harria.

Goren-gorenean, aurrez aurre, bi harritzar erraldoi, bata zutik, bestea belarretan etzana, menhir bat eta **dolmen** bat, senar-emazte harrigarriak bailiran. Josu Zabaleta

Duela 6.000 urte, **dolmenak** eraikitzen zituen gizakumeak ez zezakeen entzun pagoen ibilaldi luzeak lurraren kirioetan sortzen zuen txinaurri saldo antzeko zurrumurru ahula; baina bazetozen. Pako Aristi

# **dolore** *iz* atsekabea, nahigabea. ik **oinaze**.

Azkenik, Agnèsek atzera egiten ez eta etsi behar izan zuten, pena eta **dolorez** etsi ere, ez baitago etsipen gozorik inon, berarekin baitakar minaren itzala, argiak ere iluntasuna bere baitan daraman bezala. Felipe Juaristi

Etsaiak ez ezik, hiltzaile garbi-garbiak ikusten zituen gure artzainak **dolorez**, non eta tokian berean, parez pare eta inongo goialdetara begiratzen lanik hartu gabe; bere hurko, herritar eta kidekoak ziren etsai hiltzaileak, ez "nagusiak" edo "arrotzak". Iñaki Segurola

Mundutik kanpo nintzen, **doloretan**, baina garbitasunaren bidez, salbatua nintzen eta besteak salbatzen nituen. Piarres Aintziart

Baina gure musuak, pena eta **dolorez** beteak izanen ziren. Daniel Landart

Ama **Doloretakoaren** akuarelazko kopia bat, begi larriak zeru hotzerantz so zituela, bikain, eta malko mingotsak masail zurbil-zurbiletan behera zerizkiolarik etengabe. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dolorez eta** (3); **eta dolore** (4); **eta dolorez** (9); **pena eta dolorez** (3)

# **doloretsu** *izond* nahigabetsua, oinazetsua.

Ez dakit ekiaren ala biziriko neure agerpen **doloretsuagatik** zen, baina aste haietan begitik minez ibiltzen nintzen. Itxaro Borda

Ikuskizun eta sentimendu **doloretsuak** ziren. Itxaro Borda

# **doloretsuki** *adlag* mingarriki.

Aita Sainduaren eritasuna, dena ere arras **doloretsuki** erakutsia eta Elizaren beste kargudunen hitz guti, horiek aski ote diren konbertitze denbora huntan fededunen bihotzaltxagarri. Herria

# **dolorezki** *adlag* dolorez.

Unamuno-rena printzipioz ez da ebazpen kategorikoa (beharbada azken urteetan bai); eta gutxiago da, maite-maite omen lukeen euskara hil-hurren ikusten duenak **dolorezki** eginiko eutanasiaren edo paliatiboen planteamendua. hain bainengoen neure pena hartan **dolorezki** penaturik. Joxe Azurmendi

# **dolorismo** *iz*

Orduko fededuna ez zen egiazki jazartzen, baizik tristesia batean jartzen beharrez, Jainkoaren nahiak eta jendearen sofrikarioak halako konplizitate bat moldatzen baitzuten, **dolorismo** jasangarrian ordenatuz errealitatea. Piarres Aintziart

# **dolu** **1** *iz* atsekabea, bereziki norbaiten heriotzak sortzen duena; doluzko jantziak.

Santutegia soildua gelditu zen, basamortu egina; jaiak **dolu** bihurtu ziren. Elizen arteko biblia

Haien **dolua** alaitasun bihurtuko dut, atsekabearen ondoren kontsolatu eta alaituko. Elizen arteko biblia

Jai nahiz aste, besta nahiz **dolu**, gauerdi guztietan zerrenda ematen didate Udaltzaingoan. Aingeru Epaltza

Herri osoa nahi zuen Kristo Jaunarentzat sortu, **dolu** eta penitentziara deituz. Askoren artean

Hileta handi eta ospetsuak egin zituzten; zazpi eguneko **dolua** egin zion Josek aitari. Jose Antonio Mujika

*ik beherago* 5. Askoren artean

Borroka armatuaren **dolua** egiten hasi beharko genuke jadanik, nahiz ustea hedatu den IK edo ETAri esker erdietsi direla kultura alorreko hainbat lorpen. Itxaro Borda

Borda familiak **dolu** asko bizi izan zituen, **dolu** metatuak hamarkada luzeetan, eta nik, bi irudiak jaso ditut: argiarena amarengandik eta ilunarena aitarengandik. Ana Urkiza

Ez dira gure artzain munduan **dolu** guziak ilunak. Herria

Atxikimendu eta dolumin Mañex haren espos lagunari eta **dolu** horrek hunkitzen dituen guzieri. Herria

**Doluak** hunkitzen dituen guzieri doluminak. Herria

· Beren ikusmoldeak inposatzen zituzten eta beren aurkariak **dolu** gabe deuseztatzen zituzten, familiakoak izanik ere. Elena Touyarou

## **2** (izenondoekin)

**Dolu** beltzenaz jantzita dator, xingola beltza kapeluan, eta beltzak eskularruak. Israelgo lurralde osoan **dolu** handia izan zen. Antton Olano

**Dolu** nazionala dekretatu zenuen, txarto oroitzen ez banaiz. Iban Zaldua

**Dolu** larrizko zeremonia, ez zaio zor ama naturalari, legeak ematen duen amari baizik. Iñaki Iñurrieta

15 ilabetetan Indako Elenaren joaiteak Agnés eta Jean François aitamak, aitatxi-amatxiak, izeba-osebak eta ahaideak **dolu** izigarrian utzi ditu. Herria

**Dolu** dohakabe hauek hunkitzen dituzten familieri doatzi gure doluminezko sentimentu biziak. Herria

Gertaera tragiko honen ondoren isiltasun pisu bat erori zen hiriaren gainean, **dolu** sakonagoa purgatu beharko balute bezala, agian iraindutako erlijio batena. Jon Alonso

Gertatuak gertatu, **dolu** bortxatuak kateztatu familiakideak agurturik, Pierrak Baionako bidea hartu zuen. Itxaro Borda

Amai dadila **dolu** inkonsziente hau, Bergara osoak ikus dezala zelan odol tantak gerezi bilakatzen diren. Koldo Izagirre

Zenbat gara tupusteko sentimenduen bortxaz kordokarazten eta ahultzen gaituen **dolu** bikoitz horretaz inorekin hitz egin gabe bizitzea onartzen dugunok? Joxan Elosegi

**Dolu** gisatsuz deitoratua zuen, aurreko urtean, bere andrearen heriotza ustekabekoa [...] baina dirua zuen benetako maitegrina. Juan Garzia

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bortzak [...] **dolu** janzkera akatsgabeaz apainduak zeuden. Aingeru Epaltza

Ez diot inori esan alaba hil zaidanik, inork ez baitaki alaba hori inoiz izan denik, eta botoi-zuloan **dolu**-seinalerik ere ez daramat, ez baitut nahi galderarik egin diezadaten, zertaz eta, haietako inori batere ardurarik ez dion zerbaitetaz. Joxe Austin Arrieta

Azkar zebilen, zeruz beteriko putzuetan plisti-plasta, hitz koipetsuen burrunba belarrietatik uxatzeko, **dolu**-xingola beltzak utzitako sentsazioa hatzamarretatik kentzeko, lirioen usaina ahazteko. Lopez de Arana

Hurbil dituk gure aitaren **dolu**-egunak. Jose Antonio Mujika

Brasilen hiru **dolu**-egun egin zituzten idazlearen heriotzarengatik. Karlos Zabala

Irain horrek beste bat eginarazi zien **dolu**-lagunei. Anton Garikano

Haren **dolu** aurpegiak benazkoa ematen zuen, ordea, eta hori eskertzekoa zen. Aingeru Epaltza

Ttipiren hatzak nire begien gidari izan ziren lauki zuzenetan zedarritutako **dolu** hitzen artean: [...]. Aingeru Epaltza

Salaketak eta **dolu** adierazpenak hutsalak dira arazoaren gaineko benetako hausnarketa egiten ez bada. Berria - Euskal Herria

Guztiz egoki da zure aldetik, Hamlet, **dolu**-erakutsiok eskaintzea zeure aitari. Juan Garzia

Isiltasun erabatekoa egin da **dolu**-gelan. Anjel Lertxundi

**Dolu** ekitaldia luzatu izanak eraginda, Colin Powell AEBetako Estatu idazkariak ordu erdiz zain egon behar izan zuen. Berria - Mundua

Ximurraren ama, seme-alabak eta gainerako jendakiak [...] eta kazetari tropa ugaria ·**dolu**-egileak adina-, pasealari kezkagabeen tankeran. Aingeru Epaltza

## 4 *doluan* *adlag* ik **dolutan**.

**Doluan** gelditu da bai, nahiz bihotzeko sokorriarekin, Zelaiako Goya familia, Paul aita galdurik laurogei urte hurbilean. Herria

Doluminak heriotze hunek **doluan** uzten duen familia eta jendaki guziari. Piarres Xarriton

Urte xahar bururatze eta berriaren hastea **doluan** ereman dute Garoneko Haristoy familiak eta hunen adixkideek. Herria

Ikaragarrikeria horren ondotik nola ez sar **doluan**, nola egon deus iragan ez balitz bezala. Herria

Ni **doluan** banengo, hi nire ondoan egongo hintzateke, noski. Antton Olano

Han familia, lagunak, herri guzia nigarrez eta **doluan**, herritarrek estimatzen baininduten.· **Doluan** den familiari eskaintzen ditugu gure dolumin bizienak. Michel Oronoz

Hortarik landa, laguntza talde bat muntatuko da **doluan** diren jendeentzat, Baionako Alliance elkartearen laguntzarekin. Herria

Berriz ere **doluan** dugu Kaidorreneko familia. Herria

## 5 *dolu egin*

Zer da ote **dolu egitea**? galdu dugunari negar egitea, agur erraitea. Herria

Esnatu zenean, **dolu egiten** hasi zen anaiaren gorpuaren aurrean. Juan Kruz Igerabide

Haien aita Efraimek **dolu egin** zuen luzaro haiengatik, eta kontsolatzera etorri zitzaizkion ahaideak. Elizen arteko biblia

Eta elkarte osoak, Israelgo etxe osoak, Aaron hila zela ikusirik, **dolu egin** zuen harengatik hogeita hamar egunez. Jose Antonio Mujika

Israel osoak **eginen** dio **dolu**; hau bai, hau hilobiratuko dute. Elizen arteko biblia

· Anaiarena jakin zuelarik, **dolu** handia **egin** zuen haren hilobiaren aurrean. Juan Kruz Igerabide

## 6 *dolu eragin*

Hau diot nik, Jainko Jaunak: Zedroa Hilen Egoitzara jaitsi zen egunean, **dolu eragin** nion naturari. Elizen arteko biblia

## 7 *dolu izan* du *ad* pena izan.

Beste batzutan, aldiz, min eta doloreekin, hala nola gertatzen baita komunzki, egin duten gauza batengatik **dolu dutelarik**, hura eginik. Piarres Xarriton

**Dolu nuen** halere ez galdaturik Hendaian non ikusten ahalko nuen. Janbattitt Dirassar

**Dolu nuen** ene P38 fidela ez ekarririk, ontsa baliatuko bainuen igel totelaren haizatzeko unean. Itxaro Borda

Mari maite zuen, alaba balu bezala, eta **dolu zuen**, bere aita izan zitekeen gizona senartzat hartzeko kinkan gertatu baitzen. Elena Touyarou

**Dolu nuen** nintzan komandoa uztea, han egoiten ahal bainintzen ezin hobeki azkeneraino. Marzel Etxehandi

Bixtan da, handizki saristatuak izan direla hiru lehen bikoteak, eta etorri ez direnek **dolu dutela**! Herria

**Dolu du** Peg-engatik, ez da besterik.· **Dolu** eta samin izan zuen Maupassantek, aspaldi ez zela ikusi baitzuen Flaubert gau batean beren arteko gutunak sutan erretzen. Oskar Arana

· **Dolu** zait hiriko bazterretan ez ikusia Juan de Urbieta [...] kapitain espainiar haren sortetxea non den bidaztiari erakutsiko liokeen ezer. Koldo Izagirre

## 8 *dolu-jantzi* (*orobat* ***dolujantzi*** *g.er.*)

Urratu zeuen jantziak, hartu soinean **dolu-jantzia** eta egizue negar Abnerren aurrean. Elizen arteko biblia

Lurrean eserita, isilik daude Sion hiri ederreko zaharrak, beren buruetara hautsa bota eta **dolu-jantziaz** estalirik. Elizen arteko biblia

Burua soil eta bizarra motz dute guztiek, besoak urratuak eta **dolu-jantzia** soinean. Elizen arteko biblia

Negarra dantza bihurtu didazu, **dolu-jantzia** festa-jantzi. Elizen arteko biblia

Estreinako aldia du bere **dolu-jantzi** beltzik gabe datorrena; eta bere aitzakia: beroegi dagoela kanpoan. Joxe Austin Arrieta

## 9 *dolua ekarri* doluzko jantziak erabili.

Germaine gaixoak, omenaldiz omenaldi, etengabe, senar zenaren **dolua zekarren**, negarrez hipaka, Xarlorekin bizitzen jarria zen arren. Itxaro Borda

**Dolua dakartenen** usadioaren arabera, solapa urratua zeukan, eta gabardinaren barrualdea ikusten zitzaion. Koro Navarro

Herritar guztiek elkarrekin ustekabeko **dolua ekarriko** dute eta malko anitz isuriko dira. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **dolu adierazpen** (3); **dolu bihurtu** (3); **dolu bihurtuko** (3); **dolu dagi lurrak** (3); **dolu dut** (5); **dolu egin** (18); **dolu egin zuen** (6); **dolu egin zuten** (6); **dolu egingo** (3); **dolu egiten** (7); **dolu egiten zuen** (3); **dolu egun** (14); **dolu egun nazionala** (4); **dolu eguna** (20); **dolu egunak** (5); **dolu ekitaldi** (3); **dolu handia** (19); **dolu handia egin** (14); **dolu horrek hunkitzen** (4); **dolu jantzia** (14); **dolu jantziak** (4); **dolu jantziz** (20); **dolu jantziz estali** (4); **dolu jantziz estalirik** (3); **dolu nuen** (4); **egin dolu** (5); **egin zuen dolu** (5); **estali dolu jantziz** (3); **jaiak dolu bihurtuko** (3); **negar eta dolu** (4)
>
> **dolua adierazteko** (8); **dolua egin** (3); **dolua egiten** (3); **dolua ezarri** (3); **doluak hunkitu** (3); **doluak hunkitzen dituen** (6); **doluan den** (3); **doluan diren** (3); **doluan ezarri** (3); **doluan uzten** (3); **doluan uzten duen** (3); **hiru eguneko dolua** (3)

---

# **dolualdi** (*orobat* ***dolu aldi***) *iz* dolu egiten den aldia.

**Dolualdia** buruturik, Davidek emakumea etxera etorrarazi, jauregian hartu eta bere emazte egin zuen. Elizen arteko biblia

Hogeita hamar egun egin zituzten israeldarrek Moabeko lautadan Moisesengatik negar egiten, **dolualdia** bete zuten arte. Jose Antonio Mujika

Amaitu da Jasser Arafat PAN Palestinako Agintе Nazionaleko buruzagi ohiaren aldeko 40 eguneko **dolu-aldia**. Berria - Mundua

Bien bitartean, Gobernu Kontseiluak hiru eguneko **dolualdia** ezarri zuen atzo Bagdad eta Kerbalan hil ziren dozenaka herritarren omenean. Berria - Mundua

Horretaz gain, PAN Palestinako Agintе Nazionalak 40 eguneko **dolualdira** deitu du. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hiru eguneko dolualdia** (3)

---

# **doludun** *izond/iz* doluan dena; doluan den pertsona.

Lehenbizikoan, zolan, gizon **doludunak**, bigarrenean, koroan, harmoniuma lodiaren ondoan, komunione haundia egina zuten mutikoak, ondoko urtean, erreberritu eta galerietan laxatzen ahalko zirenak. Michel Oronoz

Behiala, komunitatearen barruan bizi zen esperientzia genuen heriotza, keinuak xedatzen zituzten erlijioak eta ohiturek, **doludunari** sostengua eskainiz, baina bizitza pribatuaren barrutiko zerbait da egun dolua. Joxan Elosegi

Erritu-keinu eta zeremonietan tematzen dira beste batzuk, aldi bakoitzean komeni denaz, **doludunen** bizimoduaz, bete beharreko lekuaz, kolore ilunez, unean uneko esakuneez arduratuz. Joxan Elosegi

---

# **dolugai** *iz* dolurako gaia.

Heriotza, orain arte behintzat, **dolugai** izan da beti hemen, eta ez festarako aitzakia. Joxerra Garzia

---

**dolugarri** *izond* dolu eragiten duena.

Berriz heldu dira gertakari **dolugarri** baten gatik: beren kantari bat, Daniel Granade, Baigorriko umea, 26 urtetan ixtripuz hil baita Parisen bere etxean. Herria

Sakrifizio **dolugarri** hori dut oraino eginkizun: ez niri deusik ere utz kuraia ahul diezadakeenik. Jon Muñoz

Lastairaren gainean jarririk, pentsatzen nuen ontsa **dolugarri** zela hola hartua izaitea, ilabete bat eta erdi hartan Beloketik nehor ez pasatzen-eta... Marzel Etxehandi

Atsekabea zeinen **dolugarria** den, kontzientziaren ausikien gainean bermatua delarik! Jon Muñoz

---

dolujantzi ik **dolu 8**.

---

**doluka** *adlag* dolu egiten.

Erregina zelaira irten zen beste dama batzuekin, negar batean, **doluka**, bere eskutik gizon bat hil zelako. Juan Kruz Igerabide

---

**dolukide** *iz* dolu berean parte hartzen duena.

**Dolukiderik** ez dago gehiago, hartara bildu direnen hasierako une horietatik aurrera. Joxan Elosegi

---

**dolumen** *iz ipar* dolua, dolumina.

Eskaintzen dugu Requiem bana hil haueri eta **dolumen** sarkorrenak beren familieri. Herria

**Dolumenezko** egunak... Mazas miarriztar jokalariak partidako azken minutuan 'drop-goal' tiroa lortu zuelarik nire ilusio guziak kendu zizkidan! Ramuntxo Etxeberri

· Orduan, eta orduan bakarrik, **dolumen** lehertuko nintzen, bizitzako liburu ankerraren orrialdeak haserrez xehakatuz. Itxaro Borda

---

**dolumin** *(orobat* ***dolu-min****)* **1** *iz* dolua; *pl* bereziki, norbaiti bere doluan egiten zaizkion atsekabe eta atxikimenduzko erakutsiak.

Harenera joan nintzen lagun egitera eta nire **dolumina** agertzera. Patxi Zubizarreta

Famili liburuan erregistratu udaletxean, hileta-zerbitzuak ordaindu, **dolumina** adierazi zigutenei erantzun. Joseba Urteaga

Irudi zuen gure etxekoa zela eta gure **doluminean** parte hartzen zuela. Daniel Landart

Zorionak ala **doluminak** eman behar nizkion galdetu nionean, bata zein bestea onartuko zituela erantzun zidan. Josu Zabaleta

**Doluminak** atsekabearen aringarriak dira eta hileta handiak ere bai. Gotzon Garate

Ia hitzik gabe eman zizkion **doluminak**. Imanol Zurutuza

Begien aurrean dauzkat oraindik **doluminak** ematera etorri zitzaizkidan eskolako hiru damatxoak. Arantxa Iturbe

Autoaren barrenetik ikusi zuen nola poliziak atxilotzen zituen Sarari laguntzera edo **doluminak** ematera hurbiltzen zirenak. Felipe Juaristi

Gorri-gorri eginak ditu begiak bisitariari atea zabaldu dion neskak, eta zizpuru eginez jaso ditu haren **doluminak**. Anjel Lertxundi

Herriko gizon-emakumeek, haur-agureek, leihoak itxi zituzten, **doluminez**. Felipe Juaristi

Jadanik Luzaideko karabineruek bazakixien berria eta ikusi zutelarik karrikari goiti ari, atera zitxun, bisaia trixte, beren **dolumin** bizienak eskainiz gainera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mundu guziak erakutsi du zein hunkitua zen, **doluminak** igorriz eta joan den ortziralean eguerditan ixiltasunean egonez hiru minuta. Herria

Ni, **doluminez** urtua eta hura bere kakaz mintzo! Daniel Landart

**Doluminez** jaitsiko naiz Hilen Egoitzara, nire semearengana. Elizen arteko biblia

Aditua zen, oso, etxeko arropa zurietan inizialak non josi erabakitzen, langile-jendeari jarraibideak ematen eta **doluminezko** gutunetarako hitzak aukeratzen. Mirentxu Larrañaga

**2** (dolu formuletan)

Gure **doluminak** seme-alaberi eta familia guziari. Herria

Bere alarguntsari, seme-alaberi, koinat, erreina eta suhieri gure **doluminak**. Herria

Gure **dolumin** beroenak familia guziari eta ikus arte Etienne! Herria

Familia guziak onhart ditzala gure **dolumin** bizienak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gure **dolumin** kartsuenak bi familiei. Herria

Gure **dolumin** bizienak eskaintzen ditugu hoin bortizki hunkituak diren hiru anaieri eta familiako guzieri. Herria

**Doluminak** heriotze horrek hunkitzen duen familiari. Herria

**Doluminak** penetan uzten dituen familia eta jendaki guziari. Herria

**Doluminezko** sentimendu bizienak, hunkiak diren familieri. Herria

Parte hartzen dugu Xalbat, espos lagunaren **doluminean**. Herria

Bihotzetik gure **doluminak** familia guziari. Herria

Jaso ezazue euskal preso politiko guztion **dolumin** zinezkoena, euskal preso politikoon senitarteko osoari zabaltzen dioguna. Berria - Euskal Herria

Orain ustegabetarik itzaltzen zaigularik Albert adiskidea haren andreari, haurrei eta haurridei eskaintzen dizkiegu gure **doluminak** eta lagunek erraiten berari: Ikus arte! Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Dolumin**-adierazpenak: besarkadak eta musuak, esku-emateak eta bizkarrekoak. Anjel Lertxundi

Hashem al Hasani Irakeko Parlamentuko presidenteak **dolumin** mezua bidali zion Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministroari. Berria - Harian

Herbehereetako Van Gogh museoan, margolariak 1877an idatzitako **dolumin** gutun bat erakutsi dute. Berria - Kultura

PSE-EEren egoitzan eman diete **dolumin**-sinadura mordoa, telebista kameren aurrean, ohi denez. Berria - Euskal Herria

Gabonetako bijili-gau batean hasi ziren **dolumin**-liburuan sinadurak batzen. Berria - Euskal Herria

**Dolumin** ikurraz atonduriko ikurrina zeramaten bi pertsonak manifestazioaren buruan. Berria - Euskal Herria

Ximurra bertze **dolumin**-emaile batzuen eskuak tinkatzen ari zen, zenbait metro haratago. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bihotzetikako dolumin (4); bihotzetikako dolumin bizienak (3); bihotzez gure dolumin (3); ditugu dolumin (11); ditugu dolumin bizienak (8); ditugu gure dolumin (11); ditzala gure dolumin (39); ditzatela gure dolumin (11); ditzaztela gure dolumin (13); doatzi gure dolumin (5)

dolumin beroenak (74); dolumin beroenak eskaintzen (3); dolumin beroenak eta (3); dolumin beroenak familia (7); dolumin beroenak familiari (4); dolumin beroenak haren (10); dolumin beroenak horien (3); dolumin bizienak (270); dolumin bizienak eskaini (3); dolumin bizienak eskaintzen (27); dolumin bizienak espos (3); dolumin bizienak eta (8); dolumin bizienak familia (13); dolumin bizienak familiari (15); dolumin bizienak joaite (3); dolumin bizienak penetan (3); dolumin eta (5)

dolumina agertu (3); eskaintzen ditugu dolumin (11); eta dolumin (5); familiari gure dolumin (4); gure bihotzetikako dolumin (3); gure dolumin (236); gure dolumin

beroenak (42); gure dolumin bizienak (180); gure dolumina (3); gure partetik dolumin (4); guziari gure dolumin (18); guzieri gure dolumin (19); partetik dolumin (4); partetik dolumin bizienak (4)

bere doluminak (6); ditugu doluminak (7); ditugu gure doluminak (98); ditzala gure doluminak (45); ditzatela gure doluminak (28)

doluminak adierazi (5); doluminak agertu (11); doluminak bere (11); doluminak bere familiari (5); doluminak bi (10); doluminak bi familieri (5); doluminak eman (14); doluminak eman zizkien (3); doluminak eman zizkion (3); doluminak emateko (5); doluminak ematera (11); doluminak ere (4); doluminak eskaintzen (199); doluminak eskaintzen ditugu (191); doluminak eskaintzen dizkiegu (3); doluminak eta (8); doluminak eta elkartasuna (3); doluminak familia (42); doluminak familia guziari (39); doluminak familiako (4); doluminak familiako guzieri (4); doluminak familiari (49); doluminak familiari eta (8); doluminak familieri (6); doluminak haren (8); doluminak hel (4); doluminak hel arazten (4); doluminak helarazten (5); doluminak heriotze (11); doluminak heriotze hunek (7); doluminak hil (6); doluminak hil hauen (4); doluminak hunkituak (4); doluminak hunkituak diren (4); doluminak onhar (16); doluminak onhar ditzala (4); doluminak onhar ditzatela (12); doluminak onhart (3); doluminak onhart ditzatela (3); doluminak penetan (10); doluminak penetan diren (6); doluminak penetan uzten (3); doluminak uzten (4); doluminak uzten dituen (3)

eskaintzen ditugu doluminak (7); eta doluminak (9); eta doluminak eman (3); familiari doluminak (3); familiari gure doluminak (8); gure doluminak (556); gure doluminak bere (10); gure doluminak bi (4); gure doluminak ere (3); gure doluminak eskaintzen (164); gure doluminak eta (3); gure doluminak familia (28); gure doluminak familiari (27); gure doluminak familieri (4); gure doluminak haren (4); gure doluminak hel (4); gure doluminak helarazten (5); gure doluminak hil (6); gure doluminak hunkituak (3); gure doluminak onhar (15); gure doluminak penetan (5); guziari gure doluminak (6); guzieri gure doluminak (8); senideei doluminak (7)

ditugu gure doluminik (6); doluminari juntatzen (7); doluminari juntatzen gira (7); dolumínean parte (3); doluminen adierazpena (6); doluminezko agurrik (4); doluminezko agurrik zintzoenak (3); doluminezko sentimendu (12); doluminezko sentimendu bizienak (7); doluminik bizienak (38); doluminik bizienak eskaintzen (7); doluminik bizienak familiari (12); doluminik sentituenak (5); doluminik sentituenak helarazi (3); eta doluminik (3); familiaren doluminari (6); familiaren doluminari juntatzen (6); familiaren doluminean (3); gure doluminekin (5); gure doluminen (6); gure doluminen adierazpena (6); gure doluminezko (6); gure doluminezko agurrik (4); gure doluminik (14); gure doluminik bizienak (9); nire doluminik (3)

---

# dolutan *adlag* dolua egiten. ik **dolu 4**.

Hildako batengatik oso luzaro **dolutan** dagoen emakume baten itxura egin behar duzu. Elizen arteko biblia

Zure heriotzaren **dolutan** ginen sartu zarenean. Antton Olano

**Dolutan** dago Juda herrialdea, hiltzear haren hiriak, goibel, lur jota jendea, garrasika Jerusalem hiriburua. Elizen arteko biblia

Haren **dolutan** gaude oraindik, ikusten duzunez. Josu Zabaleta

· Doluminak Arlette andreari eta **dolutan** diren guzieri. Herria

**Dolutan** utzi dituen bere haur, haur ttipi eta ahaidego guziari eskaintzen ditugu doluzko sendimendurik bizienak eta Jainkoak eman dezola Elixabeti mundu huntako mereximenduen saria betiereko zorionean. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

dolutan utzi (3); dolutan utzi dituen (3); dolutan uzten (3); hunek dolutan (3)

---

# dolutu, dolu(tu), dolutzen **1** da/du *ad* atsekabetu; damutu.

**Dolu** gaitezen, ai, ez baita harentzat beste egun argitzerik izango. Koro Navarro

Arras **doluturik** naiz zu dagoeneko sentitzen ari zaren nahigabeei bertze bat gehiago gehitu beharraz. Jon Muñoz

Egiazki, ordea, ez nintzen batere **dolutu**. Aingeru Epaltza

Etzaizue **dolutuko** eta gainera antolatzailei erakutsiko diezue horrelako bideari balio duela jarraikitzea. Herria

Bururatzeko, handitzean gaztea altxor horren jabe izanen delarik, ez zaiku batere **dolutuko**, gure ondarerik goxoena eskainia izanen baitiogu. Herria

Azken hitza apezpikuak eman zuen beherean, misionesten kapera aintzinean, ez baitzitzaion behin ere hainbeste **dolutu** euskara ez jakitea. Xipri Arbelbide

-Damu nuke zu ez hemen izateaz **dolutu** behar banu... Elena Touyarou

Zer ezkutatzen dit bada, zuk barnatzera utzi dizkidazun susmo lazgarriek bainoago **dolu** dezakeenik ama baten bihotza? Jon Muñoz

Mutur okerrez urrunduta, txanda hartu genuen senar-emazte **dolutu** berrien eta haien kumeen inguruan. Aingeru Epaltza

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Elkarren ondoan dautza, koroak buruan, erregea bere lehoiarekin, erregina bere erbi-zakurrarekin, [...], inguruan, lanketarik dotoreenaren arkitekturen pean, figuratxo **dolutu** andana bat itzulikatzen dela. Koldo Izagirre

Gu ere kaseta huntan juntatzen gira guzien sendimendu **dolutueri** gure bihotzeko partea eskainiz bereziki familiari. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

batere dolutu (3); dolutzen zaidala (3); ez zautzue dolutuko (6); ez zauzue dolutuko (6); zautzue dolutuko (6); zauzue dolutuko (6)

---

# domadore *iz* domatzailea, hezlea.

Tigre batek bere **domadorea** txikitzen duenean, tigre hori biolentoa dela esaten da eta bala bat sartzen zaio buruan. Harkaitz Cano

Lehoi **domadorea**? Harkaitz Cano

Zirko **domadore** begiradaz oihu egin zuen arte: [...]. Joseba Sarrionandia

---

# domaia *(orobat **domai**)* **1** *iz* pena, lastima.

Zer **domaia** ez baitu makearraren eskuak atxiki! partida hau bestea bezain ederra izan baitzitakeen. Herria

Zer **domaia** haatik Frantziak ez diotela Turkiako dantzarieri hunat jiteko baimenik eman! Herria

## 2 *domaia izan* ad *ad*

**Domaia** da Donibanen ez baita entzuten, zeren eta ene andreak izigarri maite du akordeona. Menane Oxandabaratz

**Domaia** duk bestenaz terroristak baitira zuen artean. Piarres Aintziart

Bai segur balio zuen itzuliak eta **domaia** da zonbait pilota galdu baitute bi gazte bipil hauek. Herria

**Domaia** zen argia pizterik ez izatea, agerian geratutako zakil txiki hura neure begiez ikusi nahi bainuen, baina ukitu eta ahoan hartzearekin konformatu behar izan nuen. Aitor Arana

**-Domaia** da Joanikotena... Joan Mari Irigoien

Guk ez dugu bisita gidaturako aukerarik eta **domaia** da! Berria - Kultura

Gure ardi manexetarikere bazen ferian bainan aldi huntan pottokarik ez, untsa **domaia** baita! Herria

· **-Domaia**... -erran zuen aitak. Joan Mari Irigoien

**Domaia**, hor ziren ainitz sobera gazteak zirela azken hogoi urtean gertatu talde eta antzerki forma guzien ezagutza izaiteko. Herria

## 3 *damu-domaia* *(orobat **damudomaia** g.er.)* *pl* kalte-galerak.

Funditu autoen antolatzea gero eta karioago dela, ixtripu baten ondotik galdetzen -eta ardiesten- diren **damu-domaiak** ere beti goiti johan. Herria

Jujeek, **damu domaia** horiez gain 300 euro ezarri dituzte Hizkuntz Kontseiluaren gain auzi gastuentzat. Herria

Langileen abokatuak bi urteko soldaten araberako kalte ordain edo **damu domaia** ekonomikoak galdatu ditu. Herria

Enpresa legez desegina izanki, AGS lizentzamendu kutxa **damu domaien** pagatzera kondenatu zuen. Herria

Orbe-ren abokatuak 286 000 euroko **damu domaien** galdera egina zuen auzitegiaren aitzinean. Herria

· Maiatz ondarrean Paueko administrazio auzitegiak Herriko Etxea kondenatu du SAGA elkarteari 800 euro **damu domai** pagatzera. Herria

**Damu-domai** kondu, lauen artean zazpi ehun bat euro eman behar SNCF etxeari. Herria

Ardietsi ditu **damu-domai** gisa 9300 euro, ez berak eskatzen zuen bezenbat bainan ez urrun. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **damu domai** (4); **damu domaia** (10); **damu domaiak** (14); **damu domaien** (4); **damu domaietan** (3); **domaia baita** (5); **domaia da** (19); **domaia haatik** (4); **eta domaia** (5); **eta domaia da** (4); **euro damu domaia** (5); **euroko damu domaiak** (4); **untsa domaia** (9); **untsa domaia baita** (3); **zer domaia** (6)

---

**domaigarri** *izond* penagarria.

Histura **domaigarria** ondar haidadan gertatu dena. Herria

---

**domaketa** *iz* domatzea, heztea.

badaki, azken batean, poesia basapizti izugarria dela, ez **domaketarik** ez laburtzapenik onartzen ez duena, eta bere osotasunean, bere indar betean ehizatzea eta paperera ekartzea lortzen ez badu ez diola bizirik eutsiko, paper hori bera hilmihisea bilakatuko baitzaio, besteren begiak gozatzera letorkeen hegaztirik ederrenaren hegalaren ordez. Pako Aristi

---

**domatu**, doma, domatzen du *ad* hezi, bezatu.

Oilarra **domatu** ezinik, analisiekin lasai ez, Haimar Zubeldia Espainiako Vueltan izango den zalantzan... Berria - Kirola

Haizea pintatu bakarrik ez, haizea sortu, haizea jainkotu, haizea adoratu, haizea zigortu, haizea izutu, haizea **domatu**, haizea korapildu, haizea saldu, haizea erosi... Patziku Perurena

Goizean marmar ulergaitzean jaitsi da donostiarra patiora, eta pixka bat bere barrunbeak **domatu** dituen arte ez dit hitzik egin. Jokin Urain

---

**domatzaile** *iz* hezlea.

Ez zidan batere beldurrik ematen tsarraren gerlariarena egin nahi zuenean, nahiz eta hark uste izan heziko ninduela zirkuko **domatzaileak** bezala. Pello Lizarralde

---

domeinatu ik **dominatu**.

---

**domeinu** *(ETCn* ***3.664*** *agerraldi)* **1** *iz* barrutia, esparrua.

Horrenbestez, nire gainekoaren eta bion **domeinu** berezia zen berrogeita laugarren oineko emakumeentzako komuna. Joxan Elosegi

Generoa orokortasunaren azken muga da, diskurtsoaren esparrua, **domeinua**. Askoren artean

Eta neure burua nortasun moral legez (erantzukizunekoa) ezagutu eta kontrolatu ahal izateko [...] ez zait intentzioaren **domeinua** besterik geratzen eskura. Joxe Azurmendi

Erantzukizun hori "kategoria" filosofikotzat proposatzen da, askatasunaren eta erabakiaren ("fiat") **domeinu** sakratutzat. Joseba Zulaika

**2** (informatikan)

Kultura katalanaren gaineko informazioa jasotzeko *.cat* Interneteko **domeinua** sortzea aztertzen ari dira. Berria - Gaiak

700.000 eskaritik gora jaso dira '.eu' **domeinua** lortzeko. Berria - Gaiak

Unibertsitateen laguntzarekin software librea bultzatuko du Xuntak eta Galiziak **domeinu** propioa izango du sare elektronikoan. Berria - Harian

*Free access* **domeinu** bat da, hau da, ordaindu gabe erabil ditzakegu hor eskaintzen diren zerbitzu guztiak. Askoren artean

Itxi aurretik, Euskaldunon Egunkaria-k zuen bereganatua *www.hemeroteka.com* **domeinua**, eta horrek eragotzi du orain Euskal prentsaren lanak webguneak helbide hori izan dezan. Berria - Harian

Bihartik aurrera, hilabeteko epea izango du ICANN Izenak eta Zenbakiak Izendatzeko Interneteko Korporazioak **domeinu** hori eta beste batzuk eman edo ez erabakitzeko. Berria - Gaiak

**3** nagusitasuna, jabetza, jauntza.

Eszenaren erabateko **domeinua** erakutsi zuen eta nabari da opera dela bere ohiko ingurua. Berria - Kultura

Ildo horretatik, **domeinu** kolonialista eta arrazistarako proiektuak bertan behera utzi behar dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zuhaitzen arteko borroka irabazi zuenez, berari dagokio Sanjoanetako egun luzeetako **domeinua**. Pello Zabala

Guztira hamasei tanto egin zituen; atzelariaren **domeinuaren** fruitua. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartueatan)

Adibidez, eman dezagun A formula dela, interpretazio-**domeinua** •x F x x i 1 zenbaki arruntena dela eta erlazio-sinboloaren denotazioa "<" erlazioa dela. Askoren artean

---

**domeka** **1** *iz* igandea.

**Domeka** batean, irratiz partiduak entzuten egozala, armadoreak hots egin eban: [...]. Xabier Amuriza

**Domeka** hura meza luzea baino aspergarriagoa izan zen. Joseba Sarrionandia

Ahaztu baino lehen, Eusebia izan da arrastian, ezagutzen ez nuen botika bat eskatu dit eta bihar etortzeko esan diot, nahiz eta **domeka** izan ostatuko atetik sartuta kasu egingo diozula. Josu Landa

-Baina gaur **domeka** da... betiko pastelak ekarri dizkizut, sukaldeko mahai gainean dauzkazu. Josu Landa

Aurreko sasoian etxean jokaturiko hemeretzi partidetatik bederatzi **domekan** jokatu ziren, 21: 00etan, eta ez zen dirurik eskuratu. Berria - Kirola

· Hiriko behartsuenei laguntzeko hilean behingo eltzeko **domekaren** usadio hori zen aitak Hitlerren erregimenari barkatzen zion neurri bakarrenetako bat. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

-Zapatuan... beno, **domeka** goizean. Unai Iturriaga

**Domeka** bazkaloste batean, oporrei buruz ari gara, Paulen etxean. Eskarne Mujika

-Maiteñorik banu, ez nitinan zapatu eta **domeka** arratsaldeak hirekin igaroko. Eskarne Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **domeka hartan** (3); **eltzeko domeka** (3)

## **domekaro** *(orobat **domekero**)* *adlag* igandero.

Urduliztar batzuk **domekaro** Andrakara etorten ziran txikiteoan, Ruforen tabernara, eta han derrigorra zan soinua jotea. Xabier Amuriza

Eta egongelako sofan jesarri zen, mantatxo batekin estali zuen sabela, loak hartu zuen **domekaro** legez. Unai Iturriaga

Hitz egin gabe genuen zenbatero aterako nintzen, baina konturatzerako, **domekaro** nintzen fokupean. Iñigo Aranbarri

**Domekero** itxaroten diot eta Line, **domekero**, etorri egiten da. Eskarne Mujika

---

## domekero ik **domekaro**.

---

## **domestikatu**, domestika, domestikatzen **1** du *ad* etxekotu; otzandu.

Jendeak **domestikatu** egin zituen animaliak literaturan, humanizatu, giza ezaugarriak eman. Berria - Kultura

Psikoanalisia, beste ezeren gainetik, norberak bere barruko bulkaden berri izateko prozesua da, eta sarritan horien berri izan eta ikusten du ez dela erraza horiek **domestikatzea**. Berria - Harian

Ilgorak indarra eransten omen dio izadiari: arinenak, gutxien **domestikatu** eta kontrolatuak aiseago antzematen omen dio. Pello Zabala

Seguraski, gure belarriak musika askotarikoa eta sarritan entzutearen poderioz **domestikatu** egin direlako, nahitaez aurrekoaren tonua hartzera jotzen dugu. Andoni Egaña

**2** (era burutua izenondo gisa)

Tradizio **domestikatu** baten aitzakiaz mozorroturiko topikoen, iragan interesatuaren, dogmaren eta leiho itxien defentsa baino haratago, beti haratago dago aitaren etxea, eta hori seinalatu behar du bere burua letren errepublikan kokatzen duen artistak. Anjel Lertxundi

Zoaz Angelu hiriko itsas bazter **domestikatura**! Ramuntxo Etxeberri

---

## **domestiko** **1** *izond* etxekoa, etxerakoa, etxe-.

Lasaitasuna behar dut, ordena **domestikoak** eta laboralak ematen didatena. Ana Urkiza

Eztabaida **domestikoak** gutxi eta lekuz kanpokoak dira gaur, ordea. Xabier Mendiguren Elizegi

Berez krisi **domestiko** arrunta baino ez zen kontu zoritxarreko hura guztien ahotan ibiliko zen ordurako. Patxi Iturritegi

Hain gorabehera **domestiko** xume batek halako amaraun nahasirik sor dezakeenik ere! Anjel Lertxundi

Badakizu ni ez naizela uztarpean bizitzeko jaio, ez naizela maitasun **domestiko** horien zalea. Patxi Zubizarreta

Psikopata **domestikoak** bilakatu gaitu telebistak: besteek egindako odol-bilketak ikusten ditugu apetitu izpirik galdu gabe. Pako Aristi

Intendentzia arazoek, arazo logistiko eta **domestikoek** izorratzen gaituztela, ez digutela literatur asmoetan aurrera egiten uzten. Iñaki Iñurrieta

Artista izan nahi duenak, artista ustekoak, ez die kasurik egin behar halako zeregin **domestikoei**. Iñaki Iñurrieta

Badirudi gonbidatuak dituztela eta beren paradisu **domestikoa** erakutsi nahi digutela. Patxi Iturritegi

Psikopata **domestikoak** bilakatu gaitu telebistak: besteek egindako odol-bilketak ikusten ditugu apetitu izpirik galdu gabe. Pako Aristi

Esan liteke ale bakarreko hainbat grabazio egin dituela Gelatxok, grabazio **domestikoak** beti ere. Pako Aristi

**2** (zuzenbidean)

Ez dela lege zibilen bidez erabaki behar lege **domestikoen** bidez erabaki beharreko gauzarik. Iñaki Iñurrieta

Azkenik, zuzenbide **domestikoak**, zein gizarte bat familiatan banatuta egotetik baitator, familia horiek gobernu partikular baten premia dutelarik. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> amodio domestikoak (4)

---

## **domina** **1** *iz* metalezko atala, gehienetan biribila, irudi edo idazkun bat daramana. ik**medaila**.

Arkimedesen **dominaren** ifrentzua duk hori -azaldu zuen Ruche jaunak ahots hotzez. Jon Muñoz

Lepotik zintzilik zeraman urrezko **domina** kenduta, neskak ez zeukan soinean eta jantzietan landertasunaz beste adieraz zezakeen ezer. Anjel Lertxundi

Lepoko kate bat urrezkoa Ama Birjinaren **dominarekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

Patrikatik zilarrezko **domina** atera zuen, zilarrezko katea bati lotua, distira berezikoa. Felipe Juaristi

Selinont-ko herritarrek gurtu egin zuten eta tenplu bat eraiki zioten, bai eta **dominak** irarri ere, non Apoloren irudiaren aurrez aurre kokaturik baitzegoen haren irudia. Juan Garzia

Joseph Trotta pozarren dago, **dominak** paparrean zintzilik dituelarik. Anjel Lertxundi

Hargatik hazi-eramailearen **domina** darama paparrean. Xabier Paya

Goethe **domina** eman diote Imre Kertesz idazle Nobel saridunari. Berria - Kultura

Joseba Pagazaurtunduari, [...] Merituaren **domina** ematea erabaki zuen atzo Andoaingo Udalak. Berria - Euskal Herria

Volkswageni emango diote Nafarroako Urrezko **Domina**. Berria - Ekonomia

Diputazioak Zientziaren Ohorezko **Domina** eskaini nahi zidan egun hartan, baina nik nahikoa lan neukan neure buruarekin eta ospakizunera ez agertzea erabaki nuen. Hasier Etxeberria

**Domina** oroigarriak dira berez, 80ko hamarkadan egindakoak, eta sorta orain arte argitaratu gabea da. Berria - Kultura

Oraindik gaztea izan arren, **dominaz** jositako gizon itzaltsua zen. Jose Morales

**2** (gerretan eta)

**Dominak**: lehen mailako Burdinazko Gurutzea, Verdunen irabazia. Alberto Ladron Arana

Balentria harengatik eman zioten aitari **domina** banderadun hura. Anjel Lertxundi

Pepponek azkenik erantzi zuen gabardina, eta orduan ikusi zen 15-18ko gerran irabazitako zilarrezko **domina** zeramala jaka-paparrean. Koldo Biguri

Parisen Ohorezko Legioko **domina** eman zioten, eta, 1925ean. Josu Zabaleta

Ofizialaren izar, **domina** eta gutzi. Edorta Jimenez

Ausardiaren **Domina** Golkoko Lehen Gerran (Norman Schwarzkopf jeneralak berak ezarria), Bihotz Purpura Afganistanen, 27 borroka-mandatu 12 urtetan... Fernando Morillo

Zergatik ez dizkiete ohorezko **dominak** ematen traidoreei? Josu Zabaleta

**3** (kiroletan)

Zazpi **domina** euskal atletentzat Espainiako Txapelketan. Berria - Kirola

-Boleibol jokalaria naiz, gazte talde nazionalekoa naiz, eta egunen batean olinpiadetako **domina** bat irabaztea gustatuko litzaidake. Jon Muñoz

Gauean boxeo konbateak izango dira hementxe bertan, miradorean, exhibiziokoak, eta **domina** bat jarriko zaio Uzkuduni. Bernardo Atxaga

84 proba jokatuko dira, eta 252 **domina** banatuko dira guztira. Berria - Harian

Kroaziarrak lau **domina** irabazi zituen 2002an, Salt Lake Cityn (AEB): urrezko hiru eta zilar bat. Berria - Kirola

Urrezko **domina** kolkoratu du 560 kilokoan, finalerdietan Gaztedi mendean hartu ondoan. Berria - Kirola

### 4 irud/hed

Zinismo hutsaren **domina** beste honi eman beharko genioke: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bakarren bat hiru **"domina"** edukitzera iritsiko zen, esaterako Mikel, gaztetatik politikaz kezkaturik, HBko buru izango baitzen urtetan: heldu, guraso eta zinegotzi. Pedro Alberdi

Odolezko **domina** ilun bat eratu zen mosaikozko lurrean, gizonaren buruaren ondoan Irene Aldasoro

### 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bai zela luzea **domina** -xingola batez inguratutako kapela zeraman gaztearen lepoa. Xabier Olarra

León Abadias kanpaina-desinatzaileari eskatu zion **domina** -zirriborroa; eta berak "Medalla de Montejurra" izeneko bat aurkeztu zion Erregeri. Txillardegi

Bolondresen itzulera egunean Chavez agertu zen eskerrak ematera, ez dakit zer **domina** motarekin batera. Pako Aristi

### 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

2000. urteko urrian, ohore- **domina** ere eman zion Espainiako Barne Ministerioak Garzoni, Ekinen aurkako operazioa hasi eta gutxira. Berria - Harian

Adierazi ohore- **dominak** eta meritu bereziak. Fernando Rey

Ez digute inolako merezimendu- **dominarik** emango handiusteak, geurekoiak, burusoilak eta lodikoteak garela onartzen ikasi dugulako, ez; jakin beharra zaukaagu ez dugula inolako sari edo gorespenik jasoko. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**andris nauduzs domina** (4); **ausardiaren domina** (3); **bederatzi domina** (4); **bederatzi domina irabazi** (3); **bi domina** (18); **bi domina irabazi** (9); **bigarren domina** (8); **bigarren domina du** (3); **bost domina** (11); **bost domina irabazi** (9); **brontzezko domina** (46); **brontzezko domina bana** (4); **brontzezko domina irabazi** (11); **brontzezko domina lortu** (10); **da domina** (3)

**domina bana** (7); **domina bana irabazi** (3); **domina bat** (29); **domina da** (3); **domina du** (5); **domina edo** (6); **domina edo medaila** (3); **domina eman** (20); **domina eman dio** (3); **domina eman zion** (6); **domina eman zioten** (3); **domina emango** (6); **domina ematea** (4); **domina ematearen** (3); **domina emateko** (3); **domina erakusten** (3); **domina ere** (3); **domina eskuratu** (12); **domina eskuratu dituzte** (3); **domina eskuratu zuen** (5); **domina eta** (13); **domina eta zilarrezko** (3); **domina gehien** (12); **domina gehien irabazi** (5); **domina hori** (4); **domina irabazi** (91); **domina irabazi ditu** (8); **domina irabazi dituzte** (3); **domina irabazi du** (6); **domina irabazi nahi** (10); **domina irabazi zituen** (12); **domina irabazi zuen** (31); **domina irabazi zuten** (3); **domina irabaztea** (6); **domina irabazteko** (11); **domina jantzi** (4); **domina jaso** (12); **domina jaso zuen** (5); **domina jasoko** (4); **domina jasoko du** (3); **domina kolkoratu** (7); **domina leporatu** (3); **domina lortu** (43); **domina lortu dituzte** (3); **domina lortu duten** (9); **domina lortu zituen** (3); **domina lortu zuen** (16); **domina lortzea** (3); **domina lortzeko** (9); **domina munduko** (3); **domina xingola** (5)

**du domina** (4); **du domina gehien** (3); **eta brontzezko domina** (7); **eta domina** (14); **eta domina vacanze** (4); **eta urrezko domina** (7); **eta zilarrezko domina** (6); **hainbat domina** (4); **hiriko domina** (4); **hiru domina** (15); **hiru domina irabazi** (5); **hirugarren domina** (3); **italiako domina** (3); **italiako domina vacanze** (3); **jokoetan urrezko domina** (8); **kelme eta domina** (3); **lau domina** (15); **lau domina irabazi** (5); **laugarren domina** (4); **lehen domina** (7); **lehen urrezko domina** (3); **medal domina** (3); **merituaren domina** (5); **nafarroako urrezko domina** (3); **nauduzs domina** (5); **ohorezko domina** (8); **sei domina** (5); **soinean urrezko domina** (3); **txapelketetan urrezko domina** (8); **urrezko bi domina** (8); **urrezko bigarren domina** (3); **urrezko bost domina** (9); **urrezko domina** (154); **urrezko domina bat** (5); **urrezko domina eman** (6); **urrezko domina emango** (3); **urrezko domina erakusten** (3); **urrezko domina eta** (3); **urrezko domina gehien** (3); **urrezko domina irabazi** (28); **urrezko domina irabaztea** (3); **urrezko domina irabazteko** (10); **urrezko domina jaso** (5); **urrezko domina kolkoratu** (4); **urrezko domina lortu** (15); **urrezko domina lortzeko** (6); **urrezko hiru domina** (5); **urrezko lau domina** (11); **urrezko laugarren domina** (3); **urrezko lehen domina** (3); **zazpi domina** (3); **zen urrezko domina** (5); **zilarrezko domina** (30); **zilarrezko domina irabazi** (6); **zilarrezko domina lortu** (6); **zion domina** (5); **zortzi domina** (4); **zuen urrezko domina** (12)

**bost dominak** (3); **dominak eta** (5); **dominak irabazi** (3); **dominak lortzeko** (3); **dominaren bat** (18); **dominaren bat irabazteko** (4); **dominaren bat lortzeko** (3); **dominarik gabe** (5); **dominarik irabazi** (6); **dominarik irabazi turinen** (3); **dominarik lortu** (3); **eta dominak** (9); **eta dominarik** (3); **eta dominen** (3); **lehen dominak** (3); **lehen urrezko dominak** (3); **urrezko dominak** (8); **urrezko dominarik** (4); **urrezko dominarik irabazi** (3), dominen bat (3)

---

## **dominadun** *izond/iz* domina duena.

Olinpiadetako **dominadunak** . Koldo Izagirre

· Eta, orain, apartamentu-etxe eskergaren inguruan izango gara, urrezko **dominadun** atezain puskaren aurrean. Mirentxu Larrañaga

---

## **dominante** *izond* menderatzailea; nagusia.

Arraintxo hori saldotan bizi ohi da, eta talde bakoitzak ar **dominante** bat bakarra izan ohi du. Joxerra Garzia

Kultura **dominanteen** eraginik gabe, herriko kantatzeko manera atxikia dute horietan guzietan. Berria - Kultura

Kultura inperialista eta **dominanteak** . Berria - Kultura

Baina diskurtso **dominanteak** beste batzuk dira, eta estetikaren inguruko formulazioa bastardo-tzat jotzen da.Nora pertsona lotsatia zen, familiatik kanpo behintzat, kanpolarrosa, etxe barruan edo bere guraso eta anai-arrebekin oso **dominantea** zen ordea, oso ipurterrea eta jenio txarrekoa. Berria - Euskal Herria

---

## **dominatu**, domina, dominatzen *(orobat **domeinatu**)* **1** du *ad* menderatu, mendean eduki.

Ez litzateke errealitatearen gaineko fikziorik egongo baldin gizakirik ez balego; eta gauza demostratua da gizakiak, gizaki denetik, errealitatea ikusi, interpretatu, **dominatu** behar izan duela. Anjel Lertxundi

Merkatariek **dominaturiko** herria baitzen S.Vicente, eta gremioa zuten bilgune. aurkezpen on batek, normalki, lan on bat esan nahi du, ikasleak akademiako estandarrak **dominatzen** dituen seinale baita. Bego Montorio

Aitzitik, Modernitatea "giza eskubide naturalen" aroa da hiriaren aurrez aurre, eta gizakiak Natura kasik etsai bat bezala menperatzeko eta **dominatzeko** aroa ber denboran. Joxe Azurmendi

Atzean, Elkorok oso ondo eutsi zion, **dominatu** gabe baina zakur zaharra dela erakutsiz. Berria - Kirola

Bi bikoteak elkar ezin **dominatuta** ibili ziren partida guztian zehar, horrek dakarren nekearekin. Berria - Kirola

### 2 nagusi izan, nagusitu.

Oraindik ere belaontziak **dominatzen** zuen mundua. Pablo Sastre

Nazioarteko ekonomia 40.000 transnazionalek **dominatzen** dute. Iñaki Heras

"De hominis dignitate" ideiak **dominatzen** ditu Pico della Mirandola edo Ficino-ren filosofia ez ezik, pintura eta eskultura berriak ere. Askoren artean

Horrela erlatibismoaren kontzientziak "balioen filosofiak" piztarazi ditu, krisiarekin batera, XIX. mendean (Lotze, etc.), XX. mendeko lehen laurdena ere **dominatuz** . Joxe Azurmendi

### 3 ikusmenean izan.

Donibane Garazi **dominatzen** duen gaztelua kolegio bat da. Berria - Euskal Herria

*Robert College*ren erdigunea -Hamlin Hall, Mehmet Konkistatzailearen Europako gaztelua **dominatuz** - Cyrus Hamlinek eraiki zuen. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aise dominatu** (4); **aise dominatu zuen** (3); **behera dominatu** (3); **dominatu behar** (3); **dominatu eta** (3); **dominatu zuen** (10); **dominatzea lortu** (5); **goitik behera dominatu** (3)

---

**dominatxo** *iz* domina txikia; *adkor* domina.

Tolosako Oargi mendizale elkarteko bazkide ginen, eta mendi gailurretako buzoietan txartelak utzi ohi genituen, ordainean, urtean zehar egindako mendien alturak batuz 25.000 metro osatuz gero, **dominatxo** bat jasotzeko. Juan Luis Zabala

Urtero irabazten genuen **dominatxoa**, eta atxikimendu maitekorra genion gure kirol-garaipen xume eta herrikoi hari. Juan Luis Zabala

---

**dominatzaile** 1 *izond* menderatzailea.

G. Vacher de Lapouge-rentzat [...] eliteko arraza, **dominatzaile** eta kreatiboa ("homo europaeus") nordikoa da. Joxe Azurmendi

Klase **dominatzaileak** boterea emango al dio herriari negoziaketen bidez? hori da gure galdera. Berria - Mundua

Sariak eta zigorrak erabiltzen ditu kultura **dominatzaileak** bere helburuak lortzeko. Luis Elberdin

Beraiek dira identitate **dominatzaileak** razional, liberal, moderatu bezala jendaurrean justifikatua agertzeko [...] behar duen berme baliotsuena. Joxe Azurmendi

Jokabide horiek ezarritako normetatik kanpo daudenez, anormaltzat jotzen dituzte, eta kultura **dominatzaileak** mespretxatu egiten ditu. Luis Elberdin

**2** nagusitzen dena.

Michael Shumacher izan zen bizkorrena, baina Ferrari etxea izan zen Australiako sari nagusiko entrenamenduetan **dominatzailea**. Berria - Kirola

Arraunean hainbat aro izan dira, eta aro bakoitzak pare bat edo hiru **dominatzaile** izan ditu, baina, hala ere, denbora tarte handiak izan dira Kontxako Banderaren amaieran. Berria - Kirola

Beroketa besterik ez zen hura, ordea, tanto motzak, **dominatzaile** garbirik gabe, eta huts handiekin. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kultura dominatzaileak** (3)

---

**dominazio** *iz* nagusigoa; mendekotasuna. ik **dominio.**

Belaunaldi batek bere **dominazioa** ongi finkatua du, bere merituz lortua duena: Atxaga eta horien belaunaldia. Berria - Kultura

Eta ez badut esperientzia hau bukaeraraino kontatzen, emakumeen errealitatea lausotzen lagunduko dut eta munduko gizonezkoen **dominazioaren** alde jarriko naiz. Joseba Urteaga

**Dominazio** kulturalaren aurkako sentikortasuna. Berria - Kultura

Ez du batere zerikusirik razionalitatearekin edo helburu idealen teleologiaren batekin, Botere beltz eta **dominazioarekin** baino, eta monarkia eta konkistaren printzipio barbaroarekin. Joxe Azurmendi

Baieztapen hau, ordea, ez da sozialki onarturiko gezur handi zanpatzaile horietako bat baizik, gainerako biztanleenganako mundu honetako gidari handien **dominazio** modu bat. Iñaki Heras

**Dominazioak** eta men egiteak ere bat egiten dute harekin. Berria - Kultura

---

**domingero** *izond/iz adkor* hobbyetan igande eda jaiegunetan baino aritzen ez dena.

Portuan, enbarkazio gehienak herrikoak ziren, bertako arrantzaleenak, baina aberats **domingeroen** bi yate ere bazeuden, udaldian erabiltzen zirenak batez ere. Joseba Sarrionandia

-Nola jasan dezakek halako **domingero** koadrila bat hire inguruan? -galdegin zion lehengoan Fernani. Aingeru Epaltza

Leku txiki, heze, zikin, triste, **domingeroen** hondarrez betea iruditzen zitzaidan orain, bertara joanda. Iñaki Iñurrieta

---

**domingotar** *izlag/iz* elizgizonez mintzatuz, San Domingoren ordenako kide dena. ik**dominikar 2**.

Fraide Predikatzaileek (**Domingotarrek**), beren aldetik, Domingo santuaren bizkar jarri dute Elizari eusteko eginbehar hau. Askoren artean

**Domingotar** fraideen komentuan hetsirik bizitzera. Piarres Xarriton

Alberto Iglesias **domingotar** apaizak eraikin berria bedeinkatu zuen ondoren. Berria - Kultura

Ezin da ziur jakin, Zelano hemen frantziskotar bi Ordenez (Anaia txikienaz eta Klaratarrenaz) ari den, ala frantziskotar eta **domingotar** Ordenez. Askoren artean

Moja **domingotar** batek abesten zuen, *Soeur Sourire,* gitarra batez lagundurik. Joseba Urteaga

Borbongo Eztebe, **domingotarra** (1261ean †). Askoren artean

Lateranoko IV. Kontzilioak 1215ean ezarri zuen debekuak -erregela berririk ez zitekeela idatzi, alegia- ez zituen frantziskotarrak harrapatu; **domingotarrek**, aldiz, geroago onartuak izan zirenez, S. Agustinen Erregela hartu behar izan zuten. Askoren artean

1246an, Predikarien Ordenako Maisu jeneral Joan Teutonikoak entziklika bat bidali zien **domingotarrei** Anaia txikienganako onginahia eta onarpena aholkatuz. Askoren artean

James Alison 1981. urtean sartu zen Erresuma Batuko **domingotarren** kongregazioan. Berria - Euskal Herria

Hiriko **domingotarren** komentuan behin baino gehiagotan san Tomasen hilobia agurtzen izan zen. Piarres Xarriton

Aita Hiazinto Woroniecki, poloniar printze eta **domingotar** jakintsua. Piarres Xarriton

---

**dominikano** 1 *izond/iz* domingotarra.

Teologo **dominikano** bat. Piarres Aintziart

Apezturik sartu zen **Dominikanoetan** eta hor bere buruzagiek igorri zuten Hego Ameriketarat eta hantxet egin du bere apez lana. Herria

Lula-ren adixkide den **Dominikano** hau "GOSERIK EZ" kanpainaz arduratzen da, Brasilen 45 miliun biztanle goseak jotzen baititu. Herria

**2** *izond* dominikarra, Dominikar Errepublikakoa.

Inkesten arabera, Askapen Alderdi **Dominikanoa** alderdiko Leonel Fernandez da hautagai faboritoa. Berria - Mundua

Egungo presidente Alderdi Iraultzaile **Dominikanoko** Hipolito Mejiak, berriz, bozen %27eskuratuko lituzke. Berria - Mundua

---

**dominikar** 1 *izlag/iz* Dominikakoa edo Dominikar Errepublikakoa, Dominikari edo Dominikar Errepublikari dagokiona; Dominikako edo Dominikar Errepublikako herritarra.

Autoan bertan **dominikar** mediku batek injekzio loeragilea sartu zion. Edorta Jimenez

**Dominikar** erbesteratuen zirkuluetan sartu ahal izateko estakuru, aitzakia edo koartada moduan ustezko tesi baten idazketa erabiltzea. Edorta Jimenez

Jenerala Trujilloren ahaidea denez, honezkero Bosch **Dominikar** Armadako ofiziala da. Edorta Jimenez

Ikaragarri bezain zinematografikoa da Trujillo diktadore **dominikarraren** aginduz 1956an New Yorken bahitu, torturatu eta betiko desagerrarazi zuten Jesus Galindezen bizitza. Martin Anso

Zakar hartu zuen neska **dominikarra**, kontrolatzera bidalia zelakoan. Patxi Iturritegi

Hector, Francisen mutilaguna da, **dominikarra**. Harkaitz Cano

Bost milioi **dominikarrek** dute bozkatzeko eskubidea igande honetan. Berria - Mundua

**Dominikarren** lehendakari ohiak. Berria - Mundua

Otsailaren 14an Ouanaminthe herrian bahitutako hamabi **dominikarrak** atzo askatu zituzten. Berria - Mundua

**2** domingotarra.

1314an jadanik Strassburgen dago **Dominikar** Komentuaren Nagusi bezala eta hiri horretan loratze-gune nagusia izan zuen alemaniar Mistika indartsuaren gidari gisara. Joan Mari Lekuona

Lehen predikari **dominikarra**, Johannes Eckhart da, alemaniar Mistikaren ordezkari indartsu eta sakonena. Joan Mari Lekuona

Ordena **dominikar** berri eta berritzailearen komentuak, eta hemen zehatzago esateko lekaime **dominikarrenak**. Joan Mari Lekuona

Aski genuen aita Boyer jesuita edo aita Garrigou Lagrange **dominikarra** entzutea [...] aita Teilhard de Chardin, aita de Lubac edo aita Congar batzuez hitz egiten, asmatzeko zer ote ziren Joana Arkekoaren edo Savonarolaren denboretako inkisidoreak. Piarres Xarriton

**3** ***Dominikar Errepublika***

Hispaniola uhartearen hegoaldean izan da hondamendi handiena, **Dominikar Errepublikak** eta Haitik muga egiten duten eremuan. Berria - Mundua

Horrez gainera, zerbait gertatu bide zitzaion Jesus Galindezi **Dominikar Errepublikan** bizi izan zen denboraldian, Rafael Leonidas Trujillori betierako mendeku mina gorde ziezaion. Edorta Jimenez

Manhattango etxebizitzan sorgortu, bahitu eta hegazkinez **Dominikar Errepublikara** eraman zuten, Leonidas Trujillo diktadorearen aginduz, eta hantxe bertan akabatu zuten, torturatu eta gero. Berria - Kultura

Manhattango etxebizitzan sorgortu, bahitu eta hegazkinez **Dominikar Errepublikara** eraman zuten, Leonidas Trujillo diktadorearen aginduz, eta hantxe bertan akabatu zuten, torturatu eta gero. Berria - Kultura

Pascual hau **Dominikar Errepublikako** polizia izan zen eta urte mordoan Haitiko mugan lan egina. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dominikar errepublika** (25); **dominikar errepublika eta** (5); **dominikar errepublikak** (13); **dominikar errepublikak eta** (3); **dominikar errepublikako** (37); **dominikar errepublikan** (32); **dominikar errepublikara** (15); **dominikar errepublikaren** (4); **dominikar errepublikatik** (5); **eta dominikar** (19); **eta dominikar errepublikak** (6); **eta dominikar errepublikako** (4); **eta dominikar errepublikan** (6); **haitin eta dominikar** (4)

---

# dominiko *izond/iz* domingotarra.

Zuek... zuek fraide **dominikoak** zarete, ezta? Koldo Izagirre

Zuzendari jauna, mesedez, ez dut ez **dominikorik** ez jesuitarik ez ezertariko fraiderik gura inguruan ez gaur eta ez bihar! Koldo Izagirre

Rieux delako bat zen, frantses irakaslea, pikardiarra, **dominiko** ohia. Aingeru Epaltza

Eliza ere gainezka zegoen, jaun inkisidorea, **dominikoen** ordenakoa, meza ofiziatzen hasi zenean. Joan Mari Irigoien

---

# dominio *iz* mendeko lurraldea, agindupeko lurraldea.

Baina monarkia gehien ahuldu zuen gauza, printze hark bertako **dominioak** ezabatu izana izan zen. Iñaki Iñurrieta

Ezin dugu, beraz, pentsatu bere Probidentziaren legeetatik at utzi nahi izango zituenik gizakien erresumak, **dominioak** eta morrontzak. Imanol Unzurrunzaga

---

# doministiku *(46 agerraldi, 22 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 423 agerraldi)* **1** *iz* sudurretik eta ahotik biriketako airea nahi ezik eta indarrez jaurtitzea. ik **usin**.

Deitu nion, eta hitz totel batzuk eta **dominstiku** bat entzun nituen. Koro Navarro

Inguruan bozkariozko hotsak, plisti-plasta, zintz egite eta **dominstikuak**. Urtzi Urrutikoetxea

Zorionez, Snapek **dominstiku** egin zuen Ronek biraoa bota zuen ia une berean. Iñaki Mendiguren

Hiesa ez da kutsatzen eztularen edo **dominstikuen** bidez, ezta edalontzi eta jangailuen bidez ere. Luis Elberdin

Esalege horrek, **dominstikua** berez zori onaren edo gaitzaren adierazle izan zitekeela erakusten digu. Patziku Perurena

**2** ***dominstiku egin***

Patioan, neguan, txistua botatzen zuen eta **dominstiku egiten** zuen lasai-lasai. Joseba Urteaga

**Dominstiku egin** nuenetako batean, Dartaietek bere musuzapia pasatu zidan. Anjel Lertxundi

Askotan ikusia nago gure ama, belar izpi batekin sudur zuloak apropos zirikatzen, **dominstiku egin** eta burutik behitiko kargamenak uxatu nahian. Patziku Perurena

Michel de Montaigne argiari ere leitua diot [...] **dominstiku egitea**, funtsean, zentzuak garbitzea edo izpiritua purifikatzea baizik ez dela. Patziku Perurena

· **Dominstiku** saio-luzeak **egiten** edo belarrietan tapoiak jartzen. Jon Alonso

**3** ***dominstiku eragin***

Katuak ez dodaz gogoko, **dominstiku** eginarazten deuste. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dominstiku egin** (6); **dominstiku egiten** (3); **dominstikuen bidez** (3); **eta dominstiku** (4)

---

# dominstikuka *adlag* dominstiku egiten.

**Dominstikuka** irten zen dendatik. Juan Garzia

Bere ikaskideak eztulka edo **dominstikuka** hasiz gero, sinuka hasten da bera, eta irain larriak botaka: [...]. Garaitsu hauen inguruan ospatzen diren inauteriko mozorroekin ez deskuidatu, gero **dominstikuka** ez baduzue ibili nahi! Bernardo Atxaga

*San Blas,* ***dominstikuka*** *ito behar naz!* omen zioten Durango eta Abadiño aldean. Pello Zabala

---

# domino **1** *iz* mahaiko jokoa, bi karratu puntudunetan zatituriko 28 fitxa laukizuzen zurirekin erregela jakin batzuen arabera jokatzen dena; dominoan jokatzeko fitxen multzoa.

Bidaiariek kafea eskatu zuten eta **dominoan** jokatu zuten. Josu Zabaleta

Larunbat gauean soldata osoa etxera eramaten zuen eta bere andreak aste-saria ematen zion **dominoan** jokatzeko eta baso erdi batzuk hartzeko. Joseba Urteaga

Kafean geratzen ziren bezeroak **dominoan** edo karta jokoan ari ziren. Patxi Zubizarreta

**Dominoko** fitxekin ibiltzen da bukian, ezjakina. Anton Garikano

Ez daukagu ez kartarik ez partxisik ez **dominorik**. Karlos Linazasoro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure inguruan, bezeroak, fusila belaun gainean zutela, **domino**-jokoan ari ziren. Juan Kruz Igerabide

Igandeetan, bainua, meza, **domino**-partida edo autoan paseoa arratsaldean. Joseba Urteaga

**Domino**-fitxen modura erortzen dira orduan, aurrez hain ongi prestaturiko hitz, esaldi, errima eta argudioak. Andoni Egaña

Eta Allikeneren ordezko lau etxaburuak, bart azaldu neuanez, lau **domino** piezatxu zut... Txillardegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goian-behean ari zuen euria, eta ohi baino lehenago bildu ziren besteak ere arratsalderoko buki-**domino** partidara. Anton Garikano

**4** irud/hed

Errusiar **dominoa** erori orduko, Brasilera jo zuten merkatuek. Koro Navarro

Ibiltzeko ere, lanak: beldurrez ematen nuen pauso bakoitza, uste bainuen aski izango zela liburu bakar bat ukitzea den-dena erortzeko **domino**-efektuaren eraginez. Anjel Lertxundi

Citroen itzultzen bada, litekeena da talde gehiago ere itzultzea; aurten bezala, **domino** efektua egon daiteke. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **domino efektua** (5); **domino jokoan** (3)
> **dominoko fitxak** (3)

---

# domintxaintar *(corpusean **domintxindar** soilik)* *izlag/iz* Domintxainekoa, Domintxaineri dagokiona; Domintxaineko biztanlea.

**Domintxindar** hau Saran bizi da gaur. Herria

Bihurgune horietaz ari zaigu **domintxindarra**, sortzetik hasita. Herria

---

# domo *iz* kupula.

Haietatik gailen, dorreak, kanpandorreak, minareteak, hirurehun elizaren kupulak nabari ziren, **domo** berdez estalirik eta erpinean zilarrezko gurutze bana zutela. Karlos Zabala

Kupulak eta kanpandorre txikiak ageri dira, puntetan orratz segailak zerura, minareteen antzekoak, eta **domo** sabel-handiak apaingarri, potiz japoniarrak irudi dutenak. Karlos Zabala

Moskuko Transvaal ur parkeko igerilekua estaltzen zuen kristalezko **domo** erraldoia eraitsi zen atzo, eta bainua hartzen ari ziren zazpi lagun hil zituen. Berria - Mundua

---

# domotiko *izond* eraikinez mintzatuz, aplikazio elektroniko eta informatikoez hornitua.

Etxe **domotiko** bat zabaldu dute Bartzelonan, garun-paralisia eta beste zenbait ezintasun dituzten pertsonentzako. Berria - Gaiak

---

# Domu

**1** ***Domu Santu*** *(orobat **domusantu** g.er.)* *iz* santu guztien eguna.

**-Domu** Santu delako gaur -are ahots xaloagoz. Unai Elorriaga

**Domu** Santu bezperaz eta eguraldi euritsuaz hasi zitzaion hizketan jauna. Irene Aldasoro

Su bizi ederra zegoen, eta baxerategi baten gainean **Domu** Santu bezperako lau opil handi ageri ziren. Irene Aldasoro

Etxekoneko bi neskatilek **Domu** Santuko jolas batzuk antolatu zituzten eta berehalaxe alaitu ziren denak. Irene Aldasoro

· Mexikar batek iragarri zion profezia Henry Swollenfoot-i, **Domu** Sainduen bezperan: aita erailko zuen, eta amarekin oheratuko zen. Javi Cillero

**2** ***Domu Santu egun***

**Domu Santu** egunean lore asko saltzen dira, Kolonbiakoak gehienak. Unai Elorriaga

Baina antzeko poza sentitzen zuen Marcosek udaberriaren hasieran edo Santa Ageda edo **Domu Santu** egunean... Unai Elorriaga

-Ni **domusantu** egunean etorri izan naiz urtero, baina ez daukat akorduan hemen lorerik ikusia inoiz. Koldo Izagirre

Herguera **Domu Santu** Egunez iritsi zen Villagomezen etxera, eta han haren ama aurkitu zuen, senar zenaren errautsak urtero bezala garbitzen, berriz errauts-kutxan sartzeko. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **domu santu** (10); **domu santu egunean** (3)

---

# domuru

**1** ***Domuru Santuru*** Domu Santu eguna.

Bigarren batek honela dio: **Domuru** santurutan, arima pielak kandela argitan. Pello Zabala

---

domusantu ik **domu**.

---

# don *(orobat **Don**)* **1** *iz* gizon helduentzako trataera. ik **on**[1].

Hurrengo igandean, elizara iritsi nintzenean harmonioa jotzera, aitorpenek on egiten zutela esan zidan **don** Hipolito erretoreak agurtu orduko. Bernardo Atxaga

Arestian aipatu dugun **Don** Juanek (**Don** Carlosen aitak), egun haietantxe egin baitzion muzin, ofizialki eta Parisen, Espainiako tronuari. Txillardegi

Une hartan bertan iritsi zen **don** Karlos Borboikoa, erregenahia, jeneral karlisten estatu nagusiaz eta Vendéeren aldeko zenbait frantsesez inguratua. Koro Navarro

Andres Hurtadoren familiak eta **don** Píorenak berarenak badute antzekotasun bat baino gehiago. Josu Zabaleta

-Ez, **don** Leonardo; ez, nik dakidala -erantzun zion mezulariak, begiak zoruraino jaitsiz. Felipe Juaristi

Ni niz **don** Michelco Ortitz de Miranda, San Augustinen kalonjeen ordenakoa, hemengo musika maisua eta liburuzaina. Michel Oronoz

-Berori ez al da **don** Roman? Inazio Mujika Iraola

Ez gaituk basatiak -gehitu zuen, tartean sarturik, **don** Ottaviok. Jon Muñoz

-Santu guztien egunetik aurrera hobe zenukete alde egitea -esan zigun **don** Tirsok-. Xabier Mendiguren Elizegi

Esaiok **don** Pedrori oraintxe joango natzaiola."Fierabraseko baltsamoz" sendatu nahiko ditu **Don** Kijotek bere zauriak. Juan Garzia

Ez da ikusten, katalan batek **Don** Pelaio zergatik kontsideratu beharko lukeen bere historia propioagoa Joana d'Arc baino. Joxe Azurmendi

Zakurrak dirua balu, **Don** Zakur. Gotzon Garate

---

dona ik **andredena**.

---

# donado *izond/iz ipar* ezkongaia; bereziki, mutilzaharra.

Egun horretan **donadoak** eta mutxurdinak bazihoazen Donibanera, elgar ikusteko eta geroko esposgai baten atzemaiteko menturan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bera eta andreaz bestalde, etxe handi hartan bizi zen Xan, haien semea, berrogeita hamar inguruko **donadoa**, sekulan ezkontzeko ideiarik agertu ez zuena. Elena Touyarou

Halaz **donadoen** bakartasunean ezjendetzen ari ziren. Itxaro Borda

Sohüta gaineko Hoki auzoan bazaukan idazleak osaba **donado** bat, ermita gisa bizi zena. Herria

---

# donadu *iz* erlijio ordena batean zerbitzari dagoena, elizgizon soineko daramana baina profesa egin ez duena.

Eta Jainko Jauna Eliza santu katoliko eta apostolikoaren baitan zerbitzatu nahi duten guztiei, maila guztietakoei: apaiz, diakono, subdiakono, akolito, exortzista, irakurle, atezain eta kleriko guztiei, erlijioso eta erlijiosa guztiei, **donadu** eta postulante guztiei, behartsu eta txiro, [...]. Askoren artean

---

# donaixtiar *izlag/iz* Donaixtikoa, Donaixtiri dagokiona; Donaixtiko biztanlea.

Haitada eder batzuen ondotik hiru eta huts Terexa Etcheto eta Maritxu Sainte Marie **donaixtiarren** kontra irabaziz. Herria

Halaber **Donaixtiarrak**. Herria

---

# donamartiar *izlag/iz* Donamartikoa, Donamartiri dagokiona; Donamartiko biztanlea.

Eta horra **donamartiarra**, azkaindarrarekin, haundien lerroan. Herria

Galdurik ere sake ateratzale ederra ikusi dugu telebixtan **donamartiarra**. Herria

---

donamartiriar ik **donamartiritar**.

---

# donamartiritar *(orobat **donamartiriar**)* *izlag/iz* Donamartirikoa, Donamartiriri dagokiona; Donamartiriko biztanlea.

Duela zenbait egun, Goanetxeko Sylvie Bordarrampe-k hartu du espos laguntzat Christian Pagadoy **Donamartiritarra**. Herria

Badu 10 urte prima hori Baigorriko pitzle taldeak (Syndicat d'Initiative) emaiten duela 2 urte segidako irabazleeri, Baigorriarrek, **Donamartiritarrek** eta bankarrek irabazi dutena. Herria

Kattalin sortzez **Donamartiriarra**, fede handiko emaztea, bere adin handian oraino bizi, merezituak zituen ehorzketak ukan ditu Angeluko Bernardinen komentuan. Herria

**Donamartiritar** andana bat ere juntatuz zeremonian otoitz egiteko hil soldadoen orroitzapenetan. Herria

---

# donapaleutar *izlag/iz* Donapaleukoa, Donapaleuri dagokiona; Donapaleuko biztanlea.

Lehengo udaberrian **donapaleutar** erreformazaleen sarraskian parte hartu zuten herritarren zerrenda da. Aingeru Epaltza

Hain justu ere, Etxeberri ministroak bere etxolaren luze-zabaletan erakutsi nahi izan zien **donapaleutar** burugogorrei Erlijioaren indarra. Aingeru Epaltza

Robert Poulou-k aipatu ditu jazko gora-beherak eta oroitarazi berrikitan zendu zela pilotari bat paregabea, Jean Urruty **Donapaleutarra**. Herria

Helena Guéraçague, 74 urte, **Donapaleutarra**, betiko euskalzale suharra, Nafarroa guzian gaindi ainitz ibilia. Herria

Hor bi partida irabazi dituzte bat **Donapaleutarreri** eta bertzea Mugertarreri. Herria

Atxiki ttipian, Xantxo Isteque eta bere lagunek jo dituzte **donapaleutarrak** finalerdian, Kanbon, 40-10. Herria

---

# donari *iz* emaitza, saria.

**Donariak** ez ziren gehiago izan zerbitzuen saria edo itxaropena. Iñaki Iñurrieta

Hori izan zen, partez behintzat, Karlos Martelek **donariak** ematearen kausa, hala alodio gisa nola feudo gisa. Iñaki Iñurrieta

Alde batetik, berretsi egiten ditu bertan bere aurreko erregeek emandako edo berretsitako **donari** guztiak; eta bestetik, zera agintzen du, bere leude edo leialei kendutakoa itzul dakiela. Iñaki Iñurrieta

Badu egi antzik nobleek, jadanik bai baitzeuzkaten feudoak, hobeto iritzi ziotela **donari** berriak alodio gisa hartzeari, eta gizon libreek pozik asko hartu zituztela feudo gisa. Iñaki Iñurrieta

Andelyko itunea, Gontranek eta bere iloba Txildebertok aurreko erregeek leudeei eta elizei egindako **donariak** bere hartan uzteko hitza eman zuten. Iñaki Iñurrieta

Egin guri eta obrari zuen gupidaren **donari**; otoi, pazientziaz adi. Juan Garzia

Liburu honetan segidan erakutsiko dut ezen, printzeek aldi baterako egindako **donariez** gainera, bazirela betiko egin zituzten beste batzuk. Iñaki Iñurrieta

---

# donario 1 *iz* dohaina, grazia.

Sekula emakume gazte batek izan duen bihotz-ebasle ospe handiena lortu zuen Barbarak: neska haren **donarioak** zentzua lapurtu ziela esan ohi zuten inguruetako mutil gazteek, amodio-minetan egoteak loa ebatsi ziela ostatutik igarotzen zirenek, neskaren bihotz-hoztasunak taupadarik gabe utzi zituela inguruko gizonezko guztiek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arropa garbitzen ari da neska bat, beti bezala polita eta **donarioz** betea. Koldo Izagirre

**2** baretasuna, gelditasuna.

Euria hasten du, **donarioz**, xehe. Anjel Lertxundi

## **donazahartar** *izlag/iz* Donazaharkoa, Donazaharri dagokiona; Donazaharko biztanlea.

Orduko "Eskualduna" Baionako astekariak zabaldu zuen Luis Etcheverry, **donazahartar** deputatuaren deia karia horretara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Herriko elizan ezkontzako sakramenduak elgarretaratu ditu Marie-Pierre Oçafrain Ispilako alaba eta Guy Halty **donazahartarra**. Herria

Sortzez **Donazahartarra**, bere bizia Pariseko ondoan eginik, duela urte andana bat Izura Etxola erosirik erretiratu da Euskal Herria maite zuelakotz. Herria

Jendalde ederra aurkitu da Martinen ehortzketetan, **Donazahartar**, Aihertar bai eta ainitz ofiziale. Herria

Bazituen irabazleak 10 sake sartuak eta 7 **donazahartarrak**. Herria

---

## **donazio** 1 *iz* emaitza.

Eusko Jaurlaritzak bizidunen organoen **donazioa** bultzatuko du. Berria - Euskal Herria

Izugarri jaitsi da **donaziorik** egiteko baimenik ematen ez duten hildakoen familien kopurua. Berria - Euskal Herria

Osasun sailak bizirik diren pertsonen **donazioa** lortzeko bidea urratuko du, batez ere giltzurrunak (bi izanda ere, batekin bizitzea badagoelako) eta gibelak (zati bat kenduta, organoa berriro sortu egiten baita berez) jasotzeko. Berria - Euskal Herria

Aldaketak **donazio** nahiz transplanteetan. Berria - Euskal Herria

**2** dohaintza.

Ezkondu, ia behin bakarrik ezkondu ohi da bat; **donazio** edo testamentuak ez dira egunero egiten; behin bakarrik iristen da adin-nagusitasuna. Iñaki Iñurrieta

[Ez daki] ezta ere Bill Gates Osasuneko Mundu Erakundeari **donazio** bat egitea pentsatzen ari denik gaitz larriei buruzko ikerketak gauzatzeko. Pako Aristi

Eskolatik irten eta, sarritan, *suscripciones patrioticas* deitzen zirenak egin behar genituen, **donazioak** bildu eta inbentarioak eginez. Joseba Sarrionandia

OHZrekin lotutako beste puntu batek **donazioak** edo herentzia bidez jasotako ondasunak dira, horien gaineko zergarik ere ez duelako ordaintzen Eliza katolikoak. Berria - Harian

Bakoitzak bereari begiratuko lioke, berea gordetzeari, **donazio** anonimoen aldeko hautua albora utzita... Berria - Gaiak

Lehenago ustelkeria eskandalu batean murgildua egon zen, bera buru zen Alderdi Kristau Demokratarako legez kanpoko **donazioak** jasotzeaz akusatuta. Berria - Mundua

---

## **done** *(92 agerraldi, 8 liburu eta 41 artikulutan; ETCn 1.991 agerraldi)* **1** *iz* santua. (izen soila santuaren izenaren ezkerrean) ik **jondoni**.

**Done** Bizente argia, guztiontzat dakar ogia. Pello Zabala

**Done** Saturdiko burgoaren ondoan agertu dira hilobiak, baina 1107. urtekoak dira eliza honen gaineko lehen aipuak. Berria - Harian

Zer ote zen ba **Done** Juan de la Cruz-en mistika, sentimenduaren jainko-erako zalduntza ibiltaria besterik? Joxe Azurmendi

Teok ez zuen batere asmatu deia egin zuenean, zeren **Done** Mikeli deitu ordez [...] Jose María Escriva dohatsuari deitu baitzion laguntza eske. Josetxo Azkona

Jondoni Jakobe edo **Done** Jakue urtea dugu aurtengo hau. Herria

Ordutik milaka eta milaka euskal herritarrek eta atzerritarrek egin dute Santiagora arteko bidea, **Done** Jakue apostoluaren gorpuzkina gurtu eta haren aurrean ahuspez jartzeko erromesaldia. Berria - Harian

Une hartan izarrek zeru guztia estali zuten, ñir-ñir egin zuten ur gaineko islak bailiran, **Done** Jakueren bide zuriari tokia eginez. Jon Alonso

*ik beherago* 4. Askoren artean

Jaun **Done** Jurgiren gurutze gorria, zelai zurian (Ingalaterrarena), izan zezakeen bere, baina faxistek eta hooligan buruberoek ohostu diote. Berria - Kultura

**2** (santuaren izenaren eskuinean)

Arabako Jaunak 1167an Aralarko Mikel **Doneari** egiten dion eskaintza batean. Patziku Perurena

Ezkutu hura pozarren hartu zuten Esteban **Donearen** elizan; lur hartako jendeak ikusten zuenean, negar egiten zuen, Lancelot betiko joana zelako. Juan Kruz Igerabide

Pasa den astelehenean Alberto Magno **Donearen** eguna ospatu genuen. Berria - Gaiak

Hor daukagu Maurizio **donea**, [...], halakoren batean, lehorte makurren bat nozitu zutelako, euri ongarria erakarri omen zuena. Pello Zabala

Aldarea txopako gazteluaren itzalpean atondu zuten, Stella Maris Andre Maria **Donearen** irudiaren aurrean. Edorta Jimenez

Konjuru gisara botariko otoitz-motoitz horietakoa dirudi, Klara **donea** eta Gurutze santua biak aurrean paratuta. Pello Zabala

**3** (izenondo gisa)

Ingura ezazu, ene jainkosa, zure gorputz **donean** pausatzen den hori, eta isur zure ahotik hitz gozoak, Erromatarrentzat, ene andreguren, bake nasaia eskatuz. Xabier Amuriza

Intsentsu atsegina erretzen dugu haren ohoretan beraren aurrean maitasun **done** eta debotoak sutan jartzen gaituenean. Imanol Unzurrunzaga

**4** ***Done Jakue*** *(58 agerraldi 28 artikulutan; orobat* ***Donejakue*** *g.er.)* **bide** ik **Santiago**.

**Done Jakue Bidea** Euskal Herritik barrena doa Santiagora. Berria - Harian

Oriotik barrena joaten dira **Done Jakue Bidea** egiten duten erromesak. Berria - Harian

**Done Jakue bidean** gune garrantzitsua da Orreagako herria. Musika erromesaldia egingo dute kostako **Done Jakue Bidean**. Berria - Euskal Herria

Iruneko Ziudadelako Polvorin erakustokian **Done Jakue bidea** egin zuenean margotutako akuarelak bildu ditu Antonio Hurtado pintoreak. Berria - Kultura

Bi eskalek **Done Jakue Bideari** ekingo diote, eta bidaian zehar hainbat pertsonaiarekin topo egingo dute. Berria - Kultura

**Done Jakue bideaz** mintzatu da Gasteizen Paulo Coelho, Santa Maria fundazioak gonbidatuta. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aralarko mikel donea** (4); **done jakue** (67); **done jakue bidea** (20); **done jakue bideak** (3); **done jakue bidean** (8); **done jakue bidearen** (8); **done jakue bideari** (9); **done jakue bideaz** (3); **done jakue bideko** (6); **done jakueren** (8); **donejakue bidea** (4); **donejakue bidean** (3); **donejakue bidearen** (5); **donejakue bideari** (3); **donejakue bideko** (5); **donejakuerako bidean** (4); **kostaldeko done jakue** (3); **mikel donea ikastetxeko** (4)

---

## **doneztebar** *(orobat* ***doneztebear****)* *izlag/iz* Nafarroako Doneztebekoa, Donezteberi dagokiona; Doneztebeko biztanlea.

Hernaniko Galarretan, aldiz, estelar dotorea antolatu dute: Ezkurra eta Lizaso **doneztebarrak** elkarrekin arituko dira, eta Altuna anaiak eta Etxabe izango dituzte kontrario. Berria - Kirola

Altuna II.ak estu hartu zuen **doneztebarra**; Iñaki Lizasok ostegunean Ezkurra izango du aurrean. Berria - Kirola

Ezkurra eta Badiola ohartu zirenean Altuna I.aren txakalaldiaz, aurrelari **doneztebarrak** bizitu egin zuen partida. Berria - Kirola

Gaur Galarretan jokatuko dute berriro, **doneztebarrak** atzean Urko lagun duela eta Lizasok Imanol Altuna amezketarra aurrean duela. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**lizaso doneztebarrak** (3)

---

doneztebear ik **doneztebar**.

---

# **donge** *izond/iz* gaiztoa.

Ateorik ospetsuena da eta, gizonik inmoralena... Nongoa da? ez dakit nola jokatuko nukeen, oso beste era batera nolanahi ere, esan beharrik ere ez, ez bainaiz makurra, alabatzat tratatuko nukeen alaba, ez bainaiz **dongea** !Galdukeria hutsa da, munduan izan daitekeen gizon maltzur eta **dongeena** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

"Ospeagatik" egindako gerra duk, gerra klaserik **donge** eta madarikatuena. Koldo Biguri

Eta biziko dira zure umeak (hitz dontsu zein **dongeak** ), hilik. Anjel Lertxundi

**Donge** haren buruan ukabila dantzatzeko gogo bizi-bizia zeukan. Koldo Biguri

---

# **dongekeria** *iz* gaiztakeria.

Baina **dongekeria** horrek eramanda, natura arraro honen berezko joerei amore emango bagenie, eta gure lagun hurkoaren bizitzaren aurka atentatuko bagenu, esate baterako, onartuko didazue ekintza hori krimena izango litzatekeela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

doniandar ik **donibandar**.

---

# **donibandar** *(orobat* ***doniandar*** *g.er.)* *izlag/iz* Donibanekoa, Donibaneri dagokiona; Donibaneko biztanlea. *(Donibane Lohizunekoa)*

Euskal literaturan ezaguna den Bernard Larreguy-Haraneder **donibandar** apezak, adibidez, frantsesezko eskuizkribu bat ere idatzi zuen. Piarres Xarriton

Dolabaratz kapitainaren laguntzarekin, Joannis Batkin 20 urteko **donibandar** arrantzalea sartuko da abentura hortan, itsas-lasterkari gisa... Herria

Michelle Alliot-Marie **donibandarrak** Defentsa ministro izaten segituko duela erabaki du Raffarinek. Berria - Mundua

Ez da **Donibandarra** baina Baionesa. Ramuntxo Etxeberri

Horra hor bekatu barkagaitzak: Lizarriturriren aita **donibandarra** zela, batetik; lapurtarra. Txillardegi

Piarres Urte **donibandarra** eta Joanes Etxeberri saratarra. Koldo Zuazo

Aurten70 urte bete (edo beteko) dituzten **donibandar** eta ziburutar asko bildu dira elgarrekin bestaño bat goxoan egiteko. Herria

**2** *(Donibane Garazikoa)*

Joanes Uharte **doniandarrak** medikuntza ikasketak egin eta ogibide hori praktikatu ondoren idatzi zuen *Zientzietarako Argimenen Azterketa* (1575). Berria - Kultura

**3** *(Pasai Donibanekoa)*

B maila, narrazioa: 1° Ane Arbillaga Etxarri pasai- **donibandarra** ("Amildegiaren amaieran"), 2° Ihintza Erremundeguy baionesa ("Whiskyarekin dantzan"). Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **donibandar eta** (7); **donibandar eta ziburutar** (5); **donibandarra eta** (5)

---

# **donibandartu**, donibandar(tu), donibandartzen da *ad* donibandar bihurtu.

Gers eskualdean sortua, aspaldian **donibandartua** zen. Herria

Senperen sortua, Urruñan hazia, gazterik **donibandartua** zen Xanpun eta geroztik beti Donibaneri biziki atxikia. Herria

· Emile Larre HERRIA astekariaren zuzendariak aldiz joanden igandean Donibane Garazin, zonbait urte huntan **donibandartua** baitugu baigorriar euskaltzain hori. Herria

---

# **donostiar** *izlag/iz* Donostiakoa, Donostiari dagokiona; Donostiako biztanlea.

Jesus Maria Arozamena **donostiar** kazetari eta idazleak. Askoren artean

Hau irakurrita, zer ote diote **donostiar** jauntxo liberalek? Txillardegi

**Donostiar** jendeak, umore onaz gainera, buru ona ere bazuela gauzak buruz ikasteko. Askoren artean

**Donostiar** izaera alaia da, jostagarria, eta edozein xehetasunetan bilatzen ditu dibertsioa eta entretenimendua. Askoren artean

Haur **donostiar** bat, Jose Maria Usandizaga, pianista goiztiarra Kasinoan. Askoren artean

**Donostiarra** zen, baina umetan Baionan ikasia, eta ondoren bizitza osoan ia Euskal Herritik kanpo ibilia. Ramon Saizarbitoria

Gu biok ere **donostiarrak** gaituk! Txillardegi

Arratsalde tristea izan zen, hileta-egun hartakoa, grisa, oso euritsua, oso **donostiarra** . Iban Zaldua

Donostiako jende zintzoa, **donostiar** aspergarriak. Lourdes Oñederra

Ingelesen okupazioa baino lehenago, lehoi hura harri urdinezkoa izan zela esaten zuten **donostiar** zaharrek. Txillardegi

Darko Kovacevic-ek du **donostiarren** tanto bakarra sartu. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **donostiar bat** (8); **donostiar bat atxilotu** (4); **donostiar batek** (4); **donostiar guztiak** (4); **donostiar guztiek** (3); **donostiar guztien** (4); **gazte donostiar** (3); **urteko donostiar** (6); **urteko donostiar bat** (4); **zuten donostiar** (3)
>
> **aurrelari donostiarra** (3); **belaustegi donostiarra** (3); **da donostiarra** (5); **donostiarra da** (13); **donostiarra da eta** (3); **donostiarra ere** (4); **donostiarra eta** (7); **donostiarra ez** (5); **donostiarra ez da** (3); **donostiarra izan** (5); **donostiarra zen** (3); **ere donostiarra** (4); **jokalari donostiarra** (3); **jon belaustegi donostiarra** (3); **preso donostiarraren** (3); **urteko donostiarra** (6); **zuzendari donostiarra** (3)
>
> **donostiarrek badakite** (3); **donostiarrek etxean** (3); **donostiarrek ez** (8); **donostiarrek ez dute** (3); **donostiarrek ez zuten** (3); **donostiarrek irabazi** (4); **donostiarrek ondo** (4); **donostiarren artean** (6); **donostiarren kanporaketan** (4); **du donostiarrek** (3); **du donostiarren** (3); **dute donostiarrek** (5); **eta donostiarrei** (3); **eta donostiarrek** (9); **eta donostiarren** (4); **zen donostiarren** (3); **zuten donostiarrek** (8)

---

# **donostiartasun** *iz* donostiarra denaren nolakotasuna.

Hainbat olerkari eta bertsolarik bat egin zuten *Euskal-Erria* aldizkariak argitara emandako monografikoarekin [...] guztiak ere garai hartako **donostiartasunaren** gizon handiak. Askoren artean

Bere musikan jatorriko **donostiartasunaren** kutsua bete-betean adierazten asmatu zuen. Askoren artean

---

# **donostiazale** *izond* Donostiaren zale dena.

Oro har, Sarriegi oso **Donostiazalea** zen eta ez zen irteten hiritik askotan. Berria - Kultura

---

# donoxtiar *izlag/iz adkor* donostiarra.

Baina, hori nekez ikus (suma) lezake Ibontxu **donoxtiar** katalandu euskaldun ustekoak. Patziku Perurena

Lizarriturriren kontuez oroitu naiz memento horretan, eta Fermin Calbetónez, eta gainerako **donoxtiar** herrikideez. Txillardegi

---

# donoztiriar ik **donoztiritar**.

---

# donoztiritar *(orobat **donoztiriar** g.er. eta **dohoztiritar** g.er.) izlag/iz* Donoztirikoa, Donoztiriri dagokiona; Donoztiriko biztanlea.

Lehiaketa nagusian, ongi ezagutzen dugun **donoztiritar** taldea, Damestoy eta Haran jaunak, berriz ere, laugarren aldikotz, nagusitu da. Herria

Mikael Arriada **donoztiritar** gaztea ixtripuz hila. Herria

Sortzez **donoztiritarra**, aspaldiko urtetan Luixa bere alabaren etxera bizitzera jina zen. Herria

Baptistine Basterretche **Donoztiritarrak** eta Felicie Etcheverry irisartarrak. Herria

**Dohoztiritarrak** amor eman hendaiarraren nahikeria haundiari. Herria

---

# dontsu 1 *izond* zorionekoa, zorionez betea. ik **dohatsu**.

martirioaren eta torturaren bidez zeru-goietara iristen ziren **dontsuen** artean. Jose Morales

Hantxe egoten zen egonean; **dontsua** zen. Eskarne Mujika

Nola, Kristo gurutzean hil ondoren eta gorputza arimatik banatua eta harekin jainkotasuna elkartua beti gelditu ondoren, jaitsi zen infernura arima **dontsua**, hau ere jainkotasunarekin elkartua. Patxi Altuna

Zoriak nahi izan zian ni atxilotu nindutenean emakume aleman **dontsu** bat Milanen egokitzea Eukaristiaren Kongresu batean. Anjel Lertxundi

Eta, nork sinetsi Selim Aluan **dontsu** boteretsuak halako pentsamenduak eta larrialdiak izan zitzakeenik. Patxi Zubizarreta

Barbituriko **dontsu** horrek lasai eta seko lo eginarazten dit. Mirentxu Larrañaga

· Horregatik, bada, ikaragarri gustatuko litzaidake bene-benetako **dontsua** izatea (honela deitzen digute hemen erooi, hitz-leunketak buruko nahasmendua ere arinduko digulakoan), baina dontsu baten moduan portatzen ikasi beharra daukat. Anjel Lertxundi

**2** *adkor* zorionekoa, gogaikarria. ik **ditxoso**.

Metodo okerrak, ehuneko 29,5 **dontsua** ematen zuen etengabe; metodo zuzenarekin, berriz, zabal barreiatzen ziren emaitzak. liburu hau argitaratu baino lehen itzultzaileen artean zeresanik handiena eman duen izena Neverland **dontsua** izan da. Juan Garzia

Denok dakigu zorioneko transferentzia **dontsuak** zenbat korapilo eta miztoz lotuak egon diren eta dauden. Pello Zabala

Han, ez zagok lorerik; belarra, bandera legez, airean igeri zabilek; mugarik gabeak dituk paraje **dontsu** haiek. Eskarne Mujika

Noiztik ote datoz, hainbeste kontu eta hizketagai sortu duten gure koarta-tenpora **dontsu** hauek! Pello Zabala

Baina, martxo **dontsu** honek ba ote du ezer zori dezentekorik, edo dena da zoritxar eta maldizio? Pello Zabala

Espainia honengatik erasiatzen ote digute oldarkor "zu espainola zara ala ez" **dontsu** hori? Joxe Azurmendi

**3** (hitz elkartuetan)

Niri dagokidanez, **dontsu**-banda lustretsuaren eskuin--muturrean nago, bat-bi bat-bi, urduri halako jendearen konpainian. Anjel Lertxundi

Hemengo **dontsu**-jendeari bizi izan ditudan gertakari latz guztiak kontatzen hasiko banintz, [...]. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dontsu bat** (4); **dontsu etxe** (11); **dontsu etxe honetan** (6); **dontsu etxeko** (15); **dontsu etxetik** (5); **dontsu honek** (5); **dontsu honetan** (3); **dontsu hori** (6); **dontsu horrek** (6); **dontsu lagun** (3); **du dontsu** (3); **du dontsu etxeko** (3); **egun dontsu** (6); **emakume dontsu** (3); **eta dontsu** (4); **gela ondoko dontsuaren** (3)

---

# dontsutasun *iz* dontsua denaren nolakotasuna.

Nor bakoitza hemen **dontsutasuna** deitzen duten bere eroari darraikio. Anjel Lertxundi

---

# dontsutu, dontsu(tu), dontsutzen da *ad* dontsu bihurtu.

Dontsu honek ez daki horiek ikusteagatik **dontsutu** den, ala **dontsuturik** dagoelako ikusten dituen horrela. Anjel Lertxundi

---

# dontzeila 1 *iz* birjintasuna atxiki duen emakumezkoa.

Zeusen burutik Atenea bere alaba agertu zen, oinetik bururaino armatuta eta hogei urteko **dontzeila**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Esklabo horietan bada **dontzeila** ezti bat, ezin ederragoa, Kogatra izenekoa. Aurelia Arkotxa

Jeanne d´Arc bezalako **dontzeila** baten asmo zerutiarrak bete zuen Gilles arduragabearen hutsunea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Birjina garbia zen eta **dontzeila**, eta gainera, ezkontzeko hitzemana. Joan Mari Lekuona

**Dontzeila** gerlaria nauzu eta nire eskua ez da leuna. Agustin Otsoa

Galaia jaiki eta trebe da jantzi, haren bisitako; **dontzeila** zena horra desdontzeilatu sekula santako. Juan Garzia

**2** (izenondo gisa)

Neskatilak neskatilak neskatilak dira, neskatila **dontzeila** luzera lirainekoak, neskatila gazte uzta berrikoak! Patziku Perurena

**3** (hitz elkartuetan)

Itsats zakizkio halako Semearen Ama txit eztiari: izan ere, zeru eta ortziaren zabalak eduki ezin adinako Semea sortu baitzuen, eta, hala ere, bere sabel santuko gelatxoan eraman eta **dontzeila**-altzoan hazi zuen. Askoren artean

Hemendik aurrera zikoitz-antza joka heure **dontzeila**-presentziaz; jarri elkarretaratzeoi prezio garestiagoa mintzaldirako agindu soila baino. Juan Garzia

· Agintaritzat hartu zuen neskatxa eta morroi leiala izan zuen artzain-**dontzeila** zerutiarrak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dontzeila gerlaria** (3); **dontzeiletan eder eta** (3); **ene gorteko dontzeiletan** (4); **eta dontzeila** (4); **gorteko dontzeiletan** (4)

**dontzeilatxo** *iz adkor* dontzeila.

Oi maiatzeko arrosa, **dontzeilatxo** laztan, arreba amultsu, Ofelia eztia. Juan Garzia

---

**donu** *iz* dohaina.

Izan ere, anitz dira mutil honek Jainko Jaunaganik errezibitu dituen **donuak** eta dohainak. Joan Mari Irigoien

Egun osoan berarendako bakarrik maisu eta irakasle bakar baten edukitzea pribilejioa da eta Jainkoaren **donu** eta garazia. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jainkoaren donu** (3)

---

**donu** *iz* dohaina.

Izan ere, anitz dira mutil honek Jainko Jaunaganik errezibitu dituen **donuak** eta dohainak. Joan Mari Irigoien

Egun osoan berarendako bakarrik maisu eta irakasle bakar baten edukitzea pribilejioa da eta Jainkoaren **donu** eta garazia. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jainkoaren donu** (3)

---

donut ik **donuts**.

---

**donuts** *(orobat **donut** eta **doughnut** g.er.)* **1** *iz*

Nahi al duzu **donuts** bat? Patxi Zubizarreta

Egun, ketxup edo **donuts** horiek zer diren, nork maneiatu dituen, nondik heldu zaizkigun, nola egin diren... deus ez dakigu. Edorta Agirre

Amaitu dugu gosaria, mahaia kruasan eta **donutsetatik** eroritako kafesne tantaz beterik gelditu da, eta eguna argitu du ia erabat. Pako Aristi

Zentro dentso horretara erakarritako materia guztia zulo beltz bihurtzen zen eta inguruko orbitako materia guztiak **donut** baten gisan biltzen zuen zentroa. Harkaitz Cano

**2** (hitz elkartuetan)

**Donuts** kaxa huts hori ikusirik, [...]. Patxi Zubizarreta

Azkenean, egunkari batean irakurri nuen **donuts** partitzaile baterako lanpostua eskaintzen zutela eta hara joan nintzen. Jon Maia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **donuts ak** (3)

---

**dopagune** *iz* dopatzeko gunea.

Baina horiek huskeriak dira, eta garrantzizkoena da mutilak, **dopaguneari** esker, topagune berri baten jabe egin garela, eta topagune horretan, komuneko komunitate horretan, gure jende-aurreko gixonkeriak eta takarkeria tristeak pixkaterako ahantziz, bestelako tratabide bat, gozotasun bat, konfiantzan hitz egiteko era bat asmatzen ari garela geure artean... Iñaki Segurola

---

**dopaje** *iz* dopatzea. ik **dopin**.

**Dopajearen** aurkako operazioa Espainian, Katalunian eta Galizian. Berria - Gaiak

Philippe Gaumont taldekidea bezperan utzi zuten aske, baina **dopajeagatik** auzipetuta. Berria - Kirola

**Dopaje** kontrolak izan dituzte Titinek eta Goñik. Herria

---

**dopamina** *iz* burmuineko hainbat eremutan nerbio-trasnmisore aritzen den gaia.

**Dopamina** mugimenduen eraginkortasuna erregulatzen duen substantzia da. Berria - Gaiak

Terapia genetikoaren bitartez **dopamina** blokeatzen da. Berria - Gaiak

Diabetesa sendatzeko, intsulina sortzen duten zelulak sor daitezke klonaturiko zeluletatik, baita **dopamina** sortzen dutenak ere Parkinsonen gaitzerako. Berria - Gaiak

Gero, 1960tik laster, [...] Touretteren sindromea (iritzi-aldaketa bat-batekoa zela medio) gaixotasun kimikotzat hartu zen; hain zuzen ere, neurotransmisore bat, **dopamina**, garunean ongi orekatua ez egotearen ondoriozkotzat. Xabier Olarra

---

**dopatu**, dopa, dopatzen da *ad* lehiaketa batean eraginkortasuna areagotzeko drogatu.

Igor Gonzalez de Galdeano gasteiztar txirrindulariari debekatua zaio Frantzian gaindiko lasterkaldietan aritzea 6 hilabetez, joan den urteko Frantziako itzulian **dopatu** omen zelako. Herria

Aitor Gonzalez 30 urteko zumarragar txirrindularia, Euskaltel-Euskadi taldekoa, **dopatu** omen litaike azken Espainiako Itzulian. Herria

Frantziako txapeldun ohiak salaketa jarri dio Federazioari, **dopatzera** behartu zutelako. Berria - Kirola

Ekaitz Saiesek berak prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez, sekula ez du **dopatzeko** ezer hartu. Berria - Kirola

**Dopatzeko** substantzien trafikoaren aurkako operazioan. Berria - Gaiak

Madejakek txirrindularien bitartez banatzen zituen **dopatzeko** produktuak. Berria - Kirola

**Dopatuak** dabiltzan kirolarien alde. Berria - Kultura

**Dopatzea** leporatu zietelako «horren frogarik ez badago ere». Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **armstrong dopatu egiten** (3); **dopatu egiten zela** (3); **dopatzeko produktuak** (5)

---

**dopatze** *iz* drogak hartzea lehiaketa batean eraginkortasuna areagotzeko. ik**dopin**.

Orain haatik, **dopatze** susmo hori baieztatua balin bada, bere geroa ez du batere segurtatua, ez Euskaltelen ez-eta ere orokorkiago txirrindularitzan. Herria

---

**dopin** *(ETCn* ***3.310*** *agerraldi; orobat* ***doping*** *ETCn* ***193*** *agerraldi)* **1** *iz* dopatzea.

**Dopinaren** itzal luzea. Berria - Kirola

**Dopinaren** mamua berriro ate joka. Berria - Kirola

Neurri berezi horietako bat, **dopina** antzemateko kontrol gehiago egitea izango da. Berria - Kirola

Armstrongen ustezko **dopinaren** inguruan Lemondek bere iritzia eman zuen: [...]. Berria - Kirola

Kirolarien osasunaren eta arauen kontrakotzat jotzen da **dopinaren** erabilera. Berria - Kirola

**Dopin** genetikoaren arriskuaz ohartarazi dute ikerlariek. Berria - Kirola

**Dopinaren** kontrako borrokan tolerantziarik ez dutela izango azpimarratu zuen Hijazok. Berria - Kirola

**Dopinari** buruz, eta are gutxiago odol analisiei buruz, ez du ezer esaten araudiak. Berria - Kirola

NOBek **dopinaren** aurkako legedi zorrotz hori leuntzeko eskatu zion Italiako Gobernuari. Berria - Harian

**Dopinaren** Kontrako Plana prestatu du Nafarroako Gobernuak. Berria - Kirola

**Dopinaren** Aurkako Agentzia Mundialaren erabakia. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Substantzia hauek legez kanpo saltzen zituzten kirol munduan eta ez ziren **doping** kontroletan atzematen. Berria - Gaiak

Antisorgailu estrogenodunek positibo emango dute **dopin** kontroletan; solasaldia izan zuten atzo medikuek eta kirolariek. Berria - Euskal Herria

Ezusteko **dopin** kontrola egin diote Italiari. Berria - Kirola

Egun, Olinpiar Jokoetan **dopin** analisiak egin ez dituen talde bakarretakoa da AEBetako saskibaloi selekzioa. Berria - Kirola

Ipar Amerikako herrialdeen aldeko jarrera lotsagabea patinajeko puntuazioetan, boikot mehatxuak, inoiz baino **dopin** kasu gehiago. Berria - Harian

Sassoneren positiboa Cofidis taldeko **dopin** afera piztu aurrekoa da. Berria - Kirola

Marion Jonesek Sydneyko Olinpiar Jokoen aurretik hasi zuen **dopin** tratamendua. Berria - Kirola

Balco laborategietako jabeak Marion Jonesi, Tim Montgomeriri eta Kelly Whiteri **dopin** sustantziak saldu zizkiela onartu du. Berria - Kirola

**Dopin** produktuak erabiltzen dituen kirolaria indarrean dagoen legediarekin ez epaitzea. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako dopinaren** (9); **aebetako dopinaren aurkako** (9); **baino dopin** (3); **da dopinaren** (5); **dopin kasu** (4); **dopin kontrol** (15); **dopin kontrol batean** (3); **dopin kontrola** (16); **dopin kontrola egin** (5); **dopin kontrolak** (6); **dopin kontrolaren** (3); **dopin kontroletan** (5); **dopin substantziak** (5); **dopin sustantziak** (3); **dopina antzemateko** (9); **dopina atzemateko** (3); **dopinaren aurka** (6); **dopinaren aurkako** (73); **dopinaren aurkako agentziak** (8); **dopinaren aurkako batzordeak** (6); **dopinaren aurkako borrokan** (3); **dopinaren aurkako kontrola** (6); **dopinaren aurkako kontrolak** (3); **dopinaren aurkako munduko** (14); **dopinaren inguruan** (6); **dopinaren kontra** (4); **dopinaren kontrako** (19); **du dopinaren** (4); **dute dopin** (4); **dute dopin kontroletan** (4); **egin zioten dopin** (3); **espainiako dopinaren** (4); **espainiako dopinaren aurkako** (4); **eta dopin** (4); **eta dopina** (4); **eta dopinaren** (6); **eta dopinaren aurkako** (3); **inoiz baino dopin** (3); **munduko dopinaren** (6); **munduko dopinaren aurkako** (5); **ustez dopin** (3); **ustezko dopin** (5); **zioten dopin** (3); **zuen dopin** (4)

**aebetako dopinaren** (9); **aebetako dopinaren aurkako** (9); **da dopinaren** (5); **dopinaren aurka** (6); **dopinaren aurkako** (73); **dopinaren aurkako agentziak** (8); **dopinaren aurkako batzordeak** (6); **dopinaren aurkako borrokan** (3); **dopinaren aurkako kontrola** (6); **dopinaren aurkako kontrolak** (3); **dopinaren aurkako munduko** (14); **dopinaren inguruan** (6); **dopinaren kontra** (4); **dopinaren kontrako** (19); **dopinari buruz** (3); **du dopinaren** (4); **espainiako dopinaren** (4); **espainiako dopinaren aurkako** (4); **eta dopinaren** (6); **eta dopinaren aurkako** (3); **munduko dopinaren** (6); **munduko dopinaren aurkako** (5)

---

doping ik **dopin**.

---

**doratu**, dora, doratzen **1** du *ad* urre kolorea eman; urreztatu.

Eguzkia iparraldeko ikusmugan agertuko da, oso zurixka, baina izotz tontorrak **doratuko** ditu. Joseba Sarrionandia

**2** (era burutua izenondo gisa) urre kolorekoa; urreztatua.

Argi artifizialarekin azaleko letra **doratuek** nabarmenagoak ematen zuten. Bernardo Atxaga

Zilar **doratuko** gerriko bat. Patxi Zubizarreta

Horman, leiho artean eskegirik, gurutze moduan txirikordaturiko betibiziak, pildak, jaka zahar **doratuak**, banderak, zapiak. Koldo Izagirre

Mooney andreak tximinia gaineko erloju txiki **doratuari** begiratu zion instintiboki. Irene Aldasoro

Ate zuria zuen, moldura **doratukoa**. Matías Múgica

Bizarra ondo egindako aurpegian uztai **doratuzko** betaurrekoak zituen gizon txiki bat. Irene Aldasoro

Seda gorrizko paper pintatua ikusi zuen orduan, papagaio-buru zurbil **doratuez** apaindua. Matías Mujika

Edo, sentituago mintzatuz, eskua ate-sagar behiala **doratuan** jarri nuelarik: kanelazkoak egiten ditizten Minkiewiczenean sonbrailuak, ez zain iruditzen? Harkaitz Cano

Behin, eguzkia sartu aitzineko ordu **doratuetan**. Aurelia Arkotxa

· Bere betaurreko uztai-**doratuen** bristada. Irene Aldasoro

**3** (era burutua izen gisa) *irud/hed*

Labadora handi horietako batean sartu, eta zentrifugatuan **doratu** on bat emango nioke batzuetan ñoñostiar honi, baina ez diot ezer esan. Jokin Urain

---

dordoka ik **dortoka**.

---

dordokaño ik **dortokaño**.

---

**doriar** **1** *izlag/iz* antzinako Greziako Doriakoa, Doriari dagokiona; Doriako biztanlea. ik**doriko**.

Berezitasun hori, hiriak ezin menderatu dituen estatu-boterearen ahultasunaren emaitza dena, [...] Erdi Aroko Europari dagokionez, Erromatar Inperioaren hausturari egotzi behar zaio; eta Grezia arkaikoari dagokionez, berriz, II. milurtekoaren amaierako **doriar** inbasioei. Koro Navarro

Apolo Panioniori egin zioten tenplua Akaian ikusitako eran, eta tenplu **doriarra** deitu zioten, estilo horretan eraikitako lehenengo tenplua **doriarren** hirian ikusi zutelako. Santiago Iruretagoiena

**2** (arkitekturan)

Honelakoa da Kirinoko tenplu **doriarra**, eta Efesoko Dianaren tenplu joniarra, Kersifronek egin zuena. Antzinako arkitektoetako batzuek esan dute tenpluak ez direla estilo **doriarrean** egin behar, akatsak eta desegokitasunak dituztelako beren proportzioetan. Santiago Iruretagoiena

Ateen zabalera altueraren arabera egingo da; **doriarrak** baldin badira, **doriarren** antzera; eta joniarrak badira, joniarren antzera. Santiago Iruretagoiena

Liburu honetan, ordena **doriar** eta korintoarrari buruzko arauak eman behar ditut, oro har, horietako bakoitzaren berezitasunak eta ezaugarriak azalduz. Santiago Iruretagoiena

Honela hasi zen koloma **doriarra** eraikinei gizonaren gorputzak duen proportzioa eta bere sendotasuna eta edertasuna ematen. Santiago Iruretagoiena

Zutabea **doriar** ordenatakoa baldin bada, beste ordenekiko erkaketa ekartzen du gogora (ordena joniko, korintiar eta abarrekiko), eta elementu horiek [...] espazioan ez dauden elementuak dira: erlazioa elkartze mailakoa da. Isabel Arrigain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estilo doriarrean** (9); **ordena doriarrean** (4)

---

# doriko 1 *izond/iz* doriarra.

Erdipurdiko Ordena **dorikoa** arkitektura greziarreko hiru ordena klasikoetan zaharrena eta soilena da. Xabier Olarra

Arte-denda merke batean erositako zutabe **doriko** eta jonikoak. Aritz Gorrotxategi

**2** grekoaren dialektoa, doriarrek hitz egiten zutena.

Ez zuen hitzik egiten metro epikoan baino, eta Joniako dialektoan, nahiz eta populua eta beraren jarraitzaileak **dorikoaz** baino ez ziren baliatzen. Juan Garzia

---

# doriotar ik **doriar**.

---

# dornadura *iz* lurzoruko oholtza.

Zur gogorrezko **dornadura** horiaren gainean kretona-zatiak eta gortina-uztaiak nahaspilaturik zeuden. Lopez de Arana

---

# dorpe *(orobat **torpe** g.er.)* 1 *izond* astuna, latza, zaila, gogorra.

Horrekin ez aski, harria atera ondoan, haste lan **dorpeena**: malda zutari goiti burdin harria karreatzea mandoz, sigi sagaka bidea eginik mendi gainera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hauei ez zitzaien lantegietan lan egiten uzten, beti lan **dorpeenetara** igortzen zituzten. Eneko Bidegain

Himalaya-tik hurbil diren Pakistan-eko mendietan lur-ikara **dorpe** bat senditu dute hango jende gaixoek. Herria

Bi aldiz agertzen da Berterretxen kantore famatüan, XV. mentean agitüriko gertakari **torpe** baten üngürüan. Herria

Bizitze **dorpea** ez aski izanez, horra aitzina zauriaren gainean pikoa, 1898ko buruilan Garralda erre baitzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Erabat bakarrik egotearen sentipenak harlauza baten pisu **dorpeaz** zanpatzen zidan bihotza. Alberto Ladron Arana

Eritasun luze **dorpe** baten ondotik pausatu da Pierrette Goyenetxe. Herria

-Eta hor, itsasoan, aipatzen dituzun mementu **dorpeak** badireizke, halarik ere. Menane Oxandabaratz

Handiagotzen zen egoera **dorpeetan**; ihardokitzea zaila zen, aldiz, lehiarik ez zenean. Elena Touyarou

Eginkizun **dorpe** eta arriskutsua zuten. Elena Touyarou

Batzuendako **dorpea** dela elkartasuna. Menane Oxandabaratz

Bakartasuna zama **dorpeegia** zen eramateko. Itxaro Borda

Isiltasun **dorpea** hedatu zen ostatuaren barnean. Itxaro Borda

Bere seme zendu berriaz mintzatzeko "gorputza" bezalako hitz **dorpea** ama batek ez dezake sekula erabil. Daniel Landart

Itxaro Bordak zoragarri azaltzen du hori olerki batean: "Ardura **dorpea** da idaztea". Ana Urkiza

**2** (adizlagun gisa) ik **dorpeki**.

Gregoriok ez zuela hain **dorpe** hil nahi, pentsatu izan dut. Koldo Izagirre

**3** (-en atzizkiaren eskuinean, izen balioaz)

Ari ginela gau hartan gure lanaren **dorpeaz**, apez buruzagiak erran zigun: [...]. Piarres Aintziart

Gauzen **dorpea** eztitzen zuen barneko indarrak, mundu honen atsegabei zentzu bat emanez. Piarres Aintziart

Joanes arras ahuldurik atera zen, nahiz eta sei hilabetez baizik ez zuen jasan herio zelaien **dorpea**. Eneko Bidegain

Ene **dorpea**, alabaina! Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan)

Gainerat, pondu batzuetan, **dorpe** aire hori nolazpait goxatzen ahal omen litake, erretreta apalenak doi bat goratuz edo hola. Herria

Jean-Pierre Raffarin gobernuburuak dauka denen onetan ari dela eta akulatu nahi dituen aldaketak baitezpadakoak direla **dorpe**-aireño bat kausitzen ahal bazaiote ere. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aski dorpea** (5); **dorpe bat** (7); **dorpe batean** (4); **dorpe batek** (3); **dorpe baten** (5); **dorpe baten ondotik** (3); **dorpe eta** (7); **dorpe huntan** (3); **dorpea da** (6); **dorpea ez** (3); **dorpea izan** (4); **dorpea izanen** (3); **dorpea zen** (3); **egoera dorpe** (3); **eritasun dorpe** (5); **eta dorpe** (5); **isiltasun dorpea** (3); **lan dorpea** (6)

---

# dorpekeria *iz* dorpetasun gaitzesgarria.

Eta, antza, oraindik etortzekoak diren zenbait **dorpekeria** xarmant iragartzen diguna. Pablo Sastre

---

# dorpeki *adlag* gogorki, astunki.

249. urtean **dorpeki** martirizatua. Pello Zabala

Eta biharamunean berean agertu zitzaion hoin **dorpeki** ereman duen gaitza. Herria

Hain **dorpeki** hunkia den haren familiak onets ditzala gure doluminak. Herria

Horrela Auliden, Danautarren buruzagi hautek, gizontasunaren eredu haiek, Hirubideko Birjinaren aldarea Ifianassaren odolez **dorpeki** orbaindu zuten. Xabier Amuriza

---

# dorpetasun *iz* gogortasuna, astuntasuna.

Garapen soziala bultzatzeko behar dugu gureganatu ofizio guziek daukaten guzi hori: zailtasuna, **dorpetasuna**, eta askotan gogortasuna ere bai. Menane Oxandabaratz

**dorpetu**, dorpe(tu), dorpetzen da *ad* baldartu.

Lanaren ostean gorputza alferkerian **dorpetu** ez zekion, San Pedrori eskainitako beste eliza bat berriztatzeari ekin zion Askoren artean

---

**dorpezia** *iz*

Eta maniobrak ahalik eta **dorpezia** eta iskanbila gehienarekin egin ziren. Joseba Sarrionandia

---

**dorre** *(orobat* ***torre*** *g.er.)* **1** *iz* eraikin altua eta meharra, askotan eliza, gaztelu... bati buru ematen diona, edo babesgarri edo talaia bezala jasotzen dena.

Hauskaitza, altzairu eta burdinaz egina eta harrizko **dorre** eta gotorleku menderaezinek gordea izan arren, Atea zen gakoa, harresi zeharkaezin eta garai haren gune ahula. Agustin Otsoa

Ikus dezaket elizako **dorrea** eta, haren azpian, eskolako teilatua. Mirentxu Larrañaga

Erregina **dorrearen** gorenera igo zen, zubia igoarazi, dena itxi, eta handik hitz egin zion Mordret traidoreari: [...]. Juan Kruz Igerabide

Lanparagileen Kalera iristean **dorre** guztietako kanpai guztiak errepika ari ziren arranditsu. Agustin Otsoa

Defentsako lanetan harresi, **dorre** eta ateen kalkulua sartzen dira eta etsaien etengabeko erasoei eusteko ikuspegiarekin egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Eiffel **Dorrea** ikusi nahi dut! Jokin Muñoz

**2** (izenodoekin)

**Dorre** altuenak distira egin zuen, orratz distiratsu baten antzera. Agustin Otsoa

Katedralaren **dorre** lirainek [...] kontrastearen medioz, urrunago barreiatzen dute. Piarres Aintziart

Laster heldu ginen **dorre** nagusiaren zilindro erraldoiaren parera. Alberto Ladron Arana

Hiri inguruan harresi handi eta sendoa eraiki zuten, **dorre** tinkoz babestua. Elizen arteko biblia

Bi **dorre** almenadunek zaindutako ate batetik iragaten zen. Agustin Otsoa

Bazen hiriaren erdian **dorre** gotortu bat eta han babestu ziren hiriko nagusiak. Elizen arteko biblia

Zurezko **dorre** higikorra egin eta, hirira hurbildurik, harresietako dorre bat eraitsi eta hartu egin zuen. Elizen arteko biblia

Une hartan bertan, jauregi handiko ateen parera iritsi zen, **dorre** distiratsuaren azpira. Agustin Otsoa

Udaletxeko **dorre** gotiko banderez eta lorez apainduari beste argazki bat atera zion bere Leica berriarekin. Alberto Ladron Arana

Egia zen, beraz: bi hegazkinek jo zuten **dorre** bikien kontra, eta hauek porroskaturik erori ziren. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zorionak eman zizkien **dorre**-eraikitzaileei, asmamena eta sormena bezalako dohain modernoez blaituriko beren sen praktikoarengatik. Jon Alonso

**Dorre**-gaztelutxo hau inguratzen duen pareta borobilean, bi leiho ilara oso ageri dituk, elkarren gainean paraturik. Txillardegi

Patxik pentsatzen du, Erromesene inguratzen duen **dorre**-hesi hartan, habeak gurutzatuko dituztela noizbait, punta batetik bestera. Joan Mari Irigoien

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kontrol-**dorre** bat ere eraikita daukate palestinar honen etxebizitzatik 10 bat metrora. Berria - Mundua

Gerlariek eraso-**dorreak** jarriko dituzte zure kontra, lubetak eraikiko zuri erasotzeko eta ezkutu-hesia jarriko beren babeserako. Elizen arteko biblia

Eliza-**dorre** batek zeru-goirantz egiten omen du, zeruaren promes delako. Mirentxu Larrañaga

Granitozko bitxi erraldoi, farfaila bezain arina, igotzeko zurubi bihurriak dituzten dorrez eta ezkila **dorre** lerdenez betea. Josu Zabaleta

Argi **dorre** gorria itsas-hegi muturrean. Aurelia Arkotxa

Gipuzkoa aldeko kostalde guztia ageri zen, baita Lapurdikoa Miarritzeraino ere, honen farol-**dorre** zuri luzea ongi xamar bereiz zitekeela. Txillardegi

Talaia-**dorrearen** adarrak hurbileko mendixken altuera gainditzen zuen. Agustin Otsoa

Txarrantxa-hesia, lau bazterretan zaintza-**dorre** bana zuela, errepidearen ondotik hedatzen zen. Urtzi Urrutikoetxea

Astiro, Osgiliathen eraikiriko setio-**dorre** handiek aurrera egin zuten ilunpetan. Agustin Otsoa

Lurra jaten zuten makinekin, burdinbide eta galdara ugariekin, hozte-**dorreekin**, hodi-sare eta tailerrekin, egiazko hiria zen. Urtzi Urrutikoetxea

Eta zuri, artzain-**dorre**, Sion hiriko gotorleku horri, berriro itzuliko zaizu antzinako agintea. Elizen arteko biblia

**5** irud/hed

Liburu-metak balantzatxoa egin zuen, ematen zuen orduantxe bertan hasiko zela denda bitxi hartako antolaketa prekarioaren hondamendia, baina liburuen **dorrea**, eroriko ez eroriko ibili eta gero, ez zen suntsitu. Anjel Lertxundi

Haren pisuak liburu-**dorrea** desorekatu zuen, eta, liburu guztiak bertan behera eroriko zirela zirudienean. Anjel Lertxundi

Albertok musika-**dorrearen** ondoan segitzen zuen. Iban Zaldua

Bidearen ondoko goi tentsioko **dorre** batera igo zen eta elektrizitatea eroaten duten kableetako bat ukitu zuen. Berria - Euskal Herria

Irungo Pausua auzoko beste argindar **dorre** batean beste lehergailu bat zegoela jakinarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Haize erauntsiek zuhaitz eta **dorre** elektriko ugari bota dituztela aditzera eman dute. Berria - Mundua

Zortzi **dorre** elektriko lehertarazi nahi zituzten. Berria - Harian

Luizia izandako lekutik metro batzuetara **dorre** meteorologikoek neurketak egiten dituzte momentu oro. Berria - Harian

**6** ***dorre gain*** (orobat ***dorregain***) *iz*

Hipogrifoak bere hego indartsuak astindu eta han joan ziren berriro goraka, Mendebaldeko **dorre-gainaren** pareraino. Iñaki Mendiguren

Orduan, ahalik eta lasterren, zoru gainera egin zuen jauzi **dorre-gain** hartatik, eta erreskadan ezarri zituen agudo sukaldeko gainerako aulkiak. Josetxo Azkona

Mintzo bai mintzo zen Pacelli aita saindua edozein gaiez, baina entzuten, entzuten ote zuen araberan, Erromako **dorregain** hartarik, behereko elizaren deia. Piarres Xarriton

Arbadeko gizonak, zure armadarekin, zure harresietan zeuden zainketan, eta Gamad-ekoak zure **dorregainetan**. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argindar dorre** (5); **argindar dorre batean** (4); **babel dorre** (3); **babelgo dorre** (4); **bat dorre** (5); **bere dorre** (4); **bi dorre** (16); **centerreko dorre** (5); **detcheverry dorre** (6)

**dorre bana** (4); **dorre bat** (27); **dorre batean** (18); **dorre bateko** (3); **dorre baten** (7); **dorre batera** (3); **dorre batetik** (4); **dorre batzuen** (3); **dorre bikiak** (9); **dorre bikiak zeuden** (4); **dorre bikien** (25); **dorre bikien aurkako** (4); **dorre bikien kontra** (4); **dorre bikien kontrako** (4); **dorre bikietan** (3); **dorre elektriko** (3); **dorre eta** (21); **dorre eta gaztelu** (5); **dorre gainean** (7); **dorre gainetik** (5); **dorre garai** (3); **dorre garai eta** (3); **dorre haietarik** (3); **dorre handi** (7); **dorre handi bat** (5); **dorre hau** (4); **dorre hori** (3); **dorre ilunaren** (5); **dorre iluneko** (3); **dorre moduko** (4); **dorre nagusiaren** (5); **dorre osoa** (5); **dorre sendo** (3); **dorre zahar** (4); **dorre zaharra** (4); **dorre zuri** (3); **dorre zuriak** (3); **dorre zuriaren** (5); **dorre zuriko** (4)

**eko bi dorre** (4); **eliza dorre** (3); **ere dorre** (3); **eta dorre** (29); **ezkila dorre** (6); **gazteluko dorre** (6); **goi tentsioko dorre** (3); **hiru dorre** (3); **katedraleko dorre** (3); **lau dorre** (4); **marfilezko dorre** (3); **new yorkeko dorre** (8); **piarres detcheverry dorre** (6); **tentsioko dorre** (3); **trade centerreko dorre** (5); **yorkeko dorre** (8); **yorkeko dorre bikien** (5); **zaintza dorre** (3); **zegoen dorre** (3); **zen dorre** (5); **ziren dorre** (8); **zuen dorre** (7)

**babelgo dorrea** (5); **don justinianoren dorrea** (3); **dorrea bera** (3); **dorrea deitzen** (3); **dorrea egin** (3); **dorrea eraiki** (3); **dorrea ere** (6); **dorrea eta** (10); **dorrea ikusi** (4); **eiffel dorrea** (24); **eiffel dorrea ikusi** (3); **eliz dorrea** (5); **eliza dorrea** (4); **elizako dorrea** (6); **eta dorrea** (12); **ezkila dorrea** (12); **gure dorrea** (4); **gure ezkila dorrea** (7); **justinianoren dorrea** (3); **kanpai dorrea** (3); **liburuen dorrea** (3); **marfilezko dorrea** (3); **olaso dorrea** (3); **orthanc dorrea** (3); **pisako dorrea** (9); **pisuko dorrea** (3); **zen dorrea** (3)

**bainan dorrearen** (3); **bi dorreak** (8); **bordagaineko dorrean** (18); **don justinianoren dorreak** (3); **dorreak eraiki** (5); **dorreak eraikitzen** (3); **dorreak eta** (11); **dorreak ikusi**

(4); **dorrean zegoen** (4); **dorrean zeuden** (3); **dorrearen goiko** (3); **dorrearen historia** (3); **dorrearen inguruan** (4); **dorrearen puntan** (5); **eiffel dorrean** (3); **eiffel dorrearen** (7); **eliz dorrearen** (5); **eliz dorrearen historia** (3); **eliza dorreak** (4); **eliza dorrean** (3); **eliza dorrearen** (6); **eraso dorreak** (5); **eta dorreak** (9); **eta dorrean** (3); **eta dorrearen** (5); **ezkila dorrearen** (5); **genuen dorrearen** (3); **justinianoren dorreak** (3); **kastillako dorreak** (3); **katedraleko dorreak** (4); **katedraleko dorrean** (3); **londresko dorrean** (5); **sarako eliz dorrearen** (4); **zuen dorrean** (3)

**bi argindar dorretan** (3); **bi dorreen** (3); **bi dorren** (3); **bordagaineko dorrerat** (4); **dorreen eta** (5); **dorreetako batean** (3); **dorreko atea** (4); **dorreko erlojua** (4); **dorreko gela** (4); **dorrera igo** (8); **dorrera itzuli** (4); **dorrera joan zen** (4); **dorrera sartu** (3); **dorrerik altuenean** (3); **dorrerik luzeenak** (3); **dorretik eta** (3); **dorretik jaitsi** (5); **eliz dorreko** (4); **eta dorreen** (4); **eta dorreko** (6); **eta dorrerik** (5); **eta gryffindorreko dorrerantz** (3); **ezkila dorreko** (4); **gryffindor dorreko** (4); **gryffindor dorrera** (3); **gryffindorreko dorrera** (13); **gryffindorreko dorrera itzuli** (3); **gryffindorreko dorrerantz** (7); **gryffindorreko dorretik** (3); **harrizko dorretik** (3); **sikemgo dorreko** (3); **zaindaritza dorreko** (3)

---

# **dorredun** *izond* dorrez hornitua.

Anderezu, Aiarako Oribe Salazar **dorretxeko** alaba gaztea, Mendozako jaun boteretsu bezain ankerraren emaztea zen. Martin Anso

Laster asko lotu nituen etxe **dorreduna** eta hango oihuen doinu atzerritarra. Anjel Lertxundi

Europako eliza **dorredunak**. Edorta Jimenez

Gero kartagotarrek elefante bizkar **dorredun**, izugarri, suge-eskudunei, gerrako zauriak pairatzen eta Martitzen andana handiak asaldatzen irakatsi zieten. Xabier Amuriza

---

# dorregain ik **dorre 6**.

---

# **dorretxe** *iz* dorre itxurako etxea.

Hiribilduak sortu aurreko garai hartan, eta ahaide nagusien borroketan halako garrantzia hartuko zuten **dorretxeak** eraiki baino lehen, gazteluak omen ziren lurraldearen egitura eta erresumaren batasuna bermatzeko euskarri. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin, Bustinagako **dorretxean** engainuz sartu, eta barrukoak, umeak eta guzti, gupida gabe hil zituzten Iturzatarrek. Martin Anso

Arizkungo plazan bertan dagoen **dorretxe** ederrenetakoa, ederrena ez bada. Hasier Etxeberria

Aitona Nikolasek testamentean urroztarren **dorretxea** esleitzen ziola. Joan Mari Irigoien

Oin karratuko **dorretxe** antzeko bat da Olasagasti. Xabier Mendiguren Elizegi

Harri berde bat, esmeralda bat, **dorretxe** itxura zuena. Felipe Juaristi

Jusuf Khanek, diotenez, harrizko **dorretxe** bat eraiki zuen orduan ibai ertzean, mendi magalean. Felipe Juaristi

Zu baitzaitut babesleku, etsaien kontra **dorretxe** sendo. Elizen arteko biblia

Urdinagoak zirela berak Bakuko **dorretxeko** teilatuan eraikitako kaiolan sartu zituen txorien hego-kolorea. Felipe Juaristi

Behin batean, **dorretxekoen** afalostea alaitzera koblakari gazte bat iritsi zen, Barasoaingo Gutier. Martin Anso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere dorretxerat** (5); **dorretxe bat** (4); **dorretxe hura** (3); **dorretxearen aitzinean** (3); **dorretxeko jauna** (5); **dorretxerat joaitea** (3); **larreako dorretxeko** (3); **osabaren dorretxean** (3); **urroztarren dorretxea** (3)

---

# **dorretxo** **1** *iz* tamaina txikiko dorrea.

Harrizko **dorretxo** borobil batzuk eraiki ditiztek, bertan zaindaritza egiten duten soldaduak gerizatzeko. Txillardegi

Pabiloien angeluetan **dorretxo** batzuk zeuden. Karlos Zabala

Gero, han-hemenka, **dorretxo** sail bat, printza dirdiratsuz izarniatzen zuten teila urdin eta zuriz estaliak. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Besteak beste, ikusi dugu nola, soldadu haserretu batek bultzatuta, Jabi eta Mikel lurrera jausi ziren tanke bateko **dorretxotik**. Iban Zaldua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dorretxo bat** (4); **eta dorretxo** (3)

---

# **dorretzar** *iz adkor* dorre handia.

Autobide luze-luzeak hara iristeko, eta lehenago merkatarien antzinako liga hartako antzinako hiri haietako bat, harresia zuena eta bi **dorretzar** eder ere bai ate baten alde banatan. Fernando Rey

Harako bidean, eta Xalbaterretik, eta Sangladiako **dorretzar** karratuaren ondotik azkeneko aldiz hurbildu nintzen egunean, Ozagaine ondotik Ahuñemendiko kate osoa ageri zen, urrunean. Txillardegi

---

# dorsal ik **dortsal**.

---

# **dortoir** *iz* ohe askoko gela.

Behar zenuen tresneria, behar ziren **'dortoir'**-ak eta lo egiteko lekuak egin eta... Menane Oxandabaratz

---

# **dortoka** *(orobat **dordoka** g.er. eta **tortoka** g.er.)* **1** *iz* gorputza hezurrezko oskol sendo batean bildua duen narrasti hanka-motza, ehun urte eta gehiago bizi daitekeena *(Testudo graeca* etab.).

**Dortoka** bat erostea erabaki dut. Jasone Osoro

Poliki, **dortoka** baten maskorra balitz bezala. Harkaitz Cano

Bud hankaz gora dagoen **dortokaren** gisara saiatu zen lepoa luzatzen. Lopez de Arana

**Dortoka** txiki batek loto loreen artean gorde du bere buru zimurra. Patxi Iturritegi

-Wendy, ikusten al dituzu **dortokak** arrautzak hondarretan ezkutatzen? Julen Gabiria

Maskota gisa erabiltzen diren narrastiak **dortokak**, esaterako kutsadura iturri arriskutsua dira. Berria - Gaiak

Oskolean harribitxiak sartuta zituen **dortoka** erraldoi bat dir-dir zegoen leiho ondoan. Iñaki Mendiguren

Gauzak mantso doaz, **dortoka** baldarrak bezala. Lander Garro

-Ez al duzu motxila kenduko gosaltzeko? **dortoka** bat dirudizu -esan dio aitonak. Eider Rodriguez

Erbiaren eta **dortokaren** ipuina kontatu zidan aitonak. Jesus Mari Mendizabal

Akilesek ez du inoiz ere **dortoka** harrapatuko, hura harrapatzeko egin behar duen distantziaren erdia egiten duenerako **dortokak**, apurtxo bat bada ere, aurrera egin izango duelako bere bidean. Joxerra Garzia

Hinduen ustez, elefante batek eusten dio munduari, baina, badaezpada, hinduek berek **dortoka** bat jartzen dute elefanteari eusten. Berria - Kultura

· -Lehorreko **dortokek** lurruna arnasten al dute? Iñaki Mendiguren

Egiazko kareta (*Caretta careta*) eta larruzko **dortoka** (*Dermochelys coriacea*) espezieak dira amuon biktima nagusiak. Berria - Gaiak

**2** dortoka maskorraren gaia.

**Dortokazko** armazoi beltzeko betaurrekoak erorixeak zituela bere sudurtzarraren gainean. Fernando Rey

**3** antzinako gerretan, etsaien jaurtigaietatik batesteko estalki modukoa, gurpilduna.

Eskorpioi, katapulta eta baleztei buruz, eta baita **dortoka** eta dorreei buruz ere, azaldu ditut niri egokiak iruditu zaizkidan guztiak. Santiago Iruretagoiena

**Dortoka**, lubetak betetzeko erabiltzen baita (eta harresiraino iristeko ere balio baitezake), honela egingo da: [...]. Santiago Iruretagoiena

Makina hori **dortokaren** antzekoa zen, baina erdian katapulta edo baleztetan egiten denaren antzeko erreten bat izaten zuela pilastren gainean bermatuta. Santiago Iruretagoiena

· Hondeatzeko erabiltzen diren **dortokak** (grezieraz *orynges* deitzen direnak) goian esandakoaren araberakoak izaten dira hauek ere, baina aurrealdea triangelu baten angeluen itxurakoa izaten dute, hain zuzen ere harresietatik geziak botatzen zaizkienean, jaurtikiek ez dezaten aurrealde zapalean jo. Santiago Iruretagoiena

**4** (hitz elkartuetan)

Noizean behin zuhaitz enborrak ikusten dira urazalean, eta **dortoka** maskorren bat ere bai. Joseba Sarrionandia

Aho parean paratu dizkit patetikoki pintaturiko azkazalak, gorritik baino laranjatik hurbilago dagoen kolorez pintaturiko gainazal arrailduak, **dortoka** hatzak. Eider Rodriguez

· Ia milioi erdi itsas **dortoka** erortzen dira urtero, munduan tretzan dabiltzan arrantzontzien amuetan. Berria - Gaiak

Ariete-**dortoka** bat ere harresira bultzaka hurbiltzen ari zenean, soka bat bota zioten begizta bat eginda, eta arietea harrapatuz, danbor baten bitartez dibidietak biraraziz eta arietearen burua airean esekiz, ez zioten utzi harresia ukitzen. Santiago Iruretagoiena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dortoka bat** (15); **dortoka baten** (6); **dortoka eta** (3); **dortoka uhartea** (5); **eta dortoka** (7); **eta dortokak** (3); **eta dortokaren** (3)

---

# dortokatxo *iz* tamaina txikiko dortoka.

Denbora tarte baten ostean, **dortokatxoak** arrautzetatik irten eta itsasorantz abiatzen dira, itsasoaren babesa ezinbestekoa baitute bizirauteko aukerak ugariagoak izan daitezen, baina ez dute beti lortzen. Berria - Gaiak

---

# dortsal *(orobat **dorsal** g.er.)* **1** *iz* kirol elastikoetan, bizkarreko zenbakia.

Bizkarrean 1 zenbakia zeraman **dortsalarekin** abiatu zen atzoko erlojupekoan. Berria - Kirola

201 **dortsala** eramango du Belokik. Berria - Kirola

Elastiko bat oparituko zaie lasterketa egunean, **dortsala** jaso ondoren. Berria - Kirola

Hala, 250 atleta inguru geratu dira **dortsalik** gabe, eta datorren urtea arte itxaron beharko dute Behobia-Donostian korritzeko. Berria - Kirola

• **2** *izond* fonetikan, bizkarkaria.

Lepokari (ing. *laminal*) zehatzagoa da bizkarkari edo **dorsal** baino, mihi-bizkarra oso eremu zabala delako (mihi-puntta eta erroa ez beste, guztia da berez *dorsum* deitzen dena). Lourdes Oñederra

---

# dosi **1** *iz* zerbaitetik, batez ere sendagai batetik, harraldi batean hartzen den kopurua.

H5N1 birusaren aurkako txertoaren bi milioi **dosi** berehala emateko kontratua sinatu du Londresek industriarekin. Berria - Gaiak

2001. urtean 220.000 **dosi** banatu zituzten, eta aurten, berriz, 10 milioi dositik gora banatu dituzte. Berria - Gaiak

Lehenengo bi egunetan 40 mg hartu behar dira, **dosi** bakarrean edo **dosi** gehiagotan, beti ere aipatutako kopurua gainditu gabe. Unai Elorriaga

Hamar kapsulako **dosia** nahikoa suertatu zen. Patxi Iturritegi

Puntu hartan, imipramina hartzen hasi zen, depresio-kontrakotzat saltzen den botika bat, **dosi** txikietan betiere, eta botika horren alde on eta txarrez dihardu bere liburuan. Xabier Olarra

Lagun psikiatraren aholkuz, igo egin nion antsiolitikoen **dosia**. Joan Mari Irigoien

**Dosi** txikiko ahozko antikontzeptibo konbinatuak (AOC) oso egokiak dira harreman sexual iraunkorrak dituzten nerabe eta gazteentzat. Luis Elberdin

'Oinazetan, **dosi** gogor bat eman beharko duzu berriro. Joseba Sarrionandia

-Greg gehiegizko **dosi** batekin hil zen Lucy jaio eta bi urtera. alaber, operazio berean 7.000 **dosi** heroina, 4.000 **dosi** kokaina eta 15.000 euro aurkitu dituzte. Oskar Arana

-Alkoholikoa naizela, eta neure **dosia** hartzen ez badut oso arriskutsua naizela! Pako Aristi

**2** irud/hed

Hiru kolore horiek **dosi** egokietan nahasturik. Josu Zabaleta

Ke, argi elektriko eta lizunkeriazko **dosi** eder bat. Alberto Ladron Arana

Memoria pixka bat eta amnesia, **dosi** handitan: horra gutariko bakoitzaren historia. Anjel Lertxundi

**Dosi** txikietan sartzen dituzu esperimentuak... Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pozoi-**dosi** txiki batzuek sorrarazten zioten ondoezaren eraginpean. Iban Zaldua

Usaimena galdua zuten berrogeita hamasei gaixori A bitamina **dosi** handitan eman zitzaienean, berrogeita hamar sendatu ziren, erabat edo partzialki. Irene Aldasoro

Begiak zerura goratu eta beste gazur **dosi** bat txertatu zidan dermatologoak. Joxan Elosegi

Petrov askoz lasaiago zegoen, jendearen presentziak eta morfina-**dosi** handiek baretuta. Jose Morales

Zorionez, lasaigarri **dosi** batek konpondu zuen dena. Patxi Iturritegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, irud/hed)

Helenismo-**dosi** homeopatiko bat izango zela bitartekorik onena judaismoaren iraupena ziurtatzeko. Iñaki Mendiguren

Krudeltasuna naturaren baitan dago; denok jaiotzen gara krudeltasun **dosi** batekin, eta heziketak bakarrik aldatzen du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lewis Thomas-en iradokizuna aintzat hartzera, eragiten digun harridura-**dosiaz** neur daiteke lan baten interesa. Juan Garzia

Hainbesterainoko literatura, krimen, abentura eta misterio-**dosiak** aspertu egin zuen azkenerako. Josu Zabaleta

Gehiegizkoa izango zen bestela gizarteratze **dosi** hura egun bakar baterako. Joxan Elosegi

Gaztetako ondoeza, damu **dosi** txikiak eskarmentuaren kanpoko igurtzialdiekin konbinatuz senda daitekeena. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dira dosi** (3); **dosi bat** (7); **dosi egokietan** (3); **dosi handia** (3); **dosi handiagoak** (3); **dosi handiak** (3); **dosi txiki** (3); **dosi txikietan** (7); **dosi txikitan** (5); **eta dosi** (3); **hiru milioi dosi** (3); **kokaina dosi** (3); **milioi dosi** (7); **pozoi dosi** (3)

---

**dosier** *(orobat* ***dossier*** *g.er. eta* ***dozier*** *g.er.)* **1** *iz* gai bati edo pertsona bati buruzko dokumentuen multzoa; orobat dokumentuak dauzkan karpeta.

Metro batzuk atondu nituen liburutegirako eta lerrotan ordenatu nituen gurasoek denboraren joanean gorde zituzten kutxak, **dosierrak** eta karpetak. Joxan Elosegi

Urte asko pasatu dira ordutik, liburu eta **dosier** asko irakurri dut, Angeloren oroitzapenak gogoan ditudala beti, OVRAri eta Mussoliniren aurkako erresistentziari buruz. Anjel Lertxundi

Denbora gehiago ematen du unibertsitateko liburutegian, Byronen inguruabarrez aurkitu ahal duen guztia irakurtzen, dagoeneko bi **dosier** loditan pilatutako oharrei are gehiago erantsiz. Oskar Arana

**Dosierrean** deus berririk ez. Berria - Mundua

Bidarten **dosierrak** «elementu guztiak» baditu askatua izateko, abokatuaren iritziz. Berria - Euskal Herria

Begira, hemen duzu aferaren **dosierra**. Karlos Zabala

Bere **dosier** penala eskuratzeko aukera onartu diote, ordea, Europako Giza Eskubideen Ituneko 6. artikuluan oinarrituta. Berria - Mundua

-Norbaiten kontrako **dosierra** behar dut. Matías Múgica

Aurrean barreiatuta zituen **dosier** batzuetan aztarka hasi zen. Matías Múgica

Zacariasen aurkako **dosierra** hutsik da. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itxuraz, Diputazioak Greenpeaceren **dosier** zati bat 1999an Austriarako egindako zirriborroa aldatu zuen erraúste planten aldeko bere tesia indartzeko. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ondoko mahai biribilean, ETAren su-etenari buruzko prentsa **dosierra** dago. Berria - Euskal Herria

Diru laguntza **dosierrak** betetzen laguntzeko. Berria - Ekonomia

Auzapezari egin dion gutunean salatu du kenduak izan zaizkiola eraikuntza **dosieren** inguruan ukan berriak zituen ahalbideak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dosierra oso ona** (3); **dosierrak betetzen** (3); **dosierrak eta** (3); **dosierren jarraipena** (3)
> **dozier bat** (6); **dozier hori** (5); **dozier horretan** (4); **doziera prest** (3); **ikasleen dozierentzat** (5)

---

**dosifikatu**, dosifika, dosifikatzen **1** du *ad* sendagai edo kidekoren baten harraldien maiztasuna eta neurria finkatu; zerbaiten kopurua neurtu.

Baina misantropo zientifikoa da, bere gorrotoa **dosifikatzen** jakin duena. Monika Etxebarria

Indarrak **dosifikatzeko** aholkuak ailegatu zitzaizkien etengabe izkinetatik. Josu Landa

Umbertoren zorroztasun psikologiari zor zitzaion informazioa eta elkarrizketa hala **dosifikatzea**? Anjel Lertxundi

Sariak eta zigorrak behar bezala **dosifikatuz**. Karlos Zabala

**3** (era burutua izenondo gisa)

«Komunikazio sozialerako duen arma bakarra terrore **dosifikatua**» da. Berria - Harian

Ustekabeko hilketak ere eramaten du kristau mordo bat hankaz aurrera, baina heriotza **dosifikatuak**, heriotza planifikatuak [...] heriotza estatistikoak, ez dute esku ezagunik abstrakziotik kanpora. Iñaki Segurola

---

**dosifikazio** *iz* dosifikatzea.

Sobrako musurik ez, **dosifikazioa** beti. Unai Elorriaga

---

dossier ik **dosier**.

---

**dostaka** *adlag* jostatzen.

Hari bai, dirua pozik emango ziokeen basurdeak, orbel artean berarekin **dostaka** jotzearren. Edorta Jimenez

---

**dostatu**, dosta, dostatzen **1** da *ad* jostatu.

Alde batetik, eta bertzetik beharondoka hari zeikan, batean bizarra, bertzean beharriak thiratzen zerautzan: haur batekin bezala, harekin **dostatzen** zen. Iñigo Aranbarri

Espainiako prentsaren aldean, zinez maite du frantsesak hitzekin **dostatzea**. Iñigo Aranbarri

• **2** du *ad*

Beste gisako jolasak, horiek baitute ez bakarrik jendea **dostatzen**, baina ere gerlako eta beste ariketa ederragoetako trebatzen. Piarres Xarriton

---

**dosteta** *iz* josteta.

Saratar medikuaren "gerla", bada, ez zen Marteren suzko eta karrezko joko eta habarrots izigarrietara daraman hura, Minervaren **dosteta** ezti eta kanta alosien bidez enorantziaren kontra egiten den gerla ohorezkoa baizik. Piarres Xarriton

Kasualitateak eta **dosteta**, nahigabe nahasten dira biak sarritan. Iñigo Aranbarri

Eta gero, begiak maltzurkeriazko tanta lodiez pelatuak, destainazko ukituak ahotsean, kanona, kanona, horiek xorakeriak ditützü; **dostetazko** ume-engainagarriak. Jon Alonso

---

**dotatu**, dota, dotatzen **1** du *ad* hornitu, jantzi.

Jainkoak mila donu suertez **dotatu** zuena donurik gabe utzi balu bezala. Joan Mari Irigoien

Eta kontatu zenidan, finean, nola Martinek ospitale batez **dotatu** eta hornitu zuen bere jaioterria, Barasoain, hil ondoren. Joan Mari Irigoien

**2** ***gain-dotatu*** *izond*

Halaz ere, ume gain-**dotatuaren** pasadizoaz apur bat nekatu/ nazkatuz gero, Nothomben beste libururen bat aukera dezakezu, ugari ditu eta. Berria - Kultura

---

# dotazio **1** *iz* kide kopurua.

Handik gutxira ertzainak gerturatu ziren eta beranduago istiluen kontrako Ertzaintzaren **dotazioa** inguratu zen, baina ez zen istilurik gertatu. Berria - Ekonomia

Ertzaintzaren **dotazio** bat Juan de Bilbao kaleko hiru tabernatan sartu eta, miaketa egin ondoren, hainbat material eraman zuela salatu zuten. Berria - Euskal Herria

**2** diru kopurua, diru hornidura.

Unibertsitate publikoan artearen historia lizentziatura berriak ezin izan dio erantzun gizarteak behar duen alde dibulgatiboari eta Espainiako eredu sasi zientifikoa jarraitu du, **dotazio** faltagatik eskola beharrei erantzun ezinik itota ibili ez direnean UPV/EHUko Artearen Historia sailean lan egiten duten irakasleak. Berria - Kultura

Baina horretarako aurrekontu **dotazioak** behar ditugu eta hartzekodunek zabal ditzaketen espedieenteen aurka ahalmena behar dugu ere. Berria - Ekonomia

---

# dote **1** *iz* ezkonsaria.

Orduan, baserriko idiak uztarrian, arropak, aferak eta **dotea** osatzen zuen oihaleria osoa orgetan garraiatu zioten. Itxaro Borda

Ezkondu egingo da **dotea** ordaindu eta gero. Gotzon Garate

Arreba bat nuen ni baino zaharragoa, eta aita haren **dotea** ari zen osatzen. Koro Navarro

-Zer nolako **dotea** eskatuko zenioke nire semeari zure alabarekin ezkontzeko? Patxi Zubizarreta

Orduan, baserriko idiak uztarrian, arropak, aferak eta **dotea** osatzen zuen oihaleria osoa orgetan garraiatu zioten. Itxaro Borda

Gizonak ez zuen **dotea** ekartzeko asmorik eta ezkonsaria emakumearen esku baino ez zuen utzi nahi. Patxi Zubizarreta

Ezkondu ere egin da, **dote** ederra ekarri dion neska dohakabe batekin. Martin Anso

Zinez, **dotea** deabruak asmatu duen azpijanik bihurriena da. Gotzon Garate

Dukesa Ana hamalau urtetan Frantzia puska hartako Charles VIII. Errege zaharkituarekin ezkontarazi zuten, Bretainia **dotean** ekartzen ziola. Itxaro Borda

Beren seme-alabak ezkontarazi nahi ez zituzten aitak, edo alabei **dotea** eman nahi ez zietenak, magistratuek behartzen zituzten hartara. Iñaki Iñurrieta

Aita, kontuak argi eta kantuak garbi: nire sei ahizpei uharte bana eman diezu**dotean** . Anjel Lertxundi

Mutil gazte asko dago, gurasoek eraginik, **"dote** bila" dabilena. Gotzon Garate

**Dote** gaberik ezkondu zen hamahiru urtetan. Gotzon Garate

**2** (hitz elkartuetan)

Ez du gerratik bueltatzerakoan premu-**dotea** jasotzeko esperantza galdu. Anjel Lertxundi

Ezkonberri **dotez** hornituagoak ikusi ziren noski lehenago Maulen. Aingeru Epaltza

**3** irud/hed

Elizarentzako ziren: zure apaiz-**dotea** . Xabier Aranburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dotea eman** (5); **dotea eta** (3); **haren dotea** (3)

---

# dotegabe *izond* doterik ez duena.

"Saròd e senssa mañòd", esaera horixe baitzerabilten ezkontza-artekariek neskato itsusi eta **dotegabeez** . Juan Garzia

---

# dotore **1** *izond* itxuren, moldeen, janzkeren edo apainduren egokitasunagatik bereizten edo nabarmentzen dena. (pertsonei buruz)

Hildakoa emakume **dotorea** iruditu zitzaion, berrogeiko muga latza modu bikainean gainditurik zeukan emakume ederra. Migel Angel Mintegi

Zuzendaria oso emakume ederra zen, **dotorea** , xuxen-xuxena. Eskarne Mujika

Senar onbera, emakume **dotore** eta maitasun beharrekoa, eta maltzur jokatzen duen adiskide estimatua, amorante gazte eta sutsu bilakatua... J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere gizona salatu zuten, Claus von Bulow, Danimarkako aristokrata **dotore** bat. Gotzon Garate

Atzerritar **dotore** hark egunkaria erosi baino mandatu zirraragarriagorik eginen ziola espero zuen. Alberto Ladron Arana

Martha Gellhorn andere fin-**dotorearekin** duen afera plazara irtengo da apirileko lehenetan. Edorta Jimenez

Asteartekoan beste gizon **dotore** -atsegin bat agertu zitzaigun gidari: Vitorio de Almeida. Edorta Jimenez

Bazekien bezeria **dotorearen** aurrean diskrezioz jokatzen eta isilik egoten. Joxan Elosegi

**2** (gauzei buruz)

Bulebarra **dotorea** da, bai, baina motel halakoa ere bai. Txillardegi

Bazeuden eskualde hartan beste lauzpabost jauretxe **dotore** , ez askoz gehiago. Txillardegi

Afaltzeko orduan, berriz, salbuespena egin eta kafetegi **dotore** batera jo nuen, aspaldi ez bezala. Bernardo Atxaga

Taberna oso **dotorea** zen, eta ez zen igartzen Gabonak zirenik. Koro Navarro

Saltz familiak, izan ere, etxe **dotore** barrokoa zuen Malá Stranan, gaztelupean. Felipe Juaristi

Etxeko sofarik **dotoreenean** eseri zuen panpina. Jasone Osoro

Kristalezko ate **dotore** baten aurrean gelditu zarete.1935eko Citroën 11CV **dotore** haren larru ilunezko eserlekuetan. Rafa Egiguren

Auto zuri **dotore** bat pasatu zen ziztu bizian mendate gainetik. Juan Luis Zabala

Egun bat geroxeago atera ziren Paristik hegoaldera abian, lau zaldizko zalgurdi **dotore** batean. Felipe Juaristi

Han dira frantses bandera daramaten gerra-fragata **dotoreak** . Felipe Juaristi

Adituа ez denari ere zalantzarik gabe onak eta garestiak iruditu ohi zaizkion moduko jantziak zeramatzan soinean, neurrizkoak eta **dotoreak** . Ramon Saizarbitoria

Ezpata **dotore** apain baten kirten landua. Txillardegi

Galdara, sekulako sabel metalezkoa, pernoz sendo lotua, errematxatua, zurez, beiraz eta burdinurtuz egina, motor mekaniko bat bezain **dotore** eta ahaltsua. Karlos Zabala

Etxe **dotore** antzeko batean ur-berogailu bat jartzea izan zuen preso ohiak bere lehen eginkitekoa. Joxerra Garzia

-Zuek, berriz, etxe **dotore** askoa daukazue. Xabier Mendiguren Elizegi

Toxatik nola atera eta pizten zuen zigarreta -keinu **dotore** distraitu harekin-. Anton Garikano

Ez zegoen ukatzerik postalaren testua **dotorea** zela, ez zuela hitz bat gehitzea ametitzen. Ramon Saizarbitoria

**3** (gauza abstraktuei buruz)

Jende famatua, giro **dotorea** eta solas erakargarriak kausituko ditu. Joseba Sarrionandia

Nik, noski, sotiltasuna neritzola horri, neurritasun **dotorea**, eta gogorarazi nion horrexegatik, hala iruditzen zitzaigulako, eginarazi genituela gainera era hartan. Ramon Saizarbitoria

Errukarria, baina, hipotesi **dotore** bat ziurtasuntzat pasatu nahi duena: polizi liburuak irakurtzen dituztenek ere badakite hori. Juan Garzia

Sotiltasun **dotore** eta erasokorraren atzean grinak bizitzeko gogoa ezkutatzen ditek. Xabier Olarra

Kaligrafia ezin **dotoreagoz**. Karlos Linazasoro

Ez da konponbiderik **dotoreena**, baina zahartzea bera ere ez da langintza **dotorea**. Oskar Arana

Egin didazun eskaintza ez da dirudien bezain **dotorea**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Modu **dotorean** esanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskarak, galduxe baditu ere, baditu esanera **dotore** batzuk, oraino bazterka bederen baliatzen dituenak. Patziku Perurena

Halako itxura erdi-punk, erdi-**dotore** bat. Oskar Arana

Jardun erretorikoak bere praktikotasuna galdu zuenean [...] *elocutio*ak, formulazio **dotore**-apainen arteak neurriz gorako garapena izan zuen, aurreko biak (inventio eta dispositio) oso-osorik janez. Txema Ramirez de la Piscina

Zein **dotorea** ni bezalako alaba bakar -eta mainatu- batentzat pianoa jotzen ikastea! Anjel Lertxundi

**4** (adizlagun gisa)

**-Dotore** zaudete -esan diot koinatuari-. Txillardegi

Gizonezkoak ere **dotore** ageri dira, begia emakumeetan galdua. Felipe Juaristi

Afaltzera gonbidatu zuen, eta han joan zen mutila, oso **dotore**, koipeztaturik ilea. Koro Navarro

"Merci beaucoup", eta Beatrice pomeraniarrarekin batera joan da, **dotore** baino **dotoreago**, Grand Plageko itsas pasealeku bustian zehar.Umeak, auzuneko ume garbi eta **dotore** jantziak. Iban Zaldua

Gizonezkoen arteko bat, gizon **dotore** jantzitakoa bera, longaina eskuan, horretaz ohartu zen. Felipe Juaristi

Bazuan emakume bat oso apaina, **dotore-dotore** jantzirik, farfail, brodatu eta guzti. Jose Morales

**Dotore** apainduta zegoen plaza. Txillardegi

**Dotore** geratzen zen oso, pelikuletan ikusten diren ohe tentagarri horietakoa zirudien. Jasone Osoro

Ahalegin handia egiten zuen **dotore** hitz egiteko, baina ezin zuen azentua disimulatu. Bernardo Atxaga

Egin kontu horretan lan egiten zuela: partitura orriak **dotore** pasatzen. Harkaitz Cano

Beste hartan ez zuela hain **dotore** jokatu. Koldo Izagirre

Koldo Izagirrek **dotore** baliatu du arketipo hau, poema batean lelo modura sartuz. Patziku Perurena

**5** ***dotore-uste*** *izond*

Neskatan nahi eta okerreko tokira iritsitako dibortziatu berri **dotore**-ustearen irudi biribila, pentsatuko nuen haren egoera zibilaren berri ez banu. Aingeru Epaltza

Gona gorri motzeko neska bat agertu zitzaigun eta aberats-berri kutsuko dekorazio **dotore-uste** ezaineko bulego bateraino eraman gintuen. Anjel Lertxundi

Behin, iluntzen hasia zen, ostatutik irteten ikusi nuen **dotore ustean** jantzita. Anjel Lertxundi

**6** ***dotore-usteko*** *izlag* dotore-ustea.

Probintzietako gizon **dotore-usteko** horietako bat hiri erdian. tarteka, keinu **dotore usteko** batekin laztantzen zuen ilaje bakan eta urdindua. Jose Morales

Buru-zapi **dotore-ustekoa** begietaraino hondoratzeko haren moduak. Mirentxu Larrañaga

"Errautsen distira" bataiatu dut liburu hau, bi hitz **dotore usteko** erabilita, baina berdintsu izan zitekeen "Atzoko sua", hitz pare arruntagoa hartuta. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**apain eta dotore** (9); **aulki dotore** (5); **baina dotore** (4); **bezain dotore** (17); **denda dotore** (6)

**dotore agertu** (4); **dotore ari** (6); **dotore ari da** (4); **dotore aritu** (9); **dotore aritu zen** (6); **dotore asko** (11); **dotore askoa** (8); **dotore askoak** (4); **dotore baina** (7); **dotore baino** (7); **dotore baino dotoreago** (5); **dotore bat** (59); **dotore batean** (27); **dotore batek** (9); **dotore batekin** (5); **dotore baten** (19); **dotore batera** (7); **dotore batetik** (4); **dotore batez** (4); **dotore bati** (4); **dotore bezain** (7); **dotore dotore** (22); **dotore eta** (79); **dotore haiek** (7); **dotore hark** (6); **dotore horiek** (4); **dotore horietako** (4); **dotore hura** (4); **dotore irabazi** (4); **dotore jantzi** (8); **dotore jantzia** (10); **dotore jantzirik** (8); **dotore jantzita** (30); **dotore jantzitako** (7); **dotore janzten** (10); **dotore janzten zen** (4); **dotore jokatu** (5); **dotore jokatzen** (4); **dotore moldatzen** (5); **dotore prestatua** (4); **dotore zegoen** (6)

**eliza dotore** (4); **emakume dotore** (8); **ere dotore** (12); **eta dotore** (83); **eta dotore jantzita** (5); **eta oso dotore** (4); **etxe dotore** (15); **gazte dotore** (5); **gizon dotore** (21); **hain dotore** (19); **hain dotore eta** (5); **horren dotore** (4); **jantzi dotore** (5); **jatetxe dotore** (6); **keinu dotore** (4); **mandarin dotore** (8); **modu dotore** (6); **oso dotore** (28); **oso dotore jantzita** (6); **zein dotore** (6); **zeinen dotore** (4)

**baina dotorea** (7); **bezain dotorea** (9); **dotorea da** (23); **dotorea du** (5); **dotorea egin** (12); **dotorea egin zuen** (7); **dotorea ere** (4); **dotorea eta** (32); **dotorea iruditu** (5); **dotorea izan** (10); **dotorea izango** (4); **dotorea jokatu** (4); **dotorea lortu** (4); **dotorea zela** (4); **dotorea zen** (29); **dotorea zuen** (4); **ere dotorea** (5); **eta dotorea** (39); **eta dotorea da** (4); **etxe dotorea** (5); **garaipen dotorea** (4); **gizon dotorea** (16); **hain dotorea** (5); **itxura dotorea** (6); **jantzi dotorea** (5); **joko dotorea** (5); **oso dotorea** (20); **oso dotorea zen** (6); **partida dotorea** (6)

**arropa dotoreak** (4); **baino dotoreago** (11); **baino dotoreagoa** (5); **dotore baino dotoreago** (5); **dotoreago eta** (4); **dotoreagoa da** (4); **dotoreak eta** (13); **eta dotoreago** (4); **eta dotoreagoa** (6); **eta dotoreak** (10); **eta dotorean** (4); **ezin dotoreago** (6); **jantzi dotoreak** (6); **modu dotorean** (4)

---

# dotoredun *izlag* dotoreko.

Emakume pertxenta, sukaldari fina eta abizen **dotoredun** andrea. Pako Aristi

Iristen da garai bat, ordea, non beste herriak ekonomikoki aurrea hartzen dion eliza **dotoredunari** eta bailara horretako herri nagusi bilakatzen den. Pako Aristi

---

# dotoretasun *(75 agerraldi, 39 liburu eta 10 artikulutan; ETCn 483 agerraldi)* *iz* dotorea denaren nolakotasuna. ik **dotorezia.**

Beste batek, halakoak eginez, oiesa eta gisagabea emango zukeen; hark ez; Tellagorrik berezkoak zituen gisagabekeriatik urruntzen zuten **dotoretasuna** eta leuntasuna. Koro Navarro

-Ederra zuan, urteetan sartuta baina ederra oraindik, **dotoretasun** handikoa. Migel Angel Mintegi

Artearen laguntzaz edertu ondoren, plazerrez jantzi zuten bizitzeko **dotoretasuna**. Santiago Iruretagoiena

Defentsa, eta mugimendu guztien **dotoretasuna**. Josu Landa

Ez zuen musika eta pianoa beste ikasketarik, eta *grande dame* baten **dotoretasuna** erakusten zuen, baita sukaldeko su-zuloan ikatza sartzen ari zenean ere. Anjel Lertxundi

**Dotoretasuna** eta txukuntasuna, luxu ukitu batekin, nonahi zeuden. Migel Angel Mintegi

Elizak ondasunak nahi zituen, apainkeria eta **dotoretasuna**. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Dotoretasunik** gabeko hotel bateko taberna itsusian. Koro Navarro

Haiexen usaina eta kerua hartu bainuen botoi gaizki jarri bati zerion lurrun kosmetiko, modako eta **dotoretasunezkoan**. Xabier Olarra

Egia deskribatu nahi baduzu, egizu modu sinplean, eta **dotoretasuna** utz ezazu jostunarentzat. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baten dotoretasuna** (3); **dotoretasun eta** (3); **dotoretasuna eta** (5); **eta dotoretasuna** (6)

---

# dotoretu, dotore(tu), dotoretzen da/du *ad* **1** dotore bihurtu.

Argalak izan ostean, ongi elikatuen itxura hartu, eta mardul bilakatu ziren; zarpail ibili ostean, **dotoretu** egin ziren. Patxi Zubizarreta

Etxerako apaingarriak bakarrik, ingurua **dotoretu** nahiko bazenu bezala: zure ingurua bai, baina ez zeure burua. Lourdes Oñederra

Zure soina harribitxiz **dotoretu** du, / zure belarrietan perla preziatuak eskegi. Askoren artean

Berak aitortzen zuenez, izugarri atsegin zitzaion hizketa **dotoretzea** . Jose Morales

Gaiak aldatzen hasi zen, esaldiak **dotoretzen** , naturaltasuna galtzen eta jatortasuna baztertzen. Berria - Kultura

Gutxi aski, bera dute biek kezka: belarriz jotzen dutena ondo janztea, **dotoretzea** . Iñigo Aranbarri

Elitismo halako batez **dotoretu** nahi ditudala hitza eta sorkuntza zientziaren aurrean? Anjel Lertxundi

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Ez dakit zein buruzagi mairuren lepoa moztutako ezpata, halakoren galako kasaka eta bandera maiztua, Auskalandiako borrokan [...] erabilitako zizpa **dotoretua** ... Iñigo Aranbarri

Haren arrastoak suma zitzakeen euskara osatu, **dotoretu** , goratu hartan. Iñigo Aranbarri

---

# dotorezia *(207 agerraldi, 90 liburu eta 44 artikulutan; ETCn 1.550 agerraldi; orobat **dotorezi** g.er.)* **1** *iz* dotoretasuna.

Paueko errege-jauregiaren **dotorezia** miretsia zuen berriz. Aingeru Epaltza

Ikusgarria da eraikuntzaren forma gordinek osotasunari ematen dioten **dotorezia** . Anjel Lertxundi

**Dotorezia** neurritsu batez jantzita dago, eta horrek kontraste handia egiten du, goizegi iratzarrita, baldarkeria gainetik kendu ezinik gabiltzan gainerako bidaiariokin. Iban Zaldua

Begiradaren beroak, ezpainen iradokizunak edo bere keinuen **dotoreziak** . Joxean Agirre

Baina koherentziaren **dotoreziaz** jantzitako jokabide horrek ere badu bere arriskua. Anjel Lertxundi

Ez du **dotoreziarik** bilatzen hitzetan, ez da farfailik haren esaldietan. Eskarne Mujika

Denbora aurrera, Fernandok alde batera utzi zituen latinezko esaldiak eta gainerako **dotoreziak** , eta hitz arruntagoak erabiltzen hasi zen. Bernardo Atxaga

Atorra xuri eta galtza beltz, gaitzeko **dotorezian** agertzen dira so egileari. Piarres Aintziart

Hitz hura horrela ahoskatzea **dotoreziaren** erakutsia iruditzen zitzaion gure amonari. Fernando Rey

Berak darabilen ahozkoa du erreferentzia ia bakar, irratitik ikasitako ustezko **dotoreziaz** jantzia. Iñigo Aranbarri

Jantziaren beltzak ez du iluntzen apeza, baizik eta **dotoreziaz** apaintzen. Piarres Aintziart

Klasikotasunaren **dotoreziaz** . Pako Aristi

Hark **dotoreziaz** jakin izan zuen nire borondate oneko eskaintza saihesten. Karlos Linazasoro

**Dotorezia** da geometra aurreratuenen ahaleginen helburua. Jon Muñoz

## 2 (izenondoekin)

Momenturen batean, Victoriaren **dotorezia** neurtu hura deitoratzera heldu nintzen. Ramon Saizarbitoria

**Dotorezia** neurritsu batez jantzita dago, eta horrek kontraste handia egiten du, goizegi iratzarrita, baldarkeria gainetik kendu ezinik gabiltzan gainerako bidaiariokin. Iban Zaldua

Danelek hain gustukoa zuen **dotorezia** amaneratuaz. Anjel Lertxundi

Haren gizarte-kontuen arbuioa, marfilezko dorrea, exotismo estetikoa, **dotorezia** aristokratikoa. Anjel Lertxundi

Estilo zaharreko **dotorezia** betikoaz. Berria - Kultura

Gela oso zabala zen, eta aiton-amonek emana zioten antigoaleko **dotorezia** asurbanipaliko haren jabe zen oraino. Iñaki Segurola

Hanka-puntetan jarririk, gora eta behera higitu du gorputz oldarkotea, halako **dotorezia** zangoastun batez. Anjel Lertxundi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Liraintasun eta **dotorezia** eredu da haren gorpuzkera, zoragarria haren bularra. zigarroak amaitzean Clark Gable-ren **dotorezia** -keinu hura behin eta berriro errepikatzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bazetozela entzutean, arrapaladan kendu zituen betaurrekoak: adineko gizonaren **dotorezia** -nahia. Jon Muñoz

Ez zuen oreka gordetzeko behar, nik barregarritzat neukan **dotorezia** -ustea indartzeko baino. Anjel Lertxundi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezkutuko guneen dotoreziak neskato haren bihotz- **dotorezia** adierazten zuela. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dotorezia betikoaz** (4); **dotorezia eta** (15); **dotorezia handiz** (8); **dotoreziaz eta** (4); **estilo zaharreko dotorezia** (6); **eta dotorezia** (12); **eta dotoreziaz** (5); **zaharreko dotorezia** (6); **zaharreko dotorezia betikoaz** (4); **zuen dotorezia** (7)

---

# dotrina *(orobat **doktrina**)* **1** *iz* kristau ikasbidea.

Gainerako mutilek **dotrina** eta katoia ikasten zuten artean, izadiaren ikuskariei begira egoten zen Martin. Koro Navarro

Amak kaleko lanak egiten zituen bitartean, Jexux **dotrina** ikastera joaten zen Parrokiara. Xabier Etxabe

Ni ere, jakina, erlijio katolikoan hezi ninduten, **dotrinara** joaten nintzen, lehenengo jaunartzea egin nuen organdi zuriz jantzita, [...]. Karlos Zabala

Pazko-txartelak ziren beste buruhauste latzetakoak: **dotrina** errepasatu behar hura, jaunartzeko baimenik emango bazizuten! Pello Zabala

· Kristau **dotrinako** berbak esaten zituela. Edorta Jimenez

## 2 irud/hed

Batxilergoan Faxismoaren **Dotrinaren** egia errebelatuez lepo-lepo eginez geroztik, egia errebelatu, demostratu gabe guztiak gogaikarri edo susmagarri zitzaizkidan. Juan Garzia

## 3 doktrina.

**Dotrina** filosofiko bat hasieran unibertsoaren deskribapen sinesgarri bat da. Juan Garzia

Erabaki dut teologoen **dotrinak** inon ez eztabaidatzea, herritarren obedientzia ezabatu eta Estatuaren sendotasuna hondeatu nahi dituztenak izan ezik. Esteban Antxustegi

Gaztetako ateismo porrokatua utzi, eta agnostizismoaren **dotrina** fedegabea hartu zuen arte, ez zen jainkozurtz sentitu.Jo dezagun eboluzioaren **dotrinan** sinesten dugula. ulergarritasun horretan laketzeko ez dago zientziaren bulgarizazio **dotrinantea** irenstea bezalakorik. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere dotrina** (9); **dotrina auzitan** (3); **dotrina erakusten** (3); **dotrina eta** (9); **dotrina hori** (5); **dotrinarekin amorosturik** (3); **eta dotrina** (3); **ezarritako dotrina** (3); **haren dotrina** (4); **sexu dotrina** (3); **sexu dotrina auzitan** (3)

dotrinante ik **doktrinante**.

---

**dottore** *izond adkor* dotorea.

"Aitaren alaba kuttuna", berrogeita hamar urteren bueltan ibiliko zen andre **dottore** bat, oporlekuetan ikusten genuen batzuetan, eta gure aitak orduan esaten zion amari: "ikusi duzu? Fernando Rey

---

dotzena ik **dozena**.

---

doughnut ik **donut**.

---

**doxa** *iz*

Esan dugu badela mundu adigarriko epistemearen eta mundu sentikorreko **doxaren** arteko beste jakite-mota bat, hau da, iritzi zuzena. Askoren artean

Izan ere, Pío Barojaren denboran ikuspegi hori oso zabaldua zegoen; arrunta zen; **doxa** zen. Bernardo Atxaga

---

**doxologia** **1** *iz* Jainkoa, eta bereziki Hirutasun Santua, goresteko ereserkia.

Eskuizkribu batzuetan *Amen* hitzaz amaitzen den Pauloren **doxologia** honek hau adierazten du segur aski: hemen bukatzen zela hasierako [...] Anaia txikien Erregela. Askoren artean

**2** irud/hed

Bera ez doa, aurrerapen geldo batean, iritziaren arlo nahasitik berezitasunera edo zientziaren behin betiko egonkortasunera; bera ez da **"doxologia"** bat; baizik eta diskurtsoaren modalitateen azterketa diferentziala. Xabier Arregi

---

**dozena** *(orobat* ***dotzena*** *g.er.)* **1** *iz* hamabi banakoko multzoa. ik **hamabi 9**.

**Dozena** bat aldiz eskatu dizut gurera etortzeko. Iñaki Mendiguren

**Dozena** bat lagun bildu ginen bazkaritan. Joxerra Garzia

Bi urte honetan laborantza biologikoa geldian dela salatu dute zenbait **dozena** lagunek joan den ostiralean Baionan. Herria

Aitortzen dizut sinetsita nagoela idatzi dudan **dozena** bat lerrok emakume bati konortea galarazteko ahaltasuna izan dutela. Ramon Saizarbitoria

Erlauntzetik **dozena** bat metrora. Hasier Etxeberria

Baina zuzendu egin zuen-: ipinidazu **dozena** bat. Patxi Zubizarreta

**Dozenaren** bat begiluze beraiei begira zeuden artean. Iñaki Mendiguren

Lando estali txiki bat nuen zain, **dozenaren** bat zaldizkok inguratua. Koldo Izagirre

**Dozena** aurkituko dituk, bilatuz gero. Aingeru Epaltza

Utzi bi **dozena** hemen eta saldu besteak. Jon Maia

Bi **dozena** baino gutxiago. Iñaki Mendiguren

Hiru **dozena** funtzionario armatuk osatutako bi ilaren tartean pilatuta. Jon Maia

Lau bat **dozena** ezkur, eta, ur eta intxaur, beste horrenbeste. Patxi Ezkiaga

Bertan, Jukesek sei **dozena** azote jaso zituen. Julen Gabiria

Badakigu nolako izan behar duen gazte doktore baikor lasai potzoak, hamar **dozena** soldatarekin. Patziku Perurena

Ez ginen han eliztar asko, **dozena** pare bat-edo. Joan Mari Irigoien

Pare bat **dozena** urte bete du estilo honek eta indarrean dirau. Edorta Agirre

-Bi sosetan izanen dira pieza handiak eta beste bi sosetan oskol ttipi **dozena** -azpimarratu zuen Joanttok. Elena Touyarou

**2** ***dozena-erdi*** *(****182*** *agerraldi,* ***87*** *liburu eta* ***36*** *artikulutan; ETCn* ***1.596*** *agerraldi; orobat* ***dozenerdi 40*** *agerraldi,* ***19*** *liburu eta* ***2*** *artikulutan; ETCn* ***80*** *agerraldi)*

Barruan ez zegoen eserlekurik, baina bai letoizko **dozena-erdi** bat ohe, leiho errezeldunen ondoan. Iñaki Mendiguren

Bere inguruan **dozena-erdi** bat metrora zeuden guztiak hil... Iñaki Mendiguren

Eguzkitan lehortzen jarritako belarra biltzen dihardute **dozena erdi** bat lagunek begi horietan. Hasier Etxeberria

**Dozena erdi** bat kanoiren laguntza. Txillardegi

Garai bertsukoak dira, **dozena erdi** bat urte gorabehera. Arantxa Iturbe

**Dozena erdi** bat urte izango dira honezkero. Markos Zapiain

Zer-nola gobernatuko genituzke **dozena erdi** soldadu? Mirentxu Larrañaga

Ezpata bere lana egiten hasia zen, eta zartada bakoitzean **dozena erdi** demonio xurgatzen zituen bere indarra areagotuz. Joanes Urkixo

**Dozena erdi** pertsonak osatzen zuen taldeari. Ramon Saizarbitoria

Zubiaren bi muturretan, **dozena erdi** udaltzainek trafikoa geldiarazten eta saihesten zuten. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat dozena** (5); **bat eta dozena** (3); **beste dozena** (16); **beste dozena bat** (12); **beste dozena erdi** (3); **bi dozena** (14); **da dozena** (4); **diren dozena** (3)

**dozena bat** (358); **dozena bat aldiz** (38); **dozena bat bider** (3); **dozena bat edo** (4); **dozena bat etxe** (3); **dozena bat gazte** (3); **dozena bat hildako** (3); **dozena bat lagun** (15); **dozena bat lerro** (5); **dozena bat liburu** (6); **dozena bat metrora** (3); **dozena bat pertsona** (5); **dozena bat polizia** (4); **dozena bat preso** (4); **dozena bat txirrindulari** (3); **dozena bat urte** (21); **dozena bat urtez** (3); **dozena bat zauritu** (6); **dozena batzuk** (6); **dozena bi** (3); **dozena erdi** (159); **dozena erdi bat** (84); **dozena erdi lagun** (9); **dozena erdia** (8); **dozena erdiren** (7); **dozena erdiren bat** (6); **dozena erditik** (3); **dozena eta** (5); **dozena eta erdi** (3); **dozena inguru** (5); **dozena pare** (14); **dozena pare bat** (13); **dozena urte** (4); **dozena zikina** (4)

**ñ ñ dagoeneko dozena** (27); **dagoeneko dozena bat** (27); **duela dozena** (6); **duela dozena bat** (5); **ere dozena** (3); **eta beste dozena** (3); **eta dozena** (37); **eta dozena bat** (26); **eta dozena erdi** (5); **gutxienez dozena** (4); **gutxienez dozena bat** (3); **hamar dozena** (3); **hiru dozena** (3); **ia dozena** (3); **ia dozena bat** (3); **osoan dozena** (3); **pare bat dozena** (3); **ziren dozena** (5); **ziren dozena erdi** (3); **zituen dozena** (4); **zituzten dozena** (5); **zituzten dozena bat** (3); **zuten dozena** (3)

**dozenaren bat** (17); **dozenatik gora** (13)

**beste dozenerdi** (3); **dozenerdi bat** (29); **eta dozenerdi** (3)

---

**dozenaka** *(orobat* ***dozeneka*** *g.er.)* *adlag* dozena neurri banakotzat hartuaz; kopuru handietan.

Han urrunean, azpian, xinaurriak **dozenaka** ibiltzen ziren espaloietan. Ramuntxo Etxeberri

Baina **dozenaka** ibiltzetik ehunka ibiltzera alde handia dago, batik bat kontatzen dena zenduak badira. idiak eta ardiak jaten omen zituen **dozenaka**. Karlos Linazasoro

Hiru mahai handitan, **dozenaka** lagun. Joxean Sagaztizabal

Dadira, beste askoren artean, **dozenaka** analisi, zein bere froga-baliokoak. Josu Zabaleta

**Dozenaka** gorpu zeutzan nonahi. Joanes Urkixo

Wewelsburgetik **dozenaka** kilometrora. Alberto Ladron Arana

Dozenaka talde eta gobernuk **dozenaka** mila haur erreklutatu dituzte 2001. urtetik. Berria - Gaiak

**Dozenaka** eta **dozenaka** mila bufalok ibaira bota omen zuen bere burua eta Mississipiaren beste urertza iritsi. Pako Aristi

Horietarik ehundaka mila batzuk arraza garbikoak eta **dozenaka mila** batzuk. Gotzon Garate

Multinazional batek gas isurketa egin zuen Indiako herri horretan eta milaka pertsona hil eta **dozenaka** mila gaixotu zituen. Sindikatuek **dozenaka milioi** xahutu dituzte demokraten aldeko kanpaina egiteko. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atzo dozenaka** (6); **baina dozenaka** (3); **batean dozenaka** (3); **beste dozenaka** (12); **beste dozenaka zauritu** (4); **bildutako dozenaka** (3); **bolada dozenaka** (3); **diren dozenaka** (4); **dituzten dozenaka** (3)

**dozenaka aldiz** (9); **dozenaka atxilotu** (3); **dozenaka auto** (3); **dozenaka batzuk** (5); **dozenaka biktima** (5); **dozenaka dira** (5); **dozenaka edo** (4); **dozenaka edo ehunka** (4); **dozenaka emakume** (3); **dozenaka eta** (7); **dozenaka eta dozenaka** (4); **dozenaka etxe** (4); **dozenaka etxe suntsitu** (3); **dozenaka euskal** (4); **dozenaka gerlari** (3); **dozenaka gerrillari** (3); **dozenaka gorpu** (5); **dozenaka hil** (7); **dozenaka hildako** (9); **dozenaka ihesaldi** (3); **dozenaka irakiar** (4); **dozenaka irakiar hil** (3); **dozenaka kazetari** (3); **dozenaka kide** (3); **dozenaka lagun** (37); **dozenaka lagun atxilotu** (7); **dozenaka lagun bildu** (3); **dozenaka lagun elkartu** (4); **dozenaka lagun hil** (6); **dozenaka lagunek** (16); **dozenaka lagunen** (4); **dozenaka mila** (69); **dozenaka mila herritar** (5); **dozenaka mila herritarrek** (3); **dozenaka mila jende** (3); **dozenaka mila lagun** (5); **dozenaka mila pertsona** (3); **dozenaka mila pertsonak** (3); **dozenaka mila xiita** (3); **dozenaka milioi** (5); **dozenaka palestinar** (8); **dozenaka palestinar atxilotu** (4); **dozenaka pertsona** (22); **dozenaka pertsona atxilotu** (3); **dozenaka pertsona hil** (5); **dozenaka politikari** (4); **dozenaka soldadu** (3); **dozenaka tanke** (3); **dozenaka tona** (4); **dozenaka tona amianto** (3); **dozenaka zauritu** (22); **dozenaka zauritu ziren** (7); **dozenaka zibil** (4); **dozenaka zibil hil** (3)

**duten dozenaka** (6); **egunero dozenaka** (3); **erredakzioa dozenaka** (3); **erredakzioa dozenaka mila** (3); **eta beste dozenaka** (6); **eta dozenaka** (53); **eta dozenaka mila** (9); **eta dozenaka zauritu** (14); **hil eta dozenaka** (9); **hildako eta dozenaka** (4); **hotz bolada dozenaka** (3); **justxenkoren dozenaka** (3); **justxenkoren dozenaka mila** (3); **oposizioko dozenaka** (4); **zeuden dozenaka** (4); **ziren dozenaka** (8); **zuen dozenaka** (3)

---

## dozenatxo *iz adkor* dozena.

**Dozenatxo** bat urte bete zituenerako Barbara neska beltxaran leun eta goxoa zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Dozenatxo** bat orduz hartatik txoriak bezala libre ginela uste izan genian. Josu Zabaleta

Abenduaren bukaeran hasi ginen, eta udaberri honetan **dozenatxo** bat egingo dugu. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dozenatik gora** (13)

---

## dozeneka ik **dozenaka**.

---

## dozenerdi ik **dozena 2**.

---

## dozente *iz* irakaslea.

Ritter von Truxa irakaslea -Zientzien Akademiako partaide (adar filosofiko-historikoan), eta Akademia Kontsularreko **dozente** -, ez da hain ezaguna Anton Garikano

---

## dozier ik **dosier**.

---

## draft *iz* saskibaloian, NBAko taldeko jokalari izateko hautaketa.

*Chicago Bulls* taldeak aukeratu zuen **draftean** (jokalari berrien aukeraketa), unibertsitatean bi urte bakarrik egin ostean (Saint John's). Berria - Kirola

Gasteizko taldeak eta Teletovicek hiru denboraldirako aurreakordioa sinatu dute; aurreakordioa da, jokalariak NBAko **draft**-ean sartzeko aukera baitu (Los Angeles Clippersekin proba bat egingo du). Berria - Kirola

Orlandori egokitu zitzaion atzo 2004ko **draft**-eko lehen jokalaria aukeratzeko eskubidea, *Los Angeles Clippers* eta Chicagoren aurretik. Berria - Kirola

**Draft**-eko lehenak, hala ere, nahiko partida eskasa egin zuen, eta saskiratze mordoa huts egin zuen. Berria - Kirola

AEBetan *San Antonio Spurs*en arreta bereganatu zuen eta **draftean** aukeratu zuten 54. postuan. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**draft ean** (4); **draft eko** (3)

---

## draga *iz* ibai, ubide, kai eta kidekoetako hondotik lohia edo harea ateratzeko tresna.

Portuko sarreran, eguzkiak zuritutako zeruan, **draga** batek bere itzala marrazten zuen. Monika Etxebarria

Kaietatik zetorren haize laster batek urratu zuen kalea, **draga** zaratatsu bat badian entzun nuen eta itsasontzi bat portuan tutu joka sartzen. Koro Navarro

**Dragak** badakar basatzaren artean metal herdoilezin pusketa bat bristadaka. Koldo Izagirre

---

## dragatu[1], draga(tu), dragatzen **1** du *ad* ibai eta kai hondoak dragarekin garbitu.

Nabigagarri egiteko, ibaiak **dragatu** eta ibilbideak zuzendu dituzte. Berria - Gaiak

Hondoko geruza garbitzeko, Kadagua, Galindo eta Asua ibaidarrak aztertu eta **dragatu** dituzte. Berria - Euskal Herria

Autoa erori eta uretara jauzi egin zuten bertan zegoen Gurutze Gorriko urpekari batek eta portua **dragatzen** ari den enpresako beste bi urpekarik. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Urrun entzuten zen, itsasoan edo urrunago, baita badia **dragatuan** ere, etxe ondotik igarotzen ziren tranbien zarata. Koro Navarro

---

**dragatu**[2], draga(tu), dragatzen du *ad adkor ipar* neskatan edo mutiletan aritu. ik **ligatu**.

Nagusiaren alaba nola zuen **dragatü**. Herria

Polizia batekin **dragatzen** aritu zenean, Donibaneko hondartzan, Paristar neska udatiar xarmant bat **"dragatzen"** nuen aldi guziz, nire izenaren jatorria esplikatu behar nion beti. Herria

Aita **'dragatzen'** ari! Ramuntxo Etxeberri

---

**dragatzaile** *iz* ibai eta kai hondoak dragatzen dituen ontzia. ik**draga**.

Navalek lau eratako ontziak egingo ditu: LNG gas-ontziak, **dragatzaile** handiak, Panamax motakoak eta kontenedore-ontziak. Berria - Ekonomia

---

**dragatze** *iz* ibai eta kai hondoak dragarekin garbitzea.

Zail da duela mende bat baino gehiago hemen zelako padurak izan ziren irudikatzea, baina XIX. mende aurreko **dragatze** lanen aurretik ere portu naturala izan du luzaroan Bilbok. Urtzi Urrutikoeetxea

Itsasoko estazioari nahi adinako zabalera eman diote eta **dragatze** lan iraunkorren bidez 10,70 metroraino handitu dute ainguralekuaren sakonera itsasbeheran. ibai askotan egiten diren **dragatze** lanak Ingurumen Sailak ordaintzen ditu. Monika Etxebarria

---

**dragoi** **1** *iz* herensugea.

Haren ordez, **dragoi** bat ikusi zuen, ezkatez estalia eta guztiz harrigarria, agerian suzko mingaina, urrezko jauregi lur-zilarreztatu baten aurrean zaindari. Koro Navarro

Eta Ethelredek bere mailutzarra jaso zuen, **dragoia** buruan jo, eta parean erori zitzaion; eta **dragoiak** bere arnasa nazkagarria jaurtiki zuen, eta halako oihu lakar eta izugarria egin zuen. Koro Navarro

Hala, amets bat izan zuen: **dragoi** handi bat ikusi zuen Asis hiri osoa inguratzen; bazirudien haren handitasun ikaragarriak herrialde osoa desegin behar zuela. Askoren artean

Gurutze argitsu hura ikustean, **dragoi** izugarri eta nazkagarriak ihes egin zuen behin betiko. Matías Múgica

Ikastetxeak **dragoi** erraldoia ematen zuen, goizeko zortzietan irentsitako haurreria orain arratsaldeko bostetan goragalez oka botatzen, mutikoak antxume askatu berriak lez **dragoiaren** ahotik saldoka eta zalapartarekin irteten. Joseba Sarrionandia

Odol beltza edan gabe ezin bizi eta egarriz amorratzen zebilen **dragoia** igeri Ohion, nahierara. Anton Garikano

Galesen ikurra den **dragoi** gorria eraman zuten Dublingo kaleetan 1996an, Irlandaren independentziaren sorburu izan zen Pazkoko Matxinadaren 50. urteurreneko ekitaldietan. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

**Dragoi**-gibela, hamazazpi sickle ontza bat, horiek burutik daude... Iñaki Mendiguren

**Dragoi**-arrautzak isilean eraman zituen bere etxolara, legezkoa ez izan arren. Iñaki Mendiguren

Eskularru babesgarriak (**dragoi**-larruz edo antzekoz eginak). Iñaki Mendiguren

Izan zeitekean **dragoi**-tratulari bat, ezta. Iñaki Mendiguren

**3** zaldizko gudaria, zaldiz nahiz oinez borrokatzeko prestatua zegoena.

**Dragoi**: Europako armadetako hamazazpigarren eta hemezortzigarren mendeetako soldadua, pisu handiko armaz zamatua. Xabier Olarra

Nik irabazten badut, hemendik alde egiteko baimendua emanen diguzu, El Doradorantz, bai neuri eta bai neure bi lagunei ere; zuk irabazten baduzu, berriz, zure **dragoietarik** bat izanen nauzu eta bizitza osorako eginen dizut leialtasun-zina... Joan Mari Irigoien

Egin kontu hiritik hiru verstara **dragoi**-errejimentu bat zegoela; eta sinetsiko didak ofizial guzti-guztiak, berrogei inguru, hirian zebiltzala? Jose Morales

**4** ***dragoi hegalari*** muskerraren antzeko narrastia, gorputzaren alboetan azalaren hedapenak, hego mudukoak, dituena *(Draco volans)*

Lehoi orrokari, sugegorri eta **dragoi hegalariz** josia dagoen lurralde beldurgarri eta arriskutsuan barrena, hor daramazkiote beren aberastasun bikainak, astoen bizkarretan eta gameluen konkorretan, probetxu gabeko herriari. Elizen arteko biblia

**5** ***Komodoko dragoi*** egungo musker mota handiena, Komodo uhartean bizi dena *(Varanus Komodoensis)*.

Arkeologo talde horren arabera, elefante txikiekin eta Komodo **dragoiekin** bizi zen hominido hau. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dragoi gorria (3); eta dragoi (4)

---

**dragoikume** *iz* dragoiaren umea.

Hagridek ez zituen basozain-lanak egiten, oso lanpetuta zebilelako **dragoikumearekin**. **Dragoikumea** plaust. Iñaki Mendiguren

---

**dragoitxo** *iz*

**Dragoitxoa**, krokodiloa, arrubioa eta kamalehoia. Elizen arteko biblia

---

**dragoitzar** *iz adkor* tamaina handiko dragoia.

Begiratzen du behera, eta ikusten du **dragoitzar** izugarri bat, begietatik sua zeriola, eta ahoa zabaldurik, behera erortzen den puntuan irensteko txintxilik dagoen gizon tristea. Anjel Lertxundi

---

**draia** *iz ipar* perdigoia.

Garai hartan armak muturretik kargatzen zituzten, lehenik piztona, gero bolbora eta azkenik perdigoiak edo **draiak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**drainatu**, draina, drainatzen *(orobat **drenatu**)* **1** du *ad* lur eremu batean, lurpeko hodi sare baten bidez ur soberakina kendu.

Beste batzuk Nilo ibarreko zingira eta jungletan sartu ziren eta -aurkeztu zitzaien erronkaren aurrean- hura **drenatzeari** ekin zioten, eta Zibilizazio Egipziakoa garatu zuten. Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

Askotan esan izan da argazkiaren aurkikuntzak, eta geroago zinemarenak, bideratu, **drainatu** zuela, nolabait esateko, arte-jardueraren sustraian betidanik egon izan den imitazio-premia, eta horrela pinturatik kanpora atera zuela premia hori, eta horrenbestez pintura libre zela handik aurrera abstrakzioaren abenturari ekiteko. Josu Zabaleta

**3** gorputzeko zauri edo barrunbe batetik likidok aterarazi.

Hadassah ospitaleko medikuen arabera, hemorragiak **drainatzeko** kateterrak kendu zizkioten garunean odol arrastorik ez zuela baieztatu ondoren. Berria - Mundua

Buru-jariakinean toxinak **drainatzen** badira, alzheimerraren ondorioak egonkortu egiten direla esan du AEBetako zientzialari talde batek. Berria - Gaiak

---

# drainatze *(orobat* ***drenatze****)* *iz* lur eremu batean, lurpeko ubide sare baten bidez ur soberakina kentzea. ik **drenaje**.

«Errotik» konpondu nahi dira azken boladan San Mameseko zelaiak dituen arazoak eta goitik behera aldatuko dute: oinarria, ureztatze sarea, lur-geruza, **drainatze**-sistema, soropila... Berria - Kirola

Michael Foale astronauta estatubatuarra jabetu zen leihatilaren bakartze sistemaren **drenatze** mangerak zuloa zuela. Berria - Gaiak

---

# drakma **1** *iz* antzinako greziarren eta erromatarren zilarrezko dirua.

Hortik dator, hain zuzen ere, grekoen hirietan, justu ukondoak sei arra dituen bezala, **drakmak** ere [...] brontzez egindako sei txanpon izatea, sei as alegia. Santiago Iruretagoiena

**Drakmak** bere pisu neurtua izan behar du eta ongi ikurkaturik egon. Joan Mari Lekuona

Betis ibaiaren iturburuan zeuden zilar-meategietan berrogei mila gizonek egiten zuten lan, eta hogeita bost mila **drakma** ematen zizkieten erromatarrei eguneko. Iñaki Iñurrieta

Egunean **drakma** bat emango dizut saritan, eta biderako behar duzun guztia, neure semeari bezala. Jose Antonio Mujika

Emakumeak, kriseilua pizturik, etxe guztia garbitzen du eta galdutako **drakma** ardura guztiaz bilatzen. Joan Mari Lekuona

**Drakmaren** ifrentzua goi-isuriko jainkotasuna da. Joan Mari Lekuona

**2** irud/hed

Arima urrezko **drakma** da. Joan Mari Lekuona

**3** antzinako greziarren eta erromatarren masa-neurria, 4,4 gramoren -Grezian- eta 3,4 gramoren -Erroman- baliokidea zena.

Gauero, oheratu aurretik, ukendu horren hiru **drakma** hartu, eta begi gaixoa igurtzi. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **drakma bat** (3)

---

# drakoniko *izond*

Zure lasaitasun lakonikoa galtzen eta haserre **drakonikoaren** urmaeletan igeri nekean zinpurtzen ari zarela irudi du Nizias. Itxaro Borda

---

# drama **1** *iz* antzezteko idazten den literatura-obra, bereziki gai serioa duena.

Hiru ekitaldiko **drama**. Jon Muñoz

Komedia eta **drama**, bi generoak batu ditu New Yorkeko zuzendariak. Berria - Kultura

**Drama** ala komedia bat egin aukeratu behar banu, komedia aukeratuko nuke, ezbairik gabe. Berria - Kultura

Zer da bizitza, **drama** ala komedia? Berria - Kultura

Kotzebue jaunaren **drama** bat antzezten zuten, Popliovin jaunak Roll-en papera jokatzen zuen eta Ziablova andereñoak, berriz, Kora-rena. Jose Morales

1931n *Susan Lenox: Her fall and rise* **drama** filmatu zuen, Greta Garbo eta Clark Gable gazteekin. komediante ibiltariak, Shakespeareren **dramak** jokatzen, ikusle ugarien gusturako egokitu ondoren. Berria - Kultura

Arrazakeriaren oinarria duen **drama** eraiki du Paul Haggisek *Crash* lanean. Berria - Kultura

Rafael Villasús jaun hura gizagaixo bat zen, bertsozko komedia eta **drama** negargarriak idazten zituen antzerkigilea. Josu Zabaleta

**Drama** da pertsonaiaren izateko arrazoia; hura da bere bizitzeko eginkizuna: existitzeko nahitaezkoa. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Hiru ekitaldi eta amaiera zoriontsuko **drama** bat zirudiena laster sartu zen laugarren ekitaldian, aurreko guztiak baino askoz beldurgarriagoan. Iñaki Mendiguren

Ekialde Urruneko **drama** horretan txinatarrak eta japoniarrak antzera portatu ziren gauza batzuetan eta desberdin beste batzuetan. Iñaki Mendiguren

Behin jokoaren **drama** martxan jartzen denean, ez baitago irabazi, galdu edo berdindu beste amaierarik. Joseba Zulaika

Gure baitan dago **drama**; geu gara; eta irrikatan gaude antzezteko, halakoxe grina daramagu barruan! Josu Zabaleta

Gertaera analogiko oro hiru pertsonarekiko **drama** bat da. Isabel Arrigain

Norbere izaerari eta barne-ahotsari jarraitu ala amore eman eta saldoaren moralari makurtu, horrelaxe dago planteatuta *Haur Besoetakoa* nobelako **drama** guztia. Joxe Azurmendi

**Dramaren** korapiloa hasi besterik ez zen egin. Karlos Zabala

**3** gertaera edo egoera dohakabea.

Gertaera tristea, hori bai, baina ez, inondik inora, **drama** bat. Jon Muñoz

1981eko otsailean, **drama** bat gertatu zen: ETAko kide bat komisaldegian jasandako torturaren ondorioz hil zen. Bernardo Atxaga

Filmak Aljeriako errefuxiatu sahararren **drama** du oinarri. Berria - Kultura

Deusek ere ez zuen adierazten goian **drama** bat gertatzeko zorian zegoela. Karlos Zabala

Berriz ere, bakarrik hiltzen diren zaharren **drama** ekarri du gogora. Berria - Harian

Atzean geratzen ari da ordu eta erdi lehenago doi bizi izandako **drama**; gero eta lausoagoak egiten zaizkit hilketaren inguruko gorabeherak. Anjel Lertxundi

**Drama** lehertu zen egun batzuk geroago. Joxan Elosegi

Ez da emakume bat, ama bat da! eta horixe du bere **drama** guztia (**drama** larria, jauna, larria!), izan zituen bi gizonengandik izandako lau seme hauek. Josu Zabaleta

Itzultzen direnean lehertzen da **drama**, jauna, ustekabean eta bortitz. Josu Zabaleta

Horixe du bere **drama**, nire komedia honetan. Josu Zabaleta

**4** (izenondoekin)

Otsailaren 5ean, Madrilgo Price Zirko Handian, "Las golondrinas" **drama** lirikoa estreinatu zen. Askoren artean

Urrezko Lehoia irabazi berri du Veneciako zinemaldian **drama** ilun eta sakor honekin. Berria - Kultura

Esaldiren bat ezpainetan zuela, **drama** txiki baten antzezpena entseatzen ari den aktore baten moduan. Anton Garikano

Hori izan zen Girolamo Cardanoren bizitzako **dramarik** handiena. Jon Muñoz

Zorionaren mirariez desengainu harturik, hartatik nahikoa izan eta behin betirako bukatu nahi dutenak tregoarik ez duen **drama** edo komedia lotsagarri hau. Josu Zabaleta

Badut susmoa, badut susmoa atera daitekeela hemendik **drama** polit bat! Josu Zabaleta

Baliteke zer ikusirik izatea horrek idazlearen **drama** pertsonalarekin. Eskarne Mujika

**Drama** pertsonalak, deserrotzearen zauriak, errotzeko borondatea, [...]. Berria - Kultura

Inoiz edo behin **drama** ezkutuen lekuko egiten naute, ezustekoak izan ditut eta disgustuak ere bai. Joxean Agirre

Izaera horrek lagunduko zion agian **drama** kolektiboa gainditzen. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **dramatiko**.

Hasiera batean bere kasa hasi bazen ere, Esloveniako **Drama** Teatro Nazionaleko (1966-1971) zuzendari gisa aritu zen gero. **Drama** eskola Rembrandten Museoaren aurrean dago. Berria - Kultura

Hemeretzigarren mendeko **drama**-idazle alemanik handiena hogeita hiru urterekin hil zen. bere obra **«drama**» tonu baten barruan jorratu duela dio. Oskar Arana

Gainera, Nautika Eskolaren kasuan bezala tartean gizon-emakumeon osasuna dagoenean, eztabaidak **drama**-ukitua hartzen du. Berria - Gaiak

Emakume flakoxta zen, ximela, bai gorputzean bai ariman banan-banan hil zitzaizkion seme-alaba guztien heriotzaren **drama** aztarrenak ezin nabarmenago zituena. Patxi Zubizarreta

Plan horri ekiten zion Florentek gau guztietan, **drama** jokaleku hori antolatzeak kirioetako asaldura larria arinduko balio bezala. Karlos Zabala

*Dramatis personae,* nire **drama** lagunak, nire mamuak, munduan sakabanaturiko geure antzekoak, eustarriak galduta, triste, erne, ausentzien katean lotutako jendea. Joseba Sarrionandia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oinarrizko arazoa giza **drama** da, dimentsio humanitarioa nabarmendu behar da eta arazo politikoak eta nagusitu ohi den ikuspegi poliziala alboratu. Berria - Harian

Halaber, lege-**dramaren** argumentua, non kristau-abiapuntu berri baten ondoren Moisesen eta Justinianoren arimak altxatu baitziren, Mendebaldeko agertoki batean ikusten da, Karlomagnok jokatu zuelarik Leon Isauriarraren papera. Iñaki Mendiguren

Pascaljevicen irudietan, flashback-a apenas erabili gabe, ikusleak aise suma dezake Jugoslavia ohiaren barne-**drama**, lehengoa eta oraingoa. Berria - Kultura

Baina, etsipenak, alde batera, eta ezkon **drama** hura zabaltzean arerioek sor zitzaketen irainek, bestera, badaezpada ere sainduaren atera deitzera derrigortu zuten. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina drama** (3); **bere drama** (7); **buruzko drama** (3); **da drama** (5); **den drama** (5); **drama bat** (26); **drama bat da** (4); **drama baten** (6); **drama da** (9); **drama edo** (3); **drama eta** (6); **drama ez** (3); **drama guztia** (3); **drama hori** (3); **drama txiki** (3); **dramarik onenaren** (3); **duen drama** (8); **eta drama** (18); **eta dramaren** (3); **girotutako drama** (3); **horien drama** (3); **komedia eta drama** (3); **zen drama** (3); **ziren drama** (3); **zuen drama** (5)

**bizi dituzten dramek** (3); **dituzten dramek ez** (3); **dramek ez bezala** (3)

---

# dramagile *iz* dramak ontzen dituen idazlea. ik **dramaturgo**.

Nolan-ek, astirik ez eta, ezin izan zituen goitik beheraino asmatu hilketa anitzaren inguruko gorabeherak; beste **dramagile** bat plagiatu behar izan zuen, William Shakespeare ingeles arerioa, hain zuzen. Juan Garzia

Azkarki irakurtzen nuen frantses literaturan: XVII. mendeko **dramagileak**, XVIII.ko pentsalariak, bereziki Rousseau eta gero, Iraultzaren ondotik poetak, mendean zehar, eta nobelagileak. Piarres Aintziart

---

# dramatiko **1** *izond* dramarena, dramari dagokiona. ik **drama 5**.

Zentro **dramatiko** nazional baten beharraren aldarrikapena. Berria - Kultura

Hain zuzen ere, berak nahi duen autorea ez baita autore **dramatiko** bat. Josu Zabaleta

Ez dut arte **dramatikoari** buruzko ideiarik. Berria - Kultura

Arestian sustatu zaitugu aktore **dramatiko** gisa. Lopez de Arana

Testuen sinesgarritasun falta eta egitura **dramatiko** burugabea. Berria - Kultura

Emanaldiaren luzera laburtuko nuke, progresio **dramatiko** baten ezean ikuslea nekatu daitekeelako esketx segida luzea ikustean. Berria - Kultura

Oso lotura estua dagoela alde batetik antzerki-eszenaren eta antzerkiko eszenografiaren eta bestetik pinturako eszena-antolamenduaren, eta azkenik, filmeko eszenan, batasun **dramatiko** bat duen eremu diegetikoaren antolamenduaren artean. Josu Zabaleta

Kantuan hasiko da eta bere edukiak modu poetikoan, **dramatikoan**, epikoan... adierazten ahaleginduko da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** drama ezaugarriak edo baliabideak dituena.

Truman Capotek idatzitako *Beat the devil* komedia **dramatikoan** izan zuen rol txiki bat. Berria - Kultura

Ez da hau olerki larri, **dramatiko** horietakoa, lehen aipatu dugun beste sailekoa baino: egunerokotasuneko elementuekin ironia soil, sotil bat daukatenetakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Osagai **dramatikoz** zipriztindutako komedia da nire filma. Berria - Kultura

Antzezpen kutsuko keinu **dramatikoarekin**, zizpoleta bateko bala bakar bat eman zion Felixi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pisu handiko obra da, **dramatikoa** oso, indarrik gabe uzten duten horietakoa, eta musikarientzat ere ez da samurra. Berria - Kultura

Zineman, pinturan, eta antzerkian orobat, irudikapen horren oinarrian dagoen batasun **dramatikoaren** ideia adierazten du eszenak. Josu Zabaleta

Desafio honek, nolanahi ere, bertsolaritzaren mugimenduarentzat zentzu **dramatiko** eta etsigarria baino gehiago izaera pizgarri eta ludikoa du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bi umeak adierazten zaila den moduan aurkeztu zituen, keinu **dramatiko** eta itxuratiz, esanez bi umezurtz gaixo zirela. Ander Irizar

*Mors Saulus et Jonathæ* obrak, oratorioa izan arren, «indar **dramatiko** handia» du, bakarlarien eta koruaren parte-hartzeari esker. Berria - Kultura

Arrisku hori modu **dramatikoan** agertu zen garapen-bideko herrialdeen zorraren krisian. Koro Navarro

Oso modu **dramatikoan** adierazi dut, baina hori da ideia -esan nion-. Bernardo Atxaga

**3** gertaera edo egoera dohakabeen eitea duena.

Baina gertaera **dramatiko** horiek ez zituzten uste onak zapuzten: gure mundua ederra zen; gure bizimodua normala, bereizgarririk gabea, unibertsala. Bernardo Atxaga

XIX. mendeko donostiarrek aldi nahasi eta **dramatiko** bati aurre egin behar izan zioten, eta gainditu ere gainditu zuten. Askoren artean

Zoriari zor zaio eztanden balantzea **dramatikoagoa** ez izatea. Berria - Euskal Herria

EAk eta EAJk, gatazka eta bere ondorio **dramatiko** guztiak gainditzeko jarrera hartzetik urrun, ezker abertzalearen kontra jotzeko erabili dute atentatua, UPNko faxistekin batera manifestazio bat bultzatuz. Berria - Euskal Herria

Zuhurtziarik gabe eta ardura gutxirekin jokatu zutela une **dramatiko** haietan. Berria - Euskal Herria

Konpainiak lanpostu murrizketa **«dramatiko**» bat egin dezakeela, IG Metallek proposatutako neurriekin ados egon ezean. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arte dramatiko eskola** (3); **arte dramatikoa** (3); **dramatiko bat** (9); **dramatiko batean** (3); **dramatiko bati** (3); **dramatiko eta** (10); **dramatiko nazional baten** (3); **dramatiko onena** (3); **dramatikoa da** (4); **dramatikoa dela** (4); **dramatikoa eta** (5); **dramatikoa hartzen** (3); **dramatikoa izan** (5); **dramatikoari buruzko** (3)}; **egoera dramatikoa** (4); **eta dramatikoa** (7); **oso dramatikoa** (4); **pertsonaia dramatikoak** (3); **une dramatiko** (4); **zentro dramatiko** (9); **zentro dramatiko nazional** (5)

---

**dramatikoki** *adlag* era dramatikoan.

Yankeen harrotasuna filmean Gary Cooperrek jokatzen duen Lou Gehrig jokalariaren historia ere ez da makala: amerikarrek gustuko duten horietakoa, hutsetik sortu eta heroi izan ondoren gaixotasun larri batek **dramatikoki** kirola uztera behartu zuen mitoarena. Harkaitz Cano

Hunkitu egiten zuen hark guztiak, pentsatu zuen **dramatikoki** mutilak bere bakardade oinazetuan, eta lotsa zahar batera eta errukira itzularazten zuen. Koro Navarro

-Ez nengoen erne -esan zuen Myrtlek **dramatikoki** -. Iñaki Mendiguren

Garapen demografikoak argi islatzen du egoera latza: jaiotza tasak **dramatikoki** murriztu dira 1989tik. Berria - Mundua

---

**dramatikotasun** *(8 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 49 agerraldi) iz* dramatismoa.

Zinema mintzatua iritsi zenean, kezka horiek guztiak alde batera bazterturik geratu ziren berehala, **dramatikotasunaren** mesedetan, noski. Josu Zabaleta

Egoeraren **dramatikotasunak** gora egin ahala Vanessa gajoaren begiak blaituz doaz. Patxi Iturritegi

Bestetik, pieza garatzen den bitartean zera pentsatu dut neure artean: «zenbat **dramatikotasun** keinuetan!» eta zalantzaren harra geratu zait barruan. Berria - Kultura

Giza aurpegia izan da lehen planoaren lehenengo helburu nagusia, eta aurpegiak filmatzeko eta **dramatikotasun** bereziko uneetan haien mimika eta keinuak filmatzeko erabiltzen dute gaur egun ere Griffith-ek eta beste zinemagile askok. Josu Zabaleta

---

**dramatismo** *(32 agerraldi, 9 liburu eta 21 artikulutan; ETCn 433 agerraldi)* **1** *iz* dramatikoa denaren nolakotasuna.

Natura sortzaile-suntsitzaile, infinitu-finituaren ikuskera honetatixe dator Lukrezioren obraren **dramatismoa**, ez poesiaren eta filosofiaren arteko ustezko oposiziotik. Xabier Amuriza

Zaude, bada, ziur, jauna, **dramatismoaren** aldetik "heldu gabeko" pertsonaia naizela ni, eta gaizki nagoela, oso gaizki, hauekin batera! Josu Zabaleta

Hastapen hartako **dramatismo** espantularitik urrun, erran zitekeen halako doinu alai bat iragazten zitzaiela. Aingeru Epaltza

Erakusketa didaktikoa egiten ahalegindu direla [...] **dramatismoa** eta inpaktoa bilatu gabe. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Batzuek filosofia eta poesia uztargaitzak direla ere usteko dute eta, lan honen balio poetikoaren ebidentzia ukatu ezin dutenez gero, ustezko uztartezin horrexekin esplikatzen dute bere barne **dramatismoa**. Xabier Amuriza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**dramatismo handiko** (3); **dramatismoa eta** (4)

---

**dramatizatu**, dramatiza, dramatizatzen **1** du *ad* drama bihurtu.

*Actus-Fioretti*-ren egileak lehenagoko idazkera laburrago bat **dramatizatu** besterik ez du egiten. Askoren artean

Ezin izan zuen hain laster desagertarazi gobernari izandakoen auto-kontzientzia politikoa eta ondorioz agertu zitzaion arazoa Sse-ma Tsien historialariak **dramatizatu** du Kontseilu Inperialean botatako hitzaldi-sorta baten lehiaketa moduan. Iñaki Mendiguren

**2** dramatiko bihurtu.

«Egoera **dramatizatuz** » ez dela ezer lortuko uste du, eta, horregatik, alderdiei eta erakundeei esan zien «epaitegietara jo aurretik pedagogia egiteko». Berria - Harian

PSOEko presidenteak eztabaida «ez **dramatizatzeko** » eskatu zuen. Berria - Euskal Herria

Baina ez dezadan **dramatizatu** ; zortzi urte baizik ez ziren izan. Jon Alonso

Baina ez nuen eskubiderik gauzak **dramatizatzeko**. Jon Alonso

**3** (era burutua izenondo gisa)

Musikari katalunjarrak Salesen lana hartu du *Canciones de amor y droga* diskoaren oinarri, eta hortik abiatuta, emanaldi **dramatizatua** eskainiko du Antzoki Zaharrean. Berria - Kultura

Irakurketa **dramatizatuak**, Bilbon eta Donostian. Berria - Kultura

Hizkuntza ulertzen ez zutenek ere ulertu zuten poesia zer den, poesia **dramatizatua**, ironikoa, dantzatua, antzeztua, nik dakit ba. Edorta Jimenez

Deikunde batzuk oso **dramatizatuak** dira (Boticellirena, esate baterako), eta eman lezake errealitateko une bat "argazki gisa" finkaturik uzten dutela. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**burua dramatizatzen** (4); **irakurketa dramatizatua** (5); **irakurketa dramatizatuak** (4)

---

**dramatizazio** *iz* dramatizatzea.

Autoreak esan bezala, «gertaera politiko baten **dramatizazioa** » da argitaratu duen azken obra. Berria - Kultura

Musikaz gain, antzerkia eta **dramatizazio** ugari egiten dute (arropa egokia jantzita eta guzti), baina, zoritxarrez, minutu asko galtzen dira kanturik gabeko tarte horretan. Berria - Kultura

Parabola hau, 5. Aholkuaren **dramatizaziotzat** har daiteke: "ez bedi inor harro, Jaunaren gurutzeaz baizik". Askoren artean

---

**dramaturgia** **1** *iz* dramak ontzeko edo eszenaratzeko antzea.

Ludovic Lagarde izango dute eszena zuzendaria, eta Pierre Kuentz arduratuko da **dramaturgiaz**. Berria - Kultura

Bestalde, eta pertsonaia nagusiaren sakontasun filosofiko eta humanoaren parean, **dramaturgiaren** perfekzioa dugu. Berria - Kultura

Mamia eta **dramaturgia** talde lanean garatu badute ere, Natxo Gomezek eta Jon Gerediagak eman diote forma gidoiari. Berria - Kultura

Planteamendu eszenikoa eta **dramaturgia**, ordea, nahiko estatikoak dira eta gertakizun ia bakarra pintoreak margotzen duen dekoratua da. Berria - Kultura

**Dramaturgia** irudimentsua eta aktore-lan sendoa. Berria - Kultura

Bat-bateko bertsolaritzak, eszena-artea ere baden aldetik, gogoa zabal jokatu behar du **dramaturgia** berrien ekarrien aurrean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Epstein-en *Usher etxearen hondamena* (1928) filmean adierazpen fisionomikoaren **dramaturgia** baterako tresna bilakatzen da. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Egia esan, jatorrizko testua ez da antzezlan bat, Antonio Alamoren eleberri bat baizik, baina Alamok berak hartu du bere gain **dramaturgia** lana eta horrek eragin bikoitza izan du azken emaitzan. Berria - Kultura

Ahaleginak ere egin dira hainbatetan, arrakastatsuagoak batzuk besteak baino, saioak **dramaturgia** ukitu batez hornitzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beste **dramaturgia** mota bat egiteko aukera zegoela pentsatu nuen. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta dramaturgia** (5)

## **dramaturgo** *iz* dramak ontzen dituen idazlea. ik **dramagile**.

Molièreren *Le medecin malgré lui* komediaren aldaera bat da eta **dramaturgo** frantsesak *fabliau* batetik hartu zuen gaia. Anjel Lertxundi

-Gotthold E. Lessing alemaniar **dramaturgoaren** antzerki obra. Josu Zabaleta

Schmitt **dramaturgoa** izateaz gain filosofia irakaslea izanik, ez da harritzekoa hain ederto elkartzea Dideroten figura probokatzailea eta antzerki onenaren mekanismoak, ikusi berri dugun maisulana sortzeko. Berria - Kultura

## **dramatzar** *iz adkor* drama bihotz-hunkigarriegia.

Amaitu ondoren ari naiz ohartzen zinema beltzaren ukitua eta suspense handia duela; argi nuen drama bat zela, baina ez nuen nahi **dramatzar** bat egin. Berria - Kultura

## **dramazale** *izond* dramen zalea dena.

Kostunbrismo magiko bezain kutrearen bidez gizarte gordin eta itogarri bat perfilatzen da; hala ere, O'Connor **dramazale** ez denez, eszena satirikoak eta irrigarriak tartekatuz larridura baretuko du. Berria - Kultura

## **dranbal** *iz* azkoina.

Ipurditxoarekin hasi ez zitzaidan, bada, handik gutxira, halako mugimendutxoak egiten, jira batera eta jira bestera, torlojuaren eske dagoen **dranbala** balitz bezala! Joan Mari Irigoien

## **dranbalada** *iz* danbalada, danbada.

**Dranbalada** dexente, aire-hutsuneengatik. Joxe Austin Arrieta

Aire-hutsuneen **dranbaladak** atertu ere bai. Joxe Austin Arrieta

## **dranbalaka** *adlag* danbadaka.

Sabethi itzela iruditzen omen zitzaion, horrela, gau oso bat gainaldean igarotzea, unama guztietan haizea ziztuka eta zartaka dabilela, eta salbamendu-txalupen gaineko olanak **dranbalaka**, eta tximiniari kea dariola. Joxe Austin Arrieta

## **drangada** *iz* hurrupa.

**Drangada** txiki eta azkarrez hartu zuen eraman berri zioten kafea, eta deiaren zain geratu zen, hatzekin kaobazko mahaiaren gainean joaz Jon Alonso

## **drapa-drapa** *adlag*

Kaletik harantz zetozen korrikalariak ziren, zirudienez, beren txilin-soinuei eraginez, **drapa-drapa** eta hankak arin. Patxi Ezkiaga

**Drapa-drapa** ...: Italierazko "strappa, strappa"-tik egokitua. Patxi Ezkiaga

## **drapo** *iz* bandera.

Izenak elurretik zekarren hunkigarria eta **drapo** gorri bat laguntzaz betea uste genuen ontziaren txopan. Koldo Izagirre

Gerraondotik hona gure portura lehen aldikotz txopan **drapo** gorria dakarrela arribatu den burdinolarako ferrailaren aitzakian Vladimirri bizitzekoak isilean deskargatzera datorren ontzira, sekretura, ametsera. Koldo Izagirre

## **drastiko** *izond* guztiz erabatekoa edo zorrotza.

Erabaki **drastikoa**, klaro. Unai Elorriaga

Gure iraultzaileak, luzaro pentsatu ondoren, neurri **drastikoak** hartu behar zirela erabaki zuen, erabaki horiek bere autoinmolazioa ekarriko zutela jakinda ere. Iban Zaldua

Urrats **drastiko** hau egitean enperadorea berak konkistaturiko sei parroki estaturi sistema militarista eta ez-feudala ari zen aplikatzen, jada ehun urtez nagusi izandakoa bere Tsin-go estatuan. Iñaki Mendiguren

Prozedura **drastiko** horrek ez zuen aldaketa larririk eragin gaixoaren nortasunean eta adimenean. Irene Aldasoro

Bolada hartako kontu-balantzen gainbehera jarraituak behartu zuen Milango Administrazioa esku-hartze **drastiko** eta purifikatzaile batera. Juan Garzia

## **draz draz (draz)** (onomatopeia)

Korridore luze ezkoztatuetan gure pauso hotsa entzuten da eta astiro goaz, drazz **draz draz**, zalapartarik ez egiteko. Joseba Sarrionandia

Eta arrats batez Inazito, Esteban eta hirurok pasillo luzean aurrera joan ginen, zoru ezkoztatuak **draz draz** egiten zigula. Joseba Sarrionandia

Pauso Galduen Galerian **draz draz draz** noa. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> draz draz (8); draz draz draz (3)

## **drenaje** *iz* drainatzea.

Ezker-eskuin, bi aldeetara, **drenajeko** zangak egingo dira, eta zanga horien paretetan, pasealekura begira dauden aldetik, hodiak jarriko dira zanga aldera inklinatuta. Santiago Iruretagoiena

## drenatze ik **drainatze**.

## dretxo 1 *iz ipar* eskubidea.

Bolgara erregina, Argonen andre zena, hil da, eta Argonek bakarrik bere andrearen leinuko espos baten hartzeko **dretxoa** du. Aurelia Arkotxa

Sufrituak ematen dit nahi dudanaren idazteko **dretxoa**. Piarres Aintziart

Etxauzko bizkondea, Leizaratzuko jauna eta Joanes Kaikuk **dretxo** hori erosi zuten hiruen artean 800 eskudo xuriren kontra. Michel Oronoz

Beren **dretxo** edo eskubideen zaintzeko, bildu ziren laborari sindikatuetan, hirietako langileak bezala. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eta nola zainduko dira lur hortako laborarien **dretxoak** eta zuzenak? Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Ez zazula erran guretzat herra badela demokrazia, libertatea, jendetasun **dretxoak** zaintzen eta obretan ezartzen ditugulakotz. Herria

Bakantza **dretxoa** denendako. Herria

Sartze **dretxoa**: 10 euro. Herria

**3** zerga.

Orduan, nafartarrak kexu eta beldur... goraki erraiten zuten hemengo olentzat makur haundia izanen zela, aduanetan ez zutela **dretxo** haundirik ordaintzen eta horrengatik zela burdina holako prezio apalean.... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**4** zuzenbidea.

Gehienak literatura edo **dretxoa** ikasten zuten, mintzaira frantsesaren amodio zorrotza zeukatelarik ere. Piarres Aintziart

, ikerketa zentro bat izanen da hori, **dretxo** publikoan eta Europako **dretxoan** berezitua. Herria

Baionako unibertsitateak aterbetzen ditu bi adar: **dretxo/Letrak** batetik eta IUT-a bestetik. Herria

Orai **"dretxozko** estatua" aipu delarik demokrazian bermatzen den lurraldea erran nahi da. Herria

**Dretxo**-jakintzan hein bat eskola ukanez geroz. Herria

Hélène ongi eskolatu zen, **dretxo** lizentzia eskuratzerainokoan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **autokarraren dretxoa badutela** (4); **dretxo edo** (3); **dretxoa badutela kitorik** (4); **dretxoak eta** (5); **dretxoak eta zuzenak** (4); **gizonaren dretxoak** (3); **gizonaren dretxoak** (3)

---

## driblatu, dribla, driblatzen du *ad* izkin egin.

Estremotik arineketan abiatu eta, ez beste ekipoko defentsak bakarrik, hainbat jende **driblatu** behar zen derrigorrez. Joseba Sarrionandia

Emiliok baloia bere porterian hartu eta, bera bakarrik, mundu guztia **driblatuz** heldu zen gure porteriaraino. Joseba Sarrionandia

---

## drill *iz* kotoi gordinezko tela sendoa.

**Drill** arrosazko oihal bat atera nuen ikusminez eta ohe ertzean zabaldu nuen. Joseba Urteaga

---

## drin-drinka *adlag*

Ez zaio iratzargailua drin-**drinka** hasten, hamabi ordu goizegi? Piarres Aintziart

---

## droga *(ETCn **13.640** agerraldi)* 1 *iz* arima egoerari edo hautemateari eragiten dion gaia.

Jokoa, **droga**, mafia: egoera sozial ustel baten osagaiak. Ramuntxo Etxeberri

Beraiek zuzentzen dituzte Bonbaiko eskualdean urre salerosketak, **drogak**, prostituzioa, joko-etxeak, hilketak eta apostuak. Gotzon Garate

Jende asko gelditzen da **droga** horren menpe, eta ni ere geldituko nintzela uste nuen, aitortu behar dut kokainak liluratu egin ninduela. Karlos Zabala

**Drogen** menpe dagoenaren berun koloreko larruazala. Ibon Uribarri

Guretzat hurbilena izan zitekeen **droga**, nola ez, alkohola zen. Ana Urkiza

Gure **droga** txokolatea zuan, garai hartan mila pezeta balio zuten talegoak, xapal-xapalak... Pako Aristi

**Drogak** bihurtu ziren askatasun-seinale, eta, aldi berean, gatibu tristeen ikur. Juan Kruz Igerabide

Pentsatu zuen hurrengo bisitan neskatoek hartzen zuten **droga** berbera eskatu behar ziola etxeko emakumeari. Ibon Uribarri

Denda hura, ordea, beste lan baten estalgarri zen: osabak **droga** saltzen zuen. Gotzon Garate

Gorrotagarria zitzaion gobernuak **droga** zabaltzen zuten tabernazuloak zaintzeko zuen seta, batik bat haxixa arimaren sendabidetzat zuelako. Patxi Zubizarreta

Dirua behar zuela **droga** erosteko eta eraso egin ziola, nor zen jakin gabe. Gotzon Garate

-Baina... erabat baztertu daiteke **drogak** hartzen zituela? Antton Olano

Jendeak **drogak** kontsumitzen ikasi behar du. Berria - Euskal Herria

**Droga** kontsumitzeko testuingurua (gazteen gau aisialdia) eta kontsumitzeko motibazioa (ondo pasatzea eta arazoetatik ihes egitea batik bat) aldatu egin dira. Berria - Euskal Herria

**Drogak** debekatzeko politikek jende asko eraman dute hondamendira. Berria - Euskal Herria

**Droga** utzita zeukan, baina, antza denez, lehendik zeukan benenoa. Bernardo Atxaga

Emakume bat atxilotu dute Basaurin, ustez seme-alabei **drogak** emateagatik. Berria - Euskal Herria

**Droga** pasatzen zieten lagun aberats batzuei, eta diru-mordoa irabazten zuten horrela. Karlos Zabala

Bolada batean, maiz samar mozkortu izan nintzen, eta **drogetan** ere erori nintzen. Joan Mari Irigoien

Biriatun, mugazainek "ecstasy" deitu **droga** hortarik tornu pollita atxeman dute Alemaniako autobus batean. Herria

Guztira 137 kilo **droga** atzeman zituzten eta 4.000 salaketa jarri. Berria - Euskal Herria

Kasik bi tona **droga**. Herria

Hizkuntzaren eritasuna zainetako kontua denez, ez kanpokoa, zuzen-zuzenean zainetan **droga** sartuz konponduko da, konpontzekotan ere, bestela betiko joango baitzaigu. Pello Salaburu

**Droga**, **droga**, marinela, joan behar degu urrutira... Joan Mari Irigoien

**2** (izenondoekin)

Speeda, extasia eta kokaina boladaz pasatako **droga** bigunak dira hemen. Harkaitz Cano

**Droga** gogorra txertatu zion gorputzean emakumeari, "zaldia" bezain gogorra. Migel Angel Mintegi

Buru-oharra: edozein depresiotatik ateratzeko kafea **droga** gogorra dela nonbait apuntatu. Harkaitz Cano

Orotara, 75 kilo kokaina deitzen den **droga** azkerretik. Herria

Zalantzarik gabe **droga** indartsua zen. Ibon Uribarri

**Droga** nazkagarri hark gauzak ongi oroitzea galarazten zion. Harkaitz Cano

Leku guztietan oihu egiten zuen bere alaba erotu zela, "gizon meheak" **droga** zikinen bat janarazi ziola nonbait. Karlos Zabala

**Droga** ilegalik gabe ere, aski pizgarri ditu festa honek denen gogoa kilikatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Bestondoak jota zegoen eta **droga** ezezagunen baten efektuen pean ote zegoen iruditu zait hitz egiten hasi zaidanean. Harkaitz Cano

Egia osoa **droga** garbiegia bezain arriskutsua izan daiteke, egia tamaina edo dosi txikian hartzen ohitutako gure gorputz hauentzat. Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hauxe zen Bilboko **droga**-salmentaren buru. Gotzon Garate

Ameriketako Estatu Batuetako Oregonen bazen **droga** salerosketan jarduten zuen indonesiar talde amorratu bat. Gotzon Garate

Hala, erraz sartu zen piztia Adelaren bizitzan, aurrena maitale gisa, eta gero **droga**-saltzaile gisa. Juan Kruz Igerabide

Iparraldeko **droga** hartzaileen kontsumo ohiturak.Frantziako Parlamentuak **droga** kontsumitzaileei espetxe zigorra kentzeko lege egitasmoa aztertuko du. Berria - Euskal Herria

Hura Watts auzoan gertatu zen tiroketa batean eho zitean **droga** trafikatzaile batzuek. Itxaro Borda

Ameriketako Estatu Batuen gisa horrelako kontratu sozialik ez izatearen ondorioak izugarriak dira: bi hitzetan esanda, fragmentazio soziala; gizabanako askok eta askok, Viviane Forrester-en hitzetan, "estatu probidentzia propioa osatu dute: eskean, azpikerian, **droga** trafikoan, besteak beste". Iñaki Heras

Udalak badauka **droga** prebentziorako plan berezia. Berria - Euskal Herria

Sartu ninan, bada, besoko zainean, lehenengo **droga**-dosia... Joan Mari Irigoien

Nola erabil dezake **droga** sare batek ni bezalako arrotz bat? Iñaki Zabaleta

Geroztik, aise **droga** tornu handiagoa ere sesitua izan da. Herria

Trukaketarentzat erabilia izan zen **droga** paketean, gutunazal bat aurkitu zuten. Ramuntxo Etxeberri

Azkenik, egon zen **droga** kontu ilunen bat aipatu zuenik. Iban Zaldua

Umm El-Khayr umezalea, egin ez zuen **droga** delitu bategatik kondenatu zutena. Pablo Sastre

Otordu ondoan, **droga** kopuru handiak harrarazten zizkien Hassanek bere gizonei. Jon Muñoz

Eusko Jaurlaritzako **Droga** Gaietako zuzendaria da Belen Bilbao. Berria - Euskal Herria

**4** oso gogoko pertsona edo gauza, menpekotasuna sortzen duena.

Alex **droga** bilakatu zitzaion. Fernando Morillo

Baina zoriona **droga** gogorra da gorputzarentzat. Pako Aristi

**Droga** bakarra futbola zuen. Xabier Montoia

Hots, haur frangorentzat, telebixta **droga** baten pare ari dela bilakatzen, nun ez den ja bilakatua, eta untsa gogoetagarri dela! Herria

**5** sendagintzan-eta erabiltzen den gaia.

Medikuen kontrolpean hartutako **droga** sintetikoei esker. Jon Alonso

Ehun metro bederatzi segundu eta ehunen gutxi batzutan egitera kondenaturik, **droga** debekatuak hartu zituen korrikalariak. Joxerra Garzia

Emultsio bat izan ohi da ukendua: **droga** bat izaten du ingurune koipetsu edo ezkotsu batean sakabanatuta. Irene Aldasoro

**6** ***droga-menpekotasun*** *(**38** agerraldi **22** artikulutan; ETCn **357** agerraldi; orobat **droga-mendekotasun**; **6** agerraldi **4** artikulutan; ETCn **217** agerraldi; **drogamenpekotasun** **17** agerraldi, **2** liburu eta **10** artikulutan; ETCn **137** agerraldi, eta **drogomenpekotasun** **6** agerraldi **3** artikulutan; ETCn **29** agerraldi;)*

Askagintza taldeak bihar eta etzi egingo du Bizirik Eguna, **droga mendekotasunen** prebentzioaren aldeko hamaseigarren eguna. Berria - Euskal Herria

Bereizteko arrazoi nagusiak maitasunik eza, monotonia, elkarrekin bizitzen hasitakoan sortutako arazoak, alkoholarekin izandako arazoak, **droga mendekotasuna**, eta emakumearen aurkako indarkeria dira. Berria - Euskal Herria

Soziologoa eta **Droga-mendekotasunen** Deustuko Institutuko kidea da. Berria - Euskal Herria

Ordurako, de la Iglesiak berak aitortu zuenez, **droga menpekotasunak** harrapatua zuen, eta horrek 17 urteko etenaldia eragin zion bere ekoizpenean. Berria - Kultura

Badira kartzelan **droga-menpekotasunari** aurre egitea eragozten duten baldintzak: [...]. Berria - Euskal Herria

C hepatitisa «isileko izurria» dela dio Europako **Droga-menpekotasunaren** Behatokiak. Berria - Gaiak

Eusko Jaurlaritzako **Droga-menpekotasuneko** zuzendaria. Berria - Euskal Herria

· Buruko gaitza du, %67ko elbarritasuna aitortu diote eta, gainera, **droga-mendekotasun** arazo larriak ditu. Berria - Euskal Herria

Martutenen preso dauden pertsona askok buruko gaixotasunak dituzte edota **droga menpekotasun** arazoak. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alkohola eta droga** (3); **auzoan droga** (3); **batean droga** (3); **batzuek droga** (3); **bere droga** (3); **beste droga** (7); **beste droga batzuk** (4); **da droga** (6); **dela droga** (3); **den droga** (5); **dituzte droga** (3)

**droga asko** (6); **droga banatzea** (3); **droga banatzea leporatuta** (3); **droga banatzeagatik** (4); **droga banatzeko** (3); **droga banatzen** (5); **droga banatzen zuen** (4); **droga bat** (8); **droga baten** (3); **droga batzuk** (5); **droga berbera** (5); **droga da** (7); **droga edo** (5); **droga erosteko** (5); **droga eta** (17); **droga eta beste** (3); **droga gaietako** (7); **droga gaietako zuzendariak** (4); **droga gehiago** (3); **droga gogorra** (3); **droga guztiak** (4); **droga hartzaileak** (3); **droga hartzaileei** (3); **droga hartzaileek** (3); **droga hartzaileen** (7); **droga hartzaileen artean** (3); **droga hartzeko** (5); **droga hartzen** (7); **droga hori** (5); **droga horrek** (4); **droga hortarik** (4); **droga ixtorio** (3); **droga karreun** (4); **droga kontsumitzen** (4); **droga kontsumo** (4); **droga kontsumoa** (4); **droga kontsumoak** (3); **droga kontsumoan** (3); **droga kontsumoaren** (4); **droga kontu** (4); **droga kontuak** (3); **droga kontuengatik** (3); **droga kontuetan** (3)

**droga mendekotasunen** (3); **droga menpekotasun** (8); **droga menpekotasun arazoak** (4); **droga menpekotasuna** (9); **droga menpekotasunaren** (4); **droga menpekotasunei** (3); **droga menpekotasunen** (7); **droga mota** (4); **droga saltzaile** (4); **droga saltzaileak** (3); **droga saltzaileek** (3); **droga saltzeagatik** (3); **droga saltzen** (8); **droga tornu** (4); **droga tornua** (5); **droga trafikatzaile** (11); **droga trafikatzailea** (3); **droga trafikatzaileak** (6); **droga trafikatzeagatik** (4); **droga trafikoa** (45); **droga trafikoa eta** (6); **droga trafikoa leporatuta** (4); **droga trafikoagatik** (3); **droga trafikoak** (3); **droga trafikoan** (9); **droga trafikoarekin** (10); **droga trafikoarekin zerikusia** (6); **droga trafikoaren** (24); **droga trafikoaren eta** (3); **droga trafikoaren kontrako** (3); **droga trafikoari** (9); **droga trafikuan** (3); **droga zerbait** (3); **du droga** (9); **edo droga** (7); **ere droga** (9); **eta beste droga** (3); **eta droga** (45); **eta droga menpekotasuna** (4); **eta droga trafikoa** (4)

**eusko jaurlaritzako droga** (9); **gaitzeko droga** (5); **gaitzeko droga tornua** (5); **gazteak eta droga** (3); **hori droga** (5); **izan zen droga** (3); **jaurlaritzako droga** (11); **jaurlaritzako droga gaietako** (5); **jaurlaritzako droga menpekotasunen** (3); **kartzelan droga** (3); **kilo droga** (5); **ustez droga** (13); **ustez droga banatzeagatik** (3); **ustez droga trafikatzeagatik** (4); **y droga** (4); **zen droga** (7); **zen droga kontu** (3); **zioten droga** (3); **zuela droga** (3); **zuen droga** (3); **zuten droga** (4)

**baina drogak** (3); **bestelako drogak** (3); **da drogak** (6); **drogak edukitzeagatik** (3); **drogak egiten** (3); **drogak eta** (5); **drogak gizartean** (3); **drogak gizartean daudela** (3); **drogak hartu** (4); **drogak hartzen** (14); **drogak hartzen dituzten** (3); **drogak izatea** (3); **drogak kontsumitzen** (8); **drogarik ez** (3); **drogarik gabe** (4); **drogarik gabeko** (3); **drogarik hartzen** (5); **eta bestelako drogak** (3); **eta drogak** (15); **eta drogari** (4)

**da drogen** (4); **drogaren aurkako** (13); **drogaren aurkako operazio** (3); **drogaren bat** (7); **drogaren kontrako** (3); **drogaren menpe** (4); **drogaren munduan** (4); **drogei buruzko** (4); **drogekin arazoak** (5); **drogekin arazoak dituzten** (3); **drogen aurkako** (5); **drogen eraginpean** (4); **drogen eta** (4); **drogen inguruan** (3); **drogen kontsumoa** (5); **drogen kontsumoan** (3); **drogen menpe** (3); **drogen menpekotasuna** (3); **drogen ondorioz** (3); **du drogaren** (3); **du drogen** (3); **edo drogaren** (4); **edo drogen** (3); **eta drogaren** (5); **eta drogen** (13)

---

# drogadikto *iz* drogen mende dagoen pertsona. ik **drogazale**.

Besarkatzen ditut bideetako lapurrak eta itsasoetako alderraiak, besarkatzen ditut ziegetan usteltzen diren **drogadiktoak** eta patioetan ihartzen diren psikopatak. Koldo Izagirre

Tripazaia, emakoia, **drogadiktoa** begi bistako biziatuak dira. Patziku Perurena

---

# drogagile *iz* drogak egiten dituen pertsona.

Biharamunean merkatariak azokara jo zuen, eta **drogagile** batekin elkartu zelarik, hazia loditzeko zerbait ba ote zuen galdegin zion. Patxi Zubizarreta

Emaztea gozo hartu zuen, elkarrekin bapo afaldu zuten eta, gero, etzan zirelarik, **drogagilearen** edabearen eraginez, emaztea gau hartan bertan utzi zuen haurdun. Patxi

Zubizarreta

Bere jantziak nekazari bati trukatu, eta gero hauts berezi bat erosi zuen **drogagile** baten dendan. Patxi Zubizarreta

---

# drogagoizale *iz*

Flasha, ezin goragoko sentsazioa, heriotzaren mugetarainoko jolasa, Natura goitarra edo Kimika goitarra bezalako ideien liluramendua eta itsumena, Haiek gabe egon ezina...: gauza askotxok senidetzen ditu mendigoizalea eta **drogagoizalea**, baina, ongi pentsatuz gero, azken honen jarduna edo ariera askozaz ere garbiagoa da, soilagoa, biluziagoa eta zintzoagoa, mendi-jonkiarena baino. Iñaki Segurola

---

# drogaina *iz*

Karnetarekin egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu, eta itsu-itsuan sinesten han dagoena kristoren gorputz kimikoa dela: anfetamina dagoela, kokaina dagoela, ketamina dagoela edo beste *in*aren bat (droga tragikomikoak aipatzeagatik, jenero heroikoa modatik pasatuxea dagoen honetan); berdintsu dio zer den, **drogainaren** bat izan ezkero, legeak **drogainatzat** izendatua daukan zerbait izan ezkero. Iñaki Segurola

**Drogainaren** teorikoek, droga jakintza eta ezagutza bide bezala aztertzen dutenek, ia sistematikoki ahazten dute puntu hau. Iñaki Segurola

---

# drogaketari *iz ipar* droga-trafikatzailea.

Bi **drogaketari** preso. Herria

Bazen zonbait sosena, droga gisa hori biziki kario saltzen baita hor gaindi! **drogaketaria** preso altxatu dute Baionarat. Herria

---

# drogaki *iz ipar* droga-gaia.

Biriatun, guardek arrastatu dute gizon gazte bat, bere bizkarreko zakua **drogakiz** betea zoana. Herria

Eta bestalde oraino, gero eta diru gehiago nunbaitik behar **drogakiaren** erosteko... Herria

Denetarat, 1790 kilo **drogaki**, bost miliun eurorena nunbait han edo berdin gehixagorena ere. Herria

Lau miliun eta erdi euroren **drogakia** nunbait han! kamiunzaina, gizon gaztexko bat, paperez portugesa, preso altxatua izan da. Herria

Zakutto asko haxix **drogakiz** beteak, orotarat tona bat pasaturik. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **drogakiz beteak** (3)

---

# drogamenpekotasun ik **droga 6**.

---

# drogata *iz adkor* drogazalea.

"Normala, hori ez zen bizimodua", "badakizu, drogen mundua... **drogata** hauek beti amaitzen dute berdin", "bai pena!". Sonia Gonzalez

---

# drogatu, droga(tu), drogatzen **1** da/du *ad* drogak hartu edo harrarazi.

Lagunen batek edo batzuek **drogatu** egin naute; nire edarian klenbuterola bota dute. Berria - Kirola

**Drogatu** egiten gaituzte ezer ikusi ez dezagun; **drogatu** egiten gaituzte zerbait ikusten hasten bagara ere erreakzionatzeko ahalmenik izan ez dezagun! Pako Aristi

Susmo txar bat neukan: harmailetan biltzen ziren ehundaka ikusleak **drogatu** egiten zituzten. Karlos Linazasoro

**Drogatu** eta itsasontzi batean legez kanpo eraman zuten Israelera. Berria - Mundua

Weinstein **drogatu** eta bizirik lurperatu zuela onartu du akusatuak. Berria - Gaiak

Neska mozkorturik dago, edo beharbada **drogaturik**: ezin dio ezer zentzuzkorik esanarazi. Oskar Arana

Esaten zuten **drogatuta** nengoela, arraro samar janzten nintzela. Javi Cillero

**2** irud/hed

Amodiozko edabe bizkor batekin **drogatu** eta halaxe eraman, besotan, bizkor, gauean. Fernando Rey

Izan ere, Europa lotan zegoela ikusten zuen, moral faltsu baten ohean etzanda, lo baino gehiago loakartuta, **drogatuta**, bere dekadentzia eragiten zion gezurraren lozorroan. Joxe Azurmendi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Familia xumeen adiskide, emazte bakartuen, emagalduen, gazte gaizkile edo **drogatuen** sustengu, presoen bisitatzaile, bazuen edozein jenderen errespetua eta laguntzeko nahia. Gela usteldu batean esku ahurrean eztulka eta bere zigarro **drogatuaren** kea pafaka botatzen ari zena. Michel Oronoz

Bada, erdi zuzen biak, horrelaxe bete bainituen hurrengo hilabete biak; **drogatu** moduan. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **drogatu egiten** (4); **drogatu egiten gaituzte** (3); **drogatu eta** (7)

---

# drogazale **1** *iz* drogak hartzen dituen pertsona; drogen mende dagoen pertsona. ik **drogadikto**.

**Drogazale** bakoitzak bere motiboa izango din drogaren munduan sartzeko, ez dinat ezetzik esaten, baina nik ezagutu ditudan **drogazale** gehienak besterik gabe egin ditun **drogazale**, arrazoi zehatzik gabe. Joan Mari Irigoien

**Drogazale** batentzat, dena da droga. Juan Kruz Igerabide

Arratsaldero bezala, gizonezko bat eliz aurreko burdinazko atetzarra ixten ari zen, **drogazaleek** gaua eliz atarian pasa ez zezaten. Anjel Lertxundi

Robert aspalditik zen **drogazalea**, neskatxa hil baino lehenago ere bai. Gotzon Garate

Azalpen urduri azkarretan -lapurretak, familiaren hondamendia, espetxea-, **drogazaleen** artean ohikoak diren istorio horietako bat kontatu zidan. Anjel Lertxundi

Ni, ordea, maitasunagatik egin nindunan **drogazale**, Emmanuelen patua nahi nuelako neuretzat ere. Joan Mari Irigoien

Joaten ginen **Drogazale** Anonimoen gure bileretara; ez genuen edaten. Oskar Arana

Halako ordu tikietan, errezeta erakutsita baizik ez dizkizute beren ateak irekiko, eta lehenbiziko bietan **drogazale** botika-ebasle bat banintz bezala ohildu ninduten, horietariko batean polizia deituko zutela mehatxatuta. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

35 urtez New Yorken izan dudan eskarmentuak erakutsi dit, adibidez, **drogazale** talde batean sartzen den [...]. Gotzon Garate

---

# **drogazaletasun** *iz* drogen zaletasuna; drogen mende dagoenaren egoera.

Hedonismoa, atsegina helburu duen filosofia eta **drogazaletasuna** horiek dira materialismoak bultzatzen dituen ideiak. Berria - Gaiak

-Zergatik ez zoaz **drogazaletasuna** kentzeko dauden etxe horietako batera? Gotzon Garate

Pozik da, gainera, azken 28 hilabeteotan kontrolpean duelako **drogazaletasun** etengabea. Berria - Euskal Herria

---

# **drogeria** *iz* produktu kimikoak, hala nola garbiketakoak edo pinturak, saltzen diren denda.

Amak goizean esan zidaan, **drogerian** krema bat erosteko; arratsaldean, joan nauk **drogeriara** eta... Pablo Sastre

Elkarrekin sartzen ginen burdindegian, edo **drogerian**, eta gero etxera eramango nituen gauzak aukeratzen zituen; ordaindu ondoren, neuk garraiatuko nituen plastikozko poltsetan sartzen zituen, ondo apailatuta. Iban Zaldua

Etxeko beste tipo bat, oso ezaguna, Maisu Txikia zen, mantxatar pedante eta orojakin bat, **drogeriako** saltzailea, sendalaria eta izain-jartzailea. Josu Zabaleta

**-Drogeria** kontua -dio Lainezek. Pello Lizarralde

---

# drogomenpekotasun ik **droga 6**.

---

# **drogoso** *izond* bazter-nahaslea, iruzurtia.

Halako **drogosoa** haiz eta, nik uste nian gezurra zela! -arin egin du tabernariak, ohitura dauka letretan. Koldo Izagirre

---

# **drojki** *iz* zaldi orga arina, bi gurpilekoa, baleztaduna eta estalkirik gabea, Errusian eta erabiltzen dena.

Telega ez zen, ezta kalesa edo **drojkia** ere; ezeren antzik izanez gero, gurpil gainean jarritako angurri lodi bat ematen zuen. Jose Morales

Haren aldamenetik dirudunen bat bizkor igarotzen zenean **drojki** dotore batean, zaldiak edergailu aberatsez apaindurik, hari begira geratzen zen lurrari josirik. Jose Morales

Txitxikovek, neurri guztiak gainditzen ari zela konturaturik, kotxe bat eskatu zuen, eta prokuradoreak eskainitako **drojkia** onartu zuen. Jose Morales

Beroki laburrez jantzirik **drojki** arin batean bizkor zihoan merkataria. Jose Morales

---

# **dromedario** *iz* gamelu mota, konkor bakarrekoa *(Camellus dromedarius)*.

Milaka gamelu txiki zeuden, ongi osatuak, ile luzea gorputzean, zurda lodiak lepagainean, abere otzanak, eta **dromedarioa** baino errazago prestatzen direnak. Karlos Zabala

Haien arrastotik pauso baldarrez ehun **dromedario** etorri ziren, baktriarrak arrazaz. San Benitoren Ordenako fraide bi agertu ziren bidean, bi **dromedarioren** gainean zaldizko. Felipe Juaristi

---

# **drop** *iz* errugbian, punpa-lasterra.

62. minutuan jokalari bat gutxiagorekin geratu zen Narbona, eta egoera hori ere primeran baliatu zuen Baionak, Larretxeak **drop**-a egin ondoan, Cledak lapurtarren seigarren eta azken entsegua egin zuelako. Berria - Kirola

Entsegu bat, zigor kolpe bat eta **drop** bat. Berria - Kirola

Traille eta Hernandez saiatu ziren **drop**-ak egiten, baina ez zuten asmatu. Berria - Kirola

Gero bi minutuan bi **drop** gauzatu zituzten Peyrelonguek eta Brusquek, eta horri esker 6-12 aitzineratu ziren lehen zatian. Berria - Kirola

Lau zigor kolpe jaurtiketa eta hiru **drop** jaurtiketa. Berria - Kirola

Traille eta Hernandez saiatu ziren **drop**-ak egiten, baina ez zuten asmatu. Berria - Kirola

· Mazas miarriztar jokalariak partidako azken minutuan **'drop**-goal' tiroa lortu zuelarik nire ilusio guziak kendu zizkidan. Ramuntxo Etxeberri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beauxisek drop** (3); **beauxisek drop jaurtiketa** (3); **bi drop** (6); **drop a** (14); **drop a gauzatu** (3); **drop ahalegin** (4); **drop ahalegina** (6); **drop bat** (20); **drop bat eta** (3); **drop jaurtiketa** (11); **drop jaurtiketa gauzatu** (6); **eta drop** (11); **eta drop bat** (8); **kolpe eta drop** (3); **peyrelonguek drop** (5); **zuen drop** (3); **zuen drop a** (3)

---

# **drosofila** 1 *iz* ozpineko eulia *(Drosophila melanogaster)*.

Geroago, ingeniaritza genetikoak gaitu gintuenean edozein organismoren material genetikora iristeko, **drosofila** bilakatu zen berriro ikertzaileen kutun. Juan Garzia

**Drosofilaren** mutazioen armategi zahar guztia, horrenbestez, begi berri batzuen argitan ikusten da. Juan Garzia

Mutante horiek, azkenik, frogatzen dute posible dela **drosofilaren** baitan enbrioiaren garapena oinarritzen duen sistema genetikoa aztertzea. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Ikerkuntzarako eta irakaskuntzarako baliatzen ziren **drosofila**-bildumak. Juan Garzia

Hala bakartu zuten, esate baterako, 1916an, **drosofila**-mutante aski harrigarri bat: hegal pare baten ordez bi zituen euli bat. Juan Garzia

---

# **drugstore** *iz* egunaz eta gauaz irekia dagoen merkataritza gunea, kafetegia eta jatetxea dituena besteak beste.

Itxi arte itxaron behar izan nuen, eta **drugstore** batera joan ginen. Xabier Olarra

Urrunxeago, galerian bertan, **drugstore** bat zegoen; bazeukan handik fax bat bidaltzea. Jon Muñoz

Dirua lortu, eta telefono kabina hutsik zegoen **drugstore** bat aurkitu nuenerako, pasea zen ordu erdi baino gehiago. Koro Navarro

Aitzakia batekin, **drugstore** batean sartu zen, gin botilatxo bat erosi... orduantxe ihes egitea zeukan, baina, diru hura, hain ongi etorriko zitzaion... zurrutak bizkortu zuen. Pablo Sastre

Newmark-en, lehendabizi topatu zuen orotariko **drugstore** saltokian sartu eta ondokoak eskatu zituen: talko-hauts lata bat, azazkaletako eskuila bat, eta veronal pastilla-kaxa bat. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**drugstore bat** (3); **orotariko drugstore** (3)

---

# druida *iz* antzinako zelten apaiza.

Arimen lekualdaketa gogoratzen zaio, zelten letrak izugarri bihurtzen dituen dotrina, Zesar berak britainiar **druidei** egozten diena. Juan Garzia

Bere ale gorri biribilok estimazio berezia zuten **druiden** liturgiako ospakizunetan. Pello Zabala

Suaren erritoa kontu sakratua zen hiru egun hauetan ere: **druidek** soilik piztu zezaketen su hori. Pello Zabala

**Druida** Nagusiak orduan besoak altxatu zituen isiltasuna eskatu nahian, baina alferrik; eta Golen ahotsa entzun zen besteen gainetik: [...]. Joanes Urkixo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**druida hitza** (3); **druida hitza bera** (3); **druida nagusia** (3); **druida nagusiak** (6); **egin zuen druidak** (3); **luth druida** (3); **luth druidaren** (3); **zuen druidak** (7)

---

# druidagai *iz* druida izateko prestatzen ari den pertsona.

Umetan **druidagai** izan ginen elkarrekin. Joanes Urkixo

**Druidagai** arrunt bat naiz. Joanes Urkixo

---

# drundots *iz* dunbotsa.

Moto zahar baten **drundotsa** dirudi. Hasier Etxeberria

---

# drupa *izond* fruitu mamitsu biribilkara, barnean hazi bakarra geruza gogor batean bildua duena.

Produktu natural batzuen bidez lorturiko produktuak, aldiz, arriskutsuak dira jende askorentzat: esnea [...], laboreetako glutena, kakahuetea, txerrikia, fruta batzuk (marrubia, meloia, zitrikoak, **drupa** asko, etab.), arrain urdina... Edorta Agirre

---

# druso *(orobat **druzo**)* 1 *iz* Libano eta Siriako islamdar komunitate berezi bateko kidea.

Maroniten kristautasun monotelita eta **drusoen** xiismoa, Hakim gurtzen duena, Erdialdeko Sirian jaio ziren biak. Iñaki Mendiguren

Egun 32 kokagune eta 20.000 bat judu daude siriar **druzoen** inguruan bizitzen. Berria - Mundua

[Raba Halabik] adierazi zuen Israelgo Armadan soldadu dabiltzan **druzoak** etniaz arabiarrak, eta sinismenez Islamaren adar batekoak «kontrola galdu duten mertzenarioak» direla. Berria - Mundua

• **2** *izond* drusoei dagokiena.

Komunitate arabiar eta **druzoaren** parte-hartzea ere txikia izan zen. Berria - Mundua

Unibertsitate Hebreoko irakasle eta aditu **druzo** batek. Berria - Mundua

---

druzo ik **druso**.

---

# dual 1 *iz* bi elementu edo banako desberdin dauzkana edo biltzen dituena.

Antropologiak gizarte ugarietan ikertu ditu subiranotasunaren "sistema **dualak"**. Joseba Zulaika

Lacanek erakutsi zigun sistema ez dela **duala**, baizik eta monoa. Berria - Kultura

**2** gramatika-numeroaz mintzatuz, bi pertsona edo gauza adierazten dituena.

Sanskritoak bi kategoria izan ordez hiru dituenez (nire begiak, nire belarriak, nire besoak, nire hankak eta abar **"dual"** delakoan leudeke), [...]. Isabel Arrigain

Hitzek esanahiz aldatzen dute; gramatika kategoriek ere bai: kategoria horietako batzuk, haiek adierazteko balio zuten formekin batera desagertzen dira (latinak zuen **duala**, esaterako). Isabel Arrigain

---

# dualismo 1 *iz* bi printzipio aurrez aurreko eta ezin bateratuzko onartzen dituen doktrina filosofikoa.

**Dualismo** ontologikoaren arabera, beraz, bi substantzia-mota daude munduan, fisikoa eta pentsakorra, bakoitza bere ezaugarri propio eta bereizgarriekin. Askoren artean

**Dualismo** kartesiarra bazterturik [...] izpirituaren eta naturaren harmonia eta paralelotasuna proklamatzen da, hots, bion monismo organiko-ebolutiboa. Joxe Azurmendi

Bi premisa hauei esker, libratu zen [San Agustin] materialismoaren atzaparretatik eta **dualismo** manikeotik. Imanol Unzurrunzaga

Badirudi **dualismoa** atxiki behar dugula, bestela, Izate absolutuak, Jainkoak dena irentsiko luke. Askoren artean

Garrantzitsua da ohartzea Nagelek aldebiko **dualismoa** defendatzeko darabilen argudioa epistemologikoa dela. Askoren artean

Bi aretako substantzien ustezko komunitateak, substantzia pentsatzailearen eta hedatuaren artekoak, **dualismo** zakar bat ezartzen du oinarrian, eta azkenak, subjektu pentsatzailearen errepresentazio soila izaki, substantziok berez irauten duten gauzak bihurtzen ditu. Ibon Uribarri

Gorputza eta izpiritua ados, **dualismo** izpirik gabe, aitzinatzen naiz.Stalin ere **dualismo** despotikoan erori zen, eta bitan banandu zuen alor oro, baita zientziarena ere: zientzia kapitalista zegoen, eta zientzia proletarioa. Piarres Aintziart

**2** (hitz elkartuetan)

Substantzia-**dualismoak** burmuinaren eta gogoaren arteko harremana zail egiten duen moduan, aldebiko dualismoak ere munduaren ikuskera deseroso baten aurrean jartzen gaitu. Askoren artean

---

# dualista 1 *izond* dualismoarena, dualismoari dagokiona.

Platon da Mendebalde osoarentzat filosofian, moralean, erlijioan, gure kultura komunean, oinarrizko bilakatu den gizakiaren ikusmolde **dualistaren** ezarle eta finkatzaile filosofikoa. Askoren artean

Egia da Platonen metafisika **dualista** dela, baina *Politeia*n idatzia zuen jadanik arimak hiru alde dituela: zientzia, adorea eta neurritasuna. Askoren artean

Peter Strawson (1974) eta Thomas Nagel (1986) dira "aldebiko teoria" **dualistaren** (ingelesez, "dual aspect theory" edo "property dualism") defendatzaile nagusiak. Askoren artean

Bereizkuntzak dira, orobat, ez dagoena eta ezin dena egon, historiaren metafisika **dualista** honetan. Joxe Azurmendi

**2** *iz* dualismoaren aldeko pertsona.

Eta horrela **dualistak** esanen du ezinezkoa dela jainko bietako batak bakarka jardutea, eta horrek ez dakarrela aldean inolako ezgaitasunik bietako inori buruz, haien izaerarako, bi izatea funtsezko baldintza delako. Xabier Kintana

Alegia, **dualisten** iritziz, guztizko engainuan bizi gara, egiatzat hartu ohi ditugun uste gehienak berez faltsuak baitira. Askoren artean

Idealista transzendentala errealista enpirikoa izan daiteke, eta beraz, deitzen zaion moduan, **dualista** bat. Ibon Uribarri

**«Dualista** porrokatua» izanagatik, [Bobbio] aurkariak uztartzen ahalegindu da: justizia eta askatasuna, sozialismoa eta liberalismoa, ilustrazioa eta pesimismoa. Berria - Kultura

---

# dualistiko *izond* dualista.

Izan ere, izaera pentsatzailearen eta materiaren arteko loturari dagokion zailtasun oro amarruz sartutako errepresentazio **dualistiko** hartatik soilik sortzen da. Ibon Uribarri

Beraz, beren objekzioarekin berezko eragina ez ezik, beren aurresuposizio **dualistiko** propioa ere errefusatuko lukete. Ibon Uribarri

---

# dualitate *iz* dualtasuna.

Silaba eta bere azentua, ahoskatze ekintza bakar bat baizik ez baitira; ez dago **dualitaterik** ekintza honen barnean, bere ondoan dagoenarekiko aurkakotasun batzuk baizik. Isabel Arrigain

Desberdintasun horiek, kanpo eraginengatikoak ez diren guztietan [...] fenomeno fonetikoarekin batere zer ikusirik izango ez duten **dualitate** gramatikalak eta sinkronikoak izango dira. Isabel Arrigain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dualitate bat (3)

---

# dualizatu, dualiza, dualizatzen da *ad* bitan zatitu, dual bihurtu.

Gizarteak **dualizatzen** ari direla diote hainbat adituk. Iñaki Heras

---

# dualizazio *iz* dualizatzea.

Kooperatibek aurrera jarraitzen dute beren gabezia eta arazo zerrenda luzearekin: langileriaren **dualizazioa**, edo hitz zakarragotan, klase-banaketa (bazkideak direnak eta ez direnak); [...]. Iñaki Heras

**Dualizazioa** da nagusi: enpresa jakin batean lan bera egiten duten bi langileren artean soldata aldea bikoitza, edo hirukoitza ere izan daiteke. Iñaki Heras

Azken batean, **dualizazioa** da nagusi lan merkatuan: lehen eta bigarren mailako langileak daude. Iñaki Heras

---

# dualtasun *iz* duala denaren nolakotasuna.

Gauzak eta zeinuak bereiztean, gauzei buruz ari garenean halako moldez mintzo gara ezen, batzuk beste zerbait adierazteko erabiltzen badira ere, **dualtasun** horrek ez baitio trabarik jartzen guk helburu hartutakoari. Imanol Unzurrunzaga

Hogeigarren mendeak aurrera egin eta ilundu ahala, gero eta nabariagoa zen munduen **dualtasuna**, Zaharra eta Berriarena, egitateekin bat ez zetorren teoria zela. Iñaki Mendiguren

Hortaz, edozein aldetatik heltzen diogula arazoari, inon ez dugu hizkuntzalaritzaren helburu osoa, integrala aurkitzen, guztietan bi irtenbide elkarren kontrakoren aurrean aurkitzen baikara: edo arazoaren alderdi bati bakarrik atxikitzen gatzaizkio, lehen aipaturiko **dualtasunak** ez atzemateko arriskuan amilduz, edo, alderdi askotatik batera abiatzen gara mintzairaren estudioan, eta orduan, linguistikaren aztergaia azalduko zaigu estekadurarik gabeko gauza heteroklitoen pilaketa nahasgarri gisa. Isabel Arrigain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> barruko dualtasuna (4)

---

# duatloi 1 *iz* atletismo proba, bi lasterketak, bata oinez eta beste bizikletan eginak, osatua.

23 urtez azpiko Munduko Txapeldun Javier Gomez Noyak parte hartuko du gaur jokatuko den Aguraingo **duatloian**. Berria - Kirola

Hallek eta Gallastegik irabazi dute Gernikako **duatloia**. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Bestalde, Euskal **Duatloi** Zirkuituko beste bi proba jokatuko dira asteburuan. Berria - Kirola

Espainiako Mendiko **Duatloi** Txapelketa jokatuko da bihar Gasteizen . Berria - Kirola

---

# dub 1 *iz* reggaetik sorturiko musika estiloa, lehenagoko grabaketen birmoldaketan oinarritzen dena

Acid-house-aren garaia zen hura, baina *soundystem*-ek soulari eta **dub**-ari atxikitako erritmoak berreskuratu zituzten: «Jamaikako musikaren eragina nabarmena zen, baina dantzarako musikak ere eragina izan zuen gure musikan». Berria - Kultura

Esan nezake house musika egiten dudala, baina baita, **dub**-a, disco musika, Detroit techno-a eta funka egiten dudala ere. Berria - Kultura

Estilo ugari nahastu nahi nituen, eta agian horregatik, bateriak hip hop ukitua du, baxua **dub**-etik gertu dago, perkusioa afrikarra da, haizeak funkyak eta pianoa, berriz, latinoa. Berria - Kultura

Ezaguna da Fermin Muguruzak izugarri maite dituela Jamaikako sustraidun doinuak (reggae, **dub**, ska...), Berria - Kultura

**2** (izen baten ezkerrean)

Eta hiri ponpoxoaren ifrentzua den beste Bilbo horren kronikak idazten dizkigu, erraietatik, artez eta artifizio larregi ibili barik, **dub** erritmo soil eta hipnotizatzaileetan kulunkatuta. Berria - Kultura

Joe Strummer-en ahotsa eta Mikey Dread-en **dub** efektuak... Paddy Rekalde

Linton Kwesi Johnson **dub** poeta eta abeslariaren *Five Nigths of Bleeding* doinu zoragarri eta sendoa entzuten ari zarete... Paddy Rekalde

**3** *reggae dub* ik **reggae 3.**

---

**dubbi** *iz* skatepark-etan dagoen figura, zulo zabal baten modukoa, ertz ondulatuak dituena.

Lasterketa bat da, **dubbiak** (bainerak), peralteak eta jauziak dituen ibilbide batean. Berria - Kirola

Banaka egingo dute **dubbi** -ak (bainerak), peralteak eta koskak dituen ibilbidea. Berria - Kirola

---

**dublindar** *izlag/iz* Dublingoa, Dublini dagokiona; Dublingo biztanlea.

Gabriel Conroy, **dublindar** idazlea, nazionalistak eta irlandera gutxiesten dituena, gurago goi mailako kultura kontinentala, bere izeben etxera doa, Irlandako mendebal aldeko bere emaztearekin, urte berria ospatzera. Markos Zapiain

Dowland, **dublindarra**, bere herrian bizitzera errenditu ezin eta mundua ibili zuen alderik alde alderrai. Felipe Juaristi

Irlandako ingeles hiztuna, **dublindarra**. Edorta Jimenez

Izan ere, eginean ez baizik ezinean daude **dublindarrok**, alkoholak eta erlijioak eragotzirik. Markos Zapiain

Joyce: beste **dublindar** arnegari bat. Berria - Kultura

Bela-oihalak berriz, toles-toles eginda saldu bide zizkion dirutza baten truke Joyce deitura zuen **dublindar** eszentriko bati. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta dublindarrak** (4)

---

**duda 1** *iz* zerbaiten egiatasun edo ziurtasunaz zalantzatzen denaren, zenbait aukeraren artean norantz makurtu ez dakienaren arima egoera; dudatzea. ik **ezbai; zalantza**.

Baina **duda** horren argibidea izan aurretik, Don Evaristoren ahots lodi-zakarrak esnatu zuen errealitatera: [...]. Ulertzekoa zen nire **duda**, baina eraikinak berriak zirela esan zuen. Joxemari Iturralde

Berriz Perkain aipatzeko, badago anitz **duda** edo zalantza, ezin jakinez zein zitekeen bere izen zuzena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oposizioa kezkatuta agertu zen atzo inork **duda** hori argitzeko helegitea aurkezten ahal duelako. Berria - Mundua

**Duda** sortu berria baitzitzaidan: eta ezjakin urrikalgarriena ni banintzen haren idurikoz? Aingeru Epaltza

Oraindik ez dakite jokatuko duen eta ezta Ntamackek ere; horrek **duda** sortuko du. Berria - Kirola

Carlos Catalanek ere ez ditu argitu **duda** guztiak. Berria - Kultura

Gero begietan, **duda** bat nabaritu zion, ozenki erratera ausartzen ez zen galdera bat. Elena Touyarou

Denborarekin **duda** bat erneko zitzaigun barrenean, zenbat eta pasarte gehiago gogora ekarri areagotuz joango zena. Pedro Alberdi

Pundu hortan haatik bada **duda** frango bazterretan. Herria

Gaurko euskaltzaleek bere buruarentzat maiteena duten kontsigna, bat aukeratu behar eta, "euskaraz bizi" delako hori dela esango nuke, **duda** gutxirekin. Iñaki Segurola

**Dudaren** harrak gero eta zulo handiagoa egiten zuen zaldunaren bihotzean. Martin Anso

Bada galde eta **duda** frango bazterretan, bereziki Europan, nola ote den jokatuko preseski Europa batuari buruz. Herria

Aita Hilario da, **duda** barik, nagusia. Koldo Izagirre

**Duda** asko daude oraindik horren gainean ere. Berria - Gaiak

**2** (izenondoekin)

Bere eta beste guztien bihotzetatik **duda** txikienaren zauria ere ezabatzeko. Askoren artean

Arrazoizko **duda** txikiren bat agertzen bada nire *causa mortis*-i buruz, sosik ere ez du ikusiko. Karlos Zabala

Laguntzaileen jokamoldeari buruzko **duda** ñimiñoenak susmo txarrak pizten zizkion, bere aginduen onespen kartsuegiak bezalaxe. Elena Touyarou

**Duda** handiak daude oraindik genetikoki eraldaturiko elikagaien inguruan. Berria - Gaiak

Gogoeta luzeetan zebilen eta **duda** handiak zituen zer egin behar ote zuen. Askoren artean

Etorkinen aldeko elkarteek **duda** sendoak dituzte prozedura «zuzena ote den». Berria - Harian

Gaurko **duda** sakonen araberako danga saminek hautzaroko fedearen goxoa oroitarazi didate. Piarres Aintziart

Kritika eta **duda** metodikoaren espiritua garatu zuen. Iñaki Mendiguren

Apezgoari buruzko **duda** izigarriak aztaparretan hartua baininduen urte bat lehenago. Piarres Aintziart

Operazio hartan parte hartu edo ez hartu, hori baldin bazen Rekexok zuen **duda** etikoa, alkohol pittin batez disolbatzeko erabakia hartua zuen, ea horrela arazo hura guztia garbixeago ikusten zuen. Joxemari Iturralde

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orduan bera itzuli zen, **duda** aire batekin, esan zuen, ama, zeinen begi urdin ederrak dituen soldadutxo honek... Pablo Sastre

**4** *hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

**Duda** arrastorik ere ez zen Lakatosek herren egiten zuela. Matías Múgica

Baietz eta baietz, ez zuela horretaz **duda** mikorik. Janbattitt Dirassar

**Duda** izpi bat izan ondoren, hartu egin zuen. Joxemari Iturralde

Haren mintza-doinuak ez zuen **duda** izpirik utzi, nire semeak sorrarazten zizkion sentipen ezkutuen aitzin-gibelez. Aingeru Epaltza

Eta hark, **duda** izpirik egiteke, soil-soilik esan zion: [...]. Juan Garzia

**4** ***dudako*** *(**41** agerraldi, **14** liburu eta **15** artikulutan; **6** agerraldi **4** artikulutan; ETCn **281** agerraldi)* *izlag* dudazkoa.

Haatik usaian baino jende gutixago naski, **dudako** aroaren gatik behar bada. Herria

Hitzezko galtzerdien inbentarioa osatzeari ekin diozu, kirioen sorgin-erratza hegazkin, **dudako** hodei guztien gainetik. Joxerra Garzia

Eta hementxe du hiltzea eta akabera gogoetatxo txuri-beltz honek; **dudako** argi-ixpi ñimiño bat besterik ez, heriotzaren itzal lodiaren ertz batean. Iñaki Segurola

Ibaiaren berberatasuna **dudako** gauza da, eta hargatik irristatzen dira izenak uraren gainean. Iñaki Segurola

Aztertutako etxalde batzuetako emaitzak **dudakoak** dira, eta doitasun handiagoko testak egin beharko dira. Berria - Gaiak

Urtean saio aukeratu batzuk egiteak, badu beste alderdi **dudako** bat ere. Andoni Egaña

Gbauza batzuk izango lirateke "ez eta ez", nazka, eragozpen eta atzerakada garbiz; eta gero, **dudakoak dudako** eta gizabanakoak gizabanako, "ez baina bai": hauxe da delako morbo horren erresuma naturala, naxka eta xikiñaren aurkintza. Iñaki Segurola

**5** ***dudazko*** *(**39** agerraldi, **20** liburu eta **8** artikulutan; **6** agerraldi **4** artikulutan; ETCn **286** agerraldi)* *izlag*

Hona zein omen diren gure iritziaren galdez dauden **dudazko** puntu eragozle horiek: [...]. Piarres Xarriton

Era horretan, irabaziak berreskuratu eta **dudazko** kredituentzako erreserbak gehitu zituzten. Koro Navarro

1878an prefetek igorri txostenen arabera 31 apezpiku "tzarrak" ekarriak ziren, 27 **"dudazkoak"**, "25 onak", gobernuaren arabera bixtan dena. Xipri Arbelbide

Itxaropen horiek, diru-espazio bateratu batean gertagarriak diren arren, aski **dudazkoak** dira diruen arteko konkurrentziak nagusi jarraitzen duenean. Koro Navarro

Ikusi zaitut; soseguak ihes egin du nigandik urrun, eta **dudazkoa** dut zoriona. Jon Muñoz

Hegazti mota guztiak ere hor ikusten ditugu hegoekin fidatzen eta lumei laguntza oraindik **dudazkoa** eskatzen. Xabier Amuriza

Estatistika batek fidagarria izateko oso baldintza estuak bete behar baititu, eta orduan ere, arazo sozialetan-eta, oso **dudazkoa** izaten baita. Bernardo Atxaga

Ez neukan froga izpirik ere hipotesi hori baieztatzeko, baina behin Rodney Grant-i bere etorkizun **dudazko** hartara lagundu ziotelarik, bazirudien ohe huts hura indar

ezabagarri misteriozkoren batek sorgindu zuela. Oskar Arana

## 6 *duda egin*

**Duda egin** nuen hasieran. Matías Múgica

**Duda egin** du segundo batez eta gero ohartu da ez duela besterik esateko. **Duda egiten** duzu ala, Miss Fairfax? Monika Etxebarria

-Simcha David ikusi duzu? -galdetu zuen Hinde Shevachek **duda egin** ondoren. Koro Navarro

Gorpua ikusi zuenean, Beauvaisek, hasieran **duda egin** bazuen ere, lurrin dendako neska zela adierazi zuen. Koro Navarro

Julianek **duda egin** zuen berriro, etxera alde egin ala gelditu. Pedro Alberdi

Hala ere, **duda egin** nuen, erran ala isildu, horrela edo hala jokatzeak "Potzoloren" solasari zer jite erantsiko zion ezin igarri-eta. Aingeru Epaltza

Neronek ere **duda egingo** nuen benetan ote nengoen kamerinoan. Matías Múgica

**Duda egin** nuen niretzat ez ote zen agurra. Koro Navarro

**Duda egin** nuen ez ote ninduen ezagutu eta horregatik sartu ote zen bulegoan, ala alderantziz, ni eta nire asmoak ezagutu zituelako ihes egin ote zuen. afaritarako iritsiko ote zen **duda egin** baitzuen. Ramon Saizarbitoria

Ni jarrita ikusteak zabalagotu zuen neskaren irriñoa, berak ere hondarrean eseriko ote nintzen **duda egin** izan balu bezala. Aingeru Epaltza

Ez da zer **duda egin** amorratzen egon dela preso gazte beterano omen den hau ezin siesta eginda. Koldo Izagirre

-Imanol? - **duda egin** zuen. Fernando Morillo

-Errepublikak emandako zera - **duda egin** nuen-. Edorta Jimenez

Historiaren zalea naiz, eta emakumeen zalea - **duda egin** nuen- izana naiz. Edorta Jimenez

· Halako bizikizun batek bere buruko osasunaz **duda eginarazten** dio bati. Koro Navarro

## 7 *duda izan* du *ad*

Tragoxka bat hartzen du, begietara begiratzen dio, gogoan duena bota ala ez **duda duela**. Eneko Bidegain

Sarrerako hitzez **duda nuen**, hala ere; gogorxkoak, akaso. Aingeru Epaltza

Buruan ibili nuen zer egin, **duda nuen** zer egin behar ote zen. Fernando Rey

Eten bat egin zuen, zerbait erran ala ez erran, **duda** balu bezala. Aingeru Epaltza

· Izan ere, zerbaitez **duda** guti **nuen**: anaiak hartutako sastakadak niretako ziren. Aingeru Epaltza

## 8 *duda aldi* ik **dudaldi**.

## 9 *duda-muda* ik **duda-muda**.

## 10 *dudan egon* (*orobat* ***dudatan egon***)

**Dudan egon** ziren haren begi grisak. Harkaitz Cano

Istant batean **dudan egon** zen, eskua kisketan zuela, leihoa erabat itxi ala ez. Iñaki Mendiguren

Denbora puxka batez **dudatan egon** zen botoi hura sakatu ala ez. Joxemari Iturralde

Nire ustez, ama bizi guzian **dudan egona** da, ongi egin ote zuen ala ez. Kantuan, dantzan, esku bat beti garagardoari eusten, futbola herriaren opioa baino herriaren anfetamina ez ote den **dudan egon** nintzen. **Dudan zagon** ea SUAT delakoaren sortzea gauza ona zenetz ala txarra. Elena Touyarou

Ordularia eta eztiloa hartu behar nituenez **dudan egonik**, eramaten ditut, zorigaitzez. Marzel Etxehandi

Memento batez **dudan egonik**, berriz konfiantxa hartzen du mutikoak Basoiren boza entzun ondoan. Michel Oronoz

Dena dela, **dudatan nago** zein aukeratu. Jon Arretxe

## 11 *dudan eman* (*orobat* ***dudatan eman*** *g.er. eta* ***dudetan eman***) *ipar*

Joantto, ehunka baiones bezala, hiltze horietarik batzuetara azaldu zen haren abertzaletasuna nehork ez zezan **dudan eman** eta susmo txarrik ez sortzearren. Elena Touyarou

Ezkerreko oposizioak **dudan eman** ditu auzapezak aipatu diru sartzeak. Herria

Baina kontseiluak baitu laugarren axuant hautatu, onespen hori ez du **dudatan eman** nahi izan. Herria

Delako zatiek, gainera, ez lukete deus ikustekorik beren osotasunarekin eta beren osotasun hori bere zatiak gabe izaten eta ulertzen ahal liteke, baina nehork ez dezake **dudan eman** gauza hori absurdua dela. Piarres Xarriton

## 12 *dudan ibili* (*orobat* ***dudatan ibili*** *eta* ***dudetan ibili***)

- **Dudan ibili** nauk apur batean, hi ote hintzen. Urtzi Urrutikoeetxea

Ezin dut **dudan ibili**, gaur bai, bihar ez... Berria - Kirola

-Baina, ai, ni **dudan nenbilean** garai hartan neure bokazioarekin, ez bainekien Jainkoak apaiz nahi ote ninduen. Joan Mari Irigoien

Preseski, amerikanoak **dudetan zabiltzan**, ez ote zuten oraino soldado gehiago igorri behar Irakiarat, edo, orobat, musulman herrietako 40.000 soldado ez ote ziren ekarrarazi behar kanpotik herri horren bakean zaintzerat. Herria

**Dudatan ibili** zen balekiko kartutxoak jarri ala ez. Koro Navarro

**Dudatan zebilen**, kondarrak bukatu ala eskolara jarraitu. Koro Navarro

## 13 *dudan ipini* dudan jarri.

Beraz, hasieratik, hautespen naturala **dudan ipini** edo baztertzen badugu eboluzioaren eragiletzat, ez dugu, inola, ordezko erantzun erlijiosorik zientziaren alorrean aurkezten. Jenaro Garate

## 14 *dudan izan* da *ad*

Ainitz jende **dudan baitira**, geroari buruz... Menane Oxandabaratz

Izan ere, nigan topa daitezkeen nire izatearen determinazio-oinarri guztiak errepresentazioak dira, eta errepresentazioak diren aldetik beraietatik ezberdintzen den iraunkorkia behar dute, zeinaren arabera errepresentazio haien aldakuntza, eta beraz, haiek aldatzen diren denboran **dudan izatea** ere determinatuak izan daitezkeen. Jon Muñoz

## 15 *dudan jarri* (*orobat* ***dudatan jarri***)

Egia hori [...] ezin **dudan jar** dezake ezein adimen zentzuzkok. Juan Garzia

Are gehiago, Eugèn Goyhenetchek Proudinesen zubia inoiz existitu izana ere **dudan jartzen** zuen. Martin Anso

Hil ote zen ere **dudan jar** liteke. Juan Garzia

**Dudan jar** zitekeen esku bihurri hura harena ote zen ere. Monika Etxebarria

Azken hitz misteriozko horiek **dudan jartzen** gaituzte berari atsegin zitzaion ala ez. Patxi Altuna

Bai, ez dut **dudan jartzen** Adela pasatu egin zela, baina nik ireki nion bidea. Joan Mari Irigoien

Inork ezin du **dudan jarri** gizonek, naturaz, beldurrik ez izatekotan, joera handiagoa izango luketela nagusitasunerako, gizarterako baino. Esteban Antxustegi

Londresko hamaika pizza-egilek izan ezik, inork ez du **dudatan jartzen** Ingalaterrak Italia birrinduko duela. Lutxo Egia

- **Dudan jartzen** dut Lupin maisua berehalako arriskuan dagoenik -esan zuen Dumbledorek. Iñaki Mendiguren

Hori ez zegoen **dudan jartzerik**. Harkaitz Cano

Hasieran lana bilatzen hasten zara, indartsu, baina lanik ez dela heldu eta, zure burua **dudan jartzen** duzu... Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina duda** (13); **baina duda egiten** (3); **batean duda** (3); **batek duda** (3); **batez duda** (7); **batez duda egin** (4); **batzuetan duda** (3); **da duda** (10); **du duda** (4)

**duda asko** (6); **duda bakarra** (5); **duda barik** (72); **duda bat** (20); **duda batzuk** (4); **duda edo** (5); **duda egin** (94); **duda egin du** (6); **duda egin nuen** (31); **duda egin ondoren** (3); **duda egin zuen** (25); **duda egin zuten** (3); **duda eginez** (4); **duda egingo** (5); **duda egiteko** (4); **duda egitekoa** (3); **duda egiten** (55); **duda egiten baduzu** (3); **duda**

**egiten dut** (12); **duda egiten duzu** (5); **duda egiten nuen** (4); **duda egiten zuen** (3); **duda eta** (12); **duda frango** (3); **duda gabe** (16); **duda guti** (5); **duda gutxi** (3); **duda guztiak** (6); **duda handiak** (12); **duda handiak daude** (5); **duda handirik** (5); **duda handirik gabe** (3); **duda hori** (4); **duda horiek** (3); **duda izan** (4); **duda izango** (4); **duda izango da** (3); **duda izpi** (5); **duda izpi bat** (3); **duda izpirik** (95); **duda izpirik ez** (5); **duda izpirik gabe** (53); **duda izpirik uzten** (5); **duda la** (3); **duda mikorik** (8); **duda muda** (27); **duda mudak** (22); **duda mudak eta** (4); **duda mudako** (4); **duda mudan** (55); **duda mudan egon** (21); **duda mudan gelditu** (3); **duda mudarik** (7); **duda mudarik gabe** (6); **duda mudatan** (40); **duda mudatan egon** (4); **duda mudatan ibili** (13); **duda mudatan zegoen** (3); **duda mudazko** (8); **duda mudazkoa** (3); **duda mudetan** (10); **duda zerbait** (3)

**dute duda** (3); **duten duda** (3); **edo duda** (6); **edo duda mudarik** (3); **ere duda** (11); **eta duda** (39); **eta duda egin** (5); **eta duda egiten** (6); **eta duda izpirik** (4); **ez da duda** (5); **ez du duda** (3); **ez duda** (18); **ez dute duda** (3); **ez nuen duda** (3); **ez zegoen duda** (3); **ez zen duda** (3); **ez zuen duda** (5); **halako duda** (3); **harry duda** (5); **harry duda mudan** (5); **horretan duda** (3); **luzapenik edo duda** (3); **mila duda** (11); **mila duda mudetan** (8); **nintzen duda** (3); **nuen duda** (3); **ote zen duda** (3); **sin duda** (7); **une batez duda** (3); **zegoen duda** (3); **zegoen duda izpirik** (3); **zen duda** (10); **zer duda** (8); **zer duda egin** (5); **zuen duda** (11); **zuen duda egin** (3); **zuen duda izpirik** (3); **zuten duda** (3)

**baina dudak** (3); **dudak agertu** (3); **dudak dituzte** (3); **dudak eta** (12); **dudak eta zalantzak** (5); **dudak ez** (3); **dudak sortzen** (3); **ene dudak** (3); **ere dudak** (3); **eta dudak** (15)

**batez dudatan** (3); **dudan jarri** (7); **dudan jarriko** (3); **dudan jartzen** (16); **dudatan egon** (5); **dudatan egon nintzen** (3); **dudatan jarri** (4); **dudaz beteriko** (4); **eta dudaz** (4); **mila dudetan** (3)

---

**duda-muda** *(190 agerraldi, 73 liburu eta 43 artikulutan; 6 agerraldi 4 artikulutan; ETCn 877 agerraldi; orobat* ***dudamuda*** *11 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan; 6 agerraldi 4 artikulutan; ETCn 57 agerraldi;)* **1** *iz adkor* duda, zalantza.

Azkenean, **duda-muda** eta atzera-aurrera askoren buruan, hasierako logika sinplea nagusitu da: ordenamendu zintzo-zintzo kronologikoa, alegia. Juan Garzia

Mikel Strogoffek bere lagunaren **duda-muda** ulertu zuen [...] eta lasaitzen saiatu zen. Karlos Zabala

Hobe zuen isilik egotea buruan jiraka zituen susmo eta **duda-mudak** argitu aurretik, bederen. Aritz Gorrotxategi

Lehen bezalakoxe **duda-mudak** dauzkat idazlan honen balioaz eta interesaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina itxura guzien arabera, Suprefeta eta DDA-ko buruak **duda mudak** uxatu nahi izan dituzte beren presentziaren bidez. Herria

**Duda-muda** urduriaren ondoren, dena segidan esan zuen, hizketaldi arrapaladatsuarekin hitz egin beharraren zama arindu nahirik -: [...]. Anjel Lertxundi

Mila **duda-mudaren** ondotik azkenean onartu zuen. Daniel Landart

Inoiz ez zenuen **duda-mudarik** ñimiñoena ere azaldu, ez neke-arrastorik ez asperdura-zantzurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Gotzainaren aurrean zegoela, batere luzapenik edo **duda-mudarik** gabe eta inolako agindurik itxaron edo hitzik esan gabe, berehala, jantzi guztiak erantzi eta jaurtiz, aitari itzuli zizkion. Askoren artean

Anaiak ez balu horrelakorik idatzi, **duda-muda** izpirik gabe, denentzat hobeki izanen zen. Daniel Landart

**2** ***duda-mudako*** *izlag adkor* dudakoa.

**Duda-mudako** une baten ondoren purutxo bat piztu zuen. Migel Angel Mintegi

Hortik dator testu honen kontu handiko eta **duda-mudako** estiloa: uneoro urruntasuna hartzen du, alderdi guztiekiko neurritasuna erakusten du, haztamuka doa hauen mugetaraino, talka egiten du esan nahi ez duenarekin, lubakiak egiten ditu bere bidea definitzeko. Xabier Arregi

Lazgarriro ohitu nintzen mundu **duda-mudako** horretara. Juan Garzia

**3** ***duda-mudan*** *adlag adkor* dudan.

Familia osoa niri adi, **duda-mudan** sinetsi edo ez sinetsi, mesfidati antzean nirekin. Fernando Rey

Neskatila txikia **duda-mudan** egon da une batez, gona urdinaren tolesak esku urduriekin zimurkatzen dituela.Nora ez zen **duda-mudan** gelditu aitaren hitz-jario trinkoa entzunda. Patxi Iturritegi

**Duda-mudan** eman zuen arrats osoa. Fernando Rey

-Tira, hau besteak bezalakoa ez izatea espero dut -esan zuen Ronek **duda-mudan** -. Iñaki Mendiguren

**4** ***duda-mudatan*** *adlag adkor* dudan.

Bere etxea ote zen **duda-mudatan**, barrura sartu ez sartu zegoen. Ibon Uribarri

**Duda-mudatan** gelditu zen Maiza. Migel Angel Mintegi

**Duda-mudatan** ibili da neska, ezin baitu ahaztu adarbakoitzaren aurrera eraman duen ehiztariaren ankerkeria. Anjel Lertxundi

Kontu horretan **duda-mudatan** ibiltzeak ez du zentzurik. Antton Olano

**5** ***duda-mudazko*** *izlag adkor* dudazkoa.

**Duda-mudazko** pertsona horien artean Jean Laffitte jauna zegoen, hiritar susmagarria gobernariaren begietarako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Esaldi zati batzuk, beroaldi erretoriko batzuk, bat-bateko arrengurak, zenbait esperantza **duda-mudazko**. Grezia klasikotik iritsi diren izkribuen idazkuntza bera ere oso **duda-mudazkoa** da. Jon Alonso

Literaturaren ikuspegitik, haur-literaturan irabazia duen aitzindaritzaren ereinotz sinbolikoa aitortuko genioke, bere-berezko literatur balio **duda-mudazkoen** gainetik. Anjel Lertxundi

**6** ***duda-mudetan*** *adlag adkor* dudan.

CFDT eta CGC sindikatak ados, CGT, FO eta FSU deplauki kontra, eskaintza horiek arrunt eskasegiak direla, CFTC mila **duda-mudetan**, biziki uzkur... Herria

Alde diren asko biziki uzkur, kontra diren asko mila **duda-mudetan**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**duda muda** (27); **duda mudak** (22); **duda mudako** (4); **duda mudan** (55); **duda mudan egon** (21); **duda mudan gelditu** (3); **duda mudarik** (7); **duda mudarik gabe** (6); **duda mudatan** (40); **duda mudatan egon** (4); **duda mudatan ibili** (13); **duda mudatan zegoen** (3); **duda mudazko** (8); **duda mudazkoa** (3); **duda mudetan** (10)

---

**dudabako** *izlag* dudagabea.

Sarritan ibilia zen Joselu haren sparring lanetan, baina aurreko hilabetean hasi bide ziren beretzat gauzak aldatzen, eta bera baino maila apalagoko batzuen kontra aritu izan zen saio batzuetan, bigarren mailatik lehenera pasatua zela seinale **dudabakoa**. Josu Landa

---

**dudabide** *iz* duda egiteko bidea.

Zeren neure burua nuen **dudabide** handiena. Matías Múgica

---

**dudaezin** *izond* ezin dudatuzkoa.

Izan ere, bere kalitate **dudaezinaz** gainera, interes berezia du guretzat Singerrek, komunitate gutxiagotu bateko kidea zenez gero. Berria - Kultura

Indiatik Txinara itzuli eta Ekialde Urruneko Zibilizazioaren historiari bere sorlekuan begiratzen badiogu, han bai aurkitzen dugu Erromatar Inperioaren pizkundearen baliokide **dudaezin** eta ohargarria Han Inperioko Sui eta Tang berpizkundean. Iñaki Mendiguren

Ez zaitez, beraz, bihotz-eskuak ziztatzeko beldurrez ibili, lorerik batere nahi izatekotan; odol piskat isurtzea duzu eta, zainetan barrena bizigarri zerbait dabilkizun sinalerik **dudaezinena**. Patziku Perurena

---

## **dudagabe** 1 *izond* dudarik gabekoa. ik **zalantzagabe**.

Izan ere, halako axioma egiazko eta **dudagabe** batzuk bereganatu ondoan, silogismoaren eta frogaketaren erregelak ikasi eta adimenaren okerrak ekiditeko erak eskuratu eta gero, eta ez lehenago, abia daiteke horrelako gaia ikertzera. Xabier Kintana

Behin Borgesi galdetu omen ziotean ea zein zuen gustukoena, Antonio Machado ala bere anaia Manuel, eta Borgesek, **dudagabe** aproposaz, erantzun omen zian: [...]. Pako Aristi

Nikolas, etsi-etsian zihoan, beti bezala; Nadia, Mikel Strogoffenganako fede **dudagabea** galtzeke; eta Mikel Strogoff, arduragabe itxuraz, baina ihes egiteko aukerez baliatzeko prest. Karlos Zabala

**2** ***dudagabeko*** *izlag*

Federazioko txapeldunak izen ezaguna zuen, eta Bagottik **dudagabeko** ospea zeukan inguruetan. Koldo Biguri

Egia da, bestalde, hiztegigintzan dauden joera berriagoak saiatu direla Landucchiren hiztegiari duen **dudagabeko** garrantzia aitortzen. Jon Alonso

---

## **dudagarri** *izond* zalantzagarria.

Erregeen rolak **dudagarria** dirudien artean, herriarena segurua da. Joxe Azurmendi

Ukrainako hauteskudeen lehenengo buelta ere **dudagarria** izan zen. Berria - Mundua

Aroa doi bat **dudagarri** izana gatik proposatuak ziren bi mila sagarno pintak oro despeituak izan dira bi oren eta erdi barne. Herria

Jainkoaren ideiarik gabeko, mintzagaitasun eta gizatasun **dudagarriko** basajenderen batzuentzat. Joxe Azurmendi

---

## **dudakor** 1 *izond* dudazkoa, dudaz betea. ik **zalantzakor; dudakor**.

AEBetako presidenteorde Dick Cheneyk «atzerri politikan eta terrorismoaren kontrako gerran ahul eta **dudakor**» izateaz akusatu zuen Kerry. Berria - Mundua

"Bai" **dudakor** eta apal apal bat entzuten da azkenean. Eneko Bidegain

Arrapostu bat biziki **dudakorra** eman digu. Herria

Tarte gaitza, haatik, gure ibilera motel, pisu eta trakets **dudakorretik** haien martxa segur eta zalura. Xabier Montoia

Zeru kantoian, ni bezala gauaren aztaparretarik salbatua, ilargia zegoen zohargi, marrazki **dudakor**, hodei hariekin jostari, mutu. Itxaro Borda

Nun ez dituen uzkur eta **dudakor** diren horiek zerbaitek halere mugi-arazten azken puntan; bainan zerk mugi-araziko ditu? Herria

**2** (adizlagun gisa)

**Dudakor**, urrats batzuk egin zituen, gero argiaren etengailuari eragin zion. Monika Etxebarria

-Ezagutzen dituzu? -galdegin zion orduan, oraino **dudakor**. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> dudakor eta (4)

---

## **dudaldi** *(orobat* ***duda aldi****)* *iz* zalantzaldia.

Gaur ez zait, ene ustez, gertatu eguneroko ahul edo **duda aldirik**. Piarres Aintziart

Barruan baziren beste bi bezero; Tapaxek zeuzkan diruak kontatu zituen, pasta eta pastelei begira **dudaldia** izan zuen... Pablo Sastre

---

## **dudarazi**, dudaraz, dudarazten du *ad* dudatzera behartu.

Bat-batean miresmen horrek Txoko **dudarazten** eta disgustatzen zuen. Itxaro Borda

Zure isiltasunak **dudaraziko** ninduke; ez nuke sinetsiko, baldin neure nahi biziak esperantzari atxikitzeko baliabide guztiak bilaraziko ez balizkit. Jon Muñoz

Azken hau furian hasia, 6-0, baina Xalak laster berdindu du eta dudatu ere, edo **dudarazi** berekilakoak. Herria

---

## **dudati** 1 *izond* dudazkoa, dudaz betea. ik **zalantzati; dudakor**.

Udaleku horietako batzuen izen-emate orrialdeak ere eskaini zizkion, ama **dudatiak**, alferkeriaz, kontua albora utz ez zezan. Iban Zaldua

Lantxo bat agindu zion orduan Russellek bere ikasle **dudatiari**, eta lan hura irakurtzen hastea aski izan omen zuen maisuak erabakitzeko: "Zuk ez duzu injineru aeronautiko egin behar". Iñaki Segurola

Pauso **dudatiz** sartu zen Mikel. Unai Iturriaga

**2** (adizlagun gisa)

-Ba, ez -Moralesek **dudati** erantzun. Joxemari Iturralde

Aldaba jo zuen **dudati**, bekatu handia konfesatzera doanak lez. Unai Iturriaga

Alferrik luzatutako eskua jaso zuen, **dudati** hasieran baina kolpetik ondoren, eta poltsotik ateratako kartazal erdi ireki bat utzi zuen idazmahaiaren gainean, askoz ere lehenago egin ez izanaz damututa. Josu Landa

---

## **dudatsu** 1 *izond* dudaz betea.

Burdinarri baten eremu magnetikoan sartu balira bezala, nire ezpainak ere aitzina abiarazi nituen, bertze horien enkontrura, gizotso **dudatsu** eta arroztua, hurrupatzeko nahiz hurrupatua izateko prest. Aingeru Epaltza

Zer ote zen halako irudi-lerro **dudatsua** eta nahasia sortzen zuena? Koro Navarro

Gaztearen keinuak bestearenak baino **dudatsuagoak** dira. Pello Lizarralde

Urrats **dudatsuek** baizik ez zuten hotsik ateratzen arkupean, oin arduratsuak arrastaka eramaten direlako hotsa zen, zoruak irentsiko zituen beldurrez bezala. Jon Alonso

Gutienez ere bortz segundoko lana eman zion pantera zaurituaren bisaia neutrotasun **dudatsu** batera mudatzeak. Aingeru Epaltza

**2** (adizlagun gisa)

Gauza izan zenean apal samar eta **dudatsu** mintzatu zen. Migel Angel Mintegi

Une batez begiek irribarre egin zioten, baina gero tristetu egin zen, **dudatsu**. Koro Navarro

Gizen eta alfer sentitu zen, kezko zutabe bat apirileko kaleetan bezain **dudatsu**. Lopez de Arana

---

## **dudatu**, duda(tu), dudatzen **1** du *ad* duda egin, zalantza egin.

Funtsean, luzaz **dudatu** nuen, nor izanen zen ene konfidentea: anaia ala Mathias? Daniel Landart

Beraz ez **duda**, arrats goxo bat nahi baduzue pasatu [...] eta sari ederrak irabazi [...], etorri Irisarrirat. Herria

Konforme -erantzun zuen Ahmetek **dudatu** gabe, alaitasuna nabari zuela aurpegian-. Fernando Rey

Egun batez ordea Alemanek ez zuten **dudatu**, Graxiren etxea miatu zuten. Eneko Bidegain

Azken hau furian hasia, 6-0 baina Xalak laster berdindu du eta **dudatu** ere, edo dudarazi berekilakoak. Herria

Ez dugu, bistan da, postetako langileen zintzotasunaz **dudatzen**, bainan bai arduradun nagusi horiek hartzen dituzten neurri hertxiegiak deitoratzen. Herria

Ene dudez **dudatzen** dut. Piarres Aintziart

Oihan sakonean liluraturik ibili ginen zentzu guziak pilpilean: entzumena, hunkimena, ikusmena... eta **dudatuz** ea laminak eta oihanetako ipotxak itzulian zirenetz! Herria

Hona, beraz, emazte bat buru eta ez dut **dudatzen** pagatua izanen dela karguaren arabera. Herria

Ez dugu zertan **dudatu** tratu hori fede onez egin zela bi aldeetatik. Iñaki Mendiguren

Hau ote da zure egia, aurreiritziz josi ohore zaharkitu baten aitzakian, hiru hobengabe sakrifikatzeko **dudatu** ez duen leinuko jauntxo urguilontzia? Elena Touyarou

Denaden 30 etaraino zernahi gerta zitakeen eta bazen **dudatzekoa**. Herria

Errugbian oraino, ASB-k ez du **dudatu**, Nerac-eko ekipa garaitu du 23/8ko emaitzarekin, 200 behariren aitzinean. Herria

• **2** da *ad*

Halako goiz batean beso-motz, begi-bakar eta maingu lantokiratuko banintz, **dudatzen** naiz inork nire osasunaz galdetuko lidakeen ere. Aingeru Epaltza

Ezinezko berba egokiaren bila **dudatu** zen une batez. Josu Landa

**3** ***ezin dudatuzko*** ik **dudaezin**.

Izen banaren jabe dira, eta izenak horditu bezala egiten du adimena, sutu irudimena: izenak sinets-errazago bilakatzen ditu aurrena eta ezin **dudatuzko** hurrena, azkenerako mundua mundu denetik beti hor egon direla iruditzerainokoan, jakinak eta izatedunak. Iñaki Segurola

Haren fideltasuna ezin **dudatuzkoa** zen. Aingeru Epaltza

Ez du iduri haatik denek sinetsi dazkotela agertu froga horiek, ez baitira ezin **dudatuzkoak**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batez ere dudatuko** (3); **du dudatu** (3); **dudatu gabe** (6); **dudatu nuen** (3); **dugu dudatzen** (3); **dut dudatzen** (10); **ez du dudatu** (3); **ez dugu dudatzen** (3); **ez dut dudatzen** (10)

---

## dudatxo *iz adkor* duda.

Gaztea nintzen ni orduan eta **dudatxo** bat egin nuen neure kolkoan. Gotzon Garate

---

## dudaxka *iz ipar* dudatxoa.

Bi pareak elgarren bete eta **dudaxka** bat azken kintzean, heian urrungo pilota bat airetik ekartzean Barriolak atxiki egin ote zuen. Herria

Besteek 42-43taraino jinik, **dudaxka** batzu eman dituzte pario hoietan baina ez zuten hek irabazteko egun bat, ez batek ez bertzeak, tanto pollit batzu salbu. Herria

---

## dudazale *(corpusean **duda-zale** soilik) izond* dudaren zalea dena.

N. jaun artista **duda**-zalea bada, zalantza praktikatzerakoan aireari zirrituak zabaltzen zaizkiola konturatu delako da. Berria - Kultura

---

## duduk *iz* oboeen familiako musika tresna, mihi bikoa, berez armeniakoa.

Musika berezi hau sortzeko instrumentu tradizionalak (**duduka**, zurna, kanuna...) eta modernoak (tronboia, saxoa, tronpeta, baxua, bateria...) uztartzen ditu. Berria - Kultura

---

## duelari *iz* dueluan borrokatzen den pertsona.

**Duelarien** duintasuna zuen aittittek. Koldo Izagirre

---

duelo ik **duelu**.

---

## duelu *(orobat **duelo** g. er.)* **1** *iz* irain bat garbitzeko, bi pertsonaren arteko borroka, lekukoen aurrean egiten dena.

Gero asaldatuta airean salto egiten zuen esanez Fieramosca zela eta erronka jotzen zidala **duelua** egiteko. Pello Lizarralde

Sir Cadoganek jendeari **duelurako** erronka botatzen pasatzen zuen denboraren erdia, eta pasa-hitz zail eta zentzugabeak asmatzen beste erdia. Iñaki Mendiguren

Valmontek, jeloskor, erronka jotzen dio Merteuilekoari, eta markesak Dancenyri Valmontek Cécileri eginikoa kontatuz dio ihardesten: Dancenyk Valmont **duelura** deitzen du. Markos Zapiain

Borrokaldia burutu ondoan, Gorria, Normandoa eta **dueluan** nire ondoan egondako guztiak beren eginbeharretara abiatuak ziren. Aingeru Epaltza

**Dueluaren** ondotik, lilura hori mila aldiz biderkatua egiten nuen, Amadisen gisara borrokatu eta garaitu eta gero. Aingeru Epaltza

Beti izan zen oso txarra **dueluan**... Iñaki Mendiguren

Ez zait ideia txarra iruditzen **dueluan** ikastea; erabilgarria izan daiteke egun hauetakoren batean... Iñaki Mendiguren

Baina jendea benetako **dueluetan** bakarrik hiltzen da, benetako aztiekin, badakizu. Iñaki Mendiguren

Viky-k adierazi zuenez, **duelua** -hogeigarren mendeko pertsona baten ikuspuntutik begiratuta-, erabat, baina erabat gainera, zentzugabea zen. Anton Garikano

Elly ados zetorren, baina bere iritziz **dueluak** kiroltzat hartu behar ziren, eta horrela bai, betetzen zuten beren funtzioa. Anton Garikano

**Duelua** kuxinak ezkutu gisa erabiliz egiten genuen, ohe gainean. Pello Lizarralde

**2** irud/hed

Emilio Gutierez Caba eta Charo Lopez guztiz kontziente dira esku artean duten lanaren balioaz eta Jose Pascualen zuzendaritzapean mailarik gorena erakusten dute denbora guztian, antzerkian noizean behin sortzen diren antzezpen-**duelu** miresgarri horietako batekin. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Komunistak, kaletik, **duelu**-erronka bota zion errepublikarrari, "baldin bahaiz" amorruz betea; bai eta Marroren aitonak erantzun ere: "Nahi duanean eta nahi duan lekuan!". Juan Kruz Igerabide

**Duelu** kontuetara eraman zuen elkarrizketa. Anton Garikano

Norbaitek esan zidan Flitwick **duelu**-txapeldun izan zela gaztetan; agian bera izango dugu irakasle. Iñaki Mendiguren

**-Duelu** Elkartean sugearekin benetan zer gertatu zen kontatu nahi diot -erantzun zion Harryk. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> duelu elkartean (3)

---

## dueto *(orobat **duetto** g.er.)* *iz* bi musika tresnak edo bi ahotsek interpretatzeko onduriko musika lana. ik**duo**.

Bien artean sortutako amodiozko **dueto**-ek lirismoaren gailurra jo dute behin baino gehiagotan. Berria - Kultura

**Dueto** bat jo genuen eskuak gurutzatuta. Koro Navarro

Txandaka kantatuko dituzte kantuok, eta bi atalak elkarrekin **dueto** bat eginez amaituko dituzte. Berria - Kultura

Betiko jarraitzaileak gustura uzteko moduko saioa izan zen Reed-ena, *Transformer*-eko kantutegira behin baino gehiagotan joz [...] eta *Sweet Jane* edo *Jesus* velvetarrak biziberrituz azken hau *Kuraia* taldearen elastikoa soinean zeraman Fernando Saundersekin soul kutsuko **duetoan**. Berria - Kultura

---

## duetto ik **dueto**.

---

## duin 1 *izond* begirunea edo aintzat hartua izatea merezi duena.

Gizakia, sorkari noble eta **duina**, Jainkoaren irudira egina. Joan Mari Lekuona

Fakultate ospetsuren bateko kide guztiek sinatu eta kontrasinatutako inolako diplomarik ez bazuen ere, horrek ez zion kentzen, horrenbestez, oso gizon **duina** eta jakintsua izatea. Josu Zabaleta

Planetako biztanle guztiek bizimodu **duina** izatea baita erronka, naturak ezartzen dizkigun mugen baitan jokatuz betiere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Buru-makurtze **duin** batez jendetzari agur egin eta barrura sartu zen. Koldo Biguri

Abstentzio **duinezko** jarrera bat, beren buruak biziaren ibai nagusitik baztertutzat jotze halako bat, beren gogozkoa zein gogoz kontra onartua. Juan Garzia

Harribitxiak salduko ditut eta lan **duin** bat bilatuko dut hemendik urrun. Patxi Zubizarreta

Baina arazoak genituen biok lan **duinak** aurkitzeko. Oskar Arana

Zer dago **duinagorik** nor bere lanetik bizitzea baino! Josu Zabaleta

Sermoi sutsuak egiten zituen aldian behin arrantzaleei soldata **duina** eman nahi ez zieten armadoreen aurka. Koldo Izagirre

Herri-komunikabide horiek apaltasunez jalgi ziren plazara eta, pixkaka, maila profesional **duina** erdietsi dute. Txema Ramirez de la Piscina

Nolanahi ere, lagunok, zuentzat beti izango du esperantzak zirritu bat, leiho bat, ate bat, bukaera **duin** bat. Karlos Linazasoro

Helburu **duinenek** ere ez dute giza enbrioiekin ikertzea justifikatzen. Berria - Gaiak

Beragana erakarri ninduen eskutik helduta, eta nik ez nion erresistentziarik jarri; otzan obeditu nion, eta naturak otzan obeditu zidan, eskatu bezala, tentetasun **duin** bat eman baitzidan. Ramon Saizarbitoria

Ez zitzaiola ez patetiko ez barregarri iruditzen, guztiz **duin** eta onuragarri baizik. Karlos Linazasoro

Sultanaren jauregi parean, Badrulbudur printzesa hartzeko jauregi **duin** bat eraikaraztea eskatzen dizut. Patxi Zubizarreta

Zu jaio baino lehenxeago jaso nuen lantegiko nire lehen soldata eta, horrela, modu **duinean** munduratu zintugun. Aitor Arana

### 2 (izan aditzarekin)

Zerbitzari trebeak erregearen onespena du, **duin** ez denak haren haserrea. Elizen arteko biblia

Morroi trebeak gain hartuko dio **duin** ez den semeari: herentzian parte izango du gainerako senideekin. Elizen arteko biblia

Kalte egin dizut; baina barka iezadazu, zure jauntasunari **duin** zaion legez. Juan Garzia

Merkataritzako eta finantzetako jarduerak ez zeuden ondo ikusiak, klase nagusientzat ez baitziren **duinak**; hiritar pobreen gizarte-sustapen bidea baino ez ziren. Koro Navarro

Zoaz, kanpotar hori, utzi lekua zu baino **duinago** denari. Elizen arteko biblia

**Duinegia** naiz zelo eszena bat egin eta Berta etxetik botatzeko. Eider Rodriguez

Gauza hauek guztiek, denik eta **duinenak** direla emanik ere, ez dute ezer balio Jaunaren begi aurrean. Joan Mari Lekuona

### 3 (adizlagun gisa)

Gauden isilik, gauden **duin**. Antton Olano

**Duin** jartzea erabaki nuen, eta erantsi nion edonola ere nire hitzak balio beharko liokeela. Ramon Saizarbitoria

Hamidak, bere egonezina eta harridura ezkutatu nahian, bare eta **duin** agertu nahi izan zuen. Patxi Zubizarreta

Nire gogoaren atal batek **duin** jokatzeko eskatzen zidan, neure hartan gelditzeko, alegia, zetorrena zetorrela. Aingeru Epaltza

Halako gizon batek, **duin** iraungo badu, ezin duela epe batengatik pazientzia galdu eta hartutako erabaki bati uko egin. Matías Múgica

Jainkoak probatu egin zituen eta beretzat **duin** aurkitu.

Inork gutxik eramango luke zure arantzazko koroa horren **duin**, horren burgoi. Karlos Linazasoro

### 4 (-en atzizkiaren eskuinean; ik beherago **9**)

Zure **duin** izango naiz, Dolors. Koldo Izagirre

Herder-entzat herri primitiboaren poesiak primitiboa izan behar du eta hala bakarrik da bere herriaren **duin**. Joxe Azurmendi

Bezeroak ere orakulutzat jo zaitzan, eta horrenbestez bere konfiantzaren eta Kimikarien Elkargoak finkaturiko tarifen **duin**. Juan Garzia

Egun ere oraindik ospetsua edil edo prokontsul erromatar baten **duin** diren obrengatik. Iñaki Iñurrieta

Santuak, ez baitzuen bere burua halako ahalmen eta graziaren **duin** eta gai ikusten, ezetza eman zion luzaroan. Askoren artean

Bertan direnak eta ez direnak betetzen baititu Jesu Kristo Jaunak, beraren **duin** izanez gero. Askoren artean

· Ez gara egokitu zaizkigun garaion **duin**. Anjel Lertxundi

### 5 (-ko atzizkiaren eskuinean)

Ez zen Fray Rogeiro bere ministerio santurako **duin** izango baldin eta S. Pedroren ikasgaiarekin ikasi izan ez balu. Jon Alonso

Azken horiek dira nazio izaera itxuratu eta aldirik onenetarako ere **duin** direnak. Andres Urrutia

### 6 (-tzeko atzizkiaren eskuinean edo ezkerrean)

Nor izango da hi eramateko **duin**, Lancelot ez bada? Juan Kruz Igerabide

Ai bazintez arrazoi izateko **duin**, txalotua izateko **duin** zaren bezala. Zuri, Goi-goiko horri, dagozkizu bakarrik, eta ez da gizakirik zu aipatzeko **duin** denik. Apostoluak Biltzar Nagusitik pozik atera ziren, Jesusengatik sufritzeko Jainkoak **duin** aurkitu zituelako. Jon Alonso

· Beldurrari eutsi egin behar zioten, porrotean ere **duin** jarraitzeko. Ramon Saizarbitoria

Nire ustez, edo gotzaina ez zen **duin** misterio hari begiratzeko edota misterioa gozatzen ari zena **duin** zen hartaz gozatzen jarraitzeko. Askoren artean

### 7 (hitz elkartuetan)

Mesprezatua izan berri denaren **duin**-papera antzezten ari zen Herio, edo benetakoa zuen destaina? Anjel Lertxundi

## 8 *-en* ***duineko*** *izlag*

Zure arbasoen **duineko** gizon ausarta, haien ohorea edo ospea inork zikintzea onartzen ez duena. Fernando Rey

Hark beti esaten zidan orkideak eta kameliak ez zirela nire **duineko** loreak. Mirentxu Larrañaga

-Pasha, egiten ari zarena ez da ohorezko gizon baten **duinekoa**. Fernando Rey

## 9 ***ez-duin*** *izond*

Behin Göering-i entzun nion esaten aleman ez-**duin** asko zegoela istripu probokatu batean bere burua zauritu, gerrari izkina egin eta gerra-pentsioa kobratzen zuena. Anjel Lertxundi

Nire esku ez **duin** hauetan dudan Jesus Kristoren izenean, agintzen dizut [...] zu sortu zaituen Sortzailea behar bezala gurtu dezazula. Jon Alonso

Seda edo lihozko oihal karratu bat, aurpegian egiten diren lan ez-**duin** zenbaitetan erabilia eta egin-egina hiletetan malko eskasia ezkutatzeko. Xabier Olarra

Euskal prentsaren egitura duintzeko apustua eginda zegoen, prentsa ez-**duina** egiteko ere arazoak geneuzkan garai hartan. Lander Garro

· Ez, ezin nuen horren ez-**duin** jokatu. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aipatzeko duin** (3); **baten duin** (3); **beraren duin** (3); **bizileku duin** (3); **bizitza duin** (7); **bizitza duin bat** (4); **bizitzeko duin** (3); **dela duin** (4)
>
> **duin agertu** (3); **duin aurkitu** (5); **duin aurkitu zituelako** (3); **duin bat** (44); **duin bat izan** (3); **duin bat izateko** (4); **duin batean** (7); **duin baten** (21); **duin baten alde** (14); **duin bizi** (3); **duin den** (4); **duin direnei** (4); **duin direnei eta** (4); **duin egiten** (6); **duin eta** (24); **duin eta begirunezkoa** (4); **duin ez** (16); **duin ez den** (3); **duin hiltzeko** (7); **duin hiltzeko eskubidearen** (5); **duin izan** (4); **duin izango** (6); **duin izango naiz** (3); **duin zen** (3)
>
> **ere duin** (5); **eta duin** (20); **eta ez duin** (4); **etxebizitza duin** (4); **etxebizitza duin bat** (4); **ez dela duin** (4); **ez duin** (11); **heriotza duin** (4); **hitzarmen duin** (4); **hitzarmen duin baten** (3); **hitzarmen kolektibo duin** (4); **horren duin** (3); **itun duin** (3); **itxura duin** (3); **izateko duin** (10); **jasotzeko duin** (4); **kolektibo duin** (4); **kolektibo duin baten** (4); **lan duin** (4); **lan duin bat** (4); **modu duin** (5); **oso duin** (3); **politika duin** (3); **soldata duin** (5); **soldata duin baten** (4); **tratu duin** (4); **tratu duin eta** (4); **zorionaren duin** (3); **zu aipatzeko duin** (3); **zure duin** (6)
>
> **adiskide duina** (3); **bizimodu duina** (10); **bizitza duina** (8); **da duina** (3); **donostia duina** (4); **donostia duina gazte** (4); **du duina** (4); **duen leku duina** (3)
>
> **duina da** (8); **duina egin** (5); **duina egin zuen** (3); **duina egiteko** (3); **duina eman** (6); **duina emango** (3); **duina emango zaio** (3); **duina ematea** (3); **duina emateko** (4); **duina eskaini** (3); **duina eskatu** (8); **duina eskatu dute** (3); **duina eskatzeko** (10); **duina eta** (10); **duina gazte** (22); **duina gazte koordinadora** (4); **duina gazte koordinadorak** (8); **duina gazte koordinadoraren** (6); **duina izan** (11); **duina izatea** (3); **duina izateko** (18); **duina izateko eskubidea** (6); **duina lortu** (4); **duina lortu arte** (3)
>
> **enplegu duina** (5); **eta duina** (28); **etxebizitza duina** (18); **etxebizitza duina izateko** (8); **heriotza duina** (10); **hitzarmen duina** (9); **hitzarmen duina eskatzeko** (3); **irtenbide duina** (5); **itun duina** (7); **izateko duina** (4); **lan duina** (14); **lan duina egin** (3); **lan itun duina** (5); **lanpostu duina** (4); **leku duina** (5); **leku duina emango** (3); **maila duina** (4); **maite eta duina** (12); **oso duina** (3); **profesional duina** (3); **soldata duina** (8); **toki duina** (4); **tratu duina** (7)
>
> **baino duinago** (4); **bizimodu duinago** (4); **bizimodu duinago baten** (4); **duinago baten** (4); **duinago baten bila** (4)
>
> **baldintza duinak** (33); **baldintza duinak eskatu** (3); **baldintza duinak lortu** (4); **bezain duinak** (3); **bizi baldintza duinak** (6); **ditu duinak** (3); **du duinak** (7); **duinak eskatu** (3); **duinak eskatu dituzte** (3); **duinak eskatzeko** (5); **duinak eta** (7); **duinak izan** (4); **duinak izateko** (3); **duinak lortu** (6); **duinak lortu arte** (4); **duinak nahi** (3); **eta duinak** (3); **etxebizitza duinak** (4); **itun duinak** (3); **lan baldintza duinak** (20); **lanpostu duinak** (4); **soldata duinak** (6)
>
> **duinaren inguruko eztabaida** (4); **eta duinaren** (3); **etxebizitza duinaren** (3); **heriotza duinaren** (7); **heriotza duinaren inguruko** (4)
>
> **baldintza duinen** (9); **baldintza duinen alde** (3); **baldintza duinen aldeko** (4); **baldintza duinetan** (8); **duinean lan** (3); **duinen alde** (7); **duinen aldeko** (5); **duinena izan** (3); **era duinean** (4); **erretiratze duinik** (3); **eta duinean** (3); **ezaxolarik duinena** (5); **lan baldintza duinen** (6); **modu duinean** (6)

---

# **duindu,** duin(du), duintzen du *ad* duintasuna eman.

Laket nuen Victoriaren aurrean Rossetti miserablea gorets zezan, bide batez, hein batean ni neu **duintzen** ninduelako. Ramon Saizarbitoria

Duin bizi ez dugun orain batek ez du gerorik **duinduko**, besterik agintzea gaurko okerrak biharko parusiaren iruzurraz estaltzea da. Anjel Lertxundi

Peru Abarkak Maisu Juan gainditu eta **duindu** beharra dauka, eredu kutsatu kanpoederregiak baztertzen diren bezala. Anjel Lertxundi

Une horretan, torturatuek euren izen ona **duinduta** ikusiko dute. Berria - Mundua

Aurpegiak eta gorpuak kromatikoki ustelduak, asko eta asko komunikabideek egunero igortzen dituzten mezuetatik ateratakoak, «ahanzturarik gabeko barkamenarekin beren heriotza **duintzeko**; heriotzaren antropologia estetiko berria eraikitzeko». Berria - Kultura

Delako horrek denetariko amarruak baliatuko ditu bere gaitzizena **duintzeko**. Jose Morales

Guri esan izan digute familiako baten gorpua lur azpitik aterata, oroimen horrekin ez dugula euren aitona **duinduko**; euren aitonak ez zuela inoiz duintasunik galdu. Berria - Euskal Herria

Alargunen pentsioa **«duintzeko»** exijitu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Berria - Ekonomia

Tarifak **«duindu»** arte, lanuzteari eutsiko diote garabi enpresek. Berria - Ekonomia

Egiten dugunak baino gehiago **duintzen** gaitu sarritan egiten ez dugunak. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baldintzak duindu** (4); **baldintzak duindu arte** (3); **duindu arte** (5); **duintzen du** (3); **lan baldintzak duindu** (3); **lan baldintzak duintzeko** (6)

---

# **duinez** *iz* duintasunik eza.

Lotsagarria lukek, **duineza** bai niretzat bai hiretzat, **duineza** gure haurtzaro eta gaztaroko oroipenentzat, gure adiskidetasunarentzat. Xabier Olarra

Alemaniar intelektual ororentzat **duineza** da judutar baten ideiak jarraitzea. Fernando Morillo

---

# **duineztasun** *iz* duineza izateko nolakotasuna.

Apezpikuak eta apez lagunek buruaren gainean eskuak ezarri dizkidatelarik, **duineztasunez** beterik neukan izate osoa. Piarres Aintziart

---

# **duingabe** *izond* duintasunik ez duena.

Gizakiak arretaz gogoratu behar du zeinen harrigarria den Jainkoari Aita deitu ahal izatea, nahiz eta bera **duingabea** izan eta ahula. Joan Mari Lekuona

-Jesus, barka ezazu zure seme **duingabe** hau -xuxurlatu zuen On Camillok-. Koldo Biguri

Denik eta lan motarik exkaxenera, **duingabeenera** eroria zen jada: gorputza diruaren truke saltzera. Oskar Arana

**Duingabea** zen, umiliagarria; Fresnes [kartzela] zen. Jokin Urain

---

# **duinki** *adlag* duintasunez.

Euskal nazio bat **duinki** eraikitzea. Itxaro Borda

Etorkizuna eraikitzeko, hots **duinki** bizitzeko, ez da ausartziaz bertzerik. Herria

Jaki hornitzaileak **duinki** pagatuak izanen direlako segurtamenarekin. Herria

Nahiago izan nuela kristau jokatu eta hil, 'errukia ala hil!' aldarrikatu, burua tente eta **duinki**, etsaia bezain makur eta bekatari ibili baino. Berria - Kultura

---

**duintasun** 1 *iz* duina denaren nolakotasuna.

Zerbait izatekotan, nor bere joera mixerableen kontrako gerra dela **duintasuna**. Joxerra Garzia

Luziak klasea zuen, berezko **duintasun** bat, edertasunaz gain. Joxemari Iturralde

Biziei zor zaien **duintasun** bera zor baitzaie hilei. Felipe Juaristi

Elezaharren batetik ateratakoa zirudien **duintasun** tragikomiko batez mintzatzen zen Noraren aita mundu berriaz. Anjel Lertxundi

Ibilgailutzarrak **duintasun** isila ematen zion zeremoniari. Bego Montorio

Gure **duintasun** kolektiboa berreskuratu eta gure gizartea norabide aurrerakoian bideratzeko. Iñaki Heras

Gerra, bai, baina **duintasuna** ez genuen galdu. Ramon Saizarbitoria

Janztekoak jantzi bezain sarri **duintasun** galdua berreskuratu izan bagenu bezala. Joan Mari Irigoien

Eta Percy ere saltoka zebilen, erotuta bezala, **duintasun** guztia galduta. Iñaki Mendiguren

Horrela bada, jantzi zeure burua ospe eta handitasunez, estali **duintasun** eta edertasunez. Elizen arteko biblia

Ez nuke heriotzarik famatu nahi, baina ezin uka daiteke hilda egoteak, hildakoak, baduela, bi hanken gaineko gizaki gogogalduak ez bezala, halako zintzotasun bat, **duintasun** bat, koherentzia bat. Iñaki Segurola

Pitinka-pitinka **duintasunez** bizi izateko beste *money* irabazten hasi nintzan tronpetari esker. Jon Arretxe

**Duintasunezko** keinu batez aurreratu zituen eskuak niregana, esku-burdinak jar niezazkion. Inazio Mujika Iraola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geure aita hartu beharko genuela **duintasun** eredutzat. Joseba Sarrionandia

Emakume heldu batek gizon gazte batengandik **duintasun** galerarik gabe har zezakeena. Anton Garikano

Ez naizela bakarra, ez dagoela gizakirik joera mixerablerik ez duenik, eta bere joera mixerable horiei etengabe kontra egitea dela gizakiari eska dakiokeen **duintasun** maila bakarra. Joxerra Garzia

Emakumeak, **duintasun** puntua berreskuratuz, niri bizkar emanik, alde egin omen zuen. Joxean Agirre

**Duintasun**-une txatxu baten erruz, larrutan egin gabe gelditua nintzen izugarri gogoko nuen neska galant batekin. **Duintasun** ikuskizun zirraragarria. Aingeru Epaltza

**Duintasun** kontua omen zen. Ramon Saizarbitoria

**Duintasun** afera bat bazen hitzetaratu gabeko ikusmin horretan. Aingeru Epaltza

Oraindik, ordea, geratzen zait **duintasun** apur bat. Juan Kruz Igerabide

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez teknikarien aurrean nire kazetari-**duintasuna** orbandurik senti nezakeelako, nire esker on-ona ezagutarazteko baizik. Anjel Lertxundi

Askatasuna baita, haren arabera, bai gizakientzat bai populuentzat, giza **duintasunaren** eta handitasunaren neurria. Piarres Xarriton

Baina ados ez daudenekiko zuzenbidearen alde egitea giza-**duintasun** kontua da, eta hori, beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa da. Joxerra Garzia

Nik errege-**duintasun** eta noblezia izugarritzat daukat, aberats izanik guregatik behartsu egin zen Jaunari jarraitzea. Askoren artean

Penitentzia xumearen bidez goi **duintasuna** berreskuratzen duena. Imanol Unzurrunzaga

**4** ***duintasun eza*** (mug.)

Presidentearen eta gainontzeko dignatarioen **duintasun**-eza. Iban Zaldua

Sutan jartzen zuen bere bizitzaren **duintasun** ezak... Irene Aldasoro

Hain mingarria zenean sentitzea berari **duintasun** eza leporatzen ziotela, eta jarduera zuzena oztopatzen ziotela gezur hauek, esajerazio hauek. Anton Garikano

**Duintasun** ezaren aztarna. Joseba Urteaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baino duintasun** (3); **bere duintasun** (3); **duintasun apur** (8); **duintasun apur bat** (6); **duintasun bat** (5); **duintasun eta** (21); **duintasun eza** (3); **duintasun handiz** (8); **duintasun hori** (11); **duintasun kontua** (5); **duintasun osoz** (8); **duintasun pertsonala** (3); **duintasun pixka** (5); **duintasun pixka batekin** (3); **errege duintasun** (3); **eta duintasun** (24); **eta duintasun handiz** (4); **gure duintasun** (3); **herriaren duintasun** (4)

**baina duintasuna** (4); **baten duintasuna** (5); **bere duintasuna** (9); **dien duintasuna** (3)

**duintasuna aldarrikatu** (3); **duintasuna berreskuratu** (3); **duintasuna berreskuratzeko** (6); **duintasuna da** (5); **duintasuna dago** (3); **duintasuna defendatzeko** (3); **duintasuna eman** (5); **duintasuna ematen** (3); **duintasuna erakutsi** (3); **duintasuna ere** (9); **duintasuna eta** (42); **duintasuna ez** (3); **duintasuna galdu** (4); **duintasuna galtzea** (3); **duintasuna itzuli** (3); **duintasuna kendu** (6); **duintasuna urratzen** (3)

**duintasunak eskatzen** (3); **enbrioien duintasuna** (3); **eta duintasuna** (26); **eta duintasunagatik** (3); **eta giza duintasuna** (3); **giza duintasuna** (30); **gizakiaren duintasuna** (3); **gure duintasuna** (7); **gutxieneko duintasuna** (3); **guztien duintasuna** (3); **halako duintasuna** (3); **haren duintasuna** (4); **kendu dien duintasuna** (3); **neure duintasuna** (4); **nire duintasuna** (5); **ohorea eta duintasuna** (3); **pertsonaren duintasuna** (5); **pertsonen duintasuna** (3); **zuen duintasuna** (4)

**bere duintasunari** (4); **duintasunaren alde** (10); **duintasunaren aldeko** (6); **duintasunaren aurkakoak** (3); **duintasunaren batzordeak** (4); **duintasunaren bila** (3); **duintasunaren errespetua** (3); **duintasunaren eta** (10); **duintasunaren izenean** (6); **duintasunari dagokiona** (3); **emakumeen duintasunaren** (3); **eta duintasunaren** (6); **eta duintasunari** (3); **eta duintasunerako** (3); **giza duintasunaren** (14); **langileen duintasunaren** (3); **pertsonaren duintasunaren** (3); **pertsonen duintasunaren** (3)

**baina duintasunez** (3); **duintasunez aurre** (3); **duintasunez bete** (4); **duintasunez bizi** (8); **duintasunez bizitzeko** (15); **duintasunez bizitzeko eskubideaz** (3); **duintasunez bizitzerik** (3); **duintasunez egin** (4); **duintasunez eta** (17); **duintasunez hiltzeko** (5); **duintasunik ez** (3); **duintasunik gabe** (5); **duintasunik gabeko** (4); **dute duintasunez** (4); **ere duintasunez** (4); **eta duintasunez** (23); **eta duintasunez bete** (3); **eta duintasunez bizitzeko** (4); **inolako duintasunik** (3); **lana duintasunez** (3)

---

dukado ik **dukat**.

---

**dukat** *(orobat* ***dukado*** *g.er. eta* ***dukatu*** *g.er.)* *iz* urrezko eta zilarrezko zenbait diru zaharren izena.

Lehorretik ekarriak ziren diruen kontuak zuzen ote zeuden ez ote zeuden ebatziz joan ginen, zuriak erreala osatu arte batuz lehenik -hirurogei eta zortzi zuri, zilarrezko erreal bat-, eta errealak beste pilotxo banatan batuz, dukatak osatu arte -hamaika erreal, **dukat** bat-. Edorta Jimenez

Eta ebatsitako dirua zen, izan ere, barra-barra erortzen zena, toman eta sekin txanpon tatariarrekin batera, **dukat** eta errublo moskutarrak ere amiltzen baitziren dantzarien gainera. Karlos Zabala

Aldiz ihiztaria ordaintzen zuten, hiltzen zien otso haundi bakotxarendako 6 **dukado**, eta 2 **dukado** otso ttipi bakotxarendako. Herria

**Dukatak** urrezko eta errealak zilarrezko. Edorta Jimenez

**Dukat** bat trabes baietz hil. Juan Garzia

-**Dukat** bat kaxa horren truke! -ardoak beroturik bota nion, urrezko **dukat** bat mahaiaren gainean utzita. Edorta Jimenez

Azpilkuetaren eraberritzeak egin aitzin, prioretzak ematen zuen 1000 **dukat** mozkin eta egin ondoan 5 edo 6 mila. Piarres Xarriton

Bost **dukaten** aldera ere ez nuke nik alokatuko. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**berrogeita hamar dukat** (4); **bi dukat** (5); **dukat bat** (7); **dukat eta** (6); **ehun dukat** (3); **hamar dukat** (8); **hamar dukat eta** (3); **mila dukat** (3); **mila dukateko** (3); **urrezko dukat** (7); **urrezko hamar dukat** (3)

---

dukatu ik **dukat**.

# duke 1 *iz* aitoren semeen artean, maila gorenekoa dena.

Hargatik gutiziatzen zituen Gaztelak partitzen zituen tituluak, konde, **duke** edo markes. Joan Mari Irigoien

Eudonen seme Hunaldo izan zen Baskoniako eta Akitaniako ondorengo **duke**, baina erresuma izateko aukera zuen lurralde hartan gauzak beste era batera antolatu ziren Poitierstik aurrera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Inperioa, Luis Germaniarraren sasikoei emana baitzen Karlos Burusoilaren adarraren kaltetan, atzerritar etxe batera pasatu zen Konrado, Frankoniako **dukea** enperadore hautatu zutenean. Iñaki Iñurrieta

1792an Orleanseko **dukea** diputatu hautatu zuten, Luis XVI.aren heriotzaren aldeko botoa eman zuen, eta urte hartan bertan baztertu zituen noble izateak ematen zizkion eskubide bereziak, hori zela eta "Philippe Égalite" ezizena jarri zioten. Jon Muñoz

Villagrandeko **duke** ohoragarria, Espainiako Handia. Joan Mari Irigoien

Veneziako **Dukearen** idazkariak. Felipe Juaristi

Haietarik bat kalonje bat zen, don Claudio izenekoa, **dukearen** konfesorea zena eta **dukeak** bidaia guztietan eramaiten zuena. Joan Mari Irigoien

Gabriel Cueva, Alburquerqueko jaun **duke**, Milango gobernadore, printze txit zuzen eta guztiz bihozberari, Martin Azpilkueta, Doktor Nafarrak Agur! Piarres Xarriton

## 2 ***duke-dukesa*** *pl* dukea eta dukesa.

Gauza honen berririk ez zuten **duke-dukesak** eta hain oinezko garbiketak zertan bukatu behar ote zuen zain-zain zeuden. Patxi Ezkiaga

Hain zaharra zen etxea, ze **duke-dukesak** ez ziren jada han bizi, hilak ziren, eta etxea gobernuaren eta nazioaren monumentu historiko bihurtua zen. Pello Lizarralde

Eta orain, errege-erregina agurgarriak, printze-printzesak, **duke-dukesak**, konde-kondesak eta jaun-andre guztiak, froga guztien gaineko froga: euliaren froga! Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**duke bat** (3); **duke batek** (3); **duke bere** (10); **duke dukesak** (3); **duke eta** (4); **duke handia** (27); **duke handia eta** (4); **duke handiak** (46); **duke handiaren** (19); **duke handiaren aurrean** (4); **duke handiarengana** (4); **duke handiarengana joan** (3); **duke handiari** (10); **eta duke** (10); **eta duke handia** (3); **eta duke handiari** (3); **galdetu zion duke** (4); **gran duke** (3); **zen duke** (5); **zen duke handia** (3); **zion duke** (13); **zion duke handiak** (12); **zuen duke** (16); **zuen duke handiak** (12)

**albako dukea** (3); **dukea eta** (12); **dukea eta dukesa** (3); **dukeak berak** (5); **dukeak bere** (5); **dukeak esan** (5); **dukeak eta** (6); **dukeak eta mantillanako** (3); **dukeak ez** (3); **eta dukeak** (16); **ezen villagrandeko dukea** (3); **ezen villagrandeko dukeak** (3); **guiseko dukea** (3); **jaun dukea** (3); **jaun dukeak** (4); **villagrandeko dukea** (22); **villagrandeko dukeak** (15); **villagrandeko dukeak eta** (3); **zen dukea** (4); **zion dukeak** (4); **zuela dukeak** (3)

**dukearekin eta** (3); **dukearen eta** (6); **dukearen eta** (6); **dukearen eta kondearen** (3); **dukearen eta kondearen** (3); **eta dukearen** (8); **eta dukearen** (8); **eta villagrandeko dukearen** (4); **eta villagrandeko dukearen** (4); **villagrandeko dukearekin** (7); **villagrandeko dukearen** (22); **villagrandeko dukearen** (22); **villagrandeko dukeari** (4)

---

# dukerri *(orobat **duke-herri** g.er.)* *iz* dukearen jaurgoaren mendeko lurraldea.

"Rzeczpospolita Obojga Narod-w!", esaten zion osabak ilobari erresuma zahar haren izen ponpoxoa ahogozatuz, "bi nazioen res publica handia, Poloniako erresumak eta Lituaniako **Dukerri** Handiak osatzen zutena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beren **dukerri** edo konderrietako auzitegietan. Iñaki Iñurrieta

1228an Spoletoko **dukerrian** zabalduak zeuden Frederiko II.aren soldaduen kontra Gregorio IX.ak bidali zuen Asisko miliziaren buruzagi izan zen. Askoren artean

---

# dukesa 1 *iz* dukearen emaztea; dukerri baten jaurgoa duen emakumea.

Bailengo **Dukesak** ohore handitzat hartuko zuela erregina bere jauregian errezebitzea. Hearst jaunak dukeak, **dukesak** eta jende inportantea baizik ez du gonbidatzen bisitatzera. Txillardegi

Zuen zerbitzari eginik naukazue betirako, zuk eta nire andere **dukesa** zure emazteak. Patxi Ezkiaga

**Dukesak** bezala tentetzen dira ostatuetako neskameak hamar xentimokoa hartzerakoan. Koldo Izagirre

## 2 udare mota baten izena.

Gero, udare barietateak, udare zuriak, ingalaterrakoak, beurre udareak, San Joan udareak, **dukesak**, batzuk potoloak, beste batzuk luzeak, beltxarga lepoekin edo sorbalda apoplektikoekin, sabelak horiak eta berdeak, karmin pittin batez edertuak. Karlos Zabala

## 3 ***duke-dukesa*** *pl* dukea eta dukesa.

Gauza honen berririk ez zuten **duke-dukesak** eta hain oinezko garbiketak zertan bukatu behar ote zuen zain-zain zeuden. Patxi Ezkiaga

Hain zaharra zen etxea, ze **duke-dukesak** ez ziren jada han bizi, hilak ziren, eta etxea gobernuaren eta nazioaren monumentu historiko bihurtua zen. Pello Lizarralde

Eta orain, errege-erregina agurgarriak, printze-printzesak, **duke-dukesak**, konde-kondesak eta jaun-andre guztiak, froga guztien gaineko froga: euliaren froga! Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**andere dukesak** (7); **duke dukesak** (3); **dukea eta dukesa** (3); **dukesak esan** (4); **dukesak eta** (6); **dukesak galde** (3); **dukesak santxori** (3); **eta dukesa** (4); **galdetu zion dukesak** (3); **nire andere dukesak** (4); **zen dukesa** (3); **zion dukesak** (6); **zion dukesak santxori** (3); **zuen dukesak** (5)

---

# dultzaina 1 *iz* zurezko musika-tresna herrikoia, txistua baino zabalagoa, albokarenaren antzeko soinua duena.

Eta, txistua eta **dultzaina** lagun, beherantz egin dugu denok. Txillardegi

Martirieta inguruan, soinua ez bazen panderoa edo **dultzaina** baserri guztietan jotzen zen garai horretan. Berria - Kultura

Euskal Herriko Trikiti Elkarteak soinu handia gonbidatu zuen lehen urtean, eta **dultzaina** bigarrengoan. Berria - Kultura

Uzkur begiratzen dio Soroak instrumentu guztiak, **dultzainak** eta panderoak, txistuak eta danbolinak dantza korroetatik baztertzen ari zen deabruaren tresna hari. Iñigo Aranbarri

Ordura arte koplak janzten edota **dultzainari** laguntzen ibili denak moldatu beharra dauka, laguna aldatu beharra du biziko bada. Iñigo Aranbarri

## 2 (hitz elkartuetan)

Txalaparta eta **dultzaina** soinua. Berria - Harian

Besteak beste, txalaparta, pandero, alboka, trikiti, **dultzaina**, txirula, saxofoi eta piano eskolak ematen dituzte. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta dultzaina** (9)

---

# dultzainero *iz* dultzaina-jotzailea.

Besteak beste, eskulangintza azoka, zekor erretzea eta **dultzaineroak** izango dira. Berria - Kultura

**Dultzaineroak**, txalapartariak, adar jotzaileak eta galiziar gaiteroak. Berria - Kultura

Soinu tresnari nahiz herrialdeko **dultzainero** familiei buruzko datu ugari bildu ditu Beltranek. Berria - Kultura

**Dultzaineroei** grabatutako piezen bilduma. Berria - Kultura

**dultze** *iz* gozoa, eztia.

Irribarretxo **dultze** batez. Joxemari Iturralde

Begirada batek utzitako sentsazioa, udako arratsalde batean parrape batean izandako solasaldi **dultzea** edo esku baten berotasuna agur esatean. Ana Urkiza

Hain bidegaldu gogorra ia, nola den, ama **dultzea**, errege bat hil ondoren haren anaia senar hartzea. Juan Garzia

Oso lotsatia ematen din, xuabea dun eta **dultzea**, izugarri gustatzen zaidan, esan zuen berekiko berriz ere harengana inguratuz. Joxemari Iturralde

---

**dultzeki** *adlag* eztiki, emeki.

Esan, esan niri! -astindualditxoa egin zidan Brezok **dultzeki** lepotik-. Joxemari Iturralde

---

**dultzemeneo** *iz adkor* dantza lotua.

Bada askoz ere okerrago haiek, agarradoan, **dultzemeneoan** ere esaten zitzaioan, ari ziren bikoteei makilarekin atzetik bizkarrean krax-krax jo eta apartatzeko agintzen. Pako Aristi

Bada Azkoitian, kaskailuak izan, debekatua zegoela dantza helduta egitea, baina Zumarragan libre; beraz, Aizpurutxoko jaietan, elizatik harantza **dultzemeneoan** egin zitekean, eta honuntza ez. Pako Aristi

Dena dela, erromerietan ez zen bakarrik dantza askatuan egiten eta **dultzemeneoko** dantzak ere estimatzen zituzten. Berria - Kultura

---

**duma** *iz* errusiar legebiltzarra.

**Duma**-rako azken bozak iragan abenduan egin zituztenean, parte-hartzea %56 ingurukoa izan zen. Berria - Mundua

Bestalde, **Dumak** (Errusiako Legebiltzarra) «terrorismoaren kontrako» lege bat onartu zuen herenegun. Berria - Mundua

Errusiako **Duma** legebiltzarreko presidente Boris Grislovek. Berria - Mundua

**Duman** egindako batzar batean, Rodzianko lehendakariak esan omen zuen: "Zer egin daiteke ministro guztiak eta Inperioko Tsar Txit Gorenaren inguruan dauden agintari guztiak Rasputinen jarraitzaileak direnean?". J.M. Olaizola "Txiliku"

**Dumako** ordezkariak zutik jarri eta txalo egin zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**dumping** *(orobat* ***dunping*** *g.er.) iz* konkurrentzia deusezteko asmoz, produktu bat ohiko prezioaren, eta are kostu prezioaren, azpitik saltzea.

Ekonomian, oro har, kostu prezioa baino apalagoa den preziotan saltzea da **dunpinga**; lehiaren aurkako jokotzat jotzen da, eta, beraz, debekatuta dago. Iñaki Heras

Merkatu zoladura-prezioa baino are apalago saltzen zuten axurikia, **dumping** eginez, eta laborari parrasta bat azienden etxean atxikitzera bortxatuak ziren. Itxaro Borda

Peter Mandelson Europako Batasuneko Merkataritza komisarioak Txinatik datozen larruzko oinetakoei %19,4ko muga zerga eta Vietnametik datozenei %16,8koa jartzea proposatu du **«dumpingari** aurre egiteko». Berria - Ekonomia

Finantzen aldetik ahulenak diren lehiakideak baztertu edo beretu, esportazioan barne-merkatuan baino prezio apalagoak erabili (**dumping**), edota, baita ere, beren berrikuntzak zabaltzen ez utzi (sarrera-hesiak jarriz), monopoliozko egoeraz baliatu ahal izateko. Koro Navarro

AEBetako **dumping**-aren aurkako legea dela eta, MME Munduko Merkataritza Elkarteak baimena eman dio Europako Batasunari AEBen aurkako zigorrak ezartzeko. Berria - Ekonomia

Japoniari aurrena, eta Asiako herrialde industrializatu berriei eta haien atzetik datozenei gero, "gizarte-**dumping"** bat egitea salatu zaie, hau da, soldata-kostuak eta gizarte-babesa maila artifizialki apaletan atxikitzea. Koro Navarro

Maastrichten ondoren ez da prozesu politikoan sakondu, soilik zerbitzuen pribatizazioa etorri da, hezkuntza eta osasuna produktu salgarri bihurtu dituzte, eta **dumping** soziala eta fiskala areagotu egin dira. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dumping a** (3); **dumping aren** (4); **dumping aren aurkako** (3)

---

**duna 1** *iz* hondartzetan eta basamortuetan haizeak eragiten duen hareazko muinoa.

Haizeak aldatu egiten ditu **dunak**, baina bere horretan jarraitzen du basamortuak. Xabier Aranburu

Luzaroan egon gara hondarraren gainean eserita, **dunei** eta itsasoari begira. Txillardegi

Ehun metro garai diren **dunak** daude. Berria - Gaiak

**Duna** baten atzean ezkutatu ziren. Koro Navarro

**Duna** baten atzetik agertzen ikusi zuen mutila. Xabier Aranburu

Uarglatik hegoalderako **duna** handiak igarotzen ari nintzen. Josu Zabaleta

**Duna** igotzeari ekin zion, poliki-poliki, mutilak. Xabier Aranburu

Gau eta egun ibili zen **duna** artean, atsedenaldirik hartu gabe. Jon Arretxe

**Duna** arteko ibartxoek. Josu Zabaleta

Ez nion galdetu, baina segur naiz amesten zituela **duna** handiak, hankapeak hondar kiskaliez erretzen dituzten horietakoak. Hasier Etxeberria

Hareazko **duna** berdeak basabelar zabukariekin gainean. Anton Garikano

**2** (hitz elkartuetan)

Hondartzako zelaian **duna** eremu bat egin nahi zutelako. Berria - Euskal Herria

---

**dunatzar** *iz adkor* tamaina handiko duna.

Izugarrizko **dunatzar** batzuen erdian zeuden, eta Alkimistari begiratu zion mutilak: ez zirudien, ordea, agurea ezertaz ohartu zenik. Xabier Aranburu

Alkimistari ezer esateko astirik izan baino lehen hamar, ehun ziren jada zaldunak, **dunatzarrak** haien errainuez beterik geratu ziren arte. Xabier Aranburu

---

**dunba** *iz* burrunba, zarata handia.

Berebiziko kanoi-sua piztu zuten ontzietako gudariek, eta hiri-kaleko harresietatik ematen zieten erantzuna; kanoi lodietakoak hemendik, ikaragarrizko **dunba**-hotsez goiak lehertzeraino eta ontzi aurreko kanoiek erantzuna itsasotik. Patxi Ezkiaga

· Aditu ahal izan nuenez, musika-banda jotzen hasi zen berriro plazan; dunbal handiaren **dunba-dunba** burrunbatsuaren oihartzuna aditu nuen, bandera ondora itzul nendin deika. Mirentxu Larrañaga

## dunbada *iz* burrunba, zarata handia.

Kanoi **dunbada** burrunbatsuak parajeetan entzun, eta elizetako kanpaien hots errepikakorra hedatu. Txillardegi

Eta orduantxe zabaldu ziren azkarkiago Urgulldik korneta-hotsak eta danbor-**dunbadak**. Txillardegi

---

## dunbal *iz* danbor handia, bereziki larruzko alderdiak alboetan dituena. ik**bonbo**.

Sarreran, emakumeak **dunbala** jotzen zuen eskuin eskuarekin eta txindatak ezkerrarekin, eta ile nahasiko neska batek txilin bati eragiten zion. Koro Navarro

Laurak arte ez zen emirra plazan sartu, turuten eta **dunbalen** zalapartaren erdian, kanoien eta mosketeen desarraren artean. Karlos Zabala

Aditu ahal izan nuenez, musika-banda jotzen hasi zen berriro plazan; **dunbal** handiaren dunba-dunba burrunbatsuaren oihartzuna aditu nuen, bandera ondora itzul nendin deika. Mirentxu Larrañaga

---

## dunbots 1 *iz* burrunba, zarata handia.

Burrunba entzun zuten, kanoi baten **dunbotsa** zirudiena. Felipe Juaristi

Geroago, erortzen diren harrien **dunbotsaz**, etxe osoa amildu zen. Agustin Otsoa

Horma-puska izugarriak erortzen ziren, bakoitza mendi txiki bat adinakoa, eta ibarretako oihartzunak beren **dunbotsa** handitzen zuen. Fernando Rey

Trena puzka abiatu zen, lurrina presiopean ateraz eta izugarrizko **dunbotsa** eginez. Lopez de Arana

Halako batean, musika-banda baten zarata entzun nuen Kale Nagusian behera; hura danborren **dunbotsa** eta turutotsen zalaparta. Mirentxu Larrañaga

Hirian **dunbots** handia entzun zen, hodeietan dabilen trumoiaren moduan. Agustin Otsoa

Dena tximista zen haitzarte hartan, eta etengabe zabaltzen zen trumoien **dunbotsa**. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Oso oker ez banago, oinaztarri eta trumoi **dunbotsuaren** ondorioz erori zen gargola faltsuarekin ari nintzen. Karlos Linazasoro

---

## dundun *iz* durundia.

Hainbeste ordu jardunda, santa eskeko doinuaren **dunduna** belarrietan sartuta eduki nuen egun askotan. Pako Aristi

---

## dunduri ik **durundi**.

---

## dundurika ik **durundika**.

---

## dundurikatu ik **durundikatu**.

---

## dunping ik **dumping**.

---

## duntu *izond* hornitua.

1998.urtean itsasoratu egin zuten 19.000 tonako gerra ontzi hau, buru nuklearrez horni daitezkeen helmen luzeko 20 misilez **duntua** dago. Berria - Mundua

---

## duntz *iz ipar* gontza.

Gordagia batean pistola bat eskuratu zuen lehen, eta gero ostiko motz batez **duntzetan** doi-doia loturiko borta bulkatu. Itxaro Borda

Ama **duntzetarik** jaukitzear zegoen: izpiritua zalu zebilkion. Itxaro Borda

Azkenean, hauxe mentsa! erran nuen, gizona **duntzetarik** erabat jautzi zenean Babeti eskatzen ziola harenganako amodio leialaren eta neurekiko adiskidantza zaharren artean hautatzea. Itxaro Borda

---

## duo *iz* bi musika tresnak edo bi ahotsek interpretatzeko onduriko musika lana. ik**dueto**.

Genero horretan, ohi den legez, ez dago korurik, eta bakarlarien artean zabaltzen da kantaldia: errezitatibo, aria, cavatina, **duo**, trio, laukote, boskote [...]. Berria - Kultura

Biek elkarrekin abestu zuten Bilintxen **duo** lañoa. Koro Navarro

Ezezaguna bezain interes handikoa iruditu zitzaigun Boely frantses eskolakoaren lanak: Fantasia eta Fuga, Allegro mi bemol maior-ean, **Duo** sol minor-ean [...]. Berria - Kultura

---

## duodeno *iz* ugaztunetan, heste mehearen lehen zatia.

Hesteetatik kanpo **duodenoaren** ondoan dagoen organo txiki bat da pankrea. Irene Aldasoro

Haren barne-estaldurak hartzen ditu urdaileko eduki azidotuak; ez da harritzekoa, bada, inoiz **duodenoko** ultzerak zulatzea. Irene Aldasoro

---

## duoka *adlag* pareka.

Biologia molekularraren hasieran, mende honen erdian, ikerketarik gehienak **duoka** egin dira, pareka, bikoteka. Juan Garzia

---

## duopolio 1 *iz* bi enpresak edo enpresa-taldek merkataritza-jarduera bereganatzen duten egoera.

Hegazkin handien sektorea **duopolioa** da. Berria - Harian

Errudunen bila hasi beharrean, **duopolioak**, Aspek eta Asegarcek, neurriak hartu beharko lituzke; badaude mekanismoak. Berria - Kirola

Gaurko finala iragartzeko prentsaurrekoan, **duopolioa** hautsiko ote zen irudipenaz hitz egin zuen Unai Iturriagak, beldur antzean. Berria - Kultura

**2** irud/hed

«Nazkatu egin naiz Bizkaia aldeko bertso **duopolioagaz**, estatu kolpe bat behar da hemen, eta horretara etorri naiz», abestu zuen Fredi Paiak 2002ko Euskaldunako finalean. Berria - Kultura

---

## dupa **1** *iz ipar* upela; depositua. ik **dupela**.

Ja erran ukan dugun bezala, "Prestige" untziaren **dupak** zilo baitira, eta arrailduak, urpeko batekin entseatzen dira zilo eta arraildura horien tapatzerat. Herria

Badira **dupa** batzu zilatuak, untziak petrolakia galtzen du, ez burrustan naski [...] eta petrolaki hori uhainekin hedatzen ari da. Herria

Untzi horren barneko **dupa** handi baten garbitzen ari zirelarik, gaitzeko zartatzea izan da zerbait gisaz. Herria

37.000 tona nunbait han gelditzen oraino **dupa** heietan. Herria

Tarnoseko kontseiluak aho batez LBC lantegiak Baionako portu ezkinan dituen petrolio **dupen** emendatzearen kontra bozkatu zuen aitzineko asteazken arratsean. Herria

LBC sozietateak ipar Europatik untziz ekar-arazten du betun malgua, eta sartzen du portu hegiko bi **dupa** alimaletan. Herria

Eremua osoki Basusarriko ekarria da, badira 70 000 metro karratu, eta, leku horretan ongi ikus litzakete: ezantza **dupa** bat, auto kontrola eta garbileku bat, eta berdin ostatu bat ere, zergatik ez. Herria

**2** irud/hed

Bigarren partean Beñat Amorenaren kreazioan ukan dugu jasta, geroari buruz gaitak urra ditzakeen bide berriez, hala nola usaiako atabalaz gain, **dupa** handi eta ozenak sartuz gaitarekin lehian bezala. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dupa batzu** (3); **dupa handi** (4)

---

## dupagin *iz ipar* dupak egiten dituen pertsona.

Musikariak gituk baina dantza ez zaukuk haizu, nahi dugun ofizioa ez dezakeguk, aitatik semera egundainotik gituk aizkolari, zurgin, maixturu, **dupagin**, batzuetan bat edo bertze izan zukek harrobi langile edo ehaile, bakan. Michel Oronoz

---

## dupela *iz ipar* upela.

EZTIGAR koperatifak bere ateak berriz ideki ditu joanden astean, aterpe eta **dupela** berriak lekuan ezarririk. Herria

Ugartean berean jarri zituzten harrizko labeetan, balea hilen gurina urtarazten zuten eta ondoriozko olioa **dupeletan** ezarririk, altxorrarekin Europako bidea hartzen zuten Herria

---

dupin ik **tupin**.

---

## duplex *iz* zenbait solairutako eraikin batean, bi soilairuko etxebizitza, barne eskailera duena.

Hirurehun metro karratuko **duplex** argitsua, Gortariren gurasoen ezkon oparia. Patxi Iturritegi

Hilean behin elkartzen gara Charlyk alde zaharrean duen **duplex** dotorean. Iban Zaldua

Bere etxea ezagutzen nuenez, ez ote zitzaidan iruditzen tabike bat botata **duplex** eder bat egin zitekeela, esan zidan handik gutxira. Koldo Izagirre

Segovia kaleko **duplex** ilun hartan. Jon Arretxe

---

## duplikatu, duplika, duplikatzen du *ad* bikoiztu, bitu.

Euskara ez dakit, baina molde horretako literatura oparoarekin Euskal Herria salbatua dela dirudit: iragana ahalik oneskien **duplika** dezagun, tradizioari den mendreneko ñabardura erorik ekarri gabe. Itxaro Borda

---

## duplikazio *iz* bikoiztea, bitzea.

Gizakiaren kasuan, baina, **duplikazio** horrek baditu berezitasun batzuk: batetik, gainerako ugaztunek baino bikoizketa gehiago izaten dituela, eta bestetik, bikoizketaren ondorioz sortutako gene berri horiek antzekotasun handia dutela euren artean. Berria - Gaiak

· Zirkuluaren koadratura, kuboaren **duplikazioa**, angeluaren trisekzioa, eta, orain, erradikalen bidezko ebazpena! Jon Muñoz

-Halakoa zen, hain zuzen, kuboaren **duplikazioaren** ekuazioa! Jon Muñoz

---

## duralex *(orobat **Duralex**)* *iz* beiraren antzeko gai plastiko gardena, batez ere edontziak eta baxera egiteko erabiltzen dena.

Zure **duralexezko** plater zuri-berdean hoztutzen ari zitzaizun okela puska nazkagarri hura. Lourdes Oñederra

Kaña bat -zerbitzari ilehorixkak hala egiten du: kaña bat **Duralex** baso labur batean. Sonia Gonzalez

---

## durangar *izlag/iz* Durangokoa, Durangori dagokiona; Durangoko biztanlea.

Emazteetan, lehen sailkatu da Alizia Romero **durangarra**. Herria

Eta karua, oroitarazi zien amerikar batekin ezkondurik zen **durangar** amerikazaleak. Xabier Montoia

Aurrelari **durangarrak** partida bat baino ez du jokatu Ligan, lehenengo jardunaldian (bigarren zatian sartu zen). Berria - Kirola

Sortzez **durangarra** da baina Bartzelonan bizi da aspaldi Joseba Atxotegi Loizate. Berria - Euskal Herria

Adar-jotzailea **durangarren** auzoko jendea... J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurrelari durangarrak** (3); **etxebarria durangarrak** (3); **urteko durangarra** (3)

---

**durangitis** *iz adkor*

**Durangitis**-ak markatzen du euskal liburuen eta diskoen ekoizpena, eta baita kazetarien lana ere. Berria - Kultura

---

durbante ik **turbante**.

---

durbantedun ik **turbantedun**.

---

**durdo** *iz* arrain ezpain-mamitsu eta ezkata-handia, itsas ertzeko harkaitzetan bizi dena*(Labrus bergylta)*.

Arrebak eta bere morroiak salatuak ginen ausaz, mezetara joaten ez, harkaitzen kontra fusilatuko gintuzten, epaituak geunden, gure begiak dastatuko zituzten guk eskainitako beitari muzin egiten zioten **durdoek**. Koldo Izagirre

---

**durdura** *iz* durundia.

Animalia lokartua zirudien motorraren **durdura** entzun zen kale hutsean. Berria - Kultura

---

durduratu ik **durduzatu**.

---

**durduratzaile** *izond* durduzatzailea.

Frantziako enbaxada zaintzen duten militar frantsesek lehergailu negar eragile eta **durduratzaileak** erabili behar izan zituzten manifestariak haizatzeko. Berria - Mundua

---

**durduza** **1** *iz* asaldura, txundidura.

Zugan dut etengabe pentsatzen, eta nehoiz ez **durduzarik** gabe pentsatzen. Jon Muñoz

Ahalkea soberan, **durduza** pixka bat, hain da gaztea! Jon Muñoz

Gaztaroa nahasia da berez, han nortasuna hamaika duda eta **durduza** artean finkatzen baita. Janbattitt Dirassar

Desastreei buruzko seriea da bihotzikara sortzeko moduko **durduza** eragiten dizuna.Inoiz ez zioten hitz batzuek horrelako **durduzarik** eragin: "Hor duzu beste neskatoa". Berria - Kultura

Sokratesekin eta, geroago, kristautasunarekin -Kierkegaardengan edo Unamunorengan ongi islatzen dena, hain zuzen- agonia norberaren baitakoa da, ezinegona, noraeza, **durduzadura** ere esaten zaiona. Askoren artean

Berri horiek guziak entzuten zituela, bulta hartan barne **durduza** minbera batean sartua zen Harizpe marexala. Michel Oronoz

Partida gogotik hasi dute lau pilotariek bi garaztarrek eskuzarta nasai zutelarik baina lapurtarra ez batere **durduzan**. Herria

Emakumea ere **durduzaz** zegoen, taupadaka. Josu Zabaleta

**Durduzaz** eta dardaraz, halaxe egon behar omen du japoniar batek bere enperadorearen aurrean. Andoni Egaña

**Durduzatik** dardarara. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Bush eta besteak, halako beldur **durduza** batean daude Estadu Batuen alderat eta ez batere fida heien auzoraino etorriak ikustearekin amerikanoak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **durduzaz eta dardaraz** (8); **halako durduza** (3)

---

**durduzadura** *iz* asaldura.

**Durduzadura** nabari zen batzuen aurpegietan, ez zuten imajinatu ere egingo beren erreakzio izutuek adoretu egiten gintuztela gu. Anjel Lertxundi

Kafetegira sartutik, lehen aldiz sumatu nuen **durduzadura** lagunaren begitartean. Aingeru Epaltza

Lehen unean, **durduzadura** agertu zen bekoz beko zeukan emaztearen begitartean, menturaz semearen baitan han hetsi zutenetik gehiago ikusi ez zuen aita ezagutu zuelako. Elena Touyarou

Whiskia gai zen Morse andrea eztitzeko, hein handi batean; baina tupustean eta unerik ulergaitzenetan, lainopeak bertan behera uzten zuen, saldukeriaz, eta orduan atsekabeak, **durduzadurak** eta asperdurak tarratatzen zuten, beste edozein izaki antzo. Mirentxu Larrañaga

Tomi beheko bulegoko giltza eskatu nion, eta nola eta hura erabateko **durduzaduran** sarturik zegoen une hartan (doluz bere nagusiaren heriotza ustekabekoarengatik, pozez eta izuz dardaraz AEPren bat-bateko gertutasunarengatik, ahal zuena eginez Rufus guztiz kontsolagaitza kontsolatzeko), oharkabean bezala eskua poltsikoan sartu eta eman egin zidan. Oskar Arana

Aita, bere aldetik, herstura ezin hertsiagoan egon zen, nehoiz ez bezala, medikuari eta barberari galde eta galde, **durduzadurak** harturik. Joan Mari Irigoien

---

**durduzagailu** *iz* abereak deskarga elektrikoen bidez hiltzeko gailua.

"Parametro ia berdin-berdinak dituzte elektroxokeko makinek -instalazio psikiatriko zenbaitetan erabiltzen direnen antzekoak- eta txerrientzako **durduzagailuak**: ampere bat, hirurehun volt". Xabier Olarra

Handixe joaten zen azienda, banakako lerroan, ezjakin goxoan, **durduzagailuaren** astindu hilgarria hartzera. Xabier Olarra

Izu-laborria sentitu nuen Templek **durduzagailua** erakutsi zidanean, baina azienda ez omen da jabetzen; ez du -hala ziurtatu zidan Templek- gertatzera doakionaren zantzurik. Xabier Olarra

---

**durduzagarri** *izond* durduza eragiten duena.

**Durduzagarria**, aztoragarria eta, hala edo zelan, beldurgarria ere bai. Edorta Jimenez

Ez nian uste hildako batentzat horren **durduzagarria** izan zitekeenik heriotza aurrez aurre ikustea. Juan Luis Zabala

Argia, forma eta mugimenduak ikustea, eta koloreak ikustea batez ere, erabat ustekabekoa izan zen, eta zirrara ia **durduzagarria** eragin zion, lehergailu batek eragiten duenaren tankerakoa. Xabier Olarra

Gero, berriz, kontu **durduzagarriago** bat esan zidan; Ofizio Santuak inoiz hildakoak ere auzipetu dituela, eta defuntua errudun aldarrikatuz, haren gorpua lurpetik atera eta gorpuzkinei su eman izan dietela. Edorta Jimenez

Roberto Gonzalezekin liskar hura eduki eta hiru egun geroago; egun horretantxe izan nuen orobat elkarrizketa **durduzagarri** hura Harryrekin. Oskar Arana

Hala moduzko zubiak, sobera estuak gurdi bati bide egiteko, Pirinioetako mila erreken gainean modurik **durduzagarrienean** paratuak. Berria - Kultura

---

# durduzaldi *iz* asaldatze aldia.

Frantziak hartua baitu halako **durduzaldi** edo inarrosaldi bitzi bat eta nehork ez jakin hortarik ere zer jalgiko den... Herria

Barka iezazkidazu bizi dudan **durduzaldia**, neure atsekabe hilgarriak, menturaz nihaurk sortu ditudan gaitzen beldurrak eragiten didan oinaze lazgarria. Jon Muñoz

---

# durduzamendu *iz* durduzadura, asaldura.

Ondoren, aurkarien **durduzamendua** profitatuz, zabaldu zuen arin batean bere kupearen bortañoa, bultzatu ninduen barnerantz deus konprenitu ahal izan nezan baino lehen, itxi zuen kupea, jarri zen bere aulkian eta trostan partitu zen. Koldo Izagirre

«Apirilaren 17an, arratsaldeko lau eta erdietan», ekarri zuen gogora **«durduzamendu** batek» hartu zuen Izagirre. Berria - Kultura

Nik ere Martinek bezalaxe egin dut, gazte hauen **durduzamendua** areagotzeko. Koldo Izagirre

---

# durduzarazi, durduzaraz, durduzarazten du *ad* durduzatzera behartu.

Ez du iduri haatik **durduzarazi** duela frantses gobernua europano jujeen erabakiak. Herria

Halaz, kazetari edo militante batek borroka armatuarekiko bere zalantza okerren agertzeko makurra baldin bazuen, **durduzarazten** zuten. Itxaro Borda

---

# durduzarazle *izond* durduzarazten duena.

Goiko literan zegoenak ez zuen mantarik gainean, eta xehetasun handiagoz ikusi ahal izan zituen gizon mehar haren hezurdurek, hanketakoek nahiz besoetakoek, osatzen zuten erliebe **durduzarazlea**, hezurrak eta narruazala ia giharrik gabe elkarrekin itsatsita. Josu Landa

---

# durduzari *izond* durduzatzen dena.

Ez dago ekintzarik, ez garapenik, kantu **durduzari** luze bat baizik ez, Teresak hutsari jaulkia, aldika oihalen atzealdetik Byronen zinkurin eta hasperenek etena. Oskar Arana

---

# durduzati *izond* durduzaz betea.

Ikusmolde hertsiak, dudakorrak eta **durduzatiak** dira: lasterren joan nahi eta astiroen goaz. Itxaro Borda

Semerik kuttunenaren aixolbean zegoen eta ez zezakeen, bai **durduzatia** salbu, hitz izpirik ahoska. Itxaro Borda

---

# durduzatu *(6 agerraldi 4 artikulutan; ETCn 725 agerraldi; orobat* ***durduratu*** *g.er.)* , durduza(tu), durduzatzen **1** da/du *ad* asaldatu, txunditu, gogoa nahasi.

Erdi Arotik Aro berrira iragaitean, ordea, XVI. mendean Ameriketako Luberriak agertu zirelarik eta, gero, mundu biribil osoaren itzulia lehen aldikotz egin zelarik, **durduzatu** ziren Valladolideko eta Salamancako unibertsitateetako irakasle nagusiak, bai eta orduko errege, enperadore, artzapezpiku eta aita sainduen aholkulariak. Piarres Xarriton

Ez genuen aurkituko nehongo gizonik ez emazterik, ez enbaxadorerik ez bankaririk [...] aita saindu hark, batere **durduzatu** gabe, bakoitzari bere ofizioko azken hitza emanen ez zionik. Piarres Xarriton

Ez nintzen **durduzatu**, bezperako gorroto zamaz hustu behar nuelako lehen baino lehen. Itxaro Borda

Pariseko giroak arrunt **durduzatzen** ninduen. Janbattitt Dirassar

**Durduzatu** nauzu alabaina zure ametsetako andre horrekin. Janbattitt Dirassar

Karrikara zenean jende-mugimendu bereziak **durduzatu** zuen. Itxaro Borda

Haren behako tzar bitziak **durduzaturik** utzi ninduen. Janbattitt Dirassar

· Holakoen aitzinean **durduratzen** hasia da ezin hunkitua iduri zuen erresuma haundi hori, araberako neurriak hartuz preseski. Herria

Hala ere, Kode Zibil ona sor al zitekeen Frantzia bera **durduzatzen** zuten krisi politikoen artean? Andres Urrutia

**2** irud/hed

Hark du, soilik hark, emakume aingerutar horren segurantza **durduzatu**. Jon Muñoz

Naturaren harramantzek ez dute bakardadea **durduzatzen**. Koldo Izagirre

Zein eskubidez zatoz nire lasaitasuna **durduzatzera**? Jon Muñoz

Emakume hori berez da herabetia; hasieran, etengabe dudatzen zuen bere zorionaz, eta duda hori aski zuen bere zoriona **durduzatzeko**: hala non doi-doia hasia naizen hauteman ahal izaten noraino heltzen den nire ahalmena alor horretan. Jon Muñoz

**3** (era bururuta izenondo gisa)

Gizakitxo **durduzatuaren** neurosi indibidual jasanezina gainditzeko, aginduak eta debekuak "neurosi kolektibo" baten indar absolutuarekin nola bermatzen dituen gizarteak, aspaldixto erakutsi zuen Freudek. Joxe Azurmendi

-Joyce? -isildu egin nintzen une batez halako harridura **durduzatu** batekin-. Oskar Arana

Baina zergatik egin behar diote autopsia? -erran zuen amak ahots **durduzatu** batekin. Daniel Landart

Kolerak hartutako ahots apal **durduzatuz** mintzatu zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrunt durduzaturik** (3); **batere durduzatu** (5); **batere durduzatu gabe** (5); **durduzatu egin** (3); **durduzatu eta** (3); **durduzatu gabe** (7); **durduzatu zuen** (4); **durduzatzen zen** (3)

---

# durduzatzaile *izond/iz* durduzatzen duena.

**Durduzatzaile** Distiratsuak. Xabier Olarra

---

**durduzatze** *iz* asaldatzea, txundituzea, gogoa nahastea.

Bat-batean, Gernikako erreportajeak baino **durduzatze** gaitzagoa transmititzen zuen titulua: "233 etorkin utzi ditu Espainiako Poliziak Frantziaren esku, Lapurdin". Iñigo Aranbarri

---

**duro** **1** *iz* ogerlekoa, bost pezetako dirua.

Libretista izan ondoren -hilean sei **duro** kobratuz-, goi-mailako barneko ikasle izatera aldatzen ziren -hilean bederatzi **durorekin** -, eta gero laguntzaile izatera -hamabi **durorekin** -; horrek eguneko bi pezeta esan nahi zuen, estimatzeko kopurua, alegia. Josu Zabaleta

Julioren izebak **duro** bat ematen zion hilero, aldian behin antzerkira joan zedin. Josu Zabaleta

Berrogeina **duro** jartzeko. Koldo Izagirre

Hamar mila **duro** jokatu ditiat bere alde. Harkaitz Cano

Hamar mila **duro** putzura. Harkaitz Cano

Berrogei **durotan** erosi zuen bere lehen esku soinua, Eibarren. Koldo Izagirre

Jakinarazi zidaten kanpotarrei ez zietela kanposantuan lurrik saltzen baina defuntua bertako semea izanda, ehun mila **durorengatik** lor genezakeela itxurazko hilarri bat. Ramon Saizarbitoria

Agian hogei **duro** emango zizkioten lore sorta horrengatik. Pako Aristi

"Orduko hainbeste, zazpi edo zortzi **duro** orduko", argitzen digu Zialtzetak. Koldo Izagirre

Bost **duroko** billete bat erakutsi dit. Josu Zabaleta

Irabazi nahi nuela zilarrezko **duroa** , baina bizitzak gehiago balio zuela. Bernardo Atxaga

**2** ***duro zilar*** zilarrezko duroa.

-Gogoratzen nauk nola desagertu ziren **duro** zilarrak. Pako Aristi

Akordatzen nauk nola amaren koartora joan nintzen, aita ordurako jaikia, eta, ama esnatu eta nola esan nion hiru **duro** zilar eman zizkidatela Zestoan. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bost duro** (3); **bost duroko** (8); **duro bat** (5); **duro eman** (3); **duro zilar** (3); **hamar mila duro** (4); **hogei duro** (6); **mila duro** (15)

---

**durunda** **1** *iz* burrunba.

Narru akoltxatuaren kontra zartakoek sortutako hotsa sikuegia zen gimnasioaren **durunda** algaratsuaren gainetik nabarmendu zedin. Josu Landa

Ezkilak eta txintxarriak, traktore soinuak, urruneko moto baten **durunda** ... Hasier Etxeberria

Motorraren **durunda** entzun zuen. Josu Landa

**Durunda** handia eragin zuten gizenaren orroek hormaren atzean. Joxan Elosegi

**2** (hitz elkartuetan)

Aldizkako **durunda** hotsa zen, milaka erleren burrunba totela bezalakoa. Mirentxu Larrañaga

**3** ***durunda egin***

Ustekabean, oso goitik, tronpeta-koru handia goratu zen; esan zitekeen, toki hutsen batean jotzen zutela, nota desberdinak harrizko hormen kontra dardara eta **durunda** egiten zuen ahots bakarrean batuko balira bezala. Agustin Otsoa

---

**durundaka** *adlag* durunda eginez.

Danborrak **durundaka** ari ziren. Agustin Otsoa

---

**durundarazi**, durundaraz, durundarazten *(orobat **durundiarazi**)* du *ad* durundi eragin.

Anaia nagusi Felixek, Jainkoaren kontra biraoka, iltzez betetako ate astunaren kontra jo eta luze **durundarazi** du. Itziar Otegi

Euskal Herriaren oihua **durundiarazi** egiten diegu... Herria

---

**durundatsu** **1** *izond* burrunbatsua.

Noski, ekintza eta hotsa ondo lotzen asmatu behar: esate baterako, titi txiki batek txintxarri hotsa izan dezake, eta ipurdi handi edo pakete nabarmen batek bozinarena edo mok-mok **durundatsua** . Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (adizlagun gisa)

Hango danbor eta turuten harrabotsak, hirian barna **durundatsu** zebiltzalarik; eta, sarjentu nagusiak armak hartzera egindako dei zirraragarriak. Mirentxu Larrañaga

---

**durundatu**, durunda(tu), durundatzen *(orobat **durundiatu** g.er. eta **durunditu**)* **1** du *ad* hotsez edo soinuez mintzatuz, oihartzunen bidez luzatu edo areagotu. ik **durundi 5.**

Horrela jakingo dugu behin betiko eztabaidaren oihartzunek ez zutela ibarren gainean **durundatu** , eta ez zutela mendirik mendi jauzi egin, eta zeruak ez zirela inarrosi. Jon Alonso

Danbatekoek belarrian **durundatu** bezala geldiarazi du Mikelek ibilaldia. Aingeru Epaltza

Jaisterakoan beren oin hotsek harrobiaren horma zulatuetan **durundatu** dute. Pello Lizarralde

Biak ahots apalez mintzo dira, baina ulertzen dute elkar: antzinako zurez estalitako paretetan ahots ertainez esandako hitzek **durundiatzen** baitute, harien soinuek musika-tresna baten zurean bezala. Xabier Olarra

Indar berriz jalgi zen jeneralaren barrea, eta haren algara ozenek etxeko gela guztietan **durunditu** zuten, sarreratik hasi eta ganbararaino. Jose Morales

Viena ez baitzen, niretzat, hiri bat soilik, baizik eta soinu bat: ariman **durundiatzen** duen edo sekula **durundiatzen** ez duen soinu bat. Xabier Olarra

Hogeita lau ordu lehenago toki horretan berean hautatu nuen leloaren oihartzunak irri-ajataka **durundatu** zuen ene buru-barne minduan. Aingeru Epaltza

Alabaina, Abasen "seguruago egongo gara..., iluntzen ari du eta" hitzek **durunditu** egin zuten Hamidaren baitan. Patxi Zubizarreta

• **2** (da aditz gisa)

Hitz horiek entzun zituenean, egia esan, Alberto ez zen gehiegi arduratu [...] baina, une hartan, oihartzun siniestro batez **durundatzen** ziren bere burmuinean. Iban Zaldua

---

**durundi** *(ETCn* ***489*** *agerraldi; orobat* ***durundio*** *ETCn* ***37*** *agerraldi; eta* ***dunduri*** *g.er.)* **1** *iz* hots edo soinu oihartzuntsua. ik **erresonantzia**.

Txirrina jo eta **durundi** metaliko bat-batekoak susto galanta eman zion. Josu Landa

**Durundi** ozenez bete zuten erromatar silabek lurrezko patioa. Juan Garzia

**Durundi** ikaragarri batean, hautsi da atea. Jon Muñoz

Atearen **durundioa** isildu denean. Koldo Izagirre

Helizeak noiz abiaraziko zain nengoela, bozgorailuaren **durundi** eta zalaparta, han ere: [...]. Joxe Austin Arrieta

Han zen berriro latorrizko **durundi** bera: bai, Alfa Romeo berbera zela zirudien, gau osoan barrena, itzulinguruka ibili zitzaiguna. Joxe Austin Arrieta

Haizearen **durundi** moduko bat, eta artean itsasoa ikusi gabea zelarik, hots horretan imajinatu zuen, izaki handi-handi bat belarri ondoan arnasa hartzen. Iñaki Iñurrieta

Egun oraindik **durundi** egiten dit belarrian soinu kirrinkari hark. Eduardo Matauko

Zamako trasatlantiko guztien ulu anitz eta bateratuak, samin, zulakor, gure portua inguratzen duten mendietan **durundiozko** oihartzun durduzagarri eginik. Koldo Izagirre

**Durundio** batean dauzkat belarriak. Agurtzane Juanena

**2** irud/hed oihartzuna.

Baina bere hitzek **durundi** desatsegin bat utzi zidaten belarriotan. Jon Alonso

Ez hain zuzen garagardo-edale batek aserik egotzi ohi duena, baizik eta digestio gaiztoaren **durundi** oinazetsu geldia oroitarazten zuen hots bat. Oskar Arana

Kontatze-modu horrek, gainera, halako **durundi** mitiko bat ematen dio kontaketari. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan)

Soinu hark, beste soinuen azpian ilundua eta gordea egonak, bapatean **durundi** hots lodi bat jo zuen bere belarrietan, eta izuzko zarrada batekin begirarazi zion goraldera. Anton Garikano

Hain gogor barre egin zuen, ganbera ilun osoa bete baitzen **durundi**-hotsez, hamar Riddle aldi berean barrez ari balira bezala. Iñaki Mendiguren

**4** erresonantzia.

Oinarrizko ikerkuntzatik atera dira hainbeste eta hainbeste aplikazio praktiko, **durundi** magnetikoaren bidezko irudiaren teknikak, esate baterako, oso ongi erakusten duen gisa. Pello Salaburu

**5** ***durundi egin*** hotsez edo soinuez mintzatuz, oihartzunen bidez luzatu edo areagotu. ik **durundatu**.

Atea kolpe gor batekin itxi zen, eta orko baten ahots garratzak **durundi egin** zuen korridorean. Agustin Otsoa

Une hartantxe, danbateko batek **durundi egin** zuen elizan. Koldo Biguri

Oihartzunek **durundi egiten** zuten haitzen artean. Agustin Otsoa

Harlauzek **durundi egiten** zuten, eta ukuilu beltz hutsek durundia hartu eta hustu egiten zuten, halako eran non iluntasunezko zirkulu huts batean sartu baikinen. Koro Navarro

Etengabe nagusitzen zen edonorengan errepikaren zentzua, zerbait erortzen zela beste zerbait eroritako lekuan, oihartzun bat sortuz, **durundi egin** eta airea dardarrez betetzen zuena. Anton Garikano

Ahots gardenaz mintzo zen, Samek ezagutzen ez zion ahots argi eta ozenaz, Patuaren Mendiko kolpeak eta burrunba gaindituz, haitzuloaren sabai eta hormetan **durundi egin** zuen ahotsaz. Agustin Otsoa

Turuta zaratatsu batzuk **durundi egin** zuten kanpamentuko mugan. Karlos Zabala

Motorraren burrunba entzun zuen Ruche jaunak, Ravignan kalean **durundi egiten**. Jon Muñoz

Haize hotzagoak eraginda, haien harpek indar handiagoz **egin** zuten **durundi** aireko argitzapen haren erdian. Karlos Zabala

-Eguerdiko ordu batean, jaun agurgarria! -**egiten** zuen **durundi** lehengo esaldiak, ahots-doinuaren aldaera guztietan esanik, noiz alai-isekari, noiz haserre, noiz temati eta sor. Jose Morales

Lisaren hitzek **durundi egiten** zuten, jendarmeen bota sendoak jadanik logelako atean egongo balira bezala. Karlos Zabala

Gaueko ilunpetan, oraindik ere musika izugarri hark **durundi egiten** zidan belarrietan. Alberto Ladron Arana

Zeruan dago, Schillerri bisita egitera joan da, eta bat-batean, trumoia balira bezala, zorigaiztoko hitzek **durundi egiten** diote buru gainean. Jose Morales

**6** ***durundi eragin***

Eta aire orkestra baten akordeak ere gehitu behar, hamabi bat kometari, erdialdetik sokez tenkatuta, haize leunak **durundi eragiten** baitzien harpa eolikoak balira bezala. Karlos Zabala

**7** ***durundi kaxa*** erresonantzia-kaxa.

Ikastetxea ikasleek kanpoan arnastu dutenaren **durundi**-kaxa da. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batek durundi egin** (3); **baten durundia** (3); **durundi egin** (24); **durundi egin zuen** (13); **durundi egin zuten** (6); **durundi eginez** (3); **durundi egingo diete** (3); **durundi egiten** (24); **durundi egiten du** (3); **durundi egiten zuen** (5); **durundi egiten zuten** (6); **hitzek durundi** (4)

---

durundiarazi ik **durundarazi**.

---

durundiatsu ik **durunditsu**.

---

durundiatu ik **durundatu**.

---

**durundika** *(orobat* ***dundurika*** *g.er.)* *adlag* durundiatzen.

Ihes egiten dut, haren alarau lazgarriak belarrietan **durundika**. Eskarne Mujika

Inguratzen zuten ahotsen alarau etengabeak buruan **durundika** zituela. Karlos Zabala

Artean parte txarreko gotorleku hartan banintz bezala zen, Esbastikaren Kriptan jarraitu eta Lantzaren Mintzoa belarrietan **durundika** banu bezala. Alberto Ladron Arana

Sirenak **durundika** gure inguruan, belarriak babestu behar haien azantzatik. Joxe Austin Arrieta

Eta ez badiote erritmorik ematen, galdu egiten da, desesperatu, lo hartu nahi lukeen haur ernegatua bezala, eta lokanta, beti bateko leloa, dizu eskatzen **dundurika**. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **belarrietan durundika** (3)

---

**durundikatu**, durundika, durundikatzen *(corpusean* ***dundurikatu*** *soilik)* du *ad* durundi egin.

Bi urte eskaseko haurrak, armarioa jotzen badu kunka! buruarekin, "ale! tta tta tta!" **dundurikatuz** ekinen dio atzera bere eskutto inozentez, kulpa armario gaizoak balu bezala. Patziku Perurena

---

durundio ik **durundi**.

---

**durunditsu** *(orobat* ***durundiatsu****)* **1** *izond* durundi egiten duena.

Metalezko mihitxo txikiak ahalegin bizian eta izuturik jotzen zuen ezkila **durunditsuaren** ertza. Jose Morales

Etorria nintzen berriz ere neure neurrira-edo, metro hirurogeita hamar eta hirurogei kilo, eta nire ahotsa ez zen berriz goratu ortzi **durunditsuaren** aldera. Koro Navarro

Gabrielen imitazioari jarraitu zioten algarak atariko ateko danbateko **durundiatsu** batek eten zituen. Irene Aldasoro

Ez al ziren hitz horiek nire ezpainetatik osorik atera, sumatu nuen -une hartan bertan, hain zuzen ere brontzezko ezkutu bat zilarrezko lur batera astun erori balitz bezala-, zarata baten isla argi, huts, metaliko eta **durunditsua**, itxuraz hala ere itoa. Koro Navarro

Oihu **durunditsua**, kontsigna baten antzekoa. Urtzi Urrutikoetxea

Baritono-ahots gozo **durunditsuak** bakarrik gutxitzen zuen haren itxura osotara biguna. Oskar Arana

Aita Purdonek segurtasun **durundiatsuz** garatu zuen testua. Irene Aldasoro

Asteazkenean, izeba Milagrosen hileta-elizkizunen ondoko kafetegian, nire andrearen ahotik ateratako "Fernando, bagoaz?" horrek oihartzun **durunditsua** utzia zidan belarri barnean. Aingeru Epaltza

**2** (adizlagun gisa)

Pozak airean zebilen hirian zegoelako, jostalari eta **durunditsu** ibili ere, txantxetarako irrika bizian. Mirentxu Larrañaga

Bozgorailuak gau osoz dihardu, **durunditsu** orroka: "Lagerschutz" dio, hau da, zaintza-taldeko makiladun goi-kargudunei lanari ekiteko dei egiten die. Urtzi Urrutikoetxea

---

durunditu ik **durundatu**.

---

**dutara** *iz* Asia erdialdeko musika-tresna mandolinaren antzekoa.

Batzuek **dutara** jotzen zuten, masustondozko gider luzeko mandolina, zeta bihurrituzko bi hari besterik ez duena eta tonu laurdenetan gozatua dagoena. Karlos Zabala

Hamabost urte zituen gehienez, eta **dutara** bat zeraman eskuan, laute itxurako instrumentua. Karlos Zabala

Txanponek dantzarien zinbalak jotzean sortzen zuten soinuarekin nahasten ziren oraindik ere **dutara** eta panderoen azken marmarrak. Karlos Zabala

---

**dute** *iz ipar* tea.

Eskaini izan zitzaien zitroin **dutea** urrupatuz. Ramuntxo Etxeberri

Deserta: *congolais* (koko pastela), bofloto, eta menta **dutea**. Herria

Ontziteria ere bazen izkina batean, garbiki bildurik katiluak, **dutea** edo kafearen apailatzeko doia, platerak... Aurelia Arkotxa

Denetarik bada: irrisa, artoa, **dutea** (horiek denak bilduak) liranja, mandarina eta arabisagar lodi batzu, basartoa (sorgho) eta baratzekari mota guzietarik. Herria

---

**dutxa** **1** *iz* goitik behera datorren uraz hartzen den bainu mota; horretarako tresna.

**Dutxa** ere egundoko asmakaria baitzen Mikelentzat, umetan bainatzea gorroto izan zuen ume handi harentzat. Unai Iturriaga

**Dutxa** bat, errepikatu nuen berriro ere neure artean. Joxan Elosegi

Berehala konturatu zen, ordea, haginak garbitu behar zituela eta **dutxa** hartu. Unai Elorriaga

**Dutxa** hartu eta gero. Anjel Lertxundi

**Dutxa** eta ostatua dituzte zuetarik gehienek gogoan. Xabier Montoia

**Dutxa** azpitik atera nintzen. Daniel Landart

Berokia kendu eta **dutxa** ireki dut ura berotuz joan dadin. Juan Martin Elexpuru

Batzuetan, izara artean, eta, bestetan, **dutxan**. Luis Elberdin

Betidanik behar izan du **dutxako** ura ia irakiten egotea, baita udan ere. Sonia Gonzalez

Goizaldera atertu zuen, bat-batean, **dutxa** ixten duzunean bezala. Joxe Austin Arrieta

Paretako lauzak, armairuak, botiken tiraderak, konketa, bainu-ontzia eta **dutxa**, komun-ontzia... den-dena. Oskar Arana

-Hartu **dutxa** eskuan eta garbituidazu jaboia. Juan Martin Elexpuru

**Dutxako** alkatxofarekin jaboia kentzen ari nintzaion, begiak ireki zituenean. Juan Martin Elexpuru

- **Dutxa** konpondu beharko da hala ere... Harkaitz Cano

**Dutxen** eraikina tren geltokitik hamar bat minutura zegoela konturatu gara. Urtzi Urrutikoetxea

Hondartzetan ere **dutxek** funtzionatzen segituko dute. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondoekin)

Izerditan blai, etxera itzultzen naiz **dutxa** arin bat hartu eta arropak aldatzera. Oskar Arana

Esnatu da, kafea hartu du, **dutxa** azkar bat, jantzi, eta metrorantz abiatu da. Eider Rodriguez

**Dutxa** goxo bat hartu dute. Berria - Ekonomia

**Dutxa** on batek mesede egingo zidala erabaki nuen. Joxemari Iturralde

Hobe izango zen tarte hori betetzearren etxera inguratu eta **dutxa** on bat hartzea gaua iritsi baino lehen. Joxemari Iturralde

**Dutxa** bero baten ondoren gizaki sentitzen zen berriz ere. Unai Iturriaga

**Dutxa** hotzez baretu gintuzten. Anjel Lertxundi

Ez zen dutxatu, ostera; ez zitzaion goizeko **dutxa** gustatzen. Unai Elorriaga

Egunero ko **dutxa** ere ez da aski, gure ume-denboran astean behingoa -larunbaterokoa- aski eta gehiegi zelarik. Iñaki Segurola

Udalaren **dutxak**: etxerik ez dutenek edo edukita ere, euren burua garbitzeko arazoa dutenek Zabala kalean dituzte dutxa publikoak. Berria - Euskal Herria

**3** irud/hed

Mediku naziek ere bata zuria janzten zuten, hala egoten ziren Krematorium-eko gaseztatzeko **dutxen** aretoko leihatilatik beha. Koldo Izagirre

**4** (hitz elkartuean)

**Dutxa** -soinua entzutean. Unai Elorriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dutxa azkar bat** (3); **dutxa azpian** (4); **dutxa bat** (33); **dutxa bat hartu** (9); **dutxa bat hartzeko** (6); **dutxa bat hartzera** (3); **dutxa baten** (5); **dutxa bero** (5); **dutxa beroa** (8); **dutxa eder** (7); **dutxa eder bat** (4); **dutxa ere** (4); **dutxa eta** (6); **dutxa hartu** (17); **dutxa hartu eta** (7); **dutxa hartzea** (3); **dutxa hartzen** (7); **dutxa hartzera** (4); **dutxa hartzera joan** (3); **dutxa hotz** (8); **dutxa hotz bat** (5); **dutxa on** (5); **eta dutxa** (13); **eta dutxa hartu** (3); **gero dutxa** (3)

**dutxako ur** (5); **dutxako ura** (3); **dutxan ez** (4); **dutxan sartu** (7); **dutxan zegoen** (3); **dutxara joan** (5); **dutxaren azpian** (8); **dutxaren ostean** (3); **dutxatik atera** (7); **dutxatik irten** (6); **dutxatik irteten** (3); **eta dutxak** (4); **eta dutxan** (4); **eta dutxara** (7); **eta dutxara joan** (3); **eta dutxaren** (5); **zen dutxatik** (3)

---

# dutxaldi *iz* dutxa hartzen den aldia.

-Gregorio ahitua zegoen eta bazekien laster gaixotu eginen zela, hurrengo desinfekzio egunean edo asteroko **dutxaldian**, negu kupidabako hartan Appelplatz-en orduak eman beharrez biluzik egoten ginelarik txandaren zain, neumoniaren bat harrapatuko zuela. Koldo Izagirre

---

# dutxategi *iz* dutxen gela; dutxaren tokia.

Hamar txorro daude hemengo **dutxategi** luzean. Sartu eta eskuinetara sukalde antzeko txoko bat zegoen, kafe-eltzea txapa gainean eta zenbait kazo-zartagin-plater sukaltarriko kainupean; ezkerraldean bainua, **dutxategiko** lauzak horiturik eta lababoko kainua ur tanta jarioz, hoteltzainari konpon zezan deia sei aldiz eman bazion ere. Anjel Lertxundi

---

# dutxatu, dutxa, dutxatzen da *ad* dutxa hartu.

Berriz **dutxatu** nintzen eta jantzi egin nintzen, presarik gabe. Jon Muñoz

Handik, **dutxaturik** eta bizarra egina kanporatu nintzen, hamahiru minutu geroago. Aingeru Epaltza

**Dutxatu** eta diskotekara joango zara. Joseba Sarrionandia

Goizetik gauera, etengabe **dutxatzen** nintzen: gorroto dut izerdia, gaixorik zaudela ematen baitu. Joxe Austin Arrieta

Gure aita bezala, ama ere ur hotzarekin **dutxatzen** zen, eta biek ala biek eskularru ongi latzak zituzten dutxatu eta gero igurtzi eta berotzeko. Fernando Rey

Gu **dutxatu** bitartean gure arropak desinfektatu egingo ei dituzte. Urtzi Urrutikoetxea

Togasek **dutxatu** berriaren freskotasuna agertzen zidan, arratsaldeko lauretan. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dutxatu berria** (7); **dutxatu bitartean** (3); **dutxatu egin** (6); **dutxatu eta** (13); **dutxatu eta gero** (3); **dutxatu ondoren** (3); **dutxatu zen** (3); **dutxaturik eta** (3); **dutxatzen ari** (12); **dutxatzen ari zela** (4); **dutxatzen ari zen** (4); **dutxatzen nintzen** (3); **dutxatzen zen** (8); **dutxatzera eta** (3); **elkarrekin dutxatu** (3); **eta dutxatzeko** (5)

---

dutxulo ik **dutxulu**.

---

# dutxulu *(orobat **dutxulo**)* *iz ipar* txorrota. ik **kanila**.

Bazkaltzen ari zira goxoki, **dutxulua** edo errobineta tturtta-tturtta entzuten duzu. Menane Oxandabaratz

Mendi-ibilkariak ez dira ahantziak izan: edan dezakete **dutxulu** egokian Idookolepoko borda ixkinan eta hamabortz-haitzetan (Garahartzen). Herria

Eskola etxean baliatzen ginuen ura turrustan, nahi bezenbat, **dutxuloa** zabalduz, ainitz estimatu ginuena Herria

---

# duzunariztar *izlag/iz* Duzunaritzekoa, Duzunaritzeri dagokiona, Duzunaritzeko bitzanlea.

Joël Kurutxarry Iribarneko semea eta Françoise Duhalde **duzunariztarra**. Herria

Ezkontzeko sakramenduak elgarretaratu ditu Denis Eliçagaray **Duzunariztar** gaztea eta gure herritar Stephane Erriest. Herria

Gabriel Neguelouart **Duzunariztar** gizon gaztea. Herria

---

# dzast egintza laster eta bat-batekoaren onomatopeia.

Eskua inguru haietara eraman, ile-kizkur bati heldu, eta **dzast**! Joan Mari Irigoien

---